

# Egungo Euskararen Hiztegia

—P—

[bertsioa: 2024-01-09]

## pa iz musua.

Aspaldi idatzia dut Europaren definizio etimologikoa: Europa, euroari **pa** ematetik datorrela. Lehenbizi aitari, gero **pa** txiki bat niri masailean, eta azkena Tomi. **Joxerra Garzia**

Ezpainak berriz sentitu nituen azal gainean, eta oraingoan hantxe gelditu ziren, **pa** txikiak emanez, goraxeago, beheraxeago... **Xabier Mendiguren Elizegi**

## pabana (orobat **pavana**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **pabana** agertzen da*) iz antzinako dantza, geldia eta zeremoniazkoa, XVI. eta XVII. mendeetan boladan egon zena; dantza horren musika.

Sekula ez zuen entzun biolin bat halako indarrez **pabana** jotzen. **Felipe Juaristi**

Eszena girotzeko, Ravelen **Pavana** jartzen nuen. **Ramon Saizarbitoria**

Berehala, biolina salto eta jauzi hasi zen, eta soldaduak, kapeluak jantzirik, esku larruak ipinirik, bata bestearen atzetik jauzi eta salto hasi ziren, **pabanaren** soinua lagun. **Felipe Juaristi**

**Pabana** luzea, **pabana** biribila, denbora amaigabeko **pabana**, gero eta arinago jotzen hasi zen Damián itsua, eta gero eta arinago erantzun da Rua juduak. **Felipe Juaristi**

## pabesa iz adreilu-modukoa.

Guggenheim museoaren titanioaren distiren efektua leuntze aldera, beira **pabesa** aukeratu du liburutegia eregiteko material gisa. **Berria - Kultura**

Bukaera ortogonalak kontraste bizia eragiten dute zeharka argitutako beira **pabesarekin**. **Berria - Kultura**

## pabetar izlag/iz Pabekoa, Paberi dagokiona; Pabeko biztanlea.

**Pabetarrak**. **Herria**

## pabiloi ik **pabiloi**.

## pabillun ik **pabiloi**.

## pabiloi (445 agerraldi, 18 liburu eta 190 artikulutan; orobat **pabiloi** 132 agerraldi, 26 liburu eta 46 artikulutan, eta **pabillun** g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **pabiloi** agertzen da*) 1 iz eraikin berezia, eraikuntza handiago baten edo eraikuntza-multzo egituratu baten zatia dena.

Agindutako hipermerkata eraiki beharrean **pabiloiak** eta lantokiak eraiki baitziren hemen. **Bernardo Atxaga**

Klaraboia erraldoi batek adierazten zuen inoiz ontzitegi izandako **pabiloiako** sabaia erdigunea. **Josu Landa**

Fabrika berria, berriz, Torinoko periferian dago auskalo zenbat **pabiloi** barreatuta. **Anjel Lertxundi**

Betoñuko industrialdeko **pabiloi** batean bizi diren 43 langile portugesak. **Berria - Ekonomia**

Norbaitek klaxona jo zuen **pabiloiaren** aurrean eta burdinazko ate erraldoia ireki egin zen. **Harkaitz Cano**

Pasaiaiko portu inguruko **pabiloiak** osatu perflak bazuen hortzadura izorratutik zuen agure zahar baten ahoaren antza. **Harkaitz Cano**

**Pabiloi** eta nabe logistiko antzekoak izatea nahi dugu, eta ez enpresa bakoitza bere kasa eraikitzen ibiltzea. **Berria - Ekonomia**

Biriketako gaitza sendatu zitzaizkion, psikiatriako **pabiloi** eraman ninduten, neure burua hiltzen saiatzeagatik. "Ez zaitez pasilu horretatik joan", jakinarazten dit sende baten gelaz galdetzen diodanean, "hortik kutsakorren **pabiloi** joaten da-eta". **Eskame Mujika**

Gure **pabiloi** bazen tronboflebitis baten kausaz bi hankak moztu zizkieten gaixo bat. **Anjel Lertxundi**

Erakusketa Bilboko Nazioarteko Azokako 5. **pabiloi** egingo da, martxoaren 26an hasi eta apirilaren lehena arte. **Berria - Euskal Herria**

Lekua eta ordua: Bizkaia Arena **pabiloi**, (12.400 ikusle) San Pablo **pabiloiak** Fernando Buesa Arena **pabiloiak** baino 500 ikusle gehiago har ditzake. **Berria - Kirola**

Barcel Euro Puebla hartuko du, 18: 15ean, Arrosadiako **Pabiloi** (NUPeko **pabiloi** Portlandek jokatuko du). **Berria - Kirola**

Hegoalde-Tolosak gaur Majadahonda hartuko du eguerdian Tolosako Usabal kiroldegiko **pabiloi**. **Berria - Kirola**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ziriza bakailaoa lehertzeko **pabiloi** ohia da artelan gehien biltzen duena. **Berria - Kultura**

Biltegia iruditu zitzaion **pabiloi** zaharkitu baten aurrean geratu zen une batez. **Aritz Gorrotxategi**

Ranciken etorrera, Koljevicen ordezkoren bilaketa, Bilboko Udalak **pabiloi** berriaren konpromisoa bere gain hartu izana... **Berria - Kirola**

-Ez dago hain gaizki **pabiloi** industrial bateko bulego nola edo hala moldatua izateko. **Aingeru Epaltza**

**Pabiloi** handi luzeak ziren, eta leiho apurtuen arteko barruko suzko txinparta goriek kanpora saltatzen zuten. **Jon Maia**

Erietxe publiko bateko **pabiloi** ilun batean. **Xabier Olarra**

**Pabiloi** ilunak besterik ez espaloien alde bietara. **Harkaitz Cano**

Lodzko Ehun eta Larru Sintetikoak SL etxea osatzen duten hormigoizko kubo mardulak ikusi ditu, baina ez zaio batere nekeza egin imajinatzea, haien ordez, François Hugot arkitekto frantziarrak 1883 an eraikitako **pabiloi** lirainak. **Iban Zaldúa**

Ofizialen **pabiloi** berdeen eta soldaduen etxolatzar lur koloreen arteko igaro eta egurrezko eraikin zabal batera iritsi ginen. **Anjel Lertxundi**

Badalonako olimpiar **pabiloi**. ordua: 20: 45ean. **Berria - Kirola**

-XIX. mende amaierako adreilu eta burdinazko **pabiloi** osasunaren kaltekoak. **Iban Zaldúa**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kale zuzenean eta zeharkakoen amaraun gaitza **pabiloi** handi eta ttipiek zerbitua eta jendez hutsa gauerdik hilerdik bezain. **Aingeru Epaltza**

Ibairen ezkerreko eremua fabrika **pabiloiez** bete. **Jon Maia**

Onkologia **pabiloi** berria Nafarroako Ospitalean. **Berria - Euskal Herria**

Gauaren anparoa, ohetik jaiki eta autista **pabiloiko** guztien oinetako lokarriak lotzen zituen. **Bernardo Atxaga**

X bat klarionaz tuberkulosiak jota zetozen etorkin haiei Ellis Islandeko kuarentena- **pabiloi** erraldoian... **Harkaitz Cano**

-Gure heriotza- **pabiloia** jaso! -hots egin zuen Stede Bonnet maiorrak. **Juan Garzia**

Idazmakinak bahitura **pabiloietan** hautsa hartzen. **Harkaitz Cano**

## 4 parke, lorategi edo kideetako eraikuntza arina, babesgarritzat erabiltzen dena.

**Pabiloia** osaba Juanek zaldientzat prestatutako eraikina zen, dena egurrean egindakoa. **Bernardo Atxaga**

Burdin arteik zumardi bat eta **pabiloi** moduko bat igarri nituen. **Juan Garzia**

Astiro eta isilik zeharkatu zuten erregearen **pabiloiraino** hedaturiko sasi eta belar motzeko eremua. **Agustin Otsoa**

**Pabiloietan** bizi izan gara, eta ofizialak basetxearen eraikinean ostatatu dira. **Mirentxu Larrañaga**

Lagunak gau hartarako prestatutako **pabiloira** sartu zirenean, Damak atzetik joan eta dei egin zion. **Agustin Otsoa**

Eguzkia sartzen hasi berria zela, jendea **pabiloian** biltzen hasi zen. **Patxi Zubizarreta**

Enperadore Horiak, urdina oso maitea ez izan arren, pintatzaileari zion xeraz onartu eta Udako **Pabiloian** jarri zuen zintzilik. **Felipe Juaristi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pabiloi berri** (3); **pabiloi berriaren** (3); **pabiloi handi** (4)

**arena pabiloia** (5); **arrainaren pabiloia** (4); **nupeko pabiloia** (6); **oaka pabiloia** (4); **pabiloia bete** (5); **pabiloia lepo bete** (6); **pabiloia lepo beteko** (3)

**anaitasuna pabiloian** (3); **arena pabiloian** (4); **barrukien pabiloian** (4); **casilla pabiloian** (4); **eko nupeko pabiloian** (5); **gurinaren pabiloian** (3); **iruñ nupeko pabiloian** (45);

**oaka pabiloian** (4); **pabiloian egingo da** (3); **pisuerga pabiloian** (3); **zaldien pabiloian** (4)

**arrainaren pabiloien** (4); **fruituen pabiloien** (3); **pabiloien izkinan** (3)

## padel iz tenisaren antzeko arauak dituen kirola, zurezko erraketarekin jokatzen dena albo paretek isten duten esparru batean.

Susmatzen nuenez, ez zuen deusetan huts egiten: futbolean Real Madrid, kirolean **padela**, oporretan Marbella, nazioarteko lider politikoetan Georges Bush, prentsan *Diario de Navarra* eta *Marca*... **Aingeru Epaltza**

## padera iz zartagina.

Lapikoak, **paderak**, mahaí gaineko ontziak, egurrezko zorua, atekak... izebaren eritmoan ateratzen zuten hotsa denek. **Juan Kruz Igerabide**

**Paderari** teflonezko ipurdia jarri ala ez. **Edorta Agirre**

Katuarraina **paderako** koipetan zirtaka. **Anton Garikano**

**Padera** handi batean, hirugiharra frijitutako oliotan, frijitu tomateak alde bietatik urre kolore pixka bat hartzen duten arte. **Pablo Sastre**

Tripaki karratuak, **paderaren** hondarrea ez-tiro-egosten. **Karlos Zabala**

## padre 1 iz (mugagabea) aita.

-Zergatik, **padre**? -anaia zaharrenak-. **Jon Maia**

Ez naiz berandu etorriko -esan zuen **padrek**. **Jon Maia**

Egin beharreko konponketak eta atonketak burututa, **padrek** eta anaia zaharrenak oilategia egin zuten eta oilo batzuk sartu zituzten, eta, beraz, arrautzak jasotzen hasi ginen. **Jon Maia**

**Padreri** kale ertzetik agur esaten zioten eta **padrek** begiratu baino ez zien egiten. **Jon Maia**

Tia Pacak madre eta **padreren** ezkontzarako irun zituen izarak ea han utzi behar genituen, beharko genituela, eta nolabait sartzea lortu zuen. **Jon Maia**

## 2 erlijiozko zenbait ordenatan, aita.

Artzapezpikuak, apezpikuak, abadeak, prioreak, predikadoreak, **padreak**, abadesak, nobizioak, ordena eskaleak, [...]. **Xabier Olarra**

## 3 ik madre 2.

2003ko martxoan USAko lehendakariak -Putetxeko **Padreak** - mehatxu garbia egin zion Mesopotamia zaharrari. **Iñaki Segurola**

## padura 1 iz itsasertzeko edo bokaleko zingira.

**Paduren** gatz-usaina nabaria zen. **Lopez de Arana**

Aintzira eta **padurak** ez dira gezatuko, gatzaga izaten jarraituko dute. **Elizen arteko biblia**

**Paduretako** ura ez zela itsasokoa bezain gazia, ez eta ibaietakoa bezain geza ere. **Hasier Etxeberria**

Basoa, larrea, aintzira, hondartza edo **padura** ekosistematzat hartzen dira. **Berria - Gaiak**

Guadalquivir ibaia itsasoratzen den tokia **padura** omen da guztiz. **Felipe Juaristi**

Oihan lurraldea zen hura, ibaiz eta **paduraz** tartekatua. **Karlos Zabala**

**Paduretako** lohietan apur bat aitzurtzea aski izaten da nahi beste zizare lortzeko urte guztian. **Hasier Etxeberria**

Aranzadi Zientzi Elkarteak kidea da, eta Txingudiko **paduran** dihardu lanean, hegazti migratzaileei eratzunak jartzen. **Berria - Harian**

Veneziako **paduretan** barrena zebilela, hegazti multzo handi bat aurkitu zuen, zuhaitz-adarretan kanta-kantari. **Askoren artean**

Harrizko hondartza gero eta estuagoa zen aurrerantz, ibaiaren eta **paduraren** artean itxita amaitu arte. **Joanes Urkixo**

Entura ibaiaren ahoak elikatzen zituzten **paduren** gainean. **Agustin Otsoa**

Urrun, mendebalderantz, **padurak** eta lainoetan bildutako uharte ttipiak zabaltzen ziren. **Agustin Otsoa**

Buruja jasotzean, ihi eta landaretzaz beteriko **padurak** jo zituen begiz. **Joanes Urkixo**

Sortzen al da kanbera **paduratik** kanpo, hazten ote ihia urik gabe? **Elizen arteko biblia**

Megapark proiektuaren azpian desagertu dira betirako inguru honetan geratzen ziren azken hezegune eta **padurak**. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Ikustekoak ziren bi bazterretako itsas **padurak**, ihi eta lezkaz oparoak, harago hondar leun urrezko zabalei bide egiten zietenak. **Joanes Urkixo**

## paduratsu izond padura asko dagoena.

Handik atzerago buztin gorritzko eremu **paduratsu** bat hedatzen zen. **Joanes Urkixo**

Horrela, tarte bat pasa ondoren, eremu lau **paduratsu** batera iritsi ziren. **Joanes Urkixo**  
Bere hitzen oihartzun fonikoak behialako errealtate ahantzira eraman ninduen ni ere, eta urtetan geldirik egondako ur **paduratsuetan** murgilarazi. **Xabier Mendiguren**  
**Elizegi**

## paela ik paella.

**paella** (*orobat **paela** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **paella** agertzen da*) **1** iz arrozez, okelaz, arrainez eta abarrez prestatzen den jakia, jatorriz Valentziakoa.

Lau urterekin, jaitsi eta lehenbiziko egunean, **paella** jarri zidan bazkaltzeko izebak. **Pablo Sastre**

Eguerdia Babel plazan, **paella** jaten eman ondoren. **Edorta Jimenez**

Entsalada, **paella** on bat, ardi gasna eta udare tarta, kafea eta ondoko, denak 20 e (10 e gazteentzat). **Herria**

**Paellak** arrakasta handia ukan du eta berrehun bat afaltiar bildu dira. **Herria**

Bazkarian ere, 500 jende bildu zen eta ez zen prestatutako **paella** erraldoi hartarik deus ere soberan izan. **Herria**

Ikasi egin behar da arroz zuri zozoa **paella** eder bihurtzen. **Luis Elberdin**

Etixerakoan **paella** bat erosi dut. **Daniel Landart**

Araba gunean 450 **paella** saldu ziren, taloak saltzeko guneak urtero handitzen dira eta, hala ere, ez dira sekula aski denen irrika asetzeko. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goizean, **paella** lehiaketa. **Herria**

Izanan da jateko eta edateko manera arastiriko 6 etarik goiti, bereziki **paella** jatea trinketeko ostatuan. **Herria**

Aratseko 10 etan, parropiako gelan, **paella** jate. **Herria**

Iluntxean **paela** jatea, Eyherachar taldeak alaiturik. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**paella eder** (6); **paella eder bat** (3); **paella ederra** (3); **paella jatea** (5)

## pafa

**1 pafa-pafa adlag** bafadaka pipatzen. ik **pafaka**.

Hor ikusten dugu, Kai luzeko Gezurretxape tabernan, pipatik **pafa-pafa** erretzen duen lurrumendiren ixtorioei adi-adi. **Pablo Sastre**

Aulki batean jarrita, gizon ile zuri-luze bat **pafa-pafa**, pipatik erre eta, inoiz behinka ttu eta ttu, listua botatzen zion suari. **Pablo Sastre**

Berriz ere purua erori zitzaion, berriz makurtu zen, **pafa-pafa** egin, ez zuen ongi tiratzen, sua eskatu zuen, piztu zuen, inora begira gelditu zen. **Pablo Sastre**

## 2 pafa-pafaka adlag

Lokomotorraren lurruna arnasaren gisa mehe eta zuri arratsalde hotzean, txistu jo zuen arropa zabaltzeko sokaren azpitik pasatzean, ostiko bat eman zion zakurraren platerari garbigetiko geltokian, eta pistoiari eraginez **pafa-pafaka** joan zen, poliki-poliki. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pafa pafa** (4)

## pafada ik bafada.

**pafaka 1 adlag** bafadaka pipatzen. ik **pafa**.

Pipari **pafaka** hasi zen, iritzia buruan antolatzen, dudarik gabe. **Irene Aldasoro**

Aita **pafaka** hasten da; inondik ere, erantzuna buruan antolatzen. **Anjel Lertxundi**

Hiru bikote ari ziren jokoan, denak adinekoak, denak ezagunak, buruak taulen gainean makurturik, pipa luzeetatik **pafaka**. **Alberto Ladron Arana**

Gizon gazte ile-nahasi bat, gela usteldu batean esku ahurrean eztulka eta bere zigarro drogatuaren kea **pafaka** botatzen ari zena. **Koro Navarro**

Lanpetuegi zebilen erantzuteko, plisti-plasta eta **pafaka**, burua uretan sartuta balu bezala puzka, uretan mugimendu biribilak eginez edota ur azala behatzekin nag-i-nagi igurtziz. **Koro Navarro**

## 2 iz pipatzean, bafada.

Anderrek paperezko serbilleta bat paratu zuen buru gainean eta kantari hasi zen, eta hura hala eta besteak nola-hala zeudela kanpoan **pafaka** ezagunak entzun zituzten.

**Pablo Sastre**

## 3 pafa-pafaka adlag

Lokomotorraren lurruna arnasaren gisa mehe eta zuri arratsalde hotzean, txistu jo zuen arropa zabaltzeko sokaren azpitik pasatzean, ostiko bat eman zion zakurraren platerari garbigetiko geltokian, eta pistoiari eraginez **pafa-pafaka** joan zen, poliki-poliki. **Koro Navarro**

## paga 1 iz lansaria, saria.

Kasu bietan hamabost **paga**, beti ere lanaldi osoan lan eginda. **Berria - Euskal Herria**

Horren traje bakoitzak hire **pagaren** erdia balio dik. **Jon Alonso**

Gurasoek ematen zidaten **pagarekin** *Celtas* paketea erosi, eta ezkutuan erretzen nuen, zigarroz zigarro. **Joan Mari Irigoien**

PANek hilean 90 milioi dolar behar ditu bere agenteen **pagak** ordaintzeko. **Berria - Mundua**

Gobernuak baitzituen apezak pagatzen Napoleonen konkordatuaz geroz, hobendun ziren apezek **paga** hori kentzea eskatu zuen prefetarako. **Xipri Arbelbide**

**Paga** edo eskuzabaltasuna urritzea aipatu gabe, urritu egiten ziren hala ere. **Iñaki Iñurrieta**

Delako bilkura hortan 2 axuanten **paga** baizik ez baitute emendatu. **Herria**

Dena txukun paratutakoan Muñoz etortzen duk, ustiaietako komisarioa, hiri hainbertze, hiri hainbertze, **paga** banatzen dik eta moila gaineko txatarra guztia beretako.

**Koldo Izagirre**

Gogoratzen dut nire aitaren aitak [...] 25 pezeta ematen zizkidala esaldi bat euskaraz esateagatik, eta nik, loritoaren antzera errepikatzen nuela **paga** lortzeko. **Ana Urkiza**

Horixe du **paga**. **Koldo Izagirre**

- **Paga** barik itzultzen gaituk, **paga** barik! -kexaz esan zidan, keinu nabarmenak eginez, kaxa jokatu nahi zuenak. **Edorta Jimenez**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gobernuak arren eta arren eskatu zion berriro kontsidera zezala hartutako erabakia, eta, dimisioa alde berrira lagata, onartuko zituela berriz ere lehengo baldintza berdinekin, antzintasuna eta **paga** estrak ahasztu gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Paga** murrizak. Koldo Izagirre

Euro batek zazpi ehun hemengo [Rwandako] emaiten baititu; 700 hori da nonbait han langile baten eguneko **paga**; euro bat eta ainitzek gutiago. Herria

Asteburuko **pagak** ez dio horrenbestera ematen. Patxi Iturritegi

Atzeratutako **pagak**: 2003ko ilbeltzaren 1era atzeraeragina izanen du. Berria - Ekonomia

### 3 (hitz elkartuetan)

**Paga** eguna zen, bulegora zihoan. Pablo Sastre

**Paga** orria: hilero eskuratu behar da, eta ez da galdu behar, nagusiarekiko gatazka kasuetan beharrezkoa delako, besteak beste. Berria - Ekonomia

### 4 *paga-buru* ik **pagaburu**.

## **pagaburu** (*orobat **paga-buru***) **1** iz besteren gehiegikeriak edo hutsak pagatzen dituen.

Ameriketan egiten nuen, bada, unibertsitatearen batean irakasle, baina iruzur baten **paga-buru** izatea egokitu zitzaion, nonbait. Anjel Lertxundi

"Beharrezkoak ditugu **pagaburuak**", entzuz omen zitzaion De Valerari. Joseba Zulaika

Baina hemen ere nahitaezku suertatuko dira "**pagaburuak**". Joseba Zulaika

### 2 (hitz elkartuetan)

Collins-ek onartu egin zuen **pagaburu** zeregin hori, jakinaren gainean bere heriotza ere sinatzen ari zela une hartan, gero gertatu zen bezala. Joseba Zulaika

## **pagadi** (*orobat **pagodi g.er.***) **1** iz pago oihana, pago basoa.

Haruntzaxego baso-oihan bat, **pagadia** edo haritzia edo horrela; eta azkenik, mendigune bat elurrez txuri dagona. Pello Zabala

Hamar bat minuturen buruan borda bat begiztatu dute, **pagadi** baten erdian. Pello Lizarralde

Ez du deus arrisksuturik nabarmetzen jauregi inguruan, jauregi aurreko **pagadian**, erreka ondoko sasietan. Anjel Lertxundi

Lo dago **pagadi**, haritz eta pinudizko paisaia isiltasunean. Urtzi Urrutikoeetxea

Ordu erdi luzeko ibilaldia, mendiko bide aldapatsuan gora, **pagadi** ederra zeharkatuz. Berria - Euskal Herria

Baztertu genuen bigarren basoa **pagadi** lerdin bat izan zen. Anjel Lertxundi

Segur zegoen pistolariak azaldu behar zuela gurdibidetik behera errekaraino zabaltzen zen **pagadi** sarrian. Koldo Izagirre

Argitasun hartan, armadako masta-basoak neguko **pagadi** biluzia zirudien. Edorta Jimenez

Batzuk diote haatik ez dela oraiko bidea xoilki hobetuko, bainan gune batean bide osoki berri bat urratuko, **pagodietan** gaindi, ingurumena suntsituz. Herria

### 2 (hitz elkartuetan)

Baserriko sorbaldan dagoen **pagadi** oinean aurkitu zuten Erramun, sastraka batzuen alboan.] Joxemari Urteaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pagadian sartu** (4)

### pagaizun ik **pagakizun**.

## **pagakizun** (*orobat **pagaizun***) iz ordainkizuna.

Zure bizi-denbora **pagakizunezko** eternitate bat izango da. Iñaki Segurola

Zerga eta **pagakizun** guztiak dira badaezpadakoak. Heriotzakoan, han ordaindu beharko ditik, bateko lau, bere bizitzan jaso gabe utzitako **pagaizunak**. Iñaki Segurola

## **pagaleku** iz ordainlekua.

Berriki arte, ezinezkoa izan zen hari oldartzea, orain ez zituzten gehiago bidesarien **pagalekuak** kontrolatzen, ez zuten gehiago gizon armaturik beren meneko. Elena

Touyarou

## **pagamendu** **1** iz pagatzea, ordainketa.

Ontzian abiatu aurretik, gizonak hartua zuten **pagamendu** bat. Edorta Jimenez

-Itzala diat **pagamendu** bakarra, hemendik irteterakoan itzalik gabe gera hinteke. Anjel Lertxundi

Enpresaburuek **pagamendu** osoa hitzemanan diete azaroaren 15-erako. Herria

### 2 (hitz elkartuetan)

Truke-tasen egonkortasuna eta **pagamendu** balantzen oreka automatikoa. Iñaki Heras

## **paganismo** iz paganoa izateko nolakotasuna; paganoen erlijioa.

**Paganismoaren** azken egunetan Erromako Inperioan zehar hedatu ziren fede horiek, eta europar herriak bizitza-eredu arrotzez aseztu, antzinako zibilizazioaren egitura osoari azpiak jan zizkieten. Iñaki Mendiguren

Alemanian erro kulturalak **paganismo** arioan bilatu behar badira ere, ezin dela ahantzi Kristautasunaren ekarpena. Alberto Ladron Arana

**Paganismo** heleniko damugabearen [...] aurrean, juduen lema Jaunaren Hitz eternalaren testigantza ematen jarraitzea zen. Iñaki Mendiguren

Oposizio nagusiaren terminoak euskal **paganismo** jatorra eta kristautasun arrotz etorkina dira. Joxe Azurmendi

Bere manupeko gizonak, akatsik gabeko gazte ario haiek, borrokatzeko makinaitsuak izanen ziren, gainezkinak, baina aldi berean erlijio berri baten sinestunak, **paganismo** berriaren aldarrikatzaileak? Alberto Ladron Arana

Itzuliezazkiguzue **paganismoaren** jainkoak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## **pagano** **1** izond kristautasunaz kanpoko erlijio batean sinesten duena. ik**jentil**.

Irakasle **pagano** batek, Senekak, galdetzen zuen: [...]. Joan Mari Lekuona



Eskandinaviarrak bakarturik mendu kristandadetik seigarren mendu bukatu baino lehen eslaviar **paganoak** tartean sartu zirelako. **Iñaki Mendiguren**

Eromos **pagano** bat bezala nabil. **Piarres Aintziart**

Horra Ruche jaun **paganoa** santujale bihurtua! **Jon Muñoz**

Izen horrekin, oro har, jende **paganoak** adierazten ditu. **Xabier Kintana**

Bat dator Antzinateko autore batzuen iritziarekin, idazle **pagano**, kristau eta musulman batzuek gauza bera zioten eta. **Xabier Kintana**

Ama, Monika, kristau zintzoa zen; aita, Patrizio, **paganoa**. **Imanol Unzurrunzaga**

Zibilizazio Helenikoaren beherdian, beren gizartearen gainbehera "zahartze kosmikoak" eragina zela zioten idazleek, **pagano** eta kristauek. **Iñaki Mendiguren**

Hiena bat zen; ez zen, beraz, jakina den bezala, ez har eta ez eme, eta ez zen, era berean, ez sinestun ez **pagano** ere. **Karlos Linazasoro**

Maximo -erdi- **paganoa**, erdi kristaua bera- berehala jabetu zen zein krimen ikaragarriak ziren honakoak. **Juan Martin Elexpuru**

--Lur jo zuen Erromak; Bizantziok hartu zion txanda; eta Alexandria, **paganoa**, kristautu egin zen. **Jon Muñoz**

## 2 (izen gisa)

San Agustinek berak, hain onbera eta eskuzabala izanik, joera baztertzailak izan zituen **paganoen**, herejeen eta fedegabekoen aurrean. **Esteban Antxustegi**

Gero Xabier misionez joanen da **paganoen** lurraldeetara. **Herria**

**Pagano** ugarri salbatu ziren Erromaren inbaditzaileek errespetatu zituzten kapera eta basiliketaren ezkutatuta. **Imanol Unzurrunzaga**

**Pagano** klasikoaren eta Elizako Gurasoen lanak kopiatzera. **Iñaki Mendiguren**

Horretan nabaritzen da ederki, **pagano** zuhur haiengandik kristau negartionganako alde. **Patziku Perurena**

Zaldun teutonikoek Siria utzi eta beren zoriona Vistulan bilatu zuten prusiar, letoniar eta estoniar **paganoen** bizkar. **Iñaki Mendiguren**

## 3 (izen baten ezkerrean)

Girixintotasuna ere podore politikoari segitu zaio horietan denetan, eta indar hartuko ere Constantin enperadorearekin, noiz-eta hunek beren erlisioneko urratsen betetzeko libertatea emanen baitie 313an girixinoeri **pagano** herri horietan. **Herria**

## 4 paganismoarena, paganismoari dagokiona.

Antzinako jainko **paganoak** gurtzea legezkoa izango da berriz Grezian. **Berria - Gaiak**

Odol-tanta bakarra ere isuri al zen Behe-Inperioan, idolo **paganoak** desegin zituztenez? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Erlikiak, santuen irudiak, hostia, gurutzea eta abar profanatzea, filosofoaren begientzat, ez da edozein irudi **pagano** itsustea baino gehiago. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

San Joan Bataiatzailearen burua erretiluan ekartzeari buruzko istorioak erakusten du mito **paganoek** nolabait historia sakratua aberastu dutela. **Xabier Olarra**

Jaun Altzatekoak euskal espiritu zaharra, jatorra, **paganoa**, Euskal Herria kristautu baino lehenagokoa, gorpuzten du. **Joxe Azurmendi**

Jainkosa mitologikoen pareko presentzia zeukala irudituz zitzaizen biei; edertasun **paganoa** eta sakrilegoa. **Fernando Morillo**

Erromatar erriak **paganoa**. **Iñaki Mendiguren**

Frantziako Iraultzak [...] porrot egin zuen erabat Kristau Elizak sagaraturiko erromatar egutegi **paganoa** ordeztzeko ahaleginean. **Iñaki Mendiguren**

Erlijio berri bat, berea, halako kietismo **pagano** bat. **Piarres Aintziart**

Urte berriete inguruko orrits eta festa **pagano** askotan. **Patziku Perurena**

Badirudi, beste sineste **pagano** zahar asko bezala, elizak galarazi zuela hurritzaganako sineste zahar hau ere. **Patziku Perurena**

Ur bedeinkatua baino hobe ardo **paganoa**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## paganotu, pagano(tu), paganotzen 1 da/u ad pagano bihurtu.

Orainko mündüan ere, Islam hori akülü bat da kiristentzat, bai eta **paganoätürük**, süstut matrialismoari emanik den Europan. **Herria**

Batzu ez dira batere alde, diru biltzeko joko bat dela gehienik, edo berdin Omiasainduren **paganoetzeko** molde bat... **Herria**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Hau dute ordea ezagutu apezpikuek: erlisione guziak higuindu eta hobendun ezarri nahi luzkeela oraino jende **paganotu** edo bederen sinestegabetu honek, hots, gaitz guziak erlisionetik heldu balire bezala. **Herria**

## pagantza iz pagatzea, pagamendua.

Berak aterako zuen lizentzia fiskala, berak emango zuen izena Gizarte Segurantzari, eta beraren izenean igorriko zituzten fakturak, eta, kobratutakoan, hartuko zuen **pagantza** haiek egiteko aurreratutako dirua. **Iñaki Iñurrieta**

## pagarazi, pagaraz, pagarazten (orobat paga(-)arazi g.er.) du ad pagatzera behartu.

Nire ania sendagilea da Parisen eta 100 euro ere **pagarazten** ditu bisitaldiak. **Berria - Mundua**

Zerbitzuak ez zizkien **pagarazten**, eta iheslariak bere diruz hazten eta beztitzen zituen. **Elena Touyarou**

Ura, etxetarat hel-arazten zen ura, etzela **pagarazten**, **pagarazten** zirela bakarrik uraren iturritik etxerat hel-arazteko lana eta hortarako behar ziren muntadurak. **Herria**

Epaileek Serbia eta Montenegroko estatuari kalte-ordainak **pagaraztea** espero dute herritar musulmanek. **Berria - Mundua**

Eta lehen janaldia egin ondoan, ostalertsak saltzen zizkien xiriok, zortzi edo hamar soseko peza **paga**-araziz, erdia balio zutelarik. **Piarres Aintziart**

Justiziaren ideia bat behar da eskuarki inor justiziatzeko, zor zuen ordaina **pagarazteko**, erruduna zela eta merezi zuelako segurantzia izateko. **Iñaki Segurola**

Azken honek erran du **pagaraziko** ziola Frantziari Irak-eko gerlaren kontra izaitea. **Herria**

Bertzelakoak dira damuaren petxa pisuaren ordaina **pagarazten** duten plazerak. **Aingeru Epaltza**

**Pagarazi** genion, larrutik **pagarazi** ere. **Aingeru Epaltza**

**Paga arazten** diote bere xedea, **paga arazten** digute gu, abertzale guzien xedea: gure herria, Euskal Herria, xutik, bere jabe, eraikitzeko dugun oldarra. **Herria**

## pagatoki iz pagateko tokia.

Eta **pagatoki** bat ezarriko omen da, kamiun pasaia mugatzeko gisan. **Herria**

## pagatu (1005 agerraldi, 82 liburu eta 475 artikulutan; cf ordaindu 6435 agerraldi, 262 liburu eta 2279 artikulutan; orobat pakatu g.er.) paga, pagatzen 1 du ad ordaindu. (diru eta kidekoetan)

Eskatu, hartu, **pagatu** eta mahaira itzuli nintzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Juduak dirua **pagatu** zigun, hamar errubloko eta bost errubloko urte monedetan. **Matías Múgica**

Asteazkena zen, gure inguruko lantegiek soldata **pagatzen** zuten eguna. **Xabier Olarra**

Aristokratek ez zuten zergarik **pagatzen**, ez eta apezek ere. **Elena Touyarou**

-Isuna paratzen dibilatik **pagatuko** diagu. **Aingeru Epaltza**

Eta etxearren errenta nire lanarekin ari gaituk **pagatzen**. **Iñaki Iñurrieta**

Batzuetan operazio bategatik 10.000 dolar **pagatzen** zituzten giltzurrun-hartzaileek. **Gotzon Garate**

Urte hasieran 0,23 euro **pagatzen** zuten litroko. **Berria - Ekonomia**

-**Pagatu** al dizkizu hogeita hamar txelinak? **Koro Navarro**

Biarriztarra, libertatea **pagaturik**, presondegitik atera zen. **Marzel Etxehandi**

Ez nitek haren askatasunaren ordainean sos bat ere **pagatuko**. **Aingeru Epaltza**

Sarrerako kutxan trexe **pagatu**, bazkaldu genuen mahaira itzuli eta hogeitaz dolarreko eskupekoa utzi nuen Marinarentzat. **Oskar Arana**

Eta erosi egin zuen, jakina, dirutza **pagatuta**. **Mikel Hernandez Abaitua**

-Ez zaukaat dirurik ordea, huskeria **pagatzen** zidatek hau egiteagatik! **Koldo Izagirre**

Lehendabiziko bi hitzak aditza aski izan nuen konturatzeko kanpotar hura printzearen mandataria zela, hilerio nire gastuak, ostalua eta arropa, **pagatzer**a etortzen zena.

**Matías Múgica**

Hamabost urte, hilerio hutsik egin gabe **pagatzen**. **Xabier Olarra**

Vienan paseatzen ibiltzeko **pagatzen** al dizut? **Anton Garikano**

Eman dizkizuedan irabazi ugarien ordainetan, **paga** itzazue nire hiletaren gastuak. **Berria - Kultura**

Senarraren entierroa **pagatzeko** zen. **Pablo Sastre**

-Berak jaso dik urkamendia, **paga** dezala! **Koldo Izagirre**

Bakantzak, aste batez, Tunisia eskualderat, pidaia eta hotel-a **pagatuak**. **Herria**

Urririk ala **pagatuz**? **Herria**

## 2 (bestela)

Inori txarririk ez desiratzen saiatzen naiz, baina egindakoagatik **pagatu** beharra baleuka, merezia luke. **Xabier Olarra**

Zeren eta anaiak bihotza hautsi baitzidan, baina nik moneta bertsuan **pagaraz** niezaiokeen, ordainez ordain, Mattini bizkarrean ederrak emanez, konparazioe. **Joan Mari Irigoien**

Erruduna naiz eta ene ez-egitekoaren ordaina **pagatzen** ari naiz. **Patxi Zubizarreta**

Agian ez dugu, katoliko frantsesek, huts hori sobera kario **pagatuko**, egun batez. **Marzel Etxehandi**

Behin okertu zinen, baina ondo **pagatuta** daukazu zorra. **Patxi Iturritegi**

Egiten zaien konfiantza ordaintzeagatik, beren eginbidea baino gehiago egiten ohi dute, eta preso lagunek **paga** dezatela orroak, nardaldiak. **Marzel Etxehandi**

## 3 (adizlagun eta kidekoen eskuinean)

-Ongi **pagatzen** omen ditek. **Jon Muñoz**

-Hori bazekiat; baina ondo **pagatua** zagok. **Koro Navarro**

-Esan dizudanez, oso-oso-oso ondo **pagatuko** dute eta mesedea zor dizut. **Sonia Gonzalez**

Büchenwald-eko kanpalekua aipu zen, lehen aldikotz entzuten nuen izena, orain ontsa **pagatua** bainiz ez ahanzteko. **Marzel Etxehandi**

Besoen eta buruaren indarra ugazabari saltzen zitzaioela, gaizki **pagatzen** zutela, juxtu-juxtu bizirik irauteko. **Fernando Rey**

Ez al zuen berak, Maribelen arabera, gutxiegi **pagatzen** ari zelako irudipena? **Bernardo Atxaga**

Eskola zuzendari batzuek ez dutelako beren kargua aski **pagatua** sentitzen. **Herria**

Jaki hornitzaileak duinki **pagatuak** izanen direlako segurtamenerekin. **Herria**

-Hemen ez da sekulan aintzinetik **pagatu** behar. **Marzel Etxehandi**

Ez nahitara eta ez merke **pagaturik**, haatik. **Eneko Bidegain**

Parise hartu zuten 845.ean, eta hantik joanarazteko, kario **pakatu** zeien. **Herria**

Berez zegokiona baino hogeita hamar dolar gutxiago, eskudirutan **pagatzeagatik**. **Oskar Arana**

Lanordu estra galanki **pagatuak**. **Patziku Perurena**

Arrakasta larritik **pagatzen** da, "herriaren aurrean". **Iñaki Segurola**

## 4 *pagatzeke adlag* pagatu gabe.

Jukosek 3.400 milioi dolar ordaindu behar dizkio hilaren amaiera aurretik, 2000an **pagatzeke** utzi zituen zergengatik. **Berria - Ekonomia**

Alabaina, inork ez zion lagundu: osasun sarera jotzean etxeratzekeoa izan zuen aholku bakarra, eta Udalak, murrizketa iragartzeaz gain, **pagatzeke** zeuzkan laguntzak urtarritetik. **Berria - Euskal Herria**

Santxok, edan zueneko, orpoz bere astoari eragin, bentako atea zabal-zabal ireki, eta han atera zen poz-pozik, azkenean horregatik berekin atera zela eta, ezer **pagatzeke** alegia. **Patxi Ezkiaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dolar pagatu (4); euro pagatu (15); gastuak pagatu (3); gehiago pagatu (7); gutxiago pagatu (3); isuna pagatu (5); kalte ordainak pagatu (4); kario pagatu (3); larrutik pagatu (5); libera pagatu (3); milioi euro pagatu (4); ordaina pagatu (3); ordainak pagatu (4)

pagatu behar (80); pagatu behar izan (11); pagatu behar izaten (4); pagatu beharko (48); pagatu beharra (3); pagatu beharreko (4); pagatu gabe (12); pagatu nahi (7)

saria pagatu (3); zenbat pagatu (4); zerga pagatu (4); zergak pagatu (3); zorrak pagatu (4)

aski pagatua (3); pagatua izan (4); pagatua izanen (6)

dolar pagatuko (3); euro pagatuko (6); euro pagatuko dituzte (3); gutxiago pagatuko (3); larrutik pagatuko (3)

euro pagatuz (6); sartzea pagatuz (3)

pagatzea proposatu (3)

ez pagatzeagatik (4)

gastuak pagatzeko (3); guzien pagatzeko (4); kalte ordainak pagatzeko (3); ordainak pagatzeko (3); pagatzeko dirua (3); pagatzeko dirurik (3); pagatzeko prest (8); zorrak pagatzeko (3)

pagatzekorik ez (3)

euro pagatzen (4); gutxiegi pagatzen (3); ibil sariak pagatzen (3); larrutik pagatzen (3)

sariak pagatzen (5); zerga pagatzen (3); zergak pagatzen (4); zergarik pagatzen (5)

## pagatxa (*corpusean pahaatxa soilik*) iz pagoaren fruitua, pago ezkurra.

Orduan ezkurra eta **pahaatxa** zuten beren hautuzko janaria, beraz errexkiago laketzen ziren hemengo oihanetan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Baina hola ere errexxki hiltzen zituzten usoak, non-nahi finkatzen eta laketzen baitziren, haritz ezkurretan edo pago **pahaatxetan**, elurra hasi artio... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## pagatzaile *izond* pagatzen duena. ik ordaintzaile.

Armadako **pagatzaileak** Lisboan bidalia zigan pagamenduen kutxa, sukar ustelaren izuz haren ofizialek beren ihesean *Ánimas*-en utzi izan zutena. **Edorta Jimenez**

Aldi bat gehiago laborariak **pagatzaile** ! **Herria**

Bentaria zain zuten eta begiak zabal-zabal, bezero onak -aberatsak eta **pagatzaile** zintzoak- izango zirelakoan. **Felipe Juaristi**  
Erraiten da "zikintzaileak **pagatzaile**", bainan hobe ez zikintzea, eta hola, gure mozkin guziak onak izanen dira, eta geroa esku onetan egonen da, guzien onetan. **Herria**  
-**Pagatzaile** onari, bahiturak minik ez -Santxok erantzun-. **Patxi Ezkiaga**

## pagatze iz ordaintzea.

Joan urteetan bezala, dirua zuen bankuko konduan utziko duzuelarik, milesker Herriko Etxerat etortzea, **pagatze** ageria izenpetzeko, maiatzaren 20a aintzin. **Herria**  
Zergak emendatuz jende guzietan parte hartuko dutela beraz jartoki berrien **pagatze** hortan, horietan barne kirolzelairat sekulan hurbiltzen ez direnak. **Herria**

## pagatzeke ik pagatu 4.

## pagauso 1 iz uso handi basatia, burua, bizkarra eta isatsa gris urdinxkak, sabelalde zuriak eta hankak moreak dituena, habia zuhaitz garaietan eta landetan egiten duena (*Columba palumbus*).

Bazekien non zeuden **pagausoak** eta haien habiak harrapatzen saiatzen zen. **Koro Navarro**  
**Pagausoak** beldurtu eta hegan abiatu ziren. **Karlos Zabala**  
**Pagauso** pauma-isatsak, oilar nanoak, basaahateak, usapalak eta usoak, Mozambikeko kanario txiki-txikiak, Bengalako urdinkarak, sabel-laranja, ozpin-isatsak. **Jon Muñoz**  
EAEko Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi du oraingoz **pagausoaren** kontrapasa ehiza Bizkaian. **Berria - Ekonomia**  
Tuilerietako lorategiko **pagausoak** etorri zitzaizkion gogora, bai eta sotoko uso lepo apurtuak ere. **Karlos Zabala**

### 2 (hitz elkartuetan)

Soropilean, **pagauso** saldo bat zebilen, paparra kulunkan, eguzkitan. **Karlos Zabala**

## page ik paje.

## pago 1 iz basoko zuhaitza, handia, enborra zuzena, azala leuna eta iluna, eta zura zuria, arina eta sendoa dituen (*Fagus sylvatica*).

Jauregiak ezker saihetsetik hasita baso sarrira zuen, haritz, **pago** eta artea batez ere, orein eta basurdeen bazkaleku, ehizarako aproposa. **Felipe Juaristi**  
Ezta gaur adina pinurik ere, noski, lehen **pagoa**, haritza, lizarra eta abarra zen toki askotan pinua baita nagusi gaur. **Juan Luis Zabala**  
**Pagoen** hosto berriak berdetzen hasten ziren. **Koro Navarro**  
Ikusten? -errepikatu zuen Mikelek beste orubete geroago, **pago** baten gerizpean bazkaltzen ari ginela. **Bernardo Atxaga**  
Erraldoiek **pago** eta haritzetan izkiriaturak letrak begien parean zeuzkan orain. **Anton Garikano**  
Landatu ditugu **pagoak**: aitzur batekin behar zen zilo bat egin, arboltxoa ezarri eta lurra tapatu zangoekin. **Herria**  
**Pago** bat inautsen ari zela adarrari odola sortu zitzaionekoa. **Koldo Izagirre**  
Lizarrak ez du antenarena egiten **pago** eta haritzek dagiten bezala. **Pello Zabala**  
Ikatzik onena **pagoarena** eta elorriarena seinalatzen dute. **Pello Zabala**  
Glaziazioetan desagertutako **pagoak** 5.000 urte behar izan zituen Italiatik berriro guregana etortzeko. **Pako Aristi**

### 2 (izenondoekin)

-Hoa **pago** handira, eta eskegi ezak gure aita zenaren erretratua hik dakian adarretik. **Jon Alonso**  
**Pago** eder baten gerizpean gelatxo pobre bat atontzeko eskatu zion. **Askoren artean**  
Arte eta **pago** galantak, iturritxoak erdian, beti ura dariola. **Txillardegi**  
**Pago** zahar baten gerria da. **Iñigo Aranbarri**  
De Villon kondea ekarri zuen gogora, jaun alai txantxazalea, bere gaztelu aurreko **pago** urtetsuan urkatu eta haren gaztelua larrutua eta suntsitu zutena. **Felipe Juaristi**  
Bidegurutze batean eguzkiak **pago** gazteen kimu zorrotz eta likatsuen gainean dir-dir egiten zuen. **Lopez de Arana**  
**Pago** hostotsu baten itzalean. **Bernardo Atxaga**  
Gaua han egin ondoren **pago** loratu baten pean atzarri zelarik, [...]. **Juan Garzia**  
-Baina **pago** okerrak ere hain dira lerdinak batzuetan...! **Joan Mari Irigoien**  
Erabaki zuen lotara joatea, Umeen Pasealekuko **pago** negartiaren azpira. **Julen Gabiria**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pago** oihana da Aralarren beste dohaina. **Herria**  
Zain oneko **pago** egurrez egindako uztarrak. **Pako Aristi**  
Aizkorak **pago**-enbor bigunak bezain erabakigarri ebakitzen zituen brankak eraso-andanak. **Anjel Lertxundi**  
**Pago** ipurdi batean eseri zen, atsedean hartzera. **Felipe Juaristi**  
Haritz ezkurra, **pago** ezkurra, gaztain alea... **Patziku Perurena**  
Haritz eta **pago** zurez eginiko eskailera monumentalak. **Patxi Iturritegi**  
Orain haatik toki horiek ezeztatuak dira, bidea **pago** landarez hainbat hartua. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

### 4 pago-lizar (orobat pagolizar g.er.)

Loratzean parterre borobilak zeuden, kolore zuria eta horiko loreekin, eta magnolia aski handiak, inguruko basoko **pago**-lizarren aldean bigunak ematen zutenak. **Bernardo Atxaga**  
Baserri aurre, ermita atze eta **pago**-lizar arteko zabalguneeetan dantzari ibilitakoek ondo gogoan dituzte, oraindik ere, Faustinek gehien bisitatu zituen alderdiak. **Iñigo Aranbarri**  
Abiatzen ziren, ezkututzen saren garo artean gorantz begira **pago**-lizarren adar bakoitza aztertuz. **Bernardo Atxaga**  
Hurbilago, belar sailetan sakabanatuta, garaiera askotako zuhaitzak ikus zitezkeen, denak ere **pago**-lizarrak. **Bernardo Atxaga**  
Esaten zien basomutilei: "Emaiozue lurra leku eder eta babes batean; berpizten denean ikus ditzala bere betiko **pago**-lizarrak". **Bernardo Atxaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pago enbor** (6); **pago lizar** (3); **pago lizarrak** (3); **pago lizarren** (4); **pago oihana** (3); **pago zahar** (3)

## pagoda iz Sortalde Urruneko Herrietako tenplua.

Urrezko **pagoden** artean, miseria. **Berria - Mundua**

Milaka **pagoden** herrialdea deitzen duten Birmania munduko pobreenetakoa da. **Berria - Mundua**

**Pagoda** itxurako eraikin arinaren barruan apenas dago itzalik, eguzkiak lau aldeetatik zeharkatzen baitu plastikozko estalki mehea **Patxi Iturritegi**

## pagodi ik **pagadi**.

## pagolar *izlag/iz* Pagolakoa, Pagolari dagokiona; Pagolako biztanlea.

Maiatzaren 20an, ostirale aratseko 8.30etan, **pagolar** talde batek kantaldi bat muntatzen du *Eskukaldia* elkartearen fagoretan. **Herria**

Egun berean, Loire departamenduan, beste bi lagun arrastatu dituzte, horietarik batto Didier Aguerre **pagolar** gaztea. **Herria**

Irailaren 11n ezkontzeko sakramenduak elgarretaratu ditu Xabi Saragueta gure herritar gaztea eta Beatrice Eyheramendy **Pagolarra**. **Herria**

Honen kargua Jean Itxastoitxipi Lextarren bizi den **pagolarrak** eginen dū. **Herria**

## pagolizar ik **pago** 4.

## pagope *iz* pagoaren azpialdea.

Freskotik zebiltzan, hango **pagope** ilun ezkutu haietan, Karloman harroaren gudariak harkaizpe haietan jipoitu eta eskarmentatu zituztenez. **Pello Zabala**

Ai, San Antonio egunez meza ondoren Kuletok, **pagopean**, zotzez eraginez egiten zuen pontxea! **Pako Aristi**

Geldian, lurra leku bakoitzean duen zaporea dasta daiteke, penzte samurren gozotasuna, arantzadien mikatza, goroldioaren umeltasun sarkorra **pagopean**, ogi lehorraren papur desegina haitzartean... **Pako Aristi**

## pagotxa (*orobat pagotx g.er. eta pagoxa g.er.*) 1 iz hirusta lore-gorria, bazka landare gisa lantzen dena eta abereek berdetan jaten dutena (*Trifolium incarnatum*).

Gaztetasuna da benetako Saturnoren Erreina, Urre Aroa lurrean berriua, sasiak pikuak ematen zituena, zerriek txistu hotsei kasu egiten zietena, zurdak zetazkoak zituztena, jatenetako beti **pagotxa** zutena. **Xabier Olarra**

Bildotsetik **pagotx** gozora ohitutako ardiari ote-larrea gogor. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

### 2 (hitz elkartuetan)

Ondotik bigarren jorra ematen zitzaion alorrari, gorotza, arbi hazia, **pagoxa** hazia edo zena zelakoa nahastu bidenabar. **Patziku Perurena**

### 3 mauka, aukera ona.

**Pagotxa** gutxi energiaren arloan. **Fernando Morillo**

Film guztiak aurretik ikusteko **pagotxa** dik. **Anjel Lertxundi**

Tomasek keinada egin zidan, "hau duk hau, **pagotxa**". **Aingeru Epaltza**

-Eta zelan lortu du **pagotxa** hori? **Jon Arretxe**

Ez zitzaion horrelako **pagotxa** egokituko! **Migel Angel Mintegi**

Bukatu zaizue **pagotxa**, burges putakumeok! **Pedro Alberdi**

Amaitu zaik **pagotxa**, Casanova. **Oskar Arana**

**Pagotxak** desagertu dira, eta majo sufritu behar da puntuak biltzeko. **Berria - Kirola**

Automatika zahar bat aukeratu nuen, benetako **pagotxa** beherapena kontuan hartuz gero, eta harekin batera zazpi kargadore erosi nituen. **Iban Zaldúa**

Egungo fiskalitate sistema «**pagotxa** ikaragarria» dela kapitalaren errententzat. **Berria - Ekonomia**

Sekulako **pagotxa** eta amama ikusten zuten horretan eta eurentzat nahiko luketela esaten ei zuten Bartzelona eta Madrilako lagunek. **Hasier Etxeberria**

Inoiz ulertuko ez ditudan **pagotxak** eskaintzen dituzte orain hegazkin-konpainiek. **Anjel Lertxundi**

Garapen gutxiko literaturetan gabiltzanok ere badugu Leopardik aipatzen zuen antzeko **pagotxa**, tradizio urri batek ematen digun sortzeko aukerarena alegia. **Anjel Lertxundi**

### 4 (izenondo gisa)

Lan **pagotxa**, soldata hobe, eta hainbat artikulua jaso, eta argazki batzuk kudeatu, hori besterik ez zela. **Alberto Barandiaren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**benetako pagotxa** (3); **pagotxa izan** (3); **sekulako pagotxa** (5)

## pagoxa ik **pagotxa**.

## pagu *iz* ordaina, saria; pagatzea, ordainketa.

Zorionik beroenak, Golubtxik, **pagu** ederra izango duzu. **Matías Múgica**

Euskaraz "Nolako bizitza, halako **pagua**" esango genuke. **Gotzón Garate**

Hutsa agertzen delarik, idazleak obragatik sufrizten badu ere [...], editorea bere lanagatik da penatzen "ongi egindako lanaren **pagua**, liburuan sagua"- **Iñigo Aranbarri**

Lintxamenduak, beste **pagu** batzuen oso bestela, jendeketaren beroa eskatzen baitu. **Iñigo Aranbarri**

Arrain batzuen **paguan** arrautzak, indabak zein ortuariak hartzen zituen, eta gero horiek Mundakan eta Bermeon etxex etxe saltzen zituen, azkenean faltrikeran diru apurren bat sartu ahal izateko. **Edorta Jimenez**

Formalitate horretaz libratzea zen espero zuen **pagu** bakarra, berarekin zorretan zeuden beltzengandik. **Anton Garikano**

## pahatxa ik **pagatxa**.

## **pai**a (orobat **paja**) iz orrialdea.

Gero Léon Léon-en "Jesu Kristo-ren imitazio"tik 50 bat **pai**a leitzen nuen egun guziez. Marzel Etxehandi

Batek liburu baten **paiak** erakusten dizkio, besteak petik, zigarreta ebaste diola, eta ateratzen. Marzel Etxehandi

Erran nezake hemen, "Altza Mutilak" argitaratu dugun hirugarren zenbakia euskaraz hogoi **paja** eman ditugula... Menane Oxandabaratz

## paiaso ik **pailazo**.

## **paidofilia** iz umeenganako maitsauna. ik **pedofilia**.

**Paidofilia** balio bat den bezala, pederastia arazo bihurtzen da. Berria - Harian

## **pailaka** iz fereka. ik **pailaku**.

Haizeak **pailaka** makabroan dilindaka erabiliko zituen gorpuak ikusteko ustea ote nekarren? Koldo Izagirre

## **pailakatu**, pailaka(tu), pailakatzen du *ad* ferekatu.

"Lasai, lasai...!" hasi zitzaion soldadorea, lepoa **pailakatzen** ziola. Koldo Izagirre

## **pailaku** iz fereka. ik **pailaka**.

-Horrek -dukesak esan- xaplada **pailakua** dirudi eta ez zigorrada. Patxi Ezkiaga

## **pailarda** iz prostituta.

Armada okupatzaile berez handiak are segizio handiagoa ekarri zuen berekin: eskaleak, gaiztaginak, iruzurtiak, **pailardak**, putazainak, bilaketariak, kausitzaileak eta mota guztietako harrapariak. Aingeru Epaltza

Bai, **pailardak** haragia diruaren truke eskaintzen dutenak direla jakin nuela. Edorta Jimenez

-Herorrek esan huen; bekatua duk **pailardekin** jotzea -fraileki kutsua zuen hartua-. Edorta Jimenez

Parisen, Marais-en, ez da basatzarik; Hiru banderen karrikan ez da banderarik; Perlaren karrikan, **pailardak** nagusi. Koldo Izagirre

## **pailardiza** iz haragizko bekatua. ik **haragikeria**.

Jainkoak daki hiltzeaz edo hilik gertatzeko arriskuan egoteaz aiseago nekatzen zarena **pailardizaren** eta haragikeriaren istilera zeure burua botatzeaz baino. Harrezkero mandamendua irakurtze hutsak haragia pizten zidala, amets egiten bainuen **pailardizaz**, nahiz eta mandamenduaren sumarioak berak argitu hura bekatua zela. Aingeru Epaltza

## pailaso ik **pailazo**.

## pailasokeria ik **pailazokeria**.

## **pailazo** (orobat **pailaso g.er.** eta **paiaso g.er.**) 1 iz

Eszenatoki handian, berriz, Takolo, Pirritx eta Porrotx **pailazoak** izanen dira. Berria - Euskal Herria

**Pailazo** batek Tarleton-en zorakeriak imitatzen zituen, eta beste batek maiz batean bildurik Hamlet printzea izulaborritzen zuen. **Pailazo** batek, adibidez, tu eta tu egin dio tronboiarekin, eta beste batek ardoa bota dio bizkarrean lotuta zeraman fumigadora batekin. Juan Garzia

Bizitza zirko bat da, eta hobe **pailazo**a izatea ikuslea baino. Jasone Osoro

Hainbeste kanta, disko eta sinfonia, hainbeste aktore, **pailazo** eta txotxongilo, hainbeste aureskulari, zamaltzain eta koreografo, [...] ez dago-eta ezer barregarriagorik beldurra ematen digun norbait **pailazoarena** egiten ikustea baino. Juan Luis Zabala

Orduak eman zitzaizkete horrela: txotxongilo saio bat egiten, orduan bezala, edo biolina jotzen, marrazten edo **pailazoarena** egiten. Joan Mari Irigoien

**-Pailazo** bat ematen dut, ezta? Aingeru Epaltza

Antzeko zerbait eman zuen aditzera Heinrich Böll-en protagonista batek **Pailazo baten aburuak** nobelan. Patxi Zubizarreta

Sinesten dinat denok gure barruan ume bat eta **pailazo** bat eta mozkor bat dugun bezala, faxista bat ere badugula. Harkaitz Cano

## 2 (izenondoekin)

**Pailazo** tontoa bizikleta txiki-txiki baten gainean bueltaka hasi zenean **pailazo** serioaren inguruan. Jokin Muñoz

Gure aita **pailazo** tristeetan tristeena zen. Josu Zabaleta

**Pailazo** multikolorez marraturiko koadroak. Mikel Hernandez Abaitua

Jolas-parkea uztean, **pailazo** erraldoi baten ahotik irten nintzen. Harkaitz Cano

Eunuko inpotente bati ez zaio ezer barkatzen, ez zaio ezer sinesten, ez du merezi **pailazo** dohakabeenak merezi lukeen errukirik ere. Karlos Linazasoro

**Pailazo** umoretsu hauek lehenago ere izan dira Musika Hamabostaldiko partaide. Berria - Kultura

Egia da **pailazo** barregarria naizela arratsalde batez, eta gero, hilabetez, asper-asper eginda egoten direla nitaz. Josu Zabaleta

Bazekien **pailazo** txarra zela, ez zuen inolako lotsarik porrot horrengatik. Josu Zabaleta

Ikusgarri gisa: kantuak, dantzak bai eta ere Txirri, Mirri eta Txiribiton **pailaso** famatuak. Herria

## 3 irud/hed

-Zu **pailazo** hutsa zara, jeta kabroi hori, eta gugatik ez balitz...! Jon Arretxe

Lepoa egingo nuke **pailazo** hutsa izan nintzela. Mirentxu Larrañaga

Eskolako tonto-harro guztiak ez ziren injeneru aeronautiko egin, baina irtenbiderik eta non kabiturik ez zaie falta izan: hor dago polizia, hor dago politikoaren politika, hor telebistako edo kulturako **pailazo** izatea, edo kirolari izatea. Iñaki Segurola

Mundializazioak eta ultraliberalismoak gorteko **pailazo** bilakatu zituen egunetik, ez dute txintik ere egin. Hasier Etxeberria

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero Kupidoei errieta egin zien, eta agindu zien **pailazo** -txanoak eramateko, Dukearen bihotz izoztua urtu arte. Julen Gabiria

**Pailazo** sudur bat, ileorde gorri bat. Josu Zabaleta

Zirkus Mirkus **pailazo** ikuskizuna. Iñaki Arranz

Aratsaldez aldiz, **pailaso** edo "clown" ikusgarri pollit bat. Herria

Artean egin da barazki azoka, jubilatuen ibilaldi neurtua, mozorrotuen elkarketa, **pailazo** emanaldia, danborrada, [...]. Herria

Ortizirale artatsean, Izpuran, Fauxtin-Bentaberri biltokian, **paia**so antzerki ikusgarria, La Strada taldearekin. Herria

Leandre **pailazo** talde kataluniarraren *Desbandada* obrarekin · Berehala eramango nau Jainkoak **pailazo** -arrainaren eta koloretako beste guztien zeru epelera. Berria - Kultura

## 5 (adizlagun gisa)

Edo **pailazo** janzten nintzen, eta pailazokeriak egiten nituen. Joan Mari Irigoien

Panpi ez da azkenean **pailazo** jantzita joango. Berria - Kirola

**Pailazo** samar ere sentitzen nintzen gorputz-jarrera bitxi haietan. Juan Kruz Igerabide

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pailazo baten aburuak** (4)

**pailazoarena egiten** (5)

**pailazoan antzera** (4); **pailazoan emanaldia** (3)

## pailazokeria *(orobat pailasokeria g.er.) iz* pailazoari dagokion egintza, gaitzesgarritzat markatua.

**Pailazokeria** galanta ere bada, horratik, **pailazokeria** galanta denez, B 41 esaten segitzea horri, fabrika guztiak baitaki sufrea dela. Juan Garzia

Hor ere, ohiko bidetik, **pailazokeriak** eta itxurakeriak, ainitzek salatu duten bezala. Herria

**Pailazokeriarik** ez!", oihukatzen zion, Ternik, bere mirespen-xuxurlak eginez. Fernando Rey

Etsenplutzat hartzen dut Txetxenian izan den erreferendum delakoa, zinez **pailasokeria**, hartzen dut ere Kuban izan den auzia. Herria

Hainbeste edaten eman didate, **pailazokeriak** egiten ere hasi naiz bertan. Juan Garzia

Edo pailazo janzten nintzen, eta **pailazokeriak** egiten nituen. Joan Mari Irigoien

Ez genion ezer ulertzen, alemanez hitz egiten zuen eta; bakarrik, bazirudien **pailazokeriak** -edo esaten zituela. Josu Zabaleta

Herbert bere **pailazokeriatik** aldenarazterik ez: trafikozainaren plantak egiten hasi da, [...]. Joxe Austin Arrieta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pailazokeriak egiten** (3)

## pailazokume *iz adkor* pailazoa.

Hik, infralapsario horrek, **pailazokume** ergela, // diok Adan gizajoa beherantz erori zela. Xabier Olarra

## palesia ik paralisi.

## pailot *iz* portu barruan edo kostaldean itsasontzien maniobrak gidatzen dituen pilotua.

Denon ezaguna da Manterola, gure portuko **pailot** txarrena da, sei-zazpi maliobra egiten ditu hogei mila tonaka baforetxoak atrakatzeko. Koldo Izagirre

Badiaren erdian **pailoten** kanoa ageri zen, Atanasio, tuku-tuku egoskorrak salatzen zuen. Koldo Izagirre

Baforeak hiru tutuak jo zituen **pailotari** deika, orduan urketaria baforean sartu zen bokalean okerrik gabe ekarri behar zuen Manterolaren ondotik, haren laguntzailea edo konfiantzazko lemazaina balitz bezala. Koldo Izagirre

**Pailotek** badaukate beren txokoa, kamantza eta guzti gainera. Koldo Izagirre

## painal ik pañal.

## painelu *(orobat painolu g.er., painuelo, painuelu eta painulu g.er.) 1 iz* musuzapia, mukizapia. ik mokanes.

**Painelu** zuria poltsikotik atera eta kopetako izerdia lehortu zuen. Bernardo Atxaga

**Painelua** patrikatik atera nian bekokia xukatzeke. Xabier Olarra

Txalo zaparradaren ondoren, zaletuak sari eske hasi ditun, **painelu** zuriak airean dantzatzuz. Patxi Iturritegi

Tarteka, **painelua** hartu eta zintz egiten du, eta berriro jasotzen du berehala, hots, marruskatzen du bere esku urdurian. Joxe Austin Arrieta

Tren geltokietan **painueluak** astintzea baino agur esateko era politagoa zen inoren eskularruari tira egitea. Harkaitz Cano

Kapota jaitsia zuen auto bat gidatzen, **painelu** luze bat lepoan eta korredore betaurrekoak jantzita. Pello Lizarralde

Atzekoak, loihartzeko urdinekin jantzita eta **painelu** gorriak saman, ukabila gora altxatuz. Joseba Sarrionandia

Hogei errublo eman zizkidan, eskua bete diru, pisu askoa, **painelu** urdin batean bildua. Matías Múgica

Buruko **painelu** zuriak, eta beltzenak bezalako eskumuturrekoak. Joxe Austin Arrieta

Koloretako **painelua** buruan eta zirrindola doratuak belarrietatik dilindan. Joseba Sarrionandia

Kolore hori biziko **painuelua**; gerruntze motxa eta gona. Koldo Izagirre

Aittittek **painelua** lau korapilo eginda zuen buruan txapelaren orde. Joseba Sarrionandia

Hor, Loiolako semaforo horretan, orain bera paperezko **painueloak** edo saltzen hor egoten duk eta... Pablo Sastre

Han bai, han lasai eman nionan negarrari, eta **painelu** franko utzi ninan malkoz blai. Xabier Mendiguren Elizegi

'Eseri, mesedez,' dio, malko isuriak **paineluz** lehortzen dituela. Joseba Sarrionandia

## 2 (hitz elkartuetan)

Saxo, kale **painuelo** saltzailea. Pablo Sastre



## **painelutxo** *(orobat painuelotxo) iz* painelu txikia.

Belaontziek **painelutxo** zuriak ematen zuten, une batetik bestera hello edo *goodbye* esaten hasiko zirenak. Bernardo Atxaga

Elkarri ile xortak, bularren artean ibilitako **painuelotxoak** oparitzen zizkieten. Pablo Sastre

## painolu ik **painelu**.

## **painu** *iz* oihala, zapia.

Eta aurpegia, bai nire aurpegi hori, **painu** bat pasatuz gero borratuko litzatekeena. Joseba Sarrionandia

Autoen beira lausotuak igurzteko erabiltzen den moduko **painu** beltzez ezabatu balitu bezala. Joseba Sarrionandia

## painuelo ik **painelu**.

## painuelotxo ik **painelutxo**.

## painuelu ik **painelu**.

## painulu ik **painelu**.

## **paio** *izond/iz* ijitoentzat, ijitoa ez dena.

Ijitoen kulturak asko dauka emateko gizarte **paioari**. Berria - Euskal Herria

Baina labanak erosteko orduan berdin da ijitoa edo **paioa** izatea, denda askotan salgai daude eta. Berria - Euskal Herria

## **pairaezin 1** *izond* ezin pairatuzkoa. ik **eramanezin**; **jasanezin**. (gauzak)

Beroa **pairaezina** zen. Aingeru Epaltza

Hotzikara **pairaezin** baten mende, izaraz aurpegia estali zion. Harkaitz Cano

Hektarea bateko galera **pairaezina** da etxalde tipi batentzat. Berria - Euskal Herria

Behin dastatu nuen, 18 urtetan, aitak seta **pairaezina** hartuta. Aingeru Epaltza

Nik ez nuen haatik nahi ikus eta hauteman nazaten: barnean neukan oinazea **pairaezinago** bihurtzen zidan bestearen soak. Piarres Aintziart

**Pairaezina** zaie erabakiak hartzeko ahalmena. Markos Zapiain

Gure isiltasun hura, ordea, hura bai **pairaezina**. Joxe Austin Arrieta

## 2 (pertsanak)

Batzuetan ez naun ohartzen zer **pairaezina** izaten ahal naizen. Aingeru Epaltza

Kili-kili batzuk egin nizkion eta borrokari plantan hasi zitzaidan, telebistako marrazki bizidun japoniar **pairaezinetako** pertsonaien gisara. Aingeru Epaltza

## **pairagaitz** *izond* pairatzen zaila dena, ia pairaezina. ik **eramangaitz**; **jasangaitz**.

**Pairagaitzak** izan zaizkit beti beren haurtzaro edo nerabezaro ustez bozkariotsua landa eremua jendeztatzen duten zoko-herrietarikoren bati lotzen diotenak. Aingeru Epaltza

Ez bihurtu ordea nire sofrikarioak **pairagaitz**. Jon Muñoz

Gutun hauen laxotasunak zinez hutsegite bihurtuak direla, eta **pairagaitzak** gertatzen direla, inprimarazten direlarik. Jon Muñoz

## **pairagarri** *izond* paira daitekeena, pairatzeko modukoa.

Oldarra mina baino **pairagarria** zen, baina ez zuen irauten. Piarres Aintziart

## **pairakor** *izond* eraman handikoa dena. ik **jasankor**.

Beste partea, berriz, suntsitzen dela erakutsi dugun hura, irudimena bera da eta parte horren gatik baizik ez gaituzte **pairakor** deitzen ahal. Piarres Xarriton

Errusiako neska gazte xarmagari horietakoren bat, muduan berdinek gabea, emakumezkoen arimaren edertasun zoragarri guztiarekin, **pairakorra** eta bihotz-zabala. Jose Morales

Mutilak goiko hortzez beheko ezpainari kosk egiten zion, itxura **pairakorraz**, aldi berean ukabilak estutuz, handik pixka batera uholdeka etorriko zitzaion agresibitateari eusteko edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire ustez, geure buruari buruzko lana behar izaten du beti, hau da, askatasunaren pairugabetasuna itxuratzen duen lan **pairakorra**. Askoren artean

Orobat ikusiko zenuke makurkeriaren bihotz zimikoak eta nor bere buruaren erdeinua baino **pairakorragoak** diratekeela. Jon Muñoz

## **pairakortasun** *iz* pairakorra denaren nolakotasuna.

Heroien gose zen agure sobornoazale eta mozkortia, ordurako egitandiaren eta **pairakortasunaren** hazia ariman zeraman emakume lizuna, eta gizona. Jose Morales

Gizon-emakume haien bizitzaren edertasunak eta **pairakortasunak** liluraturik, [...]. Jose Morales

Egonarri, kemenez eta **pairakortasunez** betetako gizona. Oskar Arana

## pairamen 1 iz pairatzea; pairakortasuna.

Sufrimenduaren sailkapena egiten dakitenek esan ohi dute ez dagoela umea hil zaion amaren eramankizuna, **pairamena** eta kabitu-ezina bezalakorik. **Iñaki Seguro**  
Haien zahardadea, haien eritasunak [...], haien **pairamenak**, senitartekoen ondoeza sorrarazten ari balira bezala bizi dituzten **pairamenak**, isilean gordetzen dira horiek guztiak. **Joxan Elozegi**  
Ez zen ezer, zerbait izanda, orkatilen edota belauen **pairamena** [...]; baina arimarena, hori, mingarria zen zinez. **Bernardo Atxaga**  
Mundu honetan elkarren lagun izan garenok **pairamenetan**, elkarren kide izan gaitezen ere beste munduko gozamenetan. **Piarres Xarriton**  
Gogoan eduki behar zen [...] soldaduak hor aljerianoei mila **pairamen** jasanaraziz, frantses armadan zeramaten bizimolde doiaz mendekatzen zirela. **Itxaro Borda**  
Fede basa eta neurotiko hura eta hari lotua zitzaion jasanezinezko **pairamena**. **Piarres Aintziart**  
Bai sofritu dut, lagunon **pairamena** eta nerea berberak baitziren gertaldiei zegozkienez. **Piarres Aintziart**  
Gaur nekez dago inor Zugatik zerbait sofritu nahi duenik, nahiz eta oso beharrezkoa den gizakiak **pairamenak** jasatea eta bere buruari uko egitea, onik atera nahi badu. **Joan Mari Lekuona**  
Izan ere, halako idazle "interesgarri" eta are "oso interesgarrien" elementia bat edonoren eramana eta **pairamena** mila puska txikitzen zartzeko modukoa izan behar zen. **Jon Alonso**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Biktimen **pairamenak**, biktimen bortizkeria balioztatzen du, halaber, biktimen **pairamen** berriak. **Itxaro Borda**  
Sei hilabeteren buruan utzi zuten libro, **pairamen** haundienak jasan ondoan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Bidegurutzetako **pairamen** hutsa da, **pairamen** ahantzia, bere buruaz ahanterik ez duena. **Monika Etxebarria**  
Izan ere, sekula ikusi ez bezalako **pairamena**, abnegazioa eta laztasuna erakutsi zituen. **Jose Morales**  
Beilariaren haserrean ez dago herrarik, halako **pairamen** bat baizik. **Piarres Aintziart**

## 3 (hitz elkartuetan)

**Pairamen** urteak eta urteak desagertu ziren arriskuaren aitzinean. **Elena Touyarou**  
Beharbada zuzenagoa, egiazkoagoa, giza **pairamenarekin** lotuagoa da Cheeverren konparazioa. **Harkaitz Cano**

## pairamendu iz pairamena.

Hala ipintzen zuela bertze tormentu hark ene arima sufrimenduaren eta **pairamenduaren** atzaparretan. **Joan Mari Irigoien**  
Ordu arte, eta **pairamenduan** urrun heldurik ere, den mendreko galdera ez zitzaidan hurbildu ere. **Piarres Aintziart**  
**Pairamenduak** berak zidan eman nortasun nerea. **Piarres Aintziart**  
Deus ez baldin bada, **pairamendurik** ere ez. "Ezerezak ez du sofritzen". **Piarres Aintziart**

## pairarazi, pairaraz, pairarazten du ad pairatzera behartu.

Sortzen eta **pairarazten** dugun biolentzia, gainditzeko zubirik gabeko leizea da, miseria bezala. **Itxaro Borda**  
Hiltzaileen arma bakarrik hitzak izan baziren ere, **pairarazi** zioten bortxa ez zen izan fisikoki buruan mailukada bat baino txikiagoa. **Oskar Arana**  
Otoi, horren gaitzaldi bortitzak ez niri gehiago **pairarazi**; ezin segurta baitezaket jasanen ditudanik. **Jon Muñoz**  
Sufrimendua, Imanol Altunak **pairarazi** ziona. **Berria - Kirola**  
Urruntzearekin giza eskubideak urratzen direla eta ahaideei sufrimendua **pairarazten** zaiela salatu zuen. **Berria - Euskal Herria**  
Eraiketa ez zen zigorrik gabe geldituko eta Jaurenea-ko nagusiak **pairarazi** zuen oinaze guziaren ordaina ukanen zuen. **Elena Touyarou**  
Bihotzean nuen ahalkeari gizarteak **pairarazten** zidana erantsi zitzaion eta paralelismoa geratu nintzen. **Itxaro Borda**

## pairatsu izond pairakorra.

Herria artalde ergel bat da, batzuetan zozo **pairatsua**, bestetan anker asaldata. **Josu Zabaleta**

## pairatu, paira, pairatzen 1 du ad ezbeharrak, kaltea edo gogoko ez duguna amor eman gabe edo etsi gabe eraman. ik jasan 3; nozitu.

Bidaia osoan euri zaparrada ugariak **pairatu** behar izan zituzten. **Joanes Urkixo**  
Ikusi ez ezik, geure buruan ere **pairatu** dugu haien otzantasuna eta morrontza. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Hau ere jasan behar, aitaren hutsak ez dituelarik semeak **pairatu** behar. **Herria**  
Zernahi **pairatua** genuen, gosea eta egarria, izua eta tristezia, sua eta burdina. **Aingeru Epaltza**  
Kikildu egingo zen azkenean, horrenbeste ezbeharrak ezin **pairaturik**? **Karlos Zabala**  
Bortizkeriak eta laidoak **pairatu** zituen. **Itxaro Borda**  
Neke asko **pairatuta**, hoxe urteren buruan iritsi nauk. **Juan Kruz Igerabide**  
Mespretxua eta gehiegizko begiramena **pairatu** behar izan zituena aldi berean. **Ramon Saizarbitoria**  
Larrigura- eta zorabio-aldi luzeak **pairatu**, ilea galdu, gogoa galdu, lana galdu eta emaztea galdu ondoren [...]. **Oskar Arana**  
Nahiago nuen edozer gauza hain luze **pairatu** nuen bakardadea baino. **Koro Navarro**  
Judeak **pairatu** dituzten esetsaldiak aspaldikoak dira, betidanikoak esan daiteke. **Koro Navarro**  
Osiriak Elizak sekula ez zuen jazarpenik **pairatu**. **Iñaki Mendiguren**  
1995ean, frantses liberak eraso gehiago **pairatu** behar izan zuen, eta Frantziako Bankuak beste diru-murrizte bat egin behar izan zuen. **Koro Navarro**  
XIX. mendean bertan ere **pairatu** zuten herrialde semiperiferikoek kanpoko finantzaketak ekar dezakeen mendekotasuna. **Koro Navarro**  
Behar duena eginez ordaintzen ez badu, **pairatu** beharrekoa **pairatuz** ordainduko du. **Imanol Unzurrunzaga**  
Gorrotz horditu ondoren, etsipenez beteriko aje garratza **pairatzea** egokitzen zitzaion. **Aritz Gorrotxategi**  
Gezur txiki batzuek bakarrik salbatzen gaituzte, sarritan, **pairatu** ezinezko sofrimenduetatik. **Pako Aristi**  
Hainbeste **pairatutakoak** ginen biok, eta han geunden gure gorabehera ugarien ondoren, geure buruaren jabe eta elkarren ondoan, ezkontzekotan... **Oskar Arana**

## 2 (adizlagun batekin)

Ziburuk ere ainiz **pairatu** zuen, Kostaldeko beste herriek bezala, espaiolak horrat sarturik. **Herria**  
Enez Eussan denetarik urrun nintzela konturatu orduko, Joanaren falta garrakzi **pairatu** nuen. Loratzerat zolan landarea itzali zaiku, Ostankoa Haixpeko Mattin Idiat, 16garren urtean, luzaz **pairatu** ondoan. **Itxaro Borda**  
Bortxa, irainak eta pintaketak ere sarritan **pairatu** dituztela. **Berria - Ekonomia**  
Errusiak berri, [...] bete-betean **pairatu** zuen 1998an petrolioaren prezioaren erorikoa eta asiarrak merkatuen murriztea. **Koro Navarro**  
Hemen hoinbete **pairatuentzat** Jaun Zerukoak eman bide dio toki bat goxoa bere aita ama eta Antton anaia zenaren aldean. **Herria**

Nahikoa **pairatu** du dagoeneko **Oskar Arana**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Erradazu ea zure kolektibo **pairatua** osatzen duten jendeak banaka libre diren ala ez? **Itxaro Borda**

### 4 ezin pairatuzko izlag

Urak, baina, ezin **pairatuzko** izua sortzen zuen nigan. **Karlos Linazasoro**

Edozein gauzak dardarka jartzen nau, baita txikienak ere, baldin eta eraginik izan badezake nire arimaren nahasmendu ezin **pairatuzko** honetan. berehala gertatuko lirateke aurrekontu-betebeharrak ia ezin **pairatuzkoak**, eta izugarri areagotuko lirateke diru-politikaren gaineko akordio faltak. **Koro Navarro**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ainitz pairatu** (5); **asko pairatu** (5); **bortizkeria pairatu** (4); **bortxaketa pairatu** (3); **eraso pairatu** (3); **erasoa pairatu** (5); **erasoak pairatu** (6); **erasoak pairatu zituzten** (3); **gehiago pairatu** (5); **gehien pairatu** (4); **hainbeste pairatu** (3); **jazarpena pairatu** (6); **ondorioak pairatu** (8); **ondorioak pairatu zituen** (3)

**pairatu arren** (4); **pairatu dituztela salatu** (4); **pairatu eta gero** (3); **pairatu izana salatu** (5); **pairatu ondoan** (5); **pairatu ondoren** (9)

**torturak pairatu** (11); **torturak pairatu dituzten** (4); **tratu txarrak pairatu** (8); **urteetan pairatu** (3); **urteotan pairatu** (3)

**ondorioak pairatuko** (4)

**zernahi pairaturik** (3)

**inkomunikazio aldian pairatutako** (3); **pairatutako torturak** (7); **pairatutako torturen** (4)

**ezin pairatuzko** (3)

**pairatzeko arriskua** (4)

**arazoak pairatzen** (3); **bazterketa pairatzen** (3)

**egoera pairatzen** (3); **egunero pairatzen** (5); **emakumeek pairatzen** (9); **emakumeek pairatzen duten** (5); **emazteek pairatzen** (5); **emazteek pairatzen duten** (4); **erasoak pairatzen** (3); **euskal herriak pairatzen** (14); **euskal herrian pairatzen** (3); **euskal presoek pairatzen** (6); **gaur egun pairatzen** (4); **gazteek pairatzen** (5); **gazteek pairatzen duten** (3); **gehien pairatzen** (9); **gehien pairatzen duten** (3); **gizarteak pairatzen** (3); **herrialdeak pairatzen duen** (3)

**indarkeria pairatzen** (5); **jazarpena pairatzen** (10); **jazarpena pairatzen ari** (3); **korsikak pairatzen** (3); **lagunek pairatzen** (4); **lagunek pairatzen duten** (3); **langileek pairatzen** (4); **langileek pairatzen dituzten** (3)

**ondorioak pairatzen** (12)

**pairatzen du nahitaez** (3); **pairatzen duen bazterketa** (3); **pairatzen duen egoera** (10); **pairatzen duen gatazka** (9); **pairatzen duen indarkeria** (4); **pairatzen dugun egoera** (6); **pairatzen dugun gatazka** (3); **pairatzen duten diskriminazioa** (3); **pairatzen duten egoera** (12); **pairatzen duten egoeraren** (3); **pairatzen duten indarkeria** (3); **pairatzen duten sakabanaketa** (3); **pairatzen hasi** (3); **pairatzen jarraitzen** (3)

**preso politikoez pairatzen** (3); **presoek pairatzen** (9); **presoek pairatzen duten** (5); **sarritan pairatzen** (3); **senideek pairatzen** (3); **zernahi pairatzen** (3)

## pairatzaile iz pairatzen duen pertsona.

Sindrome baten menpeko zara, patologia arraro baten **pairatzaile**. **Xabier Montoia**

Azkenean ni neu egin naute egoera horren erantzule eta **pairatzaile**. **Berria - Harian**

Suntsipenaren eragina ezberdina da eta espero zitekeenaren alderantzizkoa, **pairatzaile** nagusiak ez baitira estatu unibertsal zenduaren mendeko izanak, garaile nabarmen diren barbaroak eurak baizik. **Iñaki Mendiguren**

## pairatze iz ezbeharra, kaltea edo gogoko ez duguna amor eman gabe edo etsi gabe eramatea.

Ikusita gerra ondoren kolonietako jendea ekarri zutela Frantzia altxatzeko, hemen lana egiteko, zer pentsatu behar dugu? Zer erran nahi du **pairatze** horrek? **Berria - Euskal Herria**

## pairu iz pairatzea, pairakortasuna, jasankortasuna. ik pairamen; eroapen.

Urteen bortxaz **pairua** urritzen zaigu denei. **Aingeru Epaltza**

Haren borondateak ez zuen gehiago nahi izan haien **pairuak** eta miseriak irauterik. **Xabier Kintana**

Sofrimenduak pazientzia eskatzen du, eta hori ondo daki gure hizkuntzak, sofrimenduzko "pairatu" hitzaren erroitik bertatik pazientziatzko **"pairua"** sortu duenean; hizkuntzak badaki, eta hala adierazten digu, heriotza baten mina eramateko **pairurik** ez duenak, heriotza horren ondorio mina baino latzagoak direnak pairatu beharko dituela. **Pako Aristi**

Ez baintuzke zure pazientzia eta **pairua** agortu nahi. **Joan Mari Irigoien**

## pairugabetasun iz pairurik eza.

Ez dakit gaur beharrik denik esateko lan kritikoak oraindik Argien fedea dakarrela; nire ustez, geure buruari buruzko lana behar izaten du beti, hau da, askatasunaren **pairugabetasuna** itxuratzen duen lan pairakorra. **Askoren artean**

## paisa iz moneta baten zatikia, gehienetan errupiarren ehunekoa.

Sakelan 50 **paisa** zituen eta autobusean sartu zen. **Gotzon Garate**

## paisai ik paisaia.

## paisaia (809 agerraldi, 124 liburu eta 218 artikulutan; orobat paisaje 124 agerraldi, 41 liburu eta 7 artikulutan, eta paisai g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian paisaia agertzen da) 1 iz behatzailearen aurrean agertzen den landa zatia, landa ikuspegia.

Espazioa eta **paisaia** ulertzeko modua izugarri aldatu da automobila agertu zenetik. **Bernardo Atxaga**

Hantxe sentitzen omen zen libreen, **paisaiak** baretzen omen zion itzulerak sortutako egonezina. **Anjel Lertxundi**

Zeta finezko errezelen artetik ilargiak argitutako **paisaia** ikusten da. **Xabier Olarra**

Egun hartan ez ninduen **paisaiak** erakarri, nire etxe parean piztu zen argi ttiki batek baizik. **Patxi Zubizarreta**

**Paisaiari** begira gelditu zen gero. **Bernardo Atxaga**

**Paisaia** ere aldatuz doa: horiak berdeari egiten dio leku, lauak aldapari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez dago **paisaiaren** irakurketa naturalistik: ez da kontaktzen ikusten dena eta entzuten dena. **Bernardo Atxaga**

Nicolas Poussin (1594-1665), pintore frantsesa, **paisaia** lirismo amestiz interpretatu zuena. **Koldo Izagirre**

Nork erran du **paisaia** guziak arimaren egoera direla? **Piarres Aintziart**

Edozein **paisaje** ez baita bihotz aldatu bat besterik. **Bernardo Atxaga**

Zure begiek ez dute **paisaje** bat begiz jo besterik egiten, paradisu izan zitezkeen bazter galgarriak oro **paisaje** bilakaturik baitaude denbora jakineko bidaiari ustekoarentzat.

**Iñaki Seguro**la

Elurrak sinplifikatu egiten du **paisaia** : bideak, koloreak, etxeak ezabatu egiten dira, hortik bien arteko harremana. **Bernardo Atxaga**

Bila nazazu **paisaian** : ni naiz beti hurbilduz eta beti hurrunduz doan errekasoinu hori. **Patziku Perurena**

Zerbait hautsi berri da **paisaian** . **Josu Zabaleta**

Irudi zabalean galduta, **paisaian** urtuta, bakar-bakarrik pasa beharko duzu ondorengoa. **Lourdes Oñederra**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gauak hartutako **paisaia** amaiezinak zeharkatzen zituen trenak. **Alberto Ladron Arana**

Constablen **paisaia** hodeitsuak giroari dagokionez dira zirrargarriak. **Josu Zabaleta**

Inguru osoan, **paisaia** iaua, arrea eta goibela zen. **Agustin Otsoa**

Leiho horretatik seguru Bilbo ikusiko litzatekeela, Santutxuko **paisaia** urbano bat. **Joseba Sarrionandia**

**Paisaia** txinatar edo japoniar batzuetan bezala. **Ana Urkiza**

**Paisaia** artikoeke Sahararen antza dute. **Bernardo Atxaga**

Ezin zuen jasan **paisaia** mediterraneo hura. **Iban Zaldúa**

Ibaizabalez beste aldeko burdinazko **paisaia** dekadenteak logura dakarkizu. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Kalamar-latek, hautsontzi beteek, tabako paketeek eta botila metal-urek osatutako **paisaje** kaotiko samarraz. **Jon Alonso**

**Paisaia** beti-berdin horietan, marrazkilari baten arkatzak, ikuspegi berezi baten bila, ez zuen aurkituko zer marraztu. **Karlos Zabala**

Kanpoko **paisaia** naturaletan filmatu diren serieko film zahar batzuei. **Josu Zabaleta**

Egunero zin egiten zuen ez ziola leihoari begiratuko, eta egunero begiratzen zion, izuz, tristoraz, betiko **paisaia** ezaguna ezagutu gabe, hain era bitxian itxuraldatzen zen.

**Jose Morales**

Zelakoa litzateke itsasoko **paisaia** itsasoko ura desagertuko balitz? **Joseba Sarrionandia**

Begirada ere estatuena izan ohi dute: gogogabetua, inguratzen dituzten **paisaia** ametzezkoetan galdua. **Ramon Saizarbitoria**

Egun argitsua da gaurkoa, eta egun argitan ikusi nahi dut nire txikitako **paisaia** sentimental. **Anjel Lertxundi**

## 3 irud/hed

Bizitzaren zoko baztertueta **paisaia** ilunetara. **Xabier Olarra**

**Paisaia** -kasu honetan gure literaturarena- beti ere osatzeaz egongo baita, eta auskalo noren obra izango den gogoratzeak geroen ikuspuntutik. **Ana Urkiza**

60ko hamarkadaren **paisaia** humano eta fisikoaz dago osatua eleberria. **Berria - Kultura**

Baina ez da sinfonia hutsa, sekula guzian bihotzean eramanen dudana **paisaia** polifonikoa baizik. **Patziku Perurena**

Menpekotasunaren **paisaia** aldatzen ari da gure gizartean: asko zabaltzen ari da eta orain askoz menpekotasun mota gehiago daude. **Berria - Gaiak**

Flandesko **paisaia** politikoan eragin handia izan dezakeen epaiketa egiten ari dira Gent hiriko helegite auzitegian. **Berria - Mundua**

Flandesko **paisaia** politikoan eragin handia izan dezakeen epaiketa egiten ari dira Gent hiriko helegite auzitegian. **Berria - Mundua**

Idaztea, tapiz batean **paisaia** osatzea. **Ana Urkiza**

Uzkur joan zen oholtzaren gainetik mahairaino, bataila ondorengo **paisaiari** begira. **Joseba Sarrionandia**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Paisaia** -marrazki batzuetan marren artean pertsonaia ezutuak aurkitu behar izaten diren bezala. **Joseba Urteaga**

Hil herri berde edo **paisai** bazterrak. **Herria**

P.-H. de Valenciennes margolaria bizitiki hartutako **paisaia** -ikuspegi txikitxo batzuk margotzen espezializatu zen 1780 aldera. **Josu Zabaleta**

Bada historia liburua eta bada **paisaia** liburua. *Sur l'eau* irakurri eta xehetasunaz ohartu nintzenez, garraibide berriek itsasontzia bazterreratu ondoren gertatutako **paisaje** aldaketaz pentsatzen geratu nintzen. **Pablo Sastre**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emeki, nik hala-hola ikusten nuen auzo-**paisaiak** amets giroa esaten diogun beste barne-**paisaia** hori sortu zuen. **Koldo Izagirre**

Hainbat minutuz ibili zen, ura papera zapia toallatxoak astintzen, garbitzen eta idortzen, ilargi-**paisaje** hartan. **Jon Alonso**

Udaberri edo udazkeneko mendi-**paisaia** zabal bat ikusi dut neure barruko begiek. **Pedro Alberdi**

Jenerala eta biak bakarrik gelditu zirenean goian, inudea ondoan jarri zitzaion, barandan bermaturik, mendi-**paisaia** bati begira baleude bezala. **Xabier Olarra**

Bizitza elur-**paisaje** bat bezalakoxea dela... **Pablo Sastre**

Halako batean, tximista bat, eta istant batez Santa Klara, Urgull eta Igeldoren soslaiak agertu zaizkio, eta badia bera, amets-**paisaia** batean bezala. **Iñaki Iñurrieta**

Gelan dugun argitze lausoarekin gerraondo **paisaia** erreparatu eta barreka hasi gara, eta musuka. **Joseba Sarrionandia**

## 6 paisaia bat erakusten duen margolana edo kidekoa.

Gainerakoak **paisaiak** dira, inpresionistak, ez dakit norenak. **Mikel Hernandez Abaitua**

**Paisaiaren** generoaren barruan koka dezakegu nire obra hau. **Berria - Kultura**

Koadro gehienak xumeak ziren, tamaina txikiko **paisaiak** edo erretratu errealistak. **Aritz Gorrotxategi**

Cardenasen **paisaiak** mugitzen ari diren irudiak erakusten dituzte. **Berria - Kultura**

Horren aztarren nabarmenak ageri dira margolaritzaren parte handi batean, **paisaiarenean** batez ere. **Josu Zabaleta**

Veneziaiko **paisaiak** dira hirurak, Canalettoen oihal gaineko bi olio eta Guardiaren paper gaineko marrazki bat. **Berria - Kultura**

Mendiak, Euskal Herriko ikur, aldapak, **paisaiako** ezinbesteko osagai. **Berria - Kirola**

Elkarrekin hasi ziren **paisaiak** lantzen [Cezanne eta Pissarro]. **Berria - Kultura**

**Paisaiak** eta erretratuak pintatu behar zituela, oinarriak ikasi. **Alberto Barandiaren**

Orduan ekin ziela hainbat xelebrekeriari, besteak beste, argazkizaletasunari, **paisaiak** pintatzeari geroago. **Bego Montorio**

**Paisaiak** ere pintatzen nituen, eta kale-txokoak; trenen mekanismoen barruan beti ere. **Unai Elorriaga**

Tximiniako apalean, pitxerrak ageri ziren, kobrez landutako **paisaiez** hornituak. **Karlos Zabala**

Lehendabiziko argazki modua erretratuak, **paisaiak** egiteko erabili zen segituan. **Josu Zabaleta**

## paisaiagintza *(corpusean paisajegintza soilik) iz*

**Paisajegintzaren** lainopean galdutako gabilta, eta nik Fernando artzainaren begiradatik puska bat eskatzen dut gure begi inuzentetuentzat. **Iñaki Seguro**la

## paisaiari iz paisaje-margolaria. ik paisajista.

**Paij[s]aiariak** denak taldean, espresionistak: Angel Moraza, Gerardo Armesto, Enrique Pichot, Enrique Suarez eta Jose Miguel Jimeno Mateo. **Berria - Kultura**

## paisaje ik paisaia.

## paisajegintza ik paisaiagintza.

## paisajismo iz paisaiak margotzea.

XIX. mendeko **paisajismoko** izen handietako bat izan zen de Haesena. **Berria - Kultura**

## paisajista 1 iz paisaje-margolaria. ik paisaialari.

Lurraren beste agerkeria gezurrezko bat da "gure bazterrak" dei genezakeena, hots: aurkintza, parajea, paisajea, argazkia; sasoi bateko **paisajistek** ikusi uste zuten natura-puska apaingarri huts bihurtua; Lizardik bultzit-itotik ikusten zuen irudipen hura bera. **Iñaki Segurola**

Herri bidea Iñigo Segurola **paisajistak** zabaldu eta edertuko du. **Berria - Harian**

## 2 parke eta lorategietako paisaiaren disenatzailea.

Frederick Law Olmstead eta Callvert Vaux, Central Park ideatu zuten **paisajistek** diseinaturiko *Prospect Park* erraldoia ere Brooklynen dago. **Harkaitz Cano**

Egundo egindako arkitektura lehiaketarik handienak badu irabazlea: Michael Arad arkitektoaren eta Peter Walker **paisajistaren** *Reflecting Absence* egitasmoa hautatu dute New Yorkeko *World Trade Center* gune ospetsuan 2001eko irailaren 11ko erasoen ondorioz hildakoen omenez ezarriko den monumentu edo memoriala egiteko. **Berria - Kultura**

## paisajistiko izond paisaiarena, paisaiari dagokiona.

Kalte **paisajistiko** gogorrek. **Berria - Euskal Herria**

## paisajistikoki adlag paisaiaren aldetik.

Herria soziologikoki, **paisajistikoki**, ekologikoki... aldatuko dela diote, eta horrelako erabaki bat hartu baino lehen herritarren iritzia entzuteko eskatu diote Udalari. **Berria - Harian**

## paisano iz 1 herrikidea, herritarra.

Ameriketako Estatu Batuek Alemaniaren kontra ez dakit zein gerrari ekin zioten denboran, hiru **paisano** ardo botila batzuen inguruan bilduta zeuden. **Pablo Sastre**

## 2 paisanoz militarrez eta poliziez mintzatuz, kaleko jantzian.

Polizia nazional bat zebilen gertu **paisanoz** jantzita. **Mikel Hernandez Abaitua**

**Paisanoz** jantzia zetorren, pistolaren giderra gerrikopean ageri zuela. **Koldo Izagirre**

## 3 paisanozkosup\_1 izond

"Ekipaje handia eraman al du aldean?" **"Paisanozko** traje batzuk, besterik ez". **Xabier Olarra**

## 4 paisanozkosup\_2 izond/iz poliziez mintzatuz, paisanoz jantzirikoa.

Batzuetan, droga edo lapurretatagik gazteren batzuk detenitzen bazituzten, **paisanozko** poliziek komun horietan sartzen zituzten erregistratzeko. **Iñaki Zabaleta**

Esaten dute sekreta pila bat dabilela, bai zipaioenak bai **paisanozko** pikoloak. **Unai Iturriaga**

**Paisanozkoak** zain neuzkan zubian. **Jokin Urain**

**Paisanozkoek** hirulaurdenekoak eramaten dituzte pipa disimulatzeko. **Unai Iturriaga**

## paisibleki adlag lasai.

Hortakoz, harzak bada godalet hori, eta munduaren edertasun mugarrigabeari topa eginez, solasa eten gabe, **paisibleki**, edanzak hire Arketipoetara igorriko hauen edari mingots, zikuta libre hori **Markos Zapiain**

## paisol ik parasola.

## paita iz ahatea.

Ahate, antzara, **paita** eta halakoen gainean gehiago eta zehatzago dakienik ez du inoiz ezagutu Ernest Hemingwayk, Parisko estudioan hark dituen zirriborroak horren lekuko. **Edorta Jimenez**

**Paiten** urmael ertzetik pasa garenean, bikotea ikusi dugu zirritan. **Urtzi Urrutikoeetxea**

## paja<sup>1</sup> iz adkor masturbatzea.

Neskaren hamaikagarren **paja** zuzenean eta enpalmaturik ikusi ostean, bikote hari agur esan eta bestelako jende taldeei hurrerutzen hasi nintzen. **Jon Arretxe**

## 2 (egin aditzarekin) masturbatu.

-Zer nahi duzu, nik **paja** bat egitea? **Jon Arretxe**

Zenbat **paja** egin dituk udalekuan hagoenetik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta ez egin **paja** lar, txarra da eta. **Jon Arretxe**

## paja<sup>2</sup> ik paia.

## pajaro iz adkor pertsoez mintzatuz axeria, alea, birigarroa.

-Nahikoa badut zu bezalako **pajaro**ei ematen! -Zapero hori ze **pajaro** klase izan zen jakin dezaten -bukatu zuen. **Jon Maia**

## pajatxo *iz adkor paja, masturbatzea.*

-Norbaiti ematea edo norbaitek zuri ematea, edo **pajatxo** batzuk elkarri... **Jon Arretxe**

## paje *(orobat page g.er.) iz jaun baten morroia edo mutila.*

Bitartean, **paje** batek Santxo Panzak bere emazteari idatzitako gutuna eramango dute ezkutariaren herrira. **Patxi Ezkiaga**

Jose Gaintzakoak bi estudiante, bi dontzeila, bi neskame, eta **pagea**. **Patziku Perurena**

Loiolako ibarrean sortu zen Inazio, **paje** izatetik santu bilakaturako hura. **Koldo Izagirre**

Posizio hartan eta bere ile kizkur-kizkurrearekin, mutikoak **paje** bat ematen zuen. **Bernardo Atxaga**

Piak zabalik, izartuta eta busti samarrak zituen begiak, **paje** batena, aingeru batena zirudien bere azal leun haren gainean, begiratu zionean. **Josu Zabaleta**

## pakana *iz tamaina handiko zuhaitza, intxaurren antzeko fruituak ematen dituena.*

Dira anakardoa, arabarba, babakoa, banbua, bergamota, feijoa, getozka, gonboa, guaiaba, karanbola, kardamomoa, kiwanoa, krosnea, kumkuata, lima, litxia, lotusa, mandioka, mangustana, mangoa, marakuia, mirtiloa, naxia, onddoa, **pakana**, papaia, ranbutana, salsifia, soja, tamarilloa, taroa, topinanburra, txaiotea, Txinako patata gozoa, txirimoia, zidra eta beste hamaikatzu ere Euskal Herriko klima desberdinetan, errentagarri gertatzen diren heinean. **Edorta Agirre**

## pakante *iz soila.*

Eremu hutsen, **pakanten** galderak, ez ditu halere gobernemenduak entzuten. **Herria**

## pakatu ik pagatu.

## pake ik bake.

## pakebote *iz posta eta bidaiariak garraiatzeko itsasontzia.*

Begiak igurtzi eta inguruetara begiratu nuen, **pakeboterik** edo kargaontzirik ba ote zebilen inguru haietan. **Bernardo Atxaga**

## pakeoso *izond adkor baketsua.*

Onak, leialak, nobleak, pake osoko **pakeosoak**. **Iñaki Segurola**

## pakeoxo *izond adkor baketsua.*

Gaztea atera daiteke alai, normala, txintxoia eta **pakeoxoa**, hau da, paranoikoa; kontrako eztarriko psikiaterek idoro ziguten hipernormaltasuna paranoiaren era bat dela: beldur ikarante batek harrapatutakoaren izaera normal-normal-normala. **Iñaki Segurola**

## paket ik pakete.

## paketa ik pakete.

## paketaia *iz ipar pusken multzoa.*

Presondegiko puskak eman zizkidaten, **paketaia**: estalkia, mihisea, platera, baxera batzuk, hortzak eta muturra garbitzeko puska batzuk, bizarra mozteko plastikozko tresnak, botatzen diren horietarik. **Filipe Bidart**

Paketa pausatu eta han gelditzen naiz, hatsartzen, ezker eta eskuin begiraten, hainbesteko mugimenduz pixka bat harriturik, eta bat-batean, hamar metroan, ezagun bat ikusten dut bere **paketaia** lurreen pausatzen ari. **Filipe Bidart**

Ene **paketaia** ohe gainean pausatu eta jartzen naiz ni ere ohe gainean, hatsa hartzeko pixka bat eta ene sentimenak ordenatzeko, lasaituz. **Filipe Bidart**

## paketaño *iz ipar paketetxoa.*

Etorzen ahal ez zireneri etxerat eramana izan zaioite **paketaño** bat eta gisa hortan denek plazer hartu dute. **Herria**

## paketatu, paketa, paketazen 1 du ad pakete batean bildu.

Ohetik jauzi egin eta apalategiko gauzak **paketatzen** segitu du, erdi biluzik, bere buruarekin hizketan ibiliko balitz bezala. **Javi Cillero**

Mutilaren gauzak jasotzen eta **paketatzen** lagundu beharko diguzu, Gregory. **Iñaki Zabaleta**

Herritarrek euren ondasunak **paketatu** dituzte, baina euren etxeetan jarraitzen dute. **Berria - Harian**

Bitartean, kaxak egongelan pilatzen ari da, aukerako tresnak eta neguko arropak **paketatu** ahala. **Javi Cillero**

Jakin nahi nuke nola **paketatuko** dugun trastea. **Javi Cillero**

Tankeak upelak ziren berez, pinuzko kutxa handietan **paketatuak** hirurak. **Koro Navarro**

## 2 irud/hed

Beste animalia batzuk, ez baitute ura alferrik galtzeko (haiek, edo haien arbaso urrunek, alegia), asmakuntza argitsu bat egin dute, beren nitrogenoa azido urikoaren moldean **paketatzea** bururatu baitzaie. **Juan Garzia**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Hain barrengarri ikusten zituen, alde batetik, izar haiek, obelisko **paketatu** hura zintzilik zutela [...] non haien gainetik eta zeruko izar guztien gainetik sentitzen baitzen une



## paketatze iz pakete batean biltzea.

**Paketatzea**, etiketatzea edo muntaita txikiak bertan egin ditzakete, esaterako. [Berria - Ekonomia](#)  
Batu baino, ez litzateke egokiagoa **paketatzearen** edo ontzien inguruko araudi zorrotzagoak egitea? [Berria - Harian](#)  
Hondakinen kudeaketarako planak bultzatzeko, **paketatzeak** murrizteko. [Berria - Euskal Herria](#)  
Zeharo jota amaitu dugu **paketatze** lanetik. [Javi Cillero](#)

## paketaxo ik paketetxo.

## pakete (orobat paketa eta paket g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren pakete agertzen da) 1 iz batera biltzen eta lotzen diren gauzen multzoa; hobeki babesteko edo garraiatzeko biltzen eta lotzen den gauzakia.

**Paketea** hartu eta denda atzera sartu zen. [Iñaki Zabaleta](#)  
Bere poltsak eta **paketeak** hartzen ditu Rosalind-ek. [Oskar Arana](#)  
**Paketea** Armandok bidalia, Managuatik. [Joseba Sarrionandia](#)  
Burkoaren ondoan zuen paperezko **paketea** ireki zuen. [Ibon Urbarri](#)  
Saskia **paketeak** biltzeko paper marroi zabal batez estalita zegoen. [Josu Zabaleta](#)  
Zatarki-paper koipezatu batez bilduriko **pakete** bat darama besapean. [Anjel Lertxundi](#)  
-Ondo egin dozu lo, lagun? -esan zidan, lurreko kartoi eta burusiekin **pakete** bat egiten zuen bitartean-. [Jon Arretxe](#)  
Berak ekarritako **paketeak** zabaldu zituzten. [Koro Navarro](#)  
**Paketa** eskuan, emaztea bera gorderik zegoen eskualdera abiatu zen. [Elena Touyarou](#)  
Atondoan zutik dago, **pakete** batzuk besoetan dituela. [Xabier Paya](#)  
Logalez, astunak sentitzen zituen besoak eta astunagoa **paketea**. [Iñaki Zabaleta](#)  
Alderdi sozialistaren egoitzako ate aintzinean, Bourgneuf karrikan, auzoek ikusi duten **paketari** susmo txarra harturik poliza abisatu dute. [Herria](#)  
Gizona, andrea eta bi ume [...] maleta edo **paketeen** gainean eserita denak. [Joseba Sarrionandia](#)  
Droga 69 **paketetan** banatuta zegoen. [Berria - Euskal Herria](#)

## 2 (izenondoekin)

Mostradoreko kaxoitik **pakete** handi samar bat hartu zuen. [Joxemari Urteaga](#)  
Bere kartera hartu eta oihal zakarrezko **pakete** luzanga bat atera zuen. [Alberto Ladron Arana](#)  
Soldado batek ateko leihatilatik **paketa** ttipi bat eman zidan. [Marzel Etxehandi](#)  
Bertatik periodiku orri batean bildutako **pakete** ttipi bat atera du. [Pello Lizarralde](#)  
**Pakete** ñimiñoak eskutik eskura aldatzen ziren axkar-axkar, txutxu-mutxuka beti. [Karlos Zabala](#)  
Nik ez nuen uste horrenbeste lan emango zuenik **pakete** koxkor honek. [Berria - Kultura](#)  
**Pakete** karratuak, zilindrikoak, punta-zorrotzak. [Jon Muñoz](#)  
**Pakete** borobil bat zeraman agure bat besterik ez zen tren hartatik jaitsi. [Joxemari Urteaga](#)  
Hiritar batek **pakete** susmagarri bat ikusi zuen Kandahar hego-ekialdean kokatua den Manzalbat auzuneko merkatu lekuko sal-mahai baten azpian. [Berria - Mundua](#)

## 3 (edukia adieraziz; ik beherago 6)

Lucyk tea zerbitzatzen dio, eta jenjibre-gaileten **paketea** eskuratzen dio. [Oskar Arana](#)  
'Pepito' txokolatzeko bixkotxa bi **paketa** osorik jan zenituen eta desesperaturik oheratu zinen. [Ramuntxo Etxeberri](#)  
**Pakete** bat, jatetxeko sukaldetan osturiko janariz betea. [Eskarne Mujika](#)  
Kaja bat azukre, eta kafea... bi **pakete** nahikoa. [Pablo Sastre](#)  
**Pakete** horretan bost kilo dinamita daude. [Koldo Biguri](#)  
Igor bestalde mezulari hauekin 20 **paketa** kartutxa. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)  
Zenbat **pakete** ez ote zion Manueli kartzelara bidali bere dendako jenero onenentsuarekin! [Pedro Alberdi](#)

## 4 irud/hed

Eta gabonetako oporraldiaren amaierak **pakete** turistikoaren salneurriak jaiste ere ekarri zuen. [Berria - Ekonomia](#)  
Edurnezurik bere ipoxaren akzioen **pakete** bat erosi duela zioen zurrumurru bat izan zen igoeraren eragilea. [Berria - Ekonomia](#)  
Baina bonbilla bat piztean, energia **pakete** txikiak balitz bezala jokutzen du argiak. [Berria - Harian](#)  
Nodotik nodora, mezuak **pakete** ezberdinetan bidaltzea zegoela pentsatu zuten. [Berria - Gaiak](#)  
Hona etortzen da beste edozein herrialdetara joango balitz bezala, azaleko diskurtsoekin, **pakete** hutsekin, eta hemengo galderei erantzunik eman gabe. [Berria - Euskal Herria](#)

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jaffer-en ametsa handi denean **pakete** -eramaile ofiziala izatea da. [Gotzon Garate](#)  
Juana **pakete** -mandataria da; neska bizipozgarri asteburuetan soilik. [Joxe Austin Arrieta](#)  
Biharamun goizean esnatu zenean, hala ere, lehenengo ikusi zuen gauza **pakete** -pila txiki bat izan zen. [Iñaki Mendiguren](#)  
- Hiru gizonen **pakete** -bonba baten pare, karrikara aurtiki nindutenean. [Itxaro Borda](#)

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Gaizki iruditzen ez bazaio, saltzen dudan laugarren egunkari **paketea** da -txistukatu zuen Pepponek, dirupaperak aletzen jarraituz. [Koldo Biguri](#)  
Euretako asko une berean ibili ziren airean, merkantzia **paketeak** bezala, eskutik eskura. [Julen Gabiria](#)  
Saxok, kleenex **paketeak** eskuan, bera despeditu eta, kaltzadara egin zuen. [Pablo Sastre](#)  
Alboan makarroi **paketea**. Kuskus-**paketez** eta harisa-kutzaz betetako apalen artetik eraman zuen Léak besaulkia. [Jon Muñoz](#)  
Amaginarrebak prestatutako kroketa-**pakete** bat izozkailutik atera, eta bazkari bizkorra prestatu dut. [Iban Zaldúa](#)  
Janari eta edari-ilarak, pate-kaxak, gaileta-**paketeak**. [Joseba Urteaga](#)  
Malfoyri bere hontz handiak etengabe ekartzen zizkion etxetik gozoki-**paketeak**. [Iñaki Mendiguren](#)  
Hitzik esan orduko ateratzen du Mikelek bonboi **paketea** kotxe barrutik eta eskura luzatzen dio. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
Kobrezko ontzia ura berotzeko, saltxitxa-**pakete** zanpatu samar bat, su-pala, te-ontzia. [Iñaki Mendiguren](#)  
Guk 1919ko ardo botila bat oparitu genion, Van Daandarrek [...] piccalilly pote bat eta bizarra mozteko xafila **pakete** bat. [Josu Zabaleta](#)  
Komisariaren lau izkinatan dinamita **paketeak** plazatu zituzten. [Itxaro Borda](#)

## 7 kartoizko kaxa txikia, 20 zigarreta dauzkana.

**Paketetik** azazkal gerrietar bat hartu eta piztu zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egunean hiru **pakete** erretzeak kontzientzia gaiztoa ematen ziolako. **Ramon Saizarbitoria**

Zigarro bat pizteko gogo bizia sortu zitzaidan, baina ez nuen eskua **paketeraino** luzatu. **Bernardo Atxaga**

**Paketeko** azken Camela jo zuen. **Unai Iturriaga**

Marlboro **paketea** atera zuen kaxoi batetik. **Unai Iturriaga**

Letiziak poltsikotik zigarro **paketea** eta kartera atera zituen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Mahaipetik, tabako **pakete** bat baino gutxi handiago zen zerbait pasatu zion plastikozko poltsa batean bildua. **Unai Iturriaga**

## 8 *adkor* gizonetzkoen ernal organoak.

Ekintza eta hotsa ondo lotzen asmatu behar: esate baterako, titi txiki batek txintzarri hotsa izan dezake, eta ipurdi handi edo **pakete** nabarmen batek bozinaarena edo *mok-mok* durundatsua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bere burua, bere bizepsak, bere abdominalak edo bere **paketearen** neurria. **Jon Arretxe**

Aurpegia zuriz pintatuta eta maila beltz batzuekin **paketea** markatzen zuten morroi bi. **Unai Iturriaga**

Praka bakero estuak **paketea** markatzeko, kamiseta are estuagoa gimnasioan landutako bizeps eta pektoralak nabaritzeko. **Jon Arretxe**

## 9 *triste paketa ipar* zorigaitzokoa.

**-Triste paketa** ! -ihardetsi zion Mikelek autotik ateratuz-. **Ramuntxo Etxeberri**

**Triste paketa** halakoxea! **Itxaro Borda**

Eta zu, **triste paketa** ...? **Ramuntxo Etxeberri**

Ez duzue Euskal Herriko laborantza ganberarik nahi? hogeii udalek kakahuete batzuk eman dituztelako, denbora galduko duzue haiek auzitan ezartzen? **triste paketa** batzuk zarete! **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**camel pakete** (4); **camel pakete bat** (4); **ducados pakete** (4); **pakete bat atera** (14); **pakete bat erosi** (5); **pakete borobil** (3); **pakete handi** (9); **pakete handi bat** (6); **pakete osoa** (4); **pakete txiki** (3); **tabako pakete** (11); **tabako pakete bat** (6); **tabako pakete baten** (3); **winston pakete** (4); **winston pakete bat** (4); **zigarro pakete** (17); **zigarro pakete bat** (7)

**paketea atera** (15); **paketea atera zuen** (7); **paketea eman** (6); **paketea eskaini** (3); **paketea hartu** (6); **paketea ireki** (4); **paketea ireki zuen** (3); **paketea jarri** (3); **paketea luzatu** (3); **paketea zabaldu** (4); **tabako paketea** (13); **zigarro paketea** (12); **zigarro paketea atera** (6)

**zigarro paketeak** (3)

**zigarreta paketa** (6); **zigarreta paketa bat** (4)

## paketedun *izlag* paketea duena.

Zutik, estutasunarengatik gorputza ezin higituz, **paketedun** poltsa gerri ondoan segurtatuz, South Bronx-erantz zihoan Joseba. **Iñaki Zabaleta**

Galtzarbean gabardinaz eta besoaz **paketedun** poltsa erdi ezkutatuz, "behar dena bedi", ibiltzen hasi zen, gorputza zuzen, aurpegia lepokoan erdi gorderik. **Iñaki Zabaleta**

## paketeetaratze *iz* paketeetan biltzea.

Beste neska batek ur-txorrotean hozten zituen molde-ontziak, eta bakoitzetik ezpain-margozko hogeii zilindrotxo gorribizi ateratzen zituen; beste batzuek, azkenik, apaintze eta **paketeetaratze** lana zuten beren kargu. **Juan Garzia**

## paketegintza *iz* paketeak egitea.

Ezinduekin osatutako lehen enpresa sortu da Tacal Fundazioaren barruan; ezinduez osatutako Txileko lehen konpainia, beste enpresei zerbitzuak eskainiko dizkiena, adibidez, **paketegintzan**. **Berria - Euskal Herria**

## paketetxo (*orobat paketaxo g.er.*) 1 *iz* pakete txikia.

Bigarren **paketetxoa** zabaldu nuen. **Txillardegi**

Opari gisa bildutako **paketetxoa** eskaini zion. **Josu Landa**

Jostailu bat bezalakoa zen, ezin Eguberri egunera arte itxaron, bezperan ireki beharra zegoen **paketetxoa**. **Berria - Kirola**

Arinago hasten da Letizia **paketetxoa** askatzen bere gelarako bidean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gutunarekin batera **paketetxo** bat ere jasoko duzu, Patri, gorde ezazu ongi. **Hasier Etxeberria**

Bakoitzean **paketetxo** bat zegoen, paperez bilduta, bere jabearen helbidearekin. **Josu Zabaleta**

**Paketetxo** bat garraiatu behar duzu. **Iñaki Zabaleta**

Onartu behar dut eskuetan izan nuenean -ideia erlikiak berak eman balit bezala-, **paketetxo** bat egin eta Arana Fundaziora igortzeko asmoa bururatu zitzaidala ohar labur batekin, zeinean, argibide asko eman gabe, Sortzailearen hezurra zela azalduko nien. **Ramon Saizarbitoria**

Hoa hire baxuarekin Gasteizera, emaiok **paketetxoa** eskatzen dianari, eta akabo! **Unai Iturriaga**

Biotako batek nik jaso beharreko **paketetxo** bat eduki behar luke. **Unai Iturriaga**

## 2 (hitz elkartuetan)

Leire Marie Claire aldizkaria irakurtzen, bareago, sosegatuago, alboan gaileta **paketetxoa** zabalik duela. **Patxi Iturrítegi**

## paketetzar 1 *iz adkor* pakete handia.

Berrogei bat **paketetzar** guztira, ez pisu handikoak, ez, baina bai lana eman zutenak. **Paddy Rekalde**

## 2 (hitz elkartuetan)

-Etzan zaitzete hirurak hor, gusanito **paketetzarren** artean, eta geldi egon. **Jon Arretxe**

## paketta *iz ipar adkor* paketetxoa.

Hor berriz baditugu presuna batzu gure aiduru azken agur baten egiteko eta ere **paketta** batzu gurekin igortzeko hemengo kusier. **Herria**

## pakeurruti *izond*

Esan zidak, **pakeurruti** horrek: 'Kentzak elur hori hortik.' **Pablo Sastre**

**pakidermo** *izond/iz* ugaztun arkiodaktilez mintzatuz, oso azal lodia eta gogorra duena; horrelako ugaztunak biltzen zituen taxon zoologiko ohia.

Makina bat abelgorri, bertze hainbeste felino, saguzar saldotxo bat, suge dezente, zenbait kaiola bete tximino, **pakidermoren** bat edo, hamaikatxo hegazti, kakalardo multzo handi bat, anitz armiarma, arkakuso ugari eta abar eta bertze. Jose txo Azkona

Deinoterio [...]: iraungiriko **pakidermo** bat, *Pterodaktiloa* boladan zegoenean ugaldu zena. Xabier Olarra

Asiako **pakidermo** espezierik txikiena da, eta soilik uharte horretan bizi da. Berria - Gaiak

**pakistanar** ik **pakistandar**.

**pakistandar** *(orobat pakiztandar g.er. eta pakistanar g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian pakistandar agertzen da)* **1** izlag Pakistangoa, Pakistani dagokiona.

Mila **pakistandar** gudarik muga pasatu dute talibanekin gudueta parte hartzeko. Herria

Erakutsi digute zer diren **Pakistandar** familia baten gora beherak Bradford Ingalaterrako hiri batean. Herria

Marwani, eroa, **pakistandar** galletak saltzen dabilena, oihuka ari da: "Kanpora kolonialismoa! Gora Maroko independentea! Al Dihad, Al Dihad!". Pablo Sastre

Haurdunaldiaren bederatzigarren hilabetera hurbiltzen ari da emakume **pakistandarra**. Harkaitz Cano

Bat harrera etxe batean eta besteak etxe okupatu batean, eta pilatutako amorru guztia bizilagun **pakistandar** batek jasan beharko du. Berria - Kultura

**2** iz Pakistaneko herritarra.

Albaniarrekin, **pakistandarrekin** eta indiarrekin trafikatzan zuten normalean. Berria - Gaiak

Glasgow elkartzan diren **pakistandar** baten eta irlandar katoliko baten arteko amodio istorioa. Berria - Kultura

Mendebaldeko komunitateak lortua zuen indonesiarrekin ondo moldatzea, hauek japoniarrengandik askatzea lortu ondoren, eta bere borondatez utzi zuen filipinarren, zingales, birmaniar, indiar eta **pakistandarren** gain zuen agintea. Iñaki Mendiguren

Noraezean dabilzan **pakistandar** hauei badugu zer eskertu. Iñigo Aranbarri

**pakiztandar** ik **pakistandar**.

**paktatu**, pakta, paktatzen du *ad* itundu, ituna egin.

CiU Kataluniako gobernua lehertzen saiatzen ari da, gero PPrekin **paktatzeko**. Berria - Mundua

Aukera ineditoak ere aztertu behar dira, interesak eta ideia kontrajarriak negoziatzeko eta **paktatzeko**. Berria - Euskal Herria

**paktismo** *iz* paktuen aldeko jarrera.

**Paktismo** lotsagarri bat iruditzen zitzaigun erreforma onartu izana, gerra garaiko gudariek sekula egingo ez zuketena. Xabier Mendiguren Elizegi

Imazentzat **paktismoaren** ikurra astintzea epe luzera bere proiektu politikoaren porrota izan litekeen bezala, subiranotasuna ikur sinboliko hutsa bihurtzea ere ez litzake, agian, ezker abertzalearentzat mesedegarria. Berria - Euskal Herria

**paktista** **1** *izond* paktismoarena, paktismoari dagokiona.

Historian zehar Euskal Lurraldeen eta Estatuaren arteko harreman moldea markatu duen espiritu **paktistaren** barruan. Berria - Harian

**2** paktismoaren aldekoa.

EAJk duela urte batzuk zituen jarrera autonomista eta **paktistengandik** apur bat urruntzea lortu dugu. Berria - Euskal Herria

Gure alderdia beti **paktista** izan da. Berria - Euskal Herria

**Paktista** samarra bere alderdiko guztiak bezala, baina jatorra." Bernardo Atxaga

**pakto** ik **paktu**.

**paktu** *(orobat pakto g.er.)* **1** iz hitzarmena, ituna.

Ez **pakturik** ez erreformarik, askatasuna irabazi egin behar dugu. Berria - Harian

Hemen hitzarmen bat egon da, enpresarioak eta banketxeetakoak ez ukitzeko **paktu** bat. Pako Aristi

Alemaniak eta Frantziak ihes egin zieten Egonkortasun Ituna hausteagatik **paktu** horrek berak aurreikusten zituen zigorrei. Berria - Ekonomia

Herrialde bakoitzaren kasua banan-banan aztertuko du Bruselak **paktua** hausteagatik prozedura bat zabaldu aurretik. Berria - Ekonomia

**Paktu** bat egin zuten biek: aukera zuenak, ihes egingo zuen; ahal bazen elkarrekin, bestela bakarrik, eta atzera begiratu gabe. Anton Garikano

-Batzuek diotenez, Luthek **paktu** bat egin omen zuen Azpimunduarekin, eta geroztik bere izpiritua han azpian bizi da, bere gorputza lur azalean dabilen bitartean. Joanes Urkixo

Demagogia egitea da, zergak ordaintzen dituztenen diruarekin irresponsablea eta ideologizatua den **paktu** bat finantzatzea. Iñaki Heras

Neurrian, ardurari eta **paktuan** oinarritutako alternantziaren alde. Berria - Euskal Herria

Sozialistek Europako Talde Popularrarekin sinatu zuten **paktuari** esker. Berria - Mundua

**Paktuari** tinko eta leial eutsi. Anton Garikano

**Paktu** antzeko bat da; Moralesek transnaziionalen eta gobernuaren interesak ukitzen ez dituen bitartean, gobernuak edozein gauza egingo du Moralezen interesen alde. Berria - Mundua

Hi Ajuria-Eneako **Paktuko** zerri nazkagarria haiz, baina majoa haiz. Iban Zaldua

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

EAJk «interes hori du estatuarekin **paktu** berria egiteko» azaldu zuen Aizpuruk. Berria - Euskal Herria

Katalunian, [...] azkenik, **paktu** politikoek taburetea osatu zuten hiru alderdi ordezkatzan zituzten hiru buruzagirekin. Berria - Euskal Herria

Inoiz aipatu gabeko **paktu** tazitza bide genuen. EAJk Espainiako Gorteetarako dituen helburuak azaltzeaz gain, martxoaren 15etik ondorengo uesteko **paktuez** ere mintzatu zen Josu Jon Imaz EBBko lehendakaria atzo, kazetariekin eginiko gosarian. Xabier Mendiguren Elizegi

## pala 1 iz gider bati loturiko zurezko edo metalezko xafra zabal batez osaturiko lanabesa.

Lurrean hor eta han kapazo bat, errejzako hesi txiki bat, borra, **pala**, paletak, taladroa eta beste zenbait tresna eta erreminta. Pablo Sastre

**Pala** eta aitzurra eman zizkioten lan tresna gisa. Eneko Bidegáin

Hogeita hamar inguru ziren, **pala** eta pikotxekin; gu ez gintuzten ikusten lizar atzean geundelako. Koldo Biguri

Bi arlote sartzen dira, aitzurra eta **pala** eskuetan. Juan Garzia

**Pala** eta eskuarea beharko genituzke. Itziar Otegi

**Palaren** xafriari oinarekin bultzaka, ikatzez bete nuen. Anjel Lertxundi

Lubis, Opin eta osaba Juan bera **palarekin** lurra bota eta bota. Bernardo Atxaga

Zorua garbitzen eta lokatza **palaz** ateratzen. Oskar Arana

Azpiak egiteko **pala** harturik, ukuiluko simaurretan sartu zuen kirtenaren barreneraino. Anjel Lertxundi

Lubakiak egiteko **pala** hondoraino sartu dut eta arratoi-habia oso bat agertu zait bat-batean. Mirentxu Larrañaga

Labea itxi genuen, eta ikatz metan sartu zuen **pala** behin eta berriz Antonek, Anton Patiñok. Koldo Izagirre

Hartzak ba **pala**, esan zuen Gastonek, eta berdindu ezak horko zulo hori... Pablo Sastre

Makurtu egiten zara adibidez erratza pasatzen ari zarena hautsak **palara** biltzeko. Harkaitz Cano

**Pala** airean hartu eta, amorrazioz, kolpe lehor bat eman nion bizkarrean. Anjel Lertxundi

Loritoak sakabanatutako harea **pala** batekin biltzen. Anton Garikano

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pala** -antzeko eskuak zituen, eta maiz ikusi ohi genuen herrixka ingurunean. Mirentxu Larrañaga

Makila bat bezain mehea zuen gorputza, eta **pala** itxurakoa aurpegia. Koro Navarro

Mota guztietako bizarrak: **pala**-formakoak, haizemaile-itxurakoak eta mutur-bakarrak. Jose Morales

Beharbada hartxintzar-gurdia entzun dut, **pala**-soinua hartxintzarretan aztarrika-edo. Joxe Austin Arrieta

Hark zienez, hildakoa, **pala**-kolpeak buruan jota zauriturik sentitu zenean, leihora joan zen lasterka, laguntza eskatzera. Josu Zabaleta

Aitzur eta **pala** ukaldien harramantzak aditzen ziren berriz. Itxaro Borda

Billy Jonesek uso bat **pala** kolpeka nola hiltzen zuen ikusi nuen. Koro Navarro

Azpiak egiteko **pala** lana, eta asketako sarde lanak amaitu ondoren, Eligio [...] lasto pila batean etzatera joan zen. Josu Zabaleta

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gela horren erdian sutontzi bat, hauts-**pala** zikin bat eta leihoraino iristen zen odol orban sail bat zeuden. Josu Zabaleta

Bera aitzurraz garri-**pala** bat ateratzen ari zen bitartean makal zati batetik, Chico korrika heldu zen. Koldo Biguri

Burdina-**pala** eta eskuarea behar dira, lurra marraskatu eta sendo berdinduko dutenak, ongi lautu eta berdindua geratu arte. Joan Mari Lekuona

## 4 hainbat tresnak dituzten atal lau eta zabaletako bakoitza.

Amarrak askatu, *steam-boat*aren gupil indartsuek bere **pala** artikulatuz ura astintzen hasi, eta *Kaukaso* lurren ontzia bizkor-bizkor lerratu zen Nijni Novgorod osatzen duten bi hirien artean. Karlos Zabala

Lotan zeuden ordurako kasik zubiko bidazti guztiak, eta isiltasuna **palen** soinuak baino ez zuen urratzen, ura jo eta jo, tarte erregularrez. Karlos Zabala

Astehenean eiherek berreskuratua zuen bere ahotsa: areago, arin eta alai egiten zuen burrunba, soinu bete-bete eta jarraitu batez, **pala**-eihera batean mantenu txarra edo osasun txarra salatzen duen tratatu eta moteltze erritmiko hori gabe. Juan Garzia

Turbina bertikalak eta **pala** kurbadunak erabili nahi dituzte. Berria - Gaiak

Eihera, normalean hain zalapartatsua, ia gogoz kontra hasi zen higitzen, susmo txarreko isiltasun batean, **paletan** itsasten zen ore jelatinatsuak trabaturik. Juan Garzia

## 5 pilotan jokatzeko tresna, heldulekuaren muturrean mehea eta bestean aski zabal den zurezko atal batez osatua. ikpaleta 5.

Amaren txanda zen; hantxe joan zitzaizkion buru gainetik hegan **pala** eta pilota. Koro Navarro

Horrez gain koaderno eta bolaluma, idatzi beharrekoak idazteko, eta nahi zuenak **pala**, ordu libreetan pilotalekuan ibiltzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Mutiko batek letoizko **pala** txiki batez airera bota zuen pilota harrapatu zuen, eta atzera itzultzera altxatu zen. Koro Navarro

Nobelaren amaieran Joseba Gotzonek bere **pala** eta Moniqueren erraketa gurutze gisa erabiliz lortuko duelako Valeri menperatzea. Jon Arretxe

-Kriketean jokatzeko **pala** batek. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 6 pala erabiltzen den pilota-jokoa.

Denbora dudanean, **palan** jokatzeko dut gogoko, asko gustatzen zait. Berria - Kirola

Hamaiketako egitera joaten naiz, eta lehenago **palan** ibili behar badut, gustura jokutzen dut. Berria - Euskal Herria

**Palan** ari ziren gazteek gustura egin dute etenalditxo bat. Berria - Euskal Herria

Modalitateak: Eskuz banaka, eskuz binaka, zesta-punta, **pala**, paleta gomaz, paleta larruz eta **pala** motzean. Berria - Kirola

Pilotazaleok **pala** ikustera joanaz edo jokatzuz, erakundeek **pala** bultzatuz eta komunikabideek **pala** zabalduz. Berria - Kirola

Aitor Totorikak **pala** utziko duela jakinaraziko du gaur. Berria - Kirola

Gaurkoan, **palan**, Fusto eta Garrido Iriondo eta Rekalderen aurka arituko dira. Berria - Kirola

**Palako** zein zestako finalak bihar izango dira Bilboko Deportivon. Berria - Kirola

Gaubeka-Galanentzat da **palakoa**, Urkia-Lujani irabazita (45-44). Berria - Kirola

## 7 (izenondoekin)

Paleta larruz, **pala** motza eta zesta modalitateetan. Berria - Kirola

**Pala** lodian Biarritzarrak xapeldun, Kanboarrak garaiturik. Herría

11etan **pala** zabalezko pilota partida. Herría

Berdin Beñat Bareits,gerla ondoko hogoi bat lehen urtetan pilotari arraroa izana, **pala** handian eta pala-kortan bereziki. Herría

Nire uste apalean, **pala** luzearen kirol izugarri zail eta eder honetan beti izan dira, eta gaur ere badira, pilotari onak, nor bere dohain eta hutsuneekin, baina joko ona erakusteko gai direnak. Berria - Kirola

Aitor Totorikak **pala** profesionala kudeatzeari utziko dio ekainaren 1ean. Berria - Kirola

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hogeita bi urtetan **pala** mundua izugarri aldatuko zen, ezta? Berria - Kirola

Federazioek ez dute ezertan laguntzen, [...], ez dago **pala** eskola ofizialik... Berria - Kirola

Hortzak estututa aritzen da proiektu guztietan, dela unibertsitateko doktore-tesian, dela lagunarteko **pala**-partiduetan. Xabier Etxabe

Bilboko Deportivoko **pala** jaialdiak. Berria - Kirola

Plaza laxoko **pala** lehiaketa Lekornen. Herría

Donamartirín, **pala** antxa lehiaketaren hiru finalak abendoaren 20an iraganen dira Bilbo Hiria **pala** torneoaren lehen finalerdia. Herría

Aurtengoan lehenengo eta bigarren mailako Euskal Herriko **Pala** Txapelketak jokatuko dira. Berria - Kirola

Gaur hasiko da Euskal Herriko Banakako **Pala** Txapelketako sailkatze fasea. Berria - Kirola

Larunbatean jokatuko da Binakako Euskadiko **Pala** Txapelketako finala. Berria - Kirola

Bost bikotek hartuko dute parte Binakako **Pala** Txapelketan. Berria - Kirola

Buruz buruko **pala** txapelketako bi partida jokatuko dira gaur arratsaldean Bilboko Deportivo frontoian. Berria - Kirola

Aurtengoa izango du bigarren ekitaldia Euskadiko Zortzi t'erdiko **Pala** Txapelketak. Berria - Kirola

Etzi hasiko dira Gabonetako Urrezko **Pala** eta Zesta Torneoa. Berria - Kirola

## 9 (arraunarena)

Ez zekien **pala** airoski higitzen, arraunketaren balleta hausten zuen beti, beti gibelesko erramua jotzeko irian. Koldo Izagirre

Helizea martxan hasi zen, eta lema **palak** abor egin zuen, maliobra dotorea egin zuen moila trasatlantikoan atrakatzeko. Koldo Izagirre

## 10 (bestelakoak)

Elurra kentzeko 62 makina, 20 traktore eta **pala** mekaniko. Berria - Euskal Herria

**Pala** hori suhiltzaileen ibilgailu bati egokitzen zaio. Berria - Euskal Herria

Herriko Etxeko 60 langile prest dira hasteko fiul opil bilketa lanetan, kamioi eta trakto **pala** tresnekin, beti ere su hiltzaileen gidaritzapean. Herria

Lau bala zulo zituen okinak: bat sorbalda inguruan, beste bat ipur-masailean, beste bat aurregian, eta bestea **pala** iliakoan. Berria - Euskal Herria

## 11 *pala-korta* ik *palakorta*.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitzur eta pala** (4); **aitzurra eta pala** (3); **banakako pala txapelketako** (11); **binakako pala txapelketa** (5); **binakako pala txapelketako** (11); **euskadiko pala txapelketako** (12); **hauts pala** (3)

**pala antxa** (3); **pala bat hartu** (3); **pala eta zesta** (4); **pala finalerdietako** (3); **pala hartu** (4); **pala lehiaketaren** (3); **pala motzean** (6); **pala profesionala** (3); **pala torneoko** (4); **pala txapelketa** (15); **pala txapelketak** (4); **pala txapelketako** (53); **pala txapelketako finala** (4); **pala txapelketako partida** (8); **pala txapelketako partidak** (4); **pala txapelketako sailkatze** (6); **pala txapelketaren** (8)

**urrezko pala** (8)

**hauts palak** (5); **palak eta ixipu** (4)

**urrezko palako** (8)

## palada iz arraun palaren higidura.

Beraz, branka erreka aldera jarri eta **palada** gutxitan heldu ginen. Ramon Saizarbitoria

Abantean hasi zen inoiz baino kukutuago, luze eta erdi aitzinatzen genuela **palada** bakoitzean, eta azala maltrata gabe, gozo, isilean. erritmoa hartu, **paladei** eutsi, ziaboga behar bezala egin, besteen lana zaindu... Koldo Izagirre

Bermeotarrek azken bi **paladetan** aurreratu baitzituzten hondarribarrak. Berria - Kirola

Estropada luzeetan erritmo jakin bat hartu behar izaten da: hainbeste **palada** minutuko. Berria - Kirola

Negua delako, 24-25 **palada** ematen dituzte minutuko. Berria - Kirola

Oso indartsu atera ginen, eta ia hamar minutuz 40 **paladatan** joan ginen. Berria - Kirola

31 **paladan** etorri gara. Berria - Kirola

## paladin *(orobat paladino g.er.)* 1 iz borondatezko zalduna, gerran bere egitandiengatik nabarmentzen zena.

**Paladinek**, beti armatuta gazteluz, gotorlekuz eta lapurrez betetako eskualde batean, bidegabea zigortzen eta ahulak defendatzen aurkitzen zuten ohorea. Iñaki Iñurrieta

Halako batean, Aita Froilani aurre egin dio erregearen **paladin** batek, eta ezpata zorrotik ateratzeko keinua ere egin du. Martin Anso

## 2 Karlomagnoen jarraileiako zalduna.

**Paladinak** banaka bidaltzen jai zuela ikusirik, Karlomagno binaka bidaltzen hasi zen. Martin Anso

## 3 (adizlagun gisa)

Karlomagno Holger printzea aukeratu zuen **paladin**. Martin Anso

## 4 norbaiten edo zerbaiten defendatzaile sutsua.

Menéndez Pelayo ortodoxiaren **paladinoak** baino ez dute gutxiago aintzesten eta begiratzen izpiritu espainol hori beren propositoetan Sanz del Río eta jarraiketari krausistek. Joxe Azurmendi

## paladino ik paladin.

## paladun *izond* pala duena; palak dituena.

Automobileko ur-ponpak, adibidez, gurpil txiki **paladun** bat dauka, motorraren eraginez mugitzen dena. Irene Aldasoro

## palafernero ik palafrenero.

## palafrenero *(orobat palafernero)* iz zaldizaina.

Jaun honek bere odoleko abade bati utziko zion elizaren gobernua, eta maiz abadearekin batera, eliz barranean bizitzen ziren bere familiarro guziak: gizon, emakume, haur,

**palafrenero**, hegazti harrapari, zakur ehiztari... Patziku Perurena

Ene bigarren amorioa mendozatarren etxeko zaldizaina eta **palafreneroa** izan zen Joan Mari Irigoien

## palaka *adlag* palarekin, palekin.

Lanik ez elurra etorri arte, orduan kaleak **palaka** garbitzeko lanak hasiko dituk eta. Lopez de Arana

Halako kargamentua franko zaila duk kamionaren kajeran berdin samar uzten, inor ez daukak han **palaka** edo sardeka heure lanaren kuxidada eginen, eta kajeraren edo bagonaren bazter samarrean zabaltzen diagu aunitz aldiz. Koldo Izagirre

# palakada 1 iz pala batearen edukia.

Aski izan zituen hamar **palakada** zakua gainezka uzteko. [Anjel Lertxundi](#)

Azken **palakadarekin** ikatza parrillaren ertzeraino ailegatu zen. [Fernando Rey](#)

Lehenengo **palakadak** antzuak izan ziren, gerokoak ere bai, hurrenek hartxintzar ziztrinak besterik ez zekartzaten, baina inor etsitzerainoko ahaleginak eginda abailduta zeudela, saria jaso zuten: zilarra! [Berria - Kultura](#)

Ahalik eta hondar busti gehien hartu eta **palakadak** botatzen genituen haizaldera. [Pako Aristi](#)

Entzumenari jarraiki, beren norabidea aldatu eta berriro ere lanari ekingo zioten, **palakadaz palakada** batzuek eta pikotxaz beste batzuek, sekula baino indar gehiagoz. [Harkaitz Cano](#)

## 2 (neurri gisa)

Léonek zenbait **palakada** ikatz bota berriak zituen. [Karlos Zabala](#)

## 3 irud/hed

Lehen mareajea zuen, arrabak zeuzkan gazte hark, eta gainerakook baino **palakada** batzuk zentzun gehiago buruan. [Koldo Izagirre](#)

## 4 (hitz elkartuetan)

Suginek ikatz **palakada** batzuk bota zituzten galdara azpira. [Fernando Rey](#)

Azken lur **palakadak** kutxa estali zuenean, Pedrok buelta erdia eman eta pauso batzuk atzera egin zituen, hilobi zahar eta berrien artera. [Jon Maia](#)

## 5 pilota-jokoan, pala-ukaldia.

Bere eskumutur miragarriaz pozoitu egiten zituen bere **palakadak**. [Berria - Kirola](#)

# palakatu, palaka, palakatzen du *ad* palaz jaso edo mugitu.

Portuko gauzak kontari hasi ginen, zeinen motela zen izotza **palakatzen**, nola gelditzen zen ahoa zabalik atako bandara hartzen zuten ontziei beha, zenbat korapilo mota ikasi zituen. [Koldo Izagirre](#)

# palakorta (*orobat pala korta*) iz pilota-joko mota, pala motzean egiten dena.

Ortziralean, aratsaldeko 7-ak eta erdietan lehenik, bi partida **palakorta** jokoa, ofizioko batzuekin, eta igandean, aratsaldeko 6-etarik goiti, **palakorta** finala ortziraleko irabazleen artean, eta gero esku-huskariak, ez normahi, Xala eta Goñi alde batetik, Gonzalez eta Barriola bestetik! [Herria](#)

Gure herriko profesional bakarrak, Zazpisakek sinaturiko **palakortako** tresna beldurgarri hura edukiko zuen eskuan Hilariok. [Koldo Izagirre](#)

Berdin Beñat Bareits,gerla ondoko hogoi bat lehen urtetan pilotari arraroa izana, pala handian eta **pala-kortan** bereziki. [Herria](#)

# palangana ik palankana.

# palanka 1 iz puntu batean bermatzen eta horri buruz biratzen den burdin barra, gauza pisuak jasotzeko edo higitzeko erabiltzen dena.

Makina simple bat da **palanka**, oso ezaguna eguneroko bizitzan, puntu batean aplikaturiko indarrari beste puntu batean lan eginarazten diona. [Irene Aldasoro](#)

Masa txiki batek mastodonterik astunena altxa zezakek, bere zamaz, **palanka** bati esker. [Jon Muñoz](#)

Muturra pisuaren azpian jarri ondoren, **palankaren** besoan gizon bakar batek egiten duen indarrarekin sakatuz, besterik gabe, pisua altxa egiten da. [Santiago Iruretagoiena](#)

Korrea bat ongi, bestea sartzeko labea **palankarekin** altxatu zuten. [Pablo Sastre](#)

Eta hala, pisuaren azpian jarritako **palanka** ere, erditik sakatzen bada, nekezagoa izaten da pisua mugitzea, baina besorik luzeena muturretik zanpatzen denean, orduan errazago altxatzen da karga. [Santiago Iruretagoiena](#)

**Palanka** batek beti du gontz edo euste-puntu bat. [Irene Aldasoro](#)

Guraizeak dira **palankaren** adibide bat: hatzek egiten dute indarra, eta ebaki behar den objektua da karga. [Irene Aldasoro](#)

Lapurrek burdinazko **palanka** batez behartu dute kaleko atea, eta gero biltegikoa behartu dute. [Josu Zabaleta](#)

Peterrek saraila berriro zabaldu nahi badu, **palanka** gogorragoa erabili beharko du oraingo honetan. [Josu Zabaleta](#)

Pertikak eta **palankak** prestatuko dituzue, eta karelean guardia egin beharko duzue topatuko dituzuen izotz zatiak saihestu edo apartatzeko. [Joseba Sarrionandia](#)

Gabardinak poltsikoan zeukan tartetik barrera sartu nuen eskua, perkutorearen **palanka** jasotzeko. [Rafa Egiguren](#)

-Erabil ezak **palanka** txikia -esan nion pistolaren katua jaso bitartean-, baina saihestu batetik. [Rafa Egiguren](#)

Azpiko **palanka** tikiari eraginez, jarlekua gibelarazi zuen, zangoak hedatu bidenabar. [Aingeru Epaltza](#)

Aipaturiko mugimendu horretan, **palankarena** egiten du besaurreak. [Irene Aldasoro](#)

Bere **palankaz** Lurra mugituko zukeen Arkimedesek, eta hori da axola duen gauza bakarra. [Jon Muñoz](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zangoetan dagoen **palanka**-sistema bertsuak ematen die gizakiari eta beste animalia batzuei lasterka egiteko ahalmena Intxaur-kraskagailua da beste **palanka** mota bat: mutur batean du euste-puntua, harengandik hurbil karga eta harago indarra. [Irene Aldasoro](#)

Tinpanoak eta hari loturiko hiru hezurtxoek egiten duten **palanka**-efektuak berrogeita hamar bat aldiz gutxitzen du tinpanoaren eta leiho obalaren arteko soinu-bibrazioen anplitudea. [Irene Aldasoro](#)

## 3 irud/hed

Besoak eta zangoak, irmo tinkaturik, lau **palanka** ziren, indarrezko lanei ekiteko mekanikoki prestatuak. [Karlos Zabala](#)

Gizartean aldaketa gauzatzen duen **palanka** bihurtzen da dirua. [Berria - Ekonomia](#)

Merkataritza, arte eta industriaren ibilbide askearen eguneroko jarduera tratatzen duten eta etorkizuna aztoratu dezaketzen oztupoak iraultzeko **palanka** boteretsua. [Berria - Ekonomia](#)

Hori al da nolabaiteko **palanka** gatazka gainditzeko behin-betiko? [Berria - Euskal Herria](#)

Datozen autonomia hauteskundeetan «**palanka**» izango litzatekeelako proposamena bera. [Berria - Euskal Herria](#)

## 4 makina edo tresna bat erabiltzeko osagaia, palanka baten betekizuna edo forma duena.

Mekanika horretan parte hartzen badu, parte hartzen du zoriz erabiltzen dituen **palanka** eta botoien bidez, **palanka** eta botoi hauen egiazko funtzioa zein den jakin gabe. [Jon Alonso](#)

"Badator, badator!", esan du batek, eta berehala, **palanka** bati eraginda bezala, mugimenduan jarri dira denak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kateen hotsa eta tornu baten zalaparta entzuten ziren; tornuan lan-jantzi urdineko gizon batek **palanka** bat zerabilen. [Lopez de Arana](#)

Semaforo eta seinaleetako **palankak** arin mugitu nituen. [Fernando Rey](#)

Abiaduren **palanka** zakar erabilirik. [Koldo Izagirre](#)

Autoa lortzen dutenean ez dakite eskuan duten hori zakila, martxen **palanka** edo esku frenoa den. [Luis Elberdin](#)



Esku bat bolantean eta bestea marxta aldatzeko **palankan** . Pello Lizarralde

Frenoaren **palanka** altxatu eta atzera bota nuen besoa. Koro Navarro

-Tren militar bat genuen geldirik trenbideen orratzetako **palanken** ondoan. Fernando Rey

Sakatu zama husteko **palanka** , eta eragin gurditxoa atzera ekartzeko giltzari. Oskar Arana

-Heldu gara -taxilariak kontagailuaren **palankari** eragin zion eta zenbaki gorriak geratu ziren-. Iñaki Zabaleta

Nire pisu guztiaz zapaltzen dut gidako **palanka** , horma bat botatzen ariko banintz bezala. Josu Zabaleta

Kabina barruan zegoen Zulaika, abante agintzen lauhun zaldiei lau nudotan, astiro, indarka ahuldu gabe, **palanka** *slow* jarrita izotzezko itsasoa brankatu behar balute bezala. Koldo Izagirre

Cirok makina abian jarri, **palanka** jiratu eta lurrikara gertatu zen. Koldo Biguri

-Kotxean ere, **palanka** -kanbioari heldu eta diren botoi guztiak sakatu nahi zituen. Pablo Sastre

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Autoa gehiegi moteltzen bada puntu hilean uzten dut aldaketa: **palanka** , oso ortodoxoa ez den maniobra. Mikel Hernandez Abaitua

Eguraldiaren aldaketa mugitzeko edo datorkeena ekiditeko, kanbio- **palanka** aparteko eta berezirik ezagutzen ez dugun arren, [...]. Pello Zabala

Ez kamioi honek, ez errepide honek, ez gas **palanka** zikin honek ere. Josu Zabaleta

## 6 *palanka egin* zerbait palanka gisa erabili.

Arkimedes matematikari greziarrak, **palanka egiteko** puntu bat emanez gero, mundua mugituko zuela aldarrikatzen zuen. Xabier Olarra

Bizkarra paretatik aldendu gabe igo zen, hankekin **palanka eginda** txandaka, gorantz lerratuz. Koldo Izagirre

Mahaian besoekin **palanka eginez** niregana luzatu ditu ezpainak. Pako Aristi

**Palanka egin** zion txarroaren goiko alanbreari, eta gero tapari. Anton Garikano

Beste pipada bat jo dio zigarroari, eta bi atzamarrekin **palanka eginez** urrutira bota du. Jokin Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**burdinazko palanka** (3); **palanka bidez** (4)

**palankari eragin** (5); **palankari eragin zion** (3)

## **palankana** *(orobat palangana; Euskaltzaindiaren Hiztegian palankana agertzen da)* 1 *iz* garbiontzi biribila, ez oso sakona, garbitzeko erabiltzen dena.

Gelak baxuak ziren eta ugariak, eta hornidura eskasekoak iruditu zitzaizkidan; hegoaldera ematen zuen bat egokitu zitzaigun, eta bertan bi oharka eta komoda bat, bere **palangana** eta txarroarekin, zilarrezkoak biak. Juan Garzia

-Beguradaxo bat botatzera noa, badaezpada ere; badakizu, **palanganaren** bat edo balderen bat behar den tokian jartzera. Joxemari Urteaga

Gisellak bere lotsa garbitzeko denbora piloa eman behar izan zuela gasolinaz betetako **palangana** batean eserita. Koldo Biguri

## 2 (neurri gisa)

Azken borondatea eskatu omen zuen, askatzeko eta ekartzeko arren **palankana** bat ur fresko. Bernardo Atxaga

## **palankari** *iz* palanka jokoan aritzen den kirolaria.

Rikardo Arregi Diaz de Heredia: '**Palankari** bati'. Berria - Harian

- Ongi tuntuna litzateke Kiteria, Basilioen **palankari** -ezpatari dohainak aukeratzeagatik, Kamatxoren apain-bitxiak utziko balitu. Patxi Ezkiaga

## **palankatxo** *iz* palanka txikia.

Zilarrezko **palankatxoa** eman zion Canella gobernadoreak Amilibia alkateari, eta honek orduan, sekulako txalo eta oihuen artean, lehenengo harresi-puska bota zuen lurrera. Txillardegi

Baina hemendik berehala motorretako bat leherraraztea alferrikako gauza iruditzen zaidanez, berriro zapaltzen dut ezkerreko **palankatxoa** . Josu Zabaleta

Telegrafoak jo eta maniobrari on bat segituan altxatzen da, aparatua **palankatxoa** askatu, bere geltokiaren adierazgarria emandakoan berriz eseri eta lozorroan gelditzen da. Fernando Rey

Trabatuturik dagoen gasaren **palankatxo** baten kontra. Josu Zabaleta

Fusila hartu eta, geldiro, **palankatxoa** atzerantz bota zuen baso-guardak, errekamara betez. Joxemari Urteaga

## **palankin** *iz* andetan eramaten den bi hagen gaineko aulki modukoa, batez ere ekialdean pertsona garrantzizkoak garraiatzeko erabiltzen dena.

Osaba Kamilek jarraitu zion, **palankin** baten gisara kulunkatuz eta oinak lurretik nabarmen jasoz. Patxi Zubizarreta

## palantatu ik **plantatu**.

## **palantxa** 1 *iz ipar* pilota jokoko pala mota bat, zabala.

Esku huska, buruz buruka eta birazka -Xarea-Pasaka- Xixteraz, Joko Garbia eta bururatzeko **palantxa** . Herria

Bertzalde aipatu behar dugu gure kirol batasunarentzat **palantxan** ari diren Daniel Brave eta Sebastian Halzuet bi laneko lagunek egin daukuten balentria. Herria

**Palantxan** goma arinarekin gizonak eta andereak horietan dugularik herritar Magalie Comet. Herria

Arambel ostatuak antolatzen du lehiaketa bat **palantxan** tenis pilotarekin. Herria

**Palantxaz** pilota goma hutsarekin, ttarroen mailan, igandean Arrangoitzeko trinketean. Herria

Bestalde, 6 pare hasi zauzkigu, nesketan, ezker pareteko xapelketan **palantxaz** . Herria

Kirolari ona izana da Esku baloian eta pilotan **palantxarekin** . Herria

Donamartiriko **palantxako** finalak jokatuko dira helduden larunbatean, abendoaren 14 an herriko trinketean. Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hazaro haste huntan abiatuko da 100 bat parerekin, negu hau gehiena irauenen duen lehiaketa, **palantxa** jokoan. Herria

Herritarren arteko **palantxa** haitadak bururutzerat doatzi. Herria

Herritarren arteko **palantxa** itzuliaren finalak aratsaldeko 5etan, ondotik zintzur bustitzea. Herria

Pesta komiteak antolatut ditu herritarren arteko **palantxa** zoi gehiagokoa herriko plazan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**palantxa** jokoan (3); **palantxa** lehiaketa (9); **palantxa** zoiñgehiagoka (16)  
**palantxako finalak** (4); **palantxako lehiaketaren finalak** (6)  
**palantxan ari** (4); **palantxan goma arinarekin** (7)

## palantxari *(orobat palantxalari)* iz ipar palantxan aritzen den pelotaria.

Berriz ere finalean ditugu Marion Etcheoinberry eta Virginie Junquet herritar **palantxariak**. Frantziako xapelketaren kondu. **Herria**

Bat bestearen ondotik hitza hartu dute Beñat Durruty lehendakariak, Panpili Etxeoinberry eskuhuskarien arduraduna, eta Jaky Biscay **palantxalari** neskeen sustatzaileak.

**Herria**

Lehenik urrian Ameriketara Txilen egin beharrak diren gazteen munduko xapelketako berexia izan da gure **palantxari** Joana Bimboire nexkato gaztea. **Herria**

## palasta *(orobat palast)* 1 iz palastada.

Handik gutxira, perrailleko uraren **palasta** hotsa belarriratu zitzaidan. **Alberto Ladron Arana**

### 2 irud/hed

Pentsamendu hau etorri zait, eta zetorkidan **palasta** berean bota dizut, irakurle horri. **Pello Zabala**

Beste ekaitz-bolada bat da, handik tarte batera datorren berria: beste uhinaldi bat da, beste **palasta** bat... hondartzako olatuen erara datoz bata bestearen atzetik. **Pello Zabala**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakume bat zubipean lotara bilduta zegoena, ur **palastak** eraman zuen. **Pello Zabala**

Euri-**palasta** indartsuak. **Pello Zabala**

Behoko aire-**palasta** beroari, goialdetiko aire hotza ateratzen zaio bidera, nonbait, eta lainoa berriz formatzen. **Pello Zabala**

Hor barruan energia **palasta** kopuru ikusgarriak dabilta trumilka eta zurrunbiloka. **Pello Zabala**

### 4 palasta egin

Bihotzak **palasta** egin zidan, lehen esalditik oharatu bainintzen zeinen ezagun egiten zitzaidan ahots hura. **Joxean Agirre**

Zerbaitek **palast** egin zidan oroimenean, eta ziurtasun ulergaitzez ahoskatu nuen: [...]. **Juan Garzia**

### 5 palasta eragin

Pinta bakar banakoak ziren, baina zilarbizitik hamazazpi libra luze kabitzen ziren bakoitzean; hainbestearino, non kosta egiten zen pultsuan jasotzen, eta **palast** eragitean, berriz, bazirudien animalia bizi bat mugitzen zela barruan indarka. **Juan Garzia**

## palastada iz ontziaren gainetik isurtzen den edo uhin gisa higitzen den ura. ikpalasta.

Arrain baten bihotz biluztuan ponpa mekaniko baten **palastadak** ikustera. **Juan Garzia**

Bien bitartean, ardo gorriaren **palastadak** hamaika aldiz estalitako Benito tabernariak bota ahala gorri bihurtzen zihoan zerrautsa zabaldu zuen palatxo baten laguntzaz.

**Joxemari Urteaga**

Gero adar-kraskatzearena, eta ondoren esku-zartada moduko bat, animalia **palastada**, noski, guk ikusten ez genuen putzuren batean. **Joxe Austin Arrieta**

## palastaka *adlag* palasta eginez.

Egun oso bat galdu nuen motorraren osagai nagusiak biltzen, besterik gabe: istil uherrean **palastaka**, lokatz beroan haztamuka, lan osoa neuk egin behar izan nuen, Herberti bost axola-eta. **Joxe Austin Arrieta**

Ofizio honen lokatzean hogeitortu **palastaka** egin ondoan, goraldiak bakan gertatzen dira. **Aingeru Epaltza**

Gaztainondoarenek txistu hotsa atera dute, eta eskale-belar gorakariak **palastaka** ari dira, murruan barna elkar joka. **Itziar Otegi**

## palastatu, palasta(tu), palastatzen da *ad* palastaka joan.

Noizbehinka arkupe azpira ere **palastatzen** da ura, loreak ere konfetti-euri gisa, eta gero hostaila beroaren usaina sumatzen eta freskura bat-batekoa larmintzean. **Joxe Austin Arrieta**

## palatal 1 *izond/iz* ahotsez mintzatuz, sabaikaria. ik busti.

Ez da ahaztu behar, dena dela, *i* bokala sabaikari edo **palatal** deitzeak analisi fonologikoari dakarkion onura praktikoa. **Lourdes Oñederra**

Horren adibide da *birjina birxiña*, non jatorrizko *n* hobikaria *ñ* **palatal** bihurtu zen lehenagoko *i* palatalak kutsatuta. **Lourdes Oñederra**

Hiztunontzat gertatzen diren bokal guztiak dira nolakotasun garbikoak /a, e, i, o, u/; zubereradunek /y/, **palatal** biribila, gehitzen diote sailari **Lourdes Oñederra**

### 2 ez-palatal izond

Ez-goiko, ez-beheko, ezbiribil, ez-**palatal**, ez- belar: badirudi ezezkoa dela bokal horren definizioa. **Lourdes Oñederra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**sabaikari edo palatal** (3)

## palatalizatu, palataliza, palatalizatzen da/du *ad* palatal bihurtu.

Berdin esan dezakegu euskal hizkera askotan bokal edo irrastari palatalen ondoren kontsonante batzuk **palatalizatu** egiten direla. **Lourdes Oñederra**

Era horretara, *r*-*a* **palatalizatua** gertatzen da. **Isabel Arrigain**

Euskal hizkera askotan, *i* goiko bokalak edo *j* bere kide irrastariak ondorengo hots horzkari edo hobikariak **palatalizatzen** ditu. **Lourdes Oñederra**

Eratorpenak aurrera egin lezake, noski, *j* horren kenketarekin (ondorengo *t* horzkaria asimilazioz busti edo **palatalizazuta**): *eceko*. **Lourdes Oñederra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**hobikariak palatalizatzen** (3)

# palatalizatzaile *izond* palatalizatzen duena.

Hain zuzen ere bokal horrek bere ondoko zenbait kontsonanteren ahoskunean izan dezakeen eragin **palatalizatzailea** deskribatzea errazten du. **Lourdes Oñederra**

## palatalizazio *iz* palatalizatzea.

Fonetika eta fonologiazko lanetarako erabilgarri izan daiteke bereiztea palataltasuna (sabaikaritasuna), *ezaugarria*, *tasuna* adierazten duena eta **palatalizazioa**, *ordezkatzea* bera adierazteko. Fonema batzuen **palatalizazioaz** edo bustiduraz ari gara, eragin txikigarria edo gutxiesgarria duten hipokoristikoez, alegia. **Lourdes Oñederra**

Bustiduraren kasuan, berriz, adierazkortasun arrazoiari kariatara egin **palatalizazioa** baizik ez da bere horretan transkribatuko. *Busti-* oinarri dutenak baino teknikoago dira palataltasuna, **palatalizazioa**. **Berria - Kultura**

Normalean asimilaziozko **palatalizazio** esapideak adierazten du kontsonantearen palataltasuna ez dela adierazgarria, inguruneak eragina baizik, nahiz eta mugak ez diren beti erraz ezartzen. **Lourdes Oñederra**

Halaber, **palatalizazio** adierazgarria ere egon daiteke zenbait palataltasunen sorreran. **Lourdes Oñederra**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**palatalizazio adierazgarria** (7)

**asimilaziozko palatalizazioa** (7)

**asimilaziozko palatalizazioak** (3)

## palataltasun *iz* palatala izateko nolakotasuna.

Fonetika eta fonologiazko lanetarako erabilgarri izan daiteke bereiztea **palataltasuna** (sabaikaritasuna), *ezaugarria*, *tasuna* adierazten duena eta palatalizazioa, *ordezkatzea* bera adierazteko. **Lourdes Oñederra**

*Busti-* oinarri dutenak baino teknikoago dira **palataltasuna**, palatalizazioa. **Lourdes Oñederra**

Badira euskaraz bokal-harmoniaren beste zantzu batzuk ere goiko bokalen biribiltasuna edo **palataltasunari** dagozkionak. **Lourdes Oñederra**

Hots palatal edo sabaikariaren ahoskunearen nolakotasunari ematen zaion izen inpresionista da: **palataltasuna** (sabaikaritasuna) da hori bera esateko modu teknikoagoa.

**Lourdes Oñederra**

Euskarazko ahoskeran maiztasun handikoa dugu **palataltasuna**. **Lourdes Oñederra**

## palatara (*orobat palatrada*) *iz* ipar palakada.

Mintzaldi zenbait hauteman ziren oraino, apezak zuloa erramuz benedikatu zuen amultsuki, kontseilu orokorraren lehendakariak **palatara** bat lur bota zion hobian emeki sartzen ari zen kutzari. **Itxaro Borda**

Hil hobi horri lur **palatrada** bat gehiago sakatzea. **Berria - Kultura**

## palatoalveoar *izond* hotsez mintzatzuz, hobikarien eta sabaikarien artekoa dena.

Hobikarien eta sabaiaurrekoen arteko muga garbirik ezaren isla besterik ez diren prepalatal, **palatoalveolar**, postalveolar bezalako aukera terminologikoak. **Lourdes Oñederra**

## palatrada ik palatara.

## palatxo *iz* pala txikia.

Zerrautsa zabaldu zuen **palatxo** baten laguntzaz. **Joxemari Urteaga**

Oso gora altxaturiko eskuaz **palatxoari** eraginez, balantzaren platerean jadanik osatua duen azukre tontortxoaren gainera azukre jausi fin fina ari da botatzen, bi libra azukre ale baten gorabeherako zehaztasunez neurtzeko. **Joseba Sarrionandia**

Nonahi zeuzkan jarririk zaintzaileak, zeinek, ohiko xafia burdinurtuzkoak jo beharrean, upeltxo hutsak astintzen baitzituzten zurezko **palatxoak** erabiliz. **Jose Morales**

## palazaratu ik plazaratu.

## palazio 1 *iz* jauregia.

Ez da dudarik ondarearen politika bat badela Frantzian eta gure monumentu guziak, izan ditzen gaztelu, jauregi edo **palazio** ongi zainduak direla orain. **Herria**

Ataritik bertatik ikusi nuen etxe hark zeukan barnealdea **palazio** bati zegokiola. **Hasier Etxeberria**

Handik mende bat geroago, arkitekto bainintzen, etxe zahar bat erauzi eta hura egondako lekuan **palazio** bat eraikitzeko kargua eman zidaten. **Josu Zabaleta**

**Palazioko** gela nagusian. **Txillardegi**

Mattin Madrilen zegoen, Villagrandeko dukearen **palazioan**. **Joan Mari Irigoien**

Hofburg **palazioaren** itzalean Mozarten sonata bat jotzen entzuten dugun soinulari gaztea. **Berria - Kultura**

Hiria dena **palazio** eta armari da. **Piarres Aintziart**

### 2 irud/hed

Ez pentsa memoria ona **palazio** bat denik. **Joseba Sarrionandia**

Izan gaitezen elkarren lagun: zuek arimaren ispilu zarete, baina, gure artetik pasa beharko du **palazio** eder hau (gorputza) zaindu nahi duen arima orok. **Patziku Perurena**

Ni bizi naizen tokia **palazioa** da beti. **Pablo Sastre**

Orduan akordatu zen nola beti esaten zion neskarri egunen batean ilea moztu behar zuela, Ferminen atzamarrentzako lurreratze-pista sortu, bere mingain hezearentzako izotz-**palazioa**. **Jasone Osoro**

### 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Udatiar eskuindarrak joanda zeuden ordurako, familia eta zerbitzariekin, euren **palazio** zuriak ia hutsik utzita. **Joseba Sarrionandia**

Edifizio publiko eta **palazio** pribatueta atarietan. **Joan Mari Irigoien**

Ama zen Josefa Fernanda de Borbón y Borbón, Aranjuez-eko **palazio** ospetsuan sortua 1827an. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Nankingo **palazio** urrunean. **Joseba Sarrionandia**

Etxe ospetsu eta **palazio** ohiak karrikan zehar. **Piarres Aintziart**

Jauregi fantastiko bat bezala lurretik urruti baztertua, ametsezko **palazio** bat bezala harrimen eragilea. Josu Zabaleta

## 4 (hitz elkartuetan)

1848an esposatzera zihoazen biak, noiz eta ere Madrilgo errege **palazioak** jakinarazi baitziren ezkontza hori ez zela nehindik ere onartzen ahal. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 5 tamaina handiko eraikina, ekitaldi publikoetarako prestatua.

Aurten ere berdina egin dute eta Gare de Midi, Jaialdiaren **Palazioan**, ikurrina ez besteko guztiak zeuden haizetan dantzan. Hasier Etxeberria

## palaziotsu *izond* palazio asko dagoena.

Arbolea aldera jo eta gero, hango alderdi **"palaziotsuan"** ibili dira. Patxi Zubizarreta

## palaziotxo *iz* palazio moduko eraikin txikia.

Azkenik iritsi ginen Libistorfera; herri txiki-txikia zen, baina **palaziotxo** ederrez osatua dena, nahiz eta biztanleak nekazariak izan. Josu Zabaleta

## paldo 1 *iz* zutoina.

Kubako Gobernuak adierazi duenez urakanak kalte orokorrak sortu ditu, zuhaitz eta argindar **paldo** ugari botaz, baina ez dirudi hildakorik edo zauritu larririk egon denik.

Berria - Mundua

Telegrafo **paldora** igo gabe, habe nagusitik zintzilik, horrelaxe atera zen Skidoo News berripaperean. Iñigo Aranbarri

· Ohartu naiz Galizian non nahi eraikiak diren ziloetarik bati harrizko **paldo** baten gainean pausatuak daude. Piarres Aintziart

## 2 *paldoan sartu* ik *paldotu*.

Okin bat iruzur egiten harrapatu eta **paldoan** sartzea, sultan baten ekintza dela, justua izatearren justizia bera baino harantzago iritsi baitzen. Iñaki Iñurrieta

## paldotu, paldo(tu), paldotzen du *ad* pertsona edo animalia bati, uzkitik sartzen zaion paldo bat alderik alde pasatu.

Hau, ordea, ez da erabat zuzena; **paldotzea**, hain zuen, beste hau da: zutoin zorrotz bat gorputzean sartuz hiltzean, biktima eserita geratzea. Xabier Olarra

**Paldotu** A[mbroise] B[ierce]-k beste leku batzuetan ere aipatzen zuen tortura mota hau. Xabier Olarra

## paldotze *iz* pertsona edo animalia bati, uzkitik sartzen zaion paldo bat alderik alde pasatzea.

**Paldotzearen** esperientzia bizitzen ari den pertsonarentzat axola gutxiko kontua izan behar du bere deserosotasuna zein okerrengatik merezi izan duen, erlijiozko edo zibilengatik; baina, dudarik gabe, atsegin emango lioke bere burua ikusi ahal izango balu Benetako Elizaren kanpandorreko haize-orratzeko oilar bihurturik. Xabier Olarra

Teniak bete ditzala guztien heste-zuloak, haien ilean nahas bitez zorri, bartz, arkakusoak, maiz probatu ditzatela **paldotzearen** gozoak. Xabier Olarra

## pale ik *pale*t.

## palekada *iz* pala baten edukia.

Mandik masa **palekada** batez hornitu zuen Ilana, bankuaren gainaldea raseatu zuen. Pablo Sastre

## palenke *iz* lur sail bat ixten duen zurezko hesia; horrela itxiriko lur saila.

Hura **palenke** bat duk. Joseba Sarrionandia

'Guretzat edozein leku dun **palenkea**!' dio Armandok. Joseba Sarrionandia

## palentziar *izlag/iz* Palentziakoa, Palentziari dagokiona; Palentziako biztanlea.

Telebista **palentziarrean** ikusi ditugu grabaketa horren irudiak. Jokin Urain

*Mono* esaten dioten **palentziarra** da delako presoa, justu atzo bertan kefir zatia eskatu zidana. Jokin Urain

Modesto Lafuente y Zamalloa, sortzez **palentziarra** bera, Arrasatetik ei zetorren amaren aldetik. Joxe Azurmendi

Ekonomatoko **palentziarrari** hamaika aldiz esana diot ganorazko kafeak ateratzeko, [...], ez nolahalako ur zikin mehea. Jokin Urain

## paleo

### 1 *paleo-kristau* ik *paleokristau*.

## paleoantropologo *iz* lehen gizakiak fosilen bidez aztertzen duen antropologoa.

Science aldizkarian bertan zalantza agertu du Torontoko (Kanada) Unibertsitateko David Begun **paleoantropologoak**. Berria - Gaiak

## paleoeslabo ik *paleoeslaviera*.

## paleoeslaviera (*corpusean paleoeslabo, paleoslabo eta paleoslaviera soilik*) *iz* lehen eslaviera.

Eslabieraren estudioan, linguistak eslaboniera edo **paleoeslaboan** oinarritzen ziren soil-soilik, eslaboniera X. mendez geroztik ezagutzen baitzen, eta besteen kasuan, berriz, lehen lekukotasunak berriagoak baitziren. Isabel Arrigain

Ez dago, 1540 arte, lituanieraren lekukotasunik, baina **paleoslabo** -X. mendeko dokumentuak badituena- ez da horregatik hura baino balio handiagokoa. Isabel Arrigain

## paleoeuskaldun *iz* antzinako euskalduna.

Orixek ere belarjaletzat geunzkan euskaldun zahar baseritarrok, eta (neu barren) protoeuskaldun edo gutxienez **paleoeuskalduntzat**. **Patziku Perurena**

## paleografia 1 *iz* idazkera zaharren azterketa.

«Orain Kontserbatorian musikologia ematen hasi da», dio Peñasek, «eta hor **paleografia** ikas daiteke». **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **paleografiko**.

Greko **paleografia** lanetan, latinezko testuetan eta Erdi Aroko historiaren zimurretan zaildutako eruditoa, irudimena. **Juan Garzia**

## paleografiko *izond* paleografiarena, paleografiari dagokiona. ik **paleografia 2**.

Tenplu batean aurkitutako dokumentu **paleografiko** bat. **Juan Garzia**

Transkripzioa «*ia* hutsean **paleografikoa** » da. **Berria - Kultura**

-Testu oro den palimpsestoan gure trebezia **paleografikoa** erabiltzeko... **Iñaki Iñurrieta**

## paleoklimatika *iz* aurreko aro geologikoen azterketa.

Ez dira **paleoklimatikan** helburu horrekin ari diren ikertzaile bakarrak. **Berria - Gaiak**

## paleokristau (*corpusean paleo-kristau soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian paleokristau agertzen da*) *izond* arteaz mintzatuz, lehen kristauena.

Miriam Schild Bunim-ek [...] espazioaren irudikapenaren historia idatzi zuen, arte **paleo-kristautik** hasi eta Berpizkundea arte, "aldi" bakoitzak une horretako filosofiako eta matematikako ikusmoldeekin eta ezagutza tekniko eta kulturazkoekin dituen loturak argituz. **Josu Zabaleta**

## paleolitiko 1 *izond* harri landuaren aroari dagokiona.

Arte **paleolitikoak** galdera asko egiten ditu: [...]. **Berria - Kultura**

Euskal Herriko mendietako ingurumen **paleolitikoa** aztertzen du. **Berria - Kultura**

## 2 (izen gisa) ik **paleolito**.

Hori gabe oraindik **paleolitikoan** izango ginateke. **Iñaki Heras**

Zenbait gelatatik igaro ondoren, non eskandinaviar **paleolitiko**, neolitiko, brontze-aro eta kristau-aurreko Burdin Aroko kulturen laginak baitzeuden ikusgai, harrituta geratu zen italiar errenazimentuaren tankerako eskandinaviar tresnak zeuden gela batean aurkitzean. **Iñaki Mendiguren**

**Paleolitiko** ondarrerako euskaldunok ehiztari trebeak omen ginen. **Patziku Perurena**

Nire **paleolitiko** behereko arbasoen jaidura naturalaren argiak gorri piztu zitzaizkidan eta karrikan zehar, laster egin nuen. **Itxaro Borda**

**Paleolitikoko** baxuerliebeak aurkitu dituzte Erresuma Batuko leize batean. **Berria - Gaiak**

**Paleolitikoan** egindako baxuerliebeak aurkitu ditu Sergio Ripoll ikertzaileak. **Berria - Gaiak**

## 3 (beste izen baten ezkerrean)

20000 urte Kristo aitzin loratu zen, **Paleolitiko** garaiko zibilizazio horrek, -franko-kantabrikoa deitua, orain arte- marrazki miresgarriak egin ditu, baita hezurrezko txistuek ere.

**Herria**

**Paleolitiko** arotik zetorkigun hizkuntzak ikastola neolitikoaren aterpea baino gehiago merezi zuela. **Itxaro Borda**

## 4 *Goi Paleolitiko* ik **paleolito 3**.

**Goi** paleolitikoari buruzko obra da. **Berria - Kultura**

Goi **paleolitikoko** garaian euskaldunaren etnia oraindik garatzeko zegoen, Barandiaranen arabera. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**goi paleolitoko** (3)

## paleolito 1 *iz* paleolitikoa.

Gipuzkoako **Paleolitoa**, Neolitoa, Brontze aroa eta Burdin aroa jasoko litzuzke [historiaurreko museoak]. **Berria - Kultura**

**Paleolitoko** harpeetako biztanlea. **Xabier Olarra**

**Paleolitotik** datorren jatorrizko mintzaira zaharra hizkuntza indoeuropar eta erromanikoen eraso etengabe eta suntsitzaileetatik defendatzera. **Iban Zaldúa**

Produktu horren gehien-gehiena lehorrean ekoizti beharko baita, gizakia (lehorrean) Neolitoan duela milaka urte batzuk sartu arren, itsasoan **Paleolito** gordinean segitzen duela kontuan izanik. **Edorta Agirre**

## 2 (hitz elkartuetan)

Ikerleek aurkitu dituzten karakol azaldegia ugariak, batez ere **paleolito** eta neolito arokoek, argi erakusten omen dute gure arbasoen jaki preziatu izana dela. **Patziku Perurena**

Jaques Blotek, Bidasoaz haranzko mendietako euskal aztarnategi zaharrak ikertzen urteak eman dituenak, honela dio **paleolito** garaiaz ari delarik: [...]. **Patziku Perurena**

## 3 *Goi Paleolito* ik **paleolitiko 4**.

Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoek miaketak egin dituzte harpe horren sabelean eta **Goi Paleolito** garaiko aztarna ederrak aurkitu. **Herria**

**Goi paleolitoko** zenbait grabatu aurkitu dituzte Frantziako Vilhonneuren. **Berria - Kultura**

Behere nahiz **Goi** Paleolitoko harrizko tresnak. **Berria - Kultura**

## paleontologia 1 *iz* historiaurreko izaki organikoen azterketa, haien fosilen bidez egiten dena.

Espezie berri bakoitzak behar izan balu, agertzeko, erregulazio-sare berriak eratzea, ez zen izango denbora nahikorik **paleontologiak** deskribatzen duen eran gerta zedin eboluzioa. **Juan Garzia**

Ez ziren **paleontologiak** ari, bizirik daude. **Iñigo Aranbarri**

Antropologian, **paleontologian**, fisikan eta abarren mendeotan zehar ezagutu diren iruzurrak. Berria - Gaiak  
Historiaurrea edo **paleontologia** ikasi dutenak ere asko dira baina ez ditut ikerketak egiten ikusten. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **paleontologiko**.

Han sakondu zituen **Paleontologia** eta Historiaurreko ikasketak. Berria - Euskal Herria

Luis Alcalá Teruelgo **Paleontologia** Fundazioko zuzendaria da. Berria - Gaiak

Sabadellgo Miquel Crusafont **Paleontologia** Institutuko talde batek hartu zuen bere gain ikerketa. Berria - Gaiak

## 3 irud/hed

Liburu horrekin hasi zen zientziari, **paleontologia** linguistikoa izena eman zitzaion. Isabel Arrigain

## **paleontologiko** *izond* paleontologiarena, paleontologiari dagokiona. ik **paleontologia 2**.

Errioxako Interpretazio **Paleontologikoaren** Igea Etxea disenatu, zuzendu eta koordinatzeko proiektua Aranzadiri esleitu diote. Berria - Kultura

## **paleontologo 1** *iz* paleontologian aritzen den pertsona.

Kanadako geologoei Ellesmere uhartean garai Devonikoko harriak zeudela entzun zietenean, erreka ondoko landareen fosilen bila abiatu ziren **paleontologoak**. Berria - Gaiak

1993 az geroz, Patrick Michel **paleontologoak** (Bordeleko unibertsitate batean erakasle dena ere) egiten ditu hor uda oroz ikerlanak. Herria

«Arrainen eta lehorreko animalien arteko aldea lausotzen du honek», esan du Chicagoko Unibertsitateko **paleontologo** Neil Shubinek. Berria - Gaiak

Inoiz aurkitutako tiranosaurorik zaharrena aurkitu dute **paleontologoek** Txinako ipar-mendebaldean. Berria - Gaiak

## 2 (hitz elkartuetan)

Pierolapithecus catalaunicus (Pierolako tximino kataluniarra) gisa sailkatu du tximinoa Salvador Moya-Sole doktoreak, **paleontologo** taldeko buruak. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkitu dute paleontologoek** (3)

## paleoslabo ik **paleoeslaviera**.

## paleoeslaviera ik **paleoeslaviera**.

## **paleozeno** *iz* hirugarren aroko lehen zatia.

Adituen esanetan, **Paleozeno**-Eozeno garaian duela 55 milioi urte uraren tenperatura 20 gradu ingurukoa zen. Berria - Gaiak

**Paleozeno**-Eozeno garaiko tenperatura altuaren ondorioz, lurreko eta itsasoko karbono kopuruak gora egin zuen. Berria - Gaiak

## **palemotar** *izlag/iz* Palermokoa, Palermori dagokiona; Palermoko biztanlea.

Ez nuen nehor ikusi horren ukatzen, nahiz alde agertu zen **palemotarra** bere oharretako 4. zenbakian. Piarres Xarriton

Zeren ziur baitaukat eta beti ziurtzat izan baitut izpirituko zor bat ordain dezakeela izpirituko ariketa batek, **palemotarrak** idatzi zituen irakaspenen arabera. Piarres Xarriton

## **palestinarr** (*orobat 3014 agerraldi, 24 liburu eta 617 artikulutan, palestindar 120 agerraldi, 64 artikulutan, paleztinar g.er. eta paleztindar g.er.*) **1 izlag** Palestinakoa, Palestinari dagokiona.

Israeldar juduek ez zituzten **palestinarr** arabiarrek kontzentrazio-esparruetan eta gas-ganbaretan suntsitzeko punturaino jarraitu nazien urratsak. Iñaki Mendiguren

**Palestinarr** poliziak hitzemaiten du hasiko dela poliki poliki Gazako lurretan segurtamen baten ezartzen. Herria

Ezaguna da Estatu Batuetako *Black Panthers* taldeari emandako laguntza eta elkartasuna, azal iluneko jendeari, **palestinarr** borrokari... Paddy Rekalde

2006ko ekainean hiru **palestinarr** taldek (Erresistentziaren Batzordeak, Izzedin al Kassem Brigadek eta berriki sorturiko Islamaren Armadak) beren gain hartu zutelarik Israelgo armadako kaporal baten atxiloketa, Tsahal hamaikagarrenez sartu zen Gazan. Iñigo Aranbarri

Eskuan **palestinarr** zapi bat zuela igo zen oholtzara. Berria - Ekonomia

Halako batean, Elorrieta atera zuen erdira, eta zapi **palestinarr** jarri zion. Berria - Ekonomia

Israelek 500 preso **palestinarr** askatu ditu, bake prozesuaren berme gisa. Iñigo Aranbarri

## 2 *iz* Palestinako herritarra.

Txapela eta kaiku urdin-berde bat jantzita ibiltzen omen da beti kalean, eta kurdua, **palestinarr** edo, besterik gabe, pailazoa dela pentsatzen dute berarekin kalean gurutzatzen diren paristarrek. Hasier Etxeberría

**Palestinarrak**, arabiarrek, lehenagoko biztanleak ez dira existitu ere egiten. Berria - Harian

Israeldar eta **Palestinarrak** betiko aihergoan daude. Berria - Mundua

Urte horretan **palestinarrak** Munich-eko Joko Olinpikoetan eraso egin eta hildakoak gertatu ziren atleta israeldarren artean. independentzia du bere xede bakarra Barghontik **palestinarrarentzat**. Pello Salaburu

Hesia **palestinarren** helburu nazionalak suntsitzeko saioa da. Berria - Harian

Lurрак berreskuratzea eskatu zuten **palestinarrak** bakearen truke. Berria - Harian

Haserretzen gara Israelgo makinak **palestinarren** etxeak botatzen ikusten ditugunean. Eduarne Elizondo

Misilak **palestinarren** harrikaden kontra. Migel Angel Mintegi

**Palestinarren** kontrako operazioetan aritutako brigada bat. Iban Zaldúa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bederatzi palestinarr hil** (7); **bederatzi palestinarr zauritu** (3); **bi ekintzaile palestinarr** (12); **bi lagun palestinarr** (3); **bi mutiko palestinarr** (3); **bi palestinarr hil** (37); **bi palestinarr zauritu** (3); **bizi diren palestinarr** (3); **bost palestinarr hil** (19); **bost palestinarr zauritu** (3); **buruzagi palestinarr** (4); **diputatu palestinarr** (3); **dozenaka palestinarr atxilotu** (4)

**ekintzaile palestinarr** (49); **ekintzaile palestinarr bat** (6); **ekintzaile palestinarr batek** (7); **emakume palestinarr** (5); **erakunde palestinarr** (3); **errefuxiatu palestinarr** (13); **estatu palestinarr** (39); **estatu palestinarr bat** (16); **estatu palestinarr baten** (6); **estatu palestinarr independente** (3); **estatu palestinarr independentea** (11); **gazte palestinarr** (17); **gazte palestinarr bat** (10); **gazte palestinarr hil** (3); **hamahiru palestinarr hil** (3); **hamar palestinarr hil** (5); **hiru ekintzaile palestinarr** (7); **hiru palestinarr atxilotu** (4); **hiru palestinarr hil** (29); **hiru palestinarr zauritu** (5)



**langile palestinar** (6); **langile palestinar hil** (7); **neska palestinar** (5); **neska palestinar bati** (3) **palestinatar askatu** (5); **palestinatar askatu zituen** (3); **palestinatar atxilotu** (48); **palestinatar atxilotu zituzten** (24); **palestinatar bat hil** (75); **palestinatar bat zauritu** (3); **palestinatar bildu** (7); **palestinatar bildu ziren** (3); **palestinatar bizi dira** (8); **palestinatar daude israelen** (5); **palestinatar gazte** (11); **palestinatar gazte bat** (5); **palestinatar gose greban** (3); **palestinatar herriaren** (5); **palestinatar hil** (213); **palestinatar hil zituen** (61); **palestinatar hilda** (3); **palestinatar jatorrikoak** (4); **palestinatar preso** (3); **palestinatar presoek** (5); **palestinatar presoan** (3); **palestinatar talde** (5); **palestinatar zauritu** (37)

**politiko palestinar** (5); **preso palestinar** (20); **preso palestinar askatu** (4); **preso politikoa palestinar** (3); **rafako errefuxiatu palestinar** (3); **sei palestinar hil** (6); **suizida palestinar** (4); **talde palestinar** (6)

**ume palestinar** (8); **ume palestinar bat** (6); **urteko neska palestinar** (4); **urteko palestinar** (17); **urteko palestinar bat** (14); **zazpi palestinar atxilotu** (5); **zazpi palestinar hil** (6); **zortzi palestinar hil** (9); **zortzi palestinar zauritu** (3)

**buruzagi palestinarra** (7); **da estatu palestinarra** (3); **estatu palestinarra** (52); **estatu palestinarra sortzea** (7); **estatu palestinarra sortzeko** (13); **herri palestinarra** (14); **kausa palestinarra** (4); **palestinarra eta** (4); **palestinarra hil** (7); **palestinarra hil zuten** (3); **palestinarra izan** (3); **palestinarra sortzea** (7); **palestinarra sortzeko** (13); **palestinarra zen** (3); **urteko palestinarra** (3)

**buruzagi palestinarra** (7); **estatu palestinarra** (52); **estatu palestinarra sortzea** (7); **estatu palestinarra sortzeko** (13); **herri palestinarra** (14); **kausa palestinarra** (4); **palestinarra izan** (3)

**buruzagi palestinarren** (9); **erresistentzia palestinarren** (8); **erresistentzia palestinarren kohete** (3); **estatu palestinarren** (16); **estatu palestinarren alde** (4); **estatu palestinarren sorrera** (6); **etorkizuneko estatu palestinarren** (3); **herri palestinarren** (22); **herri palestinarren kontra** (3)

**herri palestinarrentzat** (4)

**erresistentzia palestinarri** (3); **herri palestinarri** (6)

**ekintzaile palestinarrei** (5); **jerusalemgo palestinarrei** (4); **palestinarrei laguntzeko** (4); **preso palestinarrei** (7); **zisjordaniako palestinarrei** (3)

**agintari palestinarrek** (10); **eki jerusalemgo palestinarrek** (3); **ekintzaile palestinarrek** (62); **erakunde armatu palestinarrek** (5); **erakunde palestinarrek** (5); **errefuxiatu palestinarrek** (6); **herriar palestinarrek** (3); **israeldarrek eta palestinarrek** (5); **iturri palestinarrek** (14); **iturri palestinarrek esan** (3); **jerusalemgo palestinarrek** (4) **palestinarrak bizia galdu** (9); **palestinarrak diote** (3); **palestinarrak egin** (4); **palestinarrak egindako** (4); **palestinarrak esan zuten** (3); **palestinarrak eta israeldarrek** (7) **politiko palestinarrek** (4); **preso palestinarrek** (16); **talde palestinarrek** (4)

**palestinarrarekin bekea lortzeko** (4); **palestinarrarekin batera** (4); **palestinarrarekin negoziatu** (3); **palestinarrarekin negoziatzeko prest** (3)

**erresistentzia palestinarreko** (5); **erresistentzia palestinarreko talde** (3)

**agintari palestinarren** (3); **buruzagi palestinarren** (4)

**ekintzaile palestinarren** (13); **erakunde palestinarren** (3); **errefuxiatu palestinarren** (8); **errefuxiatu palestinarren itzulera** (3); **hildako palestinarren** (7); **hildako palestinarren artean** (3)

**israeldar eta palestinarren** (5); **israeldarren eta palestinarren** (22); **israelgo palestinarren** (6); **iturri palestinarren arabera** (9); **lurralde palestinarren** (9); **lurralde palestinarren okupazioa** (3)

**palestinarraren alde** (6); **palestinarraren aldeko** (5); **palestinarraren aldetik** (6); **palestinarraren artean** (40); **palestinarraren arteko** (38); **palestinarraren arteko botere** (3); **palestinarraren arteko gatazka** (8); **palestinarraren aurka** (8); **palestinarraren aurkako** (19); **palestinarraren aurkako erasoak** (3); **palestinarraren batasun nazionala** (3); **palestinarraren bigarren intifada** (3); **palestinarraren bizimodua** (4); **palestinarraren borrokaren** (4); **palestinarraren egoera** (9); **palestinarraren esanetan** (3); **palestinarraren eskubide** (3); **palestinarraren eskubideak** (8); **palestinarraren eskubideen** (3); **palestinarraren eta israeldarren** (7); **palestinarraren etxeak** (5); **palestinarraren etxebizitzak** (5); **palestinarraren giza** (5); **palestinarraren giza eskubideak** (3); **palestinarraren hainbat** (5); **palestinarraren helburu** (4); **palestinarraren heriotza** (3); **palestinarraren itzulera** (5); **palestinarraren kontra** (8); **palestinarraren kontrako** (13); **palestinarraren kontrako erasoak** (3); **palestinarraren kopurua** (3); **palestinarraren lur** (4); **palestinarraren lur gehiago** (3); **palestinarraren lurrak** (4); **palestinarraren lurretan** (3); **palestinarraren mugimenduak** (3); **palestinarraren okupazioa** (3); **palestinarraren sufrimendua** (3)

**preso palestinarren** (13)

**lurralde palestinarretako** (3)

**herri palestinarretan** (3); **lurralde palestinarretan** (15)

**palestindar estatu baten** (4); **palestindar eta israeldarren** (3)

**israeldarren eta palestindarren** (3); **palestindarren artean** (7)

palestindar ik **palestinatar**.

## palestino 1 *izlag/iz* palestindarra.

Haren aita ere futbolaria zen, eta Txileko Wanderers eta **Palestino** taldeetan aritu ondoren, itsasoa zeharkatzea erabaki zuen, kirol erronka berrien bila.  Berria - Kirola

## 2 iz palestinar zapia, marrazki geometrikoa duen lepoko zapi mota bat.

Geure txikian, geure erara, Jean Genet **Palestinarrekin** izan zen bezala, *capitf amoureux* izan gara gu.  Joseba Zulaika

Harkaitzekin zebilenean kanpai formako galtzak, Beñatekin **palestinoak** eta Jonekin kamiseta tirantedun laxoak maite zituen hein berean.  Aingeru Epaltza

## palestra 1 iz antzinatean, borroka-jokorako gunea.

Italian **palestrak** eraikitzeak ohiturarik ez dagoen arren, iruditzen zait komeni dela tradizioz iritsi zaizkigunak esplikatzeara eta grekoen artean nola egiten ziren azaltzeara.

Santiago Iruretagoiena

Lehen deskribatu bezala doi-doi banatu behar dira peristiloak **palestran**.  Santiago Iruretagoiena

Lagun gazteenak limurtzea **palestra** heleniko batean gorputzak lotsagabeki erakutsi eta buruak arrunki ezkuta zitzaten *petasus* helenikoaren hegala zabalaren azpian.  Iñaki Mendiguren

## 2 irud/hed

Santua, errakuntzen **palestran** bere burua ikusi orduko, liskarren areatzara jaisten hasi zen, baina berehala garaipenen gurdira igotzeko.  Jon Alonso

## palet *(orobat pale; Euskaltzaindiaren Hiztegian palet agertzen da) iz* jasogailu mugikorretan erabiltzen den garraio plataforma zurezkoa, salgai pisuak jasan ditzakeena.

*La tempestad*-en, bestalde, **palet** batzuk baino ez ditugu jarri, Prospero dagoen uhartea irudikatzeko.  Berria - Kultura

Eta 1.250 kiloko **pale** bat mugitzeko zerabilten urrutiko kontrolak huts egin eta azpian harrapatu zuen zornotzarra.  Berria - Ekonomia

Eraikinareen kanpoaldean argiaren instalazioa jartzeko erretanak markatzen ari zen **palet** baten gainean, eta bat-batean erori egin zen hirugarren solairutik.  Berria - Ekonomia

Ekonomia

Kafe zakuak gero aterako dizkiot, badaukazue zer ikasi, zoazte **paleen** bila, azpian dakartzan paper-pasta fardoak hondarrean kenduko dizkiot.  Koldo Izagirre

## paleta 1 iz ohol txiki zuloduna, margolariak erpurua zulotik pasatuz eusten diona, koloreak jartzeko eta nahasteko erabiltzen duena.

Pintzelak eta **paleta** bat zeuden mahai txiki baten gainean.  Koro Navarro

Bere **paletako** kolore guztiak agortuko zituen koloristari kartsuenak, hura islatu nahian.  Karlos Zabala

Lehen ariketatzat, loreak margotzea erabaki zuen, "ñabarduraz zuzenak" iruditzen zitzaizkion koloreak aukeratuz bere **paletatik**.  Xabier Olarra

Marrakziaren ondotik, pintatzen hasten baitzen, pinturak **paletan** nahasten eta bir-nahasten zituela, kolore egokiaren bila beti ere, hemen argiago, han ilunago.  Joan Mari Irigoien

Banitian tonu indartsu guztiak, mingain beteen gorria, lakoien horia, paper pusken urdina, hasitako piezen arrosa, txilar hostoen berdea, eta odolkien beltza batez ere, egundoko kolore beltza, nire **paletan** sekula aurkitu ez dudana.  Karlos Zabala

Artea baino gorroto ez zuena, hura baitzuen aierioa; bere maitearen begitartea lapurtzen zioten **paletak** eta pintzelak eta gainerako tresna gaiztoek bakarrik ikaratzten zutena.

**Koro Navarro**

## 2 margolari batek erabiltzen dituen koloreen multzoa.

Rothkoren **paletan** ez zen kolore distratsurik, gorri, granate, marroi, gris eta beltza baizik. **Berria - Kultura**

Alabaina, margolari inpresionista eta espresionistaren **paleten** eragina oso agerikoa da Etxebarriaren zenbait lanetan. **Berria - Kultura**

Bistan denez, **paletan** kolore gehiago eta biziagoak dituen beste norbaiten esku utzi beharko dugu hiriko damen izaera pintatzeko lana. **Jose Morales**

## 3 irud/hed

Ohe gainean jarri zen; maindirearen tolesen artean ispilu bat irmotu, tindu-**paleta** atera, eta aurrealdeko xerloak urdintzeari ekin zion. **Jon Muñoz**

**Paleta** orkestrala ederki erabiltzen du, bere sinfonietan orkestra handia behar da, XIX. mendeko erromantizismoaren bidetik. **Berria - Kultura**

Inoiz baino soinu **paleta** handiagoarekin itzuli da *Skunk* taldea *Giltzak* diskoan (*Gor*). **Berria - Kultura**

Beharbada kontzertu guztian orokorrean tinbre **paleta** zabalagoa ez erabiltzearen falta sentitu genuen. **Berria - Kultura**

## 4 igeltseroaren lanabesa, triangelu formako metalezko xafla eskulekuduna. **ikplaunkai; palote**.

Haraxeago Jabi, **paletarekin** kapazoa garbitzen ari zen. **Pablo Sastre**

Goiak estaltzen ari, kalean gora eta behera jendea, Larra **paleta** zabalarekin masari eraginez eta Mandi Ilanarekin. **Pablo Sastre**

Egia esan, Gortarik gorroto ikaragarria zion igeltseroaren **paleta** hotsari. **Patxi Iturritegi**

Orgatilaren beheko apaletik ontzi bete porlana eta **paleta** aterata, sarrera zigilatzeari ekin zioten. Errekako harea, berriz, fintasun handikoa denez,[...] igeltsero-**paletarekin** leuntzen denean izugarri sendoa egiten da zarpeatu-lanetan erabiltzeko. **Áingeru Epaltza**

Baina berriro hantxe azaltzen zaizu hurrengo harkaitz-labarrari itsatsia, hasieran mortairu-**paleta** batez hara jaurtikia dirudiela. **Joxe Austin Arrieta**

## 5 pilota jokoko pala mota.

**Paleta** jokoan, gomazko pilotekin, Andres Dick eta Javier Nicosia argentinarrak. **Herria**

**Paletaz**, larruzkoan, Argentina lehen bere Fusto famatuarekin. **Herria**

Lau modalitatetan jokatu da: xarean, **paleta** larruz, **paleta** gomaz eta eskuz binaka. **Berria - Kirola**

**Paletan**, larruzko pilotarekin, tolosarrak (Iris Thomas, Brefel Sylvain) jaun eta jabe, argentinarrak erreki menean atxikirik. **Herria**

Emakumezkoen **Paleta** Gomazko Lehen Txapelketa. **Berria - Kirola**

- Asmotan, hantxe zeuden, mahai berdearen gainean utziak, ping-pongeko bi **paletak**. **Joxe Austin Arrieta**

## 6 zenbait tresnen pala. **ik pala 4**.

Arraunen **paleta** uretara jausten zen, urpea erratzak bezala garbitzeko. **Joseba Sarrionandia**

Gurpilaren kanpoko ertzaren inguruan **paleta** batzuk jartzen dira; ibaiaren indarrak **paleta** horiek jotzen dituean, gurpila biraka hasten da gero eta gehiago. **Santiago Iruretagoiena**

Mutur horretan gurpil bat jartzen zaio, diametroan lau oin eta erdi dituena eta bere ertzetik kanpora ura ukitzen duten **paleta** batzuk dituena. **Santiago Iruretagoiena**

## 7 pala txiki baten formako lanabesa.

Txerri gantza ontzitik hartzen zuen ezpelezko **paleta** batez. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**paleta goma** (3); **paleta gomaz** (10); **paleta gomaz emakumezkoak** (4); **paleta gomazko** (3); **paleta jokoan** (9); **paleta larruz** (6)

## **paletalari** *iz* paletan jokatzeko duen pilotaria.

Biharkoen xapelgoak jokatu dituzte 20 urtetaraten ari diren pilotariak Hego-Amerikako Uruguaien, lehenagoko Andruco eta Iraizozen herrian bai-eta sare ta **paletalari** haundi batzuean. **Herria**

## paleztinar ik **palestin**ar.

## paleztindar ik **palestin**ar.

## **paliakate** *iz* Mexikoko Veracruzen erabiltzen den lepoko zapia.

Kolore biziak, emakume indigenak kaputxarekin eta **paliakateekin**, Emiliano Zapata eta Marcos elkarrekin... **Unai Iturriaga**

## **paliatibo** *izond/iz* aringarria, leungarria.

Bai, duin hiltzearen inguruan zenbait kontzeptu sar ditzakegu: eutanasia bera, baina baita zainketa **paliatiboak**, azken borondateko testamentua eta antzekoak ere. **Berria - Euskal Herria**

Maite-maite omen lukeen euskara hil-hurren ikusten duenak dolorezki eginiko eutanasiaren edo **paliatiboen** planteamendua. **Joxe Azurmendi**

## palimpesto ik **palinpsesto**.

## **palindromatu**, palindroma, palindromatzen du *ad* palindromoak osatu.

**Palindromatzen**. **Iñigo Aranbarri**

## **palindromiko** *izond* palindromo bat osatzen duena.

Ama, erre edo *kakak* hitzei, atzekoz aurrera ere berdin esaten direnei, hitz **palindromiko** deitzen zaie. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Horretan ibiltzen direnek diotenez, orain arte inon topatu duten hitz **palindromikorik** luzeena suomiarren hizkuntzako bat da: saippuakivikauppias. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Inuiten ezpainetan, ordea, Qaannaq zen herri hura -izen **palindromiko** ezin ederragoko herria-, eta izen horrekin jarraitzen du gaur egun ere. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ez diot esan Edward Benbow-k 40.000 hitzez osatutako idatzi **palindromiko** bat sortu zuela 1981. urtean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**palindromo** *iz* eskuinetik ezkerra eta ezkerretik berdin irakurtzen den hitza edo esaldia.

**Palindromo** bat aurpegi biko hitza da, baina berezitasun batekin: ezkerretik eskuinera zein eskuinetik ezkerrera, hitz bera irakurtzen dugu. Iñaki Arranz

Bitxia da euskaraz bai *arra* bai *eme* **palindromoak** direla ohartzea. Iñaki Arranz

**Palindromoak** osatzeko joera aspaldikoa da, dirudienez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Urmaeletan, hezetasun itogarrian militarren, arratoien eta oroimenen ihesi bizi den Lorenzo arratoi harrapatzaileak, **palindromoak** egiten ematen ditu egunak. Iñigo Aranbarri

**palingenesia** (*orobat palingenesi g.er.*) *iz* berpizkundera edo birsortzea.

Zisma eta **palingenesia**. Iñaki Mendiguren

Mundu bakarra dago, geurea, baina aldizka gutxieneko energia printzipiora [...] murrizten duten deflagrazioen mende dagoena eta berriro ere bere baitatik birsortzen dena,

**palingenesia** perfektuki arautu eta amaigabea. Xabier Amuriza

Hor ez dira arimen sorketa, deuseztapena eta **palingenesia** eta ararren hipotesi kaskarinak onartzen. Ibon Uribarri

Desatxikimendua erretiratzea bakarrik den bitartean, antzaldaketa erretiratzea eta itzultzea da: **palingenesia** bat, ez espezie zaharreko beste ale bat berriro jaiotzearen zentzuan, baizik eta gizarte-espezie berri baten jaiotzearen zentzuan. Iñaki Mendiguren

Berak analizatzen zituen pertsonalki errauntsak, pazientzia zikoitzez, elementu preziatuak (eta apika are ez hain preziatuak) oro ateratzeko, **palingenesi** erritual halako batean. Juan Garzia

**Palingenesiak** denbora arbuiztera daramatza, prozesuetan iraunkor denarekin bat egitean, haien errepikatzearen eta, beraz, betiraunaren jakile: naturaren legeak itzulgarriak direla baieesteko euren era berezia da. Xabier Amuriza

**palinodia** *iz* iritzi aldaketa baten adierazpen publikoa.

**Palinodia**, etimologiari begiratzuz gero, "kantu berritua da", lehen esana ukatu eta testu berriro emendatua: [...]. Patziku Perurena

Orduan haren aldeko **palinodia** izkiriatu behar ukan zuen ikusmena errekuperatzeko. Patziku Perurena

**palinpsesto** (*orobat palimpsesto*) *iz* gainean berriro idazteko, testua ezabatzen zaion pergaminoa.

Propio ezabatu den beste testu baten gainean idatzitako testuari **"palinpsesto"** esaten zaio. Joxerra Garzia

Ahalik arretatsuen ezabatuta ere, ordea, testu zaharrak bere aztarna uzten du gainean idatzitako testuan, eta hori da, hain zuzen, **palinpsesto**en grazia: testu bakarra ageri den lekuan bi testu izatea. Joxerra Garzia

Lotsatu ere egiten da bat baino gehiago, bere testuak, testu guztiak bezala, **palinpsestoak** baino ez direla aitortzean. Joxerra Garzia

-Testu oro den **palinpsesto**an gure trebezia paleografikoa erabiltzeko... Iñaki Iñurrieta

Gogoeta egin dut zilegi dela Kixote "azken" horretan halako **palimpsesto** moduko bat ikustea, zeinean nolabait islatu behar baitute gure lagunaren "aurretiazko" idazkeraren aztarnek -ez garbi-garbi, noski, baina antzemateko moduan, hala ere-. Juan Garzia

Alde batetik, oroimena, ikuspegi dinamikotik hartua, etengabe berrikusi eta berregina; baina baita oroitzen zait harturik ere, non oraindik ere jatorrizko forman irauten baitute irudiek, nahiz eta, **palinpsestoak** balira bezala, behin eta berriz ondorengo eskarmentuaren arabera berridatzirik irau. Xabier Olarra

**palio 1** *iz* ehun bikaineko sabai modukoa, lau hagak eusten diotena, kalean euskaristia, erlijiozko irudi bat edo prelatu edo kideko bat estaltzeko erabiltzen dena.

Nobeletan agertu ohi diren bi larrutako jendea etorri zait burura: izan ere luistarra zen Xanjoxe, **palioa** eskuetan eramanez prozesioetan buru egiten zutenetakoa. Xabier Etxabe

Franco ez zela meza nagusiak erraz huts egiten zituen epela, ospetsuak ziren haren **paliopeko** sartzeak Salve izeneko elizkizunera, apez eta kristau ez-frankisten eskandalagarri. Koldo Izagirre

Francisco Franco jenerala urtegiak inauguratzen, Francisco Franco apezpiku eta artzapezpikuekin katedralera **paliopean** sartzen. Joseba Sarrionandia

**2 irud/hed**

Tishe b'Av-en ondorengo aurreneko Sabathean ospatu ziren ezteiak, eta birjina baten ezkontzan egin ohi diren guztiak egin ziren: bazkaria pobreentzat, **palioa** sinagogaren aurrean, musikariak, ezkon bufoia, bertutezko dantza. Koro Navarro

Senargai **palioaren** azpian zegoen, goibeltasuna irudi. Koro Navarro

Argia, lurretik hasi eta zuetako edozeinen bururaino bezain altua zena, konta ezin ahala ipurtargik osatzen zuten, denak elkarren ondo-ondoan, **palio** itsugarria sortuz maitagarrien zirkuluaren gainean. Julen Gabiria

**3 (hitz elkartuetan)**

Eleanorrek zuzenean aireportutik eztei **palioaren** azpira eramango duela esperoko du seguruenik. Koro Navarro

Egun batean Peshe ezkon **palioaren** azpian zegoen, eta biharamunean dendan zen oster, bere esku koipetsuekin alkaterna saltzen. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**palioaren azpian** (3)

**palisandro** *iz* kolore gorri iluneko zura, zain beltzekikoa, ebanisterian oso aintzat hartua, zenbait zuhaitz tropikaletatik ateratzen dena.

**Palisandrozko** giderra zuen makila baten gainean bermatzen zuen kokotsa. Jon Alonso

**palista** *izond/iz* palan jokatzeko duena.

Monique teniseko irakaslea Joseba Gotzon senargai **palistarekin** guztiz maiteminduta dago, baina ez da gauza sentitzen harekin amodioa egiteko. Jon Arretxe

Lau **palistek** ondo jokatu zuten. Berria - Kirola

Zortzi **palista** aritu dira txapelketa horretan. Berria - Kirola

C-1 mailako selekzioan erabakitzeke zegoen tokia Jordi Sangra **palista** kataluniarrak beteko du. Berria - Kirola

Gaubeka **palista** tekniko da, oso pilotari abila. Berria - Kirola

**Palista** beterano on askoak bazeuden, baina jende berria behar zen. Berria - Kirola

Bata **palista** eta bestea tenista? Jon Arretxe

## paliza iz jipoia.

Bere etxean **paliza** ederrak hartua izan behar du. **Pablo Sastre**

Ni ordurako nahiko nekatuta nengo, **paliza** galanta hartu genuen, eta nekeak ere bere lana egiten du. **Berria - Kirola**

Koskabiloetaraino zeuden denak poliziaren **paliza** eta gehiegikeriekin. **Harkaitz Cano**

## palka iz hesi ohola.

Eguraldi onarekin ez da osagarri beharrik izango, baina txarra bada, **palkak** eta ur bonbak ezinbestekoak izan daitezke. **Berria - Kirola**

Txanda joan eta txanda etorri, ondorengoek aurrekoek baina **palka** handiagoak jarri behar izan zituzten, uraren jolas basatia zerbait geratuko bazuten **Berria - Kirola**

## palko (orobat *palku g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian palko agertzen da*) **1** iz antzokietan, balkoi modukoa, zenbait eserleku dauzkana.

Eskumuturrak **palkoaren** belus gorriaren gainean paratzen zituen. **Karlos Zabala**

Galdetu dio halaber amari ea etzi operara eraman nazakeen, haren **palkora**. **Jon Muñoz**

Operako **palko** batean gizonetako lagun batekin eserita nengo, eta zu aldamenekoan. **Eduardo Matauko**

Lamelaren ezkutuko sekretua enamoratuta egotea zen, baina egiaz enamoratuta, aristokraziako emakume batez, Errege Antzokiko **palkora** kotxez joaten zen emakume tituludun batez. **Josu Zabaleta**

Afari batean aurkitzen dut adiskide baten etxean, Prévane bere **palkoa** eskaintzen dio teatro lan berri bat ikusteko, eta nik leku bat onartzen dut han. **Jon Muñoz**

Hizlariak eten behar izan zuen bere jarduna eta bere atzeko **palkoan** zeuden herriko nagusi-magusiengana biratu zen. **Koldo Biguri**

Bederatzigarren **palkoa** da beraiena. **Arantxa Iturbe**

### 2 (hitz elkartuetan)

-*Première* batean nintzela uste nuen, eta hau errege **palkoa** zela -esan zuen. **Koro Navarro**

### 3 (zezen plazetan eta kidekoetan)

Argazki handi bat zekarren, aurreko abuztuko zezenketa batean autoritateen **palkoa** hartzen zuena. **Josu Landa**

**Palkoan**, gorago esan bezala, diktadorearen emazte Carmen Polo [...] hortxe dagoelako, zezenketaren buru. **Edorta Jimenez**

[Lauko finala ikusteko] sarrera guztiak agortu dira, **palku** pribatuak izan ezik. **Berria - Kultura**

### 4 desfile eta kidekoetan jendea jartzen den taulada edo oholtza jaso.

Australiako osaba **palkoaren** azpian jartzen zen eta gobernuko hizlariarena eten nahi izaten zuen, oker baitzebilan. **Pello Lizarralde**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bederatzigarren palkoa** (4)

## palku ik palko.

## palladium iz babestokia, gotorlekua.

Lege zibil egokiak dira gizakiek eman eta har dezaketen onik handiena; eurak dira ohituren iturburua, jabetzaren **palladiuma**, eta bake publiko eta partikular ororen bermea.

**Andres Urrutia**

## palma 1 iz palmondoaren adarra edo hostoa.

Beste gaixo batzuek **palmak** hartu, xigortu eta zanpatzen zituzten. **Jon Alonso**

Bere hilobiaren buruan agertu zen **palma** bat, handik hiru urtetara Jerusalemeko erromesek esku artean ekarriko dutenaren antzekoa. **Jon Alonso**

**Palma** palmondo bihurtu zen, hostoak erne zitzaizkion eta handi egin zen. **Jon Alonso**

Martirioren **palma** eta koroa irabazteko ere. **Joan Mari Irigoien**

**Palmarekin**, martir gisa hil baitzen. **Herria**

### 2 palmondoa.

AQ< Europar produktu manufakturuak ez ziren jada esklaboen truke aldatzen, tropikoko gaien truke baizik (kakaoa, **palma**-olioa, kakahueteak), gero eta eskari handiagoa baitzuten Europan. **Koro Navarro**

Kontuz ibili beharko dute, gantz asegabeen kontsumoa dela eta, koko, **palma** eta palmito olioak saturatuak baitira. **Edorta Agirre**

### 3 *palma-adar* (orobat *palmadar*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian palma-adar agertzen da*) palmondo adarra.

Udaberrian ospatzen genuen guk jai hura Obaban, Jesus Jerusalemenera **palma** adarren artean sartu zela gogoratzuz. **Bernardo Atxaga**

Orduan, anaiak, pozez gainezka, korura joan ziren eta, gurutzeak, intentsu-ontzia, **palma**-adarrak eta kandela piztuak eskuetan harturik, binaka prozesioan korutik elizara sartu ziren. **Askoren artean**

Garaipen ospetsuaren **palma**-adarra lortu baitzuen. **Askoren artean**

### 4 *palma-hosto* palmondo hostoa.

**Palma**-hosto horien sendatzeko dohainen ospea zabaldu zen. **Jon Alonso**

Gutziz trebea zen gatibu bati bekokiaren ingurubiran metxa bat bihurtzekatzen, begiak irtenarazteraino, edo aurpegia ferekatzen **palma**-hosto irazekiz. **Juan Garzia**

### 5 *palma-orri* (*corpusean palmorri soilik*)

Bildotsaren eta tronuaren aurrean zutik zeuden, arropa zuritan apainduak, **palmorriak** esku-artearen zatzixkatela. **Itxaro Borda**

### 6 (*Cannesko zinemaldiko sari gisa*)

Michael Mooreren Fahrenheit 9 / 11 filmari ikusleek eta kritikariek emandako babesa berretsi zuen atzo Cannesko zinema jaialdiko epaimahaiak, eta Urrezko **Palmorria**, hau da, zinemaldiko lehen saria eman zion 57. ekitaldian. **Berria - Kultura**

Kusturicak 1995ean irabazi zuen Urrezko **Palmorria** *Underground* filmarekin. **Berria - Kultura**

Cannesko **Palmorria** irabazteko faboritoen artean kokatu da Emir Kusturica, *Kad je zivot bio cudu* filmak (Bizitza miraria da) oso harrera ona izan baitzuen atzo, jaialdiko sail ofizialean. **Berria - Kultura**

*Les invasions barbares* filmak Cannesen bi **palmorri** jaso zituen. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**palma adarra** (3); **palma adarrak** (3); **palma hosto** (3); **urrezko palma** (6)

## palmdar ik palma 3.

## palmares 1 iz lorturiko garaipen edo sarien multzoa.

Sara Carracelas gipuzkoarra ezagutzen ote duzue? kirolari bat da, Euskal Herriko kirolarietan **palmaresa** handienetariko bat daukana, elbarritua izana gatik ere. **Herria**

Arrigorriagakoak, 40. hamarkadan biribildu zuen bere **palmaresa**, Valentziarekin bi Liga irabazita (1943-44 eta 1946-47 denboraldietan). **Berria - Harian**

**Palmaresean** 37 bandera dituzte, eta ia z TKE ligan bigarrenak izan ziren. **Berria - Kirola**

Selekzio txikiak ere badira, apalak, **palmares** handirik gabekoak, handiei puntuak ematera deituak, gero Kopa irabazten badute ere, une honetan final-laurdenetara igarotzeko aukera gutxi dutenak: Letonia eta Suitza. **Berria - Kirola**

ONCE-Eroski utzi eta **palmaresa** handitzeko asmoarekin joan da Mallabikoa Illes Balears-Banesto taldera. **Berria - Kirola**

Bederatzi itzuli ageri dira bere **palmaresean**, ia denak maila handikoak. **Berria - Kirola**

Errudun direla frogatu gabe ere, kendu ezingo duten orbana geldituko zaie **palmaresean**. **Berria - Kirola**

## 2 lehiaketa edo kidekoez mintzatuz, sarituen zerrenda.

**Palmaresean** urrezko maskorra eraman du «Los Lunes al sol» filmeak. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**palmares hobea du** (3)

## palmatu izond behatzez mintzatuz, mintz batez elkarri lotuak daudenak.

Txanogorrien ondoren, *kappas*-ak aztertu zituzten, uretan bizi ziren izaki nazkagarri batzuk, tximino ezkatatsuen antzekoak, behatz **palmatuak** zituztenak, eta haien aintziretan nahigabe sartzen ziren hegazti zangaluzek itoz gozatzen zutenak. **Iñaki Mendiguren**

## palmer iz diametro edo lodiera oso txikiak neurtzen dituen gailua.

**Palmer** itxurako metalezko tresna txiki bat... **Jon Alonso**

## palmera 1 iz palmondoa.

Basamortua oasi bihurtu da eta azal iluneko gizona bertako **palmera** da. **Berria - Harian**

Uhartre horretan, beti bezala, naufragor bizardun bat marraztuko duzu, biluzik, **palmeraren** gerizpean. **Jokin Muñoz**

Jeneralaren aurrean Sartaldearen sinboloa, Konraden aurrean Sortaldearena: sarrazin irribarretsu baten iruditxoa, bere gameluarekin eta **palmerarekin**. **Xabier Olarra**

## 2 (hitz elkartuetan)

Inoiz inon ikusi gabeko landareak ere aurkitu dituzte, besteak beste, bost **palmera** espezie berri eta errodo dendro klase berri bat. **Berria - Gaiak**

## palmeradun izond palmera duena; palmerak dituena.

Imanolek egin zuenean, amak galtzak egin zizkigun, eta elastiko laranja bat erosi zidan, Ferris markakoa, eta oinetakoak, **palmeradunak**. **Lander Garro**

## palmito iz zurtoin motzeko palmera mota, hostoak haizemaile itxuran dituena, apaingarri gisa erabiltzen dena (*Chamaerops humilis* etab.).

Bestetik, kontuz ibili beharko dute, gantz asegabeen kontsumoa dela eta, koko, palma eta **palmito** olioak saturatuak baitira. **Edorta Agirre**

## palmondo 1 iz eskualde beroetako zuhaitza, enbor luze, latz eta soilekoa, enborraren buruan hosto handiz osaturiko adaburua duena eta loreak mordoetan dituena, fruitutzat datilak ematen dituena (*Phoenix dactylifera* etab.). ik behegaro 5.

**Palmondo** eta magnolioen arteko bidetik barrena. **Felipe Juaristi**

**Palmondoen** azpitik ibili dena ez da sekula izango lehengoa. **Bernardo Atxaga**

**Palmondoaren** hosto zorrotzak ukitu ditu, arrosa ernatu berriak usaintzeko makurtu du burua. **Pello Lizarralde**

**Palmondo** hartako hostoak hartzen zituzten, eta berehala paratzen zituzten lepoan. **Jon Alonso**

Zabor pila batean, herriko akerra ahaleginean ari zen aurreko urteko **palmondoaren** hostoak txikitu nahian. **Koro Navarro**

Elbarriturik zeudenak asto gainean ezarri eta Jerikora, **Palmondoen** hirira, eraman zituzten. **Elizen arteko biblia**

Elimera, hamabi iturburu eta hirurogeita hamar **palmondo** zituen oasira, iritsiz, bertan etxolatu ziren. **Elizen arteko biblia**

Iruditzen zait ez dela nahikoa haiei **palmondoak** eta koroak eskaintzea, baizik eta garaipenaren ohoreak eskaintzeaz gainera, jainkoen artean ere leku bat egin beharko zaiela. **Santiago Iruretagoiena**

Patxadaz sartu zen, burua tente, **palmondoen** irudiko. **Jose Morales**

Bularrak ikusiak zizkion, apenas bi loto lili izatetik **palmondoen** bi fruitu izatera igaro, eta azkenik bi granada mardul bilakatu zirenak. **Patxi Zubizarreta**

**Palmondoen** adaburu lumatsuak. **Iñaki Mendiguren**

## 2 (izenondoekin)

Basoarte amaigabea, zarratua, tarteka indiar txabola multzo bat edo beste, erro agerizko zuhaitzen pean ostendurik, **palmondo** bakan batzuk ere bai noizbehinka. **Joxe Austin Arrieta**

Gure mahaitik Atlas Handiko mendikate elurtua ikusten genuen, eta hiriaren parte handi bat, **palmondo** lerdenak jaun eta jabe zirela. **Bernardo Atxaga**

Bungalowen patioaren erdian dagoen **palmondo** ahal mendreari begira. **Fernando Rey**

Hallean mutil ilehoria suteetarako ontzi batean patxadaz oka egiten topatu zuten, **palmondo** artifizial baten azpian. **Lopez de Arana**

**palmondo** berdea hagaxka bat bezain malgua da, eta beraren hostoetan aitzo-zorroztearen soinua dago haizeak. **Joxe Austin Arrieta**

Orokaiven etxeak zutoin edo taketen gainean eraikita daude, eta zorua elkarri lianekin lotutako **palmondo** beltzaren oholez eginda daude. **Pablo Sastre**

· Augilatik beste hamar eguneko bidean beste gatz muino bat dago, gainerakoek bezalaxe, ura eta **palmondo** igali emaile ugari duena. **Patziku Perurena**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pezoz, egurrez, buruz eta **palmondo** hostoz eginak daude. Berria - Mundua

Eskuetan **palmondo** hosto eta zedro sortak. Anton Garikano

Bere buruari haize ematen ari zaio **palmondo** orri batekin. Xabier Paya

Arbola jorien fruituak, **palmondo** -erramuak eta zuhaitz hostotsuen eta erreka-bazterreko sahatsen adarrak eskuetan harturik. Elizen arteko biblia

Oihanak soilten ari dira Sumatrako ekialdean, legez kanpo askotan, **palmondo** sailak sortzeko. Berria - Gaiak

Negeb eta Jerikoko - **Palmondo** hiriko- haran-ingurua, Tzoar hiriraino. Elizen arteko biblia

Zure taxua palmondoarena, eta bularrak **palmondo** -lukuak. Elizen arteko biblia

Atalondoaren albo-hormetan, saredun leihoak eta **palmondo** -irudiak zeuden, bai eta tenpluko eranskinetan eta aterpetxoetan ere. Eiizen arteko biblia

Han ur berotan sarturik garbitu egin zituzten krabelin lurrinez eta gero **palmondo** olioz igurtzi. Felipe Juaristi

Urrutitik adi zitezkeen haren **palmondo** -ardo bufadak. Joxan Elozegi

#### 4 (*Valentziako Mostrako sari gisa*)

Pjer Zalica bosniarraren *Gori Vatra* filmak irabazi du Valentziako Mostrako sari nagusia, Urrezko **Palmondoa**. Berria - Kultura

Luis Filipe Rocha portugaldarrak jaso du Zilarrezko **Palmondoa**, *A passagem da noite* filmarekin. Berria - Kultura

Brontzezko **Palmondoa** Keren Yedayari eman diote, *Or lanarengatik*. Berria - Kultura

#### 5 datil *palmondoa* (*Phoenix dactylifera*).

Gameluarentzako bazka, ur-putzua edo datil-**palmondoak** zeuden inguruneetan. Jon Arretxe

#### 6 *palmondo adar* ik **palma** 3.

FUNAI Indioen Fundazio Nazionaleko beharginen arabera, talde hura oso ahulduta zegoen, lastoz edo **palmondo** adarrez egindako txabolatan ezkutatuta. Berria - Gaiak

**Palmondo** adarrak, garaipenaren edo sariaren sinboloak dira. Herria

Badoaz piloteen gainean eraikitako etxoletarantz **palmondo** adarren artean burua makurtuz. Patxi Iturritegi

**Palmondo** adarrak harturik, oihuka hasi zitzaizkion: Hozanna! benedikatua Jaunaren izenean datorrena! Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**palmondo ahul** (3); **palmondo baten azpian** (4); **palmondo eta lore** (3)

### palmorri ik **palma** 5.

## palo<sup>1</sup> iz flamenkoa osatzen duten aldaeretako bakoitza.

Flamenkoaren **palo** guztietan barrena eginiko bidaia proposatuko diote ikusleari: seguriyak, tarantoak eta buleriak dantzatuko dituzte. Berria - Kultura

Oinarrizko **paloak** ziren gehienak, hau da, Fandangoak, Solea, Buleriak, Alegrias, Taranto Seguirilla, eta Galiziatik eratorriko Farruca ederra dantzatu zituen. Berria - Kultura

Aipatzekoa da kantaoreek eta gitarristek Suarez, Borja eta Mendezek zuzenean jo zituzten **palo** desberdinak. Berria - Kultura

## palo<sup>2</sup>

### 1 *palo-palo*

Aurreneko **palo-palo** edo astomakiletatik hasi zaio izerdi larria. Iñaki Segurola

## palomita 1 iz artale txigortua.

Gero **palomitak** banatzen hasi zen, eta gero sandwich-zatiak, eta postrerako, ilunetan ordurako, bizkotxoa, dena ere eskuko poltsa oparotik aterata. Jon Arretxe

Belarra zea dek, behiek-eta jaten duen gauza berde hori, eta artuakin **palomitak** eiten dituk. Joxean Sagatzizabal

**Palomitaz** eta txokolatez eta goxokiz eta aldzikari pornografikoz horni zituzten bitartean, ez zen haiengan errezelo arriskutsurik sortuko. Karlos Linazasoro

### 2 (hitz elkartuetan)

**Palomita** -zorro bat erosi du turista-bikoteak, binakako bakardadearen entretenigarri. Joxerra Garzia

Argiak itzalita zeudelarik eta ikusleak **palomita** -jate isilekoan, bada, Karlos Linazasoro

## palote iz *ipar* plaunkaia. ik **paleta** 4.

Belatza zelako ustez hegaztiak aztoratu, eta tarrapataka arbolen erdian gerizatzeko jaistera behartzen zituen "**palotea**" deitu zurezko pala antzeko tresna behin botatzeko baimena eskatu zuen. Elena Touyarou

**Palotez** da hori eta gure gazteriak zinez hor izerdi ederrik botatzen du. Herria

Lurdeko egunetan zirenak etorri ziren bedera hargin **paloterekin** gu aldiz, Angers-etik itzuli gira bedera brikarekin. Herria

## paloteado iz San Juan egunez Tuteran egin ohi den ikuskizuna.

Tuterako *dancea* eta **paloteadoa**. Berria - Kultura

## palpitazio iz pilpira, taupada.

Orduan, izaten zituen **palpitazio** eta zorabio haiek? Antton Olano

## palto iz *ipar* berokia, soi gainekoa.

Gainetik **paltoa** janten zuten, zaindariak ez zitezen kontrabandako jantzi haietaz ohar. Eneko Bidegain

Eskuak **paltoko** sakeletan zatizkan gehienetan, begiak pindar. Itxaro Borda

Galtzoin beltzak, kolore deigarriko atorra bat, **palto** beso motx urdin ilun bat eta gerriko gorri bat atera zituen kutxa batetik. Elena Touyarou

Zazpi ehun euro balio dituen larruzko **paltoa** erosi dut. Itxaro Borda

Musikariak galtza gorritan eta **palto** urdinetan dira, dena brandebourg-ez apaindurik. Marzel Etxehandi



Lehendakariaren bizkartzainak alde orotara barranda zeuden, eskua **palto** azpian zeramaten pistolen gainean, zer gerta ere! **Itxaro Borda**

Marcek **palto** kakiaren barruko sakelari zeraman bere emaztegaiaren potreta. **Itxaro Borda**

Gizon tipittoa [...] bere gantza-guneen gordetzera entseatzan zen, uda edo negu zango sagarretarainoko **palto** luzea jantziz. **Elena Touyarou**

Beti bezala, beltzez beztu zen, lepo-hegi gogordun **palto** laburra zeramala, galtza motz, galtzerdi eta zapatekin. **Elena Touyarou**

Gizonak izerdi lapetan zeuden oihala lodiz egin **palto** eta xenilak soinean. **Elena Touyarou**

## paludiko iz paludismoarena, paludismoari dagokiona.

Kuartana: lau egunean behin eraso egiten duen sukar **paludikoa**. **Patxi Ezkiaga**

## paludismo iz malaria.

**Paludismoa** da Afrikako bigarren eritasuna, malaria ere deitzen dena, uli xixta batetik heldu dena. Milioi bat pertsona hiltzen dira urtean munduan **paludismoak** jota.

**Herria**

OMEk, bestalde, artemisinin oinarritutako tratamenduak aholkatzen ditu **paludismoaren** aurka egiteko. **Berria - Gaiak**

Menturaz, Filipinetan egondako fraideren bat daukate orain hemen Bergarako komentuan **paludismoa** sendatzen. **Koldo Izagirre**

Eltxoen bitartez zabaltzen den gaitza da **paludismoa**. **Berria - Gaiak**

## pamela iz emakumezkoen kapela malgu hegal-zabala.

Beti **pamela** jantzita dutela diruditen horietakoa. **Ramon Saizarbitoria**

## pammixia iz populazio batean zernahi gizabanakakok beste sexuko edozein banakorekin gurutzatzeko probabilitate berbera duenean gertatzen den egoera.

Estatu unibertsalen gobernariak ezarritako goarnizio eta kolonien azterketak, eta horiek ekartzen dituzten biztanleriaren lekualdatze arbitrarioen hausnarketak iradokitzen dute erakunde horiek, zernahi meritu dutela ere beste testuinguru batzuetan, areagotu egingo zutela **pammixia** - eta proletarizazio-prozesua. **Iñaki Mendiguren**

Noren onurarako izaten da, batez ere, **pammixia** - eta proletarizazio-prozesu hori? **Iñaki Mendiguren**

Hauek zibilizazio nahiz gobernu-xedeetarako balio dute, baina desintegratzen ari diren gizarteen marka diren **pammixia** eta proletarizazioa ere bultzatzen dituzte. **Iñaki Mendiguren**

## Pan flauta ik pan<sup>1</sup> 4.

## pan<sup>1</sup>

**1 Pan flauta** luzera desberdineko zenbait kanaberarekin eginiko haize musika-tresna.

Aratseko 9 etan, kontzertua, Philippe Emmanuel Haas (**Pan flauta**) eta Silvano Rodi (organoa). **Herria**

## pan<sup>2</sup> ik pun 3.

## pana<sup>1</sup> iz belus ildaskatuko ehuna.

Senarra marra lodiko **pana** zakarrez jantzita zegoen. **Harkaitz Cano**

**Pana** beltzeko praken ondoren, idun altuko jertse gris, lodi bat itxi zuen kremaileraz goraino. **Joxemari Urteaga**

**Panazko** jaka beixa atera eta ohe gainean utzi zuen. **Harkaitz Cano**

Galtza luzeak oliba koloreko **panazkoak**, gerriko gorria. **Koldo Izagirre**

Galtza luze **panazkoa**, larru kolorekoa. **Koldo Izagirre**

Jauregiak mundu bat osatzen zuen, harlanduzko hilobi handi eta arranditsu baten antzekoa, non zenbait belaunaldiren hondakinak suntsitzen eta antzinako gizon-emakumeen zeta gris eta **pana** beltzeko jantziak desegiten diren. **Xabier Olarra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**panazko galtza** (6); **panazko galtzak** (3); **panazko jaka** (9)

## pana<sup>2</sup> 1 iz ipar matxura.

Ez bakarrik Erroman, Italiaren hedamena ere hartu du **pana** horrek, 57 miliun jende ilun beltzean ezarri. **Herria**

**Pana** tekniko baten ustekeria dute aldiz besteek, frogarri zerbaiten faltan. **Herria**

**Panan** zegoen semaforoa. **Ramuntxo Etxeberri**

Hainbestenarekin, Baionan zeuden bi erremorkariak Konstantinos-aren tiratzen hasterakoan **panan** jarri dira! **Herria**

Badakizu nik bezain ongi gau hartan tresna elektronikoko guziak **panan** gelditu direla, eta jendea bera burtzoraturik egona dela. **Michel Oronoz**

## 2 (hitz elkartuetan)

Aski luzaz irau duen elektrika **pana** harekin. **Herria**

## panaderia iz okindegia.

Honen **panaderian**, ogi ederrak jaten genituan txikitan guk. **Pablo Sastre**

**panadero** *iz* okina.

Hi! **panadero** hi haiz... **Pablo Sastre**

**panafrikar** *izond* afrikar herrien multzoari dagokiona.

Bioaniztasuna zaintzea izan da Maathairen lehentasunetako bat, eta hala, 1986an, Gerriko Berdea Sare **Panafrikarra** sortu zuen, Kenyan egindako lanari jarraipena emateko. **Berria - Mundua**

PAC Kongresu **Panafrikarra** alderdiak dio Gobernuak ez dituela lurra beltzei itzultzeko eta parekotasunean oinarritutako aberastasunen banaketaren auziak konpondu. **Berria - Mundua**

**pañal** (*orobat **painal***) **1** *iz* pixoihala.

**Pañala** aireportuan kanbiatu diot... **Pablo Sastre**

Baina guk barre egiten diegu **pañalei**, Lucas bezain umeak garelako kasik. **Unai Elorriaga**

**2** *pl*

Gure amonak hiri **pañalak** aldatu zizkian. **Pablo Sastre**

**panamar** *izlag/iz* Panamako, Panamari dagokiona; Panamako herritarra.

Taldeko burua Danilo Perez **panamar** pianista eta musikagilea da. **Berria - Kultura**

Ofizialki **panamarra** bazen ere, egoitza nagusia Santanderren zeukan nabiera batena zen, izatez. **Xabier Montoia**

Nongoa zara Catharina, txipretarra edo suediarra edo **panamarra**. **Koldo Izagirre**

**panamerikar** *izlag* amerikar herrien multzoari dagokiona.

Urrezko lau domina **Panamerikar** Jokoetan. **Berria - Kirola**

Cauca departamentuko Santander de Quilichao hiritik hasiko dute martxa, eta Errepide **Panamerikarra** -herrialdea hegotik iparrera zeharkatzen duena- erabiliko dute Calira iristeko. **Berria - Mundua**

Osasunaren Munduko Erakundearen filialak, OPS Osasunaren Erakunde **Panamerikarrak**, esan zuen atzodanik botikak eskatzeko zerrenda bateratua kaleratua zutela. **Berria - Mundua**

**panarabiar** *izlag* arabiar herrien multzoari dagokiona.

Baas alderdi **panarabiar** berriko esatariak irakiar guztiak gonbidatzen zituen Askatasunaren Plazara, kebab janez urkabeak ikustera, hantxe baitzeuden urkaturretan herriaren eta aberriaren etsaiak. **Juan Kruz Igerabide**

**panarabiaritasun** *iz* arabiar herrien batasunaren eta elkartasunaren alde egiten duen doktrina. ik**panarabismo**.

Handik denbora batera, ez nituen jasaten **panarabiaritasunaren** eta Baas-en abertzaletasunaren aldeko kantak eta hitzaldiak. **Juan Kruz Igerabide**

**panarabismo** *iz* arabiar herrien batasunaren eta elkartasunaren alde egiten duen doktrina. ik**panarabiaritasun**.

**Panarabismoa** bultzatzen jarraitu du geroztik Gadafik, baina ez du espero zuen erantzuna jaso. **Berria - Mundua**

**panazea** **1** *iz* gaitz guztiak sendatzeko balio duen sendagaia.

Segur aski, nire hankaren kontua zela-eta amarekin izaniko elkarriketek izanen zuten errua, penizilina gaixotasun guztien kontrako **panazea** baten modura ikusaraziko baitzidaten. **Alberto Ladron Arana**

Gero eta nabariago agertzen da prentsan eta komunikabideetan medikuntza genomikoa **panazea** berri gisa. **Askoren artean**

Zelula amak ez dira **panazea**, eta medikuntzaren gainerako alderdiak ere oso garrantzitsuak dira. **Berria - Euskal Herria**

**2** oker guztiak zuzentzeko balio duen konponbidea.

Kontsumitzaileari informazio ona garazi eskaintze hutsa ez da beti erabateko bermea, **panazea**. **Edorta Agirre**

Transgenikoak ez dira **panazea**, FAOren arabera. **Berria - Gaiak**

Politikariak itsututa dabilta honelako azpiegiturekin, eta uste dute **panazea** bat direla beren jarduera sozio-politikoarentzat. **Berria - Kultura**

Ez da **panazea** izango, baina bai oinarritzko tresna bat, ez soilik eskumenei dagokionean, herriari proiektu komun baterako ilusioa pizteko ere. **Berria - Mundua**

Buru mendebaldartua zuten hindu-estatugizon haiek bilaturiko politikak huts eginez gero, zalantza gutxi egon zitekeen erusiar **panazea** lehiakidea sartuko zela Indiako nazio-programan. **Iñaki Mendiguren**

Desadostasun horrek sakon sustraituriko egonezin espirituala sortu zuen, Mendebaldeko ereduaren arabera antolatutako indiar nazio-estatuarentzat independentzia lortzearen **panazea** politikoak sendatu ezin zuena. **Iñaki Mendiguren**

Koitoa ez da **panazea**, eta, gainera, emakume gehienek ez dute orgasmorik izaten koitoa eginda. **Luis Elberdin**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ez da panazea** (4)

**panbokalismo** *iz* hitz batean bokal guztiak bat bera izatea.

**Panbokalismoa**. **Iñaki Arranz**

**panda** **1** *iz* haragijaleen ordenako ugaztuna, hartzaren antzeko itxura duena, ilea zuria eta gorputz adarrak, belarriak, buztana eta begien ingurua beltzak dituena, Txinako oihanetan bizi dena, *panda hartza* ere esaten zaiona (*Ailuropoda melanoleucus*). ik beherago **2**.

Sun-hartza **panda** tankerakoa zen, peluxe zurizkoa, muturra eta begien inguruak izan ezik, haiek beltzak baitzuten. Berria - Gaiak Juan Kruz Igerabide  
Naturarentzako Mundu Funtsak (WWF) kaleratu berri duen ikerketaren arabera, 1.600 **panda** inguru bizi dira aske Txinako basoetan, uste baino %40 gehiago. Berria - Gaiak

Hitzarmen horren helburua hauxe da: hemeretzigarren mendean Armand David Ezpeletarrak aurkitu baitzuen Xinako eskualde hartan **Panda** deitu zuen hartza, Sichuan probintzia hori ezarria izan dadila UNESCO delakoaren gerizapean. Berria - Gaiak Heria

Erresalbu hortan **panda** eri edo kolpatuak artatzen dituzte, berriz libratu aintzin. Berria - Gaiak Heria

## 2 panda hartza (*Ailuropoda melanoleucus*).

**Panda hartza**ren zelulen bankurik handiena sortuko dute Txinan, haien irautea ziurtatzeko. Berria - Gaiak

Banbua desagertuz gero, **panda hartzen** eta basoetako gorilen geroa ere arriskuan legoke. Berria - Gaiak

Kokaina hartzeagatik **panda hartzen** antzeko begi zuloak dituztenei buruzko kanta da. Berria - Kultura

**Panda hartza**, esate baterako, karniboroa da baina ez omen da haragijalea, landare batekin elikatzen delako, banbuarekin hain zuzen ere. Pello Salaburu

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**panda hartz** (4); **panda hartza** (3); **panda hartzen** (3)

## pandemia 1 iz eskualde bat edo Lurreko eremu zabalak hartzen dituen gaitz epidemikoa.

Gerra zibilak, gatazka zabalak, goseteak eta **pandemiak** dira krisi erabateko baten azken agerraldia. Koro Navarro

**Pandemiatzat** jotzen da mundu osoko kasu kopuruaren igoera nabarmena, birus ezezagunak abian jartzen direlako. Berria - Euskal Herria

Kanadako ekonomia aditu talde batek zenbaki hotzetatik kalkulatu du hegazti gripearen **pandemia** batek eragingo lituzkeen kalteak. Berria - Harian

Siberiatik Europako hegoaldera negua pasatzera doazen hegaztiak gripearen bektore izatea litekeena dela dio OMEK, eta milioika pertsona hil ditzakeen **pandemiaren** atarian gaudela. Berria - Harian

## 2 irud/hed

**Pandemia** bibliko bat bailitzan, ehun eta hamabost trafiko-isun jaso ditu etxean. Karlos Linazasoro

## 3 (hitz elkartuetan)

**Pandemia** beldur horiek gainetik kentzeko eta gaixotasuna nola kutsatzen den jakiteko, epidemiologo onen falta sumatzen duela nabarmendu zuen. Berria - Harian

Aspalditik badaki **pandemia** arriskua dagoela, baina zalantzak ditu arrazoiak zehazterakoan. Berria - Euskal Herria

- Ez dago jakiterik zenbat jende hilko den gripe **pandemia** gertatzen bada. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gripe pandemia** (4); **gripearean pandemia** (4); **pandemia arriskua** (3); **pandemia eragin** (6); **pandemia gertatuz gero** (5); **pandemia gertatzeko arriskua** (3); **pandemia saihesteko** (5)

**pandemiarako prestatzeko** (3)

## pandemonium (*orobat pandemonium*) iz zarata eta nahasmendu handia dagoen lekua.

Algaren **pandemoniuma**? Oskar Arana

Elkar suntsituz lurberatzen desagertzean, beraien egintza zen **pandemonium** batetik askatu zuten mundua eta amaiera zorionsua lortu zuten, beraiantzat izan ezik, beste guztiantzat. Iñaki Mendiguren

## pandemonium ik pandemonium.

## pandereta iz pandero txikia.

Zintzur karranka ematen zuen musika aditzen zen, mutiko isiotuak higiarazten zuen **panderetaren** xirri-xarrak suge-ozenaren ezpalen karkara zininokatzen zuela. Itxaro Borda

Zabor-poltsa baten ondoan zegoen, metro erdiko koadro baten barruan, **pandereta** puskatu baten gainean. Josexo Azkona

Tranpolina deitzen dio musika tresna hauetako bati eta honetan datza: **pandereta** handi bat, bere barruan kortozko bola batzuk dituena. Harkaitz Cano

## panderista iz panderu-jotzailea.

Arruabarrena etxegileak bazeukan seme bat **panderista**, eta maite zuen trikitixa. Koldo Izagirre

Sakabik Egañazpi hartzen duelarik lagun hasten da trikiti munduan **panderistaren** izena soinu-jolearen ondoan agertzen. Iñigo Aranbarri

Kantabriako **panderista** gazteen ordezkari nagusiak bilakatu dira Soltxu eta Miriam, galtzear zegoen tradizio baten oinordeko. Berria - Kultura

## pandero (*orobat panderu g.er.*) 1 iz zurezko uztaia, larru tenkatu batez hornitua eta txintxinez inguratua.

Morri batek **panderoa** jotzeari ekin ziolarik, Morgiana ikusgarri aritu zen dantzari, han zeuden guztiak zoratzeko moduan. Patxi Zubizarreta

Farfailez jantzitako eta itxura tristeko bi soinulari ari dira arrabita eta **panderoa** jotzen. Koldo Izagirre

Kantariak aurrean, musikariak atzean, neskatxak tartean, **panderoa** joz. Elizen arteko biblia

Afeminatuen sinbolotzat hartzen zuten **panderoa**. Zibelesen apaiz maritxuek erabiltzen zutelako. Patziku Perurena

Txanponek dantzarien zinbalak jotzean sortzen zuten soinuarekin nahasten ziren oraindik ere dutara eta **panderoen** azken marmarrak. Karlos Zabala

## 2 (soinuaren lagungarri erabiltzen dena)

Bi lagun motor gainean, soinu, **pandero** eta guzti. Iñigo Aranbarri

Gazte aldra asko joan ohi dira bidean soinu jotzen, dultzaina, **pandero**, atabal, hauspo soinu eta honakoekaz, ikotika eta ujuka zoro-zororik. Koldo Izagirre

Pantxikak bazituen **panderoa** jotzen zuten beste bi ahizpa ere, Martzelina eta Juliana. lagunak, **panderoa** jotzeaz gain, kantatu ere egin behar du. Iñigo Aranbarri

Elgetakoa, Jexux Beoterekin batera **pandero** jotzen aritzen zena! Xabier Etxabe

**Pandero** jotzen etxean bertan hasi nintzan, txarri-afarrietan eta halan, panderorik geunkanean. Xabier Amuriza

Serafinek ere, etxeko emakume bat ibiltzen zuen lagun **panderoarekin** kantuan, Antoni arreba. Iñigo Aranbarri

Beren burua berotu egiten zuten eskuetako zinbalekin kriskitinak joz eta **pandero** moduko batzuk, daire izenekoak, hatz puntaz astinduz. Karlos Zabala

**Pandero** politinbrikoaren eta **pandero** multitinbrikoaren asmatzailea eta fabrikatzailea da. Berria - Kultura

## 3 (hitz elkartuetan)

Gogor tematu ziren Ximon eta Jexux nire **pandero**-zaletasuna sustatzen, baina haien lanak ez zuten ondoren ekarri. Xabier Etxabe

Olerkaria gitarra-jole, argentinarra abeslari, eta Julen **pandero**-astintzaile, lurreko arlote txirulariaren noizbehinkako laguntzaz. Jon Arretxe

## 4 pandero-jotzailea.

Lehen bakarrik ibiltzen ginen, orain berriz **panderoarekin** beti. Iñigo Aranbarri

## 5 **pandero-jole** (**5** agerraldi, **2** liburu eta artikulu **1**ean; orobat **panderojole 24** agerraldi, **6** liburu eta artikulu **1**ean) pandero-jotzailea.

Besta giroa izan zen nagusi, trikitalari eta **pandero joleen** laguntzari esker. Berria - Euskal Herria

Kepa Arrizabalagak hamabosten bat urte egingo zituan Rufino Arrolaren **panderojole**, 1977 ingurutik 1992ra arte. Xabier Amuriza

Pieza berriak ere sortzen zituen, eta bere emaztea, Juliana Esnaola "Muxillo" **panderojole** zuela, herriz herri eta auzoz auzo ibiltzen zen soinua jotzen. Pako Aristi

## 6 **pandero-jotzaile** (**32** agerraldi, **liburu 1**ean eta **14** artikulutan; orobat **panderojotzaile g.er.**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **pandero-jotzaile** agertzen da*) iz panderoa jotzen duen musikaria.

Txistulariak, trikitalari eta **pandero jotzaileak**... Berria - Kultura

Kataolatzak erromeriaz erromeria Juliana Zubizarreta **pandero jotzailea** izan zuen lagun sarritan. Berria - Kultura

Tarteka garaje batean elkartzen ziren Jexux eta Ximon, soinu-jotzailea eta **pandero-jotzailea**, garai bateko erromerietan ikasitako piezak jotzeko. Xabier Etxabe

Carlo Rizzo **pandero jotzaile** italiarra ekainean izan zen Euskal Herrian, orduan ere Trikiti Elkarteak gonbidaturik. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pandero jotzen** (3); **pandero jotzaile** (5); **pandero jotzailea** (10); **pandero jotzaileak** (16)

**panderoa jotzen** (13)

## panderojole ik **pandero 5**.

## panderojotzaile ik **pandero 6**.

## panderu ik **pandero**.

## **pandila** iz elkarrekin ibiltzen den lagun multzoa.

-Gu karrera egitera hona etorri aurretik [...] hiritik zerbaite berria zetorrela esaten hasi zituan gu baino zaharragoak ziren **pandilak** ! Pako Aristi

## **pandotu**, pando, pandotzen du *ad* sartu.

-Latzíro **pandotzen** nuen erizainekin. Koldo Izagirre

## **panegipziako** *izond* egiptoar guztiak hartzen dituen.

Antzerako oinarria eman zion Egiptoko "Inperio Berriak" eliza **panegipziakoari** *Amon Ra*-ren apaiz nagusiaren pean Tebasen. Iñaki Mendiguren

## **panegiriko 1** iz laudoriozko hitzaldia, bereziki santu bati eskainirikoa.

Eta, noiz eta biharamuneko hil-elizkizunetan gure aita izan zenaren **panegirikoa** egin baitzuen, heroitzat eta saildutat hartu zuen hura. Joan Mari Irigoien

'Minbizia' esaten ez den bezala; 'gaitz larri bat' omen da; 'luzaroan gaitz mingarri baten aurka egin zuen borroka', idazten dute kazetariak minbiziak eraman duenaren

**panegirikoan**. Pako Aristi

Ikus **Plinioren** Panegirikoa. Iñaki Iñurrieta

Helendar izena, esango du Isokratesek **Panegirikoa**, ez dagokio jatorriari, jiteari baizik. Askoren artean

## 2 irud/hed

Are, komunitatearen balio kultural-moralen transmisioa lot liteke odolarekin, eta odolaren **panegiriko** bat kantatu. Joxe Azurmendi

## • 3 *izond* laudoriozkoa dena.

R. de Maeztu-k, Unamuno-ren Lore Jokoetako diskurtsoaren iruzkin **panegirikoa**, beste hauxe adierazten duela, [...]. Joxe Azurmendi

## **panegirista** iz panegirikoa egiten duen pertsona.

Konstantinoren **panegirista** batek esaten dio enperadore horri: [...]. Iñaki Iñurrieta

Eta, hala ere, estatu unibertsal hauen errealitatea oso desberdina zen Elio Aristidesi eta hainbat garai eta girotako beste **panegiristei** aurkeztzen zieten gainazal distiratsuaren aldean. Iñaki Mendiguren

## **panel 1** iz espazio bat zatitzeko erabiltzen den holtz edo trenkada handia.

Despatxua altuera ertaineko **panelez** banatuta zegoen, eta hosto mamitsu eta berde argiko bi landarek apaintzen zuten. Iñaki Zabaleta

**Panel** atedunak, baina, desplazatu daitezke agertokian zehar eta zubi-lan sinboliko interesgarria betetzen dute mugimenduaren eta interpretazioaren artean. Berria - Kultura

**Panel** aglomeratuz egindako ate simple eta dekorazio-konplexurik gabekoaren leihakumetik Josebak ia ezin zituen ikusi bezeroak. Iñaki Zabaleta

Gela modernoa zen, formikazko **panel** zuri asko zituena, kolore bereko lanparak ere ugari -globo formakoak, esango nuke-; nasaia eta aseptikoa, oker ez banago. Ramon Saizarbitoria

Salmahaiaren atzealdean, **panel** osoa hartuz, eta baita ezkerrean eta dendaren hondarrean ere, beste ispilu batzuek argitasun aintzirak eratzen zituzten marmolezko plaken artean. Karlos Zabala

## 2 ate, pareta edo kideko batean mugatzen den zatietako bakoitza.

Ate erraldoi bat, haritzeko armazoi batek eutsitako **panelek**in, presondegiko atalagaz eta ziudadelako sarrailekin. Koldo Izagirre

Gela hauetan zokaloaren gainean pintura beltzarekin moldatu eta bukatu behar dira **panelak**, tartean triangulu batzuk sartuz okrez edo bermilioez. Santiago Iruretagoiena

Langeten altuera ateko **panelen** hiruren batekoa izango da. Santiago Iruretagoiena  
Kolomen ordeaz, adibidez, kanabera luzeak jartzen dira, frontoien ordeaz **panelak** hosto kiribil eta bolutekin. Santiago Iruretagoiena  
[Ur zitiaren] ezpain haietan ere baziren irudi zizelkatuak, **panel** koadratuetan, ez biribiletan. Elizen arteko biblia  
Honela zeuden eginak orgak: marko batzuk utsirik, **panelak** zituzten; [...]. Elizen arteko biblia  
Markoen arteko **paneletan** zizelkatuturik lehoiak, idiak eta hegadun izakiak. Elizen arteko biblia

### 3 xafra laukizuzena.

Arbelarena ez zen ordurako negozio ona; **panel** elektrikoak izan ziren garai batean alor emankorra, baina bakelitik aurrena eta plastikoak gero eman zioten errematea. Xabier Mendiguren Elizegi  
Aitak leihoak iluntzeko **panelak** konpondu zituen. Josu Zabaleta  
Milaka **panel** holografikorekin egindako pieza da, eta besteak izpiak ur-lurrun errezel batean proiektatzen zituen. Berria - Kultura  
Ruche jaunaren itxura sinesogorra ikusirik, fatxadak 240 **panel** zituela esan zion beltxararak, eta **panel** bakoitzak ehundik gora irekidura zituela, orobat. Jon Muñoz  
Makal-zurezko **panel** mehe batean margotu zuen Da Vinci [...] munduan den irrikik ezagunenetakoa, Giocondarena, eta **panel** mehe horren egoera uste zuten baino okerragoa dela adierazi dute aztertu duten adituek. Berria - Kultura  
*Zortzi gris* lana beha daiteke Guggenheimen, beira esmalteztatutako zortzi **panel**. Berria - Kultura

### 4 etengailuak, adierazgailuak edo kidekoak dituen pieza laua.

Segurtasun sistema aldatua zeukaten eta, lehengo atezain automatikoaren tokian, zeinek bizilagunekin hitz egiten uzten zuen, zenbaki eta letradun **panel** bat bakarrik ikusten zen orain, mikrofonorik gabea. Bernardo Atxaga

### 5 argibide edo iragarkiak dauden taula modukoa.

Produktzio-kurben **panel** handiak, lauhileko langilerik onenen argazkiak eta kontsignez beteriko iragarkiak horretatik kendu eta apenas aldatu zuten ezer lantegi nagusian. Iban Zaldúa  
Camden Towneko metro irteeraraino jo zuen eta berriro gelditu zen alde hartako mapa zuen **panelaren** aurrean. Joxemari Iturralde  
Ugalderen lana eta bizitza biltzen zituzten **panelak** jarri zituzten hitzaldi aretoko atarian. Berria - Euskal Herria  
-Nora goaz hemendik? -galdetu zuen bat-batean Lucyk autobideko **paneletarantz** begiratu. Joxemari Iturralde  
Kortxoako **panel** handi bat zuen bulegoko horma batean eta haraino inguratu zen. Joxemari Iturralde  
**Panel** batean erakusten zituen soldadoak kasernara joaiten bozkariotan, eta beste **panelean** judu sudur makur bat, fraide tripahandi bat eta apez jantzi zaharkitu bat herrestan zihozaznak kanpalekura. Marzel Etxehandi  
**Panel** publizitario erraldoi eta koloretsuak. Juan Luis Zabala  
**Panel** eskerra horretan argazkiak, eskemak eta grafikoak, mapak eta han-hemendik harturiko ebakinak eta prentsa orri moztuak zeuden txintzetaz josita. Joxemari Iturralde  
Beste edozein hiritan ere ikusten diren publizitatea jartzeko **panel** handi horietako batean soldadu errusiarra eta amerikarra daude, alde banatan. Edorta Jimenez  
Hegaldien **panel** argitsuei begira. Joxean Agirre  
Halere, kartel eta **panel** ugari jarri ditugu inor galdu ez dadin». Berria - Kirola  
Hor dauden **panel** tematikoek azaltzen dute Burdin Aroari buruzko ezaugarri nagusienak. Herria

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eguzki **panelak** zikin-zikin eginda izan dituzte behin baino gehiagotan hauts ekaitz bortitzen ondorioz, eta bateriak agortuta. Berria - Gaiak  
Hozte **paneletako** batek hainbeste ur isuri zuen labearen barruan, ezen hondakin geruza hoztu egin zuen. Berria - Ekonomia  
Sarrerako stickerren bidez Kim Hiorthoy-k egindako horma **panela** eta lurrean ikusleak hartzeko dauden posterrak (jadanik ezin dira hartu irailera arte ez iristearen beldurrez) kaleko artearen desaktibazioa eta debaldeko artearen inguruko hausnarketa egiten du. Berria - Kultura  
Egunetik egunera handituz doan argazki **paneletik** bere argazkia kenduko dik Inak, txaloen artean, eta afaltzera joango dituk gero, Herrikora. Jokin Muñoz  
Bennik Berlusconiaren kanpainako irudi **panelak** ikusten zituen autotik, ehun metrotik ehun metrora. Berria - Harian  
Mezara joan nintzen azkenean, gertaera batek bultzatuta: haritzak moztu eta iragarki- **panel** handi bat ipini zuten. Joxan Elosegi  
Faroen argi-zipriztinak zuhaitzetan, etxeetan, publizitate- **paneletan** eta telegrafo-zutoinetan barreiatutik. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**panel handi bat** (3)

**eguzki panelak** (3); **iluntzeko panelak** (6); **iluntzeko panelak kentzen** (3)

## panenteista *izond* Jainkoa unibertsoaren sortzaile, energia-emaile eta lege naturalaren iturritzat hartzen duena. ik panteista.

Haatik, intrahistoria horrek -panteista edo **panenteista** -, zerbait mistiko teologiko narbarmena du (Paz en la guerra-n jada), historiaren filosofia krausista guztiak legez bestalde, edo krausismo osoak hobe, eta azken batean berdin Unamuno osoak, periodo positibista barne. Joxe Azurmendi

## paneslaviar *izond* eslaviar herri guztiak hartzen dituena.

Errusiak huts egin zuen herri hauen gidaritza zertzen ildo panortodoxoan zein **paneslaviarrean**, nahiz eta orain errusiar erregimen pankomunista ezarri den horietako batzuen gainean. Iñaki Mendiguren

## paneslavismo *iz* eslaviar herrien batasunaren eta elkartasunaren alde egiten duen doktrina.

Zergatik **paneslavismoak** eta panortodoxiak balio izan zioten hain gutxi Errusiari herri horiekiko harremanetan, beroriei oso laguntza eraginkorra eman baldin bazien otomandarren sareetatik libratzeko borroketan? Iñaki Mendiguren

## panespermia *iz*

Batzuek [...] hain gertagaiztat jotzen dute Lurrean bizia agertu izana, ezen nahiago baitute, erdi olgetan erdi benetan, **panespermia** moduko bat aipatu: bizi-hazi batzuk iritsiko ziren Lurrera, gurea baino zibilizazio garatuago batek planeta urrun batetik igorriko espaziontzi batean! Juan Garzia

## paneuropar *izond* europar herrien multzoarena.

Badago Europako musulmanak politikoki elkartzeko ekimenik, musulman **paneuroparrek** osatua? Berria - Mundua

# panfiliar *izlag/iz* Asia Txikiko Panfiliakoa, Panfiliari dagokiona; Panfiliako herritarra.

Errege honek Eufratesen dagoen Karkemis-en gobernatu zuen, K.a. hamalaugarren mendeen, pirata akeoak **panfiliar** kostarekin lehen kontaktuak zertzen ari ziren garaian gutxi gorabehera. **Iñaki Mendiguren**

## panfletario *izond* panfleto kutsua duena.

Maizegi, kapitalismoari, merkatu ekonomiarri eta merkatuari oro har egiten zaion kritika, sinplea, erabat ñabardurarik gabea, eslogan errazetakoa, are sasi-**panfletarioa** bilakatu da (hitzaren zentzu txarrean). **Iñaki Heras**

Nik hemen, genero **panfletarioaren** apologia egin nahi dut, garbi asko utzita zer den niretzat benetako panfletoa. **Txema Ramirez de la Piscina**

Ukitu **panfletarioa** ere badute hastapenetako poema batzuek. **Berria - Kultura**

Oso garai **panfletarioa** zen, bildots bat behar zen sakrifikatzeke eta ni aukeratu ninduten. **Berria - Kultura**

## panfletarismo *iz* panfletoarekiko joera.

**Panfletarismo** etniko eta kulturalari ihes egiten diozula esaten da... **Ana Urkiza**

## panfletero *izond* panfletoetakoa.

Kapitalismoak (eta hitz hau **panfleteroegia** zaizuen irakurleoi, nahi baduzue 'gure ekonomiaren garapenak' idatziko dut) hondatu du koherentziaren balorea gure artean **Pako Aristi**

## panfleto (*orobat panfleto g.er.*) 1 *iz* idazki laburra, izaera politikokoa, norbaiti edo zerbaiti gogor erasotzen diona.

Agintea probokatzeko erabiltzen den pieza literarioa da **panfletoa**; irakurleari atsegina emateko ere sortzen den idazkia, ironia fina erabiliz, irudimen sinbolikoa baliatuz. **Txema Ramirez de la Piscina**

Bada kontu honi buruz beste ikuspegi bat ere, Pablo Lafarguerena, eta 1880ko *Le droit à la paresse* haren **panfletoan** oinarri duena. **Iñaki Heras**

Eragin handikoa izan zen, halaber, 1944an Beveridge-k argitaratu zuen *Full Employment in a Free Society* **panfleto** keynesianoa. **Iñaki Heras**

Alde batetik gaztelaniar eta bestetik euskaraz irakurtzen zen **panfleto** haietan. **Joseba Sarrionandia**

**Panfleto** soilean geratu gabe hori guztia adieraztea ez zen lan makala. **Berria - Kultura**

**Panfletuok** zein pintadek arrazoi zuten. **Bernardo Atxaga**

Pentsatzea ere delitu zen garaian, **panfleto** batzuk aldean zeramatzala eta, kartzelan sartu zuten. **Joxerra Garzia**

Haren senarra sarritan ikusia nuen unibertsitateko janlekuan **panfletoak** banatzen. **Joseba Urteaga**

Bilera gelan sartu orduko, **panfletoak** bota zituzten eta oihuka hasi ziren hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren alde. **Berria - Euskal Herria**

Manifestuak, **panfletoak** kaleratzen dituzte. **Berria - Kultura**

Ordurako zerua bonba-hegazkinen zurrumurru astunak harturik zegoen, eta haietatik kulunka leunez jaisten ziren **panfleto** horiak airean, honelako ziri-bertso espantagarriak mandatu: [...]. **Juan Garzia**

**Panfleto** asko ez dago irakurri ere egiterik: ideologiaz gainzamatuta datoz, substantibo bakoitzeko hiruna adjektibo pilatzen da eta akats ortografiko ugari dauzkate. **Txema Ramirez de la Piscina**

### 2 irud/hed

Latineko irakasleak, Blas Mendibe hark, bere kongregazioaren **panfletoak** multikopiatzeko hartzen gintuen. **Joseba Sarrionandia**

Aspirinaren propietate mirakulosoek edo Bisolvon Compositumaren onurez **panfletoak** idazten ote dituen nago. **Harkaitz Cano**

Liburu hau **panfleto** bat da. **Herria**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hamazazpigarren mendetik hemezortzigarrena igarotzerakoan zertu zen **panfleto** -gerrak -Swiftek "Liburuen gudua" deitu zuenak, bertan lehiakideek "antzinakoen" eta "modernoen" meritu erlatiboaren arazoa eztabaidatzen zutelarik- haizeak zein aldetatik jotzen zuen erakutsi zuen. **Iñaki Mendiguren**

Sukar irultzaileak kiskalita, ordutik aurrera alderdi "patriotikoko" **panfleto** -egile eta suspertzaille handiena egin zen Jean-Baptiste Cloots. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

Sekulako zartada eman zidan, esate baterako, sinadurarik batere ez zeraman **panfleto** -gai labur haietako bat irakurtzeak. **Txillardegí**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hara zer den "sindikatu amarillua" Azkoitian 1920an ateratako greba **panfleto** baten arabera. **Iñigo Aranbarri**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ustezko panfleto terroristaren** (3)

## panfletotxo *iz* adkor panfletoa.

-Hau ez da Fakultateko **panfletotxo**, hau moda-aldizkari bat da -erasokor orain Jefe-, eta gure publikoa ez dira jipi progreak, ezta sasiletrauk ere... **Xabier Mendiguren**

**Elizegi**

## panfleto ik panfleto.

## panga *iz* Erdi Amerikan, bidaiari eta zamentzat erabiltzen den ibaiontzia.

Biharamunean arratseko bederatzietan bus estazioan nago: 70 kordoba ordaindu dut Managuatik El Ramara autobusa, 120 kordoba El Ramatik Bluefieldsera **panga**.

**Joseba Sarrionandia**

Autobusetik salto egin eta **pangetara** korrika joan gara denak. **Joseba Sarrionandia**

Egurrezko moilatik **pangara** sartu eta ibaian behera goaz. **Joseba Sarrionandia**

Gure **panga** jendez eta poltsaz beterik doa. **Joseba Sarrionandia**

## pangrama *iz* alfabetoko letra guztiak erabiltzen dituen testua.

**Pangrama** dute izena holako esaldiok, eta ahalik laburren izatean datza horien interesa. **Iñaki Arranz**



Dela ahalik letra gutxien erabiltzea **pangrama** bat idazteko, dela hitz monobokaliko luzeena bilatzea, dela palindromo edo tautograma luzeena osatzea, dela hitzezko elur pilota mardulena egitea... norgehiagoka batean ariko bagina bezala. **Iñaki Arranz**

## panheleniko *izond* herri heleniko guztiak hartzen dituena.

Pasok Mugimendu Sozialista **Panhelenikoak** Greziako Gobernuaren giderrak Demokrazia Berria alderdi kontserbadorearen eskuetan utzi beharko ditu. **Berria - Mundua**

## panhispanismo *iz* espainolez mintzatzen diren herrien batasunaren eta elkartasunaren alde egiten duen doktrina.

Espainolez mintzo diren arraza ezberdin guztiekin [...] **panhispanismo** bat osatu ahal izateko. **Joxe Azurmendi**

"Sobre el criollismo" artikuluan, **panhispanismoaren** apostolutzan sartua honezkero, espainolak nola ez duen gaztelania estriktoa izan behar, baizik herri (alde) ezberdinen espresio ezberdina [...] eskualde hispanoamerikarrei zabaltzen zaie. **Joxe Azurmendi**

## panhispanista *izond* panhispanismoarena, panhispanismoari dagokiona.

Amerika krioloa bere ideia **panhispanistan** biltzeko, garrantzi guztia hizkuntzari eta hizkuntzari bakarrik eman beharra zeukala, arraza diferentziak-eta gutxietsiz edo zabartuz. **Joxe Azurmendi**

## panikatu, panika, panikatzen da/du *ad* panikoak jo.

Garratoinak ihes atera dira, tropan, jauzika, urbideetan itoak ez izateko, beldurturik, **panikaturik**, zaintzale gaixo hari sekulako izialdura emanez; zer irria! **Filipe Bidart**

## paniko 1 *iz* bat-bateko eta muturreko izua, askotan kolektiboa. ikizialdura; laborri; laztura.

Uste dut benetan beldurrak, **panikoak** bultzatzen ninduela ehiza basati hartara, babesleku batetik bestera, hara eta hona... **Xabier Paya**

Bere laguntzarekin **panikoa** menderatzea lortu dut. **Bernardo Atxaga**

Zigorra larrialdi-irteera bat dun, eta hara joaten gaitun itu-itsuan, jendartean **panikoa** zabaltzen denean. **Anton Garikano**

Orain, filmaturiko guztia montatzen hasten naizenean orduan bai, orduan sartzen zait **panikoa**. **Berria - Kultura**

Antsietateak **panikora** eraman zuen, bakardadeari beldur itzela zion. **Berria - Kultura**

Berrogei urteek hainbesteko **panikoa** ematen badizute, zure buruaz beste egin eta kito. **Harkaitz Cano**

Stanley albotik pasatu zaionean aurpegian beldurra islatu zaio, **panikozko** begirada betean. **Xabier Paya**

### 2 (hitz elkartuetan)

Guztiarekin ere, beldur itzela sentitu du, **paniko** atake bat, zehatzago esanda. **Patxi Iturritegi**

Euforia eta **paniko** zikloen iraupena, grosso modo, jendeak bere azken hondamendia ahazteko behar duen denbora aldiaren araberakoa izan da. **Iñaki Heras**

### 3 (izenondo gisa)

Eta beldurra bi hegitakoa zen: baztertua izateko izua eta ahantzia izateko lotsa **panikoa**. **Itxaro Borda**

## panitaliar *izond* italiar herri guztiak hartzen dituena.

Uler dezagun Federikoren italiar-erromatar estatuaren esanahi osoa: **panitaliar** jaurogo ahaltsua, denbora labur batez estatu batean elementu germaniar, erromatar eta Ekialdekoak bildu zituen. **Iñaki Mendiguren**

## pankarta (*orobat plankarta g.er.*) 1 *iz* toki baten jartzen den edo manifestazio eta kidekoetan eramaten den afixa edo idazkuna, kexu, ongi etorri edo eskaera bat adierazten duena.

**Pankartak** altxatzen zituzten "GORA GRYFFINDOR!" edo "KOPA LEHOIENTZATI!" bezalako esloganeekin. **Iñaki Mendiguren**

Bazen, omen, **pankarta** bat hauxe ziona: Petrolakia nahi balinbaduzue etor Galiziarra. **Herria**

Manifestariak Bushen politikaren aurkako **pankartak** erakutsi zituzten. **Berria - Gaiak**

Buruko **pankartak**, ELA, LAB, ESK, USO, UTL eta UGT sindikatuak babestuta, «negoziazioa eta bidezko ituna» aldarrikatu zituen. **Berria - Ekonomia**

Halako batean, ordea, bi mutilak goitik behera irristatu, jendarmeei **pankarta** kentzea lortu eta airean zabaldu zutelarik, "Amnistia" irakurri ahal izan nuen. **Ramon Saizarbitoria**

Laster hasi gara borroka-garai zaharrez hitz egiten: eragozpen-eskutzit kolektiboaren urteez [...], **pankarta** erraldoi hura garabi hartatik zintzilikatu genuenekoaz... **Iban Zaldua**

la berrehun lagun bildu dira, hala ere, LABen **pankartaren** gibelean. **Berria - Ekonomia**

Kontua da aurrera eta armonia onean goazela, **pankarta** erraldoi baten atzetik. **Anjel Lertxundi**

Estatubatuarren doilorkeriaren aurkako manifestazioak antolatzen dituzte, **pankarta** eta guzti. **Iban Zaldua**

Manifestazioa dagoenean, adibidez, orduak eta orduak pasatzen ditu lagunekin **pankartak** egiten. **Jokin Muñoz**

Hotzak uzkururik, **pankartaren** makilan bermatu da. **Aingeru Epaltza**

Bi mutil ikusi genituen eskalatzailaz jantzita airean **pankarta** luze bati eusten ziotela. **Ramon Saizarbitoria**

Inoiz *Zorionak aitte* edo antzeko mezuko **pankartaren** bati eusten ere ikusi izan duk. **Jokin Muñoz**

### 2 plaka edo panel batean dagoen afixa.

Hitzordua Hazparneko sartzean, "Hazparne" bide seinalean, 17:30ean, 217 **pankartaren** ondoan. **Herria**

Herria iragartzen duen **pankartak** hitz hauek idatziak dauzka "Libertad para Euskal Herria". **Piarres Aintziart**

Bertsolari hainbat aulki paratzen dira ohol-tza gainean, bizpahiru mikrofono eta, batzuetan, oihal bat edo **pankarta** bat izaten dute hondoan, lore batzuk agian bazterretan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Sartu nintzen herriko plazan eta han zabaldua zegoen **pankarta** irakurri nuen. **Bernardo Atxaga**

Lorontzietan pinu txikiak daude landaturik, eta balkoitiak zintzilik *Paz* dioen **pankarta** karratua. **Eider Rodríguez**

**Pankarta** handi batek plazako paretan dio: "Ohore onena, garaipena". **Joseba Zulaika**

Anderlecht auzoko hainbat lekutan arabieraz idatziriko **pankartak** daude. **Edorta Jimenez**

Sentsazio hura are nabarmenagoa egin zitzaion, **pankarta** zegoen toki ingurura hurreratu ahala. **Pedro Alberdi**

### 3 (hitz elkartuetan)

Berek, ordea, "UPVk egotzitako irakasleak" direla diote, eta urteotan jasandako errepresio eta injustiziak zehatz-mehatz kontatu dituzte **pankarta**-liburu batean. **Joxerra**

Garzia

· Gauza hintzen Lasarteko Krosaren ondoren hire ideiekin bat zetoren aldarrikapen **pankarta** ateratzeko, gero horrek hire babeslearekin arazoak sor bazitzakeen ere. **Iñigo**

Aranbarri

Baina herrialde hau ez da bakarrik Erdi Aroko historien aztarna gaurko garaiairen giroa ere ageri da, estekikoki ez baldin bada garbiki, bereziki errepide **pankartetan**.

Piarres Aintziart

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dioen pankarta (8); idatzia zuen pankarta (5); idatzita zuen pankarta (6)

pankarta bat atera (3); pankarta bat zabaldu (3); pankarta baten atzean (10); pankarta erakutsi (3); pankarta eraman (5); pankarta erraldoi (8); pankarta erraldoi bat (4); pankarta eskegi (3); pankarta eta guzti (4); pankarta eusten (3); pankarta handi (11); pankarta handi bat (6); pankarta hartu (5); pankarta jarri (5); pankarta nagusia (8); pankarta nagusiaren (5); pankarta ugari (4); pankarta zabaldu (12); pankarta zabaldu zuten (4); pankarta zeramaten (4); pankarta zintzilikatu (3)

zeraman pankarta (3); zioen pankarta (34); zioen pankarta bat (3)

kartelak eta pankartak (3); pankartak zabaldu (6); pankartak zabaldu zituzten (4); pankartak zeramatzaten (4); zioen pankartak (4)

zioen pankartarekin (4)

idatzia zuen pankartaren (3); leloa zuen pankartaren (7); pankartaren atzean (46); pankartaren atzetik (5); pankartaren aurretik (4); pankartaren bat (3); pankartaren gibelean (4); zioen pankartaren atzean (15)

idatzia zuen pankartari (6); pankartari eusten (24); pankartari utsiz (10); pankartari helduta (3); zioen pankartari (11); zioen pankartari utsiz (3)

pankarten atzean (4)

## pankartadun iz pankarta bat daraman pertsona.

Zenbait jokalarik gerturatu ziren aldarrikapena egiten ari zirengana joan zitezela eskatuz, baina azkenean segurtasun zaintzaileak atera ziren, eta **pankartadunak** eraman zituzten. **Berria - Kirola**

## pankartatar iz

Atariko **pankartatar** batek ohartarazten zuen protestaz. **Berria - Harian**

Behiak txerriari aitortu zion berriz ere arazoak zituztela «hor goian **pankartatar** hori zabalteko». **Berria - Euskal Herria**

## pankomunista izond herri komunista guztak harzen dituen.

Errusiak huts egin zuen herri hauen gidaritzaz zertzen ildo panortodoxoan zein paneslaviarrean, nahiz eta orain errusiar erregimen **pankomunista** ezarri den horietako batzuen gainean. **Iñaki Mendiguren**

## pankrea (orobat *pankreas g.er.*) 1 iz digestio aparatuko guruina, urdailaren atzealdean dagoena eta urina eta hormonak isurtzen dituena.

Hesteetatik kanpo duodenoaren ondoan dagoen organo txiki bat da **pankrea**. **Irene Aldasoro**

Ribadullari, jasan zituen kolpeen ondorioz, **pankrea** handituta duela diagnostikatu diote Basurtuko ospitalean. **Berria - Euskal Herria**

1996an **pankrea** lehertu zitzaionetik, Martynen osasun arazoak areagotzen joan dira urtetik urtera. **Berria - Kultura**

Fibrosi kistikoa, berriz, arnas aparatuari, **pankreari** eta izerdi guruinei erasaten dien gaitza da. **Berria - Gaiak**

Digestioan parte hartzen duten entzima gehienek ingurune azidoan lan egiten ez dutenez, **pankreako** jariakin bat injektatzen zaio lehenik janari likidotuari, neutralizatzeke. **Irene Aldasoro**

**Pankreako** zelulek intsulina jariatzen dute. **Berria - Gaiak**

**Pankrean** intsulina sortzen dituzten zelulak babesteko proteina bat da gaixoei txertatzen zaiena. **Berria - Gaiak**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **pankreatiko**.

**Pankrea** -urin kantitatea 0,7 litro ingurura iristen da egunean, eta entzima asko ditu. **Irene Aldasoro**

Ezin digerituzko hondakinak, heste-paretetako zaborrak, behazun eta **pankrea** -urin hondarrak eta hestean bizi diren bakterio pila edukitzen ditu heste meharraren azken muturretik heste lodira igarotzen den gaiak. **Irene Aldasoro**

3.600 gibel-transplantetik gora, 665 **pankrea**-transplante, 127 birika-transplante eta 125 bihotz- eta birika-transplante. **Irene Aldasoro**

## pankreas ik **pankrea**.

## pankreatiko izond pankrearena, pankreari dagokiona. ik **pankrea 2**.

Ordu pare baten buruan, urin **pankreatikoek** gose atzeraezina iragartzen zioten, ordea. **Karlos Linazasoro**

Zelula **pankreatikoek** intsulina ekoizten dute. **Iñaki Heras**

Zelula amak zelula **pankreatiko** bihurtuko dituzte, gaixoari txertatu ondoren intsulina sor dezaten. **Berria - Gaiak**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zelula pankreatiko (4); zelula pankreatiko bihurtuko (3)

## pankronia iz sinkronien azterketa diakronikoa.

Hitz batez, balegokie hizkuntza aztertzea **pankroniaren** ikuspegitik? **Isabel Arrigain**

**Pankroniaren** ikuspuntutik uler daitekeen gertaera jakinak ez luke tokirik izan behar hizkuntzan. **Isabel Arrigain**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

pankroniaren ikuspuntutik (3)

## pankroniko izond hizkuntza gertakariez mintzatur, denbora luzean aldaketarik izan ez duena.

Lege horiek hatsapen orokorrak dira, gertaera zehatzak gertatu ala ez; gertaera jakin eta ukigarriez hitz egiten hasi bezain laister, ez dago jada ikuspegi **pankronikorik**.

Isabel Arrigain

Ikuspegi **pankronikoak** inoiz ez ditu bere baitan hartzen hizkuntzaren gertaera partikularrak. **Isabel Arrigain**

## pano 1 iz ipar panela.

Kartieretan eta oraino bertze gune batzuetan, **pano** zabal batzu eraikiak dira, afixa hor ezartzeko. **Herria**

Gaur Eliza aintzineko **pano** elektronikotortan ez da ahamenik ere ikusten Euskaraz idatzirik. **Herria**

Lau **pano** handitan erakutsiak dira hiriko kartak, ibilgailuen mugimenduak, ingurumena, ekonomia garapena besteak beste. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Argibide **pano** batzuetan idatziak dira nun zonbat denbora uzten ahal den bere autoa. **Herria**

## panoplia 1 iz ohol apaingarria, armak jartzen direna; arma-bilduma.

Brontzezkoak ziren haien **panopliak**, brontzezkoak etxeak eta brontzez goldatzen zuten lurra (artean ez baitzen burdina ilunik). **Iñaki Mendiguren**

## 2 irud/hed

Hots, armategi genetiko oso bat, estu lotua, uste izateko zenez, zelulen erdibitzea haien desberdintzearekin loturik zehazki erregulatzen duten geneen **panopliarekin**. **Juan Garzia**

Baina **panoplia** guztia, jokoan dauden egituren hierarkia guztia, gene azpiratzaile bakarrek jartzen du martxan. **Juan Garzia**

Eraketez, positibotasunez, jakiteaz, jardute diskurtsiboez hitz egin duzu: hitzen **panoplia** oso bat, zuk harrotasunez euren berezitasuna eta euren ahalmen harrigarriak azpimarratzen dituzularik une oro. **Xabier Arregi**

Bi mila urte barrukoek ere guri errukiz eta konmiserazioz begiratuko digutela, gure **panoplia** teknologiko zaharkituaren, gure uste barregarrien, gure kezka ulertezinen berri izatean. **Jon Alonso**

## panorama 1 iz zerumugaren ikuspegi zabala. ik panoramika.

Ikuspegiak handik lerro biguneko **panorama** zabal bat hartzen du, berde bizi-bizikoa, harkaitz zorrotzik gabe, sasiarte ilunik gabe, gogortasunik eta basakeriarik gabe. **Koro Navaro**

Beste batzuetan hori baino gogorragoa zen mendi-ibilialdion kontua: sekula ez txango lasai horietakorik, zeren Sandrok esaten baitzuen ezen, **panoramen** ikusmirarako, astia izango genuela berrogei urteetan. **Juan Garzia**

Oinez jarraitu baitu fantasmegi buruz pentsatu bitartean, eta G letran baitago jadanik, **panorama** zabal bat mende hartzen duen gailurrean. **Bernardo Atxaga**

Ez dut uste dorretik ikusten den **panorama** hobetu duzula pentsatuko duenik. **Agustin Otsoa**

Horregatik, opariak natura osoaren aurrean eta ikusmira eta **panorama** ederrean zuten mendi kaxkoetan eskaintzen eta ospatzen zituzten. **Pello Zabala**

**Panoramaren** hondo-hondoan behar du Veneziak, bero gorriak eragindako lanbro errean kulunka. **Anjel Lertxundi**

## 2 egoera (osorik hartua).

Nobela honek letra garaikideen **panorama** errotik eraberritzen du, eta kritikak hori hala dela apalkiro baieztatu beste erremediorik ez du izanen. **Iñaki Segurola**

Beasaingo institutuan, berriz, oso bestelako **panorama** aurkitu nuen, alderantzizkoa zehatzago esanda: gure irakasle guztiak laikoak ziren, oso-oso laikoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Euforia arte garaikidearen **panoraman**. **Berria - Kultura**

Askoz txukunagoa zen **panorama** hasierako hartan, garbiagoa: "materia eta energia osoa izugarriko dentsitatea zuen puntu batean kontzentratirik" zegoela dio entziklopediak. **Joxerra Garzia**

**Panorama** zabal bezain heterogeneoarekin egiten dugu topo eremu horretan: Edinburgheko Programa Sendoa (D. Bloor, B. Barnes, D. Mackenzie, etab.), Laborategiko ikasketak (B. Latour, S. Woolgar, K. Knorr-Cetina), Erlatibismoaren Programa Enpirikoa [...]. **Askoren artean**

Emakume nahiz gizon izan, **panorama** iluna daukagu. **Luis Elberdin**

**Panorama** ederra aurkituko din gure ume gaixoak. **Pablo Sastre**

Ederra **panorama**! **Luis Elberdin**

Handik urte batzuetara, goitik behera aldatu zen **panorama**. **Juan Garzia**

Esan zioat, herrian zer **panorama** dagoen. **Pablo Sastre**

Baina ez bazegoen alternatiba hori, orduan **panorama** nahasgarria zen. **Iñaki Mendiguren**

Izan ere, azken hilabetean belztu egin da **panorama** ekonomikoa. **Berria - Ekonomia**

Euskal Herriko egungo **panorama** politikoan, joera fundamentalistak dira «arazo nagusia». **Berria - Harian**

Gero, denborarekilarik gauza horiek **panoraman** sartzen dira eta ezin baztertuzko bihurtzen. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**panorama politiko** (3); **panorama politikoa** (5)

## panoramika 1 iz panorama.

Lehenengo argazkia naturako **panoramika** zabal bat izaten zen: mendi-zelaiak egunsentian, edo itsaso eta basamortuak, izadiaren eta haren sortzailearen handitasuna adierazteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire eskuin aldean Istriako itsasoaren **panoramika** ederrak daude. **Anjel Lertxundi**

Amaitzeko beste **panoramika** zabal bat, ilunabarra ez bazen egunsentia oraingoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 irud/hed

Bazuen erakargarritasunik papar oparoak agerian uzten zuen **panoramikak**. **Aingeru Epaltza**

## 3 kamera ardatz bati buruz biraraziz hartzen den ikuspegia.

Kamerak **panoramika** orokorra erakutsi zuen: lbaetako parkea agertzen zen, unibertsiteak... eta belztutako eraikin bat, kea zeriola. **Fernando Morillo**

Bideo kamera batekin pabiloien **panoramika** bat grabatzen bukatu orduko. **Berria - Ekonomia**

Eta ondotik non ikusten dugun, goranzko **panoramika** batez, etxeetako leihotz guztiak itxi egiten direla hurrenez hurren, harik eta kamera filmatzen ari den leihoko pertsianak ere, ukoz, tanpez, amorruz, bizkarra ematen dion arte. **Koldo Izagirre**

**Panoramika** bat, baina kameraren ordeztutako pistola duela. **Iñaki Iñurrieta**

## 4 egoera (osorik hartua). ik panorama 2.

Hasieran komeni da gaiaren **panoramika** orokorra eskaintzen duten liburu orokorrak irakurtzea. **Askoren artean**

Ondorio gisa, XX. mendeko azken joeren **panoramika** laburra eskainiko dizuegu. **Askoren artean**

## panoramiko 1 *izond* ikuspegi eta kidekoez mintzatuz, eremu zabala hartzen duena.

Gasteizko bi argazki **panoramiko** . **Berria - Kultura**

Bat-batean, hantxe bukatu basoa, eta paisaiaren ikuspegi **panoramikoa** agertu zitzairen, hariak eta, halako batean, tupustean, bideak Sena ibaiarekin topoz topo egiten zuen arte. **Jon Muñoz**

Eszena baten pertzepzioa, berriz, **panoramikoa** da beti, eszena horretako edozein puntu ikus daiteke (eta denbora guztian gordetzen dugu gogoan aukera hori). **Josu Zabaleta**

Gure pertzepzioa [...] zerbaiten ikuspegi **panoramikoa** eskaintzen diguten puzzle baten piezen antzekoa da. **Iban Zaldúa**

Karrikaren bi aldeetan soako **panoramiko** bat bota zuen Mikelek. **Ramuntxo Etxeberri**

### 2 irud/hed

Pissarrok begi **panoramikoa** du, eta Cezanne, aldiz, margotutako motibora hurbiltzen da. **Berria - Kultura**

Nire lagun batek ez daki nor diren bere seme-alabetako biren aitak, hain modu **panoramikoan** egiten zuen txortan. **Karlos Zabala**

## panormitar *iz* Palermoko biztanlea.

Erroman ez zaiola neheri zilegi **panormitarren** eta Paristarren iritzi bereko agertzea, eta alderantziz Pariseko unibertsitatean ere ez dela nehor haizu kontrako aburuaren aitzinatzeraz han gaindi. **Piarres Xarriton**

Bestaldera itzultzen da, ordea, **panormitarra**, Pariseko teologoaren eskualdera, maizenik hauen liburuak baititutze gure lagunek hartzen. **Piarres Xarriton**

## panortodoxia *iz* eliza ortodoxoen batasunaren eta elkartasunaren alde egiten duen doktrina.

Zergatik paneslavismoak eta **panortodoxiak** balio izan zioten hain gutxi Errusiari herri horiekiko harremanetan, beroriei oso laguntza eraginkorra eman baldin bazien otomandarren sareetatik libratzeko borroketan? **Iñaki Mendiguren**

## panortodoxo *izond* eliza ortodoxo guztiak hartzen dituena.

Errusiak huts egin zuen herri hauen gidaritzaz zertzen ildo **panortodoxoan** zein paneslaviarrean, nahiz eta orain errusiar erregimen pankomunista ezarri den horietako batzuen gainean. **Iñaki Mendiguren**

## panpa<sup>1</sup> *iz* Hego Amerikako eremu zabal zuhaitzik gabea.

Guk bai, gure zelai eta **panpa** guzietan, erran dezakegu esperientziak eta ikusitik, nolako den euskalduna: badirela bai euskaldunak, egungo Argentina huntan. **Herria**

Biharamunean, Baltasar Espinosak, galeriatik urak hartutako soroei begira, bere artean egin zuen **panpa** itsasoarekin parekatzen duen metafora ez zela, goiz hartan behinik behin, erabat faltsua. **Juan Garzia**

Haien odolean iraua zirauten, zantzu ilun gisa, kalbinozalearen fanatismo gogorrak eta **panparen** sineskeriek. **Juan Garzia**

### 2 (P larriz)

Hairengandik ihesi, Vigon itsasontzia hartu eta **Panpan** duen anaia Manoelengana doa. **Pablo Sastre**

Orain urte asko, Ondarroako gizon bat Argentinako **Panpako** lurraldeetan zebilen bere behi-taldearekin. **Anjel Lertxundi**

Lehengo egunean *El Eco del Sur*-en albiste labur bat irakurri nuen **Panpa**-ko tigrillo-aren desagertzeaz: joan den mendetik gautxoek gupidarik gabe ehizatu dute, azientaren babesaren aitzakiaz. **Iban Zaldúa**

### 3 (hitz elkartuetan)

Arratsaldeko ordua zen eta **panpa**-haizea sartzen zen etxean. **Juan Garzia**

## panpa<sup>2</sup> *adlag* kolpearen edo elkar jotzearen onomatopeia.

Eta orduan, hiru urte eta bost hilabete bete nituenean, **panpa**!, eskola. **Jesus Mari Mendizabal**

### 2 *iz* kolpea.

Autoko bi atean **panpak** entzun genituen. **Daniel Landart**

## panpaka *adlag ipar* kolpeka.

Orai artio manifestaldiak ari ziren haren gaitzesteko, orai **panpaka** dira hasiak elgarren artean Chavez presidentaren kontrakoak eta haren aldekoak. **Herria**

Gero, hasperen-korroka luze baten ondotik, bere logelako ateari **panpaka** hasi zitzaion, jo eta jo. **Daniel Landart**

Sutan atera nintzen haren etetik, kanpoko atea **panpaka** itxiz. **Joan Mari Irigoien**

Legarrezko bazterrari jarraikiz, ahal bezain urrun joan naiz arroketa barna, bihotza **panpaka** . **Aurelia Arkotxa**

## panpakada *iz* panpa, kolpea.

Eta **panpakada** bortitz bat emanez, sukaldetik atera eta kalerako bidea hartu zuen. **Joan Mari Irigoien**

## panpalahara *adlag* ahuspez luze-luze. ik *hedailo*.

Nihaur gauaz bezala, garaitu ezin itxura zeukan gizon puskak mundu hau utzi behar zuen, adioen banatzeko astirik gabe, tipus-tapasean, **panpalahara** lurtean hedailo, ebasle baten moldean jin herioarekin -baina zertan dabil polizia?- juntatzeko azkenean. **Itxaro Borda**

## panpalaharatu, panpalahara, panpalaharatu 1 da/du *ad* ahuspez luze-luze erori.

Brauki airatzen entseatu zen hontza, baina astunki lurrera **panpalaharatu** . **Itxaro Borda**

### 2 irud/hed

Hiri isileko karriketan nenbilela, behin hegazkinez egin bidaia aspergarri batean gurutzatu anderearen soaren sakonak burua **panpalaharatu** zidan. **Itxaro Borda**

## panpalina iz pl adkor barrabilak.

Edo koskoiлак; edo koskabiloак; edo **panpalinak**; edo barrabilak; edo zintzilikarioак... herri idurimenak delako zorro pilotadun ale-bikoa izendatzeko asmatu dituen molde ugariak agortzeari emanez gero. **Aingeru Epaltza**

Edo Potzolo zizare hori, oraingo aldiko, **panpalinetatik** harrapatzea eta bere ikerketaren nondik norakoen berri ematea. **Aingeru Epaltza**

## panpandoja 1 iz neska ikusgarria.

Tomasek eta Antxonek, harritzekoa, **panpandoja** bana zeukaten beso artean, ez oso urrun. **Koldo Izagirre**

## 2 irud/hed pl titiak.

Ez bat eta ez bi, jantzi isotermikoak arrapataka erantzi, eta, **panpandojak** bistan, saiotoxo lesbiko ikusgarri bati ekin zioten, koreografia modu eztiagatik erleen dantza zirudiena. **Patxi Iturritegi**

## panpano iz platanoa.

**Panpanoen** gerizpera egon behar zuketean batuta baserritarrek, paseozaleen zain, eta ez zegoen inor. **Koldo Izagirre**

## panparroi 1 izond handiustea, ahoberoa.

Hitz haiek liskarra ekarri zuten, zeren Manolo Txoriburuk, **panparroi** koldar, aspergarri horietako bat baitzen, Luluri kargu hartzea erabaki zuen, hark esandakoengatik. **Josu Zabaleta**

## 2 (adizlagun gisa)

Lepoa **panparroi** gorantz begira duen nobleziako emakume adinean sartuaren indioilartasuna **Harkaitz Cano**

## panparroikeria iz handiustekeria, ahoberokeria.

Nekatu nintzen beren **panparroikeriez** eta arrandiez, ez nuen beren gustu txarreko umore matxista aintzat hartu. **Jon Alonso**

-Mutil zintzoa, heziera onekoa, aldarte onekoa; norbaitek mesede bat egiten zionean, ez zion muturren aurrean karta-joko bat apurtzeko **panparroikeria** egiten. **Koldo Biguri**

On Camillo bezalako harroskiloen **panparroikeriek** ez gaituzte inondik ere beldurtzen. **Koldo Biguri**

## panparrotu izond panparroi bihurtua.

Jakina, zu bezalako gazteak erdi **panparrotuak** ikusten ditugunean -orain, lehen ez bezala, gazteek gehiago edaten dute nagusiek baino-, eta milaka botila hustu dituztenean, galdetu beharko genioke gure buruari hori den egin daitekeen gauzarik egokiena euskararentzat. **Pello Salaburu**

## panpatu, panpa(tu), panpatzen du ad jo, kolpekatu.

Ohoinek **panpatu** zuten bere jauntzi brodatu eta urre moltsa ebasteko. **Herria**

## panpin ik panpina.

## panpina (orobat panpiña g.er. eta panpin g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian panpin bazterten da eta panpina erabili behar dela adierazten) 1 iz gizaki bat, batez ere haur bat, irudikatzen duen jostailua. ikandere; andrakila.

Gogoratzen dut, bakarrik gelditzen nintzenean, gelan sartu eta **panpinekin** jolastuz asko hitz egiten nuela. **Ana Urkiza**

Joan zitzaion **panpinekin** eta autoekin jostatzeako adina, baina berak panpina handi batean aurkitzen du babesa, inoiz izan ez duen amaren ordezkoko egiteraino. **Berria - Kultura**

Umetan kolore lilak eta apalak bortitzak baino atseginago nituelako, edo egun batean lehengusinarekin **panpina** orrazten ausartu nintzelako. **Joan Mari Irigoien**

Olinpiak, ordea, trepeta mekaniko bat darama tripetan, Olinpia ez da **panpina** bat besterik. **Anjel Lertxundi**

Demba altxatu eta komoda gaineko **panpinei** begira jarri zen. **Antón Garikano**

Barbie **panpina** lehertu zuten, eredu horrekin bat ez datozela adierazteko. **Berria - Harian**

Maria **panpina** zen Alesentzat. **Jasone Osoro**

Emakumeak kartoizko **panpina** zirudien bere kolorete biribil eta margo biziko soinekoaz. **Juan Martin Elexpuru**

'**Panpinen** etxea' filmaren grabaketa ekainean hasiko da. **Berria - Kultura**

Telesaioko **panpinei** esker ikasi zituzten, hein batean, hizkuntza arrotzaren oinarriak. **Xabier Montoia**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egun hartan, baina, **panpina** polit bat ekarri zuen, izeba Manolik urtemugan erregalatu ziona. **Joan Mari Irigoien**

Sex-shop batera joan eta **panpina** puzgarria erosi zuen. **Jasone Osoro**

Badira **panpin** abeslariak, negartiak, puzkertiak, kakatiak... **Berria - Gaiak**

Espektroak ziren, alegiazko izakiak, nahita soilik agertzen ziren mamuak, **panpina** mekaniko malgukidunak. **Jose Morales**

Pilota batzuk erabiliz, metro eta erdi luzeko egurrezko **panpina** lodi batzuk bota behar ziren, silueta margotu batzuk, zehazki. **Koldo Biguri**

Bagoiaren zoru grisean zetzan gorpu hura ez zela gizon bat, trapuzko **panpina** bat baizik, izugarri ongi egina, hori bai. **Karlos Linazasoro**

Nahiago dut kanpoan geratu eta elurrezko **panpin** bat egin Arnold Matthews bezalako. **Koro Navarro**

Hasiak ziren kolpeka burukoekin, kuxinekin, pelutxezko **panpinekin**, horrekin guztiarekin. **Karlos Linazasoro**

## 3 (erkaketetan)

Ume bat balaz josia, lehenago ordea gora botaka aritu dira SSetako batzuk, **panpina** balitz bezala jolasean. **Felipe Juaristi**

Sutan zinen barrutik, zaplazteko bat joko zenidakeen gustura asko, sorbalda bietatik oratu eta trapuzko **panpina** bat bezala aurrera eta atzera astindu. **Eider Rodriguez**

Ez zuen sortzaile berekoi baten **panpina** ahul merkea izan nahi. **Aritz Gorrotxategi**

Txalo jo eta hau, txalo jo eta hura, horrela ohituta zeuden; **panpinak** bezala erabiltzen gintuzten. **Jokin Urain**

Ez al nintzen bada ordurako konturatu agure maingua **panpina** gaizto bat besterik ez zela? **Karlos Linazasoro**

Tau **panpina** bat baino ez da izan Maccabiren eskutan, eta Gershonek ezarritako doinuaz dantzatu beharra izan du. Berria - Kirola

## 4 (emakume bat adierazten)

**Panpina** hura, Ellen, aurrean zuen hizketan. Lopez de Arana

**Panpina** hazi egin zen, eskolara joan, beste lagun batzuk egin zituen. Oskar Arana

Batzuek "**panpina**" deitzen diote Susanari, baina oker, berak ez baitu **panpinaren** kaskarkeriarik. Bernardo Atxaga

**Panpinak** leopardo larruzko bainujantzi ezin hortera go bat zeraman, bi musu ezarri zikidan eta, ahots hanpatuz, [...]. Juan Martin Elexpuru

## 5 irud/hed

Agenterik gabe eta makilakada guztiak jasoko dituen **panpinarik** gabe... Berria - Kultura

## 6 (apozizioan)

Gizon [...] profesionalaren emazte **panpina**, afariak apaintzen dituztenak, kremez eta masajeez eguneroko bizitza betetzen dutenak. Lourdes Oñederra

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alice-k gaztaina-koloreko ile iluna eta **panpin** aurpegi leuna zituen. Lopez de Arana

Irribarre egiten zuen bere **panpin** ahoarekin, begiak argi. Karlos Zabala

Perretxiko-orearen koloreko **panpina** -esku laburrak dilindan zituen alde banatan. Lopez de Arana

-Zertan habil?-nora hoa? faena erdian utzi behar al nauk? -protesta egin zuen Nano Zuriak, bere **panpina** -muturtxoa okertuz. Patxi Iturritegi

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Farmazietako gorputz giharren eredu- **panpina** , gorritz tindatua. Edorta Jimenez

## 9 (izenondo gisa)

Ermita **panpin** -panpina jarria da. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**panpina balitz bezala** (3); **panpina bat baino** (3); **panpina bat bezala** (4); **panpina bezala** (5); **panpina handi** (3); **panpina mekaniko** (5); **panpina ohol** (3); **panpina ohola** (9); **panpina orrazten** (4); **trapuzko panpina** (11); **trapuzko panpina bat** (4); **trapuzko panpina baten** (4)

**panpinak bezala** (3)

# panpina *(orobat panpiña g.er. eta panpin g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian panpin baztertzen da eta panpina erabili behar dela adierazten)* 1 iz gizaki bat, batez ere haur bat, irudikatzen duen jostailua. ikandere; andrakila.

Gogoratzen dut, bakarrik gelditzen nintzenean, gelan sartu eta **panpinekin** jolastuz asko hitz egiten nuela. Ana Urkiza

Joan zitzaion **panpinekin** eta autoekin jostatzeke adina, baina berak panpina handi batean aurkitzen du babesa, inoiz izan ez duen amaren ordezkotegiraino. Berria - Kultura

Umetan kolore lilak eta apalak bortitzak baino atseginago nituelako, edo egun batean lehengusinarekin **panpina** orrazten ausartu nintzelako. Joan Mari Irigoien

Olinpiak, ordea, trepeta mekaniko bat darama tripetan, Olinpia ez da **panpina** bat besterik. Anjel Lertxundi

Demba altxatu eta komoda gaineko **panpinei** begira jarri zen. Anton Garikano

Barbie **panpina** lehertu zuten, eredu horrekin bat ez datozela adierazteko. Berria - Harian

Maria **panpina** zen Alesentzat. Jasone Osoro

Emakumeak kartoizko **panpina** zirudien bere kolorete biribil eta margo biziko soinekoaz. Juan Martin Elexpuru

'**Panpinen** etxea' filmaren grabaketa ekainean hasiko da. Berria - Kultura

Telesaioko **panpinei** esker ikasi zituzten, hein batean, hizkuntza arrotzaren oinarriak. Xabier Montoia

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egun hartan, baina, **panpina** polit bat ekarri zuen, izeba Manolik urtemugan erregalatu ziona. Joan Mari Irigoien

Sex-shop batera joan eta **panpina** puzgarria erosi zuen. Jasone Osoro

Badira **panpin** abeslariak, negartiak, puzkertiak, kakatiak... Berria - Gaiak

Espektroak ziren, alegiazko izakiak, nahita soilik agertzen ziren mamuak, **panpina** mekaniko malgukidunak. Jose Morales

Pilota batzuk erabiliz, metro eta erdi luzeko egurrezko **panpina** lodi batzuk bota behar ziren, silueta margotu batzuk, zehazki. Koldo Biguri

Bagoiaren zoru grisean zetan gorpu hura ez zela gizon bat, trapuzko **panpina** bat baizik, izugarri ongi egina, hori bai. Karlos Linazasoro

Nahiago dut kanpoan geratu eta elurrezko **panpin** bat egin Arnold Matthews bezalakoa. Koro Navarro

Hasiak ziren kolpeka burukoekin, kuxinekin, pelutxezko **panpinekin**, horrekin guztiarekin. Karlos Linazasoro

## 3 (erkaketetan)

Ume bat balaz josia, lehenago ordea gora botaka aritu dira SSetako batzuk, **panpina** balitz bezala jolasean. Felipe Juaristi

Sutan zinen barrutik, zaplazteko bat joko zenidakeen gustura asko, sorbalda bietatik oratu eta trapuzko **panpina** bat bezala aurrera eta atzera astindu. Eider Rodriguez

Ez zuen sortzaile berekoi baten **panpina** ahul merkea izan nahi. Aritz Gorrotxategi

Txalo jo eta hau, txalo jo eta hura, horrela ohituta zeuden; **panpinak** bezala erabiltzen gintuzten. Jokin Urain

Ez al nintzen bada ordurako konturatu agure maingua **panpina** gaizto bat besterik ez zela? Karlos Linazasoro

Tau **panpina** bat baino ez da izan Maccabiren eskutan, eta Gershonek ezarritako doinuaz dantzatu beharra izan du. Berria - Kirola

## 4 (emakume bat adierazten)

**Panpina** hura, Ellen, aurrean zuen hizketan. Lopez de Arana

**Panpina** hazi egin zen, eskolara joan, beste lagun batzuk egin zituen. Oskar Arana

Batzuek "**panpina**" deitzen diote Susanari, baina oker, berak ez baitu **panpinaren** kaskarkeriarik. Bernardo Atxaga

**Panpinak** leopardo larruzko bainujantzi ezin hortera go bat zeraman, bi musu ezarri zikidan eta, ahots hanpatuz, [...]. Juan Martin Elexpuru

## 5 irud/hed

Agenterik gabe eta makilakada guztiak jasoko dituen **panpinarik** gabe... Berria - Kultura

## 6 (apozizioan)

Gizon [...] profesionalaren emazte **panpina**, afariak apaintzen dituztenak, kremez eta masajeez eguneroko bizitza betetzen dutenak. Lourdes Oñederra

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alice-k gaztaina-koloreko ile iluna eta **panpin** aurpegi leuna zituen. Lopez de Arana

Irribarre egiten zuen bere **panpin** ahoarekin, begiak argi. Karlos Zabala

Perretxiko-orearen koloreko **panpina** -esku laburrak dilindan zituen alde banatan. Lopez de Arana

-Zertan habil?-nora hoa? faena erdian utzi behar al nauk? -protesta egin zuen Nano Zuriak, bere **panpina** -muturtxoa okertuz. Patxi Iturritegi

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Farmazietako gorputz giharren eredu- **panpina** , gorritz tindatua. Edorta Jimenez

## 9 (izenondo gisa)



Ermita **panpin** -panpina jarria da. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**panpina balitz bezala** (3); **panpina bat baino** (3); **panpina bat bezala** (4); **panpina bezala** (5); **panpina handi** (3); **panpina mekaniko** (5); **panpina ohol** (3); **panpina ohola** (9); **panpina orrazten** (4); **trapuzko panpina** (11); **trapuzko panpina bat** (4); **trapuzko panpina baten** (4)  
**panpinak bezala** (3)

## panpinatu

panpina(tu), panpinatzen (*orobat panpindu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian panpinatu agertzen da*) **1** da/du ad apaindu, dotoretu.

Gehienek badakite herri hortako Etxauzearen berri: nola **panpinatua** den bere aspaldiko nortasuna ere zainduz aspaldiko jauregi zaharra eta zer bisitak dauzkan herritar eta kanpotiarretarik. **Herria**

Lehen aldia nuen bakarka hitz egiten niola, Maruxa, eta nik behintzat masailak piper hautsez **panpinatu** izan balizkidate bezala egon behar nuen. **Koldo Izagirre**

Lasai jesarriko naiz borroroak eta bere laguntzaileak bizargin adeitsuak legez **panpinatuko** nauten aulkian. **Koldo Izagirre**

### 2 panpina bihurtu.

Izan ere, horrela egiten du lan estereotipoak, pertsonak **panpinduz**; haiei barrua kendu eta hutsunea ideia-lastoekin edota ideia-trapuekin betez; pertsona odolki antropomorfo bihurtuz, irudi batekin esanda. **Bernardo Atxaga**

## panpinatxo

(*orobat panpintxo g.er.*) **1** iz tamaina txikiko panpina.

Eserleku bakarreko aeromodeloa saldu, eta bi eserlekukoa erosi nuen, eserlekuetan **panpinatxo** bana ipintzen nuela. **Joan Mari Irigoien**

Txotxongilo saio bat egiten ari ziren, ezker-eskuin eskuetako hatz erakusle margotuak **panpinatxotzat** harturik. **Joan Mari Irigoien**

### 2 adkor panpina.

Hor dago zure **panpinatxoa** eder-eder. **Eider Rodríguez**

-Hartu dezagun Thailandiako **panpinatxo** bat eta nik erdia ordainduko dut. **Jon Arretxe**

Nire inguruan jarri ziren, jela hartu eta zehazki jabontzen hasi zitzaizkidan, nik utzi egiten nien, ume txiki batek bezala, haiek "**panpintxo**" eta "polit hori" esaten zidaten, eta astiro-astiro hasi ziren nire larru guztia zeharkatzen, igurzten, masaiatzen. **Juan Martin Elexpuru**

## panpindu ik panpinatu.

## panpintxo ik panpinatxo.

## panpox 1 izond/iz polita, ederki apaindua dena.

Lehen lerroko emazte **panpox** batek, urre eta zilarrezko bere girgileria ozenki inarrosiz, arrosa zimel bat aurtiki zion aurpegira. **Itxaro Borda**

Hatsa zintzurrean trabatzeke moduko neska **panpoxak**. **Aingeru Epaltza**

Zu bai neska **panpoxa**; esaten dizut bai, zu zarela onena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaurko antzezle **panpox** asko ere onddo hutsak dira, makilajea kenduta. **Javi Cillero**

Norma Jeanen irudiko estralurtar **panpox** bat. **Itxaro Borda**

Zer nahi duzu egitea, **panpox** horrek? **Jon Arretxe**

-Rosario? -erantzun zidan noizbait- **panpox** hau hire bila etorrita, zertarako nahi duk hik atso zalamandrana hori? **Aingeru Epaltza**

Aise barkatzen ahal zitzaion Edurne bezalako **panpox** loti bati. **Aingeru Epaltza**

### 2 irud/hed

Gasnak, ogi zakuak eta oilasko **panpoxak**. **Itxaro Borda**

Tadjikek eman zion lehen dirutzarekin Rivoli karrikako magasin **panpox** batean aratxe larruzko zapata zuri-beltzak erosi zituen. **Itxaro Borda**

Akordatzen naiz [...] eguraldiari buruz hitzalditxo bat emango ote nien Goierriko herri **panpox** batetik, Zeraindik hain justu, deitu zidatenean sentitu nuen zirrara. **Pello Zabala**

Zahar etxeak bera ere zahartua dago, izanagatik ere kanpoz itxura **panpoxa**. **Herria**

Afari denboran, Abelek, mahaiaren erdian ezarri zuen kutxa **panpoxa**. **Daniel Landart**

### 3 (adizlagun gisa)

Cadinek **panpox** agertzeko gogoia ere izaten zuen batzuetan. **Karlos Zabala**

Igandeetan **panpox** samar jartzen dute, pittin bat, apenas. **Monika Etxebarria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**emazte panpox** (3)

**neska panpoxa** (3)

## panpoxa 1 izond (emakumeentzat markatua) ik panpox.

Alderantziz, esan behar izan diegu neska **panpoxa** batzuk geneuzkala zain eta ezin ginela luzatu. **Jon Arretxe**

Aurkezle **panpoxa** batek [...] galdetzen zion, begiak larrituz, haien kolorea hobeto ikus zedin: "ez zaituzte maite! eta zergatik?". **Bernardo Atxaga**

Lerro bat koka sudurreratu nuela ematen zuen, hain nengoen nire neurritik aterea, eta **panpoxa** hark belauna ukitu zidan mahai azpitik argiak itzali bezain laster eta elkarri zirrika egon ginen denbora guztian. **Karlos Zabala**

### 2 irud/hed

Cervino mendiaren, giza hiltzaile horren, piramide garai beldurgarria, eta Dent-Blanche, **panpoxa** munstrozko hori. **Josu Zabaleta**

### 3 panpoxa-panpoxa

Mirentxu **panpoxa-panpoxa** azaldu zen, kruasan egin berriekin. **Joxean Sagatzizabal**

Lila edo amañilili lora horiek, sasoi inguru honetako beroalditxoari esker loratzen eta zabaltzen omen dira: **panpoxa-panpoxa** azaltzen dira amañililiok. **Pello Zabala**

# pansexualitate

Saiatu nintzen, noski, baina ezin aurrera segitu, nire betiko argudio **pansexualak** ere baliorik gabe geratu ziren. Karlos Zabala

## pansexualista *izond* jarduera psikiko osoaren oinarritzat sexu grina hartzen duena.

Horrek ez du esan nahi psikoanalisi freudiarra **pansexualista** denik, ez baitu esaten guztia sexuala denik, baina bai esan nahi du psikoanalisi freudiarraren ikuspegi filogeniako (antropogenesia) zein ontogeniako (norbanakoaren garapena) sexualitatean oinarritzen dela. Berria - Harian

## pansexualitate *iz* beste pertsona bat bere sexua gorabehera maitatzeko ahalmena.

**Pansexualitatea** da etorkizuna, lehenago desagertzen ez bagara espezie gisa, gure jatorrizko akatsengatik. Karlos Zabala

Oso buru argiko emakumea da, eskarmentu handikoa, eta, bere ustez, **pansexualitatea** da etorkizuneko sexualitatea. Berria - Kultura

## pantaila (*orobat **pantalla** g.er.*) 1 *iz* irudiak proiektatzen diren azalera.

Hegazkinean **pantaila** bat dago Ameriken maparekin eta ikono mugikor batek seinalatzen du gure posizioa. Joseba Sarrionandia

**Pantailak** lehendakariaren autoa erakusten zuten beti, Dallasko karriketan paseatzen. Itxaro Borda

**Pantailarik** gabeko ordenagailua zen Power Mac G4 Cube izeneko tresna. Berria - Gaiak

Telebista piztu nuen, arreta **pantailan** jarri eta nire pentsamenduen gorpila gelditzeko. Bernardo Atxaga

*Matrix*-eko fotograma bat azaltzen da **pantailan**: Trinititi, hegazti baten hegaldia antzeratzen. Antton Olano

Adi-adi sumatzen nuen aldika, begiak **pantailan** tinko, kliskaren bat egiteko besterik apartatu gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Begiak **pantailan** josiak Irudi bat agertu zen **pantailan**. Jon Muñoz

**Pantailan** ageri den emakumearen bizitasunak hunkitu nau. Arantxa Iturbe

**Pantailan** izoztutako irudiaren gisan geratu zen, besoa pixka bat aurreratuta, begiak oinazeak itxita. Iñaki Iñurrieta

Llumeak irribarre egiten du **pantailara** begira. Antton Olano

**Pantailako** letra bat bezala. Antton Olano

**Pantaila** -zolakako tresna-barratik, leihoxka batek ohartarazi ninduen horraino idatzitako karaktere kopuruaz: 2734. Aingeru Epaltza

**Pantailako** laukiaren behe aldeak jo ninduen begietara. Aingeru Epaltza

Baina begiak behin eta berriz igurtzi arren, hantxe jarraitzen du, aldatu gabe, **pantailako** mezuak. Antton Olano

**Pantailako** ñirñirak atzera begiratzea behartu du, eta Morfeok idazten jarraitu duela ikusten du. Antton Olano

Ordu batzuk lehenago Madame Beylek ere egin zuen antzera diapositiben **pantailaren** kordioari tiratzeko. Anjel Lertxundi

Erevandik abiatu zen hegazkina Errusiako aire kontrolatzaileen **pantailatik** desagertu zen 02:15ak inguruan. Telebista berrian, aldiz, jendeak benetakoa ematen zuen; bazirudien **pantailatik** irten eta eskua emango zigitela. Berria - Mundua

Lhorraldi luzearen ondoren, badirudi aurki iritsiko direla **pantailak** euskarazko film luze batzuk. ik pantailaratu. Berria - Harian

## 2 (izenondoekin)

Besalki bigunak, moketa lodiak, zabaltzeko ordu bete behar zuen oihala, hiru mastako ontzi baten bela nagusiaren pareko **pantaila** handia. 22.30tan *The full monty* filmea **pantaila** handian. Jon Muñoz

Baionako Herriko Etxeak **pantaila** erraldoia ezarriko du Lauga gelan, partida zuzenean ikusi ahal izateko. Berria - Kirola

Badira amateurren filmak, etxe barruan, **pantaila** txikitxo batean, proiektatzen direnak. Josu Zabaleta

Izena markatuta, trastearen memoriak zenbaki bat egotzi zuen **pantaila** argiztatu estura. Aingeru Epaltza

Batzuetan, Oroitzapen guztiak ezabatzea nahiko nuke, disko gogorra formateatzen denean bezalaxe [...] eta handik aurrera bizitza berri bat idatzi **pantaila** garbian. Juan Cruz Igerabide

Ordenagailuaren **pantaila** urdinari begiratzen diozu, giltzak sarraian ateratzen duen soinuari ez entzun eginez. Lourdes Oñederra

Kurtsoreari beheti eginarazi nion **pantaila** berde minean. Aingeru Epaltza

Barnean, kontratazio sala erraldoi bat, **pantaila** elektronikoko handi baten argitan. Hasier Etxeberria

Ordenagailura hurbiltzen dira pixkana-pixkana, begiratu eta hantxe ikusten dute **pantaila** osoa hartzen duen irudia. Antton Olano

Edozein **pantaila** eramangarritan azken ordu erdiko meteosat erretratu garbi gardena ikus zenezake. Pello Zabala

## 3 irud/hed

Seguru nago Hradeceko eskualdeko zuzendaritzan ospea eman ziona ikusi zuela berriz zeruan, seguru nago berriz **pantaila** urdin ezin handiago horretan pelikula bera ikusi zuela, telegrafista nola etzaten zen eta berak nola goratzen zion gona. Fernando Rey

Burmuineko **pantailan**, entrenamenduetan behin eta berriz errepikatutako guardi jakkerak eta beso-buruak ikusten saiatzen zen. Josu Landa

## 4 (-ko atzikiaren eskuinean)

Zinemako **pantailan** zelda huts bat ageri denean bezala. Harkaitz Cano

Zinemako **pantailak**, adibidez, luminantzia jakin bat izango du, eta distira berbera izango du ikuslea lehenengo ilaran egon ala azkenekoan egon eserita. Josu Zabaleta

Jende alai gehiegi agertzen da, alaitasunaren plusbaldia arraro bat dago telebistako **pantailan**. Pako Aristi

Gutun idaztea eten eta telebistako **pantailan** ageri zen gizonari so egin zion. Josetxo Azkona

Buruzagiak esku burdinaz trinko, Pariseko hegazkinetan sartzen filmatuak agertzen ziren telebistetako **pantailatan**. Itxaro Borda

Jarraian iratzargailuko **pantailari** begiratu dio: hamaikak eta erdiak. Jokin Muñoz

Izen-deiturak [...] lerro bat baizik ez ziren nire ordenagailuko **pantailan** antolatuta beharreko paragrafoan. Aingeru Epaltza

Kurtsorea keinuka ari da ordenagailuko **pantailan**. Antton Olano

Ordenagailu bateko **pantaila**, teklatura... erdi urtuta baina hantxe zeuden. Fernando Morillo

Nafarroako lehendakari Miguel Sanzen aurpegi agertu zen eszenatokiko **pantailan**. Berria - Euskal Herria

Bere obsesio eta fantasia sexual guztiak 625 lerroko **pantailaren** bidez gauzatzen zituen. Jasone Osoro

Ez zen lodia, zabal baizik; 16/9ko **pantaila** batena zuen gorpuz enborra. Jon Muñoz

Kristal likidozko **pantailak** birziklatzeko programan. Berria - Gaiak

Kristal likidoko **pantailak** egiteko erabiltzen den materiala. Berria - Gaiak

## 5 (-en atzikiaren eskuinean)

Lehen kasuan pertsona jakin bat ikusten dugu telebistaren **pantailan**, ahaide bat bezain hurbila zaiguna. Bernardo Atxaga

Gure irudi-iturburu nagusiek, liburuak, diapositibek edota telebistaren **pantailak** arras berdintzen dituzte irudien neurriak. Josu Zabaleta

Xoko batean zegoen telebistaren **pantaila** pizturik utzi zuten: aireontziaren bidaiaren berri ematen zuten. Ramuntxo Etxeberri

Mahai gainean zenbait paper, eta aldamenen ordenagailuaren **pantaila**, modelo berri-berrikoa, telebista-aparatu bat bezain handi. Aingeru Epaltza

Galderak egiten dizkion ispilu baten antza du idazle batentzat paper zuriak edo ordenagailuaren **pantailak**. Anjel Lertxundi

Une horretan lauki bat agertu zaio ordenagailuaren **pantailan**: [...]. Pako Aristi

Joanaren telebideoaren **pantailara** iritsitako mezua: [...]. **Antton Olano**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horregatik esaten diogu, hain zuzen, **pantaila** -efektua pertzibitzen ditugun gauzen desestaltze horri, egiaz filmeko irudian horixe falta bada ere. **Josu Zabaleta**

**Pantaila** -zolakoa tresna-barratik, leihoxka batek ohartarazi ninduen horraino idatzitako karaktere kopuruaz: 2.734. **Aingeru Epaltza**

**Pantaila** bidezko harreman elektroniko hura nahikoa ez eta [...] hitzordu bat adostu zuten bi internautek Albertoren etxean egitekoa. **Josetxo Azkona**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zinema **pantaila** bilakatu zen parabrisan, lurrunka eta erortzen ari zen elurrak sorturiko begitazioak besterik ez ziren izan ikusitako haiek guztiak. **Harkaitz Cano**

Kaleetan ikusten diren telebista **pantaila** handiek ere hau Europa globalizatua dela diote. **Edorta Jimenez**

Telebista- **pantaila** baten aurrean lekuz aldatzen bagara, adibidez, ez da gure mugimenduak eragindako inolako perspektiba dinamikorik, inolako mugimendu paralaxiarik izango. **Josu Zabaleta**

Billar-mahaia, esate baterako, ez dago berak gogoratzen zuen tokian, bideo **pantailaren** parez pare alegia, Bat-batean ohartzen da Morfeo kameraren beste aldean dagoela, ordenagailu **pantaila** baten aurreran, berari so. **Patxi Iturritegi**

Eroritako bi airekoak radar **pantailetatik** desagertu zirela adierazi zen. **Berria - Mundua**

Haren atzeko kontrol **pantaila** batean, tipo bizardun bat ikusten zen, farola batetik eskegita zegoela. **Pablo Sastre**

Erakusketa: "Ua lenga, l'Occitan" eta "Euskal Herriko aurpegiak" ukipen **pantaila** . **Herria**

- Erakusleihoan, plasma- **pantailadun** telebista handi batzuk zeuden, piztuta. ik pantailadun. **Fernando Morillo**

## 8 argi gune baten inguruan ezartzen den azalera edo gauzakia.

Eta geltokiko buruaren bulegoan, argi elektrikoa bazegoen ere, metxa borobileko petrolio lanpara piztu nuen, **pantaila** berdearekiko lanpara. **Fernando Rey**

Iluntzean, brontzeko argimutil bat ipintzen zuten mahai gainean, oso dotorea, [...] nakarezko **pantaila** dotore askoa zeukana. **Jose Morales**

Lanpara txiki portzelanazko **pantaila** zuriko bat zegoen mahai gainean. **Irene Aldasoro**

Neska sartu eta nik nire soingainekoa ekarri eta sofan zabaldu nuen, **pantaila** berdeak argi goxoa ematen zuen. **Fernando Rey**

## 9 zerbait ezkutatzeko ezartzen den azalera edo gauzakia.

Hego Kalifornian lainoztatze poteek eta Connecticut ibarrean gasa- **pantailak** izotzak uztei kalte egiteko arriskua gutxitu zuten. **Iñaki Mendiguren**

**Pantaila** egiten diote eguzkiari sumendietako hauts-pila handi horiek. **Pello Zabala**

Horrela erabili, "demokrazia" terminoa ke- **pantaila** bat besterik ez zen askatasunaren eta berdintasunaren idealen arteko benetako gatazka ezkutatzeko. **Iñaki Mendiguren**

Horren errua «enpresa- **pantaila**» bota zion UEUko irakasleak: «Petrolio saltzen duen multinazionalak Bahametako bandera ezarri zion Prestige-ri, baina herri horretara deituta, inork ez zuen beren jabeak nortzuk ziren esan nahi izan». **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bideo pantaila** (5); **ordenagailuaren pantaila** (5)

**pantaila aurrean** (16); **pantaila baten aurrean** (4); **pantaila erraldoi** (7); **pantaila erraldoi bat** (4); **pantaila erraldoia** (6); **pantaila erraldoiak** (3); **pantaila erraldoian** (5); **pantaila handi** (11); **pantaila handi bat** (3); **pantaila handi batean** (3); **pantaila handia** (3); **pantaila handian** (13); **pantaila handira** (4); **pantaila osoa** (6)

**telebista pantaila** (8); **zinema pantaila** (3)

**agertu zen pantailan** (6); **atzeko pantailan** (3); **begiak pantailan** (5); **ordenagailuaren pantailan** (7); **ordenagailuko pantailan** (4)

**pantailan ageri** (3); **pantailan agertu** (4); **pantailan agertzen** (6); **pantailan ikusi** (3); **pantailan ikusten** (5)

**telebistako pantailan** (6)

**pantailara begira** (5); **pantailara begiratzen** (3); **pantailara ekarri** (3)

## pantailadun *(orobat pantalladun) izlag/iz* pantaila duena; pantailak dituena.

Bizia kalean baitzegoen lehen, eta orain berriz, etxezuloko ziega **pantalladunetan**. **Iñaki Segurola**

Mahai bat erdian, goian **pantailadun** lanpara berde bat, eta mahaira eserita, lau lagun musean: hiru miliziano eta obispoa, bere gala guztiekin jantzita. **Inazio Mujika Iraola**

## pantailaratu, pantailara(tu), pantailaratzen da/du *ad* pantailan eman, pantailara eraman.

Maiatzaren 7an eta 8an 18 film labur **pantailaratuko** dira. **Berria - Kultura**

Sute hau nahitara piztutakoa izan dela uste dute agintariek, zeren eta, bertan adingabekoei debekatutako filmak **pantailaratzen** baitziren. **Berria - Mundua**

Telebista ikusi nahi eta Euskal Tedespista (beste izenez Euskal Txoribista) **pantailaratzen** zaigu aukeran ditugun kanalen artean. **Iñaki Arranz**

Aitzpea Goenagarena ez da Atxagaren nobela **pantailaratzeko** lehen ekinaldia. **Berria - Kultura**

Mendebalde osoaren lotsa **pantailaratzen** duen fotograma sorta krudela. **Berria - Kultura**

Hiru urtean eginiko lanaren erakusgarri, hitzik gabeko bideo bat **pantailaratu** zuten. **Berria - Euskal Herria**

Bizkaitarraren bitziza **pantailaratuko** dute. **Berria - Kirola**

Eskuetan Voici Paris eta Nous Aussi agerkerien ale batzuk zeuzkala azaldu zen, eta Yvanen eta bion argazkiak, lehen planoan eginak guztiak, **pantailaratu** zituzten. **Joxan Elosegi**

Hiru irudi "kolore-banatuak" lorturik, berak esaten zien bezala, irudi bakoitza zegokion filtroan barrena proiektatuz [...] bata bestearen gainean jarri eta baturik **pantailaratu** zituen. **Xabier Olarra**

## pantailatxo *iz* tamaina txikiko pantaila.

*Splash*eko komunean (17 West, seigarren abenidatik gertu), pixa egin ahala, buruaren parean jarritako **pantailatxoei** esker film pornografikoak ikusiz entreteni daiteke bat. Telefono mugikorra atera poltsatik eta **pantailatxoan** zenbaki bat bilatu ondoren botoia sakatu nuen. **Harkaitz Cano**

Idazmakina elektrikoari leporatzen diot errua: lerroz lerro idazten duen horietakoa da eta iruditzen zait lerroa **pantailatxoan** ikusi, bi aldiz irakurri eta inprimatu ondoren ezin aldatzeak erritmo berezia ematen diela poemei. **Harkaitz Cano**

## pantailaxka *iz* pantailatxoa.

Nik bakar-bakarrik dakit, gero, furgonetara itzulitakoan, batere axolarik gabe ikusi dudala Adelaren bideoaren **pantailaxkan** ikusarazi didaten ilunabarraren errepikapen erridikulua. **Patxi Zubizarreta**

## pantailan *iz* piloteen gaineko kai edo ontzireleku txikia.

**Pantailanaren** ondoan arrantzale despistaturen baten ontzi txikia hondoratu da. **Berria - Kirola**

Hangotik **pantalanetik** behera ere hainbat ontzi uretaratu dira.

**Berria** - **Kirola**

**pantalla** ik **pantaila**.

**pantaloi** *iz pl* galtza.

Jakintsuek "**pantaloiak**" esaten diete eta ezdeusek "frakak".

**Xabier Olarra**

**pantasi 1** *iz* ameskeria, irudipena. ik **fantasia 2**.

Ba, haiek erakusten duten gisan, oinak lurraren gainean landatuak ditugula, buruan **pantasiari** lekurik eman gabe.

**Iñaki Seguro**

Lubisek kapritxosoa zela esan izango zukeen, eta Teresak **pantasi** handia zeukala errepikatu.

**Bernardo Atxaga**

Hari buruz hitz egiten zutenean, Ubanbek eta bere kideek beren esamolde haietako bat erabiltzen zuten: "**pantasi** handiko neska da".

**Bernardo Atxaga**

**2** (jantziez eta kidekoez) apeta, gutzia.

Gainerantzean, Nafarroako erriberan edo Errioxa aldean bazterrei begira ibiltzea aski da gauza batez konturatzeko: lurralde horietan ez darabilte guretan adina **pantasia**.

**Berria** - **Kirola**

Arropetan ere antzematen zitaion bere **pantasi**, fantasia hura.

**Bernardo Atxaga**

Gero hantekakoa ugaldu zenean, beltzak edo urdinak asteleguneko feri, tratu, bidaia eta abarretan; eta zuriak jai handitako **pantasizat**.

**Patziku Perurena**

**3** irud/hed

Horra hurriz andere maitalea, berriz ere amodio bila, urrezko belarritako luxanga polit horiek, bere **pantasi** guziarekin xuhur erakutsiz, beste lagun tuntu guziak lozorroan dauden bitartean.

**Patziku Perurena**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**panteoi eder bat** (3)

**pantera beltzetako kide** (3)

**pantasios** *izond* pantasiaz betea.

Holako txuritasun **pantasiosa**, ezjakinean irago ote zaio, menderik mende, gure arbasoen arimako begiari?

**Patziku Perurena**

**panteismo** *iz* Jainkoa eta unibertsoa gauza bera direla aldarrikatzen duen doktrina filosofikoa.

Kristau erlijioak trepanaturiko **panteismo** *light* bat.

**Pako Aristi**

Teologian [Servet-ek] Tomas Akinokoaren Summa Theologica gaurkotu, atondu eta apailatu zuen (nolabaiteko **panteismoa** defendatuz).

**Askoren artean**

Baruch Spinoza maitearen **panteismo** zintzotik oso gertu sentitzen zuen.

**Fernando Morillo**

Heterodoxia espainola **panteismoan** laburbiltzen da, horren maisu handiak Averroes eta Maimonides ei dira.

**Joxe Azurmendi**

**panteista 1** *izond* panteismoarena, panteismoari dagokiona.

Giza izaerak berez munduarekin bat egiteko duen joera **panteista**.

**Josu Zabaleta**

Kantika hau ez da beroaldi **panteistak** edo gaztaroko erromantizismoak eragina, Frantzisko fededunaren adierazpena baizik.

**Askoren artean**

• **2** *iz* panteismoaren aldeko pertsona.

Inguruetako apaizak amorraturik zeuden: ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren; gizonak ez zituen olioak onartzen,

**panteista** zen.

**Monika Etxebarria**

**panteoi 1** *iz* zenbait hilobi dauzkan eraikina.

Ospe zaharreko familiek **panteoia** gehienetan jatorrizko herrian izaten dutela.

**Ramon Saizarbitoria**

Beste batzuk ez zirela familiaren lagunak, baina ez zeukatela dirurik hilerrian **panteoi** bat erosteko.

**Unai Elorriaga**

Urtxiptarren azken egoitza: **panteoi** bat, hiriko betidaniko klase ertain eta goraxeagokoei ohi dituztenetarik.

**Aingeru Epaltza**

Polloeko lekurik hoberenean harrizko aingeru ederrez hornituriko **panteoi** baten jabe izatea.

**Ramon Saizarbitoria**

**Panteoi** gotikoen hiletan-estatuak bezain gris zegoen zerua.

**Ramon Saizarbitoria**

Aitona Miguel bigarren aldiz atxilotu bazuten, fusilatutako hiru gazte **panteoi** familiarrean lurperatzeko baimena eman zuelako izan zen.

**Mikel Hernandez Abaitua**

Bertan lurperatu zuten, familiaren **panteoian**, aitona Parenterekin.

**Fernando Rey**

**2** erlijio eta herri politeista bateko jainkoen multzoa.

Oro ziren blasfemoak; ez zuten soilik kristauen Jainkoaz gaitzesaten, baizik eta beren **panteoiko** dibinitate arkanoez ere.

**Juan Garzia**

Heroi eta leinu aristokratikoen balentriak, gizarte-hierarkia, gizarte-arauak, ohiturak, lanbideak, jainkoen **panteoi** jakina.

**Askoren artean**

**3** irud/hed

Kristautasun garailearen **panteoian**, Zibeles eta Isisen figurak Mariaren, Jainkoaren Ama Handiaren, antzaldaketan berretsi ziren, eta Mitras eta Sol Invictus-en ezaugarriak Kristoren aurkezpen militantean ikus zitezkeen.

**Iñaki Mendiguren**

**Panteoi** katolikoko santuen zerrenda pasatzen hasi zen, egunekoetatik hasirik: "Santa Nunilona, birjina eta martiria; Anercio, obispoa; santa Salomé, alarguna, Alodia edo Elodia eta Nulina, birjina santak; Córdoba eta Donato".

**Juan Garzia**

Ondo ezagutzen zuen, noski, pentsalarai hura, bere **panteoiko** maila gorenean jarrita zeuzkanen artekoa izaki.

**Jon Muñoz**

Historiak gaiztoen **panteoian** jarriko du.

**Berria** - **Harian**

220 eta 284 dituk **panteoi** pitagorikoko bi zombaki adiskide ospetsuenak.

**Jon Muñoz**

Hiztegiak, entziklopediak bezalatsu, hizketaren **panteoi** dotoreak besterik ez baitira.

**Patziku Perurena**

**4** Antzinako Erroma eta, jainko guztiei eskainiriko tenplua.

Izaki idealek ez zuten elkarri bultzaka ibili beharrik erromatarren **panteoian**.

**Jon Muñoz**

Europa eta Afrika, Grezia eta Egipto, greziar **panteoia** eta egiptoar jainkoak uztarturik, zazpi gizaldiz izango da Alexandria greziar munduaren museoa.

**Jon Muñoz**

Berto horietan zehar oraindik paganoa den aristokraziaren espiritua arnasten da, Erromatar Inperioaren hondamenaren kausa **panteoi** helenikoaren tradiziozko gurtzaren bazterketan ikusi zuena.

**Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**panteoi eder bat** (3)

**pantera beltzetako kide** (3)

**pantera** (*45 agerraldi, 20 liburu eta 9 artikulutan*) **1** iz ugaztun haragijale handia, larrua gorrixka orbaduna duena (*Panthera pardus*). ik **lehoinarbar**.

Europan, bakarra ez, baina pizti-piztiaren eredu nagusietakoa otsoa izan da mendez mendez, beste kontinenteetan **pantera**, tigrea edo jaguarra izan diren bezala. **Martin Anso**

Zakur basa taldeak, arbola baten gainean hamabost metro gora zegoen **pantera** bat inguratutik izan zuen hiru egunez. **Gotzon Garate**

**Pantera** zaurituaren bisaia. **Aingeru Epaltza**

Lehoia bezala oldartuko zaie gainera eta **panterak** bezala sarraskituko ditu. **Elizen arteko biblia**

Utzi lehoien eta **panteren** mendizuloak **Pantera** batena zirudien, bai, begien aurrean zuen itsasoaren narru nabarrak. **Elizen arteko biblia**

Bere zerraldoan **pantera** arrosa pintatu nahi du Mariak. **Unai Elorriaga**

**2** (erkaketetan)

Edurtxo Caterpillar **pantera** bat zen: piztita hau jakinarene gainean dago bere edertasunaz, baina badaki, era berean, bere itxura beldurgarria dela. **Karlos Linazasoro**

Karlos Otxotorena Leioako irakaslea omen zen, isila eta zuhurra, **pantera** beltz bat gau ilunean bezala. **Fernando Morillo**

Besuetik altxatu nintzen hala ere, haien atzetik **pantera** ilun eta lizun baten maneran herrestatzeko. **Itxaro Borda**

**Pantera** begibakar baten moduan egin du salto ilargi betezko gauak hiriaren gainera. **Berria - Kultura**

Horrez gain, Ivanovicek estimatzen duen jarrera erakutsi du, **pantera** ezizena merezimendu osoz lortuz. **Berria - Kirola**

**4** (beste izen baten eskuinean)

Berri txarrak ez dira eskas [...] hala nola Beloki Tourretik kanpo geratuko dela edo Marijo Perek andere-**panterak** lasterketari gisako bere karrera abandonatzen duela.

**Berria - Kultura**

**3 Pantera Beltz pl**

"This machine kills fascists" idatzita daukan Woodie Guthrie, Intifadaren gazteak, **Pantera** Beltzak... **Paddy Rekalde**

**Pantera** Beltzetako kide Mumia Abu Jamali duela 23 urte ezarri zioten zigorra. **Berria - Harian**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pantera beltzetako kide** (3)

**panterakume** iz panteraren kumea.

Eta **panterakumeak** eta lehoikumeak erpeka eta haginka defendatzen dira, kasik haginik eta erperik irten aurretik. **Xabier Amuriza**

**pantoqrator** iz Kristoren irudia, tronuan eseria, eskuineko eskua bedeinkatzen eta ezkerrekoa ebanjelioei eusten adierazia.

Hemen, Santiago elizaren txapelarrian dagoen ezin deskribituzko Kristo **Pantocrator** miresgarri honen eta Amiens hiriko katedraleko "Jainko ederra"-ren irudiek, artearen haraindiko oinarri goxo zerbait menturaz badaukate. **Piarres Aintziart**

**pantomima 1** iz hitzik gabeko antzezpena, mimika bidez antzezten dena.

Txaloka, orroka eta txistuka, abesti aberkoiak kantatuz eman genion amaiera **pantomimari**. **Anjel Lertxundi**

Beste pixka batez jarraitu zuten isilean, **pantomima** bateko aktoreak bezala. **Ander Irizar**

Baleteko **pantomimak** antzez-zama ere badakar dantzatik aparte, eta interpretazioaren beste eremu konplexua da. **Berria - Kultura**

Freddy Malinsek esan zuen *Gaiety*-ko **pantomimako** bigarren zatian buruzagi beltz bat agertzen zela abesten, eta inoiz entzun zuen tenore-ahots ederrenetarikoa bat zuela.

**Irene Aldasoro**

Komandante-ordearen erantzuna etorri da: konprenitzen duela **pantomiman** eskuartzeko gogorik ez edukitzea, tragedian parte hartzearekin aski dutela eta. **Hasier Etxebarria**

**2** (hitz elkartuetan)

Antzerkietan **pantomima** aktoreek hitzik gabe istorio osoak dantzaz eta pantomimaz kontatzen eta adierazten dizkigute. **Imanol Unzurrunzaga**

**pantomimatsu** *adlag* pantomimaz.

Dembak ingurura begiratu zuen, gudalburu batek bezala esparrua epaitu, kutxa ondoko mahai bat baztertu bere helburuentzat egokia ez zelako, zerbitzariak **pantomimatsu** eskuarekin keinu eginda eskainitako eserleku-ilara paregabeari uko egin hitzik esan gabe, eta izkina bateko mahaia aukeratu zuen azkenean, arroparentzako bi esekitokien artean. **Anton Garikano**

**pantufila** iz orpo gabeko txapina.

Oin hura botatxo batez jantzirik zuen eta bestea, berriz, **pantufila** batez. **Monika Etxebarria**

**pantumaca** iz tomatetan igurtziriko ogia, Katalunian ogitartekoak egiteko erabiltzen dena.

Taloa, sagardoa, olagarroa, riberoa, **pantumaca** eta cava dastatzeko aukera izango da, besteak beste, gune horietan. **Berria - Kultura**

Ordurako taloa, olagarroa eta **pantumaca** janak hasiak ziren hiru herrietako gune gastronomikoetan. **Berria - Kultura**

**pantza** iz tripa, gilborra.

Dena erraldoi dago haren baitan: aurpegia, egungo eguzkiak gorri-belztua; zango sagar xuri alimaleak; **pantza**; iratzargailu bat gaitza, etxeko ganbaran plantatu beharra eta ez bizkar zakuan garraiatzekoa! **Piarres Aintziart**

**pantzoil** *iz ipar* tripa, gilborra.

Galtzak herrestan edo **pantzoila** erraldoietan zinta trinkoaz finkatuak. **Itxaro Borda**

**panzer** *iz alemaniar* gudu orga. ik **tanke**<sup>1</sup>.

On Camillok patxadaz jasan zuen eta **panzer** bat lasto pila baten erditik bezala pasatu zen barre-algaren artetik. **Koldo Biguri**

Barraka inguruan jende pilo ikaragarria zegoen, baina On Camillo ez zen kezkatu. **panzer** bat bezalakoxea baitzen bidean jartzen zenean. **Koldo Biguri**

Boxeolariak ukabilak pronto jarri zituen eta Pepponek, **panzer** baten antzera oldartuz, muturreko bat jaurti zion. **Koldo Biguri**

**papagai** (*orobat papagaio*) **1** *iz* hegazti igokaria, behatz orztaileak, moko handi sendoa eta oso kakotua, eta kolore biziko lumak dituena, giza ahotsa antzertzeko gai dena (*Psittacula sp.*). ik **loro**.

Badira **papagai** arrak eta **papagai** emeak. **Jon Muñoz**

Leihoetan, berriz, hainbat lorontzi, **papagai** bat bere kaiolan zabuka -mokoaz uztai batetik zintzilik- eta bi zakurtxo eguzkitan etzanda. **Jose Morales**

**Papagaio** haiek uso arima zuten, zera! **Matías Múgica**

Haien kontsignak errepikatzen zituen, **papagaiak** iduri. **Elena Touyarou**

Salbuespenak frogatzen du araua ezjakinen ezpainenatik etengabe ateratzen den esaldi bat da, batzuk besteengandik hartu eta errepikatzen baitute **papagaioek** bezala.

**Xabier Olarra**

Itsas kapitain baten alaba zen, eta kapitain horrek opari ekarri zion Gnör Grassiadióri kolore guztietako **papagai** handi bat, Guyanetako jatorrikoa, zera esaten zuena, latinez: [...]. **Juan Garzia**

**2** (hitz elkartuetan)

Seda gorritzko paper pintatua ikusi zuen orduan, **papagaio**-buru zurbil doratuez apaindua. **Matías Mujika**

**Papagai**-oihuz botatzen zituen hitzak ere entzuten zizkion. **Julen Gabiria**

Lepoaren inguruan bufanda gorri eta berde-**papagai** bat ipinia zuen. **Lopez de Arana**

papagaio ik **papagai**.

**papagaitxo** *iz* papagaiaren antzeko hegazti txikia, berdea, Hego Ameriketakoa, oihu zoliak egiten dituena eta erraz bezatzen dena (*Melopsittacus undulatus*)

**Papagaitxoak** eta kanpotik ekartzen dizkigute. **Beria - Harian**

499 animalia berreskuratu zituen poliziak, artikulua zehazten zuenez: txorroak, ipurtxuntur gorriko **papagaitxoak**, Floridako dortokak. **Jon Muñoz**

papagorri ik **papogorri**.

papagorriño ik **papogorriño**.

**papaia** **1** *iz* *Carica papaya* zuhaitz tropikalaren fruitua, meloiaren forma eta tamaina, eta antzeko mamia dituena.

Pakana, **papaia**, ranbutana, salsifia, soja, tamarilloa, taroa, topinanburra, txaiotea, Txinako patata gozoa, txirimoia, zidra eta beste hamaikatxo ere. **Edorta Agirre**

**2** (hitz elkartuetan)

Etxeak eta eraikinak ez ziren, haatik, desmasiak pairatu zituzten bakarrak izan, azukre-kanabera, banana eta **papaia** labore gehienak hondatuta geratu baitziren. **Beria - Mundua**

**Papaia**-entsalada baldar ikuzia eta chile soberaz maneiatu zerriki puska ahoratu bitartean, Charlyk enpresari tiki gisa zituen ardurez erauntsi zidan, su niretako ezezagunean. **Aingeru Epaltza**

**papalermo** *iz*

Kalean goaz, **papalermo** moduan Ziprekoaren atzetik. **Edorta Jimenez**

**papamobile** (*orobat papamovil*) *iz* aita santua jendartearen eramateko ibilgailu blindatua.

Ondotik Aita Saindua Lurdera joan da bere "**papamobile**" famatu hartan, 12.30tan nunbeitan helduz otoitz guneetara. **Herria**

- **Papamovila**: kompetentziakoa. **Karlos Linazasoro**

papamovil ik **papamobile**.

**papao** *izond* tentela, memeloa.

Zaldizain **papao** horrek ase al zaitu? **Patxi Zubizarreta**

Seguruenik Tom **papao** horrek txizagura izan, eta denda ataritik bertatik egingo zuen, non ari zen begiratu barik. **Patxi Zubizarreta**

-Ostia, hemen **papaoenak** ere ikasten du -inbidiaz loiak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

**Papaoarena** gehiago ez egitea. **Urtzi Urrutikoeetxea**

- **Papao** urdezerria! -oihukatu zion bere onetik irtanda-. **Patxi Zubizarreta**



# papar 1 iz giza bularra goidaldea. ik papo<sup>1</sup>.

Anak kamiseta tirantedun zuri llaburra janzten zuen, behealdean xilko tiki xarmanta eta goidaldean udak beltzuriko **papar** eta beso luze finak bistara uzten zituen. **Aingeru Epaltza**

**Paparrean** dilindan zeraman kazetari-agiriari begiratu zion. **Alberto Ladron Arana**

Gizonak **paparrean** eskegita zituzten kutunei eutsi zieten, eta amaitutakoan musukatu egin zituzten. **Edorta Jimenez**

Joten gagozan bitartean, ez eizu zigarrorik isiotu -esaten neutsan-, **papar** guztia erre behar dozu eta. **Xabier Amuriza**

Lo zetzan, **paparra** agerian. **Edorta Jimenez**

Nelliek burua abokatuaren **papararen** gainean kokatu zuen poliki-poliki. **Lopez de Arana**

Bere **papar** gainean bermaturik zegoen emakumezko lokartuaren besoa poliki alboratu, eta ohetik jaiki zen azkenik. **Josetxo Azkona**

Gero, ukabilak estuturik, **paparra** atera eta drogerian sartu zen. **Lopez de Arana**

-Ondo antzean -esan zuen Joek **paparra** puztuta-. **Lopez de Arana**

Nire sexua igurzteari utzi eta, bere eskuak nire **paparrean** gora igoz, nire korbataren korapiloa askatzen hasi zen, alkandora botoiak askatzen, **paparretik** hatz-puntak leun pasatzen. **Juan Martin Elexpuru**

Bi pauso eman, **paparretik** heldu, eta errebolbera kokote azpian jarri zion. **Migel Angel Mintegi**

Pixa egiten ari da eskolako atearen ondoko elur pilaren gainean, gonak **paparreraino** jasoak. **Jokin Muñoz**

Ez dugu inolaz ere onartuko, PPrean aurrean **paparra** ateratzeko, Euskal Herriaren aurkako errepresioa areagotzea edo euskal presoak sufriaraztea. **Berria - Euskal Herria**

**Paparreko** hirukiak salatzen du oinarritzko guztia, eta gainean idatzitako "L" letrak bidenabar Letonia urrunetik datozela edo, zehatz esanda, Riga hiritik. ik paparreko 2. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 2 (izenondoekin)

Beste batean begietan eman zidaten **papar** puztu eta ibilera harroko gizon baten mahukako letrek; berehala ezagutu nuen: Auschwitzeko ofiziala zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hemen... -bere hazkozkorrez kolpetxo batzuk eman zituen bere **papar** zurrunaren gainean- zerbait sumatu diat, erretzen, itotzen nauen zerbait, hemen... **Lopez de Arana**

## 3 (emakumeen bularra adieraziz)

Bazuen erakargarritasunik **papar** oparoak agerian uzten zuen panoramikak. **Aingeru Epaltza**

Dantzaldia bukatu zutenean, Ellenen **paparra**, aldaka eta izterrak hurbiltzenago sumatu zituen. **Lopez de Arana**

Egundokoa zuan, **papar** izugarri haiek hire bular estuaren kontra oldarrean. **Karlos Zabala**

Bertan emakume lodi bat ere bazen, diadema bat buruan eta belu beltzezko zinta bat lepoaren inguruan zeuzkana; sudur luze bat; puru-koloreko aurpegi luze bat; **paparrak**; eskuak gorbata zuriak zuzentzen. **Lopez de Arana**

Barra atzean zeuden kartel zaharretara irristatzen zitzaizkien begiak, cow-boyen bortxa ederrera eta emakume haien **papar** gaiztoetara. **Josu Zabaleta**

Dutxara doala, begira ari natzazio: zango argalak ditu, eta ez ipurdi eta ez **papar**. **Eskarne Mujika**

Gizonak **paparra** bistaratu zion andereari eta nire aurrean ferekatzen hasi; nik guztia aztoratuta begiratzen nien, zeren eta, ni ordurako jaunarekin oheratzen banintzen ere, ez nuen uste andereak lorazainarekin gauza bera egiten zuenik. **Juan Martin Elexpuru**

## 4 (hegaztiena-eta) ik papo<sup>1</sup> 2.

Txantxangorriak **papar** gorria dauka. **Pako Aristi**

Mokoa luzatuz, gorputza kizkurtuz eta burua goratuz betiere bere **papar** gorri harrotua nabarmenki erakutsiz. **Patziku Perurena**

Soropilean, pagauso saldo bat zebilen, **paparra** kulunkan, eguzkitan. **Karlos Zabala**

Lantzean behin ezpainak igurtziz, hezurdura bistaratzen hasi zitzaion oilaskoari, hemengo izter eta hango **papar**. **Joxemari Urteaga**

Ettxera bidean harategian sartu zen, oilasko **paparrak** eta piper lata bat erostera. **Unai Iturriaga**

-Matxetea hegaluzearen **paparrean** bezala, halaxe sartu zen gure pala zentinelak makur haren buruan! **Koldo Izagirre**

## 5 (janzkietan)

Emakume guztiek hasperen egin, eta **paparreko** botoi bi askatu zituzten. **Felipe Juaristi**

Zetazko zapia lepoaren bueltan; urrezko orratza **paparrean**. **Anjel Lertxundi**

Zale batek harmailetatik salto egin eta erdiko epaileari **paparretik** oratu zion. **Berria - Kirola**

Berokiaren **paparretik** helduko banio eta esan "lagun iezadazu", [...]. **Monika Etxebarria**

Sakelatik gogoaren kontra atera, eta paltoko **paparrean** ipinirik, [...]. **Elena Touyarou**

Geogeren aurpegiak gora eta behera egiten zuen bere alkandoraren **papar** zuriaren gainetik. **Lopez de Arana**

Bere kutxaren giltza atorraren **paparrean** gordeta. **Edorta Jimenez**

Jakaren **paparrean** neraman Hitlerren irudi bat zen hori. **Anjel Lertxundi**

Gorputz guztia blai eginda zekarren, alkandora urdin argia ilun bihurtzen zitzaion **papar**, bizkar eta galtzarbeetan. **Joxemari Urteaga**

Zutiitu zirenek oso **papar** zabaleko soinekoa zuten, eta eserita geratu zenak jantzi beltz itxia zeraman. **Jose Morales**

Soingainekoaren **papar** irekiegian botoi bat falta zuela ere esango nion. **Xabier Olarra**

## 6 (bestelakoetan)

Sorterria, itsaso zabal eta ilunaren bazterrean, itsaso beti jazarleari **paparra** ematen zioten harrizarren magalean. **Joseba Sarrionandia**

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakume gazte bat zeukan gainean, kapela arrosa buruan, xala soinean lerraturik, izur txikiz egindako **papar** jantzi bat agerian uzten zuela. **Karlos Zabala**

Ibarretxe ikusten duzue ETBn, **papar** zurdak agerian? **Iñigo Aranbarri**

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Ez zuen gerruntze **papar** -zabalik soinean; eta lepoaren aurrealdean itsatsirik zeukan orratz handian irlandar ezaugarri bat ageri zen. **Irene Aldasoro**

Talde erdi biluzi, **papar** -zabal eta zalapartari horrek alde guztietatik inguratu zuen, eta jasanezina zen gorputzen, ingeles garagardo bortitzaren, izerdiaren eta xaboiaren kiratsa. **Jose Morales**

## 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barran [...] gorila- **papar** sendo batek puztutako jaka zuri bat jantzirik. **Lopez de Arana**

Nini ate markoaren kontra jarri zen, alkandora **paparra** askaturik eta eskuak galtzetako patrikan zituela. **Josu Zabaleta**

-Eskirrol zikina! -hots egin zuen Pepponek, alkandora- **paparretik** helduz eta astindua emanez-. **Koldo Biguri**

Gutun bat atera zuen gero ator- **paparretik**, eta Willemi eman zion. **Anjel Lertxundi**

Pepponek azkenik erantzi zuen gabardina, eta orduan ikusi zen 15-18ko gerran irabazitako zilarrezko domina zeramala jaka- **paparrean**. **Koldo Biguri**

## 10 **papar hegala** jaka eta kidekoetan, aurrealdeko goialdeetako bakoitza, kanporantz tolesten dena.

Abelek jakaren botoiak lotu eta **papar-hegalei** tira egin die. **Pello Lizarralde**

Gustura askatuko nituzkeen berokiko botoiak, baina birritan pentsatu dut: haize leunak **papar-hegala** irauli eta izar horia estal zezakeen, eta hori araz kontrako da. **Urtzi Urrutikoetxea**

Jakaren **papar-hegalak** lisatu zituen. **Lopez de Arana**

Nire aurrean geratu zen eta, abestia bukatu zuenean, bufanda gorria baztertu, jakaren **papar-hegalean** zeraman kabelin zuria oparitu eta nire ondoan eseri zen. **Jasone Osoro**

Jakaren **papar-hegalak** goratu eta besoak antxumatu ditu. Pello Lizarralde

**Papar-hegalak** altxatuta, arnasan lurrina zeriela trukatu zituzten lehendabiziko agurrak eta zigarroak. Ramon Saizarbitoria

Gizon lodikote bat, makila eskuan, feltrozko kapela buruan, plaka bat zamarraren ezkerreko **papar hegalean**. Karlos Zabala

Adatsa luzea zuen eta biribil moztua, longain higatuaren **papar hegalak** zeharo irekiak zeramatzan. Karlos Zabala

Argudioen berotasunean, **papar hegaletik** heldu zion Avigdorri eta *ergel* deitu zion. Koro Navarro

Arnasari eusten zion ezkila itxurako oihal baten kurba, besape gunea, gerrialde baten ebakera, papar baten irekidura biribila, **papar-hegal** baten lerroa, gona baten jauskera berriz ukitu, zuzendu edo atzera trazatzerakoan. Joxan Elozegi

## 11 *paparpean*

**Paparpean**, kamisetaren hanpadurak iradokitzen zituen malkarrak ere belzturik ote zituen galdegin nion, hamaikagarrenez, neure buruari. Aingeru Epaltza

## 12 *papar bistan* paparra agerian.

Halaber jakak eta alkandorak erantzeko esan ziguten, **papar** bistan joateko medikuarenera. Urtzi Urrutikoetxea

## 13 *paparreko orratz* ik *paparreko*.

**Paparreko orratz** batez edo beste edozein eratako hornidura lotsagarri estal dezake seinalea, eta lehen bezain lasai ibili kaleetan zehar. Anjel Lertxundi

Besokoek, **paparreko orratzek**, bitxi garestiek dir-dir egiten zuten beren kutxatilen belus beltzaren gainean. Karlos Zabala

Sekulako apaingarriak zeuden han, idunekoak, eskumuturreko eskergak, **paparreko orratz** erraldoiak, bitxi basatiak. Karlos Zabala

Ez zituen berekin ekarri, halere, ez lapis lazulizko **paparreko orratza**, ez olibinozko besokoa, ez eta topazio eta amatistadun eraztunak ere. Mirentxu Larrañaga

Emakume hark gerezi koloreko xal bat jantzita zeukan, **paparreko orratz** kobrezko batek bularren errekan finkaturik. Karlos Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jakaren **papar** (3); **papar gainean** (4); **papar hegalak** (8); **papar hegalean** (3)

**paparra agerian** (3)

**paparraren kontra** (3)

**paparrean behera** (5); **paparrean behera erortzen** (3); **paparrean eskegita** (6); **paparrean gora** (3); **paparrean jarri** (4); **paparrean zintzilik** (3)

**paparreko botoi** (4); **paparreko orratz** (6)

**alkandoraren paparrekoa** (3)

**eskua paparrera eraman** (3)

**paparretik heldu** (12); **paparretik heldu zion** (3); **paparretik oratu** (5); **paparretik zintzilik** (4)

## **paparazzi** *iz* berriemaile grafikoa, pertsona famadunen argazki nabarmenak ateratzen saiatzen dena.

Barkatu, baina ni ere **paparazzi** bat naiz. Bernardo Atxaga

Hasiera batean -"zure argazkilari ofiziala naiz"- arruntak, turistikoak, bisitaturiko tokiak [...] aintzat hartzen zituztenak; berehala, ordea, argazki pertsonalagoak, lehen planoan bilatzen zutenak, edota bera ustekabean harrapatzen zutenak -"barkatu, **paparazzi** bat naiz, nola edo hala irabazi beharra daukat eguneroko ogia"- Bernardo Atxaga

Argazkiak: "**paparazzi**-en lan txukunari esker" lortuak dira, antza, "begien atseginerako". Iñigo Aranbarri

Gogoratuko duk noski, duela hilabete batzuk Galesko Diana printzesa eta bere amorante zen Dodi Al Fayed Parisen nola hil hituen Pont de l'Alma zubian, beren Mercedes autoari motorrez jarraitzen zioten **paparazziengandik** ihesi, hain justu. Harkaitz Cano

Azala ere diseinatu zuen: Joana eta abeslaria **paparazziz** inguraturik elkarri musuka. Antton Olano

## **paparda** *iz* paparra.

Pilda suerte guztietarik, pildaire ere ez guti, mustatxdun, mutxurdin eta gaineratikoak, **papardak** hornitu krabata, txulufreia eta pitxi, tente potente, Jose Angel Irigaray

## **papardo** *iz* itsas arrain hezurduna, haragijalea, gorputza zapala, muturra oso motza eta larru antzeko azal lodi gris iluna dituen, jateko ona (*Brama brama*). ik **papalardo**.

-Putzu horretan bostehun mila **papardo** zabiltzak. Koldo Izagirre

Antxetak atzetik txilioka, zer esaten ote zuten bostehun mila **papardo**en gainean hega zoroan zebiltzan hamazazpi mila marrantatu haiek. Koldo Izagirre

## **papardun** *izond* paparra duena.

Ongi bilatuz gero ziur aurkituko genukeela, berarekin dagoeneko harremanik ez duten lehengusuen etxean, ezkontza batean bera irudikatzen duen argazki bat, lepoko gogorra eta alkandora **paparduna** jantzirik eta gizon gaztearen bibote trinkoarekin. Monika Etxebarria

## **paparo 1** *iz* hegaztien hestegorriaren zabalgunea malgua, non janariak gordetzen batitu biguntzeko.

**Paparoa** eta lumak kenduko dizkio eta aldarearen ekialdera botako, errautsen tokira. Elizen arteko biblia

Gero antzarari mokoia ireki eta pilota mokoan sartu zion, gero mokotik heldu zion sakelako labana bat irekitzen ariko balitz bezala eta behatzekin pilota **paparoraino** sartu zion. Fernando Rey

## 2 paparra, papoa.

Haren **paparoan** gurutzeta dilindatzen zen eta horrek salatzen Erromako Elizarekiko menekotasuna. Aingeru Epaltza

-Mezularia bart itzuli da Aroxelatik -eskua eraman zuen **paparoko** gurutzera. Aingeru Epaltza

## **paparralde** (*5 agerraldi, 5 liburutan; orobat papar alde 6 agerraldi, 3 liburutan*) **1** *iz* paparraren alde.

Gorputz borobila dute eta sama luzea, bizkarralde beltza eta **paparralde** zuria, arrantzari miresgarriok. Joseba Sarrionandia

Ellen aurrera zihon, irribarretsu, beltzez jantzitako bi gizon ilunenganantz: **paparralde** zuriak zituzten eta altxatu eta irribarre eginez, eskua luzatu zioten. Lopez de Arana

Gizaki bikoitzak gona zabal bat zeraman, emakume laborari errusiarren antzera, bular biribil xuri-xuriak ageri zitzaizkion **paparraldearen** gainetik eta bi beso bitxi sabeletik ateratzen, bi sexu zut balira bezala, behatzak triangulu itxurako zangoak zituen ahuntz trufariaren aldera zabaldurik. Joxan Elozegi

## 2 (janzkiena)

Nora ohean agondu zen, eta, soineko beltzaren **paparralde** erdi askaturik zeukala ikusita, estalkiaren ertz bat eraman zuen kokotseraino. Anjel Lertxundi

Tafetazko jantzi urdin ilun bat zuen soinean, **papar aldean** behera neurrian ebakia eta ukondo-angeluak biluzik uzten zizkion mahukak zituen. Mirentxu Larrañaga

-Soingaineko horrek irekiegia dik **papar-aldea**. Xabier Olarra

## paparreko 1 iz parrapean, jartzen den apaingarria. ik **papar 13**

Perlazko lepokoa zintzuraren edergarri, forma zehaztezinako **paparrekoa** ezkerreko bularralde apalduan eta harri handi borobila eskuin eskuko erietan nabarmen zitzaizkion, tamainagatik ere, portretako emakumeari. **Aingeru Epaltza**

Gerlari baten pitxia zen, ezbairik gabe, gutxienez zazpi azal zuzidun hildakoa zen **paparrekoaren** jabe izandakoa. **Hasier Etxeberria**

## 2 paparrean jartzen den adierazgarria.

Aitari amen egin eta **paparrekoa** kendu izan banu, inolako arazorik gabe joango nintzen zeppelinara ikustera lagunekin. **Anjel Lertxundi**

## 3 alkandora batzuen paparreko pieza.

Gero, ispiuaren aurrean alkandoraren **paparrekoa** jantzi, sudurzuloetatik ateratzen zitzaizkion bi iletxo kendu, eta, aitaren egin orduko, txilar koloreko frak izpildun baten barruan sarturik zegoen. **Jose Morales**

Elurra baino zuriago eta garbiago zeuzkan idunekoa eta **paparrekoa**, eta, bidaiara luzea egin bazuen ere, hauts-izpirik ere ez zeukan frakean. **Jose Morales**

Txukun jantzirik, alkandoraren **paparrekoa** almidoiz ondo gogoturik. **Jose Morales**

Azken orduko modaren araberrako **paparreko** tolesdunak tonu egokia ematen zion gorbatari. **Jose Morales**

## papartxo iz *adkor* paparra.

Esaten dutenez, txantxangorriak -urteberria den neurrian- bere aita erail zuen -urtezaharra, alegia-, eta horregatik omen du bere **papartxo** gorri-gorri. **Pello Zabala**

## papartza iz jardun hutsala.

Uda bete-betean gare eta udatar horiek nahi dute ahalaz baliatu fama pixka bat duten gune horien ikusteko, urte guziko **papartza** iturri izaiteko beren auzo eta jendakiekien.

**Herria**

## papel ik **paper**.

## papelatxo 1 iz koka dosi bat gordetzen duen paper poltsatxoa.

**Papelatxoa** atera zuen praka barrutatik. **Unai Iturriaga**

## 2 (hitz elkartuetan)

-Uste diat nik emandako koka **papelatxoa** apurtu egin zaiola hankartean, horixe uste diat nik! **Unai Iturriaga**

## papeleo 1 iz paperekin aritzea.

Zordun, hango idazkari Kate Caminorekin, **papeleoan** itzel lagundu zidalako, eta Gloria Totorikaguena irakaslearekin, proiektuarekiko fedeagatik eta aupadagatik. **Edorta Jimenez**

## 2 zerbaiterako behar diren paperak.

Cristinarekin betea dut curriculum eta eskaera ofizialaren **papeleoa**; bidaiaren azken egunetara iritsiak gara, eta ez dago erantzunik. **Pako Aristi**

## papelera iz paper fabrika.

Gure aita **papelera** hil zen lan istripu batean. **Joxe Azurmendi**

Angel Giménez zen **papelerako** eta herriko jauntxoa. **Joxe Azurmendi**

## papelero iz papergilea.

Nik adituak ditut askotan... masoi, judio, usurero, politikero, bankero, kontratista, dekoradore, demokratiko, **papelero**, txatarrero, katedratiko, injinero, diplomatiko, tekniko, moderadore, publizista, akomodadore, libetadore, hotelero, pionero... eta beste hitz asko. Txemiñe, **papeleroa**. **Patziku Perurena**

## papeleta iz txartela.

«Albiste berriei atea irekitzeko botopapera» izango da Bergarako Ekimenak proposaturikoa; «berri positibo gehiago etorriko baitira **papeleta** honen bidetik». **Berria - Euskal Herria**

## paper (*orobat **papel** g.er.*) 1 iz landare zuntzeko oreka hedatuz eta lehortuz egiten den gaia, orri mehe-mehen itxura ematen zaiona.

Buru dandaren atzealdeko ziri batetik zintzilaturiko **paper** hori-zurizko orri handien kontra jarri zuen. **Karlos Zabala**

Ni aberaskumea nintzen, **paper** murtzikatuaren itxurako aurpegia nuen eta Ritz-en bizi nintzen. **Lopez de Arana**

100.000 tona **paper** ekoiztu eta 25 milioi euroko inbertsioak egiteko aukera. **Berria - Ekonomia**

Enbalatzeko **papera** erosi eta mekano-apalak forratu ditut. **Harkaitz Cano**

Haren atzetik zeukaten joan beharra, **paper** latzean bildutako zorroak garraiatuz. **Anton Garikano**

*ik beheerago* 29. **Askoren artean**

Bilatzten ari zena aurkitu zuen, ohar gutzit konprometigarriak, **paper** grisezko zorro soil batek baizik babesten ez zituenak. **Karlos Zabala**

*ik beheerago* 33. **Askoren artean**

**Paperezko** haizagailuari eragin. **Harkaitz Cano**

**Paperezko** ezpain-zapia luzatu nion aho ingurutik cola arrastoak garbi zitzen. **Aingeru Epaltza**

Matxe **paperekin** edo ogi mamiarekin eginak izango zirela pentsatu nuen aurrena, baina ez, benetako burezurra ziren. **Jokin Urain**

## 2 irud/hed

Flandesko *De Tijd* egunkaria **paper** tradizionalen eskaini ohi duen produktua **paper** elektronikora egokitzen ari da. **Berria - Gaiak**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horrez gain, **paper** ore hezeza garraiatzea zaila zain garestia da. [Berria - Ekonomia](#)  
Zoazte paleen bila, azpian dakartzan **paper** -pasta fardoak hondarrea kenduko dizkiot. [Koldo Izagirre](#)  
Arrautzak, hirugiharra eta ogi xigortua hartu eta gosaltzeari lotu zitzaion; guztiak **paper** -zaporea zuen. [Lopez de Arana](#)  
Irrikatan nengoen erositako liburuak ukitu, haien **paper** - eta tinta-usaina sentitu, eta orriak banan-banan pasatzeko. [Anjel Lertxundi](#)  
**Paper** puska zuri bat erakutsi zuen, tolestua. [Aingeru Epaltza](#)  
Eta **paper** txatal bat eman dit zembakia apuntatzeko. [Joseba Sarrionandia](#)  
**Paper** txatal bat aurkituko duzu 32 eta 33 orrialdeen artean markatzen. [Joseba Sarrionandia](#)  
Itzalgazka sartu diote sudurrean husar bat -tabakoz beteriko **paper** -tututxo bat alegia-. [Jose Morales](#)  
Biradera bati eragin zionean, hainbat posiziotan marraztutako emakume biluzi baten irudiz osaturiko **paper** -xafila bat hasi zen aparatua jiran. [Anjel Lertxundi](#)  
Harrabots belikoak hasten zirenean **paper** bolak eta arroz aleak jaurtitzeko tutuluak ziren gure arma nagusiak. [Joseba Sarrionandia](#)  
**Paper** zerrendak ziren, non, hizki lodiz eta ertainez, hitz luze-luzeak idazten baitzitu, lerro osoa betez. [Karlos Zabala](#)  
Tinta beltz lodiarenean, **paper** -bala handiak, bileretarako zurezko mahai luzea. [Anjel Lertxundi](#)  
Pitxerrak, zeramikak, erloju eta kandelabroak, eta liburu eta, batez ere, **paper** -errollo pila handiak. [Jokin Urain](#)  
**Paper** kontsumitzaile itzelak dira liburuak. [Pello Zabala](#)  
- - **Paper** -eskolara mutil asko etortzen zen kanpotik, eta baina etxera joaten ziren larunbatetan, toalla hartuta. [Arantxa Iturbe](#)

#### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Periodiko **paperarekin** garbitzen genuen ipurdia. [Iñaki Segurola](#)  
Bi neskek egunkari-**paperrezko** txanoak eginak zituzten euren uda-kapelak estaltzearen. [Lopez de Arana](#)

#### 5 paperezko orria edo puska.

Fardeleko **papera** kentzean, ohi ez bezalako eskultura bat topatu nuen, aurrekoetatik oso desberdina zena. [Patxi Zubizarreta](#)  
Karameluari **papera** kentzeko. [Edorta Agirre](#)  
Pipatzeko bertze **paper** bat atera berria zuen paketetxo gorri batetik. [Aingeru Epaltza](#)  
Instrukzioak **paper** honetan idatzi dizkizut. [Joxemari Urteaga](#)  
Ekarri **papera** eta tinta. [Askoren artean](#)  
Infernuak ez ahal du nire kontrako mendekurik hartuko orain kontaktzen ari naizenaekin **paper** zuria belzteagatik. [Berria - Kultura](#)  
**Papera** bi aldeetatik idatzi beharko nuela esan zidan. [Joseba Sarrionandia](#)  
**Papera** eta idazluma hartu, eta zortzi galdera zorrotz idatzi zituen berehala. [Jose Morales](#)  
-Ez, idazteko **papera** besterik ez. [Koldo Izagirre](#)  
Komunetan ez duzu **paperik** aurkituko. ik komun<sup>1</sup> 7. [Gotzon Garate](#)  
Eta, horratx, bakarren batek asmatu: post-it **papera**. [Joxerra Garzia](#)

#### 6 (izenondoekin)

Azpian **paper** mehe batek far-far egiten zuen. [Lopez de Arana](#)  
Kronologiaren arabera txukun ordenaturiko administrazio **paper** arruntan artera lerratuak ziren oso aspaldiko **paper** arrotz batzuk. [Joxan Elozegi](#)  
Papera hartzeko esan zidan eta, **paper** zuria eskuetan hartu nuenean, [...]. [Joseba Sarrionandia](#)  
'Lagun izoztua,' dio Gorriak, biltzeko erabiltzen den **paper** marroia zabaldu. [Joseba Sarrionandia](#)  
Oso **paper** politean bilduta zetorren dena, pakete bakoitzean irudiak itsatsita. [Josu Zabaleta](#)  
Gero, fitxategi bat atera, gainbegiratu, eta **paper** itsasgarri bat eman zion Perretteri. [Jon Muñoz](#)  
Tinta eta kaligrafia dotore berez, azken letrak **paper** sekantze txukundurik. [Joseba Sarrionandia](#)  
Ohartu zen mahaiko **paper** lehorgarrian zerbait idatzita zegoela. [Lopez de Arana](#)  
Kolare hori leuneko **paper** pintatuak. [Karlos Zabala](#)  
**Paper** idatziaz errespetua izaten zaio. [Ramon Saizarbitoria](#)

#### 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pedriñoren mahai gainean zegoen **paper** -zulagailuak behin eta birritan erasotu ondoren. [Josu Landa](#)  
**Paper** piloan azpitik folio zuri bat atera zuen. [Joseba Sarrionandia](#)  
Gela berean, metro bete gora pilaturik, inprimaketarako neurritan ebakitako **paper** orri mordo bat ipini genuen, eskuragarri. [Txillardeggi](#)  
Emakume-bizikleta bat zen, auzotik pare bat kilometroa zegoen **paper** -lantegi batera lanera joateko amak garai batean erabilia. [Juan Kruz Igerabide](#)

#### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure hondakin-arteazalea goizero ekarri eta arratsero atzera bere kopia-**paper** mordoekin jasotzen zuen Land Roverraren zain geunden... [Joxe Austin Arrieta](#)  
Josebak eta biok ehun bat bider idatzi genuen Obabako neska politenen zerranda osaba Juanen makinan, aldiko hiru kopia eginez kalko-**paperari** esker. [Bernardo Atxaga](#)  
Argazki-**paper** guztiak irteera-berrikusaketa ongi gainditua zian noski. [Juan Garzia](#)  
Saltokiko neska arrosa gorrien zurtoinak aluminio-**paperaren** biltzen ari zen bitartean, Rosiek Jakeri zeharretik begiratu zion. [Lopez de Arana](#)  
Urratu beharreko eztainu-**paper** irristakorra. [Lopez de Arana](#)  
Azukre-**paperaren** kolorea, gizon eta emakumeentzako botoidura desberdina, gondolen brankaren forma. [Juan Garzia](#)  
Han-hemen aukeratutako hiruzpalau liburu hartu eta zatar-**paper** maiztu batean bildu zituen. [Anjel Lertxundi](#)

#### 9 paper idatzi edo inprimatua.

Idazten bukatu bezain laster eman diozu **papera**. [Rafa Egiguren](#)  
**Paper** hori erretzeko erregutu nion Goldschmidt jaunari, zoritxarren bat etortzeko bidea izan zitekeela-eta. [Josu Zabaleta](#)  
"Zer dira kartoizko kaxa horretan dauden **paperak** ? gutunak?", galdetu nuen. [Bernardo Atxaga](#)  
Baldin eta Melvilleren **paperak** aurkitu badaitezke, zergatik ez Hawthornerenak? [Oskar Arana](#)  
Kartzelara bidali ninduten grebarako **paperak** inprimatzeagatik. [Javi Cillero](#)  
Ingelesek hegazkinetatik **paperak** botako dituzte, ahal dela, ordubete lehenago. [Josu Zabaleta](#)  
Laneko **paper** batzuk antolatzen lagundu behar diot Kandidori. [Pedro Alberdi](#)  
**Paper** haiek eman zizkidan egunean bertan hil zen. [Aritz Gorrotxategi](#)  
Batzuetan, lotara joaten nintzenez, argazki eta **paper** zaharrak ateratzen zituen zigarro kutxa batetik, eta nire ohe ertzean eserita erakusten zizkidan. [Ramon Saizarbitoria](#)  
Hori guztia pentsatu zuen Andreasek bere **paper** harrez gero baliogabeak begi aurrean zituela. [Matías Mujika](#)  
Adak **paper** mekanografiatu bat atera zuen bere poltsatik. [Anjel Lertxundi](#)  
Erdaraz idatzitako **paper** multikopiatuak agertu ziren lurrean. [Joseba Sarrionandia](#)  
**Paperra** honela bururutzen zen: "Harrazue pazientzia, zenbait egunen buruan jinen gira". [Marzel Etxehandi](#)

#### 10 (dokumentu edo agiriren bati dagokiona)

-Hementxe, firma zazu! -esan zuen jaunak eta **paper** bat zabaldu zuen nire aurrean. [Matías Múgica](#)  
Ni ez naiz zomorria, inori **paper** eske ibiltzeko. [Aingeru Epaltza](#)

Etzeko **paper** eta agiritan begira hasi ziren nonbait, eta bat-batean deskubritu, familia-liburuaren arabera, amona haurdun zegoela ezkondu zirela. **Xabier Mendiguren** Elizegi

Bebaruan guardian zegoen miliziano-bikoteari **paperak** erakutsi, eta gora igotzeko esan ziguten. **Inazio Mujika Iraola**

Jakaren patrika haztatu zuen, pentsioa bideratzeko **paper** guztiak gordeak zeramatzala egiaztatu nahian. **Ramon Saizarbitoria**

**Paper** garrantzitsuak aztertu behar ditut. **Lopez de Arana**

Goio bakarrik bizi da, ia hamalau urte darama erberteratuta eta **paper** faltuekin. **Joseba Sarrionandia**

Txitxikovek **paper** zigiludun mordoak zeukan. **Jose Morales**

Bidean, aitak **paper** berriei begiratu zien: argazkia, izena, jaiotze-lekua. **Juan Kruz Igerabide**

Hala deituko diozu, Andoni, bataioko, etzeko, eskolako eta **paper** ofizial aspaldian galduetako bere izen zaharra. **Joseba Sarrionandia**

Ruilope horrek, dokumentuak aztertutik, pasea eman die; funtzionarioak legezko eta baliozko deritze **paperoi**. **Edorta Jimenez**

Orduan beste **paper** bat egongo da, beste ziurtagiri bat. **Lourdes Oñederra**

Hiru **paper** behar dira: nortasun ageria, lurraldetik ateratzeko baimena, eta ere E 111 papera. **Herria**

Mahai gainean dituen **paper** ugarien bestaldean eserita, militarrek gure pasaporteak errebisatu ditu. **Joseba Sarrionandia**

**Paperik** gabe, dokumentazioa eskatzen bazioten galdua zegoen. ik papergabe. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Turista agiriz sartu zen Estatu Batuetan eta haren baliotasuna bukatuz gero inolako **paperik** gabe bizi zen, Emigrazio Zerbitzuak eskua noiz botako zion beldurrez. **Iñaki Zabaleta**

Jean, **paperik** gabeko bere Vespan astean hirutan joaten zitzaiona bisitan. **Pablo Sastre**

Spainiak Gobernuak atzeritarrei euren egoera legeztatzeke ezohiko aukera eman zienean ireki zitzaion berari ere **paperak** egiteko aukera. **Berria - Harian**

Izebergaren punta pisu berriko **paperak** egiten hasi nintzenezan ikusi nuen. **Jon Alonso**

Ondo egin du Miliok, Suitzara joateko **paperak** egitea! **Josu Zabaleta**

- **Paperak** izango dituzue noski zuen nortasuna egiaztatzeke? **Karlos Zabala**

## 11 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Denetarik zegoen mahai gainean: letra txikiz estu-estu idatziriko orriak eta, haien gainean, arrautza-itxurako muturra zuen **paper**—pisu marmolezko bat, lizunak jadanik berdatua. **Jose Morales**

Mahai gainetik **paper** -zama modura erabiltzen zen burdinazko eraztun bat hartuta, [...] Ordulari txikiak, dominak, erretratuak, maskorrak, **paper** -gainekoak, haize-emaileak, xalak. **Koldo Biguri**

Tiradera atera, belaunen gainean jarri, eta hustu egin zuen ardura handiz. **paper** pilak zeuden zeudenean utzi nahi baitzituen, aztertu eta gero. **Karlos Zabala**

Parroki orritzat ere hartuko ez zuten **paper** multzo gaizki antolatuta hori. **Aingeru Epaltza**

Egon zintezkete ziur inoiz ez dudala gaur bezalako pozik izan nire paper guztiak **paper** saskira botatzeko! **Josu Zabaleta**

## 12 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nik ez nuen kontratu-**paperik** sinatu, eta berak ez zidan titulu-**paperik** eskatu. **Joxerra Garzia**

Tunikaz jantzitako beltz mardul batek esku-**paper** bat eman zion Léari. **Jon Muñoz**

Bi buru makurtu egin ziren gutun-**paper** zabalduen gainean. **Anton Garikano**

Berri-**paperetan**, berriz, honako izenburu hau irakurri dut: [...]. **Joxerra Garzia**

Bide-**papera** SS-etarik zaharrenari eman zitzaion. **Marzel Etxehandi**

Datu batzuk oker daude; geroztik zuzendu ditut, udal eta eliz **paperak** ikusi ondoan. **Patziku Perurena**

Kronologiaren arabera txukun ordenaturiko administrazio **paper** arruntan artera lerratuak ziren oso aspaldiko paper arrotz batzuk. **Joxan Elozegi**

Zinema **paperak**. **Askoren artean**

Roke, beretarrengandik alde, hauek ikasi ezineko lekuren batera biltzen zen gauerako; dei-**paper** askotan jarria baitzeukan haren burua Bartzelonako errege-ordezkoak, eta, estu eta larri beti, ez zen inorekin fidatzen. **Patxi Ezkiaga**

## 13 (bestelakoak)

Eulientzako **paper** zerrandak zeuden sukaldean zintzilik euli hil itsatsiz beteak. **Joseba Sarrionandia**

Handik gutxira zelo-**papera** eskatu zidan, puska bakoitza bere lekuan itsasteko. **Joan Mari Irigoien**

## 14 antzezlan edo film batean, pertsonaia baten parte. ikrol 5.

Neuk eman nien Britannicus antzezteko ideia; eta Junieren **papera** antzeztea nahi zuten. **Monika Etxebarria**

Sokratesen **papera** egin behar duen antzezlearengana itzuliz: [...]. **Josu Zabaleta**

Antzezle bat **paperarekin** asko identifikatzen denean bestearen nortasuna itsasten zaion modura, idazlea bere pertsonaia kuttunenarekin nahasten den erara. **Lourdes Oñederra**

Mesprezaturia izan berri denaren duin **papera** antzeztan ari zen Herio, edo benetakoa zuen destaina? **Anjel Lertxundi**

Kotzebue jaunaren drama bat antzeztan zuten, Popliovin jaunak Roll-en **papera** jokatzen zuen eta Ziablova andereñoak, berriz, Kora-rena. **Jose Morales**

Ez dut ikusten inola ere Rollebon jauna **paper** melodramatikoko horretan. **Monika Etxebarria**

Lajosek agertoki hartan antzeztan zuen, eta eszenarik garrantzitsuenetan beti jokatzen zuen **paper** nagusietako bat, aldeaz aurretik sekula ere buruz ikasi gabe testua.

**Ander Irizar**

Beste neskek, alegia, aktore izarrak, ez dik **paperik**. **Lopez de Arana**

## 15 irud/hed

Jota dagoenaren **papera** egin nahi duzu, ezertarako itxaropenik izango ez bazenu bezala. **Rafa Egiguren**

Mahai-inguru, hitzaldi eta antzekoek deprimiturik uzten naute, desio nukeena baino **paper** tristeagoa egiten baitut. **Ramon Saizarbitoria**

## 16 betekizuna. ik rol. (norbaitena)

In partibus civillium zeuden barbaroek saien **paper** zikina betetzera behartzen zuten beren burua, sarraskiaz edo gorpuetan ugari zebiltzan harrez elikatuz. **Iñaki Mendiguren**

Neurriak hartu zituzten administrazio inperialen libertoen **papera** mugatzeko. **Iñaki Mendiguren**

Txosten zarpail hura Kale Nagusiko bulegoan irakurri arte, ez bainekien nik [...] Don Eustasio donostiar famatuak zer **paper** zikin bete zuen Marotoren zerbitzutan.

**Txillardegi**

Poek **paper** erabakigarria jokatu zuen frantses literaturan: poesian ereduizko maisua izan zen, eta gidaria kritikan. **Koro Navarro**

## 17 (norbaitena hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Uste osoa zuen bere emakume **paperari** hobeto eusten ziola, iritzirik agertu ezean eta gizonak bezala berotu gabe. **Karlos Zabala**

Bere ama **paperak** ez du behar, bere "naturaltasun" horretan, izpiritu mugidarik. **Josu Zabaleta**

Gau hartan nire ondoan egon zena, emagin-**papera** inprobisatuz. **Joseba Urteaga**

Beste modu batez esanda: trama azken bururaino joan zedin beharrezkoa zen morroi-**papera** betetzen ari nintzen. **Jon Alonso**

Ni irakasle **paperean** joan nintzaion. **Joxean Agirre**

Horretan ere, iruditzen zitzaidan ez zuela cicerone **papera** oso gogotsu betetzen. **Ramon Saizarbitoria**

## 18 (zerbaitena)

Margolaritzaren **papera** literatura ilustratzera mugatzen zutelako. Hemendik dator oso ereduagarria ez den kristautasun modernoaren **paper** politikoa. **Ramon Saizarbitoria**



1990ean, Washingtonen abostasunaren bidez ezarri zen garapenari buruzko ekonomia politika: estatuaren **papera** merkatuaren **paperaren** mende izatea. **Iñaki Heras**

Sistema kapitalistan merkatuaren **papera** nagusia da, merkatua baita gizartearen oreka eta erregulaziorako mekanismo nagusia. **Iñaki Heras**

**Paper** nagusia egotzen zitzaion era askotako hainbat erreakziotan: proteinen polimerizazioa, hainbat egitura osatuz, [...]. **Juan Garzia**

Gure ezagumendua aurrera egiteko orduan gure hezkuntza sistemak eta haren ikerketa proiektuek **paper** berezia dute. **Pello Salaburu**

Izan ere formulazio batek gainerakoan artean zer kokapen, estatus, eta **paper** hartzen duen [...] horren arabera ezberdina izango da gainerako enuntziatuak subjektuaren kontzientzia agertzeko era. **Xabier Arregi**

Neurriz kanpo baloratzen zuen erakunde armatuaren **papera**. **Rafa Egiguren**

## 19 (zerbaitena jokatu aditzarekin)

Zehazki eraturako hizkuntz egituraren ereduak berebiziko **papera** joka dezakete, baikorra eta ezkorra, asmakuntza-prozesuan bertan. **Itziar Laka**

Ikastetxe honek **paper** historikoa jokatu zuen irauin zuen berrogeita hamabi urteetan. **Iñaki Mendiguren**

Mutazio batek berekin badakar garapenaren anomalia bat [...] seinale **paper** zehatz bat jokatzen duela mutazioak jotako geneak eraikuntzaren urrats batean. **Juan Garzia**

Ekonomiaren iraultza horretan Atenasek jokatu zuen **paper** erabakigarria. **Iñaki Mendiguren**

Nonahi, **paper** bera jokatzen dute geneok, antza: animaliaen aurre-atze ardatzean zehar zelulak zein non kokatuko diren zehaztea. **Juan Garzia**

## 20 (zerbaitena hitz elkartuetan)

Gure belaunaldiko gehienon amei, **paper**-aldaketa sortzen dien nahasmenduak gain, beste bi hausnarketa etortzen zaizkie. **Arantxa Iturbe**

· Burtzak finantza **paper** garrantzitsua betetzen du, enpresek hain beharrezkoa duten finantzazioa bideratzen baitu. **Iñaki Heras**

Akeoen eta transmisio-**paper** berbera jokatu zuten haien belaunaldiko beste barbaroen zerbitzua. **Iñaki Mendiguren**

## 21 bertso-paper ik bertso.

## 22 diru paper ik diru 25.

## 23 komuneko paper ik komun<sup>1</sup> 7.

## 24 paper denda (orobat paperdenda) papera, idazteko gauzak eta kidekoak saltzen den denda. ik papertegi.

Enparantzaren bestaldeko **paper-dendan**, hainbat koaderno erakutsi zioten. **Jon Muñoz**

**Paper-dendaren** batean sartu eta, postalen bat erosteko aitzakian, italiara praktikatu nuen dendariarekin. **Anjel Lertxundi**

Arratsalde batean Barchini zaharra iritsi zen apaiztxera, herriko **paperdendaren** jabea, alegia. **Koldo Biguri**

Amonak bilduak zituen liburuxka hartu nian, **paper denda** batera jaitsi ninduan eta osorik fotokopiatu nian. **Jon Muñoz**

Egindako lanaz harro, inprimatu eta **paper denda** bateko faxez igorriko zuen Alberdi jaunaren erredakziora. **Unai Iturriaga**

## 25 paper-ebakitzeko iz papera ebakitzeko tresna.

**Paper-ebakitzekoa** hartu, ageri-agerian baitzeukan lan-mahai gainean, eta gutun-azala ireki zuen Holmboek. **Jon Muñoz**

## 26 paper fabrika (13 agerraldi, 5 liburu eta 4 artikulutan; orobat paperfabrika g.er.)

Beste zenbait gauzaren artean, erreduktoreak egiten ditue, barkuetan, eolikoetan, zementu-, azukre-, **paper-fabrika**, laminazino, zentral hidrauliko eta holakoetan behar diranak. **Xabier Amuriza**

Lanuztea eginen dute gaur Alloko **paper fabrikari**. **Berria - Ekonomia**

Bilboko zigor arloko 3. epaitegiak lurretako **paper fabrikako** arduradunak zigortu ditu 1990 eta 1991n egindako isurketa toxikoengatik. **Berria - Euskal Herria**

Piltzar horrek ere badu bere balioa: gutxienez, **paper-fabrikari** erosiko dizute. **Jose Morales**

Jantzi berriak, trapu zaharrek in egin beharrean, **paper-fabriketan** sobratzen ziren mantekin egiteko. **Arantxa Iturbe**

1992an araztegia ipini zuen azkenik **paper fabrikak**. **Berria - Euskal Herria**

Desilusio usaina sartu zitzaigun, **paper fabrikek** zabaltzen zuren kiratsa baino ere minago. **Joxerra Garzia**

**Paper-fabriketako**, nekazaritzako eta araztegiatiko hondakinez baliaturik, biomasako energia ere nabarmen gehituko dela nabarmendu eta bioerregaien kasua gogora ekarri dute. **Berria - Ekonomia**

## 27 paper kontu (orobat papekontu g.er.)

El abogadillo esaten zioten, gainerako presoei instantzia eta **paper kontu** guztiak egiten laguntzen zielako. **Paper-kontuak** konpondu, behar liratekeen inprimaki eta dokumentuak sinatu. **Berria - Euskal Herria**

**Paper konturen** bat moldatu nahian Diputaziora joaten zenean atean zaindari aurkitzen zituen horietariko bat akaso? **Aingeru Epaltza**

-Ez, ez, atzerriko kotxeak ezin saldu **paper kontu** handiak egin gabe. **Joxemari Urteaga**

Baina, ordukoa ere, beste askotakoa bezala, **paperkontu** hutsa izan zen; bertan gelditu nahi zuten moroek, ez baitzuten inolako eragozpenik izandu, hemengo usuarioak betexe eta zergak ordaintze alde. **Patziku Perurena**

Nekazariarentzat **paper kontuak** besterik ez dira, bulegariarentzat izen eta zeregin zehatz asko direnak; eta alderantziz; bulegariarentzat berdailu edo naturaleza besterik ez dena, nekazariarentzat aleunka belar eta landare klase konkretu dira. **Patziku Perurena**

## 28 paper lantegi (14 agerraldi, liburu 1 eta 8 artikulutan) paper fabrika.

Emakume-bizikleta bat zen, auzotik pare bat kilometrora zegoen **paper-lantegi** batera lanera joateko amak garai batean erabilia. **Juan Kruz Igerabide**

**Paper lantegi** integrala sortzea zen erakundeek laguntzen zuten helburua. **Berria - Ekonomia**

Virtisu-Pastguren **paper lantegiko** ekoizpenaren zati bat Bartzelonara lekualdatzearen aurka, gaur arratsaldean manifestazioa egingo dute Bilbon. **Berria - Ekonomia**

Ehunka herritarrek batera, lau kilometro egin zituzten manifestazioan, Enkarterriko **paper lantegiaren** itxieraren aurka. **Berria - Ekonomia**

## 29 paper-latz paper sendoa, alde batean hondar edo beiraki pikor itsatsiak dituena, zura edo metalak leuntzeko erabiltzen dena. ik lixa.

New Orleanseko Cécileren iloba, esposatu eta handik etorri zen Hélèneren alaba, larru argia, **paper-latz** bustiaren kolorekoa. **Pablo Sastre**

Elgetatik ekartzen zizkieten altzarietarako apaingarri batzuk jaso, **paper latza** pasatu, preparatu, eta Olaizolaren tailerretako gertatzen zituen. **Iñigo Aranbarri**

· *irud/hed* Egileak berak hamaika bider pasa dio **paper latza**. **Iñigo Aranbarri**

## 30 paper mutur

Zerbait idatzi zuen **paper-mutur** batean. **Anjel Lertxundi**

Barruan bilduta zetorren **paper muturrean**, are horixkago eta zatarragoa, eskuz izkiriaturik, hauxe irakurri dut hitzez hitz: [...]. **Txillardegi**

Léak **paper-mutur** batean idatzi zuen formula, eta lauki batez inguratu, gero. **Jon Muñoz**

Liburu batean aurkituko zuen **paper mutur** hura, bi urteren buruan edo. **Imanol Zurutuza**

**Paper-mutur** erdi belztu bat atera nuen adreiluaren zirrikietutako batetik. **Anjel Lertxundi**

Biok ondo ezagutzen genuen arbola baten enborreko zokogune batean gorde nuen **paper-muturra**. **Anjel Lertxundi**

Zer zen orain dirua berarentzat! **Paper-mutur** pintatu batzuk, besterik ez. irakurri ahala oharrak zirriborratzeko **paper muturrak** balira bezala. **Anton Garikano**

· Balkoi zolan, ordea, **paper muturtxo** bat begiztatu zuen. **Gotzon Garate**

## 31 paper ola (4 agerraldi, 2 liburutan; orobat paperola) paper fabrika.

Soldadutzatik bueltan, **paper-olatik** Vasconiara pasatu nintzenez, bertan irabazitako lehenengo txanponekin eskusoinua erosi nuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Parrokiako koruan ere abestu nuen umetan, Don Klaudiorrekin, herriko **paper-olako** ofizinan hasi nintzenezan utzi behar izan nuen arte. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Korrokoien jauziek burbuilak sortzen zituzten **paperolako** kimikak gandututako uretan, amultsua zen haien pulunparen plautsa. **Koldo Izagirre**

**Paper-ola** kiratsa nabaritzen hasi zenean. **Unai Iturriaga**



### 32 *paper ontzi* ik *paperentzi*.

### 33 *paper orri* paperrezko orria.

Gin-tonicak, zumuak, **paper orri** bat eta boligrafoa mahai gainean zeuden. **Bernardo Atxaga**  
Kontua ordaindu, "Victoria maitea" eta tontakeria batzuk idatzita nituen **paper orriak** hautsi, eta metrorako bidea hartu nuen. **Ramon Saizarbitoria**  
Urdai saltzaileak **paper orri** lodi bat ipini zuen balantza batean. **Karlos Zabala**  
Kreazio guztia istripu itsua da, **paper orri** batean eroritako tintontzia eta tintak bere kabuz gutun bat idatzi duena, hitz bakoitza gezur bat, esaldiak kaosa. **Koro Navarro**  
Telebistan, horma kareztauen eta **paper orrien** zuritasun egoskor hori gabe, jende famatua, giro dotorea eta solas erakargarriak kausituko ditu. **Joseba Sarrionandia**  
Zigarro-**paper orri** bat zen, eta hau idatzia zuen Léak han: [...]. **Jon Muñoz**

### 34 *paper zorro* paperak eta kidekoak gordetzeko zorroa.

Larruzko **paper-zorro** bat hartu, eta itxura ofizialeko orri batzuk atera zituen handik, zigiluz josiak. **Jon Muñoz**  
Han zegoen, **paper-zorroa** besazpian zuela, barranean zer zuen sekula jakin ez genuen **paper-zorroa**. **Ander Irizar**  
Adibidez, ikasle bati egun batean **paper zorroa** txikituta agertzen zaio. **Berria - Euskal Herria**  
Aspalditik zauzkaat haien buru marraztuak **paper zorro** batean gorderik. **Karlos Zabala**  
**Paper-zorroan** sartu zuen txartela. **Jon Muñoz**  
Muranoko idazluma atera zuen **paper-zorrotik**. **Jon Muñoz**  
**Paper-zorro** bat atera zuen gizonak, egunkari-zatiak txukun-txukun bilduta zeuzkana. **Jon Muñoz**  
Eta erakusteko erabiltzen dudana [Hiztegi Entziklopedikoaren] alea **paper-zorrotik** atera, eta mahai gainean jarri nion. **Ramon Saizarbitoria**

### 35 *tipula-paper* oso paper fina eta arina, ikatz paperekin kopiak egiteko erabiltzen zena.

Silvio legelaria zen, baina filosofia-tratatu bat idazten ari zen **tipula-paperezko** orri nimitotan eta garraio- eta aduana-enpresa batean enplegatutik zegoen. **Juan Garzia**  
Ikuskizunak, hortaz, trinkotasuna zuen eskas, **tipula-papera** gaineratu dioten pintura-lan inpresionista batean bezala. **Aingeru Epaltza**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**bertso paper** (17); **diru paper** (8); **idatzitako paper** (7); **komuneko paper** (9); **nire paper** (8)  
**paper barik bizi** (5); **paper bat atera** (16); **paper bat eman** (5); **paper batean idatzi** (5); **paper batzuk atera** (6)  
**paper faltsu** (11); **paper faltsuak** (6); **paper faltsuekin** (6); **paper garrantzitsua** (22); **paper hutsa** (5)  
**paper lantegi** (7); **paper lodi** (7); **paper mordo** (10); **paper mordo bat** (6); **paper mordia** (9); **paper multzo** (8); **paper mutur** (38); **paper mutur bat** (8); **paper mutur batean** (13); **paper muturra** (7)  
**paper orri** (19); **paper orri bat** (5); **paper orriak** (5); **paper pila** (12); **paper puska** (42); **paper puska bat** (15); **paper pusketa** (8); **paper sorta** (16); **paper sorta bat** (5); **paper tolestu** (9); **paper tolestu bat** (6); **paper txiki** (5)  
**paper xafra** (5); **paper zahar** (36); **paper zaharrak** (17); **paper zaharretan** (12); **paper zati** (31); **paper zati bat** (15); **paper zatia** (11); **paper zimurtu** (5); **paper zorro** (8); **paper zorro bat** (5); **paper zorroa** (12); **paper zuri** (15); **paper zuria** (15); **paper zuria belzteagatik** (5); **paper zurian** (6); **paper zuriaren** (7)  
**diru papera** (7); **jokatzen duen papera** (8); **komuneko papera** (12); **luma eta papera** (6); **nire papera** (6)  
**papera antzeztan** (5); **papera atera** (13); **papera atera bear** (9); **papera bete** (7); **papera betetzen** (10); **papera bezain** (5)  
**papera egin** (14); **papera egiten** (19); **papera eman** (5); **papera eta lapitza** (5); **papera eta luma** (5); **papera eta tinta** (5); **papera hartu** (14)  
**papera irakurri** (7); **papera irakurtzen** (5); **papera jaso** (6); **papera jokatu** (12); **papera jokatzeko** (5); **papera jokatzan** (15); **papera jokatzan du** (5); **papera kendu** (13); **papera kentzen** (8)  
**bere paperak** (16); **beren paperak** (5); **bertso paperak** (22); **boto paperak** (7); **generalitatearen paperak** (6); **gure paperak** (7); **legezko paperak** (8); **nire paperak** (8)  
**paperak behar** (6); **paperak bete** (5); **paperak betetzen** (6); **paperak egin** (5); **paperak erakutsi** (10); **paperak erre** (5); **paperak eskatu** (9); **paperak eskuetan** (5); **paperak hartu** (12); **paperak ikusi** (5); **paperak lortzeko** (9)  
**paperean bildu** (7); **paperean bildutako** (5); **paperean jarri** (12); **paperean jartzeko** (5); **paperean jartzen** (7)  
**bertso paperen** (5); **paperen artean** (33); **paperen bila** (5)  
**bere paperetan** (7); **diru paperetan** (5); **paperetan agertzen** (5); **paperetan aurkitu** (5)  
**paperez bete** (5)  
**paperezko benda** (5); **paperezko estalkia** (5); **paperezko ezpain** (8); **paperezko orri** (5); **paperezko poltsa** (8); **paperezko zapi** (5); **paperezko zorro** (5)  
**paperik gabeko etorkinak** (6); **paperik gabeko etorkinen** (6); **paperik gabekoak** (7)

### paperdenda ik *paper* 24.

### paperdun *izond* paperak dituena.

Paperik gabeko etorkin guztien inbidiagarri izango ziren segurutik zeru hutsera begira jarritako milaka esku **paperdun** haiek: "hauek badituk norbait -egingo zuten beren artean-, eta norbait baino gehiago: guk paper xixtrin bat bera ere ez patrikan, eta hauek, patrikan ez ezik, bi eskuen artean beldurtzeko paper mordia, alajaina". **Iñaki Seguro**

### papereratu, paperera(tu), papereratzan du *ad* paperera eraman.

Makina bat aldiz saiatu zen bere oroitzenak **papereratzan**, alferrik baina. **Iban Zaldúa**  
Zoritxarrez, Napumoceno jaunak ez zuen izan ez gutun hori ez bidean pentsatu zituen gainerakoak **papereratzeko** modurik. **Bego Montorio**  
Kulturako erredaktoreak grabagailu bati eragiten zion aitzin eta gibel, elkarrizketa bat **papereratzan** ari. **Aingeru Epaltza**  
Bi aldeek oso positibotzat jo zuten ahoz hitzartutakoa **papereratu** izana. **Berria - Ekonomia**  
Egunkari hau nola egiten den erakusten du: kazetariak albisteak jasotzen duenetik, erredakzioan idatzi, inprentan **papereratu**, kioskora heldu eta irakurlearen eskuetara iristen denera. **Berria - Kultura**  
Objektua ikusi bezalaxe (sormenari lekurik eman gabe) geroago **papereratzeko** ahalmen ez-ohikoa. **Xabier Olarra**  
Objektua ikusi bezalaxe (sormenari lekurik eman gabe) geroago **papereratzeko** ahalmen ez-ohikoa. **Xabier Olarra**

### papereratze *iz* paperera eramatea.

Ahozkatasunetik gertu dagoen hizkuntza eta estiloa darabil maiz eta, hala istorioaren jatorriagatik nola kontaezagatik, ahoz transmititutako istorio baten **papereratzearen** traza hartzen zaio *Riomundo*-ri. **Berria - Kultura**

### papereria (*orobat paperreria g.er.*) *iz* paper sorta.

Herri gehienetan bada beti gizon argitu bat herriaren Historioaz arduratzen dena, **papereria** zaharra laket duena. **Michel Oronoz**  
Bestalde, banekien zernahiko **papereriak** bete behar zirela eta beraz ibilkoi ginela eskuin eta ezker, bulego horietan. **Daniel Landart**  
Egia esan, huraxe zen egiaz ulertzen nuen **papereria** bakarra. **Joxan Elozegi**

Egoitza berrien eraikitzeko, xaharren antolatzeke, partikularrek eraikuntzarako ukan ditzaketen maileguen **papereria**, horiek oro Pauetik pasatzen dira orain, ez Parisetik.

**Herria**

## **papereztatu**, paperezta, papereztatzen 1 du *ad* paretak eta kidekoak paper margotuz estali.

Andresak etxearen jabeari eskatu zion kalera ematen zuten hiru gelek in bat egiteko, eta eratzten zen lekua ez **papereztatzeke**, edozein kolorez margotzeko baizik. **Josu Zabaleta**

Aharrausika ingurura behatu zuen, higuina ezkutatu ezinik, horma berde ilunez **papereztatueta**. **Lopez de Arana**

Berdez **papereztatutako** taberna meharra jendez josita eta ahotsez borborka zegoen. **Lopez de Arana**

### 2 irud/hed

Orain dela urte batzuk nire logela neuk sortutako errima sortekin **papereztatu** nuen, eta handik zerbait geratuko zitzaidan, baina, nire ustez, praktika kontua da batez ere bertsolaritza. **Berria - Harian**

Jutezko ehunez **papereztaturiko** hormak, whiskya aperitiboan, musika klasikoa irratan. **Joseba Urteaga**

## **papereztatzaile** 1 *iz* papereztatzen duen pertsona.

Bai, **papereztatzaile** gisa lan egiten nuen ofiziale-artisau batekin. **Daniel Landart**

Beharrik, garai hartan, **papereztatzaile** gisa oren gehiago egiten nuela, tintatzen baino. **Daniel Landart**

### 2 (hitz elkartuetan)

Gustatzen baitzitzaidan ene **papereztatzaile** ofizioa. **Daniel Landart**

Ene **papereztatzaile** lana ongi egin. **Daniel Landart**

## **paperfabrika** ik **paper** 26.

## **papergabe** (*orobat **paper gabe***) *iz* dagoen lurraldean egoteko beharrezko paperak ez dituen etorkina edo kidekoa.

125 kanpotiar **papergabe** badituzte jadanik Europako lurretarik beren etxe alde despeituak, atzerritar horiek gero ta nekezago onartuak diren Europa huntako herrietarik.

**Herria**

Karan Diaby Ginear **paper gabea** auzitan pasa da Baionan, joan den ostegunean. **Herria**

Erran behar da G5 taldea egiten duten bost barneko ministroek bat egina zutela joan den uztailearen 5ean **papergabe** dohakabe horien aireko berezitan beren lurretarik kanporatzeko. **Herria**

## **papergabetu** *izond* paperik gabe gelditu dena.

Neofito **papergabetuak** oihu txiki batzuk bota zituen, baina, zorionez, gehienek isiltzeko eskatu zioten "ssshhhhh" luze batez. **Jon Alonso**

## **papergabezia** *iz* paperik eza.

Zikinkeria garbitasun bilakatzea eta **paper gabezia** paperen presentzia bihurtzea zen kontua. **Joxan Elozegi**

## **papergile** *iz* papera egiten duen pertsona edo enpresa. ik **paperero**.

Dantzariak, estanpatzaileak, **papergileak**, eskalatzailak... osatuko dute lantaldea. **Berria - Kultura**

**Papergilerik** hurbilenak Bordelen ziren. **Aingeru Epaltza**

QMC inbertsio funtsak Unipapel (%1,75) **papergilearen** %2,73 erosi berri dio orain enpresa horretako Garcia Ortega kontseilariari. **Berria - Ekonomia**

Europac (%2,09) **papergileak** 64 milioi euroko kreditua jaso du banku talde baten aldetik. **Berria - Ekonomia**

## **papergintza** 1 *iz* papera egitea, paper industria.

Isurtzeko eskubideen beharra hasiera batean zazpi sektoretan ezarriko dira: zementua, petrolio findegiak, siderurgia, beiragintza, zeramikagintza, **papergintza** eta energia.

**Berria - Ekonomia**

Produktu horietan gomendatzen dizkizuegu, konfiantza osoz gomendatu ere, gure bezero zaretan guztioi; horra hor abiaburu berri eta paregabe bat **papergintzaren** arloan...

**Lopez de Arana**

Enkarterriak ezagutzen duenak badaki zer nolako garrantzia duen **papergintzak** eskualde honetako etorkizunerako. **Berria - Ekonomia**

**Papergintzako** taldeak 184,27 milioiko isuna jaso zuen 2001ean. **Berria - Ekonomia**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken hamarkadetan Enkarterrien motorra izan den «**papergintza** industriaren amaiera ekarriko» luke. **Berria - Ekonomia**

Aurtengoan hainbat arlotako enpresak ikertuko dituzte: 30 arlo kimikoan; 27 hondakin kudeaketan; 48 galdategi; eta **papergintza** arloko 24. **Berria - Euskal Herria**

**Papergintza** enpresak indigenak bizi diren lurretako urak zikindu dituela salatu dute. **Berria - Gaiak**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zeramika eta papergintza** (3)

## **paperjale** *izond/iz adkor* asko irakurtzen duena.

"**Paperjale**" uste dut esaten zitzaieela lehen, egun osoa irakurtzen ematen dutenei. **Joxerra Garzia**

Eta horma artean, badakizue, denok egiten gara **paperjale**, arrasto niñiñoen igarle, hodeien mugimenduen itzultzaile, denok egiten gara irakurle amorratuak paretaren kontra. **Koldo Izagirre**

Letren oturuntzaren ondoren, **paperjaleak** ere biziko bada beste zer edo zer behar duela-eta, afaltzera eraman gintuzten. **Berria - Kultura**

**Paperjaleok** ere badugu noizbehinka gutziaren bat dastatu eta gogo-sabaia goxatzeko eskubiderik. **Joxerra Garzia**

## paperkeria *(orobat paperkeri)* iz zerbait bideratzeko behar den paper sorta, gaitzesgarritzat hartua. ik **burokrazia**.

Duela oraino berrogei ta zenbait urte mugatik iragaiteko behar zen **paperkeria** frango. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Paperkeria** biderkatzea leporatzen diozu erreformari. **Berria - Harian**

Eta azken honen hunkitzeko edo kobratzeko, zer **paperkeri** lotsagarriak! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## paperketa iz paper piloia.

Lanak ematen zizkigun esaldiak txukun antzera josteak, gerra ez zela amaitsu, eta zazpigarren kalkoraino bakarrik irakur zitekeen, bazter utzi genuen **paperketarena**.

**Koldo Izagirre**

## paperki iz paper zatia.

**Paperkia** ezkererantz moztu beharrean eskuinerantz mozten bazuen bere bizitzak norabide bat edo beste har zezakeela. **Harkaitz Cano**

## paperkontu ik **paper 27**.

## papermutur ik **paper 30**.

## paperño iz papertxoia.

Egun hortako mozkinak nun baliatuko diren gure etxetan ukana dugu **paperño** bat. **Herria**

Alderdi bereko batzuek baiaren alde zabalitzen dituzte **paperño** batzu segurtatuz egina zaukun eskaintza ez dela eskualde hortarik batera txarra. **Herria**

Presoek **paperño** haren gibelean ixkiriatzen zuten erantzuna. **Eneko Bidegain**

Etxetan gehienek ukana dugun diska behar da ezarri autoaren aintzin partean edo bederen **paperño** bat autoaren pausa tenorearekin. **Herria**

## paperola ik **paper 31**.

## paperontzi *(orobat paper ontzi g.er.)* iz paperak botatzeko ontzia.

Hautsontzia duten mila **paperontzi** ipiniko dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Hautsontzirik ez inguruan, nire zangoen parean zegoen **paperontzi** metalezkoaren ertzen kontra muturgabetu nuen zigarroa, barnera bota aitzin. **Aingeru Epaltza**

Tinta-ontziak hartu eta gela osoa zipriztindu zuten, liburuak eta paperak birrindu, horma-irudiak urratu, **paper-ontziak** irauli, poltsak eta liburuak hartu eta gero leiho apurtuetatik behera bota. **Iñaki Mendiguren**

Aspaldiko partez buru belarri aritu zen idazmahai gainean pilaturiko paperak eta txostenak biltzen, sailkatzen eta asko **paperontzira** botatzen. **Migel Angel Mintegi**

-Boleto zahar baten modura bota naute **paperontzira**, ez al da egia? -esan zuen Ruthek bortizki. **Lopez de Arana**

Egunkari bat ere hartu zuen **paperontzi** batetik, ez irakurtzeko, baizik eta bere burua estaltzeko. **Matías Mujika**

Zortetik izan ez duten beste paperekin batera, zaldi karreretako izenekin nahasian joango dira **paperontzira** bere analisisiko emaitzak ere. **Harkaitz Cano**

Atentatua eta bi egunetara bideo bat aurkitu zuten **paperontzi** batean, meskita baten ondoan. **Berria - Harian**

Hiru kontainer eta bederati **paperontziri** sua eman. **Jon Arretxe**

Gizon gazte batek, irribarre zabala expainetan, beraren buruaren gainean **paperontzi** itzulikatu bati eusten dio. **Oskar Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**paperontzira bota** (3)

## papertegi 1 iz paper denda. ik **paper 24**.

Familian **papertegia** zeukan Aristegi izeneko ikaskide batek ekarri zigun papera, merke antzean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Okindegi, harategi eta arraindegi kokorrek bisitatzen ditut; baita prentsa saltzen duen **papertegia** ere. **Txillardegi**

Familiari emandako azken kreditu aukerez baliatuta, liburu-denda bat ireki zuen hirian eta, hasierako asmo handinahien ondotik, apalki bizitzera mugatu zen eskola liburuak eta **papertegiko** gaiak salduz. **Ander Irizar**

## 2 papera, idazteko gauzak eta kidekoak.

Liburuak, musika, DVDak, prentsa eta **papertegia** eskainiko dituela jakinarazi du Elkarrek, eta zerbitzua hobetzen saiatuko dela, «bailararen kultur bizitzaren alde azpiegiturak jarri **Berria - Kultura**

## papertxo iz tamaina txikiko papera.

"Elurra malo-malo ari du", zioen **papertxoak**. **Bernardo Atxaga**

Esadazu, Iñaki, zein da zure izena, idatz izadazu **papertxo** batean. **Koldo Izagirre**

Helbidea **papertxoan** idatzita eman diot taxistari. **Joseba Sarrionandia**

Bakoitzak **papertxo** batean, bestearengandik desio baina eskatzeko gai ez ginena idatzi behar genuen. **Ramon Saizarbitoria**

**Papertxoak** igortzen dizkie, gizalegez baina irmo, zorra kita dezaten. **Aingeru Epaltza**

Emmak sakelatik **papertxo** bat atera zuen. **Daniel Landart**

Testu haien antzekoak sortzen nituen, mila erataria, eta eskolako koadernoak bertsoz beterik neuzkan, eta neure logelako gau-mahaia ere **papertxo** goraino. **Juan Kruz Igerabide**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**papertxo bat atera** (5); **papertxo bat luzatu** (3); **papertxo batean** (20)

## papertza *iz adkor* tamaina handiko paper zatia.

Ohituta zegoen ederki halako **papertzarretara**. **Hasier Etxeberria**

## paperzale *iz adkor* irakurzalea.

**Paperzale** hutsak gara, etxea liburuz beteta daukagu. **Berría - Gaiak**

## papiamento *iz* nederlandar Antilletako kreolera.

Aholkulariak eta horiek, txurien gauza dira: haiek bai, ba omen dute beren herrian **papiamento** bat ere! ("parlamentoaren" ordez, kreolerazko papiaretik, "solastatu"). **Pablo Sastre**

## papiar *izond* Papiniano jurista erromatarrek II. mende inguruan emandako legeei dagokiena.

Augustok, Lege **Papiarraren** bidez, amen pribilegio berbera eman zien. **Iñaki Iñurrieta**

Tiberioko areagotu egin zuen Lege **Papiarraren** gogortasuna .321, eta debekatu egin zion hirurogei urteko gizon bati berrogeita hamar urte baino gutxiagoko emakume batekin ezkontzea. **Iñaki Iñurrieta**

Justinianok baliozko deklaratu zituen Lege **Papiarrek** debekatutako ezkontza guztiak. **Iñaki Iñurrieta**

Konstantinok betegintzarre kristauaren xedez egin zituen legeak, batez ere, Lege **Papiarren** zigorrak kendu zituztenak izan ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Ulpianoren *Zatiak*-en tituluak oso ondo bereizten ditu Lege Juliarra eta **Papiarra**. **Iñaki Iñurrieta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lege papiarrak (7)

lege papiarraren (6)

## papila<sup>1</sup> *1* *iz* epidermisan eta muki ehunetan eratzten den goragune konikoa.

Somelier batek bezala, mingainaren **papila** bakoitzarekin sentitzen du, eta plazeraren irudia da. **Alberto Barandiaren**

Haurtzaroan, mihiaren erdialdea eta masaila barruak ere ondo horniturik egoten dira **papilaz**, baina **papila** horiek desagertu egiten dira nerabezaroan. **Irene Aldasoro**

Oraindik geratu behar zaizu material apurtxo bat, bestelako garratzasuna daukan bestelako zaporea, zure pituitario eta **papilak** lotarazteko balioko dizuna. **Sonia Gonzalez**

### 2 *dastamen papila*

Asko dira dastamen-**papilak**: 9.000 inguru gizakietan, mingainean gehienak, nahiz eta ahosabai bigunean eta ezterrian ere badiren batzuk. **Irene Aldasoro**

Larruzalaren oso barruan garatzen da dastamen-zelula, eta gero dastamen-**papilan** sartzen da; han, nerbioamaiera bati lotzen zaio. **Irene Aldasoro**

Dastamen-**papila** bakoitzak zelula hartzaile batzuk ditu, eta zelula bakoitzaren mutur batetik iletxo bat irteten da ahora. **Irene Aldasoro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dastamen papila (3)

dastamen papilak (6)

## papila<sup>2</sup> *iz* ahia.

Bai produktu elaboratuak ere -pastak, opilak, hestekiak, pateak, **papilak**, esnekiak, plater moldatuak-. **Edorta Agirre**

## papilloma ik papiloma.

## papiloma (*orobat papilloma*) *iz* epidermisiko edo muki ehunetako papilen hipertrofia patologikoa.

HPV giza **papillomaren** birusak eragiten ditu egun utero-lepoko minbizi kasuen %99. Bestalde, Aritz Laskurainek gehiago itxaron beharko du, Soraluzeko atzelariari abuztuaren 12an kendu baitzioten eskuko **papiloma**. **Berría - Gaiak**

## papilote *iz* paper gurineztatua.

Arroketako barbarinak, **papillote** eran prestatuak **Jon Muñoz**

## papiro <sup>1</sup> *iz* Nilo aldeko landarea, hosto luzeak eta estuak eta bizpahiru metroko zurtoin leuna eta soila dituen(*Cyperus papyrus*).

Maiz eta ugari hazten da **papiroa** Deltako zingiretan, Alexandriatik gertu-gertuan. **Jon Muñoz**

-Hau duk Europako leku bakarra **papiro** basak oraindik hazten direna. **Jon Muñoz**

Mutiko bat bahitzen duk, eta **papiro**-zurtoin bat hartzea debekatzen didak, legeak debekatzen duela eta. **Jon Muñoz**

### 2 landare horren zurtoinetik ateratzen den xfla, antzinakoek idazteko erabiltzen zutena.

**Papiroa** ezin da tolestu. **Jon Muñoz**

Jatorrizkoak izan zein kopiak izan, **papiroa** behar da idazlanak egiteko. **Jon Muñoz**

**Papiroan** eta pergaminotan aurkitzen duten edozein arrasto begiramenik eta zehaztasunik handienaz kopiatzen dute. **Xabier Olarra**

Han zebiltzan lihozko beren tunika meheetan uzkur, **papiroz** eginiko oinetakoz. **Juan Garzia**

### 3 papiro idatzia.

Idazlanak -**papiroak** edo larrutxak- nonahitik zetozen: Bizantziotik zein Alexandriatik, Pergamotik zein Sirakusatik, Antiokiatik zein Jerusalemdik. **Jon Muñoz**

Ahmès-en arabera, **papiro** zaharrago batean oinarritua dago testu hori, eta Ammenemes III.a, XII. dinastiako seigarren erregearen erregealdian idatzi zen **papiroa**. **Jon Muñoz**

Eta arrazoimena aienatzeaz bat-batera, **papiroko** hitz greko guztiak ahantzi zituen. **Juan Garzia**

#### 4 (hitz elkartuetan)

**Papiro** -orriak bata besteari itsatsi, eta makila baten inguruan biribilkatu eta zerrenda bat osatzu eratua zen "bolumen" bakoitza. [Jon Muñoz](#)

Bost metro luze ditu; 14 **papiro** -hostoz egina dago bilkaria, eta era askotako hamarka problema adierazten ditu. [Jon Muñoz](#)

Baina ez zuen hartu Heraklitok bere neurtitzak irarriak zitueneko **papiro** -bilkaria besterik. [Juan Garzia](#)

Horregatik izan zen Egipto **papiro** -hornitzaile bakarra greziar mundu osoan. [Jon Muñoz](#)

#### 5 adkor billetea.

-Aspaldi esan nahi nian... nik zoro itxura egin behar izaten diat jaulierren aurrean, **papiro** batzuk bilatzen dituen artistarenaøø. [Koldo Izagirre](#)

### papirus iz papiro idatzia.

Idaztea, *Phedre*-n erakutsi nuen bezala, ahitzera ez uzteko oroitzapenen **papirusetan** pausatzea baizik ez da, ez fikziozko munduen kreetzea, kreetzea jainkoen zeregina baita eta idazleek baino mila aldiz hobe egiten baitute hori. [Itxaro Borda](#)

### papista izond/iz higanotentzat, katolikoa.

Haiendako alabaina "zerri higanotak" edo "deabru heretikoak" ginen gu; "ostia-milikatzaileak" edo "suge **papistak**", berri, haiek guretako. [Aingeru Epaltza](#)

Gero eta garbiago zegoen errege **papisten** ito-nahi zitalari fede berriaren jarraitzaileen bizi-nahi ohoragarria bihurtuko zitzaiola. [Aingeru Epaltza](#)

Hilabeteak eginak zituen ahaide **papista** batzuen etxeko behitegian. ardi errebelatuak Satanen atzapar **papistei** kentzen. [Aingeru Epaltza](#)

Erresumatik kanpora baina tartean, **papisten** habia eta gotorlekua zen Zuberoa. Zurrumurruen arabera arnegari bat zen, adulterioigile, **papista**, herrinahasle eta harroputza. [Aingeru Epaltza](#)

Halako batek zioen Atturiren ertzetan guduketa latza izana zela **papista** traidoreen eta erreformazale fidelen artean... [Aingeru Epaltza](#)

**Papista** superstizioz bat banintz, erranen nukeen mirakuluz atxiki nuela neure burua animaliarene gainean arma aldi berean galdu gabe. [Aingeru Epaltza](#)

### papo<sup>1</sup> iz paparra, bularraren goialdea; bularra.

**Papoa** behera, titi buruak zipriztinduz, isuri zuria ketan hedatzen sumatu zuenean, Txokok nagusiaren aterpe sekretutik ihes egin zuen. [Itxaro Borda](#)

Behatzak gorri saminez tindatuak, **papoa** frango zabalik, galtza koloretsu batzuk gerrian tinki-tinki ezarriak. [Janbattitt Dirassar](#)

La Sarrietteren fularra askatu zen guztiz; **papoa** agerian zuen, bizia eta maitagarria, ahoa heze, sudur zuloak arrosa. [Karlos Zabala](#)

Soa emaztearen **papoa** iltzatua zebilkidan baina nigan, herioaren hurbilak desira oro ezabatzen zuen. [Itxaro Borda](#)

Gehienak erdi biluziak, ixterrak eta **papoa** dena ageritan. [Janbattitt Dirassar](#)

Ene baitan egin nuen, neska hori, burua gora eta **papoa** harro, ez zela trufa eta espantu baizik! [Janbattitt Dirassar](#)

Lehenik burua ongi busti nuen, gero hiruzpalau aldiz itzulikatu nintzen ur irakituaren azpian, bizkarra, **papoa**, hots gorputzaren xoko-moko guztiak behar bezala zipatuz. [Daniel Landart](#)

**Papoa** hanpaturik eskatu nion tabakoa Txatori. [Koldo Izagirre](#)

Zeldara sartu nintzenean, bihotza alegera nuen, punpaka ari ene **papoa**. [Filipe Bidart](#)

Adineko zenbait ikusi ditut medaila **papoa**. [Piarres Aintziart](#)

Euskara dakiten erizain eta medikuek **papoa** dakarte hitzño hau: "Nerekin euskaraz mintza zaitezke". [Herria](#)

Adinean hara joandako Louiseren anaia, besoak **papoa** gurutze, ezkaratzeko bortan azaldu zen. [Itxaro Borda](#)

Alderdietako buruzagien erdian, auzapezek xingola trikolorea zeramaten **papoa** zehar. [Itxaro Borda](#)

Behin lamin bat joan zen Kiteriainera eta galdu zuen **papoko** orratza. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

### 2 (hegaztietan-eta) ik papar 4.

Txantxangorrien irudi-arburadunak ukatu egin du, guztiz ukatu ere, txantxangorriek **papoa** daramaten odol arrastoak txepetxan hilketekin zerikusirik duelakoa. [Joxerra Garzia](#)

Sator kolorezko hogeita hiru uso xumeek burua **papo** eta hegalarren beroan gordea dute. [Aurelia Arkotxa](#)

Zimenduzko teilatu grisean arra, **papoa** hanpatuz, emearen inguruan urrumaka badabila. [Aurelia Arkotxa](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Kaian, emazte larri, **papo** -handi batzuk arrain-saltzale zeuden, dena oihu eta irri, solasa nasai bezain gizen! ahate beltz **papo** argiak zirristaka ur gaintetik. [Janbattitt Dirassar](#)

Hasiera batean uso emeei segika dabilzkien uso ar **papo** puztuez oroitu nintzen. [Patxi Zubizarreta](#)

### 4 paparoa.

Kamar Al-Saman, izularriturik, txoriaren gorpuzkietara inguratu, eta haren **papo** barnean zerbaiten dirdai berezia ikusi zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

**Papoa** labanaz zabaldu dio eta, han zer topatuko, eta Budurren kateorrazeko harribitxi gorria! [Patxi Zubizarreta](#)

### 5 masaila.

Gure galdera eta adar-jotze lotsagabeekin haserretzen genuenean, begizta estutzen zuen urduri, eta aurpegi berez zuri hartan, **papoek** anpolaik ematen zuten. [Anjel Lertxundi](#)

Negarrez hasteko zorian zegoela ematen zuen, **papoak** gorri-gorri zeuzkan. [Anjel Lertxundi](#)

### papo<sup>2</sup> interj haur aski, bukata da.

Botoi bat eman eta **papo** ! [Patziku Perurena](#)

Zer egin? Debekatu, eta kito: **papo** prostituzioa, nomadismoa eta pobrezia. [Joxerra Garzia](#)

### papoalde (orobat papo alde) iz paparraldea. ik papondo.

Izebak umea troxetan ekarri zion buhameari eta, **papo alde** azalduz, bi bularren erdian pausatu. [Itxaro Borda](#)

Eta azpiak, eta ixterrak, eta **papoalde** hau, ilerik gabe. [Itxaro Borda](#)

### papogabe izond paporik gabea.

Gaurko menderako kanonekiko gorpuzkera ingrata zeukala ager genezake: txikia, lodikotea, **papogabea**, beltzarana, erdi-mutiko. [Itxaro Borda](#)

## papogorri (orobat **papagorri**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **papogorri** azaltzen da) iz txantxangorria.

Eskuinean Loiolako ibarra, **papogorritz** betea, non Urumeak, altzairu koloreko ibai politak, ferra erraldoi bat marrazten duen. Koldo Izagirre

Eta, hain zuzen, bertakoekin horren haserre eta zipotz portatzen den **papogorria** da, kanpotik etorritako kuku gaizkile harro alferrari ostatu ematen dion hegazti bakarretakoa.

Patziku Perurena

Txantxangorriaren negar engaingarri hori, ongi baino hobeki salatuz, **papagorri** deitu izan baitie euskaldunek frantses sozialistei. Patziku Perurena

## papogorriño (corpusean **papagorriño** soilik) iz adkor papogorria.

Gure euskaltasun guziak salbatuko zituela uste genuen Euskal Telebista zorionekoa ere, hasiera hartan behintzat, **papagorriño** batek sinbolizatu zigun, eta hortik atera kontuak, noraino sartua daukagun kristo odoletan gurutziltzatuaren ordeko txantxangorri maitagarriaren irudi salbatzailea. Patziku Perurena

## papondo iz papoaldea.

Erantzuna igurikatu gabe, gizonaren besotan kuxkurtu zen, **papondoa** pott arinez estaltzen ziola, loaren aztaparrek astiro, linboetara eraman artean. Itxaro Borda

## paporatu, papora(tu), paporatzen du ad papora eraman.

Belaunak **paporatzen** zituen eta horrela egoten zen, zerua eta lurra juntatzen zituen errekarri begira, orduak ordutegi. Itxaro Borda

## papua izond/iz Papua eta Ginea Berrikoa, Papua eta Ginea Berriari dagokiona; Papua eta Ginea Berriko herritarra.

Ginea Berriko **papuei**, alderantziz, lehenengo argazkiak erakutsi zitzaizkienean, bitxiak, ulergaitzak, estetika maila apalekoak iruditu zitzaizkien irudi haiek, eskematizazio-maila txikia zutelako. Josu Zabaleta

## papur 1 iz apurra.

Kutxako andereñoa platereko *linzertorte* zatitu baten **papurrei** mokoka ari zen. Anton Garikano

Haginkada eman dio tostadari, eta **papurrak** mahai gainean sakabanatu ditu. Lander Garro

Geldian, lurrak leku bakoitzean duen zaporea dasta daiteke, pentze samurren gozotasuna, arantzadien mikatza, goroldioaren umeltasun sarkorra pagopean, ogi lehorraren **papur** desegina haitzartean... Pako Aristi

Bazkalondoko **papurren** bila doaz -azaldu zidan Teresak-. Bernardo Atxaga

Mahai gaineko **papurrak** biltzen hasi zen Nora esku er-tzarekin, berebiziko ganoraz. Anjel Lertxundi

Astiro marraskatzen zuen, papurrez **papur**, pozez zoratzen. Karlos Zabala

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakumeak paperezko mantelean gelditu den ogi **papur** bat jan du. Monika Etxebarria

Gero, jauzi zalu pare batez estatuaren sorbaldara igo eta ogi **papur** batzuk jarri dizkio sorbaldan presidente ohiari: banekien, usoena trikimailu bat zen. Harkaitz Cano

Ez ziren zain geratu, hurrena zer ikusiko: ez lapikoa txitxirioekin kea dariola lurrean, ez galleta-**papurrak** ilaran ate ondoan. Anton Garikano

Ez dago lekurik non ez den pizza **papurrik** edo Parmako gazta txirbilik. Patxi Iturritegi

## 3 irud/hed

Zerbaitetan oso trebe ez denak besteek utzitako **papurrak** jaso beste lanik ez du izaten. Berria - Kirola

Esperantza porroskatua denean ere, beti gelditzen dira esperantzazko **papurrak**. Herria

Zikiilstei **papurrak** baino ez dizkiete banatzen. Berria - Kirola

Lepoaren atzealdea igurtzi duzu, nazien kontzentrazio esparruan egin ez dizuten marra-kode tatuaua ezabatu nahian bezala; eta horren orde zurrigoma **papurrak** diruditen atomotxo koloregabeak sartu zaizkizu azkazal barruetan. Eider Rodríguez

## 4 (izenondo gisa)

Oso **papurrak** izan arren, ehun urtera iristean, segundo pizka horiek pilatuz, egun baten atzerakarga osatzen dute mende luze batean, eta orduan bisusturte horietako bat kendu egiten da. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**

ogi **papur** (3)

ogi **papurrak** (11); **papurrak biltzen** (3)

## par ik **pare**.

## parabellum iz kalibre handiko metrailadore modelo, alemaniar jatorrikoa.

Baina nik segitzen nuen alemanen **parabellum**, errebolber eta metrailaten irispidean. Fernando Rey

Lagunek *Para* erraten omen zioten, **parabellumen** laburdura, antza. Aingeru Epaltza

Iskilu nagusiak, hortaz, **parabellum**-ak eta bonbak barik, berebiziko abailaz jaurtiriko birusak eta antibirusak izango dira. Markos Zapiain

Tren makina gelditu eta bertatik bi SS saltatu ziren, **parabelluma** eskuetan zutela, eta itxant batez nire txano gorriari begira gelditu ziren. Fernando Rey

Bi SS haiek berdin segitzen zuten beren **parabellumen** kanoiak niri saihetsean sartzen. Fernando Rey

Atxilotuei bi pistola atzeman zizkieten, bederatzi milimetro **Parabellum** kalibrekoak biak. Berria - Euskal Herria

## parabiso ik **paradisu**.

## parabisu ik **paradisu**.



**parabola**<sup>1</sup> *iz* puntu finko bati eta lerro zuzen finko bati buruz distantzia berera dauden puntuek osatzen duten lerro makotu irekia.

Edozein soinu bereizten genuen: fusilak kargatzen zirenekoa, granaden txistuak **parabolaren** goiengo puntuan zeudeneko une mutua, [...]. **Harkaitz Cano**

Plastikozko baloi handi bat ailegatu zen gureganaino zeru aldetik **parabola** bat eginez. **Joxemari Iturralde**

Batzuetan pentsatzen diat ez nauala aintzakotzat hartzen, baina jakin beharko huke ezen, zientzi gizona naizen neurrian, **parabolaren** sekeretu guztien berri dakidala eta, ondorez, kanoi-tiroarena, zeren eta, dakian bezala, arkabuzez, fusilez edo kanoiez jaurtiki balaren edo, berdinzki, eskuz egotzi harriaren trajectoria **parabola** bat duk. **Joan Mari Irigoien**

Zeren puntu horrek [...] sortzen baitu lerro xuxena, baldin bertze puntu baterat xuxen irioiten badugu; sortzen du zirkunferentzia, baldin puntu finko baten inguruan biraka ipintzen badugu; eta sor dezake **parabola**, hiperbola... edo esfera eta oboidea eta zikloidea... forma geometriko erregular eta irregular guztiak sor ditzake. **Joan Mari Irigoien**

Lerro zuzenak eta makotuak, **parabolak** eta elipseak. **Imanol Zurutuza**

Menekmok, berriz, bi koniko erabili zituen: hiperbola eta **parabola**. **Jon Muñoz**

Bestetik, **parabola** eta hiperbola: biak, irekiak. **Jon Muñoz**

**Parabolaren** koadratura. **Jon Muñoz**

## 2 irud/hed ik **paraboliko** 3.

Haatik ez dira bakartasunean bizi, auzoak aski hurbil eta etxe guzietan telebixtako **parabolak** teilatu gainetan. **Herria**

## **parabola**<sup>2</sup> *iz* alegiazko gertaera baten kontakizuna, irakaspen bat gordetzen duena.

Pikuondo agorraren **parabola**. **Elizen arteko biblia**

Ereilearen **parabolaren** azalpena. **Elizen arteko biblia**

Elkartasuna anaien artean, eta gai honi buruzko **parabola**. **Askoren artean**

Jendeak ez zuen erlojulearena ulertu, baina pentsatu zuten **parabolaren** bat izango zela. **Unai Elorriaga**

**Parabolako** paralitiko bano okerrago nagok, baina enetzat ez zagok mirakulurik... **Joan Mari Irigoien**

Hamar birjinen **parabolaren** bertsio postmodernoa ematen du honek. **Patxi Iturritegi**

Hona hemen, bada, **parabolaren** esanahia: hazia Jainkoaren mezua da. **Elizen arteko biblia**

**Parabola** hau, 5. aholkuaren dramatizaziotzat har daiteke: "Ez bedi inor harro, Jaunaren gurutzeaz baizik". **Askoren artean**

Ez al da hori beti **parabolak** kontatzen ari dena? **Elizen arteko biblia**

Horra, anaiok, **parabola** luze bat kontatu dizuet, zuen begiratua urratsen aurretik joan dadin eta zer egin behar duzuen ikus dezazuen. **Askoren artean**

Herri guztietatik etorritako jendetza handia bildu zitzaion batean, **parabola** hau esan zien Jesusek: [...]. **Elizen arteko biblia**

Horrela begiraturik ikusten da Kierkegaarden **parabolak** zer nolako gaurkotasuna duen. **Joseba Zulaika**

**Parabola** teologiko hau absurdo bat da. **Joseba Zulaika**

## **parabolika** *iz* antena parabolikoa.

Teilatu askotan kolore horiko **parabolikak** ageri dira orain. **Iban Zaldúa**

## **paraboliko** 1 *izond* parabolari dagokiona, parabolaren formaren araberakoa dena.

Tartaglia zeritzan XVI. mende bukaerako italiar matematikari baten aurkikuntzaz hitz egin zien gero; argi sumatu baitzuen hark kanoi-bola baten ibilbidea ez zela zuzena, **parabolikoa** baizik. **Jon Muñoz**

Baina kanoien kontu hura ez zen tiro bakar hartan agortu, zeren eta, alde batetik, arestian erran bezala, kanoia profitatu nahi baitzuen osaba Joanikotek tiro **parabolikoari** buruzko ikerketa baten egiteko. **Joan Mari Irigoien**

Ibilbide **parabolikoko** Tartagliaren kanoi-bolak zubian lehertzen ziren, eta ur-zulo konponezinak irekitzen zituzten. **Jon Muñoz**

## 2 irud/hed

Bada tristura more bat, idorra, iharra, izerdi larria bezain hotza, eguerdiko tristura simetrikoa, etxe hutseko tristura **parabolikoa**. **Iñaki Segurola**

## 3 antena **paraboliko**

Masta gainean antena **parabolikoa** jirabiraka ari zen, *Bisibilitatea zero*, eta kapitaina pantailako zirkulu kontzentrikoei begira, argi orratz fina bueltaka ari zela. **Joseba Sarrionandia**

Ez nuen telebista jarri, nahiz eta hoteleko antena **parabolikoaren** bidez kanal mordo bat ikus nitzakeen. **Jon Muñoz**

Izan ere, harriez zer edo zer badakike, baina herriez deus ere ez daki, belarri handion antena **parabolikoa** beste satellite baterantz ditu-eta zuzendu eta konektatuak. **Joxerra Garzia**

## **parabris** (*orobat parabrisa*) 1 *iz* automobil batean, aurrealdeko beira. **ikhaizetako**.

Zinema pantaila bilakatua zen **parabrisan**, lurrunak eta erortzen ari zen elurrak sorturiko begitazioak besterik ez ziren izan ikusitako haiek guztiak. **Harkaitz Cano**

Kotxeko **parabrisaren** kristalean. **Patziku Perurena**

## 2 **parabris garbigailu**

Sentikortasun paregabeko tresna optiko bat da begia, diseinuari eta funtzionamenduari dagokionez ezaugarri harrigarri asko dituena; ez zaizkio falta, hara, ezta **parabris** garbigailua eta -xukagailua ere. **Irene Aldasoro**

## 3 **parabris ikuzgailu**

Autoen **parabrisa** ikuzgailuak lapurtzen bide zituen gero tailerretan saltzeko. **Pako Aristi**

## **parada**<sup>1</sup> 1 *iz* aukera, egokiera.

**Parada** sortu arte, bada, gutunazalekoa ziurtatu, jakan gorde, eta alde egiteko prestatu zen. **Miguel Angel Mintegi**

**Parada** jin zitzaidan zenbait urte geroago. **Aurelia Arkotxa**

Osaba xuxen zen, eta berak **paradaz** ederki baliatu nahi zuen, etxeko probetxu. **Elena Touyarou**

Baina **parada** hartan, bederen, jai zeukan. **Miguel Angel Mintegi**

**Paradaz** balia, ikus dezagun nola frantsesak eta espagnolak kutsatu duten euskara, ez baita hor deus mirakulurik, lurraldeak eta beraz jendeak hain hurbil izanez. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hala egin dute baloia bereganatuz **parada** guzietan. **Herria**

Aitzineko egunetan, Fernan dela, Mikel dela edo Edure dela, ez du horretarako **paradarik** izan. **Aingeru Epaltza**  
Hitz hori silabak bezainbat zatitan banatuta dago, zati horiek zenbakituta daude, eta igarkizunetarako **parada** ematen dute. **Iñaki Arranz**  
Horrelako **paradetan** ahulak galtzen baitu beti: osasuna, giza harremana, gizarte kontzientzia, duintasuna, dirua, dena. **Edorta Agirre**

## 2 (-tzeko atzizkiaren ezkerrean)

Irri egiteko **parada** izanzen da hemen denentzat Gerald goiz samar etxeratzen zen iluntzero, Camillarekin hizketan egoteko **parada** izatearren afaldu aurretik. **Herria**  
XVI. mendean, ordea, bi gertakari nagusi izan ziren, bide berrien zabaltzeko **parada** eman zutenak. **Piarres Xarriton**  
Etxearen berritzeko **parada** ona badu. **Herria**  
Giotto-ren freskoak ikusteko **parada** ez galtzea deliberatu nuen. **Anjel Lertxundi**  
Horrela, funtsik gabe, gure hiztegiaren aberasteko okasionea edo **parada** eder bat joaitera uzten dugu. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Ez nuen aita ezagutzeko **parada** izan. **Aingeru Epaltza**  
Ez dakit ezer esateko **paradarik** izan ote nuen. **Iban Zaldúa**  
Astopito horrek, nolatan huts egin duk Ana zamalkatzeko **parada**? **Aingeru Epaltza**  
Ostirala bitartean izango dute bi aldeek beren usteak azaltzeko **parada**. **Berria - Gaikiak**  
Handik gutxira, Parisera itzultzeko lehendabiziko **paradan**, bertara azaldu nintzelako galdeketa zuzenean egiteko asmoz. **Ramon Saizarbitoria**  
Nork esaten dit eman eta gero ez dudala Ostolazak bezala bukatuko? -galdetu zion, eta erantzuteko **parada** emateke, berriro heldu arestian moztutako kontaezari-. **Migel Angel Mintegi**

## 3 (-tzeko atzizkiaren eskuinean)

**Paradaz** baliatzen naiz gure lau frekuentziak oroitartzeko: [...]. **Herria**  
**Parada** ederra bisitatzeko Egiptok gordetzen dituen altxor nasaia Alexandriatik hasirik eta Louksor-era. **Herria**  
Beraz balitekeela **parada** SAGAK ere hor ekitaldiak antolatzeko. **Herria**  
Gure haurrek beren euskalkian badute **parada** Bretainiako leienda batzuen ezagutzeko. **Herria**  
Bake honek ematen du **parada**, Aita Sainduaren aukia apaltzeko eta menturaz Erromatik aldaratzeko. **Piarres Xarriton**  
Oso gutxitan izan diat **parada**, gaur arte, Bixentarekin buruz buru ezertaz lasai mintzatzeko. **Txillardegia**  
**Parada** polita izanzen zuen errege ohilduaren izena zikindu eta Albretokoaren eskergabetasunaren hotsa ateratzeko. **Aingeru Epaltza**  
Gizon hori kaka-nahaslea zen eta gustuko **parada** bazuen hor herrian alderdikeriaren sorraratzeko. **Michel Oronoz**  
**Parada** ematea teknika horietan hasiak direnei, batzuek besteen teknikak ezagutzeko. **Herria**  
Zer **parada** gaitza kontrabandaren egiteko Frantziatik Espainiara, hemen oraino haundiagoa baitzen penizilina eskasa! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## 4 (hitz elkartuetan)

Ba da inork uste duen baino konbinaketa **parada** gehiago, hain zuzen horietarik anitz ikusiko ditugu Baionan muntzen ditugun esku dantza topaketetan ekaineko 9 eta 10-etan. **Herria**

## parada<sup>2</sup> (orobat parade g.er.) iz pertsona ilara bat jendaurrean igarotzea, bereziki soldadu talde bat agintarien aurrean. ik desfile.

Argazkiak SSetako **parada** batean egina zirudien. **Alberto Ladron Arana**  
Danborrada [...] donostiarrek ikusi behar izan zituzten gudarosteen **parada**, erretreta, martxa eta desfileen erreplika umorezkoa da. **Askoren artean**  
Hala ere, eta egia aitortuko badut, ostegunean Iratxeko zelaietan ikusitako **parada** militarra hunkigarri gertatu zitzaidan. **Txillardegia**  
Soldadu-osteak **paradan** formatuak, horrelaxe irudikatzen ditugu, infanteak eta zaldunak oina lurrean, ikur nazkagarriaren jaitsierari eta ikur kristauaren zein lusitanoaren eraikitzeari begira. **Jon Alonso**  
Puertorricarren **parade** honetan inor ez da bere jaioterriko hizkuntzan mintzo: ingelesa da nagusi. **Harkaitz Cano**  
Atzo hartu behar genuen Euskal Herrirako bueltako hegazkina, baina gaur urteroko Gay **Parade** ospetsua ospatzen dela eta, atzeratu egin dugu hegaldia. **Harkaitz Cano**  
Beltzek sekulako harrera egin ziotela otsailaren 22an, **paradak** eta guzti. **Txillardegia**

## parada<sup>3</sup> iz geralekua.

-Ester da, beheko **paradako** taxista! **Pako Aristi**  
Orduan ikusi zituen Ramírezek Milleren keinu baldarra eta autobus **paradan** zegoen emakumearen begirada zorrotza. **Fernando Morillo**

## paradatxo iz geldialditxo.

Izertitan blai iritsi nintzen tunelera; bizkortzeko, **paradatxoetan** usain nazkagarri ura. **Joxean Sagatzizabal**

## parade ik parada<sup>1</sup>.

## paradero iz bilakabide baten amaiera.

Bere gogozko itsu eta gor batek baino ezin zezakeen dudarik izan Europa aleman batean juduek izango zuten **paraderoaz**. **Juan Garzia**  
Ez zuen, geroztik, haren **paraderoaren** berri gehiago jakin. **Karlos Linazasoro**  
Lehia bizi hura ez ote zetorren patua niretzat prestatzen ari zen **paraderoaren** intuizio ilun batetik. **Juan Garzia**  
Zure **paradero** bereberean amaitzeko zorian egon nintzen. **Juan Garzia**  
Horrela bukatu behar zuena gauza jakina zen, a zer **paraderoa**. **Karlos Linazasoro**  
-Hau dun **paraderoa** hau! **Unai Iturriaga**  
Ze **paradero** duk hau, komediantea? **Harkaitz Cano**  
Nire **paraderoa** ere halakoxea izaki; izerditua eta hautseztatua, legar-gurdiko nekazari hura bezalatsu, oinak ere galipotez zikinduak, eta zer esanik ez nire alkandora. **Joxe Austin Arrieta**  
Esanguratsua den euskarari hika mintzo zitzaiola Etxepare XVI. mendean [...]; XIX. mendean, berriz, "Ama Euskara" bihurtu da, maitagarriago baina babesgabeago, ikusi dugun bezala; eta hemen, oster, "amona xahar bat": horra bikalabidea; ederra **paraderoa**! **Xabier Mendiguren Elizegi**

## paradigma 1 iz gramatikan, izen edo aditz joko baten arautzat ematen den erdua; hizkuntzalaritzan, testuinguru jakin batean koka daitezkeen hitzen multzoa.

Gramatikaren **paradigma** eta baso guztiak itsu mutilik gabe zeharkatzeko gai izan den jendeaz ingururik gaude herri honetan, ongi dakikezue. **Pello**

**Salaburu**

Nahikoa da sail horiei gain-gainetik begiratzea grezierazko eta latinezko **paradigmen** arteko erlazioaz ohartzeko. **Isabel Arrigain**

Irakaslearen ekarpena lehenik [...] eskola orduetatik kanpo aditzaren **paradigmak**, euskara batuaren hastapenak irakasten zizkigun irakaslearena. **Berria - Kultura**

Aditzen **paradigma** izan da nire lokamutsa. **Berria - Harian**

Analogia, aktiboaren singularreko lehen pertsonan soilik gauzatu zen hasiera batean; gero, indikatibozko era burutuaren ia **paradigma** osoraino helduko zen. **Isabel Arrigain**

Hizkuntza baten **paradigma** fonologikoak osatzen du hizkuntza horretako hitzunek, hizkuntza hizketa bihurtu ahal izateko, buruan duten hizkuntzaren Nolakotasun Fonikoaren ezagutza. **Lourdes Oñederra**

Zentzuzkoa da, hartara, hizkuntza baten hots inbentarioa (**paradigma**) osatzeko aukerak mota honetakoak. **Lourdes Oñederra**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hala gertatzen da multzokatze mota honen tipo ezaugarri batean: flexio **paradigmatan**, alegia. **Isabel Arrigain**

Has gaitezen desinentzia-tik, hau da, aditz **paradigma** bateko formak bereizten dituen hitz bukaerako flexio ezaugarri edo elementu aldakorretik. **Isabel Arrigain**

## 3 zientzia-komunitate batek ikerketa-esparru gisa partekatzen duen eredu teoriko eta lan eredu zehatza.

Ba al dago teoriaren -**paradigmen**- artean aurrerapen zientifikoa identifikatzeko ebaluazio irizpiderik? **Askoren artean**

Kuhnek **paradigma** gisa ulertzen du teoria zientifikoa. **Askoren artean**

Bi modernitate egon direla filosofiaren historian, funtsari dagokionez arrazoimenaren bi kontzeptu guztiz desberdin dauden bezala, alegia: (A) Eredu kartesiarra: **paradigma** razionalista (eta horren eztabaida) (B) Eredu kantiarra: **paradigma** idealista (eta horren eztabaida). **Askoren artean**

Kanten ustez izadia oraindik aurreko **paradigmakoa** da, makina bat; Hegelen iritziz, aldiz, organismo bizia da, bere burua izateko bilakatuz doana. **Askoren artean**

Bestela esan, modernitatea arrazoimenaren **paradigma** finkatzeko proiektua da, eta hura aurrera eramateko hala teoriaren nola praxiaren oinarriak jarriko ditu. **Askoren artean**

Nola karakterizatu zientzialarien praktika desberdinak -paradigmaren barnean edo **paradigmen** arteko lehian gauzatzen direnean? **Askoren artean**

## 4 irud/hed

Rulforen **paradigman** kezka existenziala (zeinak biziaren mugetatik aurrera ere, hilen artean, kezka izaten baitirau) fatalismoz jantzen da, eta zeharo loturik ageri da lurrarekin -lur konkretu, zehatza, historiko batekin-, harekin bat eginik. **Juan Garzia**

Baina horrek baino gehiago, beste alor batek lan handiagoa ekarriko digu: formazioaren **paradigman** aldaketa ekarriko du Bolognari. **Berria - Euskal Herria**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Prozesu horrek atarramentu ona izan dezan, **paradigma** aldaketa bat behar da, Garapen Iraunkor kontzeptuaren eskutik. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Seguruenik, **paradigma** -aldaketa kontzeptua izan dezakegu egokienetakoa, baldin eta gaurko geure munduaren eta Ignazioren munduaren arteko alde, tarte eta jauzi handia hobetu ulertu nahi badugu. **Patxi Altuna**

Iraultza kopernikarra dugu, esaterako, **paradigma** -aldaketaren adibiderik esanguratsuenak. **Patxi Altuna**

## 6 zerbaiten adibidea edo ereduak.

Beti izan da Chirac frantses jakobinoaren **paradigma**. **Hasier Etxeberria**

Idaztera bakarrik dedikatzen den idazlearen **paradigma** eta eredu da. **Joxean Agirre**

Petrolioaren madarikazioa jasaten duten herrialdeen **paradigma** da Nigeria. **Berria - Mundua**

Euskal Telebistako irudietan behin eta berriz erakutsi zuten Joxe Elozegi, euskal zaletuaren **paradigma** bailitzan. **Hasier Etxeberria**

Auzitegi Gorenean gertatzen dena bidegabekiaren **paradigma** da. **Berria - Euskal Herria**

Kolorea, mailaketa jarraitu batean gertatzen dena hau ere (ostadarra da honen **paradigma**). **Josu Zabaleta**

Literarioki Unamuno-k plano historikoak lotzen dituen bezala, bere esperientzia pertsonala, Gaztelara irtenda erreusituz, Bilboko historiaren **paradigma** da; Bilboko historia, Gaztelak lagunduta erreusituz, Euskal Herriko historiaren **paradigma**. **Joxe Azurmendi**

Sano dagoenak badaki bizimodu hotz eta erosoaren **paradigma** beteginena hilerrikoa baizik ez dela. **Iñaki Segurola**

## paradigmatiko *izond* paradigmatena, paradigmatari dagokiona.

Maila **paradigmatikoan** (esan nahi baita euskal hotsen inbentarioan) [...]. **Lourdes Oñederra**

Euskaraz igurzkarri guztiak maila fonemikoan ahoskabe izatea *fortitio* **paradigmatiko** baten emaitza da. **Lourdes Oñederra**

Sukaldariena kasu **paradigmatikoa** izanik ere, ez da alferrikakoa gogoratzea sutara bidalitako sorginak ugari direla herri honetan. **Berria - Euskal Herria**

Adierazitakoari jarraituz, etika aplikatuaren esparrua aztertuko da, eta azalpena esparru horren adibide **paradigmatiko** batera murriztuko da (eutanasiaren auzia). **Askoren artean**

Aste honetako atentatuak **paradigmatikoak** dira alde horretatik. **Joxerra Garzia**

Beste hainbat kontuan bezala, **paradigmatikoa** da bertsolaritzaren alderdi honetan ere Xabier Amurizaren kasua. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Renan eta Herder modu **paradigmatikoan** oposatu ahal izateko, faltsifikatu beharra dago bata zein bestea. **Joxe Azurmendi**

## paradisiako *izond*

Leku **paradisiakoan** argazkiak edo beti pozik dauden bikoteen eta familien aurpegiak. **Sonia Gonzalez**

Bakea ez da egoera eterno, perfektu, **paradisiakoa**. **Berria - Kultura**

Ospitaleko Historialari Ofizialaren arabera, leku **paradisiako** horretara heltzeko ahaleginak dira beste solairuetako borroken iturburu nagusia. **Iban Zaldúa**

## paradiso ik paradisu.

## paradisu *(633 agerraldi, 130 liburu eta 75 artikulutan; orobat paradiso g.er., parabisu 38 agerraldi, 6 liburu eta 20 artikulutan, parabiso g.er. eta paraiso g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian paradisu agertzen da)* 1 iz zintzoen arimek betiereko dohatsutasunaz gozatzen duten lekua. ik **zeru**; ik **beherago 12**.

Jainkoak **paradisu** batean bilduko ditu zintzoak, eta infernura bidaliko ditu gaitztoak, deabruarekin batera erre daitezen. **Josu Zabaleta**

Ezen iruditai baitzait gaur zuen artean Jainkoaren **paradisu** erdian egon naizela. **Askoren artean**

Nekerik gabe lortutako **paradisua** ez du gogoberotzen sinestuna. **Josu Zabaleta**

Horixe zen burutazioa, horixe tentazioa: Espiritu Santuaren **paradisia** lurrean bertan ezartzea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Mahomaren **paradisuan** sinestunen zain dauden huri ezin ederrago horietako baten lehen fereka zehaztezina. **Jon Alonso**

-Jainkoak zure bitartez hainbeste on egingo duelako, **paradisura** joango zara. **Askoren artean**

Jesusek lapurrari gurutzean bezalaxe, "Laster egongo naiz zurekin, **paradisuan**", esan zidan. **Patxi Zubizarreta**

Ez dago **Paradisurik** / ez dago gerorik. **Lourdes Oñederra**  
Gizonak oso emanak dira itxarotera eta beldur izatera, eta ez infernuri ez **paradisurik** ez lukeen erlijio bat ez litzateke haien gogoko izango. **Iñaki Iñurieta**  
Ez zen inoiz **paradisutik** hurbilago egon rantxo honetan pasatako denboran baino. **Berria - Kultura**

## 2 Bibliaren arabera lehen gizona eta lehen emakumea bizi izan ziren leku atsegingarria. ik behrago7.

Irakurria izango duzu **paradisua** erdian bazirela bi arbola, bizitzaren arbola eta ongiaren eta gaizkiaren jakintzaren arbola. **Josu Zabaleta**  
**Paradisuko** ate aurrean kerubina baitzegoen zutik gar distiratsua zerion ezpatarekin. **Askoren artean**

Den-dena erlatibo da, eta **paradisuan** egon berria zen batentzat gaitz hura izugarria zen, latza benetan, eta Adan, erabat ikaraturik, dardarka, alboan zeukan andrearengana jiratu eta halaxe esan zion: [...]. **Bernardo Atxaga**

-Adan eta Eba **Paradisuan** bizi zituan, baina bekatu egin zitean eta Kristok etorri behar izan zian eta bizia eman, bere erreinua lurrean berriro ezartzeko, irakatsiz, gisa hartan, ezen **paradis**u bakoitzak bere biktima behar duela. **Joan Mari Irigoien**

Aspaldiko **Paradisuan**, ibai biren arteko lore-baratze hartan. **Felipe Juaristi**

## 3 leku guztiz ederra eta atsegingarria.

Arestik ere bere Bilboko infernutik Arantzazuko **paradisua** amesten zuen. **Joseba Zulaika**

Joxe Aberasturik ez zuen indiar gorrien **paradis**u hartan deus ere sinesten. **Joan Mari Irigoien**

Horren ageriko nobleziako gizon batek kudeaturiko konpainiak **paradis**u guztiz dotorea izan behar zuen, zorion eta gozotasun leku zoragarri bat. **Joxan Elozegi**

**Paradis**u jori zara zu, granadondoak dituzu ematen, emaitzarik zoragarrienak sortzen. **Elizen arteko biblia**

Zure begiek ez dute paisaje bat begiz jo besterik egiten, **paradis**u izan zitezkeen bazter galgarriak oro paisaje bilakaturik baitaude denbora jakineko bidaiari ustekoarentzat. **Iñaki Seguro**

Mississippi Arroko Lautada Handiak, abeltzainen **paradis**u izan zitezkeenak. **Iñaki Mendiguren**

Makina hegalariaik aingeru infernutarrak dira beraientzat, alferrik **paradis**u bihurtu nahi duten lurreko infernu honetan. **Koldo Biguri**

Horien ileak zorrien **paradis**ua. **Gotzon Garate**

## 4 (izenondo eta izenlagunekin)

Askatasuna eta zoriona eskuragai ziren **paradis**u urrutiak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ezinbesteko galdera zen hau, nolabaiteko **paradis**u lurta bat ideologia sekular gehienen helburua baitzen. **Iñaki Mendiguren**

Lurrean balitz zorionezko **paradis**u bat, hemen litzateke; hauxe litzateke, eta ez besterik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Telebista edo zinemako **paradis**u eguzkitsuetatik oso urrun. **Xabier Montoia**

Aurrerantzean **paradis**u ofizial siniko horretarako sarbidea benetan zabalik geratzen zitzaion talentuari, gizarte-kласea gorabehera. **Iñaki Mendiguren**

Gure herrialdea, Oumma Arabiaren garaipenarekin, **paradis**u turistiko bihurtu zen irakiarrentzat eta Golkoko arabiarrentzat. **Juan Kruz Igerabide**

Pozaren pozez, Ala Al-Din eta Zobeida hurrengo gauean ere bezperako **paradisuan** baneratu ziren. **Patxi Zubizarreta**

## 5 irud/hed

Hor Zientziaren **paradisura** sartu ziren lau doktore izendatzen dira, horien artean Aqiba. **Xabier Kintana**

Badirudi gonbidatuak dituztela eta beren **paradis**u domestikoa erakutsi nahi digutela. **Patxi Iturritegi**

Aisialdiaren sektorea enpresa multinazionalen hazkundearen **paradis**u bihurtu da. **Koro Navarro**

Badakit, bai, haxixa, opioa, konfitura berdea, **paradis**u artifizialak. **Josu Zabaleta**

Nik ere maitale zaharra ahaztu eta heroína egin ninan maitale berri, **paradis**u artifizial hartan. **Joan Mari Irigoien**

Bilkuratik etxera baikor nabilenean, diot **paradis**u horren bila ibiltzen naizela etengabe. **Itxaro Borda**

Arrazoi horregatik debekatu zuten *La grande illusion* Alemanian eta Italian, eta anputatua izan zen «**paradis**u» demokratikoan. **Berria - Kultura**

Teknologiaren **paradisuan** (AEBetan), helduen %21a analfabeto funtzionala da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Musikalak eta filmak entzun eta ikusteko Broadway da **paradis**ua. **Gotzon Garate**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Paradis**u zatitxo bat dena. **Koldo Izagirre**

Bidezidorrean dagoen **paradis**u-erbolaren adarrak heure gorputzarekin ozta ukitzu pasatu hintzen eta heure airearekin eraman hituen haren azken hostoak. **Juan Garzia**

Arrasateko ekimenari buruzko **paradis**u-mitoak bultzaturik etorri omen zen gurera. **Iñaki Heras**

Gizakien gidariak **paradis**u-agintzaileak izan dira beti eta alde guztietan. **Josu Zabaleta**

Tailandan ere haratago da, turista eta ibiltarien **paradis**u fama zuena. **Herría**

## 7 lurreko paradisu ik behrago 2.

Nola Adan Damaskoko landan sortua izanik eta **lurreko paradisu**an ezarria, eta Eba haren saiheits-hezurretik sortua, eragotzi zitzaien jakite-zuhaitzetik jatea. **Patxi Altuna**

Jakin ezazu lurralde hura dela **Lurreko Paradisutik** kanpo aurki daitekeen baketsuena. **Aurelia Arkotxa**

## 8 irud/hed

Bazekien odola isuri gabe ez zegoela Espirituaren **lurreko paradisu**a ezartzerik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ipar Amerikako planteamendua Mundu Berri batean **lurreko paradisu**a sortzeko idealak inspiratzen zuen, eta **lurreko paradisu** hau enpresa pribatuaren sistemari oinarritzen zen, iparramerikarren ustez [...] osasun betean eduki zezaketena. **Iñaki Mendiguren**

Agian **lurreko paradisu**a duelako jokalekua, ez zeruko infernua. **Berria - Mundua**

## 9 paradisu fiskal atzeritar zergak erarkatzen dituen lurraldea.

Zerga bat sortzea proposatu zuen arma salmentari, finantza transakzioei eta **paradis**u fiskalei ezartzeko. **Berria - Gaiak**

**Paradis**u fiskalen eta Irlandaren ondotik, guk daukagu zerga presio txikiena Europako Batasuneko herrialdeen artean. **Berria - Ekonomia**

Europako Batzordeak Gibraltarko **paradis**u fiskaleko eredia baztertu du berriro. **Berria - Ekonomia**

Atzerrian ere negozio ugari ditu eta gehienek **paradis**u fisikaletan dute egoitza. **Berria - Harian**

245.000 milioi dolar, [Errusiako] Barne Produktu Gordinaren erdia, herrialdetik kanpo daude, **paradis**u fisikaletan. **Berria - Ekonomia**

## 10 paradisu gald

Maitasuna da **paradis**u galdua, Adan eta Eba dohakabe haiek, basiliko zitalak atzipeturik, betiko suntsitu ziguten lur aratz amestua. **Karlos Linazasoro**

*irud/hed* Liburu honetakoa da Thomasen poema ezagunenetako bat, "Fern Hill" ederra, erritmo eta musikaltasun liluragarriaz haurtzaroaren mundua **Paradis**u galdu baten moduan agertzen duena. **Koro Navarro**

Haurtzaroko **paradis**u galdura itzuli nahi zuten Joycek eta Proustek. **Joxean Agirre**

Baionako gela (isiltasuna, leku nasaia 7 urrats aitzinera 7 urrats gibelera), Baionako Villa Chagrin delakoa **paradis**u galdua iduritzen zitzaidan orain. **Marzel Etxehandi**

## 11 paradisu hegazti

Parotia berlepshi **paradis**uko hegaztia aspaldi desagertua zela uste zuten. **Berria - Gaiak**

## 12 zeruko paradisu

Doi doia 64 urtetarat helduak goza dezala oraitik **Zeruko paradisu**a. **Herría**

-Agur esan gabe alde egin zenuen, eta ni hantxe, **zeruko paradisu**an ate joka hastekotan -esan zuen Estherrek eseri nintzenezan. **Koro Navarro**

**Zeruko paradisu**a ez duk existitzen, zeruan ez dagoelako ezer. **Fernando Rey**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lurreko paradisu** (7); **paradisu fisikaletan** (4); **paradisu txiki** (3)

**benetako paradisu** (3); **lurreko paradisu** (13); **paradisu lurrean** (4)

**paradisuan bizi** (8)

**hautzaroko paradisuaren** (3); **paradisuaren bila** (4); **paradisuaren ikuspenak** (5)

**paradisuko aintzara** (4); **paradisuko almanaka** (6); **paradisuko etxean** (3); **paradisuko etxera** (4); **paradisuko ura** (3)

**paradisura eraman** (5); **paradisura joan** (3); **paradisura joango** (5); **paradisura joango zela** (3)

**ekaitza dator paradisuatik** (3); **lurreko paradisuatik** (4); **paradisuatik hurbilago egon** (5)

## paradisutar *izond* paradisuaren ezaugarriak dituena.

Landartartasunaren ikusmolde **paradisutar**, edenikotik begiratzen zaio orain unibertso horri, landa-giroko bizimoduaren utopia (eta ukronia) delakoan. **Edorta Agirre**

## paradoja ik **paradoxa**.

## paradojiko ik **paradoxiko**.

## paradojikoki ik **paradoxikoki**.

## paradore *iz* eraikin historikoa, goi mailako hotel gisa erabiltzen dena.

Irantzuko monasterioa, XII. mendeko harribitxi gotiko hori, **paradore** bihurtzeko aukera denen ahotan ibili zen orain dela gutxi Lizaraldean. **Martin Anso**

Beraz, ikusten baldin baduzue, **paradore** proiektuari buruz duen iritzia eskatzeko aukera ez galdu. **Martin Anso**

Aldapetako abiapunturantz, berriz, Martin Jose Oteitza txapelgorrien buruzagiaren ostatu **"paradore"** apaina berragertzen zitzaidan, laino bitxi artean. **Txillardegí**

## paradoxa (*orobat paradoja g.er.*) **1** *iz* irudiz zentzugabea edo bere buruaren kontrakoa izanik, egia den edo izan daitekeen esaldia; batera egiazkoa eta gezurrezkoa den perpausa, *beti gezurra esaten dut* bezalakoa.

Kolore faltsuak eman zaizkio, eta hau da **paradoxa**, mapari benetakotasuna emateko. **Joseba Sarrionandia**

**Paradoxa** litzateke edukitsuak, beren ondasunen jabetzaz gainera, ezedukien esker ona erreibindikatzen ikustea. **Josu Zabaleta**

Egia hau demostratuta dagoela iruditzen zait, nahiz eta jakin **paradoxa** bat irudituko zaiela adimen laburrekoei. **Juan Martin Elexpuru**

**Paradoxa**, *The Wild* hiltzaile gupidagabea amarenganako maitasunak saldu zuen. **Gotzon Garate**

**Paradoxa** gisa, zientzia eta teknologiaren kontrako mugimenduak sortu dira. **Pello Salaburu**

Mekanika kuantikoaren **paradoxen** inplikazioak. **Berria - Gaiak**

**Paradoxa** antzeko zerbaite sortzen zaio hemen Platoni, ez baitakigu zerk eraikitzen duen zer lehenago: filosofo perfektuak estatu perfektua, ala alderantziz? **Askoren artean**

Subiranotasunaren azken **paradoxa** aro post-subirano honetan: zerbaite eduki nahi baduzu, lehenik entregatu egin behar duzu. **Joseba Zulaika**

Ez du erantzunik galderak; halako **paradoxaz** beteta dago mundua. **Imanol Zurutuza**

*ik beheerago* 3. **Askoren artean**

Nola ulertu behar da **paradoxa** hau? **Ibon Uribarri**

- **Paradoxak** mugiarazten ditu munduaren ardatzak. **Karlos Linazasoro**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Paradoxa** handia zela Expo hura ekologiari eskainia izatea. **Edorta Jimenez**

Horra, bada, egunotako **paradoxa** nabarmena: oso forma desberdinak ageri dituzten organismoak gene sail berdin-petoz osatuak dira. **Juan Garzia**

Hor dago beste **paradoxa** harrigarri bat. **Pello Salaburu**

Mendebalde modernoko zientziak harrigarriro errebindikatu du **paradoxa** logiko eta moral baten egiaz kristau-esperientziak ematen duen lekukotasuna. **Iñaki Mendiguren**

**Paradoxa** moral bat da azkenean. **Joseba Zulaika**

**Paradoxa** polita **paradoxa** bildumatzaileentzat. **Harkaitz Cano**

Ustezko **paradoxa** ez da horren paradoxikoa. **Edorta Jimenez**

-Etegabeko **paradoxa** da bizitza; uste ez duzunarekin egiten duzu topo, ia beti, eta, sarri, espero duzunaren kontrakorekin. **Juan Kruz Igerabide**

## 3 **paradoxaz adlag** ik **paradoxikoki**.

Plajio batek, **paradoxaz**, hain orijinala ematen bazuen, zer zen orduan orijinaltasuna? **Bernardo Atxaga**

Baina orduan etorri zitzaion, **paradoxaz**, lasaibidea: berak oparizat hartu zuen bigarren itsutasun hura, konponbiderik gabea. **Xabier Olarra**

Hausturak beti du berarekin mina edo sufrimendua; baina baita, **paradoxaz**, halako arindu edo sentimendu gozo bat ere. **Bernardo Atxaga**

Berriro ere, gai nagusiak etortzen zitzaizkidan burura, eta, **paradoxaz**, heriotzari buruzko ideiak. **Bernardo Atxaga**

## 4 **paradoxazko izlag** ik **paradoxiko**.

Alegoria bat da, mendebaldeko beste edozein testuk baino zorrotzago laburbiltzen duena fedearen, abertzaletasunaren eta askatasunaren **paradoxazko** leize gaindiezina.

**Joseba Zulaika**

**Paradoxazko** izaera honek zerikusi handia du irudiek aurrean ez dauden gauzak erakusteko. **Josu Zabaleta**

**Paradoxazko** fenomeno ematen duen, baina naturala zen. **Josu Zabaleta**

Baina ikus dezagun arazoaren **paradoxazko** alderdia: [...]. **Isabel Arrigain**

Saldu nahi diguten ikuspuntu manikeo merkea baztertu eta **paradoxazko** enigman sartzeraz. **Markos Zapiain**

Hatsapen honen beste ondorio bat -nahiko **paradoxazkoa**-, hau da: [...]. **Isabel Arrigain**

Berez praktikotasunerako zuen joera izanda, **paradoxazko** samarra zen inoren babespean ez egoteko seta hori. **Josu Zabaleta**

Nahiz eta ez erabili bere maisua Avignongo inkisidorengana eraman zuten bezalako adierazpen **paradoxazkoak**, bere funtsezko gaiak eckhartiarrak dira. **Joan Mari Lekuona**

Azken horretako esaldi **paradoxazko** batek -*Mortuus est Dei filius; credible est quia ineptum est: et sepultus resurrexit; certum est quia impossibile est*-, osorik hartu zuen nire denbora, ikerketa neketsu eta alferreko aste askoan. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**



## paradoxal *izond* paradoxikoa. ik **paradoxa 4**.

Oinarrian zaren jende **paradoxala** deskubritzen ari zara. **Itxaro Borda**

**Esakune** paradoxal baina zuzen hau oharrarazi behar da: "espazioan bertan errepresentatutakoa besterik ez dagoela". **Ibon Uribarri**

Orduan honako hau esan dezakegu, itxuraz **paradoxala** den adierazpen bat erabiliz: [...]. **Ibon Uribarri**

**Paradoxala**, iraingarria, baina ez guztiz baztertzekoa. **Juan Garzia**

Jendeen gustuak, luzara, aldatu egiten dira, modu **paradoxaletan** batzuetan. **Ana Urkiza**

Gizonak indar fisikoa duela, emakumeak bere inteligentzia bakarrik, beharbada horregatik zegoen Nora hain seguru ez nuela harrapatuko, zer ironikoa, urte batzuk geroago engainatuko ninduenarekin engainatu nuelako abandonatu ninduen Laurak, zer **paradoxala**. **Mikel Hernandez Abaitua**

## paradoxalki *adlag* paradoxikoki. ik **paradoxa 3**.

Jainkoa, gauzen gainean, barnean, haraindian zegoen, **paradoxalki** mundua den mendreko errealitateaz hustuz. **Piarres Aintziart**

Durán-ek, **paradoxalki** (beti Schlegel bere modura baliatuz), teatro barokoa erromantikoa dela demostratzen du. **Joxe Azurmendi**

**Paradoxalki**, oroitzapen lazgarritzko nire bagajea aberastasun bilakatzen zen, historia-hazi; landare bat bezala hazten nintzela iruditzen zitzaidan idaztean. **Juan Garzia**

**Paradoxalki** uniformeak ninduen jende zibilaren mundura itzuli. **Piarres Aintziart**

**Paradoxalki**, borondatea ahuleziaren zerbitzuko ezarria nuen ohartu gabe ere. **Piarres Aintziart**

## paradoxiko (*orobat paradójiko g.er.*) *izond* ik **paradoxa 4**.

Adigai **paradoxikoa** jarraitasun-ezaren hau: aldi berean ikerketaren tresna eta gaia baita. **Xabier Arregi**

Egoera **paradoxiko** honetan, argi dago ezin dela aukera baten osasuna neurtu bakarrik begi bistan dauden elementuen arabera. **Berria - Euskal Herria**

Hori oso bitxia da, binomio **paradoxiko** bat ezartzen baita; alde batetik eraldaketa planteamendu sakon eta utopiko bat, eta, bestetik, horri lotuta, jarrera praktikoa bat. **Iñaki Heras**

**Paradoxikoa** da, munduan paradoxarik bada, enpresaren jokabide hori. **Anjel Lertxundi**

Euskaraz zinema egiteko TVErekin akordioa sinatu beharra, gutxienez, harrigarria da, edo **paradoxikoa**. **Berria - Harian**

**Paradoxikoa** badirudi ere, erraztasuna bera dute Schumannen piano-lanek zailtasun nagusi. **Anjel Lertxundi**

**Paradoxikoa** badirudi ere, informazio gehiegik informazioa hiltzen du. **Berria - Harian**

Ustezko paradoxa ez da horren **paradoxikoa**. **Edorta Jimenez**

Modu **paradoxiko** batean, enuntziatu-multzo bat bere indibidualtasunean definitzea objektu horien sakabanaketa deskribatzea izango da. **Xabier Arregi**

Hofmannsthal-ek modu **paradoxikoa** adierazi zuen diodan hori: [...]. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egoera paradoxiko** (4)

**egoera paradoxikoa** (3); **paradoxikoa bada ere** (4); **paradoxikoa badirudi ere** (3); **paradoxikoa izan** (3)

## paradoxikoki (*orobat paradójikoki g.er.*) *adlag* modu paradoxikoa. ik **paradoxa 3**.

Baina, **paradoxikoki**, nire ahulezian datza nire indarra. **Jon Alonso**

**Paradoxikoki**, sentitzen zuen nekea indar bilakatzen zitzaion, Gizarte-aldaketaren eragile izan behar zutenak -klase herritarrek, alegia- dira, **paradoxikoki**, hedabide narkotizatzaile horien kontsumitzaile handienak. **Juan Garzia**

Beste muturrean, dena itzuliz -literatura ez den beste guztia itzuliz, **paradoxikoki** -dena konponduta legokeela uste dutenen paradisia dago. **Anjel Lertxundi**

Ez-lekuan dabil, baina, **paradoxikoki**, edo ez hain **paradoxikoki**, hondarrean irakurle abstraktua konkretu bilakatzea nahi luke, itsutuki. **Jose Angel Irigaray**

Ematen du denbora bakarrik egongo litzatekeela hausturaren une hutsean, pitzadura zuri eta **paradoxikoki** intenporal batean, non bat-batean eraketa batek bestea ordezkatzeko duen. **Xabier Arregi**

## parafernalia *iz* zeremonia edo ikuskizun baten inguruko bitartekoen erakuskeria.

Telebistak hilketaren inguruko **parafernalia** emango zuen -politikarien joan-etorriak, bizilagunen sorpresa, polizia-bururen baten adierazpenak-, ez besterik. **Anjel Lertxundi**

Urteak dituk abertzaleen **parafernalia** hori guztia barregarri samarra iruditzen zaiala. **Jokin Muñoz**

Ebek txuteak prestatzeko **parafernalia** guztia lehenbiziko tiraderan gordetzen du. **Sonia Gonzalez**

Azkeneko bi diskoekin egin bezala, zuzenean ere ikuskizun hutsari lotutako **parafernalia** baztertu nahi izan du taldeak, eta mezua emanaldiaren ardatzetako bat bihurtu da. **Berria - Harian**

Kameren aurrean azaltzen zen **parafernalia** guztia -aurkezleak eta gonbidatuok barne- berdin zegoen, bere ikusgarritasun oparoan. **Karlos Linazasoro**

Nirekin soberan zagon **parafernalia** esoteriko guztia, hori badakin. **Iban Zaldua**

## parafina 1 *iz* gai solidoa, zuria, usaingabea, 50 eta 60° C-ren artean urtzen dena, hidrokarbuero nahastura batek osatua, kandelak egiteko eta papera irazgaitz bihurtzeko erabiltzen dena.

Ehunka gramo batzuk gantz-azido lapurtuak nituen, barrikadaren beste aldeko nire lankideren batek **parafinaren** oxidaziotik neke handiz lortuak: [...] goseka kentzen zuten gantz-azidoak zinez. **Juan Garzia**

Labeko erretiluak edo lapikoak **parafinaz** edo estearinaz igurtzi, eta oreka bi ordu eta erdiz labean egosi. **Josu Zabaleta**

Izan ere, **parafinarekin** egiten diren kandelak erretzean ustez minbizi sortzaile diren estirenoa eta naftalenoa aireatzen dira, formaldehidoarekin batera. **Berria - Gaiak**

### 2 (hitza elkartuetan)

Bere burua ikusten du neskaren pisuan, haren logelan, kanpoan euri zaparrada ari duela, eta berogailua logelaren ertz batean, **parafina** -usaina dariola. **Oskar Arana**

## parafraseatu, parafrasea, parafraseatzen du *ad* testu baten parafrasia egin.

Esatera zaharra **parafraseatuta**: aukera urte, gezur urte. **Berria - Kultura**

Etxean sartu bezain laster, afarian errezitatutako poema aintzakotzat hartzen zuelarik, esaldi bat **parafraseatu** zuen Emmanuelek: "Erbestean nago bakarrik, baina ez nago



jada bakarrik: zu, Sara, ene jainkosa...".

Joan Mari Irigoien

Samuel Beckettek Bibliaren hasierako esaldia **parafraseatuz** hasi zuen *Murphy* eleberria: [...]. Anjel Lertxundi

*hed* Oso lekukoa sentitzen naiz baina, era berean, leku guztietan nahiko arrotz, "ez banintz hemengoa" bezala, Sarrionandia **parafraseatuz**. Ana Urkiza

Gizona bere digestio guztien bilduma da, esan liteke Faulkner **parafraseatuz**. Iñaki Iñurrieta

## parafraseatzaile iz parafraseatzen duen pertsona.

Honelaxe dihardu etengabeki **parafraseatzaileak** bere azalpenetan (bakea bego harekin!). Xabier Kintana

## parafraasi iz testu bati, argitzeko, eranstean zaien azalpena; testu baten itzulpen askea; esaldi edo hitz baten edukia gordez baina forma aldatuz taxutzen den esaldia.

Parasite guztiak jaso, eta gero itzuli eta gaztelaniazko **parafrasien** bidez azaltzen saiatzen da. Iñaki Iñurrieta

"Jaitsiko naiz eta ikusiko dut" honela itzultzen du "Banoa, beraz, agertzero eta ikustera"; eta hauxe da bere **parafrasian** etengabeki egin ohi duena. Xabier Kintana

Zer egingo diot? Hollywoodek egin nau, Graham Greeneren **parafraasia** eginez. Berria - Kultura

*Gogo* hitza edo bere eratorriren bat aurkitzen duen bakoitzeko, erdarazko **parafrasien** bidez saiatzen da azalpenak ematen, kasuan kasuko xehetasun, ñabardura bereziaz.

Iñaki Iñurrieta

Hobe da termino bakuna **parafraasia** baino. Askoren artean

## parafrastiko izond parafrasien bidezkoa.

Hasiera batean, Enrikek ez zien atzeman nondik norakoa iruzkin **parafrastiko** haiei, eta arreta lauso moduko batez gainbegiratzeko zituen. Iñaki Iñurrieta

## paragoge iz hitz baten amaieran hots bat edo gehiago eranstea; hitz baten amaieran hots bat edo gehiago erantsiz sortzen den figura erretorikoa.

Etimologia kontuetan, protesia, **paragogea** eta epentesia ditugu, hurrenez hurren, fenomeno hauen izen espezifikoa, eta zilegi bekigu geurean ere erabiltzea. Iñaki Arranz

Hots, hitz bat luzatu beharrean, laburtu egin duela, gero hitz laburtu hori hitz osoaren aurrean paratuta, sasi-**paragoge** bat sortzen duela: [...]. Iñaki Arranz

## paragrafo 1 iz prosazko testuetan, letra larriz hasi eta puntu eta bereiz batez bukatzen den atal bakoitza.

Konturatu al zarete aitzinsolas honek lau atal dituela (lau letrako izenburu banarekin), atal bakoitzak lau **paragrafo**, **paragrafo** bakoitzak lau esaldi? Iñaki Arranz

Kapitulu honetako bigarren **paragrafoan**. Itziar Laka

Garrantzi handia du **paragrafoa** eduki-unitate gisa hartzeak. Askoren artean

**Paragrafo** hau guztia esaldi bakarra da jatorrizkoan. Askoren artean

Jaso zenuten txostenean **paragrafo** batzuk falta ziren. Berria - Harian

Geroago barkamenaren **paragrafoa** erantsi zuen. Askoren artean

Paragrafoz **paragrafoko** azaleko irakurketa. Askoren artean

Bi **paragrafo** irakurri orduko, Arazo izeneko jaunak jo zuen nire atean. Oskar Arana

-Izan ditut nik goizean **paragrafo** batekin hasi, eta gauean **paragrafo** berarekin bukatu ditudan egunak -esan zuen idazleak. Joxerra Garzia

Gobernua erantzukizunetik askatu ondoren, hona aldatuko ez ditudan beste **paragrafo** batzuen bidez [...] herritarrekin zer modu amultsu eta humanitarioan jokatu zuten kontatzen du. Jon Alonso

**Paragrafoak**: luzeegiak izatea ez da ez praktikoa ezta itxurosoa ere, ideia zuzen eta zehatz aurkeztea komeni baita; **paragrafo** guztiak justifikatu; izenburuaren hurrengo **paragrafoa** ez justifikatu; lerro artean tarte eta erdi utzi; **paragrafotik paragrafora** bi tarte utzi. Askoren artean

Zenbaketa B-ko eransketa da, bertan Kantek A-ko **paragrafo** bakarrari beste hiru gaineratu baitzizkion. Ibon Urbarri

Analogien lehen **paragrafo** hau B-ko eransketa da.

### 2 (izenondoekin)

*Egunkaria*-ko artikuluan osorik zetorren nire izena, Julen Lamarain Lizaur, nire biografia laburbiltzen zuen laudoriozko **paragrafo** koxkor batekin. Juan Luis Zabala

Zuzenbide-liburuko **paragrafo** joriak, hasieran lausoak, gero argitu egin ziren. Lopez de Arana

Hauek dira minimalismo narratiboaren ezaugarriak: kontakizun laburrak, esaldi laburra eta **paragrafo** motza nagusi direnak, oso eszenografia eskasa, pertsonaia gutxi, eta ekintza, drama, gutxiestea. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

lehen **paragrafo** hau (4); **paragrafo b**; **paragrafo bat** (5)

**hurrengo paragrafoa** (3); **lehen paragrafoa** (3)

**hurrengo paragrafoan** (3)

## paraguaitar izlag/iz Paraguaikoa, Paraguairi dagokiona; Paraguaiko herritarra.

Elvio Romero poeta **paraguaitarra** hil da. Berria - Kultura

Gustavo Benítez **paraguaitarraren** bigarrena izan zen lehenik, eta gero Pitermanekin topo egin zuen. Berria - Kirola

## parahelio iz gertakari optikoa, eguzkiaren eskuinean edo ezkerrean agertzen diren orban distiratsuetan datzana eta hodeietan izotz zatiki kopuru handia metatzen denean jazoten dena.

'Mundu amaierako espektakulua,' esanen du Dnack, **paraheliotan** errepikatuko den eguzkia seinalatuz. Joseba Sarrionandia

## parainstituzional izond erakundeen ordezko gertatzen dena.

Egun batean, gutun-ontzia zabalitzean, gero eta ugariago jasotzen dugun posta ofizial-komertzial-**parainstituzional** parrastaren erdian, eskuz idatzitako eskutitz bat ikusi nuen; letra harrigarri handiz idatzita nire izen-helbideak, eta guztiz ezezaguna igorlearen deitua. Markos Zapiain

## paraiso ik paradisu.

## paraje 1 iz aire zabaleko lekua edo alderdia, bereziki landakoa. ikaurkintza.

Ez al zenekien zer leku mota den **paraje** hori? [Anjel Lertxundi](#)

Bidea zelaitu egiten den **paraje** batean, enborrak daude metatuta eta kamioien zain, eta ibiltaria ogitarteko tiki bat jatera gelditzen da egurrezko horma horren babesean. [Bernardo Atxaga](#)

Luis Oterminek Urbasko **parajeetan** ateratako argazkiak. [Berria - Euskal Herria](#)

Gezurmendi Azkoitiko **parajea** da, herritik ez oso aparte. [Iñigo Aranbarri](#)

Mandaska izeneko **paraje** batean elkartzen ginen denok, bertan zegoen iturri baten inguruan. [Bernardo Atxaga](#)

Fusilatzeo ekarriak zituzten, nonbait, **paraje** hartara. [Inazio Mujika Iraola](#)

Zergatik hil ote da justu hemen, harria besterik ez dagoen **paraje** honetan? [Eskarne Mujika](#)

"El Cerco" esaten dioten **parajeen**. [Ramon Saizarbitoria](#)

Zakur asko desagertu zen aspaldian **paraje** haietan. [Harkaitz Cano](#)

Ur bazterren gainetik mota guztietako txatarra, kargak eta garabiak **paraje** haien jabe bihurtzen ziren. [Paddy Rekalde](#)

Sasien gorabeheran baino aldatzen ez ziren **parajeak**. [Unai Iturriaga](#)

Susmoa zuen **paraje** haiek ez zituela gehiago ikusiko. [Felipe Juaristi](#)

**Paraje** hura urrun baitzegoen eta ez zen inguruetan inor bizi. [Askoren artean](#)

Beste leku batzuetan, adibidez Magnesian eta Efeson, badaude **paraje** batzuk non bloke horiek prestatuta ateratzen baitira. [Santiago Iruretagoiena](#)

**Paraje** hartan ez zen batere ohikoa polizia furguoiak ikustea. [Pedro Alberdi](#)

"Girik" Irundik eta Beratik laguntza bidaltzea agindu bazuten ere, laguntza horren arrastorik ez **parajeetan**. [Txillardegi](#)

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Paraje** ederren ikusmira eskaintzen zuen eta horretarako zurezko banku egokiak zeuden errepide ertzean txukun apailatuak. [Juan Luis Zabala](#)

Ez da **paraje** makala Arizkunek inguruan daukana. [Hasier Etxeberria](#)

Bazeudela Madrilen geltokiak baino **paraje** goxoagoak. [Ramon Saizarbitoria](#)

Erdigunetik hurbil egon arren, urbanizatu gabeko **paraje** bakartia zen hura. [Patxi Iturritegi](#)

Guardia ibiltarikoak ez baitziren hain **paraje** urrutietaraino ausartzen. [Anjel Lertxundi](#)

Izerditan **paraje** kupidagabe hartan, izerditan **paraje** latz hartan. [Felipe Juaristi](#)

Hareatza kiskalietan aintzirak, **paraje** agorretan iturburuak. [Elizen arteko biblia](#)

Hurrengo egunean, jauna ehizan ari da **paraje** malkartsu batean. [Martin Anso](#)

Leku beroetatik iparraldeko **paraje** hotzetara aldatzen direnak. [Santiago Iruretagoiena](#)

Afaritan, gaztainak jateko ohitura dute **paraje** nordiko horietan. [Pello Zabala](#)

Haize bolada bortitz eta oso abiada ezberdinekoak agintzen dute **paraje** elurtu eta jelaz hormatu horietan. [Pello Zabala](#)

Tanger ez da Afrikako gainerako **parajeak** bezalakoa. [Xabier Aranburu](#)

Beste aukera, urrutiko **parajeak** ikusteko amorrua dakarrenarentzat, "mundua ezagutzea" da. [Iñaki Segurola](#)

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goiehenetxek horretarako alde zuzenetik hautaturik zuen mendi **paraje** batean. [Berria - Kultura](#)

Sakana aldeko Unanua aldean -izotz toki, izotz **parajerik** bada, Sakanakoa-, [...]. [Pello Zabala](#)

Katarain estudioan daude biak, Azkarateko (Nafarroa) natur **paraje** bikainaren erdi-erdian. [Berria - Kultura](#)

Mingarri zitzaizdan gazte denboran bake-**paraje** izandako muino eta zelai leun haiek, orain balen zitzukada giro odoltsuan topatzea. [Txillardegi](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**herriko paraje** (3); **izeneko paraje batean** (3); **paraje bakartia** (3); **paraje ederrak** (3); **paraje ederrean** (3); **paraje latz** (3); **paraje mortu** (3); **paraje paregabe** (3)

## parakaidista iz paraxutista.

Akademia Militarrean zegoen, eta laster graduatuko zen **parakaidista** bezala, eta eguneroko bat idazten zuen. [Pako Aristi](#)

Bigarren Gerrate Handiaren hasieran, armada alemaniarrek Dunkerke bonbardatu eta Belgikari eraso egin zionean, belgikar askok uste tinko bat omen zeukan, alegia **parakaidista** naziak apaiz jantziak erabiltzen ari zirela aiseago mugitu ahal izateko. [Bernardo Atxaga](#)

Araguako **Parakaidisten** Erregimentuan. [Pako Aristi](#)

## parakera iz jarrera.

Horrela, behazun larrik sukarra ematen dionarengan, edo beste edozergatik gaixotasun gogorra nagusitzen denarengan, gorputz osoa perturbatzen da eta lehenkien **parakera** guztiak hankazgoratzen dira. [Xabier Amuriza](#)

## parakimiko iz kimikoaren ordezkua gertatzen dena.

Aspaldian utzi zenituen atzera hamazazpi urteak, eta bestetik jardunbide **parakimikozko** karrera luzeak hilduratu egin zaitu. [Juan Garzia](#)

## paraklito iz Espiritu Santua.

JJPAF: Oi, **Paraklitoa**! [Karlos Linazasoro](#)

## paralaxia iz gorputz baten kokapenaren itxurazko lekualdatzea, behatzailearen kokapenaren aldaketak eragina.

**Paralaxia** akats nimoño batengatik. [Patxi Iturritegi](#)

Telebista-pantaila baten aurrean lekuz aldatzen bagara, adibidez, ez da gure mugimenduak eragindako inolako perspektiba dinamikorik, inolako mugimendu **paralaxiarik** izango. [Josu Zabaleta](#)

# paralela iz

Kargatu du bere FN Browning-a, bi kartutxo daramatzen **paralela**, eta bigarren basurdeari ere kale, hirugarrenari ere bai, horrela seirekin huts egin arte. **Pako Aristi**

## paralelepipedo 1 iz aurpegiak paralelogramoak diren eta aurrez aurreko aurpegiak berdinak eta paraleloak dituen hexaedroa.

**Paralelepipedo** errektangeluar bat da. **Monika Etxebarria**

Lerro zuzenean zehar mugitzen den **paralelepipedo** angeluzuzen batean. **Xabier Olarra**

Liburua eskuetan dugin gai bat dela baderitzogu ere, bera biltzen duen **paralelepipedoan** ostentzen bada ere, bere batasuna aldakorra eta erlatiboa da. **Xabier Arregi**

### • 2 paralelepipedoari dagokiona; paralelepidoaren forma duena.

Gorputz **paralelepipedo** haiek berrinez beteriko ontziak izanak ziren: berniza birika-mamiturik, latorrizko ontziak ebaki zituzten, eta haien edukia han joan zen zaborren pilora. **Juan Garzia**

## paralelismo iz kidekotasuna, antzekotasuna. ik paralelotasun.

**Paralelismoak** edo kointzidentziak, deitu nahi duzun bezala, baina kanpo-egitate horiek ez dira bi gizon horietako bakoitzaren bizitzaren barne-egia bezain garrantzitsuak.

**Oskar Arana**

Polita da **paralelismoa**, nola bakoitzak bere aurreko gerran jartzen duen erreferentzia, gaitzen jatorria eta hizkuntzaren galbidea abiarazteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nobela honetan **paralelismo** eta kontraste asko ageri dira, batzuk oso esanguratsuak. **Jon Muñoz**

Garibai herren utzi zuten pasadizo horretatik abiatu, zer hobe Loiolako Inazio garaikidearekin **paralelismo** bat egitea baino arrasatear ikaslearen konbertsioa kontatzeko?

**Anjel Lertxundi**

Horrela, gaizkiaren eta ongiaren arteko **paralelismo** saihestezina adieraziko dut. **Jon Arretxe**

**Paralelismorik** garrantzitsuena gertakizunen ardatza bera izan liteke: bikoteen harremanak. **Jon Muñoz**

## paralelo 1 izond lerroez, planoen edo kidekoen mintzatuz, distantzia bera atxikitzen dutenak.(geometrian)

S letratik ardatzarekiko **paraleloa** den lerro bat egingo da zirkuluerdiaren ertzearaino, eta puntu horretan Y letra markatuko da. **Santiago Iruretagoiena**

Paraleloak, ekuatorearen planoarekiko **paralelo** diren lurraren gainazaleko zirkuluak dira. **Joseba Sarrionandia**

Alde horretan bertan, lerro horrekin **paralelo**, beste lerro bat egiten da, zirkulua kanpotik ukitzen duena. **Santiago Iruretagoiena**

Era honetako perspektiba-sistemetan, hiru dimentsioko espazioetan elkarren **paralelo** diren zuzenak puntu bateranzko konbergentzia duten zuzen (edo kurba) bilakatzen dira. **Josu Zabaleta**

D eta D' zuzen ebakitzaile bikotean, AA', BB', CC', lerro **paralelo** multzoak proportzioan dauden zuzenkiak ebakitzen ditu. **Jon Muñoz**

Bi zuzen **paraleloak** dira, baldin eta hirugarren zuzen batekiko zutak badira. **Jon Muñoz**

### 2 (bestelakoetan)

Bere hoteletik gertu zegoen, kale **paralelo** batean. **Ramon Saizarbitoria**

Farol-ilarak piztu ziren, Extremadurako errepidean bi marra **paralelo** eratuz. **Josu Zabaleta**

Bi marrazko **paralelo** berdin-berdin, hutsarte mehe batez bereziak. **Jon Muñoz**

Elkarren artean hiruzpalau metroko tartea zuten bi arrasto **paralelo** marraztu zituen haren puntaz patioko lur hilean. **Anjel Lertxundi**

Gorputza, horrela, harriaren altura osoan zehar dauden bi lerro **paraleloekin** zedarrituta gelditzen da. **Berria - Kultura**

Luze gabe, bi argi luze eta **paraleloren** keinua begiztatu dute errepideaz bestaldeko oihan ertzearan. **Pello Lizarralde**

Baratze hura bi alfonbra **paralelok** osatzen zutela esan zitekeen. **Karlos Zabala**

Barra **paraleloetan** aritzeko ezaugarri berezirik ez, baina erraztasuna dut. **Berria - Kirola**

· Snowboarda, eslalom **paraleloa** (gizonezkoak). **Berria - Kirola**

Snowboarda, erraldoi **paraleloa** (emakumezkoak). **Berria - Kirola**

### 3 (adizlagun edo predikatu gisa)

Trenbidea eta errepide nagusia **paralelo** doaz, herria mugatuz eta bien artean bilduz batere gustu onik gabe eraikitako etxeak. **Jon Arretxe**

Pista baten goialdean zeuden: eskiak ondo **paralelo**, beren buruak pikoak zirudien maldan behera botatzeko prest. **Jon Muñoz**

Gila galgatu zegoen, hau da, ontziaren gaina **paralelo** zegoen uraren planoari buruz. **Koro Navarro**

Bus-geltokiaren atzeko aldean eta trenbidearen **paralelo**, garai batean Austriaren bihitegi izandako eraikuntza luze erraldoiak daude, itsasoan eskuzabal sartzen den moila-adar baten gainean. **Anjel Lertxundi**

Olibondoek ilara perfektuak osatzen zituzten, bidearen **paralelo**, eta Antonioren begiek lerroari jarraitzen zioten, zuhaitzez zuhaitz, olibaz oliba, infinituraino. **Jon Maia**

### 4 beste gauza batekin kidetasuna duena.

Kontua duk..., ispiluez bestaldeko mundu **paralelo** sekretu hori hor dagoela. **Iñaki Iñurrieta**

Etorkizuneko istorio **paraleloren** bat bilatzen saiatu zen ispilua bestaldean. **Harkaitz Cano**

Pentsamendu bikoitz eta **paraleloak** egiten zizkizun adimenak aldi berean. **Hasier Etxebarria**

Hainbat herri berez hustu ziren 50eko hamarkadan; beste batzuetan, ltoitzen, Artozkin edo Muniainen, beste fenomeno **paralelo** bat gertatu da: eragindako despopulazioa.

**Eduarne Elizondo**

Gobernua ez du onartuko bere agindupetik kanpo egon daitekeen segurtasun indar **paralelorik**. **Berria - Mundua**

Bazen, beraz, beste bigarren historia bat, ikastetxeak goitik irentsarazi zigunarekiko **paraleloa**? **Juan Garzia**

Lydiek bizitza **paralelo** bat egingo balu bezala zen. **Harkaitz Cano**

Saia gaitzen irudikatzen gure unibertsoaren antzeko beste unibertso **paralelo** bat, ikusezina baina egiazkoa, Babelgo Liburutegia deituko diogu. **Anjel Lertxundi**

Ondoko urratsa 2007an egiten lukete, berezko instituzio **paralelo** bat sortuz. **Berria - Euskal Herria**

Konfuziar filosofia sinikoa Ekialde Urruneko Gizartean Txinan suspertzea eta Aristotelesen filosofia helenikoa Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadean suspertzea gertaera

**paraleloak** izan ziren hainbat aldetatik. **Iñaki Mendiguren**

Bi bilakaera **paralelo** horiek biologikoak ziren inondik ere. **Josu Zabaleta**

Administrazioak kontrolatu ezin duen errolda **paralelo** bat dago sortua Euskal Herriaren sustraietan barrena. **Iñigo Aranbarri**

Beizamako hilketaren ondorengo hilabeteetan bi gerra **paralelo** gertatu ziren: bata egunkariaren eta bertsolariaren (eta euskarazko aldizkaritxoaren) artean, bakoitzak bere hizkuntza erabiliz, eta bestea erdal eta euskal gizataldeen artean. **Pako Aristi**

Modu **paraleloan** landu behar ditugu bi bideak. ik beherago 9. **Berria - Gaiak**

Era **paraleloan** aurkeztutako istorioak kontatzen ditu, eta horien arteko harremana azaltzen doa, gutxika-gutxika. **Berria - Kultura**

### • 5 iz beste batekiko paraleloa den lerroa.

Zuzen batetik kanpo dagoen puntu batetik zuzen horren **paralelo** bat pasatzen da, eta bat bakarra. **Jon Muñoz**

**Paraleloei** buruzko 5. postulatuz da idazlana. **Jon Muñoz**

Hori ikusita, **paraleloen** beste interpretazio bat egin zuen al Khaiamek: bi zuzen paraleloak dira, baldin bi hirugarren zuzen batekiko zutak badira. Jon Muñoz

- **Paralelo** bat bestea baino luzeagoa zeukan! Jon Muñoz

## 6 Lurreko edo zeruko esferan, ekuatorearekiko paraleloa den zirkulua.

Geografoek asmatu meridianoen eta **paraleloek** sare bat zabaltzen dute luraren inguruan. Joseba Sarrionandia

**Paralelo** eta meridianoen arteko sareetan harrapatuta. Joan Mari Irigoien

Musika ere jartzen zuten iragan ekainera arte 38. **paraleloan** : gerra ereserkiak iparraldean, eta demokrazia eta askatasunaren aldeko himnoak hegoaldean. Berria - Mundua

Bukharako Khanerria hogeita hamazazpigarren eta berrogeita batgarren **paraleloen** artean hedatzen da iparretik hegora, eta hirurogeita batgarren eta hirurogeita seigarren meridianoen artean ekialdetik mendebaldera. Karlos Zabala

Udazkena laburra da alderdi haietan, nahiz Siberiako eskualde hori ez egon berrogeita hamabosgarren **paralelotik** gora, hau da, ez Edinburgo eta Kopenhage baino gariago. Karlos Zabala

Hegan egitea mendeetan, meridianoetan eta **paraleloetan** zehar. Juan Garzia

## 7 berdintasun edo kidesun erlazioa.

Earz liteke nolabaiteko **paraleloa**, ez erabat kapritxosoa, trebatze moral eta intelektual horren eta konfuziar klasiko sinikoei buruzko heziketaren artean. Iñaki Mendiguren

Bi garaien arteko **paraleloa** urrutirago ere eraman daiteke. Iñaki Mendiguren

**Paralelo** historiko honek erakusten du 1952an zenbateraino egon zitekeen etorkizuna ezkutuan Mendebaldeko munduaren gainerakoan izandako eragina aztertzen zuen Mendebaldeko baten buru-ikusmenarentzat. Iñaki Mendiguren

Lege-uniformetasun ekumenikoa ezarri zuen kolpe batean, bere Tsin-go erresuma zaharrean indarrean zegoen legeria berak konkistatu eta bereturiko sei estatu etsaien lurraldeetan ezartzea agindu zuenean, eta haren egitateak gutxienez bi **paralelo** moderno izan zituen Mendebaldean. Iñaki Mendiguren

## 8 *paraleloansup\_1 adlag* denbora berean eta modu berean.

Rio de Janeiroko goi bilerarekin batera izan zen Foro alternatiboan ofizialaren **paraleloan** egindako goi bilera izan zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Paraleloan** luzatzen den Kordelieren karrikak lau elkarte bilgune bederen eskaintzen ditu. Herria

Logikoena zen **paraleloan** industria plana negoziatzea eta bestetik plan soziolaborala. Berria - Ekonomia

Espainiako Gobernuaren eta ETAre arteko elkarrizketak «**paraleloan**» joan behar du. Berria - Harian

## 9 (-ekin edo -en atzizkien eskuinean)

Astudillo Villamedianarekin eta Torquemadarekin lotzen zuen errepidearekin **paraleloan** joanak ginen ordura arte. Bernardo Atxaga

Euskal Herriko borroka armatua Irlandakoarekin **paraleloan** joan da beti. Berria - Harian

Galeria horretarik -errepidearen **paraleloan** luzatzen zen-, lau eskailera-mailetan baratzera jaisten zen. Josu Zabaleta

Han itsasoaren **paraleloan** zeuden kaleek zenbakiak zituzten, eta itsasoari elkarzut zeudenek, berriz, letrak. Jon Muñoz

## 10 *paraleloansup\_2 adlag* buru positiboak edo kidekoak alde batetik eta negatiboak edo kidekoak bestetik elkarrekin lotuz. ik serie 7.

Eremu horietariko bakoitza, segmentu bakoitza, zelula beretan **paraleloan** diharduten hainbat homeogeneren konbinazioak definitzen du. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egitura paralelo** (3); **instituzio paralelo** (3); **lerro paralelo** (4); **marra paralelo** (3); **mundu paralelo** (3); **paralelo gisa** (3)

**bilakaera paraleloa** (3)

**bide paraleloak** (3); **erakusketa paraleloak** (3)

**paraleloan joan** (3)

## paralelogramo *iz* aurrez aurreko aldeak berdinak eta paraleloak dituen laukia.

Hura agertu arte, ezin izan ziren egin irudi lerrozuzenen koadraturak baizik: laukizuzenarena, **paralelogramoarena**, trapezioarena. Jon Muñoz

## paraleloki *adlag* paraleloan, modu paraleloan.

Pentsamentu batek ematen zidan, oroz gain, minik handiena: nire bizitzarekiko **paraleloki** Beatriz berea biziz joango zela, minutuz minutu eta gaurik gau. Juan Garzia

Hogei urtetan hasi nintzen independenteki bizitzen, baina gehienetan bi edo hiru bizileku ukan izan ditut **paraleloki**: Bordele/Hendaia, Pau/Hendaia/Donibane Lohitzune, Montréal/Hendaia, Parise/Hendaia... Ana Urkiza

Pertsonaia zenbait binaka aterako dira liburuan zehar, **paraleloki** denbora eta lekuak gurutzatuz. Berria - Kultura

Era berean, sistematikoa den eta kategorien taulari **paraleloki** darion antolamenduaren legeztapenaren zordun gara oraindik. Ibon Uribarri

Alanbre sareetatik aski hurbil eta ortogonalki, presoen ohetegiak **paraleloki** altxatuak zituzten. Eneko Bidegain

Azken batean, dena doalako **paraleloki** eta ezer ez delako bukatzen. Harkaitz Cano

**Paraleloki**, elkarteak izendatu misionen karguduna, Christian Rodriguez, egun berean presentatu da zinetegian lanean hasteko. Herria

## paralelotasun *iz* paraleloa izateko nolakotasuna; kidesuna, antzekotasuna. ik paralelismo.

Izan ere, ASren azterketa zehatzago batek erakusten du **paralelotasun** hau are zabalagoa dela. Itziar Laka

Egun hartan gertatutakoa ez zen ordea ondoriorik gabea izan, zeren eta humanista ospetsuak **paralelotasun** bat aurkitu baitzuen ibilera haren eta bizitza izpiritualaren artean. Bernardo Atxaga

Dualismo kartesiarra bazterturik [...] izpiritualaren eta naturaren harmonia eta **paralelotasuna** proklamatzeko da, hots, bion monismo organiko-ebolutiboa, zientziak oraindik eman ezin ziena desirari eta irudimenari emanaraziz. Joxe Azurmendi

Erakzerria litzateke datuon estrapolazioa eginda **paralelotasun** ideologikoak ontzea. Iñigo Aranbarri

Abade bien arteko **paralelotasunak** ez dira orain arteko datu horietan amaitzen, ostera. Edorta Jimenez

Izan ere, Baring-Gould-en "Aurrera, kristau-soldaduak" kantak eta Booth jeneralaren "Salbazio Armadak" hitzetan nahiz ekintzetan **paralelotasun** bat dute Elizaren lehenengo egunetaraino iristen dena, Iñaki Mendiguren

## paralesia ik paralisi.

## paralesiatu ik paralizatu.

# paralinea *izlag/iz* Atikako Paraliakoa; Paraliako biztanlea.

Hala ere, abiatu zinen salaminarra eta **paralienarra** ontzien buru... Ziziliaren menperterera. **Itxaro Borda**

## paralinguistiko *iz* komunikazio bide natural ez-linguistikoei dagokiena.

Ondo esate horretan sartzen dira alderdi prosodikoak (intonazioa, isiluneak), alderdi **paralinguistikoak** (ebakera, erritmoa...) eta estralinguistikoak (keinuak, jarrera, distantzia...). **Txema Ramirez de la Piscina**

Alegia, ez dira kontuan hartzen bertsoaren gainerako alderdiak, hala nola prosodikoak, **paralinguistikoak**, extralinguistikoak eta musikalak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Elementu **paralinguistikoak** asko aldatzen dira hiztun-komunitatearen arabera, talde bakoitzak imintzio eta keinu kode propioa daukalako. **Xabier Paya**

## paralimpiada *iz* elbarritasun motaren bat duten kirolariak jokatzen duten olinpiada.

Azken **paralimpiadak** ditu, eta ez du bere proban jardungo. **Berria - Kirola**

150 atleta, **Paralimpiadetara** joango diren 30 tartean. **Berria - Kirola**

## paralimpiari (orobat **paraolimpiari** g.er. eta **paraolimpiari** g.er.) **1 izlag** paralimpiadetakoa, paralimpiadei dagokiena.

**Paralimpiari** kirolean palmares luze eta bikainenetakoa duen kirolaria bilakatu da. **Berria - Kirola**

Bestetik, abuztuan eta irailean Olinpiar eta **Paralimpiari** Jokoak izango dira Atenasen. **Berria - Mundua**

Gaur amaituko dira Atenasko **Paralimpiari** Jokoak. **Berria - Kirola**

Hamar egun joan dira Turingo Neguko **Paralimpiari** Jokoak amaitu zirenetik. **Berria - Kirola**

Bi izango dira **Paralimpiari** Hiriak: Turin eta Sestriere. **Berria - Kirola**

Nazioarteko **Paralimpiari** Batzordeak atzo jakitera eman zuenez. **Berria - Kirola**

### 2 (izenondo gisa)

Goiz partean Sandra Gomez igerilari **paralimpiarrik** ongietorri hitzaldia egingen du Takoneran. **Berria - Harian**

Orduaren munduko marka hobetzen saiatuko da gaur, Basaurin, Javi Conde atleta **paralimpiarra**. **Berria - Kirola**

Igerilari nafarra da Gomez, eta iazko joko **paralimpiarretan** urrezko domina jaso zuen. **Berria - Harian**

### 3 *iz* paralimpiari kirolaria.

Proban hogeit **paralimpiari** biltzea espero dute antolatzaileek. **Berria - Kirola**

Boccian **paralimpiarrek** baino ez dute jokatzen, baina bere jatorria Grezia klasikoan dago. **Berria - Kirola**

**Paralimpiarren** artean, Jose Castilla izan zen nagusi. **Berria - Kirola**

Azken **paralimpiarra** izanda, gehiago pentsatzen duzu etorkizunaz eta iraganaz, eta nostalgia pixka bat ere badut. **Berria - Kirola**

### 4 *iz pl* paralimpiari jokoak.

Euskal igerilariak bikain ari dira **Paralimpiarretan**. **Berria - Kirola**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atenasko paralimpiari jokoetan (4); neguko paralimpiari (6); paralimpiari joko (3); paralimpiari jokoak (20); paralimpiari jokoetako (3); paralimpiari jokoetan (19)  
joko paralimpiarretan (4)

## paralimpiko *iz* paralimpiari kirolaria.

Ia bi metroko kankailua, Sydneyko **paralimpikoa** bera, barra finkoan eta zaldi arkudunean zerbait irabazitakoa gainera, brontzezko domina edo diplomaren bat, horretaz ez zen ondo gogoratzen. **Patxi Iturritegi**

## paralisatu ik paralizatu.

## paralizatzaile ik paralizatzaile.

## paralisi (orobat **paralipsis** g.er., **paralesia** eta **palesia** g.er.) **1 iz** higitzeko ahalmenaren galera. ik elbarritasun.

Pedro Mancanella Gaetako hiritarrek, **paralisi** batengatik, besoaren eta eskuaren erabilera galdu zuen, eta ahoa ere belarriraino okertua zeukan. **Askoren artean**

Gorputzaren eskuin alde osoa **paralisi** oso larri batek hartuta, mugimenduarekin batera, sentimena, entzumena eta hitza galdu zituen. **Askoren artean**

**Paralisiak** jota geratu baitzen ezkerreko hankatik betiko. **Felipe Juaristi**

Herrikka berean, **paralisiak** jotako gazte bat ahoa ireki ezinik eta begiak oker-oker zituela gelditu zen. **Askoren artean**

**Paralisiak** jo aurretik, ardoa, etxekoa, gasnaren lagungarri, edatea medikuak debekatu zionean. **Itxaro Borda**

Eta, legendarretik garbi eta **paralisitik** askaturik, erabateko osasuna lortu zuen. **Askoren artean**

Litekeena **paralिसiren** batekin geratzea, nire emaztearen moduan. **Bernardo Atxaga**

Bihotzaren bat-bateko **paralisi**z etorri zitzaion heriotza. **Josu Zabaleta**

Burmuineko **paralisi**a duen Richard Pascuak, bestalde, oinak erabiltzen ditu teklatuko botoiak zapaltzeko. **Berria - Euskal Herria**

Garuneko **paralisi**a dutenei laguntzeko elkarteak. **Berria - Euskal Herria**

Odoljarioaren eraginez **paralisi** bat egon daiteke eta Sharonen mintzamina bera ere ukituta egon daiteke. **Berria - Mundua**

**Paralisi**a arnasketa sistemara iristen denean hiltzen dira gaixoen %8. **Berria - Gaiak**

**Paralisi** orokorretik entzefalopatia kronikoraino, izaeraren neurositik deliriorik gabeko zortasuneraino. **Xabier Arregi**

### 2 irud/hed ik geldialdi.

Dublinek ere arima hautsia du, eta **paralisi**z jotzen du bizkortze ahalegin oro. **Markos Zapiain**

Idazten hasteko uneak mito zahar bat dakar, **paralisiarena** alegia. **Askoren artean**

Arrazoiz gutzia edukitzearen pisu astunak harrapatuta, **paralisi** moduko batek harrapatzen gaitu sarritan. **Hasier Etxeberria**

Pedro Manterola da, izatekotan, museoa **paralisitik** atera dezaketen bakarretakoa. **Berria - Kultura**

Estatuarekin negoziatzerakoan azken urteetan gertatu diren bezalako **paralisiak** gertatuko ez diren bermea izatea, Europan presentzia gehiago izatea eta udalerrien

eskuduntzak areagotzea. [Berria - Euskal Herria](#)

Azkenik, demokrazia ez da ogi zerutik etorria, arazoak konpontzeko tresna baizik; demokrazia sagaritzeak, [paralisia](#) dakar. [Markos Zapiain](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Delphine Sallaberry Matxonekoak utzi gaitu nehor beha ez zagolarik [palesia](#) kolpe baten biharamunean. [Herria](#)

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etxe domotiko bat zabaldu dute Bartzelonan, garun-[paralisia](#) eta beste zenbait ezintasun dituzten pertsonentzako. [Berria - Gaiak](#)

Petankaren oso antzekoa da, eta gurpildun aulkietan jokatzeko da, burmuin [paralisi](#) larrien edo ezindu fisikoen artean. [Berria - Kirola](#)

Dokumentuan «alferrikakoa», «porrota» eta «antolakuntza [paralisia](#)» eta gisako beste akusazioak egin dizkiote diputatuek, eta milioika dolar alferrik xahutzea leporatu.

[Berria - Mundua](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

[paralisiak jota](#) (3)

[paralisiatu](#) ik [paralizatu](#).

[paralisis](#) ik [paralisi](#).

## paraliteratura *iz* denbora-pasako literatura, adituek literaturatzat hartzen ez duena.

Literatura kanonikoa eta literatura mediatikoa bereizi zituen atzoko hitzaldian; edota, beste hitz batzuekin esanda: literatura eta [paraliteratura](#). Literaturako lanak bakana eta errepikaezina izatea bilatzen du; [paraliteraturak](#), aitzitik, jarraipena izateko aukera izatea bilatzen du... [Berria - Kultura](#)

[Paraliteraturarekin](#) ez da literatura eraikitzen, ez da tradizioa aberasten. [Berria - Kultura](#)

Kanpoko eraginak [paraliteraturara](#) heltzen dira lehenik, zuringora, eta geroago eragin horiek literaturara heltzen dira, gorringora. [Berria - Kultura](#)

[Paraliteraturak](#) ekintzak kontatzen irakasten du, kontaketa antolatzen, hitz berriak ere irakasten ditu... [Berria - Kultura](#)

## paralitiko (*orobat paralitiku g.er.*) 1 *izond/iz* paralisiak jota dagoena. ik [elbarri](#).

Atso [paralitikoa](#) ematen duzu bolantean. [Sonia Gonzalez](#)

Zergatik hiltzen dituzte haur jaioberriak, [paralitikoak](#), oligofrenikoak, militarrik? [Karlos Linazasoro](#)

Logelako iluntasunean [paralitikoaren](#) aurpegi zurbil eroria ikusten nuela iruditzen zitzaidan. [Irene Aldasoro](#)

-Parabolako [paralitikoa](#) baino okerrago nagok, baina enetatz ez zagok mirakulurik... [Joan Mari Irigoien](#)

Artzainak Tahoetik bueltan eman zion azalpena errepikatu zuen haren hizkera bizkaitarra aski ondo imitatuz: "Mutil hau [paralitiku](#) gelditu ete da? pentsatu neban nik".

[Bernardo Atxaga](#)

## 2 (izenondoekin)

Bestea, Judy, [paralitiko](#) zerebrala, ordutan eta ordutan egoten zen Gregekin eserita hura ere. [Xabier Olarra](#)

[paralitiku](#) ik [paralitiko](#).

## paralizatu (*orobat paralisatu g.er., paralisiatu g.er., palesiatu g.er.*) 1 da/du *ad* paralisiak joa gertatu; paralisiak jo. ik [elbarritu](#).

Ezkerreko gorputz-erdia geratu zitzaion [paralizatuta](#), eta horren eraginez, apoplexiaren aurretik baino gehiago estutu ziren ama-alabaren harremanak. [Ramon Saizarbitoria](#)

Etxeke arazoan arduragatik egindako promesaz ahaztu zen, eta gorputzeko eskuinaldea [paralizatu](#) zitzaion. [Askoren artean](#)

Burtziak sartu ondoren, izter-zainak ebaki zizkiola, dagaz, eta horrela [paralizatu](#) eta hebaindu zuela dukeak zezen hura. [Joan Mari Irigoien](#)

Toxopasmosiak beso bat [paralizatu](#) zion. [Joan Mari Irigoien](#)

[Paralizerik](#) nengoen, ordea, ezin nuen hitz bat bera ere esan. [Monika Etxebarria](#)

Nire zerebroa [paralizerik](#) zegoen gertatutakoa onartu ezinik, odola sentitzen nuen lokietan punpaka. [Anjel Lertxundi](#)

Aurpegia biziki desitxuratua izateaz gain, partzialki [paralizerik](#) du, nahi gabe malkoak isurtzen ditu. [Berria - Mundua](#)

Erdian nago eta une batez izu kolpea sentitzen dut, arnasa [paralizerik](#) dit, itolarria, eta instintiboki besoak azkarrago mugitzen ditut... [Iñaki Iñurrieta](#)

## 2 higitu ezinik gelditu; higitu ezinik utzi.

Ezin nintzen mugitu: [paralizerik](#) nituen gihar guztiak, arma-arma-sarean erori den eulia baino harrapatuago. [Anjel Lertxundi](#)

Tigreak orro egin zuen, eta [paralizerik](#) eta odol-hozturik geratu ginen han geundenak. [Joan Mari Irigoien](#)

[Paralizerik](#) nengoen, nire ezinik lotuta nindukan: kanposantu batean nengoen, eta ni nintzen hilkutxakoa. [Anjel Lertxundi](#)

Egitasmoak tentatzen ninduen, asko, adore faltak [paralizerik](#) ninduen neurri berean. [Ramon Saizarbitoria](#)

Izuak geldiarazi eta [paralizerik](#) egin zuen, finean. [Joan Mari Irigoien](#)

Pauso bat eman, eta [paralizerik](#) bezala geratu nintzen berriro ere. [Ramon Saizarbitoria](#)

[Paralizerik](#) antzean geratu zen Joselu, bihurrikeriaren batean harrapatutako umearen moduan. [Josu Landa](#)

## 3 irud/hed

Haren ondorioz, sei hilabeteko grebak [paralizerik](#) zuen Palestina. [Pablo Sastre](#)

Segurtasun Kontseiluko kideek «adostasuna bilatzeko ahaleginean» sarritan erakundeak [«paralizerik»](#) egiten dutela gaineratu zuen. [Berria - Mundua](#)

Taldea [paralizerik](#) egin zen. [Berria - Kirola](#)

Herritarrak [paralizerik](#) egingo lirarteke dena legeek aginduta egin beharko balute. [Ester Antxustegi](#)

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Hain zuzen ere, Joycek salatu nahi zuen gizarde indargabetu, [paralizerik](#) eta ohiturei lotu huraxe. [Irene Aldasoro](#)

## paralizerik *iz* paralisiak joa gertatzea; higitu ezinik gelditzea.

Aldaketa erradikala egin behar da erabakitzeko eran, orain hogeita bosten artean [paralizerik](#) arrisku handia baitago. [Berria - Euskal Herria](#)



## paralizazio *iz* paralizatzea.

Correosek ez du langileen espedienteen **paralizazioa** bermatu. Berria - Ekonomia

Urtarrilaren 2an langileen asanbleak Correoseko zuzendaritzak aurkeztutako beste proposamen bat ukatu zuen, enpresak ez baitzuen «zigor espedienteen **paralizazioa** bermatzen». Berria - Ekonomia

## paralogismo *iz* fede onez eginiko arrazoibide faltsua.

Horrela, Kantek bere sistema kritikorako abiapuntu duen arrazoimenaren **paralogismoetako** batera iristen gara. Xabier Kintana

On partikularrak on publikoaren atzetik geratu behar duela esatea **paralogismoa** da: hori hiriaren nagusitasunari dagozkion kasuetan bakarrik gertatzen da. Iñaki Iñurrieta

Inferentzia dialektiko honi **paralogismo** transzendental deituko diot. Ibon Uribarri

**Paralogismo** logikoa formaren arabera gertatzen den arrazoimen-inferentziaren faltsutasuna da, edukia dena dela ere. Ibon Uribarri

Substantziatasunaren lehen **paralogismoa**. Ibon Uribarri

Psikologia transzendentalaren bigarren **paralogismoaren** kritika. Ibon Uribarri

## paramakular *izond*

Nabaria zen erretinaren erdialdeak, makula aldeak -zorroztasun handirako eta finkamenerako ezpezializatutako aldeak, alegia-, ia ez zuela funtzionatzen, eta haren inguruko alde **paramakularri** esker zuela halako ikusmena. Xabier Olarra

## paramentu (*orobat paramenta*) *iz* hormaren azala; horma.

XVIII. mendeko eraberritze lanek jatorrizko eliza erromanikoaren **paramentuak** estali zituztela eta, ondorioz, egun ikusten direnak baseliza «berriaren» paretak direla, horien atzetik jatorrizkoak ezkutatuta, kutxa batean sartuta izango balira bezala. Berria - Kultura

Akats horretan erori nahi ez duenak hutsik utzi beharko du bi **paramentuen** arteko tartea, eta barruan bi oin zabaleko hormak egin beharko ditu harri karratu gorriarekin edo adreilu errearekin edo silex harri arruntekin, ilaratan jarriz; eta **paramentuak** barruko beste horma horiekin lotu beharko ditu, burdinazko kakoak sartuz berunarekin hartuta.

Santiago Iruetagoiena

Markoaren gainetik ateratzen den **paramentaren** ezker-eskuin geratzen diren hegalak, oinarriak luzatu eta ingeletean elkartuz, zimazioarekin bat egiteraino luzatu behar dira. Santiago Iruetagoiena

## paramera *iz* paramo asko dagoen eremua.

Pagadia da, eta **paramerak** baino harantzago dauden sailetan zabaltzen da. Bernardo Atxaga

## parametro 1 *iz* kopuru aldagaitza, nahierara finkatzen dena eta aldagai askezko funtzio baten forma zehazten duena; kalkulu bateko elementu konstantea.

Palo Altoko astrofisikari batek, orbitaren **parametroak** zehatz-mehatz kalkulatu ondoren, "2001 SG506" izenaz bataiatu zuen. Patxi Iturrategi

Nahiz errepikatzen den unitatea berbera izan, badira kontuan hartu beharreko beste **parametro** batzuk, hala nola, zenbat aldiz errepikatzen den unitate hori, [...]. Berria - Gaiak

**Parametro** asko neurtzen dituzte bertan, tartean, oxigenoa eta uraren tenperatura. Berria - Gaiak

Hematokrito eta hemoglobinaz gain, beste **parametro** batzuk ere neurtuko dituzte, Analisisiek odoleko hainbat **parametro** neurtuko dituzte, denak ere TKEn araudiak jasotzen dituen moduan. Berria - Kirola

### 2 irud/hed ik faktore.

Europako Batzordeak eta Kontseiluak finkatutako **parametro** ekonomiko eta sozialetara erabat egokitu beharrak langileen egoera kaltetuko du, esaterako industria bermoldaketak egin beharko dituztenean. Berria - Mundua

Bi **parametrok** definitzen dute formatua: irudiaren tamaina absolutuak eta haren neurri nagusien tamaina erlatiboak. Josu Zabaleta

Gizarte arkitektura aldatu egin da, mundua galtzaile eta irabazleen artean banatuz, **parametro** geografikoaren arabera baino gehiago. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bada garaia masturbazioa beste edozein jokabide aztertzen den **parametroekin** aztertzeko: zer onura ditu?; ba al du ondorio txarrik? Luis Elberdin

Lanbideko **parametroez** neurtuz gero, arrakasta izugarria du, baina giza elkarreraginak -gizartekoak, sexualak- ez ditu "harrapatzen". Xabier Olarra

Ongizate sozioekonomikoa eta barne zein kanpo elkartasuna Europa mailako **parametro** modernoetara garatzeko Berria - Euskal Herria

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskararen kultur unibertsoak, izan ere, bere bizi-baldintza bereziak ditu; bere estrategia propioak garatzen ditu; [...]; bere merkatu-**parametro** eta masa kritiko bereziak ditu.

J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Fisika klasikoaren ezain ekuazioek ez dauka denbora-**parametrorik**. Juan Garzia

'StarTiger 2' proiektuaren bidez astronauten bizi-**parametroak** neurtuko dituzten jantziak diseinatu nahi ditu Europako Espazio Agentziak. Berria - Gaiak

Kirol-**parametroetan** ohitua da gure bertsolari belaunaldia. Andoni Egaña

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**parametro berri** (3); **parametro demokratikoetan** (5); **parametro ekonomiko** (3)

## paramilitar 1 *izond* armada baten egitura eta diziplinaren arabera antolatua dena.

Mexikotik irten gabe, bada Chiapasen talde **paramilitar** bat, Armada Zapatistaren kontra egitea duena xede. Iñigo Aranbarri

Talde **paramilitar** loialisten eta beste erakunde **paramilitarren** armen auziari ekitea geratzen zaigu. Berria - Harian

Horrez gain, beltzargetako bat jaso zuten bi carabinieri (polizia **paramilitarra**) sendagileen zaintzapean jarri zituzten, bada ezpada ere. Berria - Gaiak

Euren ustetan, Matute «egitura **paramilitarraren** berrero hutsa» besterik ez zen izan. Berria - Euskal Herria

### 2 hed

Mugimenduak isilak izan dira eta utzi dituzten zenbait lurralde lurralde **paramilitarrak** dira. Berria - Harian

IRAren ekintza **paramilitarrak**. Berria - Harian

### 3 iz talde paramilitar bateko kidea.

Euren bizi baldintzak hobetzeko asmoz komunitateetan bildu diren indigenak **paramilitarren**, militarren eta poliziaren biktima dira. Berria - Harian

Gerrillak, **paramilitarrek** eta soldaduek emakumeak sexu harremanak edukitzera behartzen dituztela salatu du AEBetako giza eskubideen aldeko erakundeak. Berria -

Gaiaik

Zure senarra **paramilitarra** da orduan. Joseba Sarrionandia

Guk **paramilitarrei** hilean hainbeste ordaintzen diegu eta babestu egiten gaituzte. Joseba Sarrionandia

Kontuan izan behar da **paramilitar** loialistek etxebizitza eta biztanle katolikoei erasotzen jarraitzen dutela. Berria - Harian

Íñigo Egiluz kooperante bilbotarra eta Jorge Luis Mazo apaiz kolonbiarra hil zituen eskuin muturreko **paramilitarraren** kontra. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erakunde paramilitar** (5); **paramilitar kolonbiarrak** (3); **paramilitar kolonbiarren** (3); **paramilitar loialista** (4); **paramilitar loialistak** (6); **paramilitar loialistei** (3); **paramilitar loialistek** (9); **paramilitar loialisten** (8); **talde paramilitar** (28); **talde paramilitar loialista** (3); **talde paramilitar loialistei** (3); **talde paramilitar loialistek** (4); **talde paramilitar loialisten** (5)

**talde paramilitarrak** (13); **ustezko paramilitarrak** (3)

**talde paramilitarrei** (3)

**paramilitarrek armak entregatu** (4); **talde paramilitarrek** (6)

**auc talde paramilitarreko** (3); **talde paramilitarreko** (15); **talde paramilitarreko buru** (3)

**paramilitarren burua** (4); **polizia eta paramilitarren** (3); **talde paramilitarren** (5)

## paramilitarismo *iz* jarduera paramilitarra.

**Paramilitarismoa** gerrillariaren gehiegikerien aurrean norbanakoek izandako erreakzioetatik sortu zela. Berria - Mundua

Londresetik sortu zuen Behaketa Batzorde Independentek **paramilitarismoari** buruz eta ekintza kriminaleri buruz txosten bana argitaratuko ditu urrian eta urtarrilean. Berria - Harian

**Paramilitarismoaren** eta Londresen aginte zuzenaren bukaera eta denek parte hartuko duten gobernuaren eraketa eskura daude. Berria - Mundua

Juan Camilo Restrepo dio AUCrekiko negoziazioen ondorioz **paramilitarismoa** instituzionalizatu eta azken 25 urteotako nekazaritza kontraerreforma legeztatzen ari direla. Berria - Mundua

## paraninfa *iz* ninfa modukoa.

Gurasoek espero zuten, amabixiaren aldetik semearen etorkizuna hornitzeko zerbait, eta horregatik, haurrari aitabixiaren izena emateko bakarrik agintzen duen aztura alboraturik, **paraninfa** horren izena gehitu zitzaion, mutilentzako adieran, hori bai. Jon Alonso

## paraninfo *iz* unibertsitateetan, ospakizunak egiteko erabiltzen den gela berezia, ospakizun aretoa.

Urtero bezala, ikasturtea hasteko ekitaldi handia egin zuen Deustuko Unibertsitateak Bilboko egoitzako **paraninfoan**. Berria - Euskal Herria

Deustuko Unibertsitateko **paraninfoan** egin zuten, eta aretoa bete-beteta izan zen. Berria - Euskal Herria

Monterok emaitzen berri eman bezain laster, batzuen poza eta besteen tristura nabaria zen Zientzia eta Teknologia fakultateko **Paraninfoan**. Berria - Euskal Herria

600 pertsonak segitu zuten ekitaldia **Paraninfo** barrutik, eta beste 800 edo 1.000 inguruk aldameneko Unibertsitate eraikuntzako batean horretarako propio prestatutako zinema-aretoa. Berria - Kultura

## paranoia **1** *iz* buru nahasmendua, pentsamendu logikoari eragiten ez dion delirio kronikoan edo ideia bakar bati eustean datzana.

Tabernakoak zorrotz beha zeuzkala iruditu zitzaizen Mikeli eta bere **paranoiari**. Unai Iturriaga

*Izarren Gerra* zeritzan Reaganen **paranoia** hura zela eta, baseko biztanleria 10.000 soldadura igo omen zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horrek segurtasunaren **paranoia** sortzen du, baina ez du segurtasuna bermatzen. Berria - Mundua

Mundu guzian hedatzen dute berek pairatzen duten **paranoia**. Herria

Naziek ere, arraza garbiaren **paranoia** hartan, Polonian-eta bahitzen zituzten haurrak, germaniartzeko. Jokin Urain

Izarren Gerra zeritzan Reaganen **paranoia** hura zela eta, baseko biztanleria 10.000 soldadura igo omen zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Paranoiatik** monomaniaraino hel gaitzeki, adimen-koizientetik ergeltasunaren lehen adigairaino, paralisi orokorretik entzefalopatia kronikoraino. Xabier Arregi

Eskizofrenia: **paranoiarekin** batera buru gaixotasunik larriena da. Berria - Euskal Herria

Une horietan pizten zitzaizkan zalantzaren **paranoia** : turkiarrak zer egin ote du Antjerekin? Fernando Rey

**Paranoia** baten mende, gizon txikiak bere saihesta-hezurrak zenbatu zituen, banan-banan: ez zitzaion bakar bat ere falta, jainkoari eskerrak. Harkaitz Cano

Zer **paranoia** zen hura, ordea? Fernando Morillo

Bere **paranoian** antisemitismo eta neonazismo tantak nahasten ditu. Berria - Kirola

"Zerbait" hori gezurretan ari da ia beti, baina **paranoia** on osasungarri batek hari kasu emateko ohartarazten dizu, eta **paranoiak** agindutakoa egiten duzu azkenean.

Karlos Zabala

Kontrako eztarriko psikiaterek idoro ziguten hipernormaltasuna **paranoiaren** era bat dela. Íñaki Segurola

**Paranoia** hutsa ote? Xabier Montoia

Erantsiko dut, kontakizuneko fraideak azaltzen duen **paranoia** politiko-erotiko hori ez dela neuk asmatua. Xabier Mendiguren Elizegi

"Zer da hau?", "zertan ari naiz?", "ze zentzu du honek?", "nondik nora nabil edo noa?"... izan ohi dira jeneralean **paranoia** arduratsuen galderak. milurtekoaren inguruko

**paranoia** amaigabe honetan. Íñaki Segurola

Gure **paranoia** guztiek berrero bakar bat izaten dute mehatxu. Anjel Lertxundi

Hire **paranoiak** ditun horiek. Patxi Iturritegi

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aristotelesengandik hona izandako logikorik handiena, **paranoia** mota guztiek jota zegoen. Fernando Morillo

Bizitza osoan egin ditudan loturek ere **paranoia** -puntu nabarmena zuten? Anjel Lertxundi

Gertatua senarraren **paranoia** -puntuari eragotzi zion Mary Welshen. Edorta Jimenez

Beste baten pertsonalitatean sartzean beti gaude **paranoia** arriskuan, baina horrekin ez zaigu burua joaten. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**segurtasunaren paranoia** (3)

## paranoiatxo *iz* adkor paranoia.

Uste dut neure itzultzaile-halabarrek eragindako **paranoiatxo** hola-halako batek baino zerbait funtsezkoagoak naramala bat-etortze hori seinalatzeri. Juan Garzia

## paranoide 1 *izond* paranoiaren antzekoa.

Aldiz, "Telebistatik ez, inkomunikazioa dakar eta" eta "Txinoen esperoan" ipuinek, irudiaren bitartekaritzari uko egiten dioten letralatra eta mistikoen desgaraiko egoera pintatzen digute: asperkeria frigidoa zein eldarnio **paranoidea** hurrenez hurren. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 *izond/iz* jokaera paranoideek joa dena.

Polimiliak - **paranoide** alkoholikoa, Sedanok esan zidanez- hiru egun egin zituen etxean aurikular handi batzuk jarrita, baina ezin izan zuen deus aurkitu, noski. **Ramon Saizarbitoria**

## paranoidetxo *izond* adkor paranoidea.

Baina oraindik gelditzen diren baseritar mendiganadu bakanentzat, jendejera betizu temoxo **paranoidetxo** horrentzat, zer gara gu?, nor gara gu? **Iñaki Segurola**

## paranoiko 1 *izond* paranoiari dagokiona; paranoiak joa.

Terrorismoari (borroka armatua euren hiztegi **paranoikoan**) etenbako gorazarre egitetik bizi da, beraz. **Xabier Montoia**

Lotura **paranoikoak** egiten hasita nago? **Anjel Lertxundi**

Gizontxoaren istorio **paranoikoan**, pixkana-pixkana, herriko elezahar aspalditik temati errepikatu baten oihartzuna sumatzen hasia nintzen. **Juan Garzia**

Jakina da behar bezalako emakume gaixoa garbimin eta zikin-beldur **paranoiko** batek harrapatua bizi dela. **Iñaki Segurola**

Jazarpenak Bobbyren izaera **paranoikoa** areagotu baino ez zuen egin. **Berria - Kirola**

Normala zirudien, baina nortasun ziklotimiko **paranoiko** hipotentso samarrekoak suertatu zen azkenean. **Xabier Olarra**

Gaur geure gogoz uzten diogu bidea zabalik garbiketa antiseptikoari, garbiaren garbitu-behar **paranoikoari**. **Iñaki Segurola**

Estatua bezain **paranoikoak** bihurtzen ari ginen. **Itxaro Borda**

Noraren infidelitatea begien bistakoa zen, galderak egiten hasten nintzen eta dena ukatzen zuen, nik ezin nuen ezer demostratu, erotu nintzela zioen, **paranoiko** nengoela. **Mikel Hernandez Abaitua**

## 2 (izen gisa)

**Paranoikotzat** joko ninduen. **Xabier Montoia**

**Paranoiko** hark kontaturikoaz fidatzerik ote zegoen zerabilen Estherrek gogoan. **Xabier Montoia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**metodo paranoiko** (3); **paranoiko bat naiz** (3); **paranoiko bihurtzen ari** (3)

## paranormal *izond* gertakariez mintzatuz, azalpen zientifikorik ez duena.

Jakina, fenomeno **paranormalak** maite ditugu denok! **Harkaitz Cano**

Etxean 0-4 galtzen doan taldearen lehen gola Liga ematen duen gola balitz bezala ospatzea gertakari **paranormaltzat** har daiteke. **Berria - Kirola**

## paraofizial *izond* ofiziala izan ez baina ofizialtzat hartzen dena.

Lintxamenduak ezker zein eskuin, aldra **paraofizial** zein iraultzaileetan izan ditu aldekoak, baita Lynch bera jaino aurretik ere, jakina. **Iñigo Aranbarri**

## paraolimpiar ik paralinpiar.

## paraolinpiar ik paralinpiar.

## parapatetiko *izond*

Tajo ibaia han atzean genuela, gazte bi poetak, bata asmatikoa bestea sintomatikoa, biak **parapatetikoak**, portugesez olerkiak esaten. **Edorta Jimenez**

## parapente *iz* kirol paraxut laukizuzena.

Nylonez egindako **parapente** bat jarri zioten. **Berria - Gaiak**

**Parapenteak** hamar metroko luzera eta hiru metroko zabalera zuen. **Berria - Gaiak**

Gizon bat ito da Bidarten **parapente** egiten ari zela. **Berria - Euskal Herria**

**Parapentean** beste bizpahiru hegaldi egin ondoren. **Joan Mari Irigoien**

Nima sherpa gazteak, Nima, Namtxeko sherpa nobelako pertsonaia nagusiak, **parapentean** ibili nahi du. **Berria - Kultura**

Frantzian **parapentean** ibiltzen ikasi zuenetik, hara eta hona joaten dela asteburuetan, hegan egitera... **Joan Mari Irigoien**

Literatura nik barruan daukadana ateratzeko modua da; nik **parapentean** salto egiteko daukadan modua. **Ana Urkiza**

## parapentezale *izond* parapentearen zale dena.

Telebistan ikusi izan genituen, behin edo behin, **parapentezaleak** hegan, Alpeetako mendietan. **Joan Mari Irigoien**

## parapetatu, parapeta, parapetazen da/du *ad* zerbaiten atzean babestu.

Hamar bat polizia daude beste horrenbeste postutan **parapetatuta**. **Harkaitz Cano**

## parapeto 1 *iz* tiroetatik-eta babesteko pareta, ezponda edo kidekoa.

Lurrezko **parapeto** laukoitz berria ere hantxe baineukan, neronen aurre-aurrean, jaurtikitako granaden irteera Gazteluko kanpaiaz abisatzerakoan, traba larri bihurtuta.

Txillardegi

Arieteari eusten ziotenen buruen gainetik, **parapeto** bat jartzen zen dorretxo baten mukodua, bi soldadu babesean jarri eta inolako arriskurik gabe etsaiek zer egin nahi zuten zelatatu eta aurrez abisatzeko ederki balio zuena. **Santiago Iruretagoiena**

Urbiara iritsi baino lehen [...] lubakiak eta **parapetoak** nonahi. **Koro Navarro**

Igande batzuetan herriak zezenketak antolatzen ditu eta plaza hau dauka anfiteatrotzat, **parapetoaren** luzean zoruari iltzaturiko zutabeetarako lotuneek erakusten duten bezala. **Koldo Izagirre**

Bainu-askak paretaren eta **parapetoaren** tartean daukan zabalera ez du izan behar sei oin baino txikiagoa. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 erokikoetatik babesteko hesia.

**Parapeto** batek babesturiko ur gardenezko geruza batek bete du kobazulo osoa. **Koldo Izagirre**

## paraplasmo *iz*

Ageri denez, "**paraplasmo**" batez ari gara, betiko forma baten aldean erantsiriko forma bat ezartzeaz, hau da, sortze bati buruz azken batean. **Isabel Arrigain**

## paraplegiko *(orobat paraplejiko; Euskaltzaindiaren Hiztegian paraplegia agertzen da) izond/iz gorputz atal simetrikoetako (bereziki bi zangoetako) paralisia duena.*

Halako batean eguzki aldeko mailaditik agure zantar, totel eta **paraplegiko** bat altxatu dun erruki-etxeko mojatxo baten laguntzaz. **Patxi Iturritegi**

Haietako bat **paraplegikoa** zen eta beste bat adimen urrikoa. kazetari askoren aitzinean, gaixotasun larriak zituzten **paraplejiko** batzuk, bat-batean, aukitit zutitu eta ibiltzen hasi ziren, Lazaro moderno batzuk izango balira bezala. **Berria - Mundua**

## paraplejiko ik paraplegiko.

## parapolizial 1 *izond* taldeez-eta mintzatuz, poliziatik at, eta itxuraz poliziarri laguntzeko, indarkeria erabiltzen duena.

1981ean hiru euskal herritar hil zituen Batallón Vasco Español erakunde **parapolizialak** Hego Euskal Herrian. **Jokin Urain**

1977 eta 1980 bitartean 89 euskal herritar hil ziren, militateen ekintza-istripuetan batzuk, eta gehien-gehienak Poliziaren eta talde **parapolizialen** erasoetan. **Jokin Urain**

PSOEk 1982an agintea eskuratu bezain pronto euskal erresistentziarekin amaitzeko martxan jarri zuen GAL izeneko talde **parapoliziala**. **Berria - Euskal Herria**

Gorputz polizialek 160 hildako eta talde **parapolizialek** 67 inguru» eragin dituztela. **Berria - Euskal Herria**

Beharrezkoa da indar polizial eta **parapolizialek** eragindako beste hainbat biktimaren lan taldea ere eratzea. **Berria - Euskal Herria**

## 2 talde parapolizialena, talde parapolizialei dagokina.

1979ko urtarrilean Jose Manuel Pagoaga Gallastegi Peixoto larri zauritu zuten eraso **parapolizial** batean. **Jokin Urain**

Jokaera «**parapolizialak**» erabiltzea egotzi die Aralarrek. **Berria - Euskal Herria**

## 3 (izen gisa)

Polizien eta **parapolizien** indarkeriaren biktimei. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erakunde parapolizialak** (3)

## parapsikologia *iz* oraindik ongi ezagutzen ez diren gertakari psikikoen azterketa.

Erantzun baten bila ibili zen filosofian, ideologietan, psikologian, baita **parapsikologian** ere, eta aseko zuen teoriarik ezear, larrimin horrekin segitu beharko zuen beti.

**Berria - Kultura**

Borroeroari, zenbait alditan, egoerak beharturik, in situ lan egitea tokatu zaio; hala futbol partidu batean, nola **parapsikologiari** buruzko seminario batean. **Karlos**

**Linazasoro**

## parapsikologo *iz* parapsikologian espezialista den medikua.

J.O. SARRIEGI, **parapsikologoa**. **Iñaki Arranz**

## parasitatu, parasita, parasitatzen du *ad* norbaiten bizkarroi gisa bizi. • *irud/hed*

**Parasitatzen** nauen gaitzaren erroen ikertzea, aitaren trahitzea liteke neuretakoa. **Itxaro Borda**

## parasitismo *iz* norbaiten bizkarroi gisa bizi denaren egoera. • *irud/hed*

Alternatiba teorikoak badaude, jakina: atzerri laguntza areagotzea, baina beharrari erantzungo liokeen laguntza, ez hango edo hemengo oligarkia batzuen onerakoa, eta **parasitismorik** gabea, gainera. **Iñaki Heras**

Laguntza horietako asko lanarekin bateraezinak direnez, lanik ez egitera bultzatzen dutela -alegia, "**parasitismo** soziala" sustatzen-, edota laguntza eskatu behar duenaren "pobreziaren estigma" areagotzen. **Iñaki Heras**

**Parasitismo** kulturala ederresten eta zilegitzen. **Itxaro Borda**

Lanik ez egitea anitzentzat bekaturia zen, **parasitismo** bekaitz tematsua. **Itxaro Borda**

## parasito 1 *izond/iz* animaliez edo landareez mintzatuz, izaki bizi baten gorputzean, haren bizkarretik eta hari kalte eraginez bizi dena. ik **bizkarroi**.

Eitxo **parasito** baten bidez kutsatzen dira gizakiak malariarekin. **Berria - Gaiak**

Hortxe dauzkagu mikroorganismo **parasitoak**, gaitzen eragileak... **Berria - Gaiak**

Gorotz gramo bakar batean 10 milioi birus, milioi bat bakterio eta 1.000 **parasito** inguru daude. **Berria - Gaiak**

Giza gorputza prestatuta dago hainbat mikrobio, birus, bakterio, onddo eta **parasitok** kalterik egin ez diezaioten. **Luis Elberdin**

Digestio-aparatuan espezialista zen lagun batek esan zidanez, hesteetako infekzio larri bat zuen, *cryptosporidium parvum* izeneko **parasitoak** eraginda, itxura batean.

Joan Mari Irigoien

Eltxoek zabaltzen duten *Plasmodium falciparum* izeneko **parasitoari** erasaten dio zuzenean. **Berria - Gaiak**

Horrela, zure idealaren arabera bizi ahal izango zara aurrerantzean, alabatxo: **parasito** baten antzera alegia, senarraren kontura... **Joan Mari Irigoien**

## 2 irud/hed

Eusko Jaurilaritzako kapar **parasito** bat gehiago. **Unai Iturriaga**

Horra euskal iraultzaile **parasittoa**, nere izenarekin nere bihotza erre nahian. **Patziku Perurena**

Ez dakit ohar horrek zein helburu duen, alderdi baten **parasito** bihurtu nahi duen edo zer. **Berria - Euskal Herria**

Hareharria mesprezatu samarra dute geologoeak, uste dut erresuma mineraleko **parasitoen** artean sailkatzen dutela. **Koldo Izagirre**

## parasitosi iz parasitoek eragindako eritasuna.

Hautzarotik jasaten omen zuen **parasitosi** horren ondorioen artean migrainak, arreata falta eta lan luzei aurre egiteko ezintasuna egon zitezkeela jakin zuen. **Iban Zaldúa**

## parasoil ik parasola.

## parasola (orobat parasol, paisol eta parasoil g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiari *parasola* agertzen da) 1 iz ipar aterkia. ik guardasol.

Anartean, bai uztailean eta bai abuztuaren lehen egunetan, Iparralde honetan dauden udatiarrek **parasolak** edo euritakoak erosi dituzte, ondartza gelditzen dela jenderik gabe, umezurtz. **Bego Montorio**

Xinpleki jantzia zen atsoak, **paisola** irekirik zeukan esku batean, eta bertzean aldez, janari plata txiki bat. **Ramuntxo Etxeberri**

Anhauzeko eliza koka ahala betea zen eta zonbait kanpoan **paisolen** azpian... **Herria**

Goizetik, Aldudeko plaza bete da jendez eta... **parasolez**. **Herria**

## 2 eguzkitakoa.

Familia jostariak, beren paperezko poltsa, ontzi eta palekin, **parasol** eta botilekin, neska zorionsuak eta eguzkiak erreak, beren eguzki kremekin, mutil belztu bularralde irtenekikoak eta haien inbidiaz zeuden mutil zurbil txalekoz jantziak. **Koro Navarro**

Derbitxeak, gerriraino biluzik eta ileak buruan **parasol** baten gisa hedaturik, dantzan ari ziren suaren gainean, hankak airean eskuekin ukitzen zituztela. **Fernando Rey**

## 3 eguzki parasola

Urratsez urrats, xut-xuta, lumadun xapel zabal bat buruan, iguzki-**paisol** bat eskuan, kana bat bezala zerabilena, bazoan lehen lerrotan zuen bere kaderaraino. **Michel Oronoz**

## parasta ik parrasta.

## parataktiko izond gramatikan, koordinazioari dagokiona.

Aurrez landuriko osagaien antolakuntza **parataktikotzat** hartu zuen muntaia. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Gauza asko nahasten dira hor aldi berean: herri-kontalaritzaren aipamena, Döblinen idazkeran ahozkotasanak zuen garrantzia, obrak egituratzeko Döblinen bide **parataktiko** episodikoa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## paratestu iz testu baten inguruan agertzen diren testuen multzoa.

Nobela hau, aurreko hiru iturri horietatik sortua da, baina, batez ere, eta egileak liburuaren **paratestuetan** oso argi adierazten duen bezala (hitzaurrea, epilogoak, azken solasa...) helburu didaktikoa duen narrazio literarioa dugu nobela hau. **Berria - Kultura**

**Paratestutik** abiatu dut ibilbidea, titulutik, hain zuzen ere. **Berria - Kultura**

Lehenik hizkuntzan [...] azpimarratu behar baita euskaraz den bertsiore bakarrik dugula hemen begien aitzinean; bigarren, aitzin-testu edo **paratestuetan**, bertsiore honetan baitira bakarrik aurkitzen. **Aurelia Arkotxa**

## paratestual izond paratestuarena, paratestuari dagokiona.

Eta bertsolariaren kinesiaz zer esan? Baliabide **paratestualak** epai irizpideetan ostatu hartu duten honetan, badira horri etekina ateratzen asmatu dutena. **Berria - Harian**

## paratu, para, paratzen (orobat parau g.er.) 1 du ad jarri.

Eskuburdinak hik **paratuko** dizkiok? **Aingeru Epaltza**

Aparkatzea galaraztearren Udalak **paratutako** jardineratariko batera hustu nuen sabela. **Aingeru Epaltza**

Afixak **paratu** dituzte: "Kamaradak...!". **Pablo Sastre**

Neskatila jantziak **paratzen** zizkion, andrakiletak ematen zizkion, neska balitz bezala mintzatzen zitzaion. **Gotzon Garate**

Esku bat **paratu** zuen osaba Jeffen sorbalden gainean. **Lopez de Arana**

Taxistak fardelak **paratuak** zituen maletagian eta kotxe gainean. **Joxemari Urteaga**

Gasa bildu bat **paratu** zidan azalaren eta haragiaren artean, "jarioari eusteko", azaldu zidanaz. **Urtzi Urrutikoetxea**

Egun batez, salmenta oholtoetan, gorteko jaun-andrerik ezagunenen izenak **paratu** zituen esleituriko oilar, arraia eta berdelen parean. **Karlos Zabala**

Izengoitia **paratu** zidan: "Nabarrenkoeko zezenkoa". **Aingeru Epaltza**

Evak begi berde ilunak **paratu** zituen Idoiaren keinu iheskorretan. **Sonia Gonzalez**

-Isuna **paratzen** badidate, hiretik pagatuko diagu. **Aingeru Epaltza**

**Paratzen** dizkioten oztopoak ez baitira nolanhikoak. **Berria - Euskal Herria**

Ongi zagon, baina orduan baldintza bat **paratuko** dinat. **Jon Alonso**

Lehengo fraide berberak edo beste fraide batek **paratu** du mintzaldia latinez. **Jon Alonso**

Mahaia **paratzeko** astia izanen dute agian! **Aingeru Epaltza**

## 2 (adizlagun eta kidekoen eskuinean)

Alemanek demokratikoki **paratu** zuten tronuan Hitler. **Markos Zapiain**

Muxarra batzuk geneuzkan erretzen **paratuak**. **Koldo Izagirre**

Gerorako uzten ibili da, hilabeteetan, orri zuriaren aurrean jarri beharko zueneko unea, lehenbiziko nota jo beharko zueneko, eltzea sutan **paratzekoa**. **Oskar Arana**

Martxan jarri dute irratia nazionala abian **paratzeko** proiektua. **Berria - Harian**

Autoa martxan **paratu** zuen. **Edorta Jimenez**

Gizonek, neke handiz, Errebanxa igeri **paratzea** lortu zuten; eta Stede Bonnet maiorra, bere lehen konkistak puzturik, itsasora irten zen ostera. **Juan Garzia**

Loreak erorita zeuden, eta ondo **paratu** ditut. **Alberto Barandiaren**

Ohetik jaiki eta belauniko **paratzen** nintzen, aitzak erregalatu zidan gurutzearen aitzinean. **Joan Mari Irigoien**

Hitz pareta elkarrekin **paratzea** nahikoa izaten da batzuetan, bere soiltasunean, ideia bat bideratzeko. **Iñaki Arranz**

Begirada gainean **paratu** zidanean eutsi egin nion, inoiz ez bezala, dena galdu eta aurreiritzirik gabe bizitza zerotik hasten duenaren antzera. **Eider Rodriguez**

Keinu azkar batez, kreditu-txartela platertxoaren gainean **paratu** zuen. **Jon Alonso**

Maniobraturuak hankak telegrafoaren mahai gainean **paratu** eta leihotik zeru urdinari begira gelditu zen. **Fernando Rey**

Atzean zeu azalduko zara eskopetaren kanoia nire bizkarrean **paratuta**. **Koldo Izagirre**

Gero, bide zorroa itxi eta bizkarrean **paratu** zuen. **Karlos Zabala**

Arrisku baten aurrean **paratzen** du zubiak gizona, eta hartan iragotzeko erabakiak, salbatu edo kondenatu eginen du. **Patziku Perurena**

Kopeta leihoaren kontra **paratu** dut. **Monika Etxebarria**

Jartoki batzu ere han-hemenka **paratu** hor ibiliko den jendearentzat. **Herria**

Jaurtileku egokia arretaz bilatu, kanoia hantxe tentuz **paratu**, eta handik egin behar izaten da aurrerantzean tiro. **Joxerra Garzia**

### 3 (bertsoak eta kidekoak)

Jazinto bertsolaria, Dorretoko ltxeban "Miruaren" enkarguz bertso haiek **paratu** omen zituena: [...]. **Pablo Sastre**

Jarraian, bertso batzuk **paratu** zizkion Becchinari, zeinak ez baitzekien haiek irakurtzen. **Juan Garzia**

Bertso hau Manuel Lekuonak **paratu** zuen, 1936ko gerra aurretik. **Martin Anso**

Trean baten batek olerkiak **paratuko** dizkio, aspaldi gurean kantuak ateratzen ziren legez, hau da, lilura hutsez. **Edorta Jimenez**

### 4 prestatu.

Jainkoek dena gizakientzat **paratu** dutela pentsatzen dutenean, egiazko arrazoitik alde guztietan asko urruntzen direla dirudi. **Xabier Amuriza**

Gela eguzkitsu bat **paratu** zion. **Anton Garikano**

Edo CIAk edo MI6ak (edo estralurtarrek) **paratutako** ke-errezela bat. **Iban Zaldua**

Naturak oso gaizki **paratu** izango zukeen gizadia -esan genezake Kanten antzera- laborariek edo etxekoandreek, zer egin behar duten jakiteko, filosofoaren zain egon beharko balute! **Joxe Azurmendi**

Diskurtsoak **paratu**, txostenak taxutu, prentsa oharrak idatzi. **Edorta Jimenez**

Bestalde, aipagarria da *Selected letters* -Gutun hautatuak-, idazlearen biografo ofizial Carlos Baker ezagunak 1982an **paraturiko** edizioa. **Edorta Jimenez**

Obra hau itzultzeko, Tullio de Mauro-k **paraturiko** edizio kritikoaz baliatu naiz. **Isabel Arrigain**

1988an, James Mellonek handik jasotako bi bat mila lekukotasunetarik hogeita bat bildu, eta liburu bat **paratu** zuen: *Bullwhip Days*. **Pablo Sastre**

### • 5 da ad jarri.

Azkoaga kapitainaren aginte-hotsaren menera, gizonak lerro ia zuzenetan **paratu** ziren. **Edorta Jimenez**

Mikel Strogoffen atzean **paratu** zen, xafra zabaleko sable kako bat eskuan. **Karlos Zabala**

Aurrean **paratu** nintzaion, zentzarazi nahian; baina haren hitz bakarra: kitto! **Joxe Austin Arrieta**

Alboan **paratu** zaidan emakume idazleak Carlosen pasadizoa kondatzen dit. **Edorta Jimenez**

Gau mahaiaren aurrean **paratu** zen, eskuak antxumaturik, Quenuri aurrez aurre begira. **Karlos Zabala**

Orduan altxatu, epailearen aurrean zutik **paratu**, eta sutan, bere gaztelania eskasean jaurti zion epaimahaiari: [...]. **Joxe Azurmendi**

Baseriko kare zurizko hormaren kontra **paratu** nintzen, buruz behera, neukan beso bakarraren gainean. **Harkaitz Cano**

Forma orotako itsasontziak eta neurri orotako txalupak etxeen aitzinean **paratuak**, dorrearen pean lotuak. **Koldo Izagirre**

Ni leihotik begira **paraturik** ere, lipar batez behintzat, joandako denbora bestaldera isurtzen zen-eta... **Txillardegi**

Peter goxo-goxo **paratu** zen ohearen oinean, egurrezko barran, eta luze begiratu zion. **Julen Gabiria**

Honek denak esan gura du, ez gaudela **paraturik** munduaren aurrez aurre, haren barruan baizik. **Joxe Azurmendi**

Bertako arduraduna, gizon lodi eta besamotza, sutan **paratu** da, eta nirekin joan da gidari patxadatsuak zeuden tokiraino. **Jon Arretxe**

Baina batzuk -suharrenak, suak hartuenak-, dena emateko prest bezala, edo lehenago, dena kentzeko prest **paratu** ziren. **Iñaki Iñurieta**

- Hitzik gabe bezala **paratu** naiz: [...]. **Txillardegi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibideak **paratu** (3); aitzinean **paratu** (4); alboan **paratu** (3); aretoan **paratu** (5); argazkiak **paratu** (3); aurrean **paratu** (23); aurrean **paratu** zen (5); aurrean **paratu** zuen (3); begira **paratu** (6); beha **paratu** (16); beha **paratu** zen (6); eni beha **paratu** (3)

erakusketa **paratu** (10); erakusketa **paratu** du (3); eskua gainean **paratu** (3)

kontra **paratu** (6); lanak **paratu** (8); lanak **paratu** dituzte (5); lurrean **paratu** (3); mahai gainean **paratu** (5); mahaiaren **paratu** (4)

obra **paratu** (4); obra **paratu** dituzte (3); ondoan **paratu** (8)

**paratu** da (4); **paratu** du (29); **paratu** zen (27); **paratu** zuen (44)

parean **paratu** (4)

gainean **paratua** (5); **paratua** den (3); **paratua** zen (3); **paratua** zuten (3)

mahaiak **paratuko** (3)

aurrean **paraturik** (6); beha **paraturik** (5); gainean **paraturik** (8); **paraturik** zeuden (3)

paratutako erakusketa (3)

paratutako erakusketa (3)

elkarren ondoan **paratzea** (3)

aurrean **paratzen** (10); beha **paratzen** (25); beha **paratzen** nintzen (4); beha **paratzen** zela (7); eni beha **paratzen** (4); gainean **paratzen** (7)

**paratzen** da (4); **paratzen** du (7); **paratzen** zen (10); **paratzen** zuen (6)

## paratxoke iz kolpe-leungailua. ik kolpe 13.

Ez ikaragarria halere: **paratxokea** eta faro bana geratu dira hondatuta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Agian auto **paratxokeetako** gogorriak izango dituk, edo misiletako perkutoreak... **Pablo Sastre**

Kalean hamabosten bat metrora aparkatutako auto batera iritsi nintzen, eta aurreko aldean makurtuta geratu, **paratxokearen** ondoan. **Xabier Olarra**

## paratxut ik paraxut.



## paratxutista ik paraxutista.

### paratzaile 1 iz paratzen duen pertsona. ik jartzaile.

Baina inprentako **paratzailea** kontsultatu ondoren, hipotesi hura guztiz baztertu zuen, ia. **Iban Zaldúa**  
New Orleansko mafioso zuri baten andre are zuriagoa, ordu eta erdian bere senarrari inon diren adar guztien **paratzaile**. **Aingeru Epaltza**  
Argitaratu zutenean, ordea, hona zer idatzi zuen argitalpenaren **paratzaileak**: [...]. **Iñaki Arranz**  
FBIren txostenaren **paratzailea** *informatzaile* hitza ipintzean bere buruaz ari da. **Edorta Jimenez**

### 2 (hitz elkartuetan)

Poligonotik kanpo, hesi **paratzaileak** lanean ari ziren. **Pablo Sastre**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**hesi paratzaileak** (3)

### paratze 1 iz jartzea.

Ezizenak sortzeko ere erabili dute idazle batzuek silabak atzeraka **paratze** hori. **Iñaki Arranz**

### 2 (hitz elkartuetan)

Lehengusiaz aldatu **paratze** -lanetan, eta dena konponduko zela pentsatzen zuen margolariak, koadroak bere pasioa zirelako eta ez zuelako jasaten, garai haietan, lan amaitugabearen mehatxua. **Iban Zaldúa**

## parau ik paratu.

### paraxut (*orobat paratxut g.er.*) 1 iz hegazkinetatik jauzi egiten duten pertsonen edo botatzen diren gauzen abiadura gutxitzeko erabiltzen den gailua, airean zabaltzen denean aterki handi baten itxura hartzen duena. ik jausgailu.

**Paraxut** bana eman ziguten bi-helizeko hegazkinera igo bezain pronto. **Harkaitz Cano**  
Europako bazter txikituren batera jauzi egingo nuen **paraxutaz**, gosez hiltzen ari ziren mutiko eta neskato galduak salbatzera. **Oskar Arana**  
Izan ote dute noizbait **paraxuta** ez irekitzeko tentaziorik? **Karlos Linazasoro**  
**Paraxut** zurigorri mordoia ikusten nuen han, nire azpian. **Harkaitz Cano**  
**Paraxuta** ahaztuta salto egin dudala. **Eider Rodríguez**  
Mars Expressen kamararekin robotaren **paraxutak** aurkitzen saiatuko dira. **Berria - Gaiak**  
Kapsula Utahko desertura erori zen asteazkenean, **paraxutik** huts egin ostean. **Berria - Gaiak**  
Nola biziko nintzen bada eternitate osoan kantu baten barruan, **paraxutarekin** salto egin eta kantuaren adarretan zintzilik geratuta ez bazen? **Harkaitz Cano**

### 2 irud/hed

Osasuna, beraz, eta **paraxut** bat zure biharamunean dagoen amildegi horretarako. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Hitzek propulzio indarra galdu zuten hegazkinen aldean; eta **paraxutik** gabe geratu zen memoria. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**paraxutek huts egin** (4)

### paraxutatu izond paraxut baten bidez jaurtia.

Alemanei salatua, arma **paraxutatu** batzuren gordetzen ari zela bildua. **Marzel Etxehandi**

### paraxutista (*orobat paratxutista g.er.*) iz paraxutarekin jauzi egiteko prestatu den pertsona.

Alemaniarrek jakinarazi dutenez, Frantziako kostaldean ingeles **paraxutistak** jaitsi dira. **Josu Zabaleta**  
AEBetako Armadako **paraxutistek** aurreko egunetan base militarren inguruan egindako ikusketetan hainbat arma biltegi aurkitu zituztela jakinarazi zuen atzo koronelak. **Berria - Mundua**  
Zeruaren amildegian berdeak ikusten zaizkit begiak, esan ohi zuen William Lang **paraxutistak**, hegazkinetik jauzi egin aurretik. **Karlos Linazasoro**  
**Paraxutista** asko ere lurreratu dira. **Josu Zabaleta**  
Kafea hurrupatzen ari zarelarik, norbait nabari duzu aldamenean, **paraxutisten** txapela gorria daramana. **Xabier Montoia**  
Zenbat gauza bururatzen zaizkio **paraxutista** beti beherantz datorren bitartean? **Karlos Linazasoro**  
**Paraxutisten** kasta bat sortu zuan orduan, supergizonak, kolorez apainduak, nabala gerrian eta fusilak eskuetan karriken jaun eta jabe paseatzen zirenak, musulman airea edo itxura zeukan edonor goratik hartuz. **Itxaro Borda**  
Zuhaitzean gelditzen den **paraxutista** bezala, hankak alferrik astintzen. **Lander Garro**  
Norentzat da zerua amildegi bat, **paraxutista** batentzat ez bada? **Karlos Linazasoro**  
Espainiako Armadako **Paraxutisten** Brigadak eta Infanteria unitateek ariketak egingo zituztela Euskal Herrian irailaren 19 eta 24 bitartean. **Berria - Euskal Herria**

### parazetamol iz analgesiko gisa eta orobat sukarraren kontra erabiltzen den sendagaia.

Ikerketek frogatu dute atxilotutako lagunari atzemandako substantzia ez zela heroina, **parazetamol** eta kafeinaren arteko nahasketa bat baizik. **Berria - Euskal Herria**  
Radio Racional entzuten duzu, Bud batzuk aldean eta **parazetamola** begi-bistatik galdu barik. **Lutxo Egia**

### parazientzia iz zientziaren ordezkoa egiten duen jarduera.

Baina Himmlerren asmoa haratago doa: Wewelsburg SSen ideologiaren eta **parazientzia** arioen santutegi bihurtu nahi du. **Alberto Ladron Arana**

# parazientziari iz parazientzia aritzen den pertsona.

Hizkuntzalari, doktore, jakintsu, matematikari eta enigmazale ugari ibili dira eskuizkribuaren ezkutukoak argitu nahiz azkeneko ehun urte hauetan, eta horiekin batera, saltsero, berritsu, pseudojakile eta **parazientziari** ugari. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

pardel ik **fardel**.

pardeltxo ik **fardeltxo**.

pardeltzar ik **fardeltzar**.

**pardo** *izond* arrea.

Margo ilunxka, zerua mendebal aldeko laino arrexkak berdindua, **pardo** zirudion hori, estimatua zuen laborariak. **Pello Zabala**

**pare** (*orobat par g.er.*) iz 1 batera doazen kideko bi izaki edo gauzaren multzoa. **ikbiko**.

Hitz pareak ditugu, beraz, eta **pare** horiek aztertzeari ekiteko, atal honen sarreran egin dugun sailkapenez baliatuko gara: [...]. **Iñaki Arranz**

Joaten naizenean hoge **pare** erosiko ditut. **Bernardo Atxaga**

-Ipinidazu sei **pare** -gaineratu zuen Kirxak. **Patxi Zubizarreta**

Hiru **pare** oinetako jarri zizkidan aztergai. **Xabier Montoia**

A zer **parea**! **Migel Angel Mintegi**

Disoziazioak ere **pare** homofonikoak sortzen ditu: *jakinez/jakin ez, etakideak/eta kideak, bihar/bi har...* **Iñaki Arranz**

Hots unitate bakarrak bereizten dituen hitz bik osatzen dute **pare** minimoa deitua, esaterako gazt. *perro/pero*, eusk. *katu/patu*. **Lourdes Oñederra**

Egia da, bai, **pare** minimo bat aurkitzen dugunean ziur egon gaitzkeela bereizkuntza fonemiko baten aurrean gaudela. **Lourdes Oñederra**

Finalean haatik 22-6 galdu du Poueyts-Bessonart **pareak**. **Herria**

ik bikote.

Gero, 12tik goiti **pareak**: Sorhuet-Oçafraïn, Idart-Istillarte, Carricart-Errecart, [...]. **Herria**

Gaueko tema errepikakorri nolabait erantzun nahiz, osabak eskainitako alfabeto berria eta kidezta bedainkatuen ilara hartu dut eskuetan, eta **pareak** bilatzen hasi.

**Txillardegi**

**2** (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

3 andere **pareak** ere azkar, pilota huts horrekin, beti irabazle! **Herria**

Tira, horra hor, ezkontide-**pare** zorionsua, bat bederen. **Mirentxu Larrañaga**

Mozkor **pare** ederra zuek biok, upel hondogabeok, hondamena ekarriko diozue nagusiari! **Jose Morales**

Orain bere titi **parea** dauka ikusmiran. **Eider Rodriguez**

Jauna, jauna, eros iezadazu uso **pare** hau... **Karlos Zabala**

Hamabi idi-**pare** zituen aurretik, Eliseok hamabigarrena zeramalarik. **Elizen arteko biblia**

23 kromosoma **pareak** zatitu ondoren, banan bana aztertzen dira. **Pello Salaburu**

Bi alkandora, hiru galtza **pare**, eta jaka beltz bat, eskoziar oihalezko partxea zuena. **Harkaitz Cano**

Gustatu al zitzaion arrebari atzoko galtza **parea**? **Harkaitz Cano**

Artilezko 2 galtzerdi **pare**, bakoitza 1,00=2,00. **Josu Zabaleta**

Bufalo bat hantxe zutik, gure aurrean, trenbidearen lerro-**pare** zuzenaren erdian. **Joxe Austin Arrieta**

*Borobil* eta *biribil* hitz **parean**, zein biribilago? **Iñaki Arranz**

ik *beherago* 7. **Askoren artean**

-Botika zabaldu aurretik enkargu **parea** egin behar dut. **Josu Landa**

Frantsesez ikasten egon nintzen uda **pare** hartan, hitz batez, ondorio hau atera nuen: [...]. **Txillardegi**

Harat burumakur, hiru begi **pare** malkotan. **Aingeru Epaltza**

Musu **pare** bana eman zioten elkari. **Joxemari Iturralde**

Kontua da Pliushkinek bota-**pare** bakarra zeukala etxean mendeko guztientzat. **Jose Morales**

Frantziatik iritsita, beraz, eta egun **pare** bakar batean 600 gerrillari bildu zituen berriro bere agindupean. **Txillardegi**

Eskularru-**pare** sendoa jantzi. **Iñaki Mendiguren**

Buztana milikatzen zidaan bururatzeko eta ene koskoil **pare** ximurtua musuka auskitzen. **Itxaro Borda**

Galtzerdi-**pare** marroi gorrixa eskuan zuela. **Iñaki Mendiguren**

Eta hantxe, bi uxol urtsu eta orotsu elkartzen diren zubi-gunean, pasa genuen ordu **pare** gogoangarri bat. **Txillardegi**

Zalgurdia mantso-mantso zihoan burdinazko ate-**pare** bikain baterantz. **Iñaki Mendiguren**

Baratzean dexente goseturik, omen, atxikitzen omen zituen dozena **pare** antzara. **Txillardegi**

"Hi eta ni berdinak gaituk", esan zidan, "bildumagile ero **parea**". **Hasier Etxeberria**

-Hau alu **parea**! **Iñaki Iñurrieta**

"Umeak bezala", "tontoak bezala" edo "hara ze tonto **parea**" esaten ziguten. **Ramon Saizarbitoria**

Ikatz puxka **parea** ziren begiak. **Xabier Montoia**

**3** balio berdintasuna.

Kanbioa **parea** baino baxuago dagoenean, galdu egiten du zurdun gisa, eta irabazi hartzekodun gisa; galdu egiten du erosle gisa, eta irabazi saltzaile gisa. **Iñaki Iñurrieta**

Baldin eta Irlandatik Ingalaterrarako kanbioa **parea** baino beherago badago, eta Ingalaterratik Holandarakoa ere **parea** baino beherago badago, Irlandatik Holandarakoa are beherago egongo da. **Iñaki Iñurrieta**

Frantziar balio berdinak eta pisu berdinak Holandar balio eta pisu berdina ematen dutenean, kanbioa **parean** dagoela esaten da. **Iñaki Iñurrieta**

**4** *p/* musean, balio bereko bi karta. **ikpareko 7**.

Bainan hunen azken tantoetan eztabada bat sortu da, baizik eta Euskadiko jokolari batek **pareak** zituela erranik eta ondotik agertu da ez zuela. **Herria**

**5** frantziar feudalismoan, erregearen maila bereko noblea.

Hektor eta Akiles alegia, eta Troiako guda, eta Frantziako hamabi **pareak**, eta Ingalaterrako Artur, oraindaino bele bihurturik dabilena. **Patxi Ezkiaga**

Orreagan, Erroldanen adarra dago, habe handi bat adinakoa; seinale, diot nik, izan zirela hamabi **pareak** eta Pierresak, eta Zidak, eta gainerako zaldunak; beren

ibilkizunetara joaki direla, jendeak dioen horietakoak. Patxi Ezkiaga

## 6 -en pare

Ongi pentsatua, maltzur bilbatua, berriro ere ni pailazoaren **pare** utzi eta barre egin ahal izan dezaten. Urdearen **pare** hustu zen. Anton Garikano

Goiz guzia, arima herratu baten **pare** ibili nintzen Parisen barna. Janbattitt Dirassar

Elkarri zeharka begiratzen zioten hitzik egin gabe, animalia mesfidatien **pare**. Karlos Zabala

-Beirakiaren **pare** gara -jarraitzen du-, eta are beirakia baino perilos eta hauskorrago. Imanol Zurutuza

Taxitik jaitzirik, tximistaren **pare** abiatu ziren apartamentura. Patxi Zubizarreta

Tximistaren **pare**, bi anaiak hango zuhaitzetako batera igo ziren. Patxi Zubizarreta

Klarionaren **pare** zurbildu zen Hanna. Joxe Austin Arrieta

Gogorrako oraino Azkuek, asaba zaharren baratza eta gure arbaso beneragarri eta menderakaitz ustekoak kakaren **pare** jarriaz. Iñaki Segurola

Hitzak orbelaren **pare** dira, ia geldirik, poliki-poliki arrastaka doan erraldoi baten bizkar bustian. Juan Kruz Igerabide

Arrazoi bat gehiago zimaurren **pare** sentitzeke. Aingeru Epaltza

Jende hitzun jakituna ur-axalean kinkirrin ergelean nekatzen den harri xapalaren **pare** da. Iñaki Segurola

Bularretakoa pixka bat jaitsi, eta bular bat irten zitzaion, paradisuko sagar jaioberriaren **pare**. Juan Kruz Igerabide

Tximistaren **pare** abiatu ginen aldapa behera, bihurguneetan irrist eginez. Juan Kruz Igerabide

Bildots baten **pare** harrapatu zuten, eta otso baten **pare** tratatu. Karlos Zabala

## 7 parean adlag ondoan, alboan.

**Parean**, Saddle uhartean, lehenengo euskal marinelen hilerrriak. Aurelia Arkotxa

**Parean** komentu zahar bat izan zitekeena genuen. Aingeru Epaltza

**Parean** iragaitean, zer egin behar nuen? Janbattitt Dirassar

Berehala, zaldi beltz ikusgarri bat **parean** jarri zaio, trostan. Aingeru Epaltza

-Ume horrek gosea du! - **parean** pasatu den emakumeak. Arantxa Iturbe

Senarra **parean** du neskatzen diosalei irribarrez erantzuten, eta bera senarrari besotik helduta doa kalean gora, harro. Arantxa Iturbe

Bera eta Aiora ditut **parean**. Xabier Mendiguren Elizegi

La Sorbonne **parean** genuela geratu ginen egun hartan. Harkaitz Cano

Estimatuko nuen horrelako apaiz bat **parean** egokitu izan balitzait. Joxerra Garzia

Noiz jakin zuen ni ninduela **parean**, gezia jaurti aitzin ala jaurti ondoan? Aingeru Epaltza

Beti bezala, usoak **parean** pausatu dira eguzki mikoaren bila. Aurelia Arkotxa

Arratsaldean, itzulerako bidean, Arroako **parean**, Sarak esan zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Makina batek irudikatuko du hegazkin hori eta behar diren kalkulak egin, Donostiako **parean** pasatzean Victoria Eugenia gainean eror ez dadin. Pello Salaburu

## 8 (hitz elkarkuetan bigarren osagai gisa)

Estomaka sentitzen du bular **parean**, nola estutzen dion eztarria. Alberto Barandiaren

Aho **parean** paratu dizkit patetikoki pintaturiko azkazalak. Eider Rodriguez

Jantzi luze fin-fin bat zeraman, gerri **parean** xingola zurbil batez eutsia. Juan Garzia

Artzainaren etxe **parean** ibi moduko bat zegoen, eta harri zapalekin egindako pasabide bat. Bernardo Atxaga

Neure baitatik ateratzen nau atari **parean** luzaz egoteak, auzo marmartiendako solasbide. Aingeru Epaltza

Itxurak gordetzeko, Van Daanderen leiho **parean** geratu nintzen lehendabizi, baina handik pixka batera Peter ikustera igo nintzen. Josu Zabaleta

Bikote susmagarri bat, nire apartamentu **parean**, 20. ezkaratzean. Harkaitz Cano

Nazionalera Altea **parean** irtengo ginela erabaki genuen. Iban Zaldúa

1961ean, Ebro ibaiak Zaragoza **parean**, uholdean, ia 7 metro igo zuen uraren altuera. Pello Zabala

49 autobusak, Simago **parean** hartuz gero, Otxarkoagaraino eramango zaitu. Unai Iturriaga

## 9 (-en atzikiaren eskuinean)

Bihotzaren **parean** tatuaje bat dauka, ez dakit zerena. Pako Aristi

Listaria nire begien **parean** jarri zuen. Bernardo Atxaga

Are gehiago hurbildu nintzaion, belarria ahoaren **parean** jartzeraino. Juan Kruz Igerabide

Osaba gelako leihoaren **parean** zegoen, kanpora begira. Bernardo Atxaga

Telefonoa -Josuren ganberaren **parean** paretan gainean paratua- modelo zaharrekoa zen. Aingeru Epaltza

Ate baten **parean** zaudete. Xabier Montoia

Hesi bakoitzaren **parean**, zeremonia bera: gelditu, paperak erakutsi, galdera pare bati erantzun, eta aurrera. Inazio Mujika Iraola

Herriko etxearen aitzineko plaza horren **parean**, bada karrika bat, eliza nagusirat buruz doana, arkupe batzuekin. Janbattitt Dirassar

Eutsi egin nion, hala eta guztiz ere, harik eta biak elkarren **parean** izan ziren arte. Edorta Jimenez

Ene **parean** gelditu zen, ustekabez. Aingeru Epaltza

Garaipen arkuaren **parean** zeuden. Karlos Zabala

Darwinen teoriaren **parean** jarri dira zientziarekin zerikusirik ez duten doktrina eta sinesmenak. Pello Salaburu

Mamreren **parean** dagoen Makpela soroko harpean, Kanaango lurraldean. Jose Antonio Mujika

## 10 pareko ik pareko.

## 11 parera adlag ondora, albora.

Biak kanpora irten ziren, eta ni **parera** bildu nintzaion. Juan Kruz Igerabide

Bera **parera** heltzerako argi eta garbi zegoen bidaia hura suizidio hutsa zela. Harkaitz Cano

Haren gainetik beraren pentsamenduak batak besteari jarraitzen zioten inoiz **parera** iritsi ez elkartu gabe. Juan Garzia

Gelditzeko imintzioak egin zizkigun **parera** iritsita. Iban Zaldúa

Hura **parera** heldu zitzaion eta, aurreratzen ari zelarik, Abasek eskua sorbaldan pausaturik, erabakitasunez eta tinkotasunez esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Amorruaren su isil hura amatatu nahirik edo, **parera** hurreratu zitzaion. Edorta Jimenez

Portugesak **parera** iritsi dira. Jokin Muñoz

-Bertsolari honek beti espero ez zitezkeen arrazoi moduak plazaratzen zituen, bitxiak, bereziak, **parera** etorri edo ez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 12 (hitz elkarkuetan bigarren osagai gisa)

Errotaren aurretik pasa zen, Ubanberen etxe **parera** iristera zihoan. Bernardo Atxaga

Etxe **parera** iristen naiz. Anjel Lertxundi

Lore koloretsuz beteriko biribilgune **parera** iritsi direnean. Iñaki Iñurrieta

Hurrengo goizean, margolariaren estudio **parera** iritsi, eta gizon bat ikusi zuten atarian sartzen. Aritz Gorrotxategi

Besaburu **parera** altxatu zuen esku zabaldua, geldiarazteko keinu harekin -ez autoritarioa, baina bai hertsagarria-, eta itxaroteko esan zidan. Ramon Saizarbitoria

Jarri genuen hilormaren kontra, berak bere errosarioa bihotz **parera** eramane zuten. Koldo Izagirre

Sarrailatxoa ireki eta hitz artean sartu hartzur **parera** eraman zuten aurrean, begiak itxita usaintzeko. **Joxemari Urteaga**  
Atximurkada ere egin zuen izter **parera** heldu zenean, ziztada sentitzeko. **Anjel Lertxundi**

### 13 (-en atzizkiaren eskuinean)

Mikel Strogoff iritsi zen lehenbizi haren **parera**. **Karlos Zabala**

Nesken **parera** heldu zenean autoa mantsotu eta bazterbidera sartu zuen, nesken kontrako norabidean. Cumhail bere semearen **parera** heldu eta Bran laztantzen hasi zen. **Koro Navarro**

"Itxoian pasilloan", esan zidan Joseba eta bion gelaren **parera** iritsi ginenean. **Bernardo Atxaga**

Ibilian-ibilian, iritsi ziren tai-txi egiten ari den jende multzo baten **parera**. **Iñaki Iñurrieta**

Zubi txikitu baten **parera** heldu ginelarik, bizikletarik jaitzarazi nuen. **Harkaitz Cano**

-A, zeu zara -esan dio Aliziak eskuineko eskua bularraren **parera** jasoz-. **Patxi Iturritegi**

Penelope ez da zure **parera** iristen, ez edertasunean, ez gaztetasunean, hilkorra baita hura. **Juan Kruz Igerabide**

### 14 *paretik adlag* ondotik, albotik.

**Paretik** iragatean, burua bertzaldera biratu nuen Volvoaren argiei itzuri beharrez. **Aingeru Epaltza**

Erregek, **paretik** iragatean, harengan pausatu zituen begiak. **Aingeru Epaltza**

Gider-kolpeka kendu zituen **paretik** lehen arerioak. **Juan Kruz Igerabide**

Gero aterantz joan da bizkor: ia astirik ere ez dut izan, **paretik** kentzeko. **Urtzi Urrutikoetxea**

-Kendu **paretik** -esan zion saltzaileak petralduta, Harry alboratuz. **Iñaki Mendiguren**

-Alde egin ezak nire **paretik**, Andres, benetan ari nauk. **Alberto Barandiaran**

Inspektorea jendea lasaiatzen saiatzen da, **paretik** baztertzen. **Antton Olano**

Aita etorri zitzaidan gogora, haren usaina **paretik** pasatu zitzaidan, haize leun bat, oroitzapen bat bezala. kameretatik ikusi dute telefonotik hoska, eta **paretik**, preferentziatik, jaurti duten bala isilak kopeta zulatu dio, garbi, espanturik gabe, ia dotoreziak esango nuke. **Jon Maia**

### 15 (-en atzizkiaren eskuinean)

Iristen ari ginela, gure **paretik** zihoan mutil bat seinalatu zigun Hermannek. **Anjel Lertxundi**

Gure begien **paretik** desagertu aurretik, ordea, hitzok izan zituen guretzat opari: [...]. **Karlos Linazasoro**

Ettera bidean, beste emakume ilehori eta begi-uridin baten **paretik** igaro ginen. **Juan Kruz Igerabide**

Lehengo arrastotik ibili beharra neukan, ohol-gazteluen artetik, gure eskolaren aurretik, Josebaren eta Adrianen etxean **paretik**. **Bernardo Atxaga**

Kafetxe baten **paretik** igaro zen. **Harkaitz Cano**

Antzina Paramounten estudioak egon ziren tokiko aparkalekuaren **paretik** igaro nintzen. **Fernando Rey**

Bestaldeko espaloia hondartzaren eta bainuko etxolen **paretik** doa. **Monika Etxebarria**

### 16 (hitz elkarkuetan bigarren osagai gisa)

Hurrengo lainoa agertu eta leiho **paretik** erabat desagertu arte ez naiz jaikiko. **Harkaitz Cano**

Adrianen etxe **paretik** pasa ginen aurrean; Josebarenetik geroxeago. **Bernardo Atxaga**

Etixerako bidean Dibinaren zapata-denda **paretik** pasa zen. Orduantxe ari ginen Begoñako Amabirjinaren eliza **paretik** pasatzen. **Jasone Osoro**

Harekin batean iragana nintzen ate **paretik**, barnera sartu gabe. **Aingeru Epaltza**

Gero, sei zazpi arrainmodu saskian, plaiia **paretik** alderik alde pasatzen ziren arraunean. **Joseba Sarrionandia**

Ababorrera egin genuen eta Harriandi **paretik** joan ginen, uhin zipriztinek masaila bustitzen zigutela. **Joseba Sarrionandia**

Esku hotz batek kalpar luzeak baztertu zizkidan aurpegi **paretik**. **Aingeru Epaltza**

### 17 *pare bat* (izen baten ezkerrean)

**Pare bat** orrialde aurrerago. **Imanol Zurutuza**

Afari eder bat eta **pare bat** gramo, finetik. **Iñaki Segurola**

Apenas geratzen diren **pare bat** lokal. emakume-bizikleta bat zen, auzotik **pare bat** kilometrora zegoen paper-lantegi batera lanera joateko amak garai batean erabilia. **Harkaitz Cano**

Ni lepagogorturik altzaten nintzen handik, telebista aurrean **pare bat** ordu segidan pasatzen nituenean. **Iban Zaldúa**

**Pare bat** minutu itxaron eta alde egin nuen, ez bat eta ez bi, neska gaixoa besoetan. **Joxe Austin Arrieta**

Gorpuak bazeramala **pare bat** egun arbolatik zintzilik. itxaron dezagun beste **pare bat** aste. **Anjel Lertxundi**

Medikuek etsipena emana diotela, ezta **pare bat** hilabeterako bizitza ere. **Joxe Austin Arrieta**

Sara nobela saltzen ahalegingidu zen, **pare bat** igandez, plaza berrian antolatzen den azokan. **Iban Zaldúa**

**Pare bat** aldiz, urduritasunak eraginik, atezainen arreta jasotzen zuela iruditu zitzaion. **Migel Angel Mintegi**

Handik **pare bat** ordura hil zen, Sophieren besoetan. **Imanol Zurutuza**

Belarrira **pare bat** hitz esan eta "Ulertzen?" gaineratu besterik ez zuen egin. **Jose Morales**

Bostehunen bat orritan sartzen da (ehun eta berrogeita hamar orriko bibliografia eta **pare bat** mila ohar argigarri barne direla), autoritatezko argumentuz. **Iñaki Segurola**

Iraun, **pare bat** aste baizik ez zuen iraun. **Aingeru Epaltza**

### 18 (izen baten eskuinean)

Ivy hantxe, oraindik jantzi gabe, pomelo **pare bat** plater batean paratzen ari eta niri galdezka ea kaferik nahi al nuen. **Joxe Austin Arrieta**

Hamar edo hamabost minutuko kuluxka **pare bat** baino ez. **Oskar Arana**

-Dei **pare bat** egiteko lana kendu didak. **Aingeru Epaltza**

Beste orgasmo **pare bat** eta kito. **Patxi Iturritegi**

Emadazu ordu **pare bat** eta zeuk ere izugarria ikusiko duzu... **Sonia Gonzalez**

Oso pentsatua zekarrela esan zion, aste **pare bat** Alpeetan bakarrik pasa ondoren, beltzaran eta eder etorri zenean. **Lourdes Oñederra**

Hilabete **pare bat** geroago institututik kanporatu ninduten. **Iban Zaldúa**

Jesarleku **pare bat** aurreragoko andrak ez zuen inorekin hitz egiten. **Sonia Gonzalez**

Milioi **pare bat** utzi balizkit bederen... **Lopez de Arana**

Zurezko ontzi batzuk ikusi nituen, kutxa txiki zahar **pare bat**, oihalaka eta arropa zaharrak, eta baliorik gabeko tresna batzuk. **Juan Kruz Igerabide**

Hirugarren solairuan (neure pare-parean, hortaz), begirale izuti **pare bat**: Mendibiltarrak. **Txillardeggi**

Izpi galdu **pare bat** islatzen zuen ilunantzean. **Fernando Morillo**

### 19 (izena ezabaturik)

Gutienez, **pare bat** falta zaizkidak. **Aingeru Epaltza**

Beste honelako **pare bat** egin eta laster hire anaia futbolista subnormal hori bezain sano eta lirain egongo haiz! **Unai Iturriaga**

Edonorri oilo-ipurdia jartzeko moduko **pare bat** salduko diat. **Jose Morales**

Ontzat eman zuen lana, gardenak baitziren, **pare bat**-edo oso onak. **Migel Angel Mintegi**

Hartu bezain laster, **pare bat** paparrean jarri ditu. **Jokin Muñoz**

### 20 *pare-pare adlag* pare-parean.

Hexkan etzateko gizona lurretik altxatu zutenean ikusi omen zioten zauria alkandora urratuaren azpian, zauri bakarra, bihotzaren **pare-pare**. **Joxean Agirre**

## 21 *pare-parean* adlag

**Pare-parean** daude orain, hogezi zentimetro aire besterik ez bien artean. Iban Zaldua

Nire burua eta oreinarena tirabide berean eta **pare-parean** heuzkaan, heure aurean, hamar zentimetroko tarteaz gehienez ere. Xabier Olarra

**Pare-parean** bizi naiz, badakizu, Les Fleurs Vertesko hotel horretan. Matías Múgica

Txanelaren branka zurubiaren **pare-parean** izan zenean, Maisua makurtu egin zen, apal, atrakatzeko maniobran laguntzarren. Edorta Jimenez

Berriro eman zidaten ikuspegidun gela hura, Sena aldera, eta oraindik inoiz bisitatu ez dudan Louvre ditxosozkora, juxtu **pare-parean**. Joxe Austin Arrieta

Munduaren ezaguera argia **pare-parean** doala gure burmuinaren mugekin. Juan Garzia

Estasiak hartuta egoten zen, enkanteko kakoetatik zintzilik zeuden birika handi haien **pare-parean**. Karlos Zabala

Elkarren **pare-parean** joan ziren snitcharen bila... Iñaki Mendiguren

Puntuak, egundoko ekaitza sortu zen **pare-parean**, tximist eta oinaztu, trumoi eta erauntsi, goiak behera lehertzeraino. Pello Zabala

Eman zion euskaldunari goitik behera haserre bizian, eta buru gainean, burukian, jo zuen **pare-parean**. Patxi Ezkiaga

Gaur egun integritismo musulmanaz besterik ez da mintzatzen; baina, **pare-parean**, katolikoa ere pil-pilean dago. Berria - Gaiak

Apustuak **pare-parean** daude. Berria - Kirola

## 22 *pare-parekosup\_1* izlag

**Pare-pareko** harmailetatik etorri zen tiroa, iritsi zen bala, preferentziatik alegia, eta ehun bat metro izango dira handik hona."Laguntza eman behar diegu pateratan datozenei" eta "patera hartuz datozen hoiel eman diezaiegun babes" argudiaketaren aldetik **pare-parekoak** dira. Karlos Linazasoro

-Estepan Lauaxeta, Estepan Mallarmé poeta frantsesaren **pare-parekoa**, eta gorago ere iritsiko dena. Edorta Jimenez

## 23 *pare-parekosup\_2* izlag aukerakoa.

Izan ere, aipaturiko 2.775 doinu horietan, batzuk badira sentimendu epiko indartsuak adierazteko egokiak; beste batzuk sentimendu dramatikoak adierazteko dira **pare-parekoak**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsoa, irratiz emateko **pare-pareko** jeneroa da. Andoni Egaña

## 24 *pare-parera* adlag

Animalia bat, ziur aski untxiren bat, errepidera irten zitzaigun arrapaladan **pare-parera**. Xabier Olarra

Hementxe dator **pare-parera** halako atsolitz hura, -Santxok esan- zeinek in habilen esadak eta zein haizen esango nik. Patxi Ezkiaga

-Eta hartan, Joanes **pare-pareraino** hurreratu zitzaidan, eta berba bakar bat xuxurlatu zidan, bi, hiru, hamaika aldiz. Edorta Jimenez

## 25 *pare-paretik* adlag

**Pare-paretik** iragan behar izaten dute sar-ateran ibiltzen diren guztiek. Aingeru Epaltza

## 26 *parerik ez izan* berdinik ez izan.

Ai Jimmy, **ez** duzu **parerik**! -zutik jarri eta atximur egin zion besoko giharrean-. Lopez de Arana

Ez da egia Porto Seguroko garai haiek **parerik ez** zutela. Karlos Zabala

Euskal Herriak **ez** baitu **parerik**. Janbattitt Dirassar

Hau da nire printzesa!, munduan **parerik ez** duena! Alberto Barandiaren

Jakin ezazue zaldi-ferratzen **ez** dudala **parerik**. Itxaro Borda

Europar **parerik ez** duen memoria historiko tragikoa heredatu dugu etxeetan. Joxe Azurmendi

Patioko atera iritsi zen, **parerik ez** zuen dekorazio seljuktarreko arku sekulakoa baitzuen. Fernando Rey

Norma Lúcia oheko erregina zela kontatu zion, inork ez zuela txortan egiten hark bezala, **parerik ez** zuela, unibertsoaren zortzigarren miraria zela. Karlos Zabala

## 27 *parerik gabesup\_1* adlag

guztien gailen baitzen ageri, **parerik gabe** mundu honetan, bikaintasunaren gailurrean. Juan Garzia

Bosgarrena da, batera argirik gabeko ilun beltza, ezen **parerik gabe**, mundu honetako su edozeinek baino gehiago erretzen duen su hura, ilun eta beltza, argi izpirik gabea da. Piarres Xarriton

## 28 *parerik gabesup\_2* izond ik paregabe.

Nola egiten zitzaion orain higuigarri ordura arte itsu-itsuan irensten zuen delicatessen **parerik gabea**? Karlos Linazasoro

Laboratorioa erakutsi zidaten, non izaki berezi, **parerik gabe** bat bainean zain: hemezortzi urte inguruko neska mando bat, ileak suzko eta begiak berde, zehar, maltzur eta bitxi. Juan Garzia

Formatu berriarekin, irudi digitalen kalitatea **parerik gabea** dela nabarmendu zuen. Berria - Gaiak

Artelan baten egilea **parerik gabea** da, ezin ordeztuzkoa. Juan Garzia

**Parerik gabea** izatea, alegia. Juan Garzia

Forma horrek ez du zertan izanik jainko gorago batek behiala sortu zuenaren berdina; bai, ordea, **parerik gabea**, beste sorkari oro bezala. Juan Garzia

Ah!, zein urruntasun distiratsua, miragarria, Lurrean **parerik gabea**! Jose Morales

## 29 *parerik gabeko* izlag

**Parerik gabeko** nolakotasun bati **parerik gabeko** kausalitate batek erantzun behar dio. Juan Garzia

**Parerik gabeko** lege zorrotza ezarri dute Ameriketako Estatu Batuetako Calabasas hirian. Berria - Gaiak

Handik urte batzuetara, pirata bezala **parerik gabeko** basakeria sail luze bat egin ondoren urkatu zutenean, [...]. Xabier Olarra

Sexualitateak, desberdina sortzeko makina peto-peto horrek, **parerik gabeko** bihurtzen du organismo bakoitza, biki petoak izan ezik. Juan Garzia

Geure antzinako euskal txilbor mitiko aratz **parerik gabekoari** mirespen erlijioso-folklorikoz begira beti. Juan Luis Zabala

## 30 *parez paresup\_1* adlag aurrez aurre.

Hiltzaile garbi-garbiak ikusten zituen gure artzainak dolorez, non eta tokian berean, **parez pare**. Iñaki Segurola

Begietatik hartu behar du arnas eta zu bilatzen zaitu, bagoian **parez pare** eserita zauden hori. Harkaitz Cano

Hiruzpalau polizia daukazue **parez pare**, edozein momentutan tiro egiteko prest. Rafa Egiguren

**Parez pare**, kalearen beste aldean, erlojugile bat aritzen zen etxean lanean. Karlos Zabala

Pistan aurrera, **parez pare** egokitu gara, baina ez nau ikusi. Pako Aristi

Orain ez ditut gauzak **parez pare** ikusten, edo buruz buru, eta denbora gehiago izaten dut gauzei buruzko iritziak taxutzeko. Karlos Linazasoro

## 31 (-en atzikiaren eskuinean)

Gure **parez pare** bada gabarra bat lotuta, patroia, emaztea eta seme-alabak bizi direna. Josu Zabaleta

Hantxe eseri zen Willem, leihoaren **parez pare** eta hankak gurutze. Anjel Lertxundi

Eskaileren **parez pare**, sotoaren beste aldean, pasillo bat hasten zela bospasei metrokoa. Iñaki Iñurrieta

Oso zaila zen, beraz, elkarren **parez pare** gertatzeko egokiera. Anjel Lertxundi

Senaren **parez pare**, Louvreren eta Châtelet plazaren artean, quai de la Mégisserie dago, animalia-saltzaileen eta liburu-saltzaileen txokoa. Jon Muñoz

Eguzkiarekin **parez pare** dagoenean, ilargi berria esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

Produktibitatearen **parez pare**, soldatek ere maila bera iritsi beharko luketela. Koro Navarro

## 32 *parez paresup\_2* adlag alderik alde.

Toalla gerrian, **parez pare** ireki zituen logelako leihoak, eguerdiko haizeak azala freska ziezaion. Unai Iturriaga



Leihoak **parez pare** ireki zituen, gela apur bat egurastea. Harkaitz Cano  
Leiho-aho biak zabaldu ditu gero **parez pare**, nire marrantarekiko batera errespeturik gabe. Anjel Lertxundi  
Leioha **parez pare** zabalik utzi zuen Mikelek. Unai Iturriaga  
Irri hura soinu isil bat zela, eta soinu hark bihotzeko ateak **parez pare** zabaldu zizkidalda? Joan Mari Irigoien  
Antzokiko ateak **parez pare** itxi dituenean pentsamenduak uxatu gura izan ditu. Urtzi Urrutikoeetxea

### 33 *parez parekosup\_1 izlag* aurrez aurrekoa.

**Parez pareko** mespretxua edo hitz eder miresgarri zonbeiten gibelean gordetzen zena! Herria  
**Parez pareko** gela guztiak ezagutzen zituen ezker-eskuin, haien altzaririk ñimiñoetaraino ere. Karlos Zabala  
Oraingoz, nahiago ditut **parez pareko** harremanaren ondorioz sortzen zaizkidan aukerei probetxua atera. Ana Urkiza  
**Parez pareko** aldean hainbat hatu eta liburuz betetako bide-kutxa handi bat, estalkia hormaren kontra jasota. Anjel Lertxundi  
Oraingoz, nahiago ditut **parez pareko** harremanaren ondorioz sortzen zaizkidan aukerei probetxua atera. Ana Urkiza

### 34 *parez parekosup\_2 izlag* maila berekoa, berdinen artekoa.

EAJren apustua Foru Ituna zen: lurralde historikoen eta Espainiako Koroaren artean **parez pareko** hitzarmena, alegia Gutxien-gutxienik, zapaltzaile diren hizkuntza horiekiko **parez-pareko** estatusa behar du euskarak. Berria - Euskal Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**aste pare** (91); **aste pare bat** (51); **aste pare batera** (9); **begi pare** (24); **berba pare** (6); **berba pare bat** (6); **beste pare bat** (43); **betaurreko pare** (6); **bi pare** (46); **bota pare** (8); **botila pare** (8); **botila pare bat** (6); **dozena pare bat** (13); **duela pare bat** (23)  
**egun pare** (72); **egun pare bat** (26); **egun pare batean** (10); **egun pare batez** (14); **ero baten pare** (7); **eskularru pare** (8); **galde pare** (6); **galtza pare** (11); **galtzerdi pare** (16); **garagardo pare** (7); **garagardo pare bat** (6); **gauza pare** (19); **gauza pare bat** (16); **gizonen pare** (9); **handienen pare** (6); **handik pare bat** (17); **hilabete pare** (42); **hilabete pare bat** (27); **hiru pare** (24); **hitz pare** (35); **hitz pare bat** (18)  
**idi pare** (22); **kantu pare** (9); **kilometro pare** (8); **lagun pare** (8); **lau pare** (29); **lerro pare** (15); **lerro pare bat** (12); **liburu pare** (6); **metro pare** (19); **metro pare batera** (10); **minutu pare** (44); **minutu pare bat** (24); **minutu pare batean** (7); **musu pare** (14); **musu pare bana** (6); **musu pare bat** (7)  
**oinetako pare** (8); **onenen pare** (17); **ordu pare** (70); **ordu pare bat** (32); **ordu pare batean** (6); **ordu pare batera** (10); **ordu pare batez** (11); **oren pare** (22); **oren pare bat** (13); **oren pare batez** (6)  
**pare bana** (15)  
**pare bat alditan** (10); **pare bat aldiz** (78); **pare bat aste** (29); **pare bat atera** (12); **pare bat aukera** (9); **pare bat bider** (7); **pare bat bota** (7); **pare bat egin** (47); **pare bat egon** (6); **pare bat egun** (22); **pare bat egunera** (6); **pare bat eman** (34); **pare bat esan** (6); **pare bat gauza** (11); **pare bat gehiago** (11); **pare bat geroago** (10); **pare bat hartu** (10); **pare bat hilabete** (14); **pare bat hitz** (12); **pare bat ikusi** (8); **pare bat izan** (7); **pare bat jo** (6); **pare bat lehenago** (24); **pare bat minutu** (11); **pare bat ordu** (26); **pare bat ordura** (6); **pare bat orduz** (10); **pare bat partida** (6); **pare bat segundo** (8); **pare bat urte** (36); **pare bat urtera** (8); **pare bat urtez** (7)  
**pare ederra** (8); **pare gotor** (6); **pare hoberenak** (8); **pare on** (21); **pare on bat** (7); **pare on baten** (7); **pare ona** (6)  
**pare parean** (76); **pare pareko** (8); **pare parera** (9)  
**parez pare** (238); **parez pare ireki** (6); **parez pare jarri** (12); **parez pare zabaldu** (10)  
**partida pare** (6); **segundo pare** (17); **segundo pare batez** (10); **sei pare** (15); **tanto pare** (6); **titi pare** (8); **tximistaren pare** (27)  
**urrats pare** (7); **urte pare** (85); **urte pare bat** (60); **urte pare batean** (6); **zapata pare** (26); **zapata pare bat** (8)  
**a ze parea** (10); **idi parea** (15); **titi parea** (6)  
**bi pareak** (30); **idi pareak** (15); **zapata pareak** (6)  
**aho parean** (13); **ahoaren parean** (7); **ate parean** (9); **atearen parean** (12); **begi parean** (15); **begien parean** (33); **bere parean** (11); **bihotzaren parean** (7); **bular parean** (7); **bularraren parean** (9); **buruaren parean** (7)  
**egoitza parean** (6); **egoitzaren parean** (7); **elizaren parean** (7); **elkarren parean** (16); **erdi parean** (18); **etxe parean** (15); **etxearen parean** (15); **herriaren parean** (10)  
**jeriko parean** (13); **kalearen parean** (7); **leihoaren parean** (11); **museoaren parean** (6); **nire parean** (28); **onenen parean** (8)  
**parean aritu** (13); **parean aritu ziren** (9); **parean aritzeko** (6); **parean aurkitu** (6); **parean dago** (12); **parean dagoen** (23); **parean daude** (12); **parean dituen** (6); **parean duen** (13); **parean egon** (11); **parean eseri** (6); **parean ezarri** (9); **parean gelditu** (28); **parean gelditu zen** (14); **parean gelditzen** (11); **parean geratu** (18); **parean gertatu** (6); **parean ipini** (7); **parean irtengo** (6); **parean izan** (20); **parean izango** (12); **parean jarri** (76); **parean jarri zen** (13); **parean jarrita** (11); **parean jartzea** (8); **parean jartzeko** (12); **parean jartzen** (25); **parean pasatzean** (6); **parean pasatzen** (6); **parean ukanen** (6); **parean zegoen** (32); **parean zeukan** (6); **parean zuen** (9)  
**nire parera** (9); **parera allegatu** (7); **parera etorri** (7); **parera heldu** (28); **parera iristean** (13); **parera iristen** (11); **parera iritsi** (47)  
**pareraino iritsi** (7)  
**ez baitu parerik** (10); **ez zuen parerik** (7); **parerik gabea** (9); **parerik gabeko** (14)  
**etxe paretik** (6); **kendu paretik** (15); **nire paretik** (10); **paretik igaro** (19); **paretik igaro zen** (8); **paretik igarotzean** (9); **paretik kendu** (23); **paretik kentzea** (8); **paretik kentzeko** (9); **paretik kentzen** (6); **paretik pasa** (9); **paretik pasatu** (22); **paretik pasatzean** (20); **paretik pasatzen** (24); **paretik pasatzerakoan** (7)  
**parez pare** (238); **parez pare ireki** (6); **parez pare jarri** (12); **parez pare zabaldu** (10); **parez pareko** (11)

## pareatu iz biko errimaduna.

Dena dela, eutsi egin diegu eszena-erremateetako **pareatu** sarriei, lautu dugun neurtizkeraren zantzu gisa, 5/5/8 neurrira egokiturik. Juan Garzia  
Barne-antzezpeneren kasuan, berriz, **pareatu**-katezko moldea gorde dugu, 11/10 neurrian, desberdintasuna markatu beharrez. Juan Garzia

## parebako ik paregabe 2.

## paredoi iz norbait fusilatzeako erabiltzen den horma.

Txiki ezin izan zuen fusilatutako zure lagun guztien besarkada hartu Montjuicheko **paredoian**. Koldo Izagirre  
Nik bizirik urten gura nian handik, baina ez neukan adorerik inor **paredoi** baten kontra akabatzeako. Koldo Izagirre  
Eskolako hormetan, idatziak agertu ziren: "Julio, kabroia; prest daukak **paredoia**". Juan Kruz Igerabide

## paregabe (orobat paregabe g.er.) 1 izond parerik ez duena. ik pare 28.

Agur t'erdi, gidari **paregabe**. Herria  
Gizon **paregabe** haren bizitegia aztertzea interesatzen zitzaion. Jose Morales  
Halako batean bi izaki **paregabe** agertu ziren holograma urdinetik paraje hartako argi motelera. Patxi Iturritegi  
Maisu miragarri eta **paregabe** hura. Jose Morales  
Gustu **paregabea** duzu, hori ez dut ukatuko. Fernando Rey  
Alan Ladd hura tipo benetan berezia zen, eta axolagabe **paregabe** baten gibelak zituen. Pello Lizarralde  
Gogol eleberrigile eta antzerkigile **paregabea** izan zen, eta berebiziko eragina izan zuen Errusiako literaturan. Jose Morales  
Hogoita zenbait mende honetan guziz famatua dagoen toki **paregabe** batean. Janbattitt Dirassar  
Hizpide bihurtu zen Donostiaren inguru **paregabearena**. Iñaki Iñurrieta  
Aurpegia ere aldatu zaio, eta gaztaro lore **paregabe** hura, pittin bat ximeldu. Txillardegui  
Eguraldi **paregabea** egokitu zitzaion. Imanol Zurutuza



Bere jakitate handia iturri **pare gabetik** hola ixuriko zuena, eskolan bezala eskolatik kanpo, entzulearen xoramendua ginez orozbat. Herria

Gaszte-guneetan gaszte-musika entzuten, gaszte-gaiak sakonki lantzen eta garatzen, gaszte-solairuetan gaszte-merkatuaren aukera **paregabez** libreki baliatzen.Ezin, bada, Mikelek eskaintzen zidan egokiera **paregabe** hura alferrik galdu. Iñaki Segurola

Lirikotasun **paregabea** eransten dio Kemalek bere lanari. Fernando Rey

Plazer handia ematen zidan ateen atzean gauzak egiten ibiltzeak hain modu arriskutsuan, hain modu **paregabean**. Karlos Zabala

Beraien anbibalentzia moral tragikoak gai **paregabe** bihurtzen dituela poesiarako. Iñaki Mendiguren

Zeharo liluratuta, trumoiek, euriak eta haizeak paraje **paregabe** hartan sorturiko sinfonia entzun zuen. Martin Anso

**Paregabea** da Jainkoa bere indarrean. Elizen arteko biblia

Klitoria, plazer emaile **paregabea**, naturaren asmakizun zoragarria, emakumeen plazeraren gunea. Luis Elberdin

## 2 (adizlagun gisa) ik paregabeki.

Egin berriak omen zituen, **paregabe** gainera, fiskal izateko azterketak. Fernando Rey

Israelen Jainkoa **paregabe** handi. Elizen arteko biblia

Erdian jauregi bat zegoen, biziki handia eta **paregabe** ederra. Askoren artean

## 3 *paregabeko izlag* paregabea. ik pare 29.

Xaharra zen **paregabeko** indar hura adierazteko gauza zen bakarra. Fernando Rey

Ibili ziren, egunsentiraino, **paregabeko** edertasuna zuen xoko batean. Elena Touyarou

Anitz gogoeta luzeen ondotik erabaki dut, azkenean, zure **paregabeko** bihozberatasun zinez kristauari dei egitea. Piarres Xarriton

Hala ere, Bordak lantzean behin **paregabeko** baikortasun tximistez ere argitzen gaitu ezustean. Markos Zapiain

Ziurrenik ez zegoen mundu osoan, Egutxi salbu, dotorezia **paregabeko** hura ezagutzen zuen beste pertsonarik. Ibon Uribarri

Sentikortasun **paregabeko** tresna optiko bat da begia. Irene Aldasoro

Orduan topo egin behar izaten zuen sakonera **paregabeko** begirada irmo harekin. Anton Garikano

Mendi haietako emakumeak behinik behin edertasun **paregabekoak** ziren, ikaragarri segailak. Fernando Rey

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**altxor paregabe** (12); **altxor paregabe bat** (7); **aukera paregabe** (3); **erakasle paregabe** (3); **lan paregabe** (3); **paraje paregabe** (3); **toki paregabe** (3)

**adibide paregabea** (4); **altxor paregabea** (11); **aukera paregabea** (117); **aukera paregabea dela** (7); **aukera paregabea du** (5); **aukera paregabea dugu** (4); **aukera paregabea ematen** (5); **aukera paregabea eskaintzen** (3); **aukera paregabea galdu** (12); **aukera paregabea izan** (11); **aukera paregabea izango** (3); **distira paregabea** (3)

**egiteko aukera paregabea** (8); **emaile paregabea** (3); **erraztasun paregabea** (3); **etekin paregabea** (6); **etorkizun paregabea** (3); **ezagutzeko aukera paregabea** (4); **giro paregabea** (4)

**ibilbide paregabea** (3); **ikuskitun paregabea** (7); **ikuskitun paregabea eskaini** (3); **ikusteko aukera paregabea** (3); **kantari paregabea** (3); **laguntza paregabea** (8); **leku paregabea** (5); **leku paregabea da** (3); **lortzeko aukera paregabea** (4); **maila paregabea** (6); **maila paregabea erakutsi** (4)

**parada paregabea** (9)

**toki paregabea** (4); **zer altxor paregabea** (3); **zinez paregabea** (4)

**aukera paregabeak** (10); **aukera paregabeak izan** (3)

**modu paregabean** (3)

**edertasun paregabez** (3)

## paregabeki *adlag* era paregabean.

Elizaren gidaritzan eta zeharbidetarar zoatzinekin halaber, fermutasun haundiko Jainkoaren Zerbitzaria, gazteekin biltzarre haundietan **paregabeki** egiten zakiena. Herria

Adituek diote post inpresionista dela, **paregabeki** erakusten ditu gure bazterrak bai eta gutarteko jendeak. Herria

## paregabetasun *iz* paregabea denaren nolakotasuna.

Filma ederra eta gogoetagarria, mendiaren **paregabetasunarekin**, mendizaleen karrarekin, baita ere Nepal eta Tibet-eko populuen bizimoldeekin. Herria

## pareja *iz* bikotea.

Putaxka eta titiriteroa, **pareja** pollita! Pablo Sastre

Nik, bederen, **pareja** hori besterik ez diat ikusi. Pello Lizarralde

Bi **parejak** ados markagailuan, 21 na. Berria - Kirola

Aginte pixka bat zeukan edozeinek, alkatea zela, edo sakristaua berdin, agoazilak bidaltzen zitiztean **parejak** apartatzera. Pako Aristi

-Kaixo, **pareja**, zer moduz doa gaua? Pako Aristi

## parejaka *adlag* bikoteka

Arbola mota guztiak **parejaka** zeudek, pagoa, haritza, lizarra, denak. Pako Aristi

## pareka<sup>1</sup> *adlag* binaka; bikoteka.

Horrela, **pareka**, hiruak, launaka bildu eta jaso ditzake irakurleak. Berria - Kultura

-Hark **pareka** zituen maitaleak -esan zuen Venanciak-. Josu Zabaleta

Biologia molekullarren hasieran, mende honen erdian, ikerketarik gehienak duoka egin dira, **pareka**, bikoteka. Juan Garzia

**Pareka** banatu ziren atzo belarrondokoak Txapeldunen Ligan. Berria - Kirola

## pareka<sup>2</sup> *iz* bikotea.

Beldur ttipi batekin halere: Muscarditz ere haunditu dela geroztik eta Ezcurra gaztea nundik ez? Seguretik hasi dira hortakotz, etzutela sobera fidatzerat utzi behar aurtengo **pareka** berri hori. Herria

Eta azkenik, horien xapelketako **parekak** ditugu emanen. Herria

## parekada iz

Guk helduden astean emanen ditugu oraiok ustez beste partiden **parekada** eta egunak. **Herria**  
Arrangoitzek ez galtzerat utzi nahi bere ohidura, aurtengo **parekadak** zinez gustagarriak eginak zituen Peiok. **Herria**

## parekaezin izond ezin parekatuzkoa.

Gure historiaurreko agerraldi **parekaezin** misteriotuarekin hasita, galdutako kontinentearen lehena da beti gurea, errekueratu behar den zerbait preziatua, bere izate nagusia mundu galdu baten hondakinen forma duena. **Joseba Zulaika**  
Luigirekin ez zegoen gomitarren zain egon beharrik edateko, eta horretan **parekaezina** zen Mentxuren ezagun guztien artean. **Josu Landa**

## parekagarri izond pareka daitekeena, parekatzeko modukoa.

Guantanamo... -ari da, Sophie, gogoetan- hire aitaxirenen egoera eta hauena **parekagarriak** al ditun. **Eneko Bidegain**  
Egoerak ez dira **parekagarriak**. **Berria - Euskal Herria**  
Gizakiak egindako Auschwitz-eko tragedia eta Hölderlinek aipatzen digun miseria eta Boccaccioren heriotza biologikoa ez dira **parekagarri**. **Anjel Lertxundi**  
Nomadismoa nekazaritza baino gehiago da hainbat arlotan: animaliak etxekotzen eta teknika ekonomikoaren garapenean, honetan **parekagarriagoa** baita industrializazioarekin. **Iñaki Mendiguren**  
Garaiko espiritu nagusi honek "eroankortasunez" hornitzen ditu estatu unibertsalak sortarazitako behin-behineko erakunde berri hauek, ozeanoak eta estepak [...] dutenarekin **parekagarria**. **Iñaki Mendiguren**

## parekaida iz ipar paraxuta.

Ustegabekoa izan zuten tropen lurrazte hori alemanek, uste ez zuten lekuan, noiz-eta ehun milaka soldado sartu baitziren Europarat Amerikatik, mila eta milaka aireko, itsasuntzi eta **parekaida** baliatuz. **Herria**

## parekaketa iz parekatzea.

Atarikoak ez ziren emaitzen araberako kirol irizpide logikoetatik kanpo gelditu ziren **parekaketa** bakarrak izan. **Berria - Kirola**  
Oro har nolako txapelketa hasiera iruditu zaizu? beste **parekaketen** bat nabarmenduko al zenuke? **Berria - Kirola**

## parekatu, pareka, parekatzen 1 du ad berdindu; maila berean jarri. ik kidetu.

**Parekatu** ziren hizkuntzaren nozioa eta naziotasunarena, eta azkeneko honek, hizkuntzaren nozioa ulertarazteko balio zien. **Isabel Arrigain**  
Goldsteinek berehala **parekatzen** ditu "gogamena" eta "abstraktu-kategorikotasuna". **Xabier Olarra**  
Hunkitu egin ninduten Templeren hitzek, modu atseginean **parekatzen** baitzituena sormena eta ume-jolasa, eta pentsarazten zidan benetan garapen osasuntsua izan zuela alderdi horrek haren baitan. **Xabier Olarra**  
Spencerek, berriz, intsusa eta nekosta **parekatu** zituen, biak hala biak duten herio-adierazpen horrengatik. **Pello Zabala**  
Kale garbitzaileak eta multinazionalak zuzendariak suertatu ziren garaile, **parekaturik**; okerren, ministro ohiak ibili ziren, ez baitzuten ezer asmatu. **Iñaki Heras**  
Ibiltokirako pasabide hertsia eta hetsia hori lehen egunetik zirkuetako lehoien pasabideari **parekatu** dut, eta aldiro handik pasatzean irudi hori nuen gogoan. **Filipe Bidart**  
Egoera politikoa zeharo nahastuta dago, indarrak hain **parekatuak** alderdien artean, non boto aldaketa txiki batek botere handia eman baitiezaiokoe edozeini. **Miguel Angel Mintegi**  
Ibiltokirako pasabide hertsia eta hetsia hori lehen egunetik zirkuetako lehoien pasabideari **parekatu** dut, eta aldiro handik pasatzean irudi hori nuen gogoan. **Filipe Bidart**  
25 urte behar izan dira, emakumearen presentzia **parekatzeko**. **Berria - Harian**

### 2 (-ekin atzikiaren eskuinean)

Leonardo da Vinci-k, esate baterako, koadroa ispilurekin **parekatzen** zuen, eta "margolanik goraiagarriena erreproduzitutako gauzarekin antzik handiena duena" dela idatzi zuen. **Bernardo Atxaga**  
Bide hori hartuko balitz, ahalegin ekonomiko berezia egin beharko litzateke, baina horixe da gainontzeko herri aurreratuekin **parekatzeko** beharko genukeen ekimen nagusietako bat. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
Egileak, seguruenik, Jesus eta hamabi ikasleekin **parekatu** nahi ditu Frantzisko eta bere lehen anai taldea. **Askoren artean**  
Kristau-bizitzaren eginbehar eritotzko eta moralak "neke" militarrekin **parekatzen** ditu Tertulianok. **Iñaki Mendiguren**  
Ez du, Krutwigek bezala, euskal kultura nekazaritza-kulturarekin inola ere **parekatu** nahi izan. **Askoren artean**  
Frantziskok simaurraren **parekatutako** dirua are gehiago arbutatzen ikasi zuten denek. **Askoren artean**  
*Corpus* hitzak maiz zentzu negatiboa du, ia haragi hitzarekin **parekatzen** delarik. **Askoren artean**  
Argi zegoen preso sozialekin nahastu eta haiekin **parekatu** nahi gintuztela, haien artean "urtu", nolabait esateko. **Jokin Urain**

### 3 (-ekin atzikiaren ezkerrean)

Itsas trikuaren enbrioia ez da **parekatzekoa** igelaren, saguaren edo eulieren enbrioiekin. **Juan Garzia**  
Lur honetan ezin da ezer **parekatu** ilunpean dagoen haur baten ezkutuko maitasunarekin, hain baita itzaropenik gabea, hain zerbitzurako prest, hain otzana, hain mesfidati eta suharra, betiere emakume heldu baten maitasun gutziatsua [...] ez bezalakoa. **Eduardo Matauko**

### 4 konparatu.

Badira euskaltzaleak frantsesezko orijinala eta euskal itzulpena elgarrekin **parekatuz** irakurtzen dituztenak, miretsiz itzultzailearen zalutasuna eta emaitzaren edertasuna. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
H proteina giltza batekin **parekatu** dute, birusak zeluletan sartzeko erabiltzen duen tresna delakoan. **Berria - Gaiak**  
Spencerek, berriz, intsusa eta nekosta **parekatu** zituen, biak hala biak duten herio-adierazpen horrengatik. **Pello Zabala**  
Norekin konparatuko nauzue, norekin berdinduko? norekin **parekatuko** nauzue, nire ondoan nor jarriko? **Elizen arteko biblia**  
Zure literatura beste arte batekin konparagarria balitz, zerekin **parekatuko** zenuke? **Ana Urkiza**  
Askok Kovacevicekin **parekatzen** dute dagoeneko Skoubo, baina entrenatzailearen ustez, danimarkarrak «bere dohain propioak ditu». **Berria - Kirola**

### 5 pareka jarri; bikotea osatu.

Homonimiatik gertu, **parekatzen** diren hitzak ez dira oraingoan berdin idazten, ezta ahoskatzen ere, baina antz handia dute eta antzekotasun hori agerian geratzen da. **Iñaki Arranz**  
Kirolariak adin eta pisuen arabera **parekatuko** dituzte eta bi borrokaldi eginen dituzte maila egokian sailkatzeko. **Berria - Kirola**  
Duela hogoitabost urte, **parekatu** ziren Urruña eta Alemaniako herri bat, Sulzbach. **Herria**  
Tolosarekilako harremanak azkartzea ere aipatua izan da (Uztaritze Tolosarekin **parekatua** baita) estakuru hortan heiek ere beren ihauteria ber denboran ospatzen baitute. **Herria**

## 6 sexualki batu.

Katuak, txakurak edo ardiak oso garai laburretan **parekatzen** dira, hau da, araldian daudenean baino ez, eta kito. Luis Elberdin

Gatibu hezi eta aukera hartarakoxe aske utzitako eme batekin gogoz kontra hegazti bikain hori **parekatzeko** iaz eginiko saioen ondoren gertatu dela desagerpen hori. Jon Muñoz

Eskualdeko beste loro-arraza batzuekin **parekatzeko** ohitura hartu zuen ara urdinak. Jon Muñoz

Zenbait sexologok eta antropologok diote **parekatzearen** helburua ugalketa dela, eta emakumearen orgasmoa, horretarako beharrezkoa ez denez, oso gauza berria eta erabat kulturala dela. Luis Elberdin

Eta uste duk beltzak **parekatzen** zituela ugal zitezen? Anton Garikano

## 7 (era burutua izenondo gisa)

Norgehiagoka **parekatua** zen ituraz hasiera batean, hala iruditu zitzaion behintzat Cesarri, berak zeukan boxeo ezagutza urriaren arabera, beti ere. Harkaitz Cano

Zeharkako batasun politikoa, ordea, beti izan da, eta euskal probintziek zuten administrazio sistema bakar eta **parekatu** batean oinarritzen zen. Pello Salaburu

Lehen 26 minutuak oso **parekatuak** izan ziren: hamaika berdinketa, banakotik 12nakora. Berria - Kirola

Gasteiz eta Puigcerdaren artekoa da kanporaketa **parekatuena**. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**batekin parekatu** (7); **egoera parekatu** (3); **soldatak parekatu** (3)

**final parekatua** (3); **gogorra eta parekatua** (3)

**kanporaketa oso parekatua** (3); **lehia oso parekatua** (3); **lehia parekatua** (7); **lehia parekatua izan** (3); **nahiko parekatua** (6); **nahiko parekatua izan** (4); **neurketa parekatua** (3); **norgehiagoka parekatua** (6)

**oso parekatua** (36); **oso parekatua izan** (16); **oso parekatua izango** (9); **oso partida parekatua** (3); **parekatua eta gogorra** (3); **parekatua izan** (45); **parekatua izan zen** (35); **parekatua izango** (16); **parekatua izango da** (9); **parekatua izatea espero** (3); **partida oso parekatua** (9); **partida parekatua** (10); **partida parekatua izan** (6)

**zattia oso parekatua** (3)

**inoiz baino parekatuagoa** (3)

**minutuak oso parekatuak** (3); **oso parekatuak** (13); **oso parekatuak izan** (8)

**hautagaiak parekatuta** (4); **hautagaiak parekatuta doazen** (3); **nahiko parekatuta** (5); **oso parekatuta** (17); **oso parekatuta daude** (3); **parekatuta dago** (5); **parekatuta daude** (13); **parekatuta doazen** (3); **parekatuta hasi** (4); **parekatuta hasi zen** (3); **parekatuta iritsi** (4)

**lan baldintzekin parekatzea** (3)

**baldintzak parekatzeko** (3); **parekatzeko moduko** (4)

**soldatak parekatzen** (3)

## parekatze 1 iz berdintzea; maila berean jartzea. ikkidetze.

Urte bereko obra giltzari bion **parekatze** batetik (antzak eta aldeak, biak zaizkit adierazgarri) etekin galanta atera litekeelakoan nago, ez bakarrik obra bakoitza hobeki kokatzeko orduan, baizik eta, oro har, mendearen erditsu horretan giza kezka larrirenak zein ziren eta literaturak nola islatu zituen ikusteko. Juan Garzia

Trenak izan zuen **parekatzearen** errua. Bernardo Atxaga

Eguzkiarekin gertatzen den moduan, "hila" hitzean legoke besterik gabe bildua hasiera-hasieratik gaur egungo ilargiaren kontzeptua, halako **parekatze** ikusgarri bat sortuz: eguzkia dagokio *egu* (*n*) hitzari, eta ilargia, aldiz, *hil*-ari, hizkuntzalari askok diotenez. Pello Salaburu

Soinuak airetik uretara igarotzeko duen gaitasun kaskarra, arrainei madarikazioak entzutea galarazten diena [...] ingeniari elektrikoen inpedantzia-**parekatze** izenez ezagutzen duten arazoaren adibide bat da, eta ura airea baino askoz dentsuagoa izateak eragina batik bat. Irene Aldasoro

## 2 pareka jartzea; bikotea osatzea.

Berdintasun horren adibide garbia da partidaren egon ziren sei **parekatzeak**, azkena 25nakoa izan zen. Berria - Kirola

Heldu den astelehenean hasiko den US Open torneoko gizonetako lehen **parekatzeak** aurkeztu dituzte. Berria - Kirola

Lehenik, aizkolarien **parekatzeaz** gogoeta egin zuten: «Batzuk onak dira eta ahulxeagoekin aritzea suertatu zitzaion». Berria - Kirola

Dudarik gabe, **parekatze** horrek arrakasta handia izan du eta bere fruituak ekarri ditu. Herria

## parekide 1 izond erakundeez eta kidekoez mintzatuz, talde parte-hartzaile bakoitzak ordezkari kopuru bera duena. ik paritario.

Emakumeok betidanik eskubide politikoen kasuetan botoa, demokrazia **parekidea** eta demokrazia parte-hartzailea eskatu ditugu, baliabide moduan berdintasuna defendatzeko eta lortzeko. Berria - Euskal Herria

Bilgune Feministak eginiko eskariari erantzunez, hezkuntza **parekidearen** aldeko konpromisoa hartu zuten orain urte bat manifestuaren sinatzaileek. Berria - Euskal Herria

Prozesu **parekidea** bermatzeko, «sexista ez den hezkuntza erabiltzea» ezinbesteko baldintzatat jo dute. Berria - Euskal Herria

Gizonek gizarte **parekidea** onartzen dute, gizonen nagusitasuna zalantzan jartzen ez den bitartean. Berria - Euskal Herria

Bilgune Feministak eginiko eskariari erantzunez, hezkuntza **parekidearen** aldeko konpromisoa hartu zuten orain urte bat manifestuaren sinatzaileek. Berria - Euskal Herria

Eusko Legebiltzarrak onartutako Berdintasunerako Legeak Legebiltzarrerako eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako zerrendek **parekideak** izan behar dutela jasotzen du. Berria - Harian

Donostiako jaiak **parekideak** direla eta Berdintasunerako EAeko Legea martxan jartzen ari direla saldu nahi digute. Berria - Euskal Herria

## 2 parekoa, kidekoa.

Beste pasarte asko argituago geratuko liriteke baldin eta hobeki ulertzeko Eckarten sermoieta edo beste tratatu teologiko batzuetako ideia eta esamolde **parekideetara** jotzerik izango bagenu. Joan Mari Lekuona

Cesar Telleriak, urte luzetan bere buruzagi eta orain lankide **parekide** zuenak zigarroa zuztarreraino ahitu arte itxaron zuen. Harkaitz Cano

Ezer ez dago erregularragoa azentua gobernatzen duen legea baino (2. legegaren **parekidea**). Isabel Arrigain

Beren **parekide** teutonikoek ez bezala, arabiar musulman primitiboek zakar astindua zuten beren bizimodu arkaiko tradizionala. Iñaki Mendiguren

Atenastar "faxisten" buruzagia ez balitz haren ikasleen artean izan, ziur aski Sokrates bere ohean hilko zen, mundu siniko paganoan haren **"parekide"** zen Konfuzio bezain baketsu. Iñaki Mendiguren

Beraz, zakila eta bagina ez dira egitura **parekideak** ezta denbora berekoak ere. Luis Elberdin

## 3 batzorde parekide

Paueko Batzorde **Parekidean** akademiak eta sindikatuek hurrengo eskola karta aztertuko dute. Iraupena bermatu nahi badu, halaber beharrez onartu beharko du Herria-k Batzorde **Parekidearen** agindua. Berria - Euskal Herria

Urte hastapenean, **Batzorde Parekidearen** gutuna ukan genuen, datuak berri behar genituela adierazi zigutenean. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**hezkuntza parekidea** (3)

**batzorde parekideak** (5)

**batzorde parekidean** (3)

## parekidetasun 1 iz parekidea den egoera edo erlazioa.

Denon artean **parekidetasunean** oinarritutako eredu berri bat sortu behar dugu, non elkarren osagarri izango garen eta elkarri lagunduko diogun. **Luis Elberdin**

Harremana berdintasunean eta **parekidetasunean** oinarritu eta prebentzio neurriak hartu ondoren, gero jolasean egitea besterik ez da. **Luis Elberdin**

Ustezko **parekidetasunaren** seme-alabak garenoi, gazteoi, zailtasun handiak ezartzen dizkigute zapalketa ikusteko. **Berria - Euskal Herria**

**Parekidetasuna** lortzeko neurrien harira aurkeztu zituen proposamenok Enplegu idazkari Valeriano Gomezek, atzo. **Berria - Ekonomia**

## 2 (sexuen artekoa) ik **paritate**.

Emakumeon egoeraz dugun iritzia plazaratu, Euskal Herrian sexuen arteko **parekidetasuna** sustatzeko dugun proiektuaren berri eman eta horiek guztiak hiru administrazioen pean dagoen herri batean nola gara daitezkeen azaldu diegu. **Berria - Euskal Herria**

Gizonezko eta emakumezkoen arteko **parekidetasuna** bermatzeko bitartekoak jarri behar direlako. **Berria - Euskal Herria**

Jasaten dugun sistema patriarkal eta kapitalistak ez du benetako **parekidetasuna** bermatzen. **Berria - Euskal Herria**

Generoen **parekidetasunean** oinarriturik, ikasle askeak ez hazi dituen eredu baten alde egin dute. Berdintasunerako Legeak hainbat betebeharrak ezartzen ditu, batez ere herri administrazioari eta alderdi politikoei dagozkienak: hauteskunde zerrrendetan **parekidetasuna**, Eusko Jaurlaritzako gobernuko eta Diputazioetako gobernuetako arduradunen kopuru jakin bat emakumeak izatea... **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**parekidetasuna** lortzeko (3); **sexuen arteko parekidetasuna** (4)

## pareko 1 izlag parean dagoena. ik **pare 7**.

**Pareko** etxeko bebarruan gora polizia lerro bat igo zen. **Harkaitz Cano**

Kalerantz abiatu zen, eta urratsa biziagotu zuen **pareko** espaloiara jotzeko. **Patxi Zubizarreta**

Errepidetik joan gintezkeela esan nahi zuen, gero, auzune berria eraikitzen ari ziren esparrutik, errekarren **pareko** bidea hartu eta bere etxeraino jarraitzeko. **Bernardo Atxaga**

Eta haiekikoak amaitu zituelarik, **pareko** hormakoengana jo zuen. **Patxi Zubizarreta**

Bakarrik dagoenean, leihoan geratzen da batzuetan, **pareko** etxeei begira, eta konturatu da neska bat hasi dela hor aurrean bizitzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Botila ardoa zuen **pareko** mahaitxoan eta eskuan edalontzia. **Unai Iturriaga**

Orduan ikusi dit itxura garai eta larderiatsuko gizona, zuzenean guganantz zetorrela **pareko** eraikinetik. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 2 (hitz elkarkuetan bigarren osagai gisa)

Taberna **pareko** balkoipean babesturik, zigarro bat piztu nuen. **Anjel Lertxundi**

Gaueroko kontua bihurtu zen bere etxe **pareko** bikotearen zelata. **Harkaitz Cano**

Gure etxe **pareko** etxeko leihoetan urregorritzko errainu doi bat. **Joxerra Garzia**

Bi mahai harago aritzen da lanean, eta elkarrekin hartzen dute hamaiketakoa, beste zazpi lagunekin, lantoki **pareko** kafetegian. **Iban Zaldúa**

Bi ordu baino gehiago neramatzan, barra **pareko** jarleku garaitik ikararik egin gabe. **Aingeru Epaltza**

Ispilua pitzaduraz beteta dagoela erreparatzen da, eta pitzadurak Hausterren bekoki **pareko** puntu batetik alde guztietarantz zabaltzen direla. **Iñaki Iñurrieta**

## 3 (-en atzikiaren eskuinean)

-Bihotzaren **pareko** orno batean... hernia bat... **Iñaki Iñurrieta**

San Telmo kaleko 13aren **pareko** etxartetik ezkerretara begiratuz. **Txillardegi**

Entzun zuten lehenengo gauza bagoi txiki baten txistu dardarati bat izan zen, ferryaren sarrera-gunearen **pareko** espaloi-ertzetik zetorrena. **Lopez de Arana**

Hotelaren **pareko** parkean ezkutaturik itxaron diot. **Patxi Zubizarreta**

Katedralaren **pareko** plaza handia eta kalekak gerrak suntsiturik oraindik. **Fernando Rey**

## • 4 izond kidekoa.

Mundua ezagutzea eta nork bere burua ezagutzea eginkizun **parekoak** zirela, alegia. **Bernardo Atxaga**

Keynesek zioen bezala, sarrerak aurrezteko arazoak (zuhurtzia, aurreikuspena, handinahia, harrotasuna edo zikoizkeria) eta kontsumitzeko arazoak (gozamena, aurreikuspenik eza, eskuzabaltasuna, burugabekeria, handikeria eta nabarmenkeria) oso **parekoak** izaten dira sarritan. **Iñaki Heras**

Kasu horretan, ontzat ematen badugu **parekoa** dela ezagunen kopurua, **parekoak** izan daitezke pertsona kopuru bertsuarekin topo egiteko aukerak ere. **Koro Navarro**

Gizartean guztientzako aukera **parekoak** izanik, gizaki batzuek bere lanaren indarra eta kemena dela medio, emaitza hobeak ateratzen badituzte, horren ondorioz sortuko liratekeen desberdintasunak izango lukete bai ekonomikoki bai etikoki justifikazio sozialik. **Iñaki Heras**

Gauza franko dauzkate **parekoak**. **Anton Garikano**

Jainkoa kosmosaren parte bezala ikus dezakegu, beste adimen bat bezala, **parekoen** artean lehenengoa edo. **Xabier Kintana**

## • 5 izlag (-en atzikiaren eskuinean) ik **pare 6**.

Olinpok ez du sekula haren **pareko** jainkosarik sortu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Beraz, norbaitek hemen sei mila ale saltzen baditu, horren **parekoa** litzateke Espainian 480.000 inguru ale saltzea, euskaldun bakoitzeko 80 erdaldun baitaude estatu osoan,

-Ez zait iruditzen zure **pareko** arerioa. **Pello Salaburu**

Paradisua **pareko** uharte batean geunden biok. **Bernardo Atxaga**

Sistema horrek ez du bihotzaren **pareko** ponparik, eta motel samar mugitzen da linfa. **Irene Aldasoro**

Burua goratu eta Ismail Agari begiratu zion su-txingarren **pareko** begiekin. **Fernando Rey**

Jakitearen sistema zuhaitz baten **pareko** ei da. **Askoren artean**

Hiru mastako ontzi baten bela nagusiaren **pareko** pantaila handia. **Jon Muñoz**

Nire adin modukoei entzutea aski da konturatzeko nonahi zeudela San Marcial ikastetxearen infernuaren **pareko** infernuak. **Joxerra Garzia**

Gai zen **pareko** trebetasunez lantzeko burdina zein zura. **Juan Garzia**

Zulo beltzen **pareko** halako indar desagerrarazle bat. **Harkaitz Cano**

Kurduen irratian, ahots batek olerki bat esaten zuen, gure mendien paradisua **pareko** edertasunaz. **Juan Kruz Igerabide**

Kafea estoldako uraren **parekoa** da hemen. **Harkaitz Cano**

Emazte jatorra senarraren koroa, emazte lotsagabea minbiziaren **parekoa**. **Elizen arteko biblia**

Liburua jogurtaren **pareko** zerbait bihurtu da: produktu bat. zirrara izugarria eragiten bazioten ere, holoграфия **parekoak** ziren ikuspenok, zehaztasun handikoak eta hiru dimentsioak baidiren aldi berean. **Ana Urkiza**

Argizarizko baitari ongi itxuraturiko bat sartu genuen benetako fruten artean; tamainaz eta kolorez benetakoaren hain **parekoa** izanik, erabat engainatu zituen ikustunak.

**Xabier Olarra**

Planeta horretako egun bat Lurreko 176 egunen **parekoa** da, eta urte bat, berriz, Lurreko 59 egunen **parekoa**. **Berria - Gaiak**

## • 6 adlag/pred (-en atzikiaren eskuinean)

Tasmaniako otosoaren **pareko** sentitzen zintzen. **Itxaro Borda**

Alabaina Nafarroa Behereak ematen zion inguruko erregeen **pareko** agertzeko manera. **Aingeru Epaltza**

Gizaki oro belarraren **pareko** da, haren edertasuna landako lorearena bezalakoa: ihartzen da belarra, erortzen lorea. Koralak baino bikainagoa da, gauzarik baliotsuena ere ez da beraren **pareko**. **Elizen arteko biblia**

Aldizkako egoerak izatea irrikatu behar dugu, hots, existentziaren **pareko** bihurtzea. **Juan Kruz Igerabide**

Gaztaina koloreko azal distiratsua zen harena, Sigriden adatsaren **pareko**, nire begi gazte-amets goseetan. **Joxerra Garzia**

Sumin betean zegoen, barrena husten ari den emakume baten **pareko**. **Karlos Zabala**

## • 7 iz (musean) ik pare 4.

Gerta kezkiokoen joko guzirik pasatu zitzaizkion eskuetatik hiru errege eta **parekoek** hordago botatzen handian, dobleak bi errege eta bi astorekin, hogeita hamaika eskutik medeekin... **Eneko Bidegain**

## 8 ez-**pareko** izond

Molekulak eta zelulak ez dira ez **pareko** eta ez ez-**pareko**. **Juan Garzia**

## 9 **pare-**pareko**** ik **pare 22**.

## 10 **parez-**pareko**** ik **pare 33**.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aingeruen pareko** (3); **belarraren pareko** (5); **belarraren pareko da** (3); **bere pareko** (6)

**egitearen pareko** (6); **elkarren pareko** (3); **erabat pareko** (3); **etxe pareko** (5); **galtzearen pareko** (4); **gure pareko** (5); **handien pareko** (3); **hutsaren pareko** (6)

**jainkoaren pareko** (3); **nagusiaren pareko** (3); **nire pareko** (5); **pare pareko** (8)

**pareko bihurtu** (4); **pareko bihurtzen** (5); **pareko da** (12); **pareko egin** (10); **pareko egin duzu** (3); **pareko egina** (3); **pareko estatusa** (4); **pareko etxea** (3); **pareko etxeko** (3); **pareko gutxi** (3); **pareko izan** (7); **pareko izango** (6); **pareko izango da** (3); **pareko jarrera** (3); **pareko jotzen** (3); **pareko lana** (5); **pareko lana egin** (3); **pareko mailan** (3); **pareko neska** (3); **pareko tabernan** (3); **pareko zen** (4); **pareko zerbait** (11)

**txikiaren pareko** (4)

**egitearen parekoa** (3); **ematearen parekoa** (3); **hizkuntzen parekoa** (3); **hutsaren parekoa** (5); **izarren parekoa** (3); **kasuaren parekoa** (3); **osoaren parekoa** (3)

**parekoa da** (69); **parekoa egin** (3); **parekoa izan** (18); **parekoa izan zen** (4); **parekoa izango** (14); **parekoa izango da** (4); **parekoa izaten** (3); **parekoa zen** (20)

**langileen parekoak** (3); **langileen parekoak izatea** (3); **oso parekoak** (4); **parekoak dira** (20); **parekoak direla** (3); **parekoak izan** (8); **parekoak izan ziren** (3); **parekoak izango** (5); **parekoak izango dira** (3); **parekoak izatea** (6); **parekoak izaten** (3)

## parekotasun 1 iz parekoa denaren nolakotasuna; pareko izatea. ik **berdintasun**; **kidetasun**.

Ez da berdintasunik biologian, **parekotasunaren** zentzuan. **Juan Garzia**

Zer sinestarazten digu bada herriaren iritzi ustekabeen gidatu horrek, ez bada gertaeren **parekotasun** miresgarria? **Koro Navarro**

Paveseren eta Torinoren arteko **parekotasun** hori azpimarratu duena, Natalia Ginzburg. **Anjel Lertxundi**

Lanak eta aisiak industriaurrean elkarrekiko zuten mendekotasun eta **parekotasun** hori desegina geratu zen langilea gau eta egun urte osoan lanean jarrai zezaketen makinen zaintzaile bihurtu zenean. **Iñaki Mendiguren**

Esanahien **parekotasun** zehatz-zehatzean. **Isabel Arrigain**

Merezi du hiru gertaera horien arteko **parekotasunak** azpimarratzea. **Koro Navarro**

Hasieran obraren barnean aurkitutako **parekotasunek** txundituko dute, irakurlearen eta idazlearen arteko gauzatxo, ñabardura konpartituek, insomnioa dela, beldurra dela, [...]. **Lander Garro**

Mugimendu erreformatzaileekin **parekotasun** handiak dituen arren, guztiz ezberdina da Frantzisko puntu honetan. **Askoren artean**

Bi herrien arteko **parekotasunak** eta aldeak aztertuz zituzten bi buruzagi politikoez. **Berria - Euskal Herria**

Irlandarekin **parekotasunak** bilatzeko joera handia dago hemen, baina egoerak ezberdinak dira zeharo. **Berria - Euskal Herria**

Jules Renard eta Axenarioren artean **parekotasun** ugari dago, oso harreman estua baitago Renarden bizitzaren eta obraren artean. **Itziar Otegi**

Bi poeten arteko **parekotasunak** eta desberdintasunak arakatzeko. **Anjel Lertxundi**

## 2 maila-berdintasuna.

Ofizialtasunak **parekotasuna** esan nahi du, eta gaur egun, hemen, hizkuntzen arteko parekotasunik ez daukagu. **Berria - Euskal Herria**

George Bush egungo presidente errepublikanoaren eta Kerryren arteko **parekotasuna** ikusirik, Clintonen agerpenarekin balantza euren alde jarri nahi dute demokratek. **Berria - Mundua**

Maila honetan **parekotasun** handia egon da, eta azken txandara arte gehienek igotzeko eta jaisteko aukerak izan dituzte. **Berria - Kirola**

Beste puntua emazte eta gizonen arteko **parekotasunari** lotua da. **Berria - Ekonomia**

**Parekotasuna** handia izan arren, oraindik ere itunpeko sareko ikasleek emaitza hobeak lortzen dituzte, baina aldea ez da handia. **Berria - Harian**

Sexuen arteko **parekotasuna** sustatuko duen plan integral bat abiatzea. **Berria - Euskal Herria**

ik parekidetasun.

Zapaterok agindu bezala, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko **parekotasuna** izango da exekutiboan. **Berria - Mundua**

Baina **parekotasunak** ez du esan nahi berdintasun osoa, hainbat arrazoiengatik. **Berria - Euskal Herria**

**Parekotasuna** izango da nagusi Txapeldunen Ligako final-laurdenetan. **Berria - Kirola**

Eta nere uste apalean, Hezkunde Nazionalak **Parekotasunezko** sistema helburu horrekin sortu du; bixtan dena, Berdintasunaren eta Demokrasiaren izenean. **Herria**

## 3 (hitz elkartuetan)

Bi nozio baitira bereziki beharrak "berdintasun" hitz beraren azpian: nortasun-berdintasuna eta gizarte- nahiz lege-**parekotasuna**. **Juan Garzia**

Onintza Lasaren ustez, berriz, pertsona guztien eskubide **parekotasunaren** printzipioa «hausten» du. **Berria - Euskal Herria**

· Bi hizkuntzen arteko oren **parekotasuna** hausten delako. **Berria - Euskal Herria**

## 4 ekonomian, diru baten balio erlatiboa beste diru batekiko.

Gobernuek azkar ezarri dute berriz beren diruen artean **parekotasun** finkoko sistema bat. **Koro Navarro**

Inflazio-diferentzialak eta gerraren ondoren finkatutako **parekotasun** sarritan artifizialak, truke-tasa errealean aldaketa garrantzitsuen eragileak izan ziren. **Koro Navarro**

Gainerako herrialdeek, berriz, beren diruaren **parekotasuna** dollarrari buruz finkatu behar zuten soilik. **Iñaki Heras**

Ez bazioten uko egiten beren diruen markoarekiko **parekotasuna** defendatzeari. **Koro Navarro**

Euroaren eta dollarraren **parekotasuna** ez bada kontrolatzen eta balioa asko handitzen bada, orduan dudarik gabe tasak jaitzi beharko lirateke edo Estatu Batuetan igo. **Berria - Ekonomia**

Euro-dolar **parekotasuna** eta bereziki haren eragina prezioen maila orokorraren gainean. **Koro Navarro**

Dollarraren **parekotasun** ofiziala. **Koro Navarro**

Eskualde honetako diruak dollarrari buruz truketasu finkoa izateak, izan ere, dollarraren **parekotasunaren** gorabeheren mende uzten zuen dirua. **Koro Navarro**

Banku Zentralak merkatuak ezarritako **parekotasunari** ezin eutsi dionean herrialdeko dibisa devaluatu egiten du **Iñaki Heras**

## 5 (hitz elkartuetan)

Aldaketak gertatzen badira devaluazioak edo revaluazioak izaten dira, alegia, diru-**parekotasunaren** aldaketak. **Iñaki Heras**

1960ko hamarraldiaren ondorengo nazioarteko finantza pribatuen gorakada ezin lotu zen Bretton Woodseko itunek finkaturiko diru-**parekotasunen** erregimena



mantentzearekin. [Koro Navarro](#)

## 6 ez-parekotasun iz

Eritasunaren aurrean, desberdintasuna da aipagai, ez [ez-parekotasuna](#). [Juan Garzia](#)

Zenbaitek gizarte-ordena bat bultzatzeko dakarte hizpidera desberdintasun biologikoa: haien arabera, ordena natural delako batek justifikatzen ditu [ez-parekotasunak](#). [Juan Garzia](#)

Maiz asko, ordea, politika- eta gizarte-xedeak lortzeko baliatzen da nahasbide hori: edo nortasun-berdintasunari atxiki nahi zaiolarik parekotasuna; edo, alderantziz, [ez-parekotasuna](#) mantendu nahi delarik desberdintasunen aitzakian. [Juan Garzia](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

[parekotasun formula](#) (4); [parekotasun handia](#) (10); [parekotasun handiak](#) (5)

[ez parekotasuna](#) (3); [parekotasuna da nagusi](#) (5); [parekotasuna egon](#) (3); [parekotasuna handia](#) (8); [parekotasuna handia izan](#) (4); [parekotasuna izan](#) (8); [parekotasuna izan zen](#) (7); [taldeen arteko parekotasuna](#) (3)

## paremiologia 1 iz esaera zaharren azterketa.

Parte teoriko bat ere badu, pareomologiaz, euskal [paremiologiaz](#) eta euskal atsotitzen eta georgierazkoen arteko sailkapen tipologikoa egin dut. [Berria - Kultura](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Euskal-karveliar [paremiologi](#) kidetasunak. [Berria - Kultura](#)

## paremiologo iz esaera zaharren azterketan aritzen den pertsona.

atal bat eskaini nahi dio Garibairen euskararen aldeko apologista lanari, Garibai [paremiologoari](#), Garibaik bere testuetan tartekatu dituen kanta zaharrei. [Anjel Lertxundi](#)

## parennesia iz ohartaraztea, aholkua.

Benetako "aholkua" ditugu, ["parennesia"](#) zentzu biblikoan, hau da, aholku eta adore emateko diskurtsoa: Jainkoaren Hitzaz baliatuz, kontu egitera eta biziberritzera bultzatu nahi dute. [Askoren artean](#)

## parentela iz senideak, senitarreak, ahaideria.

Beti betiko Bitoriano berriz gurean, [parentela](#) dakarrela. [Berria - Kultura](#)

## parenteral izond digestio bidea ez den beste bide batez gauzatzen dena.

Izan ere, ospitalean alimentazio [parenterala](#) ematen dizute eta horrek kaloria asko ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

## parentesi 1 iz testu batean, (“ eta ”) markak, tartekatzen diren hitz edo esaldiak adierazteko erabiltzen direnak.

Binaka joaten dira [parentesiak](#); irekitzen duena, ezkerrean; ixten duena, eskuinean. [Jon Muñoz](#)

Grafiak bide ugari eskaintzen ditu horretarako: [parentesiak](#), azpimarrak, letra larriak, letra lodiak, letra etzanak, beste neurri, forma edota kolore bateko letrak, marratxoak... [Iñaki Arranz](#)

Erreferentziak testu nagusian eman nahi badituzu, liburuaren eta orrialdeen erreferentzia [parentesi](#) artean sartuko duzu. [Askoren artean](#)

C elementua nahitaez aukeratu behar dugu, eta [parentesi](#) arteko elementuen artean zero edo gehiago hauta ditzakegu. [Itziar Laka](#)

Sudurkariak [parentesi](#) artean agertzen dira taulan; izan ere, haiek artikulatu ahal izateko, ahoak guttiz itxia egon behar du. [Isabel Arrigain](#)

*Leningrado* dakar [parentesi](#) artean. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

[Parentesien](#) artean, bi kopuru horien arteko zatidura azaltzen da, unibertsitate eskolatzeko gordintzat har daitekeena. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Jaitsi iezaizkiozu prakak mutil honi bere izter mardulen barreneraino, jaso txamarra azpian duen atorra, aurrealdea eta atzealdea ([parentesi](#) artean esanda, bikaina) esku-  
eskura izan ditzazun... [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

[Parentesiak](#) beti ixten dira, egunak azkentzen, bisitak amaitzen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

### 2 irud/hed tartekia, etena.

[Parentesi](#) bat izanen da gure historian. [Hasier Etxeberria](#)

[Parentesi](#) bat, hamabi hilabeteko [parentesi](#) bat. [Lourdes Oñederra](#)

[Parentesi](#) bat egin nahiko nuke hemen istorio bat kontatzeko. [Karlos Zabala](#)

[Parentesi](#) bat eginez, goizean zehar Rubenekin berba egiten saiatu naiz, baina ez dut net berbatsu topatu. [Patxi Zubizarreta](#)

[Parentesi](#) bat ireki behar dut orain, momentuko kezka bat azaltzeko. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ez dakizu orain irekitzen ari zaren [parentesia](#) ez dela berez itxiko. [Lourdes Oñederra](#)

Prodiren agintaldia [«parentesi bat»](#) izango dela dio Berlusconik. [Berria - Mundua](#)

[Parentesi](#) labur bat horri buruz zerbait esateko. [Edorta Jimenez](#)

Autobusak aurreratzen duen kilometro bakoitza udalekuaren denbora-tartetoxa itxiz doan [parentesiaren](#) zati da, eta [parentesi](#) horretan zokoratuta geratuko dira bertako oroitzapen lausoak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Seminarioko eginbide zorrotzek bizia atean aitzinean uzten ziguten eta gerla [parentesi](#) bat izana zen. [Piarres Aintziart](#)

Afrikako egonaldia zorion [parentesi](#) bat bezala datorkit gaur, mendiaren uharte honetan. [Piarres Aintziart](#)

Badago jendea kartzelaldia [parentesi](#) huts baten gisako hartzen duena, ongi dakit nik. [Koldo Izagirre](#)

Espainiako Gobernuaren eta EAJren arteko harremanek sei urteko [«parentesi tristan»](#) izan dutela. [Berria - Euskal Herria](#)

Egia esan, luzatu naiz [parentesi](#) honetan, barkatuko didazu, irakurle. [Pello Salaburu](#)

Hitz horrek berak errazegi darama sinesmena eskegitzera, edozein existentzia posizio ezabatza edo [parentesi](#) artean jartzera. [Xabier Arregi](#)

Hor hasi dira pazienteak denak goizean goiz itzartu, jaiki eta ibiltzen, bakardadean, bakoitza bere [parentesiaren](#) barruan. [Joseba Sarrionandia](#)

Gutako bakoitza mundu zarratua dela, [parentesi](#) artean bizi garela, nire lagun betikomaitea ia ezezaguna bihurtu baitzait berehalakoan. [Joseba Sarrionandia](#)

Zeren Historian ez baita [parentesirik](#) existitzen, zeren sakoneko gizatasuna, duintasuna, on moralera egokitzea, harago baitaude zuzenbidea, legezketasuna baino. [Josu Zabaleta](#)

### 3 (hitz elkartuetan)

Zorionte hark, bere nagusien konfiantza adierazpena izateaz gain, hurrengo eginbeharretarako oxigeno baloi bat zen halaber, segurtasun [parentesia](#) hurrengo errietaldia jasotzeko unea iritsiko zen arte. [Joxemari Iturralde](#)



#### 4 **parentesi zuzen.** ik kortete.

Interneten helbide osoa **parentesi zuzenen** artean. **Askoren artean**

Marrazkien laguntza hona ezin dugunez ekarri, azalpen txiki batzuk paratu ditugu **parentesi zuzenen** artean (lerro bakoitzari marrazki bat dagokio): [...]. **Iñaki Arranz**

**Parentesi zuzenen** arteko erreferentziak liburuaren amaierako bibliografiari dagozkie. **Koro Navarro**

##### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**parentesi artean** (24); **parentesi arteko** (8); **parentesi bat** (21); **parentesi bat egin** (3); **parentesi bat egin** (4); **parentesi zuzenen** (3)

**parentesiaren barruan** (3); **parentesiaren ondoren** (3)

**parentesien artean** (3)

#### **parentesitxo** *iz adkor* parentesia.

**Parentesitxo** bat, parentesian: hor badago, egunotan Jon Juaristi eta Patxo Unzuetak eta, erabiltzen duten teoria bat, euskal ideologia nazionalistaren sorrera esplikatzeko, "el efecto especular" deitzen dutena. **Koldo Izagirre**

#### **pareratu**, parera(tu), pareratzan da *ad* parera heldu.

Baina **pareratzean** ohartu nintzen gidaria ez zela anaia. **Daniel Landart**

#### **pareta** (*orobat **paret** g.er.*) **1** iz hargin lanezko eraikuntza, plomuan ezarria eta halako luzera batekoa, bitarteak ixteko edo bereizteko, edo sabaiei edo goiei eusteko balio duena. ik **horma**<sup>1</sup>; **holtz**; **trenkada**.

**Paretak** lauki urreztatuekiko antzinako erretratz beteak zeuden. **Xabier Olarra**

Altzari, besaulki eta dibanak, babes-oihalak kendurik, berpiztu egiten ziren, eta baita **paretetako** erretratuak ere. **Xabier Olarra**

Gelaren bazter batean zaude, lurtean, **paretaren** kontra. **Rafa Egiguren**

Bazterretan eserita edo bizkarra **paretaren** kontra jarrita. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Pareta** baten kontra jarriko dut bizkarra eta pasatzean oihu eginen diet: "Non duzue zuen zientzia? non duzue zuen humanismoa? non da zuen kanabera pentsalarien duintasuna?". **Monika Etxebarria**

Gazteak edo aukietan eserita edo **pareta** kontra zutik zeuden, zigarro erretzen. **Josu Zabaleta**

Burua jiraka eta **pareta** joka hasi zen berriro. **Josu Zabaleta**

Ez zezakeen ezaba Jatsuko komentuan lau **pareta** artean iragan urte parrasta hura. **Elena Touyarou**

Ikurrin txikia dago **paretan** iltzatuta. **Alberto Barandiaren**

Postalak **paretan** itsatsiak zeuden, garagardoa edaten ari zen zakur baten argazkiaren azpian. **Koro Navarro**

**Paretaren** beste aldetik datozen kolpe txiki batzuk entzun dituzu nabarmen. **Rafa Egiguren**

Bi gazteek lerratu, **pareta** zulatu eta barrualdea hustu egiten zuten, ezkutaleku bat egiteko. **Karlos Zabala**

Obus batek **pareta** zulatu, eta hauts hodei bat hedatu zen transmisio aretoan. **Karlos Zabala**

Sei hazbeteko obusak telegrafo bulegoko **pareta** suntsitu du. **Karlos Zabala**

Ondoren **pareta** zarpeatuko balu bezala hautsez zion bizkarra. **Matías Múgica**

**Paretako** papera erortzen ari zen. **Koro Navarro**

**Paretako** lanpara baten argi hotz eta dardartia. **Xabier Olarra**

Lurreko suaren ondoan **paretako** erlojuaren azpian. **Xabier Olarra**

Erredakzioko gelatxo batean daude, Jefearen txokoa: kristalezko **paretak** dituen kaiola. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zabor poltsak adreiluzko **pareten** kontra pilaturik, eguzkipean. **Iban Zaldúa**

Harri hutsez egindako **paretak**. **Elizen arteko biblia**

**Paretak** berinezkoak, moketa grisezko pasabide luze luzeak... **Ramuntxo Etxeberri**

#### 2 (izenondoekin)

Hesolari **pareta** luze batek jarraitzen dio. Kanpotik ikusten diren harri horiekin zabalean bat bakarra eta beti berdina den **pareta** sendoa egiten dute. **Monika Etxebarria**

Intziriek adreiluzko **pareta** meheak zeharkatzen zituzten. **Elena Touyarou**

Horixe du bere biziko sekretu guztia: "lehen harritze" guzien gainean, harririk harri, eraikitako **pareta** erdiurratu eta sekretu horixe. **Patziku Perurena**

Orain, harriesietatik kanpo, etxe erreak eta **pareta** amilduak daude. **Jon Alonso**

-Beti ixten al duzu atea? -galdetu zidan, **pareta** lauaztuaren ondo-ondotik mugituz. **Koro Navarro**

Berehala, **pareta** argituan itsatsirik, itzal izugarri bat. **Iban Zaldúa**

Pilota jaurtigailuaren bokatzarekin eman zioten buruan, odolak **pareta** osoa ziprztindu zuen. **Koldo Izagirre**

**Pareta** garbiak, pertsona garbiak bezalaxe, zikindu eder baten eske daude beti. **Iñaki Segurola**

#### 3 (erkaketetan)

Aurpegia **pareta** baino zuriago jarri zitzaion. **Koro Navarro**

Katalinak, **pareta** baino zuriago, hitzik ere ezin zuen egin ustekabe harekin. **Koro Navarro**

Eta han nengoan, murrurri **pareta** bezain txuri, ez jakinez gehiago nola mintza. **Daniel Landart**

#### 4 irud/hed

Urtegiaren **pareta** behera bota dezakeen ezpatari egin behar diote aurre Beaumontarrek. **Pareta** elastikozko hodi zati bat, alegia, ponpa-bulkada bakoitzean zabaltzen dena.

**Eduarne Elizondo**

Arrautzaren kanpoaldeko **pareta** osatzen duen ehuna da trofoblastoa, amaren umetokiko mukosarekin kontaktuan dagoena. **Juan Garzia**

Umetokiko **paretak** odolaz betetze hori hormonon ondorioz gertatzen da. **Luis Elberdin**

Zakila mugimendu erritmikoekin igurtzen denean baginako **pareta** hezeetan. **Luis Elberdin**

Behar bezala babesten du urdail-mukosak urdailaren **pareta**. **Irene Aldasoro**

Material trinkoa da hezuraren **pareta**, Kiribikaturiko lamelek osatzen dute osteonaren **pareta**. **Irene Aldasoro**

#### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Magistratuaren ziurtagiriz hala dela frogatu ondoren bakarrik erabiltzen dituzte pezoak **pareta**-egiturak altxatzeko. **Santiago Iruretagoiena**

Erlaitzen itinguneak bota egingo ditu tantak **pareta**-lerrotik kanpora, eta era horretan, hondatu gabe gordeko ditu pezoak **paretak**. **Santiago Iruretagoiena**

Aski izan zen **pareta** atal bat lurrera botatzarekin, egundoko isuria ibaira husteko. **Karlos Zabala**

Zulatzeko ez: urtegiaren ikusi berri nituen eraikin birrinduetako **pareta**-tarte haiek bezala behera botatzeko. **Harkaitz Cano**

**Paret**-erlojuko orratzak bederatzita eta erdian zeuden. **Matías Múgica**

*Zailatu* ('saiatu' adierazteko idatzia) **pareta** -iragarki batean). Lourdes Oñederra

Baserri erori baten **pareta** bazterrean hazitako sasian makurtu zen laguna. Koldo Izagirre

Harik-eta Plaza Txikira ailegatu, eta han, berak dakien **pareta** -bazter batean, gauzarik iragarrienaren iragarki edo eskelak begiz jotzen dituen arte. Iñaki Seguroa

Iparraldeko muinoan lur jotako **pareta** puska batzuk, 1813an Wellington-ek hiria bonbardatu zuen gotorlekuaren puskaikailak. Koldo Izagirre

Leiho karratu bakar bat erakusten zuen **pareta** -puskara hurbildu nintzen. Txillardegí

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Odol-hodien itxurakoak diren baina izatez beste sare batekoak diren hodi **pareta** -mehe batzuetara sartzen da. Irene Aldasoro

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etxe **pareta** batean, hitz hauek, erromesari ongi etorri gisa naski: "Peregrino en Nájera, Najerino". Piarres Aintziart

Sudurraren barne-**paretak** estaltzen dituen muki-geruzaren barruan edo gainean igeri daude. Irene Aldasoro

Hezur-**pareta** lodiagoa da hezuraren erdialdean muturretan baino. Irene Aldasoro

Urdail-**paretako** muskuluaren uzkurtez-mugimenduek, edukia irabiatu, eta zuku urtsu bat bihurturik uzten dute. Irene Aldasoro

## 8 *bi-pareta iz* pilotan, lehenik ezkerreko pareta joz egiten den jokaldia.

Atzo, zazpi tanto egin zituen **bi pareta** eta dejadekin. Berria - Kirola

**Bi paretak**, gantxoak, ñakuak; guztira 14 tanto erdietsi zituen Tricoiko maisuak. Berria - Kirola

Gibelerat urrun haiza eta gero aitzinean motz, gantxo edo **bi-paret**. Herría

Bereziki **bi-paret** batzu gibeletik sarerako bidean ezarritz, tantoa labur eta fin. Herría

Behin eta berriz behartu zuen Mikel airez sartzera, azkenean tantoa dejada leun edo **bi pareta** zorrotz batekin maisuki amaitzeko. Berria - Kirola

20-14 aitzinean bi nafarrak, **bi-paret** urrezko bat Xalax, pilota aldatu eta... azken zortziak beretu dituzte lerroan. Herría

Ezker pareta bizi-bizi bilatuz, **bi pareta** elektrikoez, bere biktimak bonbardatuz, eta botekorrituan sarrarazit. Berria - Kirola

Bajutik egindako **bi pareta** batekin, pilota zabalean Zeberioandik urrutu jarri zuen Doneztebekoak. Berria - Kirola

## 9 *bi-pareta iz* bi-pareta.

Hamabi **bi paretakorekin** irabazi zuen Altuna II.ak. Berria - Kirola

Sotamanoz ongi moldatzen da, **bi paretakoa** ongi ezkututzen du... Berria - Kirola

**Bi paretakoa**, txapaginean moztutakoak... bederatzi tanto eder egin zituen Aspeko aurrelariak orotara. Berria - Kirola

Ez zuen bikoak amore eman (36-36 eta 38-38), baina Altuna II.aren **bi paretako** eder batek eta Aizpuruk horman baztertutako kolpe batek utzi zuten erabakita lehia. Berria - Kirola

Amezketarrak, aldiz, bazekien nola irabazi: **bi paretako** zehatzekin. Berria - Kirola

Ongi gidatu zuen atzelariak aurrelaria, ez sinesteko moduko pilota horietakoak bueltatu zituen, eta **bi paretakoarekin** tantoak bukatu ere bai. Berria - Kirola

Partidaren azken txanpan Amezketakoak aise asmatu zuen dejada eta **bi paretekin**. Berria - Kirola

## 10 ezker *pareta* ik ezker.

## 11 *pareta-zulo* (orobat *paretazulo*)

Seinale bat balitz bezala, ertzainak agertu ahala, hainbat gizon-emakume irteten da ezkarzetatik eta kale-kantoietatik, etxe zahar hutsean lapezomorroak **pareta zuloetatik** ateratzen diren gisan. Anjel Lertxundi

Lumarik haundiena hartu, eta bordako **pareta** zuloan gorde, sentipen ilun guzien lekuko. Patziku Perurena

Baina ez dakigunak ez du izenik, harri hutsezko **paretazulo** hutsok bezalakoa da ez dakiguna, eta hemen, **paretazulo** anonimo ilunotan, hemen gorde dizu atsegina gizonaren gogoak. Patziku Perurena

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzeko **pareta** (4); eskubiko **pareta** (3); **ezker pareta** (65); **ezker pareta berrian** (3); **gelako pareta** (6); **harrizko pareta** (11); **harrizko pareta erdiurratuak** (4); **laugarren pareta** (3); **murru pareta** (6)

**pareta aldera** (8); **pareta aldera jiratu** (3); **pareta artean** (5); **pareta baino zuriago** (3); **pareta baten bazterretik** (3); **pareta baten kontra** (8); **pareta batetik behera** (3); **pareta behera** (4); **pareta berrian** (3); **pareta bezain** (3)

**pareta erdiurratuak** (4); **pareta erori** (4); **pareta gainean** (4); **pareta gaineko** (4); **pareta gainera** (3); **pareta handi** (3); **pareta hauen artean** (5); **pareta horien artean** (3)

**pareta jo** (6); **pareta jotzen** (4); **pareta kontra** (4); **pareta mehe** (3); **pareta meheak** (3)

**pareta ondoan** (5); **pareta oso** (5); **pareta oso bat** (3); **pareta osoa** (5); **pareta puska** (3)

**pareta zahar** (8); **pareta zaharrek** (3); **pareta zuri** (7)

**baginako paretak** (5); **egindako paretak** (3); **ezker paretak** (5); **gelako paretak** (3); **murru paretak** (3)

**paretak estaltzen** (6); **paretak estaltzen zituzten** (3)

**umetokiko paretak** (3)

**ezker paretako** (32); **paretako erloju** (3)

**aldameneko paretan** (3); **atzeko paretan** (4); **aurreko paretan** (9); **aurrez aurreko paretan** (3); **baigorriko ezker paretan** (3); **eskuineko paretan** (3); **etxeko murru paretan** (3); **ezker paretan** (121); **hazparneko ezker paretan** (3); **herriko ezker paretan** (6); **kanboko ezker paretan** (5); **kiroleta ezker paretan** (3); **meza ezker paretan** (3); **murru paretan** (5); **ondoko paretan** (5)

**paretan egindako** (3); **paretan jo** (3); **paretan josita** (3); **paretan zegoen** (3); **paretan zintzilik** (13); **paretan zintzilik zegoen** (3)

**ezker paretara** (3); **frontoiko paretara** (3); **paretara begira** (5); **paretara hurbildu** (3)

**ezker paretarekin** (3)

**atzeko paretaren** (4); **bizkarra paretaren kontra** (10); **burua paretaren kontra** (9); **ezker paretaren** (18); **ezker paretaren gibelean** (3); **ezker paretaren ondoan** (6); **hormaren edo paretaren** (3)

**paretaren aldera** (3); **paretaren aurka** (9); **paretaren beste aldetik** (4); **paretaren gainean** (4); **paretaren gibelean** (3); **paretaren kontra** (151); **paretaren kontra bota** (5); **paretaren kontra jarri** (16); **paretaren kontra jarria** (3); **paretaren kontra jarrita** (4); **paretaren kontra jo** (3); **paretaren kontra kontra** (4); **paretaren kontra zegoen** (3); **paretaren ondoan** (10); **paretaren zati** (3)

**ezker paretari** (4); **paretari begira** (10); **paretari itsatsita** (4); **paretari kontra** (5)

**paretaz bestaldean** (3)

**paret labur batekin** (3)

**atharriko ezker paretan** (11); **elizaldeko ezker paretan** (3); **ezker paretan** (114); **ezker paretan egin** (3); **hazparneko ezker paretan** (14); **iholdiko ezker paretan** (3); **sanoki ezker paretan** (8)

**ezker paretako** (4)

**bi paretakoak** (3)

**lau paretan artean** (7); **pareten artean** (19); **pareten kontra** (18)

**ezker paretetan** (5); **gelako paretetan** (4); **paretetan zintzilik** (4); **umetokiko paretetan** (5)

## paretasun iz parekidetasuna.

Alta, publikoak ez du eskubide moraliik, lehen aipaturiko helburuak lortzea bermatzen ez duen **Paretasunezko** sistema besterik ez eskaintzea. Herría

Aldaketa hori asmatua izan omen da gizonaren eta emaztearen arteko **paretasuna** hobeki finkatzea gatik. Herría

## paretatzo iz pareta txikia.

Orain [...] metro bat eta erdiko pasaia bat idekitzen ari dute errepide bazterreko **paretatxoaren** gibeletik trinketeko edo farmaziako pareraino daramana, denak gostuan ibiltzeko gisan. **Herria**

Baratze batean zegoen hilobia, haizearen mende, **paretatxo** baten pean, eta mertxikondoak eta udareondoak makurtzen ziren **paretatxoaren** gainetik. **Jon Muñoz**  
Handik, ibai ondotik belardi mailakatuetan zehar, harrizko **paretatxo** eta elorri eta intxusa artean zihoan bidezidor batetik aurrera jo zuten. **Josu Zabaleta**

## paretazulo ik **pareta** 11.

## paretsu 1 *adlag* berdintsu.

Indarrez **paretsu**, borrokan dabilta. **Xabier Olarra**

Prezio ez batere merkea ordaindurik, **paretsu** unatu eta zikindurik, han gentozen iluntzean bueltan Frantzia Hiribidean barrena emazte izukaitza eta biok. **Juan Garzia**

Haren begien ozartasun distiratsuak beti ere **paretsu** zirauen. **Juan Garzia**

Geratu ezinezko jarioan jarraitu zuen 1987ko urtarrilean hasitako sakabanaketa hark, eta, saio berri harekin **paretsu**, presoan gose greba, itxialdi eta bestelako protestak. **Jokin Urain**

Dembak nekez jarri zuen kapela buru gainean, bi eskuak modu groteskoan eta **paretsu** mugituz. **Anton Garikano**

Egia erran, denak nahiko **paretsu** ikusten ditut. **Berria - Kultura**

## 2 (izenondo gisa)

Hala ere, Afrikako herrialde askotan diferentziak **paretsuak** edo are handiagoak dira. **Iñaki Heras**

Pintxoak saltzea eta golak ez sartzea talde baten onurarako baldintza **paretsuak** dira. **Berria - Kirola**

## 3 *paretsuan adlag* parean gutxi gobehera.

Zumarragatik Legazpira bidean, kirtendegi **paretsuan**, eskuinetara. **Josu Zabaleta**

Ilunpe horretan barneratu eta Josuren atearen **paretsuan** zer ezezagun batek behatoparazi ninduelarik ere, haien afanak ez eragozte zen nire kezkarik behinena.

**Aingeru Epaltza**

Tipo haren **paretsuan**, aulki batean jarrita, burua bufanda handi batean erdi bilduta, eskua matrailean, ijito gazte batek begiratzen zion uzkur. **Pablo Sastre**

## 4 *paretsuko izond* parekoa gutxi gorabehera.

Eta altuera **paretsukoak** gara. **Joxemari Iturralde**

Zeren heriotza, irudimen kontuan, biziaren **paretsukoa** baita. fisika, medikuntza edo geologian aditu direnen arteko inkomunikazioa poeten, hermeneuten eta hizkuntzalarien artean dagoenaren **paretsukoa** delakoan nago. **Xabier Olarra**

Orduan teologo gutarrak etsi-etsian azken helduleku baten bila doaz: *ortzeguna* -diote- nolaz uka "Ortziren eguna" dela?, edo *louis diesen* **paretsuko** zerbait bederen?

**Iñaki Segurola**

## paretxo *iz adkor* pare.

Kontraste gisa, adibide **paretxo** bat aipatuko dut, etxean ikusi zer ikusten dugun: [...]. **Joxe Azurmendi**

## parezer *iz* iritzia.

Aziendak maite zituen baserriar gureak, eta haien bihotzetik ikusi eta jaulki ohi zituen askotan bere **parezerrak**. **Pello Zabala**

Aste gutxi barru, eskerronezko **parezerra** agertu zuten gehienek: erantzun zuten 30 alkate eta 56 parrokotatik, bana izan ziren hain gustura ikusten ez zutenak. **Pello Zabala**

## parezka *adlag* pareka.

Parte hartu dutenak, jazko hein bertsua, berrogoita-lau lagun orotarar, denak **parezka**, heldu baita hogoita-bi bikote... **Herria**

## parezkatu, parezka, parezkatzen 1 da/du *ad* parekatu.

Euskal Herrian egin diren inkestean arabera, Bernardo Atxagarekin **parezkatzekoa** da [Gotzon Garate], horiek biak baitira idazlerik irakurrienak. **Herria**

## 2 pareka jarri; bikotea osatu. ik **parekatu** 5.

Kasualitatez, Gipuzkoako Idiazabal herriarekin **parezkatürrik** da Muskildiko herria, gazna ekoizten düan herri batekin. **Herria**

Laugarren urtea segidan Cassin lizeoa eta Bizkaiko lizeo bat **parezkatzen** direla euskarari esker. **Herria**

Bi eskolak **parezkatu** ziren orduan, Argizabaleko neskatoena eta Frantseseneko mutikoena, 1973tik eta 1987 artean. *Xango altxa zango* deitzen dute ikusgarri hau eta hor kausituko ditugu, Elgar-Oinka taldeko dantzariak eta Koldo Amestoy kondalaria, J-C Irigoyen soinulariarekin **parezkatuak**. **Herria**

## 3 ekonomian, diru baten balio erlatiboa beste diru batenarekin parekatu.

Izan zuen Carlos Menen buru hamar urtez 1989-1999 artean, hunek bere herri merkatua pribatizatu baitzuen eta peso-dolarrak artifizialki **parezkatuz** bankoen zorpean ezarri bere herritarrak. **Herria**

## parezkatze *iz* parekatzea.

Hemendik goiti afitxa, banderola eta papertxoen bidez, zabalduko da **parezkatze** ofizial hunen egitaraua. **Herria**

Lasarte-Oriako ehunta hogoi bat laguneko multzoa -erakasle, buraso, ikasle- jina zagon Donibane Garazirat, zenbait hilabete lehenago Garaziko ikastola, Oztibarreko ikastola eta Donaixtiko kolejoarekin abiatu **parezkatze** urratsa ospatzeko. **Herria**

## parfume ik **perfume**.

## paria 1 *iz* Indian, kasta apaleneko kidea.

Indiako egoerak bere gizarte mailaketari esker gordetzen zuela oreka, alde batetik aberatsak edo erdi aberatsak zeudelako -europarren antzera bizi ahal zirenak-, eta bestetik, berriz, **pariak**, kastaz kanpoko izaki "zikin" eta eskubidegabeak. **Bernardo Atxaga**

Bosgarren talde bat dago: ukiezinak, **pariak**, harijanak edo dalitak, maila guztietatik kanpo daudenak, errukarri-errukarrienak. [Gotzon Garate](#)

Musulmanen bizimodua **pariena** beraiena baino errukarriago dela erakusten dute gizarteko azterketek. [Gotzon Garate](#)

Maharastran, Hanuman kastako poliziako ofizial bat tenpluko eskaileretan zegoela, **pariek** harrika hil zuten. [Gotzon Garate](#)

Filmetan **pariak** heroi bihurtzen dira, neska aberatsa erdiesten dute eta goiko klasearen ustelkeria garaitzen. [Gotzon Garate](#)

## 2 irud/hed gizarte klase apaleneko kidea.

Hemen ere badirela **pariak**, zeinetarik askok yonki edo barbon bihurtuta bukatzen duten, edo zahartu eta etxe-zuloan sartuta ezertarako dirurik gabe, edo 60 metro karratuko pisu batean beste hamaika herrikide magrebtarrekin, edo lanean sei hilabeteko kontratu mixerableekin. [Bernardo Atxaga](#)

**Pariak**, lapurrak, lausengariak deitzen zituen estalinistak. [Koro Navarro](#)

Itotzen ari garen **paria** batzuk besterik ez gara, gainerakoak Mendekoste oporretan dauden bitartean! [Josu Zabaleta](#)

Israeigo Justizia ministro Yosef Lapidék, bere aldetik, Gobernuari ohartarazi zion «nazioarteko **paria** bat bihurtzeko arriskuan» dela. [Berria - Mundua](#)

## 3 (izenondoekin)

Sinn Fein **paria** politikoa izango litzateke, eta iparraldeko hautesleak ez litzukete inoiz bozkatu dituzten erakunde demokratikoak iraganeko mailan ikusiko. [Berria - Harian](#)

## 4 (hitz elkartuetan)

Gainera, sufrimendu luzeen samintasun hura, **paria** begitarte goibel hura zeuzkan kaltetan. [Karlos Zabala](#)

---

## pariatu, paria, pariatzen du *ad ipar* apustu egin. ik **pario** 2.

-Beti irabazlearen alde **pariatzen** duten haiek; lehen, lur hau defendatzen omen zuten baina orain lege zaharren ezabatzea defendatzen duten haiek. [Elena Touyarou](#)

Denek nahi zuten haren alde **pariatu** baina hartzale guti beste alderat. [Herria](#)

Duela guti oraino nehorik ez zuten naski **pariatu** nahiko Daniel Poulou nagusituko zela (6273 boz, % 50,29), Albert Pery sozialistaren parean (6200 boz % 49,7)! alta, irabazi du, gutiz bada gutiz. [Herria](#)

Ezin finituzko pilota partidetan, bat galduta bestea **pariatzen** baitzen segidan, irabazita berdin; Uztaritzen futboleak, eta Joko Olinpikoen atletismo diziplinetan. [Piarres Aintziart](#)

Nahiago nuke nik **pariatzen** ez irriskatu. [Herria](#)

Inork **pariatuko** ez zuen garaipena atera dute Genêts-tarrek 3/1 irabaziz Mont de Marsan-en kontra. [Herria](#)

**Paria** genezake iaz baino eskugain hobeak aterako dituztela aurten. [Herria](#)

**Pariatzekoa** zen garaitezintasunezko seinale erregetiarra hobira eta Josafateko Soroetara eramango zuela. [Itxaro Borda](#)

Bazuen beldurra gauzak ez zirela horretan geldituko mutikoak aitatxik bezalako nortasuna baldin bazuen, eta hori hala zela **paria** zezakeen. [Elena Touyarou](#)

---

## pariatzaile (orobat *pariatzale* g.er. eta *pariazale* g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian pariatzaile agertzen da*) *iz ipar* apustularia.

Jendea xifritua, **pariatzaileak** hatsa moztua, juje bakarra, Txikito Kanbokoak, nardatua, denak untsa zuzendu nahiz, haren boza ezin entzuna arrabotsaren eta oihuen artean. [Michel Oronoz](#)

Desafioa botatu zelarik, parioak agertu, lekua eta igandea hitzartu, gaitzeko jendea bildu omen zen Nañikan ikusteko hea zer eginen zuen gure artzainak; **pariatzale** gehienak artzainaren kontra omen, hiru oren laburxko izanen zela... [Herria](#)

Bigarren huntan **pariatzaileak** ez dukete irriskurik hartu, urruñarra den buruz-burukariarekin. [Herria](#)

Hemen ere ez dira **pariatzaileak** tronpatu, nahiz hurbil zauden elgarri. [Herria](#)

31-15, **pariatzaileak** ere ixiltzen hasiak, Ibarrolak 9 bote eginik ordukotz, eta areago oraino 41-18 tan zirelarik. [Herria](#)

Desafioa botatu zelarik, **parioak** agertu, lekua eta igandea hitzartu, gaitzeko jendea bildu omen zen Nañikan (Hazketako zolan zen ostatu batean, gorago aipatu ostatu horietarik), ikusteko hea zer eginen zuen gure artzainak; pariatzale gehienak artzainaren kontra omen, hiru oren laburxko izanen zela... [Herria](#)

**Pariatzaileak** sutan. [Herria](#)

Gogoeta ginezake artzainak aitzinetik karkulatua zenez zer bide bazuen egiteko, eta **pariatzaileak** berek bazakitenetz xuxen zonbat kilometro bazen kurrizkeo. [Herria](#)

---

## pariatzale ik pariatzaile.

---

## pariazale ik pariatzaile.

---

## pariente *iz* ahaidea.

Geure gizarteaz hausnartuz nabarmena da jauntxoek eta leinuek ondino be bizirik segitzen dutena: parte onekoa izateak, **pariente** handidunekoa, geneek, lagunek, eragin nabarmena dute boto bilketak egiteko orduan, eta abar. Osaba Pepik, **pariente** pobrea, kamantza batean egiten du lo. [Markos Zapiain](#)

Ez egik hire **pariente** faxista haren portaeragatik negar egin, egik negar oraingo faxisten mehatxuagatik. [Edorta Jimenez](#)

---

## parietal 1 *izond* hezurrez mintzatuz, burezurreko gainaldeko erdialdea osatzen duten bietako bakoitza.

Bala bat bularrean, ezkerretara, eta beste bat ezkerreko hezur **parietalean**. [Edorta Jimenez](#)

## 2 (izen gisa)

**Parietalean** bata eta bihotzean bestea. [Edorta Jimenez](#)

Bata ezkerreko **parietalean** eta bestea bularrean ezkerretara. [Edorta Jimenez](#)

---

## pario 1 *iz* apustua. (pilotan eta kidekoetan)

Berdintzen zirelarik bi pilotari andanak, nola baitziren sos jokatzaileak, oihu egiten zuen xaxariak jendea beroarazteko jokatzeari buruz: "Kintzez berdin! trebesa libro!" trebesa zen ixpixoa edo **parioa** edo apostua. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Desafioa botatu zelarik, **parioak** agertu, lekua eta igandea hitzartu, gaitzeko jendea bildu omen zen Nañikan ikusteko hea zer eginen zuen gure artzainak; pariatzale gehienak artzainaren kontra omen, hiru oren laburxko izanen zela... [Herria](#)

Aldi huntan ere, **parioak** alde baterat eta partida bestela gertatu. [Herria](#)

**Parioak** eta denak alde, beren nausitasuna berriz ere erakutsiz lorietan zoztatzin garaztarrak, oro alde eta 31-14 abantzia. [Herria](#)

**Parioak** berehala abiatzen dira. [Michel Oronoz](#)

Ainitz **parioak** azken horien alde oihukatzen zuten luzaz eta izan dira berdintzekotan 34-35 baina beti eskapatu zaizkote menetik. [Herria](#)

Ongi etorri guziera, eta **parioak** libro!!! **Herria**

## 2 (bestelakoetan)

Agian, Konfederazioaren bulegoa indartzea da gelditzen zaigun **parioa**. **Berria - Euskal Herria**

**Parioa** da gehiengo horren aktibatzea. **Berria - Euskal Herria**

Aurtengo urte mugarekin **pario** hori irabazi duela erran daiteke. **Herria**

Eusko Jaurilaritzaren iritziz, **pario** sendoa da Euskal Y-aren tren egitasmoa. **Berria - Euskal Herria**

Hea, nor helduko den, bihar edo etzi, % 101-era!!! **parioa** libro!!! **Herria**

Etahun harritu zen eta **pario** bat egin. **Berria - Kultura**

## 3 **pario egin** apustu egin. ik **pariatu**.

Batzuek pilotaz **egiten** dute **pario**, horretaz asko dakitelako. **Edorta Agirre**

CPEren aurkako borroka segitzeko **pario eginen** dute ikasleek. **Berria - Ekonomia**

Areago, estu-estuan **egingo** dugu **pario**: labea (elikagaien berogailua), izozkailua (luze kontserbatzeko) eta hozkailua (egun batzuetan mantentzekoa) aparatu bakar eta bera izango da. ausardia handirik gabe **egin** dezakegu **pario**: ganbelak berdinduko gaitu gizakiok, jaten dugunak zer izango garen determinatzen duela egia bada. **Edorta Agirre**

Ausardia handirik gabe **egin** dezakegu **pario**: ganbelak berdinduko gaitu gizakiok, jaten dugunak zer izango garen determinatzen duela egia bada. **Edorta Agirre**

## 4 **parioa egin**

Zer gertatzen da, ordea, **parioa egin**, eta gogor jokatuta, huts egin bada? **Iñigo Aranbarri**

Gaiaz bestalde, forman ere gure usaien iraultzera atrebitu dira, ikuslearekin harreman zuzenago eta egiaiago baten alde **parioa eginez**. **Herria**

ELB sindikatak bere baitan ainitz eztabaidatu ondoan, ezetzaren **parioa eginen** du, bereziki Lege Nagusi horrek bere iduriko ez duelako behar den bezalako laborantza politika bat sustatzen. **Herria**

Ikus-entzunezkoaren **parioa egin** nahi izan du Miarritze hiriak. **Berria - Kultura**

laz lehen entsegu bat egin, eta aurtun bide beretik segitzeko **parioa egin** dute Swinghome elkarte antolatzaileko gazteek. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldeko parioa** (3); **parioa egin** (7); **parioa libro** (52); **parioa libro baionatipian** (3); **parioa libro hegoaldean** (3)

**parioak alde** (4); **parioak ere alde** (3); **parioak kontra** (3); **parioak libro** (12)

## **Pariseratu**, parisera, pariseratzen du/du *ad* Parisera joan, Parisera eraman.

Armada alemana **Pariseratu** zenean, soto batean ezkutatu zuen bere haurra, eta ausartu ere bai kalera irteten, botika bila. **Joxe Austin Arrieta**

Holakoa dugu Frantzia zentralizatu hau: orok **Pariseratu** behar, zeiharkan erdi-bide ginukeelarik ere. **Herria**

## **Pariskeria** *iz* Paristarrei dagokien egintza, gaitzesgarritzat markatua.

**Pariskeria** bat iruditzi zitzaidan, eta azoka hartan ibili ziren nire arbaso asteasuar eta albiturtarrek kalte-ordaina merezi zutela pentsatu nuen. **Bernardo Atxaga**

**Pariskeriak**. **Herria**

## **paristar** *izlag/iz* Parisekoa, Parisi dagokiona; Pariseko biztanlea.

Zazpi semeetarik lau **paristar** banlieuko presondegi ezberdinetan barreiatuak zituen. **Itxaro Borda**

Aise ulertuko da Morgue kaleko dramen nire adiskideak izan zuten eginkizunak zenbaterainoko zirrara eragin zion **paristar** poliziari. **Koro Navarro**

Goraintzi **paristar** anaier! **Herria**

Zeren, hori bera entzuna bainuen Alcalako Unibertsitate ospetsuaren zimenduak finkatu zituzten ene **paristar** irakasleenganik. **Piarres Xarriton**

Bere herriko auzapez hortz handiak nahiago ditu leku ederren eta handienak **paristar** dirudunentzat atxiki. **Eneko Bidegain**

Azken egunean, Idoia bere lagun **paristarrarekin** irten zen kalera, guri ezer esan gabe. **Juan Kruz Igerabide**

Horiek horrela, hiru aditu **paristar** gomitatu zituzten aurre diagnostikoaz iritzia eman dezaten. **Berria - Ekonomia**

Sartre **paristarra** zen; eta, hain zuzen, Saint-Germain des Pres auzoan bizi zen. **Berria - Harian**

Errege-hiltzailearen izena **paristar** guztien ahomihietan dabil duela lau egunez geroztik, Ravillac delako bat. **Aingeru Epaltza**

Bere senarra, ail, egunero *La Géante* errezitatzen dion **paristar** bat da. **Bernardo Atxaga**

Zeren, hori bera entzuna bainuen Alcalako Unibertsitate ospetsuaren zimenduak finkatu zituzten ene **paristar** irakasleenganik. **Piarres Xarriton**

Tango bat dantzatzea zer den erakutsiko zieagu **paristarrei**. halakoxea da **paristarron** bizia -erantzun zidan, eskutik heldu eta mahaitik altzarazten ninduen aldi berean-. **Harkaitz Cano**

## **paritario** *iz* parekidea.

Zapateroren gobernu **paritarioa** da, baina begiratzen duzu eta emakumezko gehienek, asko jota, ume bat dute, edo ezkongabeak dira... errealitate hori hor dago. **Ana Urkiza**

Kudeaketa bere gain hartu zuen kontseiluak sinatzaileek hala eskatuta, baina gobernu organoa batzorde **paritarioa** da. **Berria - Ekonomia**

## **paritate** *iz* parekidetasuna.

Ainhoa Etxaide Politika Sindikaleko idazkariak azaldu zuenez, bere zuzendaritzan generoen arteko **paritatea** bultzatuta, LABek «emakumearen aldeko apostua egin nahi du». **Berria - Ekonomia**

Jenero **paritatea** integratu beharko du Europako itun berriak eta, beraz, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko neurriak hartu behar ditu. **Berria - Euskal Herria**

## **parka** ik **barkatu**.

## **parkaleku** (*orobat parka leku*) ik **aparkaleku**.

## parkatu ik barkatu.

### parke 1 iz barruti itxia, zuhaitzez eta landareez hornitua, jauregi bati atxikia edo hiri baten inguruan dagoena.

Ondoko **parke** baterantz jo nuen: han, banku batean eserita, hobeto pentsatzeko denbora izango nuen. **Iban Zaldúa**

**Parkean** umeak ibiltzen direnez, amak egoten dira **parkean**. **Arantxa Iturbe**

Hofrat Klementi goizeroko paseoa ematen zebilen Liechtenstein **parkean**. **Anton Garikano**

Norabide konkreturik gabe abiatzen da, baina beti Sancho el Sabion gora, Amarako **parkea** zeharkatzeko. **Iban Zaldúa**

Artean haurra nintzela, amarekin **parkean** jostatzen edo paseoa ibiltzen nintzenean. **Patxi Zubizarreta**

Bertan **parke** bat egin zuten, eta han baziren lore-sailak eta arbolatxoak, jendeak atsedean hartzeko bankuak, eta haurrentzako gune berezi bat. **Eskarne Mujika**

Temperatura egokia, hain zuzen, eta **parke** perfumeak nahasian igotzen. **Jon Muñoz**

Bereziki hango **parkeko** urjauziak. **Daniel Landart**

Negua dator, nabarmena da, **parkeko** arbola guztiak biluzik baitira. **Anjel Lertxundi**

**Parke** bat diseinatzen ari zela arkitekto batekin elkarlanean. **Harkaitz Cano**

Bost zentaboko txanpona eman zion gidariari, hiri bati **parke** bat eskainiko liokeen norbaiten tankeratsu. **Mirentxu Larrañaga**

Adin horretan Cape Town hiriko **Parke** eta Jardinetako udal enpresan lanean hasi zen. **Pablo Sastre**

Bankuak eta belarra zapaltzea debekatzen zuten kartelak ikusi nituenean, **parke** bat zela ulertu nuen. **Fernando Rey**

Tximinia luzea **parke** erdian, Etxebarriako antigoleko fabrikaren ikur bakar. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Putxa zelebre bat **parke** batean, horixe ikusi duk, erantzen zion islak, bizitzaren alaba zuan, ai ai ai! **Koro Navarro**

**Parke** batean deseriratutako bi printze dira... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Rigan bertan azaldu ziguten badela inguru haietan **parke** moduko bat, non estatuak pilatu baitituzte. **Edorta Jimenez**

Hogei hamar gela eta lau bat hektarea **parke**. **Ramon Etxezarreta**

Gauetz **parke** batean. **Joxerra Garzia**

### 2 (izenondoekin)

Bigarren solairuko leihoetatik hiriko alde zaharra ikusten zen, hango kale zuzen eta txukunak, eta, haiez gain, Enperadorearen udako jauregia, Schönbrunnko teilatuak eta zuhaitzez betetako **parke** handian egindako pasealekuak. Gaizki zaindutako **parke** txiki batean, egoiliarrek zebiltzan, batzuk taldean eta gehienak bakarka, atzera-aurrera presarik gabean. **Xabier Olarra**

Logelako leihoaz bestaldera **parke** ederra dago, erdian urmaela eta honen inguruan pergolak eta zurezko bankuak direlarik. **Edorta Jimenez**

Batean Valdesalce agertzen zen, **parke** ingeles bat gogorazten zuten ibarra. **Bernardo Atxaga**

Bazirenean **parke** itxietan musika kiosko hutsak eta estaliak, barandak igotzen errazak zituztenak. **Koro Navarro**

Nire lekua ez zegoen hirietako **parke** abandonatuetan, ez herri txiki bateko lasaitasunean ez eta lanordu errepikakorren segurtasunean ere. **Pako Aristi**

Zuk nahiago izan zenuen noraezean pasieran ibili, hiriak dituen zoko-mokoak ezagutu eta **parke** bakarti batean gure grinak lardaskatu, gaztetako ohiturak berrituz-edo. **Joxean Agirre**

Hasieran etxe bateko patioa izanzen zela pentsatu nuen, batek ez duelako espero **parke** publiko bat hori bezain txikia izatea: etxe-sail erdia ere ez zuten hartzen. **Fernando Rey**

Chang Ngan-eko **parke** inperialean orein zuri bat zeukan enperadoreak, oso animalia bakana, inperioan parekorik gabea. **Iñaki Mendiguren**

### 3 erabilera edo zerbitzu jakin baterako antolakuntza duen lekua.

Irurtzen eta Andoain arteko autobidearen puska bat eta Leitzako **parke** eolikoa ere oso ondo ikusten ziren. **Juan Luis Zabala**

Orduan ohartuko da Lujanbio, beste mendizalea, Peñagarikano, **parke** eolikoa eraikitzen ari den ingeniaria dela. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Itzuli bat egin behar dugu Silicon Valley inguruan, tamaina handiko enpresak eta **parke** teknologikoak begiratuz. **Javi Cillero**

Garbi daukat Leioako campusa **Parke** Teknologikoa balitz, metroa bertaraino iritsiko litzatekeela. **Joxerra Garzia**

Hiribarnea zeharkatu ondoren, Neapolisko **parke** arkeologikorantz zihoala. **Jon Muñoz**

Munduan ere Argia eta Ilunbeak nahasi egiten direlako ideia hori, guk inon baino argiago ikusi genuen EEBetako Bryce Canyon **parke** nazionalan. **Patxi Zubizarreta**

Betidantik ezagutu nahi izan duela Mendebaldea, bai **parke** nazionalak bai hiriak. **Patxi Zubizarreta**

Bièvres herriko **parke** natural eder baten erdian zegoen Seminario Handian iraganak nituen ja bi urte. **Piarres Aintziart**

Pagoetako **parke** naturaleko Lorategi Botanikoan. **Herria**

Sandiak, berriz, nahiago luke **parke** zoologikoko zaindaria balitz... **Lopez de Arana**

**Parke** zoologikoak berak iragan denboretako animalia espezie desagertu bateko alea dirudi. **Edorta Jimenez**

Kaiolan sartu eta kalerik kale daramatzate Baixa, Palhava eta Benfican barrena, azkenik Belemgo **Parke** Botanikoan uzteko. **Iñigo Aranbarri**

Loti Ederrarena ikuskizun turistikoa erakargarria izan zitekeela oitu zitzairen, eta, hilabete gutxiaren buruan, amaituta zegoen **parke** tematiko erraldoi bat, kristalezko estalki batek babestutako printzesaren inguruan eraikia. **Iban Zaldúa**

Josu Erkiaga Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Biodibertsitateko zuzendariak, atzo, Irunen (Gipuzkoa), Plaiaundi **Parke** Ekologikoaren Ekoetxean emandako azalpenak dira. **Berria - Euskal Herria**

Ikuskatze teknikoak larunbatean egingo dira, Txingudi **parke** komertzialean, 15:30etik 19:30era. **Berria - Kirola**

Militarrek eta Poliziak erabilitako eraikina Bakearen **Parke** bihurtu zuen Gobernuak 1997an. **Berria - Mundua**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artean kaleko artistak ikusteko eta **parke** bazterretan musukatze denbora zen. **Patxi Zubizarreta**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Joan den uztailaren 20 MWko potentziako beste aerogeneradore **parke** bat saldu zion Gamesak Endesari, Sardinian. **Berria - Ekonomia**

Gaur egun 79 haize errota **parke** ditu EHNK munduan zehar barreiaturik, eta beste sei eraikitzen ari da. **Berria - Ekonomia**

Seguru nagoelako haiek ez direla Menorcan egon eta ur **parkean** ere ez direla egon. **Alberto Barandiaren**

Gizon bat haur **parke** batean bakarrik ikusteak aztoratu egin omen ditu; pedofilotzat hartuko naute akaso. **Eider Rodriguez**

Frontoia, eskubaloia gunea, haur **parkea**: den-dena hutsik ikusten zen. **Bernardo Atxaga**

Urtero, Dudleyren urtebetetzekoan, gurasoek Dudley eta lagun bat egun-pasa eramaten zituzten, abentura-**parke**, hanburgesategi edo zinemara. **Iñaki Mendiguren**

### 6 jolas parke ik jolas 10.

### 7 kultura parke ik kultura 15.

### 8 natur parke ik natur 6.

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aralarko parke naturaleko (3); aratz natur parke (3); badaiaiko parke eolikoaren (4); bat parke (3); donostiako parke (4); etxebizitzaren parke (3); haize errota parke (5); hiriko parke (4); itsasoko parke (6); itsasoko parke eolikoak (4); jolas parke (14); kultur parke (3); lehen parke eolikoa (3); miramongo parke teknologikoan (5); natur



**parke** (16); **natur parke izendatu** (5); **natur parke izendatzeko** (3); **ordunteko parke eolikoaren** (7)

**parke bat egin** (3); **parke berriak** (3); **parke eoliko** (15); **parke eoliko bat** (5); **parke eolikoaren** (21); **parke eolikoak** (14); **parke eolikoaren** (15); **parke eolikoaren obrak** (3); **parke eolikoaren** (8); **parke eolikoko** (6); **parke eolikorik** (5); **parke handian** (3); **parke izendatu** (5); **parke izendatzeko** (4); **parke natural** (13); **parke naturala** (5); **parke naturalean** (8); **parke naturaleko** (9); **parke nazionalean** (3); **parke nazionaleko** (3); **parke osoa** (3); **parke publiko** (5); **parke publikoa** (3); **parke publikoaren** (4); **parke teknologiko** (3); **parke teknologikoak** (5); **parke teknologikoan** (11); **parke teknologikoen** (6); **parke tematiko** (3)

**parke txiki** (3)

**jolas parkea** (8); **kultur parkea** (9); **natur parkea** (6); **parkea atontzen** (4); **parkea bisitatu** (3); **parkea egiteko** (4); **salvador parkea** (3); **ur parkea** (3)

**jolas parkeak** (4); **natur parkeak** (5); **parkeak egiteko** (3)

**ametzola parkean** (3); **aralarko parkean** (3); **bergarako usondo parkean** (3); **casilda iturrizar parkean** (5); **casilda parkean** (3); **dukonteneko parkean** (3)

**etxebarría parkean** (4); **florida parkean** (4); **gorbeiaiko natur parkean** (4); **hiriko parkean** (3)

**eko takonera parkean** (4); **iruiñ jolas parkean** (5); **kultur parkean** (46); **kultur parkean eginiko** (3); **kultur parkean izango** (3); **martin ugalde parkean** (7); **motxuelo parkean** (3); **natur parkean** (9)

**parkean barrena** (4); **parkean egin** (4); **parkean egin zuten** (3); **parkean eginiko agerraldian** (3); **parkean egiten** (4); **parkean ibili** (3); **parkean ikusi** (3); **parkean izan** (7); **parkean izango da** (4); **parkean sartu** (6); **parkean zehar** (6); **salvador parkean** (3); **san josep parkean** (8); **santurtziko parkean** (4); **takonera parkean** (7)

**kultur parkearen aurkako** (5); **kultur parkearen kontrako** (4); **natur parkearen** (5); **parkearen antolamendu** (3); **parkearen barruan** (3); **parkearen erdian** (3); **parkearen kontrako** (4); **parkearen ondoan** (3)

**jolas parkeetan** (4); **natur parkeetan** (3)

**aralar parkeko** (3); **central parkeko** (9); **kultur parkeko** (4); **natur parkeko** (4); **parkeko ateak** (9); **parkeko ateak itxi** (4); **parkeko aulki** (3); **parkeko eserleku** (3); **ur parkeko** (4)

**kultur parkera** (5); **parkera irten** (4); **parkera joan** (6); **parkera joango** (3); **parkera joaten** (6); **parkera joaten zen** (3)

**giza parkerako arauak** (4); **sartagudako memoriaren parkerako** (4)

**parketik atera** (3)

## parket 1 iz gela edo kidekoetarako zoru mota, marrazki geometrikoak osatzen dituzten oholtzoz osatua.

Oinutsik **parket** gainean. **Antton Olano**

Zorutik erratza eta zurgagailua behin eta berriro pasatu [...] **parketari** argizaria eman. **Iban Zaldúa**

Hankapalok ere ez zuen etxeko **parketa** gehiegi gastatu, egun-argiz behintzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Barruan zeuden argazkiak **parketaren** gainean ihaurri dira. **Iban Zaldúa**

Isiltasuna erabatekoa zen, elizan baino handiagoa, **parketak** kirrinka egiten zuen eta, batez ere, usain berezi hura, antigolekoa. **Joseba Urteaga**

## 2 ipar saskibaloí, eskubaloí eta kidekoen jokalekua, parketezko zorua duena.

Saski baloian, 1000 behari hurbildu dira, nahiz zenbait metrotan iragaiten zen errugbiko partida, Laugako **parketa** berrituan ikustera Baiona/Urketako ekipa, sasoiko lehen partidaren jokatzan. **Herria**

Saski baloian aldiz, *Denek Bat* taldeak galdu du, hauxe pena, 77/78, tanto xoilaz bere **parketean**, 900 behariren aitzinean. **Herria**

Saski baloian, Baiona/Urketak asarrea zilegi zuen joanden larunbat arratsean, Bondy-ko **parketean** tanto xoilaz partida galdu ondoan. **Herria**

Esku baloian, lastimaren lastima hor ere, gure neskek tanto baten gatik galdu baitute, Ivry-koen kontra, egia erran aurkariaren **parketean**. **Herria**

Esku baloian, kontratua bete dute gure neskek, Cergy/Pontoise-eko ekipa garaitu dute beren **parketean** 32/25. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**parketaren gainean** (5)

## parketxo 1 iz parke txikia.

Banku batean eserita gaude, Abenidaren erdialdean dagoen **parketxo** batean. **Pako Aristi**

Museoaren atzeko aldeak Kanal handira ematen duen **parketxo** bat du. **Anjel Lertxundi**

Agnès eta Thierry txikia, Cluny museo ondoko **parketxoan**. **Iban Zaldúa**

## 2 umeak jolasteko barruti babestu eramangarria.

Arbolaren ondoan, neskatilatxoa bere **parketxoan** jolasean. **Eskarne Mujika**

## parkezain iz parke bat zaintzen duen enplegatua.

Goizegi ari ziren, hain goiz non **parkezainekin** topatzeko arriskua baitzegoen Stany Llongen. **Aingeru Epaltza**

Jende prestua bai, **parkezainak**, baina zomorroi horiekin ezin gune babestu honetan bainatzeko debekua hautsi. **Aingeru Epaltza**

## parkimetro iz saripeko aparkalekuetan, pagatu behar den diru kopurua adierazten duen tresna.

Eskua luzatu eta **parkimetro** batean bermatzen naiz. **Koro Navarro**

Horrela etorri ziren mundura, 1935ean, bakoitza bere aldetik, radarra, magnetofonia, **parkimetroa** eta PVCa. **Pello Salaburu**

## parkin ik parking.

## parking (orobat parkin; Euskaltzaindiaren Hiztegian parking agertzen da) 1 iz aparkalekua.

Autoa **parkingean** utzi eta gero atera ziren. **Aurelia Arkotxa**

Autoa hoteleko **parkinean** daukat. **Bernardo Atxaga**

Dantzatoki bateko **parkinean** dago eta argazkian agertzen ez den norbaitekin ari da hizketan, boxeolari baten afixen ondoan. **Harkaitz Cano**

Hor egin ditu eraikinerako sartzeko **parkinerako** sarreerak. **Berria - Harian**

Orubea behin-behineko **parking** gisa erabili ahal izango dute alde zaharreko auzotarrek. **Berria - Euskal Herria**

Gutxienez 10 dolar ordaintzen dituzte horiek denek, baina gehienek hori baino askoz gehiago: **parkina** dela, edariak eta janaria direla. **Berria - Kirola**

9. abenidan, **parking** itsusi baten ondoan soto bat ikusten egon gara. **Harkaitz Cano**

Ez zuen prostibulu inguruetan sortu ohi diren ostatu hits eta leiho gabekorik, ez lurpeko **parking** erraldoirik, ez izen txarreko auzorik ere. **Joxean Agirre**

## parkinson (orobat parkintzon g.er.) iz nerbio sistemari erasaten dion gaitz degeneratiboa, dardarak eta giharren zurruntasuna ezaugarri dituena.

Gaur egun, jainkoek abandoarik, eri dago: **"parkinson"** eritasuna dauka. Berria - Gaiak

**Parkinsonen** gaitzaren aurkako Nazioarteko Eguna da gaur. Berria - Gaiak

**Parkinson** gaitzaren larritasuna neurtzeko sistema berria. Berria - Gaiak

Lau milioi lagunek dute **parkinsona** mundu osoan. Berria - Gaiak

Gorputza bihurritzen zitzaidan, ibilera baldartu zitzaidan, **parkinsona** banu bezala. Xabier Olarra

**Parkinsona** dutenengan ere ikus daitezke noizean behin irudipen eta premia antzekoak. Xabier Olarra

Giharretako zurruntasuna da **parkinsonaren** beste sintoma nagusietako bat. Berria - Gaiak

Oso bestelakoa da, aldiz, **parkinson** nahiz korea gaixotasunekin gertatzen dena: gaitz horiek ez dira nortasunaren edo borondatearen zatizat hartzen, gaixotasuntzat, gaixoaren nortasunaz kanpokotzat baizik. Xabier Olarra

Bildutako dirua **parkinsonaren** kontra erabiliko da. Berria - Kirola

**Parkinson** hereditarioaren Park8 aldaera eragiten duen gene bat identifikatu du [...] ikertzaile talde batek Euskal Herriko lau familian. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dute parkinsona** (4); **parkinsona duten** (4)

**parkinsonen gaitza** (7); **parkinsonen gaitzaren** (3)

## parkinsondun *iz* parkinsonak jo duen pertsona.

Behin ikusi nuen nola jarri zioten apomorfinaz ziztada bat ezagutzen dudana **parkinsondun** bati, zurruntasuna eta "izoztea" arintzeko. Xabier Olarra

Antzera gertatzen da **parkinsondunen** mugimendu konbultsibo eta hautsien kasuan Xabier Olarra

## parkinsoniano *izond* parkinsonari dagokiona.

Agure zahar hark bere esku **parkinsonianoari** eraginez agurtzen gintuen nahinondik, guk martxanteretan erositako txikleak, pepitak, erregalizak jaten genituen artean.

Joseba Sarrionandia

## parkinsonismo *iz* parkinson gaitza.

Zailtasun bitxiak, batzuetan, mugitzen hastean, **parkinsonismoan** ikusten direnen antzekoak. Xabier Olarra

## parkintzon ik parkinson.

## parlament ik parlamentu.

## parlamentari *(orobat parlamentario)* 1 *iz* Parlamentuko kidea. ik legebiltzarkide.

Erregeak saldukeriaz akusatu zituen bost **parlamentari** -garrantzitsuenetakoak, parlamentuaren eskubideak sutsuen defenditzen zituztenak-, eta eskoltako bizkartzain batzuekin parlamentu barrura sartu zen. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Leyla Zana **parlamentari** kurdua aske uzteko exijitu dio Europako Legebiltzarrak Turkiari. Berria - Mundua

**Parlamentari** diren auzapezek, Jean Grenet eta Didier Borotra, Baiona eta Miarriztekoek, ez dute bozketan parte hartu. Berria - Harian

Urtero legez, **parlamentariak** hitz gogorrak esan zituen Espainiako koroaren aurka. Berria - Euskal Herria

UPNko **parlamentariak** kontra bozkatu zuten. Berria - Kultura

Proiektua garapen iraunkorren eta lurralde ereduaren «aurkakoa» dela esan zuen PSNko **parlamentari** Amanda Acedok. Berria - Harian

Erkidegoko legebiltzar autonomikoko **parlamentari** mutuetariko bat. Aingeru Epaltza

Sjurdur Skaale Feroe Uhartetako **parlamentari** izandakoa. Berria - Harian

De Villepinek lekuko **parlamentariekin** bazkaldu zuen joan den ostiralean, Baionako suprefeturari. Berria - Euskal Herria

Biktimen elkarteak ordezkariek eta Matti Iturralde lore eskaintza egin ondotik, **parlamentari** ohiak hartu zuen hitza. Berria - Ekonomia

Victor Garcia Hidalgo Eusko Legebiltzarreko **parlamentari** sozialista izango dela Guardia Zibilaren eta Espainiako Poliziaren buru. Berria - Euskal Herria

**Parlamentari** hasiberria naiz, zaildu gabea. Berria - Euskal Herria

EAJk zazpi **parlamentari** lortuko lituzke, PSE-EEk sei edo bost. Berria - Euskal Herria

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik parlamentario.

Zubimendik urtarrilean bere **parlamentari** eskainuari uko egin zionean bere aforatu izaera galdu zuen. Berria - Euskal Herria

Permachek **parlamentari** kargua hartu berria du Eusko Legebiltzarrean, Aritz Zubimendiren ordez. Berria - Euskal Herria

Nire **parlamentari** mandatu ahal den eta inizatiba gehienentzat erabiltzen dut, foro sozialetan adibidez. Berria - Euskal Herria

UMPko **parlamentari** taldeko bileran parte hartu ondoren, Gobernuari Legebiltzarrean asteartez egin ohi zaizkion galderen saioan izan zen Villepin. Berria - Harian

Goizaldean, bere gobernu sustatzen duen UMP alderdiko **parlamentari** taldearen bileran parte hartu aurretik, Europe 1 irratiaren galderi erantzun zien. Berria - Harian

Diru laguntza finko bat emanen zaie Parlamentuaren aurrekontuaren kargura, berdina guztientzat, eta beste bat, aldakorra, talde bakoitzak duen **parlamentari** kopuruaren arabera. Berria - Harian

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Legebiltzarkide taldeei dagokienez, beharrezkoa da gutxienez ere hiru foru **parlamentari** biltzea taldea eratzeko. Berria - Harian

### 4 euro parlamentari ik europarlamentari.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aralarreko parlamentari** (4); **eako parlamentari** (4); **legebiltzarrean parlamentari** (3); **parlamentari izan** (3)

**eako parlamentariaren** (3); **parlamentariaren irudiko** (3); **parlamentariaren ustetan** (3)

**parlamentarien artean** (4); **parlamentarien aurrean** (5)

## parlamentario *(orobat parlamentari g.er.)* 1 *izond* Parlamentuari dagokiona; parlamentariari dagokiena. ik parlamentu 2; parlamentari 2.

CCOO, LAB eta CGT sindikatuko ordezkariek Parlamentura sartu ziren langileen batzordeak onartutako oharra talde **parlamentarioei** emateko. Berria - Ekonomia

Agiria hainbat bileratan oinarritzen diren talde **parlamentarioak**, PP izan ezik. Berria - Harian

Arduratsua baita gure talde **parlamentarioa**, eta ez, zuk diozun bezala, komando **parlamentarioa**. Berria - Euskal Herria

Popularrek eskaerak gauzatu ahal izateko ekimen **parlamentario** propioak aurkeztuko dituztela ziurtatu zuen. Berria - Euskal Herria

Foro **Parlamentarioan** ere hartuko du parte. Berria - Harian

Kontzentrazioetako jendeak lan **parlamentarioa** errespetatu behar du, eta ordena publikoa nahastea saihestu behar da. Berria - Ekonomia

Konstituzionalistek arategi **parlamentarioa** «urratzea» leporatu diote. Berria - Euskal Herria

Ikerketa **parlamentario** batek horren berri agerrarazi duela. Berria - Mundua

Urtebete geroago, proposamenaren ibilbide **parlamentarioa** azken txanpan sartuko da. Berria - Euskal Herria

Akordio **parlamentario** bat adostea. Berria - Harian

Gehiago **parlamentarioa** lortzeko ahaleginetan jarraituko duela iragarri zuen Israelgo gobernuburuak. Berria - Mundua

Jose Efraim Rios Montt jenerala ohiak atzo immunitate **parlamentarioa** galdu zuen. Berria - Mundua

Kataluniak estatutu erreforma bat egin du, eta egoitza **parlamentarioan** egin du. Berria - Euskal Herria

Europako Kontseiluko biltzar **parlamentarioak** joan den hilean onartutako gomendioak. Berria - Harian

1930etik «Amerikaren aurkako ekintzak» ikertzeko zenbait batzorde **parlamentario** osatzeaz gain [...] infiltrazio komunistaren kasuak aztertu behar zituen lehenengo batzordea sortu zen. Berria - Kultura

Emakumearen Europako Batasuneko Batzorde **Parlamentarioko** lehendakariak. Berria - Kirola

Europar izan ziren erregimen komunistek egindako krimenak salatu zituen atzo Europako Kontseiluko Asanblea **Parlamentarioak**. Berria - Mundua

Testua «eztabaida **parlamentarioari** ekiteko oinarri egokia» dela argitu zuen. Berria - Euskal Herria

Prozedura **parlamentario** normalari «ihes egitea» leporatu die EAJ, EA eta EBri. Berria - Euskal Herria

Beroaldi **parlamentario** batek naturaz kontra eraginiko jokaldi etenaren kumeak gara. Aingeru Epaltza

## 2 parlamentuan oinarritzen dena.

Kerenskyren erregimena porrot hutsa izan zen, lastorik gabe adreiluak egiteko zereginaren zama baitzuen: hau da, gobernu **parlamentarioa** egitea, horretarako klase ertain sendo, gaitu, oparo eta eskarmenturik izan gabe. Iñaki Mendiguren

Bestetik, Italiako Alderdi Sozialista Demokratikoa, Saragat zuena buru, demokrazia **parlamentarioko** alderdi tradizionalekin batera lan egitearen aldekoa, burgesiaren ordezkari konstituzionalistak, gehiago handia, monarkia **parlamentarioaren** alde ziren. Fernando Rey

Konstituziozko estatu **parlamentario** bihurtzeko. Iñaki Mendiguren

Ingalaterrako gerra zibilean Alderdi **Parlamentarioko** kidea. Xabier Olarra

1848an sistema **parlamentarioa** ezarri zenetik, Herbehereetan egiten zen lehen erreferenduma zen atzokoa. Berria - Harian

Printzipio konstituzionalak, horien artean botere konstituziogilea Nazio espainiarrari ematea, lotesleak dira eta derrigortu egiten dituzte erakunde **parlamentario** guztiak. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**batzorde parlamentario** (3); **beste talde parlamentario** (5); **euskal talde parlamentario** (3); **talde parlamentario** (49); **talde parlamentario bat** (4); **talde parlamentario guztiak** (3); **talde parlamentario guztiei** (4); **talde parlamentario guztiek** (8); **talde parlamentario sendo** (3)

**batzorde parlamentarioa** (4); **biltzar parlamentarioa** (3); **eztabaida parlamentarioa** (3); **gehiengo parlamentarioa** (3); **sistema parlamentarioa** (5); **talde parlamentarioa** (41); **talde parlamentarioa osatuko** (5); **talde parlamentarioa osatzeko** (10)

**asanblea parlamentarioak** (3); **batzorde parlamentarioak** (3); **ekimen parlamentarioak** (3); **parlamentarioak azaldu zuenez** (3); **talde parlamentarioak** (19)

**eztabaida parlamentarioan** (9); **talde parlamentarioan** (6)

**psnko talde parlamentarioaren** (3); **talde parlamentarioaren** (17)

**talde parlamentarioari** (3)

**talde parlamentarioei** (8)

**talde parlamentarioek** (28)

**legebiltzarreko talde parlamentarioekin** (3)

**talde parlamentarioen** (5)

**talde parlamentarioetako** (4)

**asanblea parlamentarioko** (4); **biltzar parlamentarioko** (3); **talde parlamentarioko** (20); **talde parlamentarioko bozeramailek** (3)

## parlamentatu, parlamenta, parlamentatzen du *ad* hizketatu, negoziatu.

Hitzarmen antzeko bat zegoen bien artean erabakia, bera alde batean eta bizitza bestean, eta beti elkarren lehian ari ziren batak besteari onena kentzeko; eta zenbaitetan **parlamentatu** egiten zuten (bakarrik eserita zegoenean); orduan izaten ziren, gogoan zeukan, adiskidetzeko eszena handiak. Anton Garikano

## parlamentu 1 *iz* estatu edo herrialde beregain baten lege agintea duen biltzarra, hauteskunde bidez hautatua. ik legebiltzar.

**Parlamentuan** agintari zen, baina bazekien ondo, bide batez, mendeko zuen **parlamentu** hura aurkakoa zuela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Irabazleek **parlamentu** berria osatu zuten, noski, eta Cromwelek, armadako buru legez, baldintza gogorrak ezarri zizkien **parlamentuko** partaide izan behar zutenei. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Parlamentu** Arteko Batasunak (IPU) aditzera eman duenez, mundu osoko parlamentarien %16 baino ez dira emakumezkoak. Berria - Gaiak

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **parlamentario**.

«Anormaltasun demokratikoa» zuzentzeko behar diren **parlamentu**-ekimenak eta ekimen legegileak abiatzeko. Josu Erkiaga Kongresurako Bizkaiko zerrendaburuak adierazi zuen EAK eta ERCK elkarrekin osatu asmo duten **parlamentu** taldea «erabakiorra» suerta daitekeela hurrengo agintaldian, PPK gehiengo osoa lortzen ez badu. Berria - Euskal Herria

Foruzainek lan aldarrikapenak **Parlamentu** atarira eraman izanak Nafarroako presidentea haserretu zuen. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1999an ETAK Euskal Herri osoan hauteskunde forma izango zuen kontsulta egitea proposatu zuen, nazio **parlamentu** bat hautatzeko. Berria - Euskal Herria

Mundu zabaleko nazio **parlamentu** guztiek egiten dutena egiteko. Berria - Harian

Foru **Parlamentu** eratu berrian gehiengoak zuten ustez integrazioaren aldekoek. Berria - Euskal Herria

## 4 parlamentuaren egoitza.

Garaterekin **Parlamentu** ondoko taberna batean egiten nuen topo gehienetan. Xabier Montoia

· Barruko patioa, familiaren eta leinuaren bizia han egiten duk, azoka, **parlamentu** eta otoiitz-leku duk aldi berean... Xabier Olarra

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**parlamentu berria** (4)

**espainiako parlamentua** (3); **europako parlamentua** (16); **nafarroako foru parlamentua** (3); **nafarroako parlamentua** (18)

**bertako parlamentuak** (3); **bordeleko parlamentuak** (4); **espainiako parlamentuak** (12); **europako parlamentuak** (56); **europako parlamentuak onartu** (3); **frantziako parlamentuak** (23); **gobernuak eta parlamentuak** (4); **kataluniako parlamentuak** (29); **kataluniako parlamentuak erabakitzen** (4); **kataluniako parlamentuak**

onartutako (3); nafarroako parlamentuak (101); nafarroako parlamentuak onartu (4); nafarroako parlamentuak onartutako (5)  
parlamentuak aho batez (7); parlamentuak baztertu (3); parlamentuak berak (3); parlamentuak erabakitzen (5); parlamentuak erabakitzen duena (3); parlamentuak estatutu (3); parlamentuak hartzen (3); parlamentuak onartu (12); parlamentuak onartu du (3); parlamentuak onartuko (3); parlamentuak onartutako (13); parlamentuak onartzen (3)  
espainiako parlamentuan (11); estrasburgoko parlamentuan (4); europako parlamentuan (95); europako parlamentuan sortutako (3); frantziako parlamentuan (10); gasteizko parlamentuan (5); kataluniako parlamentuan (21); nafarroako parlamentuan (128); nafarroako parlamentuan agertu (4); nafarroako parlamentuan egin (3); nafarroako parlamentuan izan (4)  
parlamentuan agertu (8); parlamentuan aurkeztu (4); parlamentuan bertan (3); parlamentuan egin (12); parlamentuan egin zuten (3); parlamentuan egindako (3); parlamentuan eginiko (3); parlamentuan egiten (5); parlamentuan eseri (3); parlamentuan eztabaidatu (4); parlamentuan eztabaidatuko (3); parlamentuan izan (5); parlamentuan onartu (3); parlamentuan ordezkaritza duten (3); parlamentuan sartzen (3); parlamentuan sortutako (4)  
eskoziako parlamentuaren (3); europako parlamentuaren (15); idazleen nazioarteko parlamentuaren (5); kataluniako parlamentuaren (8); nafarroako parlamentuaren (30); nafarroako parlamentuaren aurrean (15); nazioarteko parlamentuaren (5)  
parlamentuaren atarian (7); parlamentuaren aurrean (27); parlamentuaren eskubideak (3); parlamentuaren gehiengo (4); parlamentuaren gehiengoak (3); parlamentuaren oniritzia (4)  
europako parlamentuari (6); nafarroako parlamentuari (13)  
europako parlamentuko (47); idazleen nazioarteko parlamentuko (3); italiako parlamentuko (4); kataluniako parlamentuko (21); kataluniako parlamentuko presidente (3); nafarroako parlamentuko (101); nafarroako parlamentuko bozeramaileen (5); nafarroako parlamentuko mahaia (3); nafarroako parlamentuko ponentzian (3); nafarroako parlamentuko presidenteak (3); nafarroako parlamentuko taldeak (3); nafarroako parlamentuko taldeen (3); nazioarteko parlamentuko (3); palestinako parlamentuko (3)  
parlamentuko alderdi (3); parlamentuko alderdien (3); parlamentuko batzorde (3); parlamentuko batzordeak (4); parlamentuko bozeramaileen (6); parlamentuko diputatu (4); parlamentuko eskaera (3); parlamentuko gehiengoaren (3); parlamentuko kide (4); parlamentuko kideak (5); parlamentuko lehendakari (4); parlamentuko lehendakaria (4); parlamentuko lehendakariak (3); parlamentuko mahaia (10); parlamentuko mahaia (3); parlamentuko mahaia (3); parlamentuko mahaia (3); parlamentuko osoko bilkurak (4); parlamentuko osoko bilkuran (3); parlamentuko ponentzian (5); parlamentuko presidente (21); parlamentuko presidentea (6); parlamentuko presidenteak (11); parlamentuko presidentearekin (4); parlamentuko talde (9); parlamentuko taldeak (4); parlamentuko taldeen (4); parlamentuko zerbitzu juridikoak (3)  
europako parlamentura (14); nafarroako parlamentura (15); parlamentura bidali (4); parlamentura eraman (5); parlamentura joateko (3); parlamentura sartu (3)  
europako parlamenturako hauteskundeak (3); parlamenturako hauteskunde (3); parlamenturako hauteskundeak (4); parlamenturako hauteskundeetan (6)

## parlamentuzale *izond* parlamentuaren aldekoa dena.

Kaskamotz AB-k 1642-1649an Ingalaterran izan zen **Parlamentuzaleen** eta Erregezeleen arteko gerra zibila aipatzen du. **Xabier Olarra**

Bawtryko uhalgilea Cromwelen laguntzaile Fairfax jeneralaren soldadua zen, hango eta hemengo kanpainak egin eta **parlamentuzaleak** Londresen garaile sartu zirenean 1648.eko abenduaren 2an. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## parleria *iz* berritsukeria, hitzontzikeria.

Bere **parleria** burututa eztabaida nahi zuela esan zigunean eskaini genion mututasun hartan Erkizia ikasle ohiarenganako dolua erakutsi geniola esanen nuke, eta aldi berean Erkizia fraidegaiaren azkartasunak piztu zigun gorrotoa. **Koldo Izagirre**

## parluar *iz* mintzategia, mintzatokia.

-Iragan bisitaldian **parluarrera** heltzeko bidean bost aldiz biluzi dute. **Itxaro Borda**

## parmatar *izlag/iz* Italiako Parmakoa, Parmari dagokiona; Parmako biztanlea; gaztez mintzatuz, Parman egiten dena. ik **parmeseano**.

Bertan mendi bat dago goitik behera **parmatar** gazta birrinduz egina. **Berria - Kultura**

## parmeseano 1 *izlag* Italiako Parmakoa, Parmari dagokiona; gaztez mintzatuz, Parman egiten dena. ik**parmatar**.

**Parmeseano** gaztak magnesioaren eta burdinaren %70 galdu du. **Berria - Gaiak**

Gazta **parmeseano** batek usain lurrintsu pittin bat gehitzen zion ore egosien astuntasun hari. Kirtenik gabeko zartagin batera aldatu risottoa, gazta **parmeseanoz** hautsezatuz, azpil batean jarri dena, eta bere izter gainean ipini zuen azpila. **Karlos Zabala**

### • 2 *iz* Parmako biztanlea.

Musika esaldi kementsu horren erdian, **parmeseanoak** txirula txistu mehe bat jaurtitzen zuen noizik behinka. **Karlos Zabala**

## parnasianismo *iz* frantziar poesia-higikunde, XIX. mendeko bigarren erdikoa, forman perfekzioa eta mamian objektibotasun klasikoa bilatzen zituena.

Galderok puze hasi zitzaizkidan Lizardiren eta Lauaxetaren obra beste begi batzuek irakurtzen hasi nintzen neurrian: eusko--bidaztiaren bidaiak eta poeta sinbolistarenak sustrai poetiko berak zituzten; Lauaxetaren han-hemenkako oihartzunek **parnasianismoaz** hitz egiten zidaten; ez zitzaidan zaila gertatzen gure Bepizkundeko hainbat poetengan erromantizismo alemanaren oihartzunak nabarmentzea... **Anjel Lertxundi**

## parnasiano *izond* parnasianismoarena, parnasianismoari dagokiona.

Banvilleren poema erromantikoa, **parnasianoak** eta sinbolistak. **Berria - Kultura**

Nik silfide iheskoraren poseak hartzen nituen eta gutxi gorabehera **parnasianoen** eta arkadiarren eta erromantikoen moduan hitz egiten nuen. **Karlos Zabala**

## parnaso *iz* poeta-multzoa; poesia-multzoa.

Bada, gure Joan gaztea euskal **Parnaso** bat sortzeko ahaleginetan dabilen bitartean, bere ahaide Esteban gogor ari da lanean erregearen gortean postu bat eskuratzeko.

**Berria - Kultura**

Iriarte eta Alonso de Ercilla izenak bakarrik aski dira **Parnaso** kantabresaren loriarako. **Berria - Kultura**

Goian dagoela Battitta pastoralkaria, Orhiko **Parnasoan**, olerkari eta kantarien artean. **Herria**

**Parnasoan** aulkitxo bat, alokairuan besterik ez bada ere, izateko eskubidea lortzeko neure merito poetikoak azaldu beharko banitu, ez nuke orain arteko bi poemario sariz alferrik galduetan idatzitakorik hautatuko. **Joxerra Garzia**

### 2 (hitz elkartuetan)

Giovannino Guareschik inoiz ez du lortu literatur **parnasoarean** aitortza edo onarpena, are gutxiago Italian, bere sorterrian. **Koldo Biguri**

# parnasokide iz parnosoko kidea.

Behingoagatik bi **parnasokide** bat datoz euren iritzietan. **Unai Iturriaga**

## parnasotxo iz adkor parnasoa.

Egile eta itzultzaile saiatu batzuk sancta sanctorum, olinpotxo eta **parnasotxo** guztietatik at dauden artean, [...]. **Berria - Kultura**

## paro 1 iz lanuztea.

**Paro** eta mobilizazioez gain, hiru ikasle jai ere egin zituzten, Bilbon, Gasteizen eta Arrasaten. **Berria - Euskal Herria**

Asteazkenean 70 gerrillari desarmatu zituen arren herrialdeko zenbait tokitan «**paro** armatua» egiten ari direla salatu zuten agintariek. **Berria - Mundua**

Gasteizen 11:00etatik aurrera **paroak** deituta zeuden, eta IAre arabera, Gizarte Lanetarako fakultatean ikasleen %82k egin zuten **paroa**, Filologian %69k, Farmazian %79k eta Irakasle Eskolan %77k. **Berria - Euskal Herria**

## 2 langabezia.

Orduan Ekonomia Politikoak politika hutsa besterik ez al da? bai, ekonomiko den edozer politiko ere den neurrian: **paroa** eta enplegu osoa, prezioen garestitze edo merkatzea, [...]. **Iñaki Heras**

## parodia 1 iz norbaiten edo zerbaiten isekazko imitazioa.

*Fidel izan beharraz* gertaerak eta pertsonen arteko harremanak katramilatzen eta korapilatzen doazen komedia -edo melodrama baten **parodia** - bat da, barregarria eta serioa aldi berean. **Antton Olano**

Pasarterik barregarrienak Elizako historialarien **parodiak** dira. **Markos Zapiain**

*Bako Jorace* izena (Quintus Horatius Flaccus) Horazio poeta erromatarren **parodia** da, haren oda eta epodoetan Bakori buruzko aipamen ugari aurkitzen baita. **Xabier Olarra**

Lan osoan zehar umore gordina agertzen du eta **parodia** soziala egiteko trebetasuna erakusten. **Monika Etxebarria**

Ospearen aitzakiaz telezaborraren **parodia** gupidagabea egiteko aprobetxatzen dute *La cubanakoek*. **Berria - Kultura**

Belarrien zehar-aipua arbitrarioa da, eta keinua, berriz, jatorriz, sinagogan judu prestuek trukatzeko zuten agurraren **parodia** sakrilegoa zen. **Juan Garzia**

Aztergai konplexua da **parodiarena**, hitz jolasetatik metaliteraturara igarotzen dena. **Iñaki Arranz**

Egun sinalatu batean, ahalguztidunak eta aberatsenak, ezerezenari eta pobreenari, bere boterea utziko dio, **parodia** bidez baina, betiere erregearen noblezari propaganda herritarra egiteko xedetan. **Patziku Perurena**

## 2 parodia egin ik parodiatu.

Gizon batek ezkontza plan batez eta dotearen zenbatekoaz ziharduen, eta beste batek berriz, Purimeko errabino baten **parodia** eginez, Torahko pasarte bat errezitatzeko zuen, era guztietako interpretazio lizunak erantsiz. **Koro Navarro**

Queneau literatura frantsesaren erregistro, erretorika, genero eta azpigenero eta baliabideetatik abiatzen da tradizio baten **parodia** egiteko. **Berria - Kultura**

Egunero egiten zen desfile honek soldaduen musika, jantzi eta jokamoldeekin ohitu zituen bertakoak [donostiarrak], eta laster hasiko ziren haien formen eta doinuen **parodia** egiten. **Askoren artean**

Lotsarik gabeko artikulu satiriko bat moldatu genuen haren adierazpenen kontura, argentinarren azentuaren **parodia** ere eginez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Mutil gazte haiek denak senarraren **parodia** ari ziren egiten, pentsatu zuten. **Anton Garikano**

· "Udak dakarrena udak daroa" delako istorioak **parodia** edo omenaldia egiten dio subkultura espainolaren agerpen jakin bati: udako abestiei alegia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gay munduarekin lotutako **parodiak** egitea atsegin du Konigek. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**parodia eginen** (4)

## parodiatu, parodia(tu), parodiatzen du ad parodia egin.

Moussaouik Bruce Springsteen *Born in the USA* (AEBetan Jaioa) kanta ezaguna **parodiatu** zuen, *Burn in the USA* (AEBetan Erre) abestuta. **Berria - Harian**

Gero, mila aldiz **parodiatua** zein errikulizatuza izan den zerbait egiten nuen: orri zuri bat hartu eta bere izena idatzi. **Bernardo Atxaga**

Umeak, eliza zabalik ikusirik, atarian jarrita zeuden ahots gorarik kantari, eskarnioz eta algara handitan **parodiatuz** meza eta bezperak, aldareko apeza eta koruko txantreak. **Koldo Izagirre**

Arestiren poemak menditik ebanjelio berria predikatzerantz jaisten den profeta **parodiatzen** du. **Joseba Zulaika**

1980ko hamarkadan, dagoeneko, Andres Nagelek Oteizaren "Kutxa Metafisikoak" ederki **parodiatu** zituen, basapiztien irudiak barne zituela egindako kairolekin. **Joseba Zulaika**

## parodiko izond parodiarena, parodiari dagokiona.

Euskara mordoiloa imitatzen da halakoetan, asmo **parodiko** batek eraginda, gehiegikerietara jotzea irragarri suertatzen baita. frantses literarioaren erretorika hanpatua birsortzen duten testuen itzulpenetan hein batean galdu egiten dela jatorrizkoak duen izaera **parodikoa**. **Iñaki Arranz**

Antzezpen **parodikoaren** bidez, prekarietatearen aurkako taldea aurkeztu dute. **Berria - Ekonomia**

## parola iz hitza.

Sehaska kantu xaloak eta gaiztoak, blues malenkoniatsuak, baladak, koplak... denetarik aurkituko duzue hemen, eta baita ere kantu kultua esan genezakeena, frantsesek *chanson à paroles* esaten dutena, kantu berbadunak, zer edo zer molde jasoan esaten duten **parolak**, letrak. **Berria - Kultura**

## paronimia iz bi hitz edo gehiago paronimikoak izatea.

Hizkuntz akademia batek euskarazko ikasleei proposatzen dien alegiazko mapa, non *Don Ostia*, *Hara ba*, *Bai Ona*, *Bart Ze Lo Ona*, *Zu Beroa* eta *Naif Harroa* hiri eta lurraldeak aurkitzen diren, homofoniaren eta **paronimiaren** ahalmenak baliatuz. **Iñaki Arranz**

Homonimia eta **paronimia** daude kasu hauen guztien azpian, nahi gabe nahaspila sortzen dituztenak. **Iñaki Arranz**

**Paronimiaz** edo paronomasiaz hitz egingo dugu horrelakoetan, eta nahiz eta zuzentasunez homonimiaren alorretik kanpo geratu, guk atal honetan sartuko dugu "berdintsu"tik "berdin"erako tartea oso estua denean. **Iñaki Arranz**

## paronimiko *izond* hitzez mintzatuz, beste baten antza duena, forman nahiz ahoskeran.

Hitz pare **paronimikoak**. **Iñaki Arranz**

## paronomasia *iz* bokal edo kontsonante batean baino bereizten ez diren bi hitz edo gehiagoren antzekotasun fonetikoa.

Paronimiaz edo **paronomasi** hitz egingo dugu horrelakoetan, eta nahiz eta zuzentasunez homonimiaren alorretik kanpo geratu, guk atal honetan sartuko dugu "berdintsu"tik "berdin"erako tartea oso estua denean. **Iñaki Arranz**

## parotiditis *iz* guruin parotidoen hantura.

Edu txo Caterpillarrek irakurri zuen, soprano ahotsez, une hartan jartzeko moduan zituzten gaixotasunen zerrenda: difteria, tetanoa, kukurruko-etzula, poliomieltisa, elgorria, errubeola, **parotiditis** eta, azkenik, B hepatitis. **Karlos Linazasoro**

Zuek **parotiditis** gaixoa eukita zagoze eta alferrikakoak dira ahalegin guztiak. **Gotzon Garate**

## paroxismo 1 *iz* eritasun baten erasoaldia.

Tissot frantziarrak -sendagilea eta aita santuaren aholkularia bera- motz utzi zuen Bekkers, eta haren zerrendari itsutasuna, **paroxismo** krisiak, katelesia, kretinismoa, paralisia eta beste asko erantsi zizkion. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Haurraren zotín **paroxismoa** gutxitzen-gutxitzen nola joan zen entzun zuen. **Irene Aldasoro**

## 2 sentimen, sentipen edo arima egoera baten goraldi maila gorena.

Haurrak, amaren ahotsa entzutean, negarraren **paroxismoa** harrapatu zuen. **Irene Aldasoro**

Plazeraren **paroxismoan**. **Jon Alonso**

Gorrotaren **paroxismoan**, nire besoa ate birakari baten moduan bultzatu eta oihuka hasi zitzaidan. **Joxan Elozegi**

Sarrera egin behar nion estasiaren **paroxismoari**. **Joxan Elozegi**

## 3 irud/hed

Beste bide batean, motor batek azeleratu egin zuen ia **paroxismoraino** eta segidan, errebueltatxiki batera iritsia zelako edo, ia isiltzeraino desazeleratu. **Bernardo Atxaga**

Lehen erorialdiak gizarte kolapsatua arazoaldian murgiltzen du, lehen susperraldiak arintzen dio hori, baina bigarren **paroxismo** bortitzago batek jarraitzen dio gero. **Iñaki Mendiguren**

Zerbaít gaineratu nahi izan diote maisu zaharren lanari, eta Oximoron Leibnizbarrutiaren gaineko exegesia **paroxismoraino** luzatu dute, erridikuluaren eremura sartzeraino. **Jon Alonso**

## parpaila<sup>1</sup> *iz* ehunezko zati apaingarria, soinekoari dilindan eransten zaiona; hari txirikordatuz egiten den ehun apaingarria. ik **puntilla<sup>1</sup>**.

Zeta arrosa-kolorea orratzez eratxiki zuen belauñ gainetan, eta puntada luzez josten hasi zen **parpaila** estua, erdi eginda zeukan janzkiaren lepoaldean zehar. **Mirentxu Larrañaga**

Gona kiribilkaria eta **parpaila** beltzez hornituriko mahukak. **Joxan Elozegi**

Gero [...] eskumuturretako **parpaila** gasazkoak harrotu zituen. **Mirentxu Larrañaga**

Apaingarrien dar-dar ikaratia, kirrinka-hotsen bat edota **parpailaren** firfira. **Mirentxu Larrañaga**

Diane txikitxo, musu-arrosa eta haserre-antza, bere sehaskatxoan ozta-ozta ikusgai, hainbeste **parpaila** eta gauzakiren artean. **Mirentxu Larrañaga**

**Parpailazko** zapi apaingarriak. **Oskar Arana**

Motorzaleen jakak eta zetazko gonak, **parpailazko** esku-larruak eta lepoko zapi nabarmenak. **Oskar Arana**

Deus ez zuen aipatu, ordea, lihozko maindirez eta damaskoz itxuraturiko zamauez, ez eta **parpaila** apain baliotsuez ere. **Joxan Elozegi**

Hatz luze zuriez bularreko **parpaila** urratuak antolatzen aritzen zen beti. **Jose Morales**

Ohea inguratzen zuten beluz beltzezko errezel **parpailadunak**. **Koro Navarro**

## 2 irud/hed

Ikusirik hosto-zuztar horiek, adarrak apaintzen dituen **parpaila** berde hori haize kirriaren pean ikaraz, kale egiteko beldur begalego bezala. **Juan Garzia**

## parpaila<sup>2</sup> *iz* haize parpaila, kometa.

Nola **parpailak** hegaldarazten genituen haizearen sasoian. **Juan Garzia**

## 2 haize *parpaila* ik **haize 28**.

## parpailadun *izond* parpaila duena; parpailak dituen.

Gakorratzez jositako lepoko **parpailadunak** janztera. **Mirentxu Larrañaga**

Amona tikia zen, beltzez jantzia, baina bizkar tentekoa eta bixi eta ernea, lepo **parpailadunarekin**. **Fernando Rey**

Berak isilik begiratzen zion, lepotik hasi eta atorra **parpailaduneraino**. **Jose Morales**

Semeak ikusmin haserrez begiratzen zuen nola zabukatzeko ziren amaren buru ile-urdina eta kapela beltz **parpailaduna**. **Jose Morales**

Lucy garalea, mehatxatzen zuen esklabotzatik aske orain, soineko zuri-gorri koadroduna, oinetako beltz bernizatuak eta galtzerdi zuri **parpailadunak** jantzita agertu da mahaira. **Oskar Arana**

**Parpailadun** sujetadoreak ez dio jadanik inoiz izan zitueneraino jaso bularrak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

· Gelako sabaiaren erdi-erdian lanpa **parpailadun** magenta bat zegoen zintzilik. **Iñaki Segurola**

## parra<sup>1</sup> *iz* hazten uzten den mahatsondoa, euskarri batez eusten zaiona, mahats parra.

**Parra**-hostoez apaindurik, auzitegiko idazlaria lehengo moduko koktel bat irabiatzen ari zen. **Lopez de Arana**



Halako batean, **parra**-hostoak hasten hasi zitzaizkien eta, horren ondorioz, auzitegiak salan gero eta nabariago egin zen umotzen ari ziren mahatsen kiratsa. **Lopez de Arana**

## 2 mahats parra ik mahats 15.

## parra<sup>2</sup>

1 parra-parra ik barra-barra.

parra<sup>3</sup> ik barre.

## parrafo *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **paragrafo** agertzen da) iz paragrafoa.*

**Parrafo** eta lerro guztietan esaldi bera ikusten zuen: "Carpe Diem". **Jasone Osoro**

Egia esan, aski da Kixoteko **parrafo** bat edo beste ikuskatzea Cervantes estilista ez zela sumatzeko. **Juan Garzia**

Bere **parrafo** asko oso luzeak dira, ilunak beste asko, eta gauza biak ez gutxi. **Juan Martin Elexpuru**

**Parrafo** hori aurreneko aldiz irakurri nuenean nahastu egin nintzela irudituz zitzaidan, norbaitek aldatu egin zizkidala atrilean neuzkan paperak, zerbait falta zela. **Bernardo Atxaga**

Sumarioaren lehenengo **parrafoan** argi ikusten da tesi baten gainean egindako operazioa izan zela. **Berria - Euskal Herria**

## parragarri ik barregarri.

## parranda 1 iz jostaketa edo jai zaratatsua. ik olgeta.

**Parranda** txikiak izaten dituk, ez pentsa orgiak-eta egiten ditugunik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Akabo ostegunetako **parrandak**! **Jon Arretxe**

Gaur **parranda** bota behar diagu, Mikel. **Unai Iturriaga**

"Alimaleko **parranda** joko diagu bi hauekin", pentsatu zuen Gorkak. **Patxi Iturritegi**

Gogoan dut Eliana izan zela **parranda** hura antolatu zuena. aguardientea edaten zebiltzan, **parrandarekin** gizatxarturik. **Karlos Zabala**

Nik lehen espagetiak prestatzen nituen **parrandatik** bueltan, baina *speed* madarikatu honek gosea ere lapurtu egiten dit. **Unai Iturriaga**

Non geratzen dira gaztetxo horren koadrilakoak **parrandara** joan aurretik? **Harkaitz Cano**

Aspaldiko laguna du Anjel, gaztetako **parrandetan** Joxanekin ibilitakoa. **Paddy Rekalde**

Bekatueta eta **parrandetako** aspaldiko laguna. **Oskar Arana**

## 2 (izenondoekin)

Kontuak kontu, Txixikov adiskidea, **parranda** itzela egin genian aurreneko egunetan. **Jose Morales**

Hura **parranda** handia, denak mozkortuta geure onetik aterata, zaldiak zein gizonak. **Fernando Rey**

Horregatik aprobetxatu ohi ditugu horrelako topaketak, herritik aparte **parranda** koxkorren bat egiteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Parranda** polita antolatu zen. **Joxe Austin Arrieta**

Bart gaueko **parranda** latza. **Fernando Morillo**

Kontrolatu egin behar dut eta **parranda** gogorak ostiralerako utzi. **Jon Arretxe**

Hamaika aldiz damutu ginen bezperan hain **parranda** zoroa egiteagatik. **Jon Arretxe**

**Parranda** galanta Lesakan, ezta? **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Wight uhartean oporretan egin ohi diren erokeriatxo inozoetan aritu ziren: dantza egin, **parranda** giroan ibili, gaueko festetara joan... **J.M. Olaiola "Txiliiku"**

Hurrengo urteetan Europan barrena ibili zen: Parisen, Alemanian... musika-ikasketetan sakontzeko aitzakiarekin, hiri guztietako **parranda**-giroetan gautxori. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bere **parranda** -gaua zen, aski bakarrik zegoen Schumacher ere. **Fernando Rey**

· Ta ze **parranda** -kaka egin behar dugu ba, bixigarri pixka bat ekartzen ez badugu? **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Macquart zaharraren mozkorkeria eta kale **parranda** famatuak. **Karlos Zabala**

· Alde horretatik, Leopardoen afari-**parrandaren** deskribapena (ostegunero Sárszeg-ko hainbat gizonezkoek egiten duten bilera gastronomiko-alkoholiko-misoginoa) liburuko gailurretako bat da, baina ez bakarria. **Berria - Kultura**

## 5 parrandan adlag

Zenbaitetan egunak ematen genituen esnifatu eta esnifatu eta edan eta edan, **parrandan** beti. **Karlos Zabala**

Gau-pasa egiten ari duk errege, topaka, **parrandan** jo eta su, dantza-zalaparta bizian. **Juan Garzia**

Hemen biltzen dituk **parrandan** euskal kulturako OPlak! astean hiru egunegor egiten zuen lan, beste hiru egun **parrandan**, eta zazpigarrenean lo. **Unai Iturriaga**

**Parrandan** ibili ondoren leher eginda sentitzen da, baina bihotza berriro ere punpaka hasi zaio. **Patxi Zubizarreta**

Esaten zidan: hori **parrandan** zebilek. **Pello Lizarralde**

Tolosako inauterietan **parrandan** eta zorakerian nenbilela, [...]. **Iñaki Segurola**

Bi egun daramat **parrandan**, lorik egin gabe. **Jose Morales**

Zaborra zeinek jaitisi, komuneko papera nork aldatu, oporretan nora joan, gauean **parrandan** atera edo etxean gelditu... **Berria - Kultura**

## 6 parranda egin

**Parranda egin** gabe itzuli gara herrira taxi bitan. **Eider Rodriguez**

Sagardotegira afaltzera eta gero **parranda egitera** joan ginela. **Jon Alonso**

Gizonak ezkondu baino lehen **parranda egin** behar du, aguardientea edan, eta gero geldialdia eman bere bizitzari. **Pako Aristi**

Alkoholez blai, astebeteko **parranda egingo** dute, handik kalera irten gabe. **Edorta Jimenez**

Kristoren **parrandak egin** behar ditugu hemen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egundoko **parranda egingo** dugu. **Sonia Gonzalez**

Behin batez, Juan Goytisolo alboan egokitu zitzaion afari-mahainguru horietako batean; azkenean biak bakarrik geratu, eta sekulako **parranda egin** zuten. **Iban Zaldúa**

Gaur egun mozkorraren aitzakian gazteek kalean **egindako parranda** guztiei deitzen zaie botilakoa. **Berria - Euskal Herria**

Lana egin behar zenean langileena, eta **parranda egin** behar zenean parrandazaleena. **Mikel Hernandez Abaitua**

· Don Kauen eta gure irakasle maitearekin a ze **parrandak egin** zituzten, uda epel hartan. **Joxean Sagartzizabal**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**egundoko parranda** (3); **gaueko parranda** (3); **parranda egin** (16); **parranda egitera** (5); **parranda itzela** (5); **parranda itzela egin** (3)  
**lagunekin parrandan** (4); **parrandan dabilen** (3); **parrandan ibili** (4); **parrandan ibiltzea** (5)

## parrandakide *iz* parranda berean parte hartzen duen laguna.

Nire **parrandakide** baten sorbalda gaineratik begiztatu nuen, bakarrik, bazterreko mahai hartan, liburu bat irakurtzen... Eta gaueko lige-saioetan jarduteko, besterik ezean, **parrandakide** ezin eskasagoa zeukan: pisuko pottoki marmartia, Floren. **Juan Martin Elexpuru**  
Orain, **parrandakide** naturala dut, beti arrastoan, beti umoretsu, edozein jolas probatzeko prest beti. **Berria - Kirola**

## parrandatoki *iz* parranda egiten den tokia.

Baina biharamunean herritik alde egin zuen emakumeak, eta Napumocenok ero moduan bilatu zuen hiru egunez Mindeloko **parrandatoki** orotatik, ez ordea aurkitu. **Bego Montorio**

## parrandatxo *iz* *adkor* parranda.

Lehengo eguneko **parrandatxoaren** ondoren..., nik uste ninan... **Antton Olano**  
-Geratu gurekin, **parrandatxo** egiteko asmoa zeukanagu. **Unai Iturriaga**

## parrandazale (*orobat parranda zale*) *izond* parrandaren zalea dena.

-Oso pisukide **parrandazaleak** dauzkalako. **Jon Arretxe**  
Lana egin behar zenean langileena, eta **parranda** egin behar zenean **parrandazaleena**. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Irlandarrak oso jendemodu ona dira, geure estiloko mozkorti **parrandazaleak**. **Jon Arretxe**  
Tonto-harroak eta aberaskume **parrandazaleak** besterik ez dago hemen. **Josu Zabaleta**  
Koadrila **parranda** zale bateko liderra izaki, inoiz ipuin bateko protagonistaren izen gisa balia dezaket. **Anjel Lertxundi**  
Hainbat gau eman zuen etxetik kanpo, luze jo zuen zurrutero-festa **parrandazalaren** batean, nabarmen-nabarmen. **Mirentxu Larrañaga**  
Zigor, ordea, **parrandazale** amorratua zen. **Gotzon Garate**  
Cardiffeko **parrandazale** famatua, enpresako autoaz aire gabeko kaleetan barrena tabernara abidan zetorren Louren maitale izugarria. **Koro Navarro**

## parrandeatu, parrandea, parrandeatzen du *ad* parrandan ibili.

Gizonak ezkondu baino lehen **parrandeatu** egin behar du, emakumeen artean ibili. **Pako Aristi**

## parrandero *izond/iz* parrandazalea.

-Zer, **parrandero** ? gaupasa eginda, e? **Joxean Sagartzizabal**  
Euren autoa diskoteka ibiltari bilakatu duten **parrandero** horietako batek. **Pako Aristi**  
Batzuentzat bertsolaria arlote, **parrandero** hutsa zen. **Andoni Egaña**  
**Parranderorik** borrokariaren azkeneko pontxoak jaurtitzen zituzten beheko tabernetan. **Unai Iturriaga**

## parrape *iz* parraren azpialdea.

Begirada batek utzitako sentsazioa, udako arratsalde batean **parrape** batean izandako solasaldi dultzea edo esku baten berotasuna agur esatean. **Ana Urkiza**  
· Nor bere mahats-**parrapean** eseriko da, bere pikupean, inoren beldurrik gabe. Honela agindu du Jaun ahalguztidunak. **Elizen arteko biblia**  
*ik* mahats 15.

## parrasta (*orobat parasta g.er. eta farrasta g.er*) **1** *iz* gauza-multzo edo pertsona-talde handia.

Gu lanean ezartzen baldin bagaituzte, jende planttako horietarik **parrasta** bat karrika izkina honetan legokek gure ordez, eske. **Itxaro Borda**

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehenak pertsonak adierazten dituela)

Zurrumurruek ziotenez, auzo herrietan jende **parrasta** bat atxilotu zuten apez ihardokitzaleak sostengatzeagatik. **Elena Touyarou**  
Merkatu zoladura-prezioa baino are apalago saltzen zuten axurikia, dumping eginez eta laborari **parrasta** bat azienden etxean atxikitzea bortxatuak ziren. **Itxaro Borda**  
Senide **parrasta** bat etorri zen bakartasun handian hil zen gizonari hondar agurraren eskaintzera. **Itxaro Borda**  
Turista-**parrasta** alde batera utzita (tartean ni), milaka eta milaka dira kalean eta lanean ikusten diren afrikarrak, magrebtarrak, argentinarrak, karibearrak, eslaviarrak, inkak, filipinarrak... **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Alta, inbaditzaileek kolaboratzaile-traidore **parrasta** bat ukan zuten Filipinetan. **Ramuntxo Etxeberri**  
Hameka hil eta kolpatu **parrasta** bat, zinezko izigarrikeria...! **Herria**  
Etorri berriak harantz abiatu ziren agintariekin, Sozietate Popularraren kide **parrastarekin**, eta kuriosekin batean. **Elena Touyarou**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehenak gauzak adierazten dituela)

Gutun **parrasta** bat, emakume horrek eta berak egunean-egunean elkarri izkiriatuak zizkioten gutun multzo bat osatzen zutenak. **Jon Muñoz**  
Bala **parrasta** batek jo zuen babestua nengoen zubia. **Koldo Izagirre**  
Ez dira guti harritu goiti zoatzilarik hezur **parrasta** bat atxeman baitute. **Herria**  
Paper **parrasta** zeraman aldean. **Aingeru Epaltza**  
Garagardo baso **parrasta** bat hustu zuten elkarrekin. **Itxaro Borda**  
Diru **parrasta** bat irabazteko. **Aingeru Epaltza**  
Haize erauntsiek kaleko harlauzen gainera jaurtitako ur **parrastek** errekaxto lasterrak sortzen zituzten espaloi bazterretan estolda bila. **Josu Landa**  
Izerdi-**parrasta**, sauna batean bezala. **Joxe Austin Arrieta**  
Hor, arras deliberatua, Philippe de Villiers, eskuinburuko boz **parrasta** bat bildu nahiz dabilana. **Herria**

Afera **parrasta** bat izanzen zen zurrizeko. Elena Touyarou

Bittorrek ez zion sekulan aipatu urte **parrasta** bat lehenago hemen gertatua. Elena Touyarou

Etxe-miatze **parrasta** bat izan da, korsikar abertzale bat arrastatu dute eta Pariserat ereman. Herria

Solas leun eta goxo **parrasta** bat, holako predikuetan ardura gertatzen den bezala. Herria

#### 4 **parrastan** kopuru handian.

Handik, brozela iduri ikatzez bete, iraultzen zuten eta **parrastan** gain beheiti ikatzak betetzen zuen aska erraldoi bat, ondotik itzainek betetzen zituzten beren brozelak eta jo Donibaneko geltokirat beren idien urratsean. Herria

Arteriak dilatatu egiten dira; benak, estutu, eta odola **parrastan** doa ehunetara. Luis Elberdin

Laboreak ematen dizkiot, eta ahotik borborka irteten zaizkio, **parrastan** hartzen dituenean. erdal liburuak ere **parrastan** saltzen direla han. Javi Cillero

Aldamenekoak su eta gar borrokatuko ziratekeen haren aurka, harrika, irainka edota ur irakina **parrastan** jaurtika. Mirentxu Larrañaga

Sekulako lanbro-mintz zabalak altzatzen hasi ziren, trumilka eta **parrastan**, itsasgainetik zerurantz. Masaila zurbilak lotsagorritu zitzaizkion **parrastan**. Anjel Lertxundi

## parrastada 1 *iz* kopuru handia.

Hermioneke edaberean **parrastada** on bat atera zuen edalontzi bakoitzera. Iñaki Mendiguren

**Parrastada** ozen bat entzun zuten. Iñaki Mendiguren

Hitz hanpatuzko **parrastada** batez jarraitzen zuen. - **Parrastada** bat botatzera noa, Jon, besteko barik, joder! Ander Irizar

Gerri gainak lasatzen sentitu zituen **parrastada** bota ahala. Unai Iturriaga

**Parrastada** gorraile batean bere biziaren odol guztiaz korrok egin, eta lurreko hilezkortasunaren lozorrra bildu zen. Juan Garzia

**Parrastada** guztia aurrezteko gogoz zebilen, dudarik gabe. Iban Zaldúa

Hor gabiltzak hitza hitzari josi eta **parrastadan** boteaz, denen gustua egin nahian. Patziku Perurena

Arazoiak, purrustadaz eta **parrastadaz** gatzozpinduak. Iñaki Arranz

#### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero dutxaren ur **parrastadaren** hotsa baino ez. Unai Iturriaga

Leherketa zakar bat sumatu nuen neure eskuinean, eta lur-**parrastada** batek neure aurpegiaren kontra jotzen zuela. Txillardegí

Elkarren arteko loturarik gabeko hitz **parrastada** bat paratzea. Iñaki Arranz

Stephen sasi-japonierazko hitz **parrastadak** botatzen hasi zen, "japoniar" keinuz lagundurik. Xabier Olarra

Santosek Fonsecaren berri eman zionetik noiz ahoratu zain zeukan galdera **parrastada** egin zion. Josu Landa

-Konforme, polit hori, txarrean nahi badun, txarrean -diotso neskari, garagardo **parrastada** bat burutik behera boteaz. Patxi Iturritegi

Gain hartan, plaza ikaragarri haren inguruko hiribideetatik haize **parrastada** handiak zetozen. Karlos Zabala

Gauza barregariarik ez dago hamaika urteko eskola-umetz betetako gela batean haize-**parrastada** zaratatsu bat baino. Oskar Arana

Zira barregaria [...] logelan utzi eta derrigorrezko txiza **parrastada** bota ondoren eseri zen mahaira. Unai Iturriaga

Eguna, argi **parrastada** zuri baten antzo, gora zetorren Rambuteau kalearen amaieratik. Karlos Zabala

## parrastaka *adlag* kopuru handian.

Handik goiti, **parrastaka** etorri dira tiroketak eta borrokaldiak. Aingeru Epaltza

Kontu-zaharren zale aspergarriak **parrastaka** aurkitzen ditugu. Xabier Olarra

Aski zen begi-kliskada batean txiki-txiki egiteko trenak goitik **parrastaka** botatzen zituen haiz-puskak. Juan Garzia

Azken orduko mizkeria eta erosotasun berri guztietan dirua **parrastaka** xahutzearen antzea besterik ez dut ikasi. Jose Morales

Hiru emakumeek ez zela egiatan ari igarri zioten; baina haren alde egin zuten berdin-berdin, hitz zatarrak **parrastaka** jaurtiz. Karlos Zabala

Ararateko mendi-hegiak harri bihurtutako gorputzez beteak zeuden, **parrastaka** ereinda bezala. Fernando Rey

Jendea **parrastaka** ateratzen ari zen orain. Aingeru Epaltza

Hala ere, bizirik zegoen eta, adorez beterik, jaiki egin zen, odola **parrastaka** zeriola. Elizen arteko biblia

Zeren zaldia izerdi-lurrina baitzerion **parrastaka**, posta-geltotitik arnasarik hartu gabe eta hanken ahal guztian etorri balitz bezala. Jose Morales

#### parrastaño *iz adkor* parrasta.

Bigarrena, komunixtek ere tanto **parrastaño** bat galdu dutela, Nimes hirian ere ez dute gehiengorik ardietsi. Herria

## parrastatsu *izond* parrastan jaurtia.

Emakumeak, ordea, ele-mele **parrastatsu** bati ekin zion, txorrota matxuratu zaien iturri ireki baten jario halako batez: Anjel Lertxundi

## parrastatu, parasta(tu), parrastatzen (*orobat farrastatu g.er.*) du *ad* parrastan barreiatu.

Egunak itzalak **parrastatzen** ditu. Juan Garzia

Emakume haren gorputz lurrez egina, lur zoldaz bildua, lokatz putzu batean urtzen ari balitz bezala **parrastatzen** zen. Juan Garzia

Man-en larru beroak Graxirena **farrastatzen** zuenean, uste zuen larrazkeneko zein udaberriko lantzerra hasten zela, euri malko xehe eta finez bazterrak astinduz, arteka bedera amultsuki urez emokatuz, idorte mehatxuari arre ozenka. Itxaro Borda

#### parraxal ik barre.

#### parre ik barre.

#### parregai ik barregai.

parregarri ik **barregarri**.

parrezka ik **barrezka**.

parrila ik **parrilla**.

**parrilla** (29 agerraldi, 13 liburu eta 3 artikulutan; orobat **parrila** 11 agerraldi, 6 liburu eta 4 artikulutan) 1 iz burdin hari paraleloz osaturiko tresna giderduna, janariak suan prestatzeko erabiltzen dena. ik **grisela**; **arranparrila**.

Nahiz eta bero handiko eguna izan, sua bizi-bizi zegoen **parrillan**. Iñaki Mendiguren

Arraina, haragia, txorizoak **parrilan**. Pako Aristi

Argazkiaren angelu batean, haragia erretzeko **parrilla** ikusten da, dena ketan. Bernardo Atxaga

Labean erretako oilaskoaren erdia baino gehiago, saiheski **parrilan** egindakoa lepo, eta zazpi talo, esne katilukada banarekin. Pako Aristi

**Parrillan** erre ondoren. Edorta Agirre

Hirugiharrari **parrillan** lakoxe kea eta erre usaina atera zitzaizkion gorputz erreari. Harkaitz Cano

Gaur ez da **parrillarik** behar txitarroak erretzeko, ezta ikatzik ere; erretiluan utzi eta berez egingo dira. Paddy Rekalde

**Parrilla** eta plantxaren erabilera pixkanaka galtzen joango da, erabilera horrek eragin omen ditzakeen minbizi eta gainerako gaitzak direla-eta. Edorta Agirre

Bigarren ate bat daukate ziegok barru aldetik, burdinazko hagaz egina, **parrillaren** antzeko bat, elektronikoki irekitzen dena. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan)

Ikatz **parrilla** menderatzea ez da samurra. Edorta Agirre

3 irud/hed

Treanean maleta **parrillan** jarri eta bata bestearen alboan eseri gara Gorria eta biok. Joseba Sarrionandia

Bruselatik Lille igarota Bordelera naraman TGVko **parrillan** doa. Josu Zabaleta

Suginak begikeinu alaia egin zidan eta gero palarekin ikatza botatzen hasi zen, lehenbizi atzera botatzen zuen, **parrillara**, gero erdira zirrizarra, eta azken palakadarekin ikatza **parrillaren** ertzeraino ailegatu zen. Fernando Rey

Bizikletaren **parrilan**, berriz, pakete borobil susmagarri bat bazkabelar pilo batean bildua. Gotzon Garate

4 auto lasterketetako pistan, irteera gunea, lurrian laukiak markaturik dituena.

Igande goizean irtengo dira 1 Formula **parrilan** diren hogeit hamar autoak, okerrik ezean, tituluaren bila. Berria - Kirola

Gidari moduan, uste dut **parrilako** onena naizela. Tximino arrikutsuei bezala ematen digute jatekoa, gehienetan azpila **parrillaren** beheko trangapetik lerratuz. Berria - Kirola

**parrillada** iz parrillan errerako jakien jana.

Ardo berde-zuriz bustitako **parrillada** batean infiltratu ginen arratsaldeko 17:30ak aldera, Portotik hurbil, sede baten atzealdeko partean (sede-ak hemen kirol, kultur eta gastronomi elkarteak dira, gehienbat gastronomikoak). Berria - Kirola

"Parrillada" (haragi erretzea) on bat antolatua zen arbolaren itzalean. Herria

**parrillero** izond/iz

-Ez hintzen heu, gainera, deskargen ondoren tentsioa hartzen zidan morroia, aldameneko bulegoan **parrilleroek** Joxe Arregi ospitalera atera behar zela komentatzen zuten bitartean? Koldo Izagirre

**parrizida** iz parrizidio egiten duen pertsona.

Magnizida, **parrizida**, genozida, tirano, hiltzaile arrunt... denak dira borrhorentzat gizaki, eta denek merezi dute heriotza duin bat. Karlos Linazasoro

Bertoak ez dira hogeita hamabi urte lehenago Osoro **parrizidari** jarritakoen aldaera bat besterik. Koldo Izagirre

**parrizidio** iz aita, ama, senarra edo emaztea hiltzen duenaren delitua.

Baina ez itzazu zuk hil, hori **parrizidioa** bailitzateke. Patxi Zubizarreta

Azkenean Zoilo **parrizidioz** kondenatua izan zela gogoratzen da hainbat lekutan. Santiago Iruretagoiena

Borroka, berriz, antzerki hutsa izan liteke, estatu kolpe eta **parrizidioa** legitimatzeko amarrua. Martin Anso

Freudek azpimarratu zuen, kulturaren esparruan sartzen zarenean, **parrizidioa** beharkizun estrukturala dela. Joseba Zulaika

Semeak aitari egindako lapurreta edo iraina **parrizidioaren** mailan jartzen baduzue, aita-semeen arteko maitasun-harremanak hautsiko dituzue. Juan Martin Elexpuru

Egiten duena **parrizidio** egin duenaren maila berean hartzen da; beraz, garbi dago ez direla halakotzat jo behar **parrizidiora** heltzen ez diren delitua. Juan Martin Elexpuru

**parrokia** (orobat **parropia** eta **parroki** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **parrokia** agertzen da) 1 iz sakramentuak ematen diren eliza, erretore baten ardurapean dagoena; erretore eta eliza horri dagozkion eliztarren multzoa eta barrutia.

Altzako San Martzial **parrokiako** elizan. Joan Mari Irigoien

Lehenik izan dute, goizean, meza **parrokiako** elizan. Herria

**Parrokia** bat ez da gutxiago elizako kanpandorreari kanpai bat falta ziolako. Koldo Biguri

Auzoa hustu egin omen duk, hiriko **parrokiarik** zaharrena eliztarrik gabe utziz. Txillardeggi

Ez kongabea, musikaria eta **parrokiako** abesbatzako kantaria. Berria - Euskal Herria

Biok **parrokia** bereko apaizak garelako. Txillardeggi

San Klemente **parrokiako** erretoreak, aita Mathieuk. Elena Touyarou

-Bakarrik hilabete zenbait daramatzat herri honetan -abisatu zuen **parrokiako** erretore-laguna zen Michel Bordaguibeak-. Elena Touyarou

Chasuble doktoarek, **parrokia** honetako erretore jaun agurgarriak. Antton Olano

**Parrokian** beste omonier bat bazen, Frantzia erditik jina. Piarres Aintziart

Agustin deunaren deituraz **6 parrokiak** baditugu hegoaldean: Iruñean, Zigoitiako Etxagunen, Kasedan, Alerrioko Etxebarrin, eta Erandion. Ega ibaiaz ezker aldean. **Pello Zabala**

- **Parrokia** ez da aberatsa, baina lortuko dizuet diru puxka bat, honek merezi du-eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hainbat astetan batetik bestera lan bila ibili ostean, **parrokiako** basetxe guztietan barna, Charliek lan bat aurkitu zuen; esnezale eta artzain, Cox laborariaren lurraldean. **Mirentxu Larrañaga**

Natalinak gure bazkaria egiten zuenean, **parrokiako** pobreei ere emateko adina egiten zuen. **Fernando Rey**

VI-VII. mendekoak dira, eta, beraz, Iruñeko **parrokia** bateko nekropolia da. **Berria - Harian**

**Parrokiako** liburuetan begiratuta erraz aterako nituzke daturik oinarritzkoenak: noiz jaio zen, noiz hil zen eta halako batzuk. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hori bera azalduko duk bihar **parrokiako** orrian. **Jokin Muñoz**

## 2 (eraikina)

Andra Mari **parrokia** lepo bete zen 24 urteko txirrindulariaren hiletan. **Berria - Kirola**

Haurrak eskean atera beharko dituk **parrokiako** atarira. **Aingeru Epaltza**

Bazkaltzera itzuli nintzen, **parrokiako** baratzetik igaroz. **Koro Navarro**

Urte hartan, zubia zabaltzeko helburuarekin, kapera bota eta Ama Birjinaren irudia, prozesioan, San Pedroko **parrokiara** eramán zuten. **Martin Anso**

Begoñazpiko **parrokiara** joan zen. **Gotzon Garate**

Rada jeneralak [...] Kale Nagusia eta San Juan Plaza menderatuak zituen erdialdean; baita Lizarrako San Pedro **parrokia** eta Puikoa ere. **Txillardegi**

Laurogeita lau banku berri egin dituzte orain **parrokiarako**. **Arantxa Iturbe**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik parrokiakial.

Bertze nonahi **parroki** orritzat ere hartuko ez zuten paper multzo gaizki antolatutako hori. **Aingeru Epaltza**

-Aulki batzuk; besterik ez: **parrokia** -areto txiro bat nola. **Jon Muñoz**

Aitasantutza ikusi dugu Respublica Christiana modelatzen, gizadiari aldi berean **parroki** subiranotasunen eta estatu unibertsalen onurez gozatzeko aukera agintzen ziolarik, bataren eta bestearen alderdi txarrak pairatu beharrik gabe. **Iñaki Mendiguren**

## 4 irud/hed

Concepción **parrokiako** saltoki nagusiak. **Juan Garzia**

Austerrek bere **parrokia** egina du Euskal Herrian, eta Austerzale euskaldunek gaztelaniazko itzulpenen bidez ezagutzen dute, kalitate handiko itzulpen zainduen bidez». **Berria - Kultura**

## 5 *parrokia-estatu* (*corpusean parroki estatu soilik*)

Estatu unibertsal batek, lehenengo unean zenbait **parroki** estatu lehiakideren batasun behartutik sortzen denez normalean, gobernariaren eta gobernatuen artean leize handiarekin bizitzen hasteko joera izaten du. **Iñaki Mendiguren**

Israel eta Judako erresumak, non baitaude judaismoaren sorburuak, mundu siriakoko **parroki** estatu gerrazale askotariko bi izan ziren. **Iñaki Mendiguren**

Urrats drastiko hau egitean enperadorea berak konkistaturiko sei **parroki** estatutari sistema militarista eta ez-feudala ari zen aplikatzen, jada ehun urtez nagusi izandakoa bere Tsing-ko estatuan. Kanonistek, halaber, **parroki** estatu sekularra garatzen ere lagundu zuten, nahiz eta beraiek kontrako norabidean joan. **Iñaki Mendiguren**

Mundu helenikoko **parroki** estatuen artean. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**parroki estatu** (14); **parroki estatuak** (3); **parroki estatuak** (3); **parroki estatuak** (16); **parroki estatuak artean** (4)

**andra mari parrokiak** (5); **parrokia eta elizetan** (4)

**san esteban parrokiak** (3); **san martin parrokiak** (3)

**euskal herriko parrokiak** (3); **jondoni jakobe parrokiak** (3); **mixel garikoitz parrokiak** (5); **parrokiak abesbatzen** (3); **parrokiak berri** (4); **parrokiak berri bat** (3); **parrokiak gisa** (4); **parrokiak osatzen duten** (4); **ziburuko parrokiak** (3)

**mixel garikoitz parrokiak** (3); **parrokiak antolatzen du** (3)

**artzain ona parrokiak** (6); **mixel garikoitz parrokiak** (6); **parrokiak arduradunek** (4); **parrokiak berri** (56); **parrokiak berriak** (4); **parrokiak berrietan** (22); **parrokiak besta** (6); **parrokiak gelan** (9); **parrokiak kantariekin** (4); **parrokiak kantoreak** (5); **parrokiak kantoreko** (3); **parrokiak kermeza** (18); **parrokiak korala** (7); **parrokiak koralak** (6); **salbatore parrokiak** (3)

**errobiko salbatore parrokiak** (3); **gure parrokiak** (5); **mixel garikoitz parrokiak** (3)

**hazparne aldeko parrokiak** (3); **parrokiak besta** (3); **parrokiak gain** (3); **parrokiak izenean** (3)

**euskal herriko parrokiak** (4)

## parrokiakial 1 *izond* parrokiarena, parrokiakoa, parrokiari dagokiona. ik **parrokia 3**.

Hernaniko hark bezala, zinema **parrokiakial**an, alde zurretik ikusia zeukan filma hasi berria eta handik gutxira, zutitzen da eta behatz batez pantailan agertzen zen tipoa seinatuz: «hori, hori duk hiltzailea!», **Berria - Kirola**

## 2 ik **parrokia 5**.

Judu-diaspora, edo beraren zati bat, nazio-estatu **parrokiakial** batean -judu-biztanleriarekin soilik eta homogeneoki- biltzeko ideal alternatiboak ere, biek frogatzen zuten Mendebaldeko juduen askapena aski erreala izan zela Mendebaldean nagusi ziren idealen eraginpean haiek jartzeko. **Iñaki Mendiguren**

## parrokiakialismo *iz* parrokiaren aldeko joera.

**Parrokiakialismo** edo lokalismoaren eragina Mendebaldeko Kristau Elizan, iraultza protestanteak, "erregoen jainko-eskubideak" eta kristautasuna patriotismoagatik iluntzeak argitzen duten bezala **Iñaki Mendiguren**

## parrokiano 1 *iz* parrokiakial jakin bateko eliztarra.

Bere kargua hartzen zuenean, apaiza batek bere **parrokiano** guzietan ematen zien otorduari (normalean, gazta, ogia eta ardoa) deitzen zitzaion "apezardoa". **Patziku Perurena**

## 2 taberna edo kideko bateko bezeroa.

Itsuskeriaren infernutik aterak dituzte ostaturiko **parrokiano** femenino bakanak. **Aingeru Epaltza**

Jatetxe hartako **parrokiano** gehienak Errusiako etorkinak ziren. **Matías Mújica**

Beti izaten zen **parrokianoaren** bat, lanera bidean sartu eta pattar kopakadaz gosaltzen zuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## parroki 1 *iz* erretorea.

Ados baginen, Albizturko **parroki** jaunari esateko, eta hark joko zuela elizako kanpaia hamarrak eta laurdenean puntuan. **Inazio Mujika Iraola**

Tomas Armendariz gure elizako **parrokiari** esker. **Eduñe Elizondo**

Zer diezue apaiz honetaz: herri honetako **parrokiak** da eta amorantearekin bizi da. **Askoren artean**

Herriko **parrokoa** jeltkideen adekoa omen zen, baina hala ere herrian geratu zen. Edorta Jimenez  
Egunkari-ale bat zekarren **parrokoak** egun hartan ere, eta, sotanapetik aterata, mahai gainean jarri zuen, irakurri nahi bagenuen. Inazio Mujika Iraola

## 2 (adizlagun gisa)

Bigarren zerrendan Andres Untzain "Catalina de Guinesen **parroko**" dagoela dio. Edorta Jimenez  
1950etik, Debako **parroko** izendatu zutenetik, [...]. Berria - Kultura

## parrokotza iz erretoretza.

Mirari honek eraginda, anai Maseo -parroko zen orduan- bere **parrokotza** utzi eta anaia txiki egin zen. Askoren artean

## parropia ik parrokia.

## parropiant iz ipar eliztarra.

Erretor berriak agurtu ahal izan ditu bere **parropiant** zombait bederen. Herria  
Ordukotz adin batean eta osasuna higatzen ari, bere kargua utzi behar ukan zuen, 25 urtez maitatuak eta zerbitzatuak zituen **parropianten** artetik erretiratzeko. Herria  
Ospe eder bat egin diote Aldudeko elizan **parropiant** guziek. Herria

## parropiar iz ipar eliztarra.

Bainan laster oharu gira San Stanislaseko **parropiarrak** gutaz ardura eta gurekin frantsesez mintzatzeaz lorietan zirela. Xipri Arbelbide

## parsi iz gero Indian kokatu zen antzinako Pertiako herri bateko kidea.

**Parsiak** 200.000 omen dira eta gehienak, erdiak baino gehiago, Bonbai inguruan daude. Gotzon Garate  
200.000 **parsi**, zoroastrozale. Gotzon Garate  
**Parsien** komunitatea, juduena bezala, estatua eta herrialdea galdu arren bizirik irauteko borondate garailearen oroitarria zen. Iñaki Mendiguren  
Beren historiako krisi antzerako horietan juduek eta **parsiek** beren nortasuna gorde zuten erakunde berriak asmatuz eta jarduera berrietan espezializatuz. Iñaki Mendiguren  
**Parsiak** Zibilizazio Siriakora konbertituriko iraniarretatik bizirik geratutakoak ziren. Iñaki Mendiguren

## partaide (1008 agerraldi, 122 liburu eta 582 artikulutan) 1 iz parte-hartzailea. ik partalier.

Espedizio batean **partaide** izateko eskaerarekin hasi zen dena. Bernardo Atxaga  
Jende errugabearen masakrean **partaide** izatea, ezta pasiboki ere, ez da posible. Ramon Etxezarreta  
Gurekin etortzen bazara, Jaunak guri emango dizkigun ondasunetan **partaide** egingo zaitugu. Jose Antonio Mujika  
Denek nahi zuten Zugarramurdin Karlos Setimorekin batera meza aditu; eta eskainiko zitzaion "Te Deum" ospetsuan **partaide** izan. Txillardegui  
Denok dakizue kiroldegian **partaide** guztiak egiten dutela lasterka, baina saria batek bakarrik jasotzen duela. Elizen arteko biblia  
Napoleon bera ere, ezaguna denez, **partaide** izan genuen, barru-barrutik, Kode Zibilaren idatzaldietan. Andres Urrutia  
Hasieran, **partaide** izan nintzen ni lan horretan, noiz eta agertu baitzen kiribil erregulataileetako proieinek, eragozle zein aktibatzaile izan, tasun alosterikoak zituztela. Juan Garzia  
HERRIKOA kapital arrisku sozietatea **partaide** bezala engaiatu da eragiketa hortan. Herria  
Finaleko lau **partaideak** binakako txapela irabazitakoak dira. Berria - Kirola  
**Partaideak** (16 urtez goitikakoak) laurazka ariko dira, kopurua 40 etara mugatua izanen delarik. Herria

## 2 kidea.

Hango lege esangabearen arabera, **partaide** bakoitzak aurkitu behar zuen, presarik gabe, elkartearen jomuga ez ezik, beren kideen izen-deiturak berak ere. Juan Garzia  
Hemen gizakia naturarekin bat eginik bizi da, urtaroen arabera; **partaide** eta esku da kreaioan gertatzen den guztian. Jose Morales  
Banda del Andy: hiru **partaide** identifikaturik. Pako Aristi  
800 **partaide** biltzen dira Arrapitz elkartearen. Berria - Ekonomia  
Milurteko Goi Bilera 2000ko irailearen 6tik 8ra bitartean egin zuten New Yorken, eta 191 **partaide** izan ziren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde  
Gazteak azaldu behar izan zion mugimendu hura ezerezean geratu zela, eta **partaide** gehienak [...] agintarien legeetara makurtu eta ahal bezain eroso bizi zirela. Martin Anso

## 3 (-ko atzikiaren eskuinean)

ETAko zuzendaritzako **partaide** gisa. Rafa Egiguren  
Familiako **partaide** bakoitzak bere lekua bilatu du bainatzeko. Josu Zabaleta  
Bere sigletan alfabetoko hizki guztiak zituen sindikatu ezkutuko **partaide**. Harkaitz Cano  
Polizarien bertsioak dioenez, Bizkaia Komandoko **partaide** ziren. Unai Iturriaga  
*Gazteria Kurdua* elkarteko **partaide** eta ekintzaile egin nintzen. Juan Kruz Igerabide  
Zenbait ongintza-elkartetako presidente eta beste batzuetako **partaide** zen. Anton Garikano  
Taldeko **partaideak** aldatuz joan dira. Josu Zabaleta  
Kurt, filmatze-taldeko **partaide** gehienak bezala, ezkertiarra zen. Iban Zaldúa  
Auzolandegi hartako **partaideak** geratu ginen han: boluntario gindoazenak eta arduradunak. Xabier Mendiguren Elizegi  
Ertz guztiak ezagutzen ez nizkion antolamendu bateko **partaide** sentitzen nintzen. Anjel Lertxundi  
Anaitasuna aldizkariako **partaide** eta Argia aldizkarian erredaktore lanetan aritua. Ana Urkiza  
Gaztetatik sentitu dut bi mundu diferentetako **partaide** nintzela. Ana Urkiza  
Gizonezkook, horrela, maitale ohiek osatzen duten mamuen segizio horretako **partaide** bihurtzen gara. Joxean Agirre  
Garrantzi handiko ekitaldi bateko **partaide** zirela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua  
Nolanahi ere, jakin-min hutsa haien begietan; joko bateko **partaide** dirudite. Anjel Lertxundi  
Berak ezagutzen zuen inor ez zen hil edo konprometitu edo ezkondu, ez eta jendarteko ospakizunen bateko **partaide** izan ere. Mirentxu Larrañaga

## 4 (-en atzikiaren eskuinean)

Iparraldean berrosatu berria zen egitura militarren **partaide** ginen biok. Rafa Egiguren



Ez zen elkartearen **partaide**, baina, menturaz, orain ukanen zuen kide izateko aukera. Elena Touyarou  
Gauzen ordenaren aurka doa, halaber, herriaren **partaide** izan arren familia kide ez diren horiei oinordetza eskubidea zabaltzea. Andres Urrutia  
Hitz oro giza esperentziaren emaitza da, eta esperentzia horren **partaide** egiten gaitu. Anjel Lertxundi  
Urrundik ikustea hura dena, ni barruan ez baina kanpoan banengo bezala, ez asmo kolektiboaren **partaide** baizik eta gizaki huts, bakar eta bakartia. Xabier Mendiguren  
**Elizegi**  
Lausenga ezazu, egin zaitez haren kaiten **partaide**, zin egiozu adoratzeko duzula. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Osabak, aldiz, bai, aintzakotzat hartu ninduen eta bere sekeretuaren **partaide** egin ninduen... Joan Mari Irigoien  
Tragoz trago, Ximurraenganako nire susmo txar gero eta zehatzagoen **partaide** egin nuen Charly. Aingeru Epaltza  
Hondakinak "egia" azaltzen dute: ez dira ekintza, kontakizun, edo promesa baten **partaide**. Joseba Zulaika  
Giro haren **partaide** izateak ezinezkoa sortzen zion. Harkaitz Cano  
Emakumea sedukzio jolas baten **partaide** sentitzen da, baina ez dauka jolaserako gogorik, eta bestaldera begiratzen du. Javi Cillero  
"Orain" esan du, "juduen patu orokorraren **partaide** haiz". Urtzi Urrutikoetxea  
Ez zitzauden oso zail gertatu haren bihotzminaren **partaide** egitea. Juan Garzia  
Lapurarren **partaideak** bere buruari gorroto; madarikazioa bereganatzen du ez duelako salatzen. Elizen arteko biblia

## 5 (hitz elkartuetan)

Hizkuntza komunitate bateko **partaide**-izaera hiztun osotik hasi eta hizkuntzaren ezaguerarik ez dueneraino doan *continuum* bat da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 6 (izenondo gisa)

Ene zoritxarraren zergatia, dudarik gabe, emazte **partaidean** ere bilatu behar nuen. Daniel Landart

Talde **partaideak**: Areatza, Arratia, Idiazabal, [...]. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**argiaren partaide** (3); **batasunaren partaide** (3); **basuneko partaide** (3); **bertako partaide** (4); **elkartearen partaide** (3); **elkarteko partaide** (6); **epaitegiko partaide izateko** (4); **gizartearen partaide** (3); **gobernuaren partaide** (3); **jaungoikoaren partaide** (3); **komunitate bateko partaide** (3); **lan epaitegiko partaide** (4); **munduko partaide** (3)  
**partaide aktiboa** (3); **partaide egin** (7); **partaide egitea** (4); **partaide egiten** (4); **partaide gertatu** (3); **partaide gisa** (9); **partaide identifikaturik** (3); **partaide ikastolen elkarrekin** (7); **partaide izaitza** (6); **partaide izaitzeko** (3); **partaide izan** (57); **partaide izango** (18); **partaide izango ditu** (3); **partaide izanik** (3); **partaide izatea** (23); **partaide izateak** (3); **partaide izatearen** (4); **partaide izateko** (22); **partaide izateko eskubidea** (4); **partaide izatera** (5); **partaide sentitzen** (4)  
**prozesuan partaide** (3); **prozesuko partaide** (3); **taldeko partaide** (17); **zuzendaritzako partaide** (3)

## partaidego iz ipar partaidetza.

Bistan da, gure auzoekin **partaidegoan** lan egin behar dugu, baina ez dugu gure gainetik dagoen prozesu batean sartzerik. Berria - Euskal Herria

DDTE edo laneko zuzendaritzaren **partaidegoarekin**. Herria

## partaidetasun iz partaidetza.

Presentzia eta **partaidetasun** hori gure irudimenean, bakoitzarenean eta kolektiboarenean, naturaltasunez sartzen denean, uste dut etiketa horiek aldatuko direla. Ana Urkiza

Abokatuek etengabe salatzen duzue 'gaizkile elkarrekin' **partaidetasuna** akusazioa. Berria - Mundua

*Eihartzea* elkarrekin **partaidetasunarekin**, Xuritea ostatuan kantaldi bat izanen da Irailaren 30 ean aratseko 8 ak eta erdietan. Herria

Elkarrekin sustengu dei bat zabaltzen du, 15 eurotako **partaidetasunezko** xartela bat hartuz. Herria

## partaidetza (489 agerraldi, 22 liburu eta 328 artikulutan) 1 iz parte hartzea, partaide izatea.

Are harroago, bertze inoren **partaidetza** gabe egina nuelako. Aingeru Epaltza

Mila esker zuen **partaidetzagatik**. Bernardo Atxaga

-Eta hori dena, gure **partaidetzari** esker! Ramuntxo Etxeberri

ELA eta LABen **partaidetzarik** gabe kontseilua «hankamotz» sortu zela esan zuen asteazkenean Joseba Azkarraga Lan sailburuak. Berria - Ekonomia

Foroan uste zuten multinazionalen **partaidetza** hori estrategia bat zela, Goi Bileran protagonista ziren gizarte mugimenduen jardura eteteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Enpresak antolatzekeo paradigma edo eredu berrian langileen motibazioa, atxikimendua, **partaidetza** eta elkar-lana oso kontzeptu garrantzitsu bilakatu dira. Iñaki Heras

Batetik enpresarioak, irabaziek errentan duten **partaidetza** areagotu nahian, eta bestetik langileak [...] soldatek errentan duten **partaidetza** handitu nahian. Iñaki Heras

-Gizartearen kohesioa eta **partaidetza**: gizarteke sektore guztiek dute zeregina iraunkortasunerako prozesuan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horiek, ordea, ez ziren etorri (**partaidetza** idatzia eta bideoz grabatua izan zuten). Iñaki Heras

Eta guzti-guztiek **partaidetza** zuzen eta bidezkoa izatea eginkizun komunean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Inplikatuaren borondatezko **partaidetza**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sadetarren etxean antolatzen ziren orgia hauek bere emaztearen konplizitatearekin egiten ziren, eta apaiz baten **partaidetzarekin**: Durand aita, Montpellierko monasterio bateko priorea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atributua batzuetan subjektu baten atributua da, beronek hura beste batekin **partaidetzan** daukanean ere, berarengan berezitasun-seinale izan ez arren. Xabier Kintana

Hori ez dela sekula lortuko gizarte osatzen duten agente guzti-guztien **partaidetzaz** ez bada. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik beherago 6.

Parlamentuaren **partaidetza** gobernuan, askatasun erlijiosoa sinesmenetan eta hiritarren eskubideak politikagintzan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Repsol-YPFren %14,12 du kontrolpean La Caixa kuxkak, bere **partaidetza** elkarrekin ezberdinetan sailkatuta duen modua aldatu ondoren. Berria - Ekonomia

Horretarako, ezinbesteko ikusten du gobernamendu lokalerako zein globalerako **partaidetza** printzipioa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erabakiak hartzeko faseetako **partaidetza** prozesuetan eta ingurumen politikak aplikatzeko faseetan aurrera egiten baitu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Deszentralizazio eta **partaidetza** maila garaia goa: enpresa-erabakietan garrantzitsua da deszentralizazioa areagotzea. Iñaki Heras

**Partaidetza** hitzarmen hori hiru mintzairetan idatzia eta izenpetua izan da: euskaraz, espainolez eta frantsesez. Herria

Apustu negozio hori dirutza galtzen ari zen, baina hori ezkatutzeko gezurrezko **partaidetza** sare bat sortu eta kontu liburuetan zorra ezkatutu zuen. Berria - Ekonomia

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizarte Siriakoaren geruza aberats eta sofistikatuagoaren herodianismoa, zeini gizarte-**partaidetza** emateko prest baitzegoen gutxiengo menderatzaile helenikoa, judaismoaz gain beste erlijio nagusi siriako batzuen errekutatzeak orekatu zuen. Iñaki Mendiguren

Estatuko Industria **Partaidetzarako** Sozietatea «serio» aztertzen ari da Izar berritik kanpo dauden ontziola publikoak talde berean bildu edo ez. Berria - Ekonomia

## 4 (ekonomian) partizipazioa.

Garai hartan, *J. Baptista Lda*-n gerenteorde gisa aritzen zen, eta enpresako bazkideek etengabe bultzatzen omen zuten **partaidetza** bat hartu eta gerente lanak bereganatzen, lau halako soldaterekin. Bego Montorio

1989an, Guatemalaren, biztanleriaren %20 pobreenak herrialdeko errenta osoaren %2,1 eta %2,7ko **partaidetza** zuen, hurrenez hurren, eta biztanleriaren %10 aberatsenak, berriz, errenta osoaren %46,6 eta %47,9a, hurrenez hurren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Negoio txikientzat, partaidetzazko sozietateak osatu ziren: sozietate horietan pertsona batzuek, gehienetan familia berekoek, **partaidetza** ez transferigarritzako kapital bat osatzen zuten, eperik gabe eta erantzukizun mugagabea. Koro Navarro

Negoio garrantzitsuenei zegokionez, kapital ekarpenak epe jakinekoak eta **partaidetza** transferigarritzakoak izaten ziren. Koro Navarro

BBK-k azpimarratu zuen eragiketa hori bere **partaidetzak** kudeatzeko planaren barruan kokatu beharra dagoela. Berria - Ekonomia

Bertan, besteak beste, akzioak, enpresen **partaidetzak**, edota enpresen zorrak (obligazioak, bonoak edo letrak) negoziatzen dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Urtean egin dituen **partaidetzen** amortizazioen ondorio direla argudiatu du bankuak. Berria - Ekonomia

Jaunok, zuen enpresan **partaidetza** bat izateko ohore handia egin didazuen gau honetan, neska maitagarri hau aurkeztu nahi dizuet, nire emaztea. Lopez de Arana

Errusiako Jukos petrolio taldeak gas erauzgailu bateko **partaidetza** saldu du, 357 milioi dolarren truke. Berria - Ekonomia

Azkarateren hitzetan, zuzeneko **partaidetza** osoa besterenganatuko du Jaurilaritzak, konpainiaren kapitalaren %3, beraz. Berria - Ekonomia

Akziodunen artean, Bilbao Bizkaia Kutzak du **partaidetzarik** handiena, %33,13koa. Berria - Ekonomia

Elkartearen kanpo ordezkaritza ereman, proiektu berriak landu irratien garapenerako, **partaidetzak** negoziatu, txostenak osatu... Herria

## 5 partzuergoa.

Galdera gako horri erantzuten saiatzen ari dira egunotan Sydneyn (Australia) Garapen Garbia eta Klimarako Asia-Ozeano Bareko **Partaidetzaren** goi bileran. Berria - Gaiak

## 6 partaidetzazko ik gorago 2.

Harreman eta **partaidetzazko** gobernu baten esparruan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Partaidetzazko** demokraziaren ideiak herritartasun ideia sendotu nahi du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Negoio txikientzat, **partaidetzazko** sozietateak osatu ziren. Koro Navarro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere partaidetza** (5); **emakumeen partaidetza** (5); **enpresan duen partaidetza** (3); **eragile ororen partaidetza** (3); **eragileen partaidetza** (3); **euroko partaidetza** (4); **herriaren partaidetza** (3); **herritarren partaidetza** (6)

**partaidetza bat** (8); **partaidetza erdibana** (3); **partaidetza handia** (4); **partaidetza handiagoa** (5); **partaidetza handitu** (4); **partaidetza hitzarmena** (3); **partaidetza izan** (3); **partaidetza izango** (3); **partaidetza publikoa** (4); **partaidetza saldu** (6); **partaidetza saltzeko** (3); **partaidetza sozialeko** (3); **partaidetza sustatu** (3)

**elkartearekin partaidetzan** (3)

**industri partaidetzarako** (9); **industria partaidetzarako** (56); **industria partaidetzarako sozietatea** (23); **industria partaidetzarako sozietateak** (5); **ingurumen partaidetzarako zuzendaritzak** (3); **partaidetzarako sozietatea** (24); **partaidetzarako sozietateak** (5); **partaidetzarako zuzendaritzak** (3)

**herriko etxearen partaidetzarekin** (5); **kultur erakundearen partaidetzarekin** (4)

**partaidetzari esker** (4)

**partaidetzarik gabe** (3); **partaidetzarik handiena** (3)

## partale iz parte-hartzailea.

Baina, ohartu orduko -doi doia ohartu, haatik-, ordenaren mailadietako **partale** da. Jose Angel Irigaray

## partaliant ik parteliant.

## partalier (*45 agerraldi, 37 liburu eta 37 artikulutan; orobat parteliar g.er. eta partelier g.er.*) iz parte-hartzailea. ik partaide.

Bilera hasi aitzin, **partalier** bakoitzari frantsesez idatzi dokumentu bat banatua izan zitzaien. Elena Touyarou

**Partalier** guztiek, seme zaharrena buru dutela, bekokia gantzu gorri zindaturik daramate. Gotzon Garate

Ondotik izan dire hitzaldiak eta gure konfardian **partalier** berrien sartzea. Herria

Gure hiru eskolak **partalier** dire egitate anaikor eder hortan. Herria

Orobat jakin ni **partalier** izana nintzela hango gertakarietan. Aingeru Epaltza

Nork erranen du gainera ez dela hobe, Britainiar batentzat, edo Nafarroa frantseseko euskaldun batentzat, frantses nazioaren **partalier** izaitea eta horrela, ororen maila berean, frantses herritartasunaren abantaila gozatzea? Piarres Xarriton

Orobat, auskalo zergatik, ez gintuen arrantzaren misterioen **partalier** egin nahi izan. Aingeru Epaltza

Feriako **partalierrak** gomituak ziren eta partikularzki hazienden jabeak. Herria

Erreformara biltzeari esker, aitatxik, bere burua infantzoi bilakatua ikusi zuen, eta infantzoi ez ezik, Nafarroako Estatuetak **partalier** eta Garrüzeko kapitain. Aingeru Epaltza

## partaliergo iz partaliertasuna, partaidetza.

Eskekrek ere besta horri buruz berte partalier guziak, arropa antolatzaile, aldare egile, kantari, berdura hedatzaile, etxen apaintzaile, guziek izan dezatela **partaliergoan** harte eta berte urte arte! Herria

Hola erakutsi dute beren gisako **partaliergoa** Iriakian, 2006 urte hortan oraino, bainan humanista mailean egia-erran. Herria

## partaliertasun iz partaidetza.

Haurridetasunak eman eta hartu egiten du edo bertzela erran, **partaliertasunean** biak eman eta hartu egiten dute. Herria

Ez dira gehiago denak amaren gain, eta hobe, zeren **partaliertasun** horrek elgarren arteko lokarriak eta familiako batasuna azkartzen baititu. Herria

Igande huntan du Garaziko San Frantses parrokiak bere urteko kermeza, herri hauen guzian **partaliertasunean**: Donibane, Uharte, Izipura, Azkarate, Lasa, Anhaize, Arnegi, Eiheralarre, Zaro, Ezterentzubi. Herria

## parte 1 iz zatia.

Ekoizpenaren **parte** bat nekazariak bereganatzen du, gainerakoa jaunarena da. Koro Navarro

Arkitekturak berak hiru **parte** ditu: eraikuntza, gnomonika eta mekanika. Santiago Iruretagoiena

Bigarren **parte**an: IKUS eta Irrintzina taldeak. Herria

Virgotik, arropako tolesturetan barrena aurreratuz [...] Libraren zortzigarren **partera** iristen denean, udazkeneko ekinokzioa markatzen du. Santiago Iruretagoiena

Alegia, ez du behartzen herrialde hartzailea herrialde laguntza-emaileari salgaiak erostera -laguntza osoarekin nahiz **parte** batekin-. Koro Navarro

Herbehereak, arrazoi dinastikoak zirela-eta, Karlos V.aren inperio zabalaren **parte** bihurtu ziren. Koro Navarro

Idiak hedaten diren bidetuen, are sinpleagoak bilakatzen dira. Bilakatzen diren arte. **parte** bilakatzen diren arte. **Iñaki Heras**

Gizakia ez da naturaren **parte** sentitzen, natura menderatzeko eta konkistatzeko kanpoko indar bat balitz bezala egiten du. **Iñaki Heras**

Gure Nafarroako erreina bi **parte** egin eta ez ginakien beti xuxen nundik zen bi erresumen arteko muga berria eta auziak noiznahi sortzen ziren Baigorri, Erro eta Luzaideko jendeen artean. **Michel Oronoz**

Herria aspertua zagok, bere **parte**a nahi dik. **Karlos Zabala**

Hire **parte**a ukanen duk, galanta gainera. **Itxaro Borda**

Bere garaian, morroi bat bidali zien nekazariei, mahastiaren fruitutik zegokion **parte**a jasotzera. **Iñaki Heras**

Ezin igarrizkotik eta kezagarritik daukan **parte**a ere onartu beharra dago gainerakoarekin. **Juan Garzia**

1913tik 1997ra, nekazaritzak, meatzaritzak eta energia-gaiek munduko esportazioetan duten **parte**a bi heren izatetik, laurden bat baino gutxiago izatera iritsi da. **Koro Navarro**

## 2 (neurri gisa)

Harrobiko harea erabiltzen bada, hiru **parte** harea eta **parte** bat kare nahastuko dira. **Santiago Iruretagoiena**

Karea nahastuko zaio morteroari ahalik eta sendoena, bost **parte** harea eta bi **parte** karerekin osatuz. **Santiago Iruretagoiena**

Arrosa, esate baterako, 6423 zenbakiaren bidez adierazten da eskala horretan: horrek esan nahi du sei **parte** dituela osagai lurrintsutik, lau, osagai azidotik, eta horrela gainerakoak. **Irene Aldasoro**

Beheko aldearen diametroa sei partetan banatu eta goiko muturrean diametroari bost **parte** emango zaizkio. **Santiago Iruretagoiena**

## 3 (izenondoekin)

Nolanahi ere, Donostiako **Parte** Zaharreko tokietan gertatzen da dena. **Askoren artean**

Konstituzioko Plazan edo **Parte** Zaharreko edozein kaletan. **Askoren artean**

Palankaren **parte** luzea buru aldera ekarriz. **Santiago Iruretagoiena**

Laguntzaren **parte** handi bat dohainak izaten dira. **Koro Navarro**

Akzioak erosteko ez zen beharrezkoa akzioen prezioa oso-osorik ordaintzea, **parte** txiki bat ordaintzea aski zen eta gainerakoa zorretan uztea. **Iñaki Heras**

Krisi horietan, izan ere, era guztietako asmakariak egin zitezkeen **parte** nagusia eta interesak ordaintzeko edo murrizteko. **Koro Navarro**

Nahiz egiazki **parte** adimentsua den gizakiaren **parte** nagusia, ezen oker dabilta **parte** sentitiboa dela **parte** nagusi hori uste dutenak. **Piarres Xarriton**

## 4 (-ko atzikiaren eskuinean)

Saharaz hegoaldeko Afrikak, arabiar munduak, Erdialdeko Asiak eta Asiako Hegoaldeko **parte** batek definitzen dituzte munduko ekonomiaren periferia horren gaur egungo mugak. **Koro Navarro**

Leize handi bat ageri da planetako **parte** garatuaren eta ez hain jendeztatuaren eta hirugarren munduko giza masa izugarriaren artean. **Koro Navarro**

Glebako joputza, beraz, ezarrita zegoen jadanik Galiako **parte** hartan burgundiarrak sartu aurretik. **Iñaki Iñurrieta**

gorputzeko **parte** batzuk ukitu eta horiekin jolasean hasten denean, ohartzen da horrekin oso sentipen atseginak dituela. **Luis Elberdin**

## 5 (-en atzikiaren eskuinean)

Bake hura dela kausa, Alemaniaren **parte** on bat galdu da eta, Frantziaren beste **parte** handi bat ahultzen ari da. **Piarres Xarriton**

Sistemaren garapen ereduaren **parte** da kooperatibismoa. **Iñaki Heras**

Ikusmolde horrek ere nazioarteko zuzeneko inbertsioen **parte** bat baino ez du azaltzen. **Koro Navarro**

Merkataritze-hiriak Europa barneko eta kanpoko trukeen mende zeuden, bai kontsumoaren bai ekoizpenaren **parte** bati zegokionez. **Koro Navarro**

Agintariak atzerriko zorraren **parte** baten luzamendua iragarri zuten orduan, NDFren kredituak etenarazi zituenak. **Koro Navarro**

Alemania eta eskandinaviar herriak modu berean hustu ziren, bertako biztanleen **parte** handi batek atzerriera alde egin baitzuen. **Koro Navarro**

Lan horren **parte** bat entzimek egiten dute. **Irene Aldasoro**

Salerosgai horren **parte** hori diru-masaren **parte** bati egokituko zaio. **Iñaki Iñurrieta**

Artzain guziak bezala mendian bizi gira ardiekin urtearen **parte** bat eta gero neguko bazketarat jausten gira. **Michel Oronoz**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Higuinetik sortu behar dute pudorea eta kastitatea, haurrak gorozki zikinen sorlekutzat dauzkan gorputz **parteek** eragiten dioten nazkatik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-Hori da espainiarrarengan geratzen den moro- eta judu- **parte**a: emakumea harrapakintzat edukitzea, engainatzeko joera, gezurrerako joera... **Josu Zabaleta**

Janari- **parteak** murriztu beharra zegoen. **Aingeru Epaltza**

Amak erran zidan gure haragi- **partearen** erosterat ni joanen nintzela. **Janbattitt Dirassar**

Txiskero-harritxo bat ogi- **parte** bat kotizatzen zen, hots, bizi-egun bat. **Juan Garzia**

Baliteke arrainaren olio- **parteak** egokiagoak izatea gizakiak sortzeko behar den gai horretaz hornitzeko. **Iñaki Iñurrieta**

Alegia, zein diru- **partek** ordezkaturiko du gauza bakoitza? **Iñaki Iñurrieta**

Ekonomiari buruzko mito eta elezahar askok eta askok, aurrera egin duen edozein uste edo sineskeriaren antzera, izango du-eta sinesgarri den ideia orok behar duen egia- **parterik**. **Iñaki Heras**

Urrats bakoitzean, zientzialaria beharturik dago kritikaren eta esperientziaren irizpena jasotzera, eraikitzen ari den mundu-irudikapen horretan ezinbestean dagoen amets **parte** hori estu lotzeko. **Juan Garzia**

Beren esperantza **parte**a naiz, besterik gabe. **Josu Zabaleta**

Karlosek, herriari zegokion itun- **parteaz** egin iragarpenean, dio gizon libre orok nahi zuena aukera zezakeela jauntzat. **Iñaki Iñurrieta**

Handik oso denbora gutxira egin genituen geure karta- **parteak**. **Anjel Lertxundi**

Hamabost urterekin, bere ondare- **parte**a eskatu zuen, Angiolieri zaharra hilik balego bezala. **Juan Garzia**

Aitarengana joan da bere premu- **parte**a eskatzera. **Anjel Lertxundi**

Jakesek ba omen du sos poxi bat baztertua, Bordeleko alde horretan bere etxe **parte**a altxaturik. **Janbattitt Dirassar**

Edo hainbat herritako festetara, uda- **parte**an. **Joan Mari Irigoien**

Horrek abantaila handiak ematen ditu negu- **parterako**. **Santiago Iruretagoiena**

Dudarik ez dago senti daitekeen horizonteko kosmos- **parteak** gure garunean duen isplaztearen ondorioa dela ezagutzen dugun mundua. **Josu Zabaleta**

Beste erdi- **parte**a, israeldarrei banatzeko Moisesek gudu-harrapakinetatik berezia. **Elizen arteko biblia**

Baina, zangoak dar-dar nituelako edo atorrak galtzoinen goi- **parte**a estaltzen zidalako, ez nuen haiek jaisten lehenengoan asmatu... **Joan Mari Irigoien**

Soinekoaren behe- **parte**a hauspotu zitzaion gorputzaren mugimendurekin batera jiraka. **Anjel Lertxundi**

## 7 aldea. (ik behe-rago 9, 10 eta 11)

Bertara, Florestik, zaldiz bakarrik joan omen zitekeen, baina Palenquetik (Mexikoko **parte**a berau) jeepez ere bai, inolako arazorik gabe. **Joxe Austin Arrieta**

Barkatu, baina, aurreko hauxe sarrera gisara (ustez ongi) idatziztat utzi eta handik bi aste, begira zelako uste bako suspresa etorri zitzaidan Andoaino **partetik**. **Pello Zabala**

Errepidea largatuko baitute alde bakoitzetik bi lerrotara, eta Aturriko **partera** ezin baita largatu, hiruzpalau bizitegi lurrera bota beharko dira. **Herría**

Halako lanetan ibili zen hura ere gaztetan, gauzak edo kabalak Frantziako **partetik** Espainiakora eramanki. **Xabier Montoia**

Ikus zein zehatz deskribatzen dizkiguten Estrabonek eta Ptolomeok Afrikako **parteak**. **Iñaki Iñurrieta**

'Ze amets?' galdetuko diozu literaren goiko **partetik**. **Joseba Sarrionandia**

Ondoren, beste alderdi fin batera iritsiko gara: belauen atzeko **partera**. **Luis Elberdin**

Askoz hobeto ezagutzen zuten erdialde bera ipar **partea** baino. **Lutxo Egia**

Iguzki **partera** Mendebaletik. **Piarres Xarriton**

Madariagan, trikitilariak Azkoitia partean dantza lotua jotzen, eta aguazila agertzen zenean Elgoibar **partera** jendea dantzara, han libre zelako. **Iñigo Aranbarri**

Eguerdi **partera** bazkaltzera joan zen jendea eta toki gehiago zegoen libre aretoan. **Berria - Harian**

Arratsalde **partea** zen, Pariseko espresoa heltzen zen unea gutxi-gorabehera. **Iban Zaldua**

Gregorio Manzanok, zailtasunak zituen atzo iluntze **partera** harte gaurko hamaikakoa osatzeko. **Berria - Kirola**

Biharko egina da hitzordua, arratsaldeko 17: 30ean hasi eta gau **partera** arte luzatuko da erromeria giroa. **Berria - Kirola**

Odol beroko hainbatek ere gauza bera egiten du eta negu **partea** gorputzaren egoera berezi horretan pasatzen dute: hartzek, marmotek, katamuserrek... **J.M. Olaizola**  
"Txiliku"

## 8 adierazpen edo berri ofiziala.

Horixe adierazi nion inspektoreari, edo ikuskatzaileari, galdezka etorri zitzaigunean, hortza ere hautsia zuela, kontuan hartzeko xehetasun hura ere **partea** egiterakoan.

**Karlos Linazasoro**

Eta irratiko **partean** esan zuten gobernadore zibilak abisatu zuela kontrolak eta miaketak izango zirela hurrengo egunetan euskal probintzietan. **Joseba Sarrionandia**

Ihesi doan etsaiari makulua botaz hiltzen dena, San Giustoko kanpaia, Trento eta Trieste, Grappa mendia, Santa Goriziako festa, Piave ibaiaren murmurioa,

garaipen-**partea**, gure patu loriatsua. **Koldo Biguri**

Terrestreak belarria irratian bizi ginen, baina gerra hartan ez zen ia ezer gertatzen, erasoak **partean** besterik ez zeuden. **Joseba Sarrionandia**

## 9 **partean** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa) aldean.

Antartidan, uda **partean** ere, laino eta hodei alerik gabe, dena garbi eta garden dagoela ere, ez elurrik ez izotzik ez da urtuko. **Pello Zabala**

Negu **partean**, eguraldi ona egiten duenean, pasealeku horietan entrenatzen dira atletak. **Santiago Iruretagoiena**

Helbide-txartelen trukaketaren ondoren, udaberri **partean** -edo bilerari berriro ekiten izan zen hartutako erabaki bakarra. **Anjel Lertxundi**

la egun osoa behar izan zuten berez goiz **partean** aise egiten zen Pausuko aduanarainoko bidean. **Anjel Lertxundi**

Eguzkiak sartzerakoan aurrera botatzen duenez bere distira, beroa emanez alde hau epeldu egiten duelako arratsalde **partean**. **Santiago Iruretagoiena**

Gorputz atalen kontu arina egin nuen: inon ere ongiez berezirik ez, non ez zen halako karga eskerga bat garondo **partean**. **Aingeru Epaltza**

Gau hartan, ordea, ustekabea, izan zitekeen ekaitzik bortitzenak jo zuen Kantauri **partean**. **Martin Anso**

Katalunia **partean** ibili zen batez, familia bakar bateko bostak hil zituela gauaren erdian. **Anjel Lertxundi**

Abenida **partean**, ez eskuinetara, Manuelen laguntzaileek alde egindako norabidean. **Pedro Alberdi**

## 10 (-ko atzikiaren eskuinean)

Gudu-lerroa justu bera jaio zen lurraren aurre zegoela Bidaniako **partean**. **Inazio Mujika Iraola**

Eta neuk ere *Bergara aldean* diot badaezpada ere, hau da, Bergarako **partean**, eta ez Bergarako kalean. **Iñaki Segurola**

Azpeitiko **partean**, Bizkaiko **partean**, Frantziako **partean**, etc. diogu, baina ez, nik uste, euskal herriko **partean** -edo, beheragotik harturik, Nuarbeko, Itziarko... **Iñaki Segurola**

**partean** -, funsgabeko izendatze goitar batek erabakitako estensio jakin zedarriturik ezaren seinale. **Iñaki Segurola**

Azpeitia alderako joera dute gaur egun bertako herritarrek, hurbiltasunez eta erosotasunez, baina Beasaingo **partean** zegoen gure aitoren sortetxea, Oto Erdi baserria.

**Xabier Mendiguren Elizegi**

Bere osaba burgesak, Zuberoako **partean** Napoleonek duen aldekorik sutuena baita. **Anjel Lertxundi**

Lusianan, Illinoisko **partean**, emakumez jantzitako gizonak emagalduen gisa prostituitzen ziren. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

USAko armadak Afganistango **partean** egindako erasoer jarri zien izena datorkit gogora. **Iñaki Segurola**

Ez zela inoiz helduko Gómez-en Aintziraraino, Bragado ibairaino eta Nuñeztarren soroetaraino, Chacabuco-ko **partean**. **Juan Garzia**

Behoko **partean**, kapitela kolomaren goiko aldearen diametroa izango du, kontuan hartu gabe eratzuna eta astragaloa. **Santiago Iruretagoiena**

Udaletxeko dorreak tramankulu bat gordetzen du eta, egunean bi aldiz, eguerdiko eta iluntzeko **partean**, haga txiki bati eragiten dio horretarako ardura duen udal enplegatuak. **Felipe Juaristi**

## 11 (-en atzikiaren eskuinean)

Dubos abadeak huts egiten du Kasiodoro aipatzean, eta Italian eta Teodorikoren mende zegoen Galiaren **partean** gertatzen zena erabiltzean, frankoen artean usadio zena adierazteko; gauza horiek ez dira nahastu behar. **Iñaki Iñurrieta**

Dubos abadeak huts egiten du Kasiodoro aipatzean, eta Italian eta Teodorikoren mende zegoen Galiaren **partean** gertatzen zena erabiltzean, frankoen artean usadio zena adierazteko; gauza horiek ez dira nahastu behar. **Iñaki Iñurrieta**

## 12 -en **partetik** -en aldetik, -en izenean, -k agindurik.

Goraintziak, azkenik, senide guztien **partetik**. **Elizen arteko biblia**

-Hubi?cka, goraintziak printzearen **partetik**. **Fernando Rey**

Goraintziak nire **partetik** Cliffi. **Koro Navarro**

P. S. -Goraintziak eman nire **partetik** Rosemonde andreari, merezi duen hainbat maite baitut beti eta beti. **Jon Muñoz**

Eskumuinak eman pashari nire **partetik**. **Fernando Rey**

-Jose Marik eskumuinak eman dizkit, Felisaren **partetik**. **Alberto Barandiaren**

Ba eman animoak gure **partetik**. **Bernardo Atxaga**

-Bai, hire **partetik**. **Juan Luis Zabala**

-Noren **partetik**? **Koldo Izagirre**

-Noren **partetik**, mesedez? **Ramon Saizarbitoria**

Ezekiasek, orduan, Isaiasi: berri ederrak ekarri dizkidazu Jaunaren **partetik**.

Jauna, mezu bat tsarraren **partetik**! **Karlos Zabala**

Itzul zaitez Tobosora, eta zoaz nire **partetik** andere honengana, eta esaiozu nik zu askatzearen egin dudana. **Patxi Ezkiaga**

-Atera zaitezte azkar anai Rizerio nire semetxo maitearen bidera, besarka ezazue nire **partetik**. **Askoren artean**

-Kornelio ehuntariaren **partetik** gatz. **Elizen arteko biblia**

Aurrena Neikerren **partetik** abisua jaso zuten. **Berria - Gaiak**

Kaxa handi bat txokolatzeko igelekin, Hermioneren **partetik**. **Iñaki Mendiguren**

Rachel eta Jacoben **partetik** opari. **Itxaro Borda**

## 13 -en **partetik** -i dagokionez.

Gu geu imajinatuak izan ginen gurasoen **partetik**; haiek euren bizitzari osagai pozgarri eta pizgarri bat eman nahi izan ziotelako jaio ginen, kasurik onenean. **Pako Aristi**

Bere **partetik**, Euskal-Kultur Erakundeak bi hitzordu bereziak ditu sail horren kondu, biak Angelun, herriko etxea bera ere partzuer. **Herria**

Bere **partetik** Beñat Larramendy elkarteak haxe idazten zuen: [...]. **Herria**

Nere **partetik**, 1980. urtetik goiti beti kurutzatzen nintzan Nafarroako bertularien xapelgoan. **Herria**

Diruaren **partetik** ere aferak ontsa joan dira, partaidek erakutsi daukute beren borondatea eta beti emendatzen ari dira laguntzaileak. **Herria**

Gauak ekar dezala freskura eta jendearen **partetik** etor dadila, noizbait, isiltasuna. **Piarres Aintziart**

## 14 **partez adlag** neurri batean, zati batean.

Azken finean, neurri batean, margolana "asmatzera" jo dezake ikusleak, guztiz edo **partez**. **Josu Zabaleta**

Hain zuzen ere, egoizpenaren nazioartekoak azaltzen ditu, **partez**, nazioarteko trukeen dinamismoa. **Koro Navarro**  
Mekanismo horiek ikasketan "normal" baten bidez barneratzen dira seguruenik, **partez** bederen. **Josu Zabaleta**  
Halaxe gertatzen da lan-indarraren ugaltzea, **partez** behintzat, diru-ekonomiatik kanpo segurtu daitekeenean. **Koro Navarro**  
Ez zen presatu, **partez** nekatura sentitzen zelako, **partez** axolagabekeria, baita nahasia sentitzen zelako ere. **Jon Alonso**  
Andres lanpostuan geratu zen, **partez** jakin-minagatik, **partez** lanpostu hura eman zionak harropuztutat har ez zezan. **Josu Zabaleta**  
Pinturan, eta geroago argazkilaritzan, aplikatzen den perspektiba geometrikoa, **partez** arbitrarioa den irudikapen-konbentzio batetik datorrena [...]. **Josu Zabaleta**  
Munduko finantza-doikuntzaren nolokotasun **partez** bortxatu horrek agertzen du zergatik egin zuten gora interes-tasa errealek petrolioaren bigarren krisialdian. **Koro Navarro**  
**-Partez** bai. **Josu Zabaleta**

## 15 -en **partez**<sup>1</sup> -en partetik.

Noren **partez**? **Fernando Rey**  
-Eskerrak eman Marixari, nire **partez**. **Aingeru Epaltza**  
Goraintzi amari nire **partez**. **Matías Múgica**  
-Goraintziak emango zizkieat hire **partez** -esan zuen-. **Mirentxu Larrañaga**  
Noren **partez**, horixe jakin nahi izan zuen ahotsak, Argitaletxeko Raimundo Silvaren **partez**. **Jon Alonso**  
Barkamen eskatzen diat beraren **partez**. **Anton Garikano**  
Ongi etorri beraz gure borda xumera, ongi etorri gure **partez**. **Michel Oronoz**  
Esaiozu hori frantsesez nire **partez**. **Txillardegi**  
Egun on hor sartu-berriari zure gaineko auzoaren **partez**. **Marzel Etxehandi**  
Eta, zinez, zaintzailea zen, baina ez zetorren aitaren **partez**, zeren osaba Joanikotekin baitzetorren. **Joan Mari Irigoien**

## 16 -en **partez**<sup>2</sup> -en orde.

Orain heure buruari kontu egin behar dion, mimoak eman, beste inork ez baitu egingo hire **partez**... **Patxi Zubizarreta**  
Eskalataleak libre zuen asteburuan, eta haren **partez** "Togas" genuen edizioaren ardurad. **Aingeru Epaltza**  
Aitzineko eguneko traje dotorearen **partez**, niki gorria eta galtza bakeroak zeramatzan soinean. **Aingeru Epaltza**  
Okelaren **partez**, proteina landarezkoak. **Edorta Agirre**  
Ergelkeria handiagorik, kaka baten **partez** beste kaka bat. **Karlos Zabala**  
Zer ostia nahi zenuten? txortan ere nik egitea zuen **partez**? **Fernando Morillo**  
Gerrikoaren **partez**, gerri mehearen inguruan, jaka erdia zekarren, ez. **Matías Múgica**  
Alde batetik, Europa zabalduko da eta handituko, hamabost partzueren **partez** izanen dira hogoita-bost, ez baita batere gauza bera! **Herria**

## 17 -n **partez**<sup>3</sup> -n aldetik, -z gero.

Loiolako gizona zen **partez**, gizon praktikoa ere izango zen don Hipolito, ez zuhurra soilik: erraz asmatuko zuen 15 urteko mutila lasai uzteko moduko argudioen bat. **Bernardo Atxaga**  
Ipuin Orokorra, alegoria den **partez**, konkretatu egiten dela aldiro, premia, arlorik arlo. **Bernardo Atxaga**  
Udatiarra baitzen Julian, derrigorrez izan ere, "barru" aldekoa zen **partez**. **Pedro Alberdi**

## 18 -tzeko **partez** orde, beharrean (aditzaren era burutuarekin eskuinean)

-Zozokeriak errateko **partez**, [=erran orde] har ezazu zure alabaren zakua! **Ramuntxo Etxeberri**  
Zorigaitzean, elkarri atxikiagoak izateko **partez**, elkarren artean arrotz bilakatuko ote ginen? **Daniel Landart**  
Anshelek, Avigdor kontsolatzeko **partez**, Pesheren kontra xaxatzen zuen. **Koro Navarro**  
-Otoi, Magali, hola mintzatzeko **partez**, erradazu zoin den zure barneko mina! **Janbattitt Dirassar**  
Neska gaztearen galde horiei ihardesteko **partez**, nihaur ere galdeka hasi nintzen. **Janbattitt Dirassar**  
-Kartoin horrekin bisitara jiten ahaliko zira bihar goizean, lanerat joaiteko **partez**. **Marzel Etxehandi**

## 19 *aspaldiko partez* ik *aspaldiko*.

### 20 *parte emansup\_1* berri eman.

Gertakariaren **parte emateak** ekarriko zizkidan deserosotasunak etorri zitzaizkidan burura. **Anjel Lertxundi**  
Guardek uste ukan bide zuten zerbait gertatu zitzaiola eta berdin haren desagertzeaz **parte eman** zuten. **Elena Touyarou**  
Edonork ikusi izan balitu, Poliziari **parte eman** izango ziokeen, seguru. **Harkaitz Cano**  
Ukitutako hegazkinak lurra jo orduko han zen don Valentin, pozez gainezka, Llano de la Encomienda jeneralaren bulegoan, balentriaren **parte ematen**. **Jokin Urain**  
Zer egingo dugu? **parte eman** beharko dugu, ala? **Pablo Sastre**  
Ez dut **parte emanen**, barkatzen dizkizut. **Koldo Izagirre**  
**Parte eman** beharra daukat, badakizu! **Iñaki Mendiguren**  
Bere lanaz **parte emanen** du ikastegietako haurri. **Herria**  
Berehala jakin ondoan, Jaun merak **parte eman** du jandarmeriari. **Herria**

### 21 *parte emansup\_2* partaide egin.

Laikoeri **parte eman** gabe berek han deliberatu. **Herria**  
Herriko hautetsier **parte emanez** eta laguntza eskatuz. **Herria**  
Zatoz gurekin eta Jaunak Israeli hitz emandako ondasunetan **parte emango** dizugu. **Elizen arteko biblia**

### 22 *parte hartu* (*orobat partehartu g.er.*)

Nolanahi ere, ez zaidak iruditzen Angelek fusilamenduetan **parte hartuko** zuenik. **Bernardo Atxaga**  
Hirietan, nazioarteko merkatariek ezin zuten xehekako salerosketan **parte hartu**, salerosketa mota hori oso zorrotz arautua baitzegoen. **Koro Navarro**  
Irakasle mailara heldu orduko **parte hartuko** du Tolosan eta Cahors-en behin, Salamancan gero, Vitoria eta Soto-rekin batean, teologiaren berrikuntzan. **Piarres Xarriton**  
Muskuluek **parte hartzen** dute jatean, edatean, digestioa egitean eta arnasa hartzean. **Irene Aldasoro**  
Prozesu horietan guztietan, bi motatako zelulek **hartzten** dute **parte**: osteoblastoek eta osteoklastoek. **Irene Aldasoro**  
Antza denez, estiloaren itxuratze jardunean (*elocutio*) **hartzten** du zuzenean **parte** epe laburreko oroimenak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
Lege bat bera izango duzue, bai zuek, bai zuen elkartean **parte hartzen** duten etorkinek. **Elizen arteko biblia**  
-Nik fronte militarrean nahi diat **parte hartu** -azaldu nion-, bazeukaat esperientzia pixka bat. **Rafa Egiguren**  
Hemezortzi urte zituen Pitagorasek Joko Olimpikoetan **parte hartu** zuenean. **Jon Muñoz**  
Goioek ez zuen apenas **parte hartzen** ez futbolean ez beste ezertan. **Joseba Sarrionandia**  
Orobat, ez nuen **parte hartu**, bertze soldaduekin batean, errendizioaren ondoko ohiko harrapaketa saioan. **Aingeru Epaltza**  
Norberak du bere saminaren berri, kanpokoek ezin **parte hartu** haren alaitasunean. **Elizen arteko biblia**  
-Bredakoan ere **parte hartu** zuen lagunak -esan zuenitsuak. **Felipe Juaristi**  
Erran zuten zubi berri baten eraikitzean ez zutela **parte hartuko**. Zuzenean **parte hartu** ala ez, hiltzaile artean ibili zen. **Michel Oronoz**  
Inspektoreordea duk, berak ere **hartuko** dik hire kasuan **parte**. **Rafa Egiguren**



Eskerrikeri bidez memorian **parte hartu** duten guztiei. [Eduarne Elizondo](#)  
Kantuaren bidez memorian **parte hartuz**. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

## 23 **parte-hartzaile** (652 agerraldi, 25 liburu eta 504 artikulutan; orobat **partehartzaile g.er.** eta **partehartzaile g.er.**) iz parte hartzen duen pertsona. ik **partaide**; **partalier**.

Nik uste **parte-hartzaileak** bi besterik ez zirela izaten: Juan Luis Zabala, behin baino gehiagotan, eta ni, urte hartan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Gaur da hastekoa Munduko Kontserbazio Kongresua, 5.000 **parte-hartzaileekin**. [Berria - Gaiak](#)

**Parte hartzaileak** ekimena Arabara zabaltzeko dauden aukerak aztertuko dituzte. [Berria - Kultura](#)

Arauk aldatu egiten dira, **parte hartzaile** kopuruaren arabera. [Juan Kruz Igerabide](#)

Oraindik ez dira **parte-hartzaileak** eta egunak zehaztu, baina Nobel saridunak edo antzeko maila duten hizlariak bilatzen ari dira. [Berria - Ekonomia](#)

Lehen saria, **parte-hartzaileak** maila ona erakutsi arren, eman gabe gelditu zela argitu zuen. [Iñigo Aranbarri](#)

Arratsean, afalondoan, **parte-hartzaileak** hizpidera zekarten, eztabaida guztiz ireki haieten, zer aplikazio izan zitzaizketen gizakietan sagan erabilitako in vitro ernaltze-metodoak. [Juan Garzia](#)

Enpleguaren Euskal Kontseiluaren arrakasta **parte-hartzaileen** «borondatearen menpe» dagoela esan zuen Azkarragak. [Berria - Ekonomia](#)

Berrehun **parte hartzaile**, danbor eta upeldun, izan ziren guztira. [Askoren artean](#)

Hiru urte geroago, koordinakundea legeztatu zuten, urtegiaren kontrako borrokan **parte-hartzaile** aktibo bilakatzeko. [Eduarne Elizondo](#)

Milesker **parte hartzaile** guztier, hemen aipatu ez dituztener eta helduden urte arte agian. [Herria](#)

## 24 (izenondo gisa)

2001eko Bertsolari txapelketa Nagusiko bertsolari **parte hartzaileak** eta bertso-eskolarekiko harremana. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Erritmoa jarraituz denetik egiten zuten ikus-entzule **parte-hartzaileak**: dantza, ilarak osatutako trenak irudikatuz; gurasoak zalduak balira bezala ibili, umeak bizkarrean hartuta... [Berria - Kultura](#)

Eragile **parte-hartzailea** bihurtu da gaixoa. [Berria - Gaiak](#)

Blogetan demokrazia **parte-hartzailea** hazten. [Berria - Ekonomia](#)

Edukiak interesatzen zaizkigu ororen gainetik, eta dinamika **parte-hartzaileak** sustatu gura ditugu langileen artean. [Berria - Ekonomia](#)

Informazioa ezinbestekoa da herritarrek gizartearen ikuspegi kritiko eta **parte-hartzailea** izan dezaten. [Berria - Gaiak](#)

Txanponaren bi alde ilunetan, politika neoliberal latzena eta estatu **parte-hartzailearen** eredu populistena, biak elkartu dira gizarte argentinarra eskutik amildegira eramateko. [Iñaki Heras](#)

Beti izaten zen kantu **parte-hartzailearen** bat, argigailuaren, berbenaren, lore jokoen, [...] artean une jakin batean behar zenerako egokitzen zena. [Askoren artean](#)

Egitasmo **parte-hartzailea** da Project Censored: 200 kazetari, ikasle, irakasle, liburuzain eta herritar baino gehiagok ehunka albiste helarazten dizkiete urtero. [Berria - Gaiak](#)

## 25 **parte-hartze** (1384 agerraldi, 81 liburu eta 910 artikulutan; orobat **partehartze g.er.**) ik **partaidetza**.

Nola edo hala denek ahaztu zuten lagun hurkoaren bizitzan izandako **parte-hartze** labur eta engainagarri hura. [Fernando Rey](#)

Ekonomilar liberal askoren ustez, estatuaren **parte-hartzearen** ondorioz sortzen dira ekonomiek izaten dituzten arazo gehienak. tokian tokiko arazoei kudeaketa administratibo horizontelen eta herritarren **parte hartzearen** bidez egiten baitie aurre. [Iñaki Heras](#)

Gurasoen edo tutoreen **parte-hartzea** lege positiboek agintzen dute eta horren ez izanak ez du erakartzen beste ondoriorik deuseztasun zibila baino. [Andres Urrutia](#)

Herri mugimenduak ziren, laikoek sustatuak (emakumeen **parte-hartze** handiarekin), bi ikur nagusi zituztenak: Ebanjelioarekiko erreferentzia eta pobretasuna. [Askoren artean](#)

Zilegitasunaren gaiarekin batera, benetako **parte-hartze** demokratikoari buruzko eztabaida ere irekita dago. [Askoren artean](#)

Argitu beharra dago gure asmoa ez dela izan, inondik ere, zientzian eta teknologian **parte-hartze** publikoa izateari buruzko eztabaida erregulazio publikoaren problematikara murriztea. [Askoren artean](#)

Ustekabeko **parte hartzea** ere izan genuen, Garazi Hach Embarek-en eskutik. [Patxi Zubizarreta](#)

Horrela bizi izan ditugu autobiografiaren eta hilketaren arteko harremanak, ez munduan zehar aske dabilen Gaizto izugarri ulertezina bezala, krimenean geure nahitaezko **parte-hartze** gisa baizik. [Joseba Zulaika](#)

Biologia molekularren hastapenek interes ez nolana hikoia piztua zieten beti Mendebaldeko fisikariei, eta haietarikoz zenbaitek lehen mailako **parte-hartzea** izan zuten haren aurrerabidean. [Juan Garzia](#)

## 26 **parte izansup\_1** da *ad*

Muga-postuak sistema beraren **parte dira**, muga-lerroak albo-bide ere izaten baitira beti. [Iñaki Mendiguren](#)

Txertaturik dago jada gure atomoa: egitura baten **parte da**, arkitektoek hitz horri ematen dioten zentzuan. [Juan Garzia](#)

Hortzak ere palanka-sistema baten **parte dira**. [Irene Aldasoro](#)

Gizakiaren izatearen **parte da** izadia ulertzeko gura hori. [Juan Garzia](#)

Egitasmo baten **parte zen**, tesela bat mosaiko batean. [Juan Garzia](#)

Kristoren bitartez, eraikinaren **parte zarete** zuek ere besteekin batera, Espirituak eraginda Jainkoaren bizileku bihurtzeraino. [Elizen arteko biblia](#)

**Parte izan** arren, ez genuen parterik hartzen arioen joko ergel eta ankerrotan. [Juan Garzia](#)

Ez dago mendia gai duten idazleen bazkun horretako **parte izan** beharrik mendia eta literatura elkartzeko. [Anjel Lertxundi](#)

## 27 **parte izansup\_2** du *ad*

Baina neurri ororen gainetik, erraietarainoko amodio osoz, bere anaiak maite zituen, fede berezian senide zituelako eta betiko ondarean elkarrekin **parte zutelako**. [Askoren artean](#)

Judizioan **parte duten** oinarriko elementuak honako hauek dira: [...]. [Askoren artean](#)

Bai baitakigu gure sufrimenduetan **parte duzenok** adorean ere izango duzuela. [Elizen arteko biblia](#)

Ikusleak irudia atzematen duenean, atzemate horretan **parte duten** eragile guztiak aztertzen ditu. [Josu Zabaleta](#)

Hainbeste **parte duen** kontratu hori esplikatzen ahal diguzu larri-larria? [Herria](#)

Ezin duzue **parte izan** Jaunaren mahaian eta deabruenean. [Elizen arteko biblia](#)

Inork ez du fikzio baten **parte izan** nahi. [Harkaitz Cano](#)

Morroi trebeak gain hartuko dio duin ez den semeari: herentzian **parte izango** du gainerako senideekin. [Elizen arteko biblia](#)

Zuk ere **parte izango** duzu. bai baitakigu gure sufrimenduetan **parte duzenok** adorean ere izango duzuela. [Josu Landa](#)

Beste batzuek zuen ondasunetan **parte izateko** eskubidea baldin badute, askoz handiagoa guk. [Elizen arteko biblia](#)

## 28 **parte-izate**

Bere **parte** -izatea eta bere legea gauza bera dira. [Xabier Arregi](#)

## 29 **parte onekoa izan** da *ad*

Geure gizarteaz hausnartuz nabarmena da jauntxoek eta leinuek ondino be bizirik segitzen dutena: **parte onekoa** izateak, pariente handidunekoa, geneek, lagunak, eragin nabarmena dute boto bilketak egiteko orduan, eta abar. [Markos Zapiain](#)

## 30 (ezezko esaldietan)

Ez da **parte onekoa** errepidean geldi-geldi egotea, zirkulazioaren erdian. [Mirentxu Larrañaga](#)

Frankotan erran dizuet haren matelondoko orizta ez zela **parte onekoa**. [Aingeru Epaltza](#)

Ordudanik, baina, Ewing-darren harraska eta bainuontziek makina bat aldaketa pairatu behar izan zuten, bat bera ere ez **parte onekoa**. auzia lehenbailehen itxeko



Gobernuak erakutsi zuen presa ez zela **parte onekoa** esanez bizenen zuen bere artikulua. Mirentxu Larrañaga

**Parte onekoak** ez ziren orduetan. Pako Aristi

Baina bazuen zer bitxi bat... **parte onekoa** ez zen zer bat. Irene Aldasoro

Ez dakit **parte onekoa** ote den, gero, festa-egarri demaseko hau. Joxerra Garzia

Pitagorikoei, ordea, ez zitzaiean Zilon **parte onekoa** iruditzen. Jon Muñoz

Lankide guztiek errepikatu zioten behin eta berriro, nagusiarekin endredatzea ez zela **parte oneko** kontua. Iban Zaldúa

## 31 parte txarreko

**Parte txarreko** areto hartan bazen arima zimeltzen zuen zerbait. Alberto Ladron Arana

**Parte txarreko** seinale hark lur jota utzi zuen -Ez da izango **parte txarreko** zerbait? Karlos Zabala

**Parte txarreko** kutsu halakoa hartu dio, Jainkoaren borondateari eskapo egin nahia. Aingeru Epaltza

Birigarro ederra Tom hori, baina ez da **parte txarrekoa** -hasi zaigu-. Patxi Zubizarreta

Baina inbidia ez zen batere **parte txarrekoa**, ez pentsa. Mikel Hernandez Abaitua

Su zurizko bola bat zen, **parte txarreko** jirabira batean ari zena. Juan Garzia

Hamabortz urtetan ere **parte txarrekoa** iduritzen zitzaidan haren orizta puta hori. Aingeru Epaltza

Bi ordu eman genituen jaisten, sokaz halamoduz lagundurik, izozturik baitzegoen: bilur-milur zurrun **parte txarreko** bat bilakatu zen. Juan Garzia

Baina **parte txarrekoak** hartzeoak zituzten, ez baitzeuden seguru egiten ari zirenaz, bakarrik sentitzen ziren, beren gisara utzirik Josu Zabaleta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**aldiz parte hartu** (9); **bazkarian parte hartu** (9); **bere parte hartzea** (26); **bertan parte hartu** (24); **bertan parte hartuko** (16); **bertan parte hartzeko** (20); **bertan parte hartzen** (10); **bileran parte hartu** (34); **bizitzaren parte** (16); **borrokan parte hartu** (10); **bozetan parte hartu** (11); **bozetan parte hartuko** (12); **bozetan parte hartzea** (10); **bozetan parte hartzeko** (13); **bozketan parte hartu** (30); **demokrazia parte hartzailea** (10); **diruaren parte bat** (9); **diskoan parte hartu** (11); **donostiako parte zaharrean** (14); **donostiako parte zaharreko** (14)

**ekimenetan parte hartzeko** (14); **ekitaldian parte hartu** (27); **ekitaldian parte hartuko** (10); **ekitaldian parte hartzeko** (11); **ekitaldian parte hartzeko** (9); **elkarretaratzeetan parte hartzeko** (10); **emakumeen parte hartzea** (22); **erabakietan parte hartzeko** (9); **erasoan parte hartu** (10); **erasoetan parte hartu** (13); **erasoetan parte hartzea** (10); **ez parte hartu** (9); **ez parte hartzea** (23); **ez parte hartzeko** (15); **eztabaidan parte hartu** (18); **eztabaidan parte hartuko** (9); **eztabaidan parte hartzea** (9); **eztabaidan parte hartzeko** (12); **gerran parte hartu** (10); **gizartearen parte hartzea** (14); **gobernuan parte hartzeko** (14); **greban parte hartu** (9); **haurrek parte hartu** (9); **hauteskundeetan parte hartu** (13); **hauteskundeetan parte hartzea** (13); **hauteskundeetan parte hartzeko** (29); **herritarren parte hartzea** (59); **hilketan parte hartu** (18)

**ikerketan parte hartu** (9); **izandako parte** (14); **jaialdian parte hartuko** (15); **jendearen parte hartzea** (24); **jendek parte hartu** (17); **jendek parte hartzen** (10); **jokoetan parte hartu** (12); **konferentzian parte hartu** (9); **kongresuan parte hartu** (9); **lagunek parte hartu** (54); **lehiaketan parte hartu** (9); **lehiaketan parte hartzeko** (13); **manifestazioan parte hartu** (25); **manifestazioan parte hartuko** (10); **manifestazioan parte hartzeko** (46); **manifestazioan parte hartzera** (18); **mintegian parte hartu** (13); **mobilizazioetan parte hartzeko** (27); **mobilizazioetan parte hartzera** (11); **negoziozietan parte hartu** (12)

**ordezkariek parte hartu** (10)

**parte egin** (9); **parte eman** (16); **parte ez hartzea** (12); **parte ez hartzeko** (18); **parte handi bat** (79); **parte handia** (17); **parte handiena** (17); **parte har** (178); **parte har dezaten** (59)

**parte hartu** (3007); **parte hartu beharra** (9); **parte hartu du** (163); **parte hartu gabe** (26); **parte hartu izan** (20); **parte hartu izana** (80); **parte hartu ondoren** (21); **parte hartu ostean** (10); **parte hartu zuen** (335); **parte hartu zutenak** (13); **parte hartu zutenek** (16); **parte hartu zutenen** (14); **parte hartua** (19); **parte hartuko** (1087); **parte hartuko du** (174); **parte harturik** (15); **parte hartuta** (14); **parte hartuz** (118)

**parte hartzaile** (169); **parte hartzaile guziek** (9); **parte hartzaile guztiek** (10); **parte hartzailea** (58); **parte hartzaileak** (113); **parte hartzailearen** (11); **parte hartzaileei** (12); **parte hartzaileek** (130); **parte hartzaileen** (77); **parte hartzaileen artean** (25); **parte hartzale** (17)

**parte hartze** (434); **parte hartze aktiboa** (11); **parte hartze bikaina** (13); **parte hartze handia** (41); **parte hartze handiagoa** (24); **parte hartze politikorako** (12); **parte hartze zuzena** (38)

**parte hartzea** (1515); **parte hartzea bermatu** (18); **parte hartzea bermatzea** (10); **parte hartzea bermatzeko** (11); **parte hartzea bultzatu** (15); **parte hartzea bultzatzen** (9); **parte hartzea egotzi** (12); **parte hartzea egotzita** (12); **parte hartzea erabaki** (29); **parte hartzea eskatu** (18); **parte hartzea eskatzen** (11); **parte hartzea espero** (12); **parte hartzea handia** (13); **parte hartzea izan** (21); **parte hartzea izango** (13); **parte hartzea leporatu** (14); **parte hartzea leporatuta** (12); **parte hartzea leporatzen** (20); **parte hartzeagatik** (108); **parte hartzeak** (64); **parte hartzean** (21); **parte hartzearekin** (94); **parte hartzearen** (110); **parte hartzearen alde** (10); **parte hartzearen aldeko** (12); **parte hartzeari** (138); **parte hartzeari dagokionez** (13); **parte hartzeaz** (38)

**parte hartzeko** (1367); **parte hartzeko asmoa** (24); **parte hartzeko asmoz** (10); **parte hartzeko aukera** (124); **parte hartzeko aukerarik** (14); **parte hartzeko dei** (10); **parte hartzeko deia** (157); **parte hartzeko erabakia** (9); **parte hartzeko eskatu** (54); **parte hartzeko eskubidea** (87); **parte hartzeko gonbidapena** (9); **parte hartzeko gonbita** (22); **parte hartzeko prest** (30); **parte hartzekoa** (18); **parte hartzekoak** (16)

**parte hartzen** (1197); **parte hartzen ahal** (35); **parte hartzen ahaliko** (14); **parte hartzen ari** (132); **parte hartzen du** (66); **parte hartzen dutenak** (18); **parte hartzen dutenek** (14); **parte hartzen hasi** (16); **parte hartzen uzten** (10); **parte hartzen zuen** (22)

**parte hartzera** (269); **parte hartzera deitu** (78); **parte hartzera gonbidatu** (14); **parte hartzerat** (34); **parte hartzerik** (95); **parte hartzerik ez** (11); **parte hartzerik gabe** (19); **parte hartzerik handiena** (11)

**parte haundi** (9)

**parte izan** (45); **parte izango** (18); **parte izatea** (11); **parte izateko** (10); **parte izaten** (9); **parte izatera** (11); **parte nagusia** (14); **parte on** (27); **parte on bat** (23); **parte onekoa** (42); **parte txarreko** (32); **parte txarrekoa** (16); **parte txiki** (16); **parte txiki bat** (11); **parte zaharra** (9); **parte zaharrean** (47); **parte zaharreko** (35); **parte zaharrera** (9)

**pertsonak parte hartu** (10); **politikari parte hartzeko** (11); **proiektuan parte hartu** (17); **prozesuan parte hartu** (32); **prozesuan parte hartzea** (13); **prozesuan parte hartzeko** (29); **prozesuan parte hartzen** (13); **sorreran parte hartu** (29); **taldek parte hartu** (9); **taldek parte hartuko** (11); **txapelketan parte hartu** (19); **txapelketan parte hartuko** (16); **txapelketan parte hartzeko** (24)

**ustez parte hartu** (10); **zuzenean parte hartu** (21); **zuzenean parte hartzeko** (14)

**azken partea** (13); **bere partea** (64); **beren partea** (17); **bigarren partea** (40); **goiko partea** (12); **hirugarren partea** (10); **lehen partea** (37); **nire partea** (9); **partea eman** (9)

**arrazsalde partean** (32); **atzeko partean** (14); **azken partean** (11); **beheko partean** (14); **bigarren partean** (40); **eguerdi partean** (16); **gau partean** (9); **goiko partean** (19); **goiz partean** (29); **lehen partean** (80); **negu partean** (13); **uda partean** (82)

**uda parteko** (9)

**partetan banatuko da** (10)

**bere partetik** (12); **ene partetik** (13); **gure partetik** (39); **haren partetik** (11); **nere partetik** (9); **nire partetik** (35); **noren partetik** (9)

**aspaldiko partez** (355); **egiteko partez** (14); **nire partez** (19); **partez behintzat** (18)

## partekaketa iz partekatzea.

Apustuek Interneten bidezko telefonia (VoIP), P2P edukien **partekaketa** edo irati eta telebista banaketaren hazkundearen alde egiten dute. Berria - Gaiak

## partekarazi, partekaraz, partekarazten du ad partekatzea behartu.

80 musikarik Mañolo Espelett eta Remy Gachis bi konpositore baxenabartar gazteek moldatu hainbat aire **partekaraziko** dituzte, gaitaren errepertorioa uste baino zabalagoa dela erakutsiz. Berria - Kultura

## partekatu *(647 agerraldi, 82 liburu eta 312 artikulutan; orobat partikatu 79 agerraldi, 6 liburu eta 62 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian partekatu agertzen da)*, parteka, partekatzen **1** du ad elkarren artean eduki edo erabili. ik erdibanatu.

Gurasoengan gela **partekatzen** genuen garaietan. Aingeru Epaltza

Zenbait egunez, Madeleinek Mariren gela **partikatu** zuen, baina argi azaldu zuen ez zuela han deus egin gabe egoteko xederik. Elena Touyarou

Senar-emazteek elkarrekin edaten zutenean, bozkariozko une labur bat **partekatzen** zuten, eta gero, inolako arrazoibide agerikorik gabe, kalapita basatian liskartzen ziren.

Mirentxu Larrañaga

Inguru-testua, berriz, bertsolariak eta entuleek **partekatzen** dituzten balio eta aldakorren multzo hori, aldakorra da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jende zibilizatuak garenez, paper beharrik ez haurren ardurak **partekatze**ko. Aingeru Epaltza

Lagun guztiek haien samina **partekatzen** zuten, bat-bateko heriotzak mutil osasuntsua nola eraman zuen ikusiz. Askoren artean

Elkar maite duten anaiek dena **partekatzen** dute. bagenituen gauza batzuek **partekatzen** genituenak, Rossek eta biok, emakume bera izateaz gainera. Itziar Otegi

Ene bizitza **partekatuko** duen pertsona baten beharrea nago. Patxi Zubizarreta

Zelula komunista batean, denak mutilik dira, neska bat salbu; denak etzaten dira harekin, **partekatuz**, hots, txandaka larrua joz, eta dena primeran doa, harik eta pozoï burgesa agertzen den arte: mutiletako bat zoroki maitemintzen da neska, eta beretzat nahi du osorik, jabetza pribatu gisa. Juan Kruz Igerabide

Dolua ez da **partekatzen**. Joxan Elozegi

## 2 (norbaitekin)

Neskak pisu bat **partekatzen** zuen Ruby izeneko ezagun batekin, kautxu-lantegiko enplegatua berau ere. Mirentxu Larrañaga

Ohea harekin **partikatzea** onartuko zuen, zor baitziona, etxe bat, deitura bat, eta semearentzat eta bientzat segurtasuna ekartzen zizkion. Elena Touyarou

Hanneli, Hanneli, ai zauden lekutik atera eta nik ditudan gauza guztiak zurekin **partekatu** ahal banitu. Josu Zabaleta

Neke zitzaidan nire orduak **partekatzea** [...] egunaren bueltan egiten diren ehundaka egitateen esangura sakona -iraultzailea?- bilatzen zuen norbaitekin. Aingeru Epaltza

Sexua bizi poza beste norbaitekin **partekatzea** da; jolasa, festa. Luis Elberdin

Bi hilabete geroago, titi-pare galant horrekin **partekatzen** ari zen ohea, komuneko papera eta Cola-cao potea. Aingeru Epaltza

Harekin **partekatzen** nuen ukaiten nuena. Marzel Etxehandi

Ikusteko ea berari ere gustatzen zitzaizkion aldizkari eta film pornografikoak andere zaharrak maite zituen: hala bailitza, zerbait bazuketen elkarrekin **partekatze**ko, tea eta whisky titilikaz aparte. Itxaro Borda

Bertsolariak ohol-tza konpartitzen dute, bertsotan elkarrekin gaiak eta temak **partekatzen** dituzte, inprobisazioa elkarrekin txirikordatzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hogeita bost urte nituen hiriaren erdian alokatu nuenean etxea, Daniela eta honen amona Teresarekin **partekatua**. Jasone Osoro

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Bizipen **partekatu** hori izan ohi dute horrelako bertsoek bere emozibide nagusi. Begiradak, musuak, laztanak, desioa, jolasak, izerditzeak, beroaldiak... plazer **partekatua**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kontzeptuak intersubjektiboak dira, hau da, ez dira izaki pribatuak, izaki **partekatuak** baizik. Askoren artean

## 4 ipar zatikatu, banatu.

Iduri du zerbait zailtasun badutela Alemanek gure lerrokadaren **partikatze**ko. Michel Oronoz

Zuten poxia lagunaren artean **partikatzen** zuten, zaindarien ikusi gabe. Eneko Bidegain

Kaputxin ohiak ogi borobil alimalea ororen artean **partikatu** du, kanibetaz kurutze seinalea egin ondoan. Piarres Aintziart

Lehen harridura pasatu-eta apailatu behar genuen, bagoia zati berdinetan **partekatu**, buruzagi bat izendatu. Marzel Etxehandi

25 jule/enplegatzaileak honela **partekatuak** dira: UEK 14, CGPMEK 9, CFPI eta EESek bedera. Herria

Apirilaren 8an, 1945koan, salda **partekatzen** daukute eta 100 grama ogi. Michel Oronoz

## partekatzaile *izond/iz partekatzen duena.*

Hi bai egiazko **partekatzailea**! Itxaro Borda

## partekatze *(orobat partikatze) iz elkarren artean eduki edo erabiltzea.*

Beraien arteko botere lehiaketengatik ez dugu greba egun bakar bat ere ondu elkartasun eta **partekatze** ideia horren lehentasunaren sustengatzeko. Berria - Kultura

40.000 gazte bilduak dira egun hautan Portugaleko Lisboan, 15-25 urtekoak, Taizeko europear batasun girixtino muimenduaren izenean, otoitz, elkarriketa eta **partikatze** solas. Herria

## partekatze *adlag partekatze*ko zorian.

Ba al dakizue? -jarraitu zuen, istorio on bat **partekatze**ko dagoenaren antzera-; zer egingo, eta dirutza osoa niri laga ez dit, bada! Mirentxu Larrañaga

## parteliant *(orobat parteliant) iz ipar parte-hartzailea, partaidea.*

Urteko bilkura nausia egin dūe Atharratzeko Mūsika Eskolako **parteliantek**. Herria

Goresmenak beraz Basaburun **parteliant** diren 5 partzuerrer eta seigarrenari ere, ez baita txarrena, haien laguntzailea, eta hor ere erran ginezake: "Segi aintzina".

Herria

Bestetako komiteak galdegin du Kontseilutik delegatuak izan zizten elkarte hontan **parteliant**: gogoeta berri zenbait ekartzeko, herriko besteri buruz antolaketa berri batzuen egiteko. Herria

## parteliantgo *iz ipar parte hartzea, partaidetza.*

Helbūrū nausiak: geroaren prestatzen gazteen **parteliantgoarekin**, eta hamar urtez sei ehūn enplegūreren sortzea. Herria

## parteliar ik partalier.

## partelier ik partalier.

## partenaire ik partener.

## partenariatu *iz garapena ulertzeko modua, partehartzean eta elkarriketan oinarritua.*

II. motako akordioetan, **partenariatuak** azpimarratu beharko genituzke, berrikuntza gisa; ekintza programen eragimena hobetzeko gobernuak, enpresek eta gizarte zibilak

elkarrekin eginitako aliantzak dira. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

**Partenariatuaren** ideia oinarrian hiru elementu ditugu: arlo pribatuarentzat ezinezkoa izatea gaiak berak bakarrik konpondu ahal izatea; gobernuak ahalmenik ez izatea mundu osoaren ordez erabakitzeko; eta gizarte zibilak ahots sendoagoa eta finantza baliabide gehiago behar izatea bere kezak adierazteko eta bere esperientzia partekatzeko. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Horren lekuko ditugu, esate baterako, Johannesburgen planteatutako **partenariatuak** edo hiru sektoreko sareak, hau da, erakunde publikoen, korporatiboen eta gizarte zibilaren elkarrekiko ekintza jasotzen dutenak. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

## partener *(orobat partenaire eta partner) iz bikote-laguna.*

Bi **partenerak**, besarkada lizunean munstro laranja-koloreok sortu ziren bi fornikatzaileak, kromatoa eta erretxina ziren. [Juan Garzia](#)

-Ene, Luisa, azkar aldatu dun hire **partenairea**! [Pako Aristi](#)

Oraingoan, gutxienez, beste **partner** bat ekidinezina da, PSOE, jai honetara autogonbidatu egin da eta neurri batean jaia bera ere ordaintzeko prest agertu da. [Berria - Euskal Herria](#)

## parteño *iz adkor partetxoa.*

Lan horren alderat hunkia beharra zuten diruaren **parteño** bat altxatua dute baina **parteño** bat bakarrik. [Herria](#)

Gobernuak ere zorrak ukanki, zorren **parteño** bat bederen estaltzeko, ala izaitekotz sozial maileko sail batentzat... [Herria](#)

Goazen gu hemen aste huntako zenbait berri kondatuz, eta gure lan **parteñoa** eginez euskal kasetan pilotaren alde. [Herria](#)

## partenogenesi *iz obuloak alde aurreko ernalketarik gabe garatzen diren ugalketa-mota.*

Dena irakurri du; buruan biltegitatu du **partenogenesiari** buruz dakigunaren erdia; bibisekzioaren aurkako argudioen erdia. [Monika Etxebarria](#)

Kaguya **partenogenesis** artifizial bidez jaiotako lehen ugaztuna izan da. [Berria - Gaiak](#)

## parterre *iz lore eta landarezko taulena.*

Lorategian **parterre** borobilak zeuden, kolore zuri eta horiko loreekin, eta magnolia aski handiak, inguruko basoko pago-lizarren aldean bigunak ematen zutenak. [Bernardo Atxaga](#)

Iturriaren eraikina plazaren erdian zegoen, **parterrez** eta belarrez inguratua. [Karlos Zabala](#)

Zuhaitz eta **parterreak** zeuden hesiak babesturiko eremuan. [Migel Angel Mintegi](#)

Hortentsiak, berak hainbeste maite dituen gerberaz betetako **parterreak**, primula kolore ezberdinetakoak, garo exotikoak... [Hasier Etxebarria](#)

Ubanbe bakarrik imajinatu ahal nuen lorategian, **parterre** artean bere kapa gorriarekin, pentsakor, triste. [Bernardo Atxaga](#)

Han eta hemen, **parterreetan** ikusten dira gidari alferren arrastoak. [Hasier Etxebarria](#)

## partesari *iz diru kuota.*

Patronalari langabezirako **partesariak** murriztea leporatu zion. [Berria - Ekonomia](#)

CFDTko Baionako idazkari nagusiaren ustez «ez da onargarria Gobernuak patronalaren **partesarien** igotzeari uko» egitea. [Berria - Ekonomia](#)

## partetxo *iz adkor parte, parte txikia. ik parteño.*

Baina, lehendabizi, itunaren hire **partetxoa** bete behar duk. [Anjel Lertxundi](#)

Euskalgintzako osagai guztiei [...] beste neurri bat eman die Egunkaria-k: unibertsoaren trataera ematen die, osotasunean hartzen du, eta ez zati handi baten **partetxo** bezala. [Berria - Euskal Herria](#)

Zorionez, hala ere, Holandako biztanleen **partetxo** batek baizik ez du etsaien alde jokutzen. [Josu Zabaleta](#)

Ortodoxia nagusi intransigentek ez bezala, Lain Entralgo-k Anti-Espainiaren parte bat bederen (Machado, etab.) Espainiaren **partetxotzat** edo gura zizun ulertu, nolabait salbatu. [Joxe Azurmendi](#)

Gaur egun bizirik dauden espezieak ez dira, guztira, eboluzioan zehar agertu eta gero desagertu direnen **partetxo** bat baino. [Juan Garzia](#)

## partiada *iz irteera.*

**Partiadak** polikiroldegitik egiten dira, goizeko 6ak eta erdiak eta 8ak artean. [Herria](#)

## partiar *izlag/iz antzinako Iraneko Partiakoa, Partiar dagokiona; Partiar herritarra.*

**Partiarrak** agertu eta beren inperioa sortu zuten, eta Egipto erromatarren indarraren mende erori zenean, inperio hura indarrean zegoen, eta bere hedadurarik handienara iritsia zen. [Iñaki Iñurrieta](#)

Baditugu gurekin **partiar**, mediar nahiz elamdarrak; bai eta Mesopotamian, Judean nahiz Kapadozian, Ponton nahiz Asian bizi direnak ere. [Elizen arteko biblia](#)

Naturak merkataritzarako egin zituen arabiarrek, ez gerrarako, baina herri lasai haiek **partiarren** eta erromatarren mugen aurrean aurkitu zirenean, batzuen eta besteen laguntzaile bihurtu ziren. [Iñaki Iñurrieta](#)

## partiarazi, partiaraz, partiarazten du *ad partizera behartu. ik abiarazi.*

Orai jendea ikaragarri emendatu da pesta horietan, ez da kasik janari prestaturik proposatzen, gure xedea da usaia simple horren berriz **partiaraztea**. [Herria](#)

Langilek CGT sindikataren sustenguearekin, diru horretatik parte bat galdatzen dute lantegiaren arra-**partiarazteko**. [Herria](#)

## particella ik partitxela.

## partida 1 *iz bi lagun edo talderen arteko kirol norgehiagoka.*

**Partida** xisteraz jokatu zen eta hamar jokaldi izango ziren. Koro Navarro  
Ikusmin handiarekin hasi zen **partida** . Koro Navarro  
Bezperan, bero handiegia zegoenez, **partida** egin ordez belazeetan etzan ziren. Eider Rodriguez  
Atotxara joaten hasi baitzen igande guztietan, Errealaren **partidak** ikustera. Joan Mari Irigoien  
Txekiaren eta Eslovakiaren arteko **partida** bateko finalera joan nintzen iaz, eta zaleek 'Txekoslovakia, Txekoslovakia' oihukatzen zuten. Berria - Mundua  
Halako batean **partidako** epaileak okerren bat egin du, eta albaniarrak oihuka. Edorta Jimenez  
Argi zegoen **partida** irabazteko aukerarik banuela. Alberto Ladron Arana  
Lau eta bat galdu, baina **partida** lapurto omen zieten. Ramon Saizarbitoria  
Horiek frontoian segituko dute, jo eta apurto, **partidak** irabazi eta **partidak** galdu. Edorta Jimenez  
Bi aldiz **partida** luzaturik, ezin zuten bururatu ahal izan, hain ziren nekatuak. Michel Oronoz  
Orain arte lehen taldearekin 94 **partida** jokatu ditu Espainiako Ligan, eta bost Kopan. Berria - Kirola  
24 **partida** jokatu ditu Suediarekin, eta 9 gol egin ditu. Berria - Kirola  
**Partida** hartan ez nuen golik sartu. Joan Mari Irigoien  
Nik ez diat azpikeriarik egin eta hik ezin duk jokoa utzi, amaitu egin behar diagu **partida** ! Jose Morales  
Vienaraino joan eta Athleticen **partida** ikusi gabe itzuli ziren 4.000 jarraitzaileak. telebistak Espainiako selekzioaren **partida** bat ematen zuela. Iñigo Aranbari  
Tentsio bereziko **partida** izan nuen igande arratsalde hartakoa. Joan Mari Irigoien

## 2 (izenondoekin)

**Partida** eder baten ikusteko parada ukanen dugu. Herria  
**Partida** osoki ederra, joa azkar eta kintze ederrak egin dituzte. Herria  
**Partida** txukuna egin zuen. Berria - Kirola  
Oso **partida** txarra egin nuen, baina txistu egiten didaten aurreneko aldia izan zela uste dut. Berria - Kirola  
30. tantoa arte oso **partida** gogorra izan zen, zaila. Berria - Kirola  
Bagenekien **partida** bortitza izanen zela. Daniel Landart  
Ez, **partida** arriskutsu baten azken jokaldia da. Agustin Otsoa  
Denboraldiko **partida** garrantzitsuena. Berria - Kirola  
Korearen kontrako **partida** erabakigarri eta polemikaz betetakoa. Berria - Kirola  
**Partida** gogoangarri haren biharamunean amak ohetik jaikiarazi ninduenean, beldur lauso batek harturik nongoen. Alberto Ladron Arana  
**Partida** gustagarria egin daukute lau pilotariek Angelu Haizpean. Herria  
**Partida** bereziak dira, gainera orain kanporaketa izango da. Berria - Kirola  
**Partida** zaila izango da, Itxakok talde oso ona baitu. Berria - Kirola  
Hemen erran dezaket zinez **partida** borrokatua izan dela, hastetik bururaino. Herria

## 3 (izenlagunekin)

Joaneko **partidako** emaitzari eutsi nahi ziolako. Berria - Kirola  
Harrezkero Denoueixek Alberto eta Saizarrekin osatu ditu deialdiak, baita Txapeldunen Ligako itzuliko **partidakoa** ere. Berria - Kirola  
Nazioarteko **partidaren** bat edo ospakizun handiren bat. Koro Navarro  
Partida ezkatuak gehienak, isilpeko **partidak** , gu gehienon oharkabean jokatuak. Alberto Ladron Arana  
Festa batean izan zen, larunbat gau batean, ligako **partida** jokatu ondoren. Joan Mari Irigoien  
Hegoaldeko ezker-paretako **partida** baten animazioa entzunarazi. Ramuntxo Etxeberri  
20 urtez azpikoen Munduko Kopako **partida** bat zen, Qatarren. Berria - Kirola  
Hegoamerikako Txapelketako **partida** zen. Berria - Kirola  
Pilotari haundienekin, sekulako **partida** ederrak izan dituk plaza huntan. Michel Oronoz  
Jose Luis Bilbaok, ahalduen nagusiak, igandeko **partidak** Bilbo Basketen patrika ez duela urratuko aurreratu du. Berria - Harian  
Harryk ez zuen biharamuneko **partida** beste kezkarik buruan. Iñaki Mendiguren

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Muntatu zioten pilota **partida** bat, berak bien kontra jokatzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Iluntze askotan frontoira joaten ginen jai-alai **partidetara** . Edorta Jimenez  
Futbol-**partida** gehienak igande goizez izaten nituen z gero, [...]. Joan Mari Irigoien  
Bordeleko talde baten kontrako saskibalo **partida** jokatu genuen. Ana Urkiza  
Joan den astean aipatu dugu Baiona eta Miarrizteren arteko errugbi **partida** , Baionesek irabazia Miarrizteko kirol zelaian. Herria  
Gustura ikusiko omen zuen, beisbol **partida** bat zuzenean. Xabier Olarra  
-Jaun-andreok, bukatu da mus-**partida** ... Inazio Mujika Iraola  
Marcel Martin poker **partida** batean ezagutu zuela esan zuen. Ramon Saizarbitoria  
Lau edo bost asteren buruan bazen pilota **partida** bat desafiozkoa Alduden, herriko besten kariatara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Haren entretenimendu bakarrak karta **partida** bat, txotxetan jostatzea edo Baionatik ekarri liburuen irakurketa ziren. Elena Touyarou  
Igandeetan, bainua, meza, domino-**partida** edo autoan paseoa arratsaldean. Joseba Urteaga  
Ping-pong **partida** batera gonbidatu nuen. Joxe Austin Arrieta  
Liburua, oro har, antzinako xake-**partida** anitz eta anitzen bilduma zen. Alberto Ladron Arana  
Mutilak galdetu zuen ea egia al zen Macek billar- **partida** baten kontura sosent bat irabazi zuela. Irene Aldasoro  
Dardo **partida** bat proposatu zion Gabini. Iñaki Iñurrieta  
Golf **partida** bat jokatzeko egin zion gonbitea onartu zuela. Joxan Elozegi  
Erabat ahaztu zitzaizen whist-**partida** ; gai oroz eztabaidatu eta mintzatzen ziren oihuka. Jose Morales  
Quidditch-**partida** batean Harryk eta Malfoy behin bakarrik jokatu zuten elkarren aurka. Iñaki Mendiguren  
GameBoy **partida** bat jokatzeko desafioa egin dit. Iban Zaldúa  
Joka-**partida** polit baten ikusle bilakatzeko esperantzan, gainerako ikasleok pilotzen hasiak ginen, bi borrokarigaien inguruan. Aingeru Epaltza

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

**Partida** -bezperan, haizea ia hurakan bihurtu zen, eta sekula baino indartsuago egiten zuen euria. Iñaki Mendiguren  
Arsenalean ia etengabe izaten zen **partida** -leku bat, apusturik txikiena txakur handi batekoa zena. Josu Zabaleta

## 6 irud/hed

Khodorkovski eta Putinen arteko **partida** oraindik ez da amaitu: «Alde bakoitzak arma nuklearrak ditu» dio lan Hague Firebird etxeko adituak. Berria - Ekonomia  
**Partida** alde jarri zaio Gas Naturali. Berria - Ekonomia  
Historiako orrialdeetara igaroko diren Pearl Harbor edo Normandia legezko leketan ez ezik beste inguru askotan ere **partidak** tantoak jokatzen dira. Edorta Jimenez  
**Partida** luze doa eta Jack Guynn Atlantako Erreserba Federaletako presidentek adierazi zuen banku zentralak ez duela promes egin diruaren prezioa pixkanaka igoko luketenik. Berria - Ekonomia

Alabaina, iseka egiten ziotenen **partida** galduei, baita erreferendua baino aste lehenago armaratzea deia gizen zuten Carlos Andres Perez Venezuelako presidente ohiak ere. [Berria - Mundua](#)

**Partida** irabazten ari gara jada, ez baitago ezkutuko akordiorik eta, ziur aski, kalte-ordain mamitsuak jasoko baititugu. [Berria - Ekonomia](#)

Heriotzak biziarri **partida** irabazi izan balio bezala, mamu ibiltarien hilerrian. [Berria - Harian](#)

Gobernu ituna lortzeko **partida** zaila izango dela aitortu du Ibarretxek. [Berria - Harian](#)

## 7 ipar aurkaria.

Azken urteetan boza makurra eta erkastua, bikarioa **partida** zuen. [Michel Oronoz](#)

Luzaide eta Garaziko gazteek, mendiz mendi joanez, karabineruak zituzten **partida**, Espainiako lurretan, eta guardak Frantziakoan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Eta bere ustez, kanpotiarrek ditu **partida**. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Ez zituen beraz Nafarrak bakarrik **partida** Aimerik! [Piarres Aintziart](#)

Kamioitik mitrailleta asots nasaia ozen zetozen eta **partida** zuena irudiz, tiratzaile bakartia, tiratzezik gelditu zen, hila menturaz. [Itxaro Borda](#)

Koioiteak egiazki **partida** zituen: urruneko lur ertzetan garrasika ari izan ondoren, nehork ez ustean, itsumandoka hurbiltzen ziren. [Itxaro Borda](#)

Gosea zuen **partida**, preso guziet bezala, funtsean. [Eneko Bidegain](#)

Luzaide eta Garaziko gazteek, mendiz mendi joanez, karabineruak zituzten **partida**, Espainiako lurretan, eta guardak Frantziakoan [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

## 8 jende armatuaren talde txikia.

**Partidak** bi erortzen ikusi nituen, aurren-aurreneko tiroetan. [Inazio Mujika Iraola](#)

Uhaitzandiren gaineko zubian **partida** txiki bat zegoen zaindari, erdi logaleturik oraino. [Aingeru Epaltza](#)

Zeren gaztelutik iltki orduko jalgi baitzitzaigun biderat gaztelau-**partida** bat, jauregirat itzularazi eta gibelarazi gintuena. [Joan Mari Irigoien](#)

Tartekoa, adibidez, eta txosten hartan ikasi nuenez, Goierriko Jauregi "Pastor" gerrillari ospetsua zegoen, 1808az geroztik **partida** mota guztietan partaide sutsu izana.

[Txillardegia](#)

Begirale-**partida** txiki baterako (sei lagun ginen) hautatu ninduten. [Txillardegia](#)

## 9 kontuetako saila.

2004. urterako deficit publikoa aurreikusitakoa baino %0,78 handiagoa izango dela iragarri zuen atzo, PPren gobernuak jaso ez zituen **partida** batzuk horrela zenbatu direlako. [Berria - Ekonomia](#)

Defizit handiagoa eragiteko arriskua duten beste **partida** batzuk, iraganean egindako ekintzenak, ere jakinarazi zituen Solbesek: Renferen zorra, GIF delakoa, eta Estatuko Ur Sozietateak. [Berria - Ekonomia](#)

**Partida** aurreko urtean baino %8,4 handiagoa da. [Berria - Harian](#)

**Partida**, legez, honela zehaztuta dago: 18.000 euro inguru Eusko Legebiltzarrean eskuratutako eserleku bakoitzagatik. [Berria - Harian](#)

14 milioi eurotan handituko dira hezkuntza eta euskararen aldeko **partidak**. [Berria - Harian](#)

1994az geroztik, urtero EAEko aurrekontuetan «alderdien ohiko funtzionamendua laguntzeko» Eusko Legebiltzarrek zehazten duen **partida** bat dago alderdientzat. [Berria - Harian](#)

Hizkuntza politika bultzatzeko 707.740 euroko **partida** bozkatu du Kontseilu nagusiak, nagusiki euskararentzat. [Berria - Euskal Herria](#)

Ongizate Saila: 207.828.488 euroko **partida** izanen du heldu den urterako. [Berria - Harian](#)

## 10 (hitz elkartuetan)

Aurrekontu **partidak** eratu ondare etnografikoa kudeatzeko eta babesteko. [Berria - Kultura](#)

Erabakiak hartu behar dira, eta aurrekontu **partidak** behar ditugu abeltzainen krisiari aurre egiteko. [Berria - Ekonomia](#)

2004ko aurrekontuetan diru **partida** bat eskatzen zen, liburutegi digitalaren eta liburutegi nazionalaren proiektuak bideratzeko. [Berria - Kultura](#)

Gipuzkoako Ganberak formaziorako diru **partidak** handitu ditu. [Berria - Ekonomia](#)

Hitzarmen Bereziko diru **partidak** kudeatzeko azkenaurreko bilera zen. [Berria - Euskal Herria](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

aintzin **partida** (18); aitzin **partida** (16); amaitu zen **partida** (25); asteko **partida** (10); asteleheneko **partida** (32); asteleheneko **partida** garatenean (9); atzoko **partida** (59); aurkako **partida** (187); aurreko **partida** (16); aurreneko **partida** (51); azken **partida** (283); azken **partida** izango (9); azken **partida** jokatu (22); azken **partida** jokatu (23); azkeneko **partida** (13)

bartzelonaren aurkako **partida** (11); bi **partida** galdu (15); bi **partida** irabazi (34); bi **partida** jarraian (20); bi **partida** jokatu (56); bi **partida** jokatu (41); bi pilota **partida** (22); bigarren **partida** (207); bigarren **partida** irabazi (17); bigarren **partida** jokatu (27); biharko **partida** (23); binakako **partida** (10); bosgarren **partida** (30); bost **partida** irabazi (13); bost **partida** jokatu (19); bukatu zuen **partida** (11); bururatu dute **partida** (9); buruz buruko **partida** (19)

denboraldiko **partida** (25); dezake **partida** (10); dira **partida** (47); diren **partida** (13); diru **partida** (26)

erabaki zuen **partida** (18); errugbi **partida** (11); esku huskako **partida** (11); estreinako **partida** (33); etxeko **partida** (12)

faseko **partida** (12); final laurdenetako **partida** (24); finalerdietako lehen **partida** (21); finalerdietako **partida** (12); futbol **partida** (73); futbol **partida** bat (12)

gaitzeko **partida** (21); garateneko **partida** (14); gaurko **partida** (139); gaurko **partida** (11)

hasi zuen **partida** (37); hasi zuten **partida** (16); helduden asteleheneko **partida** (20); hiru **partida** galdu (17); hiru **partida** irabazi (29); hiru **partida** jarraian (21); hiru **partida** jokatu (42); hiru **partida** jokatu (27); hirugarren **partida** (121); hirugarren **partida** galdu (9); hirugarren **partida** irabazi (10); hirugarren **partida** jokatu (11); horrelako **partida** (13)

ia **partida** osoan (14); igandeko **partida** (45); irabazi beharreko **partida** (12); irabazi zuen **partida** (10); irau du **partida** (10); irau duen **partida** (14); itzulerako **partida** (11); itzuliko **partida** (72); itzuliko **partida** jokatu (10); izan da **partida** (12); izan **partida** (14); izan zen **partida** (20); izan zuen **partida** (12); izan zuten **partida** (12); izango da **partida** (13)

jaialdiko **partida** (23); jaialdiko **partida** nagusian (17); jardunaldiko **partida** (59); jardunaldiko **partida** jokatu (14); joaneko **partida** (70); joaneko **partida** jokatu (15); jokalariek **partida** (9); jokatu beharreko **partida** (20); jokatu da **partida** (21); jokatu den **partida** (17); jokatu **partida** (37); jokatu zuen **partida** (16); jokatu zuten **partida** (12); jokatu da **partida** (15); jokatu den **partida** (14); jokatu duen **partida** (13); jokatu duten **partida** (16); jokaturiko **partida** (17); jokatu **partida** (72); jokatu **partida** (9); jokatu **partida** nagusia (17)

kanpoko **partida** (10); kanporaketa **partida** (9); kanporaketako lehen **partida** (9); kitarako **partida** (14); kontrako **partida** (105); kopako **partida** (48); kopako **partida** bat (9)

lagunarteko **partida** (29); lagunarteko **partida** bat (11); larunbateko **partida** (19); lau **partida** galdu (12); lau **partida** jokatu (32); lau **partida** jokatu (13); laugarren **partida** (46); laugarren **partida** galdu (12); laugarren **partida** irabazi (9); lehen **partida** (550); lehen **partida** galdu (32); lehen **partida** irabazi (40); lehen **partida** izango (9); lehen **partida** jokatu (43); lehen **partida** jokatu (28); lehen **partida** jokatzeko (10); lehenengo **partida** (32); ligako lehen **partida** (15); ligako **partida** (53); ligaxkako azken **partida** (11); ligaxkako **partida** (13); luzeko **partida** (15)

madrilen aurkako **partida** (10); mus **partida** (20)

nolako **partida** (14)

orain arteko **partida** (10); ortzegun huntako **partida** (10); ortzeguneko **partida** (12); oso **partida** garrantzitsua (11); oso **partida** ona (12)

**partida** amaiera (9); **partida** amaieran (19); **partida** amaitu (47); **partida** amaituta (23); **partida** amaitutakoan (14); **partida** amaitzean (10); **partida** amaitzeko (75); **partida** anoetan (14); **partida** proposa (10); **partida** arras (10); **partida** asko (63); **partida** asko jokatu (15); **partida** askotan (13); **partida** atakatu (17); **partida** aurrera (32); **partida** aurrera ateratzeko (9); **partida** aurretik (21); **partida** azken (11); **partida** baino (59); **partida** baino ez (21)

**partida** baino gehiago (18); **partida** bakar (48); **partida** bakar bat (37); **partida** bakarra (78); **partida** bakarra galdu (14); **partida** bakarra irabazi (17); **partida** bakarra jokatu (11); **partida** bakarrean (11); **partida** bakarrena (26); **partida** bakarrik (20); **partida** bakoitza (17); **partida** bakoitzean (30); **partida** bakoitzeko (18); **partida** bana (27); **partida** bana irabazi (9); **partida** bat (512); **partida** bat baino (12); **partida** bat ere (15); **partida** bat galdu (18); **partida** bat gehiago (18); **partida** bat gutxiago (11); **partida** bat ikustera (9); **partida** bat irabazi (35); **partida** bat jokatu (38); **partida** bat jokatu (24); **partida** bat jokatzeko (10); **partida** bat jokatzeko (16); **partida** batean (106); **partida** batek (14); **partida** batekin (14); **partida** bateko (113); **partida** bateko zigorra (108); **partida** baten (55); **partida** batzu (27); **partida** batzuetan (24); **partida** batzuk (26); **partida** behar (15); **partida** behartu (9); **partida** bera (13); **partida** berdin (21); **partida** berdin (21); **partida** berdintzea (13); **partida** berdintzea lortu (10); **partida** bere (16); **partida** berezia (63); **partida** berezia da (10); **partida** berezia izango (32); **partida** bertan (40); **partida** bertan behera (37); **partida** beste (9); **partida** besterik (28); **partida** besterik ez (27); **partida** bezperan (11); **partida** bi (17); **partida** bideratu (10); **partida** bikaina (35); **partida** bikaina egin (22); **partida** biribila (20); **partida** bizia (10); **partida** bukaera (14); **partida** bukatu (42); **partida** bukatu arte (9); **partida** bukatuta (22); **partida** bukatzeko (26)

**partida** da (58); **partida** daramatza (27); **partida** dela (10); **partida** du (29); **partida** dute (22)

**partida** eder (85); **partida** eder bat (29); **partida** eder baten (16); **partida** eder hau (13); **partida** ederra (78); **partida** ederra egin (21); **partida** ederra izan (10); **partida** ederrak



(15); **partida erabakigarri** (9); **partida erabakita** (45); **partida erabakita utzi** (14); **partida erabakita uzteko** (16); **partida erabakitzeko** (16); **partida erabat** (18); **partida erakargarria** (11); **partida erditan** (14); **partida ere** (58); **partida erraza** (43); **partida erraza izango** (19); **partida eskasa** (16); **partida esku** (15); **partida esku huska** (14); **partida espero** (13); **partida espero duzu** (9); **partida estua** (19); **partida eta** (124); **partida etxean** (34); **partida ez** (80); **partida ez da** (12); **partida ez zen** (23); **partida ezin** (17)

**partida falta** (46); **partida falta dira** (20); **partida falta direla** (9); **partida final** (10)

**partida gaitza** (32); **partida galdu** (201); **partida galdu ditu** (19); **partida galdu du** (26); **partida galdu gabe** (10); **partida galdu ostean** (9); **partida galdu zuen** (30); **partida galdu zuten** (13); **partida galduko** (9); **partida galduta** (14); **partida galdutzat** (12); **partida galtzea** (13); **partida galtzen** (10); **partida garatenean** (13); **partida garrantzitsu** (11); **partida garrantzitsua** (67); **partida garrantzitsua da** (19); **partida garrantzitsuak** (20); **partida garrantzitsuena** (17); **partida gaur** (18); **partida gehiago** (39); **partida gehiago jokatu** (10); **partida gehien** (27); **partida gehien jokatu** (17); **partida gehienak** (20); **partida gehienetan** (15); **partida gelditzen** (17); **partida geratzen** (31); **partida geratzen dira** (10); **partida geratzen zaizki** (9); **partida gogor** (30); **partida gogorra** (106); **partida gogorra eta** (10); **partida gogorra izan** (16); **partida gogorra izango** (25); **partida gogorra jokatu** (9); **partida gustagarria** (20); **partida guziak** (23); **partida guzian** (15); **partida guziz** (9); **partida guztia** (10); **partida guztiak** (178); **partida guztiak dira** (13); **partida guztiak galdu** (10); **partida guztiak irabazi** (40); **partida guztiak jokatu** (20); **partida guztian** (35); **partida guztietan** (67); **partida guttiz** (11); **partida handia** (28); **partida handia egin** (9); **partida haren** (10); **partida hartan** (43); **partida hartatik** (9); **partida hasi** (133); **partida hasi aitzin** (9)

**partida hasi aurretik** (44); **partida hasi baino** (18); **partida hasi eta** (39); **partida hasiera** (26); **partida hasierako** (12); **partida hasieran** (44); **partida hasieratik** (29); **partida hau** (263); **partida hau ere** (23); **partida hau eta** (21); **partida hauek** (13); **partida hauegan** (12); **partida haundi** (15); **partida handia** (18); **partida haustea** (11); **partida hautsi** (11); **partida honetan** (9); **partida hori** (102); **partida horiek** (49); **partida horien** (13); **partida horietako** (11); **partida horietan** (30); **partida horrek** (17); **partida horren** (29); **partida horretako** (10); **partida horretan** (39); **partida horretarako** (22); **partida horri** (9); **partida hortan** (11); **partida hunek** (49); **partida hunek ere** (9); **partida hunekin** (13); **partida hunen** (20); **partida huntan** (11); **partida huntan ere** (12); **partida hura** (55)

**partida ia** (13); **partida ikusgarria** (29); **partida ikusi** (35); **partida ikusteko** (24); **partida ikusten** (16); **partida ikustera** (16); **partida interesgarria** (14); **partida irabaz** (9); **partida irabazi** (342); **partida irabazi behar** (23); **partida irabazi ditu** (37); **partida irabazi dituzte** (16); **partida irabazi du** (34); **partida irabazi dute** (9); **partida irabazi eta** (34); **partida irabazi ondoren** (9); **partida irabazi zuen** (39); **partida irabazi zuten** (21); **partida irabaziko** (11); **partida irabazita** (35); **partida irabaziz** (10); **partida irabaztea** (52); **partida irabazteko** (88); **partida irabazten** (38); **partida izan** (77); **partida izan zen** (38); **partida izanen** (15); **partida izango** (92); **partida izango da** (55); **partida izango du** (13)

**partida jarraian** (76); **partida jarraian galdu** (14); **partida jarraian irabazi** (17); **partida joan** (27); **partida joan behar** (12); **partida joka** (10); **partida jokatu** (625); **partida jokatu aurretik** (10); **partida jokatu behar** (27); **partida jokatu beharko** (17); **partida jokatu ditu** (165); **partida jokatu dituzte** (33); **partida jokatu dituzu** (9); **partida jokatu eta** (29); **partida jokatu ondoren** (16); **partida jokatu zen** (12); **partida jokatu ziren** (16); **partida jokatu zituen** (46); **partida jokatu zuen** (40); **partida jokatu zuten** (35); **partida jokaturiko** (360); **partida jokaturiko da** (14); **partida jokaturiko dira** (44); **partida jokaturiko dituzte** (37); **partida jokaturiko dituzte** (27); **partida jokaturiko du** (96); **partida jokaturiko dute** (114); **partida jokaturata** (10); **partida jokatzea** (24); **partida jokatzeko** (58); **partida jokatzen** (28); **partida jokatzerata** (10)

**partida kaskarra** (22); **partida kaskarra jokatu** (12); **partida kopurua** (9)

**partida larunbatean** (12); **partida lehen** (12); **partida lehiatua** (10); **partida luzatu** (12); **partida luzatu ahala** (9); **partida luze** (25); **partida luze eta** (10); **partida luzea** (15)

**partida nagusia** (53); **partida nagusian** (68); **partida noiz** (9); **partida nola** (15)

**partida ofizial** (12); **partida on** (39); **partida on bat** (27); **partida ona** (140); **partida ona egin** (55); **partida ona jokatu** (28); **partida onak** (27); **partida ondo** (10); **partida onena** (10); **partida orekatu** (13); **partida orekatua** (13); **partida oso** (109); **partida oso garrantzitsua** (17); **partida oso gogorra** (9); **partida oso parekatua** (9); **partida osoa** (46); **partida osoa jokatu** (16); **partida osoan** (145); **partida osoan zehar** (11); **partida ostean** (10)

**partida parekatua** (10); **partida partidako** (12); **partida partidako giltzak** (12); **partida polita** (36); **partida poltit** (25); **partida poltit hau** (9); **partida pollitia** (23); **partida prestatzeko** (25); **partida prestatzen** (14)

**partida segidan** (11); **partida serioa** (23); **partida serioa egin** (11); **partida soilik** (16)

**partida trinketean** (15); **partida txar** (10); **partida txarra** (32); **partida txarra egin** (15); **partida txukuna** (27); **partida txukuna egin** (9)

**partida zaila** (69); **partida zaila izango** (24); **partida zailak** (9); **partida zen** (24); **partida zeramatzan** (12); **partida zuen** (21); **partida zuzenean** (15); **partidaz partida** (42); **partidaz partida joan** (16)

**pilota partida** (328); **pilota partida bat** (32); **pilota partida esku** (14); **pilota partida eta** (29); **pilota partida trinketean** (11)

**quidditch partida** (11)

**realak partida** (9)

**sei partida** (62); **sei partida jokatu** (19); **seigarren partida** (25); **seigarren partida irabazi** (11); **sekulako partida** (14)

**taldeak partida** (24); **tauk partida** (9); **torneoko partida** (14); **txapeladunen ligako partida** (11); **txapelketako bi partida** (10); **txapelketako lehen partida** (13); **txapelketako partida** (53)

**xake partida** (21)

**zazpi partida** (60); **zazpi partida jokatu** (24); **zazpigarren partida** (14); **zegoen partida** (11); **zen partida** (194); **zen partida hau** (11); **zen partida osoan** (10); **zer partida** (9); **zinez partida** (11); **zion partida** (13); **ziren partida** (40); **zituena partida** (19); **zortzi partida** (43); **zortzi partida jokatu**

**arteoko partidak** (31); **asteko partidak** (16); **atzoko partidak** (17); **aurkako partidak** (32); **azken bi partidak** (53); **azken bost partidak** (12); **azken hiru partidak** (28); **azken lau partidak** (15); **azken partidak** (36); **azken sei partidak** (14); **baina partidak** (19); **beste bi partidak** (15); **beste partidak** (16); **bi partidak** (251); **bi partidak galdu** (22); **bi partidak irabazi** (46); **bigarren jardunaldiko partidak** (9); **bost partidak** (27); **bost partidak irabazi** (9); **da partidak** (12); **dira partidak** (28); **diren partidak** (10); **diru partidak** (11); **ditu partidak** (9); **dituen partidak** (10); **dituzte partidak** (11); **du partidak** (21); **duten partidak** (10); **eta partidak** (37); **etxeko partidak** (34); **euren partidak** (10); **final laurdenetako partidak** (15); **futbol partidak** (14); **galdutako partidak** (10); **gaurko partidak** (85); **gaurko partidak miarritzek** (10); **handiko partidak** (12); **hiru partidak** (103); **hiru partidak galdu** (18); **hiru partidak irabazi** (31); **hirugarren partidak** (9); **horrelako partidak** (9); **hurrengo partidak** (12); **iraun du partidak** (11); **itzuliko partidak** (18); **jardunaldiko partidak** (73); **jardunaldiko partidak gaur** (11); **jardunaldiko partidak jokaturiko** (10); **joaneko partidak** (29); **jokaturiko dira partidak** (11); **jokaturiko hiru partidak** (9); **jokaturiko partidak** (22); **kontrako partidak** (14); **lagunarteko partidak** (11); **lau partidak** (52); **lau partidak irabazi** (13); **laurdenetako partidak** (15); **lehen bi partidak** (31); **lehen partidak** (41); **ligako partidak** (10); **mailako partidak** (13); **mus partidak** (9); **partidak aurrera** (33); **partidak aurrera egin** (20); **partidak behar** (11); **partidak bi** (9); **partidak dira** (10); **partidak ere** (29); **partidak eta** (27); **partidak ez** (42); **partidak ez zuen** (11); **partidak galdu** (81); **partidak galdu ditu** (25); **partidak galdu egin** (18); **partidak gaur** (27); **partidak ikusi** (10); **partidak irabazi** (143); **partidak irabazi ditu** (32); **partidak irabazi dituzte** (12); **partidak irabazi egin** (22); **partidak irabazi ondoren** (11); **partidak irabazi zituen** (13); **partidak irabazi zituzten** (10); **partidak irabazita** (19); **partidak irabaztea** (26); **partidak irabazteko** (24); **partidak irabazten** (20); **partidak izan** (14); **partidak izango** (9); **partidak jokatu** (59); **partidak jokatu ahala** (10); **partidak jokaturiko** (67); **partidak jokaturiko dira** (35); **partidak jokaturiko dituzte** (23); **partidak jokatzea** (14); **partidak jokatzeko** (9); **partidak jokatzan** (23); **partidak ligan** (11); **partidak miarritzek** (11); **partidak oso** (12); **pilota partidak** (59); **sei partidak** (26); **test partidak** (10); **txapelketako partidak** (11); **z gaurko partidak** (14); **zuen partidak** (19)

**atzoko partidako** (9); **bi partidako** (27); **bi partidako zigorra** (18); **da partidako** (19); **da partidako gako** (11); **ditu partidako** (9); **eta partidako** (13); **gaurko partida partidako** (12); **gol partidako** (23); **izan zen partidako** (38); **izango da partidako** (9); **joaneko partidako** (27); **lau partidako** (9); **lehen partidako** (21); **partida partidako** (12); **partida partidako giltzak** (12); **partidako azken** (46); **partidako azken txanpan** (13); **partidako bigarren** (9); **partidako emaitza** (10); **partidako gako** (18); **partidako giltzak** (30); **partidako irabazleak** (14); **partidako jokalar** (10); **partidako lehen** (49); **partidako minutu** (13); **partidako onena** (34); **partidako zigorra** (35); **partidako zigorra jarri** (11); **z partidako** (19); **z partidako giltzak** (16); **zen partidako** (39); **zen partidako onena** (15); **ziren partidako** (11); **zuen partidako** (16); **zuen partidako lehen** (9)

**arteoko partidan** (25); **atzoko partidan** (26); **aurkako partidan** (133); **aurreneko partidan** (18); **azken partidan** (145); **beste partidan** (41); **bigarren partidan** (67); **den partidan** (9); **duen partidan** (25); **duten partidan** (14); **eta azken partidan** (11); **eta partidan** (21); **finalerdietako lehen partidan** (9); **gaurko partidan** (45); **hirugarren partidan** (24); **hurrengo partidan** (21); **igandeko partidan** (12); **itzuliko partidan** (37); **jaialdiko aurreneko partidan** (9); **jaialdiko lehen partidan** (12); **jardunaldiko partidan** (13); **joaneko partidan** (150); **jokatu zuten partidan** (10); **jokaturiko duen partidan** (15); **jokaturiko duten partidan** (10); **jokaturiko partidan** (28); **jokaturiko partidan** (42); **kontra jokaturiko partidan** (10); **kontrako partidan** (85); **kopak partidan** (9); **larunbateko partidan** (9); **lehen partidan** (202); **lehenengo partidan** (16); **multzoko beste partidan** (12); **partidan bezala** (15); **partidan buru** (10); **partidan buru belarri** (10); **partidan egin** (11); **partidan erabakiko** (9); **partidan erabat** (10); **partidan ere** (17); **partidan eta** (15); **partidan ez** (30); **partidan hartu** (16); **partidan hartu zuen** (14); **partidan izan** (16); **partidan izandako** (10); **partidan min** (10); **partidan sartu** (30); **partidan sartuta** (20); **partidan sartzea** (15); **partidan sartzeko** (16); **partidan zehar** (22); **txapelketako partidan** (11); **zen partidan** (13); **zuen partidan** (30); **zuten partidan** (13)

**azken partidara** (10); **bi partidara** (10)

**arteoko partidaren** (13); **atzoko partidaren** (19); **aurkako partidaren** (43); **azken partidaren** (15); **baina partidaren** (12); **da partidaren** (10); **eta partidaren** (36); **gaurko partidaren** (20); **igandeko partidaren** (12); **joaneko partidaren** (10); **kontrako partidaren** (26); **larunbateko partidaren** (10); **lehen partidaren** (19); **partidaren amaiera** (11); **partidaren amaieran** (23); **partidaren atarian** (34); **partidaren aurreko** (10); **partidaren aurretik** (39); **partidaren azken** (35); **partidaren azken txanpan** (15); **partidaren bat** (29); **partidaren bezperan** (22); **partidaren bigarren** (14); **partidaren bigarren zatian** (11); **partidaren erretimoa** (43); **partidaren gako** (12); **partidaren garrantzia** (10); **partidaren hasieran** (33); **partidaren hasieratik** (11); **partidaren hondarrean** (14); **partidaren inguruan** (9); **partidaren lehen** (31); **partidaren nondik** (23); **partidaren nondik norakoa** (13); **partidaren ondoren** (43); **partidaren ondotik** (12); **partidaren ostean** (42); **partidaren zain** (10)

**aurkako partidari** (9); **ekin zion partidari** (23); **ekin zioten partidari** (13); **eta partidari** (21); **eta partidari buelta** (11); **gaurko partidari** (30); **gaurko partidari begira** (10); **partidari aurre** (22); **partidari aurre egiteko** (19); **partidari begira** (39); **partidari buelta** (46); **partidari buelta eman** (14); **partidari buelta emateko** (15); **partidari buruz** (14); **partidari dagokionez** (15); **zion partidari** (43); **zioten partidari** (29)

**partidarik galdu** (68); **partidarik galdu gabe** (24); **partidarik garrantzitsuena** (12); **partidarik irabazi** (44); **partidarik irabazi gabe** (12); **partidarik jokatu** (43); **partidarik jokatu gabe** (12); **partidarik onena** (30)

## partidaño iz ipar adkor partida. ik partidatto.

Merkatu eguneko **partidaño** bat izan da hau Donibane Garazin. **Herria**

Baitezpadako merkatu eguna sakratua du hunek, lagunarteko askariarekin ahalaz, eta gostu duenak pilota **partidaño** bat aratsalde apalean, afaria jokoan, nola ez! **Herria**



# partidatxo *iz ipar adkor* partida. ik partidatto; partidaño.

Egin dute lekondarrek beren bestetako **partidatxo**, beste zenbaitek bezala ez egiteko pilota gabeko bestarik **Herria**

## partidatxo 1 *iz adkor* partida. ik partidatto; partidaño.

Batzuetan, neguan eta, igual 20 lagun egoten dira hemen irakurtzen, edota **partidatxo** bat botatzen edozertan, edota xakean, jokia ere besteengan irakurtzeko halako beste modu bat besterik ez baita! **Pako Aristi**

-Tira, mutiko, garagardo bat eskatu eta **partidatxo** bat jokatuko diagu. **Alberto Ladron Arana**

## 2 (hitz elkartuetan)

Belardian etzanda egon nahi zuten guztiek, kalabaza-zuku hotz-hotza edanez, tarteka gobstone-**partidatxoren** bat jokatzu edota txipiroi erraldoia aintzira gainean nag-i-nagi nola ibiltzen zen ikusiz. **Iñaki Mendiguren**

## 3 partida laburra.

Parisen jokatu dute gureek mexikarrekin, hiru partida laburreko lehiaketa bat, lehen bi **partidatxoak** 15 etara eta bestea 10 etara. **Herria**

Pilotariak puntu bakar bateko **partidatxoak** jokatzin zituzten banaka. **Ramuntxo Etxeberri**

Aguirrek ez du aintzat hartzen, entrenamenduetan **partidatxoetatik** at ere geratu izan da. **Berria - Kirola**

## partidismo *iz alderdikeria.*

Demokrazia modernoaren alderdi eta aldebakarkeri sistemaren genesisia trazatzeko modu polemiko franko kazetaria ematen du honek, eta de facto, uste dut, beste inon ez dela berriro agertzen Ortega-ren izkribuetan, ez Hegel-en interpretazio eta ez *Volksgeist*aren erreferentzietan, ikusmolde hau, alegia *Volksgeist*arena **partidismo** forma batena bezala unibertsaltasunaren ukazioz (gogora, bestalde, Ortega-ren perspektibismoaren doktrina). **Joxe Azurmendi**

## partidista *izond* alderdikeriari dagokiona, alderdikeriak joa. ik alderdikari.

Baina berehala desestimatu zuen pentsamendu hori, guztiz partziala eta **partidista** zelako. **Unai Elorriaga**

Senitartekoeak eskatu dute ekitaldi horretan «inolako adierazpen politiko edo **partidistarik** ez izatea». **Berria - Kultura**

Ez, ez da komeni terrorismoaren erabilera **partidista** egitea. **Berria - Mundua**

Ez alderdi barrutan dauden botere faktikoak, ez interes **partidisten** maltzurkeriak, ez gezur eta irainak eta ez ezerk ezin izango dute herritarraren ahotsa isilarazi. **Berria - Harian**

Ika-mika **partidista** baztertu behar da. **Berria - Euskal Herria**

## partido ik partidu<sup>1</sup>; partidu<sup>2</sup>.

## partidu<sup>1</sup> 1 (*orobat partido g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian partidu eta partida agertzen dira*) iz partida.

Barbarak *New York Yankees* taldearen **partidu** batera gonbidatu nau. **Harkaitz Cano**

Harmailak lepo jendez, **partiduak** halako ikusmina sortua baitzuen. **Pedro Alberdi**

-Minutu asko falta al dira **partidua** bukatzeko? -galdetu zuen M-k. **Bernardo Atxaga**

**Partidu** aspergarria gaurkoa. **Sonia Gonzalez**

Gerla izan zelarik, Nipongo inperadorearen japoniar soldadoek Shanghai bereganatu zutelarik, Jai Alaiako **partiduak** ez ziren gelditu. **Ramuntxo Etxeberri**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurrengoan tabernan juntatuko gaituk elkarren berri izateko, eta gero pilota-**partiduan** egurra emango diat. **Xabier Etxabe**

Lagunarteko pala-**partiduetan**. **Xabier Etxabe**

Telebistan futbol **partidu** bat ematen ditek gaur. **Bernardo Atxaga**

Ordu erdiko futbol **partiduak** jokatuko genituen gero, hamarretatik aurrera, ia goizero. **Joseba Sarrionandia**

*Home run* bat zer den doi-doi dakien batentzat aspergarri samarra suerta daiteke lau orduko beisbol **partidu** bat. **Harkaitz Cano**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**futbol partidu** (7); **futbol partidu batean** (3)

**partiduak** (3)

**partiduak ikustera** (3)

## partidu<sup>2</sup> (*orobat partido g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian partidu eta alderdi agertzen dira*) 1 iz iritzi eta helburu politiko jakin bat duten pertsonak biltzen dituen erakundea. ik alderdi.

Ez zuen jakin Baionako eta Kanboko hautetsiak kanporatuak izan eta, Maximilien Robespierre-k kudeatu "Les Montagnards" **partiduaren** aginduekin ados ziren beste batzuek ordezkatu zituztela. **Elena Touyarou**

Posta-kutxan propaganda baizik ez du aurkitu, eta **partiduko** idazkaritzako gutun bat. **Iban Zaldúa**

Solbes **partiduko** kidea zen, hamar kaleratuetakoa bat. **Jon Maia**

-Mutil hori, txoferra, zera -ez nekien nola galdetu, eta zuzen jo nuen-, zein **partidutakoa** da? **Edorta Jimenez**

**Partidu** bi ziren, itxura batean lehian, baina de facto biak Trujillo diktadorearen mende eta zerbitzura. **Edorta Jimenez**

Halako batean, dimisioa aurkeztu eta **partidua** utzi zuen. **Iban Zaldúa**

**Partiduko** Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi nion dena. **Jon Alonso**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nazioarteko harremanak eta **partidu** politikoaren artekoak kontu handiz hartu zituen. **Berria - Kultura**

**Partidu** kontserbadoreko kide egin naiz, eta xake-klub batekoa. **Juan Garzia**

Elizako kanpaiek bederatzia jo zituztenean, Vicente eta eskualdeko **Partidu** Sozialistako hiru kide agertu ziren plazara. **Jon Maia**

Banekien **partidu** komunistakoa zena. **Edorta Jimenez**

Alemanian politikako eskuin muturra, lehenagoko Hitler eta holako batzuen oroitzen txarrak utzi zituen, beti bizi eta noiztenka mintzo NPD **partidu** nazionalistaren bidez. **Herria**

Berori ere hasi behar al zaigu ezkerreko **partiduen** izen ona zikintzen? **Koldo Biguri**

### 3 (P larriz) Partidu Komunistak

Instituan nengoen eta nire irakasle gehienak **Partidukoak** ziren, eta nik miretsi egiten nituen nire irakasleak. **Iban Zaldúa**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskadiko partidu komunistaren** (4); **partidu komunistaren** (6); **partidu politikoe** (3); **partidu popularrak** (7); **partidu sozialistako** (3)

## partidukide *iz* alderdikidea.

**Partidukideak** berak zituan interesatuenak hi zirkulaziotik apartatzeko. **Jokin Muñoz**

Gehiegitan, egia esateko, **partidukideek** bizitza publikotik baztertu hindutenetik. **Jokin Muñoz**

## partidutto *iz* adkor partidua, alderdia.

Gainera, badute ere beren alde andere zoragarri bat, Julia Timochenko, 44 urte, bere **partiduttoarekin** zinez suharra. **Herria**

## partidutxo *iz* adkor partidatxoa.

Batek bederatzi puntu lortzen zituelarik, erran nahi baita bederatzi **partidutxoak** irabazi eta, jokoa hortan uzten zen. **Ramuntxo Etxeberri**

## partikatu ik partekatu.

## partikatze ik partekatze.

## partiketa 1 *iz* partitzea, banatzea. ik banaketa.

Xedapen horixe dator Luis Errukitsuak, 837. urtean, Aix-la-Chapelleko batzarrean, bere hiru seme Pepin, Luis eta Karlosen artean egin zuen banaketan ere ; bai eta enperadore berberak hoguei urte geroago Lotario, Pepin eta Luisen artean egin zuen beste **partiketa** batean ere. **Iñaki Iñurrieta**

Gaur egun, ardura guztiak biren artean partitzeo joera gailentzen ari denean [...] **partiketa** hori posible zela sinistuta bizi izan garenoi geratu zaizkigu agerian desberdintasun nagusiak. **Arantxa Iturbe**

Trieste lehen inperio austriarraren lurraldea zen eta orain Italiarena da Bigarren Mundu Gerraren ondorengo **partiketagatik**. **Berria - Kultura**

Domingo borroeroa soldaduekin parekatu zuten jan-edanetan **partiketan**, eta nik abaurretarrekin banatzen nuen neure puska. **Aingeru Epaltza**

Jabetu zen nagusia gero eta gehiago aberats zedin arrisku pertsonalak hartzen zituela, eta mozkinen **partiketa** eskatu zuen. **Bego Montorio**

Errentaren eta aberastasunaren gaineko benetako zerga progresiboek eragin itzela dute tartaren **partiketan**. **Iñaki Heras**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ondare **partiketek** eten zuten tradizio hori. **Eduñe Elizondo**

Bihitegiok [...] zeregin gaiztoa bete behar izan zuten Bigarren Mundu Gerraren ondoren egin ziren lur-**partiketen** kausaz: Rijeka eta Rijeka inguruak Jugoslaviaren esku gelditu zirelarik, handik bidali zituzten milaka eta milaka italiarren bizileku izan ziren Il Silos izeneko bihitegiok. **Anjel Lertxundi**

Bihar hitz egingo dugula, diru **partiketan**. **Xabier Montoia**

Goizero ogi **partiketa** egiten zen. **Jon Maia**

Kamioi-**partiketak**, garraioak eta halakoak gurditxo batez egitera behartu gintuzten, fusil ahoak garondan ipini zizkigutelarik. **Karlos Linazasoro**

## partikula 1 *iz* zerbaiten zati txiki-txikia. ik zatiki.

Bien bitartean dagoen burdinak brontzearen zenbait **partikula** hartzen duenean, berriz, orduan harri magnesiarrek bere korrantean sakatzen dio. **Xabier Amuriza**

Tximinitik ateratzen diren **partikulak** haizeak nora eramaten zituen aztertu zen. **Berria - Euskal Herria**

Arimatzen duen gorputz osoan zehar hedatzen da arima, ez ordea lekuzko zabalkunde, bizi arretagatik baizik; osorik dago gorputzaren **partikula** guztietan, atal txikiagoetan ez da txikiagoa, ez handiagoetan handiagoa. **Imanol Unzurrunzaga**

Sudurra, izatez, eguratseko **partikula** guzaien filtro purifikatzaile eta hezatzaila da. ikusten dugun munduaren azpian **partikula** nanoz osaturiko beste mundu bat dagoela ikusiko dugu. **Patziku Perurena**

Ehunezko **partikula** biribilkara bat da zelularen gorputza, garro edo dendrita asko dituena. **Irene Aldasoro**

Margotzeko planta horri esker, VWk Europako eta Espainiako kutsadura arau berriak bete ahal izango ditu, orain arte baliatu izan denak araudiek dioten baino **partikula** kutsakor gehiago isurtzen baitu atmosferara. **Berria - Ekonomia**

Denbora tarte horretan, kometak atzean uzten zituen milaka **partikula** txiki jaso zituen espazio kapsulak, gero Lurrera ekartzeko. **Berria - Gaiak**

**Partikula** txikiak eta egitura gabekoak espero zituzten zientzialariek, izarren arteko espazioan dagoen hautsa bezalakoak. **Berria - Gaiak**

**Partikulen** (PM10) kontzentrazioari dagokionez, 2003an, 22 estazioetan gauditzen zen (35 aldiz, gutxienik) giza osasuna babesteko eguneko batez besteko balioa. **Berria - Euskal Herria**

Eguzki haizeak barreiatutako **partikulak** jasotzea zen NASaren espaziontzien helburua. **Berria - Gaiak**

**Partikula** moduan sakabanatuta. **Santiago Iruretagoiena**

Zein da, adibidez, **partikulen** mekanika klasikoaren eta erlatibitatearen arteko erlazioa? **Askoren artean**

## 2 egungo fisikan, materiaren osagai den gorputz materiala.

**Partikulen** fisika, indar nuklearrak eta elektrokimika. **Fernando Morillo**

Eztanda gaitzetik segundo bi milioiren batera, unibertsuaren tenperatura mila bilioi gradura "jausi" zelarik, han hasiko ziren **partikulak** eta antipartikulak ziztu bizian sortzen eta suntsitzen. **Juan Garzia**

1983: W eta Z **partikulak** (bosoiak) aurkitu zituzten Carlo Rubbia eta Simon van der Meer zientzialariek. **Berria - Gaiak**

Quark **partikulen** askatasun asintotikoaren inguruko lan bat. **Berria - Gaiak**

Elektroi bat aldi berean uhin eta **partikula** izan daitekeela, hemen eta han egokitu daitekeela une berean. **Juan Garzia**

**Partikula** mononuklear berezietan lasterra. **Itxaro Borda**

Ustezko quark-ak elkarrengandik oso gertu daudenean, haien arteko interakzioa hain da ahula non ia **partikula** libreen gisan portatzen baitira. **Iñaki Segurola**

Ordurako atomoa mundu bilakatua zegoen bera bakarrik, eta "dagoen denak" **partikula** elementalez osatua egotera pasa behar izan zuen. **Iñaki Segurola**

**Partikula** elementalak puntu infinitesimalak lirateke onenean ere, baina prezisio jakin batekin begiratu ezker; handik gora [...], xehekiago behatu ezker, lausotu egiten dira, lurrundu: izen-izanak galtzeko arrisku latzean amiltzen dira. **Iñaki Segurola**

Kutsadura, berriz, **partikula** erradioaktiboak zure gorpuztean sartzen diren geratzen da. **Berria - Gaiak**

### 3 irud/hed

"April in Paris" eta gau sakonaren sabelean sutan ariko diren denboraren **partikula** pozoituak, erbesteko egun zoriontsuak eta bakardadearen bularrak... sirena hotsak eta bizilagunen aieneak. **Aritz Gorrotxategi**

Gogoeta tontoak izaten dira normalenak etxetik kanpo, haizeak mugitzen dituen **partikula** jobialak sudurretik sartzen ari zaizkigunean, esate baterako. **Unai Elorriaga**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hainbestekoa da mugikortasuna, hainbestekoa irudi kopurua eta hainbestekoa une sentigarri bateko **partikula** multzoa, ezen ez baitago agortzerik. **Xabier Amuriza**

50 urte bete ditu CERN **partikula** laborategiak. Gurutzatze bakoitzean 20 **partikula** talka gertatuko dira. **Berria - Gaiak**

Munduko **partikula** azeleratzailearik indartsuena, LCH deiturikoa. **Berria - Gaiak**

Supersoken teoriar oinarritutako **partikula** dezeleragailua amaituta zegoen, azkenik: Iriartek eta bere ekipo txikiak laborategiko sagu bat denboran lau minutu atzera bidaltzea lortu zuten. **Iban Zaldua**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

'Genesis' kapsulak ekarritako eguzki **partikulak** egoera onean daudela esan dute. **Berria - Gaiak**

Argi **partikulak**. **Berria - Harian**

Hotsa uhinetan mugitzen dela esaten da, hotsa gertatzean aire **partikula** bakoitzak uhinak egiten baititu hots-iturritik datozkion bultzadei erantzunez atzera eta aurrera.

**Lourdes Oñederra**

Bazirudien begi hutsez ikus zitezkeela mugarik gabeko urruntasun askera hegaldi harmoniatsuan zeramatzen aire-**partikula** ñimiño hozkirriak. **Jose Morales**

Planetaz gain, ordea, izotz **partikulak** ere detektatu ditu teleskopioak. **Berria - Gaiak**

Hauts **partikula** horiek asteroideek planeten aurka jotzen dutenean sortzen dira. **Berria - Gaiak**

Suposatzen diat hauts-**partikula** guztiek balio dutela. **Agustin Otsoa**

Beste aplikazioetako bat polimero **partikulak** uretan barreiatuta daudenean lortzen da, hots, dispersio polimerikoetan. **Berria - Gaiak**

### 6 hitz laburra, deklinatzen ez jokatzen ez dena.

Axularrek, horrelako esaldiak bururatzan zitzaizkionean, eta baita laburragoetan ere, *zeren* kokatzen zuen esaldiaren hasieran, hartara irakurlea erne jar zedin zentzuaz, eta *bait* eta horrelako **partikulak** erabiltzen zituen lagungarri. **Bernardo Atxaga**

Ez zegoen aditzaurrekoez osaturiko aditzik, baizik eta perpausari erantzen zizkieten **partikula** batzuk, hitz txiki batzuk, aditza gehiago zehazteko. **Isabel Arrigain**

Hitz elkartuak eta **partikula** zenbait (arazi, gabe, eta, edo...) idazteko modua zehaztu zen. **Koldo Zuazo**

Horretan, baldintza prosodikoez zeresan handia dute zalantzarik gabe, bigarren kasuan "ez" **partikulak** beregintasan handiagoa izan baitezake azentuaren aldetik.

**Lourdes Oñederra**

*Be'amal* hitzean ('Israelen sufrimenduan') (*be-* **partikula** 'ren' esan nahi duen *min*-en ordeaz dago), *min 'amal Israel* 'Israel-en artetik' esan balu bezala. **Xabier Kintana**

Bai egoera jakin batera daramaten osagai "deiktikoak" biltzen badituzte; bai subjektu hitzuna eta bere solaskideak izendatzen dituzten izenordainak erabiltzen badituzte lehen edo bigarren pertsonan; bai osagai pronominalak edo loturako **partikulak** erabiltzen badituzte, lehenagoko edo etorkizuneko esaldiei dagozkienak. **Xabier Arregi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aditza partikula (3); hauts partikula (5); partikula elementalak (3); partikula toxikoak (3); partikula txiki (3); partikula txikiak (3)

barreiatutako partikulak (4); eguzki partikulak (4); haizeak barreiatutako partikulak (4); hauts partikulak (4); osatzen duten partikulak (3)

## partikular 1 *izond* banako bati (edo multzo edo talde txiki bati) baino ez dagokiona; norberarena; orokorra ez dena.

Lege erromatarra lege pertsonal orokor bihurtua zen, eta lege godoa lege pertsonal **partikular**; eta ondorioz, lege erromatarra zen lurraldeko legea. **Iñaki Iñurrieta**

Lege **partikular** bat lege orokor bihurtu zuen, erromatar zuzenbidea mundu osoan zehar desegin nahi izan balu bezala. **Iñaki Iñurrieta**

Boto **partikularra** sinatzen duen Borrego epaileak uste du, aldiz, Dickson andreaken eskubideak «bakter batera utzi ditugula kasu honetan». **Berria - Gaiak**

Gertaera **partikular** bat orokor bilakatzeko, iritsiko dituen mugak gorabehera, bere denbora eskatu ohi du, eta batzuetan neur ahal daiteke denbora hori. **Isabel Arrigain**

Zeren pentsamendu unibertsalean oinarrituta baitzegoen, ez euskaldunen interes **partikular** batean. **Joseba Zulaika**

Irudia unibertsala da, baina **partikular** bihurturik dago beti. **Josu Zabaleta**

Frantzia, Espainia, Portugal eta Holandaren ereduaren arabera, horietako bakoitzean hizkuntza **partikular** bat baitzen, eta ez erlijio **partikular** bat, "herri-kideak" batzeko eta "atzeritarrengandik" bereizteko ezaugarria. **Iñaki Mendiguren**

Zatidura erantsi nion nire sorgin **partikularren** halako soslai bat eginez, datu pertsonalak eta guzti. **Aingeru Epaltza**

Makurtu eta ohe azpian bere botikin **partikularra** xerkatu zuen: ohepetik sei botila Cutty Shark atera zituen, hasi gabe zeudenak, eta zazpigarren bat, azken hau erdiraino beteta. **Harkaitz Cano**

Normala denez, kasu **partikular** bat ez da kasu orokorra bezain sarria. **Jon Muñoz**

Bereizketa hori, derrigorrezkoa kasu **partikular** horretan, hedatuz joan zen. **Iñaki Iñurrieta**

Handik dakigu, zeltiarren egutegi **partikularrean**, Haritza dugula errege eta nagusi. **Pello Zabala**

Praktika, oro har, arrazoizkoa da beraz; baina era berean da egia hutsegite **partikular** handien sorburu izaten dela. **Koro Navarro**

Oraindik ere ez dut sinesten animaliek bizitza **partikular** bat dutenik benetan. **Oskar Arana**

### 2 *izond* berezia, jakina.

Gizarte **partikular** baten ethos berezia adierazten duten irudiak. **Iñaki Mendiguren**

Industri eremuan komunitate **partikular** baten arrakastak teknika berri baten lehenengo etapetan -gurpil-baporearen asmakuntzan, adibidez- komunitate hori beste batzuek baino geldoago bihurtzen du eraginkorragoa den helize-propulzatsailean onartzeko. **Iñaki Mendiguren**

Kultura bakoitza bere historia berezi, **partikular** eta zehatzaren emaitza zen. **Askoren artean**

Bazekien betazalen azpian dauden guriuntxoaren mugimendu **partikular** batetik datozela negarrak. **Juan Garzia**

Minak, adibidez, klase natural bat osatuko ez balu, ezingo litzateke mina propietate fisiko **partikular** batekin identifikatu. **Askoren artean**

Modu **partikularrean** inongo Estatutako legeei buruz ez hitz egitea. **Esteban Antxustegi**

Artista plastikoek oso modu **partikularrean** ikusten dituzue gauzak **Bernardo Atxaga**

### 3 publikoa ez dena; era pribatuan erabiltzen dena.

Agintarietako gordeko dute jatorrizkoa, eta bilduma **partikular** bat aberastuko du. **Jon Muñoz**

Delitu horrek, irain **partikularra** adina, irain publikoa zekarren: legeari berari egindako mesprezioa. **Iñaki Iñurrieta**

On **partikularrak** on publikoaren atzetik geratu behar duela esatea paralogismoa da. **Iñaki Iñurrieta**

Bart, gaueko hamaiketan, pertsona **partikular** guztiei telefono lotura moztu zieten. **Josu Zabaleta**

Kontatua dut lehenago Sarasolatarrak kapera **partikular** bat zutela, eta hilean behin meza izaten zutela bertan, beraientzat eta familiako senide pobreetzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eskola **partikularrak** ematen hastea, etxean, zer edo zer hobe topatu bitartean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nola ahantzi, bada, osabaren lezioak, noiz eta zientziaren sekeretuak desestaltzen eta erakusten hasi baitzitezaidan, niri bakarrik, eskola **partikular** haietan! **Joan Mari Irigoien**

Unibertsitatetik bota zutenean, irakasle **partikular** bat kontratatu zuen eta egunean 6 ordu pasatzen zituen latinarekin bueltaka. **Jasone Osoro**

Konpainia horien izaera aberastasun **partikularrei** aberastasun publikoen indarra ematea da. **Iñaki Iñurrieta**

## • 4 iz ez ordezkari ofizial, ez erakunde jakin bateko kide ez den pertsona.

Espainiako zenbait **partikularrek** ehun mila markoko zorra dutela Frantzian, eta Frantziako zenbait **partikularrek** ehun eta hamar mila markoko zorra Espainian. **Iñaki Iñurrieta**

**Partikularren** ondorengotza arautzen duen legea lege zibila da, xedetzat **partikularren** interesa duena. **Iñaki Iñurrieta**

**Partikularrek** ez zuten dirurik halako bitxia erosteko, eta beste inork ez zuen nahi. Irakurle zentzudun orok hain segur igurikiko zukeela **partikular** batzuen gutun bilduma batean hutsegiterik kausitzea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Estatuak **partikular** baten lurren premia duenean, inoiz ez da jardun behar lege politikoaren gogortasunetik. **Iñaki Iñurrieta**

Zor duen estatu batek ez du kitatzen bere zorra kanbioaren bidez, **partikular** batek ere ez baitu bere zorra kitatzen dirua trukatuz. **Iñaki Iñurrieta**

Diru-kantitate handia eskuratu, eta **partikular** guztiei eskaini hura berreskuratzea, salbu eta interesa txikiagotu nahi ez badute. **Iñaki Iñurrieta**

Bisigodoen legeak ibaien ubide-erdia hartzen uzten zien **partikularrei**, baldin eta beste erdia sare eta ontzientzat libre geratzen bazen. **Iñaki Iñurrieta**

## 5 akusazio partikular ik akusazio.

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**akusazio partikular** (24); **akusazio partikular bezala** (3); **akusazio partikular gisa** (17); **boto partikular** (5); **etxe partikular** (9); **gertaera partikular** (3); **gizarte partikular** (3); **interes partikular** (6); **kasu partikular** (13); **kasu partikular bat** (3); **lege partikular** (3); **partikular gisa jardungo** (4); **pertsona partikular** (5)

**akusazio partikularra** (11); **boto partikularra** (13); **boto partikularra aurkeztu** (3); **boto partikularra egin** (3); **boto partikularra eman** (3); **irakasle partikularra** (3); **oso partikularra** (3)

**akusazio partikularrak** (20); **eskola partikularrak** (7); **interes partikularrak** (8); **kasu partikularrak** (6); **klase partikularrak** (5); **lege partikularrak** (3)

**akusazio partikularrean** (7)

**boto partikularrean** (5); **egutegi partikularrean** (3)

**interes partikularrei** (3)

**zenbait partikularrek** (3)

**akusazio partikularreko** (5)

**arrazoi partikularren** (3); **interes partikularren** (5)

**plazer partikularrik** (3)

## partikularismo iz partikularra denari, orokorra denaren kontra, ematen zaion gehiegizko balioa.

Mugimenduak globalismoa nabarmendu zuen AEBen **partikularismoaren** ordeaz; kultur eta erlijio aniztasuna, Mendebaldeko judu-kristautasunaren ordeaz; eta espiritualismoa monoteismo etikoaren ordeaz. **Berria - Gaiak**

**Partikularismo** eta erregionalismo linguistikoen kritika hemen katalanenganaino iristen da. **Joxe Azurmendi**

## partikularista izond partikularismoarena, partikularismoari dagokiona.

Euskaldun eta katalanen joera **partikularista** grinatsu eta kaldarraren kritika. **Joxe Azurmendi**

Kulturaren antropologian hiru kategoria ditugu: unibertsalista, konparatibista eta **partikularista**. **Askoren artean**

Zergatik behar nuen derrigorrez, besteetarik bortxaz eta indarrez bereizten ninduen identitate finko **partikularista** bat, hizkuntza ezpainetan neukan ber? **Itxaro Borda**

Teoria **partikularistetan** (konfigurazionismoan bezala), kultura bakoitzaren ezaugarri bereziak ikertzen dira, baita ezaugarrien irudikapenak ere. **Askoren artean**

## partikularitate iz berezitasuna.

Jende (hitx bitan) arrunt eta edonongoa bezalakoa; **partikularitate** interesgarri batzuekin, hori bai. **Pablo Sastre**

## partikularizatu, partikulariza, partikularizatzen da/du ad partikular bihurtu. ik bereizi<sup>1</sup>; ezaugarritu.

Heriotzaren atarian bizitza **partikularizatu** eginen da, norbere bizitzan humanitate osoarena laburbilduko da eta haragi zati horretan erabakiko da munduaren historia guztia.

**Joseba Sarrionandia**

## partikularlari (orobat partikularzki) 1 adlag era partikularrean. ik bereziki.

Sekulako izua diote gizakiari oro har eta idazle jendeari **partikularlari**. **Anjel Lertxundi**

Arazo hori ere instituzioaren problema bezain zaila zaie onartzea, **partikularlari** Laborantza Ganbera edo Kontseilu Nagusiarentzat. **Berria - Ekonomia**

Asko zor diogu Espainiari, Espainiako Armadari **partikularlari**. **Berria - Kultura**

la inori ez zaio axola guk idazten duguna, **partikularlari** euskaraz idazten dugunok esan dezakeguna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egungo argitaletxeetan ikusten da, ildo eta estilo bereko idazleak argitaratzen dituztela, eta **partikularlari**, emakumezkoen liburuak. **Ana Urkiza**

Zerbait utz badezakat, utziko ditut testuak eta, **partikularlari**, nire geografiak, zeren eta nire geografia hauek ez badira euskal gune zentraletik heldu ere, Euskal Herri osoari zuzenduak baitira. **Ana Urkiza**

-Eta hor badituzu kantariak maite dituzunak **partikularzki**, orain, gazte horietan? **Menane Oxandabaratx**

Hori gizakiaz bereziki esan da, bera **partikularlari** bereizten duenagatik, hots, arrazoitzeko ahalmenagatik, erran nahi baitut, adimendu hilikoa den adimenari esker, beste ezain ere animala espezierengan aurkitzen ez dena. **Xabier Kintana**

## 2 (izenondo baten ezkerrean)

Erromantzero espainola **partikularlari** aberatsa da eta kalitate bikainekoa. **Joxe Azurmendi**

Frantzia eta Espainia modernoak Estatu-Nazio zibilizatu gisa antolatuta guran hasi diren momentutik, euskaldun izatea, edo katalan ala galego izatea eta espainol izatea, edo frantsesa, **partikularlari** gaizki elkarretorri dira. **Joxe Azurmendi**

Baziren buruzagien lagun edo herrikideak zirenak, gehi zenbait indibiduo **partikularzki** errukigabe, indartsu eta gizatasunik gabeko. **Pablo Sastre**

## partikulartasun iz partikularra denaren nolakotasuna. ik partikularitate.

Goethek nola ulertzen zuen literaturaren aldi bereko unibertsal eta **partikulartasuna**, bata bestea gabeko arteak ez omen duelako "karaktererik". **Joxe Azurmendi**

Unibertsaltasuna eta **partikulartasuna** elkarri lekua kenduz aritzen dira joko hegemonikoan. **Joseba Zulaika**

Kemen iraultzailea ez dator euskal **partikulartasunak** baieztatzetik, hauen defentsa gizalege unibertsalaren ondorio delako baizik. **Joseba Zulaika**

Euskal singularitasuna ez da oinarritzen **partikulartasunaren** eta nortasun berezien predikuetan. **Joseba Zulaika**

Esan liteke uniformizazioa nagusitu dela artegintzaren jardueran eta jada ez dagoela lekuri **partikulartasunerako**. **Hasier Etxeberria**





Astehelenean **partitu** zauzku gazteak Himalaiari buruz. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gaur goizean partitu** (3); **partitu aintzin** (4); **partitu aitzin** (11); **partitu baino lehen** (6)  
**biriatutik partituz** (4); **donibane lohizunetik partituz** (5); **lakarre plazatik partituz** (19)  
**partitzeko tenorea** (7); **partitzeko tenorean** (6); **partitzeko tenoria** (3)

## partitu<sup>2</sup>, parti, partitzen 1 du *ad* zatitu, banatu, berezi.

Azterritarra, andereñoa eta Martin zuhaitz banaren atzean ezkutatu ziren kartutxoak **partitu** zituzten. **Koro Navarro**

Horrez gain, dirua eta lurak euren artean **partitu** zituzten. **Esteban Antxustegi**

Hartu gizakiak dituen 23 kromosoma pareak eta hurrenkerarik gabeko milioika zatitan **partitu**. **Pello Salaburu**

Gero, jauregia berreraiki zutenean, espazio ilun hura birmoldatu, eta bi partetan **partitu** zuten. **Joan Mari Irigoien**

–Lagunon marketing lanaren truke irabaziak **partitu** beharko zenituzke. **Jon Arretxe**

Ukondokada pare bat **partitu** behar izan zuen aurreratzeko. **Fernando Morillo**

Amets bakan batzuetan, oso noizbehinka, sentitzen duzun betetasuna, magal epel-gozi-leun batetik **partitu** nahi eza. **Iñaki Iñurrieta**

Halaxe egin nuen ontziaren luzea, bihotza bitan **partiturik**, hari eta besteari itaunduz apaiza non zen. **Edorta Jimenez**

## 2 partekatu.

Haiekin **partitu** izan ditut etxea eta ogia, beharrezkoa izan denean. **Joan Mari Irigoien**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**partetan partitu** (3)

## partitura 1 *iz* musika-lan bat jotzeko edo kantatzeko behar diren noten eta beste ikurren adierazpen grafikoa. **ikpartizio** **2; partitxela.**

Atrilean, Schumannen *Scènes d'enfants* saileko **partiturak**. **Anjel Lertxundi**

*Requiem*-aren **partitura** eskatu zuen, gainbegiratzeko. **Imanol Zurutuza**

Berak nagikeria moduko baten aitzakia jarri zidan, **partiturak** idazteko orduan. **Pako Aristi**

Amonak **partiturak** irakurtzen erakusten zidan, solfeo-ariketak egiten, eta eskuetan batutarekin jotzen ninduen konpasa gora eta behera markatzean huts egiten banuen.

**Fernando Rey**

Arriagaren **partiturak** digitalizatu ditu Kultura Sailak. **Berria - Harian**

Ordutako saioak etxean **partitura** berriak ikasten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zazpigarren konpasari buruzko xehetasun batzuk ematen dizkit andereñoak, baina **partituraren** orria pasatzen du. **Anjel Lertxundi**

Antzoki zaharrean, okasio handietarako soineko beltzez jantzita, piano baten aurrean zutik, **partituraren** azken nota jo eta gero, denak txaloka balitu bezala. **Alberto Barandiaran**

Bell jauna, lehen parte-hartzailea, prest zegoen bere **partiturarekin**, baina akonpainamendu-jolea ez zen mugitu. **Irene Aldasoro**

Tonu-aldaketa noiz iritsiko beldurrez egiten nuen piezari aurrera; artega, ez nintzen kontzentratzen **partituran**. **Anjel Lertxundi**

Birtuosismoa, **partituraren** irakurketa pertsonala egiteko ahaletz gabe, errepikapen mekaniko eta hotza baino ez da. **Alberto Barandiaran**

Donostiako Erviti musika dendara joaten hasi zen Gelatxo, **partiturak** erostera. **Pako Aristi**

Handik egun batzuetara, pakete bat jaso zuen, eta, paketearen, bere liburuak eta **partiturak**. **Irene Aldasoro**

## 2 (hitz elkartuetan)

Mahaixto bat zegoen musika-tresnaren ondoan, eta soka beltz batez loturiko **partitura** -sorta hartu zuen bertatik. **Anjel Lertxundi**

Egin kontu horretan lan egiten zuela: **partitura** orriak dotore pasatzen. **Harkaitz Cano**

· Piano-tapa emeki ferekatu zuen, onespenez, musika-**partitura** batzuk zutik jarri zituen. **Mirentxu Larrañaga**

## 3 irud/hed

Polita zen isiltasun administratiboaren erreferentzia hura: umorezko ukitu bat, bestela melodramaren ukitu larregizkoa zeukan **partituran**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ahal bezain geldi, ohe arraboskariak sala ez nintzan, Edurnek ateratzen zituen soinuen pentagrama irakurri nuen nire belarrien **partituran**. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**musika partitura** (4)

**musika partiturak** (3)

## partitxela (*orobat particella*) *iz* musika-lan batean kantari bati edo musika-tresna bati dagokion partea.

Joaquin Perez Arriagak, bestalde, kordarako koartetoentzako **partitxelak** plazaratu ditu, zortzi koadernotan. **Berria - Harian**

Kanta bakoitzaren gainean musikari batek egindako moldaketa eta hura entzuteko aukera, partitura eta **particellak**, fitxa didaktikoak, moldatzailearen ohar biografikoak eta iruzkin osagarriak biltzen ditu ikus-entzunezko materialak. **Berria - Harian**

## partitzaile *iz* banatzailea.

Bi emazte behartsu eta mutil telegrama-**partitzailea** zeuden krespoian itsatsiriko txartela irakurtzen. **Irene Aldasoro**

Korreetako eskutitz-**partitzaile** mordo batek bidalitako abisuei esker jakin zuen hori. **Pello Zabala**

Azkenean, egunkari batean irakurri nuen donuts **partitzaile** baterako lanpostua eskaintzen zutela eta hara joan nintzen. **Jon Maia**

Esne-**partitzaile** batek buruz behera jarri zuen ontzia, eta bertan ezkutatu zen. **Julen Gabiria**

Hala, pixkanaka Anaren ahizpa bere heriotzaren ikerlari ez ezik heriotzaren erruaren **partitzaile** ere bihurtzen da, liburuaren azpititulua iragarri bezala («noren da errua?»).

**Berria - Kultura**

## partitze<sup>1</sup> *iz* joatea, irteea, abiatzea.

Valmont jauna gaur goizean partitu da, andrea; iruditu zait **partitze** hori hain zenuela irrisatzen, non jakinarazi behar nizula uste izan baitut. **Jon Muñoz**

Merteuil andrearen **partitze** horrek nire malura guztien sentimena berpiztu bide du nigan. **Jon Muñoz**

Areago atsekabetu nau, nire maite polita, zure **partitzeak**, partitze horren kausak harritu nauen baino. **Jon Muñoz**



Erran behar da meragoa ützen dūala Jean Lougarot ezagūnak, lūzaz edūkirik, eta **partitze** horrek xorroxten dūtū prefosta baten eta besteen letagiñak. **Herria**  
Areago atsekabetu nau, nire maite polita, zure **partitzeak**, partitze horren kausak harritu nauen baino. **Jon Muñoz**  
Erretretarat **partitze**. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**zure partitzeak** (3)

## partitze<sup>2</sup> iz banatzea.

Eilikagaien eroate, pilatze eta **partitze** izeneko etapa antzu eta garesti hauetan (hori baita azalera handien-eta eginkizun bakarra) ez da ezer ere ekoizten; areago, funtsez, ez da deus agitzen; gauzak bestela banatzean sortzen da balio erantsia, prezio garestiagoa. **Edorta Agirre**

## partitzeaz adlag partitzeko zorian.

Txuspo eta Rafa **partitzeaz** den itsasontzi imajinarioari agur egiten hasi dira eskuaz, sentsoreak mugimendua sumatu eta piztuko den esperantzan. **Harkaitz Cano**  
**Partitzeaz** den barku imajinarioko bidaiari imajinarioei agur egiten. **Harkaitz Cano**

## partizio 1 iz banaketa.

Akordio hori onartzeak inposatutako **partizioaren** onarpena adierazten du (1921eko hitzarmena) eta britainiar burujabetzaren barruan lan egitea ezinezkoa da benetako errepublikano iraultzaileentzat. **Berria - Mundua**

Autonomia estatutuarekin urrats nabarmenak egin zituzten Euskal Herriaren **partizioan**, gatazka hogeita bost urtez luzatu dute eta euskal herritar torturatu, iheslari eta presoen kopurua inoizko altuena bilakatu da. **Berria - Euskal Herria**

Barbaroen **partizioko** lurrek ez zutela zergarik zor. **Iñaki Iñurrieta**

Konparazio batera, idi tristeak berentzat eta zezen suharrak besteentzat; gezurra badirudi ere, halaxe egiten dute batzuek **partizioa** komunitate euskalgauzatuan, eta beren buruen kaltean, kanpotik ikusita behintzat. **Iñaki Segurola**

Hor badirudi *hil* eta *akabaturen* arteko **partizioa** lausotu edo lurrundu egiten dela, eta hargatik diogu badaezpada bota egiten dituela ehiztariak bere zerak. **Iñaki Segurola**

## 2 (orobat partizione) partitura.

Liofilizatutako hamburgerra, *Beach Boysen Surfin' USA* abestiaren **partizioa**. **Itxaro Borda**

Puskila nahasiene gainean kuxkur zeuden, lur hotzean pausatutako musika **partizioak** alegia irakurriz, flauta edo gitarra jotzen. **Itxaro Borda**

**Partizioneak** eta prestakuntzako kazetak eskuratzen ahal dituzue Beloken. **Herria**

## partizione ik partizio 2.

## partizionista izond partizioaren aldekoa.

Euskal Herriaren askatasuna defendatzen dugunok jarduera **partizionistak** albo batera uzteko eta herri gisa jokatzeko> eskatu zuen Galarragak. **Berria - Euskal Herria**

## partizipant iz parte-hartzailea.

Bere faboreen merezient eta **partizipant** egingo hauan esperantzan? **Iñaki Iñurrieta**

## partizipatibo izond parte-hartzailea, partaidetzazkoa.

Erakunde sozial hauek botere popularra, garapen eramangarria eta demokrazia **partizipatiboa** defendatzen duten talde progresista gisa aurkezten dute beren burua. **Iñaki Heras**

## partizipazio 1 iz enpresa edo negozio batean norbaitek duen parte-hartzearen zenbatekoa. ik partaidetza 4.

Iberdrolaren arabera, BBGko zentral gasifikatzailearen balioa 400 milioi eurokoa da eta **partizipazioaren** %25 dute. **Berria - Ekonomia**

Akziodun guztiek jabetza aldatetak onartu behar badituzte ere, Repsolekin **partizipazioa** handitzeko akordio bat adostu du jada Iberdrolak. **Berria - Ekonomia**

Joan zen urtean EHN Nafarroako energia konpainiako **partizipazioaren** salmentarekin, gainbalio garrantzitsuak eskuratu zituzten Gipuzkoa Donostia Kutxak Repsol YPF enpresan duen %1,67ko **partizipazioa** saldu egingo du, eta dirudienez Caixa izango da **partizipazio** horren eroslea. **Berria - Ekonomia**

Iberdrola BBGko **partizipazioa** saltzeko prest. **Berria - Ekonomia**

## 2 pl

Europar diren hedapen posibilitateak aztertzea, baita ere gaur egun gure lantegiak dituen **partizipazioak** (5) segitzea eta indartzea, posibilitate berriak lortzea arlo berdinean. **Herria**

Akzioen salmentak, **partizipazioak**, bat-egiteak eta Erosketa Eskaintza Publikoak jorratuko dituzte, besteak beste. **Berria - Ekonomia**

## partizipio iz aditzaren forma ez jokatua, adjektiboaren ezaugarriak dituena.

Osaeraz ere celebre xamarra da hitza, oso gutxi baitira **partizipio** bati *-tsu* atzizkia erantsita sortzen diren hitzak: *izantsu* eta *edukitsu* -"asko duena, daukana"- gogoratzen zaizkit kolpera. **Iñaki Segurola**

Zaharrak dira erdiguneko hizkeretan *izandu*, *egondu*, *ibildu*, *bizitu*, *jakindu*, *ateratu* tankerako **partizipioak**. **Koldo Zuazo**

Frantses modernoeko gramatika tradizionalak, esaterako, esaten du oraindik **partizipioa**, kasu batzuetan, aldakorra dela [...] eta besteetan aldaezina dela. **Isabel Arrigain**

Aditzaren lehenaldiko **partizipioa**. **Isabel Arrigain**

Biotatik, batek ere ez du gramatika-eragozpenik sortzen, bai *-qôl* 'ahotsa' eta bai *-El-hîm* 'Jainkoa' hebreeraz izen maskulinoak izanik, **partizipio** horrekin elkar daitezkeelako. **Xabier Kintana**

partner ik partener.

## partsimonia

### 1 *partsimoniaz adlag* patxadaz.

Aberastasuna lanaren bidez irabazi eta **partsimoniaz** gorde behar dela. **Esteban Antxustegi**

Batak irabazitakoa **partsimoniaz** gordetzen duelako eta esku-beteka xahutzen duelako beste batek. **Esteban Antxustegi**

Komunean, espero bezala, kanilak eta zisternak **partsimoniaz** bideratzen zuten ura. **Bernardo Atxaga**

## partxe 1 iz adabakia.

Bi alkandora, hiru galtza pare, eta jaka beltz bat, eskoziar oihalezko **partxea** zuena. **Harkaitz Cano**

**Partxez** beteriko praka bakeroek eta kolore gabeko Doc Martens batzuek osatu zuten uniformeak. **Iban Zaldúa**

Bankuko gizonak **partxe** bat zeukan begi batean. **Lopez de Arana**

Coslettek **partxe** beltza eramaten zuen meatzari lan istripu batean galdu zuen begiaren gainean. **Berria - Mundua**

Ez ditut oroitzen anaiak aipatzen dituen itsasoa, itsasontzia, ron upelak, kapitainaren begiko **partxea**. **Harkaitz Cano**

Antisorgailuak lagata, ia-ia menopausiaren kontrako **partxeak** bilatzen hasteko bidean zegoen emakumea nintzen. **Jasone Osoro**

Nire esku balego, ez nioke jendeari pagatuko tabakoa erretzeari uzteko **partxeak** ipintzeagatik. **Berria - Euskal Herria**

**Partxe** txiki bat da, 4,5 x 4,5 cm-koa eta 1 mm-ko loditasunekoa, larruazalaren kolorekoa. **Luis Elberdin**

Hamaika **partxe** gorriz jositako bizikleta-pneumatiko baten ondora. **Berria - Kultura**

Zamarra irekia zeukan, eta bularrean hiru **partxe**, hiru elektrodo jarriak zizkioten, kable luzeekin. **Pako Aristi**

Odolbildu horrek odoljarioari eusten dio, eta behin-behineko **partxe** gisa hantxe geratzen, harik eta azpiko ehunak osatu arte. **Irene Aldasoro**

### 2 (hitz elkartuetan)

Zurezko hanka eta begi-**partxerik** gabe ere, pirata peto-petoea zen hura gure begietan. **Joxerra Garzia**

Bi aukera daude: nikotina **partxeak**, eta pilulak. **Berria - Euskal Herria**

### 3 irud/hed

Horrenbestez, kritikoek arau berriak behar direla azpimarratzen dute, ez **partxeak**: Strange-ren hitzetan "nazioarteko benetako demokrazia asmatzea". **Iñaki Heras**

Horretarako bideak eta tresnak jarri beharko dira, alegia, **partxeak**. **Iñaki Heras**

## partxis 1 iz lau abiapuntu dituen taula baten gainean, dadoekin eta fitxekin jokatzeko den jokoa.

Ez daukagu ez kartarik ez **partxisik** ez dominorik. **Karlos Linazasoro**

Xake pieza batzuk barreiatu, **partxiseko** taula bat, ispilu borobil bat, ahosoinu bat. **Fernando Rey**

Kartetan jokatzeko, **partxisean** eta xakean. **Xabier Montoia**

### 2 irud/hed

-Putzu beltz sakona izan duk gerra gure historiaren **partxisean**. **Juan Luis Zabala**

## partxortasun ik partzuertasun.

## partxuer ik partzuer.

## partxuergo ik partzuergo.

## partz ik bartz.

## partzela 1 iz (lur) saila.

Gaurko kanpina orain artekoak ez bezalakoa da, mendian sigi-saga hedatzen den pistaren inguruan osatua dago, eta **partzela** ttikitat zatikatuta. **Patxi Zubizarreta**

Eta inoren buruan ez da sartzen hilobien barruan -pentsio baten atzealdean, **partzela** batean- pertsonak egotea **Unai Elorriaga**

### 2 irud/hed

Den guztia den guztia bilakatu denean, aulki gainean gelditu den zure abrigoa, hutsik lagatako maindire **partzela**, beti heze mantendu nahiko nukeen toalla horia, hori besterik ez direnean, akabo dena. **Eider Rodriguez**

## partzelatu, partzela(tu), partzelatzen 1 du ad sailetan zatitu.

Aldaketa handia izango dela aurreratu dute, udalek kontratatutako kanpoko enpresa batek lur sailak antolatuta, berriro **partzelatu** eta jabe pribatuei esango dielako zeintzuk diren beren lurak eta zenbateko errentagarritasuna duten. **Berria - Euskal Herria**

### 2 irud/hed

Kazetaritzaren ikaskuntza zaharra da audientzia deitzen dugun multzo itxuragabe hori "**partzelatu**" behar dela, zatikatu, alegia, atal bakoitzari erlitatearen ikuspegi ezberdinak eskaini ahal izateko. **Aingeru Epaltza**

### 3 taldeka bildu.

Baldin egia bada, anitz jakintsuk idurikatzen duen bezala, ezen deabruak infernua abariziosak abariziosekin bereizi eta **partzelatzen** dituela, ohoinak ohoinekin, arnegariak arnegariekin, eta, finean, kideak kideekin eta suertekoekin. **Joan Mari Irigoien**

Prestit eta gerturik egon baininteeen ni, iritzi haren arabera, deabruari berari ere neure arimaren saltzeko, baldin, ordainean, Mignonekin bereizten eta **partzelatzen** baninduen infernuko gela berean betierekotz! **Joan Mari Irigoien**

## partzial 1 izonzi zati dagokion: ez osoa.

Lukrezioren naturaren teoria ez da [...] jakintza **partzial** bat, zer politikoaren eta antropologikoaren aurrez, esaterako, jakintza oso bat baizik, non kosmogonia, zoologia, antropologia, meteorologia, astronomia arlo **partzial** gisan sartzen diren. **Xabier Amuriza**

Diskurtsoaren ordenan, zer da identitatea, **partziala** edo osoa? **Xabier Arregi**

Batasuna artikulazio hegemoniko beti **partzial** baten ondorio izan beharrean, osoa eta betikoa dela onartzen da horrela. **Joseba Zulaika**

Tenplu sakratuaren atalek ere, halaxe, osotasunaren dimentsio totalari egokitu eta egon behar dute erabat beren neurri **partzialetan**. **Santiago Iruetagoiena**

Neurri **partziala** da, ez duelako arazoa osotasunean hartzen eta herritar asko kanpoan uzten dituelako. **Berria - Euskal Herria**

Estatutu Proposamenari egindako osoko zuzenketa eta zuzenketa **partzial** guztiak. **Berria - Euskal Herria**

Hilaren 20tik abenduaren 1era Estatutu politiko berriari aurkeztutako zuzenketa **partzialak** eztabaidatu eta bozkatuko dira. **Berria - Euskal Herria**

EA ez da eskuzabala izan, eta araudiaren irakurketa alderdikoa eta **partziala** egin du. **Berria - Harian**

Hasieran irrika hauek "**partzialak**" dira, iturburu bakanduei dagozkie (irrika orala, anala, falikoa, eta abar). **Josu Zabaleta**

Ikuspegi horiek guztiak, ordea, **partzialak** eta murriztaileak dira, eta ez diote berea ematen sindromearen konplexutasunari. **Xabier Olarra**

Irudi batek eragin lezake gauza baten ilusioa, **partziala** bada ere, haren kopia zehatza izan gabe. **Josu Zabaleta**

Horretaz gainera, badira sinbolismo **partzialak**, koloreenak, adibidez, horretan eragina dutenak. **Josu Zabaleta**

Besteak ihesaldiak ahultasuna erakusten zuela argudiatu zuen, irtenbide indibiduala zela, edo **partziala** gehienez. **Koldo Izagirre**

Era berean, garbiketa arloan emakume piloala lanaldi **partzialean** ari dira. **Berria - Euskal Herria**

Emakumeen enpleguak lanaldi **partzialekoak** eta gaizki ordaindutakoak dira. **Berria - Euskal Herria**

Herrialde horietan, azpigarapena [...] denbora **partzialeko** lanaren garrantzian eta jarduera-tasa apaletan islatzen da. **Koro Navarro**

Kokxa lantegiko beharginak lanuzte **partzialak** egiten hasiko dira heldu den astelehenean. **Berria - Ekonomia**

Nik nahi nuen tokitik berrehun bat metrora utzi behar izan nuen autoa, hurrengo Plan **Partzialak** noiz irentsiko. **Aingeru Epaltza**

## 2 alderdikoa.

Berehala desestimatu zuen pentsamendu hori, guztiz **partziala** eta partidista zelako. **Unai Elorriaga**

Komeni da ama batek baino, izatez baitira amak **partzialak**, jende gehiagok entzutea ezkutuan solasaldia. **Juan Garzia**

Adierazi zuenez, ez du autodeterminazio eskubidea bermatzen, eta lurraldetasuna ikuspuntu **«partzial»** batetik jorratzen du. **Berria - Euskal Herria**

## • 3 (izen gisa, kiroletako emaitzetan)

0-5eko **partziala** egin zuten jokalaririk iruindarrek, eta 21-16 hurbildu ziren markagailuan. **Berria - Kirola**

Hirugarrenean lortu zuen Arratek partida haustea, 5-0eko **partziala** lortuta (20-15). **Berria - Kirola**

Sarritan pasa zaion moduan, azken laurdenean, 27-9ko **partziala** jasota, denboraldiko seigarren partida galdu zuen Bilbao Basketek (77-57). **Berria - Kirola**

4-16ko **partzialarekin** leitzarrak artekariak isildu zituen (10-19). **Berria - Kirola**

2-9 **partzial** bati esker zortzi puntura gerturatu zen Tau (49-41). **Berria - Kirola**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ikuspegi **partzial** (3); **zuzenketa partzial** (15); **zuzenketa partzial aurkeztu** (11)

ilusio **partziala** (3); **kausa partziala** (4); **lanaldi partziala** (3)

**aurkeztutako zuzenketa partzialak** (5); **eginiko zuzenketa partzialak** (3); **eguneko lanuzte partzialak** (4); **lanuzte partzialak** (8); **lanuzte partzialak egin** (3); **zuzenketa partzialak** (33); **zuzenketa partzialak aurkeztu** (4); **zuzenketa partzialak ere** (3); **zuzenketa partzialak eztabaidatu** (3); **zuzenketa partzialak eztabaidatzen** (3)

**lanaldi partzialeko** (6)

**zuzenketa partzialen** (11); **zuzenketa partzialen eztabaida** (4)

## partzialitate iz alderdikotasuna. ik partzialtasun 2.

Beharrezko bidetik eman ohi da, diferentziaz, kantitatez eta **partzialitatez** jantzitako jainkotasunetik; baina hori guztia, antzekotasuna ere hala den bezala, arrotz eta kanpoko zaizkio Jainkoari. **Joan Mari Lekuona**

## partzialki adlag neurri batean, zati batean.

Usaimena galdua zuten berrogeita hamasei gaixori A bitamina dosi handitan eman zitzaizkion, berrogeita hamar sendatu ziren, erabat edo **partzialki**. Soldadu israeldarrak osoki erretiratuak ziren atzo iluntzean Tal Al-Sultan azunetik eta **partzialki**, aldiz, Al-Brazil, Janina eta As-Salemen auzotegietatik. **Irene Aldasoro**

Erre gabeko edo **partzialki** erretako erregai pixka bat botatzen dute motor gehienek ihes-hoditik. **Irene Aldasoro**

Liburu honetan **partzialki** jasotzen diren beste elkarrizketak *Grial* (1995), *Elkarri* (1999) eta *La Femelle du Requin* (2005) aldizkarietan argitaratu ziren. **Bernardo Atxaga**

Eguzki eklipsea izango da bihar; **partzialki** ikusiko da Euskal Herrian. **Berria - Gaiak**

Zorraren interesak **partzialki** birfinantzatu ziren. **Koro Navarro**

Giza eskubideak ezin dira **partzialki** errespetatu. **Berria - Euskal Herria**

Jukos auziak argi utzi du 90eko pribatizazioen kapitulua oraindik itxi gabe dagoela, eta Putinek aukera baliatu dezakeela petrolio sektorea, **partzialki** bada ere, berriz kontrolatzeko. **Berria - Ekonomia**

## partzialtasun 1 iz partziala denaren nolakotasuna.

"Beste" nagusiaren ordena transzendentetik ez dagoelako, bere kontingentzia eta **partzialtasunean** beharrezkoak ditugu hegemoniaren harremanak. **Joseba Zulaika**

## 2 alderdikotasuna. ik partzialitate.

**Partzialtasunez** jokatu izana leporatu zion Errusiak ESKEri. **Berria - Mundua**

Goizelariak, Batasunaren izenean, Grande-Marlaska errefusatu egin zuen auzi saioaren aurretik, **«partzialtasun nabarmenagatik»**, eta kereila aurkeztu zion Auzitegi Gorenean, prebrikazioagatik. **Berria - Euskal Herria**

Drogen inguruan informazio handia darabilgun arren, informazio askoren **partzialtasunak** kalte handia egiten digu. **Berria - Harian**

Baina judu israeldarren Israel Project taldeari ez zaio aski iruditu zuzendariaren **partzialtasuna**, eta Los Angelesko prentsaren arabera, AEBetako gizarteko judu boteretsuen laguntza lortu du taldeak akademiakoiei presio egiteko **Berria - Kultura**

## partzuer (266 agerraldi, 7 liburu eta 232 artikulutan; orobat partxuer g.er.) 1 iz partaidea; kidea.

Estatuaren aldean, beste **partzuer** batzu sartuak dira, Lionel Jospin sozialistaren gobernuak bere baimena emanik duela zazpi urte. **Herria**

Goresmenak beraz Basabururik partzialik diren 5 **partzuer** eta seigarrenari ere, ez baita txarrena, hauien laguntzailea. **Herria**

Orreagako ordenako **partzuer** nagusi gisa ene adiskide den Vendômeko jaunaren aholkulari Aintziondo Lizentziadun jakintsuak idatzi zidalarik [...]. **Piarres Xarriton**

Alde batetik, Europa zabalduko da eta handituko, hamabost **partzuer** partez izanen dira hogoita-bost, ez baita batere gauza bera! **Herria**

Tipi eta handi, jendea milaka **partzuer** lasterraldi hortan. **Herria**

Bestalde Aguirre-k bazuen **partzu** bat, Iriso, Idocin herriitik hurbilekoa. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Ortizirale aratsean, geltoki xaharrean, Pariseko orkestra nagusia, 120 musikari **partzu**, Michel Plasson zuzendari. **Herria**  
Ilgandean ez balitz, beste egun batez berdin zepoan hartuko naute hiruren artean, Jakes, aita eta ama hirurak **partzu** nolazpait. **Janbattitt Dirassar**  
Euskal-Herri barne hortako auzapez andana bat da gisa hortan elgarretaratu, biarnes batzu ere **partzu**. **Herria**

## 2 (izenondo gisa)

Orotarat, 35 elkarte **partzu**. **Herria**  
Talde hortan 22 dantzari **partzu**, denak jeinu handikoak.Urtarrila honen 3az geroztik, leku honetara ekarria da 17 nekazari **partzu** ekoizten duten esneketa. **Herria**  
Mozkin hau kalitate gorenekoa izan dadin oinarri eta helburutzat dauzkate Azkorriako laborari **partzu**. **Berria - Ekonomia**

## 3 (izan aditzarekin)

Joseph Olhats diruzainak aurkeztu ditu kondu orekatuak eta orroitarazi normahi izan ditaikela bazkide edo **partzu**. **Herria**  
Elkartea **partzu** da ere "Bai Euskarari" sailean, euskararen erabilpena zabalduz joan dadin. **Herria**  
**Partzu** gara, eta ez dizut inola ere zuri dagokizun zatia ostuko. **Oskar Arana**  
Joanden ekainean, Europa batuan **partzu** diren gobernu guzien artean akomeamendu bat finkatu izan zen, arras nekez egia erran, Europa batu hori lege-nagusi batez jauntzeko **Herria**

## 4 (adizlagun gisa)

Ezkerraldean,sozialistak prest komunixtekin eta "berdeekin" **partzu** jartzeko. **Herria**  
Horra nun beste liburu bat dena mamia argitaratu duen, hau dena frantsesez, Louis Crouzaterakale jakintsunarekin **partzu** idatzia. etxe horietan gobernuarekin **partzu** sartzen ahal litazkeela enpresa batzu, gobernuak gisa guziz gehiengoa atxikiz... **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**artixta partzu** (7); **batzuekin partzu** (3); **batzuetan partzu** (3); **elkarte partzu** (4); **frango partzu** (3); **gobernuan partzu** (3); **herri partzu** (6); **herriak partzu** (4); **hortan partzu** (11); **hortan partzu diren** (3); **koroa ere partzu** (3); **partzu dela** (3); **partzu diren** (6); **partzu izan** (4); **partzu izanen** (3); **partzu jarri** (3); **partzu jarriak** (4); **partzu jarririk** (3); **partzu zirela** (3); **sozialixtekin partzu** (3); **talde partzu** (3); **zombait partzu** (3)

# partzuergo *(orobat partzuergo g.er.)* 1 iz interes berak dituzten enpresen edo erakundeen elkarte, egitasmo edo jardura batean elkarrekin parte hartzeko.

Ondoren **partzuergo** eta industria erraldoien eskuetan geratu zen ikerkuntza. **Fernando Morillo**  
EADS aeroespazioko **partzuergoak** du Airbusen akzioen %80, eta BAE Systemsek %20. **Berria - Ekonomia**  
Abiadura handiko 75 tren egiteko bi adjudikazio eta haien mantentze lanen kontratua lortu du Beasaingo CAFek eta Alstom konpainia frantziarrak osatutako **partzuergoak** Espainiako Renferekin. **Berria - Ekonomia**  
Proiektua Pacific LGN **partzuergoaren** esku dago Repsol-YPF, Bristish Gas eta Panamerican Gas konpainiek osatzen dute **partzuergoak**. **Berria - Mundua**  
CAF-Siemens **partzuergoak** irabazitakoa guztira 260 milioi euroko kontratua da trenak egin eta sei urtez haien mantentze lanak ere egiteko. **Berria - Ekonomia**  
Beste %80 EADS European Aeronautic Defence and Space Company **partzuergo** europarrak du. **Berria - Harian**  
Victor Moreno, suhiltzaileen **partzuergoko** bozeramaleak gorpuaeren egoera ez dela ona azpimarratu zuen. **Berria - Ekonomia**  
Iztuetak **Haurreskolak Partzuergoko** zentroetan izena emateko epe berri bat iragarri zuen atzo: maitzaren 17tik 28ra. **Berria - Euskal Herria**  
Euskal Euro Hiria deitu egitura horretan hegoaldeetik barne dira: Gipuzkoako diputazioa eta Bidasoa/Txingudi **Partzuergoak** (Hendaia/Hondarribi/Irun); eta Baiona/Angelu/Miarritze hiri elkargoa. **Herria**  
Udalek, diputazioek, Eusko Jaurlaritzak, mankomunitateek nahiz **partzuergoek** izaten dute zerikusia. **Berria - Euskal Herria**  
Giza Genomaren **Partzuergo** Publikoak giza genomaren zirriborro berritua aurkeztu zuen. **Berria - Gaiak**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ordurako seme-alabok geure gain bizi ginen, bakoitza bere gisara, eta aitari erretiro ederra geratu zitzaion Ur **Partzuergotik**, BBK-ko pentsio plana kontatu gabe. **Pati Iturritegi**  
Joan den urtarirlean Bilboko Ur **Partzuergoak** azpikontratutako enpresetako 280 langilek greba mugagabea abiatu zuten. **Berria - Ekonomia**  
Errusiako Gazprom gas **partzuergoari** abal bat emateko prest egon zen bere gobernu, agintea utzi baino aste batzuk lehenago. **Berria - Mundua**  
Bizkaiko Garraio **Partzuergoak** egin dituen kalkuluen arabera, asko gutxituko da metrora sartzeko denbora. **Berria - Euskal Herria**  
Aseguruen Konpentsazio **Partzuergoak** 7,5 milioi euro emango ditu Nafarroan eta Errioxan. **Berria - Euskal Herria**  
ITP delakoak Gamesa eta SENERekin batera industriagintza militarren esparruan euskal enpresa **partzuergorik** garrantzitsuena osatzen du etekin ikaragarriak lortzen ditu munduan zehar sufrimendua, heriotza eta sarraskia sortzeagatik. **Berria - Euskal Herria**  
Neurri honek giza eskubideak larri urratzen dituela salatu dute Amnesty International (AI), Mugarik Gabeko Medikuek eta Italiako Elkartasun **Partzuergoak** (CIS). **Berria - Mundua**

## 3 partaidetza.

Bakoitzak banaka lurra edukitzea, ez **partzuergoan**. **Xabier Olarra**  
Anaia Josuren eskuzabaltasunak **partzuergoan** utzitako etxeko komunaz jabetu eta bainuontzia ur hotzez bete ondoan, [...]. **Aingeru Epaltza**  
Espainian teilapea, lan-kontratua, ordenamendu nazionalaren onarpena, "integrazioa", galdatzen dio, h[au] d[á], nolabait **partzuergo** etnikoa, tribukoa izatea. **Joxe Azurmendi**  
Arrakasta bekatu bat da, atentatu bat da... jendeen elkarrekikotasunarentzat, erkidetasunarentzat, **partzuergoarentzat**, komunitatearentzat. **Iñaki Segurola**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**genomaren partzuergo publikoak** (3); **giza genomaren partzuergo** (4); **partzuergo gisa** (3); **partzuergo itun** (3); **partzuergo mota** (3)  
**alerion partzuergoak sortzeko** (3); **partzuergoak osatzen** (3); **partzuergoak sortzeko** (4)  
**bilboko ur partzuergoak** (4); **bizkaia ur partzuergoak** (6); **osatutako partzuergoak** (3); **ur partzuergoak** (17)  
**ur partzuergoan** (3)  
**ur partzuergoaren** (3)  
**ur partzuergoari** (3)  
**bilboko ur partzuergoko** (10); **bizkaia ur partzuergoko** (5); **garraio partzuergoko** (3); **haurreskolak partzuergoko** (4); **partzuergoko arduradunek** (3); **partzuergoko azpikontratetako langileek** (5); **partzuergoko langile** (5); **partzuergoko lehendakari** (3); **suhiltzaileen partzuergoko** (8); **ur partzuergoko** (27); **ur partzuergoko azpikontratetako** (7)

# partzuerka *adlag* partaidetzan.

Saldumbehere, Errekarborde eta aitai zenak zaldiak **partzuerka** zituzten. **Herria**

# partzuertasun *(corpusean partxortasun soilik)* iz partzuergoa.

## partzuner iz partaidea.

Badakizu erakunde, elkarte, elkargo, eliz, kofradia, baltsa, baldarna eta antzekoen parteliant, **partzuner** eta urdezkaririk oro, egon nahi-beharreko denak aizu. **Jose Angel Irigaray**

pasa<sup>1</sup> ik **pasatu**.

## pasa<sup>2</sup>

### 1 adlag (kopuruekin) baino gehiago. ik **pasatxo**; **pasaxe**.

Azkenean beraz, libratu dutuzte Christian Chesnot eta Georges Malbrunot bi frantses berriketariak, lau hilabete **pasa** bahituak atxikirik Irakian. **Herria**

Lau ehun urte **pasa** irau du, 1820-a arte. **Herria**

Frantziako iraultzaz geroztik, bi mende **pasa**, lehen aldia da apez-formakuntza-lekurik gabe girela Baionako eliz-barrutian. **Herria**

Gregorio Marañonetik Carabanchel ospitalera eraman ninduten eta hilabete **pasa** egin nuen ohetik jaikitzeko gauza ez nintzela Ohartu ginen bazela metra bat **pasa** goratasuneko murru bat, errondan altxatua. **Jokin Urain**

Zazpi milioi euro **pasa** banatu ditu departamenduko batzorde iraunkorrak urri hastapeneko bilkuran. **Herria**

Hasten da orduan 1914-eko gerla, lau urte **pasa** iraunen duena, sekulako desmasiak eginez erresuma guzietan. **Herria**

Aurten jaz baino diru gehiago bildua izan da, 98 miliun euro **pasa**. **Herria**

Oren bat eta hamar **pasa** partidak. **Herria**

Peñak ere badira, hirurogei bat **pasa**, eta haien artean erdia baino gehiagok izena euskalduna dute. **Herria**

### 2 iz (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa) ik **pasada**.

Baina ulertzen nekezena zorientsuaren heriotza da, bizi-**pasaren** azkena. **Iñaki Segurola**

Nahiz eta edozein gizatalderi nonbaiteik etorri behar zaizkion aurrekariak, pentsatzekoa da Donostiak ere, gizarte orok bezala, izan dituela historian zehar festari, atsegin-**pasari** eta atsedenaldiri eskainitako tarreak. bere senarra idazkariorde zen garaia gogoratzen zuen, familia osoa uda **pasa** Donibane Lohitzunera joaten zenekoa.

**Askoren artean**

### 3 jo eta pasa ik **jo 43**.

### 4 orri-pasa ik **orri 12**.

### 5 **pasa egin**

Hamaika mila plaza **pasa eginak** gaude gaudeneko, denboraren probaleku berrizahartuan, galtzaileen arteko dema alferrikakoan. **Joxerra Garzia**

Bigarren ere **pasa egin** zuen, ezker paretara aterata hori, eta Irujori besoak altxarazi zikion; ligaxkako lehenengo puntua Iberora joan da. **Berria - Kirola**

Sacyr, Gamesa, Indra eta Sogecablek %2na **pasa egin** zuten gora, baina Santander (%0,91) eta Edurnezuri (%0,75) erraldoiak izan ziren noski igoeren eragile nagusiak. **Berria - Ekonomia**

Urria, usook beren **pasa egiteko** aukeratzen duten hilea, batzuen ustez urritasunarekin lotua. **Pello Salaburu**

Gainera, denbora guzti horretan, bere bide bera egiten ari den jendearekin topatuko da, atzetik etorri eta **pasa egiten** duten bikote gazteekin edo bidearen ertzean atsedena hartzen ari den familiaren batekin **Bernardo Atxaga**

### 6 **pasa eta pasa egin**

Eskuak **pasa eta pasa egin** ditu aurpegitik, krema ondo zabaltze aldera. **Jokin Muñoz**

Jon supazter ondoko horma zatia ukitzen hasi da, harrietatik eskua **pasa eta pasa eginez**. **Jokin Muñoz**

Orain, berriz, gero eta gehiagotan jartzen da telebistaren aurrean, kate batetik bestera **pasa eta pasa egiten**, zaping zoroan. **Jokin Muñoz**

### 7 **pasa-pasa eginda** erabat pasatuta.

Natxo atzera makurtu eta laguna iratzartzen saiatu da, nahiz eta, egia esan, **pasa-pasa eginda** ikusi, amnistiaren aldeko pankarta baino kolgatuago. **Patxi Iturrategi**

-Yolo Hendrixtownera etortzen hasi zenean, **pasa-pasa eginda** ibiltzen zen, izugarri! **Pako Aristi**

### 8 **pasako adlag**

Gainontzeko ia guztia %1na **pasako** galerak izan ziren (SCH, BBVA eta Edurnezuri), Mviles iptoxaren kasuan %2 **pasakoak** izan zirelarik. **Berria - Ekonomia**

Markatik **pasakoa** da kiratsa. **Anjel Lertxundi**

Larritik **pasakoa**, informazio mozkorraldi honetan, besteek emango ez dutena emateko lasterketa ero horretan, ez direlako kazetaritzaren oinarritzko arauak errespetatu, morboa gailendu zaigulako, oka egiterainoko informazioa eman delako. **Iñigo Aranbarri**

### 9 **pasatsu** ik **pasatsu**.

### 10 **pasatxo** ik **pasatxo**.

## pasabide 1 iz igarobidea. ik **pasagune**; **pasaleku**.

Mugimendua ikusten dut **pasabide** eta kurutzebide guzietan, funtzionario eta preso-langileak, *auxi*-ak, harathunatka, xinaurri langileak iduri. **Filipe Bidart**

Kaleko plakan "Cardinet **pasabidea**" jartzen zuen, eta ez "Cardinet kale itsua". **Joseba Urteaga**

Zaingelen aurrean, **pasabidearen** alde bietan, horma bat zegoen, metro erdikoa; zaingelak hiru metrokoak ziren luze-zabalean. ehen, komentuetako egongela edo

**pasabide** guztietan aholku batzuk letra larriz idazten ziren horma paretetan. **Elizen arteko biblia**

**Pasabidea** erdi ilun zegoen eta pixa usaina erraz sartzen zen sudurzuloetatik. **Iñaki Zabaleta**

-Ezin da **pasabide** hauetatik sartu -esan zion Harryk bizkor-. **Iñaki Mendiguren**

Ate-leihoetatik elurra kendu beharra izan zen, **pasabide** bat ebaki eta maila batzuk egin. **Josu Zabaleta**

Ibiltokirako **pasabide** hertsu eta hetsu hori lehen egunetik zirkuetako lehoien **pasabideari** parekatu dut. **Filipe Bidart**

**Pasabideak** aurrera eta aurrera jarraitzen zuen; Honeydukesera zihoana bezain luzea ematen zuen, gutxienez. **Iñaki Mendiguren**

Artzainaren etxe parean ibi moduko bat zegoen, eta harri zapalekin egindako **pasabide** bat. **Bernardo Atxaga**

Herenegun eroritako gangaren zatiak hegazkinetara joateko **pasabide** bat harrapatu zuen aspian. **Berria - Mundua**

Harantz-honantz ibili nintzen, txunditurik, jainko baten gela topatu izan banu bezala, zutabe arin edo astunek eusten zieten areto haietan zehar, **pasabide** argitara zabaldu haietan. **Josu Zabaleta**

Hala aritenoiden bien artean bakarrik gelditzen da airea igarotzeko **pasabidea**. **Lourdes Oñederra**

Irati ibaiarentzat **pasabidea** izan beharko luke hormak, 500 metroko mailan. **Eduarne Elizondo**

Institutuko gela txikiagoa zen, erdian **pasabide** bat zuela eta alde banatan lau-bost mahai, elkarririk erantsita. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ohatze handiaren eta metalezko paretaren arteko **pasabide** estua ibiltoki eginik, ate hertsia ondoz ondo desfilatu zen, ohe gainetik begiesten nuen bitartean. **Aingeru**



Epaltza

Aurrera egin zuen **pasabidean** barna. Jon Alonso

Ate bat bultzatu zuen, **pasabidearen** amaieran. Karlos Zabala

Hegoaldeko gelen azpian, **pasabidearen** muturrean, sarrera bat zegoen. Elizen arteko biblia

Bi ibiltarien oinek **pasabidea** zapaldu orduko zabuka hasi dira, eta bi aldeetako kableei oratu behar izan diete. Pello Lizarralde

## 2 (izenondoekin)

Ezusteak **pasabide** ilunaren erdian geldiarazi du. Pello Lizarralde

Tartean, **pasabide** zabal bat. Bernardo Atxaga

Amsterdamen ez zuen inolako zalantzarik izan **pasabide** estu batetik igarotzerakoan txalupa batera sartzeko. Xabier Olarra

Lurrezko **pasabide** estu-estu eta apal batean zegoela ikusi zuen. zelai horien artean **pasabide** arriskutsu bat ireki behar izan zuela, beti alboan zeraman arraunarekin.

Iñaki Mendiguren

**Pasabide** bihurri eta nahasi haiek hutsik zeuden. Iñaki Mendiguren

**Pasabide** biradunetan, animaliek ez omen dute ikusten arrapalaren beste muturrean dagoena ia bertaraino iritsi arte. Xabier Olarra

Behin batez, funtzionario mezularia, borroeroari hil-aginduak ekartzen zizkiona, Ministerioko **pasabide** infinituetan galdu zen, eta ez zen beraz hil-agindua garaiz iritsi.

Karlos Linazasoro

**Pasabide** gaizki argituak, eskailerak, ataka eta berriz kalean, lanbropean. Iñaki Zabaleta

Paretak berinezkoak, moketa grisezko **pasabide** luze luzeak... Ramuntxo Etxeberri

Oinezkoen **pasabide** egurrezkoa utzi eta nasa bukaeraraino joan da. Pello Lizarralde

## 3 (izenlagunekin)

Berehala arkupeko **pasabide** bat izan zuten aurrean. Iñaki Mendiguren

Elgar kurutzatzen diren lurpeko **pasabide** ilun horiek josta leku hautak direla eta, kukuka aritzeko, Zubi altxagarria jasota, zangaren gainetiko **pasabide** bihurtzen zenean, Loiolara abiatzen ginen, eta Astigarragara, eta Igeldora. Michel Oronoz

Islipeko **pasabide** bat erabili zenutela onartu izan bazen, galdera gehiago etorriko ziren atzetik. Rafa Egiguren

Pertsiar Golkoa funtsezko **pasabidea** da petroliontzi askorentzat. Berria - Ekonomia

Hegazkineratzeko **pasabideetako** azpikontratetako langileak. Berria - Ekonomia

Pertsiar Golkoa funtsezko **pasabidea** da petroliontzi askorentzat. Berria - Ekonomia

Pirinioetako **pasabideak** askoz ere altuagoak ziren, jendeak ez zuen esperientziarik elurretan, eta zailagoa zen mugalariak topatzea ere. Anjel Lertxundi

## 4 irud/hed

Hala aritenoide bien artean bakarrik gelditzen da airea igarotzeko **pasabidea**. ain zuzen ere, bokalei bokaltasuna ematen diena airearen **pasabide** irekia da. Lourdes

Oñederra

Segurtasun osoz jakin zuen une hartan ahoa tapatuz gero bertan hilik geldituko zela, sentitzen baitzuen eztarik **pasabide** oro oztopatzen zizkiola emozio hark. Bego

Montorio

Nire garaipenaz segur, izter arteko **pasabide** heze anarteraino ahantzia esploratzera abiatu nintzen. Aingeru Epaltza

Bizitza hau lurralde mitiko hartarako **pasabide** dela. Anton Garikano

Hori erdiesteko gauza al zen gorputza, edo adimena, garuneko **pasabide** korapilatsuetan fin-fin elkartuz? Anton Garikano

Konbertsio/deskonbertsioak "**pasabide**" uneak dira. Joseba Zulaika

Historia hori ahurretik ganbilera, barnetik kanpora (ukimenetik ikusmenera), egoera psikologiko "huts" batetik "betetasunaren" atzematerako **pasabide** gisa harturik. Josu

Zabaleta

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hegaztietatik eratorritako produktak Israeldik Gazarako muga **pasabidean** blokeatzea erabaki zuen Palestinako Aginte Nazionalak. Berria - Gaiak

Karniko merkataritza **pasabidea** Israel eta Gaza artean luzaroen ixteak Gaza krisi humanitarioan utzi duela. Berria - Mundua

Sudur-zulo bakoitzaren atzeko aire-**pasabidean**, dagoen bihurtzune estuak eragiten du, neurri batean, arazoa.Gau hartan olatuak harro zebiltzan itsas **pasabide** honetan.

Irene Aldasoro

Berdin hartzen zuten atsedean parke baten sarreran edo zebra-**pasabide** mortuen erdian. Harkaitz Cano

Azpi-**pasabide** batetik iritsi ginen bertako eliza karratura. Txillardeggi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko pasabide (7); etxeko pasabide (3); gazteluko pasabide (3); lurpeko pasabide (3); pasabide bihurri (3); pasabide estu (11); pasabide estu batetik (3); pasabide estua (4); pasabide estuan (4); pasabide ezkutu (3); pasabide hertsia (3); pasabide hutsak (3); pasabide ilun (3); pasabide ilunean (4); pasabide luze (5)

lehoien pasabidea (4); pasabidea zeharkatu (5); rafako pasabidea (5)

animalientzako pasabideak (3)

arteko pasabidean (3); bariatuko pasabidean (4); muga pasabidean (4); pasabidean aurrera (7); pasabidean barrena (4)

cardinet pasabidearen (5); pasabidearen beste aldean (3); pasabidearen bukaeran (5); pasabidearen hondoan (3)

arteko pasabideetan (4); pasabideetan barrena (4)

cardinet pasabideko (3)

gaineko pasabidera (3)

pasabidetik barna (3)

## pasabidetxo iz pasabide txikia.

Nola edo hala taberna erdibitzen duen **pasabidetxoraino** heltzen dira, apurka, Siñisten dot euren gezurretan... Sonia Gonzalez

Pub osoa ibili zuen bazter batean, komunetarako bidean osatzen zen **pasabidetxoan**, Maddalen ikusi zuen arte. Joxemari Iturralde

## pasada (55 agerraldi, 36 liburu eta 10 artikulutan; orobat pasara 30 agerraldi, 14 liburu eta 10 artikulutan, eta paxara g.er.) 1 iz pasaldia.

Garbigailuan sartu nituen denak; gero konturatu nintzen nire kamixeta hartan ere bazela tantoren bat, eta eskuz eman nion **pasada** bat harrikoan, ri-rau. Xabier

Mendiguren Elizegi

Lan handiena goizez egiten dugu, nik edo gure neskame Mariluzek: aita altxatu, garbitu, etxeko **pasada** egin, bazkaria eman... Xabier Mendiguren Elizegi

Barran geratu baino lehen, **pasada** azkarrak egin zuen kafetegitik, baina ez zuen inor ezagunik aurkitu. Joxemari Iturralde

Beti horixe gustatzen zaigu: afaldu eta pixka bat mahaian egon, kontu batzuk esanez; eguneko **pasada** egin eta ohera joatea. Berria - Euskal Herria

Hara heldu nintzenez, jostailua alura hurbildu nuen "pipitatxoa" (hala deitzea gustatzen zait nire klitorisari) xerkatuz, hau pottolo eta gorri jarri zitzaidan lehenengo **pasadan**.

Juan Martín Elexpuru

ik beherago 5. Askoren artean

Gehiago oraindik kamioien **pasara** handitzen denean. Berria - Euskal Herria



## 2 (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Erromatar honek ere bere diruaren kezka zuen, are kezka handiagoa Beshirrek baino, eta ez zuen asmorik lan-**pasada** nardagarri hura debalde jasateko. **Fernando Rey**

Aita Tontonek ama Gabyri: "ohe-**pasara** bakoitzean umegorri bat egiten didan". **Pablo Sastre**

Afari eder bat eta larru-**paxara** bat putetxean. **Iñaki Seguro**

Laurogeitaka urte (eta gehiago, segurutik) irauan dezakeen bizi-**pasaren** ondoren, zer egiten du zoriotsuak? **Iñaki Seguro**

Heldulekutik hartu zuen, zapiari tutu eginez larakoak garbitu zituen, ama batek umearen belarri eta sudur zuloak garbitzen dituen bezala; gero garbi **pasada** bat egin zuen aurrealdean, beste **pasada** berdina atzealdean eta atsedetik hartu gabe, heldulekutik askatu gabe, igurtzaldi bat aurrealdetik eta beste bat atzeralditik. **Felipe Juaristi**

Garbitu **pasada** eman zion aurpegiari eta jantzi, alkatearentzat lan egiten zuenetan bezala, galtzak gorri eta atorra berde, edota atorra gorri eta galtzak berde. **Felipe Juaristi**

Bertara heldu, eta barra aldeko aurpegi gorrituei ikusi-**pasara** azkarra eman die. **Patxi Iturritegi**

Behar du Dylanek lasaialdi bat, sendatu-**pasara** bat, eta Yoloren aitari ongi etorriko zaio konpainia, laguntza. **Pako Aristi**

Artikuluak irakurketa norabide bakarra du, taldekako suizidioez ohartarazi nahi da, eta gain **pasadaz** irakurriz gero, hor duzu heriotzen arduraduna ere: sarea. **Iñigo Aranbarri**

## 3 adkor logikoa edo normala dena gainditzen duen gauza.

Ez duk igual, batzuetan ez nauk kontrolatzen, baina **pasada** bat iruditu zaidak hik esandakoa... **Pako Aristi**

Atzokoa, beharbada, **pasada** bat izan zen. **Sonia Gonzalez**

Horrelakorik berriro ez, **pasada** gehiagorik ez. **Sonia Gonzalez**

Ikuspegi izugarri polita zegoen: eguzkia sartzen, eta Baltoroko bailara osoan haren itzala proiektatzen; **pasada** bat. **Berria - Kirola**

-**Pasada** bat, Mikel. **Unai Iturriaga**

## 4 jipoialdia.

Autoa arakatzean, paperak aurkitu zizkieten eta **pasada** ederra eman zioten. **Javi Cillero**

Banekien Marrok, han harrapatuz gero, **pasada** on bat emango zidala, onenean; izan ere, ziur nengoen Marro gauza zela norbait aienarazteko, gehiago ez agertzeko moduan; halako irudi beltza genuen auzoko haurrok pertsonaia beldurgarri hartaz. **Juan Kruz Igerabide**

-Sekulako **pasara** eman diet -esan zidan, aurpegia gorri-gorri eta artean arnasestuka. **Juan Garzia**

Ettxeko nagusiak, badaezpada ere, berriro itzultzeko gogoak gorputzetik kentzeko izugarritzko **pasada** eman zion. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

-Tropikoak [...] **pasada** ederra ematen omen zioz gorputzari. **Xabier Olarra**

Valentziak asteazkenean Kopan hartutako **pasada** mesedegaria izan daiteke. **Berria - Kirola**

## 5 *pasadan* adlag bidez, iragaitzaz.

Han **pasadan** zen moja batek, nire biraoa entzunda, nigatik errezatuko duela agindu dit. **Anjel Lertxundi**

Handik **pasadan** zen eskeko batek gertatukoa ikusirik, arriskuak arrisku ibaira jauzi egin eta haurra salbatu zuen. **Anjel Lertxundi**

**Pasadan** ohartu zen gizonaren ilajeen xerlo horiak bazeudela. **Jon Alonso**

Zergatik ditut horrelako pentsamenduak, **pasadan** bada ere? **Ibon Urbarri**

Gainera, **pasadan** bururatu zitzaion etorkizunerako onuragarri suerta zekiokela gezurra. **Joxemari Iturralde**

la ezer jan gabe nengoen azken hoge orduetan, baina aitak **pasadan** bezala aipatutako beste atentatuak jateko gogoak kendu zidan derrepentean. **Anjel Lertxundi**

## 6 *pasadaz* adlag pasadan.

Behin baino ez diat ikusi, eta **pasadaz**. **Sonia Gonzalez**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pasada bat** (9); **pasada ederra** (3); **pasada eman** (5)

## pasadatxo iz pasada laburra.

Hamar minutu barru edo neu ere jantoki-bagoira joango nintzela erabakirik, **pasadatxo** bat ematen hasi nintzen egunkariari. **Anjel Lertxundi**

Hemingwayren begirada eraman ezinez [...] **pasadatxo** bat eman diot Corriere egunkariari. **Anjel Lertxundi**

## pasadizo (orobat *pasadizu g.er.*) 1 iz gertaera.

Sutondoan ematen zituzten orduak, berriketan eta kontu-kontari, hainbat **pasadizo** eta abentura kontatuz. **Koro Navarro**

Hankapalo saiatu zen, ohi zuen moduan, **pasadizo** eta izkirimirien bitartez giroa alaitzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txistea izan ala **pasadizo** benetakoa, eskuinak aukera zuen guztietan alderatzen zituen Agnelli eta Togliatti, komunista barregarri uzteko. **Anjel Lertxundi**

Hamaika izen eta **pasadizo** atera dira solasaren harian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Antzeko **pasadizo** bat gertatu zitzaion Celle di Cortonan. **Askoren artean**

Sukaldean zegoen neska bat, **pasadizo** hura aditzean, algara zoliekin hasi zen barrez. **Koro Navarro**

**Pasadizo** batekin hasiko naiz Realean azkenaldian harrobia zenbat lantzen den ikusteko. **Berria - Kirola**

Lazkao Txiki protagonista duen **pasadizo** bat ere ekarriko dugu hona. **Iñaki Arranz**

Ezaguna da Manuel Uztapideren **pasadizo** hura. **Andoni Egaña**

Lumiere anaiek 1895ean zinematografoa sortu eta Parisko milaka **pasadizo** filmatu zituzten. **Berria - Kultura**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Intuizio jenialez, **pasadizo** bitxiz eta boutadez josia izaten zen beti haren jardun itxuraz inprobisatua. Kontaiozu Petuniari amerikar iturginei buruzko **pasadizo** xeble hura, Mason jauna, irrikaz dago entzuteko... **Joxerra Garzia**

Laguntza baitut, zeren Peterrek behin baino gehiagotan laguntzen baitit **pasadizo** txar bat baino gehiago ahazten. **Josu Zabaleta**

Ohi denez, tradizioak **pasadizo** sinesgaitz samarrak erantsi zizkion abentura honi, suaren proba esate baterako. **Askoren artean**

"Komunismo" hitzak iraganeko **pasadizo** beldurgarri baina labur eta itxuraz garrantzirik gabeko zerbait adierazten zuen, jada itzalita zegoen "Historiaren" sumendiaren azken erupzioztart hartzen zena. **Iñaki Mendiguren**

Gauza eta **pasadizo** zailenetako laguntzailea da Rita, bestela ezin konpondu diren arazoena. **Pello Zabala**

**Pasadizo** barregarriren bat ere gertatu zen, dena den. **Rafa Egiguren**

Zilegi bekit **pasadizo** bakarren batzuk kontatzea. **Askoren artean**

Pio Barojak nonbait kontatua du bere gaztaroko **pasadizo** bat, niri beti hunkigarria iruditu zaidana. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Martinek eta Bautistak barre egin zuten, eta baserritarrak istorio eta **pasadizo** sail bat kontatu zuen. **Koro Navarro**

Boloniako nire lankideak badu berdekeriazko **pasadizo**-sorta etengabe eguneratu bat, eta maratz-maratz errepasatzen du, buletin teknikoekin batera, hirian eta eskualdean barrena bisita-jiran ekin aurretik. **Juan Garzia**

Ez dago korapilo edo argumentu jarraiturik: **pasadizo** pilaketaz egiten du aurrera. **Itziar Otegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizitzako pasadizo (4); gertatutako pasadizo (5); hainbat pasadizo (14); pasadizo barregarriak (3); pasadizo bat kontatu (4); pasadizo bat kontatuko (3); pasadizo bitxi (6); pasadizo gogoangarri (3); pasadizo xeble (3)**

**pasadizoa kontatu (6); pasadizoa kontatzen (3)**

**pasadizoak kontatzeko (3); pasadizoak kontatzen (10)**

**pasadizoen berri (5)**

---

pasadizu ik **pasadizo**.

---

pasadoble ik **pasodoble**.

---

**pasaera** 1 iz pasatzea.

Orduan Bide Berdea zabalduko duk berriro; Erregearen mezulariak iparraldetik etorriko dituk; etengabeko **pasaera** egongo duk; izaki gaiztoak populatu gabeko eskualdeetatik botako ditik. **Agustin Otsoa**

Mahaian eseri zarenean, segundoz segundo ikusten duzu zenbat edan duzun, eta baso hustuen kopurutik igartzen diozu denboraren **pasaerari**. **Matías Múgica**

Neskek berehala altxatzen zituzten begiak txaluparen **pasaerari** begira. **Joseba Sarrionandia**

La Mercedeko zubian geratu zen ibaiaren **pasaerari** so. **Unai Iturriaga**

Bai, kapitain eta arrantzaleentzako ostatu bat, **pasaerako** hotel bat, halako Restop bat itsas errepide baten alboan. **Bernardo Atxaga**

Halaber ate ondoetan, brontzeko irudiek agurtzaileen **pasaerako** igurtziarekin mehetuz doazkien eskuinak erakusten dituzte. **Xabier Amuriza**

**2 pasabidea.**

Sokategi hau **pasaera** luze bat da, eta sokategi ederra. **Koldo Izagirre**

**Pasaeran** edo zubian garenez, beste askok, beste aldeari begiratuko diote, izutuz neguarekin. **Pello Zabala**

**3 pasea.**

Dagokien sasoiari, galeperrek, usapalek, eper mototxuriek, lurra mokoka bahetzen duten oilagorrek eta **pasaerako** beste hegazti batzuek zeharkatzen dituzte aireak. **Koldo Biguri**

**4 pasaeran (orobat pasakeran g.er.) adlag pasatzean.**

Erdeinuz begiratu nion **pasaeran**. **Joxean Agirre**

Neonezko iragarki eta seinale handiek zirrara egiten zioten, eta jakin-mina sortzen; **pasaeran** letrak identifikatzea ere gustatzen zitzaion. **Xabier Olarra**

Bere amonaren lagunek aldiz, esan zuen, **pasaeran** diskrezioz kirika eginez, sekulako lanak hartzen zituzten. **Anton Garikano**

Nik oso gutxitan ikusia nuen, **pasaeran**. **Matías Múgica**

Gurdi zahar baten azpian ezkutatuta, galgo gizajoak taldearen **pasaerari** jarraitu zion begiradarekin, patuari izu begiekin begira. **Jon Maia**

· Pasatuko da mutikoa, pasatuko da ama eta, neska **pasakeran**, irristatu, oreka galdu eta maleta uretara eroriko zai. **Joseba Sarrionandia**

Liburukia hartu eta orriak **pasakeran**, Markosen araberako Ebanjelioaren hasieran ireki zuten Espinosaren hatzek. **Juan Garzia**

**5 (leku atzizkien eskuinean)**

13aren ondotik **pasaeran**, Academia Elejoste-ren plaka topatu dut. **Txillardegi**

Hemendik **pasaeran** nenbilen eta... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Albotik **pasaeran** sumatzen zuen guztiaren igorle moduko bat izango zen, baina esperientzia horiek ez zuten bera batera aldatu edo elikatuko. **Xabier Olarra**

Gereziondoen azpitik **pasaeran**, irrikaz begiratzen genien behitrik goiti. **Patziku Perurena**

Sotoko eskailburuan edukitzen genuen pulpa edo errejiloia, eta hartatik botatzen puska bat, pazian egositako arbi, erramolatxa, patatazal, azaosto, sagartxar edo zena zelakoari, zerritegira **pasaeran**. **Patziku Perurena**

---

**pasaezin** *izond* ezin pasa daitekeena. ik **igaroezin**.

Beste bostehun metro neurtu zituen: **pasaezineko** erreka zen, hain baitziren handiak urak; erreka hura ezin nuen igerian baizik pasatu. **Elizen arteko biblia**

---

**pasagailu**

**1 denbora pasagailu iz ipar denbora-pasa. ik pasagarri 3.**

Amatxi Koxepak badaki oraingo gazteek badituztela beren denbora **pasagailuak**. **Eneko Bidegain**

Joko hori errexa zen ikasteko, baina denbora **pasagailu** ona, noiztenka begia atxikiz artaldeari eta etor zitekeen pizti edo basabereari. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hunen erakaspena, bizi sanoa, denbora **pasagailu** garbiekin, jukutriarik eta diruzko disimularik gabea. **Herria**

---

**pasagailutto** *iz adkor* denbora pasagailua.

Garaziko jende haizinatuek denbora **pasagailutto** batzu behar astelehenetan. **Herria**

---

**pasagaitz** *izond* pasatzen zaila. • *irud/hed*

Calderonen obra **pasagaitza** aurkezteko manera ere aipatu behar dugu, modernitatearen aldeko nolabaiteko hautua egin delako, gaurko janzkerak eta musikak erabiliz eta zenbait keinu alproja edo ganberro tartekatuz ikusleenganako hurbiltasuna lortu nahian. **Berria - Kultura**

Mendebaldeko ikuspegitik ekialde urruneko kultura liluragarria izateaz gain, hermetikoa ere bada eta Mishimaren figura nahiko **pasagaitza** egiten zaigu, **Berria - Kultura**

---

**pasagarri 1 izond** • *irud/hed* pasatzeko modukoa.

Aitortu behar dut **pasagarriagoa** egin zaidala taldearen umore zakarra, batez ere emanaldiaren erdialdetik aurrera. **Berria - Kultura**

Nik ez dakit bertsioti hauetan non geratu ote den Shakespearearen lirismo sakona, berba bakoitzaren hautaketa delikatuari igarri beharko zena eta **pasagarriagoak** bihurtzen dituen gaurko denboretan lekuz kanpo dirudiena. **Berria - Kultura**

**2 irud/hed bizigaia.**

-Ez diot nik, Saxto -Don Kijotek berriz- zaldun ibiltariak horretara behartuak daudenik, fruta lehor ez beste ezer jatera; baizik-eta haien **pasagarria** gehien-gehien horixe izango zela, eta zelaletan barrera bildutako belarren batzuk; ezagutzen baitzituzten, eta nik ere bai. **Patxi Ezkiaga**

### 3 denbora-pasagarriz iz denbora-pasa.

-Jainkoak lagun dagidala! -apaizak oihuka- hemen haatik hori Tirante Zuri hori! emadazu honantz, aitakide; hortxe aurkitu dudala baiteritzot pozgarrien gordailua eta denbora-**pasagarrien** meatze. **Patxi Ezkiaga**

## pasagia ik pasaia.

### pasagune 1 iz pasatzeko gunea. ik igarogune; pasabide; pasaleku.

-Hemendik goiti, gizonak aldizkatuko dira mendietako **pasaguneen** kontrolatzeko eta kantonamendu guzietan zainketa talde bat osatua izanen da. **Elena Touyarou**  
Gaza iparraldea, horrenbestez, erabat hartuta dago, eta Eretzeko **pasagunea** moztuta. **Berria - Mundua**  
Lamothe plaza ez dela **pasagune** bat, baizik eta ondoko Kintau plazarekin Angelu mineko bizigune bat. **Herria**  
Hiriko alde zaharrak dituen **pasagune** estuetan. **Joxean Agirre**  
Gora eta gora, kizkurra eta bihurria sugedorrien antzera, harkaitz bertikalean zehar **pasagunea** urratuz. **Agustin Otsoa**  
Gainsolairu batera goiti egiten zuten eskailera metalezko batzuk ezker aldean eta ate handia aitzinean, gai berekoa, bertze norabaiteko **pasagune**. **Aingeru Epaltza**  
Haienezako propio egindako **pasagunetik** igaro ziren guztiak, oinez, Hollywoodeko izarren moduan. **Berria - Euskal Herria**  
Bi gazte horiek dira ostiralean Salamancako trenbideko **pasagune** batean gertatu zen istripuan bizirik atera ziren bakarrak. **Berria - Euskal Herria**  
Bihurguneetan edo **pasaguneetara** hurbiltzean, makinistak motel eta arduratsu jotzen zuen turuta, norbait harrapatzeko beldurrez. **Jose Morales**

### 2 (hitz elkartuetan)

Lau auto-ilara trenbide-**pasagunean** zain. **Lopez de Arana**  
Praderako trenbide **pasagune** automatizatuan gertatu zen istripua. **Berria - Euskal Herria**  
Kolorezko erreproduzio bat zen, trenbide-**pasagune** bat ageri zuena. **Mirentxu Larrañaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**trenbide pasagune** (4)

### pasahitz (15 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan; orobat pasa-hitz 26 agerraldi, 5 liburu eta artikulua 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian, pasahitz agertzen da) 1 iz kontrolgune batean, igarotzeko, esan behar den hitza.

Pippinen ospe ona nabarmen handitu zen Bergilen begietara, izena eta **pasahitza** esan ondoren, zaindaria agurtu eta pasatzen utzi baitzion. Bederatzietan jaso zuten agindua, buruzagiek emandako **pasahitza** edo Euzkadiko Gobernuak emandako pasaportearen zutenak ontziratzen hasteko. **Agustin Otsoa**

### 2 ordenagailu baten sartzeko behar den kodigoa.

Aurten, lehenengo aldiz, Ogasunak norberari buruz duen informazioa ezagutu ahal izango da, **pasahitz** batekin. **Berria - Ekonomia**  
**Pasahitz** arruntak saihestu behar dira eta ez da mezurik utzi behar post-it direlakoetan, esaterako. **Berria - Gaiak**  
Ez zekiten ikasturte berriko **pasahitza**, artean ez baitziren egon Gryffindorreko prefektu batekin. **Iñaki Mendiguren**  
"Jaso" sakatu nuen, eta bilatzailea **pasahitza** bidaltzen hasi zen, tarra-tarra, konputagailuak kexu egiten zuela. **Lander Garro**

## pasai ik pasaia.

### pasaia (orobat pasai g.er. eta pasagia g.er.) 1 iz ipar pasabidea, pasagunea.

**Pasaia** idekitzen didate, zaintzaleak bi lerrotan emanez, hitzik erran gabe, baina ulertzen dut hori dela ene zelda. **Filipe Bidart**  
Horrela, bazter haieatetik iragaiten ziren alemanak ez ziren ohartzen ote eremu handien erdian segeteruzko **pasaia** bat bazela. **Eneko Bidegain**  
*Promenade* erraiten dit, xutitu eta ateratzera noa baina zaintzaleak **pasaia** hesten dit. **Filipe Bidart**  
Sophie, gisa guziz, ez da oharitu **pasaia** horrek Txominen baitan sortu duen emozioaz eta herio zelaiko azken hilabetei buruz galderen pausatzen segitzen du. **Eneko Bidegain**  
Lertxun **pasai** handi bat izan omen da ere. **Herria**  
Aitzina noa, **pasaia** den tokitik, eta hesia hesten da ene gibeletik. **Filipe Bidart**  
Hortako badituzte murru hortan **pasaia** batzu utzi beharrak, 41 **pasaia** orotara. **Herria**  
Eretz eta Cisjordaniako **pasaia** hartan eta Cisjordaniako lur haietan lanak dituzte denek ere. **Herria**  
Horko olatu nasaia, itsasotik zenbeit kilometretan dire eta **pasaia** libro utzi behar zen unti kozkorak olateietaraino heltzeko... **Herria**

### 2 (hitz elkartuetan)

Familia batek galde egin daut jakin araztea, nola laborantzako bide **pasaia** bat hetsia izan den eta jende hau ez dutela pasaiarik beren pentzerat joiteko. **Herria**  
Ur **pasaia** ezarriak izan dira bide azpian eta arroiak garbituak. **Herria**

### 3 hegaztien mintzatuz, pasea.

Tiroak entzuten dira, nola urto sasoinean **pasaia** haundiak badirelarik. **Michel Oronoz**  
Orreagako lepoa betidanik ezagutua zen, uso **pasaia** famatu bezala, oraiko gisa. **Herria**  
Urtxo **pasaia** aldiz askoz apaldu dira: 840.000 urtxo aurten (jaz, 1.140.000). **Herria**

### 4 pasatzea, iragaitza. ik pasaldi.

Ardiak bidean lerroan zebiltzan gero, autoen **pasaia** tratatuz. **Itxaro Borda**  
A-63an autoen **pasaia** ere gelditu zuten, gidariak Donibane Lohizuneko iparraldean ateraraziz. **Berria - Euskal Herria**  
Senperera heltzean, bidaiarien **pasaia** kontrolatzen eta haien orgak bai puskak miazten zituzten Guardia Nazionaleko soldadu saldoa topatu zuten. **Elena Touyarou**  
Orok nahi dugula bakean iragan, lur huntako **pasaia**. **Herria**  
Inguruko herrietako gisa gripak **pasaia** on bat egin du hemen ere, anhitz jende hunkiturik izan da. **Herria**  
Kontseiluak ez du onartu Joseph Aguerre-ren galdea: Herriko lur batzuen alokatzea Bizkarluze mendian, Itsasuko kabalen alha leku eta **pasaian** direlako. **Herria**  
Hala da udan, **pasaia** jende harek etzuela beti [pilota] joko ezagutzen. **Herria**  
Medium bat bezala ikusten dut ene burua, **pasaia** txori bat banintz bezala, migratzailea. **Ana Urkiza**  
**Pasaia** xoriek eta ainitz mamutxek beren usaiak aldatzen hasiak dituzte, zenbait badira berantegi heltzen direnak bere sasoinean kafiren egiteko. **Herria**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta pagatoki bat ezarriko omen da, kamiun **pasaia** mugatzeko gisan. Herria

Egunoroz 10.500 auto edo kamiun **pasaia**renturarekin. Herria

Beharapenean gaude, aroa ezti, ona orokorki, euri **pasaia** batzuekin. Herria

Goizean ohi bezala: karrika **pasaia**, bertsulariekin, Mixel Xalbador, Jean Louis Laka eta Fermin Mihura, Arrola, Space Banako, Ziganteak eta Larrain dantza Herria

## 6 bidai txartela.

Hala da ze, esana zidaten beste dena, zera, **pasaia** merkeagoarena, behin ontzian klasez aldatzearena, tratu bereziarena, e.a., e.a., den-dena... Edorta Jimenez

## pasaiant 1 iz bidaiari; turista.

Boeing 737aireko bat suntsitu da Afganistanen 104 **pasaiant** zakarzkien asko naziotakoak Kabul inguruetan. Herria

Hango **pasaiantetarik** badira 301 salbatuak edo bederen aurkituak, baina erran dutenaren arabera, ba omen litazke 200 bat bederen desagertuak. Herria

Indonesian islamistak jazarri zaizkote turismo guneetan berriz ere Bali bakantza tokian hoteletako **pasaianteri** bonbak jauzaraziz duela hiru urte bezala. Herria

Eguna ere lanik gabekoa baitzuten aintzek baziren kanpotiar eta **pasaiantak** ere tokikoen artean. Herria

## 2 (adizlagun gisa)

Kuba herrian, Ameriketan bere bidetik baztertu zuten 35 bidaiari **pasaientekin** aireko pirata deitzen diren haietako batzuek. Herria

## pasaia ik pasaitar.

## pasaitar (orobat pasaiar g.er.) izlag/iz Pasaiakoa, Pasaiari dagokiona; Pasaiko biztanlea.

Donostiako belodromoan ari beharra da **pasaitar** txirindularia, otsailaren 7an, Euskadiko Sei Ordu lehiaketan. Herria

Eskifaian, besteak beste: Ryp sukaldaria, Albizu **pasaitar** gonazalea, Cornelius doktorea, Txim beldurgarria, Tommy deabrua, [...]. Pablo Sastre

Hemerotekak aztertuz gero, zakur borrokak eta boxeolari **pasaitar** gazte baten debutaren notizia ziren lehen orrialdeko notizietariko bi, letra handiegietan ageri ez ziren arren. Harkaitz Cano

Zuerako espetxean dagoen Jon Urkizu preso **pasaitarraren** lagunek, berriz, bisitaren ostean izan zuten istripua. Berria - Euskal Herria

Espainiako erlojupekoan, Iñigo Chaurreau **pasaitarra** da nagusitu, hunen lehenkusi Mikel Astarlozak hirugarren egin duelarik. Herria

Bera **pasaitarra** izan arren, Martak, Trintxerpekoa izaki, berak baino askoz jende gehiago ezagutzen zuela Pasaian. Harkaitz Cano

Balentria ederra egin du **pasaitar** hunek, Australiako itzulia irabaziz. Herria

**Pasaitarrik** gabe jokatu zen azken estropada orain dela 22 urte izan zen, 1982an. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**alberto martinez pasaitarra** (4); **astarloza pasaitarra** (3)

**alberto martinez pasaitarrak** (3); **mikel astarloza pasaitarrak** (3)

**pasaitarren arteko** (4)

## pasaje iz pasartea.

Bi bakarlarientzat **pasaje** ezberdinak daude, betiere beraien protagonismoa tartekatuz. Berria - Kultura

Hasierako soka grabeen **pasajea** oso ondo eman zuten eta lan guztian zehar musika asko eskaini zuten. Berria - Kultura

1953an idatzi zituen akordeoirako lehen **pasajeak**, *Hileta oratorio*-n. Berria - Kultura

## pasajero iz bidaiaria.

Nahastu ginen **pasajeroen** zain zegoen jendetza handian. Matías Múgica

## pasaka<sup>1</sup> 1 iz pilota joko mota, larruzko eskuzorroekin joatzen dena.

Jaialdia goizeko hamarretan hasiko da, bertan hainbat pilota modalitate ikusi ahal izango dira, larrukoa, pala motza eta **pasaka** besteak beste. Berria - Kirola

Asteazken 15an, kabala feria, **pasaka** eskuhuska. Herria

**Pasakan**, hiru pare xapelgoan abiatu berriak ditugu. Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Yon Larronden aita eta osaba (Raphael eta Manu) **pasaka** jokoan finalean direla ere. Herria

Jean Claude Çuburu eta Latate Frantziako xapeldun atera dira **pasaka** jokoan. Herria

Astelehenean, goizeko 11-etan, **pasaka** partida trinketean. Herria

**Pasaka** finaletan lehen maileko Çuburu eta Latatek galdu dute 13 eta 6-ez Saratarren kontra. Herria

Azaroaren 9 an igandearrekin meza 11 etan, 12 tan trinketean **pasaka** pilota partida. Herria

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pilota **Pasaka** jokoan 13 eta 7, xapela herrirat ekarri dute. Herria

## 4 (adizlagun gisa)

Baigorriarrek ereman dute hau saratarren kontra, oraino etsitzekotan ez den Çuiburu batekin, hunek bakarrenak baititu lehen ere irabaziak ala **Pasaka** ala luzean. Herria

Esku huska, buruz buruka eta birazka - Xarea - **Pasaka** - Xixeraz Joko Garbia eta bururatzeko palantxa. Joseba Sarrionandia

**Pasaka** eta Xarean Puletako partidetan dire. Herria

Pilotan **Pasaka**, xapeldun atera dire Arrieta-Elizeiry 13-9, Baigorri-ren aurka. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pasaka jokoan** (4); **pilota pasaka** (3)

## pasaka<sup>2</sup> 1 adlag

Baina haren block-eko lagun batzuk, ohartu zirelarik jokoari, lehenik **pasaka**, eta gero aharran arizan ziren; joan behartu izan zituztuz. Marzel Etxehandi

## 2 orri-pasaka ik pasaka<sup>1</sup> 13.

### pasakale (orobat pasakalle) iz kalejira. ik biribilketa.

Besta aldiko harreman une horiek, bai eta, dantzaldia aitzineko ibilaldi harrigarriak, Koxeguy Taldeak Iruñan *La Unica* Peñarekin egin **pasakaleak** oroitarazi ditu. Beraz, neri eta ene lagunei tokatzen zauku 4 igandetarik behin, **pasakalle** edo herriko itzuliaren egitea. **Herria**

### pasakalle ik pasakale.

### pasakari iz gertaera. ik pasadizo.

Neronek ezagutu nuen Leitzan, aitona Joan Portolo, behiala bordari izena eman zion haren kasta berekoa, eta baditu **pasakari** franko bere izengoitia lotsaz hartzen zuela erakusten dutenekoak. **Patziku Perurena**

Gure **pasakariak** aipa ditzagun oraino. **Herria**

### pasakeran ik pasaera 4.

### pasakizun iz gertaera. ik pasadizo.

**Pasakizun** hori 18 orrialdetan. **Pablo Sastre**

Gure herrian auzapez berria izendatua izan delarik huna 13 eta 10 azken hauk nahi izan dute **pasakizun** horien dretxoa argitaratu, ponpier eta auzapez izaiten ahal zen Jean-Louis Laduche. **Herria**

### pasako ik pasa<sup>1</sup>.

### pasakor (orobat paxakor) izond igarokorra.

Bizitza **pasakor** honetan. **Joan Mari Lekuona**

Gure adoreak hobeto jasaten ditu bortizkeria eta oinaze izugarri baina **pasakorrak**, denbora eta asperdura mugagabeak baino. **Juan Martin Elexpuru**

Bere burua argi engainagarriren baten inguruan jiraka zorabiatuak galtzen duen sorkari ilaun eta **pasakor** izate horretan ere, gizonaren munduko joera galgarria, hagitz ongi irudikatzen digu mariposak. **Patziku Perurena**

Gehienetan **pasakorrak** izaten dira halako arrakastak, ahazkorrek garai batean irkaru beharreko ziruditenak. esan liteke, gure bizitza haizazu hau bera, puzker bat bezain arraroa eta **pasakorra** dela. **Berria - Kultura**

Dena zen iragankorra, **pasakorra**. **Herria**

Horrelako irudiak halako gauza behin-behinekotzat hartzen dira beti, nolabait, halako "irudi **pasakorrak**" balira bezala, eta iturburu jakin bat duten iruditat, batez ere (iturburu hori agerian egon zein ez egon). **Josu Zabaleta**

Txillardegi eta, bide batez, euskal modernaje **paxakor** guziari egin ziona da bestea. **Patziku Perurena**

### pasaldi 1 iz pasatzen den aldia. ik pasada.

Baina Abdula-k **pasaldi** batean moztu zidan ilea, eta segituan amaitu zuen; nire anaiak Sami agurtu zuen, eta joan egin ginen. **Juan Kruz Igerabide**

Margolan horiek pintzelaren **pasaldiek** gainazalean uzten dituzten erregularitasun arinez ere baliatzen dira. **Josu Zabaleta**

Inzeminazionea 25 eurotan segurtatzen du AGP-ek, bi **pasaldi** egun berean eginez, lehenago bezala orain ere. **Herria**

Haizerik? tamainan bakarrik, edo pasatu ere **pasaldi** batzuk eta haize-pasarak eman ditu? tamainakoakin pozik ohi da laboraria: Apirila haizetsuak nekazarria poztzen du.

**Pello Zabala**

Ekainean utzi bezala, Baionako pesten **pasaldiak** ber pizturik hasi da Baionan Kantuz gogotsu, indartsu eta airoski. **Herria**

-Emadazu zure **pasaldi** guziak dauzkan paperra, kanpalekuaren buruzagiak sinatua. **Marzel Etxehandi**

### 2 (hegazkinak eta kidekoak)

Hegazkina garretan zegoen, ehiza hegazkinek behin eta berriro errepikatzen zituzten beren **pasaldiak**, hegazkina tiroz zipriztinduz. **Josu Zabaleta**

Hamar minutu ez dira desagertzeaz egon naizela, eta zer kontaturik ez dut, hiru segundoz ikustatu ditudan liztor horien **pasaldia** ez bada. **Josu Zabaleta**

Bakarrik balihoa, gailurretatik hiru metrora edo hazbete batzuetara pasatuko ote litzateke? hurbileko **pasaldien** adikzioa izan ohi dute batzuetan *tourettedunek*. **Xabier**

**Olarra**

### 3 pasatzea, iragaitza. ik pasaia 4.

Lehiaketa baten ondorioz sortu obra bat da, hilarri borobila izanki eta, bizia eta heriotzaren arteko **pasaldia** sinbolotzat hartuz eraikia. **Herria**

### 4 pasarte.

Har ditzake ere berdin liburu batzuetako **pasaldi** zenbait. **Herria**

### 5 pasabidea.

Berehalako batean zeuden betean atari-inguruak, **pasaldi** eta solairu, morroiz eta neskamez beteak. **Patxi Ezkiaga**

### pasaleku iz pasatzeko lekua. ik pasatoki; pasabide; pasagune.

S.S. bat heldu da, eta horra haren ondotik noala **pasaleku**, estaia eta gela mundu biziki handi hartan. **Marzel Etxehandi**

Gaur egun bi txakur dituzte bertan, biak ere lasaiak eta alferrak, baserria jendearen etengabeko **pasaleku** bihurtua dagoenez zaunkarik ere inori egiten ez diotenak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Pirinioen eta itsasoaren arteko bidea egiteko hegaztiak erabiltzen duten **pasaleku** garrantzitsuenetarikoa dago Txingudi. **Berria - Euskal Herria**

Militarren agiriak dienez, gizarte laguntzarako beharrezkoa denean baino ez dute irekiko, oraingo, [Gazako] **pasalekua**. **Berria - Mundua**

Garai hartan, erresistentziako **pasaleku** gisa baliatu zen komentua, mugaz haraindirako bidean milako bat lagun gidatzeko. **Herria**

Gernika igualekoxea zuan guretzat: ihesi zetorren jendearen bilgune eta **pasalekua**; Bilborantzako joan-etorrien nobedadea. **Pako Aristi**

Geldiro doa autobusa, bigarren ilaran aparkatutako **pasaleku** estuetan milimetroak neurtzen. **Urtzi Urrutikoeetxea**  
Hemengo [Kongresuko] **pasalekuetan** espainiera edo beste edozein hizkuntza baino gehiago katalana entzuten da ia. **Berria - Harian**  
Hiru hilabete pasata, trenen zirkulazioa gidatzera itzuliko naiz, bi trenbide nagusiren **pasaleku** den geltokian izanen naiz berriz. **Fernando Rey**  
Trenaren **pasalekura** iritsi da. **Pako Aristi**  
Bi norabide eta bi **pasaleku** ditu, hau da, trenbide pare bi, bata bestearen gainean, New Yorkeko zubi handietan bezalaxe. **Berria - Euskal Herria**

## pasamoduko *izlag* pasatzeko modukoa.

Egunez, **pasamodukoa** zen; huntzak bihurritu eta teilei karranka eragiten zien teiltuetan; gauez, ordea, intzirika jarduten zuen, luze intziri luzez. **Juan Garzia**

## pasamontañas *iz* buruko estalkia.

Kuriosoa da eta pintoreskoa telebista aurrean lotan gelditzea eta esnatzean tipo bat ikustea pantailan, **pasamontañas** jantzita. **Unai Elorriaga**  
Aurpegia **pasamontañas** batez estalita dauka poliziak, eta liburu bat irakurtzen ari da. **Iban Zaldua**  
Rosemarie Trockelen koloretako «**pasamontañasak**» edo Felix Gmelimen bideoaren bandera gorria kalean eramatea indarkeria politikotzat har al daitezke? **Berria - Kultura**  
Ertzaintzaren kuartelaren aurretik behin eta berriro pasatu, **pasamontañasaren** planta egiten zuen artilezko ehun zatia prakaren atzeko poltsikoan. **Iban Zaldua**

## pasante *iz* abokatu-laguntzailea.

Alferrik zen **pasantearen** laguntzan esperantza jartzea. **Anton Garikano**  
**Pasantearen** sudurra urduri zebilen hara eta hona, presaka irekitako kopia-liburu bateko orrietan. **Anton Garikano**  
**Pasanteak** bere txokoa segitu zuen, kopiagailuaren ondoan. **Anton Garikano**

## pasaport ik **pasaporte**.

## pasaporte (*orobat pasaport g.er.*) 1 iz herri batetik beste batera, eta batez ere estatu batetik beste batera joan ahal izateko baimen idatzia, nortasun agiri baten gisakoa dena.

**Pasaporte** haren jabeak bidaia luzeak egiteko baimena zuela zioen eta tsarraren zigilu eta guzti apaindua zegoen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Gutunazal bat topatu nuen, eta bertan Mexikoko **pasaporte** bat. **Patxi Zubizarreta**  
**-Pasaporteko** argazkiari begiratu zion aurrea, gero niri. **Xabier Montoia**  
Lehentxeago **pasaporte** bat nola lortuko nabilen, Iraketik ihes egin ahal izateko. **Juan Kruz Igerabide**  
Muga-marraren ertzerantz iristeko ostera, **pasaporteen** ikuskaritza zorrotza gainditu beharko genuen. **Edorta Jimenez**  
AEBek legez kanpo utzitako **pasaporte** batekin nahi zuelako alde egin Japoniatik. **Berria - Kirola**  
Nonahi entzuten ziren ez diru eta ez **pasaporte** gelditutako juduen istorioak. **Anjel Lertxundi**

### 2 (aditzen objektu gisa)

Ausweiss (**pasaporte**) bat nahi nuen, behin-betikoa, bi kanpalekuetan balioko zuena. **Marzel Etxehandi**  
Iranen sartzeko bisa eskatu nahi nuke -esan diot funtzionarioari ahalik eta aurpegiera atseginean ipiniz, **pasaporte** luzatzen niola leihatilaz bestaldera. **Jon Arretxe**  
Halarik ere, urduri jartzen nintzen **pasaporte** erakutsi behar nuen guztietan. **Anjel Lertxundi**  
**Pasaporte** itzuli zidan zabaldu ere egin gabe. **Anjel Lertxundi**  
**Pasaporte** itxi zuen hurrena, eta, beste barik, itzuli egin zidan, *Bienvenu au Cameroun* esanez. **Xabier Montoia**  
Juduen **pasaportek** baliogabetu zituzteneko garaia zen. **Joxe Austin Arrieta**  
Iheserako informazio nahikoa bildu zuela iruditutako zitaonean, beste lan bati ekin zion: bi **pasaporte** faltutzeari. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
47 **pasaporte** sesitu daizkiote beren autoan, denak Pariseko alde hortan ebatsiak. **Herria**

### 3 (izenondoekin)

**Pasaporte** faltsu baten atzetik gabiltzala jakiten badute, gureak egin du. **Anjel Lertxundi**  
Emakumea irlandarra da jaiotzez, eta Irlandakoaz gain, **pasaporte** britainiar eta irakiarrek ditu. **Berria - Mundua**  
-Zure **pasaporte** diplomatikoarekin, zure izen kubatarrarekin joan zintezke. **Jon Muñoz**  
Minutu batzuk geroago itzuli da, **pasaporte** zigilatutako banatu ditu, eta euron jabeok beste areto batera pasarazi gaitu, alde irandarrean. **Jon Arretxe**  
Wermacht-eko ofizialaren aurrera heltzerako eskuan dut nire **pasaporte** berdea. **Iban Zaldua**  
**Pasaporte** berezia zen, aberriagabe inportante batzuei ematen zietenena. **Fernando Rey**  
Ezertarako balio ez duen **pasaporte** maiztu bat. **Harkaitz Cano**  
**Pasaporte** zimurtua, hizki ez oso argiak, argazki desegokia, diru nahikorik ez aberatsak direla frogatzeko, poliziaren apeta hutsa... **Jon Arretxe**  
Datorren urteko urriaren 26az geroztik **pasaporte** biometrikoa beharko da herrialdean sartzeko. **Berria - Mundua**  
Substantzia berriak atzemateko **pasaporte** biologikoa proposatu dute. **Berria - Kirola**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Duela ordebete agurtu duzu Andrés aireportuko **pasaporte** kontrolaren ondoan. **Lourdes Oñederra**  
**Pasaporte** inprimakiak ziren, behar bezala zigilatutako eta sinatuak. **Matías Múgica**  
Izen-abizenak, **pasaporte** zenbakia eta herriartasuna. **Berria - Mundua**  
**Pasaporte** negoziario ari omen ziren. **Herria**  
**Pasaporte** eredu hori, dena den, ez da behin betikoa izango. **Berria - Mundua**  
**Pasaporte** mota bi dira Letonian; errusiarrek estraterritoriala daukate. **Edorta Jimenez**

### 5 irud/hed

**Pasaporte** bat intimitaterako. **Bernardo Atxaga**  
Arabiarrak eskuzabalagoak ziren, eta zenbaki-**pasaporte** eman zieten irrazionaleri. **Jon Muñoz**  
Larunbat gau batez, egunkariaren edizioa ixteko lanetan nengoela, erredakziora agertu zitzaidan negar-intzirika; kosmosarekin bat egiteko **pasaportek** delako Emilioren ohean banatzen ziren, nonbait, eta Kristina ez egoki tramite horretara. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pasaporte faltsu** (4); **pasaporte zaharrak** (3)

**espainiako pasaporte** (4); **frantziako pasaporte** (4); **israelgo pasaporte** (6); **jordaniako pasaporte** (3); **nansen pasaporte** (3); **nire pasaporte** (5); **pasaporte atera**



(3); **pasaporte du** (4); **pasaportea duen** (3); **pasaportea dute** (5); **pasaportea duten** (3); **pasaportea eman** (5); **pasaportea erakutsi** (4); **pasaportea eskatu** (4); **pasaportea eskatzen** (4); **pasaportea itzuli** (3); **pasaportea kendu** (5); **pasaportea lortu** (3); **pasaportea lortzeko** (3)

**gure pasaporteak** (3); **pasaporteak kendu dizkie** (3)

**pasaportearen fotokopia** (4)

**pasaportetik gabe** (4)

## pasaportedun *izond/iz* pasaportea duena.

Ernst Lange jauna, ongi etorri aleman **pasaportedunon** mundura, eta pasaporte bati eta *permesso di soggiorno* bati eragin zien airean. **Anjel Lertxundi**

Hemen bizi ziren 163.000 euskaldunek, 80 urtez 80.000 emigrante **pasaportedun** eman zituzten, kontrabandan joan zirenak konduan hartuz, bereziki Pasaian gandi, soldadogoa egin behar eta ez baitzuten pasaportetik eskuratzeko ahal. **Xipri Arbelbide**

Adriano Rossatto Italiako **pasaportedun** atzelari barasildarra da. **Berria - Kirola**

Noiz **pasaportedunaren** izena ohiko letra etzanean egon beharrean moldiztegi letretan zegoen. **Matías Múgica**

## pasara ik **pasada**.

## pasaratu, pasara, pasaratzen **1** du *ad* hari eta jostorratzez bilbe moduko bat eginik, saretu den ehuna bete, edo urratu edo zulatu dena josi. ik **sareztatu**<sup>1</sup>.

Mahai karratuaren mutur batean, Lisa eta Augustine arropa **pasaratzen** ari ziren. **Karlos Zabala**

-Hobe liken semearen galtzerdiak **pasaratuko** balitu -esaten zuen-, oinutsik zabilen eta... **Karlos Zabala**

Hari gorritz **pasaratutako** galtzerdi bat. **Fernando Rey**

Puska bat soinekoaren azpildurarena zen, eta **pasaratua** zegoen. **Anjel Lertxundi**

Ez iezadazue arren eska oihal baliotsu horiek eskuz garbitzeko, prentsan lisatzeko, almidoiztatzeko, urratuak puntukatzeko, zarrastadak **pasaratzeko**. **Joxan Eloegi**

## **2** (era burutua izenondo gisa)

Maindire zuri **pasaratu** batek beztitzen zuen harmoniuma. **Koro Navarro**

## pasaratze *iz* hari eta jostorratzez bilbe moduko bat eginik, saretu den ehuna bete, eta urratu edo zulatu dena jostea.

**-Pasaratze** lan polita ari zara egiten. **Xabier Olarra**

## pasarazi, pasaraz, pasarazten (*orobat **pasatuarazi** g.er.*) **1** du *ad* pasatzera behartu. (norbait)

Zuzendaritzako itxaron gelara **pasarazi** zuten, hantxe utzi zuten ordu laurden bat baino gehiago, zain. **Jon Alonso**

Mariok oso bakanetan ekartzen zituen bere lagunak gure etxera, eta ekartzen zituztenean ez zituen **pasarazten** egongelara; bere gelan ixten zen haiek. **Fernando Rey**

Bulegotik **pasarazten** ninduen bakoitzean, esan beharrekoak edo agindu beharrekoak agindu eta gero beti gauza bera galdetzen zidan don Evaristok: [...]. **Joxemari Iturralde**

Patioan, bi ilara osatu genituen, eta erditik **pasarazi** genuen. **Anjel Lertxundi**

Fudgek korridore estura **pasarazi** zuen Harry, Tomen kriseiluaren atzetik, eta gero gela txiki batera eramane zuen. **Iñaki Mendiguren**

Sala handi batera **pasarazi** zituzten. **Aingeru Epaltza**

Mugalari gisa jende anitz **pasarazi** zuen. **Eneko Bidegain**

-Zuk denak ezagutzen dituzu hemen, eta badakikezu nork **pasarazten** dituen jendeak Espainiara. **Elena Touyarou**

Hark ere jendea **pasarazten** zuen mendiaren bertzaldera. **Eneko Bidegain**

Aurrena emakumeak eta haurrak **pasarazi** genituen, gure talde txikiarentzat generaman zaldiaren gainean. **Juan Kruz Igerabide**

Mehatxu eginez, Itsaso Gorria lehorte egin zuen, basamortuan zehar bezala **pasarazi** zituen itsas hondotik. **Elizen arteko biblia**

Zaldi tropa bat behar zuten mugaz bestaldera **pasarazi**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gero, uretatik **pasarazi** ninduen: orkatilaraino iristen zitzaidan. **Elizen arteko biblia**

Dokumenturik barik britainiarizat **pasarazi** zuten, eta ontzian sartu. **Edorta Jimenez**

## **2** (zerbait)

Beldur pixka bat **pasarazi** nien behintzat eta, irten egin nintzen koldar haien zotinen erdian. **Koldo Izagirre**

Berak eta besteek hori pairatu eta gairitu zuten arren, ezin zien hori **pasarazi** bere umeei. **Anton Garikano**

Maite duzun eta tarte ederrak **pasarazi** dizkizun jendearen sofrimendua eragin, mespretxatu eta sofrimendu horri barre egiten diotenak egotea jasan ezin duzulako. **Harkaitz Cano**

Nire anaia alu hark une latz bat **pasarazi** zidan. **Pello Lizarralde**

Beste batzuetan Federicok egiten zion oihu, joateko bere etxetik, gorriak **pasarazi** zizkiola, bizi-poz guztia kendu ziola eta ez zuela berriz ikusi nahi. **Pello Lizarralde**

Atetik sartzen denetik garbi izan dezala zertan **pasarazten** diogun denbora haren alabari. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Historiaren ironia tragikoak, bere sortzaileak **pasarazi** zion arriskutik bizirik iriteteke *tour de force* honetan, Islamak testigantza eman zuen, denboran zehar, Mahomak gizadiari ekarri zion erlijio-mezuaren balio espiritualaz. **Iñaki Mendiguren**

Isaak, nekaturik ordurako, ariketa fisikoagatik bainoago taberna barruan **pasarazi** zioten estuasunagatik, besaulki batean eseri zen. **Felipe Juaristi**

Behar gorrian jarri zintuzten, gosea **pasarazi** eta mana eman zizuten jaten. **Elizen arteko biblia**

Hamaika larrialdi eta zoritxar **pasarazi** didazu. **Elizen arteko biblia**

Zeruko Jaunak gau ona **pasaraziko** dizu, ene seme. **Elizen arteko biblia**

Zoriontsu edo erdi-zoriontsu bizi izan zen harik eta bere senitartekoen, herriko sendagilearen gomendioz, elektro-shockez baliatzen zen tratamendu psikiatrikoa **pasarazi** zioten arte. **Bernardo Atxaga**

Gutunak **pasarazten** zituen, postari baten bitartez. **Eneko Bidegain**

Erratza **pasarazi** dut ene gelan eta despeditu egin ditut ni baino lehen ostaturik zeuden armiarmaak. **Koldo Izagirre**

Enpirismoak erlijioa arrazoi enpirikoen epaitegitik **pasaraziko** du. **Askoren artean**

Ondorioz, eztabaida politikoa metafisikara **pasarazi** da: [...]. **Joxe Azurmendi**

Denbora **pasaraztea** izan da Marokoren estrategia, indarrez edo sahararren beraien borondatez lortu ezin zuena lortzeko. **Berria - Mundua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gelara pasarazi** (5); **gelara pasarazi ninduen** (3)

**gutunak pasarazten** (3)

## pasarazte iz pasatzera behartzea.

Hola ez da modurik hizkuntzaren **pasarazte** naturalik egiteko. **Pello Salaburu**

## pasarela 1 iz oinezkoentzako zubi estua.

Enbarkadero **pasarela** horizontalean zegoen kasik, eta itsasoa txol handitua zegoela konturatu zen. **Koldo Izagirre**

Walt Whitmanek zioenez, Brooklyngo zubia eta haren **pasarela** esekia dira "arimarentzat dagoen erremediorik onena". **Harkaitz Cano**

Ibaieren gainean luzatzen den **pasarela** estua da, estuegia aukeran, eta, oholak zartatuak daudenez, guztiz desegokia takoi luzeen gainean ibiltzeko. **Patxi Iturritegi**

## 2 itsasontzi batera sartzeko zubi modukoa.

Ahuldade itxura areagotu egiten ziren ontzietako **pasarelan** behera ibiltzeko ohiturarik ezak, sokari dardarizo baten oratzen zioten, zangoa zangoari aitzinatzeko beldurrak. **Koldo Izagirre**

Eskua luzatu zidan **pasarelatik** hogeiren bat brazatarra, horiek izan ziren gure mutilaren azken hitzak. **Koldo Izagirre**

Buzoa itsaspean zen eskua **pasarelako** sokaren eske, hura utzi gabe egin zuen gangilerainokoa. **Koldo Izagirre**

**Pasarela** flotean edukitzen zuen gangil txipia kulunkan zerabilten uhinek, zakar jotzen zuten moilan. **Koldo Izagirre**

## 3 modelo desfiteak egiten diren oholta luzea.

Irudipena dut diseinua eta moda erakusketetan eta **pasareletan** ageri dela, baina ez kalean, dendetako erakusleihoetan, eraikuntza publikoen hornikuntzan. **Anjel Lertxundi**

Horregatik onartzen zituen **pasareletako** lanak etsipenez, beste batzuentzat amets izan zitekeena, zoritxarra baitzen berarentzat. **Hasier Etxeberria**

Ez zekien zergatik baina ez zuen ilehoria **pasarela** batean ikusten, eta are gutxiago Donostian. **Migel Angel Mintegi**

Moda marka handiek emakumei ezartzen dioten edertasun femeninoaren mitoa salatzeke, **pasarela** berezi bat egin zuten. **Berria - Harian**

Benetan diotsut Cibeles **pasarelan** agertzen diren hamaikatxo baino ederragoa zela. **Hasier Etxeberria**

-Bihar arte orduan, Casanova -esan zuen barrezka eta alde egin zuen, moda **pasareletako** modeloen ibilkeren imintzioak eginez. **Hasier Etxeberria**

## pasarte 1 iz idazlan baten zatia, halako batasuna agertzen duena.

Erregutu nion **pasarte** bat, laburra badarik ere, irakur ziezadala. **Juan Garzia**

Badirudi, Zizeronek dakarren apaizburuen liburuen **pasarte** baten arabera, erromatarren artean bazirela delitu ordainezinak. **Iñaki Iñurrieta**

Bigarren erreakzio hori izan nuen nik "eskaleen" **pasarte** irakurri nuenean. **Bernardo Atxaga**

Irakurri 44. orrialdeko **pasarte**. **Alberto Ladrón Arana**

Peru Abarkak, liburuko **pasarteetako** batean, Peru eta Marixeren herri-ipuuingintza arbuizaten du, eta ipuin gatz-gabeak direla esaten. **Anjel Lertxundi**

San Joanen ebanjelioa irakurtzeko eskatu zien, **pasarte** honetan hasiz: Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesusek bazekien mundu hau utzi eta Aitarengana joateko ordua iritsi zitzaiona. **Askoren artean**

Pentsatzea, aztertzea, asmatzea -ziostan beste **pasarte** batean- ez dira egintza bitxiak, adimenduaren arnasa arrunta baizik. **Juan Garzia**

Liburuko lekukotasun ugarietatik honako **pasarte** hau aldatuko dut (Lancre 1613 2004: 41): [...]. **Koldo Zuazo**

Arima ez dela zeruan kreatzen, baina bai gorputzaren baitan eta ez gorputzera isuri aitzin, isurtzen delarik baizik, **pasarte** bereko 2. zenbakian erraten den bezala. **Piarres Xarriton**

Hauetakoak dira *Fededun guztiei Gutuna, Ordena osoari Gutuna* eta *Lehen Erregela*-ko zenbait **pasarte**. **Askoren artean**

Idazlearen haurtzaroari buruzko hiruzpalau **pasarte** ondo aztertuak zituen. **Joxean Agirre**

Era berean, **pasarte** horren azalgarri, esan zen: [...]. **Xabier Kintana**

EAEko Unibertsitate Legearen bost **pasarte** eraman ditu auzitara Espainiako Gobernuak. **Berria - Euskal Herria**

Azken hiru liburuetan Hasiera 1, 1-31 **pasartearen** komentario alegorikoarekin amaitzen du bere Aitortzak. **Imanol Unzuurrungaza**

**Pasarte** iluna da eta eztabaida franko sortu du. **Askoren artean**

## 2 (izenondoekin)

Beste behin, Erroman kardinal baten etxean zegoela, **pasarte** ilun batzuei buruz galdetu zioten. **Askoren artean**

**Pasarte** luze samarra hartu dut, zer galdurik ez daukana baina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Liburua 99 **pasarte** laburrek osatzen dute. **Berria - Kultura**

Baditu **pasarte** liriko eta filosofiko sinesgarri polit askoak. Badakizu, halaber, doktoreen **pasarte** ospetsu hura, eta nahi nuke hitz guztiak horien antzekoa izan litezen. **Patziku Perurena**

Pasea gaitetzen haren testuetan, **pasarte** nabarmentxo batzuk han-hemen buruxkatuz: [...]. **Joxe Azurmendi**

Hona gutunaren **pasarte** interesgarrienak. **Xipri Arbelbide**

Sentipen bikoitz berbera dago liburuko **pasarte** zirrargarrietako batean. **Agurtzane Juanena**

**Pasarte** zirrikagarriak gorabehera, doinu serioa zuen gutunak. **Jon Muñoz**

Honatx, esaten dudana frogatzen duten **pasarte** adierazgarri batzuk. **Patziku Perurena**

Predikarien Ordenako anaia baten eskariz, **pasarte** profetiko bat azaldu zuen. **Askoren artean**

Jerusalemeko eta Babiloniako Talmudetako **pasarte** alegoriko baten aipamena. **Xabier Kintana**

Lehen bi zutabeetan 1 Zel-ren zenbakia eta gaia aurkituko ditugu, eta gainerako zutabeetan beste iturrietako **pasarte** paraleloak. **Askoren artean**

## 3 (hitz elkartuetan)

Ebanjelio- **pasarteak** idatzita dauden liburua hartu eta Jaunari erregutu nion bere nahia erakusteko, liburua lehen aldiz zabaltzean. **Berria - Kirola**

Adiskidearen heriotzaren zer-nolakoei buruzkoak batzuk; beste batzuk, berriz, gutunean aipatutako matematika- **pasarte** zegozkien. **Jon Muñoz**

## 4 irud/hed

Imanol Muruaren bizitzaren **pasarte** nagusiak bildu ditu Torrealdaik liburuan. **Berria - Euskal Herria**

Gauzak argitu nahian edo, zuri-beltzeko pelikula- **pasarte** solteak ikusten dira. **Berria - Kultura**

1944ko abuztuaren 11n Lyondik abiatu zen tren-sailean, 78.ean hain zuzen ere, idatzi zuen bizi- **pasarte** zail haren testigantza hura. **Joxan Elozegi**

## 5 (musika-lanetan)

Une askotan, orkestrak azpian utzi zuen, eta **pasarte** zailenetan arazoak zituela ematen zuen. piano hutsarekin aritzeak **pasarte** lasaietara eramaten zuen musikaria askotan. **Berria - Kultura**

Operako **pasarterik** gozoenak Darina Takova abeslari bulgariarrari egokituko zaizkio. **Berria - Kultura**

Giacomo Pucciniren operaren bigarren ekitaldiko **pasarte** hura, esate baterako. **Imanol Zurutuza**

Musika aberatsa, liturgiarako pentsatua eta **pasarte** bete eta sendoak eskaintzen dituena. **Berria - Kultura**

**Pasarte** batzuetan sei edo zazpi piano entzungo dira aldi berean, bata bestearen gainetik grabatuak. **Berria - Kultura**

Diskoan azalduko den kantu baten moldaketa egin dut, hamabi minutukoa, eta hortik lau minutuko **pasarte** bat atera dugu irratirako. **Berria - Kultura**

## 6 (musika-lanetan, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abesti **pasarte** batzuk kantatu nituen ahotsa jaso gabe. Josu Zabaleta

Anitzetan, zenbait musika-**pasarte** entzutean, negarrez hasten nintzen. Alberto Ladron Arana

Haien irakaspen psikodelikoak pop **pasarteekin** uztartzen ditu. Berria - Kultura

Hala, swing, cha-cha-cha eta bolero doinuek bat egiten dute jazz **pasarteekin**, betiere askatasunaren izenean. Berria - Kultura

Dantza **pasarteetan** guztiz atsegina da dantzarien gorputzak Madariagaren musikaren eraginez eroaten uzten ikusteak. Berria - Kultura

## 7 pasagunea, pasabidea.

Itsas zati hura berreskuratzeko aldarrikapen historikoa lehenetsuna hartu du azken hilabeteotan, batez ere, **pasarteak** Boliviako Goi Lautadan dauden gas naturalaren erreserbak esportatzeko aukera ezin hobea delako. Berria - Mundua

Boliviako itsas **pasarteak**. Berria - Mundua

Bere itsas **pasarteak** zen eta, ondorioz, bere lehengaiak munduratzeko bide errazena ere. Berria - Mundua

## pasartetto iz pasartetxoa.

Joan deneko batean, *Hiru Trukuren zintan Gautxu baten* izeneko balada aditzen nengoela, honako **pasartetto** honek para nau gogoetan: [...]. Patziku Perurena

## pasartetxo iz pasarte laburra.

Etxean egon banintz Jacques Preverten *Paroles* liburuko **pasartetxo** bat irakurriko nion. Edorta Jimenez

## pasatoki iz pasalekua. ik pasabide; pasagune.

Oinez jarraituz, bazterrera egin zuen Josebak, **pasatokia** utzi nahiz. Iñaki Zabaleta

## pasatsu 1 adlag pasata.

Eguerdiaren 12: 00ak **pasatsu**, SOS Arrazakeriako kideak agertu ziren lekuan. Berria - Harian

## • 2 (izenondo gisa, kopuruekin) baino gehiago gutxi gorabehera. ik pasa<sup>1</sup>.

Bakarrik egoteko premia sentitzen zuen Norak, elurra hasi zuenetik igarotako hogeita lau ordu **pasatsu** haietan gertatutakoak hausnartu, mamitu, bere egin eta gozatzeko.

Anjel Lertxundi

## pasatu (11071 agerraldi, 273 liburu eta 3154 artikulutan; orobat pasa, pastu g.er. eta pasau g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren pasatu agertzen da), pasa, pasatzen 1 da ad igaro. ik igaro 1.

Fede **pasatu** zen kalean tirri-tarra; bastoiarekin agurtu zuen Joxe, eskuarekin etortzekoa egin zion honek. Pablo Sastre

Zitadelatik bide bat jaisten da maldan behera, kanposantuen gainetik **pasatu** eta Frantziako portalea igarotzen du. Koro Navarro

Zergatik **pasatu** zara hondartza ondotik, tren-geltokitik hartu ordez? Anjel Lertxundi

-Hortik ez, atzo **pasatu** ginen eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontrolaren aurretik **pasatu** beharra dugu, nahitaez, institutura joateko. Anjel Lertxundi

Kuartel aurretik **pasatu** naiz berriro. Anjel Lertxundi

Jendeak **pasatzen** uzten zien. Irene Aldasoro

Malfoy, Crabbe eta Goyle zakar **pasatu** ziren arbola ondotik, izei-orratzak alde guztietara barreiatuz eta pozik irribarre eginez. Iñaki Mendiguren

Bi edo hiru bala txistuka **pasatu** eta lurra jo zuten. Koro Navarro

## 2 (gauza abstraktuez)

Erdi mozkorturik nengoen ordurako, eta, egia esateko, ez nien kasu handirik egin Etxebereen hitzei; biharamunean, ajea **pasatu** zitzaidanean. Iban Zaldua

Baina eldarnioa **pasatu** egiten da. Irene Aldasoro

**-Pasatu** da okerrera. Koro Navarro

Arriskua **pasea** duk. Txillardegi

Agian, hobe litzateke hura dagoen bezalaxe uztea, azterketak **pasatu** arte. Iñaki Mendiguren

Gizon dotoreari haserre laino bat **pasatu** zitzaion begietatik. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Lasai, **pasatuko** zait, utzi pixka batean honela egoten... Iñaki Iñurrieta

Urte gutxiko tartean ikasle bikaina izatetik halamoduzko ikasle izatera **pasatu** zen. Bernardo Atxaga

Hipnositik espasmora **pasatu** zen minutu baten gorabeheran. Karlos Linazasoro

Objektuaren lehenetsun naturaletik subjektuarenera **pasatu** da. Askoren artean

Baraualdi hau frantziskotar Erregelara **pasatu** da, baina ez betebehar bezala, borondatezko ekintza bezala baizik. Askoren artean

Sekula ez nuen senargairik izan, eta muxuetatik harago **pasatu** gabe nengoen mutilekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskaraz hasten zituen beti elkarrizketak, nahiz eta segituan erdarara **pasatu** behar, batik bat baserrietako jendearekin. Juan Kruz Igerabide

Ez Esterlich, ez Villaluenga, ez Escalante [...] inor ez zen hirugarren edo laugarren mailako idazle izatetik **pasatu**. Iban Zaldua

Gero Alderdi Sozialistara **pasatu** zen. Fernando Rey

Margolan indartsu baina nahiko beldurgarri eta arrotz haietatik, hogeita hamar urtez ukitu ez zituen gaietara **pasatu** zen. Xabier Olarra

## 3 sartu; denbora gutxirako joan.

Beste zenbaitek bezala (nola ez aipa Florentino Goikoetxea famatua, hernaniarra, "Comète" sarean muga-pasatzaile izan zena?) gazte anitz Espainiara **pasatzen** lagundu zituen. Marzel Etzehandi

Jendetza hark lehenbailehen nahi zuela zirku barrura **pasatu**. Koro Navarro

**-Pasa** zaitetz salara, gizona -eskatu zion atezainak, eskua luzatuz barrurako gonbita egiten ziola-. Joxemari Urteaga

**Pasatzeko**, egiten diot buruaz, eta liburua ixten dut. Anjel Lertxundi

**Pasa** zaitetz Samsundik, nire herritik, eta han eramango zaitut nik dakidan leku batera. Jon Arretxe

Ez dakit noiz **pasatu** behar duzun pentsioa kobratzera. Anjel Lertxundi

Ricardo, gaztetan krisialdi bat izan eta sanatorio psikiatrikotik **pasatu** zena. Bernardo Atxaga

Kontabilitate departamentutik **pasatu** behar zutela fakturek, faktura errepikatu behar zela ondo egina ez zegoelako... Iñaki Iñurrieta

Itzuleran, amaren adiskide batek Donostian zuen hotelxo batetik **pasatu** ginen. Anjel Lertxundi

## 4 muga jakin bat gainditu.

Es hadi **pasatu**, errepikatu zuen, denok zeukeagu aldatzeko eskubidea. **Iban Zaldúa**

Alex **pasatu** egin da. **Fernando Morillo**

-Barkatu, beharbada **pasatu** egin naiz. **Sonia Gonzalez**

-Bale, **pasatu** gabe, gaur oraindik ez diagu porrorik erre eta. **Iñaki Iñurrieta**

-Kontuz, zaharra, **pasatu** gabe. **Iñaki Iñurrieta**

## 5 gertatu, jazo.

Zer **pasatu** da ba? **Berria - Kultura**

-Ze ostia **pasatu** da? **Unai Iturriaga**

Egun batekoagatik ez zaizu deus **pasatuko**. **Anjel Lertxundi**

Igual pentsatuko duzue ez zaio ezer **pasatuko**. **Anjel Lertxundi**

## 6 ahaztu.

-Esan dinat atzo esatea **pasatu** egin zaidala. **Unai Iturriaga**

## 7 du *ad* igaro. ik **igaro 4**.

Tolosatik atera eta Anoeta aldera abiatu zen eta Anoeta **pasatu** zuen, eta Irura gero, eta Billabona gurutzatu zuen. **Koro Navarro**

Loretopeko tunela **pasatu** eta aurrera jarraitu zuten. **Iñaki Iñurrieta**

Semaforo gehientsuenak bere horretan **pasatu** zituen, berdean egon zein gorrian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bidean zubi bat **pasatu** behar nuen, eta beldurra ematen zuen ibaiak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Erreka **pasatu** eta gure oilategian pikardiak egiten hasi zen. **Anjel Lertxundi**

-Ate txikitxo hori **pasatuta** da nire gelako bidea. **Anjel Lertxundi**

## 8 (denborazkoetan)

Helsinki aldi bat **pasatu** ondoren, nihilisten taldekoa izandako kide baten bitartez, basozain lan erosoa lortu zuen lurjabe handi baten lurretan. **Iban Zaldúa**

Pianoaren aurrean ia egunero **pasatzen** ditudan sei-zazpi orduak markatu dute nire bizitza, Hola **pasatu** nuen ene lehen astea. **Anjel Lertxundi**

Hilabete **pasatu** baino lehen, errubloaren kontrako espekulazioa hasi zen. **Koro Navarro**

Larunbat osoa ohean **pasatu** nuela erantzun nien. **Anjel Lertxundi**

Pantomimaren kopia egiten **pasatu** zituen hurrengo eskolaren lehen minutuak. **Anjel Lertxundi**

Elkarrekin **pasatuko** dugu goiza. **Anjel Lertxundi**

Telebista aurrean **pasatu** genituen ordu haiek guztiak. **Iban Zaldúa**

Farmaziako ikaslea zenean zenbat arratsalde luze eta gozo **pasatu** zituen Barcelonetako kai ertzean liburukoteak eta apunteak hanka tartean. **Josu Landa**

## 9 (denborazko inbertsonaletan) ik **igaro 7**.

Hilaren erdia **pasatua** zen. **Irene Aldasoro**

Zorionez, **pasea** zen ikustaldi ordua. **Ramon Saizarbitoria**

Urteak ere saldoka **pasatu** dira judua nintzela jakin ez eta juduak gorroto nituenetik. **Anjel Lertxundi**

**Pasatu** ziren urteak, eta agortu zen itxaropena. **Iñaki Iñurrieta**

Denbora apur bat **pasatuta**, kapelak zintzilik zituzten lekura ere ezin zuten hegaz egin. **Julen Gabiria**

Konturatu nintzen ordu erdi **pasatua** zela zuzendariarekin eta bulegoko bezerorik hoberenarekin nuen hitzordutik. **Ramon Saizarbitoria**

**Pasatzen** dun denbora, eta ez diten orakuluaren hitz erdi bat ere entzuten. **Anjel Lertxundi**

Gaua ziztuan **pasatzen** da. **Julen Gabiria**

Bederatziak **pasatuak**. **Piarres Aintziart**

## 10 pasarazi, igaroarazi; zerbait toki batetik bestera eraman.

Soka osorik horman behera joan zenean, sekulako ahaleginak eginez, ateratako barrak uzten zuen irekiunetik gorputza **pasatu**, eta horman behera jaisten hasi zen irristaka. **Koro Navarro**

Eugeniaren bulegora **pasatu** nindutenean, besoak gurutzaturik larru berdez tapizaturiko mahai baten ertzean eserita aurkitu nuen. **Ramon Saizarbitoria**

Annetek soinekoari tiratzen zion aldiro-aldiro goraka; gero, eskua **pasatzen** zuen iletik. **Anjel Lertxundi**

Eskua bekoki mindutik **pasatu** zuen, begiak estaltzen zizkion lainoa uxatuz bezala. **Agustin Otsoa**

Corleyk goiko ezpainetik **pasatu** zuen bizkor mihia. **Irene Aldasoro**

Hatz bat **pasatu** nuen ateko plakatxotik: "W.P. Weber". **Alberto Ladron Arana**

Hatzak **pasatu** zituen loki batetik bestera, kalpar harrotua berdindu eta soilgunea estaltzeko. **Anjel Lertxundi**

Oteizarena hartu eta orriak **pasatzen** hasi zen. **Iñaki Iñurrieta**

Orriak **pasatu** eta bekokia zimurtu zuen Aita Butlerrek. **Irene Aldasoro**

Atsoak ontziko argia ezkaratza osotik **pasatu** eta esan zuen [...]. **Koro Navarro**

Erratza **pasatu**, eta eseri zara. **Lander Garro**

Politikoen kolektiiboak ez zuen beste presoen lan-indarra erosiko, ez ziegan **ianbasa** pasatzeko ez galeria baldekatzeko ez arropa zikina garbitzeko. **Koldo Izagirre**

## 11 zerbait beste norbaitengana igaroarazi.

Hermannek garagardoa **pasatu** zidan. **Anjel Lertxundi**

Gurdia kargatu behar; pala **pasatu** zidan Morgane. **Joxean Sagatzizabal**

Tragua jo zuen, Jabiri zahatza **pasatu**, eskuak igurtzi zituen. **Pablo Sastre**

Lagun batzuek **pasatu** ziguten; Polonian erosi bide zuten, han ibili ziren garaian. **Iban Zaldúa**

Telefonoa kakoan utzi eta Excelsiarrera deitu nuen, eta azkenean Eubanksen konpainia lanean ari zen platora **pasatu** zidaten deia. **Fernando Rey**

Neure galtzontzilo batzuk **pasatu** nizkion. **Aingeru Epaltza**

Eskaera-orri bat **pasatu** zidan. **Anjel Lertxundi**

Kattalinen eta Elederren testuak **pasatu** dizkiot nire geriatrari. **Anjel Lertxundi**

## 12 egoera jakin batean egon.

Ikasi nahi nuen, ondo **pasatzen** nuen eskolan. **Anjel Lertxundi**

Ostalaria barrez galdezka hasi baitzitzauzun ea ongi **pasatu** genuen, zeharka gure aurpegi asaldatuetera begiratzu. **Juan Garzia**

Ondo **pasatu** zuten Zapore Guztietako Gozokiak jaten. **Iñaki Mendiguren**

Primeran **pasatu** nuen, lehengusuekin etxoletan, baina ez ditut maite zerri-saiheskiak. **Aingeru Epaltza**

Ederto **pasatu** nuen, tutean jokatzu eta kantuan. **Edorta Jimenez**

Izugarri ondo **pasatu** nuela esan beharko nuke, baina amaierako zatia ez zen hain pozgarria suertatu, adinak ez baitu barkatzen. **Iban Zaldúa**

Edonola ere, zoragarri **pasatu** zenuen. **Patxi Iturrategi**

Gaizki **pasatzen** ari zen, ez neukan haren aurpegira begiratu beharrik hori jakiteko. **Anjel Lertxundi**

Nahiko gaizki **pasatu** zuten Norbertekin... **Iñaki Mendiguren**

Gizajoa oso gaizki ari da **pasatzen**, nabari zaio -dio maitemindu etilikoak. Ezkonberritan oso-oso gaizki **pasatu** nuen... **Iñaki Iñurrieta**

## 13 igaro. iasan.

-Ene amak ere gorriak **pasatu** izan zituen, Gestapoaren eta SSen kontrolekin -hasten da kondatzen Jackie. **Eneko Bidegain**

Pentsatzen dut gurasoek hilabetean gosea **pasatu** beharko dutela hori dena ordaintzeko. **Iñaki Mendiguren**

Udan bero izugarria **pasatu** genuen, eta neguan, berriz, berealdiko hotza egin zuen urte hartan. **Juan Kruz Igerabide**

-Arrosarioa nik kartzelan **pasatu** nuena, Paca. **Jon Maia**

Nahikoa **pasatu** duzu gaixo horrek, orain inor galderak egitera etortzeko. **Anjel Lertxundi**

Ez zen harritzekoa amak han hotza **pasatu** izana. **Xabier Olarra**

## 14 gainditu.

Bakardadearen proba **pasatu** berria du, uxatu ditu fantasmak. **Bernardo Atxaga**

Azkenik, iazko urrian, plaza hori behin betirako lortzeko oposizioa **pasatu** behar izan nuen. **Joxerra Garzia**

Gure dietak, askotarikoak izanik ere, proba garrantzitsu bat **pasatu** behar du. **Irene Aldasoro**

Selektibitatea esaten dioten espantukeria zentzugabe hori **pasatu** behar izan duen mutil baten aita naizelako. **Joxerra Garzia**

## 15 (bestelakoak)

San Bartolome berri bat antolatu gogo zuten noski, katolikoan lepotik oraingoan, eta hiriko apez, monje eta serora guztiak espataz **pasatu**. **Aingeru Epaltza**

-Erreklutei errebista **pasatu** beharko diek? **Aingeru Epaltza**

Iraila zen azken batean, irailaren erdialdea, eta arratsaldeko seiak **pasatuta**. **Anton Garikano**

Hik bota hion ederra Gojenola gizajoari! **pasatuta** gertatu zuan. **Iñaki Iñurieta**

## 16 burutik pasatu

Pentsamendu bat **pasatu** zitzaion Gabrieli **burutik**. **Irene Aldasoro**

Idea bat **pasatu** zitzaidan **burutik**: nola eduki zitzakeen hainbeste imitatzaile eta miresle halako galdera tontoak egiten zituen pertsonaia batek? **Bernardo Atxaga**

Idea bitxi bat **pasatu** zitzaidan **burutik**. **Anjel Lertxundi**

Ez zait **burutik pasatu** ere egin. **Oskar Arana**

Agian izarren bat ikusiko zuela **pasatu** zitzaion **burutik**. **Koro Navarro**

Eta orduan **burutik** zer **pasatu** zitzaidan, ez dakit, egiazki ez dakit! ez zaio **burutik pasatu** ere egiten euskarak, kasu, industrian egon behar duela, eta politikagintzan, hezkuntzan, literaturan. **Janbattitt Dirassar**

Batzuetan bi eta hiru gauza batera **pasatzen** zitzaizkion **burutik**; benetan pentsatu gabe, **burutik pasatu** besterik ez, baina gauza asko batera, eta buruko mina eragiten zion horrek. **Ramon Saizarbitoria**

## 17 pasatuxe pasatu xamar.

Eguerdi **pasatuxean**, Donapaleuko jendarmeak Harrondo mirazkatzen ari ziren. **Itxaro Borda**

Bere nobeletako protagonistak 40ak **pasatuxeak** dituzten gizonetakoak dira. **Berria - Kultura**

Anfetamina dagoela, kokaina dagoela, ketamina dagoela edo beste inaren bat (droga tragikomikoak aipatzeagatik, jenero heroikoa modatik **pasatuxea** dagoen honetan).

**Iñaki Segurola**

Adiskidantzaaren garairik onenak **pasatuxeak** baitziren ordurako. **Xabier Montoia**

Zortziak eta laurden dira **pasatuxerik** eta oren bat eta laurdenez han izanen gira orotara: "haizea nola den" salatzen daut ni baino trabatuago batek beharri xilora. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

albotik pasatu (7); alferrik pasatu (7); artean pasatu (7); artetik pasatu (7); asko pasatu (59); asko pasatu da (9); asko pasatu dira (14); aste pasatu (7); astebete pasatu (7); aurrean pasatu (10); aurretik pasatu (77); aurretik pasatu gabe (8); aurretik pasatu ziren (8); azpitik pasatu (15)

berehala pasatu (9); berriro pasatu (7); beste aldera pasatu (12); bi aldiz pasatu (7); bi hilabete pasatu (10); bi urte pasatu (7); burutik pasatu (143); burutik pasatu ere (75); burutik pasatu zitzaion (9)

denbora asko pasatu (17); denbora luzea pasatu (10); denbora pasatu (51); denbora pasatu ahala (14)

egiten pasatu (8); egitera pasatu (10); egotera pasatu (8); egun batzuk pasatu (8); egun pasatu (41); egun pasatu dira (8); egunak pasatu (16); egunak pasatu ahala (10); ekintzetara pasatu (19); elkarrekin pasatu (9); epailearen aurretik pasatu (17); erdia pasatu (7); eskua pasatu (13); eskuetara pasatu (7); eskuetatik pasatu (7); etxean pasatu (9); etxetik pasatu (9)

gaizki pasatu (53); gaizki pasatu nuen (17); gaizki pasatu zuen (7); garaia pasatu (7); gaua pasatu (9)

hamar urte pasatu (11); han pasatu (10); handik pasatu (15); hauteskundeak pasatu (9); hemene pasatu (9); hemendik pasatu (7); herrian pasatu (8); hilabete pasatu (51); hilabete pasatu dira (12); hilabeteak pasatu (11); hiru egun pasatu (7); hiru urte pasatu (7); hitzetatik ekintzetara pasatu (18); hor pasatu (7); hortik pasatu (11)

izatera pasatu (77); izatera pasatu da (15); izatera pasatu zen (14); izatera pasatu ziren (7)

kontrola pasatu (11)

lanean pasatu (7); lau urte pasatu (9); lekukoa pasatu (7)

minutuak pasatu (10); mozkorra pasatu (9); muga pasatu (8)

nola pasatu (33)

oharkabean pasatu (37); ondo pasatu (38); ondotik pasatu (46); ongi pasatu (37); ontsa pasatu (9); ordu pasatu (17); orduak pasatu (12); orriak pasatu (11); oso gaizki pasatu (23); oso ondo pasatu (8)

paretik pasatu (22)

pasatu arren (13); pasatu arte (56); pasatu aurretik (7)

pasatu baino lehen (19); pasatu baita (7); pasatu baitira (9); pasatu baitzen (9); pasatu beharra (17); pasatu beharreko (9); pasatu beharrik (7); pasatu berri (11); pasatu berria (7)

pasatu da (216); pasatu dela (24); pasatu den (42); pasatu dena (7); pasatu denean (11); pasatu dio (24); pasatu dira (219); pasatu dira ordutik (7); pasatu direla (20); pasatu diren (33); pasatu diren arren (7); pasatu ditu (37); pasatu dituen (7); pasatu ditugu (14); pasatu ditut (16); pasatu dituzte (14); pasatu du (53); pasatu duela (7); pasatu duen (10); pasatu dugu (29)

pasatu duk (9); pasatu dut (36); pasatu dute (46); pasatu duzu (9)

pasatu gara (23); pasatu genituen (20); pasatu genuen (40); pasatu ginen (37)

pasatu izan (35); pasatu izana (9); pasatu naiz (12); pasatu nintzen (41); pasatu nion (11); pasatu nituen (29); pasatu nuen (80)

pasatu ohi (7); pasatu omen (11); pasatu ondoan (15); pasatu ondoren (132); pasatu orduko (8); pasatu ostean (35); pasatu ote (9)

pasatu zait (28); pasatu zait burutik (12); pasatu zela (21); pasatu zen (295); pasatu zenean (18); pasatu zidan (22); pasatu zion (33); pasatu zirela (15); pasatu ziren (162); pasatu zirenean (16); pasatu zituen (79); pasatu zituzten (20); pasatu zitzaidan (54); pasatu zitzaidan burutik (40); pasatu zitzaian (9); pasatu zitzaion (42); pasatu zitzaion burutik (13); pasatu zuela (7); pasatu zuen (147); pasatu zuten (53); pasatuak pasatu (28)

primeran pasatu (9)

sei urte pasatu (8)

uda pasatu (12); urte asko pasatu (23); urte batzuk pasatu (7); urte pasatu (138); urte pasatu dira (50); urte pasatu ondoren (15); urteak pasatu (40); urteak pasatu ahala (7); urtebete pasatu (19)

zer pasatu (56); zer pasatu da (13); zer pasatu den (12); zer pasatu zen (9)

pasatuak pasatu (28); urte pasatuak (8)

noiz pasatuko (8); nola pasatuko (16); oharkabean pasatuko (11); ondo pasatuko (10); pasatuko da (122); pasatuko dela (16); pasatuko den (19); pasatuko dira (52); pasatuko direla (7); pasatuko du (9); pasatuko dugu (8); pasatuko duk (7); pasatuko dute (8); pasatuko gara (9); pasatuko litzateke (10); pasatuko naiz (11); pasatuko zela (17); pasatuko zen (20); pasatuko ziren (7); pasatuko zutela (8)

zer pasatuko (15)

urte pasaturik (8)

gauerdia pasatuta (9); urteak pasatuta (9)

gainetik pasatuz (18); pasatuz gero (11)

artetik pasa (9); astebete pasa (7); asteburu pasa (7); aurretik pasa (31) bi egun pasa (9); bi urte pasa (12); bost urte pasa (7); burutik pasa (49); denbora pasa (194); denbora pasa ahala (9)



egun pasa (68); egunak pasa (7); epailearen aurretik pasa (8); erdia pasa (17); ez pasa (7); gainetik pasa (21); gaizki pasa (17); gaua pasa (9); gehiago pasa (9); hamar urte pasa (10); hilabete pasa (29)

jo eta pasa (12); muga pasa (14); nola pasa (7)

oharkabeen pasa (13); ondo pasa (32); ondotik pasa (15); ongi pasa (15); orduak pasa (14); oren bat pasa (11); oren pasa (9); osoa pasa (12); paretik pasa (9)

pasa ahala (27); pasa al (7); pasa ari (10); pasa arren (8); pasa arte (19); pasa behar (75); pasa behar izan (18); pasa beharko (18); pasa beharra (10); pasa berri (10); pasa da (83); pasa dela (9)

pasa den (316); pasa den asteen (37); pasa den asteazkenean (10); pasa den asteburuan (19); pasa den astelehenean (10); pasa den denboraldian (15); pasa den igandean (12); pasa den larunbatean (10); pasa den ostegunean (7); pasa den ostiralean (12); pasa den urtean (17); pasa den urteko (21)

pasa denean (7); pasa dio (9); pasa dira (59); pasa diren (10); pasa direnean (9); pasa ditu (15); pasa dituen (7); pasa du (24); pasa dugu (7); pasa dut (16); pasa egin (31); pasa egiten (10); pasa eta (175); pasa eta gero (42); pasa eta pasa (16); pasa gara (9); pasa genituen (9); pasa genuen (11); pasa hasi (8); pasa izan (8); pasa nahi (23); pasa nintzen (7); pasa nituen (12); pasa nuen (15); pasa omen (13); pasa ondoren (73); pasa ostean (13); pasa zaio (9); pasa zait (7); pasa zaitez (12); pasa zen (82); pasa zion (12); pasa ziren (57); pasa zituen (28); pasa zituzten (9); pasa zitzaidan (9); pasa zitzaion (7); pasa zuen (36); pasa zuten (12)

txarra pasa (7); urte asko pasa (9); urte pasa (87); urte pasa dira (16); urteak pasa (14)

aurretik pasatzean (34); ekintzetara pasatzeko (41); ekintzetara pasatzeko eskatu (10); gaua pasatzeko (35); hitzetatik ekintzetara pasatzea (7); hitzetatik ekintzetara pasatzeko (33); oharkabeen pasatzea (8); ondo pasatzea (31); ondo pasatzeko (30); ondotik pasatzean (39); ongi pasatzeko (16); paretik pasatzean (20) denbora pasatzeko (24); pasatzea erabaki (13) albotik pasatzean (8); pasatzeko aukera (21); pasatzeko eskatu (19); pasatzeko gai (7); pasatzeko garaia (9); pasatzeko parada (37)

aise pasatzen (8); albotik pasatzen (8); alferrik pasatzen (11); artetik pasatzen (14); aukera pasatzen (8); aurrean pasatzen (10); aurretik pasatzen (42); azkar pasatzen (7); azpitik pasatzen (11); bertatik pasatzen (8); burutik pasatzen (44); denbora asko pasatzen (9); denbora gehiago pasatzen (8); denbora pasatzen (23)

egunak pasatzen (10); egunero pasatzen (9); erratza pasatzen (8); eskuetatik pasatzen (10); etxean pasatzen (8); ez da pasatzen (7); gainetik pasatzen (30); gaizki pasatzen (23); gaua pasatzen (7); gehiago pasatzen (18); han pasatzen (7); handik pasatzen (29); handik pasatzen zen (7); hemendik pasatzen (9); hor pasatzen (9); hortik pasatzen (11)

irakurtzen pasatzen (7); jendea pasatzen (9); kaletik pasatzen (7); muga pasatzen (11); nola pasatzen (27)

oharkabeen pasatzen (29); ondo pasatzen (43); ondotik pasatzen (38); ondotik pasatzen zen (8); ongi pasatzen (22); ordu pasatzen (7); orduak pasatzen (13); orriak pasatzen (27); oso gaizki pasatzen (7); oso ondo pasatzen (12); paretik pasatzen (24)

pasatzen ahal (10); pasatzen ari (191); pasatzen hasi (34); pasatzen ikusi (29); pasatzen ikusten (15); pasatzen utzi (91); pasatzen utziko (9); pasatzen uzteko (29); pasatzen uzten (38)

primeran pasatzen (10); ugari pasatzen (7); utzi pasatzen (11); zer pasatzen da (32); zer pasatzen den (25); zerbait pasatzen (8)

egun batzuk pasatzera (9); gaua pasatzera (12); ondo pasatzera (8); oporrak pasatzera (7); pasatzera utzi (7); uda pasatzera (10)

aurretik pasatzerakoan (14); ondotik pasatzerakoan (17); paretik pasatzerakoan (7)

## pasatuarazi ik pasarazi.

### pasatuño 1 izond ipar adkor pasatua.

Tanto ederrik izan dela ezin uka bainan parioako beti hein bertsuaren egon dira ez baita sekulan izan berdintzerik gehiago partidak irauan duen oren bat eterdi **pasatuño** hortan.

**Herria**

### 2 pasatuñorik adlag

Bi urte **pasatuñorik** gobernuaren buru dela. **Herria**

Oren bat **pasatuñorik** eman du bidean, aintzineko aldietan baino denbora gehixago bainan egia erran bakarrik bi minuta gehiago. **Herria**

Hortik partitzen baitzen lasterraldi arrakastatsu bat, maratoi-erdi baten heinekoa, 20 kilometra **pasatuñorik** beraz, Donibanetik Hondarribiarat. **Herria**

## pasatxo 1 adlag adkor (kopuruekin) baino gehiago. ik pasa<sup>2</sup>.

Hamaikak **pasatxo**. **Sonia Gonzalez**

Hamabiak **pasatxo** ziren etxeratutakoan. **Unai Iturriaga**

Urtebete **pasatxo** zen aldatu nuela. **Anjel Lertxundi**

Laurak **pasatxo** agertu zen Atxuriko lokalera. **Unai Iturriaga**

Eztabaidak luze jo du eta, konturatzerako, arratsaldeko ordu biak **pasatxo** ziren. **Patxi Zubizarreta**

Oraintxe bost urte **pasatxo**. **Iñigo Aranbarri**

Iritsi berriak bi ordu **pasatxo** eman zituen gau-jairako prestatzen. **Jose Morales**

1793ko abenduan -bi urte **pasatxo** zeraman libre-, kartzelan sartzen dute berriro. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hogeita hamar urte **pasatxo** izango zituen sport arropa dotorez jantzitako emakumeak. **Migel Angel Mintegi**

Bost mila duro **pasatxo** lortu nituen horrela. **Iban Zaldúa**

Hiru milioi euro **pasatxo** pagatuko ditu, hamar hektarako ontasun horren gozamina berriz eskuratzeko. **Herria**

Gizona baino buru **pasatxo** garaiago zen neska. **Jon Muñoz**

Kilo erdi **pasatxo** azukre zeukan kukuruxto bat. **Juan Garzia**

### 2 (deklinabide atzizkiekin)

Adituek diotenez, gaur egungo iragarkietan %80a **pasatxok** umorea darabil aldez edo moldez. **Joxerra Garzia**

Baina soldata parekatzeagatik gastatuko duen milioi euro **pasatxori**, Eguberriak saskia ordaintzeko behar diren 120.000 euroak eta antzintasuna ordaintzeko behar diren beste hainbeste gehitu behar zaizkio. **Berria - Ekonomia**

Ordubete **pasatxoan** iritsi ziren beste geltokira. **Josu Zabaleta**

Goizaldeko ordu bata **pasatxoan** sartu zen gelaxkara, Brooklyngo zubian zehar bezero batzuk zeramatzala bularrean min sentitu ostean. **Oskar Arana**

Han zen "Konkon" esaten genion bi metro **pasatxoko** mutil puska. **Joxerra Garzia**

Ez zuen gogoratu hilabete **pasatxoko** tartean. **Unai Iturriaga**

Mutil gazte bat hurreratu zitzaigun, 20 urte **pasatxokoa**, zira jantzita. **Juan Luis Zabala**

Beste biak gutxi gorabehera nire adinekoak ziren, hogeita hamar **pasatxokoak**, bizkar-zabalak, lepo sendo eta aurpegi gorrikoak. **Xabier Olarra**

Hilabete **pasatxoren** buruan. **Bego Montorio**

Hogei urte nituenean baztertu nuena laurogei urte **pasatxorekin** egitera behartzen nau! **Jon Muñoz**

## pasatzaile (orobat pasatzale) 1 izond norbait edo zerbait pasatzen duen pertsona.

Mugen **pasatzaile** espresak, paper faltsu egileak, makiako jendea eta airekoetatik erori soldadoak aterbetu zituztenak. **Marzel Etxehandi**

Beste gauza batzutat deusik ez dakit, hala nola **pasatzaileak** biltzen diren ostatuko nausiaren izena. **Marzel Etxehandi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Nola ez aipa Florentino Goikoetxea famatua, hernaniarra, "Comète" sarean muga- **pasatzaile** izan zena? **Marzel Etxehandi**

Droga **pasatzale** sare bat desegin du Erzaintzak Bizkaiko Getxo eta Deustu inguruetan. **Herria**



## pasatzale ik pasatzaile.

### pasatze 1 iz igarotzea.

F fantasmatsuaeren parajeetatik pasatu beharrean dago, nahiz eta oraingoan **pasatze** hori samurra suertatuko zaion. **Bernardo Atxaga**

Lehengusuen eta Eusebioren arteko istorioak ziren mugaren **pasatze** haiek, behin edo berte gertatu baitzitzairen laguntzaren ekartzea. **Eneko Bidegain**

Itsasu eta Kanboko gau eskolek elgarrekin apailatzen dute korrikaren **pasatze** hori gure xokoetarik. **Herria**

Inor ez da joaten horietara festak direlako, gure herrietan egiten dugun bezala, ongi **pasatze** hutsagatik. **Fernando Rey**

Zein esanguratsua zen batetik bira, unitatetik aniztasunera eta hala infinitura **pasatze** hura. **Juan Garzia**

Ez da mugimendu bat bera ere, jarrera bat bera ere, ondoren bat, gero bat, hurrengo unera **pasatze** bat inplikatzeko ez duenik. udako tenoreak baduela ona txarreakin, negukoak ere ba, baina makurrena dela denen buru batetik besterat **pasatze** hori, horrek gauza aintz nahasten duela. **Juan Garzia**

Baina gehien atxikitzen nauena gogo-egoera berezian denbora ez **pasatze** hori duzu. **Jose Angel Irigaray**

### 2 (hitz elkartuetan)

Arazo fiskalak ere erreformatu zituen erregeak: zentsu berri guztiak kentzeko agindu zuen; ez jasotzeko Gontran, Sigeberto eta Txilperiko hil ondoren ezarritako **pasatze**-eskubiderik. **Iñaki Iñurrieta**

### pasatzeke *adlag* pasatu gabe.

Laurogei urte geroago, ekioparen igoera ospatzeko Gaztelu Enparantzan muntatutako jai erraldoiaren biharamuna artean **pasatzeke** dimititu zuen Nafarroako Hizkuntza Politikako zuzendaritza nagusiak, Fernando Perez de Viñaspre buru zuela. **Iñigo Aranbarri**

## pasau ik pasatu.

### pasaxe *izond adkor* ik pasa<sup>2</sup>.

Denetara 132.700 kilo altxatu ditu 6 orren **pasaxetan**, hau harritzekoa da. **Herria**

### pascaldar *izond* B. Pascalena, Pascali dagokiona.

Etika posmodernoaren aniztasunetik eta edozein jarreratarira irekia dagoen ikuspegitik erradikalki urrun dago postura **pascaldar** hau. **Joseba Zulaika**

Erabakiaren zentzu **pascaldarrean** finkatzen da subjektibotasun moderno hau, kontzientzia nazionala subjektu berri horren parte izanik. **Joseba Zulaika**

Apustuaren subjektibotasun **pascaldarrean** Egia inposatu zuen ETAK. **Joseba Zulaika**

### pase 1 iz pasatzea.

Hegazkin aldraren **pase** lilluragarrixa. **Txillardegi**

Iberiko Penintsulako hegazti-**paserako** migrazio lekuri garrantzitsuenetako bat Bizkaiko Golkoa denez, [...]. **Berria - Kultura**

Uso **pasea** bukatu da ehiztariarentzat, Fassakoen zakuan erortzen baitira denak. **Berria - Kirola**

- Finalurrekoetan, saioko irabazleak finalerako **pasea** lortuko du **Berria - Kultura**

### 2 futboleant, saskibaloian, errugbian edo kidekoetan, jokalaririk batek talde bereko beste bati, jokaldia segi dezan, baloia pasatzea.

**Pasea** emateko aukerarik ez badu, berak bukatzen du jokaldia. **Berria - Kirola**

Hiru edo lau **pase** nahikoa zituen bere area ertzetik galiziarrenearaino hurbiltzeko. **Berria - Kirola**

Bizpahiru **pase** lotuz gero, arriskua sortzeko gai zirela ikusi zuten zuri-urdinek. **Berria - Kirola**

15. minutuan Kakak ez zuen Serginhoren **pase** bat sareratzeko asmatu. **Berria - Kirola**

Gobeleak entsegua, hagen aitzinean bilketa eragin eta Yachvilik **pasea** egin ondoren. **Berria - Kirola**

Aho bete hortz gelditu zen, besteak beste, 70 metroko **paseak** egiteko gauza zela ikusterakoan. **Berria - Kirola**

Bi gol egiteaz gain, goleko **pase** bat eman du eta baloi bat zutoinera bidali du. **Berria - Kirola**

**Pase** labur eta azkarren bidez. **Berria - Kirola**

Edozer egiteko gai da: barruraino sartu, pibotari **pase** onak eman, edo kanpoan dagoen hegalekoari jaurtiketa erraza egiteko aukera eskaini. **Berria - Kirola**

Argitaletxe bat futbol-taldea bezalakoa da, aurre aldean tontakeria asko, **pase** ugari, iskin egitea, ez gutxi, burukada dezente, baina atezaina erreumak jota badago elbarria bada, akabo taldea. **Jon Alonso**

Albotik jokatuz, **pase** luzeak, goitik joz... **Berria - Euskal Herria**

Azken **pasean** huts egin zuen. **Berria - Kirola**

Zure **pase** bakoitzak / txoratzen gaitu / zure dribling bakoitzak / estasian jartzen. **Joan Mari Irigoien**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pase** lerroak zainduz baloi asko lapurtu zituen, aurkariaren eraso geldituz, eta kontraerasorako bidea aurkituz. **Berria - Kirola**

Defentsan gogortasun egokia mantendu zuen Baskoniak lehen laurdenean, eta **pase** lerroak oso ondo zaindu. **Berria - Kirola**

Kokalariren arteko **pase** jokoak moztzen saiatu beharko dira etengabe. **Berria - Kirola**

Zona barneko **pase** jokoak arazorik gabe zulatu baitzuten bilbotarren buruz buruko defentsa. **Berria - Kirola**

Bata **pase** emaila gehiago, bestea golegile bikaina baina ez berekoa. **Berria - Kirola**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garciaren gol **pase** dotore bati esker, Vegak berdindu egin zuen atsedenaldea baino lehen. **Berria - Kirola**

### 5 zezenari, kapa edo muletarekin deitu ondoren, egiten den kapa-pasaldia.

Lertxundi Lertxundi "El donostiarrak" zezenarekin zeukan trebezia erakutsi zigan arratsaldean, eta **pase** bakoitzean, ole eta ole oihuz bete genuen giroa. **Rafa Egiguren**

### 6 emanaldia.

Egunotan **pase** osoak egiten ari gara zenbait pertsona sartuz publiko gisa, estreinaldiaren eguna shock bat ez izateko. **Berria - Kultura**

### 7 pasatzeko baimen agiria.

Ruilope horrek, dokumentuak aztertutik, **pasea** eman die; funtzionarioak legezko eta baliozko deritze paperoi. **Edorta Jimenez**

Ezin emango dizut kontserbatoriora aurkezteko **pasea**. **Anjel Lertxundi**

Rodriguezek «**pase** forala» egiteaz akusatu zuen Elorza. **Berria - Ekonomia**

## 9 **paseko izlag** bertan bizi ez dena, bidez dagoena.

Ed harro zegoen, oker ustean bertakotzat jotako **paseko** ibiltariaren harrokeriaz. **Mirentxu Larrañaga**

Bere alabaren heriotzagatik mina adierazi ezin duen ama eta **paseko** bidaiariaren arteko adiskidetasuna elurrezko pastel batean gauzatuko da. **Berria - Kultura**

Bera guregana etorri zen, ez gonbidatu gisa, ez **paseko** atzerritar gisa, baizik eta, soldaduekin eta auto-gidariekin etorri zen, gerrak hondatutako bideetatik barrena. **Felipe Juaristi**

## 10 irud/hed

Gauza hoiek **paseko** ekaitzak bezalakoak dira. **Paseko** maitaleak ote zituen galdetu nion neure buruari behin baino gehiagotan. **Ramon Etxezarreta**

**Paseko** lekua duzu hau, behin-behinekoa. **Harkaitz Cano**

## 11 **paseko hegazti**.

Hegan igarotzen ziren **paseko** hegaztien antzera. **Jose Morales**

Halako soinu motel eta goibel bat jotzen zuen, eta astiro itzaltzen zen goietan, **paseko** hegaztien intziri urrunaren antzera. **Jose Morales**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**beste pase bat** (3); **egindako pase** (4); **gol pase** (4); **goleko pase** (3); **hiru pase jarraian** (4)

**pase bat eman** (3); **pase bikaina** (6); **pase bikainak** (4); **pase dotorea** (3); **pase ederra** (4); **pase eman** (3); **pase erabakigarri** (4); **pase gehiago** (3); **pase jarraian** (7); **pase lerroak** (6); **pase luze** (3); **pase luzea** (4); **pase luzeak** (5); **pase luzeen** (3); **pase luzeetan** (4); **pase neurtua** (3); **pase ona** (5); **pase onak** (5); **pase sakon** (6); **pase sakon bat** (4); **pase zehatza** (3)

**azken pasea** (20); **azken pasea ematerakoan** (3); **egin zion pasea** (12); **pasea baliatuta** (16); **pasea egin** (11); **pasea eginda** (3); **pasea eman** (8); **pasea eman zion** (3); **pasea emateko** (4); **pasea ematerakoan** (3)

**goleko paseak** (3); **paseak ematen** (3)

**azken pasean** (5)

## **paseabide** (3 *agerraldi*, 3 *liburutan*) 1 iz paseatzeko bidea. ik **pasealeku**.

Kontxako **paseabidean** edo hondartzan dabilzan ibiltariak. **Iñaki Iñurrieta**

Ondoren haizeen bi zatiketa horien arteko angeluek zehaztuko dizkigute kaleen eta **paseabideen** trazuak. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 paseoa.

Eta seriotasun handiz hasi zuen berriro bere **paseabidea**. **Josu Zabaleta**

## **pasealari** (*orobat **paseiari g.er.** eta **paseolari g.er.***) iz paseatzen ari dena.

"Marihuana..." murmurikatzen zieten **pasealari** hormaren kontra zeuden mutilek, denak beltzak edo hispanoak. **Iñaki Zabaleta**

Bide guztietan barrena aurkitzen ziren zomorro burrunbari urre-koloreko horiek, baketegi haren egiazko jabeak, ibilbide eta zidor haietako egiazko **pasealariak**. **Josu Zabaleta**

Kazetari tropa ugaria -dolu-egileak adina-, **pasealari** kezka gabeen tankeran. **Aingeru Epaltza**

Dutertre, metrailatzailea eta ni, hiru **pasealari** baizik ez baikin, landetan zehar ibili eta lepoa gehiegi jaso beharrik gabe, ez baitu egiaz ia euririk ari, etxerantz geldiro itzultzen. **Josu Zabaleta**

Horretan pauma bikote bat, belardietan **paseiari**, begira gelditu zait. **Txillardegí**

**Paseolari** maiteminduentzat pentsatua baitirudi kanpoko parkeak. **Edorta Jimenez**

## **pasealdi** iz paseoa.

Biharamunean, **pasealdia** Lisboa ezagutzeko. **Edorta Jimenez**

**Pasealdi** bat baizik ez zen, gainera, niretzat, haren etxaldea Rouendik bost bat legoatara baitzegoen. **Josu Zabaleta**

Biharamunean jakingo dut idazleak eta kantariak **pasealdi** ederra egin zutela. **Edorta Jimenez**

Uda betean goiz txintako argi urratzean **pasealdi** zoragarria zena ibilaldi luze eta neketsua zen orain, elurretan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Maggiak eta biek **pasealdi** luzeak egiten zituzten elkarrekin. **Juan Garzia**

Azken egunean hiriburuan **pasealdia** ematean konturatu nintzen Estatuko kapitolioaren aurrean, masta handiaren puntan, hegotarren bandera zegoela harrera-emaile, haizea harro igurtziz. **Iñaki Zabaleta**

## **pasealditxo** iz pasealdi laburra.

Esnatzerakoan urtegiaren ertzetik **pasealditxo** bat egitea erabaki genuen. **Txillardegí**

## **pasealeku** (285 *agerraldi*, 49 *liburu* eta 81 *artikulutan*; *orobat **paseialeku g.er.***) 1 iz paseatzeko lekua.

Kanposantua alde batera utzi eta herria inguratzen duen arbolekiko **pasealeku** batera heldu ziren. orkestrek musika alaiak jotzen dituzte **pasealeku** publiko guztietan. **Koro Navarro**

**Pasealeku** Zabalean dago, Kensington Jauregiaren aurrean. **Julen Gabiria**

**Pasealeku** Berrira arrainetara joateko asmoz jaiki zen ezordua haietan. **Migel Angel Mintegi**

Itsasoari begira geratzen omen ziren **pasealekuan** dauden harrizko eserlekuetan jesarrita. **Joxean Agirre**

Ez zitzaion gustatzen jendea zebilen **pasealekuetara** joatea. **Josu Zabaleta**

**Pasealekua** bikotez beterik zegoen, baita musika noiz hasiko zain zeuden familiaz ere. **Lopez de Arana**

Eskuinetara, **pasealeku** estu bat zedarritzen zuten zuhaitzek. **Aingeru Epaltza**

Paseoan ibiltzen ziren elkarrekin Po ibaiaren **pasealekuan** eta Valentinoren lorategietan. **Fernando Rey**

Parke eta **pasealeku**, zenbait gunetan 150 zentimetroko altuera ukan zuen elurrak. bi adiskideak Castellanan eta Prado aldean ibiltzen ziren pasieran; probintzietako **pasealeku** aspergarri, hautsez bete eta motel baten itxura izaten zuen garai hartan. **Pello Zabala**

Negu partean, eguraldi ona egiten duenean, **pasealeku** horietan entrenatzen dira atletak. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 (hitz elkartuetan)

Beatrice pomeraniarrarekin batera joan da, dotore baino dotoreago, Grand Plageko itsas **pasealeku** bustian zehar. **Iban Zaldúa**

15:00ak aldera, horretarako trebatutako txakurrak baliatuz, poliziaek bonba aurkitu zuten, itsas **pasealeku** inguruko harri lubetan. **Berria - Euskal Herria**

## pasean *adlag* paseatzen.

Eta lxaskunek sumatu bezala, gaur, larunbata, eguraldi ederra, jende asko **pasean** . Txillardegí

Askotan, ilunabarrean etxetik jaitsei, eta Aturri ertzetik **pasean** ibiltzerakoan, umeak jostari topatzen genituen. Txillardegí

## paseante *iz* pasealaria.

Hilario Tapia, haren Emaztea eta Alaba, Koxme, Txoferra, Azokako jendea, **Paseanteak** , burrunzia prest ljiitoak. Pablo Sastre

## pasearazi, pasearaz, pasearazten du *ad* paseatzera behartu.

Axiloto edo ihes egindako askoren andreak ilea arraso moztuta **pasearazi** zituzten Estafetan zehar, atzean txaranga zutela. Berria - Harian

Han bandera espainiar bat lotzen zieten, gero hirian zehar **pasearazteko** . Mikel Hernandez Abaitua

Harrak eta bareak mordoka ziren lorategian, gizon izandako asko ziren, hanka iletsuzko armaia handien itxura harturik, beren eraldaketa nazkagarria haren langelako hormetan zehar **pasearazten** . Josu Zabaleta

"Damu zaitezte anai-arrebok", eta urrezko kiribil baten moduko tramankulu bat **pasearazi** zuen bertaratu guztien aurretik. Joxan Elozegi

Iragarkiak **pasearazten** zituen gizonak berak Roselliniren film batetik erauzitako figurantea ematen zuen. Josu Landa

## paseatu, pasea, paseatzen (*orobat paseiatu g.er. eta pasiatu g.er.*) 1 da *ad* egurasteko, atsegin hartzeko edo gorputza sasoian edukitzeko ibili. ik **promenatu**.

Bere lana horretara mugatzen zen, **paseatzera** eta begiratza. Harkaitz Cano

Grazia ikaragarria egin zion Florent goiz guztian Claude Lantierrekin **paseatu** zela entzuteak. Karlos Zabala

Kale-jantzia zebiltzan poliziek **paseatzen** ikusi ohi zuten sarritan, serio-serio hizketan. Irene Aldasoro

Pentsa ezan, ezagutu besterik ez eta besoa emanda elkarrekin **paseatzen** ! Xabier Mendiguren Elizegi

Goiz osoa **paseatzen** eta marrazten eman ondoren, Hewson familiarenera itzultzen ziren bazkaltzera guztiak. Xabier Olarra

Kaleetan zehar **paseatzen** ibili naiz. Josu Zabaleta

Oso garbi gogoratzen dut zein lasai ibiltzen nintzen, baita gauez ere, Languedoc-Rousillon-eko haran bakarti eta harritsuetatik **paseatzen** . Bernardo Atxaga

Berrogeita hamarren bat lagun zebiltzan **paseatzen** . Josu Zabaleta

Gelan batera eta bestera **paseatzen** zen larriturik, bere buruari galdeka zer jantziko ote zuen. Fernando Rey

Tiroen beldurrik gabe **paseatzen zen** han barrena. Karlos Zabala

Egunez, arima herratu gisara **paseatzen** ziren herriko kaleetan, eta gauean negar egiten zioten ilargiari. Jon Maia

Salmenten nahaspila eta istiluen artean **paseatzen** zen, merkaturko kaleetan barrena ibiltzen zen pauso txikiz. Karlos Zabala

Gelan aurrera eta atzera **paseatzen** zen astiro, eta berak seinalatutakoak erantzun behar zuen. Joseba Sarrionandia

Ezin da **paseatu** ala? -galdetu zuen Zalakainek. Koro Navarro

Aparkalekurako bidean bikote bat ikusi nuen lorategian poliki **paseatzen** . Bernardo Atxaga

Ihesean gindoazen, edo harro eta gaizto **paseatzen**, larderiatsu, geure jabe ziren kale haietatik mendialde iragarri ezinezkorantz. Koro Navarro

Ibai ertzean eguzkitan **paseatzen** ari nintzela, zalantza sartu zait nire zentzu onean ote nagoen. Josu Zabaleta

Ez nituen jadanik ikusten emakumeak, kizkurgailuak buruan, lasai asko **paseatzen** . Jon Muñoz

Sait Patrick Katedrala, **paseatzeko** horren atsegina den Bosgarren Etorbidea, Metropolitan Museum [...]. Gotzon Garate

**Paseatzeko** eta solastatzeko lagunak, alaialdian elkarrekin irri egiteko lagunak, ilunaldian elkar kontsolatzeko lagunak. Felipe Juaristi

Topaketa odolgirozko horiek izan ez zitezen, talde bakoitzarentzako **paseatzeko** ordu bereziak antolatuta beharra izan zuen zuzendariak. Josu Zabaleta

Txukun-txukun jantzita ateratzen da arratsaldero **paseatzera** . Bernardo Atxaga

-**Paseatzera** eramango **zaituztegu** -esan zuen Billek. Koro Navarro

Jatetxetik ateratakoan, **paseatzera** joatea proposatu nion. Xabier Olarra

-Eskuak gibelean lotu, eta **paseatuz** ematen zituen eskolak. Anjel Lertxundi

### • 2 du *ad* norbaitek norbait paseatzera atera.

Bestela, neska hispano kontratatu batek **paseatuko** zuen. Iñaki Zabaleta

Ederki zekien emazteak lagunene inbidia eragiteko **paseatzen** zuela bera abenidan gora eta behera, trofeo baten moduan. Jokin Muñoz

Arratsaldeetan hiri osoan zehar **paseatzen** ninduen. Joseba Urteaga

-Ez dituk hire putak **paseatzera** eroaten? Josu Landa

Haurra **paseatzen** jartzen bahaute, **pasea** ezak, Jainkoarren. Juan Garzia

Espaloian, emakume larraz jantziek beren zakurtxo pedanteak **paseatzen** zituzten. Unai Iturriaga

-Txakurra **paseatzera** ? Joxemari Urteaga

· Paduan zehar **paseatuko** nauen bus bat hartu, eta bidean ikusten titudan seinaleei esker dakit halako eraikuntza Chiesa Eremitani dela, hurrengo Unibertsitatea, [...]. Anjel Lertxundi

Geu gara hankak eta eskuak puztuta batetik bestera gure gerri berria **paseatzera** behartuta gaudenak. Arantxa Iturbe

### 3 irud/hed

Hilero txeke bat hartu, bizitzeko diru juxtuz, eta pobretasuna **paseatu** eskuak dado jokoan trebatzen ziren bitartean. Iñaki Zabaleta

Sartu, eta gelan barrena **paseatu** zituen bere begi biribilak. Juan Garzia

Begirada **paseatu** zuen sukaldean. Anjel Lertxundi

Haren oroitzapen bihotz erdiragarria **paseatu** zuen Guyanako gau argitsuetan. Karlos Zabala

### 4 du *ad* (zer/nor osagairik gabe; *Euskaltzaindiaren Hiztegian ez da agertzen erabilera hau*)

Lulu jaiki zen, eta une batez dendan zehar **paseatu** zuen, irribarrez. Josu Zabaleta

Kalera noa dena ahazteko; beste edonork bezala **paseatzen** dut, baina kaleetan ez dago ezer, jendea eta dendak baino ez. Eskarne Mujika

Baina askotan **paseatzen** zuen kale hartatik edota egon ohi zen inguruko kafeterietako batean zerbait hartzen, juxtu bere ustez ni pasa nintekeen orduetan. Joxemari Iturralde

Inoiz ez zekien eskuakin zer egin **paseatzen** zuenean. Joseba Urteaga

Ama etorri zaizu gero gogora; Bilbora bisitan etortzen zitzaizunean elkarrekin nola **paseatzen zenuten** . Rafa Eiguren

Denok maite genuen Marga apur bat, baina Matiasekin **paseatzen** zuen, Matiasek usaintzen zizkion perfumak hurbilen. Unai Elorriaga

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bakarrrik paseatzen (4); elkarrekin paseatzen (4); hirian paseatzen (3); hondartzan paseatzen (3); kalean paseatzen (3)

paseatzen ari (36); paseatzen ari zen (6); paseatzen da (5); paseatzen dira (3); paseatzen dut (3); paseatzen genbiltzala (3); paseatzen hasi (9); paseatzen hasi zen (4);

**paseatzen** ibili (11); **paseatzen** ibili ginen (3); **paseatzen** ikusi (5); **paseatzen** jarraitu (7); **paseatzen** zebilen (6); **paseatzen** zen (12); **paseatzen** ziren (7); **paseatzen** zuen (7)

**poliki paseatzen** (3)

**elkarrekin paseatzera** (3); **nirekin paseatzera** (3)

**paseatzera atera** (19); **paseatzera atera nintzen** (3); **paseatzera aterako** (3); **paseatzera ateratzen** (14); **paseatzera bidali** (4); **paseatzera eraman** (5); **paseatzera eramaten** (4); **paseatzera irten** (5); **paseatzera irten ginen** (3); **paseatzera joan** (10); **paseatzera joatea** (5); **paseatzera joaten** (8); **paseatzera joaten ziren** (3)

## paseatzaile 1 iz paseatzen den pertsona. ik promenatzaile.

Gainerako jendea -lantokietakoak, **paseatzaileak** - aldian behin soilik azaltzen zen, eta ez hain justu liburu bat erostera, baizik eta, gehientsuenetan, telefonoz deitzera.

**Bernardo Atxaga**

Motxila handiak eta janzerak salatzen dute mendizalea, ez **paseatzaile** noragabearen ibilerak.

**Aingeru Epaltza**

Izan ere, zer zorion izan lezake **paseatzaileak**, ardura akademikorik gabe nagi eta gozo dabilen zaletuak, lotura bitxi samarrak egitea ez bada?

**Bernardo Atxaga**

Museoaren saletan **paseatzaileentzat** jarrita dauden bankuetako batean eseri, eta horretan pentsatzeari ekin nion.

**Bernardo Atxaga**

Ni ahaleginean ari naiz, eskuak patrikan, txistu eginez, eta ahal dudan lautasun handienarekin, **paseatzaileentzat** debekatuta dagoen baina zaintzaile guztiek -besteez

fidaturik- igarotzen uzten duten lorategi honetatik igarotzen...

**Josu Zabaleta**

## 2 (hitz elkartuetan)

Nire **paseatzaile** jakinminaren xedea lehengo berbera zenez, arreta berezia jarri nuen margolariak Kristo eta Lazarori [...] emandako azalean.

**Bernardo Atxaga**

Hala bada, nire **paseatzaile** ikuspegitik [...] Museo del Pradon zintzilikatutako biluziek adierazten dutena Isabel de Borbón, Carlos V.a edo Doña Margarita de Austria sobera

jantziengan sumatzen dugun berbera da.

**Bernardo Atxaga**

## paseeran adlag paseatzen.

Kurrioloen Erreginarena kontatu nion Triana auzoan zehar **paseeran**.

**Felipe Juaristi**

Ez dago osteratxoak egiteko, **paseeran** ibiltzeko edo mendirako asteburu oro dugun joera erreparatzea besterik.

**Pello Zabala**

Joanes, buruaz Salomon printzea agurtu eta, lorategian barrena joan zen **paseeran**.

**Felipe Juaristi**

## pasegile iz futboleantza, paseak egiten dituen.

Arestian aipatu jokalariek horiek golak sartzeko ardura dute, baina horretarako **pasegilea** behar da.

**Berria - Kirola**

Yattara ginearra oso txikia da, bizkorra, **pasegile** onena, zorrotza.

**Berria - Kirola**

Jokalariek dinamikoak, bizkorra, teknika handikoa eta **pasegile** zorrotza.

**Berria - Kirola**

## paseialeku ik pasealeku.

## paseiari ik pasealari.

## paseiatu ik paseatu.

## paseilo iz

Horretarako hainbat ekitalditan egongo gara, Zeledon Txiki edota **paseiloetan**, esaterako.

**Berria - Euskal Herria**

## paseitto iz

Bilbo inoiz ikusi duten guztiek dakiten bezala, hiriko auzo batzuk, azken etorkintzat eraikitakoak, mendi malakretan daude kokatuta, eta haietara oinez iristeko ahalegin bat

egin behar da nahitaez; ez da aski kantak aipatzen duen **paseitto** delakoa.

**Bernardo Atxaga**

## paseko ik pase 9.

## paseo (482 agerraldi, 123 liburu eta 49 artikulutan) 1 iz paseatzea, ibilaldia. ik pasiera; promenada.

**Paseo** bat zen harentzat bidaia hura, txango atsegin bat.

**Karlos Zabala**

Igandeetan, bainua, meza, domino-partida edo autoan **paseoa** arratsaldean.

**Joseba Urteaga**

Arratsaldero bezala **paseo** bat ematea proposatu nion Lizi.

**Bernardo Atxaga**

Museoko saletatik emandako bigarren **paseo** hartan pentsatu nuen gauza bakarra zera izan zen.

**Bernardo Atxaga**

-Ez al dugu hobe **paseo** bat ematea?

**Pako Aristi**

Nahiago dinat **paseo** bat ematea, axola ez bazain.

**Iban Zaldúa**

Hofrat Klementi goizeroko **paseoa** ematen zebilen Liechtenstein parkean.

**Anton Garikano**

Gero bi orduko **paseoa** eman behar zaiok, bestela lo-muker egoten duk.

**Fernando Rey**

Zuzen-zuzenean joan zitekeen kalera bere aulki gurgildunean eguneroko **paseoa** egitera.

**Jon Muñoz**

Ohartu zen gaizki sentitzen nintzela, eta **paseo** bat egin nahi ote nuen galdetu zidan.

**Fernando Rey**

Gauetz gau, gero eta **paseo** luzeagoa egiten hasi zen, harik eta, egun batez, Downtowneko moilaraino iritsi zen arte.

**Harkaitz Cano**

Ez Hellow ez nik, aukietan eserita, egonean egoteko gogorik ez genuenez, **paseo** bat egitera irten ginen.

**Josu Zabaleta**

Diziplina gutxieneko bat ezarriko dio bere buruari: ibiltokiko promenadetan huts ez egitea, ahal izanez gero, **paseoak** eta ariketa fisikoak uztartzea...

**Filipe Bidart**

**Paseo** bat gutxi zela: asteburu bat eskatu nion.

**Harkaitz Cano**

Handik bi ordu, Nataliaren etxeraino luzatu zuten **paseoa**.

**Aritz Gorrotxategi**

Ibilian-ibilian eta kontuok buruan, **paseoak** hiriguneraino eraman nau.

**Anjel Lertxundi**

Bere **paseo** hartan, joan-etorri batzuen ondoren, mandioaren paretetako batera iritsi, hari bizkar eman, eta kontra-kontra eseri zen.

**Inazio Mujika Iraola**

**Paseoaren** abiapuntua izandako terrazan ziren handik minutu gutxitara. **Josu Landa**

## 2 (izenondoekin)

Ordurako **paseo** labur batzuk egiteko gauza nintzen, logelan eta etxeko bigarren solairuan. **Alberto Ladron Arana**

**Paseo** luze bat Lorategietatik. **Julen Gabiria**

Prentsaren irakurketa urduri hartan ordu batzuk eman ondoren, **paseo** txiki bat egin zuen Gernikako kaleetan zehar. **Juan Luis Zabala**

**Paseo** ederrak egingo genituen Aita Santuak eta biok -azaldu zuen Lucasek-: estazio inguruan; astiro, hori bai. **Unai Elorriaga**

Neskak agur esan zuen, gero arte, izan dezazula **paseo** ona. **Bego Montorio**

Oso **paseo** atsegina izan zen. **Ramon Saizarbitoria**

Patioan ibili gara **paseo** urdurian eta laster gara leihatilan gure esne kutunaren galdez. **Jokin Urain**

Lucero, ezkongaietako **paseo** erromantikoen oroitzapen bat gehiago bihurtu zen burduntzian. **Jon Maia**

Zehatz-mehatz oroitzen zuen Sarak **paseo** gorabeheratsu hura. **Joan Mari Irigoien**

Gosalondoan eman genuen **paseo** ez oso luzean, Margaritak 18 hotel, 10 pizzeria eta berrogeiren bat klub zenbatu zituen. **Bernardo Atxaga**

Hau ez dela **paseo** militar bat izango. **Berria - Mundua**

## 3 (hitz elkartuetan)

Mallonak alaba biak hantxe ikusten zitian, kartzelako patioan, **paseo** orduetan. **Edorta Jimenez**

Areatza inguruan **paseo** alditxoa egin ostean terrazan jesarri nintzen. **Edorta Jimenez**

## 4 pasealekua.

**Paseo** Berrirantz abiatu ziren Sara eta Karmele, Kursaalera zubian barrena. **Joan Mari Irigoien**

2004ko abuztuaren 28an, A Coruña (Galizia) **Paseo** Maritimoan lehergailuz egindako ekintza. **Berria - Euskal Herria**

Zeramikazko plater handi bat zen, buztinzale bizardun bati Santa Clarako **paseoan** erosi ziotena. **Koro Navarro**

Alex? -deitu zion Julenek, **paseo** aldera begiratu hura ere, lagunak zer ikusi ote zuen jakiteko. **Fernando Morillo**

Buelta emanez beste aldetik joateko, **paseoan** zehar, Bankes jauna zenbait gauzetaz ohartu zen. **Anton Garikano**

-Kantxako **paseoa**: 50 euro. **Berria - Kirola**

## 5 *paseoan adlag* paseatzen.

Gu biok hondartzan **paseoan**, eta gu biok larrugorritan jartzeko ideia etorri zitzaion Giselari, aberaskumeari. **Fernando Rey**

Jauregiaren kanpoaldean umeak eta maitemindu bikoteak ikusten ziren, **paseoan**. **Edorta Jimenez**

Kalean barrena **paseoan** eta zigarroak erretzen. **Pello Lizarralde**

Lasai zetorren, **paseoan**. **Bernardo Atxaga**

Hiribidean barrena joaten ziren **paseoan**. **Fernando Rey**

Astiro-astiro **paseoan** gindoazela tokitxo polit bat aurkitu genuen, eta atsedean hartzera eseri ginen han. **Josu Zabaleta**

Mary Ann bera azaldu da atean, eta Josebaren eta Helenen bila joan gara biok **paseoan**. **Bernardo Atxaga**

Osaba Juan azaldu zen eguerdian Faraonekin **paseoan** ibili ondoren, eta arropaz aldatzera sartu zen etxean. **Bernardo Atxaga**

Ezin gara kotxean **paseoan** ibili eta mintzatu? **Fernando Rey**

Bazoa azafalondoan hondartzara **paseoan** ibiltzera, eta horrek Sodoma eta Gomorra ematen du. **Koro Navarro**

Noir bulebarrak ez du **paseoan** dabiltzanezi lausenguka ibiltzen zaizkien kale burgesen piura lotsagabea. **Monika Etxebarria**

Emakume adinekoek errieta ematen diete ama gazteei seme-alabak behar bezain arropa beroekin ez janzteagatik; espaloitik doan jendeak txakurrak **paseoan** ateratzen dituztenei agiraka, hedeari estuegi eusteagatik. **Oskar Arana**

Gazte biak **paseoan** hasi dira patioaren alderik alde, agurearen kromoa zeharrez barrandatzeko. **Koldo Izagirre**

**Paseoan** jarraitu zuten, beti ere txaluparia bistan zutela, hura ere kaialderantz. **Iñaki Iñurrieta**

## 6 *paseoko izlag*

**Paseoko** zaldi talde handi bat edukitzea. **Bernardo Atxaga**

**Paseoko** mutilen txilio gordin txorrotxen ostean. **Pello Zabala**

**Paseoko** abiadura mantoan zihoazen eta harpa jo zion albotik Mentxuk Rafari. **Josu Landa**

**Paseoko** une batean. **Bego Montorio**

Lubisek osaba Juanentzat lan egiten zuenez, noiznahi ibiltzen zirenez Pantxo eta Ubanbe Iruaingo zaldien inguruan **paseokoak** zirelako, Obaban sekula izandako zaldirik politenak- "patroiaren ilobari egindako deferentzia" izan zitekeen beren jarrera lagunkoia. **Bernardo Atxaga**

## 4 *paseoa eman* 1936ko gerran, norbait indarrez hartu eta epaiketarik gabe hil.

Gerran presoak nola makilatzen zituzten, nola ateratzen zituzten **"paseoa"** ematera... **Jokin Urain**

-Nork bermatzen dit ez didatela **paseoa** emanen? **Koldo Izagirre**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**paseo bat egin** (3); **paseo bat eman** (5); **paseo bat ematea** (7); **paseo bat ematera** (7); **paseo berri** (4); **paseo berrira** (4); **paseo luze** (6); **paseo luzea** (3); **paseo luzeak** (10); **paseo luzeak ematen** (5); **paseo txiki**

**mitxoleta artean paseoan** (3); **paseoan genbiltzala** (3); **paseoan gindoazela** (4); **paseoan hasi** (5); **paseoan ibili** (11); **paseoan ibili ziren** (4); **paseoan ibiltzea** (6); **paseoan ibiltzeko** (3); **paseoan ibiltzen** (8); **paseoan ibiltzen ziren** (3); **paseoan ibiltzera** (4); **paseoan nenbilela** (4); **paseoan nenbilen** (3); **paseoan zebilela** (5); **paseoan zebilen** (11); **paseoan zehar** (3)

## paseokide iz beste norbaitekin paseoan ibiltzen dena.

Isiltasuna nagusitu da berriro, eta tarte horretan, nire **paseokideak** lurrera begira erretzen zuen bitartean, zera pentsatu dut, normala dela noizik behin horrelako morroi arraroren bat aurkitzea. **Jon Arretxe**

Aldeko eta kontrako argudioak defendatu dituzte jarraian nire **paseokideek**, biak ere kultura handiko gizonak direla erakutsiz. **Jon Arretxe**

Zergatik esan diezu alemanak garena? -galdetu diot **paseokideari** bakarrik geratutakoan. **Jon Arretxe**

## paseoko ik **paseo** 7.

## paseolari ik **pasealari**.

## paseotxo iz paseo laburra.

**Paseotxo** bat egiteko premia dut. **Anjel Lertxundi**

Txakurrarekin goizero egin ohi zuen **paseotxo** egitera atera zenean. **Imanol Zuruza**  
Seminarioko mutileri ordu eta laurdeneko **paseotxo** eginarazi. **Pello Zabala**  
**Paseotxo** bat eman dugu geriatriko atzeko parkean. laster emango zuten **paseotxo**. **Anjel Lertxundi**  
Bazkaldu du, egin du siesta, eta ohiko **paseotxo** ematera irten da emaztearekin. **Anjel Lertxundi**  
Igartzen da berak bai egina duela **paseotxo** bat "korta" horretatik. **Sonia Gonzalez**

## paseozale *izond* paseoen zalea dena.

Panpanoen gerizpera egon behar zuketean batuta baserritarrek, **paseozaleen** zain, eta ez zegoen inor. **Koldo Izagirre**

## pasha ik **paxa**<sup>1</sup>.

## pashtu ik **paxtun**.

## pashtun ik **paxtun**.

## pasiada *iz* pasiera.

-Hainbeste **pasiada**. **Iñaki Iñurrieta**

## pasiatu ik **paseatu**.

## pasibidade ik **pasibitate**.

## pasibitate *(20 agerraldi, 7 liburu eta 8 artikulutan; orobat **pasibidade** g.er.) iz* pasibotasuna.

Agian **pasibidadea** edo erosotasuna leporatuko didazue, elkarrizketatan ezer ez aportatzea. **Harkaitz Cano**  
Poza, ekintza eta **pasibitatea** nahasian dituen bizitza bat zen. **Joan Mari Lekuona**  
Une hartan, nik uste **pasibitate** hutsa izan zela: han egon, ez ezer esan, ez ezer egin, eta inertiari utzi, beraz, bere bidea egiten. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Lamarcak eta Arteagak izandako jarrera salatu zuen Bilgune Feministak: «Ez dute ezer egin eta erabateko **pasibitatea** erakutsi dute». **Beria - Harian**  
Gezurrezko **pasibitatean** biltzen dira, eta hemendik oker asko jaiotzen zaizkie Jauna hainbeste desohoratzen dutenei. **Joan Mari Lekuona**  
Hurrengo atalen izenak: dominazioa eta **pasibitatea**, ikasketak, nerabezaroa, sexualitatea, lana, motibazioak, [...]. **Joseba Sarrionandia**  
Nola ez nuen onartzen haren isiltasuna, ezta haren **pasibitatea** ere, aitak umiliatzen zuen bakoitzean. **Joan Mari Irigoien**

## pasibo 1 *izond* jasatera, pairatzera mugatzen dena, egintzarik gabekoa. **antaktibo**. (pertsonak)

Arrazoizko argudioek, bestalde, argi erakusten dute, beraz, gizona eraginkorra dela, eta emakumea egonkorra, lehenengoa aktiboa eta bigarrena **pasiboa**. **Patxi Zubizarreta**  
Erabaki okerrak hartzen dituen bezain erruduna baita ikusle **pasiboarena** egiten duena. **Beria - Ekonomia**  
Ikusle edo entzule **pasibo** gisara agertzen direnentzat musika deserosoa da. **Beria - Kultura**  
Irakurlea **pasiboagoa** da. **Markos Zapiain**  
Biktimak pertsona nahiko **pasiboak** dira, beren burua gutxitua ikusten dute, belduriak dira, beste guztien arbuioen beldur direlako baiezkua ematen dute beti. **Beria - Euskal Herria**  
Txiletarrak izaeraz oso lotsatiak eta **pasiboak** direla aintzat hartuz. **Beria - Mundua**  
Tabakoak 7.000 pertsona, erretzaileak eta erretzaile **pasiboak** hiltzen ditu urtean. **Beria - Gaiak**  
Zaharrak sarritan agente **pasibotzat** hartu ditugu, baina ez, prebentzioak badu zentzurik. **Beria - Harian**  
Militante eraginkorrak, berak hasi direlako zenbaitetan hizkuntza ikasten, edo militante **pasiboak**, berek egin ez zutena ororen gainetik bere seme-alabek egin dezaten nahi dutelako. **Pello Salaburu**  
Mutil edo neska bati ipurditik ematen dion gizonak sodomia aktiboa egiten dihardu; sodomita **pasiboa** izango da berari atzetik ematen diotenean. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**  
Lege berriarekin presondegi berezi bi sortu zituzten homosexualentzako: Huelvako **pasibotzat** hartzen ziren homosexualentzat, eta Badajozkoa aktiboentzat. **Beria - Euskal Herria**

## 2 (gauzak)

Fedea **pasiboa** da, femeninoa, graziaren alaba, eta ez aktiboa, maskulinoa eta ahalmen libreak sortua. **Joseba Zulaika**  
Jarrera **pasiboa** duen arima eta ez erasokorra. **Joan Mari Lekuona**  
Arrek eta emeek txandaka jarrera aktiboa eta **pasiboa** har dezakete. **Luis Elberdin**  
Jarrera **pasiboa** duen arima eta ez erasokorra. **Joan Mari Lekuona**  
Tratu txar aktiboak eta **pasiboak** egon daitezke. **Beria - Euskal Herria**  
Hau promiskuitatearen sentimendu **pasiboaren** antitesi "aktiboa" da. **Iñaki Mendiguren**  
Forma, ordea, bere aldetik, betiere berez aktiboa eta akzidentez **pasiboa** da. **Xabier Kintana**  
Jaurlaritzak lan arloko politika aktiboak eta **pasiboak** eskualdatzeko aldarrikapenari eutsi dio, Gernikako Estatutuak dioenari jarraituz. **Beria - Ekonomia**  
Politika **pasiboan** arloan, aitzitik, Espainiako Gobernuaren ezekoa biribila izan da orain arte, Gizarte Segurantzako kutxa hautsiko dela argudiatuta. **Beria - Ekonomia**  
Lehenengoari, eutanasia aktiboa esaten zaio; bigarrenari, **pasiboa**. **Askoren artean**  
Amaren negarra **pasiboa** eta amaigabea da aldi berean. **Josu Zabaleta**  
Orduko gure erresistentzia **pasiboa** zen, eta zen iristen arbuioetik, isolamendutik, kutsatzen ez uzte harago. **Juan Garzia**  
Asiako herrien ohiko otzantasunak, bestalde, aspaldi-aspalditik, gobernu arbitrarioekiko obediencia **pasiboaren** forma politikoa hartu izan zuen. **Iñaki Mendiguren**  
Emakumeen banidadea, izan ere, ez da ahulezi **pasibo** hutsa; ez: grina erabat aktiboa da, gizonengan joko baizik izaten ez den bezala. **Matías Múgica**



Liberalak gobernu **pasibo** guztiak gaitzesten ditu, ezer ez dutelako aldatzen. Ramon Etxezarreta

Ekologistek NATOri sonar **pasiboak** (uhinik igortzen ez dutenak) erabiltzeko eskatu diote. Berria - Gaiak

Eustera, modu iraunkor batean eustera mugatzen da hemengo borroka, baina era **pasiboan** irauteak jan egiten zaitu azkenean, hil egiten zaitu. Jokin Urain

Egia da adinarekin libidoa urritu egiten dela eta heldu askok modu **pasibagoan** hartzen dutela plazerra. Aitor Arana

### 3 gramatikan, aditz formez eta kidekoen mintzatuz, egintza subjektuak jasango bailuen azaltzen duena.

Argi dago perpaus **pasiboei** boz aktiboko perpausak dagozkiela sistematikoki-. Itziar Laka

Badakigu **pasiboaren** formaldatzea, IS-Aditza-IS itxura duen edozein kateri ezar dakiokoena. Itziar Laka

Perpaus aktiboa eta dagokion **pasiboa** sinonimoak dira. Itziar Laka

Euskaraz eraikuntza **pasiborik** ez dagoenez, gramatikatik kanpoko adibidea itzultzean, aditz iragangaitzaren erabilera iragankorra ematen dugu, adierazi nahi den gramatikaltasun eza azaltzeko asmoz. Itziar Laka

*Eta-wa-yinn-fa0-* aditzaz den bezainbatean, *-nêfe-* 'arima' hitzaren denominatibo baten forma *nifal-a* da ('**pasibo** -bihurkaria'). Xabier Kintana

### • 4 iz ekonomian, zorren zenbatekoa.

**Pasiboko** lau eurotik bat kanpotik dator. Berria - Ekonomia

Finantza-**pasiboan** murrizketa, beraz, finantza publikoek eskaintzaren murriztearen parez pare joan daiteke. Koro Navarro

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**jarrera pasibo** (3)

**aktiboa eta pasiboa** (5); **erresistentzia pasiboa** (7); **gutziz pasiboa** (3); **jarrera pasiboa** (11)

**aktiboak eta pasiboak** (4); **perpaus pasiboak** (5)

**perpaus pasiboan** (3)

**pasiboaren formaldatzea** (7); **pasiboaren formaldatzearen** (3)

## pasiboki 1 adlag

Japonia **pasiboki** zetan Mendebaldeko botere handienaren okupazio militarren pean, eta Txina, berriz, iraultzaren bidez, anarkiatik bere antitesira igarota zen erregimen komunista baten kontrol zorrotzaren forman. Iñaki Mendiguren

Ideia nahasiak, gorputz-afekzioen ideiak edo gorputzari **pasiboki** gertatzen zaiona islatzen duten imajinak. Piarres Xarriton

Jende errugabearen masakrean partaite izatea, ezta **pasiboki** ere, ez da posible. Ramon Etxezarreta

Ez zen bakarrik **pasiboki** begiratu eta aspertu behar, beste hainbat erakustokietan egiten zen bezala: bazen bai egitekorik! Ramuntxo Etxeberri

Hizkuntza ez da hiztunaren funtzio bat, baizik gizabanakoak **pasiboki** erregistratzen duen emaitza. Isabel Arrigain

### 2 (izenondoekin)

Judaismoari erakundecko egitura bizigabeki zurruna eta aztura psikologiko **pasiboki** setatia emanez. Iñaki Mendiguren

Liburu bat irakurtzeko partez, **pasiboki** kontemplatiboa gelditzeko partez, indar bat egizu. Ramuntxo Etxeberri

## pasibotasun (30 agerraldi, 7 liburu eta 19 artikulutan) 1 iz pasiboa denaren egoera.

**Pasibotasunak** egin zuen kalterik handiena. Berria - Mundua

Patronalaren **pasibotasuna** ikusita, saihestezina izango da greba mugagabea. Berria - Ekonomia

Gizartean **pasibotasuna** errotu dela iritzi dio. Berria - Ekonomia

Hiritartzeak haurren **pasibotasuna** eragiten du. Berria - Euskal Herria

«Dena den, Poliziaren **pasibotasunak** ez du Matanzasek eta Juarisitik eginikoa garbitzen», gaineratzen zuen epaiak. Berria - Euskal Herria

Izaki hori Jainkoa bera dela, ezain ere akatsik ezin eduki dezakeena eta, horren ondorioz, **pasibotasunik** gabea dela. Xabier Kintana

**Pasibotasun** muga-mugakoa ez da aldatu harenengan, eta beharko du oraindik ere babesa, Tom Itsuak Bethune koronelarena behar izan zuen moduan. Xabier Olarra

Beste aldetik, enigmaz erantzule, Materia, bere **pasibotasun** burlati horrekin, Osotasuna bezain zahar eta engainutan aberats, Esfingea bezalako handios eta soil. Juan Garzia

Auzitegi eta gobernu erakundeek «**pasibotasunez**» jokatzten dutela dio txostenak. Berria - Euskal Herria

### 2 (hitz elkartuetan)

Lortzen zena, jakina, ez zen, sekula, "sendatzea", baizik eta otzantasuna, **pasibotasun**-egoera bat. Xabier Olarra

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**eusko jaurlaritzaren pasibotasuna** (3)

## pasiego iz

Hartaxetik hartua du etxeak izena; izanez ere, Santanderko Pas bailarakoei "**pasiego**" deitzen baitzaie. Patziku Perurena

## pasiera (121 agerraldi, 45 liburu eta 11 artikulutan) 1 iz paseatzea, ibilaldia. ik paseo; promenade.

Sevgik hiria ezagutzeko **pasiera** egitea proposatu dit. Edorta Jimenez

**Pasiera** ematera zihonan Madame eta, asteazkenero bezala, seiak arte ez zuen Emileren beharrik izango. Joxemari Urteaga

Goizeko **pasieran** entzun eta ikusitakoak. Edorta Jimenez

*ik beherago* 3. Askoren artean

Ezagunak zituen hizlariak baino hobea izan nahian, bere ahotsa itsas ondoko ibilaldi eta **pasieretan** trebatzen zuela. Felipe Juaristi

Eta geure **pasierari** segida eman diogu. Txillardeggi

### 2 (adizlagun gisa)

-Goazen **pasiera** -iradoki zuen Arantxak-. Joan Mari Irigoien

Neska koxkorretan beste hiru ahizpak nirekin **pasiera** joaten ziren. Gotzon Garate

### 3 (hitz elkartuetan)

Eguzkia gelditi orduetan itsas barra baino arrabete gorago, eta **pasiera**-ontziak itzal handi modura uretan astiro, argi batzuk piztuta. Edorta Jimenez

### 4 **pasieran** adlag paseatzen.

Bero sapa, arropa koloretsuak, jendea terrazetan, **pasieran** edo erosketak egiten. Berria - Euskal Herria

Atzean zetorren hamarren bat metrora, axolagabe, **pasieran** bezala. Ramon Saizarbitoria

Mahaia utzi eta ikasleen artetik **pasieran** hasi haiz, lerrotik lerrora. Jokin Muñoz

-Gizon batekin **pasieran** ? Patxi Zubizarreta

Gau betean, kale hutsean zehar **pasieran** dabilta Marta eta Mikel, honen besoa haren lepoan, eta neskak gerritik heltzen diola. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskuak poltsikoetan, lorategietan zehar dabil **pasieran**. Oskar Arana

Pentsamendu ilunak dabilzkiz atzetik bazkalordura arte, eta **pasieran** ibili naiz bakarrik etxaldeko sailetan, Lucy eta Tom beren kasa utzita. Oskar Arana

Alde batetik nahiago nuen, gustatzen baitzitzaidan neuri ere Londresen, zereginik gabe, **pasieran** ibiltzea. Ramon Saizarbitoria

Gogoratzen nola [...] genbiltzan autoan **pasieran** eta lurrezko bide txiki hartara heldu ginen, eta bero egiten zuela eta hautsa zegoela? Koro Navarro

"Joango al gara **pasieran**?" galdetzen dio. Oskar Arana

Poz handia ematen zuen berarekin **pasieran** joateak. Gotzon Garate

Liburu bat irakurriz **pasieran** ateratzen nintzenean, ondoko auzotik igarotzen nintzen. Gotzon Garate

Gero txakurra **pasieran** ateratzen lagundu behar didazu. Joxemari Urteaga

Kale Nagusian **pasieran** jardun zuten piketeek. Berria - Ekonomia

Bilbo **pasieran** deskubritu behar da. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pasieran ateratzen** (4); **pasieran ibili** (4); **pasieran ibiltzen** (4); **pasieran zebilela** (3)

## pasieratxo iz pasiera laburra.

Andresek gogoeta filosofikoren bat egiten zuen; Luluri barregarria iruditzen zitzaion; afaltzen zuten, eta afalostean **pasieratxo** bat egiten zuten biek. Josu Zabaleta

## pasillo (226 agerraldi, 41 liburu eta 11 artikulutan; orobat *pasilo g.er.* eta *pasilu g.er.*) 1 iz korridorea.

La Salleko **pasillo** eta gelak goibelak iruditzen zitzaizkidan. Bernardo Atxaga

**Pasillo** horri Pauso Galduen Galeria esaten diote gaixok. Joseba Sarrionandia

Gerritik hartu eta **pasillora** atera nuen. Bernardo Atxaga

Pentsioan, ostera, apur bat aparatosoa izango zen **pasillora** biluzik irtetea. Unai Elorriaga

Esertzeko agindu dizute, eta **pasilloaren** erdian utzi zaituzte kanpoan. Rafa Egiguren

Polizien pausoak **pasilloan** galdu arte itxaron duzu. Rafa Egiguren

Egunargitzen ari zuen eta **pasilloko** bonbilla ahulak ahulago zirudien bere horitasunean. Iñaki Zabaleta

**Pasilloz pasillo**, gelaz gela, negarti bat kontsolatu, liskarti bi baztertu. Xabier Mendiguren Elizegi

Primerako bagoia ia hutsik topatuko duzu eta trenaren **pasillotik** bagoirik bagoi joanen zara. Joseba Sarrionandia

Bigarren solairuko **pasillora** heltzean besotik heldu zidan. Bernardo Atxaga

Askotan ikusi nuen fakultateko **pasilloetan** amorruz, itxaropenez... benetan emozionatzen zen gizona zelako. Berria - Kultura

Neskak beren eserlekuetara joan ziren **pasilloan** aurrera. Anjel Lertxundi

Batzuetan, ni baino lehen altxatu eta bere egitekoetara joaten zelarik, prenda lorratz bat utzi ohi zuen **pasilloan** barrena. Joxean Agirre

Zurezko eskaileretan gora, **pasillorik pasillo** geletaraino eramán gintuzten. Joseba Sarrionandia

**Pasilloz pasillo**, gelaz gela, negarti bat kontsolatu, liskarti bi baztertu. Xabier Mendiguren Elizegi

Ukabila goian zutela, krabelinak jaurti zizkioten zerraldoari ikurrinez egindako **pasillotik**. Berria - Euskal Herria

### 2 (izenondoekin)

Halako etxe-zulo batera eramán gintuen Mahmud gidariak, **pasillo** luze, bukaezinetan barrena. Bernardo Atxaga

**Pasillo** luzean aurrera egin zuen sukaldeko ateraino. Joxemari Urteaga

Sarrerako atea itxi eta **pasillo** laburrean hiru urrats eman bitartean. Iñaki Iñurrieta

Jendaila zeharkatu ondoren **pasillo** ilun eta estu bat igaro zuten, boxeolariak kamerino inprobisatu bezala erabili zuten saloi handi batean amaitzen zena. Harkaitz Cano

Hotela txikia da eta gelan, berriz, txerpolariarenak eta bi egin beharra dago ohearen eta hormaren arteko **pasillo** txikitik pasatzeko. Anjel Lertxundi

Hipnotizatuta balego legez zihuan **pasillo** argitsuan barna. eskailera mailak binaka igo eta **pasillo** ezkoztatuan draz draz nindoala. Harkaitz Cano

Orduan bai, arrapaladan ihes egingo genuen klausurako **pasillo** ozenetatik. Joseba Sarrionandia

### 3 (hitz elkartuetan)

Zaratak erakarrita Blas agertzen da **pasillo** bukaerako atean. Xabier Mendiguren Elizegi

Komedoretik irtetean, txokolata katilua **pasillo** zoruan topatu nuen. Joseba Sarrionandia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko pasillo** (3); **pasillo ilun batean** (3)

**arteko pasilloan** (3); **etxeko pasilloan** (4); **pasilloan aurrera** (3); **pasilloan barrena** (20)

**pasilloaren bukaeran** (3)

**atera zen pasillora** (3); **pasillora irten** (3)

**pasilloan barrena** (4); **pasilloan zehar** (4)

**pasilu luze** (3)

## pasillotxo (*corpusean pasilutxo soilik*) iz pasillo laburra.

Bi konpartimentu zeuzkan, ezker-eskuin, erdialdean **pasilutxo** batek berezita eta sarreran atari moduko bat, non germaniarrek mahaitxo bat eta bi aulki zeuzkaten jarrita lehendik. Joxemari Iturralde

pasilo ik **pasillo**.

pasilu ik **pasillo**.

pasilutxo ik **pasillotxo**.

# pasio *(orobat pasione g.er.)* 1 iz grina, irrika, jaidura bizia.

Esan beharko da gizonak berez dituztela **pasioak**, beldurra, hira eta animalien beste zenbait irris, horregatik berez gaiztoak izan gabe. **Esteban Antxustegi**

Psikologoa eta puta: biak dira bota-behar baten hartzaile ordainduak; biak dira interes eta **pasio** berberaren antzezleak. **Iñaki Segurola**

Ez zekien horrexegatik ote zitzaion Hamida hain desiragarri, edota Hamidarekiko **pasioak** egiten ote zuen emaztea hain ezdeus. **Patxi Zubizarreta**

Emakume gazte pasionatu batekin eta **pasioa** galdu duen gizon zaharrago batekin. **Oskar Arana**

Hilabeteak igaro zituen horrela [...] idazteko **pasioaren** eta aldi berean ezintasunaren morroi. **Joxean Agirre**

Musika izan dute **pasio** bitzita osoan. **Berria - Harian**

Antzerkia eta musika zituen **pasio** idazleak. **Berria - Kultura**

Gaur, berriz, bi **pasio** nabaritu ditut neure barruan: zugarako leialtasuna, alde batekik, eta harenganako grina, bestetik, egia argi eta garbi... **Joan Mari Irigoien**

Argi dena da Lehen Lan Kontratu honi buruzko eztabaidak **pasio** anitz pizten dituela. **Berria - Ekonomia**

Aitzitik, **pasioak** pizten ditu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Beti iruditzen izan zaizkit hogeita hamar urteak **pasioak** benetan edo bortizki gozatzeko garaia amaitzen deneko muga. **Oskar Arana**

- **Pasioak** ez dira amaitzen, eraldatu egiten dira -erantzun zenidan, ausardiaz. **Lander Garro**

Taldearen **pasioaren** sutondoan pil-pilean landuriko obra. **Herria**

Baina **pasioa** lore gaiztoa da. **Harkaitz Cano**

## 2 (zertu edo nortua)

Bere **pasio** nagusiak literatura eta zinema zirela, eta literatura erabiltzen zuela, batetik, munduarengandik babesteko eta, bestetik, munduan egoteko. **Ana Urkiza**

Haurtzaroko **pasioak**: animaliak, liburuak eta pintura. **Ana Urkiza**

Fowles zen, garai haietan, haren **pasioa**; ni, Lovecraftekin eta Clarkerekin ari nintzen, eta Calvinorekin, gehien jota. **Iban Zaldúa**

Adelia, esan zuen Graçak oso serio, gizontxoaren **pasio** handia izandako pertsona da... **Bego Montorio**

## 3 (testuinguru teknikoetan)

Tristurazko afektua, bada, **pasio** bat da beti eta, beraz, gizakiak, **pasioak** diren afektuek josten dituzten bezainbatean, elkarren kontrakoak izan daitezke. **Piarres Xarriton**

Arimako lau **pasio** mota nagusi badirela: gale joerako bi, erran nahi da, bozkarioa eta tristura, eta jauzko joerako beste bi, erran nahi da, itxaropena eta beldurra. **Piarres Xarriton**

Humeren ustez, "Arrazoa **pasioen** esklaboa da", eta, beraz, badirudi etikan Arrazoiak jokatzeko duen rola mugatua eta baldintzatua dela. **Askoren artean**

**Pasio** baten esentzia ezin da gure esentzia soilaren arabera azaldu, hau da, **pasio** baten ahalmena ezin da, gu geure izanean iraunarazten gaituen ahalmenaren arabera definitu. **Piarres Xarriton**

## 4 (izenondoekin)

**Pasio** handiz eta etenik egin gabe hitz egin zuen Elsbethek, ikusten zen askotan pentsatu zuela kontu haietaz. **Anjel Lertxundi**

Hala ere, Nora **pasio** erromantiko erreala mingarri baten porrota bizitzen ari zela adierazten zion bere adimenak, eta jakin-minaren harra ari zitzaion etengabe induska. **Anjel Lertxundi**

Noizbait hurbil egon banaiz **pasio** bizi batek sustraietaraino harrapatua gelditzetik, Marinarekin izan zen, dudarik gabe. **Karlos Zabala**

Igurtze gozoa, sakatzea eta erritmoa -in crescendo- dira plazer lasai baterako edo **pasio** zoro baterako behar direnak. **Luis Elberdin**

Gaztetasun (eta **pasio** sexual) eternoa bermatzen duen edabea. **Anjel Lertxundi**

Hilketa batek, halakotzat ezagutua izateko, esku jakin bat behar du, eta kausa bat, arrazoi argi bat edo **pasio** itsu bat, edo eromen diagnostikatu bat. **Iñaki Segurola**

**Pasio** mistikoz babestu du filma. **Berria - Kultura**

Fama handiko jendeak izugarri erakartzen nauela, eta halako **pasio** eustezina eragiten didala. **Joan Mari Irigoien**

Plazer eragile indartsua eta **pasio** kitzikagarrienak eta sutsuenak eragiteko gai. **Luis Elberdin**

Bizitza osoa **pasio** gaitzesgarriari lotua igaro ostean, lohian lardaska ibiltzearen poderioz, bizimolde hari guztiz normala irizten zion. **Patxi Zubizarreta**

Batera eta bestera ibiliko dira areto hitsetan zehar, beren **pasio** oztopatuari abesten. **Oskar Arana**

Buru asintzen zuen zakurrak, batera eta bestera, ezker eta eskuin, **pasio** animal berberaz alde bietara. **Harkaitz Cano**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik pasional.

Gizahilketa (eta buru-hilketa) **pasio** -hilketak, sexu delituak, lapurreta-mota batzuk, [...]. **Xabier Arregi**

**pasio** -hilketaren moztarpean estali nahi zuelako afera: bi amoranteak beren habian, bat-batean emakumearen senarraren bisita iragarri gabea jasotzen dutenak. **Aingeru Epaltza**

Gazteen eskubidea da, beren zaharrak **pasio** -dardaren erdian ikustetik babes ditzaten. **Oskar Arana**

Atzemangarriagoa zitzaion inondik ere beste ordain bat, jada **pasio** -iturri jori bihurtua zuena: otomanoen enperadoregoari buruzko liburuak irakurtzea. Mihi samur, epel eta hezeak klitoria maitasunez laztantzen eta miatzatzen duenean, berotasun, eszitazio eta **pasio** uholdeak hartzen du emakumea. **Karlos Linazasoro**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak adizlagun balioa duela).

Biharamun arratsaldean, bihotza **pasio** jario eta bizigogoz irten zen. **Patxi Zubizarreta**

## 7 Jesu Kristok hil aurreko egunetan pairatu zituen nekeak eta oinazeak. iknekaldi.

Arantzazuko Ama Birjina eta Jesu Kristoren **pasioa** izan zituen gai kuttunak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gure Jaunaren **Pasio** gurgarria oroitzeak errukizko eta esker onezko sentimendu handiak sortu behar ditu. **Joan Mari Lekuona**

Kristoren **pasioaz** bere «fede erlijiosoa jarraituz» Mel Gibsonek egin duen bertsoak [...] kritika asko jaso ditu. **Berria - Kultura**

Aurpegia itzulkatu zuen eta hasi zen Jesusen **Pasioa** kontenplazten, Jesusen zauriak, oinaze-minak eta Jaunaren heriotza, barkazioa eskatuz. **Joan Mari Lekuona**

Beronen laguntzaz, gure Jaunaren **pasioa** eta bizitza gaurkotu egingo dira zure baitan, sustatuz sinpletasun osoko maitasun sentimenduak, begirada soilak. **Joan Mari Lekuona**

Lazaro deitu **Pasio** -igande honek bazuen beste esaldi bat ere. **Pello Zabala**

- Venezian gondolan eginiko hiletak ikusi ditut; Aste Santuko jaiak Sevillan, Oberammergauko **Pasioa**. **Monika Etxebarria**

## 8 gaitzat Jesu Kristoren pasioa duen oratorioa.

Andonis Foniadakisek sortutako lan honek Bachen musika korala du oinarri, eta bertan San Juan eta San Mateoren **Pasioetako** koroak entzuten ditugu, haien birnahasketekin egindako pasarte abstraktu batzuekin batera. **Berria - Kultura**

## 9 pasio-lore (orobat pasio-lore)

Ilean **pasio-lore** gorri batekin eta begi-ertzetan marra ezinago meheekin ageri zen argazkian. **Oskar Arana**

Lehendik landatuta zegoena, berriz - **pasio-loreak**, huntzak, aihenak-, lurra lehor egonagatik, zabaldu egiten zen eta lore ederrak ematen zituen. **Josu Zabaleta**

Belarra artean berdetasun trinko leuneko, etxearen berdetasuna **pasio lore** purpurez izarreztatua, eta beleak orru hotzak jalkiz goiko alde urdinetik. **Anton Garikano**

Gogoratzen dut [...] **pasio-lore** ilun bat eskuan, inork ikusi ez duen bezala ikusten, goiznabarretik hasi eta ilunabarrera arte begira egonik ere, bizi oso bat hartara emanik. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere pasio** (3); **pasio handiz** (5)

**bere pasioa** (5); **kristoren pasioa** (3); **nire pasioa** (5); **samurtasuna eta pasioa** (4)

## pasiodun *izond* pasioak dituen.

Ez da sekula gobernu perfekturik ezagutu, gizakiak **pasiodunak** baitira; eta pasiorik ez balute, ez lukete gobernu baten premiarik. **Anjel Lertxundi**

## pasiolore ik **pasio 9.**

## pasional *izond* pasioaren ondoriozkoa, pasiozkoa. ik **pasio 5.**

Ez da krimen **pasionala** hilketa da. **Berria - Euskal Herria**

Lehenbiziko momentuetan polizia krimen **pasionalaren** arrastotik ibili bada ere, [...]. **Aingeru Epaltza**

Orduan oso zabaldua zegoen gure artean eta *La vida sale al encuentro* liburuarekin, adibidez, harreman **pasionala** bizi izan nuen. **Ana Urkiza**

Niri arreta deitu didan itsumen horietariko bat idazleak ohearekin duen behar **pasionala** izan da. **Berria - Kultura**

Liburu bizia egin nahi nuen, liburu inozentea beharbada, **pasionala**. **Berria - Kultura**

## pasionatu *izond* pasioz betea.

Emakume gazte **pasionatu** batekin eta pasioa galdu duen gizon zaharrago batekin. leku bat, gorputz **pasionatuaren** uda luzatzeko grina baten eta ahazturaren lo luzetik iratzartze nagia baten artekoa. **Oskar Arana**

Kritikarik **pasionatuenak** egin zizkion abertzaletasun klasikoari, abertzaletasun berri bat enretzen hasi zenean, baina hori ez zuen berak inspiratutakotzat ezagutu. **Joxe Azurmendi**

Bizilagunek, haiek guztiak ikusita, ziur senarraren eta bion arteko harremana erabat **pasionatua** zela pentsatzen zutela. **Jasone Osoro**

Hortaz, ez da izaki **pasionatua**. **Oskar Arana**

· Eta gertatu zen hartaz hain **pasionaturik** non Alexandrok hori ezaguturik, urrikalduz hura eman baitzion emaztetzat. **Aurelia Arkotxa**

## pasionatuki *adlag* pasioz beterik.

Nola arrazoitu, arazo politikoak **pasionatuki** eztabaidatzen ari, baina egiazki beti bilatzen dena, metafisika bada? **Joxe Azurmendi**

## pasione ik **pasio.**

## pasionista *iz* Gurutzeko S. Pablok 1735ean sortu zuen erlijio ordenako lekaide edo lekaimea.

Felix Zubiaga idazle eta fraide **pasionistak**. **Berria - Kultura**

Karmeldarrak ziren hamaika, **pasionista** bat, marianista beste bat, eta gainerakoak elizbarrutietakoak. **Jokin Urain**

Ehoitz-elizkizunak astelehenean eginak izan zaizkio Urretxuko **Pasionisten** Etxean. **Herria**

## paskalina *iz* Pascalek asmatuturiko kalkulagailuaren izena.

"**Paskalina**" deitu zitzaion XVII. mendearen erdi aldera Blaise Pascal frantses gazteak bere aitari laguntzeko asmatu zuen kalkulagailuari. **Pello Salaburu**

Mende horren bukaeran, Leibnitz matematikari eta filosofoak hobetu zuen kalkuluak egiteko gurpiltxoak behar zituen **paskalina** hura. **Pello Salaburu**

## paskin *iz* leku publiko batean finkatzen den idazki kritiko anonimoa.

Haren komoda miatu, eta PCeren zenbait **paskin** topatu zituzten, borroka-egun baterako deialdia egiten zuten horietakoak: [...]. **Iban Zaldúa**

Porta Nuova geltokiko obra erraldoien aurrean dago **paskina**. -Ez al dituzue trafikanteen kontrako **paskinak** ikusi? **Berria - Kultura**

Aski da semea kartzelan duen ama bat ikustea kalean, edo **paskin** bat, oroitzapenaren errota abiarazteko. **Anjel Lertxundi**

Gero eta ohikoagoa da bizkarra paretaren aurka bermaturik duen erretzailearengana atezaina inguratu eta horman itsatsirik dagoen **paskina** seinaltzea: [...]. **Harkaitz Cano**

Gainontzeko **paskinak** airean bota eta badoa handik. **Iban Zaldúa**

Ikusi ditudanen artean politena, 2006ko Olinpiar Jokoetarako egiten ari diren metroaren promoziorako **paskin** handi baten azpian ageri dena. **Anjel Lertxundi**

## pasma *iz adkor* polizia. ik **zomorroi.**

Balzaren **pasma** beltzak programatu gabeko oldar pelotero eta kepotero egina baitzuen berriki eta nola inorantzia handia erreinatzen baitzen ekitaldi folkloriko horren espazioari buruz, hagiz desluzitua gelditu omen zen, publikorik gabe, borrokalarik gabe, [...]. **Patziku Perurena**

## pasmatu, pasma, pasmatzen da/du *ad* infektatu.

Hatz erro moztuak **pasmaturik** izango ditu, apo estiratuaren moduan dardaratzen den ezkerreko eskuan. **Joseba Sarrionandia**

## pasmin *iz* artile jakin batekin eginiko xala.

Argazkia ere, beti berbera zen prentsan agertzen zena, eguzkitako betaurrekoak eta **pasmina** soinean. **Harkaitz Cano**

## pasmo<sup>1</sup> iz infekzioa.

Hor behan zerbitzari bat dut, naturak inoiz eman duen tramankulu ederrenez hornitua, baina zoritxarrez **pasmoa** dario, munduan ezagutu den izorgaitz txarretariko batek jota dago eta. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

## 2 pasmo-belar ziguinaren antzeko landarea, sendagintzan erabiltzen zena (*Anagallis arvensis*).

Munduan ez dago **pasmo**-belarrik ez berbena-belarrik hau sendatuko didanik -eta, irri etsi bat luzatzen zidala, bukatzen zuen-: ez muxarrrik ezta lupiarik ere... [Joan Mari Irigoien](#)

-Kolesterola zaindu beharko zenuke, etxeoandre, eta **pasmo**-belarrak eta berbena-belarrak ez dituzu aski. [Joan Mari Irigoien](#)

Ez da belarrak sortu oraindaino ortu eta baratzeetan, ez berbena, ez **pasmo**-belar, ez besterik, hari kontra egiteko balio lezakeenik. [Imanol Zurutuza](#)

## pasmo<sup>2</sup> iz harridura bizia.

Extera ohi baino goizago itzuli nintzen arratsalde batez, han aurkitu nuen Mari Carmen, diskoa beretzat bakarrik jarri, eta, hainbatgarrenez, hura entzuten **pasmoak** jota bezala. [Juan Garzia](#)

## pasmo 1 interj zer bait puntu bateraino soilik dela onargarri adierazteko hitza.

Beraz **pasmo** aldi huntan; bainan kasu bestaldian! [Herria](#)

Ehorzketetan, kantuak izan daitezen, **pasmo**. [Daniel Landart](#)

Francinekin ahal guztiak galtzen nituela, **pasmo**. [Daniel Landart](#)

Baditake haatik deputatuek nahiko dioten hunkialdi bat edo beste eman gobernuaren xedeeri, erakusteko hor direla eta ez direla beti **pasmo** joaiten ahal, amen erran-eta kito! [Herria](#)

Oraikoa utziko dut **pasmo**, kasu bertzaldian ordainari... Goazen **pasmo** aldi huntako berezko gaztearekin baino geroko esperantzan. [Herria](#)

## 2 musean, enbido egiten ez dela adierazteko hitza.

Nik, **pasmo**. [Xabier Paya](#)

Handira denek **pasmo**. [Alberto Barandiaren](#)

Ez, **pasmo** berriz. [Xabier Paya](#)

Frantzia jalgitzen da Handia **pasmo**. [Herria](#)

## 3 irud/hed

Berriro horrekin? Nik **pasmo**, berdin dit, ez dut ezer esan nahi. [Berria - Kirola](#)

## 4 pasatzea, iragaitza.

Fusilari esku bakarrarekin eusten zion batek **pasoa** galarazi zidan. [Bernardo Atxaga](#)

Han aurrean, izotz tontorren ilara ikusiko da, kontinentera **pasoa** zarratzeko zaintzaile erraldoidien guardia edo hamasei hamazazpi bagoi zuriko trena ematen duela. [Joseba Sarrionandia](#)

Barrurako **pasoa** ohorezko guardiek ixten dute, mutil gazte-gazteak, ejerzitoko onenak. [Pako Aristi](#)

Paul D-k Setheri ukondoa ukituta gidatu zuen, oholen gainetik lurrera jaitsi eta emakumeei **pasoa** uzteko. [Anton Garikano](#)

## 5 pasagunea.

Geroago tren **pasmo** batean ordu erdiz itxoin behar izan zuten. [Pablo Sastre](#)

## 6 pasmo egin parte ez hartu.

Besteek, gutxi-asko, **pasmo** egiten zuten; nahiago zuten ur haietan ez busti. [Iñaki Iñurrieta](#)

Badakit pija hutsa naizela esango didazula, baina nik **pasmo** egiten dut. [Sonia Gonzalez](#)

Nirea idatzi nuen, Xabierrek edo Carlosek, esate baterako, **pasmo** egiten zutela ikusi arren. [Edorta Jimenez](#)

Horregatik, ez da harrizkoa bertsoari batek bertsoaren batean "**pasmo**" egitea, dituen denak ez ematea. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

"**Pasmo** egiten dute gutaz erabat", gehitzen du Sarak. [Bernardo Atxaga](#)

Guk **pasmo** egiten dugu pastillez eta horrelakoez, konforme? -esaten dio Joanak. [Antton Olano](#)

**Pasmo** egiten dun denetaz, tia! [Antton Olano](#)

Beste guztiaz **pasmo** egiten dut. [Sonia Gonzalez](#)

Autoena izan zen orduan: gasolindegietatik **pasmo** egitea erabaki zuten, haien aurretik iragan eta ez gelditzea. [Karlos Linazasoro](#)

Hitz bitan, eszeptiko bihurtzen zara, eta **pasmo** egiten diozu sexuari. [Patxi Iturritegi](#)

Urtzi ez da gehiago haien etxean azaltzen, eta, nago, arrazoi duzula; guztiari **pasmo** egitea erabaki duela. [Lander Garro](#)

Erosketak egitera joango naiz, betiko tabernan almortzua hartzeari **pasmo** eginda. [Sonia Gonzalez](#)

## 7 pasmo eman<sup>1</sup> musean, enbido ez egin.

Gaurko teologo musulariari jakineko kartak, ongi nahasi gabeak badaezpada ere, jartzen dizkio beti munduak eskura, eta handian **pasmo** eman eta ttikitik jotzen du hordago, eta ttikian ez dio inork irabazten, eta horrela du jakin-usteko ustela bereganatzen. [Iñaki Segurola](#)

## 8 pasmo eman<sup>2</sup> pasatzen utzi.

Luisak mota itzali, bertatik jaitsi, makina lurrean ondo tinkatu, kaskoa kendu, ilea haizutu eta ateari heldu dio Lizarriturri **pasmo** emanaz. [Pako Aristi](#)

Bisitan bazoaz, eta lehenengo zaindaria **pasoa** ematen badizu, barrurago dagoen bigarrenko batek izen abizenak hartuko dizkizu, eta zeinengana zoazen. [Pako Aristi](#)

Klasean egotea baino hobea zen hura, eta isildu egingo ziren gure orroak, momentuz, fraideak (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier) hurrengo filminari **pasmo emateko** bederen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## 9 pasmoan egon bidez, iragaitzaz egon.

Erromatarren zibilizazioa hemen bide batez **pasmoan** egondakoa zela zioen, eta euskaldunena egina zegoela jada, osatua, Neolitikoa. [Berria - Harian](#)

Erraiten duzun bezala ere, ez gaiten samur, ondoko itzulian esku zira, zaude **pasmoan**, **pasmoan** segituko dut, jokoa agortzen ari zaigu. [Herria](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pasmo egin** (5); **pasmo egitea** (4); **pasmo egiten** (17)

## pasodoble (orobat pasmo doble g.er. eta pasodoble g.er.) iz

Bestetik, modan zeuden piezak moldatzen zituen, hala nola **pasodobleak**, tangoak, mazurkak, polkak, fox-trotak... [Pako Aristi](#)

Elgetarena, esate baterako, **pasodobleak** jotzea omen zen; horretantxe izan hura maisu berezia. [Pako Aristi](#)

Doinu mota anitz entzunarazten du: klasiko, jazz, baltse, tango, **pasmo** doble... ahantzi gabe fandangoak. [Herria](#)

**Pasodobleak** eta tangoak dantzatzeko sukaldian ikasi nuen. [Ana Urkiza](#)

**Pasodoblearen** martxan desfilatu genian gorpuaren aurretik. [Koldo Izagirre](#)

Orkestra **pasodoble** alai batez hasi zen; areto erdi hutsean erazi zuten. **Josu Zabaleta**  
Gelaxkok jotako **pasodoble** triste batek lehenengo malkoak isurarazi zizkion nerabeari... **Pako Aristi**  
Helduta dantzatzeko **pasodobleak**. **Pako Aristi**  
Rafael Domenechen *El embrujo de Anna* **pasodobletik** [...] hasi eta obra modernoago batzuetara igaroko dira, *Aiña bitxia* filmeko soinu bandara, esaterako. **Berria - Kultura**

## pasonibel *iz* maila bereko pasagunea.

Gero tren espresoa martxan jarri zen, poliki-poliki, eta abidan zihono eraikuntza atzean, **pasonibelaren** atzean, Pordenoneko bihurgune aldean berriro azaldu zenerako. **Josu Zabaleta**  
Han diren bi trenbideak jauzian iragan ditu eta bazterretik jo du aurrera, harik eta **pasonibeleko** langa, garai batean zuri-gorriak, begiztatu dituen arte. **Pello Lizarralde**

## pasota *izond* axolagabea, hor-konponekoa.

Frantsesekoa zen nafarra ez zen bakarra, neska madrildar bat zen, izenez Pilar oker ez banago, hippy, **pasota** eta outsider samarra, baina benetakoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Direla saio tematikoak (erotikoak, umore beltzezkoak, **pasotak**, rockeroak...), direla antzerki gisako "tramak", formatu txikiko saioak izan ohi dira, hirietako pubetan eta egiten direnak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## pasta<sup>1</sup> *iz* orea.

Pitzadura horiek, esan zuen Sasik, lija latzarekin ondo-ondo arraspatu eta, zepa eta gatzarekin **pasta** bat eginda primeran tapatzen dituk. **Pablo Sastre**  
Segitzeko, "filipindar 'kaviarra'" jastatu zuten: **pasta** arrosa-ubela osatzen zuten izkira minuskuluok, eta ondua ez den 'green' mango berde xerra baten gainean jaten zena! **Ramuntxo Etxeberri**  
Erabili berria zuen **pasta** ez baitzen hortzetakoa, *Volterán* deritzan ukendua baizik. **Josetxo Azkona**  
Esnea ekaitua zen eta **pasta** hartan zilarrezko koilara zutik egon zitekeen. **Itxaro Borda**  
Zoaite paleen bila, azpian dakartzan paper-**pasta** fardoak hondarrea kenduko dizkiot. **Koldo Izagirre**  
Sagar hori jo, **pasta** dolarean tinkatu eta sagar-zukua edo jusa kupeleratu. **Herria**

## 2 gozotegiko orearekin prestatzen den tamaina txikiko gozoki gogorra.

**Pasta** batzuk ekarri dizkizuet, gosaltzeko. **Fernando Morillo**  
Kafea, **pastak**, tea, zer nahi dudan eskaintzen dit. **Edorta Jimenez**  
Haiek hoteleko tabernan, kafea eta kruasanak edo **pastak** edo ensaimadak hartzen, eta ni kanpoan, amorrus irakiten. **Iban Zaldúa**  
Oso modu xumean egin zuten agurra, txokolategi batzuekin eta **pasta** batzuekin, bai eskolan, bai apaizaren sotoan. **Juan Kruz Igerabide**  
Anisa hartzeko kopa txikiak ipurdiz gora ahotik masatan sartu eta **pasta** biribil eta pottolo batzuen forma ematen zion masari. **Pako Aristi**  
Aldizkariak irakurtzen zituen bitartean kafesnea eta **pastak** hartu baino ez zuen egiten. **Ramon Saizarbitoria**  
Amagoiak **pastak** atera ditu mahai gainera. **Xabier Etxabe**  
Likore bat eskaini zigun, baina kafearen ondoren **pasta** batzuekin kopa bana "vin santo" hartuak ginen, eta ezetz esan genion. **Ramon Saizarbitoria**  
Bizkotxo zoragarriak, erreginaren gustuko hostopiltxo ezin gozoagoak, eta sukalde zabalean xede horretan gorderik zuen aulki-bizkarrean idorrazazi aurretik oratzen zituen **pastak** prestatzen zizkidan. **Joxan Elosegí**  
Ondo gogoan du oraindik Yolok **pasta** haien lurrina eta beroa [...], **pasta** haien kolorea: gozo-une urriko bere haurtzaroan ezagutu zituen urre gorrizko txanpon bakarrak. **Pako Aristi**  
Biharamunean alaitasun gehiagorekin etorri da eskolara; kaxa bat bete **pastarekin** ere bai. **Gotzon Garate**

## 3 (hitz elkartuetan)

Ondoren, **pasta** -kaxa ireki eta oso-osorik sartu zituen pare bat ahoan. **Joxemari Urteaga**  
· Astean behin patata egosiak [...], astean behin esne-**pastak**. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 4 gariz edo semolaz eta urez eginiko ore lehortuez prestatutako janaria.

Jendeak uste du **pasta** dela italiarren gailur gastronomikoa: edozein modalitatetan delarik ere -pizza, makarroiak, lasagna... **Anjel Lertxundi**  
-, **pastak** Italiako gastronomia ekarri ohi digu gogora. **Anjel Lertxundi**  
Baina hala izanda ere: arroza ez zaio atzean gelditzen **pastari**, arroza gisatuz egindako *risotto* klase konta ezinak dira horren lekuko. **Anjel Lertxundi**  
Bi elikagai jan behar dituzte egunero derrigor karreristek: **pasta** eta haragia. **Berria - Kirola**  
Ura irakiten jarri eta **pasta** egosten ipini zuen. **Unai Iturriaga**  
Gauza idorrek edo pasatzen ez direnak dira galde eginak, hala nola kontserbu, xokolet, sukre, olio, kafe, erris, **pastak** etabar... **Herria**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Amaren aldetiko aitona diabetesarekin hil zen, eta aitaren aldetiko osaba batzuei ere, **pasta** -jale omen handikoak guztiak, nabarmendu zitzairen zahartzaroan gaitzaren sintomarik. Sukaldaritzako **pasta** -etxe baten publizitaterako argazki baten analisitik abiatuta. **Juan Garzia**  
Pruziarra sukaldean ari da, **pasta** platerkada bat prestatzen. **Harkaitz Cano**  
Albertok **pasta** -plater bat eskatzen zuen. **Fernando Rey**  
Berto bazkaria: lasagna edo **pasta** entsalada eta jogurta. **Berria - Harian**  
Afaritan, burua astindu zuen Sun-hartzak, ikusirik mahai gainean hiru platerkada **pasta** -zopa, zorrotxokoa. **Juan Kruz Igerabide**  
Arrastoen bila ari bagina bezala, paretan zintzilik zeuden arropak miazten hasi ginen, eta berdin gas-sua, lapiko zikina, non **pasta** hondarrak ageri baitziren, eta poltsan zegoen ogi-laukia. **Juan Kruz Igerabide**

## 6 material sintetiko gogorra.

Martak, Patakiren **pastazko** betaurrekoak eta ileorde beltza soinean zituela, Cesar Telleriaren etxe alokatutako eskailerak igo zituen. **Harkaitz Cano**  
Nire betaurreko lodi itsusi **pastazkoak** anaiaren ondoan zeutzan, lurrean. **Aingeru Epaltza**

## 7 liburuez mintzatuz, azala.

**Pasta** gogorrekin, gozatzeko moduko edizioarekin eta, beharrezkoena: ederto itzulita, goxo, xamur. **Berria - Kultura**

## 8 hortzetako pasta.

Denboraldi batean, hortzak garbitzeko **pastaren** zipriztinek estalia izan genuen, bizarra kentzerakoan aurpegia ezin ikusteko moduan. **Ramon Saizarbitoria**  
Eta hortzak, oiak ahaztu gabe, behar den bezala goitik behera eskuilatzen ditut, ispilua **pastaz** zipriztintzeagatik kezkatu gabe. **Ramon Saizarbitoria**  
Hori ere ez zitzaion laket, ispilua **pasta** zipriztinez zikindu nezan alegia. **Ramon Saizarbitoria**  
Horma, ispilu eta abarrak hortzak garbitzeko **pastaz** ederki oretuak, jendeak **pasta** hori erabiltzen duelako aldizkari eta abarretako argazkiak itsasteko. **Jokin Urain**

## 9 pertonez mintzatuz, izaera, aiurria.

Ez barkatu ditudalako, ordea, ez maite ditudala edo maite behar ditudala uste dudalako, ez horixe, baizik eta konturatzen naizelako, hondar-hondarrean, haiek, gu bezala,



**pasta** berberaz eginda daudela Jon Alonso

**Pasta** berezikoak zarete. Berria - Kultura

Beste **pasta** bateko entrenatzailea. Berria - Kirola

## 10 **kartoi pasta** ik behegaro 12.

Bestalde, ikusten nuen haien lanak gaizki zahartu zirela; nolabait beren erakarmena hor zegoen arren, kartoi **pastazkoak** zirela, eta, gainera, ez zitzaizkidan horrenbestearino ere gustatzen. Ramon Saizarbitoria

## 11 **hortzetako pasta**.

Eberena gertatu zenean arropa gutxi batzuk, **hortzetako pasta**, *Donornil* eta *Tranxilium* kutxa bana eta beste zerbait motxilan sartuta, egurrezko ate zaharra atzean utzi nuen. Sonia Gonzalez

Inor ere ez dago hango saltzaile hura baino egokiagorik Swan **hortzetako pasta** saltzeko. Monika Etxebarria

**Hortzetako pastaren** zipriztinak, bizarra egiteko kremen arrastoak... Iñaki Iñurrieta

Ondoren eskuak, ahoa eta hortzak garbitzen zituen, betiere Pepsodente marka ingeleseko **hortzetako pastarekin**. Bego Montorio

Hortzak garbitzen ari da, xix-xix, eta ezpain txotik dario **hortzetako pasta** zuria. Javi Cillero

Julenen ezpain arteik **hortzetako pasta** hasi zen irteten, gainezka egiten duen urtegi bat bezala. Fernando Morillo

**Hortzetako pasta** -hodiak zanpatzeko tresna, nire Mekanoaz baliaturik. Jesus Mari Mendizabal

Pisukideen txanpua, bizarra kentzeko bitsa eta aitzurrak, koloniak, **haginetako pasta**, arropen leuntzailea, Jon Arretxe

## 12 **pasta-kartoi** ik behegaro 10.

Estua zen gela, berrogei bat metro luze; erdiz erdi zeharkatzen zuen aretoa mahai ilara batek; sendo-astunak ziren eta **pasta** -kartoizko grifozko apaindurak zituzten hanketan. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hortzetako pasta** (12); **pasta kaxa** (3)

**pastazko betaurrekoak** (7)

**pasta**<sup>2</sup> ik **basta**<sup>1</sup>.

## **pastadun** *izlag* pasta duena; pastazkoa.

Peluka eta **pastadun** betaurrekoak jantzea deliberatu zuen azkenik. Harkaitz Cano

## **pastanagre** (*corpusean pastanarre eta pastenagre soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian pastanagre agertzen da*) *iz ipar* azenarioa.

Bai segur, dela porru, aza, tipula edo baratxuri, dela piper, **pastenagre** [...], horiek oro eta beste landare mota asko gure baratzean garatzen ziren amatxiri esker. Daniel Landart

Tomate, **pastanarre**, aza, oberjina, ilarleka, entselada, tipula, piper... Herria

Haren lehen auzoak 800 gramako tomatea eta 300 gramako **pastanarrea**. Herria

**Pastenagreak**, porruak edo tipulak auhenez ari omen dira, etxeko andereak bipiltzen, larrutzen eta ebakitzen dituenean, familia guztiaren asetzeko salda apailatzerakoan. Itxaro Borda

**pastanarre** ik **pastanagre**.

## **pastatxo** *iz adkor* gozotegiko pasta.

Igogailutik atera bezain pronto, arima ziniko, maltzur, edo sinpleki inkontziente batek zabalik utzi duen ate baten zirrikitutik zeladore eta erizain talde bat bereizi du, **pastatxoak** jaten eta xereza edaten, algaraka. Harkaitz Cano

## **pastel**<sup>1</sup> *iz* tamaina txikiko gozopila; tarta. ik **gozopil**; **pastiza**.

Kandido **pastel** bat janez azaldu zen. Pedro Alberdi

Eta **pastelak** amaitzeko, hain txikiak ezen papurrik ere ez dute. Julen Gabiria

Goxokiak eta **pastelak**. Gotzon Garate

Dozena erdi **pastel** eta txanpain botila bat erosi eta edan eta jan egin zituen egongelan. Unai Elorriaga

Hurrengo egunean, botila xanpainarekin eta dozena bat **pastelekin** itzuliko zen Joxe Mari. Juan Kruz Igerabide

Miepek mahats pasazko **pastel** bat bidali digu, "Mendekoste zoriontsua" zioen idatzi batekin. Josu Zabaleta

Txokolatzeko bi **pastel** handi atera zituen. Iñaki Mendiguren

Indoiolarraren ondoren Eguberrietako **pastel** garrezatuak etorri ziren. Iñaki Mendiguren

Urre koloreko galleta paketeak eta **pastel** txikiz beteriko kopak. Karlos Zabala

James Packer ez zen ordea **pastel** eta kafe bila abiatu. Koro Navarro

Ostozeko **pastel** moduko bat. Karlos Zabala

Hurbildu egin zen Txixikov arrautzazko **pastel** gezara, eta, erdia baino gehixeago jandakoan, goraiatu egin zuen. Jose Morales

Baietz, biendako hoberena egunkarian gelditzea izanen litzatekeela, ene maitea, ene panpoxa, ene sagarrezko **pastela**. Aingeru Epaltza

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txokolatzeko **pastel** -puska bat ere eman zion. Iñaki Mendiguren

Baita Gabonetako **pastel** -zati bat eta kaxa batean turroiaren antzeko gozokia ere. Iñaki Mendiguren

Izeba Petuniak ekarri berri zion frutazko **pastel** -zatiarekin. Iñaki Mendiguren

Harekin egindako bizikleta-apustuak eta Serraseneko **pastel** -janak. Xabier Etxabe

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Weasley andreak puntuz egindako beste jertse bat bidali ziola ikusi zuen Harryk, eta aran- **pastel** handi bat ere bai. Iñaki Mendiguren

Sagar- **pastela** bukatu zutenerako, sorginkeria alaiagarrien eragina desagertuz zihoakien, eta Harry eta Ron kezkatu samar zeuden. Iñaki Mendiguren

Harry sakaldera itzuli zenerako, izeba Margek aurrean zituen tea eta fruta-**pastela** Iñaki Mendiguren

-Eta nik mahaspasa **pastelak** eta kafea ekarriko ditut. Koro Navarro

Gustuko ditut ahabia-**pastel** ederrak, edo limoi-merengezko **pastel** gozoak. Mirentxu Larrañaga

Limoizko merenge-**pastela** jan bitartean. Iñaki Mendiguren

Kafea eta arrautza **pastel** handi bat hartzera joan nintzen. Koro Navarro

Orduan aitak zorrotik jenhibre **pastel** puxka bat eman zion. Anton Garikano

-Bikiak gazta-**pastela** hasi dute. Julen Gabiria

-Mostradorera hurbildu zen eta kafea eta sagar **pastel** zati bat eskatu zituen. Iñaki Zabaleta

## 4 haragiz, arrainez edo barazkiz betetzen den irin eta arrautzezko oreka, labean molde batean erretzen dena.

Bi **pastel** handi nabarmentzen ziren gainerako guztiaren gainetik, oilakiz egina bata eta luzoker gaziz bestea. Jose Morales

-Ez zuten, ba, eskolatik botako, ez? -esan zuen Hermionek estu eta larri, xerra eta giltzurrunezko **pastela** dastatu ere egin gabe. Iñaki Mendiguren

Izokin-buruz eginiko **pastel** bat. Jose Morales

Gero **pastel** mordoa jaten dute, okelaz edo katuarrainez beteak, ikuste hutsarekin tripa-zorria esnatzen duten horietakoak. Jose Morales

## 5 (hitz elkartuetan)

Bost xentimoko haragi-**pastel** txarren itxura hartzen diet: ogi gehiegi, eta ia haragirik ez. Patxi Ezkiaga

John Camden Hotten argitaratzailea, txeke bat eman zidana, zerriki-**pastela** janda hil zen, ni dirurik gabe uzteagatik. Xabier Olarra

Sagarak, udareak, aranak, patata **pastela**, ilar beroak eta babarrunak. Koro Navarro

Porru **pastel** bat egiteko, izenak berak dioenez, porru sorta fresko bat behar da. Patxi Zubizarreta

Paolak legatz-**pastel** pare bat ekarri ditu eta japoniarrek arrain **pastela** probatu dutenean uko egin diote *sushiri*. Harkaitz Cano

Otzara bete ogi eder, arrain, izkira-**pastel**, ezti eta mahats bildu berriak. Koldo Biguri

## 6 kontu nahasia, saltsa.

Handik gutxira deskubritu zen benetako **pastela**: zalditegi errealeko arduradunek aste bete eman zuten animaliak pilula bereziekin elikatzen zeremonia egunean euren gorotzak ere royal majestyren mailan egon zitezen. Txema Ramirez de la Piscina

## 7 banatzeko dauden ondasunen edo kidekoen multzoa.

Neurri eta tamaina kontuan datza beren desberdintasuna: Euskal Herria Espainiara lotzen duten kateen neurria eta negozioren **pasteletik** bakoitzari egokituko zaion zatiaren tamaina. Berria - Euskal Herria

Zenbateraino zeuden langileak prest beren askatasun pertsonala sakrifikatzeko **pastelaren** tamaina handitzeko, beronen zati gero eta handiagoa eskatzen zutelarik? Iñaki Mendiguren

Bost axola herria, kontua **pastela** banatzea zen. Berria - Harian

Orain guztiak prest agertzen dira ariketa anti-demokratiko horretan parte hartzeko, ondoren guzieren artean **pastela** banatzeko, beren lastozko parlamentuetan egitasmo iruzurtiak oposizioz gabe aurrera eramateko. Berria - Harian

## 8 **pastel denda** (orobat **pasteldenda**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **pastel denda** agertzen da*) gozotegia, gozo denda.

Halako jaun batek, pentsatu nuen, ez zien ezertarako hitzik egingo **pastel-dendan** gure inguruan eserita zeuden erruso arruntei. Matías Múgica

Aldi baten buruan, gosetu eta **pasteldenda** batera jo nuen. Matías Múgica

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrautzako pastel** (3); **pastel bat egiteko** (3); **pastel handi** (5) pastel zati (9); **pastel zati bat** (5); **porru pastel** (4)

**pastelak jan** (3); **pastelak jaten** (3)

## **pastel**<sup>2</sup> 1 iz koloreko pastako barra, ur, hauts eta koloregaiak egina, margotzeko erabiltzen dena; barra horiek erabiltzen diren margotze teknika; teknika horrekin eginiko margolana.

Hauerrek **pastelaz** pintatu zuen Charlotte, olioz egiteko astirik ezean. Felipe Juaristi

Margolariak erabiltzen duen teknika sorta suertatzen da deigarriena: olioak, ikatz ziria, grafitoa, **pastela**, akuarela, tintak... Berria - Kultura

Jondonane aparkalekuaren bazterreko salan ikusten ahal dira Beñat Loyatho herritar margolari jeinutsuaren obra batzu, denetarat hogoi bat, olio eta **pastela**. Herria

Max Beckmann: urmargoak eta **pastelak**. Berria - Kultura

Afrikar artisten atelietan parte hartu zuen, zeta gainean egiten den pintura, serigrafia, **pastel** eta akuarelen teknikak ikasi zituen, olio pintura hasi baino lehen. Herria

Sasoi hartan paper gaineko klera eta **pastela** teknikak erabili zituen, batik bat, miresten zituen pertsonaien erretratuak egiteko. Berria - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pintore espresionista alemaniar horrek urmargo eta **pastel** pinturez eginiko tamaina handiko koadroak ikusi ahal izango dira. Berria - Kultura

**Pastel**-kolorez eta kolore biziz eta kolore ilunez eta kolore estuz eta zabalez egindako koadroak ziren. Altzari berriak txuriak dira, **pastel** kolorekoak, eta auskalo zein materialekin eginak. Unai Elorriaga

**Pastel** koloreko paperetan bidaltzen zizkidan mezuak berri eta arreta berezia eskatzen hasi zitzaidan. Bernardo Atxaga

Bere zapatak ere, desberdinak, normala eskuinekoa eta hiru bat zentimetroko zolarekin ezkerrekoa, urdin argiak ziren, oso politak, nik inoiz ikusi gabeko **pastel** tonu batekoak. Bernardo Atxaga

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Donostia postal-**pastelean**, munstroa solte. Iñaki Iñurrieta

Arrosa-**pastel** koloreko bi eraikin baxuk osatzen zuten -bi pisukoak, biak-. Fernando Morillo

Kolorea ez zen berak gogoratzen zuen arrosa-**pastela**. Fernando Morillo

## 4 (izenondo balioaz) koloreez mintzatuz, argia eta biguna.

Oso kolore bitxia zuen: ez zen iluna, ezta nabarra ere; oso tonu **pastel** berezia zuen, beix eta horiaren artekoa eta oso distiratsua zen, baina deigarria izan gabe. Txema Ramirez de la Piscina

Titiburuak kiwi kolorez makilatua ditu, ezpainen antzera, baina tonuera **pastelagoan**. Patxi Iturritegi

## 5 irud/hed

Lantzean behin Gortari dibertitu egiten zen bere lagun burgesen itxurakeria **pastel** kolorekoa zirikatzen eta astintzen. Patxi Iturritegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pastel koloreko** (6)

## **pastelada** iz *adkor* gauza belaxka eta ezti-jarioa.

Gai berrirako inspirazioa bilatzeko, aurrekoan bezalatsu jokatu, telebistan ematen zituzten maitasunezko **pastelada** guztiak eta hainbat bideofilm begitatu zituen. Jon Arretxe

**pasteldenda** ik **pastel**<sup>1</sup> 8.

**pasteleo** *iz* norbait bere probetxurako etorkor agertzea.

Ostiaka bidali, eta ez **pasteleoan** ibili, Baskongadentzako autonomia xixtrin bat lortzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**pasteleria** *iz* gozotegia, gozo denda.

Hantxe kruzean, stopean zain halabeharrean, sor-sor egon zen izkinako **pasteleriari** begira; hango bonba goxoak... **Pablo Sastre**

Haizeak **pasteleria** bateko paperezko serbilleta zerabilen airean. **Unai Elorriaga**

**pastelero 1** *iz* gozogilea; gozo-saltzailea.

Kako, **pasteleroa**. **Pablo Sastre**

**2** (izenondo gisa) *adkor* bere probetxurako etorkor agertzen dena, pasteleoari dagokiona.

Halako koherentzia falta bat sumatzen ziola, pasarte batzuek halako tonu liriko jaso bat zutela, eta beste batzuetan, berriz, propaganda tonua, turistentzako foiletotako erretorika **pastelero** horrekin. **Iñaki Iñurrieta**

**pastelkara** *izond* pastelaren eitekoa.

Eramenezina egiten zitaizon bere burua hirixka postalkara, **pastelkara** hartan aurkitzea, jende kaxkar dotorez, donostiar nardagarritz inguratuta. **Iñaki Iñurrieta**

**pasteltxo 1** *iz* pastel txikia.

Sekula ez zioten ganorazko oparirik egin, ezta **pasteltxo** bat ere. **Iñaki Mendiguren**

Postreak ekarri zizkigutenean kremazko **pasteltxo** bat eskaini nion, eta berak ahoarekin hartu zuen nire eskutik. **Bernardo Atxaga**

Apalean txanpain botila eta izokizko **pasteltxoak**, nire kuttunak. **Juan Martin Elexpuru**

Marrubizko **pasteltxo** bat erpuuraren eta hatz erakuslearen artean kulunka erabiliz. **Lopez de Arana**

Tea mendarekin eta bi libanoar **pasteltxo** eskatu zituen Ruche jaunak, almendra eta eztiarekikoak. **Jon Muñoz**

Aza-zopa eta hostorezko **pasteltxoak**. **Jose Morales**

Horretan egongo zen Ebe arratsalde osoan, nik **pasteltxo** bat prestatzen nion bitartean. **Sonia Gonzalez**

**2** (hitz elkartuetan)

Esan sukaldariari arrain-**pasteltxoak** ekartzeko oraintxe bertan. **Jose Morales**

Erakusleihoan ohiko goxokien sedukzioak erakusten ziren, esnegain pastelak, palmondoak, kornukopiak, opilak, arroz **pasteltxoak**. **Jon Alonso**

**pastenagre** ik **pastanagre**.

**pastera** *iz* morteroa oratzeko erabiltzen den xafla.

**Pastera** ondoan harea pila bat, adreiluak, lurtean hor eta han kapazo bat, errejatzko hesi txiki bat, borra, pala, paletak, taladroa eta beste zenbait tresna eta erreminta.

**Pablo Sastre**

Ba, gaurko ezingo dik, esan zuen Jabik; ez badugu masa **pasteran** egiten... **Pablo Sastre**

**pastetx** *iz ipar* artirinezko opila.

Trikotatzen eta josten, **pastetxak** adelatzen. **Itxaro Borda**

**pasteurizatu**, pasteuriza, pasteurizatzen **1** da/du *ad* esnea edo beste likido bat irakite puntua baino temperatura apalago bateraino berotu, bakterio kaltegarriak suntsitzeko.

Herriko nekazariak, erlezain autonomoak, gozogle artisauak, onddo-biltzaileak, txalupako arrantzaleak... traiteur eskulangilearen ospea hartuko dute, diseinuzko elikagai bikainak ekarriko dizkigute-eta: **pasteurizatu** gabeko gingko-ezti purua, ilar eta azalore lurrintsuak, [...]. **Edorta Agirre**

Saihesbideak: haragiak, arrautzak, esnekiak eta abere produktuak, oro har, ondo eginda edo **pasteurizatuta** jan. **Beria - Gaiak**

**2** (era burutua izenondo gisa)

Balak eskuetan neukan potean jo eta gatzatu **pasteurizatuaz** blai eginda utzi ninduen. **Iban Zaldúa**

Barnetegi hartako ekonomatoan saltzen ziguten salda **pasteurizatu** hura. **Koldo Izagirre**

**pasteurtar** *izlag/iz* L. Pasteur-ena, Pasteurri dagokiona; Pasteurren jarraitzailea.

Ikerlan ongi burutu bat, besterik gabe; ikusgarrizkoa, noski, baina **pasteurtar** epopeiaren bikaintasunik gabea. **Juan Garzia**

Lehenengo eta behin, zorretan sentitzen nintzen Pasteur-ekin eta **pasteurtarrekin**, hain harrera ona egin eta aurrera egiteko aukera emateagatik. **Juan Garzia**

**pasti** *iz adkor* pastilla.

Mugida itxurosoa dago, **pastiak** gura adina, nor bere zoroarekin, eta mukizu kaskamotza eskuma aldean goian. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Iturribide kalean topatu genuen, hiruzpalau ordu tabernaz taberna, hemen lerrotxo bat, hor **pasti** erdi bana eman ostean. **Sonia Gonzalez**

**Pasti** bat hartu genuen etxetik irten orduko, erdi bana **Sonia Gonzalez**

## pastila ik pastilla.

### pastilla (orobat *pastila* g.er. eta *paztilla* g.er.) 1 iz ore gotor baten zati txikia.

Zopa edo haragi-salda egiteko **pastillen** marka, Maggi enpresak merkatura aterea, Liebig baroiak asmatua. **Fernando Rey**

Eta hilkutxan sartuta eta usain txarren kontrako **pastilla** batzuen gainean jarrita, gela nagusira sartu zen Napumoceno jauna. **Bego Montorio**

Kontu handiz ateratzen zituen bere zetazko pijama, bere xaboi-**pastillak** eta bere txapin marokoarrak. **Fernando Rey**

Umeen modura portatzen gara, buffet bat edo bi xaboi **pastilla** dohako ikusi orduko. **Berria - Kirola**

### 2 sendagaia edo kidekoa daukan ale txikia. ikpilula.

**Pastillak** hartzen ari da, eta ez zaio alkohola komeni. **Bernardo Atxaga**

-**Pastilla** hau hartu ezkerro etzegok jan beharrik. **Iñaki Seguro**

Goitika bukatzen zuen, gontzetarik ateratzear, prozac **pastilla** bat ematen zioten arte. **Itxaro Borda**

**Pastillak** eman zizkidan, baina **pastillek** ez didate pixarik egiten uzten. **Koro Navarro**

-Bihar **pastilla** batzuk ekarriko dizkizut, egundoko aldea egingo dizute. **Joxean Sagatzizabal**

-Denok behar izaten dugu **pastillaren** bat noizean behin -esan nuen. **Koro Navarro**

Etixeratu eta lau **pastilla** irentsi zituen, Cutty Shark txorrotadarekin batera. **Harkaitz Cano**

Hori-berdeak dira hamarretako **pastillak** eta, besteak baino handixeagoak diren arren, hobeto irensten ditut. **Unai Elorriaga**

**Pastillekin** datorrenean esnatuko nauzu, mesedez? **Joxean Sagatzizabal**

Aginduak nizkion **pastillak** zirela esan nion. **Joxe Austin Arrieta**

Morse andreak ez zekien, inondik ere, veronal **pastillek** laster eragiten zuten edo ez. **Mirentxu Larrañaga**

**Pastillen** eragin txarragatik omen, eta ez ginen harritzen. **Berria - Kultura**

Guk paso egiten dugu **pastillez** eta horrelakoez, konforme? -esaten dio Joanak. **Antton Olano**

Ez ahaztu tentsioaren **pastilla**. **Arantxa Iturbe**

"Eromena kimika arazoa duk soil-soilik", esaten zuen, "noizbait **pastilen** bidez konponduko duk dena". **Bernardo Atxaga**

### 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Hamar **pastilla** zuri zekartzan, elkarren kontra pilatuak. **Mirentxu Larrañaga**

Patrikan zeraman zorro batek **pastilla** txiki bat atera zuen, uretan urtu eta edan zuen. **Xabier Olarra**

Basoaren ondoan, **pastilla** txiki baten erdia. **Anjel Lertxundi**

**Pastilla** antidepressiboen dozenaka kartoizko kaxa eta plastikozko ontzi. **Harkaitz Cano**

Egun oroz zazpi **pastila** kimiko irenstearen erruz, ezpainen zirrikitueterik tu malgua isurtzen zitzaion. **Itxaro Borda**

Buruko minarentzako **pastillak** edo aringarriak ematen dizkirate, lepoa edo lokia haztatzen didate ea sukarrak dudan. **Josu Zabaleta**

Gero eta urduiago dago biografoa, lotarako **pastillak** hartzen hasi da, psikologo adiskide batek atsedena hartu behar lukeela aholkatu dio. **Anjel Lertxundi**

Hatsarentzako **pastilla** bat erosi nuen merkatuan. **Koro Navarro**

Egunero bizitzan abiatzeko behar zuen oro, gauero lo egiteko behar zuen oro, koloretako **pastillek** markatutako erlojuaren gezien ibilbide geza, numerorik gabeko egutegiak, numeroak baino ez ziren bere alboan lo egiten zuten gizonak... **Sonia Gonzalez**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondokoak eskatu zituen: talko-hauts lata bat, azazkaletako eskuila bat, eta veronal **pastilla** -kaxa bat. **Mirentxu Larrañaga**

-Pertsona batzuk **pastilla** premian jaiotzen dira -esan zuen Terrik. **Koro Navarro**

Halaber, urte hartan **pastilla** itxurako antisorgailua, "pilula" famatua, jarri zen salgai. **Pello Salaburu**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Vitamina **pastillek** ez zuten arrakasta handirik, baina zigarreta paketak estimu gorenean ziren. **Marzel Etxehandi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pastilla hartu** (3); **pastilla hau** (4); **pastilla hau hartu** (4); **xaboi pastilla** (3)

**pastillak hartu** (5); **pastillak hartzen** (5)

## pastillatxo iz pastilla txikia.

Esnegaina eta txokolate apur bat, eta hori guztia **pastillatxo** batekin ondo nahastuta eta, zergatik ez, marihuana apurra ere bai, mimoz txikituta, dena labera eta kito! **Sonia Gonzalez**

Dodov **pastillatxoak** xukatzen ari zen, ahogozagarrri. **Karlos Linazasoro**

## pastillero izond/iz adkor pastilla-hartzailea.

Gazte **pastilleroentzako** musika duk hori. **Iban Zaldúa**

**Pastillero** hutsa eginda zaudela esan didate. **Jokin Muñoz**

Kalera estresatzera datozen urbano desfasatuak bihurtu dira gure baserriar gazteak, eta kaleumeak, aldiz, hilean behin desestresatzera mendira, naturara edo eskalatzera doazen **pastillero** bukolioak. **Pako Arísti**

## pastis iz likore anisduna, urarekin hartzen dena.

Ideia zoro bat pasatu zitzaion burutik, tabernan **pastisa** hartzen ari zelarik. **Harkaitz Cano**

Atea ireki orduko **Pastisaren** usain gozoegia iritsi zaio bisitariari. **Pello Lizarralde**

Argi nahiz ilunpe, piano gaineko sei kandela lurrintsu pitzen zituen beti, **pastis** -usaina disimulatu, eta zaletasun haren berri eman ez niezaien neure gurasoei. **Anjel Lertxundi**

Portuko ekonomatoan hartzen genituen **pastis** eta demi-bier haiek norekin hartzen dituzu orain? **Harkaitz Cano**

## pastitxe iz imitazio mota, ereduaren hainbat gai edo alderdi hartuz lan original ustekoa lortzean datzana.

Literatura: hasiera-hasieratik, Celineren Eliza nobelaren aiputik alegia, erreferentzia literario ugari agertzen joanen dira testuan zehar, egileen obren, estiloen, tekniken maileguak erabiliz, **pastitxeak** eta parodiak egiteko gustua erakutsiz. **Monika Etxebarria**

## **pastiza** *(orobat **pastiza** g.er.)* **1** iz pastela, gozopila.

Bakoitzak **pastiza** lodi bat zirudien: azukreztatua eta kremaz betea. Hiria Ramuntxo Etxeberri

Aratsaldeko 7etan, tragoak eta **pastizak** salgai San Inazio lepoan. Hiria

Etxean egindako **pastizak** ere jastatzen ahalko dituzue: urririk eskainiak izanen zaizkizue. Hiria

Bisitariak 50 kiloko euskal **pastiza** erraldoi bat ikusi dute hor paratua. Hiria

Euskal **pastizaren** besta iraganen da igande huntan, irailaren 25ean, Kanbon. Hiria

Bururatzeko zintzur bustitze bat egin dugu **pastiza** poxi bat janez. Hiria

## **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kalkulu-makina guztiz txikiak, era guztietako **pastiza**-moldeak, azukre-kokorrak hartzeko pintzak. Joxan Elozegi

Datilik jan dituzue, piku idorrek, **pastiza** zati zenbait. Xabier Montoia

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erostunak nola egingen du diferentzia "EGUZKIA" eta merkatuko beste etxe **pastizen** artean? Hiria

Orok ezagutzen dugun "gâteau basque" etxe **pastizarentzat** sor-marka bat ezartzen ahal ote zen? Hiria

Baziren ere arto opilak eta etxe **pastizak** Bidarteko Bassilour errotan eginak. Hiria

Huna janariak: salda, moleta piperduna, oiloa irrizarekin, entsalada, gasna, sagar **pastiza**, arno eta kafe nahikoa. Hiria

## **4** **pastiza egile** *(orobat **pastizgile**)* gozogilea.

Goizean euskal **pastiza egile** amaturren txapelketa antolatua zen. Hiria

Thierry Bamas, Baionako **pastiza** egileak lehen saria ardietsi du sukrezko patizeriako euro xapelketan Lyonen. Hiria

Sebastien Jirodineau [...] **pastizgile** dena. Hiria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**etxe pastiza** (6); **euskal pastiza** (10)

**euskal pastizaren** (5); **euskal pastizaren besta** (5)

**etxe pastizarentzat** (5)

## **pastizeria** *(orobat **patiseri**)* iz gozotegia, gozo denda.

Bigarrena, Jeanine BASTID, Kostalde huntan handizki ezagutua den "Pereuil" **pastizeriako** etxekanderea. Hiria

Gurin fina baizik lantzen ez duen **pastizeria**. Joxan Elozegi

Ibrahimen **patiserian**, menta te bat eta pistatxo ez egin gozoa prestatzen dizkidaten bitartean, egunkaria zabaldu dut. Iñigo Aranbarri

## pastizgile ik **pastiza** 4.

## **pastoral**<sup>1</sup> *(orobat **pastural** g.er., **pastorale** g.er. eta **pastorala** g.er.)* **1** iz Zuberoako herri antzerkia, herriko plazan edo kidekoetan egin ohi dena.

Bi **pastoral** oso desbardinak ikusi dütügü zortzi egün arte: trajeria Sohütan, komedia Iurin. Hiria

Gutzira, bederatz **pastoral** idatzi zituen Pierra Bordazarrek. Berria - Kultura

Antezelan bat, liburu bana, kantata bat eta **pastoral** bat ere egin dute, Antso III.aren bizitza eta hark utzitako ondarea eta eredia oinarritzat hartuta. Berria - Euskal Herria

Datorren igandean Maulen emango den 'Antso Handia' **pastoralaren** mustraka nagusia egin dute. Berria - Kultura

- **Pastoral** baten sujeta izateko balio dut, bai ala ez? Aingeru Epaltza

Bazituen bost bataila ez baita guti **pastoral** batean. Hiria

Inori ere ez zaio oraindik bururatu **Pastoral** bat zuberotarra ez den euskalkian egitea. Koldo Zuazo

Biarrioko herri euskalduna, zinez euskal ohidurei atxikia, izan diten **pastoralak** ala maskaradak, dantzak eta pilota. Hiria

## **2** (hitz elkartuetan)

Euskal akademikoak interpretari lana egiten du alemanaren eta **pastoral**-errejentaren artean. Anjel Lertxundi

Junes Casenave-Harigile **pastoral** idazleak, Jean-Fabien Lechardoy Errejentak, Jacques Jaragoyen dantza erakasleak, [...]. Hiria

Oraingoan Zuberoatik propio pastoralarekin etorritako xirulak eta ttuntunak jorik, eta **pastoral**-taldeko dantzari ezinago arinek miresgarriro dantzaturik. Txillardeggi

**Pastoral** emanaldiaren osteko afaria, azkenik, Zuberoako ikastolek adalatutakoa izan behar luke. Berria - Kultura

## **3** **pastoral-egile** *(orobat **pastoralgile**)*

Alegiazko jekaldi horretan, **pastoral egileak** asma baitezake holakorik, erakusten du Pizkunde garaian nola aldatu den giroa. Hiria

Orain dela hogeita bost urte hil zen Pierra Bordazarre Etxahun-Iruri abesti eta **pastoral egile** zuberotarra. Berria - Kultura

Ezin hasiko gara vasco-españoletik hartutako formula errazak zalantzan jartzen lau artzain eta bi **pastoral egilerengatik** ! Iñigo Aranbarri

Berlingo irakaslearen jarrera orojakileak gogaitu egin du **pastoralgilea**. Anjel Lertxundi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pastoral ederra** (3); **pastoral egile** (4); **pastoral errejent** (3); **pastoral idatzi** (4)

**antso handia pastorala** (22); **etxahun iruri pastorala** (4); **ramuntxo pastorala** (6); **xiberoko makia pastorala** (3); **xiberoko pastorala** (5)

**pastoralak egiten** (3)

**pastoralako kantariak** (3)

**antso handia pastoralaren** (19); **pastoralaren agerraldia** (3); **pastoralaren mustraka** (3); **ramuntxo pastoralaren** (3); **xiberoko makia pastoralaren** (3)

**ramuntxo pastoralean** (3)

**antso handia pastoraletako** (7); **pastoraleko aktore** (3)

**zuberoako pastoralen** (3)

## **pastoral**<sup>2</sup> **1** *izond* artzainei edo artzaintzari dagokiena. **ikartzain**.

Soa apaldu eta ardiak zementuarekin lurrari lotuak zirela baimendu eta bizitza **pastoralaren** nostalgiko bat jadanik zutabearren segatzen saiatu zela ohartu nintzen Itxaro Borda

## **2** erlijio katolikoan, arimen artzainari dagokiona.

Jan Giesekek apezpikuek katolikoentzat idatzi duten gutun **pastoral** baten kopia bat ekarri digu. Josu Zabaleta

Bere maisuaren enuntziatuetan alderdi etiko eta **pastoral**a gehiago azpimarratuz espekulatibo eta filosofikoa baino. Joan Mari Lekuona

Elizaren familia lan **pastoralaren** jarraibideak Espainian. Berria - Euskal Herria

Azpilkuetak gehiago estimatzen zituen latinezko lan akademikoak erromantzezko **lan** pastoralak baino. Piarres Xarriton

Ez zen interes politikoetan oinarritutako egitasmo bat, interes **pastoraletan** oinarritutakoa baizik. Berria - Harian

· Aitor Urresti Deustuko eta San Inazio Gasteen **Pastoralen** arduraduna kargugabetu egin du Bilboko Gotzaindegia. Berria - Euskal Herria

### 3 (izenlagun gisa) *ipar*

**Pastoral** lanetarako pertsona gogorak eta osasun onekoak behar ditugu. Berria - Gaiak

Mintzatu ere dira, herriko auzapeza, parrokiako elkarte, eskola girixtinokoa, katixima egileak, San Bladi parrokiako **pastoral** elkarte. Herria

Apezek, **pastoral** Kontseiluek, liturgiaren arduratzen direnek, ikus dezatela nola leku bat eman britainiar mintzairari elizkizunetan, elebidun ezarri ahalez kantu, hitz eta otoitzak. Herria

Esperientzia zinez harrigarria, **pastoral** eta giza sailetan. Herria

Azpiarretzekoa da lehen gogoetaldien laburbilduma bai eta ere Apezpikuaren **Pastoral** Idazkia osoki euskaratuak izan direla. Herria

Gourvès apezpikuak, **pastoral** gutun batean, berriketan galdegin diote diosesako girixtinoer harremanetan sar dituen kulturari hoinbeste atxikiak direnekin. Herria

### • 4 *iz* erlijio katolikoan, artzain gutuna, gutun pastoralak.

Espainiako Apezpikuen Batzarraren **pastoral**a kritikatu dute. Berria - Euskal Herria

Esquindarren ustez bi gauza barkaezin egin zituen, lehenengoa esatea zilegi zela Elizaren ikuspegitik euskal nazionalista kristauei botoa ematea, eta bigarrena Iruñeko apezpikuak atera zuen **pastoralaren** kontra agertzea. Mikel Hernandez Abaitua

Fernando Sebastianen **pastoralean**, botoa UPNri emateko gomendioaz besterik uler zitekeen? Berria - Euskal Herria

· 2002ko udazken aldera euskal komunio nazionalistako argigile plusquamnazionalen batzuek idatzitako **pastoral** moduko bat zabaldu zen, artzain-gutuna esan nahi dut, ez teatroa. Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**turismo pastoralaren** (3)

pastorale ik **pastoral**<sup>1</sup>.

pastoralgile ik **pastoral**<sup>1</sup> 3.

**pastoralgintza**<sup>1</sup> *iz* erlijio lan pastoralak. ik **pastoraltza**.

Helduaroan idatzitako lan honetan Testamentu Zaharraren ikerlan sakona egiten du; gizakiari buruzko arazoak nabarmentzen ditu eta **pastoralgintzan** sortu zaizkion galdera praktikoa askori erantzuten saiatzen da. Imanol Unzurrunzaga

Azkenean, nere ikasketak utzi nintuen, **pastoralgintzari** lerraturaz, hori baitzen neretzat lehenasuna. Menane Oxandabaratz

**pastoralgintza**<sup>2</sup> *iz* pastoralak idaztea.

Hauen ondoan, saiakeran, olerkigintzan, euskaltzain gisa baita **pastoralgintzan** zein eleberrigintzan idatziak ere aurkitzen dira. Berria - Kultura

**pastoralkari** *iz* *ipar* pastoral-egilea.

Goian dagoela Battitta **pastoralkaria**, Orhiko Parnasoan, olerkari eta kantarien artean. Herria

Honek pastoralaren atal artistikoak aipatu zituen, eta umorez ohartarazi zuen mauletar **pastoralkarien** eskolatzaila lanetan jardun dutela... hiru barkoxtarrek. Berria - Kultura

**pastoralño** *iz* pastoral xumea.

Igaran ikasturte urrentzean, **pastoralñi** [sic] bat antolatú zūen beren errejent-errejentekin. Herria

**pastoraltza** *iz* erijio lan pastoralak. ik **pastoralgintza**<sup>1</sup>.

2003ko urriaren 17an ostiralez, ehorzketen **pastoraltzaren** funtsaz. Herria

Ezpainian, Portugalen eta Frantzia Itzasko **Pastoraltzaren** arduradun garen apezpikuek nahi genuke, gure artzain ahotsa adiarazi, kezkatu baigauke guzien ona gatik. Herria

Mgr Januario FERREIRA Itzas **Pastoraltzako** gotzaia. Herria

Xabier Lasa (Berriozar, Nafarroa, 1967) teologo eta Iruñeko gotzaindegiko euskal **pastoraltzako** arduratutako bat. Berria - Harian

Iruñeko Elizbarrutiko Euskal **Pastoral** arduratu da lan horretaz, Juan Apezetxea apaiza buru. Berria - Euskal Herria

**pastoralzale** *izond/iz* pastoralen zalea dena.

Txirulari gisa ziharduela, Pierra Bordazarre maiz ibili zen Hego Euskal Herrian zehar, eta Zuberoatik kanpoko beste euskaldunak **pastoralzale** bilakarazi zituen, gure herriko historiaren pertsonaia eta gertakariak trajerietako gai bihurtuta. Berria - Kultura

Oholtzara igozte honek berak **pastoralzaleei** begi-bistara eman zieten zelako lan handia egina izan den azken zortzi hilabeteotan Antso Handia pastoreko 118 arizaleen jauntziak asmatzeko eta egiteko. Berria - Kultura

**Pastoralzalea**, Sohütakoan zen azkenik, ohore betzait. Herria

**pastore** *iz* eliza protestanteko artzaina.

Gero XVI. mentean, Joanes Leizarraga beskoiztarrek, Bastidak protestant artzaina (**pastorea**) zelarik, Testamentu Berria euskaraz ützüli beitzüan, lagüntzale üken zütüan bi züberotar **pastore**, haietarik bata Bustanoby. Herria

1871n Buenos Aires-en lehorreratu zen gizonari Johannes Dahlman zeritzon, eta Ebanjelioaren Elizako **pastorea** zen. Juan Garzia



# pastorraz iz orratz mota.

Plaza ondoko etxean, Iñarrean, badituztela pilota batzuk uretan gordeak, eta gainera **pastorraz** handi batekin zulatuak. **Patziku Perurena**

## pastu ik pasatu.

## pastural ik pastoral<sup>1</sup>.

## pata 1 iz hanka.

Aitzineko **patak** edo zangoak beso bilakatu dira, ziminoak zuen gauzen erabiltzeko errextasuna atxikiz. **Herria**

Diote gure beharriak gaizki formatuak direla, ahate **pata** baten marka beso pean badugula, hatsa karatsa dugula, ur usaindu bat gure gorputzak ixurtzen duela. **Michel Oronoz**

Nina eta bere aita ez ziren atrebitu oilasko **pata** frijituen jastatzera. **Ramuntxo Etxeberri**

-Fernando, zer krisma inporta zaizu zerri-**patak** eskatzen badituz bigarrenez? **Aingeru Epaltza**

## 2 lau pataka lau hankan.

Eta handik buruz behera lau **pataka** baletor bezala baztertu zen jendetza alboetara mira eginda Tomen aitaren txalupari bide egiteko gazteluko maldan behera. **Koldo Izagirre**

## patagoniar izlag/iz Patagoniakoa, Patagoniari dagokiona; Patagoniako biztanlea.

Magallanes itsasartearen igarora zuen eta **patagoniar** beldurgarrien istorioak kontatu zizkion. **Irene Aldasoro**

## patal (12 agerraldi, 6 liburu eta 4 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **patal** agertzen da) 1 izond pattala, ahula.

Kolore **patala** du Egiptotik itzuli ginenetik. **Iñaki Mendiguren**

Scabbersek itxura **patala** zuen Crookshanksekin topo egin baino lehen ere... **Iñaki Mendiguren**

Nire begietan, nik batere merezi gabe egokitu zitzaidan zorte **patal** hura. **Matías Múgica**

## 2 (adizlagun gisa)

**Patal** ibili nauk eta... **Pablo Sastre**

Aurrelari argentinarra **patal** dabil Liga hasiera txukunaren ondotik. **Berria - Kirola**

Denboraldi hau ere **patal** hasi zuen Ezkarozeko atzelariak. **Berria - Kirola**

**Patal** samar ibiltzen zen erdaraz egiterakoan eta mundu guztiari egiten zion euskaraz. **Jon Arretxe**

Egun batzuk lehenagoko zauria zela medio **patal** antzean ibiliagatik, Iñaki neu baino hobeki zebilen nabarmenki. **Xabier Montoia**

## patar<sup>1</sup> (orobat **pattar g.er.**) 1 iz aldapa.

Bide xabal goxo bat eta hona berriz **patarra**. **Piarres Aintziart**

Azken **patarraren** gainetik behean Rhin ibaia ageri da, eta gero Alzaziako zelaia. **Marzel Etxehandi**

**Patarraren** kaskorat heltzean baita bihurtune tzar bat. **Janbattitt Dirassar**

Urratsa zalu, Ibañetako **patarrari** lotu zen. **Herria**

**Patar** bat, azkarki beheiti doa eta segidan goiti. **Piarres Aintziart**

**Patarrak** berriz beheiti egiten du. **Piarres Aintziart**

Eremua dena **patar**, dena harroka. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Patar** baten kaskoan, kamioiak gelditu direnean, ohartzen naiz gurekin diren espainiar batzuk ez dutela denbora galdu bidean. **Marzel Etxehandi**

Haritz xara baten itzalean **patar** bat iraganik, Villei herrixkan gara. **Piarres Aintziart**

Kasik oren baten bidea landaz landa edo baratzez baratze, mailaka mailaka, **patarra** hain zen xuta. **Herria**

Lehen urratsak beraz, bizkarreko kargak, eta **patarraren** xutak izter eta zangoen giharrak gogortzen dizkidatelarik. **Piarres Aintziart**

## 2 (izenondoekin)

**Patar** gogor eta xut askotan gaindi, joanden igandean maratoi gisako lasterraldi gaitza egin da mendian, Zegamatik Aizkorriat. **Herria**

**Patar** gogor eta xuta eta iduriz aski luzea. **Piarres Aintziart**

Iruñerainoko **patar** luzea, bortxaz bezala eta ene buruaren kontra haserre, iragaiten dut. **Piarres Aintziart**

Esnasuko lepoa dela goxoena edo bederen **patar** laburrena. **Herria**

Bide okerrak zeuden idatziak neure oinentzat, **patar** malkartsu eta galmendirakoak. **Karlos Linazasoro**

Ongi dakizue zer duzuen beha: **patar** harritsuak, izerdia, oinazea. **Xabier Montoia**

Badira ere bihurtune txarrak, **patar** gaixtoak, bide peza batzu dena ozka eta zilo. **Herria**

Haizerik ez zen, hodei beltz zenbaitek euria iragartzen zuten, baina suak lasaiki beretik jarrai zezakeen, **patar** zein pentoka umilen balakatzten. **Itxaro Borda**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Patar** zolatik oihu egiten genien, eta bulta handiaren buruan, ardiak jausten ziren tarrapatata, bata bestearen ondotik. **Itxaro Borda**

**Patar** xolan, etxalde handi baten aitzinean, zakurrak. **Piarres Aintziart**

Milaka eta miliunka, mendez mende, jendea **patar** gain honetara iritsi da. **Piarres Aintziart**

## 4 (izenondo gisa)

Bazen oren erdia xenda **patarr** batean gora ari ginela. **Koldo Izagirre**

Nosrat Abadeko kontrolagunearen kokapenak, haatik, eztaibaida sortu du, aldapa oso **patar** baten zolan eta bihurtune baten irteeran eraikia izan baita. **Berria - Mundua**

Gorantz egiten duten karrika, ezponda eta espalo **patarrak** dituen muino honek, topografiak, Frantziako Mont Saint-Michel ospetsua ekartzeko digu gogora. **Berria - Kultura**

Zaborteagatik salbatu plastikozko bidoinekin eta botilekin egina dago, karrika **patar** harritsuaren bi aldeetako erromes multzoa Guanes Etxegarai-ek arrunta duin bilakarazi du. **Herria**

Buchenwald-eko kontzentrazio zelaia biziki zabala da, 600 metra gora eta biltegiak badira kondagaitzak, zenbaitek iduri baitute komodosak, Thuringe-ko mendi **patarretan** kokatuak. **Michel Oronoz**

Kurutze horrek dauka zeinu bat, lehen ermitau batek joiten zuena izuenen, mendi **patarreri** beheiti heldu zen erromesa ez zedin gal edo erroitz batean eror.

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 5 *patar guziak ordoki izan*

Horrek ez du erran nahi **patar guziak ordoki** dituela, gaurko egunean bestenez ere ez baita holakorik eta aintzinerat egitekotan behar baita gisa hartarat jokatu, batzuetan ez bada ere hain erretx! **Herria**

Erran daiteke **patar guziak ordoki** direla eta ez dela den mendreneko hedoi ttipienik urrunera ere ageri zero urdinean. **Xipri Arbelbide**

Dabilanari eta ari denari gertatzen, ez oraino harek ere **patar guziak** ordoki: haxoinetako zainen minberaz izanak zituen zangoak ibilirean gustuz baina joanean joan ari zitzaion bere mina gogortzen. **Herria**

## 6 (kideko esaldietan)

Horiek hola, ez dira han ere **patarrak** ordoki: buru egin behar da holako jauziari. **Herria**

Liburuan aitzina egin arauz, ez nekizkienak ikusezin bilakatzen joan ziren, **patarrak ordoki**. **Aingeru Epaltza**

Ezagun da aise harreman hobekak direla azkenean Madril eta Gasteizen artean, nahiz horrek ez duen erran nahi **patar guziak** bat-batean **ordokitu** direla... **Herria**

Algeriarekin **patarrak ordokitzen** hasi ditu Frantziak. **Herria**

## 7 *patarra beheiti (orobat patar beheiti eta patarrari beheiti) aldapan behera.*

Berehala ibarrean naiz, Hormazuela ibaia ez da urrun eta **patarra beheiti** abiatuz geroztik ikusten dudana herria Hornillos de Camino da. **Piarres Aintziart**

Nehori deus erran gabe abiatu naiz **patarra beheiti**. ortzegun aratsaldean, Placidako **patarra beheiti** zoan beribil bat zuhaitz baten kontra mazitu da, lhartzebeheretik hurbil. **Piarres Aintziart**

Gure herronka, 5.000ko bat baino gehiago, abiatzen da Buchenwald-eko **patarra beheiti**, Weimar-eko geltokirat buruz. **Michel Oronoz**

Gero **patarrari beheiti** jaustea, lan horrek ere bere nekea baitzuen, erroitzak hor berean izanez. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Honara heltzean **patar beheiti**: hemendik abiatzean, goiti! **Piarres Aintziart**

## 8 *patarra goiti (orobat patar goiti eta patarrari goiti) aldapan gora.*

Hirira banoala **patarra goiti**, laborari batek errepidea zeharkatzen du gusturik hoberenean. **Piarres Aintziart**

Euriak euritei, lbanteliko mendi paretek ikusi dituzte 175 amorratu, **patarra goiti** bermatzen. **Herria**

Karga gehiturik ere, gizona lehengo erritmo berean zihoan, **patarra goiti**. **Elena Touyrou**

**Patarrari goiti**, kamiunttoa alde bat eztl eta uzker, iduri ez zela sekulan gaineraino helduko. **Janbattitt Dirassar**

Bostak irian, ikas-gelan ginelarik, aditzen ditugu aleman moto eta berebilak karraska gorrian semenarioko **patarrari goiti** heldu... **Herria**

Hiru gizon **patar goiti** urrats bizian hurbiltzen ari zaizkidala kurutzatu ditut. **Piarres Aintziart**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**patar beheiti** (3); **patar goiti** (3); **patar luze** (3); **patar xut** (6)

**patarra beheiti** (7); **patarra goiti** (7); **patarra igan** (3)

**patarrak ordoki** (4)

**patarraren kaskoan** (3); **patarraren zolan** (4)

**patarrari goiti** (4)

patar<sup>2</sup> ik **pattar**.

## patari 1 iz piztia.

Mexikon zela, Cardenas presidentearekin ere elkartu zen, ahuntz batzuk eta horrelako **patari** galduren bat besterik ez zuen uhartea erosteko asmoz. **Iñigo Aranbarri**

## 2 (izenondo gisa)

Europar, Italia eta Frantzia batik bat, Espainia nazio atzeratu eta **pataritzat** eman ohi zen arestian (literatura erromantiko frantsesak irudi hori kultibatzen -Carmen-jarraituko du). **Joxe Azurmendi**

## patarño iz aldapatxoa. ik patartxo.

Mahasti eta ogi landen erdian goiti beheiti eztiak uhain lurtsu bilakatzen ditu ibiltariaren urrats biziak eta **patarño** baten gainera hurbiltzen naizelarik, pauso bakoitzak aldaparen kaskoa mugiarazten dit, buruaren goiti beheitien arabera. **Piarres Aintziart**

## patarraka *adlag* oihuka.

Azken hilabete garratzak bizi izan zituzten: beti aharraika, **patarraka**, oldarka, hitzeko mehatxuei ihardukitzen. **Itxaro Borda**

## patartsu *izond* aldapatsua, malkartsua.

Bide xuko, **patartsu** eta harritsu batean naiz oraindik, eta hatsantzen hasia. **Piarres Aintziart**

Errepide hertsi **patartsu** bat eta jarraian, eskuin, herriko hilerria. **Piarres Aintziart**

Berriz haizearen eta euriaren mehatxupear, Maien urratsetarik karrika **patartsura** atera nintzen.Amodioak holako bide bihurri eta **patartsuak** hartzen ahal dituela ere, harritua nengoen. mahasti berriak idekiko dituzte horrela gune **patartsuetan**. **Itxaro Borda**

Ez dute kontutan hartzen eremu horretan badirela pentze eta landa **patartsuak**, inork uste baino gehiago. **Herria**

## patartxo iz aldapatxoa. ik patarño.

Sadareko zubia zeharkatu dut eta beraz azken **patartxoari** lotzen nntzaio. **Piarres Aintziart**

## pataska iz ipar borroka, gatazka.

Euskal bestaz besta ibilia zen, **pataska** eta aharra xerkatzen. **Itxaro Borda**

Hebron hirian ere izan dira **pataskak** eta guduak, hango bereko Palestindarren eta han kokatuak diren judu bordarien artean. **Herria**

Ageri zen plazer zuela Bush jaunak Castel Gandolfo-ko giro goxoan aurkitzea Genova-ko **patasken** ondotik. **Herria**

G8ko arduradunek segitu dituzte beren solasaldiak kanpoan ari ziren **patasken** gatik, heintzat apailatua zen gune hura fermuki begiratu baitu alabainan poliziak. **Herria**

## pataskatu, pataska(tu), pataskatzen da/du *ad* nahasi.

Bizkarrezurtasuna eta bizkarroitasuna nahasten diren, **pataskatzen**, beldur naiz, eta ez da, kasu honetan, hizkuntza ongi ez jakiteagatik. Pello Salaburu

## patata 1 iz jatorriz Ameriketako den landare urterokoa, hosto-zatitua, lore zuri edo moreak ematen dituena (*Solanum tuberosum*). ik **lursagar**.

Esklabo eginak egon behar al dugu ba beti, **patata** landatzen edo txerri zaintzen? Koro Navarro

Santa sekulan ez dugu **patatarik** landatu, eta nahi dute pentzeak horretan erabil ditzagun. Elena Touyarou

Soro bateko belar txarrak kentzen ari gintuan **patata** ereiteko... Lopez de Arana

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itzuli eta **patata** -sailean zehar doa, landareak nahita zapalduz. Oskar Arana

Hilerrri urrun eta gordeak ikustera eramaten ninduen, eta **patata** -alorrak eta herrixka zoragarriak. Fernando Rey

Gizon zaharra **patata** -soro batean etzanda zegoen. Lopez de Arana

**Patata** soro bat da adiskidetasuna. Josetxo Azkona

Han balditzen ninduen beti, zaldia eta gurdia hartuta, mandaturen bat edo beste egitera: jateko bila, beharbada, merkatariegana; **patata** -hazia ekartzera. Mirentxu Larrañaga

Nork esan behar zuen hainbeste denboran gutaz trufaka ibilitako "**patata** -zomorro" horrek gure eskuetan horrela erori behar zuenik? Joxemari Urteaga

### 3 landare horren lurpeko zurtoinaren betar mamitsua, azala arrea eta barrua zurixka edo gorrixka duena, eta janari gisa oso erabilia dena.

**Patata**, luxuzko elikagai bihurtua zen, herio zelai hartan. Eneko Bidegain

Ama, Margot eta ni **patatak** zuritzen. Josu Zabaleta

**Patata** batzuk jarri zituen egosten. Pablo Sastre

Gaurko bazkaria **patata** eta kontserbako aza zimurrez egindako eltze bat izango da. Josu Zabaleta

Arrautza frijituak, **patata** eta piperrekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Txikia zen eta larruzkoa ematen zuen, **patata** bezalakoxe buru soildu, handi eta hezurtsuarekin. Iñaki Mendiguren

Atzeko atetik ateratzeko babarrun, **patata** eta bakailaoz enpo baitzeukaten mojek biltegia. Jokin Urain

Extremadurako opilak eta **patatazko** txorizoa ere ekartzen zituen gure amak. Jon Maia

la **patatarik** ez zaigu geratzen. Josu Zabaleta

Porru- **patatak** jartzen dizkigu Gabrielak. Arantxa Iturbe

Leka- **patatak**, aspaldiko partez; eta Atxetatik beretik ekarriko sardiñak segidan. Txillardeggi

### 4 (izenondoekin)

Horrekin batera **patata** ustelak. Josu Zabaleta

Izugarri zaletu nintzen **patata** gordinekin. Joxan Elozegi

**Patata** zurituak hartu eta pure egiteko tresnatik pasatzen dira. Josu Zabaleta

Onen-onena, arrautzak eta **patata** frijituak, eta garagardoa Popeko stamineteen. Mirentxu Larrañaga

Jatetxeak **patata** frijituen eta koktelen usain alaia zuen. Lopez de Arana

Zerra gogor bat **patata** frijitu koipetsuekin. Felipe Juaristi

Asteen behin **patata** egosiak. Urtzi Urrutikoetxea

Ehun bat indoiilar gizen erreak, **patata** erre eta egosiak pilaka. Iñaki Mendiguren

**Patata** minak jatera gonbidatu nuen. Juan Kruz Igerabide

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, janarietan)

Nahi gabe, **patata** xerrak azaldu zitzaizkion begi aurrean. Anton Garikano

Babarrun pinto edo zurizko zopa, **patata** zopa, juliana zopa sobretan. Josu Zabaleta

Sethek aurreratuta zeukan **patata** -entsalada. Anton Garikano

Hainbat bizkotxo arrunt eta **patata** -tarta egongo ziren. Anton Garikano

Sagarrak, udareak, aranak, **patata** pastela, ilar beroak eta babarrunak. Koro Navarro

Aldapa luzea zen, baina **patata** tortillak eta laranjadak ahalegina merezi zuten. Jokin Muñoz

-Atera **patata** tortilla pintxo bat eta ardo bat, berezia! Unai Iturriaga

Bagenuen zerekin lagundu gure **patata** -jana. Mirentxu Larrañaga

Sua ardaila eta silexez eginez, **patata** -ogia jenez, ezagutu zituzten urte oso gogorak. Pablo Sastre

Ogi eta gurinez egindako budina, mahaspasaduna, **patata** -orezko pastelxoak. Mirentxu Larrañaga

la segurua da **patata** fekula lapurtu duela, eta orain Bepi bota nahi dio errua. Josu Zabaleta

Eskarola harearekin, harearik gabe, **patata** purearekin, hutsik edo eltzekoan. Josu Zabaleta

Ez baitzuten zilegi lurrik Zuriei saltzea kristalezko perlen eta **patata** -whiskyaren truke. Xabier Olarra

- Beste mutil batekin zihonan, eta **patata** frijitu poltsa bat pasatzen zioten elkarri. Koro Navarro

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bestelakoetan)

Oso ehun eskasekoak dira, **patata** zakuak egiteko erabiltzen den jute horretaz eginak ematen dute. Josu Zabaleta

**Patata** upelaren gain-ganean eta ondoan hasi zen jarioa. Josu Zabaleta

**Patata** azoka eginen da, 12. aldikotz, Gaubean, otsailaren 15ean. Herria

Gure **patata** hornitzailearen dendatik igaro zen Jan, eta lapurretarena kontatu zion. Josu Zabaleta

Goi mailakoen arteko leku desiragarrienetako bat eskuratu zuela ere jakin nuen bidenabar, **patata** -zuritzailearena. Urtzi Urrutikoetxea

Sua pizten aiatu zen, baina **patata** -poltsa hutsak kea atera eta zimurtu besterik ez ziren egin. Iñaki Mendiguren

Azken **patata** aleak ehizatzen eta ardiki saltsatan bustitzen ari zirelarik. Pako Aristi

Bezperako **patata** azalak, lapiko bete, hori izan zen "finlandiar" bati erosi nion lehen gauza. Urtzi Urrutikoetxea

Ez zuen asteroideen **patata** -itxura arrunta, diseinuzko tupperware ultramodernoarena baizik. Patxi Ituritegi

### 7 (neurriekin)

Nola erosi zuen otarre bat **patata**. Karlos Zabala

Ama eskaileretan behera dator, eltzekada **patata** dakarrela. Josu Zabaleta

Milaka kilo **patata** zuritzen ari zen. Jesus Mari Mendizabal

Uraza-buru bat eta bi kilo **patata** Donazioak bildu eta inbentarioak eginez: Juan Mari Anacabe, oilo bat; Irene Uribe, hiru membrillo; Lino Etxaburu, lau konejo; Gregorio

Erroteta, lau zaku **patata** . Anton Garikano  
Hamar bat arroa neguko **patata** ere baditugu, espeziak gordetzeko gelan. Josu Zabaleta

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrautzak eta patata (6); patata azalen (4); patata beroa (3); patata bila (3); patata egosiak (3); patata entsalada (3); patata erre (3); patata eta piperrekin (4); patata frijitu (14); patata frijitu poltsa (3); patata frijituak (26); patata frijituekin (4); patata frijituen (3); patata poltsa (4); patata soro (5); patata soro bat (3); patata tortilla (21); patata zakuak (5); patata zomorro (4)

patatak zuritu (3); patatak zuritzeko (3); patatak zuritzen (8)

patataren alde (3)

## patentagarri izond

patenta daitekeena, patentatzeko modukoa.

Badirudi giza genomari esker den-dena [...] determinatzen duten eta komertzialki baliagarri (eta **patentagarri**) diren geneak aurkituko direla. Askoren artean

Giza gorputzaren kasuan bezalaxe, naturaren legeak edo fenomeno naturalak ezin dira patentatu; haietan oinarritzen den eta haietaz baliatzen den prozesua da

**patentagarria** , baina bien arteko muga ez da begien bistakoa. Berria - Gaiak

Garapen teknikoa ez litzateke bertan behera geratuko, asmakuntza guztiak ez baitira **patentagarriak** . Berria - Gaiak

## patentatu, patenta, patentatzen 1 du ad

patentea lortu.

Hainbat asmakuntza **patentatu** zituen: lur hartzeko sistemak, goniografoak, hegaldia egonkortzeko sistemak, erreaziozko motor bat, garai hartan ametszeko gauza bezala hartu ziotena, jakina. segurtasun sistema pasibo bat asmatu eta **patentatu** egin du, talka gertatuz gero aktibatzen dena. Josu Zabaleta

Urte hartatik hona giza genomaren %75 **patentatu** dute enpresa pribatuek. Berria - Gaiak

Bere enpresa sortu, makinaren planoak egin, langileak kontratatu, prozedura **patentatu** , eta berrogeita hamar bat Pascalina merkaturatu zituen. Jon Muñoz

Mundu guztiak erabili eta amerikanoek baizik **patentatzen** ez duten tresna horietako bat. Karlos Zabala

Denbora laburrean asko ikasteko metodoa aurkitu zenuten... **patentatzeko** modukoa, ala? Ana Urkiza

**Patentatzen** bada, sal daiteke, eta telebistan agertuz gero, arrakasta izan dezake. Berria - Kultura

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Googleren bilaketa sistema **patentatua** da. Berria - Ekonomia

## patente 1 iz

tresnaren bat asmatu edo aurkikunde bat egin duenari Estatuak ematen dion agiria, asmakari edo aurkikunde horren onurez bera bakarrik balia daitekeela adierazten duena.

Luma berriaren lehen urratsa lortzearen zurrumbilo horretan zebilen oraindik Lázló. 1938. urtean **patentea** lortu zuenean bere prototipoarentzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

1943. urteko ekainaren 10ean Biró anaiek bolaluma berri batentzako **patentea** atera zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ea hobe ote den alemaniarraren obra errepikatzea, berdin-berdin, **patentea** errespetatuz. Jon Alonso

Taiwanek muzin egingo dio **patenteari** eta Tamiflu kopiaturako du. Berria - Harian

Estatuak nazioarteko zuzeneko inbertsioentzat egokia izango den giroa sortzen ahalegintzen dira, aldi berean teknologia transferentziak gehitzen saiatuz [...] eta atzeritar

**patenteen** erostea bultzatuz. Koro Navarro

Badituzte neuk pentsatutako gauzen bi edo hiru **patente** , ongi daudenak; Belgikan erosi egin behar zizkidaten, baina lehendabizi Espainian egin nahi izan dut proba bat, eta gogoak galduta noa, adorea galduta; hemen ezin daiteke ezer egin. Josu Zabaleta

Volokhen ustez, garbia da copyrights-ek eta **patenteek** «mugak» jartzen dizkietela besteen eskubideei. Berria - Gaiak

Duela lau urte **patenteen** legea urratzea egotzi zion NTP konpainia txikiak Kanadako RIMI. Berria - Ekonomia

Parisko Curie Institutuak, ordea, epaitegietara jo zuen, eta hein handi batean lortu du Europako **Patenteen** Bulegoak atzera egitea. Berria - Gaiak

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nola funtzionatzen zuten azaldu zion, eta zenbait gauzaren **patente** -agiriari eskatu behar zituela; besteak beste, autoen pneumatikoentzako uztai batena, altzairu puskaz egina. Josu Zabaleta

Colek, berriz, argi du **patente** eskubiderik ezean sortzaileek gutxiago produzituko luketela. Berria - Gaiak

Eta hala dirudi, preso ohiek euskal irakaskuntzan aurkitzen dutela lana, ez **patente** bulegoetan edo garagardo lantegietan. Bernardo Atxaga

**Patente** kopurua milioi bat biztanleko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Industria **patenteak** oinarritzko ikerkuntza egiten denean bakarrik garatzen direlako herri aurreratuetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lehoiari adiskide diren gazelak daudelako (ustelkeria), edota lasterka egiteko teknika berezia duten gazelak daudelako (teknologia **patenteak** ). Iñaki Heras

## 4 zerbait egiteko baimena adierazten den agiria, aginteak emana.

**Patentea** kendu zaion ontzia Navyk kontratatuko du gero. Edorta Jimenez

Aurrerabide teknikoa [...] enpresa multinazionalen inbertsio zuzenen bidez iristen da garapen-bideko herrialdeetara, azpikontratazioko akordioen bitartez eta **patenteak** emanez. Koro Navarro

Enbaxadak Pilar Q-ontzia 1943ko apirilerao itsaspekoen ehizean ibiltzeko **patentea** balio gabe utzirik duen arren. Edorta Jimenez

Kofradia horretako beste horrenbeste ontziri kenduko zieten korsuan jarduteko **patentea** , Erregeren beraren aginduz. Edorta Jimenez

## 5 korsu patente ik korsu 2.

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

korsu patentea (6)

europako patenteen bulegoak (3)

## pater iz

apaiza, bereziki errejimentu batena.

Orain, nahiago nuke haiek denak nirekin baleude, baita **patera** ere. Mirentxu Larrañaga

**Paterrak** , otoitz bat esan, bekokian *gurutze santuaren izenean* egin, eta alde egin du. Mirentxu Larrañaga

## patera iz

txanela handia.

Espainia Afrikatik kilometro gutxira zegoen bezalaxe, eta milaka eta milaka marokoar gogotik saiatzen ziren paradisura **pateretan** iristen. Jon Muñoz

Kazetariek beti galdetzen didate ea nola iritsi naizen, **pateraz** iritsi ote naizen eta halakoei buruz. Berria - Euskal Herria

"Laguntza eman behar diegu **pateratan** datozenei" eta "**patera** hartuz datozen hoiari eman diezaiegun babes" argudiaketaren aldetik pare-parekoak dira. Andoni Egaña

## paternal *izond* aitazkoa, aitatiarra.

Bada honetan guztian zerbait garbia, **paternala**, ona, ez dakit hitzez nola adierazi. **Felipe Juaristi**

## paternalismo *iz* goikoak edo nagusiak behekoenganako agertzen duen babeskeria-jarrera. ik **gurasokeria**.

**Paternalismo** zaharren garaia zen oraino, jaunen bidez baizik ez baitzen bizitzen ahal segurtasunean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Batzuetan hain baikorra izateagatik **paternalismo** merkean jausten da. **Berria - Euskal Herria**

Inolako konplexurik edo **paternalismorik** gabe sartuko genuke Sail Ofizialean euskarazko film bat. **Berria - Kultura**

Thomas jauna, beldur zara nonbait ez ote dugun pentsatuko **paternalismoz** jokatzeko duzula behe mailako klaseekin eseak bustitzen badituzu. **Koro Navarro**

Adindua eta gainera Iparraldekoa zelako, urrikiz bezain **paternalismo** hutsez, ez zioten oharra zuzendu. **Itxaro Borda**

Kritika ildo honi jarraiki, Ongizate Estatuaren **paternalismoa** kritikatzera ere iristen dira hainbat. **Iñaki Heras**

## paternalista *izond* paternalismoari dagokiona.

Lehen Mundu Gerra osteko errepublika "kaotikoekin" baino errazago Salazar eta Franco bezalako "diktadura **paternalistekin**" sinpatizatu du. **Joxe Azurmendi**

Bera urte askotan konforme egona zela elizek historian izandako paperaren ikuspegi **paternalista** samar horrekin. **Iñaki Mendiguren**

«Zuriek ikuspegi erabat **paternalista** dute», salatu zuen. **Berria - Kultura**

Hala ere, Estatu-nazioa beste gabe desfasatua dagoelako jarrera **paternalista** ere ezin dugu onartu. **Joseba Zulaika**

Joera **paternalista** erakutsiz, amerikarrek aldiz, zoko guztietara igorri dituzte 'yankee' erakasle gazte eta idealistak. **Ramuntxo Etxeberri**

Kamareroa seinalatu zidan, bide-erakusle ororen poz **paternalistarekin**. **Harkaitz Cano**

Historia zer den eta zer izan behar lukeen, politika posibilitatzen miseriak eta traizioak, Latinoamerikako iraultzaren lilura ergel eta **paternalista**... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Balantzaren beste aldean, nagusi **paternalisten** zerak: herriko pisu gehienak ziren Sarasolatarrenak, bere langileak maizterrak, eta oso merkea errenta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Urteek erakutsi didate, oraindik, hogeitau urteko mutilak ere nirekiko **paternalista** izateko gai direla eta horrek ez nauela asko molestatzen. **Ana Urkiza**

Gallastegi eta Atano III.aren garaiko enpresari **paternalista** -autoritario denbora haietatik, gaurdaino. **Berria - Kirola**

## paternoster *iz* Aita gurea.

Bekatu larrien zama astuna ez zen kitatzen abemariaren eta **paternosterren** errezoekin soilik aita Franciscoren ustetan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Han zegoen aita Francisco Romero sutsuma aitormen-etxolan, bekatu larriren bat egin zuen edonori abemariaren eta **paternosterren** artean kafe-landare bat edo beste landatzeko penitentzia emateko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Inor etxekorik urtebarruan hildakorik bazen, **Paternosterra**, txapela xaharra eskuetan hartuta. **Pello Zabala**

## patetiko 1 *izond* zirrara edo sentimen sakona, mingarria askotan, eraigiten duena.(gauzez)

Egunero deitzen jarraitu zuen luzaroan, eta mezu **patetikoak** uzten zizkidan, besterik ezean hitz bat behintzat idazteko eskatuz, halako batean deitzeari utzi zion arte.

**Ramon Saizarbitoria**

Eztabaidatu, ekin, erreztatu, gaitzetsi, hitz **patetikoak** esan zituen. **Juan Garzia**

Hiri guztiak direla **patetikoak** zentzuren batean, kontuan izanik funtzionarioek, poliziek eta mota guztietako loteria-saltzaileek bertan topo egiten dutela. **Unai Iturriaga**

Ikuskizun **patetikoak**, negar zotinka hasi zen "aukera bat gehiago, aukera bat gehiago". **Karlos Zabala**

Hor atzemanen nituen noski, beren hobietatik jaikitako hil bizidunak, oro koipe eta lizun, biharamunean itzultzeko prest mostradorearen karantza **patetikoak** areagotzera.

**Aingeru Epaltza**

Errepideko taberna batean ospatutakoa bezain ezkontza **patetiko** batean **Berria - Kultura**

### 2 (gauza abstraktuez)

Honaino heldu da gure bizimodu **patetikoak**. **Patxi Iturritegi**

Estiloaren banitate hori beste banitate **patetikoago** batez puzean da: perfekzioarenaz. **Juan Garzia**

Gertaldi **patetikoak** ere maiz samar agertzen dira. **Jon Muñoz**

Ez dago maitasuna baino gauza **patetikoagorik**. **Unai Iturriaga**

**Patetikoak** da egoera. **Migel Angel Mintegi**

Gerrara joan eta garagardo bat hartzeko kantinan ordaindu beharra **patetiko** samarra zen, baina halaxe izaten zen. **Harkaitz Cano**

Non daude Danelen festa distiratsua haiek, non dantzarien poztasuna, non Adak **patetikotzat** zeukan farfala hura guztia, non Ada bera... **Anjel Lertxundi**

«Negargarria, lotsagarria eta **patetikoak**» da Bizkaiko Administrazioa «baserritarak isilarazten saiatzea». **Berria - Ekonomia**

Suizidio iragarria, planifikatua, homeopatikoa eta **patetikoak** zen. **Itxaro Borda**

### 3 (pertsonez)

Groggy egon arren, epaileak kontaketa bukatu aurretik altxatzeko ahalegina egiten duten boxeolari **patetiko** horiek bezala. **Ramon Saizarbitoria**

Bat-batean oharu nintzen zein gizon **patetiko** eta bakartua bihurturik nintzen. **Oskar Arana**

1966tik 1990era arte estatuaren erietxe psikiatriko batean lan egin nuenean, dozenaka ikusi nituen halako gaixo lobotomizatu **patetikoak**. **Xabier Olarra**

Esan zidan badela errimel bat malkoekin zabaltzen ez dena, baina ez zuela erabili nahi izan, agurrean niretzat ahalik eta **patetikoan** gertatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

**Patetikoak** dira beren jantzi estuetan sarturik, aireak kalte egiten diela dirudiela. **Jon Alonso**

Alboko estatuen ponperia imitatzen saiatzen garelarik, **patetikoak** gara. **Markos Zapiain**

Ez hadi **patetikoak** izan, Pote. **Iban Zaldúa**

### 4 (adizlagun gisa)

-Anbulantziari deitu, kabroiak! -erregutu du **patetiko** samar. **Patxi Iturritegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lotsagarria eta patetikoak** (3)

## patetikoki *adlag* era patetikoan.

Astun eta **patetikoki** maitemindua nintzela doi-doi konturatzen nintzen. **Itxaro Borda**

Aho parean paratu dizkit **patetikoki** pintaturiko azkazalak. **Eider Rodriguez**

Ez dakit zergatik zen hain infinituki patetiko; beharbada, **patetikoki** inkontzientea zelako horretaz. **Julen Gabiria**

## patetismo *iz* patetikoaren nolakotasuna. ik **pathos**.

Hitz haien **patetismoak** eta erabatekotasunak zirrara handia eragin zidaten, eta uste izan nuen adin nagusirako bidea mugarrizten zuten auzietako bat zela hura, Errege Magoena edo sexuarena bezala. **Bernardo Atxaga**

**Patetismoa** baita hirien ezaugarri orokorretako bat. **Unai Iturriaga**

Nik arbuia eginen baitut edozein konplizitate era, nostalgia dela, **patetismoa** dela, iraina dela. **Joseba Urteaga**

**Patetismoz** eta abertzaletasunez beteriko predikua izan zen. **Koldo Biguri**

Zorigaitzak emakume ederrenei ere eranstean dien **patetismo** puntu horrekin. **Joxean Agirre**

## pathos *iz* zirrara edo sentimen sakona, gogo aldartea sakon hunkitu edo inarrosi dezakeena. ik **patetismo**.

Kontzientziak ekintzarako desbaliatzen gaituela ere atera daiteke noski hortik, eta ez dabil hortik urruti modernitatearen **pathosa**: ekintzarik gabeko kontzientzia ala kontzientziarik gabeko ekintza, horra auzia. **Juan Garzia**

Bizitza arriskuan jartzeko ere prest egongo zen, lor zitzakeen sariengatik bainoago emozio haiek maite zituelako eta **pathos** hura ere bai, zeina azken bururaino sentitu nahi baitzuen, sufritzeraino. **Ander Irizar**

Espiritu, arima, psikea, **pathosa**, zalantzarik psikoliptikoena, teklaxto bat sakatuta konponduko da. **Karlos Linazasoro**

## patibulario *izond/iz* gaizkile itxurakoa.

Aire iluneko esklabo-saltzaileak, urre-bilatzzaileak, drogamenpekotasun anitzek jotako esploradoreak, buru-txikitzaileak, hegaztien zirinen kontrabandoan zaildutako

**patibularioak**, txoto hegaltzaileak begibakarrak. **Jon Alonso**

## patila ik **patilla**.

## patiladun ik **patilladun**.

## patilla (15 agerraldi, 10 liburutan; orobat **patila 65 agerraldi, 3 liburu eta artikulua 1ean**) *iz* belarri aurreko bizar zatia.

Bibote sarri eta **patilla** luzeko gazte jazarra intelektual pentsati eta malenkoniak bete bilakatu zen, militar ausarta irakasle burutsu eta betaurrekoduna. **J.M. Olaizola**  
"Txiliku"

Sala hartako sendagilea, Julioren adiskidea, zaharkote barregarri bat zen, **patilla** zuri luzekoa. **Josu Zabaleta**

Hiru egunetan egin gabeko bizarrak eta **patilla** luze haiekin, ez zitzaion zaila gertatu haren soin sendo eta gihartsua imajinatzea. **Joxemari Iturralde**

Bere azken argazkietan **patilla** handiekin ageri zen. **Pako Aristi**

Harrapatu katu hori eta akabatu -esan zion **patilla** zuriko ergel hark praktikanteari. **Josu Zabaleta**

Benetako militante batek legez behar dituen lepoa estaltzeko tximak, belarritako bana alde banatan eta matrailetarainoko **patillak**, bizarra mozteko labana herdoildu bat atera eta ezker **patillako** ilea moztearekin batera ebaki handi samar bat egin zion masailean. **Unai Iturriaga**

## patilladun *izond* patillak dituen.

Etkezain **patilladunak** ez zuen ezagutu geltokian, eta Nini oinez iritsi zen jauregitxora, trikotatzeko poltsa eskuan. **Xabier Olarra**

Siziliako gizon **patilladun** bat emakume zaharrari mintzatzen ari zitzaion. **Lopez de Arana**

## patin 1 *iz* zoru gogor eta leunetan lerratzeko gailua, oinean finkatzen dena. ik **irristailu**.

Bat **patin** biek; beste bat bakarrekin; eta bestea zapaten gainean. **Anton Garikano**

Deabruz mozturrotutako animazio-talde bat **patinetan** irristaka eta suziriak botatzen. **Anton Olano**

Hiri txikia denez, jende asko ibiltzen da **patinetan**, korrika, txirindaz edo oinez bide gorrian. **Berria - Mundua**

Hotz handiko egunetan uzurtzen ziren, izozten, Norvegiako badien irudira, non irristalariak **patinetan** ibiltzen baitira. **Karlos Zabala**

Pasillo batean barrena **patinekin** irristatzen. **Harkaitz Cano**

**Patinekin** errazagoa lukek gaizkileengandik, itozzaileengandik eta lapurrengandik ihes egitea. **Lopez de Arana**

**Patin** gurpildunetan inguratu zen neska batek strip-teasea egin zuen uraren gaineko zaldain batean. **Joxan Elozegi**

Kataluniako **patin** gaineko hockey selekzioa atzo abiatu zen Macaora. **Berria - Kirola**

George Pickard (estatubatuarra), lerroko **patinaren** ordezkaria. **Berria - Kirola**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gurpil-**patinetan** ibiltzen nintzen haren aurrean eta gogoan dut oraino ere harrapatu eta txirikordak moztu nahian nire atzetik korri eginen zuen auzoko haur txiki ile hori argi bat. **Joxan Elozegi**

Sethek kanpotarren zapata guztiak jiratu zituen izotz-**patinen** bila, seguru baitzegoen han zeudela. **Anton Garikano**

Izotz-**patin** pare baten habia da izkinako otzara bat. **Anton Garikano**

## 3 *patin* hockey ik **hockey 6**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**patin hockey** (6); **patin hockeya** (5); **patin hockeyan** (3); **patin hockeyko** (6)

## patina 1 *iz* gauzaki zahar batzuen gainean, eta bereziki margolanetan, eratzen den geruza modukoa, haien kolorea



## lausotzen duena.

Pareta horikara zikineta itsatsita, halako **patina**. Alberto Barandiaren

Urteen marka nonahi, koskak kixuan eta hezetasun zoldak, eguzkiaren **patina** ere bai. Alberto Barandiaren

## 2 irud/hed

Kafe-etxe handi, zaharkilun, antigoaleko horietako bat zen, urteen hautsak zikindu ez baizik **patina** ohoragarria ematen dien horietakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Azaleztatze gehienak antzinakoak ziren, denboraren poderioz liburu-azaletako larrutxek bakarrik izaten duten **patina** imitaezin hori eta guzti. Jon Muñoz

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Han daude oraindik Marx eta Engelsen Lan Guztien liburukiak, zut, bata bestearen ondoan, hauts-**patina** mehe batez estalita. Iban Zaldúa

Bizirik zirauen beti ere haren oroitzapena, eta, gertatu ohi denez, elezaharrezko urre-**patina** batez estaliz zihoan. Juan Garzia

Oteizak 1950. urtea inguruan diseinatu zuen San Cristobal-en kopia da pieza ostua, geroago egina, barrutik hustutako brontze **patinaz** estalia. Berria - Kultura

## patinaia ik patinaje.

## patinaje *(orobat patinaia g.er.)* 1 iz patinatzea. ik patinaketa.

Gurpil gaineko **patinajearen** teknika. Berria - Kirola

**Patinaje** artistikoko probak pabiloi batean jokatu ziren, eta ez aire zabalean. Berria - Harian

Kataluniak **patinaje**an indar handia du. Berria - Kirola

Manxa hura izotz gaineko **patinajea** egiteko bota bat iruditzen zitzaion batzuetan Matiasi. Unai Elorriaga

Bihurgune txikiena arrisksu egin zuen horrek eta errepide gaineko zebra-bide eta bestelako seinaleak **patinajeko** pista irristakor bihurtu. Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alemanian hamabost pertsona hil ziren urte hasieran **patinaje** pista baten egurrezko estalkia erori zenean. Berria - Mundua

Espainiako **patinaje** selekzioak kataluniar bat bakarrik izango du Mundialean. Berria - Kirola

Espainiako kirol kontseilu gorenari hasi da neurriak hartzen nazioarteko **patinaje** federazioak ez dezan Katalunia onar. Berria - Kirola

Ekainaren 23an hasiko da Munduko **Patinaje** Txapelketa Londonen (Kanada). Berria - Kirola

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Salt Lake Cityn lortu zituen Australiak aurreko biak, pista laburreko abiadura **patinaje**an eta eski artistikoan. Berria - Kirola

Abiadura **patinajea** pista laburrean. Berria - Harian

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kataluniako patinaje federazioaren (3); kataluniako patinaje federazioko (4); nazioarteko patinaje (4); patinaje artistikoa (5); patinaje federazioa (3); patinaje federazioko (4); patinaje federazioaren (4); patinaje federazioko (5)

abiadura patinajea (29)

abiadura patinaje

abiadura patinajeko (7)

## patinaketa iz patinatzea. ik patinaje.

Gomez-Angulo **patinaketa**z orain arduratzen hasi dela salatu zuen, «karguan egon den urteetan interesik agertu ez duenean». Berria - Kirola

Kataluniako **Patinaketa** Federazioa Nazioarteko **Patinaketa** Federazioaren kide izango da behin-behineko izaerarekin. Berria - Kirola

## patinategi iz ipar patinatzen den aretoa, patinaje pista.

Angeluko **patinatagia** handitu nahi baitu Herriko Etxeak, horretarako baitezpadakoa den eremua, hots 2 777 m2 erosiko dizkio hiriari estatuari. Herria

Bi elkarte hauek haur eta gaztetxoeri patinatzen erakusten diete, eta zatiketa honek konfliktua sortu zuen Angeluko **patinatagian**, denek **patinatagiaren** baliatzeko eskubidea aldarrikatzen baitzuten. Herria

## patinatu, patina(tu), patinatzen da-du ad patinetan ibili, patinen gainean lerratu.

Gauetz **patinatu** zuten izotzetan zeru izartsuaren pean eta sutondoan esne gozatua edan. Anton Garikano

Artean txikia zela, 13 urteko David anaia hil zen **patinatzen** ari zela. Julen Gabiria

## patinatzaile iz patinetan ibiltzen dena.

Leihatiletatik ezker-eskuin ikusten den ura ez dago izotzia, ez dabilta aspaldi **patinatzaileak** gainean. Lourdes Oñederra

Izan ere, elurrak, ohiko egunetan ikusten diren txirindulari eta **patinatzaile** apurkak uxatu ditu. Harkaitz Cano

Ezusterik ezean, Errusiako bi **patinatzailek** irabaziko dituzte urrezko dominak. Berria - Kirola

## patinete iz zoru gogor eta leunetan lerratzeko gailua, ohol gurgildun batek eta hari itsatsitako barra gidoidun batek osatua, oin bat oholaren gainean eta bestea lurrean bultza eginez jarrita erabiltzen dena. ik trotineta.

Behin kalean, belaniko jarri nintzen bidearen erdian, kotxerik edo autobusik edo bizikletarik edo motorrik edo **patineterik** edo beste edozein ibilgailurik etorriko ote zen ezaxola. Jon Alonso

Aurreneko egunetan ile-motots batekin agertu zuan, zarpail-zarpail, **patinetea** esku batean eta karpeta argazkiz estali bat bestean. *Skate board* edo **patinetearekin** ibiltzeko U-a izan zen atzo merkatua. Jokin Muñoz

Gzorgy Palkovi Szines egunkaria irakurtzen ari da Milurteko Memorialean, semea **patinetean** jolasean dabilen bitartean. Berria - Mundua

## patio 1 iz eraikin bateko edo etxe sail bateko barne eremua.

Han, geltokiko auzoan, harrizko etxetxoak, beren **patio** eta ukiuluekin. Josu Zabaleta

Aurrealdean, liburu-denda eta garajea zeuzkan, **patio** batera ematen zuen korridore batek bereziak. Jon Muñoz

Hiriak zaziapian, gauk eman ohi dion zehar aire horri eusten zaien; kaleak bebarru luzeak irudi ziren, plazak **patioak** irudi. Juan Garzia  
Peoi batzuekin dagoetan ari zen Migel gazteluko **patioan**. Aingeru Epaltza  
Kuarteleko **patioan** itxirik ginduzkaten ordurako, Orbassano Hiribidean. Juan Garzia  
Automobilen zarata entzun duzu komisariako **patioan** sartzen eta ateratzen. Rafa Egiguren  
Sinagogako **patioan** zegoen, jantzi zuriak eta erreztatzeko xalak zeramatzen judu talde batekin. Koro Navarro  
Bungalowen **patioaren** erdian dagoen palmondo ahul mendreari begira. Fernando Rey  
Beste lau presorekin batera ilaran jarri gaituzte eguzkipean kanpamentuaren **patioan**. Joseba Sarrionandia  
Opil egin berrien usaina, erroskilena, esne irakinarena, eta sardinazar ketuena zetorkion **patioetatik**. Koro Navarro  
Mantala eta oinetakoak jantzi, **patioa** zeharkatu, eta ukuilura joan zen, Selifani kotxea bertantxe presta zezala agintzera. Jose Morales  
Burdin langatik **patio** bat ikusten zen, andaluziar estilokoa, harrizko arku eta zutabeekin. Josu Zabaleta  
Paseo luzeak ematen nituen hanga gela eta korridoreetan zehar, **patio** eta jolastokietan gora eta behera, eraikin hartako eta haren inguruetako azkeneko xehetasuna nire memorian zehatz-mehatz gordetzeko helburuarekin. Iban Zaldua  
Mutil gazteak Estudios kaletik **patio** hartarako atletik sartuz zihoazen. Josu Zabaleta  
**Patio** aldera ematen duen gelara jarraitu diot. Urtzi Urrutikoetxea  
Kotxea **patioan** sartu eta batera, ostatuko morroia [...] jaunari harrera egitera irten zen. Jose Morales

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Patio** txiki bat dauka barnean, hiru nabeen artean. Alberto Ladron Arana  
Hango leihoetik galeriak ikusten nituen eta behean **patio** garbi eta goibel. Urtzi Urrutikoetxea  
Biak taberna zeharkatu eta **patio** itxi batera irten ziren: han zaborrontzi bat eta belar txar batzuk besterik ez zeuden. Iñaki Mendiguren  
Plazer hutsa izan da haresiz inguratutako jauregia bakarrik eta soseguz bisitatzeara: itxuraz erraldoientzat eraikitako harrizko atek; barruko **patio** zabalak; noizbait bainutoki, jantoki edo harem dotoreak izandako gelak. Jon Arretxe  
Kanpandorre itxurako lau behatoki izkinatan, galeria moduko solairuak barruko aldean, **patio** luze zabal bat -futboleko ate eta guzti- erdian, eta hiru leiho txiki harresian. Pedro Alberdi  
Kondestablearen jauregiaren azpian agertutakoari dagokionez, 2005etik 113 hobiratze aurkitu dituzte, gehienak eraikinaren **patio** nagusian. Berria - Harian  
Azotaldiak eguneroko ikuskizun bilakatu ziren zitudadelako **patio** zabalean. Aingeru Epaltza  
Jauregi bateko **patio** gotiko karratuan. Karlos Linazasoro  
Hala bada, etxean sartu, eta mutila **patio** miresgarri batean geratu zen amonaren zain. Patxi Zubizarreta  
Baldosazko **patioa** zeharkatu nuen, korridoretzako; bigarren patiora iritsi nintzen. Juan Garzia  
Teilatu garaiko jauretxe zahararen aurreko **patioan** sartu ziren. Jose Morales  
Barruko **patioa**, familiaren eta leinuaren bizia han egiten duk, azoka, parlamentu eta otoitz-leku duk aldi berean... Xabier Olarra

## 3 (kartzela batean)

Samarkandako kartzelako **patio** batean xake jokoan ausarki aritua naiz. Juan Garzia  
Porlanez gogorturiko hartxintxorrezko **patio** hartan ibiltzen ginen gu paseoan eta "pilotan", jainkoak dakien moduan. Jokin Urain  
Hamar minutu egin zituzten zain, funtzionarioak **patio** estalirako atea ireki zien arte. Berria - Harian  
Bere eskakizunak **patioari** buruzkoak dira, nagusiki: beti ari da denbora gehiago eta baldintza hobekak lortu nahirik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
El Duesoko **patio** nagusian 1938ko irailaren 27 hotz hartan. Koldo Izagirre  
**Patio** orduetan edo beste tarteren batzuetan elkartzen ginen euskal presook. Jokin Urain  
**Patio** denbora amaitu zaio eta ziegara igotzeko deitu diote. Jokin Urain  
Bezperan laugarren moduluko **patio** bazterrean egon ginela eserita kide batzuk, ohiko kontuez berrikeretan. Jokin Urain  
- Hemendik aurrera bestelako errejimena egin beharko duzu, ordu biko **patioa** izango duzu goizero eta gainerakoa ziegetan emon beharko duzu. Koldo Izagirre

## 4 eskola batean, jolastokia.

Baina egun hartako errekreazio ez genuen **patioan** futboleko egin. Joseba Sarrionandia  
Eskola bateko **patioan** umeak futboleko. Unai Iturriaga  
-Ez dut uste zoko honek errekreoko **patioaren** itxurarik duenik. Harkaitz Cano  
Beren lagunak han, une hartan, lehen eguzkiarekin, ohetik jaiki berriak, eskolako **patioan** berrikeretan egongo zirenak... Josu Zabaleta  
Jolas-itxurak egiten egon ginen gymnasiumeko **patioan**. Anjel Lertxundi  
Ez gaituzten kexu izan ezin garelako, eskolako umeak **patio** elurtuan bezala, pozez garrasika hasi. Bernardo Atxaga  
Hurrengo, Munnings jauna ikusten dut, eskolako eskaileretan zutik, hatz-koskorrei karraskaka, bat-batean isilik geratu den **patioan**. Mirentxu Larrañaga

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etxe bat alokatu zuten Y... n, alde batetik trafiko handiko kale batera eta bestetik komunitate **patio** batera ematen zuen etxadi batean. Joseba Urteaga  
Munnings jaunak ez baitzuen sekula berogailurik pizten, baldin eta eskola-**patio** putzuak izoztuta ez bazeuden. Mirentxu Larrañaga  
Haren atzealdean, landetxe **patio** bat baitzegoen, iluna eta bizia. Karlos Zabala  
Gure etxeak barne-**patio** zabal batera ematen du. Patxi Iturritegi  
Oroitzen nintzen, sarrerako pasabideak barne **patio** batera jotzen zuen, aperitiboa hartzeko mahaiez hornitua uda partean. Aingeru Epaltza  
-Aireztapen-**patioa** -xuxurlatu zion gizon batek Thatcherri belarrira. Lopez de Arana

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barne patio (5); barruko patio (3); patio aldera (6); patio batera ematen (4); patio bazterrean (3); patio erdian (4); patio itxi (3); patio osoan (4); patio txiki (10); patio txiki bat (3)  
eskolako patioa (3); gazteluko patioa (3); patioa gurutzatu (4); patioa zeharkatu (7); patioa zeharkatzen (3)  
atzealdeko patioan (3); atzeko patioan (3); aurreko patioan (3); barne patioan (4); barruko patioan (3); eskolako patioan (12); etxeko patioan (5); gazteluko patioan (9); ikastetxekeko patioan (4); kartzelako patioan (7)  
patioan azaldu (3); patioan bildu (3); patioan egon (3); patioan eman (4); patioan gora (3); patioan sartu (7); patioan sartzen (3); patioan zegoen (6); patioan zehar (7); patioan zeuden (8)  
pentsioko patioan (3); presondegiko patioan (3)  
patioaren aurrean (3); patioaren bestaldeko (3); patioaren erdian (12)  
eskola patioiko (3); patioiko atea (3); patioiko atera (3)  
ateko patiora (3); etxeko patiora (6)  
patiora atera (12); patiora atera zen (3); patiora ateratzeko (3); patiora begira (4); patiora bidali (3); patiora ematen (17); patiora ematen zuen (8); patiora ematen zuten (4); patiora goaz (3); patiora irten (19); patiora irteten (6); patiora itzuli (4); patiora jaitsi (14)  
presondegiaren patiorantz (3)  
patiotik irten (3)

## patioratu, patiora(tu), patioratzen da/du ad patiora joan; patiora eraman.

-Kepa Saratxaga ezagutzen al duzu? -galdetu dit Mariok arratsaldean **patioratu** naizenean. Jokin Urain

## patioste *iz* patioaren atzealdea.

Ikusi nituen, Soler kaleko **patiostean**, duela hogeita hamar urte Fray Bentos-eko etxe bateko bebarruan ikusitako zoru-laua berak. **Juan Garzia**

## patiotxo *iz* patio txikia.

Gehien desiratzen zuena bere piztiatxoak gorde ahal izateko **patiotxo** bat izatea zen. **Bego Montorio**

## patiseri ik pastizeria.

## patitu, pati, patitzen du *ad ipar* sufritu.

Badakite aspalditik abertzaleak garela eta hori ez dute **patitzen** ahal. **Itxaro Borda**

Otsabiden ez zuten erraz **patitzen** hainbeste urguilu eta urreria zekartzan anderea. **Itxaro Borda**

Nola **patitzen** duzu hemen pasatzen dena? **Itxaro Borda**

Bihotza goibel nuen, etxeok ez bainituen betikotz utzi nahi, baina Kubilai Khan Handiaren errana nehork ez zezakeen uka eta obeditzen ez bazen, etxeok ez zuten

**patitzen**. **Aurelia Arkotxa**

Ekonomiaz solas gutti izaiten dugu denbora eskasez bainan konprenitu ahal izaiten dugu Asia-tik sartzen direla hor ere ainitz gauza merkeago eta horren kausaz ainitzek **patitzen** dutela. **Herria**

## patogenesi *iz* patogenia.

Horra diagnosis baieztatua, eta **patogenesia** igarria: orain terapiarekin asmatu behar. **Juan Garzia**

## patogenia *iz* patologiareen atala, eritasunen kausa eta garapena aztertzen duena.

Hala ere, **patogeniak** pentsarazi zigun Justxenkoren osasun arazoan eragilea dioxina zela, klorakneak gehienbat. **Beria - Mundua**

## patogeniko *izond* patogeniarena, patogeniari dagokiona.

Hegazi gripeareen H5N1 birusaren aldaera «oso **patogenikoa**» hauteman dute Nigerian, Animalien Osasunerako Mundu Erakundeak (OIE) atzo baieztatu zuenez. **Beria - Gaiak**

## patogeno 1 *izond* eritasunak sortzen edo eragiten dituena.

'Rhodococcus equi' bakterio **patogenoaren** genoma aztertuko dute. **Beria - Gaiak**

Bakterioekin eta birus **patogenoekin** egindako saiok. **Juan Garzia**

Hegaztien gripeareen birusa «agente **patogeno** eraginkorragoa eta kutsakorragoa» bihurtzeko arriskuaz ohartarazi dute beste behin hiru erakundeok. **Beria - Gaiak**

Kausa **patogenoak** organismoaren sakontasunean ikertu izanaren emaitzatzat. **Xabier Arregi**

Osasun zaintzea, osaketa, gaixo behartsuei arreta eskaintzea, zergatiei eta foku **patogenoei** buruzko ikerketa, zama kolektiboa bihurtu dira. **Xabier Arregi**

Onddoak ahalmen **patogenoa** eduki behar du eta, azkenik, kanpoko faktoreak ere erabakigarriak dira. **Beria - Euskal Herria**

## 2 (izen gisa)

Urte gutxiren buruan, gaitza eragiten duen **patogenoari** buruzko informazio asko lortu dugu. **Beria - Gaiak**

## patois *iz* Frantzian mintzatzen den zernahi dialektu edo hizkuntza, frantses estandarraz bestelakoa.

Diputatu batzuek salatu zuten **patois** deitu basa hizkuntzek eragozten zutela aitzinamendua eta fagorutzen "fanatismoa". **Piarres Xarriton**

**Patoisa** izan zen nire aitona-amonen hizkuntza bakarra. **Joseba Urteaga**

Aitarentzat **patoisa** zerbait zaharra eta itsusia zen, besteak baino gutxiago izatearen seinale bat. **Joseba Urteaga**

Gaston lehengusua **patoisez** mintzatzen zen. **Josu Zabaleta**

## patologia *(orobat patolojia g.er.)* 1 *iz* medikuntzaren adarra, eritasunak eta organismoan horiek eragiten dituzten nahasmenduak aztertzen dituena.

Banakoen arteko desberdintasun horiek garrantzi berezia dute, guztiz, **patologian** eta medikuntzan. **Juan Garzia**

Era berean, naturalisten taxonomia alderatu ahal izango litzateke ez gramatikarekin eta ekonomiarekin, baizik eta fisiologiarekin eta **patologiarekin**. **Xabier Arregi**

Hobe luke ehunen **patologiaren** gaineko bere lana bukatuko balu. **Fernando Rey**

James Underwood **Patologiako** Errege Eskolako zuzendariaren arabera, [...]. **Beria - Gaiak**

Orain Auzitegiko **Patologiako** Zerbitzura eraman dute, autopsia egiteko. **Beria - Euskal Herria**

Gorpua Bilboko **Patologia** forentseko zerbitzura eraman zuten. **Beria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik patologiko.

Ugaztunik txikiena zen laborategiko organismo hurra; gizakiaren antzekoa izanik, aukera ematen zuen haren kasurako eredutzat balia zitezkeen genetika-, fisiologia-, **patologia** -azterketak egiteko. **Juan Garzia**

Etsimenez beteta irakurtzen zituen **Patologia**-liburuetan sukarrak tifoideoari eta haren trataerari buruzkoak. **Josu Zabaleta**

**Patologia** -edo kirurgia-liburu bat zabalik, aurrean duen eguneko lanerako prestatzeko. **Xabier Olarra**

**Patologia** eta biokimika eskolak ematen ditu unibertsitate horretan. **Beria - Gaiak**

Donostiako Auzitegiko **Patologia** zerbitzura eraman zuten, autopsia egiteko. **Beria - Euskal Herria**

Mar erietxeko **Patologia** departamenduko kideak. **Beria - Gaiak**

-Hegoaldeko Arnas **Patologia** Elkartearen arabera, gero eta hobeto ezagutzen da gaixotasuna. **Beria - Euskal Herria**

## 3 norbaitek pairatzen duen duen eritasun fisiko edo mentala.

Gibeleko **patologien** inguruan egin dituen ekarpenengatik saritu dute. **Beria - Gaiak**

**Patologiei** buruzko liburu bat zabalik zeukan aurrean; neurofibromatosiaren kapituluan, ohartu nintzenez. Xabier Olarra

Baina estetika ez den **patologiarik** ere bada; kirurgia eskatzen duten **patologiak**, esaterako. Berria - Gaiak

Adituen esanetan, elikadura ohiturak eta immunitate sistema aldatu direlako indartu dira **patologiak**. Berria - Gaiak

Hori gertatzen zaio oraindik hizkuntzaz erabat jabetu ez den haurrari [...] edo **patologiaren** bat pairatzen duen gaixoari edo organo artikulatzaileen kontrola galdu duen mozkorrari. Lourdes Oñederra

Erremediarik gabe sortuko den eritasun baten aurrean gerta gaitetzke, matxura genetikoak berekin dakarrela, ezinbestean, ondo samar definituriko **patologia** bat. Juan Garzia

Birus honen gordailu naturala uretako hegaztiak dira, baina haiei ez die **patologiarik** eragiten. Berria - Gaiak

Deitu mania, deitu **patologia**, deitu nahi duzuen bezala. Harkaitz Cano

Publizitateak, bere ekintzen bidez, **patologiaren** mugaraino areagotu du kontsumoa. Iñaki Heras

## 4 (izenondo eta izenlagunekin)

Begietan eta gorputzaren postura tentean, gizon hark zerbait bazuela sumatu nuen, **patologia** psikikoren bat edo. Hasier Etxeberria

**Patologia** zelularreraino eskalak eta erreferentziak lekualdatu direlako. Xabier Arregi

**Patologia** psikiatrikoek, alkoholismoaz eta beste substantzia batzuekiko adizioez arduratuko da. Berria - Euskal Herria

Edozein direla ere beraren dohain eta **patologia** pertsonalak -oroimena, margotzeko dohaina, krisialdi epileptikoak (apika), oroimena-, sentipen eta motibazio pertsonalaz haraindiko batek mugitzen du eta mugitu izan du orain arte Franco. Xabier Olarra

Depresioa **patologia** konplexua dela dio FDAk, eta oso arrisksutsua izan daitekeela behar bezala tratatu ezean. Berria - Gaiak

Bi gailuoi esker hesteetako eta buruko **patologiak** eta bestelakoak ere ikertu ahal izango dituzte, bizkorrago eta doiago. Berria - Gaiak

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

External evidence edo kanpo-erakusgarria (hizkuntz jabekuntza, H2ren ikasketa, hizkuntz **patologiak**, etab.) bigarren mailakotzat jotzen dutenen aztergaitik landa utzitako eremuetan nabarmentzen dira bilakabide ezkutak. Lourdes Oñederra

Horregatik hizketa **patologia** eta terapiaren eremua lan-sail oparoa da fonetikarien eta bestelako adituen arteko elkar-laguntzarako. Lourdes Oñederra

## 6 irud/hed

Mendebaldeko kultura garaikidearen **patologiak** dira. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auzitegiko patologia zerbitzura** (4); **patologia zerbitzura eraman** (5)

# patologiko *izond* patologiarena, patologiari dagokiona. ik **patologia 2.**

Deskribapen **patologikoetan** agertzen diren objektuak. Xabier Arregi

Jokaera hiltzaileen eta portaera **patologikoen** arteko antzekotasunaz psikiatra batek egin zuen aurkikuntzaz. Xabier Arregi

Analisi horri esker, pixkanaka ezagutuz joango gara gene bakar baten matxurak sorturiko egoera **patologiko** gehienak. Juan Garzia

Krafft-Ebingen arabera, erlijio eta kultura arauetatik amini bat aldentzen diren jokabide sexual guztiak **"patologikoak"** dira, gaixotiak, degenerazio mentalaren eta eromenaren adierazgarriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Halako izaera gaixotxi eta **patologikoa** eman dio zenbaitek sentimendu honi, baina hori baino naturalago eta sanoagoa da, nik uste. Xabier Mendiguren Elizegi

Nolabaiteko eragin **patologikoa** izan dezaketela antzeman diegun zenbait generen egituraren oinarriturik. Juan Garzia

Anatomia **patologikoak** ez du murriztu eta zientifikotasunaren arauetara itzularazi medikuntza klinikoaren positibotasuna. Xabier Arregi

Apaltasunik eza oso ondo dago, harropuzkeria **patologikoa** bihurtzen ez den bitartean jakina. Mikel Hernandez Abaitua

Depresio **patologikoak** izaten hasi zen Adela. Juan Kruz Igerabide

Foku **patologikoa** detektatzeko eta behaketa teknikak erregistratzeko. Xabier Arregi

Gure aitari izu **patologikoa** eragiten zion adarduna izateak. Karlos Zabala

Arraza espainola, historia egiteari edo ez egiteari beha, arraza **patologikoa** da. Joxe Azurmendi

# patologizatu, patologiza, patologizatzen du *ad* patologiko bihurtu.

Liburu honetan obsesiboki saiatu zen ugalketara bideratzen ez diren jokabide sexual guztiak zerrendatzen eta **patologizatzen**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gaizkilea psikologizatua eta **patologizatua** izan bada, jokaera hauleak jakitearen objektuen sail oso bat sorrarazteko bidea eman badu, izan da diskurtso psikiatrikoa harreman zehatzen multzo bat erabiltzen hasi delako. Xabier Arregi

# patologo *iz* patologian aditua den sendagilea.

Nuen egoki zatekeela saguaren institutu edo bat eraikitzea, etxepa batean elkarturik jardun zezaten, material bera zutela aztergai, genetistek, fisiologoek, **patologoek**, biologoek, onkologoek eta bestek. Juan Garzia

**Patologoarengana** bidali zuen, ziurtatzeko. Fernando Morillo

Hagako auzitegiko medikuek bi **patologo** serbiarrekin batera egin zuten azterketa medikua eta hildakoak bihotzean bi zauri zituela jakinarazi zuten. Berria - Mundua

Odolbildu babesgarri bat eratzeko odolak duen gaitasuna garrantzitsua da lehen laguntza gisa, baina gogaikarria gertatzen da odola aztertzeko lagin bat hartu behar denerako, zeren [...] **patologoak** edo biokimikariak begiratzeko denbora izan aurretik gogortuko bailitzateke odola. Irene Aldasoro

# patolojia ik **patologia.**

# patriarka 1 *iz* Biblian, Itun Zaharreko familiaburu batzuei eman zitzaien izena. ik **aitalehen.**

Israelen arbasoak -Abraham, Isaak eta Jakob **patriarka** handiak- beren familiak hartu eta bizimodu ibiltaria zeramaten artzainak izan ziren, herririk eta etxerik gabeak. Jose Antonio Mujika

Bibliako Abraham **patriarkak**. Itxaro Borda

Hiru **patriarka** nagusien denbora amaituta, garai berri batean sartzen gaitu Joserren aldiak. Jose Antonio Mujika

## 2 Ekialdeko elizetako buruei eta zenbait apezpiku katolikori ematen zaion dignitate titulua. ik **aitalehen.**

Apezpikuek, metropolitanoek eta primatuek leialtasuna zieten eskualdeko **patriarkei**, hierarkikoki pretoriar prefektu dioklezianikoen parekoei. Iñaki Mendiguren

Mundu guziko gure Anaia agurgarri **Patriarkei**, Primatuei, Artzapezpikuei, Apezpikuei eta beste eskualdeetako buruzagiei [...] agintzen diegu beren hiri eta diozesietan direlarik gure mezu hauek aski argi argitaratu ditzen. Piarres Xarriton

415. urteko egun batez, Alexandriako **patriarkaren** gizonek luzaroan giroa berotu ondoren, Hipatiaren gurdia indartu zitzaion jendaila. Jon Muñoz

Ekialdeko elizen ohitura, aldiz, Teodor Balsamon Antiokiako **patriarkak** (1185-1195) honela finkatu zen: "Grekozko hizkuntza ez dakitenek Jainkoa ospa bezate beren hizkuntza propioan!". Piarres Xarriton

### 3 gizon errespetagarria, bere nortasun edo jakinduriagatik komunitate edo familia batek burutzat hartzen dena. **ikaitalehen**.

Isaac Joseph Asscher 1902. urtean hil zenerako, Asschertarren lantegia munduko ospetsuenetakoa zen, eta **patriarka** zaharrenean bi semeak, Joseph eta Abraham, ziren aparraren moduan gora zihoan lantegi berezi hartako kudeatzaile nagusiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arabar etnografiaren **patriarkatzat** [...] hartu izanak Lopez de Gereñuren nortasunaren alderdi bat bakarrik argizatuko luke. Berria - Kultura

**Patriarkaren** haur dira maizterrok, baina haren zurtz ere bai, sasikoak seme-alaba eskubiderik ez duen aldetik. Juan Garzia

Itun Zaharrekoak bezalako **patriarka** prestua zen baserriko aitonak, Manuel Katarainek, [...]. Gotzon Garate

Mundurekiko nire eskemetan Australopitekkoa Aitalehena zen, **Patriarka**, euskararen lehen hitzuna. Joxean Sagartzizabal

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **patriarkal**.

Freuden **patriarka**-erregimenean, eguneroko aita gizajoa ez da inoiz Aita sinbolikoaren parera iristen. Joseba Zulaika

Gaur egungo zentzu modernoak, ordea, ez du sinesten **patriarka** aurpegiko Jainko horretan. Josu Zabaleta

Gnomo bat **patriarka**-bizar zurikoa -kuleto faltsu bat aterkitzat zuela-. Anton Garikano

Ekialdeko prefektura dioklezianikoa azkenean zatitu egin zen Alexandria, Jerusalem, Antiokia eta Konstantinoplako lau **patriarka**-hirian artean, eta beste hiru prefekturak Erromako **patriarka**-hiri bakar eta ikaragarri zabal baina askoz biztanle gutxiagokoan elkartu ziren. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**patriarka hiri** (3)

## patriarkado ik **patriarkatu**.

## **patriarkal** 1 *izond* patriarkan edo patriarkatuan oinaritzen dena. ik **patriarka** 4.

Kapitalismoaren ezaugarri moral eta ideologikoei aurre egin, sistema **patriarkala** desegin. Rafa Egiguren

Ez da berria boterearen ideia hau, aspaldiko gizarte **patriarkal**, feudal eta diktatorioletan hori bera baitzerabilten. Piarres Xarriton

Emakumea ezin da libre izan gizarte kapitalista **patriarkalean**. Berria - Kultura

Gizarteko kideen arteko erlazioak erregulatzen dituen tradizio eta instituzioak [...] ekonomia hazkunde eta garapenerako berebiziko eragina dute, hala nola familia **patriarkalak**, edota emakumearen bazterketak. Iñaki Heras

Politika **patriarkal** setatsuaren akabera iragartzen du *Ahotsak* mugimenduak. Joseba Zulaika

Saiatu gara ikusten zergatik errepikatzen ditugun gure artean oinarri **patriarkalak**: lehiakortasuna, bekaizkeria eta horrelakoak. Berria - Euskal Herria

Gure nagusikeriazko posizio **patriarkaletik** mugitu bagara ez garela mugitu geure baitatik heldutasunera iritsi garelako, baizik eta emakumeek bultzatuta egin digutelako. Luis Elberdin

Indarkeria horrek gizartean nagusi den botere **patriarkalean** eta horrek sorrarazten dituen diskriminazio moduetan du bere erroa. Berria - Euskal Herria

Zibilizazioak androzentrikoak izan dira, **patriarkalak**. Berria - Gaiak

### 2 patriarkaren irudi ona islatzen duena.

Imajinatzen nituen, bai, sioux-en usainez betetako ordokiak, eta Walt (ile eta bizar zuria, **patriarkala**) bertsoa kantatzekotan, edertasunak liluratuta. Joxean Sagartzizabal

Herriko estilo **patriarkalak** izango zuen eragina Sarasola familiak arbel-negoziorekin normal-normal segi zezan, beste zenbait enpresaburu jeltzaleri jabetzak kendu zizkieten garaian. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gizarte patriarkal** (4); **sistema patriarkal** (3)

**gizarte patriarkala** (3); **sistema patriarkala** (7)

## **patriarkalismo** *iz* sistema patriarkala.

Norbere buruarekiko identitatearen sinesmen horrekin estuki lotuta doaz beste hainbat kontu, indoeuroparren gizarte eta pentsaeraren funtsa gauzatu dutenak: jabetzaren zentzua, gizonezkoen nagusitasuna, eguzkiaren eta egunargiaren gurtzea, agintearen garrantzia, **patriarkalismo** zorrotza. Xabier Mendiguren Elizegi

## **patriarkar** *izond* patriarkala.

Rosa Andrieu EHUKo irakasleak berak egin duen ekarpena aurkeztu zuen eta berak garbi du gaur egungo hezkuntza gizarte **patriarkar** neoliberalaren isla garbia dela.

Berria - Euskal Herria

## **patriarkatu** (*orobat **patriarkado** g.er.*) *iz* agintea gizonezkoen esku dagoen gizarte sistema; aitaren edo gizonaren nagusitasuna familia edo gizarte talde batean.

**Patriarkatuan**, familiaren erdian aita dago, lurren eta abereen jabea aita da eta herentzia aitarengandik semeengana pasatzen da, eta emakumea beheargoko maila batean geratzen da. Luis Elberdin

Horrela sortu zen **patriarkatua**, non familia guztia aitaren inguruan osatzen den. Luis Elberdin

Aginteak erabiltzen duen ikonografiak baliatzen dira bestelako mezua zabaltzeko, arrazakeria, sexismoa, **patriarkatua** eta nazionalismoa kritikatzeko, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Semenak biziaren transmisioan parterik bazuela jakitea traumatikoa gertatu zen gizartearentzat, **patriarkatua** ezartzen lagundu baitzuen. Luis Elberdin

Globalizazio neoliberal eta **patriarkatua** txanpon beraren bi aldeak dira. Berria - Harian

Nekazaritzako **patriarkatuak** irau duen tartearen ostean, jatorrizko ereduera bueltatzen ari garela, bikote sailen eredura. Luis Elberdin

Emakume lesbienek zalantzan jartzen dute **patriarkatua**, bai gizonen eta emakumeen arteko harremanetan, bai eskema soziokulturalean eta baita sistema ekonomikoan ere; izan ere, sistema ekonomikoa da **patriarkatuaren** euskarri nagusia. Luis Elberdin

«**Patriarkatuak** ezarritako rolak eta arauak barneratuta dituen gizonak emakumea kontrolatzea bilatzen du haren kontrako indarkeriarekin; emakumea kontrolatzeko gai ez denean, suntsitu egiten du. Berria - Euskal Herria

## **patriazale** *izond* abertzalea.

Udazkenean, Lapurdiko jende anitz atxilotua izan zen, iraultzaren etsai ekarrik, eta anitz gehiago ihes joan ziren edo gordagi bat bilatu zuten, **patriazale** epelegiak agertu ziren guzien egoera okertuko zela igarri. Elena Touyarou



# patrifilio *(orobat patriofilio g.er.) iz adkor egitekoa.*

Joan nintzen idazkaritzara, egin nituen han egin beharreko **patrifilioak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Persona esateko, kristau; baimena aipatzeko, bulda; entsalada maneatzeko, bedekintu; erusina edo usina, doministikua; kontuak azkar konpondu, **patrifilioak** egin. Iñigo Aranbarri

Notarioarenean eskriturak eta gainerako **patrifilioak** egiten ibili ginen garaian esku artean izan baintuen haren agiriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Gauza guztiak bere begien aurrera agertzeko borrokan ari dira: burduntzalia, intxaur beltzeko mahaia, Arantzazuko egutegia, telebista... irudiak pilatu egiten zaizkio begien aurrean, oraindik horrelako **patrifiliorik**! Pako Aristi

## patrika *(544 agerraldi, 87 liburu eta 83 artikulutan) 1 iz sakela. ik poltsiko.*

Jakaren **patrika** haztatu zuen, pentsioa bideratzeko paper guztiak gordeak zeramatzala egiaztatu nahian. Ramon Saizarbitoria

Emakumeak soinekoaren **patrika** batean sartu zuen eskua eta giltza bat atera zuen. Anjel Lertxundi

Beste ertzainak koaderno txiki bat eta lapitza ateratzen ditu jaka barruko **patrika** batetik. Anjel Lertxundi

Kartazala jakaren barruko **patrikan** daramak, bularraren kontra sentitzen duk. Pedro Alberdi

Noski, lehenbizikoa zen diru gosea, / aitaginarrebaren **patrikak** hustea. Xabier Olarra

Ez zen, bada, kafetegiko bezero eta zerbitzari guztien **patrikak** miatzen hasiko... Anjel Lertxundi

Rübsam doktoarek [...] bere **patrika** guztiak berriro irauli, pospolo batekin mahai azpia argitu, han ere ezer aurkitu ez, eta amore eman zuen. Anton Garikano

Eskua **patrikan** sartu eta pizgailua atera zuen. Ramon Saizarbitoria

Jakanaruko **patrikak** arakatu zituen: tabakorik ez. Unai Iturriaga

**Patrikako** giltza etxekoa izan zitekeela otu zitzaion, baina ez zuen erabili. Harkaitz Cano

Painuelu garbiak, bistan da, [...] painuelu arruntak ez bezala **patrika** berezietan gordeak: agurraren **patrikan**, bihotzaren parean. Harkaitz Cano

Ihes egiteko tunel bat da **patrika**, noiznahi desagertzen dira gure patriketatik gauzak. Harkaitz Cano

Zeren kornadurik ere ez baintuen neure **patrika** zuloz betean. Joan Mari Irigoien

«**Patrika** guztien neurriko salneurriak» daude azokan. Berria - Kultura

Amorrazten jartzen zen Avigdorri **patrikarako** dirua eman behar zionean. Koro Navarro

Julio bizardun hark **patrikako** erloju deigarri bat zeukan. Harkaitz Cano

Dirua, erlojua, **patrikako** labana eta beste gauza guztiak euren aurrean mahai gainean utzi behar izan nituen. Urtzi Urrutikoetxea

### 2 (aditzekin irudizko adieran)

Nola behartu halako jendaila **patrika** arintzera? Aingeru Epaltza

Frantsesez eta ingelesez baldin bazekien, luzaz dirulapur ibilia zelako zen, hoteletan jendeari **patrikak** garbitzen. Josu Zabaleta

Orduan ere guztiz penatua agertzen zitzaigun **patrika** gure kontura gizenduta. Aingeru Epaltza

Zerri gizen nazkagarri batzuen **patrikak** betetzeko. Juan Luis Zabala

**Patrikak** edo poltsak berotzen zizkigun dirutzak bizi berri bat, beste bizitza bat hasteko parada edota bidea ekarriko zigun esperantzan. Karlos Linazasoro

Ez duk munduari aurrera ekiteko hire kemena ere ahituko, ez, behintzat, nire **patrika** honetan sos batzuk gelditzen diren bitartean. Anjel Lertxundi

Eskuak **patrikara**, Gipuzkoan sartu gara! Unai Iturriaga

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mediku ponpoxo batzuk iritsi ziren, esmokin beltza eta txaleko zuria soinean, beren **patrika** -erlojua eta guzti. Xabier Olarra

Ezarritako zigor ekonomikoa 497,2 milioi euro **patrika** -dirua baizik ez da Bill Gatesen konpainiarentzat. Berria - Ekonomia

Galtzen **patrika** ertzeko urradura erreparatzen jarraitu zuen amak. Anjel Lertxundi

Ukabilak estutu ditu **patrika** barruetan. Eider Rodriguez

Hargatik eramaten zuen [perla] beti aldean, zela **patrika** zuloan, zela altzoan edo esku ahurretan. Xabier Mendiguren Elizegi

Galtzaren **patrika** -zulotik zakila laztandu du aspaldian ez bezala, Eider Rodriguez

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aski zuen bere langile- **patrika** betexea alderatzea gure ikasle-poltsiko hutsekin. Aingeru Epaltza

Zigorrek galtzetako gibel **patrika** bietan sartu dizkio eskuak eta *Lasai potxola* errepikatu dio bi edo hiru aldiz. Eider Rodriguez

### 5 **patrikako telefono**

Naraman taxista errusiarra da eta **patrikako telefonotik** mintzo da etengabe, errusieraz. Harkaitz Cano

Nik **patrikako telefono** horien seinalea nahasteko aparatua ekarri behar dut. Pako Aristi

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**patrikak miatzen** (3)

**atzeko patrikan** (5); **bala patrikan geratu** (3); **barruko patrikan** (4); **eskua patrikan** (11); **eskua patrikan sartu** (5); **eskuak patrikan** (7); **eskuak patrikan zituela** (3); **galtzetako patrikan** (3); **jakako patrikan** (4); **jakanaruko patrikan** (4); **jakaren patrikan** (6); **patrikan gorde** (18); **patrikan gorde zuen** (9); **patrikan sartu** (23); **patrikan sartu du** (4); **patrikan sartuta** (6); **patrikan sartzen** (3); **patrikan zeramatzen** (3); **patrikan zituela** (5); **patrikan zuen** (8); **patrikan zuen garaipena** (4)

**patrikara eraman** (4)

**atera zuen patrikatik** (11); **barruko patrikatik** (4); **jakaren patrikatik** (3); **patrikatik atera** (13); **patrikatik ateratako** (3)

**eskuak patriketan** (7); **galtzen patriketan** (3); **patriketan sartuta** (4)

## patrikaratu, patrikara, patrikaratzen 1 du ad patrikara sartu.

Eskatutakoa harrerera mahaitxoaren gainean jarri eta bizkor **patrikaratu** zuen atsoak. Harkaitz Cano

Esan ere esan zen halakoxe jokoa egin zuela Sidkiren hauteskunde kanpainan, alegia, dirua **patrikaratu** ostean hauteskundeak boikotatzen amaitu zuela. Patxi Zubizarreta

Txapliren eskuetara itzuli ziren papelak, eta sudur aurretik pasa zituen jakanarruan **patrikaratu** aurretik. Unai Iturriaga

Seguru asko aitak edo amak xelebrekeriaren bat egin beharko du milako batzuk **patrikaratzeko**. Jokin Muñoz

Ogi puska bat afarian bertzeen oharkabean **patrikaratu**, sastagai bat gerrian eta ilargi betea buru gainean, horra aldean neramatzanak. Aingeru Epaltza

### 2 irud/hed

Royal Bank of Scotländen akzioak salduta, 472 milioi **patrikaratu** ditu Santanderrek. Berria - Ekonomia

Bere datuen arabera, iaz milioi bat euro irabazi zituen enpresak, eta urtero Gasteizko lantokitik beste 3,5 milioi euro **patrikaratu** ditu multinazionalak. Berria - Ekonomia

Hau da, partida irabazi eta gehigarriko puntua **patrikaratu**, zazpi entsegu eginda. Berria - Kirola

Gainera, heldu den sasoiko Europako Herrialdeen txapelketa jokatzeo txartela ere **patrikaratu** zuen. Berria - Kirola

### 3 norbaitek beste norbait erabat bere mende edo alde jarri.

Esan beharrik ez dago keinu jostalari-fribolo honekin ikusle den-denak **patrikaratu** zituela. Karlos Linazasoro



## patrikazimur *izond adkor* zikoitza.

Komuna askotan tratatzen zen, aspaldi eskatua zuten hoderia berria, eta beldur ziren Linoren gertaera Barne Saileko aurrekontua kudeatzen zuten **patrikazimurrek** hodiak oraindik ere urte batzuk gehiago irauteko moduan zeudela argudiatzeko aitzakia bezala ez ote zuten erabiliko. **Harkaitz Cano**

## patrikera *iz* patrika.

Hala busti eta zikinduak, ezin ba **patrikeran** sartu. **Patziku Perurena**

Gutuna **patrikeran** gorde, ttente jarri, eta serio demonio: [...]. **Patziku Perurena**

## patrimonial *izond* ondarearena, ondareari dagokiona, ondarezkoa.

Eskubide horiek beti goi-mailako justiziarri atxikita egon direnez, bereziki egun feudo deitzen dugun horri baino gehiago, ondorio hau ateratzen da hortik, justizia

**patrimonialak** ezarrita zeudela eskubide horien garaian. **Iñaki Iñurrieta**

Nazio germaniarrak eta haien ondorengoak, ordea, ez dira esklaboak jaregin dituzten bakarrak, baina bai justizia **patrimonialak** ezarri dituzten bakarrak. **Iñaki Iñurrieta**

Ez delituaren izaerak [...] ez Uriaren egoera pertsonalak, **patrimonialak**, familiarenak, ekonomikoak zein sozialak ez dute balio Auzitegi Nazionaleko Zigor Aretoko Lehen Sekzioaren ebazpena oinarritzeko. **Berria - Euskal Herria**

## patrimonialista *izond* patrimonializatzen duena.

ETAk ez zuen prozesu negoziatzailea modu **patrimonialistan** egin nahi. **Berria - Harian**

## patrimonializatu, patrimonializa, patrimonializatzen du *ad* norbaitek zerbait bere patrimonio bihurtu.

Entzuleei, Ibarretxeren proposamenak ez duela Euskal Herria **patrimonializatu** nahi azaldu zien Zenarrutzabeitiak. **Berria - Euskal Herria**

Sufrimendua **patrimonializatu** nahi dute, gizartean bereizketa eragin: biktimak eta borroeroak, demokratik eta terroristak, kondenatzaileak eta kondenatuak. **Berria - Euskal Herria**

## patrimonializazio *iz* patrimonializatzea.

«Urtetan sufrimenduaren eta eskubide urraketaren **patrimonializazioa**» egiten saiatu direla salatu zuen Etxerat-eko bozeramaile Saioa Agirrek **Berria - Euskal Herria**

## patrimonio *iz* ondarea, ondasunak.

Diru gutxirekin **patrimonio** polita eskura dezakezu Argentinan. **Migel Angel Mintegi**

Ez ziren **patrimonioa** galtzeko beldur. **Berria - Mundua**

Hiru urteko ume batek ere baitaki zein inportantea den **patrimonio** kulturala; horrexegatik ez dizkie uzten eskolako lagunei plastilina berdez egiten dituen labezomorro abstraktuak. **Unai Elorriaga**

Egia zen urdetegi erraldoiek eta autobideek, bidea izan arren euskararen deklinabideak baino segurkiago aberasten zutela **patrimonioa**. **Itxaro Borda**

## patriofilio ik **patrifilio**.

## patriota 1 *iz* abertzalea.

-Apezak! orain jakinen diagu zein diren egiazko frantses **patriotak**. **Elena Touyarou**

Frantses nazionalista sutsu hori Déroulède jauna izan da, Barojak "fantasmón" zeritzona, eskuin-eskuineko **patriota** frantses bat. **Koldo Izagirre**

Artetan gerlaz oroituz, medaila hemen, xingola han, Aljeriako soldado ohiak frantses **patriota** berri bihurtu ziren gehienak. **Piarres Aintziart**

Horretarako gizon kementsuak beharrezkoak dira, egiazko **patriotak**. **Elena Touyarou**

## 2 (izenondo gisa, gauzez)

XIX. mendearen hondarrean, karakteristika bereberekin Frantzian agitzen ari den lerrakuntzarena eskuin **patriotarantz**. **Joxe Azurmendi**

## patriotika *izond* patriotikoa.

Alde batetik, Ekialde Hurbilekoak: Irakeko Aliantza **Patriotikako** Hind Al Naimi Kjaer, eta Palestinako preso politikoeikiko elkartasunerako erakundeko Ziad Hamdan. **Berria - Euskal Herria**

## patriotiko 1 *izond* patriota; abertzaleena, aberkoia.

Filosofia edo pentsamendu espainolaren inguruan ibili diren gorabehera luzeetan, aurreneko apologista **patriotikoa** (XIX. mendean) G. Laverde izan liteke. **Joxe Azurmendi**

## 2 (gauzez)

Ez dut ezer **patriotikorik** egin nahi izan, ez dago aberriaren aldeko mezurik. **Berria - Kultura**

Irakeko Aliantza **Patriotikoko** idazkari nagusia da eta okupazioa zein horren gehiegikeriak salatzea da bere lana. **Berria - Harian**

Joanto Ithurbide Bourg Neuf auzoko "Milizia **Patriotikoa**" delakoaren kapitain izendatua izan zen. Asmoan bertan obra **patriotikoa** da, beraz, Durán-ena, erromantizismoa aldeztean. **Elena Touyarou**

Gaztelu horretan girotu zuen Juan Iturralde y Suitte "Salkindaria" (saltzailea), 1878an idatziriko elezahar **patriotikoa**. **Martin Anso**

Hala izan ez balitz, ez zituen isilduko hutsik larrienak, gure epeltasun **patriotikoarekin** lotuak. **Bernardo Atxaga**

Bere auto agerikoan zutik eskuaz agur egiten duela batera eta bestera, herritarren oihuek, megafoniaren ozenari gain harturik ere, sukar **patriotiko** betean biltzen dutela. **Koldo Izagirre**

Jende hori, zoritxarrez, Bushen mantra **patriotikoak** 'Gurekin zaude edo terroristekin zaude' beldurtuta dago. **Berria - Mundua**

Ekimen **patriotikoek**, nahiz eta hiri bakar batekoak izan, beharrezko duten errespetu, miresmen eta maitasun horretzekin. **Askoren artean**

Bere bokazio intelektuala, patu edo destino **patriotiko** kasik heroiko bezala aurkezten dio irakurle alemanari, are kontzientziako zindotasun hori Alemaniari zor balio bezala. Alderdi Komunistak eta beste alderdiek nazional-**patriotikoak** eta boltxebikeak manifestazioa egin zuten. **Joxe Azurmendi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kurdistango batasun patriotikoa** (6)

**irakeko aliantza patriotikoko** (3); **kurdistango batasun patriotikoko** (3)

## patriotisma ik **patriotismo**.

## **patriotismo** *(orobat **patriotisma g.er.**) iz abertzaletasuna.*

Handik kanpo, *American Dream* delakoak **patriotismoa** puzten segitzen zuen **patriotismoa**, ez nazionalismoa: nazionalistak besteak izaten dira beti. **Berria - Mundua**

Espiritu nazionala, edo klasearena sustatu, **patriotismoa** berotu, barruko edo kanpoko etsaia ikaragarritu, Ongiaren defentsan masak mobilizatu. **Joxe Azurmendi**

Orain denok kultura bat eta memoria historiko bat dugu, "nazio" bat gara: Konstituzio bat, hizkuntza bat, **patriotismo** konstituzional bat. **Joxe Azurmendi**

PSCK, ordea, «**patriotismo** soziala» proposatzen du erreferentzia puntu bilakatzeko. **Berria - Mundua**

Haatik ez dezagula traidore batentzat har, denbora hartako ez lüke zentzû handirik: printzeari fidel egoitean zaoan ordüko" **patriotisma**". **Herria**

## **patristika** *iz Elizako Gurasoen bititza, lanen eta doktrinaren azterketa. ik**patrologia**.*

Esan daiteke Erdi Aroko filosofiak bi solaskide nagusi izan dituela bere gogoeta propioa osatzerakoan: kristau-tradizioa (Elizgurasoak edo **patristika** barne) eta, harekin batera, antzinako filosofia. **Askoren artean**

## **patroi** *(orobat **patroin g.er.** eta **patru g.er.**) 1 iz nagusia, ugazaba.*

-Nire **patroi** onena izateaz gain, Santos laguna ere badut, e? **Josu Landa**

Beste batzuk saiatu ginen jakiten, eta ikasi genuen **patroia**ren morroiak izateko jaiok ginela. **Jon Alonso**

Gerenteak, Giovanni Agnelli **patroia**ren izenean ari zela argitu eta gero: "Ondo". **Anjel Lertxundi**

Maeder izeneko **patroi** batek hartu zuen; Jean haren lantokian, uste izan zuenaz kontra, oso aspertu zen, lau urtez piezak leundu, ez baitzuen besterik egin. **Pablo Sastre**

Badirudi **patroiek** azkenean ordaindutako oporren astebetea emango dutela. **Pablo Sastre**

### 2 kofradiez eta kidekoez mintzatuz, burua.

Ospitalera Vigoko Kofradiako **patroi** nagusia eta haren ondokoa ere agertu ziren. **Berria - Mundua**

### 3 santuez mintzatuz, zaindaria.

Goian, Museo Nazionala, aurrean Txekiako **patroi** Wenceslasen oroitarri bat eta beste hainbat figura dituela. **Berria - Mundua**

Jondoni Laurendi, Kanboko **patroi** Sainduaren ohoretan iraganen dira bestak aste buru honetan. **Herria**

Hiriko **patroi** geziz josiaren jai bezpera. **Askoren artean**

Urtarrilaren 20a **patroia**ren eguna da. **Askoren artean**

Arras ongi oroitzen nintzen horretaz: bere **patroi** sainduaren besta eta urteburua egun berean ospatzen zituelakoz. **Daniel Landart**

"Inazio gure **patroi** handia" hasi zen Karmen kantari. **Inazio Mujika Iraola**

Hauekin batera, baita harakinak eta harategietako langileak ere zaindari eta **patroi** izendatu dute. **Pello Zabala**

Badira dokumentu batzuk XVII. menderako hiriaren **patroi** egunerako atabalarri eta txistulari batzuk kontratatzen zirela frogatzen dutenak. **Askoren artean**

Guardia Zibilaren **patroia**ren eguna zela-eta. **Berria - Euskal Herria**

### 4 ontzi ez handi bateko burua.

Gela barruan hiru marinel daude: **patroi** zaharra, ondarrutarra; pilotua, ondarrutarra hori ere bai, eta marinel gazte bat, afrikar beltza. **Berria - Kultura**

Portu honetako **patroi** askok legatz kumeetatik ateratzen dute bizimodua, hein batean. **Berria - Ekonomia**

Itsas zabalean atxilo hartu eta gero, **patroia**ri agindu zioten Pasaiaiko portu aldera alda zezan ontziaren itsasbidea. **Inazio Mujika Iraola**

Moilatik maniobra jakin-minez behatzen ari ziren guztiak berehala galdezka joan zitzaizkion txalupako **patroi** lehorreratu berriari. **Martin Anso**

Lantxoiko **patroiak** indiferentziak so eginen die gertaerei. **Joseba Sarrionandia**

Lagun hori Carlos Gutierrez zen, denbora batez Pilar itsasontziko **patroi** jardun zuen kubatarra. **Edorta Jimenez**

Batel bat, ordea, irauli egin zen; **patroi** zihonan mutil kozkorra, ez ni baino askoz handiagoa, ibaiaren erdialdera erori zen, beste bi arraunlarirekin. **Juan Kruz Igerabide**

Tabako kontrabandora dedikatzen ei zen zigor-batailloietatik libratu eta gutxira, beste baten agindupean barkuko **patroi**. **Josu Landa**

Ez zuen dudarik **patroi** ona izanen zela, halako gorpuzkera zeukan gainera, zalua, zimela, zaintsua. **Koldo Izagirre**

Orotara, 81 immigrante eta txalupetako bi **patroi** zeuden ontzietan, hain zuzen ere. **Berria - Mundua**

Orotara, 81 immigrante eta txalupetako bi **patroi** zeuden ontzietan, hain zuzen ere. **Berria - Mundua**

### 5 (izen baten eskuinean)

22 urtetan arraintzale **patroi**. **Herria**

Motoristak behar ditiagu, eta arrantzu **patroiak** ere bai... **Koldo Izagirre**

### 6 (estropadetan)

Carril ezizena zen, estropadetak **patroi** entzutetsu batekin hark zuen antzagatik ipinia. **Edorta Jimenez**

Izortz Zabala (Astilleroko **patroi** ohia). **Berria - Kirola**

Azken estropadan Korta bera aritu zen **patroi** lanetan, eta eguraldi txarra bada, astebukaeran ere berriro arituko da. **Berria - Kirola**

125 urtek hainbat arraunlari eta **patroi** ilustre utzi dute, eta hautagai asko dago luxuzko trainerua osatu ahal izateko. **Berria - Kirola**

49 segundo atera zizkion, beraz, garai hartan erabateko nagusigoa zuen Kaikuk, Txirri **patroi** handiaren agindupean. **Berria - Kirola**

Izan ere, traineriletan ere (sei arraunlari eta **patroia**) ez dute parte hartzen. **Berria - Kirola**

### 7 eredia.

Ingurumen eta gizarte degradazio egoera ulertu ahal izateko, antolamendu sozio-ekonomikoaren **patroi** tradizioan, lurraldetasun printzipioan eta boterean izandako eraldaketa ikusi behar da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Patroi** estetiko batean oinarriturik. **Iñaki Heras**

Nagelen liburak buruzki buruzki azterketa filosofikoa analisi logiko moduan azaltzen du, hots, ezagutza zientifikoaren antolaketa **patroi** logikoen azterketa-eran. **Askoren artean**

Erabiltzaileen jokabide eredu edo **patroi** bat eginda. **Berria - Gaiak**

"Xanpain-kopak", Robert Wadek deskribaturiko desberdintasun **patroi** gisa, oso modu grafikoan erakusten du munduko ekonomiako aberatsen eta pobreen arteko amildegiaren sakona. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Ekosistemak ezingo luke jasan, ceteris paribus, egungo kontsumo **patroien** zabalkundea. **Iñaki Heras**

## 8 (soineko eta kidekoetan)

Dama guztiz atsegina gogoratu zen oraindik ez zeukala eskuetan modako soinekoaren **patroia**. **Jose Morales**

Goya batek Espainian egin zuen bezala, Lurçat-ek asmatu **patroi** edo kartoiak, gero Frantziako atelier handienetako tapiz egileek, Aubusson-ekoek partikulazki, ehundu zituzten. **Berria - Kultura**

**Patroiak** erosi eta orratzez finkatzen zituen aukeraturiko oihalaren gainean, zeta, artilea, muselina nahiz belusa. guraize profesionalak, kolore guztietako **patroiak** eta oihalkiak, eta "betiere ongi datozen" oihal, girlanda edo azpildura zatiak nahi zituzkeen jostun on bat. **Joxan Elozegi**

## 9 *urre-patroi* ik **patroi**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**patroi lanak** (5); **patroi lanetan** (7); **patroi ona** (3)

**arraunlari eta patroia** (7); **urre patroia** (5)

**izortz zabala patroiak** (3)

**patroia**ren eguna (8)

**beren patroin** (9); **beren patroin saildua** (6); **beren patroin sailduaren** (3); **gure patroin** (3); **herriko patroin sailduaren** (3); **patroin saildua** (11); **patroin sailduaren** (18); **patroin sailduaren ohoretan** (15)

**bere patroina** (6); **beren patroina** (11); **dute beren patroina** (4); **herriko patroina** (4)

**herriko patroinaren** (3)

## **patroigintza** *iz* patroia

Karrilek sartu zuen **patroigintza**, eta Donostiari bandera gehien eman dion patroia da. **Berria - Kirola**

## patroin ik **patroi**.

## **patrol** (*orobat **Patrol***) *iz* noranahiko ibilgailu baten marka erregistratua. **ikland-rover**.

EGuardia Zibilaren hiru **patrol** Barañaingo sarreran zeuden. **Berria - Euskal Herria**

Hogei minutuan hiru ale eskas pasa dira: zaborraren kamioia eta bofiaren **patrol** bi ziztu bizian aldapan gora. **Patxi Iturritegi**

Buruan kolpea jo eta besoa giltz txar bat eginda eraman ninditean Etxabeko ezkaratzera eta, han hiru edo lau lanrober edo **patrol** horietakoak zeudean eta, izkina denetan eta sasiartean ere zibila mordoa, denak txanoa jarrita, haietako **patrol** batean sarrarazi ninditean. **Pablo Sastre**

Txapli urduri jartzen ari zen, Armadako **Patrolen** berde iluna gertuagotu zen neurrian. **Unai Iturriaga**

Anaia zaharrenak **patrola** martxan zeukan. **Berria - Kultura**

Zeuden lau **Patrolak** eurentzat bakarrik ziren. **Unai Iturriaga**

Iruñeko eta Aurizko kuarteletatik ailegatutako hamabost **patrol** baino gehiago ziren epaitegiaren aurrean. **Eduarne Elizondo**

Zortzi bat **Patrol**... eta dozena bi txakur metrailleta, txaleko eta 9mm-tako amorruz horniturik. **Unai Iturriaga**

## patrolaki ik **petrolaki**.

## **patrologia** *iz* patristika.

Buruz-buru hori ikusezina izan zen; indizeen ugaritasunean tronpatu ez banaiz, behin bakarrik ere ez da ageri bestearen izena Migne-ren **Patrologia** mardulak dakarren Aurelianoaren liburu mordoan. **Juan Garzia**

## patronage ik **patronaje**.

## patronaia ik **patronaje**.

## patronaja ik **patronaje**.

## **patronaje** (*orobat **patronage** g.er., **patronaia** g.er.eta **patronaja** g.er.*) *iz* haur eta nerabeentzako eskolaz kanpoko organizazioa.

Euskal Herriko **Patronajen** meza. **Herria**

Erran gabe doa Emak Hor gure **patronajeko** soinulari eta koralak ohore eginen dutela egun berezi horri. **Herria**

Ongi ezagutzen dugu apez hau, ainitz urtez bikario egon baitzen eta bereziki gaztetarik **Patronajeko** omonier baitzen. **Herria**

Jeanes Basques, **patronajeko** elkarteak, bere urteko biltzar nagusia eginen du Haritz-Barnen apirilaren 16 an aratseko zortziak eta erdietan. **Herria**

Uztailaren-22 an Hazparneko Elizan **patronajeko** soinularien kotzertua. **Herria**

Lehen **patronajeak** deitzen ziren eta herriko gazte guztiak hortik ibiltzen ziren. **Herria**

## **patronal** **1** *iz* patroien multzoa, langileen eta gobernuaren aurrean baturik aritzen dena.

Venezuelako Komunikazio eta Informazio ministro Jesse Chaconek herenegun ohartarazi zuen **patronalak** «alderdi politiko bat edo enpresariaren ordezkaria» izan nahi duen

erabaki behar zuela. Berria - Mundua

**Patronalak** argi utzi zuen ez duela lanaldi murrizketarik onartuko. Berria - Ekonomia

Aho batez gaitzetsi dute **patronalaren** «nagusikeria». Berria - Ekonomia

CCOOk, bere aldetik, gogor kritikatu du **patronalaren** jarrera, baita ELArena ere. Berria - Harian

2001ean sindikatuak eta **patronala** ados jarri ez zirenez, lege dekretu bidez onartu zuen erreforma. Berria - Harian

Sindikatuak berriro biltzeko egindako deiari ezezko biribila eman zion Adegí-Ascongí **patronalak**. Berria - Ekonomia

Aseguru etxean **patronalak** uko egin dio berriz negoziatzeari, garabi enpresak lanera itzuli ezean. Berria - Ekonomia

Diezen aburuz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako **patronalek** beti erabiltzen dute ezegonkortasun hitza. Berria - Ekonomia

Arotzen, argiketariari eta iturginari **patronalek** berretsi zuten astelehenean lanera itzuliko direla. Berria - Ekonomia

Espainiako Gobernuak, UGT eta CCOO sindikatuak eta CEOE eta CEPYME **patronalek** atzo eguerdian sinatu zuten bosgarren lan erreforma. Berria - Ekonomia

Manifestazioen ostean, elkarretaratzeak egin zituzten SEA, Adegí eta Cebek **patronalen** egoitzen aurrean. Berria - Ekonomia

Sektoreko 155.000 langiletatik %80k, sindikatuen arabera, eta %18k bakarrik, **patronalen** hitzetan. Berria - Ekonomia

Sindikatuaren ustez, Bizkaiko metalgintzako **patronala** «aseezin» aurkezten da. Berria - Ekonomia

Carlos Zarceño 51 urteko gasteiztarra izendatu zuten atzo SEA Arabako Enpresaburuak **patronaleko** presidente. Berria - Ekonomia

Jose Maria Cuevas CEOE Espainiako **patronaleko** buruak. Berria - Ekonomia

Cofindustriak, Italiako **patronalak**, lehen ministroaren jarreraren inguruko ezinegona agertu du azken hilabeteetan. **Patronalaren** aurrez aurrekoak gogorrak dituk, gogorrak gero. Berria - Mundua

Auzune aberatsenetako burgesiak, **patronalak**, CTV sindikatuak [...] eta masa-hedabide handienek osatu zuten aliantza neokontserbadorea. Txema Ramirez de la Piscina

## 2 patroiaarena, patroiaari dagokiona.

Gutun horretan esaten zuen bere azken eskaintza izango zela, eta, kontrako emaitza izatekotan, itxiera **patronala** egingo zuela. Berria - Ekonomia

Mantentze lanetan aritzen diren langileen aurreko greba egunean itxiera **patronala** erabaki zuen, besterik ez. Berria - Ekonomia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

**adegi patronala** (5); **aseguru etxean patronala** (5); **gipuzkoako patronala** (3); **itxiera patronala** (3); **patronala eta sindikatuak** (7); **sindikatuak eta patronala** (7); **adegi gipuzkoako patronalak** (7); **adegi patronalak** (8); **arabako patronalak** (5); **aseguru etxean patronalak** (7); **bizkaiko patronalak** (8); **cebek patronalak** (3); **ceoe patronalak** (3); **confebask patronalak** (5); **espainiako patronalak** (4); **gipuzkoako patronalak** (17); **gobernalak eta patronalak** (3); **medef patronalak** (5); **patronalak adierazi** (3); **patronalak eta cfdt** (3); **patronalak eta sindikatuak** (7); **sea patronalak** (3); **sindikatuak eta patronalak** (11); **uste du patronalak** (4); **adegi patronalaren** (3); **arabako patronalaren** (4); **espainiako patronalaren** (4); **gipuzkoako patronalaren** (3); **langileen eta patronalaren** (3); **medef patronalaren** (3); **patronalaren arabera** (3); **patronalaren aurrean** (5); **patronalaren egoitzaren** (5); **patronalaren egoitzaren aurrean** (3); **patronalaren eskaintza** (5); **patronalaren eta sindikatuen** (5); **patronalaren iritzi** (5); **patronalaren jarrera** (17); **patronalaren jarrera gaitzetsi** (3); **patronalaren jarrerak** (3); **patronalaren presidentek** (3); **sindikatuak eta patronalaren** (4); **adegi patronalari** (3); **patronalari egotzi** (6); **patronalari egotzi zioten** (4); **patronalari eskatu** (4); **patronalari eta sindikatuei** (4); **confebask patronaleko** (3); **medef patronaleko** (6); **patronaleko buruak** (7); **patronaleko idazkari** (8); **patronaleko idazkari nagusiak** (3); **patronaleko ordezkariak** (5); **patronaleko presidente** (3); **patronalen jarrera** (3); **sindikatuak eta patronalen** (4)

## patronato ik patronatu.

## patronatu (orobat patronato g.er.) 1 iz fundazio jakin batzuen zuzendaritza-kontseilua.

Emakumeak, berriz, borrokalarari horien pareko kideak, ongintzako **patronatu**, haurtzaindegia, tailer gehienek sortzaile izan ziren. Monika Etxebarria

Aitzinean ez zitzaizten Dekretalen bigarren liburua baizik aipatzen, ez zuten entzuten galde-ihardespenez, ordezkatzek, eliza-sariez, kontratuz, **patronatuz**, salaketez beste solasik. Piarres Xarriton

Orain arte [gerrako paper] haiek itzultzeari uko egin dio Artxiboa kudeatzen duen **Patronatuak**. Berria - Mundua

Baiones Tipien **Patronatu** Laikoa 1911n sortu zen. Berria - Harian

**Patronatuak** bi hilean behin egiten zituen bilerak. plana onartu aurretik Aralarako Natur Parkearen **Patronatuak** txosten bat aurkeztu beharko du. Berria - Euskal Herria

Ormazabal, Uruñuela eta O'Shea, hirurak dira Joxemi Zumalabe Fundazioaren **Patronatuko** kideak. Berria - Euskal Herria

Azpeitiko Euskara **Patronatuaren** *Erabili.com* webgunean, itzulpen bitxia irakurtzea begitandu zaio. Iñigo Aranbarri

Emakumearen Babesarako **Patronatuaren** Probintzi Batzordeak. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Pilotalekua bera ere eraberritzeko asmoa agertu zuten, gainera, Donostiako Udal **Patronatuko** arduradunek. Berria - Kirola

Bertan behera geratu da Donostiako Kirol **Patronatuko** greba. Berria - Ekonomia

## patronatukide iz patronatu bateko kidea.

Oteiza fundazioko **patronatukide** oteizazaleek arazoak berretsi dituzte Nafarroako Parlamentuan. Datuok Jose Angel Irigarai, Xabier Morras eta Jaione Apalategi

**patronatukideek** jakinarazi zituzten atzo. Berria - Kultura

Hiru **patronatukide** gehiago izendatzea proposatu du sektore ofizialak, eta kritikoak aurka agertu dira. Berria - Kultura

## patronimiko 1 iz aitaren izena.

-Merezi al du jakitea bere ausardiarengatik nabarmendu ez den gizon baten izena eta **patronimikoa** ? -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

Zenbana arimaren jabe ziren eta haien lur-sailak nolako egoeran zeuden galdetu zuen aurrena, eta azkenean soilik egin zien bakoitzaren izenaren eta **patronimikoaren** galdea. Jose Morales

## 2 (izenondo gisa)

Andre Maria, San Pedro, San Jose, eta biziki ospaturiko beste santu **patronimikoen** egunetan, jendeak ehun mila libera baino gehiago gastatzen zuen lore moztuak erosten

Karlos Zabala

## patrono iz patroia.

Era berean, «inposatzea, diskriminatzea eta gutxiengo sindikalarekin sinatzea» egotzi diote Jaurilaritzari **patronoa** denean. Berria - Ekonomia

## patronokide (orobat patronukide) iz patronatukidea.

**Patronokideek** adierazi zuten fundazioak uko egin diezaiokeela Nafarroako Gobernuaren diru laguntzari. Berria - Kultura

**Patronokide** batzuen ustez, Catalanek ez zuten hitzarmen hori bideratzeko eskumenik, Fundazioa baita Oteizaren legatua kudeatzeko arduraduna. Berria - Kultura

## patronukide ik patronokide.

## patru ik patro.

## patruila (orobat patruilla g.er.) 1 iz zaintze lana egiten duen talde txiki armaduna.

Egun batean, **patruila** batek lokalizatu zuen. **Patruillak** pasatzen zirelarik, aski nuen paper bat erakustea. Pablo Sastre

**Patruila** ihesari emana zen, fusil bat lurrean utzita. Koro Navarro

Arratsalde hartan berean, Migel Mailuk **patruila** bat igorri zuen bizigarri bila. Aingeru Epaltza

-Atera oraintxe bertan, **patruila** bat bidaliko dizut segituan. Fernando Morillo

-331 **patruila**, jauna! Joxemari Urteaga

Heinrich Himmler errepide kontrol batean atxilotu zuen Britainia Handiko soldaduen **patruila** batek, 1945eko maiatzaren 23an. Alberto Ladron Arana

Guardia Zibilaren **patruila** dun hori, neska. Harkaitz Cano

Komisarioak bazekien ordurako atzerritar haiek paperik gabe ibiltzeagatik geldiarazi eta atxilotu egin zituela kaleko **patruila** batek. Jose txo Azkona

Nazioarteko indarren **patruila** bati eraso zioten. Berria - Mundua

Lehen autoa irakeko Poliziaren **patruila** bat igarotzen ari zen unean leherrarazi zuten. Berria - Mundua

Shagraten **patruila** goarnizioaren atal bat besterik ez zen. Agustin Otsoa

Al Kaedak 800 atentatu egin ditu **patruila** militarren aurka. Berria - Mundua

Herritik ateratzerakoan, **patruila** karlista bat hurbildu zen kotxera. Koro Navarro

**Patruila** etsai bat topatuz gero papera irensteko prest. Pablo Sastre

Juan ikusiko zuten inguruko belar sailean zaldi bati zepillua pasatzen, eta mutilak agur egingo zien **patruilakoei** bere lana uztekorik egin gabe. Bernardo Atxaga

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Foruzaingoaren 43 **patruila** -auto lanean ari dira harrezkero goiz, arratsalde eta gau. Berria - Euskal Herria

Gerri jiradizo zalu batez sorbaldala leihotik atera eta hiru tiro egin zituen **patruila** autoaren aurka. Harkaitz Cano

Karzaren gobernuaren agindupeko beste lau soldadu afgnir hil ziren, euren **patruila** ibilgailuak mina batean zart egin ondoren. Berria - Mundua

Edo agian han erdi hondoraturik zegoen **patruila** -ontzia ikusteak tristatu ninduen. Edorta Jimenez

-Hor ez zagok inor! -Sinbadek Itasoko Poliziaren **patruila** -ontzi bat seinalatuz esan zidan. Edorta Jimenez

Itsasbazter zabal hori ikuskatu ahal izateko, ordea, gerraontzi zahar bat, bi **patruila** ontzi, sei txalupa eta bi batel baino ez ditu. Berria - Harian

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Soldadu-**patruilak** dabilta nonahi; agerikoa da bertakoen urduritasuna Polizia **patruila** bat pasa zen abiaduran eta argiak keinuka. Bernardo Atxaga

Polizi **patruila** baten bisitak, hesiaren beste aldean. Iban Zaldua

Orain astebate ez dela iritsi zen etxera, asaltoko goardia **patruila** batek jarraitzen ziola. Ramon Etxezarreta

Pelikula belatzen ari zen ertzain **patruila** bat agertu zenean. Unai Iturriaga

Hotelearino igotzen zen errepide bihurrian soldadu **patruilaren** bat egon zitekeen gordeta. Bernardo Atxaga

Fritzek eta guk noizbehinka amorrarazten genuen elkar, misil-ertzanden ziztu-hotsak eta gau-**patruilak** bitarteko zirela. Mirentxu Larrañaga

Batez ere gauez, betazal-handiek ehiza **patruilak** antolatzen zituztenean. Jon Arretxe

## 4 patruilan adlag

Hortik aurrera elkarrekin **patruilan** ibiliko zirela iragarri zion. Itxaro Borda

Guardia zibilen jeep berdeak hasi ziren herrian gora eta behera **patruilan**. Joseba Sarrionandia

Bi soldadu israeldar arin zauritu zituzten lehegailu batzuek, Gazako eskualdeak Egiptorekin duen mugatik gertu **patruilan** ari zirelarik. Berria - Mundua

Patruilariak bidali behar omen ditugu kanpora, gure gudu-lerroaren aurkako aldean zein erregimentu kokatu diren begiratzera, eta zenbatekoak diren egiaztatzaera -nahiz eta ez dakigun zergatik arraio ibili behar dugun **patruilan** -. Mirentxu Larrañaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aguila patruila (5); armadako patruila bat (3); ertzaintzako patruila (3); ertzaintzaren patruila (10); ertzaintzaren patruila bat (5); ertzaintzaren patruila batek (3); euren patruila (3); irakeko poliziaren patruila (4); patruila baten aurkako (3); patruila ontzi (3); polizia patruila (5); poliziako patruila (3); poliziaren patruila (9); poliziaren patruila bat (6)

aguila patruilak (8)

aguila patruilako (3)

aguila patruilaren (21); aguila patruilaren ekitaldia (3); aguila patruilaren erakustaldia (4); aguila patruilaren saioa (3)

## patruilaburu (corpusean patruila-buru soilik) iz patruila baten burua.

Wilkie izango dugu **patruila** -buru eta pozik gaude horregatik. Mirentxu Larrañaga

## patruilakide iz patruila berean ari den pertsona.

Bere **patruilakideak** ere pistola eskuetan zuen, baina ez zuen tiro egin. Berria - Euskal Herria

Bertsio hori eman zuten bere **patruilakideak** («batzuk besteak astintzen ari ziren») eta errepidearen beste aldean zegoen garabiaren gidariak. Berria - Euskal Herria

Arriskuan jarri zituen bere burua, **patruilakidea** eta N-1eko erabiltzaileak. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere patruilakideak (3)

## patruilaldi iz patruilatzen den aldia.

Batez ere gogoan hartuz gero FB-lren aipatu txostenak ontziaren **patruilaldiak** irailaren lehen egunetan hasi zirela dioela. Edorta Jimenez

**patruilari** 1 *iz* patruilan ibiltzen den pertsona.

**Patruilariak** bidali behar omen ditugu kanpora, gure gudu-lerroaren aurkako aldean zein erregimentu kokatu diren begiratzera. Mirentxu Larrañaga

**2** (adizlagun gisa)

Orain, beraz, ia gauero, gutariko lauzpabost aukeratzten dituzte, eta **patruilari** bidaltzen dituzte "ez-inoren lur"era, ea zer edo zer aurkitzen duten. Mirentxu Larrañaga

**patruilatu**, patruila(tu), patruilatzen du *ad* (zer/nor osagairik gabe) patruilan ibili.

Kontuan hartuta zenbat polizia-auto zebiltzan kaleetan **patruilatzen** garai hartan, [...]. Mikel Hernandez Abaitua

Arratsalde batean, ezustean, ehunka guardia zibil etorri ziren eta etxe guztiak miazteari eta mendiak **patruilatzeari** ekin zioten. Bernardo Atxaga

Oso gutxi **patruilatzen** zuten Central Avenuetik gora eta behera polizia autoetan. Berria - Kultura

Donostiako Parte Zaharrean **patruilatzen** duten udaltzainak egoera «oso deserosoa» uztea leporatu zion sindikatuak Elorzari. Berria - Euskal Herria

Beste portuak abisua hartuta zeudela, armadako ontziak **patruilatzen** ari zirela, eta lotuta zeudela irratiz. Koldo Izagirre

Kubako hegoaldeko kostaldean **patruilatze**ko eta ikerkuntza lan zenbait egiteko. Edorta Jimenez

Bezeroei jakinarazten zaie, besterik esan arte, gauero eguzkia sartutakoan dementorrak ibiliko direla Hogsmeadeko kaleak **patruilatzen**. Iñaki Mendiguren

Bonbak atzemateko txakurrekin ari ziren **patruilatzen**, garbi nabari zitekeenez. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**patruilatzen ari** (4)

**patruilatxo** *iz* kide gutxiko patruila.

Une horretan, hatzak miazkatzen ari ginen uanean, **patruilatxo** bat iritsi zuan. Josu Zabaleta

**patruilatze** *iz* patruilan ibiltzea.

**Patruilatze** gutxiago dago, eta hainbat gotorleku desegin dituzte. Berria - Harian

patrulla ik patruila.

**pats** 1 *iz* sagar, mahats eta antzeko fruituetatik, sakatu ondoren gelditzen den hondarra edo hondakina.

Pisoiarekin zapaltzen dan sagarrari deitzen zaio **patsa**. Patziku Perurena

Sartualdiak egiten uzten hasi zaizkit, apurka izan bada ere, dolareko **patsa** bertatik bertara ezagut dezadan. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez sagardo hutsari, baizik eta ura nahastutako sagar **patsari**. Patziku Perurena

Mahats-**patsak** alkohola du eta asko janez gero zerria bera mozkor liteke. Gotzon Garate

Trailu berak jotzen du galburua eta barreiatzen du lastoa, eta olioia ez da oliba **patsarekin** nahasten dolare berak zapaltzen dituelako. Imanol Unzurrunzaga

**2** irud/hed

**Pats** bat da izerdia, eta munduan ikaragarri jakiten hasi ginenetik, gaizkinak ditu berekin, eta bakterioak, eta bestelako herioak. Bazen gazte-lepo luze baten hats moduko bat, galoi txirikordatuaren izerdi-**pats** gisako bat, amorru kutsu garratz bat, kirats koldar eta libraezin bat, hain nabarmenak non, [...]. Iñaki Segurola

Garesti xamar ordaindu dugu askatasunaren **patsa**, duintasunezko latsa, begi-ninian orratza. Iñaki Segurola

**3 ilun patsa** aski ilun.

Aski ilundu zuen, eta **ilun patsa** zen; baina, halaz eta guzti, ibilian zihoazen. Patxi Ezkiaga

**4 izerditan pats adlag**

Meharrak izerditan **pats** zeukan aurpegia. Koldo Biguri

Peppone izerditan **pats** zegoen eta bazirudien dinamita janda zegoela. Koldo Biguri

-Bai, bai, geldi egon behar du -bota zuen Pepponek, izerditan **pats**. Koldo Biguri

· On Camillo izerdi hotzetan **pats** zegoen, berak altxatu baitzuen eskua. Koldo Biguri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**izerditan pats** (3) dolareko patsa (3) izerdi patsetan (78); **izerdi patsetan amaitu** (3); **izerdi patsetan zegoen** (5); **patsetan zegoen** (5)

**patsadatsu** *izond* patxadatsua.

Ahots hori latinez mintzo zen; ahots horrek (ilunbeltzetik etorki) laketasun **patsadatsuz** ziharduen hitzaldi edo otoitz edo aztiele bat esaten. Juan Garzia

Baina britainiarrak bezalako jende **patsadatsuarekin**, eta batez ere londrestarrak, batzuetan polizien irekitasun eskasa irtenbide egokiena da. Berria - Harian

Joko azkarra, zuzena behar du Henryk, ez Zidanek hain gustuko duen joko **patsadatsua**. Berria - Kirola

**pattaka** *iz*

Poliziarekin **pattaka** bila. Itxaro Borda

**pattako** *iz* patata.

Lürsagarra "**pattakoa**" deitzen dū Topetek, ama gurearen etxondoan ikasi nūan bezala. Herria

**pattal** (*155 agerraldi, 24 liburu eta 119 artikulutan*) **1 izond** ahula, makala, indargabea, adoregabea. ik **patal**. (pertsonei buruz)



Baina ordutan apur bat **pattalago**, apur bat ahulago, apur bat akituago ziruditen, apur bat nahigabe moduko bat sentitu nuen eurengatik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Flojo samarra aukeran, **pattala**. **Patxi Iturritegi**

Irudimen eskaseko idazle **pattalek**. **Javi Cillero**

Etapa bitartean ez dio minik ematen hondarreko joateak, **pattalenei** laguntza eman beharrez. **Aingeru Epaltza**

## 2 (adizlagun gisa)

Aurrenekoetan **pattal** aritu nintzen, baina orain sasoiko nago. Bai, Aita Itxaso gizajoa, nahiko **pattal** dabil aspaldi honetan. Verlaque jauna, arrain pabiloiaren ikuskatzailea, hain **pattal** zegoen, ezen bolada batean lana utzi beharrean aurkitzen baitzen. **Berria - Kirola**

Kroaziarrak, berriz, **pattal** aritu ziren, indarrrik gabe, gatzik gabe. **Berria - Kirola**

Etzeko lanak egiteko astirik gabe, etxean bezain **pattal** genbiltzan eskolan. **Xabier Montoia**

Legarreta ongi, Leitza **pattalago**, Manolo Arozena gorabeheratsu erabat, eta Lagoma txukun. **Berria - Kultura**

Fisikoki geroz eta **pattalago** nabil, urdaileko ultzera bat dela eta. **Josexo Azkona**

Astea **pattal** samar igarotzen du; ostiralerako, aldiz, pixkortu egiten da. **Xabier Etxabe**

Bikotekide zuen Bittor Elizagoinen **pattal** hasi zen, eta hirugarren bertsorako hobetu zuen jarduna. **Berria - Kultura**

**Pattal** samar egon naiz azkenaldian -esan zion-. **Iñaki Mendiguren**

Gainera, aita osasunez **pattal** samar zebilen. **Juan Kruz Igerabide**

Irakasle ona da, baina euskaraz **pattal** antzean dabil. **Joxerra Garzia**

## • 3 izond (gauzei buruz)

Lucio osasun **pattalekoa** zen, ahula, eta otorduetan ez zen inoiz goseak egoten. **Fernando Rey**

Hirukoterik **pattalena** emakume bat eta bi emakume dira, ta gogobetegarriena -surprise!- bi emakume gizon batekin. **Karlos Zabala**

Xabier Retegi aurreko agintaldi **pattala** berpizteko aurkeztu zuten. **Berria - Harian**

Talde politikoak lan **pattala** egiten ari dira. **Berria - Euskal Herria**

lazko denboraldia **pattala** izan zen zuentzat. **Berria - Kirola**

Urte «**pattalaren**» ostean, hazkuntza txikiagoa espero du Adegik 2005ean. **Berria - Ekonomia**

Jarduera ekonomiko **pattala**» suspertzeko. **Berria - Ekonomia**

Noizbehinka aldarean aritzen dira gogo txarrez eta modu **pattalean**, baina ez dakite zer den gizonezkoek benetan adoratzten duten jainko bakarrarenganako benetako debozioa. **Xabier Olarra**

## 4 (adizlagun gisa)

Goiza **pattal** joan zen, baina arratsaldean animatu ziren nonbait erosleak. **Berria - Kultura**

Lehen zati **pattal** baten erruz atsedenaldira galtzen joan ondoren [...]. **Berria - Kirola**

Ezker eskua **pattal** zeukala. **Berria - Kirola**

Aletico Madril, aldiz, eskas aritu zen, ideiarik gabe, **pattal**, oso **pattal**. **Berria - Kirola**

Euroguneko ekonomiak eta batik bat Alemaniakoa uste baino **pattalago** aritu dira, Frantziako Bankuak dio hango ekonomia ere **pattal** ibili dela, %0,1eko hazkundera izan baitu. **Berria - Ekonomia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oso **pattal** (7); oso **pattal aritu** (3); **pattal antzean** (4); **pattal ari** (6); **pattal aritu** (20); **pattal aritu ziren** (6); **pattal dabil** (8); **pattal ekin** (3); **pattal hasi** (9); **pattal jardun** (3);

**pattal samar** (4)

**pattalago aritu** (3)

## pattalaldi iz ahulaldia, makalaldia.

Askotan nahikoa izaten dute osasun **pattalaldiren** bat, katarroren bat edo, atzera pauso handiak egiteko. **Berria - Harian**

## pattaldu, pattal(du), pattaltzen da/du ad ahuldu, makaldu.

Bezperako Wall Streeten goranzko itxierak Europako merkatuak igoeren bidean zabalazazi bazituen ere, eguerdian jakin zen AEBetako merkataritza defizitaren datu txarrak animoak **pattaldu** zituen. **Berria - Ekonomia**

## pattar (orobat patar g. er.) 1 iz ardoa edo beste gai batzuk destilatuz ateratzen den edari bizia.

Sendagilearen aholkuz, edariak uztera behartu zuten agurea, ardo nahiz **pattar**. **Koro Navarro**

Nevadan, aldiz, ez omen zieten oztoporik jartzen **pattar** eta uxuala saltzen zuten tabernei. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Diseinuzko altzariak, **pattarrak** eta likore exotikoak. **Jon Alonso**

Ardoak harrotu egiten du, **pattarrak** asaldatu. **Elizen arteko biblia**

Aurrena zerbeza, ondoren ardoa eta bukatzeko **patarra**. **Matías Múgica**

Edariak onetsi zituenean, gerezi beltzez egindako likoretik edo ohiko **patarretik** edan nahi zuten galdezka hasi zen mirabea gizonezkoiei. gaupasa eginak kafea berotu eta, katiulkada bat erdia baino gehiago **pattarra** zuela zurrutatu zuen. **Anjel Lertxundi**

Behin batean, beste herri batetik etorritako harri-jasotzaile batek bere lagunekin afaldu zuen tabernan, eta gero **patarra** hartzera zutitu ziren. **Juan Kruz Igerabide**

Atera bi belarrimotz hauei **pattar** pixka bat, luzerako daukate eta. **Jon Maia**

Beti bezala, kafearen azukre koskorretako bat **pattarretan** busti, ahoan sartu eta eskuak igurtzi zituen. **Ramon Saizarbitoria**

## 2 (neurri gisakoekin)

Karmenek eta nik, ardoa; Ibarbiak, kopa bete **pattar**. **Inazio Mujika Iraola**

Begiak itxi eta lau edalontzi **pattar** edan nituen, bata bestearen ondoren. **Jon Alonso**

Ondoko mahai txiki batean baso bat eta botila bat **pattar** dauzka. **Xabier Paya**

Ea, hoa Vaughan-enera eta ekardak txarro bat **pattar**. **Juan Garzia**

Oraindik pitxar handia bete **pattar** geneukan aurrean. **Matías Múgica**

Kafea hartu genuen gero; eta totta bat **pattar**; edo bi, edo lau. **Txillardeggi**

## 3 (izenondoekin)

Gizona ez da edatuna, baina maite du noizean behin **pattar** on bat. **Edorta Jimenez**

Gizon orok zuen boto-eskubidea, eta jaki fresko eta **pattar** sendoetarako aukera berdina. **Juan Garzia**

Beste urte batean absentia izan zen nobedadea, 60 gradutik gorako **pattar** azkar bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Pattar** bortzitzak, zera, tentazio-ezten halakoak dira, eta gure haragi ahulak ezin jasan litzake inolaz ere. **Juan Garzia**

Herrialde profano haietan beren **pattar** tentagarriak sar zituzten eragoztearren baino ez zuela jokatu horrela. **Juan Garzia**

Iparralde hertzeko olerkariak irakurraldia prestatzen zuten, tarteka **pattar** zuritik edanez. Edorta Jimenez

**Pattar** gorritz beteriko kopa baten aitzinean zegoen mahaira jarria. Aingeru Epaltza

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pattar** mota asko atera zuen, eta edontziak. Kafeari **pattar** tanta bi botatzeko eskatu nuen. Pedro Alberdi

**Pattar** tindi batekin. Edorta Jimenez

Denbora gutxiren buruan, hautsontzi gutziak zigarrokin ez beteta ageri ziren, eta **pattar** botilak erdi hutsik. Pedro Alberdi

Ardo- eta **pattar** -upelak baitzeramatzaten gudarosteentzat Baztango ibarrera. Koro Navarro

Agian Karrikak ezaguna duen **pattar** zaletasunagatik izango da. Hasier Etxeberria

Herriaren Etxe zoragarri bat eraikiko dute horren ordez, dantza-aretoekin, **pattar** -salmentarekin, jokorako gelek, ikuskizunetarako antzokiarekin... Koldo Biguri

**Pattar** -bafadek eta hitz gordinek airea bera loditu eta uhertzen zuten zorigaitzoko leku horretan. Jose Morales

Oso latza gertatu zitzaion berriro ere jende haien artera itzuli behar izatea, **pattar** -kirats nazkagarria eta jokaera zantarra baitzituzten ezaugarri nagusi. Jose Morales

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Plater bakoitzaren ondoren zurrut bat egiten zitzaion sagar-**pattar** zahar gozoari. Josu Zabaleta

Itsasgaina, berriz, bertara gerezi-**pattarra** isuri izan balute bezain gorri. Anjel Lertxundi

Handik luzarora gabe, gurbe-**pattarra** ekarri zuten mahaira. Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**botila bat pattar** (3); **pattar botila** (3); **pattar pixka** (7); **pattar pixka bat** (4)

**pattarra edan** (3)

## pattarrero *iz adkor* pattarzalea.

Sentimentalenak muxuka eta **pattarreoenak** balantzaka hasi baino lehentxeago. Xabier Mendiguren Elizegi

## pattartxo *iz adkor* pattar kopatxoa.

Aproposa eguraldia, **pattartxo** bat hartuta eztarria goxatzeko. Anton Garikano

## pattarzale *izond* pattarraren zalea dena.

Auzo baztertu batera bidalitako maisu triste bat, andregairik gabea, bere jaioterritik urrun, lagunak egiteko ezintasunarekin, bakartia, denbora pasatzearren ehiztari ibiltzen zen koitadua, **pattarzale** amorratua... Juan Kruz Igerabide

Ur zaleak omen diren burutik nahasiei, / baina, izan, **pattarzale** amorratu direnei. Xabier Olarra

## pattarzaletutxo *izond adkor* pattarzale xamar bihurtua.

Aitona bat azken karlistadan preso hartua, gero Kubara soldadu eramana Espainia defendatzera, handik **pattarzaletutxoa** itzuli eta birraitonak desheredatua. Joxe Azurmendi

## patu 1 *iz* zenbaiten ustean etorkizuna halabeharrez gidatzen duen ahalmena. ikzori; halabehar 3.

Inork ez dio ihes egiten **patu** horri, ezkututzen ez bada behintzat. Josu Zabaleta

**Patua**, halabeharra, zorigaitza edo zoriona, izen asko ematen zaizkio itzuli suerte horri, baina eskuetatik joaten zaigu beti, eta horregatik lehiatzen gara horren bila. Javi Cillero

Nik ez dut Halabeharrean eta **Patuan** sinesten; teknikaria naizenez, gertagarritasunaren formulen arabera pentsatzen ohitua nago. Joxe Austin Arrieta

Ardoaren **patua** edana izatea da, glukosarena, berriz, oxidatua izatea. Juan Garzia

Etsipenez onartuko ote zuen gizadiak **patu** hori? Iñaki Mendiguren

Guk ordea nahiago genuke jakin zer **patu** eduki zuten azken hauek, erregina batek, amodioaren amodioz, atera ote zuen eremutarra bere eremutik. Jon Alonso

Gogoeta egiten nuen nire **patuaren**, adarrean hosto izatea egokitu zitzaigunon **patu** haren eta, oro har, giza **patuaren** harrigarriaz. zuei, ni, Jauna, baztertu eta nire mendi santua ahaztu duzuenoi, Zorion eta **Patu** izeneko jainkoentzat mahaia prestatu eta kopa bete duzuenoi. Juan Garzia

Gizonak bihotzondoko samina hartu zuen, eta bere **patua** madarikatu. Patxi Zubizarreta

Bitartean, **patuaren** tresna denik jakin gabe, Henrike zalduna eztabaidatzen ari da bere baitan, eztabaida da Ourana Mem Ramiresen kanpamentura eramango ote duen edo erregearen kanpamentuan utziko ote duen. Jon Alonso

Karlomagno bezain gerra-jaun sofistikatu eta konparatiboki zibilizatuaren inperioaren **patuak** ezintasun horren adibide dramatikoak ematen digu. Iñaki Mendiguren

Alabaina, **patuak** berriro ere elkartu nahi izan zituen Baram eta Asad. Patxi Zubizarreta

**Patuak** bidali dit zaldia. Fernando Rey

Beren burua erretzeko egurra biltzen, halakoxeak izaten dira **patuaren** ironiak, errepika dezagun berriz ere. Jon Alonso

Halabeharri itzuri egiteko ahaleginak berak erorarazten duela narratzailea emakumearekin ezin biltzea agintzen dion zorixarraren putzuan, horrek adierazten du **patuaren** ezinbestekotasuna. Markos Zapiain

Gizonak bihotzondoko samina hartu zuen, eta bere **patua** madarikatu. Patxi Zubizarreta

Zozketak jainkoaren labirintoetan egiten ziren, hirurogei gauz behin, eta hurrengo zozketaldira arteko haren **patua** erabakitzen zuten. Juan Garzia

## 2 (izenondoekin)

Distiraren erdian Gurutze Santuaren seinale **patu** onekoa ikusi zuen, eta gurutzean ilkatua munduaren Berreroslea, inguruan aingeru-saldo hagitz ugari zuela. Jon Alonso

**Patu** gaiztoari ihes egiteko. Iñaki Mendiguren

Lurrean zapalduta aurkitu zen, gogor loturik, eta etxe **patu** gaiztoko hartara eraman zuten azkenik. Josu Zabaleta

Azkenean **patu** beltzak nahi izan zuen dorrea amil zedin. Jon Alonso

Orain pentsatzen dut zenbat bider begiratu dudan bizitzaren prismatik hautsietatik, denborari eta **patu** itsuari so. Juan Kruz Igerabide

Presoaren **patu** dohakabea. Koldo Izagirre

Bost axola diola gure gorpuzkiekin zer egiten duten, haien **patu** ezinbestekoa errauts bilakatzea denez. Ramon Saizarbitoria

Zirkular ziklostilatua bat, normalean, irakurri gabe paperontzira botatzen da, baina bat-batean konturatu nintzen hark ez zuela merezi **patu** komuna: lizentziaturaren hogeita bost urteurrenako afairako gonbidapena zen. Juan Garzia

Beterano askoren **patu** hitsa ezagutzea oso garrantzitsua da, ene ustez. Txillardegí

Gaiztoaren **patu** ikaragarria. Elizen arteko biblia

Hemen guztiaren erro eta arima -nazioaren kintesentzia, arrazaren, mundu-ikuskeraren egitama, **patu** historikoaren argi, eta zer ez-, hizkuntza da, hitza, kasik balio teologiko sanjoandar batean. Joxe Azurmendi

Munduaren begientzat ez baitago **patu** tragikoagorik, halabehar tragikoaren deseinaz adiskide bat hiltzen duenarena baino... Xabier Olarra

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta halako **patu** -seinale kutsua hartzen nion ikuskariari. Txillardegi

Leku aleman hartan, nolako **patu** klasea suertatu zitzaidan ulertzen hasi nahi nuen nik. Fernando Rey

Bazen han zerbait, samurtasuna, seriotasuna, eskuzabaltasuna, **patu** -kutsuko zerbait. Xabier Olarra

**Patu** desberdintasun hori bidegabekeria hutsa iruditu zait. Txillardegi

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nola ezkutatuko gaueko tema eta goizeko iragarpena, elkarren parean, giza **patuaren** karrikatura lotsagabea direnik? Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere patu** (4); **gure patu** (3); **nire patu** (3); **patu bera** (10); **patu bera izan** (3); **patu bera izaten** (3); **patu gaiztoa** (6); **patu gaiztoak** (3); **patu gaiztoaren** (3); **patu gorabeheratsua** (3); **patu tristea** (3)

**bere patua** (52); **beren patua** (6); **geure patua** (3); **gure patua** (13); **juduen patua** (3); **neure patua** (5); **nire patua** (25); **nire patua da** (3); **patua madarikatu** (3); **patua zein izango** (4)

**gure patuak** (3); **patuak nahi izan** (3)

**giza patuaren** (3); **gure patuaren** (3); **nire patuaren** (7); **patuaren aurka** (5); **patuaren aurrean** (3); **patuaren bila** (3); **patuaren esku** (11); **patuaren kontra** (9); **patuaren mendia** (4); **patuaren zain** (4)

**bere patuari** (9); **patuari ihes egin** (3); **patuari jarraitzen** (3)

patxa ik **paxa**<sup>1</sup>.

## patxada *(orobat patxara g.er.)* 1 iz ezerगतik larritzen ez den pertsonaren nolakotasuna.

Lagunaren **patxada** nekagarri egiten ari zitzaidan. Aingeru Epaltza

Ingurune hark, girorik morboosena izanagatik, ez zion zirkunik eragiten Bain andrearen ahizparen **patxada** aristokratikoari. Mirentxu Larrañaga

Demba pixkanaka konturatu zen ezin ziola gogor egin Sonjaren **patxada** hotz, indartsuari. Anton Garikano

Gizentasunaren ezaugarria den **patxadarekin**, Julen Gabiria

### 2 lasaitasunezko egoera.

**Patxadak** eta aldarte onak dena konponduko balute bezala jokatzten zuen aitak. Anjel Lertxundi

Ba al da kontraste ankerragorik epaituaren larritasunak eta epailearen **patxadak** egiten dutena baino? Juan Martin Elexpuru

Niretzat ez da lasaitasunik, ez **patxadarik**; atsedetik ez, egonezina baizik. Eiizen arteko biblia

Eguneko **patxada** eta argitasun hura gaueko kaosa eta iskanbila bezain arraroa zen. Anton Garikano

Emakumeen goizaldeko **patxada** hori, adibidez, jantzi ere baino lehen ontzi batean loreak apailatzen aritzeko erakusten duten iaiotasun hori. Joxe Austin Arrieta

Ez omen zuen erakarri iragartzten zuen misterioak, ez destino jakin baten arabera bizi direnek erakusten duten **patxadak**. Joxean Agirre

Egia esanda, baina, alde ederreko **patxada**, bakarrik bizi izan ginen garai hartakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Alde ederreko **patxadan** bizi haiz hi. Xabier Mendiguren Elizegi

*ik beherago* 6. Askoren artean

Haiek balira zain daudenak, ez ziren hainbesteko **patxadaz** ibiliko. Xabier Mendiguren Elizegi

*ik beherago* 7. Askoren artean

Halako **patxada**, gertaera izugarri haien erdian, halako axolagabekeria, zaila zen sinestea. Karlos Zabala

Egun badakit ekaitz bareena azaldu orduko, biziro kontzentratu beharra dagoela, **patxadari** eusteko. Joxan Elosegi

-Ez didazu bukatzen utzi -jarraitu zuen Maizak, **patxada** galdu gabe-. Miguel Angel Mintegi

Hau ez da bakea eta **patxada** maite dituzten alargun horietakoa. Koldo Izagirre

Azpildurako zorriaren **patxadak** hartu ninduen. Iñigo Aranbarri

Izan zuen heroiak **patxada** hartzeko denborarik, hasiera bateko milaka arriskuak etxekotuta. Joxean Sagatzizabal

Badirudi benetako gauzak esateko, garrantzizko zaizkigun horiei buruz hitz egiteko, tabernak ez duela **patxadarik** eskaintzen; baina hortxe soilik, eta ez beste inon, ausartzen gara horretara. Pako Aristi

Zalutasuna eta ausardia txalotzen genizkion eta egoera zailenetan erakusten zuen **patxada** miresten. Anjel Lertxundi

Badira pertsonak **patxada** inon bilatu beharrik ez daukatenak, barruan daramatelako. Pako Aristi

### 3 (izenondoekin)

Ahozkotasanaren bat-batekotik irakurketaren **patxada** geldira igarotzea. Pako Aristi

Bere edontzi hustutik nire edontzi hustura eraman zuen bere begirada harroa, **patxada** gogobetegarri batez. Anjel Lertxundi

Nikolasek, Mikel Strogoffek eta Nadiak nor berean segitu zuten, **patxada** asaldakaitzean babestua lehenengoa, urduri beste biak. Karlos Zabala

Bere piztueraren historia kontatu zidan Lauaxetak, **patxada** ederrean, xehetasunetan sartzeko ere nahikoa beta hartuta. Juan Luis Zabala

Halako batean, hantxe agertu zen auzoan, **patxada** ederrean, Sanglas motor batean tar-tar-tar. Juan Kruz Igerabide

Hala egin baitaiteke betaurreko ilunak daramatzazunean: gelditu, zigarreta erre, eta kuxkuxean bazterrak miatu, **patxada** ederrean, erabat objektiboki alegia, so egiten diezunak konturatu ere egiten ez direla. Joxe Austin Arrieta

Esteban Irigoyen apez ospetsu eta **patxada** ederreko gizona. Herria

Filosofia entreteneigarri asko egin daiteke, lehenagoko baserritarrak igande arratsean nola, kaxuela baten aurrean, **patxada** betean, sagardo tragoxka lagun. Pello Zabala

Hemen **patxada** handiangoan mintzatuko gaituk. Juan Garzia

-Adio -esan zuen **patxada** handiko filosofiaz, eta oinez urrundu zen, bere agurrari inork ez ziolarik erantzuten. Mirentxu Larrañaga

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eguraldia trakets, jendea **patxada** arrastorik gabe. Berria - Harian

Atzera begiratzeko bultzadari eutsiz aurrera segitu zuen, **patxada** itxura ematen, baina erne jarririk. Miguel Angel Mintegi

Azkenean, kalearen alde bietara begiratu eta urrundu egin da, **patxada** -antzean, Eduardo. Iban Zaldúa

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barne **patxada** berreskuratu gabe, zentzugabekeria litzatekeela nik neure hartan erabakirik baterere hartzea. Txillardegi

### 6 *patxadan adlag*

Puntu horretan, zigarrotxo bat piztu eta **patxadan** egon daiteke bat ordu bete luzean. Juan Garzia

Babes horretan baino ez gaude **patxadan**. Ramon Etxezarreta

-Gu ere **patxadan** bizi gintuan bulegoan. Miguel Angel Mintegi

Jar hadi **patxadan**. Jon Muñoz  
Arratsalde-pasa etortzen ziren beragana, **patxadan**, sutondoan berarekin hitz egitera. Anton Garikano  
Eguerdia da Beasainen, eta agure talde bat tren geltokiaren babesean **patxadan** hizketan ari da. Berria - Ekonomia  
Denak **patxadan** eseri ziren larruzko eserlekuetan. Jon Muñoz  
Hobe gauzak **patxadan** hartzea. Xabier Etxabe  
Ez zitzairen atsegin lardaskan ibiltzea, **patxadan** lan egin nahi zuten, kezkaren kezkaz argaldu gabe. Karlos Zabala  
Hogei metrora **patxadan** itxarotea deliberatu zuen. Josu Landa  
Beste orduerdi bat eman zuten eztabaidatzen **patxadan**. Koldo Biguri  
- Errege baten gisa **patxada** -patxadan eseria bere aulkian. Jon Muñoz

## 7 patxadaz adlag

-Nire isilatasunaren truke laguntzatxo bat -esan zion **patxadaz** -. Migel Angel Mintegi  
Azter ezak **patxadaz** dena, eta hitz egingo diagu. Iban Zaldua  
Denboraz eta **patxadaz** erabaki nezala. Juan Garzia  
Gizonak **patxadaz** hitz egiteari ekin zion, lasai, mikatz izpirik gabe, ertz guztiak kamustuz. Koldo Biguri  
Bazirudien menderatutzat jotzen zuela, eta **patxadaz**, inolako presarik gabe, bere botereaz gozatu nahi zuela. Jose Morales  
Senar-emazteak egongelara itzuli ziren eta Weldon jauna **patxadaz** eseri zen ostera bere aulkian, eta beste kazeta bat hartu zuen esku artean. Mirentxu Larrañaga  
**Patxadaz** gosaldu genuen Lauaxetak eta biok, kafesne bana eta hiru kruasan bion artean. Juan Luis Zabala  
Elkarrizketa pare bat egin, garagardo bat **patxadaz** edan, eta etxera. Aingeru Epaltza  
**Patxadaz** edan nuen Pernod-a, beiran barna neskari beha, nola zerbait eskatzen zuen, nola itxaroten zuen, nola erretzen zuen eta nola, halako batean, erlojuari begiratu zion. Joxe Austin Arrieta  
Garbitzeari utzi zion, **patxadaz**, telefonoa hartzera joan aurretik. Monika Etxebarria  
Jokoz kanpo harrapatu nahi zuen, eta horretarako **patxadaz** jokatu behar zuen. Joxemari Urteaga

## 8 patxadazko izond

Joa eta indarra alde dituenak ez duela partiden irakurketa **patxadazkoak** zertan egiten hasi idatzi genuen finalaren bezperan. Berria - Kirola  
Beste erritmo bat eskatzen dio bere berezko etorriak, pausatuagoa, **patxadazkoagoa**, eta ez dio bide ematen eztabaidari. Iñaki Iñurrieta  
Erritmo **patxadazkoan** gidatuz, lanak eskatzen duen begiratze baketsua izadiari doitasunez islatu zuen lehengo joaldian. Berria - Kultura  
Lertxunez, haltzez eta haritz bakan batzuek eztabaidatzen zuten mendixkek zeru ertzaren lerro **patxadazkoa** marrazten zuten. Karlos Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**patxada ederrean** (42); **patxada handiagor** (7); **patxada handian** (3); **patxada handiz** (9); **patxada osoan** (4); **patxada osoz** (4)  
**alde ederreko patxadan** (3); **ederreko patxadan** (3); **ederreko patxadan bizi** (3); **eta patxadan** (8); **lasai eta patxadan** (3); **patxadan bizi** (4); **patxadan egon** (5); **patxadan eseri** (6); **patxadan eseri zen** (4)  
**patxadaz aritu** (4); **patxadaz aztertu** (3); **patxadaz aztertze** (3); **patxadaz edan** (3); **patxadaz egin** (5); **patxadaz erantzun** (6); **patxadaz esan** (3); **patxadaz esan zuen** (3); **patxadaz eseri** (3); **patxadaz eseri zen** (3); **patxadaz hartu** (13); **patxadaz irakurri** (3); **patxadaz jan** (3); **patxadaz mintzo da** (4)

## patxadadun izlag patxada duena.

Azkenik, ingelesez ulertzen zuen erizain hura, deabruzko **patxadadun** pertsona bat, alajainkoa: haren kezka nagusia gure datu pertsonalak hartzea! Joxe Austin Arrieta

## patxadagabe izond patxadarik gabekoa.

Ezetz esaten zion zerbatiiek, baina; ez zegoela halakorik, kontu ilunagoetan sartuta zegoela inondik ere gizon iheskor eta **patxadagabe** hura. Karlos Linazasoro

## patxadaldi iz patxadazko aldia.

Gustukoak zituen bere etxearen kontenplaziozko **patxadaldi** labur haiek, atsegin zuen jabegoarekiko harrotasun nardagarria. Josu Landa

## patxadatsu 1 izond patxadazkoa, patxadaz betea. (pertsonez)

Gizon **patxadatsua** zen, inoiz ez zen urduri jartzen, eta gauza bera esaten zuen beti horrelako egoeretan: "Badakigu zer gertatzen den gobernadore militarrekin!". Andersenen ipuinak irakurriko ditiat jatorrizko hizkuntzan, eskandinaviar **patxadatsua** bilakatu nau, lasaia, txori gehiegirik ez duena buruan. Jose Morales  
Gu **patxadatsuak** gara; oraindik denbora daukazu pentsatzeko. Juan Kruz Igerabide  
Erizain tituluduna zen Wilmarth andereñoa, miragarriro trebea, ziurra, eta **patxadatsua** eta nekaezina. Mirentxu Larrañaga  
Elio jeneral **patxadatsua** iritsi zain ostatatu gara bertan, nola-hala. Txillardegui  
Urka-bilurren ezkerrean, oholtzaren albo batean, gizon **patxadatsu** bat zegoen, ahoan zeukan buztinezko pipari xurga eta xurga. Anjel Lertxundi

## 2 (gauzez)

Ttipiren izaera **patxadatsu** eta lasaiak, haren manera ezteiek, gure orduko zakarkeriatik hain urrun beti, bide zabala uzten zieten konfidentziei. Begitarte gozoa zuen eta **patxadatsua**, fidatzeko modukoa. Aingeru Epaltza  
Bai, Tibor zen, haren ahots isil eta **patxadatsua**. Ander Irizar  
Limurkeriaz jolasten zen lozorro **patxadatsura** erretiratzeko burutazioarekin. Mirentxu Larrañaga  
Itxura **patxadatsuaren** justu aurkakoa zuen hitz egiteko modua: larderiatsua, piperra. Anjel Lertxundi  
Ardoak garraztu zuen gure aitaren erretiro **patxadatsua**, eta familiako negozioko erreka jotzeko kinka larrian ezarri. Javi Cillero  
Haien edertasun **patxadatsu** pitagoratarra betidanik miretsi nuen arren, etsai bilakatu zitzaizkidan zenbakiak. Joxan Elozegi  
Argien distira **patxadatsuari** erreparatu zion. Mirentxu Larrañaga

## 3 (adizlagun gisa)

Borreroa **patxadatsu** hurbildu zitzaion emakumeari. Anjel Lertxundi  
Geratzen zitzaizkion urteak lehorrean baina badaezpada ere itsasotik ez urruti, lasai eta **patxadatsu** bizitzeko asmo sendo aldaezinaz. Felipe Juaristi  
Hurrengo, Charliek hitz egin du, ahots goraz eta **patxadatsu**. Mirentxu Larrañaga  
Geldi dago amamaren sofa ondoan jarrita, eta beti-bateko aurpegiz entzuten ditu haren kexuak, **patxadatsu**. Urtzi Urrutikoetxea  
Segidan, **patxadatsu** mintzatu zitzaion: [...]. ezarria garbitu, ahoa ezipain-zapiaz pasa eta, Rekexori aurpegira begiratu, galdetu zion **patxadatsu**: [...]. Patxi Zubizarreta  
Hurrengo orduetan berriketan jardun genuen **patxadatsu**, egoera hura ondo aztertu eta ulertu nahian. Jon Arretxe  
Fusilatze-pelotoia zutik izango du, **patxadatsu**, zain. Mirentxu Larrañaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

## patxadoso 1 *izond* patxadatsua.

Agustin Mendizabal fraide **patxadosoa**, pipa ezpainean eta txapela buruan. **Pello Zabala**

## 2 (adizlagun gisa)

Gu, erlojua atzeratu dugula eta, **patxadoso** gabiltzan bitartean, haiek marru ukuiluan, eta haurrak logura afal ostean. **Pello Zabala**

## patxara ik **patxada**.

## patxaran 1 *iz* basaranezko edari bizia.

Etor hadi hi ere, kafea eta **patxarana** elkarrekin hartuko diagu. **Xabier Etxabe**

Zigarroak, kafea eta **patxarana** : gau ilunaren kideak, solasaren lagunak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Arroltze moleta makallauarekin, idi kosta, entselada, ardi gasna, etxe bixkotxa, kafea eta **patxarana**. **Herria**

**Patxaran** dezente edan zuen ahizpa nagusiak, eta txanpaina ere bai, dena sukaldeko jakitokitik ekarrita. **Aitor Arana**

## 2 kopa bete patxaran.

Hor daude biak, **patxarana** esku batean eta puru txikia bestean: Davidoff, noski. **Xabier Etxabe**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bai, eta **patxaran** botila ere ekarri. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lehen saria: 5 pintako etxeko **patxaran** botela bat. **Herria**

Botilen barrura emeki-emeki airea botatzen hasi zen, txistuka ari balitz bezala, Eguberrietako afalosteetan **patxaran** edo whisky botila kortxogabetu berriekin egiten den bezala. **Harkaitz Cano**

Gau hartan nire lehenengo **patxaran** kopa edan nuen. **Iban Zaldua**

## 4 basarana.

Honek gibela erreta dauka, ardoak iragana da erabat, anisetan **patxaran** aleak bezala. **Gotzon Garate**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**patxaran botila** (5)

**kafea eta patxarana** (5)

## patxarantxo *iz* *adkor* kopa bete patxarana.

Urteetan aurrera doaz, baina lehen pelotan jokatzeko zuten frontoian, piszinaran igerian egin, biak baitauzka Euskal Etxeak, bazkaldu, musean igual, tertulia, **patxarantxo** bat edo beste, iluntzean ogitartekoren bat, eta etxera. **Pako Aristi**

## patxuli *iz* *Pogostemon patchouli* landaratik ateratzen den perfume ez oso aintzat hartua.

Kindergarten **patxuli**. **Joxean Sagatzizabal**

Arnastutako **patxuli**-bolada batek ilearen sustraiak ere berotu zizkion. **Lopez de Arana**

**Patxuli** usaineko gelako leiho irekira irten da, hiriko etxe-bloke beltzak ikusteko asmoz. **Lopez de Arana**

**Patxuli** usainagatik igarri nizun putetxean izan zinela. **Jasone Osoro**

## patza

### 1 *patza-patza*

**Patza-patza** badabila, deneri ele ona aise emanez ardurean. **Herria**

## paubetar ik **pauetar**.

## pauetar (*orobat paubetar g.er.*) *izlag/iz* Pauekoa, Paueri dagokiona; Paueko biztanlea.

Bazkaria bururatzean hartu dituzte ohorezko medailak: Ramon Iparragirre Eizagirre Hegoaldekoak, Gerard Pierrou, Jean Baptiste Irigoien eta Gaston Gazo **Pauetarrak**, [...]. **Herria**

Azkenean jokatu dira hiru miarritzar (Brusque, Betsen eta Yachvili) eta bi **Pauetar** (Traike eta Imanol Hariñordoquy). **Herria**

Nork asmatuko zuen bigarren partida Pauen jokatu **Pauetarrek** galduko zutela. **Herria**

Futbolean, hemen lehen tokia hartu dute "Genêts" taldekoek, **Pauetarrak** 5/2-ko emaitzarekin gainditurik. **Herria**

## pauloviar *izond* I. P. Paulov-en teoriari dagokiena.

Denbora igarota konturatzen naiz ikasleok kate motzetik lotuta edukitzeko beste trikimailu bat besterik ez zela, trikimailu bizkorra gainera, lotuta eta pozik baikeunden gu harekin, konturatu gabe Kokok berak nahi zuenean botatzen zuela delako txorakeria, erantzun **pauloviar** bat bezala gure oihua ekarriko zuena, edo konturatuta ere pozik, jokoaren partaide eta konplize bihurturik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## paum ik **pun**.

## pauma 1 *iz* indioilarraren itxura eta tamainako hegaztia, jatorriz Asiakoa, oso kolore biziak dituena, motako arrak lumazko

## isats ikusgarria duen. ik **hegazterren**.

Noiz edo noiz indioilarra **pauma** ar baten aurrean gertatzen bada eta halabeharrez **paumak** irabazten badu lehia, indioilarrek gauza bera egiten du **paumaren** aurrean, bere kalterako. **J.M. Olaizola** "Txiliiku"

Han hegaldatu **ziren** pauma sakratuak. **Xabier Olarra**

Goi aldean borla lodi batzuk haizeak jo eta **paumaren** isatsaren antzera geratzen ziren zabalik. **Karlos Zabala**

Urre-koloreko isats distiratsua zuen, **paumarena** bezain luzea. **Iñaki Mendiguren**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurrean sekula ikusi ez bezalako buruko bat, edo **pauma**-luma bat, moda guztien kontrakoa baina eramailearen gustukoa. **Jose Morales**

Spinolaren ezker eskuak **pauma** lumadun kapelu beltzari eusten dio. **Felipe Juaristi**

Horretan **pauma** bikote bat, belardietan paseiari, begira gelditu zait. **Txillardegi**

Muselinazko exarpa itzel bat zeukan, **pauma**-kolore urdinekoa. **Irene Aldasoro**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Pagauso **pauma**-isatsak, oilar nanoak, basahateak, usapalak eta usoak, Mozanbikoko kanario txiki-txikiak. **Jon Muñoz**

## **pausa** 1 iz etenaldia, geldiunea, geldialdia. ik **pausaldi**.

**Pausa** laburraren ondoren, neskaren ahotsa entzun dut berriro. **Anjel Lertxundi**

Aitak hizketan segitu zuen **pausa** baten ondoren-: [...]. **Anjel Lertxundi**

"Ea non ikusten dugun elkar hurrengoan" esan, eta **pausa** labur baten ondoren "elkar ikusten badugu, noski" erantsi zuen alde egin baino lehen. **Ramon Saizarbitoria**

## 2 atsedendaldia.

Oren laurden baten **pausak** berritu nau. **Piarres Aintziart**

Gogoratu behar zitzaidan bertze munduarekin tratuan ibiltzen direnek ere badutela udako **pausarako** eskubidea. **Aingeru Epaltza**

Laneko eskubideak zilegituriko **pausara** zihoanean, baten batek buruaz gizonaren joatea Jacquesi seinalatzen zion. **Itxaro Borda**

-Eszitatzten ninduen zeharo, **pausako** ene arratsaldeak harekin iragaten nituen gozo-gozo baina ez nion nehoiz zakilik ikusi. **Itxaro Borda**

Orai, 15 egunen **pausa**, denentzat, xapelgoa hasiko da berriz azaroaren 10 ean. **Herria**

Alabaina orduan ere ez zion hatzari **pausarik** eman. **Aingeru Epaltza**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Besteak beste, lanaldiak, **pausa** egunek, soldatak eta abarrek agertu behar dute. **Berria - Ekonomia**

**Pausa** eguna, aro ederra lagun, xoragarria. **Eneko Bidegain**

Ene **pausa**-unea da! **Itxaro Borda**

## 4 **pausan** adlag atsedeen hartzen.

Oloruen egun bete egin genuen, **pausan**. **Aingeru Epaltza**

Mota guzietako aroak jasan behar zituzten egun osoan zehar, **pausan** bezala lanean ere. **Eneko Bidegain**

Ate ondoan, ogitartekoak eta garagardo latak eskuetan, **pausan** zeuden tailerretako langileak. **Aingeru Epaltza**

Gorputza **pausan** dela eta, orduan dira sortzen bidaia loriagarrienak. **Michel Oronoz**

Hi **pausan**, lagunek hire lana egiten dutela! **Itxaro Borda**

Katuak eguteraan, zakurrak **pausan**. **Jose Angel Irigaray**

## 5 **pausa egin**

-Bitan, bai jauna -eta **pausa egin** zuen erantzuna indartzeko-: mozkorturik, eta mozkorra pasatu ondoren. **Anjel Lertxundi**

**Pausa egin** behar izan nuen, hatsik gabe geldituko ez banintzen. **Aingeru Epaltza**

**Pausa egin** zuen, hiru hitz horiek esateak neke astuna eman izan balio bezala. **Anjel Lertxundi**

: **Pausa** luzea **egin** zuen gero. **Anjel Lertxundi**

Orain dela urte batzuk ikusi bazenu...! - **pausa** laburra **egin** zuen zakilari azken astinduak emateko. **Jon Arretxe**

**Pausa** bat **egin** du orduan. **Txillardegi**

**Pausak** egiten zituen, ahotik kea jaurtitzeko, hutsuneak kekada borobilez betetzeko, ideiak osatzeko **Joseba Sarrionandia**

## 6 **pausa-etxe ipar**

Igandean berria laster hedatu da Kattalin Landart Argainbordakoa Isturitzeko **pausa etxean** zendu zaikula. **Herria**

Badu zonbait urte, klinika, arta etxe ala **pausa etxetan** zabilala Janpiarre Heguy Bidarteberrikoa. **Herria**

Arta eta **pausa etxeetan** ditugu Beñat Uhaldegaraikoa, Pierrot Iruitbordakoa eta Manex Argainbordakoa. **Herria**

## 7 **pausa-leku** ik **pausaleku**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**galdera pausa** (3); **pausa bat egin** (3); **pausa egin** (24); **pausa egin zuen** (17); **pausa egiten** (4); **pausa egiten du** (3); **pausa eguna** (6); **pausa egunak** (3); **pausa labur** (12); **pausa labur bat** (6); **pausa labur baten** (6); **pausa laburra** (4); **pausa laburra egin** (3); **pausa lekua** (6); **pausa luzea** (4); **pausa luzea egin** (4)

## **pausaera** (*orobat pausera*) iz pausatzeko era.

Zinez sorkari xarmagarria gure mariposa; mundua mundu denetik hunkitu izan baitu jendakion irudimena, bere ibilera pinpirin, soineko apain eta **pausaera** xaloagatik.

**Patziku Perurena**

Gure usuarioan egiten den antzera, Iranen ere, eperaren **pausera** neskaxa eder eta dotore baten ibilerarekin uztartzen da. **Patziku Perurena**

## **pausagarri** *izond* pausarazten duena.

Jendea ez oraino jalgia plaza zabal eder **pausagarria**. **Piarres Aintziart**

Hori uste dut, enetako düzū gaiza **pausagarria** eta memento goxo baten igaitea eta beti badüzū gaiza kanbio, bazterrak ere eder ditützū sasoi huntan eta uste dit natura edo kanpo zabala behar dügün gure osagarriko hein honaren atxikitzeo **Menane Oxandabaratz**

## **pausagi** iz pausagunea.

Burua inguratzen eta gibelego **pausagian** luzatzen dik, leihoetarik agurka ari zaizkionei ihardesteko. **Itxaro Borda**



## pausagune 1 iz pausatzeko gunea. ik pausaleku.

Egiarteko eliza erromaniko ederra ere bai [...] **pausagune** atsegin epelsoke; giro hotz, sarkor eta aratz hartan babesgune maite. **Txillardeg**

Bidarteko autobideko **pausagunean** ari dira atsedendaldia hartzen. **Berria - Euskal Herria**

Aviron Bayonnais-ko gibelean, aurkitzen den iturriaren inguruan **pausagune** bat idekirik dago. **Herria**

## 2 pausaunea.

Gauza hain txiki hauek zuzenki ikertu nahi baditugu, osotasunean hartu behar ditugu, atal imperfektuek osatzen baitute perfekzioa, berdin edertasuna **pausagunean** nahiz mugimenduan izan. **Imanol Unzurrunzaga**

## pausaje 1 iz pausua emateko era. ik pauso 7; ibilera 2; urrats

Arrunki jantzia ibili ohi zen [...] baina uniformaturik zihoala ematen omen zuen, halakoxea baitzen **pausaje** ere erakusten zuen zeremonia. **Joxean Agirre**

**Pausajea** bizitu eta galerna batetik arribadan ekarriko balitu moduan sartu behar izan zuten haren ondotik denden zirkulu baruruan. **Koldo Izagirre**

Arindu zuen bere **pausajea**, eta hantxe zen ilunarekin bateratsu. **Patxi Ezkiaga**

Ohizko **pausajea** bizkortuz. **Patxi Ezkiaga**

**Pausajearen** moteletik antzeman zieten ez zirela zaldiak. **Patxi Ezkiaga**

Ihesaren lanbrotan, bideak aurrez ezagutu gabe abiatzen diren gehienek **pausajea** berdintsua da, eta larritasun berebetean bat egiten dute. **Jokin Urain**

## 2 (izenondoekin)

Patxada onean, idien **pausaje** astunak ematen zuena baino arinago ibiltzeko. **Patxi Ezkiaga**

Atzetik Aiora, **pausaje** lasaiagoz, eta azkena ni, nire poltsa txikiarekin, begiak Aioraren bilinbolotik kendu ezinda. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bere gorpuzkerari erreparatuta 1,88 metroko garaiera, hanka luze eta gihartsuak, potentzia eta **pausaje** luzea..., argi dago zein den bere dohain nagusia: abiadura, abiadura bizia. **Berria - Kirola**

Kale hautsez betearen zehar [...] behin eta berriz pasatzen zen Zankamehe, bere **pausaje** oker eta lasterrarekin, lastozko kapelua buruan. **Fernando Rey**

Deigarria zen gizon handi sendo hark zer esku delikatu luzeak zituen, zer **pausaje** xuabe, isil, ia aditu ezina eta, oro har, zer mugimendu baratz, zalantzi, kontu eginak.

**Matías Múgica**

Aurrea hartu zizun erantzunik eskatu barik, ongi ikus ahal zenezan haserre zihoala, **pausaje** harroan, lagun batek uste zion diskrezio apurratigindua. **Koldo Izagirre**

Baina **pausaje** eleganteagorik! **Arantxa Iturbe**

## 3 (hitz elkartuetan)

Txistulari-ttuntunei jotzeko seinale egin zien eta sarrera bezala-bezalako **pausaje** tankeran alde egin zuen lorategitik. **Patxi Ezkiaga**

Francia hiribidean barrena joaten zen, garai, zurbil, papar hegalek goratuak, pipa itzalia bere hortz zuri eta bizkorren artean, **pausajea** luze eta bixi, sorbaldak zaputz.

**Fernando Rey**

## 4 irud/hed

Hortaz, liburu honi **pausaje** lasaia komeni zaiola erabaki dut. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Euskal kazetari modernoaren **pausajea**: ukapenetik izatera.

## pausaketa iz ezarketa.

*Bai-eta Piztu* elkarteak 12.000 euroko diru **pausaketa**, intresik gabekoa, egin duela *Herrikoa*-ren kutxan, bertze banku batean pausatzeko orde. **Herria**

## pausaldi 1 iz etenaldia, geldialdia. ik pausa.

**Pausaldi** bat utzi zuen. **Joxean Agirre**

Robert Lataillade-k kudeatzen duen defentsa elkarteak **pausaldi** bat eman du ondorioz bere protesta eta manifestaldieri. **Herria**

Leherraldi honen ondoren makalaldi bat etorri zen hamasei, hamazazpi eta hemezortzigarren mendeetan iraun zuena, eta ondoren, **pausaldi** luze haren atzetik, bat-bateko beste bizkorraldi bat K.o. 1840-90 bitarteko berrogeita hamar urteetan. **Iñaki Mendiguren**

Hogeita hamasei orduko **pausaldiaren** ondotik mundura bihurtuta. **Aingeru Epaltza**

Hala, sei belaunaldiko **pausaldiaren** ondoren, bidez bide abiatu naiz ni berriro harri bila. **Juan Garzia**

Atomo horietako bakoitzak akzidentek dauzka, ezin saihestekoak, esaterako, kolorea, usaina, mugimendua edo **pausaldia**. **Xabier Kintana**

Geldi dagoen gorpuz horretan Jainkoak, haien iritzi, pausatzea sorrarazten du haren atomo bakoitzarentzat, eta pausatze bat suntsitzean hor beste bat sorrarazten, gauza horrek **pausaldian** dirauen bitartean. **Xabier Kintana**

Arratsalde aldean bitan eten zitzaidan **pausaldi** luzea; lehenbizikoan, telefonoaren txirrinak eta, gero, korridoreko pauso hotsek ernatua. **Aingeru Epaltza**

–Biziera gerra da... deserri arrotzean jasan beharreko **pausaldi** iheskorra... **Txillardeg**

Zirkunferentziaren mugimendua, beraz, lasterragoa da barruko zirkuluarena baino; eta ez daukazu esaterik azken zati horren mugimenduan **pausaldi** gehiago dagoenik, gorpuz osoa, errotariaren gorpuz osoa erran nahi dut, bat eta etengabea delako. **Xabier Kintana**

Pentsamenduen eta arduren **pausaldi** hura aprobetxatuz. **Josu Zabaleta**

## 2 (egin aditzarekin)

–Nora? -eta **pausaldi** bat egin du-. **Pello Lizarralde**

Aldizka **pausaldiak** egiten zituen diskurtsoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Chavezek ondo hitz egin zuen, **pausaldiak** eginez, tonu egokiarekin eta azentuazio zehatzarekin. **Pako Aristi**

Hegoaldera bidean [...] Marthak and Ernestek Washingtonen egin zuten **pausaldia**, militarrei euren aurkikuntzen berri ematera. **Edorta Jimenez**

Hantxe egiten zituen bazkalosteko **pausaldiak**, jai egunetakoak pianoan eta lanegunetakoak laborategian. **Josu Landa**

Noizik eta behin **pausaldi** laburrak eginez, ilunabarra arte ibili zarete. **Xabier Montoia**

## 3 atsedendaldia.

Denak ere untsa pausa ditela, gero ez baitute **pausaldi** handirik egiten ahalko alabainan, bozak hurbiltzen ari-eta... **Herria**

Urte berri bat lantegietan udako **pausaldiaren** ondotik. **Herria**

Kamiunzainak aitortu du ere zazpi oren hartan gidatzen zuela kamiuna, den gutieneko **pausaldirik** nihun egin gabe. **Herria**

**Pausaldi** bat ona egin omen du Raffarin gaizoak, eta ba omen zuen segur holako zerbaiten beharra hiru urtez aski akiturik. **Herria**

Kondutan hartuz mariñelen bizia ardura zaila dela, irabazi ttipiak eta **pausaldi** guti... **Herria**

Goizeko eskolen ondoko **pausaldian** geunden, Akademiaren aitzineko plazan. **Aingeru Epaltza**

Baina egia da, horrekin batera, behin prozesu bat ireki ondoren on dela, urteak igarotzen direnean, atsedean eta **pausaldi** hartzea gauzak ongi egiten ari ote garen ikusteko.

**Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Bi oren eta bost, eman eta eman, **pausaldi** gutirekin, arrapak abiatu artean, denek, irabazle eta galtzale, ederki gostaia dute finala haundi hau. **Herria**

Badu zenbait egun, Jamattit Mendiondo, Harrietako semea, hor dugula gure artean, merexitu **pausaldi** edo egonaldi batentzat etorria. **Herria**

## 4 (hitz elkartuetan)

**Pausaldi** denbora beren alabainan, zernahi bilkura ukan du. Herría

Dakusazunean mugimenduan ari diren bi gauzak denbora berean bi distantzia egiten dituztela, horren kausa ez da distantziarik luzeena egiten duena lasterragoa izatea, baizik eta, guk geldoa deitzen diogun mugimendu horretan **pausaldi** tarte gehiago sartzen direlako, eta lasterra deritzogunean, aldiz, geldiune gutxiago. Xabier Kintana

## pausaldiño iz ipar pausaldi laburra; adkor pausaldia.

Lehen bost egunak Miarrizten, segida Iruñen, arte hortan **pausaldiño** batekin. Herría

Anartean, libro utzi dute **pausaldiño** bat ondo hartan berean egin-arazirik eta 4500 euro pagarazirik gerokoaren gatik. Herría

Aurtengo uda arrunt nahasia dugula, horra zer ginion hemen berean gure agorrileko **pausaldiñoaren** aintzineko azken zenbakian... Herría

Helduden aste hortan iraganen da, astelehenetik ortziralerat, asteazkenean **pausaldiño** bat eginez, nahiz egun hortan ere hogoi bat haur biltzekoak diren ikastaldi berezi batentzat. Herría

## pausalditxo iz ipar pausaldi laburra. ik pausaldiño.

Beha ezazue niregana bai, beha zeinen harro egiten dudan eguneko lehen **pausalditxo**, kafe zakuak gero aterako dizkiot, badaukazue zer ikasi. Koldo Izagirre

## pausaldixka iz ipar pausaldi laburra. ik pausaldiño.

Hola izanen da orai lau hilabetez, Eguberri irian **pausaldixka** batekin... Herría

## pausaleku (orobat pausa-leku g.er.) iz pausatzeko lekua; atsedenekua. ik pausaleku.

Espedizio bat, bere **“pausaleku”** erritualekin: lehenik, Onesimoren etxetik, Baztandik, iragatea, gero Belate iturritik garraioi ur freskoaren hartzea [...] eta azkenik, Fontellasera, ene izeba Beni zegoen herrira heltzea. Ana Urkiza

Bada txori bat lorategian **pausaleku** duen zuhaitzaren arabera kantatzen duena, arbolaz aldatu eta bere txioa bestelakoa da. Joseba Sarrionandia

Baina ideiek ere, tximeletak bezain hauskorrek izango ez badira, **pausalekua** behar dute. Jokin Urain

Basoa zuen inguruan, eta laku handi bat ere bai, udaberri aldean kurriloen **pausaleku**. Felipe Juaristi

Arimek han atsedena kausituko dute, begiek atsegina, eta gorputzek beren neke eta lanetarako **pausalekua**. Xabier Kintana

Zure etxea, egon eta ibili zaren leku guztietan, betiere izan da, euskaldunen etxea, **pausalekua** eta portua. Pello Salaburu

Naturak izugarritzko egiten duen gauza orotan bezala, zoko zoragarriak daude [...] mila **pausaleku** bistaren eta gogoaren atseginerako. Koldo Izagirre

Estatuarik estatua joan ginen, harik eta Pessoren **pausalekuetakoa** izaten zen kafetegitxora iritsi arte. Edorta Jimenez

## pausarazi, pausaraz, pausatzen du ad pausatzera behartu; geldiarazi.

Lurrera botako zaitut eta bertan behera utziko landa zabalean; hegazti guztiak **pausaraziko** ditut zure gainean eta basapiztia guztiak asebeteko zure haratustelaz. Elizen arteko biblia

Adi-adi ari zaio baptistari entzuten, baina honen eskua kendu egin du bere gainetik eta mahai-gainean **pausarazi**, esku-zapi baten modura. Joxe Austin Arrieta

Eta bere unibertsoa **pausarazi** zuen zazpigarren egunean. Xabier Kintana

Egia erran, ene bakardadearen **pausarazteko** tokia nekez kausitzen nuen. Itxaro Borda

## pausatoki iz pausalekua.

Haratago badute ere aireportu bat Kurdistan lurretan, Souleimaniyatik hurbil, amerikar airekoen **pausatokitzat** begistatua. Herría

## pausatu, pausa, pausatzen 1 da ad atsedeen hartu.

Jaiki, lan egin, jan, **pausatu**, emaztearekin bekoz beko afaldu isilik telebistari begira eta loak har, bi neuroleptiko irentsi ondoan: bizia deitzen zena, hots. Itxaro Borda

Garalda sendiko alaba gehienak, etxean ez naizen garaia baliatuko du zinez lo egiteko eta **pausatzeko**. Itxaro Borda

Nola etzanik lasai **pausatu**, bizkar osoa dena zauri delarik? Michel Oronoz

Alimaleko aterpea hemen, baina zigilua aski zait, hotelean behar baitut seriocki eta gostuan **pausatu**. Piarres Aintziart

Hi, Marko, orain haiz Indietako erresuma urrunetarik heldua eta ez duk **pausatzeko** astirik ere ukanen, Argonen embaxadoreek hi nahi baihaute gidari, toki haietaz duan ezagutzarengatik. Aurelia Arkotxa

–Eskualdi baten emaitera, haatik, ez **pausatzera**! Michel Oronoz

### 2 jarri, kokatu.

Itzalpean **pausatu** gara eta seko lokartu dira bi holandesak. Piarres Aintziart

Harri metatuz osatu jargian **pausatu** zen. Itxaro Borda

Ellenek kapela kendu zuen eta dardarka **pausatu** zen esmalteztutako aulki txiki baten gainean. Lopez de Arana

Adiskidearen senarrak hurbildu zidan aulkian **pausatu** nintzen, ekaitzaren menetik gerizatua bezala, animaleko labana zorrotza esku batean eta gasna laurdena bestean, Nafarroako azken erregina exiliatua bainintzen! Itxaro Borda

Gutun, postale, irudi, botila, zaku, udare, denetarik bada, nahasmendu baketsu batean, gauzak, jin arau, berak **pausatu** balira bezala. Piarres Aintziart

Haren begi urdinak nireetan **pausatu** ziren. Aingeru Epaltza

Zure begirada aurrea non **pausatu**, haraxe joanen naiz. Fernando Rey

Ikusmena edo gogamena ez daitezela bekatuzko delizietan **pausatu**. Imanol Unzurrunzaga

Argia atrilean **pausatzen** da azkenik. Anjel Lertxundi

· Bere begiak puntu marroi hartan **pausatu** ziren, Ramsay jaunaren belauntzian. Anton Garikano

### 3 (airean dabilena)

Loreetariko bat, soldadu baten tunikan **pausatu** zen, eta hantxe itsatsita geratu. Mirentxu Larrañaga

Konturatu ziren Jasperek eskopetaz uxatutako zozo saldoa makalen gailurretan **pausatu** zela. Anton Garikano

Zikoina dagoeneko oso nekaturik sentitzen da eta laster bere habian **pausatu** da, bertan hartu du atsedeen. Patxi Zubizarreta

Anartean [...] belea **pausatu** da pagoaren ageriko bi erro, bi zainen artean etzana dagoen goroldiaren gainean. Erleek uste dute euria ari dela eta beldurtu egiten dira eta edonon **pausatu**. Piarres Aintziart

Txoriak hegan egin, eta beste sastraka batzuetan **pausatu** zen. Patxi Zubizarreta

Ondoren, isiltasuna usoak teilatuetan bezala **pausatu** zen. Jon Maia

Eulia lurrean **pausatu** zenez, Mاتيasean oin-zalaz gainean jarri eta ez zuen euliak zirkinarri egin. Unai Elorriaga

Hiritik ordubetera oinez, zeppelinak **pausatu** zen toki berean, zalditegi bat zegoen hainbat moxal eta zaldirekin. Anjel Lertxundi

Aireko hori Francfort hirian **pausatu** da. Herria

OVNI bat **pausatu** da Ahartzako lepoan. Michel Oronoz

· Geroztik, jendea ilargian **pausatu** da, komunikabideak zientzia fikzioaren heinera heldu dira, armak gero eta indartsuagoak dira. Eneko Bidegain

#### 4 ipar hil.

Martin Ugalde ohorezko euskaltzaina **pausatu** da Hondarribian. Herria

Amona Engrazia ezitiki **pausatu** zen, goiz batez, intziri bat gabe, sufritu gabe. Elena Touyarou

Emeki emeki **pausatu** eta itzali zen, bonbil bat champagne edan ondoren eta tziganen musika entzuten ari zen bitartean. Jose Angel Irigaray

Aste huntan ehortzi dugu Georges Suraud, 71 urtetan **pausatu** dena. Herria

Xaharretxean **pausatu** da 76 urtetan, horrat erretiratu baitzen duela bi urte hurbil osagarria makurturik. Herria

Arnaud Etchelecu Berhoko nagusi xaharra **pausatu** da 87 urtetan. Herria

Aita Saindua: **pausatu** da joan den larunbatean, maiatzean beteko zituelarik 85 urte. Herria

Ortzegun huntan, uztaialak 26, egunez egun hogoi urte Baionako ospitalean **pausatu** zela Etienne Salaberry heletar apez kartu eta jakintsuna. Herria

· Eguna **pausatzer**a zihoan eta, egun osoan jasan bero sapa arintzen zuen haize goxo bat altxatu zen. Elena Touyarou

#### 5 galderaz mintzatuz, egin.

Baina Kattalineek Gérard-engana du begirutzen, Sophie-k galdera **pausatu** duelarik ihes egitera utzi duen begitarte nardatuaz oharu baita. Eneko Bidegain

Isiltasuna hautsi beharez, eta barneko harra ito nahiz, galdera **pausatzen** hasten da. Eneko Bidegain

–Koxkortzen hasi nintzelarik eta garai hartan gerla bat gertatu zela ulertu nuelarik galdera **pausa** eta **pausa** hasi nintzaion. Eneko Bidegain

#### • 6 du *ad* jarri, ipini.

Senarak maitekero **pausatu** zion besoa, eta "tira, tira!", xuxurlatu zion sailean. Mirentxu Larrañaga

Loaren atarian, neskaren altzoan **pausatu** zuen burua. Itxaro Borda

Burua lepoaren kontra **pausatzen** du. Michel Oronoz

Bizkar gainean **pausatu** zidan eskua. Aingeru Epaltza

Azkenean hatz erakuslea **pausatu** zuen nire ezpainenetan. Patxi Zubizarreta

Esku bat **pausatzen** du Lucyren sorbaldan, babestu nahian bezala. Oskar Arana

Eskua telefonoaren gainean **pausatu** zuen, itxaron egin zuen oraindik ere. Jon Alonso

Eskuak dolcemente **pausatu** ditu teklatu gainean, koadrozko manta belauen gainean **pausatzen** duenean egiten duen moduan. Alberto Barandiaran

Esku iharrak ere jaso ditu eta, eruki keinu batez, salmahaian **pausatu** ditu atzera. Urtzi Urrutikoetxea

Baten batek mapa bat aterako du, eztabaida erdian, eta hatz puntak mapan **pausatu** eta Victor Hugo uhartea aipatuko da, eta Pendleton badia. Joseba Sarrionandia

Lehenbizikoa aldiz Indian oina **pausatzen** duzunean, bi gauzok harritik zaituzte: usainak eta jendeak. Gotzon Garate

Jira eta biraka hasten ziren, oinak non **pausa** eta soina nola eraman ez zekitela. Felipe Juaristi

Aspaldian lez, ospitalean zitaldurik ibilia nintzen denbora guztian, ipurdia inon **pausatu** ezinda. Hasier Etxeberria

Zakua **pausatu** ondoan eta auzapezak gomiturik banoa bulegora. Piarres Aintziart

Ihes egin aurretik, neskaren kopeta hotzean musu bat **pausatu** zuen gizonak. Aritz Gorrotxategi

Musu arina **pausatu** zion ezpainenetan, eztabaida giltzatuz. Itxaro Borda

Jaurenak haurra emaginari utzi omen zion, eliza atarian **pausa** zezan manatuz... Elena Touyarou

Goizeko bederatzia: trenak, Lugora segitu aitzin, Sarrian **pausatu** nau. Piarres Aintziart

Frantzian, egun guzietako harremanentzat baliatzen den konduan **pausatu** diruarentzat bankoek ez dute den gutieneko intresik pagatzen... Herria

#### 7 irud/hed

Mutilak neskaren begiei so egiteari utzi zion eta hautsontzi batean **pausatu** zuen begirada, zigarreta-mutur ziztrin bati adi-adi. Mirentxu Larrañaga

Etexerako bidean, kaioen egonleku zen badia txiki estu batean **pausatu** zituzten begiak. Aritz Gorrotxategi

#### 8 (telefonoaz mintzatuz)

Agurtu eta, telefonoa berriz **pausatu** zuen. Ramuntxo Etxeberri

Telefonoa **pausatu** zuenean, eskuak igurtzi zituen galtzetan, izerditan balitu bezala. Anjel Lertxundi

Deitu egin nion barka eskatzeko, baina **pausatu** egin zidan telefonoa. Oskar Arana

#### 9 (era burutua izenondo gisa)

Hildako **pausatu** eta lasaia zen. Harkaitz Cano

Ikusi nuenean, lokarriak eta oihalak bildurik, urrun-urrunetik eskua dantzatzen zidala, poz **pausatuago** batek hartu ninduen. Joan Mari Irigoien

Begirada **pausatu** bat luzatu zuen gizonaren aurpegian, begi-minien dardara irakurri nahiko balio bezala; "baina hori ezinezkoa da", pentsatu zuen gizonak, berak ez baitzuen barrenik. Aritz Gorrotxategi

Bai, horixe zen azken funtsean nire bidaia Lauaxetaren esanetan ganorabakoa: azken begirada **pausatu** bat bizitzan zehar maite izan nuenari. Juan Luis Zabala

Kattalineek bere ikasleak begitarte ezti eta **pausatu** batekin agurtzen ditu eta, aldi berean, ez die kasu handirik egiten. Eneko Bidegain

Mathilderren ahots **pausatuak** atera zuen gogoetatik: [...]. Anjel Lertxundi

Eskuetan, eta hitz egiteko modu **pausatuan**. Koldo Izagirre

Bere hizketa modu **pausatu** jaria korra eta kontakizun gihartsu haren oihartzunak oraindik bisitari etortzen zaizkit akordura batzuetan. Jokin Urain

Laster ikusi dut margolanak begiratzeko zure manera **pausatuak** ez duela deus kazetariak ohi duten arinkeriatik. Anjel Lertxundi

Gelan zehar hasi zen pasieran, eskuak bizkar atzean helduta eta ibilera **pausatuan**. Fernando Morillo

Txakurrak paseatzera etortzen diren andreak, beltzez jantziak, arkupean azpian ibiltzen dira urrats **pausatu**z, pareten ondotik. Monika Etxebarria

Ez dugu bizitzaren erritmo **pausatuan** idatzi, momentuko behararen arabera baizik. Pako Aristi

Maruja ere ez dago geldi, baina erritmo sekretu **pausatuagoan** ari da, zalapartatik at bezala. Iñaki Iñurrieta

Nebaren amasa gero eta **pausatuagoak** loa gertu zuela adierazi zionean, gelatik irten zen Elizabeth, liburua besapean. Anjel Lertxundi

Gaztaroari ez baitoakio gutxiago bere kirol jantzi alai-arin eta ezaxola, adin **pausatuari** arropa ilun dotorea baino, zentzu eta seriotasunaren adierazgarri. Juan Garzia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altzoan **pausatu** (3); anderea **pausatu** (3)

baloia **pausatu** (5); baloia **pausatu zuen** (3); begirada **pausatu** (4); besoa **pausatu** (4); bilana **pausatu** (6); bilana **pausatu du** (4); bizkarrean **pausatu** (4); boligrafo **pausatu** (3); bularrean **pausatu** (8); bularrean **pausatu zuen** (3); burua **pausatu zuen** (3); buruan **pausatu** (5)

emek **pausatu** (4); esku bat **pausatu** (4); eskua **pausatu** (3); etxean **pausatu da** (4); etxekanderea **pausatu** (3)

gainean **pausatu zen** (9); gainean **pausatu zidan** (3); gainean **pausatu zuen** (14); galdera **pausatu** (15); galderak **pausatu** (3); gauan **pausatu da** (3)

hagapean **pausatu** (3); han **pausatu** (10); han **pausatu da** (7)

lurrean **pausatu** (14)

mahai gainean **pausatu** (5); marraz bestalde **pausatu** (6); musu bat **pausatu** (5)

non **pausatu** (5); nonbait **pausatu** (3); ohean **pausatu** (3); ondoan **pausatu** (5); ondotik **pausatu da** (3); parean **pausatu** (3)

**pausat** aitzin (3); **pausat** arte (3); **pausat** baloia (3); **pausat** da (215); **pausat** da larrakena (3); **pausat** du (13); **pausat** duoan (7); **pausat** orduko (7); **pausat** zen (52); **pausat** zituen begiak (4); **pausat** zuen (107); **pausat** zuen baloia (19); **pausat** zuen begirada (5); **pausat** zuen burua (8); **pausat** zuen eskua (3)

**sorbalda** gainean **pausat** (4); **sorbaldan** **pausat** (7); **sorbaldan** **pausat** zen (3); **sorbaldaren** gainean **pausat** (3)

**telefonoa** **pausat** (8); **txori** bat **pausat** (3)

**xaharra** **pausat** da (4); **xaharretxean** **pausat** da (5)

**bularraldean** **pausatua** (5); **gainean** **pausatua** (7); **harri** bat **pausatua** (3); **harria** **pausatua** (4); **lehen** **harria** **pausatua** (3)

**gainean** **pausatua** (5)

**erritmo** **pausatuan** (3)

**gainean** **pausatuko** (5); **galdera** **pausatuko** (4)

**gainean** **pausaturik** (17)

**gainean** **pausatuta** (5)

**baloia** **pausatzeko** (3); **gainean** **pausatzeko** (3); **galderen** **pausatzeko** (3); **marras** **bestalde** **pausatzeko** (3)

**gainean** **pausatz** (24); **gainean** **pausatz** zen (3); **gainean** **pausatz** ziren (3); **galdera** **pausatz** (10); **galderak** **pausatz** (5); **lurrean** **pausatz** (4); **non** **pausatz** (3)

**pausatz** da (14); **pausatz** du (9); **pausatz** utzi (4); **pausatz** zen (11); **pausatz** zuen (8); **zuri** **galdera** **pausatz** (4)

## pausatuki 1 *adlag* astiro, geldiro, modu pausatuan.

**Pausatuki** mintzatzen da, hitzen ordena patxadaz bilatuz. **Iñaki Iñurrieta**

Hitz hauetxek esan ditu ozenki eta **pausatuki** : [...]. **Txillardeg**

Kattalin **pausatuki** hasten zaio eleka, besoak mahai gainean pausatuz eta eskuak gurutzatuz, bizkarra tente eta Gérard-i begietara so. **Eneko Bidegain**

Dokumentuko hamazazpi atalak **pausatuki** leitu zituen, bereziki kasu emanez bere eskualdean eragin gehienik ukanen zutenei eta, ondorioz, Sarako herritarrekin zituen harremanak alda zitzaizketenei. **Elena Touyarou**

Ez zaio antzematen arnasa hartzeko ere pausurik egiten duenik, eta hala ere lasai, **pausatuki** ari da Felix. **Iñaki Iñurrieta**

Oraindik garaiz nongoen atea **pausatuki** itxi eta itzultzeko. **Joxean Agirre**

**Pausatuki** behatu zion, berriz galdezka hasi aitzin. **Elena Touyarou**

## 2 *pausatuagoki*

Isilaldi baten ondoren eta begietara begiratuz, ostera ere elkarri ematen dizkiote musuak ahoan, oraingo honetan luze eta **pausatuagoki** . **Joxemari Iturralde**

## pausatuño iz

Joan du gazteak halere, baina 8 sare sarturik xaharrak, eta punpa-sare eta **pausatuño** batzu eta holako bixkotxañoak, gaztearen aztapar ukaldien ordaintzeko. **Herria**

## pausatze 1 iz jartzea, kokatzea; gelditzea.

Finitu dira Iparlako isiltasun harrabotsak: haizearen zitzua, arranoaren karranka, hostoen firfira eta **pausatze** geldia, motorren harrabots urruna. **Filipe Bidart**

Denboraren **pausatze** geldiaren beharra du nork bere hildakoekin bakea egiterakoan, oroitzapenaren sosegua iritsiko bada. **Joxan Elosemi**

Finitu dira Iparlako isiltasun harrabotsak: haizearen zitzua, arranoaren karranka, hostoen firfira eta **pausatze** geldia, motorren harrabots urruna. **Filipe Bidart**

## 2 (hitz elkartuetan)

Meza 11 orenetan izanen da Lagunak klikarekin, ondotik otoitz eta lore **pausatze** . **Herria**

Ondotik oroit harriaren aintzinean lore azau **pausatze** , otoitz eta aurtan medaila emaita, ondotik bazkaria Agerrebehrean, eman izenak igandeko. **Herria**

## pausera ik pausaera.

## pauso (3156 agerraldi, 222 liburu eta 1028 artikulutan –cf urrats 5728 agerraldi, 210 liburu eta 2584 artikulutan-; orobat pausu g.er) 1 iz urratsa.

Hogei **pauso** gehiago eta bidezidorraren bukaera geunden. **Bernardo Atxaga**

Polizien **pausoak** pasilloan galdu arte itxaron duzu. **Rafa Egiguren**

**Pauso** bat eman, eta paralizaturik bezala geratu nintzen berriro ere. **Ramon Saizarbitoria**

**Pauso** batzuk eman zituen aurrera eta gelditu egin zen, harriturik hasieran, izaturik gero, bigarren biolin baten doinua iritsi baitzitzaion garbi. **Felipe Juaristi**

Alaba ipurtandiak ere bi **pauso** eman ditu bisitaria dagoen aldera. **Anjel Lertxundi**

Jende askok eman zituen harainoko **pausoak** nire atea jotzeko. **Bernardo Atxaga**

Geroago jakin zuten *Gipuzkoa* batailoioek ere, haien **pausoak** jarraituz, Elorriora ihes egin zutela bonbardaketapean izuak hartuta. **Ramon Saizarbitoria**

Zuk **pauso** batzuk aurrera eginen dituzu, eta berari begira geldituko zara berriro. **Joseba Sarrionandia**

**Pauso** bat egin zuen aurrera, beste bat aurreraxeago gero, dantzan bezala. **Felipe Juaristi**

Buelta eman eta berriz zuzendu nituen **pausoak** prentsa kioskoraino. **Joxemari Iturralde**

Goiko pisuan **pausoak** entzuten hasi nintzen, tarteka. **Harkaitz Cano**

**Pausoak** azkartzeko tentazioa. **Lourdes Oñederra**

Oraindik ere nekez ematen ditut komunerainoko bi **pausoak** . **Anjel Lertxundi**

"Hau lotsa" esan zidan bi **pauso** aldendu ginenean. **Ramon Saizarbitoria**

Zazpi **pausoan** behin listua botatzeko ohitura zeukan. **Koldo Izagirre**

## 2 (izenondoekin)

Barrez korrika joan zen, **pauso** txikietan, ea aitonak jarraitzen zion begira. **Jon Maia**

Don Jaime presaka abiatu zen, **pauso** txikiak emanez. **Bernardo Atxaga**

Bere takoidun zapaten gainean **pauso** labur eta baldresak emanez sartu zen aldakura. **Joxean Agirre**

Pedro **pauso** handietan zetorren, besoetan lagunaren gorpua. **Jon Maia**

Haiak –artzapezpiku, gotzain, apaiz eta sakristau- atzetik joan ziren, **pauso** motelez, **pauso** dardaratiz, **pauso** zalantzakorrez. **Felipe Juaristi**

Sokaren laguntza hutsez mugimenduak erakusten zizkieten, **pauso** bereziak ematen batez ere. **Bernardo Atxaga**

Gandalfek **pauso** arinez zeharkatu zuen zuriz zolaturiko patioa. **Agustin Otsa**

Tertziopelozko traje beltza eta bufanda gorria jantzita, **pauso** motzak baina sendoak ematen zituen. **Jasone Osoro**

Alde egin zuten soldaduek, **pauso** baldarrez, launakako lerroetan, hiriko gotorlekura. **Felipe Juaristi**

**Pauso** sendoak, erabaki garbi bat hartu duenaren ibilera. [Lourdes Oñederra](#)

**Pauso** azkarrak, larritasunezkoak. [Anjel Lertxundi](#)

Hori esanda udaltzainen bulegora jo zuen **pauso** luzeka. [Koldo Izagirre](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa))

Korridore luze ezkoztatueta gure **pauso** hotsa entzuten da. [Joseba Sarrionandia](#)

Ez zaio aditzen **pauso** hotsik, baina han dago, lehenago begiratutakoan inor ez zegoen lekuan zutik. [Anton Garikano](#)

**Pauso** soinuak Nikosen gelan, indarkak, zerbait arrastan, gero ate kolpe bat eta igogailua martxan. [Iñaki Zabaleta](#)

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hasieran oin-**pauso** arinak ziren, bota lodiak hartxintzarren kontra, herrenaren ibilera soinua. [Felipe Juaristi](#)

Isilik geratu ziren denak, borroka-hotsa entzun baitzuten eta gora zetozen oin-**pausoak**. [Felipe Juaristi](#)

Ontziguaineko hanka-**pausoan** arabera Andreas ez zebilela gertuan ziurtatu ondoren, [...]. [Anjel Lertxundi](#)

–Han hartu nian nik min, eta bitzta osoan bota diat ezker **pausoa** oker-antza. [Pako Aristi](#)

Urduri nengoan, aingeru **pausoekin** nindoan, lapur bihurria bezala. [Harkaitz Cano](#)

Mozkor **pausoak** eman ditu haranzkoan eta honanzkoan. [Joseba Sarrionandia](#)

Eta beti ere makilakadak ibil-**pausoan** gidari, tonu biko melopea berean ari: [...]. [Txillardeggi](#)

### 5 irud/hed

Frantziskok Kristoren **pausoak** jarraitu nahi ditu, eta hor sustraitzen ditu bere irizpide, bizimodu eta hautuak. [Askoren artean](#)

Jainkoaren zerbitzarien bihotzak jainkozko sutan pizteko, haien **pausoak** bake-bidetik zuzentzeko eta haien bekokiak Jainko biziaren zigiluz markatzeko. [Askoren artean](#)

Ostiral hartan jaso nuen berriz Silbiaren **pausoak** zaintzeko agindua. [Joxemari Iturralde](#)

Lustrearen aitzakian burgesak kontrolatzen ibiltzen zen hura, arrain handiei **pausoak** hartzen, informazioa jasotzeko. [Koldo Izagirre](#)

### 6 urrats batean aurreratzen den bitartea.

Ez zen konturatu Fionn hiru **pausora** hurbildu zen arte. [Joanes Urkixo](#)

Gure geltokia kolegiotik "justu 870 **pausora**" zegoen. [Bernardo Atxaga](#)

–Aita! –oihu egin zion Norak moila-koskatik pare bat **pausora**, beldurra ematen baitzion urterteraino hurbiltzeak-. [Anjel Lertxundi](#)

–Hogei **pausoa** daukagun morroi horrek torturatua. [Koldo Izagirre](#)

Obus baten ziztua entzun zen, beraiengandik berrogeita hamar **pauso** ingurura lehertu zen. [Jon Maia](#)

Ehun **pausoren** tarte harago, Coruñaiko gizonek arrantzako txalupetan itsasoko zereginetarako prestatzen ziharduten. [Edorta Jimenez](#)

Luzeran sei **pauso** betekoa eta zabaleran bi eskasekoa. [Bernardo Atxaga](#)

### 7 urratsen segida eta segida horren nolakotasauna; ibiltzeko era. ik**pausaje**; **pausokera**.

Soldadu patruilen urratsak entzuten zituzten orobat, harlauzetan **pausoa** markatzen. [Karlos Zabala](#)

Parkegate-tik Chapelizod-a doan bide bakartian **pausoa** lasaitu zuen. [Irene Aldasoro](#)

Lasterka abiatu bazen ere, berrogei bat harmaila jaitsi ostean, moteldu egin zuen **pausoa**. [Pedro Alberdi](#)

**Pausoa** nagitu zenuen. [Koldo Izagirre](#)

Orduan mantsotu du **pausoa** Lainezek. [Pello Lizarralde](#)

Inork haren parera heltzeko ahalegina egiten zuenean, harrigarriro bizkortzen zuen **pausoa**. [Anjel Lertxundi](#)

**Pausoa** azkartu zuen, haren parera inguratzeko. [Pedro Alberdi](#)

Baina **pausoa** laburtu behar izan zuen bat-batean. [Unai Iturriaga](#)

**Pausoa** luzatuz leihorantz hurbildu zen gauaren beste aldean, han Ekialdean, zerbait ikusteko ahalmena balu bezala. [Agustin Otsoa](#)

Langileak, denak urdin, denak bizikletan, astiro, ia oinezko **pausoa**. [Josu Zabaleta](#)

Martaren **pausoa** zuzen, irmo eta erabakiorra zen. [Harkaitz Cano](#)

**Pauso** baldarra zekarren. [Koro Navarro](#)

Neska guztiak **pauso** bizkorrean abiatu ziren herriko plaza aldera. [Bernardo Atxaga](#)

Victoriak **pauso** bizian gurutzatu zuen ataria, eta, ni ere, presaka, haren atzetik joan nintzen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Hurbiltzen hasi zitzaizkidan **pauso** mantsoan. [Bernardo Atxaga](#)

Gero, behinolako **pauso** alai berari loturik, etxera bidea hartu zuen. [Josu Zabaleta](#)

Ondo txukunduta eta orraztuta, eskolako uniforme jantzita, **pauso** militarri jarraituz, turkiar banderatzeko gorriak eskuan... [Jon Arretxe](#)

Gidariak lotan zeuden, ikusezin, zaldiek **pauso** bera zuten beti. [Josu Zabaleta](#)

Agudoago ibiltzen zen, bere **pauso** nekagaitzaz. [Karlos Zabala](#)

Ez dut heriotza maite, ezta haren **pauso** glaziala ere. [Berria - Kultura](#)

Gero, agurtu gabe urrundu zen, **pausoa** bizi-bizi. [Fernando Morillo](#)

Xaltokako herren-**pausoa** zuen, Lakatos lagunak bezalatsukoa baina ez hain sotila eta dotorea. [Matias Múgica](#)

### 8 mailaka edo zatika gertatzen edo egiten den zerbaiten zati bakoitza.

Ez zen, inola ere, tratabide estuago baten lehen **pausoa**. [Bernardo Atxaga](#)

Lehenengo **pausoa** ezin hobeto atera zitzaigun eta, adorea harturik, bigarrenari ekin genion, apal haiek husteari, alegia. [Jon Arretxe](#)

Gobernuak dira hurrengo **pausoa** eman behar dutenak. [Berria - Gaiak](#)

Emakumearen askatasuna lortzeko borrokan **pauso** handia da hau. [Berria - Gaiak](#)

Eskubideen urraketa dinamikan beste **pauso** bat da. [Berria - Harian](#)

Gaixotari eutanasia egitea erabaki, eta betebeharreko **pauso** guztiak egin dituen medikua errudun sentitu ez zedin. [Berria - Gaiak](#)

Behin izenak erabakitakoan, aurrera **pauso** bat eman genuen: zergatik ez, gure zerranda hura, idatzita jarri? [Bernardo Atxaga](#)

Hortik bere probetxu pertsonalerako zerbait eramaten hastera ez dago **pauso** erdirik. [Pako Aristi](#)

Liluratik maiteminduta sentitzera oso **pauso** laburra dagoenez, bere sentimenduen berri agertu zion indianoak neskari. [Anjel Lertxundi](#)

**Pauso** debekatuek izutu egiten gaituzte baina tira eta erakarri ere bai, hori badakite gaizkileek eta banekien nik ere. [Joxean Agirre](#)

"Dozena bat preso hurbildu dituztela eta **pausoa** deitzen al diok?", Pintxok. [Pako Aristi](#)

### 9 (dantzan)

Hara, seme, kontua duk tangoaren **pausoak** dibujatzea: emakumezkoarenak gorritz, eta gizonezkoarenak zuriz. [Harkaitz Cano](#)

Dantza geldu baten **pauso** nagiak. [Joxean Agirre](#)

Hanka puntetan jarri, eta titkun-ttakun, erdi kantuan hasi da neska eta **pauso** airoso batzuk ematen kamerinoaren erdian. [Anjel Lertxundi](#)

Bizpahiru dantza-**pauso** eman zituen, batera eta bestera, zirkun-zarkun eginez. [Anjel Lertxundi](#)

Txanberlainek egin omen zien tiro buruan Pirpok vals **pauso** batzuk ematen zituen bitartean. [Bernardo Atxaga](#)

Dantzari batek **pauso** zail bat egiteko erakusten duen erraztasun berarekin. [Joxean Agirre](#)

### 10 atzera *pauso* ik atzerapauso.

### 11 aurrera *pauso* ik aurrerapauso



## 12 pausoz pauso ik pausoka.

Eta zulora itzuli nahi duen piztia baten gisa, **pausoz pauso**, ikara latzean, atzera egin du gelaren atzealderaino. [Karlos Zabala](#)

Bilbo **pausoz pauso** ikusi eta ulertu behar da: Done Jakue katedrala, Plaza Barria, Etxebarria parkea, Mallonako eskailerak... [Berria - Kultura](#)

**Pausoz pauso**, urratsez urrats egin beharko nuen bidaia hura, etapaz etapa, geltokiz geltoki, eta izen ederrak izango zituzten geltokiek, Urolako trenbide zaharrekoek zituztenak bezalakoak esaterako: Zumarraga, Villarreal de Urrechua, Aguinaga, [...]. [Juan Luis Zabala](#)

Prozesua **pausoz-pauso**. [Berria - Gaia](#)

Letraz letra, **pausoz pauso**, hitz batetik beste batera igarotzen gara, tarteko hitz asko daudelarik, eskailera mailen antzera. [Iñaki Arranz](#)

Puzzle baten zatiak oparitu zizkidan Adelak, **pausoz pauso** eraikitzen joan nendin. [Juan Kruz Igerabide](#)

Jordanek **pausoz pauso** kontatzen digu nola Ordena, bidalien talde kementsuaren eraginez, zabalduz, finkatuz eta egituratuz joan zen Alemania osoan. [Askoren artean](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**atzera pauso** (7); **aurrera pauso** (19); **azken pauso** (6); **bi pauso eman** (12); **dantza pauso** (10)

**eman beharreko pauso** (7); **emandako pauso** (12); **hiru pauso eman** (5)

**lau pauso eman** (6); **lehen pauso** (17); **lehen pauso gisa** (5); **lortzeko pauso** (7)

**pauso arinak** (5); **pauso arinean** (6); **pauso arinez** (11); **pauso atzera** (7); **pauso aurrera** (7); **pauso azkarrez** (12)

**pauso bakar** (22); **pauso bakar bat** (13); **pauso bakoitza** (11); **pauso bakoitzak** (6); **pauso bakoitzean** (28); **pauso bat atzera** (15); **pauso bat aurrera** (13); **pauso bat aurrerago** (7); **pauso bat da** (21); **pauso bat egin** (13); **pauso bat eman** (81); **pauso bat ematea** (5); **pauso bat emateko** (16); **pauso bat ematen** (11); **pauso bat gehiago** (14); **pauso batzuk egin** (16); **pauso batzuk eman** (31); **pauso biziz** (5); **pauso bizkorrez** (5)

**pauso egin** (8); **pauso eman** (54); **pauso ematen** (5); **pauso erabakigarria** (5)

**pauso galduen** (11); **pauso galduen galerian** (7); **pauso garrantzitsua** (24); **pauso garrantzitsua eman** (9); **pauso gehiago** (7); **pauso gisa** (7); **pauso gutxi** (5); **pauso guztiak** (26)

**pauso handi** (8); **pauso handia** (17); **pauso handiak** (7); **pauso hori eman** (6); **pauso hots** (6); **pauso hotsa** (17); **pauso hotsa entzun** (5); **pauso hotsak** (29); **pauso hotsak entzun** (5)

**pauso labur** (6); **pauso luzeak** (20); **pauso luzeak emanez** (12); **pauso luzeka** (11); **pauso luzez** (5); **pauso motelez** (10)

**pauso pare** (5); **pauso pare bat** (5)

**pauso sendoak** (5)

**pauso txiki** (14); **pauso txiki bat** (7); **pauso txikiak** (12); **pauso txikiak emanez** (6)

**pausoari pauso** (5); **pausoz pauso** (83); **pausoz pauso azaldu** (6); **pausoz pauso joan** (11)

**aurreneko pausoa** (18); **aurrera pausoa** (5); **azken pausoa** (23); **beharreko pausoa** (5); **bigarren pausoa** (12)

**egin zuen pausoa** (5); **emandako pausoa** (7); **ezinbesteko pausoa** (10); **hurrengo pausoa** (52)

**lehen pausoa** (94); **lehen pausoa da** (5); **lehen pausoa eman** (20); **lehen pausoa izan** (7); **lehendabiziko pausoa** (7); **lehenengo pausoa** (29)

**pausoa arindu** (7); **pausoa bizkortu** (8); **pausoa egin** (5); **pausoa eman** (64); **pausoa eman du** (7); **pausoa emango** (7); **pausoa ematea** (12); **pausoa emateko** (15); **pausoa ematen** (7); **pausoa ematera** (8); **pausoa izan** (16); **pausoa izango** (8)

**aldeko pausoak** (10); **aldeko pausoak emateko** (6); **atzera pausoak** (5); **aurrera pausoak** (10); **beharrezko pausoak** (10)

**eman beharreko pausoak** (28); **emandako pausoak** (6); **hurrengo pausoak** (13)

**jarraitu beharreko pausoak** (6); **lehen pausoak** (37); **lehen pausoak eman** (8); **lehenengo pausoak** (7); **nire pausoak** (7)

**pausoak eman** (65); **pausoak eman behar** (15); **pausoak eman beharko** (5); **pausoak emango** (8); **pausoak ematea** (29); **pausoak emateko** (59); **pausoak emateko eskatu** (9); **pausoak emateko prest** (8); **pausoak ematen** (43); **pausoak ematera** (6); **pausoak entzun** (8); **pausoak entzuten** (5); **pausoak eskaileretan** (6); **pausoak eskatu** (5); **pausoak sentitu** (5)

**pausoan pausoa** (5)

**pausoen hotsa** (12)

**bi pausora** (11); **hamar pausora** (5)

**zpi pausotan** (5)

**bi pausotara** (6)

**pausotzat jo** (5)

**pausoz pauso** (83); **pausoz pauso azaldu** (6); **pausoz pauso joan** (11)

## pausoka (*orobat pausuka g.er.*) adlag pausoz pauso.

Hor ikusten da, **pausoka**, urratsez urrats, nola doan zientzia bere aurkikuntzak egiten. [Pello Zabala](#)

Topaketa hori oso mailaka eta **pausoka** egina izan zen, ordea, subjektuaren kontzeptua eratuz joan zen bezala, bestalde. [Josu Zabaleta](#)

**Pausoka** egiten omen da bidea, eta bazihon itxura hartzen erakusketa. oreka demografikoa edo ekonomiaren klima aldaketa bati **pausoka** moldatu beharra. [Joxemari Urteaga](#)

Hong Kongek sufragio unibertsala **pausoka** eta modu ordenatuan lortzea nahi du. [Berria - Mundua](#)

Sorbaldak erakutsi gabe, pauso-**pausoka** urruntzen hasi nintzen. [Ramon Saizarbitoria](#)

**Pausoka-pausoka** egin beharko dira urratsak, baina geratu gabe, «konpromisoak» hartuz, oraingo borrokak haztuko baitu etorkizuneko errealitatea. [Berria - Harian](#)

## pausokada iz pausoa, urratsa.

Biderantz jaisten hasi zen **pausokada** luzeekin, belar saila inguratuz, hesiaren arabera. [Bernardo Atxaga](#)

## pausokatu izond pausoz pauso gauzaturikoa.

Romain Garyren ipuinotan ere badago nolabaiteko strip-tease bat, badago suspense bat, argitze **pausokatu** bat, baina dena ez da trama, ez da bukaeran sexuaren ikusmirak aseko gaituen esperantza bakarrik. [Joxean Agirre](#)

## pausokera 1 iz pausoa, ibiltzeko era.

Burumakur eta **pausokera** geldoan zebilen, aldatsagatik baino adorea akituta. [Josu Landa](#)

Santos, azaldu diozu inoiz Joseluri zergatik daukazun ibilera aldrebes hori, herren moduko **pausokera** hori? [Josu Landa](#)

Normalean baino disimulu txikiagoko **pausokera** okerraz zihoan Santos. [Josu Landa](#)

## 2 pausoa.

Pertsona batzuk sartzeko moduan ezagutzen dira, edo **pausokera** emateko moduan, irribarrean, hizketarako zera berezietan, baina hau mostradoretik alde egiteko daukan eran ezagutu dut. [Pako Aristi](#)

## pausotxo iz pauso laburra.

Barrenak galdetu zuen «zein **pausotxo** emateko prest dauden EAJ, PSE edo Espainiako Gobernuak». [Berria - Euskal Herria](#)



**Pausotxo** penagorriari ematen aurrera, eta arnasari eutsi nion. **Matías Múgica**  
Karel ertzera agertu zen, eguzkiak bere bidearen erdirako **pausotxo** bi falta zituelarik. **Edorta Jimenez**  
Politikak berak malgutasunaren aldera **pausotxoak** eman ahal izan ditu, eta hala, Autonomia Erkidego bakoitzak bere babesgo zibila sustatu behar izan du. **Pello Zabala**

## pausu<sup>1</sup> iz atsedena.

Ukan dezala **pausu** eta bake eta lagun gaitzala beti, Irisarri ez baitzuen ahantzia ez eta ere euskara. **Herria**  
Beren usaiako itzulia egin ondoan herriko buruzagi eta hautetsiekin, emaiten dituzte mutxikoak eta gero **pausu** poxi bat. **Herria**  
10 etapa, egun bat **pausu**. **Herria**  
Hartze duzu **pausu** ona. **Herria**  
Erretreta eta **pausu** on Colette eta Jakes ostalerreri eta Sanokin ongi etorri mustari guziera. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Biharamuna **pausu** eguna izanez, arrazoin bat gehiago hunen ez hutsegiteko. **Herria**  
Lan orduetan -enetzat **pausu** orduak- jende guti zen kanpalekuan, bakoitza bere lanera joana. **Marzel Etxehandi**  
Geroztik ibili da ala ospitale ala **pausu** etxe, artean bere etxean egonez alabaren zoinu pean. **Herria**  
Orgogozo anderea zendu da Itsasuko **pausu** etxean, urriaren 11n. **Herria**  
Ez nintekeen hari fida **pausu** luzamen zenbaiten ardiesteko gorputzaldi osoa hobera ari zitzaidan. **Marzel Etxehandi**  
Harekin mintzatzen nintzen ardura, ez luzaz eta neure block-era joan nintzenez hamar egunen **pausu**-agiriarekin, segur nintzen gaina hartuko zuela. **Marzel Etxehandi**

## pausu<sup>2</sup> ik pauso.

## pausualdi (*corpusean pausu-aldi soilik*) iz atsedendia.

Eguna bete behar zen, debozioa luzatuz: otoitz-liburuko egun guzietako zatiak, emaiten ez nuen mezako otoitzak, sainduen litaniak, arrosarioa, eta gero **pausu**-aldia, oinez ibiliz puxka bat. **Marzel Etxehandi**  
Bistan zen printzeak ez zuela nahi inork bere udako **pausu**-aldi harro hartan gogaitzera etortzerik. **Matías Múgica**

## pausuka ik pausoka.

## pausuki *adlag* pausatuki.

Mementokotz, txikorea basoan isuri eta, **pausuki** hasten da bere erabakia esplikatzeko. **Berria - Kultura**  
**Pausuki** eta bere hatsean, plomatuz, zer partida ez du egin! **Herria**

## pausuleku (*corpusean pausu leku soilik*) iz atsedenekua.

Herria bizi da, eta denak joanen gira oro utzirik, delako **pausu** leku hortarat. **Herria**

## pauta iz jarraibidea, gida.

Hark lanerako ezarritako hainbat **pauta** indarrean daude: ideien asoziazioa, esate baterako, eta interpretazioa, esaten denaren eta esan nahi denaren arteko lotura... **Berria**  
-Harian  
Jarraitu beharreko **pautak** azaltzen dituen egutegia banatuko dute. **Berria - Ekonomia**  
Ez dituzte gustuko aldatetako, horregatik jarraitzen dute **pauta** jakin bat. **Berria - Gaiak**  
Ekialdekoek, ezagutzen dute **pauta** hori, baina nahiago dute auzi bakoitza aztertu eta haren araberako erabakia aurkitu. **Berria - Gaiak**  
Baita, hala duk, baina ez zekiat, **pauta** bat jarraitzen ez dutenekin inseguruago sentitzen nauk, ez dakik zer baloratzen duten! **Pako Aristi**

## pavana ik pabana.

## paxa<sup>1</sup> (*orobat pasha eta patxa*) iz maila garaiko turkiar funtzionarioa.

Baina Wafdean kideetako bazina, Kontseilu Presidente Sidki **Paxari** bezalako batek porrota eragiten ahal dizu. Goiz batean xekeari eskuan muin egin, zaldi gainera igo, jauregiko bidea hartu eta **pasharen** aurrera aurkeztu zen. **Patxi Zubizarreta**  
Orain ez da bey bat, baizik eta **pasha** bat, otomandar bat. **Fernando Rey**  
-Ene begirunea hiri, jaun ahaltzuaren seme horri, Kirxa **paxaren** seme horri! **Patxi Zubizarreta**  
-Mahmut Khan, Beyaziteko **pasha**, bere zaldiaren bila dabil. **Fernando Rey**  
Ab-dali **patxaren** andre gaztea alaba muxugorri batez erdi zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
**Pashak** zaletasun handi bat zuen: ehiza, orein-ehiza. **Fernando Rey**  
**Patxa** baten eta kale garbitzaile baten seme-alabek eskubide berberak dituzte. **Patxi Zubizarreta**  
-Nork frogatu ez naizela **patxa** baten ezkontzaz kanpoko alaba? **Patxi Zubizarreta**  
Gu istorio egiptoarraren aurrean esertzen ginen, **patxa** txikien antzera. **Juan Kruz Igerabide**  
Jauregian Ab-dali ul-Areah **patxa** gorena bizi zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Horrelako ikuskizuna eman zuen bai Errusian "abenduko" iraultza abortatuak K.o. 1825ean, bai Arabi **pasha**-k K.o. 1881ean Egipton zuzendutako iraultza abortatuak. **Iñaki Mendiguren**

## paxa<sup>2</sup> iz mahaspasa.

Zer pentsatuko ote zuen hileta distiratsu hartatik etxera itzuli eta sukaldeko mahaian Korintoko **paxak** ikustean? **Bernardo Atxaga**

**Paxa** horiekin erretzen du gero arkumea, armeniarren moduan. **Bernardo Atxaga**

paxakor ik **pasakor**.

paxeta ik **pazota**.

paxtu ik **paxtun**.

**paxtuera 1** iz indoeuropar hizkuntza, iranioaren multzokoa, batez ere Afganistanen mintzatzen dena.

Osama Bin Laden Pakistanen atxilotu dutela adierazi zuten atzo Irango irrati publikoan, **paxtuerazko** albistegian. **Berria - Mundua**

Ashek Hossein **paxtuerazko** erredakzioaren arduradunak ziurtatu zuen Bin Laden orain dela zenbait denbora atxilotu zutela baina George Bush Ameriketako Estatu Batuetako presidentek albistea geroago jakinarazteko asmoa duela. **Berria - Mundua**

2 (hitz elkartuetan)

Afganistango eta Pakistango **paxtuera** hitzunei zuzendutako albistegian. **Berria - Mundua**

**paxtun** (orobat **pashtun**, **pashtu** eta **paxtu**) 1 iz Afganistango etnia edo herria, paxtueraz mintzatzen dena.

Bainan **paxtun** frango bada ere Pakistan herrialdean eta aspaldian Afganistaneko gobernuak beretu nahia dute Pakistan horren zati on bat, **paxtun** ainitz badagon eskualdea hain xuxen. **Herria**

Gero, zehazten hasteko nahiko adorerik ez, eta ez dakigu talibanok xiitak diren, edo suniak; **pashtunak** diren, edo arabiarrek. **Iñigo Aranbarri**

Jendetze guztiaren % 38 edo 40 **paxtun** horietarik izan behar da. **Herria**

**Paxtuak**, ordea, ez dira herrialde horretako etnia bakarra, tadjikek, uzbekek eta hazarek ere izango dute noren alde bozkatu. **Berria - Mundua**

Urte hartako urrian, musulmanen kontrako indarkeriaren berri izan eta Xaxmirra jo zuten Pakistango hainbat herritar **paxtuk**. **Berria - Mundua**

**Pashtu** etniakoa da **Berria - Mundua**

2 paxtuera.

**Paxtu** eta daria dira Afganistango hizkuntza ofizialak. **Berria - Mundua**

**payo** iz ijitoa ez den pertsona.

Eta ikasiz beti hobetzen joateko **payoek** daukazuen gogo bizi hori ikas dezakegu guk, duda barik. **Berria - Euskal Herria**

Zergatik ez dugu esaten **payo**-ez osatutako talde batek auskalo non egin duela eraso? **Berria - Euskal Herria**

**pazia 1** iz pertza.

Sotoko eskailburuan edukitzen genuen pulpa edo errejiloia, eta hartatik botatzen puska bat, **pazian** egositako arbi, erramolaxa, patatazal, azaosto, sagartxar edo zena zelakoari, zerritegira pasaeran. **Patziku Perurena**

Oinak sartu zizkion ura gatzarekin eta ipurua zeuzkan **pazia** batean. **Anton Garikano**

-Errespetuz mintza hadi, Santxo, nire andearekikoetan -esan zuan Don Kijotek-; bakean dezagun bai gure jaia, eta ez dezagun **paziaren** ondoren laratza bota. **Patxi Ezkiaga**

Ganibet handi bat zuen nire amak eskuan, kobrezko **pazia** bat, odola jasotzeko, eta egunkari-papera, azala erretzeko. **Joxan Elosegi**

**Pazia** zaharrak pertzari: ken hadi ipurbeltz hori! **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Olio-**pazia** bi, margola-ontziak baino handiagoak, orekiak frijitzeko; eta bi pala azkar zituzten, orekiak frijitu ahala aterata beste ezti-**pazia** batera botatzeko. **Patxi Ezkiaga**

3 irud/hed

Errukituta, azti handien bertuteak eta boterea eman nahi izan zizkion amak, eta horretarako jakinduriaren **pazian** sartu zuen eta Bach epotxari agindu hura zaintzeko eta aldiari-aldiari eragiteko. **Pako Aristi**

pazient ik **paziente**.

**paziente** (orobat **pazient** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **paziente** agertzen da) 1 izond jasankorra, eramankorra.

Gero eta sukartuagoa aski **pazient** den petxeroa. **Jose Angel Irigaray**

2 iz osasun azterketa edo tratamendu bat egiten dioten pertsona.

**Pazienteek** ordutegi zehatzak dituzte jaikitze, jateko edo medikaziorako. **Joseba Sarrionandia**

Mediku eta **pazienteen** arteko harremana. **Berria - Harian**

Edozein delarik ere ernalketa lortzeko erabiliko den teknika, itxaron zerrendara pasatzen dituzte **pazienteak**. **Berria - Harian**

Urgentzietan **pazienteek** komunzki lau oren beha egon behar dutela ikusiak izan aitzin, horrek aski argi erakusten baitu langile eskasia. **Herria**

Azaldu naiz, izena esan diot, bere **paziente** izana duela hogeita bost urte. **Agurtzane Juanena**

Neurologoak bere zazpi **pazienteren** historiak bildu zituen *An anthropologist on Mars* (Antropologo bat Marten) liburuan. **Berria - Kultura**

Mekanikari gazte bat zen Bennetten azken **pazientea**, neurofibromatosi hedatua zuena. **Xabier Olarra**

Nire **pazienteetako** bat da; hiru urte zituenetik ezagutzen dut. **Xabier Olarra**

Pentsamendu hori bere gogamenaren zokoan egongo da erietxean **pazienteak** ikusten ari den bitartean. **Xabier Olarra**

Erizaina, tinturazko errubia, botika kaxarekin ailegatu da, **pazienteek** pastillak bonboiak lez banatzen. **Joseba Sarrionandia**

Ez dut uste ni, "Arratien gizona" eta Freuden beste **paziente** lizun guztiak bezala, lau urterekin zakila tente jartzen zaien ume nazkagarri horietakoa nintzenik. **Ramon Saizarbitoria**

# pazientki *adlag* egonarriz, eraman onez.

Zer maitasunarekin solasten zitzaigun, bai, jaun Marcel, eta zein **pazientki**, hitzaz eta hitzaren balioaz ari zitzaigunean...! **Joan Mari Irigoien**

## pazientzi ik **pazientzia**.

### **pazientzia** (*orobat **pazientzi** g.er.*) 1 iz egonarrria, eroapena, pairakortasuna.

Espirituaren fruitua, berriz, hau da: maitasuna, poza, bakea, **pazientzia**, bihotz ona, onginahia, leialtasuna. **Elizen arteko biblia**

Nork adieraz dezake anaiak orduan bizi zuten maitasuna, **pazientzia**, apaltasuna, obedientzia eta anai arteko alaitasuna? **Askoren artean**

Arretaz begiratu zien bi solaskideei, **pazientzia** eta patxada osoan. **Patxi Zubizarreta**

- **Pazientzia** gauza handia da, Hamida. **Patxi Zubizarreta**

Latindarrak berriz legezizonak ziren, halako zentzugabekeriatarako **pazientziarik** gabeak. **Iñaki Mendiguren**

Eta apaltasun eta **pazientzian**, eta espirituko bake garbi, xalo eta egiazkoan saiatzen da. **Askoren artean**

**Pazientzia** eta apaltasuna non, haserterik eta asaldurarik ez han. **Askoren artean**

**Pazientzia** pixka bat, Ximu. **Aingeru Epaltza**

Halere, **pazientziarekin** jasanen zuen; aukera noizbait etorriko zitzaion eta. **Elena Touyrou**

Gure **pazientziak** gainezka egin du. **Berria - Euskal Herria**

Horiek hola, **pazientziak** ere bere mugak baditu. **Herria**

Husainek, aitaren destainek gogaiturik eta **pazientziak** errea, esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Peshe saltzaileak ez zuen ordea halako gorabeherak eramateko **pazientziarik**. **Koro Navarro**

Andrésen ahotsa lehen baino leunagoa da, baina **pazientziarik** ezaren antzeko zerbait ere badario. **Lourdes Oñederra**

### 2 (izenondoekin)

Tentaldiek astinduak eta bihozgabatuak zebiltzala zekienak, onberatasun eta **pazientzia** handiagoz tratatzen eta eramaten zituen. **Askoren artean**

**Pazientzia** handia bildu behar izan du erudizioak irents ez ziezaien testuari eman nahi izan dion isuri gozoa. **Anjel Lertxundi**

Gure aita ez zen **pazientzia** handiko gizona. **Joan Mari Irigoien**

Ez dizuet ezkutatu oso **pazientzia** gutxi dudala horrekin. **Iñaki Mendiguren**

Doinua berehala ezagutu zuen: **pazientzia** gutiko autoritate doinua zen. **Ramuntxo Etxeberri**

Nirea **pazientzia** santua izan arren, ezin izan nion gehiago eutsi halako geldotasunari. **Karlos Zabala**

Nik bezain **pazientzia** laburra duen neska batentzat. **Josu Zabaleta**

Antzinako kimikariek kemen eta **pazientzia** gizagaindikoak izan behar zituzten. **Juan Garzia**

Esan behar dut, ongi aski jartzen zituela; **pazientzia** izugarria baitzuen. **Patziku Perurena**

Arantzazun, Gandiaga kulturgune berria estreinatuta den egunean, Joan María Uriarte Donostiako apezpikuak "**pazientzia** aktiboa" gomendatu du. **Herria**

### 3 (aditzen objektu gisa)

**Pazientzia** bildurik, Kirxa andereak egun bat itxaron zuen, bi egun. **Patxi Zubizarreta**

Harik eta gizon sailduaren **pazientzia** agortu zen arte. **Patxi Zubizarreta**

-Begira -esan zion Harryk, **pazientzia** agortuta-. **Iñaki Mendiguren**

Horrek ahitu zuen nire **pazientzia**. **Anjel Lertxundi**

Amaitu zitzaion **pazientzia**. **Anton Garikano**

Denbora mundu honetan dagoen gauzarik geldoena delako susmoak **pazientzia** galarazi zion. **Jon Alonso**

Amak **pazientzia** eskatzen zion aitari, aita amarekin haserretzen zen. **Anjel Lertxundi**

Zure **pazientzia** sendotzeko eta betiko bizitza irabazteko. **Joan Mari Lekuona**

Azkeneko botikak hartu ondoren goxoki bat eman dit, nire **pazientzia** saritzeko edo. **Jon Arretxe**

Baina ez dut irakurlearen **pazientzia** probatu nahi istorio honetarako [...] esanguratsua ez diren kontuen gainean jardunez. **Oskar Arana**

Ez zuen lehen aldia bertzeren baratzea ongarrizten, eta emazte printzipalagoaren **pazientzia** erretzeko beldur zatekeen. **Aingeru Epaltza**

Honaino iristen da nire **pazientzia**, pentsatu zuen Cesarrek. **Harkaiz Cano**

Azkenean ez duzu borondaterik, ez nahikaririk, eta ondarrean, ondarrean **pazientzia** heldu zaizu. **Marzel Etxehandi**

**Pazientzia** behar dugu. **Juan Garzia**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Nobela **pazientzia** ariketa bat da, energia pilaketa. **Joxean Agirre**

Senideok, har itzazue Jaunaren izenean hitz egin zuten profetak sufrimendu- eta **pazientzi** eredutzat. **Elizen arteko biblia**

Berak ere bere haragitan ezagutua zuen gure prestaketaren eskastasuna, eta zortzarekin, intuizioarekin, amarruekin eta **pazientzia**-ibai batekin moldatu beharra. **Juan Garzia**

Beldur izaten hasi zen, ez ote ziren, berekiko hartzen zuten gehiegizko lanagatik, Jainkoaren kontra hutsegiteren batean eroriko, **pazientzia** faltagatik. **Askoren artean**

Egia da hasieran eskaileretatik igotzea nahiago zuela, **pazientzia** faltaz igogailua berantesten zuenean. **Jon Alonso**

### 5 **pazientzia** eduki

Baina ez neukan **pazientziarik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Orduan ez neukan orain **daukadan pazientzia**. **Anton Garikano**

Zain egoteko **pazientzia** edukitzea nahikoa. **Jon Alonso**

Horrelakoetan beharrezkoa da guztizko **pazientzia** edukitzea. **Joan Mari Lekuona**

Januari bihotz garbiz etengabe otoitz egitea, pertsekuzio eta gaixoardian apaltasuna eta **pazientzia** edukitzea. **Elizen arteko biblia**

### 6 **pazientzia** galdu

On Camillok pixka bat urduri jarri nau eta **pazientzia** galdu dut. **Koldo Biguri**

Klientekin ere **pazientzia** laster **galtzen** nuen. **Daniel Landart**

Horrela erantzun ziolako, San Frantziskok, era onean haserre eta **pazientzia** galdu gabe asaldaturik, esan zion anai Leoni: [...]. **Askoren artean**

Nik ja **galdu** dut **pazientzia**. **Antton Olano**

Mesedez, **galdu** diat eta **pazientzia**, esango al didak behingoz zer gertatzen den? **Antton Olano**

"Zer aurpegi jarri dut, ba?" "**Pazientzia** galtzeko zorian dagoen irakasle batena". **Bernardo Atxaga**

-Eta nori axola zaio hori? -esan zion Ronek, **pazientzia** galduta -. **Iñaki Mendiguren**

Itxaropena ere bai nik, Ivy, **pazientzia** galdurik, etxetik alde egina izango ote zen, nirekin haserre. **Joxe Austin Arrieta**

### 7 **pazientzia** hartu

**Pazientzia** hartu eta itxoitea erabaki genuen. **Bernardo Atxaga**

**Pazientzia hartu**, umea goitik behera aldatu, maindirea aldatu, eta jarri duzu berrira bere tokian. Arantxa Iturbe

Beraz, **har** ezazu **pazientzia**; bai **pazientzia** handia **hartu** ere. Jon Muñoz

-Ikastaroaren hasieran esan zenigun **pazientzia hartzeko**, ekarriko zenituela urak zeure errotara. *Assicurazioni Generali* irakur zitekeen bertan, hizkiak bereizteko **pazientzia hartuz** gero. Joxerra Garzia

**Pazientzia hartu** beharko da lan horiek bururatu arte eta ez ahantz hor ari diren langileak guretako ari direla. Herria

Bi astez oraino **pazientzia** poxi bat **hartu** behar bainan nun da makurra? Herria

## 8 *pazientzia izan* du *ad*

Saiatu naiz **pazientzia** izaten, baina nola **izan dezake** ene bihotzak **pazientziarik**, bere erdigunetik landara? Joan Mari Irigoien

"**Pazientzia izan** behar dugu", esan zuen. Oskar Arana

**Pazientzia izan** badut eta erregatu ez banaiz, horretantxe datza benetako poza eta benetako bertutea eta arimaren osasuna. Askoren artean

**Izan pazientzia** apur bat; denboraren poderioz, jakin beharreko guztia jakingo duzu. Patxi Zubizarreta

**Izan** ezazu **pazientzia** pixka bat. Anton Garikano

**Izan pazientzia** zuek ere, eta bete zaitzete adorez, laster etorriko baita Jauna. Elizen arteko biblia

Gurekin gehiegizko **pazientzia izan** zutela, ez genituela ez arau erlijiosoak, ez politikoak, ez moralak errespetatzen. Joseba Sarrionandia

Gaurko jendeak ez **du pazientziarik**, ez denborarik, buru barruan gorabehera eta xehetasun historikoak sartzeko. Jon Alonso

Kontuan izan, Jaunak gurekin **duen pazientzia** gure salbamenerako dela. Elizen arteko biblia

## 9 *pazientzi*az *adlag*

Begira nekazariari: lurraren fruitu ederraren zain egoten da eta **pazientzi**az itxaroten ditu sasoi

**Pazientzi**az itxaron zuen agurea esnatu eta denda zabaldu zuen arte. Xabier Aranburu

Emakumeak, baina, **pazientzi**az hartu zituen senarraren gaitzesanak. Patxi Zubizarreta

Biziera garbiz jokatz

Hori guztia, adorez eta **pazientzi**az eramaten zuten. Askoren artean

**Pazientzi**az ekin diot harriak aztertzeari. Juan Garzia

Gaitzak **pazientzi**az jasaten ikasten dugu, zintzoek ere pairatzen dituztelako, eta ondasunak ez lar baloratzen, gaitz

Anai Bernardok guztia pozik eta **pazientzi**az jasaten zuen Kristoren maitasunagatik. Askoren artean

**Pazientzi**az borrokatuko da ispiluen aurrean bere aurpegia salbu mantentzeko. Monika Etxebarria

## 10 *pazientzi*azko *izlag*

Ohearen aurrealdean, artile kizkurreko izpi luze

Sofrimenduak pazientzia eskatzen du, eta hori ondo daki gure hizkuntzak, sofrimenduzko "pairatu" hitzaren erotik bertatik **pazientzi**azko "pairua" sortu duenean. Pako Aristi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apaltasuna eta pazientzia (4); bere pazientzia (7); izan pazientzia (10); nire pazientzia (4)

pazientzia agortu (11); pazientzia agortu du (3); pazientzia agortuta (3); pazientzia agortzen (3); pazientzia ahitu (3); pazientzia apur bat (7); pazientzia behar (19); pazientzia behar da (3); pazientzia beharko (4); pazientzia bildu (3); pazientzia bildurik (8); pazientzia eduki (5); pazientzia edukitzea (5)

pazientzia eskatu (10); pazientzia eskatu zuen (3); pazientzia eskatzen (4); pazientzia eta apaltasun (3); pazientzia eta apaltasuna (3); pazientzia eta pazientzia (3); pazientzia falta (4); pazientzia galdu (17); pazientzia galdu zuen (6); pazientzia galduta (6); pazientzia galtzen (18); pazientzia galtzen hasi (4); pazientzia gehiago (5); pazientzia gutxiago (5); pazientzia handia (21); pazientzia handia behar (5); pazientzia handia izan (5); pazientzia handiagoa (6); pazientzia handiagoz (9); pazientzia handiarekin (3); pazientzia handiko (7); pazientzia handikoa (5); pazientzia handiz (24); pazientzia hartu (13); pazientzia hartzeko (3)

pazientzia izan (28); pazientzia izan behar (8); pazientzia izan beharko (6); pazientzia izatea (8); pazientzia izateko (5); pazientzia izaten (4); pazientzia kontua (3); pazientzia pixka bat (17)

zenbaterainoko pazientzia (3)

pazientziak errea (12)

pazientziarekin hartu (3)

pazientziaren galtzen (3)

pazientzi

## pazientzi

Liburu maitalea **pazientzi**aduna da, libre

**Pazientzi**aduna, gozoa langileekiko tratuan. Anton Garikano

## pazientzi

Horiexek izan ziren Apelesen hitz **pazientzi**agabeak, hitz behin-betikoak. Jon Alonso

Zakar eta **pazientzi**agabe izateko joera dut **pazientzi**agabe eta zakar diren bezeroekin, eta bare eta moldakor, berriz, hornitzaileekin. Juan Garzia

Harrotasun abertzalea gailendu zitza

## pazientzi

Bukaeraraino, protagonista ere lurtu egiten baita azkenean, irakurle **pazientzi**atsuak ikusiko duenez. Juan Garzia

Demiurgo **pazientzi**atsu batzuek bilduak dituzte biografoarentzat ideia, fisionomia-gorabehera, gertakaririk. Juan Garzia

Jardun **pazientzi**atsuak ahiturik, begiak itxi eta arnasa hartu du sakon, bera baitz bezala soldaduen aurrean dagoen ijtoa. Anjel Lertxundi

Txori, hala ere, bere obra **pazientzi**atsuari ematen zitzaion; zirkuluak elkartu, angeluak zaitu, izakiak oro aztertzen zituen alderdi orotatik. Juan Garzia

Filosofiar

## pazifika

Hor zuen halaber, **pazifika**te operazio batetik itzultzean, zaindari zegoela, gizon bat nola zitzikatzen zen lehentze begimendu. Itxaro Borda

## pazifiko

Beraz, izan zen EDSA izeneko iraultza **pazifikoa** : Manilako itzuli osoa egiten duen EDSA (Epifanio de los Santos Avenue) etorbidea arras blokatu zuten jendeek.

Ramuntxo Etxeberri

## pazifiko *izond* baketsua.

Beraz, izan zen EDSA izeneko iraultza **pazifikoa** : Manilako itzuli osoa egiten duen EDSA (Epifanio de los Santos Avenue) etorbidea arras blokatu zuten jendeek.

Ramuntxo Etxeberri

## pazifismo *iz* bakezaletasuna.

Hileta zibilak, abortoa, homosexualitatea, feminismoa, **pazifismoa** : jende askok naturaltasun handienaz jarrerarik irekienak erakusten ditu. Joxe Azurmendi

Foerster-en ideiak eta esloganak behin baino gehiagotan erabili ditu Karlos Santamariak; baina Santamaria, Max Weber bezalaxe, ez da **pazifismo** absolutuaren aldekoa sekula izan. Joxe Azurmendi

Gerla bietan egin behar zenuten bakearen erdiesteko, baina zu bakea hitzaz baizik ez zara gogoratzen gaurkoan, zure **pazifismo** motel eta kontserbadorearen zutabetzeko.

Itxaro Borda

## pazifista *izond/iz* bakezalea.

Russell **pazifista** erradikala zen, 91 urterekin kartzelan egona. Berria - Kultura

Russell **pazifista** erradikala zen, 91 urterekin kartzelan egona. Berria - Kultura

**Pazifista** deklaratuak kartzelara joan dira independentistak izateagatik eta desobediencia zibila defendatzeagatik, nahiz eta publikoki ETaren indarkeriaren kontra egon.

Berria - Euskal Herria

Zonbat aldiz aditzen dugu biolentzia eta bakea betikoen ahoetan; **pazifistaren** alegia egiten dutenengan Ea, Elpides, bota ezazu egunkaria zikin ontzira eta zatoz gureganal!

Niziazek salatu dit gerla guztien aurka zinela, egiazko **pazifista** orduan! Herria

## pazka ik bazka.

## pazkatu ik bazkatu.

## Pazko (*orobat pazko g.er.*) 1 *iz* judutarren festa nagusia, Egiptoko gatibutasunaren amaiaren oroitzapenetan udaberrian egiten dena; kristau erlijioan, Kristoren biztuera ospatzen den festa.

**Pazkoa** noiz den, udaberriko lehen ilbeteak markatzen baitu. Pello Zabala

Eguberrik goibeltzen nauen bezala alaitzen nau **Pazkoak**. Joxan Elozegi

Heldu den astean **Pazko** baita, eskolarik ez egunotan, azkenean bakearengatik ere onartu dut beraz enekin jin dadin. Janbattitt Dirassar

Josiassek **Pazkoa** ospatu zuen Jerusalemen, Jaunaren ohoretan. Elizen arteko biblia

**Pazkoan** Burton etorri da, argizariz eta buztinez ondo zigitaturiko berrogei potoak jaso, eta ezer agindu gabe alde egin du osteria. Juan Garzia

Okindegian hasiak ziren **Pazkoko** ogi aillisak prestatzen, baina ura sartu zen zakuetan eta irina alferrik galdu zen. Koro Navarro

Astelehen goizean, Angelun, **Pazkoko** arroltze moleta handia Bost Kantoineko plazan. Herria

**Pazkoko** oporretarako CPE atzera botatzea exijitu dute sindikatuak. Berria - Ekonomia

Irlandar nazionalismoaren eredia ere eraginkorra zen: 1916ko Dublingo Matxina **Pazkoko** eredu bihurtu zen aberrianoentzat. Joseba Zulaika

### 2 *pl*

Aurtengo **Pazkoak** ere iragan dire usaiako ospean. Herria

Ziburuko jendeak ez zezan ahantz Ururuñako egiten zela, eliza bat tokian berean ukanik ere, ziburutarrek **Pazkoak** Ururuñan egin behar, Pazko egunean ahal zuten guziak proosionean joanez Ururuñaraino. Herria

Badaki 1520an Omiasainduz hasi zuela bere ohiko irakaspena eta ohiko eginkizuna bete kanonen fakultatean, ondoko urteko **Pazkoak** arte eta gero Konstituzioak iruzkindu Jondoni Joaneak arte. Piarres Xarriton

### 3 (hitz elkatuetan lehen osagai gisa)

Ondoren, berentzat eta apaizentzat prestatu zuten lebitarrek **Pazko** -afaria. Elizen arteko biblia

**Pazko** -zuziaren argizaritik ezer ea lortzen zuten, kortako ganaduari adarrean ginbeletaz zuloa egin eta han sartzeko... gaitzetatik libra zezan. Pello Zabala

**Pazko** -egunean, legamigabeko ogia eta gari-ale xigortua jan zituzten. Elizen arteko biblia

Horrela gertatu zen 1228ko **Pazko** -astelehenean, Gregorio IX.a San Pedro basilikan meza ematen ari zela. Askoren artean

**Pazko** -astea zen. Elizen arteko biblia

Maiatzera pasatu zuten, **Pazko** garaian ospatzea bidezkoago delako. Pello Zabala

Ofizioaren ardatza eta mamia **Pazko** Misterioa dela esan behar da. Askoren artean

Ospa dezagun, beraz, **Pazko** Jaia, baina ez legami zaharrarekin, bekatu eta gaitzakeriazko legamiarekin, legamigabeko **pazko** -ogiekien baizik, hau da, bihotz-garbitasunez eta egiaz. Elizen arteko biblia

Euskal Herriko etnografiako gai frango ditu hor hunkitzen: gasna, **pazko-opila**, txakolia, elurziloak, feriak, laxoa, musa, eguzki-loreia, makila, lauburua, trikitixa, atabaka, olak... Herria

Josias erregeak, bere ondasunetatik, hogeita hamar mila bildots eta antxume eman zizkien han ziren herritar guztiei, **Pazko** -opariak eskaini zitzaizten. Elizen arteko biblia

Bigarren hilaren hamalauan **Pazko** -bildotsa hil zuten. Elizen arteko biblia

- **Pazko** mezatan kantatu behar dut. Edorta Jimenez

Ezekiassek **Pazko** -ospakuntza prestatu. Elizen arteko biblia

Igande gaua zen, **Pazko** igandeko gaua, eta **Pazko** biharamunean inor ez zen izango bulegoan. Josu Zabaleta

Ramsestik abiatu ziren lehenengo hilaren hamabostean, **Pazko** biharamunean. Elizen arteko biblia

laz aurkitu zuten, **Pazko** uhartetik 1.500 kilometrora hegoaldera. Berria - Gaiak

### 4 *pazko erramu baino lehen* haurdun ezkondu baino lehen.

**Pazko Erramu baino lehen**, errango zizuten berriz, sofrikariorik gabe lortu nahi zenukeen alegantzia eta zorte onaren aurrean, esfortzu gutxiko irabaziaren aurrean. Pello Zabala

Urte hartan gertatu zen **Pazko Erramu baino lehen**... Pello Zabala

- **Erramu baino lehen Pazko** egitea ez da izan inoren debozioko, ezkondu baino lehen haurdun suertatzea etxeko haurren aurrean disimuluz esateko moldetako bat baitzen hori. Pello Zabala

## 4 maiatz pazko

Maiatz-**pazko** deitzen baitzaie Pentekoste egunei ere. Garai batean, Azintzio eta Pentekoste, denak maiatz-**pazko** sorta berean genituen. **Pello Zabala**

Hala gorde du esaera honek ere: Maiatz-**pazko** euritsu, urtea ere ogitsu. **Pello Zabala**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espainiako pazko militarrean (3); maiatz pazko (3)

pazko afaria (8); pazko afaria prestatu (3); pazko arte (4); pazko astelehena (3); pazko astelehenean (3); pazko astelehenez (5); pazko aurreko gaua (3); pazko biharamunean (8); pazko bildotsa (12); pazko bildotsa hil (3); pazko bildotsak (3)

pazko egun (3); pazko eguna (5); pazko egunarekin (3); pazko egunean (5); pazko egunez (5); pazko garaian (3)

pazko igande (3); pazko irian (6); pazko iriko (3); pazko jaia (18); pazko jaia ospatu (3); pazko jaietan (4); pazko jairik (3); pazko kari (3); pazko militarrean (3)

pazko ondoan (5); pazko ondoan ere (3)

pazko zaharrez (3)

jaunaren pazkoa (3); pazkoa ospatu (7); pazkoa ospatzeko (6); pazkoa ospatzen (3)

pazkoko arroltze (4)

pazkoz supazterrean (3)

## pazkoaldi iz pazko garaia.

Eta **pazkoaldiaren** erdialdean egokitzen den ilbetetik aurrerakoa, maiatzaldeko ilbetearen martxa eta portaera, berriz, hori larunbateko haizeak emango digu. **Pello Zabala**

**Pazkoaldiko** III. igandeko mezako sarrera-antifonaren lehen hitza. **Askoren artean**

## pazkoarte iz

**Pazkoarte**, gaitzeko erakusketa ederra bada Ziburun, egundainokotan Ziburuk lau ehun urte ospatzen dituelako sailaren kondu. **Herria**

## pazoin iz hesola, zutoina.

Saparreko **pazoiaren** kaskoan bi puntak jo zizkion aldizka eta zigarretatik eskapatzen ziren bizar hariak behatz zaintsuaz ebaki zituen. **Itxaro Borda**

Ardurenean, Patsanean nola astoak atxikitzen ziren, edo bazterren garbitzeko **pazoin** bati sokaz estekaturiko ahuntzak. **Itxaro Borda**

Bizkitartean, engainatu ninduten ezpainen pleguaren itxura zerabilkidan gogoan, bide ertzetan, **pazoin** puntetan arinki pausatzen ziren hontz eta kahakak amira nitzakeen tenore urrietan. **Itxaro Borda**

## pazota (orobat paxet eta paxeta; Euskaltzaindiaren Hiztegian pazota agertzen da) iz zutoina; hesola.

Behereko pentzeko erreka barnakor horren aldean, erdi zen Barna, gure behi baliosa, beharrik, **pazote** azkarrak ezarriak zituen aitaxi zenak; esker mila Joanes maitea! **Herria**

Aldapa gogoratu ginuela laster, oroitarazi zigun korrikalari gazteak, lehenik ordokiak animatuko gintuela bi **paxeta** lerroen artean. **Piarres Aintziart**

Bidean gogoratu zait utzi dudan herriaz kondatzen den historia, edo bederen leienda El Aceboko jendeak ez zion erregeari zerga pagatzerik, 800 **paxeta**, erromesen gidari, landatu zituztelakotz. **Piarres Aintziart**

Duela lau urte berritua dute, eta zabaldua, ezkerreko hegian platanondo gazteek, **paxeta** antzekoek, alegiazko itzal lerro bat egiten dutela. **Piarres Aintziart**

## pazter ik bazter.

## paztilla ik pastilla.

## paztiza ik pastiza.

## pe ik behe.

## peana iz irudi eta tailu bat ezartzen den oinarria.

Eskultura **peanaren** gainetik botatzea asko kostatu zen, baina hemen oraindik horra ez garela iritsi ematen du, eta errotondak **peana** bihurtu ditugu. **Berria - Kultura**

## peaton iz oinezkoa.

Hori izaten da, esan zuen Jonasek, **peatonak** denbora gutxi duelako kruzatzeko kalea... **Pablo Sastre**

Semaforo berdearekin **peatonak** segundoko metro bat egin behar du. **Pablo Sastre**

## peatonal izond oinezkoena, oinezkoentzako.

**Peatonala** zelako agian, edo ez zelako hainbeste tren pasatzen. **Unai Elorriaga**

## peaxatu ik petatxatu.

## peaxu ik petatxu.



# pedagogia 1 iz haur hezibidea, haurrak hezteko jakintza.

Etika eta **Pedagogia** Politika. [Joxe Azurmendi](#)

Hizkuntzaren **pedagogia** iraul zezakeen sistema sortzaile bat asmatzeari ekin zion. [Anjel Lertxundi](#)

Jendeak maistra aurrerakoitzat zeukan, askatasunaren **pedagogiaren** aitzindaritzat. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ezin esan, **pedagogiaren** ikuspuntutik bederen, azken orduko teknikak axola zitzaizkionik. euskararen eta euskal kulturaren inguruko irakaskuntza, ikerketa eta **pedagogiaren** eremuan. [Iban Zaldúa](#)

**Pedagogian** eta didaktikan aditua zenez, garrantzi handia eman zion igerian ikasteko metodoari. [Joxerra Garzia](#)

**Pedagogia** iraultzailea esaten genioan hari, propaganda armatua. [Xabier Montoia](#)

Euskarari buruzko jardunaldia egingo dute lehenik, historiaren irakurketari buruzkoa ondoren, eta ekonomia-ikerikuntzaren ingurukoa zein **pedagogia** politikoaren ingurukoa gero. [Berria - Euskal Herria](#)

Bortxa-salaketa-kexa dinamikan sortu duen **pedagogia** tamalgarriak. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat pedagogi) ik pedagogiko.

**Pedagogia** funtzioaz gain sarritan eta bereziki talde-bertsotarako guneak izaten baitira. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Frantziako Hezkuntza Ministerioaren laguntzak ez ditu ikastolen berezitasunak eta **pedagogia** egitasmoak behar dituzten ballabideak eskaintzen. [Berria - Euskal Herria](#)

SEASKA, Iparraldeko Ikastolen Elkarteak, **Pedagogi** Aholkulari bat bilatzen du. [Ana Urkiza](#)

Zuek baitzenuten IKAS **pedagogia** zerbitzua bultzatu 1996an. analisiaren inguruko **pedagogi** aholkua. [Herria](#)

Frantsesetik euskarara itzultzeko gaitasuna eta **pedagogia** sailaren ezagutza. [Herria](#)

Bauhaus-ekoen **pedagogia** -lanetatik eta geroztik idatzi diren beste lan batzuetatik. [Josu Zabaleta](#)

Euskarazko **pedagogia** obrak. [Herria](#)

Euskarazko ikasmaterialgintzari doakionez, Euskal Herriko **pedagogia** zentroa da IKAS. [Herria](#)

**Pedagogia** -batzordeak zuen bultzatu ikasmateriala berri hunen proiektua. [Herria](#)

Mintzaldi hau Ortzazeko Ikastolako **pedagogia** taldeak antolatua zuen. [Herria](#)

Formakuntzaren **pedagogia** helburuak. [Herria](#)

Betidanik pentsatu dut erreferendumak **pedagogia** eta demokrazia balio bat daukala. [Berria - Mundua](#)

Oso ideia polita irakaslearena, **pedagogi** berrikuntzarako libururen batetik hartua segurua asko. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Marisol Uria Eusko Jaurlaritzako **Pedagogi** Berrikuntzako Lurralde arduradunaren iritiz. [Berria - Kultura](#)

Abstentzioak Europari buruzko **pedagogia** ahalegina eskatzen du guztion aldetik. [Berria - Harian](#)

Juan Mari Beltran musikaria eta Andrea Giraldez Musikaren **Pedagogia** irakaslea ariko dira hizlari. [Berria - Harian](#)

**Pedagogia** Instituituko ikasle ezagun bat etorri da nire bila. [Felipe Juaristi](#)

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goi mailako bi titulazio ditu, Musika **Pedagogiako** eta klabezin irakaslearena. [Berria - Kultura](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pedagogi** aholkua (3)

**euskal pedagogia** (7); **euskal pedagogia zerbitzuaren** (3); **ikastolako pedagogia taldeak** (3); **pedagogia katedraduna** (3); **pedagogia taldeak** (3); **pedagogia zerbitzua** (5); **pedagogia zerbitzuak** (4)

# pedagogiko *izond* pedagogiarena, pedagogiari dagokiona. ik pedagogia 2.

Asmo **pedagogikoak** agintzen du hemen alfabetoaren mugaketa. [Iñaki Arranz](#)

Helburu **pedagogiko** bat badu. [Berria - Kultura](#)

Hedabideek funtzio **pedagogikoa** ere izan behar dute. [Iñigo Aranbarri](#)

Ez dakit zer ikasiko zuen aldizkari hartan sistema **pedagogikoez**, ezer ez segur aski. [Fernando Rey](#)

Arrazoi **pedagogikoak** direla medio, edukiaren arabera sailkatuak ematen ditugu: Otoitzak, Gutunak, Aholku espiritualak, Lege-testuak eta Azken gomendioak. [Askoren artean](#)

Eskola-sistemaren barruan bertsolaritzaren aplikazio **pedagogikoa** aintzat harturik eginiko esperientziei. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Estilo oso **pedagogikoa** du, bai azalean, bai mamian. [Berria - Euskal Herria](#)

Jolas **pedagogikoa**, inondik ere, helduen bizitzarako ere irakaspen polita dena. [Harkaitz Cano](#)

Hori betetzea exijitu nahi diogu Estatuari, etengabe, oso modu **pedagogikoan** eta formak asko zainduz. [Berria - Euskal Herria](#)

Musika eskolen eginkizun **pedagogikoa** eta erakunde horien kudeaketa aztertuko dute zenbait adituk. [Berria - Harian](#)

Aurreneko bertute **pedagogikoa** arazo hauetan taktoa izaten da. [Joxe Azurmendi](#)

Arlo filosofikoan, moralean, legalean zein **pedagogikoan** sutsu aldarrikatu zuen ezberdintasuna. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Donostian, Adarra talde **pedagogikoan** ere ibiltzen zen, eta orobat irakasleen sindikatuetan. [Juan Kruz Igerabide](#)

Gaitasun **pedagogikoko** proba praktikoak. [Joseba Urteaga](#)

Jardunaldi **Pedagogikoak** hasiko ditu bihar Ikastolen Konfederazioak. [Berria - Euskal Herria](#)

Udako Topaketa **Pedagogikoak** antolatzen ditu, laugarren aldikotz. [Herria](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**eskolen eginkizun pedagogikoa** (3); **funtzio pedagogikoa** (3)

**jardunaldi pedagogikoak** (3); **udako topaketa pedagogikoak** (3)

**baliabide pedagogikoen** (3)

**jardunaldi pedagogikoak** (3); **udako topaketa pedagogikoak** (3)

**baliabide pedagogikoen** (3); **jardunaldi pedagogikoen** (3)

**jardunaldi pedagogikoetan** (5); **udako topaketa pedagogikoetan** (3)

# pedagogikoki *adlag* pedagogiaren aldetik; era pedagogikoan.

Zer egin behar du aita edo ama batek, jakinki **pedagogikoki** ez dela batere egokia maisuak esandakoa zuzentzen ibiltzea? [Pello Salaburu](#)

Lehentasuna eman diogu erritmoak, tonalitateak, harmoniak eta testurak **pedagogikoki** egokiak izateari. [Berria - Harian](#)

Hasiera-hasieratik haren barruan leudeke ja dohain denak, eta **pedagogikoki** agerira ateratzea bakarrik falta da. [Joxe Azurmendi](#)

Mitoak **pedagogikoki** esplikatzu. [Aurelia Arkotxa](#)

Elkarri-ren Bake Konferentziaren nondik norakoak ondo mamituta ditu Espiauk eta **pedagogikoki** azaltzen du haren mamia. [Berria - Euskal Herria](#)

# pedagogoa

Horiatarik zen Jean Etxepare jaun medikua eta aparteko **pedagogoa** bera. [Piarres Xarriton](#)

Filosofiaren **pedagogo** da Warburton mundu anglosaxoian. [Askoren artean](#)

Hala da F. W. Foerster (1869-1966) **pedagogo** eta pazifista militantearen kasuan. [Joxe Azurmendi](#)

**Pedagogo** eta irakaslea da aspalditik, eta eskarmentu nahikoa du, batez ere beharrian bereziak dituzten ikasleen alorrean: ezinduak, eremu pobretuetan diren ikastetxeetakoak, ikasle etorkinak... [Berria - Euskal Herria](#)

Vogelek, heziketa sexualean aditua zen **pedagogoa**, sexuarekin zerikusia zuen guztia "zerrikeria nazkagarri" gisa aurkezten zuen. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan 1.000 **pedagogo** terapeutiko inguru dago. [Berria - Harian](#)

Familia bidezko transmisioa goratzen dute gaur egungo **pedagogo**, psikologo eta bestelako apaiz laikoek. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Herri baten lehenengo **pedagogoa** bere erakunde publikoak dira. [Joxe Azurmendi](#)

**Pedagogoen** mugimendua da XVIII. mendeko eraikin burgesaren zutabe nagusia. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

## pedal (orobat *pedala* g.er.) 1 iz tresna edo makina batean, oinaz eragiten zaion palanka edo bestelako atala.

Balaztaren **pedala** sakatu nuen barren-barreneraino. [Inazio Mujika Iraola](#)

Azeleratzeko **pedala** zanutu nuen hondoraino, 1 formulako pilotuen antzera. [Karlos Zabala](#)

Mirarik gehiago zapaldu zuen azeleragailuaren **pedala**. [Fernando Morillo](#)

*ik beherago 7.* [Askoren artean](#)

Oinaz sakatzen duzu ontziaren estalkia altxatzen duen **pedala**. [Lourdes Oñederra](#)

Haren parean eseri baino ez dut egin behar, piezak hartu, makinan sartu, **pedalari** sakatu. [Eskarne Mujika](#)

Makinan pieza bat ipini, **pedalari** sakatu. [Eskarne Mujika](#)

Hor daudela, sakatu **pedal** honi hiru edo lau aldiz eta ondoren erretiratu pieza. [Jon Maia](#)

Harmonium txiki baten aurrean eseri da, oinak **pedaletan** sartu eta eragiten hasi zaio. [Pako Aristi](#)

Erraza da jotzen ari naizen pieza, eta ez diot sordinaren **pedalari** eman behar sukaldeko jarduna entzuteko. [Anjel Lertxundi](#)

Gero bonboaren **pedala** apurtu zuen eta biraoka hasi zen. [Berria - Kultura](#)

Bakoitzak berean lan bikaina egin zuen: gitarra jotzaileak **pedaletan**, akordeetan, soloetan; teklatu jotzaileak soloetan edo giroak sortzerakoan; eta erritmo sekzioa, abiada bizian eta kolpeka, bikain. [Berria - Kultura](#)

Tinsley Ellis gitarra jotzaile fina dugu; Gibson eder bat baliatu zuen kontzertu osoa egiteko (ez Fenderrik, ez akustikorik, ez **pedalik**). [Berria - Kultura](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Opel/Fiaten eskari handi bat lortu du enpresak, Punto eta Corsa autoetako plataformarako **pedal** modulo osoa egiteko. [Berria - Ekonomia](#)

Taldearen indarra kantari eta gitarra jotzailearengan dago **pedal** bilduma luzea ekarri zuen honek) eta soinuaren aldetik pobre samar geratzen da. [Berria - Kultura](#)

## 3 (bizikletarenak)

Nire gorputz guztiaren pisua bizikletako **pedaletan** jarri nuen. [Fernando Rey](#)

Mutikoen bizikleten txirrina jotzen zuten eta **pedalei** eragiten zieten. [Koro Navarro](#)

Bennett, gerriraino biluzik, eginahalean ari zen bizikleta finko baten **pedalei** eragiten. [Xabier Olarra](#)

Fraide gazte bat frantziskotar jantzian kordio eta guzti, bizikleta baten **pedalei** bizi-bizi eraginez. [Anjel Lertxundi](#)

Bizikletaz eramaten ninduen herrira eta zenbait kilometroz eragin behar zitzaien **pedalei** aldirietako errepide zabalean zehar. [Pello Lizarralde](#)

**Pedalen** gainean altxatu eta indar biziz hasi nintzaian eragiten. [Koldo Biguri](#)

Petacchik helmugako marra zeharkatu arte astindu zituen **pedalak**, behartu giharrak. [Berria - Kirola](#)

Errepide txikian gora bizikletaren **pedalen** gainean zutik zetorren txirringulari bat saihestu zuen limusinak. [Jon Muñoz](#)

-Aitasantuak ematen dizkit! -oihukatu zuen, **pedaletan** zutitu eta tximistaren antzera abiatu baino lehen. [Koldo Biguri](#)

-Zangoak motozikletaren **pedaletatik** aldendu arren, ez zegoen aurreko gorpilaren zipritzin iturritik libratzerik. [Unai Iturriaga](#)

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Plater handia sartu, pinoiak behera jaitsi, eta amorru guztia **pedal** kolpeetan jarri nuen. [Lander Garro](#)

Atzo maglia arrosa zeraman txirringulariarena izan zen denetan **pedal** kolpe freskoena, arinena, biziena, erosoena. [Berria - Kirola](#)

Indurainen **pedal** kolpe arinak, ibilera dotoreak jaso zituen han bildutako txalo beroenak. [Berria - Kirola](#)

Lapurdin barna beroturik, Baxe Nabarren gaindi iragan dira, Baigorritik goiti **pedala** ukaldi zorrotzagoak emanez. [Herria](#)

Alejandro Valverde txirringulari espainiarra **pedal** maiztasuna hobetzeko lanean ari da azaroaz geroztik Italiako biomekanikari batekin. [Berria - Kirola](#)

## 5 hed txirringularitza.

Coppi eta Bartali, biak ala biak **pedalaren** erregeak ziren, eta langileen mira ere banatuta zegoen. [Pello Lizarralde](#)

Hori entzutean herrikoek zorionak ematen zizkiguten oihu, barre eta txalo eginez, konturatzen baitziren askatasunaren mezua hedatzen zebiltzan **pedalaren** txapeldunak ginela. [Pello Lizarralde](#)

## 6 pedalierra.

Akats gabeko digitazioagatik eta **pedala** jotzeko moduagatik, eliztar organista peto-petoa dela adierazi zuen. [Berria - Kultura](#)

## 7 txalupa pedalduna.

Neskak bizkarrez egiten zuen igeri, itsaso bareak doi mugitzen zuen **pedaletik** beste alderantz. [Jon Alonso](#)

Neska urrezkoak **pedaletik** egin zuen dzanga uretara, eta gizon oliba-koloreko burusoilak besoak astindu zituen hurbiltzeko, ur-azalera itzuliko zeneko ueña ikusteko. [Jon Alonso](#)

Orduan ikusi zuen ur gainean flotatzen zuen gorputza, **pedalaren** aurkako talkan. [Jon Alonso](#)

## 8 gas pedal ik gas 10.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere pedal kolpe** (3); **pedal kolpe** (28); **pedal kolpe arinarekin** (3); **pedal kolpe behartuarekin** (3); **pedal kolpea** (4)

**pedalak astintzeko** (3)

**pedalei astindu** (3); **pedalei eraginez** (9); **pedalei eragitea** (4); **pedalei eragiten** (17)

pedalatu ik **pedaleatu**.

**pedaldun** *izond* pedalez hornitua.

Auto **pedaldun** bat ikusiko du Pablitok erakusleio batean. **Berria - Kultura**

## pedaleatu

pedalea, pedaleatzen (*orobat **pedalatu***) du *ad* bizikletan, pedalei eragin. ik **pedalkatu**.

Abiada guztian **pedaleatu** zuten Gruaro aldera, kantuan. **Josu Zabaleta**

Eta geldiro **pedaleatzen** zuen, isilik. **Josu Zabaleta**

"Mailhouns" elkarreak baditu txirindola tandemak, birazka ibiltzeko gisan, aitzinekoak gidatuz gibekekoak kirola eta aire ona preziatzen baititu **pedalatuz**. **Herria**

Gero, bakoitzak bere etxe aldera **pedaleatu** zuen, bihotza garaipena harengatik arin zuela. **Josu Zabaleta**

Oinezkoetaz bestalde, badira bizikletetan ari direnak eta noiztenka ere ikus daitezke hiru errotetako tresna berezi batzu, zeinetan erdi etzanik **pedalatzen** ari baitira gogotik.

**Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## pedalier

*iz* organo batean, oinekin jotzen den teklatu modukoa.

Alemaniar kontrapuntoarekin kontuan hartzekoak horiek Bachen lanak jo ahal izateko, egile horrek sartu baitzuen alemaniar **pedalier**-a frantses organoetan. **Berria -**

**Kultura**

## pedalka

*iz* pedal kolpea, pedalkada.

Neguan, sasoi gogor hori zipla zetorrenean, eskiak bizikleta herdoilduari lotu, eta han abiatzen zen, goizean goiz, **pedalka** bizian elurretaraino, sosik gabe, orburu bat poltsiko batean eta bestea urrazaz beterik **Juan Garzia**

## pedalkada 1

*iz* pedal kolpea.

Hain gogorra, indartsua da haren **pedalkada**, bielak eta heldulekua hautsiko dituela dirudiela. **Berria - Kirola**

Beat Zberg suitzarrak aurrea hartu zion azken **pedalkadan**. **Berria - Kirola**

Ez du Richek, Peschelek edo Vinokourovrek duten **pedalkada** trinkoa, indartsua, sendoa. **Berria - Kirola**

Pantaniren **pedalkada** eroarekin itsututa. **Berria - Kirola**

Bizi-poza aurkitu du berriro **pedalkadak** ematen, eta gero eta gusturago dagoela dio. **Berria - Kirola**

84-85 **pedalkada** ematen zituen iaz minutuko Valverde, eta 90 inguruan dabil orain. **Berria - Kirola**

## 2 (hitz elkartuetan)

Prestakuntza berezia egiten hasi naiz aurten: serieak arrabolan, autoaren atzetik jazarpena eta autoa aurreratzeke serieak **pedalkada** maiztasuna landu... **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pedalkada** erosoarekin (3)

## pedalkatu

pedalka(tu), pedalkatzen du *ad* pedalei eragin. ik **pedaleatu**.

Ur hori izerdiarekin botatzen ez bada, ziklistak astun sentazioa izaten du eta ezin du arin eta eroso **pedalkatu**. **Berria - Kirola**

Afera hura ongi burutuz gero, agian aurki Velosolex bat erosi ahal izango nuela eta hala **pedalkatzeari** utzi. **Juan Garzia**

## pedalkazo

*iz* *adkor* pedal kolpea. ik **pedalkada**.

Morat aldera berriz, aski zen bizikletara igo, eta ez zen **pedalkazo** baten beharrik ere herriko plazaraino. **Josu Zabaleta**

## pedalo

*iz* pedalekin higitzen den txalupa modukoa.

Paolaren bekaitz zen, **pedaloan** itsaso zabalera sartu eta sekula itzultzen ez zelako. **Fernando Rey**

## pedante 1

*izond/iz* jakinduria alferra eta lekuz kanpokoak erakusteko joera duena.

Intelektual **pedantearen** papera betetzea komeni zaizu. **Rafa Egiguren**

Erraz hitz egiten zuen baina **pedante** izan gabe. **Karlos Zabala**

-Ba, maiztasuna, eta badakit **pedantea** irudituko natzaizula, instintu fetixistaren eta instintu sexualaren bateratzea da. **Josu Zabaleta**

Zeharo **pedantea**, zeharo sasiletratua iruditzen zait. **Koldo Zuazo**

Bazen bere baitako erdibideak hausten zekien Mitxelena bat ere: dena jakin usteko ezjakin arrunt **pedanteen** kontra irakiteraino asaldatzen zena, izan zitezen agure zahar kamustuak edo berdin gazte txoro argituegiak. **Iñaki Seguro**

## 2 (pertsanak ez direnez)

Espaloian, emakume larraz jantziek beren zakurtxo **pedanteak** paseatzen zituzten. **Unai Iturriaga**

Izkribatzaile trebatu gabe baten lana zen nabarmen: erretorikoa, erdizka zintzoa, digresioz eta laudorio neurrigabez bete, hunkigarria, **pedantea** eta trabatsua. **Juan Garzia**

Handik egun gutxira jaso nuen erantzuna: luzea eta **pedantea** zen, ordurako guk arrakastarik gabe saiatuak genituen prozedura begibistako batzuk aholkatzen zituen. **Juan Garzia**

Iñakik ondo asmatu du diskurtso **pedantea** gaintzen eta naturaltasunez ekin dio objektu artistikoa sortzeari. **Berria - Kultura**

Irakasle gazteek hain gogoko dituzten hitz **pedanteak**, hizkera jasoa eta azalpen puztuak oro bazterturik, bazekiela zientziaren muina hitz gutxitan azaltzen. **Jose Morales**

Txorakeria bat asmatu nuen, Quevedo, Gómez de la Serna, Valle-Inclán eta Francisco Umbral eltze berean nahastuz eta sikulu-saltsa bat eginez, **pedantea** eta jasangaitza.

**Xabier Mendiguren Elizegi**

Itxurakeria xelege hori,aldi berean **pedantea** eta xarmagarria. **Monika Etxebarria**

Subkontzientearen ikuspegitik arrazoia **pedante** bihozgabe bat da, naturaren gain mirarizko agintea lortu duena arimari traizio egitearen ordainetan. **Iñaki Mendiguren**

-Baina alferrikakoa da, guztiz -esan dut aski modu **pedantean**-. **Monika Etxebarria**

## 3 (adizlagun gisa)

Charly **pedante** samar jartzen da batzuetan, baina maite dut, hala eta guztiz ere. **Iban Zaldúa**

**pedanteria** (*14 agerraldi, 12 liburu eta artikulu 1ean*) iz izaera pedantea; hitz edo egite pedantea. ik **pedanteria**.

Ez izan errieta zentzugabeen beldurrik; **pedanteria** eta sineskeria ezabatu egingo dira betiko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Alde komiko horrek, politika ika-miketan sarriegi nagusitzen den **pedanteria** desagiten du. Markos Zapiain

Ezin zen ametitu -beraien mania transzendentalistengatik, edo beraien **pedanteriagatik** - sortze prozesuari buruz esaten zuten hainbat faltzakeria. Bernardo Atxaga

Barka izenburuaren **pedanteria**. Markos Zapiain

Berrogeita hamalau urteko gizona izan, eta oraindik horrelako **pedanteriak** eta petralkeriak dituenak, izaera du halakoxea, eta ohitura horiek inork ez dizkio kenduko.

Josu Zabaleta

Apaizen eta apaizgaien ohiko **pedanteria** horrekin egiten zuen gaztelaniaz. Koro Navarro

Txorakeria bat asmatu nuen, Quevedo, Gómez de la Serna, Valle-Inclán eta Francisco Umbral eltze berean nahastuz eta sikulu-saltsa bat eginez, pedantea eta jasangaitza, baina, hoberik ezean edo epaimahaikoak **pedanteria** estilo quevedotartzat hartzeko bezain ergelak zirelako, lehen saria irabazi zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

**pedanteria** (*5 agerraldi, 4 liburutan*) iz pedantearen jokamoldea; pedantearen nolakotasuna; hitz edo egite pedantea. ik **pedanteria**.

Beti txukun mintzatu ohi zen, hiztegi baten pare, **pedanterian** jausi gabe baina esan behar zuena xehetasunez eta txukuntasunez adieraziz. Juan Kruz Igerabide

Aberastasuna eta dotoretasuna beti da gozagarri, baldin eta aipatu berri diren **pedanteriara** eta barrokismora lerratzen ez bagara. Koldo Zuazo

Ez **pedanteriarik** gabe erantzun nion: [...]. Juan Garzia

Euskara batua biziagoa, beroagoa, indartsuagoa eta naturalagoa gertatzea, gaur egun daukan "plastiko" itxura, "izotz" ukitu eta **pedanteria** usain horiek kenduta. Koldo Zuazo

**pedantesko** *izond adkor* pedantea.

Horrenbestez ulertu nuen telefonozko gonbidapen berezi harena; mordoilo **pedantesko** hari hitzaurrea egin niezaiola eskatu behar zidan tipoak. Juan Garzia

pedazatu ik **petatxatu**.

pedazu ik **petatxu**.

**pederasta 1** *izond/iz* gizonen mintzatuz, sexu harremanak haur edo nerabeekin dituenak.

Gaztetan izan nituen irakasle **pederasten** mende nago! Anjel Lertxundi

Elizgizon **pederasta** asko homosexualak ziren. Berria - Gaiak

Hasi da Dutroux ustezko **pederastaren** epaiketa. Berria - Gaiak

Polimorfoak dira, hau da, arrek eta emeek txandaka jarrera aktiboak eta pasiboak har dezakete; **pederastak** dira, ar helduek ar gazte heldugabeak estaltzen dituzte; eme helduek eme samur heldugabeak limurtzen dituzte. Luis Elberdin

Bortxatzaileak, tiranoak, parrizidak, pedofiloak, **pederastak**, genozidak, marikoiak, ateoak, antimilitaristak, nazionalistak inkluso, zer dira? Karlos Linazasoro

Eskolara piper eginiko umeak **pederasta** sadiko bat aurkitzen du, andregaitxoak dituzten mutilak gogor astindu beharraz mintzo zaiona. Markos Zapiain

**2 hed**

Horietaoko % 3k (guztira 3.552.000) joera **pederastak** dituztela onartu dute. Berria - Gaiak

**pederastia 1** iz gizonen eta gaztetxoaren arteko sexu harremana; gizonen homosexualitatea.

Paidofilia balio bat den bezala, **pederastia** arazo bihurtzen da. Berria - Harian

**Pederastia** herri gerlarien bizioa izan da beti. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Pederastiagatik** dira lau salaketa, adingabe bat mozkortzeagatik beste lau eta **pederastia** saiatzeagatik eta adingabe bat bahitzen saiatzeagatik beste bana. Berria - Kultura

Erresuma Batuan, *The end of Alice* liburua debekatu egin nahi izan zuten, «**pederastia** sustatzen» zuela eta. Berria - Kultura

Aske utzitakoen artean daude hilketat akusatutakoak lau, bederatzi bortxaketaz akusatutakoak eta bost **pederastiaz** akusatutakoak. Berria - Mundua

Burutik pasatu zitzaion ez ote zuen Anshelek **pederastian** jardun nahi. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Erresuma Batuko Poliziak **pederastia** sare baten menpe zeuden 100 haur askatu ditu. Berria - Gaiak

2002az geroztik 1.230 lagun atxilotu dituzte **pederastia** kasuekin zerikusia izan dutelakoan. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pederastia sare** (5); **pederastia sare baten** (3)

**pediatra 1** iz haur-sendagilea.

Karrera bukatzerakoan, zalantzan egon nintzen etxeko medikua izan edo **pediatra**. Joan Mari Irigoien

Sendagileen artean, %51,8 mediku orokorrak, %37 espezialistak eta %10,6 **pediatrak** dira. Berria - Euskal Herria

Erabaki horrek medikuen, nutrizio alorreko adituen eta **pediatren** haserre sutsua eragin du. Berria - Euskal Herria

Ezagutzen ditudan **pediatrek** ez dute haurrik. Arantxa Iturbe

Jesukristo bere apostoluekin bezala ibiltzen ginen **pediatra** harekin erietxean gora eta behera. Arantxa Iturbe

Guztiak bihurtzen gara haur gaitzak jotzen gaituenean, eta hala bihurtzen gara mediku guztiak **pediatra**, maila batean bai bederen. Joan Mari Irigoien

**Pediatraren** eraman nuen semea. Karlos Linazasoro

**pediatria 1** iz medikuntzaren adarra, haurren eritasunak aztertzen dituenak; haur medikuntza.

Inaki Irazabalbeitiak «mirakulutzat» hartu zuen, esaterako, **pediatrian** hizkuntz eskubideak betetzen dituen zerbitzurik topatzea. Berria - Euskal Herria



pegamento ik **pegamentu**.

**pegamentu** (*orobat **pegamento***) iz lekeda, kola.

Miguelek esaten zuen trek soinua liburuen **pegamentuaren** soinua dela, erabili gabe daudenean. Unai Elorriaga

*Huelepega*, **pegamentoa** usainduz kokokatzen diren haur edo gazteei deitzen zaie, eta iaz egindako film bat da. Pako Aristi

Hilda dauden intsektuak edonon jarri daitezke; jarri daitezke koadro batean zein tarta nupzial baten gainean, **pegamentu** ona edukiz gero. Unai Elorriaga

**pegante** *adlag* -en ondo-ondoan.

Laino umela mendietan **pegante** sartzen denean. Pello Zabala

Lur axalean, hortxe, lur-zoruari **pegante** bai, hortxe zero edo horrez azpikoa egin du edo dago une jakin batean. Pello Zabala

**pegar 1** iz lurrezko ontzi handia, sabela zabala eta ahoa eta hondoa estuak dituena. **iksuil**.

Haren sabela, berriz, **pegar** bat bihurtzen zen edo anfora bat, Omar Kayyanen poemetako ardorik gozoena gordetzen zuena. Joan Mari Irigoien

Etzolako sarrera ilunaren bi aldamenetan sortaldeko goardiak balira bezala zeuden bi **pegar** handiei apalki begiratu eta murmur egin nuen. Irene Aldasoro

Kartzelazainaren eskuetan utzi zuten Martin gauzainek, eta hark banku bat eta **pegar** txiki bat zeuden gela ilun batera eraman zuen. Koro Navarro

**Pegar** arraildua. Herria

Kristalezko **pegar** bat, eta apio-zurtoin batzuk pegarrean, zutika sarturik. Irene Aldasoro

Atelier mekanikokoei zinkezko **pegar** berezia, marmita mokodun antzekoa eginarazi zien, karga gutikoa. Koldo Izagirre

'Emadazu, otoi, ur tanta bat zeure **pegarretik**. Jose Antonio Mujika

Ur-putzura jaitsi, **pegarra** bete eta igo egin zen.

**Pegarreko** urari gainezka egiten utzi zion neskak. Xabier Aranburu

Arin-arin, **pegarra** askan hustu eta lasterka joan zen putzura ur gehiago hartzera, gamelu guztiei eman ahal izateko. Jose Antonio Mujika

Buruan zeraman **pegarreko** esnea saldu eta txitak erosi gogo zituen. Pello Salaburu

Hidrantezik **pegar** mukuru betera erortzen diren tantak entzuten dira. Juan Garzia

Amona lasterka irten zen **pegarrak** estaltzera. Juan Kruz Igerabide

Maitasuna 100 zuloko **pegarra** da. Jon Muñoz

Amari solasa zerion **pegarrari** ura bezala. Janbattitt Dirassar

**2** (neurri gisa)

Zenbat **pegar** ardo jaso duzu, zure mahastiak gehien eman duen urtean? Askoren artean

Ezinezkoa zela handik hogei **pegar** ardo ateratzea. Askoren artean

Bi urtez hola segitu zuen urketariak beti **pegar** bat et'erdi ur eremaiten zuela tornu bakotx. Herria

· Besapean ogi bat zekarren eta buru gainean **pegarra** bete arno. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan)

Hitz batean, lagunarteko hizkeran **pegar** -muturra esaten zaien aurpegi horietakoa zuen. Jose Morales

· Bai -esan zuen Ivan Antonovitxek, bere **pegar** -aurpegia itzulirik. Jose Morales

· Gizona ur **pegarra** hartzera irten zen. Koldo Biguri

Sukaldaria iritsi aurretik, banku bat baino zabalagoa ez zen leku batean, atzean, esne-**pegarren** ezkerrean. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pegar ardo** (4)

**pegarra bete** (6); **pegarra sorbaldan** (4)

**zeure pegarretik** (3)

**pegargile** iz pegarrak egiten dituen eskulangilea.

Portzelanazko **pegar** eta ontzigile txinatar zaharrak. Ana Urkiza

**pegartegi 1** iz sukaldean, pegarrak dauden tokia.

Ez zian sekula bakerik dastatzen, ez eta bozkariorik: oroitzen hiza ezezagun batzuk loaldian zegoela **pegartegian** zetzikan sosa nola ebatsi zioten? Itxaro Borda

Kristal finezko baso bat atera zuen sukaldeko horma nagusian zegoen **pegartegi** -zulutik. Anjel Lertxundi

**2** sukaldeko harraska.

Sukaldean, **pegartegian** ari zela baxerak egiten. Piarres Aintziart

**pegartxo** iz pegar txikia.

Armairu bat ere bazegoen, hormaren kontra saiheska jarririk, zilarrezko ontzi zaharrez, **pegartxoz** eta Txinako portzelanez betea. Jose Morales

**pegata** iz *adkor* pegatina.

*Jainkoak gay egin ninduen* dio hurrena banatu diguten **pegatak**. Harkaitz Cano

Telebista ere han zegoen, porroak erre besterik egiten ez zuten bi morroi zeuden han behintzat txoriaren **pegata** zeukan kamera batekin. Koldo Izagirre

Hemeretzi urterekin hasi zen album modukoa osatzen, egunkarietako adabakiez, **pegataz**, panfletoz, liburuetako pasarteez. Sonia Gonzalez



# pegatina (orobat pegatin) 1 iz eranskailua.

Kartel, iragarki edo **pegatinaren** mezua lainoen artean agertzen bada edo garbia ez bada, nekez lortuko du bere jomuga. **Txema Ramirez de la Piscina**

Kolore ezberdinetan eskuz margotutako hormak; kartelak, posterrak eta **pegatinak** nonahi. **Sonia Gonzalez**

Herrietako besta komiteak banaka juntatuz eta materialak eskainiz (iragarki, **pegatin** eta bertze), euskararen erabilpen funtsezkoa sustatzeko. **Herria**

Pelutxeak, egutegiak, mahai-jokoak, elastikoak, pinak, **pegatinak**, agendak, motxilak salgai. **Berria - Kultura**

Txikiren ama ageri zen negarrez, semearen eta Otaegiren **pegatina** paparrean. **Koldo Izagirre**

Kontua da, hainbeste txukuntasunen artean, **pegatina** bat zegoela hormatzarretan itsatsita nonahi. **Hasier Etxeberria**

*Gerrari ez dioten* **pegatinak** eman nizkien bi militar estatubatuarrri. **Berria - Mundua**

**Pegatina** adierazgarriak baziren ere: "Jesus nere kopilotoa da!" ala "Jaungoikoa maite baldin baduzu, ez ezazula zigarrorik erre!". **Ramuntxo Etxeberri**

Manifestariak **pegatinetan** agertu zuten garai batean mundu osoko mugimendu antinuklearrak izandako sinbolo ezaguna. **Berria - Euskal Herria**

Koaderno zabaltzerakoan, non ikusten dudun kontrazalean, suzkoa balitz baino erregarriago, auskalo noiz bertan itsatsi nuen **pegatina**! **Anjel Lertxundi**

Maiatzaren 13tik 20era iraganen dira kehen aldikotz Iparralde hontan **Pegatinaren** Egunak, Baionan. **Herria**

## 2 hed

Janaria iraungitze-data jakinaraziko duen **pegatina**, adibidez. **Berria - Gaiak**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pegatina sorta** (3)

**pegatinaren egunak** (3)

# pegatu, pega(tu), pegatzen da/du ad itsatsi.

Alderdiko arduradunek iragarri zuten «beharginen gorazarreko eta SEPlren planaren aurkako» kartelak **pegatuko** dituztela Euskal Herriko hainbat lekutan. **Berria - Ekonomia**

Afixak **pegatzen** ari zela, inkontrolatu talde batek Ander harrapatu eta bortizki jipoitu zuen. **Iban Zaldua**

Ez egin berba papera **pegatzen** duan bitartean, ez zaik tutik ere ulertzen, txo! **Sonia Gonzalez**

Aitak ez zion jaramon handirik egin muturra kristalaren kontra **pegatu** eta mekanoa seinalatu zuenean. **Jokin Muñoz**

Kartoizko euskarriek bat egiten dute gainean pintatutako edo **pegatutako** irudi eta formekin, forma edo irudi berri bihurtu arte. **Berria - Kultura**

Paperaren gainean munoak eta ibaiak zirriborratzen zituen, eta gero, elkarrekin kolaz **pegatutako** pospoloekin erregimentuak eta brigadak osatzen zituen, eta Ulm-eko edo Borodino-ko bataillak berreraikitzen zituen. **Iban Zaldua**

Bakterioek PHA biopolimeroa ekoizten dute, eta hori epidermisaren ordezkokoak, bihotzeko balbulak eta arteriak **pegatzeko** moduko kolak egiteko erabil daiteke, besteak beste. **Berria - Gaiak**

# pegeseria iz huskeria.

Hastapenean ixilik egon da gobernu, gehiago dena mintzatu delarik zion ez zela irrikurik, hots, **pegeseria** bat zela, bertzerik ez. **Herria**

Gastatu du nasaiki sartu den dirua edozein **pegeserietan**, hain aipatua den egun hauetan sasi-dirutik % 5-a bakarrik doa Elyseora eta beraz % 95-a doa gobernura.

**Herria**

# peilokera ik pellokeria.

# peioratibo iz gutxiesgarria, gutxiespenezkoa.

Izan ere "erlijiozkotasunaren" salaketa merezi izateko punturaino zen, hitz **peioratibo** horrek inplikatu bezala, benetan gehiegizko kontzentrazioarik egon badaiteke gizakiaren bilakuntzarik garrantzitsuenean. **Iñaki Mendiguren**

Egia da kritikari horiek jakitun aristoteliko ospetsua zen Duns Scotoren izenetik "dunce" izen **peioratiboa** atera zutela, ez pertsona ezjakina, baizik eta jakintza-sistema zaharkituaren zalea adierazteko. **Iñaki Mendiguren**

Ez, ez nau betetzen mozkeria horrek, eta hitzak aurreneko erdia motz batetik hartua balu ere, ez juxtu nesken hankartekotik, beste azeptzio **peioratibo** ugarietakoren batetik baizik. **Patziku Perurena**

*Sofismazalekeria* hitzaren zentzu **peioratiboa** Platonek sofisten kontra zuen jarreratik heldu da. **Xabier Olarra**

# peitu 1 izond gabetua, gabea.

"Elur" katu txuri bat zen, beste kolore edo orbanaz **peitua**, altzairu koloreko begi ikusgarriekin. **Pako Aristi**

Fisikari, eta, xuxenago, astrofisikari prestu eta gogotsua zen bera, baina ilusioz **peitua**. **Juan Garzia**

Koruan, gauetzko kantuetan ari zirela, eskuaz ukitzen zituen hango lauza bera bezalakoxe **peitu** eta hotzak. **Juan Garzia**

## 2 (hitz elkartuen bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Ni ere gizon ezpatarik gabea bainintzen, bizar-**peitua** izaiteaz gain. **Joan Mari Irigoien**

Belarri esku-begirik gabeak, usaimen oro-**peitua**. **Juan Garzia**

## 3 (adizlagun gisa)

Hala nindian ni, lotan, anai baten eskuak biziak, koroaz, erreginaz, bet-betan **peitu**, neure bekatuaren lore-loretan ebakia, elizakorik, prestaketarik, oliodurarik gabe. **Juan Garzia**

## 4 peiturik adlag gabeturik.

Udaberrian bideari ekin nion oster, haiak iristea deliberaturik: gogaiturik nindukan lur itsaskor eta bigun hark, ezertarako ez baitzen on, lurregositako okarinarik egiteko salbu, eta gaitasunez eta sekretuz **peiturik** baitzegoen. **Juan Garzia**

Osokiaren osotasunerako funtsezkoak ez diren zenbait gauza kendu edo laburbildu behar izan ditudala, irakurle batzuek hauek **peituko** dituzten arren, bestela ere erabilgarriak diren heinean, **Ibon Uribarri**

## 5 peitu izan falta izan.

**Peitu** zuten herria, **peitu** zuten aberria, **peitu** zuten atzerria. **Felipe Juaristi**

# peka iz orezta, orina.

Ikusi nuen (eta ez hik kusin huen) pertsonaia bat (ez ia-pertsona bat) buruan kapelu bat zuena (eta ez **peka** alu bat buruan). **Xabier Olarra**

## pekada *iz* oilagorra.

Ongi baitakite usoa edo **pekada** hegaztiek gripea ekar lezaketela, eta hori ez dute nahi entzun, hegazti hauek ihiztzen segitu nahi baitute. Heria - Harian

## pekadun *izond* oreztaduna.

Juanluisen antza dauka begietan, Bertarena gorpuzkeran eta sudurtxo **pekadunean**. Eider Rodriguez

## pekalde *iz* beheko aldea.

Garona ibaiaren **pekaldean**. Heria

Zenbait egun lehenago Luzaiden gaindi pasatua, brontzezko itxura ezarria izan zen "Hôtel des Pyrénées"-ko **pekaldean**, lehenago frontoi bati kontra, Arradoiko harri gorritz inguratutik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baigurako **pekaldean** aurkitu dugu Marko Etxezaharreta hazpandarra, lagun batzurekin Baigurako lasterkaldiaren prestatzen ari zela-eta. Heria

Ameztioia eta **pekaldeko** lur hori beti ageri dira, leku berean, bide bazterrean, orain Eiheralde deitzen den hauzoan. Heria

## pekari *iz*

Min zuriaren mende gertatu nintzen ia-ia Honorék bere **pekari** ananaren kutsuan, inolaz ere probatu behar nuela eta, dastarazi eta gero, baina neure senera itzultzea lortu nuen. Joxan Elozegi

## pekatari ik **bekatari**.

## pekatsu (*orobat pekotsu g.er.*) *izond* oreztatsua.

Gazte ingeles bat, ilegorri eta **pekatsua**. Migel Angel Mintegi

Nik neure aldetik harrিতa entzuten nion, ulertezina iruditzen zitzaidan haren gizonaren jarrera, zeharo absurdua, aipatu ingeles **pekatsuari** emakume arruntzat irizten bainion. Migel Angel Mintegi

Haren bizkar **pekotsutik** urrezko tximak barreiatutik, haragi eta hezur ezin politago haiek, aldakak eta bikini gorriaren barneko bekatu-eremua, muino apal sendoak.

Joxean Sagatzizabal

## pekatsudun *izlag* pekatsuko.

Billy belarri **pekatsudunaren** gurasoak Roosevelt-en aldekoak dituk eta ez Parker-en aldekoak ama bezala. Lopez de Arana

## pekatu<sup>1</sup>, peka, pekatzen 1 *du ad ipar* ordaindu, pagatu.

Ez, berak zuzenki, zerbait gaizki egin zuelakoz... baizik eta, arbitroak erabakirik taldearen izenean norbaitek **pekatu** behar zuela. Daniel Landart

Gure eskualdean gehienik euskal-prentsarentzat, HERRIA, Enbata, Ekaitza, Laborari eta holako batzuek ainitz **pekatu** behar neurri berri horien latza ez bada nolazpait ezitzen ahal... Heria

Frantzia behere hortan bereziki, zernahi jende xaharrek ederki **pekatu** baitzuten, bero handiegia ezin jasanez... Heria

Aski xehetasun bada haatik erraiteko gerla horiekin Ziburuk azkarki **pekatu** zuela. Heria

Frantzia behere hortan bereziki, zernahi jende xaharrek ederki **pekatu** baitzuten, bero handiegia ezin jasanez... Heria

Gure haurrek, eta gure haurren haurrek eta oraino geroago jinen direnek, ez dezaten **peka** gure hutsen gatik, ingurumenaz ez girelakotz aski axolatu... Heria

Gazteek dute gehien bat **pekatzen** zuzengabekeria hori. Heria

Eta hango jende gaixoak horiek oro **pekatu** behar, aintzindari atrebitu eta amikatu batzuen gatik! Heria

Neskatoak buhameak biraoka madarikatzen zituen batez, Pierrak panpina labean urtuarazi zuela aitortu zuen, mendekuz, Mattina zelakoan haurretan gastatuena, paga eta **peka** zezan behingoz. Itxaro Borda

Banan-banan **pekatu** beharko nituen eginiko hobenak. Joxan Elozegi

Ez nahiz auzi txarren hobenak **pekatu**. Heria

## 2 jasan.

Munduaren erditsuak gosea **pekatzen** du edo erdi-gosea. Heria

## pekatu<sup>2</sup> ik **bekatu**.

## pekatzale *izond* pagatzailea.

Üsatü aüzia üken dü San Pantzarrek, eta pefosta, üsatü kondena ere gaizoak, hüts güzien aker **pekatzale**. Heria

## pekautu, pekau, pekautzen du *ad erre*, pipatu.

Inoiz ez dut halako plazer handiz erre, ezta Martin Hursonen aitzinean neure bizarra **pekautu** nuen hartan ere. Koldo Izagirre

## pekindar *izlag/iz* txakurrez mintzatuz, txinatar jatorria duen arraza batekoa, txikia, mutur-zapala eta belarri-eroria.

Badira hainbat mila urte posible dela hautespen-egitamu bat martxan jartzea gizakien artean, eta **pekindar** txakurrak eta artzanor alemanak edo daniarrak eta bassetak bezain leinu beren artean desberdinak sortzea. Yvanen zerri pribatua nintzen ni, beste batzuek **pekindar** bat edo boa bat duten bezala. Juan Garzia

Yorkshire terrier bat ikusi zuen hurrena, eta **pekindar** erabat kizkurtu bat gero, rooker golden baten ondoan luze etzana. Jon Muñoz

## peko 1 izlag ipar azpikoa.

Espainiako erregearen **peko** lürretan. **Herria**

Gipuzkoa Gaztelako erregearen **peko** zagoan 1200 urtetik. **Herria**

Bigerren gerlaren ondotik, kraskadūra handiago bat agitü zen Maulez **peko** ibarrean eta Sohütako karrikan. **Herria**

Erran behar da 22 gazte badituztela han hilak, 18 urtez **pekoak** 1976 urteaz geroz. **Herria**

Kolonia-n jokatu dira 22 urtez **pekoen** trinketeko norgehiagoka horiek. **Herria**

Mus partida horretan nork kondatuko ditu mahain **peko** ostikoak? **Herria**

Jakitekoa da, aurtengo sasoa gaizki bukatu dela gure kirolarientzat eta helduden urtean **peko** mailarat jausten direla. **Herria**

Denek dakigu kafearen prezioa **peko** errekarat eroria dela. **Herria**

Kontinentetik funtzionarioak trumilka bidaltzen zituztela; ekonomia alor bakanak **peko** errekarat zihoazela; eta, Korsikako hizkuntza zein kultura ukatuak zirela. **Berria - Harian**

- Orai guk nahi duguna da Baiona/Angelu/Miarrizteko unibertsitatea izan dadin, ez Paueren **peko** baina bere gain. **Herria**

## 2 -en **pekora** -en kontura.

Argazkiak salduko ditu, eta dirutxoia egingo du nire **pekora**. **Koldo Izagirre**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erregearen **peko** (4); **peko erreka** (3); **peko errekan** (3); **peko errekarra** (8); **peko errekarat** (5); **peko gazteak** (5); **peko gazteentzat** (3); **peko haurtentzat** (4); **pista peko** (3); **urtez peko** (21); **urtez peko gazteak** (5); **urtez peko gazteentzat** (3); **urtez peko haurtentzat** (4)

**urtez pekoak** (8)

**urtez pekoentzat** (10)

**urtez pekoetan** (3)

## pekotsu ik **pekatsu**.

## **pektina** iz landareetan, eta batez ere fruitu heldu batzuetan, arrunta den gluzidoa.

Mahaia berak argazki bat merezi zuen: *Cinema&Theater* ale bat, marmeladaz eta diarrearen kontrako **pektinaz** beteta, dantzari argazkiak ageri ziren orrialde batean zabaldurik. **Josu Zabaleta**

## **pektoral** iz bularreko giharra.

Takoi luzeko kanperak oinetan, praka bakero estuak paketea markatzeko, kamiseta are estuagoa gimnasioan landutako biceps eta **pektoralak** nabaritzeko, [...]. **Jon Arretxe**

## **pekuniario** izond diruarena, diruari dagokiona.

Bestalde, epaileak 390.000 euroko bermea eskatu die «erantzukizun **pekuniarioak** ziurtatzeko». **Berria - Euskal Herria**

Horrelako kasuetan, gainera, askotan gertatzen da analisten artean errealtatea eta desioak nahastea -berezko interes **pekuniarioagatik**, noski-. **Iñaki Heras**

Ezaguna da, gainera, gizakiek hainbat arazoirengatik egiten dutela lan, ez soilik **pekuniarioengatik** (boterea, prestigioa, promozioa edo satisfakzioa, besteak beste, eragile handiak dira, bereziki errenta garaietan). **Iñaki Heras**

## **peladura** iz ipar soilgunea.

Hots, zer munta dute biloket eta **peladurek**, burua argirik badago. **Herria**

## **pelagiko** (orobat **pelajiko**) 1 izond itsas zabalekoa.

Sare **pelagikoak**, esaterako, ahalik eta arrain gehien harrapatzeko asmatu ziren, baina ez dago sarerik, ez **pelagiko** ez magikorik, arrainik gabe geratu den itsasoa atzera berriz arrainez bizi-berrituko duenik. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Agian Frantziako ontzi **pelagikoek** arrain sarden norabidea aldatu dute. **Berria - Harian**

Epe horretan eta ingandean antxoa harrapatzen aritu dira arraste-arrantza **pelagikoekin**. **Berria - Ekonomia**

## 2 (izen gisa)

Kargu hartzen dio esanez bolantarik eta **pelagikorik** ez dela libre, eta direnekin nahaste, ez direnak eta ezin daitezkeenak dakartzala itsasotik. **Iñaki Segurola**

«Amorruz beteta» daude arrantzaleak, Frantziako **pelagikoak** itsasoa «hustuko» dutelako eurak antxoatan hasten direnerako. **Berria - Ekonomia**

Frantziako arrantzaleak eta Baionako **pelagikoak** urtarrean hasten dira arrantzan, eta euskal arrantzaleak antxoatan hasterako apirilean, itsasoan «deus ez» dela egongo deitoratu zuen Tejedorrek. **Berria - Ekonomia**

Anartean arrantza industrialeko jauntxoek, **pelagikoek**, arrain bankuak hondatu dituzten jende berak, itxurakeria egin dute. **Berria - Euskal Herria**

## **pelaio** iz mutil erreketea.

Zer asmatu ez zekitela zebiltzan, falangistak kea baino faltuagoak zirela errepikatzen zuten eta hiru erakunde tradizionalista sortu zituzten karlismoaren mistikarekin: erreketet auxiliarrarena, margaritena eta **pelaioena**. **Joseba Sarrionandia**

Astean behin edo egiten genuen desfilea, margaritak lehenengo, **pelaioak** gero eta, atzetik, erreketet auxiliarrak eta, batzuetan bakarrik, falangea. **Joseba Sarrionandia**

Margarita zen, bera ere hasi berria bizitzaren endredoan jokatzen, bere lehenengo titi apal urduriekin, ezpainak gorriz pintaturik, **pelaioen** baten painelu zurian musua markatzeko prest. **Joseba Sarrionandia**

## **pelaire** iz artilea eta kidekoak lantzen dituen ofiziala.

Laborari gutxi eta merkatari asko; batez ere: **pelaireak**, harginak, arotzak, zurginak, basteroak, kordeleroak... eta ofizioburuak beren apendiz eta morroiekin. **Patziku Perurena**

## pelaje *iz adkor* itxura.

Haura sekula **pelaje** hartan ikusi barik nengoan. **Iñaki Iñurrieta**

Arratsaldean Ezekielek mendian behera zetorrela **pelaje** gaiztoko tipo bat ikusi zuela Tapategin. **Pablo Sastre**

## pelajiko ik **pelagiko**.

## pelakatu *izond* gizagaixoa, koitadua.

Whiskya eskuzabal zerbitzen jakingo bazenute whiskya eskatuko nuke, **pelakatu**, pentsatu zuen. **Harkaitz Cano**

## pelat *iz ipar* errebeskada, zaplastekoa.

Jesus lasai zegoela zioen, ez zuen hautatzearen beharrik ukan, bi mila urteotan matela batean zafila biltzean, bestea eskainiz bigarren **pelata** sail baten erdiesteko.

**Itxaro Borda**

## pelatu, pela, pelatzen **1 da/du ad ipar** erabat busti. ik **blaitu**.

Kapirote zorrotzaren azpitik, izerdi tanta lodiek korritzen zuten nire burutik behera, kokots azpian bildu eta, finean, paparra **pelaturik** uzten zidatenak. **Jon Alonso**

Gero, begiak maltzurkeriazko tanta lodiez **pelatuak**, destainazko ukituak ahotsean. **Jon Alonso**

## 2 ilea moztu, larrutu.

Heuk esan hidan-eta **pelatzeko** umea. **Pablo Sastre**

Aspaldian agertuak zitzaizkigun, mendi tontor **pelatuaren** gainean, gazteluaren harresiak. **Piarres Aintziart**

## 3 kasko *pelatu* ik **kasko 12**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kasko pelatu** (5)

## pelbis *iz* enborraren oinarria osatzen duen hezur eraztuna.

Hori konpontzeko, giza espezieak femurra luzatu eta **pelbisa** zabaldu eta laburtu egin behar izan zituen. **Luis Elberdin**

Horrek aldaketa handiak ekarri zituen, bai beheko gorputz adarretan, bai **pelbisean**, bai ipurmasaileko giharretan, bai bizkarrezurrean eta baita lepoan ere. **Luis Elberdin**

**Pelbisaren** formagatik ondorioztatu dugu emakume batena dela eskeletoa. **Beria - Gaiak**

Lepauztiaia apurtu zuen, **pelbisean** fisura du eta ornoak kolpatuta ditu. **Beria - Euskal Herria**

Ezin zuen erditze normala izan; zailtasunen bat izan behar zuen; **pelbisa** estua izatea, zerbait. **Josu Zabaleta**

Lehenik bere espartinak, gero bere aztal biluziak, eta izterrak, ikuspegi murriztu hartan ere lirain askoak, ondoren bere **pelbis** galtza bakero atezatueta hertsia. **Joxe Austin Arrieta**

## 2 pelbisaren bi albo hezur handietako bakoitza.

2003ko otsailaren 26an tumorea atzeman zioten eskuineko **pelbisean**. **Beria - Euskal Herria**

## peldo *iz* menda.

**Peldoari** halako alergia bat duzulakotz! **Ramuntxo Etxeberri**

## pelegri ik **pelegrin**.

## pelegrin (*corpusean **pelegri**, **pelegrino**, **peregrin** eta **peregrino soilik**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pelegrin** agertzen da*) iz erromesa.

Vezelayrik jiniko **pelegri** batek Züberoan hedatū zúkean... **Herria**

Eta **pelegrinoak** oso inpresionatu baitirudi, bukatu egingo dugu zita: "pentsa ahal litekeen baino aurpegi ederragoak, atsegin betezko leku batean bazeunde bezala".

**Koldo Izagirre**

Munduko herri gehienek kulturaren izan du eragin izugarria **pelegrinoak**, eta geopolitikan izan duen inportantzia estrategikoagatik, Euskal Herrikoan zer esanik ez. **Patziku Perurena**

Orreagako fraide batek zuen zaintzen **pelegrino** edo erromes aterbe hau, beste lagun batzuekin batean, jadanik aipatua dugun bezala. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## pelegrinaje (*corpusean **pelegrinaje** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pelegrinaje** agertzen da*) iz erromesaldia. ik **pelegrinazio**.

-Ni ez noa Parisera **pelegrinajez** xu bezala, baizik eta arropak erostera. **Itxaro Borda**

## pelegrinazio (*orobat **pelegrinazione** g.er., eta **peregrinazio***) **1** iz erromesaldia. ik **pelegrinaje**.

Zestoako uretxeak bereganatu zituzten, gero mendi gainak hartu eta aldats behera zetozen, Xabierren eta Sanmiguelerako **pelegrinazioetan** ikasitako martxa geldigaitz eta beldurrik gabean. **Joseba Sarrionandia**

Judakoen biltzar osoa guztiz alai zegoen, bai eta apaizak eta lebitarrak ere, eta orobat Israeldik etorritako jende guztia, nahiz **pelegrinazioan** etorriak nahiz Judan bertan bizi zirenak. **Elizen arteko biblia**

Haraxe joaten ziren langileak **pelegrinazioan**. **Hasier Etxeberria**

Udan egun oso batez ixten zuten denda lagun batzuenara joateko, trenbideetako langile baten etxera, eta beste egun batean Lisieuxera joaten ziren **pelegrinazioan**.

**Joseba Urteaga**

## 2 (hitz elkartuetan)

Arantzazu **peregrinazio** lekua izan da beti inguruko jende guztientzako, bai Gipuzkoatik, Nafarroatik edo Arabatik, eta erromesaldi hauen inguruan sortu dira gure Arantzazura honetan erabili ditugun melodiak eta koplak. **Berria - Kultura**

## 3 irud/hed

Ene bizitza, beraz, **pelegrinazio** bat izan da, iturburuaren bila, aita bezalako ateo izatetik Jainkoa aurkitzeraino. **Joan Mari Irigoien**

## pelegrinazione ik **pelegrinazio**.

## pelegrino ik **pelegrin**.

## pelelerina iz kapa mota.

Hamarrak ondoan edo hamekeri buruz, bere sotana xaharrean eta **"pelelerina"** hura gainetik, bazoan bere aferen egiteko karrikarat. **Herria**

## pelelerinaje ik **pelegrinaje**.

## peleleria iz larru denda.

Bere gainean, ur eta odoloz bustitako billete mordoxka bat eta zenbait paper zituen; begiratu ondoren errezihoak zirela jakin zuen: joeriakoa, **peleleriakoa** ... **Xabier Mendiguren Elizegi**

## peligroso izond arriskutsua.

Burmuina izaki **peligrosoa** izan daiteke, batez ere etxetik kanpo gaudenean. **Unai Elorriaga**

Polita da ideiak dantzan ikustea, baina **peligrosoa** ere bai. **Unai Elorriaga**

**Peligrosoa** da erlea, hori pentsatzen duzue, eta hegoak ditu. **Unai Elorriaga**

## pelikano (orobat **pelikan** g.er.) 1 iz hegazti igeri-oinduna, uretakoa, luma-zuria, behe barailan umeak elikatzeko janaria gordetzen duen boltsa gisako bat duena (*Pelecanus onocrotalus*).

Zerrenda ere egin dute: ahateak, **pelikanoak**, beltzargak, kaioak, txolarreak eta horiekin batera beste ehunen bat espezie, batzuk aldiro besteak noizean behin, Lamiakoko eta Bola hondartzako hezegunetan ageri direnak, desagertu egin daitezke. **Berria - Euskal Herria**

Alaben aseak berdintzen du bere gosea, **pelikanoarena** bezalaxe. **Markos Zapiain**

"Basamortuko **pelikanoa** dirudit", ez da haren hego eta lumei dagokienez, bataren tristura bestearen tristuraren antzekoa zelako baizik. **Xabier Kintana**

Haren lagun onei, berriz, zabal-zabalik dizkiet eskainiko besook, eta, **pelikano** bizi-emaike amultsuak legez, neure odolaz ditut bazkatuko. **Juan Garzia**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Pelikano** begiaren likorea edanarazi zidan marabutak, eta hipnosipean ezarrarazten saiatu zen. **Joxan Elosegi**

## pelikula 1 iz filma, zinema-lana.

Rebeca **pelikula** ikustera joan dira. **Arantxa Iturbe**

**Pelikula** hau inoiz filmatu den hoberena izanen da. **Fernando Rey**

Zazpi urte **pelikula** egiteko. **Berria - Kultura**

-Ez ditugu berriz proiektatutako **pelikula** horiek -agindu zidan. **Fernando Rey**

Martxoaren 16an estreinatua zen "Psycho" **pelikula**. **Pello Salaburu**

Telebistan, halaber, Bigarren Gerra Handian girotutako **pelikula** bat ematen zuten. **Bernardo Atxaga**

Ni **pelikula** bat ikusten gelditu ninduan. **Mikel Hernandez Abaitua**

Eliza Katolikoak debekatzeko zituen **pelikula** guztiak ikusten zituen. **Mikel Hernandez Abaitua**

Sail ofizialean hamahiru **pelikula** programatu dituzte. **Berria - Kultura**

**Pelikula** bateko kredituetan ikusi zuen. **Unai Elorriaga**

**Pelikula** bateko fotogramak balira bezala. **Iñigo Aranbarri**

Etxeko gela guztiak eta barranean zuten guztiak **pelikula** bateko eszenatokia ziruditen. *The great dictator* **pelikularen** berrestreinaldia. **Fernando Rey**

1986an Round midnight **pelikularen** soinu banda egiteagatik eman zioten Oscar saria aipagarria da. **Berria - Kultura**

**Pelikulako** irudietako asko Irakeko gerra amaitu eta bi astetara grabatu zituen. **Berria - Kultura**

*The Pianist* **pelikulako** gidoidileak Roland Harwooddek Somerset Maughamen *The theatre* eleberria egokitu du Zsaboren filmerako. **Berria - Kultura**

Zinemaldia itxiko duen *The door in the floor* **pelikulako** aktore nagusia da. **Berria - Kultura**

Dirudienek, bera da **pelikulako** gaiztoa, kanporatu beharrekoa. **Patxi Iturritegi**

## 2 (izenondo edo izenlagunekin)

Hori bai **pelikula** polita! **Jon Muñoz**

Kristal lodiek ez zuten zaratarik sartzen uzten eta **pelikula** mutuetan bezala ikusten zen kanpokoa. **Iñaki Zabaleta**

-Hau ez da **pelikula** soinuarena, ezta? -galdetu nuen. **Fernando Rey**

Alain Delon eta BBren **pelikula** frantsesen doinua. **Joseba Sarrionandia**

Esan dizut ez ditudala **pelikula** zaharrak berritu nahi. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hi: **pelikula** pornoren batzuk omen dituk hemen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Pelikula** almodovartarra egitea erabaki. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Larunbat arratsaldeko **pelikula** zozo bat zegoen telebistan ikusgai. **Aitor Arana**

Gureak Meg Ryanen **pelikula** okaztagarri horietako baten antza duela. **Patxi Iturritegi**

Zuri-beltzeko **pelikula** eder bat da, edo nik hala gogoratzen dut behintzat. **Aitor Arana**

**Pelikula** «korala» egin dzuzala esan duen tutea adituek. Berria - Kultura

Popeye, Betty Boop eta Supermanen animaziozko **pelikulak** egin zituen Richard Fleischerren aitak. Berria - Kultura

Bilbon unibertsitateko zineklubean ikusi zenuen zientzia fikziozko **pelikula** hura. Joseba Sarrionandia

Euskarazko **pelikula** bat egitea pribilegio bat dela diote. Berria - Harian

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gauzak argitu nahian edo, zuri-beltzeko **pelikula** -pasarte solteak ikusten dira.Ez dut berriz lan egin behar **pelikula** -fabrika madarikatu horientzat. Berria - Kultura

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tarteka tiro-hotsa iristen da leiho zabalduren batetik, siesta garaiko bakero: **pelikulako** opari. Xabier Mendiguren Elizegi

Pirata **pelikula** batean entzuna nuena. Joseba Sarrionandia

Thasaleko indarrek hil zuten, kazetari **pelikula** bat filmatzen ari zenean. Berria - Mundua

### 5 zinema-lan edo argazki baten zeluloidezko euskarria.

Filma (hitzaren zentzu materialean: **pelikula**) bat-bateko argazki-bilduma bat da. Josu Zabaleta

Eragozpenik gabe bereizi dituzu aparatuaren osagarri guztiak: goiko burukoa, objektiboa; kamera (bere luzapen-hauspoarekin), kristalezko xafia (**pelikula** seguru asko) eta beste zenbait osagarri. Rafa Egiguren

Zineman, filmeko irudia **pelikulan** inprimatuta dagoen bezala. Josu Zabaleta

Ikusi nola egiten den: **pelikula** zirrikitu hauetatik pasatu eta hemen lotu. Fernando Rey

**Pelikula** kimikoa erabiltzen duten argazki kamerak eta haienezko objektiboak egiteari utziko dio Japoniako Nikon konpainiak. Berria - Gaiak

-**Pelikula** aurrezteagatik da -azaldu zuen Smithers andreak-. Fernando Rey

**Pelikula** belatzen ari zen ertzain patrulla bat agertu zenean. Unai Iturriaga

Iragan astean jakinarazi zuen, 35 milimetroko **pelikula** erabiltzen duten kamerak eta haien osagarriak ekoizteari utzi diola. Berria - Ekonomia

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pelikula** -metroak puskaka belatuak. Aingeru Epaltza

Argazki-makina bateko **pelikula** karreteka bezala... Paddy Rekalde

Doktore batek beso artean babesten du **pelikula** bobina bat, haur jaioberria balitz bezala. Berria - Kultura

Zorro batetik **pelikula** -erroilu txiki bat atera eta makinan jarri zuen. Fernando Rey

### 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irudiaren beraren materia, atzemateko gaia den heinean, margolaritzan "pintzel ukitua" atzemateko, adibidez, edo argazki-**pelikulan** pikorra, esate baterako, Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskarazko pelikula** (3); **lehen pelikula** (3)

**pelikula amaitu** (3); **pelikula bakarra** (3); **pelikula bat egin** (3); **pelikula bat ikusten** (4); **pelikula egin** (4); **pelikula erroilu** (3); **pelikula ikusi** (4); **pelikula ikusten** (3); **pelikula ikustera** (3)

**zuri beltzeko pelikula** (3)

**pelikulak egiten** (3); **pelikulak ikusi** (3)

**pelikulako gaiztoak** (3)

**pelikularen bat ikusi** (4)

**pelikuletan bezala** (6); **pelikuletan ikusten diren** (3)

## pelikulagintza iz filmegintza.

la genero guztiak landu zituen, baina gehien bat trhillergintzan eta abenturazko eta animaziozko **pelikulagintzan** nabarmendu zen. Berria - Kultura

## pelikulatxo iz adkor pelikula.

**Pelikulatxo** hartan, aldiz... Xabier Mendiguren Elizegi

## pelikulero iz

-Esaldiren bat-edo? -Matias ere **pelikuleroa** iruditu zitzaion esan eta ostein. Unai Elorriaga

## pellokeria (orobat *peilokeria g.er.*) iz ergelkeria, motza denaren esaldia.

Euskaraz ez dakigu zer egin zuen harako Pello hark, baina **pellokeria** utzi zigan, eta bide batez baita maila goreneraino iritsi den hamaika pello eta pello kirten ere. Iñigo Aranbarri

Gustatzen zitzaizkidan gauza guztiak **pellokeriak** iruditzen zaizkit, Luis Mariano, Marie-Anne Desmaretzen nobelak, Daniel Gray, ezpainetako barra eta tonbolan irabazitako panpina, haren jantzi distiratsua nire ohe gainean zabaldua. Joseba Urteaga

Homosexualitatea betidanik egon dela esatea **pellokeria** dirudi, baina ez da, zeren eta oraindik asko eta askok ez dakite hori. Luis Elberdin

**"Peilokeriak"** esan nahi duen lokuzio hori, Fernando Amezketarrari zor diogu. Patziku Perurena

## pelma 1 izond/iz kalaka-emailea, enplastua, antojagarria.

Azkenean despistatu nuen **pelma** hura ere. Harkaitz Cano

Munstroak aguantatu behar dituk egun osoan, eta batzuk jatorrak baldin badira ere beste batzuk **pelma** hutsak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nuen inoiz jakiten gehiegi ala gutxiegi hitz egiten nuen, batean **pelma** huts bestean zomorro uzkur suertatzeko beldurrez. Xabier Mendiguren Elizegi

### 2 (adizlagun gisa)

Bakeoso eta patxadan hurbiltzen baziren [euliak], lasai; latoso eta **pelma** bazetorren lehenbizikotik, kontuz, mendabalera joko zuen biharamunerako ziurrenik. Pello Zabala

## pelmada iz kalaka.

Mundua jende pelmaz beteta dago, eta alde batera, gure errua da, euskaldunak garelara esanez **pelmada** emateagatik. Harkaitz Cano

Jesukristo, **'pelmadaren'** goresle. Berria - Kultura



# peloponesiar *izlag* Peloponesokoa, Peloponesori dagokiona.

Ateno- **peloponesiar** gerra. **Iñaki Mendiguren**

pelota ik **pilota**.

pelotari ik **pilotari**.

pelotatxo ik **pilotatxo**.

pelotazale ik **pilotazale**.

## peloteo 1 *iz* pilotarekin jolastea, bereziki jokatu gabe.

Etxanizek zehaztu zuenez, atzoko saioa ez zen ordubetera iritsi eta bi pilotariak **'peloteo'** saio gogor batekin hasi zuten. **Berria - Kirola**

Atzekaldean **peloteoa** izan zen jarraian, seguru Lasa, gozatuz Barriola. **Berria - Kirola**

## 2 *peloteoan adlag* pelotarekin jolasten, bereziki jokatu gabe.

Eskuan hartu zuen min, baina atzo ordu laurden batez **peloteoan** aritu ondoren sentsazio onak izan zituela adierazi zuen. **Berria - Kirola**

**Peloteoan** txapelketa guztian bezain ondo ikusi nuen Imanol, sakatzean, aldiz, ez zuen aurreko maiula eman. **Berria - Kirola**

Ezkurra nagusi da **peloteoan**, eta tanto bukatzaile hoberena da. **Berria - Kirola**

## pelotoi 1 *iz* sarjentu edo kaporal baten agindupeko soldadu taldea.

Horrela, hilaren 29ko iluntzean Euzko Indarrako **pelotoi** batek elizara egin zuen. **Edorta Jimenez**

Ingelesen **pelotoi** batek egin zizkion ohoreak, beren borondatez. **Koldo Biguri**

**Pelotoi** bat sartua zen galerian, trostan, fusilak eskuetan, bular aurrean gurutzatuak. Ivan Ogareffen aginduak betez, soldadu **pelotoi** batek zaintzen zuen bereziki. **Koldo Izagirre**

Maisuak eta galarretarra ezertaz oharitu zirenerako erreketean fusilamendu-**pelotoi** bat zuten aurrean. **Berria - Kultura**

## 2 fusilatze pelotoia.

Ba al dakizue zer egin zion **pelotoi**-buruak aitonari, zerraldo erori zenean? **Joan Mari Irigoien**

## 3 txirridularitzan, tropela.

Amairu gaiztoa izan zuten atzokoan txirridulariek, azken kilometroko pankartapean izandako erorketak ez aurrera ez atzera utzi baitzuen ia **pelotoi** guztia. **Berria - Kirola**

Ekaitzetik onik atera, eta behar zuenean agertu zen **pelotoi** buruan. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**fusilatze pelotoia** (4)

## peltre *iz* zink, berun eta eztainuzko aleazioa.

**Peltrezko** pitxer bat, ia baldea bezain handia, zuen bere aurrean. **Iñaki Mendiguren**

Portzelanazko eta **peltrezko** ontziak. **Koro Navarro**

## peluka (*Euskaltzaindiaren Hiztegian ileorde agertzen da*) *iz* ileordea.

**Peluka** beltz bat eta pastazko betaurrekoak soinean zituela, autotik atera zen, Durangon fabrikatutako pistola bat esku artean zuela. **Harkaitz Cano**

Armairuko ispilu aurrean **peluka** jantzi zuen lehenbizi eta pastazko betaurrekoak gero. **Harkaitz Cano**

Bizar eta **peluka** postizoz. **Iñaki Zabaleta**

## pelukeria *iz* ile-apaindegia.

Luxua gustatzen baitzaio señoiringari, afaltzera irten, pitxi dotorez apaindu, **pelukeria**, arropa garestiak. **Karlos Linazasoro**

Ni ere tarteka etortzen ninduan, hemen ondoan dagoen **pelukeriara**. **Xabier Etxabe**

**Pelukeriako** azken berriak, Clubeko atsoen esamesak eta antzekoak kontatzen zizkion. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## pelukero *iz* ile-apaintzailea.

-Ze esaten ari haiz, hire aita ez al duk ba **pelukeroa**? **Xabier Etxabe**

pelutxe ik **peluxe**.

## peluxe (*9 agerraldi, 6 liburutan; orobat pelutxe 21 agerraldi, 10 liburu eta 3 artikulutan*) 1 *iz* belusaren tankerako ehuna, ile luzekoa, eskuarki zuntz artifizialez egina.

Soinean, nankin urdinezko jantzi luzeak zituzten jantzirik, **peluxe** beltzez edertuak eta larruzko gerrikoiez gerruntzean estutuak. **Karlos Zabala**

Oso grafikoki ikusi zituen gazte horiek José Ortega y Gasset-ek, hiri xehe bateko kasino batean siloien **peluxeetan** beren tigre-atzaparrak zorrotzen. **Josu Zabaleta**

Sun-hartza bada tankerakoa zen, **peluxe** zurizkoa, muturra eta begien ingurua izan ezik, haiek beltzak baitzituen. **Juan Kruz Igerabide**  
Hartz hori, Tadeuszek beti berarekin eramaten zuen **peluxe** hartz hori, Janutarek oparia zela. **Iban Zaldúa**  
Nik **pelutxe** katu bat eramane diot eta Jeanek zurezko ziba bat, berak egina. **Eskarne Mujika**  
Ostikatuene erremina trufazko lanabes bihurtu du, eta ostikatzailen atzaparkadarik zorrotzenak lotsagarriki utzi ditu nabarmen, hariak eta **peluxe** panpinak bilakatu diren arte. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Gero hasi ziren burukoekin, kuxinekin, **pelutxe** panpinekin, horrekin guztiarekin. **Karlos Linazasoro**

## 2 peluxe

-Aita, ama: **pelutxe** bat nahi dut. **Joan Mari Irigoien**  
Gure aitak esaten du beldurti hutsak direla **pelutxeekin** -eta lo egiten dutenak. **Joan Mari Irigoien**

## pena 1 iz nahigabea, bihozmina.

**Pena** ere banuen, halako tristura bat urdailean. **Ramon Saizarbitoria**  
Pozak eta **penak** nahasi bietan ere. **Patxi Zubizarreta**  
2000-ko urtea ere joan zaiku berzteak bezala bere on gaitzekin, zorion eta **penak** nahaste. **Herria**  
Harengana pentsatzean maitasuna eta **pena** nahastuak zituen sentimendu bat izaten zuen. **Koro Navarro**  
Ez zen mespretxua adierazten zuena, **pena** baino. **Ramon Saizarbitoria**  
**Penarekin** begiratu nion. **Bernardo Atxaga**  
**Pena** bakarra daukat, Angel: hara berriro ez itzuli izana. **Alberto Barandiaren**  
Eternitate guztirako atsedena non izango duen ez jakiteak eragiten duen **pena**. **Ramon Saizarbitoria**  
Ahotsa **pena** baten itzalak iluntzen ziola, hala esan zidan: [...]. **Ramon Saizarbitoria**  
Eta gari-sail amaigabeetan barrietzen du bere **pena** hiltzera doan egunak. **Pako Aristi**  
**Pena**, samina, askoz ere geroago etorriko ziren nire bizitza goibeltzera, eta urte luzetan geldituko ziren nirekin, zaindari beltzen antzera, zorionari nire ariman sartzea debekatzen, mundua histen, margultzen, belzten. **Alberto Ladron Arana**  
Hain une eztiak zein **pena** ez lituzke ahantzaraziko? **Jon Muñoz**  
Badakit **pena** orok duela kontsolamendua, edozein egoeratan delarik ere. **Josu Zabaleta**

## 2 ik beherago 13.

**Pena**, pentsatu zuen Pedrok, otsoarekin borrokan ez zen edonor aritzen. **Jon Maia**  
**Pena**, bizitza amaitu beharra, esaten diot neure buruari; **pena**, ez zaigula betiko bizitzen uzten. **Oskar Arana**  
-**Pena**, bai -esan zuen-, maitasuna ulertzeko gai ez zarelako. **Ramon Saizarbitoria**  
A zer **pena**! **Fernando Rey**  
Ze **pena** hiazintoak moztu beharra. **Julen Gabiria**  
**Pena** Rasetti hori hain lehorra izatea! **Fernando Rey**  
**Pena** neure ametsa gauzatu ez izana. **Xabier Montoia**  
**Pena** bakarra gay izatea, bestela... **Patxi Iturritegi**  
-**Pena** ez dela izar gehiago ikusten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 (izenondoekin)

Beste ontzi eta beste lan batzuk hartu zituzten, **pena** handiarekin. **Harkaitz Cano**  
Annie Parmentier-ek bezala, desehorztea zela-eta **pena** handia sentitzen zuela esan zuen. **Ramon Saizarbitoria**  
Redoute bulebarrera itzulirik, **pena** garrantz bat baizik ez nuen. **Monika Etxebarria**  
**Pena** ikaragarri batek inguratu ninduen. **Daniel Landart**  
Ez dakit sinetsiko nauzun baina enetzat ere **pena** izigarria da. **Janbattitt Dirassar**  
Txakurrari izenik jartzea ez dela komeni, bestela kariño handiegia hartzen zaiola, eta gero, zera, hildakoan **pena** galanta. **Iñaki Seguro**  
Baina **pena** larria zeukan bihotzean. **Itxaro Borda**  
-Komunistekin batera borrokatu zinen, beraz -erran zidan aitak, **pena** sakon bat ahotsean. **Alberto Ladron Arana**  
Normalean, norbaitengatik errukia sentitzen dugunean, egiaz geure buruarekiko **pena** moztortua baino ez da izaten. **Ramon Saizarbitoria**  
Maitasuna, bi **pena** ezberdinek sortutako zorion itxura bat. **Pako Aristi**  
Azken-azkenean **pena** alimale horrek den-dena hartzen baitu bere baitan, eta ordutik aurrera negarra baizik ez baita geratzen, negarra, oinazea eta desolazioa. **Jon Alonso**

## 4 (aditzekin)

**Pena** sentitzen zuten Tootlesengatik, baina gehiago eurengatik. **Julen Gabiria**  
Beraren heriotzagatik sentitzen zuten **pena** hitz kontsolagarri arindu nahian, aita-bihotzez Jainkoa maitatzera aholkatu zituen. **Joan Mari Irigoien**  
Idazten dudanean dena pasatzen zait, **pena** guztiak joaten zaizkit, berriro etortzen zait ausardia. **Berria - Ekonomia**  
Azkenean begira geratu zitzaizun, **pena** sentiarazten zuen aurpegieraz, erantzunaren zain. **Jon Arretxe**  
Euskarari atxikiak girenari **pena** egin dauku jakiteak ama Izuraterra duen jaun baten ahotik [...] mespretxu eta hitz ahulak bere amaren mintzairaren alderat. **Herria**  
Florentek eragindako hondamen ikaragarriak kontatzeari ekin zioten, Lisa ederra barkatu behar izateak ematen zien **pena** arintzeko. **Karlos Zabala**  
Gure gazteei beren **penak** leuntzeko baliabide guztiz erraz hura. **Jon Muñoz**  
Kantuz igortzen zituela bere **penak** ihesi. **Herria**  
Ordu batzuk eman nituen ohekide ohiaren **penak** entzuten. **Jon Arretxe**  
Gauzatzen ez den itxaropenak, bihotzean **pena** sortzen; betetzen den nahia, bizi-fruituak dituen zuhaitza. **Elizen arteko biblia**  
Erantzun bortitz hark lehenik harridura eta ondotik **pena** sorrarazi zien Joanesei eta lagunari. **Eneko Bidegain**  
Horretarako nahi dut alkohola, **pena** sendatzeko. **Juan Garzia**  
**Pena** bat daukat, ama. **Berria - Euskal Herria**  
Ez zien etxekoei **penarik** egin nahi, berak aski **penarik** iragan baitzuen hol-hola, eta etxekoen urrikalmenduak oraino atsekabe gehiago sorraraziko baitziren. **Eneko Bidegain**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begira geratu zitzaidan, tango guztietako **pena** begirada hartan gordeta, eta ama, esan zidan, piano handia da? **Lander Garro**  
Aspaldiko lagun bat -eta **pena** keinu txiki bat marraztu zen bere aurpegian. **Sonia Gonzalez**  
- Nire hiritarren ona lortua, haien poz-atseginen, haien **pena**-tristuren lekuko zintzo bilakatu, orduantxe iritsi zitzaidan aitaren heriotzaren berria. **Felipe Juaristi**  
Kirxa andereak ongixko ezagutzen baitzuen, konfiantzaz beterik kontatu zizkion bere **pena**-nahigabeak, bere kexu eta tristurak arretaz jasoko zituen belarri fin bat izatearen ziurtasunarekin. **Patxi Zubizarreta**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bederatzia arte egon behar izan nuen bere maitasun-**penak** entzuten, eta bederatzietatik aurrera bere mendeku-planak. **Anton Garikano**

Bere egunkari ezkutuan maitasun **penak** idazten dituen mutil edo neska koskorraren antzera. **Hasier Etxeberria**

## 7 oinazea, nekea.

**Penak** gureak dira eta bigantxak besterenak. **Elizen arteko biblia**

Ikasi du zer diren **penak** eta lanak. **Herria**

**Penarekin** jakin dugu ldiarteko alaba zen Janine Bernard-en heriotzea. **Herria**

Amodiozko **pena** izeneko gaitzak ondoetzua hagoela hi ere, munduan beste asko bezala. **Iñaki Seguro**

Utz nezazu zure familiari eta segidari zure bertze munduratzak eman dioten **penan** parte hartzea eta doluminik bizienak eskaintzea. **Herria**

Haren garrasi eta **penak** presondegiko horma lodi eta zikinen artean galtzen dira. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Maitasun horrek arindu zion ama galdu izanaren **pena**. **Jose Antonio Mujika**

Bihotzak utzitako hutsunean min sentitzen zuela, **pena** samin bat. **Unai Iturriaga**

Negar egin zuen logelari etzanda, ez oroimnagatik ezpada txakur jipoituaren begiekin so egiten zion aurpegi zimur hartan bildutako sufrimenduagatik **pena** eta damuagatik. **Bego Montorio**

Ez dizut kontatuko zenbat neke eta trabaillu, eta zenbat **pena** eta sufrimendu pairatu behar izan genuen. **Joan Mari Irigoien**

Horrela, hamaika **pena** eta trabailluren artean, Urbiaindik alde egin behar izan genian, desterrurat. **Joan Mari Irigoien**

Herria maitez urrun direnak jasanez hainbertze **pena**. **Herria**

Abereak askoz ere sinpleagoak ziren: beldurra, **pena** edo sufrimendua adierazten zuten. **Joxean Agirre**

Koweiteko gerla hartan, ez zuten irakiatar mizileri ihardoki, Amerikanoek galdegini Arabi Sauditarrari **penarik** ez egiteko. **Herria**

## 8 zigorra.

Galdetu nion orduan zenbatekoa edo noiz arterainokoa izan zitekeen purgatorioko **pena**. **Joan Mari Irigoien**

Jainkoaren begien poza, **pena** eternalera kondenatutakoen azkeneko ikuspen iheskor hori. **Juan Garzia**

Haur hura betiko zegoen kondenatua, zeren **pena** eternala baitzen bekatu mortalaren ordaina eta ez **pena** tenporala...! **Joan Mari Irigoien**

Konfesoarek penitentari bere bekatuen ordainetan ematen dion **pena**. **Piarres Xarriton**

## 9 penetan adlag

Beti ibili izan gara lanbro artean eta **penetan** euskal kontuekin, hala da. **Pello Salaburu**

Baina ez genian **penetan** alde egin, eta ez hadi harritu: ni orduan gazte txaldan bat besterik ez ninduan. **Pako Aristi**

Elkarren arteko ategin eta atsegabeak ezagutzen ditugu eta **penetan** dena laguntzen dugu. **Piarres Aintziart**

Beti ibili izan naiz aitona ez izanaren **penetan**. **Jon Muñoz**

**Penetan** gelditzen den familiari doluzko agurrak. **Herria**

Dolumin beroenak joaite horrek **penetan** uzten dituen guzieri. **Herria**

## 10 pena eman

-Nelsonek **pena ematen** du, han, garaipenaren tontorrean, bakarrik. **Ramon Saizarbitoria**

Eta **pena eman** zidan, koitadua. **Karlos Zabala**

"**Pena ematen** dit Teresagatik", esan zuen Victoriak apur bat kikiiduta. **Bernardo Atxaga**

Bostetan jo genuen gailurra, ni ia herrestan, **pena emateko** moduan, eta Sandro, berriz, niri sumingarri zitzaidan barregura makur halako batek jota. **Juan Garzia**

Badakit, eta **pena ematen** dit neure buruak. **Iñaki Seguro**

Gauza bakar batek **ematen** zidan **pena**, aleman hari sabelean tiro egin izanak. **Fernando Rey**

-Ez al dizu **penarik ematen** goizeko bere lehen irribarrea ez ikusteak? **Arantxa Iturbe**

- Poztu egiten zara, baina **pena** ere **ematen** dizu, zerbaitek **pena ematen** dizu. **Lourdes Oñederra**

Ze **pena ematen** duen gizon modernoak! **Patziku Perurena**

A zer **pena ematen** didan zu joateak! **Fernando Rey**

**Pena** pixka bat ematen diegu, baina besterik ez. **Bernardo Atxaga**

## 11 pena-emangarri izond pena ematen duena.

Kristinaren begitarteak garbi adierazten zidan itxura **pena**-emangarria behar nuela. **Aingeru Epaltza**

Zure hozkailu zaharren egoera **pena**-emangarria salatzeak aukera eman nahi nizun. **Aingeru Epaltza**

Zinez konbentzigarri gertatuko nintzateke telebista pantailan, **pena**-emangarri arrunt, ingeles kasaka-gorriarena erraten. **Aingeru Epaltza**

## 12 pena hartu

**Pena hartzen** dut bihotzean. **Karlos Zabala**

Ikertzaileek dimisioa aurkeztuko balute, **pena hartuko** lukeela. **Berria - Gaiak**

Baina **pena hartu** nuen gogotik, eta gogoeta eta pentsamentu pila etorri burura bat-batean. **Berria - Kultura**

**Pena hartzen** diat zein osasuntsu dauden ikusita. **Karlos Zabala**

**Pena hartu** nion monsieur Nestorri, Redini. **Bernardo Atxaga**

**Pena hartu** dut leku hau lehenago ez ezagutzeagatik. Haiek **pena** izugarria **hartu** zuten anai Egidiok hitzik ere esan ez ziolako. **Harkaitz Cano**

## 13 pena izan ad ad

**Pena da**, ezta? **Josu Zabaleta**

Fructuosok keinu bat egin zuen, "**pena duk** ba" esan nahiko balu bezala. **Inazio Mujika Iraola**

Eta **pena** izaten **da** hori. **Jon Muñoz**

**Pena zen** organizazioan halako harreman gaitasuneko pertsona bat eduki eta fronte diplomatikorik ez izatea. **Bernardo Atxaga**

**Pena da**, baina horra hor egia gordina. **Patxi Iturritegi**

Aitatxik gerla denboran bizi izan zituenak ez kondatzea **pena zen**. **Eneko Bidegain**

Hori uste du Gérard-ek eta **pena litzateke** desadostasun batzuegatik holako istorio eder bat mozteak. **Eneko Bidegain**

Oso tipo sinpatikoa zen, asko maite ninduen, **pena da**, egoera politikoak adiskidetasun gehiegi hautsi du Euskal Herrian. **Mikel Hernandez Abaitua**

## 14 pena izan du ad

**Pena** bat **badut**. **Joan Mari Irigoien**

-**Pena diat** -murmurikatu nuen. - **Pena dut**, baina ezin daitekeena da hori. **Janbattitt Dirassar**

-Otoiz egizu enetzat, **pena dut**, berri txarrak ukan ditut Biarritzetik. **Marzel Etxehandi**

Aniak **pena du** ez dituelako eskura ez abestien izenburuak, ezta letren fotokopiak ere. **Iban Zaldua**

**Pena dut** biktimen eta haien gertukoengatik. **Berria - Harian**

**Pena dut** haatik ez baitzuten aterbe polittagoa eskaintzen ahal. **Janbattitt Dirassar**

**Pena duela** Korsikarrek ez onarturik egin zitzaizkien eskaintza. **Herria**

Haga-marrari hain hurbil izanik, zinez **pena nuen** entseia ez markaturik! **Daniel Landart**

-Hiltzeko **pena badut** -esaten zion Andresi- zuregatik da. **Josu Zabaleta**

a zer **pena** (9); **ene pena** (10); **gure pena** (7); **hau pena** (8); **izugarritzko pena** (4)

**pena apur bat** (11); **pena bakarra daukat** (4); **pena da** (93); **pena du** (7); **pena duk** (4); **pena dut** (19); **pena dute** (4)

**pena eman** (42); **pena eman zidan** (20); **pena emango** (6); **pena emateko** (4); **pena ematen** (121); **pena ematen didazu** (4); **pena ematen dit** (32); **pena ematen du** (10); **pena ematen zidan** (6); **pena ere ematen** (5)

**pena eta neke** (5)

**pena handi** (5); **pena handia** (88); **pena handia da** (6); **pena handia eman** (13); **pena handia ematen** (15); **pena handia hartu** (12); **pena handia izan** (5); **pena handian** (4); **pena handiena** (4); **pena handirekin** (5); **pena handitan** (12); **pena handitan gelditzen** (6); **pena handiz** (7)

**pena hartu** (22); **pena hartu nuen** (7); **pena hartu zuen** (4); **pena hartuko** (4); **pena hartzen** (10); **pena hartzen dut** (4)

**pena izan** (33); **pena izan da** (13); **pena izan zen** (11)

**pena izugarria** (4)

**pena litzateke** (11)

**pena nuen** (4); **pena pixka bat** (15); **pena sentitu** (11); **pena sentitu zuen** (6); **pena sentitzen** (6)

**pena ukan** (4); **pena zela** (5); **pena zen** (8); **pena zuen** (7); **ze pena** (10); **zer pena** (34)

**bere penak** (4); **lihoaren penak** (4); **neure penak** (5); **nire penak** (4); **penak eta nekeak** (7); **pozak eta penak** (4); **zure penak** (5)

**bere penaren** (4); **penaren penaz** (11)

**penaz begiratzen** (4); **penaz beterik** (6); **penaz hil** (8)

## penagarri 1 iz pena ematen duena. ik deitoragarri; negargarri. (pertsonez)

Jakintzat emango zuen, noski, nire moduko kreatura **penagarri** batek ez zezakeela giza hizkuntzarik konpreni. **Matías Múgica**

Eta erromatar **penagarri** horiek, berriz, beren zenbaki barregarriekin. **Jon Muñoz**

### 2 (gauzez)

Ororen gainetik, egoera **penagarri** eta desatsegin bati ihes egin niolako, poza zen sentitzen nuena. **Ramon Saizarbitoria**

Gero eta txiste **penagarriagoak** kontatzen zituen. **Harkaitz Cano**

Sufrikarioz betetako amodio **penagarri** horiek. **Berria - Euskal Herria**

Idolatriaren ondorio **penagarriak**. **Elizen arteko biblia**

Zorte zikin **penagarria**! **Anton Garikano**

Aste batzuk geroago lurretik apenas konkortzen zen hondakin pila **penagarri** hura neure begiz ikustean, halako tristura batek hartu ninduen. **Alberto Ladron Arana**

Pausotxo **penagarri** bat eman nuen aurrera, eta amasari eutsi nion. **Matías Múgica**

Isilune **penagarri** baten ondotik, diosesako berriak pasatu genituen, Daguzan arrastatu zutenetik. **Marzel Etxehandi**

Berrikitan, gorabehera pittin bat **penagarri** batzuk zirela medio, Harvard-etik alde egin behar izan du. **Lopez de Arana**

**Penagarria** da gaur egun desfile batean Ertzaintzak babestuta joan behar izatea. **Berria - Euskal Herria**

**Penagarria** da, baina halaxe da. **Berria - Kultura**

**Penagarri** zitzaion elkarlanean hain ederki jardunak ziren iker-taldeak horrela tupustean banantzea. **Juan Garzia**

**Penagarri** zitzaidan, eta ulerkaitez ere bai. **Txillardegi**

Lanbide **penagarrian** ari diren gizakien berezkoa dun Nietzschek gibel-mundua deitu zuen horrelako zerbait itxuratzea. **Joxan Eloseg**

Jatorriz Boli Kostakoak ziren 40 etorkin bizi ziren han, baldintza **penagarrietan**. **Berria - Harian**

-New Yorkeko jendearen gustua modu **penagarrian** endekatu da Wallack-en garaitik. **Lopez de Arana**

### 3 (adizlagun gisa)

Ikusten dut **penagarri** ari zarela erantzuten. atzo, pasa den astean Mallorcan egin bezalaxe, **penagarri** jokatu zuen. **Harkaitz Cano**

Liburu zaharrak **penagarri** pagatzen ditun, haiengatik baino askoz gehiago interesatzen baitira bildumagileak beste zaharkinengatik. **Anton Garikano**

**Penagarri** egon behar zuen Anak horrelakorik esateko. **Koldo Izagirre**

**Penagarri** sentitzen haizenean, amorratuta hagoenean, beti nigana etortzen haiz. **Anton Garikano**

Saunan bezalakoxe izerdi-patsetan biok, larruzko nire sakela-xakearen gainean makurturik, eta berau, gure izerdi-tantez, **penagarri** margultzen ari. **Joxe Austin Arrieta**

### 4 (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa)

Amaren **penagarri** baizik ez litekeela holako aitormena. **Janbattitt Dirassar**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera **penagarri** (7)

egoera **penagarria** (6); **itxura penagarria** (12); **itxura penagarria eman** (3); **oso penagarria** (3); **penagarria da** (56); **penagarria egin** (4); **penagarria eman** (6); **penagarria eman zuen** (3); **penagarria iruditzen** (3); **penagarria izan** (11)

ezin **penagarriago** (3)

ezin **penagarriagoa** (3)

ondorio **penagarriak** (4)

egoera **penagarrian** (10)

egoera **penagarriaren** (3)

aurrekari **penagarritzat jo** (3)

## penaizo iz adkor pena.

Begiratuko dute atzera eta pentsatuko dute bidean pasatu dituzten **penaizo** guztiek izan dutela saria. **Berria - Kirola**

## penaketa iz penatzea.

Baina, garizuma, beste zenbait esalditan ostirala bezala, neguko eta udaberri leheneko **penaketa** eta ezinen txardadearekin lotuta ageri da. **Pello Zabala**

## penal 1 izond zigorrari dagokiona. ik zigor 2.

Fiskalak eskatu zuena kode **penal** arruntaren araberakoa eskatu zuen, ez kode militarrean oinarrituta. **Koldo Izagirre**

Lege **penal** eta kriminalak ez dira lege mota bereziak, baizik eta lege guztien berronespenak. **Andres Urrutia**

Banatzte-legeak eta **penalak** ez dira lege motak, lege zatiak baizik. **Esteban Antxustegi**

Zigor-eremuan delitu eta bekatu ideiak elkarren gainean jartzea, eta auzi **penala** erruztatuaren aitopena lortzera bideratzea, inkisizio-prozedurak erabiliz. **Juan Martin Elxpuru**

Zigor hark jada preskribatu duelako, eta beraz aurrekari **penal** horiek ez direlako aintzat hartzen orain. **Berria - Euskal Herria**

Idatzizko eskabidearekin batera, legeak ezartzen dituen dokumentazioa ere aurkeztu behar dute: hala nola, jaiotze-agiria, familia liburua, errenta aitopena, errolda agiria, aurrekari **penalen** agiria... **Berria - Harian**

Behin babes agindua onartuta, guardiako epaileak honako kautelazko neurri **penal** hauek hartu ahal izango ditu: [...]. Berria - Harian

Ikuspegi **penal** eta judizialeetik. Berria - Euskal Herria

Bi mende geroago [...] zinez liberala zen zuzenbide **penal** baten azken bultzatzaileek, zuzenbide **penalaren** oinarriez gogoeta egiten zutenean, honakoa esaten zuten zalantzarik gabe, "zuzenbide **penala** behar garratz bat baino ez zela". Juan Martin Elexpuru

Kontua da presondegiko suizidio kopurua hazi dela, hain zuzen ere, azken urteetan egindako erreforma **penalen** eskutik. Berria - Euskal Herria

Ijitoek erakunde judizial, **penal** eta polizialekin dituzten liskarrak saihestea. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko Auzitegi **Penala** Hagako hirian eraikitzeko kontratua. Piarres Xarriton

· Iruñean **penaleko** epaile gisa aritutakoa da. Berria - Mundua

## 2 iz presondegia, espetxea.

Azken aldian Burgostik beste **penal** batzuetara aldatu duten jendearen berri dakar. Rafa Egiguren

1981ean Burgosko **penalera** eraman zuten, eta sotanoan, lurraren paretik behera zeuden brigadetan sartu. Jokin Urain

Dozenaka aldiz igo zuen herritik **penalerako** aldapa hura. Jon Maia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**tipo penal** (4); **zuzenbide penal** (5)

**bide penala** (4); **erantzukizun penala** (3); **erantzun penala** (3); **kode penala** (5); **prozesu penala** (4); **zuzenbide penala** (4)

**aurrekari penalak** (12); **erantzukizun penalak** (4); **kode penalak** (4); **lege penalak** (4); **zuzenbide penalak** (7)

**zuzenbide penalaren** (8)

**zuzenbide penalari** (3)

**kode penalean** (9); **zuzenbide penalean** (3)

**zuzenbide penaleko** (4)

**aurrekari penalik** (5)

## penalitate 1 iz nekea, eramankizuna.

Hor goian ikusi ditugun elorri xuriaren hilabete honekiko usadio eta ohitura bitxi horiekin zerikusirik ote du ba, elorrio hitzak berekin jaso duen neke, oinaze, jasanbehar,

**penalitate**, sofrikario, etsipen-puntuu eta antzerako esanahi sorta hori dena? Pello Zabala

## 2 (errugbian)

19 tantoetatik 14 berak ardietsi zituen **penalitate** ostikoetan. Herria

## penalizatu, penaliza, penilizatzen du ad zigortu.

Argi da Jaun erabakitzaile horiek, emazte eta neska-mutiko gaztetxoak artoski **penalizatu** eta baztertu dituztela, edo berdin etsitu eta desgustatu nahi ukan dituztela, orain arte izpiritu sano eta on batean iragaiten zen joko hortaz. Herria

## penalti (*orobat penalty g.er.*) 1 iz futboleant-eta, atezainak soilik babesten duen atera, beste taldeko jokalaria batek egiten duen jaurtiketan datzan zigorra.

Prietok **penaltia** ere egin zion Yilmaz aurrelariari, baina turkiarra jokoz kanpo zegoela asmatu zuen epaileak. Berria - Kirola

Lehen jokaldian Larssonek **penaltia** behartu baitzuen. Berria - Kirola

Bukatzeko hogeita hamar segundo falta zirela, epaileak **penaltia** adierazi zuen. Koldo Biguri

**Penalti** bat gelditzeko prestatzen den atezaina bezala. Ramon Saizarbitoria

Berak jaurti zuen Cadizen aurkako baleko **penaltia**. Berria - Kirola

Didier Drogbak bere **penaltia** huts egin zuen. Berria - Kirola

**Penalti** erabakigarri bat huts egin zuen gizonaren aurrean. Aritz Gorrotxategi

Epaileak **penaltia** zela argitu ostean, Humbertok berak baloia hartu, eta jaurtiketa puntura abiatu zen itsu-itsuan. Aritz Gorrotxategi

Epaileak **penaltia** seinalatu eta, **penalti** hura jaurtizera nindoanean, [...]. Joan Mari Irigoien

19 urterekin 1991n Portugal Munduko Gazte Mailako Kopa eman zion **penaltia** sartu zuen. Aritz Gorrotxategi

**Penalti** Gryffindorren alde! Iñaki Mendiguren

**penaltien** txanda iritsi zen. Berria - Kirola

**Penaltietan** kale egin du Alavesek, eta kanpoan utzi du Cultural Leonesak. Berria - Kirola

Atzokoan **penaltietan** gailendu zitzaion Eibarri. Berria - Kirola

Joan-jineko bi partidetan, bizkaitarrak agertu dira hobereenak bainan **penaltien** loterian galdu dute. Herria

Golak: 0-1, Ismael Irurtzun (**penaltiz**, 39. m.). Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Epaileak **penalti** puntua adierazi ote zuen jakin gabe, protestaka hasi zen berehala. Aritz Gorrotxategi

**Penalti** puntura hurbildu eta, zer egin ez nekiela, metro bat lehenago irrist egin nuen. Joan Mari Irigoien

2001ean Bayern München **penalti** jaurtiketek utzi zuten Valentzia Europako bere lehen txapelketa gabe. Berria - Kirola

## 3 irud/hed

Gas Natural Endesaz jabetuz gero ere, Iberdrolak sartuko luke **penaltia**. Berria - Ekonomia

## 4 **penaltiz ezkondu** bikote bat, emakumea haurdun gelditzen delako ezkondu.

Eta azkenean **penaltiz** ezkondu zineten, ezta? Joan Mari Irigoien

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**adierazitako penalti** (3); **egindako penalti** (3)

**penalti adierazi** (3); **penalti bat hutsegina** (5); **penalti bati esker** (7); **penalti erabakigarria** (6); **penalti garbi** (3); **penalti gelditu** (4); **penalti gelditu zituen** (4); **penalti huts egin** (3); **penalti jaurtiketak** (3); **penalti jaurtiketetan** (12)

**egindako penaltia** (9); **epaileak penaltia adierazi** (5); **penaltia adierazi** (17); **penaltia adierazi zuen** (13); **penaltia adierazteko** (3); **penaltia botatzeko** (6); **penaltia egin** (4); **penaltia huts egin** (7); **penaltia jaurtizteko** (3); **penaltia sartu** (11); **penaltia sartu zuen** (4)

**penaltiak botatzeko** (3)

**penaltiek erabaki zuten** (3)

**penaltien loterian** (4)

**penaltietan erabaki zen** (4); **penaltietan gailendu** (3); **penaltietan irabazita** (3)

**karpinek penaltiz** (3); **penaltiz lortu** (4); **penaltiz sartu zuen** (3)

# penaltika *adlag* penaltiak jaurtiz.

Azkenean **penaltika** erabaki zen lehia, eta horretan ere nafarrek kale egin zuten, hiru penalti huts eginda. **Berria - Kirola**

## penalty ik penalti.

## penarazi, peranaz, penarazten du *ad* penatzera behartu.

Hilabete zenbaitez ondo **penarazi** zuten, gogorrean zaildu, ea oiltartzen zen ikusteko; eta Rufinek eutsi egin zion denari, dena jasan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Oso **penarazi** zuten Esther hasieran. **Xabier Montoia**

Egiaren apurño bat aski litzateke **penarazteko**. **Xabier Montoia**

## penatu, pena(tu), penatzen 1 da/du *ad* oinazetu, nekea hartu edo eman.

Barau eginez **penatzen** banaiz, iraina besterik ez dut jasotzen. **Elizen arteko biblia**

Kanpotik ederki **penatu** bazen hotzez, barnean lizunkeriaren grina itzali egin zitzaion, eta aurrerantzean ez zuen inoiz horrelakorik sumatu. **Askoren artean**

Begira nola hazten diren loreak: ez dira lanean **penatzen**, ez dute iruten. **Elizen arteko biblia**

Infernura joango dira eta amaigabe **penatuak** izango bertan. **Askoren artean**

Egia da Txapartegi oso bizi aritu dela barruko lanetan, noiz edo noiz, besoak **penatu** bazaizkio ere. **Berria - Kirola**

Baratzekari, fruitu, esne eta gauza frango arrunt merke behar dituztela despeitu, berak untsa **penatu** ondoan. **Herria**

Zorionez galdu genituen aspaldiko ospelak: belarri, atzamar-gain eta orpo, hainbat **penatu** gintuzten ospelak. **Pello Zabala**

Elikadura lortzeko lur gainean **penatu** beharrekin loturik dator gizonarentzat emakumearengan sortu beharra, jaino eta hil beharra, biharamunaren beldur eta itxaropena sentitu beharra. **Juan Garzia**

Antizikloiren bat sartzen bada, berriz, izotzak **penatzen** ditu bazterrak. **Pello Zabala**

1993an, hotzaldi makur latza sartu zen Mediterraneo aldetik, eta Katalunia aldea, Valentzia eta Murtziako aldeak izugarri **penatu** zituen. **Pello Zabala**

### • 2 da *ad* nahigabetu.

Hizkuntzari eta lur bati atxikita bizi garen guztiongatik **penatu** nintzen, oraina beti mikatza zaigulako. **Bernardo Atxaga**

Horregatik, haustura gertatu zenean, **penatu** bai, pena sentitu nuen, eta ez txikia, baina ez zitzaidan hartatik ulergaitza egin nire emaztearen jarrera. **Migel Angel Mintegi**

Ez nekien poztu behar nuen, edo **penatu**, berriki arte niretzat baizik ez ziren zakarkeriek erakusten zuten intimitate mailagatik. **Aingeru Epaltza**

Berrogeita bat, burura etorri zitzaion berehala, eta egiaztapen horrek ez zuen ez poztu, ez **penatu**. **Eduardo Matauko**

Alde batetik xoratua, bestetik aski **penatua**! **Janbattitt Dirassar**

Lagun hil berriaren galeraz **penatzen**. **Aingeru Epaltza**

Etsi gaiztoan pasaturiko zortzi urte haiek hartzen zituen gogoan berriz ere, eta **penatu** eta poztu egiten zen batera. **Karlos Zabala**

Zeren neure adiskide agurgarriaren oinazeak zinez **penatu** bainau; horrenbertzeraino hunkitu nau non gogotik nahasiko bainituen neure malkoak harenekin. **Jon Muñoz**

Bihotz-ilun sumatzen zuen emaztea zenbaitetan gizonak [...] baina bazekien ez zituela inguruokoa **penatu** eta atsekabetu nahi, eta beretzat gordetzen zituela gogoeta tristeak gehienetan. **Imanol Zurutuza**

Agerrek oraino ez daki **penatu** edo bozkariatu behar duen hala izan ez delako. **Aingeru Epaltza**

Maiite-maiitea nuen, eta zinez **penatu** nau haren heriotzak. **Joxerra Garzia**

Mulineneko alabaren heriotzeak biziki **penatu** gaitu, ezen 48 urteko ama bat joaiten delarik, ba senarra eta bi mutiko oraino gazteak utziz, bazterrak inarosten ditu. **Herria**

Orduan ere guztiz **penatua** agertzen zitzaigun patrika gure kontura gizenduta. **Aingeru Epaltza**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Burutik egin zain, hau langile **penatu** baten besotik ibiltzea baino okerragoa dun. **Koldo Izagirre**

Haize leunak laztanduko ditu gure aurpegi **penatuak**... **Eneko Bidegain**

Ez dakit zer erran zion baina Maddalen berriz jin zen eni buruz, halako irri **penatu** batekin. **Janbattitt Dirassar**

Ekaitzarekin, oihu **penatu** bat zen. **Pablo Sastre**

Gerla denboran, preso egona zen eta gero Alemania zolarat igorria bortxuzko lan **penatu** batzuetan artzerat. **Herria**

Berehala nigarrez bezala hasten da halako aire nardatu eta **penatu** batekin, erakusterat emanez berriketariak direla jestu-untzi batzu, ardura galde txarrak egiten nunbaitik ere gobernuburuari! **Herria**

Oraino badirela jendeak, nekez bada nekez, lan egiten dutenak gune **penatueta**. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**

**zinez penaturik** (3)

**penatuta gaude** (3); **penatuta zegoen** (4)

## penatuki *adlag* penatuz.

Bainan ukanen dutea laborariek jabetasun osoa, berek **penatuki** egin olioarentzat? **Herria**

## penatzaile *izond* penatzen edo oinazetzen duena.

Kontzientziaren baitan ostataturik nuen harra nahi nuen ostikatu eta handik igorri, zeren eta har **penatzaile** eta zehatzaile hark ez baitzuen enetzat, urte luzeetan, hitz gozorik izan, gaixto nintzenez gaixto nintzelako eta on nintzenez hobe ez nintzelako... **Joan Mari Irigoien**

Arrazoimenaren ekimen **penatzailetik** askatzeko manera eszeptikoak. **Ibon Urbarri**

## penatze *iz* oinaze hartzea; nahigabetzea.

Eta hainbeste zarata, ikuskizun, eramankizun eta **penatze**, azio sinboliko eta mediatiko batzuk fakturatzeko! **Iñaki Seguroa**

Baina gure ikastola, gure **penatze** eta nahigabeen olak eta tegiak, geure baitako gela itsu eta barne ospelak zein diren jakin nahi bazenu, ez galdegin aita-amei edo maisu-andereñoi, ez alferrikako lanik hartu. **Iñaki Seguroa**



## pendiente 1 adlag egiteko, gauzatzeko.

New Yorkera etorri nintzenetik **pendiente** nuen zerbait egin dut gaur. Harkaitz Cano

Horiek ere **pendiente** daude eta... denborarekin interesak handituz doaz. Pablo Sastre

## 2 adi.

Jendea ere **pendienteago** egongo da partida honetan, txapelketakoa delako. Berria - Kirola

## penditz ik pendiz.

## pendiz (orobat penditz g.er. eta pendoitz g.er.) 1 iz aldapa.

Tiumeneraino [...] bidea malkartsu samarra izango zen, lurralde hartako gorabehera aldakorrek eratzten baitzituzten Ural mendietako lehenengo **pendizak**. Karlos Zabala

Goiztirian egunero korritzen genituen eskualde hartako muinoak eta **pendizak**. Txillardegi

**Pendizaren** orpoan daude kokatuak mendiari eusten bezala karrikaren estiborreko etxeak. Koldo Izagirre

Baserri inguruko soro, belaze, ordeka xabal, **pendizetako** txaradi, zuhaitz gaxte eta berriei, azienda eta artaldeei, arkumeei eta besteri erreparatuz [...]. Pello Zabala

**Pendiz** baten ondoan geunden eta azkenean hirurok amildu ginen **pendizean** behera, pilota bat bezala. Gotzon Garate

Irrist egin zuten eta 150 metroko **pendizean** behera erori ziren. Berria - Euskal Herria

Hartara, basoaren gune sarri eta etengabe ilunekin egokitu ginen, eta hezetasunak irristakor bihurtzen zituen **pendizekin**. Bernardo Atxaga

Iratzeari helduta, **pendizean** irristaka ailegatu ginen errepidetik metro gutxira zegoen errekararen ondora. Rafa Egiguren

Ondoren, berriz ere gorantz egin zuten, **pendizeko** harriei eta belarrei helduta, sakan erpinera. Jon Maia

Lasterka hasi nintzen etorritako bidetik, **pendiz** labainkorrean gora. Anjel Lertxundi

Egutera dagoen **pendizean**. Pello Zabala

Milaka eta milaka *ranchito* edo txabola ziztrin, **pendizetan** zintzilik, sasiaren, lokatzaren eta harrien artean. Pako Aristi

## 2 irud/hed

Galbidea beheranzko **pendiz** arina da; onbidea, aldiz, goranzko aldapa neketsua. Berria - Kirola

Garizumako **pendizean** gora, baserritarrak bazituen bere jardueran erreparatu beharreko koska alaiagoak ere. Pello Zabala

## 3 aldapa baten makurdura maila.

Aurreko hormaren goiko partean, leiho txiki batek **pendiz** handiko teilatutxo batera ematen zuen. Anjel Lertxundi

Bertara iristeko, **pendiz** pikoa igo behar zen. Anjel Lertxundi

Basoa **pendiz** gogorrean jaisten zen muinoan behera. Alberto Ladron Arana

Azken kilometroan %17ko **pendiza** dago. Berria - Harian

%14ko **pendiza** ere bazuen errepideak tarteka. Berria - Kirola

Laburra da hori ere, bi kilometro besterik ez, baina batez besteko **pendiza** ez da txikia: %7,5. Berria - Kirola

Konoaren hormen **pendiza** doi-doi kalkulaturik zegoen erauziriko materiala hondoraino lerratu bai baina oldar handiegirik har ez zezan. Juan Garzia

## 4 balkoia; baranda.

Burdinazko **pendiz** zaharkitua, "Second Empire"koa bete-betean, bere hegal metaliko erorkorrek eta guzti. Txillardegi

Landaluze zubia eta **pendiz** borobila pasata, etxepean ginen gauerdirako. Txillardegi

## pendoitz ik pendiz.

## pendular 1 izond pendulari dagokiona.

Eta, batzuetan, soka eskuan hartu eta harriaren mugimendu **pendularra** irakasten zigun, Galileoren teoriak gogoan. Joan Mari Irigoien

## 2 irud/hed

EAJren baitako betidaniko mugimendu **pendularrean** jeltzaleen adarrak erradikalenak autonomistei inposatutako ospakizuntzat jo izan da lehen Aberri Egun hura. Joseba Zulaika

## pendulu 1 iz ardatz horizontal batetik zintzilik dagoen gorputz zurruna, lurraren erakar-indarrari esker atzera eta aurrera balantzaka mugitzen dena.

Erloujak geldirik zeukan **pendulua** eta arma batek hari josia zion bere sarea. Jose Morales

Pareta jo eta kabletik zintzilik gelditu zen, dilin-dalan eroan, bere baitatik ateratako horma-erlouiaren **pendulua** balitz bezala. Aingeru Epaltza

Ez baitzen ezer entzuten, suaren zirtadak eta **penduluaren** tik-tak hotsa baino. Josu Zabaleta

**Penduluaren** joan-jinei beha paraturik, erantsi zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

**Penduluaren** zabua angelu zuzenean zetorren nire gorputzari buruz. Koro Navarro

## 2 (izenondoekin)

Zur argitan bildua, pintura bitxiz apaindua, [erlouiak] **pendulu** luze bat zeukan eragile; eta erritmo geldo hura sortzen zuen. Txillardegi

Ibilgailuaren azpian [...] bada metalezko pieza bat sendo atxikia, zeinetatik eskegita dagoen **pendulu** txiki bat ezker-eskuin mugitzen dena etenik gabe. Josetxo Azkona

**Pendulu** astun bat da sismografoa; duen inertziagatik geldi geratzen da lurrikara bizkor bat denean, inguruan lurra dardaraz dagoela. Irene Aldasoro

Jendeak laster egiten zuen plazaren alde batera, eta berehala berriz lasterka lehentxeagoko toki berera, hegala atertu gabe mugitzen baitzen **pendulu** ikaragarri bat balitz bezala. Fernando Rey

Foucaulten **pendulu** ospetsua. Jon Muñoz

## 3 (hitz elkartuetan)

Tximiniako apalean, pitxerrak ageri ziren, kobrez landutako paisaiez hornituak, eta **pendulu** erloju bat erabat urreztatua. Karlos Zabala

Alabastrozko **pendulu** erloju zutabedun bat. Karlos Zabala

Gera zitekeen etxea beste mila urtez zutik, bi osabak han geratuko ziren, mila urtez, ezkaratzaren luzera guztia erloju **pendulu** baten gelditasunaz zapalduz, betierekotasun kutsua ematen. Josu Zabaleta

## 4 irud/hed

Otamendiren **pendulua** oinazetik asperdurara doa, eta atzera berriro oinazera. Markos Zapiain

EAJren **pendulua**, oraingoan, posibilitismoaren aldean kokatu da. Berria - Harian

## 5 pendulu erlojua.

Seiak gertu ziren paretako **pendulu** geldiezinan. **Joxemari Urteaga**

## pene iz arraren kopulatzeko organoa. ik **zakil**.

**Penearen** luze-laburraz. **Iñaki Segurola**

## penetratu, penetra, penetratzen du *ad* arrak zakila sartu.

Ez zaitu **penetratu**, baina asetu da. **Lourdes Oñederra**

## penetrazio iz penetratzea.

**Penetrazioaren** kontrako dogmak. **Lourdes Oñederra**

**Penetrazioaren** mitoak. **Lourdes Oñederra**

Bizitzaren igarotzea fisikoki sentitzen duzu, dutxa hotza azalean bezala, **penetrazio** bortitza errailetan bezala. **Lourdes Oñederra**

## penike (*61 agerraldi, 7 liburutan*) **1** iz ingeles txanpona, libraren ehunena balio duena. ik **penny**.

Ez neukan bidaia ordaintzeko **penikea**. **Koro Navarro**

Baduzu geroago ordaintzea, astean bost **penike**. **Koro Navarro**

Erabat ahaztuta nuen 762 libra, 14 txelin eta 2 **penike** zor nituela Savoy-n. **Antton Olano**

Oharrari zeloz erantsita berrogeita hamar **penikeko** txanpon bat zegoen. **Iñaki Mendiguren**

Sakelako sei **penikekoaren** gainera erortzen utzi nituen bi **penikeak**. **Irene Aldasoro**

**Penikeko** dozena bat opiltxo erosi zituen. **Irene Aldasoro**

-Hiru **penike** -erdiko, jauna -esan zuen neskak. **Irene Aldasoro**

Zure eskuzabaltasunari esker ez dut **penikerik** zor. **Antton Olano**

"Tabako xehetua", esan zuen orduan hark, "bost **penike** ontzako", bere pobrezia eta printzipioak nabarmen aditzera emanez. **Anton Garikano**

## 2 (neurri gisa)

Gau beranduan bi **penike** patata erosten baitzuten ahoko kiratsa ezkutatzearren. **Koro Navarro**

## peningarri *izond adkor ipar* deitoragarria.

Gertakari latza, guziz **peningarria** eta gogoetagarria! **Herria**

Giro samin baten lekuko: gutien ustean preso altxatze batzu, 62 "demo" delakoen auzi **peningarria**, Filipe Bidart-i nola ukatu dioten baldintzapeko libratzea, jazkotzat ukaiten ahalko zuena legez-lege... **Herria**

**Peningarri** da zinez jende gaixo horiek jasan behar dutena! **Herria**

**Peningarri** liteke holako altxorra, mendez mendez gure arbasoek artarekin metatua, galtzera uzten bagenu. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hori bera ere untsa **peningarri** izanki, loretsu eta goxo nahiago ginukeen udaberri huntan... **Herria**

**Peningarri** da haatik Iruñeko herriko etxeak ez baitio ongi etorri hobe egin. **Herria**

## penintsula **1** iz lur eremua, kontinentearekin lotzen duen alde bat izan ezik, gainerako guztiak urez inguratuak dituena. ik **erdiuharte**.

Ihes egitera behartuak baziren, frantses armadarengana itzuli behar zuten, **penintsula** guzia zeharkatu ondoan. **Eneko Bidegain**

**Penintsula** lurralde ezberdinez osatua dago; lurralde ezberdinok, arima ezberdinak dituzte: arraza ezberdinak, hizkuntza ezberdinak. **Joxe Azurmendi**

Bilboko Udalak Zorrozaurre **penintsula** bere hartan mantenduko du. **Berria - Euskal Herria**

Gaur egungo Turkiako Itsas Beltzaren kostaldea, Krimeako **penintsula** eta uharte zenbait biltzen zituen erresuma horrek. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Klima berotzen hasi zenean basoak Italiako **penintsulan** barrera iparraldera zabaltzen hasi ziren. **Pako Aristi**

Iberiar **penintsula** arabiarrek konkistatzearen gizarte-ondorioa izan zen judu-komunitate hau berriro eroso sentitzea. **Iñaki Mendiguren**

Pertsiar Golkoko **penintsula** honetan txirindularitzak inolako tradizioirik ez duen arren, [...]. **Berria - Kirola**

**Penintsulako** ordokian, 6.3 jaisten da hotz-beroa. **Pello Zabala**

**Penintsularen** periferia guztian, nola Kanariar irletan hala Asturiasen, Galizian edo Euskal Herrian. **Bernardo Atxaga**

Isobara maparen arabera, bazirudik antizikloi bat dagoela **penintsularen** erdian. **Joan Mari Irigoien**

## 2 (hitz elkartuetan)

1981ean, ekainaren 5etik 22ra, ez ziren erraz aguantatzen **penintsula** mailan egin zituen beroak. **Pello Zabala**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

iberiako penintsula (7); iberiar penintsula (8); penintsula osoan (9); penintsula osoko (4)

arabiar penintsulako (3); iberiako penintsulako (9); iberiar penintsulako (10); penintsulako ordokian (3)

iberiako penintsulan (8); iberiar penintsulan (13)

iberiako penintsularen (4)

iberiako penintsulatik kanpo (3); iberiar penintsulatik (3)

## penintsular *izond* penintsulari dagokiona.

Gaztela herrialde edo karaktere **penintsular** ezberdinen sintesia -esentzia- delakoa, doktrina arrunta da espainolismo honetan guztian. **Joxe Azurmendi**

Geografia **penintsulararen** zentro eta bizkarrezurrak. **Joxe Azurmendi**

## penitent ik **penitente**.

# penitente *(orobat penitent g.er.)* 1 iz konfesatzen den pertsona; penitentzia egiten duen pertsona. ik **penitentziagile**.

**Penitenteen** eta Konfesoreen ENKIRIDION edo Eskuliburua. **Piarres Xarriton**

Konfesoreak **penitenteari** bere bekatuak ordaintzen ematen dion pena. **Piarres Xarriton**

Hemen esaten da San Antoniok **penitente** bat aurkitu zuela, eta ikusi zuela absoluizioa merezi zuela, eta eman egin ziola, eta ematen zionarekin batera. **penitenteak** bere hoben guztiak idatzirik zeuzkan paper bateko letra guztiak desagerrarazi zituela. **Jon Alonso**

Baldin Madalena horrelakoa bazen, arrisksuagoa izan behar zuen **penitente** gisa bekataria gisa baino. **Jon Muñoz**

## 2 penitentzia egiteko, prozesio batean ateratzen den pertsona.

Hala nola sufrimenduari eta oinazearekin lotu hainbat pena eta trabailu: hamaika prozesioetako **penitenteak** eskaintzen dizkigutenak, konparazioe. **Joan Mari Irigoien**

## 3 (hitz elkartuetan)

Txus Bidorretak zuzentzen duen **penitente** taldeak bijilia latza izango du aurten, sufrimendu eta lanez bete. **Berria - Kirola**

-Nire karguak eragozten zidak **penitente** itxura hori hartzea. **Edorta Jimenez**

## 4 (izenondo gisa)

Gizon arrunta, ezkondua eta seme-alabak zituen, eta ez elizgizon, edo gutxienez ezkongabe **penitente** eta santua. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Hemen esaten da San Antoniok **penitente** bat aurkitu zuela, eta ikusi zuela absoluizioa merezi zuela, eta eman egin ziola, eta ematen zionarekin batera. **penitenteak** bere hoben guztiak idatzirik zeuzkan paper bateko letra guztiak desagerrarazi zituela. **Jon Alonso**

# penitentzia 1 iz apaizak aitortzaileari ipintzen dion zigorra; norbaitek bere buruari, egin dituen bekatuak ordaintzeko, ipintzen dion oinazegarri edo nekagarria.

Promesaren batengatik edo bekatuengatik ezarritako **penitentziaren** bat betetzeko, San Mikel goiangeruaren santutegia bisitatzea zihoalarik, iturri batera iritsi zen.

**Askoren artean**

Bekataria zailduak, bekatuaren atzaparretan behin eta berriro erortzen ziren bekataria azal-lakartuek, aita Romeroren **penitentziak** konplutuz, kafe-landareak aldatu zituzten beren lurraldeetan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Makilada batzuk eta bertze anitz **penitentzia** manatu zizkion. **Joan Mari Irigoien**

**Penitentziak** baino ez baitzuten barkamena ekarriko. **Karlos Linazasoro**

Eta biek ordaindu beharko zutela **penitentziaren** zigorra. **Fernando Morillo**

Hain **penitentzia** latzez saiatzeko ziren haragizko grinak menperatzen, non ez baitzuten ikararik izaten izotz gainean biluzteko edo gorputza arantza zorrotzez odola egiteraino urratzeko. ustez beren jakintza eta predikatuaren bidez onbidean eraike eta **penitentziara** erakarri dituztenak. **Askoren artean**

Zer den **penitentziako** sakramentua eta zer haren parteak. **Piarres Xarriton**

Biziera hau "**Penitentziako** Anaia Ordena" deitzea erabaki zuen Kristoren zerbitzariak. horretan dute poza, eta guztiak bakea eta ona iragartzen diete, eta **penitentziara** (konbertsiora) deitzen. **Askoren artean**

Gu Jaunaren koplari gara, eta sari hau nahi dugu zuegandik egin dugunagatik: irau deazuela benetako **penitentzian**. **Askoren artean**

## 2 (egin aditzarekin)

Bekatu egiten duenak egin behar **penitentzia**. **Koldo Biguri**

**Penitentzia** egitean, gogor bere buruarekin, gupidatsu besteekin. **Askoren artean**

Lege-hauste handiren bat egingo zuela Anshelek bururatu zitzaion beste norbaiti, eta erbestera joana zela **penitentzia** egitera. **Koro Navarro**

Jainkoaren beldur izaten hasi zen eta bere etxean **penitentzia** egiten. **Askoren artean**

Eta egin beza gero bere bekatuen **penitentzia**. **Askoren artean**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat penitentzi)

**Penitentzia** eguna meza batekin prestatu digu. **Pello Zabala**

Nonbait onartzen ez badituzte, doazela ihesi beste norbait **penitentzi** bizitza egitera, Jainkoaren bedeinkapenaz. **Elizen arteko biblia**

Apaizek onesti hitz egin bezate haiekin, **penitentzi** sakramentua nahiz bestelako aholku espiritualak ematerakoan. **Askoren artean**

Debotoentzat arropa zaharren pusketak **penitentzia** seinale ziren, purifikazio gurarien adierazgarri. **Pello Zabala**

Frantzisko, Goi-goikoaren zerbitzari eta adiskide, Anaia txikien Ordenaren fundatzaile eta gidari, Pobretasunaren jarraitzaile, **penitentzi** eredu, egiaren mezulari. **Askoren artean**

Lehen frantziskotar herri- edo **penitentzi** predikazioaren adibidea da. **Askoren artean**

Badirela halaber bi **penitentzia** mota: bat gaitza, ongia eginagatik dena, eta bestea ona, gaitza eginagatik eta bekatu eginik etorria. **Piarres Xarriton**

## 4 (hitz elkartuean bigarren osagai gisa)

14rena festa-egun handia zenez, hor ezin zitekeen otoitz-**penitentzia** egunik onar: hori pasatuta gero beharko zukeen. **Pello Zabala**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**penitentzi bizitza** (12); **penitentzi bizitza egitera** (3)

**bekatuengatik penitentzia egin** (5); **egin penitentzia** (3)

**penitentzia bete** (3); **penitentzia egin** (25); **penitentzia egin zuten** (4); **penitentzia eginez** (5); **penitentzia egitea** (3); **penitentzia egiteko** (6); **penitentzia egiten** (13); **penitentzia egitera** (7); **penitentzia egunak** (19); **penitentzia hots** (3); **penitentzia predikatzeko baimena** (3); **penitentzia santua** (3)

**penitentziako sakramentua** (4)

**penitentziara erakartzen** (4)

**bataioaren eta penitentziaren** (3); **penitentziaren penitentziaz** (3)

# penitentziagile *(orobat penitentzile; Euskaltzaindiaren Hiztegian penitentziagile agertzen da)* 1 izond/iz penitentzia egiten duena. ik **penitente**.

Saindu **penitentzile** zenbaiten azotzeko zigortzeak zer zorian dauka? **Piarres Aintziart**

Gutunak erakusten du zer ziren jatorrian anai-arreba **penitentziagileen** elkarteak. **Askoren artean**

**Penitentziagileak** aitorlea aukeratzen du, gero bere **penitentziagile** bihurtuko dena, eta bakoitzak hogeita hemeretzi zigorkada jasoko ditu elkarrengandik, nahigabez beterik aitortza formula erretratzen duen bitartean. **Juan Martin Elexpuru**

Neure buruari errua egotziz bizitzan gaizki ateratako gauza ororengatik, neure arima gaixo pitzatua zigortuz Erdi Aroko **penitentziagileren** batek bezala. **Oskar Arana**

Goizeko 09:00etarako Orotz-Beteluko eta Nagoreko lehenengo **penitentziagileak** ailegatu ziren Auritzera. **Edurne Elizondo**

## 2 irud/hed

Penitentziako Hirugarren Ordena, Frantziskoren predikazioak sekularren artean eragindako berrikuntzatik sortu zen, urte haietako beste zenbait mugimendu

**penitentziagileren** antzera. **Askoren artean**

**penitentziaria** *iz* Erromako eliz tribunala, buldak eta dispensak ematen dituen.

1567ko urrian Erromara heldu zen eta **Penitentziaria** Sainduko Kanonista izendatu zuten. **Piarres Xarriton**

**penitentziario** *izond* espetxeei eta espetxe zigorrei dagokiena.

Ushuaia kolonia **penitentziarioa** izan zen luzaroan, XXgarren mendearen lehen erdi osoan. legeria aldatu baino lehen saiatu zen Auzitegi Nazionala presoen onura **penitentziarioak** bertan behera uzten. **Joseba Sarrionandia**

penitentzigile ik **penitentziagile**.

**penizilina 1** *iz* onddo batetik (*Penicillium notatum*-etik) ateratako antibiotikoa.

Gerla denborako haurrek eta gazteek badakigu zer mirakulua izan zen **penizilinaren** agertzea 1945ean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Handik urte frankora, **penizilina** deskubritu eta gero, gure aitak askotan esan ohi zuen: "**penizilina** izan balitz Galeotti gizajoaren garaian, ez zen hilko". **Fernando Rey**

**Penizilina** eman zidaten, eta **penizilinarik** ezin hartu duten horietakoa naiz. **Koro Navarro**

Noranahi dela ere, **penizilina** hartu beharko duzu zortzi egun lehenago eta zortzi egun geroago. **Joseba Urteaga**

Estreptokokoek eragindako birikeriak joa hil zen; gaur egun **penizilinarekin** sendatzen da. **Fernando Rey**

**Penizilina**, esaterako, hilgarria da akurientzat; artsenikoak gizakiak hiltzen ditu, baina ardiek kopuru izugarriak jan ditzakete. **Berria - Gaiak**

Dirua ere aipatu zuten, zenbat diru atera behar zuten merkatu beltzean **penizilina** hori salduz. **Alberto Ladron Arana**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Penizilina** potetxoz beteriko hiru kutzak. **Alberto Ladron Arana**

**Penizilina** buata, zakutrika eremanak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Penizilina** kutxen lapurretaren berri izanik, [...]. **Alberto Ladron Arana**

**Penizilina** -errezeta bat banuela esan nion. **Joseba Urteaga**

Amak ospitaleetik atera ninduen egunean erran zidana ekarri nuen gogora, alegia, **penizilina** faltagatik moztu behar izan zidatela hanka. **Alberto Ladron Arana**

-Zuek ez dituzue mediku militarrek ezagutu, nik bezala, gerraondoan **penizilina** kontrabandoa egiten zenean. **Koldo Izagirre**

**penkatu**, penka, penkatzen du *ad* irakasgai baten azterketa ez gainditu.

Pelotak aprobatu eta beste **guztiak** penkatu. **Jon Arretxe**

Bizpahiru, gutxienez, **penkatu** beharko ditut, inork ez pentsatzeko flete hutsa naizela. **Jon Arretxe**

**penny** (*40 agerraldi, 10 liburu eta 4 artikulutan*) *iz* ingeles txanpona, libraren ehunena balio duena. ik **penike**.

Zure hemezortzi txelin eta hiru **pennyekin**, izango ditugu hiru libera, bederatziz txelin eta zazpi **penny**. 1970ean, sistema hamartarra hartu zuten, eta libera 100 **penny** izatera pasatu zen. **Julen Gabiria**

Ogia eta gurina dago hasteko, hiru **pennyko** txanpon baten tamainakoak. **Julen Gabiria**

Cecco izeneko mutil batek **penny** bateko txanpona galdu zuen eta, bila zebilela, **penny** biko txanpona aurkitu zuen. **Julen Gabiria**

Abbeyko akziodunek Santanderren akzio bat eta 31 **pennyko** dibidendua jasoko dute euren akzio bakoitzeko. **Berria - Ekonomia**

Sei **penny** dira aleko, posta gastuak aparte. **Karlos Zabala**

Sei **pennyren** truke erosten dizut txakurra. **Mirentxu Larrañaga**

Kontzientzia txarra arintzen laguntzen zien guri **penny** ale batzuk emateak, inbasoreak etxetik kasatu duenarekiko elkartasun horrek. **Koldo Izagirre**

penos ik **penoso**.

**penoso** (*orobat penos*) *izond* neketsu, nekezkoa.

Benetan **penosoak**, baina zitalak, hitzetan nekez laburbil daitekeen zitalkeriaz beteak; gaixoarentzat, batez ere -esan beharrik ere ez zegoen-, baina zitalak, baita ere, gaixoaren inguru afektiboan osatzen dutenentzat. **Jon Alonso**

Eta haiek ere hemendik ez oso urrun ibili ziren, bidaia ezin **penosago** hartan, ibai Amazonasen barrera...! **Joan Mari Irigoien**

pensatu ik **pentsatu**.

**pentagonal** *izond* pentagonoarena, pentagonoari dagokiona.

Haien arrazoibidearen arabera, imajinaezina da sala triangeluar edo **pentagonalik**. **Juan Garzia**

Zenbaki osoak hiru zenbaki triangeluarren, lau karraturen, bost **pentagonalen**, eta abarren batura dira. **Jon Muñoz**

**pentagono** *iz* bost alde dituen poligonoa.

Dodekaedroa, hamabi aurpegiak **pentagono** erregular dituena; eta ikosaedroa, hogei aurpegiak triangelu aldekin dituena. **Jon Muñoz**

**pentagrama 1** *iz* bost marra paraleloren multzoa, musika notak idatzeko erabiltzen dena.

Papera eta idazteko zerbait behar dugu poesia idazteko, edo **pentagrama** bat, melodia non jarri izateko. **Luis Elberdin**

**Pentagrama** artean hazi dira; krako, konpas eta abarrekin borrokan eta jostatzen, eta hemendik aurrera, afizio ez ezik, ofizio ere izan nahi dute musika. **Berria - Harian**

Bai, metaliteratura xuria da hau, baina ez hitzetara edo **pentagramara** ezin ekarri dudan melodia hori. **Patziku Perurena**

Harik eta buruko kutzaren batean gordeta zeukan eta berreskuratut nahian ari zen hori benetan entzun eta **pentagraman** idazten hasten zen arte. **Alberto Barandiaren**

Asmatzeko daude oraindik bere **pentagramak** ongien interpretatuko dituzten musika-tresnak. **Harkaitz Cano**  
Irratia atearen azpialdeko bozgorailuetatik zetorren, norbait eserleku azpitik hizketan ari balitzaigu bezala, eta biolin talde baten allegro-a sortu zen berehala, iluna zen allegro mehe sotil bat. **pentagrama** ikusezinaren geografia guztia zehatz zeharkatuz. **Lander Garro**

## 2 (hitz elkartuetan)

Aurrekoak bezala, argitalpen berria ere argazki eta musika: **pentagramaz** hornitua dago. **Berria - Kultura**

## 3 irud/hed

Kolpe erritmiko horiek -gerora amodioaldi bat baino gehiago ekarriko zuen elkarriketa bateko galde-erantzunak- Sarriegiren martxak jasoko zituen gero **pentagramara**.

**Askoren artean**

Donostiako herri sentipenaren adierazpen benetakoa **pentagramara** eramaten jakin zuen, balio handiko orrialde musikalak utzi zizkigun, herriaren bihotzak bereak bailiran maite dituenak. **Askoren artean**

## pentametro *iz* ahapaldi lerroez mintzatuz, bost oin dituen.

Errimarik gabeko **pentametro** ianbikoak. **Xabier Olarra**

**Pentametrea**, behiala sugaeren mintzoa gantzutzeko hain kadentzia egokia zuena, orain, harridura-eragile baino ez da. **Oskar Arana**

## pentapasto *iz*

Aldiz, beheko trokolan bi polea eta goikoan hiru mugitzen direnean, horri **pentapastoa** deitzen zaio. **Santiago Iruretagoiena**

## pentaplegiko *iz* burua eta lepoa baino highi ezin dituen tetraplegikoa.

Jorge Leon **pentaplegikoaren** heriotzak berpiztu egin du Espainian eutanasiaren inguruko eztabaida. **Berria - Gaiak**

## pentateuko 1 *iz* Bibliako lehen bost liburuen multzoa.

Israelen historiaren atariko gisa eta hura testuinguru zabalago batean kokatzeko edo, munduaren hasieraraino hedatzen da **Pentateukoaren** ikuspegia. **Jose Antonio Mujika**

**Pentateukoaren** bertsiio laburtua da hemen aurkezten duguna. **Jose Antonio Mujika**

Ez zegoen erantzunik galdera honentzat, ez **Pentateukoan**, ez Talmudean, ez Zohar-ean, ez Bizitzaren Zuhaitzan. **Koro Navarro**

Gauza bera gertatzen da profeten liburu guztietan, bai eta **Pentateukoan** ere, Jainkoaren ezagutzari doakionez. **Xabier Kintana**

Ateak itxeko eta leihoak estaltzeko esaten zion Yentli, eta gero elkarrekin makurtzen ziren **Pentateukoaren**, Mishnahen, Gemararen eta Komentarioen gainean. **Koro Navarro**

Filakteriak larruzko bi kutxatila dira, larruzko zintak atxikiak dituztenak, eta **Pentateukoko** pasarteak dituzte barruan, hebreeraz idatziak. **Koro Navarro**

## 2 (izen berezi gisa)

Nire adimena gutxiesten eta astakeriak errepikatzen, **Pentateukon** kastitateari eusteko manamenduak daudela lotsagabe adierazten. **Karlos Zabala**

## pentatloi *iz* bost ariketa olinpikoren multzoa.

Marka onenak: 4.031 puntu **pentatloian** eta 5.336 puntu heptatloian. **Berria - Kirola**

Unzu **pentatloian** nagusitu zen eta Agirre pertikan. **Berria - Kirola**

**Pentatloiko** Espainiako Txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan Donostian. **Berria - Kirola**

**Pentatloia**ren azken proba, 800 metrokoa. **Berria - Kirola**

## pentekostalismo *iz* Espiritu Santuaren dohainei berebiziko garrantzia ematen dion eta Bibliaren hitzez hitzeko interpretazioa egiten duen kristautasuna.

Gaur egun, ordea, bat etortzen naiz sarritan protestanteekin, kalbinistekin ez, hori ez, eta ezta, noski, orain inbaditzen gaituen **pentekostalismo** historiko jatorri eskaseko honekin ere. **Karlos Zabala**

## Pentekoste ik Mendekoste.

## pentoka *iz* muinoa.

Hollywood eta Marilynen aipamenean, izar ihintzez busti **pentoka** ezietara eramaten ninduten, haurtzaro osoan zaintzen nituen artaldeengana laburki erranik. **Itxaro Borda**

Haragiak gustu eta urrin berezia du, bortitza, **pentoka** malkarretako belar zekenarena. **Itxaro Borda**

**Pentoka** izar batetik malda samurragoetara terrentan genbiltzan garaian bezala. **Itxaro Borda**

Amodio eremu suntsitua nintzen, hautsezko **pentoka**, zerutik isuri euri nitrikoa. **Itxaro Borda**

Begien bistakoa da natura eta kultura elkartu eta gainditzen dituela: gasna biribil berde bi munduratzekotan, ardia eta **pentoka** behar dira, baina orobat giza ekina eta esku ahurretako mina. **Markos Zapiain**

## pentaberri, pentsaberri(tu), pentsaberritzen du *ad* berriro pentsatu. ik birpentsatu.

Berak bakarrik jakinen du zenbat aldiz abiatu den Nietzschegandik, nahiz haren suma **pentsaberriuz** askotan ukatzen bukatu. **Patziku Perurena**

## pentabide 1 *iz* pentsatzea, pentsatzeko ildo.

Ez nuen ildo hartatik jarraitu nahi, ahulgarria baitzen, eta suspertzeko asmoa izan nuen, **pentabide** hartatik ateratzekoa. **Bernardo Atxaga**

Horra hor, **pentabidea** moztu didazu. **Agustin Otsoa**

Orduan, atea jo zuten, horrexek salbatu zuen **pentabide** ilunetan gehiago barrentzetik. **Iñaki Iñurrieta**

**Pentabideak** mozteko sistemarik zaharrena, errepika, asmatu zuten maisuek ongi jakin behar dute horren berri. **Patziku Perurena**

Zein **pentsabide** berezitatik jo ez dakit, baina, oro har, iritzia emateko gai naizeno, egundokoren bat iragartzen zaio gure erresumari. Juan Garzia

## 2 pentsatzeko modua. ik **pentsamolde**; **pentsaera**.

Epailak senarraren jokabidearen motiboak asmatu eta batere argia ez zen **pentsabide** batez erabaki behar zuen. Iñaki Iñurrieta

Gainerako Mendebaldeko kristau-pentsalariak Agustinekin zorretan sentitzea normala zen, hark eskainitako **pentsabide** eta pentsamoldeen originaltasuna eta indarra kontuan hartzen badira bederen. Askoren artean

Berto horien moldea eta **pentsabidea** ahozkoa izango dira akaso, baina ez dira bat-batean sortutako bertsoak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kanten ideia-ardatzak ezeze, Europan garai horretan nagusi ziren **pentsabideak** ere deskribatzen ditu, ez bakarrik filosofia arlokoak, baita literatura, arte eta beste eremu batzuetakoak ere. Berria - Kultura

Besteen moduan eta guztion markoetan desarroilatuko dira orokorki haren **pentsabideak**: estatu-gizartetik baino askoz zailagoa baita norbere denboratik aparte jartzea, libertatean pentsatzeko. Joxe Azurmendi

Alabaina, Beaumanoirren garaian **pentsabide** nagusia lehia judizialaren usadioari mugak jartzea zen. Iñaki Iñurrieta

Aspaldian gainditu omen dugu **pentsabide** mitologikoa. Joxerra Garzia

## **pentsaera** (orobat **pentsakera g.er.**; *Euskaltzaindiaren Hiztegia* **pentsaera** agertzen da) **1** iz pentsatzeko era. ik **pentsamolde**.

**Pentsaera** eta jokaera bakarria emango dizkiet, bizitza guztian begirune izan diezadaten, beren eta ondorengoan onerako. Elizen arteko biblia

Hizkerak moldatzen du pentsamoldea? edo **pentsaera** aldatu behar da hizkera berria egiteko? Berria - Euskal Herria

Hitzek salatzen dute gure **pentsaera**. Iñigo Aranbarri

Bere izaera eta **pentsaera** taxutu zuten hainbat eta hainbat eragile. Imanol Unzurrunzaga

Kulturaz, herri baten biziera, lana, sentiera, **pentsaera**, jakitatea, jokaera, sentikortasuna ulertzen dugu. Berria - Harian

Hala obratzen da, zizelkariak harrian nola, milioika lagun **pentsaera**. Iñigo Aranbarri

Psikoanalisiaren **pentsaeran**, gizartea desiraren errepresioan oinarritzen da. Joseba Zulaika

**Pentsaera** askotako 50 emakume baino gehiagok sinatuko dute adierazpena. Berria - Euskal Herria

**Pentsaera** hau, noski, ultranazionalista da, totalitarioa. Bernardo Atxaga

Athenaiko demokrazia erradikalarentzat heroi eta ideologo handia izan zen Periklesek [...] oinarri sofistikoa nabarmenak erakusten ditu bere **pentsaeran**. Askoren artean

Guztia ere, Kantek **pentsakeraren** iraultza bat sortu du Filosofian. Ibon Urizarri

Zeri uko egingo dio nire nortasun eta **pentsaerako** gizonak? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dira ezker abertzalearen **pentsaerakoak**. Jokin Urain

Nire **pentsaera** neu naiz: horra zergatik ezin naizen gelditu. Monika Etxebarria

Nire **pentsaera** ez da aldatu, horri buruz ari bazara. Oskar Arana

Bere **pentsaera** besteei osorik helaraztea ziurtatzeko. Askoren artean

Nazio bat ez baita istant batean aldatzen **pentsaeraz** eta jokamoldez. Iñaki Iñurrieta

## 2 (izenondoekin)

**Pentsaera** bakarrak pentsamendu propioa du etsai, nor bere gogoeta askeaz eraikitzen duen pentsamoldea, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Tentsio berezi horrek **pentsaera** dinamikoa erditzen du. Pako Aristi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halaber, harremanetan zegoen ere filosofia grekoerromatarren ondare bezala gelditutako zenbait **pentsaera**-iturriekin. Askoren artean

Duns Scoto Frantziskotar Eskola berantiarrean gidarizat hartua izan zen, eta **pentsaera**-korrante arrakastatsu baten ildo utzi zuen irekita ondorengoentzat. Askoren artean

Janzkerako aldaketa horiek **pentsaera**-mailan zegozkien aldaketen kanpo-ikurrak ziren. Iñaki Mendiguren

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Idea hau kristau-**pentsaeraren** topiko bihurtu zen. Iñaki Mendiguren

Kristau-**pentsaerak** lehendik zeukan joera neoplatoniarra indartzera. Askoren artean

Zerikusia du galdera horiek guztiak gizakiaren izateari buruzko galderaren inguruan ordenatzen dituen antropologi **pentsaerarekin**. Xabier Arregi

Berak ondo dioen bezala, filosofia **pentsaera** inguruan kokatu zen bere problema mingarria. Jenaro Garate

Era izugarri eta **pentsaezinean** garaitzen dituzula etsai maltzuraren trikimailuak. Askoren artean

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere pentsaera** (14); **beren pentsaera** (4); **gure pentsaera** (7); **neure pentsaera** (4); **nire pentsaera** (11); **orduko pentsaera** (3); **pentsaera aldatu** (7); **pentsaera jakin** (3)

**erdi aroko pentsaerak** (4)

**erdi aroko pentsaeraren** (8)

**pentsakeraren iraultza** (5)

## **pentsaezin** **1** *izond* ezin pentsatuzkoa.

-Nik uste dut hiri hau gauza **pentsaezinak** nahi dituen jendeaz gainezka dagoela... Lopez de Arana

Sendagileek berek ere dirutza **pentsaezinak** ordainarazten zizkieten beren bezeroei penizilinaren truke. Alberto Ladron Arana

Manu Arregiren On my own bideoa aipatu zuen: «hasiera oso gozoa duen arren, amaiera guztiz **pentsaezina** du». Berria - Kultura

Alderdien mahaia **pentsaezina** da Batasuna gabe. Berria - Euskal Herria

Fraide haiek politikan sarturik ibil zitezkeenik **pentsaezina** zen, eta politikaren mundua gauza urruna zen guretzat oraindik. Xabier Mendiguren Elizegi

Orain normal ikusten duguna, publikitate hori hor egotea, **pentsaezina** zen, ez duela mende bat, duela hamalau urte baizik. Berria - Euskal Herria

Duela mende bat **pentsaezinak** ziren metodoak izatea gaur egun benetan gauza ederra da. Luis Elberdin

Hirurehun franko irabazten nituen hilean; ezkontzea **pentsaezina** zen, baita ekonomiaren ikuspuntutik ere, besteak beste. Joxe Austin Arrieta

Hasieran ezin nuen sinetsi ere egin: hain zen **pentsaezina**... Xabier Mendiguren Elizegi

**Pentsaezina** iruditzen zitzaion Kat bezalako andra batekin nahastea. Sonia Gonzalez

## 2 **pentsaezinezko** *izlag* pentsaezina.

Israelengatik bizitza eman nahi eza... **pentsaezinezko** gauza zen. metal hari mordo hura edozein neurritan bihurtzen zen, zernahi forma erdietsiz, **pentsaezinezko** neurriak lortuz. Joseba Zulaika

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**hori pentsaezina zen** (4); **la pentsaezina** (4); **pentsaezina da** (17); **pentsaezina dela** (5); **pentsaezina zen** (33); **pentsaezina zen hori** (4)

**pentsaezinak ziren** (6)



## pentzagai *iz* pentsatzeko gaia.

Agatak izenak **pentzagai** zituen; alabaina, lankide bat bazuen Therese deitua izatea eskatzen zuena atsolutoki, gehienei eskapatzen zitzaion Tehexaren orde. **Itxaro Borda**

## pentzagailu *iz* pentsatzeko gailua.

Hau da, «Buru **pentzagailu** gisa pausatzen ez den bitartean, ez duzu fisikoki lasaitasunik sentituko». **Berria - Euskal Herria**

## pentzagaitz *izond* ia ezin pentsatuzkoa.

Azaldua dut gorputzak zenbateko abiaduran hegatzten ziren eta nolako distantzia **pentzagaitzak** amen batean kurritzen zituzten. **Xabier Amuriza**

Zeren naturak andere gisan gobernatzen baitu, eta bere 'desbideagatik' gaude historiara, historia **pentzagaitzera** zabalik. **Xabier Amuriza**

Gure historia hurbilean parekorik ez duen itxaropen garaia zabaldu den heinean, egoerak berriz ere atzera egingo duela **pentzagaitza** da. **Berria - Harian**

## pentzagarri *izond* pentsa daitekeena, pentsatzeko modukoa.

Baina objektu **pentzagarri** gisa ere ematen ez denez gero, orduan **pentzagarria** den aldetik ere ez da ikergaitza. **Ibon Uribarri**

Barneko aldaketa **pentzagarria** egitearren. **Ibon Uribarri**

Halere, Moralerako askatasunak bere buruarekin kontraesanik ez izatea besterik behar ez dudanez, eta gehiago aditu behar gabe gutxienez **pentzagarria** gertatzen denez, [...]. **Ibon Uribarri**

Izan ere, mundua agerpenen batuketa bat denez gero, orduan bere oinarri transzendental batek, h[au] d[a], adimen hutsari soilik **pentzagarria** zaionak izan behar du. **Ibon Uribarri**

## pentzaka *adlag* pentsatzen.

Ez nuen ahalegin izugarrikeri ere egin, baina, **pentzaka** jartzen nintzen bakoitzean, batere ideiarik ez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Mutikoa bere gogoetan ari zen bitartean bahitzaileek **pentzaka** jarraitu dute, eta azkenean erabaki dute zulo hau ez dela segurua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Tabor hori Euskal Herriko zein bazterretan ote dagoen **pentzaka** dugu dagoeneko mendizale gazteren bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## pentzakera ik pentsaera.

## pentzaketa 1 *iz* pentsatzea; gogoeta.

Holako **pentzaketak** bekatura bideratzen duela. **Michel Oronoz**

Pentsatzea **pentzaketaren** legeak eurak aurkitzea da. **Xabier Amuriza**

Mahasti goxo honen erdian erabili ditudan **pentzaketa** beltzak natura liluragarri eta arratsalde eder hauei ez dagozkie. **Piarres Aintziart**

Baina ez diozu kasurik egin eta zure **pentzaketetan** galdurik berriz hasten zara irakurtzen. **Ramuntxo Etxeberri**

### • 2 *adlag ipar* pentsatzen.

Ikusten nituelarik elgarrekin Bush eta Aznar, ari nintzan **pentzaketa** bakoitzak baduela bere deabrua. **Herria**

Imanaren aldakortasunak, Ortibetako eta Okasoetako Anplitudoen Taulek, proiektzio estereografikoek, **pentzaketa** jartzen ninduten. **Aurelia Arkotxa**

Anitz aldiz egoiten naiz **pentzaketa**: nola ukaiten ahal zuen bada holako pazientzia gizon horrek gurekila? **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bidaieria so egile bat da, beti **pentzaketa**. **Piarres Aintziart**

Nork trahitu dituen **pentzaketa** daude. **Marzel Etxehandi**

Ea ezagutu zuten... -Kattalin **pentzaketa** bezala hasten da, ezpainak ximurturik... -ez dut uste. **Eneko Bidegain**

Denak isildu ziren, **pentzaketa**. **Aurelia Arkotxa**

### 3 *pentzaketan* gogoetan, pentsatzen.

Beti **pentzaketan** ari da, Joanesez, oraingo belaualdikoa balitz, zein bide har lezakeen... **Eneko Bidegain**

Horretan hasi nintzen **pentzaketan**, saltxitxoi bokata jaten ari nintzela. **Jesus Mari Mendizabal**

Tarte batez isilik geratu nintzen, **pentzaketan**. Lauaxetarekin nuen solasaldia etenda. **Juan Luis Zabala**

Gero aulki batean eseri eta **pentzaketan** gelditu nintzen. **Fernando Rey**

Joantto **pentzaketan** egon zen. **Elena Touyarou**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pentzaketa ari** (4)

## pentzaketatu, pentsaketa(tu), pentsaketatzen du *ad ipar* pentsaketa aritu.

Nik bezalaxe bertze ainitzek hau dute **pentzaketatu**. **Herria**

## pentzakide *iz* pentsera bereko pertsona.

Hastapenean, Sokratesek aipatzen zuen harpe ilunetik hinki-hanka ateratzearen antzekoa da, zaila, isolamendu intelektual iturri, eta gero norbera emeki-emeki abiatzen da berea den pentsabide biluzian, **pentzakide** berriak bilatzen saiatuz. **Itxaro Borda**

## pentzakizun *iz* pentsatzea, gogoeta.

*Pentsamendu* izena ere ez zuen merezi; **pentzakizun** baten itzala zen beharbada, edo **pentzakizun** baten lehengai, lehenagotik ere hantxe gordea zegoena. **Ramon Saizarbitoria**

Nabigatzen ari zirela pasatu zitzaion burutik, eta dibertitu egin zuen **pentzakizunak**. **Anjel Lertxundi**

Nork lekike zer prezio egokitu, demagun, Lao-Tseren **pentzakizun** bati? **Josetxo Azkona**

Lehenagoko **pentsakizun** bera etorri zitzaidan: [...]. **Ramon Saizarbitoria**

**Pentsakizun** bat barruratu zitzaidan neure baitan, eta ez zidak harrezkero sekula ihes egin. **Jon Muñoz**

Mikel Strogoff aurrera zihoan, bada, ia berbarik esan gabe, bere **pentsakizunetan** murgildurik. **Karlos Zabala**

**Pentsakizun** horiek buruan bueltaka zituela, emakumearen ahotsa iritsi zitzaion egongelatik. **Jasone Osoro**

Xerealen ahotsak atera zuen **pentsakizun** haietatik. **Iñaki Iñurrieta**

Uxa ditzagun **pentsakizun** triste eta ezkor hauek. **Joxemari Iturralde**

Era berean, buru barruan itzulika interesgarriak diruditen **pentsakizunek**, sarritan, hitz bihurtu bezain pronto erakutsi ohi dutelako beren zentzugabekiaren egia. **Ramon Saizarbitoria**

**Pentsakizun** atsegin eta kilikagarri horri esker, poz iturri agortezina zen pribilegio horren jakitun, oso gustura nengoen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ruche jaunarentzat, kontzeptu filosofikoak ez ziren inoiz **pentsakizun** hotzak izan. **Jon Muñoz**

## pentsakor 1 *izond* pentsatzeko joera duena.

Ni bezala, aita gizon **pentsakorra** zen, atsegin zitzaion buruaz lan egitea. **Alberto Ladron Arana**

Halaxe irudikatu nituen nik ganbitoaren estrategia liluragarria ikastea: zaharrak, isilik, **pentsakorrak**, eta bizkarrak etsaitasun adiskidetsu batez taula gainean okertuak.

**Alberto Ladron Arana**

## 2 pertsona pentsakorrari dagokiona.

Zer gertatuko zait bera hemen den bitartean, lanparak haren aurpegi lodi **pentsakorra** argitzen duen bitartean? **Monika Etxebarria**

Azkenean, musua nire alkandoratik atera, begietako malkoak lehortu eta begirada sakon eta **pentsakorra** zuzentzen dit. **Oskar Arana**

-Oso politikak, bai -onartu zuen azkenean senarrak, bere jarrera **pentsakorra** utzi gabe. **Patxi Iturritegi**

Hazpegiak keinu **pentsakor** batek hartuta zituen Del Vallek. **Alberto Ladron Arana**

Itxura **pentsakor** goxoa zeukan, buruan kapela eragabe bat zeraman, eta beroki marroi handi bat, soinean. **Karlos Zabala**

Frodo, ordea, isilik zihoan, itxura triste eta **pentsakorraz**. **Agustin Otsoa**

## 3 irud/hed

Descartes arabera bi substantzia-mota daude, fisikoa (*res extensa*) eta **pentsakorra** (*res cogitans*). **Askoren artean**

Substantzia fisiko eta **pentsakorraren** artean dauden desberdintasunak desberdintasun, ordea, Descartes ustez pertsonok substantzia biak ditugu geure baitan.

**Askoren artean**

## 4 (adizlagun gisa) gogoeta sakonak egiteko jarreran. ik **gogoetatsu**.

Aluanez, **pentsakor**, bibotea bihurtu eta, idazmahai aldera itzuli zuen aulkia. **Patxi Zubizarreta**

**Pentsakor**, eskuin eskuaz kokotsa igurtzi zuen. **Felipe Juaristi**

Mikel bitartean isilik, irribarre herabez, **pentsakor** edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Beraz, dirurik ez... - **pentsakor** gelditu zen-. **Migel Angel Mintegi**

-Ulertzen dut -esan zion Lupinek **pentsakor** -. **Iñaki Mendiguren**

-Ongi da -segitu zuen, egunkaria utzita eta niri **pentsakor** begiratu-, esanen dizut zergatik etorri naizen. **Fernando Rey**

- **Pentsakor** geratu zen, kalkulatzen bezala-. **Bernardo Atxaga**

Hausnarrean eta **pentsakor** geratu zen bera ere, baina haren oldozpenak positiboagoak ziren. **Jose Morales**

Txitxikovek berak jakinarazi zien etsai asko zituela eta bizia kentzen saiatu zirela behin baino gehiagotan, eta are **pentsakorrango** geratu ziren denak horretaz gogoratu zirenean. **Jose Morales**

Petrusek **pentsakor** begiratzeko dio, ulertu ez duelako itxurarik egin gabe. **Oskar Arana**

Ni tar-tar tar-tar hasten nintzenez, **pentsakor** irribarre egin eta gora eta behera eragiten zion buruari. **Irene Aldasoro**

Epaiketan lasai egon ziren bostak, baina oso serio eta **pentsakor**. **Jose Morales**

Zeharo **pentsakor** utzi nau honek. **Txillardegi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egon zen pentsakor (3); isilik eta pentsakor (6); oso pentsakor (4)

pentsakor begiratu (7); pentsakor bezala (3); pentsakor dago (3); pentsakor egon (5); pentsakor gelditu (27); pentsakor gelditu zen (13); pentsakor gelditzen (3); pentsakor geratu (71); pentsakor geratu zen (57); pentsakor geratzen (3); pentsakor geratzen da (3); pentsakor jarraitu (4); pentsakor jarri (3); pentsakor jarri zen (3); pentsakor utzi (8); pentsakor utzi nau (3); pentsakor zegoen (6)

serio eta pentsakor (3)

gizon pentsakorra (3)

## pentsalari 1 *iz* arazo orokorrez gogoeta-ekarpenak egiten dituen pertsona.

**Pentsalari** edo pentsamenduaren sortzailea pentsamendu biziaren apaiz kontsakratzailea besterik ez da. **Iñaki Segurola**

Greziar **pentsalari** gehientsuenentzat, "bi"an hasten ziren zenbakiak. **Jon Muñoz**

Gisa berean, Santamariaren solasek irakusten dute Euskal Herriak jasan berri zuen gerla zibilaren irakaspenak atera zituela **pentsalari** donostiarrak. **Piarres Xarriton**

Gero, David Ricardo edo Malthus-en pareko **pentsalari** handien ekarpenek osatu zuten Adam Smithen doktrina. *Torah*-ren misterioak soilki kontseiluko gizonari, **pentsalari** jakintsu eta mintzatzeko burutsua denari jakinaraziko zaizkio. **Iñaki Heras**

Xabier Lete... bihotz beroko **pentsalari** zorrotza, Euskal Herriari zinez ohore egiten dion artista aparta! **Herria**

Ondo jakina da Kierkegaard izan zela Unamunoren **pentsalari** kuttuna. **Joseba Zulaika**

John Stuart Mill ingeles **pentsalari** liberal eta demokraziazalearen (1806-1873) hiru saiakera nagusiak eman dituzte argitara, euskaratuta. **Berria - Kultura**

**Pentsalari** distiratsua da Kundera, axalekoa baina distiratsua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Heideggerren eragina nabaria zen Europako **pentsalari** existenzialistengan. **Askoren artean**

Ekarpen interesgarrienak, **pentsalari** enpirista britainiarrek egin zituzten. **Askoren artean**

Horren egilea, Simone Weil (1909-1943) andre judu eta kristau **pentsalari** sakon eta bipila zen. **Piarres Xarriton**

## 2 (izenondo gisa)

Halaxe deitzen dio ene adiskide **pentsalari** batek eternidadeari: "harrimen guzien iturri". **Patziku Perurena**

## 3 (adizlagun gisa)

Odolaren mintzoan daukazu beste hau ere, **pentsalari** egon eta gero: [...]. **Pello Zabala**

## • 4 *izond* pentsatzen duena. ik **pentsatzaile**.

'Izaki **pentsalari**' lez jarduteko, 'izaki maitale' lez hasi behar duela, nahi eta nahi ez. **Jenaro Garate**

Gizakiaren ustezko fakultateaz -une batzuetan gizakia **pentsalari** egiten duen arrazoimenaz- dena aurkitu eta neurtu nahian. **Jenaro Garate**

Baudelaire poeta **pentsalariaren** soneto bat, "Les Chats" izenekoa, landu nuen, izenlagunen erabilerak aztertuz. **Piarres Aintziart**

Hansez, gutziz sinetsi ezinik, begiak luzatu eta euskaldunaren buru **pentsalaria** ikusi zuen. **Alberto Ladron Arana**

Natura hau bikoitza da, edo natura **pentsalaria** edo natura gorputzdua. **Jenaro Garate**  
Ikasle handienekin Lukrezio lantzen nuen eta miresten betan poeta eta **pentsalari** zen idazlea. **Piarres Aintziart**

## 5 ez-pentsalari

Gaizkiaren semeak, ez-**pentsalariak**. **Karlos Linazasoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**greziar pentsalari** (5); **pentsalari frantziarraren** (3); **pentsalari handiak** (3); **pentsalari handiaren** (3); **pentsalari jakintsu** (3); **pentsalari sakon** (3)  
**natura pentsalaria** (3); **subjektu pentsalaria** (3)  
**greziar pentsalariak** (3)  
**euskal pentsalarien** (5)

## pentsamen 1 iz pentsatzeko ahalmena.

Buruko neuronak izugarri gehitu zirenez, **pentsamena**, hizkuntza eta ikasitakoaren transmisioa etorri ziren ondoren. **Luis Elberdin**  
Bere ahalmena taxutu ahal eta behar duela **pentsamenaren** objektuak aukeratzeko duen moduaren ezberdintasunaren arabera. **Ibon Uribarri**  
Besterik da, beste ertzean, izpiritua, pertsonaren pertsonalena, **pentsamen** garbi eta erabakimen garbia. **Joxe Azurmendi**  
Nire eskuak neurrerik ez daukanez gero, nire **pentsamenak** egingo du. **Jon Muñoz**  
Bestelako pentsamolde bertatikoago bat, hizkuntzaren bidez bideratzen ez dena [...] gure zentzumen-organoen pertzeptuetan oinarrituta zuzenean antolatzen dena baizik: zentzumenezko **pentsamen** bat. **Josu Zabaleta**  
Gure motako ezagutzaileri (sentimenen molde espazio-denborazko eta **pentsamen** mugatzaile diskurtsiboaren pekoa) ematen ahal zaion tankerako fenomeno edo agerpena. **Askoren artean**  
Hemen nauzu, txunditurik, geldi-geldirik, euriz zamaturik datorren hodei astun ilunak adimena itzaltzen didala, mutu **pentsamena** zure zabaltasun azkengabearen aurrean. **Jose Morales**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Honegatik dira **pentsamen** -forma soilak, eta beren bitartez ezin da oraindik ezin objektu determinaturik ezagutu. **Ibon Uribarri**  
Hau **pentsamen** -gauza da (*ens rationis*), hautaz pentsatzen dena eta arrazoimenaren indarrez halabeharrez auresuposatua ez dena. **Ibon Uribarri**  
Ezin zaigu zilegi izan gure adigai oro gainditzen duten **pentsamen** -zerizanak, ezer kontraesaten ez duten arren, objektu erreal eta determinatu gisa aipatzea. **Ibon Uribarri**

## 3 pentsamendua.

**Pentsamen** bat ukanen dugu Battitta Barbier aihertar adixkideaz, duela bi hilabete mundu hau utzi duena. **Herria**  
Memento hunkigarriena ixiltasuna, bihotzetikako **pentsamen** eta otoitzarekin. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pentsamen forma** (4); **pentsamen forma soilak** (3); **pentsamen gauza** (8)

## pentsamendu (2581 agerraldi, 228 liburu eta 264 artikulutan; orobat pentsamentu g.er.) 1 iz pentsatzea, zerbait gogoan erabiltzea; horren ondorioa. ik gogoeta.

Gure **pentsamendu**, sentimendu eta asmoak elkarri adierazi ahal izateko sortu du gizarteak hizkuntza. **Oskar Arana**  
Hitzak dira **pentsamenduari** gorputza ematen diotenak gure bizitzaren ispluan. **Pako Aristi**  
Hitzek inon ikasi gabeko jakite bat dakarte berekin, ezjakinak edo jakinezak gozatutako jakite bat, eta hargatik dira **pentsamenduaren** ama eta ume, arrazoiaren inude eta titi-ume. **Iñaki Segurola**  
Irakiten ari den ura bezain nahasi irudikatzen bazituen ere iraganeko **pentsamendu**, gogoeta eta oroitzapenak, beti bat eta bera amesten hasita zegoen etorkizuna: Andreasen ondoan. **Anjel Lertxundi**  
**Pentsamendu** horiek buruan, gailurra utzi eta mendiaren sakon baterantz abiatzen da, H letrarantz, Herensugea egoten omen zen leizearen bila. **Bernardo Atxaga**  
Iruainera joan zitzaidan **pentsamendua**, eta Lubis ikusi nuen zaldien pabiloian. **Bernardo Atxaga**  
Halakoxe **pentsamenduak** zerabiltzan buruan, hain zuzen, etxe hartara etorri eta gero. **Ibon Uribarri**  
Ilunpetan, batak bestearen **pentsamenduak** entzuten zituela ematen zuen. **Koro Navarro**  
Nadiak, ordea, **pentsamendua** igarri zion, nahiz ez ulertu zergatik bere lagunak presa zuen Irkutsuera iristeko. **Karlos Zabala**  
Kontua da **pentsamendu** horiek hartuta nuela gogoia, eskutik helduta sarrerako bidean eskailera mekanikorantz gindoazenean. **Ramon Saizarbitoria**  
**Pentsamendu** haiek, kalkulu haiek, Alcatrazeko argi motelek sortzen zituzten horma eta teilatu zirriborroekin nahasten zitzaizkidan. **Bernardo Atxaga**  
**Pentsamendu** batzuk ere - **pentsamendu** batzuen arrasto ahulak- erne zitzaizkidan ikusmiraren eraginez. **Bernardo Atxaga**  
Ezin kenduko dut burutik **pentsamendu** hau sekula ere. **Joxe Austin Arrieta**  
Horrelaxe, jaiotako **pentsamenduaren** jarioak irudiei laguntzen dienean. **Jon Alonso**  
Nagikeriak **pentsamenduak** hazten ditu, eta **pentsamenduak** arrisksuak izan daitezke, bakarrik bizi den edonork berehala ulertuko duenez. **Oskar Arana**  
**Pentsamendu** ezan dago Gaizkiaren erroa; edo, hobeto esan, ez- **pentsamenduan**! **Karlos Linazasoro**  
**Pentsamendua** alderri nerabilen, batetik bestera ziztu bizian, ezin sosegaturik. **Karlos Linazasoro**  
Orain aski duzu aurkikuntzaren zorianekin, **pentsamenduaren** logikak daroan bidearekin: azken negua, elur negu izan da. **Hasier Etxeberria**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Berrito ere mahaira inguratu nintzenezan, **pentsamendu** ilunak ahantziak nituen ia erabat. **Ramon Saizarbitoria**  
Gogoiun sumatzen zuten gaixoa ingurukoek, bere **pentsamendu** tristeetan murgildua. **Imanol Zurutuza**  
**Pentsamendu** eta amets ahulak ziren. **Bernardo Atxaga**  
Uxa ditzagun, beraz, hipotesi baldarrak eta **pentsamendu** ezkorrak. **Joxerra Garzia**  
**Pentsamendu** zoro hau bururatu zitzaion: zergatik lortu zuten munduaren garapen luzean, animalia guztien artean, emakumearen bularrek soilik tankera eder hori? **Ibon Uribarri**  
Zuzenean atzematen dela alderdi hori "zentzumenezko **pentsamenduaren**" bidez. **Josu Zabaleta**  
Komunean egin beharrekoak egiten zituenean izaten zituen ezkutuko **pentsamenduak**. **Koro Navarro**  
Horrela, ez diot inoiz ere sartzen uzten haragizko **pentsamenduari**. **Askoren artean**  
Huraxe bai heriozko **pentsamendua**. **Anton Garikano**  
Agian honek guztiak Maria Sara doktoreak, oraindik gutxi ezagutzeagatik, berarengan atzeman bide zuen zeharkako **pentsamendua** frogatzeko baizik ez du balio. **Jon Alonso**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Raimundo Silva, taxiak zeraman bitartean, **pentsamendu** -jario honetan abandonatu zen. **Jon Alonso**  
**Pentsamendu**, afektibitate eta portaera prozesuen nahasmena. **Berria - Gaiak**

Buru-argitasuna eta **pentsemendu**-zehaztasuna. Iñaki Mendiguren

Ohartzen da zein diren beraren alderik sendoenak: kontzentrazioa, **pentsemendu**-intensitatea, ziurtasuna, tinkotasuna, itxurakeriarako gaitasunik eza, tolesgabetasuna, zintzotasuna. Xabier Olarra

Alemanian ez da zehaztasun-espirtua hil oraindik, baizik eta ixilarazi egin dute epe laburrez jeinuzko **pentsemendu**-askatasunaren aldeko modazko oihuek. Ibon Urbarri

Eta orduan, ai ene, txoratzeko moduko **pentsemendu**-zurrunbiloak etortzen zitzaizkidan. Fernando Rey

Marta bakarrik, negar-zotin emean, maindire muturra hozkatuz, **pentsemendu**-txinparta bat begietan. Xabier Mendiguren Elizegi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Subjektu-**pentsemenduari** unibertseki dei egiten diona singularra da. Joseba Zulaika

## 5 pertsona edo kolektibitate baten berezko ideien multzoa.

Irakurketak **pentsemendua** aberasten dit, eta idazketak, berriz, nire **pentsemendua** zehazten. Anjel Lertxundi

Beren lanek eta zuzeneko irakaskuntzak asko indartu dute nire **pentsemendua** fonologian eta bestela. Lourdes Oñederra

Hobbesen **pentsemendua**, bai *De Cive*-n eta geroxeago *Leviatan*-en, formulazio horretan oinarritzen da. Esteban Antxustegi

Manex Erdozaintzi-Etxart: bizitza eta **pentsemendua**. Herría

Pentsalari edo **pentsemenduaren** sortzailea **pentsemendu** biziazen apaiz kontsakratzailea besterik ez da; **pentsemendua** ezin sor dezake inork: sortu egiten da handik edo hemendik, eta ibili, horretarako gauza bada. Iñaki Segurola

## 6 (izenondo eta izenlagunekin)

Platonen **pentsemendu** moral, politikoa eta zientifikoa, hau da, garaiko **pentsemendu** filosofikoa, orduantxe hasi zen eratzten. Askoren artean

**Pentsemendu** ekonomikoaren bilakaera. Iñaki Heras

**pentsemendu** tradizional arkaikoa galduz doanean. Joxe Azurmendi

Pentsemolde marxistak ere [...] **pentsemendu** klasikoaren ildotik jarraitu zuen eskuarteko dugun gaiari dagokionez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Pentsemendu** heretikoaren aurkako borrorak triskantza beldurgarriak eragin zituen Euskal Herrian XIII. eta XIV. mendeetan. Askoren artean

*Homo sapiens*aren baitan **pentsemendu** abstraktua eta hizkuntza sortu arte. Xabier Olarra

Saldoan goaz lanera, supermerkatuetara, bilkuretara, alde bateko zein besteko **pentsemendu** bakunetik kanpoko gogoeta propiorik ez daukagu. Itxaro Borda

Globalizazioaren eta **pentsemendu** bakarraren gainean aritu izan den pentsalari kritikoa ezaguna. Iñaki Heras

**Pentsemendu** maskulinoak kontzeptuen gainean hotzean pentsa dezake eta, aldiz, **pentsemendu** femeninoak pentsatzeko hurbiltasuna behar du, objektuak behar ditu, afektua, ukimena, usaimena, ikusmena... Ana Urkiza

Bestalde, gizakietan behintzat, **pentsemendu** abstrakturako gaitasuna du garunak. Irene Aldasoro

Erligioen barneko eta kanpoko **pentsemendua** Erligioaren Filosofia deiturikoan lotu behar dela. Askoren artean

Bi mutur dira amerikar **pentsemenduan**, elkarren kontra jarriak. Erromanikotik gotikora arteko aldiaren hasten da europar **pentsemendua** mamitzen eta sendotzen. Oskar Arana

Erdi Aroko **pentsemendua**, filosoifiaren ikuspegitik, zinez antzinako filosoifiaren jarraitzaileak har daiteke. Askoren artean

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru joera handitan jaso daitezke hainbat eta hainbat autore eta **pentsemendu** eskola desberdinen ekarpenak: joera liberala, joera marxista eta joera keynesiarra. Iñaki Heras

**Pentsemendu**-eskola batzuek esan dute zibilizazioen kolapsoak giza kontrolak kanpoko faktoreek eragiten dituztela. Iñaki Mendiguren

Ez da ahaztu behar ETArean formazio ideologikoan Europako **pentsemendu** joera berriak nagusitu zirela, ateismotik existentzialismora, marxismotik maioismora, antikolonialismotik nihilismora. Joseba Zulaika

Elkarren lehian dabilten **pentsemendu**-joeren konkurrentzia osasuntsu batek eraginda. Koro Navarro

**Pentsemendu** eredu berri bat aurkitu nahi badugu. Iñaki Heras

Estilo artistiko, **pentsemendu**-sistema, arau moral, egoera politiko eginak. Joxe Azurmendi

Egitura horiek ideiak, **pentsemendu** eskemak, iritziak eta portaerak baldintzatzen dituzte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Filosofia alemaneko **pentsemendu**-korrontea. Joxe Azurmendi

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Infinitu da giza **pentsemenduaren** garaipen nagusia, dio behin eta berriro bere filosofia matematikoak. Joseba Zulaika

Ez da erraza ekonomia **pentsemenduaren** historia laburra ematea. Iñaki Heras

Zehatz-mehatz jarduteko asmorik gabe bada ere, ekonomi **pentsemenduaren** eskolarik garrantzitsuenetan zeharreko ibilbide bat egingo dugu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Pentsemendu ekonomikoa merkatu **pentsemendu** bihurtu da. Iñaki Heras

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

azken **pentsemendu** (5); **bere pentsemendu** (19); **beren pentsemendu** (4); **gure pentsemendu** (6); **nire pentsemendu** (14)

**pentsemendu asko** (4); **pentsemendu bakar** (18); **pentsemendu bakar bat** (6); **pentsemendu bakarra** (26); **pentsemendu bakarrari** (4); **pentsemendu beltz** (4); **pentsemendu bera** (4); **pentsemendu espainol** (4); **pentsemendu gaiztoak** (4); **pentsemendu ilun** (5); **pentsemendu ilunak** (6); **pentsemendu kritikoaren** (5); **pentsemendu politikoa** (8); **pentsemendu soila** (4); **pentsemendu tristeak** (6)

ppren **pentsemendu** (4)

**bere pentsemendua** (17); **bizitza eta pentsemendua** (5); **euskal pentsemendua** (8); **gure pentsemendua** (6); **lehen pentsemendua** (6); **nire pentsemendua** (22); **pentsemendua adierazteko** (4); **pentsemendua irakurri** (8)

**bere pentsemenduak** (25); **gure pentsemenduak** (8); **halako pentsemenduak** (8); **nire pentsemenduak** (21); **pentsemenduak berak** (4)

miranderen **pentsemenduan** (4)

**bere pentsemenduaren** (18); **gure pentsemenduaren** (7); **mendebaldeko pentsemenduaren** (4); **nire pentsemenduaren** (5); **pentsemenduaren bidez** (5); **pentsemenduaren historia** (10); **pentsemenduaren historian** (7); **pentsemenduaren klasikoak** (9); **pentsemenduaren porrota** (5); **zure pentsemenduaren** (5)

**bere pentsemenduari** (5); **euskal pentsemenduari** (4); **pentsemenduari buruz** (5); **pentsemenduari buruzko** (4)

**bere pentsemenduekin** (6)

**bere pentsemenduen** (4); **gure pentsemenduen** (5); **nire pentsemenduen** (15); **pentsemenduen haria** (4)

**bere pentsemenduetan** (16); **bere pentsemenduetan murgilduta** (5)

**pentsemenduetarako terapia** (4)

**bere pentsemenduetatik** (7)

**beste pentsemendurik** (21); **beste pentsemendurik ez** (9); **pentsemendurik gabe** (5); **pentsemendurik gabeko** (6)

pentsementu ik **pentsemendu**.

## pentsemodu iz pentsemoldea.

**Pentsemodu** bikaina bere lanerako, hala ere, gehienetan. Xabier Olarra

Eta are gutxiago nahi luke, gaineratuko dut, inoren **pentsemodurik** aldarazi. Patziku Perurena

# pentsamolde 1 iz pentsatzeko modua. ik pentsamendu 5.

Horretarako, ordea, errotik aldatu beharko ditugu denok [...] gure **pentsamolde** eta jokabideak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Erresuma desberdinetakoak ginen, **pentsamolde** aniztetakoak, fedea ere ez genuen denek berdin bizi. **Marzel Etxehandi**  
Izan ere, korapilo asko ageri zaizkigu Vernerren **pentsamolde** eta nortasunaren inguruan. **Karlos Zabala**  
Funtsean, trinkotu smartuak ditugun zenbait eredu eta **pentsamolde** aldatu beharko ditugu. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
Hark [Agustinek] eskainitako pentsabide eta **pentsamoldeen** originaltasuna eta indarra. **Askoren artean**  
Jakina da K.a. VI-IV. mendeetako ilustrazioak -Xenofanesen **pentsamoldeak**, edo Sokrates eta Platonen proposamen etiko berriak- errefusatu egingo dituela garai zaharretako mundu-ikuskerak. **Askoren artean**  
Antitesiaren baieztapenen azpian **pentsamoldearen** erregulartasun perfektua eta maximen batasun osoa dagoela ohartzen da. **Ibon Uribarri**  
Suposatzen da, bestalde, historikotasunaren forma bakarrak eta berberak biltzen dituela egitura ekonomikoak, gizarte egonkortasunak, **pentsamoldeen** inertzia, ohikuntza teknikoak, jokaera politikoak, eta guztiei eraldaketa-mota bera ezartzen diela. **Xabier Arregi**  
**Pentsamolde** horri hermeneutika esaten zaio, eta horren egitekoa testua barren-barrendik interpretatzea da. **Askoren artean**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Pentsamolde** kalkulatzaillea erabat nagusitu da gure aroaz; meditazioak alde egin digu. **Markos Zapiain**  
**Pentsamolde** marxistak ere -XIX. mendea- pentsamendu klasikoaren ildotik jarraitu zuen eskuarteko dugun gaiari dagokionez. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
**Pentsamolde** klasikoak edo lanaren nazioarteko banaketaren apologia. **Koro Navarro**  
Gabezia hau ez zaio berari soilik leporatu behar, garaiko **pentsamolde** dogmatikoari baizik gehienbat. **Ibon Uribarri**  
Idealismo hau arrazoizkoa eta **pentsamolde** filosofiko zehatz baten arabera da. **Ibon Uribarri**  
Hizkuntza sistema sinkroniko baten egoera jakin batek ez du, saussurear **pentsamoldean**, diakroniarekin zer ikusirik. **Isabel Arrigain**  
Landako **pentsamoldeak** liluratsen dituelako izango da. **Antton Olano**  
Bestelako **pentsamolde** bertaitakoago bat, hizkuntzaren bidez bideratzen ez dena [...], gure zentzumen-organoen pertzeptuetan oinarrituta zuzenean antolatzen dena baizik: zentzumenezko pentsamen bat. **Josu Zabaleta**

## 3 (hitz elkartuetan)

Berpizkundeko perspektiba bere garaiko kultura- edo **pentsamolde**-joeraren emaitza gisa aurkezteko modu hau eskematikoa da, eta ez dio Panofskyri zor zaiona aitortzen. Liburua gaika dago antolatuta: ekonomilarien helburuak eta tresnak, ekonomilarien ideologia, merkatu **pentsamoldea**, kontsumo-gizartea, lehiakortasuna. **Josu Zabaleta**  
Ez naiz ahalegindu medikuntza-**pentsamoldearen** genesi enpirikoa eta osagai ezberdinak deskribatzen. **Xabier Arregi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere pentsamoldea** (6); **merkatu pentsamoldea** (3); **pentsamoldea aldatu** (7); **zure pentsamoldea** (4)

**bere pentsamoldeak** (3)

**bere pentsamoldearen** (3); **merkatu pentsamoldearen** (3)

# pentsapide ik pentsabide.

# pentsarazi, pentsaraz, pentsarazten 1 du ad pentsatzera behartu.

Antzinakoek egin zituzten itsas bidaiek iparrorratza ezagutzen zutela **pentsaraz** diezagukete, nahiz eta ezagutu ez. **Iñaki Iñurrieta**  
Semiramisen altxor eskergek, ezin baitziren egun batean bilduak izan, **pentsarazten** digute asiriarrak bere ere beste nazio aberats batzuk arpilatu zituztela. **Iñaki Iñurrieta**  
Hori **pentsarazi** dit, behinik behin, bigarren oroitzapenak, baina horrek haurtzarora baino gehiago gaztarora eraman nau. **Patxi Zubizarreta**  
Horrek denak **pentsarazi** egin zidan, Beltza. **Jon Arretxe**  
Ez nioke **pentsarazi** nahi, inondik inora ere, inolako aurreiritzirik dudarik. **Mirentxu Larrañaga**  
Eta ez diot inori **pentsarazi** nahi zeloez jota nagoenik. **Karlos Zabala**  
Horrek sukaldeaz **pentsarazi** zion Pilari, afaria prestatzeko ordua zenez. **Aitor Arana**  
Bere pesimismoak, ordea, barealdi hark luzaro ez zuela iraungo **pentsarazten** zion. **Josu Zabaleta**  
-Zerk **pentsarazten** dizu ezagutzen dudala? **Elena Touyarou**  
Zer arraiok **pentsarazi** dizu erresuminduta nengoela? **Mirentxu Larrañaga**  
Beauvais desiratzen zegoela nekaren konfiantza osoa eta harekiko harreman estua zuela **pentsarazteko** jendeari. **Koro Navarro**  
Tristeak benetan nortasuna kreditu-txartelarekin erosten dela **pentsarazten** diguten garaiok... **Anjel Lertxundi**  
Ez da hori kezagarria, edo **pentsarazi** beharko ligukeen zerbait? **Pello Salaburu**  
Azpimarratzen du, aldiz, pertsonari uste bat egiazkoa dela **pentsarazteko** zioa ikuspuntu horrek ematen diola. **Askoren artean**  
Erran dezagun segidan lau izen hauek **pentsarazten** digutela Euskal Herrian izan daitekeen haur multzo bati. **Herria**  
Ez zitzaion inola ere gehiegi **pentsarazi** edo errepararazi behar errealitate desatseginaz, bera hiltzeko aukeraz, besteen oinazeaz. **Monika Etxebarria**

## 2 (nori osagarik gabe)

Egin berriak diren esperimentu batzuek **pentsarazten** dute ltard ez zebilela bere aurkakoak zioten bezain desbideratuta. **Bernardo Atxaga**  
Hori **pentsarazten** zuten gutxienez beti berdina zen irribarreak, aurpegiaren goxatzeak, txantxa hori kontatu edo entzuteko irribarre mingarri horrek. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Horregatik Jainkoaren aniztasunean **pentsarazten** dute, erran nahi dut, sinestarazten dutela badirela atributuak, eta badela esentzia bat eta aldi berean esentzia horri erantsirik zerbait. **Xabier Kintana**  
Aspaldiko eritasunaren orbain edo hondakinen arrastoak bazirela **pentsarazten** omen zuen azterketak, baina ez garai hartan gaixotasun prozesu aktiborik zegoenik. **Xabier Olarra**  
Margolanek **pentsarazten** duten baino askoz txikiagoa da Pontito. **Xabier Olarra**  
Buruan betiko iltzatua daukat ordea harrotasunezko amaiera hura, meatzaritza zerbait handia eta sekulakoa zela **pentsarazten** zuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pentsarazi zion** (4); **pentsarazi zion** (12)

**horrek pentsarazten digu** (3); **pentsarazten digu** (13); **pentsarazten digute** (3); **pentsarazten dit** (7); **pentsarazten dizu** (5); **pentsarazten du** (16); **pentsarazten duena** (3); **pentsarazten dute** (4); **pentsarazten dutela** (3); **pentsarazten duten** (3); **pentsarazten zion** (5); **pentsarazten zuen** (5); **pentsarazten zuten** (3)

# pentsati 1 izond pentsakorra.

Bibote sarri eta patilla luzeko gazte jazarra intelektual **pentsati** eta malenkoniaz betea bilakatu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Betaurrekoak kentzen zituenean, lehengo intelektual **pentsatia** nekazari zabar eta ezjakina bilakatzen zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**



## 2 pertsona pertsonari dagokiona.

Gogoeta sakonean, atzamar izugarri batez kolpetxo leun **pentsatiak** emanez mahai gainean. Alberto Ladron Arana

Gero, bere buruari hitz eginen balio bezalako tonu **pentsati** batez, zera esan zuen marmarka. Alberto Ladron Arana

Partidaren hasierako haren iruzkinei broma kutsua bazerien ere, marmar **pentsatiek** eta esku igurtzi kezkatuek hartu zuten laster irribarre ironiatsuaeren lekua. Alberto Ladron Arana

## 3 (adizlagun gisa)

Ama **pentsati** gelditu zen taulari begira, eta hasieran uste izan nuen nire azalpen aztoratuak xake taula gainean ikusten saiatzen ari zela. Alberto Ladron Arana

Kristo **pentsati** geratu zen alditxo batez. Koldo Biguri

**Pentsati** nabaritu dut. Gaua esna egin zuen, **pentsati**, eta lainopean bidean hasi zirenean, atzean gelditzen zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Isil-isilik alendu gara, **pentsati**. Berria - Kultura

**pentsatu**, pentsa, pentsatzen (*orobat pentsau g.er. eta pentsatu g.er.*) (*orobat pentsetan g.er.*) 1 du *ad* gogoeta egin, gogoan erabili; ideiak edo arrazoibideak eratu edo elkartu. ik **oldoztu**.

-**Pentsatu** egin beharko dut, Tom. Oskar Arana

Baina **pentsatu** bakarrik egin zuen. Juan Garzia

Eta, **pentsatzen** jarrita, hori da okerrenea: [...]. Ramon Saizarbitoria

Ergela da, **pentsatu** dut, baina zintzoa. Jose Morales

Erakargarria, ari da **pentsatzen**, baina gizasemeentzat galdua. Oskar Arana

Batek daki, **pentsatzen** du: beharbada, guztiarekin ere, izango du etorkizuna afera honek. Oskar Arana

Hori **pentsatu** dut neuk ere -esan zuen Lockhartek. Iñaki Mendiguren

-Ez zen erraza izango frogatzen - **pentsatu** zuen Perrettek, ozen-ozen. Jon Muñoz

Morroi hau nire arrebarekin maiteminduta dago, **pentsatu** zuen azkarki Abdulek. Harkaitz Cano

Hitz arruntez janzen da poesia zenbaitetan, **pentsatu** zuen. Imanol Zurutuza

"Erratzari irmo heldu isatsetik", **pentsatu** zuen. Iñaki Mendiguren

Enbusteria sentimentalen txanda, **pentsatu** nuen hasieran, baina amak oso zorrotz hitz egin zidan: [...]. Anjel Lertxundi

Gero, bat-batean, **pentsatzen** duzu: "Zerbait gertatu da". Monika Etxebarria

Eta **pentsatu** zuen: indarra zegok hemen, pinu lerdnetan, mendi-mazela heze hauetan, [...]. Alberto Ladron Arana

Emakumeak, berriz, **pentsatu** du: [...]. Imanol Zurutuza

Izan ere, **pentsatu** du alargunak, txakur baten itxurapean azaldu zitzaion Mefistofele Faust doktoreari. Imanol Zurutuza

Irribarre egin nuen, eta **pentsatu**: "oso aspaldi da ez dudala egin irribarre". Monika Etxebarria

Hala **pentsatu** zuen Raymond Carverrek. Harkaitz Cano

Izenak **pentsatu** beharko genituzke. Harkaitz Cano

-Ene!, ezin dut **pentsatu** horrelakorik, inolaz ere -esan zuen Marshall andreak-. Mirentxu Larrañaga

Ez dakit zer **pentsatu** ere. Mirentxu Larrañaga

Darling andreak ez zekien zer **pentsatu**. Julen Gabiria

Nahastuta geratu nintzen, zer **pentsatu** ez nekiela. Bernardo Atxaga

Zer **pentsatu** behar dute entzule mindu hauek...? Txillardeggi

-Ezta **pentsatu** ere -esan zuen Manilovek, irribarretsu-. Jose Morales

**Pentsatu** ere ez! Aitak, ordea, bitan **pentsatu** gabe, salto egin omen zuen zangara. Anjel Lertxundi

Ez nuen bi aldiz **pentsatu**. Bernardo Atxaga

Guztia **pentsatu** bezala ateratzen bada, diru-turrusta handi bat izango dugu laster. Oskar Arana

**Pentsatzen** nuen bezala, sardinak dira. Bernardo Atxaga

"Kontuz sorgin historiko horrekin", esan dio belarrira, "aluairekin **pentsatzen** du eta". Patxi Iturrategi

## 2 (esaldi konpletiboekin)

**Pentsatu** nuen azkarregi nenbilela bere konplizitatea bilatu nahian, eta baldarkeria bat izan zela komentaria. Bernardo Atxaga

**Pentsatzen** dut batek ezin dituela aurrez ikusi bakardadearen arazoak. Monika Etxebarria

Eta nik **pentsatu** nuen, pertsona besarkatuak ikusten ez gaituenez, besarkatzea izan litekeela une horretan pentsatzen edo sentitzen duguna ezkutatzeko era bat. Harkaitz Cano

-Maiz **pentsatu** izan dut neronek ere -dio andreak-, makina bat bider hiltzen dela gizona bere bizitza laburrean. Imanol Zurutuza

Haiek txantxetan ari zitzaizela **pentsatu** zuten. Elizen arteko biblia

Los Angelesetik Londresera neuzkan ordu luzeetan irakurriko nuela **pentsatu** nuen, lainoak baino goragoko eremu etereoan. Bernardo Atxaga

Libratu egin dela **pentsatu** badu, oso oker ari duk. Anjel Lertxundi

"Nago erresumindu egingo nintzela **pentsatu** zuela neskak, sekula ez zela itzuliko esan zidanean", zioen berekiko. Mirentxu Larrañaga

-Zera **pentsatu** dut -esan zuen gizonak-, **pentsatu** dut iritsitakoan Biltmorera joan gaitzkeela zuzenean eta maletak hantxe utz ditzakegula, eta agian afari-legetxoia egin dezakegula gelan bertan, patxadan. nire artean **pentsatu** nuen menturak nahi izan zuela liburu sakratua azalaren babesik gabe gera zedin. Mirentxu Larrañaga

Bidenabar **pentsatu** zuen ezen, agidanez, horregatik ari zitzaizela gertatzen hain nekeza bere beste pertsonaia hari, hiztegiileari, Hiztegi subjektiboa-rekin aurrera egitea. Imanol Zurutuza

## 3 (bestelako esaldi txertatuekin)

Itsasontziratu zenean, Parisera joatea **pentsatu** omen zuen, edo beharbada Londresera. Joxe Austin Arrieta

Inoiz ikusi duzuen emazterik nobleena, aberatsena eta ederrena hartzea **pentsatu** diat. Askoren artean

**Pentsatu** dugu, egia gidarizat hartuz, haren egintza miragarri ugarietako banaka batzuk berorri ezagutaraztea. Askoren artean

Itzultzea **pentsatu** nuen. Juan Garzia

Ez **pentsatu** konturatu ez naizenik. Mirentxu Larrañaga

-Ez nuke **pentsatu** ere egin nahi -esan zuen neskak-, lanean enbarazu egin dizudanik. Mirentxu Larrañaga

Zoratzen hasita ote zegoen **pentsatu** zuen orduantxe, hura guztia eldarnio bat izan ote zitekeen. Karlos Linazasoro

Kordea galduko ote nuen ere **pentsatu** nuen, osotara erotu ote nintzen. Txillardeggi

Max adarra jotzen ari ote zitzaion **pentsatu** zuen bere artean Ruche jaunak. Jon Muñoz

**Pentsatu** ere bai nik, ea ez ote nukeen hobe ohera joatea. Joxe Austin Arrieta

Ez nuen **pentsatu** ere egin nahi zer arrisku jokatzin ari nintzen mugan. Anjel Lertxundi

-**Pentsatu** duzu nola itzuliko garen hor gora? -galdetu zion Roni. denbora gehiegi eman zutela non kokatu **pentsatzen**, faxisten aurka jartzea erabaki zuten arte. Iñaki Mendiguren

Harryk ez zuen **pentsatu** nahi zenbat urre kostatuko zen Sutximista hura. Iñaki Mendiguren

## 4 (objektu zuzena –n atzizkia)



Ivyrengan **pentsatzen** saiatu nintzen. **Joxe Austin Arrieta**

Ez niharduen inorengan **pentsatzen**. **Joxe Austin Arrieta**

**Pentsatu** duzu inoiz suizidioan? Horrela dagoenetan bere karreran **pentsatu** ohi du, banitate malenkoniatsuz beterik. **Harkaitz Cano**

Josebak, berriz, alde praktikoa baizik ez zuen **pentsatzen**. **Bernardo Atxaga**

-Gauza zoragarrietan **pentsatu** behar duzue, besterik ez -azaldu zuen Peterrek-. **Julen Gabiria**

Baina ez du etorkizunean **pentsatu** nahi, orainari eutsi nahi dio indar guztiarekin. **Patxi Iturritegi**

Hori bai iruditu zitzaioela gutzit sinestezina, hots, [...], bere janzkeran segundo bakar batez ere **pentsatu** ez izana, alegia. **Joxe Austin Arrieta**

Hobe luke heriotzan **pentsatu**. **Askoren artean**

Hik ez **pentsatu** horretan; ez duk hire lana. **Jon Muñoz**

Uste dut sekula ez dudala horretan **pentsatu**. **Bego Montorio**

Baina zerbaitetan **pentsatu** behar da, ez dago beti buru barruan piano doinua edo Corcovadoko Kristoa edukitzerik. **Harkaitz Cano**

Ezin baitzuen ia beste ezertan **pentsatu**. **Askoren artean**

Obaban jotzen nituen piezetan **pentsatu** nuen, eta azkenean *Padam Padam* izenekoa aukeratu. **Bernardo Atxaga**

Beste zerbaitetan **pentsatu** behar dut. **Mirentxu Larrañaga**

## 5 (objektu zuzena –z atzizkiak)

Fitxak erreparasatu eta Elenaz **pentsatu** nuela dut gogoan. **Edorta Jimenez**

Auskalo zer **pentsatu** ote zuen gu biotaz beste hark. **Joxe Austin Arrieta**

Ez da egunik iragan zutaz **pentsatu** gabe. **Monika Etxebarria**

Gure Avignon-ez **pentsatu** nuen. **Joxe Austin Arrieta**

Harry Ronekin eta Hermonierekin zegoen eserita, iskanbilaren erditik apartexeago, biharamunekoaz **pentsatu** nahi gabe. poza ez dugulako oraindik New Yorkera itzultzeaz **pentsatu** beharko. **Iñaki Mendiguren**

Ez zuen hartaz **pentsatu** ... **Iñaki Mendiguren**

Eta, horretaz **pentsatu** bazuen, zergatik ez zen horri buruzko aipamen taxuzkoa egin. **Jon Alonso**

Azken egun hauetan horretaz guztiaz **pentsatu** dut. **Alberto Ladron Arana**

-Zer **pentsatu** behar da horretaz, jauna? **Monika Etxebarria**

Gai honetaz **pentsatu** eta **pentsatu** jardun ondoren, zaldun egitea erabaki zuen. **Askoren artean**

Erabat buruargi nengoen berriro, nahiz eta aztarrenik ere ez neukan zertaz niharduen **pentsatzen**: ezertan ere ez, seguru aski. **Joxe Austin Arrieta**

## 6 (objektu zuzena –ekin atzizkiak)

-Zure senarrarekin **pentsatu**, urdanga horrek; eta zain duzun zigorrarekin, agindutakoa ez baduzu betetzen. **Juan Martin Elexpuru**

**Pentsatu** amarekin! Erikaren ama kezkatuarekin **pentsatu** nuen, Erikarenarekin, gainontzakoekin, guztiekin. **Lander Garro**

Jotzen duenean, berarekin **pentsatzen** du maiz. **Alberto Barandiaren**

Irenek bilduma egiten ariko balitz bezala hartzen zituen mutilak: batekin ibiltzean hurrengoarekin **pentsatzen** ari zen askotan. **Fernando Morillo**

Ez nuen etxean sartu eta arropa lisatzen nuen bitartean zurekin **pentsatzen** jardun nahi. **Joxean Agirre**

-Beti ari dira euren habiekin **pentsatzen** -esan zion Peterrek, barkamen eske bezala-. **Julen Gabiria**

Problema batekin **pentsatzen** duzunean, problema horren munduan bizitzen zara, eta nozio abstraktuak errealagoak bihurtzen dira. **Iñaki Segurola**

Hain liluratuta sentitu zen, ezin izan zuen beste ezerekin **pentsatu**. **Julen Gabiria**

## 7 ezin pentsatzuko izlag

Nola dena Jainkoz beterik dagoen, nola Jainkoaren **ezin pentsatzuko** liberaltasunak zabaldu dituen bere aberastasunak sorkari guztieta. **Joan Mari Lekuona**

Berdin zion zenbaterainoko mina eman zioten nire hitzek, **ezin pentsatzukoa** iruditzen zitzaidan Rachelek ez erantzutea. **Oskar Arana**

Argia ia **ezin pentsatzukoa** baita denboratik kanpo (argia ez da egoera bat, prozesu bat baizik). **Josu Zabaleta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**baina ez pentsa** (35); **eta ez pentsa** (32); **ez dezagun pentsa** (11); **ez dezala pentsa** (21); **ez pentsa** (339); **ez pentsa gero** (17); **nekez pentsa** (13); **nola pentsa** (20)

**pentsa beza** (8); **pentsa daiteke** (169); **pentsa dezagun** (53); **pentsa dezake** (65); **pentsa dezakegu** (31); **pentsa dezaket** (14); **pentsa dezakete** (8); **pentsa dezakezu** (21); **pentsa dezatela** (10); **pentsa ez zezan** (11); **pentsa ezak** (18); **pentsa ezazu** (98); **pentsa ezazue** (30); **pentsa genezake** (44); **pentsa lezake** (28); **pentsa liteke** (65); **pentsa nolako** (8); **pentsa zein** (12); **pentsa zenbat** (24); **pentsa zenbateko** (8); **pentsa zer** (32); **pentsa zezakeen** (28); **pentsa zezan** (11); **pentsa zitekeen** (77)

**zer pentsa ematen** (8)

**aldez aurretik pentsatu** (12); **asko pentsatu gabe** (8); **askotan pentsatu** (22); **askotan pentsatu dut** (11); **urrez pentsatu** (11); **batere pentsatu gabe** (16); **bere artean pentsatu** (16); **berehala pentsatu** (13); **berriro pentsatu** (12); **beste ezertan pentsatu** (11); **besterik pentsatu** (8); **beti pentsatu** (60); **beti pentsatu izan** (42); **birritan pentsatu gabe** (14); **bitan pentsatu gabe** (19)

**egitea pentsatu** (46); **ematea pentsatu** (10); **etorkizunean pentsatu** (8); **ezertan pentsatu gabe** (12); **ezta pentsatu ere** (137); **gauza bera pentsatu** (15); **gehiagotan pentsatu** (15); **gehiagi pentsatu gabe** (13); **hobeto pentsatu** (22)

**joatea pentsatu** (11); **maiz pentsatu** (8); **neure artean pentsatu** (13)

**ondo pentsatu** (41); **ongi pentsatu** (24)

**pentsatu beharra** (37); **pentsatu beharra dago** (9); **pentsatu diat** (20); **pentsatu dinat** (11); **pentsatu du** (225); **pentsatu dugu** (46); **pentsatu duk** (20); **pentsatu dut** (309); **pentsatu dute** (47); **pentsatu duzu** (65); **pentsatu eta pentsatu** (8); **pentsatu gabe esan** (9); **pentsatu genuen** (114); **pentsatu nian** (31); **pentsatu ninan** (16); **pentsatu nuen** (1098); **pentsatu zen** (8); **pentsatu zenuen** (33); **pentsatu zuen** (1509); **pentsatu zuten** (172)

**sarritan pentsatu** (9); **une batez pentsatu** (11); **uztea pentsatu** (8); **zer pentsatu** (180); **zer pentsatu ematen** (8); **zera pentsatu** (33); **zera pentsatu dut** (8); **zera pentsatu nuen** (18); **zerbait pentsatu** (24); **zergatik pentsatu** (9); **zertan pentsatu** (10)

**ondo pentsatua** (10); **ongi pentsatua** (10); **zer pentsatua** (84); **zer pentsatua eman** (39); **zer pentsatua ematen** (21)

**asko pentsatuko** (8); **gauza bera pentsatuko** (8); **zer pentsatuko** (57)

**ondo pentsatuta** (35); **ongi pentsatuta** (11)

**aldez aurretik pentsatutako** (8); **urrez pentsatutako** (8)

**ondo pentsatuz** (20); **ondo pentsatuz gero** (17); **ongi pentsatuz** (8)

**ezin pentsatzukoa** (8)

**pentsatzeari ekin** (10); **pentsatzeari utzi** (9)

**pentsatzeko ahalmena** (19); **pentsatzeko arrazoiak** (8); **pentsatzeko astia** (17); **pentsatzeko astia izan** (8); **pentsatzeko astirik** (19); **pentsatzeko aukera** (15); **pentsatzeko bidea** (9); **pentsatzeko denbora** (17); **pentsatzeko denborarik** (8); **pentsatzeko era** (11); **pentsatzeko gai** (20); **pentsatzeko gauza** (11); **pentsatzeko joera** (12); **pentsatzeko modu** (32); **pentsatzeko modu bat** (8); **pentsatzeko modua** (9); **pentsatzeko moduan** (8)

**pentsatzekoa da** (174); **pentsatzekoa denez** (15); **pentsatzekoa zen** (30)

**asko pentsatzen** (11); **askotan pentsatzen** (20); **askotan pentsatzen dut** (9); **batzuetan pentsatzen** (29); **batzuetan pentsatzen dut** (11); **benetan pentsatzen** (21); **berdin pentsatzen** (29); **bestela pentsatzen** (13); **beti pentsatzen** (18)

**egitea pentsatzen** (12); **ezertan pentsatzen** (12); **gauza bera pentsatzen** (22); **gehiago pentsatzen** (13); **gehiagi pentsatzen** (11); **hala pentsatzen** (31); **hartan pentsatzen** (19); **hartaz pentsatzen** (16); **hori pentsatzen** (41); **hori pentsatzen nuen** (10); **horixe pentsatzen** (11); **horrela pentsatzen** (30); **horretan pentsatzen** (51); **horretaz pentsatzen** (14)

**kontrakoa pentsatzen** (9); **nola pentsatzen** (24)

**ondo pentsatzen** (13); **ongi pentsatzen** (12)

**pentsatzen ari** (291); **pentsatzen ari zen** (38); **pentsatzen ariko** (11); **pentsatzen aritu** (32); **pentsatzen dudan bakoitzean** (8); **pentsatzen duen gauza** (13); **pentsatzen dut baietaz** (8); **pentsatzen egon** (37); **pentsatzen hasi** (167); **pentsatzen hasia** (38); **pentsatzen hasiak** (12); **pentsatzen hasita** (32); **pentsatzen hastea** (11); **pentsatzen hasteko** (20); **pentsatzen hasten** (32); **pentsatzen jarraitu** (10); **pentsatzen jarraitzen** (13); **pentsatzen jarri** (51); **pentsatzen jarrita** (66); **pentsatzen jarritz** (16); **pentsatzen jarritz gero** (16); **pentsatzen jartzen** (17); **pentsatzen saiatu** (12); **zerbait pentsatzen** (15); **zerbaitetan pentsatzen** (9); **zergatik pentsatzen** (8); **zertan pentsatzen** (16)

## pentsatzaile 1 izond pentsatzen duena.

Izaki **pentsatzaileak** asmatuko dituzte, zuntz misteriozkoz unibertso adierazgarri bati lotuak. **Josu Zabaleta**

Pentsatzeko modu guztiek Jainkoa dute kausa, Hau gauza **pentsatzaile** den aldetik, eta ez beste atributu baten bitartez esplikatzeko den aldetik. **Piarres Xarriton**

Apriorizko ezagutzan objektuei ezin baitzaie subjektu **pentsatzaileak** bere burutik hartzen duena baino esleitu. **Ibon Uribarri**

Zerizan **pentsatzaile** batez, ordea, ezin dut batere errepresentaziorik izan kanpoko esperientziaren bitartez, baizik autokontzientziaren bitartez besterik ez. **Ibon Uribarri**

Geure Norbera **pentsatzailea** materialismoaren arriskuaren aurka segurtatzeko. **Ibon Uribarri**

Ni **pentsatzailea** naizen aldetik barneko sentisuaren objektua naiz eta arima izena dut. **Ibon Uribarri**

Izadi **pentsatzailearen** Metafisikak Psikologia izena du eta aipatutako arrazoiagatik hemen honetaz ezagutza arrazionala ulertzen da. **Ibon Uribarri**

Gure esentzia **pentsatzailearen** izaerari eta gorputzen munduarekin duen elkarloturari buruzko gatazka. **Ibon Uribarri**

Gauzen **pentsatzaile** eta munduaren miatzaile bezala, hau da, kulturalki, euskaldunok baditugu desabantaila askoren artean abantailatxo batzuk, bazterrak aurrera begiak irekita ibiltzeko. **Joxe Azurmendi**

## • 2 iz pentsalaria.

Barruko askatasuna **pentsatzaile** aleman protestantismotik datozenek irakatsi diote. **Joxe Azurmendi**

**Pentsatzaile** handi baten, ausardiaz beteriko mistiko espekulatibo baten eta, hitz batean, gizon handi baten kemen eta soberanotasunak esanarazitako hitz mamitsuak dira. **Joan Mari Lekuona**

Idea ugari baitago, orain laburtasunaren amorez Nietzscheren tradizioa esango diogunean, guztiz arrunta izan dena idazle eta **pentsatzaile** bestela hagitz desberdinotan, mendearen hasieratik gutxienez bigarren mundu gerraren ondorenera. **Joxe Azurmendi**

Ikusazu zertan urriturik gelditu diren **pentsatzaile** horiek, zer gertatu zaien eta hainengandik zer jalgi den; zeren suzko errautsetik iheska joanik surtara erortzen denaren antzekoak baitira halakoak. **Xabier Kintana**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izaki pentsatzaile (3); pentsatzaile gisa (9); subjektu pentsatzaile (4); zerizan pentsatzaile (21); zerizan pentsatzaile gisa (6)  
 nia pentsatzailea (5); pentsatzailea den aldetik (5); pentsatzailea naizen aldetik (6); subjektu pentsatzailea (6); zerizan pentsatzailea (13)  
 subjektu pentsatzaileak (3)  
 izaera pentsatzailearen (3); norbera pentsatzailearen (3); subjektu pentsatzailearen (9); subjektu pentsatzailearen batasun (3); substantzia pentsatzailearen (3); zerizan pentsatzailearen (5)  
 zerizan pentsatzaileen (3)

## pentsatze 1 iz gogoeta egitea, gogoan erabiltzea; ideiak edo arrazoibideak eratu edo elkartzea.

Azaleko biloak lazten zaizkit **pentsatze** hutsarekin. **Harkaitz Cano**

- **Pentsatze** hutsarekin errebolta sumatu zuen zangartean. **Unai Iturriaga**

Errepresentazio hau **pentsatze** bat da, ez begieste bat. **Ibon Uribarri**

**Pentsatze** soileko Norberaren kontzientzian ni zerizan bera naiz, baina, noski, horren bitartez ez zaio ezer eskuratzen nire pentsatzeari. **Ibon Uribarri**

**Pentsatze** ororen aurretik emana izan daitekeen errepresentazioari *begiespena* deitzen diot. **Ibon Uribarri**

**Pentsatze** enpirikoaren postulatuetan oro har. **Ibon Uribarri**

Esperientzia orotan **pentsatze** hutsa *a priori* barnebiltzen duten adigai hauek kategorietan aurkitzen ditugu. **Ibon Uribarri**

**Pentsatze** eza baino, pentsatzeko beste modu bat dela esango nuke; senak gidatuta pentsatzen dudala, alegia. **Berria - Kultura**

## 2 (osagaiekin)

Aztoragarria zitzaidan ama nire ejakulazioaren lekuko gertatu ahal izan zela **pentsatze** hutsa. **Aingeru Epaltza**

Batzuetan ia ezinezkoa egiten zitzaidan zuk niri erantzun zenean **pentsatze** soila. **Joxemari Iturralde**

Ondorioetan **pentsatze** hutsak hotzikara eragiten dizu. **Rafa Egiguren**

Azkenean, hala egin ez bazuen ere, hartan **pentsatze** hutsak jeloskortu egiten ninduen. **Joxe Austin Arrieta**

Odolarekin zikindutako gizon baten semea izan nintekeela **pentsatze** hutsak gaizkitu egiten nau. **Bernardo Atxaga**

Lanak ematen zizkidan inoiz berriro elkarren berririk izango ez genuela **pentsatze** hutsak ere. telebistan horrela aterako zela **pentsatze** hutsarekin sutu egin zen nagusia. **Joxe Austin Arrieta**

Ikararen ikaraz konortea galdu nuen ia, ezezagun hark gure gordeleku eder hau zabaltzen asmatzen bazuen zer gerta zitekeen **pentsatze** hutsarekin. **Josu Zabaleta**

Halako gertaera ankerraren aurrean zeure buruaz baino ez **pentsatze** bihozgabe horrek. **Hasier Etxeberria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hartan pentsatze hutsak (4); pentsatze enpirikoaren (3); pentsatze hori (4); pentsatze hutsa (15); pentsatze hutsak (76); pentsatze hutsarekin (29); pentsatze hutsaren (11); pentsatze oro (6); pentsatze orok (3); pentsatze ororen (6); pentsatze orotan (6); zela pentsatze (4); zezakeela pentsatze hutsak (3)

## pentsatzeke *adlag* pentsatu gabe.

Zalantza handirik gabe ekin nion berriz ere idazketari, gehiegi **pentsatzeke**, langa altxatu eta neure baitako isuriari bidea libre utziaz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Han, bi aldiz **pentsatzeke**, bidean aurrera joko zutela erabaki zuten, hitzik gabe, aho eta begi keinu ezti gozoz. **Felipe Juaristi**

Iritsi zen goraino, ikusi zuen sumendia borborka, ahotik sua botaka, eta bi aldiz **pentsatzeke**, biharamunik bazenik sinesteke, ezpata eskuin eskuan, bere burua bota zuen barrura. **Felipe Juaristi**

## pentsau ik pentsatu.

## pentsetan ik pentsatu.

## pentsio (*orobat pentsione g.er.*) 1 iz norbaiti aldian-aldian, arrazoi jakin batengatik eta laguntza gisa ordaintzen zaion diru saria.

Oatesek **pentsio** bat jaso zuen sarizat. **Juan Martin Elexpuru**

Asko lagundu zieziakoeela hark militarren aurrean, gerrako **pentsioa** jasotzeko. Ramon Saizarbitoria

**Pentsio** bat lortzea izango nuke, eta horrez gainera baita milaka dolar batzuk ere. Koro Navarro

Ez zuen, damurik ere, **pentsionerik** hunkitzea lortu, gerla ekintza laneko istripu gisa kontsideratua izan zelakoan. Itxaro Borda

**Pentsioa** eskatzeko asmoa zuela aitortu zion. Ramon Saizarbitoria

Emakumea Lombo de Tanquera joan zen bizitzera eta enpresak hilero **pentsioa** helarazten zion. Bego Montorio

Aznarrek dio **pentsioak** berak bermatzen dituela. Berria - Ekonomia

Jakaren patrika haztatu zuen, **pentsioa** bideratzeko paper guztiak gordeak zeramatzala egiaztatu nahian. Ramon Saizarbitoria

Dirurik ez dagonez **pentsioak** murriztu behar direla. Berria - Ekonomia

Erretretako **pentsioak** laneko sartzeen parte bat hartzen du eta eros-ahala txikitzen. Herria

Alargunen **pentsioak** «duintzeko» exijitu du Koldo Azkoitia Gipuzkoako Aldundiko bozeramaileak. Berria - Ekonomia

Aurten ez zaie %1eko igoera ezarriko **pentsioei**. Berria - Mundua

**Pentsioak** %2,8 handitu dituzte aurten Hego Euskal Herrian. Berria - Ekonomia

**Pentsioak** kalkulatzeko kotizazio epea zabaltea ez da «gai bakarra» helburu hori lortzeko. Berria - Ekonomia

-Libra bat eta sei penike atera zidanan niri **pentsiotik**. Koro Navarro

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez dakit-nolako fondoekin hasi ziren, **pentsio** militarraekin edo horrelako zerbaitekin, ez dakit oso ondo, eta leporaino bete ziren diruz eta orain desagertu egin dira jendeak eman zien diruarekin. Karlos Zabala

**Pentsio** osagarrien aldeko apustua egin nahi du Eusko Jaurlaritzak. Berria - Harian

Legea indarrean jarri ostean, baina, **pentsio** jakin bat kobratu ahal izango lukete bikotekidea hilez gero. Berria - Gaiak

Luis XIV.ak pentsio batzuk agindu zituen hamar haur zituztenentzat, eta **pentsio** handiagoak hamabi zituztenentzat. Iñaki Iñurrieta

Alargunen **pentsio** murriztetzako «behin betiko irtenbidea» eskatu zuen Barkosek. Berria - Euskal Herria

Menturaz **pentsio** ona gelditu zaio. Koldo Izagirre

Alargunen **pentsio** txikiak LGSra egokituko ditu Nafarroak. Berria - Ekonomia

Gutxieneko **pentsioak** %6 igoko dira; besteak, %3. Berria - Ekonomia

Lehen hiruhilekoan %15,4 gehitu dira borondatezko **pentsioak**. Berria - Ekonomia

Hala, Nafarroako Gobernuak 14 milioi euro bideratu ditu **pentsio** ez kontributiboetara. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aitari erretiro ederra geratu zitzaion Ur Partzuergotik, BBK-ko **pentsio** plana kontatu gabe. Patxi Iturrategi

Populazioaren zahartzeak kolokan jarri du mendebaldeko estatuen **pentsio** sistema. Berria - Gaiak

PSE-EEK, berriz, **pentsio** sistema publikoaren alde agertu zen, betiere Kutxa Bakarra apurtzen ez bada. Berria - Ekonomia

**Pentsio** kutzak pribatu bihurtu daitezke. Berria - Mundua

Ordurako, behialako nire bizikidearekin neukan harreman bakarra zen erabili eta baliogabetutako **pentsio**-txekeen atzealdean haren sinadura ikustea. Oskar Arana

Horrekin bizi zen, andre Leonardaren **pentsio**-sartxoaz gainera, familia osoa. Josu Zabaleta

Lan merkatua, erretiratuen **pentsio** aseguruak, osasun sistema, zerga sistema. Berria - Mundua

Hala ere, **pentsio**-kontu horretan nik mantsuago jokatu nioke... Lopez de Arana

Indulis Emsis lehen ministroak soldata, **pentsio** eta lan baldintzak hobetuko dituela agindu du. Berria - Mundua

Mentxuk farmazeutiko titulua izan arren, dirutan nekez ordainduko ziola gaztigatu zion Rafael Lizarraga lizentziatuak, eta **pentsio** truke itxi zuten tratua. Josu Landa

Lan eta **Pentsio** idazkari postua eman dio Blairrek, azken urteotan Goi Hezkuntza ministro zenari. Berria - Mundua

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aleman ez-duin asko zegoela istripu probokatu batean bere burua zauritu, gerrari izkina egin eta gerra-**pentsioa** kobratzen zuena. Erretiro **pentsio** baterako emaniko dirua itzultzeko eskatu du meatzariak. Anjel Lertxundi

Ramires-Araujo Lda. enpresako gutun-azal bete jasotzen zuen, erretiro **pentsioaren** kariaz. Bego Montorio

Jubilazio **pentsioak** 680,87 eurokoak dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoan eta 511,02 eurokoak Nafarroan. Berria - Ekonomia

Lege proiektu zaharrak alargun **pentsioak** jasotzeko hiru urtez Nafarroan bizitzea eskatzen zuen. Berria - Ekonomia

## 5 apolilo etxea. ik ostatu.

Gauero errepasatzen zituen katalogoak **pentsio**, hotel, apartamentu edo ostatu hartua zuen txandako txakurretjolako flexoan. Harkaitz Cano

Bilboko **pentsio** batean ostatu hartu eta hantxe bizitzen geratu zen Lauaxeta. Juan Luis Zabala

Donostiara etorri zen, eta bertan jarri zen **pentsio** batean bizitzen. Koldo Izagirre

Zabalguneko **pentsio** batera gara emakumea eta biok. Aingeru Epaltza

Bikoteak, diru arazorik ez zuenez, hotel zahar eta dotore batean hartu zuen ostatu; P. eta biok **pentsio** txiki batean. Joseba Urteaga

Arriskuan nengoela eta, ezkutaturik egon nintzen **pentsio** merke batean. Aritz Gorrotxategi

**Pentsio** merke-merke batean hartu nuen ostatu, Britainiar Museolari bizkar. Juan Garzia

Ez gauden gaua **pentsio** ziztrin batean edo autoan pasatzeko moduan. Iban Zaldua

Izan ere, eskuliburu askotan esplikatzen da **pentsio** bat ez dela gauza bera gauzez eta egun argiz. Unai Elorriaga

**Pentsioekoen** bazkaltzeko eta **pentsioekoen** hitz egiteko. Unai Elorriaga

## 6 ostatu egoteko pagatu behar den saria.

Hango aterpetxe batean egotera behartua zen, baina **pentsioa** ordaintzeko dirurik ez zuenez, hango garbiketarako egitera behartzen zutela argitu du Xabier Susperregik.

Berria - Euskal Herria

## 7 ostatu, hotel eta kidekoetan, mantenua.

Berrehun eta gehiago kilometro, eta gero, ospitalean, **pentsio** konpletoarekin egon zuan astebetez; eta, paperak zioena: laguna ondoko ohean. Pablo Sastre

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aitaren **pentsio**-lagun batek sinaturik zetorren berria, Fein edo Fain delako bat. Juan Garzia

Bazegoen bertan **pentsio** itxura zuen etxe bat, baina taberna zen. Unai Elorriaga

Matiasen gela **pentsio**-tipoko gela zen, baina telefonoa zeukan. Unai Elorriaga

## 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hemen da, plazako familia-**pentsio** batean. Itxaro Borda

## 10 pentsio funts

Egoera konplexua da egungoa, kapitalaren hedapen atomizatua baita: akziodun txikiak eta inbertsio eta **pentsio funtsak**, eta kategoria sozial berri bat, kapitalaren kudeatzaileak. Iñaki Heras

OCDEren arabera, Espainian **pentsio funtsen** ondarea BPGaren %9 da, Frantzian %7 eta Alemanian %3,8 da. Berria - Harian

OCDEk sei gomendio eman ditu **pentsio funtsak** arautzeko. Berria - Ekonomia

Inbertsio funts, **pentsio funts** eta aseguru-etxe handiek mugitzen duten dirutza osoa 21 bilioi dolar ingurukoa dela kalkulatu da. Iñaki Heras

Nafarroan ez dago horrelako egiturarik, eta **pentsio funts** eta planak erabiltzen dituzte. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alargunen pentsio** (3); **borondatezko pentsio** (3); **euskal pentsio** (3); **inbertsio eta pentsio** (3); **langileen pentsio** (4); **pentsio batean** (10); **pentsio bateko** (3); **pentsio funts** (5); **pentsio funtsak** (6); **pentsio funtsen** (4); **pentsio merke** (3); **pentsio osagarri** (6); **pentsio osagarriak** (14); **pentsio osagarrien** (9); **pentsio osoa** (3); **pentsio plana** (3); **pentsio planak** (3); **pentsio publikoen** (3); **pentsio sistema** (32); **pentsio sistema propio** (3); **pentsio sistema publikoak** (3); **pentsio sistemak** (3); **pentsio sistemaren** (5); **pentsio txikiak** (3)

**alargunen pentsioa** (3); **erretiro pentsioa** (5); **euroko pentsioa** (3); **malanda pentsioa** (5); **pentsioa jaso** (3); **pentsioa jasoko** (3); **pentsioa jasotzeko** (6); **pentsioa jasotzen** (3); **pentsioa kobratzen** (3); **pentsioa lortzeko** (4)

**alargun pentsioak** (3); **alargunen pentsioak** (18); **alargunen pentsioak osatzeko** (3); **borondatezko pentsioak** (6); **cdnk alargunen pentsioak** (3); **erretiro pentsioak** (4); **eta pentsioak** (3); **gutxieneko pentsioak** (6); **pentsioak eta** (3); **pentsioak gutxieneko** (3); **pentsioak kalkulatzeko** (5); **pentsioak lanbide** (3); **pentsioak lanbide arteko** (3); **pentsioak osatzeko** (4)

**malanda pentsioan** (4)

**alargun pentsioen** (4); **alargun pentsioen jabe** (3); **gutxieneko pentsioen** (4); **pentsioen berdintasunaren** (3); **pentsioen berdintasunaren aldeko** (3); **pentsioen gastua** (4); **pentsioen igoera** (8); **pentsioen sistema** (6)

**pentsioko patioan** (3)

**pentsiorako bidean** (3)

## pentsiodun 1 iz pentsio bat jasotzen duen pertsona.

Enriqueta Benito alderdiaren egoitzan bilduko da alargun eta **pentsiodunekin**. Berria - Harian

Ez zitzaion burutik pasatu ere egin heriotzaren berria izan zitekeenik ama egoera hartan jarri zuena, Araujo Lda-ko **pentsioduna** zela jakin arren. Bego Montorio

Gainerako **pentsiodunekin** afaldu nuen jangelan. Jesus Mari Mendizabal

Krisi sozialaz eta **pentsiodunen** arazo ekonomikoaz idatzi du, besteak beste, Blasek. Berria - Kultura

**Pentsiodun** alargunak: Nafarroan, orotara, 40.000 alargun inguru daude, baina horietatik 26.663 dira alargun pentsioen jabe. Berria - Ekonomia

Zenbait alderdi politiko eta **pentsiodunen** elkartek mesfidantza agertu dute legearen aurrean. Berria - Ekonomia

Luis Martin Pindado Espainiako **Pentsiodunen** Elkartasun Demokratikoko lehendakaria. Berria - Ekonomia

## 2 (izenondo gisa)

Aipatutako legeak Foru Erkidegoak alargun **pentsiodunen** egoera ekonomikoa hobetzeko dituen eskumenak «urratzen» dituela argudiatu zuen koalizioak. Berria - Euskal Herria

## pentsione ik pentsio.

## pentsioner iz pentsioduna.

Lehen parteak ximiko berri du jadanik eta estimatzen ere bide dute **pentsionerrek**. Herria

## pentsionista 1 iz pentsioduna.

-Alargun **pentsionista** baten alabak dituk, Nini eta Lulu. Josu Zabaleta

**Pentsionisten** elkarteek 21,5 milioi eman zizkioten Bushi eta 15,5 milioi dolar Kerryri. Berria - Mundua

Horietatik 26.663 dira alargun pentsioen jabe, baina 12.000 **pentsionistengan** izanen du eragina. Berria - Ekonomia

## 2 (izenondo gisa)

Arauk 12.000 alargun **pentsionistengan** izanen du eragina eta 2003ko urtarrilaren 1era atzeraeragina izanen du. Berria - Ekonomia

## 3 erdi-pentsionista

Gero, bazkaldu ere Eskolapioetako jantokian bertan egiten genuen, erdi-**pentsionista**, eta iluntzean berriz ere tranbian itzultzen ginenerako ilunduta zegoen, lagunik ez kalean. Xabier Mendiguren Elizegi

## pentsiotzar iz adkor pentsio handia.

Zabalguneko **pentsiotzar** bateko gelatzarrean. Aingeru Epaltza

Goizaldeko lauretan **pentsiotzarreko** atean ginen, arraboska unibertsitatekumeak bezala. Aingeru Epaltza

## pentsu<sup>1</sup> 1 iz ipar gogoeta, pentsamendua.

**Pentsuak** gatibu dauzkagunean Egiari bizkarrez gagozkio: antsian behera goaz. Itxaro Borda

Ekintzaz ala **pentsuz** arraiki egin emazteen bekatuak entzutea izugarri maite zuen. Itxaro Borda

**Pentsu** ilunen ildoan abandonatu zuen eta egongela zirudien kanapean jarri zen. Itxaro Borda

Alabaina, hartaz gogoeta egitean, ene **pentsuek** haren itxura baizik ez zuten lantzen: [...]. Aingeru Epaltza

Ez nuen beste **pentsurik**: astun eta patetikoki maitemindua nintzela doi-doi konturatzen nintzen. Itxaro Borda

Hondar **pentsuaz** gogoratzen zen hartatik: nehork ez nau maite eta beharbada hobe dut hilik... Itxaro Borda

Nahiago nire **pentsuak** adierazi gabe utzi. Aingeru Epaltza

## 2 pentsu izan du ad uste izan, pentsatu.

II. Mundu Gerlaren erdi-erdian geunden orduan eta gutarteko anitzek ziurtzat emaiten baldin bazuten Hitler-en garaipena, beste zenbaitek **pentsu** zuten amerikarrek eta ingelesek irabaziko zutela. Piarres Xarriton

Aldi bat baino gehiagotan erran dit Serge filosofoak Platonek ez zuela honela eginen, **pentsu** baitu egia duela egitea finkatzen. Piarres Aintziart

**Pentsu** dut entzun duzula joan den astelehenean. Menane Oxandabaratx

**Pentsu** dut ez duela nehork horretaz dudarik. Piarres Xarriton

Hor ere **pentsu** dut segituko duzuela beti emankizun horien egiten... Menane Oxandabaratx

Erraten zidan garbiki nik sekretuki **pentsu** nuena: behar genuela mundu honen errealitatean bizi izan eta lan egin. Piarres Aintziart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ainitzek pentsu dute** (4); **ene pentsu** (3); **pentsu bat** (3); **pentsu dugu** (5); **pentsu dut** (58); **pentsu haiek** (4); **pentsu haien** (3); **pentsu hori** (4); **pentsu hura** (3); **pentsu zuten** (7)

## pentsu<sup>2</sup> 1 iz abereen bazka, bereziki lehorra. ikzaldale.

Idi eta astoei ohikoa baino **pentsu** eta belar gehiago ematea. **Askoren artean**  
Aberei ere **pentsutat** baba larria ematen zitzaien askotan. **Patziku Perurena**  
Berehala alde egin zuten, askan behar beste **pentsu** zegoela egiaztatu ondoren. **Agustin Otsoa**  
Hirugarrena animalientzako janari (**pentsuak**, irinak) edo soro eta baratzeak simaurtzeko ongari bihurtuko du industriak. **Edorta Agirre**  
Abelgorria sei edo zortzi urtez haziko dute (era tradizionalen eta **pentsuetan** mirarizko osagarririk sartu gabe) bestelakoei ere bide emanez. **Edorta Agirre**  
Ganaduari, jakina denez, okela eman izan zaio jateko, **pentsuan** nahasita. **Edorta Agirre**  
Berehala alde egin zuten, askan behar beste **pentsu** zegoela egiaztatu ondoren. **Agustin Otsoa**  
Eta kloratita, txakurren **pentsua** egoten zen kaxa batean. **Hasier Etxeberria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lubisek **pentsu**-zaku bat zeukan bularraren parean bi besoekin hartuta. **Bernardo Atxaga**  
**pentsu** konpainia baten propaganda, 1924koa, garai oparoago baten origarri gisa iltzeztatua geratu zena. **Jon Maia**  
Gurearen behearen, bestalde, aitak gazte-denboran Igeldotik jaitxi eta kalean irekitako **pentsu**-denda genuen. **Txillardeg**  
Gure dendara sartu naiz, horretara, eta labore eta **pentsu** usain bera aditu. **Txillardeg**  
Ez ni, Joxe Maria Arruabarrena, **pentsu**-saltzaile gizajo hau. **Txillardeg**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zerri **pentsua**. **Iñigo Aranbarri**

## pentsuner iz ipar zahar etxe batean bizi den pertsona.

Miarritzeko xahar-etxe batean, **pentsuner** batek besta giro batean ospatu ditu bere ehun eta bost urteak. **Herria**  
Untxina uzogunean, Ziburun, xahar-etxe bat eraiki beharra da hiruetan-hogoi bat **pentsuner** hartzen ahalko dituen. **Herria**  
Bestetik ikertzen ari dute etxearen berritzea nola egiten ahal litakeen bizpahiru zatitan, etxea bera arunt zerratu gabe obrek iraunen duten denboran, **pentsunerak** hor berean atxikiz beraz... **Herria**

## pentza iz izotz hockeyan pelota gisa erabiltzen den pieza biribila.

Berdinketako golean, Sedlak eskuratu zuen **pentza** eta Amsellemek lagundu zion gola sartzen. **Berria - Kirola**  
**Pentza** taldekideei pasa, berriro gola sartzeko aukeran jarri, eta **pentza** jaso bezain laster jaurtiketa tinkoa egin zuen atezainaren aurrez aurre zegoela. **Berria - Kirola**  
Brisardek jaso zuen **pentza** hormaren erdian, eta jaurtiketa Filiatraultek geratu zuen, baina ez Cemanek segidan eginiko jaurtiketa (0-3) .3. zatian ongi eutsi zion garaipenari Mulhousek, eta 0-4koa Kasdak egin zuen kontraerasoan. **Berria - Kirola**  
Aipaturiko Carriou, aitzinera egiteko asmoarekin abiatu zen gibeletik, baina ahanzi egin zuen **pentza**, eta Dostalek ezustean atxiki ahal izan zuen. **Berria - Kirola**

## pentze 1 iz belardia, zelaia. ik larre; alhapide.

Behin betiko muga zehatz baten finkatzeko, jakin ginezan, azkenean, nun hasten ziren, nun gelditzen, batzuen eta bertzeen lurra, oihanak eta **pentzeak**. **Michel Oronoz**  
Landa eta **pentze** artean nabil, bidea ez da sobera garbi baina Urantziatik ateratzean hartu dudun patarraren kaskora heldu orduko, begien aitzinean daukat Sanso herria. **Piarres Aintziart**  
Bidexka anitz iragaiten zen oihan, iratze eta **pentzeetatik**. **Eneko Bidegain**  
Kosta aldean, eta belardi eta **pentzeetatik** belar ondua bildu nahi duenarentzat ere, makineriak laguntza handia eskuratu dio baserritarri. **Pello Zabala**  
Heldu da behintzat artoaren jiteko hori, kanpokoa izaki askoz ere hobea noski, eta horra non kendu dion bertokoari soroa, alorra, **pentzea** eta izena bera ere. **Iñigo Aranbarri**  
Haritzak bukatu eta **pentzeak** hasten diren tokian. **Pello Lizarralde**  
Etxeen artean, **pentzeak** eta **pentzeetan**, haritzek egin tatxa ilunak. **Piarres Aintziart**  
Gaztaroko oporretan gure mendi xolako **pentzean** belar edo soro metak moldatzen genituen. **Piarres Aintziart**  
Haste haiendako tailuz belar epaiteak, belar idorraren **pentzeetatik** ekartzeak bizkarka, *leatxunak* deitu tresnekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
**Pentzean** hesiak, "chantos" delakoak, arbelezko harri lauza landatuz eginak dira. **Piarres Aintziart**  
Mihiseak atxikitzen ziren armaruetan, **pentzetako** lore batzuek emanez behar zen usain ona. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Santa sekulan ez dugu patatarik landatu, eta nahi dute **pentzeak** horretan erabil ditzagun. **Elena Touyarou**  
Lau behi ageri dira hor, etxearen aurreko **pentzean** jaten ari. **Txillardeg**  
Iturrotxak agortuak, **pentzeak** larrutuak eta iralekuak jadanik larrazkeneko jauntzitan. **Herria**  
Nola liteke bat, halako **pentze** ederrean bazkatzeari utzi, eta padura horretan gizetzera lerra? **Juan Garzia**  
Ibarrak arrastiriko zehar-argitan, itzal-mazelak, itzal-trokarteak, lats zuriak han behean, larre-**pentzeak** zehar-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri, eta artalde bat oihan-ertzeiko sakonune harri-kozkortsu batean: zizare zuriak iduri! **Joxe Austin Arrieta**  
Goi **pentzeak** hutsik daude. **Pello Lizarralde**

## 2 (izenondoekin)

**Pentze** handi eder bat utzi dugu eskuin eta zuhaitzen erdian hasi gara igaten. Ardiak bidean lerroan zebiltzan gero, autoen pasaiak trabatuz eta **pentze** irekietan, belar berdez asetzeko. **Piarres Aintziart**  
Orreagako ordokia dena **pentze** berde eta gizen da. **Michel Oronoz**  
Geldian, lurra leku bakoitzean duen zaporea dasta daiteke, **pentze** samurren gozotasuna, arantzadien mikatza, [...]. **Pako Aristi**  
**Pentze** patartsuetan, behiak. **Piarres Aintziart**  
Luzaideko **pentze** maldatsueri pentsatuz, aise da konprenitzea zer lan akigarria zitekeen haientzat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Aski dut bide ertz bateko **pentze** aberatsetan artalde bat alhan ikustea, baketzeko. **Itxaro Borda**  
Han hemenka, harrixabal xuriak, ardi tittak iduri dutela **pentze** lohitsu batean landatuak. **Piarres Aintziart**  
**Pentze** berdaiterik ilargi beteari kantan ari ziren igel erlastuen konpainian. **Itxaro Borda**  
Nekazari taldeak belardietara iristen hasi zirenean, behiak zeramatzen, eta hain ohikoa den zintzarria eramaten zuten lepotik zintzilik **pentze** ikusgarri haietan jatera joaten zirenean. **Pako Aristi**  
**Pentze** pribatuak ere ezingo dira ur horrekin freskatu. **Berria - Euskal Herria**

## 3 irud/hed

Nire espiritua ez zen konkistatzaileen arrazakoa, baizik eta fakturen **pentzean** graziako trenan noiz irago zain bazkatzen diren behien kastakoa. **Joxan Elozegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**landa eta pentze** (4); **ondoko pentze** (3); **pentze eta landa** (3); **pentze handi** (3)



## pentzetu, pentze(tu), pentzetzen da/du ad pentze bihurtu.

Dena den, mahasti ohian, orai **pentzetua** den lekuan sortua da, zinez, Jainkoaren nahia, bizirik egon baita, zeren, bi metra ordoki baino gehiago ez du alor horrek.

Herria

## pentzu

### 1 –en *pentzura* –en kontura. ik **pentzuda 3**.

Haiena, justiziaren **pentzura** eraikitako ordenaren kontrako borroka zen, Martak mila bider errepikatu izan zionez.

Harkaitz Cano

Barre ere egin zidatelakoan nago; nire praken **pentzura**.

Edorta Jimenez

## pentzuda 1 iz itzaropena, uste ona.

Ditoxosoko dohaina etorri bezala joango zaiola, supituan, eta eusteko goiari, hain hurbil duen mende berriaren argi zirrinta **pentzudazkoari**.

Karlos Linazasoro

### 2 –en *pentzudan* –en menturan.

Izan ere, azkartasun horren **pentzudan** daude gure diru-sariak, gure biziak.

Eskarne Mujika

«Ezin gara luzaroago Madrilgo Gobernuaren **pentzudan** egon», adierazi zuen.

Berria - Ekonomia

Iraultzaren izpiritu esaten diogu guk xede politiko baten **pentzudan** eskubide guztiak gogorki ezereztzeko gogo nabarmenari.

Berria - Euskal Herria

Fionn heltzerakoan, den-denek utzi zioten jateari eta edateari, buruzagiaren erreakzioaren **pentzudan**.

Joanes Urkixo

### 3 –en *pentzudara* –en kontura.

-Zorriak gure **pentzudara** bizitzeko jaiok dituk -segitu zuen, hizketamodua aldaturik-, ez diat egundaino ezagutu oilanda bati muzin egin dion azeririk.

Anjel Lertxundi

## peoi (*orobat peon g.er. eta pioi g.er.*) 1 iz maila apaleko langilea, inongo prestakuntzarik eskatzen ez duten lan neketsuetan diharduena.

Petrus **peoi** gisa iritsi zen, lurra landu, gauzak garraiatu eta baratzea ureztatzeko.

Oskar Arana

Udaberriaren kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-pikatzailak eta zurginak, arotzak eta kisuginak, beren maisu, **peoi**, ofiziale eta ikastunekin.

Aingeru Epaltza

Haien **peoiak** eta morroiak ere dotore baino dotoreago jantzirik zihoazen, nor bere jaunaren eta etxearen ezaugarriekin eta bere zaldiarekin.

Joan Mari Irigoien

50 arkabuzari zekartzan berarekin Garazitik, baita **peoi** zenbait ere laguntzaile.

Aingeru Epaltza

Bortolasso hori adin ertaineko **pioi** bat zen, mandoa bezain sendoa eta ordotsa bezain lohia.

Juan Garzia

Horra zen Lüküzeko jauna bera ere, bere seme, ezkutari eta **peoiekin** batean.

Aingeru Epaltza

**Peoi** batzuen laguntzarekin, lau arkeologo ari dira lanean, goiz eta arratsalde Aldapako San Fermin plazan.

Berria - Kultura

Baina maite zuen halere etxegileak bere **peoi** berria.

Koldo Izagirre

La Caledonia etxaldean egun batzuk pasatzera gonbidatu gintuen; ordurako, **peoi** igeltseroak lanean ari ziren bertan.

Juan Garzia

Tailer bateko mekanikari-lagun, obretako **peoi** edo pintore-ikastun.

Aingeru Epaltza

1920az geroztik zerrategiko **peoia** izan zen Dummy, Washingtingo Yakimako Cascade zurgintza enpresan.

Koro Navarro

Eraikuntzako **peoi** batek urtean 17.893,72 euroko soldata izango luke eta 20.392,19 eurokoa lehen mailako ofizialak.

Berria - Ekonomia

Soldaduak eta **peoiak** organ kokatzen ari ziren azken kanoia.

Aingeru Epaltza

Gero nire aitak eta beste **peoi** batzuek hazienda bat hartu zuten.

Pablo Sastre

**Peoi**, fabrika batean.

Eskarne Mujika

Igeltseroak dira, linternerok, **peoiak** ..., beren esku indarrez edozelako gailuak erabilgarri, bizigarri, gozagarri bilakatzen dituen jendea.

Pako Aristi

### 2 (adizlagun gisa)

Fabrikari sartu nintzen, **peoi**.

Eskarne Mujika

Egun batean, **peoi** ere hasi zen, lur mugitze lanetan...

Karlos Zabala

### 3 (hitz elkartuetan)

**Peoi**-lanak, batik bat.

Edorta Agirre

**Peoi** jantzia jantzita eta erabat zikinduta zegoen.

Berria - Euskal Herria

### 4 xake jokoa, gutxienean balio duen pieza.

Jokalari alemanak erdiko **peoi** bat aurreratu zuen.

Alberto Ladron Arana

**Peoi** zuri bat bi laukitxo mugitu zen aurrera.

Iñaki Mendiguren

Maisuak **pioi** guztiak suntsitu zizkidan defentsa ikaragarrian, baina etsi egin zuen azkenean.

Berria - Kultura

Mugitu nuen nik **peoi** bat, mugitu zuen hark berte **peoi** bat... eta hala ibili ginen, mugimenduz mugimendu, egunari gaua zerraiola, eta gaua egunari... zeren eta nik hari

**peoi** bat jan bainion eta hark niri berte **peoi** bat... eta aitzinago nik zaldun bat jan nion eta hark niri alfila...

Joan Mari Irigoien

14. jokaldian Santik **peoi** bat sakrifikatu zuen, eta Granadosek peoia harrapatu zuen.

Berria - Kirola

Xake taulan ez genuke **peoi** bat defendatu behar, horretarako, erregina arriskuan ipiniz.

Xabier Kintana

Haien begietan ni **peoi** ziztrin bat baizik ez nintzen, pieza tipia, anitzetan trabagarri gertatzen den pieza ezdeusa.

Alberto Ladron Arana

Raimundo Silva berriz igotzen da gaztelura, gazteluko dorre garaietatik begiek oso-osorik ikus dezakete xake-taula, **peoiek** eta zaldunek, objektiboki mintzatuz, borrokan egingo duten toki zabala, erregearen eta gotzainen begiraden pean.

Jon Alonso

Dorre-**peoietako** bat kenduz xake jokoa aberasteko posibilitateari buruzko artikulu tekniko bat.

Juan Garzia

### 5 irud/hed

Hori joko handiaren ondorio normala baino ez da, eta gu **peoi** hutsak gara nazioarteko xantaia izugarri horretan.

Urtzi Urrutikoetxea

«**Peoi** gisa» sentitzen da; «oso joko sakon, erraldoi eta maltzuruko **peoi** gisa».

Berria - Harian

Diputatu testimoniaia nintzen; **peoi** gisakoa.

Berria - Euskal Herria

Diktadura militarren **peoiak** ziren.

Bernardo Atxaga

### 6 zezenketetan, zezenketariari laguntzen dion toreatzaile morroia.

Eta, hala, sartu zizkion toreatzaileak zezenari bi burtzi, eta **peoi** batek hiru hagatxo; jaurtiki zizkion berte **peoi** batek lantza batzuk -dozena bat bai-, lizar adarrez eginak.

Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

peoi gisa (5); peoi ziztrin bat (3)



peoitza ik peontza.

peon ik peoi.

**peonia** *iz* urrebotoiaren familiako landarea, hosto handi zatituak dituena eta bere lore ikusgarriengatik lantzen dena (*Paeonia officinalis*). ik **oinlodi**.

Zehazki urtaro hartan, bi edo hiru neguko **peonia** lore betean zeuden udazkeneko eguzki berotan, Yamatoko tenplu zahar bateko harresi garai baten oinarrian. **Ibon Uribarri**

Bekokiko zainak irten beharrean zituen Farringtonek, eta Weathersen larruazal zurbilak **peoniaren** kolorea hartu zuen. **Irene Aldasoro**

Arrosa sorta bat, bi **peonia** sorta eta landaretxo bat. **Josu Zabaleta**

**peontza** (*orobat peoitza g.er.*) *iz* peoiaren lanbidea.

Edo bazegoela hartatik bizitzerik, obretako **peoitza** utzita. **Koldo Izagirre**

Ibarrun zolako multxo batek beren **peontza** urririk eskainirik eta Jakes Bernet margin gaztearen laguntzarekin paretaxaharrek denak berri dire hor bereko harri xaharrek. **Herria**

Nikaraguako esperientzia baliatuta etxegintzako **peontzan** probatzekotan nenbilela, amak eman zidan ideia: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lorenzo Garate **peontzan** aritzen zen, Uztarrik taberna jarri zuen Azeptian, eta Urkiolegi Azkoitiko oporketa handiko bertsoak jarritakoa, sindikalista eta fabrikako langilea izan zen. **Berria - Kultura**

**pepelerda** (*Euskaltzaindiaren Hiztegian pepelerdo agertzen da*) *izond* emakume pepelerdoa.

Galdera ozena zurrumbilo artean: zer demontre egiten ote zuen **pepelerda** sorta itzel harekin. **Sonia Gonzalez**

**pepelerdo** *izond* tentela.

Irakurle **pepelerdoa** duzu hori, idorrieriak jotako gizajoa. **Markos Zapiain**

Mirto Czentovic umezurtz txiro erdi **pepelerdoa**, xakerako dohain apartek munduko txapeldun izatera goititua. **Markos Zapiain**

**Pepelerdo** honek ez ote dit bere etxera joatea proposatuko? **Jon Arretxe**

Zeure maitea ez bada **pepelerdo** zozo-poto bat, eta ez badu liburu hau ezagutzen, kopia itzazu pasarte egokiak. **Markos Zapiain**

**Pepelerdo** aurpegiz begiraten didate gehienek euren alboik pasatzen ikustean, "begira, txakurra!". **Jon Arretxe**

**pepinillo** (*orobat pepinilo*) *iz* ozpinetako pepinoa. ik **pepino 4**.

Begiak Maxinerengandik apartatu eta bazkariak geroztik mahaiaren gainean zegoen **pepinillo** potoari begiratu zion. **Koro Navarro**

Hungariatik salamia eta **pepiniloak** ekartzen zituen, oso estimatuak hauek ere pragatar arruntaren artean; Poloniatik zaldi-zezina eta chucruta. **Felipe Juaristi**

**Pepinilo**, piper, meloi-azal eta piperminex bateriko ontziek piperbeltz-usain hezea gorantz hedatzen zuten kiribilka. **Lopez de Arana**

Bibragailu bat... edo **pepiniloa**... edo platanoa... sartuta? **Luis Elberdin**

pepinilo ik pepinillo.

**pepino 1** *iz* luzokerra.

Gaur goizean ez zegoen **pepinorik** merkatuan, jauna. **Antton Olano**

Gogoan dugu Egipton doan jaten genuen arraina, baita hango **pepino**, meloi, porru, tipula eta baratxuriak ere! **Elizen arteko biblia**

Hark gehien maite zuena **pepinoak** eta arrautza galdarraztatuak ziren. **Bego Montorio**

Araujo jauna, kontuan izan arrautza gehiegik kalte egiten duela eta **pepino** digerigaitza dela. **Bego Montorio**

**Pepino** ogi tartean gauero, eta noizbehinka, izokin keztatua; **pepinoarekin** hori ere. **Ramon Saizarbitoria**

Ukrainako beste zizka-mizka batzuk atera dituzte: azaz, sagarrez, pernilaz, **pepinoz** eta tomatez eta indioilar zatiez egindako pintxoak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

2 (hitz elkartuetan)

Emadazu beste **pepino**-ogitarteko bat. **Antton Olano**

Kopak lurrinez estali ziren zerbitzari zaharrak ardoa kristal landuzko pitxer batetik zerbitzatzean, non menda-orriak, izotz-puskak, limoi-azalak eta **pepino**-zerrenda luzeak igerian baitzebiltzan. **Lopez de Arana**

Hango saski batean tipularen berniz urrekara pizten zen, horko beste batean tomatearen gorri odollezkoa, han **pepino** mordoxka baten hori itzaliak egiten zuen dir-dir. **Karlos Zabala**

3 *ozpin pepino* ozpinetako pepinoa.

**Ozpin-pepinoen** postuari garrantasuna zerion. **Lopez de Arana**

4 *ozpinetako pepino* pepino txikia, ozpinetan ondua.

Janariak prestatzen zizkion kanporako, okela errea eta txerri saihekiak **ozpinetako pepinoekin** eskatzen zion bereziki. **Karlos Zabala**

Odolki hotza, saltxitxoi xerrak, txerri okela gazitu puska bat, **ozpinetako pepinoak** eta antzara gantza zerbitzatu zizkien. **Karlos Zabala**

Neskatila bat, **ozpinetako pepino** gazi eske, eta zalgurdi-gidari bat, lukainka bat erosi zuena. **Anton Garikano**

Lisak platera pisatu eta jelatina eta **ozpinetako pepinoak** erantsi behar izan zizkion. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ozpinetako pepinoak** (3)

pepinotxo *iz* ozpinetako pepinoa.

Edandakoa, jakina, ez zen Txemak lehentzeago amesturiko muxika-ur azukreztatatu freskagarri hura, ezpada, norbaitek poto horrexetan ezarririko piperrin edo **pepinotxo** edo tipuleta-ur ozpindua. Josexo Azkona

pepita ik **pipita**.

pepitatxo ik **pipitatxo**.

**pepsina** *iz* urdaileko guruin batzuk jaritazen duten entzima, proteinen digestioan parte hartzen duena.

Nolanahi ere, azido klorhidrikoak ez du eginkizun handirik digestioaren hasierako faseetan; fase horietan, **pepsinak** eta urdailaren barne-estaldurako zelulek sorturiko beste entzima batzuek hartzen dute parte. Irene Aldasoro

**peptidiko** *izond* peptidoena, peptidoei dagokiena.

Gastritisa eta ultzera **peptidikoaren** sorreran, *Helicobacter pylori* bakterioak duen eragina aztertzeagatik. Berria - Gaiak

**peptido** *iz* aminoazido bi edo gehiago batzeak sortzen duena konposatua.

Proteina fabrikatzeko makinak, xehetasun eta guzti, ez du jada sekreturik guretat, bere bi urratsekin: genea ARN mezulari gisa transkribatzea, mezularia **peptido**-kate gisa itzultzea. Juan Garzia

Era horretan, beta-amiloide **peptidoen** kontra egin dezakete molekulek. Berria - Gaiak

Aminoazido kopuru mugatu bat elkarri lotzen zaionean sortzen den substantzia natural edo sintetikoari deitzen zaio **peptidoa**. Berria - Gaiak

**pera** *izond/iz* dotore manera nabarmenak dituen.

"Monovolumen" erraldoietan goaz mendi puntako ermitarik urrunenak bisitatzera, eta neguan klase altuagoak izan nahi luketen Espainia osoko **pera**, pijo, eskuindar moderno eta ezkeriar aburgesatuekin batera eskiatzera goaz. Pako Aristi

perberso ik **perbertso**.

**perbertitu**, perberti, perbertitzen **1 da/du ad** norbait moralki gaizto edo bizlotsu bihurtu.

Zu baino gazteagoak badira, indarrez hartu, olgetan ibili galbidera eramateko, eta etsenpluak, aholkuak eta zeuk nahi duzun guztia erabili **perbertitzeko**. Juan Martin  
Elexpuru / Bego Montorio

Gainera, korrupzioak hondatzen duena **perbertitu** ere egiten da. Imanol Unzurrunzaga

Ez dago [...] diskurtso-mota ideal bat, aldi berean azkena eta intenporala, jatorriz kanpotikoak diren aukeraketek, beharbada oso urrun legokeen etorkizun baterantz, **perbertituko**, jaurtiko, zapalduko, bultzatuko zuketena. Xabier Arregi

**2** (era burutua izenondo gisa)

**Perbertitu** baten moduan begiratzen diola iruditzen zaio. Patxi Iturritegi

Ipurditxoaren jabea Gorka zen; **perbertitu** itxurakoa, berriz, Portu. Patxi Iturritegi

Keinuka hasi zait eskuaz eta uste nuen **perbertitu** bat zela. Javi Cillero

Aldizkarian bazen komiki sakrilego bat, apaiz **perbertitu** bat azaltzen zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Tuntuna ez da, baina bai **perbertitu** xamarra, hala iruditzen niri. Joxe Austin Arrieta

Buru **perbertituetan** baino ez dira piztuko deabruak. Berria - Harian

Nazio aholkularia, **perbertitu** sexuala bera, eta kanpoaldetik albisteak ekartzen dizkien mezularia dira pertsonaia nagusiak. Berria - Kultura

Gure deputatuaren iduriko abertzaleak saiatzen dira herriko etxetan sartzera Frantziako instituzio demokratikoen **"perbertitzeko"**; abertzaletasunak bortizkeria bere baitan dauka lainoek ekaitza dakarten gisan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**perbertitu bat** (3)

**perbertitzaile** *izond* perbertitzen duena.

Beraz, Hugo baitan badago jada landaren landatasun defentsa bat, naturaltasunaren defentsa bezala, hiriaren eta modaren inbasioen aurka, modernizazio **perbertitzailearen** aurka hain zuzen. Koldo Izagirre

**perbertsio 1** *iz* berezko senen eta joeren desbideratzea; bereziki, sexu jokabide ezohikoa.

Lehenengo, [homosexualitate] deabruaren kontua zen; gero, bekatua; gero, **perbertsioa**; ondoren, aberrazioa; gaixotasuna gero, eta, azkenik, desbideratzea. Luis Elberdin

**Perbertsioa** ordenarik eza da, eta ordena ona da. Imanol Unzurrunzaga

Naturaren kontrako ekintzak, **perbertsioa**, espeziearen degradazioa. Luis Elberdin

Naturaren printzipioarekin, hau da, ugaltzarekin bat ez datorren sen sexualaren edozein adierazpen **perbertsioa** da. Luis Elberdin

Kastitatea zela bere **perbertsioa**. Xabier Mendiguren Elizegi

Bakardadez beteak, malenkoniatsuak eta aldi berean **perbertsioz**, lizunkeriaz, sadismoz beteriko garaiak. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Hori **perbertsioa** da: elkarren ondoan jarri nahi dira elkarren antzik ez duten bi gauza. Berria - Euskal Herria

Lehiaren ideia bera literaturaren funtsaren **perbertsioa** dela esan genezake. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitzen **perbertsiora** garamatzate zuzen. Hasier Etxeberria

Hori dena beharada "etika greko" jatorraren **perbertsioa** bezala kontsideratu beharko da. Joxe Azurmendi

Herri galdeteka «demokraziaren **perbertsioa**» izan zela esan zuen. Berria - Euskal Herria

Botere politikoan dagoenak [...] eman du amore lehenik, botere ekonomikoaren promesen aurrean; ondoren, botere zientifikoaren **perbertsioak** etorri ohi dira. Edorta Agirre

### 3 (izenondoekin)

Ezagutzen ditu nire fantasia eta **perbertsio** ezkutuenak. Urtzi Urrutikoeetxea

Denek onartu omen zioten ez zegoela hori baino **perbertsio** makurragorik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Perbertsio** txiki bat asetzeko. Karlos Zabala

Zientziaren pulpitutik berriz ere arbuia egin zuten homosexualitate, eta "buruko gaixotasuna" eta "**perbertsio** sexuala" zela esaten zuten. Luis Elberdin

Sexualitatearen psikiatrizazio obsesiboak "**perbertsio** sexualen" zerrenda azkengabe bat egitera eraman zuen gizona. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nahiz eta jende asko dabilen halako **perbertsio** automobilistiko batek joa eta horiei izugarri gustatzen zaien auto barrenean jotzea. Karlos Zabala

### 4 (hitz elkartuetan)

Behin zakila atera bide zion gobernadorearen emazteari, ez dakigularik **perbertsio** ateraldi baten ondorioz ala agintari gorenaren aurkako joera anarkista bat erakustearren egin zuenentz. Arimen kutsadura, sexu-**perbertsioak**, ezkon-desordenak, adulterioa eta lizunkeriak. Pako Aristi

## perbertsitate iz perbertsoa denaren nolakotasuna. ik gaiztotasun.

Piztia odolitzalea eta ikaragarria izateaz gain, **perbertsitatez** betetakoa da, inozentzia eta on-izatea gorrotatzen dituen izaki gaizkilea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Naturak edozein **perbertsitate** berdin irakasten duela, Sade ilustratuak kontrailustratu du. Ez nuela huts egin beti gizon liberal eta izpiritu garbiko izango zinela sinestu nuenean, zainarentzat **perbertsitateak perbertsitate** baitira, munduko inolako arrazoik zuritu ezin ditzakeenak. Joxe Azurmendi

Asmo horrekin Kanten izenez [...] baliatu nahi izatea, izenik gabeko **perbertsitate** intelektual absolutuena bakarrik da hortaz. Joxe Azurmendi

## perbertso (orobat *perberso g.er.*) 1 izond gaizkira makurtua, gaizkia egiten atsegin hartzen duena. ik gaizto; makur; oker.

Frai Petri Gantekoarentzat indio amerikarrak arrazoimenik gabeko abereak dira; Fernández de Oviedo-rentzat izatez gaiztoak eta **perbertsoak**. Askoren artean

Ibon Uribarri **perbertso** arrisksua da: Kant maitatzea ez baita naturala. Markos Zapiain

### 2 perbertsioa adierazten duena; ohiko ordena edo egoera gaiztotzen duena.

Gaiztakeria **perbertsoaren** adierazpen bereziki gorrotagarriak. Jon Alonso

Bestenaz bai litzatekeela goitik beherako munstrokeria **perbertsoa**. Hasier Etxeberria

Logika **perbertso** honen arabera, maitasunaren exigentzia traizioa zen. Joseba Zulaika

Tortura bera bezain gaiztotu eta **perbertsoa**. Agurtzane Juanena

Baina bada bigarren interpretazio bide bat ere, **perbertsoagoa** hagitzez. Iñigo Aranbarri

Jendearen begietara ere bere estiloak zerbaiz aztoragarria du, **perbertsoa**, korrosiboa. Patxi Iturritegi

Absurdoa da, norbera grinarengatik hartara beharturik egon ezean [...] horrelako ideia, guztiz **perbersoa**, eduki dezakezula pentsatze hutsa bera ere. Joxe Austin Arrieta

Suposatzen da bere jarduera "sado-**perbertsoengatik**" sartu zutela kartzelan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## perbertsoki *adlag* modu pertbertsoan. gaiztoki; makurki.

Borondate hitza esango zuten, gertaeren zain gelditu zinen, barrutik irri egiten ari zinela, berriz diot, **perbertsoki**, guri adarra jo nahian, azken hitz hauen zatarkeria ez da bat etorriko errieta moralizatzailearen tonuarekin. Jon Alonso

### perde ik berde.

## perdigoi 1 iz ehiza munizio gisa erabiltzen den berunezko alea.

Ondo zaindu ganadua, trangatu ganbarako atea, sartu **perdigoiak** eskopetari! Anjel Lertxundi

Beraiek egiten baitzituzten kartutxoak, hartu azala, polbora sartu, tako biribilarekin estutu, gero **perdigoiekin** bete eta, kartoiarekin itxi ondoren, atzetik pistoi berria ezarrita, tiraldi bakoitzeko aldatu beharra egoten zen pistoia. Pako Aristi

Aitaren bi kanoiko eskopeta baten bila joan zen Karlos, aurkitu zuen, ezkutuan garbitu eta otsotarako **perdigoiekin** kargatu zuen. Koro Navarro

Poliziei **perdigoi** eskopetekin tiro egin izana leporatu zieten. Berria - Harian

Oilagorrei tiro egiteko, zein neurritako **perdigoiak** erabiliko hituzke? Koldo Biguri

Tiro bat entzun zen handik hurbil, eta han etorri zen, **perdigoi** ihesi, izuturik, asaldatuak, istiluan, zozo saldo bat hegan. Anton Garikano

Eperraren hegatsean topatutako **perdigoiak** bezala. Itziar Otegi

Altxatu, sendagilearengana joan, albo bat bahe baten antzera utzi zioten **perdigoiak** aterarazi eta ez zuen txintik ere atera. Koldo Biguri

Garai hartan armak muturretik kargatzen zituzten, lehenik piztona, gero bolbora eta azkenik **perdigoiak** edo draiak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Poliziei **perdigoi** eskopetekin tiro egin izana leporatu zieten. Berria - Harian

### 2 (hitz elkartuetan)

Egun batean emakume bat iritsi zen hondartzara eta jantzita zeukan guztia (sandalia pare bat) erantzten ari zela, kontsulak, bere onetik aterata, **perdigoi** zaparrada bat bota zion pertsona haren alderik nabarmenenera. Xabier Olarra

Gizon zaharra zen dagoeneko, itxura txarrekoa, begibakarra, aurpegi okerra, orban beltzez betea -hainbat urte lehenago aurpegira bota zioten **perdigoi** tiro batek eginak-. Josu Zabaleta

## perdigoiakada iz

**Perdigoiakada** [...]: Estatu Batuetako sozialisten eskariei erantzuteko, etorkizuna prestatzen ari den argudioa. Xabier Olarra

## perdukatu, perduka, perdukatzen du *ad* apaindu, edertu.

Halatan, agoril hondarrean, Pierraren emazteak hirugarren haur bat munduratu zuen, ganbarako hormak odolez **perdukatuz**. Itxaro Borda

Armadako buruzagiek ez zituzten handik ateratzera uzten, beren beharren eta itsas-minaren ondoriozko aurtikitzeen urriak ontziaren behereko gela pozoitua **perdukatzen** zuela. Itxaro Borda

Karrelaje zuri-urdinez **perdukatu** hegiak zortzatz ziren. **Itxaro Borda**  
Eskuilaz mitikoaren jantzia xahatu zuen, usain onez **perdukatu** eta neskatxaren matelan malinki haztuak ziren ile marrak zuzendu zituen. **Itxaro Borda**  
Herritarrek, egun bereziaren haroa aitzaiki, euro bat edo biko txanpon mardulak iraitzen zituzten herresten buneta zolak **perdukatuz**. **Itxaro Borda**

peredikatu ik **predikatu**<sup>1</sup>.

**perediku**<sup>1</sup> (*orobat pherediku g.er.*) **1** iz maskaradetan, esaten diren ahapaldien multzoa.

Aurten hauteskunde urtea izanda, batez ere Atharratzeko kantonamenduan, zer aipatzeko gai eskasian ez dira egongo maskaradetako **peredikuen** idazleak... **Berria - Kultura**

**2 lehen perediku** pastoral batean, aitzinsolasa.

118 aktoreek oholta gainerat igotzea amaitua zutelarik eta Jean Bordaxarrek eta Beñat Jauregik **lehen perediküa** abestu aitzin, Jean-Fabien Lexardoi errejentak minutu bateko isilunea eskatu zuen bezperan gertatutako zorigaitz itzelagatik. **Berria - Kultura**

**Lehen perediküak** ahoko gustua emanik, erne ernea joan dira oro, artemarterik gabe, luzamenik ez batere. **Herria**

**Lehen perediküaren** emaiteko, Jean Bordaxar kantari ezagüna eta Beñat Jauregi izentatü dütü errejentak. **Herria**

Pastoral hartako sujeta izan zena, Jean-Yves Constantin Etxebarne, **lehen perediküaren** emaile izango da aurtengoan. **Berria - Kultura**

**3 azken perediku** pastoral batean, gibel-solasa.

Bena berriz erraiteko, bi pastoral badira üda hontan, eta Sohütakoak esküa lüzatzen deio Iruri-Zalgizekoari, azken **perediküaren** aitzineko kantorean, bertset honez: [...].

**Herria**

Etengabeko bilakaera duen ikusgarri bat da trajeria eta Antso Handia obran ere berrikuntzarik nabarituko dute ikusle aditueneak, hala nola güdüken egiteko moldeetan, türken ateraldietan, **azken perediküaren** emateko eran. **Berria - Kultura**

Azken **perediküaren** emaileak, aldiz, Eric Alzazebe Püntt eta Eric Hardoi Ñane. **Berria - Kultura**

Aldaketak egongo direla, hala nola Türken jokoan eta Azken **Perediküan**. Hebertik eskertzen dütüt, aholkü zönbait emanez haurrer azken **peredikü** hontan, beste güzientzat ere balio dükealako esperantxan. **Berria - Kultura**

perediku<sup>2</sup> ik **prediku**.

peregrin ik **pelegrin**.

peregrinazio ik **pelegrinazio**.

peregrino ik **pelegrin**.

pereka ik **fereka**.

perekatu ik **ferekatu**.

**perestroika** iz EESBn M. Gorbaxov-ek bultzatu zuen erreforma politikoa, liberalizazioaren aldekoa.

Memorial Gobernuz Kanpoko Erakundea 1988. urtean sortu zuten, **perestroika** edo 1986tik aurrera Mikhail Gorbaxovek SESBn gidatutako erreforma prozesuaren giroan. **Berria - Gaiak**

**Perestroikaren** ikur izan zen Anatoli Sobtxaken ikaslea izan zen San Petersburgoko Unibertsitatean. **Berria - Mundua**

1986an, **Perestroika**-ren garaian, Txetxeniar itzuli eta Ipar Kaukasoko aurreneko Institutu Islamikoa sortu zuen. **Berria - Mundua**

perestu ik **prestu**.

perestuki ik **prestuki**.

**pereza** iz nagitasuna, alfertasuna, nagia. ik **herabe**; **nagikeria**.

Gero eta **pereza** handiagoa ematen dit iragana gogoratzeak. **Pako Aristi**

Ez duela bereizten noiz isiltzen den beldurragatik eta noiz **perezagatik**. **Pako Aristi**

perfekt ik **perfektu**.

**perfektibo** *izond* aditzen erez mintzatuz, burutua. ik **inperfektibo**.

Esclaviar hizkuntzek aditzaren bi aspektu bereizten dituzte erregularki: **perfektiboak** bere osotasunean, puntu gisa irudikatzen du ekintza, bilakatze orotatik kanpo; inperfektiboak gertatzen ari dela aurkezten du, eta denboraren lerroan. **Isabel Arrigain**

## perfektibotasun iz perfektiboa denakotasuna. ik imperfektibotasun.

Errusieraz, **perfektibotasunaren** eta imperfektibotasunaren arteko bereizketa horrela gautzen da gramatika bideak erabiliz [...].

Isabel Arrigain

Eslabierazko **perfektibotasun** aurrizkiak. Isabel Arrigain

## perfekto ik perfektu.

## perfektotasun ik perfektutasun.

## perfektu 1 *izond* hutsik edo akatsik gabea; hobetzerik ez duena. ik *betegin*. (pertsonez)

Emakumea ederra da eta, agian, **perfektua**. Karlos Linazasoro

Gizaki **perfektuak** guztia ahaztu behar luke, ez luke zentzuen morroi izan behar, eta gogalmenak bere baitan bildu behar lituzke. Joan Mari Lekuona

Nola deskribatu zuen anaia **perfektua**. Askoren artean

Ama, zuri esker, emazte **perfektua** izango naiz. Pablo Sastre

Ama **perfektuak** izatera behartuta sentitzen al dira emakumeak? Berria - Gaiak

Nere burua nuen partida, baina ongi zen, behar zenez, apez **perfektu** izateko. Piarres Aintziart

Arraza "alpinoa", esklabo **perfektua**. Joxe Azurmendi

Gizon zoriontsuak orotan jakintsu **perfektua** behar duelako izan. Imanol Unzurrunzaga

Zacarias erredu **perfektua** da estatubatuarrentzako: arabiarra da, pobrea da, baina eskolatua dagoen norbait da ere. Berria - Harian

Emakumea benetan zen **perfektua**, zinez aingeruzkoaren eta edertasunaren haragiztatze gorena. Oskar Arana

**Perfektua** da gizakia bere bizitza osoa bizitze aldeazinerantz zuzentzen duenean eta gogo betez hari atxikitzen zaionean. Imanol Unzurrunzaga

**Perfektuen** artean **perfektuena** zen arren, bestela ikusten zuen bere burua, guztiz inperfektutzat joz. Askoren artean

Hortaz, bila dabilena oraindik ez da **perfektua**. Imanol Unzurrunzaga

- Espetxea hiltzaile **perfektua** da, biktimak bere buruaz beste egitea lortzen baitu. Berria - Euskal Herria

## 2 (gauzez)

Hobeto zekien gauza **perfektuak** egiten, haietaz mintzatzen baino. Askoren artean

Ezpain **perfektuak**, ondo marraztuak, perfilatuak, deigarriak. Sonia Gonzalez

Barre egin zuen berriro, eta hortz ilara **perfektua** erakutsi. Ramon Saizarbitoria

Liburu **perfektua** egin nahi zuen: auctoritas hutsa, epaiezina. harro, zoruari hain ongi markatuak dauden lauza **perfektu** horietan barrena pasatzen naizela. Iñaki Iñurrieta

## 3 (gauzez abstraktuez)

Berezko desira naturala atsedena du, hots, errealtate **perfektuagora** iritsi nahi du. Imanol Unzurrunzaga

Erabateko lehiaren edo kompetentzia **perfektuaren** baldintzak. Iñaki Heras

Forma **perfektu** horren definizioa, horratz, antzinako artearen ikusmolde idealizatu batean bilatzen da. Josu Zabaleta

Putz egitean, masailek burua biribiltzen zioten eta simetria **perfektua** osatzen zuen helikoiaren ahoarekin. Jon Maia

Giharren tentsio-joko **perfektua** nire aurrean, ezker-eskuin txandakaturik: estutu, lasaitu, estutu, lasaitu. Xabier Mendiguren Elizegi

Atertu egin du, haizea goxoa da, zeruan irudi beltz ederrak pasatzen dira, geldiro: une **perfektua** girotzeko behar dena baino gehiago da. Monika Etxebarria

Ordu **perfektua** aukeratu dute, oharkabean aritu gura izan dute. Josu Landa

Zorion beteginak edo **perfektuak** asebetetzen dituela gizakia naturalki edozein ontasunez hazten dituen lehia guztiak. Piarres Xarriton

Zorigaitz osoa eta **perfektua**, ordea, ez da besterik, Jainkoa ezin ikustea, ezin maitatzea eta ezin gozatzea baizik. Piarres Xarriton

Kategoriarik gabeko izate **perfektua** da Jainkoa. Askoren artean

Krimen **perfektua** zatekeela neritron burutzen ari nintzenari. Ramon Saizarbitoria

Esaguzu, aita, zein den obedientzia **perfektua** eta gorena. Askoren artean

Lo **perfektuan** jarraitzen du. Eider Rodriguez

Ezingo dutela inoiz eraiki lurrean injustiziarik gabeko estatu ideal **perfektua**. Imanol Unzurrunzaga

Artikuluen balioeste-prozesua **perfektua** ez, baina orain arte topatu duten onena dela. Berria - Gaiak

Sorkariak ez baitaitezke Jainkoagana era **perfektuan** igo. Joan Mari Lekuona

Ez dago ezer **perfekturik**, ez poesian eta ez inon. Ana Urkiza

Eta, baldin eta kopiak ez baziren **perfektuak**, Smith-en lanen klon peto-petoak, kartzelan amaituko zuen. Oskar Arana

Telebistako kakarik **perfektuena** zen. Txema Ramirez de la Piscina

## 4 ez-perfektu izond

Nola egiazko gaitza zatitzen den bi gaitz motatan, gaitz perfektua eta gaitz **ez perfektua**, gisa berean, bereizten dira zorigaitz osoa eta ez osoa. Piarres Xarriton

Badakigu kanpoko gauzen eta gure ni-aren arteko erlazio **ez-perfektu** bat dela ezagutza. Josu Zabaleta

Mirespen ideal hori zehazten ez bada, gizartzen ez bada, haragizko gizakien itxura **ez-perfektua** hartzen ez badu, imintzio huts bihurtzen da, morfina huts. Juan Kruz Igerabide

Merkatu-egitura **ez perfektuen** existentziak, alabaina, merkataritza-politika oldarkorrek bultzatzen ditu. Koro Navarro

Konkurrentzia **ez perfektuzko** eta goranzko etekinen testuinguru batean. Koro Navarro

Bere buruaz gozatzen du baina era **ez-perfektuan**. Imanol Unzurrunzaga

## 5 zenbaki perfektu bere zatiitzaileen baturaren berdina den zenbakia.

Gerora, konturatu zirenean bi zenbaki horiek **perfektuak** zirela, bai seia eta bai hamarra, biak batu zituzten zenbaki bakarra eginez, eta zenbaki guztiz **perfektua** egin zuten, hamaseia. Santiago Iruretagoiena

## 6 irud zenbakiak adierazten duen kopurua eta zenbakiaren letra kopurua bat datozen zenbakia.

Zenbakien kasuan, **zenbaki "perfektuez"** hitz egin genezake. Iñaki Arranz

Euskarak bi **zenbaki perfektu** ditu: *bi* eta *bederatzi*. Iñaki Arranz

Inguruko erdarek ez dute gure mailarik iristen, **zenbaki perfektu** bana baitaude: *cinco* gaztelaniak, *four* ingelesak, *tre* italiarrek. Iñaki Arranz

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beltzaran perfektu bat (9); liburu perfektu (4); une perfektu (3); zenbaki perfektu (7)

aitzakia perfektua (3); ama eder perfektua (4); ez perfektua (3); krimen perfektua (3); mundu perfektua (3); perfektua izan (4); perfektua izanen (3); perfektua izango (8); zenbaki perfektua (3); zorion perfektua (14)

ama perfektuak (4); perfektuak izan (3); perfektuak izatera (4); une perfektuak (4)

# perfektuki 1 *adlag* era perfektuan.

Errebidearen bi bazterrak berde jori batean zeuden, irailako euri goxoek pizturik, lehengo ipuruak bezala **perfektuki** marraturik. **Piarres Aintziart**

Aspaldi sinpletasunez eta debozioz hasi zuena **perfektuki** burutu ahal izateko. **Askoren artean**

Eta berriro ere bere baitatik birsortzen dena, palingenesia **perfektuki** arautu eta amaigabeen. **Xabier Amuriza**

Sei whisky botila hasi gabeak ohe gainean lerratu zituen, **perfektuki**, maniatiko batek bezala. **Harkaitz Cano**

Atalak ezin du inoiz barnean hartu osoa, beronen atal baita; gogoak, ordea, bere burua osorik, hots **perfektuki**, ezagutzen duenean, ezagutza erabatekoa da. **Imanol Unzurrunzaga**

## 2 (izenondoekin)

Beste muturretik indartsu putz eginez, burbuila bat formatzen zen, aski ederra begira eta ia **perfektuki** esferikoa, baina geruza absurduki finekoa. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**perfektuki ordenatuta** (4)

# perfektutasun (6 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean) 1 iz perfektua denaren nolakotasuna. ik **perfekzio**; betegintzarre.

Bi belaunaldi ezberdinetako artistak izan arren badute elkarren antza, batez ere teknikaren **perfektutasunari** ematen dioten garrantzian eta inguruari dioten arretan. **Berria - Kultura**

Gonbidapen kitzikatzaille bat, bikote baten arteko **perfektutasunaren** eremu zabalaz hausnarketa egin nezan. **Aingeru Epaltza**

Espero dut, Cecily, ez zaizula gaizki irudituko, argi eta garbi aitortzen badizut, zu, alde guztietatik, **perfektutasun** absolutuaren pertsonifikazio ikusgaia zaitudala nire begietara. **Antton Olano**

## 2 ez-perfektutasun iz

Gizakien **ez-perfektutasunaren** adibide txundigarriak. **Oskar Arana**

Erlazio hori etengabea denez, bere **ez-perfektutasuna** eta guzti, gauza baten eta bestearen arteko erlazioari ez dio inolako baliorik kentzen. **Josu Zabaleta**

# perfekzio (398 agerraldi, 72 liburu eta 52 artikulutan; orobat *perfekzione* g.er.) 1 iz perfektua denaren nolakotasuna; perfektua den gauza. ik **perfektutasun**; betegintzarre.

"**Perfekzio**" hitzaz mesfidatzen naiz, sobera masakre egin baita ikuspegi horren izenean. **Ana Urkiza**

**Perfekzioa**, akatsik gabeko unea, erabateko zoriona, orainaldi bete. **Lourdes Oñederra**

Artelan idealaren **perfekzioa** lortu arte. **Imanol Unzurrunzaga**

Geometriaren **perfekzioa** eta artearen edertasuna bat eginik. **Piarres Aintziart**

Hemen, arkitektura geometriko modernoak, matematikaren **perfekzioa** harriz eta betoinez haragiztatzen du. **Piarres Aintziart**

Harrespil txiki barne-huts haiekin edertasunaren **perfekzioa**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta ez du horrek ezberdintasunik ekartzen, non ez den Izpirituak badituela betidanik hari orain eratikitzen zitzaizkiola irudikatzen genituen **perfekzio** haiek. **Piarres Xarriton**

Agerian jartzen duela nolatan arima horiek osatzen duten unibertsoaren **perfekzioa**. **Imanol Unzurrunzaga**

*Austriae Est Inperare Orbi Universo*: bost bokalen **perfekzioa** biltzen da inperio austrohungariarren dibisan. **Anjel Lertxundi**

Olioz eta akuarela eta argizariz, zabarki edo **perfekzio** osoz. **Iban Zaldúa**

Teosofoak hain begi zolia duenez, badaki hobetu nahi duen orok azkenean lortzen duela **perfekzioa**. **Xabier Olarra**

Legegilea nekatu egin zen, nekatu egin zuen gizartea, gizakiei agindu bidez betearazi nahian, **perfekzioa** maite dutenek aholku bidez egingo zuketena. **Iñaki Iñurrieta**

**Perfekzioaren** gailurrera heldua bazen ere, beti hasten ari balitz bezala, bide berriak aurkitzen zituen grina txarrak oinazetu eta zigortzeko. **Askoren artean**

Puntu horretan okertzeko moduko bigun zegoen hodia: lortzen zen okerdura oso urrun zegoen **perfekzioetik**. **Juan Garzia**

Hizkuntzen **perfekzioaren** arazoa erlatibo da: zeinentzat?, zertarako? **Joxe Azurmendi**

## 2 (izenondo eta izelagunekin)

Eta apaltasun sakon honi esker, bertuteen **perfekzio** handira iritsi zen. **Askoren artean**

Jainkoa, gainera, ez da iragaiten ahal **perfekzio** handiagora ez tipiagora; eta, ondorioz, ez du afekzio bihirik pairatzen, ez bozkariorik ez tristurarik. **Piarres Xarriton**

**Perfekzio** osora heldu gabe, baina nor da perfekzioa heltzen? **Herria**

Hamabi neskek ez dute oraindik erakusten dantzari profesional helduei eskatu ahal zaien erabateko **perfekzio** tekniko. **Berria - Kultura**

Haren bertuteen **perfekzio** miragarria. **Askoren artean**

Han zeuden beren intentsitate eta **perfekzio** harrigarrian *Lautada sutan* eta *Pedro Páramo*. **Juan Garzia**

Denbora gutxiren buruan, **perfekzio** santu honetan hil zen. **Askoren artean**

**Perfekzio** gorenaren bilaketan. **Askoren artean**

Burutik pasa ere ez zaizu egiten **perfekzio** unibertsal egon daitekeenik izaki perfektuak hain perfektuak ez direnekin batera existitzen ez badira. **Imanol Unzurrunzaga**

Oso gutxitan debekatu behar izaten da txarra ez den gauza bat, ustezko **perfekzio** baten aitzakiaz. **Iñaki Iñurrieta**

Balitzko **perfekzioaren** zain, inperfekzioa eta absurdua ditugu habitat naturalak. **Hasier Etxeberria**

Forma aldetikako **perfekzioa**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Apeles greziar margolariaren izena, XIX. mendea arte **perfekzio** formalaren eredu izana. **Josu Zabaleta**

Gero, eskumuturraren higitze doi atzemanarekin batera, kurbatzen hasten zen, **perfekzio** geometriko osoa ageri zuen trazadura zalantzagabeen. **Iñaki Iñurrieta**

Urki-adaxkak **perfekzio** aerodinamiko bilatuz prestatu dira. **Iñaki Mendiguren**

Ez dakit metal horren **perfekzio** leunaren irudia elizako harrien erliebetik datorikidan, kontrastez, edo/eta alderantziz. **Piarres Aintziart**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Perfekzio** puntu batera eramateko eginahalak egiten nituen. **Matías Múgica**

Aurrera nola egin duten, **perfekzio** -maila honetara iritsi arte. **Santiago Iruretagoiena**

**Perfekzio** maila garaiagora irits dadin. **Imanol Unzurrunzaga**

Gaitzeko lana zen hura, amaren aldekoek berezko duten pazientziak, txukuntasunaz, ordenazetasunaz eta **perfekzio** nahiaz bururatua. **Joxan Elosegi**

Hura ez zen inolaz akatsa; aitzitik, **perfekzio** modu bat zen, arte-lana. **Matías Múgica**

Arimen salbaziorako, **perfekzio** -eredu izan nahi zuen. **Askoren artean**

**Perfekzio** -bidean dauden pertsonen diet hitz egiten. **Joan Mari Lekuona**

Ez ezazue utzi **perfekzio** -bizitza hau, batzuek egin ohi duten bezala. **Askoren artean**

Erljio-zinitzak -mendetasuna, pobrezia eta garbitasuna- goratu eta aginduez gaindiko beste **perfekzio** -botoak ere bai. **Patxi Altuna**

Ordenaren **perfekzio** -grinaren neurrikoa izan behar zuen nahitaz haren tristurak ere. **Askoren artean**

Bide asko zituen, Elizaren tradizio eta jakinduriak mendeetan zehar antolatua, **perfekzio** -asmoak hezur-mamitzeko. **Askoren artean**



Guztiei galdetzen zien [...] nola irits zitekeen egiaren bidea ezagutzera eta bere **perfekzio** -asmoan gero eta gorago igotzera. **Askoren artean**

Ebanjelio santuko **perfekzio** -aholkuak agintzen duen bezala. **Askoren artean**

**Perfekzio** -eskola honetan sartzen den edonor bizkor iritsiko da perfekziara. **Askoren artean**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hau da maitasun-**perfekzioa** bere mailarik gorenean. **Joan Mari Lekuona**

Bihotz kartsuz hitzeman zuten penitentiako eta ebanjelio-**perfekzioko** Erregela beteko zutela beren bizitza guztian. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**perfekzio ispilua** (19)

**ebanjelio santuaren perfekzioa** (4); **ebanjelioaren perfekzioa** (6); **perfekzioa bilatzen** (3); **perfekzioa gordetzeko** (3); **perfekzioa lehenengo** (3); **perfekzioa lehenengo eta** (3); **santuaren perfekzioa** (4); **unibertsoaren perfekzioa** (3)

**ebanjelio santuaren perfekzioaren** (3); **ebanjelioko perfekzioaren** (6); **ebanjelioko perfekzioaren jarraitzaile** (3); **perfekzioaren bila** (4); **perfekzioaren jarraitzaile** (3); **perfekzioaren legea** (3)

**perfekziara iritsi** (3)

**perfekziarako bidea** (4)

## perfekziodun *izond* bere baitan perfekzioa duena.

Hau sentitu duenak berekin darama gainera halako atsekabe eta asperdura bat sorkariekiko; maila desberdinean, perfekzio-bidean **perfekziodun** diren heinean, aurreratu edo hasiberri... **Joan Mari Lekuona**

## perfekziokeria *iz* perfekzio gaitzesagarria.

Kantagintzak ematen dizkidan lanak aipatzen dizkiodan aldirio **perfekziokeriaren** arriskuaz jardunda kontsolatzen nauelako eta, ondoren, soinua jotzen hasten delako alegia deusez, notak eskura baletozkio bezala. **Berria - Kultura**

## perfekzionamendu *iz* perfekzionatzea.

Infanteak ez zituzkeen falta izango nahikoa erranairu kristau eta politiko, eta, latina zelarik, berez, **perfekzionamendu** hauen garraiatzailea, uste izatekoa da errege-haurrak, galegoz berezotasun osoz mintzatzeaz aparte, latinez botako zuela *quantum satis*, deklamatu ahal izateko, une egokian, atzerriko hainbat eta hainbat gurutzatuen aurrean, goian aipatu den harengatik. **Jon Alonso**

**Perfekzionamendu** hori, hau da, soberan diren langileen agertze hori, areagotzen ari den kapitala bera baino azkarragoa denez, [...]. **Iñaki Heras**

Irakasleak euskaraz prestatzeko neurriak ezinbestekoak direla aipatu zuen, euskararen kalitatea hobetzea **perfekzionamenduzko** ikastaro espezifikoan bitartez. **Berria - Harian**

## perfekzionatu, perfekziona, perfekzionatu da/du *ad* perfektoago bihurtu.

Jangai horiek mendez mende **perfekzionatu** dira. **Edorta Agirre**

XX. mendeko bi gerrate handietan ikaragarri **perfekzionatu** ziren propaganda teknikak. **Joxerra Garzia**

*We have the facts and we are voting yes* (2000) eta *The photo album* (2001) diskoek **perfekzionatu** egin zuten taldearen formula eta *Transatlantism*-ekin (2003) gailurra jo zuen. **Berria - Kultura**

Musika-tresnak egiten dituzten artisauek ere naturak finkatutako proportzio horiek erabiltzen dituzte, ahalik eta ondoen **perfekzionatuz** soinu-harmoniarik egokiena lortzeko.

**Santiago Iruretagoiena**

Konturik bitxiena da liskarren arrazoiak, ondorengo arrangurak ez bezala, hutsalak izaten zirela guztiz gehienetan; amaren perfekzioa **perfekzionatu** beharrak eragindakoak.

**Anjel Lertxundi**

Hura zen orain margolariaren maitalea, Ayalaren bizitza **perfekzionatzen** zuen objektu femeninoa. **Aritz Gorrotxategi**

Polizaiak dio, misilak zaharrak izanagatik, «nahiko **perfekzionatuak**» direla. **Berria - Euskal Herria**

Milioika urtean **perfekzionaturiko** kode genetiko bat-batean aldatzeak ekar ditzakeen ondorioak ezin ditugu neurtu. **Berria - Euskal Herria**

## perfekzione ik perfekzio.

## perfekzionismo *iz* perfekzionistaren nolakotasuna.

Anek ez zuen inoiz ulertu nire literatur zaletasuna, nire **perfekzionismoa**; orain barregura ematen dit niri ere. **Iban Zaldúa**

Esaten da ez omen garela herri teoriko bat: agian ulertu behar da, **perfekzionismo** edo handikeria teorikoetan ez garela fidatzen. **Joxe Azurmendi**

Nolabaiteko **perfekzionismoak** itotzen gaitu. **Ana Urkiza**

## perfekzionista 1 *izond* perfekzioaren zalea dena. ik perfekziozale.

Borreroa **perfekzionista** nekazezina da. **Karlos Linazasoro**

## 2 perfekzio zalea denaren ezaugarri dena.

Hartara, A.ren izaera nabaritzen du ez soilik gutunen esanahiak; sintaxiak berak ere bai: obsesiboa baita, zoroki **perfekzionista**. **Markos Zapiain**

Horrek eta zinemagile bizkaitarraren joera **perfekzionistak** egiten dute hain berezi El sol del membrillo filma. **Berria - Kultura**

## perfekziozale *izond* perfekzioaren zalea dena. ik perfekzionista.

Irakasle **perfekziozalea** zen. **Berria - Kultura**

Nireen antzeko kezka koreografikoak ditu, baina ni sutsua eta detaileetan **perfekziozalea** eta neurritsuua naizen moduan, bera oso ausarta da bere proposamenetan. **Berria - Kultura**

Muturrerainoko **perfekziozalea** da eta, ardogintzan gertatzen den bezala, horrek nahitaz industriaren abiadura erotik kanpo dagoen lan erritmo sosegatua eskatzen du.

**Berria - Kultura**

Sorkuntzan, zehatza eta **perfekziozalea**. **Ana Urkiza**

## perfet *izond* perfektua.

Bizitza harri bihurtu zuan, eta harriak forma geometriko **perfet** hau hartu zian -erran zidan osabak-. [Joan Mari Irigoien](#)

## perfetamente *adlag* perfektuki, ezin hobeki.

Baietz egiten dio buruaz aldameneko mozkorrioloak, bai hermano, **perfetamente** konprenitzen haut, ni ere hi bezala nagok. [Iñaki Iñurrieta](#)

## perfetasun *iz* perfektotasuna.

Zeren **perfetasunari** ezin erants baitakioke deus ere, **perfetasuna** bera akasbidean ipini nahi ezean. [Joan Mari Irigoien](#)

## perfetki ik perfektuki.

## perfil (*41 agerraldi, 16 liburu eta 15 artikulutan; cf profil 96 agerraldi, 25 liburu eta 46 artikulutan*) 1 iz profila. ik **sosla**.

Xanek suak eta kriseiluen leinuru horixkak argitu bi **perfilak** konparatu zituen, bata zaharra, bestea gaztea. [Elena Touyarou](#)

Garai hartan biribildu zen, hain zuzen ere, nire bularren eta nire izterren **perfila**. [Joxan Elozegi](#)

**Perfil** telegenikorik behintzat ez zitzaion falta. [Patxi Iturrategi](#)

"Ezkerreko **perfila** ez didate atera" utu zitzaion Koldori, garaipen bat balitz bezala, ezker **perfilean** bailegoen bere aitorten guztien giltzarria. [Harkaitz Cano](#)

Gero eta hurbilago dago, hiruzpalau legoatara, airearen araberako hiriaren **perfila**, alditan zuria, alditan urdindu. [Anjel Lertxundi](#)

Mehe eta nare ageri zen hiriko etxe ilara, badiara begirako fatxada, doi puntu bakan batzuetan bakarrik hausten zela **perfil** lau hura. [Iñaki Iñurrieta](#)

Errepideen egoera ez da onena eta bigarren etapako **perfila** ikuste hutsak beldurra sortzen du! Irunen, lehen etapan, Erlaitzek eta Jaizkibekek txirringulari bakoitza bere tokian jarriko du. [Berria - Kirola](#)

### 2 irud/hed

Il Cavaliere, Sua Emitenza, Mister TV, Citizen Silvio, Il Caimano... izengoiti asko irabazia da Berlusconi bere **perfil** politiko bereziagatik. [Berria - Harian](#)

Jakina, katedrari idoyagaren curriculumari zegokion **perfila** jarri zitzaion, eta, oposizio hartan entzule izan ginenok argi eta garbi ikusi genuen, hasiera-hasieratik, SKK zer eginik ez zuela. [Joxerra Garzia](#)

Euskal idazleek, bereziki nobelan, proiektatu dituzten maitaleen **perfilak** aztertzen nituen. [Joxean Agirre](#)

Hau jendea ezagutzeko modu bat zen, pentsatu zuen: **perfila** ezagutzea, xehetasunik ez. [Anton Garikano](#)

Hazkunde ekonomikoaren ereduak, elkartrukeen jarioaren azterketa kuantitatiboa, demografiaren gorabeheren **perfilak**. [Xabier Arregi](#)

Ez dago hainbesteko banaketarik adinari eta **perfil** sozialei dagokionez. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskainita euskarazko **perfila** lortzeko azterketak egingo direla-eta. [Berria - Euskal Herria](#)

### 3 (hitz elkartuetan)

Ez zieten noski ez titulaziorik, ez hizkuntza **perfilik** ez ezelako paperik eskatuko. [Joxerra Garzia](#)

Orokorrean, kultur adierazpen bakoitzak, askotan talde eta artista bakoitzak, neurri handi batean publiko **perfil** jakin bat izan ohi du. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

### 4 **perfilez** saiheska, soslaiz.

-Jarri **perfilez**. [Harkaitz Cano](#)

## perfilatu, perfila, perfilatzen 1 du *ad* nabarmendu; taxutu.

Kostunbrismo magiko bezain kutrearen bidez gizarte gordin eta itogarri bat **perfilatzen** da. [Berria - Kultura](#)

Nire izterrak, horren irmoak eta horren ongi **perfilatuak** garai batean, zelulitis mordo baten barruan lehertzen ziren. [Joxan Elozegi](#)

Zientzien historia **perfilatzea**. [Xabier Arregi](#)

Horregatik, nire abiapuntua ere pertsonaia dira, eta pertsonaia **perfilatuta** ditudanean hasten naiz idazten. [Ana Urkiza](#)

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Begi txiki marroiak zeuzkan, sudur zorrotzaren alde bietara ezkutuak, ezpain perfektuak, ondo marraztuak, **perfilatuak**, deigarriak. [Sonia Gonzalez](#)

## perfluorokarbono *iz* hidrokarburu batetik, hidrogeno atomoak fluoro atomoz ordezkatur, lortzen den konposatua.

Garatu duten arnasgailu likidoak **perfluorokarbonoa** erabiltzen du. [Berria - Gaiak](#)

Gailuaren xiringek **perfluorokarbonoa** biriketara bidaltzen dute, eta han oxigenoa odolean askatzen da, eta odoleko karbono dioxidoa jasotzen da. [Berria - Gaiak](#)

Bolatxoak gordetzeko egun erabiltzen den likidoa **perfluorokarbonoz** egina dago. [Berria - Gaiak](#)

## performance ik performance.

## perforatu, perfora, perforatzen du *ad* zulakatu.

Basoak mozteko, zura arbastatzeko eta oholak karraskatzeko, leuntzeko, zulatzeko, husteko eta **perforatzeko**. [Xabier Amuriza](#)

## perforazio 1 *iz* perforatzea.

Arkeologoak, antropologoak, etnologoak hor saiatzen dira gure memoria bertikalean aitzurka **perforazio** gero eta sakonagoak egiten, gure sustraian edo gure lehen hezurren bila. [Berria - Kultura](#)

### 2 perforazioaren ondoriozko zuloa.

Ez nuen nahi inork erantzukizunik eskatzerik, hertzeetako **perforazio** batek polizia bertze mundura igorritz gero. [Aingeru Epaltza](#)

Balak sabela zulatu dio eta hamaika **perforazio** ditu. [Xabier Olarra](#)

**performance** (*orobat performance g.er.*) 1 iz abangoardiazko ikuskizuna, zenbait artetako elementuak konbinatzen dituena.

Izan ere, sortu, igorri eta jaso, aldi berean, kolpe bakar batez, egiten baita bat-bateko bertsoa, bertsolaria eta entzuleak une berean eta gune berean aurrez aurre daudela (**performance**). [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Ostegunean inauguratu zuten erakusketa Yael Davidse artista israeldarraren hiru **performance** -rekin. [Berria - Kultura](#)

Musikaz haratago, Edison Woodsek **performance** -a, arte instalazioak eta antzerkia ere lantzen ditu. [Berria - Kultura](#)

'**Performance**'-ak eta animazioko lanak. [Berria - Kultura](#)

Artelekun gauean eman zuten Ion Munduateren Astra Tour pieza instalazio eta **performance** -aren arteko eremuan koka daiteke. [Berria - Kultura](#)

Meza baino areago, **performance** izendatu beharko genituzke. Isabel de Naveranek (Getxo, 1976) **performance** bat aurkeztu zuen atzo. [Harkaitz Cano](#)

Frigorifiko gainean hauts geruza lodi batez estalitako panpinen buru erraldoi batzuk daude, Txuspok bere garaian **performance**, exorzismo, argazki edo dena delakoren baterako erabilgarri izan zitezkeela pentsatuta etxera bilduak. [Harkaitz Cano](#)

Ezkontza izan zitekeelakoa baztertua, hara bildutako gazte guztiak esku-burdinaz lotuko zituen **performanceren** bat edo ekarri behar izan nuen asmatu nahi nuen hartara. [Iñigo Aranbarri](#)

Zumthorrek definitzen duen bezala, **performance** delakoa ahozko poesia ororen "osagai nagusia" bada, arrazoi handiagoz izango da bertsolariaren, ahozkoa ez ezik bat-batean inprobisatua ere badelako. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kremlinen gainean proiekturik daudela ematen du eta, zein **performance** haustailea; telebista pantaila ere hiru leku ezberdinetan islatzen da Kremlinen gainean. [Edorta Jimenez](#)

80ko hamarkadan **performance** sonatu pare bat antolatu genuen, bata metroan, eta bestea, oker ez banago, Rockefeller Zentro aurrean. [Iban Zaldua](#)

Rock musikari buruzko **performance** jasoa bezain gordina. [Berria - Kultura](#)

Ez ote daukat osaba poeta bat, bere olerki kaxkarrak baino obra perfektuago bat utzi zuena bere gorpu gaztea goizalbako lamiei eskainiz betegintzarrezko **performance** batean? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Munduko **performance** konpainia zailduenetakoa da. [Berria - Kultura](#)

Arau-multzoz mugatua da, amaigabeko **performance** kopurua baimentzen duena. [Xabier Arregi](#)

Fokuak eta argi-iragazkiak antzezleek beraiek mugitzen dituzte, eskuz eta denon begi-bistan, **performance** estiloan. [Berria - Kultura](#)

Horren erakusle da emanaldiak abiatuko dituen Pentxats **performance** -kontzertua. [Berria - Kultura](#)

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Artista korearrak 18 x 1 minutu bideo **performance** -a aurkeztuko du 15etik 18ra Kursaalera sarreran. [Berria - Kultura](#)

Baina sortzen den hori ez da koadro bat, instalazio bat, eskultura bat edo bideo-**performance** bat. [Berria - Kultura](#)

Adibide soilto bat jartzeagatik (baina zenbait arte-**performancetan** testigantzak badituena), diapositiiba-proiektore bat, proiektatzen ari den bitartean, bera ere mugitzen baldin bada, hark proiektatutako irudia mugikorra izango da, baina ez du izango berezko mugimendurik. [Josu Zabaleta](#)

## performante *izond* errendimendu onekoa.

Bide beretik *Golde* aldizkariaren testu teoriko eta ideologikoak idazten zituen Bozek, bere lantokiko ordenadore **performanteaz** baliatuz. [Itxaro Borda](#)

## performantzia 1 iz

Hizkuntza natural batetik (edo artifizial batetik) sortzen den edozein zeinu-multzori hitzeko **performantzia** deitzen badiogu, edo hobe, beharbada, hizkuntza **performantzia**, zeinu-multzoz hori (edozein materialen bidez eta forma mugatu baten bidez) agerrarazten duen banako ekintza formulazio deitu ahal izango dugu. [Xabier Arregi](#)

Berak hitzeko **performantziari** ekiteko beste era bat osatzen du, euren konplexutasuna aletzeko, [Xabier Arregi](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Diskurtso hitzari dagokionean, hemen bera gehiegikeriaz erabili delarik zentzu oso ezberdinekin, orain uler daiteke bere adiera ekibokoa: modurik orokorrean eta ezabatuean hitzeko **performantzia** -multzoz bat adierazten du. [Xabier Arregi](#)

## performatibo *izond* esaldi eta kidekoen mintzatuz, egitate bat adierazte hutsak egitate hori egintza bihurtzea dakarrena.

Austinek esaldi konstatatiboak eta **performatiboak** bereizi zituen. [Askoren artean](#)

Austinen hasiera bateko esaldi konstatatibo eta **performatiboan** arteko bereizketa esaldien indar eta edukaren arteko bereizketa bihurtu zen. [Askoren artean](#)

Austinek "hizketa-ekintza" zeritzen ekintza sozial horiei, esaldi **performatiboan** bidez egin daitezkeenei. [Askoren artean](#)

Formulazioa gertaera bat da, aurrez behintzat, beti ere koka daitekeena espazio-denborazko koordenaden arabera, beti ere egile batekin lotu daitekeena, eta, behar izanez gero, ekintza berezi bat osa dezakeena berez (ekintza "**performatiboa**", analista ingelesek diotenez). [Xabier Arregi](#)

## performatiboki *adlag* era performatiboan.

Terrorismoa gaitzestea edo kondenatzea ez da "gaitzetsi" edo "kondenatu" aditzak ahotan hartzea besterik, eta gaitzeste hori, beraz, hitz hutsez edo **performatiboki** gaitzestea da, eta ez -euskarazko gaitzetsiren hotsak berekin garamatzalarik- ardiak bere umeak edo txoriak habia gaitzesten, arbuizatzen, uzten eta zaputzen dituztenean egiten dutena. [Iñaki Segurola](#)

## perfum ik **perfume**.

## perfumatu, perfuma, perfumatzen 1 du *ad* perfumea eman. ik lurrindu.

Blanchek bere burua **perfumatu** du langargailuarekin, eta, ondoren, Stanley **perfumatu** du jolasean. [Xabier Paya](#)

Eskularruak egiten zituztenak, anbarrez **perfumatzen** zituzten. [Patxi Ezkiaga](#)

**Perfumaturik** eta ile-gantzaturik zegoen eta arrunt itxura sasi-dotorea zuen: *souteneur* bat ematen zuen, edo, hobeki esan, putzain-papera egiten zuen antzezle txar bat. [Juan Garzia](#)

Atea ireki, begiak itxi, hamaika usain-belarrek **perfumatutako** airea biriketaratu. [Joan Mari Irigoien](#)

Bidaia luzeetako ginebrak eta mendafinez **perfumatutako** itsas haize goxoko gau izarratuak. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Politikoen hizkera hanpatu eta larritasuneraino **perfumaturiko** hau. [Iñigo Aranbarri](#)

## 2 (era burutako izenondogisa)

Ilea lakaz betetako Barbie **perfumatu** haiek. mahatsondo eta bertze landare **perfumatuen** ikustera. **Karlos Zabala**  
Ketzeko erabiltzen ziren usain gozoko produktu **perfumatuz** ari da. **Patxi Ezkiaga**

## perfume (orobat *parfume g.er.*, eta *perfum g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren *perfume* agertzen da) 1 iz usain gozoa. ik lurrin.

**Perfumea** poto ttikian... pozoia ere bai. **Joxemari Urteaga**

**-Perfumea** jarri duzu -esan zion Jackek. **Koro Navarro**

Ikustekoa da gero, nolako baliabide literarioekin atzera berreskuratzen duen horren guztiaren oroipena, flakoi hutsean oraindik **parfumea** gozatzaren duenaren moduan.

**Joxe Azurmendi**

Ezpain gaina igurtzi eta **perfumea** usnatzearekin batera argitu egin zitzaizkion begiak. **Joxemari Urteaga**

Temperatura egokia, hain zuzen, eta parketik **perfumeak** nahasian igotzen. **Jon Muñoz**

Ezagutzen nituen **perfumeen** nahasketa infinitua iritsi zitzaidan: euri-urarena, lokatzarena, esnearena, arkume artilearena, [...]. **Berria - Kultura**

Zeremoniek, errituen errepikapen obsesio goxo batez beterikoeak, eternitateak denbora jan balu bezala, aldareko urreek, arropen distirak, loreen **perfumak**, intsentsuak, kantuen xarmak zentzu guziak asebetetzen zizkidaten. **Piarres Aintziart**

Haren **perfumearen** gozoa biriketaraino sartu zitzaidan. **Migel Angel Mintegi**

## 2 irud/hed

Betidanik liluratu nauen **perfumea**, **perfumerik** zoragarriena, abesti horien soiltasunean dago, eta orduko lañotasuna ere bai. **Berria - Kultura**

## 3 (izenondo eta izenlagunekin)

**Perfume** goxo baten ukitu arina zuen postariak ekarritako gutun hark. **Joxemari Urteaga**

'**Perfume** onak bezala,' dio gero, eta nire heliotropo usaina usnatu duela ohartu naiz. **Joseba Sarrionandia**

Haren **perfume** garestiaren gozotasunean bildurik sartu zen, bestea baino dotoreagoa zen bulegoan. **Migel Angel Mintegi**

**Perfume** merkeen usaina oso sarkorra da. **Xabier Paya**

Zu hurbiltzean, **perfume** sakon baten limoi usainak usaimena baino barruragoko zerbait ukitu dio Luisi. **Lourdes Oñederra**

Amak **perfume** lurrinsudun botilatxoak ekartzen zizkion alabari. **Mirentxu Larrañaga**

Alleyne jaunaren bulegorainoko bide guztian aditzen zen **perfume** heze sarkor hura. **Irene Aldasoro**

Benetako **perfumearen** lurrin goxoa zen. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskaileretan, **perfume**-usain heze sarkor batek egin zion ongietorria gizonaren sudurrari. **Irene Aldasoro**

Alleyne jaunaren idazmahaiaren ondoan eserita zegoen orain, **perfume**-urrinetan. **Irene Aldasoro**

**Perfume** laborategi batean lanean hasi ote zen pentsatu zuen hurrena. hustutako **perfume**-flasko zaharrak. **Joxemari Urteaga**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizon batek emakume-**perfume** gozoa erabiltzeak zer pentsatua eman zion. batzuetan emakume finen izpilkua **perfumea** jartzen zuen. **Joxemari Urteaga**

Lanza-**perfumea** izeneko droga kloroformoz, zereal-alkoholez eta eterrez egiten da. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**perfume usaina** (3)

## perfumegile iz perfumek egiten dituen pertsona. ik lurringile.

Erdi Aroan, inolako araudirik ez izatean, espeziarioak, botikeroak, herbolarioak, **perfumegileak**, argizargileak eta konfiteroak elkarrekin nahaste samar ageri dira. **Patziku Perurena**

## perfumeria iz

Iaz bi industria sektorek baino ez zuten sortu enplegua: farmazia, **perfumeria** eta entretenimendua (%0,5) eta elikagai industria (%0,4), bestetik. **Berria - Ekonomia**

## perfusio iz organismoan likido bat poliki eta etengabe sartzea, zainetan zehar, azal azpitik nahiz uzkitik.

Tottereren ama aukitit zutitzen zen, aitaren besoetako zainetik lerratu **perfusio** orratza lekuan ezartzeko. **Itxaro Borda**

Paralitikoa aukitit lau gizon azkarrek garraiatua eta erizainak, **perfusioak** ahurrean atzetik zetoziola agertu zen Joanes. **Itxaro Borda**

Graxik **perfusioaren** hari zehargitik leiho ondoko kantoi batean pausatu bunet ilunera lerrarazi zuen begirada, biak biaren hasiera eta bukaeraren ikurrak bailiran. **Itxaro Borda**

## pergamino (94 agerraldi, 22 liburu eta 4 artikulutan) 1 iz idazteko edo liburuak josteko prestatu den abere larru fina. ik pergamu; larrutx; larruki 2.

**Pergaminoa**, tinta eta luma atera, eta lanean hasi zen. **Iñaki Mendiguren**

Hermioneke arrastaka eraman zituen tinta eta **pergamino** eroatera hurrengo atera. **Iñaki Mendiguren**

Gutun-azala sendoa eta astuna zen, **pergamino** horixkaz egina. **Iñaki Mendiguren**

Zerua bildu egin zen **pergamino** biltzen den bezala. **Elizen arteko biblia**

Harryk **pergaminozko** gutun-azala atera zuen sakelatik. **Iñaki Mendiguren**

**Pergaminozkoak** ziren, edota antzeko larrutxeg egindakoak. **Mirentxu Larrañaga**

Bakarrik, **pergaminoaren** aurrean, [...] inork aintzat hartzen ez zuen jendaila baten abenturak marraztu zituen bere kalamoaren puntaz. **Juan Garzia**

**Pergaminoak** ez al dira ardi-larruz egiten? **Juan Garzia**

Elkarri jositako zenbait koaderno osatutako ezkuizkribu honek, indartzeko, **pergaminozko** azalak zituen erantsirik, garai hartan ohi zen eran. **Berria - Kultura**

## 2 larru horretan idazten den dokumentua.

Ikusi al dituzu nire liburutegiko **pergamino** eder horiek? **Xabier Aranburu**

**Pergamino** hau magia beltzez beterik dago. **Iñaki Mendiguren**

Binns irakaslearen mamuak esan zienean lumak uzteko eta **pergaminoak** biribilkatzeko. **Iñaki Mendiguren**

Snapek **pergamino** seinatu zion, non lllargitxoro, Harbuztan, Bidezango eta Adarrandi jaunen hitzak artean distiratsu agertzen baitziren. **Iñaki Mendiguren**

Irakurri zuen **pergaminoa** bildu eta, hunkituta, zera esan zien: [...]. **Iñaki Mendiguren**

Aurpegi-aurpegira bota zion etsaiari **pergamino** urratua. **Josu Zabaleta**

Banuen tiradera batean **pergamino** irudiztatu bat, zeinaren lege-indarrez, letrakera dotorezko hitzez, Primo Levi, judua arrazaz, Kimikako lizentziatu-agiriaren jabe egiten baitzen. **Juan Garzia**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harry luma hortz artean hartu eta burkoaren azpitik tintontzia eta **pergamino** -biribilkia atera zituen. **Iñaki Mendiguren**

McGonagall andereñoak aurrera egin zuen **pergamino** -erroilu luze batekin. **Iñaki Mendiguren**

Jakin-minez, Harry kartazala ireki eta barruan zegoen **pergamino** -sorta atera zuen. **Iñaki Mendiguren**

-Zergatik ez? -erantzun zion Hermionek, aulki batetik **pergamino** -pila bat kenduta. **Iñaki Mendiguren**

**Pergamino** -zati handi bat zen, karratua eta oso higatua, baina han ez zegoen ezer idatzita. **Iñaki Mendiguren**

Hainbeste larru zati eta **pergamino** puxka zahar omen zituelako inguruan. **Pello Zabala**

Normalean gorrixka izaten zuen aurpegia **pergamino** -kolorekoa jarri zitzaion. **Iñaki Mendiguren**

Liburutegiak harraskako xaboi eta **pergamino** usaina zeukan. **Patxi Ezkiaga**

· Bere **pergamino** haragia olioztatzen ari zen, ur epeletan beratu ondoren, eta zain more handiak nabarmetzen zitzaizkion. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pergamino biribilki** (4)

**bi pergamino** (4); **pergamino biribilki** (4); **pergamino zati** (10); **pergamino zati bat** (5); **pergamino zati zahar** (4)

## pergamu *(40 agerraldi, 6 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian pergamino agertzen da)* 1 iz pergaminoa.

Hasia bainintzen, lehenago izkiriatua dudan moduan, ordura arteko gorabeherak nire kabuz **pergamuetan** biltzen. **Edorta Jimenez**

Halaxe ekin nion Gaztelako erromantzez izkiriatua zen hura beste **pergamu** batera zehatz aldatzeari. **Edorta Jimenez**

**Pergamu** baliosak eskuz izkiriatuak eta aberaski marrazkituak. barranean sua duela esan liteke, sutara hurbildutako **pergamu** zurbildua ematen baitu haren azalak.

**Michel Oronoz**

Begi txiki hondoratuak eta **pergamuaren** antzeko begipeko bi poltsak. **Anjel Lertxundi**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mahaiaren gaineko **pergamu** -kiribilak aztertu nituen lehenik. **Edorta Jimenez**

**Pergamu** zati horitu bat zegoen, ez besterik. **Edorta Jimenez**

**Pergamu** pieza oso bat harturik ekin nion kopiatzeari. **Edorta Jimenez**

Arasatik **pergamu** pieza bi hartu zituen gizonak. **Edorta Jimenez**

Mantel **pergamu** -kolorean frantses antzinakoak behar duten hitz eta espresio batzuk daude, **Anjel Lertxundi**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atorraren azpian nekarraren ontzikoan errolda-**pergamua** liburuen artean sartu nuen. **Edorta Jimenez**

## pergola iz lorategi eraikuntza txikia, zutabe batzuek eusten dieten habe horizontalez osatua, landare igokarien euskarri gertatzen dena.

Herriko hotel bakarra zen: sukalde baten inguruan bilduriko zenbait gela, **pergola** bat, baratze bat eta terraza bat. **Fernando Rey**

Logelako leihoaz bestaldera parke ederra dago, erdian urmaela eta honen inguruan **pergolak** eta zurezko bankuak direlarik. **Edorta Jimenez**

Kupula berde zapaleko **pergola** bat ikus zitekeen, zurezko zutabe urdinekin. **Jose Morales**

Han ez zegoen ingeles-erako parkerik, ez **pergolarik**, ez forma bitxiko zubirik, ez kale zabalik etheen aurrean. **Jose Morales**

## perguta izond pertsonen mintzatuz, erreka jotakoa, porrot eginikoa.

Apo nazkagarri honek, zuen zapaten zola garbitzeko ere duin ez den zomorroide, **perguta**, afrusa, hankabiko arrunt honek [...]. **Jon Alonso**

## pergutada iz pergutari dagokion ekintza.

B-12k eskatu zigun kanonaren bila nor joango zen erabakitzeko hainbat premiazko bilera egin zela egia da, baina nago Arantzazuko fraideek ni hobestea izan zela

**pergutada** honetarako aukeratua izatearen arrazoi nagusia. **Jon Alonso**

Ugatzak esplikatu zion ezer ez nekien xelebrea nintzela, arlotea, hankabiko afrus eta mozoloa, funtsean fraideek, eurogero ibili ohi nintzela profitaturik, **pergutadan** sarturiko zozoa. **Jon Alonso**

## peria ik feria.

## perieziar izlag/iz

Menderatutako herriek hiritarrei bizibiderakoak hornitzera behartuta zeuden: lazedemoniarrei ilotek ematen zieten jaten; kretarrei, **perieziarrek**; tesaliarrei, penesteeek. **Iñaki Iñurrieta**

## periferia 1 iz gune baten ingurua.

Erretinan eratzen den irudia oso lausoa eta kolore gutxikoa da, esate baterako, erretinaren **periferian**. **Josu Zabaleta**

Ikusmen-eremuaren **periferian** gertatzen diren fenomeno berriei. **Josu Zabaleta**

Emakume batek esan zuen ikusi zuela etxera bidean, hiriko **periferian** dauden auzune horietako batean. **Pako Aristi**

Erizain egon zen Londresko **periferiako** ospitale batean. **Mikel Hernandez Abaitua**

Fabrika berria, berriz, Torinoko **periferian** dago auskalo zenbat pabilioitan barreatuta. **Anjel Lertxundi**

### 2 (gizarte kulturatan)

**Periferia** hiria biltzen duen inguru habitatua da, nolabait esateko, ziutatearen alderdi amaitugabea. **Iñigo Aranbarri**

Jainkoak ahaztutako lurra zen **periferia**. **Bernardo Atxaga**

Mundu periferiko asko ikustez ditut eta zentroa da **periferia** guztiak josten dituen gunea. [Ana Urkiza](#)

Hala, elkarrekin zerikusi zuzenik ez duen lurralde multzo hori da **periferia**, metropoliarikoa baino ez diren eremuak, deszibilizazioa. [Iñigo Aranbarri](#)

Arazoa da lokalismoa bakarrik **periferiatik** datozen istorioekin aipatzen dela. [Berria - Harian](#)

Frantses hirirtasuna duen euskal idazle batek badaki egoera konplexu batean bizi dela: lehenik, euskal komunitate iberikoan den euskarazko literatur sistema kanonizatua **periferian**; [...] hirugarrenik, hexagonoaren **periferia** sinbolikoetan kokatzen diren frantsesezko literatura erregionalaren **periferian**. [Ana Urkiza](#)

Aipatu izan dugu haur eta gazte literaturak, **periferiako** testuak diren aldetik, duen askatasuna gaia, estiloa, hizkera edo egitura berriak lantzeko. [Berria - Kultura](#)

Aurkezleak gure hizkuntza periferikotzat aurkeztu zuen eta nik esan nion multiperiferikoa dela, hain zuzen ere, Madril **periferian** dagoen bezala, Parisen **periferian** ere badagoela. [Edorta Jimenez](#)

Gu **periferia** gara, nik garbi dut, baina Bilboko **periferia**, Madrilgoa edo New Yorkekoa izan gaitzke. [Berria - Kultura](#)

Bultzatzaileak filosofia alemaniarren **periferian** dauden pentsalariak ditugu. [Askoren artean](#)

Jazzaren **periferian** dauden artistek. [Berria - Kultura](#)

Mexikon animazioa egiteak industriaren **periferian** kokatzen zaitu. [Berria - Kultura](#)

### 3 (ekonomian)

**Periferiaren** nozioa, espazioari dagokion metafora, zuzenean lotzen da europar mundu-ekonomiaren zabalkunderako joerarekin. [Koro Navarro](#)

**Periferia** ez da ulertzen ez bazaio sistemaren zentroari kontrajartzen: mundu-ekonomiaren baitan hegemonia eskuratzeko borrokan diharduten indarren multzora muga daiteke zentro hori. [Koro Navarro](#)

Batetik herrialde garatu edo industrializatuek osatzen duten zentroa edo erdigunea, eta bestetik gutxien aurreratutako herrialdeek osatzen duten **periferia**; zentroak ondasun manufakturatuek ekoizten ditu, eta **periferiak**, batik bat, sistema kapitalistan sartutako munduaren lehengai eta nekazaritza ondasunen hornitzaile funtzioa betetzen du. [Iñaki Heras](#)

**Periferia** ez dago sistematik kanpo, aldiz, sistemaren parte da. [Koro Navarro](#)

Sistemaren **periferian** bizi arren, handia da sektore horien indarra. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Azken zirkulua, sistemaren **periferia**, Eskandinaviak, Eskoziak, Irlandak, Europako ekialdeak, Italiako hegoaldeak eta Amerikako koloniek osatzen zuten. [Koro Navarro](#)

Ingalaterra, garai hartan, **periferiako** herrialdea zen, lehengaien esportatzaile, Eskandinavia eta Errusia bezalaxe. [Koro Navarro](#)

### 4 (hitz elkartuetan)

Bere ikuspuntu propioak, batez ere berak hobekien ezagutzen zuen **periferia**-zatiari zegozkionak. [Jon Alonso](#)

Dendari txiki-jatorraren aldeko artikulu negarti horiek sinatzen dituztenak, guztiok bezala, autoa hartu, eta hiri **periferian** dagoen HiperEroski, Carrefour, Mammouth edo Pryca erraldoirantz abiatzen dira. [Iban Zaldúa](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**zentroaren eta periferiaren** (3)

## periferiko 1 *izond* periferiarena, periferiari dagokiona.

Organo **periferikoan** edo erretinaren hondamenengatik itsu direnei. [Xabier Olarra](#)

Aplasiarako transplante mota hori ez da derrigor gaixoaren zilbor-hesteko zelulekin egin behar, nahikoa baita haren odol **periferikoaren** ama-zelulak erabiltzea. [Berria - Gaiak](#)

la denek bereizten dituzte, izendatzeko modu desberdinak erabiltzen badituzte ere, arreta zentrala eta arreta **periferikoa**. [Josu Zabaleta](#)

Bereizkuntza horrek ez baitu lehenetsunik beste prozesu batzuen gainetik, ikusmeneko azterketaren, ikusmen **periferikoaren**, begiralearen itxaropenen gainetik. [Josu Zabaleta](#)

Berdin zaio pertsonaia bat edo beste bat, nahiz eta, jakina, bulkadako pertsona izaki, ezin ditzakeen bat-bateko sinpatia edo arbuiozko mugimenduak galarazi, kuestioen gakoarekiko **periferikoak**, nolabait esateko. [Jon Alonso](#)

### 2 (gizarte kulturean)

Maiz, metropoliaren hizkuntzan ez mintzatzea izan da **periferikoa** menostearren arrazoi nagusia. [Iñigo Aranbarri](#)

Literatura **periferiko** edo txikiak aztertzea nahi duen ikerlea, xede honek berak bilakarazten duela ikerle **periferiko**. [Berria - Kultura](#)

Aurkezleak gure hizkuntza **periferikotzat** aurkeztu zuen eta nik esan nion multiperiferikoa dela, hain zuzen ere, Madril **periferian** dagoen bezala, Parisen **periferian** ere badagoela. [Edorta Jimenez](#)

Ordu arte Europako esparruan nahiko **periferikoa** zen orientabide filosofikoa denbora gutxira Amerikako ikusmolde garaiena izatera iritsi zen. [Askoren artean](#)

### 3 (ekonomian)

Gizarteak, bai nazio zentraletakoak, bai nazio **periferikoetakoak**, babesik gabe geratu ziren metaketaren dinamikak eragindako indar erraldioen kontra. [Koro Navarro](#)

Eskualde **periferikoan** lehen industrializazio-saiok deskolonizazioaren ondorengoak dira. [Koro Navarro](#)

Kapitalismoaren sarrera osatugabea izan daiteke, beraz, espazio **periferikoaren** ezaugarri nagusia, eta, horretan, errotik bereizten da aspaldi industrializatutako ekonomietako espazio homogeneotik. [Koro Navarro](#)

Garapen kapitalistaren eragile nagusia izan arren, enpresaburua izaten da askotan gizarte **periferikoetan** falta den irudia. [Koro Navarro](#)

Espekulazioa aurrenik sistemako diru **periferikoan** ingurukoa izan zen, hau da, finlandiar markoaren eta suediar koroaren ingurukoa, informalki baino ez baitzeuden haiek alemaniar markoarekin lotuta. [Koro Navarro](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**zentroaren eta periferiaren** (3)  
**espazio periferikoaren** (3)

## periferikotasun *iz* periferikoa denaren nolakotasuna.

**Periferikotasuna** kutsagarria bailitzan. [Berria - Kultura](#)

Bertan, **periferikotasunari** buruzko beste ohar interesgarri askoren artean, honako hau egiten du: [...]. [Berria - Kultura](#)

## periferizazio *iz* periferiko bihurtzea.

Planeta osoaren integrazioaren ondorengo lau mendeetan zehar osatu ziren inperio kolonialak, eta prozesu horrek [...] ekonomia menderatuen **periferizazio**-prozesu bat ekarri zuen. [Koro Navarro](#)

Berriz ere, **periferizazio**-prozesuak metropoliaren premien arabera berregituratu zuen tokio ekoizpena, eta prozesu horretan bertako ekonomia eta gizarte-orekak ere suntsitu zituen. [Koro Navarro](#)

Aurrerapen ekonomikoak ordea ez zuen Egiptoren **periferizazio**-prozesua eten. [Koro Navarro](#)



# perifras

Eskuratzen genituen puntuen murriztearekin batera, apunteak **perifras** dotore bezain badaezpada kokoz betetzen hasi zitzaizkigun, eta baita dezente luzatzen ere; aurrera egin gabe, baina. **Iban Zaldúa**

Berritoki ere esaldiak luzatzen hasiko litzateke, eta **perifras** gero eta arranditsuagoak erakitzen. **Iban Zaldúa**

Hitz bat sekula ere ez erabiltzea, metafora traketsetara eta **perifras** begibistakoetara jotzea. **Juan Garzia**

Hizkuntza arrunta osatzen dutenen sinonimo edo **perifras** ez liratekeen kontzeptuen hiztegi poetiko bat. **Juan Garzia**

## perifrastiko

*izond* perifrasia bidezkoa.

Alegia, ezetz, aski **perifrastikoa** bazen ere. **Fernando Morillo**

## perigeo

*iz* Ilargiaren orbitan, Lurretik hurbilen dagoen puntua. • *irud/hed*

Gezurti porrokatuaren egiazanako hurbilketarik handiena: bere orbita eszentrikoaren **perigeoa**. **Xabier Olarra**

## perikito

Zurezko kaiolan dagoen **perikitoak** eta khabelin gorritz beteriko lorontzi dilindatuek. **Koldo Izagirre**

**Perikitoaren** kolore guztiak hedatzen dituzte fatxadek. **Koldo Izagirre**

Afrikaren erdialdeko eta Madagaskarko *Agapornis* generoko hegaztiak dira horietako batzuek -lorito edo **perikitoen** antzekoak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Iratxo haiek urdin-urdinak ziren, eta hogeitazentimetro inguru ziren altu; aurpegi zorrotzekoak eta oso ahots zolokoak, **perikito** -pila bat eztabaidan entzutea bezala zen. **Iñaki Mendiguren**

## peril 1

Orain **perilaz** ohartua baitzara, ez dut dudarik egiten aise begiratuko zarela **peril** horretarik. **Jon Muñoz**

Lur mugikorretan sartu den oinezkoa bezala, zeinak, **periletik** alde egiteko asmotan, urrats bat aitzina egiten baitu, **perilean** gehiago sartzeko. **Joan Mari Irigoien**

Ez dut **perilaren** beldurrik. **Aurelia Arkotxa**

Zin asma nezakeen Mihurubikoak zein **peril** ekar diezaikekeen Basurtokoari, ez baldin bazen juduen ondorengo bati babes eman izanak eragin zezakeena. **Edorta Jimenez**

Uste zenuelako ezen Utopiaren aldeko borroketan **peril** handi bat zegoela. **Joan Mari Irigoien**

Alegia, gaztea aise altxatzen dela bihotza astintzen duten gertaera malerusetatik, baina zaharrak **peril** handia bizi duela antzeko enbaten aurrean. **Pako Aristi**

Inork bere buruari belagile iriztea **peril** handietan sartzeko baitzen. **Edorta Jimenez**

Irrigarri eta **peril** handikoa litzateke legeen egitekoa norbanako batek bere nahikeriaren arabera urratzeko ahalmen mugagabea izatea. **Andres Urrutia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Arrisku eta **peril** sentsazio hura, deserosoa eta gozagaitza. **Joan Mari Irigoien**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**peril handia** (3); **peril handietan** (3)

## perilla

Buruan geratzen zitzaizkion ile urriak urdinduta zeuden, eta berdin gertatzen zitzairen bibote eta **perilla** txikikoei. **Iban Zaldúa**

## perilos

Joko **perilos** hartan berant gabe hartuko zuen gauak eguna bere menerat... **Joan Mari Irigoien**

Ez da liburu **perilosa** izango, ezta? **Edorta Jimenez**

Zuen bidaia luzea eta **perilosa** izanen delakotz iduritzen zait Kogatrarentzat itsasotik joatea hobeago izanen zela. **Aurelia Arkotxa**

28 estatutakoak ez diren herritarrak AEBetan sartu bezain laster dira susmagarriak; 28 estatu pribilegiatuetakoak, aldiz, hiru hilabete pasatutakoan bihurtzen dira **perilos**. **Berria - Mundua**

## perimetro 1

Baupresaren muturretik trinketa nagusiaren eta mesanaren barrena txoparaino zetorren argizko xingola bat, masten jartziek beste ilara bana zuten, eta karelaren **perimetro** osoa ere gar txipitan zen. **Koldo Izagirre**

Areto zabal eta guztiz borobil batean ginen, dorre nagusiaren **perimetro** osoa hartzen zuena. **Alberto Ladron Arana**

## 2 lerro horien luzeeren batura.

Karratu baten **perimetroaren** eta haren diagonalaren arteko erlazioaren irrazionaltasuna frogatzea. **Jon Muñoz**

Hiriaren **perimetroa** bederatzi kilometrokoa izango da. **Elizen arteko biblia**

Palestretan peristilo karratuak edo luzangak egin behar dira, eta inguru guztian duten ibiltokiaren **perimetroak** bi estadio neurtu behar ditu, grekoek *dioulos* deitzen duten neurria. **Santiago Iruretagoiena**

Dartsenak baditu zenbait legoa **perimetroan**, eta itsasora ematen duen bokalea hain da estua non aldiko ontzi bat baino gehiago ezin den pasa. **Koldo Izagirre**

## 3 (hitz elkartuetan)

Talde ekologistek salatu dutenez, natur parkeak ez du babes **perimetrorik**. **Berria - Euskal Herria**

Aizkolari eibartarrak 3,5 metroko **perimetroko** enborra moztu zuen Bernabeuko atarian. **Berria - Kirola**

## perinatal

Heriotza horiek ez dira buruko gaixotasunen ondorio, gaitz **perinatalen**, jaiotzaren inguruko zirkunstatziekin lotutako [...] gaixotasunekin baizik. **Berria - Gaiak**

# perineo

Ezpain genitalen, uretraren eta **perineoaren** estimulazioak garrantzi handia duela emakumearen eszitazio sexualerako, eta guztien artean lotura neurologiko, muskular eta odolekoa dagoela. **Luis Elberdin**

Ohartu ziren emakume heterosexuak, normalean, gizonaren zakila baino ez dutela ferekatzen, eta gayek, berriz, lagunaren frenulua, barrabilak, **perineoa**, ipurdiko zuloa, izterrak, pubisa eta sabelaren behealdea ere laztantzen dituzte. **Luis Elberdin**

Beren mihiak adostasun osoz ibili ziren nire klitorisean eta ezpantxoetan, **perineoan** eta uzkiari, izterbarruetan eta ipurmasailetan. **Juan Martin Elexpuru**

Aluan hondoratzen zen, eta **perineoan** ibiltzen zitzaidan, eta ni putzutxo bat eginda nengoen. **Juan Martin Elexpuru**

## periodiko (orobat **periodiku**; *Euskaltzaindiaren Hiztegiari **periodiko** agertzen da, bi adieretan*) **1** iz (adiera honetarako *Euskaltzaindiaren Hiztegiari **egunkari** agertzen da*) egunkaria.

**Periodiko** bat egunero-egunero kaleratu beharra ez da txantxetako kontua. **Anjel Lertxundi**

Gustura dago Andrés, **periodikoa** irakurtzeko, lasai eta osorik irakurtzeko denbora duelako. **Lourdes Oñederra**

Mundu guztiak ikusi zaitu **periodikoan**. **Anjel Lertxundi**

**Periodikoko** zuzendariarekin eta argazkilariarekin hitz egin nahi duela. **Anjel Lertxundi**

Senarra **periodiko** atzean dago ezkutatuta, haserre samar eta gogaitua, antza. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Periodikoen** azpian zegoen errepide komarkalen mapa, errotuladore gorri seinalatua eta puntutik puntura heltzeko behar zen minutu kopurua anotatua. **Harkaitz Cano**

Kurtek **periodiko** zahar bat ekarri zuen, eta, zatiak bil-bil eginik, zapaten barruan sartu zituen, zapatetako hezea paperak har zezan. **Anjel Lertxundi**

## 2 egunkari baten egoitza.

Edo aita izan da deitu duena, berrit nirekin **periodikora** joateko aitzakiaren bat hartuta. **Anjel Lertxundi**

**Periodikora** deitu dut, baina oraindik ez dago inor erredakzioan. **Anjel Lertxundi**

## 3 (hitz elkartuetan)

**Periodiko** saltzaile turkiarrak irribarre egin dizula iruditzen zaizu. **Lourdes Oñederra**

Buru gainean kapela bat **periodiko** paperez egina eramaten zuten. **Pello Lizarralde**

Badakit non edukitzen dituen gordeta argazki, eskela eta **periodiko** zatiak. **Xabier Etxabe**

## 4 izond tarte erregularretan edo halako maiztasun batez gertatzen dena.

Badirudi ikusmen-sistemari "kosta egiten zaiola" argi **periodiko** baten aldakuntzak jarraitzea, horren maiztasuna segundoko ziklo batzuk baino handiagoa, baina hala ere apal samarra denean. **Josu Zabaleta**

Zerga politikaren bidez saiatzen da estatua ekonomian parte hartzen, krisi **periodikoei** aurre egiteko. **Iñaki Heras**

Proiektzio horrek pantailako puntu batzuk jotzen ditu, erritmo **periodiko** baten arabera segidan. **Josu Zabaleta**

Argi-dardara argi gertaera **periodiko** guztietan agertzen denez, proiektzio-lasteratasuna geldiegia denean agertzen da zineman. **Josu Zabaleta**

Beren parabola mugagabea kurba itxi bihurtzen zaie, eta horregatik kalkula dezakegu kometa **periodikoaren** itzulera. **Josu Zabaleta**

## 5 sistema periodiko ik sistema.

## 6 taula periodiko ik taula.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**periodiko saltzaile** (3)

## periodikoki *adlag* maiztasun jakin batez.

Beraz, **periodikoki** basamortuak hiriarri armaz erasotzen dio, menperatu eta Estatu berri bat sortu. **Joxe Azurmendi**

(Gizarte-) sistema **periodikoki** zitaldu bati kontra egiten saiatzen dena ere uler daiteke halakotzat (zeharo urrun dago, ordea, Historiaren Heroien estetikatik). **Juan Garzia**

## periodiku ik periodiko.

## periodista iz kazetaria.

Krematorio batera bota beharko zuten, baina ez, hor joan da berarekin goxo-goxo **periodista** puta bat, oiloak baino beroago, lerdea zeriola. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Funtzionario iraultzailea, epaile demokrata, pentsalari katedraduna, **periodista** kritikoa, emakume liberatua, euskal autonomia, politikari fina, egia berdaderoa... **Patziku Perurena**

## periodistiko izond kazetaritzari dagokiona. ik kazetaritza 3.

Posta elektronikotik etorritakoa laburtzeko lan distiragabeari, hizkera **periodistikoaren** ustezko bizitasunaren kolorea baizik ez nion erantsi. **Aingeru Epaltza**

Kazetari euskaldun gutxi zela; euskarazko tradizio **periodistikorik** ez zegoela; eta irakurleria edo masa kritikaren falta zegoela. **Berria - Euskal Herria**

Erreportaietan erregistro jasoaren eta **periodistikoaren** artean oreka bilatzen saiatu naiz. **Berria - Kultura**

Uda orotako babokeria **periodistikoetariko** bat. **Aingeru Epaltza**

Orain 80ko hamarkadako idealismoa, edertasunarekiko gurariak eta eskapismorako joera utzi eta kasik modu **periodistikoan**, bertso libreen bidez, errimark gabe, prozesu sozialak aztertzen dituen irudien jarraipen bat erakusten da. **Berria - Kultura**

## periodistikoki *adlag* kazetaritzaren aldetik.

Hori guztia kontuan izanda, proiektua ekonomikoki eta **periodistikoki** ez zela bideragarria zioten askok. **Berria - Euskal Herria**

**Periodistikoki** zuzena, aseptikoa, burutapen eta iritzirik aipatu gabe; objektiboa, alegia. **Unai Iturriaga**

## periodizazio iz periodoetan zatitzea.

Zer **periodizazio** -irizpide hartu behar dugu serie bakoitzarentzat? **Xabier Arregi**

## periodo 1 iz aldia.

Filosofia Modernoa deituriko garaia **periodoak** aztertuz hasten da sarrera, bi eredu aintzat hartuz: kartesiarra eta kantiarra. **Askoren artean**

Pentsamenduaren historia **periodo** eta eskolatan sailkatzea [...] irakaskuntza-sisteman ezinbestekoa izan arren, arras artifizia da. **Askoren artean**

Ortega-k saio honetan iraultzaren **periodoa** aztertzen du, baina gauza bera beste edo-zein **periodoz** uler genezake, h[au] d[a], funtsean historiako ziklo guztietan fase berberak errepikatzen direla, baina fase bakoitzaren eitea bereizten duena arraza bakoitzaren karakterea -arima- da. **Joxe Azurmendi**

Unamuno-ren **periodo** honetako kredo positibistaren ondorioz, [...]. **Joxe Azurmendi**

Ideiak, doktrinak, **periodo** historikoak, debozioko testu sakratuak..., Salamancan -orain profesore- **periodo** berri bat abiatzen du. **Joxe Azurmendi**

Duela zenbait hamarkadatik hona historialariaren interesa gehiago zuzendu da **periodo** luzeez arduratuz; ematen du gorabehera politikoak eta hauen inguruko gertaerak alde batera utzi eta ahalegintzen direla argitara ematen oreka egonkorak eta hauskaitzak, itzulera gabeko prozesuak. **Xabier Arregi**

Hemen ordea bazirudik jendeak presa handia duela, bere **periodo** bitalean ikusi nahi duela helburua lortuta. **Mikel Hernandez Abaitua**

Arrunki zelaio bezala ezagutzen den **periodo** deuseztatzaile hau airoski gainditu nuen ordea. **Eider Rodriguez**

## 2 elkarri loturiko esaldi multzoa, zentzu osoa duena.

Perpau modu horiek, batasun itxian, **periodoa** eratuz, osatzen dute elkar. **Patziku Perurena**

Atsotitz askok antzeko egitura dute: bi perpau elkartzten dituzte, bi ideia, bi **periodo**; errimadunak, gehienetan. **Iñaki Arranz**

Lehenaren ezaugarria da perpausetan **periodo** konplexuak izatea, nagusi baten menpera egituratuak. **Patziku Perurena**

Luze-zabal korapilaturiko **periodo** ia askaezinak eraiki zituen, intzizoz tratatuak, zeinetan zabarkeriak eta solezismoak destainaren formak baitziruditen. **Juan Garzia**

## periodontitis iz hortzak masailezurrera lotzen dituzten lotailuen hantura.

Ahoko gaitzak (txantxarra, **periodontitisa**, eta ahoko nahiz faringeko minbizikiak) ugaritu egin direla ohartarazi du OME Osasunerako Mundu Erakundeak. **Berria - Gaiak**

Munduko biztanleen %5-15ek **periodontitis** larria dute. **Iñaki Heras**

## periodontzia iz odontologiaren adarra, hortzak masailezurrera lotzen dituzten lotailuen eritazunez aritzen dena.

Aho-hortzetako osasunaren barnean honako hauek sartuko dira, gutxienez: ahoa garbitzea, ortodontziak, enpasteak, **periodontzia**, exodontzia eta protesiak. **Berria - Euskal Herria**

## peripatetiko 1 izond Aristotelesen filosofia-doktrinari dagokiona.

Handik atera zuten filosofo aristotelikoek beren izena: **peripatetiko**, "eztabaidatzen duten bitartean ibiltzea gogoko dutenak". **Jon Muñoz**

Egilea hemen greziar eta siriar eliz idazleez ari da, VI. mendetik aurrera kristau dogmak [...] filosofia **peripatetikoaren** aurka eta filosofia horretatik sortu ziren heresia ugarien kontra defendatu behar izan zituztenez. **Xabier Kintana**

Gramatikaren beste hainbat gehiegikeriaren artean [...] nabarmena da dagoeneko kondanatuta dagoen erruztatu baten adierazpenak balio gabe bihurtzen dituen hura; halako zibilki hilda dago, esaten dute seriozki legegizon **peripatetikoek**, eta hildako bat ez da ezer egiteko gauza. **Juan Martin Elempuru**

## • 2 iz filosofia-doktrina horren jarraitzailea den pertsona.

Pierre Gassendiri berari aditu nizkioan, halaber, neure bizitzan **peripatetikoan** eta eskolastikoen kontra aditu nituen lehen hitzak, **Joan Mari Irigoien**

## peripatetikoki adlag ibiliaz.

*Cour de Rome*n baitzebilan **peripatetikoki** *ejusdem farinae*ko beste norbanako batekin. **Xabier Olarra**

## peripezia iz gertarea, gorabehera.

*Max e os felinos*-en txaluparen **peripeziak** orrialde gutxi batzuk betetzen dituen bitartean [...] mutikoaren eta tigrearen arteko berrehun eta hogeie egunetako lehiak -ezin bestela izan- *Life of Pi*-ren erdigunea osatzen du. **Iban Zaldúa**

## periplo iz bidaldia.

Ptolomeo geografoa Adriano eta Antonino Pionen garaian bizi izan zen; eta Eritreako itsasoko **Periploaren** autorea, dena delarik ere, zerbait geroxeago bizi izan zen. **Iñaki Iñurrieta**

Ikus haren Hannonen **periploari** buruzko hitzaldia. **Iñaki Iñurrieta**

## periptero izond/iz eraikinez mintzatuz, zutabez inguratua dagoena.

Horieta batak monopteroak izaten dira, *cella*-rik gabe eta kolomekin bakarrik osatuak; beste batak **peripteroak** deitzen dira. **Santiago Iruretagoiena**

Tenplu **peripteroetan**, berriz, kolomak jartzerakoan kontuan hartuko da ezen zenbat kolomarte jartzen diren aurreko aldean, horiek bi halako jartzen direla alboetan. **Santiago Iruretagoiena**

Tenplu **peripteroa** egin behar baldin bada, berriz, bi harmaila eta idulkiak egingo dira lurretik hasita. **Santiago Iruretagoiena**

**Peripteroa** izango da aurreko eta atzeko aldean seina koloma, eta bi alboetan hamaika koloma dituenean, angeluetako biak kontaktuta. **Santiago Iruretagoiena**

## periskopio 1 iz zuzenean ikus ahal izatea galarazten duen eragozgarriaren gainetik zerbait begiztatzeko balio duen tresna optikoa, funtsean prismetan osatua.

**Periskopiotik** begiratzen dudan bakoitzean, horda grisak ikustea itxaro dut, guregana hurbiltzen, "ez-inoren lur"etik zehar, baina ez da inortxo ageri. **Mirentxu Larrañaga**

Martak beren apartamentuko leihotik ikus zitzakeen txatarra meta haiek guztiak, sukalde lurperatuen hondakinak, altzairuzko idazmakinak, urpekotzi errusiarren **periskopio** txikitak, orduan tipo bat ailegatu da, hamar zentabo ordaindu dituen bere oinetatik sei metro beherago lurperaturik dagoen neskari **periskopiotik** begiratzearen truk. **Harkaitz Cano**

## 2 irud/hed

Biok dakigu beti ez garea ados egon izan geure usteetan eta aurrerantzean ere edukiko ditugula geureak eta bi, baina hemendik aitzina neu izango naiz zure **periskopioa**, neure begiak izango dira zeureak. **Hasier Etxeberria**

## perista *iz* lapurturiko gauzakien eroslea.

Legez salduta [familiako oroigarriak] beroaldi polita ekarriko zioan nornahiren patrikari, baina **peristak** Ripodasi ordaindu zion apurrak neketan berdinuko zian gorpuaren truke Soriarri atera nahi ziona. **Aingeru Epaltza**

## peristaltismo *iz* urdailaren eta hesteen berezko uzurtzea.

Janariaren bat gustatzen ez zitzaionean, kalte egiten ziola esaten zuen, eta gaizki asentatzen zitzaiola urdailan, baina gustatzen bazitzaion esaten zuen on egiten zuela eta **"peristaltismoa** bizitzen zuela". **Fernando Rey**

## peristilo *iz* eraikin bat edo patio bat inguratzen duten zutabe erregularri banatuen saila.

Zutabez eta **peristiloz** apainduriko etxeak, egurrezko espaloiak, karrika zabal erregularrak. **Karlos Zabala**

Ondoren, **peristilora** sartzeko sarrera dago. **Santiago Iruretagoiena**

**Peristiloen** portikoak zabalean duen hainbat izango dute kolomek altueran; kolomarteeak batetik bestera ez dute izango kolomen loditasunaren ez hiru aldiz baino txikiagoko tarte, eta ez lau aldiz baino handiagokoa. **Santiago Iruretagoiena**

Leku irekietan, ordea, adibidez exedra eta **peristiloetan**, leku horietan eguzkiaren errainuak eta ilargiaren distira sartzan direlako. **Santiago Iruretagoiena**

Bi **peristiloen** eta bisitari-gelen artean pasabideak egoten dira, *mesauloe* deitzen direnak. **Santiago Iruretagoiena**

Bataila ikusten zuen jada, gizon multzoak zutabe horietatik zintzilik, burdinazko hesiak zartatuak, **peristiloa** inbaditua, gero, goi-goian, bat-batean, beso argal batzuk bandera bat jartzen. **Karlos Zabala**

## peritaje *iz* peritu ikasketak.

**Peritajea** egin nuen. **Arantxa Iturbe**

Coruñan Merkataritza **Peritajea** ikasi zuen, bere kasa. **Berria - Mundua**

## perito ik peritu.

## peritoneo *iz* abdomenaren barnealdea estaltzen duen mintza, erraiak biltzen dituen tolesak dauzkana. ik **hestarteko**.

Andresek gaixoa aztertu zuen; haren sabel handituak igel batena ematen zuen; haztatzean argi eta garbi sumatzen zen nola mugitzen zen **peritoneoa** beteta zeukan ura. **Josu Zabaleta**

## peritonita ik peritonitis.

## peritonitis (*orobat peritonita g.er.*) *iz* peritonearen hantura.

Gero **peritonitisa** agertu zen, nahiko bortitz. **Xabier Olarra**

Seguru aski **peritonitisa** egingo zaio, eta agian beste konplikazio batzuk. **Xabier Olarra**

Amaren egoerak txarrera egin zuen, eta hala egon zen egun batzuetan, hil ala bizi, apendizitisak **peritonitisa** eragin ziolako. **Joan Mari Irigoien**

Kontrazeptibo lez cocacola erabiltzen genuen, azido karbonikoa espermizida zelakoan, baina cocacolak **peritonitis** eta gas enbolismo larriak eragiten zituen. **Joseba Sarrionandia**

## peritu (*orobat perito*) **1** *iz* ingeniartzako maila ertaineko tekniko titulua duen pertsona.

Bazen haien artean, halaber, **peritu** agrikola bat, landetxeko ortuak lantzeari ekin ziona. **Joan Mari Irigoien**

-Zuk historia? -galdetu zidan aitak, ingeniari edo gutxienez **perito** ikasiko ote nuen esperantza zapuztuta-. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 2 aditua.

Han konponduko dizkiote kroskoa eta zubia, aseguru etxeko **perituak** kalteen balioa kalkulatu ondoren. **Berria - Ekonomia**

Guztiari argazkiak egitea eta, ahal bada, aseguru etxeko **perituaren** txostena lortzea gomendatu du EKAK. **Berria - Harian**

**Perituak** egon dira lanean hegazkinak istripua izan zuen tokian. **Berria - Euskal Herria**

Informazio guztia taxuz batzen dute medikuek historia klinikoetan, eta, gero, epaitegietan parte hartzen duten **perituek** horren gaineko azalpenak ematen dizkiote epaileari... **Berria - Gaiak**

Defentsak fiskalaren **peritu** guztiak errefusatu dituela, eta oraindik auziari buruz erabaki irmoa hartu gabe zegoela. **Berria - Harian**

Akusazioaren **peritoak** dio Pinochet gai dela epaitua izateko; kontrakoa dio, ordea, defentsaren **peritoak**. **Berria - Mundua**

Isurketak ikertzen dabil, **peritu** judicial gisa. **Berria - Euskal Herria**

**Perito** ofizialak ez du oraindik zehaztu diktadore ohia epaiketari aurre egiteko moduan dagoen edo ez. **Berria - Mundua**

Agintari ohia aztertu zuten hiru **peritu** psikiatriko eta neurologoetatik bik eginiko txostenaren ondorioz kasutik at utzi behar izan zuten 2001ean. **Berria - Mundua**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik perizial.

**Peritu**-frogarako, instrukzioan parte hartu duten 11 guardia zibil eta 18 polizia proposatu dituzte fiskalak eta AVTko akusazioak. **Berria - Harian**

Fiskalak eta akusazioak proposatutako **peritu**-frogetan, azken batean, Baltasar Garzonen gidaritzapean egindako instrukzioaren xehetasun guztiak emango dituzte. **Berria - Harian**

Polizialetako inteligentzia zerbitzuak, instrukzioak gidatu dituztenak eta epaiketetan **peritu** lana egitekoak direnak. **Berria - Euskal Herria**

## perizial *izond* perituarena, perituari dagokiona. ik **peritu 3**.

Egia izanda ere, polizia frogak froga **perizialen** ordez erabiltzearen ondorioa zein den, egunero ikusten dugu. **Iñigo Aranbarri**

Halaber, Enrique Molinak esan zuen eginbidea froga **perizial** bat izanik, prozesuan froga **perizialak** azterterako orduan jorratu ahalko dela gaia. **Berria - Euskal Herria**

**perka** 1 *iz* baiatako arraina, bizkarraldean berdaxka, sabelalde zilarakoa eta alboak ure kolorekoak eta zerrenda beltzez hornituak dituen, jateko ona (*Perca fluviatilis*).

Ibaian arrain ugari egoten da: zarboak, tenkak, lutxo jatunak, karpa zilarkarak, **perka** hegalgorriak, aingira irristakorrak [...]. Koldo Biguri

Baditu zarboak, lamotak eta baita **perkak** ere. Itziar Otegi

Milaka **perka** txiki-txiki zebilela han barruan igerian ematen zuen. Koro Navarro

Noizean behin **perka** batek jauzi egiten zuen, eta plast erortzen zen berriz uretara. Koro Navarro

**Perkak** ez zituen inork arrantzatzen. Koro Navarro

Mutikoak sekula ikusi dudan **perkarik** handiena harrapatu dik, eta ez diat uretara itzuliko. Koro Navarro

Ez zegoen **perkatara** joateko leku askorik gure estatu aldean. Koro Navarro

Irinetan frijitutako **perkak**. Anton Garikano

## 2 (hitz elkartuetan)

**Perka** sarda bat zihoan gure aurretik, hogei, hogeita hamar ale, bat bera ere ez bi libratik beherakoa. Koro Navarro

Atereak neuzkan **perka** abata zaharrak, eta amu hirukoitzak haztzen ari nintzen. Koro Navarro

## perkal 1 *iz* kotoizko ehuna, fina eta sarría, soineko merkeak egiteko erabiltzen dena.

Gain-gainean agertu zen Curtis, soinean **perkalezko** marinel-jantzi txukun bat zuela. Ateaz bestaldean, **perkalezko** soineko ñabar batez jantziriko emakume lodi adineko bat. Mirentxu Larrañaga

Nola lekaio buiatua atea irekitzera irten zen, fraka jantzeko astirik gabe, **perkalezko** alkandora zikin bat soinean. Jose Morales

Betiko geldituko zela han, **perkalezko** mantalaz jantzirik etxetxo arrunt bateko leihoaren alboan. Jose Morales

Anguriaren barruan **perkalezko** bururdi ugari zegoen, tabako-zorro, bigungarri edo, besterik gabe, bururdi formakoak. Jose Morales

Neska gerritik gora biluzik atera zen, eta **perkal** gorritzko galtzekin. Koro Navarro

## 2 (pertsonen buruz, esapideetan)

Hau da **perkala** hemen biltzen dena. Urtzi Urrutikoeetxea

## perkusibo *izond* perkusiozkoa. ik perkutibo.

Akustikoa eta elektrikoa aldi berean, Farka Tourek ia ukitu **perkusiboa** ematen dio bere gitarrari. Berria - Kultura

## perkusio (*orobat perkusione g.er. eta perkuzio g.er.*) 1 *iz* makilez, ziriz, mazoz edo kidekoz jotzean musika-hotsa sortzen duten tresnen multzoa.

Izaera nerbioa eta mugituak musikan **perkusioaren** bidea jorratzera eraman zuen Antonio. Xabier Etxabe

Leloaren amaiera aldera, **perkusioaren** laguntzarekin, Jimmy Fontanak maitasun kontuak baino harago zegoen oihu bat zabaltzen zuen airean. Bernardo Atxaga

Antzina, **perkusioak** beste instrumentuek sortutako erritmoak laguntzeko funtzio soila zuen. Berria - Kultura

Soinuaren laguntzaile moduan agertzen da ia beti **perkusioa**, baina larunbat honetan, rolak aldatuak, **perkusioaren** festa egingo da Donostiako Kurasaaleko Ganbera aretoan egingo den Nazioarteko Trikiti Jaialdian. Berria - Kultura

Luis Aranburuk jo ditu akordeoia eta teklatura; Xabier Agirrek, txirula, gaita, alboka eta baxua; eta Xabier Azkaratek, **perkusioa**. Berria - Kultura

*Tribal Pursuit* taldea (kobre eta **perkusio**). Herría

Ostirale aratseko Tetan, Iruñeako *Untsalaz* taldea (kobre, **perkusio**, gaita, kantu) eta Uztaritzeko *Txass Band* taldea ariko dira karrika eta ostatuetan. Xipri Arbelbide

Domenico Lancellotti (**perkusio** elektronikoa eta samplerrak), Moreno Velosok [...] (ahotsa eta gitarra) eta Alexandre Kassinek (baxua) talde berezia osatzen dute. Berria - Kultura

Zinez ikusgarria da zenbait automatik osaturiko multzoa, Meccano piezekin eraikitako mekanismoekin korda eta arku instrumentu batzuk, **perkusio** txikiak eta teklatu bat entzuten ditugulako. Berria - Kultura

## 2 (pluralean)

*Agotak* taldea: Kristof Hiriart (ahotsa, **perkusioak**), Pantxix Bidart (ahotsa, gitarra), David Arriola (saxoa, akordeoia). Herría

Kantua, afrikar **perkusioak** (*djembe*), euskal **perkusioak** (pandero, atabala, txalaparta). Herría

**Perkusioen** erritmoan, dantzan edo kantuz, giro goxoan iragan da Lapurdiko hiriburuko bosgarren mobilizazioa. Berria - Ekonomia

Bateriaren eta **perkusioen** kolpeek Carmenen ahotsa estaltzen zuten. Berria - Kultura

Zortzi musikari, hau da, bi teklatu jotzaile, emakumezko kantaria, eta gainontzekoak baterian, gitarretan, saxoan (edo flautan), baxuan eta **perkusioetan**. Berria - Kultura

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hola sortu berria da **perkusio** eta kantu talde bat 17/18 urteko gaztek osatzen dutena. Herría

Javier Area bateria eta **perkusio** irakaslea. Berria - Kultura

Burundiko Danborrek Afrika osoko **perkusio** ikuskizun osatuenetako eskaintzen dute. Berria - Kultura

Agurtzane Elustondo trikilaria laguntzaile zutela, biek ala biek **perkusio** erakustaldi bikaina eskaini zuten. Berria - Kultura

Soinu laburra dute, **perkusio**-soinua. Gero barre egin genuen hirurok batera, izterrak espasmodikoki joz, noiz ezkerra noiz eskuina, **perkusio**-doinu benetan fina osatuz. Xabier Olarra

Gauetz lehegailuak entzun ziren, baina urrun, banda bateko **perkusio** saila bezain gozo oraindik. Harkaitz Cano

Brussels Jazz Orchestra 15 musikaririk osatzen dute eta haize eta **perkusio** sekzio oparoak darabilzki. Berria - Kultura

**Perkusio** kontzertua gaur Txillida-Lekun. Berria - Kultura

Hiru-Kultur elkarteak jaz bezala aurten ere **perkusio** topaketak muntatzen ditu bi egunez [...] txalapartari halako lehentasun bat emanez. Herría

## 4 *perkusio-jotzaile* (*orobat jole g.er. eta joile g.er.*) ik perkusionista; perkusiolari.

Zuzenean biolinista batek eta hiru **perkusio jotzailek** lagunduta abestuko du. Berria - Kultura

Orain estilo nahasketa handiagoa egin dugu, eta erritmo gehiago sartu, **perkusio jotzaile** on bat dugulako gurekin. Berria - Kultura

Azken atalean **perkusio jotzailearen** solo ederra izan genuen. Berria - Kultura

Alde batetik, Euskal Herriko bi kantari-musikari, Maddi Oihenart eta Kepa Junkera, bainan ere Kongoko erresumako Lokua Kanza, gitarra joile, ereslari eta kantaria, eta Keyvan Chemirani, Iraniako **perkusio joilea**. Herría

*Trovarroco* izeneko hari hirukote gazte bat eta Oliver Valdes **perkusio jotzailea** ariko dira nirekin. Berria - Kultura

Horiek guztiak ez ezik, Muñecok (Amparanoiarenekin **perkusio jotzailea**), Marcos Collek (ahosoinua), Oye Larsonek (tronboia) eta Iñaki Arakistainek (saxo tenorea) hartu dute parte diskoan. Berria - Kultura

Gitarra, teklaturak, baxua, emakumezko bateria, **perkusio jotzaile** brasildarra eta saxoak eta flauta jotzailea. Berria - Kultura

Sei lagun (**perkusio** elektronikoa **jotzaile** bat barne) eta gaueko musika biziena, oldarkorrena, dantzatu ezin dena. Berria - Kultura

## 5 *perkusio tresna*

Zelula erritmikoak eta hainbat **perkusio tresna** ez oso arruntetatik itendako soinua entzuten dira emaldian: litofonoak, kaulitoak, pikolifonoak, zuhaitz arrazialak, euri-arbolak, gortina litikoak, plaka eskegiak, enbor durunditsuak... [Berria - Kultura](#)

Joxe Marik, txalapartazale amorratua baitzen, **perkusio-tresna** hura jotzen ikasteko ikastaro bat antolatu zuen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Jo pianoa mozkorrik, **perkusio tresna** bailitzan. nazioarteko trikiti jaialdiak soinu txikia lagundu duten **perkusio tresnei** emango die garrantzia: panderoari, botilari eta jazpanari. [Harkaitz Cano](#)

Jimmy Arrabitek bere garaian oso ohikoak ziren **perkusio tresnak** jo ditu diskoan: txinatar kaxa, trikitiaren maleta eta botila, besteak beste, «panderoaren laguntzaile izaten baitziren askotan». [Berria - Kultura](#)

Gitarra akustikoa **perkusio tresna** bihurtzen du, egurren hotsa hariena bezain beste erabiltzen maisu da. [Berria - Kultura](#)

## perkusiolari *(corpusean perkuziolari soilik) iz* perkusio-jotzailea.

-Jo Ta Kurri, Beñat Amorenaren kreaioa: 30 partaide **perkuziolari**, gaitero, soinulari, dantzari. [Herria](#)

Aratseko 6etan **Perkuziolariak** karrikan Hiribeheren (Zirtzilak, Jo Ta Kurri, Baionako CNRko ikasleak...) . [Herria](#)

## perkusione ik perkusio.

## perkusionista iz perkusio-jotzailea. ik perkusiolari.

Bere pauso bakoitza buruan jasotzen saiatu nintzen, kantu bateko **perkusionistaren** baketa kolpea balitz bezala. [Harkaitz Cano](#)

**Perkusionista** guztiek jotzen dute erdiko danborra, txandaka, eta ikuskizuna jauzi eta oihuek osatzen dute. [Berria - Kultura](#)

Keyvan Hackensackeko (New Jersey) unibertsitateko erietxean zendu zen, atzo, Ray Barreto **perkusionista**, 76 urte zituela. [Berria - Kultura](#)

Morentek Rafael Riqueni gitarrista eta Bandolero **perkusionista** izango ditu lagun oholztan. [Berria - Kultura](#)

Cheminari iraniar **perkusionista** xoragarria. [Herria](#)

## perkutibo izond perkusiozkoa. ik perkusibo.

Kontzertu guztian ikusi zenez, Wolff zuzendariak ez zituen tema ezberdinak behar den argitasunez aurkeztu eta bere keinu **perkutiboarekin** begi-bistako gauza gehiegi markatu zituen. [Berria - Kultura](#)

## perkutore iz kolpekagailua; bereziki, su armetan detonagailua kolpekatzen duena.

Eta zalantza bat geratu zaio: Gudari-ren hitzek **perkutoreak** gatua sakatutakoan egiten duen soinua estali ote duten. -Hango gaztainadia erran duk? -laxatu nuen pistolaren **perkutorea**. [Iñaki Iñurrieta](#)

Automobilera abiatu nintzen poliki, eta gabardinak poltsikoan zeukan tartetik barrera sartu nuen eskua, **perkutorearen** palanka jasotzeko. [Rafa Egiguren](#)

Hain juxtu ere, lehengo egunetako trebatze ariketetan sekulako lanak eman zizkidan **perkutorea** tinkatzeak. [Aingeru Epaltza](#)

Agian auto paratxoeketako gogorgarriak izango dituk, edo misiletako **perkutoreak** ... [Pablo Sastre](#)

## perkuzio ik perkusio.

## perkuziolari ik perkusiolari.

## perla 1 iz ostretan eta beste soinbera batzuen maskorraren barnean erutzen den nakarrezko ale modukoa, gehienetan biribila, bitxi gisa erabiltzen dena.

Nakar arrosak, koral odolkarak, **perla** esne kolorekoak. [Felipe Juaristi](#)

Sawu, Timor eta Sondako itsaso epel eta tiburoiez betetakoetan **perlak** bilatzera. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Perla** basa haren koskor ximurren ukimenak zemaion sentsazio atsegina asetzeko asmoz, [...]. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Sudurrean txertatua zuen **perla** txiki-txiki bat. [Jon Muñoz](#)

Udare formako **perlak** ditun, ezta? [Karlos Zabala](#)

Leihoan, trena geldituz gero, **perla** itxurako ur-tantek beheranzko lerroak osatzen zituzten supituki. [Lopez de Arana](#)

**Perlak** bezalako negar-malko lodiak zerizkion hegaziari luma distiratsuetan behera. [Iñaki Mendiguren](#)

Lepoan lepokoa zuen, **perlaz** egina. [Felipe Juaristi](#)

**Perla** finezko lepoko bat utzi zion Perrettek, lepota printzesen erara apaintzen ziona. [Jon Muñoz](#)

Lepokoaren haria etendakoan **perlak** lurrera erortzen direnean bezala. [Anjel Lertxundi](#)

Sobre bat iritsi zen etxera, nire izenean, eta barruan **perla** bi, belarritakoak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kaukasoko sandalia **perlaz** apainduak oinetan. [Matías Múgica](#)

Mandolina-itxurako neska judu ilebeltz bati agindutako **perlazko** belarritakoen bi kuotak ordainduak zituen. [Lopez de Arana](#)

Zilarrezko uztaï nielatuak lepoaren bueltan, harribitxizko katea bikoitzak beso-hanken inguruan, **perlez**, turkesez eta kornalinez nahasitako zintzilario aberasak txirikorda luzeen muturretan dar-dar. [Karlos Zabala](#)

## 2 irud/hed (ur, malko edo izerdi tantak eta hortzak irudikatuz)

Ura tantaz tanta iragazten da eta **perla** luzetan egiten du negar leizeen bobedatik. [Koldo Izagirre](#)

Malko isilak, **perla** epel eta gaziak, iduneko berrira erortzen zitzaizkion kokotsetik behera. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Botilaren ur **perla** hotzak aipatzen nituen noski, bere izter barrenen sua baretuko zutenak. [Ramon Saizarbitoria](#)

Aurpegiera akasgabea du, arroska masailak, kopeta dirdaisua eta **perlazko** hortzeria. [Patxi Zubizarreta](#)

Ahoa **perlen** irribarre betean zabaldu zitzaion. [Patxi Zubizarreta](#)

## 3 irud/hed (bestelakoak)

Berorrek daukan **perla** eder eta preziatuaren bila etorri naiz: Gauahararen bila. [Patxi Zubizarreta](#)

Honen arrea: Josune; **perla** bat. [Pablo Sastre](#)

Lanbidean **perla** paregabea bilakatu zen... [Patxi Zubizarreta](#)



Hartara, ziurtatu egin zuen **perla** zulatu gabea zela, behor estali gabea. Patxi Zubizarreta

Kantauriko **perla** esaten zaion Donostia turistikotik hurbil. Koldo Izagirre

Euskaltzale sūharrentako, jei horietako **perla** date kobla lehiaketa. Herria

Aita Morlansek aipatutako **perla** bibliografiko haiek erakutsiko al zizkidan galdetu nion Patxiri. Xabier Mendiguren Elizegi

Hor nahasten dira primeran euskalki bateko eta besteko hitzak, **perla** bitxienera iritsi arte: *sosagaz* horrek ez baitu parekorik, ekialdeko hitz bat (*sosa*) mendebaleko deklinabide marka batekin (-*gaz*) loturik. Pello Salaburu

Politagoa, artean, Arantzazu aldizkarian Anizeta Barrena panderojole araoztarrari jasotako **perla** ttiki hau: [...]. Pello Zabala

## 4 (izenondo gisa)

Hala ere, azken aldiko konspirazionismoaren perlarik **perlena** on Xabier Arzalluzek egunkari poloniar bati eskaini ziona da, ezbairik gabe: [...]. Iban Zaldua

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Cumanáko **perla** -saltzaile lagun bati. Joan Mari Irigoien

Horientzat ere arrotza zen atzerritar larruzuri **perla** -bilatzaile bakarti hura, hizkuntza estrainio batez mintzo zena. Xabier Mendiguren Elizegi

**Perla** -kordaren batzuk bidali zuk hortik, uharte horretan ohi badira. Patxi Ezkiaga

Venezuelako kostan oraino ere geratzen diren **perla** -toki bakanetan. Joan Mari Irigoien

Iluntasuna **perla** -kolorea hartzen ari zen. Lopez de Arana

*ik beherago* 6. Askoren artean

Hantxe zeuden halaber basa zetazko jantzi-multzo **perla** kolorea. Joxan Elozegi

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kike Amonarriz adixkideari zor diot izenburu hori daraman liburu: **perla** hau ezagutua. Joxerra Garzia

## 7 *gris-perla izond*

Mary Ann, berriz, soineko gris **perla** batekin. Udako jantzi gris **perla** zeraman, udako zilar distiran bildua iduri. Bernardo Atxaga

Soingaineko argiegia soinean, kopalet gris **perla** buruan. Matías Múgica

· Gris-**perla** koloreko azal berbera, marrazki berbera, izenburu eta egile berbera. Iban Zaldua

## 8 *perla-koloreko izlag*

**Perla-koloreko** malko-putzutxo bat zegoen zauriaren inguruan. Iñaki Mendiguren

**Perla koloreko** zurda zuriak. Iñaki Mendiguren

**Perla-koloreko** ehundaka pertsona gardentsuz betea zegoen ziega. Iñaki Mendiguren

Pila haiek, ibai hura, **perla koloreko** itzal delikatuez hornitzen ziren, more bigunez, esnez moteldutako arrosez, horian itotako berdeez. Karlos Zabala

Bisaia polita zeukan eta sudurra eta kokotsa zuri **perla-kolorekoak**. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gris perla** (6); **halako perla** (3); **perla beltza** (10); **perla gris** (4); **perla kolorea** (3); **perla koloreko** (6); **perla ttiki** (3); **perla txikia** (4)

**ur perlak** (3)

## perladun *izond* perla duena; perlak dituena.

Platinozko bi katetxo zituen, biak ere **perladunak**, belarrietan dilindan; urrezko erloju bat eskuturrean eta ilargi erdi baten itxurako kateorraz bat durbantean. Patxi Zubizarreta

## perlatu, perla, perlatzen 1 da/du *ad* zerbait, ur tantez, malkoz edo kidekoetz estali edo zipriztindu. ikperlaztatu.

Zeren sarritan ardi iletsuak, muino batean larre gozoa bazkatuz, mantxo ibili ohi dira, ihintz berriz **perlaturiko** belarren dei eta gonbiten arabera. Xabier Amuriza

Kaiertzearen puntan jaitsi eta lurpeko hodieta itsumandoka zihoan: karrelaje zuri-urdinez perdukatu hegialak zorrotzak ziren, hain hurbil zeukaten lohiaren izerdia arteketan

**perlatzen** baldin bazitzaien ere. Itxaro Borda

## 2 irud/hed

Emaztea Arbideko euskara laxoan mintzo zen, solasak erdarazko hitzez **perlatuz**. Itxaro Borda

## perlatxo 1 *iz* perla txikia.

Bere altuerakoa da kasik, ile bilduak belarrien handia erakusten du, gingilaren gorria **perlatxo** beltzek. Koldo Izagirre

Nor izango, eta neska pinpirin gaiztoa, noski, **perlatxoa** sudurrean, denbora nahasiz heritza ekarri ziona bere senar gazteari. Jon Muñoz

Nire izerdia eta alemaniar haren gorputz azalean sortzen ziren **perlatxo** moduko izerdi tantak. Joxemari Iturralde

## 2 irud/hed (*izerdi tantak irudikatuz*)

Izerdi **perlatxoak** nituen. Edorta Jimenez

Aitak irribarre egiten zion, izerdiaren **perlatxo** zuriak zapiatz xukatzen zizkiola. Javi Cillero

Bi **perlatxo** kulunkatu ziren lapitzak nabarmenduriko begi ertzetan. Migel Angel Mintegi

## 3 irud/hed (*bestelakoak*)

Bitartean, zuzendariak Antilletan aurkitu eta Champs-Élysées erdi-erdian egokitu zuen uestezko **perlatxo** batengana jo zuten bezero zaharretako askok; auskalo nondik atera zituen enpresak horretarako beharko ziren baliabideak. Joxan Elozegi

Idazle horiek orain arte kaleratutako obran ageri ez diren «**perlatxoak**» dira, eta Mendiguren Elizegik «ahantzuratik» berreskuratu ditu. Berria - Kultura

## perlaztatu, perlazta, perlaztatzen du *ad* zerbait, ur tantez, malkoz edo kidekoetz estali edo zipriztindu. ikperlatu.

Izerdiak **perlaztatu** egiten zion kopeta, alkandoraren lepo azpian kilimak eragiten zizkiola. Lopez de Arana

## perleria *iz* perla multzoa.

Delpanisa bakarra zen hoinbeste zeta, balus, farfail, larru soinean zituena, urreria, **perleria** lepotik eta ukaraitik dilindan, Pariseko aberatsen azken modako irudia herri ttipi honetara ekartzen zuena. Michel Oronoz

Arboladi fruitutsuak, usain goxoko landareak, esnea, ardoa eta ezitia zekarten hiru kristal eta **perleriazko** iturri handiak, dorre soinularia, neskatxa eta mutil gazte ederrak...

Saia Brugesko satin berdez zuen egina, gipoina urre **perleriaz** eta soinean zuen kapa urrezko hari eta zeta berde damazatuaz. Aurelia Arkotxa

# perlesia 1 *iz* elbarritasuna, higikortasunaren edo sentiberatasunaren galera.

Ondorio larriak izaten ditu: gorputz-adarren atrofia eta **perlesia** eragiten ditu [polioak]. **Perlesiak** jotako gizon bat. Berria - Gaiak

Batzuetan, zerbait egin nahi dudanean, eskuak **perlesiak** hartzen zizkidak. Xabier Olarra

Eskuak ia **perlesiak** joak zituen agure hura, biolina eta arkuak hartzeko eta musika jo edo hari nota garbi eta nobleak aterarazteko gauza ez izan arren, [...]. Xabier Olarra

Guti batzuk **perlesiak** joak bezala geratu ginen... Joan Mari Irigoien

Agure eltzartuak ere etortzen al dira, hanka edo esku bat **perlesiak** jota dutenak? -galdetu zion Egutxi agureak emakumeari. Ibon Uribarri

**Perlesiak** zangoak hartu, arnasa ia gelditu, eta koman sartu zen hamar egunen buruan. Xabier Olarra

Ez da bere onera itzuliko hurrengo urteko ekainaren 6an, gorputz guztia **perlesiak** hartuta, hiltzen den arte. Josu Zabaleta

-Bai, **perlesiak** jota hil zen. Joan Mari Irigoien

**Perlesiaren** izumenak, begietako arazoak, hotzerako sentiberatasunak, gaitzen kontra hartzen dituen bromuroen, eterren, opioaren gehiegikeriek ahultzen dute eta etsimenera eramaten. Josu Zabaleta

Aspacek, berriz, burmuineko **perlesia** dute eta adimen urriko diren haurrak hartzen ditu bere zentroan. Berria - Harian

Esperimentu-animaletan eroso gertatzen den **perlesia** kimikoa ez da inolaz ere egingarria gizakietan. Irene Aldasoro

## 2 irud/hed

Nik neuk ere izan nuen, ustez, Swann-ek jasandako **perlesia** espiritualaren antzeko zerbait, behin baino gehiagotan. Juan Kruz Igerabide

## 3 (hitz elkartuetan)

Beste egun batzuetan, ordea, nekeak gainditzen ninduen eta **perlesia** modu batek bertan lotzen. Joxan Elozegi

## 4 *perlesia*-aldi

Antonietak **perlesia** aldi bat izan zuen, eta burutik nahastuta geratu zen. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**perlesiak jota** (7)

# perlesiadun (*orobat perlesidun*) *izond/iz* perlesia duena, perlesiak joa. ik elbarri.

Elbarria, **perlesiaduna**, hebaindua, nahi duzun guztia, baina ezindua ez. Jon Muñoz

Haren merituei esker, itsu eta gor, mutu eta herren, urmindu eta **perlesidun**, deabrudun eta legenardun, itsasoan galdutako eta gatibu, denek aurkitzen dute erremedioa.

Askoren artean

# perlesiatu, perlesia, perlesiatzen 1 du *ad* perlesiak jo.

Oihartzunak sotoko barrunbe urrunetan iraungitzen ziren bitartean, izu-laborriak **perlesiaturik**, nire egoera larriaz ohartu nintzen. Alberto Ladron Arana

Zori gaitzak dena isiltasunean **perlesiatu** izan balu bezala. Aurelia Arkotxa

**Perlesiaturik** bezala nengoen, urrats bakar bat egiteko beldurrez. Alberto Ladron Arana

Nire aurrean, judu zaharraren aurpegia **perlesiaturik** gelditu zen txundiduraren eta iz u-laborriaren arteko keinu errukarri batean. Alberto Ladron Arana

## 2 irud/hed

Aski eta sobera nire partida hankaz gora jartzeko, nire zentzumen guztiak **perlesiaturik** uzteko. Alberto Ladron Arana

# perlesiatzaile (*corpusean perlisiatzale soilik*) *izond* perlesiatzen duena.

Zainetako eritasun bat, beldur **perlisiatzale** izigarri bat, mendien erdian garrasi batek ezituko ere ez lukeena. Piarres Aintziart

## perlesidun ik perlesiadun.

## perlisiatzale ik perlesiatzaile.

# perlita *iz* ferritak eta zementitaren nahastura, burdin aleazioak osatzen diturena.

Landarea **perlita** B-12 izeneko materia bizigabea duen poltsa batean landatuta dago. Berria - Kultura

# perloi *iz* *Triglidae* familiako arrainei ematen zaien izena. ikarraingorri.

**Perloi** arrosek, sabel zuri, buru guztiak otarrean erdian bildurik, isatsak ertzean erradioen gisa, loratze bitxiak zabaltzen zituzten, beren buru gain zuri-gorriekin. Karlos Zabala

Gerratan jolastea ere atsegin zitzaion; marmolezko mahaiaren gainean, **perloiak** lerrotatzen zituen batzuk besteen parean, bultzaka eta kolpeka erabiltzen zituen, tronpeta eta danbor hotsak expainez imitatzen zituen bitartean. Karlos Zabala

# perlokutibo *izond* hitz egiteko ekintzari dagokiona.

Horiez biez gain, esaldi batek ondorio **perlokutiboak** dauzka. Askoren artean

Hiztuna konbentitzea, beldurtzea, aspertzea, informatzea, haserretzea... guztiak dira ondorio **perlokutiboak**. Askoren artean

Efektu **perlokutiboak** ez ditugu esaldi bat esatean egiten, esaldi hori esatearen bidez baizik. Askoren artean

# perlokuzio *iz*

Indarra, edukia eta **perlokuzioa**. Askoren artean

# permafrost iz gutxienez bi urtez izozturik dirauen lurzoru geruza.

Siberiako metanoa: eskualde erraldoi honen zorua izoztuta dago neguan zein udan, **permafrost** deiturikoa. **Berria - Gaiak**

## permanantza ik **permanentzia**.

## permanantzia ik **permanentzia**.

## permanente 1 iz ile kizkurtze iraunkorra.

Ile gaztaina-koloreak bi edo hiru urte lehenago modan zegoen **permanente** eran orraztuak. **Josu Zabaleta**

Pia sarri joaten zen Gruarora, erosketaren bat egitera zela, ile apaintzailearengana zela, **permanentea** egitera. **Josu Zabaleta**

Neskak itxura ona ematen zion lehengusuari, galtzerdi transparenteak jantzita joaten baitzen beti eta **permanentea** egiten baitzuen ilean. **Pello Lizarralde**

## • 2 izond iraunkorra; erakunde batean, erakunde horren administrazioko soldatapekoa.

Herri Taldeak-eko zonbaizuk deliberatzen dute errepresioaren kontrako talde **permanente** baten egitea: EKB (Errepresioaren Kontrako Batzordea) sortzen da. **Herria**

Begirale tekniko **permanente** bat. **Herria**

Mugagabeko **permanente** lan kontratua (CDII). Elkarteko Mixel Bernadet **permanentearen** laguntzarekin, hitzordu bat eskatu dio Assediceko buruari. **Herria**

Battittu Coyos xiberotarra ginuen hiru urte hauetan Kontseilu Nagusiko euskararen **permanentea** Bayrou departamendu buruak izendaturik kargu hortan. **Herria**

Deus obrarik egin gabe han hasi dira lanean 5 **permanenteak**. **Herria**

Tente egoteko gauza ez den ileari permanentea egiten zaion bezala, pertsona eroriari ere nortasun **permanentea** ematen dio estatuak opari. **Iñaki Segurola**

## permanentzia (orobat **permanantza g.er.** eta **permanantzia g.er.**) 1 iz ipar erakunde baten jarduera etengabea bermatzen duen zerbitzua.

Sasoilariak laguntzeko eta informatzeko LAB sindikatuak **permanentziak** atxikiko ditu uztaila eta agorrilean. **Herria**

Karia hortarat, Senpere eta Senpereko zerbitzuak (Herriko etxeko **permanentziak**, haurtzaindegia, garraioa, kultur edo kirol arloko elkarteak...) aurkezten dituen liburuxka bat emana izanen zaizue. **Herria**

Uztail hilabete hunen bukaera artio Peio Bordagaray erretora falta izanen baita **permanentzia** bat segurtatuko dute aldizka bertze bi apezek. **Herria**

Gure bulegoko **permanentziak** iragaiten dira astelehen arratsalde, 6-etatik 8-tara eta ostegunetan arratsaldeko 4-etatik 7-tara. **Herria**

Antolaketa errexteko, ontsa litake **permanentzietarat** etortzea izenen emaiteko eta solastatzeko edo bederen telefonoz deitzea. **Herria**

Interesatuak direnzentzat, izenen emaiteko **permanentziak** izanen dira irailaren 19tik 23a arte (astelehenetik ostiralera) arratsaldeko 2etatik 8ak arte, Itsasuko gau eskolan.

**Herria**

Hona **permanentzien** tokiak, egunak eta ordutegia. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Eraikuntza honek aterbetzen ditu Posta berria, Herriko Etxeko zerbitzu zozialak, bilkura eta **permanentzia** gela eta bulego batzu. **Herria**

- Artatze **permanentzien** arteko koordinazio falta konpontzeko helburua finkatu dute. **Berria - Euskal Herria**

## permatu ik **bermatu**.

## permis ik **permiso**.

## permisibitate iz jokaera permisiboa.

Ondorioz, sehaskatik bertatik ahalegintzen dira seme-alabak gehiegizko **permisibitatean** eta zabarkerian hezten. **Askoren artean**

Aro berriaren ezaugarriak ondorengo hauek dira: deszentralizazioa, globalizazioa, harmonizazioa eta **permisibitatea**. **Txema Ramirez de la Piscina**

Sarritan **permisibitatearen** atzean debekua dago, nahiz eta ez esan. **Berria - Euskal Herria**

**Permisibitate** oro aurrerakoa da? **Anjel Lertxundi**

Diziplinaz gurasoek dituzten jokabideak: Gehiegizko babesa eta **permisibitatea** erabiltzea (%84,5), zorrotzasun gutxiko diziplina (%81,5) eta zorrotzasun handiko diziplina (%3,0). **Berria - Euskal Herria**

## permisibo izond aginduak eta arauak betetzeari buruz laxo jokaten duena.

Gizarte libreago eta **permisiboago** baten aieru eta seinale. **Joan Mari Irigoien**

Gaur egungo kultura **permisiboan**, non plazer handiena dendaz denda ibiltzea den, non, herritar moderno izan nahi baduzu eta bide batez ekonomiari lagundu, kontsumitzera behartua zauden, zer da egin beharrekoa? **Joseba Zulaika**

Politika hori **permisiboa** eta inflazioeragilea gertatzen bada, interes-tasen beherakadak kapitalen irteera garbiak bultzatuko ditu. **Koro Navarro**

Iñigo Lamarka EAEko arartekoak adierazi zuen ordenamendu juridikoak «ahalik eta **permisiboan**» izan behar duela oinarrizko eskubideak egikaritzeko. **Berria - Euskal Herria**

## permisione ik **permiso**.

## permiso (orobat **permis g.er.**, **permisione g.er.**, **permixo g.er.** eta **permisu g.er.**) iz baimena.

Soldadu egonda ere bila zitekeen tarteren bat edo beste **permisoa** hartu eta soinua jotzera joateko. **Xabier Etxabe**

Gure herriko Jon Mozkote Burgosen zegoen soldadutza gure anaiarekin batera, eta Mozkote horrek **"permisoarekin"** gure herrira astebeterako etorri zenean, [...].

**Gotzon Garate**

Vittorio eta Alberto, **permisoa** hartuta etxera etorria baitzen egun batzuetarako, joan eta etorri ibiltzen ziren Re Umberto hiribidean barrena. **Fernando Rey**

Guk ekarriko genuela; **permisoa** eskatu genian... **Pablo Sastre**

Autoko **permisa** pasatu nuelarik, gastuak ordaindu zizkidan baina hauxe galdatuz: [...]. **Daniel Landart**

Hemezortzi urte bete nituen, autoaren gidatzeko **permisa** eskuratu eta bi zalditako xahar bat erosi, bataioko amatxi nuen izebak diru-laguntza ederra emanik. **Janbattitt Dirassar**

permisu ik **permiso**.

**permititu**, permiti, permititzen du *ad* utzi, onartu; baimena eman.

ETAekin identifikatzeak sari berezia zuen: talde armatuaren botere ustez ahalguztidunekin bat egitea **permititzen** zuen. **Joseba Zulaika**

Desoreka sozial eta ekonomikoak ezingo lirateke **permititu** (onartzekotan guztien onura lortzeko onartu beharko lirateke, eta gizarteko kide guztiek eduki beharko lukete onura horiek eskuratzeko aukera). **Askoren artean**

Ez zuen ulertzen nolaz Errusiako herriak **permititzen** zuen halako krudelkeriarik. **Iban Zaldua**

Ezin zuen **permititu** artegatasuna euren artean nagusitzea. **Josu Landa**

Honek ezerein estatuk **permititzerik** ez daukan indisziplina zekarren: austeritatea estatuen autoarautzeen zati bat da. **Xabier Amuriza**

Bestetik, Idazlearen eskura baizik ez zegoen, inork bere buruari ez eta Idazleak bereari **permititzen** ahal zion heterodoxia inbidiaigarri -inbidiaigarri, modu ez batere osasungarrian- batekoa. **Jon Alonso**

permixo ik **permiso**.

**permutatu**, permuta(tu), permutatzen du *ad* trukatu.

Beraz, era honetara defini dezakegu alternantzia: lehdaniko bi forma sailen artean erregulariki **permutatzen** diren bi hots zein bi hots multzo jakinen arteko egokitasuna.

**Isabel Arrigain**

**permutazio 1** *iz* permutatzea, trukatzea.

Alternantziari **permutazio** izena eman diogu. **Isabel Arrigain**

Hitz, esaldi edo testu baten osagaiak segida batean antolatzen badira, lau modu daude segida hori apurtzeko: osagaiak lekuz aldatzea -**permutazioa**-, osagaiak alderantziz jartzea -inbertsioa-, [...]. **Iñaki Arranz**

Trukatzen diren osagaiak zeintzuk diren, **permutazio** mota ezberdinak aurkituko ditugu: [...]. **Iñaki Arranz**

Beste testu batzuk, berriz, hitz, hots, letra, silaba eta abarren manipulazioetan oinarrituak dira (aferesiak, apokopeak, sinkopeak, **permutazioak**). **Xabier Olarra**

Badakit: horrekin ez lirateke bukatuko **permutazioen** posibilitateak, baina, gaurkoz behintzat, zorabiatua, hemen uztea erabaki dut. **Iban Zaldua**

**2** konbinatorian, multzo bateko elementu guztiak konbina daitezkeen ordena bakoitza.

Pascalek orobat landu zitinan analisi konbinatorioa; kasu posibleen zerrendaren kopurua kalkulatzeko, basakaiku bat bezala kasuok banan-banan kontatzen ibili gabe; ordenamenduak, konbinazioak, **permutazioak**. **Jon Muñoz**

**pernil** *iz* urdaiazpikoa.

Goizegi zela oraindik, aterako ziola bitartean gazta apur bat eta **pernila**, eta edatekoa ere bai. **Unai Elorriaga**

Jatekorik nahi ote zuten galdegin zien berriro hiru gizonen eta azak, saltxitxak, **pernila** eta idikia egosita zituela adierazi. **Felipe Juaristi**

Azak egosten ari ziren nonbait, **pernilarekin** batera, hori esaten zion gelan zabaldua zen lurrinak. **Felipe Juaristi**

Azaz, sagarrez, **pernilez**, pepinoz eta tomatez eta indioilar zatiez egindako pintxoak. **Urtzi Urrutikoeetxea**

**perno** *iz* buloia.

Haien atzean, Rosek leiho tapen **pernoak** ipintzen zituen. **Karlos Zabala**

**perolatxo** *iz* lapiko txikia eltze txikia.

Mikelek ordurako **perolatxo** sukaldeko mahai gainean jarria zuen. **Unai Iturriaga**

Sutan zen **perolatxoan** kolore beltz eta marroixkak hartu zituzten espagietiek. **Unai Iturriaga**

**perone** *iz* zangoaren kanpoaldeko hezur luze mehea, belaunetik orkatileraino doana.

Yestek **peronean** du min eta Guerrerok, berriz, ezker izterrean kontusio txiki bat du. **Berria - Kirola**

**Peronea** hautsi nuen. **Joan Mari Irigoien**

Orkatila, **peronea** eta lepauztaia hautsi zituen. **Berria - Kirola**

30 zentimetroko diametroko harriak berna-hezurra eta **peronea** hautsi zizkion. **Berria - Euskal Herria**

Meniskoa, bernahezurra eta **peronea** hautsita neuzkan, eta aldakan ere ebakuntza bat egin zidaten. **Berria - Kirola**

Tiroka ekin zioten ordea, eta ezkerreko zangoko tibia eta **perone** hezurrak hausteaz gain izterrean ere sartu zioten beste bala bat. **Jokin Urain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**perone hezurra hautsi** (3)

**peronea hautsi** (3)

**peronismo** *iz* J. D. Peronek Argentinan ezarri zuen erregimen diktatoriala.

Baina **peronismoaren** edo marxismoaren aipamen hutsak urduritu eta madarikazioka jartzen zituen heziketa ezin hobeko andre eta andereño haiek. **Xabier Montoia**

Bai, **Peronismo** maltzurrenean erroak dituen klase politikoaren eskutik ustezko parte-hartze keynesianoaren politika bulgarizatu ahaztezinak. **Iñaki Heras**

Kirchner saiatzen ari da sektoreak gainditzin **peronismoaren** barruan. **Berria - Euskal Herria**  
Argentinako presidente ohi Carlos Menemek Txiletik jarraitzaileei jakinarazi dienez, talde berri bat abiatu du Alderdi Justzialistaren (peronistak) barruan: Herriaren **Peronismoa**. **Berria - Mundua**

## peroxido *iz* ahal den oxigeno atomo gehien duen oxidoa.

Zabaltzen eta guritzen ari zen, eta gero eta ilunagoa zuen ile horia ere antzaldaten ari zitzaion, **peroxidotan** trakeski beratzearen poderioz. **Mirentxu Larrañaga**

## perpau *s* **1** *iz* predikatuz eta, gehienetan, subjektuz osaturiko esaldia.

Honelako gramatika batetik **perpau** bat sortzeko, perpaua sinbolotik hasten den eratorjeta hedatu bat sortzen dugu. **Itziar Laka**

**Perpau**z baliatuz hitz egiten dugu, eta gero hitzak bereizten ditugu. **Isabel Arrigain**

Ondorioz sortu den hitz-hurrenkerari "**perpaua**" deituko diogu. **Itziar Laka**

Gramatikak, **perpauak** sortzeko lanabesak bezala deskribatu ditugu. **Itziar Laka**

Gainerako **perpau**ek, oro har, ez dute proposiziorik adierazten testuingurutik kanpo. **Askoren artean**

Gogoan har ditzagun orain **perpau**en egitura morfemikoa deskribatzeko zenbait bide. **Itziar Laka**

Ezin da **perpau**en bidez munduaren eta hizkuntzaren forma logiko komuna azaldu. **Markos Zapiain**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Uste dut badela oraingo obretan **perpau** laburragoetarako joera bat. **Iñigo Aranbarri**

Sarri, arratsean, nota zenbait eskainiko dizkiot kaierari: hitz xume eta **perpau** mainguk. **Piarres Aintziart**

**Perpau** berriak sortzeko eragiketarik emankorrenetako bat, juntaduraren eragiketa dugu. **Itziar Laka**

Argi dago **perpau** pasiboek boz aktiboko perpauak dagozkiela sistematikoki. **Itziar Laka**

**Perpau** gramatikalen egitura aztertzea. **Itziar Laka**

**Perpau** onargarriak, Wittgensteinen *Tractatus* honetan, mundua deskribatzen dutenak dira, natur zientzietakoak oro har. **Markos Zapiain**

Hara ene gaurko ipuina, literatura tradizio finko, ohoretsu eta unibertsean kokatzen dudala, **perpau** soil baten bidez. **Herria**

Ingelesaren egiturari buruzko hausnarketa guztiz zehatz batzuek galderazko **perpauak** aipatzen ez badituzte ere [...] denek aipatzen dituzte adierazpen **perpau** soilak, hutsik egin gabe. **Itziar Laka**

Hizkuntzaren Filosofian perpauak aztertu izan direnean, **perpau** deklaratioak aztertu izan dira tradizioz. **Askoren artean**

Horrenbestez, **perpau** analitikoak egiazkoak dira nahitaez. **Askoren artean**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Perpau** modu horiek, batasun itxian, periodoa eratuz, osatzen dute elkar. **Patziku Perurena**

Formaldatze batek **perpau**-egituraren arauak emandako hurrenkera baten itxurapena hartzen du abiapuntuzat. **Itziar Laka**

Ingelesaren **perpau** egitura deskribatzeko lanabes bezala osagai-egiturak agertzen duen desegokitasuna. **Itziar Laka**

Gramatika hau zabal dezakegu **perpau**-kopuru amaigabea sortzeko, biribil hertsia gehituz. **Itziar Laka**

Hizkuntzaren muina definitzen dugu [...] S, F gramatikaren bukaerako hurrenkerei beharrezko formaldatzeak ezartzen dizkiogunean sortzen den **perpau**-taldea bezala. **Itziar Laka**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Perpau jakin bat sortzean beharrezko formaldatzeak bakarrik ezartzen ditugunean, sortzen den perpauari muin-**perpau** deritzogu. **Itziar Laka**

Muin-**perpauak** aukeratzean, S, F motak deskribapen baten bitartez errazki eratoritzen diren bukaerako kateak dituztenak hartzen ditugu. **Itziar Laka**

Hemen daukagu identitate-**perpau** ez-tribialen auziaren erantzuna. **Askoren artean**

Fregek lehen aldiz planteatzen ditu Hizkuntzaren Filosofian eremuko hainbat arazo, eta horietan nagusia identitate-**perpau**en auzia dateke. **Askoren artean**

Arazo nagusiak inexistentzia-**perpau**ena edota izen propioena dirateke. **Askoren artean**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adierazpen perpau (4); hizkuntzaren perpau (5); ingelesaren perpau (5); ingelesezko perpau (4); muin perpau (5)

perpau bakar (3); perpau bat ulertzeko (4); perpau baten esanahia (3); perpau berria (3); perpau gramatikal (4); perpau gramatikala (4); perpau gramatikalak (10); perpau gramatikalen (13); perpau gramatikalen taldea (6); perpau kopuru (5); perpau kopuru amaigabea (3); perpau pasiboak (5); perpau pasiboan (3); perpau talde (4)

azken perpaua (3); muin perpaua (5); perpaua egiazkoa (3)

muin perpauak (7); perpauak sortzeko (3)

muin perpauaren azpian (3); perpauaren azpian (7); perpauaren egia baldintza (4); perpauaren zentzua (4)

muin perpauaren (7); perpauaren eduki semantikoa (3); perpauaren egitura (5); perpauaren egitura morfemikoa (3); perpauaren taldea (3)

## perpendikular *1* *izond* beste lerro eta planu bati buruz, harekin angelu zuzena osatzen duena. **ikzut; elkarzut**.

Malkarrean ongi eginko eta harkaitzetako bejetazio zakarrarekin nahasirik eskailera **perpendikular** batetik igotzen naiz mendira, hagitz maila altu eta estuetan goiti. **Koldo Izagirre**

Urrunera, kale **perpendikular** batean, ikusten ahal zen autobus bat pasatzen. **Ramuntxo Etxeberri**

Old Brompton-ekiko **perpendikular** ematen zuen, baina metroko geltokirako bideaz bestaldera, eta horregatik, nekez pasa zitekeen Victoria han aurretik. **Ramon Saizarbitoria**

Irudi horretan garbi ikusten da ikuspen-ardatzaren paralelo (proiekzio-planoaren **perpendikular**) diren lerroek puntu baterantz (ardatz optikoaren eta erretinaren ebaki-punturantz) elkarretaratuz doan lerro-familia bat osatzen dutela. **Josu Zabaleta**

Espazio fisikoa aski zehatz deskriba daiteke eredu erraz eta antzinako batez, bina-bina elkarren **perpendikularrak** diren hiru koordenatu (koordinatu "kartesiarrak") ardatzekiko geometriaren bidez. **Josu Zabaleta**

Ekar dezagun gogora [...] "arrain-hezurrezko" perspektiba deitua ("ihes-ardatzeko perspektiba" ere deitua); honetan, koadroaren planoari buruz **perpendikular** diren zuzenak erdiko ardatz baterantz dute konbergentzia, eta ez puntu baterantz. **Josu Zabaleta**

Habeak aurrera atera zituzten, habeen proiektzioak trigilfoekin **perpendikular** jarri arte. **Santiago Iruretagoiena**

Barruko elementuak, cella-ra begira gelditzen direnak, guztiz **perpendikular** dituztela egin behar dira. **Santiago Iruretagoiena**

### 2 **perpendikularrean adlag** ik **perpendikular**ki.

Habe horien gainetik eta kapitelen gainean **perpendikularrean** jarrita, pilare batzuk daude euskarri moduan. **Santiago Iruretagoiena**

Ondoren, osorik moztu zituzten kanpora ateratzen ziren habeen irtenguneak, paretarekin arrasean eta **perpendikularrean** hartuta. **Santiago Iruretagoiena**

Danbor hori **perpendikularrean** egoten da zeharka jarrita, eta gurpilearekin batera ibiltzen da biraka. **Santiago Iruretagoiena**

*Cathoe* deitzen dira eta boluten lau ertzetan egin behar dira, abakoaren ertzarekin **perpendikularrean**. **Santiago Iruretagoiena**

Basak bukatuta daudenean eta beren lekuetan jarrita, erdiko kolomak jarri behar dira pronaon eta atzeko aldean, beren zentroarekiko **perpendikularrean**. **Santiago Iruretagoiena**

## perpendikularki *iz* perpendikularrean.

Demagun, konparaziotan hartaz jabetu gaituzen, hor goiko sabaietan, **perpendikularki** begira, meteosata dabilen bezala, gure parean, txapatxo beltz karratu bat ipini dugula, zentimetro koadroa duena. **Pello Zabala**

## perpetuatu, perpetua, perpetuaten da/du *ad* betikotu.

Ugartek [...] bikotearen itxurakeria utziko du agerian, zeina, biziko bada, haurren bidez **perpetuatu** beharra baitauka. **Berria - Kultura**

## perplexidade ik **perplexitate**.

## perplexitate (*orobat perplexidade*) *iz* nahasirik gelditzea, txundimena. ik **durduzadura**.

Obra bat non irakurlea **perplexitatearen** mugetaraino eramaten duen narratzailearen esku bihurriak, tradizio anitzetan barna sartu-irtenak eginaz. **Berria - Kultura**

Azken batean, ipuinak errealitateari ordena bat emateko ahalegina diren neurrian [...] normala da atzean dagoen **perplexidade** hori islatzea. **Berria - Kultura**

Basoaren bihotzean galdurik bat-batean autobide batekin topo egiteak halako **perplexidade** moduko bat sentiarazten zidan niri beti. **Juan Luis Zabala**

## perrail 1 *iz* ahoa hondoa baino zabalagoa duen ontzi biribil eskutokiduna. ik **balde**<sup>1</sup>.

Miserablea!, odolez beteriko **perrail** bat dakarkidak! kuarteleko sotoetan ezarri gintuen, gela bakoitzean bat, bakoitzak bere oharka eta bere **perraila**, arrantxo hamaiketan, egurasteko ordua eta gure artean komunikatzeko debekua. **Juan Garzia**

Urez beteriko **perrailean** jarri zituen kristalak. **Juan Garzia**

Sukaldeko **perraileko** ura haren esku birrinduetako odolez gorriturik gelditzen zen behin baino gehiagotan. **Alberto Ladron Arana**

Alajaina!, banekien nik buruan jarriko zidala **perraila**! **Juan Garzia**

Handik gutxira, **perraileko** uraren palasta hotsa belarriratu zitzaidan. **Alberto Ladron Arana**

Kapitaina, jiratu, eta, **perrail** bati eskua erantsirik, buru gainean kanka jo zuen harekin kanoizaina. **Juan Garzia**

## 2 perrailaren edukia.

Andresek orduak eta orduak ematen zituen putzutik **perrailak** atera eta atera. **Josu Zabaleta**

## perraildun *izlag* perraila duena.

Egun hartatik, Kid kapitainak ezin izan zuen gainetik kendu **perraildun** gizonaren irudia. **Juan Garzia**

## perratu ik **ferratu**.

## perratzaile ik **ferratzaile**.

## perreka *izond* balioarik gabekoa, baztergarria, herresta.

Ez naiz hona etorri egun osoan beti gai beraz mintzatzeko, bertzenaz ere orain arte ezagutzen ez nuen norbaiten aitaxi **perreka** baten istorioetaz. **Eneko Bidegain**

Hori guzia oinetakoen sokak zaindari **perreka** haren aitzinean estekatzeagatik. **Eneko Bidegain**

Gibelera behatu eta anitz dira bidean utzi sasi egiak eta gezur **perrekak**. **Xabier Montoia**

## perrekeria *iz* ezdeuseria.

Besteak boz **perrekeria** batekin gelditu behar! hobekienik helduko direnek ehun bozetarik bospasei bilduko, ez gehiago! **Herria**

## perrentean *adlag* ausarkeriaz, lotsagabeki.

Maitanek **perrentean** ukatzen zuen. **Gotzon Garate**

## perretxiko (*orobat perretxiku g.er.*) 1 *iz* oin batez eta txapel batez osaturiko onddoa.

**Perretxiko** eta onddoak hurrengo baterako utziko ditugu. **Edorta Agirre**

Auskalo zenbat piztia ibiliko diren baso hauetan, zenbat **perretxiko** eta belar haziko den bertan. **Joanes Urkixo**

Zakuak bete **perretxiko**, sendabelarrak eta beste landare batzuk ekartzen zituen. **Joanes Urkixo**

Askok etxean pasatzen dituzte tripako minak, **perretxikoekin** pozoitu direla ez esatearren. **Berria - Gaiak**

Ehizean ibiltzea edo **perretxikoak** biltzea. **Anjel Lertxundi**

**Perretxiko** bila zebiltzala. **Berria - Kultura**

-Krepeak egin ditut, **perretxikoekin** eta arrozarekin. **Juan Kruz Igerabide**

Berehala konturatuko gara XX. mendean sortu izan direla, inoiz ez bezala, Gobernuz Kanpoko Elkarteak (GKE) **perretxikoak** bezala. **Pello Salaburu**

**Perretxikoetara** zaletu nahi izan baininduen, bera perretxikozale amorratua izanik. **Joan Mari Irigoien**

**Perretxikotara** joan ginen egun batean aita eta biok. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nik hori banekien, jakina, eta aldika - **perretxikotan** saiatu ordez- haren pausoa zaindu baino ez nuen egiten. **Pedro Alberdi**



Arrats osoa pasatzen dute lur gainean kokoriko, beren lastozko kapelutzarren azpian, **perretxikoak** bezain geldirik, argirik gabe ere pozik, isilik. Joxe Austin Arrieta

## 2 (izenondoekin)

Ernie Macmillanek, egun batean, Herbiologiako eskolan, **perretxiko** pozoitsu saltariz beteriko ontzi bat emateko eskatu zion Harryri. Iñaki Mendiguren

Badira **perretxiko** eta onddo toxikoen inguruko beste liburu batzuk. Berria - Gaiak

Esan zion nola hartu baratzetatik pikuak eta aranak inork ikusteko arriskurik gabe, eta erakutsi zion **perretxiko** onak eta pozoitsuak bereizten, hazten diren belarraren kolorea ikusita. Koro Navarro

Kanpoko **perretxiko** txarrak guregana heltzea litekeena da, eta alor hori berritu behar zela iruditu zitzaigun. Berria - Gaiak

Urduñako **perretxiko** famatuak. Pello Salaburu

Basoko **perretxiko** magikoak gustuko ditut. Berria - Kultura

**Perretxiko** naturalegiak janda bertan seko gelditzea baino gauza naturalagorik ez dagoela kasik ezer. Iñaki Segurola

**Perretxiko** handi batean jarri zen, eta dardara igarri zitzaion ahotsean. Julen Gabiria

Zoruan kolore xarmagarriko **perretxiko** sendoak hazten ziren, aulki legez erabiltzen zirenak. Julen Gabiria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Anaia aurretik, **perretxiko** tokiak berak ezagutzen zituelako, eta metro batzuk atzerago ni, askotan haren pausoari jarraitu ezinik. Pedro Alberdi

Ezagun zuten ez zirela ez baserriarrak eta ez mendizaleak, ez behintzat ohiko mendizale tipikoak; **perretxiko** biltzaileak edo ehiztariak ez zirela ere agerian zegoen. Juan Luis Zabala

Entsalada, **perretxiko** nahaskia, itsas-zapoa eta mamia. Berria - Kirola

**Perretxiko** -uzta hura eta barraskilo-ehiza diru-iturria ziren Tellagorrirentzat, baina nagusia beste bat zen. Koro Navarro

**Perretxiko** -orearen koloreko panpina-esku laburrak dilindan zituen alde banatan. Lopez de Arana

- **Perretxiko** mordo bat ekarriko bazenute sikiera! Pedro Alberdi

- Azukreontzia eskuztatzen ari zen [...] bere atzamar zuri **perretxiko** itxurakoez. Lopez de Arana

## 4 *perretxiko zale* ik **perretxikozale**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**perretxikoak bezala** (6)

# perretxikozale *(orobat **perretxiko zale**) izond/iz* perretxikoen zalea dena.

Herri **perretxikozaleetan** milioi bakoitzeko hamar izaten dira [pozoituak] urtean. Berria - Gaiak

Liburu bat egin behar zela pentsatu genuen, ez soilik mikologo edo **perretxikozaleei** begira, baizik eta erietxeetan-eta lan egiten dutenei laguntzeko, pozoitzeak tratatu behar dituztenerako. Berria - Gaiak

Mundakako **perretxiko zale** batek neska baten gorpua aurkitzen du Busturiako mendi batean. Berria - Kultura

Perretxikoetara zaletu nahi izan baininduen, bera **perretxikozale** amorratua izanik. Joan Mari Irigoien

## perretxiku ik **perretxiko**.

# perrexil 1 *iz* belar landare ginbailduna, oso usaintsua, hostoak hiru zati horzdunetan banatuak dituena, janariak ontzeko erabiltzen dena (*Petroselinum crispum*).

Apioa eta azenarioa erantsi; burruntzali bete salda busti; xerrak atzera zartaginean ipini, eta, azkenik, **perrexila** eta tomate puskek gehitu zizkion. Jon Muñoz

**Perrexilez** zipriztindutako tomate-erretilu bat. Jon Muñoz

Bi otso gosetiren antzera, oilasko bana jan genuen, ogiarekin, tipulekin, **perrexilarekin**, luzokerrekin. Juan Kruz Igerabide

Jende multzo handi-samarra dago bixiguz eta legatzez eta txapiroiz eta izotzez eta **perrexilez** beteriko metalezko erakusmahaiaren aurrean. Iban Zaldua

Erretilu batean, indioilar baten hezurrak ageri ziren, **perrexilezko** ohe baten gainean, habia beldurgarri bat balitz bezala. Koro Navarro

Bere gaixoaldiaren azken aldera, gau itxia zela **perrexila** jateko gogoak eman zion, eta apalki eskatu zuen. Askoren artean

Fosforo-eduki handieneko landareak salbia, zaran-belarra eta **perrexila** ziren. hantxe zegoen, sukaldean kabitu ere egiten ez zela, **perrexila** txikitzen. Juan Garzia

**Perrexila**, hil zorian zeudenak indarberritzeko erabili ohi zen. Askoren artean

**Perrexila** autotrofoa da, baratzean daukan hartaz elikatzen da, dagoen-dagoenean. Edorta Agirre

· Saltsa guztietako **perrexila** izatea gogoko duelako. Berria - Kirola

## 2 (neurriekin)

Florentek besakada handi bat **perrexil** aurkitu zuen azkenik, gurdiairen hondo-hondoan Karlos Zabala

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kikara bat **perrexil** -adarrez bete. Jon Muñoz

**Perrexil** -adaxkaz estaliriko paper izurtuzko ohe batean. Irene Aldasoro

Hartu zuen **perrexil** hosto bat [...] eta buruan jarri zion. Josu Zabaleta

Biek ere txuleta bana, patata egosi bana, ilar-pilo txiki bana eta **perrexil** -sorta bana zeuzkaten euren plater urdinen barnean. Lopez de Arana

Haren atzean, usain sarkorrak hedatzen ziren apio eta **perrexil** piletatik eta eztarrian itsasten zitzaizkion. Karlos Zabala

Ur lohitsua, kolore askotako zaborrak: tomate azalak, **perrexil** hondarrak, lurra eta lokatza nahas-mahas. Patxi Zubizarreta

**Perrexil** landareak eta babak, sagarrak eta madariak, limoi berantiarrak eta mahaspasak, azak eta berakatzak, ia denetarik zen han. Edorta Jimenez

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ondoren teiltatua eroriko zen; bidea, eskailera eta leihoa desegino zituzten sasiak eta asta-**perrexilak**. Anton Garikano

Gauza bat baita letra-bandera (edo letra-**perrexila**, nahiago baduzue), eta oso bestelakoa irakurtzerakoan nahasmendua sor lezakeena. Iñigo Aranbarri

## perril *iz* gurpila.

Haiek erakutsi ziguten galtzak janzen; haiek ferratu ziguten aurreneko zaldia; ardankoi haiek egin aurreneko upelak eta pitxerrak; haiek para aurreneko aldiz **perrilak** lurra lantzeko goldeari. Patziku Perurena

# perrildun *izond* gurpilduna.

Ez dirudi, ordea, orga edo gurdi **perrilduna** baino zaharragoa izan denik, gurpil gabeko lorketa kontua. Patziku Perurena

perro ik **perru**.

**perroket** iz papagaia.

Nola indigoa eguzkitan idorrazten duten, nola beroak fruitu arrunt bitxiak sorrazten dituen eta nola, daitezkeen **perroketa** ederrenak eta mota guzietakoak, badituzten.

**Aurelia Arkotxa**

**perru** (*orobat **perro***) izond adkortexakurraren kidekoa.

-Jende humanoa akabatu arteko onik ez, eta jende **perroa** zekarten liburuek mundura! **Anjel Lertxundi**

Sortu da jende txiki **perrua**, ta akabo gure jende umanua. **Patziku Perurena**

- "Gizona, baina gizon ondo sai, **perru** eta arratoia!" esan zuen Josemarik barreka. **Joseba Sarrionandia**

**perruka** iz ileordea.

Badaude sekulako bekainak, sudur barregarriak, ilaje lastuak, **perruka** itzelak dituztenak. **Koldo Izagirre**

**Perruka** lapikokoa. **Koldo Izagirre**

perseberantzia ik **pertseberantzia**.

persegitu ik **pertsegitu**.

persekuzio ik **pertsekuzio**.

persiana ik **pertsiana**.

persiar ik **pertsiar**.

persiartu ik **pertsartu**.

persiera ik **pertsiera**.

persikar ik **pertsikar**.

persiko ik **pertsiko**.

persona ik **pertsona**.

**perspektiba** (*orobat **prespektiba** g.er. eta **perzpektiba** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **perspektiba** agertzen da*) **1** iz gainalde lau batean gauzakien hiru dimentsioak behatzailearen ikuspegitik irudikatzeko antzea.

Gombrichek, zehazki, ez du batere beldurrik **perspektibari** ia balio zientifikoa emateko: ez **perspektiban** margoturiko margolan batek errealitatearen antz erabatekoa duela uste duelako [...] ezpada, bere ustez, **perspektiba** bera ez baina gainalde lau baten gainean margotzea delako konbentzioskoa. **Josu Zabaleta**

Gerta zitekeen marrazkietan **perspektiba** bat baino gehiago erabiltzea eta guztiak beti zehazki bat ez etortzea. **Xabier Olarra**

Margotu ahal izan zuen gauza bakarra Auschwitzeko amesgaiztoetako paisaia hura izan zen, **perspektiba** eta angelu desberdinetatik. **Iban Zaldúa**

**2** (izenondoekin)

Marrazketa-mahaian eseri eta Gortarik diseinatutako horma kurbatuari so geratu zitzaion, gelak erakusten zion **perspektiba** berriari egokitu ezinik. **Patxi Iturritegi**

Pinturan, eta geroago argazkilaritzan, aplikatzen den **perspektiba** geometrikoa. **Josu Zabaleta**

**Perspektiba** linealaren legeak aski bakunak dira geometriaren ikuspegitik, eta ongi ezagutzen dira. **Josu Zabaleta**

**Perspektiba** lineala bera ere **perspektiba** dinamiko gisa gertatzen da gure pertzepzioan. **Josu Zabaleta**

Gaur egun erraz kritika daiteke **perspektiba** naturala eta **perspektiba** artifiziala nahastean dituen perspektibaren kritika bat. **Josu Zabaleta**

**Perspektiba** zentratuak, edo argazkizko perspektibak ere ongi erakusten du, [...] aukera ideologiko, edo, zentzu zabalagoan, sinboliko bat egin dugula: gizakiaren ikuspena irudikapenaren arau bihurtzea. **Josu Zabaleta**

**Perspektiba** zorabiagarri batez igogailu-zulo bat marraztu zuenean, sei urte baizik ez zituen. **Xabier Olarra**

**3** (hitz elkartuetan)

**Perspektiba** mota hau, begian gertatzen dena azaltzeko eredu dena (eta horrexegatik antzinan *perspectiva naturalis* deitua), [...]. **Josu Zabaleta**

Honelako **perspektiba** -sistema batean, kubo baten irudikapenean ez dira ikusten haren aurpegiaren barnealdeak, aurpegi horien kanpoko aldeak baizik. **Josu Zabaleta**

Ponzo-ren ilusioan, adibidez, goiko marra "urrutiago" balego bezala ikusten da, zehar-marren konbergentziak eragiten duen **perspektiba** -efektuak eraginik. **Josu Zabaleta**

Irudiaren baitan **perspektiba** aldaketarik ez dela erakusten dute begiaren mugimendu guztiek. **Josu Zabaleta**

Haraindikoz zuhaitzak laztainua keinaua egin zuen, **perspektiba** -jolasaren laguntzaz, bere zati balira bezala sentitzeko.  Fernando Morillo

## 4 gauzakien elkarren arteko itxura edo eitea, ikuslearekiko dauden distantziak eragina; ikuspuntua; ikuspegia.

**Perspektiba** -joko baten bidez, paperontzia buruan ezarrita baleuka bezala ageri da, tontolapiko baten kapelua bailitzan.  Oskar Arana

Ipar zuriak zerutik erauzia du hezetasun eta lanbro gehiena, eta autotik ikusten den **perspektiba** garbia da.  Anjel Lertxundi

Eskortzoan eta behetik gorako **perspektiban** zegoen gaztea, atzean zeru zabal ia bukaerarik gabea zuela.  Anjel Lertxundi

Wellington karrikaren **perspektiba** luzearen puntan, Montrealeko dorre blu argi ederrak laster ilunabarrean estaltzeko prest.  Aurelia Arkotxa

Eiffel baino txikiagoa da, apalagoa, baina Eiffelek ez daukan bertute bat eskertzen diot: berta-bertaraino joan beharra dago mole tzarra ikusteko, ez ditu hiriarren **perspektiba** guztiak bortxatzen.  Anjel Lertxundi

Etorbide zabal-zabalak urratu nahi dituzte, eta **perspektiba** luzeak eraiki, berez-berez sar dadin handik etorkizun otzana.  Juan Garzia

Ikusleak bilduma baten ideia ekarri behar du hona -ugaritasunarena gehi desberdintasunarena-, bestela galduko da, galduko zaic **perspektiba** .  Anjel Lertxundi

Bere **perspektiban** ikusten dut, landa zabal bat balitz bezala...  Josu Zabaleta

## 5 irud/hed

Sorgin-ehiza, estalinismoa... errazegia zen **perspektiba** galtzea, hamaika sare kimerikotan erortzea.  Fernando Morillo

Horixe zen gure arrazoibidea, eta, une hartan iritzi alienatua eta okerra izan arren, oraingo **perspektiba** historikoarekin, langabezia eta miseria sortu eta gero, ezin esan arrazoia falta zitzaigunik.  Xabier Mendiguren Elizegi

Bortxa oro gaiztoa, **perspektiba** transzendente batean izan daiteke.  Joxe Azurmendi

Errealaren egia nola adierazten den ikusteko modu bat da hau, ez erlatibismo hutsean, baizik eta **perspektiba** distorsioetan, hauek seinalatzen baitituzte haren oztopo eta errebelazioak.  Joseba Zulaika

Ortega-ri ez zaio asko gustatu Unamuno-ren Don Quixoteren irakurkera, eta ehunurtekoaren kariatz ugaldutako kixotismoaren glosekin, oro har horien **perspektiba** jeneralarekin, ez da gustura gelditu.  Joxe Azurmendi

Integrala izan behar duela dio eta genero **perspektiba** txertatu behar dela arlo guztietan.  Berria - Euskal Herria

## 6 zerbait osotasunean ikusteko distantzia egokia.

Horrek distantzia, **perspektiba** hartzea lekarke; perspektibismoz jardutea.  Iñaki Iñurrieta

Lilyk atzera egin zuen, oihala -holaxe- **perspektiban** jartzeko.  Anton Garikano

Gauza horiek gertatu egiten dira eta **perspektiba** behar izaten da ulertzeko.  Eider Rodriguez

**Perspektiba** falta zaigu Joan Paulo II.a epaitzeko.  Berria - Harian

Oroitzapen bat bera ere ez; maitasun cupidagabea eta kiskalia, abarorik gabea, **perspektiba** hartzeko aukerarik gabea, aterperik gabea.  Monika Etxebarria

Eta, zeren galdurik gauden, galtzen dugu **perspektiba** .  Joan Mari Irigoien

## 7 etorkizunean gertagarritzat hartzen diren egitateen multzoa.

Gosete handiaren **perspektibak** aztertzen dira, eta ziur aski horrek sortuko lituzkeen gatazkak.  Iñaki Mendiguren

Miseriak kontzientzia moteldu egiten du, **perspektibak** murriztu.  Pako Aristi

Beste parrandatxo baten **perspektiba** baino erakargarriago egin zitzaizen, dudarik gabe, gaueko festa honen eskusibotasuna.  Xabier Mendiguren Elizegi

Hots, geroari begira **perspektiba** berriak eta ilusionagarriak sortzea.  Berria - Euskal Herria

Erlijio nagusiek gizadiaren atxikimendua erremedioz gabe galtzeko **perspektiba** seinale txarra zen, erlijioa giza izaeraren funtsezko ahalmenetako bat baita.  Iñaki Mendiguren

Kenneth Whiteren artikulua eta Lionel Seppoloni-renak **perspektiba** berriak ireki zizkidaten: mapa poetikoa aurkitu nuen.  Ana Urkiza

Tolosara joan beharrak erabat aldatzen zuen **perspektiba** ordea.  Xabier Mendiguren Elizegi

Filosofia historian gailurrera heltzen dela, bertatik egindako ibilaldi-bidaia ikusiz-jasoz eta aurrera **perspektiba** berri itxaropentsuak eskainiz.  Jenaro Garate

«Suspertzea bide onetik doa eskualde guztietan», esan zuen eta **perspektibak** munduko ekonomian «lasaigarriak» direla gaineratu zuen.  Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**perspektiba berriak** (9); **perspektiba lineala** (4); **perspektiba mota** (3); **perspektiba sistema** (4)

## perspektibagarri *izond*

Haurrak espazioa progresiboki ezagutzen duela azpimarratu nahi zuen Wallonek, eta ikuspegi global, "**perspektibagarri**" bat izan aurretik, hurbileko auzotasunezko erlazio gisa ezagutzen duela; zerbaiten "ondoan", "inguruan", "baruan" kontzeptuak lehenago erabiltzen ditu "hurbil", "urrun", "aurrean", "atzean" eta gisa horretako kontzeptuak baino.  Josu Zabaleta

## perspektibismo 1 *iz* gertakariak hainbat perspektibatatik aztertzea.

**Perspektibismo** edozein gertakari eta edozein interpretazio egoera historiko partikularretan gertatzen da.  Joseba Zulaika

· Horrek distantzia, perspektiba hartzea lekarke; **perspektibismoz** jardutea.  Iñaki Iñurrieta

## 2 errealitatea hainbat perspektibatatik baino ezin azter daitekela dioen doktrina.

Ikusmolde hau, alegia Volksgeistarena partidismo forma batena bezala unibertsaltasunaren ukazioz (gogora, bestalde, Ortega-ren **perspektibismoaren** doktrina).  Joxe Azurmendi

Ezagutzaren teorian bertan, haren **perspektibismoa** baino apenas egongo da kapitulu dibulgatuagorik Ortega-ren pentsamenduan.  Joxe Azurmendi

## perspektibista *izond* perspektibismoari dagokiona.

Gai da, hura bezala, optikoki guztiz zuzena den ikuspegi **perspektibista** bat emateko, baina, horretaz gainera, gai da, hura ez bezala, antolamendu hori finkatzeko, erregistratzeko.  Josu Zabaleta

Gaur egungo antzerkiko eszenatokia perspektibazko espazio bat bezala sortu zen, eta, pintura **perspektibistak** bezala, eszenatokia ere berebiziko eragina izan du zentratzeak.  Josu Zabaleta

Espazioari buruz horren abstraktua ez den eta geometria **perspektibistak** horren zorrozki egituratua ez den kontzeptu batean oinarrituak.  Josu Zabaleta

Joera "**perspektibistaren**" eta joera "arakatzailearen" arteko kontrakotasun hori gorabehera, badituzte zenbait puntu berdin.  Josu Zabaleta

## perspektibo *izond* perspektibari dagokiona.

Geometria **perspektiboa** .  Josu Zabaleta

## persuaditu ik pertsuaditu.

## persuasio ik pertsuasio.

## pertenentzia iz parte izatea.

Talde **pertenentzia** nola eratzten den ikus daiteke. **Berria - Kultura**

**Pertenentzia** disyuntiba pairatzen dute: bihotzez eta justiziaz zapalduekin egonik, erlijioz, arrazaz edo klasez menperatzaileen taldekoak dira. **Berria - Kultura**

Baina, normalean, erlijio berriren bat etortzean, azkena datorrenak konpontzen ditu aurrekoen horrelako guneak, beti ere bere komenentzia eta **pertenentzietarako**. **Pello Zabala**

## pertika 1 iz makila edo haga luzea. ik endaitz.

Ihi eta landare sarrien artetik, korronte barean, arrantzale batzuk sareak batzen ari ziren, beste batzuk, berriz, batera eta bestera zebiltzan **pertika** luzeen laguntzaz. **Joanes Urkixo**

Hegoaldeko haizeak izotz haizt pilo bat ekarriko du eta **pertikez** ahaleginduko zarete enbarkazioa babesten. **Joseba Sarrionandia**

Astiro, kontuz, izotz tontorrek saihestuz, izotz bloke txikiagoak **pertikez** eta palankez apartatuz. **Joseba Sarrionandia**

Bi egun haietan ere gai izan nintzen komunera-eta neure kabuz joateko, nahiz gazura aldean eraman behar izan **pertika** batetik zintzilik. **Anjel Lertxundi**

## 2 (gurdi eta kidekoetan)

Gurdiaren **pertikan** jarrita. **Pablo Sastre**

Gurdi baten **pertiken** artean tente dagoen zaldi batek halako osasun sententzia ematen du. **Josu Zabaleta**

Atean etxeko alperra: ardatzetik burdinazko urkuluz eta **pertikaz** hornitua. **Txillardegui**

Gurdia kargaturik zegoenean, iztingadi-lurraz ez zion eutsi, gurpilak hondoratu ziren bertan, eta zaldiek, izuturik, **pertika** hautsi zuten. **Josu Zabaleta**

Amets egin diat gurditxo bihurtua nintzela eta kondesa andreak **pertikatik** heltzen zidala eta bertatik tiraka ninderamala biltegi barrenera. **Fernando Rey**

Dakienak daki jartzen kabila **pertikari** eta zaila ez bada ere, dakienak sartzen dio haria orratzari. Gurdi- **pertika** baino handixeagoa. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Dakienak daki jartzen kabila **pertikari** eta zaila ez bada ere, dakienak sartzen dio haria orratzari. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

## 3 (hari instrumentuetan)

Biwa bost sokako laute txiki bat da [...]: kutxatxo sabelduna, kalabaza luze baten erdia bezala, **pertika** edo ezpata labur eta mehea, eta zurezko bost ziri sokak tenkatzeko.

**J.M. Olaizola "Txiliiku"**

## 4 atletak jauzietan erabiltzen duen haga luzea.

Macki ez zitzaion gustatzen korrika egitea, eta **pertika** batekin, bertikaltasunaren bila, atletismoaz gehiago gozatuko zuela erabaki zuen. **Berria - Kirola**

Gainera, **pertika** eta gorako jauzian zaila da ezer aurreratzea, tartean listoia dagoelako. **Berria - Kirola**

Munduko hiru marka ondu zituen (**pertikan**, jauzi hirukoitzean eta 4x400 txandakoan). **Berria - Kirola**

Naroa Agirrek kale egin zuen eta **pertikako** finaletik at geratu zen Budapesten. **Berria - Kirola**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atenasen zure helburua **pertika** jauziko finalean egotea da. **Berria - Kirola**

Bihotzak **pertika** -jauzirik egin al dezake, esofago hodiari-edo helduta? **Joan Mari Irigoien**

**Pertika** -jauzilaria izan nahi zuen, eta arratsaldero joan zen urte oso batez zintzo-zintzo entrenalekura. Ellen ahaleginetan ari zen Stanen itxura zehatz-mehatz nolakoa zen gogora ekartzeko, **pertika** -jauzilar baten lerdentasun sendo hartaz oroitzeko. **Juan Garzia**

Joan den ostiral arratsean, hupa haga edo **pertika** masters-a ospatu dira zezen plazan. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pertika jauzia** (8); **pertika jauzian** (11); **pertika jauziko** (19); **pertika jauziko finalean** (12); **pertika jauzilaria** (5); **pertika jauzilaria** (5)

## pertinente izond harira datorrena, egokia.

Horixe egin zuen Koldo Izagirrek, *Gure zinemaren historia petrala* liburuan (Susa, 1996): filma mutua denez, Miarritzegina, gainera, eta izenburua hizkuntz agerpen

**pertinente** bakarra euskarazkoa dela aintzat hartuta, «lehen euskal filma» izendapen ponpoxo eta biribila eman zion. **Berria - Kultura**

Kasu horretan, biraketa soziologista dela medio, ezagutzaren eraketan faktore sozialen garrantzia gehiegi azpimarratzeagatik, galdu egin da epistemologikoki **pertinentea** den munduarekiko harremana. **Askoren artean**

Nire aurpegia guztiz **pertinentea** da nire zaletasunarekiko: nire sudur gorri puztuko hau eta nire aurpegiko ubeldurak nori legozkioke ez bada ni bezalako hordi-lapa amorragarri bati? **Anjel Lertxundi**

## pertinentzia iz pertinentea izateko nolakotasuna.

Isiltasuna lortu zuenean, **pertinentzia** hitza hizpidera etorri, eta bere aurpegiaren adibidea jarri omen zuen hitzaren esanahia argitzeko. **Anjel Lertxundi**

Kontsumorako produktu eta teknologia berriak garatzearen mesedetan, **pertinentzia** eta lehentasun oro bere arau eta helburu propioak dituen merkatu batean ipini ditu zientziak. **Berria - Gaiak**

## pertola iz arrainak harrapatzeko tresna, kono gisako luze batez eta haren ahoan barrualdera ezartzen den kono zulodun motzago batez osatua.

**Pertola** da sare mota bat lehengo denboretan arras usu baliatzen zena. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Laurehun bat metro beherago, **pertolak** hedatu zituenaldi batez Ahotzainborda-ko Jean Luro nagusi zenak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Domingo Abaurre bere aita zenaren sare eta **pertoletara** itzuli zen, eta gazteluaren inguruko ur-zi-ripa guztiak arrainez hustu. **Aingeru Epaltza**

Biharamun goizean, auzoa, Bidegileneko Piarre, goixtiarragoa izanez, hurbildu zen errekarra, Luro-ren **pertoletan** zeuden arrainak biltzen zituela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zenbaitek diotenez, etxe horretan egiten ziren **pertolak**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## pertseberantzia (orobat perseberantzia) iz jarraitasuna.

Palestinar herriaren borrokari, erresistentziari, **pertseberantziari** eta askatasunerako bidean beren bizia eman zuten martiriei esker ireki da Rafako pasabidea. **Berria - Harian**

Zeren hura ez baitzen berea erdietsi arteino baratzten, halakoak ere baitziren haren **perseberantzia** eta fermutasuna...! **Joan Mari Irigoien**

## pertseberatu, pertsebera, pertseberatzen du *ad* jarraikia izan, irau. ik **eutsi**.

Ezetz, alegia, hura ez zegoela gibela egiteko puntuan, zeren ordu arte irau eta **pertseberatu** baitzuen bere fedean, eta azken fineraino irau eta **pertseberatu** nahi zuen...! Joan Mari Irigoien

## pertsegitu (*orobat persegitu g.er.*), pertsegi, pertsegitzen **1** du *ad* esetsi, atzetik joan. ik **pertsekutatu**.

Juduek Jesus Jauna eta profetak hil zituzten, eta orain gu **pertsegitzen** gaituzte. Elizen arteko biblia

Lurrera erori zen eta mintzo hau entzun zuen: -Saulo, Saulo, zergatik **pertsegitzen** nauzu? Elizen arteko biblia

Maitatu etsaiak eta egin otoitz **pertsegitzen** eta kalumniatzen zaituztenen alde. Askoren artean

Oroitu nola salbatu ziren gure arbasoak Itsaso Gorrian faraoiak bere gudarostearekin **pertsegitzen** zituenean. Elizen arteko biblia

Hurbil-hurbileko planoekin beti ere, pertsoniak **pertsegituz**, kamera beraien gainean jarriz ia-ia. Berria - Kultura

Inork **pertsegitzen** ez badu ere, gaiztoa ihesi; zintzoa bere buruaz lehoia bezain ziur. Elizen arteko biblia

Frantziako Iraultza edo Erreboluzioea pizten denean, apezak **pertsegituak** dira. Herria

Bertutea, goren mailakoa denean, edonon ohi da **pertsegitua**. Patxi Ezkiaga

Beste hiruri delituak **pertsegitezko** eginbeharra bete ez izana egotzi diete. Berria - Euskal Herria

Norbanakoa da **pertsegitua**, ez ondasunak. Andres Urrutia

### 2 (era burututa izenondo gisa)

Izaki **pertsegitu**, doilortu, gosetu haiekin otordu miserableak konpartitzen nituen tabernazulo miserable ezkutatueta. Matías Múgica

Zu bezalako jende **pertsegituari** eta desterratuari geriza eman izan diona. Joan Mari Irigoien

Filosofo judu **pertsegitua**, munduan nehoiz izan den filosoforik handiena, zuk diostazunaren arabera. Joan Mari Irigoien

**Pertsegituak** salbatzea beste helbururik ez zian izan gordelekuak gutxienez bi mendez. Bernardo Atxaga

Harrapakin ugari hartu eta bi multzo berdinetan banatu zuten: bata berentzat hartu zuten eta bestea **pertsegituen** artean banatu. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etsaiak pertsegitu** (3)

**ezpataz pertsegituko** (3)

**gogor pertsegitzen** (3); **zergatik pertsegitzen nauzu** (3)

## pertsegitzaile iz pertsegitzen duen pertsona. ik **esesle**.

Ez zen jada nire aita, Obabako soinujolea, baizik eta Berlinoren lagun mina, **pertsegitzaile** bat agian, hiltzaile bat agian. Bernardo Atxaga

Elizaren **pertsegitzaile** sutsua eta legeak agintzen duen guztia betetzen akatsik gabea izana. Elizen arteko biblia

Bi gizonak mendira joan eta bertan gelditu ziren hiru egunez, **pertsegitzaileak**, alde guztietan bila ibili ondoren aurkitu ez zituztelarik, hirira itzuli ziren arte. Elizen arteko biblia

Zuen **pertsegitzaileak** bai izango direla bizkor! Elizen arteko biblia

## pertsegitze iz esatea, atzetik joatea. ik **pertsekuzio**.

Hauek ez zeudela hartarako prest, ez bederen leku segur baterat iritsi eta leku hartan denbora bat eman arte, indiar horien eta gizon zurien **pertsegitze** eta akometatze perlosetarik urrun. Joan Mari Irigoien

## pertsegizio iz pertsekuzioa, esatea.

Reichstag-aren sute probokatuari jarraitu zaion oposizioko edo zernahigatik madarikaturiko jendeen **pertsegizioa**. Joxe Azurmendi

## pertsekutatu, pertsekuta, pertsekutatzen **1** du *ad* pertsegitu, esetsi.

Otoitz egizue oldartzen zaizkizuenengatik, eta **pertsekutatzen** zaituztenengatik. Edorta Jimenez

Horregatik, hain zuzen ere, gorrotatzen eta **pertsekutatzen** du plajiatzailea, beronek sistemaren oinarri-oinarrian dagoen baloreari enbarazu egiten diolako. Bernardo Atxaga

Marko Tulio eskubidea du bere erlauntzako erleak **pertsekutatzeko**, baita hauek Kaio Luzioren lurraldeetan barrena dabilzanean ere. Harkaitz Cano

**Pertsekutatu** eginen gaituzte. Harkaitz Cano

Hemen emazteak, han minoriak, girixtino eta berte, **pertsekutatzen** dituzten fanatismoak Herria

### 2 (era burututa izenondo gisa)

Ez al zuen bat egiten, bere bihotzean, Stefan Zweigekin, **pertsekutatuarekin**? Bernardo Atxaga

## pertsekutatzaile iz pertsegitzailea.

Goialde babestu honetaik otsoaren eztarrian sartu berri diren zaldizko **pertsekutatzaileak** -Hendrix izeneko bat buru dutela- tirokatu egiten dituzte. Harkaitz Cano

James Stewartek tiroketa geratzeko agindua ematen du, zaldizko **pertsekutatzaile** koitaduek iheserako bidea hartu bezain pronto. Harkaitz Cano

## pertsekuzio (*orobat persekuzio g.er. eta pertsekuzione g.er.*) **1** iz pertsegitzea, esatea.

Gizakion espiritu inkisidoreak eragin dituen suntsiketak, erreketak, txikizioak, hilketa eta salaketak, kartzela-aldiak, desterruak, **pertsekuzioak**, torturak... Anjel Lertxundi

Anaien lehen bizilekua eta ahaideen aldetik jasan zuten **pertsekuzioa**. Askoren artean

Larunbat-biharamunean, harrapakinatarik zati bat **pertsekuzioa** jasan zutenean artean banatu zuten, beste zati bat alargun eta umezurtzen artean. Elizen arteko biblia

Beren bizimoduak berak injustiziaren eta **pertsekuzioaren** biktima bihurtzen zituen gizartean. Askoren artean

Zeren eta, Nafarroaz denaz bezainbatean, errege katolikoaren denboretan iritsi baitzitzaigun uholdea, intransigentziaren eta **pertsekuzioaren** uholdea. Joan Mari Irigoien

Trenaren **pertsekuzio** sonatua. Pako Aristi

Gogora bitez Japoniako **pertsekuzioak**: suplizio ankerren kontra oldartu ziren, zigor luzeen kontra baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

### 2 (hitz elkartuetan)

Hala ere, egia da, aldi batera zuzenbaitzuk suspertu egin ziren eta bide zuzenetik ibiltzen hasi ziren, **pertsekuzio** garai hartan banaka batzuk, beharrak eraginda, ibili ziren bezala. **Askoren artean**

Euskal Herriaren eskubide kolektiboak aldarrikatzen dituzten eragile eta mugimenduen kontrako **pertsekuzio** politikan urrats kualitatiboak egin du Frantziako Gobernuak. **Berria - Euskal Herria**

· Litekeena da ETBko albistegietan ere segundo gehiago eskaintzea, adibidez, Chicagoko saihebsidean gertatu den polizia-**pertsekuzio** ikusgarri bati Etxegaraten izandako istripu bati baino. **Txema Ramirez de la Piscina**

pertsekuzione ik **pertsekuzio**.

## pertsiana 1 iz sareta.

**Pertsiana** erdi erorien artean, argi eskas bat baizik ez zen iragazten ostatutik kanpora. **Aingeru Epaltza**

Leihoa itxita zegoen, **pertsianak** behearaino botata. **Unai Iturriaga**

Kristalaren atzean bertan ikusi duzu kalea, **pertsianaren** tarteeetan barrena. **Rafa Egiguren**

Leihoko **pertsianetako** zirrituetatik sartzen ziren argi-zirrinten laguntzaz. **Aingeru Epaltza**

Hiru bizitza zituen, **pertsianarik** gabeko bina leihorekin. **Karlos Zabala**

**Pertsiana** bat erdi irekita. **Harkaitz Cano**

Dendako **pertsiana** elektrikoa zen. **Joxan Elozegi**

Leiho ondoan emakumea musukatzen ari zen bitartean, **pertsiana** jaitsi eta errezelela itxi zuen Egutxik. **Ibon Uribarri**

-Jaitsi **pertsiana** -esan zuen gizonak ohetik. **Lopez de Arana**

Beharaino jaitsita zegoen **pertsiana**. **Sonia Gonzalez**

**Pertsianak** behehitzea proposatu nion, baina hark, zeuden-zeudenean utzi nahiago. **Aingeru Epaltza**

Manifestazioa Hendaiaiko hondartzara hurbiltzean, apainketa saltegi batek atek eta **pertsiana** itxi ditu. **Berria - Euskal Herria**

Errezelen atzean **pertsianak** ez daude guztiz itxita. **Sonia Gonzalez**

Azpiko arroparen gainetik txabusina jantzi eta **pertsiana** ireki zuen. **Joxemari Urteaga**

Kanpoko ilunean ezkatutata dagoen norbaitek eskua harrapatuko diola berak **pertsiana** bildu baino lehen. **Bernardo Atxaga**

Bainuontziaren ertzean zegoen leihoko **pertsiana** jaso zuen. **Lopez de Arana**

Berriz ere ahapeko madarikazioetan, lehiatu nintzen **pertsiana** goitizera. **Aingeru Epaltza**

**Pertsianak** altxatu zituen eta gortinak zabaldu. **Unai Elorriaga**

**Pertsiana** altxatzea gehiegizko lana da ajeak jota zaudenean. **Sonia Gonzalez**

Phineas R. Blackhead-ek bulegoko leiho zabaleko **pertsiana** igo zuen. **Lopez de Arana**

Aitak **pertsianak** zintzilikatzen zuen kartela, inork zalantzarik izan ez zezan: GAUR, ATSEDEN EGUNA. **Joan Mari Irigoien**

## 2 (izenondoekin)

Gero, **pertsiana** metalikoak jaustean eragindako karraska entzun nuen, lehenago irekiak ziren seinale. **Aingeru Epaltza**

Xerrenda gorriko **pertsiana** malguen atzetik, bazkari ederrak, afari finak, egundoko ezteiak igartzen zituen. **Karlos Zabala**

Itzalak [...] pilareen basoa ugaltzen zuen, infinituraino luzatzen zituen nerbiadura delikatuak, galeria ebakiak, **pertsiana** gardenak. **Karlos Zabala**

**Pertsiana** oriental batzuk izanen dira, leiho gotikoetan, eta begitarte freskoak zur beltzeko sare sarrietan. **Koldo Izagirre**

**Pertsiana** veneziar baten moduan. **Patxi Iturritegi**

Hiru solairuko etxeak, **pertsiana** zuri luzeak, [...]. **Monika Etxebarria**

Gero, pabiloiak pilatzen ziren, beren bi teilatu mailekin, beren **pertsiana** jarraituekin. **Karlos Zabala**

Ziega guztiek burdinazko **pertsiana** moduko batekin itxita zeuzkaten leihoak. **Jokin Urain**

Leiho zabala ireki, eta kanpoaldean zeuzkan zurezko **pertsianak** bildu zituen. **Aitor Arana**

**Pertsiana** herdoilduzko baldakinoa. **Joxe Austin Arrieta**

Inoiz irekitzen ez ziren logelako **pertsiana** hautsezatuak. **Lander Garro**

Uztaileko eguzkiak bulegoko leihoetako **pertsiana** higituen zuloak urratzen zituen. **Lopez de Arana**

## 3 irud/hed

Mahai hori ixteak ETAk «**pertsiana** jaitea» esan nahiko luke. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**burdinazko pertsiana** (3); **leihoko pertsiana** (3); **pertsiana itxi** (3); **pertsiana jaitsi** (6); **pertsiana jaso** (3)  
**pertsianak jaisten** (3); **pertsianak jaitsi** (5); **pertsianak jaitsita** (3); **pertsianak jaso** (4)  
**pertsianaren zirrikituetik** (4)

## pertsiar (145 agerraldi, 35 liburu eta 10 artikulutan; orobat pertsiar 32 agerraldi, 7 liburu eta 2 artikulutan, eta pertsiatar g.er.) 1 izlag Pertsiaokoa, Pertsiar dagokiona.

**Pertsiar** barbaroen sorterrria [...] menditsua eta idorra zen, eta giza harremanetako bideetatik urruti zegoen. **Iñaki Mendiguren**

Jaiotzaz aitoren seme ziren **pertsiar** mutil guztiak. **Iñaki Mendiguren**

Entzute handikoa izatera iritsi zen Daniel Darioren eta Ziro **Pertsiarren** erregealdietan. **Jose Antonio Mujika**

Txinako astronomoak fenomenoaz ohartu eta analetan jasoa utzi zuten, eta beste horrenbeste egin zuten, historialariek frogatu ahal izan dutenez, astronomo **pertsiarrek** eta aztekek. **Bernardo Atxaga**

Ziro Handiak, Akemenestar Inperioa sortu zuenak, gaitzetsi egin zuen **pertsiar** herria, munduaren jabe bihurtu zenean. **Iñaki Mendiguren**

Egungentziaren Herrialdeko **pertsiar** herrikka batean. **Jon Muñoz**

**Pertsiar** odolik ez zuen atzerritarra izan arren eta gure eskuzabalasunetik urruti egon arren, onartu egin genuen geure artean. **Elizen arteko biblia**

Akemenestarrek beren **pertsiar** ama-hizkuntzari **pertsiar** ama-lurrari bezain leku apala eskaini zioten inperioaren gobernuan. **Iñaki Mendiguren**

Egunero ateratzen dira iragarkiak egunkarietan, lapurtutako idazteko makinak, **pertsiar** alfonbrak, erloju elektrokoak, oihalak eta abar eta abar itzuliz gero sarituko dela esanez. **Josu Zabaleta**

Ariana **Pertsiar** golkotik Indoraino hedatzen zen. **Iñaki Iñurrieta**

Honela, bi gerra handiak, troiarra eta **pertsiarra**, "Europa" eta "Asiaren" artean historikoki etengabea zen liskarren baitako gorabeherak ziren. **Iñaki Mendiguren**

Bazterretan kuxin tikiak zeuzkan eta tapiz **pertsiar** bat zoruari. **Patxi Zubizarreta**

## 2 Pertsiaoko herritarra.

Turkiarrak ez dira arabiarak, ezta Kabiliako berbereak edo kurduak ere, hain gutxi behinolako **pertsiarren** ondorengo irandarrak... **Iñigo Aranbarri**



**Pertsiarren** inperioa Indo ibairaino hedatzen zen. **Iñaki Iñurrieta**

Filiporen seme Alexandro mazedoniarra Mazedonia lurraldetik abiatu zen; Grezia eta gero **pertsiarren** eta mediarren errege Dario menperatu ondoren, honen orde z jarri zen errege. **Elizen arteko biblia**

Ulermen horrek, **pertsiarren** jakinduriak ongi erakutsi bezala, fruitu ezinago goxoak dastazeko aukera emango dizu. **Karlos Linazasoro**

Troiarren eta **pertsiarren** artean, biak "asiar" ziren aldetik, sentimendu-kidetasuna zegoela. **Iñaki Mendiguren**

Grekoen merkataritza-interesak Egipton **pertsiarren** borondate onaren mende utzi zituen. **Iñaki Mendiguren**

**Pertsiarren** erara janzen zen; Klodoveo kontsul-jantzia bezala, alegia. **Iñaki Iñurrieta**

Luxuaren historia merkataritzaren historiaren parte eder bat litzateke; **pertsiarren** luxua mediarrena zen, eta mediarrena asiriarrarena. **Iñaki Iñurrieta**

Grosrouvrek aipatutako aurreneko matematikariak bi **pertsiar** ziren: Omar al Khaiam eta al Tusi. **Jon Muñoz**

### 3 greko-pertsiar ik greko 8.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pertsiar golkoko** (7)

**mediarren eta pertsiarren** (8); **pertsiarren legeen** (3)

## pertsiantasun iz pertsiarra izateko nolakotasuna.

Abesbatza isildu zenean, **pertsiantasunez** blai arima, eta, al Khaiamen talentuaren bultzadaz, berek sortutako sasi-Rubá'iyâtak esaten ausartu ziren bikiak: [...]. **Jon Muñoz**

## pertsiartu (*orobat **persiartu***), *pertsiar(tu)*, *pertsiantzen da/du ad* pertsiar bihurtu.

Ipar Indiako hindu-biztanleei urduera esaten zaion **pertsiantutako** hindiera herri-hizkeraren balioidea emateko. **Iñaki Mendiguren**

## pertsiatar ik pertsiar.

## pertsiera (*12 agerraldi*, *5 liburutan*; *orobat **persiera 3** agerraldi*, *2 liburu eta artikulu 1ean*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **persiera** agertzen da*) iz Pertiako hizkuntza indoeuroparra, idazkera arabiarrez idazten dena.

Hala da **pertsieraz**, eta hala arabieraz. **Iñigo Aranbarri**

Epailetza eta zerga-prozeduretan **pertsieraren** orde ez zen ingelesa hartu, tokian tokiko herri-hizkuntzak baizik. **Iñaki Mendiguren**

Ildo beretik, ikusi dugu Darioren idazkien **persiera** eta Erdi aroko **persiera** dialekto bera direla. **Isabel Arrigain**

Hala, idazki akemenideen **persiera**, esaterako, lehenagokoa da Firdusi-ko **persiera** baino. **Isabel Arrigain**

**Persierazko** *farsang*-etik. **Xabier Kintana**

## pertsiko (*orobat **persiko** eta **persikar***) izlag pertsiarra.

Benchehr deitu gunean, **Persiko** itsas bazterrean. **Herria**

Amerikano armadak gisa hartako apailuak hasiak ditu, bereziki **persiko** urgolkoan. **Herria**

Hamabi urte egiten du xuxen **persikar** golkoa sutan jarri zela. **Herria**

Egiptoko zein Golko **Pertsikoko** egunkariak. **Berria - Harian**

## pertsiona (*orobat **persona** g.er., **presona** g.er., **presuna** g.er. eta **pertsuna** g.er.*) 1 iz giza motako banakoa. **gizaki**; **gizabanako**.

Adam eta Eva **pertsiona** -gizon edo emakume- bakoitzaren osagai bi dira, sugearen gainean doan Samaelek tentatuak. **Xabier Kintana**

Geroztik gertatu zait, nortasun arazoez gero eta garrantzi gehiago hartu duten mundu honetan, Gizakiaren eta **Pertsionaren** arteko bereizketaz gogoratzea. **Piarres Xarriton**

Seme-alabak **pertsionak** direla ikustea. **Ana Urkiza**

Urrun bai, **pertsiona** eta gauzetatik oso urrun. **Joxemari Iturralde**

Sinbolotzat hartzen ditu Frantzisko eta Che Guevara, bi iraultza-moduren sinbolotzat, alegia: **pertsionaren** iraultza eta egituren iraultza. **Askoren artean**

Hemen, hil, **pertsionak** eta animaliak hiltzen gara eta gaituzte. **Iñaki Segurola**

Maiteago ditu zaldiak **pertsionak** baino. **Bernardo Atxaga**

**Pertsionak** etxeak baino handiagoak ziren denboretan Hemingway Mundakara etorri zen. **Edorta Jimenez**

**Pertsiona** gizabanakoa da, bere buruaren eta bere ekintzen jabe dena. **Karlos Linazasoro**

Kafea hartu aurretik ez naiz **pertsiona**. **Josu Landa**

Beste sexuko **pertsonekin**. **Luis Elberdin**

Ongi zekien Frantziskok, tratu onak bakarrik, maitasunezko eta adiskidetasunezko tratuak aldatzen duela **pertsiona**. **Askoren artean**

**Pertsiona** bat ez da temperatura, argi, egurats, presio eta egoera animikoaren nahasketa besterik, hein handi batean. **Harkaitz Cano**

**Pertsiona** hori irlandar guztion erregea da. **Joanes Urkixo**

Txakurra gai da **pertsiona** bat usainetik ezagutzeko. **Irene Aldasoro**

Zenbat duen **pertsionak** egiten, hainbeste daki; eta zenbat duen praktikatzeko, hainbeste da ona haren otoiiza. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

-Nire aita **pertsiona** batek saldu zuen; PC koa zen, bai, txeka haietako partaidea. **Juan Kruz Igerabide**

Bazirela uneak **pertsiona** batek bere patuari jarraitzen jakin behar zuenak. **Ramon Saizarbitoria**

**Pertsiona** bati gogoa berotzen zaionean, ez dago zer eginik. **Oskar Arana**

Burdin hesia **pertsiona** bati bidea justu uzteko moduan zegoen zabaldua. **Ramon Saizarbitoria**

Bi **pertsiona** entzuten zituen hizketan jaki-gelan. **Irene Aldasoro**

Ez dago gizon bihozberarik berak maite duen **pertsiona** zorionsu ikusita gozaten ez duenik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Pozgarria da gure aurreneko maitasuna izan zen **pertsiona** ustekabeen ikustea. **Bernardo Atxaga**

Munduko **pertsiona** guztien artean, zeu zara gehien axola zaidana. **Oskar Arana**

Orain mundua berriro sutan zegoen, milioika **pertsiona** ari dituk hiltzen. **Xabier Olarra**

Benetako barkamenak **pertsionatik pertsionarako** harremana du aurrealdintza. **Joseba Zulaika**

**Pertsona** bat hiltzea, **pertsona** horrek manerak onak dituelako, zer izango litzateke hori? **Julen Gabiria**

**Pertsona** bakoitzari 2,4 metro koadroko tarte dagokio batez beste. **Jokin Urain**

## 2 (izenondoekin)

Aurora **pertsona** ona da, Nathan. **Oskar Arana**

**-Pertsona** ona, jenio berezia... **Xabier Amuriza**

**Pertsona** zintzoa zen eta lotsatia, lotsatiegia aukeran. **Jon Muñoz**

-Ikusten duzu nola ez zen zuk esaten zenuen **pertsona** gaiztoa. **Josu Zabaleta**

Hildako bat **pertsona** serioa da, neurritsua, dagoen egoeraz jabetua. **Juan Luis Zabala**

Adelaren hiru semeak **pertsona** inportanteak dituk orain. **Bernardo Atxaga**

Eta **pertsona** aluaren egintza alukeria da, jakina. **Iñaki Seguro**

Itxura batean birjina bat **pertsona** agorra da, baina bera da emankorrena ere bere bihotzean. **Joan Mari Lekuona**

Behialako ikasleak **pertsona** helduak ziren ordurako, hogeietan aurrera edo oso aurrera zihoazen gizon eta emakumeak. **Oskar Arana**

**Pertsona** nagusi normal batek segundoko 2,5 milioi globulu gorri berri sortzen ditu gutxi gorabehera. **Irene Aldasoro**

-Non daude, baina, **pertsona** ulerkor eta gupidatsu horiek? **Patxi Zubizarreta**

**Pertsona** krudela eta berekoia nintzela esan zidan orduan. **Oskar Arana**

Andrea txikia zen, eta, nahiz adintsua ez izan, berrogeita hamarren bat urtekoa gehienez, **pertsona** hondatu baten itxura zeukan. **Bernardo Atxaga**

**Pertsona** sentibera zelako Flora. **Ramon Saizarbitoria**

Oso **pertsona** gizabidetsua zen, amore emailea eta guztiz atsegina. **Askoren artean**

Alberto hain da **pertsona** kaskarina! **Fernando Rey**

Delitu bakar batek [...] errepikatuko ez denak, ez du **pertsona** normal bat gaizkile bihurtzen. **Jon Alonso**

Ez litzatekeela eseriko mahai berean **pertsona** azal-ilun batekin, milioi bat dolarren truke ere. **Mirentxu Larrañaga**

Joka ezazue **pertsona** libre bezala. **Elizen arteko biblia**

Ezin zaio eskubide hori inolako **pertsona** pribaturi eman. **Esteban Antxustegi**

Politikaria **pertsona publikoa** da. **Berria - Gaiak**

Inoiz baino **pertsona** publiko gehiago ezagutzen dugu, eta inoiz ez da hain zaila izan egia esan eta bere nortasuna garbi agertzen duen norbait ezagutzea. **Pako Aristi**

Halakoa, ezer onik egin ez eta besteen egite onak lardaskatuz, guztientzat **pertsona** zirtzil eta mespretxagarri bihurtzen baita. **Askoren artean**

Ezinikusi horretatik libratzen zen bakarra gure ama zen: bere denbora guztian estimatu zuen **pertsona** ez-judu bakarra. **Fernando Rey**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Diskurtsoari dagokionez, esan behar da aditzek ez dutela **pertsona** markarik, eta benetako **pertsona** -izenordainik ez dagoela. **Ibon Uribarri**

Atzerriko herri eta **pertsona** izenak, eta nazioarteko hitzak, jatorrizko grafian idaztea erabaki zuen: Quebec. **Koldo Zuazo**

Ez du aipatzen frankoen arteko lehen **pertsona** -gradua, hau da, antrustioei dagokien artikulua. **Iñaki Iñurrieta**

Hauxe zen nik uste haien jakin-mina: buztanik ba ote nuen edo **pertsona** -azalpenik ematerik lortzen ote nuen. **Fernando Rey**

Eskuan mertxika bat duen emakume-irudia egiazkotasunaren irudia dela, **pertsona** -irudi batzuk mahaiaren inguruan ordena jakin batean eta jarrera jakin batzuetan eserita egonez gero Azken Afariaren irudikapena dela. **Josu Zabaleta**

Halakoek mespretxuz ikusten dute euskaraz edo euskararekin bizi den ia milioi beteko **pertsona** multzoa. **Urtzi Urrutikoetxea**

Tamainaz, berriz, bainuak **pertsona** -kopuruaren arabera egingo dira. **Santiago Iruetagoiena**

**Pertsona** -trafikatuek dirutza izugarriak exijitzen dizkiete eta batzuetan desagertu egiten dira zeharkaldia hasi aurretik. **Joseba Urteaga**

Zer **pertsona** klaseri bururatzen zaio horrelako gauza bat egitea? **Oskar Arana**

Etxe horietan sexu guztiak, adin guztiak, **pertsona** mota guztiak eskainiko dira, gozatzeraz joandako libertinoen gutziak asetzeko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 4 zuzenbidean, eskubideak eta eginbideak izateko gai den izakia.

Zeren, Estatu bat, **pertsona** bat denez, ezin da atera armetan bere buruaren kontra. **Esteban Antxustegi**

Oraindik **pertsona** bakar batengan batu ez den jendetzan, esan dugun bezala, mantendu egiten da guztia guztiena den naturazko egoera. **Esteban Antxustegi**

Horregatik, jendetza ez da **pertsona** naturala. **Esteban Antxustegi**

Horrela lortutako batasunari Estatu edo gizarte zibil deitzen zaio, eta baita **pertsona** zibil ere. **Esteban Antxustegi**

Elkarren defentsarako osatutako **pertsona** zibil horri Estatu deritza. **Esteban Antxustegi**

Elkarte horiek Estatuaren menpean dauden **pertsona** zibilak baitira. **Esteban Antxustegi**

Estatu oro **pertsona** zibila den arren, ez da aukarrik gertatzen: **pertsona** zibil oro ez da Estatu. **Esteban Antxustegi**

**Pertsona** Fisikoen Errentaren gaineko benetako Zerga progresibo batean oinarritzea. **Iñaki Heras**

## 5 (talde edo multzo bateko kide gisa) ik lagun 3.

Haietako bati **pertsona** izango ginen, gehienak elkarri galdezka, zer gertatzen ari zen ulertu gabe. **Bernardo Atxaga**

Mahai batean, lau **pertsona**, bestean, bikote bat. **Daniel Landart**

Hegazkinetako tripulazioa sei **pertsonak** osatua zela esan dio. **Josu Zabaleta**

Jeep batek argia ematen zien uretan sartuta zeuden hiru gizoni, eta ikusteko moduan uzten zituen errekararen beste ertzean begira zeuden hamarren bat **pertsona**. **Bernardo Atxaga**

Itsasontzian 4550 **pertsona** goaz. **Edorta Jimenez**

Gaur egun 15 pertsona har ditzake, eta lanak egin ondoren [...] 30 **pertsonentzako** tokia bermatu nahi du. **Berria - Euskal Herria**

Behar bezala idazten eta irakurtzen dakiten bi **pertsona** baino ez dituen udalbatzar batekin. **Koldo Biguri**

1959an, Zamorako lurraldean, Ribadelago urtegia lehertu, eta 145 **pertsona** eraman zituen. **Pello Zabala**

Abere-taldeak ere harrapatu zizkieten: berrogeita hamar mila gamelu, berrehun eta berrogeita hamar mila ardi, bi mila asto eta, gainera, ehun mila **pertsona** hartu zituzten preso. **Elizen arteko biblia**

Erraziamendu kartak bi **pertsonentzako** jakiak baino ez dizkio baimentzen eta merkatu beltzean erosi behar izan ditu hegaluze lata horiek. **Harkaitz Cano**

## 6 izenordainak eta adizkiak aldatzen dituen gramatika-kategoria, hitz egiten duenari(lehen pertsona), entzuten duenari (bigarren pertsona) edo beste norbaiti (hirugarren pertsona) egokitzen diren arabera.

Lehen **pertsonaren** ikuspegia. **Xabier Olarra**

Hori bezalako erregua xuxurlatuko zuen, lehen **pertsonara** pasatu eta gero. **Jon Alonso**

Adibidez, *Zergatik Panpox* lehen **pertsonan** dago kontatua. **Ana Urkiza**

Lehen **pertsonan** hitz egingo zenuela erabaki genuen. **Antton Olano**

Nire nobelan, bigarren **pertsonan** idazten hasi nintzenez harrapatu nuen aipatu txanpa hori... **Ana Urkiza**

Singularreko bigarren **pertsonan**, hari hitz egiten ariko balitz bezala. **Lander Garro**

Iraganaldiko hirugarren **pertsonan** z- duten adizkiak (*zatorren*). **Koldo Zuazo**

NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailletako 3. **pertsona** pluralean -te aukeratu zen (ez -e): *dute, diote, naute, dezaket...* 2. **pertsona** pluralean, berriz, -e aukeratu zen (ez -te): *duzue, diozue, nauzue, dezakezue, zaizue...* **Koldo Zuazo**

"Euskaldunei eta euskaldunoi", bai, oso erraz nahasten baitituzte teologoen lehenbiziko **pertsona** eta hirugarrena, aitaren etxea eta izpiritu santuren batena. **Iñaki Seguro**

Zelanok Tomasek pluraleen **pertsona** erabiltzen du (hala egiten otoiizko otoiizko ere), lan-talde baten ordezkari modura ariko balitz bezala. **Askoren artean**

## 7 Hirutasun Santuko kideetako bakoitza, hots, Aita, Semea eta Espiritu Santua.

Ulerzten dute Jainkoaren batasuna hiru **pertsonetan**. **Joan Mari Lekuona**

Aitagandik Semea jaino da, jainkozko bigarren **pertsona**, eta gero bere borondatez zabalzen da izate guztien sorkeran. **Joan Mari Lekuona**

Orain arte esandakoak [...] Jaungoiko bakarra den Hirutasunari dagozkie eta Hirutasun bereko **pertsona** bakoitzari. **Imanol Unzurrunzaga**

Jainkoagan **pertsona** dagokie hain zuzen ekintza, eta poza berriz ezartzen zaio esentziari sinplizitatean. **Joan Mari Lekuona**

"Hiru **pertsona**" esaten dugu zerbait esatearren, ez Hirutasuna zer den azaltzeko. **Imanol Unzurrunzaga**

Elkarketa horri Espiritu Santua deitzen dion beste mamu bat gehituko dio, eta, berak esaten duenez, hiru **pertsona** horiek bakarra osatzen dute. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zeruko Aita, bere **pertsona**-berezitasunez, ekintza hutsa da. **Joan Mari Lekuona**

Nola hiru jainko-**pertsonak** begira zeuden mundu guztiko zabaldira edo osoro gizonetz betetako lurbirara. **Patxi Altuna**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**adineko pertsona** (12); **bederatzi pertsona hil** (21); **bi pertsona atxilotu** (17); **bi pertsona hil** (69); **bi pertsona zauritu** (11); **bigarren pertsona** (16); **bizi den pertsona** (9); **bizi diren pertsona** (15); **bost pertsona atxilotu** (13); **bost pertsona hil** (28); **dozenaka pertsona** (22)

**ehun pertsona inguru** (13); **ehunka mila pertsona** (8); **ehunka pertsona** (45); **hamabi pertsona hil** (17); **hamabost pertsona hil** (10); **hamalau pertsona hil** (10); **hamar pertsona hil** (16); **hamasei pertsona hil** (9); **hildako pertsona** (16); **hildako pertsona baten** (8); **hiru pertsona atxilotu** (12); **hiru pertsona hil** (46); **hiru pertsona zauritu** (11); **horrelako pertsona** (12)

**inguruko pertsona** (10); **lau pertsona atxilotu** (8); **lau pertsona hil** (50); **lau pertsona zauritu** (11); **lehen pertsona** (28); **mila pertsona inguru** (13); **milaka pertsona** (98); **milaka pertsona bildu** (14); **milaka pertsona hil** (13); **milioi bat pertsona** (23); **milioi pertsona** (145); **milioi pertsona bizi** (14); **milioi pertsona daude** (12); **milioi pertsona hil** (20); **milioi pertsona hiltzen** (11); **milioi pertsona inguru** (18); **milioi pertsona inguruk** (8); **milioika pertsona** (19); **nolako pertsona** (8)

**oso pertsona** (60)

**pertsona arruntak** (9); **pertsona artatu** (9); **pertsona atera ziren** (13); **pertsona atxilotu ditu** (24); **pertsona atxilotu dituzte** (40); **pertsona atxilotu zituen** (48); **pertsona atxilotu zituzten** (41); **pertsona bahitu zituzten** (10); **pertsona bakar bat** (13); **pertsona bakar batek** (15); **pertsona bakar baten** (12); **pertsona bakarra** (51); **pertsona bakarrik** (22); **pertsona bakoitza** (15); **pertsona bakoitzak** (26); **pertsona bakoitzaren** (25); **pertsona bakoitzari** (10); **pertsona bakoitzeko** (10); **pertsona bat atxilotu** (15); **pertsona bat hil** (83); **pertsona bat zauritu** (12); **pertsona baten aurpegia** (8); **pertsona bera** (53); **pertsona berak** (11); **pertsona bildu dira** (15); **pertsona bildu ziren** (50); **pertsona bizi dira** (31)

**pertsona egokia** (16); **pertsona ezagun** (20); **pertsona ezaguna** (11); **pertsona ezagunek** (20); **pertsona ezagunen** (9); **pertsona fisikoen errentaren** (19); **pertsona gaiztoa** (8); **pertsona gazte** (9); **pertsona gisa** (38); **pertsona helduak** (12); **pertsona hil dira** (245); **pertsona hil ziren** (313); **pertsona hil zituen** (52); **pertsona hil zituzten** (45); **pertsona hiltzea** (9); **pertsona hiltzen dira** (17)

**pertsona inguru bildu** (38); **pertsona inguru bizi** (12); **pertsona inguru hil** (41); **pertsona izan ziren** (8); **pertsona jakin** (18); **pertsona kutsatu** (12); **pertsona larri** (8); **pertsona moduan** (12); **pertsona mota** (10); **pertsona normal** (20)

**pertsona on** (8); **pertsona ona** (34); **pertsona oso** (15); **pertsona talde** (13)

**pertsona ugari** (11); **pertsona zauritu dira** (17); **pertsona zauritu ziren** (82); **pertsona zauritu zituen** (18); **pertsona zehatz** (8); **pertsona zendu ziren** (11); **pertsona zibil** (8); **pertsona zihoazen** (8); **pertsona zintzoa** (9)

**sei pertsona hil** (35)

**urteko pertsona** (11); **zazpi pertsona hil** (21); **zortzi pertsona atxilotu** (11); **zortzi pertsona hil** (30)

**adineko pertsonak** (9); **ari diren pertsonak** (9); **bizi diren pertsonak** (10); **dagoen pertsonak** (13); **dauden pertsonak** (20); **edozein pertsonak** (14); **ehunka pertsonak** (9); **milaka pertsonak** (25); **milioi pertsonak** (47); **personak galdu** (8); **personak hartu** (9); **personak ikusi** (8); **personak izan** (11); **personak osatzen** (10); **personak parte hartu** (10)

**hirugarren pertsonan** (22); **lehen pertsonan** (41); **lehenengo pertsonan** (9)

**bi pertsonaren arteko** (9); **edozein pertsonaren** (11); **milaka pertsonaren** (12); **milioi pertsonaren** (9); **milioika pertsonaren** (8); **pertsonaren bat** (12); **pertsonaren gorpuak aurkitu** (12); **pertsonaren heriotza** (16); **pertsonaren heriotza eragin** (10)

**hildako pertsonen** (9); **mehatxatutako pertsonen** (9); **pertsonen arteko harremanak** (12); **pertsonen eskubideak** (15); **pertsonen kontrako** (10); **pertsonen kopurua** (25); **pertsonen zerrenda** (8); **sexu bereko pertsonen** (23)

## pertsonai ik **pertsonaia**.

## **pertsonaia** (*orobat **personai** g.er. eta **personaje** g.er.*) **1** iz antzerkian, zineman, literaturan eta kidekoetan esku hartzen duten gizakietako bakoitza.

Idea horretatik abiatuta, Pirandellok ikusleen arteko sarrarazi zituen **pertsonaiak**, antzezleen eta haien arteko desberdintasuna nabarmenarazteko. **Josu Zabaleta**

Marcel Prousten **pertsonaia** hari, Swann zahar alargunduari. **Imanol Zurutuza**

Meursault **pertsonaiaren** "ni" etsipenezkoak luzaz pertsegitu ninduen. **Ana Urkiza**

Melaniek Gloriaren **pertsonaia** antzeztzen jarraitzen du, ile-apaintzaile hasi berriarena. **Oskar Arana**

Ihauerietako **pertsonaiak**, Hartzak, Zirtzilak eta Antzerkilariak. **Herría**

Idazleari -edo narratzaileari- zor zaizkio istorioa -nondik ere jasoa duen-, kontakizunaren egitura, **pertsonaien** diseinua eta gainerakoak. **Jose Antonio Mujika**

-Nire **pertsonaia** prest dago agertokira ateratzeko, nik uste -esan zuen Evans jaunak-. **Koro Navarro**

Esan zuen, Ez dut uste **pertsonaia** dei genitzakeenik. **Jon Alonso**

Liburu bateko pertsonak **pertsonaiak** dira, erantzun zuen Maria Sarak. **Jon Alonso**

Gaiak eta **pertsonaiak** berriak dira, baina ez kontaera mota. **Bernardo Atxaga**

Mamia, ordea, **personaien** pasioak dira, betikoak eta nonahikoak, eta artearen zein bizitzaren funtsa: amodioa eta heriotza. **Markos Zapiain**

Nobela bat irakurtzean, ez al gara saiatzen **pertsonaia** batekin identifikazioa bilatzeko? **Pako Aristi**

**Pertsonaiarik** gabeko nobelak idatzi al daitezke? **Ana Urkiza**

Margolan bateko **pertsonaiak** bezain geldi. **Alberto Ladron Arana**

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Istori sinpleak, **pertsonaia** lauak, psikologia tolesgabeak. **Karlos Zabala**

*The mummy* nobela laburreko **pertsonaia** nagusia. **Bernardo Atxaga**

Liburuko **pertsonaia** nagusia Bazofias da, Roger Bazofias. **Jon Alonso**

Film bateko **pertsonaia** nagusiaren moduan. **Josu Landa**

Dostoievskiren **pertsonaia** torturatuen parekoak izaten dira, eta haienak bezain patetikoak beren ahaleginak. **Xabier Montoia**

Adibide bat jartzearen, hizkiak **pertsonaia** bizidun bihurtuta ikusi (irakurri) ditugu narrazio batzuetan. **Iñaki Arranz**

Maitemindu egin nintzen fikziozko **pertsonaia** literario hartaz. **Ana Urkiza**

**Pertsonaia** xelebreetan espezializatutako antzele batentzat ez zen hori lan zaila. **Oskar Arana**

Belaunaldia, tribua edo herria... **pertsonaia** kolektiboak dira eta askotan egiazko **pertsonaiak** gogoratzeko sortuak. **Ana Urkiza**

**Pertsonaia** arketipoak sortu bainoago, Laclosek idazketa arketipoak sortzen ditu. **Jon Muñoz**

Rosa Monterok **pertsonaia** hermafroditak bat asmatu zuen eta Montserrat Roig-ek, aldiz, atzera egin eta emakumezkoa jarri zuen protagonistatzat. **Ana Urkiza**

Fikziozko **pertsonaia** bat haragizko izaki bihurtu daiteke baldin eta haren egileak bere indar guztia horretan jartzen bada. **Iban Zaldua**

Gizonezko idazle batek emakumezko **pertsonaia** bat sortzen duenean. **Ana Urkiza**

Nicholas Rowe-*Penitentzigitile ona* **antzerkiko** pertsonaia, emakume-limurtzailea. **Irene Aldasoro**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere **pertsonaia** izaeratik irten eta zenbaitetan autorearen eginkizuna hartzen zuelako. **Josu Zabaleta**

**Pertsonaia** banaketa horretan emakumeak nagusi beraz. **Jon Muñoz**

Familiaren historiako datuekin eta **pertsonaia** -istorioen kontalariari dagokion artearekin, eleberrri harrigarri eta bikaina lortu zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ahots, **pertsonaia**, doinu, estilo aniztasun hori ikasgai gertatu zitzaion Lacroix; Rousseauxen itzala sumatzen da harreman arrakatsua hauetan. **Jon Muñoz**

**Pertsonaia** banaketa horretan emakumeak nagusi beraz. **Jon Muñoz**

Azaldu nien nolako irrika nuen mimoarena egiteko, eta nolako **pertsonaia** -errepertorioa neukan. **Fernando Rey**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zergatik ematen dio halako tratua Eugeniren amari, obra guztian agertzen ez den albo-**pertsonaia** horri? **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

### 5 halako garrantzi bat duen pertsona.

**Pertsonaia** mirestea baino, nahiz gizon edo emakume handiak izan eta berebizikoren bat egin, hobe deritzot gertuko pertsonak miresteari. **Juan Kruz Igerabide**

Adiskideei bidalitako kartak zeuden: ofizialei, goi-goiko **pertsonaiei**, anarkista ezagunei, idazle susmagarriei. **Matías Múgica**

Hitlerren gobernuko **pertsonaia** aski ospetsu batekiko afera suharra aipatzera ere ausartzen ziren, ahapeka eta kontu handiz baizik ez bazen ere. **Alberto Ladron Arana**

**Pertsonaia** gutxi dira historian San Frantziskok bezalako arreta piztu dutenak. **Askoren artean**

Mikel Strogoffek [...] nor topatu kinka hartan, eta zeharo ahaztuta zeuzkan bi **pertsonaia**, inondik inora berriro ikustea espero ez zituen bi gizon ezagutu zituen bi lagun haiengan. **Karlos Zabala**

### 6 (izenondoekin)

Hiria saminak hartuta zegoen, **pertsonaia** handi haren heriotza zela eta. **Askoren artean**

Niri gehien gustatzen zaidan **pertsonaia** historikoa Kaligula da, eroa zelako. **Bernardo Atxaga**

Urte horietan **pertsonaia** publiko ospetsua bilakatu zen Pirandello. **Josu Zabaleta**

Horietao batzuk **pertsonaia** famatuak izatera heldu ziren (Arkimedes, Leonardo da Vinci, Elvis Presley...). **Iban Zaldúa**

Zein mekanismo-klase aktibatzen dira **pertsonaia** historiko bat **pertsonaia** mitiko bihurtzen denean, zer gertatu zen Garibai ez zerurako ez inferurako gera zedin? **Anjel Lertxundi**

Gabilondo hil zenean [...] *Euskal-Erria* aldizkariak ale monografiko oso bat eskaini zion, laudorio sutuak eginez, Donostia zaharreko **pertsonaia** benetakoena izan zelakoan. **Askoren artean**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**agertzen den pertsonaia** (5); **antzerkiko pertsonaia** (4); **asmatutako pertsonaia** (4); **benetako pertsonaia** (4); **eleberriko pertsonaia** (9); **fikziozko pertsonaia** (8); **filmeko pertsonaia** (11); **filmeko pertsonaia nagusia** (5); **hirugarren pertsonaia** (4); **ipuin bateko pertsonaia** (4); **ipuineko pertsonaia** (4); **ipuinetako pertsonaia** (6); **izeneko pertsonaia** (11); **liburuko pertsonaia** (8); **nire pertsonaia** (9); **nobelako pertsonaia** (14); **nobelako pertsonaia nagusiak** (8)

**pertsonaia antzezutako** (5); **pertsonaia bat asmatu** (4); **pertsonaia berezi** (5); **pertsonaia berri** (7); **pertsonaia bihurtu** (5); **pertsonaia bitxi** (4); **pertsonaia bitxia** (6)

**pertsonaia egin** (4); **pertsonaia eta egoera** (6); **pertsonaia ezagun** (9); **pertsonaia ezagunak** (5); **pertsonaia ezagunaren** (4); **pertsonaia ezagunen** (4); **pertsonaia garrantzitsua** (7); **pertsonaia handi** (7); **pertsonaia historiko** (8); **pertsonaia historikoa** (9)

**pertsonaia izan** (14); **pertsonaia izan nahi** (5); **pertsonaia literario** (4); **pertsonaia nagusi** (15); **pertsonaia nagusia** (67); **pertsonaia nagusiak** (36); **pertsonaia nagusiaren** (17); **pertsonaia nagusien** (9); **pertsonaia nagusietako** (4)

**pertsonaia ospetsu** (5); **pertsonaia publiko** (5)

**pertsonaia ugari** (4)

**sortutako pertsonaia** (6)

**ageri diren pertsonaia** (4); **antzeko pertsonaia** (4); **gainerako pertsonaia** (4); **mitologiako pertsonaia** (4); **nire pertsonaia** (12); **nobelako pertsonaia** (4); **pertsonaia seinalatuko ditu** (4); **pertsonaia sortu** (4); **pertsonaia sortzen** (4); **sortutako pertsonaia** (4)

**bere pertsonaiaren** (9); **pertsonaiaren rola** (8); **pertsonaiaren rolean** (4)

**nire pertsonaiek** (4)

**pertsonaiekin batera** (5)

**bere pertsonaien** (6); **pertsonaien arteko elkarrizketak** (4); **pertsonaien bidez** (6); **pertsonaien izaera** (5); **pertsonaien psikologian** (7)

## pertsonaje ik pertsonaia.

## pertsonal 1 izond pertsona bati dagokiona, norberarena.

Ez dut uste hori iritzi **pertsonal** soila denik. **Iñaki Segurola**

Kutsu **pertsonal**, giza usain guztiak kendu. **Juan Garzia**

Berehala egin zituen lau falta **pertsonal** eta Txus Bidorretak aulkira bidali zuen. **Berria - Kirola**

Printzearen idazkari **pertsonala** zen. **Matías Múgica**

Inka, Akemenestar, Erromatar eta Otomandar inperioetan enperadorearen etxe **pertsonala** gobernu inperialaren gurgipilaren ardatza zen. **Iñaki Mendiguren**

Erabiltzaileen datu **pertsonalak** lapurtzeko. **Berria - Gaiak**

Oinarrizko eskubideak jar daitezke arriskuan, bizitzeko eskubidea eta segurtasun **pertsonala** kasu. **Berria - Euskal Herria**

Ez da dudarik urteek zorrotz didaten ikusmena bera ere, nire-nirea izanik, eztabaidagarria eta kritikagarria dela, segur bainaz bakoitzaren esperientzia **pertsonala**, normahi ere den hau, ezin dela besterengana hedatu. **Pello Salaburu**

Iheslaria mundu guztian da iheslari, maila **pertsonalean** estatus edo ospe bereziren bat duen iheslaria izan ezean. **Jokin Urain**

Bere nahiak eta egiteko **pertsonalak** edo intimoak beti bigarren planoan uzteko joera omen du. **Ana Urkiza**

Geroago erabakiko zuen arrazoi **pertsonal** edo kolektiboengatik egin ote zuen. **Unai Iturriaga**

Nire ibilbide **pertsonal** eta profesionalean betirako markatuko nauela izen berriak. **Harkaitz Cano**

Uriaren errotze sozial, **pertsonal** eta profesionalak ere bermatzen dute ez duela ihes egingo. **Berria - Euskal Herria**

Ez zuela beste «balorazio **pertsonal**, politiko zein judizialik» egingo azaldu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Gizonek Jainkoarekin egiten dituzten har emanetaz [...] barne bizi **pertsonal** baten hautua egina zuen aspaldi Klaudiok. **Herria**

Atsekabea, nahigabea, samina, dolua edo auskalo zer, hain dira kontu horiek **pertsonalak**. **Imanol Zurutuza**

Kalte ekonomiko izugarria eragiteaz gain, trauma **pertsonal** eta psikologikoak eragin ditu. **Berria - Mundua**

Liburutegi **pertsonal** oro bitziza baten egitasmoa eta ispilua da. **Anjel Lertxundi**

Gizarte-bitziza ezinezkoa da nolabaiteko askatasun **pertsonal** eta gizarte-zuzentasunik gabe. **Iñaki Mendiguren**

Hartaz oroitzapen **pertsonal** bat daukat, eta, beraz, artikulatua eta konplexua. **Juan Garzia**

Historia **pertsonal** hau esperientzia partikular bat da, ez filosofia bat. **Joxe Azurmendi**

Zuk esana da arazo **pertsonal** eta gizarte arazo ugariarekin lotuta dagoela aspertzea. **Berria - Gaiak**

Oso modu **pertsonal** eta aldi berean librea. **Ana Urkiza**

Oso giro beroan, tentsio **pertsonal** ikaragarriak sortu ziren eztabaida bitartean. **Rafa Egiguren**

Erljioa aukera **pertsonal** bihurtzen hasten da honela. [Iñaki Mendiguren](#)

Garcia Alixena oso lan **pertsonala** da. [Berria - Kultura](#)

Bere xede **pertsonal** hutsalak gaintzen zituen helburu bat eskainiz. [Iñaki Mendiguren](#)

Lege erromatarra lege **pertsonal** orokor bihurtua zen, eta lege godoa lege **pertsonal** partikular. [Iñaki Iñurrieta](#)

## 2 (izenlagun gisa)

Nere lana: XVII garren mendeko gramatika frantsesaren barnean **pertsonal** izenordainen erabilera, eman dezagun, eta ixtudiant gazteen arimen ardura. [Piarres Aintziart](#)

Gehiengoak, **pertsonal** mailan, bere herriarekin egiten du identifikazioa, ondoren administrazio eremuarekin eta gero zazpi herrialdeekin, **Pertsonal** mailan zer aldaketa eragiten dizu zuri erreformak? [Berria - Harian](#)

## • 3 iz enpresa eta kidekoetz mintzatuz, langileak.

Akordioak ontzat ematen zuen ikasturte honetan **pertsonalaren** lan-baldintzak errespetatuko zirela. [Berria - Euskal Herria](#)

Zentroek pedagogia arloan eta **pertsonalaren** eta baliabide ekonomikoen kudeaketan autonomia izango dute. [Berria - Euskal Herria](#)

**Pertsonalaren** aldetik hain urri dabiltzanez gero itsaso konpainia horiek gureengana jotzea beste irtenbiderik ez dute ukan. [Edorta Jimenez](#)

Pedro Handiaren Errusiari inperioan bezala, herri-administrazio inperiala atzerriko erakundeak kontzienteki imitatuz sortzen den lekuan, **pertsonala** trebatzeko neurri berezien premia nabaria izaten da. [Iñaki Mendiguren](#)

Administrazio eta Zerbitzueta **Pertsonala** (AZP) euskalduntzeko premia. [Berria - Euskal Herria](#)

## 4 (hitz elkartuetan)

Urteko aurrekontua 9.700.000 eurokoa izan da: aurrekontuaren erdia (%50,92) **pertsonal** gastuek betetzen dute, eta inprentako gastuak datoz gero (ia %15ekoak dira).

[Berria - Harian](#)

Volkswagenek desabantaila nabaria du **pertsonal** kostuetan Alemaniako bere lehiakideekiko, eta desabantaila horri jada ezin zaio aurre egin **pertsonal** alorreko malgutasun tresnekin. [Berria - Ekonomia](#)

Grasso jauna ere, **Pertsonal** Bulegokoa, Loredanaren atzetik zebilen. [Juan Garzia](#)

## 5 *personal* buru ik *personal*buru.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo *personal* (4); arrazoi *personal* (3); askatasun *personal* (3); aukera *personal* (5); aukera *personal* bat (3); balio *personal* (3)

esperientzia *personal* (4); gogoeta *personal* (3); harreman *personal* (4); historia *personal* (4); ikuspegi *personal* (3)

interes *personal* (6); kontu *personal* (7); krisi *personal* (3); lege *personal* (3); modu *personal* (3)

ondorio *personal* (3)

*personal* burua (3); *personal* gastuak (3); *personal* mailan (4)

unibertsu *personal* (3)

apustu *personal*a (3); arazo *personal*a (3); askatasun *personal*a (6); autonomia *personal*a (3); begirada *personal*a (5); bere esperientzia *personal*a (3); bizitza *personal*a (4); duintasun *personal*a (3)

egoera *personal*a (7); erabaki *personal*a (3); erronka *personal*a (4); esperientzia *personal*a (8); estilo *personal*a (6); garapen *personal*a (3); guztiz *personal*a (3); harreman *personal*a (3)

ibilbide *personal*a (3); idazkari *personal*a (4); ikuspegi *personal*a (4); interes *personal*a (3); irakurketa *personal*a (5); iritzi *personal*a (8); jeneralaren operadore *personal*a (7); konpromiso *personal*a (4); kontu *personal*a (3); lan *personal*a (4); mediku *personal*a (4)

oso *personal*a (16); oso *personal*a da (10); *personal*a izan (10); profesionala eta *personal*a (3); proiektu *personal*a (3)

ukitu *personal*a (3); zerbait *personal*a (3)

arazo *personal*ak (8); arrazoi *personal*ak (16); arrazoi *personal*ak argudiatu (3); arrazoi *personal*ak direla (4); datu *personal*ak (26); erabiltzaileen datu *personal*ak (3); gauza *personal*ak (4); harreman *personal*ak (11); interes *personal*ak (5); kontu *personal*ak (3); lege *personal*ak (4)

askatasun *personal*aren (8); egoera *personal*aren (4)

arilo *personal*ean (22); askatasun *personal*ean (3); bizitza *personal*ean (5); maila *personal*ean (15); modu *personal*ean (12)

lege *personal*ei (3)

harreman *personal*en (4)

probetxu *personal*erako (3)

## *personal*buru iz (*corpusean personal(-)buru soilik*) iz enpresa edo kideko batean *personal*aren burua.

Azkenean ikasi duk nor den *personal-burua* gure enpresan... [Joan Mari Irigoien](#)

Gertatzen dena da irratiko *personal burua* eta telebistakoa bat bera zirela. [Joxerra Garzia](#)

Zazpi puntuko programa aurkeztu zuen atzo *personal buruak*. [Berria - Ekonomia](#)

Peter Hartz, Volkswagengeno *personal buruak* esaldi horrekin argudiatu zituen irailean hastekoa den Alemaniako negoziazio kolektiborako Europako autogile nagusiaren asmoak. [Berria - Ekonomia](#)

Volkswagengeno *personal buru* nagusiak, Peter Hartzek, berriz, esan zuen konpainiak lanpostu murrizketa «dramatikoa» bat egin dezakeela, IG Metallak proposatutako neurriekin ados egon ezean. [Berria - Ekonomia](#)

## *personalismo* 1 iz norberaren iritzia edo borondatea, bereziki politikan, onarrarazteko joera.

Erreferentziak ideietan bilatu eta *personalismoetatik* ihes egin beharra dago. [Jokin Urain](#)

Chavez latinoamerikako ezker tipiko batekoa da, oso ezker autoritarioa, oso Fidelzalea, Komandante Jefeak esaten du zer egin eta denok haren aginduetara, bere jokoa populismoa da, *personalismoa*. [Pako Aristi](#)

Besteek hori oztopo dela uste dute: *personalismoa*, botere gehiegi eskuratzea, klientelismoa sortzea, autoritarismoa eta ustelkeriaren aurkako lanari bete-betean ez ekitea. [Pako Aristi](#)

## 2 filosofian, balio gorena pertsona dela dioen doktrina.

Gabriel Marcel-en existenzialismo kristauan, Emmanuel Mounier-en *personalismoan* eta, jakina, Jean-Paul Sartre-ren existenzialismo humanista ateoan. [Askoren artean](#)

Mounierren *personalismoa* (besteak beste, individualismoaren, kapitalismoaren eta kolonialismoaren aurkako jarrera, eta internazionalismoaren eta gizaki guztien berdintasunaren aldekoa)... [Berria - Kultura](#)

## *personalista* 1 *izond* *personalismo*z aritzen dena, *personalismoa* adierazten duena.

Banekien askatasunak buruzagitza *personalista* baten peko erresistentzia etsi-etsi bat baino gehiago eskatzen zuela. [Jon Muñoz](#)

Odon Elorzak jarrera «*personalista*» izan duela salatu dute, Donostia osoarena den proiektu bat «bere egiten» saiatu delako. [Berria - Kultura](#)

Berak erdietsi nahi duen sistema penala gizarte-sistema *personalista* bati dagokiona da. [Juan Martín Elexpuru](#)

## 2 *izond*/iz filosofian, *personalismo*aren aldekoa.

Esplika biezagu, nola mendebaleko ia teologia eta filosofia guztiak eta tradizio moral guzti-guztia ekibokatu diren: ez aspaldiko San Agustin hura bakarrik, afrikanoa, baizik Kant razionalista eta Hegel idealista protestanteak ere bai Ipar Europan, eta San Tomas eskolastikoa eta Maritain *personalista* katolikoa halaber. [Joxe Azurmendi](#)



Borondareen subjektu existenzialista (Sartre) eta **personalista** (Mounier) hartzan du ekintzaren zatubetza. **Joseba Zulaika**  
Berez **personalista** (Mounier eta Marcel-en bidetik), presunaren lehentasuna azpimarratu du beti. **Herria**

## pertsonalitate 1 iz nortasuna.

Telekinesiaren bidez nire **personalitatea** beste gizaki batengan txerta dezaket ukimenaren bidez. **Karlos Linazasoro**  
Autorearen **personalitatea** islatzen duten bitxikeriengatik. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Nor bere burua eta bere **personalitatea** eraikitzeko ezinbesteko bihurtzen da azkenerako bi hatzekin zigarroa piztu eta bi hatzekin zigarroa erretzea. **Harkaitz Cano**  
Damutuarengan ez zagok damurik, **personalitate** berri baten eraketa baizik; izaera erretroaktiboa duen eraketa, gainera. **Jon Alonso**  
Begitartean eta oro har adierazpenean nabari baitzen haren **personalitate** handia. **Migel Angel Mintegi**  
Ziegara eraman aitzin, gela inpersonal batean, mutikoaren **personalitatearen** ukatze bideko lehen urratsak egin ziren. **Itxaro Borda**  
Bakardade sentimendu hori norbanakoaren **personalitatean** larregizko lotsa, autoestimu baxua edo besteekin harremanak izateko gaitasun eskasa oinarritutakoa denean, komeni da lehendabizi arazo horiei heltzea. **Berria - Gaiak**  
Londrestik bueltaka ibiltzeko ezusteko aukera izateak, **personalitatearen** bizkortzaile gertatu zitzaion. **Joxemari Iturralde**  
Zure eskuek **personalitatea** dute, autonomoak dira. **Alberto Barandiaren**  
Pieza bateko autoak gustatzen zaizkizu zuri, **personalitate** handikoak. **Karlos Linazasoro**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kasuen %60tan **personalitate** nahasteak omen daude. **Berria - Euskal Herria**  
Gehienetan begitartetik asmatzen baitu, guti gora behera, gizon baten **personalitate** mota. **Eneko Bidegain**  
**Personalitate** krisian daude editorialak, idazleak irakurleak baino gehiago izango garelako laster. **Berria - Harian**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jende xeheak bere mimesia arbasoengandik bizi den belaunaldiko giza **personalitate** sortzaileengana aldatzen du. **Iñaki Mendiguren**

## 4 pertsona ospetsua, gizaki ospetsua.

**Personalitate** handiak geratu ziren FSLNtik kanpo, hala nola Ernesto Cardenal, Carlos Tunnerman, Onofre Guevara, Gioconda Belli, Sergio Ramirez eta Dora Maria Tellez. **Berria - Mundua**  
Paueko Laborantza Ganberako hautetsiez gain, prefetak izendatuko dituen «**personalitate** kualifikatuek» ere parte hartuko dute. **Berria - Ekonomia**  
Hamar dira hautagaiak [Vianako Printzea sarirako]; hiru **personalitate** indibidual eta zazpi talde artistiko edo erakunde. **Berria - Kultura**  
Etxe horietan paratuko dituztela eroso koartel nagusiak, eta berorietan **personalitate** garrantzizkoak, militarrek eta erlijiosoak jarriko direla. unibertsitariak, arduradun ekonomikoak, Garapen Kontseiluko **personalitateak**. **Jon Alonso**  
Une hartan Santoñan eta Santanderren zeuden euskal **personalitate** eta funtzionario guztien bizia bermatu eta atzerrirako irteera baimentzea. **Jokin Urain**  
Carltongo hall-ean, torero, zale eta bilbotar **personalitateen** anabasan, haren albora joateko modua ukan nuen. **Edorta Jimenez**

## pertsonalizatu, pertsonaliza, pertsonalizatzen 1 du ad izaera pertsonala eman.

Hainbeste gorputz elkarren ondoan, hainbeste bular, hainbeste triangelu formako oihal-puska pubisa estaltzen: ez zegoen **pertsonalizatzeko** modurik, gorputzak masa informe batean galtzen ziren. **Bernardo Atxaga**  
Halatan, hiru bertsolaritza motaren deskripzioa eskainiko zigun ikerketak, eta azterturiko hiru lehiaketetako txapeladunen arabera **pertsonalizatuko** genituen garaiak: Uztapide, Amuriza eta Egaña. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## 2 orokorrean hitz egitean pertsona jakin batez espresuki aritu.

Ez dut **pertsonalizatu** nahi, baina Gurpegiren kasuan edo futboleak, eta beste kirol batzuetan, errudun edo errugabe, kirolari gehienak errugabeak dira gehiengoarentzat. **Berria - Kirola**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Informazioa eta laguntza lortzeko arreta **pertsonalizatua** eskainiko duela aipatu zuen. **Berria - Euskal Herria**  
Laguntza **pertsonalizatuagoa** eman behar diegu. **Berria - Euskal Herria**  
Esan daiteke, beraz, burla **pertsonalizatua** zela Faulknerrena. **Unai Elorriaga**  
Nork bere irizpide eta hautaketa sistema **pertsonalizatuak** jarri behar ditu martxan. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Toki zein erregio mailako egitura administratiboak iraunkortasun kontzeptu **pertsonalizatu** bat garatzera irits daitezke, identitate propio bat izateko behar diren irizpideak ezarriz. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Geroz eta elikagai **pertsonalizatu** gehiago eta zehatzagoak (tamainak, itxurak, ukituak, aurkezpenak, aditiboak, usainak, ontziak...) izango ditugu eskura, erosteko ahalmena gora joan ahala. **Edorta Agirre**  
Pare bat minutu baino ez dira behar web-orri **pertsonalizatu** hori egiteko. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Ikasleak modu **pertsonalizatuan** hezteko aukera emango dute teknologia berriek. **Berria - Euskal Herria**

## pertsonalizazio iz pertsonalizatzea.

Errazagoa bide da, esate baterako, beltz bat hiltzea ezen ez Marvin hiltzea, Annabellen eta Freddyren semea, Lucyren senaragia, bigarren hezkuntzako ikaslea eta Mr Porter historia irakaslearen ikasle kuttuna; horregatik daukate heriotza-emaileek, nola soldaduek hala jendartean mozturoririk bizi diren hiltzaileek, **pertsonalizazio** orori ihes egiteko joera. **Bernardo Atxaga**  
Informazio bolumen handia erabiltzeko ahalmena, erabiltzaileen arabera **pertsonalizazioa**, gune espezialduak sortzeko posibilitatea, edozein bitarteko (testua, irudia, bideoa,...) erabiltzeko aukera. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Literatura denboraren nahaste bat da, denbora kronologikoaren **pertsonalizazio** bat. **Pako Aristi**

## pertsonalki adlag era pertsonalean; pertsona gisa.

Ez zuen **pertsonalki** ezagutzen, baina bizpahiru aldiz ikusia zuen. **Elena Touyarou**  
Gortean bizi da alabaina eta beste ordezkari batzuek hartu ditu, nahiz kasua **pertsonalki** ezagutzen zutenak beharko omen ziren, askok diotenez, bulden eta zuzenbidearen arabera. **Piarres Xarriton**  
Nazionalitate, kasta eta klase orotako indiar guztiei **pertsonalki** zegozkien gaitetan. **Iñaki Mendiguren**  
Ondo pentsatuz, zer geneukan **pertsonalki** batak besteari aurpegiartzeko? **Urtzi Urrutikoetxea**  
Goitik behera arakatu nuen, **pertsonalki**. **Joxe Austin Arrieta**  
Berak analizatzen zituen **pertsonalki** errausak, pazientzia zikoitzez. **Juan Garzia**  
Ez daitezela ausartu, ez **pertsonalki** eta ez bitartekoen bidez, Erromako kurian inolako agiririk eskatzera. **Askoren artean**  
-Nik ez, **pertsonalki**, baina arreba ibiltzen duk horietako baten ikusten astero. **Daniel Landart**  
**Pertsonalki** edo beren ordezkarien bitartez. **Juan Martin Elexpuru**



Haiek **pertsonalki** bisitatzera joatea ezinezkoa zitzaionez, lagunengandik bidali zizkien bertsook. **Askoren artean**

Bere buruari, bai **pertsonalki** eta baita profesionalki ere, opa izan diotenetakoa. **Ana Urkiza**

Ni **pertsonalki** ez naiz Europako politikarekin ados, baina diru laguntzaren ukaiteko dosierak betetzen ditut. **Berria - Ekonomia**

**Pertsonalki**, kantar esaten zuena errepika dezaket: "Euskal Herri nerea ezin zaitut maite, baina non biziko naiz zuek aparte". **Bernardo Atxaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**berak pertsonalki** (3); **berari pertsonalki** (3); **pertsonalki ez ezagutu** (3); **pertsonalki ezagutu** (5); **pertsonalki ezagutzen** (9)

## pertsonarteko *izlag* pertsonen artekoa.

Bai eta ezaugarri horiekin lotuta dagoen **pertsonarteko** jarduera eta jokabidea ere, atsegin sexuala lortzera (orgasmoa lortzera batez ere) bideratuta dagoena. **Berria - Harian**

## pertsonatasun *iz* pertsona denaren nolakotasuna.

Substantzia honek barmeko sentuaren objektu soila den aldetik materiagabatasunaren adigaita eskuratzen du; substantzia bakuna den aldetik ustelezintasuna; bere identitateak, hura substantzia intelektuala den aldetik, **pertsonatasuna**; hiru atal hauek batera espiritutasuna. **Ibon Uribarri**

Oinarri honekin, arimaren **pertsonatasuna** inoiz ere ez litzateke inferitutzat hartu behar, baizik denboran osoki identikoa den autokontzientziaren esakunetzat, eta arrazoiz honegatik balio du a priori. **Ibon Uribarri**

## pertsonatu, pertsona(tu), pertsonatzen du *ad* epaiketa edo kideko batean, alderdi gisa aurkeztu.

Ziur aski familia **pertsonatu** egingo da, zeren eta osasun zaintzaren aldetik izugarritzko gabeziak egon dira, han direnek esan didatenez. **Berria - Harian**

Litekeena da eskaera atzera botatzea, soilik Batasunaren legez kanporatzean **pertsonatu** ziren aldeek (Fiskaltza eta Estatuko Abokatua) egin baitezakete eskaera hori. **Berria - Euskal Herria**

Fiskalak akusazio idatzian sumarioko enpresen eta elkarten desegitea eskatzen duelarik, erakunde gisa auzian **pertsonatzeko** aukerarik ez dutela izan eta, akusazio hauei eustekotan, pertsona juridiko hauen defentsa eskubidea bermatzeko atzera instrukziora itzuli behar litzatekeela. **Berria - Harian**

## pertsonatxo *iz* *adkor* pertsona.

Gehiengoarentzat, karrera edo obra handiren batean kateatuak dauden [...] giza-emakume handinahi bakanak alde batera lagata, etsigarri beteena beste gizaki bat izan ohi dela, beste pertsona bat, eta batik bat, beste **pertsonatxo** bat. **Iñaki Segurola**

Bi pertsonak bat egin edo bat izatera datozelarik, entretengarrikerik edo bizi-betegarrikerik asko aurki lezaketek: txakur bat erosi, edo etxezulo bat, furgoneta bat..., baina haien ekarrikerik beteena, entretengarrikerik etsigarria daraman jauzi erabatekoa, **pertsonatxo** bat (edo gehiago) ekartzea da, dela bietako baten sabeletik edo dela umezurztegi globalean erositak. **Iñaki Segurola**

## pertsondu, pertsonatzen da/du *ad* pertsonifikatu.

Eta *Oleri* aldizkari Karmeldarren hartan, "Okil" olerkariaren hau, aldagoi bera **pertsonduz**: [...]. **Pello Zabala**

## pertsonifikatu, pertsonifika, pertsonifikatzen 1 da/du *ad* giza nortasuna hartu edo eman. *iknortu*.

Mundu-adigai bat ere badago (*conceptus cosmicus*), zeina beti deitura horren oinarrian ezarri den, bereziki, nolabait esateko, bera **pertsonifikatzen** zenean eta filosofoaren idealean jatorrizko irudi gisa errepresentatzen zenean. **Ibon Uribarri**

Kapitulu oso bat eskaintzen diogu irudia **pertsonifikatzeko**, irudia prozesuen, afektuen, esanahien iturburu egiteko tentaldi honi. **Josu Zabaleta**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Haren irribarra iraingarri zitzaidan, laneko gauzetan, birritan aipatu dudak bezala, arduratasun **pertsonifikatua** bainaiz. **Joxe Austin Arrieta**

### 3 du *ad* ideia edo kideko bat pertsona batek ordezkatu.

Hark **pertsonifikatzen** du, Gonzalez de Duranaren aburuz, bortxakeria politikoak utzi duen biktima oro. **Berria - Kultura**

Bera izango da arkitekturaren ideia, berau arte intelektual bezala hartuz, eta eskuaren eta garunaren, proiektuaren eta egikaritzaren, arteko banandura **pertsonifikatuko** dituen. **Santiago Iruretagoiena**

Aise bilatuko duzu xalotasuna **pertsonifikatuko** dizun beste izenik ere euskal tradizioan: Peru, Pello, Battis, Marixe, Txanton... **Anjel Lertxundi**

Ea turkoek zer funtzio betetzen duten pastoraletan, eta ea zer **pertsonifikatzen** duen turko batek euskal mentalitatean... **Anjel Lertxundi**

**Pertsonifikatu** egiten dugu gure izuaren iturria. **Anjel Lertxundi**

### 4 pertsonalizatu.

Aurkeztutako guztien arimak deskribatu zituen test psikotekniko **pertsonifikatua** egin ondoren, 700 aukeratu zituzten aurre-selektzioarako. **Unai Elorriaga**

## pertsonifikazio *iz* ideia edo kideko bat pertsona batek ordezkatzeko.

Petrisantzen zergatik zen gosearen **pertsonifikazioa**; zergatik Txomin loarena; Martin, bizkortasunarena; Kattalin edo Maritzu, zurrutarenak... **Anjel Lertxundi**

Latinez, Britannia zen Britainiaren **pertsonifikazioa**, emakume batean gorputza. **Julen Gabiria**

Urrezko zekorra jaingo aizunaren **pertsonifikazioa** da Itun Berrian. **Xabier Olarra**

Monoteismoak Baal eta Astarteren gurtza eraitsi zuen, Jahve jeloskor baten lehiakide zokoratuak isilka-misilka judu-ortodoxiaren altzora itzultzen ikusteko bakarrik Jaunaren "Hitzaren", "Jakinduriaren" eta "Aingeruaren" **pertsonifikazioen** mozorroaz. **Iñaki Mendiguren**

"Hemen dugu Galtzazar" esan ohi zuen adineko jendeak, nolabait, Galtzagorri eta antzekoak, deabruen **pertsonifikazio** gisan erabili ohi diren zentzu bereberean, hego haizeari ere pertsonaia bihurtu, deabru, amorragarri zarpajario eta bazter nahasle baten irudia emanez bezela edo. **Patziku Perurena**

Lehen lanean, ispluan ikusten du bere burua, baita bere arimaren **pertsonifikazioa** ere. **Berria - Kultura**

## pertsu ik bertsu<sup>1</sup>.

## pertsuasiaditu, pertsuadi, pertsuaditzen (orobat pertsuaditu) du ad gogatu, bairatu, sinetsarazi.

Entretenituz **pertsuaditzen** gaituzte gaur egun, eta **pertsuadituz** entretenitzen; pertsuasioaren estrategiak berdin-berdin erabiltzen dira informatiboetan, iragarkietan eta politikarien diskurtsoan. **Joxerra Garzia**

**Pertsuaditu** nahi den jende multzoari "target (group) " esaten zaio ingelesez, gerran bezala. **Joxerra Garzia**

Hori lortzeko, ezagutzaileren arimara sosegua eraman behar da eta hori predikatzen den egiari buruz **pertsuadituz** bakarrik daiteke. **Xabier Amuriza**

## pertsuasibo izond gogaten duena, pertsuaditzen duena.

Kazetaritza genero **pertsuasiboa** baita, inondik ere, nahiz Botereak izaera **pertsuasibo** hori ezkutatzeko ahalegin guztiak egiten dituen. **Joxerra Garzia**

Demagun, esaterako, genero judiziala, "iraganeko kontuez arduratzen den genero erretoriko-**pertsuasiboa**". **Joxerra Garzia**

Diskurtsoak **pertsuasiboa** izan behar du. **Xabier Amuriza**

Entretenimendu hutsa diruditen diskurtsoak ere **pertsuasiboak** direla ohartarazi zigun Aristotelesek. **Joxerra Garzia**

Ortodoxia dago zalantzan, eta gero eta **pertsuasiboagoak** izan argumentuak, orduan eta larriagoa izango da iraina. **Iñaki Heras**

## pertsuasio (orobat pertsuasio) 1 iz gogatea, pertsuaditzea.

Entretenituz pertsuaditzen gaituzte gaur egun, eta pertsuadituz entretenitzen; **pertsuasioaren** estrategiak berdin-berdin erabiltzen dira informatiboetan, iragarkietan eta politikarien diskurtsoan. **Joxerra Garzia**

*Disposizio*ren gakoa **pertsuasioa** eta logikaren legeak era egokian erabiltzean datza; harik eta entzulea atrapatu arte. **Txema Ramirez de la Piscina**

ETAren azkena «**pertsuasioaren** bidetik» lortu behar dela uste du Erkorekak, eta ez bide polizial hutsaren bidetik. **Berria - Kultura**

Marketina ez al da ba izango, **pertsuasioaren** eta informazioaren distortsioaren bidez (labelak, zertifikatuak, cause marketing kanpainak, eta abarrek sorturikoak), kontsumitzaileari indarra kentzeko beste estrategia bat? **Iñaki Heras**

Horixe zen **pertsuasiozko** diskurtso orok nahi zuena: informatu ez ezik, hartzailearen arima transformatu. **Xabier Amuriza**

Pasatzen ez den denbora bat nahi nuke, **'pertsuasioaren'** ordua, bai baitakit ez daukadala nire zain biziaren ari naizen presentea baino ederragoa den ezer. **Anjel Lertxundi**

## 2 (hitz elkartuetan)

Historia bat, alegia, **pertsuasio** -indar nahikoa izango duena lankideak gogatzeko. **Juan Garzia**

Homeroren testuetan aurki daitezkeen **pertsuasio** -bideak -hitz ederra, mitologiaren erabilpena, adibide eredugarriak...- Aristotelesek maila gorenean sintetizatu zituen.

**Txema Ramirez de la Piscina**

## pertsulari ik bertsolari.

## pertsularitza ik bertsularitza.

## pertsuna ik pertsona.

## pertsuzale ik bertsozale.

## perttolikeria iz ipar ergelkeria, hutsalkeria.

Ez dena **perttolikeria** edo lizunkeria. **Janbattitt Dirassar**

Akiarazten naute beren **perttolikeriekin**; ezkerrean badituen nik dakita zenbat hautagai ontsa kakiten dituen herriaz; bren zilkoaz baizik ez dituen axolarik. **Eneko Bidegain**

Ametsetako zeru arin baten itxura enganakor zerbaitek hazten duen **perttolikeria**. **Janbattitt Dirassar**

## perturbatu, perturba, perturbatzen da/du ad nahasi, nahasmendua eragin.

Horrela, behazun larrak sukarra ematen dionarengan, edo beste edozergatik gaixotasun gogorra nagusitzen denarengan, gorputz osoa **perturbatzen** da eta lehenkien parakera guztiak hankazgoratzen dira. **Xabier Amuriza**

Zergatik gertatzen da hori, ardoaren biolentzia sutsuak arima gorputzean bertan **perturbatu** ohi duelako ez bada? **Xabier Amuriza**

Baziren heriotzaren beste seinale batzuk ere: gogoia izuz eta esturaz **perturbatua**, bekosko errukarria, aurpegi latz eta sumindua, belarri gerakak eta burrundaz beteak. **Xabier Amuriza**

## perturbazio iz nahasmendua.

Dentsitate ezberdineko bi gai izanda, elkar ukituz, **perturbazioak** sortuko dira, gero eta handiagoak. **Fernando Morillo**

## pertxa iz esekigailu kakoduna, arropa-esekitzekoa.

Soineko beltz luze bat dakar, **pertxa** batetik zintzilik. **Anjel Lertxundi**

Kanpoan, korridoreetan, **pertxak**, eta haietan gure jantziak zintzilikatuta. **Pello Lizarralde**

Arropa guztiak **pertxa** batean zintzilikatu behar ziren. **Harkaitz Cano**

Handik gelarako bidean, armairu bat hiruzpalu **pertxa** kateaturekin; gelan bi ohe, hiru aulki eta mahai bat telebistarekin. **Hasier Etxeberria**

Batzuk buruz behera zeuden itsatsita eta bertan ageri ziren boxeolariak **pertxa** batetik zintzilik jarritako saguzar erraldoien antza zuten. **Harkaitz Cano**

**Pertxazko** alanbrea lepoaren inguruan lotu zion Martak, Patakik amasa hartzeari utzi zion arte. **Harkaitz Cano**

## pertxenta (orobat pertxent; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren pertxenta ageri da) 1 izond liraina, zalua, txairoa. ik poxpolin;

## pinpirin. (emakumezkoen mintzatuz)

Nik bai bitxia kausitu Hanna hura, berrogeita hamar urteko andere bat neskatila **pertxent** baten gisa filosofatzen ari, alegia, hain itxura akatsik gabeko eta erakargarriko emakume bat, hain nortasun nabarmen eta hain itzal handiko dama bat, horratik. **Joxe Austin Arrieta**

Nik Isidorarekin hiru gauza ekarri ditiat etxera: emakume **pertxenta**, sukaldari fina eta abizen dotoredun andrea. **Pako Aristi**

Herrietako neskatxak eta Baionako jostun **pertxentak** usu ongi zulutauk izaten dituzten sargazko atorretan mainatzen dira, atorrek ezkututzen dutena zuloek erakusten dutenez futitzen direla. **Koldo Izagirre**

Adiskide atsegin hori, egia ez duk neskatxa polit ezti **pertxenta** bati esateko moduko gauza. **Antton Olano**

-Zoriontsua mutilaren begie jo duten emakumea! -ahoskatu zuen, edo airera esan, Brigidak, hiru aldiz ezkondu eta hiru aldiz alargun geratu zen emakume **pertxentak**. **Felipe Juaristi**

Eta eraman ere bai, ez etxeraino, Brigida **pertxentak** eta Margarita pinpirin nahi bezala. **Felipe Juaristi**

Dama gaskoi gaztea zen; gazte bezain eder **pertxenta**. **Martin Anso**

Poz handia guretzat, Patri, **pertxenta** baitzen, zinez, gure amonen amona xarmangarri hura. **Hasier Etxeberria**

Katalina, haren anaia Karlos bezala iluna eta baldarra izan beharrean, neska **pertxenta** zen, irribarretsua, alai eta oso polita. **Koro Navarro**

Inoiz ikusi dudak neskatxarik **pertxentena** zara. **Antton Olano**

Segurtamen osoa zuen ezen bere laztana munduan zenik eta gazterik **pertxentena** zela, eta ez zuen horren zalantza izpirik. **Patxi Zubizarreta**

Adio, **pertxenta**, emakumetan ederrena... **Patxi Zubizarreta**

Ez al da egia, ene **pertxenta**? **Patxi Zubizarreta**

## 2 (bestelakoez)

Bestalde, gorpuzkera **pertxenta** zuen eta itxura paregabea. **Patxi Zubizarreta**

Begi handi ilunak, gorputz txiki polit **pertxenta**. **Oskar Arana**

Haien ibilera **pertxent** eta jariakorra, nesken gonaska urdin kanpai-erakoak eta buruko painelu zuriak, eta beltzenak bezalako eskumuturrekoak. **Joxe Austin Arrieta**

## 3 emakumez mintzatuz, jenio bizikoa-edo, erantzun txarrekoa-edo.

Ugazalaba, hemezortzi urtekoa, **pertxenta** samarra izango da, ia lotsagabea. **Josu Zabaleta**

## 4 mari pertxenta ik mari 28.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**emakume pertxenta** (5); **neska pertxenta** (4)

**brigida emakume pertxentari** (3)

## pertxero iz pertxak edo kakoak dauzkan altzaria, arropak esekitzeko erabiltzen dena.

Bere bulegoan sobera leku zuen nahi izanez gero zutikako gakoa bertan jartzeko, baina ez: gurean jarri zuen **pertxero** hura, eta jaka ere, hantxe zintzilikatzen zuen.

**Harkaitz Cano**

Mandataria han-hemenka zebiltzan mahaien artetik, arropaz beteriko **pertxero** mugikorrek bultzaka. **Lopez de Arana**

Orduan nagusia sartu zen bere jaka luzea **pertxeroan** zintzilikatzera. **Harkaitz Cano**

Beheko solairuan, zutikako **pertxero** bat ikusi nuen gabardina bat eta kapelu bat zintzilik zituen. **Harkaitz Cano**

**Pertxeroan** zintzilikatutako gabardinarekin besoarekin xukatu nituen malkoak. **Harkaitz Cano**

Telefonoa eskegi eta txaketa hartu zuen **pertxerotik**. **Harkaitz Cano**

## pertxeroi (orobat pertxeron) 1 izond zaldiez mintzatuz, frantziar arrazakoa, gorputz handi eta sendakoa.

Trenez Lurderaino joatea erabaki genuen; eta, handik gero, Argelès eta Pierrefittetik, lau zaldi **pertxeroik** tiratzen zituzten "oso karroza dotore eta erosotan" (propagandak azaltzen zuenek), Cauterets-eraino iritsi. **Txillardegi**

Poligonotik hara, bide zaharrean goitik behera, Motxo ilegorria eta bere zaldi **pertxerona** pasatu ziren atzean esne marmitekin lera zeramala. **Pablo Sastre**

## • 2 iz zaldi pertxeroia.

Errabinoa kalea gurutzatzen hasi zen, eta ozta-ozta ez zuen azpian harrapatu bi **pertxeroik** zeramaten orga batek. **Koro Navarro**

## pertz (orobat pertza g.er.) 1 iz egosteko-eta erabiltzen den ontzia, euskarri bakarra eta mugikorra duena; bereziki, laratzean zintzilik egoten dena. ik galdara; pazia.

**Pertza** ekarri zuen gero, ura han hustu eta laratzean zintzilikatu zuen **pertza**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kanpaiaren erditik kate beltz lodi bat jaisten zen, eta katearen muturreko kakoan **pertz** bat zegoen esekia. **Koro Navarro**

Gaineratiko eskaintzak eltze, **pertz** eta lapikoetan egosi eta herritarren artean banatu zituzten arretaz. **Elizen arteko biblia**

Etxe aurreko ate inguruan katuskak zeuden denak nahasian, eta erabat herdoildutako **pertz** bat. **Iñaki Mendiguren**

Egiptotik etorritakoak zirelakoan, hor ditugu ijitatu edo ijituak edo hungariatik zetozelakoan hungarioak deitutakoak, bere lapiko eta **pertza**... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Baziren han poteak, lurrontziak, **pertzak**, azpilak, latorrizko lanabesak, lapiko sakonak, [...]. **Karlos Zabala**

**Pertz** handi bat dakarte kirtenetatik helduta, kea dariola. **Rafa Eiguren**

Lurrina zerion salda betetako **pertzari**; latorrizkoa zen, eztaizuz estalia, eta behe sutegi txiki baten gainean zegoen jarria. **Karlos Zabala**

Azkenik, olio irakiten hasi zenean, **pertza** hartu, eta zahagi bakoitzean olio irakina botatzen hasi zen, lehengotik hasi, eta azkenera arte. **Patxi Zubizarreta**

Bi emakumeak gosaltzera jaitsi zirenean, burruntzalia **pertza** batean sartu, eta txokolatea katiluetan banatzen ari zen ostatuko etxeoandrea. **Anjel Lertxundi**

Berun irakinez beteriko **pertz** batean eskua sartu, eta eskukada bat likido atera omen zuen inolako kalterik izan gabe. **Irene Aldasoro**

Pazia zaharrak **pertzari**: ken hadi ipurbeltz hori! **Josu Zabaleta**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Etxe-lantegiko emakumeak **pertz** handi bat ekarri zigun, zopaz bete. **Juan Kruz Igerabide**

Baditugu hiru **pertz** handi, gainera, kontserbak egiteko, eta aska bat ur biltegi bezala erabiltzeko. **Josu Zabaleta**

Sukaldariak esan zuen norberaren irudia ikus zitekeela kobrezko **pertz** handi haietan. **Irene Aldasoro**

Nire begirada bilatzaileak laster hauteman zuen **pertz** ketsua garraiatzen zuen taldea. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 3 (neurri gisa) ik pertzakada.

Ekarriko diat **pertza** bete ur. **Anton Garikano**

Hankarteak garbitu zion bi **pertz** bete ur berorekin, eta gero izarekin lotu zizkion sabela eta bagina. **Anton Garikano**

**Pertz** handi bat bete ur hartzen nuen eta buru gainera botatzen nien. **Gotzon Garate**

Bi **pertz** bete masusta hartu eta hamar, agian hamabi tarta egitea. **Anton Garikano**

## 4 (hitz elkartuetan)

Aitak behiak jertziko ditu eta esne **pertz** mukururaino beterik igoko ditu eskailerak. **Iñaki Zabaleta**

Eta kristoren aza-**pertz** omen dauka aurrean, mahai gainean, eta koilara ere kristorena, pala bezalako. **Irene Aldasoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi pertz bete** (4); **pertz handi** (7); **pertz handi bat** (3); **pertz jarioduna** (5); **pertz jariodunean** (9); **pertz jarioduneko** (3); **pertz jariodunera** (7)  
**pertzaren bila** (4)

## pertzakada *iz* pertz betearen edukia.

Ea kanona Assilahn baino ere zabalagoa den eta **pertzakada** bete kafe jartzen didaten. **Bernardo Atxaga**

- **Pertzakada** bat egin dut -jarraitu zuen Snapek-. **Iñaki Mendiguren**

## pertzegile *iz* pertzak egiten dituen eskulangilea. ik **perzkin**.

Donostiako karriketan agertuko dira kauter edo **pertzegileak**, urtarriaren 29 eta 30ean, beren eltze eta zartainekin zernahi arrabots eginez. **Herria**

Burdinaz egina zirudien Sandrok, eta ahaidetasun antzinako batez loturik zegoen, hain zuzen, burdinari: beraren gurasoen gurasoak, kontatu zidan, **pertzegile** ("magnin") eta errementari ("fre") izan ziren Canava aldeko ibarretan. **Juan Garzia**

## pertzentil *iz* estatistikan, banaketa normalaren ehun zatietako banatzean oinarrituz egiten den neurketa estatistikoa.

- **Pertzentiletan** erdi-erdian. **Arantxa Iturbe**

## pertzepitibo *izond* hautemateari, pertzepzioei dagokiena.

Errealitate-aztarren **pertzepitiboak** eta psikologikoak: argazkiaren guztiak, eta horietaz gainera itxurazko mugimenduaren oinarri-oinarrizko eragilea. **Josu Zabaleta**

## pertzepitologia *iz* pertzepzioaren azterketa.

Hor dira **pertzepitologiako** laborategietan egiten diren pertzepzio-iruzurrezko esperimentuak ere, ikusleari diapositiba bat eta kartoizko maketa bat nahasarazten zaizkionak, adibidez. **Josu Zabaleta**

## pertzepitu *iz* hautematearen helburua.

Teoria hauen arabera, pertzepzio sistemak egiazko **pertzepituak** sortzen ditu, inguruko munduaren errealitatearekin ados datozen **pertzepituak** alegia, aldagaiak zenbait araurer arabera konbinatuz gero aurretiazko iragarpenak egiteko aukera ematen dutenak. **Josu Zabaleta**

Bada, Arnheimen iritzian, bestelako pentsamolde beratikoa bat, hizkuntzaren bidez bideratzen ez dena [...] gure zentzumen-organoen **pertzepituetan** oinarrituta zuzenean antolatzen dena baizik: zentzumenezko pentsamen bat. **Josu Zabaleta**

Ikusmen-aparatuaren eginkizuna ez da, haren iritzian, ez inputak "deskodetzea", ez **pertzepituak** "eratzea", informazioa ateratzea baizik. **Josu Zabaleta**

## pertzepzio ik pertzepzio.

## pertzepzio (*orobat pertzepzio g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian pertzepzio agertzen da*) **1** *iz* zentzumenen bidez ezagutzea edo sumatzea. ik **hautemate**.

Kanpoko errealitatez janaritzen dira zentzuak, eta errealitate horiek nobleago bihurtzen dira, **pertzepzioaren** beste izaera bat hartzen dutenean. **Joan Mari Lekuona**

Aristotelesentzat hori hautematea da, **pertzepzioa**; hortik dator indukzioa ondoren. **Askoren artean**

Izpiritua largatu zait, laxatu, haitzaren nasaia ene izate osoan sartzera doa, **pertzepzioa** sendimendu bilakatzen zaidala ohartu gabe. **Piarres Aintziart**

**Pertzepzioa** bera ere ez da bat-bateko gertaera: **pertzepzioaren** aldi batzuk oso bizkorak dira, beste batzuk, ordea, askoz ere geldiagoak. **Josu Zabaleta**

**Pertzepzioak**, norberarenak dira beti. **Iñigo Aranbarri**

Errealitateari buruzko gure **pertzepzioa** gero eta zatikatua da, Informazioaren teknologien ondorioz, edo erruz, besteak beste. **Iban Zaldua**

Koloreen **pertzepzioa** erretinako hiru kono mota desberdinen jarduerak erabakitzen du. **Josu Zabaleta**

Espazioaren **pertzepzioaren** azterketa. **Josu Zabaleta**

Adituek diote estetikaren **pertzepzioa** Homo Sapiensarekin agertu zela. **Berria - Gaiak**

Bere osoan hautematen zituen sententzioak, eta **pertzepzioa** haien guztien ondorioz, gero, grabatzerakoan, gogoak gidatzen zion besoa, eskua, zizela, latorriaren gainean bere bidea aurki zezan. **Iñaki Iñurrieta**

Irudi batek ilusioa eragiten duela esaten da irudi haren ikusleak estimuluaren ezaugarri fisikoren batekin bat ez datorren **pertzepzioa** bat deskribatzen duenean. **Josu Zabaleta**

Ipar Euskal Herriko irakurleek, seguru asko, beste **pertzepzioa** bat izango dute. **Berria - Kultura**

Literaturaz beste **pertzepzioa** bat dugu, badakigu literatura ezin dela gehiegi etiketatu, kaxoitxoetan sartu eta armairuan giltzapetu. **Ana Urkiza**

Elkartasunaren kontzeptuaren atzean badago beste **pertzepzioa** bat ere: 'gaur haiei gertatu zaien hori, bihar guri gerta dakiguke'. **Berria - Gaiak**

Ingurua arrotza da; sententzioa eta **pertzepzioak** -berezkoak izanik ere- berriak dira, zorrotzagoak segur aski. **Filipe Bidart**

Oso zaila zela, alegia, "oinetako hiritarrari" (hau da, fede gutxiokari) delako kubotzar horiek gustatzea, zeren kuboek eskatzen duten **"pertzepzioa"** ez baita sensoriala.

**Iñaki Seguroa**

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Are gutxiago ezkontzen da gizakien **pertzepzioa** moralarekin Poliziak ume bat krudelki hiltzen uztea bahitzaile baten duintasuna zaintzeagatik. **Berria - Mundua**

Globalizazioa sufritzen dutenek elkarren berri izan eta herrien **pertzepzioa** kolektiboan aurreratzen saiatzean datza ideia. **Berria - Mundua**

Ez dut esango horren guztiaren **pertzepzioa** gardena nuela orduan, baina hor dago, ordea, Shakespeare-ren eta Molière-ren obrak osorik lehenago irakurri izana, Lope de Vegarenak eta Calderón-enak baino. **Anjel Lertxundi**

Distiraldi-segida bat, elkarren segidan oso bizkor, tarte kritikoa bat baino bizkorrago gertatzen baldin badira, **pertzepzioa** bakar batean "bateratzen" dira distiraldi guztiak.

**Josu Zabaleta**

Ikustea, ikusmenezko atzematea, ikusmenezko **pertzepzioa** oso jardura konplexua da. **Josu Zabaleta**

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mugimenduaren **pertzepzio**-ereduak. Josu Zabaleta

Pertzepzioa anbiguoa denean ia beti beste adierazle batzuen bila ari denez, oso gutxitan gertatuko da ilusioa, non eta **pertzepzio**-baldintzak ez diren oso mugatuak, eta ez dioten ikusmenari bere "bilaketa" galarazten. Kolorearen konstantzia, berarentzat, pertzepzioaren konstantzia lortzeko dugun moduaren kasu berezi bat zen, zentzumenetako jario kaotikotik oro har **pertzepzio**-mundu egonkor bat sortzeko dugun moduarena. Josu Zabaleta

Pertzepziozko eskemen existentzian oinarritzen da ikuslearen **pertzepzio**-ahalmen hau. Josu Zabaleta

Irudiak [...] gainerako gauzak bezalaxe dira ikusgai, neurri bateraino behintzat, haien **pertzepzio**-lege berberen mende baitaude. Josu Zabaleta

**Pertzepzio**-apartuak argitara erreakzionatzean dituen ezaugarri nagusiak. Josu Zabaleta

**Pertzepzio**-iraunkortasuna guk egiten dugun konparazio etengabea da, ikusten dugunaren eta ikusi dugunaren arteko konparazio etengabea. Josu Zabaleta

Inbariantzaren hipotesi honek lotura estua du, beraz, lehenago aipatu den **pertzepzio**-jarraitasunaren fenomenoarekin. Josu Zabaleta

Arazoa - **pertzepzio** arazoa- benetakoa da. Iñigo Aranbarri

Billkuretan sobera luzaz neska gazteari so egon ez nahiz, nere barnearen barnean nuen ikusten, **pertzepzio** -ihesak kontenplazio iraunkor bilakatuz. Piarres Aintziart

Garuneko beste alde batzuetako lesioek beste nahasmendu batzuk sor ditzakete sentimen nahiz mugimenean, mintzamenean nahiz **pertzepzio** -, ezagumen- edo oroimen-funtzio espezifikoetan. Xabier Olarra

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aspalditik egiaztatua dago, ordea, egoera jakin batzuetan gerta daitekeela inolako egiazko mugimendurik gertatu gabe mugimendu-**pertzepzio** bat gertatzea. Josu Zabaleta

Erretinatik garuneko ikusmen-alde primarioa igortzen ziren "zentzumen-datu" edo "inpresio"ekin parekatzen zen ikusmen-**pertzepzioa**. Xabier Olarra

"Izugarri ongi" egiten zituen ikusmen-**pertzepzioko** ia test guztiak; lerro-orientazioa, ikusmenezko formaren osatzea, kubo-elkarketa eta abar neurtzeko testetan, esaterako, ia ehuneko ehun lortzen zuen savantak, eta normalek baino lehen bukaturik. Xabier Olarra

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

mugimenduaren **pertzepzio** (4); **pertzepzio jarraitasuna** (3); **pertzepzio modu** (4)

denboraren **pertzepzioa** (3); **espazioaren pertzepzioa** (3); **formaren pertzepzioa** (3); **gure pertzepzioa** (6); **ikusmenezko pertzepzioa** (9); **irudien pertzepzioa** (3); **koloreen pertzepzioa** (4); **mugimenduaren pertzepzioa** (6)

**gure pertzepzioak** (5)

**gure pertzepzioan** (3)

**formaren pertzepzioaren** (3); **ikusmenezko pertzepzioaren** (10); **pertzepzioaren azterketa** (3); **pertzepzioaren ikuspegitik** (3); **pertzepzioaren teoria** (6)

**ikusmenezko pertzepzioari** (4); **irudien pertzepzioari** (4); **irudien pertzepzioari dagokionez** (3); **pertzepzioari buruzko** (5)

**pertzepziozko errealitate bikoitza** (3)

## pertzibiarazi, pertzibiaraz, pertzibiarazten du *ad* pertzibitzera behartu.

Noranzkoaren jarraitasuna, adibidez, finko dauden gauzen noranzkoa erretinatiko irudia aldatuagatik ere gauza finkotzat **pertzibiarazten** duena, besteren artean gorputzaz atzemandako noranzkoa ere kontuan hartzen duen algoritmo baten ondorioa izango litzateke. Josu Zabaleta

Zinemak, gertaeren iraupena azpimarratzen duenean, ia denbora **pertzibiarazten** digulako. Josu Zabaleta

## pertzibitu, pertzibi, pertzibitzen du *ad* zentzumenen bidez sumatu edo ezagutu. ik **hauteman**.

Esperimentuek egiaztatu duten zentzuzko beste ideia bat: forma **pertzibitzeko** denbora behar da. Josu Zabaleta

Horrela, garbi geratzen da, begien aurreko gauzak **pertzibitu** ere, analisi global baten arabera **pertzibitzen** ditugula, azken finean. Koldo Izagirre

Berez hori duk... nondik hasten haizen, gero nola harritzen dituan entzuleak, nola **pertzibitzen** duan haien mundua, nola eragiten dioan haien munduari... J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hurbiltasunaren legea: elkarrengandik hurbil dauden elementuak aiseago **pertzibitzen** dira forma bateratu baten osagarri gisa elkarrengandik urrutiago dauden elementuak baino. Josu Zabaleta

Aski izan bedi esatea zelula multzo batzuk, hasi erretinatik eta kortexeraino, kolorea **pertzibitzen** espezializaturik daudela, eta horixe da, hain zuzen, gure ikusmen munduaren oinarri-oinarritzko dimentsioetako bat. Josu Zabaleta

Zenbat forma eduki dezake denborak, guk **pertzibitzen** dugunaz landa? Jon Alonso

Irudia gainazal plano bat bezala **pertzibitzen** delako **pertzibi** daiteke hobeto irudian irudikatzen den irudimenezko hirugarren dimentsioa. Josu Zabaleta

Badirudi, itxuraz, argitasunak duela hemen lehentasuna, kolorearen eta formaren beraren aurretik: argiari dagokion zerbait bezala **pertzibitzen** da, itxura denez, "lehendabizi" mugimendua, eta geroago atxikitzen zaio, nonbait, mugimendu hori forma bati eta, horrenbestez, gauza bati. Josu Zabaleta

Horregatik esaten diogu, hain zuzen, pantaila-efektua, **pertzibitzen** ditugun gauzen desestaltze horri. Josu Zabaleta

## pertzibitzaile *izond/iz* pertzibitzen duena.

Egia esateko, begirada hitza erabiltzen den zentzu guztietan, baita arruntenetan ere, ongi bereizten da ikuste soiletik, begirada **pertzibitzailearengandik** sortzen baita, modu eraginkorrago eta gutxi-asko berariazko batean. Josu Zabaleta

## peruano *izlag/iz* peruarra.

Zinez erraten dizut ez duzula harrapatuko munduan jende **peruanoa** baino zintzoagorik, leialagorik, langileagorik. Hasier Etxeberria

## peruar ik **perutar**.

## perugar *izlag/iz* Perugiakoa, Perugiari dagokiona; Perugiako herritarra.

Baina asistar herriak aurre egin zien bai noble herrikideei, bai **perugarrei**. Askoren artean

Hau zioen, **perugarren** eta asistarren arteko gorrotoa aspaldikoa zelako. Askoren artean

## perukurrilada *iz* egia jakina, Pernandoren egia.

Kurrilo bihotzekoak! (edo **perukurriladak**). Patziku Perurena

## perukurriilo *izond* egia jakinei dagokiena.

Sekulan ez nuen usteko neure ofizio **perukurriilo** honetan maisulehen izanak zintuztedanik. [Patziku Perurena](#)

## perutar *(orobat peruar; Euskaltzaindiaren Hiztegian perutar agertzen da)* 1 *izlag* Perukoa, Peruri dagokiona

Alabak **perutar** gizongaia aurkitzen du eta Eguberriak ospatzera etortzeko asmoa duela iragartzen die burasoei. [Berria - Kultura](#)

Alejandro Toledo **Perutar** lider populistak. [Iñaki Heras](#)

Mario Vargas Llosa **peruar** idazle ezaguna literaturako Nobel saritit gertuago dagoela esan daiteke atzodanik. [Berria - Kultura](#)

1992-1993an Osman Bendezu **perutarrarena** izan zen taldea zuzentzeko ardura. [Berria - Kirola](#)

Isidro Oyola ingeniari **perutarraren** arabera, 200 kilo urre ateratzeko 480.000 tona lur emankor irauli behar dira. [Berria - Gaiak](#)

## 2 *iz* Peruko herritarra.

Jose Roberto Marro Ibarra, abokatua eta sortzez **perutarra**, proposatu du Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak Eusko Jaurlaritzako Immigrazio zuzendari izateko. [Berria - Euskal Herria](#)

Hauxe izango duk benetako mundializazioa, pentsatu zenuen, **perutar** batek egindako sukalde frantsesa, Elizondoko jauregi indiano batean eserita dastatzea. [Hasier Etxeberria](#)

Hura **perutarren** lurraldea da, Pedro eta Matilderena, eta esan gabe daki jauregia osorik eta bere inguruak direla Aldazek aukeran jarri dizkion bakarrak. [Hasier Etxeberria](#)

Orotara 16,5 milioi **perutar** daude bozkatzera deituta. [Berria - Mundua](#)

Imajinatzen duelako tribuko kontalari profesionala ipuin baten erdian[...] edo Limako Plaza de Armas-en eguzkiak kiskalitako **peruar** bat. [Unai Elorriaga](#)

## perzkin *iz* pertzak egiten dituen eskulangilea. ik *pertzegile*.

**Perzkinak** auzoko emakumea haurdun uzten badu, ez du ahaleginik aski eginen bere ingurukoek jakin ez dezaten, bere emazteak bereziki. [Aingeru Epaltza](#)

## perzpektiba ik *perspektiba*.

## pesadunbre *iz* nahigabea, atsekabea.

Horixe dute berdin-berdina gaixoaren eta presoaren **pesadunbreak**. Gero dastatu genituen liskarraren xuingoma, amorrazioaren gaitzainak, hiraren mahats-aleak eta **pesadunbrearen** mahats-mordoak. [Hasier Etxeberria](#)

## pesalonbre *iz* nahigabea, atsekabea.

Ai, hau pena ta **pesalonbrea** : senarrak haurra ukatu! [Patziku Perurena](#)

## peseta ik *pezeta*.

## pesimismo *(23 agerraldi, 11 liburu eta 4 artikulutan; cf ezkortasun 68 agerraldi, 20 liburu eta 32 artikulutan)* *iz* ezkortasuna.

Bere **pesimismoak**, ordea, barealdi hark luzaro ez zuela iraungo pentsarazten zion. [Josu Zabaleta](#)

Harentzat etsipena, **pesimismoa**, eta gogo-abaildura gauza higuigarri eta hobendunak ziren. [Juan Garzia](#)

Bere **pesimismoari** umore beltza baino areago, ironia iluna eransten zion gero. [Harkaitz Cano](#)

Ospitalera joaten hasi eta egun gutxitara, Schopenhauerren **pesimismoa** ia egia matematiko bat zela pentsatzeko tentatuta zegoen Andres. [Josu Zabaleta](#)

-Existitzeko arrazoirik bat ere ez: esan nahi duzu, jauna, bizitzak ez duela xederik? ez al da hori **pesimismoa** esaten zaiona? [Monika Etxebarria](#)

Kostunbrista den aldetik koadro moduan aurkezten dizkigu gaiak, eszenario batean bezala, eta anekdotak badu umore tantaren bat gehienetan, **pesimismoan** edo espantukeria ez erortzeko aproposa. [Berria - Kultura](#)

Eta zientzia, ez ote da **pesimismoaren** beldurra, eta hari ihes egiteko bide seguru bat? [Iñaki Segurola](#)

## 2 *(izenondoekin)*

**Pesimismo** beltz horri kontra egitea, ez ote da sufritzeko beldurrez dagoen gizonak bere buruarentzat asmatzen duen babesgarri bat? [Iñaki Segurola](#)

Ordaz geroztik, kontakizun eta drama ugari idatzi zituen, zeinetan bere gogo-aldarte etsitua eta **pesimismo** sakona islatzen zituen. [Jose Morales](#)

**Pesimismo** totalaren metafisikara gakartza Schopenhauerrek. [Askoren artean](#)

Hobbesen **pesimismo** antropologikoaren atzetik, herritartasunaren teoriari egindako ekarpen positiboa ezkututzen da. [Esteban Antxustegi](#)

## pesimista *(17 agerraldi, 9 liburu eta 4 artikulutan; cf ezkor 442 agerraldi, 63 liburu eta 278 artikulutan)* 1 *izond* ezkorra.

Burtsak, epe luzeko tituluentzat eskaturiko etekinen goraldiak desorekatuak, munduko ekonomiari buruzko albiste **pesimistek** zoratuta, behera eta behera joan ziren. Gehienek argitaratzaileen eragozpenak berak ikusi zituzten: gertaera gordinak, tonu **pesimista** ... eta, batez ere, xede edo helburu falta. [Koro Navarro](#)

Metodo groteskoa baliatuz, giza bizitzaren oso koadro eskematiko eta **pesimistak** marrazten zituen. [Jose Morales](#)

Itxaro Borda pertsona alaia eta **pesimista** da batera, ironiazalea, zorrotza eta kritikoa. [Ana Urkiza](#)

Izaeraz **pesimista** zen eta ez zeukan sinesmen handiegirik gizakiengan. [Berria - Kultura](#)

Gelditasunak, gauza guztien hutsaltasunak eta zikinkeriaz zuen susmoak geroz eta **pesimistago** sentitzera zeramaten Hurtado. [Josu Zabaleta](#)

## • 2 *iz* pertsona ezkorra.

Izan ere, **pesimistek** esaten dutena gorabehera, gauza ederra da bizitza. [Jose Morales](#)

Zer gertatuko litzateke **pesimista** bat urkatuko balute? pena emango lioke bizitza uzteak, pena handia. [Jose Morales](#)

Izaeraz **pesimista** zen eta ez zeukan sinesmen handiegirik gizakiengan. [Berria - Kultura](#)

## peskiza 1 *iz* azterketa, bilaketa.

Bi erdi egina nindukaten bai **peskiza** hartan aurrera egiteko gogoak bai hura guztia gainetik kendu eta ahal bezain azkar saltzeko desira gero eta indartsuagoak ere. [Joxan Eloegi](#)



Ez nire **peskizek** ez beste inorenik izan du etekinik. **Anjel Lertxundi**

Nire eguraldia antzemateko **peskiza** haizea usainduz hasten zen. **Pello Zabala**

Barne barnetik segitu ditugu **peskizak**. **Herria**

Eta, noski, zigorra datoriko **peskizak** atarramentu onik atera badu. **Pello Zabala**

**Peskiza** horietan, etxeoandrea ikusi du sukaldeko atea zabaltzen, hango lanak bukatuta. **Anjel Lertxundi**

## 2 *peskizansup\_1 adlag* bila, azterten.

Aziendak mendi altuenetatik behera abiatzen dira, hango larrea gorritu ahala, beheko zokoetan dagokenaren **peskizan**. **Pello Zabala**

Bakoitza ahal zuen moduan ibiliko zen eguraldiaren **peskizan**: batez ere arrantzalea eta laboraria, guztiz kezkatuta. **Pello Zabala**

## 3 *peskizansup\_2 adlag* menturan; zain.

Harrigarria zen adimen hartako gizona hain behera makurtu izana -baina oso esaldi gogorra zen hori- horrenbestearaino egotea inoren lausenguen **peskizan**. **Anton Garikano**

Zer nenbilen ni orduan ere pentsu haien hausnarrean eta esperantza faltsuen **peskizan**. **Joan Mari Irigoien**

Ez zebilen noski titulu eta ohore handien **peskizan**. **Aingeru Epaltza**

Horik osterantzekoei aurre egitea, baina, han edo hemen aurki zezakeen lanen baten edo besteren baitan zegoen, eta ezin utzi zion sekula haien **peskizan** ibiltzeari.

**Mirentxu Larrañaga**

Hantxe esertzen zen irutera edo puntu egitera, auskalo zeren **peskizan**. **Juan Garzia**

Eta hi, zeren **peskizan** habil, asko galdetzea ez baduk? nekatuta nengoela neure bizitza apurka-apurka gastatzeaz ia ezinezkotzat jotzen nuen iraultza baten **peskizan** eta jadanik galdutzat neukan amodio baten piltzarrei eutsi guran. **Harkaitz Cano**

Txarrenaren **peskizan** egin nituen itxaronaldi luzeak, baina ez urduri. **Anjel Lertxundi**

Baina nola esan amonari saltzaile irtirina ez zebilela bere atzetik, ni bezalako mutil gazteen **peskizan** baizik? **Anjel Lertxundi**

Txolarre eta usapal ez gutxi inguruetan, **peskizan**, zer "jausiko". **Txillardegi**

## peskizatu, peskiza(tu), peskizatzen du *ad* peskizan ibili.

Katedra-hitzaldiak eman zituen Buenos Aires, Texas eta Harvard-eko unibertsitateetan, kritikak oraindik **peskizatzen** duen Genevako batxilergo lauso bat beste titulurik gabe.

**Juan Garzia**

Urte guziz bezala, *Baionan Kantuz*-ek bere erreperorioa aberasten du, ezin agortuzko euskal kantutegian **peskizatu** kantuekin. **Herria**

## peso *iz* Hispanoamerikako zenbait herritako eta Filipinetako dirua.

Don Pedro Páramok dirua kontatzen zueneko idazmahaiaren gainean **pesoek** ateratzen zuten txin-txin hotsa entzuten zuen. Hogei zentabokoa utzi, eta **pesoari** heldu zion.

**Juan Garzia**

Ikertzaileen diru-ordainak lanaren arabera izango direla dio; ez dira 200 edo 300 **pesotik** gorakoak izango. **Edorta Jimenez**

## pesotxo *iz* adkor pesoa.

Ba halaxe, nire libera bihurtutako **pesotxoak** berehala joan ziren norabait. **Unai Iturriaga**

## pesta ik **besta**.

## pestakari ik **bestalari**.

## pestaliar ik **bestaliar**.

## pestaliar ik **bestaliar**.

## pestazale ik **bestazale**.

## peste 1 *iz* adkor gauza oso txarra.

Eta horrekin individualismoa, moralkeria, pentsamenduaren atzerapena, deshumanizazioa, **pestea** Luisa, **pestea** ! **Pako Aristi**

### • 2 *izond* oso txarra, ezin jasanezkoa. ik **pestoso**.

-Euskaldun **pestea** ! menditar haien solasak aditzeko bezain hurbil ninduan kukutua. Aditu diok epaile **peste** horri? **Aingeru Epaltza**

Baxenabartar **peste** hauen artean egin dituen urteengatik ere, Migel Mailuk nekez bereziko lituzke amikuztarra eta garaztarra. **Aingeru Epaltza**

-Ez nazazue apez **peste** horien parean ezar -errepikatzen zigun-. **Aingeru Epaltza**

-Ez dakit nola zauden izugarriagoa: betaurreko **peste** hauek jantzita ala gabe. - Dendako enplegatu guztien uniformeak jantzen zuen, atorra urdin argia eta gona marroia, itsusia **pestea**. **Aingeru Epaltza**

## pestizida 1 *iz* animalien eta landareen izurriak desegiteko gaia.

Nekazaritzan gero eta gehiago erabiltzen ari diren **pestizida** modernoei hainbat heriotzaren errua egotzi zaie. **Irene Aldasoro**

Hark jarri dizkigu eskura gaurko teknologiako elementu guztiak, bai gogoko ditugunak (hegazkinak, telebista, penizilina, kontrazepzioa) eta bai gorroto ditugunak ere (bonba termonuklearrak, **pestizidak**, askotariko kalteak). **Juan Garzia**

Termiten aurkako **pestizida**. **Berria - Gaiak**

Dieldrina: Gaitzak kutsatzen dituzten zomorroak kontrolatzeko **pestizida**. **Berria - Gaiak**

**Pestizida** horietako asko oso dira arrakatsuak. **Berria - Gaiak**

**Pestizidek** eta bestelako gai toxikoak leuzemia eragin dezakete, ikertzaileen arabera. **Berria - Gaiak**

## 2 (neurriekin)

Diruaz gain, otia fumigatu ahal izateko hegazkin bat eta 640.000 litro **pestizida** ere eskatu zituen Nekazaritza Ministerioak. **Berria - Gaiak**

## 3 izond

Isurkari **pestizidak** inokulatu edo lainoztatzeko gailuek gutxitu egin zuten uzta, arbola eta ganaduari izurriek kalte egiteko arriskua. **Iñaki Mendiguren**

## 4 (hitz elkartuetan)

**Pestizida** hondakinak edozein unetan eztanda egin dezaketean lehergailuekin parekatu ditu FAOk. **Berria - Gaiak**

Ikerketa horretako datuek diotenez, **pestizida** maila Europako Batasunak onartutakoa baino handiagoa da, beraz, Indiako kontsumitzaileen osasuna arriskuan dago. **Berria - Mundua**

Txostenaren arabera, **pestizida** salmenta hamar enpresa handik kontrolatzen dute gaur egun. **Berria - Gaiak**

4.000 pertsona hil ziren duela hogeit urte Union Carbide **pestizida** enpresak izandako gas isuri baten eraginez. **Berria - Gaiak**

**Pestizida** tona bat garbitzeak 3.500 dolar balio ditu, FAOren arabera. **Berria - Gaiak**

## pestoso izond adkor oso txarra, ezin jasanezkoa. ikpeste 2.

Uda aurrean, urrunago joan gabe, uste nuen munduko parte hau, herri hau, ortodoxoek dioten bezala, hiperkorrekzio petardo eta **pestoso** baten menpean zegoela ezinbertzez. **Patziku Perurena**

## petalo 1 iz korola osatzen duten hostoetako bakoitza. ik hosto 6.

Enarak etortzen diren garaian galtzen dituzte tulipek **petaloak**. **Imanol Zurutza**

Haiek zigilu turkesa-kolorea jartzen zieten gainean, beren izenekin eta sei **petaloko** lore batekin. **Fernando Rey**

Arantzak baizik erakusten ez zituen **petalorik** gabeko arrosa biluzia. **Joan Mari Irigoien**

**Petalo** zuriek elurra bezala egiten zuten distira eguzkipean. **Agustín Otsoa**

Gurutze askotan koroa zimelduak zintzilikatu dituzte eta hosto eta **petalo** ttipiz josita daude hilarri bustiak. **Pello Lizarralde**

Zakarrontzia tximinia azpitik erakarri, ireki eta arrosa orbandua jaso zuela, ur-hari baten pean garbitu zuela bere **petalo** hauskorrei kalterik ez eragiteko. **Jon Alonso**

Lirio lorearen **petaloak** oso aberatsak dira antozianinaz. **Juan Garzia**

Ene amorioaren lore hark, bezperakoarekin konparaturik, **petalo** bat gutxiago zuen. **Joan Mari Irigoien**

## 2 (erkakeetan)

Eta arrosa bat ere bazen, arrosa gorde bat, ezpainetako **petalo** hezeak baizik erakusten ez zituena. **Joan Mari Irigoien**

Oinazearen eta libertate faltaren basamortu hartan lore baten **petaloak** baitziren hitz bakar haren letrak, lau haizeetaratzabalduak. **Joan Mari Irigoien**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Petalo** -zaparrada bat jira eta bira hegaldatu zen haren esku gainera, eskularruen gainera, mahai gainera. **Lopez de Arana**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Bere alaba gazteena bakarrik zuen lagun kamelia-arbola **petalo** -galtzailea ikusi zuenean Tsubaki tenpluan. **Ibon Uribarri**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Tulipa-**petaloak** erauzi ditu haizeak; haiekin haizatu da gure poza", idatzi zuen alargunak. **Itziar Otegi**

Umeari Ishmir eman zioten izena, hiazintu eta nartziso **petaloak** baino xuriagoa zelako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Behera iritsi zenean, hesteak agerian geratu zen baldosa zuriaren gainean, zaindari-andreak erortzean harrotutako geranio-**petaloekin** nahasian. **Jokin Muñoz**

Cervantes paregabeak Mantxako Kixoteren ahotik zioenez, zurekin hitz egitea zerriei larrosa **petaloak** jaurtitzea bezala da. **Jon Arretxe**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arbola petalo galtzailea** (3); **kamelia petalo galtzailea** (3)

## petanka 1 iz bolekin jokatzeko den jokoa, jatorriz frantziarra, zurezko bola txiki bati metalezko hiru bola handiagorekin ahalik eta gehiena hurbiltzean datzana.

Boscaccion, jendeak bere etxean jaten zuen eta ostatura birao egitera, **petankan** jokatzera edo lagunekin ardoa edatera bakarrik joaten zen. **Koldo Biguri**

Gauza batzuk ez dira inoiz aldatuko, adibidez agureak plaza nagusian **petankan** jokatzeko inguruko turistak existituko ez balira bezala. **Mikel Hernandez Abaitua**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi solairuko etxe-orratz bat, ondoan kirol zelai, **petanka** -joko eta guztikoa. **Koldo Biguri**

Horrez gain, ezer gutxitarako gogorik ez, eta auzoekin **petanka** saio aspergarritan [...] amaitzen zituen egunak. **Txillardegí**

Ergelaren moduan eta miragarriro, kanaberadun arrantzale bat bezala, ehiztari bat bezala, **petanka** jokalaritza bat bezala. **Josu Zabaleta**

14.00etan, **Petanka** xapelketa doblezka, 500 euro sariz. **Herria**

14 orenetan **petanka** lehiaketa biranazka. **Herria**

## petardo iz bolboraz edo beste lehergai batez betetzen den hodi modukoa, pizten denean zarata handia atereaz eztanda egiten duena.

**Petardoan** eztanda eta zalaparta. **Anjel Lertxundi**

Suziri edo **petardo** txikiak. **Iñaki Mendiguren**

Armak jostailuak edo **petardoak** direla pentsatzen duen ume tentel bat iruditzen zait. **Berria - Kultura**

Bolanderak, suzko erroberak, Japoniako bonbak, hiru buruko txapluak, umeak elkarri **petardoak** jaurtika, ehiztariak leihotarik zerurantz kanoi bikoarekin... **Koldo**

Izan ere, nola jaurti **petardo** bat, inork ez ikusteko moduan? **Joan Mari Irigoien**

-A, orduan zu izan zinen, ene seme, **petardoa** bota ziona? **Koldo Biguri**

**Petardoak** eztanda egin zuen arren, gas bonbona ez zen lehertu. **Berria - Euskal Herria**

Oin artean **petardo** bat lehertu balitzaio bezala zutitu zen. **Koldo Biguri**

Argitasun morea sortu zen, **petardoena** bezalako hotsa. **Iñaki Mendiguren**

Arima madarikaturen batek **petardoak** lotu zituen kanpai-mihira: ez zen kalterik izan, baina bai edonor ikartzeko moduko zalaparta. **Koldo Biguri**

## petate iz soldaduen edo marinelen hatua.

Sarjentua banan-banan hasi zen **petateak** ikuskatzen. Harkaitz Cano

Burkotzat moldatu du **petate** biguna, lokia gainean jarri eta gorputza kizkurtu du, sorbaldan apur bat konkorturik. Harkaitz Cano

**Petatea** lepoan hartuta, gerra itsasontzi batean ontziratzera doan marinel bat inguratu zaito orduan, zer gertatzen zaiola galdezka. Harkaitz Cano

Kontua da gure amak **petate** baten gainean malerdi zirela gutaz, Pedro Páramoren semeak izan arren. Juan Garzia

## petatxatu, petatxa, petatxatzen *(orobat **peaxatu** eta **pedazatu**) 1 du ad* adabakitu.

Andre Engraziak iloba eskutik hartu zuen, sukalde xokora eraman zuen, sutondora, eta besaulki bat erakutsi zion bera aldiz, jantzien **petatxatzeko** erabiltzen zuen ttipiagor batean jarri zelarik. Elena Touyarou

Zubia garbitzen eta tresnak ipintzen zituzten arrantzaletan edo sareak **petatxatzen** zituzten emazteak ihaurri zen, denak biziki ozenki mintzo zirelarik. Elena Touyarou

### 2 hed

Murrutetako arraildurak **petatxatu** zituzten, lubaki betetzen hasiak sakondu, almena hondatueak berriitu, barneko aldamiok sendotu eta oro har denborak egindako kalteak zuzendu edo estali. Aingeru Epaltza

### 3 irud

Denen buru, helduden urteko buxetak iduri du **peaxatuz** egina, bati emana besteari kenduz eta hola! Herria

Frantziar, gobernu berri bat hitzeman daukute eta xaharra **peaxatu**. Herria

## petatxu *(orobat **peaxu** eta **pedazu**) 1 iz* adabakia.

Ile nahasi batzuekin, aurpegia zuhail, pilda batzuk soinean, zikinak eta higatuak, dena **petatxu**, oinetan espartin tzar batzuk, zola jana zutenak. Janbattitt Dirassar

Doktorearen zortzi soingaineko aurkitu ziren, berri-berriak, naftalinaz barrubeteak, eta bere denboran amonak hari erabiltzen utzi zion bakarria, dena **petatxu** eta adabaki.

Juan Garzia

-Oihail hori, ordea, **petatxuz** osatua dago, eta munduko hari guztiak gutxi dira, hainbeste **petatxu** josteko. Joan Mari Irigoien

Purtzupilatua baino gehiago ere, tokika urratua, **petatxuen** behar gorrian. Herria

Lehen, sukaldean orratza, orain aldiz saltegirako urratsa... **petatxurik** ez da gehiago egiten, etxen egoiteko ere; ez du nehorik pobrezian dagoela salatu nahi. Angel

Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

### 2 hed

Eta orenen buru, **petatxu** bat hemen, **petatxu** bat han, eta gure etxea lurrerat ari! Herria

Hara lur hori, enel, antzinakoen izu, neguaren zafraden aurka horma: **petatxu**! Juan Garzia

### 3 irud

Sindikatuaren aburuz, Osasun Saila «arazoak errotik konpondu ordez», hemen eta han **«petatxuak»** ipintzen saiatzen da, «gastuak kontuan izan gabe». Berria - Euskal

Herria

Iztueta andereak aldaketa partzialak baino ez ditu planteatzen, **petatxu** hutsak besterik ez direnak. Berria - Euskal Herria

Zinez bide luzea eta lan gogorra izanena da hoinbertze **petatxuren** arralotzea Europan. Herria

Espania, berriz ere, Frantziaren **petatxu** bat izango litzateke. Joxe Azurmendi

## petatxudun *izond* petatxuak dituena.

Galtza arin xuriak, marra urdin bertikalekilakoak eta hiru botoinekilako gaineko marroin **petatxudun** bat eman zizkieten jantz zitzen. Eneko Bidegain

## petenta *iz ipar* belarrietakoa.

Aurpegi fineko mutil gaztea, arras elegantea, urrezkoa izan zitekeen **petenta** luzeño bat beharri batean, zetazkoa iduri zuen atorra koloretsu batekin, galtza balus arrosa kolore batzuekin. Janbattitt Dirassar

Jeneral batek, adinez han harat joana, ofreitzen dizkio **petentak** bere emazte gazteari. Herria

## petizio *(orobat **petizione**) iz ipar* eskaera, eskaria.

Ipar Euskal Herriko herriko etxe guztietan izanena da **petizioa** izenpetzeko parada. Berria - Euskal Herria

Departamendu osoko hautesleek %10ek behar lukete **petizioa** izenpetu, hots, 46.000 hauteslek. Berria - Euskal Herria

Xavier Lacombe burrasoaren inguruan muntatu elkarteak **petizione** bat abiatua du. Herria

Seaskak ere borroka luze eta gogor bat eremaiten du euskaldun eskolari leku inportantago baten emaitako: **petizioneek**, gose grebak eta manifestaldiak ondorio baikorrak dituzte: Hezkunde Nazionalarekin negoziaketak hasten dira. Herria

Beren esakune nagusia (agian gehiago **petizioa** dena postulatua baino) arrazoimen hutsetik hartzen den eta esperientziak goiti beren baldintzetara goratzen diren arrazoimen-inferentzietan. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**petizioa izenpetu** (3)

## peto<sup>1</sup> *1 izond* erabatekoa, benetakoa. (pertsonez)

Hiru silaba labur horietan brooklyndar **peto** baten hizketa-doinu argia entzun nuen. Oskar Arana

Emakume zahar, ingeles **peto** bat azaldu zen, ingeles **petoak** diren itsulapiko bat eskuan zuela -zerbeza pitxer metalezko bat diruditen horietakoa-, eta hotsa egiteko astinduz, libra bana eskatu zigan Marx-en mausoleoa ikusi ahal izateko. Ramon Saizarbitoria

Italiar **peto** horietako bat. Anjel Lertxundi

Mutilzahar, tripontzi, tolosar **peto** alai eta alferra, arratsaldero soziedadara joan zalea. txapela janztea, pilotazale izatea eta sagardoa gustatzea, hiru ezaugarri horiek falta omen zitzaizkion Koldo Mitxelena euskaldun **petoa** izateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dut uste euskaldun zahar **petoa** naizenik. Joxerra Garzia

Guk ez bezala pentsatzen duten guztiak uxatu edo garbitu eta gero geratuko diren euskal herritar **peto** eta zintzoak. Joxerra Garzia

Ni neu nago ez naizela ez zahar **petoa** ez berri-berria ere. Joxerra Garzia

Jaun handi bat, jaun **peto** bat, zigorra eta grazia bere esku dituena, hitz bakar batengatik gaiztotu daiteke, egia, baina batzuetan bai hitz bakar batengatik ondu ere. Matías Múgica

Ezinezkoa zela halakorik gertatu izana sinestea bera bezalako iraultzaile **peto** bati. Hasier Etxeberria

-Kriminal **peto** bat naizela uste duzue? Koldo Izagirre

## 2 (bestelakoez)

Horiek iruditzen zitzaizkion, nik uste, "amerikar" etxe **peto** baten osagaiak. Xabier Olarra

Artaxonako nafarra zen, eta bertako gaztelania **petoa** gordetzen zuen. Ramon Saizarbitoria

Sarri gertatu ohi da, herri edo eskualde jakin baten "atzo goizean" egindako berrikuntzak euskalki osoko ezaugarri **peto** eta jatorizat aurkeztea. Koldo Zuazo

Stephenen ahotsak eta keinuak irakasle argi baina eskuzabal batenaren imitazio **petoak** ziren. Xabier Olarra

Hala jokaterakoan, ahozko jardunak duen baliabide **petoenetako** bat hartu eta, ongi zukatu eta gero, adierazpen-premia berrietara egokitzen du Amurizak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sexualitateak, desberdina sortzeko makina peto-peto horrek, parerik gabeko bihurtzen du organismo bakoitza, biki **petoak** izan ezik. Juan Garzia

Kanpai hori sinbolo bat baitzen, lanbide baten eta izate baten ikurra, are arte **peto** batena, eta osorik eta ezer falta ez zuela utzi behar zen patioan. Juan Garzia

## 3 (adizlagun gisa)

Adelak begiak zuzendu zizkidan, **peto**, zorrotz. Juan Kruz Igerabide

Mesfidantzaz begiratu zidaten orduan, **peto**, baina batez ere izututa. Matías Múgica

Begiez **peto** jarraitu zien haren mugimenduei, baina ukitu beharra omen zeukan, deskribatuko bazuen. Xabier Olarra

Aurpegia hartu zidan bi eskuen artean, begietara **peto** begiratu, bere arbeltx-distira harekin, eta esan zidan: [...]. Juan Kruz Igerabide

## 4 *berdin-peto izond* erabat berdina.

Horren ondoren, segmentuok, ordura arte **berdin-petoak**, desberdindu egingo dira, eta zeinek bere nortasun berezia hartu. Juan Garzia

Egitura **berdin-petoko** proteina-familia zabal askoak tartean egotea. Juan Garzia

Lur honen gainean bizi diren izakiak -zeinahi izanik ere haien ingurunea, tamaina, bizimodua; barea izan, zein otarraina, eulia edo jirafa- molekula ia **berdin-petoz** osatuak dira guztiak. Juan Garzia

Oso forma desberdinak ageri dituzten organismoak gene sail **berdin-petoz** osatuak dira. Juan Garzia

## 5 *peto-peto izond* (pertsonez)

Barre egin zuen, eta esan zuen senarra irlandar **peto-petoa** zela. Oskar Arana

Euskaldun **peto-peto** diren batzuek ez dute aparteko gogorik gure klasikoengana jotzeko. Pello Salaburu

Bere garaiko gizon **peto-petoa** izaten gogo biziz ahalegindu zen gizonari gorazarre. Monika Etxebarria

Ezkeriar **peto-petoa** nauk -ekin dio Xerealek. Iñaki Iñurrieta

Erdiko aurrelaria da, goleatzaile **peto-petoa**. Berria - Kirola

Handik bederatzi hilabetera jaio ziren Jonathan-eta-Léa, bi sasi-biki **peto-peto**. Jon Muñoz

Osasun-ingeniarri **peto-petoa** ematen duzu. Xabier Olarra

Jokalari erasotzaile **peto-petoak** alegia. Berria - Kirola

Pitagoriko **peto-petoari** dagokion bezala, hiriaren bizitza interesatzen zitzaion. Jon Muñoz

Bai, emaila trebea bihurtu nintzen bi urte haietan: adarkari bizia, bugre zaildua, sodomatar **peto-petoa**. Aitor Arana

## 6 (bestelakoez)

Lasterka egiteko moduarengatik, sagu **peto-petoa** dirudi. Anjel Lertxundi

Hona hemen enpresa bikaina eta paregabea, erdaldun **peto-petoa**. Berria - Euskal Herria

Enpresa industrial **peto-petoa** da. Berria - Ekonomia

Gaurkoak ezagun du argia, beroa eta udaberri **peto-petoaren** trazakoa datorrela. Pako Aristi

Jaka harekin eta aitaren atorra, praka eta bota batzuekin SSetako sarjentu baten itxura **peto-petoa** hartu nuen. Alberto Ladron Arana

Greziar estilo **peto-petoko** eraikinak, lorategiz inguratuak eta barruko patio itzaltsuz ongi hornituak. Jon Muñoz

## 7 -en *peto-petoa izan* -en berdin-berdina izan.

Gure amaren ofizial gizen haiek ere askotan hitz egiten zuten horretaz, eta fantasiak zituzten haren gainean guapoa zelako eta aktorearen **peto-petoa** zelako. Pello Lizarralde

Señora Gracielaren etxea gure berriemailearenaren **peto-petoa** zen; oin bakarrekoa, paretak estukoaren eta pinturaren premian, aterik ez, errezel horikka bat barrualdeko haize-laster arinak astindua, eta ezer gutxi gehiago. Jon Muñoz

## 8 (adizlagun gisa)

Adela joatean, **peto-peto** begiratu zidan Idoiak. Juan Kruz Igerabide

Elbarri makuluduna berriz etorri da gaur [...] eta sabaian iltzatu ditu begiak, **peto-peto**. Karlos Linazasoro

Umetan, **peto-peto** sinesten nuen nik amandre-ipuinetan. Juan Garzia

Bertsolariak bere-berea du eta **peto-peto** darabil gogobide hau, estilo mental hau. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 9 *petoz peto*

Sixtok, ordea, besteek ez bezala, ilargiari begiratu ordez, Zenobiaren hatz erakuslearen itxurari erreparatu zion, petoz **peto**. Josetxo Azkona

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurrelari peto** (8); **euskaldun peto** (5); **gipuzkoar peto** (3); **gipuzkoar peto petoa** (3); **gizon peto** (3); **igotzaile peto** (4); **italiar peto** (3); **itxura peto petoa** (3); **peto begiratu** (3); **peto peto** (32); **peto peto bat** (3); **peto petoa** (73)

**garalle petoa** (9); **gipuzkoar peto petoa** (3); **igotzaile petoa** (6); **itxura peto petoa** (3); **klasikozale petoa** (3); **manomanista petoa** (3); **ordokizale petoa** (4); **peto petoa** (73)

**berdin petoak** (4); **biki petoak izan** (3); **esprinter petoak** (3); **peto petoak** (20)

## **peto**<sup>2</sup> *iz jantziez mintzatuz, bularrekoa; galtzamantala.*

2.063 zenbakia dute **petoek**. Berria - Harian

Irudi zaharretan agertzen diren antzinako bulegari **petoa** izateko bisera eta eskularru modukoak besterik ez zaizkiok falta. Migel Angel Mintegi

Pasarte horretara heltzean, **petoa** jaso, eta bularra alderik alde zeharkatzen dion zauri belztua erakusten die turistei: iberiar gezi batek egin bide zion. Iban Zaldúa

Galdetzen dio bular ebakuntza egin nahi duenari **peto** urdin batek figura baldartzen dion lagunak. Pako Aristi

## **peto**<sup>3</sup> (*orobat petto g.er.*) **1 iz ipar** hutsa, hutsegitea.

Pilotariak hoberenean ziren: Muscarditz bixtan dena, errextasun handian, jokoaren barreatzale, Etchetok aire onean erabiltzen pilota, bereziki airez eta ezkerrez ere, baina **peto** haundisko batzu ere bai haatik. Herria

Beti gogor jo du Etchetok, **peto** bakar batzu salbu, eta gaitzean zen Sorhuet, burutik buru. Herria

Bizkitartean, beren buruari gero ta gehiago fidatuz joan dira, Etchetok gaitzeko partida ateraz eta **peto** heietarik ez batera; Duhauk bere aldetik hor zuen bere betiko ausartzia eta harekin indarra. Herria

Hain zuzen, legez kanpo emanez % 10 boz biltzen duen alderdia ez da bakarrik huts bat, da «**peto**» bat ikaragarria. Herria

## 2 *peto* egin ik kale 14.

Ibarretzek Euskal herritarren eskubideen defendatzaile sutsu gisa agertu nahi izan zuen, baina PNVk **peto** egin zuen berriro. Berria - Harian  
Halako irakurketak abiapuntu gisa hartzen dituztenak, gatazka gainditzeari buruzko beraien analisi eta irakaspen guztietan **peto** eginen dute. Berria - Euskal Herria

## petral<sup>1</sup> 1 *izond* lotsagabea, erantzun txarrekoa, bazter-nahastailea; esanahi zehatzik gabeko irain hitza.(pertsonez)

Gizon motz eta **petral** samar bat zebilen batetik bestera argazkiak ateratzen kamera beltz handi batekin. Nik ez beste guztiek, pentsatu zuen Lilyk, bere baitara saminki bilduz, ni ez bainaiz emakumea, baizik eta neskazar **petral**, erretxin, elkorra. Iñaki Mendiguren

Eroslea atso **petral** bat zen. Joan Mari Irigoien

Eskalafoian igotzeko aukerarik gabeko titularr **petral** bat. Iban Zaldúa

Parte hori nik ere badakit... -Hectorrek, lezioa badakien ikasle **petralaren** tonuan-. Harkaitz Cano

Margot **petral** hutsa da (ez dago beste hitzik hartaz esateko); nire onetatik ateratzen nau egun osoan. Josu Zabaleta

**Petrala** zen Bartolo, baina ez zeukan umore txarra. Pako Aristi

Tira, Jon, pasa egik kanuto hori eta ez egik kasurik egin **petral** honi! Unai Iturriaga

Teresak amorante gazteak askoz sutsuagoak direla esaten zuen, eta agian arrazoi guztia izango du, baina guztiak horren **petralak** baldin badira, kostako zait nik baino 20 urte gutxiago dituen mutil batekin partekatzea logela eta armairua. Jasone Osoro

### 2 (bestelakoez)

-Nahikoa denbora galdu dugu! -esan zuen, bere pinpirin itxuraren guztiz kontrako ahots **petral** batez, eta egunonik ere eman gabe-. Anjel Lertxundi

Zein hurbil dauden heriotza eta bizitza gure mundu **petral** honetan! Javi Cillero

Ez da helburu kaxkarra bizitza **petral** honetarako. Karlos Zabala

*This is the last summer song*, esango nizun nire ingeles **petral** honekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Adiskideak esan zidan, insomnio-gau **petral** baten ondotik, bere buruaz beste egitea erabaki zuela. Josexo Azkona

Orduan akordatuko zen laboraria, uda **petral** hark nola kamustu zuen gaztaina-lore gehiena! Pello Zabala

Hau txakur bizimodu **petrala**! Bego Montorio

Egoera **petral** berean geratu ziren beste asko ere, eta konponbide bila hasi ziren batzuk, klase-borrokaren aztarna handirik ez zeukan herrian. Xabier Mendiguren Elizegi

Egia da hala ere nesken eta mutilen arteko giro **petral** hori apur bat lasaitu dela. Xabier Mendiguren Elizegi

"Libratu egin beharra daukat zakur honengandik", pentsatu nuen egun batean, haserre, bere dei **petral** bat jaso eta gero. Bernardo Atxaga

Gizakoteak marmar **petralean** segitzen zuen. Anjel Lertxundi

Horra ofizio **petrala**, bat bada: denborari itxura hartzen saiatu beharra! Pello Zabala

Ez egiteko galdera **petral** gehiago esan zion Arizmendi jaunak Kakotxipiri, bazekiela erdi inozoa zela, baina ikasteko bere buruari eusten. Koro Navarro

Amonaren erantzun **petralagatik**, aitak apalago hitz egin zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Barrenak ardo **petralez** erreta lur hutsaren gainean lo egin behar duen etxegabearentzat. Iñaki Segurola

### 3 (adizlagun gisa)

Buruak arras apaldurik, labur eta **petral** mintzo ziren. Anton Garikano

Betaurrekoen gainetik begiratu zenuenean pintxe barria topatu zenuen besoak gurutze aspertu plantan, **petral** eta lotsabako. Koldo Izagirre

Oso **petral** jokutzen zuela kontra egiten ziotenekin. Anjel Lertxundi

Erresuminduta egin nuen aste osoa, oso **petral** erantzun nion lopette deitu zidan bezero bati, jostundegiko arduradunak bizpahiru aldiz egin zidan errieta neurriak gaizki harteagatik. Anjel Lertxundi

Pentsatzen nuen gizon botoretsu hari agintzea gustatuko zitzaiola ohean, baina oker nengoen, lehen unetik konturatu nintzen **petral** jartzen nintzenean bakarrik gozatzen zuela. Juan Martin Elexpuru

-Petroek agintzen didatenean bakarrik -telefonoan bezain **petral**. Aingeru Epaltza

Berandu iritsi eta gainera **petral**! Fernando Morillo

Jabi sua pizteko lanetan, Mandi, eskuak sakeletan, **petral** antza zegoen. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**petral jartzen** (3)

**bizimodu petrala** (3); **eguraldi petrala** (3)

## petral<sup>2</sup> (*orobat pitrail*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian petral agertzen da*) iz habea.

Tinpanoaren gainean gailurra, astazaldiak eta **petralak** jarriko dira, kontuan hartuz isuriak teiltatu osoaren heren batekoa beharko duela izan. Santiago Iruretagoiena

[Espazioa] tamaina ertainekoa bada, gailurra jartzen da, eta teiltatu-hegaleraino ateratzen diren astazaldiak; astazaldien gainean, **petralak**; hauen gainean, eta teilen azpian, gapirioak, kanpora ateratzen direnak eta paretak estali eta babesten dituztenak. Santiago Iruretagoiena

Funtsean, José Igoa-k erosi arte, bazegoen etxeko murruari loturik lehenagoko zubiaren **pitrail** edo habe bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hemen ere, oraino berantean, ageri zen zubiaren **pitrail** muturra, Sinketeneari loturik zegoena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Muru gorenek ez dute gehiago teiltaturik atxikitzen, zutarte guztiak eroriak dira, salbu **pitrail** bat edo beste, oraino trebeska daudenak, suak eta eguzkiak beltzatuak. Michel Ornoz

## petralaldi iz norbait petral dagoen aldia.

Zerk iratzarri du **petralaldia** lozorrotik? Iñigo Aranbarri

Irakurlearen **petralaldia**, bistan da, ez du gezurrak bakarrik iratzartzen. Iñigo Aranbarri

Neskari gehitxo iruditut zitzaien Joxeren zaputzen eta **petralaldien** zama, eta azkenean, azken pausoa ematera zihoazenean, elkar ikusteari uzteko eskatu zion neskek Joxeri. Xabier Etxabe

## petraldu, petral(du), petraltzen 1 da/du ad petral bihurtu; petralkerian hasi. (pertsonek)

Zalaparta izugarria dago jatetxe honetan, eta ni **petraltzen** hasia naiz. Xabier Etxabe

Askoz ere garagardo gehiago behar zuen guzti **petraltzeko**. Anjel Lertxundi

Ez zen batere **petraldu**, alderantziz baizik, beti bezain bihotz-zabal mintzatu zitzaidan. Joxe Austin Arrieta

-Itxoin apur batean, mari-bero horrek -**petraldu** zitzaion laguna-, oraindik ez zekinagu-eta haien orientazio sexuala. Patxi Iturritegi

Urteik urtera, gerran semea hil ziotenetik, **petraltzen** ari zen. Anton Garikano

-Eta zertarako, etxeko taldean ez nago eta? -esan zion Malfoyk, ospindurik eta **petralduta** -. Iñaki Mendiguren

Filologoak pazientzia galtzen du, **petraldu** egiten da nahi baino gehiagotan, ikusten duelarik hainbeste dotrinarekin, hainbeste interpretaziorekin [...] hitzak alferrik galtzen dizkiotela eta andeatzen. **Iñaki Seguro**

-Lagunak ditut hemen -azaldu zion Josebak eraikina seinalatu eta ahotsa gozatu; ez zitzaion ertzaina **petraltea** komeni-. **Fernando Morillo**

## 2 (bestelakoak)

Jenioa **petralzen** zion hautsak; gaitzak ekartzen zizkion; etxeko galbide bihurtzen zuen. **Anjel Lertxundi**

Langile haien gorputzak dardarez irudikatzen nituen, ahoa madarikazioz beterik, umorea **petralduta**, etsipena haien bihotzen jabe, goizalbare ilunpe izoztuaren bakardadean. **Pako Aristi**

Jexuxek, Aitak egina zuen ezkontza-tratua ez zuen aintzakotzat hartu, eta horrek erabat **petraldu** zuen bien arteko giroa. **Xabier Etxabe**

Leire marmarka hasi da sukaldean, eta giroa areago **petraltzeko** zer edo zer jausi zaio deskuiduan. **Patxi Iturritegi**

## petralkeria iz petralari dagokion egite gaitzesgarria. ik lotsagabekeria; zitalkeria.

Hori ez da aberastasuna, hori ez da hizkuntza jakitea; **petralkeria** eta sasiletratukeria besterik ez da hori. **Koldo Zuazo**

Batxilergoa asko aldatu da, zuk egin zenuenetik -atera zitzaion zuzendariari, bestearen **petralkeriak** apur bat aspertzen hasia. **Jon Alonso**

Berrogeita hamalau urteko gizona izan, eta oraindik horrelako pedantekeriak eta **petralkeriak** dituenak, izaera du halakoxea, eta ohitura horiek inork ez dizkio kenduko. **Josu Zabaleta**

Hilabete hauetan zeinek jasan du Abelen **petralkeria**? **Berria - Kirola**

Santxo lagun: zure **petralkeria** axolagabeak entzungo nituela uste nuenean, zure zentzu onaren berriak jaso ditut. **Patxi Ezkiaga**

Lanean hiltzea, **petralkeria** galanta. **Pablo Sastre**

Erabaki nuen tentuz ibili beharko nuela baina **petralkerietan** hasten bazitzaidan pikutara bidaliko nuela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

"Inork ez", dio Txapik gustura ez dagoenaren **petralkeriaz**, "Yolok berak zeukak itsu galanta, beste ezer ez!". **Pako Aristi**

## petrarkista iz Petrarcaren obran aditua den pertsona.

Paduan bereiziki, hemen biltzekotan baitira munduko **petrarkista** onenak. **Berria - Kultura**

## petrifikatu, petrifika, petrifikatzen 1 da/du ad harri bihurtu. ik harritu 3.

Herioaren eztenaren kontra behin eta berriro ostikoak ematen dituen estatu unibertuala azkenean desagertu egingo da aroen joanean, gatzeko estatua bezala, behinola bizidun izandako emakumearen gai **petrifikatu** omen zena, alegiaren arabera. **Iñaki Mendiguren**

**Petrifikatuta** zirudien. **Joseba Urteaga**

## 2 irud/hed

Sistema feudal bat -aurreko arazoalditik heredatua- ordena iraunkor gisa **petrifikatze** ahalegina. **Iñaki Mendiguren**

Gainerako bost zibilizazioetatik, Mendebaldekoa kanpo utzita, pentsa genezake Hitita ere bere barnean izandako anaiarteko gerrak eraman zuela hondamenera, mundu egipziako **petrifikatu** baten kontra bete-betean jo baino lehen, ondorioz Völkerwanderung barbaro baten mende erori zelarik. **Iñaki Mendiguren**

## petrifikazio iz petrifikatzea.

Historia egipziakoak eta Ekialde Urrunekoak erakusten dute badela alternatiba bat, **petrifikazioa** alegia, ia-ia Zibilizazio Helenikoaren patua izan zena, eta agian geurea ere izan daitekeena. **Iñaki Mendiguren**

## petrikilo 1 iz sasimedikua, sendalaria.

Mediku eta **petrikilo** guztiek beren sendagaiak eskaini arren, erregea ez zen osatzen. **Martin Anso**

**Petrikilo** bat behar da, hezurra bere lekura eramateko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Herri batera iritsitakoan, ordea, **petrikilo** batek konpondu egingo dizkio hezurrak eta lasaitu egingo da. **Patxi Ezkiaga**

Joxe Mariren aurrean jarri zen **petrikiloa**, bekoz beko; bi eskuetatik heldu, agurtzera doanaren gisan, eta begira-begira egon zitzaion bi sorbaldetara, zuzen geratu ote zitzaizkion aztertuz bezala; bat-batean, tira egin zion esku bati, emeki baina bizkor, [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Zakur amorratu batek koska egin ziola bere lehengusuari, eta "salutadore" esaten zitzaion **petrikiloa** etorri zela hura sendatzera. **Bernardo Atxaga**

Beldur izaten zen umea gaixotuz gero **petrikiloengana** eramanen ote zuten. **Fernando Rey**

Denbora laburtzera iruditu zitzaidan ubeldu haiek berdintzeko, baina **petrikiloak**, inondik ere, bazekien zertan ari zen; banuen eskarmenturik lehendik, banuenez, haren ukendu eta igurtziekin. **Juan Kruz Igerabide**

Non eta ebakuntza **petrikilo** narratsen batek egiten ez duen. **Joxe Austin Arrieta**

Berrogei egunak igarota, behin baino gehiagotan joan nintzen **petrikiloaren** etxera, igurtziak hartzera; haren ukendu harrigarriek uste baino hobeto bizkortu zidaten hanka, baina hala ere bestea baino motzagoa eta argalagoa geratu zitzaidan. **Juan Kruz Igerabide**

## 2 irud/hed

*Volkgeist* espainola gaixo dago (**petrikilo** bakoitzaren arabera gaitza abulia da, atonia, anemia, indibidualismo akrrata, bekaizkeria, etab.). **Joxe Azurmendi**

## petril (orobat pretil g.er) 1 iz zubi, bide edo kidekoen ertzeko murr modukoa, garaiera txikikoa; murraren gaineko ertza. ik karel 3.

**Petril** zabal bat dauka moilak, metro bat altu eta metro eta erdi zabal. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Herrikoak harrizko **petrilean** esertzen ziren, ez egurrezko bankuetan. **Unai Elorriaga**

Zerbeza pare bat hartu eta kanpora irten ziren, itsasadar gaineko **petrilean** jesartzera. **Paddy Rekalde**

Jauregiko presaren aldaparoko **petrilean** eserita. **Joxe Azurmendi**

Zubiko **petrilean** bermatu nintzen. **Aingeru Epaltza**

**Petrilaren** gainetik joan zen erreka. **Juan Kruz Igerabide**

Zalantza sortu zitzaion, zer egin marrubien ziriarekin, eta zubiaren **petril** gainean utzi zuen azkenean. **Bernardo Atxaga**

Plazara heldutakoan asebeteko ur-saioa egin zuen iturrian, eta bertoko **petrilean** atsedean hartuta errepasatu zituen eman beharreko hurrengo pausoak. **Josu Landa**

Mutil gazteak **petrileko** harriaren gainean utzi ditu ogitartekoak. **Pello Lizarralde**

Gidatzen zuen motorra **petrilaren** kontra joan zen. **Berria - Euskal Herria**

Bonantzako **petriletik** murgil egiten ari ginen, hotza oraindik, ikusgarri hura sartu zenean bokalean barrena. **Koldo Izagirre**

## 2 harrizko eserlekua.



Etxeak harrizko eserleku duen atarian, **petrila** deitzen geniona, eta hantxe eseri ginen biok. **Bernardo Atxaga**  
Etxe atariko **petrilean** eserita zaindu nituen zaldiaren ehorzketaren azken egitekoak. **Bernardo Atxaga**  
Etxe aurreko **petrilean** eseri nintzen Teresaren gutuna irakurtzera. **Bernardo Atxaga**  
Besotik heldu eta **petrilean** eserarazi nuen berriro. **Bernardo Atxaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atariko petrilean** (3); **etxe aurreko petrilean** (3); **harrizko petrilean** (4); **iruingo petrilean** (3); **petrilean eseri** (9); **petrilean eseri zen** (6); **petrilean eserita** (10)

**petrodolar** *iz* diru unitatea, dolarretan ebaluatua, petrolioia esportatetik eskuraturiko dibisen kopurua zehazteko erabiltzen dena.

Saudi Arabiako Fahd erregea, Bruneiko Sultana eta Marbellan **petrodolarrak** xahutzen dituzten xeke atseginak. **Berria - Kultura**

**Petrodolarrak** birziklatzean oinarrituriko kreditu pribatuaren nazioarteko ekonomia-erakundearen krisiak, 1980ko hamarraldian, Ipar-Ipar finantza-fluxuak areagotzea ekarri zuen. **Koro Navarro**

Zorraren krisiak **petrodolarren** birziklatzetik sorturiko nazioarteko zorraren ekonomia-erakundearen ahultasuna azpimarratu zuen. **Koro Navarro**

**petrokimika** *iz* lehengai gisa petrolioia eta gas natural erabiltzen dituen industria.

Hego Koreako burdingintza, Singapurreko **petrokimika** eta ontziolak. **Koro Navarro**

Horien helburua herrialde industrialekiko mendekotasun teknologikoa lehenbailehen apurtzea da, hasieratik hornigai-ondasunen sektorea eta industria astunaren garapena bultzatzeko (burdingintza, **petrokimika**). **Koro Navarro**

**petrokimiko** *izond* petrokimikari dagokiona.

Tarragona Europako gune **petrokimiko** handiena dagoen herrialdea da. **Berria - Euskal Herria**

83 hektareako findegi bat; 260 hektarea hartzen dituen industria **petrokimiko** bat Gainera, herrixken ondoan zentral hidroelektriko bat eta zentral **petrokimiko** bat ezarri zituzten. **Berria - Euskal Herria**

petrolagune ik **petroliogune**.

petrolaki ik **petrolioki**.

petroldegi ik **petroliotegi**.

petroleo ik **petrolio**.

petroleontzi ik **petroliontzi**.

petrolio ik **petrolio**.

**petrolifero** *iz* petrolioari dagokiona.

Voynet, ekoministra frantziarraren hanka-sartze **petroliferoak** goxatzera. **Hasier Etxeberria**

**petrolio** (*orobat petrila g.er.*) **1 iz** isurkari itsaskorra, arre iluna eta usain bortitzekoa, lurpeko hobietan pilatzen dena eta energia iturri gisa erabiltzen dena. ik **nafta**.

Usaimena astintzen dit airean dagoen usain gozo sarkorrak, kakaoa, **petrolio** eta ez dakit zeren nahasketa bat dirudiena. **Pako Aristi**

Hauxe gertatzen da, besteak beste, erregai fosilekin, **petrolioarekin** alegia. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Petrolio**, ikatza eta gasa erretzeak sortzen duen karbono dioxidoa da luraren berotzearen erantzule nagusia. **Berria - Harian**

Lehengai guztietan **petrolio** da estrategikoena; izan ere, **petrolioaren** prezioaren gorabeherek berehalakoan eragiten diote munduko ekonomia eta finantza-erakundearen, eta aise erazten dira petrolio-kartelak, eragile kopuru txiki baten esku egon baita beti **petrolioaren** ustiakuntza. **Koro Navarro**

Davosen edo Porto Alegren, bilkura bilkuraren ondotik egiten dute batzuek eta besteek, **petrolioaren** gorabeherei, kutsaduraren ondorioei edo mundializazioaren kalteei ihardokitzeko eginahalean. **Piarres Xarriton**

**Petrolioarekiko** dependentsia 2020rako hautsiko dugu. **Berria - Harian**

1930. hamarkadan hasi zen **petrolioaren** eromena. **Pako Aristi**

**Petrolio** saltzen duten agintarietako batek barrika garestiagotzeko asmoa, edo **petrolio** gutxiago produzitzeko asmoa agertzen baldin badu, [...]. **Pello Salaburu**

**Petrolioaren** sektorean oso argi ikusten da hori. **Koro Navarro**

**Petrolioaren** errenta duten herrialdeetako industrializazio astuna. **Koro Navarro**

Bigarren Mundu Gerraren amaieratik 70eko urteen hasierako **petrolioaren** krisia arte. **Iñaki Heras**

**Petrolioaren** krisiak inflazioan izandako eragina. **Koro Navarro**

Derrigorrezko arbitratzea inposatu diete Norvegiako **petrolioko** langileei. **Berria - Ekonomia**

Venezuela hori zinez aberats delarik **petrolioz**. **Herria**

Arkupeetan, **petroliozko** argiotzi triste batzuen argitan, zenbait buruzagi karlista paseoa zebilen. **Koro Navarro**

**Petroliozko** lanparen inguruan biltzen ginen, klaseak jarraitzeko; hotz handia egiten zuen. **Juan Kruz Igerabide**

ik *beherago* 7. **Askoren artean**

**1 petrolio** lanpári emartarí mintzari adinako kiratsa zerion. **Txillardegí**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Alde batetik Irakiak bere **petrolio** beltza eman, eta bestetik nazione batuek janari eta kontsumagailuak ekar. **Herria**

**Petrolio** gordinaren mundu osoko kontsumoa %10 baino gehiago murriztu zen. **Koro Navarro**

**Petrolio** arinaren hornikuntzan arazoak egon daitezkeela. **Berria - Ekonomia**

Arazo larria da, Nigeriak **petrolio** gordín arina baizik ez baitu ekoizten. **Berria - Ekonomia**

**Petrolio** findugabearen kirats nazkagarria zegoen aireportuan. **Xabier Olarra**

Itsas ainarak, kormoranak eta plastikazko ziruditen alga **petrolio** likitsean gatibu geratu ziren, bizia hausten baitiltzan. **Itxaro Borda**

Argitarako **petrolio**a eta pastak, pianoa alokatzea eta pianojoleari dagokiona denen artean ordainduko ditiagu. **Josu Zabaleta**

## 3 (neurriekin)

Otsailaren 16ko iluntzean bare-bare ziren Aruba inguruko instalazioak, hilero 7,1 milioi upel **petrolio** ekoizten izan dituztenak. **Edorta Jimenez**

Lan delikatuá dute han egiteko, baitaude barne hartan oraino 13.800 tona **petrolio** eta sekulan bezenbat makur bailitake berriz itsasorat ixurtzen hasten balitz petrolioá. **Herria**

Alaskako oliobide batek milioi bat litro **petrolio** isuri ditu tundran. **Berria - Gaiak**

Norat joanak ote dira haren barneko 77.000 tona **petrolioak** ? **Herria**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Badirudi **petrolio** putzuak ez direla leku egokienak intsektu bat bizitzeko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Petrolio** -hobiak, geruza freatikoak, basoak, lurrak eta abar hondatzen edo agortzen ari badira ere, baliabide askoren prezioa jaisten ari da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Ba al dakizu zer diren **petrolio** -zuloak? **Xabier Paya**

Amak **petrolio** -kriseilua semearen parean ipini zuen, hobeto ikusteko. **Juan Kruz Igerabide**

**Petrolio** ponpak eta belar metak eta gizon bat orga batean geldi-geldi, euliez inguratuta. **Koro Navarro**

**Petrolio** -lata bat eskuetan zeukan gizon batek. **Lopez de Arana**

Eguzkia ur-tanga edo **petrolio** -bidoi handien gainean piztutako suzko zuzi bat da orube soil baten atzean. **Xabier Paya**

Brent **petrolio** upelak 72 dolarrek gainditu ditu lehen aldiz. **Berria - Harian**

Venezuelan aurrekontuak **petrolio** barrikaren arabera egiten dira. **Pako Aristi**

**Petrolio** -upelaren prezioa, dolarretan adierazita, bikoiztu egin zen 1978 eta 1985 artean. ura kutsatu egiten da itsaso guztietan, **petrolio** plataformak ugaltzen diren artean. **Koro Navarro**

Burdingintza, papergintza, zementu ekoizpena, beira-zeramika, energia eta **petrolio** findegiak. **Berria - Euskal Herria**

Kirkukeko **petrolio** ekoizgunearen eta Turkiako Ceyhan portuaren arteko lotura. **Berria - Mundua**

Lampauleko ostatu keztatuan adiskideak 1976ko Olympic Bravery **petrolio** kargo erraldoiaren suntsipena kontatu zidan. **Itxaro Borda**

Horrela jakinarazi zuen atzo Kazem Vaziri Hamaneh Irango **Petrolio** ministroak. **Berria - Ekonomia**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia gauza abstraktua dela)

Ezin zuen burutik kendu gizon haren arropari zerion **petrolio** -usaina. **Lopez de Arana**

*Prestige* **petrolio** ixuriaren ondorio kaltegarriak etsaminatu dituzte. **Herria**

**Petrolio** gastua kontuan hartuta, jarraitzen zuen liburuak, 50 urteko epean amaituko litzaziguke. **Fernando Morillo**

Nigeriaren **petrolio** aberastasuna pobrezia aurre egiteko baliatzea proposatzen zuten. **Berria - Mundua**

Fama du amerikano bankoetan badituela 130 milioi dolar plazatuak bere herri ttipiaren **petrolio** erresalbuatarik. **Herria**

Iran munduko laugarren **petrolio** ekoizlea da, eta Saudi Arabiaren ostean, **petrolio** erreserba handienak ditu. **Berria - Harian**

"Dolarraren krisiak", beraz, areagotu egin zuen **petrolio** -fakturaren eragin atzeragarria. **Koro Navarro**

**Petrolio** bilatzaileek eta turismoak ere kalte handia egin die indigenen herrialdeei, Unicefen arabera. **Berria - Gaiak**

Wanda Forden etxeak auto egile hots handikoaren ahaideak ziren eta bestela ere **petrolio** aferetan itsuski aberastuak. **Gotzon Garate**

Industria gehiegia, kutsadura, berotegi-efektua, itsas zolaren zulaketaz baliaturiko **petrolio** -indusketa. **Juan Garzia**

**Petrolio** ustiaketa leku batean bizitzera behartuta dago. **Jokin Urain**

Ekialde Hurbilean, azkenik, balizko **petrolio** -baliabide ustiari gabeek europarren gutizia eragin zuten, eta baita amerikarrena ere. **Koro Navarro**

Islamiar **petrolio** -eremutik kanpoko prospekzioak. **Koro Navarro**

Gero eskolara igorri zuten, **petrolio** konpania batek ordainduta. **Gotzon Garate**

Aise erutzen dira **petrolio** -kartelak, eragile kopuru txiki baten esku egon baita beti petrolioaren ustiakuntza. **Koro Navarro**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Truke-tasak herrialde **petrolio** -ekoizleen alde aldatu izanak, truke korronteen 360.000 milioi dolar inguruko gainteko metatua eragin zuen zortzi urtetan (1974-1981), HPEE eremuan. **Koro Navarro**

Latino Amerikako herrialde gehienek, Asiako herrialde batzuek [...] eta Afrikako zenbait herrialdek, **petrolio** -ekoizleek bereziki, baliatu ahal izan zuten finantzazko mana hori, onerako eta txarrerako. **Koro Navarro**

70eko urteetako prezioen maila altuaren eta HPEEko herrialdeen jokabide ezin aurreikusizkoaren ondorioz, petrolioá-prospekzioak herrialde islamdar **petrolio** -ekoizleatit kanpora bideratu ziren. **Koro Navarro**

Lurralde **Petrolio** Esportatzaileen Erakundea osatzen duten 11 herrialdeek petrolio merkatuaren %40 inguru kontrolatzen dute. **Berria - Ekonomia**

LPEE **Lurralde Petrolio** Esportatzaileen Erakundeko 11 herrialdeetako kideek atzo Beirut (Libano) erabaki zuten produkzioa %8,5 igotzea. **Berria - Mundua**

HPEE Herrialde **Petrolio** Esportatzaileen Elkartea. **Koro Navarro**

## 7 petrolio lanpara (orobat petroliolanpara eta petrola lanpa) iz

Etxe zahar hartan artean ere kandelak eta **petrolio-lanparak** erabiltzen ziren. **Xabier Olarra**

**Petrola lanpa** batetik dantzan ari da argi hori flako bat, ke beltz baten xingola firurikan eskapatzen dela. **Michel Oronoz**

Gero, mahaira hurbildu, pospoloak atera eta keinu baldar eta uzkurrez **petrolio-lanpara** piztu zuen. **Ander Irizar**

Geltokiko buruaren bulegoan, argi elektrikoá bazegoen ere, metxa borobileko **petroliolanpara** piztu nuen, pantaila berdearekiko lanpara. **Fernando Rey**

Nehor ez da oharitzen **petrola lanpako** argi ttipia itzalia dela..., aspaldi hartan. **Michel Oronoz**

Ohiko **petrola lanpako** argi ahulak doi-doi argitzen duen etxolako barne ttipian, bada jende. **Michel Oronoz**

## 8 petrolio ontzi ik petroliontzi.

## 9 petrolio putzu

Ilunabareko eguzkiak **petrolio putzu** baten erdian bezala, putzuko belztasunak kutsatuko ote duen beldurrez. **Felipe Juaristi**

Nigerian **petrolio putzua** erosi du Txinako CNOOCek. **Berria - Ekonomia**

Munduko **petrolio putzurik** handienetarikoa bat da Azadegan. **Berria - Mundua**

**Petrolio putzu** handiak aurkitu dituzte Mexikoko Golkuan. **Berria - Ekonomia**

Nun izanen den sufre eta arrotz ustel usaina, hots infernukoarena, hor kausituko duzue gure **petrolio-putzua**. **Herria**

## 10 petrolio untzi ik petroliontzi.

**hitz bazterrean maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**arabiako petrolio ministroak** (6); **brent petrolio upela** (9); **brent petrolio upelak** (14); **brent petrolio upelaren** (5); **gas eta petrolio** (8); **lurralde petrolio esportatzaileen** (54); **milioi petrolio upel** (14); **milioi tona petrolio** (4); **milioi upel petrolio** (4)

**petrolio arineko** (6); **petrolio arineko upela** (4); **petrolio azpiegituren** (4)

**petrolio baliabideak** (4)

**petrolio ekoizguneetako** (4); **petrolio ekoizketa** (4); **petrolio ekoizle** (6); **petrolio ekoizlea** (5); **petrolio ekoizleei** (5); **petrolio ekoizleek** (4); **petrolio ekoizpena** (22); **petrolio ekoizpenaren** (5); **petrolio enpresa** (15); **petrolio enpresak** (9); **petrolio enpresako** (8); **petrolio enpresei** (6); **petrolio enpresen** (5); **petrolio erreserba** (8); **petrolio erreserbak** (22); **petrolio erreserben** (4); **petrolio eskaintza** (5); **petrolio eskaria** (5); **petrolio esportatzaileen** (57); **petrolio esportatzaileen erakundeak** (7); **petrolio esportatzaileen erakundeak** (21); **petrolio esportatzaileen erakundearen** (6); **petrolio esportatzaileen erakundeak** (13); **petrolio esportazioak** (5); **petrolio eta gas** (8)

**petrolio findegi** (5); **petrolio findegiak** (4)

**petrolio garestia** (9); **petrolio garestiak** (13); **petrolio garestiaren** (7); **petrolio garestiari** (4); **petrolio gehiago** (8); **petrolio gehien** (7); **petrolio gordin** (5); **petrolio gordinaren** (9); **petrolio gutxiago** (7)

**petrolio hobi** (4); **petrolio hodi** (4); **petrolio horniketara** (4)

**petrolio industria** (4); **petrolio isuri** (8)

**petrolio konpainia** (10); **petrolio konpainiak** (11); **petrolio konpainiako** (9); **petrolio konpainiaren** (4); **petrolio konpainien** (6); **petrolio konpainietako** (5)

**petrolio merkatuan** (5); **petrolio merkatuaren** (4); **petrolio ministroak** (21)

**petrolio putzuak** (4)

**petrolio talde** (4); **petrolio taldeak** (5)

**petrolio upel** (31); **petrolio upel gutxiago** (5); **petrolio upela** (33); **petrolio upelak** (33); **petrolio upelaren** (31); **petrolio upelaren prezioa** (9); **petrolio upelaren prezioak** (5); **petrolio upelen** (4); **petrolio usaina** (5)

**texas petrolio upelak** (4); **tona petrolio** (11); **upel petrolio** (7)

**aebetako petrolio** (10); **gasa eta petrolio** (4); **petrolio dolarretan** (4); **petrolio elikagaien** (11); **petrolio elikagaien truke** (11); **petrolio eta gasa** (8); **petrolio garesti** (4); **petrolio garestitu** (4); **petrolio garestitzea** (5); **petrolio garestitzeak** (5); **petrolio nazionalizatzeko** (4)

**petrolioak gora egin** (4)

**petrolioarekiko menpekotasuna** (8)

**aebetako petrolioaren prezioa** (4); **munduko petrolioaren** (4); **petrolioaren ekoizpena** (5); **petrolioaren garestitzea** (6); **petrolioaren garestitzea** (20); **petrolioaren garestitzeak** (21); **petrolioaren garestitzeari egotzi** (5); **petrolioaren igoerak** (4); **petrolioaren krisiak** (8); **petrolioaren menpe** (5); **petrolioaren prezio** (17); **petrolioaren prezio garestiak** (5); **petrolioaren prezioa** (50); **petrolioaren prezioak** (38); **petrolioaren prezioaren** (30); **petrolioaren prezioen** (9); **petrolioaren salneurria** (4)

**petrola lanpa** (4)

## petroliobide 1 iz petrolio garraiatzeko bidea.

**Petroliobidea** 40 kilometro iparralderago jartzeko agindua eman zuen atzo Vladimir Putin Errusiako presidentek. Berria - Gaiak

Egitasmo horren lehen urratsa Irandik Indiara bitarteko **petroliobide** bat eraikitzea zen. Berria - Mundua

Errusiak iragarri du Siberia erdialdeko petrolio putzuak Pazifikokoarekin lotuko dituen 4.200 kilometro luzeko **petroliobidea** eraikitzen hasiko dela uda aldera. Berria - Ekonomia

Terminala: Perevoznaian egin asmo zuten **petroliobidearen** bukaera, baina aukera baztertu zuten otsailean. Berria - Gaiak

Kirkuken, berriz, **petroliobideen** kontrako hainbat eraso egin zituen erresistentziak. Berria - Mundua

## 2 (hitz elkartuetan)

Indiako azken Petrolio ministroak Asian gasbide eta **petroliobide** sare bat sortzeko asmoa zeukan, Ukrainatik Japoniaraino iritsiko zena. Berria - Mundua

## petroliodun iz petrolio duena.

Auto **petroliodunen** erreketatik datorrela diote. Pello Zabala

## petroliogile izond/iz petrolio-ekoizlea.

Repsol-YPFren (%0,49) inguruko zenbait iritzi positibo agertzeak lagundu egin zion **petroliogileari**. Berria - Ekonomia

## petroliogintza iz petrolio ekoiztea.

Adams Oshiomhole NLCKo presidentearen arabera, «sektore guztiei eragingo die»; **petroliogintzari** ere bai, beraz. Berria - Ekonomia

Horrek esan nahi du **petroliogintzarekin** zerikusirik ez duten espekulatzaleak sartu direla tartean. Berria - Ekonomia

Okupazio indarrek **petroliogintzako** jardueren arduradun nagusi jarritakoak, Rob Nckeeek, aitortu zuen atzo erresistentzia irakiarrak eginiko sabotaje ekintzek galarazi dutela orain arte Kirkuk eskualdeko petrolio ekoizpenaren esportazioak gauzatzea. Berria - Mundua

## petroliogune (orobat petrolagune) iz petrolio dagoen gunea.

Independente bilakatu arren, arazo ekonomiko ugari ditu herriak, batik-bat Australiak Timor Itsasoan **petroliogune** handienak atxikitzen dituelako. Berria - Mundua

Irakeko eta Saudi Arabiako **petrolioguneen** kontrako erasoak eta Nigeriaren eta Venezuelaren egongaitzasunak prezioak gora egitea eragin dute. Berria - Ekonomia

1998an Dresser Industries konpainia George Bush aitari lehen lanpostua eman ziona, Halliburtonekin bat eginda, **petrolioguneetan** zerbitzuak eskaintzen zuen munduko enpresarik handiena bilakatu zen. Berria - Mundua

## petrolioketari iz petroliontzia.

*Prestige* **petrolioketari** hura itsasoperat joan zela 2002ko azaroaren 19an ez dugu ahantzia, euskal itsas-hegi huntarainoko plaiak zikindu baitzuten. Herria

Basoran aldiz itsasuntzi bat kamikaz bolontario horietarik bat gidari, gainera sartu zaio portuan zagon **petrolioketari** bati gainera, hor ere hilak egin ez. Herria

## petrolioki (orobat petrolaki eta patrolaki g.er.) 1 iz ipar petrolio gaia.

Beldurraekin **petrolakia** ez ote zen laster eskastuko. Herria

Gregory Gendre Greenpeace-ekoak **petroliokien** kalteak ingurumen sailean zehaztuko ditu. Herria

**Petrolakirik** gabe izan balitz Irak-eko erresuma, ez zen gerlarik aipatuko. Herria

Galdetzen daukutena da ezantza gutiagoren erretzea, **petrolaki** gutiago erosteko gisan. Herria

Galiziatik Gipuzkoako itsas-hegiraino ondartzak berriz ere ainitz tokitan zikindu ditu "Prestige" untzia **petrolakiak**. Herria

"Prestige" untzia ez du gehiago **petrolakirik** galtzen. Herria

Aurten gehienik leporatu diote itsasoa zikindu duela, zernahi **patrolaki** nolanhika ixuriz bereziki! Herria

Uhain beltza: egunerako telebixtak emaiten dituen argazkietan ikus dezakegu zertan dagoen Galizia gaixoa, kintalka botatzen baitu itsasoak **petrolaki** zikina. **Herria**

Et dute beldurtzeko zen makurrik **petrolioki** eta erregailuen makurretan, eta alde hortarik ez da ondorio txarrik izanen. **Herria**

Ondartzak **petrolakiz** belztuak... **Herria**

Baditake **petrolaki** gehiena gogortuko den, hormatuko nolazpait, eta itsasoaren zolan geldituko. **Herria**

## 2 (neurriekin)

77.000 tona **petrolaki** hetarik 64.000 tona dira ixuri, bazter guziak kutsatuz. **Herria**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Petrolaki** peza gaitzak badira gure kostaldetik ez hain urrun, uhainek aintzina erabilki. **Herria**

Asteburuhortan guzian, kostaldeko asko tokitan **petrolaki** pikor batzu agertu dira, jende frangoren nardagarri. **Herria**

Iparraldean, lehen **petrolaki** ondarkinak agertu dira Donibane Lohizunen eta Ziburun. **Herria**

Baionako portuan bere **petrolaki** tornua husturik Bretania alderat abiatua zen "Chassiron" izeneko untzia. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ixuri petrolaki** (3); **mila tona petrolaki** (3); **petrolaki guzia** (3); **petrolaki karreun** (4); **petrolaki peza** (5); **petrolaki peza batzu** (3); **zernahi petrolaki** (3)

**ixuri petrolakia** (3); **petrolakia itsasoaren zolan** (3)

## petroliolanpara ik **petrolio** 7.

## petroliontzi (*113 agerraldi, 6 liburu eta 51 artikulutan; orobat petroliontzi 2 agerraldi, artikulua 1ean, petrolio untzi 3 agerraldi, 3 artikulutan, eta petrolio ontzi 2 agerraldi, 2 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren petrolio(-)ontzi agertzen da*) iz petrolio garraiatzeko itsasontzia.

Ibaireen isurgunearen aldera, gure nasatik urrun, fuel depositoen bazterrean, **petroliontzi** alemana faxisten tankeen hornitzaile. **Koldo Izagirre**

1989ko martxoaren 24an Exxon Valdez **petroliontziak** hondoa jo zuen Anchorage hiririk gertu. **Berria - Gaiak**

**Petroliontziak** oreka galdu zuen eta erdi etzanda gelditu zen kanalaren ertz batean. **Berria - Gaiak**

Bi **petroliontzik** elkar jo eta 500.000 tona erregaia heldu zen Pattaya herri turistikorara (Thailandia). **Berria - Gaiak**

*Prestige* **petroliontzia** ere halaxe izan omen da: hondamendi naturala. **Joxerra Garzia**

Badirudi Belizeko bandera duen **petroliontzi** bat hondoratu dela Bizkaiko Golkoan. **Lutxo Egia**

Ahaleginetan ari dira Alaskan hondoa jotako **petroliontzia** flotarazteko. **Berria - Gaiak**

Sestaoko Navaleko langileen batzordeak argitu du oraindik sinatu gabe dagoela *Shuttle* **petroliontzia** eraikitzeko kontratua. **Berria - Ekonomia**

Eta hala izango zen, **petroliontzi** baten istripuak eragindako hondamendian Alaskan aterea ez balitz. **Iñigo Aranbarri**

**Petroliontzi** handiek inguruan botatzen dituztelako aingurak. **Berria - Gaiak**

Horrekin lotuta, Errusiako **petroliontzien** joan-etorriak ere ugartu dira. **Berria - Gaiak**

Ibai uherrean gora eta behera zebiltzan atoiiontzia, zamaontzien edo **petroliontzien** gidari. **Xabier Montoia**

Mangouras zen *Prestige* **petroliontziko** kapitaina 2002ko azaroaren 13an. **Berria - Gaiak**

## petroliotegi (*orobat petroldegi*) iz petrolio findegia.

Oliobide honetatik eguneroko 15.000 upel garraiatzen dituzte Nahran Omarreko **petroliotegietatik** Faoko penintsulara. Egun hauetan oraino bi **petroldegi** jauzarazi dituzte hil bat eta 72 kolpatu eginez Bogotan. **Berria - Mundua**

Arabia sauditarrean, itsas-gorriko portu batean komando islamista bat jinik, ukaldi txar bat egin dute tirokada batekin, bost hil eta kolpatu batzu eginez, hiletan bi amerikano, bi ingeles eta australiar bat **petroliotegi** batean beren lana zuten ingiandoreak. **Herria**

## petroliontzi ik **petroliontzi**.

## pettar iz zuberotarrez mintzatuz, Maule ingurukoa.

Zaia zolala heltzen nitzazū doi-doia nizan **pettarr**. **Herria**

## pettentta iz *adkor ipar* petenta.

Animatzaile munizipalek segurtatzen dute, izanik ere **pettentak** sudurrean edo mihian lotuak, gaztek izanen dutela batzorde horretan parada beren iritziak emateko.

**Herria**

Ezta? -erran zion Ninak bere aitari-, nere **pettentak** hobe nituen ematea! **Ramuntxo Etxeberri**

## petto ik **peto**<sup>3</sup>.

## petunia 1 iz belar landare apaingarria, lore moreak, arrosak edo zuriak izaten dituen (*Petunia* sp.); landare horren lorea.

**Petuniak** etxeko baratzean landatu zituen lehenik, loratu arte. **Eider Rodríguez**

Nahiko argi bazen, eta, hala, lorategiko gauza guztiak ikus nitzakeen: terrazako aulkiak, sahatsa, arropa zabaltzeko soka bi zurtoinen artean, **petuniak**, hesiak, langa zabal-zabalik. **Koro Navarro**

**Petuniak**, lurlean jarriak zeuden lorontzi luze batzuetan. **Joan Mari Irigoien**

Hortentsiek eta **petuniek** kolore pittin bat ematen zioten arratsalde hitsari. **Migel Angel Mintegi**

## 2 (hitz elkartuetan)

Txemi begira geratzen zaio Garbiñek **petunia**-potoa garaztatzen duen bitartean. **Berria - Kultura**

## petxa 1 iz zerga.

Jakinarazten dizuet, gainera, ez dela zilegi Jainkoaren etxe honetako apaiz, lebitar, atezain, laguntzaile eta zerbitzariei zergarik, **petxarik** eta bidesaririk kentzea. **Elizen arteko biblia**

Jakin beza, bada, erregeak, hiria berriro eraiki eta harresiak jasotzen badituzte, juduek ez dutela zergarik, ez **petxarik**, ez bidesaririk ordainduko. **Elizen arteko biblia**

Nafarroako lege zaharretan ageri diren bi **petxa** ere, badirudi azari eta urdeari atxekiak zirela. **Patziku Perurena**

## 2 irud/hed

Bertzelakoak dira damuaren **petxa** pisuaren ordaina pagarazten duten plazerak. **Aingeru Epaltza**

## petxera iz alkandoaren edo kideko jantzi baten zatia, bularra estaltzen duena.

Jantzi estu beltza soinean, **petxera** zuria zuena, eta urrezko eskumuturreko astuna eskuinean. **Matias Mujika**

Iduri zuen bere aurpegiari halako distira bat zeriola, zeinak jantzien urradurei inportantzia kentzen zien eta bai alkandorako **petxera** nabarmen higatuari eta marra zuri eta gorriekiko korbatari, iduneko zirtzilduaren inguruan. **Matias Mujika**

## petxero 1 iz petxa ordaintzen duen pertsona.

Baina, testuek eta bereziki 1789-1790eko bertsu zenbaitek erakustera ematen dute hastapenean, etxetiar eta **petxero** saldoek, etxeko jaunen pribilegioen suntsitzea txalotu zutela. **Itxaro Borda**

Ez dezaket ahantz alabaina hemengo etxetiar, **petxero** eta buhameak oro 1789an Errepublikaren alde agertu zirela, apez errefraktarioek, etxeko jaun opulenteak eta notableek haizea norabidez aldarazi artean. **Itxaro Borda**

## 2 irud/hed ik petxero.

Ordureko esanahi batzuk gorde ditu **petxero** hitzak egundaino: esklabu, morroi, mixerable edo gisakoak. **Patziku Perurena**

Lur eta borda abandonatuak, arrotzek, hain **petxeroak** eta apatikoak ziren laborariei bigarren egoitza gisa konpontzeko erosten zizkieten. **Itxaro Borda**

Ni halabeharrak ekarri ninduen Goizuetatik Leitzara, baina, beti bezain **petxero** nauzu. **Patziku Perurena**

-Kasu egizu euskaraz ari zarenean, edo **petxero** edo hiltzaitzat joko zaituzte. **Itxaro Borda**

## petxu 1 iz bularra.

**Petxuan** dauka orain esku bat eta buruan beste bat, biak zabalik. **Harkaitz Cano**

Erreklutatu zuten jendea, bai, euskaltasunaren izenean, Euzko Langille hasi ziren banatzen tabernetan, baina **petxuko** ilea erakutsi genien eta atzera egin behar izan zuten.

**Koldo Izagirre**

Ez nuen uste horrela jarriko nintzenik hitz batengatik, **petxutik** eztarrira mugitu zitzaidan bihotza. **Koldo Izagirre**

Mukiak, eztula eta **petxua** hartuta ditu Lizarrako pilotariak, eta horrela ezin zuen jokatu. **Berria - Kirola**

Beheko solairuko aitonak, **petxuan** mina sortu zaiola eta, sokorro eske ari daiteke, ordea. **Joxerra Garzia**

*Consumption* hitz hori zuritua gelditu zen eta salbatua: ordura arte xahutze edo hondatze hutsa zekarrelarik gogora, eta orduko eritasunik hilgarriena zen **petxuko** gaitz edo tuberkulosia ere adieraz zezakeelarik. **Iñaki Segurola**

## 2 petxuko iz tuberkulosia.

"Oso negu gogorra izan zuan hogeita hamaseikoa, hemen hezetasun handia zaukaagu neguan, ikusiko duk", orduan harrapatu omen zuen **petxuko** hau, eta ez "eritegiko monjek dioten moduan" zurrutean galduta dabilrelako. **Koldo Izagirre**

## petxuga iz bularkia.

Mikelek **petxuga** zati txikitik ebakitzen zuen, hozteko. **Unai Iturriaga**

**Petxuga**, letxuga eta maionesazkoa eskatu zuen. **Unai Iturriaga**

## petzero iz mendekoa; biktima.

Tiopiai beti **petzero**! **Herria**

Orduan, anaiak norbaiti mendekatu behar zuela eta, nor zen gehienetan **petzero**? **Daniel Landart**

Hor da argi eta garbi ikusten gerla baten okerkeria, noiz eta ere bi etsaiek, elgarren artean, zepo batean bezala harrapatzen baitute **petzero** bera. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Euskaldunak beti pixka bat **petzero** direla? **Menane Oxandabartz**

Eta ainitzek daukate beti tiopiai direla **petzero** holakoetan, diru gehixago baduenak ez biziki axolarik gutiago dutenez... **Herria**

Hor dira lekuko abertzaleek sorturiko frantses egunkari eta astekari, euskara bide bazterrean **petzero** utzirik. **Herria**

Ospitalean nire falta sumatzen hasiak izan behar zuten honezkero, Josuren ondoan, eta hutsune hori are barkagaitzagoa eginen zen, han izanen zirenek -Edurne, ama, arreba Marixa- jakitean anaia gertatua zela nik hartu beharreko kolpeen **petzero**. **Aingeru Epaltza**

## peyote iz kaktusaren familiako landarea, arantzarik gabea, gai narkotikoak dauzkana(*Echinocactus Williamsii*).

Kokaina, heroina, opioa, estasia eta anfetaminekin batera, indioen zeremonietan erabiltzen den **peyotea** zein kalamua eta LSDa legezkoak izango dira, kopuru batetik behera, betiere. **Berria - Gaiak**

Han Raoreme ihesean dabilen mutikoa aurkituko dute eta harekin ezagutuko dute Huitxolen tribua eta **peyote** -a edari haluzinojenoa. **Berria - Kultura**

## peza 1 iz pieza, atala.

Xake lauki handi batzuk marraztuta daude parkearen zoruan eta jende ugari biltzen da plastikozko **peza** handiekin jokatzera. **Berria - Kultura**

**Peza** bakoitzaren balioa, **peza** hori taulan jarria dagoen tokiaren arabera da. **Isabel Arrigain**

Hiru lagunek zenbait egun eman dituzte **pezaz peza** eta erresortaz erresorta desmontatzeko tresna handi hori, bai eta bizpahiru kamiuntaratan kargatu ere bideko.

**Herria**

Gisa hortan, Lurraren azal **peza** batzu elgarretarik urruntzen ari: [...]. **Herria**

Elizetako ezkilak **peza** osoz eginak dira. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zortzi edo hamar soseko **peza** paga-araziz. **Piarres Aintziart**

Beretta 38 A metrailadore baten herskailua (Emilio partisanoa zen eta haranetan atzera eta aurrera **peza** aldagarriak banatzen zebilen garaikoa). **Juan Garzia**

## 2 zatia.

Hezurrari xingar **peza** politik kentzen zizkion oraino! **Itxaro Borda**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ordu arte ibili gabe zegoen lur **peza** hura. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Laster sorterriko soro **peza** batean gure amodiozko habia eraikiko dinagu. **Itxaro Borda**

60 metra zabaleko ezponda **peza**. **Herria**

Baziren burdin **peza** batzu pisu handikoak, hiru tona eta erdiren heinekoak! **Herria**

Xinatarrek, beren arbasoen izenak, zur **peza** batzuen gainean izkiriatzen dituzte, eta gero, zur **peza** horiek aldare baten gainean emaiten, hobeki ohoratzeko gisan. **Herria**

Huna nun kausitzen dituen bi oihal **peza** hedatuak eta hauen azpian kartoin batzuetan kokatua, gizon bat etzanik. **Herria**

Harri **peza** haundiz egina izan den dorrea 1420 metro goratasun dituen gune batean dago. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gure herriko laminek beren sukaldea zeukatela Borddelenekok harroka **peza** haundi baten pean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ez da ahantzi behar haatik petrolaki **peza** batzu badirela oraino itsasoan, gure kostaldetik urrun badira ere. **Herria**

Hamar kanoi **pezako** txalupa zahar bat erosirik, pirateriari zihoakion guztiaz hornitu zuen, hala nola ganibetak. **Juan Garzia**

Ardiki **peza** erraldoia naka-naka irensteari ekin nion, deus ez bailitzan. **Itxaro Borda**

Zortea alde zutenek, halabeharrenean bestelako baiezpenek gabe, zilarrezko diru- **pezak** jasotzen zituzten. **Juan Garzia**

Han, eraztun, diru **peza** gaitz eta errubien artean, Heraklitoren eskuizkribua zetzan. **Juan Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**diru peza** (5); **hektarako lur peza** (3); **lur peza** (26); **lur peza bat** (6); **petrolaki peza** (5); **petrolaki peza batzu** (3)

## pezaka *adlag* pezaz peza.

**Pezaka** kentzen zizkieten bere soineko guztiak eta erlikiatzat eramaten, halako gisaz non kasik biluzik utzi baitzuten gaixo gizon saildua. **Piarres Xarriton**

## pezaño iz peza txikia.

Gure bazterrek hain dira eder, itsasoa hor berean, mendia sekulan ez biziki urrun, gero eta gehiago badira urrunetik ere heldu direnak hemen nunbait lur **pezaño** baten erosteko xedearekin. **Herria**

## pezeta (*orobat peseta g.er. eta pezta g.er.*) 1 iz Espainiako dirua, euroa ezarri zen arte.

Euroak hartuko du **pezetaren** eta liberaren lekua, eta hori, berez, ona da euskaldunontzat. **Joxerra Garzia**

Batez beste indioek 35000 **pezeta** irabazten dute urtean. **Gotzon Garate**

Ustekabean neskaren aitak loterian milioi bat **pezeta** irabazi zuen. **Gotzon Garate**

-Baina ehun **pezeta** pagatu ditut! **Josu Landa**

Orduko 200000 **pezeta** ordaindu nuen Philips "karramoto" lehenbiziko haietakoa. **Pello Zabala**

Esan eta egin, Zialtzetak trikitilarien artean diru eskea egin eta 1.750 **pezeta** bildu zituen. **Koldo Izagirre**

Dirua zegoen zapata-kaxetako bat hartu, ehun mila **pezeta** apartatu, gutunazal batean sartu, eta etorri bezain isilka irten nintzen, ama ez esnatzeko. **Juan Kruz Igerabide**

Hamar mila **pezeta** behar nituela esan nion. **Arantxa Iturbe**

Hogei mila **pezeta** liburuetan eta bost mila diskoetan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Itoizko Koordinakundeak 24000 milioi **pezetako** bermea ordaindu behar zuen. **Edurne Elizondo**

30000 mila **pezetako** ordainketa Canovas jaunaren alargunari, indemnizazio gisa. **Koldo Izagirre**

Ekintzak 1800 milioi **pezetako** galera ekonomikoa eragin zuela. **Edurne Elizondo**

Bost mila **pezetako** biletea utzi zuen mahai gainean eta, poltsa eta berokia hartuta, alde egin zuen. **Joxemari Iturralde**

Bi **pezetako** mediak hogei **pezetan** jarri ziren. **Arantxa Iturbe**

Iruñerako bidean, Juan Pedro Ferran-i ebatsi zioten orduko 9000 **pezetaren** heineko abere eta gauza. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

500 **pezeta** ehuneko billeteetan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Rupiak, berriz, lau bat **pezeta** balio ditu. **Gotzon Garate**

**Pezeta** batekin 3'75 bolibar daukazazu, ia lau. **Pako Aristi**

Gerora 13000 milioi **pezetara** murriztu zuen bermea. **Edurne Elizondo**

Ez nengoen Remelluri botila mila **pezetatik** gora ordaintzeko moduan. **Unai Iturriaga**

Pobreek bost xentimo ematen dute; burgesek erreale bana; jaunek **pezeta** erdia; enperadoreek, printzeek eta poetek **pezeta**. **Koldo Izagirre**

Nafarroako esportazioek 29408 milioi **pezetarena** ekarri dute aurtengo lehen sei ilabeteetan. **Herria**

## 2 (billeteen izen gisa)

-Gogoan ditiat, bai, hortik mila **pezetakoari** "talego" izena gelditu zitzaioan... **Pako Aristi**

Eta larruzko kartera zabaldua, ehun **pezetako** berri-berria eman zidan. **Patxi Iturritegi**

Jendeak hogeita bost **pezetakoak** ikusten baditu kutxan, beste horrenbeste ordaintzera behartuta sentituko da. **Bernardo Atxaga**

## pezetatxo iz *adkor* pezeta.

Bastidorea ere zahar samarra da, eta zikinkeria kenduz gero, **pezetatxo** batzuk aterako dizkiozu. **Javi Cillero**

Libera madarikatu bat ez daukak patrikan, ezin kanbiatuzko **pezetatxo** batzuk. **Unai Iturriaga**

## pezo (*orobat pezu g.er.*) 1 iz eguzkitan lehorturiko lasto eta buztinezko oreka, adreilu gisa moldatua. ikadobe.

Utikako hiritarrek ondo lehortuta eta bost urte lehenago eginda daudela [...] frogatu ondoren bakarrik erabiltzen dituzte **pezoak** paretar-egiturak altxatzeko. **Santiago Iruretagoiena**

Eskorta-hesi zartatuak han-hemen, euren **pezo** maskalduak erakutsiz. **Juan Garzia**

Horiekin eraikitzerakoan, alde batetik **pezo** osoekin egiten dira ilarak, eta beste aldetik **pezo** -erdiekin. **Santiago Iruretagoiena**

Hiri barruko espazio mugatuan zergatik ez den **pezoekin** egindako paretarik onartzen. **Santiago Iruretagoiena**

Ohean eseri nintzen, burkoaren **pezo** moduko hartan bermaturik. **Juan Garzia**



Evo Morales (Isallavi, 1959) nekazarien sendi batean jaio zen, **pezozko** etxe batean, areazko kaleak dituen herrixka batean. **Berria - Harian**  
Juanen etxea herriko beste etxe gehien antzekoa zen, **pezuzkoa**, zuri zikina kanpotik eta barrutik. **Jon Maia**  
Sartu orduko betiko usain hura hartu zuen berriz, etxeko usaina, **pezoarena**, zaku hezeena, amarena, eta gorputz osoa uzkurtu zitzaion. **Jon Maia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hiru **pezo** -mota egiten dira bestalde: bat grekoek lidioa deitzen dutena; hau da gure artean erabiltzen dena, eta luzean oin eta erdi eta zabalean oin bete da. **Santiago Iruretagoiena**

## pezoi<sup>1</sup> 1 (*orobat pezoin*) iz lurrezko hesia.

Obrak berriz hasiak dira Hazketako bide hortan eta laster bi zubi berrien arteko **pezoia** egina izanen da. Zeinen sakan tristea, sigi-saga egiten duen **pezoia**! **Herria**  
Hortik atera eta, azkenean **pezoin** baten gainean gelditu ginen. **Michel Oronoz**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hilarrien sahetsean dagon lur **pezoi** baten erostea; pinadetako lan tokian lur baten saltzea Alphacan lantegiari. Asko lur jabek nahi lukete beren etxekoentzat etxe egiteko baimena ardietsi, edo berdin lur **pezoi** bat saldu barroki berri baten eraikitzeko, dirua biltzeko. **Herria**  
Ermindeko auzoan bide zabaltze bat egiten baita, Iñaki De Heriz-eri lur **pezoi** bat erosi behar izan dute hortarako. **Herria**  
Borde Lamarque deitu etxeko bide **pezoi** bat aldatuko dute kostako auzoan. **Herria**  
Bi ilabeteren buruan bukatu beharra da eta Herriko Etxean eztabadatu dute jakiteko zer abiaduretan mugatu behar den bide **pezoi** hori 50 ala 70 km orenean. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**bide pezo** (3); **lur pezo** (3)

## pezoi<sup>2</sup> iz titiburua.

Astindudazu buztana eta txupazkidazu **pezoiak** orain zutik orain lauoinka, a, ikaragarria izan zen. **Karlos Zabala**

## pezoin ik pezo<sup>1</sup>.

## pezta ik pezeta.

## pezu<sup>1</sup> izond/iz ipar pisua.

-Ez eraman zakurik, ez eta gauza **pezurik** ere. **Elena Touyarou**  
Izerdi lapetan zegoen, beldurrarengatik bai eta bere **pezuarengatik** ere. **Elena Touyarou**  
Bidaietarako maletaño bat erosi, eta **pezuaren** emendatzeko harriz bete zuen. **Elena Touyarou**

## pezu<sup>2</sup> ik pezo.

## pheiatu, pheia, pheiatzen du ad eskuburdizez lotu.

Kapusai bat sartu didate burutik behera, eskuak **pheiatu** dizkidate. **Koldo Izagirre**  
Eskuina kamaina behe eta tinko baten hankari **pheiatua** daukat. **Koldo Izagirre**  
Lur hartu genuen eta ez ginen mugitu ere egin, oraindino eskuak aulkiari **pheiatuak**. **Koldo Izagirre**  
Luzatu egin zidan ostera, eta eskuak **pheiatuta** ongi janztea erraza ez bada ere, ahal izan nuen dotoreena estali nuen berriro neure moztasuna. **Koldo Izagirre**

## pherde ik berde.

## pherediku ik perediku<sup>1</sup>.

## photomaton ik fotomatoi.

## piadoso izond jainkozalea, elizkoa.

Mintzaira gordina da hau guztia, predikazio kristauaren samurtasuna baizik ezagutzen ez duten belarrietzat batez ere, haren aldaki erlijiozko propioan nahiz politikoki demokratiko berdin (faltsuki) **piadosoan**. **Joxe Azurmendi**

## piaia ik bidaia.

## piamontear izlag/iz Piamontekoa, Piamonteri dagokiona; Piamonteko herritarra.

Lainairean zehar, eta isiltasun egitekotsuan, **piamontear** ahots bat entzun zen esaten: [...]. **Juan Garzia**  
Aita agurtzen zuen bere **piamontear** -musu gorri ñimiñoan irribarre gizalegetsu bat marraztuta. **Fernando Rey**  
**Piamontear** seriotasunez onartu zuen berak, baina entusiasmorik gabe. **Juan Garzia**  
Felice Casorati (1886-1963), margolari **piamontearra**. **Fernando Rey**

Euskal Herrira letratarren etortze egitera etortze ofiziale **piamontearrek** ekarri zuten trenatxo hori. Berria - Kultura  
Hortik eratorria da *Jarach* deitura judu- **piamontearra**. Juan Garzia

## piamontera iz Piamonteko italiar dialektoa.

Hauxe da historia, itzulpenaren eraginez apur bat indargetua, **piamontera** hizkuntza mintzatua baita funtsean, eta gure italiara marmolezko hau, berriz, hilarriak idazteko egokia. Juan Garzia

**Piamonteraz** hitz egiten zuen, eta deseroso sentiarazi ninduen berehalak horrek: ez da gizalege onekoa italiaraz erantzutea dialektoan hitz egiten dizunari. Juan Garzia

**Piamontera** ezin hobean, bada, Asti aldeko ukitu sotilez, esan zidan azukrea zekarrela kimikatzeko: [...]. Juan Garzia

Madarrikaziotzat, berriz, "medà meshòna" lotura bitxia erabiltzen zen, hots, literalki "heriotza estrainioa", baina ulerbide zuzenean **piamonterazko** "assidènt" ("ezbehar") formaren kalkoa. Juan Garzia

## pianissimo 1 adlag (musikan) leun-leun, ahul-ahul. ik piano<sup>2</sup>; fortissimo. • irud/hed

la beti, **pianissimo** hasten ginen, bestearen jokabidea aztertuz bezala; hurrera, hizketaren tonua gero eta gorago igotzen zen, errieta bizian amaitzeraino, klimax gorenean; azkenik, behera jaisten zen, xuxurlaka amaitu arte, bare-bare. Juan Kruz Igerabide

### 2 (izenondo eta izen gisa)

Begiak itxi, eta hasierako konpas **pianissimoei** ekiten diet, kontzientzia osoa hatzen mugimendu bakoitzean jarria: ondo egin nahi dut esku bakoitzaren lana. Anjel Lertxundi

Hatz ikasiez zarata oro urratu zuen, **pianissimo** batekin hasiz, nota luze, zitzakariekin, apurka *in crescendo*-ra egiteko. Fernando Morillo

Koralak trinkotasuna hari guztietan azaldu baitzuen, dinamiketan maisu **pianissimotik** *fortissimo*-ra *crescendo*-en bitartez, fraseatze lanetan txukun. Berria - Kultura

Olaizolaren *Aurtxo*a *seaskan* ezaguna bordatu egin zuen bukaeran **pianissimo** zoragarria eskainiz. Berria - Kultura

Biolinaren **pianissimoa**. Josu Zabaleta

## pianista 1 iz piano-jotzailea.

Liszt bere garaiko **pianistarik** handien eta ezagunena ez ezik, andre zalerik handiena ere izan zen. Josu Zabaleta

Neure iloba Liz Chase eraman nuen neurekin, musika-irakasle eta oso belarri oneko **pianista**, inprobisazioan, analisisan eta teorian trebatua. Xabier Olarra

**Pianista** fina zen gizona, eta itsasoan barrena ibili izan zen gaztetan *Alfonso XIII* transatlantikoan orkestra-zuzendari. Josu Landa

"Ez al da hori Joe Costello, Marcel Martinen **pianista**?" galdetu zuen ozenki. Ramon Saizarbitoria

Kafetegiko **pianistarekin** eta biolinistarekin. Josu Zabaleta

Arantza Ezenarro sopranoaren eta Borja Rubiños **pianistaren** kontzertua, berriz, Maria Cristinako Excelsior aretoan izango da. Berria - Kultura

### 2 (hitz elkartuetan)

**Pianista** lanak egin du ospetsu Kocsis. · Ronnie Lynn Patterson amerikano jazz **pianista**, eta ere Wu Zheng xinatar dantzaria. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**marcel martinen pianista** (5); **pianista ariko dira** (3); **pianista bikaina** (3); **pianista ezaguna** (3); **pianista izan** (5); **pianista kubatarrak** (4); **pianista ohiak** (3)

## piano<sup>1</sup> 1 iz musika tresna handia, harpa gisako egitura batean kokatzen diren eta teklei loturiko mailu moduko batzuek jotzen dituzten hariak dituen.

Segundo batzuetako hitsartearen ondoren, **pianoa** entzun zen. Irene Aldasoro

Zuhaitz adarren arteik **piano** baten notak entzuten baitziren, olatuen orroan gailen. Txillardegi

Gero eta nekezago zitzaion **pianoaren** nota desafinatuak jasan behar izatea. Josu Landa

**Pianoaren** teklek nekerik gabe erantzuten diete hatzei. Anjel Lertxundi

Jo dezagun **pianoaren** soka bat gozakaiztua dagoela: **pianoa** jotzen dugun bakoitzean nota faltsu bat aterako da. Isabel Arrigain

-Norbait **pianoan** ari da behintzat -esan zuen Gabrieleke. Irene Aldasoro

Ba al dakik **pianoa** jotzen? Koro Navarro

-Seguru zaude **pianoa** jotzen ikusi nahi nauzula? Anjel Lertxundi

-Ez da batere usua zure sasoiko gizon bat **pianoa** ikasten hastea -esan zuen Willemek. Anjel Lertxundi

**Pianoaren** estalkia jasorik, atrilean zegoen partiturari ekiteko eskatu zidan. Anjel Lertxundi

**Pianoari** tapa altxatu eta teklaren bat sakatu dut. Harkaitz Cano

Fonseca, mandatua bete eta gero, **pianoaren** aulkitxoan jesarri zen. Josu Landa

**Pianoaren** aurrean eseri denean, ingurura begiratu du. Alberto Barandiaran

Frantses doinu herrikoi baten inguruko hitz-moldaketak egiten ari zen bezero bat bere baritono ahotsaz, Mathildek **pianoan** laguntzen ziolarik. Anjel Lertxundi

**Pianoa** bals bat jotzen ari zen. Irene Aldasoro

Horrelakoa izan zen **piano**, klarinete eta biolarako pieza. Berria - Kultura

Escuderoaren **Piano** eta orkestrarako euskal kontzertua joko dute. Berria - Kultura

Egitaraua: Liszten **Piano** eta orkestrarako 1. kontzertua, Brahmsen 1. sinfonia. Berria - Kultura

BOSeK Mendelssohnen *Uda gau bateko ametsa* obrako obertura eta bi **pianotarako** kontzertua eskainiko du gaur. Berria - Kultura

### 2 (izenondoekin)

Nik **piano** klasikoa ikasi nuen eta oso gaztetxo nintzela, hainbat rock taldetan jo nuen. Berria - Kultura

Diskoa «musika tradizionaletik abiatzen da, baina gero oso melodia ezberdinak jasotzen ditu, betiere Joserraren **piano** dotore eta modernoak ematen dion ukitu bereziarekin». Etenaldi batean, **piano** tristea entzun da. Berria - Kultura

-Noiztik atsegin zaizkin **piano** desafinatuak? Josu Landa

Instrumentuei dagokienez, **piano** elektrikoa eta bateria soilik erabiltzen dituzte. Berria - Kultura

Handik laster **piano** mekaniko bat baltse bat jotzen hasi zen. Lopez de Arana

Areto hotzak gurutzatzen dituzte, eta egongelara iristen dira, non estalkia altxaturik dagoen **piano** atze-luzearen eta portzelanazko suontzi zuri berotuaren inguruan hiru besaulki baitira altzari bakarrak. Xabier Olarra

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Maite dut Schumann, haren **piano**-lanak batez ere. Anjel Lertxundi

Gramofonoak Liszten **piano** kontzertuetako bat jotzen zuen. Alberto Ladron Arana

Uztailaren 19an, ortzirezale: flauta eta **piano** kontzertua. Herría

Fagot eta **piano** errezitaldia Miramongo Matineen gaurko saioan. Berria - Kultura  
Okela, ardoa eta ingelesez hitz egiten duten zerbitzariak ditu leku honek, zuzeneko **piano**-musika ahaztu barik. Edorta Jimenez

Iruditzen zaizu bere hitzak **piano** notak direla. Lander Garro

Mozarten 10. kontzertuan asko gustatu zitzaizun Labeque ahizpen **piano** teknika eta euren arteko harremana, egun arraroa suertatzen dena. Berria - Kultura

Pausoa bizkortu nuen, **piano**-aritekak berandutu nindutela entzuteak nekez errendituko zuen-eta amak orduari zion errespetu maniatikoa. Anjel Lertxundi

Eskuin besoa galdu nuen, ezingo nion aurrerantzean nire **piano** irakasle postuari eutsi. Harkaitz Cano

Ez nituen jada **piano**-hotsak eta hatz-ariketak entzuten. Anjel Lertxundi

Gure amak errosiera-eskolez gainera, **piano**-eskolak ere hartzen zituen. Fernando Rey

Schumann-en pieza erreparatzen hasi nintzen mentalki, arratsaldeko **piano**-klasea gogoan. Anjel Lertxundi

Badakizu kontserbatorioan bakarrik egin daitekeela **piano**-karrera. Anjel Lertxundi

Hoteleko areto publikoetan (**piano**-gela, kafetegi, joko-mahai) entretentzen zituzten egunaren hondarrak. Anjel Lertxundi

Eta horra non norbait sartzen den **piano**-gelara eta, nire gibelean jarririk, eskuak pausatzen dizkidan sorbaldetan. Anjel Lertxundi

Ohiko bezeroak behean, **piano**-barrean, beren martini idorrei hurrupaka. Oskar Arana

**Piano**-kafe batean hasi nuen karrera profesionala. Anjel Lertxundi

#### 4 **isats piano** piano isatsduna.

**Isats-pianoa** gure gelako zentro neuralgiko garrantzitsua da. Harkaitz Cano

Bi taburete ere erosi ditut eta metroan eraman Brooklyngo etxera: pianoa nahiko altu dagoenez, tabureteak oso ongi datoz **isats-pianoaren** aurrean eseri eta hura mahai gisara erabiltzeko. Harkaitz Cano

#### 5 **piano isatsdun** hariak horizontal ezarriak dituen piano luzea.

Rec grabazio estudioan, **piano** isatsduna eskura izateaz gain, musika jo bitartean, edo grabatutakoa entzutean, filmaren irudiak gela berean dagoen pantaila handi batean ikusteko aukera izan du Salvadorrek. Berria - Kultura

#### 6 **piano-jole** (**15** agerraldi, **9** liburutan; orobat **joile 20** agerraldi, **liburu 1** eta **15** artikulutan, eta **pianojole 8** agerraldi, **4** liburu eta artikulatu **1**ean) iz piano-jotzailea.

Artoan ezproien hots erritmikoa entzuten zen, eta **piano-jolea**, arrazoiren batengatik urdui edo ikaraturik, gogotik ahalegintzen zen mazurkaren konpas bizia jotzen. Jose Morales

Inguruko tabernako **piano-jole** beltza "Paper Doll" jotzen ari da, triste eta astiro. Xabier Paya

Katia eta Marielle Labèque bi ahizpak, biak **piano-jole** guziz jeinutsuak. Herria

Piezaren erdi aldera, **piano-joleak** huts txiki bat egin zuen akorde batean eta gelditu egin zen. Anjel Lertxundi

Ezin dugu jo milaka **piano-jolek** milaka aldiz jo izan duten bezala. Alberto Barandiaren

Imajina ezazue nolakoa izango den hilabete askotan kontzertua prestatzen aritu der **pianojolearen** sentiberatasuna txaloen aurrean, eta frakasoak utz diezaiokeen samina.

Pako Aristi

*izond* Une hartan Kreuzstrassen gora gindoazen eta nik, neska **piano-jolearen** leihopetik pasatzerakoan, burua jaso nuen. Anjel Lertxundi

#### 7 **piano-jotzaile** (**82** agerraldi, **8** liburu eta **50** artikulutan) pianoa jotzen duen musikaria.

Ama eta amona **piano jotzaileak** izan zituen. Berria - Kultura

Lachenmannen obrez gain Cage, Sciarrino eta Lucier konpositoreen obrak interpretatuko ditu **piano jotzaileak**. Berria - Kultura

**Piano-jotzaileari** partiturak pasatzen zizkion, honek eskuak tekletatik altxa beharrik izan ez zezan. Harkaitz Cano

Kale kantoiko taberna batetik, ingurua girotzen duen **piano jotzaile** beltz baten musika dator. Xabier Paya

Besteri entzunez ikasi zuen pianoa jotzen; aditu hutsarekin ikasten ditu aire eta doinuak, eta **piano-jotzailearik** trebeek bezain ongi jo dezake lehenbizikoan edozein pieza. Xabier Olarra

Euskal Herriko **piano jotzaile**, moldatzaile eta ekoizle artistiko argien eta aktiboenetakoa da Gimenez. Berria - Kultura

Hiroimi Uehara 25 urte besterik ez duen **piano jotzaile** japoniarrak sona handiko bi CD argitaratu ditu. Berria - Kultura

Maria-João Pires **piano-jotzailearen** bertsoiak [...] minutu bat eta zazpi segundo irauten du. Anjel Lertxundi

Ez zitzaizkion musikaz deus gutxi zekien jendearen aurrean konplitu beharra bezalako konpromiso soileko saioak atsegin, konpromisoa beste loturarik ez baitzen izaten halakoetan **piano-jotzailearen** eta entzuleen artean: kortesiaz jotzen zuen **piano-jotzaileak**, kortesiaz entzuten zuen publikoak, eta lagun arteko gaubeila asko hondatzen zen modu hartan. Anjel Lertxundi

#### 8 **piano zut** hariak zut ezarriak dituen pianoa.

Katek, asko ibiltzeko ahulduegi, musikako klaseak ematen zizkien hasiberriei atzeko gelako **piano zut** zaharrean. Irene Aldasoro

**Piano zut** itxiaren gainak ere jaki fin eta gozokientzako apalaren zerbitzua egiten zuen. Irene Aldasoro

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**piano aurrean** (10); **piano eskolak** (4); **piano eta orkestrarako** (9); **piano gainean** (14); **piano gainea** (5); **piano irakasle** (3); **piano joile** (11); **piano jolea** (9); **piano joilearekin** (4); **piano jole** (3); **piano jolea** (6); **piano jolearen** (3); **piano jotzaile** (22); **piano jotzailea** (21); **piano jotzaileak** (18); **piano jotzailearekin** (8); **piano jotzailearen** (8); **piano kontzertua** (6); **piano musika** (5); **piano tristea** (4); **piano tristearen** (6); **piano tristearen musika** (3); **piano zahar** (4); **piano zut** (3)

**pianoa ikasten** (3); **pianoa izan** (4); **pianoa jo** (11); **pianoa jo zuen** (4); **pianoa joko** (4); **pianoa jotzea** (7); **pianoa jotzeari** (5); **pianoa jotzeko** (7); **pianoa jotzen** (48); **pianoa jotzen hasi** (5); **pianoa jotzen ikusi** (4); **pianoa jotzen zuen** (5)

**pianoak eta txistuak** (3)

**pianoaren aurrean eseri** (5); **pianoaren estalkia** (4); **pianoaren laguntzaz** (4)

**biolin eta pianorako** (3); **orkestra eta pianorako** (4); **pianorako kontzertu** (3)

## **piano**<sup>2</sup> 1 *adlag* (*musikan*) leun. ik **pianissimo**; **forte**<sup>2</sup>.

Pianofortea pianoari hasieran eman zitzaion izena dela, klabea ez bezala gogara jo zitekeelako, nahi zenean **piano**, ahul alegia, eta nahi zenean forte. Bernardo Atxaga

### 2 (izen gisa)

Victoria eskua telefonora luzatzen, ni neu deia jasotzen, Pavanaren *crescendo* laburra *diminuendo* gero, eta **pianoagoan** ahitzen. Ramon Saizarbitoria

### 3 **piano-piano** *adlag*

Jendearen marmarra iritsi zitzaionean, teklatua **piano piano** itxi, jaiki eta eszenatokiko atea zeharkatu zuen, astiro. Alberto Barandiaren

Eta azken nota hori erabat isildu denean, azken uhina ere desegin denean, partituraren azken orria itxi du, **piano**, **piano**. Alberto Barandiaren

## **pianoforte** iz antzinako pianoa.

**Pianofortea** pianoari hasieran eman zitzaion izena dela, klabea ez bezala gogara jo zitekeelako, nahi zenean piano, ahul alegia, eta nahi zenean forte. Bernardo Atxaga

Klabikordiotik **pianofortera** egon zen jauzian protagonista izan zen Mozart. Berria - Kultura

Vilanov-eko noble baten etxera joateko eskaria nuen, girlanda urre-kolorez apaindutako **pianoforte** zahar bat konpontzera. Koro Navarro

pianojole ik **piano**<sup>1</sup> 6.

**pianola** *iz* mekanikoki -pedalen bidez eta elektrizitateaz- jotzen den pianoa.

Behaldekik *Alarguntsa alaia* izeneko baltsea jotzen ari zen **pianola** baten notak zetozen. **Lopez de Arana**

**Pianola** baten musika mekanikoa entzuten zen urrutian. **Anjel Lertxundi**

· «Esku soinua (trikitia), **pianola** (soinu handia) eta pilarmonika (ezpainetako soinua) ume umetan ezagutu nituen, eta beti eman zidan inbidia izugarria jotzen ez jakiteak» aitortu zuen atzo Joxe Mari Iriondok berak. **Berria - Kultura**

**pianotzar** *iz* *adkor* tamaina handiko pianoa.

Eseri nintzen ostera **pianotzarraren** aurrean: tortura tresna mehatxagarria begitandu zitzaidan, une batetik bestera jiraka hasiko zen Erdi Aroko gurpil hezur-birrintzailea.

**Harkaitz Cano**

**piastra** **1** *iz* ekialdeko herri batzuetako behinolako eta oraingo dirua.

Haren hara-honako kontsultategian, zenbaitetan oso mingarria gertatzen zen hagin eraztea, baina ez zen garestia izaten: **piastra** bat pobeentzat eta bi aberatsentzat (Midak kalezuloko aberatsentzat, alegia). **Patxi Zubizarreta**

Hasieran, eguneko hogeita bost **piastrako** diru-saria emango didate. **Patxi Zubizarreta**

Baso bat ardo **piastra** erdian bihotz-altxagarria duk ni bezalako langabe batentzat. **Patxi Zubizarreta**

**2** *adkor* *pezeta*.

Marotoren traizioak, milioi bat **piastraz** ordaindua omen, suntsitu egin zuen armada karlista. **Koldo Izagirre**

**pibot** (*orobat pibote*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian pibot agertzen da*) **1** *iz* saskibaloian-eta, eraso lerroaren eta defentsaren artea jokatzen duen jokalaria, euskarri gisa aritzen dena.

2,17 metroko **pibotak** garrantzi handia izan behar du Tauren etorkizunean. **Berria - Kirola**

Flisek, Archibaldek eta beste **pibotek** ere brasildarraren gorputz sendoarekin topatu ziren behingoz. **Berria - Kirola**

Ligako jokalaria erabakigarriena dute, Kobe Bryant eskolta, eta Ligako **pibot** nagusia: Shaquille O'Neal. **Berria - Kirola**

Femerling eta Middleton dira **pibot** argi bakarrak, gainerakoek kanpotik jaurtitzeko erraztasun handia baitute. **Berria - Harian**

**2** *hegal* *pibot*

Andersenen lesioa ere erabakigarria da, hegal- **pibot** gaztea gabe indarra galtzen baitute saskipetik saskiratzerakoan. **Berria - Kirola**

· Jokalariet dagokionez Nocionik berebiziko garrantzia izan dezake hegaleko eta hegal- **pibot** postuak betetzeko **Berria - Kirola**

pibote ik **pibot**.

pidaia ik **bidaia**.

pidaiarazi ik **bidaiarazi**.

pidaiari ik **bidaiari**.

**pidgin** *iz* hizkuntza bi edo gehiagoren osagaiez osaturiko hizkuntza.

Saizarbitoriak dioenez, euskal literaturak, geure zirkunstantziaren ispilu edo adierazpen izan nahi badu, bizpahiru hizkuntza eta **pidginen** bat, beharko ditu erabili. Adibideok erakusten dutenez, euskara lapurtarra zen **pidginaren** oinarria. **Markos Zapiain**

Dirudienez, alderdi hartako hizkuntzak bata bestearekin nahastuaz gauzatu zen, eta gisa horretara sortutako hizkuntzak dira **pidginak**. **Koldo Zuazo**

Asko dira, munduan barrena, **pidgin** hizkuntzetatik etorri diren hizkuntza kreoleak, baina garbi dago gaur egun tankera horretako hizkuntzek ez dutela lekurik gure artean: ingelesea da alderdi honetako hartu-eman tresna. **Koldo Zuazo**

piedade ik **pietate**.

**pielago** *iz* aipatzen denaren kopuru handia.

Izan ere, gauzadiaren barruan gauza bakar bat sortzeko gauza den gorputz kopuru finituak diharduela emanik ere, nondik, non, zein indarrez eta nola elkar topaturik batuko dira hain materia **pielago** handian eta hain nahasmahas dibertsoan? **Xabier Amuriza**

**piercing** (*orobat pirtzin g.er.*) *iz* giza gorputzaren zatiren bat zulatzea, bertan uztaitxoak edo kidekoak kokatzeko.

Zilborrean duela gutxi egindako **piercing**-a agerian uzten zion barruko elastiko beltz harekin. **Antton Olano**

**Piercing** bat marraztu zuen irakaslearen sudurrean. **Joxemari Urteaga**

Ni ohituta nengoen oraingo gazteekin, **piercing**, argazki makina digitala eta ordenagailu portatilaren belaunaldiarekin. **Alberto Barandiaren**

Ez ditut maite ez supositorioak, ez **piercing**-ak, ezta eraztunak eurak ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

'**Pirtzina** zilborrean' narrazioa kaleratu du Antton Kazabonek. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pirtzina zilborrean** (3)

## pietate 1 iz errukia, urrikalmendua; bihozberatasuna.

Zeruko hirian, berriz, **pietatea** da giza jakintza bakarra. Hauxe da Jaungoikoaren gurtza, hauxe egiazko erlijioa, hauxe **pietate** zuzena, hauxe Jaungoikoari soilik zor zaion zerbitzua. **Imanol Unzurrunzaga**

Abia zaitez arrazoimenaren ildoetan zehar, uste ona **pietatean** ipiniz. **Imanol Unzurrunzaga**

Gregorio Nyssakoaren eta Areopagita aizunaren ideiek [...] Erdi Aroko eta ondorengo aroetako Teologian eta **pietatean** izan zuten jarraipena. **Joan Mari Lekuona**

Fariseuak, bestalde, beren **pietateaz** puze ziren, beren errito eta arau-zaintzari oso atxikiak zeudenez. **Joan Mari Lekuona**

Otoitz-formula guztiak eta egintza guztiak, bihotzez otoitz egiten uzten ez badizuete, alde batera utz itzazue, edozein direla **pietatezko** praktika horiek. **Joan Mari Lekuona**

## 2 guraso eta ahaideenganako txerazko jarrera.

Sortu gaituen herriari zor diogu eskerrona eta atxikimendua, erromatar tradizioan burasoei eta herriari emaiten zitzaizen *pietas* edo "**pietate**" hura bera. **Piarres Xarriton**

## 3 (hitz elkartuetan)

Horrengandik klabiatura izpiritual desberdinak bereizten zuen, Taulerrena, Eckhartena bezala, lehorragoa baitzen, eta Susorena irudimenera eta grafismo bapikatuetara isuriagoa, Erdi Aro berantiarreko herri-**pietatetik** hurbilago zegoena. **Joan Mari Lekuona**

## pietatetsu izond jainkozalea, elizkoia.

Hemen ezagutarazten zaizkigu pertsona **pietatetsuen** artean aurki daitezkeen bi hondo kirastu eta kaltegarrienak. **Joan Mari Lekuona**

Bigarren sailekoak dira jende **pietatetsuak**, itxura distiratsua dutelarik eta sona handia. **Joan Mari Lekuona**

## pietista izond ideal piatatetsua berpizteko doktrina protestante bati dagokiona.

Mundu zientifiko modernoan zahartutako arima **pietistak** ez zekien nola moldatu bere moral hertsia eta ortodoxoa. **Berria - Kultura**

## pietun iz ipar postaria.

Ofizioz **pietuna**, herriko kontseiluan egona zen luzaz eta axurant karguan ere ainitz urtez. **Herria**

**Pietunak** greban izan dira aste bat osoa. **Herria**

**Pietuna** edo postaria heldu zenean, hilabetean behin, diru horrekin, bihotza lasaitzen zitzaion ama familiakoari. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Herriko fatur edo **pietun** den Maite Gorazurreta Zuraidekoa. **Herria**

Murtuseneko inguruetan gaitzeko urrin tzarra zegoen eta **pietunak** sudurra tapatu zuen mokanesarekin. **Itxaro Borda**

## pietungo iz postariaren lanbidea.

Bere denbora gehiena gutun banatzen edo **pietungoan** arizana, lan hori utzirik muntatua zuen bere lantegia "Arbela harri" deitua zuena. **Herria**

## pieza 1 iz tresna edo makina batean alda daitekeen atala. ikpeza.

Makinak ez du balio bere helburua betetzeko, harik eta mekanismoaren azken **pieza** bere lekuan jartzen zaion arte. **Irene Aldasoro**

Makina batean ezarrita zegoen **pieza** bati so gelditu ziren. **Pablo Sastre**

Sarri, autoen **piezak** askatzen izaten dugu lanik handiena. **Berria - Gaiak**

Gurpilak eta pinoiak limaz egokitzen genituen, eta **piezak** ez ziren trukagarriak. **Pablo Sastre**

[Fabrikan] **piezei** lehen leundua ematen zaie, beste enpresa batzuetarako. **Eskarne Mujika**

Niri dagokidanez, zulo bat egiten diot **pieza** jakin bati, beti zulo bera **pieza** berean hamar urtez. **Eskarne Mujika**

Behin bizikleta bat, **piezetan**, ekartzea lortu zuten, bizikleta burdinazko bat, beltzez pintatua. **Felipe Juaristi**

**Pieza** asko egiten ditugu baina ez dira hemen muntatzen. **Berria - Ekonomia**

Landabengo enpresak 900 langile ditu eta Volkswagentzat ere egiten ditu **piezak**. **Berria - Ekonomia**

1940ko hamarkadan Mark I izeneko makina bat egin zuen IBMn lan egiten zuen Harvard-eko ingeniari batek: 16 metro luze, 3 metro garaiera, milioi bat **pieza**, 850 km hari.

**Pello Salaburu**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Irakurleari kartak erakustea, hala nola erloju-gelara iristean, tresnaren aurrean jartzen baititu langile mutilaren aurrean. **Javi Cillero**

Dorreko esku-eskaileretatik igo eta, erloju-gelara iristean, tresnaren aurrean geratu ziren; tresna zaharrak ziren, **pieza** lodiz eginak. **Koldo Biguri**

**Pieza** erraldoi bat zerabilen hortik hara gruak. **Pablo Sastre**

Automobilendako **pieza** osagarriak. **Aingeru Epaltza**

Fabrikan **pieza** solteak egiten dira. **Eskarne Mujika**

-Burdinazko **piezak** egiteko makina bat. **Jon Maia**

**Pieza** metaliko bat erori eta kalte larriak eragin ditu Navalen gasontzian. **Berria - Ekonomia**

Volkswagen, Ford eta Suzuki bezalako enpresentzat egiten dira hor beribil-**pieza** hidraulikoak. **Herria**

Nire kezka, ordezkia-ezinezko **piezaren** bat norbaitek ostu ote lezakeen edo, ez du Herbert den mendrenik ere ikaritzen. **Joxe Austin Arrieta**

Prozesaketaren fase bakoitzak behar duen tresneriaren **pieza** espezializatu guztiak zehaztuz. **Irene Aldasoro**

## 3 irud/hed

Hirurehun **pieza** ezberdinetan desmuntatu eta berrehun kuxtatan sartu behar izan zuten berrehun eta hogeita bost tonako estatua. **Harkaitz Cano**

Akordio horren bitartez, A380 hegazkinaren fuselajeko **pieza** handiak egingo ditu Arabako enpresak. **Berria - Ekonomia**

Ibarra besamotzak **pieza** garrantzitsua izan behar zuen euskaldunen isilpeko makinerian. **Alberto Ladrón Arana**

Kontuak kontu, antzerkian eta bizitzan, pertsonaia interesgarria ez da **pieza** batekoa. **Juan Garzia**

Falta zen **pieza** da, gaixotasunaren mekanismoak bateratzen baititu gorputzeko hainbat ehunetan. **Berria - Gaiak**

## 4 xakean eta kideko jokoetan, mugitzen diren osagaietako bakoitza.

Ez nintzen nekatzen zurezko **pieza** pitzatuak lauki zuri-beltzeko zelai mugatuen barrera mugitzeaz. **Alberto Ladrón Arana**

Xake joko bat muntatu nuen, xake taula orrialde batean marratuz eta **piezak** ogi mamiz eginik. **Filipe Bidart**

Joko-taula prest zagok, eta **piezak** mugitzen hasita. **Agustín Otsoa**

Hiru **pieza** mugituz, xake matea egiten ahalagintzen da hura, gu aurrea hartzen saiatzen gara. Koro Navarro

**Pieza** zurien atzean beste ate bat ikusten zuten. Iñaki Mendiguren

**Pieza** beltzean jokatzeko zuten jokalariek alemanak bere erregina mugitu zuten. Alberto Ladron Arana

Erregeari buruz xake jokoko **pieza** nagusia zela erran zidan. Alberto Ladron Arana

Bi aldiz aztertu behar izan nuen jokaldia, piezaz **pieza** eta laukiz lauki aztertu ere. Alberto Ladron Arana

-Gu xakeko **piezak** izan beharko dugula pentsatzen dut -esan zion Ronek. Iñaki Mendiguren

Haien begietan ni peoi zittrin bat baizik ez nintzen, **pieza** tipia, anitzetan trabagarri gertatzen den **pieza** ezdeusa. Alberto Ladron Arana

Hala ere, xake-**pieza** zaharrak ez ziren eragozpen bat. Iñaki Mendiguren

## 5 multzo edo osotasun homogeen bat osatzen duten mota bereko osagai berezia. ikatal.

Mosaikoaren **piezak** nolako, mosaikoa ere halako, egia da. Anjel Lertxundi

Banan-banan hartuta, mosaiko bateko **pieza** bakar baten garrantzia zeukaten: hutsala. Fernando Morillo

**Pieza** asko ditu argunaren puzzleak. Imanol Zurutuza

Buruhauskarriaren **piezek** antolaera antz onartuko balute bezala. Iñaki Iñurrieta

Zein erraz uzartzen diren zenbaitetan puzzlearen **piezak**. Imanol Zurutuza

"**Pieza** gehiegi dauka puzzle honek" pentsatu zuen argazki zatiak mahai gainean zabaldu zituenean. Joxemari Urteaga

Puzzle handi baten **piezak** gara, eta Ministro xume batek dozena erdi pieza baizik ez ditu ikusten ahal. Jon Alonso

Lehen urte honetan, gorpuzkinak garbitu, eta eskeletoak eta kontserbatutako **piezak** zehaztea izan dela lan nagusia. Berria - Harian

Mahaia prestatzen ari zen afarirako eta gurasoen erreoko zilarrearen **piezei** banan-banan distira ateratzen. Anjel Lertxundi

1940ko hamarkadan Mark I izeneko makina bat egin zuen IBMn lan egiten zuen Harvard-eko ingeniari batek: 16 metro luze, 3 metro garaiera, milioi bat **pieza**, 850 km hari. Pello Salaburu

Arretarik handienaz haren artxibo partikularra arakaturik, honako **pieza** hauez osatua dela egiaztatu dut: [...]. Juan Garzia

Borgesen ironia ez datza bakarririk idazketa eta keinuean, baizik eta **piezen** osotasunean bertan ere. Juan Garzia

Gure herri-poesiari salbatzen zuen **pieza** bakarra honako kopla zahar xume hau zen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esan zezakeen, esate baterako, beste aforismo batzuen gaineko aforismoak direla liburu honetako **pieza** gehienak: meta-aforismoak. Joxerra Garzia

Piezaz **pieza** osatzen duk bilduma. Jon Muñoz

Ez zeuden oraindik erabat biluzik, azken **pieza** intimoa jantzirik zuten, emakumeak bularretakoa ere kendu gabe zeukan. Jon Alonso

Baina Napumoceno jaunaren bulegoko **pieza** nagusia, dudarik gabe gela dominatzen zuena, idazmahaia zen. Bego Montorio

Belarritakoak, eratzunak eta horrelako beste **pieza** batzuk aurkitu ditugu hilobi batzuetan. Berria - Gaiak

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire Lego-**pieza** guztiak kartoizko kaxa batean bildu eta Gabriel lehengusu txikiari eman nizkion. Jesus Mari Mendizabal

Afaltzeko yogur bat eta fruta-**pieza** bat ematen diogu, besterik ez. Xabier Mendiguren Elizegi

Jada altzari-**pieza** gehienak, astunenak, igoak zituzten eramaleek, tarteka puxka txikiagoak ere bai. Eduardo Matauko

## 7 (artilleriakoak)

Artilleriako 347 **pieza** ere badira, hogeita mila balarekin. Edorta Jimenez

101,2ko 3 **pieza** eta 47,6ko 2 zituen, 86 lagunek osaturiko eskifaiak maniatuak. Edorta Jimenez

Artilleria **pieza** haietako baten itzalpean atondua nuena, bere benetako zereginerako utzi behar izan nuen, ontzian beste askok bezala. Edorta Jimenez

## 8 oihal, ehun edo kideko zerbaiten zatia, osotasun bat osatzen duena.

Elizaren muturra oihal **pieza** ikaragarri handiek apaintzen zuten, dilindan eta hegan, ia lehenbiziko estaitik espaloraino. Karlos Zabala

Ingalaterrako oihal **piezak**, zetazkoak eta lihozkoak gehienak. Felipe Juaristi

Fabrikako sala luze eta estuak iruteko makinaz, ehundegi mekaniko eta lurrun-motorrez bete zituen, egunean bost mila oihal **pieza** ekoizteko helburuarekin. Iban Zaldua

Horma-irudia metro eta erdi luze eta metro bat zabal da; **pieza** bakarrekoa. Monika Etxebarria

Biltzen ninduen zerrenda edo xingola **pieza** -bakarra zela bururatu zitzaidan. Koro Navarro

## 9 zati berezia.

SC idazkia **pieza** bakar bezala agertzen da berez, atalburuetan banatu gabe. Askoren artean

Metalezko **pieza** bat, gainazal leuna grabatuta zuena. Iñaki Iñurrieta

Tornuzilean finkatutako metal **pieza** bat grabatzen ari zen, esku batean zizela eta bestean mailua hartuta. Iñaki Iñurrieta

Arrain eta haragi **piezak** platerean gerora zerbitzatuko diren tamaina eta forman ebakita. Edorta Agirre

## 10 musika lan laburra baina beste baten zatia ez dena.

Zergatik ez diguzu **pieza** bat jotzen, David? Bernardo Atxaga

Soinujoleak *Nik banuen kamarada bat* **piezari** ekin zion. Anjel Lertxundi

Hari ikasi zizkion aurreneko **piezak**, eta oraindik ere haren **piezak** jotzen ditu inoren aurrean nabarmendu nahi duenean. Xabier Etxabe

Galga malenkoniatsu hori lortu ezinik gelditzen nintzen Schumannen **pieza** batzuekin. Anjel Lertxundi

Sarriegik bi **pieza** ondu zituen, "Euskal-Billera" eta "Sporti-Clay" izenekoak, izen bereko erakundeentzat. Askoren artean

Goiezutako bandaren **pieza** zahar bat ikasi berria dugu Leitzaan, Fermin Tolatxenekoaren belarri finari esker. Patziku Perurena

Horrelakoa izan zen piano, klarinete eta biolarako **pieza**. Berria - Kultura

Orkestinako tronpetajoleak **pieza** ospetsu bat iragarri zuen mikrofonotik. Bernardo Atxaga

Balsta jo, tangoa jo edo pasodoblea jo, baserritarrek antzera samar egiten zuten dantzari **pieza** edozein izanda ere. Xabier Etxabe

Lau bat ordu behar izan zituzten dozena erdi bat **pieza** grabatzeko. Iñigo Aranbarri

Elgetak soinuari bi botoi erantsita lortu zuen dantza lotuko **pieza** asko jo ahal izatea. Iñigo Aranbarri

Modako **piezak**, helduta dantzatzeko pasodobleak, tangoak, txotisak eta abarrik. Pako Aristi

Agintariek soinu-jotzaileak zigortzea ere eguneroko kontua zen erromerietan, helduko **piezak** jotzen zituztela eta. Xabier Etxabe

Ikusirik nola musika **pieza** horiek donostiar guztiak elkartzeko dituzten. Askoren artean

## 11 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pieza** sorta zabal baldin bazuen ikasle ona zelako zen. Iñigo Aranbarri

## 12 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Musika-**pieza** landuak gogoratzeko eta ikasteko. Xabier Olarra

Beste dantza-**pieza** bat hasi zen segidan. Anjel Lertxundi

Urola bailaran garai bateko erromerietan jotzen ziren trikiti **pieza** zaharrak berreskuratu eta grabatu dituzte. Berria - Kultura

## 13 arte lana.

Joan behar zuen egunen batean San Telmo museora, **pieza** hura ikustera. Iñaki Iñurrieta

Horretarako balio ezean, museoko **pieza** bitxi alferrikakoa baino ez da hizkuntza. Joxerra Garzia

## 14 antzerki lana.



Leandro eta izenik ezagutzen ez diodan emakume pinpirin bat irten dira jantokiaren dirira, eta **pieza** labur bat jokatu dute han bildutakoon entretenigarri. **Anjel Lertxundi**  
Goizean, Joko-Moko, burrasoen antzerki tropak, "Jostagailuak" **pieza** emanen du Haritz Barnen, Agnes Arruebarrenak idatzirik. **Herria**  
Bunin-en **pieza** bat jokatu behar dute arratsaldeko bostetan: *The dark alley*. **Edorta Jimenez**  
**Pieza** bat dute batzuek begiz jota; bizpahirurekin jokatzeko beste hainbatek; helburu jakinik gabe, ondo pasatzea beste xederik ez du zenbaitek. **Xabier Mendiguren**  
Elizegi

## 15 metalezko dirua.

Bost zentimoko txanpon baten bila hasi nintzen Friedeli deitzeko, baina berrogeita hamarreko **pieza** bat eta bi dolarreko txartela baino ez nituen aurkitu. **Koro Navarro**  
Urre eta zilar **piezak** erakutsiz, planoekin batera. **Felipe Juaristi**

## 16 ordezeko pieza ik ordezeko 9.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**burdinazko pieza** (3); **instrumento hutsezko pieza** (4); **izeneko pieza** (8); **jazz pieza** (3); **jotako pieza** (3); **metalezko pieza** (5); **metalezko pieza bat** (3); **museoko pieza** (4); **musika pieza** (9); **ordezko pieza** (3)

**pieza bakar** (4); **pieza bakarra** (8); **pieza bakarreko** (7); **pieza barrien** (3); **pieza bat egin** (3); **pieza bat falta** (4); **pieza bat hartu** (3); **pieza bat jo** (3); **pieza bat jotzen** (5); **pieza bat mugituz** (4); **pieza bat mugitzen** (3); **pieza bati ekin** (3); **pieza beltzen** (3); **pieza bera** (5); **pieza berri** (6); **pieza berria** (6); **pieza berriak** (15); **pieza bitxi** (3); **pieza bukatu** (3)

**pieza eder** (4); **pieza egin** (3); **pieza eskaini** (6); **pieza handi** (4); **pieza handi bat** (3); **pieza handiak** (6); **pieza horrekin osatzen** (3)

**pieza jo** (13); **pieza jotzen** (7); **pieza jotzen hasi** (3); **pieza labur** (4); **pieza laburak** (3); **pieza nagusia** (7)

**pieza ondu zituen** (3); **pieza solte** (3); **pieza txiki** (7); **pieza txikia** (3); **pieza txikiak** (4)

**pieza zaharrak** (5); **pieza zoragarria** (3); **pieza zuri** (3)

**piezaz pieza** (5); **xake pieza** (3)

**modako piezak** (3); **mozarten piezak interpretatuko** (5); **musikarien piezak** (3); **ordezko piezak** (8)

**piezak askatzen** (3); **piezak egiteko** (4); **piezak egiten** (8); **piezak egiten ditu** (3); **piezak eskainiko** (3); **piezak hartu** (3); **piezak ikasteko** (3); **piezak interpretatuko** (15); **piezak interpretatuko ditu** (9); **piezak joko** (9); **piezak joko dituzte** (4); **piezak jotzeko** (3); **piezak jotzen** (11); **piezak mugitzen** (4); **piezak ukitu** (3)

**sortutako piezak** (3); **trikiti piezak** (3); **urrezko piezak** (3)

**piezaz pieza** (5)

**ordezko piezen** (5)

## piezatxo *(orobat piezatxu g.er.) iz pieza txikia.*

Egurrezko **piezatxoak** dagokien tokiraino bultzatzea, hori da orain axola duena. **Joxe Austin Arrieta**  
Piano bat entzun nuen Kreuzstrasseko etxeren batean, Schumannen *Istoria bitxi bat* **piezatxoa** jotzen. **Anjel Lertxundi**  
Inoiz, jairen batean, Gabon gaubeko afalostean, **piezatxoren** bat edo beste eta akabo. **Xabier Amuriza**  
Lau domino **piezatxu** zut. **Txillardegia**

## piezatxu ik piezatxo.

## piezoelektriko *izlag* piezoelektrizitateari dagokiona; piezoelektrizitateak eragina.

Katuak erabilia egindako beste esperimentu batzuetan, frogaturik geratu da efektu **piezoelektrikoa**, hankako hezurretan, katuaren ibilera normalean. **Irene Aldasoro**  
Tentsio normalak desagertuz gero [...] oso murrizten da aktibitate **piezoelektrikoa**, eta, horren ondorioz, hezurren elikadura kaltetzen. **Irene Aldasoro**  
Hartara, sortzen diren korrante **piezoelektrikoek** halako ponpaketa bat eginarazten diete zelulen mintzei, eta horrek asko handitzen du hezurretako kanal estuetako elikagai-emaria. **Irene Aldasoro**

## piezoelektrizitate 1 *iz* presio mekanikoak egindako gertakari elektrikoek multzoa.

**Piezoelektrizitateak** hezurren biologian duen eragina berrikusi du oraintsu New York-eko Columbia unibertsitateko Andrew Bassett doktoreak. **Irene Aldasoro**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Piezoelektrizitate** -propietatea du hezurrak: presio mekanikoaren ondorioz korrante elektrikoa sortzeko gaitasuna, alegia. **Irene Aldasoro**

## pigmalionismo *iz* Pigmalionen mitoan oinarrituriko jokaera.

**Pigmalionismoz** jotako kondenuatu batek bere gorpuarekin estatua bat egin zezala eskatu zion berreroari. **Karlos Linazasoro**

## pigmentario *izond* pigmentuarena, pigmentuari dagokiona. ik pigmentoso.

Retinitis **pigmentario** gaitz hereditarioa zuen emakumeak. **Berria - Gaiak**

## pigmentazio *iz* ehun batean pigmentua sortzea edo pilatzea; pilatze horren ondorioa.

Erretina bera pipiak joa edo pikarta zen itxuraz, eta **pigmentazio** handiagotuko eta txikiagotuko eremuak zituen. **Xabier Olarra**

Albinoek ez dute larruzaleko **pigmentaziorik**. **Irene Aldasoro**

## pigmento ik pigmentu.

## pigmentoso *izond* pigmentuarena, pigmentuari dagokiona. ik pigmentario.

Begi-lauso lodiak zituen, eta, esaten zutenez, erretinitis **pigmentosoa** ere bai, gaitz hereditario bat, erretinak jaten dituen, astiro baina erremediorik gabe. **Xabier Olarra**

## pigmentu *(orobat pigmento; Euskaltzaindiaren Hiztegian pigmentu agertzen da)* 1 *iz* animalia edo landare ehunetan gertatzen den gaia, kolore jakin bat sortzen duena.

Zelula horiek melanina izeneko **pigmentu** marroi ilun bat dute: larruazal beltzari kolorea ematen dion **pigmentu** bera. Irene Aldasoro  
Lehenik melaninak (larruazalean dagoen **pigmentu** arre batek) epidermisera migratu du, eta, gero, berriz, melanina gehiago ekoizten da. Irene Aldasoro  
Beste ezpainetakoak, berriz, **pigmentu** gorri bat eduki behar zuen, ongi barreiatua baina disolbaezina. Juan Garzia  
Bada **pigmentu** horiko gune bat erretinarean erdialdean. Irene Aldasoro  
**Pigmentu** natural hori landare osora zabaltzen da, eta, hala, hostoak gorritu egiten dira. Berria - Gaiak  
Identifikatzea ere lortu nuen: **pigmentu** garesti eta barreiatzen ez hain erraz bat zen. Juan Garzia  
Behin **pigmentuaren** disgregazioa gertatuz gero, erreaktibo jakin batetik 23 tanta gaineratzeko zioen arauak. Juan Garzia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pigmentu** nahasteak. Josu Zabaleta  
**Pigmentu** -geruzak, hoditik atera, eta margolariak ozta-ozta ukiturik, lodi-lodi utzitako margoa: horretara ohituta gaude azkeneko mendean gutxienez. Josu Zabaleta  
Makilek eta konoek **pigmentu** molekulak dituzte[...]; molekula horiek badute gai bat, errodopsina, argi-quantumak zurgatu eta erreazio kimikoz beste bi substantzian deskonposatzen dena. Josu Zabaleta

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Usaimen-**pigmentuak** A bitaminaren antzeko egitura kimikoa izan behar zuela proposatu zuen Wright-ek. Irene Aldasoro  
Usaimen-**pigmentu** batek ematen dion berariazko kolore marroi edo horia du sudurreko usaimen-eskualdeak. Irene Aldasoro

## 4 hauts bihurtzen ahal den gai kimikoa, ur edo olioetan disolbaezina gehienetan, margoak egiteko erabiltzen dena.

Eguna argitu bezain laster mendira joango naiz **pigmentu** bila eta gero margotu egingo dut. Joanes Urkixo  
Metala, zura edo oihala ditu bere ekaiak; **pigmento** naturalekin, akrilikoekin edo oliodunekin du margotzen. Herria  
Argitasuna -esplikatu zidan- oihalarri **pigmentu** zuri bat emanez lortzen da, eta gainean margotuz, oraindik azpia fresko dagoen bitartean. Ramon Saizarbitoria  
Oliotan edo antzeko disolbatzailearen batean nahasitako **pigmentoekin** egindako tinta bat zuen buruan Lázló-k. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Lurrezko ontzi batzuk, koadroetan erabili beharreko pinturen egin ahal izaiteko, hautsak, **pigmentoak** eta olio nahasgai eta osagai. Joan Mari Irigoien  
Gaietan artean disolbatzaileak, ur zikinak, margoak, **pigmentuak** eta taladrinak izan ziren nagusi. Berria - Ekonomia

## pigmentudun *izond* pigmentua duena.

Kanpokoa **pigmentuduna** da eta argia islatu eta begitik kanpo alde egitea eragozten du. Berria - Gaiak

## pigmeo 1 *iz* Nilo aldean bizi zen elezaharretako nano herri bateko kidea.

Dalai ibaiari bazarrazkio, **Pigmeoren** lurra aurkituko duzu. Aurelia Arkotxa  
Horko jendeak ipotzak bezain ttipiak dira, baina ez **pigmeoak** bezainbat. Aurelia Arkotxa

## 2 Afrikan eta Asian bizi diren nano herrietako kidea.

«Ikuspegi turistiko batetik begiratuta, Burkina Fasok ez dauka ezer», azaldu du Arretxek: «ez piramiderik, ez Kilimanjaro bezalako mendirik, ez **pigmeorik** ...». Berria - Kultura  
Kongon bizi diren 3.000 **pigmeo** inguruk «haragijaleen gaixotasuna» dute. Berria - Gaiak  
Nahiago nuke lurrean zuloa egin eta hor sartu, Papuako **pigmeoek** egiten duten legez. Jon Arretxe  
Noizean behin saltzen diet errezeta-libururen bat **pigmeoi**. Jon Alonso

## 3 irud/hed oso garaiera txikiko pertsona.

Duela lauren bat urte galdetu genien ea nola maite ditzaketen hainbeste urruneko kulturak eta hain errazki ahaztu bertako **pigmeoak**. Hasier Etxeberria

## 4 (izenondo gisa)

AEBetako, Erresuma Batuko eta, oro har, NATOko ontziek eginiko maniobrek zetazeo espezie ugari eragin diete: euskal balea, xibarta, zere arrunta, zere txikia, zeroi arrunta, zeroi **pigmeoa**. Atlantikoko izurde pikarta eta marzopari, besteak beste. Berria - Gaiak

## pija *izond/iz* emakumez mintzatuz, aberaskumea edo aberaskume manierak dituen. ikpijo.

Nire gelako **pija** bat, betidaniko familia jeltzale batekoa, eta orain EAko zinegotzia udaletxean. Xabier Mendiguren Elizegi  
Badakit **pija** hutsa naizela esango didazula, baina nik paso egiten dut. Sonia Gonzalez  
Monja bat haizela, Opuseko **pija** bat, ezkondu arte altxorra gorde nahi duena! Pako Aristi

## pijada *iz* huskeria.

Matetako problema irakurtzen nuen ostera, pilatu beharreko ez dakit ba nik zenbat zementu-zakuren **pijada** bat, eta ametsetan hasten nintzen berriz ere: kaio bat zetorren problemaren gain-gainean erregalotxo uztera... eta, plasta!, zirin gizen zuriak orri guztia zuen kakazten. Jesus Mari Mendizabal

## pijama 1 *iz* lo egiteko jantzi arin eta mehea, jakak eta galtzek osatua.

Txabusina eta **pijama** jantzita, Bob Hildebrand aurrera eta atzera zebilen leiho handien aurretik, pipa erretzen. Lopez de Arana  
Bainugelatik Julianen logelara gero, gizona erantzeko, **pijama** jantzeko eta ohera sartzeko. Xabier Mendiguren Elizegi  
**Pijamako** galtzei atorra gehitu nien, sabel gero eta nabarmenagoaren estalki. Aingeru Epaltza  
Gerri parera iritsi nintzenezan, duda egin nuen, **pijamako** galtzen gerriko botoia askatu, ala eskua bragetako xirrixtutik sartu. Xabier Mendiguren Elizegi  
Betaurrekoak jantzi eta, erdi ilunpean, **pijamaren** galtzen eske ibili nintzen gelako nahas-mahasean. Aingeru Epaltza  
Samek erne jarraitzen zuen bere etxeko albo bati begira, **pijamaren** galtzak zapata zuri-marroien gainetik aski goratuta. Koro Navarro  
Agondu, ostiko batez manta baztertu eta **pijamaren** atorra lotu nuen. Fernando Rey  
Askatu **pijamako** botoiak ere, ohean baldin bazaude. Unai Elorriaga  
-Nola egon zaitezke oraindik Lockharten alde, Hermione? -hots egin zion Ronek errezelaz bestaldetik, Harryren hatz bigunak **pijamaren** eskumuturrean zehar bultzatuz-. Iñaki Mendiguren  
**Pijamaren** mahukei ez zien erreparatu, ez zen ohartu, iratzargailua gelditzeko besoa beti bezala luzatu zuenean. Karlos Linazasoro  
Egia da idunik gabeko **pijama** daramadala jantzita. Joxe Austin Arrieta  
Mikelek **pijama** gisa erabiltzen zuen nikiaren kolkotik heldu zion. Unai Iturriaga  
Eztei gauetan jantzitako zetazko **pijama**. Xabier Paya  
Eskaileretan behera **pijama** hutsean joan nintzen haien atzetik. Fernando Rey  
**Pijama** jantzian dago oraindik, baina bizarra eginda. Iban Zaldúa

Bere ametsetako "sex-sinbолоa" egongelan zegoen, aulkiluzean **pijаметan** etzanik, erdi lokaturik. **Ramuntxo Etxeberri**  
Denak **pijamaz** jantzita zeuden, eta ospakizunak gau osoa iraun zuen. **Iñaki Mendiguren**

## 2 *pijama-galtza* (orobat *pijamagaltza*) pijamako galtza.

Gaur ere, gauak izotzezko hil-izara bat zabal dezanean, galtzak sartuko ditut behin berriro **pijama-galtzen** gainean, eta oinak bilduko egunkari-paperetan. **Anjel Lertxundi**  
Ohearen beste aldean botata aurkitu duen **pijama galtza** motz bat jantzi dio. **Hasier Etxeberria**

Bulegora sartu zirenean ohartu ginen pijama marradunak zeramatzaten pertsonak zirela, **pijamagaltzetan** eta pijamagoi hutsean zetozen, bizirik ateratzea lortu zutenean zeuden bezalaxe, denek begirada galdua zuten eta ez zuten begi itxiirikirik ere egiten. **Fernando Rey**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pijama jantzi** (7); **pijama jantzita** (7); **pijama janzten** (4); **pijama soinean** (3); **zetazko pijama** (3)

**pijamaz jantzita** (6)

## pijamagaltza ik **pijama 2**.

## pijatxu *iz adkor* pija.

Kanpoko ispiluan begiratu diot neure buruari, errimela oraindino betileetan dagoela egiaztatzeko atzeko **pijatxuak** detailerik galtzen ez duen bitartean, beharbada nire itxura ez da azken modakoa, baina ikaratzeko ere ez, neska! **Sonia Gonzalez**

## pijo 1 *izond/iz* aberaskumea edo aberaskume manerak dituena. ik **pijopaila**.

Etxe ondoko hizkuntz akademia batean, lehenengo lana bilatzen ari diren ume **pijoz** inguratuta. **Lourdes Oñederra**

Ikasle traza gorde nahian denboraldi baterako lana dutenak, autodun **pijoen** itxurakoak, ikasle hutsak direnak, gaztetxoak, helduxeagoak, bizi izan dutena antzematen ez zaien buru-arinak... **Pako Aristi**

Azkeneko eztenkada lehengo astean sartu zidan, telefono mobila erosi nuenean; denetarik deitu zidan: yuppie, aberaskume, **pijo**. **Jon Arretxe**

-Hippy **pijo** bat, ezta? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Igual pixka bat **pijoa** edo... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Edozein **pijok**, fatxak edo kristaukumek jantzi dezake Txex Gebararen kamiseta. **Pako Aristi**

Askotan hartzen zuten ahotan hitz hori - **pijoak** -, Parte Zaharrera bidean gazte baba-lore haiek beren motorren gainean ikusten zituztenean. **Jokin Muñoz**

Neguan klase altuagoak izan nahi luketen Espainia osoko pera, **pijo**, eskuindar moderno eta ezkertiar aburgesatuekin batera eskiatzera goaz. **Pako Aristi**

Ez dut uste gu batere **pijoak** garenik, eta burgesturik egongo bagina ez ginatete lau lagun elkarrekin biziko pisu kutre baten. **Jon Arretxe**

Askoz erosoago ibiliko hintzateke-eta, adibidez, Ikasle Abertzaleakeko ikasle entusiasta euskaltzale koadrilla horrekin, hire Pernandokeriak aireratzten, orain duan **pijo** koadrilla txepel grazioso-ustearrekin baino. **Jokin Muñoz**

## 2 irud/hed

Pijolandiako pisu bat konpartitzen zuten pijo batzuen elkarriketa **pijoei** adi. **Jon Arretxe**

## pijopaila *iz adkor* pijoa.

Vanessa, Borjamari, Jennifer edo Oscar, banaka harturik, batere uste ez genuela, gustagarriak gerta litezke, eta izan litezke pertsona zoragarriak, Joxeguai edo Maritotal bat baino askozaz zinezkoagoak beharbada, eta beharbadarik gabe; bai, egia, baina **pijopaila** jendeak, jende gisa, mordoan eta piloan, hortzetako ikara ematen du. **Iñaki Seguro**

## pijotxo *iz adkor* pijoa.

Oraingo **pijotxoak**, ostera, beitu zer erabiltzen duten: alde batetik txanpua, bestetik gela, bestetik kondizionadorea... **Jon Arretxe**

## pika<sup>1</sup> 1 *iz* lantza, ezten-haga.

Haietan ez ziren falta gizon gordinak, ezpata edo **pika** nekerik gabe hartzeko gauza zirenak. **Aingeru Epaltza**

**Pika** esku eskuinean atxikitzen zuen, bizkar gainean finkatua. **Aingeru Epaltza**

Medailak eta egurrezko gurutze txikiak zeramatzaten paparrean, eta **pikak**, azkonak eta ezpatak eskuetan. **Aingeru Epaltza**

Biharamunean haiekin batean ari nintzen gazteluko patioan, ezpata, **pika** eta pistolarekin ariketetan. **Aingeru Epaltza**

Horren esperoan egonen ziren denak, amen batean inguratu baininduten, **pikak** inarosten zituztela. **Aingeru Epaltza**

Buru odoldua **pika** batean iltzatuko zioten Ahmeti eta hirian barna eramane zuten jendeak hista eta burla egiteko. **Fernando Rey**

Uste dut **pikaren** gider gogorrekien jo ninduela. **Aingeru Epaltza**

Oinezko gaztelarrek triku egina utzi zuten [Ramon] beren **pika** luzeekin. **Aingeru Epaltza**

Bertzenaz, Migel Mailurekin edo goarnizioko soldaduren batekin, sastagaian eta ezpatan, **pikan** eta baleztan. **Aingeru Epaltza**

Halako batean ikusi nuen, oihaneko soilune batean, gure oinezkoetariko bat, bere **pikaz** etsai baten bizkarra keinatzen. **Aingeru Epaltza**

## 2 (hitz elkartuetan)

Harresien gaineraino erdietsi zuten aldi bakanetan, **pika** hesi batekin egin zuten topo. **Aingeru Epaltza**

## 3 frantziar joko kartetako sailtako bat.

Eta pozik nago bateko **pika** non duen asmatu diodalako. **Josu Zabaleta**

*O Vencido* zena pokerreko Bateko **pika** izan da nazkatu arte erakutsi zaigun baraja batean. **Iñigo Aranbarri**

Tarik Aziz Atzerri ministro ohia Zortziko **pika** genuen; Saddam Husseinen anaiorde Barzan Ibrahim Hassan ai Tikriti Bosteko hirusta... eta hala, 52 osatu arte. **Iñigo Aranbarri**

Nola prestidigitadoreak, karta-multzo batean zazpiko **pika** aukeratu, eta, esku-jokoa egin ondoren, bada, hala zure karta erakutsi, eta "zazpiko **pika**!" **Jon Muñoz**

Nolatan eskaini zion borrhoroaren aizkorari bere errege-**pika**, zainarengan, Txitxikovek berak aitortu zuenez, Jainkoarengan baino uste hobea baitzuen. **Jose Morales**

## pika<sup>2</sup> 1 *iz ipar* mika.

**Pikak** erran dezala, beleari ez zaiola bere orroa bezain ederrik, ez ditugu gure kantuak ukatzen ahal, munduaren bazterretik bazterrerat ez baitugu gure kantu zaharren

parerik atzemaiten. Herria  
Hargatik Louise **pika** bezain elekari zebilen. Itxaro Borda

## 2 pika-bele

Pierraren zinominokak begimentzean, haurrak oro ezkaratzeko bortara hurbildu ziren **pika** beleak bailiran, guztiak Pierraren galdea biderkatzen zutela. Itxaro Borda  
Baina ez, arrazoitzen zuen bereber, zernahi urtarotan bazebiltzan xoxoak eta **pika** -bele zuri-beltzak lurraldeak harro eta alegeratzen. Itxaro Borda  
Ilunpean barreiatu ziren, **pika** -bele saldo alegera. -Isiduko hiza buztanik gabeko **pika** -bele? Itxaro Borda

## 3 pika-buztan ik pikabuztan<sup>1</sup>.

## pikabuztan<sup>1</sup> (orobat pika buztan) izond ipar zozoa, herabea.

Egizu kontu jujetzat izanen dituzula, batetik, beren baitan etsenplurik ez kausiturik bertutea baitan sinetsiko ez duten jende **pikabuztanak**. Jon Muñoz  
Borondaterik gabeko **pika** buztana! "Debru mensa, **pika** buztana" ez badu ahozkatu ere, hori bera zuen gogoan eta "Pff" gutiesle horrekin ongi ulertarazi dio. Daniel Landart  
Euskal gizarteak, bateraturik, betiko **pikabuztan** bakar batzu salbu, elkartasun goresgarria adierazi du, oihu hunekin: berriketariak etxera eta *Egunkaria* gutartera! Herria

## pikabuztan<sup>2</sup> iz zalgurdi, tren eta kidekoetara igotzeko oina jartzeko tokia. ikointoki.

Hiruretan handiena bi endaitz luzeen artean atxikirik jarri zuen, endaitz mutur batetik bestera txilinez, zintzarriz eta mortxilez jositako uztai antzeko baten azpian -duga izenekoa-; eta beste biak tarantasaren **pikabuztanetan** estekaturik besterik gabe. Karlos Zabala

## pikada iz ebakia.

**Pikada** bat egin nuen mingainean, ontzi puskak ere miatzatu nituelako, eta kristal puska batzuk ere ahoratu nituen tartean, hagineta kraska eta kraska sumatu bainituen. Joxan Elozegi

## pikadera iz egurra, haragia eta kidekoak ebakitzeko enbor modukoa.

Iturrien inguruan, Cadine eta Marjolin harakinen **pikaderetara** hurbiltzen ziren, goi leihoetako argi margularen pean. Karlos Zabala  
**Pikaderan** aihotzez jotako kolpeek Marjolin ekarri zioten gogora, han behean, sotoan. Karlos Zabala  
Atsoak zin egin zion arrain bat bezain mutua izango zela, dena ukatuko zuela lepoa **pikaderan** jartzen bazioten ere. Karlos Zabala  
Quenu, berriz, **pikadera** baten gainean esertzen zen, hankak zintzilik, orpoak haritzezko enbor puska kontra joka. Karlos Zabala

## pikado ik pikatu<sup>2</sup>.

## pikadore iz zezenketetan, zezenari akuilu luzea sartzen dien pertsona.

Sartu-irteanean zebiltzane begira bakarrik susma zenezakeen bazela hemendik kanpo beste mundu bat: festa egunetan kazetariak eta toreroak gora eta behera, **pikadoreak** presaka, eta eskailera bakoitzean bultzadizoa behar zuten emakume liluragarri haiek. Arantxa Iturbe  
Besteak beste, zezenek, toreatzaileek eta **pikadoreek** osatzen dute serie bat; alegia, eskultura txikiak osotasun batean. Berría - Kultura

## pikadun izond pika duena. ik pika<sup>1</sup>.

Garrotatze batek Espainiaren basatia erakutsiko zuen, gillotina kamutsa urkabilur **pikaduna** Erdi Aroko aulki elektrikoa Inkisizioaren zeremonia. Koldo Izagirre

## pikante izond piperduna, gatzduna.

Hala da, haste hasteko luma xorrotx- **pikante** hura eztiagotua zuela baina Lafitte ez da sekulan gelditu Lafitte izaitetik. Herria  
Pikaroa eta **pikante** samarra zan, tentatzailea. Xabier Amuriza  
Dendan aurkitu nuen konjuntorik **pikanteena** erosi nuen. Jasone Osoro

## pikantexka izond adkor piperduna, gatzduna.

Ez zen faltako irri eta trufa, umore **pikantexka** xaltxeroa ipintzeko joera partikularra ere. Pello Zabala

## pikarazi, pikaraz, pikarazten du ad ipar ebakiarazi, motzarazi.

Bainutik landa, bizarra motzarazi zuen eta biloa belarrien heineraino **pikarazi**; jantzi berriak eman zituen soinean, barberuari eskatuz zaharrak sutara bota zitzaiz. Elena Touyarou

## pikarda iz orbana, tantoa.

Papardak hornitu krabata, txulufreia eta pitxi, tente potente, lepondoan **pikardak**, anitz eskumutur eta matrail bete kalitxa eta txitxabegi... Jose Angel Irigaray

## pikardatu, pikarda, pikardatzen 1 du ad tantoz bete. ik tantotu.

Parkearen goialdean, zerua hodei luzanga txikiz **pikardaturik** ageri zen, oilo zuriz zipritzindutako belazearen antzera. Lopez de Arana  
Gelen erdiak hutsik daude, paretak biluzik, eta moketa ilintiz **pikardaturik**. Javi Cillero  
Laino mehea sartzen ari zen, pabiloi hutsak tristura grisa zuten, gasezko malko horiez **pikardaturik**. Karlos Zabala  
Bisaia pikor gorritz **pikardaturik**, xarranpinak joa balego bezala. Joan Mari Irigoien

Hiru indoiilar bikain, urdinez **pikardatuak** bizarra moztu berriko kokots baten irudira. **Karlos Zabala**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Alda ote dezake beltzak azalaren kolorea? edo lehoinabarrak bere larru **pikardatua** ? **Elizen arteko biblia**

Aurpegia ilun eta grisa zuen, ia-ia bere jantzi **pikardatua** bezain grisa. **Lopez de Arana**

Oharren alboetan manta gorri **pikardatua** ageri zen. **Pablo Sastre**

## pikardatze *iz* tantoz betetzea.

Barruan, batzuk besteen kontra estu-estu, hankak uzkur, useok beren lumajearen **pikardatze** zuri-beltza hedatzen zuten. **Karlos Zabala**

## pikardia 1 *iz* pikaroari dagokion egin edo esana; egite edo esate lixuna.

-Ez, nire lurra erakutsi nahi dizut, nire gaua! -diot nik bere **pikardiari** gatza kenduz. **Pako Aristi**

Berezkoa zuen **pikardiak** bultzatu zuen Peter Ustinov era askotako erronkak bere egitera. **Berria - Kultura**

Luluk oso bizkor jasotzen zituen kaleko abestiak, eta harrigarriko **pikardiaz** abesten zituen. **Josu Zabaleta**

Beharrez urri, poltsikoa hutsik eta guardia zibila zirikatzen ibiliagatik, ez zuen irribarre galduko, hain gutxi edozein neskari **pikardiaz** betetako esaldiren bat botatzeko parada. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Leandroren begietan **pikardiazko** distira bat antzeman nuen eta, halako batean, espero nuena gertatu zen, oihu bat entzun baikenuen tabernaren beste aldean: -Marixe!  
**Anjel Lertxundi**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Plazer antzeko batez hartzen zituen [andereñoak] **pikardia** ukitu zuhur bat zuten solasak. **Anton Garikano**

**Pikardia** -arrasto bat nabari zitzaion ezpain-begietako zirkinari. **Anjel Lertxundi**

-Ez zakinat sinetsi ala ez... -esan nion neuk ere **pikardia** -aire batez. **Anjel Lertxundi**

Gainera, finalerdian erakutsi zuenez, Irujok lortu du goian egoteko beharrezkoa den **pikardia** puntua. **Berria - Kirola**

## 3 *adkor* kaltea.

Eta nik esanda bezala hazi zen txakur "txikia" eta gure bi etxean artean dagoen erreka ez zitzaion nahikoa mugarri iruditu eta erreka pasatu eta gure oilategian **pikardiak** egiten hasi zen. **Anjel Lertxundi**

Halako irribarre pikaroaz jarduna izango dela iruditzen zait, **pikardia** egiten ari den ume koskor baten antzera. **Patxi Altuna**

Gauza natural izenekoek sekula baino fama hobea irabazi dute gaur egunean, eta ez da misterio: pozoi industrial eta hormonalaren **pikardiak** agerikoegiak egin dira. **Iñaki Seguro**

## 4 kamisoi modukoa, aski erotikoa.

Berdin zitzaion enkajezko **pikardia** beltza janzteia edo lepoa lau metroko artilezko bufanda batekin estaltzea. **Jasone Osoro**

Normala da **pikardiekin** eszizatzea? **Luis Elberdin**

## pikardiar *izlag/iz* Frantziako eskualde Pikardiakoa, Pikardiari dagokiona; Pikardiako herritarra.

Rieux delako bat zen, frantses irakaslea, **pikardiarra**, dominiko ohia. **Aingeru Epaltza**

## pikareska *iz* pikaroaren jarrera.

**Pikareskak** sustaturiko gezurrezko titulu, aurrizki eta azalpenak legez debekatu eta iruzurrak zorrotz zigortzea. **Edorta Agirre**

Haietarikoz batzuek ateratzen duten purua erretzen dute, baina [...] gero eta gehiago dira **pikareskara** jotzen dutenak, hilabetean kutxa bat osatu eta turistei saltzen dizkietenak. Balizko "tele-**pikareska**" horren aurrean [...] gauza bat agindu eta beste bat entregatu, etab.) geure burua defendatzeko neurriak hartu beharko dira. **Jon Alonso**

## pikaresko *izond* eleberriez mintzatuz, protagonistatzat pikaro bat duena.

Ez da nobela **pikareskoa**, nahiz eta liburuan pikaro mordoia dagoen. **Patxi Ezkiaga**

Idazleak genero historiko jakin bat hautatzea (Klerezari poesia, nobela **pikareskoa** eta abar), ikur bat da. **Isabel Arrigain**

## pikari *iz* arma gisa pika erabiltzen duen gudaria.

Irailaren erdialdera partitu ginen Nabarrenkoxetik, Montamateko baroiaren agindupean: mila lagun baino gehiago, **pikari**, arkabuzari eta baleztari. **Aingeru Epaltza**

Bertzeen jaurtigaiek gerizatuta, **pikariek** gure azpiraino egin zuten. **Aingeru Epaltza**

**Pikari** bigorror batzuek indarrez eragotzi ez balote, garunak eguzkitara aterako zizkion Loiola zaurituari. **Aingeru Epaltza**

## pikaro 1 *iz* maltzurra, azeria, malmutza; lixun puntua duena. ik **kokin**. (pertsonez)

Puraren maitalea, ergel enteroa [...] izkirimiri txotxoloen egilea izatez gainera, **pikaro** hutsa zen, ikusten zuen guztia eramateko prest. **Josu Zabaleta**

Nagusi **pikaro** asko zagon! Antiklerikala, errepublikazalea, **pikaro** xamarra... gerrari buruzko film nahiz liburuetan maiz aurkitu dugun pertsonaia ereduari jarraitzen dio. **Arantxa Iturbe**

-Haatik, jaun Joanes Etxegoien, ez nuke nahi ergeltzat har nazazun, zeren beldur bainaiz **pikaro** gezurti hutsa ez ote zaren [...] baina jakizu ezen zeure eskuetan duzula, zeure etorkizuna ez ezik, zeure lagunena ere. **Joan Mari Irigoien**

**Pikaroek** edo azpisugeek, beren herrikideen sineskortasunaz abusatuz, beren eldarnio barregarriak hedatu dituzte. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**Pikaro** ederra, Kropotkin jauna! **Koldo Izagirre**

**Pikaroa** eta pikante samarra zan, tentatzailea. **Xabier Amuriza**

Rufo, bere serioan eta bere artezean, **pikaroa** zan eta neskak eta andrak tentaten goza egiten eban. **Xabier Amuriza**

## 2 (hitz elkartuetan)

Izan ere, badirudi Amsterdameko karriketan ohoin edo **pikaro** talde bat dabilela, putez eta gaizkinez osatua. arte jarri ez zuen **pikaro** aurpegia jartzen zidala eta boza jaisten zuela, erran zidan-: [...]. **Joan Mari Irigoien**

## 3 (gauzez)

-Eta itsasoak zergatik ez? -galdetu zion, irribarre **pikaroa** aurpegian. **Migel Angel Mintegi**

Iri **pikaro** ezin maliziosagoa egin zidan. **Joan Mari Irigoien**  
Baiezkoaren aitzindaria izan zen begiratu **pikaroa** egin zion emakumeak. **Migel Angel Mintegi**  
-Orain... ba al duzun -begirada **pikaroa** zeukan Alaznek. **Fernando Morillo**  
Halako sedukzio keinu **pikaro** bat egiten du Martak. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Ile mataza gaztinkara eta begi **pikaro** ilunak zeuzkan, bular tenteak, soin luzea eta zango zuzenak. **Migel Angel Mintegi**  
Giro alai **pikaro** samar bat sortu ohi zen, atso zaharrak ere aise hartara zaletzen zirena. **Josu Zabaleta**

#### 4 (Berpizkundeko pertsonaia literarioez)

Berdinzi aipa niezazukeen Tormesko itsumutila edo **pikaroen** bizimoldearen gaineko bertze edozein kontakizun edo nobela. **Joan Mari Irigoien**  
Ez da nobela pikareskoa, nahiz eta liburuan **pikaro** mordoago dagoen. **Patxi Ezkiaga**  
Horregatik, badakit **pikaroen** mundu tristean beti dagoela zulotik ateratzeko gogoia. **Patxi Ezkiaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**irri pikaro bat** (4)

## pikaroki iz pikaroari digokion eran; lixun puntu batez.

-Nire titiak gauzak al dira? -Mirarik ezpainak zimurto zituen **pikaroki**. **Fernando Morillo**  
-Mirari, Mirari -Alazne **pikaroki** hasi zitzaion. **Fernando Morillo**

## pikarra 1 izond ipar biluzia, gabetua.

Zer dio herresta eta **pikarra** honek! ba ahal dakizu gaurko mendean ez dela sekula aski! ororen buru gure zergetarik tiraka ari da estatua. **Itxaro Borda**  
Lege eta jainkorik gabeko cow-boy deabruak edo berrehun kilometro eskasetan zegoen Mexikoko mugatik etorri gosaio **pikarraiek** ardiak ebasteko raid delakoak antolatzen zituzten. **Itxaro Borda**  
Fatiharen ohean luzadan kausitu nintzen handik laster, mineraltasunaren gau **pikarraien** behialako amodioen xendak berriz ireki asmoz. **Itxaro Borda**

#### 2 (adizlagun gisa)

Ezkontza gauean, Maitek, **pikarra** ohe gainean etzanda, bihotza pozaren pozez dardarka zeukan. **Gotzon Garate**  
Betiko historia zen: etxekoen lurrak uzten ziren ber, diruaren irabazteko zen, "jaun" edo "andere" errespetatua bihurtzeko, ez **pikarra** egoteko, balio gutxiko eztabaida hutsaletan zinpurtuz. **Itxaro Borda**

## pikarraitu, pikarrai(tu), pikarraitzen da/du ad biluztu, gabetu.

Ez zait gustatzen Errepublikak burges, bekaitz eta neo-kapitalista hau [...] deus ez duena **pikarraitzen** duelako. **Itxaro Borda**  
Chatelet-era itzultzean, eliza **pikarraitzeko** ekintza ozkan jarria zuten eta Port-Royal geltokian bereizi ziren. **Itxaro Borda**

## pikart izond nabarra.

Emakumeak, ezbeharrak gainditzen lagun ziezaikeen pertsona bakarrak, atea irekitzen zien, mantalarekin, tapin **pikartekin**, eskuan sukalde-trapu bat zeramala: Zer nahi duzu, gazte? **Joseba Urteaga**  
Erretina bera pipiak joa edo **pikarta** zen itxuraz, eta pigmentazio handiagotuko eta txikiagotuko eremuak zituen. **Xabier Olarra**  
Lehen aldia da etxe-txolarrea, hegabera, enara eta arabazozo **pikarta** Europan kezka eragiten duten hegaztien zerrendan sartzen direna. **Berria - Gaiak**  
NATOko ontziek eginiako maniobrek zetazeo espezie ugari iragintze diete: euskal balea, xibarta, zere arrunta, zere txikia, zeroi arrunta, zeroi pigmeoa, Atlantikoko izurde **pikarta** eta marzopari, besteak beste. **Berria - Gaiak**

## pikartsu ik pikortsu.

## pikategi iz objektuak ataltzetik edo desegitetik sortzen den materialaren biltegia.

Ez genien tabakorik eskatu *Stella Maris*-etik zabuka zetozten finlandiarrei, ez ginen saiatu **pikategi** ertzean amarratuak zeuden herdoilontzietan sartzen, ez genien trufa egin irailako estropadetarako entrenatzen ari ziren atunburuei. **Koldo Izagirre**

## pikatu<sup>1</sup> du ad ebaki; moztu.

Goldea, lurra moztzen eta **pikatzen** zuen burdin zorrotza, esku batez behar zen atxiki. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Ezin izan dute gure zuhaitza **pikatu** eta bota... **Mirentxu Larrañaga**  
Otea **pikatu** zuen metro bat zabalerako eta ehun metro luzerako lerroan. **Eneko Bidegain**  
Nor ariko da iratze **pikatzen**, ez bada iratze horren beharrik? **Herria**  
Eusebio goizean goizik joana zen belar **pikatzer**. **Eneko Bidegain**  
Gerezia eta mahatsa, asuna eta belar **pikatu** berria biltzen zituen Dianak bere baitan. **Aingeru Epaltza**  
Euskaldunak bazuen, ardi moxteetan, ardiei ile guziak **pikatze**ko ohitura. **Eneko Bidegain**  
Pierre Etcheverry apeza ere Zangoetatik hasi eta kaskezurraino ile guzi guziak **pikatu** zizkion, denbora ahal bezain guti galduz, elektrikatuko makina baitzuen tresna. **Eneko Bidegain**  
Bilao luzaturik, berriz buztan batean bildurik zeraman eta bizarra ere ez zuen **pikatzen**. **Elena Touyarou**  
Buruko ileak lurraraino **pikaturik** behar ziren beti. **Eneko Bidegain**  
Baionako ospitalean da zangoko erhiak **pikaturik**, udaberrian ezpainak eta oro **pikatu** nahi lituzkeen haize meheño hartarik. **Herria**  
Alimaleko kanibet batekin **pikatu** du xorizo zerra ederra. **Piarres Aintziart**  
Gero urdaiazpiko keztatua eta urdaiazpiko arrunta **pikatzen** hasi zen arreta handiz, bizkarra apur bat okerturik, begiak ganibetean. **Karlos Zabala**  
Berrogeitaka urte ditin merkatuan, hiriko etxe guztiendako xerrak **pikatzen**. **Aingeru Epaltza**  
Amak umeari ogi puska eman eta xerra mehe-mehe bat besterik ez zuen **pikatzen** beretzat. **Karlos Zabala**  
Hemen borroeroak ez du azido zianhidrikorik erabiltzen ez dio laidozko pikotako lepokoari eragiten ez daki aizkoraz **pikatzen** ez du gillotina askatzen. **Koldo Izagirre**



[Animaliak, pertsonak bezalaxe, euskaraz, *hil* egiten direla], okelatarako badira, baita **pikatu** edo harakeikatu ere. Iñigo Aranbarri

### 3 jatekoz mintzatuz, xehatu.

Sukaldean atzeman nuen, tipula **pikatzen**, txandal berde min batez jantzia. Aingeru Epaltza

Eltzearen gainean tipula xerrak **pikatu** berriak zituen, eta orain, surtan, kantuan aritzen ziren beroak erdi itotako txitarrenak ziruditen ahots txiki garbi zorrotzez. Karlos Zabala

Charly ene ondoan zegoen, bere ezker eskuko ahurraren gainean hosto **pikatu** idorrek tabako gorriarekin nahasten ari. Aingeru Epaltza

- Quenuk, batez ere, hatzak haragi **pikatua** egiteko emango zituzkeen harengatik. Karlos Zabala

### 4 karta-jokoetan, ebaki.

Haren erretinak sentikortasun handikoa behar zuen, eskujokariena bezain bizkorra, kartak mugimendu azkar batez nola **pikatzen** dituzten edo nola dauden paratuta istant batez baino ikusi ez eta karta jakin bat asmatzen baitute. Karlos Zabala

Bi urte aritu naiz jauzi, erdizka, dobla, **pika**, luze eta ebats, itzalekin borrokan, punch-a galtzeko beldurrez. Iñigo Aranbarri

**Pika**, luze eta ebats. Nork emaiten ditu urratsak? "**Pika**! Ebats! Erdizka ta dobla!". Michel Oronoz

Urrats arinak baina zenbat urrats dantzan eginak gure kultura azkartzeko: **pika**, ebats, erdizka eta jauzi, mutxikoak eta bertze zortziko euskaraz iragarriak, agian luzaz herriko plazak loratzeko. Herria

### 5 harriaz edo kidekoez mintzatuz, landu.

-Lehen pisuko hormak gorde egingo nituzke; **pikatu**, luzitu, pintatu eta ongi geldituko zaizkizue. Jon Alonso

Bazuen, alde batera, arrabotea izana zen bat, harri **pikatu** zaharrezkoa; bazuen beste aldetik jauregi moldeko bat, bere harri **pikatuak** oraino xutik alde batera eta gaineratekoak erortzerat abian. Herria

Gipuzkoako eliza ederrenetarik batto izan behar da, harri **pikatu** eta zur ezinago ederrez osatua, gaitzeko toki arraroan. Herria

Orbaizetan, Fabrikako auzoan dauden etxe, eliza, ostatu, lantoki eta hainbat lekutan, ikustekoak dira harri **pikatuz** eginak izan diren izkin harriak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

### 6 mailukaz joz zorroztu.

Santutxoko bentaren ondoan, zumardi txiki baten itzalpean, han ari zen etxeko nagusia sega **pikatzen**. Inazio Mujika Iraola

Gero etorriko ziren lan guztiak: garo-segak eta garo-igitaia **pikatu** eta zorroztu, garo-leku goikoetara heldu, [...]. Pello Zabala

Sega handiak **pikatzeko** eta zorrozteko ere teknika behar da, eta egun ez da erraz aurkitzen horretan ari denik. Berria - Kirola

### 7 gailu ebakitzailer batekin zulatu.

Corto Maltese seinaleren bat topatu nahian zebilen; **pikatzen** hasteko lekua zein izan zitekeen adieraziko zien zerbait, auskalo zer, baina metroak eta metroak ibili zituzten eta ez zuten ezer esanguratsurik ikusten. Iban Zaldúa

Ikatzaren gustua, **pikatzen** ari zela. Xabier Mendiguren Elizegi

Okilak segi zezala egurra **pikatzen**. Anjel Lertxundi

### 8 mokatuak jan.

-Aurrena hirurontzat zerbait **pikatzeko** eskatu dugu: urdaiazpikoa, kroketa batzuk eta entsalada bat. Joxemari Iturralde

### 9 irud/hed

Gero telekomandoarekin hemendik eta handik **pikatu** zuen pixka bat, gauerdiko film erdi erotiko erdi ezer-ez horietako bat aurkitu arte. Unai Iturriaga

### 10 (era burutua izen gisa) tabako pikatua.

Gosea eramateagatik jo eta su hasi nintzen patioa zigarro punta guztiak biltzen **pikatua** egiteko. Javi Cillero

### • 11 da *ad* muzindu, zapuztu.

Gizajoak gau guztia pasatu dik kopekin **pikatu** ziren bihurtu batzuei kontu egiten. Juan Garzia

Joxemari ere, hi handi ni handi, **pikatu** duk eta: [...]. Pablo Sastre

### 12 *baztanga-pikatu* ik *baztanga*.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**harri pikatu** (3)

**harri pikatuz** (4)

## pikatu<sup>2</sup> (*orobat pikado*) *iz* nota sail bat jotzeko modua, horien arteko tarteetan soinua erabat etenez.

Tronpeta fin ibili zen **pikatu**en pasarte nekezean eta fagota ere liriko bere pasartean. Berria - Kultura

Asko gustatu zitzaigun Manuel Molinaren hasiera eta bukaerako jotze eta kantaldi adierazgarria eta gitarristen abilezia eta sendotasuna zarrastetan, arpegio, punteo eta **pikadoetan**. Berria - Kultura

## pikatxa *iz pl* barrukiak.

Arkume-jate batera gonbidatzen baikintuen urtero: aurrena **pikatxa** -tortilla eta tripotxak, ondoren arkume errea entsalada ugariarekin eta, menu beti-berdina bukatzeko, mamia. Xabier Mendiguren Elizegi

## pikatxoi 1 *iz* pikotxa.

Bizkarra atean bermaturik, Harland bere pipa ordurako itzalia zuputzen ari zen, eskorga hutsen ilarei eta **pikatxoi** eta pala piloei begira. Lopez de Arana

Europa zaharreko goldeen zain zauden alorrek, hango trontza-zerren zain haritz eta gaztainak, hango **pikatxoi**en zain mendi-muinetako aberastasunak. metala mozteko gailuak eta altxagailu hidraulikoak baliatu zituzten, baita hondakinetan zuloak egiteko **pikatxoiak** ere. Anjel Lertxundi

Ez **pikatxoiarekin** harrobian, ezpada arbela mozten, eskolan garai batean erabiltzen ziren pizarra txikiak eta halakoak egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Meatzari batek egun osoa ematen du lur azpian **pikatxoiarekin** eta hiru dolar irabazten ditu egunean, dolar bat gora-behera. Fernando Rey

Mahastian amaitzen dute eguna: Axenariok, tarteka, begiz jarraitzen du aitapontekoa, pausoz pauso, **pikatxoiarekin** lanean ari dela. Itziar Otegi

**Pikatxoiarekin** eta palarekin ibiltzen ginen egun guztia, zaindariak ondoan. Berria - Euskal Herria

Zulo batetik **pikatxoi** tiki bat atera zuen, eta kandela bat zeukan fardeltxo bat. Patxi Zubizarreta

### 2 (hitz elkartuetan)

**Pikatxoi** kolpe batez estalkia zartarazi, eta hezurdura gehiegizko luze bat ikusi genuen, ahoz gora etzana. Josu Zabaleta

Nahiago nuke **pikatxoi** -burdinari hozka egin, hortzetan kraska egiten duen babarrun ale bat jan baino. Itziar Otegi

## pikatzaile (*orobat pikatzale g.er.*) 1 *iz* pikatzen duen pertsona.

Auzitegiek ikusi dute arazoa zela jendea zigortzea alor transgenikoak pikatzeagatik eta azken ebazpenak **pikatzaileen** aldekoak izan dira. **Pikatzailea** izan zen aitona han, meatzean / eta ikatz beltza erauziaz erre zuen bizia. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Udaberriaren kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-**pikatzaileak** eta zurginak, arrotzak eta kisuginak, beren maisu, peoi, ofiziale eta ikastunekin. **Aingeru Epaltza**

Harri **pikatzaile** eta zizelkari trebea. sega eguna izanik, sega-**pikatzaileen** erakustaldia, segaren inguruko tresneri zahar eta berriaren erakusketa, eta orobat, sega eta baserria lotzen dituen hainbat osagarri ere izan zitzakeen egunak. **Berria - Kirola**

Bat-batean gogoratu zen, ikaraz, oren bi lehenago zaldi-**pikatzailetik** eliza-ohoinen gradora hupatu zela, kalizari pott lizuna eskaini zion unean hain zuzen ere. **Itxaro Borda**

Auzoko neska zizare **pikatzaile** horiei konparatuz France, ederki mintzo zelako argulutan itotzen nintzen. **Itxaro Borda**

## pikatzaile ik **pikatzaile**.

## pikatze iz ebakitzea, moztea.

Azaroaren 27an, larunbat aratsaldeko 5etan, Jacques Blotmintzatuko da, Baionako Mattin Megadendan, Euskal Herriko ohiduretaraz, berezikiago mendi eskualdetakoetaraz: ardi deitze, ile moxte, iratze **pikatze**, mendiko sute, artzain joko eta bertze...2000. urtean abiatu zen borroka Frantzian eta alor **pikatzeak** eta protesta ugari izan dira. **Herria**

## pikazismo iz elikagaiak ez diren gauzak jateko grina konpultsiboa.

Borreroak lankide bat ezagutu zuen urkatuekin **pikazismoa** praktikatzan zuena. **Karlos Linazasoro**

## pike<sup>1</sup> ik **bike**.

## pike<sup>2</sup> *adkor* lehia.

Betidanik **pike** sanoa izan da, baina mezua da bi herriak lagun direla eta era atseginean uztarturik daudela. **Berria - Kultura**

## piketa iz *ipar* hesola, paldoa.

Gaur, ikasleak biltzen dira lau **piketa** eta lastozko teilatu batekin eraikia den aterbe xume batean. **Herria**

## piketatu, piketa, piketatzen du *ad* piketaz mugatu.

Pasaia hunen **piketaztea** egina izan da Antchordoquytarren ganik, herriak galde egin bezala. **Herria**

## pikete 1 iz greba dei bat betearazten saiatzen den pertsona taldea.

**Piketeak** goiz-goizetik jardun zuten Kale Nagusian eta Max Center eta Artea merkataritza gune handietan. **Berria - Ekonomia**

Orduan ikusi ziren lehenengo **piketeak**, grebaren berri ematen eta eskuorriak banatzen. **Berria - Harian**

Ateak itxi nahi ez eta **piketeei** aurre egin zien nagusiak. **Berria - Ekonomia**

Asanbladak klandestino izatetik erdi-klandestino izatera pasatu ziren, kalera atera nahi ez zutenek **piketeen** aurrean amore eman behar izaten zuten eta jendea kalera ateratzeko, tailerretik tailerrera zihoazen langile kateak egiten genituen. **Jon Maia**

«Egintza kriminalen» zerrendan sartu ditu, baita ere, grebari buruzko afixak garraiatzea edo itsastea, eskuorriak jauritzea, pintadak egitea, elkarretaratzeak egitea, edota **piketeak** antolatzea. **Berria - Harian**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atxiloketa unean «greba **piketea** azken albisteei buruzko informazioa ematen ari zela», gaineratu zuten langileek. **Berria - Ekonomia**

Greba egunean baino langile gehiago egon zen enpresaren sarreran langileen batzordeak antolatutako informazio **piketeetan**. **Berria - Ekonomia**

«Informazio **piketeak**» igorri zituzten enpresa handietako bulegoetara. **Berria - Ekonomia**

## 3 ezohiko zerbitzu bat egiteko soldadu taldea.

Hil baino lehentxoago **piketeko** bati, Euskaldun dela igarrita, mintzo zaio Markiegi: [...]. **Jokin Urain**

Diziplina Batailoiko indarrak kanposantuko hormen luzeran lerrotaturik ziren; [...] eta atearen aurrean, apur bat ezkerretara, hantxe zen **piketea**, atsedean jarreran. **Edorta Jimenez**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

informazio **piketeak** (3)

## piketero iz Argentina sortu zen pikete mugimendua, trafiko etenaldiak eta kideko ekintzak egiten zituena.

Preso dauden **piketero**-en aldeko gose greba hasi zuten atzo Maiatzeko Plazako Amen erakundeko kideek. **Berria - Mundua**

## piknik (*orobat **pik-nik**, **piknika** g.er.eta **pik-nika** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **piknik** agertzen da*) 1 iz landan egiten den otordua.

Tamalez, giroa ez zegoen oraindik **piknik** bat egiteko bezain epel. **Jon Muñoz**

Han eguerdiko **pik-nika** eginen dugu presondegiaren aintzinean eta gero presoeri bisita. **Herria**

1952an, Maiatzaren Leheneko jai batean egiten ari ginen **piknik** batean. **Oskar Arana**

Bakotzak ekarri **piknika** partikatu ondoan, denak ados ziren erraiteko, gisa huntako elgarretaratzeak beharrezkoak zirela herritarren artean. **Herria**

Larunbat honetan Arrangoitzen, Danone-ko buruaren egoitzari ahal bezain hurbil **piknika** herrikoi baten egiteko xedea dute. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

12.30 etarik harat, **piknik** janaldia han berean nahi denentzat. **Heria**  
Oraingo hark, ordea, **piknik** -itxura handiagoa zuen, ordura arte jasan behar izandako guztiaren aldean. **Mirentxu Larrañaga**

## piknikatu, piknika, piknikatzen (*orobat pik-nikatu*) du ad piknika egin.

Alta, familia osoak baziren hor txoko batean jarririk **piknikatzen** ari. **Ramuntxo Etxeberri**  
Denborak lagun, **piknikatzeko**, bada kanpoan nasaiki soropil, ur, aire eta itzal. **Heria**  
Eguerditan **pik-nikatu** eta arratseko kantaldiaren errepikatzerat izan gira. **Heria**  
Ilgandetan, noiztenka, familiak osoki jiten dira horrat ibiltzera edo aitaxi-amatxien hilobien gainean **"piknikatzeko"**! **Ramuntxo Etxeberri**

## piknostilo 1 iz zutabeak hiru moduluko tartean dauden zutabe tartea.

Beraz, **piknostiloa** izango da kolomartea kolomaren diametro bat eta erdikoa denean. **Santiago Iruetagoiena**  
**Piknostiloan** ere, altuera hamar zatitan banatuko da, eta horietako bat hartu kolomaren diametroarako. **Santiago Iruetagoiena**

### 2 (izenondo gisa)

Estilobatoen gainean kolomak egingo dira, goian esanda bezala; tenplu **piknostiloa** bada, **piknostiloetan** bezala; edo sistilo, diastilo nahiz eustiloa bada, bakoitza goian esandakoaren eta araututakoaren arabera. **Santiago Iruetagoiena**

## piko<sup>1</sup> (*orobat piku g.er.*) 1 iz ipar tresna aho-zorrotz batez eginiko ebakia.

Lagun batek **piko** bat egiten baldin ba du uste gabetarik, San Andres eliza ezkinako gelan aurkituko ditu Gurutze Gorria eta SAMU zerbitzuak. **Heria**  
Zauriaren gainean aitzina **pikoa**, enpleguak erran zidan goizeko hamarrak aldean bazela batto partitua, ernatu banintz hartzen ahal ukanen nuena. **Janbattitt Dirassar**  
*ik beherago 13.*

### 2 (hegaztiak mokoarekin)

**Piko** han, hemen **piko**, usoak alan ari dira zimenduzko teilatuan. **Aurelia Arkotxa**

### 3 ipar esaldi mingarria edo zirrikagarria; ateraldi bizia.

Arabiarren kontra bota izan dituen **pikoa** arrazakeria gorde baten adibide dira. **Eneko Bidegain**  
Bertsulari bezala elea aise heldu zitzaion eta zuzen; **pikoa** eta irria errexak zituen, baina ez zuen sekulan itsuskeriarik ez gaiztakeriarik erabiltzen. **Michel Oronoz**  
Hori gaitzitu zitzaion Etcheverryri, **pikoa** bota zion hemengo "Eskualduna"n, horri arropatu Ameriketakoan eta makurtu ziren azkenean. **Heria**  
Ondotik, hitzaldi batzu, aintz konplimendu eta zenbait **piko**! **Heria**  
Etxean gertatu izan zitzaion etorkinen kontrako **piko** zenbait entzutea, aitaren ahotik bereziki. **Eneko Bidegain**  
Denak zoin-gehiagoka, dena espantu, dena **piko** ere hain segur, adituko dugu oraino ederrik. **Heria**  
Batean dena zurikeria, bestean dena **piko**, gobernua polliki jorratzen zuela, arizan da erran eta erran bainan ez dugu gauza handirik ikasi. **Heria**  
Azkenean Pantzo Irigaray-en irriregingarrikeriek denentzat **piko** eta zirtu izan dute, sekulan larrikerietara erori gabe. **Heria**  
Hor segurik ikusi da elgarren artean ez direla batere ados, elgarrri dena ximiko, **piko** eta uzta! **Heria**  
**Pikoa** entzuleek nekez diseritzen. **Heria**

### 4 bertsoaren edo kantuaeren indargunea.

Musikaren lehen **pikoa** entzun orduko, hari buruz abiatu nintzen. **Janbattitt Dirassar**  
Gaztaroko balentriez orroiturik, kanta eta dantza **piko** kartsu batzu eman dire, alaitasun osoan! **Heria**  
Trakturrak ari ziren kantari, **piko** negurkatuz, ziotelarik, sarri arbia izanen dela Jaun haundi. **Heria**  
Bai, urratsean joan ginen, esku ezkerre galtzen josturan, eta eskuina balantzian, urratsaren **pikoa**. **Marzel Etxehandi**

### 5 dantzan, oinak hurbiltzen eta urruntzen diren jauzia

Nork utzi ere aipatu gabe mutiko eta nexkato batzu. Bazko aitzineko zombait aste undarrez arduratzen direnak, haurreri erakusten lehenbiziko urrats edo **pikoetarik** untsa ikasi artio gure kulturaren beren tokia daukaten dantzez. **Heria**  
Dantza **piko** zombait bixtan da eta gero bazkaria, Kiki Bordatxo-k airostuko duena. **Heria**  
Gaztaroko balentriez orroiturik, kanta eta dantza **piko** kartsu batzu eman dire, alaitasun osoan! **Heria**

### 5a adkor ziztaldia.

Horrelako xiringa ederrekin **piko** bat sartzera edonor animatuko litzateke, pentsatu nuen. **Harkaitz Cano**

### 6 pikorik (ezezko esaldietan) alerik ez. ik beherago 11.

Laguntza **pikorik** ez genuen ukan. **Beria - Euskal Herria**  
Gora eta behera uneoro, baina tontor **pikorik** gabe. **Beria - Kirola**

### 7 pikoan izan prest izan.

Atseginekin jakiten dugu Sorhuet gaztea berriz **pikoan** dela Arrangoitzen bere lagunak tiraturik matrailan hartu zuen pilota ukaldi haren ondotik. **Heria**  
Hastapenean, 2000 "hitzaizen berezia" onartu zelarik, gu IKAS, euskarazko pedagogia materialaren obragile nagusi ekarriak ginen, Prefetarekin gauzak **pikoan** zirela zirudien. **Heria**  
Bada hor zerbaite ez dena batere **pikoan**! **Heria**  
Nahiz ez den dena **pikoan** oraino, ikerketa zentro bat izanen da hori, dretxo publikoan eta Europako dretxoan berezitua. **Heria**  
Paralesia horrek 2007ko erditsuraino iraunen du [...] Alemaniako gobernu berriak ez baitu inizatiba kanoretsurik hartuko Europari buruz, eta Frantzia president bozen ondotik baizik ez baita **pikoan** izanen Europa berriz aitzinera abiarazteko. **Heria**  
Obra batzu badira bestalde ez oraino bixtan ezarriak, argi-joko zenbait ez arras **pikoan**, seinalekuntzan ere eskasño batzu ba han-hemenka. **Heria**  
Unibertsitate proiektua **pikoan**. **Heria**  
Filipe Mugica, berriz **pikoan**, Beñatekin ariko dena hain zuzen Hazparne eta ondoko bi horien aintzinean. **Heria**

### 8 pikoan egon prest egon.

Zinez mespretxu batentzat hartzen dugu egin daukutena, erran nahi baitugu desegin daukutela hoin **pikoan** dagon Oztibarreko eliza. **Heria**  
Akitaniako kontseiluak milioi bat euro ekarriak ikasteko materiala **pikoan** dago, erakasle eta kudeantzan berrogei bat lagun badirelarik. **Heria**

### 9 pikoan eman prestatu, prest jarri.

Gobernuak bere aurrekontuak **pikoan eman** ditu helduden urteari buruz, ikusiz beraz zertan zer xahutuko duen eta sosa nundik zombait bilduko duen... **Heria**  
Bakarrik Baionako Jakobino agintariek parada baliatu zuten gillotinarren **pikoan emateko** eta Marat zenaren eta haren idurikoen aginduen gauzatzeko: iraultza ez zen salbatzen ahalko bortizkeriari esker baizik. **Elena Touyarou**  
Ikasleari hautabidearen aukera emango dion sistema **eman** nahi du **pikoan** xede berriak. **Beria - Euskal Herria**  
Portuko seguritasun programa **pikoan emana** dute 2001 urteaz geroztik, erran nahi baita Okzitaniako Tolosako AZF lantegiko zaparketa baino lehenagodanik. **Heria**  
-Duela zenbait aste etorri ziren bi tipoek [...] **pikoan emana** dute "Osasun publikoaren komitea" edo horrelako zerbaite... **Elena Touyarou**

Eskerrak bilduzko Jauffrete bere eskaintzagatik eta galdetzen dio Arbelbide bera etor dadin lehenik gauzak **pikoan emateko**. Xipri Arbelbide

## 10 **pikoan ezarri** prestatu, prest ezarri.

Bigarrenen herrietan hizkuntza politika nola ezarri **pikoan** izanzen dute hizpide. Berria - Euskal Herria

Gasteizen egin den bilkura hortarik landa, beste batzu jinen dira eta hein bat laster gauzak hobeki ezartzeko **pikoan**, zer nola egiten ahalko den ondoko urtetan eta zertarik hasiz... Herria

## 11 **pikorik ez jo** kolperik ez jo

Gorka, arreba zaharrenaren semea, konkiloker ederra da, inoiz **pikorik** jo ez duena, mendian eskasa. Aingeru Epaltza

## 12 **zauri gainean piko**

-Izkribu eta liburuen artean, noski -nik, **zauri gainean piko**. Aingeru Epaltza

Hain eskura izan eta, zintzoegi jokatzeara zen **zauri gainean piko** egiteko paradaz ez baliatzea. Aingeru Epaltza

## 13 **zauriaren gainean piko**

Bizitze dorpea ez aski izanez, horra aitzina zauriaren **gainean piko**, 1898ko buruilan Garralda erre baitzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zauriaren **gainean piko**, jada 1800 dolar emanak ziozkan koiote bati, mugan igan-arazle baliatzaile bati. Herria

-Eta Franco hil ondoren? -zauriaren **gainean piko** eginik-. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dantza piko** (14); **dena piko** (4); **zauri gainean piko** (3)

**zauriaren gainean piko** (3)

**dantza pikoak** (3)

**pikoan emaita** (5); **pikoan emaiteko** (12); **pikoan emaiten** (15); **pikoan eman** (28); **pikoan eman du** (4); **pikoan eman dugu** (4); **pikoan emana** (8); **pikoan emana dute** (4); **pikoan emanak** (3); **pikoan emanen** (4); **pikoan emanen dute** (3); **pikoan emateko** (5); **pikoan ezarri** (20); **pikoan ezarri nahiz** (3); **pikoan ezarria** (12); **pikoan ezarriak** (4); **pikoan ezarriko** (7); **pikoan ezarritz** (5); **pikoan ezartzeko** (9)

## **piko**<sup>2</sup> (*orobat piku g.er.*) 1 **izond** oso aldapatsua.

Lurrezko bide **piko** bat, alboetan basoa, zorua zuloz betea. Oskar Arana

Pista zahar bat zen hura, **pikoa** oso, neure kotxean igotzen ausartuko ez nintzena. Xabier Mendiguren Elizegi

Piztiek bezala erregibidea utzi eta bortuko ardidide **pikoak** hartu zituzten. Aingeru Epaltza

Azken aldatz **pikoari** ekin diogu. Patxi Zubizarreta

Ene burua, amildegi **piko** baten aurrean. Anjel Lertxundi

Galtzada-harrizko kale **pikoan** gora. ehun eta hogeita hamalau mailadi ditin, esan zuen Raimundo Silvak, Azteken tenpluetakoak bezain **pikoak**. Xabier Olarra

Orain hobeki menderatzen zuen mendi-mazela **piko** eta soila. Alberto Ladrón Arana

Kalexka mehar **piko** batean neskaz beteriko taberna bat aurkitu zuen. Matías Mujika

Bertigoa ere sentitu dut mendi malkartsu **eta piko** haien azpi-azpian ibai bati antzeman diodanean. Patxi Zubizarreta

Ipar alderantz jo nuen bizkar hartatik, aipatu bizkarra eta gailurra lotzen dituen ertz **pikoan** barrena. Josexo Azkona

Harry zeramana malda **pikoan** behera joan zen, sakonunearen erdian zegoen kupula-formako amaraun lainotsura. Iñaki Mendiguren

Beste aldeko muturrean bada eskailera bat, guztiz **pikoa**, holandar tipikoa. Josu Zabaleta

Malda **pikoko** haitzei lagun bati bezala begiratzen die. Xabier Olarra

Eskaileretara iritsi ginenean inoiz baino **pikoagoak** iruditu zitzaizkidan. Bernardo Atxaga

Beroak pendiza gora, zenbat eta **pikoago** orduan eta abia handiago hartzen du. Pello Zabala

Zenbat eta presio-gradientea **pikoagoa** izan, orduan eta haize latzagoa. Pello Zabala

Atmosfera gas zikin honekin kutsatzen, eskilara gero eta **pikoagoan** doa. Pello Zabala

## 2 irud/hed

Eskerrik asko, erantzun zuen, eta begiak apaldu zituen, beraietan jaso zuelarik eskote **pikoa** zuen blusaren irudia, zer koloretakoa zen ez zuen esaten jakingo, hain zegoen asaldaturik. Jon Alonso

## 3 (adizlagun gisa)

Zenbat eta **pikoago** igo eguzkia, orduan eta izpi gehiago iritsiko zaizkigu. Pello Zabala

## 4 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Ez zen gauza izan hori maldaren **pikoak** eragiten zuela argitzeko, edo ikusteko. Xabier Olarra

## 5 **buruz piko joan** maldan beheiti joan.

Holaz eüskara bürüz **piko** joaiten ikusi düt düala mente erdi bat igantxerik, Bildoze-Onizen, Ezpeize-Ündüreinen, Sarrikotapean, Sohütako karrikan... Herria

Orai bürüz **piko** doa, salbü militanteen etxeetan, Sohütako ikastolari esker. Herria

Eüskara, gure nazionearen ütürri eta ezagügarri nausia, bürüz **piko joan** da gazterian. Herria

## 6 **piko-piko**

Teilatu **piko-pikoko** zurezko etxe batera ailegatzzen zara, eta hantxe hasten da nire historia. Fernando Rey

Eguzkia eguerdian **piko-piko** dabilenez, hor joaten da hegoa lotsagabetzen, harrokkotzen, lainezaz jantzita. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldapa piko** (7); **mendate piko** (4)

**aldapa pikoa** (3)

**aldapa pikoan** (3); **malda pikoan** (5)

**aldapa pikoetan** (3)

## **piko**<sup>3</sup>

### 1 **eta piko** (*orobat eta piku*) eta koska. ik **koska**<sup>1</sup> 6.

Ardaila handiagooa ateratzen zuen berak bakarrik, haren ondoko ehun **eta piko** andre hitzontziek baino. Karlos Zabala

Ez nuen espero 700 **eta piko** urte haruntza honelakorik topatzea. Pello Zabala

Royer-Collard kaleko altzari ziztrinak saldu zituen, eta jasotako dirua, berrogeita **piko** libera, gorde egin zuen. Karlos Zabala

Informazio hutsa dakarten bostehun **eta piko** orrialde horietako berrogeita hamarrak [...] interes handiz irakurtzen dira. Berria - Kultura

Hogeita **piko** urte geroago garai hori gutzia gogoratzeko aukera eduki izan nuen. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

piko<sup>4</sup> ik piku<sup>1</sup>.

**piko<sup>5</sup>** 1 *iz* pikotxa.

Lubakian nago, **piko** batekin zulo bat eginez. Pablo Sastre

Gaston berriz, kaleaz bestaldean esku biez **pikoaren** kirteneri ertsuta, berari eta Joxemari handiari Pello bizarbeltza keinu eta espantuka ari zitzaien. Pablo Sastre

**2** *adkor* droga zizta.

Horrelako xiringa ederrekin **piko** bat sartzeraz edonor animatuko litzateke, pentsatu nuen, korridorean ikusten nuenetan hainbeste kaso egitearen arrazoiak tupustean ulertuz.

Harkaitz Cano

**pikodun** *izlag* iduna biribila ez duena.

**Pikodun** jertsean sabeletik kanpora, koskor bat nabarmentzen zitzaion, golf pelota baten modukoa. Apain janzen da, zapata beltz eta modernoz, praka bakeroz eta

**pikodun** kamisetaz. Jon Maia

**pikogramo** *iz* gramoaren bilioirena.

Gantz gramo bakoitzeko **pikogramo** bat dioxina. Berria - Gaiak

Eta orain baieztatutako kutsatze kasuetan 1,7 eta 2,8 **pikogramo** artean aurkitu dituzte. Berria - Gaiak

**pikoka** *adlag* esaldi mingarri edo zirikagarriak esaka.

Igandean, alderdia kudeatzen dutenak bildu baitira, Hollande eta Fabiusberri ere arizan dira elgarri **pikoka**. Heria

Chirac eta Jospinbiak artzen dira artetan elgarri **pikoka**. Heria

Elgarri **pikoka** bezala arizan dira solas bizixko bat atera orduko haren berehala goxatzerat lehiatu badira ere. Heria

Eskualde batzuetan elgarri musuka, beste frangotan elgarri **pikoka**! Heria

Hipi-hapa badabilza argi miko baten bila, buruan hazka, han eta hemen **pikoka** haize meheak lumak harrotzen dizkiela. Aurelia Arkotxa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elgarri pikoka** (6)

**pikokada** (kospusean **pikukada** soilik) *iz* pikotx ukaldia. *iz*

Piku lanari ekin zion berak; **pikukada** bi, eskuakin harri kosko batzuk bota zituen errekarra. Pablo Sastre

**pikoleto** *iz* *adkor* guardia zibila. ik **txapeloker**; **pikolo<sup>2</sup>**.

Nik ez zaukaat batere gogorik orain **pikoletoei** esplikazioak ematen hasteko. Juan Luis Zabala

**Pikoletoek** ostikadak ematen zizkiguten, oinak atzeratu genitzan. Jokin Urain

Azkenean **pikoletoen** eskuetatik kartzeleroenetara pasa eta arakatuak izan ondoren, "usategira"! Jokin Urain

Michel Salgado (ez al diozue **pikoleto** antza hartzen?) Maldini (nor da Samuel?) Krutxaga (EHko atzelari onena) eta Nuno Valente (aulkia jan eta jan dabil eta portugal

potroak lepoan dauzkala) A ze defentsa! Berria - Kirola

**pikolitofono** *iz* litofono mota.

Zelula erritmikoak eta hainbat perkusio tresna ez oso aruntetatik itendako soinuak entzuten dira emanaldian: litofonoak, kaulitoak, **pikolitofonoak**, zuhaitz arrazialak, euri-

arbolak, gortina litikoak, plaka eskegiak, enbor durunditsuak... Berria - Kultura

**pikolo<sup>1</sup>** *iz* flauta txikia, ohikoak baino soinu zoli eta sarkorragoa duena.

Laranja erdi konplexua edo elkar islatzeko joeraren bat zuten nonbait, bataren malkoei bestearenek erantzuten baitzieten, oboe eta **pikoloaren** arteko joko musikalaren

antzekoa osatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

**pikolo<sup>2</sup>** *iz* *adkor* guardia zibila. ik **txapeloker**; **pikoleto**.

Esaten dute sekreta pila bat dibilela, bai zipaioenak bai paisanozko **pikoloak**. Unai Iturriaga

Festetan topatu genuen Usurbilgo koadrila bat bide ertzean zegoen, mendira begira, osorik, formazioan, **pikoloek** haien furgoneta lupaz arakatu bitartean. Iban Zaldúa

**pikondo** (**47** agerraldi, **20** liburu eta **5** artikulutan; orobat **pikuondo 50** agerraldi, **6** liburu eta artikulua **1**ean; Euskaltzaindiaren *Hiztegi*an **pikondo** agertzen da) **1** *iz* klima epeletako zuhaitz edo zuhaixka, masustondoaren familiakoa, hosto handi gingildunak dituena eta fruitutzat pikua ematen duena (*Ficus carica*).

Nik jauzi egin eta haiztaren gainean zegoen **pikuondoari** heldu nion. Juan Kruz Igerabide

Nork bere mahatsondoaren eta **pikuondoaren** fruituak jan ahal izanen ditu eta bere putzuko ura edan.

Urte hartan **pikondoak** piko asko ekarriko du; gitxi, eguraldi txarra izanez gero. Pello Zabala

**Pikuondoak** ez du pikurik, ez eta mahastiak ere fruiturik. Elizen arteko biblia

Mandioan ez zen alerik; mahatsondoak, **pikuondoak**, granadondoak eta olibondoak ez zuten fruiturik ematen. Elizen arteko biblia

Bere **pikondoetako** pikua hain onak zirela, non ezerengatik ere ez baitzuen lur-puska hura salduko. Koro Navarro

Nor bere mahatsona eta **pikuondoan** azpian eseri ohi zen, ez baitzuten inork kezkarazten. Elizen arteko biblia  
Zeruko izarrek lurrera erori ziren, haize zakarrak astintzean heldu baino lehen **pikuondoari** pikuak erortzen zaizkion bezala. Elizen arteko biblia  
Seroreak **pikondoak** zituzten komentuko baratzean. Patziku Perurena  
Gizon batek **pikuondo** bat zuen bere mahastian aldatua. Elizen arteko biblia  
**Pikondoa** nun nahi handitzen da eta fruituak nasaiki emaiten. Herria  
Hasia da muskiltzen **pikuondoa**, usaina zabaltzen mahats-kimuak. Elizen arteko biblia  
Iharturik dago mahastia, zimel **pikuondoa**. Elizen arteko biblia  
Jesusék **pikuondo** agorra madarikatu. Elizen arteko biblia  
Gertakari hura zela medio, ekialdeko erlijioetan, metafora bihurtu omen zen, zorigaitzeko **pikondo** ihartua. Patziku Perurena

## 2 (hitz elkartuetan)

Hiritar lehenek elkar erbesteratzen zuten, eskuan **pikondo**-hosto bat hartuta, eta, ondorioz, merezimenduren bat zutenek arazo publikoak utzi zituzten. Iñaki Iñurrieta  
Ondoren, hartu zueneko **pikondo** adarrean utzi zuen berriro. Askoren artean  
· Zitzu bizian oihanaren ertzera joan eta hanka altxatu zuen sikomoro **pikuondo** baten kontra. Iñaki Mendiguren

## pikondope (*corpusean pikuondope soilik*) iz pikondoaren azpia. ik pikupe.

Egun hartan mahats-parra eta **pikuondopera** gonbidatuko duzue elkar. Elizen arteko biblia

## pikoño iz ipar adkor pikoia, esaldi mingarria. ik piko<sup>1</sup> 3.

Bazterretik, Nicolas Sarkozy-k **pikoño** bat bota dio, alegia-eta deusez, holako solasaldiak ez direla baitezpada beharrezkoak! Herria

## pikor 1 iz fruituez eta kidekoz mintzatuz, alea. ikgarau.

Masusta gorri ugari zegoen lekuan, oraindik denak heldu gabe, baina batzuk umotuta egongo ziren, beltz-beltzak, **pikor** ugari eta gozoak. Joseba Sarrionandia  
Hemen *bakeappleak* deritzaten **pikor** eztiak ez dira oraino onduak. Aurelia Arkotxa  
Ez du gustu txarra, halako hur eta mahats **pikor** idor eta porroska idor gaxi batzuekin karruskatzeko, aperitifetan bezala. Herria  
Herriko adiskideak elizaren maldan zeuden irris **pikorrak** aurtikitzen, oraino moldean. Itxaro Borda

## 2 irud/hed

Granulozitoak (zitoplasman **pikor** ilun batzuk dituztelako deitzen zaie horrela) hezur-muinean sortzen dira, globulu gorriak bezala, eta infekzioen kontrako babesean laguntzea da haien helburu nagusia. Irene Aldasoro

## 3 zerbaiten zati txiki eta biribilkara.

**Pikor** handiko geruza hori eman eta lehortu ondoren, beste geruza bat emango da tarteko **pikorrarekin**; hori ondo zabaldu eta leunduta dagoenean, beste finago bat emango da. Santiago Iruretagoiena

Egun hotan petrolaki purruska batzu, batzuetan frango **pikor** larriak, ikusi dira itsas-hegi hortan. Herria

Egin behar dira lur kleratsu zuriz edo buztin gorritz, eta baita **pikor** lodi samarrak dituenaz ere; lur-mota horiek, izan ere, beren arintasunagatik iraunkorrak izaten dira.

Santiago Iruretagoiena

Emultsioaren **pikorraz** ari nauk orain. Juan Garzia

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euri tanta bat bazen, eta itsasoan galdu ze; bazen ondar **pikor** bat, eta lurrean desegin zen. Patziku Perurena

Ezker ahurra gainera erortzen utzi zituen gatz-**pikorrak** goitik behera. Felipe Juaristi

Harri **pikor** eta errauts airaraziz, Piarres-en aratsalderoko martelu eta zizel ukaldiek eman diote emeki-emeki forma eder bat harri lauzari. Herria

Koos eta Miems-en patatek lur-**pikorrak** dituzte oraindik itsatsita. Oskar Arana

Hodei potenteak, ur likido asko dutenak, eta izotz-**pikor** tiki batean abiatzen da kontua. Pello Zabala

Ordukoz, ekintzaile politikoen munduak ez gintuen erakartzen *Avecrem*-ekin nahasitako haxix **pikorrak** baino gehiago. Aingeru Epaltza

Gabrielle, biloak gibelera luzatuak, mottoan bilduak, beti buru-orratz berekin, edergailu bakarra zuela arrosorio **pikor** lodi xuri bat. Michel Oronoz

Pertiako klasiriak, ehun sarri, arinezkoak, beren hondo gorrinaren gainean kopela moldean tankeraturiko urre-**pikorrez** goitik beheraino josiak. Juan Garzia

Saihetseko kide osasuntsuena zentzen denean ohartzen gara luma bat zela, edo hosto bat, edo errauts **pikor** bat. Itxaro Borda

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, irud/hed)

Diru **pikor** baten truk egun hortako kirol eta joko desberdinetan egin ahala poliki parte hartuko zutela. Solasaldi hasieratik lehenbiziko aldia zuen apaltasun **pikor** bat adierazten. Herria

Nire aurpegiari begiratzen nion ispiluan, nire betazal-tolese, nire edertasun-**pikorrari**. Juan Kruz Igerabide

## 6 larruazalean ateratzen den koskor modukoa. ik pikorta.

18-19 urteko lau mutil gazte -gorputzak mehe, ileak handi eta **pikorrak** ugari-, adinean halako hiru izanen zituen emakume baten inguruan. Aingeru Epaltza

Gure amona zenak esaten zuen, ospelak, harapirikak, bixikak, **pikorrak** eta holakoak sendatzeko, haur baten piza zela hobereana. Patziku Perurena

**Pikorrik** ez haren kokotsean. Aingeru Epaltza

Gizon zurbila, **pikor** horiz josia, ezpain-lodia eta begihandia. Anton Garikano

Duela hiru bat urte, gorputz osoa **pikor** gorritz bete zidan astanafarrieriak harrapatu ninduean. Patxi Zubizarreta

Halaxe zuen izengoitia, masailetan eta kokotsean zeuzkan **pikor** horixka guztiengatik. Anton Garikano

Konturatu ziren alabaren mantxa gorriak ez zirela mantxa gorri hutsak, **pikor** zuri batzuk ere bazituela alabak mantxa gorrien gainean. Unai Elorriaga

Bazen gure aldagelan horrela jalgitzen zenik dutxatik, baina gorputz hark bertzelako dirdira zeukan, biribiltasun heketan ez zegoen **pikor** aztarrenik. Koldo Izagirre

## 7 azienda xehen gorotza, batez ere birbilkara.

Ardi saldoak utzitako **pikorrak** garbitzeko betebeharrarekin. Berría - Kultura

Gehiago edo gutxiago eskukuraturiko gorotz-**pikorra**, mila bider oratu den ore lika. Jon Alonso

Kaka **pikor** beltz biribilak. Itxaro Borda

Ardiak laxatu zituen eta lohian txapatxapa ihalozka pasatu ziren, muturrak lurrera, ilatxetan iratze zein ote abarrak perlatzen zirela, kakaila **pikorren** artetik. Itxaro Borda

## 8 argazki irudia osatzen duten zilar gatzezko tita edo tantoetako bakoitza.

Argi gehiago dagoenean, berriz, nahiago izango du film motelago bat, **pikor** finekoa egituraz eta kalitate hobeko irudia ematen duena. Irene Aldasoro

Bideo-irudiak normalean izan ohi duen **pikor** lodiagoa eta definizio urriagoa. Josu Zabaleta

Pikturalismoak [...] lehen ikusian artistiko izango ziren obrak egin nahi izan zituen, horretarako manipulazioak, ukituak, urratuak ugari eginez, argazkiak **pikorra** ikusgarria, ekaia agerian zuten euskarritan eginez, "goma bikromato" famatu haietan, adibidez. Josu Zabaleta

## 9 **pikorrik** (ezezko esaldietan) ipar alerik ez.



Han bildu dira ehun eta berrogoita hamarrek igorri gizonak, horietan hamabortz herri lehen buruzagi, haatik **pikorrik** ez herri aberetsenatarik. Herria

Eta hor bat-batetan agitu da lazgarriko kraskadūra: familietan eüskara ontsa ikasi bazüen haurride gehienek, **pikorrik** ere ez gazteenek... Herria

Adineko jenteak ez dü hor hüts **pikorrik** egiten. Herria

## 10 *pikor harri* granittoa.

**Pikor**-harri belzkarako horma altu batzuk, leiho karratu bakanekin, harkaitzaren isuri hezeek bustiak. Koldo Izagirre

**Pikor**-harrizko eliza luze, erraldoi, ilun batek menderatzen du herri zakar hau. Iñaki Segurola

Badago harmonia bat haritzaren eta **pikor**-harraren artean, eta batek maila bejetalean, besteak mineralaren alorrean, lehoiak eta arranoak abereetan bezalako ideiak sortzen dituzte: larderria, handitasuna, indarra, bikaintasuna. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**harri pikor** (3); **pikor harrizko** (6)

## **pikorka** *adlag* banaka; gutxinaka. ik **aleka**; **apurka**.

Gure denboretan ere, zure autoan lbañetatik beheiti heldu bazara, erromesak ikusten ahal dituzkezu **pikorka**, hatsa eta urratsa labur, izerdia ugari, uste ez zuten akidurak bentzutuak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Idazlea bera ez baginuen gutartean liburuaren aurkezteko, Mikel Duvert haren adiskidea zaiku obra hortaz mintzatu, erranez kronika horiek **pikorka** behar zirela jastatu eta gozatu. Herria

Belaunaldiz belaunaldi gure aitzinekoak eskubide apurren lortzeko borrokatu ziren, eta mende soil baten buruan, hara, **pikorka** banaka denak kentzen dizkigutela. Itxaro Borda

## **pikorreztatu**, pikorreztatu, pikorreztatzen da/du *ad* pikorrez bete. ik **pikortatu**.

Larru-azala oilobixar, gorputz osoa leiho eurituen antzera **pikorreztatua**. Koldo Izagirre

## **pikorta 1** *iz* larruazalean ateratzen den koskor modukoa. ik **pikor 6**.

Gutxienez behin edo behin eztarriko mina izan banu, edo zaldarren bat, edo **pikortaren** bat... Jose Morales

**Pikorta** gorritz bete zaio gorputz guztia, eta azkura hedatu zaio. Imanol Zurutuza

Sukar handia du eta **pikortak** atera zaizkio. Josu Zabaleta

**Pikortak** izanak zituen aurpegian, baina ez zuen jadanik alerik, bat izan ezik, kokots azpian. Jon Muñoz

Etxolek ezin babestu gaueko eltxoetatik, eta larruazala **pikortez** eta handituez estalita esnatzen ziren goizean. Karlos Zabala

Stani aurpegiko **pikortak** ere zuritu egin zitzaizkion. Iñaki Mendiguren

Prudenen etxea ikastolaren eraikinarri itsatsita zegoen, ekialdeko hegala zuzen-zuzenari ateratako **pikorta** txiki bat bailitzan. Iban Zaldua

### 2 (hitz elkartuetan)

Gure adinean, nerabezaro betean, **pikorta** pila sortzen digu horrek. Jon Muñoz

O'Connor jauna, gizon gazte ile-gris bat, aurpegia orban eta **pikorta** mordo batek itxuraldatzen ziona. Irene Aldasoro

### 3 zerbaiten zati txiki eta biribilkara. ik **pikor**.

Elur-hautsa eta elur-**pikorta** osatzen dira fenomeno berezi bat hodeian gertatzen denean, ur likido gutxi duten hodeietan. Pello Zabala

## **pikortatsu** *izond* pikortaz betea. ik **pikortsu**.

Adats distiratsua, adats nahasiak, oreztak, aurpegi **pikortatsuak**, sudur zapalak, sudur zuzenak, dantzari arinak, dantzari astunak... Lopez de Arana

## **pikortatu**, pikorta(tu), pikortatzen 1 da/du *ad* pikortaz bete; tantotu. ik **pikorreztatu**.

Ez zuen ezer ikusten; hala ere, lurra irakin-borborrez beterik zegoela iruditu zitzaion, euria egin eta harrez **pikortatzen** denean bezala. Juan Garzia

Haize kirriak granada-arbolaren adarrak astintzen zituen, euri lodi bat zurrustaka jariaraziz, gero aurki lausotzen ziren tanta distiratsuz **pikortatuz** lurra. Juan Garzia

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Deskribapen gogoangarriak egin zituen aranaren azalaren argizari-ukitu labainaz, muxiken bixar-ukitu goxoaz eta nektarinen leuntasunaz, eta laranjen azal **pikortatuaz**.

Liburu baten ertza agertu zen; azala gero, azal polit gorri-iluna, ahuntz-larru **pikortatuzkoa**. Xabier Olarra

## **pikortsu** (*orobat* **pikartsu**) 1 *izond* pikorrez betea. ik **pikortatsu**.

Aurpegi **pikortsuan**, begi txiki batzuk zeuden guri begira-begira. Juan Kruz Igerabide

Zintzuraren behealdean, berriz, handitu txiki **pikortsu** bat, gogorra eta irtena, amaren ondoretasunez. Jon Muñoz

Elenak zorriekin jarraitu beharreko protokolo hura maite zuen, haiei esker amak bainatu egiten baitzuen bere esku **pikartsuez**. Eider Rodríguez

Korrokoa, ezkata handiagokoa, eta zakarrago zizelatu; turbot handia, erreboilo handia, biak **pikortsuak** eta esne gatzatua bezain zuriak. Karlos Zabala

Hegazkinak haren kontra tupust egin behar duela dirudi, lurrinezko mendiak dirudite, baina trinko eta zuriak, greziar marmolaren antzera, **pikortsuak**. Joxe Austin Arrieta

### 2 (argazki eta kidekoez) ik **pikor 6**.

Film horrek, sentikorragoa izanik ere, irudi **pikortsuagoa** ematen du, eta xehetasun txikiak ez dira hain garbi azaltzen. Irene Aldasoro

## **pikortu**, pikor(tu), pikortzen da/du *ad* aletu.

Badirudi, izan ere, denbora "**pikortu**" ahal izango balitz bezala gertatzen dela narraziozko zineman, denbora gertaeren inguruan aleetan trinkotu ahal izango balitz bezala, eta are errazago, gainera, gertaera hori fikziozkoa bada. Josu Zabaleta

## **pikortxo** *iz* pikor txikia.

**Pikortxo** beltzak zituen harri zurixka bat. Juan Garzia

Hara eramaten du gas-sukaldetxoa, tea egiteko edo kontserba-poteetako janaria berotzeko: espagetiara haragi **pikortxoekin**, snoek 31 tipularekin. Oskar Arana

**pikota** *1* iz akusatuak jendaurrean lotsarazteko, edo exekutatuen burua jartzeko, antzina erabiltzen zen zutabea.

Lakuntzako plazan hantxe dago oraindik XVI. mendeko **pikota** dotorea.  Patziku Perurena

Birao egiten harrapatuak, izuna ordaindu beharko dute lehenengo aldian; bigarrenean, hirugarrenean eta laugarrenean, izun bikoitza, hirukoitza eta laukoitza; bosgarrenean txingan lotuko dira; seigarrenean **pikotan**, eta goiko espaina moztuko zaie; seigarrenean mihia, ez gehiago eta ez gutxiago.  Juan Martin Elexpuru

Hemen borreroak ez du azido zianhidrikorik erabiltzen ez dio laidozko **pikotako** lepokoari eragiten ez daki aizkoraz pikatzen ez du gillotina askatzen.  Koldo Izagirre

Agortu egin da plazako iturria; **pikota** habean tximista erori zen, baina han konpon daitezela.  Patxi Ezkiaga

**2** (zigorra adierazteko)

Ez zekiten fusilamenduarena ez lako agonia izango nuela, urkabe zitala haga lotsagarria **pikota** laidozkoa garrote bilaua, huraxe emon behar zidatela, Angiolillori legez.

Koldo Izagirre

**3** *pikotan jarri irud*

Horregatik -ez zuen aipatu, noski, Arrieta **pikotan** jartzen zuen txostena-, arazoa argiago ikusi arte, hau da, hiltzeko arrazoi bat aurkitu arte, nik ere zuhurtziaz jokatu nahi nuke.  Migel Angel Mintegi

Bere burua **pikotan** jarri gabe plazaratzeko aukera egokiaren zain bide zegoen.  Migel Angel Mintegi

pikotara ik **piku**<sup>1</sup> 7.

**pikotx** *1* iz lurra edo lurzorua lantzeko lanabesa, alde bat zorrotza eta bestea lauagoa duen burdin batez eta gider batez osatua. ik **pikatxoi**.

**Pikotxa** nonahi, aitzurra inon ez.  Karlos Zabala

Hogeita hamar inguru ziren, pala eta **pikotxekin**.  Koldo Biguri

Baina zerrarik ez, **pikotxik** ez, deus ez azal hari erasotzeko, hotzaren hotzaz granitoa baino gogorrago bihurturiko gain hura apurtzeko.  Karlos Zabala

**Pikotxa** kontu handiz sarturik, induskatzeari lotu zitzaion, lurra hanka artean metatuz.  Patxi Zubizarreta

Meatzariren baten **pikotxak** egindako zuloa aurkitu zuen, eta neska gazteak han hartu zuen babes.  Karlos Zabala

Nostromoa **pikotxarekin** eta aizkorarekin jaitsiko da izotzetara, izotza haustera, ontziari irtenbidea egingo diolakoan.  Joseba Sarrionandia

**2** (hitz elkartuetan)

Lehen **pikotx** ukaldiak Ximunek eman zituen.  Daniel Landart

**3** *pikotxean* pikotxarekin joaz. cf **pikotxean**.

Bera **pikotxean** ari zen baratzean.  Anton Garikano

**pikotxaka** *adlag* pikotx ukaldika.

Halakoa zen Andoni Olabek nazioarteko politikaz zeukan ideia, halakoa zen etorriko ziren egunei buruz egiten zuen jukua, London sutan eta Chamberlain zaharra Alemaniako harrobi batean **pikotxaka**.  Koldo Izagirre

**pikotxean** *adlag* kokoriko, kulubilko.

Gizonek batez ere, bide bazterean elkarren ondoan **pikotxean**, kuxkurtuta, ordu eta ordutan berriketan irauten zuten.  Gotzon Garate

**Pikotxean** eta kontu handiz etxearen atzeko ertzera hurbildu eta teilatu-hoditik behera lerratu zen sute-eskaileraraino.  Lopez de Arana

Okin anderea bakarrik zegoela ohartu zen, **pikotxean** oin tapiz baten gainean.  Patxi Zubizarreta

**Pikotxean** zegoen, eskuak buru gainean zituela.  Iñaki Mendiguren

Esperanza zeukan Paul D ez zitziola bila etorriko eta ez zuela ikusi beharko komun aurrean **pikotxean** jarrita, hainbesteko lokatz putzua egiten, lotsagarri.  Anton Garikano

pikotze ik **pikutze**.

**pikto** *iz* antzina Eskozian bizi izan zen herri bateko kidea.

Agian itsasoaren bestaldeko **pikto** nazkante, bere gorotzekin garbitzen diren horietako bat?  Joanes Urkixo

**piktograma** *iz* gauzaki baten kontzeptua adierazteko erabiltzen den ikur grafikoa, gauzakia sinbolizatzen duena.

Hartara, beren takigrafia propioa garatzen dute, beren hieroglifo, ideograma, **piktograma** sistema.  Iñaki Iñurrieta

piktorialista ik **pikturalista**.

**piktoriko** *izond* margolaritzari dagokiona.

Azpizatiketa hori, esan behar da, gaitzetsi egin zuela Albertik, ukatu egiten baitu *scaenographia* baliabide arkitektoniko hutsen artean sartu behar denik, askoz ere kutsu **piktorikoagoa** duenez izaeraz.  Santiago Iruretagoiena

Kazetari batzuek esan zuten mugimendu **piktoriko** berria sortu nuela, beste pintore batzuk ere hasi zirela nire bidetik.  Unai Elorriaga

Ezagutza bisuala (edo **piktorikoa**) zientzia-ezagutza ikertzeko eredutzat hartzen da.  Askoren artean

XVIII. mendeko estetikan bikaintasun nozioa eta nozio **piktorikoa** teoria estetikoan barneratzea da.  Askoren artean

**pikturalismo** *iz* fotografia-higikunde, argazkiak margolan gisa tratatu behar direla dioena.

**Pikturalismoak**, esate baterako, 1900 inguruan, lehen ikusian artistiko izango ziren obrak egin nahi izan zituen, horretarako manipulazioak, ukiuak, urratuak ugari eginez, argazkiak pikorra ikusgarria, ekaia agerian zuten euskarritan eginez, "goma bikromato" famatu haietan, adibidez.  Josu Zabaleta

## pikturalista 1 (orobat piktorialista) izond pikturalismoari dagokiona.

Joera errealista izan da, zalantzarik gabe, Camera Work joera pikturalista bukatu zenetik (1910 inguruan) azkeneko hamarraldi hauetan argazkia manipulatzeko joera berriak sortu diren arte, joera guztietan nagusia. Josu Zabaleta

Egiazko irudiak al dira (jarrera piktorialista), partez bederen, eta horietako batzuk behinik behin, errealtatea ikono gisa irudikatzen duten zentzuan? Josu Zabaleta

## piku<sup>1</sup> (orobat piko) 1 iz pikondoaren fruitua, udare-formakoa, azala berdea, morea edo beltzaxka, eta mamia, gorria eta oso gozoa, hazi guztiz txikiz bete da duena.

Esan zion nola hartu baratzetatik pikuak eta aranak inork ikusteko arriskurik gabe. Koro Navarro

Ateetatik hurbil, baratze handi hesitu bat dago: hantxe udare, granada, sagar, piku eta olibondoak, uda eta negu alez beterik. Juan Kruz Igerabide

Azeriek, gereziei ez ezik, pikuei ere ez diete muzinik egiten. Gotzon Garate

Adorea, mutil, adorea, eta jan piku horiek, oraintxe daude-eta onenean! Anjel Lertxundi

Elorritik biltzen ote da mahatsik edo gardutik pikurik? Elizen arteko biblia

Gaztetasuna da benetako Saturnoren Erreina, Urre Aroa lurrean berriua, sasiak pikuak ematen zituena. Xabier Olarra

### 2 (izenondoekin)

Atsegin da piku on hauek ikustea, ez da. Elizen arteko biblia

Gogoratu zuen txikitik piku lodi-lodi bat ireki zuela behin eta, ahora sartzeko zegoenean, erle bat topatu zuela barruan, hilda. Unai Elorriaga

Gustatzen zitzaizkien min egiten zioten piku mikatzak neskari irentsaraztea. Itxaro Borda

Txarraren txarrez janzinak ziren piku ustelak bezala erabiliko ditut. Elizen arteko biblia

Sagar esnabolak hartzera joaten ginen sarri, eta piku berdeak doganaka lapurtzera ez gutxitan. Txillardeggi

Probatu dituenak badaki ongi, piko onduberriki baino hagitzez gozoagoak izaten direla piko lehortuak. Patziku Perurena

Piku lehorrak, olibak, karameluak. Pablo Sastre

-Potter, zuritu zuk Malfoyren piku lehorra. Iñaki Mendiguren

Datilak jan dituzue, piku idorrek, pastiza zati zenbait. Xabier Montoia

Piko melatua baino ximurragoa duk atso zar zeken hori. Patziku Perurena

### 3 (neurriekin)

Jaunak bi saskikada-piku erakutsi zizkidan, tenplu aurrean ezarriak. Elizen arteko biblia

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bide-zorroan garagar-irina, piku-opilak, ogia eta gazta sartu eta, gauza guztiak ongi bildu ondoren, mirabeari eman zizkion horiek ere. Elizen arteko biblia

Piku-opil puska bat eta bi mahaspasa-mordo ere eman zizkieten. Elizen arteko biblia

Bagenekien KAOSeko agente garrantziko horrek itsuki maite zuela piku-mermelada. behin eta berriro garbitzen zuen eztarria piku-esnez, eta esnean egosiriko pikuak jaten zituen gero. Jon Alonso

Ondotik pasatzean, bizkarreko ederra eman nion, bai eta lurrean piku azal bat balitz bezala utzi ere. Koldo Biguri

Hostotan zegoen pikuondo bat urrutitik ikusirik, bertara joan zen, ea pikurik aurkitzen zuen; baina ondora iristean, ez zuen hostoa besterik aurkitu, ez baitzen piku-sasoia. Elizen arteko biblia

Yiseko piramidean, han ageri omen dira piko biltze garaiko irudi sakratuak. Patziku Perurena

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garagarrik pikuak dira. Iñigo Aranbarri

Ez du mahats-mordorik aurkitzen, ez eta hain gogoko duen goiz-pikurik ere. Elizen arteko biblia

Gero... barbaria-pikuren bat, bide ertzean atzemaniko patata erdi ustelen bat, koko puxka, azukre kanabera zati bat, sustrai batzuk, karramarro bat... Pablo Sastre

### 6 pikondoa.

Piku-habeak bota badituzte, zedrozkoak jarriko ditugu haien ordez. Elizen arteko biblia

Baratzeko pikua puntaren puntara hupatzeko. Itxaro Borda

### 7 pikutan adkor urruti.

Orain ere pikutan, Joanes...? Joan Mari Irigoien

Zeren eta ongi baino hobeki baitzekien hark ere zer bertze piku izan nitzakeen nik gogoan, pikutan ikusten ninduen bakoitzean: Joan Mari Irigoien

### 8 pikutara (252 agerraldi, 83 liburu eta 58 artikulutan; orobat pikotara 24 agerraldi, 4 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian pikutara agertzen da)

Zoaz pikutara! Unai Iturriaga

-Hoa pikutara, motel. Josu Landa

Doala pikutara! Monika Etxebarria

Esperantza apurrak pikutara joan ziren taberna barreneko mahaietan koadrilakoak ikusitakoan. Unai Iturriaga

Hogeita hamabost bat urte zituen dena pikutara joan zitzaionean. Koro Navarro

Carme, amorratuta, minduta, dena pikutara bidaltzeko prest, Mutilari begira. Antton Olano

Nire neskalagunak be sinistu egin dau eta pikutara bialdu nau. Jon Arretxe

Kontrakoen batzarren bat pikutara bota behar zenean, Tximista jartzen zen eskudraren buru. Koldo Biguri

Pikutara dantzaldiak, nazkagarriak dituk, ez zetoza bat errusiarron senarekin. Jose Morales

Pikutara kaka zahar hori guztia! Bego Montorio

Ez zait edatea komeni, baina pikutara, berdin-berdin hilko naiz. Karlos Zabala

Pikutara, esan nion neure buruari. Oskar Arana

### 9 piku hosto (orobat piko hosto eta pikuhosto g.er.) pikondoaren hostoa.

Izar guztiak erori egingo dira, piku-hostoak eta mahats-hostoak zimeldu eta erortzen diren bezala. Elizen arteko biblia

Baina bekatu egin zuenean, ohartu zen larrugorrian zegoela, eta lotsaren lotsaz, piku-hostoen bila korrika joan eta estalkia egin zuen beretzat. Askoren artean

Badakit emazte xaharrak emaiten duen zigilua arras pollita dela, eta berezia, bere lau marrazkiekin: maskorra, piko hostoa, pitxerra eta kurutzera. Piarres Aintziart

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

piku gozoa (3); piku lehorrak (3); piku mermelada (3)

dena pikutara bidaltzeko (4); dena pikutara joan (5); dena pikutara joango (3); doala pikutara (7); doazela pikutara (3); hoa pikutara (13); lana pikutara (6)

pikutara bidali (28); pikutara bidali nuen (3); pikutara bidaliko (11); pikutara bidaliz (3); pikutara bidaltzea (4); pikutara bidaltzeko (11); pikutara bidaltzen (7); pikutara bota (13); pikutara botatzeko (3); pikutara botatzen (3); pikutara dena (7); pikutara doa (3); pikutara doala (4); pikutara joan (27); pikutara joan zen (9); pikutara joango (10); pikutara joango da (5); zoaz pikutara (12)

piku<sup>2</sup> ik piko<sup>1</sup>; piko<sup>2</sup>.

pikuhosto ik piku<sup>1</sup> 8.

pikukada ik pikokada.

pikuondo ik pikondo.

pikuondope ik pikondope.

**pikupe** iz pikondoaren azpia. ik **pikondope**.

**Pikupean** liburu santuak errepasatzen zegoela piztu zitzaion Jesusi harentzako estimua. **Pello Zabala**

Felipek deitu aurretik ikusi zintudan **pikupean**. **Elizen arteko biblia**

Nor bere mahats-parrapean eseriko da, bere **pikupean**, inoren beldurrik gabe. **Elizen arteko biblia**

**pikura** iz ipar xiringa sartzea.

Mekanikoki, kateztatua izateko asmorik ez zuela eta bere borondatez ipurdi mazela presentatu zion, **pikura** egin zieziaion. **Itxaro Borda**

Sendagile batek **pikura** bat egiten dizu. **Ramuntxo Etxeberri**

Denbora sobera luze aurki ez genezan, **pikura** anitz egin ziguten, sekulako sukarrak biltzen baigenituen. **Marzel Etxehandi**

Bertze zonbeitek diote sofrikarioen ezitzea dela medikuaren eginbidea, hiltzeko **pikura** emanik ere artetan hortako. **Herria**

pikutan ik piku<sup>1</sup> 7.

pikutara ik piku<sup>2</sup> 8.

**pikutze** (*corpusean pikotze soilik*) iz ipar pikondoa.

Baratzeko **pikotzearen** puntan baizik sosegatzen ez zen Jessicaren amatxi Maddi. **Itxaro Borda**

Hala uste zuen Maddik behintzat, mende erdi bat geroago Jessicak **pikotzetik** jaisten laguntzean, zalantzak esku gibelaz saihestuz agertzen zuenaren ildotik. **Itxaro Borda**

**pil**

1 *kurutx ala pil* ik *kurutx* 2.

**pil-pil** (*orobat pilpil g.er.*) 1 *adlag* prestatzen ari diren janariez mintzatuz, borborka.

Hurrena hiri emango dizkiat kagakixon honen muinak kaxuelatxo batean **pil-pil** jartzeko. **Inazio Mujika Iraola**

2 irud/hed

Eduardo Robledo taxilaria labankadaz hil eta gero, **pil-pil** jarri zen berrito taxilarien segurtasunaren gaia. **Berria - Euskal Herria**

Zeren eta iparraldeko itsasertza urtean bost hilabetez fokaz **pil-pil** jartzen da, eta hegoaldeko bi uhartetxoak kaio-habiaz beterik daude. **Juan Garzia**

Harrah's kasinoaren iragarki luzea atzean utzi zuen autobusak eta Atlantic City-ko hiribide nagusian zehar zihoan, argiz eta gautiar bizitzaz **pil-pil**. **Iñaki Zabaleta**

**Pil-pil** bete zen Comala jendez, jai-zalapartaz eta zarataz. **Juan Garzia**

Contla aberatsez **pil-pil** zagok. **Juan Garzia**

San Martinetako hego haizeak etxeetako ate eta leihoak **pil-pil** jotzen zituenean. **Pako Aristi**

Donostian giroa **pil-pil**. **Berria - Euskal Herria**

3 (izen gisa)

Ez dut, ordea, aurkitu bakailaorik gabeko **pil-pilaren** errezetarik. **Hasier Etxeberria**

Hegaluzedun *carpaccio*, *sushi* edo *ceviche* bati, adibidez, osagai hobezinekin osaturiko **pil-pil**, saltsa berde, bizkaitar edo beltza -txapiroiena- erantsiko diogu. **Edorta Agirre**

Dionisos ordu bata t'erdietan heldu zen etxera, eltzea azken **pil-piletan** zegoenean justu. **Unai Iturriaga**

• 4 *adlag* bihotzaz mintzatuz, pilpiran. ik **pilpilka** 2.

Bihotza **pil-pil** ari zitzaion. **Itxaro Borda**

Bihotza **pil-pil** jarri zitzaion. **Eneko Bidegain**

Bihotza **pil-pil** banuen ere, arnasaldi sakonak egiten ahalegindu nintzen, nire bisitariari lo nengoela sinetsarazteko. **Alberto Ladron Arana**

Holako ihizia bi urratsetan izanki eta, bihotza **pil pil** daude liberalak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gibeleratekoan, biak beti berdin mutu baina nik senditzen ene bihotza **pil-pil** ari gero eta azkarrago. **Janbattitt Dirassar**

5 **pil-pil erara**

Bakailaoa **pil-pil** erara jaki, eta aurretik indabak.   Josu Landa

*- irud/hed* Madrilgo esatariak **pil-pil** erara.   Berria - Kultura

## 6 pil-pilean adlag pil-pil.

Saltsa **pil-pilean** dago.   Fernando Morillo

Egun haietan janari denda zabaldu zuten kubo handiaren behean, bakailaoa **pil-pilean** eta piper beteak saltzen dituena.   Ramon Saizarbitoria

Zorte apur batez, txapela eta bakailaoa **pil-pilean**, horiexek libratuko dira zigorretik, libratzekotan.   Hasier Etxeberria

California kaleko apartamentura itzuli nintzen bihotza **pil-pilean**.   Javi Cillero

Ostera ere nabarituko du irrikaren zirrara arina barnean **pil-pilean**.   Oskar Arana

## 7 irud/hed

Taldearen pasioaren sutondoan **pil-pilean** landuriko obra.   Herria

Polemika **pil-pilean** dago.   Anjel Lertxundi

Erromantisismo exotikoa **pil-pilean** zegoen garai hartan Frantzian.   Karlos Zabala

Giroa **pil-pilean** zegoen; tentsioa handia zen.   Berria - Harian

Egungo epistemologia, hortaz, **pil-pilean** dago; posizio, proposamen, kontzepzio eta ikusmolde anitz ditu.   Askoren artean

**Pil-pilean** zegoen auzi politikoa, eta presoena batik bat.   Jokin Urain

**Pil-pilean** eta dantzan jartzen gaituzte cd barruko liburuxkan agertzen diren irudiek ere...   Paddy Rekalde

Umeak Al Muqassad ospitalean jaio dira, baina auziak **pil-pilean** segitzen du.   Berria - Mundua

Geroztik bazterrak **pil-pilean** dira herri hortan. autobide berrien eraikitzeari eta **pil-pilean** diren bertze gai andana bati buruzko eztabaidetan.   Herria

Urduri samar ikusten zaitut... barrena **pil-pilean** izango bazenu bezala...   Xabier Paya

Hormonak **pil-pilean** dauzkagulako edo norbait bidean gurutzatzen zaigulako, desioa sortzen da guregan.   Luis Elberdin

Neskak **pil-pilean**.   Ramuntxo Etxeberri

## 7 pil-pilka ik pilpilka.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**

**bakailaoa pil pilean** (4); **bihotza pil pil** (12); **eztabaida pil pilean** (10); **gaia pil pilean** (3); **giroa pil pilean** (4); **pil pil ari** (3); **pil pilean da** (5); **pil pilean dago** (14); **pil pilean dagoen** (11); **pil pilean dagoenean** (8); **pil pilean diren** (3); **pil pilean egon** (4); **pil pilean jarri** (3); **pil pilean zegoen** (12); **polemika pil pilean** (5)

## pila<sup>1</sup> (1011 agerraldi, 178 liburu eta 117 artikulutan) 1 iz gauzak elkarren gainean edo ondoan ipinita egiten den multzoa, bereziki antolamendurik gabea. ik **pilo**; **meta**<sup>1</sup>.

Honorék berak erantzi zidan soinekoa, eta zoko batera bota zuen ondoren, **pila** bat egin eta gero.   Joxan Elozegi

Mairuak **pila** batean jartzen du gatza; beltzak bere hautsa beste batean.   Iñaki Iñurrieta

**Pila** batetik osagaiak hautatu eta bere burua bikoiztuko lukeen makina bat egitea posible da teorian.   Irene Aldasoro

Aztiakeriatan ibilitako askok beren liburuak **pila** batean bildu eta denen aurrean erre zituzten.   Elizen arteko biblia

Etxola hostoz betea zegoen eta Amyk **pila** batean jarri zituen, Sethe bertan etzateko.   Anton Garikano

Diagonalean zeharkatu zuen gela, bien artean pasatuz, eta txokoko egunkari atzeratu **pilaren** ondoan erdi etzan zen.   Iñaki Iñurrieta

Ohe ertzean eseri ziren, Lisa buruan, Quenu oinaldean, **pilaren** bi aldeetan; eta dirua kontatu zuten estalkiaren gainean, hotsik ez ateratzeko Zoko ilunean gorpuen **pila** handitzen ari da, sabai aldera.   Karlos Zabala

## 2 (izenondoekin)

Askotariko gauzen **pila** handi bat miatzen ari zela.   Jon Muñoz

Beste **pila** handi bat mahai gainean zeukan.   Iñaki Mendiguren

**-Pila** ederra badinagu, behinik behin.   Jon Muñoz

Diru **pila** ederra eman ezean, ez duk bizirik irtengo.   Patxi Zubizarreta

Belar **pila** galanta egin dugu, bai, baina non dago meta?   Joxerra Garzia

Erakustokian, ziazerba eta txikori oreak, ontzietan jarririk, **pila** biribilak osatzen zituzten.   Karlos Zabala

Gülbaharrek lahar-zuhaikxa idorretatik egur **pila** pollita bildu zuen.   Fernando Rey

A4 formatuko orri **pila** handi izugarri bat luzatu zidan.   Joxan Elozegi

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; gauzak)

Obispoa etzan egin zen belar- **pilaren** gainean, eta segituan geratu zen lo.   Inazio Mujika Iraola

Eguna noiz argituko zain zeuden jende eta barazki **pila** logaletuen gainetik.   Karlos Zabala

Lasto **pila** garbi batean eseri ziren.   Josu Zabaleta

Beren orburu, uraza, apio eta porru **pilak** garraiatuz.   Karlos Zabala

Hiltokiko harrien gainean luma **pila** handiak zeuden botata.   Karlos Zabala

Jerusalem harri- **pila** bihurtuko dut eta txakal-zulo.   Elizen arteko biblia

Lurjauzi handiena izan zen lekuan lau metroko altuera hartu zuen harri eta lur **pilak**.   Berria - Harian

Hik gobernatu hondakin- **pila** hauek.   Elizen arteko biblia

Diru-kutxan zeuden azken hondarrekin babarrun pote **pila** bat erostea deliberatu zuen Luis Angelek.   Iñaki Iñurrieta

*ik beheago* 8.   Askoren artean

Ongi aukeratutako liburu batek [...] gehiago zezakeela inon diren dinamita- **pila** guztiek baino.   Inazio Mujika Iraola

Saski txiki **pila** bat ageri zen lurrean luze-luze.   Karlos Zabala

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; animaliak)

Taula ezin garbiago batzuen gainean zeuden, tenka beltzaranen eta zarbo **pila** txikien ondoan.   Karlos Zabala

Suge **pila** hura astindu egiten zuen bere hatz meheekin.   Karlos Zabala

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; pertsonak) multzo handia.

Badut miresle **pila** bat ere, elkarren begiradak noiz gurutzatuko zain.   Josu Zabaleta

*ik beheago* 8.   Askoren artean

Esaten dute sekretu **pila** bat dabilela, bai zipaioenak bai paisanozko pikoloak.   Unai Iturriaga

Ruche jaunak hala ikasia zuen arabiar matematikari **pila** zegoela.   Jon Muñoz

Orpoz orpo Etxague jeneral giria (donostiarra, jakina denez), eta Moriones, Quesada, La Serna, eta beste militar **pila** bat.   Txillardeggi

Aise ulertzen ziren hango ikasle **pila** hura eta ikasgelara sartzeko erakusten zuten irrika.   Josu Zabaleta

Eta pintxe, eta konpa eta puto **pila** bat.   Unai Iturriaga

Kale garbitzaile **pila** bat hurbiltzen ari zen bidegurutzearen bukaeratik.   Karlos Zabala

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; irud/hed)

Berealdiko bisita **pila** izan duzu, David. **Bernardo Atxaga**

ik *beherago* 8. **Askoren artean**

Tresna materialen ikerketari geometriako oinarri matematiko **pila** bat aplikatuz. **Jon Muñoz**

Abentura txiki **pila** bat. **Monika Etxebarria**

Orain ez nuke inorekin topo egin nahi, gezur **pila** bat esan beharko nioke-eta... **Lopez de Arana**

Halako inozokeria **pila** bategatik infernu ilun batera amiltzear zegoen Europa. **Alberto Ladron Arana**

Ez da gauza erraza izan, ordu **pila** lo kendu dizkit. **Migel Angel Mintegi**

Kale bazterretan beren gorputza diru **pila** baten ordainez saltzen duten emakumeak. **Josu Zabaleta**

## 7 *pilan* adlag pila bat osatuz.

Bildu zituzten harriak eta **pilan** ezarri. **Elizen arteko biblia**

Gaztak, gurutzeka **pilan** jarriak, horma zabal handi bat egiten zuten. **Patxi Ezkiaga**

Deboziazko erlikiek ere, **pilan** metatzen badira, nazka eragiten dute. **Josu Zabaleta**

Etorri eta denak **pilan** kokatuko dira mendarte sakon eta haizarteetan, sastraka eta zelaietan. **Elizen arteko biblia**

## 8 *pila bat* adlag asko.

- **Pila bat**, bai. **Harkaitz Cano**

Erabat aldatu da, **pila bat**. **Berria - Kirola**

Igel espezie berriak ere **pila** bat aurkitu dituzte, 20tik gora. **Berria - Gaiak**

«Guk asko ematen dugu, lan gogorra da, baina eurek ere **pila bat** ematen digute. **Berria - Euskal Herria**

Hasten naiz idazten eta idazten, **pila bat** idazten dut, eta gero, mozten hasten naiz. **Ana Urkiza**

Kezkaketa dago sindikatua, «**pila** bat lanpostu» galduko direlako plana ezarritz gero. hemendik aurrera hik gozatu egin behar duk bizitzan, **pila bat**, bagara edo ez gara?  
**Berria - Ekonomia**

Zerbitzu sekretuek legez kanpoko lan asko egin dituzte iraganean eta seguru nago gerrari lotuta halako **pila bat** egin zituztela. **Berria - Mundua**

Niri **pila** bat gustatzen zait Benino, beti lotan baitago, eta ez zaio batere axola bere inguruan gertatzen dena. **Bernardo Atxaga**

Ontziek, gainera, **pila bat** kontsumitzen dute. **Berria - Harian**

## 9 (izen baten ezkerrean)

Portuetako lan baldintzek okerrera egingo dutela eta **pila bat** lanpostu desagertuko direla. **Berria - Ekonomia**

Munduan **pila bat** gauza txarto dago eta, ez dakigu nola baina, sistema aldatu beharra dago. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arazo pila** (4); **arrain pila** (4); **arrain pila handia** (3); **aza pila** (5); **belar pila** (3); **beste gauza pila** (6); **beste pila** (3); **datu pila** (3); **denbora pila** (6); **diru pila** (19)  
**egunkari pila** (3); **egur pila** (6); **elur pila** (6); **galdera pila** (3); **gauza pila** (24); **gauza pila bat** (16); **gezur pila** (6); **gezur pila bat** (3); **gutun pila** (3); **harea pila** (3); **harri pila** (29); **harri pila bilakatuta** (3); **hauts pila** (6); **hezur pila** (5); **hondakin pila** (11); **hondar pila** (5); **hosto pila** (4)

**ikatz pila** (3); **jende pila** (31); **jende pila bat** (8); **jende pila zegoen** (3); **kolpe pila** (3); **lan pila** (3); **lasto pila** (4); **liburu pila** (15); **liburu pila bat** (4)

**odol pila** (3); **ordu pila** (6); **orri pila** (4); **paper pila** (12)

**pila bat egin** (10); **pila ederra** (8); **pila galanta** (3); **pila handi** (21); **pila handi bat** (10); **pila handia** (14); **pila osoa** (3); **pila pila** (3); **pila txiki** (5); **pila txiki bat** (3)

**pote pila** (3); **proiektu pila** (4); **proiektu pila bat** (4); **traste pila** (3); **txiki pila** (4); **txiki pila bat** (3)

**ume pila** (4); **urre pila** (7); **urre pila handi** (3); **urte pila** (7); **uso pila** (3); **zabor pila** (6)

**barazki pilak** (3); **egur pilak** (5); **liburu pilak** (3)

**belar pilaren gainean** (4); **egur pilaren** (4); **liburu pilaren** (3); **paper pilaren** (3); **pilaren artean** (4); **pilaren gainean** (11); **pilaren gainera** (4)

**barazki pilen** (3); **erregai pilen** (4); **liburu pilen** (3)

## **pila**<sup>2</sup> 1 *iz* energia kimikoa energia elektriko bihurtzen duen generadorea.

Zortzi urteko epean **pila** eta baterien ia erdia jaso eta birziklatzea hitzartu zuten, atzo, Europako Batasuneko ingurumen ministroek. **Berria - Gaiak**

Arauk kadmioa edo merkurioa dituzten **pilak** debekatuko ditu. **Berria - Gaiak**

Gomaz estaliriko bi kobre-hari inguratu, **pilaren** poloetara lotu, eta mutur bana erantsi nien potoei. **Juan Garzia**

**Pilak** eta kableak ere topatu zituzten, eta tenporizadorea bilatzen ari ziren. **Berria - Euskal Herria**

Barrualde hitsekoa ematen zuen, hasierako txinparta eragiteko **pilak** faltako baliitzaizkio bezala. **Joxemari Iturralde**

Argia joan zenean irriarentzako **pilak** bilatu genituen, baina topatu nituen bakarrak erdi gastatuak zeuden. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ezkutalekutik irratiko **pilak** aldatzeko atera zen. **Edurne Elizondo**

Deia segundo gutxikoa izan zen [...] telefonoaren **pilak** amaitu baitziren. **Berria - Kirola**

Mirarik gabe hondoratu nion dardaragailua begi beltzean, **pilari** eman eta zalapartaka hasi zen. **Juan Martin Elexpuru**

Zangoko ileak kentzen **pilaz** zebilen Schick bizar-laban batekin. **Oskar Arana**

Urtean, 400 milioi **pila** saltzen ditu Sonyk. **Berria - Gaiak**

**Pilen** kutsadura gutxitzeko plana murriztuta onartu da Bruselan. **Berria - Gaiak**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Larruazalaren ukimena duen dardaragailu bat, **pila** alkalinoak dituena, iraun eta iraun eta iraun egiten duten horietakoak. **Juan Martin Elexpuru**

Lehenbiziko **pila** atomikoa asmatu eta egin zuen. **Fernando Rey**

Motor elektrikoek, **pila** nuklearrek eta beste zenbait gailu mekanikok, denek huts egiten dute, pisu handiegiagatik eta sortzen duten beroagatik. **Irene Aldasoro**

Autobus horiek daramaten hidrogenozko **pilak** 205 kilowatteko potentzia ematen die. **Berria - Gaiak**

Taupada-markagailu elektronikoak pulsu-sorgailu bat dauka [...] iraupen luzeko merkuriozko **pilaz** funtzionatzen duena. **Irene Aldasoro**

Merkuriorik gabeko zilar oxidozko **pila** sortu du Sony goi-teknologiako produktuak ekoizten dituen etxeak. **Berria - Gaiak**

Minbizia eragiten duten nikel-kadmiozko **pilak** erabat debekatzeko proposamena atzera bota zuten. **Berria - Gaiak**

## 3 irud/hed

Oporralditxo batzuk hartzera noa, **pilak** kargatzera eguzkipean. **Migel Angel Mintegi**

Urteoro bezala **pilak** kargaturik heldu naiz. **Jose Angel Irigaray**

Agian sektoteak ere **pilak** jarri behar ditu. **Berria - Ekonomia**

## 4 *erregai-pila*

Baina zer dira erregai-**pilak**? energia kimikoa energia elektriko bihurtzen duten gailu elektrokimikoak direla esango genuke. **Berria - Gaiak**

Motor gehienek berariazko erregaia behar dute, erregai-**pilak** barne. **Irene Aldasoro**

Helburua erregai-**pila** txikiagoak erabili ahal izatea da. **Berria - Gaiak**

Argindarra sortzeko erregai **pilan** oinarrituriko generadoreak prest daude. **Berria - Harian**

Eguzki-lore koipetik lortutako hidrogenoa erregai **pila** duten autoak mugitzeko eragingarriagoa izango da. **Berria - Gaiak**



Muskuluan, funtsean, motor lineal bat da, teropenera baxuko erregai-**pila** batek darabilena. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erregai pila** (5)

**erregai pilak** (3)

## **piladun** *izond* pila duena; pilak dituena.

Ez zuen amak ekarritako transistore **piladunik** piztu nahi. Hasier Etxeberria

Edozein pantaila eramangaritan azken ordu erdiko meteosart erretratu garbi gardena ikusenez, baita mendian edo basoan bertan ere, erabilgarri **piladunei** esker...

Pello Zabala

## **pilaka** *adlag* kopuru handian. ik **piloka**.

Bera arduratzen zenean liburu-dendaz, **pilaka** ezagutu zituen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Ehun bat indioilar gizen erreak, patata erre eta egosiak **pilaka**. Iñaki Mendiguren

Hiri osoa asaldatu zen, eta jendea **pilaka** bildu. Elizen arteko biblia

Diskoak **pilaka** ikusi nituen haren gelan sartu orduko. Xabier Olarra

Taldeak **pilaka** daude, baina publikoak antzekoa da lehengo aldean. Berria - Kultura

Zaurituak **pilaka**, hilak metaka, hilotzak ezin konta ahala! Elizen arteko biblia

## **pilaketa** 1 *iz* pilatzea.

Ondaintokietan 16 kilometroko auto ilarak ere izan ziren lehengo astean, baina jada **pilaketa** horiek arintzen ari dira. Berria - Harian

la antolatutako gabeko **pilaketa** bat. Xabier Arregi

Desertuan zehar egiten duten bidaiak errefuxiatuen tragedia ezagutzeko aukera da: errefuxiatu eremuak **pilaketa**, miseria ekonomikoak, hezkuntza lortzeko ezintasuna, seme-alabek etorkizunik ez dutelako mina. Berria - Kultura

Kale buruak trabaturik ageri ziren, gurdi motzen eta iraulki orgen **pilaketa** zela kausa. Karlos Zabala

Nobela haietako gehienetan kontaktatzen zena ez zela, azken batean, txiripa harrigarri batzuen **pilaketa** baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurrengo egunean etsaiek hurbiltzen hasi zirenean, uraren azpian zegoen **pilaketa** haren guztiaren gainean geratu ziren itsasontziak hondoa jota, ez harresira hurbildu eta ez atzera egin ezinik. Santiago Iruretagoiena

### 2 (izenondoekin)

**Pilaketa** handienak, ordea, A-8 autobidean gertatu ziren, Bilboranzko norabidean. Berria - Euskal Herria

Berehalaxe ekin zien bidai prestaketei jende, animalia eta gauzen **pilaketa** izugarri hark. Karlos Zabala

Berehala ohartu nintzenez, **pilaketa** kaotiko hartan bazegoen antolamendu bat: gaien arabera osatuta zeuden liburu-metak. Anjel Lertxundi

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arretarik handiena lurpeko egituretan jarri behar da, lur-**pilaketaren** ondorioz akats handiak sortzen baitira. Santiago Iruretagoiena

Kapilarren zeharkako ebakiduren azalera handiagoa izan behar du, guztira, arteriarenak baino; bestela, odol-**pilaketa** gertatuko litzateke. Irene Aldasoro

Txartel **pilaketaren** ondorioz, bost jokalarik dauzka zigortuta Osasunak. Berria - Kirola

Ostiralean bertan behera utzi zituzten salbamendu lanak, metano **pilaketa** zela eta. Berria - Mundua

Nola urak, harri eta hondar **pilaketa** gurutzatu ondoren, txuriagoa ematen duen. Bernardo Atxaga

Gurdi eta etxola **pilaketa** hura urtero-urtero Nijni Novgorodeko merkatu nagusia egiten zen plaza zabalean zegoen jarria. Karlos Zabala

Ez dago korapilo edo argumentu jarraiturik: pasadizo **pilaketaz** egiten du aurrera. Itziar Otegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auto pilaketa** (3); **jende pilaketa** (3); **pilaketa handiak** (4)

**txartel pilaketatik** (3)

**auto pilaketak** (9); **ibilgailu pilaketak** (3); **pilaketak izan ziren** (3)

**partida pilaketaren** (3); **txartel pilaketaren ondorioz** (9)

## **pilako** *iz* pila, gauzen multzoa.

Zela zapata-zola zahar bat, zela emakume-soineko zarpatsu bat, zela burdinazko iltze bat edo buztinezko pitxer bat, aldean eramaten zuen aurkitzen zuen guztia, eta, etxera iritsirik, Txitxikovek gelako zoko batean ikusi zuen **pilakoari** gehitzen zion. Jose Morales

## **pilakuntza** *iz* pilaketa.

Baina zaparrada indartsua gertatzen da, hodeiak indar biek batera, euron **pilakuntzak** eta haizearen oldarrak, estutzen dituztenean. Xabier Amuriza

## **pilare** 1 *iz* harroina, zutabea.

**Pilareak** sendotzeko karea injektatzeaz gain, zutabeak eutsiko dituzten harrizko arkuak eraikiko dituzte. Berria - Kultura

Lehendabizi altxafuego berde bat eta gero beste altxafuego gorri bat ikusiz gero, auto blindatuak hara heltzen ari direla esan nahi du, eta orduan errekatxo gaineko zubiko **pilare** bat aldean aterako da. Koldo Biguri

New Yorkeko zubirik zinematografikoena izateaz gain, ederrena ere bada Brooklyngoak, bere harrizko **pilareekin** eta bere arku gotikoekin. Harkaitz Cano

Beste lau herritan, **pilare** altu bat, San Anton abadearen irudia gainean duela. Pello Zabala

Gora eraman zuen gero begirada, **pilare** garaien artera. Karlos Zabala

Hona Erdi Aroko urkabea, **pilare** eder bat, kurutze besomatz bat dirudiena. Piarres Aintziart

Harrizko **pilare**, adreilu erreko horma eta harlangaitzeko mehelinen laguntzarekin altuera handiak altxa daitezke. Santiago Iruretagoiena

**Pilareak** egingo dira zortzi hazbeteko adreiluekin, hau da, gainean bi baldosaren angeluak jartzeko modukoak. Santiago Iruretagoiena

### 2 irud/hed

Eman, hartu, galdetu, onetsi dira haurdidasunaren lau zutarriak edo **pilareak**. Ez diagu elizaren bisita huts egin behar, eliza da memorioaren laugarren **pilarea** eta aberatsena. Herria

"Zientzia publikoa" (unibertsitate eta ingurumen publikoaren egiten dena) "industria garatzeko oinarritzko **pilarea** dela". Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu  
Eta iduriak hiru harroin eta hiru **pilare** zituen: dirua, titulua eta erlijioa. Joan Mari Irigoien

## pilaretxo *iz* pilare txikia.

Hantxe zegoen Nini ere, lagun talde batekin, **pilaretxo** baten ondoan. Josu Zabaleta

## pilarmonika ik filarmonika.

## pilastra *iz* pilarea, bereziki, horma bati atxikia dagoena.

Koloma guztiek berrogeita hamar oineko altuera dute kapitela eta guzti, eta bost oineko diametroa; atzetik **pilastra** batzuk dituzte atxikita, hogei oin altu, bi oin eta erdi zabal eta oin eta erdi lodikoak: alboko galerietako habeen pisuari eusten diote. Santiago Iruretagoiena

Pronaoak hartzen dituen luzeraren beste hiru parteak paretetako **pilastretaraino** luzatuko dira; **pilastra** horiek kolomen diametro berdina izan behar dute. Santiago Iruretagoiena

Peristilo horrek hiru aldetan bakarrik ditu portikoak, eta hegoaldera begira dagoen aldean, bi **pilastra** ditu, elkarren artean tarte zabala izaten dutenak, eta **pilastren** gainean habeak kargatzen dira, eta **pilastra** horien arteko tartea zenbaterako den, horri heren bat kendu eta neurri horretako espazioa sartzen da barrura. Santiago Iruretagoiena

## pilatu, pila, pilatzen 1 du *ad* gauzak elkarren gainean edo ondoan, pila bat osatzen dutela bildu. ikmetatu.

Han, otarre hutsak **pilatu** eta egundoko paretak osatzen ziren goizero. Karlos Zabala

Ezpel-zotzak eta ezpel adarrak **pilatu** dituzte plazaren erdian, ezpelaren suak luze irauten baitu eta gogotik berotzen. Anjel Lertxundi

Uraren pertz baten ondoan **pilatu** zituen platerak. Anton Garikano

Mota guztietako salgaiak **pilatu** dituzte erakusmahaietan. Urtzi Urrutikoetxea

Gorpuak ateratzen eta atarian **pilatzen** laguntzera behartu zituzten. Juan Kruz Igerabide

Eta bekaturia bekaturaren gainean **pilatu** ondoren, damurik gabe hil zen. Askoren artean

Hartu arkume onena; gero, **pilatu** azpian egurra, irakin dezala borbor. Elizen arteko biblia

Nazioen aurka epaia eman du: gorpuak **pilatu** ditu eta lur zabalean buru-hezurak hautsi. Elizen arteko biblia

Urtegi horiek **pilatzen** duten ura, bai, baina pertsona horiek isuritako malkoak ezin dira neurtu. Edurne Elizondo

Lur-haizea edo lehor-haizea baita azken batean, lainobera hau beheko zokoetan **pilatu** duena. Pello Zabala

### 2 (da ad gisa)

Galtzerdiak eta kuleroak **pilatzen** diren lehen tiraderan bilatzen duzu kamiseta gorri zaharra. Sonia Gonzalez

Artile asko **pilatu** zitzaidan, ez neukan non saldu, eta oihalak ehuntzen hasi nintzen, oihal lodi eta arruntak. Jose Morales

Jende guztia Jeremiasen inguruan **pilatu** zen tenpluan. Elizen arteko biblia

Mundu guztia haren inguruan **pilatu** da. Mirentxu Larrañaga

Eta jendea, izugarri jende, irudi haiei begira **pilatzen** zuan. Bernardo Atxaga

Erdi-lo zeuden marinelak kabinaren inguruan **pilatu** ziren zure aginduen zain. Aritz Gorrotxategi

Sumintzen joan ahala hitzak ahoan **pilatu** zaizkio, eta, saio bat egin arren, hitz batzuk zezeltzea besterik ez du lortu. Pello Lizarralde

Biztanle kopuru handiak **pilatu** diren eremu zikin-sortzailleotan. Pello Zabala

Milaka ideia **pilatu** ziren bere buruan, borborka zituen garunak. Aritz Gorrotxategi

Ariman hilketen eta tratu txarren ardurak elkargainka **pilatzen** direnean, zer aitortu liteke? Juan Kruz Igerabide

### 3 kopuru handia bildu.

Tirok gotorlekua jaso du, hautsa adina zilar **pilatu** du, kaleetako lokatza adina urre. Elizen arteko biblia

Zeure jakinduria eta trebetasunaz egin zara aberats, urrea eta zilarra **pilatu** dituzu zeure altxorretan. Elizen arteko biblia

Altxor baliotsua **pilatuko** dute etorkizunerako eta egiazko bizia eskuratuko. Elizen arteko biblia

Haren abitu pobreak adierazten zuen non **pilatzen** zituen bere aberastasunak. Askoren artean

Eruz **pilatu** zuen garia, itsas hondarra bezain ugari.

**Pilatu** zeruan zeuen aberastasunak, han ez baititu ez sutsak, ez herdoiak jaten. Elizen arteko biblia

Balizko porrota, saiatu izanak goxatuko dio, eta hurrengorako eskarmentua **pilatuko** du gainera. Andoni Egaña

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Lan **pilatua** zeukan Karlosek, eta etxera eraman zuen, eta baita amaitu ere. Iban Zaldúa

Energia **pilatua**. Fernando Morillo

Hori ikusita, aurpegi **pilatu** guztiak barreka hasi ziren. Lopez de Arana

Argia piztu zenean, egunkari zahar **pilatua** agertu ziren albo bietara, tontorretan gainez eginda. Javi Cillero

Kordeletik askatu ez duten egunkari fardel **pilatua** bezala. Harkaitz Cano

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko pilatu (9); defizita pilatu (4); dirua pilatu (3)

elurra pilatu (5); eruz pilatu (4); eskarmentu handia pilatu (4); galerak pilatu ditu (3)

inguruan pilatu (7); inguruan pilatu ziren (3); juntatu eta pilatu (3); nekea pilatu (6)

ondasunak pilatu (3); puntuak pilatu (3); ugari pilatu (3)

urtean pilatu (3)

## pilatxo 1 *iz* pila edo multzo txikia. ik pilotxo.

Inork begiratzen ez zidanean, **pilatxoaren** goiko liburuari buelta eman, eta nire portada azaleratu nuen. Iban Zaldúa

Benetan ona zen hura; dirua irabazten hasi ginen, eta **pilatxo** bat osatzea lortu nuen. Juan Kruz Igerabide

**Pilatxo** bat baino geratu ez zenean, andre gazteak ez zuen nahi izan izebarentzat izan zedin. Karlos Zabala

Tabako xeherako erabiltzen zuen narrazio toxa zabal-zabalean zeukan mahai gainean, eta haren inguruan hiru **pilatxo** erregai. Josu Landa

### 2 (hitz elkartuetan)

Emakume **pilatxo** bat hasi zen, denak batera, hain bizkor non ahots guztiek bat baizik ez baitzuten egiten. Josu Zabaleta

Herrialdean zehar dabiltzala giza hezurren bat ikusten badute, harri-**pilatxo** bat jarriko dute ondoan, seinale gisa. Elizen arteko biblia

Txandan-txandan hartuko ditugu, aldiari **pilatxo** bana. teiltupeko zorian zirikitu bat estaltzen zuen zerrauts **pilatxo** bat aurkitu zuen. **Karlos Zabala**  
Paketea zabaldua, *reichmark* **pilatxo** bat aurkitu nuen. **Alberto Ladron Arana**

## pilatzaile *iz* aipatzen duena pilatzen duen pertsona.

Oso aberatsa zen, baina ez zekena, gastatzailea baizik; ez diru-**pilatzaile**, ondasunen xahutzaile baizik; negozio-gizon zuhurra, baina administratzaile burugabea. **Askoren artean**

Gauean, Zeus hodei-**pilatzaileak** haize bat bidali zuen, eta ekaitz handi bat izan zen itsasoan eta lurrian. **Juan Kruz Igerabide**

## pilatze 1 *iz* gauzak elkarren gainean edo ondoan, pila bat osatzen dutela biltzea.

Nola materiaren **pilatze** hark funtsatu zuen lurra, zerua, itsasoa, izarrak, eguzkia eta ilargiaren globoa. **Xabier Amuriza**

Azpeitiko abstrakzio izengabe bat da, eta erretolika luzerako joera erakusten du: izenik gabeko izenondoan **pilatze** bat da, eta izenondo horiek sinonimo kontestualtzat jo daitezkeelarik, alferrikako **pilatze** bat da. **Iñaki Seguro**

Metroaren berotasuna, metro geltokietako usain hertsia, jendearen presak, ezezagunen **pilatze** azkar hori. **Lourdes Oñederra**

Izan ere, ondoz ondoko enuntziatuen arteko multzokatze-motak ez dira beti berdinak eta ez dute jokatzeko, sekula ere ez, segidako osagaien **pilatze** edo justaposizio hutsez.

**Xabier Arregi**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagi gisa)

Azken batean, bertsolariarena, **pilatze** eta hornitze lana da lehenik eta behin. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kalean emakume baten ahotan nekez entzuten ziren esamoldeak jaso zitezkeen hots **pilatze** trinko eta burrunbatsuaren erdian. **Josu Landa**

Hustubideren bat zakarrez bete bada, han dira ur **pilatze** eta sotoak libratu beharrak! **Pello Zabala**

Ez du datu-**pilatze** huts batek eraman Newton [...] hala begiratzera bat-batean ilargiari, hots, lurraren biran ostertzaren abiadura peto-petoan erortzeko bezain urrun jaurtitako baloi bat balitz bezala. **Juan Garzia**

## pilda 1 *iz* gehiegi erabili den soinekoa edo soineko puska. ik **piltzar**; **zarpail**.

Etteratu zirenean, Graxik aitaren **pilda** bakarren biltzen lagundu zuen, pobreei emateko. **Elena Touyrou**

Politik koket eta apain, zaharrak **pilda** hutsez. **Koldo Izagirre**

Amona Mâliak bereizkeriarik gabe gordeak zituen arropa fin-finak zein **pilda** satsuak. **Juan Garzia**

Ile nahasi batzuekin, aurpegia zuhail, **pilda** batzuk soinean, zikinak eta higatuak, dena petatxu, oinetan espartin tzar batzuk, zola jana zutenak. **Janbattitt Dirassar**

Gonazpiko zahar batek, kolore guztietako **pilda** desberdinez osatua, bandera baten gisa egiten zuen igeri balkoi hauetarik batean. **Koldo Izagirre**

Ikusiko bazenitu iristen, agureak, **pildaz** jantzirik, hiltzera nola datozen. **Josu Zabaleta**

Eta han goian, jirabiraka jausten zunan paperezko txoria, **pildazko** bere isatsa herrestan, lurraren berdetasunean galduz. **Juan Garzia**

Gizaseme bikain honek, soka bat gerriko eta zirpil bat oinetako, **pilda** batzuk jantzi eta txapela buruko, zazpitan arriskatzen zuen bizia oreneko. **Pello Zabala**

### 2 (hitz elkartuetan)

Ene zortzi eguneko bizar eta soineko **pildekin** bizi izan nuen ezin-sinetsizko istoria kondatu nienean, konprenitzen dut ez baininduten sinetsi. **Marzel Etxehandi**

### 3 irud/hed

Nahi dituenarentzat utziko dituzu bahituran haragi **pilda** hauek. **Josu Zabaleta**

Nire haurtzarora gerraoste urranean, Gipuzkoako herrirka orduan industrial samar batean, Giménez Caballero (Angel, Ernesto) eta Talaverako Caballero Adorno (haurrak euskaldun-euskaldunak!) eta Telleria-tarren oroipen **pildaz** zirriborratua dago. **Joxe Azurmendi**

## pildagi *iz* ipar arropa-poltsa.

Pierra, hoa ezkaratzean den **pildagiaren** xerka. **Itxaro Borda**

## pildaire *izond* pildaz jantzia.

Bidean, ordea, mutil-koskor **pildaire** batek oratu zion ukalondotik. **Anjel Lertxundi**

Pilda suerte guztietarik, **pildaire** ere ez guti, mustatxkun, mutxurdin eta gaineratikoak, **Jose Angel Irigaray**

## pildora *iz* pilula.

Orain ospitalean zegoela, ohe-burdinei estekatua eta **pildorez** kunkurino emokatua konprenitzen zuen, bera ere hortik pasatua zelako. **Itxaro Borda**

**Pildoraz**, txertoz nahiz odol transfusioz. **Berria - Kultura**

Mediku bat espezialki etortzen zen klase osoarekin solas egitera arazo sexualeraz hitz egiteko: gorputzaz, harreman sexualeraz, **pildoraz**, abortuaz, eritasun sexualeraz... **Ana Urkiza**

## piliska (*orobat pilixka*) *izond* (ezezko esaldietan) apurrik.

Enetako **pilixkarik** ere utzi gabe? **Itxaro Borda**

Hozkailua ireki eta ez dudalarik gasna **pilixkarik** aurkitzen, biharamunetan umore txarrez iratzartzen naiz. **Itxaro Borda**

Aski laster isiltasuna berriz hedatzen zen eta saldoetarik aihen **piliskarik** ez zen eskapatzen. **Itxaro Borda**

Bat-batean, sorbaldaz neuzkala ohartu nintzen eta argazkiak balio juridiko **piliskarik** ez zuela ukanen ondorioztatu nuen, etsia. **Itxaro Borda**

## pilixka ik piliska.

## pilkortu, pilkor, pilkortzen du *ad* pikortatu, tantotu.

Bidaia guztian barrena ikusitako harri gogor eta meseta idor horiei bukaerakoan muino berde multzoa nagusitzen hasia zitzaielarik, baserriek **pilkortu** dituzte zuriz mazelatoko belaze leunak. **Txillardeggi**

# pilo (172 agerraldi, 96 liburu eta 119 artikulutan) 1 iz pila, multzo antolatugabea.

Praka estuak eta pantiak lurrean daude **pilo** batean nahasita. **Oskar Arana**

Ura isuri zuen liburu eskuratu berrien **pilo** baten gainera, sarrerako salmahaiaren ondoko mahai baten gainean baitzeuden. **Oskar Arana**

Hirugarren gelan zapata bitxien **pilo** batean [...] neronek aukeratu nitzakeen, presaz, oinetan ondoen zegozkidanak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Bainugelan, xaboa eta esku-oihalak **pilo** batean, eta arasan maindire garbiak. **Oskar Arana**

18tik 19rako gauean batez ere, sekulako **piloak** ikusten dira urtero; itxura denez, kometa baten hondakinen artetik-edo igarotzen gara une horretan. **Josu Zabaleta**

Lucyk orduak eta orduak ematen ditu ohe gainean etzanda, hutsari begira edo aldizkari zaharretan ikusmiran, ez agortzeko moduko **piloa** baitirudi duela gordeta. **Oskar Arana**

Erosteko begiz jota zituen arropen **piloan** soineko beltza utzi eta beste bat probatzera. **Joxean Agirre**

## 2 (izenondoekin)

**Pilo** txiki bat osatu zuten belar gainean elastiko eta oinetakoekin. Une txikien **pilo** handiaren neke jasangaizta. **Aitor Arana**

Espainiako Enbaxadako gizon biren laguntza erostea lorturik, bi horien bidez hango dokumentuen artetik **pilo** politik eskuratzuz joan ei zen. **Edorta Jimenez**

Etxeo bazter guztiak hartuak zituen erlikia **pilo** eskerga hartan. **Juan Garzia**

Posible bada, kafesne eder batekin hasi behar da eguna, eta ondoren kaka **pilo** eder bat. **Unai Iturriaga**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; gauzak)

Botila puska ezpalduen gainean eroso eserita zegoen aurreko gaueko katu argala, aurpegia garbitzen zakar **pilo** baten tontorrean. **Koro Navarro**

Gu herrirako sarreran geunden, bidea mozteko bildu genuen zabor **piloari** su ematen. **Jon Maia**

Behi gorotz **piloak** nonahi. **Gotzon Garate**

Familiako paper eta argazki **piloa** ordenatzen ari zela, [...]. **Julen Gabiria**

Isil-isilik, hesi garai bateko ate txiki batetik sartu ziren; beste aldean, ohol **pilo** izugarriak zeuden. **Lopez de Arana**

Disko konpaktu **piloa** lurretik sakabanatuta. **Sonia Gonzalez**

Txatarra **pilo** baten erdian bizikleta baten eserlekua topatu nuen. **Harkaitz Cano**

Belar **piloa** nuen aurrean, desafioka. **Joxean Sagatzizabal**

Mailuekin den-dena suntsitu zuten eta Goldstein konorterik gabe utzi zuten oihal-**pilo** baten gainean. **Lopez de Arana**

Jende gehienaren memoria zarama **pilo** bat besterik ez da. **Joseba Sarrionandia**

Nafarrak gurutzeekin eta eskapularioekin zetozela denak, txapel gorriekin eta arma **pilo** batekin, eta gainera Jaungoikoagan sinesten zutela. **Joseba Sarrionandia**

Biluzik zetzan zarpail ugerdo **pilo** baten gainean, besoa burua babesteko jasota. **Agustin Otsa**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; animaliak)

Jende-multzo izugarria ere bildu zitzairen, larrapote-**piloa** bezain ugaria. **Elizen arteko biblia**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; pertsonak) multzo handia.

Mutiko **piloa** zegoen aurrean, aitamak ere ugari. **Joseba Sarrionandia**

Gopal eta Maitane ezkondu, seme alaba **piloa** eduki eta hil arte, urte askoan, oso zoriontsu izan ziren. **Gotzon Garate**

-Guardia zibil **piloa** dabil, udaletxeko plazan lau jeep daude eta hobeto duzu trenbide ondolik joan. **Jon Maia**

Ikasle **pilo** bat ari zen zerrendak irakurtzen, multzoan denak. **Joseba Sarrionandia**

Nafarrek jende **piloa** hil zutela Iruñan, eta Beran, eta Altsasan, eta Tafallan, eta halako lekuetan. **Joseba Sarrionandia**

Poliziek eurek deitu omen zuten txandako abokatua, «atxilotu **piloa**» zegoela-eta 17: 30ean komisarian ager zedin. **Berria - Euskal Herria**

Era eta maila askotako jende **pilo** batek bertatik bertara miretsi ahal izan zuen segizio paregabe hura. **Patxi Zubizarreta**

Horrelako tramankulu bat mugiarazteko jende eta abere **pilo** bat behar izaten delako. **Jon Alonso**

Klon **pilo** bat ere beharko dugu noski: besteak beste, Metxaren eta Mikel Antzaren klon mordoxka ederra. **Markos Zapiain**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; irud/hed)

Jesarleku **piloa** dago libre. **Jon Arretxe**

Ordutik aurrera Gabrieleaz jabetzen den emozio **piloaren** adierazpena literatura sakratua da. **Markos Zapiain**

Aukerarik txikiena dudanean, diru-**pilo** bat irabaziko dut. **Lopez de Arana**

*ik beherago* 8. **Askoren artean**

Martinek diru **piloa** utzi zion anaiari alde egin baino lehen. **Gotzon Garate**

Futbolaz ari dira; ezagutzen ez dudan izen **piloa** bota dute. **Iban Zaldúa**

Horrek esan nahi du gure bizitza gezur-**pilo** bat besterik ez dela izan. **Lopez de Arana**

Urte-**piloa** daramazue Lurdesek eta biok elgarrekin. **Herria**

Denbora **pilo** bat ematen nuen han. **Oskar Arana**

Gauza **piloa** ikasi nuen. **Jesus Mari Mendizabal**

Hirugarren egunean, gauza **pilo** bat gertatu zaigu, marrazki liburuetako orriak aida batean pasatzean bezala. **Javi Cillero**

Gauza **pilo** bat daude arrotzak zaizkidanak baina egin behar (eta beharko) ditudanak. **Pako Aristi**

Galdera **pilo** bat zebilkion arrapaladan buruan. **Jon Muñoz**

Europar parerik ez duen memoria historiko tragikoa heredatu dugu etxeetan; eta eskolan eta bizitza ofizial publikoan mitologia **pilo** bat. **Joxe Azurmendi**

Fabrikar ordu estra **piloa** sartu behar izaten nuen soldata eskasa pittin bat osatzeko. **Iban Zaldúa**

## 7 **piloan adlag** pilo bat osatuz.

Bai, egia, baina pijopaila jendeak, jende gisa, mordoan eta **piloan**, hortzetako ikara ematen du. **Iñaki Seguro**

Gelaren erdian mahai txiki bat zegoen eta, haren gainean, paperak, **piloan**. **Irene Aldasoro**

Ehundaka gazte, lepoan zapi gorria zutela ia denak, eta agureak, oinez, **piloan**, mugituz eta zalapartan istingan eta landare artean. **Josu Zabaleta**

## 8 **pilo bat adlag** asko.

-A, ba, niri orain **pilo** bat gustatzen zaizkit. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gauza pilo** (5); **gauza pilo bat** (3); **harri pilo** (3); **hondakin pilo** (3); **jende pilo** (6); **pilo bat** (63); **pilo handi** (3); **pilo handia** (3)

**argazki piloa** (3); **denbora piloa** (4); **diru piloa** (6); **gauza piloa** (6); **harri piloa** (4); **jende piloa** (18); **jende piloa dago** (5); **lagun piloa** (4); **ordu piloa** (4); **paper piloa** (4)

**piloa dago** (7); **piloa egin** (3); **piloa egiten** (4); **piloa eman** (3); **piloa zegoen** (3); **piloa zeukan** (3); **piloa zuen** (3)

**urte pilo** (6)

## piloka adlag pilaka.

Hor datoz matxinsaltoak **piloka**, herri indartsu eta kontaezin baten antzeko. **Elizen arteko biblia**

Atsotitzak eta erramoldeak **piloka** bidaltzen dizkit. **Gotzon Garate**

Artean, gogoan zuten israeldardian gertatua: nola lurrak, animalien ordez, eltxoak sortu zituen; nola ibaiak, arrainak eman ordez, igelak isuri zituen **piloka**.  
Elizen arteko biblia

## pilon iz pilare euskarria.

67 metra gora uraren neurritik, goiti atxikitzen duten **pilonak** 227 metra gora, uraren barneko neurritik, kable bakotxa 2 km 332 metra luze eta abantxu metra lodi 0,92 m.  
Herria

## pilonidal izond kistez eta kidekoez mintzatuz, barnean ileak dituea.

Osakidetzak emandako datuen arabera, aldaka protesi ebakuntza egiteko 69 egun gutxiago itxaron behar da eta 75 egun gutxiago kiste **pilonidal** ebakuntza egiteko, esaterako. **Berria - Euskal Herria**

## pilota (6401 agerraldi, 130 liburu eta 2148 artikulutan; orobat pelota 68 agerraldi, 15 liburu eta 26 artikulutan) 1 iz jolasean ibiltzeko erabiltzen bola elastikoa; bereziki, izen bereko euskal kirolean erabiltzen dena.

Astean behin keaxtzen zen Samuels jauna, sagarrak, harriak eta **pilotak** botatzen zizkiotela-eta eskolako haurrek bere logelako leihora. **Koro Navarro**  
Zaude, munduko jokorik onena da... -eta han hasi zitzaion azalpenak ematen: lau **pilota** eta zazpi jokalarien posizioak, bere anaiekin ikusi ahal izan zituen jokaldi ospetsuez, [...]. **Iñaki Mendiguren**

**Pilota** batearekin jotzeko puntuak zegoenean. **Julen Gabiria**

Amaren txanda zen; hantxe joan zitzaizkion buru gainetik hegan pala eta **pilota**. **Koro Navarro**

Estadioa mukurua eta berari tokatzen nonbait **pilota** jaurtitzea. **Harkaitz Cano**

Lehen botea egina duen **pilota** bezala da bere garaian pasatzen utzitako aukera. **Joxerra Garzia**

Elkarr **pilota** botaka zebiltzan Prue eta Jasperi begira. **Anton Garikano**

Eskuinez adina ateratzen zuela **pilota** ezkerrez. **Berria - Kirola**

Sakea ateratzen du **pilotari** gurpil suntsigarri eta erantzun ezinezko bat eraginez. **Oskar Arana**

Kontrarioaren aldean ondo hasi zen: **pilota** gozatu, sakatu eta tantoak luzatu. **Berria - Harian**

Hortan gelditu da partida, Mikel Goñi kolpaturik espalda ezkerrean, **pilota** bat pausatzean. **Herria**

Garai hartako berrehun gramoko **pilota**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Pilota** baten antzera kiribilduta nago lurrean. **Mirentxu Larrañaga**

Ahurreen kokatua den **pilota** bezala, denbora, iragan diren gauzen piru biribilkatua, denbora. **Piarres Aintziart**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Futbolekoaren tamainako **pilota** gorri bat. Urrezko snitcha, intxaurraren tamainako **pilota** txiki hegodun bat, harrapatzea. **Iñaki Mendiguren**

**Pilota** marradun bat. **Fernando Rey**

Uil teiltatu gainera igo zen isur-hoditik, eta hiru edo lau **pilota** lumadun bota zituen. **Juan Kruz Igerabide**

**Pilota** larru-leun, larru-goxo, larru-beroa. **Daniel Landart**

Paletaz **pilota** biziarekin (larruzkoa) gure iparraldekoak nausitu dira. **Herria**

Irujok eta Eulategi **pilota** biziagoak aukeratu zituzten. **Berria - Kirola**

Aspekoek **pilota** astunagoak nahiago izan zituzten, 104,4 gramoko bi eta 104,9 gramoko beste bat. **Berria - Kirola**

Partidari horrela buelta ematen ez da erreza, baina **pilota** motela atera genuen, arriskatu egin genuen. **Berria - Kirola**

Estazioetan gauza piloa erosten dut: abanikoak, labana txikiak, teniseko **pilotak**, tarot-kartak. **Unai Elorriaga**

Larruzko **pilota** bat. **Eider Rodriguez**

Plastikozko **pilota** bat igerilekura bota, garrasika hasi eta uretara sartzen ziren pilotaren bila. **Koro Navarro**

Gomazko **pilota** ikutzeko beharra sentitu zuen orduan. **Unai Elorriaga**

Hainbesterainoko amorruez jaurti zuen Pepponek trapuzko **pilota** astuna. **Koldo Biguri**

Sakez, anaiak eskainia zidan **pilota** larruzkoa sakelatik hartuz, firrindaka bota nuen itsasoko ur handietara! **Daniel Landart**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ahots benetan hunkigarria zuen eta Patxik, **pilota** -otzarak zeramatzanak. **Edorta Jimenez**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Soka elastiko bati lotutako hondartza-**pilota** horien antzera. **Bernardo Atxaga**

Arropa haietako batzuek bolak osatzen zituzten, futbol **pilotak** bezala. **Joxemari Iturralde**

Aurrean zuen gizaseme lodikote bati (saskibalo-**pilota** tipokoa) sorbaldan ukitu zion Lucasek. Disko hori ornoarteko diskoa da, golf-**pilota** zabal baten itxurako egitura bat.  
**Unai Elorriaga**

Ezin zituzten benetako quidditch-**pilotak** erabili. **Iñaki Mendiguren**

### 5 esfera-formako gauzakia.

Taka eta taka, indar guztiz berunezko **pilotak** obus bihurtzen. **Hasier Etxeberria**

**Pilota** eta ke poteen hotsa etxe barnean lehertuko bailiran entzun zitekeen. **Ramon Saizarbitoria**

Hiru metroko distantziatik bota zioten **pilota**. **Eduarne Elizondo**

Ertzainek borrekin kolpeka oldartu zitzaizkien, eta gomazko bi **pilota** jaurti zituzten. **Berria - Ekonomia**

Mortero **pilotek**, hain gora igo ostean, behera astun jausi eta kalte itzela eragiten ei zuten. **Edorta Jimenez**

### 6 irud/hed

**Pilotako** elurrari arian-arian lurreko elurra atxikitzen zaion bezala, hitzei ere letrak atxiki dakizkieke. **Iñaki Arranz**

Elur **pilota** txikia, maldan behera jirabiraka jaitsi ahalean, gero eta handiago bihurtzen da, ezin geldituzko abiadura hartuta. **Iñaki Arranz**

**pilota** jaurtigailuaren bokatxarekin eman zioten buruan, odolak pareta osoa ziprztindu zuen. **Koldo Izagirre**

Sutondoko tapa mugitzeko erabiltzen zuen zapia **pilota** bat eginda zegoen Setheren eskuan. **Anton Garikano**

### 7 (arazo baten adierazpen gisa)

«Hamasen teiltuan dago orain **pilota**», adierazi zuen EBko Atzerriarekiko Harremanetarako goi komisario Benita Ferrero-Waldnerrek. **Berria - Mundua**

**Pilota** multinazionalaren teiltuan jarri du langileen batzordeak eta proposamen berri bat egiteko esan dio. **Berria - Ekonomia**

**Pilota** guztion teiltuan dago eta ez dago aitzakia merke eta alderdikerientzat lekuri. **Berria - Harian**

Orain **pilota** ezker politiko eta sozialaren eskuetan da. **Berria - Harian**

Espainiarren esku dago orain **pilota** **Berria - Harian**

### 8 euskal kirola, bi talderen artean, eskuz, palaz edo zestaz, pilota horma baten kontra jaurtiz jokatzen dena.

11 edo 12 urterekin, futbola utzi nuen **pilota** nahiago nuelako, eta egun batzuk pilotan jokatu gabe egoten banaiz, falta nabaritzen dut. **Berria - Kirola**



Ardurenean **pilota** zen joko nagusia. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

-**Pilota** segitu dut hemen Manilan, jai alai itxia izan arte, 1986an. [Ramuntxo Etxeberri](#)

**Pilota** profesionalaren berezitasunak kontuan hartuta, erregimen berezia egokiagoa zelakoan. [Berria - Kirola](#)

Erran behar da ere luzean edo laxoan zela orduko **pilotako** jokoak. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

**Pilotako** plazak, beren harri-hesiek, hormekin edo paretekin, hasi ziren XIX. mendean. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Eskerrak halere hainbeste **pilotako** langile suharrer. [Herria](#)

**Pilotan** petoak eginez galtzen da partida. [Herria](#)

*ik beherago* 12. [Askoren artean](#)

Ez zaude **pilotako** gauzetan pentsatzen, lesioan pentsatzen duzu denbora guztian. baduzueia HERRIA kaseta hau etxean, **pilotako** berrien ontsa segitzeko, euskaraz? [Berria - Kirola](#)

Horrek ere zerbait erran nahi du eta pentsaketan egitekoa balukete gazteak **pilotatik** aise urruntzen dituzten batzuek. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Gure ele ona euskal ligako arduraduneri, gero ta euskaldunagotzen ari baitira berak eta naski **pilotako** eskolak ere. [Herria](#)

Goresmenak deneri eta holako **pilotaren** bestak muntatu dituzteneri. [Herria](#)

**Pilotaren aste** haundian Gaston Detchart-ek egiten duena egin bezala errugbian. [Herria](#)

**Pilotako** Aste Haundian Uztartitze beti. [Herria](#)

**Pilotako** Diziplina Batzordeak lau hilabeteko zigorra ezarri die Elite Pro Frantziako txapelketan jokatzeari uko egin dioten 19 pilotariei. [Berria - Kirola](#)

## 9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Duela zenbait mende, artzainak jostatzen ziren beren mendietan "luzean" deitzen zuten **pilota** jokoan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

"Zetta Punta" **pilota** jokoetarik famatuena da munduan zehar. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Ezin finituzko **pilota** partidetan, bat galduta bestea pariatzen baitzen segidan, irabazita berdin. [Piarres Aintziart](#)

Mus edo **pilota** partidak, zuberotar dantzak, entzierroak... [Berria - Kultura](#)

Atzo arratsaldean **pilota** jaialdia izan zen Bilboko Deportivon. [Berria - Kirola](#)

Lagunekin frontoian **pilota**-saio luzea egin ondoren.. [Joan Mari Irigoien](#)

Uharte eta Lezama Euskal Herriko herriarteko **pilota** finaletik gertuago daude Baduzu **pilota** munduan pilotari bat ohoratzen duzuna edo estimatzen? [Berria - Kirola](#)

Bazekien nafar herrietan nola apaila **pilota** txapelketak mutiko gazteen artean. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

**Pilota** enpresaren prentsa ohar laburren arabera bi zatiak «pozik» gelditu dira hitzarmen berriekin. [Berria - Kirola](#)

Huna beraz orain sei sasoin **pilota** batasuna sortu dela eta gaur egun 140 bat kide dira (50 bat gizon eta emazte, 80 bat haur eta gazte). [Herria](#)

Joan den azaroan aurkeztu zuen Frontis enpresak **Pilota** Zirkuitu Profesionala. [Berria - Kirola](#)

Espainiako **Pilota** Federazioak antolatuturiko batzar batean. [Berria - Kirola](#)

Euskal Herriko **Pilota** Konfederazioa aurkeztu zuten atzo Donostian. [Berria - Kirola](#)

## 10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Zuek esku **pilota** nahiago izango duzue, jakina. [Jokin Urain](#)

Esku-**pilotan** ez da hogeitabakorik izaten. [Andoni Egaña](#)

Esku **Pilota** Liga Profesionala.

## 11 (irud/hed, pilota-jokoaren zertzeladetan)

Atzean, berriz, Goñik zortzi **pilota** huts egin zituen. [Berria - Kirola](#)

Abel Barriolak **pilota** asko galdu zituela egia da, baina gehiago izan zen Aimar behartu beharraren premiak eraginda, intentziorik gabe emandako pilotakada hutsalengatik baino. [Berria - Kirola](#)

Defentsan, berriz, **pilota** bakarra galtzeaz gain, ez zion inolako erraztasunik eman Gonzalezi airez sartu ahal izateko. [Berria - Kirola](#)

Ordu arte **pilota** xoragarri batzu laxatuak zituen Ezcurrak marra gaineko kokorat. [Herria](#)

## 12 *pilotan adlag*

Herriko ostatuan kartetan, frontoian **pilotan**, etxe aurrean futbolean, edo txoroarena egiten. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Biharamunean bainatu egingo ginela eta **pilotan** ibiliko ginela hondartzan. [Koro Navarro](#)

**Pilotan** ibili gara uniforme berdea daramaten haur batzuekin jolasean. [Javi Cillero](#)

**Pilotan** aritu nintzen harresi luze honetan, eliza zahar baten gibelean. [Koldo Izagirre](#)

Eta jostatzen ginen **pilotan**, **pilotan**... etxeko paretaren kontra Donibane Lohizunen. [Menane Oxandabartz](#)

"Oso bakartia **pilotan** jolasean", esan zuen berekiko pala jirutzen zuen artean. [Koro Navarro](#)

Inor ez arkupeetan, inor ez **pilotan** jokatzela elizako horma nagusiaren aurka. [Bernardo Atxaga](#)

**Pilotan** jokatzela hasten ginenean, guztiok airean erabiltzen gintuen, gaztetan pilotari bikaina izango zela zioten. [Gotzon Garate](#)

Azpillagaren etxearen atean, pareta beltzetatik zintzilik, **pilotan** jokatzeko txisterak. [Koro Navarro](#)

**Pilotan** ere poliki egiten baitzuen. [Joan Mari Irigoien](#)

Gazterik hasi zen **pilotan** asmorik hoberenean. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Gure garaian igande arratsalde guzia **pilotan** pasatzen genuen. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Bada, adibidez, **pilotan** galduz gero den-dena beren erru egiten duen pilotaririk, aurkariari merituz guztia kenduz. [Joxerra Garzia](#)

Euskara, espainola, inglesa mintzatzen, **pilotan** ere trebe. [Herria](#)

Herriko ostatuan kartetan, frontoian **pilotan**, etxe aurrean futbolean, edo txoroarena egiten. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## 13 *pilota leku* ik *pilotaleku*.

## 14 *pilota-plaza* (**157** agerraldi, **5** liburu eta **117** artikulutan –*guztiak Herria-koak; orobat **pilotaplaza** 3 agerraldi liburu 1ean*) ipar pilotalekua.

Sortu zirelarik orain bezalako **pilota plazak**, hala nola ezker pareta, trinketa, plaza laxoa, eta abar, tantoka kondatzeko orde segitu zuten luzean bezala kondatuz. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Aipatu da ere alabainan, Aiherran eraikia den **pilota plaza** edo arrabotea, plaza laxoko xapelgoentzat ederki baliatuko dena. [Herria](#)

Gure herrietan bezalaxe, eliza ez dago behin ere **pilota plazatik** urrun. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Ikusi dugu Sara bere **pilota plaza** xaharreakin eta dituen etxe ederrekin, ikusi ere Donibane Lohizune. [Herria](#)

**Pilota plaza** eder bat dudarik gabe, esku huskako pilotarientzat beharrezkoa eta baliagarri izanen dena! [Herria](#)

**Pilota plaza** haundia bada ere, betea zen mukurru dantzari eta soegilez. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Denbora berean, etxegintza bat HLM deitua hasiko da Karrika Buruko bide bertaldean, non ere denboraz bazen **pilota plaza** bat. [Herria](#)

Hitzordua goizeko 9etan **pilota plazan**. [Herria](#)

## 15 *pilota-ukaldi* ik *pilotakada*.

Eta hor Irujoren **pilota ukaldia** Xalaren beharirrat. [Herria](#)

Atseginekin jakiten dugu Sorhuet gaztea berriz pikoan dela Arrangoitzen bere lagunak tiraturik matrailan hartu zuen **pilota ukaldi** haren ondotik. [Herria](#)

Biak oroitzen baitziren Aldudeko partida ondoko **pilota ukaldiaz**, polizari zuzenean igorria izan zenaz. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)



**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

bi pilota aukeraketak (23); bi pilota aukeratu (6); bi pilota partida (22)

egindako pilota aukeraketan (9); elur pilota (6); esku pilota (10); eskuzko pilota (15); gomazko pilota (20); gomazko pilota bat (6); gramoko bi pilota (6); gustuko pilota (8); herriko pilota plazan (11); hiru pilota aukeratu (11)

jo pilota (25); orenetan pilota partida (7)

pilota arinagoak (7); pilota astunagoak (6); pilota atera (9); pilota aukeraketa (88); pilota aukeraketa egin (6); pilota aukeraketa egunean (10); pilota aukeraketak (49); pilota aukeraketan (51); pilota aukeratu (19); pilota batasuna (11); pilota batasunak (11); pilota batasunaren (7); pilota batasunarentzat (6); pilota batasuneko (8); pilota berezkoen (6); pilota bizi (13); pilota biziagoak (15); pilota biziak (7)

pilota elkarteak (12); pilota enpresa (8); pilota enpresen (17); pilota enpresen ligak (12); pilota erakusketa (6); pilota eskola (10); pilota eskolak (6); pilota eskolako (8); pilota esku huska (9); pilota eskuan (6); pilota federazioa (6); pilota federazioak (16); pilota federazioko (11); pilota galdu (6); pilota hartu (11); pilota hautaketa (6); pilota hautaketan (8)

pilota jaialdi (6); pilota jo (10); pilota joko (10); pilota jokoa (9); pilota jokoak (6); pilota jokoaren (7); pilota lehiaketa (11); pilota lekuan (12); pilota liga (6); pilota mota (12); pilota motelagoak (6); pilota munduan (22); pilota munduko (12)

pilota onak (9); pilota partida (328); pilota partida bat (32); pilota partida trinketean (11); pilota partidak (59); pilota plaza (46); pilota plaza bat (7); pilota plazan (87); pilota plazan eta (6); pilota plazaren (6); pilota profesionala (7); pilota profesionalaren (6); pilota solas (6)

pilota urte (6); pilota utzi (7)

antzeko pilotak aukeratu (6); aukeratu zituzten pilotak (7); erabiliko dituzten pilotak (11); gomazko pilotak (15); gramoko pilotak (46); gramoko pilotak aukeratu (29); gustuko pilotak (7); partidarako pilotak (16); pilotak aukeratu (62); pilotak aukeratu zituzten (28); pilotak aukeratu zituzten (8); pilotak aukeratzeko (12); pilotak aukeratzetan (18); pilotak aurkitu (7); pilotak baztertu (6); pilotak botatzen (6); pilotak hautatu (13); pilotak hautatu zituzten (6)

pilotako aste (14); pilotako aste haundia (8); pilotako berrietan (10)

pilotan ari (15); pilotan aritu (6); pilotan aritzeko (11); pilotan artzeko (7); pilotan jokatu (7); pilotan jokatzeko (9)

gomazko pilotarekin (6); larruzko pilotarekin (6)

pilotaren alde (20); pilotaren aste (8); pilotaren besta (10); pilotaren onetan (10)

gomazko pilotekin (7); pilotekin gustura (7)

## pilotadun *izond* barrabiladuna.

Edo koskoilak; edo koskabiloak; edo panpalinak; edo barrabilak; edo zintzilikarioak... herri idurimenak delako zorro **pilotadun** ale-bikoa izendatzeko asmatu dituen molde ugariak agortzeari emanez gero. **Aingeru Epaltza**

## pilotagia *iz* pilota plaza; trinketea.

Euskal Herriko azken **pilotagia** da ekialdera buruz. **Herria**

Eta Garazin artzainek badakite nun diren **pilotagiak**, Xiberoan "pilotakagiak" deitzen dituztenak. **Herria**

Olatrane horrek bazuen beste izen bat, artzainek emana ziotena: Olatrango **pilotagia**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## pilotagile 1 *iz* pilotak egiten dituan eskulangilea.

**Pilotagile** narbartearrak, erdaraz jatik ez zekienak, partida hastekoan aztertu zituen pilotak, eta Aranazkoenak askoz pisuagoak zirela ikusi, baina deus ezin esan, bertzenaz... **Patziku Perurena**

### 2 *kakalardo pilotagile* ik *kakalardo* 4.

## pilotagune *iz* pilotalekuen gunea.

Erakusketan dago obren artean ikusgai Azkoitiko **pilotagunearen** xede erraldoia, ikus ditazkeela sei eraikuntzek osatzen duten egitasmoaren maketak eta planak. **Herria**

## pilotaka *iz* pilota-partida.

**Pilotaka** hark oihartzun egiten segitzen du. **Edorta Jimenez**

## pilotakada 1 *iz* pilota ukaldia.

Julian Ibarluzeari Gilleramo Amutxastegik Habanako frontoian jo zion **pilotakada** dela, dio Ernest Hemingwayk, bere bizi guztian ikusi duen zirraragarriena. **Edorta Jimenez**

Mutilak ondo jaurtitzen zuen, bete-betean beti, eta **pilotakada** bakoitzarekin panpina bat behera. **Koldo Biguri**

Guardia Zibilak jaurtitak **pilotakadak** buruan jo zuen. **Edurne Elizondo**

Harriekin zein botilekin erantzun zieten polizien **pilotakadei**. **Berria - Euskal Herria**

Azkenean, lagunek **pilotakada** artean lñaki auto batean sartu eta anbulantzia bateraino eramatea lortu zuten. **Berria - Euskal Herria**

Poliziaren sirena hotsak, ke pote eta **pilotakaden** danbada sikuak, etengabe jiraka ari diren argi urdinen aurrean... **Paddy Rekalde**

### 2 (pilota-jokoan)

938 **pilotakada** partida huntan. **Herria**

Hori da, hori, lehiakidearen **pilotakada** gaiztoari erreto are gaiztoagoaz erantzutea! **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

### 3 irud/hed

-Mallonaren kasua argitu guran nabil -nire **pilotakadari** erantzunez bota zidan-. **Edorta Jimenez**

Ez nintzen neskatak uste bide zuen bezain zaharra, eta espero zukeen bezain bristi-brastako atarramenturik ere ez nirekin hark; pixkana-pixkana, haren **pilotakadei** nola erantzun asmatuz bainindoan. **Joxe Austin Arrieta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

pilotakada ederrak (3); pilotakada hartu (4)

## pilotakadaka *adlag* pilota ukaldika.

**Pilotakadaka** jaitziaz ditzute frontoiko paretara igotako gazteak. **Berria - Euskal Herria**

## pilotaleku (*863* agerraldi, *13* liburu eta *530* artikulutan; orobat *pilota leku* *29* agerraldi, *3* liburu eta *18* artikulutan;

# Euskaltzaindia: **pilotaleku** agertzen da **1** iz pilota jokoan prestatuko dagoen plaza edo lekua. ik**pilota 14**.

Gernikari zen partida, **pilotaleku** bete bete. **Herria**

Bazkaria Antiguako **pilotaleku** egingo da, eta nahi duen orok parte hartu ahal izango du. **Berria - Kultura**

Finalerdietako azken haitada iragan da joanden igandean Donostian, Atano III. **pilotaleku** mukurru bete batean, 2000 bertsozale baino gehiagoren aitzinean. **Herria**

Argazki huntan, Gernikako Jai-Alai **pilotaleku**, Ibarretxe, Errasti, Carlos Garaikoetxea eta besteak. **Herria**

Herriko plaza nagusian dago **pilotaleku** Andoainen, nire etxetik ehunen bat metrora. **Rafa Egiguren**

Igandetan, mezaren ondoren, baserritarrek, jaiegunetako jantziekin, jaka lepoan, sagardotegian eta **pilotaleku** elkartzen ziren. **Koro Navarro**

Hemen bertan ireki zen beraz, batzuen ustez munduko "jai alai" **pilotaleku** ederrena. **Ramuntxo Etxeberri**

Beharrezkoa dugu, beraz, **pilotalekuetan** bezala, falta- eta pasa-marrak margo zuri nabarmenez marraztea. **Iñaki Arranz**

Orain dela hogei bat urte trikitilari beteranoren txapelketa egin zen Zinema **Pilotaleku**, Euskal Astean, eta bi bikotek eman zuten izena. **Xabier Etxabe**

Pilotaren aldeko ekimenak bideratzeko ere baliatu zituen bidaia ugari horiek, hainbat **pilotaleku** eraikitze bidea egin baitzuen. **Berria - Kultura**

Gaur prestatuko dituzte egurrak Aguraingo **pilotaleku**-kiroledgian, eta egun osoa erabiliiko dute horretarako, guztira 72 enbor garbitu, neurriari jarri eta josi egin beharko baitituzte. **Berria - Kirola**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halere, orbaina itxi bezain laister, **pilotaleku** saioak hasi zituen agoztarrak. **Berria - Kirola**

Lehen egunean debekua errespetatu ez zen arren, hainbat **pilotaleku** jabe neurriak hartzen hasi dira. **Berria - Euskal Herria**

Taula gainean ari den musika taldeak gaitzeko mitxa ezartzen duela ez du oraino ikusten, ez eta hautemaiten, **pilotaleku** zokotik. **Eneko Bidegain**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lekua: Udai **pilotaleku** Ordua: 18:00. **Berria - Harian**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pilotaleku berria** (3); **pilotaleku berrian** (5); **pilotaleku gogorra** (4); **pilotaleku gogorra da** (3); **pilotaleku kiroledegian** (3); **pilotaleku osoan** (6); **puntako pilotaleku** (3)  
**eko labrit pilotaleku** (4); **igarondo pilotaleku** (3); **irun labrit pilotaleku** (8); **paueko pilotaleku** (6); **pilotaleku bete** (7); **pilotaleku bete zuten** (3); **pilotaleku lepo bete** (7)

**adarraga pilotaleku** (6); **altsasuko pilotaleku** (3); **amurrioko pilotaleku** (3); **antiguako pilotaleku** (6); **astelena pilotaleku** (4); **azkoitiko gurea pilotaleku** (6); **azpeitiko izarraraitz pilotaleku** (3); **beltzenia pilotaleku** (3); **beotibar pilotaleku** (9); **bergarako pilotaleku** (6); **bergarako udal pilotaleku** (6); **bilboko deportibo pilotaleku** (9); **campos berri pilotaleku** (4); **deportibo pilotaleku** (12)

**eibarko astelena pilotaleku** (4); **etxarri aranazko pilotaleku** (5); **galarreta pilotaleku** (8); **gasteizko ogeta pilotaleku** (7); **gurea pilotaleku** (6); **hernaniko galarreta pilotaleku** (8); **hernaniko pilotaleku** (5)

**eko labrit pilotaleku** (30); **eko pilotaleku** (3); **irun irun irungo uranzu pilotaleku** (4); **izarraraitz pilotaleku** (5); **jai alai pilotaleku** (11); **jai berri pilotaleku** (4); **labrit pilotaleku** (36); **labrit pilotaleku jokatu** (4); **lemoako pilotaleku** (3); **madalensoro pilotaleku** (3); **ogeta pilotaleku** (11)

**paueko pilotaleku** (3); **pilotaleku arituko** (3); **pilotaleku egin** (8); **pilotaleku egin zen** (5); **pilotaleku egingo** (3); **pilotaleku izango** (10); **pilotaleku izango da** (4); **pilotaleku izango dira** (3); **pilotaleku jokatu** (17); **pilotaleku jokatu zen** (11); **pilotaleku jokatu** (32); **pilotaleku jokatu da** (11); **pilotaleku jokaturiko** (14); **pilotaleku jokaturiko partidan** (4)

**santanape pilotaleku** (3); **toki alai pilotaleku** (4); **tolosako beotibar pilotaleku** (8)

**udal pilotaleku** (21); **uranzu pilotaleku egin** (3); **urretxuko ederrena pilotaleku** (3); **zarauzko aritzbatalde pilotaleku** (5); **zarauzko aritzbatalde pilotaleku** (6); **zeanuriko pilotaleku** (7)

**adarraga pilotaleku harmailak** (3); **daniako pilotaleku** (3); **eko labrit pilotaleku** (9); **galarreta pilotaleku** (3); **gasteizko ogeta pilotaleku** (3); **hernaniko galarreta pilotaleku** (3); **irun jai alai pilotaleku** (3); **labrit pilotaleku** (10); **labrit pilotaleku harmailak** (7); **ogeta pilotaleku** (4)

**pilotaleku frontisa** (3); **pilotaleku harmailak** (31); **pilotaleku harmailak bete** (16); **pilotaleku harmailak lepo** (5); **pilotaleku harmailak** (6); **pilotaleku harmailen** (4); **pilotaleku jabeek** (3)

**pilotaleku joan** (4)

## pilotaplaza ik **pilota 14**.

## **pilotari 1** iz pilotan jokatzeko duen pertsona; bereziki, pilota jokoan lanbidetzat duena.

Xala **pilotariak** egin zuen ohorezko sakea. **Berria - Kirola**

Nik **pilotarien** aldageletan lan egiten nuen. **Ramuntxo Etxeberri**

Punduen arabera, **pilotariak** txalotzen ala gogorki iraintzen zituzten. **Ramuntxo Etxeberri**

**Pilotariak** beti plaza gizonak direla nahiago dute behin betikotz sinetsi! **Ramuntxo Etxeberri**

**Pilotarien** giroko Habanan. **Edorta Jimenez**

Han gelditu zen **pilotarien** arduradun eta, harrezkero, hura zuten Jai Alaiak nagusiek zakurrik leial eta beltzena. **Xabier Montoia**

Horrelaxe amaituko dira Felix eta Patxi **pilotarien** partidarik zailena izan zitekeena. **Edorta Jimenez**

Enpresaren eta **pilotariaren** botilerokoak. **Berria - Kirola**

Seme koxkorra besoetan duela, **pilotariz** jantzita frontoi batean... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Euskal Herria Zuzenean, Lapurtarren Biltzarra, Demoak, Herriarekin apaizen elkarte eta **Pilotarien** Elkarte Ibaetako Foroko kide dira atzotik hona. **Berria - Euskal Herria**

Bazkari on bat bururatzean, eskaini dira **Pilotarien** Biltzarraren ohorezko medailak. **Herria**

Hiru aldiz urtean elgarretaritzen dira **Pilotarien** Biltzarra eta **Pilotarien** Batzarra anaitasun haundienean. **Herria**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Peio, Donibane Lohitzuneko **pilotari** ohi famatuak. **Ramuntxo Etxeberri**

Arretxe **pilotari** ospetsua. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Untzorondarrak ez du hortan hobenetik, **pilotari** pollita heldu da dituen ahalekin. **Herria**

Baina zer **pilotari** ederra heldu den ere Amulet gaztea. **Herria**

Fernando da oraino **pilotari** azkarra. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hirugarrena, Julian, sekulako **pilotaria**. **Edorta Jimenez**

Aspaldixkoan, lehen mailako **pilotari** esku-huskariak, berezkoak deitzen diren horiek, arras makur doatzi Federazioarekin. **Herria**

Euskal **Pilotari** Berezkoen xapelgo ofiziala da hor hasiko 16.30tan. **Herria**

Fred's hondartzako ostaldueratik bat zen, **pilotari** euskaldunen biltzokoa. **Xabier Montoia**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Abadearen **pilotari** bihotzaren sendo ospea. **Edorta Jimenez**

Dominique Sasco arbonarra batetik eta Paxkal Ezcurra urruñarra bestetik, biak ere **pilotari** arrazakoak. **Herria**

Batere seriositasun eta **pilotari** manerarik gabe agertu da baztandarra, gizendua berriz ere eta hatsik ez. **Herria**

Berdintzen zirelarik bi **pilotari** andanak [...] oihi egiten zuen xaxariak jendea beroarazteko jokatzeari buruz: "Kintze berdin! Trebesa libro!". **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

-Herrian hilobi bakarra egon zen - **pilotari** taxuan bota zidan, bote prontoan, basoa hartzeko keinuan eutsiz hitzei. **Edorta Jimenez**

## 4 (izenondo gisa)

Isidoro Urtsuak bere estilo xamur horretara Iruñeko Eliz Artxibo Handitik atera dituen XVII. mendeko apez **pilotarien** kontu bihurriak lekuko. **Patziku Perurena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**asegarceko pilotari** (6); **esku huskako pilotari** (4); **euskal pilotari** (18); **euskal pilotari berezkoak** (10); **euskal pilotari berezkoen** (5); **gibebeko pilotari** (4); **hazparneko pilotari** (4)

**pilotari abiadura** (4)

**pilotari bakarra** (4); **pilotari berezko** (4); **pilotari berezkoak** (16); **pilotari berezkoen** (7); **pilotari berriak** (5)

**pilotari eder** (10); **pilotari eta pilotazale** (8)

**pilotari fina** (5)

**pilotari gazte** (37); **pilotari gaztea** (11); **pilotari gazteak** (20); **pilotari gazteei** (5); **pilotari gazteek** (6); **pilotari gazteen** (19); **pilotari gazteen artean** (4); **pilotari gogorra** (4)

**pilotari handi** (8); **pilotari handia** (11); **pilotari handiak** (4); **pilotari haundi** (5); **pilotari haundiak** (4); **pilotari hoberenen** (4); **pilotari hoberenetarik** (4)

**pilotari ohi** (14); **pilotari ohia** (19); **pilotari ohiak** (16); **pilotari ohiaren** (7); **pilotari on** (16); **pilotari ona** (8); **pilotari onak** (9); **pilotari onena** (10); **pilotari onenak** (10); **pilotari onenaren** (6); **pilotari onenaren saria** (4); **pilotari osoa** (5)

**pilotari pollit** (4); **pilotari profesional** (7); **pilotari profesionalak** (4)

**pilotari trebatu** (7); **pilotari trebea** (4); **pilotari ttiki** (8)

**pilotari zahar** (5)

## pilotarisa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea)* iz emakume pilotaria.

Xantza on Abarratia batasuneko **pilotarisa** gazter! **Herria**

Frantziako xapelketa-ko finaletan, gure 2 herritar **pilotarisek** galdu dute joan den igandean, Kattalin Marisco eta Marie Amestoy garaztarren aurka, 30 eta 21. **Herria**

## pilotasoro iz behinola pilotan jokatzen zen zelaia.

Jakes Cazaubon eta Pierre Sabalo-k ohiko pilotaz hitzezin zuten, behialako **pilotasoro** eta trinketetan finkatuz beren solasa, luze, errebote eta pleka jokoak azalduz.

**Herria**

## pilotatu, pilota(tu), pilotatzen du *ad* pilotu gisa gidatu.

Hegazkinak **pilotatzen** ikasteko kurtsuak. **Berria - Mundua**

Bigarren Mundu Gerran, hegazkinaren kabina-gaina galdu zuen gerra-pilotu batek bi orduz jarraitu zuen hegazkina **pilotatzen** 400 k/h-ko abiaduran -34 °C-ko tenperaturan.

**Irene Aldasoro**

Charley Papak hegazkin pribatu bat **pilotatu** izan zuen bere garaian eta gaur egun epaitegietan lan egiten du bat-bateko itzultzaile gisa. **Harkaitz Cano**

**Pilotatzen** ari naizen hegazkin honetan, nire helizeen bizkortasuna beheregitik dago mugatua. **Josu Zabaleta**

Orioko marinelek **pilotatzen** zuten Azor izeneko yate ospetsuan. **Koldo Izagirre**

## pilotatxo 1 iz pilota txikia.

Begiak erabili zituen **pilotatxoei**, golfari eta golfariei buruz pentsatzen zuen guztia adierazteko. **Hasier Etxeberria**

Berlusgoñik **pilotatxo** bat osatzen ziharduen ezker belarrian hatza sartuta. **Jon Alonso**

Paperezko **pilotatxo** bat, puxtarri baten neurrikoa. **Oskar Arana**

Egunkari zahar baten orriekin **pilotatxoak** egin eta ezpal-metatxoaren ondoan jarri zituen. **Anjel Lertxundi**

Etxe-iratxoa, teniseko **pilotatxoak** bezalako begi irtenekin, Harryri begira-begira zegoen ilunpetan. **Iñaki Mendiguren**

Atzerantz itzultzen du burua eta lokian jotzen du **pilotatxo** batek. **Oskar Arana**

**Pilotatxo**en gorabideak berdin jarraitzen du akuarium urdinkara mugagabe honetan. **Josu Zabaleta**

101 gramoko **pilotatxoak**. **Berria - Kirola**

## 2 haragi pilotatxoa.

**Pilotatxoak** frijitzen bukatu zuen. **Jon Alonso**

## 3 (hitz elkartuetan)

Non ikusten duen ordea paper **pilotatxo** bat bere aurreko bidean biraka. **Josu Zabaleta**

## 4 haragi pilotatxo ik haragi 13.

## pilotatzale ik pilotazale.

## pilotatzar iz adkor pilota handia.

107 gramoko **pilotatzarra** aukeratu zuen Kokak Oartzunen. **Berria - Kirola**

## pilotatze iz pilotu gisa gidatzea.

Ikerketa egileek **pilotatze** huts egiteen edo akats teknikoaren hipotesiak lantzen zituztelarik, Txetxeniako agintari independentistek gertaera hauekiko erantzukizuna izatea ukatu zuten. **Berria - Mundua**

Oklahomako hegazkin **pilotatze** eskola batean kurtsuak hartu zituen. **Berria - Mundua**

## pilotazale *(orobat pilotatzale g.er.)* 1 iz pilota jokoaren zalea den pertsona.

Nafarroako zenbait pilotari eta **pilotazalek** elkartasuna adierazi diote Iruñeko Euskal Jai gaztetxeari. **Berria - Euskal Herria**

Txapela jantzea, **pilotazale** izatea eta sagardoa gustatzea, hiru ezaugarri horiek falta omen zitzaizkion Koldo Mitxelena-ri euskaldun petoa izateko. **Anjel Lertxundi**

Bi pilotariek partida ederra eskaini zuten, eta bertara bildutako **pilotazaleek** ederki gozatu zuten. **Berria - Kirola**

**Pilotazale** jendeak pilota behar du. **Herria**

**Pilotazale** gazte honek beti nabarituriko du Andoaingo ezkerrean pilotakada gaiztoen, sake zitalen eta birao ozonen falta. **Berria - Kirola**

Heletar musulari eta **pilotazale** suharra. Herría

Pilotaren bestaz da bakarrik ohore egin **pilotazale** zenduari. Herría

Beraz Iñaki Arrosagaray-k ere urrun eta gora eraman du Luzaideren fama **pilotazaleen** munduan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

'Business' handi horretan parte hartzen duten enpresari aberats guziak **pilotazale** bilakatuko ote dira? Ramuntxo Etxeberri

## 2 (izenondo gisa)

Herritar **pilotazaleek** eta auzokoez betetzen zuten autokar bat Luhuso-n eta joaiten ziren lekukoan sustengatzerat Baiona-n edo hor gaindi ari zirelarik. Herría

Goizueta herri **pilotazalea** da, eta aurretik bi profesional edukitzeak asko egin du pilota zaletasunaren alde. Berría - Kirola

Giro **pilotazalea**, final giroa hain zuzen. Berría - Kirola

## 3 (adizlagun gisa)

Ander Letamendia kirurgianoa pilotaria izana da gaztetan eta, pilota utzi behar izan bazuen ere mediku lanetan aritzeko, beti **pilotazale** gelditu da, hurbiletik jarraikiz kirol horren garapena. Herría

## 4 (hitz elkartuetan)

Erran behar da jende prestua dela **pilotazale** mundu hori. Herría

Hesian jarrita **pilotazale** mordoia. Berría - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pilotari eta pilotazale** (8); **pilotazale askoren** (3)

**pilotariak eta pilotazaleak** (3)

# pilote iz paldokoa, eraikin baten oinarri izateko lurrean finkatzen dena.

Zurezko bi zubi dauzka, **pilote** gainean eraikiak, ubidearen zabalera osoa nabigaziorako libre uzteko moduan jarriak. Karlos Zabala

Ur gainean **piloteetan** finkatutako eraikin luze baten aurrean gelditu ziren. Lopez de Arana

Badoaz **piloteen** gainean eraikitako etxoletarantz palmondo adarren artean burua makurtuz. Patxi Iturritegi

Ibaiak **piloteak** milikatzen zituen. Lopez de Arana

Urak hots lasaigarri bat sortzen zuen **piloteen** kontra jotzean. Lopez de Arana

# piloteatu, pilotea, piloteatzen 1 du ad pilotarekin jolasean ibili, tantorik egiteko asmorik gabe.

Medikuak jakinarazi dio bihar bertan has daitekeela entrenatzen: korrikan eta **piloteatzen**, xuabe-xuabe, lehen egunetan behintzat. Berría - Kirola

Materiala aukeratu ondoren, Labriten **piloteatzen** gelditu ziren Olaizola anaiak, Ruben Beloki eta Patxi Ruiz. Berría - Kirola

Pilota aukeraketa egunean Esainekin aritu zen **piloteatzen**, eta pilota motelekin eroso aritzen da. Berría - Kirola

Olaizola bere jokoa egiten saiatuko da, **piloteatzen** eta partida ahalik eta gehien luzatzen. Berría - Kirola

## 2 (era burutua izenondo gisa) pilotakada asko jotzen direna.

Nerbioei eusten asmatzen badugu, luzea eta **piloteatua** izango da finala. Berría - Kirola

Partidako tanto guztiak luze eta **piloteatuak** izan ziren, eta nekeak utzi zien artean inork ez zuen amore eman. Berría - Kirola

Barriolaren ustez, finala «partida nekoso» izango da, **piloteatua** eta luzatuko dena. Berría - Kirola

Beloki eta Koka **piloteatzen** hasi ziren, eta partida gogortu zuten. Berría - Kirola

# piloteo 1 iz pilotarekin jolasean ibiltzea, tantorik egiteko asmorik gabe.

Erritmo bizian jokatu zituzten tanto luzeetan, etengabeko **piloteoari** eustea zen tantoa lortzeko giltza. Berría - Kirola

Bi pilotariak txukun aritu ziren kantxa erdiko **piloteoan**. Berría - Kirola

Garikoitz **piloteoan** agintzen hasi zen, bi anaiak jotzaile handiak ez badira ere. Berría - Kirola

Antzeko ezaugarriak ditugu, **piloteoan** jokatzera eta dejadarekin tantoa amaitzea gustatzen zaigu bioi. Berría - Kirola

Luze eta gogor joz **piloteoan** agindu zuen, tantoa dejadaz edo hormabikoz bukatu aurretik. Berría - Kirola

**Piloteoan** kontrarioa gehiago zela ikusi zuenean, Peñagarikanok ausart jokatu zuen, lotsa gabe dejada boteaz. Berría - Kirola

## 2 (izenondoekin)

Erasoan ez da oso txukun aritzen, **piloteo** luzean, ordea, nekaezina da. Berría - Kirola

Itxura batean partida luzea izango da, **piloteo** luzeekin, bi bikoteak ere jotzaileak baitira; galtzak bete lan izango dituzte atzelariak gaur. Berría - Kirola

Zearrak ez du **piloteo** luzerik nahi. Berría - Kirola

**Piloteo** amaigabeetan itota, partida hotza jokatu zuten. Berría - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**piloteo luzean** (4); **piloteo luzeetan** (3)

**kantxa erdiko piloteoan** (4); **piloteoan agindu** (4); **piloteoan agintzen** (7)

**piloteoari eusten** (3)

# piloto ik pilotu.

# pilotu 1 iz itsasontzi bat, hegazkin bat edo lasterketa-auto edo -motozikleta bat gidatzen duen pertsona.

Hegazkineko **pilotuak** kabinako argiak piztu zituen eta gerrikoa lotzeko agindua eman. Javi Cillero

Behinola ibai aldean lurreratzen ikusi genuen aireplano hori hartako **pilotu** hura izan ote zitekeen orain han goian gure aireplanoan zegoena. Mirentxu Larrañaga

Nik ere Alemaniako zeruak edertu nahi nituen, **pilotu** izango nintzen. Anjel Lertxundi

Bigarren Mundu Gerrako **pilotuak** aipatu dizkizuet hasieran. Pako Aristi

Del Río, Sobiet Batasunean entrenatutako **pilotu** gazte errepublikanoak, aderez beterik, alemaniarren hegazkinak nola botatzen zituen. Rafa Egiguren

Helikopteroko **pilotuak** eta beste langileak salbatu zituzten, flotagailuak jantzita zeramatzatelako. Berría - Gaiak

Mike Melvill *SpaceShipOne*-ko **pilotua** izan zen atmosfera zeharkatu ahal izan zuen lehen zibila. Berría - Gaiak

Zizurkilen jaioa, itsasoko **pilotua** zen lanbidez. Rafa Egiguren

Donibane Lohitzuneko beste **pilotu** batez ere mintzatu zitzaidan, beste nehorik ez bezala ezagutzen baitzuen honek San Laurendiko ibai ahoa. Aurelia Arkotxa

Anaia nagusi biak, ontziburuak esan legez gabizain ziharduten arren, nor **pilotu** eta nor aitaren ordeko ontziburu izateko lehian sartuak ziren. Edorta Jimenez

Richard Saint **pilotua** zendu da, Faraoin Rallyan erorita. Berria - Kirola

Manuel Poggiali **pilotua** 125 cc-ko kategoriara itzuliko da Gilerarekin. Berria - Kirola

Auto-lasterketako **pilotuaren** itxura ematen zion, leku beretik edeki zituen eskuzorrot beltzek areagotua. Aingeru Epaltza

Halako batean, jenioen txinparta piztu zitzaidan buruan, azeleratzeko pedala zanpatu nuen hondoraino, 1 formulako **pilotuen** antzera, eta, ez bat eta ez bi, eskua jarri nion zakilaren gainean. Karlos Zabala

Neure laguna "eliteko **pilotua**" dela esanez hasi naizelako. Joxerra Garzia

Izan, bada gaur egun eliteko **pilotu** emakumezkorrik. Joxerra Garzia

Sinetsita nago hamaika **pilotu** pasatuko direla lehen postutik lasterketan zehar. Berria - Kirola

## 2 (izenondoekin)

Ohartu zen gogoz kontra jarri zuela martxan motorra, eta eskuek sekulako nagusitasuna erakutsi ziotela segituan, **pilotu** profesional baten adinakoa. Karlos Linazasoro

Abdelghani Mzoudi Al Kaeda erakundeko hainbat kideren laguna zen, besteak beste, Mohammed Atta **pilotu** suizidaren laguna. Berria - Mundua

**Pilotu** gazteek 1 Formulara ailegatzeko lorbidetzat hartzen dituzte Munduko Serieak. Berria - Harian

Mike Melvill 62 urteko **pilotu** estatubatuarrek gidatu zuen ontzia; aurreko saio batean ere bera izan zen pilotua. Berria - Gaiak

**Pilotu** iaioa eta bikain trebatua izan arren, haur bat jolasean bezalakoxea da Bennett. Xabier Olarra

Bere problema ebazteko, arabiarrek sortutako aljebrara jo behar izan zuen, Tartagliaren bitartez, **pilotu** kristauak! Jon Muñoz

Beste aitona, berriz, hegazkinentzako **pilotu** automatikoa asmatu omen zuen. Xabier Olarra

**Pilotu** automatikoa kanpoko seinalez bazkatzen da, eta labirintoak eta garunak eskaintzen duten kontrol-sistemak, berriz, barruan dauka behar duen guztia. Irene Aldasoro

## 3 (predikatu gisa)

1930ekoetan polo txapeldun ospetsua izan zen, eta bere hegazkin konpainiaren jabea (Patxi Ibarluzea **pilotu** ibili zen han). Edorta Jimenez

Iraultzaileek Ciudad Trujillo airez bonbardatzeko plana egina zuten, ustezko plan horien arabera hegazkinetan **pilotu**, amerikar eta kanadar beteranoak zirelarik izatekoak. Edorta Jimenez

Ideia nork eman dion eta, *Pilar* ontzian **pilotu** izaten duen Carlosek eman dio. Edorta Jimenez

Bigarren Mundu Gerran **pilotua** izan nintzeneko egun gogor haietan. Aritz Gorrotxategi

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pilotu** gradura kasik igoa ninduen-eta. Edorta Jimenez

Bigarren semea [...] halaxe egona zen, berari **pilotu** zeregina eman izana gero ontziburu kargua emateko pausotzat harturik. Edorta Jimenez

Txopako gazteluan **pilotu** txanda egiteko agindua hartu nuen. Edorta Jimenez

-Sortalderantz egin behar diagu -esan zidan ene **pilotu** lagunak. Edorta Jimenez

Eskaera onartezintzat jo dute **pilotu** sindikatu askok, baina konpainia gehienek amore eman dute. Berria - Mundua

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hegazkinaren kabina-gaina galdu zuen gerra-**pilotu** batek bi orduz jarraitu zuen hegazkina pilotatzen 400 k/h-ko abiaduran -34 °C-ko tenperaturan. Irene Aldasoro

39 urterekin, eta bizkarra eskastua zuela, ezgauza deklaratu zuten hegazkin **pilotu** izateko. Josu Zabaleta

Horretaz jarduteko, ordea, hegazkin-**pilotu** izateko ahalegina kontatu behar dut lehendabizi. Anjel Lertxundi

Itsasontzi **pilotuak** nahasten eta okerreko bidera bidaltzen dituen laino sarría bezala. Felipe Juaristi

Gerrako hegazkin **pilotu** balitz, hegazkineko paperak utziko lizkidake. Josu Zabaleta

- Aurretik Oklahoman hegazkin **pilotu** eskolan aritu zen. Berria - Harian

## 6 (izenlagun gisa)

Bere lagun **pilotuekin** berriketan hasten da Bennett, eta Branfordera itultzeko hegaldi-plana aurkezten du. Xabier Olarra

Etorkinei hizkuntza ikasteko aukera emateko sei egitasmo **pilotu**. Berria - Mundua

Etxe **pilotu** honen xede nagusia pertsonari gero eta autonomia handiagoz bizitzeko tresnak eskaintzea da. Berria - Euskal Herria

Ondorioztatu duenez, elebitasuna esperientzia **pilotu** hori duten unitateetan soilik erabiltzen da. Berria - Euskal Herria

Joera horri aurre egin nahian programa **pilotu** bat aurkeztu zuten atzo Donostian: etxean zer ikusi, hura ikasi, zeuk duzu giltza. Berria - Euskal Herria

Amaitutako txartela berriro kargatzeko hamahiru leku atondu dituzte aipatutako banketxeetako bulegoetan eta Metroko lau geltoki horietan, proba **pilotuak** irauin bitartean. Berria - Euskal Herria

## 7 kapitain pilotu ik kapitain 11.

## 8 pilotu kide ik pilotukide.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gerrako pilotu** (9); **hegazkin pilotu** (8); **pilotu automatikoa** (3); **pilotu gai** (3); **pilotu gisa** (4); **pilotu izan** (5); **pilotu izateko** (3)

**eliteko pilotua** (3); **hegazkin pilotua** (3); **pilotua izan** (4); **programa pilotua** (5)

**ene lagun pilotuak** (3)

**piloturik gabeko hegazkin** (3)

## pilotugai *(corpusean pilotu-gai soilik) iz pilotu izateko prestatzen ari dena.*

Pilotu ofizialik gabe etorri zela esan zion, hura gaixotu egin baitzen ontzia abiatzeko zorian zelarik, baina haren ordeko **pilotu-gai** bi bazituela ontzian. Edorta Jimenez

Ni, egiatan, masta nagusia baino zurrunago lotu nintzen; **pilotu-gai** izatearen kontu hura benetan zioen, ala zer. Edorta Jimenez

## pilotukide *(orobat pilotu kide) iz pilotu talde bereko pilotu dena.*

Taldeko **pilotukiderik** bulartsuenetakoa zen. Josu Zabaleta

-Hernando! -aldarri egin zidan Mattin **pilotu kideak**. Edorta Jimenez

Hain gose ze, ene **pilotu kide** Mattinek aurreko gauean utzia zidan afaria hartu eta hantxe irentsiko nukeen. Edorta Jimenez

## pilotxo 1 iz pilo txikia. ik pilatxo.

**Pilotxotik** bat hartu, fite-fite gainbegiratu, eta aldamenean laga. Txillardegi

Zuriak erreala osatu arte batuz lehenik [...] eta errealak beste **pilotxo** banatan batuz, dukatak osatu arte. Edorta Jimenez

Emaztea gelditu zen diru guztiarekin eta Estatuak, gainera, beste **pilotxo** bat eman zion, gizona erasoetan hila zelako. Gotzon Garate

## 2 (hitz elkartuetan)

## pilpil ik pil-pil.

### **pilpilka** (*orobat pil-pilka*) 1 *adlag* borborka. ik pil-pil.

Eguerdirako lapikoek **pil-pilka** irakiten zuten. Joxemari Urteaga

### 2 bihotzaz mintzatuz, pilpiran. ik pil-pil 4.

Jada lehenago gurutzatuak ginen sarritan antzokietan, kontzertuetan, Prater aldean, kalean... eta aldi bakoitzean **pilpilka** jartzen zitzaidan bihotza. Eduardo Matauko

Larrañagaren bihotza **pilpilka** zegoen. Gotzon Garate

Ivan Ogareffek bihotza **pilpilka** egin zuen berba. Karlos Zabala

Afrikaldean amuleto asko propio lizar zurez egiten dira, ahalmen bereziak dituen arbola sakratua delakotz, batez ere gizonen bihotza **pil-pilka** paratzeko amuletoak.

Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bihotza pilpilka** (4)

### **pilpiltsu** *izond* pil-pil dagoena.

Handik, unibertsoaren mugagabetasun **pilpiltsua** begietsi zuen; harri guztiak, landare guztiak, zuhaitz guztiak, animalia guztiak, gizon guztiak, beren koloreekin, beren grinekin, [...]. Juan Garzia

### **pilpira** 1 *iz* bihotzaren eta zainen aldizkako uzurtze eta hanpatze higidura. *iktaupada*.

Berehala bere bihotza entzuten du **pilpira** gorabeheratsutan taupa-taupa joka. Juan Garzia

Itolarrian, bihotza **pilpira** bizian, izu laborrian, ur hartatik nola irten asmatu ezinik. Joxan Elozegi

### 2 irud/hed

Nolanahi ere, tren honi -bere bularraldeko bagoi oparoak **pilpira** adierazkor batek dantzarazi zituen- pasatzera utzi diok eta ez egon esperoan, ez baita itzuliko. Aingeru Epaltza

Askotan oraindik gau iluna zela ateratzen zen etxetik, eta iluntzeko artizarra **pilpiraka** eta perla bat bezala urtzen ikusten zuen, distiraz betetako egunsentiaren labean.

Josu Zabaleta

Eguneroko bizimoduaren **pilpira** igarri daiteke zuengandik oso metro gutxira. Rafa Egiguren

Irribarrea ezabatu zaio Fermini; haserrearen **pilpira** haren aurpegia iluntzen. Pako Aristi

Atxikimendu guztien eta giza harreman guztien azpian, erotismoaren **pilpira** zegok. Xabier Olarra

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bihotz **pilpirak** bizkorturik, hasperen egin zuen. Patxi Zubizarreta

Luzaroan gorde nian neure hatzetan haren begi lokartuen eta haren bihotz **pilpiraren** inpresioa. Juan Garzia

Gaztaro menturazalea, unibertsiteateko txantxak eta disziplina, aurreneko bihotz **pilpirak** emakume baten aurrean. Felipe Juaristi

Errejistro-zerrendan emaitzak lerroka luzatu ahala, lan errepikakorren neke-asperdura poz-**pilpira** bilakatu zihohan. Juan Garzia

Distira oro ez da urre **pilpira**. Pako Aristi

### 4 *pilpiran adlag* taupadaka. ik pilpiraka.

**Pilpiran** sentitzen nuen bularra, kontratua sinatua izatetik horren hurbil egoteak zuen horren kulpa handia, dudarik gabe. Joxan Elozegi

Ihiztaria, bihotza **pilpiran**, bere etxola edo gordelekuan zeruari so, noiz jinen zaion gainerat urtxo tropa urdina. Herria

Hala bada, bihotza **pilpiran**, irribarretsua erantzun zion: [...]. Patxi Zubizarreta

### 5 *pilpiraz adlag* pilpiran.

**Pilpiraz** zeuden denon bihotzak Leo Dillonek papera luzatu zionean, eta errugabe-aurpegia jarri genuen denok. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bihotz pilpira** (3)

**bihotz pilpirak** (6)

### **pilpiragarri** *izond* pilpira eragiten duan.

Umore eta abentura ukitu batez hornitzen zituen bere kontaerak, eta izugarriak baino **pilpiragarriagoak** zitzaizkidan orduan. Joxan Elozegi

### **pilpiraka** 1 *adlag* taupadaka. ik pilpira 4.

Bat-batean, **pilpiraka** hasi zitzaion bihotza: hutsegite bat zegoen! Jon Muñoz

Berlegeita hamar urtekoetan ere bihotza **pilpiraka** ibiltzen baita. Patxi Zubizarreta

Bihotza **pilpiraka** zuen, bizi-bizi; tripa zorriak zituen gosearen gosez. Fernando Rey

Nik beti bihotza algaraka eta **pilpiraka** bularretik atera beharrean. Fernando Rey

Bihotza bozkarioak **pilpiraka** zebilkion, zentzu guztiak erne zituen eta odola borborka zebilkion zainetan barrena. Patxi Zubizarreta

Bero-bero nengoen, potxotxa **pilpiraka** eta sutan neukan. Juan Martin Elexpuru

Orduan sentitu nituen nola korritzen ziren hirurak, nola betetzen zidaten guztia beren haziz, nola ari ziren **pilpiraka** beren zakilak, nola zurruntzen ziren beren gorputzak.

Juan Martin Elexpuru

### 2 irud/hed

Tonuan nabari du lehenbiziko aldiz orduan egin duela berlegeita bat urtean bere ariman **pilpiraka** eduki duen galdera. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bihotza pilpiraka** (10); **pilpiraka hasi** (3)



## **pilpiraño** iz pilpira txikia.

Bainan, nahita ez, beti, badakizu, edozein antzerkitan bezala edo mintzaldietan bezala halako **pilpiraño** bat badut, dudarik gabe...

**Menane Oxandabartz**

## **pilpiratsu** *izond* pilpiraz betea.

Pitzia arraren izaera dela-eta, horrelako irudiek nekez huts egiten dute zakil-zutitze gogor eta **pilpiratsuak** eragiteko orduan. Bizitza **pilpiratsuaren** ezpondetan zen ene lekua; egia hori garrantz agertu zitzaidan, ximixta moldean, joaldunak urrunean entzun nituelarik dolon-dolon etengabean. **Oskar Arana**

Karolen eta Sophieren haragia dardarazi zuen alabak bere joaldian, haragia are haragiago bihurtuz: biziago eta erneago. **pilpiratsuago** eta gorriago. **Felipe Juaristi**

## **pilpiratu**, pilpira(tu), pilpiratzen **1** da *ad* bihotzaz mintzatuz, aldizkako higiduraz uzurtu eta hanpatu.

Argi barreiatu bat; bihotzaren lekuan dagoen argi bat, gar kliskari antzera **pilpiratzen** den bihotz txiki baten forma duena. **Juan Garzia**

Zenbat oroitzapen etorri zitzaizkion gogora!, nolako indarrez **pilpiratu** zitzaion bihotza aitaren herrixkatik hurbil zegoela sumatu zuenean! **Jose Morales**

Vernerrek besaburuak altxatu zituen berriro, eta bere pultsua hartu zuen: bihotza lasterrago **pilpiratzen** zen, baina sendo eta betiberdin, soinu-indar berezi batekin. **Jose Morales**

Gazteen bihotzak beste edozein lurraldetan baino sutuago, Hegoaldeko zeru zoragarriaren azpian baino adoretuago **pilpiratzen** dira hor. **Jose Morales**

### 2 irud/hed

Ezpain handiak zimel erortzen zitzaizkion eta txikiak, berriz, gorri, distiratsu, zilindroaren inguruan **pilpiratzen** ziren, zauri ireki baten ertzak balira bezala. **Ramon Saizarbitoria**

Erdi-ikuste horretan, Edurneren titi beteak [...] nire bihotzarekin batean **pilpiratzen** zirela imajinatzen ahal nuen, tanga motako kulero tikien gainean jantzirik zeraman kamiseta laburraz bertaldera. **Aingeru Epaltza**

Bidegurutze batean, argizko seinale bat artean **pilpiratzen** ari zen arreta eskatuz. **Lopez de Arana**

### 3 (du aditz gisa)

Baldwini bihotzak tarrapataka **pilpiratzen** zion. **Lopez de Arana**

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Alkandoraren kontra sentitzen zuen neskaren bular **pilpiratua**. **Irene Aldasoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**pilpiratzen zen** (3)

## **piltzar** **1** *iz* janzki zati edo zatar hondatua. ik **pilda**.

Hartzazu edozein traste zahar, edozein zabor, **piltzar** bat esaterako, eta **piltzar** horrek ere badu bere balioa: gutxienez, paper-fabrian erosiko dizute. **Jose Morales**

Alaba **piltzar** zikinez jantzita ikusi zuelarik, sor eta lor eginik geratu zen. **Karlos Zabala**

Big Lanniek azaldu behar izan zion soin gaineko **piltzar** haiek saretuegiak zituela inolako babesik emateko. **Mirentxu Larrañaga**

Gerra ondoren, garaituen arma eta trepetak, arropa eta **piltzarrak** merke erosi eta lurraldeko azoka ugarietan garesti salduz. **Felipe Juaristi**

Neure aurrean ikusi nuen, **piltzarrez** jantzita, aurpegia erabat zargaldua zuela. **Josu Zabaleta**

Emakumeak, **piltzarrez** estaliak, hezur eta azal, gaixorik, elbarriturik, beren bizitza non duten ez dakitela. **Josu Zabaleta**

Arrantzontziak **piltzarrez** eginiko trianguluko bela ttipi goiti paratuekin, ateka hauetan haize hartzeko. **Koldo Izagirre**

Izbetako leihoek ez zuten kristalik, haietako batzuk **piltzarrez** edo nekazarien oihal latzezko beroki lodiez estalirik zeuden. **Jose Morales**

Kuxin zaharra **piltzarretan** desegin zen, kirurgia estetikoak birrindutako azal zahar bat balitz bezala. **Jon Muñoz**

### 2 irud/hed

Nik, zure tokian, haien **piltzarrak** botako nizkieke muturrera, eta kontuak egingo nituzke. **Karlos Zabala**

Plazako bazterretan, haizeak harroturik, sanjoan suko **piltzar** errausturen bat, garbitzaileen erratzei temoso ihes egindakoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Beharbada ez da uda, baizik eta bere haurtzaroaren azken **piltzar** iheskorrak, hatz-mamiak luzatuta heldu nahi lukeena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nekatuta nengoela neure bizitza apurka-apurka gastatzeaz ia ezinezkotzat jotzen nuen iraultza baten peskizan eta jadanik galdutat neukan amodio baten **piltzarrei** eutsi guran. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken **piltzar** zatiak, zikinzeria. **Urtzi Urrutikoetxea**

Enkante eta **piltzar**-dendetako saltzaileek esku artean dituzten liburuetako autoreez ohi dutena baino informazio gehiago zeukan Velasco sendagileari buruz. **Anjel Lertxundi**

Agian **piltzar**-biltzaile zaharra eta Georg Weiner elkar hartuta daudela. **Anton Garikano**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire arropa **piltzarrak** galeria sarreran laga, eta patiora bidali ninduten. Haragi-**piltzarrak** loreontziak ongarrizko erabiltzen zituen,. **Jokin Urain**

Han lizun eta zarpa bihurtzen zen dena, eta, azkenean, Pliushkin bera giza **piltzar** huts bilakatu zen. **Jose Morales**

Gatibu-**piltzar** zikinak lepo konkoretik dilindan. **Urtzi Urrutikoetxea**

### 5 (izenondo gisa)

Mikel Epalza apezak erraiten zaukun munduko petrola negozioaren % 60 nunbait han holako barku tzar eta **piltzar** batzuekin egina dela. **Herria**

### 6 **piltzar** egin

Orain aurrean neukan, hauskortasuna agerian zuela, **piltzar** egina. **Juan Kruz Igerabide**

### 7 **piltzar**-**piltzar** egin

Zemstvoko polizia bide-bazterrean aurkitu zuten, uniforme edo longaina **piltzar-piltzar** eginik eta aurpegia zeharo itxuragabeturik. **Jose Morales**

## **piltzardun** *izond* piltzarrak dituena.

Barreiduri xantuz fraide **piltzarduna**, / lodia, bekatua den bezain lizuna. **Xabier Olarra**

## **piltzarkeria** *iz* alprojakeria. ik **trapukeria**.

Behar zen beraz hitzez eta ekintzez kontra egin **piltzarkeria** hari: merkatarien interesak zainduko zituen partiduari bere izena erantsi zion. **Pablo Sastre**

## piltzartu, piltzar(tu), piltzartzen 1 da/du ad piltzar bihurtu.

Haren arropa higatua zegoen, **piltzartua** kasik, eta bala zulo batzuk ageri zitzaizkion.

**Karlos Zabala**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Dohaikabe, denak batean, elgar nahasiak bandera **piltzartu** beraren ondotik guri gerla egiten.

**Michel Oronoz**

## pilula (orobat *pirula g.er.*) 1 iz farmazia-gai bat daukan bolatxo edo pastila txikia, irensten dena.

**Pilula** hartu eta ur pixka batekin irentsi nuen. **Jon Maia**

Ez zuen asmatzen **pilula** ahora eramaten. **Jon Alonso**

Asperdu dela mundu honetaz eta **pilula** bat emateko, behin betikoz lokarrazten dutenatarik. **Aingeru Epaltza**

Jakin nuen **pilulak** hartzen zituela odol-presio garairako. **Oskar Arana**

Munduak ez dauka ezer berarentzat, morfina tanto eta **pilula** horiek izan ezean. **Hasier Etxeberria**

HIESaren birusari aurre egiteko erabiltzen den botika, "hiru **pilulen** koktela" deitzen dioten hori, oso garestia da. **Joxerra Garzia**

Neurofin deituriko **pilula** batzuk hartu behar dituela. **Iban Zaldúa**

50 miligramako **pilula** bat eguneko. **Berria - Gaiak**

Guardek bazituzten 11.500 **pilula** sesituak Bariatuko mugazubian, "ecstasy" deitzen den drogatik. **Herria**

Autoan bost mila speed **pilula** zituen gizonetako bat atxilotu du Ertzaintzak Azkoitian. **Berria - Euskal Herria**

**Pilula** edo injekzioa. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (izenondoekin)

**Pilula** lasaigarriak hartzen ariko balitz bezala. **Oskar Arana**

LSD **pilula** haluzinagarri bat hartu izan balu bezala. **Juan Luis Zabala**

Hogei **pilula** flipagarri omen zeuzkan gameluño baten atxilotetari capo arriskutsu batenaren tratamendua eman behar izan nion. **Aingeru Epaltza**

Mastodonte bat akatzeko adina **pilula** lo-eragile. **Aingeru Epaltza**

**Pilula** antikonzeptiboa hartuz gero, hilekoak gutxiago irauten du. **Luis Elberdin**

Kasualitate al da gaur egun **pilula** antisorgailuak emakumezkoentzat bakarrik egotea? **Berria - Euskal Herria**

Esan nahi dudana da antsiolitikoen, lasaigarrien eta **pilula** antidepresioen dosia apurka-apurka jaitsi beharrean zegoela. **Joan Mari Irigoien**

Egingo dizkizut di-da batean gizenduko zaituzten **pilula** harrigarri batzuk. **Patxi Zubizarreta**

**Pilula** psikorekatzaila batzuk eman dizkidade lasai nadin, poztu nadin. **Anjel Lertxundi**

Emandako botika guztiak komun-zulotik behera bota nituen: **pilula** arrosak, zuriak, urdinak. **Eskarne Mujika**

## 3 (izenlagun edo kidekoekin)

Abortatzeko **pilula** etxean hartu ahal izatea erabaki du Frantziak. **Berria - Euskal Herria**

Emakumeentzako **pilula** askoz ere kopla gutxiagorekin plazaratu zuten. **Luis Elberdin**

Biharamuneko **pilula** arrisku egoera batean hartzeko pentsatuta dago. **Luis Elberdin**

Bat-batean lotarako **pilulen** eragina nabaritzen hasi zen. **Ibon Uribarri**

Bazekien lo egiteko **pilulak** besterik ez zirela. **Ibon Uribarri**

Haurdunaldia eteteko **pilularen** aldeko kanpainak sustatzen jarraitzen badu Elizatik botako duela mehatxu egin dio Hondurasko Apezpiku Batzarrek Osasun ministroari. **Berria - Gaiak**

Alferrik izan ziren azken orduko **pilulen** alde esan nizkion guztiak. **Hasier Etxeberria**

Mina kentzeko **pilulen** tutu bat, erreduretarako benden pakete bat eta burua bermatzeko aluminiozko tramankulu txiki bat eman dizkiote erietxean. **Oskar Arana**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ohe gainean utzi eta **pilula** potoa atera zuen handik. **Aingeru Epaltza**

**Pilula** -dosiarene gutxitzearekin batera, bizigogoa berreskuratzen da, **Joan Mari Irigoien**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskuak astiro eta zehaztasun handiz lehertu ondoren, estriknina- **pilulen** kutxa txiki bat atera zuen txalekoaren goialdeko poltsikotik. **Lopez de Arana**

Raimundo Silva benzendrina- **pilula** bat irentsi izan balu bezain erne baitago. **Jon Alonso**

Horretan ari zirela, Himmlerrek ahoan ezkutaturik zeraman pozoi **pilula** bat irentsi zuen. **Alberto Ladron Arana**

Bitamina **pilula** miragarriak aipatuko zizkion batek, aloe landarearen mirakulu sinesgaitzak goraiapatuko beste batek. **Imanol Zurutuza**

Biharamunera arte ez zuen hartuko kimioterapia **pilula**. **Imanol Zurutuza**

## 6 irud/hed

Elkargik urtero antolatzen duen enpresaburu topaketan hainbat **pilula** errezetatu dira. **Berria - Ekonomia**

Emozioz eta sentipenez beteriko **pilula** bat da **Berria - Kultura**

## 7 pilula antikonzeptiboa.

Halaber, urte hartan pastilla itxurako antisorgailua, "**pilula**" famatua, jarri zen salgai. **Pello Salaburu**

Emakumea bere independentzia ekonomiko, sozial eta afektiboa berreskuratzeko egiten ari den iraultzan **pilulak** eragin handia izan du. **Luis Elberdin**

**Pilulari** esker, emakumeak berak kontrolatu ahal izan du bere ugalkortasuna. **Luis Elberdin**

Uste nuen **pilula** hartzen zenuela. **Oskar Arana**

Bada pentsatzen duenik azterketa ginekologikoak **pilula** hartzen duten emakumeek edo DIUa jarrita dutenek bakarrik egin behar dituztela. **Luis Elberdin**

**Pilula** kontrazepzio metodo ona da, baina diziplina behar da egunero-egunero. **Luis Elberdin**

Hilekoaren lehen egunean hartzen da lehenengo **pilula**. **Luis Elberdin**

Berez, ez da haurdunaldirik gertatzen **pilula** behar bezala hartzen denean. **Luis Elberdin**

Horietaiko bat da **pilula** partxeen bidez hartzea. **Luis Elberdin**

## 8 pilula-adikzio (corpusean piluladikzio soilik)

Pertsonaiak, sugearen sagarrari haginika egin ostean, badoaz inkontzientziaren paradisutik egotzita haluzinaziora, borrokara, mozkorrera, bakardadera, **piluladikziora**, heriotzaren nagusitasun eta ezinbestekotasun itzela guztian eta funtsean sentitzera. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abortatzeko pilula (5); biharamuneko pilula (13); estasi pilula (7); estasi pilula atzeman (3); gizonentzako pilula (9); lotarako pilula (3); pilula atzeman (4); pilula bakarra hartu (3); pilula bat irentsi (3); pilula hartu (16); pilula hartu behar (8); pilula hartzea (4); pilula hartzeko (5); pilula hartzen (19)

biharamuneko pilulak (3); lo egiteko pilulak (9); lotarako pilulak (5); pilulak eman (3); pilulak hartu (11); pilulak hartzen (10)

gizonentzako pilularen (9); gizonentzako pilularen inguruan (3); gizonentzako pilularen inguruko (3); pilularen eragin (4)

lotarako pilulen (5); pilulen bidez (3); pilulen eragina (3)

**piluladikzio** ik **pilula** 8.

**pilulatxo** *iz adkor* pilula.

Bost axola Viagra **pilulatxoak** izanda ere. **Harkaitz Cano**

**pilulazale** *izond* pilularen zalea dena.

Giroz aldatzen ez badute, **pilulazale** bihurtzeko arriskua dago epe laburrera. **Berria - Euskal Herria**

**pin** ik **pun** 3.

**piña** *iz* anana.

Arantzelaren igoera jasango dute bitxiek, hozkailuek, paperak, patinek, urdaiazpikoek, eztiak, **piñak**, esne-hautsak edo zenbait arrokek ere. **Berria - Ekonomia**

**pinaburu** 1 *iz* pinuaren ordenako zuhaitzen fruitua, kono itxurakoa, haziak gordetzen dituzten ezkata gogorrez osatua.

**Pinaburu** bat erakutsi nion zuhaitzaren adar batean zintzilik. **Rafa Egiguren**

Mendixkak ezker eta eskuin, **pinaburuak** iduri dutela, beren ozkekin. **Piarres Aintziart**

Usain hordigarria zeriok hostaila hezeari, iratzeari, zuhaitz-azal puska goroldiotsuen tapiz bigun, labain eta uniformeari, eta orobat **pinaburu**, orbel eta pinu-orrazt deseginez betetako bidexka ihintz-tantaz blai denari, maiteminduen izerdiari ekinaldi grinatsuetan darion darion lurrina bezain hordigarria. **Xabier Olarra**

2 (hitz elkartuetan)

Hantxe ziren, fusilak eskuetan eta gerrikoan **pinaburu**-bonbak eskegita, erreketekak, karlistontzat altxor hain preziatua den hori defenditzeko prest. **Edorta Jimenez**

**pinadi** ik **pinudi**.

**pinadoi** ik **pinudi**.

**pinakoteka** *iz* margolan museoa.

Pinatatutako irudien galeriak (**pinakotekak**), *exedrak* bezala, dimentsio zabalekoak egin behar dira. **Santiago Iruretagoiena**

Pinura eta eskultura ikastera 4.000 ikasle joaten dira egunero Milango Brera akademiara 1776az geroztik, eta **pinakotekara**, lorategira eta liburutegira, 200.000 lagun. **Berria - Kultura**

2005. urterako finkaturiko bisitari muga erraz gainditu du museoak: espero baino 115.082 lagun gehiago bildu dira arte garaikidearen Bilboko **pinakotekak** antolatutako erakusketetara. **Berria - Kultura**

Bazegoen aurretik artista bilbotarraren beste margolan bat Bilboko **pinakotekan**, 1981ekoa. **Berria - Kultura**

Orotara, 81 artelan bildu ditu margoak, marrazkiak, argazkiak, bideoak, instalazioak eta eskulturak Bilboko **pinakotekak**. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bilboko pinakotekak** (3)

**bilboko pinakotekan** (3)

**pinakulo** ik **pinakulu**.

**pinakulu** (*orobat pinakulo g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian pinakulu agertzen da*) *iz* piramide edo kono formako elementua, arkitektura-lanak apaintzen dituena.

Elizen **pinakuluak** ikusten nituen, A letra larrien modukoak. **Fernando Rey**

Eliza bertan uztera nindoala, horra non ikusi ditudan, ezkerrera itzulita, Iruñeko katedral beneragarriaren harresi goi beltzak, leihaje flamigeroko ojbak, **pinakulu** delikatuak, horma-bular sendoak. **Koldo Izagirre**

Orduan, Frodok, Barad-dürko dorrrerik garaieneko **pinakulu** krudelak eta burdinazko koroa ikusi zituen, beltz, inguruko itzal erraldoiak baino beltzagoak eta itzaltsuagoak. **Agustín Otsoa**

Han-hemenka azaltzen zen gandu artetik [...] **pinakulo** bat, kupula bat; bistako gauzak, izenik gabeak. **Anton Garikano**

**Pinakulu** kalatu batek burutzen duen apezpikuaren tronua. **Koldo Izagirre**

**pinakuludun** *izond* pinakulua duena; pinakuluak dituena.

Katedral gotiko **pinakuludunean** sartu ginen, bata bestearekin konfesatzera. **Fernando Rey**

**pinal** *iz*

Barrari esker sortzen den eremu akuatikoa euskal arrantzaleek anitz estimatzen zuten bakailaoa ur garbian garbi zezaketelakotz eta partikulazki **pinalak** deitzen zituzten taulazko eraikuntzarik gabe, legar larriaren gainean ximpleki pausatuz, idorraz zezaketelakotz. **Aurelia Arkotxa**

**pinaza** *iz* antzinako ontzi mota.

Hamar ontzitzar baino ez, eta patatx bi, eta **pinaza** bi. Edorta Jimenez  
Han loturik, baziren **pinazaren** moldeko ontzi bi, gure maniobraren trabagarri. Edorta Jimenez  
Ez nuen uste **pinaza** ziztrín haien artean gure karraka sartzetik erdietsiko genuenik. Edorta Jimenez  
**-Pinazan** dozena bi gizon bazituan -esan zidan Antonek-, eta bi halako beste ontzian. Edorta Jimenez

## pinazi iz pinu-hazia, pinaburuan gordetzen dena.

Edontzi bakoitzean koilara bete **pinazi** bota ondoren, ea tea zerbitzatuko zuen galdetu zion Habibiri. Jon Muñoz

## pindar 1 iz txinparta.

Nabal baten ipurdiaz harri bat joz, **pindarrak** atera eta ardagaia piztu zuen. Pablo Sastre  
Erran gabe doa bigarren etxe horretan ere ohea prest zegoela aspaldian, supazter eder bat lagun, dena gar eta **pindar**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Istant bat izan zen, **pindar** ñimiño bat. Elena Touyarou  
Oilarrak jo berria zuen eta eguzkiaren lehen **pindarrak** ageri ziren ekialdean. Aingeru Epaltza

### 2 (hitz elkartuetan)

Su **pindar** bat ikusi nuen haren begiradan, eta une batez beldur izan nintzen ordotsak urrixari erasoko ote zion, basurdeak bere eskularru finak erantziko ote zituen. Xabier Mendiguren Elizegi  
Teresaren ariá hegalariek ez dute berarengan su **pindarrrik** ere pizten. Oskar Arana

### 3 irud/hed

Maitasuna ez dea bizitzaren **pindarra**? Herria  
Zorionaren **pindarrak** gutan argi dezala. Herria  
Botere kolonizatzailearen kontrako mugimendu zabal baten **pindarrak** piztu dituzte. Ramuntxo Etxeberri  
Horrexeri ekin dio hainbatek, darabilen hizkuntzari halako **pindar** moduko bat atereaz. Iñaki Arranz  
Gizon lerdén, bizi, deliberatua; dena zain, dena **pindar**; jantzi beltz sinple eta galanta duela. Piarres Aintziart  
Neskak aldiz eskuak paltoko saketetan zatzizkan gehienetan, begiak **pindar**, izpiritua laino. Itxaro Borda  
Haren ahots neutro, grinarik gabea barnea kiskaltzen zion **pindar** bortitza mozorrotzeko baizik ez zen. Aingeru Epaltza  
**Pindar** bat eta jarraipenik ez, historiarik ez: beti egon. Joxe Azurmendi

## pindarka adlag pindarrak jaurtikiz.

Sua... sua **pindarka**, bera etzanda zegoen ondoko sutean. Neska begiak **pindarka** egon zen entzuten. Joanes Urkixo  
Han zeuden Colette eta Ximun, begiak **pindarka**, atseginarean atseginez itxuraldatuak, ondoan zeukatela ohakoa, dena mihise lilikatu, farfaleria eta xingola. Daniel Landart  
Iputargiak **pindarka**, bazterrik bazter. Joxe Austin Arrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**begiak pindarka** (4)

## pindarketa iz pindarrak jaurtitzea. • irud/hed

23 eta ondotik Jauregiko Tontorrean Su **pindarketa** eta Eliza aintzinean dantzaldia, Xitoak taldearekin. Herria

## pindarraldi iz pindarrak dirauen aldia.

**Pindarraldi** bakarreko arrazak. Joxe Azurmendi

## pindartsu 1 izond pindarrez betea.

Ahantzi gabe Miarritzeko"gau miresgarria", suzko ziri **pindartsu** eta koloretsu batzuk nasaiki estaliz zeru guzia. Herria

### 2 irud/hed

Kirxak begirakune **pindartsua** josi zion: [...]. han ari baitziren teatrolari trebatu batzu, batean zintzo ta bipil ikasten, bestean berriz omore **pindartsuen** karkailan, eta irriz uzkaliak berak ere aldika. Patxi Zubizarreta  
Eden gozoa edan bailuen kratera bateko ardo **pindartsuan** nahasturik. Juan Garzia  
Hamidaren amodioak ez zekarren eskalabotzarik edo mendekotasunik, borroka **pindartsu** bat zen eta haren garrak kiskalgarriak ziren. Patxi Zubizarreta  
Esloganik txinpartatsuená, **pindartsuena** nori bururutzen, eta horixe erabili izan dugu, nori zer esatea komeni zen kontuan hartu gabe. Joxerra Garzia  
Hondarribiak inpresio **pindartsu** bat utzia zidan. Joxerra Garzia

## pindartu, pindar(tu), pindartzen du ad gaitzitu, muzindu, zapuztu.

Lagundu du segurki jendeak baina ez **pindartu**. Herria

## pindatu ik pintatu.

## pindro iz adkor oina.

**Pindroak** mugitu ditut, ariketak egiten bezala, besoak luzatu tira ahalean. Koldo Izagirre  
**Pindro** -hutsik zihoalako galdu zuan. Koldo Izagirre  
**Pindro** puntetan goratu nahi balu bezala. Koldo Izagirre  
**Pindroetaraino** eroritako morala keróra datorkik berriz. Koldo Izagirre

## pindrotako *iz adkor oinetakoa.*

Zulatu dituzte sabaia ebaki dituzte **pindrotako** zolak apurtu dituzte boligrafoak. ontzitxoak balira moduan ipini ditu nire **pindrotako** higatuak. **Koldo Izagirre**  
Baina nik ez ditiat **pindrotakook** behar, nik hauts magikoak behar ditiat, Iñaki. **Koldo Izagirre**

## pineal 1 *izond* guruinez mintzatuz, garun hemisferioen eta garuntxoaren artean dagoena, pinaburu baten eitea duena.

Uste baitu Izpiritua edo Pentsamendua garunaren parte jakin bati, hots, **pineala** deitu guruintxoari datxekiola bereziki. **Piarres Xarriton**  
Pentsatzen du oraino, gure biziaren hastapenetik Naturak lotu baldin badio ere gure pentsamendu berezi bakoitza guruintxo **pinealaren** mugimendu berezi bakoitzari. **Piarres Xarriton**

Nahi nuke ere jakin zenbat gradutako mugimendua emaiten ahal dion Izpirtuak guruintxo **pinealari** eta zer indarrekin atxik dezakeen hura dilindan. **Piarres Xarriton**

### 2 irud/hed

Filosofoa, beraz, atzeman ditzake bertan, bere begi **pinealaren** argitasunaz, kontzientzia profano baten itxura iheskor eta margulak, hantustearen lepo luzeaz eta ezjakintasunaren txirikorda kapeltiarraz erasana baita kontzientzia hori. **Xabier Olarra**

## ping-pong 1 *iz* tenisaren antzeko jokoa, mahai batean jokatzen dena. ik mahai 14a.

Sabeth **ping-pongean** ari zen. **Joxe Austin Arrieta**  
Margot bere adiskide Treesen etxera joana da, mutil batzuekin **ping-pongean** jolas egitera. **Josu Zabaleta**  
Arratsalde horretan **ping-pongean** eman zidan jipoiaren ondoren, zer espero nezakeen bada besterik? **Oskar Arana**  
Lehen egun hartako arratsean bertan, nik ilunabarra filmatu ondoren, aritu ginen **ping-pong** -ean, gure lehen eta azken partidari. **Joxe Austin Arrieta**  
Asmotan, hantxe zeuden, mahai berdearen gainean utziak, **ping-pongeko** bi paletak. **Joxe Austin Arrieta**

### 2 (hitz elkartuetan)

Poker jokalar maltzur eta **ping-pong** jokalar aparta. **Oskar Arana**  
Segur aski **ping-pong** jokoak urte eta erdi iraunen du. **Berria - Ekonomia**  
**Ping-pong** partida batera gonbidatu nuen. **Joxe Austin Arrieta**  
Larunbat aratsaldean, haurren arteko futbola (La Floride kirolzelaiari), **ping-pong** lehiaketa (Paul Bert gelan) eta gimnastika merkatu plazan. **Herria**  
**Ping-pong** mahai bat, harrera gelan. **Joxerra Garzia**  
Joan-etorrietan, sarri gelditu nintzen **ping-pong** mahaiaren inguruan. **Joxe Austin Arrieta**  
Bere **ping-pong** lagunarekin besotik helduta zihoala. **Joxe Austin Arrieta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ping pong partida** (4); **ping pongean** (8)

## pinganilo *iz entzungailu txiki ergonomikoa.*

«**Pinganilotik**» emango zioten arduradunek albistea. **Berria - Kirola**

## pinguino 1 *iz* itsas hegazti igeri-oinduna, arrainjalea, lumak zuriak eta beltzak dituena, itsaso izoztuetan bizi dena (*Spheniscus sp.*).

Ehiza talde bat ere antolatuko da, itsastxakurrak harrapatzeko, bestela **pinguinoak**. **Joseba Sarrionandia**  
Bere esanetan, **pinguinoak**, albatrosak eta antxetak izan dira espezierik kaltetuenak. **Berria - Gaiak**  
Denak hurbilduko zarete **pinguinoen** habietara. **Joseba Sarrionandia**  
Azelako ernegu, karraka eta deiadarrak **pinguino** amenak, **pinguino** jaunak hurrean serio eta arlote geratzen diren artean. **Joseba Sarrionandia**  
John Masefieldek **pinguino** bati mokoan daraman arraina kenduko dio. **Joseba Sarrionandia**  
Han bakar bakarrik doanari ere izena ipiniko diozu, **pinguino** bakartia. **Joseba Sarrionandia**  
**Pinguinoak** asko barneratzen dira kumeak egiteko koloniak ezartzeko, badakitelako txitak arrautzatik atera orduko izotz zati handia urtuta egongo dela. **Berria - Gaiak**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pinguino** haragiak ez zaitu aseko, garratza irudituko zaizu, traizioa bezala. **Joseba Sarrionandia**  
Eta gosaltzen zaudetela, **pinguino** arrautzen omeleta goxoa, enbarkazio bat helduko da Deception uhartetik. **Joseba Sarrionandia**  
'**Pinguino** habiak aztertu behar ditut,' esango du John Masefield idazleak. **Joseba Sarrionandia**  
Galapagoetan **pinguino** mota ezberdinak bizi dira. **Berria - Gaiak**

### 3 irud/hed

Gidaria adinertainekoa da, eta, mahuka hutsean badago ere, **pinguino** jantzia txukun-txukun eskegia du atzealdeko kakaon. **Patxi Iturritegi**  
**Pinguinoak** La Salleko fraideak ziren, halaxe deitzen genien beren janzkeragatik, sotana beltza eta babero zuria eramaten zutelako. **Bernardo Atxaga**

## pinguinokume *iz* pinguinoaren kumea.

**Pinguinokumeek** beren lumatxa leuna galdua izango dute horrezkero eta luma beltz azulkarak luzituko dituzte, nagusien trajea jaso gabe oraindik. **Joseba Sarrionandia**

## pinoi (*orobat piñoi g.er.*) 1 *iz* engranaje bateko gupil txiki horzduna.

Lasterketa luzeagoak zirenean bi **pinoiko** bizikletak erabiltzen zituzten, baina bizikletatik jaitzita aldatu behar izaten zuten **pinoia**, eskuz. **Xabier Etxabe**  
Kateak **pinoi** batetik bestera salto egin zion. **Berria - Kirola**  
Plater handia eta **pinoi** txikiak erabiliz aurkari guztiak lehertzeko gaitasuna dauka. **Berria - Kirola**  
Plater handia sartu, **pinoiak** behera jaitzi, eta amorru guztia pedal kolpeetan jarri nuen. **Lander Garro**  
Ikusgarriak ziren haren erasoak, bi **pinoi** jaitzi eta pedalei arin-arin nola eragiten zien. **Berria - Kirola**  
15 hortzeko **pinoiarekin** hasi naiz eta ez dut aldatu. **Berria - Kirola**  
25eko **pinoia** jartzea erabaki dugu guztiok. **Berria - Kirola**

### 2 *pinoi finkoko izlag* iritiz aldatzen ez duena.

Ni gainera, nahiko **pinoi** finkokoa naiz, orain dela 50 urte eta gaur egun ia berdin pentsatzen dut, ez naiz aldatu. **Berria - Kultura**

## pinoi *(orobat piñoi g.er.)* 1 *iz* engranaje bateko gupril txiki horzduna.

Lasterketa luzeagoak zirenean bi **pinoko** bizikletak erabiltzen zituzten, baina bizikletatik jaitsita aldatu behar izaten zuten **pinoa**, eskuz. Xabier Etxabe

Kateak **pinoi** batetik bestera salto egin zion. Berria - Kirola

Plater handia eta **pinoi** txikiak erabiliz aurkari guztiak lehertzeko gaitasuna dauka. Berria - Kirola

Plater handia sartu, **pinoiak** behera jaitsi, eta amorruguztia pedal kolpeetan jarri nuen. Lander Garro

Ikusgarriak ziren haren erasoak, bi **pinoi** jaitsi eta pedalei arin-arin nola eragiten zien. Berria - Kirola

15 hortzeko **pinoiarekin** hasi naiz eta ez dut aldatu. Berria - Kirola

25eko **pinoa** jartzea erabaki dugu guztiok. Berria - Kirola

## 2 *pinoi finkoko izlag* iritziz aldatzen ez duena.

Ni gainera, nahiko **pinoi** finkokoa naiz, orain dela 50 urte eta gaur egun ia berdin pentsatzen dut, ez naiz aldatu. Berria - Kultura

## pinoidun *iz* pinaziak dituena.

Gu ere haren auzo inguruetan pasatuz gero, sarri joaten gintzaizkion eta paperean Covadongako Ama Birjina zuten gozoki beltz **pinoidun** batzuk ematen zizkigun beti.

Jon Maia

## pinondo *iz* pinua.

**Pinondo** bat apainduko dute eta Herriko etxe aitzinean zutik ezarriko gaskoi mezatik landa. Herria

## pinpilinpausa ik pinpilinpaua.

## pinpilinpaua *(orobat pinpilinpausa; Euskaltzaindiaren Hiztegian pinpilinpaua agertzen da)* 1 *iz* tximeleta.

Sarreran palmondoak eta **pinpilinpausak** dituzten landaretxe handiak daude. Lourdes Oñederra

Haize farfaila xume goxo **pinpilinpauxen** hegada galarazi eta nahastera datorren lainezatu horri. Haien alboan Mantxuriako emakume eredu miragarriak zebiltzan, apain-  
apain orraztuak, lore artifizialak jarriaz, urrezko orratzekin josirik, eta **pinpilinpauxak** xamur tartekatuz ile beltzen artean. Pello Zabala

Batzuk eta besteak bisitatu, **pinpilinpaua** herratua zelaietako loreetan bezala ibili zen Lázló. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 2 (hitz elkartuetan)

Betileekin **pinpilinpaua** muxuak ematen dizkiot besapeak sortutako tolesturan, ordu laurden lehenago maitatzen utzi naizen fede berarekin. Eider Rodriguez

## 3 (beste izen baten eskuinean)

Panpinatxo **pinpilinpaua**? Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**okinaren emazte pinpilipaua** (3)

**okinaren emazte pinpilipauxak** (3)

## pinpin *iz* neguta.

**Pinpina**, berriz, solista destakatu nahi du, baina gizajoak txilio gehiago egiten du kantu atsegina baino. Pello Zabala

## pinpinatu, pinpina, pinpinatzen da *ad* kimatu.

Hosto berdeak dauzka, eta hostoaren sabeletik, esku bat osatuz bezala behatz ttipien itxura harturik **pinpinatu** diren lore horixkak zuritzen doaz. Pako Aristi

## pinpinela *iz Pimpinella* generoko zenbait belar landareen izena.

Leizeen gainean botanika bitxi eta abantzu ezezagun bat hazi da, Baionako astragaloa, krabelin frantsesa, itsasoko lihoa, **pinpinela** hostoko arrosa, ez kai hostoko huntza.

Koldo Izagirre

## pinpirin *(orobat pinpirin g.er.)* 1 *izond* liraina, zalua, txairoa. ik **poxpolin; pertxenta.** (emakumeez)

OL ez zen saltoki handi bat, eta bera ez zen azpiko jantzien saileko neska saltzaile **pinpirin** bat. Jon Muñoz

Are gutiago, neska **pinpirin** bati liluramenduaren atalburua zeharkarazi nahi diozunean. Aingeru Epaltza

Etxe oneko neska **pinpirin** bat da hau, gaxtea. Xabier Mendiguren Elizegi

Dantzan artajorran baino hobeki zekien neska **pinpirin** hark. Anjel Lertxundi

Zer jaramon egingo zion ba andereño **pinpirin** eder hark mutilzahar koitadu honi? Xabier Mendiguren Elizegi

Lehendabizi andergai pobre bat eduki behar da, andereño **pinpirin** bat, gu bezalakoa, entretenigarri, eta gero diru pixka bat duen emakume bat bilatzen da ezkontzeko.

Josu Zabaleta

Halako batean Leandro eta izenik ezagutzen ez diodan emakume **pinpirin** bat irten dira jantokiaren erdira. Anjel Lertxundi

Emakume dotore, **pinpirin**, xarmant, maitagarri, begirunea zioten gizonez inguratu bat. Josu Zabaleta

Aurrean sei zaldun eta atzean beste sei zetozen; erdian dama **pinpirin** bat, morroi bik eusten zioten dandar luzea jantzita. Julen Gabiria

-Maiteminduta dago, seko maiteminduta -esan zuen Margaritak, alkatearen izeba **pinpirinak**, ahots dardaratiz. Felipe Juaristi

Hiru birra... eta ebakia **pinpirinarentzat**! Unai Iturriaga

## 2 (bestelakoez)

Baroia [...] nahastu samarturik zebilen bi mutiko **pinpirinei** dibertsio modua eskaintzeko ahaleginetan. Xabier Olarra

Galai **pinpirin** bat, lepo luze batez erasana eta, ororen harrigarri, onddo-kapelaren inguruan lokarritxo bat zuena. Xabier Olarra

Halako gerra baten ondorioz du gaur egun Poloniak komunista izaniko presidente **pinpirin** bat. Markos Zapiain

Bere ibilera **pinpirin**, soineko apain eta pausaera xaloagatik. Patziku Perurena

-Gustatzen? -keinu **pinpirin** batez zangoa dantzatu zuen, bi eskuekin gona belaunetaraino biltzen zuela-. Aingeru Epaltza



Bere izena oihukatzen zuen ahots **pinpirin** bat heldu zen jangelatik. Joxemari Urteaga  
Urrezko erloju kate txerlotu bat, erdian katenbegi handiak zituen, eta anitz zintzilikario **pinpirinez** hornitua. Matias Múgica  
Jende pila bat hemen horrelaxe ibili baita denbora askoan, exker **pinpirin**, kristautasun progre baten eta estetizismo amoralaren artean dilindan. Joxe Azurmendi  
Oso **pinpirin** eta urrindu ibiltzen baitzen beti. Josu Zabaleta

### 3 (era peioratiboan erabilia)

Gizon bitxi eta txiki kuia-burudun bat zela iritzi nion, **pinpirin** bat, eskuetan eta hatzetan batere ilerik gabea. Oskar Arana  
Izen batzuk ezin sinetsizkotzat jotzen nituen beren **pinpirinean**, eta horietako bat Urederra. Iñaki Segurola  
Bejondiola, alfer alferrik baita, modernokeria **pinpirin** orok muinak jantxeak dauzkan jendaje honekin tajuzko arrazoiketean hastea. Patziku Perurena  
Besteak esan zion goseak akabatutako ume **pinpirin** batzuk baizik ez zirela bera eta bere familia, eta, eskerrak auzoko beste emakume batzuk tartean sartu ziren, bestela ileetatik tiraka hasiko ziren. Josu Zabaleta

### 4 (izen baten ezkerrean)

**Pinpirin** airea hartzen zuen Madameren hitz bakoitza bere zirkinez laguntzean. Joxemari Urteaga  
-Nahikoa denbora galdu dugu! -esan zuen, bere **pinpirin** itxuraren guztiz kontrako ahots petral batez, eta egunonik ere eman gabe-. Anjel Lertxundi

### 5 tximeleta.

**Pinpirinak** bai, nonahi eta noranahi airatzen direnak, askatasunaren sinbolo, arintasunaren ikur, hisialdi batak edo besteak han edo hemen pausatzen dituela. Piarres Aintziart  
Gorago xoria aipazen nuen orai **pinpirina** aipatuko dut. Herria

### 6 *pinpirin-pinpirin* (adizlagun gisa)

Neska **pinpirin-pinpirin** jartzen zen, puntuzko arropen eta eskularren handizkako denden aurretik pasatzean. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

- neska pinpirin** (7)
- alkatearen izeba pinpirina** (4)
- emakume pinpirinak** (3)

## pinpirindu, pinpirin(du), pinpirintzen da/du *ad* pinpirin jarri.

Jonathan nekezago **pinpirindu** zen. Jon Muñoz  
Arreba Ernestinak anaia nagusia janzen amaitu du, **pinpirindu**, eta zirrikuzko eskularruak jarri dizkio. Itziar Otegi  
Lehen aldameanean lo zeuzkan tuntun guziak harrotu eta **pinpirindu** egin zaizkio mila koloretako soineko aipanez jantzirik, gure hurritz andere xuhurrari, Patziku Perurena

## pinpirinka *adlag* pinpirina gisa hegaldatzen.

Gogoeta **pinpirinka** zerabilkion, arin eta astun aldizka Itxaro Borda

## pinpirinkeria *iz* egite pinpirin gaitzesgarria.

Horrela, bada, lotsa bertute bat izan beharrean, hondamenaren lehen emaitzariko bat izan da, emakumeen **pinpirinkeria**ren lehen baliabidetariko bat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Arianeke lotsarik eta **pinpirinkeriarik** gabe jarraitu zuen klasea, arbelean galdera nagusia idatzita: [...]. Joseba Sarrionandia  
Sanchezen alabak moja joan nahi zuen; idazkariarenak **pinpirinkeria** bat zinez pozoigarria zuen; pianoa jotzen zuen, oso gaizki, *Blanco y Negro*tik laminatxoak kalkatzen zituen eta gero pintatu egiten zituen, eta ideia barregarriak eta faltsuak zituen gauza guztiez. Josu Zabaleta

## pinpirintasun *iz* pinpirina izateko nolakotasuna.

Renée itsusi samarra da, txikia, ez oso tankera finekoa, eta **pinpirintasun** gutxikoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
**Pinpirintasunaren** eta amodioaren artean, plazerraren eta zorionaren artean ezarria, zer hautatuko duzu? Jon Muñoz  
Gogobetekoa dut ikustea nola egiazko **pinpirintasuna** bertute latza baino hobeki defendatzen den. Jon Muñoz

## pinpirintsu *izond adkor* pinpirina.

Baina, anaia maite, ez niri, zenbait artzain moldakaitzek ohi duenez, zerurako bide malkor arantzatsua erakutsi, bitartean berak, libertino putz axolagabe antzo, atseginarene zidor **pinpirintsua** ibiltzen duela, jaramonik egiteke bere aholkuari. Juan Garzia

## pinpirrin ik pinpirin.

## pinpirindu, pipirrin(du), pinpirrintzen da/du *ad* moxkortu, txolindu.

Ni, beriz, **pinpirrintzen** hasia baizik ez nintzen, pixkortzen, alegia. Aingeru Epaltza  
Begirada finkatzeko eginahala zuen **pinpirindua** zegoen seinale. Aingeru Epaltza

## pinporta (*orobat piporta g.er.*) 1 *iz* pikorra.

**Pinporta** moduko bat atera zitzaiolako betileen azpian, biribil-biribila eta gotorra. Unai Elorriaga  
Azala **pinportaz** bete zaizu. Lourdes Oñederra  
Belaunetik orkatilaraino, **pinporta** gorrixkak. Alberto Barandianen  
Beltza da armadura eta urre gorritzko **pinportak** ditu. Felipe Juaristi  
Zirrikiturik lehorrena ere esmaltezko putzu bihurtu nahi dut, gorriz tindatuko den kristal-uraz eginiko **pinporta** likina. Jasone Osoro  
**Pinporta** gogorak neuzkan ore hartan. gerrikoan eskegita daraman urre-koloreko zirtzileriak ondo ematen die belarritakoetako urre-koloreko **pinportei**. Bernardo Atxaga

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hondar **pinporta** . Jasone Osoro

Bakarra, apartekoa, nahi duzun guztia, baina nola esan ezetz haizeak dakartzan urre **pinportei** . Hasier Etxeberria

Begiak ere txikiak ziren, oso urruti begiratzera ohitua ez dagoenarenak, eta beltzak, errauts **pinportak** ia. Felipe Juaristi

Gaineratzen zutenez, mihian hauts-**pinportarik** gabe, ez zituztela okeletarako hil, Bonapartiusekin Errusiako gudu-galtze hartan ibiliak zirelako. Felipe Juaristi

Fuela dago Meñakozko hondartzako zenbait haizetan eta fuel **pinportak** daude Lagako hondarretan. Berria - Euskal Herria

Eguzkia pertsianen artean irratiz hasia zen, zulo txikietatik bezala, azenarioak arrailtzeko tresna baten zulo biribiletatik irazten diren argi **pinporten** eran. Harkaitz Cano

## 3 irud/hed

Ahogoza eginda makurtu nintzen erpin irrikietuen bila, burutik helduta lagundu zidan berak, eta gero mizkin jolastu zuen mihiak harria bezain gogorrek baina zeta bezain leunak ziren **pinportekin** , elkar zeharo erantzten genuen bitartean. Migel Angel Mintegi

## 4 kimua, begia.

Sahatsa dagoeneko lore-**pinportak** aspaldi lehertuta gure paraje hauetan: Iparraldeko zelten lurralde hotzagoetan, aldiz, loreño xuri, begi-botoi haziak noiz eztanda egingo. Pello Zabala

## pinportadun *izond* pinportak dituena.

Lepo **pinportaduna** , hori bai, oilo lumatuarena bezalakoxea. Joxe Austin Arrieta

## pinportatxo *iz adkor* pinporta.

Kamiseta txuri higatua itsasten zaio eta bularren parean bi **pinportatxo** ageri dira harro. Alberto Barandiaren

## pinportu, pinpor(tu), pinportzen du *ad* pinportak atera. • *irud/hed*

Laster eskaini zaigun ikusmirak azala **pinportu** , eta buruko ileetatik behatetako atzazaletaraino zeharkatu nauen hotzikara gozo bat eragin dit. Patxi Zubizarreta

Niri behintzat, haren eraginez azala behin eta berriro **pinportu** zitzaidan. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
azala **pinportu** (3)

## pinpox *izond* pinpirina.

Eta eperraren lumaje eta ibilera **pinpoxa** bezain engainagarri dukezu eperraren turturkanta xaloa bera; trikiti doinurik ezagunenetakoa den letra honi errepara bestela Patziku Perurena

## pinta<sup>1</sup> 1 *iz* eduki neurri zaharra, pitxerraren erdia balio zuena. ik **pitxerdi**.

Bi **pinta** , litro eta erdi. Xabier Olarra

Kultura bakoitzak munduaren neurkera zuen Frantziako Iraultza arte: arabak eta kana erdiak, oinak eta zelemiak, **pintak** eta kuartiloak, librak eta ontzak, goldeak eta arrak... Anjel Lertxundi

Itziarrek morroi bat seinalatu zidan, eskuan Guinness **pinta** harturik jendartean irribarrez zebilena. Jon Arretxe

Lagun bakoitzak **pinta** bakarra edateko eskubidea baizik ez zuen izaneren. Aingeru Epaltza

2004-ko uzta 15 milioi **pintetara** heltzen da. Herria

Autoak baratzen dira, gasolina galdez, eta **pinta** bakoitzean prezioaren erdia baino gehiago zergetan badoa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Tarteka-tarteka beren **pinta** beteko edontzi handietatik trago batzuk egiten zituzten. Irene Aldasoro

Pazkorako **pinta** banako berrogei poto nahi nituen prest, denak berdinak, beren estalki itxurazkoekin. Juan Garzia

Hasieran mokadu baten eta **pinta** batzuen truke jotzen neban Corkeko pubetan. Jon Arretxe

Bart gaueko **pintak** jirabiraka dabilzkizu buru-gorputzean. Lutxo Egia

## 2 (neurri gisa)

Arrosen emazteak berak eman zidan afaltzera: ardi izter bat osorik eta **pinta** bat arno. Aingeru Epaltza

Deabruak eraman nazala hori esnezalea ez bada eta **pinta** bat krema ez badakar gure kaferako. Lopez de Arana

Sutautsez nahasirik **pinta** bat ron irentsarazi zion bakoitzari. Juan Garzia

Orain hiru laranja eta **pinta** bat urekin aise helduko naiz. Piarres Aintziart

Shea's-era sartu nintzen, auzoko likore-dendara, eta **pinta** eta erdi eskoziar whisky eta bi botila ardo beltz erosi nituen neuretzat. Oskar Arana

Pentsa, moleta hortan sartu dira 1200 kilo lur sagar, 10.000 arrotze, 400 kilo tipula eta 200 **pinta** olio. Herria

Bina **pinta** mahai-ardo jartzen zitzaizkioan gonbidatu bakoitzari pitxer batean. Xabier Olarra

**Pinta** bana zerbeza lagun zutela. Aingeru Epaltza

Kastelak ardo zakar **pinta** bat ireki eta botila, inguruan bilduak zirenei eskaini zien. Itxaro Borda

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bazterrak arrangura ziren zer eginen zen ezantza **pinta** bost libera baino gehiagotan izanez. Herria

Arauzko traje urdin, gris, eta marradunetz [...] jantzitako gazteen artean, inguruetako bulegoetatik atera berriak, garagardo **pinta** eskuan algara bortitzez barre egiten zutenak. Ramon Saizarbitoria

2500 sagarno **pinta** , Baionako 25 elkartek zerbitzaturik. Herria

Ateetan gelditu zen, botila hutsak jaso, eskailera izoztuetan gora egin zuen, krema- eta gazur- **pintak** utzi zituen, A eta B kalitatekoak. Lopez de Arana

Enpresak urre zuriaren ekoizle penatuei ardi esne **pintak** duela bederatzirteko prezioan pagatuko dizkietela. Itxaro Borda

## 4 *kurios pinta erdi* ik **kurios 4**.

### 5 *pinta erdi* (orobat *pintaerdi* g.er. eta *pinterdi*)

Hegoaldean hiru pinta sagarno edaten du, presuna bakoitzak urtean; Iparraldean urrun gara, **pinta erdi** bat edaten dugu. Herria

Zer **pinterdi** goxoa klikatu nuen Laket-Leku ostatuan! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arno **pinta-erdia** elkarrekin partekatzen ari zirela. Elena Touyarou

Atzo elkarrekin **pinta erdia** edaten zutenek, egun ez dute elkarri hitzik egiten. Elena Touyarou

## 6 pinta esne (orobat pintesne g.er.)

Zenbat **pinta esne** biltzen du egunero? **Itxaro Borda**

Gainerako ardi bakoitzak bi **pinta esne** ematen dizkio eguneroko bi deitzaldietan. **Itxaro Borda**

Aurten izanen dira hamabi milioi **pinta esne** banatzeko laborarien artean. **Herria**

Xeheki so egiten diogu laborantzako kudeantza ekonomikoari, zenbat **pinta esne** (behi ala ardietan), zenbat zerri edo ahate egiten den laborari batek hortarik bizipide duina elkitzeko. **Herria**

## 7 pinta laurden

Ontsa gorderik bazen kafea, eta hobeki gorderik, **pinta** laurden bat aguardienta. **Marzel Etxehandi**

Lixiviari deitua den ondarkin jus hortako mila pintetarik **pinta laurden** bat baizik ez da gelditzen pozointsu, tratamendu osoa egin eta gero. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**esne pinta** (4); **pinta erdi bat** (3); **pinta esne** (8); **pinta pinta eginda** (3); **pinta sagarno** (7); **sagarno pinta** (3)

## pinta<sup>2</sup> iz tanta, orbana. ik pintta.

Atera zuen bere jaka-laurden listatu hartako ezker sakelatik botilatxo zapal bat eta zipriztindu zituen hartaz bere jipoiko hegalak, eskuak eta gorbata zabal, urdin, **pinta** zuriduna. **Matías Múgica**

## pintada 1 iz horma publikoetan idazkun handiak pintatzea. ik pintaketa 2; tindaketa 2; grafiti

Txatarrakoz mendiak, kristal hautsizko lantegiak [...] eta inoiz jausi behar ez ziren hormak borroka galduen **pintadekin**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Kartelik ez zegoen paretetan, **pintadak** ziren nagusi. **Iban Zaldúa**

Panfletok zein **pintadek** arrazoi zuten. **Bernardo Atxaga**

Afixaz eta **pintadaz** betetako hormetako tartetean. **Jon Maia**

Ezkerrean, gose grebalarien aldeko mural bat eta Palestinaren aldeko **pintada** bat. **Berria - Harian**

Banuen konfiantza mehatxuak eta **pintadak** akuilu aski izanen zirela morroia Madrilgo bidean emateko. **Aingeru Epaltza**

**Pintadekin** ere alfabetatu ginen belaunaldi batekoa naiz. **Iñigo Aranbarri**

*Inbasori* hitza ageri da **pintada** askotan. **Anjel Lertxundi**

**Pintada** handi-handiak ikusten nituen nonahi, Fidelen esaldiek. **Jon Muñoz**

-Parkeko **pintadak** garbitzen ibiliko ditun. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Klasetik irten ginenerako **pintada** ezabatua zegoen. **Anjel Lertxundi**

80ko hamarkadako batailatxoaren zaleek aipatzen dute auzoko horma bat zatika banatuta zegoeneko, elkarte bakoitzak bere **pintada** koloretsua egiteko. **Urtzi Urrutikoeetxea**

## 2 pinta-egile

**Pintada** egileak garbi zuen utzi beharreko mezua. **Iñigo Aranbarri**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kontrako pintadak** (3); **pintadak egin** (4); **pintadak egiten** (3)

## pintaerdi ik pinta<sup>1</sup> 5.

## pintakatu, pintaka(tu), pintakatzen du ad tantoz bete. ik pintarratu; tantotu.

Bazihon, txapela malko txuriz **pintakatua**, kalean gora sigi-saga Txonaren aita. **Pablo Sastre**

Elurrez **pintakatuta**, zakar eta traste pila zegoen. **Pablo Sastre**

## pintaketa 1 iz pintatzea; pintatzearen emaitza.

Esaterako autoaren bukaerako **pintaketa** edo ekoiztu den autoa plantan mugitzea askotan kanpoko enpresa bati esleitzen zaizkion eginkizunak izaten dira. **Iñaki Heras**

Gure bizimoduak betiko martxari jarraitu zion: sakristiako sabaia **pintaketa**, otorduen prestaketa, sutarako egurketa... **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 (hitz elkartuetan)

Ez nuen beste kanilarik konpondu, ez beste komunik lauzatu edota beste **pintaketa** lanik egin. **Koro Navarro**

- Etxe-aldaketak egiten, altzariak batetik bestera mugitzen eta etxe- **pintaketa** lanetan aritu beharko du hurrengo argazkia saldu arte. **Harkaitz Cano**

- Ez nien gezurrik esan (erasoak izandako barridean ibili nintzela aitortu nuen), ezta egia osoa ere (odol- **pintaketarena** ezkatutu nien). **Anjel Lertxundi**

## 3 horma publikoetan idazkun handiak pintatzea. ik pintada.

Javier Balza Herraizango sailburuaren eta Agustín Ibarrola artistaren kontra ustez egindako **pintaketengatik** hiru urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak Bortxa Urberuagarentzat. **Berria - Euskal Herria**

Herenegun gauean PSE-EEren hainbat egoitzatan **pintaketak** eta Markinan hainbat banketxe eta zabor edukiontzitan kalteak egin zituztela eta, [...]. **Berria - Euskal Herria**

Familiak heriotza mehatxuak jaso ditu telefono deien eta etxeko atean egindako **pintaketen** bidez. **Berria - Euskal Herria**

Azkenik, Sestaoko Udalak herrian eginiko **pintaketak** gaitzetsi zituen. **Berria - Euskal Herria**

Dena zikina dago, **pintaketaz** josita. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pintaketak egin zituzten** (3)

## pintarazi, pintaraz, pintarazten du ad pintatzera behartu.

India Handian zion Alexandrok hainbat maite zuen Konpaspé dontzeila ederra Apellez zeritzan beregaineko pintoreari **pintarazi**. **Aurelia Arkotxa**

Eta etxeetako kristalak kolorez **pintarazi**, kanpotik jendeak barneko andreak zer egiten duen ikus ez dezan. **Pello Salaburu**

## pintarratu, pintarra, pintarratzen 1 du ad tanto edo orbanez bete. ik tantotu; nabartu.

Arraia handi bat ageri zen, gorrikara, orban ilunez **pintarratua**, tonu bitxi zoragarriekin margotua. Karlos Zabala

Tafetaz **pintarraturiko** gona, jaka-gona multzo beixa eta damaskoz eginiko gona luzea. Joxan Elozegi

## 2 (era burutua izenondo gisa) pintoa. ik nabar<sup>1</sup>.

Erbi gorri handiak, eper **pintarratuak**, ur hegazti kolore brontze-grisekoak, Errusiako larreoiloak, [...]. Karlos Zabala

Gona luze **pintarratuak**. Pablo Saстре

Neguan, faisaien purpura ere etzaten ziren, bai eta hegatzabalen errauts grisean, eta eper, galeper eta birigarroen zeta **pintarratuan** ere. Karlos Zabala

Txakur gaztea ero baten moduan dabil tximeleta **pintarratu** baten atzetik. Patxi Iturritegi

## pintatu, pinta(tu), pintatzen (676 agerraldi, 123 liburu eta 83 artikulutan; cf margotu 1013 agerraldi, 156 liburu eta 210 artikulutan) 1 du ad pintura geruza batez estali. ik margotu.

Pipan erretzen ari zen eta armairua zuriz **pintatzen** ziharduen. Juan Garzia

Militarraren hareharria, garai batean zuriz **pintatua**. Ramon Saizarbitoria

Beruneko bi soldadutxo, kolore biziz **pintatuak**, bata sarjentua, bertzea jenerala... Joan Mari Irigoien

Atsegina zen gela hura: hormak kolore urdin argi gris-antzeko batez **pintaturik**, lau aulki, besaulkia eta mahaia. Jose Morales

Tabernetako iluntasun koipetsuan, maitatzeetako logela gorritz **pintatutakoetan**, amodioaren edari gozoa dastatzen zutelarik. Felipe Juaristi

Londreseko parkeetan ohikoak diren zurezko aulki **pintatu** gabeko bat seinalatu zuen. Ramon Saizarbitoria

Gero hippie egin zen, eta hiru p **pintatzen** zituzten horma zurietan: *Peace, Pussy, Pot*. Joseba Sarrionandia

Gau hartan, beldurrak airean, *Gora Euskadi Askatuta* **pintatu**, eta etxera itzuli ginen berehala. Rafa Egiguren

ETAren izena hasi ginen herriko inguruetan **pintatzen**. Rafa Egiguren

Talde txiki batzuek erakutsi dute beren protesta arratsaldean, graffitiren bat **pintatuz** eta barrikadaren bati su emanez. Joan Mari Irigoien

## 2 (norbaitek bere burua)

Ezpainak **pintatzen** ditu; hogeita bat urte ditu. Xabier Olarra

Aho parean paratu dizkit patetikoki **pintaturiko** azkazalak. Eider Rodriguez

Urrutiko gizonei mezulariak bidali zizkieten, etortzeko esanez; eta haiek etorri ondoren, bainatu, begiak **pintatu** eta beren burua bitxi apaindu zuten. Elizen arteko biblia

Aurpegia, gainera, **pintatua** zuen, ohi zuen baino nabariago. Joan Mari Irigoien

- da ad Gero eta gutxiago **pintatzen** zarella iruditzen zaio Andrési, gero eta koloregabeago zaudela. Lourdes Oñederra

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Armairu **pintatua** hain zen zuria, sukaldeko gainerako guztiak hori eta zikin zirudien. Juan Garzia

Lebigre kartetan ari zen bezero batekin, piquet-ean, burdina **pintatuzko** mahaietako batean. Karlos Zabala

Kolore hori leuneko paper **pintatuak**, solairua estaltzen zuen espartzuzko alfonbrak. Karlos Zabala

Paper **pintatuaren** gris lausoaren gainean. Karlos Zabala

Argia ezarian aienatu da eta ilunpeak bere baitara bildu ditu irudi **pintatuak**. Pello Lizarralde

## 4 margolan bat ondu; irudi edo kideko bat oihal edo kideko batean margoz egin.

Emakumeek ez dakitela idazten, ez dakitela **pintatzen**. Anton Garikano

Karol Schulzek lortzen zizkion paper zuri gatz-usainekoetan **pintatzen** zuen. Felipe Juaristi

Baño gutxiko olio postinpresionistak **pintatzen** zituen. Iban Zaldúa

Rossetti-k bai, jakin zuen Jane Morris **pintatzen**. Ramon Saizarbitoria

Jendea **pintatzen** zuen, heriotzaren itzala gainean arrastaka, gorputz bainoago gorpu baitziren. Felipe Juaristi

Ez diat erreka zulo hori nik nahi bezala **pintatzen** asmatzen. Hasier Etxeberria

Hormetan margolan berdinak beti, olioiz **pintatuak**. Jose Morales

Hauerrek pastelaz **pintatu** zuen Charlotte, olioiz egiteko astirik ezean. Felipe Juaristi

Pintoreak beti biluzik **pintatzen** zuen andrea. Pello Lizarralde

Tentetnikovek harriturik ikusten zuen nola sortzen zen ezain margolarik ezin **pinta** zezakeen emakume haren potreta. Jose Morales

## 5 irud/hed

Ez dakit izanen den euskal literatura guzian hegaztirik, Pedro Mari Otañok **pintatu** zigun txepetx hura baino ederkiago **pintatutakorik**. Patziku Perurena

Luze hitz egin beharko genuke hiriko damei buruz, eta, esan ohi denez, kolore biziz **pintatu** haien ezaugarri moralen koadroa. Jose Morales

Bistan denez, paletan kolore gehiago eta biziagoak dituen beste norbaiten esku utzi beharko dugu hiriko damen izaera **pintatzeko** lana. Jose Morales

India harrigarria **pintatu** dut. Gotzon Garate

Zuhaitz baten **pintatzea** hitzen bitartez, adibidez. Ana Urkiza

Hau da gure beldurrak **pintatzen** duen koadroa. Bernardo Atxaga

## 6 (era burutua izenondo gisa)

Eta hango ilunpean isilik geratu zen Juan Bautistak igeltsuzko irudi **pintatu** gabea ematen zuen. Joseba Sarrionandia

## 7 zerbaitek edo norbaitek zerbaiteitako gorabehera izan.

Donostiako gazte batek zer **pintatzen** zuen Marokon? Txillardegi

Zoaz zu, nik ez dut ezer **pintatzen** han. Anjel Lertxundi

-Tira, baina oraindik ez didak esplikatu zer **pintatzen** duen Marujak hor. Iñaki Iñurrieta

## 8 pinta pinta egin erabat pintatu.

Urtetan aurrera samartutako emakume bat jaitsi zen, neskaxka baten moduan jantzita eta aurpegia **pinta-pinta eginda**, larruzko beroki bat gainean zuela. Ander Irizar

Xole eta Anamari ixpiluaeren aurrean apain apain orraztu, ezpainak **pinta pinta egin** eta, abiatu dira herri aldera. Patziku Perurena

Kamionetaren kabinara itzuli zen aurpegia karmin orbanez beteta eta ahoa karminez **pinta-pinta eginda** zuen neska batekin. Pello Lizarralde

## 9 pintatu berri

Itsasontzi polita zen, garbitu berria, **pintatu berria**. Felipe Juaristi

Kanpoko itxura ez diote aldatu tenpluari, **pintatu berria** badago ere. Iban Zaldúa

Ezpainak gorritz **pintatu berriak** zituen Arianek. Joseba Sarrionandia

Saihetsean den hondartzan, **pintatu berriak** diren bateliku kriketak, egur batzuen gainean garbiki eta ordenatuki ezarriak. Aurelia Arkotxa

Horma zuri **pintatu berrian** pintada hauxe ageri zen, sarrera ondo-ondoan: [...]. Karlos Linazasoro

Haize-zirimola etengabeek belar ebaki berriaren usaina eraman, eta ontzi **pintatu berriei** berehala itsasten zaien kresalarena zekarten ordinetan. Anjel Lertxundi

ezpainak pintatu (3); koadroa pintatu (4); paper pintatu (3); pintatu berria (3); pintatu berriak (3)  
gorriz pintatuak (3)  
gorriz pintaturik (6)  
beltzez pintatuta (3)  
gorriz pintatutako (5); pintatutako laurdena erakusten (4)  
pintatzeari utzi (5)  
pintatzeko agindu zion (3)  
ez dakite pintatzen (3); gorriz pintatzen (3); jendea pintatzen zuen (4); kaperako freskoa pintatzen (3)

## pintatzaile 1 iz paretak eta kidekoak pintatzen dituen langilea.

Nagusiak, lehenik, **pintatzaile** ofizioa irakatsi zidan. **Daniel Landart**

Berdin kafetxeetako zerbitzari edo etxeko horma **pintatzaile** noble Hans izena izatearen bekatua soilik zutenak gorrotatu behar al nituen? **Harkaitz Cano**

## 2 margolaria. ik pintore.

**Pintatzaileak** koadroa hartu eta iparraldeko lurraldera ihes egin zuen. **Felipe Juaristi**

Hain zen ederra etxe hori, non Rembrandt **pintatzaileak**, karrikan bertan bizi zenak, margotu baitzuen haren aurrealdea. **Felipe Juaristi**

Luisa koadrora hurbildu zen, gertutik ikusi nahi baitzuen Françoisen pintatutako emakumea, baina **pintatzaileak** aurrea hartu eta kendu egin zuen bistatik. **Felipe Juaristi**

Emakumeek bai: gure ama-amonek esku bizi zoliak zituzten, jostun eta sukaldari trebe ziren eskuok, batzuk are piano-jole, urmargoz **pintatzaile**, brodatu-egile, ile-txirikordatzaile. **Juan Garzia**

Koadroaren hondoko aldean, **pintatzailearen** begi burlati eta txantxazaleak, ordea, **pintatzaile** -kapelua azpitik begira, pintura osoa komedia dela erakusten du **Felipe Juaristi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pintatzailearen harridurako** (3)

## pinterdi ik pinta<sup>1</sup> 5.

## pintesne ik pinta<sup>1</sup> 6.

## pinto izond tantoak edo titak dituen. ik pinto.

Egun berean bereizi zituen Labanek aker marradun edo **pintoak**, ahuntz nabar edo **pintoak** eta ardi beltzak. **Elizen arteko biblia**

Zure giza itxura utzi, eta mando **pinto** batena hartu! **Patxi Zubizarreta**

Aurrean du behi ipurtandi **pintoa**. **Joxerra Garzia**

Hainbeste baba eta indaba **pinto** jan dugu dagoeneko, non orain ezin baititut begien aurrean ikusi ere. **Josu Zabaleta**

Babarrun **pintoak**, ilar zopa, patatak irinezko albondigekin. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**babarrun pintoak** (3)

## pintore (447 agerraldi, 69 liburu eta 103 artikulutan; cf margolari 676 agerraldi, 123 liburu eta 83 artikulutan) 1 iz margolaria.

Idazlea hurbildu zenean, ikusi zuen agurearen aurrean zegoen margolariak, idazlearen lagun mina zen **pintoreak**, apunte ugari hartzen zituela: gorpuzkera, keinuak, aurpegiaren kera... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Pintoreak** beti biluzik pintatzen zuen andrea. **Pello Lizarralde**

**Pintore** bat ehunaren aurrean. **Ana Urkiza**

**Pintorea** zen, izerdi keruaren azpian sumatzen zituen disolbatzaile eta akriliko zantzuek argiro adierazten zuten bezala. **Iban Zaldúa**

1923an, J. Sorolla argiaren **pintorea** hil zen. **Pello Salaburu**

Alexandro IV.ak berak eskumikoa bota zuen Frantzisko zauririk gabe margotzen zuten **pintoreen** aurka. **Askoren artean**

Artistok ez dutelako beste **pintoreen** lanen gainean jarduteko ohiturarik. **Berria - Kultura**

Kazetari batzuek esan zuten mugimendu piktoriko berria sortu nuela, beste **pintore** batzuk ere hasi zirela nire bidetik. **Unai Elorriaga**

Sekulako kolpe pila ematen zion **pintoreak** bere modeloari. **Pello Lizarralde**

Gure aita zuzenean **pintorearenera** joan zen koadroak itzultzerako. **Pello Lizarralde**

Arrakeroa dadoekin haserretzen da, **pintorea** pintzelarekin eta bakoitza bere tresnekin; tresnek zailtasunak sortzen dizkietela konbentzita daude denak. **Imanol Unzurrunzaga**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zer gertatuko litzateke, baldin biharko egunean Rafael, Botticelli edo Velázquez bezalako **pintore** handi bat banintz...? **Joan Mari Irigoien**

Margolana **pintore** vienatar batena zen, enperatrizari ile uhintsuarekiko erretratua egin zionarena berarena. **Xabier Olarra**

Sevilla lan egin zuen **pintore** flandestarren batek margotu zuela uste du. **Berria - Kultura**

Apeles Greziako **pintore** ospetsu bat izan zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Oka egitean, zure gorpuztetik itzendako hondakinen artean ikusten dituzu 42 **pintore** inpresionistaren 42 inpresio, 17 **pintore** kubistaren 212 marra zuzen eta surrealista baten erloju urtu batzuk. **Unai Elorriaga**

Irakurria nuen Gernikan jaiotako **pintore** hiperrealistari buruzko bere lana. **Joxean Agirre**

Juan Leon Kruzalegi ez zen abangoardiako **pintorea**. **Edorta Jimenez**

## 3 (izenondo gisa)

Maizter haiek utzitako etxera artista **pintore** bat etorri zen. **Pello Lizarralde**

Benetan amodio sinestezina zen, artista **pintoreek** baino ez duten horietakoa. **Pello Lizarralde**

Gure aita bere lagun **pintorearen** koadroak ikustera joaten hasi zen eta iritziak ematen zituen pintura kontuetan jantzia dagoen aditu ezagunak bezala. **Pello Lizarralde**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pintore** -begiaren trikimailu bat zen. **Anton Garikano**

Ganbara batean bizi zen, Hiru Ferrak zeritzon kaleko oso etxe zahar batean, ongi berotzeko modurik ez zegoen **pintore** -tailer moduko batean. **Xabier Olarra**

Zenbaitetan, munduaren salbazioarekin lotutako auzi handieren bat bersarkatzen da, eta beraien batere axola ez dien gehiengo sozial zientzial poeta edo **pintore** -ikur bihurtzen dira. **Bernardo Atxaga**

## 4 paretak eta kidekoak pintatzen dituen langilea. ik **pintatzaile**.

Egun pare bat geroago, **pintoreak** eta igeltseroak, garbitzaileak eta tapizatzaileak azaldu ziren, lehengo maizterrek etxebizitzan utzitako zikinkeria guztia jasotzera.

**Eduardo Matauko**

Nire sukaldetik mendebaldera dagoen etxe-saila ere egoera horretan egon da oraindik orain: ez igeltserorik, ez elektrizistarik, ez **pintorerik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Mikeren aita, etxeetako **pintorea**, gizon ameslaria, ixtoriorik zoragarrienen kontalari bikaina, lan istripu bat izan eta gero kalean platanok saltzen ikusiko dugu. tailer bateko mekanikari-lagun, obretako peoi edo **pintore** -ikastun, batetik bertzera opor aldiak tartekatzen zituela. **Pablo Sastre**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pintore espressionista** (3); **pintore eta eskultore** (3); **pintore gazteak** (3)

**pintorearen lanak** (3)

## **pintoresko** (*orobat **pitoresko g.er.***) **1 izond** agertzen duen toki-koloreagatik erakargarria edo interesgarria gertatzen dena.

Bideak morroi **pintoreskoz** beteak dituzu. **Koldo Izagirre**

Baserritar hauek beren jantzi **pintoreskoekin** egiten dute dantzan, alkandora zuri, gerriko gorri, bonet urdin, jakak lepoan, eder, noble, grazios, kasik antzinako. **Koldo Izagirre**

Euskal Herriaz duten ikuspegia, oro har, **pintoreskoa** da: mendi berdeen lurra, baserri txuri-gorriak eta ardiak inguruetan, horrelako irudia izaten dute buruan. **Berria - Kultura**

Urteek historiaren pasarte **pintoreskoa** bihurtu duten gertakari horregatik sartu nuen Rijeka/Fiume nire ibilaldiko sei hirien artean. **Berria - Kultura**

Bi emakumek bizitasuna ematen zioten paisajeari: oso modu **pintoreskoan** soinekoa gora jasorik eta gona-barrenak gerriaren jiran bildurik, ura belauetaraino, astiro zebiltzan urmaelean, bi hagarri loturiko sare urratu bat arrastaka zeramatela. **Jose Morales**

## **2** xelebrea, bitxia.

Hala nola Etxaide, karlista **pintoresko** eta terriblea, edota Garmendia, liberala. **Pablo Sastre**

Arrazoitzeko ailegatzen duen hori, ez dakit zein Basaburutan ez dakit zeinek esan omen duen ez dakit zer, anekdota **pintoreskoa** da, ezen ez argumentua, higitutxoa baliabidea, zurbide politikero gisa ere xahar eta txarra. **Joxe Azurmendi**

## **pintoreskotasun** (*orobat **pitoreskotasun***) *iz* pintoreskoa denaren nolakotasuna.

"Zuri-zerudin" Hizperriak, bere **pintoreskotasunean**, zerua iradokitzen du, eta hori da, hain zuzen, australiar paisajearen alderdirik garrantzizkoenetakoa. **Juan Garzia**

Zenbait andereñoik, lekuaren **pitoreskotasunarekin** zoraturik, aita potzoloak hotelean postalak idazten dituen artean, herri zaharreko portaleko eskailerak igotzen dituzte, hiriko bi kale nagusiak korritu, eta erromantikoko iruditzen zaizkien lekuen eta apretagile taldeen argazkiak egiten dituzte, eta haiek burlaizez uzten diete argazkiak ateratzen.

**Koro Navarro**

## **pintta** *iz adkor* pinta, tita.

Hurra ondu ahalean, putzura jaulkitzen dira, bertako izokinak harrapazka jaten dituztela; eta zenbat ur jango, hainbat **pintta** gorritxa aterako zaizkio izokin bakoitzari.

**Patziku Perurena**

Euskal idazlea ikuspuntu frailuno horren heredero eta depositario huts bihurtu da, batere ñabar **pinttarik** gabe, euskal inkultura letratuaren komentuko zoldan bakteria bat bezala birsortua. **Patziku Perurena**

## **pintto** *izond adkor* pintoa.

Ikusten duzu **pintto** hori? -galdetu zion Vittoriok txerriak seinalatuz-. **Joxemari Urteaga**

## **pintura** **1** *iz* margolariaren antzea edo ogibidea; pintatzeko artea, margoen bidezko irudikatzea, gainalde batean egiten dena. ik **margolaritza**.

**Pintura** eta eskulturaren prozedura klasikoak. **Berria - Kultura**

Uste dut literaturan, **pinturan** edo beste edozein artetan bezala, detaile batek asko erakus dezakeela, ondo egina bada. **Berria - Kultura**

Donati andreak **pintura** ere ikasten zuen, Casoratiren estudioan. **Fernando Rey**

"Jauna: nire bizitzan ez dago **pintura** besterik", erantzun nion. **Juan Kruz Igerabide**

Irudikapenaren historiak bere baitan hartzen du **pintura** eta zinema, baina horiek baino urrutirago iristen da. **Josu Zabaleta**

Zinema telebistan ikusten da gaur egun, **pintura** aspaldi samarretik argazki bidezko erreproduzioetan ikusten den bezala. **Josu Zabaleta**

Arte abstraktuaz geroztiko pinturaren teoria guztiek, zinema "abstraktuaren", "**pinturazkoaren**" teoria guztiek nabarmendu dute kolorearen adierazgarritasun-eginkizuna.

**Josu Zabaleta**

**Pintura** imitazioetik urrunduz joan ahala hasi da konposizioa elementu plastikoaren, balioen, koloreen, lerroen eta azalaren antolamendua bere barruan hartzen. **Josu Zabaleta**

Ikusten ez dena ehizatu nahi omen du **pinturan**. **Hasier Etxeberria**

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

XIX. mendeko **pintura** akademikoan. **Josu Zabaleta**

Elementu apaingarria, estetizista da **pintura** tradizionallean. **Bernardo Atxaga**

**Pintura** alemanari eskainitako saletako batera joan nintzen, Durerok ehun banatan irudikatutako Adan eta Eba ikustera. **Bernardo Atxaga**

Artearen askatasuna zuen aldarri nagusi formarik gabeko **pintura** geometrikoak. **Berria - Kultura**

Berpizkundean Eukliden geometria balioesten zen bezala, **pintura** modernoak espazioaren ikusmolde "topologikoago" bat irudikatze joera izango du. **Josu Zabaleta**

Flandesko **pintura** manieristak eta Caravaggiorengandik jasotako irakaspenak nahastu zituzten. **Berria - Kultura**

Denen artean **pintura** modernista handia osatzen dutela iruditzen zaio: murala atari zabalean. **Alberto Barandiaren**

**Pintura** surrealistari eskaini zizkion bere ahalmen guztiak... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Domingo Agirrerren *Garoa* eta Flores Kaperotxipiren *Aitona zoriotsua* ezagutuko ditugu, literatura eta **pintura** kostunbristaren adierazpiderik behinenak. **Anjel Lertxundi**

**Pintura** abstraktuaren teknikak. **Berria - Kultura**

Musika eta **pintura** ez-objektiboa ez dira imitatzaileak. **Askoren artean**

Ez baitago kontraesanik irudikapenezko **pinturaren** bi eskakizun horien artean. **Josu Zabaleta**



Italiako zinemagintzan 1945etik aurrera zabaldu zen "neorrealismoaren" eta XVII-XVIII. mendeetako holandar **pinturaren** inoiz aipatu izan den "errealismoaren" artean.

Josu Zabaleta

Mendeabaldeko **pinturaren** jatorrizko bekakua. Josu Zabaleta

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Entzunak entzun, Audenek edota **pintura** maisu zaharrek ez zutela agian arrazoirik pentsatu nuen. Bernardo Atxaga

Kontua da hogeita hamar urte bete orduko izen handia nahi genukeela **pintura** -adituen artean. Zumarragara joaten hasi zirela jakin nuen, **pintura** -akademia batera. Unai Elorriaga

Matxin Labaien zen Tolosako **pintura** -irakasle hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Amaginarrebaren gutun bat, **pintura** -erakusketa baterako gonbitea. Eskarne Mujika

**Pintura** -museoko aretoetako bat. Jose Morales

Margolanetan **pintura** arau jakin batzuk beteko zituztela hitzartu zuten, eta taldearen siglekin sinatzen zituzten: [...]. Ramon Saizarbitoria

Une arruntaren aldeko zaletasuna, argazkiaren aurkikuntza baino lehenago ere azaldua zen **pintura** mota batzuetan. Josu Zabaleta

Espresionismoarekin, neurri batean bederen sekundariordea, arrazionalizatzea alde batera utzi eta beren obran produkzio primarioak nahita azaleratzen uzten duten **pintura** -eskolak agertzen dira. Josu Zabaleta

Baina zenbait **pintura** -estilotan, espresionistetan, esate baterako, "gehiegi" ere bazkatzen da begirada hori. Josu Zabaleta

"Zerbaiten imitazioa" -zerbait hori urre-pieza, eskultura edo **pintura** -koadroa izan daitekeela. Iñaki Zabaleta

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Vitruviok erromatarren horma-**pintura** artistikoaren eboluzioa ematen du, marmolen imitazio hutsa zen antzinakoenetik hasi eta eszena eta paisaien irudikapen modernoeneraino iritsiz. Santiago Iruetagoiena

Irarlanaren aldamenean, olio-**pintura** belztu batek hormaren erdia betetzen zuen. Jose Morales

Metalezko armairu berde ilun batzuk zeuden militarren atzean, eta haien erdi-erdian, baina metro bat gorago, olio **pintura** handi bat. Anjel Lertxundi

### 5 margolana. ik beherago 10.

Bruegelen **pintura** bat gogoan hartu eta Audenek idatzitakoa aipatu zidan berak: nori izan zion ardura Ikaroren erorketak? Bernardo Atxaga

**Pinturaren** argazkia da Indalexiorena. Edorta Jimenez

Antzerkiak, **pinturatiik** espazioa ikuspuntu batetik begiratuta adierazteko zuen teknika, perspektiba, hartu izanak ekarri zuen eszenografia. Josu Zabaleta

Ezin dira **pinturak** ontzat eman ez baldin badira errealitatearen irudikapen. Berria - Kultura

Ohol batean pintatzen diren Jaunaren edo Birjina dohatsuaren irudietan Jauna eta Birjina dohatsua ohoratzen ditugu, eta oholak edo **pinturak** ez du ezer bere egiten.

Askoren artean

Haren ondoan, berriz, **pintura** bat dago eskegita, Prêche au désert izenekoa, eta bertan abade bat ikusten da jende multzo bati sermoia ematen, eta lekua mendia da, mendi harritsu bat. Bernardo Atxaga

Bere gelan, Aitari otoitz egiten zion ezkutuko lekuan, **pintura** bat zeukan Santuaren irudiarekin. Askoren artean

Paisaia berari, ordu batzuetako tartea utzita, esate baterako, argazki sail bat edo **pintura** sail bat eginez gero, [...]. Josu Zabaleta

Zeren **pintura** batek marraskia dik gorputz, eta kolorea arima. Joan Mari Irigoien

**Pintura** -galeria bat, estatua-bildumak. Jon Muñoz

Josette Dacosta-k "Etxean etxea" **pintura** erraldoia bere etxaitzinean muntatu du... Herria

Bazuen beste zerbait **pintura** soil izateari utzi eta oihalezko laukitik salto egitera behartzen zuena. Hasier Etxeberria

### 6 margotzeko erabiltzen den gaia. ik margo 2.

Gernikako Batzar etxeari **pintura** bota diote. Berria - Euskal Herria

**Pintura** ekarri bitartean aldamia muntatu genuen sakristian, hango sabaia margotzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Pintada handia hormatan, **pintura** gehiegiz egina, letrak **pintura** dariela geratu direlako. Joseba Sarrionandia

Handik aitzina, aitak **pintura** batzuk erosi, eta pintatzen hasi zuan Pedro bere kasa. Joan Mari Irigoien

**Pintura** zuriaren potea laga du lurrean, lankidearen hitz gartsuei kasurik egin gabe. Harkaitz Cano

Rayleytarrak, pentsatu zuen Lily Briscoek, **pintura** berdearen tuboa estutuz. Anton Garikano

Ertzaintzaren analisian arabera kola, disolbente, **pintura** plastiko eta lokatz-nahasketa bat omen zen eta. Iban Zaldua

Hormetako **pintura** esmaltatuak are indartsuago islatzen du argia. Iñaki Iñurrieta

Gabardinetan utzitako orban **pinturazkoetan** nabari zitekeen hori. Hasier Etxeberria

Postalaren beste aldean herri txiki bat, Carlo Levik berak **pintura** lurkolore batez pintatua. Anjel Lertxundi

Koipe errearen, lurrinaren eta **pintura** beroaren usaina zetorren handik. Lopez de Arana

Azkenean han etorri zen Fructuoso bi poto handi **pintura** esku banatan. Inazio Mujika Iraola

### 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lorategia txukundu, arrosak kimatu eta ureztatu, eta **pintura** -eskualdi bat eman zion lorategiko aulkiari. Iñaki Mendiguren

Ate lodia, distirarik gabeko ferra batzuekin apaindua eta **pintura** esku bat behar zuena. Iñaki Zabaleta

Igeltsu eta **pintura** usaineko pisua ikustera joan zireneko eguna. Lopez de Arana

Horma zuria **pintura** geruza berriekin areago zuritzen hasi dira, zuria zuriaren gainean, ezereza ezabatzen. Harkaitz Cano

Ez zitzaion bururatu **pintura** -azal bat ematea ere; bost axola hari zulo gero eta zikinago hartan bizitzea. Juan Kruz Igerabide

Hezetasunak sabaiko **pintura** azala soltatu duela, zementu zaharraren grisa agerian utziz. Joseba Sarrionandia

XIX. mendean kolorezko **pintura** -hodiak azaldu zirenean. Josu Zabaleta

Sami ikustera joan nintzen, ireki berria zuen lantegira; **pintura** -tutuk saltzen zituen. Juan Kruz Igerabide

Eguzkia ibaika hedatzen zen, eta argitu egiten zituen bateak, franelazko jantziak, lastozko kapelak, tinta-ontziak, **pintura** potoak. Anton Garikano

Bazirudien gako hark zirkulu berean batu zituela betirako **pintura** -estutzea, belardia, Bankes jauna eta bihurri basati hura, Cam, korrika batean handik barrena igaro zena. Anton Garikano

Harkirat Singh-ek **pintura** -denda zeukan Batala herrian. Gotzon Garate

Garai batean **pintura** fabrika izandako loft batera jo eta bertako auzoen iritzi eta gogoetak bildu ditugu. Harkaitz Cano

### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Olio-**pintura** freskoaren usaina aditzen zen inguru guztian. Jose Morales

### 9 aurpegia pintatzeko edo makillatzeko gai kosmetikoa.

Muxu eman zion, ezpainetako **pintura** itsatsia ez gelditzeko moduan. Joxemari Urteaga

Narrazututako **pintura** beltzaren azpian begi bat ireki da. Sonia Gonzalez

-Laztana, ni haren alboan eserita egon naiz: aurpegiko **pinturak** hatz baten lodiera du, eta zatika erortzen zaio, hormetako igeltsua bezala. Jose Morales

Belarririkoa, eskumuturrekoak, ileari eustekoak, eraztunak, jostorratzak, gerriko-ebila bat, **pintura** -barra pare bat... gauza txikiz beteta agertu zen kutxatxo. Joxemari Urteaga

Gehiegizko **pintura** -txaplata horren atzean seguru aski aurpegi eder gaztea ezkututzen da. Sonia Gonzalez

### 10 *pintura-lan*

Ikuskizunak, hortaz, trinkotasuna zuen eskas, tipula-papera gaineratu dioten **pintura-lan** inpresionista batean bezala. Aingeru Epaltza

**Pintura lanez** gain, Argia Badago kolektiboak haizez moldatutako beira bilduma ere paratu dute erakusketan. Erakusketak liburuan jasotako ideiak erakusten ditu, plano, argazki eta beste dokumentuen bidez; gainera, Artiumekoari eta liburuari zerbaite gehitzen dio, eskultura eta **pintura lanen** gaineko berrazterketa. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi pintura** (3); **eskultura eta pintura** (4); **hire pintura** (3); **hormetako pintura** (3); **musika eta pintura** (4); **olio pintura** (7)

**pintura bat** (8); **pintura bota** (3); **pintura da** (5); **pintura erakusketa** (5); **pintura esku** (3); **pintura eta eskultura** (15); **pintura eta eskulturaren** (3); **pintura eta musika** (3); **pintura geruza** (3); **pintura gorri** (3); **pintura gorria** (5); **pintura gorritz** (7); **pintura gorritz betetako** (3); **pintura grisa** (3); **pintura mota** (7)

**oholak edo pinturak** (3)

**pinturaren azpian** (3); **pinturaren eta eskulturaren** (3); **pinturaren historian** (4); **pinturaren inguruan** (3); **pinturaren usain** (3)

**pinturaz betetako** (3)

## pinturagintza *iz* margolanak egitea.

Berdin lapurtzen dugu eta medikuntzan / museoetan edo-ta **pinturagintzan** / erabiltzen baitugu. **Xabier Olarra**

## pinturazale *izond* margolanen zalea dena.

Urteetan egon zen hura estudioan beste koadroekin batera hautsez beterik, hariak eta **pinturazale** batek estudioa erosi eta koadroa aurkitu zuen arte. **Felipe Juaristi**

Handik harat, **pinturazale** itsua egin ninduan, are gehiago Pariserat joan nintzenezan. **Joan Mari Irigoien**

Zeren, inguruetako bertze jauntxo gehienak ez bezala, **pinturazalea** baitzen Abel Huizi eta uste baino adituagoa... **Joan Mari Irigoien**

## pintxatu, pintxa, pintxatzen **1** du *ad* zulatu.

Listo, **pintxatu** dut azeituna, orain traktorera. **Joxean Sagatzizabal**

### 2 diskoez mintzatuz, jarri.

Gero DJ putakumeak auskalo zer moldaketa **pintxatu** duen. **Urtzi Urrutikoeetxea**

### 3 telefonoaz mintzatuz, hartu.

Lagunek telefonoa gaizki duela esaten diotenean horixe erantzuten die, ziurrenera telefonoa **pintxatuta** daukalako dela, eta horrek, zergatik ez aitortu, harrotasun punttu bat ematen dio. **Jokin Muñoz**

Telefonoak **pintxatzen** dizkigute, DISIPen zeuden gure expediente guztiak kopiatu eta Venezuelatik kanpo atera dituzte. **Pako Aristi**

## pintxe *iz* sukaldari-laguntzailea.

Hemen **pintxe** guztiek izan nahi dute sukaldari. **Jon Alonso**

Ohi legez betaurrekoen gainetik begiratu zenuenean **pintxe** barria topatu zenuen besoak gurutze aspertu plantan, petral eta lotsabarro. **Koldo Izagirre**

Nola lanak eskuetatik kendu zizkieten, nola handik beste batera deitu zioten... eta **pintxe**, eta konpa eta putu pila bat. **Unai Iturriaga**

-Baina ze **pintxe** klase zara zu? **Unai Iturriaga**

## pintxo<sup>1</sup> *iz* ziri-mokadua.

Goizetik tabernara, **pintxo**a eta ardo ona, periodikoa... **Unai Iturriaga**

Euro batean... nahi baduzu **pintxo** bat aterako dizu. **Pablo Sastre**

Tokian berean izanen da jateko (**pintxoak**) eta edateko. **Herria**

Udaletxe Plazan, berriz, **pintxo** beroak eta hotzak dastatzeko parada izango du gerturatzen denak. **Berria - Euskal Herria**

Nire urdail nikotinaz beteari, zerbeza batez beraturiko **pintxo** oliotsu parearen hala-holako oparia egin nion lehenik. **Aingeru Epaltza**

Patata-tortillazko **pintxo** handikote bat hartu, tabernatik atera eta Bulebarrera joan zen, taxi baten bila. **Fernando Morillo**

Artean niri begira jarraitzen zenuen zein **pintxo** aukeraturiko nuen jakin-minez. **Eider Rodriguez**

Iluntzerako Donostiako Alde Zaharrean zebilen **pintxo** jaten. **Migel Angel Mintegi**

Han berean, 5-ak eta erdiatarik harat, salgai **pintxoak** eta sagarmoa. **Herria**

13.00: zintzur bustitze eta **pintxo**. **Herria**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euren atzetik abiatu nintzen, agian, zorte apur batekin, tarteka-marteka **pintxo** zatiren bat-edo muturretatik eraz paratuko zitzaidalakoan. **Jon Arretxe**

Noizean behin **pintxo** edo bokata zatiren bat jateko modua izango nuelakoan. **Jon Arretxe**

Bartzelonako erdiguneko **pintxo** tabernetan lanean ari zirela ezagutu zuten elkar. **Berria - Kultura**

Eguerditan izanen da kale antzerkia, ondotik **pintxo** lehiaketa eta jastatze. **Herria**

**Pintxo** mordo bat, kolore guztietakoak. **Txillardegi**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bueltan Saioak ura eta, plater batean bi tortilla **pintxo** ekarri zituen. **Pablo Sastre**

Mikelek beltz berezia eta patata tortilla **pintxo**a behintzat atera zizkion. **Unai Iturriaga**

Plater batean txistorra **pintxoak** zekartzala etorri zen Juana. **Pablo Sastre**

Txorizo **pintxo** bat eta salda bero bat doan hartzeko aukera ematen dute. **Berria - Kirola**

### 4 *p/* errepidean ibilgailuak geldiarazteko jaten diren iltzeak.

Errepidean **pintxoak**, patrol bat, kañoi handiekiko eskopetekin hiru guardia maskaratu, honago beste bat, hura maskara gabe, gaztea, autoak banan-banan begiratzen ari zena. **Pablo Sastre**

Hemingwayren sanferminak ezagutzera joan eta azkenean Donostian katigatuta gelditu nintzen, **pintxoekin** eta... -Bennetten begirada hotza ikustean atoaen isildu zen-.

**Fernando Morillo**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**tortilla pintxo bat** (4)

**tortilla pintxo**a (3)

## pintxo<sup>2</sup> *1* *iz* labana edo kidekoa.

## pintxo<sup>3</sup> 1 *adlag adkor* apaina.

Sumatu nuen, nik, orain ama iharra apain-apain eta **pintxo** janzten zela. **Fernando Rey**

## 2 *pintxo-pintxo izond*

Baina momentu hartantxe atea ireki, eta poliziako ofizial bat sartu zen, tipo dotorea, **pintxo-pintxo**. **Matías Múgica**

## pintxodun *izlag adkor* puntaduna.

Beltzarana, ile laburra, sudur apur bat handia eta begi galduak, praka bakeroak, kamiseta, larruzko txupa, dena beltza, zer esanik ez, eta **pintxodun** gerriko bat. **Sonia Gonzalez**

**Pintxodun** gerrikoa eta talde ingeles baten izena kamiseta estuan. **Sonia Gonzalez**

## pintxozale *izond/iz* pintxozen zalea dena.

**Pintxozale** eta gormanta guziek atseginekin aurkituko dituzte, liburu hunekin, 150 pintxo mota, baktxaren errezeta eta argazkiarekin. **Herria**

## pintza 1 *iz batez ere pl*bi besoz osatutako tresna, gauzak hartzeko edo haiei heltzeko erabiltzen dena. **ikgantxo 3**.

Eskatuko ziola ezpainaren gaineko ile txikiak kentzeko mesedez, **pintzaz**. **Unai Elorriaga**

Hanketako ileak zigiluen **pintza** txikiarekin kentzen zituen. **Pello Lizarralde**

**Pintzak** hartu eta lau azukre-kokkor botatzen ditu kikeran. **Antton Olano**

Azukre-kokkorak hartzeko **pintzak**, beste batzuk zainzurierei eusteko (nork arraio asmatu edo erabili ote zuen tramankulu hori?). **Joxan Elozegi**

Bikoterik gabeko kopa haiek, jela-ontzia, jela-kokkorretarako **pintzak**. **Joxan Elozegi**

Agian hoberena zuk zeuk **pintza** batzuekin kentzea izango zen, baina ezin izan dut jasan, lizuna hor, nire zilborrean; eta koilaratxo batekin atera dut. **Eider Rodriguez**

**Pintzak** -heldulekua ere esaten zaio- luzera hiru zulokoa izango du, zabalera eta lodiera hiru laurdenekoa. **Santiago Iruretagoiena**

Aitonak **pintza** moduko bat asmatu zuen paperak eta folioak biltzeko. **Karlos Zabala**

Agureen modura galtzak **pintza** batez loturik eraman beharko ditut. **Lander Garro**

**Pintza** hauekin hartu behar dituk eta matxinoan ezarri. **Jon Maia**

## 2 (arropak esekitzeko) **ik gantxo 3**.

Hainbat segundoz begietsi nuen nola biratzen zen, nola makurtzen lurrean utzitako arropa multzotik bat hautatu beharrez, nola hartzen **pintza** bat saski tikitik eta nola, esekitokiko sokak korriarazi ondotik, kanpora hedatzen zuen joan-etorri garbietan. **Aingeru Epaltza**

## 3 irud/hed

Buruzagi jeltzaleak kezkatu agertu dira etorkizun elektoralarekin, izan ere, kezka hori agertzen baitute alderdi sozialista eta Batasunaren arteko **pintzaz** hitz egiten dutenean.

**Berria - Euskal Herria**

Hiria hilik dagoenean, landarediak hartuko du, harrietan gora eginen du, inguratu, miatu, leherrazai eginen ditu bere **pintza** beltzekin. **Monika Etxebarria**

## 4 oskoldunez mintzatuz, **hagina**.

Ottarraina edo karramarro handia ematen du (15 zentimetro ditu), baina zuria da eta bizar antzekoak ditu **pintza** zein hanketan. **Berria - Gaiak**

## 5 arranpa modukoa.

Dena den, egun xoragarri bat izan da gehientsuenentzat segurik, heltzean **pintza**, arranpa eta aztal gogor frangoren zinkurinak entzun balin badira ere. **Herria**

## pintzadun *izond* gonez, galtzez eta kidekoez mintzatuz, alozduna.

Igandeetako praka **pintzadunak** neramatzan. **Aitor Arana**

*izlag* **Pintzadun** galtzak eta alkandora karratuxodunen botoiak lehertu beharrean daramatzaten gizon tripadunak **Pako Aristi**

## pintzatu, pintza(tu), pintzatzen du *ad* zerbaiti pintza modukoekin heldu.

Dopazok ezpainak **pintzatu** zituen atzamarrekin, Aldazek ukabil biak erakutsi zituen. **Koldo Izagirre**

## pintzatxo *iz* pintza txikia.

Zuzen eseri, ispilua eta **pintzatxoak** bildu, eta gizonari soa nondik zebilkion konturaturik, zangoak idazmahai azpian ezkutatu zituen. **Migel Angel Mintegi**

## pintzel 1 *iz* kirten baten muturrean itsasten den ile edo zuntz sorta batez osaturiko tresna, gainalde batean pintura edo antzeko gairen bat hedatzeko erabiltzen dena.

Ildoiak **pintzel** batzuk eta oihal bat [...] hartzen zituen, eta pintatzen hasten zen, erabat bere baitaraturik. **Juan Kruz Igerabide**

Oparirik ederreana, olio pintura kutxa izan zen, bere **pintzel** eta pintura oihalekin. **Ana Urkiza**

Eta hara non beste batek **pintzel** moduko batez kolore susmagarri eta azkura eragiteko isurkina pasa didan burutik, galtzarbeetatik eta lotsarietatik, usain sarkorraren arabera desinfektagarriren bat inondik ere. **Urtzi Urrutikoetxea**

Nola leopardo baten larruko mantxak baino misteriotsuagoak iruditu zitzaizkidan hango [Txinako] karakter **pintzel** trebez marraztuak. **Juan Garzia**

Margolan horiek **pintzelaren** pasaldiek gainazalean uzten dituzten erregulartasun arinez ere baliatzen dira. **Josu Zabaleta**

Pareta bukatuta eta lehortuta dagoenean, eman beza **pintzel** batekin argizari punikoa, sutan urtuta eta olio pitin batekin nahastuta. **Santiago Iruretagoiena**

Kolorearen poztasunari eta **pintzel** mehearen dotoreziari egin zenien kasu... **Berria - Kultura**

Eta bazuen, finean, **pintzel** fin bat, zeinaz baliatzen baitzen puntu argitsuaren iduri islatua markatzeko, mirailaren gainean. **Joan Mari Irigoien**

Mignonen gorputza hain zen ederra eta joria -Rubensen **pintzeletik** sortua ote zen, jaun André?-, non erran baitzitekeen ezen ez zuela mugarik. **Joan Mari Irigoien**

Nahiago zituen lapitza eta **pintzela**, xagua baino. **Karlos Linazasoro**

**Pintzelak** eta paleta bat zeuden mahai txiki baten gainean. **Koro Navarro**

Eta pintura, Bon, pintura **pintzelez** egiten den literatura baino ez da. **Jon Alonso**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egun haien kolorea denboraren **pintzel**-puntan nola aldatu den ikusteak zer pentsatua eman dit. Pako Aristi

Begira egon ondoren, tontor berde edo arrosa bigun batean **pintzel** muturra sartuz. Anton Garikano

Egindako bidea, koskaz koska, harramazkaz harramazka, **pintzel**-arrasto bihurtzeraino. Juan Kruz Igerabide

Txoratu egiten nintzen ipurdi-masailetan jotzen zizkidan **pintzel**-kolpe moduko haiekin. Karlos Zabala

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dago argi-isuri globalik, ez argi sortarik, argi-**pintzel** guztiz mehe eta mugikor bat baizik. Josu Zabaleta

## 4 irud/hed

Politikaren ordua da, **pintzel** mehearekin lan egiten hasteko garaia. Berria - Harian

Ahoko **pintzelekin** senarraren plazerra marratzen dudan bitartean, hatza nire izter arteko ezpain zimurren pleguetan sartu dut. Jasone Osoro

## 5 **pintzel-ukitu** ik **pintzelkada**; **pintzelada**.

Zazpi hilabete haietan ongi ikusi nuen nola osabak aiurria, kemena eta indarra galtzen zituen, hariak eta ezereztuta gelditu zen arte, hondakin bihurtuta, denborak bizkor baino bizkorrago higatu eta zanpatu duen koadro bateko **pintzel-ukitu** arin bat bailitzan. Jon Muñoz

Begi horiek, **pintzel ukitu** arin batzuez sortutako begi horiek. Josu Zabaleta

Margolaritzan "**pintzel** ukitua" atzemateko, adibidez, edo argazki-pelikulan pikorra, esate baterako. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pintzela hartu** (8)

**pintzelik finenetako batez** (3)

## **pintzelada** (*26 agerraldi, 7 liburu eta 5 artikulutan*) **1 iz** pintzel-ukitua. ik **pintzelkada**.

Matissekien duen konplizitate nabarmena da kolorearen eta **pintzeladaren** erabilpen askean. Berria - Kultura

Inpresionista izan daiteke ene idazteko modua; **pintzeladak** emanaz noa eta **pintzelada** ezberdinek osatzen dute koadroa. Ana Urkiza

Koadroaren lehen **pintzeladak** margotu zituen Gabiriak, *Han goitiki itsasoa ikusten da* eleberriarren (Elkar) lehen klabeak idatzi zituen eleberrigileak. Berria - Kultura

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Pintzeladak** bortitzak ziren, bizkorrak eta desjosiak, protesta baten etengabeko seinaleak eta aiuruak balira bezala. Joan Mari Irigoien

Orain ez ziren **pintzelada** artezak, ez ziren marraz; kolore-zirkulua zen orain, edo izar bat. Unai Elorriaga

Zeren numero bakoitza izan baitaiteke zurrunbilo baten sorleku edo ustekabeko **pintzelada** batena. Joan Mari Irigoien

## **pintzelkada** (*31 agerraldi, 12 liburu eta 10 artikulutan*) **1 iz** pintzel-ukitua. ik **pintzelada**.

nire giza irudian nonahi barreiaturik neuzkan **pintzelkadak**, koloreekin probak egiteko besteak beste. Xabier Mendiguren Elizegi

Halako edo horrelako **pintzelkada**, lueza zein zabala gutxi-asko, asmatu-rikoi maisu-lanaren arabera. Joan Mari Lekuona

Orduan **pintzelkada** jo zuen margolariak, eta ipini zuen kolorea bere lekuan; eta, une batez, zurtuta geratu zen berak sortu zuen lan haren aurrean. Koro Navarro

Nire adiskidearen irudimen nahasiak osatzen zituen margolanetatik, dardara eragiten zidan lausotasuna eransten baitzuen **pintzelkada** bakoitzean, eta dardara are larriagoa, zergatia ez nekielako. Koro Navarro

Aste asko iragan, eta egiteko gutxi geratzen zenean, ez bazen **pintzelkada** bat ahoan eta tanta bat begian, sugarra lanpararen zuloan nola, hala dardaratu zen berriz damaren izpiritua. Koro Navarro

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Baita ongi margotu ere, **pintzelkada** laburrez, hiztegiek hain nekez azaltzen duten atsekabea. Imanol Zurutuza

**Pintzelkada** zail eta nahasia alde batera utzi, eta pintura askeagoa egiten hasi zen, naturalagoa. Berria - Kultura

**Pintzelkada** bakarra inporta zaio, **pintzelkada** bakoitza independentea da, oihalean ondoan duenarekin loturarik izango ez balu bezala jokatzeko du. Berria - Kultura

Niri, egun hartan, berdin zitzaidan Neptuno eta ninfaen artean gertatutakoa ez gogoratzea edo **pintzelkada** barrokoaren sekretua ez ezagutzea. Bernardo Atxaga

Baina kolorezko **pintzelkada** haien artean bazegoen zuk adierazten ez zenekien beste zerbait ere. Hasier Etxeberria

Cezanneren zentzuzko **pintzelkada** miresten zuen, baina kubisten aurkikuntzek liluratu zuten. Berria - Kultura

## 3 (hitz elkartuetan)

Irudiak zurrunbilotan higitzen ziren margo **pintzelkada** bortitz eta txundigarrien artean. Oskar Arana

Lehengusina gazteari lehenengoak bezala paratzeko agindu, eta olio-**pintzelkadak** ematen hasi zen oihalaren gainean. Iban Zaldúa

## **pintzelkatu**, pintzelka, pintzelkatzen du *ad* pintzelaz jo.

Ivy betileak **pintzelkatzen**. Joxe Austin Arrieta

## **pintzeltxo** *iz* pintzel txikia.

Sendagileak akuarelak margotzeko **pintzeltxo** bat atera zuen patrikatik. Josu Zabaleta

## **pinu** (*orobat piñu g.er.*) **1 iz** zuhaitz erretxinaduna, zur aski gogorra eta ona, orratz itxurako hosto berde iraunkorrak, eta lore ar eta emeak adar desberdinetan dituena, fruitutzat pinaburuak ematen dituena.

**Pinuak** platanoa eta gaztaina, lizarra eta akazia ordezkatu ditu hemendik gora. Iñigo Aranbarri

Hogeita bost metro luzeko **pinu** bat, adarrez oso jantzia, zortzi zaldi ondo sendoak tiraka zituela. Josu Zabaleta

Hala, Sanmarkeko mila urtetako pago zahar guztiak errotik moztu, eta **pinuak** aldatu zituen, *pinus insignis* hosto-ilunak, doluzko zapi bat bezala zabaldu zirenak lehenengo aldiz Liputzeko eskualdean. Joan Mari Irigoien

**Pinuak** bentaja duela, ez duela inor behar, aldatu eta kitto, bota arte. Pello Lizarralde

Gure osaba Bordele aldean ibili zen, **pinuak** botatzen. Edorta Jimenez

**Pinuen** adaburuak laino artean, kanpai-hotsa urrunago. Jose Morales

Igaro eta berrehun bat metrora pagadi txiki batek ordezkatu zituen **pinu** tenteak. Aitor Arana

Distira azkar haien argipean **pinu** itzelen multzo sakabanatuak ikusten ziren han-hemenka agertzen eta desagertzen. Karlos Zabala

Inguruan, alde batetik, aintziratoak zituen, eta bestetik **pinu** eta izai tanta ederrak. Josu Zabaleta

Sutearen ondorioz bost hektarea **pinu** eta arte erre ziren ostegunean Erreniegan. Berria - Euskal Herria

Altzifretik eta **pinutik** erretxina ateratzen den bezala, zedrotik, hain zuzen, zedro-olioa esaten koipea ateratzen da. Santiago Iruretagoiena

**Pinu** beltz: *Kuromatsu* (*Pinus thunbergii*). Ibon Uribarri

**Pinu** gorri: *Akamatsu* (*Pinus densiflora*). Ibon Uribarri

Haranetako nekazaritza uztearekin eta *insignis* **pinuaren** ezarpenarekin paisaia erabal aldatu da ekosistemaren kalterako. Berria - Euskal Herria

Eta **pinuzko** mahai bat, bi gizon eserita zeudena. Koro Navarro

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pinu** -erretxinaren usaina ekarri zuen aireak. Anjel Lertxundi

Suak kiskalitako **pinu** -enbor zaharrak. Jose Morales

**Pinu** egurra erre eta erre ari ziren galdarak eta haien paretek dar-dar egiten zuten lurrunaren presiopean. Karlos Zabala

Oposizioko burua **pinu** oholezko kutxan nahi duena. Berria - Euskal Herria

Nekazariak urrundik nabaritzen ei dute nola Panek bere buru erdi basatia jazten duen, **pinu** adarrak astinduz. Xabier Amuriza

**Pinu** -orri horien gainean gozatu zen Byron Teresaz. Oskar Arana

Pinua Jainkoaren zuhaitza denez gero, zezenak **pinu** -hostoak jaten baditu, zuri bihurtuko da. orobat pinaburu, orbel eta **pinu** -orrazt deseginez betetako bidexka ihintz-tantaz blai denari. Joan Mari Irigoien

Euri-tantek, bizirik jarraitu nahian, **pinu** -bizarrei eusten zieten. Anton Garikano

Hegan doaz verstak, hegan hurbiltzen zaizkizu merkatariak kibitketako gida-aulkietan eseririk, hegan doa basoa bidearen alde banatan, izei eta **pinu** ilara ilunekin. Jose Morales

Eta pago arteko bortxaketa horri sustengua eskainiz, **pinu** sail amaigabeak, berdeari marroia erantsiz, eta marroiari lehor kolore hitsaren fiabardura hori. Pako Aristi

Bidea zelai neurrigabeetan aurrera hedatzen zen batzuetan, begiari ikuspegi zabal irekia eskainiz, eta **pinu** oihan mugagabeen azpitik. Karlos Zabala

Tximistak jotako **pinu** basotxoa sutan zegoen oraindik. Karlos Zabala

Leguak eta leguak luze eta zabal dituzten **pinu** -landa bukatze-gabeak. Jokin Urain

Ocote: **pinu** -mota erretxintsu bat, zuziak egiteko baliagarria. Juan Garzia

- Haren atzetik, gurdi bat lau mutil gaizki jantziekin, **pinu** -landatzen ari zirela. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pinu maitea** (3)

**pinuzko mahai** (4)

## **pinu** (*orobat **piñu** g.er.*) **1** iz zuhaitz erretxinaduna, zur aski gogorra eta ona, orratz itxurako hosto berde iraunkorak, eta lore ar eta emeak adar desberdinetan dituena, fruitutzat pinaburuak ematen dituena.

**Pinuak** platanoa eta gaztaina, lizarra eta akazia ordezkatu ditu hemendik gora. Iñigo Aranbarri

Hogeita bost metro luzeko **pinu** bat, adarrez oso jantzia, zortzi zaldi ondo sendoak tiraka zituela. Josu Zabaleta

Hala, Sanmarkeko mila urtetako pago zahar guztiak errotik moztu, eta **pinuak** aldatu zituen, *pinus insignis* hosto-ilunak, doluzko zapi bat bezala zabaldu zirenak lehenengo aldiz Liputzeko eskualdean. Joan Mari Irigoien

**Pinuak** bentaja duela, ez duela inor behar, aldatu eta kitto, bota arte. Pello Lizarralde

Gure osaba Bordele aldean ibili zen, **pinuak** botatzen. Edorta Jimenez

**Pinuen** adaburuak laino artean, kanpai-hotsa urrunago. Jose Morales

Igaro eta berrehun bat metrora pagadi txiki batek ordezkatu zituen **pinu** tenteak. Aitor Arana

Distira azkar haien argipean **pinu** itzelen multzo sakabanatuak ikusten ziren han-hemenka agertzen eta desagertzen. Karlos Zabala

Inguruan, alde batetik, aintziratxoak zituen, eta bestetik **pinu** eta izai tantai ederrak. Josu Zabaleta

Sutearen ondorioz bost hektarea **pinu** eta arte erre ziren ostegunean Erreniegan. Berria - Euskal Herria

Altzifretik eta **pinutik** erretxina ateratzen den bezala, zedrotik, hain zuzen, zedro-olioa esaten zaion koipea ateratzen da. Santiago Iruretagoiena

**Pinu** beltz: *Kuromatsu* (*Pinus thunbergii*). Ibon Uribarri

**Pinu** gorri: *Akamatsu* (*Pinus densiflora*). Ibon Uribarri

Haranetako nekazaritza uztearekin eta *insignis* **pinuaren** ezarpenarekin paisaia erabal aldatu da ekosistemaren kalterako. Berria - Euskal Herria

Eta **pinuzko** mahai bat, bi gizon eserita zeudena. Koro Navarro

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pinu** -erretxinaren usaina ekarri zuen aireak. Anjel Lertxundi

Suak kiskalitako **pinu** -enbor zaharrak. Jose Morales

**Pinu** egurra erre eta erre ari ziren galdarak eta haien paretek dar-dar egiten zuten lurrunaren presiopean. Karlos Zabala

Oposizioko burua **pinu** oholezko kutxan nahi duena. Berria - Euskal Herria

Nekazariak urrundik nabaritzen ei dute nola Panek bere buru erdi basatia jazten duen, **pinu** adarrak astinduz. Xabier Amuriza

**Pinu** -orri horien gainean gozatu zen Byron Teresaz. Oskar Arana

Pinua Jainkoaren zuhaitza denez gero, zezenak **pinu** -hostoak jaten baditu, zuri bihurtuko da. orobat pinaburu, orbel eta **pinu** -orrazt deseginez betetako bidexka ihintz-tantaz blai denari. Joan Mari Irigoien

Euri-tantek, bizirik jarraitu nahian, **pinu** -bizarrei eusten zieten. Anton Garikano

Hegan doaz verstak, hegan hurbiltzen zaizkizu merkatariak kibitketako gida-aulkietan eseririk, hegan doa basoa bidearen alde banatan, izei eta **pinu** ilara ilunekin. Jose Morales

Eta pago arteko bortxaketa horri sustengua eskainiz, **pinu** sail amaigabeak, berdeari marroia erantsiz, eta marroiari lehor kolore hitsaren fiabardura hori. Pako Aristi

Bidea zelai neurrigabeetan aurrera hedatzen zen batzuetan, begiari ikuspegi zabal irekia eskainiz, eta **pinu** oihan mugagabeen azpitik. Karlos Zabala

Tximistak jotako **pinu** basotxoa sutan zegoen oraindik. Karlos Zabala

Leguak eta leguak luze eta zabal dituzten **pinu** -landa bukatze-gabeak. Jokin Urain

Ocote: **pinu** -mota erretxintsu bat, zuziak egiteko baliagarria. Juan Garzia

- Haren atzetik, gurdi bat lau mutil gaizki jantziekin, **pinu** -landatzen ari zirela. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pinu maitea** (3)

**pinuzko mahai** (4)

## **pinudi** (*orobat **pinadi** g.er. eta **pinadoi** g.er.*) **1** iz pinuz landaturiko lekua, pinu basoa.

Hara-hona ibiltzen zen ordoki latzean, alertzez eta urkiz beteriko sastraketan, **pinudietan**, lakioak eta segadak ipiniz, ehiza xeheari eskopetaz segika, ehiza larria noiz agertuko zelatan. Karlos Zabala

Ermilik gehiago ematen zuen zutain-txabola bat eta bista bakarra inguruko **pinudia** zen, eta pinu artetik hurbileko mendi bat, hura ere pinuz betea. **Xabier Mendiguren**  
Elizegi  
Txarrantxa hesi bat saltatu genuen eta, belardia lasterka gurutzatuta, **pinudian** sartu. **Jon Maia**  
**Pinudiak** mistralaren menpe; berriro. **Joxe Austin Arrieta**  
Urkidi bat eta **pinudi** bat zeuzkan ezker-eskuin, bi hego bailiran, ilunagoa bata eta argiagoa bestea. **Jose Morales**  
Gure auzotik **pinudirantz** ateratzen zen bidean ilaran zeuden txabola guztiak. **Jon Maia**  
Goraxeago **pinudien** berde mingotsa, eta azken zatian harkaitzen grisa nagusitzen da. **Pako Aristi**  
Baso itxiak inguratzen du hiru eta hiru sei erreiko asfalto tartea, eta lo dago pagadi, harizti eta **pinudizko** paisaia isiltasunean. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Oñatin, Urtigain inguruan, 10 hektara **pinudi** dira erre eta Azkoitian, Azkarate gainean, kasik hektara bat **pinudi**. **Herria**

## 2 (izenondoekin)

Orain bideak **pinudi** eder bat segitzen du eta, hantxe, mendiaren azken bizkarrek sator meta alimale batzuk dirudite, lerroz lerro eraikiak, ordokiak eremu osoa berdindu aitzin. **Piarres Aintziart**  
Iratzeen freskotasuna, haizearen fereka, **pinudi** hurbilaren xuxurla magikoa... **Alberto Ladron Arana**  
Alde batean, ez oso urrun, **pinudi** urdinxka baten isla iluna atzematen zen. **Jose Morales**  
Bere gelakoarena bezalako beste ehun edo mila leiho, denak barla edo patio berera begira, edo hiriaren periferia hartako **pinudi** sastar batera, gehienez ere. **Hasier Etxeberria**  
Noizean behin, ibar zabal bat, herri ketsu baten kokaleku; gero, **pinudi** sarriak, sugar itsugarriak islatzen. **Karlos Zabala**  
Gari soro soilduak eta **pinudi** urriak tartekatzen ziren autobideko bi aldeetara. **Aingeru Epaltza**

## 3 (hitz elkartuetan)

**Pinudi** bazterreko zangan topatu duzu? **Joseba Sarrionandia**  
Norris Point aldeko Baya Ederrak izai eta **pinudi** usaina du gauaz. **Aurelia Arkotxa**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**pinudiak mistralaren menpe** (4)

## pinuditu *izond* pinudi bihurtua.

Baso iluneko sarobe izerdituak, larreko artzaitxabola isilduak, eguterako ardi'borda itzalduak, udal mintegi antzutuak, belasoro zahartuak, barruti zakarrak hartuak, alor **pinudituak**, atari lokaztuak, usategi mututuak, ermita lotsatuak, etxe desesperatuak, burniola sorginduak, zubi alfertuak, gaztelu erotuak... **Patziku Perurena**

## pinupe *iz* pinudiaren azpialdea.

Behin, **pinupe** batean, dantzaldi bat muntatua izanki. **Janbattitt Dirassar**  
Angelun nenbilen, **pinupe** nasai batean. **Janbattitt Dirassar**  
Hori zitzaidan gertatu Angeluko **pinupean**. **Janbattitt Dirassar**

## pinutegi *iz* pinudia.

Hamar edo hamabi gizon-emakume laiak hartu eta soro ertzean ilaran jarrita, ahal bazen San Martin aurretik, lurak azpikoz gora jartzen, eta horren guztiaren erdian ehiztarien tinpi-tanpa hotsa, arborotan zakurrek altxatutako zozoen atezua, egunsentian **pinutegietara** itzultzeko beren hegal txikiz altxatzen diren oilagorren zelata. **Pako Aristi**

## pio 1 *pio-pioka adlag* txio-txioka.

Ahotsetik beretik edana ematen zuen geltokiburuak ateen herstea manatu bezain laster, **pio-pioka** hasi zen behialako emaztea, senarra utzirik ezagutu zituen amanteen zerrenda eskainiz. **Itxaro Borda**

## pioi ik peoi.

## piojo *iz* tabardoa.

Eta han nago ni ere, **piojo** berde batez jantzita. **Iban Zaldua**  
**Piojoaren** papar-hegalean itsatsi nuen, eta Batzokitik irten nintzen: poza eta eszitazio olatu bat somatu nuen nire baitan, aspaldian ez bezala. **Iban Zaldua**

## piolet *iz* mendizaleek, elurretan edo izotzetan mugimenduak segurtatzeko, erabili ohi duten tresna.

Gero etxe guztian barrera metal-zalaparta izugarria aditzen zen: aita kranpoi, iltze eta **pioleten** bila. **Fernando Rey**  
Ozta-ozta atera nuen eskuineko besoa zurrunbilo mugikor hartatik, eta, txiripaz eskuratu berria nuen **pioleta** masa jelatuan indarka tinkatuz. **Josetxo Azkona**  
**Pioletaren** punta zorrotzak elur gogortua urratzean egiten duena, KRAS-KRAS soinu telurikoa. **Josetxo Azkona**  
Urrats bakoitzean, hatsa ahalik eta sakonen hartu eta, **pioletean** nahiz makilan bermatuz, eginahal gaitza egin behar nuen lñaki bistatik ez galtzeko. **Xabier Montoia**  
Zertarako nahi duzu **piolet** zoragarri bat erabiltzen ez baldin badakizu? **Berria - Euskal Herria**  
**Pioleta** pasioaz, pasio hutsez erabiltzen duelako hipotesia zabaldu da. **Jon Alonso**  
**Pioletak**, biktimen buruan aurkitzen denean ere, ez du sekula hatz-markarik. **Jon Alonso**  
**Pioletaren** aurreko gako metalikoak burezurra erdibitzen zion. **Jon Alonso**

## pioletadun *izond*

Mendizalearen kasua, **Pioletadun** Hiltzailearen kasua beste izenez, garrantzizkoa da, baita ere, haria aurrera eramateko balioko digulako. **Jon Alonso**  
Pioleta erabiltze honek ekarri dio ezizena berrero ankerrari, noski: Mendizalea, edo eta, beste batzuek esaten zuten bezala, **Pioletadun** Hiltzailea. **Jon Alonso**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**



## pioletakada iz piolet ukaldia.

Begira, hemendik aurrera ustekabe txiki bat daukat gordeta irakurlearentzat: gertatzen den lehen gauza da P.P. Carbayo bera dela **pioletakada** buruan duela agertzen dena, hiliik. Jon Alonso

## pionero (orobat pioner) 1 iz aitzindaria, aurrendaria.

Horra telefono modernoan **pioneroa**, pentsatu du Yolok, artean zaharra erabiltzen ikasi gabe; eta orriak pasatzera darama lerrotan zabaltzen ari zaien mundu berriak. Pako Aristi

### 2 (izenondo gisa)

Ezeizako familia **"pionerak"** 27 ziren eta hauetarik 16 euskaldunak. Herria

27 familia **pionera** horietan Halbach familia, *Los Remedios* campoaen nausia barne zen. Herria

## piorrea iz zorne isuria, bereziki hortz oietakoa.

Zaindu ezak **piorrea**, bota zion Hermannek atzetik, tonu ilun batez. Anjel Lertxundi

Estasiatu egin nintzen Kapitulinaren alitosi ahaztezinean, Melezioren alopezia berdingabea, Flumenzioren **piorrea** maitagarrian. Karlos Linazasoro

## pipa 1 iz tabakoa eta kidekoak erretzeko erabiltzen den tresna, erretzekoa jartzeko ontzixka batez eta kea ahoratzeko tutu batez osatua.

**Pipa** sumendi gorri txiki bat zen, zupada bakoitzean txinpart indargeak sortzen zituen. Lopez de Arana

**Pipa** hortz artean daukala egiten dit berba. Koldo Izagirre

Borreroak ferratzaileari deitu zion, buztinezko **pipa** beti ere ezpain artean. Anjel Lertxundi

Pavese mahai atzean egoten zen, **pipa** ahoan. Fernando Rey

Lasai zirudien, eskuin hanka ezkerrean gainean jarria, eskuan **pipa** bat tabako holandarrez betea. Felipe Juaristi

Isilik gelditu da, **pipako** tabakoa txotx bategaz harrotzen. Koldo Izagirre

Borreroaren **pipako** kea bihurritu zitzaion ezterrarian eta eztulka hasi zen ferratzailea. Anjel Lertxundi

**Piparako** belar pixka bat baldin baduk, gure bedeinkapena izango duk. Agustin Otxoa

Inguru guztia zikintzen zuen **piparen** errautsaz, inolako eskrupulorik gabe. Jose Morales

Bakearen **pipa** piztu orduko itzali, eta aizkorak lurpetik ateratzekotan dira, susmoa, Euskal Herriko alderdi eta hautagaitza abertzaleak. Berria - Euskal Herria

Aulki batean jarrita, gizon ile zuri-luze bat pafa-pafa, **pipatik** erre eta, inoiz behinka ttu eta ttu, listua botatzen zion suari. Pablo Sastre

Komedianteak **pipan** erretzen zituen Olivierrek ekarritako tabako izpiak. Harkaitz Cano

Batzuetan **pipan** erretzen zuen arratsalde guztian, isil-isilik. Fernando Rey

Egunkariz egindako barkutxo bat zeraman buruan, **pipan** erretzen ari zen eta armairua zuriz pintatzen ziharduen. Juan Garzia

Liburutegiaren fatxadaren kontra jarririk **pipari** tiratzen diot, itzaltzekotan dago eta. Monika Etxebarria

Emakume zahartoa **pipari** zupaka ari zen, itzalita zeukala ohartu gabe. Iñaki Mendiguren

Estankoa erositako tabako espainola, kontrabandoan lortutako holandarra **piparakoa**, eta berak xehatutako beste bat ustez sendagaiak ziren belar izpiak ere tartean zituen. Josu Landa

### 2 (aditzaren objektu gisa)

Tea eta **pipa** eskatu ditugu, eta Khomeiniren argazkiaren azpian jesarri gara. Jon Arretxe

Aulkian eseri, **pipa** hustu eta bete eta piztu egin zuen. Lopez de Arana

Nire **pipa** izekitzeko gogoia nuen, baina desatsegina izanzen zen haien arreta neureganatzea pospoloa piztean. Monika Etxebarria

Zamarienzako lepokoak, **pipa** pizteko kandelak, lepozapiak haurtzainarentzat. Jose Morales

Errabinoak **pipa** pizten zuen, behin tiratu, eta utzi egiten zuen. Koro Navarro

"Bai, ez legoke txarto" erantzun ohi zion berak, **pipa** erretzeari utzi gabe. Jose Morales

Diotenez, **pipa** erretzea osasunaren kaltegarri da. Jose Morales

Erantzun ordez, eginahalean ekin zion **pipa** xurgatzeari. Jose Morales

**Pipa** amatatu zaio oster. Koldo Izagirre

Alanbre batez **pipa** garbitzen. Koro Navarro

### 3 (izenondo eta izenlagunekin)

-Egon hadi segundo erdi batean, **pipa** zaharra bete nahi diat. Koro Navarro

Piarresak bere **pipa** motza tabakoz bete, ezpainen artean eta xokoan dilindan ezarri zuen. Pablo Sastre

Mikel Strogoffek, esku bat sakelari eta gereziendozko **pipa** luze bat beste eskuan, gizonik arduragabeena zela zirudien. Karlos Zabala

**Pipa** erraldoi batetik erretzen zuten batzuek, aho batetik bestera eramanez. Xabier Aranburu

Portzelanazko **pipa** luze-luze bat, eskutokia zilarrez landua zuen ezpata damaskinatu bat. Juan Garzia

Bere **pipa** kuttunenari ke bafadak ateraraziz. Xabier Olarra

**Pipa** itzali bati eusten zion esku luzean. Alberto Ladron Arana

### 4 (neurri gisa)

Hala, begitartea sor eta gor, zirri baten gainean eseri, eta **pipa** bat tabako erre zuen. Juan Garzia

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere hatsa sentitzen nuen musuan, epela eta **pipa** tabakoaren usainekoa. Bernardo Atxaga

Bere zigarroaren belarrak ezti usaina botatzen zuen, **pipa** -tabakoa bailitzan. Bernardo Atxaga

Ipuina baitabil petrikiloari agindu ziola beheko bi letaginak atera ziezazkion, hala erosoago gobernatu ahal izateko **pipa** -tutua. Juan Garzia

**Pipa** -kealdi batek eraman zituen auzo haiek berek sasoiko gizon bat deabruaren morrotzat jo, eta [...] urka-bilurretik zintzilikatzer. Anjel Lertxundi

Latarik gabe, jauna, baina **pipa** -zupakada xuabe guztien kalitatea ezin hobea da... socony. Lopez de Arana

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Te-etxe arrunta zen, ohi baino txikixeagoa, ur-**pipaz** betea. Jon Arretxe

Txoko baten jesarri, bi kikarakada eta ur-**pipa** bat eskatu, eta berriketan jarraitu dugu. Jon Arretxe

Gauza batek zeharo harritu ninduen: emakumeak ur-**pipatik** erretzen ikusteak. Jon Arretxe

Egunez ere han inguruan zebiltzan, bake-**pipa** erretzen eta gozokiak jateko gogoz. Julen Gabiria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere pipa bete** (3); **buztinezko pipa** (6)

**pipa ahoan** (6); **pipa ahotik kendu** (3); **pipa atera** (4); **pipa bete** (4); **pipa bete zuen** (3); **pipa erre** (6); **pipa erretzea** (3); **pipa erretzeari** (3); **pipa erretzen** (25); **pipa erretzen ari** (5); **pipa eskuan** (4); **pipa hortz** (3); **pipa hustu** (3); **pipa luze** (5); **pipa luze bat** (4); **pipa pizten** (5); **pipa piztu** (10); **pipa piztu eta** (3); **pipa piztu zuen** (3)

**pipan erretzen** (3)

**piparako belarrik** (3)

## pipada iz pipaldia.

Beste **pipada** bat jo dio zigarroari, eta bi atzamarrekin palanka eginez urrutira bota du. Jokin Muñoz

Beste **pipada** bat eman dio zigarroari. Jokin Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pipada bat jo** (3)

## pipadaka adlag pipadak joz.

-Alde egiten dutenean sartuko gaituk! -tematu da, Ducadosa **pipadaka** bukatuz. Jokin Muñoz

## pipadun 1 izond pipa duena.

-Lotu horiek! -esan zuen Luxiak, baserritar **pipadunak**. Koro Navarro

Aita **Pipadunak** -hala esaten omen zieten besteek ikur hori zeramatenei- Aita Zaindarien artean, maila hierarkiko baxuenekoak omen ziren. Jon Alonso

Mugi zedila adierazten aritu zitzaion denbora guztian **pipaduna**, harik eta emakumea epailearen ondoan eta urka-bilurren aurrez aurre gelditu zen arte. Anjel Lertxundi

### • 2 izlag

**Pipadun** gizonak keinuak egin zizkion eskuaz, oholntza gainera igo zedin. Anjel Lertxundi

-Mate -esan zuen **pipadun** gizonak-. Lopez de Arana

## pipakada iz pipa baten edukia.

Sosegu horrek tentatu ninduen; leku hartan **pipakada** bat erretzea gauza ederra izango zela iruditu zitzaidan. Josu Zabaleta

## pipaldi iz pipa-zurgaldia.

Pixka bat pipatzea deliberatu nuen, arreata bestetaratzeko; hala ere ordea, ni pipa erretzaile ezagutua izanagatik, ezin izan nuen, bigarren **pipaldirako** zorabioak eman zidan, eta utzi egin nuen. Josu Zabaleta

## pipaontzi iz piparen ontzixka.

**Pipaontzi** hutsentzako apalak zeuden -Durant jaunak puruak erretzen baitzituen-, paper gorrian iltzez josi eta sarri-sarri tartekatuta. Mirentxu Larrañaga

## pipapuru iz

Irungo Mayoek egin zuten aparri sekulakoa azaltzen digu: eper bat, bi tortoilo, iru oילו, lau antzara, bost pirilo, sei zikiro, zazpi zezen, zortzi idi, bederatzita basatxerri, hamar karga ardan gorri, hamaika karga ardan zuri, hamabi kaja **pipapuru** ... Patziku Perurena

## piparatu, pirara, piparatzen du ad pipan sartu.

**Piparatutako** tabako harroa sakatu eta beheko sutik hartutako ziriarekin piztu zuen. Joxemari Urteaga

## pipari iz pipatzen duena, erretzailea.

Esnetegiairen saihetsean, atzeman buxka eta egur ezpalak metatzen zituzten, **pipariak** briketa brauki sakelatik ateratzen zuela, ingurua itxura zezakeen hondarki puloari su emateko gisan. Itxaro Borda

## piparraldi ik piperraldi.

## pipartsu ik pipertsu.

## pipartu ik pipertu.

## pipartzale ik pipertzale.

## pipatu, pipa(tu), pipatzen du ad tabakoa edo kidekoak erre.

Zigarro bat piztu eta osorik **pipatu** arte pauso ezei eragin. **Aingeru Epaltza**

Tartean hamabi zigarro **pipatuak** nituen. **Aingeru Epaltza**

**Pipatzeari** lotu zaizkio soldaduak, gosaldu ondoko zigarreta gozo eta berantetsia. **Xabier Montoia**

Erretzaile amorratua da Nagoreko apaiza, eta zigarro bat bestearen atzetik **pipatzen** du Itoitzen eta Artozkin bizitakoaz eta ikusitakoaz mintzatzen den bitartean. **Edurne Elizondo**

Gaua portu zaharrean eman nuen, tabakoa **pipatzen** eta gogoetan. **Edorta Jimenez**

Egidazu ene tabakotik **pipatzeko** ohorea. **Koldo Izagirre**

Kazetari horrek zelaiko belarra ez ote zuen **pipatu**? **Ramuntxo Etxeberri**

Dueson ez genuen artorik, eta bizarra **pipatu** behar. **Koldo Izagirre**

Martinez ez du erretzen, egia esan gazte hauetatik inork ez du **pipatzen**, yogurrak hartzen dituzte, yoga egiten dute. **Koldo Izagirre**

**Pipatzea** debekatua zen eta adiskide horietarik bat harrapatu zuten. **Marzel Etxehandi**

Ordu laurdena ere ez zuen auto barnean **pipatzea** debekatu zidala. **Aingeru Epaltza**

-Bestela ere, amasa hartze hutsarekin, **pipatuko** diagu nahikoa. **Iñaki Iñurrieta**

- Andreak sakon **pipatu** du zigarroa. **Alberto Barandiaren**

## pipatzaile iz pipatzen duen pertsona. ik erretzaile.

Isabelle sofán bere baitara kizkurto zen, **pipatzailearen** sorbalda bere sorbaldarekin ukitzeraino. **Harkaitz Cano**

**Pipatzaileek** zigarretez mukurutu dituzte, ez baitakizue nora eramanen zaituzteten, ez eta zertarako edo noiz itzuliko zareten. **Xabier Montoia**

Egia izango zen bera ez zela puru haien mailako **pipatzailea**? **Jon Alonso**

## piper 1 iz tomatearen familiako baratze landarea, lantza itxurako hostoak eta lore zuri txikiak dituena, eta fruituagatik lantzen dena (*Capsicum annuum*). ik beherago 11.

Azak landa genitzake, **piperrak** ... lantzea, neure kontu. baratzean, **piperran** gaineko lur gogorrean aitzurrean ari zela. **Juan Kruz Igerabide**

Laurogei biografia labur egin ordez hogeita bost -ziento laurdena, **piperrak** edo tomateak aldatzen diren bezala- biografia "hobetu" egitea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 2 landare horren fruitua, berdea edo gorria, gehienetan luzarana, barrua hutsa eta haziz josia duena, sukaldaritzan janari edo ongari gisa erabiltzen dena.

Arrautza frijituak, patata eta **piperrekin**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Arrainik ez, beraz; haragi egosia tomate eta **piperrekin**. **Inazio Mujika Iraola**

Aza hartiz osaturiko janaria, gatza, **piper**, jenjibre eta halakoekin ondua. **Juan Kruz Igerabide**

Vesubioren tamainako *steak tartarea* jan nuen, alboko zizka-mizka ugariz: kaparrak, tipulak, belarrak, **piperrak**... **Jesus Mari Mendizabal**

Plater bat ilar min, **piper** eta ozpinez atondurik. **Irene Aldasoro**

Gainera, bidean zehar, hainbat negozio egin nituen **piper**, perla eta aloe egurrekin. **Patxi Zubizarreta**

**Piperrak** lehortzen ipintzera teiltatura igo nintzenezan. **Juan Kruz Igerabide**

**Piperrak** umelduta-edo egongo ziren, agian. **Fernando Morillo**

Gainera, bidean zehar, hainbat negozio egin nituen **piper**, perla eta aloe egurrekin, eta oraingoan ere egundoko dirutzarekin itzuli nintzen etxera. **Patxi Zubizarreta**

## 3 (izenondoeekin)

Pentsatu zuen, hala, Juani gutxi kostako zitzaiola oilasko erre bat ekartzea, [...] eta patata frijituekin eta **piper** gorriekin laguntzen bazuen hobea. **Bernardo Atxaga**

Espeletako **piper** gorri sorta. **Berria - Harian**

Bakailaoa, **piper** txorizeroak eta ardoak. **Pablo Sastre**

Hasieran kroketak eta **piper** berdeak; ondotik, Martinek eta biok haragia eta Xabik arraina. **Xabier Etxabe**

Baserriko arrautza benetakoak, zortzi urtez larrean hazitako idia, azalore eta **piper** usaintsu bildu berriak... **Edorta Agirre**

Kozina-mahaira Espeletako **piper** gorri errautsa eta zoko batean neuzkan Ventoux maldako gozagarriak atera nituen. **Itxaro Borda**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxeak zaharrak dira, galeria eta miradore belztuekin, eta arropa lehortzen jarria, baratxuri- eta **piper**-kordak ageri dira haietan zintzilik. **Koro Navarro**

Udaleko langileak ere algaraka hasi ziren, beren solomo eta **piper** ogitartekoak ahotik urrundu gabe. **Aingeru Epaltza**

Bi **piper** pote daude hozkailu gainean. **Eider Rodríguez**

*ik piperpoto.*

Etexera bidean harategian sartu zen, oilasko paparrak eta **piper** lata bat erostera. **Unai Iturriaga**

Mahaian jarri zituen oilasko papar eta **piper** platerak. **Unai Iturriaga**

153.000 kilo tomate saldu ziren iaz eta 1.138.094 Gernikako **Piper** dozena. **Berria - Ekonomia**

Ez dakit nik hain erraz ulertuko ote zuten elkar **piper** saltzaileek eta Picasso aitzinatu haiek. **Pello Salaburu**

Aukerarik duten bitartean apurkak izan arren borrokatu beharra dute **piper** saltzaileek. **Berria - Kirola**

## 5 irud/hed

Odolkiek bezala jolas hark ere bere **piperra** bazuela-eta. **Joxemari Urteaga**

Ipuin haietako batean, anai Jaxintorekin izandako anekdota hura idatzi nuen -tiro parabolikoarena, alegia-, baina **piper** eta gatz askorekin. **Joan Mari Irigoien**

Eskolatik zetozen bertsolariak ez omen zuten ez **piper** ez gatzik. **Andoni Egaña**

Kalean dagoela giroa, kalean dagoela biziari **piperra** eta gatza ematen diona. **Jon Arretxe**

Hizketa-gai bikainak haiek guztiak solasaldi inuxente eta itxuraz tekniko bati gatz eta **piper** pixka bat jartzeko, eta, hala ere, neskek kasurik ez hari. **Karlos Zabala**

Gatz eta **piper** handiko grazia bat inprobisatuz, bertsolari batek egingo zukeen modu aparteko berean. **Karlos Linazasoro**

Entzuten den hizkerak, anitzetan, ez du ez gatzik ez **piperrik**, indargabea da eta ñabardurak falta zaizkio. **Pello Salaburu**

**Piper** mingia zen, geure buruaz galdera bi egiteko gauza ez ginenontzat. **Anjel Lertxundi**

Italiako idazleek berebiziko gatz, ozpin eta **piperra** ateratzen jakin dute dialektoen erabilera literarioari. **Anjel Lertxundi**

**Piper**, gatz eta berakatz pixka bat ematen diote bildumari. **Gotzon Garate**

Marcus Brownek jarri zion **piper** pixka bat partidari, 27 puntu lortuta, eta horri esker irabazi zuen CSKAK. **Berria - Kirola**

Jakintsu baten ikerketa guztiak grazia eta **piperrazko** esaldi batez zapuzten zirela. **Josu Zabaleta**

## 6 irud/hed (izenondo gisa)

Itxura patxadatsuaren justu aurkakoa zuen hitz egiteko modua: larderiatsua, **piperra**. **Anjel Lertxundi**

-Ez zakinat, Ada, ez zakinat -esan nion modu **piperrean** -, baina nahiago dinat erreparo hitza lotsa baino. **Anjel Lertxundi**

Bata, gotorturik, lanbidearen arriskuez eta erakutsi beharraz mintzo zen; bestea, **piperrago**, zuhurtziaz, esanez begiratu gabe aritzeagatik, gehiegi direla okerrak prentsan. **Iñigo Aranbarri**

- Bertzenaz ezin taldekideak berriz ere **piper** utzi. **Aingeru Epaltza**

## 7 piper bat, bost piper, zazpi piperezer ez.

etorkizunerako amets-mordoa besterik ez dute, baina nahikoa iruditzen zaie hori, nonbait, beren burua horren arranditsu agertzeko, **piper bat** ardura dielarik, gainera, aurrekook munduan dagoeneko egina dugunak. **Joxe Austin Arrieta**

Bakar-bakarrik dakit irrikaz itxaroten dudala gaur ere Rubenen bisita eta **bost piper** axola zaidala besteek zer esango ote duten. **Patxi Zubizarreta**

Ardoak ez, baina albisteak masailgorritu duela pentsatu du, baina **bost piper** axola diola irratitik entzun berri duen albisteak, eta horrek inondik ere ez diola gaua hondatuko.

**Patxi Zubizarreta**

Euskal Herria ez zait **zazpi piper** inporta, bost axola zait independentzia lortzen duen ala ez. **Mikel Hernandez Abaitua**

## 8 piper bete

Barra gaineko pintxo eta kazuelatxo hondarrak -lizuntzera egindako **piper beteren** bat, bokarta oliotsu batzuk, bezero aunitzen joan-etorri ezaxolak ikusia zen tortilla puska-gehitu zitzaizkion gure mahai eskasari, pinta bana zerbeza lagun zutela. **Aingeru Epaltza**

Egun haietan janari denda zabaldu zuten kubo handiaren behean, bakailaoa pil-pilean eta **piper beteak** saltzen dituen. **Ramon Saizarbitoria**

## 9 piper egin

Eskolapioetan zorrotz begiratzen zuten klasea nork hutsegiten zuen, ez zen batere ohikoa **piper egitea**, are gutxiago gu bezalako ikasle onek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ernie McMillanek esan zidan Hermioneke inoiz ez duela **piper egin** Muggle Ikasketen eskolan. **Iñaki Mendiguren**

Horrek sukarrak apur bat ematen zidan, baina behin ere ez nintzen baliatu horretaz eskolatik **piper egiteko**. **Eskarne Mujika**

Bikiek aitzakia bilatu behar izan dute bertso-eskolatik **piper egiteko**. **Xabier Etxabe**

Eskolara **piper eginiko** umeak pederasta sadiko bat aurkitzen du. **Markos Zapiain**

-Bada Lizarra-Garaziko filosofiatik edota Udalbiltzako praxitik, lehendakariak prozesu hartatik guztitik zer ikasi duen galdetzen duenik, ez ote duen **piper** gehiegi egin han eman izan ziren eskoletara. **Iñigo Aranbarri**

## 10 piper egun piper egiten den eguna.

Eskolako porrota, ikastetxeko **piper** egunak, bata bestearen ondoan etorri ziren Henao kaleko etxera. **Javi Cillero**

## 11 piper hauts ik piperrauts.

## 11 piper landare

**Piper**-landare bat bezala bana diezadala garezurra. **Joxan Eloseei**

## 12 piper min ik piperrin.

## 13 piper opil

"Ez al zen **piper** -opilik egiten zuenik?", galdetu dio aita Estanisek samurtasunez. **Pako Aristi**

## 14 piper poto ik piperpoto.

## 15 piper txorizero piper mota idortua, ur epeletan jarri eta mamia ateratzen zaiona.

Etxera joan eta ortuan hartutako letxuga, tomate eta **piper txorizeroekin** afaria momentuan prestatu. **Ana Urkiza**

Bakailaoa, **piper txorizeroak** eta ardoak. **Pablo Sastre**

## 16 piperrik (ezezko esaldietan) ezertxo ere ez.

**Piperrik** ulertu ez arren, nire jabearen gaitasun liluratzailaren menpean jausi zen. **Jon Arretxe**

Zu ere konturatzen zinen ez nuela **piperrik** ere ententitu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Pisukidearen azalpen bitxiak adi-adi entzun genituen, baina ez genion **piperrik** ere sinetsi. **Jon Arretxe**

Kontu honek ez du **piperrik** balio, horra zergatik haserretu naizen hainbeste! **Jose Morales**

Antje ikusteko joan nintzen hara, bere aitak ez zidan **piperrik** ere axola. **Fernando Rey**

Haiei **piperrik** ez jake inporta nor dan errudun eta nor ez. **Iñaki Mendiguren**

Zerbait itzali zen nire barrenean eta, harrezkero, ez zidan niri ezerk **piperrik** inporta. **Jesus Mari Mendizabal**

Idatzitakoak ez zion **piperrik** esaten, eta begiratu ere ez zuen egin hara. **Anton Garikano**

Gero dena ilun, isilpean, eta ez nuen **piperrik** ere ikusten. **Fernando Rey**

-Baina aitak, kasu **piperrik** ere ez. **Jokin Muñoz**

-Ez nuen **piperrostiarik** ikusten. **Joxean Sagatzizabal**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bost piper axola** (4); **eskolan piper egiten** (3); **ezpeletako piper** (3); **gatz eta piper** (12); **herr piper** (5); **piper berdeak** (4); **piper egin** (3); **piper egiteko** (4); **piper egiten** (6); **piper gorri** (4); **piper pixka bat** (3)

**gatza eta piperra** (18)

**kaliforniako piperrak** (3)

**patata eta piperrakin** (4)

**ez du piperrik** (4); **piperrik balio** (6); **piperrik ere axola** (3); **piperrik ere ez** (5); **piperrik ez** (4); **piperrik inporta** (3); **piperrik ulertu** (3); **piperrik ulertzen** (4)

## piperada ik piperrada.

## piperbeltz (orobat piper beltz g.er. piper beltz g.er.) 1 iz tropikoetako lurraldeetan hazten den zuhaixka igokaria (Piper nigrum).

Ez intzentsu-zuhaitzek eta ez **piperbeltzak** ez lituzkete beren baiak emango, ezta mirrak bere bolatxoak ere. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 landare horren fruituetatik ateratzen den hauts beltza, bizigarri gisa erabiltzen dena.

Intxaur muskatua, iltzea, **piperbeltzak** eta beste espeziak paraturik zeuden lerro-lerro. **Karlos Zabala**

**Piperbeltza**, ozpina eta gatza gehigarri ala gozagarriak dira? **Edorta Agirre**

Ongizatearen iturri den aldetik, marihuana, kokaina eta antzeko klasiko ohikoak aurki (diru-bide dela ikusi bezain laster) legeztatuko dira herrialde hauetan, **piperbeltza**, tabakoa eta alkohola legeztatutak dauden bezala. **Edorta Agirre**

Katilu bat arroz egosi, katilu bat babarrun beltz egosi, tomate gordin zatitxoak erantsi eta tipulin txikitarekin, **piperbeltzarekin**, olioarekin eta gatzarekin maneatu. **Joseba Sarrionandia**

Ezaguna da maiordomoaren eta sukaldariaren esaera: "Ekatzu **piperbeltza**, eta autsi gurina". **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 3 (hitz elkartuetan)

Pepinilo, piper, meloi-azal eta piperminez beteriko ontziek **piperbeltz**-usain hezea gorantz hedatzen zuten kiribilka. **Lopez de Arana**

Galiziarren tabernak beteta daude, Celta de Vigotik datorren olagarro eta **piper beltz** usaina har dezakeen irudipena dauka Haritzek. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 4 (erkaketetan)

"Bale" hitza, **piper beltza** bezala hedatzen ari zaigū gazteen artean. **Herria**

## piperdun 1 *izond* piperra duena.

Huna janariak: salda - moleta **piperduna** - oiloa irrizarekin - entsalada - gasna - sagar pastiza - arno eta kafe nahikoa. **Herria**

### 2 irud/hed

Koro irakasleak [...] gehien bat Pablo tentatzeko erabiltzen zuen mingain **piperduna**, baina inor ez zegoen erabat salbu. **Joxean Sagatzizabal**

Kontua da euskaraz irakurtzen ez duen euskaldunak ezin duela liburu hau baztertu, gatz eta **piperdun** gogoeta alimalea ("ona filma; liburuaren aldean, hala ere, galdu egiten du") patxadaz botako badu. **Markos Zapiain**

## pipermin (*orobat piper min*) 1 iz piper mota txikia, luzarana eta mina.

Pepinilo, piper, meloi-azal eta **piperminez** beteriko ontziek piperbeltz-usain hezea gorantz hedatzen zuten kiribilka. Sukalde bazterretik esku bakar batez aulki bat hartu eta ageriko esfortzurik gabe haren gainean zutituz, arasa garai batean arakatu zuen, **pipermin** idor bat aurkitu arte. **Lopez de Arana**

Hainbesterekin uhalei heldu eta tiraka hasi zen, astoak ez zuen harekin joan nahi; **piper** min bat jartzeko ipurdian, esan zuen Txemiñek. **Pablo Sastre**

Maite dugu mina, hala dirudi, baina ez nonbait edozein min klase: ardo min edo minduarena ez; **piper** minarena bai. **Iñaki Segurola**

Eta Kaliforniako piperrak ere ez ziren, oraingoan, hain **piperminak**; hain gorriak ere ez. **Berria - Kultura**

### 2 irud/hed

Anak eginen zion elkarrizketa gezaz harata, aise ere **pipermin** biziagoko erreportaiaren soslaiak marrazten hasi zitzaizkidan buru barnean. **Aingeru Epaltza**

Infernuko **piperminak** zirikaturik ari den apaiza atleta bat da: antzerkilari eta istorio kontalarri izateaz gain, abeslaria eta dantzaria ere bada. **Harkaitz Cano**

-Exortzistarenaren aldean **piperminik** ez dik -zauri gainean piko. **Aingeru Epaltza**

Haatik, Juanek beste **pipermin** bat ematen dio legendaren gatz-ozpinduari; itsasadarra igaro baino lehen abadeek sotanei su eman eta su horretan txuletak erre ei zituzten. **Edorta Jimenez**

Gauza aitorrezinak ikasten zituen batez ere andre dohakabe haien ahotik, mihi gaiztoek kontu likitsak zekartzaten plazara goiko logela ilunetatik, beheko atezaindegi beltzetatik, eta **pipermin** punttu bat jartzen zioten neskazahararen jakin goseari. **Karlos Zabala**

### 3 piperbeltza.

Nonahi azafraia, piper-hautsa, kanela, **pipermina**. **Koldo Izagirre**

Begiak erretzen eta eztarriak lehertzen zituen ur eta **piperminezko** euri artean iritsi zen. **Hasier Etxeberria**

## pipermindu *izond* ozpindua, erresumindua.

Delako ahots **piperminduak** nire izena galdatu -exijitu- zuelarik ere, ohikeria nazkante bati egotzi nion, bertze deusi baino areago. **Aingeru Epaltza**

## piperminitsu *izond* pipertsua.

Noski, bazaudek gauza **piperminitsuak** Parisen. **Irene Aldasoro**

## pipermorro (*orobat piper morro*) iz piper mota lodia.

Mutilak **pipermorro** bat erdi janda zeukan esku batean, eta zapata-pare bat bestean. **Anton Garikano**

**Piper morroaren** esentziazko ozpin-lurrinetan beratutako hegalezdedun carpaccioa. **Edorta Agirre**

## piperpoto (*orobat piper poto*) 1 iz piperrez beteriko kontserba-ontzia.

Aitari ikusitako **piper** potoaren antzeko bat da, latorrizkoa, etiketarik gabea. **Javi Cillero**

Makina bat buelta emandakoa naiz, arta-soroaren inguruan, **piperpoto** batean dozenardi bat hartxintxa sartu, potoari muturra zanpatu, eta artez hura astinduz, hartxintxek ateratako hotsez xori goseak uxatzen. **Pello Zabala**

### 2 *adkor* espainiar bandera hori-gorria.

Gauza bat ez dinat ulertzen: zergatik bidali dizkinan berrogei ikurrin eta ez berrogei **piperpoto** ... **Joan Mari Irigoien**

Horregatik egin dau deiadar Gora Euskadi **piperpotoaren** aurrean! **Koldo Izagirre**

Negoiazioetan ari ziren bitartean, **piperpotoa** ipini zuten Ajuria Eneko balkoian. **Jokin Urain**

Alimaleko **piperpotoari** eragiten ziotelarik, oihuka hasi dira elizaren barruan. **Txillardegi**

-Ez dizue lotsarik ematen, **piperpotoa** jasotzeak? **Koldo Izagirre**

## piperrada (*orobat piperrada*) iz piper frijituz prestatzen den janaria.

Jateko: xamango garbura, xingarra **piperradarekin**, ahatekia lekekin, ardi gasna, izozkia xokoletarekin, arnoa, kafea, ondokoa. **Herria**

Salda, **piperrada** xauxixekin, ahate ixterra ilar biribilarekin, gasna, bixkotxa, horma, kafea ondokoarekin eta arnoa nasaiki. **Herria**

Marmitakoa, hegaluze zerrak **piperradarekin** eta mendreska erre. **Berria - Euskal Herria**

## piperraldi (*corpusean piperraldi osilik*) iz ozpinaldia, haserrealdia.

Aukeran, orain bezala biek talde berean jokatzea nahiago dutela onartzen dute, baina bere garaian **piperraldirik** ere izan zuten. **Berria - Kirola**

## piperraustu, piperaus(tu), piperrausten du *ad* piperraustez ondu.

Amerika... -esan zuen altzairu leunduzko aizto batez ondo **piperraustutako** xerra lodi eta gutxi egindako hura ebakitzen zuen bitartean. **Lopez de Arana**

## piperrauts (*orobat piper hauts*) iz piper gorri iharrak ehaz eginiko hautsa, janarien ongarri gisa erabiltzen dena.

Patata tiki-tiki xigortuak **piperrauts** askorekin; lekak txerri-azalez gozatuak; kalabaza horia ozpina eta azukrearekin. **Anton Garikano**

Txerri xerra ogitan pasatua erosten zigun, edo arroz pastelak, soja-ore eta **piperrautsarekin** egosiak. **Juan Kruz Igerabide**

Bazkaria eta afaria berdintsu dira: arroza, ilarrak, gisatu pixka bat, barazkiak ongi egosiak **piper hautsarekin** eta espezia bizi-biziekien. **Gotzon Garate**

Nonahi azafraia, **piper-hautsa**, kanela, pipermina. **Koldo Izagirre**  
Emakume ezkonduaren etxetik irten aurretik, atsoak ogi puska bat hartu, eta koipe eta **piperrautsez** igurtzirik, zakur bati emateko usadioa hartu zuen. **Patxi Zubizarreta**  
**Piperrautsezko** deabrutxoak, ahoan kea ateratzen dizutenak; eta txokobola potolo handiak, marrubizko moussez eta esnegainez. **Iñaki Mendiguren**  
Hurrengo goizeko lehen argiarekin, oinarri zarpail eta arre hartan **piperrautsaren** edo alheñaren gorritasuna itsatsiko ziren, katilu eta plateren horitasuna, babutxa eta kaftanen urdintasuna; kolore horiek eta, beste eskala batean, alfonbra-dendan ikusi berri genituen guztiak. **Bernardo Atxaga**  
Lehen aldia nuen bakarka hitz egiten niola, Maruxa, eta nik behintzat masailak **piper hautsez** panpinatu izan balizkidate bezala egon behar nuen. **Koldo Izagirre**

## piperretero *iz* eskolara joateari huts egiten diona.

Lizarra-Garaziko **piperreteroak**. **Iñigo Aranbarri**

## piperreztatu, piperrezta(tu), piperreztatzen du *ad* gatz-piperrez ondu.

Ondoan osaba zuen, Jefferson T. Merivale, hiriko clubman ospetsua, bai eta ondo **piperreztatutako** bi bildots-txuleta ere. **Lopez de Arana**

## piperrontzi *iz* piperbeltza edukitzeko mahaiko ontzia.

Zurezko zubian, etxe zorrotz, oijbaz ildoxkaturiko teilaz gain-estalien, eta **piperrontzi** tankerako kantoidorre urdin-horien artean, zorabaldi bat izan zuen bat-batean Rhin ibaiaren argiaren aurrean. **Juan Garzia**  
Nork demontre nahiko ote zituen banda biribileko magnetofono haiek, diapositibak ikusteko tresna haiek, koktelak nahasteko ontzi haiek, kakahueteetarako plater zatikatu haiek, **piper-ontzi** zenbakaitz haiek, behialako goxoki kutxetan gorderiko azukre-koxkor bilduma haiek. **Joxan Elozegi**

## pipertsu (*orobat pipartsu g.er.*) 1 *izond* piper asko duena, bizia.

Batzuetan **pipertsuegi** beharbada, baina, eskatuz gero, bizigarri gabekoa jatekoa ere emango dizue. **Gotzon Garate**

### 2 irud/hed

Arreta guztia neureganatzen dut festetan eta hain **pipertsua** izateko soluzioaren errezeta eskatzen didate lagunek. **Iñaki Mendiguren**

Ez zen jende bereziki **pipertsua** ere; berarekin hitz egitea gogoko zuen jendea baino ez zen. **Mirentxu Larrañaga**

Anekdotak dibertigarriak kontatu zituen, kabaretetako nesken gertaera **pipertsuak**. **Ramon Saizarbitoria**

## pipertu, piper(tu), pipertzen (*orobat pipartu g.er.*) 1 *da/du ad* erresumindu.

Nik, gero eta **pipertuago**, zuhurtasunezko neurri guztiak albo batera utzirik, erantzun diot: [...]. **Anjel Lertxundi**

-Kirats-bonba bat utzi genuen korridorean eta Filch **pipertu** egin zen gurekin. **Iñaki Mendiguren**

-Hik heuk ere badakik hori - **pipertzen** hasia zen-. **Edorta Jimenez**

-Paradisua izen onaz ni arduratuko naiz -oihu egin zuen Jesussek **pipertuta** -. **Koldo Biguri**

Nazkatuta naukazu, entzun?, nazkatuta; **pipertuta** bazaude, ez niri bota kulparik. **Anjel Lertxundi**

Deseroso sentitu nintzen, haserre, **pipertuta**. **Juan Kruz Igerabide**

**Pipertuta** edo, Piterman eta Cos zeharo berotu ziren. **Berria - Kirola**

Katuak oso **pipertuta** ematen zuen, lepoan lotuta urre-antzeko letoi-xafila bat baitzeukan. **Iñaki Mendiguren**

Eztabaida **pipertu** baino lehenago, ados izan gara mozteko. **Txillardeggi**

### 2 (era burutu izenondo gisa)

Haren izaera **pipertuaren** eta eztabaida amaiezinen hotsa luze gabe heldu zen nagusiengana. **Patxi Zubizarreta**

Arnasestuka gelditu da etxeko atalasean eta hizketa molde **pipertuarekin** galdegin dio: [...]. **Patxi Zubizarreta**

### 3 *gatz-pipertu* ik *gatz 11*.

## pipertxo *iz adkor* ik *piper 15*.

Ez dit **pipertxorik** inporta zuhaitz dontsu honi buruzko sineskeriak. **Pello Zabala**

## pipi 1 *iz* kakalardoaren ordenako intsektua, oso txikia eta kolore ilunekoa, beldar egoeran dagoenean zur landua jaten duena (*Anobiidae* fam.) ik *zeden; sits*.

Zalantza horrek jaten ninduen barrutik, **pipiak** zura bezala, eta ez neukan norekin barrera askatu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hegoaldera begira egiten badira, beroaren eraginez **pipia**, sitsa eta harrak eta bestelako zomorro kaltegarriak sortuko dira, egurra janez mantentzen direnak. **Santiago Iruretagoiena**

Margolan baten argazkia zen, **pipiak** jandako egurrezko markano babestua-. **Joxemari Urteaga**

Habe zaharrak ikusi zituen, **pipien** habi. **Joxemari Urteaga**

**Pipiak** jotako zulotxoak xiringa batez xilofenaz bete litezke. **Javi Cillero**

Gauza zaharrak, abandonatuak, **pipiak** eta sitsak jotako gauzak nahi ditut. **Joxemari Urteaga**

Egur hori ez baita ez **pipiarekin**, ez eguraldiarekin eta ezta denborarekin ere hondatzen. **Santiago Iruretagoiena**

-Sukalde barruan ozta sartzen ziren, zutik eta estu, aulki apalen, mahai luze **pipiak** janaren eta leiharretan argazkiak ilaran zeuden armairuen artean. **Josu Zabaleta**

Erdiko buldara ispiluz daukan armairu zahar **pipiak** joa bazter batean. **Koldo Izagirre**

Oskola, bere begi dagoeneko itsuekin, poliki-poliki desintegratuz doa, eta edale, zedro, **pipi** ohia hor doa hegan berriro. **Juan Garzia**

Jakiak galdu egiten dira, jantziari **pipia** egiten zaio, zaldiak eta ardiak hil egiten dira. **Anjel Lertxundi**

### 2 irud/hed

-Nolakoak zareten -erantzun zidan-, hiru egun etxetik kanpo, eta dagoeneko nostalgiaren **pipiak** janda. **Ramon Saizarbitoria**

Eta hala abiatu nintzen egun batean Salamancarat, kontzientzia, beti bezala, eskrupuluaren **pipiak** jana eta zuhirindua. **Joan Mari Irigoien**

Burua erlijioaren eta nazionalismoaren **pipiak** janda geneukan. **Ramon Saizarbitoria**

### 3 (hitz elkartuetan)

Teilatuak zahar manerak harturik gapeluaren pare, han hemenka **pipi** xiloak omen ditik. **Herria**

### 4 sitsa.



Hainbertze jauntzi arropa, oraino estatu onean, moda aldatzeak zauritu dituenak, eta hor dagotzinak armariotan, **pipien** azkurri. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pipiak jana** (3); **pipiak janda** (5); **pipiak jotako** (3)

## pipiatu

pipiatu, pipiatzen **1 da/du ad** pipiak jo, pipiak joa gertatu. **ikzuhirindu**.

Han barra bat dago, ostatu dotore edo pubetan izaten ohi den zur ilunekoa, baina **pipiatua** eta higatua. **Aingeru Epaltza**

Gortariren iritziz goitik behera **pipiaturik** eta zigarro erreduraz beteta zegoen traste nardagarri hura antigoaleko pieza paregabea zen Elseren begietara eta, horrenbestez, kontserbatu beharrekoa. **Patxi Iturritegi**

Ganbara ere **pipiatua** ote? **Patxi Iturritegi**

### 2 irud/hed

Bertze bat -Ximurra- ziurtasun eta susmo gaiztoenek **pipiatua**. **Aingeru Epaltza**

## pipihauts

*iz* pipiaren hautsa.

Inoiz ulertuko ez dudan kontu bat: beldurrez bizi gara senak arrazoa itsutuko digun, baina ez gara matxinatzen gehiegizko arrazoiak sena zirtzildu, haustu, **pipihauts** bihurtzen digula ikusita. **Berria - Kultura**

## pipil 1

*iz* oraindik zabaldu ez den lorea.

Mertxikondoek, haizemaile baten modura irekita, paretetan barna luzatzen zituzten beren adar **pipilez** beteak. **Koro Navarro**

Izozten direnean, istilek eskaini ohi duten zaporea zuten trufek, udaberria noiz itzuliko zain dauden **pipil** uzkurten gustua, lur hotzean atezuan lehertzeaz dauden ernamainen gustua, eta etorkizuneko uzten indar lasaia. **Joxan Elozegi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Buruan, satinezko **pipil**-girlanda bat zeraman eta eskuan, berriz, zur urreztatutako flauta bat. **Lopez de Arana**

## pipiño

*iz* *adkor* pipia.

Euri jasak hartu du ugaritzen diren neurri berean auto-suntsitu ere egiten diren **pipiño** orojaleen paradisu-edo hori! **Berria - Kultura**

Bidaia amaitu denean, N. jaun artista **pipiñoez** beteriko bere hirira itzuli da, eta inon ez bezalako bere liburutegian babestu da. **Berria - Kultura**

## pipiolo

*izond* pertsoez mintzatuz, hasiberria edo eskarmenturik gabea.

Hamazazpi urteko mutila nintzen, **"pipiolo"** bat, nerabezarotik irten berria. **Txillardeggi**

"Lauaxetaren antza dik benetan", esan nion neure buruari: 30 urte inguruko gazte lerdan bat, **pipiolo** itxura erabatekoa behetik hasita goraino. **Juan Luis Zabala**

## pipirika

*adlag* jira eta bira, bueltaka.

Deabruak hartua bezala, lurraen **pipirika** ibili zen, eta jauzika, eta txiribueltaka, eta bien bitartean erantziz joan zen. **Patxi Zubizarreta**

Bien bitartean, sendagilea gaixoa ikustera jaitzi zen, baina ez baitzuen kandelarik ekarri, atarira irten zenean, fardelarekin estropezu egin, eta nanoaren gorpua **pipirika** jausi zen eskaileretan behera. **Patxi Zubizarreta**

Emakumearen burua lurrera jausi zen eta, **pipirika** joanda, jauregiko nagusi mozorrotua esnatu zuen. **Patxi Zubizarreta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**piririka jaitsi** (3)

## pipiritaka

*adlag* pipirika.

Jordi askojakinak [...] esan digu behin gizon batek bere burua altzairuzko upel batean bota zuela urjauzietan behera, **pipiritaka**; eta pentsatzen dut Dan gizon haren antzera sentituko dela hotelaren kontua hizpidera ekartzen duten bakoitzean. **Patxi Zubizarreta**

## pipirrio

*iz* txioa.

Kantu urritzen hasi ziren zozoak eta urretxindorra, eta etxetxorien **pipirrioen** txanda iritsi zen gero. **Joxan Elozegi**

## pipirrioka

*adlag* txioka. • *irud/hed*

Pertsona hori dagokion postuan dagoela eta egiteko horrek **pipirrioka** hasteko gogoia ekartzearainoko atsegina sorrarazten diola pentsatuko du agian jendeak. **Joxan Elozegi**

## pipita

(*orobat pepita g.er.*) **1** *iz* fruitu baten hazi txikia.

**Pepitak** eguzkilorearen haziak zirela jakin nuen halako batean, eta ikaragarri arraroa iruditzen zitzaidan eguzkiloreak zuen eguzkiaren antza. **Joseba Sarrionandia**

Eta agure zahar hark bere esku parkinsonianoari eraginez agurtzen gintuen nahinondik, guk martxanteretan erositako txikleak, **pepitak**, erregalizak jaten genituen artean.

**Joseba Sarrionandia**

Jendea adi-adi zegoen, **pipitarik** jan gabe, ez zen ezer entzuten ahal plato desestalian. **Karlos Linazasoro**

Zaleei min handia egin zien zu harmailetan **pipitak** jaten ikusteak. **Berria - Kirola**

Berak gorde ditu orri distizari orlegi iraunkorrak, baita **pipita** gorriminak ere, errege margokoak, eta baita nagusi-makila lerdanena ere. **Pello Zabala**

### 2 metal ale biribilkara.

Ez dago han urrezko **pipitarik**, ezta urre zainik ere. **Berria - Gaiak**

Zailena hautaketa dela, hondar artean urrezko **pipitak** aurkitzea. **Bernardo Atxaga**

### 3 pipila.

Oraitxe dago lore-**pipita** tikiak botoi berdexka batean zetozenak hazten eta zabaltzen. Pello Zabala

### 4 irud ernamuina.

Espainiera horren **pipita** gaztelania izango da; baina gero hispanitateko herrialde guztiek, bakoitzak bere izpiritua gehituz, denen artean mintzaira berri bat adelatuko dute. Joxe Azurmendi

## pipitaki 1 iz igarkizuna.

Begien bistako da igarkizun edo **pipitaki** deituriko hizketa jokook, literatura eder izanak direla noizbait. Patziku Perurena

Igartzen da bai, gure ingurumario gauzak egun baino zinezkoagoak, zehatzagoak, finkoagoak eta egonkorragoak ziren garaioa izandua dela **pipitakien** urre aroa. Patziku Perurena

## 2 pipitaki-papataki

Igarkizunetarako formula dugu, berriz, honako hau: **pipitaki** -papataki. Iñaki Arranz

'**Pipitaki** papataki,' esan zuen amamak, 'hagin bakarreko abadea jendeari abisuak ematen. Joseba Sarrionandia

**Pipitaki** papataki, uretan ez naiz bustitzen sutan ez naiz erretzen. Joseba Sarrionandia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pipitaki papataki** (5)

## pipitatxo (orobat pepitatxo ) iz adkor pipita.

Nahiz eta egunero eguzki lorearen **pipitak** irentsi, ez zuen hobera egiten batere alabak. Juan Kruz Igerabide

Hara heldu nintzenez, jostailua alura hurbildu nuen "**pipitatxo**" (hala deitzea gustatzen zait nire klitorisari) xerkatuz, hau pottolo eta gorri jarri zitzaidan lehenengo pasadan. Juan Martin Elexpuru

## pipitta 1 iz adkor lore pipita.

Zozoak, isil-isilik, elorri txuriaren **pipitta** gorri-gorri horiek xanpa eta xanpa jaten. Pello Zabala

Loreak emaldu eta pipita tiki batzuk forma hartu orduko, udazkeneko haizeak hosto gaxteak kendu eta han gelditu zen lotsati, **pipitta** tikiak soil biluzi zituela. Pello Zabala

Aurten ere goiz abiatu zen lore **pipitta** bilduak erakusten. Pello Zabala

## 2 ik pipita 2.

Eta nolako atsegina irudimenak: munduko urre **pipitta** guziekin betetako larruxaku xahar ximurto haietako bakoitza ezitan gordea bezala, ikusi aldirio! Patziku Perurena

## pipiztatu, pipizta(tu), pipiztazen da/du ad pipiatu.

Koroaren bila abiatu bezain fite geratu ginen bidean trabaturik eta gibelaturik, ez koroarik eta ez biktoria loriosik, esperantza guztiak **pipiztaturik** eta geure biziak ere galdugordean. Joan Mari Irigoien

## pipor izond potoloa, lodikotea.

Gantzuk ulertu zuen azkenik, eta aurpegia harridurazko mozorro bilakatu zitzaion: aho zabalik, begi biribilak aurpegi **piporrean** , eta arnasarik gabe. Agustin Otsoa

## piporta ik pinporta.

## piragarri izond maitagarri.

**Piragarria** da Maritxu. Koldo Izagirre

## piragua 1 iz kanoa luzea, arraenez edo belaz higitzen dena, Ameriketako eta Ozeaniako indiarrak erabiltzen dutena; horren antzeko kirol ontzia. ik txanel.

Jopieren hockey kluba, **piraguan** egiten dituen pasierak, antzerki emanaldiak eta bere lagunekin izaten dituzten te bilerak. Josu Zabaleta

Surflariak, txalupak eta **piraguek** ere bat egin baitzuten *Etixerat*-ek antolatutako mugimenduekin. Berria - Euskal Herria

Koadrila batek Orián barrena ibiltzeko egindako **piragua** , *Euzkadi* izena jarri ziotena eta gerra garaian erreketeeek hondatu omen zutena... Xabier Mendiguren Elizegi

**Piragua** batean zihono sorosle bati deitu zioten. Berria - Euskal Herria

Arrantzarako eta txangoak egiteko, **piraguan** edo olgetan ibiltzeko leku egokia bada ere, erreka ez da igeri egiteko lekua. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Zumaiako palista, Manuel Busto espainiarra **piragua** -kide zuela, Munduko Txapelketetako maratoi proban nagusitu zen. Berria - Kirola

## piraguadun iz piragua duena.

Moussa **piraguadunaren** aurpegian ez zen keinu berezirik nabarmendu kontaketa amaietan, ez asaldurarik, ez penarik ez harridurarik... Berria - Kultura

## piraguismo 1 iz piraguan edo kideko ontzietan nabigatzean datzan kirola.

**Piraguismoan** jarraitu ala ez pentsatzen ari da. Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan)

2001eko uztailaren 7an, Espainiako **piraguismo** txapelketak jokatu ziren Portodemourosen, Galizian. Berria - Kirola

Espainiako **Piraguismo** Federazioko Diziplina Batzordeak zigorra bere hartan mantentzen du. Berria - Kirola

# piraguista

iz piraguismoan aritzen den pertsona.

Alberto Iñurrategi mendizalea, Oier Aizpuru **piraguista** eta Aitor Gonzalez txirindularia aintzindu ditu. **Herria**  
Oier Aizpuru **piraguietak** kirolari onenaren saria jaso zuen Zuek abantaila duzue horretan, ontziko lau **piraguietek** ondo baino hobeto ezagutzen duzuelako elkar. **Berría**  
- Kirola  
Ontziak indartzeko *K-4*an lehiatu ez duten **piraguietak** sartu dituzte. **Berría - Kirola**

# piraloide

izond sitsaren generoko intsektua

Tximeleta **piraloide** batek dantza dagi airean gogotsu. **Karlos Linazasoro**

# piramida

ik **piramide**.

# piramidal

izond piramideari dagokiona; piramide formakoa. ik **piramide 4**.

Eta artean egin zuen sistema **piramidal** hori... **Menane Oxandabaratz**  
Jainkosa altxor baten jabe zen, eta altxor hori berdez margoturiko erlauntza moduko batean gorderik zetzan, zeinaren ate **piramidala** burdinorizko iltzez kirikolazturik baitzegoen. **Juan Garzia**  
Heraklitoren dotrina irakasten zuten filosofoei lotu zitzairen: haiek ez zuten, ordea, dotrina horren isilpeko atala, Artemisen altxorraren gordailu-gelaxka **piramidal** zarratzen baitzegoen hura. **Juan Garzia**

# piramide

(*orobat piramida g.er.*) **1** iz Egiptoko faraonen hilobi gisa erabiltzen zen eraikuntza handia, oinarria laukia eta lau aurpegiak triangeluak zituena.

Mesopotamiako ziguratak, Egiptoko **piramideak**, maien tenpluak. **Koro Navarro**  
-Egipton dago altxorra, **Piramideetatik** gertu. **Xabier Aranburu**  
Hantxe begiztatu zuen, ordoki zabal baten erdi-erdian zut, ibaitik urruti ez, Keopsen **piramidea** ! **Jon Muñoz**  
Ordokian baziren beste bi **piramide** zutik: Kefren eta Mizerinos. **Jon Muñoz**  
**Piramidearen** erpina han desagertu zen beren begi nekaturen bistatik. **Jon Muñoz**  
Zazpi **piramide** ere eraiki zituen, bata bestearen ondoan, bere aita, ama eta lau anaiei omenez. **Elizen arteko biblia**

# 2

oinarritzat zernahi poligono eta aurpegitzat hiruki isoszeleak dituen poliedroa.

-Geometria lauarekin egin zuen bezala, espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesez: solidoak: **piramidea**, prisma, konoa, zilindroa, eta esfera, jakina; eta horiez gainera, poliedro erregularrak ere bai. **Jon Muñoz**  
Osaba Joanikotek prismak eta **piramideak** eta bertze iduri geometrikoak irakatsi zizkigun denboran. **Joan Mari Irigoien**  
Tetraedroa: oinarri triangeluarreko **piramidea**, lau aurpegiak triangelu aldeak dituena. **Jon Muñoz**  
Napoleon patioaren erdian, dir-dir egiten zuen eguzkipean kristalezko **piramideak**. **Jon Muñoz**  
**Piramide** moztu bat egitea erabaki du azkenean. **Bernardo Atxaga**

# 3

irud/hed

K2ko goiko **piramide** ospetsua eta Botila Lepoa, berebat, ikusi ditugu lehen aldiz. **Xabier Montoia**  
Gainean patatak, arbiak, azenarioak, tipula zuriak lerrotzen zituen launaka, **piramideak** osatuz. **Karlos Zabala**  
**Piramide** baten eitea duen egitura batek erabiltzen du botere izugarri hori: **piramide** horretan, zenbat eta gorago, orduan eta botere gehiago metatzen da esku gero eta gutxiagotan; zenbat eta beherago, botere gutxiago banatzen da esku gero eta gehiagotan. **Jon Alonso**  
**Piramidearen** muturrik gorenarekin hari zuzena izatear zuan. **Harkaitz Cano**  
Martinen gainean pilatutako iluntasunezko **piramideak** buru gainera erortzen hasi zitzaizkion. **Lopez de Arana**  
Gizartearen organizazioa **piramide** bat bezalakoa zela, Faraioiek Egipton eraiki zituztenen parekoa. **Joan Mari Irigoien**  
Sukaldera sartu eta hozkailuaren argiak garagardo **piramide** bat bistaratu zion.Erpintzat begia eta ointzat begiraten zaion objektua duen angelu trinkoa da, beraz, beti ikusmenezko **piramidea**. **Joxemari Urteaga**  
Enpresa multinazional zaharra, **piramide** moduan antolatua, eta New York, Tokio edo Londreseko egoitza zentraletik kontrolatua. **Koro Navarro**  
Lehen errainuen hatz-muturrak **piramideen** erpinetan zauritzen dira, eta argizko odola ertzetan behera dator. **Juan Kruz Igerabide**  
Belatzaren kasuan, zehazki, are garrantzitsuagoa da, **piramide** trofikoaren goi-mailan dagoelako **Berría - Euskal Herria**

# 4

(hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **piramidal**.

Irakaslearen aurpegia hezurtsua, ertzez betetakoa; aurpegia **piramide**-poliedroaren modukoa, azpikoz gora jarria, behealdean kokots-bizarrean bukatua. **Fernando Rey**  
Indiarren hondakinen zerean jakitun jendea izaten zen, **piramide**-maitaleak edo. **Joxe Austin Arrieta**

# 5

(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Koadratzea, ikusmenezko munduan zehar irudimenezko ikusmen-**piramide** bat erabiltzea (eta batzuetan finkatzea) da, beraz. **Josu Zabaleta**  
Azkenik, grafiko bat, hazkunde-kurba bat, adin **piramide** bat, banaketa-hodei bat enuntziatuak dira. **Xabier Arregi**  
Su gune bakoitzak, segundo batzuetan, bere eztanda **piramidea** jaso eta berehala uzten du, iraungirik, beste nonbait berriro eraikitzeko. **Josu Zabaleta**

## hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

- ikusmenezko **piramide** (3)
- ikusmenezko **piramidea** (3); **keopsen piramidea** (5)
- egiptoko **piramideak** (8); **piramideak eraiki** (3)
- ikusmenezko **piramidearen** (5); **piramidearen garaiera** (7)
- egiptoko **piramideen** (3)

# piramigrama

iz piramide edo erronbo formako lauki multzoa, normalean hitz jokoetan erabilia.

Horrexegatik, **piramigramak** deitzen diete batzuek hauei guztiei. **Iñaki Arranz**

# piraña 1

iz Amazoniako ur gezetan bizi den arrain haragijalea (*Pygocentrus sp.*, *Pygopristsis sp.*, *Serrasalmo sp.*).

Marrazoak ere etorri ziren odolaren usainak erakarrita, eta ur hauetara jausitako txakurrak edo katuak janak ziren minutu pare batean, **pirañek** egiten duten moduan...

Paddy Rekalde

**Pirañak** ikusi eta lehen ausikiak sentitu nituenean, ikara jabetu zen nitaz eta ez nuen egiten nuena kontrolatzen. Joxan Elozegi

Errukirik gabe **pirañoaz** jositako putzura botatzeko. Iñigo Aranbarri

## 2 (hitz elkartuetan)

Suspertu nintzenezan gertatu zen **piraña** inbasio hura. Joxan Elozegi

# pirata 1 iz lapurretan egiteko itsasontziei eraso zuten pertsona. ik **itsaslapur**; **kortsario**.

Frantzisko Irigoi beste era bateko heroiak izan zen, ordea: ez **pirata**, ez kortsarioa, ez heroi epikoa, ez galtzaile samurra. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Piratak** abordaiak prestatzeko agindu eta maiteari, badaezpada, sotoan gordetzeko esan zion. Martin Anso

Ormazabal, ken itzak zapatak, **piratak** oinutsik ibiltzen gaituk! Koldo Izagirre

**Pirata** bihurtu zen Jose Almeida. Martin Anso

**Piratak** altxor bila ibiltzen zituari beti, ezta? Fernando Morillo

Lehen greziarrak herri txikiak ziren, maiz sakabanatuak, **pirata** itsasoan, bidegabe-egile lehorrean, ez gizabiderik ez legerik ez zutenak. Iñaki Iñurrieta

## 2 (izenondoekin)

Kortsario interesatu eta **pirata** diruzale guztiei babeslekua eta munduko edaririk hoherena ematen ahalegindu zen tabernaria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nork idatzi zuen denok **pirata** lokartu bat daramagula geure baitan? Aingeru Epaltza

Lemariak **pirata** ingelesak ziren, eta marinelen artean hainbat herrialdetakoak zeuden. J.M. Olaizola "Txiliku"

Napoleon eta Darribeau **pirata** baionesa. Berria - Kultura

William Kidd (1645-1701) Ingalaterrako **piratarik** ospetsuena da, beharbada. Julen Gabiria

Daniel Defoeek badu **pirata** sonatuen bizitzak kontatzen dituen liburua. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 3 (hitz elkartuetan)

Bere **pirata**-askatasuna galtzera zihoalako sentipena izan zuen. Juan Garzia

**Pirata** itsasontzi batean itzuli omen zen, itsasoan harrapatzen zituzten guztiak sarraskituz. Karlos Zabala

**Pirata** pelikula batean entzuna nuena. Joseba Sarrionandia

Kaskamotzak eta besoan tatuaturik zeraman **pirata**-banderak azkar nabarmentzen zuten Alex lagunaren artean. Fernando Morillo

Darling andrearen parean jarri ziren, ilaran, kapelak kenduta, pentsatuz **pirata** arropak ez zirela une hartarako egokienak. Julen Gabiria

Horrek eta kokospekoak **pirata** itxura ematen dio anaiari. Jokin Muñoz

## 4 (izenondo gisa)

Bi egun egin ordukoxe itsasoan, bapo armaturiko ontzi **pirata** batek atzeman gaitik. Juan Garzia

Kapitain **piratak** ababorreko karelaren ondoan etzanda aurkitu zuen Alida, lo balego bezala. Martin Anso

Bandera **pirata**, okupazioaren sinboloak, eta Gaztetxe Martxaren giltza ere ikus zitekeen. Berria - Euskal Herria

## 5 iz berea ez dena erabiltzen edo hartaz jabetzen den pertsona.

Datorren heroiaren irudia ez da jadanik militar bat autoz, ziztu gorrian lehergailu bat jartzera doana, baizik **pirata** informatikoa. Markos Zapiain

Italia faxistak, bigarren mailako **pirata**, Albania hartua zuen. Juan Garzia

## 6 izond gauzez edo pertsoez mintzatuz, beharrezkoa den baimena ez duena.

Kopia **pirata** da. Iban Zaldúa

Ertzaintzak hamar lagun auzipetu ditu, ustez programa **piratak** saltzeagatik. Berria - Euskal Herria

Grabazio **piratak** kontatu gabe, noski. Patxi Iturritegi

Erresistentziaren irratian **pirata** zen. Juan Kruz Igerabide

Ez nuen taxi **pirata** bat aurkitzeko zortea izan. Jon Muñoz

Taxista **pirataren** kasua. Pako Aristi

-Joan-etorria -argitu zuen taxi gidari **pirata** hark. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bandera pirata** (4); **darribeau pirata** (3)

# piratakakeria iz piratarari dagokien egintza gaitzesgarria.

Bada ziurtasun osoz dioenik 1854. urtean Illinoisen hil zela -hirurogeita hamahiru bat urte izango zituen horrela bada, eta ez dakigu zenbateko gogoia izango zuen

**piratakakerietan** ibiltzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

# pirateatu, piratea(tu), pirateatzen 1 du ad zerbaiten kopia pirata egin, zerbait beharrezkoa den baimena gabe erabili.

Batetik jokoak eta programak **pirateatuz**, eta bestetik web orriak diseinatuz, diru mordoak eskuratzen du. Antton Olano

Botoemaileei kopiak banatzen dizkie AEBetako Zinematografia Akademiak, eta, antza denez, akademiako kide bat izan da kopia **pirateatzeko** aukera sortzearen erruduna.

Berria - Kultura

Bide batez: **pirateatua** al da *Leihotikainen* disko hori? Iban Zaldúa

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Espainiako Guardia Zibilak hiru lagun atxilotu ditu Menorcan ustez diskoteketan musika **pirateatua** erabiltzen zutelako. Berria - Kultura

# pirateria 1 iz pirataren jarduera.

**Pirateria** tropa gutxiarekin eginiko gerra besterik ez baita. Esteban Antxustegi

Azkenean, Stede Bonnet maiorrak ezin izan zion gehiago eutsi; eta, hamar kanoi pezako txalupa zahar bat erosi, **pirateriari** zihoakion guztiaz hornitu zuen, hala nola ganibetak, arkabuzak, abenkak, xafiak, kakoak, aizkorak, Bibliak, ron upelak, argiontziaik [...]. Juan Garzia

## 2 (hitz elkartuetan)

-Stede Bonnet maiorra, bi **pirateria**-salaketaz erruetsita zaude: baina zerorrek badakizu gutxienez hamahiru ontzi arpilatu dituzula. Juan Garzia

-**Pirateria** ekintzak zirena? Itxaro Borda

## 3 zerbaiten kopia pirata egitea, zerbait beharrezkoa den baimena gabe erabiltzea.

Jabetza intelektualaren aldekoek **pirateriak** zientzia eta kulturari erasotzen diotela defendatzen dute. Berria - Gaiak

Industriak **'pirateria'** deitzen duenak onura handiak ekarri dizkio gizarteari: herritarrengana hurbildu du kultura. Berria - Gaiak

**pireliografo** *iz* aktinografoa.

**Pireliografo** edo aktinografoari paper-banda kendu, eta berria jarri. Pello Zabala

**pirilo** *iz* ahatea.

Kanta honek, Irungo Mayoek egin zuten apari sekulakoa azaltzen digu: eper bat, bi tortoilo, iru oilo, lau antzara, bost **pirilo**, sei zikiro, zazpi zezen, zortzi idi, bederatzi basatxerri, hamar karga ardan gorri, hamaika karga ardan zuri, hamabi kaja pipapuru... Patziku Perurena

**pirimentarina** *iz* protozoarioen infekzioak tratatzeko erabiltzen den sendagaia.

Tratamenduak bi osagai nahasten ditu: sulfadoxina eta **pirimentamina**. Berria - Gaiak

piriniar ik **piriniotar**.

pirinioar ik **piriniotar**.

**piriniotar** (*corpusean **piriniar** eta **pirinioar** soilik*) *izlag*

**Pirinioar** haranetan, Pallars Garaïtik hasi eta Urgell Garaia, Andorra eta Cerdanya-raino, Pirinioetako bizilagun euskaldunak zuzenean katalanez mintzatzera igaro ziren.

Berria - Kultura

Euskararen muinean Berbere-iberiar, Sahara-mediterranean eta **Piriniar** protohizkuntzak atzeman daitezkeela dio Josu Naberanek. Berria - Euskal Herria

**piriniar** unitate etniko-kultural primitibo horren agerpen polimorfoak. Pello Salaburu

**Piriniarragoa** izan eta orduan eta baskoagoa. Edorta Jimenez

Hain zuzen ere, xehetasunak begiratu ez balitu, ez legoke *Auñamendi Bidaia*k dagoen tokian trekking **pirinioarren** sektorean. Aingeru Epaltza

**pirita 1** *iz* burdin sulfurozko mea, horia eta distiratsua.

Farolaren argiak bezala jo zuen trenarenak **pirita** deskargatzen ari ziren garabietan, ontzi grekoaren mastetan. Koldo Izagirre

Lurrean erraiak josirik daude gnomoz, koboldoz (kobalto!), nikoloz (nike!), zeinak eskuzabal izan baitaitezke eta altxorra toparazi aitzurraren puntan, edo tronparazi, liluratu, urrea bezala distiraraziz **pirita** xumea, edo zinka mozorrotuz eztauaren jantziez. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Gatz gema, burdin minerala, kok ikatza, zink **pirita** eta halakoak eskatzen zizkigun, ekartzeko portutik, sekula ez txanpon holandarrik edo Camel edo Chester, Erkizia ergel hark. Koldo Izagirre

**pirka-pirka** *adlag* poliki-poliki, pixkana-pixkana.

Baina **pirka pirka** ari naiz; ez haatik ttuku-ttuku zalutzen baitzait maiz urratsa, bereziki arratsalde hastapenean. Piarres Aintziart

Hobendun bezala daukat noiztenka ene burua, baina badakit noizbait, **pirka pirka** bada ere, helduko naizela. Piarres Aintziart

Jainkoa, sorterria, Frantzia, ofizioa, familia, lanak, bestak, pilota, musa, doluak eta sortzeak, gizonen mozkorrak eta emazteen haserreak, bizia zeramatenak, **pirka-pirka**.

Piarres Aintziart

Hiru ordu hurbil iraunen duen hamahiru kilometroko zatia integratua, epeganatuia daukat eta orain ene baitan bildurik dagoen indarra **pirka pirka** barreiatuko dut, bidenabar.

Piarres Aintziart

Gero da, **pirka-pirka** hasi Etcheto, sare batzuen sartzen eta berexete pollit batzuen egiten, haatik hutsak ere. Herria

Eta gero, haurrak handitzearekin, **pirka-pirka** joan ziren, bizi-beharrak etxetik haizaturik. Herria

**pirofilo** *iz* sua bilatzen duena.

Arrabio [...]: jatorriz, sutan bizi zen narrastia; gerora, antropomorfo hilezkorra, baina beti **pirofiloa**. Xabier Olarra

**piroforiko** *izond* airea ukitzean berez gartzen dena; txinpart ugari ateratzen duena jotzen denean.

Gainera, uranioa **piroforikoa** da, hau da, jomugan talka egitean eztanda eragiten du. Berria - Mundua

**pirogeniko** *izond* sukarra eragiten duena.

Vladimirren industria **pirogenikoak** kontrako efektua eragin eta, inkietaturik, nire txilibitua ez zela neguetako kaxernetatik ateratzera deliberatzen Jon Alonso

**pirograbatu**<sup>1</sup>, pirograba(tu), pirograbatzen du *ad* ezten gori batez grabatu. • (era burutua izenondo gisa)

Zur landu, polikromatu eta **pirograbatuan** egindako kanderailu erraldoia gordetzen duen erakusleihoaren ondoan. Berria - Kultura

**pirograbatu**<sup>2</sup> *iz* ezten gori batez egiten den irarlana.

Pilatosen Balkoia esaten zitzaion faxisten hiltegi klandestino hartan ezarri nahi zuen **pirograbatua** txeheztzeko. Koldo Izagirre

**pirografia** *iz* irarlanak ezten gori batez egiteko teknika.

Aulki kulunkarian, larruzko burko bat zegoen pausatuta; **pirografiaz** grabatutako irudi bat zen, neska bat esgrima-jantzian, bere gorpuzkera negargarri bezain zaharkituaren

## piromano 1 *izond/iz* suteak eragiteko zaletasun patologikoak jotakoa.

**Piromanoak** su ematen dio basoari. [Edorta Jimenez](#)

Pertsiana itxien atzealdean, udako sapak landarez eta hosto zimurtuz betetako jardina erretzen zuen, ezkutatu baino lehen landaredi osoari su emango liokeen **piromano** amorratu baten gisara. [Xabier Olarra](#)

## 2 *izond* piromanoarena, piromanoari dagokiona.

Hala ere, editoreak, ordu batzuko geroago bere burua entregatu zuenak, ukatu zuen inolako interes ekonomikorik -asegurua kobratzea, esaterako- egotea ekintza **piromanoaren** atzean. [Jon Alonso](#)

## piropo *iz* konplimendua, lorea.

Venezuela izan liteke munduko leku bakarra haurdun dauden emakumeei ere **piropoak**, loreak botatzen dizkietena. [Pako Aristi](#)

**Piropo** gutxi entzun izan ditut euskaraz, oraindik gutxiago ikusi idatziak. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Zeure borondatearik onenaz **piropo** polit bat atera bazaizu, eraso sexualtzat hartuko dizute. [Patziku Perurena](#)

Hasi behar dut **piropoak** esaten eta esateko modua eta jarrera lantzen, genetikaz euskaldunoi eman ez zaiguna ikasteko beste biderik ez baitago. [Pako Aristi](#)

Hiriari egindako **piropo** horiek [...] izan ziren, dudarik gabe, donostiarrek kantu honetan ikusi zituzten elementurik adierazgarrienak, [Askoren artean](#)

## piroteknia 1 *iz* su festak eta lehergaiak egiteko eta erabiltzeko teknika.

Kalejiran geldialdi bi egiten ditugu, une horietan sua eta **piroteknia** dira nagusi, danbor hotsekin batera. [Berria - Kultura](#)

23etan: sonū, sū eta ke **piroteknia** ikusgarria. [Herria](#)

Gela zabal ixilean, filosofiak eta **pirotekniak** atzean utzirik, edo, agian hobeki, filosofiak eta **pirotekniak** batetara bilduz, elkarri aitortzen diote bizitzeko arazoak suz eginak direla. [Iñaki Segurola](#)

## 2 irud/hed

Balzac-ek berrikusten zituen probaz oroitzen ari naiz, hura zuzenketa eta gehiketen **piroteknia** itsugarria. [Jon Alonso](#)

Eta ezagutu izan balu ere, latinez emango zukeen, intelektual-kutsuko **piroteknia** tontolore horretara erakarriak baitzeuzkan berarekin lan egiten zuten guztiak ere. [Anjel Lertxundi](#)

Deutsch Schule hartako arkupeetan piztutako pospolo hura zen Azkona Estudioko erredakzioan **piroteknia** sasi-intelektuala leherrarazten zuena. [Anjel Lertxundi](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**piroteknia eta perkusioa** (3)

## piroteknikari *iz* piroteknian aditua.

**Piroteknikari** batekin dabil Anna, bi edo hiru zigarrak lapurtzen ditu harekin ateratzen den gau bakoitzean. [Anton Garikano](#)

## pirotekniko 1 *izond* pirotekniari dagokiona.

Denek jakingo zuten Simon Azkue ez dela ergela, eta zizareen bizimodua ezagutzeaz gain, gogoak hala agintzen dionean, inork ez bezala dakiela berak antolatzen jaialdi **piroteknikoa**, triskantza eta dena dardarka jartzerainoko lurrikara. [Hasier Etxeberria](#)

## 2 irud/hed

Euskal bertsoia **piroteknikoagoa** zitziolako (mira zazu nola trufatzen den zutaz), frantsesezkoa baino? [Anjel Lertxundi](#)

## pirpir 1 *iz* hots motela. ik *firfira*.

Une hartatik, neure inguruan eta neure gorputz ilunean halako **pirpir** ikusezin, ukiezin bat sumatu nuen. [Juan Garzia](#)

Ez, hala ere, gudaroste dibergente, paralelo eta azkenik bat eginen **pirpira**, bestelako higidura helgaitzago, barrenekoago bat baizik, armada horiek nolabait iragartzen zutena. [Juan Garzia](#)

Motor hotsa erabat galdu denean zuhaitzen hostoen **pirpirra** itzuli da. [Pello Lizarralde](#)

## 2 pilpira.

Belaunikatuz, bi hatz jarri zizkion lepoan, zainen baten **pirpira** nabaritzeko asmoz. [Joxemari Urteaga](#)

## pirri *izond* zehatza eta arretatsua. ik *punttalakurlo*.

Hartara, A.ren izaera nabaritzen du ez soilik gutunen esanahiak; sintaxiak berak ere bai: obsesiboa baita, zoroki perfekzionista, ezin **pirriagoa**. [Markos Zapiain](#)

## pirrika *adlag* jira eta bira, bueltaka.

Gorpu burugabea artean odolusten ari zelarik, odola txirrioan zihoalarik, ea zenbat metro egingo ote zituen buru gorpugabeakoak **pirrika** aurrera, gorputik kenduz geroztik.

[Felipe Juaristi](#)

68 urte zituela utzi gaitu; gazte denboran bazuen zenbait dantza **pirrika** eginarazirik gazteriari, eta zenbait bulta goxo pasarazirik, "gaizo Teodorok". [Herria](#)

## pirrikan ik *pirritan*.

## pirriko *izond* garaipenez mintzatuz, irabazleak kalte handia hartuta lortzen duena.

Eta aditzerat eman zidan, halaber, ezen borroka ezin neketsuago batzuen ondorez garaitu zituztela holandarrak, biktoria **pirriko** batean... [Joan Mari Irigoien](#)

Greziarentzat angustia hamarkada izan zen, Albaniako frontean Italiaren aurkako gerran izandako garaipen **pirrikoaren** ondoren. [Berria - Kultura](#)



pirrilaka ik **firrilaka**.

## pirrin 1 iz apurra.

Bestetik, lotsa **pirrin** bat ere ematen zidan han, hainbeste kamera, kazetari eta jenderen aurrean, neure barneko kontuak argitaratzen hasteak. **Hasier Etxeberria**

## 2 *pirrin bat adlag* apur bat

Idazleari aitortzen ez badio ere, berak du penarik handiena, liburua berea ere baita **pirrin** bat. **Iñigo Aranbarri**

## pirrinta iz bolada; zurrusta.

Eguraldia oso hotza zen, airea bezain gardena, eta gelako leihoek gutxi egin zezaketen hotzaren aurrean, zirrikitu guztietatik sartzen baitziren haizearen **pirrintak**. **Anjel Lertxundi**

**Pirrinta** bat isuri zion. **Unai Iturriaga**

Almadiak aurrera jarraitzen zuen itzalpean, izotzen artean ikusezina; baina batzuetan argi **pirrinta** handiak ailegatzen ziren haraino. **Karlos Zabala**

## pirrintaka *adlag* boladaka; zurrustaka.

Arrobiko farolak ere Donostiako etxe berriak **pirrintaka** argitzen dituen bezalaxe. **Txillardegí**

## pirripio iz hegatzabala. ik **larratxori**.

Azaldu ahala izendatu ditut han behean kaiolatuon elkartasunetik alatu diren hegaztiak: karnabak tarinak zozoak eperrak hegaberak kulixkak istingorrek tortoilak **pirripioak** urretxindorrek txantxangorriak ipurzuriak birigarroak **Koldo Izagirre**

## pirripita (*orobat pirripit*) 1 iz ipar txirindua. ik **bizikleta**.

GORAXAGO gizon xahar bat eta bi neskatil, beren **pirripitak**, errepidearen erdian, pusatzen dituztela. **Piarres Aintziart**

Gutunak **pirripitaren** gidoinaren barnean sartzen zituen. igandeko mendiko **pirripiten** ibilaldiak ditu 85 emazte eta gizon elkarretaratu. **Eneko Bidegain**

Euriak euritei, lbanteliko mendi paretek ikusi dituzte 175 amorratu, patarra goiti bermatzen, iztapeka beren **pirripit** VTT famatuaren gainean. **Herria**

Itsasuarra **pirripitan** itxapeka jarri zelarik, izeba lasterka hurbildu zitzaion, bi sagarrekin. **Eneko Bidegain**

Eusebiok irri ttipi batez eskertu zuen, **pirripitan** abiatu eta burua itzuliz agurtu. **Eneko Bidegain**

Helduden igande 20 an, ikusiko dugu Saran kirolari andana gotorra, zeren apailatzen dira orori idekiak diren bi itzuli **pirripitaz**, bat 35 km-koa, bertzea 15 ekoa. **Herria**

Eusebio Elizondoraino jautsi zen **pirripitaz**, traba izpirik gabe. **Eneko Bidegain**

## 2 (hitz elkartuetan)

11 orenetan **pirripita** lasterketa (finala). **Herria**

Hiru **pirripita** itzuli egiten dira larruko eritasunetik sendatzeko. **Herria**

## pirripitaka *adlag* jira eta bira.

Aldi oro, soldadu uzbek bat **pirripitaka** zihonan lurlean barrena, lagunen amorraziozko garrasien artean. **Karlos Zabala**

Aldi oro, soldadu uzbek bat **pirripitaka** zihonan lurlean barrena, lagunen amorraziozko garrasien artean. **Karlos Zabala**

Treneko garitatik norbait erori zen linternarekin batera eta bidebazterrera joan zen **pirripitaka**. **Fernando Rey**

**Pirripitaka** edo hegaldaka bezala, boneta hunek, Xango eremanen du herriz herri eta erresumaz erresuma, beste dantzen eta musiken mundurat. **Herria**

Tiroak bular betean jo, eta ofizial uzbekak zaldi gainetik erori eta **pirripitaka** dabil lurlean. **Karlos Zabala**

## pirripitalari 1 (*orobat pirripitari*) iz ipar txirindularia.

Merezi zuen euskaldun **pirripitalariak** eginez jazkoa, hirugarren Armstrong eta Ullrich-en gibeletik. **Herria**

Errepublikak egunean ere ibili dira **pirripitariak** Frantziako bideetan. **Herria**

**Pirripitalarien** lehiaketa. **Herria**

21. mendeko zangolari eta **pirripitalariok**, badugu gomita eta bide ederra, nahi badugu eskainia zaigun erronka onartu. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

"Eссор Basque" **pirripitari** batasunak trebesatuko du Sara, ondoko egunetan, egon erne bide horietan, kasu ixtripueri, San Inaxioko itzuli horietan. **Herria**

## pirripitan *adlag* jira eta bira. ik **pirripitaka**.

Bat-batean, sukar batek inarosten du zaldun gaztea, bien gorputzak kordokatzen dira eta biak erortzen dira, ezin atxikia den ikarak **pirripitan** badaramatza lurraren gainean, harat eta honat, itzulipurdika, alderdi guztietara. **Michel Oronoz**

pirripitari ik **pirripitalari**.

## pirritaka *adlag* pirripitaka.

**Pirritaka** joan zen lurretik. **Iñaki Mendiguren**

## pirritan (*orobat pirrikan*) 1 *adlag* jira eta bira.

Harri bihurtu eta **pirritan** joan zen harribitxi-bilatzaillearen oinetara. **Xabier Aranburu**

Bere eskuetatik ihesi joandako pistola eta linterna ikusi zituen, azken hau zoru gainean **pirritan** zihola, eta argitasuna behetik gorako itzal bitxiak sortuz zabaltzen zuela.

Aitor Arana

Malkoak masailetan behera **pirritan** hasi zitzaizkion. Lopez de Arana

**Pirritan** hasi zen, galdutako txanpon baten modura. Lopez de Arana

## 2 irud/hed

Zurrunmurriz beteriko merkatuaren hondotik oihartzunak altxatzen ziren, hotsak eta azantzak **pirritan** zihoazen goraino, urrutiko ekaitz baten soinua entzuten zen gauaren isiltasunean. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pirritan** hasi (3)

## pirritatu, pirrita, pirritatzen da *ad* lerratu.

Argitu beharko du nola ulertzen den gizon-emakume batzuk -arrazak, kontinenteak- gizakiak izatea, eta ez izatea historikoak; zergatik eta nola diren horiek Izpirituak ezhistoriara baztertuak; nola **pirritatzen** den horien existentzia menderen mendetan, beti joaten eta beti leku berean. Joxe Azurmendi

## pirronismo *iz* E. Pirronen doktrina filosofiko eszeptikoa.

**Pirronismo** : [...] antzinako filosofia, sortzailearen izena hartu duena. Xabier Olarra

**Pirronismoaz** gainerako beste edozertan batere ez sinestea zuen funtsa. Xabier Olarra

## pirt-port *iz*

Patxadan erreaz zihoan egurraren **pirt**-port hotsak entzun zituen, eta, orri zuria hurreratuz, su eman zion. Joxemari Urteaga

## pirta-pirta *adlag* apurka-apurka.

Badakite alabainan "Prestige" untiak beti galtzen duela, **pirta pirta**, oraino barnean duen petrolaki hartarik. Herria

Duela hogoita-hamar bat urte, sei ehun lagunek hor zuten beren laneko segida! **pirta pirta**, gero eta gutiagok. Herria

## pirtzil *iz* panpina.

**Pirtzilak** egiteko kalesan erabiltzen zituzten arto-hostoen bizarrak oroitarazi zizkion Norari gizonaren bibote oparoak. Anjel Lertxundi

## pirtzin ik piercing.

## piru *1 iz ipar* hari edo kable bat osatzen duten izpietako bakoitza. *ikzuntz*.

Giderra eta, hari loturik, pintzelaren **piru** lodi batzuk, gehienak zentimetro bat baino luzeago ez zirenak, erroraino higatuak. Eneko Bidegain

Nola dezakeen ehuleak **piru** bakarreko irazkiarekin hari anitzeko bilbea eho? Piarres Xarriton

Europako bideen mapa: egiazko armiarma sarea, baina erdigunerik ez duena, norbaitek **piru** bat erien artean hartu ondoan, tiratu balu bezala sare osoa, Puente La Reinaraino gidatuz Europako marra guziak. Piarres Aintziart

## 2 irud/hed

Berriz eskapatzera utzi dut historiaren **pirua**. Piarres Aintziart

Biziari emaiten diogula [...] halako jarraipen bat, **piru** mehe bat, heriotzeak bakarrik, azken finean, mozten duena. Piarres Aintziart

Ziurtasun hori zen ene biziaren **piru** azkar eta jarraikia, Gabonen berean tinko atxikiz eta ere gero, hogoi urtez, Biarnoko ikastetxean. Piarres Aintziart

Ahurrean kokatua den pilota bezala, denbora, iragan diren gauzen **piru** biribilkatua, denbora. Piarres Aintziart

## 3 (hitz elkartuetan)

Euskaldunei buruzko mila hari **piru** laxoan uzten ditu *Hiru Puntu* taldeak, Antton Lukuren *Escualdunac* lan berrian. Berria - Kultura

## 4 *piru batek eraman* ezer gutxik eraman.

Oren bat eta hiru laurdenez goiti iraua duen finalerdia izan da hau ortzegunean eta **piru** batek eraman baitu hunen irabaztea edo galtzea. Herria

Amaturren xapelgoak finala laurdenetan ginituen aste huntan, Euskal Ligako xapelgoan eta ezinago **piru** batek eremanak ditu lau partidetak hiru. Herria

## pirubiko

### 1 *azido pirubiko* azido koloregabea, metabolismoan garrantzi handia duena.

Hortik aurrera, **azido pirubikoa** destilatzen eta agurearen azukreaz espekulatzen eman nuen eguna. Juan Garzia

Gero 250°C-ra berotzen genuen bisulfato horregaz azido tartarikozko nahaste bat, hala azido tartarikoa **azido pirubiko** bihurtuz deshidratatzen da eta destilatu. Juan Garzia

Eugenol eta **azido pirubiko** usaina zerion artean ere. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azido pirubiko** (3)

**azido pirubikoa** (3)

## pirueta *iz* gorputza biratuz egiten den higidura.

Gorputzekin egindako simetriak edo justaposizioak maisutasun handiz erabiliz eta erabateko geldotasun ueak **pirueta** akrobatiko bilakatu, fantasiako lore, landare edota animaliak irudikatzeke. Berria - Kultura

pirula ik pilula.

## piruleta iz karamelu biribila, makilatxo batek eusten diona.

Berak **piruletak** erosi zizkidan, umea banintz bezala, eta nik, semaforoa gorriz jartzen zen guztietan, eskutik heltzen nion, beldur den semeak egingo lukeen antzera.

Jasone Osoro

Bihotz formako **piruleta** gorria. Jasone Osoro

pisa ik pixa.

## pisaketa iz pisatzea.

14:30: Sokatira taldeen **pisaketa**. Berria - Kirola

Tiralariak, gainera, goizeko zortzietarako han zeuden **pisaketarako**. Berria - Kirola

Pantaila batzuetan animaliak nola hiltzen dituzten ikusten da eta besteetan, berriz, abelburuen **pisaketa** -lana. Patxi Iturritegi

Eska daitekeen gutxiena da espekulazio soilaren arrazoimen-oinarrien **pisaketan** denak jatorki gertatu beharra. Ibon Urbarri

## pisaontzi iz pisatzeko ontzia.

Ez nuen, ordea, akabatu behar, baizik eta irazki: **pisaontzi** batean ezarri eta kanpora loresailera atera. Juan Garzia

## pisarazi, pisaraz, pisarazten du ad pisatzera behartu.

Goizean goiz egindako odol analisiaren emaitzak ikusi ondoren, bada, **pisarazi** du gaixoa eta kalkulagailua atera du mantalaren sakelatik. Imanol Zurutuza

Zenbatu eta **pisarazi** inoren esku uzten duzuna; jaso idatziz eman eta hartzen duzunaren agiria. Elizen arteko biblia

## pisatar izlag/iz Pisakoa, Pisari dagokiona; Pisako biztanlea.

Zeren Parisen irakurri baitzituen, Gassendiren kontseiluz, zientzilari **pisatarraren** *De motu*, latinez, baina baita *Il Saggiatore*, *Dialogo sopra i due massimi sistemi del mondo*, *tolemaico e copernicano* eta haren *Discorsi*-ak. Joan Mari Irigoien

Hala nola *Il Saggiatore*-ko zati hura, zeinean maisu **pisatarrak** aitortzen baitzuen ezen filosofia unibertsoaren liburu irekian irakurri zegoela. Joan Mari Irigoien

Kosme eta Damian santuen parrokiako **pisatar** batek bere aitormenez baieztatua da kasu hau. Askoren artean

## pisatu, pisa, pisatzen (orobat pixatu g. er. eta pizatu g.er.) 1 du ad (zerbaiten) pisua neurtu.

Goitik eta behetik aztertu ditu: ukitu, usaindu, haztatu, **pisatu** egin ditu. Jon Alonso

Moztu eta balantzan **pisatu** zuen eta: [...]. Pablo Sastre

Gramo bat azukre **pisatu** nuen, platinotzko arragoan [...] su emateko. Juan Garzia

Ikatz gorriak bezain handiak ziren errubi-pila ari zen **pisatzen**. Iñaki Mendiguren

Pisuan **pisatu** zaituzte eta urri aurkitu. Elizen arteko biblia

Drogarekin batera, 2.000 euro eta droga **pisatzeko** tresnak aurkitu zituzten. Berria - Euskal Herria

Iruditu zitzaidan **pisatzen** ninduela begi txiki haiekin, arestian bere esku mehean tabakontzia **pisatu** zuen bezala. Matías Múgica

Holako kuia eta onjorik ez dut sekulan ikusi ez **pisatu**. Herria

### 2 irud/hed

Moldatu ziren Mendebaldeko Zibilizazioa balantzan **pisatzeko**, eskas aurkitu zuten, kanpo uztea erabaki zuten eta behar hainbat indar bildu zuten alegiazko autarki politika hausnartu ahal izateko. Iñaki Mendiguren

Balantza batean **pisatzeko** moduko isiltasun astuna sortu zen bi emakumeen artean. Aitor Arana

Pisuan **pisatu** zaituzte eta urri aurkitu. Elizen arteko biblia

**Pisa** nazala Jainkoak pisu zuzenez, eta ikusiko du nire prestutasuna. Elizen arteko biblia

Gero adinak ez duela **pisatzen** esango du... ipurdiak **pisatuko** ez balio, sikiera... Pako Aristi

Bekatuak **pisatu**, egindako bekatu larri bakoitzak berez dituen itsuskeria eta gaiztakeria begiratu, debekatua ez balego ere. Patxi Altuna

Horrek xoratzen du, endemas jende xoxoa: seminarioan oratoria ikasi duen apezkondoak, hitzak **pisatzen** ikasi duen hiztun dotore doktoarek. Patziku Perurena

### 3 pisu jakin bat izan.

Itlzeak ere urrezkoak ziren; bakoitzak kilo erdia **pisatzen** zuen. Elizen arteko biblia

Simonek Erromara bidali zuen Numenio, seiheun kilo **pisatzen** zuen urrezko babeski handi batekin. Elizen arteko biblia

Azazkal bat baino txikiagoa da, zazpi gramo **pisatzen** du eta argindarra kontsumitzen du. Berria - Ekonomia

As-ak kobrezko bi ontza **pisatzen** zuen; eta denarioak hamar as balio zuenez, kobrezko hogeitaz ontza balio zuen. Iñaki Iñurrieta

Makinak berak hirurehun eta berrogeita hamar mila libra **pisatzen** zituen. Santiago Iruretagoiena

30 urteko gizonetako da, 1,75eko garaiera du eta 75 kilo **pisatzen** ditu. Iñigo Aranbarri

-Asko **pisatzen** du, ez dakit eraman ahal izango duzun. Harkaitz Cano

San Giustora bideko etxe batean neuzkala nire puskak, baina ez zirela ezer asko, apenas **pisatzen** zutela. Anjel Lertxundi

Ez zuen ezer **pisatzen**, ezta neurtzen ere, aski zuen fardelen tamainari erreparatzea bakoitzaren barruan zeuden oihalek edo bestelako ehunek zenbateko pisua zuten jakiteko; bilgoak eskuan hartu, eta bertantxe esaten zuen zenbat **pisatzen** zuen bakoitzak. Jose Morales

Argia ez da ezer, baina ezerezak baino gehiago **pisatzen** du, eta tonu zurixkatik abiatzen dira kolore guztiak. Pako Aristi

Barruan harri bat izango balu bezala **pisatzen** du. Joseba Urteaga

Helduek eta umeek behar baino gehiago **pisatzeak** dauzkan ondorioak dirutan neur daitezke irakaslearen ustez, gaitz degeneratiboak ugaltzeak «osasun zerbitzuetarako gastuak handitzea» baitakar. Berria - Euskal Herria

### 4 irud/hed

«Zuhurtzia eta komatxo guztiakin», urtea itxaropen zantzuekin amaitu zela argitu zuen; «baina inertiak asko **pisatzen** du». Berria - Euskal Herria

Haren oroitzapenak asko **pisatzen** bazuen ere, orduan aurrean zabaltzen zen bideari erreparatu zion arretaz. Agustín Otsoa

### 5 zerbaiten alde onak eta txarrak arretaz aztertu.

Orduan, nire erabakia ongi **pisatu**, ongi hausnartu, ongi atzeratu egiten, kolpe batetik egiten nuen jauzi, hortzak estuturik, tximiniaraino. **Josu Zabaleta**  
Tibor, epaile zuzena, hitzak **pisatzen** ari zen. **Ander Irizar**  
Maitasun bihotzeko eta zinezko baten aitortpena, hitzekin lan egiten ohiturik dagoen batek hitz bakoitza ongi neurtu eta **pisatu** ostean idatzia. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Gauzak ongi **pisatuz**, Joantok bizian topatu zituen jendeetan amultsuak kiskilak baino gehiago ziren. **Elena Touyarou**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**balantzan pisatu** (4); **kilo pisatu** (4); **pisatu zuen** (3)

**tona bat pisatuko** (3)

**hamabost kilo pisatzen** (3); **jakin zenbat pisatzen** (4); **kilo inguru pisatzen** (4); **kilo pisatzen** (35); **kilo pisatzen ditu** (12); **kilo pisatzen du** (11); **kilo pisatzen zuen** (5); **kilo pisatzen zuten** (3); **pisatzen ari** (3); **pisatzen bazuen** (3); **pisatzen ditu** (15); **pisatzen dituen** (4); **pisatzen du** (18); **pisatzen duela** (4); **pisatzen duen** (8); **pisatzen dute** (3); **pisatzen duten** (4); **pisatzen zituen** (4); **pisatzen zuen** (21); **pisatzen zuten** (5); **zenbat pisatzen** (13); **zenbat pisatzen zuen** (7)

## pisatze *(corpusean pizatze soilik) iz* (zerbaiten) pisua neurtzea.

Erran behar da segur bizi bete bat eremana duela, beti prest zerbitzu egiterat, lanak gainerat ez zuen lotsatzen, menaju egite, kabala **pizatze**, erien laguntzaile eta partikulazki luzaz elizaren garbitasuna egin du, zeinuak jo, aldare prestatze, lan ttipienetarainoko guziak. **Herria**

## pisces *(ETCn 546 agerraldi; orobat piscis ETCn 135 agerraldi; corpusean piscis soilik) iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren hamabigarren zeinua; latinez 'arraina' esan nahi du.

14 Danbor txikiko zuloa eskailera batetik bezala igotzen joaten da Acuario eta **Piscisen** puntuetatik gora, eta Ariesen zortzigarren maila ukitzen duenean, urak, bare-bare atereaz ekinokzioaren orduak markatzen ditu. **Santiago Iruretagoiena**

Eta Rulasek **Pisciseko** jaietara gonbidatzen nauenean. **Urtzi Urrutikoeetxea**

**-Piscisen** izango da: orkatila, oinak eta behatzak ditu orduan bere mende. **Pello Zabala**

## piscis ik pisces.

## piska ik pixka.

## piskabat ik pixka 2.

## piskana ik pixkana.

## piskanaka ik pixkanaka.

## pisoi ik pisu<sup>2</sup>.

## pisoi iz

 dolareetan, sagarra zapaltzeko mazoia.

**Pisoiarekin** zapaltzen dan sagarrari deitzen zaio patsa. **Patziku Perurena**

## pista<sup>1</sup> iz

 kirol jakin bat egiteko prestaturiko eremua.

Gune hesitu bat ere bazuen, zoragarria, gimnastikarako zelai, **pista**, igerileku, haurrentzako jostaleku eta guzti. **Koldo Biguri**

**Pista** baten goialdean zeuden: eskiak ondo paralelo, beren buruak pikoak zirudien maldan behera botatzeko prest. **Jon Muñoz**

Aragoin, Candanchuko estazioko **pistak** baliatzen dituzte. **Berria - Kirola**

*Snowboard*-a **pistan** edo **pistatik** kanpo egitea zeharo ezberdina da. **Berria - Euskal Herria**

Izotza ari duenean, eta besteak irristaketan dabiltzanean, **pista** txiki bat antolatzen du berarentzat, aparte, izotzaren ondoan, belarretan. **Itziar Otegi**

Abiadura patinajea **pista** laburrean: 1.500 metrokoa (emakumezkoak). **Berria - Harian**

Nik udan tenisean jokatzen dudak **pistetatik** hurbil samar. **Gotzon Garate**

Nadal **pistetara** bueltatuko da gaur. **Berria - Kirola**

Bi milioi euro inguruko inbertsioa du egitasmoak, eta golf zelaia, paint-ball-eko **pista**, 20x10 neurriko igerilekua, taberna, bi izarreko hotela, jatetxea eta aparkalekua biltzen ditu. **Berria - Euskal Herria**

Bidasoa Torrevellaren kontra ariko da gaur, haren **pistan**. Asobal Ligako 21. jardunaldian. **Berria - Kirola**

Posible al da **pistan** Schumacherren atzetik joanda zerbait ikastea? **Berria - Kirola**

Berriz irten eta bi itzulira Ayrton Senna **pistatik** atera zen. **Berria - Kirola**

Conde, dominarik gabe kilometro bateko **pistako** erlojupekoan. **Berria - Kirola**

Mark French, junior mailako **Pistako** Munduko txapelkun ohi australiarra bi urterako zigortu dute. **Berria - Kirola**

Portiko horiek *xystos* izenez deitzen dira grekoen artean, atletak **pista** estalietan entrenatzen direlako neguan. **Santiago Iruretagoiena**

Munduko **Pista** Estaliko Txapelketak jokatuko dira gaurtik igandera, Budapesten. **Berria - Kirola**

Halterofilia-zirkuituak, judo eta norberaren defentsarako ariketak, **pista** amerikarra. **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Anoeta estadioan zertarako eduki atletismo **pistak**, atletismo probarik jokatzen ez bada? **Berria - Kirola**

Frontoia berdez margotu dute, eskubaloi, futbol eta saskibaloi **pistak** margotu dituzte, eta saskiak eta atea jarri dituzte. **Berria - Kultura**

Jendeak gozatu zuen izotz-**pista** librean gustura. **Pello Zabala**

Neguan eski **pistetan**, uda partean modako hondartzetan. **Migel Angel Mintegi**

Eski-**pistako** kolorea ezagun zuen larri-azalean. [Aingeru Epaltza](#)

Bere alaba da, behiala eskolara, ballet-eko klaseetara, zirkura eta irristatze-**pistara** eraman ohi zuena. [Oskar Arana](#)

Alemanian hamabost pertsona hil ziren urte hasieran patinaje **pista** baten egurrezko estalkia erori zenean. [Berria - Mundua](#)

### 3 (bestelako erabilera duen eremua)

Joan eta Miquel atletik sartu eta dantzatzeko **pista** aldera begiratzen dute. [Antton Olano](#)

Hiru whisky eta bi dantzaldi arin **pistaren** erdian. [Aritz Gorrotxategi](#)

Lumi garagardoa hartu eta barran utzirik, eta eskutik heldu eta dantzatzeko **pistarantz** eramaten du. [Antton Olano](#)

**Pista** zeharkatzen dugu, bultzaka, alboka, dantzaririk eroenak saihestuz. [Pako Aristi](#)

80ko hamarkadako diskoteka batetik ateratako argi-**pista** batean dantza egiten duten koloretako planetak gara. [Sonia Gonzalez](#)

On Camillok zaldiko-maldiko bat, bilintzi-balantza bat, hiru tiro-joko, auto txikientzako **pista** bat, autotoxke bat, "heriotzaren horma" eta beste hainbat jostaleku gehiago aurkitu zituen. [Koldo Biguri](#)

Talka-autoetako **pista** abandonatua ikusten zen, sarreratik hurbilen. [Jon Alonso](#)

Eraikuntzaren gainean, teitatuaren ordean, autoak eta prototipo berriak probatzeko erabiltzen zuten **pista** handi bat dago. [Anjel Lertxundi](#)

Aeromodelismoko **pista**. R C Albatros Lagunartea. Erreterria. [Joan Mari Irigoien](#)

### 4 (aireportuetakoa)

Gipuzkoako aireportuko **pista** txikiegia da, eta Nafarroakoan behe lainoa da traba nagusia. [Berria - Harian](#)

Aireportuaren **pista** 300 metro luzatzeko proposamena egin du Gipuzkoako Diputazioak. [Berria - Harian](#)

Aintzira zoragarri baten eta lur hartzeko **pista** baten ondoan dago, eta landabide zakar batetik baino ez dago iristerik hara. [Xabier Olarra](#)

Hegazkinaren gurgpilek **pista** zuria ukitzeari utzi orduko aienatu ziren begien bistatik zoru gaineko argi horiak. [Joxe Austin Arrieta](#)

Zama-hegazkin errusiar galant bat ari da hurbiltzen lur hartzeko asmotan; **pista** nagusia, konponketetarako itxia baita, azkar ireki beharra dago. [Xabier Olarra](#)

Lurreratzeko **Pista** Handitzearen Aurkako Koordinakundeko arduradun. [Berria - Harian](#)

### 5 asfaltatu gabeko bidea.

Lehenengo tartean errepide asfaltatutik ibili gara, gero porlanezko pistatik eta azkenean lurrezko **pista** lokaztutik. [Jon Arretxe](#)

Izotzeko **pista** batetik eraman ninduten ateraino, eta gaueko haizeak astindu ninduen. [Koro Navarro](#)

Segituan errepidea utzi eta mendiko **pista** batetik goaz. [Bernardo Atxaga](#)

Hau parke natural bat da, eta ezin da **pistaz** josi. [Berria - Euskal Herria](#)

Bargota herria eskuin utzirik, **pista** ezin patartsuago bat hartzen dut. [Piarres Aintziart](#)

Ez genuela biderako ia urik ere hartu, eta **pista** bukatu zenean mendi-bide lokaztu batean gora egin genuela... [Anjel Lertxundi](#)

Etxalde txikia herritik kanpora dago, milia batzuetara, **pista** lohi eta bihurri baten amaieran. [Oskar Arana](#)

Ezbeharraren mendi **pista** batean gertatu zen, Ertzaintzak argitu ez dituen arrazoiak direla kausa. [Berria - Ekonomia](#)

"Nicolae" hartz errumaniarrak buruz dakizki Arango eta Alta Ribagorçako mendi-**pistak**. [Aingeru Epaltza](#)

Trenetik begiratuta **pista** -bidea ikusten da bidetxidorrean. [Xabier Etxabe](#)

### 6 magnetofono eta kidekoetan, hotsa edo soinua grabatzen den zinta magnetikoaren zerrenda paralelo eta independenteetako bakoitza.

Nire kolega honek zortzi **pistako** grabagailu digital bat eta mahai bat utziko dizkigu gure diskoa izango dena grabatzeko. [Unai Iturriaga](#)

*Dinosaur Jr* eta *Sebadoh* taldeetan [...] lau **pistako** grabazio tresnaren maisu izan zen; soinua aldetik eskasa askotan, baina emozioari dagokionez bortitza. [Berria - Kultura](#)

Edozein grabaketa luze editatzen, edizio linealean eta **pista** anitzetan praktikatu zuten ikasleek. [Berria - Euskal Herria](#)

Musikaz gain **pista** interaktiboa du konpaktuak. [Berria - Kultura](#)

*irud/hed* Nerbio-ehunezko hainbat **pistaren** bidez lotzen zaio bizkar-muina garunari. [Irene Aldasoro](#)

### 7 norbait edo zerbait aurkitzeko arrastoa.

Saia hadi **pista** konplikatu ez dela pentsatzen, eta berehala etorriko zaik burura erantzuna. [Xabier Etxabe](#)

"Berotan luze utzi ezker, bigundu egin liteke" eman genezake lehen **pista**. [Andoni Egaña](#)

Ipuina puzzle bat bezala osaturik dago, istorio txikiez osaturiko puzzle bat, batzuetan **pistak** (loturak) uzten dituzten piezak. [Berria - Kultura](#)

Horrek denak **pista** bat ematen digu, lurraren eta airearen artean nolako trukaketa bitxia gertatzen den jabetzeko. [Pello Zabala](#)

Kantzelariaren aldizkaria ateratzen duen kazetariak eman zidan **pista** bat: [...]. [Pako Aristi](#)

Kontua da lagunaren anekdotak **pista** asko ematen digula gaur hemen bildu gaituen gaiaren inguruan. [Iñigo Aranbarri](#)

Belauneko jarri ez beste guztiak egin dizkit **pista** esan niezaion, eta ezinean ikusi badut ere, ez diot hitzik esan. [Xabier Etxabe](#)

Hara sartu ahal izateko giltza behar izaten da, eta giltza hori **pista** baten bidez asmatu behar izaten du berak. [Xabier Etxabe](#)

Ez baitzen ergela, eta ahalik eta **pista** gutxien uzten saiatuko baitzen. [Iban Zaldua](#)

Desiratzen nagok hurrengo **pista** jasotzeko. [Xabier Etxabe](#)

Poliziako ikerlariaren arabera istripuzko gertakaria zitekeen, baina ez zuten **pista** bakar bat baztertzeko. [Itxaro Borda](#)

AZF taldearen mehatxuak «serioak» direla berretsi ostean, «islamisten» **pista** baztertu zuen. [Berria - Mundua](#)

Horregatik, kapituluaren eta **pisten** jokoari ekin diogu berriz Xabier eta biok. [Xabier Etxabe](#)

### 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Asteroko **pista** -jokoaren sufrimendua falta zaidak, egia esatea nahi baduk. [Xabier Etxabe](#)

**Pista** joko batean, froga bat gainditzeko puntuei erantzun behar izatea, bertsoan egitea, bideo bat ikustea eta komentatzea... hori da udalekua. [Berria - Kultura](#)

Hemen **pista** multzoa bide horretan ez galtzeko: [...]. [Berria - Kultura](#)

Jar gaitezen ordea, **pista** -emailearen ikuspegian. [Andoni Egaña](#)

### 9 lurreratze pista ik lurreratze 3.

### 10 pista galdu arrastoa galdu.

Bat zen hildakoa, eta iheslariaren **pista** Mirakruz gainean **galdu** zuten. [Harkaitz Cano](#)

Haren **pista** Mexikoko erbesteratu errepublikazaleen artean **galdu** da. [Iban Zaldua](#)

Uxue duela urte moordo bat ezagutu nuen; gero **pista galdu** nion, sasiaren eperrari **pista gaitzen** zaion bezala, beste urte mordo bat. Urteak ziren **pista galdua** niola, eta auskalo non ibiliko ote zen. [Jon Alonso](#)

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aireportuaren **pista** (6); aireportuaren **pista** handitzearen (3); aireportuko **pista** (6); atletismoko **pista** (3)

eski **pista** (4); espainiako **pista** txapelketa (3); hondarribiko aireportuaren **pista** (3); hondarribiko aireportuko **pista** (3)

izotz **pista** (5); jokatuko den **pista** (5); lurreratze **pista** (3); lurreratzeko **pista** (4)

**pista** asmatu (4); **pista** elurtuetan (3); **pista** erraza (3); **pista** estalian (19); **pista** estaliko (81); **pista** estaliko denboraldia (3); **pista** estaliko errekorra (3); **pista** estaliko espainiako (5); **pista** estaliko europako (3); **pista** estaliko munduko (28); **pista** estaliko sasoi (3); **pista** estaliko txapelketak (3); **pista** estaliko txapelketan (5); **pista** estaliko txapelketetan (5); **pista** handitzea (4); **pista** handitzearen (9); **pista** handitzearen aurka (5); **pista** handitzeko (3); **pista** laburrean (7); **pista** laburreko (5); **pista** nagusia (3)

artalekuko **pistan** (3); aurkariaren **pistan** (7); izotz **pistan** (3); **pistan** ariko (9); **pistan** ariko da (6); **pistan** ikusi (3); **pistan** irabazi (4); **pistan** irabaztea (4); **pistan** jokatu (4)

**irtengo dira pistara** (3); **pistara atera** (8); **pistara ateratzeko** (7); **pistara ateratzeko prest** (3); **pistara itzuli** (3)  
**pistaren erdian** (6); **pistaren gainean** (4)  
**pistatik atera** (8); **pistatik atera zen** (5); **pistatik irten** (5); **pistatik irten zen** (3); **pistatik kanpo** (6)  
**eski pistetan** (3)  
**pistetatik kanpo** (11); **pistetatik kanpora** (3)

pista<sup>2</sup> ik **pizta**.

**pistaburu** *iz* pistaren burua.

Hegazkina **pistabururaino** joan da. **Txillardeg**

**pistaratu**, pistara, pistarutzen da *ad* pistara heldu.

Gainera, alemaniarrak itzuli hori bikain osatu zuen, eta berriz **pistaratu** zenean abantaila mantendu zuen. **Berria - Kirola**

**pistard** *iz* pistako probetan espezializaturiko txirrindularia.

Hiru **pistard** ariko dira Espainiako selekzioarekin: Asier Maeztu, Leire Olaberria eta Unai Iturriaga. **Berria - Kirola**

Euskal Herriko **pistardek** ondo ezagutzen duten belodromoan jokatu da 2006ko Munduko Txapelketa, Bordelen (Frantzia). **Berria - Kirola**

Leire Olaberria **pistarda** 20. postuan sailkatu zen atzo buruz buruko jazarpenean, eta ez du proba jokatu aurretik zeukan helburua bete. **Berria - Kirola**

pistatxa ik **pistatxo**.

**pistatxo** (*orobat **pistatxa** g. er.*) *iz* *Pistacea vera* zuhaitzaren hazia, mamia berdea duena, sukaldaritzan eta gozogintzan erabiltzen dena.

Lucy egongelako lurrean eserita genuela, **pistatxoak** jaten eta Gadget Inspektorearen atal bat ikusten, Tomek eta biok sukaldera alde egin genuen, gure elkarrizketa entzun ez zezan. **Oskar Arana**

Mingain beteak ere baziren, eta galantina trufatua, eta txerri burua **pistatxoekin**, azpil biribil eta obalatuena gainean. **Karlos Zabala**

Ibrahimen patiserian, menta te bat eta **pistatxoz** egin gozoa prestatzen dizkidaten bitartean, egunkaria zabaldu dut. **Iñigo Aranbarri**

Kakahueteak, almendra garrapiñatuak, berde zerutiarreko **pistatxozko** izozkiak. **Berria - Kultura**

Arrosak, horiak edo **pistatxa** bezain berdeak ziren gehienik nabari ziren koloreak. **Ramuntxo Etxeberri**

**Pistatxo** koloreak ere gero eta zale gehiago zituen. **Harkaitz Cano**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**

**txerri burua pistatxoekin** (3)

**pistazale** *iz* txirrindulariez mintzatuz, pistako proben zale dena.

Donostiako belodromoaren erabiltzaileek badituzte arrangura handiak, bereziki txirrindulari **pistazaleek**. **Herria**

**pistina** *iz* (*haur hizkeran; orobat **piztina** g. er.*) *iz* piztina. ik **igerileku**.

- **Pistinara** joan duk. **Xabier Mendiguren Elizegi**

- Zer moduz **pistin**an? **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Pistina** osoa aldenik alde kruzatzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Emengo **pistin**an olako gauzak pasatzen die. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**pisto** *iz* barazki zati frijituekin eta tomate saltsarekin prestatzen den janaria.

Barazkiak erosi nituen **pistoa** egiteko. **Joseba Urteaga**

**pistoi** (*orobat **piztoi** g. er. eta **piztona** g. er.*) **1** *iz* zilindro baten barnean alde batera eta bestera higitzen den pieza, gas baten presioa energia mekaniko bihurtzeko edo jariakin bat konprimitzeko edo bulkatzeko erabiltzen dena. ik **enbolo**.

Lehenengo garaietako lurren-makina, **pistoa** zilindro baten barruan mugitzen zena, atzera-aurrerako motor xume eraginkor bat zen; ura ponpatzeko erabiltzen zen batez ere, **pistoiaren** gora eta beherako mugimendua oso egokia baitzen horretarako. noiz arte funtzionatu behar dute **pistoi**, balbula, magneto, engranaje multzo horiek? **Irene Aldasoro**

Galdara presiorik gabe dago, makinako **pistoiak** geldirik daude. **Koldo Izagirre**

**2** kartutxo edo kideko batean, pizgailua.

Zeren eta beraiek egiten baitziztuzten kartutxoak, hartu azala, polbora sartu, tako biribilarekin estutu, gero perdigoiekin bete eta, kartoiarekin itxi ondoren, atzetik **pistoi** berria ezarrita, tiraldi bakoitzeko aldatu beharra egoten zen **pistoa**. **Pako Aristi**

Garai hartan armak muturretik kargatzen zituzten, lehenik **piztona**, gero bolbora eta azkenik perdigoiak edo draiak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**pistola 1** *iz* su arma motza, esku batez erabiltzen dena. **ikerrebolber**.

38ko errebolber bat eta 9 laburreko **pistola**. **Rafa Egiguren**

Sei tiroko **pistola** bat eman zidan, kanoi luzekoa, beterik. **Juan Kruz Igerabide**



Aukera ezak: **pistola**, mosketea, arkabuza? **Edorta Jimenez**

Erriflea lurrera joan zen, eta **pistola** bat azaldu zen gizon beltzaranaren eskuan. **Anton Garikano**

Kontrabandoan ekarritako Tiro Lehiaketetako arauzko 22ko Colt **pistola**. **Edorta Jimenez**

Eskua poltsikotik mugitu gabe, une batetik bestera **pistola** ateratzeko prest. **Juan Kruz Igerabide**

Halako batean, **pistola** baten muturra lokian, Anton ikusi duzue polizia baten mende. **Rafa Egiguren**

**Pistolari** segurtagailua kendu eta, kontu handiz, burua atera nuen. **Alberto Ladron Arana**

-Zutik! -agindu zigun **pistolarekin** kanoia guregana begira-. **Rafa Egiguren**

**Pistolaren** errekamara eta kolpekaria zuzen zebiltzala egiaztatu zuen. **Aritz Gorrotxategi**

**Pistolaren** aho beltza bere bularrari begira ikusi zuenean, hazi egin zela diote, harrotu edo. **Joxean Agirre**

**Pistolaren** katuan behatza, mehatxuka ari zaizkizue oraindik. **Rafa Egiguren**

Beldurrak airean zegoen MTGD, **pistolako** katu gainean dardarka zeukalarik hatza. **Jon Muñoz**

Eskuak min ematen zidan, hain finki ari bainintzen **pistolaren** ipurdia estutzen. **Aingeru Epaltza**

Kargatu zuen **pistola**, zabaldu zituen zangoak apur bat, luzatu zituen besoak aurrerantz, ezer esaten hasi beharrik gabe,*pa, pa, pa, pa* hasi zen behin eta berriro benetako tiroak tiroka. **Joseba Sarrionandia**

Panoramika bat, baina kameraren orde **pistola** duela. **Iñaki Iñurrieta**

Marrok **pistola** tirabidean ipini zion, tiro egitera balihoa bezala. **Juan Kruz Igerabide**

**Pistola** enkaskillatu egin zitzaioneko itxura egin zuen, jakina, orain guztiak enkajatzan zuen. **Harkaitz Cano**

**Pistola** deskargatu bitartean, katuari eragin dio nahi gabe. **Rafa Egiguren**

Balak atzera kargadorean sartu, eta **pistola** armatu nuen. **Alberto Ladron Arana**

Ustekabeaz baliaturik, zutitu eta **pistolaz** destatu nuen SSen talde txunditua. **Alberto Ladron Arana**

Aitari begiratu eta ikusi nuen **pistola** zorrotik atera zuela. **Alberto Ladron Arana**

**Pistola** ezkerretara mugitu nuen metrailetadunari tiro egiteko. **Alberto Ladron Arana**

Hartu **pistola** eta danba buruan, eta zaldia isilik betiko. **Bernardo Atxaga**

37 kalibreko **pistola** eskuartean zuela. **Aritz Gorrotxategi**

Jostailuzkoa zirudien **pistola** bat, peluka beltzaran luze bat eta pastazko betaurreko batzuk besterik ez. **Harkaitz Cano**

Gizon bat atxilotu dute Andoainen **pistola** baimenik gabe edukitzeagatik. **Iñigo Aranbarri**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Pistola** automatikoa hartu, segurua kendu, txaketaren patrikan sartu, eta besteengana hurbildu nintzen. **Xabier Olarra**

**Pistola** isilgailuduna artean han ote zegoen begiratzera zihoala. **Aitor Arana**

Mary Balester gerrian zeukan **pistola** gaketuarekin jostatzen ari zen. **Itxaro Borda**

Zoruan eserita, **pistola** iluna dardaraka airean. **Joseba Sarrionandia**

**Pistola** kargatuari bi hatzekin heldurik, uretara erortzen utzi nuen. **Juan Kruz Igerabide**

Zilarrezko **pistola** txikia atera zuen mesanotxearen kaxoitik. **Bernardo Atxaga**

Metalezko **pistola** handi bat erosi nuen. **Joseba Sarrionandia**

Garbi esan zuela gezurrezko **pistola** zela. **Gotzon Garate**

Plastikozko **pistola** bat hartu, eta lapurreta egin du bankuan. **Javi Cillero**

Kargadorea kentzen nion pistolari eta, gorantz begira, bi eskuekin heldu, benetako **pistolak** bi eskuez hartu behar direla ikasia nuelako. **Joseba Sarrionandia**

Antzinako **pistola** bat zen, sei kartutxokoa. **Xabier Olarra**

Emaguzu **pistola** madarikatu hori behingoz. **Aitor Arana**

Terrorismoaren aurkako legeak dinamitzako ekintzak hartzen ditu, eta ez **pistolazkoak**. **Koldo Izagirre**

**Pistola** ipurdi zilarkaradunak ikusmiran zuen morroi zurbildua. **Aingeru Epaltza**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Uhalak estutu eta **pistola** -zorria ezkerreko besazpian egokitzen nuen bitartean. **Alberto Ladron Arana**

Arroilatik gizon bat iruten ikusi zuten, **pistola** -muturra berengana luzaturik. **Juan Garzia**

Laster, izugarrizko karraska-hotsa entzun zuten, **pistola** -tiro bat bezalakoa. **Iñaki Mendiguren**

**Pistola** jokoa egin zuten, masoien kanpo santuaren ondoan, eta pistoleroak lurra musukatu zuen hilzorian. **Javi Cillero**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Scalako kritikari musikala izan behar da, tonalitateagatik bereizten jakiteko nola egin ote den tiroa, errepikapen-**pistola** batekin ala danbor-errebolber batekin! **Koldo Biguri**

Handik segundo batzuetara, ziplo akabatzen dute animalia aire-**pistolaz** garunean sartzen zaion iltze batez. **Xabier Olarra**

Jok jok pistola bat zuen eskuetan, [...] ur-**pistola** baten modukoa, nik dakidala... **Lopez de Arana**

Jolas-**pistola** edukitzea ez dago debekaturik. **Gotzon Garate**

Beste guardia zibila, teilatu eta leihoetatik tiroka hasiko zirela pentsatu nuen, eta gogor heldu nuen ene jostailu **pistola** eskuan. **Joseba Sarrionandia**

## 5 irud/hed

Nemesio Arozenaren ilobaren atelietatik datoz, **pistola** neumatikoz josten dituzte orain arrain kaxak. **Koldo Izagirre**

**Pistola** pneumatikoarekin burua zulatu diote Dianari, eta seko erori da. **Patxi Iturritegi**

## 6 pistola metrailadore

Austrian egindako **pistola** metrailadore bat eman nion: 7,65 milimetrotako "Scorpion" bat. **Rafa Egiguren**

**Pistola** -metrailadore bat zuen eskuan. **Alberto Ladron Arana**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren **pistola** (3); egiazko **pistola** (4); erregelamenduzko **pistola** (3); eskuan **pistola** (6); gezurrezko **pistola** (4); metalezko **pistola** (3)

**pistola atera** (40); **pistola atera zuen** (11); **pistola ateratzeko** (6); **pistola aurkitu** (4); **pistola automatiko** (4); **pistola automatikoa** (3); **pistola bat atera** (8); **pistola bat eman** (5); **pistola bat erosi** (3); **pistola bat eskuan** (4); **pistola beltza** (7)

**pistola eskuan** (20); **pistola eskuan zuela** (3); **pistola eskuetan** (10); **pistola eta guzti** (3); **pistola gerrian** (4); **pistola handi bat** (3); **pistola hartu** (7); **pistola haztatu** (3)

**pistola jarri** (6); **pistola kendu** (5)

**pistola sakelan** (3); **pistola tiro** (3); **pistola txiki bat** (5); **pistola txikia** (4)

**pistola zahar** (5); **pistola zorroa** (3)

**pistolak eskuetan** (4); **pistolak eta fusilak** (3); **pistolak gerrian** (3)

ertzainak **pistolarekin** (3); **pistolarekin apuntatu** (3); **pistolarekin mehatxatu** (3); **pistolarekin tiro** (3)

eskua **pistolaren zorrora** (3); **pistolaren kanoia** (5); **pistolaren katua** (3); **pistolaren katuari** (3); **pistolaren kulata** (3); **pistolaren zorrora eraman** (3)

**pistolari begiratu zion** (3)

**pistolaz tiro** (3); **ur pistolaz** (3)

## pistoladun *izond/iz* pistola duena.

Neska **pistoladunak** berriketarako gogorik gabe jarraitzen zuen eta ez zegoen gure artean gisa hartako komentarioak egiteko girorik. **Juan Luis Zabala**

Beste **pistoladuna** ikusi zuen, autobuseko geltoki alboan. **Fernando Morillo**

-Ez al duzu entzun **pistoladun** batzuk sartu zirela lke Goldstein-en dendan eta dena txiki-txiki eginda utzi zutela? **Lopez de Arana**

**Pistoladunetako** batek lasterka alde egin zuen. **Fernando Morillo**

Eutsi zituen antimilitarismoari, feminismoari eta sozialismoari dagokienez, aldiz, eta **pistoladun** jeloskorrak gorabehera, badirudi jende zentzudunak aintzat harturiko kausak direla oraindik ere. **Markos Zapiain**

## pistolakada *iz* pistola tiroa.

Noski, nire adinerako, gizon baten heriotza egina nintzen **pistolakada** batez. **Aingeru Epaltza**

## pistolari 1 *iz* pistola erabiltzen duen gaizkilea. ik **pistolero**.

Aurpegiaren ezkerreko alde a doletan nuen, dotore jantzitako **pistolariaren** errebolberrak leherturiko ate-markoko ezpal zorrotzek zaurituta. **Alberto Ladron Arana**

Pentsatu nuen irakaslearen etxeko **pistolariak** gaizkideren bat izanen zutela atari ondoan, baita ihes egiteko autoa ere. **Alberto Ladron Arana**

**Pistolarien** erasoak sortutako anabasaren erdian. **Alberto Ladron Arana**

Ezin nuen burutik kendu **pistolari** haiek neuk erakarri nituelako ideia. aNeure buruari erakutsi nahi banio bezala baneukala aski kemenik edozeri aurre egiteko, baita **pistolariarik** arrisksuenari ere. **Alberto Ladron Arana**

Bere nahiaren edo asmoen kontra **pistolari** ezaguna bilakaturiko Garmendiaren nondik norakoak ezagutuko ditugu. **Berria - Kultura**

### 2 (hitz elkartuetan)

Europan **pistolari** banda operatibo bakarra izateko ohore zalantzazkoa. **Berria - Harian**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**garmendia pistolariaren abenturak** (3)

## pistolatxo *iz* pistola txikia.

Areitioaurtena jaunak bere loki baten gainean jarri zuen **pistolatxoa**. **Aitor Arana**

## pistolatar *iz* *adkor* pistola handia.

Kalera irten behar duenean tabardoan itxi eta horra **pistolatarra** ezkutaturik baina hantura itzel bihurturik. **Edorta Jimenez**

Organizazioko kapela gorri-beltza eman nion, eta **pistolatar** handi bat, nirearen antzekoa, bere zorro eta guzti. **Inazio Mujika Iraola**

Ohean agondu, eta hantxe ikusi nuen Roman, kalera irteteko jantzita: nik utzitako jaka soinean, kapela gorri-beltza buruan eta **pistolatarra** gerrian. **Inazio Mujika Iraola**

## pistolazale *iz* pistolaren zalea dena.

Ezin joango ziren eskuinarekin, ezin arrotz zapaltzailearekin, eta are gutxiago bertako **pistolazaleekin**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## pistolekeria (*corpusean pixtolekeria soilik*) *iz* bitxikeria.

Aste huntako zalaparta guziak deus ez dira, batzu eta bertzen zainen akitzeko baizik; gure gazte denboran horiek deitzen zautzuten: **pistolekeriak**. **Herria**

## pistolero 1 *iz* pistola erabiltzen duen gaizkilea. ik **pistolari**.

Herrira heldu zen **pistoleroak** aita akabatu zuen, eta su eman zion eskolari. **Javi Cillero**

Benetako galtzaileak, bankuaren zuzendari diruzalea, jokalaria zorgilea, **pistolero** profesionala izango ziren. **Joseba Sarrionandia**

Noizbait, **pistoleroa** topatu zuen, putazain Virginia Cityn. **Javi Cillero**

Zain bat lehertuko ahal zaik, **pistolero** madarikatua! -erantzun dio Patxik, eta eszenariotik salto eginik Dabiden bila joan da. **Patxi Zubizarreta**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Pistolero** talde batek hil zian Donostiako kaleetan harrapatuta **Bernardo Atxaga**

## pistoleta (*orobat pixtoleta, piztolet g.er. eta pixtolet; Euskaltzaindiaren Hiztegian pistoleta agertzen da*) 1 *iz* ipar pistola.

Ez dute holakorik eginen, atxikiko baitituzte ez bakarrik ganibetak bainan ere **pistoletak** eta kalaxnikovak. **Herria**

Gehiagokorik gabe **pistoletarekin** tiratu zion. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Jakin genuen ere Delestrain generala, frantsesen buruzagia, SS ofizier batek **piztolet** tiro batez hil zuela. **Marzel Etxehandi**

### 2 (izenondo gisa) bitxia.

Ez dut batere gogorik, matematikako lan **pixtolet** horrengatik gauaren komisaldegian pasatzeko! **Itxaro Borda**

### 3 pistola txikia.

*Firebird* irakurri zuen **pistoletarik** baten alboan. **Joseba Sarrionandia**

## pistona *iz* ipar izendapen bat erabakitzen duen gomendioa. ik **entxufe**.

Haatik bat, **pistona** bati esker hasi zen lanean. **Herria**

Beharrik ene lagunak lana hartu zuen **pistonari** esker, ni heldu niz ofizio eder eta ohoragarri baten jabe. **Herria**

Berrikitan entzun dut gure Kontseilu Orokorrak **pistona** ukaldi handiak egiten dituela. **Herria**

**pisu**<sup>1</sup> (*orobat pisu g.er. eta pisu g.er.*) **1** iz Lurragorputz bat erakartzen duen enurria; indar horren neurria, nolakotasuna edo eragina. ik **hazta**; **zama**.

Utze ezazue "gorputz" esperientzia-adigaitik pixkanaka bertan enpirikoa den guztia alde batera: kolorea, gogortasuna edo biguntasuna, **pisua**, sarrezintasuna bera; [...]. **Ibon Uribarri**

Beragandik dator muga oro, espezie oro, ordena oro; Beragandik neurria, kopurua, **pisua**. **Imanol Unzuurrungaga**

Erasoetan erabilitako lehergai bakoitzak 4,5 kiloko **pisua** zuen, bizkarzorro batean kabitzeko modukoa. **Berria - Harian**

Nik ia 60 urte ditut, eta 120 kilo inguruko **pisua**. **Bernardo Atxaga**

Elurraren **pisuaz** teiltuak okertu ere egingo zirela. **Joseba Sarrionandia**

Muskulua da gizon baten gorputzaren **pisuaren** % 40 inguru. **Irene Aldasoro**

Nire **pisu** guztiaz zapaltzen dut gidako palanka, horma bat botatzen ariko banintz bezala. **Josu Zabaleta**

Bat-batean nire **pisu** guztia galdu eta airean sentitu nintzen, eserita nengoen aulkitik hogeituzentimetro gorago. **Bernardo Atxaga**

Gauza jakina da adreiluzko paretek [...] ezin diotela **pisu** batetik gorako zamari eutsi. **Santiago Iruretagoiena**

**Pisu** bereko harri kokkor bi zituen. **Josetxo Azkona**

Merkatalontziko sotoan pisatutako ikatzak ikaztegitira iritsitakoan ere **pisu** bera zuela kontrolatu behar nuen. **Anjel Lertxundi**

Zer balentriak garai batez, Aurizberrietik eta Lasara **pisu** horretako kargak eramanez zalu zalu! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Pisu** gehiegixto dauka, baina aizkolari handia da. **Berria - Kirola**

Maleta eskuetan hartu eta oso **pisu** gutxi zeukala baieztatu zuen. **Harkaitz Cano**

Sorpresa ederra hartu du Santik, Berangon jasotako behiak uste baino **pisu** dezente handiagoa eman baitu baskulan. **Patxi Iturritegi**

Berez izaten da zurrina eta **pisuaren** eraginez ez da erraz okertzen. **Santiago Iruretagoiena**

Ezustean, tontorrean metatu elur-hegala **pisuaren** pisuz urratu zen eta amilka erori. **Josetxo Azkona**

## 2 (izenondoekin)

Bide ondoko etxeak ere osorik dardaritzen baitira hain **pisu** handikoak ez diren gurdien pasaeran. **Xabier Amuriza**

**Pisu** ikaragarria zuen, eta ukitzean beroa zen. **Juan Garzia**

Sua urrun botatzen du eta hautsa lekutara zabaltzen, eta belztasun zarratuko kea iraulkatzen du eta aldi berean **pisu** izugarriko haizak jaurtitzen. **Xabier Amuriza**

Eztiki eraman nuen Ixabel gure ohetik gelako sehaskara eta bere gorputzaren **pisu** arina nire besoetan nuela. **Hasier Etxeberria**

Zaldia gutxigatik ez zen lurreraino makurtu hain **pisu** astunaren zamapean. **Jose Morales**

Drakmak bere **pisu** neurtua izan behar du eta ongi ikurkatu egon. **Joan Mari Lekuona**

Zeure bizkarrean zintzilik zeraman besoak **pisu** harrigarria hartzen zuela sentitu zenuen, lehenago ez bezala. **Hasier Etxeberria**

Besapean, berriz, pistolaren **pisu** lasaigarria. **Alberto Ladron Arana**

**Pisu** molekular baxuko polietilenoa, dentsitate baxuko polietileno lineala (LLDPE), dentsitate altuko polietilenoa (HDPE), **pisu** molekular oso-oso altuko polietilenoa (UHMWPE),... **Berria - Gaiak**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pud: Errusiako **pisu**-neurri antzinakoa (16,3 kilogramoren baliokidea). **Jose Morales**

Esan behar da, beraz, gorputzen grabitatea ez dela **pisu**-kopuruaren araberakoa izaten, bakoitzaren izaeraren araberakoa baizik. **Santiago Iruretagoiena**

DIUak ez du **pisu** aldaketarik eragiten, ezta likido erretentziorik ere, hau da, ez du loditzen. **Luis Elberdin**

Erabaki-, itxaropen- eta beldur-krisialdi bat izan zen, baina sukar handia, **pisu**-galera eta eldarnioak eragin zizkion, bai eta krisi epileptiko bat ere beharbada. **Xabier Olarra**

Ez zituen **pisu** neurketa haiek osasun kontuengatik burutzen, nahiz eta jakin bazekien argalduz gero ez zitzaioela [...] arnasa desneurrian larrituko. **Bernardo Atxaga**

Gaur egun Frantzia 5,3 milioi pertsona dira gizenak eta 14,4 milioi pertsonak **pisu** arazoak dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Demagun ezen, zilarrean **pisu**-legean arabera, zilarrezko hiru liberako ezkuak berrogei sos-erdi balio zituela. **Iñaki Iñurrieta**

## 4 pisu nabarmena duen gauza.

**Pisu** astun bat jaso behar denean edo pala bat lur gogorrean sartu, gorputz osoa zurruntzen da. **Irene Aldasoro**

Oinaze-zaldian zintzilikatu zuten, burdinazko **pisu** ugari beraren gainean jarriz. **Askoren artean**

Burdinazko **pisu** bati loturik eta perla beltza kolkoan, salto egin zuen uretara, tiburoien bazka eginik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 5 (kiroletan)

**Pisu** jaurtiketako proba hango olinpiar estadioan jokatuko baita. **Berria - Kirola**

Askoz handiagoak izan daitezke tentsioak kirolarien kasuan, batez ere oinak lurretik altxatzeko edo lurrean pausatzeko unean, edo **pisu**-jasotze eta antzeko jardueretan. **Irene Aldasoro**

**Pisu**-jasotzaileek eta disko-jaurtitzailuek eman zuten hezur-mineral kantitate handiena. abiadura probetako kirolariek, **pisu** altxatzaileek eta eskubalo eta futbol jokalariek erabiltzen dute batez ere. **Irene Aldasoro**

Emakume bat ateratzen, lehen begi kolpean **pisu**-jaurtitzaila edo agian mailu-jaurtitzaila errumaniararren itxurakoa iruditu zitzaidana. **Jon Alonso**

Haltera-**pisuak** jasotzean min hartzen nuela, batez ere, belauak behartzen nituenetan. **Berria - Kirola**

Bart hasi dira Azkoitiko (Gipuzkoa) **pisu** neurtuko idi probak. **Berria - Kirola**

## 6 pisu jakineko gauzakia, pisatzeko erabiltzen dena.

Denbora, distantzia, luzera, bolumen, **pisu** eta balioaren neurri estandarrik gizarte-bizitzako premiak dira edozein mailatan. **Iñaki Mendiguren**

Frantziar iraultzaileek, beren egutegi sekular berria ezartzen hain osoro huts egin zutenek, arrakasta ekumenikoa izan zuten beren **pisu** eta neurri berriekin. **Iñaki Mendiguren**

Jaunari eskainiriko ogiez, eskaintzetarako ogi-irinaraz, legamigabeko opilez, [...], **pisu** eta neurriez ere arduratu behar zuten. **Elizen arteko biblia**

Erabili balantza zuzenak, **pisu** eta neurgailu zuzenak. **Elizen arteko biblia**

Ez duzue **pisu** eta neurri faltzurik erabiliko salerosketetan. **Elizen arteko biblia**

Bildutako zilarra hiru mila hirurehun eta hemeretzi kilo izan zen, santutegiko **pisu**-neurriaren arabera. **Elizen arteko biblia**

·Pisa nazala Jainkoak **pisu** zuzenez, eta ikusiko du nire prestutasuna. **Elizen arteko biblia**

## 7 zama nekagarria.

Nire presentzia hutsa harlauza batena baino **pisu** astunagoa zen Umbertorentzat, eta garbi nuen ez niola ezer gehiago eskatuko hainbeste lagundu zidanari. **Anjel Lertxundi**

Beldurraren **pisuak** larritzen zuen. **Agustin Otsoa**

Izututa eta lotsazko eta kaxkarkeriazko **pisu** eutsiezin batek zanpatua. **Josu Zabaleta**

Hala ere, oraindik halako **pisu** bat nabaritzen nuen bihotzean. **Alberto Ladron Arana**

Ez dut sukarririk, baina halako **pisu** astun bat sentitzen dut bularrean, inor ukabila sartzen ari balitzait bezala. **Anjel Lertxundi**

Beteranoa naiz, eta nire adinarekin, urteek **pisu** bikoitza daukete, baina ondo nago oraindik. **Berria - Kirola**

Ez dakit ondo edo gaizki egiten ote dudan hau guztia zuri idaztean, baina iruditzen zait arindu egiten naizela nireaz ez den zama baten **pisutik**. **Hasier Etxeberria**

· *irud/hed* Bere aldetik, Albert Pery auzapez ohiak erran du halako **pisu** bat kendu diola Pauen hartu erabakiak. **Herria**

Lehertzen banaiz, hobe; horrela **pisu** bat kentzen dute gainetik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Burua altxatu zuen, gainetik **pisu** handi bat kendu bailuen. [Migel Angel Mintegi](#)

Gainetik **pisu** handi bat kendu izan baliote bezala ari zen. [Anjel Lertxundi](#)

-Gure andre erreginarendako da -eman zion Arburuak aitatxiri, gainetik **pisu** astuna kentzen duenaren keinua eginez. [Aingeru Epaltza](#)

Hori bada nahi duana, **pisu** galanta kenduko didak gainetik. [Anjel Lertxundi](#)

## 8 zama, erantzukizuna.

Komentuko **pisu** guztia haren gain geratzen zela eta ez beraien gain. [Askoren artean](#)

Baina gero eta **pisu** handiagoko zama bat ere bazuen: bere izena. [Julen Gabiria](#)

Batasunekoek eta Sozialistek eramaten badute negoziazioaren **pisu** nagusia, adibidez, ez al lioke honek jeltzaleei lagunduko? [Joseba Zulaika](#)

## 9 gorabehera, garrantzia.

Holako arrazoinekin, zer **pisu** dute ltoitz eta auzo herrietan bizi diren 50 bat jendeek? [Herria](#)

Esaten ez dena azalean itsatsita bezala geratzen da, **pisua** dauka, hortxe dago, eta igarri egiten zaigu, ikusi ez arren. [Ana Urkiza](#)

Ez dugu sinisten **pisu** bera dutenik emakumezkoak eta gizonezkoak. [Ana Urkiza](#)

Berrehun urtean gudan **pisua** izan duten printzipio sasi-moraletaz askatu ahal izango gara orduan. [Iñaki Heras](#)

Nazioartekoturiko ekoizpenak munduko BPGean duen **pisua** (%9 1998an, eta %5 1985ean) handituz joango da. [Koro Navarro](#)

Julio Cortázar ere aipatuko nuke narratibaren, niretzako **pisu** handia izan baitzuen. [Ana Urkiza](#)

Ezaugarri horiek **pisu** desberdina dute unibertsitateen arabera eta unibertsitateen zentro edo sailen arabera. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Nekazaritzak ekonomian **pisu** handia zuenean, klimak markatzen baitzuen, hein handi batean, ekonomia zikloaren bilakaera. [Iñaki Heras](#)

Gazte sasoiok **pisu** handiagoa hartzen dute gure oroitzapenetan, ametsen gauzatzeak baino. [Anjel Lertxundi](#)

Bietan "inprobisatutako zatia"k **pisu** handiagoa hartzen du. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Lausenguak utzi eta **pisu** handiagoko arazoak agertzeko aldia nuen. [Aingeru Epaltza](#)

Txinak Japoniak baino **pisu** handiagoa du, Indiak Alemaniak baino handiagoa, eta Mexikoko BPGak Kanadakoa gainditzen du. [Koro Navarro](#)

Nahikoa da, nire ustez, lotura horien **pisu** guztia sentitzea eta aztertzea, lotura horiek lasaitzen dituen ekingiza krimintzat ez hartzeko. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Mundu-ekonomia zirkulu zentrokideetan zegoen egituratua; zentroarekiko mendekotasuna hazi ahala, behera egiten zuen **pisu** ekonomikoak. [Koro Navarro](#)

Antzerki tarteetan umorea nagusi da, eta dantza tarteek, berriz, **pisu** dramatikoak hartzen dute. [Berria - Kultura](#)

## 10 (boxeo eta kidekoetan)

Klubeko izarra zen Manu Kid Sanchez, **pisu** astunetako txapeladuna, bertan ari baitzen erakustaldi bizian. [Josu Landa](#)

1964an **pisu** astunen munduko txapeladun, Sonny Listonen aurka. [Berria - Kirola](#)

Lehenik eta behin, halere, hobe kontuak egin, ez duk uste? -**pisu** astuneko boxeolariak bezain erromantikoa zen, alajaina!-. [Migel Angel Mintegi](#)

Boseoan ere, *peso mosca* deitzen zaio **pisu** arineko jokoari. [Patzi Perurena](#)

Ukabil-joko handia, bertoko sekzioko Mirko Bagotti alderdikide eta **pisu**-maila handienekoaren eta Probitziako Federazioko Anteo Gorini alderdikide eta **pisu**-maila handienekoaren artekoa. [Koldo Biguri](#)

Ickboxing-a gailurrera iritsi da Euskal Herrian, azaroan Ignacio Txino Sanchezek **pisu** ertainean munduko txapeladun titulua berretsi ondoren. [Berria - Kirola](#)

-Herfy eta Kid euli **pisuko** txapelketa lortzeko lehian arituko dituk. [Lopez de Arana](#)

1,72 metro eta 66 kilo (welter **pisua**). [Berria - Kirola](#)

Welter **pisuko** Espainiako txapelketa. [Berria - Kirola](#)

## 11 (sokatiran)

Espainiak 560, 640 eta 680 kiloetan jardungo du, eta hiru **pisu** horiek Mutriku, Gaztedi eta Goierriko tiralariak tiratuko dute, konbinatuak osatuta. [Berria - Kirola](#)

Ohiko **pisuetan** jardungo dute tiralariak; hots, 480 eta 520 kilokoetan emakumezkoek eta 560, 600, 640 eta 680 kilokoetan gizonezkoek. [Berria - Kirola](#)

**Pisu** txikian tiraldi estuak ikusi ziren, eta hainbat txandatan lehia polita, gainera. [Berria - Kirola](#)

**Pisu** txikian izan dugu hutsunea, esku hartzeko asmoa baikenuen, baina tiralari bat lesionatu egin zen. [Berria - Kirola](#)

Aurtengo lauko txapelketan bi **pisutan** irabazi du, baina tiralari guztiak erabili gabe. [Berria - Kirola](#)

**Pisu** nagusian Nuarebek tiraldi guztiak irabazi zituen bere herrian jokaturiko saioan. [Berria - Kirola](#)

600, 680 eta **pisu** libreko finalak jokatu zituzten, eta Ezpeletakoek tiraldi guztiak irabazi zituzten. [Berria - Kirola](#)

## 12 pisatzeko tresna.

Halako moldez non ematen dituen ez dadin saihestu ez makurtu batera ez bestera; aitzitik, erdian egonik **pisu**-orratza bezala, utz diezaion bitarteko gabe jarduten Egilea sorkariarekin eta sorkariari Egile eta Jaunarekin. [Patxi Altuna](#)

Gorrito ditu Jaunak engainuzko **pisuak**; begiko ditu, ordea, neurgailu zehatzak. [Elizen arteko biblia](#)

## • 13 izond astuna, pisu handia duena.

Gorputz guztiak **pisuak** dira. [Ibon Urbarri](#)

Zer akidurak biltzen ziren beti kurri eta zenbait aldiz zaku **pisu** bat bizkarrean, berdin kintal erdikoa! [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Doi-doi hartu nuen eskuetan tabako kiratsa zerion jaka **pisu** hura. [Harkaitz Cano](#)

Bere bidea egiten zuela, denen ezkutuan, zurean intsektuek egiten duten bezala, oskol hustu bat uzten baitute altzari **pisu** bat bazegoela uste genuen tokian. [Jon Alonso](#)

Itsuak baitziren; itsutasunaren aintziran murgildutako bi harri **pisu**. [Felipe Juaristi](#)

Bala bat errekamaran sartuta, armak **pisuagoa** ematen zuen. [Alberto Ladron Arana](#)

Makineria **pisuaren** laguntza behar duten zientziaren edo pentsamenduaren eremu handi-zabalak. [Aingeru Epaltza](#)

Nonbait urrun zegoen jada Manhattan, horko trafikoko **pisua**, jendearen presa. [Iñaki Zabaleta](#)

Ni, artean, erdi lotan nongoen, eta halaxe ohartu nintzen denetaz, laino **pisu** batzuen atzetik bezala. [Joxemari Iturralde](#)

-Anjelmariren burua **pisu** egin zitzaion eskuartearen, eta bere horretan laga zuen. [Unai Iturriaga](#)

## 14 irud/hed

Bai, jatorrak dira, baina **pisu** samarrak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Karguaren zama ote da holakoetan **pisuegia**? [Herria](#)

Bertzelakoak dira damuaren petxa **pisuaren** ordaina pagarazten duten plazerak. [Aingeru Epaltza](#)

Erabaki **pisuak** hartu dituzte, erranez denen artean behar dela ziloa estali. [Herria](#)

Berehala erantzi, eta, burusi azpian sarturik, lo **pisu** batek hartu zuen. [Jose Morales](#)

Beruneko egunsenti **pisua**, eta gorputz beratza, epela, ohe arrotz batean, gela arrotz batean. [Matías Múgica](#)

Bere begi hunkigarriekin tinko begiratzen zidan, begirada **pisu** nekatu batez. [Monika Etxebarria](#)

Une batez isiltasun **pisu** bat nagusitu zen etxebizitza erraldoiaz. [Alberto Ladron Arana](#)

Badudala halako arrangura **pisu** bat, buruan ziztaka bezala ari zaidana. [Janbattitt Dirassar](#)

Emeki-emeki halako tristura **pisu**, eutsiezin batek hartzen ninduela sentitu nuen. [Alberto Ladron Arana](#)

Arazoi horrek huts egiten baldin bazuen, banuen bertze bat **pisuagoa**: pistola aldean eramaten nuen beti. [Aingeru Epaltza](#)

## 15 (neurriekin)

Palankatxo moduko tresna bat, hamahiru libra **pisu** eta ia metro erdi luzekoa. [Xabier Olarra](#)

Balea ederra, aldatzen bat metra luze eta tonaz goiti **pisu** . Herria

Aspaldian ondo hotan ikusi den handiena, 18 metra luze eta 50 tonaz goiti **pisu** ... Herria

Behi horrek maiatzaren 22-an eginen bost urte, 1058 kilo **pisu** . Herria

Pentsa, 38 kilo **pisu** , ez baita harritzeko holako arraina ezin menperatuz azkarki penatu behar izan bada ere gure gizona...! Herria

## 16 pisura adlag pisuaren arabera.

**Pisura** erosi nahi izan zizkidatenen batek. Anton Garikano

Segidan datorrenak, ordea, lotsa bera gorritzerainokoa du gordinkeria: "haren itxura, saldu ahal baliteke **pisura** , urrearen truke, norik erosi faltako ez luke". Anjel Lertxundi

## 17 pisuzko izlag

**Pisuzko** arrazoiak, alajaina. Oraingoan ez nion mintzeko esan hori, **pisuzko** argudio gisa baizik. Jon Muñoz

**Pisuzko** argumentuak jarriko dituzte mahai gainean, eta bero-bero haien alde egin, mendea 1999ko abenduaren 31n bukatzen dela baieztatzeko. Pello Salaburu

Elorrietak ziurtatu zuen LAB dela ELAren «**pisuzko** aliatu posible bakarra». Berria - Ekonomia

Sinposiotik **pisuzko** hainbat ondorio atera badituzte ere, medikuak ez daude erabat gustura. Berria - Euskal Herria

Arrazoi **pisuzkoa** , oraindik zain eta muin heldu nahi ez izateko, ez bederen burua onbideratzen ez nuen artean. Aingeru Epaltza

Argudioa, hasieran **pisuzkoa** dirudien arren, batere oinarri gabea dela ikusiko dugu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Iraddockizun hau gordinegia da **pisuzkoa** izateko. Itziar Laka

Ustekabea izan bazen ere, ez zuen horrek ondorio politiko **pisuzkorik** izan. Berria - Euskal Herria

Orain, ordea, "iritzi-berritua" baitzen familia, aukera ona zen oztopo psikologiko **pisuzko** bat desegiteko. Xabier Olarra

Hainbat arrazoiz, batzuk **pisuzkoagoak** besteak baino. Juan Garzia

## 18 pisu egin

Anjelmariren burua **pisu** egin zitzaion eskuartean, eta bere horretan laga zuen. Unai Iturriaga

## 19 pisu espezifikoko gorputz baten pisua bolumen unitateko.

Material baten **pisu espezifikoa** balantzarik gabe kalkulatzeko ez da noski gauza erraza. Juan Garzia

Nire asmoa ez da hemen inolaz ere hau benetan materien ezberdintasunei **pisu espezifikokoaren** arabera gertatzen zaientik baieztatzea. Ibon Uribarri

## 20 pisu izan du ad ipar

Burua biziki **pisu nuen** eta bihotza arrunt minbera. Janbattiti Dirassar

Bi kiloz petik **pisu du** taula horrek. Herria

Judu aireko batek tona bat **pisu zuen** bonba bat du bota, hain xuxen jende frango bizi den gune batean... Herria

Diga hori azkartzeko bost ehun harriz estaliko dute, bakoitzak hogeitona **pisu** . Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrangura pisu (14); arrangura pisu bat (6); arrangura pisu batzu (6); giro pisu (4); gorputzaren pisu (9); isiltasun pisu (5); isiltasun pisu bat (3); kilo pisu (6); lo pisu (3); lo pisu batek (3)

pisu arineko (3); pisu asko (5); pisu astun (6); pisu astun bat (4); pisu astuna (8); pisu astunak (4); pisu astunen (6); pisu astunetako (7); pisu astunetan (5); pisu berean (3); pisu bereko (6); pisu berezia (4); pisu dezente (3)

pisu eta neurri (5); pisu galera (3); pisu gehiago (21); pisu gehiago dute (3); pisu gehiegi (5); pisu gehien (3); pisu gutxi (6); pisu gutxiago (5); pisu gutxiko (3); pisu gutxiarekin (4); pisu gutxiarekin jaiotzen (4); pisu handi (3); pisu handia (73); pisu handia dauka (4); pisu handia du (16); pisu handia dute (7); pisu handia hartzen (4); pisu handia izan (10); pisu handia zuen (3); pisu handiagoko (60); pisu handiagoko du (6); pisu handiagoko dute (3); pisu handiagoko eman (4); pisu handiagoko hartzen (6); pisu handiagoko izan (7); pisu handiagoko (3); pisu handiagoko (5); pisu handiegia (7); pisu handiena (7); pisu handiko (21); pisu handikoak (8); pisu horretako txapela (3)

pisu ikaragarria (4); pisu izugarria (5); pisu jaurtiketa (6); pisu jaurtiketan (4); pisu libreko (3); pisu molekular (3); pisu nabarmena (4); pisu nagusia (3); pisu neurriaren (12); pisu neurriaren arabera (11); pisu neurtuko (3)

pisu osoa (3); pisu politiko (9); pisu politiko handia (4); pisu politikoa (6)

pisu xuxena (3); santutegiko pisu neurriaren (11)

tona pisu (3)

altuera eta pisua (5); aski pisua (3); begiradaren pisua (3); berebiziko pisua (3); bizitzaren pisua (3); galdutako pisua (3); garrantzia eta pisua (3); gehiegizko pisua (12); gehiegizko pisua dute (3); giro pisua (4); gorputzaren pisua (8); isiltasun pisua (3); izugarriko pisua (3); kiloko pisua (14); kiloko pisua du (3); partidaren pisua (3)

pisua dauka (3); pisua du (16); pisua dute (9); pisua eman (6); pisua eramaten (4); pisua gal (3); pisua galdu (7); pisua galduko (3); pisua galtzea (3); pisua galtzeko (5); pisua galtzen (7); pisua har (3); pisua hartu (10); pisua hartzen (3); pisua izan (11); pisua izango (4); pisua kendu (5); pisua sentitu (3); pisua sentitzen (5); pisua urretan (3); pisua zen (5); pisua zuen (9); pisua zuten (3); pottoka baten pisua (3); pottokaren pisua (3); tonako pisua (8); tonako pisua du (4)

karga pisuagoa (3)

arrangura pisuak (10); elurraren pisuak (5); elurraren pisuak eraginda (3); pilota pisuak (3); pisuak altxatzen (9); pisuak eragin (3); pisuak eraginda (4); pisuak eta neurriak (3); pisuak izan (4)

gorputzaren pisuaren (4); pisuaren arabera (8); pisuaren azpian (9); pisuaren eraginez (3); pisuaren ondorioz (3)

pisuari eusteko (3); pisuari eutsi (9)

pisuzko arrazoa (3); pisuzko arrazoiak (4); pisuzko arrazoiengatik (3); pisuzko arrazoirik (4)

## pisu<sup>2</sup> (orobat piso g.er. eta pixu g.er.) 1 iz etxebizitza.

Hogeita Bigarren Etorbidean **pisu** bat hartuko dut alokairuan, lankide batekin batera. Lopez de Arana

Lagun batzuekin bizi naiz alokatutako **pisu** baten. Jon Arretxe

Tailerrean bazen baina ez zen nahikoa, soinuarekin laguntza ederra izan genuen **pisoa** pagatzeko. Pako Aristi

Alokatzeko **pisuak** eskaintzen dituen etxe batean. Lopez de Arana

Untzaga plaza ondoan apopillo zegoen **piso** batean ematen zidan klasea. Koldo Izagirre

Neskak **pisu** bat partekatzen zuen Ruby izeneko ezagun batekin. Mirentxu Larrañaga

Kontua da Edurrekin **pisua** osatuta geratu zela. Jon Arretxe

**Pisu** berean bizi izan ziren hiru urtez. Iban Zaldúa

Uda hasierako egun baten alde egin nuen **pisutik** inori agur esan barik. Jon Arretxe

Urtebete daramazu Sestaoko **pisu** batean gordeta. Rafa Egiguren

Alde egin aurretik, gela ez ezik, **pisu** osoa arakatu du poliziak. Rafa Egiguren

Agindu dutenez, horrekin kaleko eta **pisuetako** prostituzioa desagertuko litzateke. Berria - Harian

Goiko hiru solairuetan **pisu** garestiak ziren egitekoak. Oskar Arana

Hiru lagun bizi ginen Gorbeia kaleko **pisu** bitxi hartan. Jon Arretxe

**Pisu** koxkor batean bizi zen, katedraletik oso gertu. Rafa Egiguren

Ez nuen **pisu** konpartitu batera itzuli nahi, ikasle garaian bezala. Iban Zaldúa

"**Pisu** frankoa", esan zuen. Iñaki Iñurrieta

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Joera horrekin, ez lbarretxe planik, ez **pisu** aldaketarik, ez bidaiarik, eta ez ezer! Bernardo Atxaga

Hala diote behintzat auto eta **pisu** saltzaileek. Iñaki Heras



Morse andrearen aurretik iragan ziren erreskando, **pisu** -zuloan sartuta eta etzanda alferrik galdu zuten egun geldoak. Mirentxu Larrañaga

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zorionez, segurutasun-**pisua** ez zegoen hain urrun, eta hara abiatu nintzen. Iban Zaldúa

Amaren etxetik kanpo, ikasle **pisu** batean egiten ikasi zuen lehen platera, nolabait ere bere independentziaren sinbolotzat zeukana. Unai Iturriaga

Penagarri zegoen dena, estudiante **pisu** asko bezala bestalde. Iñaki Iñurrieta

### 4 solairua, estaia.

Berrogeita laugarren **pisutik** erori eta lurraren kontra jo zuen. Lopez de Arana

Goiko **pisuan**, bere lantegian behintzat, nagusia egoten da beti. Harkaitz Cano

Lehenengo **pisuan**, "principal"ean, letrero hau atean: [...]. Txillardeggi

Eraikina harri grisa zen, goizeko eguzkitan jadanik, lau **pisu** zituen eta oso luzea zen, izango zituen ehunen bat metro, eta leihoak lerroz lerro, eta eliza gotiko bat oso dotorea alde batean. Joseba Sarrionandia

**Pisu** biko etxea zeukan ezker aldean. Unai Elorriaga

Neskatoa bosgarren **pisu** batean bizi zen eta, uste nuenez, bakarrik gainera. Joxemari Iturralde

Lasterka lau **pisu** igo zituen, ugerrez betetako eskaileretan gora. Lopez de Arana

Galerietako batean sartuko zarete, galeriak hiru estai izanzen ditu, **pisu** bakoitzean zelda ilarak alde bietan. Joseba Sarrionandia

### 5 irud/hed

Bi **pisuko** autobus gorri batean. Patxi Zubizarreta

Nik neure burua ezin barregarriago ikusi dut autobusaren bigarren **pisu** sabaigabea, eguzki galdatan gindoazela. Patxi Zubizarreta

Bi **pisu** ditu, 555 pertsona garraiatzeko ahalmena du bere bertsio estandarrean eta, aurreikuspenen arabera, lehen hegazkinak 2005. urtearen lehen hiruhilekoan prest egongo dira. Berria - Ekonomia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bigarren pisu** (3); **bosgarren pisu** (4); **ikasle pisu** (5); **lau pisu** (5); **pisu bat alokatu** (3); **pisu bat dauka** (5); **pisu bat erosi** (3); **pisu batean bizi** (3); **pisu batera joan** (4); **pisu berri** (3); **pisu berria** (3); **pisu bila** (3); **pisu igo** (5); **pisu txiki** (5); **pisu txiki batean** (3); **pisu zituen** (3)

**goiko pisua** (3); **pisua alokatu** (3); **pisua alokatzea** (3); **pisua erosi** (3); **pisua ikustera** (3)

**azken pisuan** (3); **beheko pisuan** (11); **bigarren pisuan** (10); **bosgarren pisuan** (4); **goiko pisuan** (18); **hirugarren pisuan** (14); **lehen pisuan** (4); **lehenengo pisuan** (15); **pisuan bizi** (14); **pisuan egon** (3); **pisuan sartu** (3)

**bi pisuko** (12); **bi pisuko autobus** (4); **bigarren pisuko** (8); **bosgarren pisuko** (6); **goiko pisuko** (8); **hiru pisuko** (9); **hiru pisuko finalak** (3); **hirugarren pisuko** (3); **lehen pisuko** (7); **lehenengo pisuko** (3); **pisuko autobus** (4); **pisuko dorrea** (3); **pisuko etxe** (4); **pisuko finalak** (3); **pisuko gela** (3); **sei pisuko** (3)

**bigarren pisura** (6); **goiko pisura** (11); **hirugarren pisura** (10); **lehen pisura** (3); **lehenengo pisura** (3); **nire pisura** (3); **pisura eraman** (3); **pisura igo** (8); **pisura igotzen** (3); **pisura joan** (5)

**azken pisuraino** (3); **laugarren pisuraino** (3); **pisuraino igo** (3)

**bigarren pisutik** (3); **hirugarren pisutik** (3); **pisutik erori** (3)

## pisudun 1 *izond* pisua duena, astuna. ik **pisugabe**.

Nola ibai harro batek **pisudunak** hondoratu eta pisu gabeak azaleratzen dituen, hala Praga kanpotarrak etxekotu eta etxeokak erbesteratu egin dituen hiria da. Felipe Juaristi

Garrak gorantz sortzen eta handitzen dira eta labore mardulak eta zuhaitzak gorantz hazten dira, **pisudunek**, berriz, eurenaren arabera, denek beherantz tiratzen dute. Xabier Amuriza

### 2 irud/hed

PSE-EErentzat garrantzi berezia dauka PSOeren zuzendaritza federalean ordezkaritza **pisuduna** izatea. Berria - Euskal Herria

Soinu indartsua dauka Marshallek, **pisuduna**. Berria - Kultura

### 3 garrantzia duena.

Alemanez hirurak dira fonema, alemanaren sistema fonologikoan bokal biribildu eta ez-biribilduen arteko aurkakotasuna **pisuduna** baita, eta baita aurreko eta atzeko bokalen artekoa ere. Lourdes Oñederra

## pisugabe (*orobat pisu gabe*) *izond* pisurik ez duena, arina. ik **pisudun**.

Ni arin sentitzen naiz une horietan, **pisugabea**, airean banengo bezala. Pako Aristi

Trumoi zamalkari edo hezur arin **pisugabe**. Karlos Linazasoro

Nola ibai harro batek pisudunak hondoratu eta **pisu gabeak** azaleratzen dituen, hala Praga kanpotarrak etxekotu eta etxeokak erbesteratu egin dituen hiria da. Felipe Juaristi

## pisugarri *izond* pisutsua.

Bakardadea **pisugarri** baitzizaion eta loa berandu eta nekez agertzen baitzen, desgaraz askotan. Iñaki Zabaleta

## pisuki *adlag* pisutasunez.

Hiri barrenerantz zihono metroan sartu eta aulkian utzi zuen gorputza, **pisuki**. Iñaki Zabaleta

## pisukide *izond/iz* pisu berean bizi dena.

Denboraldi honetan, askatuz joan zaio korapiloa, hasierako esan ezin hartatik, eta nik ez nekizkien gauza asko azaldu dizkit, pisukoez eta **pisukideez**. Iñaki Iñurrieta

Nire etxean gera zaitezke, **pisukidea** kanpoko dago. Unai Iturriaga

Agian Gabin mugiarazi zutenak gaizki interpretaturiko hitz batzuk ziren, **pisukideei** erdizka entzunak. Iñaki Iñurrieta

"Ez al ditu senargaiak deitu?", bota zidan **pisukideetako** batek. Xabier Mendiguren Elizegi

Hau al da Pauline, lehengusina eta **pisukidea**, gaitzetsiko ote duen Melaniek horrenbesteko beldurra diona? Oskar Arana

Amonarekin eta Karlos **pisukidearekin**. Jasone Osoro

Brooke, bere **pisukide** Kath, haien lagun bat eta lauok. Harkaitz Cano

-Anek esan dit zure **pisukidea** oso irakurzalea dela, ehunka liburu dituela etxean. Unai Iturriaga

Inori ez zaio buruan sartzen Oñatin bizi den estatubatuarra etorkina denik, nahiz eta haren **pisukide** perutarra beti izango den etorkin guretzat. Berria - Euskal Herria

-Oso **pisukide** parrandazaleak dauzkadalak. Jon Arretxe



## pisupe *iz* pisuaren azpia. (-n, -ra eta -tik atzizkiekin)

Anneren testuan ez da "beroarena kentzeko" astirik izan; gertaeren **pisupean**, sentimenduaren beroan idatzita dago hizki bakoitza. Josu Zabaleta

Hainbat gauzak pentsatzeko astia izan nuen erabateko isiltasun haren **pisupean**. Ramon Saizarbitoria

Lehen aberastasunean bizitzen ezagutu zuten herritarrei berei limosna eskatzen zien eta barauetz akituriko gorputz ahula harrien **pisupera** makurtzen zuen. Askoren artean

Horrela lasai geratu ahal izateko, sekretuaren **pisupetik** libre. Ramon Saizarbitoria

Bere altzora zoritzartutako gaixoak arrantzatu nahi zituen Herioko, urandituen **pisupean** oihalaren josturak betiko itxiz. Pako Aristi

## pisutasun *iz* pisua denaren nolakotasuna.

**Pisutasun** bikoitza azpimarratzen du, arrazoimenarena eta Kristoren eta Elizaren autoritatearena, konbertsioaz gero honen mende jarri baitzen Egiaren ikasbidean. Imanol Unzurrunzaga

Joka ari ziren eskolen **pisutasunak** kontra eta burka egiten zien, elkar ukitzen zuten buru lokei. Anton Garikano

## pisutsu (*orobat pizutsu g.er.*) 1 *izond* pisu handikoa.

Metalez betetako zakukada **pisutsu** bat lepoan hartuta N-1 errepidea zeharkatu eta Pasaiara korrika ihes egiten zuten iluntasunaren zerbitzari haiek. Harkaitz Cano

Ate **pisutsua** bultza eta barrura sartu zen. Sonia Gonzalez

Oteizaren eskultura **pisutsu** baten ondoan. Patxi Iturritegi

Arma **pisutsuak** dira, merkatuan nekez topatzen direnak. Berria - Gaiak

Errezelak berak, teatro bateko teloiari lapurtuak dirudite; granateak eta **pisutsuak** dira. Harkaitz Cano

Horretara, badiogu zerua "ez dela arina ez **pisutsua**", "aldagaizta" dela. Xabier Kintana

Handia eta **pisutsua** da, bikaina blokeoak egiteko. Berria - Kirola

### 2 irud/hed

Kirxaren betazal **pisutsuak** lehengo altxatu ziren gazteari begiratzeko. Patxi Zubizarreta

Trinitik irakurtzen dituen hitzak karga **pisutsuak** dira. Antton Olano

Abizenaren zama **pisutsua** dela medio. Berria - Kultura

Haren estutuan urteen zama nabari zen, edo urteak baino zama **pisutsuago** bat. Juan Kruz Igerabide

Ez du zergatik gastu **pisutsua** izan behar gobernuarentzat. Berria - Ekonomia

Arrazoi **pisutsu** bat behar zen, hura bezalako gizon batek halako ahaleginak egin zitzaizkion lora bat berreskuratzeko. Jon Muñoz

Antzinako obra horietan halako gauza bat baiesteko edota ukatzeko argudio **pisutsuak** eta ahalegin handiak aurkitzean, [...]. Xabier Kintana

Argumentu **pizutsuagoak** jin arte ezin dugu pentsatu jokamolde anti euskaldunean sartuak direla. Herría

Zeren zinez izan baitzitekeen **pisutsua** eta karga handikoa harentzat aitaren uztarria. Joan Mari Irigoien

Larrua jotzea ez da gauza bera kokainarik gabe, eta bizitzaren zama bera ere askozaz **pizutsuagoa** da azukre beltz dosirik ez badago. Sonia Gonzalez

Nork bere ezinegon **pisutsua** ahalik eta arinen bizkar gainean eramanez. Josetxo Azkona

Bazirudien besoan inguruan lurrinezko eratzun **pisutsu** batzuk kiribilduta zeuzkala. Lopez de Arana

### 3 (adizlagun gisa)

Leihoko argi horiaren bestaldean trailer bat zihoan **pisutsu** eta nekez. Harkaitz Cano

Neu ere **pisutsu**, zorabiatutik sentitzen nintzen, ontzi batera igotzean bezala. Josu Zabaleta

Gorputa espaloa eta bidearen ertzerantz jausi zen, **pisutsu**. Joxemari Urteaga

Izua sentitzen zuen bihotzean, irin-zakuz zamatu balute baino askoz ere **pisutsuago**. Anjel Lertxundi

## pisutu, pisu(tu), pisutzen (*orobat pizutu g.er.*) 1 da du *ad* pisuago bihurtu.

Beti gibelkari izana den Ingalaterraren gibel-karga hura bai oraino **pisutzerat** arizan dira. Herría

Azken goiera honek zangoak **pisutu** dizkit eta gogotik etzan eta luzatu naiz, segidan, aterpeko ohe goxoan. Piarres Aintziart

Gorputzean sartu beroak eta akidurak nagikeria hastial batean **pisutu** eta malindu naute. Piarres Aintziart

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Barne-bideetan urrats batzu pasatu ziren, zenbait lehiatuak, zenbait loak **pizutuak**. Michel Oronoz

## pisutxo *iz* etxebizitza txikia.

Euskal Herrirako normal-normalak liratekeen **pisutxoak** dira urbanizazioetako gehienak. Pako Aristi

Hala, bada, Hazelek **pisutxo** bat hartu zuen errentan Forties edo berrogeitakako kale batean. Mirentxu Larrañaga

## pisutzar *iz* adkor pisu handia.

Hori bai, Indautxuko zuen **pisutzarretatik** urrun. Urtzi Urrutikoeetxea

## piszikultura *iz* arrainen eta uretako animalien hazkuntza.

Berehala hartu beharreko neurrietako bat, dudarik gabe, itsas zein lehorreko **piszikultura** sustatzea da, tren hori ere galdu nahi ez badugu. Edorta Agirre

## piszina (*54 agerraldi, 18 liburu eta artikulu 1ean; orobat pizina 28 agerraldi, 2 liburu eta 17 artikulutan*) 1 *iz* igerilekua.

Hoteleko **piszina** treneko lehenengo idazlea ikusi nuen. Edorta Jimenez

Horrez gainera, hartxintzarek jositako kamino estu bat eta **piszina** bat, hutsik. Javi Cillero

Urte bat orai Donibane Lohizuneko mainutegi edo **pizina** berria idekia dela. Herría

**Piszina** publikoetara sartu nintzen orduan. Unai Elorriaga

Bizitza errealeko irudiak ageri dira: hare eta belar zelaietan futboleko ari diren lagun taldeak; mendian egunpasa egiten ari diren familiak; etxeko atarian, edo **piszina**, eguzkia hartzen ari diren emakumeak; beharrez ari diren langileak. Berria - Kultura

**Piszinako** bainualdi ostean, Lucy sofan etzanda zegoen saloian, musika entzuten eta irakurtzen. Joxemari Iturralde

Telebistan azaldu nahi dugu, baina bertsotan, ez platoko **piszina** batean globoak lehituz, ez mister lehiaketa batean epaile lanetan, ez txiste kontari... Andoni Egaña

Oihal bat bakarrik zuen soinean, iduri zuen **pizinatik** ateratzen zela. Ramuntxo Etxeberri

Harik eta esku errukitsu batek **piszinara** bultzatu zuen arte. Patxi Iturritegi

**Piszina** baten hil nahi nuke nik / eskuan gintonik kopa. Joxemari Urteaga

## 2 (hitz elkartuetan)

Ni zutik lasai, beso zabalik / **piszina** -hormaren kontra. Aitor Arana

## 3 irud/hed

Bulegora iritsi nahi du, ordenagailu aurrean jesarri eta argi-**piszinan** murgildu. Eider Rodriguez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**donibane lohizuneko pizina** (3); **pizina edo mainutegi** (4); **pizina edo mainutegia** (4)

## piszinadun *izlag* piszina duena.

Ez nuen **piszinadun** adiskiderik, ezta piszinarik gabe nituen urriak bisitatzeko gogo handirik ere. Juan Luis Zabala

## piszinatxo (*corpusean pizinatxo soilik*) iz piszina txikia.

-Mesedez... -ihardetsi zion bere aitak ogi xerra bati kafesnezko **pizinatxoan** bainua emanez-. Ramuntxo Etxeberri

## pit iz oilagorraren kantuaren onomatopeia.

**Pit**, **pit**, **pit** egin dute, Lepic jaunak esan bezala, baina hain ahul ezen Axenari zalantzan egon baita bere aldera ote datozen. Basoan zehar ibiliko naiz zakurrarekin; oilagorrak hegan jarriko ditugu, eta **pit-pit** entzuten duzunean, belarriak zuzendu eta begiak zabaldu. Itziar Otegi

## pit-pit ik pit.

## pita iz hostoetan piru gogorrek, sokak egiteko erabiltzen direnak, dituen landarea (*Agave americana*); landare horren zuntzez egiten den soka edo listaria. ik **zurda**.

Arrantzarako **pita**, amu, kanabera luzagarri eta bestelakoak autoaren atzealdean sartu eta irratia piztu dut, malekoira bidean. Harkaitz Cano

Batzuetan arrantzan aritzen ziren, **pita** amuarekin luzatu eta han egoten ziren. Joseba Sarrionandia

Ez ezazu **pita** jaso kortxoa hiru aldiz hondoratu artean. Itziar Otegi

Laurak kanaberako **pita** txirrikara bildu eta amuaren ordezt **pitari** lotuta utzi dudan eratzuna topatzeko beharko duen denbora kalkulatzeko saiatzen naiz. Harkaitz Cano

Zarbo ergelak segituan hurbiltzen dira eta Axenariok bat ateratzen du **pitaren** botaldi bakoitzeko. Itziar Otegi

## pitagoratar *izond* pitagorikoa.

Haien edertasun patxadatsu **pitagoratarra** betidanik miretsi nuen arren, etsai bilakatu zitzaizkidan zenbakiak. Joxan Elozegi

## pitagoriko 1 *izond* Pitagorasena; Pitagorasen eskolarena. ik **pitagoratar**.

150 bat urte iraun zuen eskola **pitagorikoak**. Jon Muñoz

Zahartzaroan, berriz, bota egin zuten eskola **pitagorikotik**, "dirua eskuratu zuelako geometria erakustegatik". Jon Muñoz

Testu **pitagoriko** peto-petoa zen, dudarik gabe. Jon Muñoz

Nik ez nuen ulertzen aritmetika, ez nintzen gauza taula **pitagorikoa** ikasteko. Fernando Rey

220 eta 284 dituk panteoi **pitagorikoko** bi zenbaki adiskide ospetsuenak. Jon Muñoz

Bosta da lehen bakoitiaren eta lehen bikoitiaren batuketa **pitagorikoaren** emaitza. Berria - Kultura

Lau gara, *quadrivium* **pitagorikoa** bezalaxe. Karlos Linazasoro

## 2 iz Pitagorasen eskolako kidea.

**Pitagorikoentzat**, unibertso osora hedatzen zen harmonia; zeruen ordena bera eskala musikal batez adierazita zegoen. Jon Muñoz

Beren erkidegoari arrotz zitzaion inoren eskuetan eror ez zi tezen beren sekretuak, ahalik gutxiena idatzi, eta ahotik belarrira irakasten zitean beren jakintza **pitagorikoek**. Jon Muñoz

Zeri esker egin zuten **pitagorikoek** aurkikuntza hori? Jon Muñoz

Ez zen, ordea, **pitagoriko** zintzo gisa jokatzeko gauza izan, **pitagoriko** zintzoa inoiz ez baita altxatzen bezperako gertaera guztiak oroimenera ekarri arte. Jon Muñoz

## pitagorismo iz doktrina pitagorikoa.

K. a. 600 inguruan horrelako protesta mugimenduen uhin batek Asia osoa alderik alde pasa du, Txinatik Egeoko uharte grekoetaraino Asia Txiki aurrean (hemendik **pitagorismoak** Mediterraneora zabalduko du). Joxe Azurmendi

## pitarr iz lehen hartzidura edo irakinaldiko hondakinez eginiko sagardoa.

Hantxe, izeba-osaben etxean, ikasi nuen nik, kategoriko sagardoa eta halamoduko **pitarra** ez zirela gauza bera. Patziku Perurena

Hori Amabiko ostatuan urteko **pitarra** probatzen gelditu duk Tomasekin-eta! Pablo Sastre

Aranon, Leontxonbordan, egunero **pitarra** edanez pasa nituen bi uda osoak. Patziku Perurena

Auzoan Artantxun, Benaibordan, txarro xahar xuriprintzatu haietatik edandako **pitarr** gaxigarratzak. Patziku Perurena

# pitatu, pita, pitazen du *ad* txilibitoaz adierazi.

Arbitroak sasi penalti bat **pitatu** duenean jaiki eta kanpora joan dira. Edorta Jimenez

Partida 1-0 zela, saskibaloian ere **pitatuko** ez luketen falta adierazi zion Puñali, eta area barruan zenez, penaltia. Berria - Kirola

## pitbull (*orobat pit-bull eta pitbull g.er.*) 1 iz tamaina txikiko txakurra, gorputz gihartsua eta ile motx eta sarria duena, gehienetan zuria, oso oldarkorra izan daitekeena.

Frankek berak badu **pitbull** eder bat. Gotzon Garate

Badira **pitbull** batengatik 300.000 pezeta ordaindu dituztenak ere. Gotzon Garate

Arraza nahasiko ar bat, zuri-beltza; eta **pitbull** bi kume, arra eta emea. Gotzon Garate

Dekretu horren arabera hauek dira arraza arrisksuak: **pitbull** terrier, staffordshire bull terrier, [...]. Gotzon Garate

Pabilioietako apustueta lehiatzen zirenak doberman, presa canario, rottweiler, dogo argentinarrak, **pitbull** edo bulldozerrak lako zakur handiak izan arren, entrenamenduetarako zakur tiikiak erabiltzen zituzten sparring bezala, handiagoek bertan sarraskitu eta txikitzen zituztenak. Harkaitz Cano

## 2 irud/hed

Holandarraren indarra nabarmendu digute Osasunako erdilariek, baina **'pitbull'**-ak ez dituela ikarutzen ere esan digute. Berria - Kirola

Bere oldarkortasuna zela-eta, Van Gaalek berak eman zion **pit - bull** goitizena. Berria - Kirola

## pitika<sup>1</sup> (*orobat pitika; Euskaltzaindiaren Hiztegian pitika agertzen da*) iz antxumea.

Gibelago, zuen kide batzuk datoz, **pitika** bat besoetan eta haren ama soka batez estekaturik. Xabier Montoia

Nehor ez zen oharitu askariaren artetik desagertu zela bere lehen proosioa zuen mutikoa, aitzinean zebiltzanek ustez eta gibelean zela, eta azkenek, arin arina aitzinean zoala **pitika** bat bezala jauzika. Michel Oronoz

Gure esperantzak ito dira, Garaziko **pittiken** gisa. Herria

## pitika<sup>2</sup> izond txikia.

Hola da beraz errege xori hau, bainan hain errege **pitika**. Patziku Perurena

## pitili ik pitilin.

## pitilin (*orobat pittilin eta pitili*) iz adkor zakila. ik pito.

Bere enbarazuaren arrazoa izenik gabeko tramankulu hura zen, eta ez zion izenik lotzen, deitura ezagunak itxuragabeak iruditzen zitzaizkiolako, **pitilina** umekeria bazen, erridikuluak baitziren txoria, berdela, toleta, eta zentzugabeagoak eta barregarriagoak beste izenmodu batzuk, eta hala ere haragi zati hark benetako izen ezkutu bat izan behar zuela uste zuten. Joseba Sarrionandia

Alde guztietatik indar eginaz, zinturoia kendu gabe galtza laburrak erantzi zizkidaten tiraka, galtzontziloak ere bai, eta **pitilina** atera zidaten. Joseba Sarrionandia

Ez nezakeen inola ere **pitilia** kontrolatu... eta hazia erein nuen, zirristaka, alde orotara. Daniel Landart

**Pitilia** sartzen niokan gogor, kolpe bakarraz, busti-bustirik gordean atxikitzen zian alu erraldoian. Itxaro Borda

Hotza txakurraren **pitilinare**n modukoa da, behin sartuz gero barruan geratzen da aldi baterako! Joseba Sarrionandia

## pitin (165 agerraldi, 46 liburu eta 30 artikulutan) 1 iz/izond apurra. ik pittin.

Hurbildu arau, dabilen haize **pitina** mugiarazteko gai ez den zakur baten itxura hartu diozu. Xabier Montoia

Zakurren erasoak baga jitean heltzen dira, ura joaterakoan hondarretan gelditzen den purtzileria lako soinu **pitinagoak** utziz, ezagutu ezin dituenak. Pako Aristi

Hala, hark lur jotzean, eranskin kokkor, luzagarri **pitin** bakoitza atzetik doa ausiabatzen. Juan Garzia

-Zer da, orduan? -galdetu zidan, bere jakinminari **pitinik** ere uko egin gabe. Anjel Lertxundi

Ezer **pittinik** aldatzeko ideia eta borroka guztiak *erinnya* mendekatiek bezala munduaren baztererraino pertsegitzen dituzte. Joxe Azurmendi

## 2 pitin bat adlag apur bat.

Bi eskuekin sorbaldeetatik heldu eta **pitin** bat astindu nuen, aski zuela esanez. Joxean Agirre

Ateari **pitin** bat bultzatzen eta pasillo hutsari begiratu nion. Joxean Agirre

-Idazlea hilik zagok -esan nion ahotsa **pitin** bat altxatuz-. Eskuak izoztuta zeuzkan eta **pitin** bat ondoezik sentitu zen hainbeste bonboi irentsita. Joxean Agirre

Lizentziatu berria zen, eta, hori ospatzen ari zelako-edo, **pitin** bat mozkortuta zegoen. Martin Anso

Gehixeago..., **pitin** bat gehixeago..., hori da eta! Iñaki Mendiguren

**Pitin** bat baino ez. Lopez de Arana

## 3 (izen baten eskuinean)

Zergatik ez diozu ziape **pitin** bat botatzen? hasieran zaila baita ikasi beharrekoari zentzu **pitin** bat hartzen. Lopez de Arana

Halaxe egon zen denbora **pitin** batez. Anjel Lertxundi

-Ondo da, ondo da -esan zidan, etsipen **pitin** batez-, baina... beti oinez ibiliko gara? Juan Luis Zabala

Hormadik Magnus Kopako bigarren partida irabazi du bart, zorte **pitin** batekin, Mulhouse gogorra mendean hartuta. Berria - Kirola

Kulbat pixka bat -gorringoz, arrozaz eta haragi xehatuz egindako pastela-, kabiarez betetako aza gorri **pitin** bat, eta tea besterik ez edateko. Karlos Zabala

Ez zioten bada esan medikuek eskizofrenia kutsu **pitin** bat bazuela? Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pitin bat gehiago** (4); **pitin bat makurturik** (4); **pitin bat zabaldu** (3)

## pitinka 1 adlag apurka. ik pitinka.

Bazterrik bazter zoaztelarik, badoa eguzkia ere **pitinka**, mendebaldera buruz. Xabier Montoia

Aldizkako oreken teoriaren arabera, makroeboluzioaren mailan eboluzioak ez du **pitinka** aurrera egin organismoak hautespen naturalaren bidez euren inguruntzara moldatu heinean, alderantziz baizik. Askoren artean

Ezagutzaren nozioa garrantzia galtzen joan da **pitinka** eta, horren ordez, justifikazioaren hartu du garrantzia epistemologia tradizionallean. **Askoren artean**

Inurrien kontrako hautsak hartu eta goizeko kafesnean **pitinka** zerbitzatu. **Josetxo Azkona**

## 2 *pitinka-pitinka* adlag

Luze barik nire ospea zabaldua galtzen zion hurian, eta horregaz batera nire cachet-a igon be bai, eta holan **pitinka-pitinka** duintasunez bizi izateko beste money irabazten hasi nintzan tronpetari esker. **Jon Arretxe**

Bere janzteko eran aldaketak egiten hasi zen, **pitinka-pitinka** : prakak janzteari utzi zion, gonak gero eta luzeagoak bihurtuz joan ziren, [...]. **Iban Zaldúa**

Deus guti erraten ahal nion, baina harro nintzen tokiko hizkuntza **pitinka-pitinka** ikasten ari nintzela ikusita. **Xabier Montoia**

# pitintxo

## 1 *pitintxo bat adlag* adkor pitin bat.

Ezin bizizko ahaleginean **pitintxo** bat sikiera bizia zer den jakiteko. **Juan Garzia**

On Camillo **pitintxo** bat pasatu zen noizbait beste horien kontrako sermoi batean herriko kontu bategatik. **Koldo Biguri**

## pito 1 *iz adkor* zakila. ik *pitilin*.

**Pito** luzeak estaltzen zizkien oihal txikiez jantziriko indio matxetedunak. **Jon Alonso**

**Pitoarekin** pentsatzea buru hutsez pentsatzeari uko egitea da, eta etorkizuna eta segurantzia bezalako fantasma bizi-galgarrien mende ez errenditzea. **Iñaki Segurola**

## • 2 *izond (irain gisa)*

Nagusi **pitoa**, ez bestea! **Daniel Landart**

Hondarrean, eskerturik egon beharko zaie Sorbonako doktore **pitoei**. **Aingeru Epaltza**

Lüküzeko baroia, **pito** traidorea / Zangopilatua du bere ohorea Nabarrenkoxen fini haren adorea. **Aingeru Epaltza**

Ugaldeko atsoaren afera horrekin **pitoarena** baizik ez zarete egiten ari kazetari guztiak, nork handiagoa erranen. **Aingeru Epaltza**

Horren arabera, euskal letrak soilik doktrina emateko, moralizatzeko, herri hau salbatzeko, kongresu **pitoak** jendaje **pitoekin** egiteko eta poliki kobratzeko erabili behar dira.

**Patziku Perurena**

## 3 *bost pito*

Bost **pito** niri proposamenak! **Fernando Rey**

Hollywood eta Vineko kantoian larrua jo nahi badio, niri bost **pito**. **Fernando Rey**

## **pitoi**<sup>1</sup> (*orobat **piton**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pitoi** agertzen da*) 1 *iz* suge handi pozoiz gabea, burua hiruki formakoa edo luzarana izaten duena (*Python sp.*).

Sugeak arraza garbia dira, ez dute lumarik ez zorririk eta ez dabilta hauts artean aztarrika; gainera, **pitoi** bat oilo bat baino aise handiagoa da. **Juan Garzia**

Dudleyk eta Piersek kobratzar pozoitsuak eta gizakiak estutzen dituzten **pitoi** sendoak ikusi nahi zituzten. **Iñaki Mendiguren**

**Pitoiak** gartuak dira, hilean birritan jaten dute eta batekoz beste: ariketa gutxi egiten dutenean bereziki. **Juan Garzia**

Adar bat ikusi zuen, **pitoi** sugea bezain sendoa, jo eta autoa txikitzen. **Iñaki Mendiguren**

## 2 (hitz elkartuetan)

Nor uste nuen nintzela, beren aurrean horrela aurkezteko, alegia deus ez, **pitoi**-iraizkinak eskatuz? **Juan Garzia**

## 3 *pitoi suge* eskualde ekuatorialetako sugea, tamaina handikoa, pozoitsua ez dena.

Jakina, larruz eta txintxetaz jantzita lepo inguruan **pitoi sugea** duen jende gehiago dago hemen Tafallan egongo litzatekeena baino. **Harkaitz Cano**

Adar bat ikusi zuen, **pitoi sugea** bezain sendoa, jo eta autoa txikitzen. **Iñaki Mendiguren**

Sayal Lallubhai, I2 urteko neskatilak hiru metroko **piton sugea** ikusi zuen, bere lagun ttipiaren zangoan kiribildua. **Gotzon Garate**

- Zazpi urteko neskatila batek 8 zentimetro luze zen **piton**-sugekumea irentsi zuen. **Gotzon Garate**

## **pitoi**<sup>2</sup> *iz adkor* emakume bularra.

Begiratu zelako **pitoiak**. **Jon Arretxe**

## **pitokeria** *iz adkor* ergelkeria.

-Hau **pitokeria**! **Aingeru Epaltza**

Non erosten dituzu trikota egiteko hariak? eta antzeko **pitokeriak** galdetu nizkion nik, isilik ez geratze aldera. **Hasier Etxeberria**

Horrelako **pitokerietan** oraindik sinesten duzue? **Ramuntxo Etxeberri**

-Fronte batuaren kontu hori guztia **pitokeria** bat duk -irizti zuen gizon txikiak. **Fernando Rey**

Neskekin kalean gora eta behera paseatzeari ez genion jada erabateko **pitokeria** irizten. **Joxerra Garzia**

-Ez erran **pitokeriarik**. **Aingeru Epaltza**

Erraz esaten dira **pitokeria** horiek mahaira lasai-lasai eserita! **Karlos Linazasoro**

Pixka batez jasan nuen **pitokeria** sorta. **Aingeru Epaltza**

## **pitolari** *iz*

Eta Buruzahato-Biligarro jaun andereak eta pulustariak, barrendariak, trenkalariak, zirtolariak, **pitolariak** eta zenbait pirdila. **Jose Angel Irigaray**

## piton ik **pitoi**<sup>1</sup>.

## **pitonisa** 1 *iz* antzinako Grezian, emakumezko igarlea, Delfos-ko tenpluan orakuluak ematen zituena.

Apolo Delfoskoak, **Pitonisak** egindako galderei erantzunez, aitortu zuen Sokrates dela gizon guztien artean jakintsuena. **Santiago Iruetagoiena**

Erdi-Lacan sentitu naiz lelokeria ulertezin zentzugabe haiek guztiak botatzen zituenean, eta haren jarraitzaileak deszifratzen saiatzen ziren, Nostradamus edo Delfoseko

**pitonisa** deszifratzen diren bezala. **Karlos Zabala**

-Ezin ihes egin norberari aplikatzen zaion teorema bati! -adierazi zaien Léak, tente, **pitonisa** baten pare. **Jon Muñoz**

## 2 irud/hed

Madrilgo Txueka auzoan presidente izanzen dela iragarri dio **pitonisa** batek Ratori. **Berria - Euskal Herria**

Aldi hartan bertan, emakume **pitonisa** bat bizi zen itsasoz bestaldean, hainbat gertaera egiazkoak iragarri zituen; eta horregatik beraien hizkuntzan "Egiatia" deitzen zioten. **Askoren artean**

"Horrek ez dio hazten utziko", iragartzen zuten Montmartreko **pitonisa** asmatikoeak, Lepic kaleko maldan harekin topo egitean. **Jon Muñoz**

## pitoresko ik **pitoresko**.

## pitoreskotasun ik **pitoreskotasun**.

## **pitote** iz *adkor* iskanbila, zalaparta.

Abenduaren 22an **pitote** bat eduki nuen teniente batekin, jeepa telebistaz eta VHS bideoz beterik baitzeraman. **Pako Aristi**

## **pitotu**, pito(tu), pitotzen da *ad adkor* iseka egin.

Noiz nahi **pitotzen** zaidan edo bertenez sobera goxoa dun, bortizkiegi dun goxoa. **Eneko Bidegain**

## **pitotx** iz ugaztun haragijalea, buru-txikia, gorputz-mehea eta buztan-luzea, ilea leuna eta sarria duena(*Martes martes*). ik **pututx**.

Idi, zerri eta oilo ugari dago, azken hauek **pitotxa** eta lepazurien begipean. **Koldo Biguri**

Bazterretako mahainetan, zernahi abere motaren ezurdurak badaude: azeri, zaldi, orkatz, **pitotx**, itsas-otso, xori, arrain, gau-iñara, apo, suge eta bertze... Gero, ilaje larreko **pitotx** -larruz egindako gainjantzi bat atera zuen beste arropa-kutxa batetik, eta bizkar gainetik jarri zion Norari, luze-laburrean ongi ote zeukan ikusteko. **Herria**

Gero Andreasi musu eman eta, **pitotx** -larruzko gainjantziak babesturik, ontzīgaina moilarekin lotzen zuen egurrezko zubixka jaitsi zuen. **Anjel Lertxundi**

## **pitozabal** *izond/iz*

Batari nola besteari espermazko txorro koloreaniztun emankor, oparo, naro bana oparitu zien, eskuzabal (**pitozabal**?). **Jon Alonso**

## pitrail ik **petra**<sup>2</sup>.

## pits ik **bits**.

## pittbull ik **pitbull**.

## pittika ik **pitika**<sup>1</sup>.

## pittilin ik **pitilin**.

## **pittin** (*499 agerraldi, 91 liburu eta 110 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pitin** agertzen da*) **1 iz/izond adkor** apurra. ik **pitin**.

Hara, gure **pittina**. **Mirentxu Larrañaga**

Zalantzan **pittin** batez egon ondoren: [...]. **Txillardegi**

Abendu 30ean jo zuen berandueneko minutu horretaraino, eta gaurtik biharrera sugundoxka **pittin** batzuk lehenago jaikitzen abiatzen da. **Pello Zabala**

Gauerdi edo goizalbarean batean euri **pittin** moxkor-moxkor horietako erauntsitxo bat botata ere, [...]. **Pello Zabala**

Esadazu den-dena, bukatu arte; puskarik **pittinena** ere ez utzi hor kolkoan. **Patxi Ezkiaga**

Tipo handia naiz ni, egitten-dduddan-**pittinerako**. **Irene Aldasoro**

Inozentzia **pittinen** bat erakutsi nahi ote digu akaso?... **Patziku Perurena**

## **2 pittin bat** (*386 agerraldi, 83 liburu eta 54 artikulutan*) **adlag** apur bat. ik **pixka 2**.

Guk gurearekin gauza bera eginez gero, berriz, ahuldu egingo genuke, beste **pittin** bat bultzatuko genuke desagerpenerantz. **Bernardo Atxaga**

-Maguggia -arren egin zion-, pentsa ezazu **pittin** bat. **Koldo Biguri**

Pena **pittin** bat emango zio, eta kito. **Unai Iturriaga**

Kolpea hartu ostean **pittin** bat suspertu nintzenezan nire buruari esan nion [...]. **Edorta Jimenez**

Zerua ia aratz zegoen, **pittin** bat arrosa hodeiertzean. **Monika Etxebarria**

Beharrik giroa hasia zen ordurako **pittin** bat freskatzen. **Txillardegi**

**Pittin** bat haserre zegoen nirekin, joana nintzelako. **Monika Etxebarria**

Beharbada **pittin** bat exajeratuz. **Iban Zaldúa**

Modu **pittin** bat enigmatikoan erantzungo dizut. **Bernardo Atxaga**

Nik baino **pittin** bat hobe, eta ez arlo guztietan. **Iban Zaldúa**

Orduan eskua hartzen zion **pittin** batean goxoki. **Anton Garikano**

Gero, handik **pittin** batera, berriro hondoratu zen benetako irudiak gainditzen zituen ingurumari sinbolikoa. **Anton Garikano**

### 3 (izen baten eskuinean)

Nahi duzu musika **pittin** bat jartzea? [Bernardo Atxaga](#)

Eskutada bat ogi-irin baizik ez dut katiluan, eta olio **pittin** bat pitxerrear. [Elizen arteko biblia](#)

Nazka **pittin** bat ematen dit, zuriegia da eta jaioberriaren usaina du. [Monika Etxebarria](#)

Hortentsiek eta petuniek kolore **pittin** bat ematen zioten arratsalde hitsari. [Migel Angel Mintegi](#)

Eskuan neraman makila-muturrean ezti-**pittin** bat hartu nuen eta jan. badute oraindik dirdira **pittin** bat. [Elizen arteko biblia](#)

Geldi geratu zen gazte haiei begira, bere bizitzan horrelako momenturik bizi izateko zoririk inoiz izan ez zuelako damu **pittin** batez. [Bego Montorio](#)

Gure aurrekoek aski zuten iragana inozentzia **pittin** batekin oroitzarekin. [Patziku Perurena](#)

Suerte txar **pittin** batekin, hemendik urte batzuetara katalanek ere euskaldunon bidea har lezaketek, baina ez diat uste. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

#### 4 **pittin-pittin** bat adlag

Daukatenetik **pittin-pittin** bat kenduiek. [Juan Garzia](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alde pittin bat** (3); **atseden pittin bat** (5); **beldur pittin bat** (4); **beste pittin bat** (3); **gatz pittin bat** (3); **handik pittin batera** (4); **indar pittin bat** (4); **olio pittin bat** (4) **pittin bat** (399); **pittin bat baino** (3); **pittin bat besterik** (3); **pittin bat egin** (5); **pittin bat eman** (9); **pittin bat ematen** (3); **pittin bat ere** (10); **pittin bat falta** (6); **pittin bat gehiago** (9); **pittin bat harrituta** (3); **pittin bat hartu** (5); **pittin bat lehenago** (5); **pittin bat ukan** (3); **pittin batekin** (15); **pittin batera** (4); **pittin batez** (15) **zorte pittin bat** (4)

### **pittinka** 1 adlag adkor apurka. ik **pitinka**.

**Pittinka** baina ezinbestean galtzera zihono herri gisa ikusten zuen Barojak berak ere euskalduna. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ohituz dihoa **pittinka**, eta areago entzuten jarri eta soinu bat bereizten du isiltasunean. [Bernardo Atxaga](#)

Gainera liburu hau lupa bat da garai bateko Obaba monolitiko hura **pittinka** zatikatzen diguna. [Berria - Kultura](#)

Alkoholak muga fisiko-psikologikoak apurtu zizkion **pittinka**. [Joan Mari Irigoien](#)

Gero fakultatean ere elkarrekin hasi baziren ere, **pittinka** elkarrengandik aldentuz joan ziren. [Joxemari Iturralde](#)

Ari ginen **pittinka** gure tokia hartzen. [Andoni Egaña](#)

#### 2 **pitin-pitinka** adlag

Irakurleak **pittin-pittinka** protagonistaren familiaren egoera ezagutzeaz gain, Ixoneren kezak, sentimenduak, gogoetak ezagutuko ditu. [Berria - Kultura](#)

Oinetakoak eskuan,... /... txintik gabe kanpora,... /... **pittin-pittinka** banao,... /... kanpoan naiz, korri etxera! [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

#### 3 **pittinka-pitinka** adlag

Sekretu hark ematen zion zentzua, **pittinka-pittinka** luzatuz zihono behe-apaletako liburu-ilarari. Metodoa **pittinka-pittinka** zehazten doalako. [Iñaki Iñurrieta](#)

Berak erakusten du, bestalde, nola desegiten diren **pittinka-pittinka** horrela osatutako irudi handi horiek. [Xabier Arregi](#)

### **pittintxo**

#### 1 **pittintxo** bat adlag adkor apur bat.

Eta aski burumakur axolagabe ikusiko ninduen, zeren azkenean, New Yorkeko katedral hartako apaizaren antzera, hara non esan didan: "**pittintxo** bat atxikoplatua ikusten zaitut". [Patxi Zubizarreta](#)

Santa Luzia inguruan **pittintxo** bat altatzen hasi zenak, 12 minutu irabaziak ditu, egunaren aldera, arratsa luzatuz. [Pello Zabala](#)

### **pituitarario** 1 **izond** guruinez mintzatuz, entzefaloaren oinarrian dagoenari dagokiona.

Garunaren irudian erdiko tumor izugarri bat ageri zen, guruin **pituitararioa** eta alboko kiasma optikoa eta traktuak desegin eta lobulu frontaletara zabaltzen zena. [Xabier Olarra](#)

Bazuen hartan zerikusirik lobulu frontaletako, dientzefaloko eta guruin **pituitarioko** lesioak, alde bakoitzak bere mailan. [Xabier Olarra](#)

Tumorrak lehenbizi guruin **pituitarioari** erasan zion; horregatik loditu zen eta erori zitzaion ilea. [Xabier Olarra](#)

Guruin **pituitarioak** isurtzen duen melatonina izeneko hormonak zerikusia izan dezake aldaketa horiekin. [Berria - Gaiak](#)

#### • 2 **iz** sudur zuloak estaltzen dituen mintza.

Bere gorputzaren usaina biziagotu egin da, euriak lurra bustitzen duenean bezalaxe, eta Katen **pituitarioan** gora estimulu elektrikoak bidali ditu burmuinaren azken txokoraino. [Sonia Gonzalez](#)

Oraindik geratu behar zaizu material apurtxo bat, bestelako garratzasuna daukan bestelako zaporea, zure **pituitario** eta papilak lotarazteko balioko dizuna. [Sonia Gonzalez](#)

### **pitxar** ik **pitxer**.

### **pitxartara** ik **pitxertara**.

### **pitxartxar** **iz** toki harritsu eta eguzkitsuetan bizi den txori intsektujalea, lumadi beltz eta arrea duena.(*Saxicola* sp.)

**Pitxartxar** burubeltza. [Berria - Gaiak](#)

### **pitxel** **iz** edontzi garaia, eskutokiari loturiko estalkia duena, gehienetan eztainuzkoa.

"Hara bihotza, gure misterio guzien testigu mutu" esan dio, "**pitxela**" eskuan, alboan zain daukanari. [Patziku Perurena](#)

### **pitxer** (orobat **pitxar**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian pitxer agertzen da*) 1 **iz** edaria edukitzeko eta edontziak betetzeko erabiltzen den beirazko, metalezko edo lurrezko ontzia, kirdenduna, lepoan mehartua eta ahoa luzatua duena; edukiera neurri zaharra, 2,016 litroren baliokidea. ik **txarro**.

Era guztietako ontziak, katilu nahiz **pitxerrak**, iltzetik zintzilik jarri ohi diren bezala. [Elizen arteko biblia](#)



Tximiniako apalean, **pitxerrak** ageri ziren, kobrez landutako paisaiez hornituak. Karlos Zabala  
Ez zegoen dirurik tximinoa-erlaitzeko **pitxerrean**, eta egunean-egunean janari gutxiago genuen mahaian. Mirentxu Larrañaga  
Ez dut batere ogirik; eskutada bat ogi-irin baizik ez dut katiluan, eta olio pittin bat **pitxerrean**. Elizen arteko biblia  
-Eguberri zoriotsuak! -esan zuen pozik, bere **pitxerra** jasota. Iñaki Mendiguren  
Mahaia ez da itzulika hasten, **pitxerra** ez da uzkalzten. Michel Oronoz  
Eraikinaren harri grisean, Jean Goujonek zizelkaturiko ninfa zuri-zuriek **pitxerrak** hustu eta beren grazia biluzia hedatzen zuten Saint-Denis auzoko egurats beltzaren erdian. Karlos Zabala  
**Pitxerretik** edan nuen nik ere. Joan Mari Irigoien  
Lau zutabeko ohetik altxatu eta leihopean zegoen zilarrezko **pitxerretik** ura hartzera joan zen. Iñaki Mendiguren  
Eskuzapiaren muturra **pitxerrean** sartu eta begiak freskatu zituen ur hotzarekin. Irene Aldasoro  
Gelazain mardul bat ikusi zuen, zilarrezko konketa eta **pitxerra** eskuetan. Jose Morales  
Horman, berriz, bi margo, bi bodegoi: **pitxer** bat ezkerrekoan; eta fruta-mordoxka bat eskuinekoan; erdi ilunean ozta-ozta ikusgarri. Txillardeggi  
Egin azpilak, erretiluak, **pitxerrak** eta katiluak, isur-oparietarako. Elizen arteko biblia

## 2 (neurri gisa) ik **pitxerkada**.

Sutondoan nago **pitxer** bat ur eta beste **pitxer** bat ardo aldean hartuta. Joan Mari Irigoien  
Deus esan gabe, **pitxer** bat garagardo paratu zuen Charveten aurrean, eta erretilu bat, Clémenceren aurrean. Karlos Zabala  
Ekarri **pitxer** bat ur eta garbiontzia honat! Joan Mari Irigoien  
Han gelditzen zen gauerdia arte, besteei aditzen, lau orduan **pitxer** garagardo bakarra hustuz. Karlos Zabala  
Robine, **pitxer** garagardoaren atzean isilik, taldeko gizonik argiena iruditu zitzaion. Karlos Zabala  
Auguste patiora joan zen lehenbizi, bi **pitxer** txerri odol ekartzera. Karlos Zabala  
**Pitxer** bete sagardo aurrean zuela. Karlos Zabala  
Ezkerreko eskuan **pitxer** tipi bat arno zuela. Joan Mari Irigoien  
Lau pote haragi, bi **pitxer** marrubi, bi **pitxer** masusta gorri. Josu Zabaleta

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harryk bere **pitxer**-ertzaren gainetik begiratu zuen, eta arnasarik gabe geratu zen. Iñaki Mendiguren

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pattar edontzi txikiak, ardo baso lodiak, fruitu zukuetarako kopak, absentia edontziak, garagardo **pitxerrak**, baso oindun handiak, denak goikoak behera. Karlos Zabala  
Hartu eskuan olio-**pitxer** hau eta zoaz Galaadeko Ramotera. Elizen arteko biblia  
Esne-**pitxerrak** eskutik ihes egin zion eta lurrean txiki-txiki eginda geratu zen. Iñaki Mendiguren  
Lekuz aldatu zituen krema-**pitxerra** eta azukre-ontzia. Mirentxu Larrañaga  
Fruta-erakusleihoak, lekale-poteak eta oliba-**pitxerrak** ikusten zituen. Lopez de Arana  
Aritmomantziako liburu berria atera eta zuku-**pitxerraren** kontra jarri zuen zabaldua. Iñaki Mendiguren  
-Tori, Koronela -esan zuen, lasai-lasai, diru-**pitxerretik** txanpon bat atereaz-. Mirentxu Larrañaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**buztinezko pitxer** (3); **garagardo pitxer** (3); **pitxer bat ardo** (4); **pitxer bat garagardo** (3); **pitxer bat ur** (6); **pitxer tipi** (3); **ur pitxer** (3)  
**esne pitxerra** (3); **garagardo pitxerra** (3); **pitxerra hartu** (4)

## pitxerdi *izlag* pitxer erdia. ik **pinta**<sup>1</sup>.

**Pitxerdiko** txarro ilunetatik ari ziren laurak edaten, eta ez zuten hitzik esaten. Koro Navarro

## pitxergile *iz* ogibidez pitxerrak egiten dituen eskulangilea.

Eta atzenean, eskribauak, gastu guzien akta jaso du: ezpezieroak 50 xueldo, **pitxergileak** 33 diru; Erregeren "txermoni" partitzaileak, zaldia barne, 154 florin, [...]. Patziku Perurena

## pitxerkada *iz* pitxer betearen edari kopurua. ik **pitxer 2**; **pitxertara**.

Anderñoa, ekarri nahi al duzu **pitxerkada** bat Anjouko ardo gorri? Monika Etxebarria  
Beste **pitxerkada** bat ardo atera nien. Edorta Jimenez  
Egunero bi **pitxerkada** ardo ateratzen dituzte handik, eta bi ontzikada ur jartzen haien orde. Kirxa emaztearengana jiratu zen, **pitxerkada** ur hotzek esnatu izan balu bezalatsu. Jon Muñoz  
Orduan, lehen garagardo **pitxerkada** doi amaiturik, bisitarietako lauk lehorrera egin behar dutela diote. Edorta Jimenez

## pitxerño *iz* pitxer txikia. ik **pitxertxo**.

Handik laster itzuli zen **pitxerño** bat eta beira lodiz egin hiru baso ttipi ekarriz. Elena Touyarou

## pitxertara *iz ipar* pitxerkada.

Kasu horietan zorigailteaz, kafeak ez dizkate lo eskasaren gaitzak ezti: **pitxertara** bat hustu arren, iratzarria ez denak lotan jarraitzen du. Itxaro Borda

## pitxertxo *iz* pitxer txikia. ik **pitxerño**.

Ezezko haien buru egiteko ez nuen **pitxertxo** kurka batean edatea baino erremedio hoberik ediren. Joan Mari Irigoien  
-To! -esan zidan Simonek, **pitxertxo** bat eskainiz. Edorta Jimenez  
**Pitxertxoak** nire anaiaren izena zuen letra biribilez grabatuta. Ander Irizar

## pitxi ik **bitxi**<sup>1</sup>.

# **pitxitxi** 1 iz futbol denboraldi batean gol gehien sartu duen futbolaria.

Armeroen golegilea eta Bigarren Mailako **pitxitxiak** ezin izango du jokatu, iragan larunbatean bosgarren txartel hori ikusi ondoren partida bateko zigorra bete beharko baitu. **Berria - Kirola**

2

Lotsa ematen zion bietatik zein zen txakurra eta zein katua galdetzeak, askotan ahazten baitzitzaion; baina konturatu ginen nola, katua hartzean, ukimenaren bitartez ezagutzen baitzuen, finko begiratzen zion, eta, gero, lurrean utziz, nola esaten zion: "Tira, **pitxitxi**, hurrengo batean ezagutuko haut". **Xabier Olarra**

# **pitxo** iz zakila.

Zakila, pitilina, buztana, txistua, kikirrioa, xakia, **pitxoa**, txitxila, taketa, txilibitua, xispa, zila, zuztarra, gaita, iturria... **Luis Elberdin**

# **pitz**

1 hitz eta pitz ik hitz 31.

# **pitza** ik **pizza**.

# **pitzadura** 1 iz gainalde bateko ebaki edo haustura. ik **pitzatu**<sup>1</sup>; **arrakala**; **artesi**.

Dagoena pitzatuak dira, **pitzadurak**, artesiak. **Iñaki Seguro**  
Aitak zoruko estalki plastikoa altxatu, eta zementuaren **pitzadurak** zerrenda itsasgarri zabal eta sendo batez estali zituen. **Juan Kruz Igerabide**  
Glaziarretako **pitzadurak**: berdeak, garagardo-botilen beiraren antzera. **Joxe Austin Arrieta**  
Meniskoan **pitzadura** bat du. **Berria - Kirola**  
Hondoratu zenean ontziak **pitzadura** bat -bost metro luze, bi metro zabal- zuen alde batean. **Berria - Gaiak**  
Gai hauskorra da beira, **pitzadura** bat egiten bazaio (gainazalean kolpe bat emanda, adibidez) berehalaxe hedatzen baita arrakala. **Irene Aldasoro**  
**Pitzadura** bat ere egin zuen garezurrean. **Berria - Kirola**  
-Denok dakizue, jakin beharko luketenez izan ezik, elizako dorrean **pitzadura** arriskugarri bat agertu dela. **Koldo Biguri**  
Etxeari goitik beherainoko **pitzadura** handia azaldu zitzaion, eta une batetik bestera erortzeko zorian zegoen. **Askoren artean**  
Kordinakundeak 2004ko ekainean salatu zuen urtegia betetzen hasi zirenetik "horma nagusian **pitzadura** gehiago" atera zirela. **Eduarne Elizondo**  
Lerroak eta **pitzadurak** ikus zitezkeen harkaitzetan. **Anton Garikano**  
Ile pixka bat lortu zuen, eta ilunabarrean **pitzadura** barruan jarri zuen. **Askoren artean**  
Bigarren hormaren inguruan aurkitutako **pitzadura** 20 zentimetro luze zen. **Eduarne Elizondo**

2 irud/hed

Horretantxe du bere boterearen **pitzadura** bakarra, eta horrexek bihurtzen du jauntxo ikaragarria gizaki haragizko eta, alde, bera ere biktima. **Juan Garzia**  
Mc Quaide akordioa lortzeko deia egiten du: «Haustura dago, baina **pitzadura** ixteko borondatea daukagu». **Berria - Kirola**  
Nahiago dute itsuak izan sistema zaharriari egiten ari zaizkion **pitzadura**, zirrikitu eta itoginen aurrean. **Anjel Lertxundi**  
Stéphane Mallarmé poetak aipatzen du badela **pitzadura** bat hitzaren eta haren erreferentzia den gauzaren artean. **Juan Garzia**  
Hizkuntzaren bihotz-bihotzeko huts horren kontzientziak **pitzadura** bat ireki du haren esanahian, munduaren betetasunarekin hizkuntzak duen loturan. **Juan Garzia**  
Hutsunearen **pitzadurak** sortzen zuen mesfidantza ezin gainditu. **Lander Garro**  
*Do ut des* jokabidearen logika **pitzadurarik** gabea da. **Anjel Lertxundi**  
Heroismoa, argitasuna, gizatasuna, bihotz-zabaltasuna, **pitzadurarik** gabeko elkartasuna, hona hemen maitaleak bere maitatuaren oinetan jarri beharko dituen tituluak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Higanotak, ordea, **pitzadurarik** gabeko prestutasun batez jokatzeko du. **Anjel Lertxundi**

## **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pitzadura agertu** (4); **pitzadura gehiago agertu** (3); **pitzadura handi** (5); **pitzadura handi bat** (3); **pitzadura handia** (5); **pitzadura handitu** (3)  
**pitzadurak agertu** (4); **pitzadurak eragin** (3)  
**pitzadurarik gabeko sistema** (3)

# **pitzaduratxo** iz pitzadura txikia.

Ordurako B 41 a pisaturik zegoen, kartoizko hiru ontzitan: kontu handiz sartu zuen barrenera, eta, mozorroa eta guzti -bazitekeen **pitzaduratxoren** bat izatea-, egosketak zerion usain satsu tristea aditu zuen berehala. **Juan Garzia**

Ez soro, ordoki eta barrutietan bakarrik: baita etxeko ateburuan, zirriztaren batean, tximistik ez zedin sar, eta baita logeletako leihoetan ere, leiho-markoaren **pitzaduratxoren** batean. **Pello Zabala**

# **pitzaldi** ik **piztu**aldi.

# **pitzar** ik **pizar**.

# **pitzarazi**, pitzaraz, pitzarazten (7 agerraldi, 3 liburu eta 4 artikulutan; orobat **pitzarazi** 13 agerraldi, 9 liburu eta artikulatu 1ean; eta **piztuarazi** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren **pitzarazi** agertzen da) du ad piztera behartu.

Hautsaren azpian gordea dagon pindar batek **pitzaraziko** du aipatu dugun amets ederra. **Herria**

Nehor ez zen nahikoa sorgin izan haren berriz **pitzarazteko**. **Itxaro Borda**

Zer da hoberik, izar berri batzuen **pitzarazteko**! **Herria**

Nork eramango ditu nazioarteko auzitegira AEBak herri soberano bati eraso, gobernu bat bota eta etengabeko gerra zibil bat **pitzarazteagatik**? **Berria - Mundua**

Eginahalak eta bi egin nituen, esate baterako, nire eskola-bizitzarekiko jakin-mina **pitzarazten** haiengan. **Mirentxu Larrañaga**

Erregeen Erregeak Antiokoren haserrea **piztuarazi** zuen gaizkile haren kontra. **Elizen arteko biblia**  
Nire sinesteak deitzen zaitu, bai; adierazleen bidez, zure Seme gizon eginaren bitartez eta, **pizarazi** didazun sinesteak. **Imanol Unzurrunzaga**  
LAB sindikatuaren ustez ere, asteon gertatutako torturek «alarna» **pizarazi** behar lieke Euskal Herriko politikariei. **Berria - Euskal Herria**  
Eta usain horrek orduko sendimenduak **pizarazten** zauzkit ene baitan. **Herria**  
Hala enearazitako oroitzapen konkretuek ez omen dute esanahi berezirik; zoriz **pizarazitako** segmentu ondoriogabe hutsak baizik ez omen dira. **Xabier Olarra**  
Kanpoko argiak bizi laburreko izarñoak **pizarazten** zizkion behiala soildurik ezagututako buru gaineko mataza gominaztatuan. **Aingeru Epaltza**

## pitzatu<sup>1</sup>, pitza, pitzatzen 1 da/du *ad* gainalde batean ebaki edo haustura egin. ikarrakalatu.

**Pitzatua** egotea ez da hautsia egotea; **pitzatua** egotea ez da osorik egotea ere. **Iñaki Segurola**  
Kristala **pitzatu** egin zen. **Anjel Lertxundi**  
Betaurrekoen lenteetako bat **pitzatuta** zeukan. **Fernando Morillo**  
Hezur puska batzuk zizel batez **pitzatu**, gero ebaki, eta mikroskopioz aztertu ziren. **Irene Aldasoro**  
Meniskoa **pitzatuta** neukala esan zidaten eta astebeteko atsedena hartzeko. **Berria - Kirola**  
Gelako hormetako bat **pitzatu** egin zen, zarata ikaragarria ateraz. **Fernando Morillo**  
Lurra **pitzaturik** eta lehor ageri zen alde guztietan. **Xabier Olarra**  
Beroketa-sistemako hodi bat **pitzatu** zuten sartzerakoan, eta urak hartu zituen bazter guztiak. **Rafa Egiguren**  
Ezkerreko begiaren azpitik ezpain gaineraino, aurpegia goitik behera **pitzatzen** zion orbain itzel bat zeukan nabari. **Hasier Etxeberria**  
Betondo bat ubeltzen hasia ikusi zion Mentxuk, eta beheko ezpaina apur bat **pitzatuta**. **Josu Landa**  
Hotzak lasaitu egin du, ezpainak **pitzatzen** ari zaizkiola sentitu du, mingainarekin busti ditu. **Eider Rodriguez**

### irud/hed

Ez dakigu izpiritua **pitzatua**, zulatua edo gaizki josia dutelako den. **Iñaki Segurola**  
Aitaren errietek, nire iritziak **pitzatu** beharrean, kontrako efektua eragiten zidaten: orduan eta alemanago sentitzen nintzen. **Anjel Lertxundi**  
Istant horretan, *krak*, zerbait **pitzatzen** hasi da zeure barnean, nola putzuetako izotza oinetakoan azpian. **Hasier Etxeberria**  
Etorri berritan ez baita komeni etxekoaren arauak **pitzatzen** hastea. **Hasier Etxeberria**  
Apurka-apurka, ekoizpen-sistema autarkikoa **pitzatu** egiten da, eta jardueren espezializazioa sortzen da. **Koro Navarro**  
Haien harremana **pitzatzen** hasia zela sumatu zuen tristuraz. **Patxi Iturrategi**  
Telefonoaren txirrinak etxeko isiltasuna hautsi du, bazkalondoko bakearen kristal finezko ahuleria **pitzatuz**. **Pako Aristi**  
Negarrez ari zela iruditu zitzaidan, azkeneko hitzean **pitzatu** egin baitzitzaion ahotsa. **Koro Navarro**  
Leiho atzean geratu nintzen, zeru beltzaren zamapean zitalduta ageri zen itsaso gris, zuriz **pitzatuari** begira. **Ramon Saizarbitoria**

### 3 adkor buruaz mintzatuz, galdu.

Bera duk ganbara **pitzatuta** duena. **Antton Olano**  
Hire aita zahartuta zagok, baina oraindik ez dik ganbara **pitzatzen** hasita. **Agustin Otsoa**  
**Pitzatzen** hasia ote nintzen ere... ahotsak entzuten nituela, zera! **Jesus Mari Mendizabal**  
Kalezuloko auzokideek **pitzatzen** hasia zela esan zuten. **Patxi Zubizarreta**  
Praile hau erabat **pitzatuta** zaukeagu. **Pello Zabala**  
Neska hau **pitzatzen** ari duk. **Antton Olano**  
Makina bat ezagutu ditut, betiko **pitzatuta** geratu direnak. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Baina halako harroaldiak barkatzen ez zizkietenak ere bagenituen, eta galdezka aritu zitzaizkion **pitzatua** ote zegoen. **Koldo Izagirre**  
Gaur zeharo **pitzatua** zaude. **Antton Olano**  
Errai guztiak azpikoz goiti ezarriak neuzkan, ingeniari **pitzatu** batek diseinaturiko atrakzio deabruzkoak irauliak. **Aingeru Epaltza**  
**Pitzatu** egin zaik ala? **Antton Olano**

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Eskaiola **pitzatua** sabaian. **Eider Rodriguez**  
Horma **pitzatuak** beteko dizkiot eta lurreratuak jasoko. **Elizen arteko biblia**  
Harresi **pitzatuek** baino sastraka erraldoiek hobekiago babesten zuten jauregi eroria. **Pako Aristi**  
Marmol **pitzatuzko** ezkaratz zabala. **Alberto Ladron Arana**  
Urari eusteko gauza ez diren putzu **pitzatuak**. **Elizen arteko biblia**  
Aurpegia zimur-zimur eginda, ispilu **pitzatu** baten aurrean bere alkandora garbi-garbiaren aurrealdeko botoiak lotzen. **Lopez de Arana**

### 5 (era burutua izenondo gisa, irud/hed)

Emakume txiki, azal-ilun, horzgabe, konkortu bat, ahots kantari **pitzatua** zuena. **Koro Navarro**  
Ahapeka ari zela, halako dardara **pitzatu** bat nabari zen haren ahotsean. **Lopez de Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**pitzatu bat** (3)  
**pitzatzen ari** (5); **pitzatzen hasia** (5); **pitzatzen hasita** (4); **pitzatzen hasteko** (3)

## pitzatu<sup>2</sup> 1 iz gainalde bateko ebaki edo haustura. ik **pitzadura; arrakala; artesi**.

Ezinezkoa zen halako **pitzatu** izugarri bat behin ikusi eta gero aurpegi hura ahaztea. **Hasier Etxeberria**  
Han eta hemen ikusten da oraindik zuhaitzen bat, eta baita sastraka edota hainbat belar zerrenda ere; baina, guztiarekin, elementu nagusia karaitza da, ebaki ete **pitzatuz** markatutako harri txuria. **Bernardo Atxaga**  
Mikel Strogoff, aldiz, lurzoruak zaldiaren ferrei eutsi ala ez, arrapaladan zihoan beti inon gelditu gabe, ohol ustelen artean zabaltzen ziren **pitzatuen** gainetik jauzi eginez. **Karlos Zabala**  
Horrenbeste lagunetatik, ez da zaila oroimenaren **pitzaturen** batetik bat edo beste galdu izana. **Pello Zabala**

## pitzatutxo iz pitzatu txikia.

Makina bat burutan txip tikiaren bat aldatu beharko da, apostoluak zartatu tikiak, printzak eta **pitzatutxoak** dituztela esandakoan... baina ez al dira harrizkoak? Bai, harri-harrizkoak. **Pello Zabala**

## piu-piu 1 *adlag* txoriaren kontuaren onomatopeia.

Mezan kantu eta otoitz egin dugu elgarrentzat, bihotzak doi bat tinki eta trixte gintuelarik, hor ofizio denbora guzian, murru xori bat **piu piu** kantari gure lagun eliza barnean, iduri zuen nahi gintuela poxi bat ahindu eta alegeratu. **Herria**

## 2 *piu-piuka*

Txitxak **piu-piuka** sumatu zituen. **Itxaro Borda**

## piupiukari *izond* piu-piu adi dena.

Haur **piupiukarien** artean, Superbat gunean, lur hasean jarri nintzen. **Itxaro Borda**

## piura 1 *iz adkor* itxura (txarra). (pertsonena)

-Txukundu zuen **piura** horiek -abisatu zien Peterrek-; lehenengo inpresioa oso garrantzitsua izaten da. **Julen Gabiria**

Maizak ez zuen **piura** ona: blai-blai eginik zegoen, txit asperturik, egun luzeak eta gau ezatseginak gogait eginik, koplatan ibiltzeko batere gogorik gabe. **Migel Angel Mintegi**

Sukaldariak Hasan **piura** hartan ikusi zuelarik, nondik zetorren galdegin zion. **Patxi Zubizarreta**

Ez zitzaion gizonaren **piura** susmagarria iruditu. **Aritz Gorrotxategi**

Sekulako **piura** daukat, motel. **Eider Rodriguez**

**Piura** ederra orduan izaten nuena. **Joxan Elozegi**

**Piura** barregarri samarra zenuen hortxe, atartean, hain dotore! **Josu Landa**

Haren **piura** urrikalgarriak hunkiturik [...] neska ezitasunez mintzatzen ahalegindu zen. **Patxi Zubizarreta**

Haren **piuratik** begirada dut oroitzenekin tinkoena: hotza zen, metalezkoa, so egin hutsez putakumeka ari zaizkizun horietakoa. **Aingeru Epaltza**

Beragatik nago **piura** honekin, gaua begirik itxi gabe igaroa... **Migel Angel Mintegi**

Sorbaldak meharrik dituzte eta lotsagabearen **piura** aurpegi higatuetan. **Monika Etxebarria**

Martiri baten **piura** du. **Monika Etxebarria**

Zuk zeuk ikusi duzu nolako **piurak** atera diren taberna hartatik, baina, hala ere, handik joan behar zuk! **Anjel Lertxundi**

## 2 *pl*

Lapur bilakaturako baserritar baten **piurak** antzeratzea bere ahalmenetatik kanpo zegoen. **Jon Alonso**

## 3 (gauzena)

Noir bulebarrak ez du paseoan dabiltzanei lausenguka ibiltzen zaizkien kale burgesen **piura** lotsagabea. **Monika Etxebarria**

Baten oinetakoak direla, bertzearen jertsearen **piura**, urliazen puroa, edo sandiaren porroa. **Berria - Kultura**

Andre judua nire ezkertera agertu zen, izuaren **piura** penagarriaz. **Alberto Ladron Arana**

Bederatzi urte eta gero, gripeak birusaren **piura** hartu du. **Joxean Sagatzizabal**

## 4 (hitz elkartuetan)

Pintatzaileak zaldi flakoxta hezur huts bat, zaldi **piurarik** bai baina itxurarik ez zuen bat pintatu eta erakutsi zion Enperadore Horiari. **Felipe Juaristi**

Behartsu **piurako** enplegatu xumeei. **Monika Etxebarria**

## 5 (hitz elkartuetan) *irud/hed*

Barregura ematen niri, horra, gure baje- **piura** hark eta gainerako guztiak, barregura. **Joxe Austin Arrieta**

## 6(izenondo gisa)

Hainbeste egun kanpinetan ibili ondoren, irrikaz nentorren nire itxura **piura** arretaz eta denboraz aztertze. **Patxi Zubizarreta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**halako piura** (4); **nolako piura** (3); **piura harekin** (3)

## pixa (*orobat piz g.er. eta piza g.er.*) 1 *iz* txiza. ik *gernu*.

Gonbitoak eta hazia, kaka eta **pixa**, odola eta malkoak. **Oskar Arana**

Sufreak deabrua bezala, **pixak** -urearen usain sarkorrek- hirietako gune marjinatu eta arriskutsuen hurbiltasuna adierazten du. **Bernardo Atxaga**

Eta bitxiarena, **pixa** klitorisetik ateratzen zela uste nuen nik. **Josu Zabaleta**

Gauza jakina da katuaren **pixak** sekulako usain txarra duela. **Josu Zabaleta**

Untxien **pixak** beheko taulak erretzen zituen; hegaztien zirinak xaflak zipritin zurixkez zikintzen. **Karlos Zabala**

**Pixetan** berotutako arrautzak jaten zituen amonak egunero. **Juan Kruz Igerabide**

Zerbeza edaten dudana bakoitzean **pixa** edaten ari naizela iruditzen zaidak. **Pako Aristi**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beltzez agertzen dira aktore denak hurrengo eszenan eta **pixa** potoetatik edaten duten edabe hori zer den azaldu dute. **Berria - Kultura**

Tourraren atarian, goizean eta arratsaldean odol eta **pixa** analisiak egin zizkiguten. **Berria - Kirola**

Behi artean maitatzen zuten elkar, ukuluan, **pixa** usaineko lastoaren gainean. **Eider Rodriguez**

-Katuaren **pixa**-usaina dago hemen! -bota zuen Perrettek, oso umore txarrez. **Jon Muñoz**

Azken **pixa**-ttantak astindutakoan, atzera berriz egin dute taberna barrura, galtzontziloak orkatiletan eta estropezuka. **Jokin Muñoz**

Amonak zakiltxo bigun eta argala hara eta hona ibiltzen zion, hatz txiki bat bezala, hariak eta esnatu eta **pixa** erreka bero horia egiten zuen arte. **Juan Kruz Igerabide**

Big Joek elikatzen zuen txakurra, berak eskuliatzen, eta baita haren **pixa**-erreka sarriak [...] txukuntzen ere. **Mirentxu Larrañaga**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mathidek ez bezala eramaten zituen Zarauzko ostatu bakarreko ukuluitik geletara heltzen zitzaian mando- **pixen** kiratsa. **Anjel Lertxundi**

## 4 *pixa egin* (*orobat pizegin g.er.*)

Egun hartan, Karine Lelièvre-k **pixa egin** zuen kuleroetan. **Jesus Mari Mendizabal**

Jaitsi galtzak, eta igogailuan **egin** zuen **pixa**. **Juan Kruz Igerabide**

Kalean **pixa egiteagatik**, 300-1.500 euro. **Berria - Euskal Herria**

Kurrinka egiten nuen beti ametsetan, eta gainean **egin** nuen behin **pixa**, aitor dezadan. **Joxan Elozegi**

Galdeketa hasi eta ordu erdi geroago **pixa egin** nuen gainean. **Berria - Euskal Herria**

-Zein ur-ontzitarra **egin** behar dun **pixa** orain, Karmen? **Inazio Mujika Iraola**

Astronauta guztiak **egiten** dute **pixa** autobusaren gupilera, ontzian sartu aurretik. **Pello Salaburu**

-Eta apustu egiten diat **pixa egiten** jakin ezetz. Koro Navarro  
Ugaztun emeek umea kanporatzen duten hodi beretik **egiten** dute **pixa**, hau da, baginatik. Luis Elberdin  
Pixagalea zuen, komunera joan eta ezin zuen **pixarik** egin. Koro Navarro  
-Zergatik ez duzue **pixa** eserita egiten, guk bezala? Iñaki Iñurrieta  
**Pixa eginean** ari zela gertatu zen. Karlos Linazasoro  
Izan ere, ba al dakizue zer egin zion pelotai-buruak aitonari, zerraldo erori zenean? **pixa egin** zioan! Joan Mari Irigoien  
Oiloak **pixa egin** arte. Patziku Perurena

## 5 (egin ezabaturik)

Otso zaharrari zakurrak hankan **pixa**. Gotzon Garate

## 6 irud/hed

Iseka egiten zigula, harrika bonbardatzen gintuela, goitik behera **pixa egiten** zigula. Josu Zabaleta  
Larssonek suediarren lehen partidano egindako gol hegalaria ahaztu nuela jabetu bezain laister, Ibrahimovic italiarrei begian **pixa egiten** ikusi nuen, orpoz. Berria - Kirola

## 7 pixa eginarazi

Goizero, egunsentian, Uil esnatzen zuen, tupikizko ontzi batean **pixa eginarazten** zion, eta ahate zuri baten arrautza eder bat sartzen zuen hantxe. Juan Kruz Igerabide

## 8 pixa urrin (orobat pixurrin) pixa usaina.

Gelako hormei esperma eta **pixa urrina** zerien. Itxaro Borda  
Arratsaren parte bat geltokian pasatzen zuten eskaleetarik bat zela iritzi zuen andereak, alkohol eta **pixa urrina** usnatzen ziolako gehienbat. Itxaro Borda  
Nahiz eta aise gertuago sumatzen eta pairatzen ditugun, "orain eta hemen" ezinago zabal eta luzean, artaldearen arkorotz eta **pixurrinak** poeten oihartzunak baino. Jose Angel Irigaray

## 9 (deiki gisa)

-Nahi dudan bezala deitzen diot, **pixurrin** halakoa -esan zuen, idunekoa hartu eta nire begien aurrean kulunkarazten zuelarik-, eta kaka zahar hau bihar gosaritarako jan ezazu. Oskar Arana

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**egiten dute pixa** (5); **kaka eta pixa** (5); **ohean pixa egiten** (4); **pixa egin** (47); **pixa egin behar** (3); **pixa egin nuen** (4); **pixa eginean** (3); **pixa egingo** (3); **pixa egiteagatik** (3); **pixa egiteko** (15); **pixa egiteko gogoa** (5); **pixa egiten** (35); **pixa egiten zuen** (5); **pixa egitera** (14); **pixa erreka** (5); **pixa kanporatzeko** (3); **pixa urrina** (3); **pixa usaina** (6)

## pixagale (7 agerraldi, 5 liburutan; orobat *pixagale g.er.*) 1 iz pixa egiteko gogoa. ik **pixagura**.

Errabinoak **pixagale** izugarria sentitu zuen, baina komunik ez zegoen. Koro Navarro  
Ninik **pixagalea** zuela, eta mahai azpian bertan egingo zuela, Itxaron pixka batean, **pixagalea** dut-eta. Josu Zabaleta  
Giltzurdinak gure gorputzean jiraka dabilen odola garbitzeko xedea du, eta odolak baztertzen dituen hondakinok, ur bihurturik maskurira bildu ahalean, gernutan kanporatzen ditugu, **pixagaleak** agintzen digun bakoitzean. Patziku Perurena  
-Goizeko zazpietan iratzartu zen **pixagale** hantua. Itxaro Borda

## 2 (hitz elkartuetan)

Fase horretan, lehenago ez bada, **pixagale** -seinala sortzen dute maskuriko paretetako nerbio-amaierak, presioaren igoerak eraginda. Irene Aldasoro

## pixagaletu, pixagale(tu), pixagaletzen da *ad* pixagalea etorri.

Agataren manuz, alabaina, jendetzaren bozkarioa filmatzen zarrakala noiztenka **pixagaletzen** zen hura ere. Itxaro Borda

## pixagura (12 agerraldi, 8 liburutan; orobat *pixagura* 5 agerraldi, 2 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian *pixagale* agertzen da) 1 iz pixa egiteko gogoa. ik **pixagale**.

Kontuan izan behar da **pixagura**, adibidez, erabat prozesu biologikoa dela, eta grina sexuala -edo desio sexualaren falta, hobeto esanda-, berriz, kulturak oso baldintzatuta daukala. Luis Elberdin  
**Pixagura** genuela abisatu eta une batez mendialderantz ezkutatu ginen Silbia eta biok. Joxemari Iturralde  
Gero, **pixaguraz** zegoela esan, eta komunerako bidea hartu zuen. Anjel Lertxundi  
Hartan, **pixagura** egin baitzitzaidan, zubiitik ibai ertzerara doazen harmailak jaitsi nituen. Anjel Lertxundi  
**Pixagura** handia sentitzen nuen, izara eta burusia alboratu eta ohetik irteteko keinua egin nuen. Aitor Arana  
**Pixagura** ere ikaragarria, giltzurrunek hustuketa exigitzen zioten. Unai Iturriaga  
Ordurako, **pixagurea** praktetan behera joanda zitzaidan, istil bat sortzeraino. Javi Cillero

## 2 *pixagura* izan da *ad*

Badut beste bat, urdurixkoa [...] beti **pixagura** dena. Pello Zabala

## 3 *pixagurak egon* pixagura izan.

Herriko taberna ikusi zuten eta baita hartatik atsegin handia izan ere, biak ala biak **pixagurak** baitzeuden aspaldian. Aitor Arana

## pixalarri iz pixa egiten gogo larria, pixagura handia.

Gero anabasa etorri zen, eta beldurra dakarren irri-negar urduria, eta **pixalarria**. Karlos Linazasoro  
Begirale jauna, maskuria lehertzeko zorian dut, **pixalarri** bainago. Anjel Lertxundi  
Zenbaitek, **pixalarriak** jota, geltokiko zoko ilunetan eta eskaileretan egiten zuen, ez baitzen komunik zabalik egoten, "men" ala "women" letreroa zeramaten atekatez eta kandaduz baitzeuden loturik. Iñaki Zabaleta

## pixaldi iz pixa egiten den aldia.

Hasi ere hasi omen ziren [...] baina laster aspertu **pixaldi** bakoitzean prakak jaisten. Iñaki Iñurrieta  
Azken **pixaldi** horretatik, ordea, kasik ordu erdi iragana zen, eta bitarte horretan nire giltzurrunak lanetik gelditu ez. Aingeru Epaltza  
Amaia jaiki berritako **pixaldia** egitera komunera joan bitartean, Agustina leiho ondoko aulki dotore eta fin batean eserit zen. Aitor Arana  
Besteak bizikletez arduratzen ziren bitartean, tabernan hasitako **pixaldia** amaitu zuen, kantuan. Josu Zabaleta

## **pixar** 1 *iz adkor* pizarra, apurra. ik **pizar**.

Astiro marraskatzen zuen, papurrez papur, pozez zorutzen, hatza bustitzen zuen **pixar** xehatuegiak ateratzeko. Karlos Zabala

Biak ala biak gaztelaniaz dakiten **pixarra** erabiltzen saiatu dira. Berria - Mundua

## 2 (izen baten eskuinean)

Neure burua noizean behin garbitzea erabaki nuen, oraindik ere ur **pixarra** zuen azken lababoan.Deigarriena, Lotsati suizidatatz ez baizik idazle heterodoxotzat hartzeko bidea ematen diguna, haren poesia da, argitaratuta utzi zituen dozena eta erdi olerki **pixar** horiek. Joxan Elozegi

Saiatuko naiz ba, berrizkoan ere, nere inozentzia **pixarra** erakusten. Patziku Perurena

Neure sen **pixarrak** dio, [...]. Patziku Perurena

## 3 **pixar bat** pixka bat. (izen baten eskuinean)

Bere ikasliburuaren edizio berri baten zuzenketak egiten laguntzen nion, hartara diru **pixar** bat irabaztearren. Joxe Austin Arrieta

Diru **pixar** bat neukan aurreztuta -mila duro edo, ez askoz gehiago- eta huraxe inbertitu nuen neure alfabetatzean. Xabier Mendiguren Elizegi

Portuko kantinaren barra gainean hustu zituzten diru **pixarrak** garabietako beharrera itzuli aurretik. Harkaitz Cano

Ahoan lasto **pixar** bat dutela. Itziar Otegi

Hamabost egunez argi **pixar** bat bereganatuko duen anekdota bat baizik ez. Hasier Etxeberria

Txitxare buztan bat billatzen badu, uraxe aski dik, epel **pixar** bat nabaitu orduko kantari asteko. Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diru pixar bat** (4)

## **pixatoki** *iz* pixa egiteko tokia.

Bazen han azkonar-zulo eta azeri-zulo ugari, **pixatoki** ezin hobeak denak. Mirentxu Larrañaga

Orduan, nonbait, **pixatoki** publikoetan sartzten zen eta norbait pixa egitera sartzten zenean, maniaakoak adeitsu egiten zion proposamena bi **pixatokiak** banatzen zituen hesiaren gainetik. Pello Lizarralde

Jendea irensten duen munstro mitikoa bihurturiko hiri azpiko Metroarena; oinezko baten kuriositate arrikutsua erakartzen duen **pixatoki** automatikoarena; [...]. Berria - Kultura

Ikasi gabe geunden ezaxolatuen tolerantziak muga jakin batzuk dituela, hots, literaturazaleen matraka jasango dute haien bizimoduan sartzten ez den bitartean, eta **pixatokiko** txarteltxoak haien bizimoduan sartzten ziren nonbait, zuzen-zuzenean sartu ere. Xabier Mendiguren Elizegi

## pixatu ik **pisatu**.

## **pixegile** *iz* pixagalea, pixagura.

**Pixegileak** egin zuen bidaia guzia. Eneko Bidegain

## **pixegiletu**, pixegile(tu), pixegiletzen da *ad* pixagaletu.

**Pixegileturik**, komunetara joaiteko baimena galdegin zuen, eskua altxaturik. Eneko Bidegain

## **pixel** *iz* pantailan digitalizaturiko irudia osatzen duten puntuetako bakoitza.

Hau da *Geosphere Project* taldearen mapa, Santa Monican eta Pasadenan prestatu da, Ptolomeus-2 sateliteak igorritako 39 milioi **pixeletan** oinarrituta. Joseba Sarrionandia

Santa Monica eta Pasadenako zientzialariek **pixelik pixel** kendu dituzte laino arrasto gehienak. Joseba Sarrionandia

Letrek ez eta **pixelek** beteko dute *Eta lurrak ez zuen formarik* instalazioko horma. Berria - Kultura

## **pixelazio** *iz* irudi bat edo irudi zati bat pixelak banan-banaka ikusi ahal izaterainoko tamainaraino handitzea.

Haietako beste bat, Ramio Bennedetti brasildarrak performance-a, bideogintza eta animazioa uztartzen ditu bere lanetan, eta hiru eguneko **pixelazio** lantegi oso zabal bat izango du *Animac*-en, geroago Donostiara etorriko denean ezaguna dugun Xabi Erkiziarekin batera kontzertu-performance-a egingo duena. Berria - Kultura

## **pixeldu**, pixel(du), pixeltzen da/du *ad* lausotu.

Ume salbatuaren aurpegia **pixeldurik** ageri zen, "Frantziako legeak honelako kasuetan adin txikikoak babesten dituelako". Iñigo Aranbarri

## **pixka** (*orobat **piska** g.er., **pizka** g.er. eta **pixko** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pixka** agertzen da*) 1 *iz* apurra. ik **pittin**.

Alde dezente dago **pixka** baten eta puxka baten artean. Iñaki Arranz

Baina hoztea, hori berez, urte **pixkatan** tokatzen da. Pello Zabala

## 2 **pixka bat** (**3949** agerraldi, **245** liburu eta **305** artikulutan; *orobat **pixkat** 140 agerraldi, 37 liburu eta 23 artikulutan, **pixkot** g.er. eta **pixkabat** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pixka bat** agertzen da*) *adlag* apur bat. ik **pittin** 2; **puxka** 7.

Janzkiaren ertz bat jaso zuen **pixka bat**, nik haren oinak ikusteko moduan. Anjel Lertxundi

Nahastu egin naiz **pixka bat**. Oskar Arana

Maxi on egingo zion **pixka bat** egurasteak. Jon Muñoz

Euskarak baditu bi dialektu **pixka bat** zoko egiten direnak. Koldo Zuazo

Romak, **pixka bat** baretuta ordurako, lagundu egin zion. Unai Elorriaga

Hau guztiau argi dago logikan **pixka bat** saiatua den edozeinentzat. Xabier Kintana

Hemen unibertsitatean sartzeko prozedura hauek **pixka bat** korapilatsuagoak dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Sarritan esaten da neskak **pixka bat** urduri eta aztoratu samar-edo egoten direla. Mirentxu Larrañaga

Soinu horrek, soinu txiki eta xume horrek, **pixka bat** aurreraxeago eserita zeuden soldaduen arreta bereganatu zuen. Felipe Juaristi

Zerubidean abiatzeko zinez hain presaturik ote dagoen eta neke hori **pixka bat** geroratzen ahal ez ote duen galdegin dio bere buruari. Aingeru Epaltza



**Pixka bat** sakondurero, berehala ikusten zaien amarrua. **Joxerra Garzia**

**Pixka bat** aurrerago, etxe-orratzen auzoa hasten zen bihurgunean. **Aritz Gorrotxategi**

Aurpegia **pixka bat** eztituz. **Marzel Etxehandi**

Bere bizia **pixkat** kontatzen dauku. **Menane Oxandabaratz**

### 3 (izen baten eskuinean)

Pena **pixka bat** ematen diegu, baina besterik ez. **Bernardo Atxaga**

Sukar **pixka bat**: hogeita hamazazpi eta erdi. **Anjel Lertxundi**

Musika **pixka bat**. **Sonia Gonzalez**

-Nahi al duzu pastel **pixka bat**, Williams andrea? -galdetu zuen Gwilymek. **Koro Navarro**

-Haragi **pixka bat** emango baligu norbaitek! **Jose Antonio Mujika**

Egia esan, arreta **pixka bat** jarriz gero, jardun interesgarri samarra izaten zen harena. **Joxe Austin Arrieta**

Piper, gatz eta berakatz **pixka bat** ematen diote bildumari. **Gotzon Garate**

Denbora **pixka batez** Margulistarren atzetik ibili nintzen, eta emakumeen erruki-hasperenak entzuten nituen. **Felipe Juaristi**

Kafe-esnea izenez, baina izen ur zikin poxino bat hauts-esne **pixkatez** nahastuta. **Jokin Urain**

Amnesia **pixka bat** beharrezkoa izaten da indarrak berri eta erokeriari berriz ere ekiteko. **Iñaki Heras**

Politika ekonomikoari jarduera-askatasun **pixka bat** emateko. **Koro Navarro**

Euria ari zuen, euri fina, eta haize **pixka bat** zebilen, Iparraldetik gogo gutxiz joka. **Felipe Juaristi**

Irakur dezagun orain euskara on **pixkat**. **Iñaki Seguro**

Argitasun **pixkaten** jabe dena erraz samar ohartzten da nik sinesten ditudan zera horiek denak fedetzat, sineskizuntzat eta ideiatzat hartzen ditudala. **Iñaki Seguro**

### 4 *pixka batean (orobat pixkatean) adlag* denbora apur batean.

Heldu ondoren, megalomania hura **pixka batean** alboratzea erabaki nuen. **Joxan Elozegi**

Nirekin geratu dira **pixka batean** hizketan. **Edorta Jimenez**

Hago **pixka batean** hemen -agindu zidan. **Edorta Jimenez**

Zurezko egitura atzera irristatzean begiak itxi nituen **pixka batean**. **Aritz Gorrotxategi**

Handik **pixka batera** itzuli eta errautsetan egositako patata batzuk jaitsi zizkigunean. **Josu Zabaleta**

Merezi du gertaera horretan **pixka batean** luzatzea. **Koro Navarro**

Hiru defuntu lurperatuta zeuden tokitik lur **pixka bana** hartzen zuten, etxean egiten zuten txokolateari nahasteko. **Anjel Lertxundi**

Ahoa garbitu arren bertan segitzen du **pixkatean**. **Hasier Etxeberria**

Zaude **pixkatean**, eta utziezu nere hitzei atrebentzia puskat hartzen eta zure bihotzondo adabakitu horretan aztarrika aritzen. **Iñaki Seguro**

### 5 *pixka-pixka bat adlag*

Azpiko ezpaina **pixka-pixka bat** mugitu zuelarik, iruditu zitzaigun zerbaite erran nahi zuela. **Daniel Landart**

Harry **pixka-pixka** bat altxatu zuen burua beso gainetik, beste belarriaz ere entzuteko ahaleginak eginez. **Iñaki Mendiguren**

Kriseilua pixka bat zabaltzea erabaki nuen, **pixka-pixka bat** besterik ez. **Koro Navarro**

Ez zen **pixka-pixka bat** ere itzarri. **Felipe Juaristi**

### 6 (izen baten eskuinean)

Ez zen deus ageri, haragi **pixka-pixka bat** bi botoien artean besterik ez, baina hura asaldatu egiten zen, oso asaldatua zebilen nirekin ordurako. **Karlos Zabala**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

adore pixka bat (8); aire pixka (10); aire pixka bat (9); antz pixka (15); antz pixka bat (15); ardo pixka (20); ardo pixka bat (19); argi pixka (22); argi pixka bat (22); argitasun pixka (6); argitasun pixka bat (6); arnas pixka (10); arnas pixka bat (10); arnasa pixka (11); arnasa pixka bat (11); arrazoi pixka (6); arrazoi pixka bat (6); arreta pixka (8); arreta pixka bat (6); atea pixka (9); atea pixka bat (9); atsedeen pixka (26); atsedeen pixka bat (24); bai pixka (6); bai pixka bat (6); baina handik pixka (9); baina pixka (30); baina pixka bat (28); baino pixka (61); baino pixka bat (61); bake pixka (10); bake pixka bat (10); barre pixka (13); barre pixka bat (13); beldur pixka (41); beldur pixka bat (36); beste pixka (59); beste pixka bat (30); beste pixka batean (25); biak pixka (6); bizitasun pixka (7); bizitasun pixka bat (6); burua pixka (27); burua pixka bat (27); da pixka (36); da pixka bat (21); da pixka batean (10); denbora pixka (86); denbora pixka bat (63); denbora pixka batean (8); denbora pixka batera (6); denbora pixka batez (7); denetik pixka (9); denetik pixka bat (8); dira pixka (9); diru pixka (90); diru pixka bat (86); du pixka (25); du pixka bat (20)

egin zen pixka (9); egin zuen pixka (8); egon da pixka (6); egon nintzen pixka (7); egon pixka (29); egon pixka bat (9); egon pixka batean (19); egon zen pixka (24); egon ziren pixka (6); eguzki pixka (7); eguzki pixka bat (7); elur pixka (6); ere pixka (21); ere pixka bat (17); errespetu pixka (10); errespetu pixka bat (9); esne pixka (6); eta denbora pixka (7); eta diru pixka (8); eta gazta pixka (6); eta handik pixka (21); eta pixka (115); eta pixka bat (89); eta pixka batean (17); eta ur pixka (7); ezazu pixka (7); ezazu pixka bat (7); gara pixka (6); gatz pixka (9); gatz pixka bat (7); gauzak pixka (12); gauzak pixka bat (12); gazta pixka (10); gazta pixka bat (8); geratu zen pixka (17); ginen pixka (10); giroa pixka (6); giroa pixka bat (6); gustu pixka (6); gustu pixka bat (6); hadi pixka (7); hago pixka (12); hago pixka batean (12); haize pixka (19); haize pixka bat (19); handik pixka (188); handik pixka batera (185); haragi pixka (7); hasieran pixka (6); hemen pixka (8); hori pixka (14); hori pixka bat (11); hura pixka (8)

inbidia pixka (12); inbidia pixka bat (10); indar pixka (10); indar pixka bat (10); ironia pixka (6); itxaron pixka (22); itxaron pixka bat (12); itxaron pixka batean (10); itxoin pixka (8); itxura pixka (9); itxura pixka bat (7); janari pixka (6); jende pixka (8); jende pixka bat (8); kafe pixka (10); kafe pixka bat (10); kontu pixka (6); laguntza pixka (7); lan pixka (23); lan pixka bat (23); lasaitasun pixka (9); lasaitasun pixka bat (6); leku pixka (6); leku pixka bat (6); lo pixka (10); lo pixka bat (10); lotsa pixka (15); lotsa pixka bat (14); min pixka (25); min pixka bat (22); musika pixka (16); musika pixka bat (16); naiz pixka (18); naiz pixka bat (13); nintzen pixka (27); nintzen pixka bat (11); nintzen pixka batean (11); nuen pixka (7)

odol pixka (10); odol pixka bat (9); odoletik pixka (8); odoletik pixka bat (8); ogi pixka (10); ogi pixka bat (10); orain pixka (7); oraindik pixka (7); oraindik pixka bat (6); ordena pixka (8); ordena pixka bat (8); pattar pixka (7); pazientzia pixka (17); pazientzia pixka bat (17); pena pixka (16); pena pixka bat (15)

pixka bat (3270); pixka bat altxatu (7); pixka bat aparte (8); pixka bat atera (6); pixka bat atzera (9); pixka bat atzerago (8); pixka bat atzeratu (8); pixka bat aurrerago (16); pixka bat bai (14); pixka bat baino (7); pixka bat baldin (6); pixka bat behar (37); pixka bat beharko (9); pixka bat behera (10); pixka bat beranduago (6); pixka bat berotu (6); pixka bat besterik (11); pixka bat bota (8); pixka bat edan (10); pixka bat egin (53); pixka bat eginez (12); pixka bat egingo (8); pixka bat egitea (7); pixka bat egiteko (13); pixka bat egiten (21); pixka bat egitera (7); pixka bat eman (33); pixka bat emango (10); pixka bat ematea (9); pixka bat emateko (21); pixka bat ematen (57); pixka bat ere (82); pixka bat eskatu (6); pixka bat eta (45); pixka bat ez (8); pixka bat ezagutzen (6); pixka bat falta (15); pixka bat galdu (7); pixka bat gaitzen (6); pixka bat gehiago (72); pixka bat geroago (14); pixka bat geroxeago (10); pixka bat gora (6); pixka bat gorago (6); pixka bat gutxiago (7); pixka bat handiagoa (9); pixka bat harantzago (6); pixka bat harriturik (6); pixka bat harrituta (6); pixka bat hartu (37); pixka bat hartuko (9); pixka bat harturik (7); pixka bat hartzeko (17); pixka bat hartzen (8); pixka bat hartzera (9); pixka bat hitz (7); pixka bat hobeto (8); pixka bat ibili (12); pixka bat ireki (10); pixka bat izan (24); pixka bat izango (7); pixka bat izaten (7); pixka bat jaitsi (8); pixka bat jan (7); pixka bat jarri (12); pixka bat lasaitu (26); pixka bat lehenago (26); pixka bat lotsaturik (7); pixka bat makurtu (6); pixka bat mugitu (9); pixka bat mugitzen (7); pixka bat nahi (7); pixka bat sartzen (6); pixka bat sentitu (6); pixka bat sentitzen (6); pixka bat sentitzen (6); pixka bat ukitu (6); pixka bat urduri (9); pixka bat urrunago (7); pixka bat urrundu (11); pixka bat zabaldu (11); pixka bat zuela (10); pixka bat zuen (6); pixka x<sup>2</sup> vb bat izatea (6)

pixka batean (524); pixka batean egon (9); pixka batean eta (6); pixka batean isililik (8); pixka batean itxaron (8); pixka batek (17); pixka batekin (107); pixka baten (28); pixka baten bila (9); pixka batera (214); pixka baterako (13); pixka batez (88)

pixka pixka (13); pixka pixka bat (12); poz pixka (10); poz pixka bat (9); saltsa pixka (6); suerte pixka (12); suerte pixka batekin (7); sukar pixka (7); sukar pixka bat (7); te pixka (7); te pixka bat (7)

ur pixka (30); ur pixka bat (23); usain pixka (6); usain pixka bat (6); zalantza pixka (6); zaude pixka (27); zaude pixka batean (24); zen pixka (82); zen pixka bat (27); zen pixka batean (44); zen pixka batez (9); zentzu pixka (10); zentzu pixka bat (7); zion pixka (6); ziren pixka (27); ziren pixka bat (9); ziren pixka batean (14); zitzaion pixka (8); zorte pixka (23); zorte pixka bat (10); zorte pixka batekin (12); zuen handik pixka (7)

pixkaren bat (7)

pixkabat ik **pixka** 2.

**pixkaka** (35 agerraldi, 10 liburu eta artikulua 1ean) 1 adlag apurka. ik **pixkanaka**.

Alegia, sarri egin ohi duela barrualde horietan, baina beti ere gutxika, **pixkaka**, euri eskasean. Pello Zabala  
Mantso, benetan, baina **pixkaka**, apurka, batean hasi eta ezin, bestera aldatu... Pello Zabala  
Hodei partikulatxoak, **pixkaka**, elektrizitatez kutsatzen doaz. Pello Zabala

## 2 **pixkaka-pixkaka** adlag apurka-apurka.

Zalaparta bizia atera zen tupustean, eta gero **pixkaka-pixkaka** apaltzen hasi zen, erabateko isiltasuna nagusitu arte. Karlos Zabala  
Zorayda Arrarasek logikaren arrazoigabetze hori **pixkaka-pixkaka** bere izterretan behera eta gorago nola obratzen zen sentitu ohi zuen. Iñaki Segurola  
Arkuak **pixkaka-pixkaka** lurrerantz hurbiltzen ari zirela ematen zuen, beren sarea estutzen ari zirela. Karlos Zabala  
Ivan Ogareff **pixkaka-pixkaka** urreratu zen Mikel Strogoffen aldera. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pixkaka pixkaka** (15)

## **pixkana** (164 agerraldi, 61 liburu eta 29 artikulutan; orobat **piskana** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pixkana** agertzen da) 1 adlag apurka. ik **pixkanaka**.

Egunotan mustro bat ari da **pixkana** jaiotzen, kaos lizunaren bihotzetik. Anjel Lertxundi  
Zabaldu ziren ezpainak; eta esangura bitxiko irribarre batean, begibistara azaldu ziren **pixkana** Berenize aldatu haren hortzak. Koro Navarro  
Urrunera begiratzen ohitutako begiek bidean zehar **pixkana** hurbiltzen ari zen kotxea sumatu zuten. Xabier Olarra  
Susmoa nuen Julioz gain beste askorekin ere ibiltzen ote zen nire maistra, zeren **pixkana** haren izaeraren alderdi ezezagun bat ari bainintzen ezagutzen. nGurutzetako garai nahasietan handik erretiratu ziren, eta **pixkana** Europa osoan barreiatu. Juan Kruz Igerabide

## 2 **pixkana-pixkana** (orobat **pixkanapixkana** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pixkana-pixkana** agertzen da) adlag apurka-paurka.

Momentuan ez baizik **pixkana-pixkana** hasi nintzen izaten erresumin horren susmoa. Xabier Mendiguren Elizegi  
**Pixkana-pixkana** istorio batean sartuko zaituztet denok. Koro Navarro  
Eskualdatuz joan zen, **pixkana-pixkana**, soineko bilduma hura. Joxan Elosegi  
Eskuari esku, han bildutako jendea dantza-korda bat osatzen hasi zen **pixkana-pixkana**, Ifarkoia hoteleko areto nagusia dantzaleku bihurturik. Anjel Lertxundi  
Hasieran nire parean zegoen, baina **pixkana-pixkana** aulkia lekuz aldatu zuen, harik eta gelako aterantz begira jarri zen arte. Koro Navarro  
Nola **pixkana-pixkana** sare bat ehuntzen duen biktimaren inguruan, hura ohartu ere egin gabe. Antton Olano  
Eskailera **pixkana-pixkana** igo, arnasari eutsi, eta erne geratzen da. Antton Olano  
Halatan, **pixkana-pixkana**, Angelo ero baten irudia habia egiten hasi zen nire baitan. Anjel Lertxundi  
Hala, barne- merkatu bateratu, integratu eta lehiakor bat sortu zen **pixkana-pixkana**. Koro Navarro  
Objektu hori galtzean, amodioak harenganako loturak uzten ditu **pixkana-pixkana**. Joseba Zulaika

## 3 **pixkana-pixkanaka** adlag apurka-apurka.

Estatubatuar gehienak heriotza zigorraren alde baitaude, nahiz ehunekoetan neurturik **pixkana-pixkanaka** kopurua behar bezala ari den: 1984an, % 80k babesten zuen heriotza zigorra. Idazteko duen «grina obsesiboa» gainditu nahian ekin zion Linazasorok liburu osoan duten apunte laburrak idazteari, ariketa horrek **pixkana-pixkanaka** idazteari uzten lagunduko ziolakoan. Pello Salaburu

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pixkana pixkana** (96); **pixkana pixkanaka** (5)

## **pixkanaka** (1202 agerraldi, 132 liburu eta 462 artikulutan; orobat **piskanaka** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pixkanaka** agertzen da) 1 adlag apurka. ik **pixkaka**; **pixkana**.

Urratsak **pixkanaka** egin ziren, banan-banan. Pello Salaburu  
**Pixkanaka** ulertzen diagu mundua, eta gero hil egiten gaituk. Xabier Olarra  
Giroa ari zen **pixkanaka** pizten. Harkaitz Cano  
**Pixkanaka** zahartzen gaituk, lehenbizi bizitzeko eta gure kideok ikusteko gogoia joaten zaiguk, eta, gainerakoan, badakik, errealitatearen zentzua nagusitzen zaiguk **pixkanaka**, gauzak argitzen zizkiguk, eta iruditzen zaiguk gertaerek modu aspergarri eta monotonoan begiratzen digutela... Xabier Olarra  
Alboko gelara eraman, eta habetik zintzilik lotzeko, **pixkanaka** hil zedin. Juan Kruz Igerabide  
**Pixkanaka**, euren bideak aldentzen joan ziren, bide nagusitik okertzen diren bidexkak bezala. Aritz Gorrotxategi  
Pasaiariak hasi dira **pixkanaka** itzultzen autobusera. Jon Arretxe  
Atea **pixkanaka** zabaldu zen, Lupin bertara iritsi baino lehen. Iñaki Mendiguren  
Hori guztia **pixkanaka** etorri zen, berez. Iñaki Iñurrieta  
Baina, jakina, egutegi hau **pixkanaka** urrundu egiten zen ilargiaren agindutik, eta horregatik noizbehinka berriz ere moldatu behar zuten. Pello Salaburu  
"Ongizate estatuaren" britaniar sistemari zegokionez, **pixkanaka** eta dogmatismorik gabe alderdi politiko guztien legegintzazko ekarpenen bidez eraiki zen. Iñaki Mendiguren  
Paris gaineko lurrin argitsua handitzen ari zen zerumugan, **pixkanaka** igartzen hasten ziren teilatuen gainetik. Karlos Zabala  
Gidariak jakinarazi zigunez, egiptoarren etorbide hori estutu egiten da **pixkanaka**, luzeago delako efektua lortu ahal izateko. Ramon Saizarbitoria  
Ez: ez dago zuzenean zerraldan sartzeko moduan, baina zer izan liteke *ya he vividoko* putzu-gizakiaren bizi-ustea, etzandako hilotz bihurtu arterainoko tartea **pixkanaka** apaintzea besterik? Iñaki Segurola  
Herriko Etxe horietan, euskararen erabilpena neurtzeko diagnostika bat eramanen da eta neurri a proposak finkatuko dira, urratsez urrats aitzina joz eta euskara herriko etxeen ibilbildean **pixkanaka** sartuz. Herria  
Nekazari eta lurjabeen gizarte ultra-landatarra izatetik **pixkanaka** eskulangile eta burgesen gizarte ultra-hiritarra izatera aldatu zen. Iñaki Mendiguren  
Pote pila hura hasi zen bederen **pixkanaka** beherantz egiten. Iñaki Iñurrieta  
Baina..., ikus dezagun **pixkanaka**, zuk hitz egin al duzu Llumekin? Antton Olano  
Etsi egin nuen **pixkanaka**. Txillardegi  
Gizona baretuz joan zen **pixkanaka**. Aritz Gorrotxategi  
Hasierako babesgabetasunak ausardiari utzi zion lekua **pixkanaka**. Xabier Olarra

## 2 **pixkana-pixkanaka** ik **pixkana** 3.

## 3 **pixkanaka-piskanaka** adlag apurka-apurka.

Baina **pixkanaka-pixkanaka** lehenik, golpeka geroago, kontua da kopuru hori izugarri hazi dela azken urteetan eta, horrela, gaur egun %46 inguruk egiten ditu proba horiek euskaraz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Pixkanaka-pixkanaka** mutlizahar bakarti bihurtuz joan nintzen. Juan Kruz Igerabide

**Pixkanaka-pixkanaka** neure burua sosegatzea lortu nuen. Pedro Alberdi

Indize hori **pixkanaka-pixkanaka** gorantz doa. **Berria - Ekonomia**

Eta horrela, **pixkanaka-pixkanaka**, zomorro gris txikian antzera, aldapan gora igo ziren herrestan. **Agustin Otsoa**

Susmoa dut, susmoa bakarrik oraingo, **pixkanaka-pixkanaka** Euskaltzaindia galduz joan dela, aldamenen euskal gaietan gero eta adituagoa den jendea jalgi ahala, galduz joan dela, diot berriz ere, historian zehar izan duen itzala. **Pello Salaburu**

Beren lekutxoa izatea lortu zuten **pixkanaka-pixkanaka**, miseriaren mugatik oso hurbil betiere. **Joseba Urteaga**

Iskiliinba-buruen moduko bere begi-nini beltzak **pixkanaka-pixkanaka** handitu egin ziren, hariak eta begien luze-labur osoa hartu zuten arte. **Lopez de Arana**

Baina haiekin ere, gizakiak zirenez, bihozbera izan zinen, eta, zure gudarostean abanguardia gisa, liztorrak bidali zenizkien, **pixkanaka-pixkanaka** baizik ez suntsitzeko. **Elizen arteko biblia**

Ondoren, hasiko gara **pixkanaka-pixkanaka** txostena gizarteratzen. **Berria - Harian**

Zazpigarren zentzumen bat landua zuen **pixkanaka-pixkanaka**. **Jon Muñoz**

Urteekin, handitu egiten da prostata, **pixkanaka-pixkanaka**. **Berria - Gaiak**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ari da pixkanaka** (16); **egin zen pixkanaka** (4); **hasi zen pixkanaka** (5); **joan ziren pixkanaka** (8); **oso pixkanaka** (4)

**pixkana pixkanaka** (5)

**pixkanaka aldatzen** (3); **pixkanaka ari da** (9); **pixkanaka aurrera egin** (3); **pixkanaka bada ere** (5); **pixkanaka desagertzen** (3); **pixkanaka egin** (10); **pixkanaka gauzaten** (3); **pixkanaka gora egin** (3); **pixkanaka gorantz egin** (3); **pixkanaka hasi zen** (3); **pixkanaka hasiko da** (3); **pixkanaka hazten** (4); **pixkanaka hobera egin** (4); **pixkanaka hobetu** (4); **pixkanaka hobetzen** (6); **pixkanaka hurbildu** (3); **pixkanaka igoko** (3); **pixkanaka joan** (9); **pixkanaka joateko** (3); **pixkanaka neurria** (3); **pixkanaka osatzen** (3)

**pixkanaka pixkanaka** (199); **pixkanaka pixkanaka ari** (4); **pixkanaka sartzen** (5); **pixkanaka sendotzen** (3)

## pixkanakako *izlag* piskanaka gertatzen dena.

Bigarren fase batean, finean, pilula-dosiaren gutxitzearekin batera, bizigogoa berreskuratzen da, hilabete luzeetako tratamenduaren ondoren, **pixkanakako** prozesu batean.

**Joan Mari Irigoien**

Irtenbidea egokitzapen kontziente eta **pixkanakako** baten antzera planteatzen badugu, [...]. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Muga-gerraren *crescendo*-ak, botere militarren orekan **pixkanakako** aldaketa hau eragin zuenak, poliki-poliki ahuldu egiten du horretan sartutako zibilizazioa, bere diru-ekonomia zerga-karga gero eta handiagoaren mende jartzen baitu. **Iñaki Mendiguren**

Zutik eta begira-begira nengoen, zuhaitzaren **pixkanakako** eroriak hipnotizatuta baninduka bezala. **Mirentxu Larrañaga**

Aldi hau beltzen salerosketaren **pixkanakako** beheraldiak markatu zuen, debekatu egin baitzuten, ingelesek aurrena eta frantsesek gero. **Koro Navarro**

Greenspanek interes tasen **pixkanakako** igoera aipatu zuen. **Berria - Ekonomia**

Esnatze leuna izan zen, **pixkanakakoa**, erabat ohartu zen arte argiak zuzenki jotzen ziola begietan. **Joxemari Iturralde**

## pixkanako *izlag* piskana gertatzen dena. ik **pixkanakako**.

Apatia orokorra, gorputzaren **pixkanako** hondamena eta katalapsiaren ezaugarri batzuk zituzten alditxar sarri baina iragankorrak ziren diagnosi bitxiaren osagaiak. **Koro Navarro**

Baina aldaketa, joerak, **pixkanakoak** izaten ari dira. **Berria - Ekonomia**

## pixkanapixkana ik **pixkana 2**.

## pixkat ik **pixka 2**.

## pixkatean ik **pixka 4**.

## pixkatxo 1 *iz adkor* pixka.

Salda **pixkatxo** hark urdail hutsa garbitu baino gehiago ez baitzion egin. **Josu Zabaleta**

Ipurmami bat altxatu zuen eta kuxina mugitu, o!, **pixkatxo** batez. **Jon Muñoz**

Nik amasa hartu nuen, eta jarraitzen utzi nion **pixkatxo** batean. **Iban Zaldúa**

Hester Prynneren lekuan jartzen zen Nora, beste baten oinazeak imajinaturik bereak ahaztu egingo zituelakoan **pixkatxo** batez badarik ere. **Anjel Lertxundi**

Nik amasa hartu nuen, eta jarraitzen utzi nion **pixkatxo** batean. **Iban Zaldúa**

### 2 **pixkatxo bat adlag**

Matematikak kezkatzen nau **pixkatxo** bat; beste ezerk ez. **Josu Zabaleta**

Galdera egin zidanak zigarroa eskaintzeak **pixkatxo** bat lasaitu ninduen. **Jon Alonso**

Pozgarria da zuen aldetik honelako erantzuna jasotzea eta zuen deiak orpoz orpo ailegatzea gure zentralitara, nahiz eta batzuk **pixkatxo** bat... nola esan... lekuz kanpo egon. **Jon Arretxe**

Bizkarra **pixkatxo** bat okerturik, poltsa esku biekin oratuz maldan gora. **Eider Rodriguez**

Hitz batean, txiki-txikia eta aldi berean **pixkatxo** bat handia izatearen zama hartzen duen oro da holandar. **Iban Zaldúa**

### 3 (izen baten eskuinean)

Horrekin diru **pixkatxo** bat ateratzen genuen, bizio txikiatarako nahikoa. **Jon Arretxe**

Gero agian izango dut aukera **pixkatxo** bat kontsolatzera joateko. **Josu Zabaleta**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pixkaren bat** (7); **pixkatxo batez** (3)

## pixko ik **pixka**.

## pixkor ik **bixkor**.

pixkorgarri ik **bizkorgarri**.

pixkortu ik **bixkortu**.

pixkot ik **pixka 2**.

**pixoihal** (*orobat **pix-oihal** g.er.*) **1** iz haur txikiei ipurdi aldeanpixa xurgatzeko ipintzen zaien oihala edo zelulosazko azpiko galtza.

**Pixoihal** bat ipini beharko dizut. **Juan Kruz Igerabide**

**Pixoihalak** aldatzen pasatuko genuela iraultzarako behar-beharrekoa genuen denbora. **Inazio Mujika Iraola**

Sukaldera bueltan, **pixoihal** zikina zaborraren kuboan sartu zuen, duda eginez; ez zekien sekula **pixoihalak** sukaldean zeuzkan hiru kubotatik [...] zeinetan bota behar zituen, are gutxiago, kasu honetan bezala, **pixoihalak** gai organikorik bazuenean. **Jon Alonso**

Gero beste **pixoihal** handi bat hartu zuen paketetik, izara gainean zabaldu zuen, lehengo maniobra kontrako norabidean egin -aitonaren gorputza biratu **pixoihal** berriaren gainean pausatzeke, alegia- eta itxi egin zuen. **Jon Alonso**

Giza bizitzako aro bat, **pix-oihaletako** haurren idioziaren eta gaztaroko erotasunaren tartekoa. **Xabier Olarra**

Biberoiak, aulkitxoak eta **pixoihalak**, beraz, ipuinekin, panpinekin eta margoekin nahasten dira **Berria - Harian**

**2** (hitz elkartuetan)

Lurrean zegoen haurra, auto-aulki batean jarrita, mila gauzaren artean, maletak, saskiak, kapazu bat, jostailuak, eta **pixoihal** pakete bat. **Joxan Elozegi**

Karl Dombrowski multimilionarioaren alaba gazteena zen hura -eskuarki **Pixoihal**-banaketaren Erdialde-Mendebaldeko Erregea deitzen zioten harena-. **Oskar Arana**

**pixontzi 1** iz pixa egiteko ontzia. ik **txizontzi**.

**Pixontzian** pixa egin behar izan nuenean, ohi baino zarata gehiago egin nuen, ea zurrungak bukatzen ziren. **Josu Zabaleta**

Marcel Duchamp-ek asmatu zuen gaur egun oraindik ere taberna, bulego eta toki publiko gehienetan gizonek erabiltzen duten **pixontzia**. **Pello Salaburu**

Axenariok badaki ez dagoela **pixontzirik** ohe azpian. **Itziar Otegi**

Gau-mahaitik basoa hartu eta hustu egin zuen **pixontzian**. **Joxemari Urteaga**

Beti ahazten du **pixontzia** jartzea. **Itziar Otegi**

**Pixontzia** husteko ere ez nintzen jaikitzeke gauza. **Aingeru Epaltza**

Ongi baitzekiten **pixontziak** nork husten zituen egunero eta nork ez. **Joseba Urteaga**

Eritegiko **pixontziak** garbitzea. **Iñaki Mendiguren**

• **2 izond adkor** pixa asko egiten duena.

Lehengusuek hala deitzen zioten iturriari: "Uil **pixontzia**" edo "Uil mainatia". **Juan Kruz Igerabide**

Edo **pixontzia** zela, edo mokoloa, edo mukizua. **Juan Kruz Igerabide**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pixontzia hustu** (3)

pixtia ik **piztia**.

pixtola ik **pistola**.

pixtolekeria ik **pistolekeria**.

pixtolet ik **pistoleta**.

pixtoleta ik **pistoleta**.

pixtu ik **piztu**.

pixtura ik **piztura**.

pixu ik **pisu**<sup>1</sup>; **pisu**<sup>2</sup>.

pixurrin ik **pixa 7**.

piz ik **pixa**.

piza ik **pixa**.

pizagale ik **pixagale**.

**pizar** (*orobat pitzar g.er.*) 1 iz izpia; apurra. ik **pixar**.

Nik biadiat **pizarren** bat emakumetik, aurkiren bat ere bai iraultzailetik, eta umetik berriz dexente. **Patziku Perurena**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Belar **pizar** batzuen xerkan. **Jose Angel Irigaray**

Lasto **pizar** lokaztuak maila guztietan. Patata **pizar** bat ereiteko, gorotz harrotzen aritu nintzen atzo zortzi. Sos **pizar** batzuk eskuratzen badituzte, hainbat hobe nire ondorengo azkazien! **Alberto Barandiaren**

Diru **pizarren** bat erdietsi bezain azkar ardo botila eroatera joaten zen. **Harkaitz Cano**

Jokalar handiek orduan jokatzeko zuten jokoak, eta begibakarra, lau erregela ikasi zituela aitortu ondoren, aulkian eserita hasten zen jokoan, erabat baldar hasieran, poliki-poliki galduz katanarruan gordetik zeramatzen diru **pitzarrak**. **Felipe Juaristi**

Egia esan, duten haragi **pizarreko**, prestatzeak lan gehiago ematen du. **Patziku Perurena**

Zigor bera bilduko zuen otoitza burutu gabe ogi **pizarrik** txikiena ahora eramatera ausartzen zenak. **Aingeru Epaltza**

Kontakizunari gatz-ozpin **pizar** bat erantsi nahirik, ehorzketaren inguruko xehetasun makabro-barregarrietan luzatu nintzen. **Aingeru Epaltza**

Goizetik lanbroa eta langar **pizarra** aritu du. **Patziku Perurena**

Haize **pizar** bat bazetorkien mendebaldetik, alde hartako mendi elur zurituak axaletik ukitu ondoren, eta orratzak izan balitu bezala ziztatzeko zituen almiadiako bidaztiak. **Karlos Zabala**

Legelariak ele gozo eta ikasia zuen, ore fin eta ezitia, latin, gaskoi eta gaztelania **pizarrez** Zuberoako moldearen irinean prestatua. **Aingeru Epaltza**

Adimen **pizar** baten jabe denetik ez zen huts egiten nion lehen aldia. **Aingeru Epaltza**

Gerri puztua desagertua zitzaion eta irriño mehe batek bizi **pizar** bat eransten zien haren mazelai. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pizar bat** (5); **pizar baten** (3); **sos pizar batzuk** (3)

**sos pizarrak** (3)

**pizarren bat** (3)

**pizarra** iz arbela.

Hemingwayren hartz itxurako irudi handi batek menuaren **pizarra** dauka atzaparren artean. **Berria - Kultura**

Ez pikatxoiekin harrobian, ezpada arbela mozten, eskolan garai batean erabiltzen ziren **pizarra** txikiak eta halakoak egiteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Baliteke, bazaukanat **pizarra** kargamentu bat eta... **Josu Landa**

pizatu ik **pisatu**.

pizatze ik **pisatze**.

pizegin ik **pixa 4**.

**pizgailu** (*orobat pizkailu g.er.*) 1 iz sua pizteko gailua.

Su eman zidan, **pizgailu** metxadun baten punta sutua nire zigarrora hurbilduz. **Anjel Lertxundi**

Bilera batetik irten, autoan eseri, atea itxi, giltzatxoa kontaktuan sartu, irratia sintonizatu, zigarrata **pizgailuarekin** piztu, eta segidan abioari eman, gasari sakatuz. **Joxe Austin Arrieta**

Kendu begien bistatik hautsontziak, **pizgailuak** eta pospoloak. **Berria - Euskal Herria**

Eskua patrikan sartu eta **pizgailua** atera zuen, belarri parean astindu ondoren pizteko bi edo hiru saio alferrikako egin, eta lurrera botatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

Bizarra mozteko makina bat eta **pizgailu** bat operatu dizkiote. **Josu Zabaleta**

**Pizgailua** atera eta esku dardaratia harenganantz luzatu nuen. **Migel Angel Mintegi**

Ferro-zerioa zen, **pizgailuen** harritxo arruntak eginak diren aleazioa. **Juan Garzia**

Urrezko **pizgailu** bat hotelean ahantziz gero, ez baitu bila ibiltzeak merezi. **Ramon Saizarbitoria**

EHun mila ezpain-zapi paperezko! Zigarroentzako **pizgailuak** ! Praktikoak! Modernoak!, egiten zuten garrasi zutabeen artean. **Anton Garikano**

2 (hitz elkartuetan)

Lantokian bazela **pizgailu** -industria isilpeko bat: eskulangile ezezagun batzuek fabrikatzen zituzten, lanak utziriko tarteetan. Haritzeko aulkiak saltoka bata bestearen atzetik gas-**pizgailuaren** gainean ezarri ziren. **Juan Garzia**

3 pizgarria.

Zer zen, benetan, Princeton: adimenaren **pizgailu** ... edo hil aurreko zimeldura madarikatua? **Fernando Morillo**

Anaitasunak badu hor fede **pizgailu**. **Herria**

**pizgarri 1 izond** pizten duena.

Hiri **pizgarri**, ernegaririk ezagutu nahi baduzu, zoaz New Yorkera. **Gotzon Garate**

Hiri horietatik guztietatik New York da kilikagarriena, **pizgarriena**, aberatsena. **Gotzon Garate**

Horrelako sentazio **pizgarri** bat ekarriko didan zerbait norbait desio dut bidaia honetan nire bizitzan. **Patxi Zubizarreta**

Eztarria garbitzen huen, hitz **pizgarri** eta bihoztunak bilatu nahian. **Eskarne Mujika**

Ospetsu egin zen bere sendabide **pizgarriak** zirela eta, baina, guztiarekin, haginak eraztea nahiago zuen, huraxe baitzen, bere hitzetan, konponbiderik eraginkorrena. **Patxi Zubizarreta**

Erreztaldietan, formatua errazten denez, hartzaile gehiagorengana iristen zara uretan, eta **pizgarriagoa** da estimulua. **Ana Urkiza**

Alkoholaren gisakoa da, neurritz **pizgarria** eta, neurritz gain, are hilgarria. **Xabier Montoia**

Ez, otoi, zapuztu nire itxaropena, gogoko izango duzula eta **pizgarri** gertatuko zaizula espero baitut. **Imanol Unzurrunzaga**

Tomek atsegin zuen laster pentsatu behar izatea, eta **pizgarria** zitzaion bere adimena [...] ezohiko bidetik ibiltzera behartu beharra, erne ibili beharra. **Oskar Arana**

## 2 (hitz soila -en atzikiaren eskuinean)

Desilusioa, sormenaren **pizgarri**. **Lopez de Arana**

Niregandik urrun, baina neure gogoaren **pizgarri**. **Patxi Zubizarreta**

Gaua zetorren, izuen iratzartzaile, izarren **pizgarri**. **Felipe Juaristi**

Garagardoa gogoaren **pizgarri** suertatu zitzaion. **Migel Angel Mintegi**

Preso euskaldunen **pizgarri** izaten da irratsaioa. **Xabier Montoia**

## 3 (izen gisa)

Ez ziren fidatzen Alberto koldarraz, eta horregatik **pizgarri** eta adoregarriren bat eskaintzea erabaki zuten. **Felipe Juaristi**

Haien bizimoduak nireak ez bezalako xarma zeukala iruditzen zitzaidalako, abentura, misterio, **pizgarri** eta estimulu gehiago. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Baina orain diruan ez dut **pizgarririk** aurkitzen. **Lopez de Arana**

Ansiolitikoak, antidepresiboak, lasaigarriak, **pizgarriak**, analgesikoak... **Sonia Gonzalez**

Are eta gutxiago berezko joera hori estimulatzeko duen **pizgarri**, oraingo honetan derbirako sarrera pare bat, mutur aurrean paratzen bazaio. **Jon Alonso**

Irakurtzea nuen ihesbidea eta aisia, kontsolamendua eta **pizgarrietan** kutunena. **Oskar Arana**

Egoerari buelta emateko **pizgarri** bat behar zela. **Berria - Kirola**

Hain da fina sentiberatasun hau, non berehala agortzen den; eta berriz iratzartzeko krudeltasunaren **pizgarri** guztiak behar izaten ditu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Alkohola, aldaterearen alaigarri eta bihotzaren **pizgarri** hori. **Juan Garzia**

Euskalgintzaren jardueraren **pizgarri** eta sustagarri seinatuena eta haren beharra nabarmenenik erakusten duena, euskararen etsai eta erasotzaileen lan gaiztoa da. **Iñaki Segurola**

Haren ustetan, pertsona bakoitzak geure baitan pospolo kaxa bat daukagu, eta horiek piztu ahal izateko norik bere **pizgarriak** bilatu behar ditu. **Patxi Zubizarreta**

## • 4 iz eragingarri edo sustagarri ekonomikoa.

Horregatik, eta hau da agian zerga hauen ahultasun nagusia, ez dira lana eta ekoizpena areagotzeko **pizgarri**, horretarako oztopo baizik. Inongo araudiren mende ez egotea zen merkatu horiek eskaintzen zuten **pizgarria**. **Iñaki Heras**

Kosten aldeak azpimarratzen dituen interpretazioa -zerga-sistemaren, **pizgarri** edo azpiegituren sistemaren aldeak-, aski baliagarria gertatu zen. **Koro Navarro**

Ikerketa jarduera sustatzeko erabiltzen diren edo erabili beharko liratekeen **pizgarri** buruz. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Atzerrira joateko erraztasunak eta **pizgarriak** erabili behar direla. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Aitak esan zidan soldataren ehuneko hogeita bosta **pizgarrietan** kobratzen zela. **Jon Maia**

Finantza Guardiari dio mediku horiek GlaxoSmithKline farmazia etxeak ekoiztutako botikak errezetatzen zituztela, **pizgarrien** truke. **Berria - Gaiak**

## 5 (izenondoeekin)

Daewook eta Ramondinek **pizgarri** fiskalak baliatuta jaso zituzten dirulaguntzak itzuli beharko dituzte. **Berria - Ekonomia**

61 lagunek utzi zuten Caballito, akordioan zehazturik zeuden **pizgarri** ekonomikoak hartu eta gero. **Berria - Ekonomia**

**Pizgarri** bereziak: Ryanairrek dirua jaso zuen langileak kontratatzeko eta trebatzeko, bere tripulaziokideen egonaldia ordaintzeko, eta instalazioak eraikitzeko. **Berria - Ekonomia**

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pizgarri** sorta zabala, hala nola, ordutegi eta egutegi malguak eta pizgarri ekonomikoak. **Berria - Euskal Herria**

Kontratazioa bultzatzeko **pizgarri** sistema konplexua egokitzea. **Berria - Harian**

**Pizgarri** lana egin behar denean gustura egiten dut. **Berria - Kirola**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zerga **pizgarriak** iragarri dituzte hibridoan jabeentzat. **Berria - Ekonomia**

Auzitegiak zerga **pizgarriak** lehiaren aurkakoak direla ebazten badio, enpresek ordaindu ez zituzten zergak eman beharko dizkiote Ogasunari. **Berria - Ekonomia**

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa elkarketak izenondo balioa duela)

Agintariek, ezin etsi eta, kapitain zahararen adore-**pizgarri**, printze izendatuko zutela agindu zioten, Palermoko printze, Gabriel Irisarrik ikusiak zituen edari-saltzaileak, ron barne-**pizgarri** saltzaileak batez ere. **Felipe Juaristi**

Bezero asko zituen [...] eta bazirudien atsegin eta harrotasun-**pizgarri** zitzaiola hango lana. **Xabier Olarra**

Zeren eta bizi-**pizgarri** bat behar bainuen, eta hantxe nuen pizgarria! **Joan Mari Irigoien**

Gaurkoa da guretzat zorian **pizgarri**. **Herria**

## 9 gogo-pizgarri izond

Aurrez inoiz saiatu gabeko abentura gogo-**pizgarria** zen hura, eta noblea, gainera. **Juan Garzia**

Ingurua gogo-**pizgarria** zen, eta txandaka lapur istorioak kontatzea erabaki zuten. **Xabier Olarra**

Istripua gertatu eta handik hiru urtera edo, iradokizun gogo-**pizgarri** bat plazaratu zen [...]: saia zedila I. jauna kolorearen ikusmena berriro bereganatzen. **Xabier Olarra**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pizgarri ekonomikoak** (5); **pizgarri fiskalak** (13); **pizgarri gisa** (3); **pizgarri izan** (8); **pizgarri izaten** (3)

**gogo pizgarria** (3); **pizgarria da** (5); **pizgarria izan** (7); **pizgarria izan da** (3); **pizgarria izango** (4)

**zerga pizgarriak** (6)

**pizgarrien bidez** (3); **pizgarrien truke** (3)

**pizgarrien bidez** (3); **pizgarrien truke** (3)

pizina ik **pizina**.

pizinatxo ik **pizinatxo**.

pizka ik **pizka**.

pizkailu ik **pizkailu**.



## pizketa iz piztea.

Eutsi zeure neska-azal horri... joe kiss, abioa, argiak, **pizketa** eta sorgailuak. **Lopez de Arana**

## pizkor ik bizkor.

## pizkortu ik bizkortu.

## pizkunde 1 iz biztea, biztuera.

Ikuspegi modernotik begiraturaz gero, Kristoren **pizkundera** "ipuin hutsa" besterik ez da. **Joseba Zulaika**  
Laburbilduz, kreatzailearen pasadizo sinboliko klasikoak ditu poemak: Beherapena, Heriotza, **Pizkundera**. **Joseba Zulaika**  
Pazko egunak bai kristautasuna eta bai aberriaren **pizkundera** adieraziko zuen aurrerantzean. **Joseba Zulaika**  
Bekatuaren barkamena eta haragiaren **pizkundera**. **Juan Garzia**  
Bigarren etorrera, gorputzaren **pizkundera**. **Joseba Zulaika**

## 2 irud/hed

Oraindik ere sentipen berak hartzen nau udaberri oroz hostoen **pizkundearen** aurrean. **Juan Garzia**  
Euroaren sendotasunak eta Txinaren **pizkundeak** eragin dute beheraldia. **Berria - Ekonomia**  
-Ez da **pizkunde** ekonomikorik ikusten, ez dago lanik. **Pako Aristi**  
XVIII. mendeko kritizismoak eta arkeologia ilustratu berriaren **pizkundeak** (antzinako arkitektura-aztarnen ikerketa exhaustiboko kanpainak, *Paestum*-eko tenpluen aurkikuntza, arkitektura greziarra zuzenean ezagutzea...) lagundu egin zuten, azkenean, bestelako giro intelektuala sortzen. **Santiago Iruretagoiena**  
Erasoek «kale borrokaren **pizkunde** bati baino gehiago, beste logika bati» lotuta daudela esan zuen. **Berria - Euskal Herria**  
Gazte maiteak, zuen eskuetan dago biharko **pizkundera**. **Herria**

## 3 (kultura mugimenduei buruz, bereziki beheraldi baten ondorengoa ez denean). ikberpizkunde.

Esanguratsua da hirugarren belaunaldiko zibilizazioa, zeinen historian bere aurrekoaren **pizkundera** mailarik handienera iritsi baita. **Iñaki Mendiguren**  
Etorri zen Franco, debekatu eta jazarri zuen euskara, **pizkunde** literarioa zanpatu, eskolak espainolismoaren burdinola bihurtu. **Joxe Azurmendi**

## 4 (P larriz) Espainiako Bigarren Errepublikan gertatu zen euskal kulturaren pizkundera.

Gerra aurrean, **Pizkundera**, poesia hartzen zen jakintzaren erakusgarritzat eta genero gorengotzat. **Ana Urkiza**  
**Pizkundera** maite zenuten gerra aurrean, eta oraindik ere bai agi danez. **Juan Luis Zabala**  
Aitzolekin eta Orixerekin batera ibilitakoak Euskal **Pizkundera** esaten zaion kultur mugimenduan aritu ziren. **Askoren artean**

## 5 (P larriz) antzinatego Grezia eta Erroma erredutzat hartuz XV. mendean gertatu zen ideien eta arteen eraberritzea. ik errenazimendu.

Erdi Arotik **Pizkundera** arteko bilakaeraren isla dira berrogei tailuok. **Berria - Kultura**  
Florentzia (Italia) **pizkundearen** sehaska izan zen XV. mendean. **Berria - Kirola**  
Rafaello Sanzio Rafaello **Pizkunde** garaiko italiar margolariaren (1483-1520) erakusketa monografiko handia. **Berria - Kultura**  
Baziren etxe gotikoak, **Pizkundekoak** eta barroko garaiko batzuk. **Eduarne Elizondo**  
Hirugarren bidea litzateke Lazarragarena, hots, Hegoaldean euskaraz egindako **Pizkundera**. **Berria - Kultura**  
Gaur egun, ordea, **Pizkundeko** aztarnarik batere ez da geratzen. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pizkunde garaian** (4); **pizkunde garaiko** (9)

**euskal pizkundera** (3)

**pizkundeko maisu** (3)

## pizle izond piztailea.

Debatearen **pizleak**. **Herria**

968ko ekainaren 7an egindako oturuntza ofizial batean, bi inperioek erreklamatzeko zuten "erromatarrak" hitz su- **pizleak** su eman zion bi kristandadeen ordezkarien artean beti azpian egondako erresuminari. **Iñaki Mendiguren**

## pizor iz abereen gernuaz eta simaurraz osatutako isurkia.

Egiaz bazukeen aspaldi, ezen gaur egun andere zurien partez, ibaiak zikinkeriaz, urde **pizorrez** eta hondar industrialez mukurutuak baitaude. **Itxaro Borda**

## pizta (corpusean **pista** soilik; *Euskaltzaindiaren Hiztegian pizta agertzen da*) iz makarra.

Gizonak ez zeukan **pistarik** begietan, espero zitekeen bezala; garbi-garbi zituen begiak. **Unai Elorriaga**

## piztaile (orobat **piztale** g.er.) 1 izond/iz pizten duena.

Abertzaletasunaren **piztailea**. **Joxe Azurmendi**

Arrazoimena izan liteke, hiru (arrazoimen absolutua izateko baldintzarekin!) Ilustrazio berriaren **piztailea**. **Joxe Azurmendi**

Ez dela eta badela, sesioan nahastu dira berriz ere, azkenean zotz egitea erabaki arte, zoriak hauta dezan lehen **piztailea**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mikatzegia [txakolina], aukeran, eta buruko min **piztaile**. **Aingeru Epaltza**

Gizalegezkia izango da, beraz, ideia- **piztaile** izan ditudan lagunak aipatzea eta nire esker ona adieraztea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

«Ilusio **piztaile**» ikusten du proiektua Mendiluzek. **Berria - Kultura**

Nor da konspirazio honen su- **piztailea**? **Anjel Lertxundi**

Historia dela bazter nahasle, eztabaida **piztaile**, ez bere baitarik, neutroa baita -izan behar luke segurik- baina gizonek bereganatzen baitute beti eta hola bata bestearen kontra altxatzen direlaketoz. **Michel Oronoz**

Oroigarri harrizko eta hitzezko horiez gain, ba omen ziren kontatutako gertakizunen oroimen-**piztaile** ziren hainbat errolda eta heretikoan aurka egindako autoaren agiriak Durangoko elizan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Protestantak direla gehienetan kalapita **piztale** . **Herría**

**piztale** ik **piztaile**.

**piztarazi** ik **pitzarazi**.

**pizte** **1** *iz* zerbaitetik sua edo argia sorraraztea.

Bat-batean, argi **pizte** bat-edo izan nuen. **Ramon Saizarbitoria**

Bat-bateko berotze edo **pizte** horren alderantzikoa, berriz, *savanten* dohainen bat-bateko desagertzeetan nabari daiteke. **Xabier Olarra**

**2** hilik dagoen bati bizia bihurtu.

Agindu hau bete zuten, baina "hilen artetik **pizte**" horrekin zer adierazi nahi ote zien ziharduten beren artean. **Elizen arteko biblia**

**piztear** *adlag* pizteko zorian.

Gerra **piztear** dela, nonbait, itsasertzeko herri batean, ama bat negar batean ari da bere lurretako mugak zedarrizten dituen egurrezko hesiaren alboan. **Harkaitz Cano**

Iraken gerra zibila **piztear** dagoela eman du aditzera azken asteetan Etxe Zuriak. **Berría - Mundua**

Otsailean, gerra zibila **piztear** izan zen matxinada izan zuten, Aristide presidente ohia ihes eginarazi zuena. **Berría - Mundua**

**pizteke** *adlag* piztu gabe.

Hilezkortasuna arrazoitzeari buru-belarri emanik, argirik **pizteke** utzia genion gauari etortzen. **Juan Garzia**

Zeren Ireneok ordu hilak kandela **pizteke** ematen baitzekien. **Juan Garzia**

Garapen iraunkorrek planteatzen du giza jarduerak ez gaintzea inguruneak duen karga ahalmena, horrek modua izan dezan bere birsortze ziklo naturalei eusteko, atzera bueltarik gabeko degradazio fenomenorik **pizteke** . **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

pizti ik **piztia**.

**piztia** (*orobat pizti g.er. eta pixtia g.er.*) **1** *iz* giza eskumendetik at bizi den animalia, batez ere etxeko abereentzat edo ehiza animalia txikiarentzat kaltegarri gertatzen dena, ugartzuna bereziki. ik **basapiztia**.

Mendera ditzatela itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, abereak, eta lurrean arrastaka dabiltzan **piztia** guztiak. **Jose Antonio Mujika**

Eman bitza lurra mota guztietako bizidunak: abereak, narrastiak eta **piztiak** . **Jose Antonio Mujika**

**Piztiak** eta bertzelako animalia harrapariak urtero akabatzen baitzituzten abereak, etxe batekoak ez baziren bertzeoak. **Imanol Unzurrunzaga**

Kristauak **piztiatara** botatzen zituzten, hau da, lehoietara. **Jon Alonso**

Bere basozainetako bat bidali du **piztia** ehizatzeke. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bi basapiztik odolustu zuten **piztia** , eta han ez zen gizonik ageri. **Karlos Linazasoro**

Leizetik igoko den **piztiak** borroka egingo die, menperatu eta hil egingo ditu. **Elizen arteko biblia**

Neure burua **piztiaren** ahutzetan barna ikusten bainuen. **Juan Kruz Igerabide**

Gero begi bat itxi zuen, **piztia** tiragunean dutenean ehiztariak ohi duten bezala. **Xabier Olarra**

Arrazional hitzak bereizten du **piztiengandik** ; eta hilkorra deitzeagatik jainkozkoen desberdina da. **Imanol Unzurrunzaga**

Hildakoez jarraitu egiten dute agertzen, sarraski bihurtuta, **piztia** batek janda. ama gainera etzan zitzaidan, babesteko, **piztia** baten erasotik gorde nahi banindu bezala.

**J.M. Olaizola "Txiliku"**

-Hona piztiak gizon eta gizonak **piztia** egiten dituen. **Josu Zabaleta**

Gaizkiaren **piztia** da hura, deabruaren sorkuntza bat. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Haizeak orro ikaragarriak ateratzen zituen, zazpi mila deabruk hartutako **piztia** bailitza. **Pako Aristi**

Hor daude **piztien** gordelekuak, zuloak, habiak eta ganaduaren azpiak. **Iñaki Segurola**

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Elefantea **piztia** zintzoa, burutsua, zuzena eta legeak errespetatzen dituena delako. **Karlos Linazasoro**

**Piztia** kaiolatu bat bezalaxe ibiltzen zen orain bere bizilekuan. **Josu Zabaleta**

Hondamendiaren ondoko bakardadea, non babestu baikin **piztia** zaurituek beren gordelekuan babesa hartu ohi duten bezala, desagertzen hasi zen. **Ander Irizar**

Oihana **piztia** arriskutsuz bete dago, mundu guztiak daki hori. **Iñaki Mendiguren**

Euskal basoetako **piztia** madarikatua. **Txillardegí**

Txori-tiroka aritzen zen gaztelu inguruan, **piztia** handiren bat ehizatzeke ordua iristen zen arte. **Josu Zabaleta**

**Piztia** beldurgarrienei jarraitzen ohiuak zeuden ehiza zakur sendoenak hartu, eta ehizara abiatu ziren. **Josu Zabaleta**

Guztiak harriduraz begiratu zioten **piztia** higuigarriaren gorputari, eta zaldiek uko egiten zioten bertara hurbiltzeari. **Agustin Otsoa**

**Piztia** harrapariak bezala egiten du orro. **Iñaki Mendiguren**

**Piztia** odoltzalea eta ikaragarria izateaz gain, perbertsitatez betetakoa da. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bizi-bizi mintzatzen zen, begiak apal, itxura hipokrita batez, beldur den **piztia** anker baten gisan. **Josu Zabaleta**

**Piztia** gosetuak bailiran ekin zieten denek jakiei. **Koro Navarro**

Gero areago martirizatu zuten **piztia** errukarria. **Koro Navarro**

Uretako **piztia** guztiak esnatuak ziren. **Josu Zabaleta**

Berdin espazioan bizi den izarra eta ur tanta batean bizi den **piztia** mikroskopikoa. **Josu Zabaleta**

**3** (pertsonei aplikatua, irain gisa)

Arduradunak, erantzuleak eta beste **piztia** batzuk. **Iñigo Aranbarri**

Nire haurtzaroen eta nerabegaroen bi pertsona gorrotatu nituen batez ere; hain zuzen, beste guztiak batera baino askozaz min gehiago egin zidaten bi **piztia** haiiek, zauri orbainezina utzi zizkidaten-eta hala gorputzean nola ariman. **Juan Kruz Igerabide**

Biblian zu bezalakoengatik **piztia** likitsak direla esaten da. **Bernardo Atxaga**  
Kriminal hutsa naiz, zapoa, **piztia** zitala, eta erdeinu guztiak merezi ditut. **Patxi Zubizarreta**  
Zeren eta ez bainaiz Hernán Cortésen, Pizarroren edo haien iduriko bertze **piztia** batzuen kastakoa. **Joan Mari Irigoien**  
Hala, erraz sartu zen **piztia** Adelaren bizitzan, aurrena maitale gisa, eta gero droga-saltzaile gisa. **Juan Kruz Igerabide**  
Erretzaileok gero eta **piztia** bakartiagoak bilakatzen ari gara azken bolada honetan. **Patxi Iturritegi**  
Nik ez nekien zeinen alde zegoen hura, **piztia** harengandik edozer espero baitzitekeen, baita poliziaren sator izatea ere. **Juan Kruz Igerabide**  
Pertsona baino gorila hordi, lehoi odolzale, **piztia** anker. **Iñigo Aranbarri**  
**Piztia** etxekaltea, horixe baino ez haiz. **Mirentxu Larrañaga**  
Ai, **piztia** intzestu-egile, ezkon-nahasle horrek. **Juan Garzia**  
**Piztia** baten atzaparrak idatzi du hau, ez gizakibaten eskuak. **Jose Morales**

#### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sutan zeuden basoetatik **piztia** samalda bat atera zen ihesi. **Koro Navarro**  
**Piztia** erakusketaren jabeak bere morroiaren goraipamen sutsuena egin zion, jakina. **Josu Zabaleta**  
Nazkagarria zen egiaz **piztia** -hezleak eskaintzen zuen ikuskaria. **Koro Navarro**  
Tomahawk edo Trumoi Burrunba izeneko **piztia** -bezatzaile apatxe beldurgarria. **Josu Zabaleta**  
Poesi ehiztariak sentitzen duena ez da **piztia** ehiztaria mugiarazten duenaren ezberdina. **Pako Aristi**  
Ager itzazu erruok hain antzetsu, non askatasunaren orbanak dirudiketen, gogo-barren sutsu baten eztanda gartsua, **piztia** -halakotasun bat odol bezatugabea. **Juan Garzia**

#### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horretan ahuntzak zaintzen ari zen haur bat etorri zen, zigor batekin, eta giza **piztia** nardagarri hari joka eraso zion. **Josu Zabaleta**  
Venusen ezteietan eta basa **piztien** erditzeetan. **Xabier Amuriza**  
Hala baitira zure zentzumenak, basa eta **piztia** bizitzara emaniko ahalmenak. **Joan Mari Lekuona**

#### 6 (izenondo gisa)

'Bertze' diot, ez bakarrik Indietako tigre hura bertze tigre bat zelako, bertze mota eta bertze molde batekoa zelako ere bai, handiagoa eta **piztiagoa**. **Joan Mari Irigoien**  
Izan ere, [eltxo] azeria eta otsoa baino mila aldiz tipiagoa bada ere, otsoa baino otsoago da eta azeria baino azeriago eta **piztiago**. **Joan Mari Irigoien**  
Hara artekoan, behintzat, itsasoa gizasemeok, alde edo molde, mendean har genezakeen animaliatzat izana nuen, baina ondo ohartu nintzen; itsasoak bazekien **piztiago** izaten. **Edorta Jimenez**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**barruko piztia** (3); **beharreko piztia** (3); **beste hainbat piztia** (18); **bizkar biko piztia** (3); **ederra eta piztia** (3); **gevaudaneko piztia** (4); **narrasta dabilzan piztia** (3)  
**piztia amorratu** (3); **piztia anker** (3); **piztia bat ikusi** (4); **piztia erraldoi** (3); **piztia eta abere** (3); **piztia gaixo** (3); **piztia gaitzo** (4); **piztia hezlea** (4); **piztia hutsa** (3); **piztia ikusi** (3); **piztia izan** (3); **piztia izugarria** (4); **piztia magikoen** (4); **piztia mota** (3); **piztia nardagarri** (3); **piztia txiki** (3)  
**abereak eta piztiak** (3); **narrasta dabilzan piztiak** (4); **piztiak debekatuak dituzue** (3)  
**piztiaren izena** (3)  
**lurreko piztiei** (4)  
**piztiei jandako** (4)  
**piztien artean** (4)

piztiakeria ik **piztikeria**.

piztiasun ik **piztiasun**.

piztiategi ik **piztitegi**.

piztiatxo ik **piztitxo**.

piztiatar ik **piztitzar**.

**piztieria** iz piztia-multzoa.

Aitortu beharra dago beste leku batzuetan ere badagozela lurbirak eta gizajende eta **piztieria** ezberdinak. **Xabier Amuriza**

**piztijende** iz *adkor* piztia-multzoa.

Ezagutu uste izan nituen: trogloditen leinu basatikoak ziren, Arabiako Golkoaren itsasaldeetan eta Etiopiako harpeetan arrunt hedaturik den **piztijende** horien leinu higuinekoak; ez zen enetzat miresgarri mintzogabeak eta sugejaleak izatea. **Juan Garzia**

**piztikeria** iz (*orobat **piztiakeria**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **piztikeria** agertzen da*) iz *adkor* piztiari dagokion egintza gaitzesgarria. ik **aberekeria**.

Horrela, Guadalajarako garaitzaren osteko lehen astea bete ez zela, irriatiak Durango **piztikeriaz** bonbardatua izan dela dio. **Edorta Jimenez**  
Egoera hipotetiko horretan ez bailioke inork uko egingo, dio Glaukonek, lapurretan aritzeari, edozein txarkeriatan, **piztikeriatan**, bere gustu guztien gustuan. **Joxe Azurmendi**

Haiek, gainera, ez zeukaten seme-alabarik hiriko eskoletan, eta mendeku gorria eskatzen zuten, kapitainarekin eta alferezarekin egin zuten **piztikeriarengatik**, batik bat. **Karlos Linazasoro**

piztina ik **pizsina**.

## piztitasun *(corpusean piztiatasun soilik) iz piztia denaren nolakotasuna. ik aberetasun.*

Bistakoa zirudien ez zuela gorputz-enbor eta adarretan ilerik jarri nahi izan, hain zuzen ere elementu negatiboa iruditzen zitzaiolako, **piztiatasunaren** ezaugarri, satiro eta deabrueri ederki zegokiena, baina desegokia erabat gure lehen gurasoen kasuan. **Bernardo Atxaga**

## piztitegi *(corpusean piztiategi soilik) iz piztia bilduma.*

Arrantzaka hasi zen berehala, nire **piztiategiaren** aurka. **Joxan Elozegi**

Animaliei dagokienez, Noeren ontzia hondoratzen du gerlak, **piztiategi** ezin ankerragoa margotuz. **Markos Zapiain**

## piztitxo *(orobat piztiatxo; Euskaltzaindiaren Hiztegian piztitxo agertzen da) iz piztia txikia.*

Inguruko isiltasuna, txoriak eta gure zuloaren ingurutik zebiltzan **piztitxo** beldurtiak entzuteko landan bakar-bakarrik geundenez gero. **Josu Zabaleta**

Nor izan ote zitekeen dotore, samur eta sotil aski, **piztitxo** pinpirin eta polit horien gorputzera igarotzeko? **Josu Zabaleta**

**Piztitxo** sendokotea zen, txima zuri nahaspilatuak zituen eta han-hemenka beltzuneak alboetan. **Mirentxu Larrañaga**

Peterrek, **piztitxo** erakartzeko azkeneko baliabide gisa, ogi puska bat eskaintzen dio orain eta... bai, Muxi badator ateraino, eta atea itxi egiten da. **Josu Zabaleta**

Suntsitze-legeen nahitaezko ondorio direnak, hala nola, adibidez, simaurtegieta jaiotzen diren har mota ezberdinak, usteltzen diren fruituetan sortzen diren **piztitxoak**, gauza hezeak usteltzean jaiotzen direnak, hesteetan hazten diren harrak, etab. **Xabier Kintana**

## piztitzar *(orobat piztiatzar; Euskaltzaindiaren Hiztegian piztitzar agertzen da) iz adkor piztia handia.*

behera begiratzean, **piztitzar** izugarri haiek ikusten zituen buruak uretatik aterata eta ahoak zabalik. **Askoren artean**

Lau **piztitzar** horiek munduan sortuko diren lau erreinu dira. **Elizen arteko biblia**

Valdeorras inguruko mahasti okertuek harrizkoak dirudite, kuaternarioko **piztitzarren** saihestak bailiran. **Pako Aristi**

Hara, ez goaz gero ezteietara, munduko bazterrek inguratzen baizik, eta erraldoiekin, herensuge eta **piztitzarrekin** harremanetan sartzen. **Patxi Ezkiaga**

Basotik irten gabe biziko zen aurrerantzean, bera zen **piztitzar** beldurgarriari zegokion legez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## piztitzarki *adlag piztitzarrak bezala.*

Oin-atzaparrak Gaztelan sartu eta, elizak babesturik, poliki-poliki, presio eta zemaiz, intrigaz eta propaganda monastikoz, diplomaziaz nahiz bortxakeria gordinez, hedatuz joan den Botere armatua, Araba, Bizkaiko Jaurogoa, Gipuzkoa beregana bilduz, lotuz joan dena, azkenik Nafarroa **piztitzarki** konkistatu eta anexatzeko. **Joxe Azurmendi**

## piztizulo *iz piztien zuloa.*

Horra hor lasai bizi zen hiri harroa, ustez inor baino handiago zena! horra nola den hondamendi eta **piztizulo** bihurtu! **Elizen arteko biblia**

## piztolet ik pistoleta.

## piztona ik pistoi 2.

## piztu, pitz, pizten *(orobat pixtu) 1 du ad suaz mintzatzu, sortu; zerbaitetik sua edo argia sorrarazi. ik biztu.*

Pilatu egurra erruz eta **piztu** sua; egosi ongi haragia, bota gozagarriak, eta desegin daitezela hezurrak. **Elizen arteko biblia**

Zure osabak, Bresteko gartzelatik ez dezake surik **pitz**, non ez den aztia! **Itxaro Borda**

Sute hau norbaitek nahita **piztu** du. **Lopez de Arana**

Su **piztu** berria bezala txinpartaka. **Agustín Otsoa**

Su handiak **piztu** eta erre egin zituzten biraolariak. **Elizen arteko biblia**

Cesar Telleriak kanpoan itxaron zuen, bi hatzekin poxpolo bat **piztu** eta bi hatzekin zigarro bat errez. **Harkaitz Cano**

Eraman mahaia eta atondu; eramane argimutilla ere eta **piztu** kriseiluak. **Elizen arteko biblia**

Bi kandela **piztu** ditugu eta salamen argitasuna hegalka hasi da mahaiaren gainean. **Joseba Sarrionandia**

Pipa **pizten** ariko zen, banekien. **Koro Navarro**

Zigarro bat **piztu** nuen eta tabakoa mahai gainean utzi. **Aingeru Epaltza**

Dongek zigarrera **piztu** zuen eta ke buhaden artean berriz ere eskatu zien: [...]. **Ramuntxo Etxeberri**

Gero, pertsianak jaitsi eta argiak **piztu** zituen. **Harkaitz Cano**

Linterna **piztu** zuen, eta gordeleku barrurantz zuzendu. **Bernardo Atxaga**

Lanpara bat **piztu**, eta zumezko besalkian eseri zen. **Jon Muñoz**

Petrola lanpa berriz **piztera** doa. **Michel Oronoz**

Sabai altuko fokuak banan-banan **piztu** ziren. **Harkaitz Cano**

Bere gelara heldu zen, gas-berogailua **piztu** zuen eta haren gainean makurtu zen. **Lopez de Arana**

### • 2 da ad

Aldi baten buruan, ordurarte lainopean egoniko eguzkiak jo zuenean, izugarritzko sugarra **piztu** zen. **Elizen arteko biblia**

Argiari eman zion eta lokalaren erdi-erdiari zintzilik zegoen bonbilla bat **piztu** zen. **Anjel Lertxundi**

Argia otzan-otzan **piztu** da Mary Stuart goletaren kabina argiztatuz. **Lopez de Arana**

Orduantxe **piztu** ziren argi batzuk eta ireki hiru-lau bat leiho. **Joxemari Urteaga**

Argitxo gorri bat **piztu** zen estudioko atearren gainean. **Jon Muñoz**

### 3 irud/hed

Zeure ahalmen handiaz dituzu arerioak zanpatu; haserre-sua **piztu** eta lastoa bezala erre. **Elizen arteko biblia**

Irudimenak lizunkeriaren sugarra erraz **pitz** baitezake. **Askoren artean**

Arazo hau dela-eta **piztu** dugun geure Jainkoaren haserre-guregandik urrundu arte. **Elizen arteko biblia**

Gizon suminkorrak liskarra **piztu**, eroapen handikoak haserreak baretu. **Elizen arteko biblia**

Heriotzaren batetako araziari buruzko **piztu** zen **hitz** zuzenaren artean. **Bernardo Atxaga**

Testuinguru honetan, hain zuzen, gerra **piztu** zen 1202an Asis eta Perugiaren artean. **Askoren artean**

Matxinada **piztu** zen, eta bi matialeak setiatu egin zituzten Alexandriako biztanleek. **Jon Muñoz**

Begira zeuden guztiak sentitu zuten han borroka **piztu** zela. **Agustin Otsoa**

Errugabe baten heriotzak haserrea eta iraultza **piztu** zituen. **Ramuntxo Etxeberri**

#### • 4 du *ad* hilik dagoen bati bizia bihurtu. ik **berpiztu**.

Jainkoak **piztu** egin zuen, Herioren lokarrietatik askatuz. **Elizen arteko biblia**

Abrahamek uste zuen Jainkoa gauza dela hilak **pizteko** ere. **Elizen arteko biblia**

Lazaro **piztu** baino lehen, sinesteko eskatzen die bie: [...]. **Patxi Altuna**

Eta Jainkoak, Jauna **piztu** zuenak, gu ere **piztu** egingo gaitu bere ahalmenaz. **Elizen arteko biblia**

Jesus hilen artean **piztu** zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artean **piztu** zuenak berak bizi araziko ditu zuen gorputz hilkorrek ere. **Elizen arteko biblia**

Eliseok hildako bat **piztu** zuela Gehazi kontatzen ari zenean, [...]. **Elizen arteko biblia**

Hildakoak **pizteko** moduko usaina du. **Anjel Lertxundi**

Biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak **piztu** egin du hilen artean; gu gara horren testigu. **Elizen arteko biblia**

#### • 5 da *ad*

Kristo hilen artean **piztua** dela hots egiten bada, nola esaten dute zuetako batzuek hilak ez direla **pizten**? **Elizen arteko biblia**

Hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean **piztu** egin zela, Liburu Santuek esan bezala. **Elizen arteko biblia**

Horretarako hil eta **piztu** zen Kristo: hilen eta bizien Jauna izateko. **Elizen arteko biblia**

Hilak **pizten** ez badira, jan dezagun eta edan, bihar hil behar dugu eta. **Elizen arteko biblia**

Zerk **pizt** dezake itxaropen hori? **Askoren artean**

Torturapean hil ziren, handik libratzeari uko eginez, bizitza bikainagora **pizteko** itxaropenagatik. **Elizen arteko biblia**

Une hartan hildakoren bat **pizten** ikusi izan balu baino beldurtuago. **Anjel Lertxundi**

### 6 irud/hed

Frantzisko Garmendia nire osaba zaharra nigan **pizten** zela eta Pui hartan jadanik izana nintzela nabaritzen nuen. **Txillardegia**

Esnatu, **piztu** egin zuen kafeak. **Joxemari Urteaga**

Iluntasun handi haren erdian esperantza berriak bihotza **piztu** baitzien. Josek esandako gutzia kontatu ziotenean [...] **piztu** zitzaion bihotza. Zerbaitek zain txarra **piztu** zion, haatik. ikasteko gogoia nola **pizt**. **Agustin Otsoa**

Irudimena **piztu** zitzaion Abasi, sentimenduak suakartu, halako moldez non nekez egin baitzen bere buruaren jabe. **Patxi Zubizarreta**

Pertsonaia gutxi dira historian San Frantziskok bezalako arreta **piztu** dutenak. **Askoren artean**

Selim Aluanek hori gutzia miretsi zuen eta, geroenean, desira **piztu** zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Bazuen lagunaren inbidia **pizteko** beste arrazoi bat. **Arantxa Iturbe**

Orain dela bost urte **piztu** zitzaidan sotoko abeltegiak ikusteko gogoia. **Karlos Zabala**

Horgo leinu hori, behar ditake arraberritu eta hola hauspean den fedea **pizt** litake, behar bada. **Herria**

Zergatik ez ote zait **pizten** grina? **Joxe Austin Arrieta**

Hitzaldi fanatikoak, jende-multzto jakingosearen grina errazak **pizten** dituztenak. **Juan Martin Elexpuru**

Txinatar amatxi horrek Ninaren interesa **piztu** zuen. **Ramuntxo Etxeberri**

Txirrinaren hotsak asaldura **piztu** zuen haren baitan. **Lopez de Arana**

Gertaera horrek jakin-mina **piztu** zien. **Jon Muñoz**

Pozez zorutzen jarri zen Durant jauna, jakin-min bizia **piztu** ziolako.herritarrek baserri hartara joaten ziren mezara, baina orain ez ziren mugitzen ahal, susmo txarrak **pizt** beldurrez. **Mirentxu Larrañaga**

Asaldurak orkatileko oinazea **piztu** zion. **Jon Muñoz**

Soldadutzan **piztu** zitzaion euskaltzaletasuna, orduan entzun zituen «irain eta mespretxuengatik». **Berria - Kultura**

### 7 tresna elektrikoek eta kidekoek mintzatu, abian jarri.

Ordenagailua **piztu** eta posta elektronikoan behatu nuen. **Aingeru Epaltza**

Komisarioak autora sartu eta irratia **piztu** zuen arrankatu aurretik. **Harkaitz Cano**

Errazenera lerratuta, telebista **piztu** eta ene hatzak jauzika aritu ziren aldagailuarekin, kanal batetik bertzera. **Aingeru Epaltza**

Maxek makina **piztu**, eta lehenengo diapositiba pantailan agertu zen. **Jon Muñoz**

Jende asko du ohitura, etxera iritsitakoan, musika-aparatua **pizteko**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez zuen **piztu** aparatua. **Joxemari Iturralde**

Autora igo, motorra **piztu** eta atzerako martxan jarri zuen. **Koro Navarro**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

eztabaida piztea (10); gerra piztea (6); gerra zibila piztea (6); sua piztea (7)

piztearekin batera (7)

argia pizteko (10); arreta pizteko (9); berriz pizteko (7); gerra pizteko (7); gerra zibila pizteko (17); ilusioa pizteko (9); pizteko arriskua (12); pizteko balio (6); pizteko moduko (7); sua pizteko (17); zigarroa pizteko (6)

argia pizten (11); argiak pizten (20); arreta pizten (7); berriro pizten (8); berriz pizten (10); gerra pizten (6); gogoa pizten (22); grina pizten (8); hilak pizten (6); ilusioa pizten (8); interesa pizten (13); irratia pizten (10); jakin mina pizten (7); pizten da (41); pizten du (53); pizten zen (17); pizten zuen (43); sena pizten (6); sua pizten (34); suak pizten (6); telebista pizten (8); zigarro bat pizten (9); zigarroa pizten (7)

alarma gorria piztu (10); alarma piztu (22); alarma piztu du (6); argi bat piztu (24); argi gorria piztu (13); argi piztu (7); argia piztu (125); argia piztu zuen (22); argiak piztu (42); argiak piztu zituen (6); argirik piztu gabe (7); arreta piztu (21); arteko borroak piztu (6); bat batean piztu (7); begiak piztu (10); begiak piztu zitzaizkion (7); berehala piztu (12); berogailua piztu (8); berriro piztu (20); berriz piztu (24); bizia piztu (16); borroka gogorak piztu (7); borroka piztu (22); borroka piztu ziren (17)

egunean piztu (8); esperantza piztu (6); eztabaida piztu (82); eztabaida piztu da (14); eztabaida piztu du (17); eztabaida piztu zen (12); gatazka piztu (7); gerla piztu (9); gerra piztu (38); gerra piztu zen (7); gerra zibila piztu (7); gogoa piztu (40); gogoa piztu zitzaidan (10); gogorak piztu (7); gosea piztu (8); grabagailua piztu (6); grina piztu (13); haserrea piztu (50); haserrea piztu zuen (15); hil eta piztu (7); hilen artean piztu (29); hirugarren egunean piztu (8)

ikusmin handia piztu (26); ikusmina piztu (14); ikusmina piztu du (10); ilusioa piztu (8); interes handia piztu (10); interesa piztu (29); interesa piztu zuen (9); irratia piztu (54); irratia piztu dut (7); irratia piztu zuen (12); irrika piztu (7); itxaropena piztu (26); itxaropena piztu du (6); jainkoak piztu (6); jakin mina piztu (32); kandela bat piztu (11); kandela piztu (17); kandela piztu (8); kezka piztu (9); kontzientzia piztu (7); krisiluak piztu (6); krisia piztu (7); lanpara piztu (38); lanpara piztu zuen (12); liskarrak piztu (9); liskarrak piztu ziren (6); maitasuna piztu (7); matxinada piztu (8); mina piztu (32); motorra piztu (13)

ordenagailua piztu (11); pipa piztu (10)

piztu argia (11); piztu aurreko (9); piztu aurretik (9); piztu berria (9); piztu da (105); piztu dio (9); piztu du (244); piztu zaio (14); piztu zen (271); piztu zen sua (8); piztu zuen (406)

polemika piztu (31); polemika piztu du (15); telebista piztu zuen (12)

zalantza piztu (8); zigarrata bat piztu (20); zigarrata piztu (10); zigarro bat piztu (98); zigarroa piztu (41); zigarroa piztu zuen (13)

argia piztua (6)

kandela piztuak (6)

berriro piztuko (7); berriz piztuko (6); haserrea piztuko (9); haserrea piztuko da (6); interesa piztuko (6); piztuko da (30); piztuko du (20); sua piztuko (6)

argia pizturik (9); argiak pizturik (11); pizturik egon (6); pizturik zegoen (6); pizturik zeuden (7); sua pizturik (14)

**argia piztuta** (32); **argiak piztuta** (18); **irratia piztuta** (11); **kandelak piztuta** (6); **motorra piztuta** (8)  
**piztuta dago** (7); **piztuta daude** (6); **piztuta egon** (7); **piztuta egoten** (10); **piztuta utzi** (9); **piztuta zegoen** (29); **piztuta zeuden** (14); **sua piztuta** (14); **telebista piztuta** (17);  
**zegoen piztuta** (9); **zen piztuta** (6); **zeuden piztuta** (7)  
**piztutako sua** (6); **piztutako sute** (6)

## piztualdi *(orobat pitzaldi g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiari piztualdi agertzen da)* 1 iz zerbait pizten den aldia.

300 edo 400 pezetako su pizteko dotore-dotore horiek hamar **piztuaidirako** pentsatuta daudela. **Jon Alonso**

### 2 irud/hed

Anaiari begiak piztu zitzaizkion, eta haren **piztuaidiarekin** neu ere animatu egin nintzen pixka bat. **Pedro Alberdi**

Seiretatik aurrera datorcio **piztuaidia**, denon eskura dauden erremedioekin. **Pako Aristi**

Harri eta zur nengoen ni Anaia Martinen **piztuaidia** ikusita, eta ez nekien kontra egin behar ote nion edo arrazoia eman, argitasun harekin segi zezan. **Xabier Mendiguren**  
**Elizegi**

Esainek sakea berreskuratzean **piztuaidi** txiki bat izan zuen, baina beranduegi zen jada. **Berria - Kirola**

Mendebaldeko Kristandadean, erlijiozko eszeptizismoaren **piztuaidiarekin** batera, administrazio-eraginkortasunean aurrerakada eta ilustrazio politikoaren sorrera gertatu ziren. **Iñaki Mendiguren**

Parisko azpimunduan K.o. 1871n izandako basakeriaren **piztuaidi** beldurgarria. **Iñaki Mendiguren**

Trantzealdi moduko logura eta, txandaka, xenofobia fanatikozko **piztuaidien** erritmo hori berori bereiz daiteke Txinan, Ekialde Urruneko Zibilizazioaren historiaren epilogoan. **Iñaki Mendiguren**

Euskal kulturak lurralde hortan egin duen **piztuaidia** du liburua aipatzen, joan den urteko maiatzeko jardunaldietan erakutsi zen bezala Kristoren **piztuera**. **Herria**

## piztuarazi ik pitzarazi.

## piztuera 1 iz hila piztea.

Kristoren **piztuera**. **Elizen arteko biblia**

Jesusen jaiotza, nekaldi, **piztuera** eta igokundeko misterioak begiratzu eta bereganatuz. **Askoren artean**

Beste garizuman, ordea, Jaunaren **Piztuera** bitartekoan, barau egin bezate. **Askoren artean**

"Hilen **piztuera**" aipatzen zuela entzutean, batzuk barrez hasi zitzaizkion. **Elizen arteko biblia**

Hildakoen **piztuerekin** ere gauza bera gertatuko da: ereiten dena ustelkorra da, pizten dena ustelezina. **Elizen arteko biblia**

Ezin, bada, ahantzi haragiaren **piztuera**, Azken Judizioa eta geroko tormentuak... **Patxi Zubizarreta**

Badirudi etengabeko hil eta **piztuerearen** bilakaeran gero eta jende gehiagok sinesten duela. **Gotzon Garate**

Homeroren arabera, berriz, **piztuerearen** zuhaitza da altza, eta Virgiliok ere halatsu zioen. **Pello Zabala**

### 2 (hitz elkartuetan)

Salmo hauek Ostiral Santutik **Piztuera** igandea arte esaten direla. **Askoren artean**

Larrialdi- eta **piztuera**-garaia. **Elizen arteko biblia**

· *Ouroboros* beroa, ez Nietzschek eman zion norabide zorigaitzokoa, baizik eta gorputzez eta arimaz, kristau **piztuera** bezala. **Juan Kruz Igerabide**

· Jesussek bere nekaldi-**piztuera** lehenengoz iragarri. **Elizen arteko biblia**

### 3 irud/hed

Martxoaren hasiera, xaharren **piztuera**! **Pello Zabala**

Egun hartan, Azpilen Jesusen piztuera ospatzen zen, eta egun berean, herri baten **piztuera** ere ospatuko zuten: horra hor, hasteko, zeru-lurrak uztarturik. **Joan Mari Irigoien**

Zetorren borrokari egitura inizatikoa inposatuz, bere intuizio poetikoak herriaren azken **piztuera** probokatzea bilatzen zuen. **Joseba Zulaika**

### 4 sua edo kidekoak piztea.

Nekez irazeki zuen, barrez oraindik haren bisaia, garren **piztuera** etenak argiztatua. **Aingeru Epaltza**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**hildakoen piztuera** (3); **hilen piztuera** (3); **nekaldia eta piztuera** (3); **xaharren piztuera** (3)

**nekaldi piztuera** (7)

**hildakoen piztuera** (5)

## piztugabe izond piztu ez dena.

Noizean behin, emakumearen aldera bihurtu eta sua eskatzeko imintzioa egiten dio tabako gorri **piztugabea** erakutsiz. **Javi Cillero**

## piztuitzaldi iz piztea eta itzaltzea.

Katigamenduen kabinan hots bat aditu zen eta disko gorriak **piztuitzalia** egin eta zuri bihurtu zen, eta nik kabinatik giltza atera eta lasterka joan nintzen nasa aldera, estalpera. **Fernando Rey**

## piztura *(orobat pixtura)* iz piztea. ik piztuera.

Zerbait **piztura** badela orain gure mintzaira gutituen alde, hori egia eta gaurko berri ona. **Herria**

Hor **piztura** doi bat ukan du Etcheverry-k, bi bote ere sartu eta 24etan berdindu. **Herria**

## pizu ik pisu<sup>1</sup>; pisu<sup>2</sup>.

## pizutsu ik pisutsu.



pizutu ik **pisutu**.

**pizza** (*orobat **pitza** g.er.*) 1 iz gari irinezko opil zapala, gaztaz, tomatez eta beste osagai batzuek estaltzen dena eta labean erretzen dena.

Zerbitzariari deitu eta galdetu nion ea eragozpenik izango ote zuen **pizza** hura berriz berotzeko sukaldetan. [Oskar Arana](#)

Gero, aldiro eskatzen genuen **pizza** etxera. [Joxan Elozegi](#)

Edozein modalitatetan delarik ere - **pizza**, makarroiak, lasagna...-, pastak Italiako gastronomia ekarri ohi digu gogora. [Anjel Lertxundi](#)

Gaur berriz esan dit **pizza** dastatu duela eta nazkagarria iruditu zaiola. [Koldo Izagirre](#)

Jatetxe italiarrean **pizza** jangaitzarekin deman ari nintzen bitartean, [...]. [Aingeru Epaltza](#)

**Pizza** eta hanburgerren monokultiboa praktikatzten duten hamaika horiek etengabe biderkatuz doaz aurrera. [Edorta Agirre](#)

Indaba erreak, zerealak, **pizza**, zopa edo saltxitxak. [Berria - Gaiak](#)

Ez zitzaion camember gazta gustatzen eta asko, berriz, Margarita **pizza**. [Karlos Linazasoro](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pizza** kaxak nongura, eta elkarrekin muturtuta eta deskuiduan bi borrokan hastekotan. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

AEBetako eskoletan bertan daude **pizza** eta hanburger etxeak. [Berria - Kultura](#)

**Pizza**-banatzaileei eraso, ostu eta arrapaladan irten. [Jon Arretxe](#)

Freskatu bat hartu, eta **pizza** zati bat jatera joan gintunan. [Javi Cillero](#)

Ez dago lekurik non ez den **pizza** papurrik edo Parmako gazta txirbilik. [Patxi Iturritegi](#)

Auzapezak emana du baimen bat **pizza** saltzaile bati, posta gibeledako aparkalekuan astearte aratsaldetan 5 orenetarik 8 ak eta erdi artio komertsio horren egiteko. [Herria](#)

**Pizza**-banatzaileei eraso, ostu eta arrapaladan irten. [Jon Arretxe](#)

Telebista ikustea Coca-cola lata hustuez, **pizza**-hondakin fosilduez eta zigarrokinez zipriztindutako egongela baten erdian. [Iban Zaldúa](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Los Angelesko hondamendiak beste inmigratu saldo bat ekarrazia zuen Paris aldera, fast-**pizzaren** espezialista gogorrek guztiak ere. [Joxan Elozegi](#)

4 **pizza-egile**

Londresko hamaika **pizza**-egilek izan ezik, inork ez du dudatan jartzen Ingalaterrak Italia birrinduko duela. [Lutxo Egia](#)

**pizzategi** iz pizzeria.

Kutxa horretantxe sartu ditugu oilasko-etxe, **pizzategi** eta gosea kentzeko balio bai baina gustura nekez dasta daitekeen jakia ematen duten establezimendu ireki berriak, oro har. [Edorta Agirre](#)

**pizzeria** iz pizzak saltzen edo egiten diren denda.

Leherketa arratsaldeko lehen orduan izan zen **pizzeria** eta ileapaindegi baten goikaldeko pisuan. [Berria - Mundua](#)

Gosalondan eman genuen paseo ez oso luzean, Margaritak 18 hotel, 10 **pizzeria** eta berrogeiren bat klub zenbatu zituen. [Bernardo Atxaga](#)

**Pizzeriak**, orokorki, gustukoak nituen: grazia berezia bazuten. [Daniel Landart](#)

**pizzicato** iz biolina eta kideko musika-tresnak jotzeko moldea, hariak hatzekin atzimurkatzean datzana.

Biolinari eusten zion eskuetan, eta harien afinazioa aztertzen zuen, hatzekin **pizzicato** leunak eginez. [Alberto Ladrón Arana](#)

Bozgorailuetan, berriz, poema sinfonikoko biolinaren **pizzicatoa**, eup eta eup, pasarterik ausartenean, dantza-dei gisa. [Anjel Lertxundi](#)

**Pizzicato** zotina? [Oskar Arana](#)

Pena izan zen bukaerako **pizzicato**-etan izan ziren zehaztasun faltak. [Berria - Kultura](#)

placebo ik **plazebo**.

**pladur** iz eraikuntzan erabiltzen den materiala, zelukosak edo kartoiak bereizitako igeltsu xaflez osatua.

Gorbeia merkataritza guneko zinema eta joko aretoak itxiarazi zituen Eusko Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak herenegun arratsaldean, aisialdi guneko sabaitik 6 metroko

**pladur** xafila bat erori baitzen 13:20 inguruan. [Berria - Euskal Herria](#)

plafoin ik **plafon**.

**plafon** (*orobat **plafoin***) iz sabaia.

Hiriko karriken argiek ganbararen **plafoina** margotzen zuten. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Argitzeko, **plafonean** lukerna bat. [Michel Oronoz](#)

Paretak, **plafoineko** zutabeak, atea dekoratuak dira. [Berria - Kultura](#)

**plaga** iz izurria.

Datu hauek hazkunde ez ezik progresio geometriko bizian egindako hazkunde ere erakusten dute, eta hau **plaga** eta izurrite, gose, gudu, hilketa eta bat-bateko heriotzak gertatu arren. [Iñaki Mendiguren](#)

Nondik nora zekien han zebilen **plaga** zein gaitzena zen, airean lotu zen, erantzun barik. [Edorta Jimenez](#)

**plagatu**, plaga(tu), plagatzen da/du *ad adkor* txartzat hartzen den zerbaitez erabat bete.

## plagiario *izond* plagiogilea.

Jakina, imitatzailak samaldaka sortu ziren: Montemayorrek berak aipatu ditugun edizio eta itzulpenez gain hiru **plagiario** zuzen izan zituen, *Diana*-ren jarraipenak idatzi zituztenak. **Berria - Kultura**

## plagiatu, plagia, plagiutzen *(orobat plajiatu; Euskaltzaindiaren Hiztegian plagiatu agertzen da)* du ad plagioa egin.

**Plagiatu**, denok **plagiitzen** dugu, ezinbestean. **Joxerra Garzia**

Beste dramagile bat **plagiatu** behar izan zuen, William Shakespeare ingeles arerioa, hain zuzen. **Juan Garzia**

Dirudienez, azpiko bizilagunak salaketa jarria zidan, goikoaren nobela **plagiatzeagatik**. **Iban Zaldua**

Kontuak kontu, **plagiatzea**, zilegi ez ezik, ezinbestekoa da, eta ezinbestekoa dena ezin daiteke delitu izan. **Joxerra Garzia**

Ikasi dut, adibidez, **plagiatu** ere, gainerako gauza guztiak bezala, biotara egin litekeela: ondo edo gaizki. **Joxerra Garzia**

Kurrioloa **plagiatuz** ikasi genuela gizakiok hizketan. **Patziku Perurena**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ondo plagiatzeko** (3)

## plagiatzaile *(orobat plajiatzaile)* iz plajiatzen duen pertsona.

Esan zenuen **plagiatzailea** dela, eta liburuaren pasarterik onena Kavafisen olerki batekoa dela. Defentsa on bat prestatzea oso garrantzi handikoa zaio **plagiatzaileari**.

**Lander Garro**

Gaur egungo Kafkaren **plagiatzaile** batek Asier Basaberen kasua har lezake, antzeko kasuak azalarazteko. **Berria - Harian**

## plagio *(59 agerraldi, 23 liburu eta 7 artikulutan; orobat plajio 34 agerraldi, 6 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian plagio agertzen da)* 1 iz besterena den obra baten kopiatzea edo antzeratzea, norberarena baillitza argitaratzeko egina.

**Plagio** zabarra izan zitekeen [...], hitzez hitzekoa, literatur lapurreta lotsagabe bat. **Iban Zaldua**

Ez baita **plagioa**, izan ere, ipuin indutitu bat baizik. **Harkaitz Cano**

Klaxetik **plagiora** bide luzea dago, bai, eta ez daukat **plagioaren** gorazarre egin beharrik esateko **plagioak** aurpegi asko dituela. **Anjel Lertxundi**

Euskal literatura indartzeko bide nagusia **plajioa** da. **Bernardo Atxaga**

Askoz zabalagoa da imitazioaren aginpidea, metaliteraturaren eremuetan barrena parodiara, pastixera, **plagiora** eramaten gaituena. **Iñaki Arranz**

Errealitateak, baita garratzenak ere, orrialde literario gorenen **plagioa** ematen du askotan. **Anjel Lertxundi**

Dena delako **plagio**, idazle guztiak egiten dutelako **plagio**... **Joxemari Iturralde**

Liluraren gramatika ateratzen bazuen, **plagiotzat** hartuko zutela. **Anjel Lertxundi**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Plajio** -jolas horri jarraituz, Atxagaren bertsioa erabili dut "Fern Hill" poemako hitz horiek itzultzerakoan. **Koro Navarro**

Hilabete batzuk lehenago era gutzit bidegabean leporatu zidaten **plagio** afera zela medio nire liburu berria argialetxe handi batekin atera ezin nuenez. **Harkaitz Cano**

Epaileak atzera bota du 'The Da Vinci Code'-ren **plagio** eskakizuna. **Berria - Kultura**

Izan ere, eta paradoxaz, **plajio** kontuetan sartzea oso orijinala suertatzen duk gaur egun. **Bernardo Atxaga**

## plagiogile *iz* plagiitzen duen pertsona.

VII. liburuaren Sarreran garatu egiten da ideia hori, eta garbi-garbi bereizten ditu konpilatzailearen eta **plagiogilearen** lana. **Santiago Iruretagoiena**

## plagizida *iz* pestizida.

Hondakinen pilaketa horren atzean nagusiki faktore bat dagoela diote txostenean: industria kimikoak egindako **plagiziden** sustapen «gupidagabea». **Berria - Gaiak**

Idea bada **plagizidarik** ez erabiltzea eta sistema berez sendatzearen zain egotea, arrazoi dute: ez da posible. **Berria - Gaiak**

Erabili bako eta iraingitako **plagizidek** giza osasunari eta ingurumenari kalte handia egin diezaieketela ohartarazi dute, eta pestizidak zentzuz erabiltzeko eskatu dute.

**Berria - Gaiak**

## plaia *(orobat plai g.er.) iz* hondartza.

Getariako kaian, Zarauzko **plaiatik** ez hain urruti, Mikel Lasaren konpainian. **Anjel Lertxundi**

-Hendaiatik hamar minutura, oso **plaia** ederra da, nudista. **Joxean Sagartzizabal**

Ez naiz sekulan **plaiari** egoten ahal, adibidez. **Menane Oxandabaratz**

Apar lehertuak **plai** ertzeko hondarrean lagatako itsasbelar, konpresa, plastiko eta lata hutsak, Neptunoren opari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## plaiera *iz pl* olanazko oinetakoak.

Bamba **plaiarak** fuelean zikintzeko beldurrik gabe, edo, menturaz, hartan zikintzearen. **Koldo Izagirre**

Bazterrean utzi ditudan **plaierei** behatu diet. **Koldo Izagirre**

## plaiero *izond* hondartzakoa, hondartzari dagokiona.

Nik ere zerbait irakatsi nahi nizun eta, besterik ezean, abesti **plaieroak** jartzen nizkizun. **Xabier Mendiguren Elizegi**

· Indartsu dabilta euskarazko prentsaren alde dabiltzanak **plaieroetan**. **Berria - Kirola**

plainitu ik **pleinitu**.

plainu ik **pleinu**.

plajiatu ik **plagiatu**.

plajiatzaile ik **plagiatzaile**.

plajio ik **plagio**.

## plaka 1 iz zerbait idatzia duen metalezko xafla.

Honela zioen **plakak**: "Jean-Lantier kalea, Jean Lointier zeritzan XIII. mendeko biztanle baten gorazarrez". **Jon Muñoz**

Sotoan **plaka** zuri bat: Academia Elejoste - Matemáticas, Informática, Inglés - Pisos 1-2. **Txillardegi**

Ate aurrean, "Sunderland" idatzia zuen **plaka** bat ikusi zuen. **Lopez de Arana**

Oinarriak urre koloreko **plaka** bat du, ziriilikoz idatzitako hitz batzuekin. **Iban Zaldua**

Percyren bularrean zegoen zilarrezko **plaka** berria seinalatu zuen-. **Iñaki Mendiguren**

Denek SSen **plakak** zituzten. **Alberto Ladron Arana**

Nestor Kirchner presidenteak desagertuen omenezko **plaka** bat jarri zuen. **Berria - Mundua**

Sarriegiren omenezko **plakaren** inaugurazio ekitaldian prozesio zibila egin zuten. **Askoren artean**

Hantxe, paretan, Krapotkin zaharraren erretratu zegoen, hala jakin nuen **plaka** metalikoa irakurri nuenean. **Matías Múgica**

Kobreko **plaka** batek adierazten zuen 'French Embassy' hortan zela. **Ramuntxo Etxeberri**

Seigarren atea eskuinera, han ikusiko duzu **plaka**. **Aritz Gorrotxategi**

Trofeoa, forma zehatzik gabeko ia metro-erdiko eskultura-antzekoa, metal ilunekoa, Gipuzkoako Diputazioaren **plaka** batekin: [...]. **Iban Zaldua**

Ertzaintzako **plaka** atera eta agerian jarri zion. **Harkaitz Cano**

Ez zeukan errezetarik, baina igualtsu zen, **plaka** atera eta ez zioten eragozpenik jarri. **Harkaitz Cano**

Orexara helduta, berriz, Orixeren jaiotetxeko **plaka** ikusi genuen lehenik eta Orixeren omenezko monolittoa gero. **Juan Luis Zabala**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zenbait taldek salatu dute polizia askok beren **plaka** zenbakia estalita zeramatela manifestazioa zaintzean. **Berria - Harian**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Publicity House jartzen zuen letoi-**plaka** diriratsuaeren ondoko atetik sartu zen. **Iñaki Zabaleta**

Han militar, polizia zein zibil aldrak ageri ziren tente, ezin dotoreago jantzirik, oroigarri **plaka** distiratsuk goratuz, musika banda eta guzti. **Jon Arretxe**

Hango matrikula, ehizarako jantziak, sukaldaritza liburua, sevillar kapela, kolonia botilatxoa, giraldatxoa, Citroën kotxe-**plaka**, denak desagertuak ziren mahai gainetik. **Joxemari Urteaga**

Non dago? -galdetzen dio polizia bati, inspektore-**plaka** erakutsiz batera. **Antton Olano**

Anaiek prefektu-**plaka** ostu ziotelako. **Iñaki Mendiguren**

Tiratzaille-**plaka** gorria eman ziotenean, ezin harroago nengoen anaiaz. **Mirentxu Larrañaga**

Bresterainoko SNCFko biletea erosi nuen, neure detektibe rural **plaka** trapuz nixtan jarri nuen eta bidaia zakua apailatu. **Itxaro Borda**

## 4 (automobilaren matrikularena)

Ertzak herdoilduak erakusten zituen automobilaren baten ezaugarri-**plaka** zirudien. **Joxemari Urteaga**

Alboan, aulki zaharkitu baten gainean, kotxe batena izan behar zuen matrikula-**plaka** bistatu zuen. **Joxemari Urteaga**

Auto bati kendu eta besteari ipini, hainbat matrikula-**plaka** edukitzen dituzte horretarako. **Oskar Arana**

## 5 (hortzetan gertatzen dena)

Haren esanetan, dentistek tabakoak neurritz kanpoko bakterio **plaka** sortzen dutela ohartaraziko balute, tabako erretzaileen kopuruak nabarmen egingo luke behera. **Berria - Gaiak**

## 6 (metalezkoa ez dena)

Espainiak zor dio Urbietari marmolezko **plaka** bat Hernaniko karrika nagusian. **Koldo Izagirre**

Hiritarren segizioa Puuielo kaleko 38. zenbakiraino joan zen, eta han idazkun bat daraman marmolezko **plaka** inauguratu zuten. **Askoren artean**

Urre koloreko plastikozko **plaka** bat, dirua eta bidaia bat eman ziguten saritzat. **Iban Zaldua**

## 7 (geologian)

**Plaken** tektonikaren teoriaren arabera lur horiek elkarturik egon zitezkeen antzinako garai batean eta, **plaka** horiek urruntzen joan ziren neurrian, India eta Sumatra Madagaskarretik bereizten joan ziren. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## 8 xafla.

Film edo **plaka** argi-sentikor bat, han eratuko baita argazkilaria atera nahi duen objektuaren edo eszenaren irudia. **Irene Aldasoro**

Aurrealdean galdatutako 7.300 aluminio **plaka** ezarri dizkiote eta horrek ere eragin ditu askoren kritikak. **Berria - Harian**

**Plaketako** grabatuei erreparatu zien. **Iñaki Iñurrieta**

Deitzi eta tarrapatata sukaldaria garraiatu esnea furneoaren **plaka** beroaren gainean pausatzen zen. **Itxaro Borda**

Hartzen da burdinazko **plaka** bat, gainean jartzen da minioa, sutan jarri eta eduki **plaka** goritu arte. **Santiago Iruretagoiena**

Eguzki **plakak** zabaldua 14 metro inguruko luzera du. **Berria - Gaiak**

Motor finkoa, oinarri-**plaka** astun bati torlojuz loturik egoten da, oinarri-**plaka** zorura irmo josia dagoela. **Irene Aldasoro**

Su-**plaka** erabat hozterako, irakinaldia egingo zuten. **Jon Alonso**

## 9 geruza.

Betoizko **plakaren** gainean etzaten da. **Ramuntxo Etxeberri**

Lehenago bertatik igaro ziren hainbat gidarik izotz plakak zeudelako abisua eman zuten Ertzaintzak gerora adierazi zuenez, ez zuten izotz **plakarik** aurkitu.. **Berria - Euskal Herria**

Antartikako **plakatik** hautsitako izozmendi erraldoi batek itsasorako bidea itxi die; txitak hiltzen utzi beharko dituzte. **Berria - Gaiak**

## plakadun *izlag*

Missouriko **plakadun** limusina bat etorri da. **Pablo Sastre**

## plakaje *iz* errugbian eta amerikar futbolean, balioarekin doan aurkaria gerritik edo zangoetatik besarkatuz lurreratzean datzan egintza.

Oso suitsuak dira norbanako borrokan, eta nahiko goian egiten dute **plakajea**. **Berria - Kirola**

Huts egin genuen **plakajeetan**, eta eskura jokatu ahal izan genuenean, zeharkaegi aritu ginen. **Berria - Kirola**

**Plakajeen** ondorengo baloi berreskuratzean maisu izan ziren tolosarrak. **Berria - Kirola**

Partida amaitezko 10 minutu geratzen zirela Montgomeryek **plakaje** arrisksua egin zuen. **Berria - Kirola**

## plakaketa *iz* plakatzea.

Putaren puta, hura zen hura, **plakaketa**! **Daniel Landart**

Besteak lohia bota zion aurpegira, saihetsean **plakaketa** eginda lurrean zeraman arrastaka, oihuak non-nahi. **Fernando Rey**

## plakatu, plaka(tu), plakatzen du *ad* plakajea egin.

Entsegu lerroan **plakatu** zuten, Thieryk sarrera indartsua egin ondoan. **Berria - Kirola**

· Uzten banuen, **"plakatzen"**, erraten zen bezala, sorterriak jakinen zuen berria eta aldaretik galerietara joateko indarrak ez nuen. **Piarres Aintziart**

## plakatxo *iz* plaka txikia.

Hatz bat pasatu nuen ateko **plakatxotik**: "W.P. Weber". **Alberto Ladron Arana**

Medikuaren bolantea atzeko patrikan, mahoizko trajebuzoa etxean, bera deseroso, ateetako **plakatxoetan** X izpien gela adieraziko duenaren bila. **Harkaitz Cano**

Erizainaren bularreko **plakatxora** zeharbegirada bat lerratzen saiatu da, baina gaizki begiratu dio emakumeak, bularretara begira ari zitzaiolekoan. **Harkaitz Cano**

## plakatzaille *iz* plakatzen duen errugbilaria.

Thorn **plakatzaille** sutsu agertu da eta Marshall da uztartze erdia. **Berria - Kirola**

Hogei urte azpiko hiruk jokatu dute, internazionalak badaude, **plakatzailleak**, korrikalariak, eta finean, lerro indartsu bat dugula iruditzen zait. **Berria - Kirola**

## plakatze *iz* plakajea egitea.

Halere, lehen zatian ahulezia erakutsi zuen **plakatzeeak** egiten, eta bigarrean eskuko hutsak egin zituen une erabakigarrietan. **Berria - Kirola**

## plaketa 1 *iz* arrautza-formako zelula txikia, odolaren gatzatzean parte hartzen duena.

Odolak daraman hirugarren osagai funtsezkoa **plaketak** dira. **Irene Aldasoro**

Zelula ametatik globulu gorri, zuri eta **plaketak** lortu nahi dituzte. **Berria - Gaiak**

**Plaketek** oso eginkizun garrantzitsua dute gatzatze prozesuan, eta gatzatzea da, hain zuzen, ebaki batetik edo bestelako zauri batetik odol gehiegi galtzearen aurkako babes nagusia. **Irene Aldasoro**

Jakina da, hala ere, odolaren **plaketak** desegitean askatzen diren substantzietan dagoela mekanismoaren gakoa. **Irene Aldasoro**

Milimetro kubiko bat odolek 250.000 **plaketa** inguru ditu normalean. **Irene Aldasoro**

### 2 irud/hed

Alzheimerra eragiten duten **plaketa** toxiko amiloideak suntsitzen dituen tratamendu berri bat aurkeztu zuten atzo, Kaliforniako Unibertsitatean **Berria - Gaiak**

### 3 plaka txiki irarria.

Garaziko eta inguruko etxe guzietara **plaketa** bat igorriko du ikastolak, jendek diru laguntza bat eskaini diezaioten. **Herria**

Akordeonean, Elementaire 1, Jonathan Aartel eta Maika Haristoy-ek izan dute **plaketa** urre saria. **Herria**

Presentatu 27 haurretarik 12 berexiak izan baitira finalerat joaiteko Pariserat, kopa, medela zilar ala urhe, **plaketa** urhe ala trofeo eskuraturik, haur gazte horiek jin dira, bertez urtean hobeki egiteko esperantzarekin. **Herria**

## plakin *iz* borrokarako sare kota luzea, gorputz eta beso zabalekoa.

-Ez daukagu zure neurriko burdinazko saredun kotarik -esan zuen Éowynek-, ez eta zuretzako **plakina** egiteko aukerarik ere. **Agustin Otsoa**

Pippin laster egon zen beltz eta zilar koloreko arropa arrotzekin jantzita: **plakin** txikia, altzairuz egindakoa agian, baina atxabitia bezain beltza hala ere; eta hegala garaiko kasketa, alboetan bele-hego txikiak eta koroaren erdian zilarrezko izarra zituena. **Agustin Otsoa**

Mantu beltza zeharkatuz, **plakinetik** gora, hobbitaren ezpata belauan boteretsuaren atzeko zurdan iltzatu zen. **Agustin Otsoa**

Baina, hara non, mantua eta **plakina** hutsik zeuden. **Agustin Otsoa**

## plakton ik plankton.

## plama (*orobat plama g.er.*) *iz* egunkarrietan eta kidekoetan, orrialdea.

**Plamaren** laurden bat hartzen du argazki zuri-beltzak, baina neurria bezain deigarria du konposaketa ere. **Anjel Lertxundi**

Hurrengo **plama** erosi, eta hantxe ikusi nuen neure argazkia lehen **plaman**. **Joxerra Garzia**  
Ireki orduko, eta lehenengo orrialdean bertan, foto eder bat **plama** osoan, eta izkirio hau oinean: "Antes de la traición". **Txillardegi**  
Lehen **plamako** albiste zena, albiste bitxien txoko-txokoan zokoratua dute orain komunikabideek. **Joxerra Garzia**  
Lehen **plamak** albiste ditu Berlusconiaren krisia, okupatzaileek Bagdaden hildako bost irakiri eta Cipollinik Tourrean izandako erorikoa. **Anjel Lertxundi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lehen **plaman** (3)

## plan 1 iz egitasmoa.

**Plan** bat dut. **Agustín Otsoa**  
Ihes egiteko **plan** bat zen, eta erakundearen eskuetara ailegatu behar zuen. **Rafa Egiguren**  
Berez, **plana** ona zen. **Anton Garikano**  
Manning-darrek **plan** bat antolatuz gero, beharko hari eutsi! **Anton Garikano**  
Ondotxo baitaki **plan** hori ez dela egundo beteko. **Patxi Iturrategi**  
Nik ez dut sekula ondo ulertu **plan** horien funtsa. **Joxerra Garzia**  
Marshall **Planak** arau berri bat ezarri zuen. **Iñaki Mendiguren**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Plan** ona da. **Anton Garikano**  
**Plan** bikaina zen, nik neuk aitortzen dut hala, benetako tipo bihurrien plana. **Oskar Arana**  
Borgesek **plan** perfektua du Harrison ministroaren biziaren aurkako atentatua egiteko. **Jon Alonso**  
Ez da **plan** makala, ez da plangintza estrategiko makala. **Iñaki Seguro**  
Larrabasterrako hondartzan etzanda zegoela bururatu zitzaion **plan** eder hori. **Patxi Iturrategi**  
Egun batzuetan etxetik alde egitea ez zen batere **plan** txarra, eta harako izena eman genuen gehienok. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Une hartan bertan asmatu zuen **plan** gaizto bat. **Koro Navarro**  
Zuk eta nik **plan** bat egingo dugu, **plan** ezkutu bat. **Lander Garro**  
Madrilgo enbaxadan ukatu egin zidaten bisa, bakarrik eta **plan** zehatzik gabe ibili nahi nuelako. **Jon Arretxe**  
Tuberkulosiaren kontrako **plan** erraldoiak itxaropena piztu du. **Berria - Gaiak**  
Gatazkarako **plan** behin-betiko hezurmamitzeko ezarri ziren erasorako neurrietako lehena. **Jon Alonso**  
Martina lehen **plan** sozialaren ondorioz kaleratua izan zen, berrogeita hamar emazte eta adindu herbailez osatu multzo batean. **Itxaro Borda**  
**Plan** industrial sendo bat prestatzeko eskatu zion Batasunak Eusko Jaurlaritzari. **Berria - Ekonomia**  
Nahita eta aurrez prestatutako **plan** bati jarraiki. **Harkaitz Cano**  
**Plan** Sozio-sanitarioa tresna garrantzitsua izango da. **Berria - Harian**  
Espainiako **Plan** Hidrologikoarentzat oztopo nagusia Itoitz zen. **Edurne Elizondo**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken orduko **plan** aldaketak. **Berria - Ekonomia**  
· Hezkuntza **plan** aldaketa etengabeak ere hor daude. **Berria - Euskal Herria**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Espainiako unibertsitateetako ikasketak **planak** berritu eta aldatu ziren joan den hamarkadan zehar. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
Euskararen normalizazio **plan** huntan, [...]. **Herria**  
Berregituratze **plan** bat abian jarriko dute 2008. urterako etekinak lortu ahal izateko. **Berria - Ekonomia**  
Langileekin lan baldintzen malgutasuna ezartzen duen antolakuntza **plan** bat hitzartu omen dute. **Berria - Euskal Herria**  
Hori Wooden eta bien arteko joko-**planaren** parte zen. **Iñaki Mendiguren**  
Lan-**plan** horri ekin aurretik, hala ere, Mendebaldeko historiaren atal "moderno" zein datatan hasten den erabaki behar dugu. **Iñaki Mendiguren**  
Umeak babesteko ekintza **plan** bat ere zehaztu zuten agintariek. **Berria - Gaiak**  
Bi euskalduntze **plan** indarrean ipini ditu urteotan EHUK. **Berria - Harian**  
AEK-rekin izenpetu formakuntza **plan** batean ere sartu da, Ainhoa, Azkaine eta Ezpeletako herrietan bezala. **Herria**  
Zuzendaritza industria **plan** bat aurkeztea aztertzen ari dela badakiela nabarmendu du Sanzek. **Berria - Ekonomia**  
Euren egitekoa da Immigrazio **Plan** nagusia udalerritako errealitatera egokitzea. **Berria - Euskal Herria**  
Apurka-apurka, sedukzio joko basatiagoen bidez erakarri zuen mutila, baraualdi sexualak, uholve sexuarekin tartekatuz, xantaia **plan** zehatza aurrera eramanez. **Aritz Gorrotxategi**  
Jubilazio-**plana** nola prestatu, 65 urte azpiko EAEko biztanleen %30ak pentsio **plan** osagarri bat du. **Jon Alonso**  
Gegenbauerren atea jo aurretik, Dembak kanpaina-**plan** bat zeukan egina. **Anton Garikano**  
Kultura Saileko Gizarte Inbertsio eta Inbertsio Ekonomikoen **Plan** Bereziko partidetatik. **Berria - Kultura**  
Industria **plan** estrategikoak egingo direla aurreikusitako egitasmoak. **Berria - Ekonomia**  
Alde Zaharreko Birmoldaketa **Plan** Integrala. **Txema Ramirez de la Piscina**

## 5 asmoa zeregina.

Zinera joateko **plana** dute. **Xabier Etxabe**  
Ederra da eskutitza, zirrargarria oso, izenburutik hasita: "Iragan bideak eta etorkizuneko **planak**". **Joxerra Garzia**  
Gurasoek amonari utzi zioten iniziatiba, ez amonaren **planak** konbentzitu zituelako, ezer hobirik bururatzeko ez zitzaielako baizik. **Anjel Lertxundi**  
Hurrengo asterako utzi beharko dugu mendirako **plana**. **Iban Zaldua**  
Harry eta Ronek Eguberrietako pastelaren hirugarren zatia bukatu orduko, Hermioneek jangelatik atera zituen arratserako **planak** zehazteko. **Iñaki Mendiguren**  
Hire aldetik, **planen** bat horretarako? **Edorta Jimenez**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

autonomia **plan bat** (6); **bake plan** (11); **bake plan bat** (6); **bideragarritasun plan** (8); **bigarren plan** (6); **biziberritzeko plan** (18); **biziberritzeko plan nagusia** (6); **egiteko plan** (11); **egiteko plan bat** (6); **ekintza plan** (10); **esleipen plan** (6); **euskara biziberritzeko plan** (15); **hirigintza plan** (7); **hondakinak kudeatzeko plan** (23); **hondakinaren kudeaketarako plan** (11)  
**ikasketa plan** (7); **industri plan** (15); **industri plan bat** (7); **industria plan** (22); **industria plan bat** (7); **kudeaketarako plan** (13); **kudeaketarako plan integralaren** (6); **kudeatzeko plan** (24); **kudeatzeko plan integralaren** (8)  
**plan alternatiboa** (11); **plan bat aurkeztu** (13); **plan bat aurkeztuko** (9); **plan bat egin** (7); **plan berezia** (33); **plan bereziak** (8); **plan bereziaren** (8); **plan berri** (11); **plan berria** (19); **plan berriak** (8); **plan estrategiko** (11); **plan estrategikoa** (37); **plan estrategikoak** (16); **plan estrategikoan** (6); **plan estrategikoaren** (24); **plan hidrologiko** (8); **plan hobea** (8)  
**plan industrial** (11); **plan integrala** (20); **plan integralaren** (16); **plan integralaren jarraipen** (7); **plan nagusia** (15); **plan nagusiak** (7); **plan nagusian** (6)  
**plan orokor** (13); **plan orokor bat** (6); **plan orokorra** (12); **plan orokorrak** (9); **plan orokorraren** (19); **plan osoa** (8); **plan sendoa** (6); **plan sozial** (11); **plan unilaterala** (6); **plan zehatza** (6)

urteko plan (6)

alde bakarreko plana (6); aurre egiteko plana (6); aurrezteko plana (6); bakarreko plana (7); bake plana (36); baker plana (28); bakerako plana (6); bere plana (41); bideragarritasun plana (31); bizikidetzarako plana (7); deskonexio plana (20)

egindako plana (9); egiteko plana (16); ekintza plana (16); enplegu plana (7); erreforma plana (7); erretiratze plana (27)

ibaretxeren plana (187); ibaretxeren plana aurrera (7); industri plana (21); industria plana (73); jaurilaritzaren plana (7); konponbide plana (8); kontrako plana (8); kudeaketa plana (14); kulturaren euskal plana (12); larrialdi plana (22); lehen plana (13); lehendakariaren plana (8); lurralde plana (12); moldaketa plana (6); murrizteko plana (6); nazio plana (11); neguko bideragarritasun plana (11); neguko plana (6); nire plana (8); normalizazio plana (7); normalizaziorako plana (6)

plana abian (23); plana abian jarri (9); plana abiatu (7); plana aldatu (8); plana aldatzeko (6); plana arbuia (8); plana aurkeztu (53); plana aurkeztu zuen (21); plana aurkeztuko (12); plana aurrera ateratzea (7); plana aurrera ateratzeko (9); plana aurrera eramateko (6); plana aztertu (6); plana baztertu (8); plana betetzeko (8)

plana egin (26); plana egina (7); plana egiteko (15); plana erretiratze (6); plana eskatu (9); plana ezarri (9); plana ezartzeko (10); plana gaitzetsi (8); plana garatzeko (10); plana gauzatzeko (7)

plana indarrean (16); plana iragarri (7); plana izan (7); plana jarri (9); plana lantzeko (6); plana martxan (15)

plana onartu (82); plana onartu du (17); plana onartuko (13); plana onartzea (7); plana onartzeko (25); plana onartzen (8); plana osatu (8); plana osatzea (7); plana prestatu (15); plana prestatzeko (6); plana salatzen (6)

plana zehaztu (6)

segurtasun plana (7); sepiren industri plana (6); sepiren industria plana (11); sepiren plana (12); sharonen plana (11); uzteko plana (7); zatikako lurralde plana (6)

bake planak (9); berdintasun planak (6); bere planak (10); egiteko planak (8); enplegu planak (7); euskal planak (9); euskalduntzeko planak (7); euskara planak (6); ibaretxe planak (24); ibaretxeren planak (71); ikasketa planak (6); kulturaren euskal planak (7); lurralde planak (20); normalizazio planak (15); osasun planak (6)

planak aldatu (6); planak egin (13); planak egiteko (6); planak egiten (31); planak jasotzen (7); planak porrot egin (8); sharonen planak (6); zatikako lurralde planak (12)

planarekin ados (6); planarekin bat (13)

bake planaren (7); bere planaren (6)

erretiratze planaren (16); euskal planaren (12); gazatik erretiratze planaren (7)

ibaretxe planaren (45); ibaretxeren planaren (116); ibaretxeren planaren alde (6); ibaretxeren planaren aurka (7); ibaretxeren planaren inguruan (14); ibaretxeren planaren inguruko (7); industri planaren (7); industria planaren (12); jaurilaritzaren planaren (8); kudeatzeko planaren (6); kulturaren euskal planaren (7); larrialdi planaren (7)

planaren alde (27); planaren aldeko (10); planaren arabera (37); planaren aurka (32); planaren aurkako (14); planaren barruan (23); planaren berri (12); planaren bidez (10); planaren bitartez (10); planaren emaitzak (7); planaren eztabaida (14); planaren gainean (7); planaren gaineko (7); planaren harira (6); planaren helburu (8); planaren helburu nagusia (6); planaren helburua (11); planaren helburuak (9); planaren hitzaurrean (6); planaren inguruan (31); planaren inguruko (21); planaren kontra (14); planaren kontrako (6); planaren nondik norakoak (6); planaren porrota (7); planaren xedea (6)

bake planari (6); ibaretxe planari (13); ibaretxeren planari (41); planari aurre egiteko (7); planari jarraiki (6); planari jarritako (7)

ibaretxeren planaz (9)

ibaretxeren planean (8) ikasketa planen (10)

## planaria *iz* *Turbellaria* klaseko har lau ez-bizkarroia.

**Planaria** bat bitan ebakitzen denean, zati bakoitzak bestea berrosatzen du eta, hala, bi **planaria** oso ditugu, beren ehun guztiekin eta beren organo guztiekin.  Juan Garzia

Han abiatu ginen, hiru lagun, hari eta haren **planariei** bisita egitera.  Juan Garzia

Laborategiko eztabaida batean, ikertzaile batek **planarien** aukera aipatu zuen.  Juan Garzia

## planeamendu *iz* plana. ik *plangintza*.

Legearen bidez, Udalek hirigintza **planeamendua** «eragile pribatuen bitartez» egiteko aukera izan dezaketela diote, hirigintza agente nahiz eraikuntza agenteak sortuz.

Berria - Euskal Herria

Bestela, zertarako behar ote dugu udal **planeamendu** hau eta bestea?  Berria - Euskal Herria

Hirigintza-agentearen bitartez behin betiko esku pribatuetan geldituko litzateke udal **planeamenduaren** kudeaketa.  Berria - Harian

## planeatu<sup>1</sup>, planeatu, planeatzen du *ad* planak egin, aipatzen dena egiteko asmoa izan.

Ipi-apa guztiekin **planeatu** nuen zer esango nion eta zer egingo genuen zinean eta zinetik irten ondoren.  Anjel Lertxundi

Bere lapurretak ez ditu aurrez **planeatzen**, eta ez daki labana erakusteak zenbat larritzen duen bere delituaren tipifikazioa.  Pako Aristi

Dolu ekitaldi bilakatu zituzten Castorren aurka **planeaturiko** ekintza gehienak.  Berria - Gaiak

Ez hintzelako gauza izan egintza oso erraz bat, lege aldetik zigorgarria, biok, nire emazteak eta nire lagunik onenak elkarrekin **planeatua** burutzeko.  Xabier Olarra

Urteak behar izan dituzte: lehenik, nobelari zer forma eman erabakitzeko; gero, pentsatu eta **planeatutakoa** idatzi eta gauzatzeko.  Berria - Kultura

Nik beste zaplazteko bat jotzeko keinua egin ere egin nuen eta ez nion jo hura guztia **planeatu** gabea zelako eta egoera hura ulertzen ez nuelako.  Karlos Zabala

Hirira **planeatutakoa** baino lehenago heldu ziren, eta denbora soberan zeukaten.  Sonia Gonzalez

Irakeko behin-behineko gobernuak berretsi zuen [...] Kontseilu Nazionalaren erakuntzarako konferentzia, **planeatu** bezala, aste honetan egingo dela.  Berria - Mundua

## planeatu<sup>2</sup>, planeatu, planeatzen **1** du *ad* (nor/zer *atzizkirik gabe*) hegazti bat hegoak mugitu gabe, edo aireontzi bat motorra erabili gabe, airean lerratu.

Kaio bat oso hurbiletik pasa zitzairen, brisa gainean **planeatuz**.  Fernando Morillo

Ez zegoen hegaztirik aire belztuan **planeatzen**, izarrak bakarrik zerua iltzatzen.  Joseba Sarrionandia

Saguzar batek lau lagunen buru gainetik **planeatu** zuen.  Fernando Morillo

Antxeta gris bat, atzeko aldetik apur bat azkarrago zetorrena, mantso-mantso iragan zen aborrerera malekoiaeren aurretik, mugimendu fimiñoena ere egin gabe pasarela ondotik **planeatuz**.  Mikel Hernandez Abaitua

Hegal hura gure hiriarren gainean zihoan **planeatzen**, ahal zutenak hari begira gelditzen ziren, harik eta hegala, mugimendu kirrinkari batekin, plazaren beraren gainera jaisten hasi zen arte.  Fernando Rey

Beraien gainean, Harry **planeatzen** ari zen jokoari gainetik jarraituz, begiak erdi itxita ea snitcharen arrastorik ikusten ote zuen.  Iñaki Mendiguren

Beharbada, ez zuen buruan pentsamendu bakarra erabili nahi, ez zuen nahi bere burutapenak airean arin **planeatzen** doan hegaztia izatea, horizonte mugagabe guztiak begien bistan, urdintasun ferekatzaile eta samurraren luze-zabal osoa, sakontasun osoa, poztasun osoa eskuragarri.  Jose Morales

### 2 irud/hed

Gizakotearen begirada mahai gainean **planeatzen** hasi zen.  Anjel Lertxundi

## planeatze *iz* hegazti bat hegoak mugitu gabe, edo aireontzi bat motorra erabili gabe, airean lerratzea.

Itsasoari begira geratu zen, kaioen **planeatze** errepikakorrek begizatuz.  Fernando Morillo



# planeta 1 iz Eguzki sistemako argizagi handia, berezko argirik ez duena, eguzkiaren inguruan haren ganik beti distantzia bertsuan dagoela biratzen dena.

Nire aurrean, iluntasuna zipriztinduz, milaka izpi argitsu zeudela, izarrak eta **planetak**, asteroideak eta kometak. **Bernardo Atxaga**

**Planetak** ez ziren zirkuluak eginez higitzen, elipseak eginez baizik; erdigune Eguzkia zuten elipseak eginez, hain zuzen! **Jon Muñoz**

Eguzki sistemako **planeta** baten sateliterat. **Jose Angel Irigaray**

Egun batez beste **planeta** edo izarbel batetarik etorritako gizon bat zure aitzinean gertatzen zauzu... **Menane Oxandabaratz**

Margolan horietan [...] beste **planeta** edo kometa batek mehatxatzen du lurra. **Xabier Olarra**

Jupiter **planeta** bere tenperaturan mantentzen den bezalaxe bere bidea eginez Marte txit beroaren eta Saturno guztiz hotzaren tartean, [...]. **Santiago Iruetagoiena**

Kapitalismoaren aldibereko arrakastak [...] mende gutxi batzuetan Lur **planeta** lohitu, Biosfera xahutu eta krisialdi ekologiko latza eragin du mundu osoan. **Iñaki Heras**

Sedna **planetak** ez du ilargirik. **Berria - Gaiak**

Handik argazkiak egingo dizkie Saturnoren eratzunei eta **planetari** berari. **Berria - Gaiak**

**Planetak**, bakoitza bere bidea eginez, 180 urtetik behin, "sinodo" deitzen zaion posturan topatzen dira: alegia, **planeta** guztiak eguzkiaren alde batetik, eta lurra beste aldean justu. **Pello Zabala**

'Hamargarren **planeta** Pluton baino handiagoa da. **Berria - Gaiak**

Onartuko didazu **planeta** horietan badirela biztanleak, Lurrean bezala? **Josu Zabaleta**

Unibertsoa eraiki zuen lehenik, eta haren bazter batean esferatxo bat ipini, **planeta** bat, halako moldez antolatua, non posible izango baitzen fenomeno guztiz bitxi eta jostagarri bat agertzea: bizitza. **Juan Garzia**

Kosmosa esploratzea, galaxia mailako frankizia bat ezagutzera ematea, ala Eguzki sistemako hirugarren **planeta** konkistatzea? milioika mundu dira, eta gainera munduok ez dira izarrak edo **planetak**, asteroideak edo kometak, baizik eta lekuak, eta ez daude kanpoko hutsune infinitu ilunean bakarrik, gehienak gure barruan daude, oroitenean jiraka... **Patxi Iturritegi**

## 2 (izenondoekin)

Era horretan bizia garatzeko baldintzak betetzen dituzten **planeta** txikiak babestuta leudeke. **Berria - Gaiak**

Gerta daiteke asteroide guztiak edo gehienak **planeta** handi baten aurka joatea. **Berria - Gaiak**

Hubble espazio teleskopioak 100 **planeta** berri atzeman bide ditu gure galaxiako izarren orbitan jiraka. **Berria - Gaiak**

**Planeta** izoztua da Saturno, eta horregatik, izugarriko presioa dago han. **Berria - Gaiak**

**Planeta** gorriko mendi, haran, krater eta dunak esploratzeko aukera ematen du mapak. **Berria - Gaiak**

Bakerrek esan zuen gaur artean aurkitutako aztarnek Marte historia garaikidean **planeta** aktiboa izan zela egiaztatzen dutela. **Berria - Gaiak**

Gorpuzkeraz, **planeta** arrotzen batetik etorritako izaki exotiko bat ematen zuen. **Oskar Arana**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **planetario**.

Hitzari buruzko zure teoria hauek, anitzetan, Ptolomeoren **planeta** -sistema oroitarazten didate. **Joan Mari Irigoien**

Gure galaxian 20.000 milioi **planeta** sistema daude eta horietan ehunka izan daitezke Lurraren tamainakoak. **Berria - Gaiak**

Izarra bera NGC 246 **planeta** -lanoan atzeman dute, Lurretik 1.800 argi urtera. **Berria - Gaiak**

## 4 irud/hed

80ko hamarkadako diskoteka batetik ateratako argi-pista batean dantza egiten duten koloretako **planetak** gara. **Sonia Gonzalez**

Protesta egin, bakean uzteko esan, ez nazazue zuen **planetan** sartu... **Iñaki Iñurrieta**

Faxisten **planetan** Bizkaia Iparraldeko Fronteko lehenengo jomuga bilakatu da. **Edorta Jimenez**

Alde egitea bere anaia kirolzale subnormalari eta bizi osoan beste **planeta** batean bizi izandako aitaren autismoari. **Unai Iturriaga**

Aitaren **planeta** ez zegoen gainontzekoon orbitan. **Unai Iturriaga**

Horrela, pixkanaka izozten joan da bere **planeta** bakarti horretan, Europako txapelketak hiru hilabeteko etena izan baitu. **Berria - Kirola**

Urruti izan ditu aurkariak, oso urruti, beste **planeta** batean, milaka argi-urtera. **Berria - Kirola**

## 5 beste izar baten inguruan haren ganik beti distantzia beretsuan dagoela biratzen den argizagia.

Lurraren antzeko tasunak dituzten **planeta** asko eta asko baitaude haien iritiz unibertsoaren luze-zabalean. **Juan Garzia**

Izar horren inguruan beste hiru **planeta** ere badira. **Berria - Gaiak**

Orain arte, aurkitutako **planeta** gehienak Jupiterren antzekoak dira. **Berria - Gaiak**

Neptunoren neurriko bi **planeta** aurkitu dituzte. **Berria - Gaiak**

**Planeta** Taurus konstelazioan dago, Lurretik 420 argi-urtera, eta milioi bat urte inguru ditu. **Berria - Gaiak**

## 6 Lurra, bizi garen planeta.

Espazioan jiraka dabilen **planeta** honetan, Asteasu, Albiztur, Zizurkil eta beste hainbat herri pausatzen diren lekuan munduratu nintzen 1951. urtean. **Bernardo Atxaga**

Poemak "Lurra" zuen izena; izan ere, **planetaren** deskribapena zen. **Juan Garzia**

**Planetak** planteatzen dituen mugen ideia, murgilduta gauden eredia eraldatzeko eragile sendo-sendo gisa agertu da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Merkataritzak jarduera guztiak hartzen ditu pixkana, eta mugak gaindituz zabalzen ditu bere sareak, harik eta **planetaren** mailako merkatu bakarra osatzen duen arte. **Koro Navarro**

**Koro Navarro**

Gezurra badirudi ere, gure **planeta** hau larrutero birtualitate eta Xerezade anorgasmikoz beteta dago. **Patxi Iturritegi**

Juduak bezala kristauak ere itxaroten ari dira, **planeta** guztia itxaroten ari da, eta asko eta asko heriotzari itxaroten ari dira. **Josu Zabaleta**

**Planeta** osoa hartzen zuen ekimen hartatik, aberastasun harrigarriak atera zituen Europak. **Koro Navarro**

**Planeta** osoaz ari garela, gosea nozitzen duten gizakien kopurua (1970-2000) urritu bada ere, emakume gosetuen proportzioa bikoiztu egin da. **Edorta Agirre**

**Planeta** osoko jakien artean hautatzeko aukera erabat zabalduko zaio patrika malguko gizaki osasuntsuari. **Edorta Agirre**

Eta horrela entretenitzen da gaztea gazte-informazioarekin bere burua janzen, gazte-**planetan** bere izena eta diru-txamarrak uzten. **Iñaki Segurola**

## 7 (izenondoekin)

Giza primatetako lau milioi urte daramagu **planeta** txiki honetan. **Luis Elberdin**

Bere bulegoan eserita egoten da, hirugarren edo zazpigarren zeruan, gure **planeta** txikiaren zuzendaritza dagoen Probidentziaren sail horretan. **Koro Navarro**

**Planeta** bidezkoago eta demokratikoago baten alde lanean diharduten hainbat gizarte-mugimendu, alderdi politiko eta kolore askotako elkarteren multzo zabal eta, askotan, kontraesankorra. **Txema Ramirez de la Piscina**

## 8 (hitz elkartuetan)

Europar ekonomiaren hazkundealdi luzea, **planeta** mailako integrazioak zabaldu zuena, hain zuzen ere, eten egin zen 1600 inguruan. **Koro Navarro**

Hozketaren eta, teknologikoki baturiko **planeta** -azaleraren gainean, garraio lasterraren bidez, edozein haragi, landare, fruitu edo lore edozein urte-sasoitan munduko edozein aldetan lor dezake orain ordaintzeko dirua duenak. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eguzki sistemako planeta (3); gure planeta (17); hamargarren planeta (9); lur planeta (12)

planeta aurkitu dituzte (3); planeta bat aurkitu (5); planeta batean bizi (4); planeta berri (5); planeta berria (4); planeta gorrian (20); planeta gorriaren (7); planeta gorriko (12); planeta gorria (12); planeta gorria bidalitako (3); planeta gorria iritsi (3); planeta gorritik (3); planeta mailako (8); planeta osoa (13); planeta osoan (6); planeta osoaren (5); planeta osoko (8); planeta osora (3); planeta sistema (6); planeta txiki (3)

pluton planeta (7); sedna planeta (3); uestzko planeta baten (3)

gure planetak (3); izarrak eta planetak (3)

**gure planetako** (5); **lur planetako** (4); **marke planetako** (4); **planetako biztanle** (3)  
**lur planetan** (7); **planetan bizi** (3)  
**lur planetara** (4)  
**gure planetaren** (4); **jupiter planetaren** (3); **lur planetaren** (6); **planetaren eratzunak** (4); **planetaren gainean** (3); **planetaren inguruan** (4); **planetaren orbitan** (4)  
**planetarik txikiena** (3)  
**lur planetatik** (10); **lur planetatik urrutien** (3)

**planetario** (*orobat planetarium*; *Euskaltzaindiaren Hiztegiari planetario agertzen da*) **1** iz zero ganga irudikatzen duen instalakuntza non eguzki sistema eta izarrak mugitzen baitira.

Javier Armentia, Iruñeko **Planetarioko** zuzendaria eta astrofisikoa. zaharren erakusketa bat antolatua da Iruñeko **planetarioan**. **Herria**  
Iruñeko **Planetarioan** 3000 espezieetik goiti badaude, nahi dituenak ikusi. **Planetariuma** oroitu eta zerbait epela sentitu zuen bular parean. **Patziku Perurena**  
Etxe barruan, etxea bera erakusten dio, **planetarium** bat gertatzen dena. **Xabier Amuriza**

**2 izond** planetena, planetei dagokiona. ik **planeta 4**.

Eta, nola Eguzkia sistema **planetario** berriaren zentroa den, hala, adimenduaren bertze argi hori diagu -eta gizona bera, azken finean- mundu berriaren zentro eta erdigune.  
**Joan Mari Irigoien**

**3 Lurrari** dagokiona.

Europa zaharrak, adibidez, arazoak ditu konponbide **planetarioei** erantzunak emateko garaian. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**eko planetarioan** (5); iruñ

planetarium ik **planetario**.

**planetatxo** iz planeta txikia.

Zera oroitaipatzen du, aitzitik (garai bateko kimikarien apaltasunaren handia!), Zerere **planetatxo**, 1801 urte berean aurkitu baitziren gure metala eta argizagi (latinez *astrum*) hori. **Juan Garzia**  
Hamabi orratz zituen, baina zenbakirik ez; zenbakien orde, **planetatxoak** zebilzkion biraka ertzean. **Iñaki Mendiguren**

**plangintza** (**491** agerraldi, **27** liburu eta **277** artikulutan) **1** iz plan edo egitasmo baten araberrako antolaketa. ik **planifikazio**.

Huna aurtengo lanen **plangintza** : [...]. **Herria**  
Denboraren **plangintza**. **Askoren artean**  
Ez da plan makala, ez da **plangintza** estrategiko makala. **Iñaki Seguro**  
Espainiako guda, izatez, Europar demokraziak desagerrarazteko eta Bigarren Mundu Gerratea hasteko **plangintza** zehatz eta birbildu baten hastapeneko urratsa zen. **Eduardo Jimenez**  
Orokorra izan beharko litzateke unibertitate ikasketen eskaintzaren **plangintza**, eta administrazioari egokitu beharko litzaioke **plangintza** horren erantzukizun handiena. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
Etorkizunera begirako **plangintza** bat. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Brady **plangintzak** nekez onbideratu zuen Mexikoko ekonomia. **Koro Navarro**  
Zer egin nahi duzuen kontatu diguzu, baina zein da hiru urterako egin duzuen **plangintza**? **Berria - Gaiak**  
**Plangintza** bat antolatua da, 530 mila familia laborantzari lotzeko, 4 urte barne. **Herria**  
**Plangintzaren** puntu nagusiak. **Berria - Mundua**  
**Plangintza** ez da uste zenuen bezain egokia: bat-batean **plangintza** ezin duzula bete oharu zara. **Askoren artean**  
Lehenengo urratsa **plangintza** bat egitea da, bildu duzun materiala nola antolatu eta erabili duzun jakiteko. **Askoren artean**  
Entrenamenduen **plangintza** egitea ez da lan erraza. **Berria - Kirola**  
**Plangintza** egiteko, hiri hondakinen gorakada handia hartu dute oinarritzat. **Berria - Harian**  
Gero, Udalak Donostiako **Plangintza** Orokorren berraztertzea onartu behar du. **Berria - Ekonomia**  
Datozen bost urteetarako **plangintza** onartu du Legebiltzarra. **Berria - Mundua**  
Gero, Udalak Donostiako **Plangintza** Orokorren berraztertzea onartu behar du. **Berria - Ekonomia**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru **plangintza** -eskema. **Askoren artean**  
**Plangintza** -eredu horri jarraitzeko honako pausoak ematea da gakoa: [...]. **Askoren artean**  
Hiru dira deskribatu ohi diren **plangintza** -motak: (1) intuitiboa, desordenatua eta analitikoa, (2) ordenatua, sintetikoa eta ideia garbiak dituen, eta (3) arrisku gutxi hartzen duena. **Askoren artean**  
**Plangintza** akatsa izan litekeela? hori gaintzeko tarte baduela? ados. **Berria - Kirola**  
Espainiako Federazioko **plangintza** aldaketa. **Berria - Kirola**  
Ikuskapenerako Informazio eta **Plangintza** Ataleko langile gehienak sinetsiak daude beren zuzendariak [...] halako tema latza duela ordutegiaren betekizunarekin. **Aingeru Epaltza**  
Nabil Kasis **Plangintza** ministroaren kasuan, [...]. **Berria - Mundua**  
Ekonomia eta **Plangintza** Ministerioi baimena zeukaten. **Iban Zaldia**

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berak egin zuen lan- **plangintza**, banatu zituen eginkizunak... **Iñaki Iñurrieta**  
Familia **plangintzarako** informazioa eman behar zaio jendeari, eta baliabideak. **Berria - Gaiak**  
Geroko industri **plangintzak** diseinatzeko lagundu nahi dio hirukoari. **Berria - Ekonomia**  
Herri erakundeek ezarri behar dituzte gizarte baten zientzia eta teknologiaren garapenerako ildo nagusiak, eta horretarako egiten dira zientzia eta teknologia **plangintzak**.  
**Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
NUPeko hizkuntza **plangintza** egiteko batzordea osatu dute. **Berria - Euskal Herria**  
«Herrialdearen beharrak» aztertu eta «kooperazio **plangintza** bat» hitzartzeko. **Berria - Mundua**  
Beste horrenbeste esan zitekeen Kazetaritza karrerako ikasketak **plangintzari** buruz ere. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Idazketa- **plangintza** egiterakoan hiru aldagai hartuko dituzu kontuan: eredu desberdinak, edukiaren balorazioa eta denbora. **Askoren artean**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aurreko plangintza** (3); **hizkuntza plangintza** (8); **hizkuntza plangintza egiteko** (4); **idazketa plangintza** (3); **informazio eta plangintza** (9); **normalizazio plangintza** (3)  
**plangintza ataleko** (9); **plangintza ataleko zuzendariak** (5); **plangintza aurkeztu** (4); **plangintza egin** (6); **plangintza egitea** (3); **plangintza egiteko** (11); **plangintza estrategiko** (4); **plangintza estrategikoa** (6); **plangintza izan** (3); **plangintza onartu** (4); **plangintza onartu zuen** (3); **plangintza orokor** (3); **plangintza osatu** (6); **plangintza zehatza** (3)  
**urteko plangintza** (3); **urterako plangintza** (4)  
**plangintzak egiterakoan** (3)  
**hizkuntza plangintzarako** (6)

## plangintzaldi *iz* plangintza batek irauten duen aldia.

**Plangintzaldi** honen helburua, beraz, euskararen erabilera areagotzea zen, euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatera iristea. Plan hori arautzen duen 86/97 dekretuak dio 2003tik 2007ra bitarteko epea izan behar duela III. **Berria - Euskal Herria**

**plangintzaldiak**, baina ez du zehazten noiz jarri behar den indarrean. **Berria - Euskal Herria**

**Plangintzaldia** amaitu zenetik urte eta erdi pasatu arren, oraindik ez dakigu ebaluazioek zer dioten. **Berria - Euskal Herria**

**Plangintzaldian** zehar ez da urrats handirik egin atal elebidunak sortzeari buruz. **Berria - Euskal Herria**

## plangintzatu, plangintza(tu), plangintzaten 1 du *ad* planifikatu.

Ekontza **plangintzatu** aitzin, Peio Frantziako enbaxadarat joan zen ofizialki matrikulatzera! **Ramuntxo Etxeberri**

### 2 (izenondo gisa)

Ez da laburragoa, hala ere, gure gainerako eskubideen urraketena: gure osasunaren hondamen **plangintzatu** zenbait kideren biziarekin akabatzeraino; isolamenduaren eta torturen areagotzea. **Berria - Harian**

## planifikatu, planifika, planifikatzen 1 du *ad* egitasmo edo zeregin baten garapena gidatuko duen plana finkatu.

Lurraldea antolatuta egiten da, eta garatu, eta **planifikatu**. **Iñaki Seguro**

Dena **planifikatuta** dago, kasualitateak ez du lekurik. **Berria - Kirola**

Estatua da, esan bezala, ekonomia jarduera erabat **planifikatzen** duena. **Iñaki Heras**

Suizidio iragarria, **planifikatua**, homeopatikoa eta patetikoa zen. **Itxaro Borda**

Paradoxa badirudi ere, bat-batean aritzea oso ongi **planifikaturiko** ekintza da bertsolariaren kasuan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Argudiatzeko estrategia bat ere **planifikatu** beharko duzu. **Askoren artean**

Historian zehar, ez dira inoiz ere hain ongi **planifikatu** etsaien hilketa sistematiakoak, direla militarrek direla zibilak. **Pello Salaburu**

Geroaldia **planifikatzeaz**. **Edorta Agirre**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Ez da prozesu naturala izan, **planifikatua** baizik. **Iñaki Heras**

Luzaro nagusi izan den ekonomia **planifikatua**. **Gotzón Garate**

Editoreek lasaitasun ekonomiko minimo bat behar dute euskal literaturaren aldeko apustu garbi eta **planifikatu** bat egingo badute. **Ana Urkiza**

Heriotza dosifikatuak, heriotza **planifikatuak** (ezbehar **planifikatuak** !), heriotza estatistikoak, ez dute esku ezagunik abstrakzioetik kanpora. **Iñaki Seguro**

Diskoia osatzen duten hamar kantuak iazko urtarrilean hasi eta abenduan burututako «lan jarraitu eta **planifikatuaren** emaitza» da. **Berria - Kultura**

Suizidio iragarria, **planifikatua**, homeopatikoa eta patetikoa zen. **Itxaro Borda**

Lurralde Sustapen **Planifikatuko** programa sendotzeko asmoa duela iragarri zuen sailburuak. **Berria - Ekonomia**

## planifikatzaile *izond* planifikatzen duena.

Goi-gorengo mahai **planifikatzaile** batetik begiratu ezker, [...]. **Iñaki Seguro**

## planifikatze *iz* planifikazioa.

Literaturan, **planifikatze** hitzak berak «beldur pixka bat» ematen duela dio Irastortzak [...] baina onena planak berak eskaintzen dituen aukerak direla uste du. **Berria - Kultura**

## planifikazio (**75** agerraldi, **12** liburu eta **51** artikulutan) *iz* 1 egitasmo edo zeregin baten garapena gidatuko duen plana finkatzea. ik **plangintza**.

Ustekabe andana harrigarri bat, bistan denez inolako proiektutatik, inolako **planifikaziotatik** etor ez zitekeena. **Juan Garzia**

Espainiako Auzitegi Nazionalak balioegabetzat eta legearen kontratatzat jotzen du Itoizko urtegia, **planifikazio** faltagatik, justifikaziorik ez duelako eta ingurumenean kalte larria eraginen lukeelako. **Eduarne Elizondo**

Hiri hau sobietarren **planifikazioaren** eredu biribila da. **Edorta Jimenez**

PLH hiriko egoitzen **planifikazioa**, PADD garapen iraunkorreko plana. **Herria**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nafarroako Gobernuak oso **planifikazio** eskasa egin du. **Berria - Ekonomia**

Ez nuen **planifikazio** berezirik egin, baizik eta neure burua pertsonaiek eramatan ninduten tokira eramatan utzi dut. **Berria - Kultura**

Aurretiko **planifikaziorik** gabe, Nafarroako bigarren hiririk handiena eraiki nahi dute. **Berria - Harian**

Gutxieneko **planifikazioa** eskatzen du horrek. **Berria - Kultura**

Hutsik gabeko **planifikazioa**, dena derrigor ondo egiteko beharra. **Berria - Kirola**

**Planifikazio** ekonomikoa ez da neokapitalismoaren ezaugarrietako bat. **Berria - Euskal Herria**

Jabier Salutregiren ustez ere, 18/98 auziak «**planifikazio** politiko-estrategikoa zuen», aurrez. **Berria - Harian**

Metodoak, berriz, antzinako herrialde komunistetako **planifikazio** zentralistetatik hartuak izaten ziren. **Koro Navarro**

**Planifikazio** genetikoa eta multzokako erosketak hobetu beharko lirateke. **Berria - Ekonomia**

Banekien askatasun antikonzeptibo eta **planifikazio** familiarren alde borrokatzen zen elkarte erdi klandestino batekoa zela. **Joseba Urteaga**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizarte mugimenduak AHTren diseinu eta **planifikazio** prozesutik kanpo geratu zirela berretsi du. Berria - Euskal Herria

Lehenengo bi terminoak (*Ordinatio* eta *Dispositio*) ez zirela irizpideak, **planifikazio** -prozesuaren faseak baizik. Santiago Iruretagoiena

Normalean, ez dira informazioa jasotzeaz ardurutzen, ez dira **planifikazio** zentroetara joaten. Luis Elberdin

Rafael Calderaren gobernuko **Planifikazio** ministro izan zen. Berria - Mundua

Gizartea zaharitzeak izango dituen ondorio ekonomiko eta sozialak aztertu ditu Ekonomia eta **Planifikazio** zuzendaritzak. Berria - Harian

Estatuko Azpiegitura eta **Planifikazio** idazkariarekin bilduko dela hurrengo astelehenean, Abiadura Handiko Trenari buruz hitz egiteko. Berria - Euskal Herria

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiri **planifikaziorako** bulego alternatiboak ordenadorearen bidez aurkeztu ditu azken urtean Pasaiarako eta Donostialderako pentsatutako proiektu urbanistikoak. Berria - Kultura

Plan berezia bukatzen denean, udalerrriaren lurralde **planifikazioaren** parte bihurtuko da. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**planifikazio ministro** (4)

**planifikaziorik gabe** (3)

## planisferio *iz* zeru esfera edo Lur esfera plano batean irudikatzen duen mapa.

**Planisferio** batean adierazita ageri ziren lorenzo eremu geografikoak. Jon Muñoz

Egizu **planisferio** subjektibo bat. Joseba Sarrionandia

## plankarta ik pankarta.

## plankton *(orobat plakton g.er.) 1 iz* itsas uretan edo ur gezatan suspentsioan dauden organismoen multzoa.

Haizeek Sahararik itsasora eramaten duten hautsa Atlantikoko **planktonaren** janaria da, eta horrek karbono dioxidoa xurgatzen du. Berria - Gaiak

Ekaitz txoriak, berriz, **planktona** jaten du, eta kate trofikoaren oinarriaren osasunaren berri ematen du horrexegatik. Berria - Euskal Herria

**Plaktona** gutxituz gero, gainera, hura jatek bizi diren landare eta animalia espezie ugari desagertzeko arriskua dagoela nabarmendu dute zientzialariek. Berria - Gaiak

**Plaktona** gutxituz gero, gainera, hura jatek bizi diren landare eta animalia espezie ugari desagertzeko arriskua dagoela nabarmendu dute zientzialariek. Berria - Gaiak

Gure arrainaren nagusitasuna ez da uste ustela, oinarri zientifikoa duen zerbait baizik; **planktonaren** gorabehera da: gure plataforma laburra eta estua da zoritzarrez, baina tropikala du flora, eta uraren temperatura, berriz, hotza; bi eragile kontrajarri horiek **plankton** berezia dute ondoriotzat, eta, bide batez, munduko arrainik hoberena. Ramon Saizarbitoria

Koralari ez ezik, **planktonari** ere egingo dio kalte azidotasanak. Berria - Gaiak

## 2 (hitz elkartuetan)

Koralak, maskordunek eta zenbait **plankton** motak itsasoko ioi karbonatuen beharra dute, euren maskorrak garatu ahal izateko. Berria - Gaiak

## plano *(orobat planu g.er.) 1 iz* lerro zuzen bat zernahi kokagunetan egon daitekeen azalera.

**Planoan**, bi punturen arteko distantziarik laburrena da zuzena. Jon Muñoz

**Plano** batean, emandako zuzen batetik kanpo dagoen puntu batetik zuzen horren paralelo bat pasatzen da, eta bat bakarra. Jon Muñoz

Puntu batetik **plano** batera egindako proiektzio bat. Josu Zabaleta

**Plano** bereko bi zuzen. Jon Muñoz

Elkar ukitzen ez zuten **plano** eta lerro paraleloak. Imanol Zurutuza

**Plano** baten eta kono baten elkartzea. Jon Muñoz

Gorputz solido oro **plano** kopuru infinitu baten gainezarpenez osaturik dagoela. Juan Garzia

Lerroa puntu kopuru infinitu batez osatua da; **planoa** lerro kopuru infinitu batez; bolumena **plano** kopuru infinitu batez. Juan Garzia

Galileok berak aukeratutako pisua zuten bolak **plano** inklinatutik eraitsi zituenean. Askoren artean

Era horretan, **plano** makurtu baten antzeko zerbait zeukan hesira iristeko. Koro Navarro

Ikuspen-ardatzaren paralelo (proiektzio- **planoaren** perpendikular) diren lerroek puntu baterantz [...] elkarretaratuz doan lerro-familia bat osatzen dutela. Josu Zabaleta

## 2 eremu, hiri, etxe edo kidekoen irudikapen grafikoa, eskalan egina.

Joan ziren, bada, gizon haiek, lurraldea zeharkatu eta marraztu zuten **planoa**, hirien arabera lurraldea zazpi zatitan banatuz. Elizen arteko biblia

- **Planoaren** puntu honetatik abiatu behar zenuke, Agerstown hemen nonbait dago eta -proposatu zidan jarraian-. Bernardo Atxaga

Ontzitegiaren **planoak** erakutsi zizkigun, non utzi beharko genituen 10.000 panfletoak barruan geneuzkan kideek jaso zitzen, eta Bilbon izango genuen gordelekuaren helbidea. Bernardo Atxaga

Presondegiko **planoa** zen; nahiko zehatza. Rafa Egiguren

Ez baitio utziko labirintoaren **plano** bat amesteari. Juan Garzia

Gelen eta lorategiaren **plano** bat egin zuen, eta atsedean hartzen geratu zen une batez, eskaileran eserita. Josu Zabaleta

Mont-Doreko **plano** bat begiratzen ari naiz Michelin gidan. Joseba Urteaga

Davidek bere seme Salomoni tenplua eraikitzeko **planoa** eman zion: ataria eta itun-kutxaren gela, biltegiak, goiko eta barneko gelak nola egin adieraziz. Elizen arteko biblia

**Planorik** gabe eraikin bat altxatzea ez da samurra; eraiki ahala **planoak** egitea are zailagoa da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

1847ko data duen **plano** bat ikusia dut eta bertan ez zen ageri ere. Monika Etxebarria

Genetikak organismoen **planoa** aztertzen du; leinu germinalak transmitituriko gene sorta batek dauka bere baitan plano hori, eta haren arabera definitzen da geroko organismoaren arkitektura. Juan Garzia

## 3 (izenondoeekin)

Gudariak Goikoetxea bere garaian atxilotu eta garbitu izan balute, traidore hark ez zizkian frankistei Bilboko defentsaren **plano** sekretuak emango. Joan Mari Irigoien

Karta eta **plano** inter-aktiboak egiten ditu, hala nola karta batetan puntu argituek erakusten dute beribil bat nondik nora dabilen. Herria

## 4 (hitz elkartuetan)

Aldameneko bi gizonak hizketan ari ziren bizi-bizi, arreta mahai gainean zabaldua zeukaten eraikin- **plano** batean jarrita. Anjel Lertxundi

Espazioa eta argia kontsideratu behar omen zituen eta distribuzio **planoak** marraztu, mobiliarioa egokitu ahal izateko. Patxi Iturritegi

## 5 zerbaiti begiratzen zaion alderdi edo ikuspuntua.

Bizitza eta heriotza batera zihoazen, **plano** banatan, eta, azken unera arte, bizitzak bizitza izaten jarraitzen zuen. Jose Morales

«Desilusioari buruz» mintzatzen da funtsean nobela bere bi **plano** horietan. Harkaitz Cano Berria - Kultura

**Plano** narratiboa trebeki aldatuz, [...]. Jon Alonso

Berak zehaztu ditu, bata bestearen ondoren, zenbait bereizte **plano** ezberdin diskurtsoaren objektuak horietan azaleratu ahal izateko. Xabier Arregi

Lan esperientzia edo egin ditugun trebakuntza ikastaroak bigarren **plano** batean geratzen dira. Berria - Ekonomia

Bestalde, bai ezkerreko ikuspuntutik eta bai **plano** nazionalen ere, Aralarrek «diskurtso ahula» egin duela dio. Berria - Euskal Herria

Baina nabarmendu behar da bi **plano** daudela: argazkietan agertzen garenak da **plano** bat; baina, bestea da atzean egiten den sukalde lana. Berria - Euskal Herria

Zeinu plastikoek, beste edozein zeinuk bezala, beren adierazpen-**planoa** eta beren eduki-**planoa** izan behar dute, eta denotaziozko eta konnotaziozko adieraziak bideratu behar dituzte. Josu Zabaleta

- **Planoen** gainezartzea: gai bat garatzen ari denean, bertsolariak nahi bezala egin ahal izango du jauzi testuan sortzen ari den fikziozko **planotik** lanean ari den egiazko esparruaren **planoa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 6 koadratze eta ikuspuntu jakin batzuetatik hartzen den irudia.

Minutuak eta minutuak igarotzen dira eta kamera geldirik dago **plano** berean. Harkaitz Cano

Film bateko **plano** batean gauza batek beste bat estaltzen badigu, guk geuk ezin dugu ezkutuan dagoen gauza ikusi. Josu Zabaleta

Une horretan kamarak bion lehenbiziko **plano** bat hartuko du. Fernando Rey

Telebista kamerak, irudien azken atzera-aurrera baten ondoren, ontzat eman du **planoa**. Anjel Lertxundi

## 7 (izenondo eta izenlagunekin)

Oheko panoramari begiratu eta argazkiak egiten hasten da, **plano** desberdinak bilatuz, handik eta hemendik. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehenbiziko orrialderako, berriz, atso hilaren **plano** erdi bat hautatua genuen. Aingeru Epaltza

Oreka hori, zenbaitetan gertuko **plano** batean azaldu ez badaiteke ere, **plano** orokor batetik hartuta erabat ulergarria dela deritzot. Harkaitz Cano

Argazki honek, **plano** orokorrean egina den arren, presondegiok teiltua hartzen du goialdeko ertzean, ez du zerurik ageri. Koldo Izagirre

Gerritik gorakoak, **plano** laburrean, eta koloretan eginak. Iñaki Zabaleta

**Plano** motzean eta mugiturik Nerea, eta atzeko **planoan**, hamaka batean etzanda, Sebas, zigarroa erretzen. Eider Rodriguez

**Plano** motzak gorputz osoko **plano** bihurtuz, gona gorria jantzi zion Nereari. Eider Rodriguez

Gorputz erdiko **plano** amerikanoa den argazkia. Harkaitz Cano

Zergatik utzi behar dugu beti sentitzen duguna hurrengorako edo bigarren **planoan**? Ana Urkiza

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahitaez jakin beharra dago **plano**-aldaketa gertatzen denean, filmatzerakoan denborazko eten bat egin dela nahi duela esan horrek. Josu Zabaleta

Bazinek ere arrazoiz mantendu ahal izan du **plano**-sekuentziak hainbesteko errealitate-sentipena ematen duela non errealitatearen oso irudikapen modu berezi bat gertatzen baita hartan. Josu Zabaleta

Kameratik filmagairako distantziaren eta filmagai horren itxurazko tamainaren arteko lotura ere azaltzeko tipologia bat prestatu da, guztiz enpirikoa eta aski arrunta, **plano**-tamainen eskala deitua. irudiak grabatzerakoan enkoadratzea, **plano** motak, muntaketa eta trikimailuak erakusten ditu, adibide grafikoekin. Josu Zabaleta

## 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Enfoke-**planoa** hurbiltzeko edo urruntzeko zorian. Jon Alonso

## • 10 izond laua.

Irudi hori **planoa** ala kurboa den batere garrantziarik ez duen gauza da. Josu Zabaleta

Mirail **plano** birakor bat, orientazino bat edo bertze har zezakeena. Joan Mari Irigoien

Eremua espazio sakon bat da, baina gainazal **plano** batean irudikatua. Josu Zabaleta

Hiru dimentsioko espazioa bi dimentsioko espazio baten (gainazal **plano** baten) gainera proiektatzen da, arau jakin batzuk betez. Josu Zabaleta

Irudi **plano** bat baita, irudi zinematografikoa kasu honetan. Josu Zabaleta

Bi modutara pertzibitzen dugu aldi berean irudi hori: azalera **plano** baten zati bat bezala, eta hiru dimentsioko espazioaren zati bat bezala Josu Zabaleta

## 11 (adizlagun gisa)

"Erliebean" ikusten ez dena (igeltsuzko horma oso leun bat, adibidez) **plano** ikusiko da. Josu Zabaleta

Ikusmen normalean, beraz (museo batean bi begiez koadroei, haien aurrean mugitzen ari garela, begiratzen diegunean, adibidez) **plano** ageri dira irudiak. Josu Zabaleta

## 12 lehen plano

Argazki pertsonalagoak, **lehen plano**a bilatzen zutenak. Bernardo Atxaga

Argazkia **lehen plano** bat zen. Iñaki Iñurrieta

Koadroak, **lehen planoan**, sutan zegoen or zuri bat erakusten zuen. Joan Mari Irigoien

Jean Epsteinek lasai esan zezakeen "zinemaren muina" zela **lehen plano**a. Josu Zabaleta

Gogoratu, adibidez, Kane-ren ahoaren eta bibotearen **lehen plano** izugarria, Wellesen filmaren hasieran, "Rosebud" esaten. Josu Zabaleta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste plano batean (3); bi plano (13); bigarren plano batean (3); gainazal plano (4); lehen plano (6)

plano aldaketa (8); plano berean (8); plano ezberdin (4); plano makurtu (3)

lehen plano (14); lurraldearen plano (3); plano egin (3); plano eman (4); plano eman zion (3)

lehen planoak (7); planoak egin (3)

bigarren planoan (17); lehen planoan (34); lehenengo planoan (3)

lehen planoaren (5)

planoari buruz perpendikular (3)

lehen plano (6)

## planotasun iz plano denaren nolakotasuna. ik lautasun.

Bi begien bidezko ikusmenean, edo mugitu bitarteko ikusmenean, askoz ere informazio gehiago dago irudiaren **planotasunaz**: irudiaren baitan perspektiba aldaketarik ez dela erakusten dute begiaren mugimendu guztiak: erretinako bi irudien artean ez dago inolako desberdintasunik. Josu Zabaleta

Begi bakar finko batentzat, hiru iturburu izan litezke irudiaren **planotasunari** buruzko informazioa eman liezaiketenenak: irudi horren koadroa eta euskarria; irudiaren beraren azalera (ehunduraduna); irudikapen analogikoaren akatsa. Josu Zabaleta

## planta<sup>1</sup> (orobat *plantta* g,er.) 1 iz adkor itxura.

Zuk filosofo izan behar zenuen, edo historialari, arte horietarako behar den talentua eta **planta** badauzkazu. Jon Alonso

Zuen pentsaerarekin interesatuta ematen du, baina **plantak** besterik ez dira. Rafa Eguiguren

Kokarekin ere horrela ibili zen, ez, ez, ez zait gustatzen, baina gero **plantak** utzi eta sudurra bazuela erakutsi zigun. Karlos Zabala

Gezurretan aritzen zen, gainera; gizon arriskutsuaren **planta** hartzen zuen. Karlos Zabala

Nire **planta** ikusita, barre egiten zuen Asierrek. Jokin Urain



Klara zuzunak zetan zetan gainean, utzi unen **planta** berean. **Aingeru Epaltza**  
Labana hartzek ere beldurra ematen diola esango nuke, hori **planta**! **Joxemari Urteaga**

## 2 (izenondoekin)

Neurtzen ari delakoa itxura baizik ez da, **planta** hutsa. **Jon Alonso**  
Ez ote zen den-dena **planta** huts izango? **Karlos Linazasoro**  
**Planta** txarra daukazu, urperatze batetik salbatutako bakarra dirudizu. **Koro Navarro**  
Espantuka lotu zen nire **planta** eskasa ikustean. **Aingeru Epaltza**  
Ileak astindu zituen, burua lehorturik **planta** hobe hartuko zuelakoan. **Unai Iturriaga**  
Potzolozen **planta** baldar eta harroputza etorri zitzaizkan gogora. **Aingeru Epaltza**  
Egundo ez dut ikusi **planta** ederragoan. **Mirentxu Larrañaga**  
Erreka tzar baterat eroria eta handik **planta** hitsean aterai. **Janbattitt Dirassar**  
Hain zinen gazte, hain eder, hain **planta** oneko eta dotore. **Eduardo Matauko**  
Feliperen itxura **planta** onekoa iruditu zaiou kamerari. **Anjel Lertxundi**  
Itxuraz, **planta** ederreko beltzaran interesante horietako bat zen, bere ile goizegi urdinu eta guzti. **Anjel Lertxundi**  
Gaztea da, **planta** dotorekoa, jakintsua oso. **Joxerra Garzia**  
Itsasoz beste aldeko gazte **planta** onekoak eta ederrak erosten zituztela. **Santiago Iruretagoiena**  
Sexu-marketing hutsa! zine pornoan ikasitako **planta** ustelak gehienez ere! **Patxi Iturritegi**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizona ez omen du egiten bi kanak... baina bai gizon-**planta** ederra, horregatik! **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Enperadore Horiak zenbat eta gehiago zaldiari begiratu orduan eta zaldi **planta** txikiagoa aurkitzen zion eta pintatzaileak burla egin nahi izan ziolakoan, legezko berrogei zigorrada emateko agindu zuen. **Felipe Juaristi**  
Anarteraino agertutako jendetasunari eutsi eta pasatzera utzi zidan ostatuko atea ireki zuelarik, baina lagun **plantak** uhertuak zitzaizkion. **Aingeru Epaltza**  
Orduko serio-**planta** berbera ageri zuen. **Juan Garzia**  
Hortik Hermannen gogor **planta**, arretan arrena zela frogatu beharra. **Anjel Lertxundi**  
Haserre **plantak** erabat utzi gabe, jarrera profesionalagoa hartu zuen. **Aingeru Epaltza**  
Kokotsean ebakiondo bat zuen, eta nazi-**planta**. **Juan Garzia**

## 4 **planta** egin (47 agerraldi, 17 liburu eta 9 artikulutan) plantak egin.

Baina biek **planta egin** behar zuten pixa egitera joanak zirela hara, polizia salaketa saihestearren. **Pello Lizarralde**  
Harreman baten aurrean gizon gogorraren **planta egin** nahi nuke, eta ez gizon dardaratiarena, telefonoari so dagoenarena. **Lander Garro**  
Augustek eta Augustinek hari bizkarra emateko **planta egiten** zuten. **Karlos Zabala**  
Silva jauna, uste dut hemen oker bat dagoela, eta berak begiratzen duelako **planta egin** eta baietz esango du. **Jon Alonso**  
Segur dagoenaren **planta egiten** du gainera. **Koldo Izagirre**  
Dena **planta egite** hutsa da, Xabierrek ez daki zer esan behar diodan ere. **Koldo Izagirre**

## 5 **plantak egin** (198 agerraldi, 73 liburu eta 7 artikulutan)

Jendea **plantak egiten** hasten da, behin baino gehiagotan ikusi dut. **Karlos Zabala**  
-Baaai -erantzun zion Malfoyk, adoretuaren **plantak eginez**. **Iñaki Mendiguren**  
-Eta zergatik **egin** zituen hildakoaren **plantak**? -esan zuen amorruz-. **Iñaki Mendiguren**  
Florenek ohea harrotu du eta bertan etzan da, esnatu berriaren **plantak eginez**. **Eider Rodriguez**  
Neskaren besoari eutsiz beti ere, erne eta adi dagoenaren **plantak eginez**. **Joxe Austin Arrieta**  
**Plantak egiten** egiten nintzen kontsulta-liburuek eta koadernoek enbarazu egiten zidatela, idazluma ahoan jarri eta harengana hurbildu nintzen. **Karlos Zabala**  
Bolada hartan, gogoan dut, garagardoa gogoko nuelako **plantak egiten** nituen. **Mirentxu Larrañaga**  
-Zaude isilik, Oliver, lotsarazi egiten gaituzu-eta -esan zioten batera Fred eta George Weasleyk, gorritzen ari zirelako **plantak eginez**. **Iñaki Mendiguren**  
Egunkaria irakurtzeko **plantak egiten** ari zen Ruche jauna. **Jon Muñoz**  
Ez ulertzeko **plantak egin** zituen. **Ramon Saizarbitoria**  
Nire poema batzuk irakurtzen ari zela, urduritasun-**plantak egiten** hasi eta kendu egin nion koaderno. **Karlos Zabala**  
Sorbaldak harrotu zituen, ez-ulertu **plantak eginez** bezala. **Mirentxu Larrañaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**planta ederra** (4); **planta ederreko** (5); **planta ederreko gizon** (3); **planta egin** (12); **planta egin behar** (3); **planta egitea** (8); **planta egitearen** (4); **planta egitearen aurka** (3); **planta egiteko** (13); **planta egiten** (17); **planta egiten du** (3); **planta egiten zuen** (3); **planta egiten zuten** (3)

**planta hartzeko** (3)

**planta oneko** (5); **planta onekoa** (3); **planta txarra** (3); **planta txarrean** (3)

**ezjakinaren plantak** (3); **zegoelako plantak** (3); **zirelako plantak** (3)

## planta<sup>2</sup> 1 iz oinplanoa.

**Planta** karratukoa da patioa, bospasei metro luze-zabalean, sei solairutan gora egiten duen prisma ortogonal baten negatiboa. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 solairua.

Eta begiz jota neukala etxetxo txukun bat, **planta** bakarrekoa, Gipuzkoako Goierri. **Txillardegi**  
Solairu nagusia eremu publikoa izango zen: despatxua, harrera-gela, saloi-biblioteca, jantokia, sukaldea eta officea; eta goiko **planta** familiaren bizitza pribaturako txokoa: sala, jantzitokia, logelak, bainugelak **Patxi Iturritegi**

## 3 industria-instalazioa.

Lana aurrezten duten ondasunak (robotak, ordenagailuak eta **planta** automatizatuak, besteak beste). **Iñaki Heras**  
Boroan ziklo konbinatuko **planta** egitearen aurka bozkatu zuten erreferendumeko parte-hartzaileen %98k. **Berria - Euskal Herria**  
Horregatik erabaki zuten libiatuen **planta** egitea. **Berria - Euskal Herria**  
Produktu berri bat merkaturatzea edo beste ekoizpen **planta** bat irekitzea. **Iñaki Heras**  
Gipuzkoan bi errauste **planta** egingo dira. **Berria - Euskal Herria**  
Pintura-**planta** hemen geratuko da, berrogeita hamazazpitik gorakoak aurrejubilatuko dituzte, eta gainerakoak kalera. **Jon Alonso**  
Malgutasun horri erantzun zorrotzegia egiten badiote langileek, badute **planta** itxi eta beste norabait eramatea produkzioa. **Iñaki Heras**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arizetako errauste planta** (6); **bigarren errausketa planta** (3); **bigarren errauste planta** (26); **biogas planta** (3); **biometanizazio planta** (3)

**errausketa planta** (18); **errauste planta** (310); **errauste planta bat** (15); **errauste planta egin** (4); **errauste planta egitea** (4); **errauste planta egiteko** (7); **errauste planta eraiki** (9); **errauste planta eraikiko** (4); **errauste planta eraikitzea** (6); **errauste planta eraikitze** (11); **errauste planta inposatu** (3); **errauste planta itzea** (3); **errauste planta jarri** (3); **errauste planta jartzea** (6); **errauste planta jartzeko** (9); **errauste planta** (8)



**ako planta** (3); garoñ

**planta bat eraikitzea** (3); **planta donostian jartzea** (3); **planta eraiki** (10); **planta eraikiko** (4); **planta eraikitzea** (9); **planta eraikitze** (16); **planta etxetik** (3); **planta inposatu** (3); **planta itxi** (7); **planta ixtea** (4); **planta jaizubian** (3); **planta jarri** (4); **planta jartzea** (6); **planta jartzeko** (14); **planta martxan** (3); **planta modernoek** (3); **planta non egingo** (5); **planta non eraiki** (4); **planta non eraikiko** (4); **planta non jar** (3); **planta non jarri** (12); **planta non jarriko** (3); **planta nuklearraren** (4)

**tratatzeko planta** (4); **txingudiko errauste planta** (8); **ziklo konbinatuko planta** (8)

**errauste plantak** (136); **errauste plantak justifikatzeko** (3); **errausteko plantak** (4); **gipuzkoako errauste plantak** (9); **haserre plantak eginez** (3); **hildakoaren plantak** (3); **plantak egin** (51); **plantak egin arren** (3); **plantak egin behar** (4); **plantak egin ditu** (5); **plantak egin nituen** (4); **plantak egin zituen** (13); **plantak egin zituzten** (3); **plantak eginez** (47); **plantak egingo** (4); **plantak egitea** (10); **plantak egiteari** (3); **plantak egiteko** (7); **plantak egiten** (70); **plantak egiten hasi** (6); **plantak egiten zituen** (8); **plantak eraiki** (5); **plantak justifikatzeko** (3); **serio plantak** (3)

**errauste plantan** (7); **plantan egin** (4); **plantan egiten** (3); **plantan eman** (12); **plantan eman nahi** (3); **plantan ematea** (5); **plantan emateko** (20); **plantan ezarri** (11); **plantan ezarria** (4); **plantan ezarriko** (3); **plantan ezartzeko** (11); **plantan ezartzen** (3); **plantan jarri** (3); **plantan jartzen** (5)

**errauste plantarekin** (6)

**aritzetako errauste plantaren** (4); **bigarren errauste plantaren** (7); **bigarren plantaren** (3)

**errausketa plantaren** (7); **errauste plantaren** (142); **errauste plantaren alde** (7); **errauste plantaren aukera** (3); **errauste plantaren aurka** (23); **errauste plantaren aurkako** (29); **errauste plantaren auzian** (3); **errauste plantaren kokagunea** (4); **errauste plantaren kokalekua** (6); **errauste plantaren proiektua** (9); **errausteko plantaren** (3)

**plantaren alde** (7); **plantaren aukera** (3); **plantaren aurka** (28); **plantaren aurka agertu** (4); **plantaren aurka bozkatu** (3); **plantaren aurkako** (36); **plantaren auzian** (3); **plantaren behin betiko** (3); **plantaren inguruko** (3); **plantaren kokagunea** (4); **plantaren kokalekua** (8); **plantaren kokalekua erabakitze** (4); **plantaren proiektua** (10); **plantaren proiektuak** (3); **plantaren proiektuaren** (3); **txingudiko errauste plantaren** (15); **txingudiko plantaren** (3)

**errauste plantari** (17); **errauste plantari buruzko** (5)

**errauste plantaz** (4)

**errauste plantei** (10); **errauste plantei buruz** (5); **errauste plantei buruzko** (4)

**errauste plantek** (49); **errauste plantek ez** (4); **errauste plantek sortzen** (3)

**errauste planten** (130); **errauste planten alde** (3); **errauste planten aldeko** (8); **errauste planten arriskua** (3); **errauste planten aurka** (17); **errauste planten aurkako** (43); **errauste planten inguruan** (11); **errauste planten inguruko** (4); **errauste planten kontra** (3); **errauste planten kontrako** (6); **eta errauste planten** (4); **gipuzkoako errauste planten** (8); **planten alde** (4); **planten aldeko** (8); **planten arriskua** (3); **planten aurka** (17); **planten aurka egingo** (3); **planten aurkako** (44); **planten aurkako herri** (5); **planten aurkako mediku** (6); **planten aurkako plataformen** (3); **planten aurkako taldeak** (3); **planten inguruan** (11); **planten inguruko** (4); **planten kontra** (6)

**errauste plantetan** (5)

**errauste plantez** (3)

## plantagabe *izond* itxuragabea.

Adineko emakume batek laket izan zitzakeen dohanen artean [...] denetaz biluzik zen gure Ximurra, inor bazen-eta, zakarretan zakarra eta **plantagabeetan** **plantagabeena** gure inguruko jende larri guztiekin. **Aingeru Epaltza**

## plantakera *iz* egoteko era.

Jokeran, **plantakeran**, keinuetan, Rufinoren kopia zehatza zan, hirurogeta hamar urte gitxiagogaz. **Xabier Amuriza**

## plantanxka *iz*

Biak **plantanxka** lanean hasi zirelarik, erran nahi baita 4/5 asteren buruan, lanik gabe gelditu ginen, ez dakit zergatik. **Marzel Etxehandi**

## plantarazi, plantaraz, plantarazten du *ad* ezarrarazi.

Ez zuen burutik kentzen ahal felagatarik ere ez zen musulman bat nola arrastatu zuten Palestroan: jejenaren suplizioa **plantarazi** zioten, larruzko zintaz kaskaka jo, ukabil eta ostikoka zitzikatu. **Itxaro Borda**

Miliun bat familien **plantarazteaz**, axolatzen zen plan bat bazen 2003-an. **Herria**

## plantatu, planta, plantatzen (*orobat palantatu g.er.*) 1 da *ad* jarri.

Beti bezala, gizonak **plantatu** ginen eskualde batean, emazteak bestean. **Daniel Landart**

Ohantzearen parean **plantatu** zen. **Itxaro Borda**

Eta nor ikusten dut auto hartan, gibelego jartoki batean **plantatua**? **Janbattiit Dirassar**

Starsky gainean **plantatu** zitzaion: [...]. **Itxaro Borda**

Nako sutondoan **plantatzen** zen, burua apal eta begiak ezkel, sukaldeko izkina orotara hedatuz. **Itxaro Borda**

Mahai aitzinean **plantatzen** naiz eta lehen aldikotz jartzen betoinezko jarraulcian. **Filipe Bidart**

Autobusaren ordua iragana baita, gosturik hoberenean patarra jautsirik, **plantatu** naiz errepide bazterrean, eri pototsa zero urdinari buruz zuzendua. **Piarres Aintziart**

Magali berriz etzanik **plantatu** zen. **Janbattiit Dirassar**

Armarri zaharraren azpian zutik **plantatu** eta errime hasi zen kantatzen. **Joseba Sarrionandia**

Bai eta negarrez **plantatu** baratzeko murru bazterrean. **Janbattiit Dirassar**

Marsellako geltokitik ateratzean, oraino iluna baitzen, hiriko argiei so **plantatu** nintzen harrizkoak diren bi lehoi alimale batzuen ondoan jarririk. **Janbattiit Dirassar**

Muslariet erran lezakete hordegoka **plantatzeko** moldea. **Herria**

Orduan, hatsa hartu zuen, lasaturik, eta berriz pausuan **plantatu** zen. **Elena Touyarou**

Orduan, eskolako haur guziak ene kontra **plantatu** ziren! **Menane Oxandabaratx**

## 2 irud/hed

Biriatuko mugan, greban **plantatu** horietarik andana batek urririk pasarazi ditu autoak. **Herria**

-Bai, laborantzian **plantatuko** naiz. **Daniel Landart**

Abiadura handian diruz okituko zen, herrira itzuliko gero, eta Maritxu dendari gaztearekin ezkondurik, aitaixiren etxalde abandonatuan laborantzian **plantatuko**. **Itxaro Borda**

Haur nintzaneko, aita erranik / ardiak goberna nitzan, / **plantatu** nintzan artzaintzan. **Pello Salaburu**

Aitatxi, Beñat De Rosteguy, Jutsin sortua eta Bordeleko aldean **plantatua** mahastizain. **Herria**

Holako saila pikoan ezarria dute jakintsunek indargai mota berri bati **plantatzeko**. **Herria**

François Hollande ari da ahal bezala denen arteko batasuna begiratu nahiz bainen biziki lan zailari **plantatua** da. **Herria**

## 3 kokatu.

Tamanrasset herrian **plantatzen** da 1905-ean, duela ehun urte xuxen. **Herria**

Duela 30 urte, Donibane Lohizunen ere **plantatu** zen [Fagor], mugaz hunaindirat hedatzeko bere salpenen sarea.

## 4 du *ad*

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitzinean plantatu** (4); **so plantatu** (5); **so plantatu nintzen** (3)

## plantatze *iz* kokatzea.

Jendeak desmarxta orokor batean lagundu beharko ditu beren urrats desberdinetan: **plantatze** xede, sozietate egite, edo beste..., formakuntza horietan ekonomiko sargia baliatuz berezikiago. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**plantatze xede** (4)

## plantazio (*orobat plantazione g.er.*) *iz* sail edo eremu landatua.

**Plantazioa** aspaldiko hilabete haietan zeharo abandonatuta zegoelako zurrumurruak ere ez gintuen ernarazi. **Joxe Austin Arrieta**

Halaxe gertatzen da erauzketa-industrian, eta orobat **plantazioetan**, horixe baita garapen-bideko herrialdeetan eskaintza masiboki kontzentratua dagoen sektore bakarra.

**Koro Navarro**

Paper legalez ari naun... **plantazioko** paperez. **Xabier Paya**

Siziliako siriar **plantazioetako** esklaboek K.a. bigarren mendean egindako matxinada zeloteak **Iñaki Mendiguren**

## plantazione ik plantazio.

## plante *iz* plantoa.

Alcalan **plante** bat egin genuela gogoratzen dut, kide bat isolamendura eraman zutelako. **Jokin Urain**

Alcalako hori, nik parte hartzen nuen hirugarren **plantea** izango zen, laugarrena agian, aurrekoak Herreran egin genituen. **Jokin Urain**

1986ko martxoa zen, Herrerako isolamenduan zegoen kide bat jo egin zuten kartzelerok, eta gauean ziegetara joateko orduan egin genuen **plantea**, isolamenduan zegoen kidea modulura itzuli arte ziegetara ez ginela igoko esanez. **Jokin Urain**

## planteamendu (*orobat planteamentu g.er. eta planteiamendu g.er.*) *iz* planteatzea.

Ondorioz, hainbat **planteamendu** izan dezakegu zientziaren ontologiak. **Askoren artean**

Arazoaren **planteamendua**. **Iñaki Mendiguren**

Problema hor dago, beraz, eta problemaren **planteamendu** egokia asmatzea izango da kontua. **Joxe Azurmendi**

Borrokaren **planteamenduan** bertan, bi taldeen arteko ezberdintasunak agerian gelditzen dira. **Eduarne Elizondo**

**Planteamendua** razionalki egin eta razionalki eztabaidatu. **Joxe Azurmendi**

Doktrina marxista erabat kritikoa da sistema kapitalistaren **planteamendu** eta emaitzekin. **Iñaki Heras**

Platonen zein Aristotelesen **planteamenduetan**, etika eta politika banatu ezinezkoak dira. **Askoren artean**

Haurraren egitura kognitiboa aztertzeko [...] ikuspegi berri honek hautsi egin zuen Aristotelesengandik jasotakoaren ohiko **planteamendu** klasikoa. **Askoren artean**

Zenbateraino den komenigarri supraunitateak osatzea edota Estatu barruan **planteamendu** autonomistak onartzea. **Bernardo Atxaga**

Esan dudan kezka edo **planteamendu** ideologiko horretan ere kontzeptu zentrala, irudi konkretu eta erreferentzia zentrala, Pasaia izango da, bere bizitxearekin eta jendeekin. **Koldo Izagirre**

Egitura bera ere ez baita ohikoa, hau da, hiru zati nagusiz - **planteamendua**, korapiloa, askaera- osatua. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**planteamendu berria** (3); **planteamendu egokia** (3); **planteamendu komuna** (3); **planteamendu komunak dituztela** (3); **planteamendu politiko** (4)

**egindako planteamendua** (4); **gure planteamendua** (5)

**planteamenduak egin** (3)

## planteamentu ik planteamendu.

## planteamolde *iz* planteatzeko moldea.

Eta zentzuz egiteko, mugatu egin behar da aurretik, zein marko edo lekutan, zein **planteamolde** edo posiziotatik, doi-doi zer eztabaidatu nahi den. **Joxe Azurmendi**

Beharbada garaiko giro eta **planteamolde** esentzialisten propioa da "erlijiositate" orokor hori. **Joxe Azurmendi**

**Planteamolde** hauetatik kanpoan geratzen da Mirande; hori da Miranderen berezitasuna euskal pentsamenduan. **Patziku Perurena**

## plantearazi, plantearaz, plantearazten du *ad* planteatzera behartu.

Abiapuntu horrek auzi berriak **plantearazten** ditu: (i) teoriaren egiturei buruzko proposamen desberdinen aldatzea eta ebaluatzea zientziaren arazo filosofiko jakinen azterketan, (ii) teoria zientifikoen arteko erlazioen tipologia ezartzea: zein da, adibidez, partikulen mekanika klasikoaren eta erlatibitatearen arteko erlazioa? **Askoren artean**

## planteatu, planteate, planteatzen du *ad* arazo, eragozpen edo kideko bat azaldu edo gogoan hartu, hartaz mintzatzeko edo hari aterabide bat aurkitzeko.

**Planteatu** bakarrik egingo ditut, adibide antzera. **Joxe Azurmendi**

Nik, artean, gai hori ez nuen **planteatu** ere egin. **Ana Urkiza**

Hirugarren elkarizketan [...] lehenengo aldiz **planteatzen** du gaiztaren arazoa, gaztetandik hainbat buruhauste eragin zizkiona. **Imanol Unzuurrungaga**

Beste arazo batzuk **planteatuko** ziren logika eta epistemologiaren aldetik. **Askoren artean**

Arazo hori argitu baino lehen beste bi **planteatuko** ditugu: [...]. **Askoren artean**

Eztabaida honen xpanian problematika sakonago bat dago, Platonek jada bere *Gorgias* elkarrizketan **planteatu** zuena: nola itzuri errealitatearen esklabotasunari jendetzaren tiranian erori gabe. **Askoren artean**

Hiru aukera **planteatu** dira azkenean. **Pako Aristi**

Errepublikanoak beren ekuazioak honela hasten dira **planteatzen**: "Demagun n=gizon zuria". **Xabier Olarra**

Izan ere, Leibnizek logika kalkulatu gisa **planteatzen** du eta, horretarako, bi pauso eman behar direla aldarrikatzen du: [...]. **Askoren artean**

Maimonen askotariko irakurketak **planteatu** ahal izate hutsa interesgarria da oso. **Xabier Kintana**

Oso modu serioan **planteatu** beharko genuke hartu behar lituzkeen neurriak hartzen ez dituen Gobernu batekiko elkarlana. **Jokin Urain**

Dirua eskastean atraku bat **planteatuko** zuten eta iraunen horrela harrapatuak izan arte. **Itxaro Borda**

Garapen iraunkorrak **planteatzen** du giza jarduerak ez gaintitzea inguruneak duen karga ahalmena. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Beharbada ez gara gure bizimoduaren aldaketa sakonak **planteatzen** ausartuko. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Hori baino misterio handiagoa **planteatzen** du garunak. **Irene Aldasoro**

Edozertarako prest nongoen, baita umeak izatearena **planteatzeko** ere. **Anjel Lertxundi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arazoa planteatu** (4); **aukera planteatu** (4); **defentsa planteatu** (3); **proposatu edo planteatu** (3)

**galderak planteatzeko** (3)

**arazoa planteatu** (4); **aukera planteatu** (4); **defentsa planteatu** (3); **planteatu ere egin** (3); **proposatu edo planteatu** (3)

**galderak planteatzeko** (3)

**arazoa planteatzen** (3); **arazoak planteatzen** (3)

planteiamendu ik **planteamendu**.

**plantigrado** *izond/iz* ugaztunez mintzatuz, oinazpi osoa lurrean jarriz ibiltzen dena.

Animalia **plantigrado** ugaztuna, edentatuen taldekoa, jaioterriz afrikarra. **Lopez de Arana**

Lindak hartza besakatu zuen eta harekin borrokan ari zelako itxurak egiten zituen, baina hezleak **plantigradoaren** sudurrera lotutako soka bati tiratzen zion etengabe.

**Koro Navarro**

Txistu hots batek, marmota batenak edo, lau hanketara itzularazi zuen **plantigradoa**. **Aingeru Epaltza**

plantila ik **plantilla**<sup>1</sup>.

**plantilla**<sup>1</sup> (*orobat plantila*) **1** iz enpresa edo erakunde bateko langile finkoen multzoa.

Biharamunean ere lurretara joan behar izan nuen, telebistako **plantillan** alta hartzeko paperak izenpetzera, telebistako pertsonal buruarekin. **Joxerra Garzia**

Batzuk datu hotzak dira, **plantilla** organikotik, nominetatik edo haien gaixo-agiri edo opor-orrietatik atereak. **Aingeru Epaltza**

Lortuko balute, 16 txirindulariko **plantilla** izango luke Kaikuk. **Berria - Kirola**

Ligako **plantillarik** onena dauka Valentziak, eta neurketa orekatua jokatu genuen. **Berria - Kirola**

EHUren beste erronka bat: Administrazio eta Zerbitzuetako **Plantila** (AZP) handitzea. **Berria - Euskal Herria**

Epaileek bertan behera utzi dute Iruñeko Udal **Plantilla** Organikoa. **Berria - Kirola**

**2** (hitz elkartuetan)

1985eko udazken hartan, langile **plantilla** eraberritu eta han abiatu ziren bakoitza berean. **Pello Zabala**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**zerbitzuetako plantilako** (3)

**ertzaintzaren plantilla** (5)

**zerbitzuetako plantillako** (4)

**plantilla**<sup>2</sup> iz txantiloia.

Hasierako kaosetik koherentziatzeko izpi batzuk heldu zitzaizkionean, **plantilla** hartu eta kurba zikloide bat marraztu zuen planoaren gainean. **Patxi Iturritegi**

**planto** **1** iz egoera berean dauden edo lan egiten duten pertsonen protesta-geldialdia. ik **iplante**.

Horieta bat Jamaikako indiarren **plantoa** izan zen. **Martin Anso**

Antzerakoxe **planto** batekin eten nituen harmonia ikasketak ere: baina, hori bai, lan pare bat aurkeztu norgehiagokan eta, lehen saria irabaztean, banekien harmonia-lanetan ongi nenbilena. **Pello Zabala**

Egun bateko **plantoa**. **Berria - Euskal Herria**

**Planto** modukoa behar omen zuen modulu bakoitzeko ekimenak, eta ziegara igotzeko orduarekin batera patioko zoru grisean ipurmasailak paratu eta txapadunek eraman gintzaten bultzatuko. **Lander Garro**

Lehen zigorrak jaso dituzte **plantoa** egiteagatik. **Berria - Harian**

Huelvako Estudiantes taldeak bere jokalarri guztiak botako ditu, Superligako azken jardunaldian Bartzelonaren aurka egin zuten **plantoagatik**, eta Kopari uko egin dio.

**Berria - Kirola**

«Hauteskunde **plantoa**» proposatu die Aralarrek alderdi abertzaleei. **Berria - Euskal Herria**

**2** *adlag* geldirik.

Eta hori ere erdibidean **planto** gelditzen dela dirudi, bigarren jira 13tik 24rako ez baitu aipatu ere egiten. **Pello Zabala**

Ikusten dudanean, gogoia etortzen zait **planto** esateko, ez dut jokatzeko. **Monika Etxebarria**

Otoruari **planto**! **Berria - Kirola**

Herenegun eginiko **plantoaren** eta atzo iragarritako txandakako itxialdiaren bidez, «borroka dinamika iraunkorrari» hasiera eman diola iragarri zuen atzo EPPK-k. **Berria - Harian**

**3** *planto egin* *adkor* gelditu, aurrera ez egin.

Nik aurreneko hartaldian sentituko dudana baino ez dut pentsatu nahi, zioen, gauzak hobeto ikusten direla; hortik aurrera **planto egingo** dut, hor gelditu, urak darabilen ohol bat bezala. **Pako Aristi**

Uztailaren 27an hartu zituzten tertzioek lehenengo herri nagusiak: Beasain eta Oartzun; azken honetan **planto egin** behar izan zuten nafarrek, Irun eta Donostiako erresistentziak gogor eutsi baitzien. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Halako batean **planto egin** beharra zagon, tinko eutsi behar zaion, eta ez dinagu atzera egin behar ezta zentimetro bakar bat ere. **Joxemari Iturralde**  
Orduantxe **egin** behar nukeen **planto**. **Oskar Arana**

#### 4 protesta-geldialdia egin.

Klubak euren fitxa ordaintzen ez zielako **egin** zuten **planto** Estudianteseko jokalariek. **Berria - Kirola**

Atzo eguerdian atera ziguten txitxarro erdi zapatu erdi maskalak gaina hartu zion gure pazientziari, eta **planto egin** genuen. **Anjel Lertxundi**

Euskaltegi homologatuek **planto egin** diote Eusko Jaurlaritzari. **Berria - Harian**

Gerora begira autogintza enpresen «xantaiaren aurrean» **planto egiteko** unea dela uste du Martinek, eta erronka bota die. **Berria - Ekonomia**

Alderdien Legeak dakarren demokrazia eza salatzeke, hauteskunde kanpainako egun batean **planto egitea**. **Berria - Euskal Herria**

Lehen taldeko jokalaririk ez zen agertu hitzordura, **planto egin** zioten klubeko zuzendaritzaren gonbidapenari. **Berria - Kirola**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**planto egin** (17); **planto egin genuen** (3); **planto egingo** (3); **planto egitea** (5); **planto egiteko** (4)

**plantoa egin** (4); **plantoa egitea** (4)

## plantoiz hitzordu bat kale egitea.

Zergatik eman ote digute horrelako **plantoia**? **Jon Arretxe**

## plantoso izond adkor itxurosoa.

Arraioa! Zöerekin dagoen bizarduna gizon **plantoso** da. **Patxi Iturritegi**

Barrara inguratu eta Keler bat eskatu dio zerbitzari beltzaran **plantosoari**. **Patxi Iturritegi**

Idazlea gezurteroa da, poeta "o fingidor" da, **plantoso** bat. **Iñaki Iñurieta**

## plantta ik planta<sup>1</sup>.

## plantxa<sup>1</sup> iz 1 lisagailua, lisaburdina.

Lurrunezko Moulinex **plantxa** zuen errosia, eta duda egin nuen ea euskarria aski sendoa ote zen. **Jesus Mari Mendizabal**

Koltxoia ez ezik **plantxa** elektriko eta garbigailua falta ziren nire etxean. **Bernardo Atxaga**

Eskuzko **plantxekin** aritzen ginen txapa handi-handi baten kontra. **Arantxa Iturbe**

**Plantxa** sukaldeko txapan berotzen ipini eta arropa zimurren artetik luzatzen zenizkion eskuak hartu zituen Dolorsek. **Koldo Izagirre**

Sostenaren tirantea hartu, teinkatu eta mahai gainean jarri, haren gainetik lurruna zerion **plantxa** astunaren pisua pasatzea oso gogoko nuen. **Jasone Osoro**

### 2 plantxan adlag plantxatzen.

Bero handiegia egiten du, orain **plantxan** hasteko. **Anjel Lertxundi**

### 3 plantxa egin plantxatu, lisatu.

Larunbatero, goizean goiz jaiki, gosalduta eta aste osoko **plantxa egiten** nuen. **Jasone Osoro**

**Plantxa egiten** ikustea festa zen Manuren begientzat. **Jasone Osoro**

## plantxa<sup>2</sup> 1 iz xafila.

Egun batean molleja batzuk erre nituen **plantxa** horretan nik. **Pablo Sastre**

Parrilla eta **plantxaren** erabilera pixkanaka galtzen joango da, erabilera horrek eragin omen ditzakeen minbizi eta gainerako gaitzak direla-eta. **Edorta Agirre**

Denbora-epe bat pasatu ondoren, irekitzen dituztenean aurkitzen dute berunezko **plantxak** albaialde bihurtu direla. **Santiago Iruretagoiena**

Prozedura berdinarekin, kobrezko **plantxak** jarriz gardinga egiten dute, *aeruca* deitzen dena. **Santiago Iruretagoiena**

### 2 (hitz elkartuetan)

Obretan zegoen ezkerreko etxea: zakar kontainerra aurrean, zur **plantxak** atarian, kristalik ez leiho zuloetan. **Pablo Sastre**

Gero, behin gauzak bareturik, altxatu eta astiroastiro mugitzen zen, lurreko egur **plantxek** karraskarik atera ez zezaten, bertan zegoenik inor ohartu ez zedin. **Sonia Gonzalez**

### 3 hautagai zerrenda.

Datuak emateko iluntasunaren helburu bakarra emaitzak itxuraldatzea litzateke, eta modu horretan, Josu Jon Imazek aurkeztutako **plantxa** osoa atzeratzea lortzea, integrazioaren aldeko hitzak alde batera utzita **Berria - Euskal Herria**

### 4 plantxan adlag (janariez)

Oilasko bularra **plantxan** eman dio eta erdia utzi du. **Pako Aristi**

Koipe izpirik gabekoak ziren bi xerrak, elefante-belarri bi miniaturan; eta **plantxan** jatekoak, noski; eta gatzik gabe. **Joan Mari Irigoien**

Zerbitzariak **plantxan** eginiko xerra handi bat eraman zuen, perretxikoz, azenario xehatuz, ilarrez eta patata-purez osatutako guarnizio batez hornitua. **Lopez de Arana**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**plantxa egiten** (5) berunezko plantxak (3)

## plantxatu, plantxa(tu), plantxatzen 1 du ad lisatu.

Ni beti erropa garbitu eta erropa garbitu, erropa **plantxatu** eta erropa **plantxatu**. **Pako Aristi**

Lehenengo alkandorak, prakak, soinekoak, mantalak eta serbiletak **plantxatzen** nituen. **Jasone Osoro**

Lurrean zegoela, oraindik **plantxatzeko** neukan bularretako urdinarekin eskuak lotu nizkion, estu-estu, korapilo askaezina lortu arte. **Jasone Osoro**

Praka garbiak ere bai, ondo **plantxatuak** **Unai Elorriaga**

Joan ziren, euren traje **plantxatuekin**, balearen bizkarraren dirdirako zapatekin. **Joseba Sarrionandia**  
Plexiglas urdineko zakuan zekarren txokolataren zilarrezko paper **plantxatuan** bilduriko pospolo kaxa erakutsi zidan. **Koldo Izagirre**

## plantxatzar *(corpusean plantxazar soilik) iz adkor xafla handia.*

Han eta han, batzuk elurrez erdi estaliak: metal kontainer txikiak eta handiak, **plantxazarrak**, errejak, tuberiak, bizikleten eskeletoak, elektrodomestikoen karkasak, [...].  
**Pablo Sastre**

## plantxazar ik plantxatzar.

## planu ik plano.

## plasma 1 iz odolaren eta linfaren zati likidoa.

Odolaren **plasmak** (hau da, globulurik gabeko osagai fluidoak) ez du oso ondo disolbatzen oxigenoa. **Irene Aldasoro**  
Gorputzeko fluidoetariko bat linfa da; odolaren isla lauso bat da linfa: odol **plasmaren** itxurako likido bat, funtsean. **Irene Aldasoro**  
Emailleek emandako **plasmarekin** egindako produktuak hartu zituzten gaixoei ere bidali zieten gutuna. **Berria - Gaiak**  
Odol- **plasmaren** oso antzeko likido ertsu bat da likido sinobiala, proteina-edukirik gabea baina odol- **plasmak** baino substantzia bat edo bi gehiago dituena. **Irene Aldasoro**

## 2 gas ionizatua, Eguzkian, hainbat izarretan eta fusio errektoreeran gertatzen dena, materiaren laugarren egoeratzat hartzen dena.

Materiaren egoera berria quark **plasma** sortu zuten. **Berria - Gaiak**  
Oso zaila da **plasma** kontrolatzea. **Berria - Gaiak**  
Ekaitzak igorritako uhinak jaso ahal izateko irriti eta **plasma** uhinentzako RPWS izeneko aparatua erabili dute zientzialariek. **Berria - Gaiak**

## 3 neon eta xenon gasen nahasketa ionizatua, pantaila mota jakin batean erabiltzen dena.

Erakusleihoan, **plasma** -pantailadun telebista handi batzuk zeuden, piztuta. **Fernando Morillo**  
"Plasma" telebistetan XXI. mendeko 'Cyber' bertsolariak zuzenean! **Ramuntxo Etxeberri**  
Aurrena, Wild estiloko letra psikodelikoak luzatzen hasi ziren horiatik aterata, eta gero, berez bezala, jirabira eroari ekin zioten, harik eta **plasmazko** bi burbuila argitsu osatu arte. **Patxi Iturritegi**

## plast 1 (onomatopeia) zerbaitek uretara nahiz lurrera erortzean ateratzen duen hotsaren onomatopeia. ikplasta<sup>1</sup>.

**Plast** ! entzun ziren indarrez Anastasiok Mikeli amorruren amorruez emandako bi zaplastakoak. **Aitor Arana**  
Noizean behin perka batek jauzi egiten zuen, eta **plast** erortzen zen berriz uretara. **Koro Navarro**  
Ilargirik gabeko egunaren zain egon eta, **plast** !, uretara. **Joxan Elozegi**  
Gutun-ontziaren hotsa entzun zuten eta eskutitzak **plast** erori zirela ate ondoko zerrira. **Iñaki Mendiguren**  
Berehala ohartu ziren hura zer zen, eta salto egin zuten atzera, uretan **plast** ! eginez. **Iñaki Mendiguren**  
Urriaren erdi aldera, leher eta **plast** egin zuen amak. **Jesus Mari Mendizabal**  
Ez zen deus ikusten zaldien hankek **plast-plast** oratzen zuten basatzen, baina egundoko kirats nardagarri batek hartuak zituen airea eta bazter guztiak. **Anjel Lertxundi**  
Gauerditsutan, hara teilatu gainean hegazti handi, astun baten urratsak bezalako soinuak, **plast** , **plast** , **plast** . **Gotzon Garate**

## 2 (izen gisa)

**Plast** ! motel batekin Harryren ohean pausatu ziren, eta erdiko hontza, handia eta grisa, hankaz gora erori eta hantxe geratu zen, mugitu gabe. **Iñaki Mendiguren**  
Atzo arratsaldean, ganbaran frantses ikasten ari ginela, plist eta **plast** hotsa-edo entzun nuen bat-batean nire atzean. **Josu Zabaleta**

## 3 plast eta plost

Hau guztia inmorala da! esan zuen Pipiñomarik, bere eskuek airean **plast** ! **Berria - Kultura**  
**eta plost** ! egiten zutelarik. **Berria - Kultura**

## plasta<sup>1</sup> 1 (onomatopeia) zerbaitek uretara nahiz lurrera erortzean ateratzen duen hotsaren onomatopeia. ikplast; plaust.

Soropila zeharkatu zuen, lorategiko aulkian **plasta** ! eseri eta ahopean abestu zuen: [...]. **Iñaki Mendiguren**  
Eta miragarriro, ulertu ezinezko moduan, sugea **plasta** ! erori zen lurrera. **Iñaki Mendiguren**  
Mutiletako batek ogi zati bat txokolatetan busti eta **plasta** bota dio parean zeukan neskari. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Hots metaliko bat, gero **plasta** ! eta oihu ito bat entzun zituen komun baten barruan. **Iñaki Mendiguren**  
Kaio bat zetorren problemaren gain-gainean erregalotxoaz utzera... eta, **plasta** !, zirin gizen zuriak orri guztia zuen kakazten. **Jesus Mari Mendizabal**  
Barrura sartu, atea itxi eta **plasta** ! etzan zen ohe gainean. **Iñaki Mendiguren**  
**Plasta** ! egin zuen Itsasok emandako zaplastekoak. **Aitor Arana**

## 2 irud/hed

Horrela, garbi-garbi, jiraka eta biraka ibili gabe, **plasta** : «Bultzada komertziala». **Berria - Kirola**

## 3 plasta-plasta

Saloian zeukaten enarek kabia; lasto izpiak zeuden lurtean sakabanaturik; **plasta-plasta** erortzen zen igeltsua. **Anton Garikano**

## 4 plista-plasta ik plisti 1.

## 5 plisti-plasta ik plisti.

## plasta<sup>2</sup> 1 izond pertsoez mintzatuz, enplastua, txaplata.

-Orduan zer egin behar dugu mutil **plasta** horiekin? ez gara eurekin enrollatuko, ezta? **Plasta** bat, horiek dituk roiloak sartzen dituena, nik ez zekiat garbi zer asignatura ematen digun, dena nahasten dik! "Hau **plasta** bat duk, motel", dio Txapik, "goaziok hemendik!". **Jon Arretxe**

## 2 (adizlagun gisa)

## plastako *iz* masailekoa, belarrondokoa

Amak **plastakoa** zergatik eman dion jakin ezinda dabilen neskatoa aurkeztu du idazleak. **Berria - Kultura**

## plastifikatu <sup>1</sup> *izond* plastiko geruza batez estalia.

Nire argazkia itsatsita zeraman paper **plastifikatu** puskak ez zuen gihar-zaku hori batere zirrararazi. **Aingeru Epaltza**

### 2 irud/hed

Klararen etxea alderdi argi-ilun mestizoan zegoen, non Alde Zaharreko mendeetako herdoil goibela Zabalguneko zabor **plastifikatu** distirantera isurtzen den. **Aingeru Epaltza**

## plastifikatzaile *izond* zerbaiti bere plastikotasuna handitzeko gehitzen zaion gaia.

Puntu hauek izan zituzten kontuan: PVCa lortzen ari den bitartean edo bere transformazioan egon daitezkeen gas toxikoen igorpena, erabilitako **plastifikatzaile** eta egonkortzaileek ekar ditzaketen arazoak, eta, azkenik, PVCaren hondakinen arazoak. **Berria - Gaiak**

**Plastifikatzaile** gehiagorekin PVC malgua lortu nahi denean. **Berria - Gaiak**

**Plastifikatzaile** ekologikoagoak erabiltzeko gomendatzen dute adituek. **Berria - Gaiak**

## plastika<sup>1</sup> *iz* helburutzat formak moldatzea duen artea.

Ez du eskultorea izan behar, Miron edo Polikleto izan ziren bezala, baina **plastikaren** arloan ezjakina ere ez. **Santiago Iruretagoiena**

Lagunaren esentzia goratu nahi zuen bere **plastikaren** bidez. **Berria - Kultura**

Zeren **plastikaren** teoriari duen zailtasun handienetako bat erraztea baitu helburua: **plastikaren** azterkizuna ez baita, izan ere, elementu diskretuz, etenez eratzen diren sistemak, continuum bat baizik. **Josu Zabaleta**

Estetika da **plastika** linguistikoa. **Berria - Euskal Herria**

### 2 (hitz elkartuetan)

Jantoki handian **plastika** gela egiteko asmotan dabilta. **Berria - Harian**

## plastika<sup>2</sup> ik **plastiko**<sup>1</sup>.

## plastikada *iz* lehegailuz egindako atentatua.

Hantxe jasan zituen [Sartrek] **plastikada** batzuk, «traidoretzat» eskuindarrek salatutik. **Berria - Harian**

## plastikagintza *iz* plastikaren arloko arte jarduera.

Hari zor diogu iraganetik etorkizunerako lotura gure **plastikagintzan**. **Herria**

## plastikaki ik **plastikoki**<sup>2</sup>.

## plastikolari *iz* plastika lantzen duen artista.

Bestalde 9 **plastikalarik** ibilbide artistikoa osatzen dute obraz-obra argiaren haritik lan eginik. **Herria**

Joanden ekainean idekia, Jose Anton Sistiaga margolariaren eta Youri Sistiaga eskultorearen obren itzulian, dotzena bat **plastikalarik** lan egiten dute "Higidura eta Oreka" gaien haritik eta gaurko gisara. **Herria**

## plastikatze *iz* lehegailuz zartaraztea.

Eta Artzandako gerlari ohien harriaren **plastikatzeak** basoa urez gainditu zuen: Hamalauko, Deboilako, Indotxinako eta Algeriako soldadu zaharrak oro oldartu ziren, lekuan lekuko hautetsiei "biolentziaren salatzeo" manifestaldi baten antolatzea otoiztuz. **Itxaro Borda**

## plastiko<sup>1</sup> (*orobat **plastika** g.er., **plaztika** g.er. **plaztiko** g.er. eta **plastiku** g.er.*) <sup>1</sup> *iz* gai kimikoa, gehienetan organikoa eta sintesiz lortua, polimero egitura duena eta egite prozesuan moldeatzen ahal dena; gai horren zatia.

Harryk **plastiko** errearen usain garratza hartu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Garai hartan aurkitu zuten **plastiko** biologikoki geldo hori. **Luis Elberdin**

Zaborra ere ez gutxi: botilak, latak, **plastikoak**. **Gotzon Garate**

Sua piztua zenez, han urtu zen kamioiaren **plastiko** guztia, burdinazko ardatzak besterik geratzen ez zirela... **Patxi Zubizarreta**

Ateak itxi direnean, poliuretanozko hormatik **plastiko** beltzeko zoruraino irristatu zara. **Eider Rodriguez**

Salmahaiak **plastikoz** estalita daude, eta salgaiak ahalik eta txukunen agertzen saiatzen dira. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Bere ondasun guztiak **plastikozko** poltsa horretan garraiatzen ditu. **Iñaki Zabaleta**

Besoa luzatuz, Mikelek errazki altxatzen ahalko zuen **plastikozko** erridautxo. **Ramuntxo Etxeberri**

Besterik ezean, antzezteko klaseetako **plastikozko** pistola bat hartu, eta lapurreta egin du bankuan. **Javi Cillero**

Itsas anarak, kormoranak eta **plastikazko** ziruditen alga petrolio likitsean gatibu geratu ziren, bizia hausten bailitzan. **Itxaro Borda**

Horregatik daude txerritegi industrialetan **plastiko** bigunezko atea. **Edorta Agirre**

### 2 (neurriekin)



Milaka tona **plastiko**, beiraki, mami-azal ustel Gernikan. **Iñigo Aranbarri**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zer oihal edo zer **plastiko** mota den... **Menane Oxandabaratx**

Benetan, ordea, haizeak kanpoan ateratzen zuen soinuari adi geunden, leihoa kristalaz bestaldetik estaltzen zuen **plastiko** -orria astintzen baitzuen. **Juan Kruz Igerabide**

Inguruan, azken orduetako langarrak sortutako putzueta sartuxeak, lata, kartoi eta **plastiko** hondarrak ageri dira nonahi. **Jokin Muñoz**

### 4 plastikozko xafra edo pieza, gauzak biltzeko erabiltzen dena.

**Plastiko** batean bilduta zerbait zekarren galtzarbean. **Pablo Sastre**

Mutil beltz bat, sirenei kasurik egin gabe, Lexington Avenue-n behera zetorren maleta kozkor baten tamainako musika tresna bizkarrean zekarrela, **plastikoan** bildua. **Iñaki Zabaleta**

Lantokiko biltegian dago, **plastikoetan** bildutako aulki anabasaren erdian. **Eider Rodriguez**

### 5 irud/hed

Euskara ortopedikoan daude idatziak, **plastikozkoan**, hizkuntza guztiak duten naturaltasun goxo hori errekarra bota ondoren. **Pello Salaburu**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**plastiko batean** (3); **plastiko beltzez** (5); **plastiko beltzezko** (3)

**plastikoz estalita** (3)

**plastikozko bidoi** (3); **plastikozko botila** (3); **plastikozko edalontzi** (3); **plastikozko hodi** (6); **plastikozko ontzi** (8); **plastikozko poltsa** (40); **plastikozko poltsa bat** (3); **plastikozko poltsa batean** (9); **plastikozko poltsa jarri** (3); **plastikozko poltsak** (18); **plastikozko poltsan** (3); **plastikozko poltsatik** (5); **plastikozko poltsen** (6); **plastikozko poltsetan** (5); **plastikozko zabor** (3); **plastikozko zerrenda** (3); **plastikozko zorro** (8); **plastikozko zorro batean** (4)

## plastiko<sup>2</sup> <sup>1</sup> izond

plastikarena, plastikari dagokiona.

Espazio **plastikoa**, ikuskizun-espazioa. **Josu Zabaleta**

Eisensteinentzat alde guztietan dagoen fenomeno bat da muntaketa (poesian bezala filmean edo arte **plastikoetan** ere). **Josu Zabaleta**

Ilusio behar horrek, asetzen zelarikaldi berean handitzen zenez, poliki-poliki arte **plastikoak** irentsi egin zituen. **Josu Zabaleta**

Irudiaren konposizio deitu izan den antolamendu **plastiko** baten mende. **Josu Zabaleta**

Irudiaren alderdi **plastikoari** buruz. **Josu Zabaleta**

Espazio material, "konkretu" bat, irudiaren balio **plastikoarekin** zuzeneko erlazioa duena. **Josu Zabaleta**

Abangoardiako artista **plastiko** multidiziplinar bati egindako elkarrizketa. **Juan Luis Zabala**

Leizeetako artean ere gizakiak bere buruaren kontzeptua eta gogoeta islatu zituzkeen modu **plastikoan**. **Askoren artean**

### 2 erraz moldea daitekeena.

Berrikiago, altzairuzko aleazioz eta zenbait gai **plastikoz** egin dira bolaren zein ahokaduraren protesiak. **Irene Aldasoro**

### 3 plastikoz egina.

Zoruko estalki **plastikoa** altxatuz gero, zomorro hilen hondakinak ikusten ziren. **Juan Kruz Igerabide**

### 4 kirugiaz eta kirurgilariez mintzatuz, helburutzat, gorputzaren zati bat edertzea duena.

Bide horri segituz, kirurgia **plastikora** jo beharrean aurkituko nintzen luze gabe, zirko heavy batean bukatu nahi ez izatera. **Aingeru Epaltza**

### 5 (bestelakoak)

Ertzaintzaren analisien arabera kola, disolbente, pintura **plastiko** eta lokatz-nahasketa bat omen zen. **Iban Zaldua**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arte plastiko** (8); **artista plastiko** (5); **balio plastiko** (3); **espazio plastiko** (3)

**arte plastikoa** (3); **estalki plastikoa** (3); **kirurgia plastikoa** (3)

**arte plastikoak** (16) artista plastikoak (7); **balio plastikoak** (3)

**espazio plastikoaren** (4)

**arte plastikoei** (4)

**artista plastikoei** (3)

**arte plastikoen** (23); **arte plastikoen biurterokoa** (3); **nafarroako arte plastikoen** (4)

**arte plastikoetan** (6)

## plastikoki<sup>1</sup> <sup>1</sup> adlag

alderdi plastikotik.

"Zentrikotasunaren" artea da espresionismoa [...], esentzialtasunaren, simetriaren, estatikotasunaren artea; **plastikoki** itxura gutzit egituratu, ia geometriko batean maminzen den baieztapen konfiantzatsu eta abenturazale batean du sustraia. **Josu Zabaleta**

Material hori **plastikoki** landurik, pinturaren errealitate bakarra hori dela esatera iritsi dira margolariak eta teorialariak. **Josu Zabaleta**

### 2 era plastikoan.

Idea hori Platonek, oso **plastikoki**, hiriaren eta gizakiaren hiru zatien arteko korrespondentziarekin adierazi du. **Joxe Azurmendi**

**Plastikoki** irudikatze, gure izatearen beste alderdi hori, bertan behera utzitako trastez betetako ganbara bat izango litzateke. **Unai Iturriaga**

## plastikoki<sup>2</sup> (corpusean

**plastikaki** eta **plaztikaki** soilik) iz plastiko zatia.

Oroitarazia da beraz gune berezi horietan uzten ahal direla berinakiak, **plastikakiak**, paper eta kartoinak, bainan besterik ez. **Herria**

Donibane-Ziburuko "Crésus" arrantza untiak alimaleko zikin meta, **plastikaki** eta beste, bildu du Landesetako itsasalde hortan. **Herria**

**Plaztikaki** horiek oro goitxago edo berantxago ondarkinetarat doatzila eta biziki luzarat baizik ez direla gero suntsitzen ahal. **Herria**

## plastikotasun

iz plastikoa denaren nolakotasuna. ik **plastizitate**.

Gorputzari nahiz gogoari dagozkion gaitasunen aukera zabal horrek ematen die giza populazioei beren **plastikotasuna**, ingurumenaren aldiro aldiko demei eusteko ahalmena. **Juan Garzia**

Velázquezen, Goyaren edo Delacroixen margolanen **plastikotasuna** ageriagoan azalduko da, esate baterako, Dürreren edo Ingresen margolanena baino. **Josu Zabaleta**

Errealitatearen erreferentziatik askatutako irudi "soil" baten interesa zabaltzearekin batera, irudi horren **plastikotasunaren** kontzeptua azaldu zen. **Josu Zabaleta**

Irudimenaren garapenerako, giza hizkuntzaren **plastikotasuna** berdinik gabeko tresna da. oso gustagarri egin zitzaion bolatzararen eta inurriaren arteko kontrastearen **plastikotasuna**. **Juan Garzia**

# plastikotxo iz plastikozko piezatxoa.

Bimbo ogia itxeko erabiltzen den metalxo gorriaz zarratutako **plastikotxo** batean. **Sonia Gonzalez**

## plastiku ik **plastiko**<sup>1</sup>.

# plastilina 1 iz pasta moldeakorra, koloretakoa, buztinez, argizariz, olioiz, sufrez eta zinkez osatua, irudiak egiteko erabiltzen dena.

Mota guztietako objektuak zeuden, pospolo kaxak, **plastilina**, mailu bat, hiru dardo, mermelada pote bat, harritxoak, ile-lehorgailu bat... **Berria - Kultura**

Horrexegatik ez dizkie uzten eskolako lagunei **plastilina** berdez egiten dituen labezomorro abstraktuak. **Unai Elorriaga**

Haurrak **plastilina** bezalaxe biguntzen ditu bere hizketara behar dituen hitz eta esanera guziak. **Patziku Perurena**

Manuk are gehiago estutu zuen pampina, eta lehenbiziko musua eman zion **plastilnazko** ezpainetan. **Jasone Osoro**

## 2 (hitz elkartuetan)

Aza-usaina irudituko zitzaion Matiasi usain hura, edo **plastilina** -usaina. **Unai Elorriaga**

## plastizidade ik **plastizitate**.

# plastizitate (orobat **plastizidade**) iz plastikoa denaren nolakotasuna. ik **plastikotasun**.

Batetik, giza gorputzak duen zentzu eskultorikoa goretsi nahi du Tunickek; bestetik, gorputz biluziek hiriko konfigurazioan duten **plastizitatea** nabarmentzen saiatzen da.

**Berria - Kultura**

Haren irudi poetikoetako **plastizitate** xalo eta indartsuak hunkitzen naik. **Anjel Lertxundi**

Helduaren garunak ez du jadanik haurraren garunaren **plastizitate**; horregatik da, hain zuzen ere, zailago, hizkuntza berriak ikastea edo trebetasun berriak bereganatzea adinean aurreratu ahala. **Xabier Olarra**

Metafora bizi bat, hitz-joko harrigarri bat, antitesi-egitura deigarri bat edo **plastizidade** handiko hiperbole bat duen mintzabidea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Arazaren **"plastizitatea"** esatea, orokorki gizakiarena gabe, maite du Chamberlain-ek, bereziki arraza ariarrarena. **Joxe Azurmendi**

## plastra ik **plastre**.

# plastre (orobat **plastra**) iz ipar igeltsua.

Estukatore lana da gisu eta **plastra** nahasiz margo inguruen edertzeko egiten dena. **Herria**

Bortz gizonek ebatsi dute Errepublikaren **plastrazko** itxura. **Herria**

Bizitza leku bat osoki funditua eta nork daki nondik jinikako hondarrikin hor metatuak, **plastre** puska, burdinkeria, taula, joko tresna hautsiak. **Michel Oronoz**

## plastur iz ipar igeltseroa.

Motozaina, Philippe Alzuri, 39 urteko ezpeletarra, ofizioz **plasturra**, esposatua eta bi haurren aita, han berean gorputz gelditu da. **Herria**

Alain Etchelecou **plasturraren** familian sortu zaito lehen haurra, eta dute neskato pullit bat Eloise eman diote izena. **Herria**

## plata 1 iz ipar platera.

Erdi jarrira, **platan** duena bi kolpez presaka irentsiz. **Ramuntxo Etxeberri**

Aleman **plata** izan zitekeen. **Marzel Etxehandi**

**Plata** zikinak zoko batean metatuak dira. **Ramuntxo Etxeberri**

Bat-batean, altxatu zen, bere plastikozko **plata** mahaian utziz. **Ramuntxo Etxeberri**

Mariok ez bide zuen kalizez, eki sainduz, urrezko **plata** eta godaletez kunkuin bete zakua ahantzi? **Itxaro Borda**

Frantrix batetik aintzinean, betiko osagarrian, eta Lekorneko kozinera, hau bere sutegiaren aintzinean bezain bipil eta jarraikia, nundik aterako duen komitatuen gustuko

**plata**. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Xinpleki jantzia zen atsoak, paisola irekirik zeukan esku batean, eta bertzean aldiz, janari **plata** txiki bat. **Ramuntxo Etxeberri**

## 3 irud/hed

Oren bat eterdi ahusamendu udatar eta besterentzat, tanto pollit askorekin, bakotxak bere haineko jokoarekin eta eskuzarta alde pollita ondarrean, hori izan dugu joan den astelehenero **plata** aro onarekin eta berriz ere jiteko gustua bertzalde. **Herria**

Hau izanen da helduden astelehenero **plata**, Garateneko trinketean. **Herria**

# plataforma 1 iz egitura edo gainalde laua, ingurua baino gorago kokatua dagoena, pertsona edo gauzen euskarrizat erabiltzen dena.

Mila watiotako *Trace Elliot* bat Mikelentzat, lau ataleko *Marshala* Jonentzat, *Pearl* distiratsua **plataforma** baten gainean, nola ez, Anerentzat. **Unai Iturriaga**

Hori baino beherago, marmorean landuriko halako **plataforma**, taula edo aldare zibil baten antzekoa dago. **Edorta Jimenez**

Jasogailuko **plataforman** finkarazi zuen Ruche jaunak aulkigurpilduna. **Jon Muñoz**

Ingeniaritza militarren ale ederra zen, gurpil trinkoen gainean mugitzen zen, egitura bertikala itxuratzen zuten lau **plataformak** elkarren artean lotzen zituzten kanpo eta barne-mihiztaduren sistema konplexua zen bere funtsa, beheko **plataforma** gurpilen ardatz finkoetan oinarritzen zen, goiko **plataforma** hiri aldera luzeagotzen zen, mehatxagarri, eta tarteko bi **plataformek** igotzeko prestatzen ziren soldaduei behin-behineko babesa emateko balio zuten. **Jon Alonso**

Opportunity robota «arazorik gabe» jaitsi da **plataformatik**. **Berria - Gaiak**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eraikinetik harantz bazen **plataforma** txiki bat, eta bertara igo nintzen. **Xabier Olarra**

Ikuskizunaren giro eta eszenan antzezteko zazpi **plataforma** mekaniko erabiliko dituzte. **Berria - Kultura**

**Plataforma** flotagarri eta mugikorra izango litzateke Ozeano Bareko uretan jarriko luketena. **Berria - Gaiak**

Minutu batzuen buruan zureko **plataforma** behin-behineko baten ondoan gelditu zen tren. **Irene Aldasoro**

Goiko **plataformara** ere, sutegia zegoenokora, bi metro zeuden. **Elizen arteko biblia**

Iggogailuaren goiko **plataformara** jaitsi nintzen gero. **Rafa Egiguren**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ixtoc One Mexikoko **plataforma** ontziak Campecheko badian 420.000 tona erregai isuri zuen, bitan puskatu ondoren. **Berria - Gaiak**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garabi-**plataforma** baten gainean nengoen zutik, atoiointzi beltzek gureari txopatik heldu eta kanpora ginderamatzatela. **Jose Austin Arrieta**

Ura kutsatu egiten da itsaso guztietan, petrolio **plataformak** ugaltzen diren artean. **Joseba Sarrionandia**

Aukeratu zuen pastela espaziotzki batez eta jaurtiketa **plataforma** batez zegoen apaindua. **Koro Navarro**

### 5 irud/hed

Arasur **plataforma** inauguratu dute, etorkizunean merkantziak trukatzeko Euskal Herriko gunerik handiena izango dena. **Berria - Ekonomia**

Rivabellosako **plataforma** logistikoko lau pabiloi eraikiko dituzte urtarretatik aurrera, eta, okerrik ezean, sektoreko enpresaren bat udazkenerako operatiboa izatea espero du administrazio kontseiluak Hor dago, adibidez, ikasliburuen alorrean egindako lana, txalotzako, salbuespenak salbuespen, **plataforma** sendoa eman diolako euskararen dimentsio kulturalari eguneroko erabilera formalean. **Berria - Ekonomia**

Zerbitzu **plataforma** bat izango da: posta elektronikoa, Interneteko guneen itzultzaile bat, weblog bat, txosten bereziak PDF formatuan... **Berria - Gaiak**

### 6 (kamioi eta bagoietan)

Coca-Cola banaketako kamioi herdoilduaren atzeko **plataformara** igota. **Juan Luis Zabala**

**Plataforma** luzeak porturantz. **Harkaitz Cano**

Bagoi bateko **plataformara** saltatu nintzen eta beheiti begiratu nuen. **Fernando Rey**

### garrakio publikoko autobus eta bagoietako zatia, eserleturik gabea ate inguruan dagoena.

Metroaren bagoian aurrez aurre eseri zaidan gaztea, esate baterako, bel-belta da, burusoila, eite harro eta seriokoa; [...] **plataforman** zutik, Sidney O' Connor-en estilora soildutako bikote bat doa. **Bernardo Atxaga**

S autobus baten atzealdeko **plataforman**, egun batean, eguerdi aldera. **Xabier Olarra**

Bai estu gindoazela autobus-**plataforma** hartan! **Xabier Olarra**

### 7 oinetako jakin batzuen zolaren gainean ezartzen den peza lodia, kortxozkoa eta plastikozkoa.

Strass distiragarri lotzen ziren zapata ikaragarri altuak, zerurik urrunenera iristeko gai ziruditen **plataforma** sentsualak. **Jasone Osoro**

### 8 alderdi, higikunde edo pertsonen elkarte ez-egonkorra, helburu komun baterako biltzen dena.

3.000 euroko diru laguntza kendu die antolatzaileei UPNko udalak, Irurtzango *Axita* herri **plataformak** salatu duenez. **Berria - Kultura**

Alderdi abertzaleek sortu dute dinamika iraunkor bat Abertzaleen Batasuna **plataformaren** inguruan. **Herria**

BATERA **plataformakoe** errana zuten beren helburuak gogoan elgarretaratze batzuan muntatuko zituztela herriko etxean aintzinean maiatzaren 15-ean, ortzegunarekin.

**Herria**

Arafatek ikusi zuen kausa palestinarren sostengu **plataforma** handi eta zabala behar zuela. **Berria - Mundua**

Zalantza ere sortu zitzaidan, hirugarren mundua deitzen dugun hori laguntzeko gure **plataforma** horiek guztiak zenbateraino ez ote diren kolonialismo berri baten zurigarri.

**Xabier Mendiguren Elizegi**

Bilera haien ondoren, Coagret elkarteak sortzea erabaki zuten, urtegi handien eta ur-aldaketan kalteak jasan dituzten herritarren **plataforma**. **Eduarne Elizondo**

Maiatzean, eskultorearen aldeko **plataforma** osatu zen. **Berria - Kultura**

Arabaren politika kulturalik ez dagoela ondorioztatzen du Amarrak **plataformak**. **Berria - Kultura**

Xenpelar dugu, gainera, atzerriko beste zentro, ikerlari eta esperientziekin harremanak bideratzeko **plataforma** egokia. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**alderdi politikoaren plataforma** (4); **herri plataforma** (24); **herritarren plataforma** (5); **osatutako plataforma** (3)

**plataforma aurkeztu** (3); **plataforma barruan** (3); **plataforma bateratua** (4); **plataforma demokratikoak** (4); **plataforma demokratikoaren** (3); **plataforma eratu** (3); **plataforma osatu** (14); **plataforma osatu dute** (7); **plataforma osatu zuten** (3); **plataforma osatzeko** (4); **plataforma osatzen** (9); **plataforma osatzen duten** (7); **plataforma sortu** (22); **plataforma sortu dute** (6); **plataforma sortzea** (3); **plataforma zabala** (3)

**politikoaren plataforma** (4); **talde eta plataforma** (4); **txingudi bizirik plataforma** (3); **uraren plataforma** (4)

**baiona iraultzen plataformak** (4); **barakaldo desmilitarizatzeko plataformak** (3); **desindustrializazioaren aurkako plataformak** (3); **ea berria plataformak** (5); **etxebizitza guztiontzat plataformak** (5); **ezker abertzaleko plataformak** (4); **gasteiz izan plataformak** (6); **herri plataformak** (57); **herritarren plataformak** (3); **iruin iruzurraren aurkako plataformak** (3)

**plataformak antolatzen** (5); **plataformak antolatutako** (5); **plataformak aurkeztutako** (3); **plataformak azaldu** (3); **plataformak deituta** (12); **plataformak egindako** (4); **plataformak elkarretaratzea** (5); **plataformak elkarretaratzea egin** (4); **plataformak salatu** (11); **plataformak salatu duenez** (3); **pluraltasunaren aldeko plataformak** (3); **txingudi bizirik plataformak** (10); **zornotza bizirik plataformak** (5)

**herri plataformako** (21); **herri plataformako kideak** (3); **herritarren plataformako** (4); **herritarren plataformako kide** (3)

**plataformako bozeramaile** (3); **plataformako bozeramailea** (3); **plataformako bozeramaileak** (6); **plataformako burua** (3); **plataformako eleduna** (3); **plataformako hautagaia** (3); **plataformako hautagaiak** (3); **plataformako kide** (42); **plataformako kidea** (11); **plataformako kideak** (34); **plataformako kideek** (45); **plataformako kideekin** (3); **plataformako kideen** (8); **plataformako kideok** (3); **plataformako ordezkari** (4); **plataformako ordezkaria** (3); **plataformako ordezkariak** (7); **plataformako presidente** (3)

**txingudi bizirik plataformako** (4); **uraren plataformako** (4); **uraren plataformako presidente** (3); **zornotza bizirik plataformako** (4)

**atzeko plataforman** (5); **autobus bateko plataforman** (3); **plataforman parte hartu** (3)

**herri plataformaren** (6); **iruzurraren aurkako plataformaren** (3)

**plataformaren aburuz** (4); **plataformaren alde** (3); **plataformaren arabera** (6); **plataformaren barruan** (3); **plataformaren esanetan** (3); **plataformaren eskakizunak** (3); **plataformaren izenean** (14); **plataformaren izenean aurkeztzen** (3); **plataformaren ordezkariak** (3); **plataformaren ustez** (4)

**plataformari dagozkion** (3)

**plataformatik jaitsi ostean** (3)

**herri plataformei** (12); **plataformei zegozkien** (3)

**balio gabetutako herri plataformek** (3); **herri plataformek** (24); **plataformek eginiko** (3)

**herri plataformen** (34); **herri plataformen koordinadorak** (3); **herri plataformen sorrera** (5)

**plataformen koordinadorak** (4); **plataformen koordinakundeak** (3); **plataformen sorrera** (5); **plataformen sorrera sustatzea** (3)

**balio gabetutako herri plataformetako** (4); **herri plataformetako** (30); **herri plataformetako kideak** (3); **herri plataformetako kideen** (3); **herri plataformetako ordezkariak** (6); **herri plataformetako ordezkariak** (6)

**plataformetako kideak** (4); **plataformetako kideek** (4); **plataformetako kideen** (3); **plataformetako ordezkariak** (6); **plataformetako ordezkariak** (7)

## plataformadun *izond* plataforma duena.

Orain arte konturatu gabe nengoen zer gauza ona den tranbia bat, **plataformadun** horietakoa batez ere, baina atsegin hori debekatua dugu juduok, oinez joan behar dugu alde guztietara. **Josu Zabaleta**

**platanu**<sup>1</sup> *iz* zuhaitz sendo eta itzaltsua, azala xafra erorkorrez osatua duena, bost puntuko hosto zabalak eta fruitu biribilak eta haziz beteak dituena (*Platanus acerifolia* edo *hibrida*).

**Platanoen** itzalpean dagoen aukian jartzen naiz, gorputzaren utzikeria goxoak izpiritu osoa husten didala denbora berean. **Piarres Aintziart**

Zabaldu nuen ataka, eta etxerantz alde bietako **platanoen** adarrak arku eginik tunel garai bat eratuz ganga gisako bat eratzen zioten bidean barrena sartu nintzen. **Josu Zabaleta**

Haritza dute gehien bat landatzen, baina ere bertze zuhaitz mota batzu: urki, eltxaurrondo, **platanu**... **Herria**

Pinuak **platanoa** eta gaztaina, lizarra eta akazia ordezkatu ditu hemendik gora. **Iñigo Aranbarri**

En-Gediko palmondoa bezala hazi naiz, Jerikoko larrosondoa bezala; lautadako olibondo mardula bezala, **platanoa** bezala luzatu naiz. Merkatu nagusiaren kaleko postuei begiratzen zien lasai, puntu egiten; espaloia alprojez borborrean zegoen, lurreen aztarrika, han landaturiko **platanoen** burdin hesien azpian. **Elizen arteko biblia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Jakobek, zumitz-, urritz- eta **platanu** -ziri batzuk harturik zurutu egin zituen eta abereak edatera zihoazen asketan jarri zituen. **Jose Antonio Mujika**

## 3 *platanu arbola* (orobat *zuhaitza*) ik *platanondo*.

Mutilak urkaturik munduko **platanu** -arbola ederrenetan. **Anton Garikano**

Laugarren etxean **platanu** -arbola baten ernamuinak zeuden erorita teilatu gainera eta belardi itxura emana zion atariari. **Anton Garikano**

Gainerakoak parkeko banku ilunenera joan ziren: **platanu** -zuhaitz pare bat zegoen albo banatan, eta haren aurreko farolak ez zuen argirik egiten. **Fernando Morillo**

## platanu<sup>2</sup> *iz* banana.

Zerbitzariak biak ekarri zizkidan: tea mendarekin eta **platanoa**. **Bernardo Atxaga**

Amonak **platanoa** edo mandarina ateratzen du mantal azpitik, luhartza kentzen laguntzen diodan bakoitzean. **Arantxa Iturbe**

**Platanoak** zuritzeko makina. **Jesus Mari Mendizabal**

Rita Hayworth Gilda filmean eskularru luze hura erantzen, **platanuari** azala erantzen ere zilegi ez zenean. **Harkaitz Cano**

Zalantzan geratu zen une batez, eta -ma nahna, banana- **platanu** batekin itzuli zen. Ian istripu bat izan eta gero kalean **platanook** saltzen ikusiko dugu. **Bernardo Atxaga**

Emakumeak ez dira masturbatzen birbagailuak, pepinoak, azenarioak edo **platanook** baginan sartuta. **Luis Elberdin**

Etzanda zegoen, **platanu** azal baten ondoan, odol hari fin bat garondotik zeriola. **Jose txo Azkona**

## platanondo *iz* platanoa (*Platanus acerifolia* edo *hibrida*).

**Platanondoan** etorbidea 4-64100 Baiona. **Herria**

Distira bereko errainu irrisua zerien jauregi aurreko **platanondo**, zumar eta ezkien adaburuei ere. **Anjel Lertxundi**

Kale zaharra, bertako **platanondo** zaharrek, Bartzelonako Rambletan bezala. xereza edaten ari ziren hosto zabaleko **platanondo** baten azpian. **Joxe Austin Arrieta**

Probentzako etorbideak, **platanondo** -etorbideak. **Joxe Austin Arrieta**

## platea *iz* antzoki edo zinema areto batean, beheko solairua.

Hala ere, guztien izenak irakurri zituen, **plateako** aukien prezioraino iritsi zen, eta iragarkia probintziako administrazioaren tipografian inprimatu zutela jakin zuen. **Jose Morales**

## plater 1 *iz* ontzi biribila, ertza altxatua eta hondoa laua duena, jateko-eta erabiltzen dena.

Ivy hantxe, oraindik jantzi gabe, pomelo pare bat **plater** batean paratzen ari eta niri galdezka ea kaferik nahi al nuen. **Joxe Austin Arrieta**

Mahaian ari naiz, **platerak** -eta jartzen. **Anjel Lertxundi**

Arnasari eutsiz eta masailak estutuz, Emile **platerak** jasotzen ari zen. **Lopez de Arana**

Zerbitzaria erretiluan bi **plater** ekarriz itzuli zen. **Lopez de Arana**

Bi lagunentzako **platerak** atera, eta txukun-txukun zabaldu zituen zilarrezko tresnak. **Javi Cillero**

Mrs. Cardinalek sei **plater** ezarri zituen, bakoitza bere sardexka, aizto eta koilararekin. **Lopez de Arana**

Harry mahaian ipini zituen **platerak** arrautza eta hirugiharrarekin. **Iñaki Mendiguren**

Marietek **platerak** aldatu ditu eta pastelak ekarri dizkie. **Monika Etxebarria**

Neskameak **plater** batean oilasko erre bat atera zuen. **Lopez de Arana**

Emaztea lardaskan dabil bere **platerean**. **Monika Etxebarria**

**Platerarekin** estali zuen berriro zartagina. **Fernando Morillo**

**Platerak** harraskan utzi eta egongelara abiatu ziren. **Unai Iturriaga**

**Platerak** garbituz ez da diru askorik irabazten. **Lopez de Arana**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Van Daan andrearen **plater** sakon bat eskuetatik irristatu eta mila puska egin nuen. **Josu Zabaleta**

**Plater** azala jarria zuen zartagin gainean. **Unai Iturriaga**

Buru moztu ziotenean, **plater** zapal batean ipini zuten. **Bernardo Atxaga**

Budin zuri zatiz eta marmelada gorritz beteriko **plater** zapal bat. **Irene Aldasoro**

Harraskan utzi zituen **plater** hutsak. **Unai Iturriaga**

**Plater** eta eltze erabiliak harraskan zeuden. **Aingeru Epaltza**

Zerbitzariaren laguntzaileak beste **plater** zikin pila bat ekarri zuen. **Lopez de Arana**

Zortzi **plater** zuri distiratsuetan kabiar-kanape bana. **Lopez de Arana**

Zeramikazko **plater** handi bat zen. **Koro Navarro**

Zirku saioak (malabareak, **plater** txinatarrak...) burutzeko duen estiloak [...]. **Berria - Kultura**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Amaren **plater** hotsak barreiatu dira etxeko geometriaren bazterretatik. **Eider Rodríguez**

Gela husten hasita zegoen ordurako, eta **plater** - eta labana-hotsa zetorren atzeko gelatik. **Irene Aldasoro**

Bi mutur kontrario horien artean jaki lagungarri beteriko **plater** -ilara paraleloak ageri ziren. **Irene Aldasoro**

Julian Schnabel, oso famatu egin da [...] subjektu bezala oihai bat erabili eta haren gainean portzelanazko **plater** puska erantsiz. **Josu Zabaleta**

**Plater** ertzaren azpira bildu zuen eskuzapia. **Anton Garikano**

Zenbait astez behin, senarrak, Berl Chazkeles-ek, **plater** joko berri bat erosi behar izaten zuen. **Koro Navarro**

Goxotegia, agenteak, auto-garbitzaileak, **plater** -garbitzaileak. **Lopez de Arana**

Beste **plater** -garbigailu zahar bat dago [...] bizpahiru josteko makina. Iban Zaldúa  
Zerbitzu-mahaiko bi **plater** -berogailuak piztean, jerez beroaren, kremaren eta otarrainaren usaina hedatu zen jantokian zehar. Lopez de Arana

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beste janari- **plater** bat ekarriaz hurbildu zitzaion gero mahaizaina. Patxi Ezkiaga

Albertok pasta- **plater** bat eskatzen zuen. Fernando Rey

Gabrielek eta Daly andereñoak antzara- **platerak** eta urdaiazpiko- eta haragi- **platerak** trukatzan zituzten bitartean, [...]. Irene Aldasoro

Ama-alabak luzaro aritzen ziren ezbaian haragi- **plater** baten aurrean. Fernando Rey

## 5 (neurri gisa) ik platerkada.

-Ekarri **plater** bat ilar -esan zuen-, eta botila bat garagardo gorri. Irene Aldasoro

**Plater** bat hestebete utzi dizut hozkailuan... Xabier Paya

Lotsatu ere egiten zen pixka bat, ezin baitzuen inoiz lortu **plater** bat okela, ezta txiki-txikia izanik ere. Karlos Zabala

To, hemen daukak **plater** bat zopa, jan ezak, zakurra. Josu Zabaleta

Bazkaria, gehienetan, barazkiekin, patatekin eta **plater** bete farikekin osatzen zen. Patxi Zubizarreta

Kalezuloan denek ezagutzen zuten **plater** gariari buruzko istorio bat. Patxi Zubizarreta

Ohiko **plater** zoparekin ondu zuen eskastasun hau. Jon Alonso

Berak atonduriko **plater** bete arrosa txirlekin irensten nuen bitartean. Josetxo Azkona

-Nor bere **plater** -zopan murgildu zen. Mirentxu Larrañaga

## 6 platereko jakia.

Kabiarra **Errusiako** plater bat da, gaizkata izeneko arrainaren arraba gazituekin osatua. Karlos Zabala

Hiru **plater** prestatu zituzten: marmitakoa, hegaluze zerrak piperradarekin eta mendreska errea. Berria - Euskal Herria

Afalburuen aitzineko **platera** jan ondoren. Joan Mari Irigoien

Lehen **platera** ekarri ziguten handik gutxira, baita edariak ere. Joxemari Iturralde

**Plater** bero eta onak jaten zituen jatetxeen epeletan. Fernando Rey

Arrazoi biologiko hutsak direla medio, euskal **plater** jatorrenek ez dute etorkizunik. Ramon Saizarbitoria

Lisak aholku onak ematen zizkion; hegoaldeko errezetak bazekizkien, eta Quenuk **plater** ederrak egiten zituen haren azalpenei jarraituz. Karlos Zabala

Egiten zekien **plater** gutxitarikoa zen eta, beraz, sarri izaten zen hura afaltzeko. Unai Iturriaga

McDonalds-etik hasita, enpresa-jantoki eta eguneroko otordua ematen duten jatetxeetaraino, **plater** gutxi eskaintzen dute denek. Edorta Agirre

Hauxe zen Franz Josef enperadorearen **plater** gustukoena! Pablo Sastre

## 7 hed

Eskopetaz **plater** -tiroan ibili ziren. Iñaki Zabaleta

Erdigunean iturri eder hura zegoen, bi **plater** zituena, behekoa zabalagoa eta handiagoa, eta goikoa tipiagoa [...] eta ur-zurrusta batek **plater** tipian goiti egiten zuen, eta gero beheti, **plater** tipiaren beraren gainerat, nondik, gainezka egin ondoren, askarat erortzen baitzen, ur-jauzi zirkular bat iduri. Joan Mari Irigoien

Balantza kulunkarian, non askatasun pertsonala eta gizarte-zuzentasuna ari baitziren pisatzen elkarren kontra, teknologiaren giltza ingelesa **plater** antilibertarioan zegoen jarrita. Iñaki Mendiguren

## 8 irud

Frantziako hazkunde industrial eskasa eta Alemaniako enpresariaren ZEW indize pattalak, **plater** normalagoak dira. Berria - Ekonomia

**Plater** on bat egiteko osagai aproposak bildu dituzte Eibarren. Berria - Kirola

Rallyko azken egunaren hasieran Loebek zuen alde ikusita, igandeko **plater** nagusia bigarren zen Duval eta Sainz hirugarrenaren arteko borroka izango zela zirudien.

Berria - Kirola

Dena den, eguneko **plater** nagusia jaialdiko bigarren partidari iritsiko da, puntako lau aurrelari elkarren aurka jarriko baitituzte. Berria - Kirola

**Plater** nagusiaren atariko bikainak gerta litezke Serradé (2944 m.) eta Contraix (2951 m.), gaur hain lotsagarriki alde batera utzi dutena. Aingeru Epaltza

## 9 bizikletan, pedalekin higitzen den gurpil horzduna.

Plan de Coronas delakoa ezagutzen du eta txantxetan aritu ginen, algaraka, hiru **plater** jarri beharko dizkiogula bizikletari. Berria - Kirola

Bizi-bizi igo zen Igorrekoa, **plater** handiarekin %8ko maldetan. Berria - Kirola

**Plater** handian gindoazen, eman eta eman eta bat-batean, sekulako aldapa. Berria - Kirola

**Plater** handia sartu, gogor eragin eta garaipena lortu. Berria - Kirola

**Plater** handia eta pinoi txikia jarri eta koskaz koska, ezinezko egin zuen hiruko horrek Somarribaren ametsa Bardolinoko helmugan. Berria - Kirola

Akabo, Lizarrusti bukatu eta **plater** txikia sartzeko denborarik apenas izango duelako tropelak. Berria - Kirola

## 10 plater hegalar

Portugaleten ere ikasle batek **plater** hegalar bat ikusi zuen astelehenean zazpiak aldera. Josu Landa

## 11 plater konbinatu askotariko platera.

**Plater** konbinatu bat eskatu zion kamareroari, 4 zenbakia, eta garagardo bat edateko. Joxemari Iturralde

Bi bermut hartu, **plater** konbinatu bat jan, eta etxerantz bideratu zen. Migel Angel Mintegi

Jantokian, **plater** konbinatuak jaten dituzte lankideek. Xabier Mendiguren Elizegi

## 12 plater nahasi askotariko platera.

Alabak hanburgesa, sandwich eta **plater nahasien** argazkiei begiratzen die, eta nik bie begiratzen diet, itsasoak mugatuko lukeen margoihal baten erdian bizia hartu zuketan figurak bailiren. Pako Aristi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**plater** bat ipini (3); **plater** bat jarri (3); **plater baten aurrean** (3); **plater beretik** (5); **plater bete** (3); **plater handi** (4); **plater handi bat** (3); **plater handia** (13); **plater handia sartu** (4); **plater handian** (8); **plater handian igotzen** (5); **plater hautsi bat** (3); **plater hegalar** (3); **plater hegalarren** (3); **plater hutsak** (3); **plater nagusia** (3); **plater txikia** (3); **plater zikin** (4); **plater zuri** (3); **urrezko plater** (4)

**bigarren platera** (8); **bigarren platera zerbitzatu** (3); **hortzeko platera** (3); **lehen platera** (4); **lehenengo platera** (3); **platera baztertu** (4); **platera ekarri** (4); **platera hartu** (4); **platera zerbitzatu** (3)

**platerak garbitzen** (5); **platerak jaso** (3)

**platerari begira** (4)

**platerean jartzen** (5); **platerean sartu** (3); **platerean utzi** (3)

**platerera bota** (3)

# platereratu, platerera(tu), platereratzen du ad platerera eraman

Kafea kikaratan ipini, eta bitsaderaz **platereratu** zituen arrautzak eta enparauak Mentxuk. Josu Landa



# platereskoak *iz* Espaniako arte estiloa, XVI. mendekoa, elementu gotikoak eta berpizkunderako konbinatzen dituenak.

Distira egiten dute eguzkipean, harro altxatzen dira zeru urdinerantz: jende asko biltzen da bertara **platereskoaren** graziak deituta. **Anjel Lertxundi**

Eraikuntzok distiratsu ageri dira eguzkipean, dorre zorrotzek zeru urdina edertzen dute, **platereskoak** airearen arintasuna eskaintzen dio harri astunari. **Anjel Lertxundi**

## platerka ik **platerkada**.

### **platerkada 1** *iz* plater baten edukia. ik **plater 5**.

Irudi bibliko hartan, oinordekotza bat irabazteko balio izan zuen **platerkada** batek. **Hasier Etxeberria**

Nahiago dut gogoak ematen didanetik bi **platerkada** eder jan. **Jose Morales**

Patatak txorizoarekin, mundialak, egundoko **platerkada** ederra zerbitzatu zidan lxabek. **Joxean Sagatzizabal**

Behin batez, **platerkada** bat arroz-esne jaten ari nintzela, [...]. **Bernardo Atxaga**

Neskatilak **platerkada** bat bizkotxo ekarri zuen eta buruz buru begiratu zidan. **Juan Kruz Igerabide**

Etxe batzuen gerizpean atseden hartu bitartean agure batek **platerkada** bat talo eta gazta ekarri didanean, bizigarri gisa. **Jon Arretxe**

**platerkada** bat gibel gordin eskatu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Juriri frantses eskolak emateko proposatu dit eta **platerkada** bat zopaz ordainduko didala. **Felipe Juaristi**

Orduan, eman zizkion Jakobek anaiari ogia eta **platerkada** dilista. **Elizen arteko biblia**

Baina zergatik ez zuen Augustus zaharrak beste **platerkada** zopa eskatu behar? **Anton Garikano**

-Aza-zopa oso gozoa dago gaur, laztana! -esan zuen Sobakevitxek, **platerkada** zopa zanga-zanga edandakoan eta erretitutik niania-puska ikaragarri handi bat hartuz. **Jose Morales**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Prusiarra sukaldean ari da, pasta **platerkada** bat prestatzen. **Harkaitz Cano**

Arroz **platerkada** batekin, gaixoen irribarre esker onekoarekin, eta arrastiri zoragarri haiekin, zoriontsu nintzen. **Juan Kruz Igerabide**

Sei dolar eta hirurogeiko lenteja **platerkada** bat hartu eta hamar dolarreko propina utzi dit... **Harkaitz Cano**

Parez pare espageti **platerkada** bat genuela ari ginen hizketan. **Fernando Rey**

Laster granada **platerkada** batekin etorri zitzaien. **Patxi Zubizarreta**

Geroxeago etorriko da, urdaiazpiko **platerkada** batekin, ardo botilarekin, dena guretzako. **Pako Aristi**

la erdiraino irentsia du ahi **platerkada**. **Berria - Euskal Herria**

Emakumea erdi etzanda zegoen, gozo-gozo, arrautza egosi bat espinaka-**platerkada** batean bezala. **Lopez de Arana**

Zain urdinekiko bere esku finez, amak zopa-**platerkada** bat ipini zuen mutilaren aurrean. **Lopez de Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste platerkada zopa (3); lenteja platerkada (3); platerkada zopa (6)**

## **platerkadatxo** *iz* platerkada txikia.

Astean arroz **platerkadatxo** batek ez digu askorik konponduko, baditugu egoskariak jateko. **Josu Zabaleta**

## **platerño** *iz* platertxo.

Kopak ur-busti ditut, eta orain **platerño** ilara bat jartzen ari naiz; gainean ezpain zapitxoak, eta hauetan croissantak, gero, pattarra baino gosari mardulagoaren eske datozenei tapa!, ondoan jartzeko. **Pako Aristi**

## **platertxo 1** *iz* plater txikia.

Teontzia prestatu ondoren katiluak jarri zituen, **platertxoak** eta koilaratxoak. **Joxemari Iturralde**

Kafea edan, kikara **platertxoan** utzi, eta irribarre egin zuen berriz ere-. **Ramon Saizarbitoria**

Zigarroa itzali zuen **platertxoan**. **Bernardo Atxaga**

Oliba irentsi, hezurra **platertxoan** utzi, eta zurrutada bat garagardo hartu zuen. **Migel Angel Mintegi**

Zigarro bat piztu eta pospoloa keinu axolagabez bisita-txartelen **platertxora** bota zuen-. **Ander Irizar**

**Platertxoan** paper bat tolesturik, zigarro bat piztu eta pospoloa keinu axolagabez bisita-txartelen **platertxora** bota zuen-. **Ander Irizar**

Amak erantzi egin ninduen, eta **platertxo** batekin ur sakratua bota zidan gainera. **Juan Kruz Igerabide**

### 2 (neurri gisa)

Eguerdia zen, eta gizonak vermouthe bat eta **platertxo** bat oliba eskatu zituen. **Joan Mari Irigoien**

### 3 (hitz elkartuetan)

Susanak burua astindu zuen azeituna **platertxoa** hartuz batera. **Bernardo Atxaga**

Eskaileretatik gora igo eta nire zakur **platertxoa** hartzen dut. **Josu Zabaleta**

## **platika** *iz* hizketaldia, mintzaldia.

Ehun baino gehiago izan dira zuen aurrean egin ditudan **platikak**, eta, sinetsiezadazue, nik ez daukat ehun gauza interesgarri esateko, ez zuei ez neure kolkoari ere.

**Joxerra Garzia**

Mintzaldi luzeak, solas amaiezinak, **platika** betirakoak, ogirik gabeko eguna oinaztargi bihurtzen zuten diskurtso oparoak egiten zituzten berbalapikook, erretolika hanpatu, farfilla eta hutsalez. **Jon Alonso**

## **platikatu**, platika(tu), platikatzen du *ad* azaldu.

Moniak gero emango dizkidazu -erantzun dit dirua ateratzen hasi natzaionean-, aparailua erosi, eta nola funtzionatzen duen **platikatzan** dizudanean. **Patxi Zubizarreta**

Zure senarrak uzten badit, gero **platikatuko** dizut. **Patxi Zubizarreta**



**platilo** (*orobasean **platilo** soilik*) *iz* presua tresna bat osaten duten bi plater modukoetako bakoitza.

Tronpeta eta **platilozko** txaranga batek egiten du zapart plaza nagusia; guarnizioak musikariak dira hiriri serenata ematen **Koldo Izagirre**

platilo ik **platillo**.

platina ik **platino**.

**platino** (*orobat **platina** g.er.*) **1** *iz* gai bakuna, zilarraren koloreko metal baliotsua, oso astuna eta gogorra, 1773 °C-tan urtzen dena (Pt; at. z. 78).

Tamainaertaineko diamante bat **platinotan** ezarria, familiaren baliozko objektu bakarra. **Ander Irizar**

Haren inguruko lurraldean ugariak dira fabrika metalurgikoak eta **platinoa** eta urrea garbitzeko ustiategiak. **Karlos Zabala**

**Platinozko** bi katetxo zituen, biak ere perladunak, belarrietan dilindan. **Patxi Zubizarreta**

Unibertsitateko geltokira heltzeko behar diren minutuak **platinozko** erlojuan zenbatu, eta liburua hastea erabaki duzu thriller hitzarekin topo egitean. **Javi Cillero**

Anestesia lokala jarrita, eta X izpien kontrolaz, **platinozko** ehun elektrodo eta plastikozko dozena erdi bat hodi sartuak zizkiten gizonari garunean arretaz aukeratutako gune batzuetan. **Irene Aldasoro**

**2** (hitz elkartuetan)

Marmol harrobiak, gatzagak, **platino** eta urre erauztokiak, ikatz meatzak ustiatzen dira bertan handizka. **Karlos Zabala**

Buenos Aiestik Bilbora zein Bartzelonara egiten den **platino**-kontrabandoa [...] itsasontzi horiek egiten dute. **Edorta Jimenez**

**3** orail argi-argia.

Ilehori **platino** bat zen, izentzat Marie Laforet zuena. **Pedro Alberdi**

Pantailako mugimenduei so, ilehori **platinok** edo bi guapoetakoren batek berarentzako mezu bat zeukala sinetsi zuen. **Pedro Alberdi**

Neskaren ilea **platinozkoa** da, hankak sinestezinak, argal-argalak. **Edorta Jimenez**

**4** irud/hed

Ehun milagarren ale horretara ailegatzea eta **platinozko** liburua jasoten dauan lehenengo euskalduna izatea. **Jon Arretxe**

**platinodun** *izond*

Izan ere, bietako batek, azal zuria zuen ilehori **platinodunak**, soineko beltz batekin kontrastatzen zuen; besteak, aldiz, Ozeaniako kolonietatik etorriko beltzaran lerdenak, soineko zuri batekin. **Migel Angel Mintegi**

**platirri** *adlag* tximinoez mintzatuz, sudur hezur zabal eta sudur zuloak alboetan dituen.

Ordubietatik aurrera, haur gaixoa (ejem!) ikastera joan da berriro; tximino katarrinoak eta **platirri** ziren gaur. **Josu Zabaleta**

**plato** *iz* telebista- eta zinema-filmaz lanak egiteko eszenatoki estalia.

Zinealdea eraiki Oartzunen, **plato** handiak eta sekulako azpiegiturak ETBren Bilboko egoitza berrian...Baita telebistako **plato** bat eta langileen bulegoak ere. **Berria - Kultura**

Jendea adi-adi zegoen, pipitarik jan gabe, ez zen ezer entzuten ahal **plato** desestalian. **Karlos Linazasoro**

**platondar** (*orobat **platoniar**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **platondar** agertzen da*) *izlag* Platonena, Platoni dagokiona. ik **platoniko**.

**Platoniar** errepublika ezaguna bihurtu da amestutako betegintzarrearen usteko adibide ohargarri gisa. **Ibon Urbarri**

**Platondar** nozio hori neurri batean beretu dute teoria modernoek, eta ez beti oso egoki. **Askoren artean**

Formek esperientziaren mundua transzenditzen dutela dioen **platondar** tesia ukatzen du Aristotelesek. **Askoren artean**

Lehen elkarrizketa hauen giroak ideia **platondar** dakarzkigu gogora, kristau fede erneberri apur bat jantzita; hauek dira Agustinen lan idatziaren hastapenak. **Imanol Unzurrunzaga**

Joera **platoniarreko** ontologiaren ikuspuntutik. **Askoren artean**

*Logos* delakoaren ikuspegi **platondarra**. **Askoren artean**

platoniar ik **platondar**.

**platoniko** **1** *izond* Platonena, Platoni dagokiona. ik **platondar**.

Kontraesan nabarmen horretatik sortzen da Kritiasen izaera zuzena azpimarratzen duen eskolio **platoniko** ospetsu bezain harrigarria: [...]. **Askoren artean**

Metafisika **platoniko** pixka bat, gehi Marx pixka bat, cocktail Molotov aproposago ezina da sabotai-gerra ideologiko baterako. **Joxe Azurmendi**

**2** (izenondo elkartuetan)

Beraz, biraketa sokratiko-**platonikoa** ulertzeko, besterik ez bada, ezinbestekoa da Sokratesen herrikideek partekatzen zuten etika homerikoa aztertzea. **Askoren artean**

Beste puntu eztabaidagarri bat Descartes proposamenean ideien izatearena edo balioarena da, kartesianismoaren oinarria bera alegia **platoniko**-agustindarra.

**Askoren artean**

· Fikzioak", esango du Mikel Azurmendik; Aranzadik, **platoniko**-aristotelikoki zehazkiago, "ez naturalak". **Joxe Azurmendi**

• **3** *izond/iz* (*pertsonez*)

Monoteista **platoniko**, estoiko, kristau eta marxistek susmagarri zaien bezala jendea munduaren anitzaz gozatzen ikustea, sortzaileari ere susmagarri zaio irakurlea liburu eta autore anitzez gozatzen sumatzea. **Markos Zapiain**

Agustinentzat **platonikok** dira Kristautasunari gehien hurbiltzen zaizkionak. **Imanol Unzurrunzaga**

Filosofoen aurka, Kallikles **platonikok** modu indartsuan egiten duen errealismoaren aldarrikapen kritikoa sofistena ere izan zitekeen. **Askoren artean**

#### • 4 *izond* idealista.

Aldekotasun ideal eta atxikimendu **platonikotik** bizi da berez. **Iñaki Segurola**

#### 5 maitasunaz eta kidekoen mintzaturaz, grina fisikorik ez duena.

Maitasun **platonikoa**, pertsona batekin ez baina pertsona horren ideiarekin maitemintzen zarenekoa izango litzateke. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Beraz, amodio **platoniko** bat ari haiz aipatzen. **Joxemari Iturralde**

Adiskidetasun **platonikoa**, besterik gabeko adiskidetasuna, ukiturik gabeko adiskidetasuna, dardararik gabeko adiskidetasuna. **Lourdes Oñederra**

-Neure bihotzekoa dut, baina gure arteko harremanak **platonikoak** dira, hertsiki. **Oskar Arana**

Ikusi gabe eta ukitu gabe moldatu behar, beraz; sinestun txintxoek, maitale **platonikoek** eta Heisenbergekin erakusten duten bezala. **Iñaki Segurola**

Nahi izan dute gazteek sexurik gabe maitatzea elkar, modu espiritualean, modu **platonikoan**. **Luis Elberdin**

**hitz multzoen maitasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**maitasun platonikoa** (6)

### platonikoki *adlag* era platonikoan.

Eroa baita aurrean duguna, jaunak, eta kasu hau are da jakingarriagoa, are interesgarriagoa, zeren oraindik aspaldi ez dela hil den eta Bavarian **platonikoki** erreinatu duen errege bitxiaren, printze zoritxarreko horren antza baitu gauza askotan. **Josu Zabaleta**

Arrazoimenak "esentziak" atzematen dituela, suposatzen da **platonikoki**, esperientziaren erlatibotasun belaska transzendituz. **Joxe Azurmendi**

- Fikzioak", esango du Mikel Azurmendik; Aranzadik, **platoniko** -aristotelikoki zehazkiago, "ez naturalak". **Joxe Azurmendi**

### platonismo *iz* Platonen doktrina.

**Platonismoa** Platonengan linburtzen den greziar mintzaira da, anitz mendetako bere metaforak garatuz. **Joxe Azurmendi**

Gero, Platonetz eta **platonismoaz** ez hain seguru ibiltzen ikasi behar izan dugu, eta metafisikari isil-isilik agur esan diogu, bere Ideia eterno guztiaren eta Ongi absolutuarekin. sentimenei zegozkien fenomenoek arduratu zen Hutcheson, **platonismoarekin** zerikusirik eduki gabe. **Joxe Azurmendi**

Honegatik kontrajartzen zaio epikureismoa **platonismoari**. **Ibon Uribarri**

**Platonismotik** ateratako argumentua da. **Imanol Unzurrunzaga**

### platonizatzaile *izond* zerbaiti izaera platonikoa ematen diona.

Bere *jeu d'esprit* **platonizatzailean**, idazle honek K.o. 1947an iradoki zuen, Mendebaldeko Zibilizazioak [...] hondamendi izugarriaren bat zertu behar bazuen Oikoumenê-n, azken bost edo sei mila urteetan zutik egondako kultur eginkizun bati berriro ekiteko zeregina tibetarrei egokituko zitzaieela agian. **Iñaki Mendiguren**

### platonzale *izond* Platon filosofoaren zalea dena.

Gnostikoak [...]: Filosofo sekta bat, lehen kristauen eta **Platonzaleen** arteko batasuna moldatu nahi izan zuena **Xabier Olarra**

### plauma ik **plama**.

### plaun ik **lau**<sup>2</sup>.

### plaunkai *iz* igeltseroaren tresna, zurezko eskutokia duen altzairuzko xafla bat dena, igeltsua edo kareorea hedatzeko edo berdintzeko erabiltzen dena. ik **palote**; **paleta**.

Sabai gangatuak prestatuta eta ehunduta daudenean, azpiko aurpegiari lehenengo zarpeatua emango zaio **plaunkaiarekin**, gero harearekin berdinduko da, eta ondoren kreta edo marmol-hautsarekin luzituko da. **Santiago Iruretagoiena**

### plaust (*orobat **plausta** g.er.*) 1 zerbait erortzearen, kolpe baten edo talka baten hotsa irudikatzen duen onomatopeia. ik **plasta**<sup>1</sup>.

Gure lehenusina Juliak hiru egin zituen segidan, **plaust**, **plaust** eta **plaust**, ez epiduralik ez ezer, hiru kaka mokordo lodi eta bigun bezain erraz. **Patxi Iturrategi**

Ustekabea, hala eta guztiz ere, malko potoloa agertu zen nonbaitetik eta, **plausta**!, koadernoaren gainera jausi zen... **Jesus Mari Mendizabal**

Era nekosoan zutitu, nagiak ateratzeko moduko keinua egiten hasi, eta **plaust**, muturrez aurrera zerraldotzen ziren. **Jokin Urain**

Han tente jartzen saiatu zen, baina Errol **plaust**! erori zen berriro, Etxera iritsi nintzenean nerbio atake bat eman zidan eta **plaust** geratu nintzen hantxe, dardarka. **Iñaki Mendiguren**

Gure lehen galderari [...] **plaust** erantzun zion: "Hiru hilabete inguru". **Juan Garzia**

Harri handi bat **plausta** botata ere egingo dira uhin zirkuluak! **Joseba Sarrionandia**

#### • 2 (izen gisa)

Korrokoiaren jauziek burbuilak sortzen zituzten paperolako kimikak gandututako uretan, amultsua zen haien pulunparen **plausta**. **Koldo Izagirre**

Errazago onartzen zituen haien burrunbak dinbi-danbak **plaustak**. **Lutxo Egia**

Korrokoiaren jauzien gisako **plaust** amultsuetan. **Koldo Izagirre**

Beste batzuetan haien erorikoaren **plaust** hotsa baizik ez zen izaten, eurek eskuak lotu edo hanketatik harri bat erantsi zutenean. **Josu Zabaleta**

#### 3 **plaust** *egin*

Halako batean **plaust** egiten duzula, horra dena. **Joxe Austin Arrieta**

### plaxent ik **plazent**.

# plaza 1 iz irri edo herrietan, maiz eraikine ingururik, izaten den leku aski zabala. ikenparantza.

"Hoa bizkor herriko **plaza** eta kaleetan barrena, eta ekarri hona behartsu, elbarri, itsu eta herrenak. **Elizen arteko biblia**

Donostiako Trinitate **plaza** egin zuenean, 1961ean. **Berria - Kultura**

Badaki non dauden kale eta **plaza** ezagunenak, non jaten den ondo, erosketak non egin... **Berria - Kirola**

**Plazako** jatetxera joaten naizenean ere zerbitzariak monsieur Nestor deitzen didate. **Bernardo Atxaga**

Hoteletik hurbil, **plaza** izena dotoreegia zaien Piazza di Arturo Graf atsedean-leku apala dago, luzea eta triangelu mehe baten antzekoa. **Anjel Lertxundi**

**Plaza** hau ez da karrikaren luzapena besterik, zabaldua eta itsasoari irekia. **Koldo Izagirre**

Galtzada-harri arrosaz zolatutiko **plaza** da. **Monika Etxebarria**

Euria ari zuen eta neska **plazako** zuhaitzetako baten kontra zegoen bermaturik. **Alberto Ladron Arana**

**Plazako** arkupeetan barrena. **Koldo Izagirre**

Orain, iduri luke ahantzia dela, haren izenean ziren **plazak** eta karririk bertze izen batzu hartu dutelarik. **Herria**

Gau huntan ikasi baitu ene herriak lau pilare badituela, xutik eta azkar atxikitzen dutenak, jauregia, **plaza**, zubi konkorra eta eliza. **Michel Oronoz**

Jaunaren gorespenak kantatzen hasi zen **plaza** eta auzoetan. **Askoren artean**

Mutilak poliki-poliki urrundu ziren udaletxetik, **plaza** baten atzean etxe eta jauregiak hormen zurtasunean berdeak distira egiten zion muino baterantz. **Josu Zabaleta**

**Plaza** zeharkatu orduko harrapatu zaitu nekeak, eta erdi-oinetz, erdi-korrika, aurrera jarraitu duzu, joatea xede bakar. **Eider Rodriguez**

Aparkalekurainoko **plaza** zeharkatzen ari direla, bere ondora erakartzen du euritik babesteko. **Oskar Arana**

Hegalaren itzalak **plaza** gurutzatzen zuen eta jendeak laster egiten zuen plazaren alde batera, eta berehala berriz lasterka lehentxeagoko toki berera. **Fernando Rey**

Funtsean lehenago Merkatuko **plaza** deitzen zuten. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

1.200 metro koadroko **plaza**. **Berria - Kultura**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Verpoile erdi aldera joan ziren oinez, **plaza** handi bat aldapan, hutsik hura ere. **Josu Zabaleta**

Lizuna eta degeneratua zela, haren liburuak erre zituztela **plaza** publikoan. **Anjel Lertxundi**

Bizkaiko ehun bat suhiltzailek elkarretaratzea egin zuten atzo Bilboko **Plaza** Biribilean. **Berria - Ekonomia**

Gurdi eta etxola pilaketa hura urtero-urtero Nijni Novgorodeko merkatu nagusia egiten zen **plaza** zabalean zegoen jarria. **Karlos Zabala**

Orain, baina, nire oroitzapenetan Maximilian **plaza** txukuna oso bestelako sentimenduz dago tindaturik. **Alberto Ladron Arana**

Hiritik kanpo zegoen errebal gris eta txiro bateko **plaza** arrunt batera heldu zela ikusirik, bertan iturri bat egon behar zuela iruditu zitzaion. **Aritz Gorrotxategi**

Denak utzita, murr, kale eta **plaza** eder haien artean bizitzeak, ibiltzeak eta aditzeak, [...] jadanik berarekin behar adinako saria bazutela iruditu zitzaion. **Txillardegi**

Lugo hiriaz ere oroit naiz, **plaza** ederraz bereziki. **Piarres Aintziart**

**Plaza** makurtu bat! **Jon Muñoz**

Don Carlos Arizkungo **plaza** luzera sartzerakoan, goizean Zugarramurdirakoan bezalaxe, zuziriak berriztatu dira. zientzia-fakultateko eraikinen arteko **plaza** lauzatura ematen zuen ataria. **Txillardegi**

Herriko **Plazan** dantzan ari ziren, hildako erregearen omenez. **Felipe Juaristi**

Herriko **plaza** jendez gainezka zen. **Ramuntxo Etxebarri**

Sprint proba goizeko 10:00etan hasiko da, udaletxeko **plaza** ondotik. **Berria - Kirola**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hantxe gelditu zen Joanes, **plaza**-sarrera zaintzen. **Felipe Juaristi**

**Plaza**-kantoi batetik desagertu zen. **Xabier Aranburu**

Harea edo lur-hautsa ere ekarri zuten, **plaza**-zolan barreiatzeko. **Joan Mari Irigoien**

Erdiko uharkatik hodiak eramango dira urmael eta **plaza**-iturri guztietara. **Santiago Iruretagoiena**

4 (*hitz elkartuetan bigarren osagai gisa*) Bizitzako borroka-**plaza** latzera. **Ander Irizar**

Tokia, merkatu-**plaza**, gure laguna bere lan-indarra bertan saltzen hasi ondoxean. **Aingeru Epaltza**

Pragako Azoka **Plaza** Zaharrean jakiak saltzeko denda handi eta oparo bat zuen Stephan Saltz merkatariaren alaba bakarrarekin. **Felipe Juaristi**

## 5 (jolestokizat edo jendaurreko edo jendarteko lekutzat hartua).

Oraindik ere askori iruditzen zaio **plaza** ez dela emakumeontzat leku egokia. **Ana Urkiza**

Ikasi genuen, adibidez, hobe dela telebista plazara eraman eta **plazakoa** telebistaz eskaintzea, telebista **plaza** bihurtzea baino. **Andoni Egaña**

Nola ahaztuko du bada, bere lehen **plaza** saioa zuen-eta. **Iñigo Aranbarri**

Edozein toki dantzan egiteko **plaza** bihurtzen zuen. **Xabier Etxabe**

Borborrean zegoen **plaza**, jende guztia dantzan eta kantuan. **Jose Morales**

**Plaza** zenenak jokatzeko erabiltzen zela ez zegoen dudarik. **Iñaki Iñurieta**

*ik beherago* 14. **Askoren artean**

Arriskuren bat, gizon armatuak-edo inguruan, sumatuz gero, hiritarrak **plazan** biltzen zirela elkarri eskua emanda. **Felipe Juaristi**

Plazaz **plaza** ibiltzen ziren komedianteen moduan. **Felipe Juaristi**

**Plazaz plaza** hogeitabi urte bete ditudan honetan, jolasean ari naizen uste osoz, hogeitabi artikuluxka idaztea pentsatu dut. **Andoni Egaña**

Eskualdeko bertsolariak aritu ginen han, eta **plazak** ere egiten genituen, auzoetako festetan eta. **Berria - Kultura**

Erretiroaz eta adinaz ari garelarik, miresgarri zaigu guztioi Joxe Agirre batek 75 urte gainean dituela, **plazaz plaza** ematen duen bertsolari maila. **Andoni Egaña**

Bertsolariak **plaza** asko egin behar ditu urtean zehar kide beretsuekin. **Andoni Egaña**

Eliteko bertsolariak **plaza** kopuru egokia dute prestaketarako. **Berria - Harian**

Bizkaiko zenbait herritan neska plazakoa edo **plaza**-neskatila esaten zitzaion [...] **plaza**, dantzara eta mutil-susmoan hasitako neskari. **Iñaki Segurola**

Hainbat **plaza** egin genduan, gehienbat Bizkaian, baina entseiu asko egin behar da, behar handia eskatzen dau eta denpora luzea kentzen deus. **Xabier Amuriza**

Grekoek *logeion* (solas-**plaza**) deitzen diote, aktore tragikoek eta komikoek eszenan egiten dituztelako beren hizketaldiak. **Santiago Iruretagoiena**

## 6 (merkatu lekutzat hartua)

Berdura **plaza** inguruko lokal hartan baziren nire adin modutsukoak. Gizon-emazteak, janzkeran denak langile usain horrekin, zera, aire zabaleko **plazaren** batean erositakoei darian "merkea baina zein erabilgarria" lelopekoekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ama Chantemesseren atzetik joan zen, poz-pozik, hainbeste jendez eta hainbeste barazkiz beteriko **plaza** handi hari begira, liluraturik. **Karlos Zabala**

Merkatua egiten den **plaza** horretarik bi urratsetan. **Janbattitt Dirassar**

Merkatuko **plazan** altxatzen ziren oihal etxoletan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Auzo batek Hazparneko **plazan** sos urritan erositako bertso-papera. **Anjel Lertxundi**

## 7 (idi probetan luzera neurri gisa)

Emakumezkoetan Maika Ariztegi iturendarrak 9 **plaza** eta erdi eta 4,9 metro egin zituen eta gizonezkoetan Andoni Irigoien aniztarrak 16 **plaza**. **Berria - Kirola**

Mari Mar Garcia (12 **plaza** eta 5,98 metro) eta Juanjoxe Agirregabiria (26 **plaza**) izan ziren iaizo txapelkunak. **Berria - Kirola**

Letea jatetxearen uztaerriak 17 segunduan egin zuen **plaza** edo untze bakoitza batez beste eta 20 segundo igaro zituen plazatik plazarako atsedendaldian. **Berria - Kirola**

Juanjoxe Agirregabiria lehen txandan aritu zen, eta badaezpada, **plaza** dezente egitera jo zuen. **Berria - Kirola**

## 8 hiria.

Hiru mila bixitan inguruko, eskualdeko burua zen eta, beraz, guda- **plaza** garrantzitsua. **Jon Maia**  
Merkataritza **plaza** hartako izenik zaharrenak eta klubeko aspaldiko sortzaileak izanagatik ere herriko zordunik nabarmen eta finkoenak izan arren. **Bego Montorio**

## 9 ipar pilotalekua.

**Plaza** hori, orai den bezala, "Zaharrer-Segi" pilota batzorde berriak, goititu zian, 1924ean. **Michel Oronoz**

Adarraga eta sanmateoak **plaza** garrantzitsuak dira, leitzar gazteak, ordea, ez du ardura berezirik. **Berria - Kirola**

Pilotari haundienekin, sekulako partida ederrak izan dituk **plaza** huntan, herriko bestetan eta bertze anitz okasionetan: esku huska, Dongaitz familiakoak, [...]: joko garbian, Urruti, Txikito Kanbokoak, [...]: errebotean, Sarako Izarra, [...]. **Michel Oronoz**

Bidearen bi aldeetatik dauden pentze horiek Uharteko Hegiluxenekoak dira; batean dago delako luzeko **plaza** hori eta bestean Santa Maria Magdalena elizaren lekua. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Laxoan aritzeko ez da **plaza** egite beharrik; aski da zelai bat leuna. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Herriko **plaza** laxoko eta ezker paretako bi lehiaketak ez dira usaian bezala egin. **Herria**

Sortu zirelarik orain bezalako pilota plazak, hala nola ezker pareta, trinketa, **plaza** laxoa, eta abar, tantoka kondatzeko orde segitu zuten luzean bezala kondatuz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## 10 lanpostua.

laxoko urrian, **plaza** hori behin betirako lortzeko oposizioa pasatu behar izan nuen. **Joxerra Garzia**

Ikasleen diziplina faltak minduta eta etorkizun hobearren bila, Milanen erretore **plaza** lortu zuen. **Imanol Unzurrunzaga**

Horrek esan nahi du irakasle bat behar dudanean, **plaza** lehiaketa publikora ateratzen dudala. **Berria - Euskal Herria**

Niri eman zidaten **plaza**, urtero-urtero berritu beharreko kontratupuan. **Joxerra Garzia**

1994ko martxoaren amaieran jakinarazi zidaten Leioako **plaza** neuri eman zidatela, eta apirilaren erdialdera hasi nintzen eskolak ematen. Irakasle **plaza** berri gutzietz hizkuntz eskakizuna jartzeko ideia atera zuen kanpainan Iñaki Antiguedadek. **Joxerra Garzia**

## 11 lekua; eserlekua.

10 **plaza** baino ez ditu, De la Fuenteren esanetan, Caritasek nahi baino baliabide gutxiago dituelako: «Egunotan bi ohe gehiago jarri ditugu, baina gure eskaintzak ez dio erantzuten gaur egungo premiari». **Berria - Harian**

Gutxieneko **plazak** betetzeko adina ikasle ere ez zegoen, UEUko arduradunen esanetan. **Berria - Euskal Herria**

RENFEK baliabide gehiago jarri zituen atzo, eta ohiko tren kopuruari beste hamaika gehiago gehitu zizkion 3.520 **plaza** gehiago izan ziren. **Berria - Mundua**

## 12 pilota plaza

Sortu zirelarik orain bezalako **pilota plazak**, hala nola ezker pareta, trinketa, plaza laxoa, eta abar, tantoka kondatzeko orde segitu zuten luzean bezala kondatuz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Pilota plaza** haundia bada ere, betea zen mukurru dantzari eta soegilez. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

18etan eskuhuska **pilota plazan**. **Herria**

Ortzegun aratsean, Kanbon, herriko **pilota plazan**, euskal indar jokoak. **Herria**

Miarritzen, besta gaitza izan da joandean igandean, Euskal-Jai **pilota plazan** muntatua. **Herria**

Anduraingo jauregiak, Maule gaineko enparantzak eta **pilota plaza** nagusiak harrera egingo diete ikusgarri. **Berria - Kultura**

**Pilota plazako** aterbepean, bazkaria Panpi LADUCHE bazterren airostek. **Herria**

Igande goizean **pilota plazan** beharra zen bainan ezker paretan egin da jende gutxiagorekin. **Herria**

## 13 plaza nagusi

Hala jakinarazi zuen hiriburuko **Plaza Nagusian** ezarritako ohar batez. **Felipe Juaristi**

Bere bulegoko leihotik begiratzean, Luis Mateo Diezek Madrileko **Plaza Nagusia** ikusten du. **Berria - Kultura**

Udaletxe aurrean, **plaza nagusian**, haize leunaren menpe zebilen paper batek bereganatu zuen nire arreta. **Juan Luis Zabala**

Igandean irailaren 11n ezki azpiko **plaza nagusian** (edo ezker paretan euria bada) goizeko 9etarik aratseko 7ak arte bio salgaiak. **Herria**

Herriko **plaza nagusian** dago pilotalekua Andoainen, nire etxetik ehunen bat metrora. **Rafa Egiguren**

Iritsi ginen herrixko hartako **plaza nagusira**, topatu genuen agure bat, eta galdegin genion: [...]. **Josu Zabaleta**

Dagoeneko trikitilari eta trikitizaleen **plaza nagusi** bilakatu da Aristerratzukoa. **Xabier Olarra**

## 14 zezen plaza ik zezen.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aiherrako plaza (7); aintzineko plaza (11); areetako geltokiko plaza (4); aurreko plaza (10); beheko plaza (4); bidarraiko plaza (4); bilboko plaza (23); bilboko plaza biribilean (5); elizako plaza (4); etxearen aintzineko plaza (4); euskal herriko plaza (5); gasteizko plaza (5); gaztelu plaza (6); geltokiko plaza (4); herriko plaza (49); herriko plaza nagusian (6); hiriko plaza (14); irakasle plaza (6); lamothe plaza (5); maximilian plaza (8); merkatu plaza (10); montaut plaza (5); moskuko plaza (6); partidako plaza gizona (4); pilota plaza (46)

plaza aldera (14); plaza andere (4); plaza auzoan (5); plaza bakarra (4); plaza berean (4); plaza berri (11); plaza berria (9); plaza berrian (39); plaza berriaren (13); plaza berriko (9); plaza berrira (4); plaza bete (10); plaza biribilean (8); plaza biribiletik (15)

plaza eder (5); plaza ederra (5); plaza ederrean (8); plaza egin (7); plaza erdian (18); plaza erdira (7); plaza gehiago (9); plaza gorria (7); plaza gorrian (6); plaza guzian (4); plaza handi (10); plaza handia (6); plaza handian (5); plaza haundian (5)

plaza inguru (6); plaza inguruan (7); plaza izan (5); plaza jendez gainezka (4); plaza laxoa (7); plaza laxoko (49); plaza laxoko finala (4); plaza laxoko joko (4); plaza laxoko xapelgoak (5); plaza mukurru bete (4); plaza nagusia (14); plaza nagusian (45); plaza nagusiaren (5); plaza nagusiko (5); plaza nagusira (11)

plaza ondoan (15); plaza ondoko (8); plaza osoa (15); plaza osoan (4); plaza pollitean (4); plaza publikoan (4); plaza txiki (7)

plaza zabal (5); plaza zabalean (7); plaza zaharra (5); plaza zaharrean (5); plaza zaharreko (10); plaza zeharkatu (11)

plazarik plaza (17); plazaz plaza (40); plazaz plaza ibili (4); postaren aintzineko plaza (5); sarako plaza (4); trinitate plaza (12)

udaletxeko plaza (4); zezen plaza (42)

karrika eta plazak (6); pilota plazak (4); plazak eskaintzea (4); zezen plazak (6)

behereko plazako (12); eko gaztelu plazako (5); gaztelu plazako (8); gazteluko plazako (15); herriko plazako (9); innocents plazako (4); iruñ konstituzio plazako (4); maiatzeko plazako (16); maiatzeko plazako amen (6); maximilian plazako (13); pilota plazako (5)

plazako aparkalekuaren (6); plazako arkupeetan (5); plazako finalak (4); plazako izkina (5); plazako kioskoan (5); plazako ostatuan (4); plazako xapelgoak (7)

plazaz plazako (5); zezen plazako (16)

aiherrako plazan (20); aintzineko plazan (31); aintzineko plazan (6); alai plazan (6); andre plazan (6); andres plazan (15); areetako geltoki plazan (5); arma plazan (5); arriaga plazan (14); aurreko plazan (16); auzoko plazan (5); azkaingo plazan (5); azpetitiko plazan (4); azpetitiko zezen plazan (9); baigorriko plazan (11); baina plazan (4); baionako zezen plazan (7); beheko plazan (4); beheko plazan (36); bellevue plazan (6); beltzeneko plazan (6); belzeneko plazan (4); bidarraiko plazan (4); bidarteko plazan (6); bihotza plazan (4); bilbo plazan (7); bilboko arriaga plazan (5); bost kantoineko plazan (38); da herriko plazan (7); da plazan (11); debako plazan (8); dira plazan (4); ditu plazan (5); donostiako konstituzio plazan (4); donostiako trinitate plazan (5); du plazan (12); dute herriko plazan (8); egunean plazan (4); eko gaztelu plazan (5); eko gazteluko plazan (8); elizako plazan (37); elizaldeko plazan (7); ere plazan (5); eta gazteluko plazan (4); eta herriko plazan (4); eta plazan (29); etan zezen plazan (4); etxearen aintzineko plazan (6); etxeko plazan (8); euskal herria plazan (4); feria quintaou plazan (5); fermin plazan (4); foruen plazan (9); frantzisko plazan (4); gaineke plazan (7); gaskoinen plazan (4); gaztelu plazan (15); gaztelu zahar plazan (6); gazteluko plazan (32); geltoki plazan (6); getariako plazan (6); gipuzkoako plazan (8); gipuzkoako plazan (7); gure plazan (5); hazparneko plazan (7); heletako plazan (11); herria plazan (5); herriko etxeko plazan (6); herriko pilota plazan (11); herriko plazan (210); herriko plazan eta (8); hiri sarrerako plazan (4); hiribehereko plazan (9); hiriko plazan (10); independentzia plazan (6); independentziaren plazan (4); iruñ iruñ itsasuko plazan (7); izeneko plazan (4); jai pilota plazan (4); jarri ditu plazan (4); jarri du plazan (5); jaume plazan (5); joko plazan (12); joko plazan behi (4); jokoak herriko plazan (6); juan plazan (6); kantoineko plazan (38); karmelo plazan (8); kasino aintzineko plazan (10); kasinoaren aintzineko plazan (5); kieveko independentzia plazan (4); ko plazan (8); konstituzio plazan (22); lacarre plazan (10); lacarre plazan (7); lapurdiko plazan (5); lasterrak zezen plazan (7); loti plazan (7); mari zuriaren plazan (37); mariaren bihotza plazan (4); martin plazan (4); mauleko plazan (4); maximilian plazan (17); merkatu plazan (19); merkatua quintaou plazan (15); merkatuko plazan (8); montaut plazan (16); moyua plazan (12); munduko plazan (4); munoa plazan (4); musika plazan (14); mutxiokoak herriko plazan (6); okendo plazan (4); ondoko plazan (5); ondotik plazan (4); partida plazan (5); pasteur plazan (6); petri plazan (11); pierre loti plazan (6); pilota partida plazan (5); pilota plazan (87); pilota plazan eta (6)

plazan agertu (4); plazan amaitu (8); plazan amaitu zen (5); plazan amaituko (5); plazan ariko (5); plazan aurkitu (5); plazan barrena (5); plazan behi lasterrak (6); plazan berean (4); plazan bertan (25); plazan bildu (13); plazan bildu ziren (9); plazan bilduta (9); plazan bilduta zegoen (4); plazan bildutako (11); plazan bizi (5); plazan bukatu (8); plazan bukatu zen (4); plazan bukatuko (4); plazan bukatuko da (4); plazan dago (4); plazan dago (4); plazan dagoen (5)

**plazan** egin (22); **plazan** egin zuten (4); **plazan** egingako (9); **plazan** eginen (7); **plazan** eginen da (6); **plazan** egingo (10); **plazan** egingo den (4); **plazan** eginiko (4); **plazan** egiten (5); **plazan** elkarretaratzea (5); **plazan** elkartu (8); **plazan** elkartu ziren (4); **plazan** gelditu (5); **plazan** geratu (5); **plazan** hasi (16); **plazan** hasiko da (4)

**plazan** ikusi (6); **plazan** iragan (5); **plazan** izan (8); **plazan** izan zen (6); **plazan** izanen (8); **plazan** izanen da (5); **plazan** izango (20); **plazan** izango da (14); **plazan** jarri (9); **plazan** jarriko (4); **plazan** jokatu (6); **plazan** joko (4); **plazan** lasterka (4); **plazan** mutxikoak (4)

**plazan** pilota (7); **plazan** pilota partida (5); **plazan** sartu (8); **plazan** sartzten (5)

**plazan** utzi (4); **plazan** zegoen (9); **plazan** zeuden (9)

**posta** **plazan** (6); **purguko** **plazan** (7); **quintaou** **plazan** (27); **san andre** **plazan** (4); **san andres** **plazan** (14); **san fermin** **plazan** (4); **san frantzisko** **plazan** (4); **san juan** **plazan** (6); **san martin** **plazan** (4); **san petri** **plazan** (8); **sant jaume** **plazan** (5); **sarako** **plazan** (10); **sarrerako** **plazan** (5); **tolosako** **zezen** **plazan** (6); **triangelu** **plazan** (4); **trinitate** **plazan** (23)

**ako** **plazan** (6); **udal** **plazan** (6); **udaletxe** **plazan** (8); **udaletxeko** **plazan** (18); **unamuno** **plazan** (8); **urkoiko** **plazan** (7); **urriko** **plazan** (4); **urruñ** **xurio** **plazan** (8); **zelaiko** **plazan** (4); **zezen** **plazan** (89); **ziburuko** **plazan** (13); **zuloaga** **plazan** (8)

**aurreko** **plazara** (4); **herriko** **plazara** (10); **konstituzio** **plazara** (4); **maximilian** **plazara** (9)

**plazara** **abiatu** (4); **plazara** **agertu** (4); **plazara** **allegatu** (4); **plazara** **atera** (8); **plazara** **ematen** (4); **plazara** **heldu** (20); **plazara** **heldu** **zenean** (5); **plazara** **hurbildu** (4); **plazara** **iritzi** (22); **plazara** **itzuli** (10); **plazara** **jaitsi** (4); **plazara** **joan** (17); **plazara** **joan** **zen** (4); **udaletxeko** **plazara** (7)

**zezen** **plazara** (11)

**pilota** **plazaraino** (4); **plazaraino** **joan** (4)

**plazarako** **bidea** **hartu** (4); **plazarako** **bidean** (6)

**herriko** **plazarat** (4)

**gatzeluko** **plazaren** (4); **herriko** **plazaren** (9); **lamothe** **plazaren** (5); **merkatu** **plazaren** (7); **pilota** **plazaren** (6); **plazaren** **erdian** (43); **plazaren** **erdira** (4); **plazaren** **erdtik** (5); **plazaren** **inguru** (5); **plazaren** **inguruan** (10); **plazaren** **izkina** (4); **plazaren** **ondoan** (4); **plazaren** **ondoko** (4); **plazari** **begira** (4); **plazarik** **plaza** (17); **zezen** **plazaren** (18)

**aita** **donostia** **plazatik** (17); **arriaga** **plazatik** (4); **biriatuko** **plazatik** (6); **donostia** **plazatik** (17); **elizako** **plazatik** (10); **gatzeluko** **plazatik** (5); **herriko** **plazatik** (24); **jesusen** **bihotza** **plazatik** (7); **kantuz** **lakarre** **plazatik** (7); **karmelo** **plazatik** (4); **lakarre** **plazatik** (22); **lakarre** **plazatik** **partituz** (19); **mari** **zuriaren** **plazatik** (8); **moyua** **plazatik** (5); **pilota** **plazatik** (4)

**plazatik** **abiatu** (16); **plazatik** **abiatu** **zen** (7); **plazatik** **abiatuko** (21); **plazatik** **abiatuko** **da** (12); **plazatik** **abiaturik** (7); **plazatik** **abiatuta** (18); **plazatik** **abiatuz** (5); **plazatik** **atera** (5); **plazatik** **aterako** (8); **plazatik** **aterako** **da** (6); **plazatik** **gertu** (5); **plazatik** **hurbil** (7); **plazatik** **irten** (4); **plazatik** **irtengo** (5); **plazatik** **partituz** (20); **sant jaume** **plazatik** (11)

**zezen** **plazatik** (4)

**plazaz** **plaza** (40); **plazaz** **plaza** **ibili** (4); **plazaz** **plazako** (5)

**euskal** **herriko** **plazetan** (4); **gure** **plazetan** (4); **kale** **eta** **plazetan** (5); **pilota** **plazetan** (5); **plazetan** **agertzen** (4); **plazetan** **kantari** (4)

**plazagizon** (*7 agerraldi, 3 liburu eta 4 artikulutan*; orobat **plaza-gizon 44 agerraldi, 5 liburu eta 37 artikulutan**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian* **plazagizon** agertzen da) **1** iz jendaurrean edo jendartean askotan aritzen eta trebeki moldatzen dena; plaza jokoetan gailentzen dena.

Maelek, **plazagizona** izaki, inizatiba hartu zuen: [...].   Joanes Urkixo

Bost urte barru niri txapela kentzeko moduan izango dela ere esan nion, indartsua eta **plazagizona** baita.   Berria - Kirola

Belodromoan aritzeak ez dut uste eragin berezia izango duenik, hirurak **plaza-gizonak** baitira aspalditik.   Berria - Kirola

Jean-Jacques Lasserre eskuindarra eta Jo Labazée ezkerrekoa, elgarri konplimenduka, biak **plaza-gizon** agertuz...   Herria

Inor begira dagoenean ez du nekerik izaten eta ordubeta egin lezake jotzen horrelakoetan, deskantsurik gabe; benetako **plazagizona** da, errormerietako soinu-jotzaile peto-petoa.   Xabier Etxabe

Ai zer **plaza-gizon** pareta, lehenagoko haundien hazikoa! 15 bote eta 5, hori ere ainitz da.   Herria

Gratchev izan zen partidako **Plaza Gizona**.   Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan)

Txirulari, kantari, dantzari eta pastoral egile urdñarbarraren aburuz, Pierra Bordazarrereren ospea eta **plazagizon** izaera azaltzen duen kontu nagusia da nekazari mundukoa zela.   Berria - Kultura

## plazagizontasun

 (*orobat **plaza gizontasun***) iz plazagizona denaren nolakotasuna.

Hemen agur bat Martiarenaren 40 urteko lerroari eta hunen klasa eta **plazagizontasunari**.   Herria

Lau pilotariak lehen klasean jokoaren eta **plaza gizontasunaren** aldetik.   Herria

## plazakide

 iz plaza berekoa.

-Zuen aita eta Tomas Sitse, **plazakide** ez ezik, auzoz be hurrekoak ziran.   Xabier Amuriza

## plazaño

 iz plazatxo.

Bordagaineko kaskoan den **plazañoari** eman diote Charles eta Lael Wertenbaker-en izena.   Herria

Ondorioz, kanpoko aterbea eremuz tipitua gelditu baita, bazterreko **plazañoa** estaliko dute, hori Omiasainduko oporraldian.   Herria

Luzaiden baziren **plazaño** batzu birla jokoarentzat egokituak, hala nola Gaineoletan, Gaindolako bi tokitan, [...].   Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## plazaratu

, plazara(tu), plazaratzen (*orobat **palazaratu g.er.***) **1** du *ad* plazara atera; argitaratu. ik **kaleratu**.

**Plazaratu** dituzten zezenak zezen adarluze, suhar eta nobleak dira.   Edorta Jimenez

Bi mila urtetik goiti igaro dira Aristotelesek erretorikaren definizioa **plazaratu** zuenetik.   J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hala ere, agiri labor hau **plazaratu** zuten: [...].   Txema Ramirez de la Piscina

Aferaren gainean ezer gutxi zeukan kontatzeko, eta gainera ez zuen **plazaratzeko** asmorik.   Migel Angel Mintegi

Euskara batua egin ondoren ere, gai horren inguruko hiru liburu **plazaratu** zituen.   Koldo Zuazo

Sarriegik *Aita Pello* opereta **plazaratzen** du.   Askoren artean

Duela gutxi Mikel Urdangarinek **plazaratu** duen disko bikaineko kanta bat.   Jon Arretxe

Ikerketa bat enkargatzen bada, gero hori **plazaratzeko** izaten duk beti.   Xabier Mendiguren Elizegi

Hark **plazaratutako** iau galderen inguruan filosofian jorratu diren gaiak azaltzen saiatu gara.   Askoren artean

Itozko Koordinakundeak **plazaratutako** txostenak ez dituzte adituek egin.   Edurne Elizondo

## • 2 da ad

Artikulu mordoa **plazaratu** zen halako klonazioaren abantailak edo, sarriago, ondorio latzak deskribatuz.   Juan Garzia

1539an, dena dela, Villers-Cotterêts-ko Agindua **plazaratu** zenean, frantsesa ezarri zen Frantzia osoko hizkuntza ofizial bakartzat.   Koldo Zuazo

1985ean **plazaratu** zen lehen alea, eta horrekin hasi zen eraikitzen euskara batuaren gramatika.   Koldo Zuazo



Horiek ahalbidetzen dute ezkontzen bertan **plazaratzen** diren arazoen konponbidea. korronte elektriko bat igaroarazita hezur hautsia bizkorrago oia datekeelako tesia **plazaratu** da, baina ez du onarpen zabalik izan orain arte. **Andres Urrutia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agindua plazaratu (4); agiri bat plazaratu (7); agiria plazaratu (11); agiria plazaratu zuten (5); aldizkaria plazaratu (3); aldizkarian plazaratu (3); alea plazaratu (3); antzeko iritzia plazaratu (6); argitaletxeak plazaratu (10); argitaletxeak plazaratu duen (3); argitaletxearen eskutik plazaratu (4); asmoa plazaratu (3); atzo plazaratu (21); aukera plazaratu (3); autoa plazaratu zuen (3)

batera plazaratu (3); beharra plazaratu (8); berriak plazaratu (4); berriki plazaratu (3); berrikitan plazaratu (3); bertan plazaratu (3); bestelako iritzia plazaratu (3); bilduma plazaratu (3)

datuak plazaratu (3); diska plazaratu (10); disko plazaratu (3); diskoa plazaratu (7); diskoa plazaratu du (4)

ebazpena plazaratu (8); egitasmoa plazaratu (4); egun hautan plazaratu (4); emaitzak plazaratu (4); erabakia plazaratu (5); erakundeak atzo plazaratu (3); eskaerak plazaratu (3); eskutik plazaratu (5)

gogoeta plazaratu (7); gogoetak plazaratu (4)

hainbat lan plazaratu (3)

ikuspegia plazaratu (4); iritzi ezberdinak plazaratu (4); iritzia plazaratu (19); iritzia plazaratu zuen (8); irudiak plazaratu (3)

jaurlaritzak plazaratu (3)

lana plazaratu (4); lehen diska plazaratu (3); lehenago plazaratu (3); liburu bat plazaratu (11); liburu plazaratu (5); liburu plazaratu ditu (3); liburua plazaratu (16); liburua plazaratu du (5)

manifestua plazaratu (5)

ofizialak plazaratu (3); ohar bat plazaratu (3); oharra plazaratu (13); oharra plazaratu zuen (7)

ondorioak plazaratu (4)

plazaratu arren (3); plazaratu aurretik (5); plazaratu berri den (3); plazaratu berri ditu (4); plazaratu berri du (25); plazaratu berria (10); plazaratu berria du (4); plazaratu duen liburua (3); plazaratu ondoren (3); plazaratu ostean (5); plazaratu zuen agirian (3); plazaratu zuen atzo (21); plazaratu zuen idatzia (3); plazaratu zuten atzo (3)

prentsa oharra plazaratu (10)

proposamen plazaratu (3); proposamena plazaratu (5)

sententzia plazaratu (4); sorta plazaratu (4); sorta plazaratu du (3)

taldeak plazaratu (4); teoria plazaratu (3); txostena plazaratu (11); txostena plazaratu du (5)

ugari plazaratu (6); urte plazaratu (3); urtean plazaratu (5)

zalantzak plazaratu (3); zenbakia plazaratu (4); zerrenda plazaratu (3)

plazaratua izan (13); zenbakia plazaratua (3)

plazaratuak izan (5)

datorren astean plazaratuko (3); gaur plazaratuko (5); uztarriak plazaratuko dira (4)

datorren astean plazaratuko (3); egurrak plazaratuko (4); egurrak plazaratuko dituzte (4); ere plazaratuko (4); gaur plazaratuko (5); gaur plazaratuko du (3); plazaratuko da (9); plazaratuko dela (6); plazaratuko dira (15); plazaratuko ditu (12); plazaratuko dituela (3); plazaratuko ditugu (3); plazaratuko dituzte (24); plazaratuko du (28); plazaratuko duela (3); plazaratuko duen (4); plazaratuko dugu (3); plazaratuko dute (18); uztarriak plazaratuko (4); uztarriak plazaratuko dira (4)

atzo plazaraturiko (6)

arratsaldean plazaratutako (3); atzo plazaratutako (35); atzo plazaratutako agiri (4); atzo plazaratutako autoan (3); atzo plazaratutako datuen (4); berriki plazaratutako (4); egunkariak plazaratutako (4); etak larunbatean plazaratutako (3); gobernua plazaratutako (4); herenegun plazaratutako (7); larunbatean plazaratutako (3)

plazaratutako adierazpenean (3); plazaratutako agiri batean (7); plazaratutako agiria (4); plazaratutako agiriak (5); plazaratutako agirian (12); plazaratutako agiriaren (4); plazaratutako agiriaren arabera (3); plazaratutako autoan (6); plazaratutako azterketa (3); plazaratutako datuen arabera (6); plazaratutako epaia (3); plazaratutako inkesta (3); plazaratutako ohar (3); plazaratutako oharrean (4); plazaratutako ondorioak (3); plazaratutako prentsa (4); plazaratutako sententzia (6); plazaratutako txosten (3); plazaratutako txostenak (4); plazaratutako txostenean (3)

telebista publikoak plazaratutako (3); urtean plazaratutako (4)

plazaratzea erabaki (3)

plazaratzeaz gain (4)

iritzia plazaratzeko (19); iritzia plazaratzeko aukera (4); plazaratzeko asmoa (3); plazaratzeko aukera (10); plazaratzeko eskatu (5); plazaratzeko eskubidea (3); plazaratzeko xedea (3)

argitaletxeak plazaratzen (4); argitaletxearen bidez plazaratzen (5); liburu bat plazaratzen (6); orain plazaratzen (3); plazaratzen duen liburua (3)

## plazaratze iz plazara ateratzea; argitaratzea.

Mementoko Baigorriko turismo bulegoan ikus daiteke, bainan **plazaratze** zabalago bat merexi luke, dudarik gabe! **Herria**

## plazatto iz plazatxoa.

Ikustera joaten ginen, eta han aurkitzen genuen, hoteleko **plazattoan** eserita, guardasolaren azpian. **Fernando Rey**

## plazatu, plaza(tu), plaztzen 1 du ad kokatu.

Komisariaren lau izkinatan dinamita paketeak **plazatu** zituzten, zartatzearen ondorioak ahalik handienak suertatzeko gisan. **Itxaro Borda**

Istanbuli Brigadak izeneko ekintzaile talde batek bere gain hartu zuen bi hegazkinen aurkako atentua, talde islamikoen komunikatuak **plazatu** ohi dituen webgune batean. **Berria - Mundua**

Fama du amerikano bankoetan badituela 130 miliun dolar **plazatuak** bere herri ttipiaren petrolio erresalbueterik. **Herria**

### • 2 da ad

Laguna ez du beti untsa **plazatua**, deneri lotzen bada ere bereziki airez, eta zenbait aldiz bere hetarik egiten, bereziki gantxo. **Herria**

Adixkide onak eta azkarrak badituztelakotz ongi **plazatuak**. **Herria**

Hiriko enpresari ohikoa, lerroa edo gaizki **plazatua** izan ezean, agintarien itzalpean biren jabe oheratu eta hogeitazkatela atzarrari diren horietarik. **Aingeru Epaltza**

## plazatxo iz plaza txikia. ik plazaño; plazatto.

Neskato bat ikusi nuen niregana inguratzen, **plazatxo** zuzen-zuzen zeharkatuz, eskuaz keinu lagunkorra egiten zidalarik. **Joxemari Iturralde**

Ibaira ematen zuen **plazatxo** baten erdian. **Anjel Lertxundi**

Han, lau etxek osatutako **plazatxoan**, hantxe ziren haurtzarorekin lotzen nituen irudiak. **Alberto Barandiaren**

Alderdi honetan bada soilgune bat, pagoez osatutako **plazatxo** moduko bat duena. **Koro Navarro**

Geltokiko **plazatxoan**, hegan zebiltzan enarak, jendea berriketan ari zen, lur bustiaren eta labeen usain gozoa sentitzen zen. **Josu Zabaleta**

Etxe aurreko **plazatxora** iristen ari ziren. **Imanol Zurutuza**

Trenaren geltoki berria, **plazatxo** karez zurutu eta hautsez betean, lazareto bat bezain isil. **Josu Zabaleta**

Baratzean baziren zenbait fruitu-arbola, une hartan hostorik gabe; bi ibilbidek gurutzatzen zuten, erdian **plazatxo** bat eratuz eta lau sail berdinetan banatuz. **Josu Zabaleta**

Lorediz inguratutako **plazatxo** bat zen, erdian ez-dakit-zein garaipenen ohorezko estatua luzea zeukana. **Jon Arretxe**



**plazebo** (*orobat **placebo** g.er.*) iz sendatze indarrak ez izanik, hartzaileak baduela uste duelako, eragin terapeutikoa duen gaia.

**Plazeboa** substantzia eraginkorrik ez duen prestakina da, eta botika baten ordez ematen da. **Berria - Gaiak**

Multzo bakoitza hiru taldetan banatu zuten: heren bati tratamendu esperimentalak eskaini zioten, beste herenari **plazeboa**, eta hurrenari ezertxo ere ez. Bitaminak erdieste merke-merke denez, aurrez prestaturiko janari gehienei [...] era askotako bitaminak gaineratuko zaizkie etorkizunean, osasuna eskuratu eta iraunarazten laguntzeko edo, **plazebo** hutsa izaki, prezio biziaren aitzakia barkagarri bihurtzeko. **Berria - Harian**

"Materiala" deitzen diogu laineaz, badakigularik ere lautik hirutan estrikinaz gozatutako **plazebo** ideal bat besterik ez dela, eta ideia eta lainea soil horrexek ponitzen gaituela. **Iñaki Seguro**

Ikazkinak edabe **plazebo** bat eman zion erreginari eta sendatu egin zen. **Martin Anso**

**plazent** (*orobat **plaxent***) iz atsegina.

Erraiten ahal dautzuegu jende **plaxentak** direla tokiko jendearekin hizkatzea guziz preziatzen dutenak. **Herria**

Nora joan dira ene debadio-kide **plaxentak**? **Itxaro Borda**

Denaden, beti **plaxenta** eta presta baitzen, ainitz zerbitzu eta laguntza egin izan du apez adiskideeri. **Herria**

Arras **plaxenta** agertu da Ariel Sharon frantses herri gizonen alderat. **Herria**

Esku-langile bat nintzen, ahal bezain xerrenta eta **plaxenta**. **Daniel Landart**

Oporretako irakurketa horietan, ordea, gehiago izaten dira plazer hutsezkoak lanari lotuak baino, zorionez; nahiz eta ez gertatu beti nahi bezain **plaxentak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eskualde **plaxent** eta ireki honetan ezen, luzaz zokoraturik eta kolonizaturik bizi izan diren jendakien itzal eta akats guztiak ageri dira. **Piarres Xarriton**

**plazenta** iz haragi masa arroa, umekia biltzen duena eta uteroari atxikia dagoena.

Kamiseta eta galtzontziloak erantzi gabe oheratu zen, **plaxentan** dagoen haurraren antzo, kuzkur-kuzkur. **Unai Iturriaga**

Jaiotzeko nengoela, nire amak *plaxenta praevia* izan zuen - **plaxentaren** askatze goiztiarra, alegia-, eta ni bide normaletik ateratzeko gauzak okertu zirenez, zesarea egin behar izan zioten. **Ramon Saizarbitoria**

Noesiterapia eskolak jaso dituzten emaginak **plaxenta** eskuz kentzeko gai izan dira, horretarako anestesia erabili beharrik izan gabe, eta episiotomiak ere egin dituzte. **Berria - Gaiak**

Jateko nire **plaxenta** ematen ari zitzaizkidala iruditzen zitzaidan. **Joseba Urteaga**

**plaxentalio** iz *Plaxentalia* azpiklaseko ugaztuna, umekiak uteroan luzaz, plaxentaren bidez elikaturik, atxikitzen dituen.

Ugaztun eme eboluzionatuagoek -martsupialioek, lehenengo, eta **plaxentalioek**, geroago- bereizi zituzten bi funtzio horiek hodi banatan, eta, horretarako, bagina garatu zuten. **Luis Elberdin**

**plaxentki** *adlag* atseginez.

Zeren eta plaxeraren leihoak eta portaleak zabaldu nahi baintuen lau haizeetarat eta plaxerrei **plaxentki** emana bizi. **Joan Mari Irigoien**

**plaxentzia** iz atsegina.

Jauzika hasi bainintzen, plaxenti-plaxenta eta plaxenti-plaxenta, arraitasunak eta **plaxentziak** horditurik banengo bezala... **Joan Mari Irigoien**

-Bizitza honetan plaxentziak igurikitzen jakin behar da, **plaxentziaren** erdiesteko... **Joan Mari Irigoien**

**plaxer** (*Euskaltzaindiaren Hiztegian, -r-a biguna dela adierazten da*) **1** iz atsegina.

Neska gazteak neskalagun on bat bilatzen saiatu behar du, libre eta munduzalea, **plaxerak** ezkutuan gozatzen lagunduko diona. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hamidak, **plaxeraren** eta koleraren artean, arretaz behatzen zuen. **Patxi Zubizarreta**

Joycerentzat, gorputz-ariketa betebeharra baino gehiago zen, **plaxera** zen. **Oskar Arana**

**Plaxeraren** ondotik desplaxera duzu... **Itxaro Borda**

Nerabezaroan hartu nuen **plaxer** horren kontzientzia. **Ana Urkiza**

Gehiegizko luxu eta **plaxerak** gazterik zahartu dituen gizonen ezaugarria zirudien zimur eta izurrez betetako aurpegia. **Urtzi Urrutikoetxea**

Barealdiaren **plaxera** dastatzeko beharra sentitu zuen eta ohean luze etzan zen. **Josu Landa**

Irrika honek, gizakion jokaeraren funtsa **plaxera** bilatzea eta minari ihes egitea dela dioen uste zabaldua ezeztatzen du. **Markos Zapiain**

Nolatan bertuteak gida lezake **plaxerra**, beroni jarraitzen badio? **Patziku Perurena**

Eta **plaxer** hari, mintz bat bezala, bigarren bat eransten zitzaion, non nenbilen konturatzeak ematen zidana. **Bernardo Atxaga**

Bat-batean, **plaxeraren** gailurraren gailurrean, hazia sentitzen nuen, bero-bero, izterreko azal hotzean behera. **Anjel Lertxundi**

**Plaxer** hori ezinezkoa zaigunean, asma dezagun ordezkoa: goza dezagun sekula onik ez egiteak ematen duen atsegina gaiztoaz. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Sibaris, **plaxer** guztien hiria, antzinate osoan ospetsua! **Jon Muñoz**

Bere inurri-zuhurtasunarekin, diru kopuru bakoitzarekin zenbat **plaxer** lor zitekeen kalkulatu zuen. **Josu Zabaleta**

Bi mutilek ea **plaxer** hori egingo zieten galdetu zieten damai, eta Mary Jane Daly andereñoarengana itzuli zen. **Irene Aldasoro**

**Plaxer** gehiegi ematen ziolako kondenatuari. **Harkaitz Cano**

Beti da **plaxera** zu ikustea. **Oskar Arana**

Madame, **plaxer** da zure edertasunaren lekuko izatea. **Felipe Juaristi**

Emakumearen gorputza **plaxerez** luzatzen eta bihurritzen ikusten zuelako. **Iñaki Zabaleta**

Darasako arratsalde hartan maiteari gerturatu zitzaiolarik, Abasek garaipenaren **plaxera** ezagutu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Lo gozo sakon baten **plaxeraren** murgildurik balego bezala egin zuen hasperen. **Anton Garikano**

Eudaimoniak zoriona adierazi nahi du, ez, ordea, **plaxeraren** zentzu hutsalean. **Askoren artean**

Han inor txokor ere ez zekien mutila merkatariairen semea zela, eta horrek pentsarazi zien mutil hura agure bizarziaren **plaxererako** zela, haren gutzia bat baino ez. **Patxi Zubizarreta**

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Plazer** handia nuke hori horrela ez dela mezutuko bazenio. [Jon Muñoz](#)

- **Plazer** handiz eginen dizuegu lepoa. [Aingeru Epaltza](#)

**Plazer** mugagabea, elkarren guraria duena hesi bakar. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

**Plazer** eztiagorik badea nor bere buruarekin bakean egon, egunak lasaitasunean eman, kezkarik gabe lokartu eta kontzientziaren ausirikik gabe iratzartzea baino? Baldin

**plazer** biziagorik balego, ez ditut desiratzen; ez ditut ezagutu nahi. [Jon Muñoz](#)

Orain, halako **plazer** uher batek bildu ninduen bere altzora. [Aingeru Epaltza](#)

Aukerarik izanez gero, halako **plazer** txiki bat eragiten zien solaskideari eztenkadaren bat sartzeak. [Jose Morales](#)

Begiradak, musuak, laztanak, desioa, jolasak, izerditzeak, beroaldiak... **plazer** partekatua. [Luis Elberdin](#)

Zineko poesia, **plazer** partikularra adierazi nahi eta ezin horixe duzu. [Patziku Perurena](#)

Utz nazazu betegina zarela uste izaten, hori baita gelditzen zaidan **plazer** bakarra. [Jon Muñoz](#)

Oihuka hasi ginen bozkario eta **plazer** betean biok, hain geunden zoriontsu. [Joxan Elosegi](#)

Izpirituaren **plazer** intelektualek izatearen galdera beldurgarriak urruntzen ditu. [Piarres Aintziart](#)

Gure gizartean erlijioak duen eragina gainbehera dator eta,aldi berean, jolas eta **plazer** sexuala areagotzen ari da, bai bakarka, bai bikotekidearekin. [Luis Elberdin](#)

**Plazer** hutsez, herrian sartu aitzin, edan dut aska betetzen duen uretik. [Piarres Aintziart](#)

Horrexegatik nenbilen puntako **plazer** hura neuk ere dastatu eta tarteka gozatu nahian. [Aitor Arana](#)

Gizon hark desio zuen, eta horrek neskaren bihotzean zirrara eta mirespena pizten zituen, hain zuzen ere polo magnetiko batek bezalatsu erakartzen zuen limurtasunezko

**plazerarekin** batera. [Patxi Zubizarreta](#)

**Plazer** erabateko batez zabalduko ditut begiak, irriño zoriontsu batez, ene maite ezerezaren begiak ene begietan... [Anjel Lertxundi](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Plazer** minutu bakarra. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

**Plazer** -oihuak egiten nituen ordudunik haren pean. [Joxan Elosegi](#)

Kexu edo **plazer** aiuma txikiren batzuk egin eta lo jarraitzen zuen. [Joxean Agirre](#)

Nik **plazer** olatuak sentitzen nituen, oihu eragiten zidatenak. [Juan Martin Elexpuru](#)

Oihu txikiak, **plazer** espasmoak eta empatiazko hasperenak. [Patxi Iturritegi](#)

Eta interesik ez dut, honezkerok ez delako arazo, **plazer** -iturri baino. [Karlos Linazasoro](#)

Aspaldian ibili gabeko **plazer** bideak urratzen. [Juan Luis Zabala](#)

Sexua sekulako jaia zen, jolasa, komunikazioa, **plazer** sinfonia. [Luis Elberdin](#)

Klitoria da emakumearen **plazer** eragile handiena. [Luis Elberdin](#)

**Plazer** gose ere ba naski. [Janbattitt Dirassar](#)

Asko dira, izan ere, kontenplaziorako lekua aisia-leku bihurtzen dutenak eta arimen perfekziorako asmatutako eremitorio-biziera **plazer** -zulo. [Askoren artean](#)

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hau jainkosa-**plazera** !... ez dago munduan honi hurrik ematekorik. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

### 5 plazerezko

**Plazerezko** txangoak garestiak izaten dira, Axenarrio. [Itziar Otegi](#)

Trena da iraultza industrialak ekarri zuen bizitza-estilo alienatuari **plazerezko** etekinen bat ateratzeko aukera bakarrenetakoa. [Anjel Lertxundi](#)

Atzerriko emakumeekin izandako **plazerezko** eta amodiozko abentura kitzikagarriak. [Fernando Rey](#)

Masturbazioa amodiozko eta **plazerezko** ekintza bat da. [Luis Elberdin](#)

Vanessaren **plazerrezko** oihuak itzelak ziren. [Jon Arretxe](#)

Bihotza hotz izan bazuen ere, gizonaren hitzak **plazerezkoak** egin zitzaizkion. [Patxi Zubizarreta](#)

### 6 plazer egin

**Plazer egiten** du ikusteak berriz toki eder hortan etxea xutituko dela. [Herria](#)

Ez du burua horretan, baina beti **plazer egiten** du lagun zaharren ikusteak. [Eneko Bidegain](#)

**Plazer eginen** niolakoan, ene armak bertan uztea erabaki nuen. [Aingeru Epaltza](#)

Galdegina bide zuen apezka nintzen, eta pentsatu zuen, hain segur, holako otoitz liburu batek **plazer eginen** zidala. [Marzel Etxehandi](#)

Nahi nuen mutikoa izan aitari **plazer egiteko** bakarrik. [Menane Oxandabaratx](#)

Horrek biziki **plazer egin** zidan. [Daniel Landart](#)

### 7 plazer-emaile izond plazer ematen duena.

Bazirudien aspaldiko garaiak berriz etorriak zirela, itsasontzia bere kaskarrean, bere zaharkinean, **plazer-emaile** bihurtu baitzen berriro ere. [Felipe Juaristi](#)

Irakurketa -irakurketa **plazer-emaileaz** ari naiz- ekintza klandestino halako bat izan da gure herri txikiak haurtzaroen. [Anjel Lertxundi](#)

Klitoria, **plazer emaile** paregabea, naturaren asmakizun zoragarria, emakumeen plazeraren gunea. [Luis Elberdin](#)

Parekorik gabeko **plazer emailea**. [Luis Elberdin](#)

### 8 plazer eman

Arnasa hartzeak berak **plazer ematen** zuela iruditzen zitzaidan. [Bernardo Atxaga](#)

Une hori hain izan da laburra non irudi baitu niri **plazer eman** baino, nahiago izan duzula behako horiek ikusi gabe zer galtzen nuen niri sentiarazi. [Jon Muñoz](#)

**Plazer ematen** du, autoestimua hobetzen du, bikotekideen arteko lotura sendotzen du eta endorfinak askatzen laguntzen du. [Luis Elberdin](#)

Gizaseme batek harreman sexualak gizonetzkoekin gauzatzeko ohitura duenean, munduko gauzarik errazena zaio ohekideari **plazer ematea**, berak atsegin lukeena haiei egitea besterik egin beharrik ez dauka-eta. [Aitor Arana](#)

Jauregi liluragarri batera eramango zaitut, eta han nahi bezainbeste fruta eta ardo izango duzu, eta neska xarmant bat zuri **plazer emateko**. [Patxi Zubizarreta](#)

### 9 plazer etxe (orobat plazeretxe)

Hemeretzigarren mendeko txinatar bidaiari bat imajinatu Balmoraleko xarmak deskribatzen, hogeita bosgarren mendeko txinatar poeta bat Txinako olerki-zati magiko batean Victoria erregina eta haren **"plazer-etxe** izugarria" gorensten inspiratzeko aski gogo-berotasunez. [Iñaki Mendiguren](#)

Hobe izanen zen **plazeretxe** hitza erabiltzea. [Iñaki Zabaleta](#)

**Plazeretxeko** txirrina jo nuen eta betiko bibotetudun gizon elegantea agertu zen atean. [Iñaki Zabaleta](#)

### 10 plazer hartu

Artean edoskitzen eta atseginetan **plazer hartzen** eta nire gorputzeko minetan, berriz, negar egiten besterik ez nekien. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Kosta egin zitzaidan, halere, hizketaldiaz **plazer hartzea**. [Bernardo Atxaga](#)

Badaki **plazer hartzen** duzula jendea zigortzen? [Koldo Izagirre](#)

Aihertar askok **plazer hartuko** dute hunen irakurtzean, gure herrian iragan memento batzu aipatzen ere baititu. [Herria](#)

Guk banekien, berak erranik, informazio ofizierak **plazer hartzen** zuela galdeketa egitean. [Piarres Aintziart](#)

Naturak gozamen sodomarrak, intzestuko atseginak, masturbazioa eta antzekoak debekatuko balitu, utziko al liguke horietan hainbeste **plazer hartzen**? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Sineskeria maltzur eta ilun batek baizik ez dezake **plazer hartzea** debeka. [Piarres Xarriton](#)

### 11 plazer izan du ad

Biziki kuriosa niz bizi guzian eta nahi nuke, **plazer nuke**, egun batez gertatzea holako beste planeta batetik etortzen den beste izaite baten aitzinean izatea. **Menane Oxandabaratx**

**Plazer duzu** amarruzko arrazoibidez ni asaldatzen; itzurtzen zatzaizkie nireei. **Jon Muñoz**

**Plazer nuke** zurekin oraino solastatzea. **Janbattitt Dirassar**

**Plazer izan nuen** hura dena bustitzea, eta zein atsegin handia labanaz lehenengo ile mototsa kendu nionean. **Edorta Jimenez**

-Arrolako batailaz ari ginen, segi dezagun, **plazer baduzu**, Harizpe jauna. **Michel Oronoz**

- **Plazer baduzu**... -esan zuen Manilovek-. **Jose Morales**

-Eskurik ez, **plazer baduk**. **Janbattitt Dirassar**

Manatzen duzu begira dezagula kastitatea, emazu bada manatzen duzuna, eta gero mana ezazu **plazer duzuna**. **Aingeru Epaltza**

Han nehor ez da neherekin esposatzen, nornahi **plazer duenarekin** ibil daiteke. **Aurelia Arkotxa**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**beti plazer egiten** (3); **bezainbat plazer** (3); **hainbeste plazer** (4); **halako plazer** (13)

**plazer badu** (4); **plazer badu berorrek** (3); **plazer baduzu** (8); **plazer bakarra** (4); **plazer bat da** (4); **plazer bat izan** (4); **plazer bat zen** (3); **plazer berezi bat** (3); **plazer bihurtzen** (3); **plazer bila** (11); **plazer bila atsegin** (7); **plazer dugu** (4); **plazer dut** (4); **plazer duzu** (3)

**plazer egin** (7); **plazer eginen** (6); **plazer egiteko** (11); **plazer egiten** (21); **plazer egiten du** (9); **plazer emale** (4); **plazer eman** (4); **plazer ematen** (10); **plazer ematen du** (3); **plazer eragile** (6); **plazer estetiko** (3); **plazer handi** (9); **plazer handi bat** (5); **plazer handia** (59); **plazer handia da** (9); **plazer handia ematen** (10); **plazer handia ukan** (3); **plazer handiagoa** (6); **plazer handiagorik** (4); **plazer handiena** (5); **plazer handienarentzat** (3); **plazer handikoa** (3); **plazer handirekin** (10); **plazer handirekin jakin** (3); **plazer handirik** (3); **plazer handiz** (30); **plazer hartu** (7); **plazer hartuko** (3); **plazer hartzea** (4); **plazer hartzen** (20); **plazer hartzen du** (3); **plazer haundi** (18); **plazer haundi bat** (5); **plazer haundi batekin** (12); **plazer haundia** (4); **plazer haundiarekin** (3); **plazer haundirekin** (21); **plazer haundirekin ikusi** (4); **plazer haundirekin jakin** (3); **plazer hutsa** (7); **plazer hutsa da** (3); **plazer hutsagatik** (8); **plazer hutsez** (6)

**plazer istant** (3); **plazer iturri** (5); **plazer klase** (3); **plazer mota** (3); **plazer nuke** (6)

**plazer osoa** (3); **plazer partikularrik** (3); **plazer poxi** (3); **plazer sentitzen** (3); **plazer sexuala** (4); **plazer sexualaren** (4); **plazer sexualerako** (3); **plazer sinfonia** (6); **plazer txiki** (4)

**plazer ukanen** (3); **plazer une** (3); **plazer zuela** (3); **sentipen eta plazer** (3)

**burmuineko plazeraren guneetara** (3); **emakumearen plazeraren** (5); **emakumearen plazeraren ardatza** (3); **plazeraren gunea** (3); **plazeraren guneetara** (3); **plazeraren mezulariak** (3); **plazeraren mezulariz** (4); **plazeraren ondotik desplazera** (3)

**plazerez hiltzen** (3)

**plazerik handiena** (7)

**errezebitzeko plazer** (3); **ikusteko plazer** (9); **plazer** (9); **plazer areagotzeko** (3); **plazer** (9); **plazer eginez** (4); **plazer eman** (3); **plazer ematen** (4); **plazer hartzen** (3); **plazer** (9); **plazer izanen** (4); **plazer ukan** (3)

**zer plazer** (32); **zu ikusteko plazer** (5)

**plazerraren plazerrez** (4)

**ikusteko plazeraz** (3)

**plazerrekin entzun** (3); **plazerrekin ikusi** (10); **plazerrekin ikusi dugu** (3); **plazerrekin jakin** (29); **plazerrekin jakin dugu** (24); **plazerrekin jakinarazten** (3); **plazerrekin jakiten** (10); **plazerrekin jakiten dugu** (10)

**plazerrik gabe** (5); **plazerrik handiena** (5)

plazeretxe ik **plazer 9**.

**plazergarri** *izond* plazer ematen duena.

Plazatik haste, itxura kriket, **plazergarri**, alai bat beretuz, etxe xuri argiak eta gainerat oinkarientzat, zer geriza, prezagarriak diren harri pikatuz egin bazterbide egokiak.

**Herria**

**plazergune** *iz* plazer hartzen den gunea.

Alabaina, haren gorputzean bazen **plazergune** berri bat orain: gerritik behera ez zuen ezer sentitzen, hautsirik ez zeukan seinale. **Pako Aristi**

**plazerkeria** *iz* plazer gaitzesgarria.

Denbora bat pasatzea jan, edan, dantza, festa **plazerkerian**. **Menane Oxandabaratx**

**plazerño** *iz adkor* plazer txikia.

**Plazerño** haundi batekin ohartu gira ere, gehienek euskara ontsasko mintzatzen eta irakurtzen dutela. **Herria**

**plazido** *izond* barea, jabala, narea.

Ilunpean noiztenka azkonar sotilek edo kahaka **plazidoek** abiadura hausten zidaten. **Itxaro Borda**

**plazo** *iz* epea.

Jaurlearitzak bi **plazotan** jarriko du dirua, milioi erdia aurtan eta beste erdia, datorren urtean. **Berria - Kultura**

plaztika ik **plastiko**<sup>1</sup>.

plaztikaki ik **plastikoki**<sup>2</sup>.

plaztiko ik **plastiko**<sup>1</sup>.

## plebeio *(orobat plebeiu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian plebeio agertzen da) izond/iz herri xehekoa.*

Erresumako lehenengo printzesa **plebeioa** bihurtu behar zuena, ezer baino lehenago, kazetaria zen ofizioz. eder eta sendo iruditutako mundua zatar eta kaskar omen; unibertsaltzat hartutako bizimodua, salbuespen; gure izatea bera, bigarren mailako, **plebeio** edo. **Iban Zaldúa**

Itxuraz besteak baino haziago izatea beste merezimendurik ez zuen soldadu baten oin izugarri **plebeioen** euskarri, plinto eta oinarria izan zedin. **Jon Alonso**

**Plebeioen** eta patrizioen artean sortu ziren istiluetan, Sakro mendiko erreboltan, alde batetik fedea eta bestetik kontratuen gogorra besterik ez ziren aipatu. **Iñaki Iñurrieta** "Kaltegarria litzateke hirientzat", diote Honorio eta Teodosio enperadoreek, "eta saltzeko eta erosteko erraztasuna ezabatuko luke merkatarien eta **plebeioen** artean". **Iñaki Iñurrieta**

Bururatu zitzaion **plebeiu** batek behar zuela Klodio adoptatu, halatan populuaeren tribuno bilakatu ahal izan zedin. **Juan Garzia**

Oso izatera gorabeheratsu eta aztoragarria zuen, sentipen aristokratiko eta **plebeiozko** nahaste ezin eramaneko bat. **Josu Zabaleta**

## plebeiu ik plebeio.

## plebetar *izond* plebeioa.

Urte batzuk geroago, *La rebelión de las masas*-en, arazoa, buruzagi eta eliteei muzin egiten dien masa **plebetarra** da. **Joxe Azurmendi**

## plebiszitario *(orobat plebizitario) izond* plebisziutarena, plebisziutari dagokiona. ik plebiszitu 2.

Erreferenduma, dena den, beste gauza bat dela zehaztu zuen: «Kataluniako batasun zibilaz ari gara eta zentzu **plebiszitarioa** du». **Berria - Mundua**

PPren pentsaera bakarraren erasoaldiari erantzuteko aukera zehatza, erraz ulertzekoa, eskaini diete Kataluniako botoemaileei Carod-Rovira zerrendaburu jarrita, bozketari izatera **plebiszitarioa** emanda. **Berria - Euskal Herria**

## plebiszito ik plebiszitu.

## plebiszitu *(orobat plebiszito; Euskaltzaindiaren Hiztegian plebiszitu agertzen da) 1* iz aginpidea hartu duenari ematen zaion uste onari buruz edo estatu gorabehera bati buruz hautesleen multzoak baiaren edo ezaren bitartez ematen duen botoa.

Nazio baten existentzia eguneroko gauzatu behar den **plebiszitu** dela dio Renaneka. **Berria - Kultura**

Mundu Gerlaren ondoko Estatu-Hitzarmenetan, 1919an, irabazleak arduratu ziren, hein batean, nazio eskubideak kontuan hartzeaz, galtzaileak behartu baitzituzten, 12 kasutan bederen, **plebiszitu**en egitera, estatu berrien mugak demokratikoki finkatzeko gisan. **Piarres Xarriton**

Ez al ziren bata bestearen ondoan etorri, senatukontsultuak, **plebiszituak**, pretoreen ediktuak, kontsulen ordenantzak, edilen araudiak, juriskontsultoen erantzun edo erabakiak, pragmatika-berronespenak, erreskriptuak, ediktuak eta enperadoreen nobelak? **Andres Urrutia**

Aldaketa etengabe haiek, dela lege bidez, dela **plebiszitu**en bidez, arrunt bihurtu zuten Erroman lukurreria. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik plebiszitario.

Gaurko lehiak **plebiszitu** kutsua dauka talde txuri-urdinarentzat, Anoetako zaleak ez baitaude batere gustura ikusten ari direnarekin. **Berria - Kirola**

Oro har batzarrak, debate leku baino, **plebiszitu** tokiak ziren. **Itxaro Borda**

## plebizitario ik plebiszitario.

## plegarazi, plegaraz, plegarazten du *ad* plegatzera behartu.

Urteak pasatu ahal, ondoriozta daiteke Euskal Herritarrok alderdiarentzat treguaren helburu nagusia EAJren autodeterminazioa **plegaraztea** izan zela. **Itxaro Borda**

Lau gizonek bizkarrezurra **plegarazi** zioten. **Itxaro Borda**

Irriak, adinak mateletan urratu arroilak **plegarazten** zizkien. **Itxaro Borda**

## plegatu, plega, plegatzen 1 da/du *ad* tolestu.

Makurtu genian biok burua eta **plegatu** belauna. **Joan Mari Irigoien**

Oheari estekan dolorez **plegatu** zen Txoko. **Itxaro Borda**

Eskuak gerrian, zango bat zuzen eta bestea **plegaturik**, txapela buruan trebes. **Itxaro Borda**

Ganibeta **plegatu** zuen eta sakelari sartu. **Michel Oronoz**

Leihatilaren azpitik, ongi **plegatzen** zituen hilabetekari koloretsuak luzatzen zizkidan. **Itxaro Borda**

Soa berriro paperera **plegatzen** zuen. **Itxaro Borda**

Zakuak hartzen, *Nouvel Obs* besapean **plegatzen** eta biloak orraztatzen segitu nuen, emozioaren aztaparrek lardaskatua. **Itxaro Borda**

## 2 irud/hed

Ahoa **plegatu** zuen Maianak, disgustuz, eskalearen magaletik aldentzeko Frantxuaren haiari ihardetsiz. **Itxaro Borda**

## 3 makurtu, amore eman.

Xarles dolorez **plegatzen** zela, lasterka lekutu zen Edmearen magalean gerizatzeko. **Itxaro Borda**

Luthero edo Kalvin, egia bere molderat egokitu eta **plegatu** nahi zuten gizon nahitsuak. **Joan Mari Irigoien**

Burua ahalketz **plegaturik** gero, jende ez nintzenez ba galdezka, ttume-ttumea gasna puska hartu nion. **Itxaro Borda**

Beste guziak mendiak emaiten zuen bezala **plegatzen** ziren pilotan aritzeko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

François Sargentini korsikar abertzalea preso altxatu dute Korsikan, ADN frogaketa baten egitera **plegatu** ez delakotz. **Herria**

Nor nintzen, neure izatearen izenean, ene gutzietara munduaren **plegatzea** eskatzeko? **Itxaro Borda**

Guk ez dugu horrelako gauzetara **plegatze**ko ez kopeta ez eta kuraiarik! **Itxaro Borda**

Jeiki: hau Abil behi paregabearen umea da, eta erran dezaket, manu guzieren **plegatzen** dela. **Herria**

Egun hartan erakusten zidan hoztasunak nonbait mintzen ninduen eta isiltasunera **plegatzea** erabaki nuen. **Itxaro Borda**

## 4 (era burututa izenondo gisa)

Arrantzaleak atorrako sakelatik paper **plegatu** eta hondatu bat atera zuen, eta Joanttori luzatu zion. **Elena Touyarou**

Eta liburuko orrien artean bertze orri bat erakusten zuena, orri **plegatu** bat. Joan Mari Irigoien

## 5 irud/hed

Sarako elizako prediku aulkian, jende beldurtu eta **plegatu**en aurrean oihuka. Itxaro Borda

## plegatzaille *izond* plegatzen duena.

Halaz urteroko Euskaldun Ondarearen Batzarreko bestaren **plegatzailleari** Zirikari izeneko pieza estreinatuko zuela iragarri zion. Itxaro Borda

## plegu 1 *iz* tolesa.

Ikusi dugu nola ezartzen diren mahaiak, lisa-burdina eskuetan dafailen behar den bezala jartzeko **plegurik** gabe. Herria

Gazteak tiraderaren barnea estaltzen zuen kartoia altxatu zuen eta orrialde bat aurkitu, lau **plegut**an, denborak horitua. Elena Touyarou

Gartziak paltoko sakela miatu zuen, zenbait **plegut**an emanak ziren paperak hartu, eta eskuratu zizkion. Elena Touyarou

[Neskak] arraunera makurtzen direnean, **plegu** handiko eta oihal beltzeko gona laburrak agerian uzten ditu ongi egindako aztala eta ongi jantzitako oina. Koldo Izagirre

Biluz gorrian ezartzen gintuzten, jantzieta **plegu** guziak miatzen zituzten. Eneko Bidegain

Besoak gerriko **pleguan** plantaturik gelditu zen Txoko. Itxaro Borda

Hatza nire izter arteko ezpain zimurren **pleguetan** sartu dut. Jasone Osoro

Baina musuzapia lau **plegut**an tolesturik dagoenez, ertza odolez zikinduta edukitzeak zera esan nahi du: tolesduraren lau ertzak daudela odolez gorri, liburu baten ertza odoleztatzearan liburuko orrialde guztiak odolez zikintzen diren era berebean. Harkaitz Cano

Lau **plegut**an tolestu nuen noizbait papertxoa, eta aittitterengana abiatu nintzen. *ik beherago* 5. Koldo Izagirre

Bai eiki, mendiaren **pleguetan** ezkutatutako etxe bat zen. Koldo Izagirre

## 2 irud/hed

Bizkitartean, engainatu ninduten ezpainen **pleguaren** itxura zerabilkidan gogoan. Itxaro Borda

Segurtasun une berriaz baliatuz eta janaria gozatzuz, Mairosek aho **plegua** marraztu zuen. Itxaro Borda

Irudi zuen Mogueimek ez zuela jakingo halako arrazoi erradikalari erantzuten, baina adimenaren **plegu** ezkutu batetik hitz gutxi batzuk atera zituen, morroiak mutu uzteko nahikoak. Jon Alonso

Hedabideen lana ez baita itxuraz gertatzen dena kontatzea, benetan gertatzen dena baizik, bere **plegu**, zimur eta atzealde guztiekien. Iñigo Aranbarri

Bakardadearen labanak mintzairaren **pleguak** zauritzen zizkion. Itxaro Borda

## 3 ohitura, joera.

Lisatzearena trauma bat da enetako: denbora eskasez amak ez zizkigun arropak plantatzten, eta nik amaren **plegua** hartua, behin bere atarren lisatzea manatu zidan gizon bat ezagutu nuen arte. Itxaro Borda

Izena Nafarroako tronuko oinordearen ohoretan emana zioten, familiaren **plegu** zahar bat. Aingeru Epaltza

Denek ere beraz, ostaler eta beste, **plegu** berri batzu hartu behar... Herria

Hastapenetik beharko dira haxean ezarri, egieri loturik, moralari segituz eta, beraz, gazteria zuzentasunean altxatuz, adin horretan baitira **plegu** on edo txarrak hartzen.

Askoren artean

Honezkerok izanen da ohartu denik zein barneratua dudan neure buruaz urrikaltzeko **plegua**. Aingeru Epaltza

Tokian tokiko bereizgarritasun batzuen suntsiketa, elikadura-**plegu** berrien agerpena (mestiizaia prozesuen ondorioz) eta hainbat elikagai eta elikadura-praktikaren hedapen transkulturala. Edorta Agirre

## 4 itxura, estiloa.

Den-dena "Second Empire" **plegukoa**, omen. Txillardegí

Hiru urte hartan ikusten ez nuen Hernani kalean, bi garaitzapen-arku eraiki omen zituzten beltzek [=liberalek], dotore oso, 14 metro gora; "gotiko" **plegukoa** da bata, eta "erromatar" **plegukoa** bestea. Txillardegí

Leonarden istorioek badute **plegu** berezi bat, hala ere, zinemarako oso aproposak egiten dituen, Berria - Kultura

## 5 inprimatze lanetan, paper orri bat zenbait aldiz tolestu ondoren gertatzen diren orrialde inprimatuen multzoa; orrialde handia, zenbait aldiz tolestua.

Besaulki baxu bat, apalategi bat **plegu**-hamabireneko zenbait libururekin, beladore pertsiar txiki bat. Monika Etxebarria

**Plegu** zortzireneko liburuen gainean makurturiko buruak baizik ez ziren ikusten. Monika Etxebarria

-Mikel Strogoff -esan zion txarrak orduan, mandatarik gaztearen eskuetan **plegua** utziz-, har ezak, bada, eskutitz hau; bertan zoak Siberia osoaren salbamena, bai eta agian nire anaia duke handiaren bizitza ere. Karlos Zabala

Gelatxo txiki bat zuen, nahasia, eta ohean sartuta ikasten zuenez, ikasten zuenean, askatu egiten zituen liburuak, eta **plegu** soltetan askatuta gordetzen zituen, kutxan edo mahai gainean zabaldua. Josu Zabaleta

Ez da egunero gertatzen liburuetako **pleguetan** sortutako pertsonaia bat kalean zehar aurkitzea. Harkaitz Cano

## 6 baldintza-plegu baldintza orria.

Gero, dekretua indarrean eta lehiaketa arautuko duen baldintza **pleguaren** eskutik, Kultura Sailak toki telebista digitalaren zerbitzuak eskaintzeko gaitzen duen titulu juridikoa emateko lehiaketa zabaldu eta burutuko da. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**plegu berri** (3)

## pleinatu ik pleinitu.

## pleini 1 *adlag* kexuka.

Sekula ez dira entzuten, salbu batzuetan nigarrez edo **pleini**... Filipe Bidart

## 2 *pleini izan* (*orobat pleñi izan g.er.*) da *ad ipar* auhenka aritu, intziri egin.

Ohizkoan bezala **pleini** nintzen, zintzurra korapilo eta betazalak trinko, supermerkatuko kaxako langileak ordainketak zirauen denbora osoan ez zidala so egiten. Itxaro Borda

-Patriota onak ez dira **pleini**, baina onetsi behar da zuk diozuna egia dela. Elena Touyarou

Ez gaituk **pleñi**, ez nauk **pleñi**. Herria

## pleinitu, pleini, pleinitzen (*orobat pleinitu g.er., pleñitu, plainitu g.er. eta pleinatu g.er.*) da *ad ipar* pleini izan.

Jin berrixea nintzen buruzagi-ordeari **pleinitzera** joaiteko. Marzel Etxehandi

Aldi bat entzun dut ama apezetaz **pleinitzen**, dantza debekatzen zitelakotz herriko plazan gazteei. Piarres Aintziart

Baserritarrak lapurretez eta eskandaluez **pleinatzan** ziren. Juan Garzia

Leku askotan **pleinitzen** badire ikusiz beren herria nola husten den, ez da hori gure arrangura; duela 50 urte 1300 bizilagun, egun 4000 aise gaudituen. Herria

Beraz alde hortarik ez niz **plenitzeko**. Menane Oxandabaratz

Gaixoak, **pleinitzekoak** dira... Herria

Aberatsak halaber Jainkoaren haur izanki, agian pobre larru-hasak baino anitzez gehiago **pleinitzekoak** dira, gaurko mendean hedatzen ari den pikarritzea garatzen ikustean, sekula ukan ez duten kontzientzia txarra jasaten dutelako, aberats izateagatik. Itxaro Borda

Meza emaleak [...] goretshi du Jesus eta Maria baitan ezarri fedearekin bururaino gudukatu baita eritasunari, sekulan bere inguruan **pleinitu** gabe. Herria

Erran behar da, kurai handiz jasan dituela urte hauek **pleñitu** gabe. Herria

## pleinta iz ipar auzibidea.

LAB sindikateko Jano Fourcadek eta CGTko Mikel Lapeirek **pleinta** bat pausatu dute Baionako auzitegian, poliza gizon batzuen kontra. Herria

"Comité National d'Action Laïque" egiturak **pleinta** pausatutik, frantses Estado Kontseiluak joan den azaroan erran zuen Jack Lang ministroak erakaskuntza elebidunaren arautzeko egin zituen testuak frantses Konstituzioaren kontrakoak zirela. Herria

Herriko Etxea kexatu da, **pleinta** ekarri du baimenik gabe obretan hasia zen jabearen kontra. Herria

Langile horrek, CFDT sindikatarekin, bere lana utzi bezain laster **pleinta** bat ezarri zuen "Prud'hommes" auzitegian, nagusiak aski zirika eginik berak galdatu zuela hantik ateratzea. Herria

## pleinu 1 iz ipar auhena, intziria. ik kexu.

Frango luzaz segitu zuten emaztearen **pleinuek**. Janbattitt Dirassar

Bat-batean, denak ixilik zeudelarik ordu arte, garrasi samin batzuk entzun nituen, emazte bat nonbait ari dena **pleinu**, negarrez naski, eta gizon bat erasiaka, arras bortizki. Janbattitt Dirassar

### 2 (hitz elkartuetan)

Nor da hain auhen bortitzez kexu dena, bere tristura-**pleinuz** izar alderraiak konjuratu eta haiek geldiarazirik, entzule harridurak joen gisa? Juan Garzia

### 3 pleinta.

Afera joan den ekainekoa zen, Demoek Baionako geltokian tinduz seinaletika euskaratu zutelakoan, SNCFak **pleinua** pausatua zuen, garbitze gastuak 250 eurokoak izan zirela erranez. Herria

## pleinuka adlag auhenka, intzirika.

Ghiberti, Della Robbia, Brunelleschi eta Donatello bizi zituen inguruan, zein bere artearen jaun eta jabe harro, Uccello gaixoari eta perspektibarekiko haren zoramenari burla eginetz, haren etxe amaraunez bete, mantenu-gaiz huts hartaz **pleinuka**; baina Uccello are harroago zen. Juan Garzia

## pleistozeniko izond pleistozenokoa, pleistozenoari dagokiona. • irud/hed adkor

Telebista zure txokolate beroa baino beroago dabil *Jarcha* musika talde **pleistozenikoak** abestu duen honetan. Lutxo Egia

## pleistozeno 1 iz Laugarren Aroko aldi zaharrena.

Asian, **Pleistozeno** garaian, bi giza espezie bakarrik bizi izan zirela pentsatzen zuten gaur arte: *Homo erectusa* eta *Homo sapiensa*. Berria - Gaiak

### 2 irud/hed adkor

Barra gainean, **pleistozenoko** hondarrak balira bezala beirapean kaiolaturiko pintxoak. Aingeru Epaltza

## pleit (orobat pleita) iz garraibide bat, bereziki itsasontzi bat, alokatzea; alokatze horretan adostu den prezioa.

Izan ere, bai nazio-kontabilitatean, bai ordainketa-balantzan, elkarren ondoan agertzen dira, alde batetik, usadiozko jardueretatik etorritako irabaziak (turismoa, bidaiak, **pleitak** edo nazioarteko aseguruak), eta, bestetik, nazioarteko liberalizazioaren mugimenduarekin zuzenago lotuak daudenak (banaketa, aholkularitza, publizitatea, ingeniariatza, telekomunikazioak...), Koro Navarro

## pleitaleku (orobat pleita leku) iz pleitak egiten diren lekua.

Mugerreko portuko auzoan eta Aturri ibaiaren kasik ondoan hedadura handia hartzen ari du CEF, euskaraz **Pleitalekua** deitzen dugun garraio lekuak, 90 urtean idekiz geroztik eta guziz 96-ko ekonomia gorakadaz geroztik. Herria

Zazpi ehun langile dabilta eremu hortan, gure herriarentzat onura ezin hobea, **pleita** leku horrek eskaintzen baitu lana eta lanbide zerga; zer eskatu gehiago? Herria

**Pleita** lekuan elkartu ondoan, horitik joan dira fiul errestoak metatu behar diren guneraino. Herria

Azpirarratu dute portutarrek 160 hektara hartzen duen **pleitalekuaren** proiektuaz inoiz ez dela ikerketa publikorik eginga izan. Herria

## pleitatu, pleita(tu), pleitatzen du ad garraibide bat, bereziki itsasontzi bat, alokatu.

Ontzi bat **pleitatuko** nuen nire lehengusinarean kontura, edo postan joango nintzen hogeitasei kopek ordainduz verstako eta zaldiko. Karlos Zabala

Don Ottaviok **pleitatutako** jet pribatuak altuera hartu zuen. Jon Muñoz

## pleka 1 iz pilota jokoa, pilota paretaren kontra jaurtikitzean datzana.

Jakes Cazaubon eta Pierre Sabalo-k ohiko pilotaz hitzegin zuten, behialako pilotasoro eta trinketetan finkatuz beren solasa, luze, errebote eta **pleka** jokoak azalduz... Herria

**Pleka** partida, trinketea jokatu izan da. Herria

### • 2 adlag plekan.

Ez dut **pleka** nihaurekin buruz buruka aritzeko asmorik. Piarres Aintziart



### 3 **plekan** adlag pleka jokoan.

Lehiaketa hori Alainez muntatu zuen xixterazko **plekan** eta nausitu dira Jean Claude Cuiburu, Daniel Elgorriague eta Peio Juantorena. **Herria**  
Bezperetarik landa gaztek pilotan ari behar dute: "laxoan, errebotean edo bederen **plekan**", molde hau ez zen oraino nagusitua. **Xipri Arbelbide**

### **plekari** iz pleka jokoan aritzen den pilotaria.

Gaitzeko partida egin daukute 4 **plekariak**. **Herria**  
Daniel Cachenaute jokatu da buruz burukako lehen haitadan eta irabazi Berasategui **plekariari** 40/26. **Herria**  
Plaza laxoko joko pollita erakutsi dute **plekari** hauiek. **Herria**  
Trinketeko **plekari** gazte hoberenen artean Euskal Herriko Ligak moldatua zuen lehiaketa bat. **Herria**  
Tenore berean Armendaritzen Union Basque xapelgoaren finaletera gure **plekari** multxo batekin joanik. **Herria**  
Gazte horiek guztiak hamairu urtez petik direlarik erraiten ahal dugu **plekariak** hazia beti azkar dagola gure herrian. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**plekari gazte** (3)

### **plektro** iz hari musika-tresna jakin batzuk jotzeko erabiltzen den ziri modukoa.

Kanpoko doinuaren **plektroak** bihotz barruko haria joko balu bezala. **Askoren artean**

### pleñi ik pleini.

### plenitu ik pleinitu.

### plenitu ik pleinitu.

### **pleno** 1 iz osoko bilkura.

Udalaren Gobernu Batzordean onartu zen, eta ez zen **plenora** eraman. **Berria - Euskal Herria**  
Hilaren 30ean egingo da hurrengo **plenoa**. **Berria - Euskal Herria**  
1997an EBBko **plenoak** onartutako agirian argi uzten genuen ez dugula inoiz onartuko gure proiektuaren inguruko babes, zaintza edo xantaiarik. **Berria - Euskal Herria**  
Don Kosmek eta Easako alkateak **pleno** hartan sinatuko zuten agiria izan zen, beraz, Azpilgo herriak bizkarrean jasan beharko zuen sastada. **Joan Mari Irigoien**  
Azaldu zuenez, ezin talde politikok ez dio auzia aztertzeke **pleno** berezia deitzeko eskatu. **Berria - Harian**  
**Plenoaren** ondoren elkarretaratzea egingo dute. **Berria - Euskal Herria**  
Datorren astean, berriaz, **plenoa** eginen dugu eta, hala, berandu gabe etxeak goraka hasiko dira; etxegintzak dirua ekarriko digu, eta diruarekin... garrantzia handia hartu zuen Espainiako Diputatuen Kongresuan buruturiko **Plenoak**. **Joan Mari Irigoien**  
PPk eta PSE-EEK ez zioten zuzenketarik aurkeztu artikulatuari, eta osoko zuzenketak azken **plenorako** gorde dituzte. **Berria - Euskal Herria**  
Auzitegi Goreneko Zigor Salako **plenoa** bihar da erabakitzekeoa Paroti egozten zaizkionak zigor batean pilatu edo ez. **Berria - Euskal Herria**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nazio Bilkura, Udaletxeko **Pleno** Aretuan. Tolosako Udaletxeko **pleno** aretoan egin zuten bilera atzo arratsaldean. **Berria - Harian**  
Garzandia andereak **pleno**-egunetan hartu ohi duen bidea egin du gaur. **Iban Zaldúa**

### • 3 izond betea.

Etxekoandarearen figurari uko egina, bizitza **plenoa** eta intentsua izan du. **Ana Urkiza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pleno aretoan** (5); **udaletxeko pleno aretoan** (4)

### **plentziar** izlag/iz Plentziakoa, Plentziari dagokiona; Plentziako biztanlea.

29 urteko moto gidari **plentziar** bat larri zauritu da Plentzian bertan, auto batekin izandako istripuan. **Berria - Euskal Herria**  
Elaiia Torrontegi **plentziarrek** urrea irabazi du Munduko Unibertsitateartekoan. **Berria - Kirola**  
TKEn Urdaibairen nagusitasuna handian bada, Federazio Ligan Arkoteko **plentziarrek** dira jaun eta jabe. **Berria - Kirola**  
**Plentziarrek** play-offak jokatu nahi dituzte, eta oraingoz bide egokirik ari dira. **Berria - Kirola**

### **pleonasm** iz figura erretorikoa, adigai bat adierazteko behar diren hitzak baino gehiago erabiltzean datzana.

Abertzale erromantikoa, **pleonasm** bat erabiltzeko? 'Orgasmok' **'pleonasmoren'** antza dauka, odol, gihar eta tripakiz eginiko zerbaite dirudi. **Piarres Aintziart**  
Hortik **pleonasmoen** elkargainkatze horretara ihes egin beharra. **Joan Mari Lekuona**  
**Pleonasmoa** pentsamendu bat adierazteko behar baino hitz gehiago erabiltzea da. **Xabier Olarra**

### **pletina** 1 iz kasete motako magnetofono batean, grabatzeko eta erreproduzitzeko sistema.

*Klasikoan sona* gehienak Arantzazuko fraideen eta nire uzta propialeko diskoekin osatu nituela, hariak eta CDa plazaratu zen arte eta, Joxe Mari Oterminek eta biok, zalantza mordoska tarteko, artean hain garestiak ziren CD berri eta **pletina** haietara pasatzea erabaki eta eskatu genuen arte. **Pello Zabala**

### 2 metalezko xafla angeluzuzena, lodiera txikikoa.

-Tira, kanpoko fatxadan **pletina** bat ezartzen bada... -esaten zuen orduan Pelik, ohikoa zuen tonu bare eta apalarekin. **Jon Alonso**

## pletora *iz* gehiegizko ugaritasuna.

"Zentzu" inplizitu, subirano eta komunitario honi dagokionean enuntziatuak modu oparoan ugaritzen dira, zentzu horretara bakarrik igortzen dute-eta guztiek, eta berak bakarrik osatzen du euren benetako esanahia: osagai esanguratsuen **pletora** esanahi bakar horrekin harremanean. Xabier Arregi

Honexegatik diskurtso orok esaten zuenaz beste zerbait esateko ahalmena gordetzen zuen bere baitan, zentzu askotasuna bilduz horrela: adieraziaren **pletora** adierazle bakarrarekiko. Xabier Arregi

## pletoriko *izond* zerbaitetik ugaritasun handia duena.

Enuntziatu-multzo bat deskribatzea irudi zatikatua eta xehatu bezala eta ez esanahi baten totaltasun itxi eta **pletoriko** bezala; enuntziatu-multzo bat deskribatzea kanpokotasun sakabanaketaren arabera eta ez asmo baten, pentsamendu baten, subjektu baten, barrukotasunarekin harremanean. Xabier Arregi

## pleura *iz* biririk alde batetik eta bularraldearen barnealdea bestetik inguratzen dituen mintza.

Beldur naiz ez ote duen **pleurako** isuria! Fernando Rey

Amiantoa luzaroan arnastuz gero, gaixotasun larriak sortzen ditu, horien artean asbestosia, mesotelioma, biriketako minbizia eta **pleura** xafiak. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pleurako isuria** (3)

## pleuresia *iz* pleuraren hantura. ik **pleuritis**.

Angelok gripea aipatu hutsarekin niri tifusa etorri zitzaidanean burura, eta baita tuberkulosia edo **pleuresia** ere. Anjel Lertxundi

Gauetz elurretan ibili zelarik, **pleuresia** harrapatu zuen. Koro Navarro

Gaixotasunek ustekabeak ematen zizkieten ia beti; ustez **pleuresia** zena, gibelesko lesioa zela ager zitekeen; tifoide bat egiazko gripe bihurtzen zitzaion. Josu Zabaleta

## pleuritis *iz* pleuraren hantura. ik **pleuresia**.

Badaude, izan ere, gaitz batzuk oso nekez sendatzen direnak goian esandako leku horietan, hala nola: katarroa, eztula, **pleuritis**, tisisa, odol-botatzea eta beste zenbait; horiek ez dira gorputzak ahulduz sendatzen, indartzuz baizik. Santiago Iruretagoiena

## plika *iz* estalki itxi eta zigiludun batean gordetzen den dokumentua, une jakin bat baino lehenago ezagutu behar ez dena.

Martxoaren 1ean bukatuko da obrei buruzko proiektuak aurkezteko epea, eta, gero, 5ean, **plikak** zabalduko dira; halaber, 3an bilduko dira Arabako eta Gipuzkoako foru arduradunak proiektuaren batzorde teknikoan. Berria - Euskal Herria

«**Plika** itxikoak» izan dira guztiak. Berria - Kultura

## plin-plon 1 (onomatopeia)

**Plin-plon** jarraitzen du mandolina jotzen, leun-leun, aita ez esnatzeko. Oskar Arana

**Plin-plon**, entzuten dira banjoaren txiloiak Afrikako patio hitsean. Oskar Arana

### • 2 (izen gisa)

Zenbat eta barrenago jarraitzen dion kondesari bere infernuan zehar, harentzako egindako hitzak abestuz edo haren melodia hortz artean kantatuz, orduan eta kondesarengandik bereiztezinago bihurtzen zaio, bere harridurarako, jostailuzko banjoaren **plin-plon** ergela. Oskar Arana

## plintide *iz*

Oholaren eta kanonaren tartean erregela batzuk egoten dira, modu berean zulatuta eta olioarekin igurtzita, atzera eta aurrera erraz ibili ahal izateko; erretenetako zuloak itxeko izaten dira, eta **plintideak** deitzen zaie. Santiago Iruretagoiena

## plinto 1 *iz* zutabe edo estatua baten oinarriko elementu laukizuzena.

Idulkiei egin behar zaien altxagunea, **plinto** singularrak jarritz egingo da, bakoitiak, hirugarren liburuan esan den bezala. Santiago Iruretagoiena

Altuerari dagokionez, basa atikoa baldin bada, bana bedi honela: goiko parteari kolomaren diametroaren heren bat emango zaio, eta gainerakoa **plintoari** emango zaio.

Santiago Iruretagoiena

Komeni da altuera desberdineko **plintoak** jarritz estilobatoa erdi parean zertxobait altxatzea, zeren eta erabat sestran jartzen bada, begiari irudituko baitzaio sakonunea daukala. Santiago Iruretagoiena

### 2 irud/hed

Kasu honetan On Afonsoen gorteko aitoren seme batek bere gorputz preziatua eskaintzea itxuraz besteak baino haziago izatea beste merezimendurik ez zuen soldadu baten oin izugarri plebeioen euskarri, **plinto** eta oinarria izan zedin. Jon Alonso

## plinton *iz* gimnastikako tresna, bata bestearen gainean ezartzen diren kaxoi modukoez osatua, jauziak eta ariketak egiteko erabiltzen dena.

**Plintonaz** eta jauziez erabat ahaztu nahi nuen. Iban Zaldúa

## plis-plas (onomatopeia)

Gero, jaiki egiten da eta eskuak galtzen kontra jotzen ditu, astiro, **plis-plas**, **plis-plas**, litsa kentzen ariko balitz bezala. Anjel Lertxundi

**Plis-plas**! egin dut eskuekin. Anjel Lertxundi

## plisatu (*orobat plixatu*) *izond* tolesduna.

Oso modu klasikoan jantzita zegoen, kolore griseko gona **plisatu** batekin. **Bernardo Atxaga**  
Argazki horietako batean azaltzen nintzen ni, bederatzi edo hamar urteko neskatok kankailu, zangoak azkartxo luzatuak, lelotu samarra itxuraz, gona **plixatu** motzegia eta marinela marradun jertsea. **Joxan Elozegi**  
Gona estu nimitzua jantzen zuen, lehengo eguneko **plisatuaren** orde. **Aingeru Epaltza**

plisat ik **plast 2**.

## plisti

**1 plisti-plasta** eskuz edo oinez ura jotzean ateratzen den hotsaren onomatopeia.

Erreka hurria gaitibatu zuten barrakia umil batez eta emazteak egunaz han biltzen ziren, kurukuruka eta **plisti-plasta** boketan. **Berria - Kultura**

**2 plisti-plosti** (onomatopeia)

Euli pila sukaldean, babarrunak **plisti-plosti** urdailean. **Joxean Sagatzizabal**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**plisti plasta** (55); **plisti plasta joan** (3); **plisti plastak** (3); **plisti plastaka** (4); **putzuetan plisti plasta** (3); **uretan plisti plasta** (4)

plixatu ik **plisatu**.

## plizti

**1 plizti eta plozta** (onomatopeia)

Jubilatuak dabilza **plizti eta plozta**, beren zauri zahar hori luzatu beharrez; gaitz guztien betiko sendabidea ("tanatoterapia" deitzen diote) noiz helduko den beldurrez.

**Iñaki Seguro**

**Plizti eta plozta**, beratzen eta beratzen, betiko gogorturik geldituko diren eguna noiz helduko den beldurrez. **Iñaki Seguro**

**plomatu**, ploma, plomaten **1 du ad** orekatu, berdindu, plomuan ezarri.

Diru mailaz arduratzen den batzordeak proposatua xeheki ikusia izan da, 1274955 eurotan **plomatua** izan delarik. **Herria**

Baina hasiko da Serge Mayte hobeki **plomatzen** eta horra bigarren berdintzea 19tan. **Herria**

Nagusitasun berean abiatu dira irabazleak, biziki fin eta xuxen ari zen Ezcurrarekin (lagunaren ontsa gidatzea bertalalde), 15-4, gero, 18-12, gero 23-18tan partida

**plomatzera** zoala iduri. **Herria**

Pausuki eta bere hatsean, **plomatus**, zer partida ez du egin! **Herria**

Baina Ibarrola ere hasi da hobeki **plomatzen**, Biscoubyk atxikiz gibela eta itzuli da papera beste alderat: 11 tanto lerroan eginik hauek bost boterekin, horra besteak aintzinean 37-34 eta 43-36. **Herria**

Ikuspegia nolabait **plomatzeko**, elkarriketa Gite-Ipes elkarteko Txema Uriarte kultura-aniztasun teknikariari. **Iñigo Aranbarri**

**plomatze** iz orekatzea, berdintzea, plomuan ezartzea.

Hor dira gauzak aldatu azken hunen bi sake, bizpahiru aztapar eta Oçafrainen **plomatze** hobe batekin: 30 etan berdintzea. **Herria**

**plomu 1** iz beruna.

Erdi Aroko alkimistentzat, zilarrak ilargiarekin zuen ahaidegoa, eta **plomu**-berunak Saturnorekin. **Pello Zabala**

Lan joria, irarkolako marmola gaineko hura, eta frango hurria; lerro bat lerro bat zen **plomuzko** letra heietan, eta letra bat letra bat, hitz baktxaren lekua behar zinueng ongi neurtu eta kondatu, edo berriz haste zinueng hitzen ohatze guzia neurri mugatuan, batzuetan arrazoina laburtuz. **Herria**

Aireak ez duela usiaiz kanpoko **plomurik** diote ADAko ordezkariak. **Herria**

Laborantzako lurrek duten **plomuaren** ehuneko 90a ongailu kimikoetatik heldu da. **Herria**

Herdoilez beterik lantegira sartzen ziren kamioien gaineko aldean kontrola haga ezarri eta, aireak % 5 **plomuzko** errausak erakusten zituen. **Herria**

**2** (hitz elkartuetan)

Ordea betazalak **plomuz** hantua neuzkala nabaritu arte irakurtzen aritu nintzen. **Itxaro Borda**

**Plomuzko** tapaki astuna, lehergarria eta mutua. **Itxaro Borda**

**3** pisugailua.

Eraikuntza horretan, justizia erabiliko dut **plomutzat**, zuzenbidea nibelzatz. **Elizen arteko biblia**

**4 plomuan** ez alde batera ez bestera makurtzen ez dela, orekan.

Gauzen **plomuan** ezartzeko beharko dira hartu erabaki pisu batzu. **Herria**

Emeki emeki irabazleak jartzen dira **plomuan** Ibarrolaren sake tzarrarekin eta Ezcurrak hobeki plomatus, gaina hartzen ere, huts batzu egin araziz Kurutcharryri edo Muscarditz tronpatuz. **Herria**

Horiek hola, Japoniak ez dezake gorde estimatzen duela Amerikanoeri esker militar harat hunatak **plomuan** egonen direla Azia eskualde hortan. **Herria**

**plomudun** *izond* beruna duena.

Airacq-en kontrola herdoileriaz beterik datozen kamiunek hartzen duten bide bazterrean egina izan da, erraus **plomudun** frango mugitzen dutelarik kamiun horiek. **Herria**

Ezantza [...] **plomudunik** ez da gehiago aurkituko Espainia aldeko gasolindegietan salgai. **Herria**

**plomuki** iz plomuzko zatia.

**Plomuki** hartan Balantsun agertzen zen, bildotsa bizkarrean zeramala, labrit xakurra saihetsean eta galtzarpa hutsalak sorbaldean. **Itxaro Borda**

## plomuraz iz plomuan ezartzea.

Bere buruaz fida eta burua xut hasi da Panpi, beti kuraie emanez gibelesko lagunari eta hau beretik, behin lehen **plomurazte** hek eginez geroz. **Herria**

## plost (onomatopeia) 1

Lurrera erori zen, **plost**, zerraldo, enbor lodi baten antzera. **Karlos Linazasoro**

Lokatzetan **plost** iraurarazi nahiko baligu bezala, gero bertan behera zurrupatzeko eta itoarazteko. **Mirentxu Larrañaga**

Lehenbiziko amazonak kolpe bat eman zion ipurtaldearekin, eta hegan jarri zuen bere borrokakidea, **plost**, kaka gainean, hau da, lohian. **Fernando Rey**

## 2 *plast eta plost* ik **plast** 3.

## plosti ik **plisti** 2.

## plot iz kontakizunez mintzatuz, bilbea.

Errepikapena ezin da egitura jakin bati makurtu, ez da nobela bateko **plotean** edo programa politikoetan sartzen. **Joseba Zulaika**

## plotter iz grafiko marrazgailua.

Rekalde aretoko Publiko guztientzat erakusketan, **plotter** handi bat jarriko du Pripublikarrak taldeak, *Optikak* proiektuaren barnean eginiko galdera eta jasotako erantzun eta argazkiekin. **Berria - Kultura**

Eta **plotterez** plastiko gainean egindako koadro saila jarri du. **Berria - Kultura**

## ploz-ploz-ploz (onomatopeia)

Ogia labetik ateratzeko joaten zen Josu sukaldera eta **ploz ploz ploz** itzultzen zen berehala ohera. **Joseba Sarrionandia**

Oroimenak engainatzen ez banau, bazkari afari haiek irauten zuten artean behintzat, eta bion artean harrikoa al bait arinen egin eta ohera **ploz ploz ploz** itzulita gero ere, geu ginen geure kontinenteko biztanle bakarrak. **Joseba Sarrionandia**

## plozta ik **plizti**.

## plubiografo iz plubiometro erregistratzailea.

Euririk izan bada, **plubiografoan** banda-papera jaso, eguneroko bueltakoa delako. **Pello Zabala**

## plubiometriko izond plubiometroari dagokiona.

Ordura arte elkarteak zituen 87 behatoki **plubiometriko**, 54 termometriko, eta 15 anemometriko horietaz gainera, [...]. **Pello Zabala**

Datu **plubiometriko** eta termometrikoekin batera. **Pello Zabala**

## plubiometro 1 iz euri neurgailua, denbora jakin batean leku batean zenbat euri erori den jakiteko erabiltzen den tresna.

Termometroa baino 40 urte geroago etorri zen euri-kopuruak neurtzen lagunduko zuen ontzitzoa, **plubiometroa**. **Pello Zabala**

-Euririk izan den behatu **plubiometroan**: baldin bada, jaso zenbat izan den. **Pello Zabala**

Euri-hozberoen sarea pixka bat zabaldu nahi izan zenean, eta ahalik eta datu gehien batu, noren esku utziko termometroa eta **plubiometroa**? **Pello Zabala**

## 2 (hitz elkartuetan)

Bazuen tartetxorik neurgailu berriak asmatzeko: mikrobarometroa moldatu zuen, baita **plubiometro** modelo itxuroso bat ere, **Pello Zabala**

## pluf 1 iz (onomatopeia)

Artegintza Garaikidearen Historiak ez du, bai, N. jaun artistaren aurkikunde hori jasoko, baina nork ukatu **pluf**! egiten duen urez betetako globotxo bat gerta daitekeela arte kriptikoen kongresutxo batean? **Berria - Kultura**

## 2 (izen gisa)

Urin borobila **pluf** idor batean urera trankala erori zen, pizuairekin, bazterretik zebiltzen jendeak ausarki ziliportatuz. **Itxaro Borda**

## pluma iz garabi baten masta.

Bi lagunak pixka bat apartatu ziren Tapaxek **plumarekin** labea jaso zuenean. **Pablo Sastre**

## plumcake iz mahaspasak eta fruitu zatiak dituen bizkotxoa.

Hello esan eta esertzearekin batera mahaspasazko **plumcake** zoragarria atera zenuen xorrotik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## plural 1 izond/iz gramatika numeroaz mintzatuz, hitz edo sintagma bat pertsona edo gauza bati baino gehiagori dagokiola adierazten duena.

Nahikoa **plural** dira *ditut*, *nituan*, *gara*, *dira*, eta ez dute beste gehigarririk behar. **Koldo Zuazo**

**Plural** mugabe xeble hori nor kasuan ez ezik, ager zitekeen beste batzuetan ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Plurala** osatzeko, berriz, *-zki* aukeratu zen (*zaizkit*, ez *zaitzit* / *jataz*). **Koldo Zuazo**

NORK **pluralean** -ek erabiltzea onartu zen: *mendiak dute* (ez *mendiak*). Koldo Zuazo

**Pluraleko** akusatiboaren kasuan ere, oso antzekoa da gertatutakoa. Isabel Arrigain

Zelanoko Tomasek **pluraleko** lehen pertsona erabiltzen du [...] lan-talde baten ordezkari modura ariko balitz bezala. Askoren artean

Singularra eta **plurala** bereiz ditzakeen edozein gramatikak badu nahikoa indar, pasiboak izen sintagmen lekualdatzea agintzen duela erakusteko. Itziar Laka

-Agendetan zer izen agertzen ziren jakin nahi zutela erran nahi duk? -nahita erabili nuen **plurala**. Aingeru Epaltza

Oraingoan zuk erabili duzu, nahita, babes-sare bezala, **plurala**. Lourdes Oñederra

**Plural** guztiak nola-halako interes eta zimarkuen "eraikuntzak" dira. Joxe Azurmendi

Oro har, ez da singularreko lehenbiziko pertsonan idazten (*uste dut...*), **plural** maiestatikoan [...] baizik (uste dugu...). Askoren artean

Eta ez ginela diodanean, ez naiz ari Aita Santuaren **plural** maiestatikoan, anaia Juan eta bion izenean baizik. Joxerra Garzia

## 2 askotarikoa.

Globalizazioak hazkunde **plural** batera eramango gaitu, guk horra bideratzen badugu. Berria - Gaiak

Aitzinatu behar dugu izatearen esanahi **pluralak** batasuna ere barneratzen duela esentziaren printzipioaren medioz. Askoren artean

Gaur egungo teknologia berriek irakurketa **pluralak** bideratzeko eta sustatzeko aukerak eskaintzen dituzte... Ana Urkiza

## 3 hainbat ideia eta joera agertzen dituena.

Nazio **plural** batean bizi gara. Berria - Euskal Herria

Gizarte **plural** batean erlijioak berak eskatzen du laiktasuna, eta hori bultzatu nahi dugu. Berria - Euskal Herria

Gobernuko gehiengoaren itxura bera izan den "Angelu gure hiria" lemaren pean presentatzen den zerrenda **pluralak**. Herria

Hizkuntz eskubideak bermatzeko «mahai **plurala**» nahi du Aralarrek. Berria - Euskal Herria

Bakerako bidean ekimen **plural** eta independenteen beharra dago. eragile desberdinen arteko eta mugarik gabeko elkarriketa da erarik egokiena «akordio **plural** eta demokratiko» batera iristeko. Berria - Euskal Herria

"Demokrazia erradikal eta **plural**" baten diskurtsoaz baliaturik. Joseba Zulaika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**genitibo plurala** (3); **nafarroa plurala** (3); **plurala erabili** (3); **plurala osatzeko** (4)  
**ergatibo pluralean** (3)

## pluralgile *izond* morfemez mintzatuz, pluraleko forma egiteko erabiltzen dena. ik**pluralizatzaile**.

**Pluralgileak** aukeratzea zen erabaki beharreko auzietako bat. Koldo Zuazo

Mendebaleko euskarari, aditzen **pluralgilerik** erabiliena -z da: *jakoz* 'zaizkio', *deutsaz* 'dizkio', *daukaz* 'dauzka', *leikez* 'daitezke / ditzake', horren adibide. Koldo Zuazo

Azkuek, orduan ere, -it- **pluralgilea** kanpotik etorritakotzat zeukan, mendebaleko euskaldunek giputzei ikasitakotzat. Koldo Zuazo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**z pluralgilea** (4)

## pluralismo 1 *iz* ideien eta joeren pluraltasuna.

Zenbait autorek salatu du erlatibismoaren eta **pluralismoaren** arteko banaketak zuzentasun politikoari baino ez diola erantzuten, eta **pluralismo** izendatzen dena erlatibismo bezala aldarrikatzen dute. Askoren artean

**Pluralismoaren** arabera (orokorki hartuta, betiere) gizakiok bila ditzakegun eta *de facto* bilatzen ditugun balioen pluraltasun bat existitzen da. Askoren artean

Bigarrenik, «euskal gizartearen **pluralismoari** errespetua». Berria - Euskal Herria

Guk indarkeriaren adierazpide guztiak gaitzesten ditugu, aitzakiarik gabe, baina hain zuzen ere **pluralismoarekin** egin behar zaio aurre indarkeriari. Berria - Euskal Herria

«Bake zintzoa» bilatzen bada, oinarritzko eskubideak eta **pluralismo** politikoa errespetatzen badira. Berria - Harian

Europar espazioaren ezaugarri den **pluralismo** politikoak bereizten ditu mundu-ekonomia eta inperioa. Koro Navarro

**Pluralismoa**, eraikuntza denean bakarrik izan daiteke positiboa. Joxe Azurmendi

## 2 (hitz elkartuetan)

Finantza-integrazioa eta diru-**pluralismoa**. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**pluralismo politikoa** (4)

## pluralista 1 *izond* pluralismoarena, pluralismoari dagokiona.

Fedeak berak hagitz diferenteak daudenez gero, eta Jainkoaren aginduak ere ezberdinak direnez hortaz [...] gizarte demokratiko **pluralistetan** Jainkoaren arrazoiak gehienez errespetatu egiten da, hitzez hitz behintzat ez da gizarte antolaketa fundamendutzat hartzen ahal. Joxe Azurmendi

EBK Kubarekiko dituen helburuetan «demokrazia **pluralista** bateranzko transizio prozesua bultzatzea» dagoela nabarmendu zuen Bruselak. Berria - Mundua

Ikuspide **pluralista** da hori, diferentearen eta erlatiboaren maitalea, batasun biziarena [...] batasun matematiko bakunarena barik; ez da mistikoeke eta metafisikoeke maiteago izaten duten ikuspide monista eta absolutua. Joxe Azurmendi

Anarkistak aldiz **pluralistagoak** dira, enpiristagoak, eta mundua eta sentimenduak bezain eroak. Markos Zapiain

## • 2 *iz* (eboluzioaren teorian)

**Pluralistek** eboluzioa hainbat mailatan -ez bakarrik maila genetikoan- gertatzen den prozesua dela uste dute, eta maila bakoitzeko gertakariak aintzat hartu behar direla defendatzen dute. Askoren artean

## pluralitate *iz* pluraltasuna.

Normalizazioari begira, bost printzipio edo konpromiso beharrezkotzat jo zituen: indarkeriarik eza, bazterketarik eza, demokratikotasuna, berdintasuna eta **pluralitatea**. Berria - Harian

Ateak irekitzen dira, beste lurraldeetako ahotsak entzuteko, aniztasunera zabaltzeko, Txina edota Errusiako **pluralitateari** ahotsa emanez. Berria - Kultura

PSNren proiektu politiko «tinkoa, koherentea eta Nafarroako **pluralitatea** errespetatzen duena» dela esan zuen Chivitek. Berria - Euskal Herria

## pluralizatzaile *izond* morfemez mintzatuz, pluraleko forma egiteko erabiltzen dena. ik**pluralgile**.

Nor eta nori nahasi gabe, behar den tokian eta unean xarmanki nor baten jartzeko gai direnak, bat-batean mingain puntara datozkien partitiboa eta sasi **pluralizatzailea**, biak batera, esku zarta batekin gaitzesten dituzte, bekatu larria dela ikasi baitute. **Pello Salaburu**

## pluraltasun 1 iz plurala denaren nolakotasuna. ik pluralitate.

Espazio politikoaren irazkortasunak eta **pluraltasunak** (hau da, inperio burokratiko ez bihurtu izanak) zabaldu zuten merkataritza hiri beregainetan. **Koro Navarro**

Aukeraketa batzordearen «**pluraltasuna**» nabaria da Zinemaldiko zuzendariaren ustez. **Berria - Kultura**

Goraipatu du bestalde Espainiaren "**pluraltasuna**". **Herria**

**Pluraltasun** politikoaren eta adierazpen askatasunaren aurkako neurria. **Berria - Euskal Herria**

Gero, gure **pluraltasun** ideologikotik, diagnostiko bat egiten dugu, minimo batzuk gure artean adostuta, eztabaidaren ondorioz. **Berria - Euskal Herria**

Espainiaren **pluraltasunaren** aitortza egiten du agiriak, baina batasuna azpimarratzen du, aldi berean. **Berria - Euskal Herria**

**Pluraltasuna**, arazoa izan ordez, ondasuna dela. **Berria - Euskal Herria**

Gizaki-A utzi, hortaz, eta gizaki-ak beharko ditu estudiatu, beren **pluraltasunean** eta **pluraltasunaren** baldintzetan. **Joxe Azurmendi**

Hegemoniaren teoriak onartzen du baita ere askatasunaren eskabideak demokraziaren **pluraltasuna** duela beharrezko. **Joseba Zulaika**

Pluralismoaren arabera (orokorki hartuta, betiere) gizakiok bila ditzakegun eta *de facto* bilatzen ditugun balioen **pluraltasun** bat existitzen da. **Askoren artean**

Euskal herri intensional edo semantikoak, bere zertasunarekin batean, bere **pluraltasuna** ere galdu du (euskal herrietan, etc.), oso bat baitira zertasuna eta **pluraltasuna** edo pluralean esan ahal izatea: jakin beharra daukat zer diodan eta zertaz ari naizen, zer horiek bat baino gehiago edo hainbestetxe direla esateko. **Iñaki Segurola**

Presidente izateko nor aurkeztuko duten ez du argitu oraindik **Pluraltasunaren** Aldeko Plataformak. **Berria - Ekonomia**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erresuma Batuan iritzi **pluraltasun** gehiago dago. **Berria - Gaiak**

Alderdi barruko «ideia **pluraltasuna**» publiko egiten eragozten saiatzea «zelaiari atek jartzea» bezala dela esan zuen. **Berria - Euskal Herria**

Europako kultur eta hizkuntza **pluraltasuna** babesteko etengabeko lana egin dugu. **Berria - Mundua**

Gainera, Espainiak «Estatuaren hizkuntz **pluraltasuna**» bortxatzen zuela salatzen zuen NBEK. **Berria - Mundua**

Mahai gainean estatu ereduaz proiektu propioa jartzeko eskatu zion, estatuko nazio **pluraltasuna** aitortuko duena. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hizkuntz pluraltasuna** (3)

**pluraltasunaren aldeko plataformak** (3)

## pluralzale iz plurala denaren zalea dena.

Zientzia **pluralzale** horietatik guztietatik filosofian kontsolatu nahi luke. **Joxe Azurmendi**

## plurienpleatu, plurienplea, plurienpleatzen da ad aldi berean enplegu batean baino gehiagotan aritu.

-Kabroi horiek denak **plurienpleatuta** daude eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## plurienpleo iz enplegu aniztasuna.

Are, trebetasun eta jakintza horiek denak edukita ere, sekula ez nuela denborarik edukiko, inolaz ere ez, baina are gutxiago **plurienpleoarekin**, egunean hamalau eta hamabost orduko lanaldiak egiten baintuen, nire jostailu guztiekin jostatzeko. **Jon Alonso**

## plurikultural izond kultura anitz hartzen dituena.

«1978ko esparrua gaindituko duen Espainiako Konstituzioaren erreforma sakona eskatzeko» parte hartu beharko luke bilkuran Jaurilaritzak, «nazio anitzeko eta hizkuntza anitzeko Estatu **plurikulturala** onartuko duen Espainia federala lortzeko bidean». **Berria - Euskal Herria**

Finkielkrautek "gizakia" eta "indibidua" eta "kultura" singularrean bakarrik toleratzen ditu; higuinagari zaizkio "indibiduo multi-kulturalak"; mehatxua sumatzen du herriak eta kulturak edo gizarte **plurikulturalak** aipatu orduko, pluralean. **Joxe Azurmendi**

## plurikulturalismo iz kultura aniztasuna.

Mestizajea eta **plurikulturalismoa** aipatu ohi du, baina zuk irakurtzen duzunaz, zuk idatzi duzunaz, zuk entzuten eta kantatzen duzunaz, zure eguneroko eguna betetzen duen guztiaz, fitsik ez daki. **Joxe Azurmendi**

## plurilinguistiko izond eleaniztuna.

Triesten hizkuntza asko hitz egiten da, horren lekuko da atzokoan aipatzen nuen Pen Club **plurilinguistikoa**. **Anjel Lertxundi**

## plurinazional izond nazioaniztuna.

Estatu **plurinazionala** sortzeko asmorik ez izatea leporatu zion ERCko buruak Espainiako Gobernuari-. **Berria - Mundua**

Nola igaro liteke autonomien estatutik estatu **plurinazional** batera? **Berria - Euskal Herria**

Bere ustetan, proposamenak dituen helburuak honakoak dira: Estatu **plurinazionala** sortzea, burujabetza partekatzea, herri-galdeketerako eskubidea eta negoziazioa gauzatzea, «eta ez independentzia». **Berria - Euskal Herria**

Neurri hori «errealitate **plurinazionalaren** eta hizkuntza nahiz kultura aniztasunaren onarpen gisa ulertuta» proposatu zuten sinatzaileek, demokraziaren sakontzea ekarriko lukeela uste dutelako. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**estatu plurinazional** (3)

**estatu plurinazionala** (3)

**estatu plurinazionalaren** (4)



## plurinazionaltasun iz nazio aniztasuna.

Batetik, bada Espainian pentsamolde zentralista bat, ez soilik PP barruan, baita PSOE barruan ere, eta hori gainditzea, **plurinazionaltasun** hori onartzea zaila izango da.

**Berria - Euskal Herria**

## pluripotenzial izond ahalmen bat baino gehiago duena.

Hego Koreako ikertzaile talde batek aditzera eman duenez, zelula amak **pluripotenzialak** dira, gorputzeko edozein ehun bihurtzeko gaitasuna dute. **Berria - Gaiak**

## plus 1 iz gehigarria.

**Plus** bat ordaindu, eta kito. **Bernardo Atxaga**

ENBAK tonako 240 euro ordaintzeko proposatu zuen, eta etorkizunerako beste eskema bat ezartzearen alde agertu zen: oinarritzko prezio bat jarri, eta gero kalitateagatik

**plus** bat erantsi. **Berria - Ekonomia**

Segur aski Zapaterok **plus** bat eman dio CiUri, ikusteko aliantzen kontuan beste irtenbide bat izan dezakeen. **Berria - Harian**

Gai politikoen, bake prozesuaren eta espetxe politikaren inguruan erabakitzeko **plus** bat edukitzeko eskubiderik ez dute. **Berria - Euskal Herria**

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, orduan, euskara jakitea «**plus** bat» zela ebatzi zuen, eta hizkuntzaren ezagutza ezin zela baliatu inor baztertzeko. **Berria - Euskal Herria**

Agiri horrek ematen zion langileari **plus** handi bat lan hobeak aukeratzeko orduan. leherketa ezta datsu haiek **plus** koloretsu bat eman zioten programaren taxuari. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Izen bada, **plus** politikoa duen putakume ozena. **Iñigo Aranbarri**

**Plus** bat, nik ez dudana. **Alberto Barandiaren**

## 2 (hitz elkartuetan)

Teresa bezala bakarrik bizi diren pertsonak, niretzat badutela misterio **plus** bat, erakargarriago egiten dituen. **Patxi Zubizarreta**

## 3 soldata osagarria.

Gidariantzat ere **plus** finkoa eskatzen dute langileek, 100 eurokoa. **Berria - Ekonomia**

Soldataren %100 jasotzearen truke, lan txanda berriak eta **plus** batzuk kentzea nahi zuen VWek. **Berria - Ekonomia**

## 4 zenbaki edo kopuru positibo bat izendatzeko erabiltzen den ikurraren izena (+). ikgehi.

-Hain zuzen, noiz agertu ziren **plus** ikurra eta minus ikurra? **Jon Muñoz**

Zenbaki baten karratua positiboa da beti, positiboa zein negatiboa izan zenbakia, hartara behartzen baitu ikurren arauak: **plus** bider **plus** eta minus bider minus berdin **plus** baita. **Jon Muñoz**

Minus infinitutik **plus** infinituraino, guztiak **Unai Elorriaga**

## 5 en plus gainera.

Baina zuk, *attention!!!*, zuk ez daukazu haserretzerik ze bihar ostera ere saiatuko naiz Rakelen egunerokoa eskuratzen eta, **en plus**, Bostongo hartan bezala, egun osoa izan dezaket hori irakurtzeko. **Patxi Zubizarreta**

**En plus**, ez dakit hori zuretzat larregi izango ote den, nahiz eta susmoa dudan ezetz. **Patxi Zubizarreta**

Kanpinetan lo egin behar dugu, eta gainera kolonia merkearen kiratsa hamaika miliatara zabalzen duen bidaiari bitxi batekin egokitu zait; **en plus**, taldeak ere egin behar izan ditugu otorduak-eta prestatzeko, eta bakar-bakarrik falta zaigu gauez sutondoan kantuan hastea... **Patxi Zubizarreta**

**En plus**, ez didazu sinetsiko, baina atzo, dendatik irten, eta *à la belle étoile* nengoela, Adela inguratu zitzaidan, bai, jolas parkean nirekin batera ibili zen neska. **Patxi Zubizarreta**

## plusbalia ik plusbalio.

## plusbalio (8 agerraldi, 3 liburu eta artikulua 1ean; orobat plusbalia 5 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian gainbalio agertzen da) 1 iz eraldatzerik izan ez duen ondasun baten (akzio, lur sail, ondasun higiezin... baten) balioaren igoera. ik gainbalio.

Lurzoru horren salerosketaren ondoren, 130 milioi euroko **plusbalioak** lortuko lituzke Gasteizko Udalak, Alonsok azaldu duenez. **Berria - Harian**

Nire ustez, **plusbalia** pagatu beharko litzateke etxebizitzaren salerosketan, baina ez zergaren bitartez. **Berria - Euskal Herria**

Langileei lapurtzen dien **plusbalioaren** zati bat herriari itzultzzen zaio horrela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Haren aita eta haren ama zenbait urtetan zehar behar den lekuan egote hutsarekin, edo etorri berria bada ere, bertan lan egiten badu (edo, antzina esaten zen bezala, **plusbalioa** bertan izerditzen badu...), [...]. **Iban Zaldúa**

## 2 (hitz elkartuetan)

Gorputzak atsegin-leku izateari utziko dio, eta ekoizpen-makina eta **plusbalia** -iturri bilakatuko da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## plusmarka iz errekorra.

Horixe zen gizonaren iritzia, **plusmarka** bat dela komunera joan gabe hainbeste denbora egotea. **Unai Elorriaga**

## plusmarkista iz errekor bat lortzen duen kirolaria.

Radcliffe eta Tergat, adibidez, **plusmarkistak** bihurtu dira. **Berria - Kirola**

## plutarkar izlag Plutarkorena, Plutarkori dagokiona.

Hainbat mende geroago, Rousseauk helenismoaren **plutarkar** bertsioa zabaldu zuen. **Iñaki Mendiguren**

## plutokrata izond/iz aberastasuna politikan eragina izateko erabiltzen duen pertsona.

Horixe komeni zaizue zuei, **plutokrati**, noizean behin ikustea nola bidaiatzen duten gainerakoek... **Lopez de Arana**

# plutokrazia

Zergatik hitz egiten dik horrek **plutokrazia**, zer esan nahi duen ez badaki? Koldo Biguri

## plutondar

*izlag* Plutonena, Plutoni dagokiona.

Ekaitzerat itzul adi **plutondar** erkiraño! Patziku Perurena

## plutonio

*iz* gai bakuna, uranioa baino atomo zenbaki goragoa duen metala, 238 uranio-tik lortzen dena (Pu; at. z. 96).

**Plutonioa** bereiziz bi gauza lor daitezke: energia nuklearra edo armak. Beria - Mundua

Mantxako Kanalean dugun ontziarekin izan gara lanean, **plutonioa** dakarten garraio ontzien inguruko informazioa jasotzen. Beria - Gaiak

Leku horretara iritsi ahal izateko, **plutonio** erradioaktiboa darabilten generadoreak erabili behar izan ditu. Beria - Gaiak

### 2 (neurriekin)

Maletatxo batean hamar kilo **plutonio** baleramatza legez sentitzen zen, tentsioan. Unai Iturriaga

Greenpeacek salatu du 150 kilo **plutonioz** kargatutako ontzi bat Frantziatik atera dela Belgikarantz. Beria - Gaiak

BNFL eta Areva konpainiek dozenaka tona **plutonio** dituzte gordeta, Sellafeld (Erresuma Batua) eta La Hagueko (Frantzia) biltegietan. Beria - Gaiak

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garajea gordeta eduki dituen **plutonio** isotopoak eman dizkio errusiar batek Poliziari. Beria - Gaiak

2003ko urrian, Ipar Koreak Yongbyongeko zentral nuklearrean 80.000 **plutonio** barra birziklatzeari ekin zion. Beria - Mundua

Arma atomikoen lantegi den Los Alamos gunetik dator 140 kiloko **plutonio** zama. Beria - Gaiak

**Plutonio** -garraioak hondakin nuklearren aferaren inguruko eztabaida berpiztu du azken asteotan. Beria - Gaiak

**Plutonio** oxido hautsa ordu gutxitan zabalduko litzateke eremu handi batean. Beria - Gaiak

## pneuma

*iz* bizi hatsa.

Bada substratu bat, (**pneuma**), zeinaren dentsitate handiagoak ala txikiagoak izaki mota ezberdinak esplikatzeko dituen (bizigabeak, landareak, animaliak, gizakiak). Xabier Amuriza

Neuri ere, landa-lanak egiten ditudanean, gauza berbera gertatzen baitzait, eta naiz, gorputz osoz, zero edo lur, euri, musu, ozeanoetako esne, harkaitzen **pneuma**, hodeietako loti. Karlos Linazasoro

Jakina baita herioak, edo hobeto esan, heriotzaren ikuskizunak halitosia sortzen duela, **pneuma** arinaren beruntzea. Karlos Linazasoro

## pneumatika<sup>1</sup>

*iz* airearen eta gasen mekanika.

Lehenengoas Ktesibio Alexandriakoa izan zen, bera izanik, gainera, airearen presioa aztertu eta **pneumatikaren** printzipioak aurkitu zituen. Santiago Iruretagoiena

## pneumatika<sup>2</sup> ik pneumatiko.

## pneumatiko

(*orobat neumatiko g.er. eta pneumatika g.er.*) **1** izond aireari dagokiona.

Neure alderdi **pneumatikoa** zen eskuko nuen abantaila bakarra. Joxan Elosegí

Bazuen hark beste alderdi bat zerari, nola esan, nire haragiaren izaera **pneumatikoari** zegokiona. Joxan Elosegí

### 2 airez bete behar dena; airez funtzionatzen duena.

Asteburuan zendutakoak txalupa **pneumatiko** batean zebiltzan. Beria - Euskal Herria

Galbidean zegoen barku **pneumatikoa** ez zuten, haatik, aurkitu ostiral gauean bertan. Beria - Mundua

Bulego batetik bestera mezuak banatzeko erabiltzen zituzten tutu **pneumatikotik** erretilu batera. Anjel Lertxundi

Edonola ere, estreinako zapuzaldia gaindituta, Gorkak mailu **pneumatikoarekin** jotzeari ekin zion. Patxi Iturritegi

Pistola **pneumatikoarekin** burua zulatu diote Dianari, eta seko erori da Patxi Iturritegi

### • 3 iz airez beteriko hodia, ibilgailuen gurgil uztai gisa erabiltzen dena.

Eusko Jaurlaritzaren aurkakoak izan dira barbarik gogorrenak, gurgil **pneumatikoak** eta gai toxikoak zementu fabriketako labetan erre nahi dituztelako. Beria - Euskal Herria

Automobiletako **pneumatikoak** egiteko erabiltzen den goma barne-betea. Irene Aldasoro

Enbragea zurrundurik izango du, **pneumatikoak** zulaturik. Josu Zabaleta

-Industriako konpresor bat da -esan zidan-, **pneumatikoak** putzete erabiltzen direnetakoa. Xabier Olarra

**Pneumatikoen** ildo-zirrituetan zegoen itsatsita zer nazkagarri hura. Joxe Austin Arrieta

Berriro han ziren klaxonak, **pneumatiko** kurrinkarien galgatzea, loka-gunean egindako azelerazioak, zentzugabekeria, gaztetxoaren galania hutsa. Joxe Austin Arrieta

Altzairuzko xafraz, oholez eta **pneumatiko** zaharrez hesitutako eremu bat. Oskar Arana

Milaka eta milaka gizon-emakume itsasoz abiatu baitziren oso ontzi hauskorretan, batzuetan elkarri lotutako **pneumatiko** soiletan. Jon Muñoz

Zenbait gauzaren patente-agiriak eskatu behar zituela; besteak beste, autoen **pneumatikoentzako** uztai batena, altzairu puskaz egina. Josu Zabaleta

Lasterketan ere box geldialdietan ezingo dira **pneumatikoak** aldatu. Beria - Kirola

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin da ulertu nola horrelako lurreratze-tren bat, bi **pneumatiko** -parez osatua, [...] zergatik hasi behar duen, ez bat eta ez bi, deabru baten gisa portatzen zorua ukitu orduko. Joxe Austin Arrieta

Beste toki batzuetan, zoru tinkoagoan, garbi zegoen haiek, dudarik gabe, **pneumatiko** -arrastoak zirela. Joxe Austin Arrieta

Berriro **pneumatiko** -aztarren bila! Joxe Austin Arrieta

Inork **pneumatiko** -lortatza izan zitekeenik sumatuz gero, txistua jo behar zuen. Joxe Austin Arrieta

Beira-zuntzaren antz handiagoa du hezurrak **pneumatiko** -gomarena baino. Irene Aldasoro

Sam Gibara Goodyear **pneumatiko** enpresaren exekutiboak. Beria - Kultura

Bridgestone-Firestone **pneumatiko** egilearen lan ituna izenpetuko dute bihar ELAko eta UGTko ordezkariak. Beria - Ekonomia

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lepotik hartu eta igerilekuko ur usteletara bota nuen, hamaika partxe gorritz jositako bizikleta **pneumatiko** baten ondora. Beria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pneumatiko berriak** (8)

**bridgestone pneumatikoak** (4); **michelin pneumatikoak** (3); **pneumatikoak erre** (3)

## pneumatismo *iz antzinako medikuntza-teoria, bizia eta eritasunak airezko jariakin bati egozten zizkiona.*

Dualismoaren adigai hedatu nahi bada, ordea, eskuarki gertatzen den bezala, eta adiera transzendentalean hartu nahi bada, orduan ez berak, ez berari kontrajarritakoek ere, alde batetik, **pneumatismoak**, bestetik, materialismoak, ez lukete oinarririk izango. **Ibon Uribarri**

Abantaila **pneumatismoaren** aldean dago guztiz, baina honek ezin du jaraunspen-akats bat ukatu, alegia, bere aldeko itxura oro dela ere, kritikaren suzko proban lurrin soila bihurtzea. **Ibon Uribarri**

## pneumokoko *iz zenbait neumonia eragiten dituen mikroorganismoa.*

**Pneumokokoak** eragindako meningitisaren kontrako txertoak arrakasta du kasuen %80an, Hego Euskal Herriko ospitaleetako pediatria talde batek 1998 eta 2003 urte artean egindako ikerketa baten arabera. **Berria - Euskal Herria**

## pneumokoziko *(corpusean neumokoziko soilik) iz ik pneukozito.*

**Neumokoziko**, *haemophilus influenzae* delakoa eta meningokoziko B eta C motakoak meningitisak dira bakterioek eragindako meningitis kasurik gehienak; bakterio horiek sortutako meningitisen sendabidea ez da birusek sortutakoak bezain samurra. **Neumokozikoa** helduen artean agertzen da normalean, estafilokozikoa, tuberkulosoia, aseptikoa, gram negatiboek sortua eta meningokozikoa daude, beste batzuen artean. **Berria - Euskal Herria**

## pneumologo *(orobat neumologo) iz biriken eta arnasbideen eritasunak aztertzen dituen espezialista.*

Endokrinok kontsulta arteko orriak egiten ditu, eta gaixoa **pneumologoarengana**, anestesistarengana, kardiologoarengana, psikologoarengana eta zirujauarengana bidaltzen du, bakoitzak gaixoa bere arloan azter dezan. **Berria - Euskal Herria**

Bidasoako Ospitaleko **neumologo** Juan Antonio Miguelek gogorarazi zuen Jaizubiako lurretan eraiki nahi duten errauste plantaren inguruan ikastola eta ikastetxe ugari dagoela: «1.200 ikasle dago egun inguru horretan». **Berria - Euskal Herria**

## pneumonia *(orobat neumonia g.er.) 1 iz biriketako ehunaren hantura.*

Modeloa meningitis, **pneumonia** eta HIESak jota hil da. **Joseba Sarrionandia**

Erreka horretan geratu ziren gaua pasatzeko, abendu hotz batean, Big Foot izeneko buruzagia, oso gaixorik eta hil zorian **pneumoniak** joa, eta bere herria, zurien armadak inguraturik. **Pello Salaburu**

**Pneumonia** harrapatu nuen. **Jon Muñoz**

Negu kupidabako hartan Appelplatz-en orduak eman beharrez biluzik egoten ginelarik txandaren zain, **neumoniaren** bat harrapatuko zuela. **Koldo Izagirre**

Churchillek **pneumonia** izan du, baina sendatzen ari da. **Josu Zabaleta**

Gripea **pneumonia** bihurtu zen. **Koro Navarro**

Tuberkulosia eta **pneumonia** bizkor zabaltzen ari dira. **Berria - Harian**

**Pneumonia** duen eria ere, nekez sendatuko da medikuak, baikorren baikorrez, hotzeria arin bat diagnostikatzen badio. **Joxerra Garzia**

**Pneumoniek** eta sabeleko gaitzek eragiten dute, eritasunen artean, heriotzen % 11. **Pello Salaburu**

Jorge Oteiza artista handia zendu da joan den astean, 94 urtetan, Donostiako poliklinikan, **pneumonia** baten ondorioz. **Herria**

Russ Meyer zinemagile eta ekoizlea joan den larunbatean hil zen, 82 urte zituela, **neumonia** baten ondorioz. **Berria - Kultura**

**Neumoniak** jota zegoen orduko. **Joan Mari Irigoien**

Ugartebururen esku-hartzea, halere, kolokan dago, **neumoniak** jota egon baita. **Berria - Kirola**

Gobernuak **neumoniak** hil zela zioen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 2 (izenondoekin)

**Pneumonia** lobularra zuen, birika baten kongestio larri bat. **Xabier Olarra**

**Pneumonia** atipikoa 2003. urtean agertu zen Asian, eta gutxienez 700 lagun hil zituen. **Berria - Harian**

**Pneumonia** atipikoaren birusak alerta egoeran jarri du berriz Txina. **Berria - Gaiak**

Ustez **pneumonia** atipikoa duten beste bi lagun azaldu dira Txinan. **Berria - Gaiak**

Andrew Shor medikuak **pneumonia** eosinofiliko akutua (AEP) deritzon gaixotasunaren ezaugarriak aurkitu zituen iaztik aurtengo martxoa bitartean ikertutako hemezortzi soldadu zauritutan. **Berria - Mundua**

Zortea izan nuen, ordea: **pneumonia** latz samar bat harrapatu izana. **Harkaitz Cano**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik pneumoniko.

Ez zelako bronkitisa, **neumonia** hasiera baizik. Ez zelako bronkitisa, **neumonia** hasiera baizik. **Berria - Kirola**

Antza, urtarilaren 27an hainbat hegazti akabatu ostean sukar handia eta **pneumonia** sintomak hasi zitzaizkion. **Berria - Gaiak**

Behin **pneumonia** aztarnak izan zituen, sendagilea ekarri behar izan nuen etxera eta hark izen arrarotako botikak eman zizkion... **Bego Montorio**

Ameriketako Estatu Batuetako Armadako hemezortzi soldadu **pneumonia** mota arraro baten biktima izan direla. **Berria - Mundua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pneumonia atipikoa** (47); **pneumonia atipikoa agertu** (3); **pneumonia atipikoa zuela** (3); **pneumonia atipikoak** (4); **pneumonia atipikoaren** (28); **pneumonia atipikoaren birusa** (4); **pneumonia atipikoaren zantzuak** (4); **pneumonia atipikoari** (3); **pneumonia atipikoaz** (6); **pneumonia atipikoaz kutsatu** (4); **pneumonia harrapatu** (3); **pneumonia harrapatu nuen** (3); **pneumonia izan** (3)

**pneumoniak jota** (4)

**pneumoniaren ondorioz** (3)

## pneumoniko *(corpusean neumoniko soilik) izond neumoniari dagokiona. ik pneumonia 2.*

Gujarateko izurri **neumonikoa**, izurri beltza baino gaiztoagoa zen. **Gotzon Garate**

## pneumonologia *(corpusean neumonologia soilik) iz medikuntzaren adarra, biriken eta arnasbideen eritasunak aztertzen dituena.*

Bachi Galdiz Bizkaiko Gurutzetako Ospitaleko **Neumonologia** Zerbitzuko medikua gaineratu duenez, «gaixoaren lana da eritasunaren sintomak ageriak ez direnean ere tratamendua jarraitzea». **Berria - Euskal Herria**

Gasteizko Txagorritxuko Ospitaleko **Neumonologia** Zerbitzuko buru Jose Luis Lobok. **Berria - Euskal Herria**

## pneumopatia iz biriketako eritasuna.

Xinan berriz birietako **pneumopatia** berri hori. **Herria**

## pneumozistis (corpusean neumozistis soilik) iz

Garai batean ere hala ibili behar izan bainuen, hari esanez Leirek hartzen zituen tratamenduko xarabeak -inmuno-eskasiak piztutako **neumozistis** bakterioaren aurkakoak-bitaminak zirela. **Joan Mari Irigoien**

## poalla iz hegazia.

Zainen tentsioa jabaltzeko, tropako gainerakoak herri behere hartan alhan zebeitzan **poallak** harrapatzen jostatzen ziren. **Itxaro Borda**

Sortuz geroztik Maianak ez zituen orenak sekula alferrik higatu; beti bazuen zerbait egiteko, etxea garbi, **poallak** bazka, ardiak jetzi, sasoiko traholak, haurrak ala arrahaurrak. **Itxaro Borda**

Barazki eta **poalla** saltzaileak beren autoak deskargatzen segitu nituen. **Itxaro Borda**

Bildotsak tratulantaren furgonetan pausaturik, auzoaren bila joaten ginen **poalla** eta gibel merkatu aterpetura. **Itxaro Borda**

## poblazional izond populazioarena, populazioari dagokiona,

Sintesi Modernoak pentsamendu **poblazionalaren** bidez gaintitu nahi zituen horrelako tirabirak, batez ere esentzialismoaren aurka egin nahirik. **Askoren artean**

## pobre 1 izond behartsua. ik txiro. (pertsonez)

Emakume **pobre** batekin ezkondua. **Patxi Zubizarreta**

Gizon itsusia, **pobrea**, bakartia, ez da arras zoriontsua. **Askoren artean**

Aspaldi samarrean, Isfahango kanpoaldean, Miseria izeneko gizon xahar **pobre** bat bizi zen. **Patxi Zubizarreta**

Urrutiko lehengusu bat naizela esango diot, ahaide **pobre** bat. **Koro Navarro**

Hurko **pobreari** laguntzea da aberastasunak eman dezakeen zorionik handiena. **Joseba Urteaga**

Dickens-en eleberrietako jostun **pobre** gaizki jantzi haiek bezala. **Anjel Lertxundi**

"Kairoletako" gizon hauek langile **pobreak** ziren, denak klandestinitatean etorriak. **Ramuntxo Etxeberri**

Bazen Bagdaden Hinbad izeneko zamaketari **pobre** bat. **Patxi Zubizarreta**

Arrantzale familia **pobreak** hortxe bertan metatzen dira: dozenaka lagun ur-ontzi bakoitzean. **Ramuntxo Etxeberri**

Inguruko nekazari **pobre** batengana jo zuten. **Askoren artean**

-Nekatuta nago **pobrea** izateaz. **Lopez de Arana**

Venezuelan, ezer ez daukan txiroak badaki noraino den **pobre**, baina aberatsak ez daki zenbat diru daukan ere. **Pako Aristi**

Gaur hobe da kasik **pobre** antzekoa izatea; lan gutxiago ematen du, zeren **pobrea** izateko ez baita diru askoren beharrik. **Iñaki Seguro**

Nola izango zen ba **pobrea** poltsikoan dolarrak zituen gizona? **Bernardo Atxaga**

Ijitoak baino **pobreagoa** dun eta hiri ez zain komeni. **Jon Maia**

-**Pobreetan pobreenek** ere gozokiak banatzen dituzte seme bat jaiotzen zaienean... **Patxi Zubizarreta**

Ez aintzazko Kristo, gizaki ahul, **pobre** eta apala, mespretxatu eta baztertua, giza sufrimenduarekin, jaiotzatik heriotzara, bat egin duen Kristo baizik. **Askoren artean**

## 2 (bestelakoez)

Han, etxe **pobre** hartako eskailera ustelduetan, jario beldurgarrian esaten zituen Louk maitasunezko hitzak. **Koro Navarro**

Pago eder baten gerizpean gelatxo **pobre** bat atontzeko eskatu zion. **Askoren artean**

Ez zutela txabolatxo **pobre** bat besterik, lastoz estalia eta zume eta buztinezko hormaz egina. **Askoren artean**

Altzariak **pobreak** ziren, iragandako garai hobe baten aztarren bat edo beste izan ezik. **Josu Zabaleta**

Mantu koskor, **pobre** eta zarpail bat aurkeztu zioten, gotzainaren zerbitzuan zegoen nekazari batena. **Askoren artean**

Uste dut, sailkapen horren gainetik, errima **pobre** eta aberatsak, onak eta txarrak berezi behar genituzkeela. **Andoni Egaña**

Pieza erretoriko bikain izan daiteke testu aldetik **pobre** den bertsoa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Otxarkoaga auzune **pobre** bat da. **Unai Iturriaga**

Ohitura horiek nazio **pobre** bati dagozkio bakarrik. **Iñaki Iñurrieta**

Estatu **pobreen** eta enpresa multinazional erraldoien arteko harreman zaila. **Koro Navarro**

Herralde **pobre** zorpetueneren zorra arintzeko plana. **Berria - Ekonomia**

Hori hala da mundu garatuaren aberastasuna mundu **pobrearen** ustiatetari eta azpigarapenari zor zaiolako. **Iñaki Heras**

Literaturako gai zaharra da familia aberatsetako adar **pobreen** mikatasuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Baliabide gutxi dituzte ekonomia **pobre** eta azpigaratuei laguntzeko. **Iñaki Heras**

Bentan ez nintzen gaizki bizi, zeren garai **pobre** haieten egunero hiru otordu egitea ez baitzen hutsaren hurrengoa. **Bernardo Atxaga**

## 3 (adizlagun gisa) ik pobreki.

**Pobre** jaiotze eta mundu honetan erabat **pobre** bizi, gurutzean biluzik eta **pobre** gelditu eta inoren hilobian hobiratua izan zenaren maitasunagatik. **Askoren artean**

-**Pobre** jaiotze gaituk eta **pobre** hilko. **Josu Zabaleta**

**Pobre** bizi izan da, baina zorrik gabe. **Iñaki Seguro**

**Pobre** hil zen, baina urtez eta ospez aberats, eta arimaren bake onean. kontuak kontu, Ingalaterrara itzuli zen 1589. urtean, **pobre**, etsita eta zitalduta. **Juan Garzia**

**Pobre** jantzirik zegoen, jaka beltz berdexka bat soinean. **Irene Aldasoro**

Orduan, biluz sentitzen zen, **pobre**, minbera eta ahul. **Itxaro Borda**

**Pobre** bizitzeko hitza eman nuela Jainko eta gizon-emakumeen aurrean. **Askoren artean**

Apal eta **pobre** nahi ditu anaiak. **Askoren artean**

Fiskoa hain **pobre** geratu zen, non Karlos Burusoilaren garaian inork ez baitzuen bere lurretan irauten. **Iñaki Iñurrieta**

## 4 (izen gisa)

**Pobre** eta baztertuekin bat egin zuen. **Askoren artean**

**Pobre** eta ezinduen artean mila dinar banatzeko agindu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Gupida izango die gizagaixo eta **pobreei**, bizia salbatuko behartsuei. **Elizen arteko biblia**

Etxebizitza funtsezkoa da leku batean errotzeko, baina etxea lortzea berez zaila bada, are gehiago **pobre** eta baztertuentzat. **Berria - Euskal Herria**

Kristoren eliza eta Asiskoaren eliza **pobreen** eliza duk. **Joan Mari Irigoien**

Inmigranteak, etorkinak, nonbaitetik etorritako **pobreak**. **Lourdes Oñederra**

Natalinak gure bazkaria egiten zuenean, parrokiako **pobreei** ere emateko adina egiten zuen. **Fernando Rey**

Korruptorik handienak aberatsak izan dira, eta politikoak; lapurra, aldiz, **pobreak** deitu izan zaio. **Pako Aristi**

Beti bezala nagusi zerri eta azkarrek orgari tiraka zebiltzan **pobre** gaixoen lepotik bizitzen jarraitu zuten. **Pello Lizarralde**

Erabaki zuen, **pobre** guztiak eta edanzale guztiak egiten duten bezala, bere fedeko jainko bakarrari berriz fidatzea. **Matías Mujika**

Europa batu honetan ere 50 milioi **pobre** dago. **Pello Salaburu**

2003an 1,3 milioi **pobre** gehiago AEBetan. **Berria - Ekonomia**

## 5 (hitz elkartuetan)

Agureak, emakumeek eta umeek **pobre** itxura zuten, besterik gabe; miseriaren trokelak milaka ekoizten dituen tipo eta irudi lauso horietakoak ziren. **Koro Navarro**

Tellagorrik **pobre** itxurak egiten zituen, Pitzia aberatsa zen; Tellagorri liberala zen, Pitzia karlista. **Koro Navarro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzo **pobre** (6); **auzune pobre** (5); **erabat pobre** (3); **etxe pobre** (4); **etxetxo pobre** (4); **familia pobre** (4); **gizon pobre** (6); **herri pobre** (10); **herrialde pobre** (3); **izan pobre** (3); **jende pobre** (5); **milioi pobre** (6); **nahiko pobre** (3); **nekazari pobre** (3); **oso pobre** (4)

**pobre asko** (3); **pobre bizi** (10); **pobre dago** (3); **pobre den** (4); **pobre diren** (3); **pobre eta apala** (3); **pobre gaude orain** (3); **pobre gehiago** (4); **pobre gisa** (3); **pobre guztiak** (4); **pobre izan** (3); **pobre izatea** (5); **pobre jaio** (7); **pobre samarrak** (3)

**auzo pobrea** (3); **errima pobrea** (3); **herrialde pobrea** (3); **jende pobrea** (5); **latza eta pobrea** (3); **oso pobrea** (9); **oso pobrea izan** (4)

**pobrea da** (12); **pobrea dela** (5); **pobrea den** (3); **pobrea izan** (7); **pobrea izango** (4); **pobrea naiz** (3); **pobrea zela** (4); **pobrea zen** (14)

**pobreagoa zen** (3)

**aberatsak eta pobreak** (7); **andre pobreak** (4); **benetan pobreak** (3); **erdiak pobreak dira** (3); **herri pobreak** (4); **herrialde pobreak** (6); **langile pobreak** (3); **oso pobreak** (9)

**pobreak dira** (15); **pobreak direla** (8); **pobreak direlako** (4); **pobreak diren** (4); **pobreak eta aberatsak** (5); **pobreak gara** (3); **pobreak garela** (3); **pobreak izan** (4); **pobreak izango** (3); **pobreak zirela** (3); **pobreak ziren** (7)

**jende pobrearen** (4)

**apaiz pobreei** (3); **beste pobreei** (3); **herrialde pobreei** (7); **pobreei eman** (7); **pobreei emateko** (5); **pobreei laguntzeko** (3)

**herri pobreek** (4); **herrialde pobreek** (9)

**aberats eta pobreen** (17); **aberatsen eta pobreen** (18); **ahizpa pobreen** (9); **andre pobreen** (13); **herri pobreen** (5); **herrialde pobreen** (13)

**pobreen alde** (5); **pobreen aldeko** (3); **pobreen ama** (3); **pobreen artean** (18); **pobreen arteko** (34); **pobreen eta aberatsen** (8); **pobreen mahaia** (3)

**pobreenetan pobreenak** (3)

**herrialde pobreenek** (3)

**herritar pobreenen** (4)

**herrialde pobreenetako** (3)

**herrialde pobreenetan** (3); **pobreenetan pobreenak** (3)

**munduko herri pobreenetarik** (3)

**herri pobreetako** (3); **herrialde pobreetako** (5)

**herri pobreetan** (5); **herrialde pobreetan** (19)

## pobregune iz pobreak bizi diren gunea.

Garapen-bideko herrialdeetan aspaldi sortutako aberasgune bakanen ondoan ordea, **pobregune** gero eta ugariagoak ageri dira antzina industrializaturiko herrialdeetan.

**Koro Navarro**

## pobreki iz pobretasunez. ik pobre 3.

**Pobreki** bizitzen zerrarikan Parisen, mundua eta munduaren libertatea biak ukatuak bailitzaizkion. **Itxaro Borda**

**Pobreki** beziti eta biziki trixte ziren hiru gaztetxo ikusi nituen, hara eta hona zebiltzala, norbait bilatzen balute bezala. **Daniel Landart**

Ondo **pobreki** jantzita zatoz zu, / horrela jarduterik hemen ez daukazu. **Xabier Olarra**

Nolaz egin ahal izan du kaseta xume hunek holako aberastasun eta berritzea? ez da segurik hor diruzko balentriarik, lehen bezain **pobreki** ari baita beti kaseta hau.

**Herria**

## pobretasun (548 agerraldi, 27 liburu eta 3 artikulutan) 1 iz pobrea denaren nolakotatsuna edo egoera. ik pobrezia; txirotasun.

**Pobretasuna** eta langabezia dira segur aski, nazioaren baitan, gizarte-baztertzearen bi dimentsio nagusiak. **Koro Navarro**

"Doikuntzaren gizarte-kostua" (hau da, **pobretasuna** larriagotzea) deitu zaion horretan [...]. **Koro Navarro**

Baina nazioa pobrea denean, bakoitzaren **pobretasuna** miseria orokorretik dator, eta, nolabait esateko, miseria orokorra da bera. **Iñaki Iñurrieta**

Dela **pobretasunaren** kontrako borrokan, dela haurren lana edo ekonomia kriminallean, kapitalismo basati baten nagusitasunaren ifrentzia baizik ez da estatuek ageri duten geldotasuna. **Koro Navarro**

Erabateko **pobretasunezko** atalasetik gora pasarazteko egin beharreko baliabideen birbanaketa ez da dagokien eskualdeetako kontsumo osoaren %1-%11 bitartekoa baino. **Koro Navarro**

Emazteak dena kontaktu ziolarik, anaia **pobretasunetik** aterako zuen zorion harengatik poztu beharrean, Kasimen bihotza bekaizkeriaz bete zen. **Patxi Zubizarreta**

**Pobretasuna** gorabehera, gizon dotorea zen, bizargin gehientsuenen gisara, eta haren presentzia ez zitzaion gutzit desatsegina. **Patxi Zubizarreta**

Hautzaro aspergarriko maitasunik ezak, jaiotetxeko hustasunak, familiarik gabeko bakartasunak, aurreneko zirraren **pobretasun** eta urritasunak. **Jose Morales**

**Pobretasuna** ez da sekula harrokeriaz hartu behar: **pobretasunaz** txantxa egitea bezain baldarra litzateke hori. **Anjel Lertxundi**

Bereiztu gero, ordea, azpiratuak biziko gara **pobretasunean**, eta gutako batek gutxienez miseria ezagutuko du. **Patxi Zubizarreta**

Santuak **pobretasunean** jartzen zuela bere harrobidea, batzuetan "ama", besteetan "emazte"edo "dama" deitzen baitzuten. **Askoren artean**

Bizio hori, bizkitartean, daukate, ez **pobretasunez** edo bizibeharrez dirua bilatzen dutenek, baina, bakarrik, aberasteko ofizioak ikasi dituztenek eta, haiei esker besteen gainetik jartzen direnek. **Piarres Xarriton**

## 2 (izenondoekin)

Azpigarapenaren ezaugarritzat hartu ohi diren guzti-guztiak ageri dira aipatutako eskualde horietan: **pobretasun** eta azpienplegu handia, soldata apalak, ugalkortasun-maila eta haurren hilkortasun-maila altuak. **Koro Navarro**

**Pobretasun** txukunaren jitea zuen goitik beheraino. **Juan Garzia**

Ispilua erdi aldean kontsidera ezazu apaltasuna, batez ere **pobretasun** zoriontsua, eta gizadia salbatzeko eraman zituen konta ezin ahala neke eta samin. **Askoren artean**



Hauxe izan zen bere asmoa Jaunagana bihurtu zen unetik heriotzako ordua arte, gorde zedila bete-betean **pobretasun** santua. **Askoren artean**

### 3 (pertsona gisa hartua)

Andere **pobretasun** santua, Jaunak gorde zaitzala zeure ahizpa apaltasun santuarekin! **Askoren artean**

Frantziskok eta beronen lagunek zin-hitz nagusiz berresten dute betiko adiskidetasun eta leialtasun ituna dama **Pobretasunarekin**. **Askoren artean**

Han **Pobretasun** andreak Jaunaren kontsolazioa izan zuen berriro, azkenean Frantziskok eta bere pobretxoek [...] hura aurkitu zutenean eta berarekin betiko adiskidetasun eta leialtasun ituna sinatu zutenean. **Askoren artean**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Une hartatik hasita, **pobretasun** espirituaz, apaltasun zentzuaz eta jainkozaletasun sakonaz bete zen. **Askoren artean**

Azaroko 7an **pobretasun**, obediencia eta kaitate botuak egin zituzten apezpikuaren aintzinean. **Xipri Arbelbide**

Beste erlijiooei baino gehiago eragin behar digute guri Jainkoaren Semearen **pobretasun** -etsenpluek. hona datozten anaiak **pobretasun** jarraibide ona eraman dezaten beren lekuetara. **Askoren artean**

Elizaren baitan ere, indartsua zen Ebanjelioa gizartean gauzatzeko modu berrien bilaketa, **"pobretasun** -mugimenduek" adierazten zutenaz. **Askoren artean**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zu izan baitzara Ordena honetan lehen seme aukeratua, ebanjelio-etsenplua emateko, Jesu Kristori ebanjelio- **pobretasunean** jarraitzeko. **Askoren artean**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**andere pobretasun santua** (4); **andre pobretasun** (3); **apaltasun eta pobretasun** (5); **gure andere pobretasun** (3); **hitzeman genuen pobretasun** (4); **jauna pobretasun** (3); **oi pobretasun** (3)

**pobretasun dohatsua** (3); **pobretasun gorenaren** (4); **pobretasun osoan** (3); **pobretasun santua** (29); **pobretasun santuak** (3); **pobretasun santuan** (5); **pobretasun santuaren** (14); **pobretasun santuari** (5); **pobretasun santutik** (4); **pobretasun txit gorena** (3); **pobretasun txit gorenaren** (4); **pobretasun txit santuan** (4); **pobretasun txit santuaren** (4)

**andre pobretasuna** (5); **dama pobretasuna** (5); **gure pobretasuna** (7); **pobretasuna aukeratu** (3); **pobretasuna eta apaltasuna** (4)

**andre pobretasunak** (7)

**andre pobretasunaren** (7); **apaltasun eta pobretasunaren** (3); **dama pobretasunaren** (5); **egiazko pobretasunaren** (3); **frantziskok pobretasunaren** (3); **pobretasunaren aldeko** (3); **pobretasunaren bidea** (5); **pobretasunaren jarraitzaile** (4); **pobretasunaren kontrako** (4); **pobretasunaren maitasuna** (3); **pobretasunaren pribilegioa** (7); **pobretasunaren zale** (3)

**andre pobretasunari** (4); **dama pobretasunari** (3); **gure pobretasunari** (3); **pobretasunari buruzko** (3); **pobretasunari jarraitzen** (3)

**pobretasunik handienaren gainean** (4)

## pobretu, pobre(tu), pobretzen 1 da/du *ad* pobre bihurtu. ik txirotu.

Berehala **pobretu** zen familia aberats batekoa zelako. **Mikel Hernandez Abaitua**

Dirudunak daude, jakina, baina gutxi, eta gainontzeko guztiak, langileak bezala burgesak ere, **pobreturik** irten dira gerratik. **Koldo Biguri**

Trukeen hazkundearen moteltzeak pertsona batzuen aberasteak beste batzuen **pobretzea** dakarrelako ustea sendotu zen. **Koro Navarro**

Atzerri zorra esaten zaio, emandako maileguen ordainetan, garapen bidean diren herrialdeek, alegia, **pobretutako** herrialdeek, herrialde aberatsei edo garatuei eta munduko bankuei zor dioten diruari. **Iñaki Heras**

Amerikako eremuetan ingelesen kontra eraman gerlax, erresumako kutzak oro **pobretu** zituen. **Elena Touyarou**

### 2 irud/hed

Funtsezko osagarri kromatikorik gabeko musika zen hura, eta errotik **pobretua**. **Xabier Olarra**

Hola da gure mintzaira **pobretzen** bide haundiz eta azkenean galtzen, eskuetan ditugun hitzak erortzera utziz eta teknika berriek nonbaitik ekarri dituzten hitzak onartuz eta baliatuz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Filosofiak fedea bere mendekotzat hartu nahiko balu, edo ordezkatu, erlijio hori eta berari dagokion fedea **pobretu** eta endekatu egingo lirateke. **Askoren artean**

Afrikan, Saharaz hegoaldeko nekazaritza lurren %80 oso **pobretuta** daude. **Berria - Gaiak**

Baso tropikalak suntsitzeaz gain, lurrak **pobretzea** eta pestizidak gero eta gehiago erabiltzea eragiten du sojaren sukarrak. **Berria - Gaiak**

Herrialdeko kultur bizitza **pobretu** egiten da, eta informazio mota horrek pentsamendu irizpide nagusi bat ezartzen du. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Batzuetan, baina, zenbait mito eta eredu kulturalak hainbat tabu zentzugabe sustatu dituzte, eta lagundu beharrean, mugatu eta **pobretu** egin gaituzte. **Luis Elberdin**

Nola ari den **pobretzen** egungo gizona, hots, gauzen axalean eta beren buruaren axalean baitaude aintzak. **Herria**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Suteen ondoko lur agortu eta **pobretuan**. **Pello Zabala**

Ezinduak, eremu **pobretuetan** diren ikastetxeetakoak, ikasle etorkinak... **Berria - Euskal Herria**

NATOko Kosovon erabilitako uranio **pobretuko** munizioaren auziaz ari da esataria. munduko beste hamasei estatuk dute gutxienez uranio **pobretua**. **Iban Zaldúa**

Herrialde **Pobretuekiko** Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren lege proposamena aurkeztu dute. **Berria - Euskal Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**uranio pobretua** (12)

**uranio pobretuak** (4)

**uranio pobretuaren** (4)

## pobretxo 1 *izond adkor* pobrea. (pertsonez)

Basamortuan bizi zen emakume **pobretxo** haren seme-alaba zirela erantzun zioten. **Askoren artean**

Gogoeta santuetan ari zela, andre **pobretxo** batek limosna eskatu zion Jainkoaren maitasunagatik. **Askoren artean**

Jainkoaren izenean, emadazu zerbait emakume **pobretxo** hauei emateko. **Askoren artean**

Jainkoak bere Eliza argitu du gizon **pobretxo** eta arbuia garri, sinple eta eskolagabe honen bitartez. **Askoren artean**

Tori janari hauek eta premia garaian eman leialki itsasontzian ezkatatuta dauden fraide **pobretxo**ei. **Askoren artean**

Frantzisko egiaz **pobretxo** zen eta maitasun-damuz betea. **Askoren artean**

Herrixka hartako bizilagunak ere, **pobretxoak** eta sinpleak izan arren, eskualde hartako gainerakoak baino gogokoago zituen. **Askoren artean**

### 2 (bestelakoez)

Eliza **pobretxo**a izan arren eta denboraren poderioz ia hondatua, Asis eta bailara guztiko jendeak jaiera handia zion, eta gero eta handiagoa izan dio gaurdaino. **Askoren artean**

Ondoren egin bitzate buztinez eta egurrez etxe **pobretxoak** eta gelatxo batzuk, hauetan noizbehinka anaiak otoitz egin dezaten. **Askoren artean**

Bazen leku hartan gela **pobretxo** bat, oso aparte zegoena, non aita santua egoten baitzen. **Askoren artean**

Gorputz-arimetako poz handiagoa hartzen dudala, anaien mahai **pobretxoan** eseri eta atez ate Jaiko Jaunaren maitasunagatik lorturiko limosna **pobretxoak** nire aurrean ikusten ditudanean, janari ugariz hornituriko zure eta beste jaunen mahaietan esertzen naizenean baino. **Karlos Zabala**

### 3 (adizlagun gisa)

Otoitzetik irteetan -zioen-, bekatarri eta **pobretxo** agertu behar du besteen aurrean, grazia berririk hartu ez balu bezala. **Askoren artean**



#### 4 (izen gisa)

Frantzisko predikatzen zebilen beste egun batean, **pobretxo** bat, gaixo zegoena, etorri zen bizilekura. [Askoren artean](#)

Entzuten al duzu, anaia, **pobretxo** honek dioena? [Askoren artean](#)

Entzun, **pobretxoak**, Jaunak deituak, bazter eta lurralde askotatik bilduak. [Askoren artean](#)

Zatozte agudo, **pobretxo** bat atxilotu baitute eta berehalaxe kondenatu eta heriotzara eraman baitute. [Askoren artean](#)

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**andre pobretxo** (5); **apaiz pobretxo** (4); **emakume pobretxo** (10); **gizon pobretxo** (5); **txiki eta pobretxo** (3)

**eliza pobretxoa** (3); **pobretxoa izan arren** (3)

**etxe pobretxoak** (4); **txiki eta pobretxoak** (3)

**frantzisko pobretxoaren goresmenean** (60)

**leku pobretxoetan** (4)

## pobretze iz pobre bihurtzea.

**Pobretze** horrek gerrara -jaunen beren arteko gerrara- bultzatu zituen jaunak ere, eta, era horretan, erregeak posizio ezin hobean aurkitu ziren gatazka horietan bitartekari izateko. [Koro Navarro](#)

**Pobretzearen** areagotze izugarria [...] industria-iraultzak eragindako aldaketa ikaragarrien emaitza nagusietako bat izan zen. [Koro Navarro](#)

Periferiako hainbat eskualdetan bi fenomenoak gertatzen dira [...]: baztertzea eta zokoratzea nazioarteko mailan, eta **pobretzea** eta gizarte-desegituzatzea nazio barnean.

[Koro Navarro](#)

Euskal gizartearen **pobretze** kulturala. [Berria - Harian](#)

Deusik ez badugu egiten, beldur naiz ez ote den Euskal Herrian **pobretze** ekonomiko bat gertatuko eta udalek ez ote duten diru iturri bat galduko, enpresak bertze eskualde batzuetara joaten badira. [Berria - Ekonomia](#)

Horren ordainez, patronalen eta sindikatuen finantzaketak publiko oparora; erakunde sindikalen barruan **pobretze** ideologiko ikaragarria... [Berria - Euskal Herria](#)

Asko dira diskurtsoaren **pobretze** gero eta larriagoaz ohartarazi gaituzten ahotsak. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

## pobreza ik pobrezia.

## pobrezia (740 agerraldi, 65 liburu eta 268 artikulutan; orobat **pobreza** g.er.) 1 iz pobrea denaren nolakotatsuna edo egoera. ik **pobretasun**.

Marjinazioak, **pobrezia** eta indarkeriak emakumeei erasaten die nagusiki. [Berria - Gaiak](#)

Bazterketa eta munduko herrialde gehienek **pobrezia** eragiten duen ekonomia-sistema, militarismo berrindartua, naturaren degradazioa. [Askoren artean](#)

Afrikaren kasuan, baina, **pobrezia** gora egin du eta hiesa ere zabaldu egin da. [Berria - Gaiak](#)

Estatu eta pertsona guztiak **pobrezia** desagertarazteko lanean elkarlana egin beharko dute. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

**Pobrezia** ez baitu mugarik. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

**Pobrezia** frustrazioa eramaten ditu gizabanakoak eta, ondorioz, errazago da muturreko taldeen ideietara biltzea. [Berria - Harian](#)

Venezuelan zazpi milioi haur **pobrezian** bizi da, lau milioik ez dute osasuna mantentzeko adina jaten. [Pako Aristi](#)

Ez dezagun izan nahiago osasuna eritasuna baino, aberastasuna **pobrezia** baino, ohorea desohorea baino. [Patxi Altuna](#)

Aberastasuna ona da bidegabekoa ez bada, **pobrezia** txarra fedegabe direnentzako. [Elizen arteko biblia](#)

Miseria eta **pobrezia** gauza bat eta bera dela aurkituko bagenu, pobre ez dena zoriontsu dela aitortuko genuke. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Bakardadeak eta **pobrezia** jotako gizon-emakumeak. [Iñaki Zabaleta](#)

## 2 (izenondo edo izenlagunekin)

Izugarriko desberdintasunez hornitutako oparotasuna, batzuek oparotasun neurrigabean, eta milioika gizaki **pobrezia** gorrian. [Iñaki Heras](#)

Atenasko lege batek **pobrezia** gorrian eroritako gurasoak elikatzera behartzen zituen seme-alabak. [Iñaki Iñurrieta](#)

Gaur egun, munduko biztanleen erditsua **pobrezia** hutsean bizi da. [Pello Salaburu](#)

Erretretaren eta Seguritate Sozialaren aldaketa sakonen ondorioz, **pobrezia** materialaren mugetan doi-doi burua itolarririk salbatzen saiatzen ziren oldeak, egiazko miseriaren zamapera uzkailek ziren. [Itxaro Borda](#)

Estatu Batuetan edo Europan ez dago mestizajerik, eta harreman zuzena dago auzo batekoa izatearen, azalaren kolorearen eta **pobrezia** ekonomikoaren artean. [Bernardo Atxaga](#)

Garai hartan miseria handia zegoen hirian, **pobrezia** ikaragarria. [Paddy Rekalde](#)

**Pobrezia** latzetik ateratzen lagundu dituztenekiko eskerrona. [Xabier Montoia](#)

Hona Frantziskok Testamentuan adierazten dituen bizi-proiektuaren ardatz nagusiak: erabateko **pobrezia**, otoi-tza, xumetasuna eta mendekotasuna, eskulana bizibide bezala [...]. [Askoren artean](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kirgizistan-en biztanleen % 88 bizi da **pobrezia** maila ezin gaituzten. [Pello Salaburu](#)

Azken 25 urteetan, eguneko dolar bat baino gutxiagoko errenta duen **pobrezia** tasak %20tik %5era murriztu da. [Iñaki Heras](#)

Horiek horrela, **pobrezia** egoera horri buruzko hainbat iritzi, teoria eta ikuspegi daude. [Iñaki Heras](#)

Horregatik da hain zaila, esaterako, **pobrezia** egoera definitzea eta neurtzea. [Iñaki Heras](#)

Hirurogeita hamarrek hamarkadan hasi ziren agertzen munduko ingurumen eta **pobrezia** arazoaren inguruko kezka ageri-agerian uzten duten txosten, bilera eta dokumentuak. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure kasuan, hizkuntza **pobrezia** ez da zilegi, asko dago egiteko oraindaino. [Iñigo Aranbarri](#)

## 5 irud/hed

Koloreen **pobrezia**, egituraren kilikolotasuna, sekula amaierarik asmatzen ez duten parrafo arnaslarrituak, azkenik gabeko itzulikan aihenkatuz. [Juan Garzia](#)

Interpretatzea, enuntziatuaren **pobrezia** erantzuteko modua da. [Xabier Arregi](#)

Lañoki idazteak ez dakartza hizkuntzaren zentsura edo **pobrezia**. [Janbattitt Dirassar](#)

Bigarrena, arimaren **pobrezia** da eta Jainkoagandik urruntzea, bi hauek izpiritua uzten dutelako gabekia mingarrian. [Joan Mari Lekuona](#)

Eraketa diskurtsibo bat aztertzea **pobrezia** horren legea bilatzea da, bera neurtzea eta bere berezko forma mugatzea. [Xabier Arregi](#)

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**munduko pobrezia** (6); **muturreko pobrezia** (8)

**pobrezia amaiteza** (3); **pobrezia areagotu** (4); **pobrezia egoera** (4); **pobrezia eragiten** (5); **pobrezia eragiten duen** (3); **pobrezia eta bazterketa** (3); **pobrezia eta gosea** (5);

**pobrezia gaituzten** (3); **pobrezia gorrian** (8); **pobrezia gorrian bizi** (3); **pobrezia handia** (7); **pobrezia handituz** (3); **pobrezia maila** (4); **pobrezia mailaren** (3); **pobrezia**

**murrizteko** (5)  
**muturreko pobrezian** (11); **muturreko pobrezian bizi** (10); **pobrezian bizi** (38); **pobrezian bizi dira** (16); **pobrezian dagoela** (3)  
**pobreziarekin amaitzeko** (3)  
**pobreziazen arazoa** (5); **pobreziazen aurka** (11); **pobreziazen aurkako** (9); **pobreziazen aurkako borroka** (4); **pobreziazen eta** (20); **pobreziazen inguruko** (6); **pobreziazen kontra** (6); **pobreziazen kontrako** (14); **pobreziazen kontrako borroka** (4); **pobreziazen kontrako borrokaren** (3); **pobreziazen muga** (13); **pobreziazen mugan** (3); **pobreziazen mugaren** (9); **pobreziazen mugaren azpitik** (7)  
**pobreziazi aurre egiteko** (12); **pobreziazi buruzko** (3); **pobreziazi ematen zaion** (3)  
**pobreziatik ateratzeko** (4)

podere ik **botere**.

poderedun ik **boteredun**.

## poderio *(orobat podorio g.er.)*

### 1 –en **poderioan** -en poderioz, -en indarrez.

Tradizioa eta aginpidea kontuan hartzeaz gain, arrazoiaren **poderioan** ere ustea jarri beharko duela aurrera egiteko. **Askoren artean**  
Egunen **poderioan**, letrak bereizteko gauza izan nintzen berrito. ez dakit, beharbada ttipiagotu egin da Hanna urteen **poderioan**. **Xabier Olarra**  
Batetik bestera ibili zen Karibetik Europara, eta Haiti, Antillak eta Bahamak ongi ezagutu zituen urteen **poderioan**. **Xabier Olarra**  
Hitz-aspertu haiek, maisu eta ikaslearen arteko jardunaren tankera hartu zuten, denboraren **poderioan**. **Xabier Olarra**

### 2 –en **poderioz** -engatik, -en kariaz, -a dela eta.

Kaleburuan elizaren ondoko zumar famatua topatu nuen, aspaldidanik urteen **poderioz** goitik behera pitzaturik. **Txillardegi**  
-Urteen **poderioz** jendea zentzatu egiten da, zu ordea, zaharrago eta kaskarinago. **Fernando Rey**  
Uste dut mendeku moduko bat izan zela hura, bat-bateko burutazio bat, azkenean, denboraren **poderioz**, biok onartu genuena. **Alberto Ladron Arana**  
Etsaia beti entseatzaren baita, handik eta hemendik, denboraren **poderioz** gure higatzera. **Filipe Bidart**  
Ohituraren **poderioz** jarraitzen zuen karlismoak bizirik. **Koro Navarro**  
Komentario arrunt hark lagunarteko giroa argitzen zuelako errepikapenaren **poderioz**. **Bernardo Atxaga**  
Haginlaria zen, ekinaren **poderioz** ikasia baina, egundo ez baitzen eskolan ibili, ez odontologiakoan ez bestelakoetan. **Patxi Zubizarreta**  
Berez esnatuko zaizkio itotzearen **poderioz** kasik hilak zituen sentimendu horiek. **Karlos Zabala**  
Entzutearen **poderioz**, buruz ikasi zituzten, azkenean, karabanako kideek zifrak. **Jon Muñoz**  
Florak, erdi negarrez, alproja mozkorra, hori nintzela esan zidan, eta egunen batean biak hilko nituela ematen nizkien disgustuen **poderioz**. **Ramon Saizarbitoria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aritzearen poderioz** (3); **denboraren poderioz** (87); **egitearen poderioz** (3); **entzutearen poderioz** (7); **erabileraren poderioz** (6); **erabiliaren poderioz** (4); **errepikatzearen poderioz** (7); **esatearen poderioz** (3); **ibiltzearen poderioz** (8); **ikustearen poderioz** (4); **lanaren poderioz** (5); **nekearen poderioz** (4); **ohituraren poderioz** (6); **poderioz ikasten** (3); **poderioz lortzen** (3); **urteen poderioz** (49)

poderoso ik **boteretsu**.

## podestate iz Erdi Aroan, Italia eta Frantzia hegoaldeko zenbait hiritako lehen magistratua.

Parmako harri jasoaren gainean, non urteak danik **podestateek** populuari hitz egiten baitzieten, fede berria aldarrikatu zuen Dolcinok. **Juan Garzia**

podio ik **podium**.

## podium *(orobat podio g.er.)* 1 iz kirol proba baten irabazleak jartzen diren plataforma.

Denis Mentxov errusiarrak (Illes Balears-Banesto) irabazi du Itzulia eta bi euskaldunak, Iban Mayo eta David Etxebarria (Euskaltel-Euskadi), izan ditu ezker-eskuin **podiumean**. **Berria - Kirola**  
Indurain **podiumera** igo zenean, han ibili zen Joxe Elozegi, denok lotsarazten: bere prakak ikurrinaz eginak ziren, jaka ere bai. **Hasier Etxebarria**  
**Podiumera** igo naiz Vueltan, eta Tourrean nahiko gertu egon nintzen bosgarren sailkatu nintzenez, 2002 urtean. **Berria - Kirola**  
Juanma Garate da **podiuma** lortzeko aukera duen euskal herritar bakarra. **Berria - Kirola**  
Zortzi aldiz korritu duzu, bitan irabazi eta lau **podium** lortu. **Berria - Kirola**  
Gronholmek ez du oso ondo hasi denboraldia, estreinakoan, Montecarloko Rallyan, **podiumetik** kanpo geratu baitzen. **Berria - Kirola**  
Austriako hiru eskiatzaile eslatomeko **podiumean**. **Berria - Kirola**

### 2 norbati edo zerbait, ikusgaiago bihurtzeko, jartzen den idulkia.

Haren alboan, hitzaldi potoloak botatzeko **podium** mikrofonduna. **Berria - Kultura**  
Denda barruan **podium** eraiki berri bat begiztatu zuen, eta haren gainean bere bizitzan inoiz ikusitako erratzik bikainenena. **Iñaki Mendiguren**  
Ilara estu-estuetan, uniforme beltzez jantzitako milaka soldadu lerrotatzen ziren, harrizko arrano alimaleko batek txikiagotzen zuen **podium** baten aitzinean. **Alberto Ladron Arana**

### 3 irud/hed

Babes-kontuez gainera, Lizardik bazuen beste arrazoi bat amaren partez maitasun goitarren **podiumean** amona ipintzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Nik ez nuen ulertzen: nola ulertuko nuen nik hura, bada, produktu kimikoen **podiumean** fanta eta coca-cola baldin banituen beste edozeinen gainetik? **Joan Mari Irigoien**

### 4 hainbat zutabe jasaten dituen oinarri jarraitua.

**Podiumaren** altuera, plataformaren mailatik gora neurtuta, orkestraren diametroaren hamabiren batekoa izango da, erlaitza eta gola ere kontatuta. **Santiago Iruretagoiena**  
**Podiumaren** gainean kolomak altxatuko dira orkestra-diametroaren laurden bateko altuera hartuz, basa eta kapitelen kontatuta. **Santiago Iruretagoiena**

# podologiko izond oinen fisiologiari eta eritasunei dagokiena.

Oin Diabetikoaren Tratamendu eta Prebentziorako Eguneratze **Podologikoaren** [...]. **Berria - Gaiak**

## podologo iz oinen fisiologian eta eritasunetan aditua den medikua.

Euskadiko **Podologoan** Elkargoko lehendakariaren esanetan, oinen kasuan, zauriak eta ultzerak agertzen dira, horregatik da «garrantzitsua neurriak hartzea». **Berria - Gaiak**

Talde edo unitate horiek lehen aipatutako hiru medikuek osatuko dituzte, hau da, **podologoek**, endokrinоек eta kardiologoek. **Berria - Gaiak**

Diabetesa dutenek oinetako azazkalak moztera **podologoarengana** joan behar du, zauri txiki bat egiten badu, hura sendatzen asko kostako zaiolako. **Berria - Gaiak**

## podore ik botere.

## podoredun ik boteredun.

## podorio ik poderio.

## poema (1195 agerraldi, 136 liburu eta 286 artikulutan) 1 iz poesia-lana, lerro sailetan egiten dena. ik olerki; poesia.

Poesiatik dator, etorri, eta poesiara doa, joan, **poema**. **Joxerra Garzia**

Testuak ageri zuen ordenamenduagatik, **poema** bat. **Anjel Lertxundi**

Hauak ziren **poemaren** lehen lerroak, behin eta berriro errepikatzen zirenak. **Joseba Zulaika**

Bazen **poema** bat ia beti errezitatzen genuena arratsean, mahai inguruan. **Fernando Rey**

Liburuko lehen **poema** irakurtzen hasi zen. **Irene Aldasoro**

Elkarrekin **poema** tristeak irakurtzen zituzten, xuxurla minduaz murmuriatuz. **Fernando Rey**

Izaro uhartean kokaturiko maitasun-istorio batek Museum poeta greziarraren *Hero eta Leandro* **poema** gogorarazten zion Humboldt. **Anjel Lertxundi**

Haren **poemak** euskaratu zituen, gutunak idatzi zizkion... **Juan Luis Zabala**

Beste garai batean **poemak** sortzeko aproposa gertatu ohi zitzauden egoera zen hura, eta paperaren aurrean jarri nintzen berriro ere. **Ramon Saizarbitoria**

**Poema** baten mezua **poemakoak** baino hitz urriagoetan zehazterik balego, **poema** ez zelako da. **Anjel Lertxundi**

**Poeman** agertu arte, ideiak izengabe, itxuragabeak dira; sortzeko zorian daudela, sentitu egiten ditugu, eta izendatu egiten ditugu. **Javi Cillero**

Lerro hautsietan idazte hutsak ez du, bestalde, esaldi bat, besterik gabe, **poema** bihurtzen. **Joxerra Garzia**

**Poema** hura bokazio poetiko goiztiar baten seinaleztat hartu zuten etxean. **Fernando Rey**

Nostalgiaren tristura darie **poema** hauei... **Irene Aldasoro**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Markiegiren fusilaketari buruz Telesforo Monzonek idatzitako **poema** inedito batzuk aurkitu dituzte orain gutxi. **Jokin Urain**

Vladimir Nabokovek esan zuenez, *Arima hilak* **poema** epiko izugarria da. **Jose Morales**

Norbaitek "**poema** liriko"tzat jo du: izan ere, egileari Frantziskorenganako maitasuna -eta haren bitartez Kristorenganako- dario borborka idazlan guztian zehar. **Askoren artean**

Bizioa birtute bihurtzen deneko **poema** alegorikoa. **Iñaki Heras**

Badirudi **poema** homerikoek kontrakoa frogatzen dutela. Orain, **poema** kontzeptualagoak egiten ditut. **Isabel Arrigain**

Bitoriano Gandiagaren **poema** argitaragabeak bildu dizkigute lau ale ederretan. **Berria - Kultura**

Herri-liburutegian ez daukate ezer, **poema** aukeratuen bildumak izan ezik. **Oskar Arana**

**Poema** luze eta aberatsa dugu hau, bost partetan berezia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horregatik erantzungo dio Gabriel Arestik, ez ironiarik gabe, Profeta bati izeneko **poema** luzean: [...]. **Anjel Lertxundi**

Elkarrekin **poema** tristeak irakurtzen zituzten, xuxurla minduaz murmuriatuz. **Fernando Rey**

Graves-ek **poema** perfekturik ez dagoela esaten zuen. **Ana Urkiza**

Borgesek berak agertu zigun Danteren **poema** guztizkoaren gaia ez dela soilik erlijioa. **Juan Garzia**

Beste bat, haur txikia zela, 1925eko eguberri bezperan zeruratua, "Xabiartxoren eriotza" **poema** hunkigarrian kontaktzen zaigun bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Antonio Machadok ere ondu zuen **poema** xarmagarri horietako bat, eulien ohoretan. **Patziku Perurena**

-Maitasunezko **poema** bat, ez ahaztu. **Koro Navarro**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osgai gisa)

Gauza bera al dira **poema** antologia bat, hil osteko testu-zati batzuen bilduma, *Traité des coniques* lana edo Micheleten *Histoire de France*-ren liburuki bat? **Xabier Arregi**

*Harri eta Herri* titulu zuen Arestik bere **poema** liburu bat. **Bernardo Atxaga**

*Biotz-begietan* **poema**-bilduma testuen gaztelaniazko itzulpen eta guzti kaleratu zen bere garaian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eskuak txikiak eta zuriak zituen, eta orri-pasaka irakurtzen ari zen Carducciaren **poema**-bilduma bat, gorritz koadernatua. **Fernando Rey**

**Poema**-sorta txiki bat idatzi nuen bolada batean, eta hortxe bukatu zitzauden sormena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Batez ere **poema**-kantu hartako esaldi bat etorri zait gogora: "... ixilik egoteak, asko balio du". **Hasier Etxeberria**

Hori hizki larriz eta gero **poema** simulakro bat: [...]. **Harkaitz Cano**

Vivaldiren *Gloria*, ondoren tekno eta dance musika, antzerkia, **poema** irakurketa, Txaikovski, berriro teknoa, berriro dance musika, folklorea... denetariko nahasketa, nolabaiteko kultura ezaren adibidea. **Edorta Jimenez**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amodio-**poemak** idazten nituen, Nerudaren *Hogei poema amodiozko eta kantu etsi bat* imitatuz. **Juan Kruz Igerabide**

Amaitu gabeko su-**poema** baten errauts hotza. **Fernando Morillo**

### 5 poema sinfoniko orkestrarako musika-lana, eskuarki programa poetiko edo narratibo batean oinarritua.

Bozgorailuetan, berriz, **poema** sinfonikoko biolinaren pizzicatoa, eup eta eup, pasarterik ausartenean, dantza-dei gisa. **Anjel Lertxundi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

eskainitako poema (6); gandiagaren poema (5); idatzitako poema (30); izeneko poema (10); kavafisen poema (4); lauaxetaren poema (5); lehen poema bilduma (4); lehen poema liburua (13); maldan behera poema (4)

poema amaigabea (4); poema argitaragabeak (4); poema argitaratu (8); poema bat aurkitu (4); poema bat egin (4); poema bat errezitatzen (4); poema bat idatzi (4); poema bat idazten (6); poema bat irakurri (7); poema bilduma (12); poema biltzen ditu (5)

**poema erder** (9); **poema epiko** (8); **poema ezezagun** (4)

**poema idatzi** (6); **poema irakurri** (12); **poema irakurri zuen** (4); **poema irakurtzen** (4); **poema jaso** (4); **poema laburrak** (6); **poema liburu** (49); **poema liburu bat** (7); **poema liburu** (55); **poema liburu argitaratu** (4); **poema liburuak** (12); **poema liburuan** (9); **poema liburuarekin** (4); **poema liburuaren** (6); **poema liburuari** (6); **poema liburuetan** (4); **poema liriko** (4); **poema luze** (6); **poema musikatuak** (4)

**poema sinfonikoa** (6); **poema sorta** (7)

**sarrionandiaren poema** (5)

**idatziriko poemak** (5); **idatzitako poemak** (8); **ipuinak eta poemak** (4); **libreta horiko poemak** (10); **liburuko poemak** (10); **poemak biltzen dituen** (5); **poemak egiteko** (4); **poemak erakusten** (6); **poemak erreztatzen** (4); **poemak idatzi** (6); **poemak idazteko** (4); **poemak idazten** (26); **poemak idazten zituen** (5); **poemak irakurri** (7); **poemak irakurriko** (5); **poemak irakurriko ditu** (4); **poemak irakurtzen** (4); **poemak irakurtzen** (5); **spam poemak** (5)

**euskaldunak poeman** (3); **izeneko poeman** (3)

## poemagintza *(13 agerraldi, 2 liburu eta 6 artikulutan)* iz poeta batek, eskola edo talde batek poemak egiteko duen era berezia; poesia jardun gisa hartua. ik **olerkigintza**.

Lazarragaren **poemagintzan** bi korronte biltzen dira Urkizuren irudiko: alde batetik herrikoa, eta bestetik, kultura. Beria - Harian

Zazpi bat urte poema libururik argitaratu gabe egon ostean, jauzi bat egin du bere **poemagintzan**. Beria - Kultura

Euskal **poemagintzaren** alorrean dagokion lekua iritsi ez duen olerkari baten aurrean gaudela uste dut. Beria - Kultura

Hitz ponpororik eta metaforarik gabeko **poemagintza**, «zuzen-zuzenean» idatzia. Beria - Kultura

Gure idazleak prosaz eragin nahi duen dardarizoa ez baita bere **poemagintza** klasikozaleak sortarazten digun hunkitze gozo, otzan eta barrenkoa, Patziku Perurena

## poemario iz poema-liburua.

Harrezkero makina bat idazleren literatur lanak argitaratu dituzte: saiakerak, **poemarioak**, eleberriak eta antzerki obrak. Beria - Kultura

Esteban Urkiaga Lauaxeta-ren *Bide Barriak* **poemarioa** 1931n argitaratu zen. Beria - Kultura

Angel Erroren *Gorputzeko humoreak* **poemarioak** lau gai nagusi ditu sarien ponentearen uestez, «malenkonia, hazia, odola eta tinta». Beria - Kultura

Mina eta Rembrandtekiko lilura eta infinitua azaldu nahiaz gain, «urdinarekiko lilura» jaso du idazleak **poemario** berrian. Beria - Kultura

## poematasun iz poema izateko nolakotasuna.

Hala ere, dioena baino gehiago (eta gutxiago) dioen neurrian, prest nengoke hogeita hamasei letra dituen eta ez dituen ahapaldi horien **poematasuna** aldezteko, kuantifika ez daitezkeen kontuez hitz egiteko inor balego oraindik bestaldean. Joxerra Garzia

## poemategi iz poema sorta.

Bere ibilbide poetikoa lau **poemategitan** banatua utzi zuen *Ibilaldia* liburuan: *Mindura gaur*, *Hondarrean idatzia* (*Muga beroak* liburuaren lehen argitalpenean jaso, *Mindura gaur*-ekin batera); *Oihu ilunak espiralean* (*Ilargiaren eskolan* liburuko gune nagusia); eta *Mimodramak eta ikonoak*. Beria - Harian

Poesiaren arloan, idazleen eskuetatik itendako **poemategi** berrien ondoan, hiru edizio apailatu daude, hirurak Susa argitaletxeak iragarriak. Beria - Kultura

Gerardo Markuletak *Batak ez du bestea kentzen* **poemategian**, liburuek ez dutela minik egiten diosku; Pako Aristik, irakurri gabe zoriontsuagoak izango ginatkeela. Beria - Kultura

## poematu, poema(tu), poematzen du *ad* poema bihurtu.

Maitasuna, heriotza, herria, kezka, ironia **poematu** zituen olerkaria. Beria - Kultura

## poematxo 1 iz poema txikia.

Aireportuan **poematxo** hau bururatu zait: [...]. Pako Aristi

Huskeriak, inondik ere, **poematxoak** eta horrelako gauzak, ezta? Jose Morales

Eta hori da Rossettik ere egin behar zukeena, baina obsesionatu egin zen bere **poematxoak** berreskuratzearekin, sekulakoak, hobezinak, irudituko baitzitzaizkion gizajoari. Ramon Saizarbitoria

Eskuetara etortzen zitzaizkidan poema bakanak buruz ikasteari ekin nion, ero moduan, eskolako liburu apurretan topatzen nituen **poematxoetan** edo elizan nahiz irratian entzuten nituen kantuetan. Juan Kruz Igerabide

Hölderlin, berriz, poesiak erotu egin zuen eta 37 urte egin zituen aizkolari baten etxean, pianoa joz eta Scardanelli goitizenez izenpetzen zituen **poematxo** esoteriko ulergaitzak idatziz. Anjel Lertxundi

**Poematxo** bat irakurtzen uzten badidazue. Pako Aristi

Gerora ikusi nituen tresna honek [blogak] eskaintzen zizkidan aukerak: iritziak kaleratzea, besteen erantzunak jasotzea, ipuintxoak eta **poematxoak** argitaratzea... Beria - Harian

### 2 (hitz elkartuetan)

Sara eta Irisarriko eskoletako haurrek marrazki eta **poematxo** erakusketa bat muntatua zuten, Sylvie Labescou (Irisarri) eta Pantxika Amestoy (Sara) erakasleen laguntzarekin. Beria - Harian

## poematar iz *adkor* poema luzea.

Inoiz ezin izan baitzuen bukatu **poematar** hura. Beria - Kultura

## poesia *(1703 agerraldi, 146 liburu eta 358 artikulutan)* 1 iz literatura-generoa, zerbait adierazteko hitz neurtuen, erritmoen eta hoskidetasunen harmoniaz eta irudiez baliatzen dena. ik **olerti**.

Gure garaiko VIII. mendean, Wu Zhetian enperatrizararen erabakiz, funtzionari lanposturako oposizioetan sartu zuten **poesia** ontzen jakitea; azterketara aurkeztzen zirenek **poesia** ondo ezagutu behar zuten, eta poemak idazten jakin. Pako Aristi

Poeta batek esperimentatzen duena ez baita **Poesia**, material poetikoa baizik. Anjel Lertxundi

Zer frogatzen dute erretorikak eta **poesiak**? zer, antze horien erabilerak? Iñaki Iñurrieta

Hölderlin, berriz, **poesiak** erotu egin zuen eta 37 urte egin zituen aizkolari baten etxean, pianoa joz eta Scardanelli goitizenez izenpetzen zituen poematxo esoteriko ulergaitzak idatziz. Anjel Lertxundi

**Poesiak** eta bertsozintzak eskatzen dituen errimak eta neurriak ere bortxa ekartzen diote literatur jarioari. Iñaki Arranz

Hasierian serio literaturaz ginen euskal literaturaz, azken urteotako joera arinazaleaz, **poesiako** liburuen berriarazuz, irakurri berriak irakurtzeko. **Juan Luis Zabala**

Euskaraz idazten hasi nintzenean, **poesia** baztertu eta narratibara egin nuen jauzi. **Ana Urkiza**

**Poesia** asko irakurri izan dut. **Ana Urkiza**

**Poesia** lantzen hasi zen aurrena, eta handik fikzioaren aldera egin zuen. **Koro Navarro**

Hogei urte arte **poesia** idatzi nuen. **Ana Urkiza**

**Poesia** ere idazten da kontzentrazio eremuetan. **Jokin Urain**

Hitz arruntez janzen da **poesia** zenbaitetan, pentsatu zuen. **Imanol Zurutuza**

Izatekotan, bizimodu nahi nuke **poesia**, ez bizibide. **Joxerra Garzia**

**Poesia** munduan parte hartzeko modu bat da niretzat, munduaren galderei erantzun bat emateko bidea. **Pako Aristi**

Mundua mundu denetik egin den galdera dugu Adornorena: zer ukendu klase da **poesia** giza zaurientzat? **Anjel Lertxundi**

**Poesiaren** eginbeharretako bat hitzak garbitzea, elei zarata kentzea dela zioen behinola Bernardo Atxagak elkarrizketa batean. **Iñigo Aranbarri**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Han azpimarratu ditugu gerra-talde horien lorpen bereizgarriak erlijio sektarioaren eta **poesia** epikoaren arloetan. **Iñaki Mendiguren**

Epopoia eta **poesia** tragikoa eta, gainera, komedia eta **poesia** ditiranbikoa, eta auletika eta zitaristika gehiena, denak dira imitazioak ikuspuntu orokorretik. **Askoren artean**

**Poesia** landuaren ondoan berea ere **poesia** dela, **poesia** herrikoa, dute aldarri. **Andoni Egaña**

Zer egin behar nuen **poesia** herrikoiarekin, haur-lelo eta kantekin, nahigabeko **poesiarekin** edo irrazionalarekin? **Bernardo Atxaga**

Oraindik bada jendea alde batetik **poesia** mistikoaren irakurketa erotikoa egiten duena eta erlijiosoa bestetik. **Patziku Perurena**

Ez nitek esango Eliot **poesia** erotikoaren erpina denik... **Iñaki Iñurrieta**

Ahozko **poesiaren** osagarri eta aldi berean osagai nagusitzat har daiteke performance delakoa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Poema haiek, [...] gehiago zor zioten galestar jatorriari bere garaiko **poesia** sozialaren aldeko gustuari baino. **Koro Navarro**

Whitman eta Mallarmé, **poesia** modernoaren aita bikiak. **Oskar Arana**

Bazterrean utzi dut auhenezko **poesia** (Oi Euskal Herri gaixoa) edo gaitzespenezkoa (Euskara jaits hadi karrikara!). **Aurelia Arkotxa**

Banuen amets-asmoa karbono-atomo baten saga idazteko, jendei ulertarazteko fotosintesi klorofilikoaren **poesia** bikain bezain -kimikarientzat izan ezik- gordea. **Juan Garzia**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobatpoesi) ik poetiko.

**Poesia** emanaldian parte harturiko idazleak ingelesez primeran moldatzen zirela begi-bistakoa zen. **Edorta Jimenez**

Six Gallery delako arte galeriara bildu ginen aspaldiko partez Allenen **poesia** errezitaldia entzutera. **Javi Cillero**

Onartzen da ez dela amets baten kontaera, ez dela **poesia**-testu bat, ez dela kodetutako mezua, ezta drogak hartuta dagoen baten hitza ere. **Xabier Arregi**

Andaluziar musulmanengandik hartutako altxorra bertako arabiar lorpena zela, Mendebaldeko **poesi** eskola baten ondorengo lorpen guztiak inspiratuko zituen. **Iñaki Mendiguren**

Artzapezpikuak bere **poesi** zertamen haiek organizatu zituen denboran. **Joan Mari Irigoien**

Izanez ere, non ez errotu eta bizi, neguan loritzen den **poesi** hazia? Bazirudien haurtzaroko **poesia**-txingarrak suberrituak zirela nigan. **Patziku Perurena**

Umore beltza eta ironia fina dabilta kukuka, absurduaren **poesia**-printza batzuk hemen, lirismo arin bat han. **Eskarne Mujika**

Horrelako deskribapen fin-ederrekin hasten da Aurora, prosazko **poesia** indarrez beterikakoa. **Pablo Sastre**

New Yorkeko **Poesia** Zentroan aurkeztu zuen 1953an, eta azken bertsoa BBCK eman zuen, 1954an, Thomas hil eta handik urte batera. **Koro Navarro**

Song dinastiako **poesia** bildumak ehun liburuki dauzka eta 3.820 poeta ageri dira. **Pako Aristi**

Merezimendu handiagoa dutela, batetik, nobelagileek baina, bestetik, **poesia**-irakurleek. **Ana Urkiza**

**Poesia** liburuko behin-betiko probak ematera doa. **Jon Alonso**

**Poesia**-mota jakin bat, sinbolismoa, ageriko gauzei balio sinboliko edo alegiazko bat ematen diena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Poesia**-fikzioa da hau dudarik gabe. **Bernardo Atxaga**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri-**poesiak** berezko balio poetikorik ez duelako iritzia zaharra zen, beraz. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Esaterako, idazleak genero historiko jakin bat hautatzea (Klerezi **poesia**, nobela pikareskoa eta abar), ikur bat da. **Isabel Arrigain**

## 5 poesian nahitaezkotzat jotzen diren bereizgarri ez-formalen multzoa.

Napolio koxkor horrek, ez **poesia** gutxiagorekin, "hobe lo egitea beti problemak edukitzea baino" idatzi du. **Bernardo Atxaga**

Karlismoan **poesia** atxeman uste nuen, mukurru. **Txillardeggi**

Ez dago zalantzarik, haur haien jokaerak noblezia eta **poesia** izan zuen. **Bernardo Atxaga**

Urak badu **poesia**, ibaiak bereziki. **Piarres Aintziart**

Aldiz, irakur ditzakegu ehun poema liburu **poesia** izpirik aurkitu gabe. **Bernardo Atxaga**

Hala esan omen zuen Schlegelek, alegia "andreak gizonak baino **poesia** gehiago zeukala bere baitan". **Bernardo Atxaga**

## 6 poemagintza.

Hesiodoren **poesia**, Homerorenarekin parekatzean hain arrunta, udaberriaren itzuleraren iragapen horietakoa da. **Iñaki Mendiguren**

Surrealistek erreskatatu zutenetik, Lautréamonten **poesia** mugarriztat hartzen da literaturaren historian. **Bernardo Atxaga**

Guk enpiristatza jo arren, hizkera zientifikoak inpertinentzetat -desegokitzat, alegia- joko luke Larkinen **poesia**. **Anjel Lertxundi**

Nola estima zezakeen hainbeste bere **poesia**, haren bila Siddal-en gorpuzkietan miatzeko. **Ramon Saizarbitoria**

Orain arte idatzi dudana **poesian** ez dago bereizterik ni egilea eta ni poetikoa. **Ana Urkiza**

Mogueime soldaduak ez du honelakorik deus pentsatzen, Mogueime soldaduak emakume hurra nahi du, Portugaleko **poesia** ez da oraindik jaio. **Jon Alonso**

Grezierazko "pixoriambikow" hitzak **poesia** grekoko neurri mota bat aipatzen du. **Xabier Olarra**

Ingeles **poesia** oso-oso ondo ezagutzen zuen, eta umetan hasi zen poemak idazten. **Koro Navarro**

Arabiar **poesia** klasikoa bertsoaren loturetatik askatu zuten. **Berria - Kultura**

Amodioaren metaforak XX. mendeko **poesian**. **Juan Kruz Igerabide**

Maila sendoan genuela **poesia**, alegia, eta prosa lantzea eta garatzea zela gure apustua. **Joan Mari Irigoien**

## 7 poema.

Maite ditut Rilkeren **poesia** xuxurlariak. **Ana Urkiza**

Bere lagunarte mugatuenean baizik ez zekiten **poesia** erotikoak idazten zituela. **Anjel Lertxundi**

Izua niola **poesia** bat errezitatu beharrari. **Jesus Mari Mendizabal**

**Poesiak** idazten zituen, zuk eta Josebak bezala. **Bernardo Atxaga**

Maisuak, eskolak ematerakoan, guri batere interesatzen ez zitzaizkigun **poesia** asko irakurrarazi nahi zizkigun. **Pello Lizarralde**

A zer gizona, bere damari **poesiak** esaten ez dakiena! **Koro Navarro**

Garbi esanda, azken batean, Caracasen egoera ez dago **poesiak** irakurtzeko. **Pako Aristi**

## 8 poesia-lan (orobat poesialan g.er.)

Ezkundu orduko, Wildek alde batera utzi zuen **poesia-lana**, eta kontakizun laburrak, haurrentzako ipuinak eta kazetarako kritika-saiakerak idazten hasi zen. **Antton**



Olano

Lehen helburua **poesia lan** guztien edizio kritikoa egitea da. **Berria - Kultura**

1971n, Gipuzkoa Saria jaso zuen San Pedro Bezperakoak **poesia lanagatik**. **Ana Urkiza**

Ale horrek idazleak 1973tik 1990era idatzitako **poesia lanak** biltzen ditu. **Berria - Kultura**

Lehen ezadostasuna katalanezko narratiba eta **poesia lanak** saritzen dituen Palma Hiria Sarian izan dute. **Berria - Kultura**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahozko poesia (4); **bafteren poesia** (4); **benetako poesia** (3); **euskal poesia** (7); **filosofia eta poesia** (3); **hatsaren poesia** (31); **hatsaren poesia eguna** (6); **hatsaren poesia ekitaldia** (3); **idatzitako poesia** (3); **lehen poesia** (3); **lekuonaren poesia** (5); **musika eta poesia** (6)

**poesia abartxoetan** (3); **poesia antologia** (5); **poesia asko** (6); **poesia astea** (5); **poesia bilduman** (5); **poesia biltzen** (3)

**poesia egin** (4); **poesia egiteko** (9); **poesia egiten** (10); **poesia eguna** (7); **poesia egunak** (3); **poesia ekitaldia** (5); **poesia emanaldia** (5); **poesia emanaldia eskainiko** (3); **poesia epikoaren** (4); **poesia errezitaldi** (3); **poesia errezitaldia** (10); **poesia eta antzerkia** (3); **poesia eta musika** (5); **poesia eta narratiba** (3); **poesia eta prosa** (5); **poesia hutsa** (3)

**poesia idatzi** (9); **poesia idatzi du** (3); **poesia idaztea** (6); **poesia idazteko** (4); **poesia idazten** (16); **poesia irakurketa** (4); **poesia irakurle** (5); **poesia irakurraldiak** (3); **poesia irakurtzen** (4); **poesia kaierak** (7); **poesia kaierak bildumarako** (3); **poesia lana** (3); **poesia lanak** (3); **poesia landu** (3); **poesia lantzen** (3); **poesia liburu** (31); **poesia liburu bat** (11); **poesia liburu honetan** (3); **poesia liburua** (13); **poesia liburua** (6); **poesia liburuan** (5); **poesia liburuen** (4); **poesia liburuko** (5); **poesia mota** (3)

**poesia sakon** (3); **poesia saria** (6); **poesia sozialaren** (4)

**poesiak idazten** (3)

**euskal poesiaren** (5); **herri poesiaren** (3); **ipuinaren eta poesiaren** (3); **poesiaren alorrean** (3); **poesiaren bitartez** (3); **poesiaren inguruan** (6); **poesiaren munduan** (3)

**euskal poesiak** (3); **poesiak beteriko** (4); **poesiak betetako** (4)

## poesiadun *(corpusean poesia soilik) izlag* poesia duena, poetikoa.

Badatozkigu bai, alde guzietatik, eta euskal "kontzintzidunak" omen dira gainera denak, eta gure guraso umilatuak ixilean hiltzera doaz, euskararen **poesidun**

"kontzintzigabe" horiek. **Patziku Perurena**

## poesiagai *iz* poesairen gaia.

Laugarrenik, munduarekiko harremanetan sorturiko ezinak dira **poesiagai**. **Berria - Kultura**

## poesiagintza *(robat poesia gintza) iz* poemagintza.

Monzonen **poesiagintzari** dagokionez, alabaina, ez dakarte aparteko ezustekorik. **Berria - Kultura**

Zure umorea eta itxuraz arruntak diren gaietarako joera nabarmendu ditu, besteak beste, zure **poesiagintzan** Izagirrek. **Berria - Kultura**

Horretarako erabili zuen goitizena, Otsalar, erreferentzia garrantzitsua izan zen 1960ko hamarkadako euskal **poesiagintzan**. **Berria - Kultura**

Gerra aurretik gerra ondorenera Oteizaren eragina nolakoa izan zen garaiko **poesiagintzan** ere jorratu du. **Berria - Kultura**

## poesialan ik poesia 8.

## poesiazale *(robat poesia zale) izond* poesiaren zalea dena.

Saguak ere gure lurrean **poesiazaleak** izan direla dio aita Zabalak, bertso-paperak saguek janda agertu direlako maiz. **Pako Aristi**

Erran dizut nola osaba Joanikot ez zen **poesiazale**. Erran dizut nola osaba Joanikot ez zen **poesiazale**. **Joan Mari Irigoien**

## poesiazaletasun (korpuean poesia zaletasun soilik) iz

 poesiazalea denaren nolakotsauna.

Hemen, Madrilen legez, ekialdekoek euren **poesiazaletasunaren** nondik norakoa erakutsi digute. **Edorta Jimenez**

## poesidun ik poesiadun.

## poesiagintza ik poesiagintza.

## poesikera *iz* poesia-mota edo -moldea.

Espresibitatean dago, egotekotan, **poesikera** honen balioa, hiltzearen aipamen dramatiko errepikatu horretan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## poesiazaletasun ik poesia zaletasun.

## poeta *(1662 agerraldi, 166 liburu eta 327 artikulutan) 1 iz* poemak ontzen dituen idazlea. ik olerkari.

**Poeta** eta erromantzegileek beti atsegin izan dute bufoia pertsona zuhur eta argi gisa azaltzea. **Xabier Olarra**

**Poeta** batek, hots, **poeta** den eta poetikoki bizi den **poeta** batek, nola bizi du poesia, alegia, barkatu, denbora? **Bernardo Atxaga**

**Poetaren** egitekoa hiri ideal bat exijitzea da. **Joseba Zulaika**

**Poetek** eta poesia-irakurleek aspaldi hartu zuten sekta itxura hartzen ari dira narratzaileak eta narrazio-irakurleak. **Anjel Lertxundi**

**Poetak** poema erran zuen. **Juan Garzia**

Oteizak berpiztu zuen Gandiagak bere barruan hilzorian zeukan **poeta**. **Pako Aristi**

Jammes **poeta** Hazparnen ehortzia dela. **Herria**

Dylan Thomas, **poeta**, bohemia eta mozkorra. **Koro Navarro**

**Poetaren** begiradak eta irakurlearen begiradak testuan elkar topatzen duteneko unea indibiduala dela. **Ana Urkiza**



Uztailaren 9an, asteazkenez, Maiatz aldizkariko **"poeten"** errezitaldia". Herria

Song dinastiako poesia bildumak ehun liburuki dauzka eta 3.820 **poeta** ageri dira. Pako Aristi

Blake **poetaren** *Proverbs from Hell* obratik hartutako aipua. Oskar Arana

Pierre de Ronsard (1524-1585), **poeta** frantsesa (" **Poeten** printzea, Printzeen **poeta** "), *La Pléiade* izeneko **poeta** taldeko buru, maitasun poema ugari idatzi zituen. Koldo Izagirre

Olerkariak, ez dakit, diot, badu **poetak** ez duen plus serioago bat, gertuago dago **poeta** trajedunetik zarpailetik baino. Iñigo Aranbarri

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ubi sunt, zioen **poeta** klasikoak. Ingalaterran **Poeta** Erramuduna Erregeren gorteko kargudun izaten da. Anjel Lertxundi

William Wordsworth (1770-1850), **poeta** erromantikoa. Xabier Olarra

Galderok putzen hasi zitzaizkidan Lizardiren eta Lauaxetaren obra beste begi batzuez irakurtzen hasi nintzen neurrian: eusko-bidaztiaren bidaia eta **poeta** sinbolistarenak sustrai poetiko berak zituzten. Anjel Lertxundi

**Poeta** ultraista izana zen Enrique, adibidez, eta Josep zapatarri anarkista baten seme boxeolaria. Unai Elorriaga

Ikus dezagun zer zioen orain bi mila bat urte bizi izandako Martzial **poeta** satirikoak bere obrak plajiatu nahi zizkiotenen aurka. Bernardo Atxaga

Nobelagile eta **poeta** herrikoiek emaitza txaldan eta epelak lortzen zituztela. Xabier Olarra

Arestik bere bizitzari ezarri zion auto-profezia da, **poeta** proskritoaren patua. Joseba Zulaika

Jon Arano, **poeta** *maudite* eta *Ostiela* aldizkariko arduraduna. Xabier Mendiguren Elizegi

**Poeta** amateur-diletantetzat dut, beraz, neure burua. Joxerra Garzia

**Poeta** oinazetuaren lanak, interpelazioaren bidetik, otoitzaren itxura hartzen du, Xabier Leteren azkenaldiko poema askotan bezala. Anjel Lertxundi

Lukrezio, **poeta** intelektuala. Xabier Amuriza

Nik ere esan nezakeen, **poeta** handiak bezala: *presi tanta dolcezza*.. Bernardo Atxaga

Leopardi bai, **poeta** handia zen. Fernando Rey

Aita irakaslea eta **poeta** zen, eta semeari, txiki-txikitandik, ingeles **poeta** handien bertsoak errezitatu ohi zizkion. Koro Navarro

Bi frantses **poeta** izan zituen propaganda egileak. Koro Navarro

Robert Burns **poeta** eskoziarrak jasotako balada zaharra. Patziku Perurena

Valerius Catullus, Kristo aurreko **poeta** latinoa. Patxi Zubizarreta

Egia da, ordea, 1913 arte inork ez zekiela bere prosaren kalitateagatik 'Proventzako **poeta**' deitzen ziotenaren azkenaren berri. Joxean Agirre

Senarrak hala zioen, "Augustus zahar gizarajoa - benetako **poeta** da". Anton Garikano

Bigarren mailako **poeta** baten biografia errukitsu bat ere idatzi zuen. Juan Garzia

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bertsolariei proposatzen zaizkien gaiak **poeta** -sena ere eskatzen dute, baina baita baita arrazoibide logikorako eta arguiorako gaitasuna ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Xalbador batek berak, bere **poeta** jeinuarekin, ez zuena arrazoinik gabe kantatu: [...]. Herria

Arima haztatzen saiatu zen, ea **poeta** -arima ote zen. Irene Aldasoro

-Batzuetan, nahastu egiten nauzu pixka bat [...] baina atsegin zaitut, **poeta** -bihotza duzu eta. Juan Kruz Igerabide

**Poeta** -aurpegia jartzen ari da, zenbaitek musean poker aurpegia jartzen duen bezala. Joxerra Garzia

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Batzuetan zuzen-zuzen, beste batzuetan zeharka, bertsolariak, herri-**poetak** nahi duen guztia esaten du, edo aditzera ematen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 5 (beste izen baten eskuinean)

Ez ote daukat osaba **poeta** bat, bere olerki kaxkarrak baino obra perfektuago bat utzi zuena bere gorpu gaztea goizalbako lamiei eskainiz betegintzarrezko performance batean? Xabier Mendiguren Elizegi

Telefonoan agertu zidanez, deklamatuکو zutenak, hitzak ardi marrakaz mukurutzen zituzten "artzain **poetak**". Itxaro Borda

## 6 (beste izen baten ezkerrean)

Emily Dickinson XIX. mendeko **poeta** -andreak belarrari buruz idatzitako hitzak xuxurlatzen hasten da. Bernardo Atxaga

Zeren Salvatore Rosa izan bainuen irakasle, Napolik azken urteotan eman duen **poeta** -pintore-musikaririk handiena... Joan Mari Irigoien

Frantziatik desterratuta Donostian bizi den tipo politiko **poeta** -konspiratzaile bat, Frantzia Handiaren handitzaile handia. Koldo Izagirre

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**d annunzio poeta** (6); **egungo poeta** (3); **euskal poeta** (14); **herriaren poeta** (6); **hiriko poeta** (3); **idazle eta poeta** (3); **izeneko poeta** (4); **lauaxeta poeta** (3); **lekuona poeta** (3); **lotsati poeta** (3)

**poeta asko** (4); **poeta erromantiko** (3); **poeta eta artista** (3); **poeta eta musikaria** (3); **poeta eta nobelagilea** (3); **poeta frantsesaren** (3); **poeta gazte** (5); **poeta gisa** (10); **poeta handi** (15); **poeta handi baten** (4); **poeta handia** (10); **poeta handiak** (8); **poeta handiaren** (8); **poeta hil** (9); **poeta hitza** (3); **poeta izan** (11); **poeta izango** (7); **poeta izatea** (5); **poeta klasikoak** (3); **poeta ona** (3); **poeta onak** (3); **poeta ospetsu** (3); **poeta zaharrek** (3)

**saba poeta** (4)

**artzain poetak** (3); **erran zuen poetak** (5); **esan zuen poetak** (3); **poetak esan** (3); **poetak esana** (3); **poetak esaten** (3)

**poetaren heriotzaren** (3); **poetaren hitzak** (4); **poetaren obra** (3); **poetaren omenez** (3); **poetaren rola** (3)

**euskal poeten** (3)

## poetatasun iz poeta izateko nolakotasuna.

Baina poetaren izateaz haratago, **poetatasunaz** eztabaidatzen dugu. Andoni Egaña

## poetika 1 iz poesiaren arau eta hastapenenei buruzko tratatua.

**Poetika**, norberaren «begirada» hori, lan tresna bilakatu behar da. Berría - Kultura

*Elocutio*a da, beraz, **poetikaren** lekua osotasun erretorikoaren barruan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Epikaren **poetika** berri bat sortzeko ahalegina. Berría - Kultura

Ezinaren **poetika**. Berría - Kultura

Gerraren **poetika**. Berría - Kultura

Sentimentalkeria alde batera uzten duen lirika bat, edota bere literaturtasunaz kontziente den **poetika** bat. Berría - Kultura

Iruditeria eta kontzeptualtasunaren arteko oreka estilistikoa zen berak bilatzen zuen **poetika**. Berría - Kultura

Orixek apal itxurako eskaintza horrekin garbi utzi nahi baitu bien **poetiken** desberdintasuna: baten **poetikak** biotz-begietan du iturri; bestearnak barne-muinetan, espiritua iradokitzen duen toki defingaitz batean. Anjel Lertxundi

Maite Zulaikaren obra, Luis Mari Mujikaren **poetikaz**. Berría - Kultura

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Septentrio elaboratzen ari nintzen garaietan, Montreal eta Hendaiaren artean bizi nintzen garai haietan, geografia poetiko baten bila nengil. **poetika** berri baten bila. Urruti

daude **poetika** goratsu baten edo hausnarketa sakon baten izenean eguneroko bizitzari bizkarra erakusten dion arte batetik. **Ana Urkiza**

Badirudi euskaldunok ez dugula sinesmenik geroen sen lirikoan eta **poetika** klasikoan. **Patziku Perurena**

1967ko txapelketako finalean kantaturiko bertsoak ikertzerakoan, ustekabe mingotsa izan genuen, bertso guztiak, **poetika** testualaren ikuspuntutik, hutsak zirela konturatu ginenean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Poetika** idatziaren ikuspegitik ezin esango dugu noski bikaina denik Uztapideren bertsoaren testua. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ahozko **poetika** ere ez ote da, Homeroren epikari aplikatzen zaionean, Prokustoren ohe txikiaren tankerakoa? **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

### 3 irud/hed

Eta legea indartsuenarena zen baina gu, biolentziaren **poetika** hartan, derrigorrezko galtzaile ziren indioekin identifikatzen ginen. **Joseba Sarrionandia**

Mugen **poetika**. **Herria**

Zapatismoa, eta bereziki Marcos komandanteordea, **poetika** berri horren adierazle garbia da, azken hamarkadan gertatu den fenomeno berritzaile eta erakargarrietakoa, ez bairik gabe. **Txema Ramirez de la Piscina**

1994az geroztik **poetika** iraultzaile berria dabil harat-hunat, mundu osoan, neoliberalismoaren zutabeak ikaratzu eta milioika gizakiren bihotzak hunkituz. **Txema Ramirez de la Piscina**

Porrot hark gutztiz aldatu zuen nire bizi-filosofia, nire munduikuskera, nire **poetika** artistikoa eta literarioa. **Karlos Linazasoro**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gainerako guztiak beharrezko ez diren errepikapenak, alferreko azalpenak, ezeztapen eta erantzun ziztrin eta hutsalak maiz, erretorika eta **poetika** jokoak baino ez dira, irakurle oharkabea hitzik gabe uzteko eta inondik ere ez duten sakontasun filosofikoa agertzeko erabiliak. **Xabier Kintana**

**Poetika** eta estetika liburuak. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**poetika bat** (4); **poetika berri** (7); **poetika berri bat** (5); **poetika idatziaren** (8); **poetika idatziaren ikuspegitik** (5)

## poetiko 1 *izond* poesiarena, poesiari dagokiona. ik *poesia* 3.

Egia Rosa izeneko lagun bat nahi nuela, egia etxean arrosari buruzko bilduma **poetiko** asko neuzkala. **Bernardo Atxaga**

Koloreari buruzko Goetheren teoria [...] (beraren obra **poetiko** osoaren pakeoa berarentzat), erabat gaitzetsi zuten haren garaikoek. **Xabier Olarra**

Egon dira garaiak Espainian antologia **poetikoek** garrantzi handia izan dutena. **Ana Urkiza**

Zein da gehien betetzen zaituen korronte **poetiko**a? **Ana Urkiza**

Irudi **poetikoak** logikaz gaindiko loturen bidez kohesionatuak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Arnasa **poetiko** hori, niretzat, ez dago bakarrik liburuetan, landareetan ere badago. **Ana Urkiza**

Esan dezagun komenigarria litzatekeela bat-bateko bertsolaritzaren baliabide **poetikoak** xehe-xehe aztertzea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Poetika idatziaren ikuspegitik begiratura, maila **poetiko** kaskarrekoak dira bat-bateko bertso gehienak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Garbi dago azterketa horrek dentsitate **poetiko** handiagoa salatuko lukeela egungo bertsolarien artean 1980. urtetik aurrekoen artean baino. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Bertsolariak jolastu egiten du, inprobisazio **poetiko** eta ludikoaren bitartez eskuartearen duen informazio multzoa nahasten du. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Zure eredu **poetiko** propioa egiten saiatu zara. **Ana Urkiza**

Herri-poesiak berezko balio **poetikorik** ez duelako iritzia zaharra zen, beraz. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Letrak badu zentzua eta baita halako balio **poetiko** bat ere. **Askoren artean**

Gorantz egiten du eta hala ere galtzaile da paseoa: justizia **poetiko** suerte bat. **Harkaitz Cano**

Modu **poetiko** batean esatearren, nekazariarentzat lurra bezala ziren niretzat, arrantzalearentzat ura bezala, errementariarentzat sua bezala. **Bernardo Atxaga**

Kantuan hasiko da eta bere edukia modu **poetikoan**, dramatikoan, epikoan... adierazten ahaleginduko da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Gure amets absurdoenatan ager litezkeen irudirik harrigarrienak azalazteru zituzten, abiadura geldoan eta oso era **poetikoan**. **Berria - Kultura**

### 2 (izenondo elkartuetan)

Bertsolari kalitate maila bere arrazoibidearen indarrak edo bere balio **poetiko**-erretorikoek emango diote. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Karga **poetiko**-erretoriko handiz hornitzen ditu formulak Amurizak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Hilaren 17an, Galatea taldearen errezitaldi **poetiko** -musikala eta Pedro Gerraren kontzertua izango dira. **Berria - Kultura**

Harreman **poetiko** -geografikoak. **Berria - Kultura**

"Eremuak"izeneko emanaldi **poetiko** -multimedia. **Herria**

-Espainiaren arima asmatzeko modu historiko-**poetiko** hau -hori ez da inola ere Ganivet-en inbentua izan- tradizio bat izan da. **Joxe Azurmendi**

### 3 poesia duena.

Joan dira mundu hau **poetiko** bihurtzen zuten sinesteak. **Josu Zabaleta**

Ume ahotsa niretzako oso ahots **poetiko**a da. **Ana Urkiza**

Tontakeria **poetiko** bat iruditzen zait hori. **Josu Zabaleta**

Paisaia horretan edozer bihur zitekeen **poetiko**, baina Donostian? nola harritu lore batekin, lorategian bizi bahaiz? **Berria - Kultura**

Ez dago, ordea, oso urrutira joan beharrik hitz enigmatikoenen, edo **poetikoenen**, edo deigarrienen bila. **Anjel Lertxundi**

**Poetikoegia** duk hiritzat, ezta? **Iban Zaldua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baliabide poetiko** (14); **baliabide poetiko erretoriko** (6); **baliabide poetiko erretorikoak** (3); **balio poetiko** (3); **dentsitate poetiko** (4); **ekintza poetiko** (5); **ikusgarri poetiko** (3); **obra poetiko** (3)

**alde poetiko**a (4); **dentsitate poetiko**a (4); **ekintza poetiko**a (3); **maila poetiko**a (3); **oso poetiko**a (5)

**akordu poetikoak** (4); **baliabide poetikoak** (6); **era poetikoan** (3); **irudi poetikoak** (3); **modu poetikoan** (6); **testu poetikoak** (3)

**baliabide poetikoan** (4)

## poetikoki 1 *adlag* era poetikoan.

Komunikazio zirkuitu alternatibo gisako bat da bertsolaritza, nazio, estatu, eskualde, herri edo mundu mailako aktualitateari hausnarraldia ematen dion eremu bat, **poetikoki** batzuetan, ironikoki edo umorearen bila besteetan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ez literalki, baina bai **poetikoki**. **Berria - Kultura**

Voyeurismoaz, aho sexuaz, masturbazioaz, sadomasokismoaz, lesbianismoaz eta orgie izatzen du, **poetikoki** baina hotz. **Berria - Kultura**

Poetika idatziaren axioma nagusiak dioenez, testu batek hartzailearengan nola edo halako emozioaren bat sortuko badu, **poetikoki** landua behar du, nahitaez, testu horrek.

**J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Poetikoki** eta zehatz esateko, gu gara gong hori jotzen dugunok. **Jon Alonso**

**Poetikoki** bidaiatzeko ahala ematen duen espazioa eraiki nuen hor, mapa geopoetiko. **Ana Urkiza**

### 2 poetikaren aldetik.

**Poetikoki** ere aldaketa handiak ekarri zituzten: asoziazio libreak, irudiak kateatzeko logikarik eza, plano aldaketa bortitzak, paradoxekin egindako jokoak. **Berria - Kultura**  
**Poetikoki** oso interesgarria da. **Berria - Kultura**

## poetikotasun *iz* poetikoa denaren nolakotasuna.

Juan Mari Lekuonak asmatu zuen euskarari **poetikotasun** berria ematen, betidanik euskarak izan duen tradizio poetikoan oinarritua eta mamitua. **Berria - Harian**  
Ikusi *American Beauty*, eta saiatu film osoko momenturik poetikoena kausitzen, saiatu gauzarik arruntaren **poetikotasuna** bilatzen. **Berria - Kultura**  
**Poetikotasunak** berarekin du hunkitzea erdietsi nahia, eta halakoa zen testua. **Iñigo Aranbarri**  
**Poetikotasunak** tristura, mina, malenkonia dakartza oinarri. **Berria - Kultura**  
*El señor presidente* nobelak lorratz berezia utzi zidan: argumentuaz eta salaketa politikoaz aparte, prosaren **poetikotasunagatik**. **Ana Urkiza**

## poetismo *iz*

Maitasuna bera kaleratu zuen 1923an, Txekiako **Poetismo** taldearen joerari jarraiki: futurismoak, surrealismoak eta marxismoak eragindako mugimendu poetikoa zen. **Berria - Kultura**

## poetizatu, poetiza, poetizatzen du *ad* poesia bihurtu, poetiko bihurtu.

Esperientziaren poesia, batez ere eguneroko bizimoduko elementuak eta pasadizoak **poetizatzen** dituelako. **Ana Urkiza**  
Zeinen gutxi eta gaizki **poetizatu** den gure toponimia, gure lur euskaraz humanizatua. **Patziku Perurena**

## poetizazio *iz* poetizatzea.

*Poz betea*-ren loretxoa San Frantziskoren bosgarren *Aholku espirituala*-ren **poetizazioa** da: "Ez bedi inor harro, Jaunaren gurutzeaz baizik". **Askoren artean**  
Ortega-k bazekien **"poetizazio"** baskoiberistek berme zientifiko eskasa zutela. **Joxe Azurmendi**

## pogrom (*orobat pogrom g.er. eta pogromo g.er.*) *iz* judu komunitate baten aurka antolaturiko matxinatze edo altxaldia, gehiantan hilketak eta arpilatzeak dakartzana.

Egunkari amerikarrak bat datoz **pogrom** anker bat hasi dela esaterakoan. **Ramon Etxezarreta**  
Heinek, Loreleiren kanta famatuaz gain, "Der Rabbi von Bacherach" narrazioa dauka hain zuzen, Erdi Aroko juduen gorroto eta **pogromen** istorio beltzenak hiri ilun horrekin asoziatuz. **Koldo Izagirre**  
Mende hasieran sekulako txikiak egin zituzten Errusian, **pogromak** esaterako. **Felipe Juaristi**  
1938ko **pogromen** ondoren nire bi osabek, amaren anaiek, ihes egin zuten eta Ipar Ameriketan azaldu ziren salbu eta bizirik. **Josu Zabaleta**

## poker<sup>1</sup> *iz* musaren antzeko karta jokoa, bost jartaz jokatzeko dena, karta sail hoberena duen —edo duela sinestarazten duen— jokalaria irabazten duena.

Otorduaren ondotik hona etortzen dira, kafea hartu eta **pokerrean** jokatzera. **Monika Etxebarria**  
Bera, Gordon Johnson, Mel Dorn eta Vern Williams, **pokerrean**, bola jokoa, arrantzan aritzen dira. **Koro Navarro**  
Gizonak edanean eta **pokerrean** dabiltzala, edozer gauza gerta daiteke. **Xabier Paya**  
Hazelek berrogeita hiru dolar irabazi zituen **pokerrean**. **Mirentxu Larrañaga**  
Beste askotan bezala, kartetan ari ziren bitartean hari entzundako txiste bat kontatu zigun: **pokerrean** ikasten duen zakurrarena. **Ramon Saizarbitoria**  
Trago bat irabaziko diot, **pokerreko** as batez, Pénicoti, eta gero Lacordaireri irabaziko diot xakean. **Josu Zabaleta**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dirudienez, **poker** partida batean ezagutu zuen kantaria, 45 inguruan. **Ramon Saizarbitoria**  
Bizitzari buruz hitz egin edo **poker** partida bat jokatu. **Berria - Kultura**  
Kantatzen bezain ona omen zen **poker** jokoa. **Ramon Saizarbitoria**  
**Poker** jokalaria maltzur eta ping-pong jokalaria aparta. **Oskar Arana**  
**Poker** mahaiak, jokalaria zurrunez inguratuak, iragan ondoren, *blackjack* jokorako mahaien artean sartu zen. **Iñaki Zabaleta**  
Stanleyk zin egin dit ez duela berriz **poker** gaurik antolatuko. **Xabier Paya**

### 3 *poker aurpegi*

Medikuari zera esaten nion **poker**-aurpegiak, materiala biltzen laguntzera noa. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**poker gaua** (3); **poker jokalaria** (3); **poker jokalaria** (4); **poker jokoa** (3); **poker partida** (4)

## poker<sup>2</sup> *iz* korrokada.

Gizonaren **pokerra** debaldetan goaitatu dut! **Piarres Aintziart**

## pokerzale *izond* poker jokoa zalea dena.

Marcel Martini, **pokerzale** amorratua hura ere, Parmentier-en edertasunak baino gehiago [...] kartetarako trebeziak sortu omen zion grina. **Ramon Saizarbitoria**  
Zakur **pokerzalearen** txistea eta emakume bizardunarena baino ez zituen kontatu. **Ramon Saizarbitoria**

## pol-pol (*orobat polpol*) *1 adlag (onomatopeia)*

Saihetseko zauria **pol-pol** nabaritzen nuen, minik gabeko taupada sorretan, Lantzaren seinaleari erantzunez. **Alberto Ladron Arana**  
Burrustan ateratzen zitzaion, **pol-pol-pol**, neskek ohi duten gisara, uraren kontra eginez. **Patxi Zubizarreta**

Ikusten duzu **pol-pol** ugaria dela kare harriak botatzen duena.

**Hasier Etxeberria**

Ezagutzen nuen **polpoleko** ur gozo ezagunaren lekuan, hondar lehor egin zitzaizkidan estreinakoz haren hitzak.

**Hasier Etxeberria**

## polaina iz azpantarra.

Zaldiz ibiltzeko galtzak eta larru beltzeko **polainak** jantzita zeuzkan eta egur zurituzko usta luze bat astintzen ari zen.

**Lopez de Arana**

## polainadun izond polainak dituen.

Bisonte bat zeramala ematen zuen, hain estu heltzen zien uhalei, hain gogor astintzen zuen zigor luzea, halako biraoak esaten zituen bidean jolasean zebiltzan haurrei abisu emateko, hain tente zihoan zango **polainadunak** aparte jarrita eta bere pony kulunkariaren indar beldurgarria eta tema madarikatuz.

**Koro Navarro**

## polako izlag/iz poloniarra.

Ohean, zure **polakoarekin**!

**Xabier Paya**

Poloniako jendeari poloniar esaten zaion, ez **polako**.

**Xabier Paya**

Zu **polako** osasuntsua zarenez eta ez duzunez nerbio bat bera ere gorputz osoan, sekula ez duzu probatu zer den antsietatea!

**Xabier Paya**

Komitas, Chopin **polakoentzat** bezain garrantzitsua da armeniarrentzat.

**Joxean Agirre**

## polar 1 izond lurburukoa, lurburuari dagokiona.

Polo aldean, berriz, beti eguraldi hotza, prezipitazio oso eskasekin, egun **polar** luzeenetan bero izpitxo bat iristen bada ere.

**Pello Zabala**

Beste edozein gizaki nora gabe ibiliko zen lainoetan edo latitude haien gau **polar** luzean.

**Karlos Zabala**

Gauetz izar **polarra** bistan beti.

**Iñaki Iñurrieta**

Amérique, Amerika, munduaren parteetako bat da, 42 milioi kilometro karratuko kontinentea, eremu artikoetan hasi eta zirkulu **polar** antartikoraino hemezortzi mila kilometroko bidean luzatzen dena.

**Bernardo Atxaga**

Irudiak Marteko uda amaieran egin zituen *Mars Expressek*, kasko **polarra** meheen denean.

**Beria - Gaiak**

Aura satelitea orbita **polarrer**a arte eramatea izango da haren egitekoa.

**Beria - Gaiak**

Jendeak uste izan baitzuen bat-bateko hotz izugarri hura fronte **polar** baten eraginez gertatu zela.

**Karlos Linazasoro**

Haize **polarrak**, izotz puskak noraezean eta iceberg batzuen puntak Antartikaren hurbiltasuna iragartzen dute.

**Patxi Zubizarreta**

*Haize polarra* esanda ez dakit antzemango dion gure baserritarrak, *ipar beltza* deitzen baitio berak.

**Pello Zabala**

Klima **polarra** deitzen dioguna, Alaskan, Kanadan, Groenlandian eta Errusiako ipar-iparrean daukagu, eta noski, Antartidan.

**Pello Zabala**

Norvegiako Institutu **Polarreko** ikerketa zuzendaria.

**Beria - Gaiak**

### 2 erabat aurkakoa.

Nire joko bakarti hau bi lege **polarrek** gobernatzen dute.

**Juan Garzia**

### 3 molekulez-eta mintzatuz, polaritatea duena.

Ekuazio berezi bat landu zuela, zeinaren bidez deskribatzen omen zen molekula **polarrek** zirkunstantzia guztietan nola jokatzten zuten.

**Juan Garzia**

Ekuazioa xuxen betetzen zen soluzio diluituetan; inor ez bide zen arduratu soluzio kontzentratuetan, likido **polar** puruetan eta azkenon arteko nahasteetan egiaztatzen.

**Juan Garzia**

### 4 koordinatuez mintzatuz, puntu batez, ardatz batez eta angelu batez baliatzen dena.

Koordenatu **polar** horiek, hain zuzen, ondorengo hauek definituko lituzkete, haren iritzian: zentro batek, begiratzen duen subjektuak, begiratzen den noranzkoa horizontalean eta bertikalean zentro horren arabera kokatzen duten bi koordenatu angularrek, eta begiratzen zaion objektutik zentrorainoko distantzia den beste koordenatu batek.

**Josu Zabaleta**

Arnheimek askotan proposatu izan du irudikapen-espazioa geometria kartesiar objektiboaren arabera ez baina koordenatu **polarrezko** geometria subjektibo baten arabera definitu beharko litzatekeela.

**Josu Zabaleta**

### 5 izond forru polarrez eginikoa. ik forru 2.

Deseroso, manifestazioaren hasiera aldera noa lasterka, beroki **polarren** eta ikurrinen dentsitatea nahikoa iruditu zaidan multzo ibiltari bat topatu arte.

**Iban Zaldua**

Pilota jertse **polarraren** barneko aldean geratu zitzaidan.

**Beria - Euskal Herria**

· Sportswear jantziak saltzen dituzten bezeroak ile **polarrez** hornitzeaz gain, enpresak salmenta zuzeneko denda bat ireki zuen Maulen.

**Beria - Harian**

· Nahikoa da jakitea Txinan fabrikatutako **polarrezko** txaketa bat 7 euroan iristen dela Marseillako portura.

**Beria - Harian**

### • 6 iz forru polarrez eginiko berokia. ik forru 2.

**Polarraren** jabea emakume adineko bat zen, ile urdinekoa.

**Iban Zaldua**

Hurbildu ahala konturatu ginen pertsona hark **polarra** jantzita zeramala: **polar** granate-morea, eta mendiko botak.

**Iban Zaldua**

### 7 izar polar iparrizarra.

Gauetz izar **polarra** bistan beti.

**Iñaki Iñurrieta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**haize polarra** (3)

## polario izond

1990. hamarkadan, baina, lan kostu apaletako herrialdeetatik zetozen produktuekin lehia egiteari aurre egiteko gisan, **polarioa** bezala ezagutua den ile artifizialaren fabrikatzeari ekin zion enpresak, Terkasaen markapean.

**Beria - Harian**

Nahikoa da jakitea Txinan fabrikatutako polarrezko txaketa bat 7 euroan iristen dela Marseillako portura, eta aldiz guk baliatzen dugun kalite oneko ile **polario** metro bakar bat 6 euro kostatzen zaigula.

**Beria - Harian**

## polaritate 1 iz gorputz batean poloak bereiztea ahalbidetzen duen nolakotasuna.

Epitelium baten mailan, zelulen **polaritatea** kontrolatzen duten geneen azterketa egin genuen.

**Beria - Gaiak**

### 2 irud/hed

Demokraziarekin ez dira ongi etortzen balioak: de fakto balioen munduak manikeismorako joera du, balioak beti **polaritatearen** forman agertzen direlako (ongia/gaizkia, egia/gezurra, zuzena/okerra, ederra/itsusia, maitasuna/gorrotoa, garbitasuna/zikinkeria).

**Joxe Azurmendi**

Berez balio gabeko edo neutralak diren **polaritateak** ere, balioz kargatzen ditugu: arra/emea, handia/txikia, zuria/beltza, eta bietako bat polo negatiboa bihurtzen dugu. **Joxe Azurmendi**

Seinalatu dugun anbiguotasun horrek ez du eragozten, ordea, idazkeraren zehaztasuna; aitzitik, **polaritate** horretan oinarritzen dela esango nuke Borges-en estiloa. **Juan Garzia**

## polarizatu

polariza, polarizatzen **1** da/du *ad* islatzearen edo errefrakzioaren bidez argi izpiak aldatu, halako eran non ezin daitezkeen berriro islatu edo errefraktatu norabide jakin batzuetan.

Erlikebezko zinemaren printzipioa horixe bera dela: bi irudi proiektatzen dira pantailara -erretinetako bi proiektzioei dagozkienak-, eta betaurreko berezi batzuek begi bakoitzari dagokion irudia bereizi daiteke (gorri/berdea filtratuz, era horretara irudi grisak eraten direla, edo bertikalean eta horizontalean **polarizatutako** beirak erabiliz, era horretara kolorezko irudiak era daitezkeela). **Josu Zabaleta**

## 2 poloetan (irudizko adieran) bildu.

Inkestei eta behatzaileei jarraiki, botoa **polarizatuko** da eta DUP Alderdi Unionista Demokratikoa eta Sinn Fein izango dira emaitzarik onenak lortuko dituztenak. **Berria - Harian**

Nabarmendu dugu jadanik, legearen ideia honek, maila metafisikora aldatzerakoan, itxuraz antitetikoak diren bi kontzeptutan **polarizatza** jotzen duela. **Iñaki Mendiguren**

Kanpainan ere polemika ez da falta izan, eta asko **polarizatu** da. Indigenoi **polarizatzea** exijitzen zaigu, gatazkaren alde bat hautatzea. **Berria - Mundua**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Bere tesia zera da, objektuari buruz pentsatzeko ematen den denbora zenbat eta luzeagoa, orduan eta [...] **polarizatuagoa**, objektu honi buruzko judizioa. **Pello Salaburu**

Ez dago, alafede, ñabardurarako lekurik egungo mundu ero eta **polarizatu** honetan. marjinalak direlako eta gatazketan dauden sektore **polarizatuaren** eraginetik urruti ikusten direlako. **Iñaki Heras**

## polarizatzaile

*izond* polarizatzen duena.

Bere arduragabeko, eta eskuineko politika **polarizatzailea** ezkatuta nahiean dabil. **Berria - Mundua**

## polarizazio

**1** *iz* bi poloetan biltzea.

Estatistika guztiek azaltzen dute aberats eta pobreen arteko **polarizazioa** gertatzen ari dela munduan, eta, horrekin batera, tarteko esparruaren desagertzea ere. **Iñaki Heras**

Globalizazioak munduaren **polarizazioa** areagotu besterik ez duela egingo salatzen dute. **Iñaki Heras**

Gatazkak sorturiko **polarizazioaren** harira, [...]. **Berria - Mundua**

Aurreneko joera nazioarteko merkataritzaren eskualdekako **polarizazioari** dagokio. **Koro Navarro**

«PSOE eta PPren **polarizazioaren** aurka» Herrien Europak posizioei eusten jakin duela azpimarratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

**Polarizazio** politikoren egoera larri hauxe bera izan zen [...] Kristandade Ortodoxoa, harrapatu zuen patua ere. **Iñaki Mendiguren**

Aurten azken urteetan baino **polarizazio** handiagoa dago botoan. **Berria - Mundua**

## 2 (hitz elkartuetan)

Ikusmolde honetatik, oso bestelako dimentsioa hartzen du enpresa multinazionalen jardueren eskualde- **polarizazioaren** fenomenoak. **Koro Navarro**

## polaroid

**1** *iz* argazki makina mota, instantean irudiaren positiboa ateratzea ahalbidetzen duena.

Badaezpada, berriro elkar ikusten ez badugu ere, tori argazkiak", gaineratu zuen, eta **polaroidarekin** ateratako sorta jarri zidan eskuan. **Bernardo Atxaga**

Hurbil zedin eskatu zion aterki azpian erdi gordeta zegoen andre bati, eta biak **polaroidaren** bisorean hartu nituen. **Bernardo Atxaga**

Bertotik hasi zen **polaroida** mihia ateratzen. **Koldo Izagirre**

Istant oro jaso nahi, **polaroidean** deskribapena egiten ariko balitz bezala. **Berria - Kultura**

## 2 (beste izen baten ezkerrean)

**Polaroid** makina erori zitzaigun mahaitik. **Bernardo Atxaga**

Auskalo, jendarmeria-koek **Polaroid** kamera sortu berriak baliatuko zituzten beharbada, presaka egin beharreko zeregin deserero haietarako. **Harkaitz Cano**

Goitik behera datoz geure gainera **polaroid** argazki batzuk, loreontzia, igeltsuzko hontza, nescafe ontzia, [...]. **Joseba Sarrionandia**

## 3 kamera horrekin ateratako argazkia.

Paris hiriar buruzko **polaroidak** Garziarena aldizkaritik berreskuratu dira, 1992ko aleetatik. **Bernardo Atxaga**

Ez zuten inolako zentzurik, harik eta I.ren lagun artistetako batek haren koadroen zuri-beltzeko **polaroid** batzuk egin zituen arte. **Xabier Olarra**

## polbazo

*iz adkor* polboa.

**Polbazo** ederra botako nioke gustura, baina ez dut uste nahi izango duenik, ze honelako neskek ez dute normalean nahi izaten; nirekin ez, behintzat. **Jon Arretxe**

## polbo

*iz adkor* larru jotzea.

Azkenean ez kolakaorik ez oherik ez **polborik**? **Jon Arretxe**

Geratuko gara **polbo** bat edo beste botatzeko? **Jon Arretxe**

- Nire aldetik ez dago problemarik, ze beste biek ere kriston **polboa** daukate -erantzun zuen Ritxik-. **Jon Arretxe**

## polbora

ik **bolbora**.

## polboroi

*iz* gozoki txikia, irinez, gantzez eta azukrez egina, ahoan sartzean desagiten dena.

Argia piztu zuenean ehundaka **polboroi** ikusi zituen, mahaiaren marmola estaltzeraino ia. **Unai Elorriaga**

**Polboroi** batzuk ekarri zituen Jonek... **Pablo Sastre**

Panpinak leopardo larrazko bainujantzi ezin horterago bat zeraman, bi musu ezarri zikidan eta, ahots hanpatuz, **polboroiak** jaten ari balitz bezala, zera esan zuen barnealdera begira:[...]. **Juan Martin Elexpuru**



## **pole** (*orobat **pole position***) 1 iz auto edo moto lasterketa batean, irteera lerroko lehen kokagunea.

Casey Stonerrek ahoa bete hertz utzi zituen beste gidari guztiak herenegun, **pole**-a lortu zuenean. **Berria - Kirola**

Eta bat-batean, Button, lotsagabe, **pole**-aren jabe. **Berria - Kirola**

Lehen entrenamendu saioetan Ruben Xausek lortu zuen behin-behingo **polea** bere egitea. **Berria - Kirola**

Andrea Dovizioso italiarra (125cc), Randy de Puniet frantziarra (250cc) eta Valentino Rossi italiarra (GP) irteera dirira gaur **pole**-tik Hegoafrikako Sari Nagusian. **Berria - Kirola**

Suzukiko gidariak ustekabea eman zuen eta **pole position**-a lortu zuen Moto GP mailan. **Berria - Kirola**

Bost podium lortu zituen eta bi **pole-position**. **Berria - Kirola**

Bosgarren lasterketa eta lehen **pole**-a. **Berria - Kirola**

9. bihurtunean autoak ihes egin zion eta baita bigarren **pole** baten itxaropenak ere. **Berria - Kirola**

Ez podiumik, ez **pole**-rik. **Berria - Kirola**

## 2 irud/hed

Zerrenda hauetan emakume gutxi dagoela esaten dute batzuk, baina **pole position**-ean gaudela gogorazazi nahi diet. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pole a lortu** (11); **pole position** (5)

## **polea** 1 iz txirrika.

Garabiaren **polea** gainerako piezen artean bilatzen hasi denean. **Jokin Muñoz**

Goiko **poleatik**, tiratzeko soka nagusia pasatzen da; ondoren goitik behera eramaten da eta beheko **polearen** tartetik pasatzen da. **Santiago Iruretagoiena**

Behetik gobernatzen zen **polea** batek armaz beteriko zaranak igotzen ahal zituen goi aldera. **Jon Alonso**

Goiko **polearen** ahotik pasatzen da berriro, eta berriz jaisten da behetara, eta honek duen zulo batean lotzen da. **Santiago Iruretagoiena**

Suma ditzake zamaketarien marruak eta **polea** herdoilduen zarata. **Harkaitz Cano**

Trokolan bi **polea** jartzen dira, beren ardatzen inguruan biratzen dutela. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 (hitz elkartuetan)

Goian eta behean bi **polea**-multzo izaten dituzte. **Santiago Iruretagoiena**

## **poleadun** *izlag* txirrikaduna.

Bertan tarteka zubi eseki ahulak ageri ziren, **poleadun** kableak jeneroa edota jendea pasatzeko bazter batetik bestera, ur-jauzi bortitzak... **Jon Arretxe**

## **polemika** 1 iz ikribuzko eztabaida, bizia edo zakarra.

Etorकिन **polemika** Italian. **Anjel Lertxundi**

Etorकिन festa erlijiosoei buruzko **polemikan**, eztabaida da gehiegizko tolerantziak ez ote dituen jarriko bai Mendebaldeko baloreak bai hitzartzen ari garen Europako identitatea desintegratzeko bidean. **Anjel Lertxundi**

Esan behar da ez gaituela inora eraman, gaizki planteatutako **polemika** delako. **Luis Elberdin**

Gorenako fiskalen erabakiak **polemika** piztu du. **Berria - Euskal Herria**

Pariseko unibertsitatean, maisu sekularren eta mendikanteen arteko **polemika** pizten da. **Askoren artean**

**Polemika** sortu zen, eta Eusko Jauriaritzak kanpaina erretira zezan eskatu zion Ministerioari. **Iñaki Arranz**

**Polemika** eragin zuten haren hitzek. **Berria - Euskal Herria**

Herbehereetako toxikologo batek atzo egindako adierazpenek **polemika** areagotu zuten. **Berria - Mundua**

**Polemikak** utzi eta egin dezagun ahalegintxo bat, errealtatea balioen munduan egiaz nolako den xehekiago behatuz. **Joxe Azurmendi**

Komunikabideek, ohi bezala, **polemika** xaxatu egin zuten -oraindik ere aurki daitezke arrastoak interneten-, baina laster baretu zen kontua. **Iban Zaldua**

**Polemikaz** betetako partida bero-beroa. **Berria - Kirola**

Ikerlarien **polemikek** bizi-bizi diraute egun ere, duela ia 800 urte bezalatsu. **Xabier Kintana**

Arma nuklearren programaren **polemika** pil-pilean dagoenean izan da gertaera. **Berria - Mundua**

Bere kazetari lanetan, **polemikarako** talentua eta injustiziaren kontrako grina nabarmendu zitzaizkion hasiera-hasieratik. **Karlos Zabala**

**Polemika** hori pozoitsua da erabat, eta bizi garen garai hauen miseria erakusten du. **Bernardo Atxaga**

Eusko Jauriaritzak ez duela «eztabaida hori desitxuratuko duen inolako **polemikan**» sartu nahi. **Berria - Euskal Herria**

Ez niz espantuka ariko edo **polemikan** edo apologetikan, baina hamar milaka gixirtinoren erdian, ehun milaka gizonen erdian, lekuko niz 6.640 apez hil direla Buchenwald eta Dachau-ko kontzentrazio zelaietan bakarrik. **Michel Oronoz**

Hasteko, denek argi dute **polemikan** aritzeak ez duela balio. **Berria - Kultura**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

CPEk **polemika** handia piztu du Frantzia eta Ipar Euskal Herrian, bereziki sindikatuen, gazte erakundeen eta ezkerreko alderdi politikoen artean. **Berria - Ekonomia**

Giza arrazoimenaren indarrari eta mugei buruzko **polemika** luzea izan zuen Gorkirekin. **Jose Morales**

Beraren lanek **polemika** bizia piztu zuten, bai oso gai labainak aukeratzen zituelako (erlijioa, sexua, bortxaketak, hilketak, iraultza), eta bai gai horiek oso gordinko eta inolako bigunkeriarik gabe jorratzen zituelako. **Jose Morales**

**Polemika** eta ika-mikarik gordinenek baino ez zidaten pizten benetako jakinmina eta interesa -edo morboa, zuzenago esateko-. **Juan Luis Zabala**

**Polemika** suttsuen muina bihurtu zen *De Architectura* hura, denak ere obra horren esanahi "benetakoa", ezkutukoa, argitzen saiatu nahi zutenak. **Santiago Iruretagoiena**

**Polemika** interesatuen eta alderdikoen gainetik. **Berria - Harian**

**Polemika** politiko bizia izan da udan, Kataluniako Diada, hau da, irailaren 11 ospatu aurretik. **Berria - Mundua**

Espainiako kulturaren brutalitatea onartua dagoelako forma publiko arrunt bezala, abereen tratutik hasi eta **polemika** intelektualetaraino. **Joxe Azurmendi**

**Polemika** eszeptiko oro benetan dogmatikoaren aurka baino ez doa. **Ibon Urbarri**

Bada, ez dago benetako **polemikarik** arrazoimen hutsaren alorrean. **Ibon Urbarri**

Gure arteko solas haiek jostetatik gehiago zutela zinezko **polemikatik** baino. **Joan Mari Irigoien**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jordanen kronikak, Ecclestonek bezala, ez du interpretazio eta **polemika** asmorik. **Askoren artean**

Ez du **polemika** -kutsurik; gehienez ere, iragan garaietako nostalgia-puntu bat sumatzen zaio. **Askoren artean**



Comolli **polemika** -giro bero batean ari da "erantzuten" beste liburu edo artikulu askori.   Josu Zabaleta

Pobretasuna planteatzeko duen era utopiko eta erradikaletik **polemika** -ukitua barne- datorkio idazkiari bere erakarmena. errauste planta **polemika** iturri bihurtu da.

  Askoren artean

Borgesek bere denboran izan zuen izen handia, monografia eta **polemika** sail batek dokumentatzen duen ospe hori, harrigarri ere harrigarri gertatzen zaigu orain.   Juan Garzia

## 4 (literatura-genero gisa)

Saiakera eta **polemika** bereziki landu bazituen ere, nobelagintzari eta ikerketari ere leku egin zien bere jardunean.   Askoren artean

Pentsamendua eta **polemika** landuko dituztenak ere agertuko dira.   Askoren artean

## 5 polemika-gai (orobat polemikagai)

Eztabaida eta **polemika gaia** hauxe da: ea polizia batek, egoera jakin batzuetan esaterako, bahitu baten bizia salbatzeko, susmagarrien aurka indarkeria erabiltzea zilegi den edo ez. Giza parkearako arauak sortutako zalapartak eraman du Sloterdijk mundu osoko **polemikagai** izatera.   Berría - Mundua

## 6 polemika-zale

**Polemika zalegoa** zen, ordea, Gufa, gau hartan Faedistar guztiak batera zirela kontra egitera ausartu baitzen.   Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eragin du polemika** (3); **klitoria bagina polemika** (3); **piztu zen polemika** (3)

**polemika bizia** (6); **polemika bizia piztu** (3); **polemika eragin** (10); **polemika eragin zuen** (3); **polemika eta eztabaida** (3); **polemika handia** (16); **polemika handia piztu** (5); **polemika handia sortu** (6); **polemika iturri** (5); **polemika izan** (3); **polemika pil pilean** (5); **polemika pizteko** (3); **polemika piztu** (31); **polemika piztu da** (5); **polemika piztu du** (15); **polemika sortu** (19); **polemika sortu du** (3); **polemika ugari** (3)

**sortutako polemika** (8); **zientzia espainolaren polemika** (3)

**sortutako polemikak** (6)

**polemikaren erdian** (3); **polemikaren harira** (4); **polemikaren ostean** (3); **sortutako polemikaren** (5)

## polemikagai ik polemika 5.

## polemikatsu *izond* polemikaz betea, polemikoa.

Berriki plazaratua izan da Frantzian gaindi liburu **polemikatsu** bat, langile herbalduen egoeraz: "L'enquête interdite".   Herria

Labur bilduz, eztabadak gutti gora-behera abiatuak dira 2002ko irailaz geroz, gaur egungo pilotarien saiklkapen modua eta barraderen sistema direlarik pundu **polemikatsuenak**, nahiz eztabadak ez diren horietarat mugatzen.   Herria

## polemiko 1 *iz* polemika pizten duena.

Beste gai **polemiko** bat kotoiarena da.   Berría - Ekonomia

"Barkamena" gai **polemiko** bihurtu da ETArean su-etenaren inguruan.   Joseba Zulaika

Bada deigarria den puntu **polemiko** bat.   Berría - Harian

Gaur arte hainbesterainoko tinta-ibaia sortu eta jaitsarazi dituen jatorrizko testu **polemikoaren** originala.   Santiago Iruretagoiena

Bada deigarria den puntu **polemiko** bat.   Berría - Harian

Laurehun eta hogeita hamazazpi orrietan ez du gertaera berririk kausitu, edo intrepertazio **polemikorik**, edo agiri ordura arte ezezagunik, ez eta berrirakurketarik ere.   Jon Alonso

Egiaren eta herritarren errespetuaren izenean, gertatu zaio behin baino gehiagotan ihardespen xixtadun batez hala zenaren erraitea, eta eztabada **polemikoetan** sartzea ere.   Herria

Bigarren bilkura horretan iskanbila sortu zen, UPNk sinadura zerrenda **polemikoa** aurkeztu baitzuen.   Berría - Euskal Herria

Casellik maitasun garratz eta **polemiko** batez maite zuen P. jauna.   Juan Garzia

Arrazoimen hutsaren diziplina bere erabileran **polemikoari** begira.   Ibon Urbarri

Calcutta antzezlan **polemikoa** jokatzten zuten aktoreak biluzik zeuden une hartan eszenatokian.   Harkaitz Cano

## 2 (pertsonez)

Pavos Zavos zientzialari **polemikoak** ez du gizakia klonatzea lortu.   Berría - Gaiak

Ni ez naiz jokalaria **polemikoa**; pentsatzen dudana esaten dut, eta kito.   Berría - Kirola

2005 honetan, berriz, azkeneko hamabost urteotako zuzendari **polemikoenetako** baten itzuleraren lekuko izan da Veneziako zinemaldia.   Berría - Harian

Bigarren Mundu Gerraren ondoko intelektual oparo eta **polemikoenetakoa**, Sartre, esperientzia pertsional eta autobiografikotik hasi zen, gerora *Goragalea* [...] izango zena idazten.   Berría - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gai polemiko** (4)

## polemikoki *adlag* era polemikoa.

XIX. mendeko gatazka sozialetan, **polemikoki**, aleman langile, burumakur, inuxente, konformista esan nahi izatera etorri da, nagusiek ustia dezaten isil-isilik uzten duena.   Joxe Azurmendi

Abertzaleatasunaren inguruan, filosofo metafisiko txar batzuek eta haien ikasle txarrago batzuek, diferentziaren eraikuntza "erlatiboa" bigarren esanahi horretan garatu digute azken aldian, "euskaldunak" [...] errealiteratik eta zilegitasunik ez duen plural "eraiki" bat dela argudiatuz **polemikoki**.   Joxe Azurmendi

## polemista 1 *iz* polemikan aritzen den idazlea.

Ceferino Xemein, luma-izena *Amandarro* zuen **polemista** eta burukidea.   Ramon Saizarbitoria

Hau izana da, 20. mende hastapenean, euskararen defenditzaile suharra eta ere **polemista** ausart eta beldurgarria.   Herria

Unamuno-k berak hala ulertu duela, ulertzea komeni da (bai haren alde eta bai haren aurka), badagoen **polemistaren** grinaren azpian, ez dagoen dogmatismorik ez ikusteko.   Joxe Azurmendi

Horietan guztietan **polemista** gipuzkoarrak euskara erabiltzeak dituen abantailak banaka-banaka aipatzen ditu.   Askoren artean

## 2 *izond* polemikarako joera duena.

Orixe, bestalde, [...] estetikaz, etikaz eta abar aritu zen nolabait, Unamunok espainiar kulturean eduki izan zuen jarrera **polemista** bera, euskarazko letretan erakutsiz.

  Askoren artean

# polemizatu, polemiza, polemizatzen du *ad* polemikan aritu.

Hala ulertu du eta **polemizatu** du Ortega-k 1908ko artikulu batean Maeztu-rekin disputan: [...]. Joxe Azurmendi

## polen 1 *iz* lorezilak daukan hauts ernalgarria. ik **lore 14**.

Erle bat, **polenez** bapo eginda baina artean ere gutziatsu, hirustaz hirusta zebilen jauzika, nire aurrean. Mirentxu Larrañaga

Bere bizitzaren eta bere irakurketen zakarrontzian zer-nola baliatuko ari den eskekoa da idazlea, zein loretan nolako **polena** bilduko dabilen erle urduria. Anjel Lertxundi

Ibarreko zuhaitzak, udaberriz jantzirik ordurako, gu bezalakoak ziren, haiek ere jende, hitzik gabea baina bero-izotzak sentitzen dituen, [...] haizetan **polena** zabaltzen, ilunki eguzkiari bere bidean jarraitzen diona. Juan Garzia

**Polenaren** kontuak, alergiak eta beste, hor daude. Pello Zabala

Osasun publikoan prebentzio lanetarako txertoak, **polenak** sortutako gaixotasunak, bularreko minbizia... Berria - Euskal Herria

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Uretan esekiduran zeuden **polen** pinportak dantza ero batean bezala higitzen ziren, eta ez zuen ematen ezerk bultzatzen zituenik. Berria - Harian

Beste haiena zeinei **polen** garau baten parte izatea egokitu baitzitzairen, eta beren aztarna fosila utzi baitzuten haizetan gure jakinguraren sustagarri. Juan Garzia

Motorra euri-zaparraden eraginez erabat lohitua aurkitzen dut, dena garbitu beharra dago, dena dago ilaundua eta gingildua, **polen**-usaina dario, lubrikazio-olioari itsatsia eta usteltzen ari. Joxe Austin Arrieta

### 3 kalitate bikaineko haxixa.

Txokolatea suarekin bigundu eta bota dut tabako artera: **polen** gozagarria iratze okreen artean. Pako Aristi

-Oso ona duk e, **polen** puru-purua! Pako Aristi

## polenta 1 *iz* morokila.

**Polenta** jan beharko diagu -xuxukatu zien-, ogia ahitu egin duk. Josu Zabaleta

Handik pixka batera, **polenta** eta lukainkak jaten ari ziren denak. Josu Zabaleta

Pizzi sukaldean zen, **polenta** nahasten. Koldo Biguri

**Polentari** eragiten Giuditta ari zen, Francescoren emaztea [...]: azkeneko irabioak eragin zizkion ziriarekin lapikoan, eta itzuli zuen **polenta**. Josu Zabaleta

**Polenta** errearen eta beheko suetan erretzen ari ziren egur hezeen usainarekin. Josu Zabaleta

Etxean seguru dauzkak baba platera eta **polenta**, lanik ez eginda ere. Josu Zabaleta

### 2 (hitz elkartuetan)

Herriko plaza girotu egiten da, jai giroa hartzen du ia, arrats beheerako haize epelean **polenta** usainarekin, eta han-hemenka pizten diren lehenengo argiekin. Josu Zabaleta

Afaria, ordea, bazkaria lakoxea izan zen: **polenta** katilukada bat, eta esnea. Josu Zabaleta

## poli-mili (*orobat polimili*) *iz* ETA erakundeko adar politiko-militarreko kidea.

Bartzelonan bertan egina nuen nik aukera politikoa, eta Arrasaten hasi nintzenerako **poli-milien** inguruan nenbilen, EIA sortu zen arte. Joxerra Garzia

**Poli-milie**k Espainiako turismoguneetan jarritako lehergailuak. Xabier Mendiguren Elizegi

Bai, bazituan beste talde eta erakunde armatu zenbait orduan Euskal Herrian -miliak, **polimiliak**, autonomoak- baina okertzat jotzen genian haien iharduna. Xabier Montoia

## poliamida *iz* molekula-egituran NH-CO taldea daukan polimeroa.

Polimeroen artean, **poliamidak** (hau da, euren egitura molekularrean NH-CO taldea daramaten polimeroak) oso ezagunak dira aspaldidanik eta euren garrantzia oso handia da aplikazio askotarako material aproposak izan daitezkeelako. Berria - Gaiak

Eremu teknikoetan **poliamiden** erabilera asko hazi da eta 2010 urtera arte. Berria - Gaiak

**Poliamiden** propietateak etengabe hobetu dira eta horrexegatik arlo ezberdin askotan erabiliak dira gaur egun Berria - Gaiak

## polibalentzia *iz* zenbait balio edo gaitasun dituenaren nolakotasuna.

Langileen hezkuntza eta kualifikazioei buruz aldakuntza nagusi bat dakar horrek: langilea, **polibalentzia** sustatu asmoz, diziplina anitzetan formatu beharra. Iñaki Heras

Sarritan langileen motibazioa, parte-hartzea, **polibalentzia** eta abarren atzetik benetako ikuspegi antropozentrikoaren ordez ikusmolde mekanizista itxura berritua azaldu ohi da mamian. Iñaki Heras

## polibinilo 1 *iz* biniloaren polimerizazioaz lortzen den erretxin sintetikoa.

Berrogei gradutik gora egin du tenperaturak eguerdiko hamabietan, eta modelo-jendea ito beharrean dabil ibaiaren ertzean inprobisatu dieten **polibinilo**zko karpa koloretsuaren azpian. Patxi Iturritegi

Damian orduantxe jabetu zen, bere barnean ibilitako **polibinilo**zko ziraun hura bera beste norbaiten eztarrian behera ibiliko zela minutu batzuk geroago, beste lurralde batzuen konkistan. Hasier Etxeberria

### 2 *polibinilo kloruro* (*corpusean poli binil kloruro*)

Ikur horien azpian [PVC] polimero bat daukagu, **poli** binil kloruroa, hain zuzen ere. Berria - Gaiak

## policeman ik **polizeman**.

## polideportibo *iz* kiroldegia.

Nik **polideportibora** joan behar dut orain. Pablo Sastre

Bordaberrin goiza arrantzan ematen zuen asto jator bat bizi zela, haren arrantzak *Eguzki* tabernatik entzuten zirela, eta **polideportibotik** ere. Pablo Sastre

## poliedro 1 *izond* poliedroarena, poliedroaren forma duena.

Esukan hiru entsaimada zekartzan, kartoizko kaxa zuri **poliedrikoetan** txukun-txukun bilduak. **Patxi Iturritegi**

### 2 alderdi askokoa.

Ez dakit hizlariak zer esango duten Ugalderi buruz, hainbeste dira eta gizon **poliedriko** honen aldeak. **Hasier Etxeberria**

«Euskal musikak azken aldian izan duen konpositore handi eta **poliedrikoena**» izan zen Javier Bello Portu. **Berria - Kultura**

Kontraesanean dagoenean da eraginkorra estetika, modu **poliedrikoan** agertzean, eta ez modu unitarioan. **Berria - Euskal Herria**

Garrantzitsua da inplikazio desberdinetaz jabetzea, arazo **poliedriko** honen alde desberdinetaz, alegia. **Iñaki Heras**

## poliedro 1 *iz* hiru aurpegi baino gehiago dituen gorputz geometrikoa.

**Poliedroaren** aurpegiak. **Berria - Euskal Herria**

Bai gauza atsegina, ordea, azken aldian aurkitutako beste batzuk han berriz ikustea: zenbaki konplexua, zirkulu zirkunskribatua, ekuazio aljebraikoa, binomioa, **poliedroa**, ekuazio diferentziala. **Jon Muñoz**

**Poliedroak** zabalduz, espazioak masan parte-hartze handiagoa izan zezan nahi zuen. **Berria - Kultura**

### 2 (hitz elkartuetan)

Irakaslearen aurpegia hezurtsua, ertzez betetakoa; aurpegia piramide-**poliedroaren** modukoa, azpikoz gora jarria, behealdean kokots-bizarrean bukatua. **Fernando Rey**

### 3 irud/hed

**Poliedroa** naizela esan daiteke, eta **poliedroaren** alde bakoitzak bere berezitasunak ditu. **Berria - Kultura**

Aste honetako baikortasunari **poliedroaren** alde ezkorrek gailendu zitzaizkion atzo. **Berria - Ekonomia**

### 4 *poliedro erregular* angelu eta aurpegi guztiak berdinak dituen poliedroa.

Espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesek: solidoak: piramidea, prisma, konoa, zilindroa, eta esfera, jakina; eta horiez gainera, **poliedro** erregularrak ere bai. **Jon Muñoz**

Esferan inskriba daitezkeen bost **poliedro** erregularrak nola egin. **Jon Muñoz**

Hamabi ariketa idatzi zituen lehenbizi, liburuko lehenbiziko hamabiak, eta *Dodecaèdre* deitu zion lehenbiziko sorta horri, **poliedro** erregular horren edertasunak iradokirik.

**Xabier Olarra**

## poliespan *iz* poliestireno hedatua.

Indarlanek **poliespan** xaflak egiten ditu hozkailuen enbalajerako. **Berria - Ekonomia**

## poliester 1 *iz* molekula-pisu altuko ester sintetikoa, ester molekula asko kateaturik lortzen dena.

**Poliesterraren** prezioa ezartzeko prozesua arbuatu dute. **Berria - Harian**

Kotoiz, lihoz, lastoz, parpailaz eta **poliesterrez** itxuraturiko mahai joko pilo handi hura. **Joxan Elozegi**

Bermeoko bi armadoreren enkarguz egina, beira zuntzez indartutako **poliesterraz** eraiki dute ontzi guztia. **Berria - Ekonomia**

**Poliesterrezo** traje zimurtuak (marroiak gehienetan). **Oskar Arana**

**Poliesterrezo** eta igeltsuzko obrak egiten ditu, tamaina askotarikoak. **Berria - Kultura**

### 2 (hitz elkartuetan)

Bertan behera gelditu den kuota sistematik at daude **poliester** zuntzak eta, datozen bost urteotarako %49,7ko muga zergak ezartzea hobetsi du EBk. **Berria - Harian**

EBren zergak salatu dituzte Txinako **poliester** ekoizleek. **Berria - Harian**

## poliestireno *iz* estirenoaren polimerizazioaz lortzen den erretxin sintetikoa.

Osasun arloko aplikazioetan PVCaren erabilera %30era irits daiteke, atzetik PEa (polietilenoa, %24), PPa (polipropilenoa, %18), PSa ( **poliestirenoa** %13) dituelarik.

**Berria - Gaiak**

## polietileno *iz* etilenoaren polimerizazioaz lortzen den gai plastikoa.

Supermerkatuetako plastikozko poltsa arruntak **polietilenoz** eginak daude, dentsitate baxuko **polietileno**z hain zuzen ere (LDPE), baina ontzietan eta botiletan erabiltzen dena dentsitate altukoa da (HDPE), eta pisu molekular oso-oso altua duena (UHMWPE) medikuntzan inplanteak egiteko ere erabiltzen da. **Berria - Gaiak**

Osasun arloko aplikazioetan PVCaren erabilera %30era irits daiteke, atzetik PEa ( **polietilenoa**, %24), PPa (polipropilenoa, %18), PSa (poliestirenoa %13) dituelarik.

**Berria - Gaiak**

Garai hartan, horratik, ez zen existitzen **polietilenoa**, ongi ere ongi etorriko bazitzaian ere, malgua, arina eta bikainki irazgaitza baita. **Juan Garzia**

1960. urtean agertu ziren hirugarren belaunaldiko DIUak; **polietileno**zkoak ziren. **Luis Elberdin**

**Polietileno** granulatua zeraman, baina kargak ez zuen su hartu. **Berria - Euskal Herria**

Merkatura atera berria den **polietileno** sareatuak, termoeogonkorrek, oso propietate onak aurkezten ditu. **Berria - Gaiak**

## poliexistentzia *iz* existentzia asko izatea.

Bere baitan daramatza alegiazko nortasunak, makina bat pertsonaia kimeriko, egiazko eta irudizkoaren arteko **poliexistentzia**, amets eta esna-aldiaren artekoa, mendetasun eta hausturaren artekoa. **Askoren artean**

## polifagia *iz* eritasun jakin batzuetan gertatzen den premiasko eta ezin eutsizko gose sentipena.

**Polifagia** konpultsiboak eraginik, egun osoa jan eta jan ematen dute nortasun zehatz bateko herritarrek. **Edorta Agirre**

## polifazetiko *izond* alde edo aurpegi askotakoa.

Bert Hellingerrantzat zoriona zerbait **polifazetiko** da. **Pako Aristi**

Euskaltzaleak Iditegiko aditzaren bilakaera **polifazetiko**z eztabaidatzen ari zirela, [...]. **Itxaro Borda**

Pertsona guztiz «**polifazetikotzat**» jo zuen Murua. **Berria - Euskal Herria**

## polifenol *iz* zenbait fenol funtzio dauzkan konposatua.

Larru-zurragarri organikoak **polifenolak** dituk, ez duk munduan erretxina ioi-trukezkorik hura geldiaraziko duenik, eta **polifenol** batek zilar bromuroaren baitan nolako eragina izan dezakeen heuk ere imajina dezakek, argazkigintzan kide izan gabe ere. Juan Garzia

Aski zituan milakaren batzuk molekula **polifenol**, garbiketan lanjantziaren zuntzek xurgatuak, eta ile zein haritxo ikusezin batek lanjantzik hegan eramanak, orban bat sorrarazteko. Juan Garzia

## polifonia 1 *iz* zenbait ahotsen konbinazioa; aldi bereko zenbait ahotsetako kantua.

Sinbologia irudikapenak ez ezik, orobat ordeztuko zuen monodia **polifoniak**, oitotza ekintzak, misterioa dramak, kontakizuna eleberriak, kronika historiak eta mitoa teoria zientifikoak. Juan Garzia

Orkestra leihoaren ondora iritsi zen, eta ziega osoa doinu alaiz, erritmikoz bete zuen, **polifonia** harmoniatsuan. Jose Morales

Bretainiako aire malenkoniatsu ezin ederragoak, Korsikako **polifonia** txundigarriak. Xabier Montoia

Talde honek «**polifoniak** egiten ditu okzitanieraz abestuz». Berria - Kultura

Europako antzinako **polifoniak**, Pizkundeko nahiz Barrokoko obrak eta XX. mendean abesbatzarako sortutako obra nagusiak dauzka erreperitorioan. Berria - Kultura

Europa osoko kantariak XX. mendeko **polifoniaren** maisulanak landu dituzte azken egunotan Hondarribiko Juan Sebastian Elkano aterpetxean. Berria - Kultura

### 2 irud/hed

Logikoa ez den **polifonia** bat ikusten dugu UPNn. Berria - Euskal Herria

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **polifoniko**.

**Polifonia** ataleko lehenengo saria Jesus Egiguren konpositorearen eskutik jaso zuenean, goizeko lehenengo txalo zaparrada jaso zuen Matsushitak. Berria - Kultura

**Polifonia** modalitatean, berriz, laugarren sailkatu dira ofatarrak. Berria - Kultura

Kultura txikien **polifonia** zentzuaz. Ana Urkiza

## polifoniko 1 *izond* polifoniarena, polifoniari dagokiona. ik **polifonia 3**.

Kantu Koralarren Akademiak XX. mendeko musika **polifonikoa** jorratuko du aurten. Berria - Kultura

XII. mendean, eskola **polifoniko** garrantzitsu samarra zegoen bertan. Berria - Kultura

XX. mendeko lan **polifonikoak**. Berria - Kultura

Biarnoko doinu **polifonikoak**. Berria - Kultura

Tresna **polifonikoa** da, eta, albokarekin bezala, jotzeko etengabe putz egin behar duzu. Berria - Kultura

Ez da arraroa ahopeka errepikaturiko hitz baten soinua, asoziazioaz, ahozko eraikin **polifonikoak** eratzera eraman dezan. Jon Alonso

### 2 irud/hed

Gero eta tresna gehiago sartzen dira sinfonia **polifoniko** honetan. Luis Elberdin

Liburu **polifonikoa** dugu beraz, ahots eta arte ezberdinez osatua. Berria - Kultura

Baina ez da sinfonia hutsa, sekula guzian bihotzean eramanen dudan paisaia **polifonikoa** baizik. Patziku Perurena

Etorbizunari begira, euskal kultura eta sorkuntza **polifoniko** bat amesten du, askotariko ikuspuntu eta kolore aniztasuna sustatu eta erakutsiko duena. Ana Urkiza

Nola imajina dezakete haur horiek, neska eta mutiko horiek, mundu **polifoniko** bat existi daitekeela mundu monokordea eta monokolorekoa erakusten bazaie? Ana Urkiza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**doinu polifonikoak** (4)

## polifonikoki *adlag* era polifonikoan. • *irud/hed*

Obrak ez dira linealki irakurri behar, "**polifonikoki**" baizik, lerro melodiko bat baino gehiago batera, banaka nahiz guztiak batera, entzuten uzten duen "belarri horizontalaren" modura. Josu Zabaleta

## polifono *izond* ahots askotakoa.

Horregatik, ipuinetan, ni pertsona singularra nagusitzen bada ere, apropos, intentsitatea emateagatik, hori ez da derrigorrez monologo bat; testuaren oinarria **polifonoa** izaten da, beste batzuen ahotsak bilduta. Ana Urkiza

## poligamia *iz* emazte bat baino gehiago duen gizonaren egoera; gizon batek emazte bat baino gehiago izan ditzakeen familia era.

Dibortzioa, **poligamia** eta izatezko bikoteak gaitzetsi egiten ditu. Berria - Gaiak

Ez da ezagutzen sasikumerik **poligamia** onartuta dagoen herrialdeetan. Iñaki Iñurrieta

**Poligamia** berriz ezarri nahi du Errusiaren aldeko Txetxeniako buruak. Berria - Gaiak

**Poligamia** inmorala ote da? mahomatar batentzat Jainkoak berak onetsia da; europar batentzat, bere erlijioak gaitzetsia, Zuzenbideak zigortua, gizarteak gaitziritzia. Joxe Azurmendi

Esan ohi da klima jakin eta inguruabar zehatzen azpian, **poligamia** ere onargarriagoa izan daitekeela, beste inguruabar eta klima batzuetan baino. Andres Urrutia

## poligamiko *izond* poligamiarena, poligamiari dagokiona.

Eztabaida daiteke, esaterako, ezkontzaren era monogamikoa arrazoizkoago den **poligamikoa** baino. Isabel Arrigain

## poligamo *izond* poligamiaren aldekoa; ezkontide bat baino gehiago dituen.

Hasieran ni gizon guztiz normala nintzen: pisu oso txiki eta zahar baina aldi berean izugarri garesti batean bizi nintzen, hirian, emakume bakar batekin, izatez **poligamo** banaiz ere. Jon Alonso

Gizona berez **poligamo** dela esaten zuen. Gotzon Garate

Mahomatar **poligamoak** emakumez betetzen du bere paradisia; grekoek, jende praktikoa izaki, grina guztiak jainkotu zituzten. Josu Zabaleta

Zein neurritan eragiten dute, esaterako, familia **poligamoetan** emaztearen artean sortzen diren liskarrek? Berria - Gaiak

## poligeniko *izond* izaeraz eta kideko ez mintzatuz, faktore askok osatua dena.

Nola hautetsi, ordea, hain karaktere konplexuak, guztiz ezezagun zaizkigun sistema **poligenikoek** gobernatuak? **Juan Garzia**

## poliglota 1 *izond/iz* eleaniztuna, hainbat hizkuntzaz mintzatzen dena.

Gazteen mintzaira edo zena zelako hura ulergaitza zelako bai guretzat bai bi tipo diplomatiko **poliglota** haientzat ere. **Karlos Linazasoro**

Zientzia biologikoetako ikertzailea omen da, **poliglota**, Caracasesko unibertsitatean irakasle, arte martzialetan gerriko beltza duena, irrati gizona... **Pako Aristi**

Gizon ikasia, kultura handikoa, **poliglota** gaitza; euskaltzale porrokatua ororen gainetik. **Berria - Kultura**

Kenrick, 75 urteko **poliglota** bizkorra, gogotsu dabil euskara hobetzen. **Berria - Kultura**

Isiltasunaren **poliglotak** lekuko. **Joxerra Garzia**

### 2 *izond* (gauzez)

Erruz erabili izan baita *zakuto* hitza, gure herriska puskabiltzaile eta eskazale **poliglota** hauetan, eta ez da batere harritzeko, atzenerako gure hitza hartaraino bihurritu izana.

**Patziku Perurena**

Amsterdam hiri **poliglota**. **Felipe Juaristi**

110 urte geroago, haien ondorengoek inperioa indiar mendekoan ondorengoan esku utzi zutenean, gauza normaltzat hartu zela ondorengo estatu **poliglota** bietan ingelesak jarraitzea, behin-behinean behintzat, Britainiar Inperioaren pean erabili izan zen xedeetarako erabilia izaten. **Iñaki Mendiguren**

Ordura arte Kursaalak euskaraz hitz egin bazuen, erritmoa **poliglota** dela erakutsi zuten jarraian etorri ziren musikariek. **Berria - Kultura**

## poligonal *izond* poligono formakoa.

Dorreak, gainera, biribilak edo **poligonalak** egin behar dira. **Santiago Iruretagoiena**

## poligono 1 *iz* zuzenkiz mugaturiko irudia.

Sei aldeko **poligono** bat hartu. **Jon Muñoz**

Logaritmo sinpleak eta **poligono** zenbaiten azalera kalkulatzeari ekiten nion. **Josetxo Azkona**

Zirkulu zirkunskribatua **poligonoaren** kanpoaldean dago eta haren erpin guztietatik pasatzen da; zirkulu inskribatua **poligonoaren** barrualdean dago, eta haren alde guztiak ukitzen ditu. **Jon Muñoz**

Nola kalkulatu da **poligono** erregular baten area? **Iñigo Aranbarri**

Geometria lauari amaiera ederra emateko [...] **poligono** erregularak nola eraiki aurkezten du Euklidesez. **Jon Muñoz**

Planoan, zirkulu batean inskribatutako ezin konta ahal **poligono** erregular dago. **Jon Muñoz**

### 2 eremua, barrutia.

Bertan garraio **poligono** logistikoa bat kokatu edo ez aztertzen ari dira. **Berria - Euskal Herria**

Bardeako (Nafarroan) entrenamendu **poligonoan** misioak egingo dira Espainiako Defentsa Ministerioak azaldu duenaren arabera. **Berria - Euskal Herria**

Bardeako Tiro Eremuaren Kontrako Batzarrak **poligonoaren** aurkako hamazazpigarren ibilaldia egingen du gaur. **Berria - Euskal Herria**

Parlamentuak aho batez onartu du Bardeako tiro **poligonoaren** aurkako mozioa. **Berria - Euskal Herria**

Herenegun Abanto-Zierbenako El Campillo industria **poligonoan**. **Berria - Ekonomia**

Merkataritza gune, **poligono** industrialen eta enpresa askoren fatxadak gau osoan egoten dira argiarekin. **Berria - Gaiak**

Lantegia Markulete industria **poligonoan** eraikiko du, 18.000 metro koadroko lursaila erabiliz. **Berria - Ekonomia**

*ik beherago* 3. **Askoren artean**

### 3 industrialdea.

Taisaren atzetik irten nauk **poligonotik** eta, kableei begira ibili nauk, begira ibili nauk... **Pablo Sastre**

**Poligonoan** lapurrak ibili direla... **Pablo Sastre**

Donostian, Martuteneko **poligonoan**, Ubarburu pasealekuko 2. zenbakian langile bakarria zegoen kanpoan 10:45ean. **Berria - Euskal Herria**

**poligonoan** bilduko dira aparteko orduak egin nahi ez izateagatik kaleratutako lankideen egoera salatzeko. **Berria - Ekonomia**

Jexuxen argazkiak: jubilatuean soinua jotzen batean, Ximonekin; **Poligono** auzoan beste batean (hemen ere Ximon panderoa jotzen); gazetako argazkiak, eta umetakoak. **Xabier Etxabe**

Elurrak ez du uzten lanean, kamioiak ezin dira sartu **poligonoan**. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**tiro poligonoa** (3)

## poligrafo 1 *iz* hainbat gai ez aritzen den idazlea.

Hurrengo belaunaldien ikasgai, Snorri Sturlason historiagile eta **poligrafoa**, Borgarfjord-eko bere etxaldean, Harold Sigurdason errege ospetsuaren azken ekinaldia idazten ari zen. **Juan Garzia**

### 2 gezur detektagailua.

Adituen arabera, askok **poligrafoekin** edo gezurak atzemateko makinarekin nahasten duten arren, sistema honek «subjektuak garunaren aginduei erantzun aurretik» jasotzen ditu uhin elektrikoak. **Berria - Gaiak**

Nori egin behar zaio alkoholaren proba, akusazioari edo akusatuei? eta **poligrafoarena**? **Berria - Mundua**

## polikarbonato *iz* polimero plastiko oso gogorra eta sendoa.

**Polikarbonatoa** dugu, beste gai batzuen artean aipagarri. **Berria - Gaiak**

## poliketo *iz* zizarea.

Berari esker jakin nuen zizareei buruz, edota, izen zientifikoa erabiliz, **poliketoei** buruz dakidan guztia. **Hasier Etxeberria**

Ekainean zizarerik ez egotea, **poliketoen** ugalketa moduari zor zaio. **Hasier Etxeberria**

## **poliki** (*orobat poliki g.er.*) 1 *adlag* astiro, geldiro.

**Poliki** etorri bidean. Bernardo Atxaga

- **Poliki** ibili; ez egin astoarena elurretan. Koro Navarro

Hasieran joan hadi **poliki**, zaldiak nekatu gabe, gero lasterka egin beharko diagu-eta. Koro Navarro

- **Polikiago** joan beharko diagu -esan zuen Martinek. Koro Navarro

Kutxetako bat ireki, eta **poliki** miatu nuelarik, hautsez estalitato liburu bat hartu nuen eskuan. Juan Kruz Igerabide

**Poliki** hurbildu nintzaion, eta **poliki** ipini nion pistola aurpegiaren pare-parean. Juan Kruz Igerabide

-Azaldu zure planak arin, ez dugu-eta astirik -esan zuen, hitzak **poliki** ebakiz, Ginsburg komisarioak. Felipe Juaristi

**Poliki** eta isilik sartu ziren denak sukaldetan, ziurraski artzainak Belengo estalpera hurbiltzen ziren bezala. Aitor Arana

-Baina, noski -esan zuen Cunningham jaunak **poliki** eta eraginortasunez-, gure erlijioa da erlijio-erlijioa, jatorriko fede zaharra. Irene Aldasoro

Hori esatean beren semeen begiak ixten zituzten kontatzaileek, **poliki** eta leunki, maitasunaren samurtasunez, beren hatzez. Felipe Juaristi

Goizeko lehen argia hiriaren atzeko aldetik ireki zen, **poliki**, hiria beltz gelditu zen kontrargian. Jon Alonso

Denbora aurrera zihohan **poliki**, oso **poliki**, emakumeen gogoa lasaituz. Aitor Arana

Oso **poliki** esan zuen, buruz ikasitako testu bat neke handiz berreskuratuko balu bezala. Ramon Saizarbitoria

Oso **poliki** hazitako tumorea bide zuela burukoa. Imanol Zurutuza

Etzanik segitzen ahal zuen denbora apur batez oraino, eguzkia, oso **poliki**, lurraren horizontetik hurbiltzen zen bitartean. Jon Alonso

Zein seguru zegoen irrati aparatua alfonbraren gainean, eta hormako erlojuak ere zein lasai zirudien, eta hauts izpiak berak ere zein **poliki** mugitzen ziren eguzki printza batek argitutako airean. Bernardo Atxaga

Hizketan hasi zitzaidan, **poliki** samar hastean, bizkorrago gero, nire eskari hitzik gabea ulertu balit bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 era politean, aski egoki edo ederki. ikpolito.

**Poliki** moldatzen zarete. Aingeru Epaltza

**Poliki** ematen ditek motots beltzok. Juan Garzia

**Poliki** doakion artista bat naiz, eta berriki bete ditut hirurogeita bost urte. Xabier Olarra

Donostiako 7.2, minimoa izateko, **poliki** dago; Gasteizek, aldiz, zeropetik dagoeneko. Pello Zabala

**Poliki** ezagutzen nuen Marixa, eta ez ninduen larritzen Unairen patuak. Aingeru Epaltza

Marina Kontserbatorioko ikaslea zen, eta **poliki** jotzen zituen Beethoven eta Haydnen doinuak biolinez, musika errusiarraz gainera. Felipe Juaristi

Buruia ileapaindegian orraztua eta ezpainak **poliki** margoturik zituen, sagar musugorriaren kolorean. Aingeru Epaltza

Seguru hitz potolo asperrok bizkarrean erabiltze hutsagatik **poliki** kobratzen duela. Patziku Perurena

Egunaz txinatarrak **poliki** masakratu ondotik, Hiro Hito inperadorearen soldaduak joaten ahal ziren pilotarien norgehiagoken mirestera. Ramuntxo Etxeberri

Raveliades sailaren konduko kontzertuak arras **poliki** iragan dira eta biziki sanoki. Herria

Kaiola bat; horrexetan nintzen, kaiola **poliki** apaindu batean. Aingeru Epaltza

Eta helduentzat idazten zituen nobelak, amaren ustetan, "oso **poliki** idatziak" zeuden. Fernando Rey

Eta ituna, [...] hain **poliki** eta dotore deskribatzen den azken jai-otorduan iristen da bere gailurrera. Askoren artean

- Gero, zorrak ordaindu behar ziren, dirutan ez bazen, bai lanpostu diruz **poliki** hornituetan. Aingeru Epaltza

## 3 asko. ik polito 2.

**Poliki** kostatu zen; baina gastu pixka bat egiteak izaten du bere arrazoa, batzuetan. Irene Aldasoro

## 4 *poliki-poliki* (*orobat polikipoliki g.er.*) astiro-astiro.

**Poliki-poliki**, arren. Patxi Zubizarreta

**Poliki-poliki**, ilunera ohituz joan nintzen. Bernardo Atxaga

Denborak **poliki-poliki** oratzen nau. Josu Zabaleta

Atea, ordea, **poliki-poliki** itxi zuen, hainbesteko segurantzarik ere ez balu bezala. Ander Irizar

Pistola atera zuen zorrotik, eta **poliki-poliki** jaso zuen nire kopeta pareraino. Inazio Mujika Iraola

Une batez jaino zitzaion burura, bera bezalako bat, arimaz bizkia, zihoala trenean, **poliki-poliki** azkentzen, amaitzen, hiltzen. Felipe Juaristi

Gero irudia belzten da **poliki-poliki**, eta gero desegiten da, dena hauts. Alberto Barandiaran

Nor nintzen konturatu zenean, besotik heldu zidan estu-estu, eta, **poliki-poliki**, baretzen joan zen. Anjel Lertxundi

Andere xahar batzuk inguratu dira **poliki-poliki**. Txillardegia

Edateari emandako langilea ez da aberastuko, gauza txikiak gutxiesten dituenak behea joko **poliki-poliki**. Elizen arteko biblia

Airearekin kontaktuan dagoen ura lurrundu egiten da; **poliki-poliki** egun hotzetan, eta bizkorrago egun beroetan. Irene Aldasoro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras poliki (3); atea poliki ireki (3); burua poliki (3); goazen poliki (3); oso poliki (47); oso poliki ari (3); oso poliki hazten (3)

poliki abiatu (5); poliki altxatu (6); poliki argituz (4); poliki argituz zihohan (3); poliki ari (19); poliki ari da (6); poliki aritu (3); poliki askatu (4); poliki atera (6); poliki atzera egin (3); poliki baina sendo (3); poliki doa (8); poliki doaz (5)

poliki egin (12); poliki egin behar (4); poliki egingo (3); poliki egiten (6); poliki erortzen (3); poliki esan (4); poliki eta isilik (3); poliki eta mantso (3); poliki etorri (3); poliki gindoazen (3); poliki hartu (3); poliki hasi (10); poliki hasi zen (4); poliki hasten (3); poliki hazten (6); poliki heldu (3); poliki higitzen (3); poliki hitz egiten (3); poliki hurbildu (8); poliki hurbildu nintzaion (4)

poliki ibili (5); poliki ibiliz (4); poliki igo (3); poliki ireki (3); poliki itxi (7); poliki itxi zuen (3); poliki itzuli (3); poliki jaitsi (5); poliki jan (3); poliki jaso (3); poliki jo (3); poliki joan (11); poliki mugitu (3); poliki mugitzen (9); poliki mugitzen ziren (3); poliki noa (3)

poliki pasatu (3); poliki paseatzen (3)

poliki poliki (745); poliki poliki abiatu (3); poliki poliki argituz (4); poliki poliki ari (11); poliki poliki abiatu (3); poliki poliki egin (5); poliki poliki hasi (6); poliki poliki hurbildu (5); poliki poliki jaitsi (4); poliki poliki joan (5)

poliki samar (4); poliki urrundu (4); poliki zabaldu (5); poliki zihohan (5); zein poliki (3)

polikiago joan (3)

## **polikiño** (*corpusean polikiño soilik*) 1 *adlag* adkor poliki, astiro.

Baietz, ontsa zela, ihardetsi zidan **polikiño**. Janbattitt Dirassar

Ez nintzela Mattin baino tontoagoa agertu behar, eskua hartu nion **polikiño**. Janbattitt Dirassar

Handik bi egunen buruan, goxaldi on baten ondotik, biak gustu hoberenean etzanik geundelarik, berriz hasi nintzen Magali behar nuela **polikiño** kitzikatu. Janbattitt Dirassar

Eta gutienik ustean, indar ikaragarri bat eginez, **polikiño**, **polikiño**, erran zuen: [...]. Daniel Landart

## 2 poliki, aski egoki edo ederki.

Bai eta sesitu bi kilo kokaina, droga hori maleta batean **polikiño** gordea. Herria

18-garren mendekoa, hein bat histua zena segur bainan **polikiño** "freskatu" ezarria, lehen idatzia zena aise irakurtzen ahal izateko gisan. Herria

## 3 *polikiño-polikiño* astiro-astiro.



Ahal bezala, **polikiño-polikiño**, baina ahal bezain zaluki jaitsi nintzen, nik ere bi aldiz bederen ekilibrioa galtzen nuela. Daniel Landart

## polikipoliki ik poliki 4.

**polikiroldegi** (*91 agerraldi, liburu 1 eta 73 artikulutan –gehien–gehienak Herria-koak-; cf **kiroldegi 478** agerraldi, 12 liburu eta 376 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kiroldegi** agertzen da*) **1** iz kiroldegi.

Egun osoan, zintzur bustitzea eta jateko manera izanen da **polikiroldegian**. Herria

Martxoaren 3ko biktimen omenez, emanaldia eskaini zuen abeslari katalanak, lepo bete zen Buesa Arena **polikiroldegian**. Berria - Harian

Igande aratsaldean iragan da Baxenabarreko haur kantu xapelketa, Irisarriko **polikiroldegian**. Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Aurreko edizioetan erabiltzen zuten karpa utzi eta Tarregako udal-**polikiroldegira** igaroko da Espai de Euskadi delakoa. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**airoski polikiroldegian** (26); **aiziritzeko polikiroldegian** (3); **baionako lauga polikiroldegian** (3); **irisarriko airoski polikiroldegian** (3); **lauga polikiroldegian** (5)

**airoski polikiroldegitrat** (10)

## polikistiko *izond* kiste asko dauzkana.

Halakoak dira, besteak beste: Huntington-en korea (eritasun neurodegeneratibo hilgarri bat, zeinaren eragina ez baita nabaritzen); giltzurruneko eritasun **polikistikoa**, eta Alzheimer-en gaitza. Juan Garzia

## polikitto (*corpusean polikitto soilik*) *adlag adkor* poliki, aski egoki edo ederki.

Joko horietan ere gure gazteek badute alderdi, **polikitto** agertzen dire eskualde huntako saioetan. Herria

## polikitu, poliki(tu), polikitzen (*orobat politiku*) du *ad* poliki jarri, ederki jarri.

Sieyès eta Renanen argazkiak arduratsu berrukitu eta **polikitu** diren bezainbat, Herder eta Goetherenak itsuski manipulatzen eta faltsiatzen dira horretarako. Joxe Azurmendi

Aita Saindua itzuli da Batikanorat bere ospitaleko aldia bururaturik eta **polikiturik**, erran dutenaz. Herria

Laster **polikiturik** etxera dadila. Herria

## polikitxo *adlag adkor* poliki, astiro.

**-Polikitxoago**, compadre!!! -zuzendu zaio Tom, kasik oihuka, karabana bat aurreratzen ari ginela-. Patxi Zubizarreta

## poliklinika *iz* zenbait espezialitate kliniko eta kirurgiko dituen klinika.

Irratia, hiriko parkean, azken berriak ematen ari zen; ni **poliklinikatik** nentorren kontsulta egitetik eta berriak entzutera jarri nintzen. Felipe Juaristi

Gero, gure **poliklinika** ireki zuten, eta ni kalera bota ninduten, beste sendagile judu batekin batera. Felipe Juaristi

Miarritzeko Aguilera **poliklinikan** lehenagotik ere bazuten geletan aire egokitua ezartzeko proiektua. Berria - Euskal Herria

Lehen taldeko jokalariek azterketa fisikoa pasa zuten Gasteizko San Jose **poliklinikan**. Berria - Kirola

Donostiako **Poliklinikako** gela batean. Hasier Etxeberria

Fernando Arozena **Poliklinikako** Urologia Zerbitzuko kideak azaldu zuenez, [...]. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gipuzkoako poliklinika** (3)

**gipuzkoako poliklinikako** (8)

**donostiako poliklinikan** (3); **gipuzkoako poliklinikan** (8)

**poliklinikara eraman** (3)

## poliklorobifenilo *iz* bifenilo kokaguneak kloratuz lortzen diren konposatuetako bakoitza.

Hartz zuriori ez ezik gizakiari ere kalte handia egiten diote PCB **poliklorobifeniloak** eta pestizidek. Berria - Gaiak

## polikontsumo *iz* zenbait produkturen aldi bereko kontsumoa.

Bestalde, drogak kontsumitzeko moduak aldatu eta **polikontsumoaren** fenomenoa agertu dela gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

## polikontusio *iz pl* askotariko makatuak.

Horietako lauk erredurak zituzten, eta bosgarrenak -adineko emakume bat- **polikontusioak** zituen, kale erasoaren ondorengo liskarretan izandako erorikoengatik. Berria - Euskal Herria

## polikopia *iz* testu edo irudi baten kopiak egiteko klixe bidezko zernahi sistema. ikmultikopia.

Bizikletak atzeko gurgilaren alde banatan zeramatzan poltsa beltzetako baten ahoa zabaldu zen, eta **polikopian** egindako orri bakan batzuk erori ziren lurrera. Anjel

Lertxundi

**Polikopia** zerbütũ bat ere eskentzen dũ beste alkateer. Herria

## polikromatu *izond* zenbait koloretan margotua.

Absideko pinturak Muñozenak eta kriptako freskoak, zur landu erre eta **polikromatuaz** eginak, Nestor Basterretxearenak. [Jon Alonso](#)  
Latoiaren distira bazter guztietan, beira **polikromatuak** klaraboietan, zur ilun garestia paretetan. [Koldo Izagirre](#)  
Zeramika **polikromatuak**. [Berria - Kultura](#)  
Zur landu, **polikromatu** eta pirograbatuan egindako kanderailu erraldoia. [Berria - Kultura](#)

## polikromazio *iz* zenbait koloretan margotzeko teknika.

Aurten, honako ikastaro hauek eskaini dira: zeramikaren hastapenak, serigrafia zeramikoaren hastapenak, [...] brontzearen galdaketa artistikoa, eta zur gaineko dekorazioa eta **polikromazioa**. [Berria - Kultura](#)

## polikromia 1 *iz* zenbait koloretan margotua denaren nolakotasuna.

**Polikromia** nahasian margotutako loreekin-. [Xabier Olarra](#)  
Bere artelanak **polikromiaz** alaitzen eta nolazbait bezitzen ditu. [Herria](#)

### 2 zenbait koloretan margoturiko artelana.

Arbuluko elizako **polikromiak** berritzen lagunduko du Aldundiak. [Berria - Kultura](#)  
Ataurreari dagokionez, ikerketa lanak burutu dira, eta orain zaharberritzaileei dagokie **polikromiekin** lanean hastea. [Berria - Kultura](#)  
**Polikromia** ez zuen Berruguetek berak egin, laguntzaile batzuek baizik. [Berria - Kultura](#)

## polimata *izond*

Greziarrek **polimata** esaten ziotena zen Hippias: astronomia, musika, pintura, eskultura, matematika. [Jon Muñoz](#)

## polimelia *iz* fetoaren itxuragabetzea, sei hatzeko eskuetan eta kideko malformazioetan datzana.

- **Polimeliarik**, doktore? [Karlos Linazasoro](#)

## polimerasa *iz* DNA eta RNA sortzea katalizatzen duen entzima.

**Polimerasaren** kate erreakzioa. [Berria - Gaiak](#)

## polimeriko *izond* konposatuez mintzatuz, molekula berdin-berdinen elkarketaz osaturiko molekulak dituenen. ik **polimero**

Material **polimeriko** bat sendotzeko eta bere propietate mekanikoak hobetzeko gehigarriak erabiltzea oso gauza hedatua da plastikoen munduan. [Berria - Gaiak](#)  
Material **polimerikoek** sekulako eragina dute kiroletarako tresneria berri honetan, eta denbora laburrean zeharo aldatu da kirol hauen inguruko erreminten mundua. [Berria - Gaiak](#)  
Cidetec zentroak teknologia elektrokimikoak lantzen ditu eta MCC eta Cegasak mintz **polimerikoko** erregai pilen teknologiari buruz aritzeko interesa dutela adierazi dute. [Berria - Ekonomia](#)  
Ferrojel bat disolbatzaile batek puztutako sare **polimeriko** bat da, burdin oxidozko nanopartikulez bete. [Berria - Gaiak](#)  
Beste aplikazioetako bat polimero partikulak uretan barreatuta daudenean lortzen da, hots, dispersio **polimerikoetan**. [Berria - Gaiak](#)

## polimerizazio *iz* polimero bihurtzea.

Orain, berriz, paper nagusia egozten zitzaion era askotako hainbat erreakziotan: proteinen **polimerizazioa**, hainbat egitura osatuz, hala nola giharraren proteinak, zitoeskeletoa, erribosomak, birusen kapsideak. [Juan Garzia](#)  
Ez alferrik Aita Eternalari berberari ere, **polimerizazio** kontuan maisu izanagatik, ez zitzaion bururatu patentatzerik. [Juan Garzia](#)

## polimero 1 *iz* molekula berdin-berdinen elkarketaz osaturiko molekulak dituen konposatua.

Gaur egun, PVCa merkatuko hirugarren **polimero** erabiliena da. [Berria - Gaiak](#)  
Ingurumenarekiko errespetua mantentzeko gero eta erabiliagoak dira plastiko edo **polimero** biodegradakorrak. [Berria - Gaiak](#)  
**Polimeroen** beste propietate garrantzitsu bat beroaren aurrean duten portaera da. [Berria - Gaiak](#)  
Bakterio askotan PHBa sintetizatzen azetil koenzima A (azetil-coA) erabiltzen da eta lehen urrats batean azetoazetil-coA bihurtzen da eta produktu hau bai **polimeroaren** biosintesian zein bere degradazioan agertuko da. [Berria - Gaiak](#)  
Epaimahaiak erabaki du 2005eko saria Jose Maria Asua Gonzalez ematea, **polimeroen** arloan egindako lanarengatik. [Berria - Euskal Herria](#)  
**Polimeroen** industria handia dago Markinan. [Berria - Euskal Herria](#)  
Irizpideetan eta norabideetan adostutako itzulpengintzak [...] erakutsiko liguke **polimeroei** buruzko azken berrikuntza itzultzea baino eragingarriagoa dela kimikaren alde desberdinei buruzko esku-liburu onenak itzultzea. [Anjel Lertxundi](#)

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **polimeriko**.

Beste aplikazioetako bat **polimero** partikulak uretan barreatuta daudenean lortzen da, hots, dispersio polimerikoetan. [Berria - Gaiak](#)  
Ez dakit zer **polimero** klase aurkitu zuen, zelulen nukleoan ez dakit zer eragiten zuena. [Joan Mari Irigoien](#)

## polimetro *iz* zerbait gauza neurtzen dituen gailua.

Koadro horretan Lete ibili duk **polimetroarekin** eta, hor ez duk indarrik behinik behin. [Pablo Sastre](#)

## polimili ik **poli-mili**.

## polimorfema *iz*

Hargatik, astekari aberatsetan elkarrizketa mamitsuak irakurtzen genizkion, batez ere "euskarazko erroaren sakoneko **polimorfema** irekien bilakaera baldintzatuz" mintzo zela. Itxaro Borda

## polimorfismo *iz* polimorfoa denaren nolakotasuna.

Beste gene batzuei, agertzen duten **polimorfismoari** esker, aise segi dakieke arrastoa belaunaldiz belaunaldi. Juan Garzia

## polimorfo *izond* zenbait forma dituen edo izan ditzakeena.

Populazio **polimorfo** batean, hautespen naturalak egitura proteikoak faboratzen zituen, eta, beraz, gene-egiturak "-alelo" direlakoak-, ugalketarik oparoena ahalbidetzen baitzuten. Juan Garzia

Gaszte idealistak, bere absolutuan, etsai **polimorfoa** behar duela! Piarres Aintziart

Satira, sormena, ironia, irudimena... horietan dira gerrilla komunikatiboaren osagaiak; horixe antidotorik eraginkorra egunero bonbardatzen gaituzten milaka mezu amorfo eta **polimorforen** aurrean. Txema Ramirez de la Piscina

**Polimorfoak** dira, hau da, arrek eta emeek txandaka jarrera aktiboa eta pasiboa har dezakete. Luis Elberdin

Izu hori unibertatsala da, eta **polimorfoa**. Patziku Perurena

## polinesiar 1 *izlag* Polinesiakoa, Polinesiari dagokiona.

Bazko uhartea, Ozeano Barean dagoen tokirik urrutienetakoa, garai batean **Polinesiar** Zibilizazioaren gune izan zela erakusten dute hango estatuek. Iñaki Mendiguren

### 2 *iz* Polinesiako herritarra.

**Polinesiarrek** Pazifikoko uharteen artean itsastatzeko tour de force-a zertu zuten. Iñaki Mendiguren

Parisko agintariekin harremanetan jartzeko arazo handiak izaten ari direla diote **polinesiarrek**. Berria - Mundua

**Polinesiarrek** Oscar Temarurentzat egin badute boto, autodeterminazio bozketa bat antolatu behar da eta herritarrei galdegin nahi dutenez Taviniren aldeko botoa independentziaren aldeko botoa izatea. Berria - Mundua

## polinizatze *iz* polinizazioa.

Adibidez, loreen **polinizatzea**. Berria - Harian

## polinizazio *iz* polena haziak sortzeko toki egokira eramatea.

**Polinizazioak** kutsatu ditu transgenikorik nahi ez zuten nekazari hauen sailak. Berria - Gaiak

## polinomio *iz* zenbait monomioren batuketaz osaturiko adierazpen aljebraikoa.

Hastapenean, ekuazioak aztertzen zituen aljebra; Khaiamek, ordea, **polinomioak** ere aztertzeraino zabaldu zuen aljebrearen eremua. Jon Muñoz

Bigarren mailako **polinomioa**. Jon Muñoz

Osagai bakarreko **polinomioa**. Jon Muñoz

P, aldagai bat baino gehiagokoko **polinomioa** da, eta haren koefizienteak zenbaki osoak edo arrazionalak dira. Jon Muñoz

Zenbakien zatiketa euklidearraren prozedura **polinomioen** zatiketari aplikatu zion. Jon Muñoz

## polinuklear *izond* zelulez eta kidekoez mintzatuz, zenbait nukleo dituen.

Solaskideak bere aitzinean emeki-emeki urtzen antzeman ninduen, hamar mila libera baino gehiago pagatua zuen kanapean zehar, Ganimedes planetako zelula **polinuklear** malgu bilakatzen. Itxaro Borda

## polio 1 *iz* poliomielitisa.

Hautzaroko **polioaren** ondorioz, alde batean ez zuen diafragma-mugimendurik. Xabier Olarra

Hiru urte zituela, hiru gaixotasun larrik jo zuten batera: meningitis edo meningoentzefalitisa [...] **polioa**, eta katu-harramazka batek eragindako sukarra. Xabier Olarra

Hautzaroko **polioaren** ondorioz, alde batean ez zuen diafragma-mugimendurik. Xabier Olarra

**Polioa** izandakoentzat propio egindakoak. Bernardo Atxaga

Nigerian beste inon baino haur gehiago dago **polioak** jota. Berria - Gaiak

**Polioaren** aurkako borrokan, 1950eko urteetan, txerto hil bat garatu zuen Jonas Salk doktoreak. Irene Aldasoro

### 2 (hitz elkartuetan)

**Polio** kasuetan, arnasketarako muskuluak paralizatu direnean, [...]. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**polioaren aurkako kanpaina** (6)

## poliomelitis ik poliomielitis.

## poliomielitis *(orobat poliomielitis g.er.) iz* eritasun kutsakorra, bizkar muinean kokatzen den birus batek sortua, ezaugarritzat giharren endurtzea eta elbarritasuna dituen.

Izan ere, urtebeteko haurra zela **poliomielitis** gaitza izan zuen Jexuxek, eta bi hanketatik elbarri utzi zuen horrek, betiko. Xabier Mendiguren Elizegi

Elbarritua zegoen, **poliomielitisak** hartua. Gotzon Garate

Bederatzi urterekin **poliomielitisak** erkintutako belaunburu haiek, elkarri musu ematen zioten kalaberatxoak bailiran. Harkaitz Cano

Bazen talde bat animalia-zelulak erabiltzen hasia zena **poliomielitisaren** birusa eta haren ugalketa aztertzeko. Berria - Gaiak

**Poliomielitisaren** hasierako sintomak nekea, sukarra, buruko mina, gorakoak, zurruntasuna eta lepoko eta gorputz adarretako mina izan ohi dira eta, 200 gaixotatik batek betiko paralisia garatzen du. Berria - Gaiak

**Poliomielitisaren** kontrako txertaketa kanpaina boikotatzeari uzteko exijitu dio Unicef Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Funtsak Nigeriari. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**poliomielitisak jotako** (3)

**poliomielitisaren kontrako** (3)

## polipasto *iz* polea finko eta mugikorren sistema batez osaturiko makina.

Mota honetako makinari **polipastoa** esaten zaio, polea askoren biraketekin lan eginez erraz eta azkar egiten delako lana. Santiago Iruretagoiena

Batzuek palanka eta tornu bidez lan egiten dute, beste batzuek **polipasto** bidez. Santiago Iruretagoiena

## polipeptidiko *izond* konposatuz mintzatzu, hiru baino aminoazido gehiagoz osaturikoa.

ADN zati horietariko bakoitzak kate **polipeptidiko** bat ekoizten du, eremu bati dagokiona: proteina-eredu bat, alegia, zeinaren hiru dimentsioko formaren eta karga elektrostatikoaren agindupean baitaude ezagutze- eta eragite-gaitasunak. Juan Garzia

## polipo 1 *iz* gorputza zaku luze baten itxurakoa duen itsas animalia, mutur bat itxia eta harkaitzei edo itsas hondoari itsatsia eta bestea irekia eta garroz inguratua duena (*Fil. Coelenterata*).

Koralaren oinarritzko unitatea **polipoa** da, tutu itxurako gorputz bat, garroz inguratutako aho bat eta bere beheko muturrean substratuari atxikitzeko disko basal bat dituena.

Berria - Gaiak

Denbora are luzeagoaz begiratu nion buruari, ezen, ikusten dudana tximinoa baino askoz beherago dago, landareen munduaren mugetan dago, **polipoen** mailan.

Monika Etxebarria

Kursaaleko pareta koral, **polipo** edo lore familia batek kolonizatu du eta forma itsaskorrek in batera, unibertso organikoa eta koloretsua osatzen dute. Berria - Kultura

Koralak **polipoak** zaldiak trikuak izarrak barraskiloak anemonak... Koldo Izagirre

Esku iletsuak hatz okerrekin, halere heltzeko gai zirenak, **polipo** baten garroak bezala... Anton Garikano

### 2 tumore biguna, batez ere muki mintzetan eratzen dena.

Gogoan al duzu **polipoa** kendu zidatenean ni umetokiko minbizia izateko beldur izaten nintzela [...]? Imanol Zurutuza

Umetokiko **polipoarena** eta miomarena bi urte eta erdi lehenago izan zen. Imanol Zurutuza

Azkenean, erradiografia batean, Rouengo espezialistak **polipo** bat aurkitu zion urdailean, berehala kendu beharrekoa. Joseba Urteaga

Vioxx botikak koloneko eta ondesteko **polipoak** saihesteko balio ote zuen jakiteko hasi zuten ikerketa hori. Berria - Gaiak

Baina zer gertatuko litzateke odoluzkiak izan beharrean minbizia edo **polipo** bat balitz? Berria - Gaiak

## poliposi *iz* ondoretasunezko eritasuna, ondestean eta kolonean polipo kopuru handia agertzea ezaugarri duena.

Famili **poliposi** anizkoitza dutenek enbrioak aukeratu ahaliko dituzte Erresuma Batuan. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**famili poliposi anizkoitza** (3)

## polipropileno *iz* propilenoa polimerizatuz lortzen den gai plastikoa.

Izan ere, osasun arloko aplikazioetan PVCaren erabilera %30era irits daiteke, atzetik PEa (polietilenoa, %24), PPA ( **polipropilenoa** , %18), PSa (poliestirenoa %13) dituelarik. Berria - Gaiak

## poliptote *iz*

Horiei guztiei **poliptotea** izena ematen die erretorika klasikoak: hitz bat behin eta berriro azaltzen da esaldi bakar batean deklinabide marka ezberdinekin. Iñaki Arranz

## polipuritano *izond/iz* hainbat gauzatan puritanoa dena.

Politoxikomanoa izatearen ondorioa, gero **polipuritano** bihurtzen zarela. Xabier Mendiguren Elizegi

## polirritmo *iz* zenbait erritmoren multzoa.

Zerabilten erritmo arina eta sinkopatua ez zen berez oso konplexua, baina **polirritmoak** oparoak ziren, askotan djenbe bakarlariak apurtzen zituenak. Berria - Kultura

## polis *iz* antzinako Grezian estatu betekizuna zuen hiria.

Horixe da hiria gaur, handiago eta areago, eta lehengoen batere antzik gabea, izena salbu; edo izen arrotzetara bagoaz, oso bana dira, jakina, noizbaiteko **polis** hura eta orainagoko city hauek. Iñaki Seguroa

Gogora etorri zaitzadan, hala, greziarren antzinako **polis** haietan gizon ideala [...] Atleta zela, eta indarra, gorputz-garapen orekatua eta edertasun fisikoa balio gorenak zirela.

Bernardo Atxaga

Solon bezalako legegile erreformatzaileek zuzenbidea jarriko dute **polisaren** ardatzean. Askoren artean

**Polis** berean arauak eta legeak sasoiz sasoi -botere-kudeaketa batetik bestera- oso aldakorrek izaten direla konturatzen dira. Askoren artean

Horrela, "politika" hitzak, izen gisa azaltzen denean, bi esanahi desberdin zituen grekoen pentsamenduan: alde batetik, **polis** batean edo Hiri-estaturen arteko harremanetan gertatzen zen egoera zehatza; eta bestetik, **polis** bera kudeatzeko erabiltzen ziren jakite, ekintza edo erakundeen multzoa. Askoren artean

Gure bizitza modernoko dimentsio handietan, interes zientifikoan mudantza bat ari da gertatzen, zeina Kristo aurreko V. eta VI. mendeetan **polis** greko txikietan gertatu zenaren antzekoa den. Joxe Azurmendi

## polisariotar *izond/iz* Fronte Polisarioakoa.

Gero Gernikan hiru mila jendez gehiagoko elkarretaratze suharrean, hor ginituela ere Katalan, **Polisariotar**, Errumania aldeko Transilbaniar eta beste Europar herri zapalduetako mezu eta ordezkari. **Herria**

## polisemia 1 *iz* hitz edo adierazle batek adiera edo adierazi bat baino gehiago izatea.

Homonimia eta **polisemia** bereizten dituzte hizkuntzalariek. **Iñaki Arranz**

*Fidel izan beharraz* honetan, Wilde jostalariak hizkuntzarekin jokatzan du, hitzen homofonia, kakofonia eta **polisemia** baliatuz. **Antton Olano**

Goiburuk ongi baliatu du berriz hitzaren **polisemia**, pota egin gabe hoskidetasun bete-betea lortzeko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

### 2 irud/hed

**Polisemia** -hermeneutika eta beste zentzu bat aurkitzea baimentzen duena- esaldiari dagokio, eta baita lanean ipintzen duen arlo semantikoari ere. **Xabier Arregi**

**Polisemia** sinboliko hagitz ugariakoa izanik ere, funtsean horixe baita sugoa: gorputz arimen bizigarri, sendagarri, eta zoriaren aldagarri. **Patziku Perurena**

## polisemiko 1 *izond* hitzez edo adierazleez mintzatuz adiera edo adierazi bat baino gehiago duena.

Hitzegietan sarrera bakarra dute hitz **polisemikoek**, sarrera ezberdinak hitz homonimoek. **Iñaki Arranz**

Baserritar eskolatu gabe horiek ez dute hitzen balio metaforikoa, ironikoa, **polisemikoa** ezagutzen. **Anjel Lertxundi**

"Politika" hitzaren ezaugarri **polisemikoak** historian zehar bere esanahian eta hari buruzko hausnarketetan izan diren aldaketak. **Askoren artean**

### 2 irud/hed

Hori dela-eta, irudia beti da **polisemikoa**, publizitateak ondtxo dakienez. **Joxerra Garzia**

Edozein gorabehera estetikiton gertatu ohi den bezala, Oteizaren aldarria ere **polisemikoa** zen, interpretazioa askotarikoa, eta ez norabide bakar batekoa. **Anjel Lertxundi**

## polisentsorial *izond* zenbait zentzumeni dagokiena.

Arte objektibo horretan espazioa **"polisentsoriala"** eta operatorioa, "praktikoa eta esperimental" da; Erdi Aroko artean aurki daiteke, baina baita kubismoan ere, edota Egiptoko artean, edota haurren marrazkietan. **Josu Zabaleta**

## polisilabiko *izond* zenbait silabari dagokiena.

Izan ere, "monosilabo" hitza **polisilabikoa** bada, esango didak mundu honek konponketarik baduen... **Joan Mari Irigoien**

Aliterazio **polisilabiko** eufonikoa. **Xabier Olarra**

## polisman *iz* poliziakidea. ik **polizeman**.

Haietako bi ikusi nituen, gerra denborako **polisman** nazi haiek bezalaxe jantziak. **Fernando Rey**

Nagusiei abisua emanda, **polismanak** metrailetarekin ailegatu eta kontzentrazio eremu batean sartuko naitek! **Fernando Rey**

## polisoi *iz* gerraldean, gona atzealdetik harrotzeko, jartzen den armazoi edo kuxina.

Soingaineko dotore finak zeramatzatzen, mahukak atzera jasoak eta **polisoi** europarraren antzera lotuak, beso biluziak agertzen zituztela. **Karlos Zabala**

## polit (*orobat **politt** g.er. **pullit** g.er. eta **pulit** g.er.*) 1 *izond* (*pertsonetz eta gorputz zatiez*) itxura edo eite atsegingarria duena, halako edertasun bat duena. ik **eder**.

Nik badakit neska **polita** ez naizena; ez naiz inoiz izan **polita**, eta ez naiz inoiz izango. **Josu Zabaleta**

Ezin dut erabaki ere **polita** ala itsusia den. **Monika Etxebarria**

Ni **polita** nintzen, ikaratzeko moduan, gaur egun ere **polita** naiz, baina, noski, gaztetako sua galdu dut eta badakit ez dudala begirada bera. **Karlos Zabala**

Emakume luzea omen zen, **polita**, goxoa. **Gotzon Garate**

Bil ditzatela erregearentzat neskatza gazteak, birjinak eta **politak**. **Iñaki Arranz**

Zeinek ukatu dezake egia denik Pierresen eta Magalona **politaren** kondaira [...]? **Patxi Ezkiaga**

Zeinen **polita** zure lepoa, urrezko kate horiekin! **Elizen arteko biblia**

Zein brodatu **politak** egiten dituen tulean! **Jose Morales**

Ez horren sutsu, Eugeni **polit** hori. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-Beraz, nire **polita** -esan zuen Kako-okerre, almibar ahotsez-, zure umeak oholetik paseatzen ikusiko dituzu. **Julen Gabiria**

Hemen geratu behar baitu, bere aita **polit** horrekin, eta harako ama harekin. **Josu Zabaleta**

Argala izateaz gain oso aurpegi **polita** duelako ere bai. **Ramon Saizarbitoria**

Orain ez duzu batere arrazoirik ipurditxo **polit** hori niri ez emateko. **Karlos Zabala**

Tuntun **polit** bat zela esan zuen behin Grettarengatik. **Irene Aldasoro**

Hau amak **politagoa** emateko da. **Lopez de Arana**

Dantzari gazte haietako batzuk **politak** baino **politagoak** ziren. **Karlos Zabala**

Amak dei egiten zien: zatozte, purra, zatozte **polittok**! **Anjel Lertxundi**

Dena, dena hik asmatua, **politt** horrek! **Antton Olano**

### 2 (bestelakoez)

Uzta-sagu bat zen, inoiz ikusi dudana sagutxorik **politena**. **Mirentxu Larrañaga**

Hiri **polit** hau eta leku eder hau gotorleku bilakatu behar izan dituzte. **Koldo Izagirre**

Arrosa koloreko alkandora **polit** batez jantzirik. **Jose Morales**

Gona **polit** bat erosteko dirua izan zen barkamen saria. **Aingeru Epaltza**

Ez dago gauza **politagorik** plazerrak aldatutako begitarte bat baino. **Karlos Zabala**

Ikuspegi **polita**, ezta? **Lopez de Arana**

-**Polita** talaia, ezta? -esan du Natxok. **Berria - Kultura**

Inon den liburu **politenetako** bat da! [Fernando Rey](#)  
Bazkaldu eta gero pieza **polit** batzuk jotzeko eskatuko diogu. [Bernardo Atxaga](#)  
Oro har, nire iritziz, bizialdi **polita** emana genuen elkarrekin. [Joxe Austin Arrieta](#)  
Denak azken kantu **polit** batekin bururatu dira eta zernahi esku zarta ere bildu dute. [Herria](#)  
-Eguraldi **polita**, ezta? -esan zuen emakume zaharrenak. [Koro Navarro](#)  
Tentetu egin zen ohean, eta irribarre **polit** bat eskaini zidan. [Bernardo Atxaga](#)  
Nola ametsik ederrenak, esperantzarik **politena**, harrikoa egiten ari zela kontatzen zizkion... [Unai Iturriaga](#)  
Aukera **polita** nuen hura betiko bukatzeko, aukera bikaina. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
Gezur **polit** batzuk esan dizkizut, eta aski da. [Patziku Perurena](#)  
Egun **politak** iragan zituzten elkarrekin. [Migel Angel Mintegi](#)  
Marinak, gainera, joko **polit** bat asmatu zuen etxerako. [Karlos Zabala](#)  
Harreman **polit** bezain iraupen laburrekoa izan zen: hamabost egun. [Anjel Lertxundi](#)  
Asteburuan libratuz gero aitagaz Zugazietara itzultzea **polita** litzatekeela bururatu zaio. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)  
Giro **polita** sortu zen C113 gelan. [Jon Muñoz](#)  
Ereginaren senarrarekin ahaidetzea kolpe **polita** izan zitekeen familia osoarendako. [Aingeru Epaltza](#)

### 3 irud/hed

Mendeku **polita** zitalen eta fanatikoen gainean. [Jon Muñoz](#)  
Bazka **polita** hire lanbideko jendailarendako. [Aingeru Epaltza](#)  
Sutan erretzen den txorimalo **polita** bilakatu da orain zerbitziburua. [Koldo Izagirre](#)

### 4 (beste izenondo baten ezkerrean)

Mundu guztia txoratzten jartzen duten neskato **polit** fin horietako bat. [Lopez de Arana](#)  
Ikusi nuen haren begi-nini **polit** arimaga-beetan, beirazko puxtarriak iduri, haserre gar ttikia pizten. [Matías Múgica](#)  
Azala gero, azal **polit** gorri-iluna, ahuntz-larru pikortatuzkoa. [Jon Muñoz](#)  
Gona txiki estua zango **polit** meharretan gora bildu zitzaion neskari. [Mirentxu Larrañaga](#)  
Zeta arrezko kasaka **polit** higatu bat zeraman. [Fernando Rey](#)  
Ni inbidia jana egoten nintzen misterioz beteriko kutxa **polit** debekatu hura ikusten nuenean haien etxean. [Fernando Rey](#)  
Neskatxa **polit** ezti pertxenta bati esateko moduko gauza. [Antton Olano](#)

### 5 (beste izenondo baten eskuinean)

Emakume gartsu **polit** bat balego, ez al huke berarekin larrua jo nahiko? [Lopez de Arana](#)  
Neska gazte **polit** baten bila ibili ondoren, Abixag aurkitu zuten. [Elizen arteko biblia](#)  
-Hara, gure nini pittin **polita**. [Mirentxu Larrañaga](#)  
Nork sartu du ideia hori zure buru ttiki **polit** horretan? [Iñaki Segurola](#)  
Berehala datozkit burura zure ile kizkurra eta begi urdin **polit** horiek. [Josetxo Azkona](#)  
Begi nabar **politak** zituen. [Unai Iturriaga](#)  
Begira, begira nolako sudur greko **polita** duen! [Jose Morales](#)  
Eska ezazue soingaineko beltz **polit** bat, dotorea. [Fernando Rey](#)  
Bainugela txiki **polit** bat egokitu zuen, berak bakarrik erabili ahal izateko. [Mirentxu Larrañaga](#)  
Uro egiten diot egunez egun nire irudipenak idazteari koaderno berri **polit** batean. [Monika Etxebarria](#)  
Gezur ttiki **polit** arinekin edo, gehienaz ere, egia kokkor ñimiñoekin. [Iñaki Segurola](#)  
Hermioneren sorginkeria txiki **polit** bati esker. [Iñaki Mendiguren](#)  
Dagoeneko prest hasiera berri **polit** bati ekiteko. [Mirentxu Larrañaga](#)

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Ikusi nahi zituen neska aurpegi **politak**, beren eskote zuri eta bizkar errekin, delikatuki ibiltzen oin behatz-itsusi, gorrien gainean. [Koro Navarro](#)

### 7 (adizlagunekin)

Izena, orduan aurreneko aldiz entzun nuena, oso **polita** iruditu zitzaidan: Mary Ann. [Bernardo Atxaga](#)  
Neska zuhurra eta kementsua da, eta oso **polita**; etxe onekoa du aita.   
-Oso **polita** Karina. [Pako Aristi](#)  
Etxea zinez **polita** zen, eta Wendy oso eroso egongo zen han barruan, ziur aski. [Julen Gabiria](#)  
Bazuen Daviden seme Absalomek arreba biziki **polita**; Tamar zeritzan. [Elizen arteko biblia](#)  
Gau batean hautxo txit **polit** bat agertu zitzaion. [Askoren artean](#)  
Gogorki **polita**. [Aingeru Epaltza](#)  
Altzari berriak erosten dizkirate, tea hartzeko mahaitxoa, idazmahaia, besaulkiak eta sofa bat, oso-oso **politak** denak. [Josu Zabaleta](#)  
Beha hor doan herriko neska horri; zoragarri **polita** da, ezin egokiago orraztua. [Koldo Izagirre](#)

### 8 (adizlagunekin izen bat tartekaturik)

Portugalen arras ipurdi **politak** ikusi nituen, han ez diete *bunda* deitzen, hemen Brasilen bezala. [Karlos Zabala](#)  
-Oso eufemismo **polita**, doktorea, maingua naizela gogorarazteko. [Karlos Linazasoro](#)  
Gaur ere oso soineko **polita** ekarri duzu. [Bernardo Atxaga](#)  
Izugarri pieza **politak** egiten zituen. [Bernardo Atxaga](#)  
Prest nengoen hari buruzko itzelezko gauza **politak** esateko. [Julen Gabiria](#)

### 9 (adizlagunekin eta izen batekin, bestelakoetan)

Egusentia zen, egusenti izugarri **polita**, eguneko argi guztiekin, zerua garbi. [Fernando Rey](#)  
Zurezko espaloitik zihoan dama itxura **polit** samarreko bati. [Jose Morales](#)  
Material **polit** askoa lortuko higula esan zigunan Pasqualek. [Antton Olano](#)

### 10 (adizlagun gisa)

**Polit** agertzeko ez dut sekula izan duela zenbait egunetik hona bezain gogo handirik. [Jon Muñoz](#)  
**Politago** irten zait, lerro artezagoa, letrak ere biribilago... [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

### 11 (aski handia-edo, egoki gauzatua)

Lehor ohi da normalean, hala da, sasoi honetan, baina badaki eurijasa **politak** botatzen ere. [Pello Zabala](#)  
Zenbateko **polita** kendu diote, 650 dolar, hotelean bertan, Madrilgo Alberto Porlan idazleari. [Edorta Jimenez](#)  
Auzi korapilatsuak diru-iturri **polita** dira jende askorentzat. [Jose Morales](#)  
Zer uste zuten, zortzi mila eurok (dirutza **polita** bera bezalako batentzat, jakina, baina huskeria bat zorioneko txostenak balio zuen aldean) mirariak egiten zituztela. [Migel Angel Mintegi](#)



Dirutza **polita** zen. Juan Kruz Igerabide  
Etekin **polita** aterako zioten zalantzarik gabe ekimen hari. Joxan Elozegi  
Diru gutxirekin patrimonio **polita** eskura dezakezu Argentinan. Migel Angel Mintegi  
Uste izatekoa da Polixeneren kontaearak arrakasta **polita** izan zuela Ameriketako basko erbesteratuen artean. Edorta Jimenez  
Arratsaldean hilerrietako otoitzean baginen multzo **polita** ere. Herria  
Norma Lúciak amerikano-bilduma **polita** egin zuen, goren-mailakoa, kalitatez eta kantitatez. Karlos Zabala  
Circulo de Bellas Artesko poesia emanaldiaren ostean talde **polita** bildu ginela, norabait joateko gogoz. Edorta Jimenez  
Espainiako Enbaxadako gizon biren laguntza erostea lorturik, bi horien bidez hango dokumentuen arteko pila **politak** eskuratzu joan ei zen. Edorta Jimenez  
Ekinaren ekinaz argazki sorta **polita** egitea lortu zuen, eta aladurarik sentitu gabe haren aitagarrebarri bidali zion. Migel Angel Mintegi  
Kontainia **polita** egiten zioz Denverri. Anton Garikano  
- - Adar **politak** jarri zizkidan. Migel Angel Mintegi

## 12 *polit-polit* (orobat *polipolit g.er.*)

Ez da ez gazte-gazte ez **polit-polit** horietakoa ere. Joxerra Garzia  
Polita zen, **polit-polita** ere bai, nondik begiratzen zenion. Karlos Zabala  
Haren aurpegiaren obaloa **polit-polita** zen, eta biribila, arrautza errun berria bezala. Jose Morales  
**Polit-polita** da aitzin-etapa. Berria - Kirola  
Nik bazakinat lorategi **polit-politak** egiten! Karlos Zabala  
Oin tikiak, emakumeengan, gauza **polit-polita** dira! begitarte **polit-politak** jartzen zituen larrua jotzean. Fernando Rey  
Egia esan, Blanche, **polit-polita** zaude. Xabier Paya  
Baina, ai ene!, nahasi eta emakume-alkandora bat hartu du: botoi urdin argi batzuk dauzka lepoaren bueltan: **polit-polita** dago! Antton Olano

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**emakume polit** (6); **etxe polit** (5); **gauza polit** (11); **gazte polit** (5); **gezur polit** (5); **hitz polit** (8); **istorio polit** (7); **neska polit** (25); **neska polit bat** (11); **polit askoa** (9); **polit askoak** (8); **polit polita** (26); **polit polita da** (5); **polit politak** (6); **tanto polit** (5); **txiki polit** (13)  
**abantaila polita** (5); **ahots polita** (6); **aitzakia polita** (5); **alde polita** (17); **argazki polita** (6); **arras polita** (6); **aukera polita** (45); **aukera polita du** (7); **aurpegi polita** (11); **beizan polita** (20); **bikote polita** (9); **bilduma polita** (6); **bultzada polita** (5); **detaile polita** (5); **dirutza polita** (7)  
**emakume polita** (9); **erakustaldi polita** (6); **errenta polita** (7); **errenta polita lortu** (5); **erronka polita** (17); **erronka polita da** (5); **esperientzia polita** (7); **etxe polita** (8); **final polita** (6); **gai polita** (7); **gauza polita** (20); **giro polita** (19); **herri polita** (7); **hiri polita** (5)  
**ideia polita** (12); **ikuskitzun polita** (17); **ipuin polita** (8); **istorio polita** (5); **itxura polita** (8); **izen polita** (23); **izen polita da** (5); **izugarri polita** (6); **joko polita** (15); **kanta polita** (5); **kopuru polita** (11); **laguntza polita** (8); **laguntza polita eman** (6); **lan polita** (63); **lan polita egin** (40); **lan polita egiteko** (5); **lehia polita** (27); **lehia polita izan** (6); **lehia polita izango** (10); **leku polita** (8); **maila polita** (22); **maila polita eman** (7); **maila polita erakutsi** (6); **multzo polita** (5); **neska polita** (15)  
**opari polita** (6); **oso polita** (184); **oso polita da** (45); **oso polita izan** (20); **oso polita izango** (6); **oso polita zen** (16); **partida oso polita** (6); **partida polita** (36); **partida polita egin** (6); **partida polita izango** (6)  
**saio polita** (25); **saio polita egin** (15); **sarrera polita** (8); **sorta polita** (8); **talde polita** (19); **tarte polita** (9); **txapelketa polita** (9); **ze polita** (16); **zein polita** (8); **zer polita** (12); **zer polita den** (6); **zerbait polita** (7)  
**ezin politagoak** (5)  
**aukera politak** (7); **gauza politak** (19); **gauza politak egin** (5); **hitz politak** (40); **hitz politak izan** (8); **jokaldi politak** (6); **neska politak** (12); **oso politak** (31); **oso politak dira** (7); **tanto politak** (8)  
**neskarik politena** (5)  
**neska politenen** (5)

## politagotu, poligago(tu), politagotzen du/du *ad* piolitago bihurtu.

-Izen polita da, eta esanahirik ez izateak **politagotu** egiten du. Patxi Zubizarreta

## politahun (orobat *pollitahun*) iz polita denaren nolakotasuna.

Mirailan heure **politahun** ederresten badun, beldurrerako izan dadila, ez plazerrerako: galtzeko beldurra baino ez baitin ekarriko hire edertasun horrek. Joxan Elozegi  
**Politahun** eta kuttuntasun sinboloa hartzen du hor, galeperraren irudira, haur pospolin horrek. Patziku Perurena  
Dena zalutasunez, **pollitahunez**, eta indartasunez egina den kirol hori, mail guzietan betetzen ahal da. Herria

## politburo 1 iz agintean dagoen Alderdi Komunista Komite Zentral bateko batzorde politikoa.

Kongresua joan zen apirilaren 18an hasi zuen alderdi komunistak, eta Batzorde Nagusi berria osatzeko eta **politburoan** teknokratik nagusitzeko balio izan du. 1973an **Politburoan** sartu eta Sobiet Goreneko Presidiumgo lehendakari izan zen. Berria - Mundua  
Pekingo Tiananmen enparantzan 1989an izaniko gertaeren ondoren heldu zen **politburora**. Berria - Mundua  
Kubako Alderdi Komunistako **politburoko** kide Juan Carlos Robinson bota dute, botereaz abusatzea, zintotasun eza eta harrokeria leporatuta. Berria - Mundua

### 2 irud/hed

Gainera, Hamaseko **politburoko** buru Khaled Meshalek Khartumen (Sudan), Liga Arabiarren goi bileran, esan zuen Israelgo bozetan irabazlea zeinahi izaki ere Israelen palestinarren eskubideekiko duen jarrera «erasokorra» dela. Berria - Harian  
Taldeko iturriek atzo jakinarazi zuten, orain arteko **politburoko** buru nagusi eta Beirut (Libano) bizi den Khaled Meshal izango da Hamaseko agintari goren. Berria - Mundua  
FDLP Palestina Askatzeko Fronte Demokratikoko **politburoko** kide Sale Zeidanen esanetan, [...]. Berria - Mundua  
UMP alderdiko **politburoko** kidea da, eta «Europaren erakuntzarekiko konpromiso handia» erakusten du. Berria - Mundua  
Atlantikoaren bestaldeko **politburoak** ongi informatuta mantentzen nau. Harkaitz Cano

## politeia iz greziar polisetan, lege nagusia.

Erenazimenduko errepublikazaleek komunitate politikoa, alegia **politeia**, herritartasun gisa hartu zuten. Esteban Antxustegi  
Pertsona orori **politeiaren** kide gisa, alegia "herritar" gisa, zion errespetuak, [...]. Esteban Antxustegi  
Leinu kutsua kendu zioten "herritar" esanahiari, eta unibertsal bihurtu zuten, edozein pertsonaren duintasunaren zati moduan, zernahi zelarik bakoitzaren **politeia**. Esteban Antxustegi  
Pertsonak herritar gisa hartu eta eskubidedun bihurtzea, **politeia** bateko kide ohorezkoak izatera heltzea. Esteban Antxustegi

## politeismo iz jainkoak hainbat direla onartzen duen dotrina.

Hindutarrek ezin dute eraman sikh erlijioaren monoteismoa, **politeismoari** dioten herria eta brahman apaizei erakusten dieten begirune eza. **Gotzon Garate**

Jainkorik gabeko **politeismo** bat zidan emazte galantak adierazi, larrazkeneko arratsatsalde goxoan. **Piarres Aintziart**

**Politeismoaren** sarraldi horiek monoteismoa erabat finkatzea eragin zuten Islamean, baita protestantismoan ere, hain sakon ez bada ere. **Iñaki Mendiguren**

Greziarren **politeismoa** eta idolatria. **Iñaki Mendiguren**

Monoteismo judaikoaren patua behin eta berriro agertzen zen **politeismoaren** erasoan egotea zela. **Iñaki Mendiguren**

Priaporen lekua San Gonzalok hartu zuen, gure **politeismo** katolikoan. **Karlos Zabala**

## politeista 1 izond politeismoarena, politeismoari dagokiona.

Fede **politeistako** jainkotasun menpekoek, hala nola deabru eta ingeruek, ez dute bat egiteko ahalmenik, eta banan-banan arduratu behar dute beren adorazio eta kultura sustatzeaz. **Xabier Olarra**

### • 2 iz politeismoan sinesten duen pertsona.

Katolikoak **politeistak** dira. **Karlos Zabala**

Khaltrúm, edo Khantrúm, katolikoan erritu eta argizari-jalekeria da, birritan jasanezina: **politeista** delako eta, batez ere, imajinaz josirik egonik [...] idolatria delako. **Juan Garzia**

### 3 irud/hed

Jainko-txiki asko duela Zapiainen aldareak, denoi pizten digula aldian-aldian kandelatxo bana, eta lagunarte onean bizi garena Parnaso **politeista** horretan. **Markos Zapiain**

## politekniko 1 izond teknikaren zenbait adar hatzen dituen.

Hamazazpi urte zituela Eskola **Politeknikoan** onartua izan zen, Frantziako eskolarik zailenean. **Jesus Mari Mendizabal**

Eskola **politeknikoko** irakasle-begirale gazte-gazte baten lana izan zen hori. **Jon Muñoz**

Bermeoko eskultorearen erakusketaz zabaldu zuten atzo Valentziako Unibertsitate **Politeknikoan**. **Berria - Kultura**

Hoteletik gertu dagoen Institutu **Politeknikoko** horma handi batean *Educatori di merda* (Hezitzaile kakatsuak) jartzen du. **Anjel Lertxundi**

Oteiza Lizeo **Politeknikoa** (537 ikasle eta 102 langile). **Herria**

### • 2 iz eskola politeknikoa.

Nik ere begiratu nion gazte-gazterik hildako **politeknikoko** ikasleari. **Monika Etxebarria**

**Politeknikoan** hila 1904an. **Monika Etxebarria**

Gure etxera, ia arratsero etortzen ziren Terni eta Ginoren, hau da, nire anaia zaharrenaren lagun batzuk, Ginok **Politeknikoan** ikasten baitzuen urte haietan. **Fernando Rey**

## politezia iz ipar jendetasuna, kortesia, adeitasuna.

Hastapenean **politeziak**, eta giroaren samurtasunak erabat bildurik gero. **Itxaro Borda**

Jendetasunak eskatzen dituen **politeziak** nolabait errespetatu zituztela. **Berria - Harian**

Jendetasunak eskatzen dituen **politeziak** nolabait errespetatu zituztela. **Berria - Harian**

Menturaz, ez baitzitaion iruditzen diplomazia eta **politezia** oinek nia-rekin eta barrea-rekin errimatzen zutenik. **Berria - Kultura**

Aski egin da aintzineko urtetan euskara debekatu eta mexpreziatu, gai hortarat heltzeko eta orain **politeziaren** aitzakiaz gure hizkuntza ez erabiltzea. **Herria**

Zer **politezia**!  
**Filipe Bidart**

## politika 1 iz estatuaren edo nazioen gobernatzearen antzea eta praktika; estatu bat gobernatzeko edo beste estatuakiko harremanak gauzatzeko era; herri arazoaren multzoa, eta herritarrek horretan duten esku hartzea.

**"Politika"** hitzak, izen gisa azaltzen denean, bi esanahi desberdin zituen grekoen pentsamenduan: alde batetik, polis batean edo Hiri-estatuaren arteko harremanetan gertatzen zen egoera zehatza; eta bestetik, polis bera kudeatzeko erabiltzen ziren jakite, ekintza edo erakundearen multzoa. **Askoren artean**

**Politika** ez da, izan ere, gauzen ulertzeko egiten den azterketa soila, baina bai gauzen aldatzeko eta bide zuzenean ezartzeko egin behar den urratsa. **Piarres Xarriton**

**Politika** gizakiaren helburu gorenen zientzia da eta gizakia animalia politikoa da, mintzo baita eta bere idurikoekin probetxuzko eta justiziako harremanak baitauka. **Askoren artean**

Platonentzat **politika** etikara ailegatzeko bidea zen. **Askoren artean**

**Politika** horrek, merkataritza-balantzaren gainean zuen eragin positiboaz gainera, zerga-oinarria zabalduz, estatuaren sarrerak handitzen zituen. **Koro Navarro**

Ekonomia Politikoa **politika** hutsa besterik ez al da? **Iñaki Heras**

Elkarrizketaren jakintza besterik ez dela **politika** erran baitzuen naski behin Hannah Harendek [...]. **Piarres Xarriton**

Protestantismoa dela-eta ordea, badakigu zer **politika** abiatu zuen herri hizkuntzei buruz: gogoratzen zaigu Lutherrek alemanaren alde eta Calvinek frantsesaren alde egin zuten lan bera eginarazi ziola Joana Albretekoak, euskararen alde. **Piarres Xarriton**

Nazioarteko **politikan**, garbi dago AEBek, terrorismoa dela eta, salbuespen egoera ezarri dutela. **Joseba Zulaika**

Estanflazioak, izan ere, koiunturazko **politikaren** usadiozko egitura desegin zuen. **Koro Navarro**

1970eko hamarraldian HPEEren prezio jasoen **politikak** eskaintza lehiakor bat gararazi zuen. **Koro Navarro**

Nafarroako Gobernuak ekintza burutuena **politika** baliatu du, dena ahalik eta azkarren egitea izan da bere asmoa, epaitegien sententziak nola edo hala baldintzatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Truke-tasaren **politikak** kapital espekulatiboaren sarrera bultzatu zuen. **Koro Navarro**

**Politikak** prestatzen eta erabakiak hartzen gizarteko eragile guztiek parte hartzeak lagundu egingo du anaitasuneko eta ingurumen-errespetuko baloreak geureganatzen. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Afaltzen ari ginen bitartean, **politikaren** alorrera lerratu zen pixkanaka elkarrizketa. **Juan Kruz Igerabide**

Dena zen posible **politikaren** lokaztian. **Migel Angel Mintegi**

-Esan dizut, ni ez naiz **politikan** sartzen. **Javi Cillero**

Ez nabil **politikan**!, egin nion protesta. **Anjel Lertxundi**

### 2 (izenondoekin)

Herrialde nagusiaren baitan bakea gorde beharrak irabazien **politika** eskuzabala eskatzen du. **Koro Navarro**

"Zientzia burges" bat praktikatzeko zutela eta, **politika** erreakzionario baten zerbitzura. **Juan Garzia**

Argentinak ezartzen zuen **politika** ekonomikoa munduko onena da. **Iñaki Heras**

Krisi horietan, herrialde hartzekodunek **politika** ekonomikoaren definizioan esku hartzen dute. **Koro Navarro**

Herrialde industrializatu nagusien **politika** makroekonomikoaren koordinazioaren bidez. **Koro Navarro**

**Politika** keynesianoa bideragarria eta eraginkorra izan behar luke. **Iñaki Heras**  
**Politika** neoliberalen norabide aldatetari hasiera emango zioten **politika** global eta lokalak abian jartzeko. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Ez dago langabeziaren kontrako **politika** aktiborik; erretorika bai, hori oso nagusitu da. **Iñaki Heras**  
Albaniar jeneral hau [...] herrialdea modernizatzen saiatu zen, eta, hala, **politika** espansionista bideratu zuen, europar herrialdeena eredu hartuta. **Koro Navarro**  
Teorian behintzat, **politika** hedakorrek inbertsioa eta kontsumoa areagotzea dute helburu. **Iñaki Heras**  
Langabeziaren kontrako **politika** makroekonomiko espezifikoak alde batera utzi dira. **Iñaki Heras**  
Nik ez dut **politika** literariorik egin nahi. **Ana Urkiza**  
**Politika** patriarkal setatsuaren akabera iragartzen du *Ahotsak* mugimenduak. **Joseba Zulaika**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskal Herrian, gaur egun, ez dut ikusten **politika** gizon bertute handikorik. **Menane Oxandabaratz**  
Guk ez ditiagu **politika** kontu horiek ondo ulertzen. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Hots, **politika** gaietan, gure inozentzia ala enuxentzia etikoa galdua genuen seminarista gutiz gehienek. **Piarres Xarriton**  
**Politika** -urte baten historia da, azken buruan. **Koldo Biguri**  
Mendebaldeko europar herriek mila urte edo gehiagotan lorturiko **politika** -, gizarte- eta kultur mailako aurrerapena. **Iñaki Mendiguren**  
Eskuineko ala ezkerreko **politika** -ikerlariek onartzen omen dute bortizkeria ez dela boterearen erakusle argiena baizik. **Piarres Xarriton**  
Ekonomia eta **politika** pentsalari eta saiogile zorrotza. **Iñaki Heras**  
Santutasunaren bilaketa pertsonala gizarte-ekintzaren forma bat baitzen, **politika** -mailako gizarte-zerbitzu sekular orok baino askoz indar handiagoz hunkitzen zituena gizakiak. **Iñaki Mendiguren**  
XVIII. Mende hondarreraino bederen, ez zaiola garrantzi gehiegirik eman ez Nazioari ez naziotasunari **politika** sailean. **Piarres Xarriton**  
**Politika** -giraon mugitzen zen jendeak maistra aurrerakoitzat zeukan, askatasunaren pedagogiaren aitzindarizat. **Juan Kruz Igerabide**  
Estatu oraindik burujabeak finantza-mendekotasunean ipini ziren, **politika** -mendekotasunean beraz. **Koro Navarro**  
Askapen ekonomiko horren ondoren berehala iritsi zen gizarte- eta **politika** -askapena. **Iñaki Mendiguren**  
Liburua oinarri-oinarrizko kontzeptuekin hasiko dugu [...] eta amaierarako ekonomia edo **politika** saio tonua hartuko du. **Iñaki Heras**  
**Politika** orriak oso azaletik -areago iritsi sailekoak- irakurtzen ditugu. **Txema Ramirez de la Piscina**  
- Erantzuna ez da sozio-**politika** tratatu zentzudun bat, baizik bitzita baten kontaera. **Markos Zapiain**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Merkatu-egitura ez perfektuen existentziak, alabaina, merkataritza-**politika** oldarkorrak bultzatzen ditu. **Koro Navarro**  
Estatu batek diruaren sorkuntzaren eta kontrolaren gidaritza galtzen badu, ekonomia **politikako** tresna nagusi bat galtzen du. **Iñaki Heras**  
Ekonomia **politika** neoliberalak dira, eta ez teknologia berriak, lanpostuak deuseztatzen dituztenak. **Iñaki Heras**  
Zerga **politika** , diru **politika** , atzerri **politika** eta errenta **politika** (oinarrizko prezioen eta soldaten finkatzea). **Iñaki Heras**  
Helburu horri begira, diru-**politika** murriztaileak ezartzen dira, interes tasak areagotuz. **Iñaki Heras**  
Ekonomia eta Diru Batasunaren ondorioz diru **politika** bateratua Europako Banku Zentralak ezarriko du. kapital pribatuen nazioarteko merkatu bat osatzea eragingo zuten Estatu Batuen finantza-**politikaren** kontraesanek. **Iñaki Heras**  
Zerga-**politika** hedakorra egitea da beste aukera bat. **Iñaki Heras**  
Kanpoko oreketan ere eragin kaltegarria zuen aurrekontu-**politikak** . alferrikakoak direla desabantailan daudenen heziketa bultzatzeko gizarte-**politikak** . **Koro Navarro**  
Bazterketa horren ondorioak, barne-**politikan** nahiz gizartearen, oso kaltegarriak izan daitezke. **Koro Navarro**  
Lehentasuna du ingurumen-aldagaia sektore-**politika** guztietan txertatzeak, eta batez ere industrian, garraioan, energian, nekazaritzan eta kontsumoan txertatzeak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Desarautze-**politikak** , bere aldetik, komunikazioen iraultzarekin batera, finantza-globalizazioaren prozesua sendotu du. **Koro Navarro**  
Kolonizazio-**politika** konstruktibo eta gizatiar samarra estatu unibertsalen ezaugarrietako bat dela. **Iñaki Mendiguren**  
Pedro Handiak, jeinuaren zolitasunaz, mendebaldartz-**politikak** "dena ala ezer ez" izan behar zuela igarri zuen. **Iñaki Mendiguren**  
Zentralizazio-**politika** abian jartzea eta nazio barneko ekonomia liberalizatzea. **Koro Navarro**  
Hizkuntz **Politikako** Zuzendari bati neronek aditua: [...]. **Patziku Perurena**  
Georges Pompidou buru zuen gobernuaren zientzia-**politika** kritikatzek zen; Jacques-en iritziz, presidentek ez zion jaramon egiten zientziari. **Juan Garzia**  
Funtsean, barne-eskaria balantza korrantearen orekarekin adostuko zen mailara eskatzen zuten egokitze-**politika** horiek. **Koro Navarro**  
Ezin ote dakioge gisa bereko kritikarik egin, azken buruan, administrazioaren eramu-hartze **politika** orori? **Iñaki Heras**  
Aitzakia merkeetan babestutako zabarkeria **politika** honekin. **Iñigo Aranbarri**  
Europako Laborantza **Politika** Komuna madarikatzen zutela. **Itxaro Borda**  
- Bi diru **politika** mota aplika daitezke: hedakorra edo espansiboa [...] eta kontrakoa, murrizkorra. **Iñaki Heras**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

atzerri politika (93); aurrekontu politika (6); aznarren politika (6); bakartze politika (6); barne politika (18); diru politika (68)  
ebko atzerri politika (14); euren atzerri politika (6); egiazko hizkuntza politika (8); egungo politika (6); ekintza burutuen politika (9); ekonomia eta politika (6); ekonomia politika (15); energia politika (9); enplegu politika (11); eredu politika (12); espetze politika (194); espetze politika aldatzeko (12); estatuaren politika (7); etxebizitza politika (17); europako politika (8); euskal politika (14); ezkerreko politika (10); gizarte eta politika (10); gizarte politika (28); gobernuaren espetze politika (7); gobernuaren hizkuntza politika (10); gobernuaren politika (29); gorroto politika (6); hezkuntza politika (10); hizkuntz politika (61); hizkuntza politika (200); hizkuntza politika aztertze (9); hizkuntza politika berri (7); hizkuntza politika berria (12)  
immigrazio politika (19); industria politika (12); ingurumen politika (9); israelen politika (9); jaurlaritzaren politika (6); kanpo politika (9); kartzela politika (51); kartzela politika aldatzeko (7); kultur politika (17); laborantza politika (7); legebiltzarreko politika (6); legebiltzarreko politika orokorreko (6); mendeku politika (10); nafarroako hizkuntza politika (9); nazioarteko politika (13); nekazaritza politika (36); nekazaritza politika bateratuaren (6)  
politika abiatu (6); politika aktiboak (15); politika aldatzeko (11); politika aldatu (28); politika aldatuko (6); politika aldatzea (11); politika aldatzeko (35); politika aldatzeko eskatu (8); politika aldatzen (7); politika alde (7); politika aldetik (9); politika amaitzeko (17); politika amaitzeko eskatu (6); politika arloan (17); politika arloko (10); politika aurrerakoiki (7); politika aztertze (10); politika bateratu (7); politika bateratua (18); politika bateratuak (7); politika bateratuaren (9); politika bera (21); politika berri (22); politika berri baten (6); politika berria (31); politika berriak (6); politika berriaren (6); politika bide (9); politika builtzatu (9)  
politika egin (35); politika egitea (10); politika egiteko (71); politika egiteko modu (7); politika egiten (32); politika egokia (6); politika ekonomiko (22); politika ekonomiko (22); politika ekonomikoak (11); politika ekonomikoaren (19); politika ekonomiko (8); politika eraginkorra (9); politika eraginkor (9); politika errotik aldatu (6); politika eta ekonomia (11); politika eta gizarte (9); politika eta segurtasun (16); politika eta segurtasunerako (29); politika gaiak (11); politika gaietan (8); politika gaitzetsi (14); politika gaitzetsi (6); politika gizon (16); politika gogor (6); politika hiltzaile (15); politika hiltzailearen (6)  
politika kaxkarra (6); politika kontua (8); politika kontuak (9); politika kontuetan (11); politika kriminala (6); politika kritikatu (14); politika mailako (9); politika mailan (17); politika mailan (10); politika munduan (10); politika neoliberal (7); politika neoliberalak (13); politika neoliberalak (11); politika neoliberalen (10)  
politika orokor (6); politika orokorrari (11); politika orokorreko (31); politika orokorreko eztabaidan (11); politika osoa (6); politika publikoak (6); politika publikoen (6); politika sailean (8); politika sozial (10); politika soziala (14); politika sozialak (10); politika ulertzeko (7)  
ppren politika (16); presoan sakabanaketa politika (8); sakabanaketa politika (101); sakabanaketa politika amaitzeko (11); sakabanaketa politika salatu (11); upren politika (6); zerga politika (12)  
diru politikak (8); egungo espetze politikak (7); enplegu politikak (11); eredu politikak (9); espetze politikak (41); espetze politikak hil (7); ezkerreko politikak (8); gizarte politikak (16); gobernuaren politikak (7); hizkuntz politikak (8); hizkuntza politikak (20); kartzela politikak (7); politikak bultzatu (6); politikak eragindako (6); politikak eragiten (6); politikak hil (18); politikak hil egiten (8); politikak porrot egin (7); sakabanaketa politikak (45); sakabanaketa politikak eragindako (6); sakabanaketa politikak hil (9)  
hizkuntz politikako (14); hizkuntza politikako (18); hizkuntza politikako zuzendari (7)  
atzerri politikan (26); barne politikan (21); espetze politikan (31); euskal herriko politikan (6); euskal politikan (14); gizarte politikan (7); hizkuntz politikan (6); hizkuntza politikan (14); kanpo politikan (6); nafarroako politikan (7); nazioarteko politikan (13); politikan artzeko (6); politikan parte hartzeko (11); politikan sartu (11); politikan sartu zen (6); politikan sartzan (7)  
atzerri politikarako (23); euskara hizkuntza politikarako (12); gizarte politikarako (13); hizkuntz politikarako (15); hizkuntza politikarako (96); hizkuntza politikarako

**bulogo** (14); **hizkuntza politikarako sailburuordeak** (6); **hizkuntza politikarako zuzendari** (9); **hizkuntza politikarako zuzendaritza** (13); **jaurlaritzako hizkuntza politikarako** (13)

**politikarekin zerikusia** (7); **politikarekin zerikusirik** (8)

**atzerri politikaren** (17); **barne politikaren** (7); **diru politikaren** (15); **energia politikaren** (6); **espetze politikaren** (52); **euskal politikaren** (14); **gizarte politikaren** (6); **gobiernuaren politikaren** (8); **hizkuntz politikaren** (15); **hizkuntza politikaren** (44); **kartzela politikaren** (11); **nazioarteko politikaren** (8); **politikaren aldeko** (8); **politikaren alorrean** (6); **politikaren arloan** (14); **politikaren bidez** (11); **politikaren eraginez** (6); **politikaren esparruan** (6); **politikaren garaia** (7); **politikaren helburua** (7); **politikaren inguruan** (18); **politikaren inguruko** (15); **politikaren kontra** (9); **politikaren kontrako** (10); **politikaren mundu** (7); **politikaren munduan** (12); **politikaren ondorio** (17); **politikaren ondorioz** (13); **politikaren porrota** (13); **ppren politikaren** (7); **sakabanaketa politikaren** (31)

**atzerri politikari** (9); **barne politikari** (9); **diru politikari** (12); **espetze politikari** (20); **estatu politikari** (8); **euskal politikari** (14); **hizkuntza politikari** (24); **hizkuntza politikari buruzko** (8); **sakabanaketa politikari** (6)

**politikatik kanpo** (6)

**diru politikarik** (3); **industria politikarik** (3)

## politikagintza iz politika egitea, politika jarduetan parte hartzea.

**Politikagintza** gaur, gertaera guztei errenta ahalik eta handiena ateratzeko langintza baizik ez baita, Patri. **Hasier Etxeberria**

Itzuliko al zinateke **politikagintza** aktibora? **Beria - Mundua**

Klitxez betetako diskurtsoan, guri leporatzen digute negoziazio kolektiboan ere **politikagintzan** aritzea. **Beria - Ekonomia**

**Politikagintzan** dabilzan emakumeak, adibide bat jartzeagatik, oro har, seme-alabak hazita dituztenak edo oso gazteak dira. **Ana Urkiza**

Lekuan lekuko **politikagintzan** lan egin. **Heria**

Ez zaio burutik pasatu ere egiten euskarak, kasu, industrian egon behar duela, eta **politikagintzan**, hezkuntzan, literaturan. **Bernardo Atxaga**

Juan Mari Atutxa Eusko Legebiltzarreko presidentek **politikagintza** utziko du legegintzaldi hau amaitzen denean. **Beria - Euskal Herria**

EAKo eta PSE-EEko buruzagiek bilera egin dute euskal **politikagintzari** buruzko iritzia trukatzeko. **Beria - Euskal Herria**

Jiang Zeminak Armadaren buruzagitzat utziko duen itxaropena dute Txinako **politikagintzako** erreformazaleek. **Beria - Mundua**

Publizitatea eta marketingaren teknikak eremu guztietara zabaltzen ari dira; **politikagintzara**, kasu. **Txema Ramirez de la Piscina**

Erdi Aroko Europako merkataria ez du **politikagintzak** erakartzen ordea; izan ere, galarazia du politikaren mundua. **Koro Navarro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**euskal politikagintza** (17)

**euskal politikagintzak** (5)

**euskal herriko politikagintzan** (6); **euskal politikagintzan** (16); **italiako politikagintzan** (3); **politikagintzan ere** (6); **politikagintzan sartu** (3)

**euskal politikagintzaren** (3)

**euskal politikagintzari** (4)

## politikakeria iz politikagintza gaitzesgarria.

Ikaragarria izan behar du, ezkerreko politika egiteko aukera alferrik galdu eta eskuineko **politikakerian** ibili osteko damu mingots horrek. **Hasier Etxeberria**

Baina ez, horren ordez **politikakeriatan** dabil mozoloa. **Urtzi Urrutikoetxea**

Oligarkia liberal-kontserbadorearen, ustelkeriaren, **politikakeriaren** eta gringoen interesak. **Beria - Mundua**

Ez dugu argitalpen prozesua zirinduta ikusi nahi **politikakeriak** direla medio. **Beria - Euskal Herria**

Kapitalismo modernoaren lotsagabekeriak, **politikakeriaren** makurkeriak, indartsuen humanismorik ez hutsak komunismoari zilegitasun-itxura ematen diote historiaren aurrean. **Beria - Kultura**

Beste batzuek ere ez dute haren oraina onartu, **politikakeriaren** bidean herritarren eguneroko sufrimendutik urrundu dela leporatuta. **Beria - Mundua**

## politikari 1 iz politika edo gobernu gaietan diharduen pertsona.

**Politikariari** dagokiola ikustea zer den hobe, erresuma bakoitzarentzat: ala nazio bakarreko estatua izaitea ala nazio askotako estatua. **Piarres Xarriton**

Ni abokatua nauk, ez **politikaria** ..., ez diat saltsa horietan sartu nahi. **Lopez de Arana**

Ekonomia politikak errazak izan behar dute, konplikatuak oso zailak baitira argumentatzeko, sortzeko eta diseinatzeko, eta **politikariak** dira ezarri behar dituztenak. **Iñaki Heras**

**Politikaria**, militante antifaxista, Turatiaren ihesa antolatzeagatik atxilotua eta auziperatua. **Fernando Rey**

Nahi nuke, bai, liburu hau gure **politikari** eta gizarte arduradunen eskuetan egongo balitz. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Eztabaida handia izan zen ekonomilari, **politikari** eta hiritarren artean oro har. **Iñaki Heras**

Maiz **politikariak** eta polizia bera ere salmentan nahasirik daude. **Gotzon Garate**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Pasadizo horrek erakusten du **politikari** gailen batek antzeman dezakeela nolako garrantzia duen jakintza-arlo berri batek. **Juan Garzia**

Goi mailako **politikari** izatera iritsi zen. **Iñaki Heras**

Hi bezalako jaiotzetiko **politikari** batek sen on handiagoa izan behar likek. **Lopez de Arana**

Ez zen halakorik gertatu **politikari** eskuindarrak nagusi ziren lekuetan. **Jokin Urain**

Eskuineko **politikari** aho-handiek, aberatsen sustengatzaile lehenak [...] enplegu mota horren jendetza osoari hedatzea amesten zuten. **Itxaro Borda**

Kazetariak erosit, **politikari** ustelak bultzatuz, lider deserosoen hilketak aginduz. **Alberto Ladron Arana**

Mendebaldeko **politikari** liberal, sozialista eta demokrata guztiak. **Piarres Xarriton**

Frantses **politikari** errepublikazale doktrinario batekin izandako elkarrizketarena kontatu zidan. **Josu Zabaleta**

Sobietar **politikaria**, 1909-1989. **Bernardo Atxaga**

Akusazioek eragina ukan zuten; amerikar **politikari** eskuindar zenbaitek Gustavo Durani buruzko ikerketari ekin zekion eskatu zuten. **Edorta Jimenez**

Marko Tulio Zizeron erromatar **politikari**, hizlari, pentsalari famatuari. **Piarres Xarriton**

**Politikari** profesionalen metafora. **Hasier Etxeberria**

Bai **politikari** katalanak eta bai galegoak, PP, PSOE eta gainontzeko alderdietakoak, katalanez edo galegoz aritzen direla telebista kameran aurrean. **Jokin Urain**

Garai hartako "Marcos" diktadorearen kontrako **politikari** erakargarriena zen Aquino. **Ramuntxo Etxeberri**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Politikari** karrera egiten ziharduen Jesus Galindezek. **Edorta Jimenez**

Ororen buru, amerikarrek **politikari** ala kolaboratzaile familia dirudunak ez zituzten nahi izan joko kanpo ezarri. **Ramuntxo Etxeberri**

Onartuko al dugu **politikari** -andana batek ate ondoan limosna eske bageunde bezala trata gaitzan? **Lopez de Arana**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere lorpenaren iraunkortasunagatik neurtuta, Han dinastiaren sortzailea estatu unibertsal bat abian jarri duten estatu-**politikari** guztien arteko handientzat har daiteke.

**Iñaki Mendiguren**

Prelatuak bi aldeetan izan ziren, baita estatu- **politikariak** Ekialdeko erromatar aldean ere, bi kristandadeen arteko haustura eragozteko kezka zutenak. **Iñaki Mendiguren**

## 5 (izenondo gisa)

Euren alderdiak hain distantziaturik egon arren, emakume **politikari** hauen arteko kidesuna da gaur gaurkoz etorkizunerako politika berri baten promesarik garbiena.

**Joseba Zulaika**

Beren bizitza ere entregatuko lukete gizon **politikari** hauek beren alderdiek beti sinetsi dutenarekin jarraitzeko; beren ideologien "Beste" nagusien aurrean, zikiratez sinbolikoaren tentazioa dute beti. **Joseba Zulaika**

XVIII. mendeko ekonomiaren dibulgatzaile moralistek, hau da, filosofo **politikariek** -utilitaristek, zehazki- hartu baitzuten lelo liberal horren oinarria hedatzearen lana. **Iñaki Heras**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**artista eta politikari** (3); **eskuineko politikari** (4); **espainiako politikari** (5); **estatu politikari** (8); **euskal politikari** (14); **goi mailako politikari** (3); **idazle eta politikari** (3)

**politikari abertzale** (5); **politikari andana** (3); **politikari bakarra** (6); **politikari ezagun** (4); **politikari ezaguna** (3); **politikari ezagutua** (4); **politikari katalanak** (5); **politikari nafarrak** (8); **politikari nafarraren** (4); **politikari ohia** (3); **politikari sozialista** (3); **politikari ustel** (4); **ppren politikari** (3); **urteko politikari** (5)

**politikaria da** (4); **politikaria izan** (10)

**euskal politikariek** (4); **gure politikariek** (6)

**euskal politikarien** (10); **politikarien ahotan** (3); **politikarien esku** (9); **politikarien ustelkeria** (3)

## politikariburu iz politikarien burua.

Carla del Pontek, Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalak adierazi duenez, Radovan Karadzic Bosniako serbiarren **politikariburu** ohia, Belgradon dago.

**Berria - Mundua**

## politikatu izond politizatua.

Lehenik, segur dea bezitu ez diren gazte horiek politika arrazoinak zituztela? hala bada, horrek erran nahi du nunbait Bestaberri, jadanik, sentsu batean **politikatua** dela.

**Herria**

## politikatzale (orobat politikazale g.er.) iz ipar politikaria.

Goretsi ditu herri hortako **politikatzaleak**, baketsuki baitituzte gauzak aldatu eta demokrazia eraiki, apartheid beltzen eta xurien arteko berexkunde higuigarriaren ondotik.

**Herria**

Orai danik gertakari horri begira daude aleman **politikatzaleak** eta haren apailatzen ari. **Xipri Arbelbide**

Shimun Peres kanpoko judu minixtroa hiriz hiri badoa, **politikatzaleekin** bakea duela aipatzen, hala nola [...] Moubarak presidentarekin edo Jordanian Abdallah erregearekin.

**Herria**

## politikazale<sup>1</sup> iz politikaren zalea dena.

Ez naiz inolako moduz **politikazalea**. **Matías Múgica**

Ez naiz **politikazale**, aitzakia ipini nion. **Xabier Montoia**

Sartre **politikazalea** ere izan zelako. **Berria - Harian**

## politikazale<sup>2</sup> ik politikatzale.

## politikeria iz politika gaitzesgarria.

Ez dut horretaz baloraziorik egingo, **politikeria** egitea delako. **Berria - Euskal Herria**

Askotan esaten da gizartea nazkatua dagoela politikoeekin, eta ni ez naiz harritzen, **politikeria** asko entzuten delako, eta erantzun gutxi. **Berria - Euskal Herria**

Gure herriak gudariak behar ditu; eta ez sasi-**politikeria** antzua. **Txillardegi**

## politikero iz adkor politiko txarra.

Dirudianeaz frantses gehiengo Turkiaren kontra dago eta politikari batzuk -hobe liteke **politikero** deitzea- nahasten dituzte Turkiari eza eta Europako konstituzioari eza emaita. **Herria**

Alabainan hauteskundeak hurbiltzen direlarik politikariak, are gehiago **politikeroak** ari dira hitzemaiten eta hitzemaiten. **Herria**

Ohargarri halere frantses hedabide handien eta gure **politikeroen** ixiltasun nigargarria. **Herria**

**Politikero** batzuk euskaldunegi zela ez zutena ote kausituko? **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hau hautatzean tronpatu ziren **politikeroak**. **Xipri Arbelbide**

*Thanks God*, esango duzu ingelesez *Deep South*eko **politikero** errepublikanoak imitatuz, *I'm free and he's an asshole*. **Joseba Sarrionandia**

## politiko 1 izond politikari dagokiona; estatuari edo estatuen arteko harremani dagokiona.(gauzez)

Jaurerri horietako bakoitza unitate **politiko** eta ekonomiko beregaina da, gazteluek ia ezin sartuzkoa bihurtzen dutena. **Koro Navarro**

Leialtasun aldakorrean bakarrik oinarrituriko erakunde **politiko** bat ez baita moraliki egokia. **Iñaki Mendiguren**

Ondorengotza-ordena zuzenbide **politikoaren** edo zibilaren mende dagoela, eta ez zuzenbide naturalaren printzipioen mende. **Iñaki Iñurrieta**

Ekonomia **politiko** modernoa garai hartantxe sortu zen jakintza berezi gisa. **Koro Navarro**

Ekonomia **politiko** marxista, Leninen ikusmoldea eta Errusiako iraultza. **Askoren artean**

Filosofia **politiko** modernoaren historian zehar, *Leviathan*en idazlea izan dela, gaurdaino, erreferentzia nagusia. **Piarres Xarriton**

Filosofia **politiko** ilustratuak beti baietsi duen hipotesia gogorki gezurtatu zuen. **Askoren artean**

Politika honek ez zituen bakarrik barne-kalkulu **politiko** hotzak islatzen. **Iñaki Mendiguren**

Hark igarri zion independentzia **politiko** hutsa gezurrezko burujabetza izan zitekeela Indiak mendebaldarturiko munduaren ekonomi kiribiletan nahastuta jarraitzen bazuen. **Iñaki Mendiguren**

Berdintasuna garrantzitsua da eta berdintasunak helburu **politiko** espizitua beharko luke izan. **Iñaki Heras**



Aldaketa **politiko**, kultural sozial handiak bizi izan dituzu... **Ana Urkiza**  
Oztopo moral eta **politiko** guztien gainetik, nazioarteko gizarteak diktaduraren aurkako ETaren legitimitatea onartu egin zuen gehienbat. **Joseba Zulaika**  
Mundu sinikoan, adibidez, batasun **politiko** iraunkorra ezarri zuen lehen aldiz Tsing-tai estatu inperiogileak hamar urte baino gutxiagoko denboraldian. **Iñaki Mendiguren**  
Ezkontza lege **politiko** batzuek arautzen dute, ez lege zibil eta naturalek. **Andres Urrutia**  
Euroa sortzea autodeterminazio prozesu ekonomiko eta **politiko** gisa uler daiteke. **Iñaki Heras**  
Egurra ematen zioten, nola gainera, eta urtetarako espeteratu gero, legez kanpoko alderdi **politiko** batean zebilelako, besterik gabe. **Juan Kruz Igerabide**  
ETA ez da problema **politiko** edo sozialen bat, baizik morala. **Joxe Azurmendi**  
Arrakasta izan zuen ia bi mendez tour de force **politiko** horri eusten. **Iñaki Mendiguren**  
Madrileko giro **politiko** arriskugarritik ihes egin nahirik. **Txillardegi**  
Nobela **politiko** bat baita, funtsean, ez nobela psikologiko bat. **Joan Mari Irigoien**  
Txosten **politiko** interesantea egin genezakek. **Rafa Egiguren**  
Eskubide Zibil eta **Politikoetarako** Nazioarteko Ituna. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

## 2 (pertsonez)

Ez zuen bere zeregina bete orduko alde eginen zuen komisario **politiko** baten oheko panpina izan nahi. **Elena Touyaru**  
Buruzagi **politiko** haren bi argazki erosi zituen, bat bizartegian ezartzeko eta bestea lagunari oparitzeko. **Patxi Zubizarreta**  
Munduan gertatu diren aldaketen berri emateko nolabait, analista **politikoek** nahitaez parte-hartze demokratikoari buruz zerbaite esan beharko dute. **Askoren artean**  
Guareschi gizon **politikoek** ez du onartzen gerraosteko gizarte italiarrak derrigor banatuta egon behar zuenik adiskidetu ezinezko bi klaseren artean. **Koldo Biguri**  
Amnistia osoa eman die dekretuz Bizkaiko preso **politiko** guztiei. **Txillardegi**  
Jendarmeriara joatea erabaki genuen, Hazparnera, errefuxiatu **politikoaren** dokumentazioa eta lana eskuratu ahal izateko paperak betetzera. **Rafa Egiguren**

## 3 (izenondo elkartuetan lehen osagai gisa)

Kristau Eliza ez zen erori elkarre **politiko** -militar izatera desbideratuz jazarpen ofizialari erantzuteko tentazioan. **Iñaki Mendiguren**  
Kontakizuneko fraideak azaltzen duen paranoia **politiko** -erotiko hori ez dela neuk asmatua. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Arraza-estigma erlijio eta kultur estigmekiko desberdina zen (baina ez stigma **politiko** -ekonomikoarekiko). **Iñaki Mendiguren**  
- Gerra napoleonikoen ondoren lehia hau [...] katamila **politiko** -erlijioso-literario arras konplikatua bihurtu da. **Joxe Azurmendi**

## 4 (izenondo elkartuetan bigarren osagai gisa)

Errege izateko edo izateari uzteko orain Gorteen (nazioaren) onarpena galdatzea, jokaldi juridiko **politiko** abil bat zen. **Joxe Azurmendi**  
Zientzia eta bere iritzi etiko **politikoak** nahaski transmititzea ere amarru egitea lizateke: bera zientzian baita aditua eta autoritatea, balioetan edo etikan ez. **Joxe Azurmendi**  
Bi gatazka eklesiastiko **politiko** horietako azkenekoa baino berrogei urte geroago [...]. **Iñaki Mendiguren**  
Ematen du Periklesen kontzeptu filosofiko **politikoetan** ez dela sartzen egia absolutuaren bilakuntzari lotzen zaion jakitea. **Askoren artean**  
Oharturik hango bizimoldeaz eta goera sozio-ekonomiko **politikoaz** ez zela dokumentu handirik, liburu baten plazaratzeari lotu da. **Herria**  
- Baina gogoratu behar dugu ez genituela jarrera sozio **politiko** gisa eztabaidatu nahi, banako arimen erantzun gisa baizik. **Iñaki Mendiguren**

## • 5 iz politikaria.

**Politikoen** politikak (kudeaketa eta garapena, edo konpromisoa eta idealak). **Iñaki Seguro**  
Hemen **politikoak** gara, ez teologoak; eta, teologoentzat ere, alde handia dago erlijio bat toleratzearen eta onartzearen artean. **Iñaki Iñurrieta**  
**Politikoek** ez direla aski zorrozki jokatu baimenak emaiten eta ez dutela begi onez ikusten lantegi baten hiririk joatea zergetan emaiten duenaren gatik. **Herria**  
Hor ziren ere **politikoak**, baina ez dute hitza hartu. **Herria**  
Estatuak eta **politikoek** ez daukate zergatik ezer gehiago eskatu, eta gutxien-gutxiena daukate zergatik nire kontzientziaren barruan ezertarako sartu. **Joxe Azurmendi**  
Ez daukate gure **politikoak** handiustierik, seriotasunik, ez dute sentitzen esaten duten hitz bakoitza kontrolatu behar larririk. **Pako Aristi**  
Keynesen teoria erruz hedatu zen bera hil ondoren akademiko eta **politikoak** artean. **Iñaki Heras**  
Kasu egiteko aholkatu dizu; **politiko** trebea ematen duzula. **Rafa Egiguren**  
Pentsaren erregistroa, noski, ez da inoiz arestian aipatu **politikoak** hizkera hanpatu eta larritasuneraino perfumaturiko hau izan. **Iñigo Aranbarri**  
**Politiko** profesionalak trebatzen. **Askoren artean**  
Ba ote dago une berean **politiko** handi bat eta kristau txintxo-txintxo bat izaterik? **Joxe Azurmendi**  
**Politiko** handiak, nortasunaren arabera, bere bertuteak erakutsiko ditu. **Joxe Azurmendi**  
Botere indartsuaren pertzepzioa eta magia galtzetik etortzen zaie **politikoei** hondamena. **Joseba Zulaika**

## 6 preso politikoa.

Zigor ziegetan ezarri zituzten **politikoak**, sozialengandik aparte. **Jokin Urain**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

abagune politikoa (8); adierazpen politikoa (10); agintari politikoa (30); akordio politikoa (19); aldaketa politikoa (37); alderdi politikoa (427); arazo politikoa (28); arduradun politikoa (17); aro politikoa (42); aro politikoa (12); asmo politikoa (10); aterabide politikoa (9); aukera politikoa (60); aukera politikoa guztiak (17); aurkari politikoa (12); auzi politikoa (8); batasun politikoa (12); bide politikoa (56); borondate politikoa (15); borroka politikoa (10); botere politikoa (12); bultzada politikoa (11); buruzagi politikoa (49)

egitasmo politikoa (29); egitura politikoa (22); egoera politikoa (77); egoera politikoa berria (8); ekimen politikoa (15); ekintza politikoa (17); ekitaldi politikoa (24); ekonomiko eta politikoa (15); erabaki politikoa (37); eragile politikoa (142); erakunde politikoa (43); erantzukizun politikoa (10); eremu politikoa (8); errealitate politikoa (16); eskubide politikoa (20); esparru juridiko politikoa (16); esparru politikoa (32); espazio politikoa (10); estatutu politikoa (9); estatutu politikoa berria (8); estatutu politikoa berriaren (13); estatutu politikoa berrirako (11); estrategia politikoa (15); euskal alderdi politikoa (10); euskal preso politikoa (42); eztabaida politikoa (26); fase politikoa (11); fronte politikoa (10); gai politikoa (11); garai politikoa (20); gatazka politikoa (64); giro politikoa (21); harreman politikoa (9); helburu politikoa (27)

ibilbide politikoa (13); ideia politikoa (27); ikuspegi politikoa (16); ildo politikoa (27); ildo politikoa instituzionalaren (13); indar politikoa (144); indar politikoa guztiak (11); interes politikoa (25); iritzi politikoa (10); irtenbide politikoa (21); itun politikoa (15); izaera politikoa (13); jarrera politikoa (14); joera politikoa (12); jokaleku politikoa (13); juridiko eta politikoa (8); juridiko politikoa (36); konponbide politikoa (9); kontseilu politikoa (8); kontseiluko ildo politikoa (11); krisi politikoa (13); kultura politikoa (17); kutsu politikoa (12); lege politikoa (15); marko juridiko politikoa (9); marko politikoa (16); mugimendu politikoa (33); neurri politikoa (9)

oinarri politikoa (13); ondorio politikoa (11); ordezkari politikoa (27); ordezkaritza politikoa (8); pisu politikoa (9)

politikoa eta armatua (20); politikoa eta demokratiko (9); politikoa eta demokratikoaren (8); politikoa eta ekonomiko (13); politikoa eta ekonomikoa (11); politikoa eta ekonomikoak (10); politikoa eta ekonomikoaren (8); politikoa eta militarra (8); politikoa eta sindikal (9); politikoa eta sozial (34); politikoa eta soziala (12); politikoa eta sozialak (14); politikoa eta sozialaren (12); politikoa eta sozialei (10); politikoa eta sozialen (13); politikoa eta zibilen (10); politikoa militar (9); politikoa militarra (8); politikoa militarra (10)

presio politikoa (14); preso politikoa (186); preso politikoa askatu (9); proiektu politikoa (63); proposamen politikoa (11); prozesu politikoa (32); sentsibilitate politikoa (26); sistema politikoa (28); sozial eta politikoa (18); sozio politikoa (10); subjektu politikoa (39); subjektu politikoa gisa (11); talde politikoa (87); testuinguru politikoa (16); tresna politikoa (17); tresna politikoa gisa (9); udal talde politikoa (8); une politikoa (30); une politikoa honetan (10); urte politikoa (26); zibil eta politikoa (11); ziklo politikoa (24)

abagune politikoa (11); adierazpen politikoa (12); adostasun politikoa (10); agenda politikoa (14); aitorza politikoa (12); akordio politikoa (25); aldaketa politikoa (64); aldaketa politikoa gauzatzeko (11); alderdi politikoa (15); apartheid politikoa (21); arazo politikoa (32); ardura politikoa (25); aro politikoa (9); asilo politikoa (16); aukera politikoa (8); ausardia politikoa (21); ausardia politikoa eskatu (10); auzi politikoa (12)

babes politikoa (21); batasun politikoa (23); bazterketa politikoa (10); bide politikoa (15); bizitza politikoa (12); borondate politikoa (107); borroka politikoa (17); botere politikoa (27); bultzada politikoa (22)

egitasmo politikoa (12); egitura politikoa (11); egoera politikoa (169); egoera politikoa aztertze (9); egungo egoera politikoa (21); ekimen politikoa (15); ekintza politikoa (8); ekitaldi politikoa (91); ekitaldi politikoa egingo (20); ekonomia politikoa (11); ekonomiko eta politikoa (11); elkarrizketa politikoa (24); epaiketara politikoa (8); erabaki politikoa (72); erabaki politikoa izan (14); erabakia politikoa (17); erabakia politikoa (13); erabakia politikoa (13); erabakia politikoa (11); erakunde politikoa (9); erantzukizun politikoa (16); errealitate politikoa (8); errefuxiatu politikoa (10); esanahi politikoa (8); eskaintza politikoa (14); esparru juridiko politikoa (16); esparru politikoa (36); espazio politikoa (9); estatutu politikoa (67); estatutu politikoa onartzea (8); estrategia politikoa (11); etekin politikoa (14); etorkizun politikoa (20); eztabaida politikoa (63)

filosofia politikoa (20)



**gatazka** politikoa (215); **gatazka politikoa gainditze** (32); **gatazka politikoa kontzertatze** (35); **gatazka politikoa** (14); **gatazka** (27)

**hautu politikoa** (8); **helburu politikoa** (13)

**ibilbide politikoa** (26); **ildo politikoa** (21); **indar politikoa** (23); **indarkeria politikoa** (13); **irakurketa politikoa** (11); **irtenbide politikoa** (29); **irtenbide politikoa behar** (10); **izaera politikoa** (91)

**jarduera politikoa** (21); **jardun politikoa** (9); **jarrera politikoa** (19); **jatorri politikoa** (9); **jazarpen politikoa** (9); **juridiko politikoa** (37)

**klase politikoa** (13); **konponbide politikoa** (21); **konpromiso politikoa** (16); **kontseilu politikoa** (42); **kontzientzia politikoa** (8); **krisi politikoa** (22); **kultura politikoa** (8); **kutsu politikoa** (18)

**lan politikoa** (26); **lehenetasun politikoa** (14)

**mapa politikoa** (12); **marko politikoa** (11)

**negoziazio politikoa** (11); **normalizazio politikoa** (141); **normalizazio politikoa lortzeko** (40)

**oinarri politikoa** (13); **ordezkaritza politikoa** (9)

**pentsamendu politikoa** (8)

**politikoa eta armatua** (11); **politikoa eta ekonomikoa** (9); **politikoa eta soziala** (15)

**ponentzia politikoa** (8); **presio politikoa** (9); **preso politikoa** (22); **presoen estatus politikoa** (9); **presoen izaera politikoa** (18); **prezio politikoa** (10); **programa politikoa** (10); **proiektu politikoa** (35); **proposamen politikoa** (8); **prozesu politikoa** (41)

**sistema politikoa** (18); **sozio politikoa** (10); **subjektu politikoa** (14)

**testuinguru politikoa** (10); **txosten politikoa** (22); **urte politikoa** (11)

**adierazpen politikoak** (12); **agintari politikoak** (17); **akordio politikoak** (27); **aldaketa politikoak** (15); **alderdi politikoak** (124); **arazo politikoak** (31); **ardura politikoak** (14); **arduradun politikoak** (14); **arrazoi politikoak** (39); **aukera politikoak** (9); **aurkari politikoak** (9); **auzi politikoak** (11); **baldintza politikoak** (12); **bide politikoak** (34); **botere politikoak** (8); **buruzagi politikoak** (11)

**egitasmo politikoak** (9); **egoera politikoak** (32); **ekitaldi politikoak** (10); **ekonomiko eta politikoak** (13); **elkarrizketa politikoak** (10); **epaiketa politikoak** (12); **erabaki politikoak** (32); **eragile politikoak** (13); **erakunde politikoak** (11); **erantzukizun politikoak** (18); **eskubide politikoak** (40); **esparru juridiko politikoak** (9); **euskal preso politikoak** (45); **eztabaida politikoak** (15); **filosofia politikoak** (14); **gai politikoak** (12); **gatazka politikoak** (32); **harreman politikoak** (11); **helburu politikoak** (56); **helburu politikoak lortzeko** (23)

**ideia politikoak** (15); **iheslari politikoak** (9); **indar politikoak** (27); **interes politikoak** (21); **iritzi politikoak** (13); **jarrera politikoa** (16); **juridiko politikoak** (11); **klase politikoak** (11); **konpromiso politikoak** (9); **kontseilu politikoak** (40); **lege politikoak** (8); **neurri politikoak** (10)

**ondorio politikoak** (15); **ordezkari politikoak** (21)

**politikoak alde** (10); **politikoak alde batera** (10); **politikoak baino** (13); **politikoak behar** (9); **politikoak bere** (10); **politikoak daude** (15); **politikoak daudela** (15); **politikoak dira** (25); **politikoak direla** (20); **politikoak dituela** (12); **politikoak edo** (12); **politikoak egin** (13); **politikoak egitea** (8); **politikoak egiteko** (12); **politikoak ere** (45); **politikoak eta** (127); **politikoak euskal** (17); **politikoak ez** (47); **politikoak ez dira** (8); **politikoak hartu** (10); **politikoak hartzeko** (8); **politikoak izan** (37); **politikoak legez** (10); **politikoak lortzeko** (35); **politikoak zein** (10); **politikoak zirela** (8); **presio politikoak** (17); **preso politikoak** (126); **preso politikoak euskal** (8); **proiektu politikoak** (13); **prozesu politikoak** (11); **sozial eta politikoak** (24); **sozialak eta politikoak** (9); **talde politikoak** (18); **txosten politikoak** (8); **zibil eta politikoak** (68); **zientzia politikoak** (12)

**agenda politikoa** (12); **arlo politikoa** (24); **bizitza politikoa** (27); **borroka politikoa** (9); **egoera politikoa** (27); **egungo egoera politikoa** (11); **ekitaldi politikoa** (26); **eremu politikoa** (9); **eta normalizazio politikoa** (8); **eta politikoa** (16); **eztabaida politikoa** (23); **jokaleku politikoa** (11); **maila politikoa** (24); **normalizazio politikoa** (25); **politikoa aurrera** (10); **politikoa ere** (10); **politikoa eta** (20); **politikoa ez** (13); **politikoa parte** (43); **politikoa parte hartu** (8); **politikoa parte hartzeko** (19); **prozesu politikoa** (46); **prozesu politikoa parte** (21); **testuinguru politikoa** (10); **txosten politikoa** (12)

**borondate politikoarekin** (10)

**aldaketa politikoaren** (23); **alderdi politikoaren** (10); **bizitza politikoaren** (10); **borondate politikoaren** (9); **botere politikoaren** (24); **egoera politikoaren** (56); **egungo egoera politikoaren** (10); **ekonomia politikoaren** (10); **elkarrizketa politikoaren** (15); **esparru juridiko politikoaren** (10); **esparru politikoaren** (8); **estatus politikoaren** (14); **eta normalizazio politikoaren** (18); **eta politikoaren** (26); **eztabaida politikoaren** (28); **filosofia politikoaren** (24); **gatazka politikoaren** (93); **gatazka politikoaren konponbidean** (9); **gorputz politikoaren** (8); **juridiko politikoaren** (13); **klase politikoaren** (11); **kontseilu politikoaren** (35); **marko politikoaren** (8); **normalizazio politikoaren** (49); **politikoaren aldaketa** (11); **politikoaren alde** (25); **politikoaren aldeko** (12); **politikoaren arabera** (17); **politikoaren arteko** (13); **politikoaren azterketa** (9); **politikoaren baruruan** (11); **politikoaren bidea** (8); **politikoaren bidean** (8); **politikoaren erdian** (10); **politikoaren eta** (35); **politikoaren inguruan** (16); **politikoaren inguruko** (20); **politikoaren isla** (9); **politikoaren konponbidean** (9); **politikoaren kontra** (9); **politikoaren ondorio** (8); **politikoaren parte** (8); **preso politikoaren** (15); **prozesu politikoaren** (16); **sistema politikoaren** (8); **txosten politikoaren** (14)

**borroka politikoari** (8); **egoera politikoari** (36); **egoera politikoari buruzko** (9); **egungo egoera politikoari** (8); **esparru politikoari** (12); **esparru politikoari buruzko** (12); **eta normalizazio politikoari** (10); **eztabaida politikoari** (8); **gatazka politikoari** (46); **gatazka politikoari irtenbide** (8); **gatazka politikoari irtenbidea** (13); **kontseilu politikoari** (9); **normalizazio politikoari** (24); **normalizazio politikoari begira** (8)

**egoera politikoaz** (34)

**agintari politikoei** (10); **alderdi politikoei** (140); **alderdi politikoei dagokie** (8); **alderdi politikoei eta** (13); **die alderdi politikoei** (8); **eragile politikoei** (27); **eta alderdi politikoei** (15); **eta politikoei** (26); **euskal preso politikoei** (15); **indar politikoei** (9); **ordezkari politikoei** (9); **politikoei buruzko** (11); **politikoei dagokie** (10); **politikoei dagokienez** (8); **politikoei ere** (8); **politikoei eta** (20); **preso politikoei** (29); **sozial eta politikoei** (13); **talde politikoei** (12)

**agintari politikoek** (26); **alderdi politikoek** (170); **alderdi politikoek eta** (19); **alderdi politikoek ez** (12); **arduradun politikoek** (17); **buruzagi politikoek** (13); **eragile politikoek** (23); **eta alderdi politikoek** (17); **eta politikoek** (14); **euskal preso politikoek** (31); **indar politikoek** (26); **interes politikoek** (11); **ordezkari politikoek** (16); **politikoek ere** (15); **politikoek eta** (48); **politikoek ez** (30); **politikoek ez dute** (9); **preso politikoek** (53); **talde politikoek** (42)

**preso politikoekiko** (8)

**alderdi politikoekin** (39); **indar politikoekin** (8)

**agintari politikoan** (30); **aldaketa politikoan** (8); **alderdi politikoan** (204); **alderdi politikoan artean** (22); **alderdi politikoan arteko** (33); **alderdi politikoan eta** (9); **bide politikoan** (25); **bide politikoan aldeko** (9); **erabaki politikoan** (14); **eragile politikoan** (16); **erakunde politikoan** (16); **eskubide politikoan** (10); **eta alderdi politikoan** (24); **eta politikoan** (153); **eta politikoan alde** (39); **eta politikoan aldeko** (23); **eta politikoan defentsan** (10); **eta preso politikoan** (10); **euskal iheslari politikoan** (9); **euskal preso politikoan** (150); **gatazka politikoan** (9); **helburu politikoan** (8); **ideia politikoan** (8); **iheslari politikoan** (22); **indar politikoan** (34); **indar politikoan artean** (11); **interes politikoan** (17); **lege politikoan** (9); **ordezkari politikoan** (17); **politikoan alde** (56); **politikoan aldeko** (48); **politikoan arabera** (16); **politikoan artean** (64); **politikoan arteko** (61); **politikoan aurka** (15); **politikoan aurkako** (9); **politikoan bidez** (10); **politikoan defentsan** (13); **politikoan egoera** (8); **politikoan esku** (10); **politikoan eskubidean** (12); **politikoan eta** (40); **politikoan gainetik** (17); **politikoan inguruan** (12); **politikoan jarrera** (13); **politikoan kolektiboa** (14); **politikoan kolektiboak** (44); **politikoan kolektiboaren** (13); **politikoan kolektiboko** (8); **politikoan kontra** (11); **politikoan kontrako** (8); **politikoan menpe** (8); **politikoan nazioarteko** (15); **preso politikoan** (271); **preso politikoan aldeko** (12); **preso politikoan eskubidean** (12); **preso politikoan eta** (11); **preso politikoan kolektiboa** (12); **preso politikoan kolektiboak** (40); **preso politikoan kolektiboaren** (13); **preso politikoan nazioarteko** (10); **proiektu politikoan** (9); **sozial eta politikoan** (12); **talde politikoan** (22); **zibil eta politikoan** (107)

**arrazoi politikoengatik** (38)

**alderdi politikoetako** (65); **alderdi politikoetako ordezkariak** (11); **alderdi politikoetako ordezkariak** (8); **eta alderdi politikoetako** (9); **politikoetako ordezkariak** (13); **politikoetako ordezkariak** (8); **zientzia politikoetako** (13)

**alderdi politikoetan** (9); **politikoetan parte** (12); **zientzia politikoetan** (9)

**alderdi politikoetatik** (9); **bide politikoetatik** (12)

**alderdi politikok** (40); **hainbat alderdi politikok** (19)

**kontseilu politikoko** (9)

**preso politikoan** (8)

**aldaketa politikorako** (13); **eta normalizazio politikorako** (20); **hartzeko politikorako** (13); **negoziazio politikorako** (10); **normalizazio politikorako** (68); **parte hartze politikorako** (12)

**alderdi politikoren** (10); **arrazoi politikorik** (9); **borondate politikorik** (29); **ordain politikorik** (18); **politikorik ez** (49); **politikorik ez duela** (8); **politikorik gabe** (24); **politikorik gabeko** (14); **politikorik izan** (10); **politikorik ordaindu** (8); **preso politikorik** (9); **prezio politikorik** (29)

**alderdi politikotako** (9)

**ikuspegi politikotik** (8); **ikuspuntu politikotik** (9)

## politikodun 1 *izond* politikoa.

Andra Mari Zuriko plazan egindako elkarretaratzean «**eduki politikodun** eta iraingarriak» ziren esaldiak oihukatu zirela.  **Berria** - Euskal Herria

## 2 (izenlagun gisa) politikoko.

«Kasu guztietan, maila altuko eta ardura **politikodun**» mintzakideek parte hartu dutela aipatu zuten.  **Berria** - Euskal Herria

## politikoki 1 *adlag* alderdi edo ikuspegi politikotik.

Jarrera hau, **politikoki** zikindu gura ez duen intelektual, literato, sindikalista edo apaiz jende askoren aterpe erraza izaten da.  **Joxe Azurmendi**

Khodorkovski, gailurrean zenean. Vladimir Putini **politikoki** aurre eginen saiatu zen. **Berria - Ekonomia**

Azken batean lurraldetasunari buruzko eztabaidak indarrak sakabanatu, **politikoki** ahuldu, eta ez du ezertxo ere konpontzen. **Bernardo Atxaga**

Espazio hori hierarkizatua zegoen, ez ordea **politikoki** bateratua. **Koro Navarro**

-Berrogei urte daramatzagu **politikoki** aspertuta. **Pako Aristi**

**Politikoki** polita, berriz, mutikoa "euskaldun" edo "RH positibo" bihurtuta geratuko litzaiguke, inguru jakin batzuetan behintzat, txistea. Vrakaslearen zeregina zientzia lantzea eta ikasleak zientziaren bidean trebatzea da; ez da ikasleak **politikoki** norabide batean edo bestean orientatzea. **Joxerra Garzia**

Epai gogorregia iruditu zitzaizun batzuei hori (gogorregia **politikoki**, ez moraliki: ez zela politika zuhurra horrela jokatzea). **Joxe Azurmendi**

Kristautasunaren aldean, mahayana gaitasunik gabeko erlijioa zela **politikoki**. **Iñaki Mendiguren**

Azpimarra daiteke ere departamendua sartu dela osoki Estatuak proposatu duen hitzarmen berezian urratsean, nahiz bata eta bestea **politikoki** aurkariak izan. **Herria**

**Politikoki** oso zaila izango zaio Israelai ebazpenari muzin egitea. **Berria - Mundua**

## 2 (izenondo baten ezterrean)

Euskal literaturan kanona gizezkoa da, gipuzkoarra eta **politikoki** epela. **Ana Urkiza**

**Politikoki** ez-zuzena da. **Pello Salaburu**

Estrategia informatibo nagusiak inoiz baino **politikoki** zuzenago, hierarkizatuago eta aspergarriago diren urteotan, [...]. **Txema Ramirez de la Piscina**

Baina tradizioz libertoen esparru ziren postu haietan ere, libertoak **politikoki** jasangaitz bihurtu ziren, nabarmentzera iritsi orduko. **Iñaki Mendiguren**

Mendebaldeko Kristandadea, eliz batasuna lortua zuelarik, **politikoki** eta ekonomikoki eraginkorra izango zen parroki estatuaren sistemaren baten beharrea aurkitu baitzen. **Iñaki Mendiguren**

Baina liberal asko ez al da **politikoki** antifrantsesa izan? **Joxe Azurmendi**

## 3 (izenondo bati elkartuta, bigarren osagai gisa)

Autoritatearen abusua da, irakasleak bere posizio pribilegiatua manupekoak ideologiko-**politikoki** influentziatzeko erabiltzea. **Joxe Azurmendi**

Durán bera erromantzerotan, literarioki baino gehiago, historiko-**politikoki**, hots, nazionalki interesatzen da. **Joxe Azurmendi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abertzalea **politikoki** (3); ekonomikoki eta **politikoki** (6); juridikoki eta **politikoki** (4); kulturaliki eta **politikoki** (3)

**politikoki** antolatze (5); **politikoki** antolatze eskubidea (3); **politikoki** desegokia (3); **politikoki** erabili (4); **politikoki** eta ekonomikoki (6); **politikoki** eta kulturaliki (4); **politikoki** eta sozialki (7); **politikoki** ez zuzena (4); **politikoki** suntsitze (3); **politikoki** suntsitzen (3); **politikoki** zuzen (3); **politikoki** zuzena (28); **politikoki** zuzena izan (4); **politikoki** zuzenak (10)

## politinbriko *izond* zenbait tinbre dituena.

Pandero **politinbrikoaren** eta pandero multitinbrikoaren asmatzailea da Rizzo, baina sofistiaziorik gabeko panderoak ere menderatzen ditu. **Berria - Kultura**

## politizatu, politiza, politizatzen 1 du *ad* izaera edo eduki politikoa eman.

Atera zizkidaten argazki batzuk, Ernioko erromeriak **politizatzen** ibili gineneakoak bi, 1930eko irailean. **Koldo Izagirre**

Ez dut eskandalizatuarena egin nahi, zientzia ez dela **politizatu** behar eta gisa horretako adierazpen ingenuoak eginez. **Berria - Gaiak**

Epailearen agindua **politizatzea** egotzi dio PPri Jose Blanco sozialistak. **Berria - Euskal Herria**

Gatazka **politizatzea** egotzi diote ontzioletako langileek SEPIri. **Berria - Ekonomia**

Hizkuntzalaritzaz zein kulturaz ere aritu izan da [...] eta denak **politizatu** egin dizkigu euskal intelektual gisa. **Askoren artean**

Laborantza Ganbera gehien **politizatu** dutenak frantses nazionalistak dira. **Berria - Harian**

Epailearen agindua **politizatzea** egotzi dio PPri Jose Blanco sozialistak. **Berria - Euskal Herria**

Arrazen teoriak jada oso **politizatuak** zeuden testuinguruan dihardu, eta modu alderdikoi deliberatuan jardun ere. **Joxe Azurmendi**

## 2 gai politikoetan engaiatu edo engaiarazi.

"Ni zuegatik **politizatu** nintzen", zioetan kazetariak, "68ko maiatzak egin ez zuena lortu duzue zuek". **Koldo Izagirre**

Beste ikastolak ez dakit, baina Arrasatekoa barru-barruraino **politizatu** zegoen. **Joxerra Garzia**

Nik orain arte ere salatu dut Justizia mundua guztiz **politizatuta** dagoela. **Berria - Harian**

Segurtasun indarrak eta Polizia oso **politizatuta** daude. **Berria - Ekonomia**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Euskaldunak ziren, bai, baina ez batere **politizatuak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jantoki merkeak ikasleendako eta hika egin dakiekeen irakasle **politizatuak**, Europan nengoen. **Koldo Izagirre**

Ikerrenganako ibilaldiak askatasun uneak ziren Edmearentzat, batez ere Presoen Elkarteko kide **politizatu egiekin** ez bidaiatzea erabaki zuenetik. **Itxaro Borda**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gatazka **politizatu** (3)

**politizatzea** egotzi (3)

## politizazio 1 *iz* politizatzea.

Bake prozesua oztopo serioekin hasten da, Justiziaren **politizazioarekin**. **Berria - Harian**

Kezka agertu zuen «justiziaren **politizazioa** eta politikaren judizializazioa» egiten delako. **Berria - Euskal Herria**

Gure kritika inteligentzia prozesuaren **politizazioagatik** izan zen, batez ere figura politikoei; Dick Cheney presidenteordea aipatu genuen batez ere, eskua sartzeagatik analisi prozesuan, azken produktuan eragiteko. **Berria - Mundua**

1985ean, AEBek UNESCOtik alde egin zuten erakundearen "gehiegizko **politizazioa**" argudiatu. **Txema Ramirez de la Piscina**

## 2 (hitz elkartuetan)

Herriko institutuak **politizazio** -fama gaiztoa zuen, greba eta istilua besterik ez zegoela, eta han ez zegoela pulamentuz ikasterik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## polito (*orobat politto g.er., politxo g.er. eta pollito g.er.*) 1 *adlag* era politean, aski egoki edo ederki. ikpoliki 2.

**Polito** egoten da hemen. **Xabier Montoia**

Euskaraz ere **polito** ikasi duen nafar jatorra duk gainera. **Txillardeggi**

Nahiko ahots zakarra dauka, baina **polito** ahoskatzen du. **Anjel Lertxundi**

Madril eta Washington elkarrekin **polito** konpontzen ari ziren. **Edorta Jimenez**

**Polito** gabiltza, baina partidaz partida joan behar dugu. **Berria - Kirola**

- **Polito** egin duk hire lana, zorriak -orrei) begiratu ezan zidan. Edorta Jimenez

Mungian beste trago bat jorik, biok bere **polito** ailega ginan etxera. Xabier Amuriza

1942ko urterako sarea **polito** zabaldua da, hala Frantzia nola Ameriketara. Edorta Jimenez

Azken batean negoziotetan **polito** zaildutako gizonak ziren. Urtzi Urrutikoetxea

Garbi-garbi eta **polito** atonduta. Mirentxu Larrañaga

-Bai, **polito** irizten diot -esan zuen Matson andreak. Mirentxu Larrañaga

## 2 asko-edo, oso-edo. ik **poliki 3**.

Floriditan edanean eta istorioak kontatuz edo bestela Pilar honezkero arruntean itsasoan, hor ere **polito** edaten. Edorta Jimenez

**Polito** ordainduko zaio emakumeari. Edorta Jimenez

Txostena lau orrialde lerro estuez **polito** beteek osatzen dute. Edorta Jimenez

## 3 **polito-polito**

-Jakin ezak! -diotso sarjentuak-, Peruko Enbaxadan ere sartu dira, bai, zeuon kaiolaren batean **polito-polito** egon behar duen Leopoldo Panizo txoritxo horren bila. Edorta Jimenez

Joera horiek joan-etorrikoak izaten direla uste dugunok badugu esperantza kamera batek harrapatu ezin duen zera horren hutsunea handitu arau idatzizkora lerratuaz joango garelako **polito-polito**. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**polito** ezagutzen (9); **polito ikasi** (3); **polito polito** (3)

## **politologiko** *izond* politikaren azterketari dagokiona.

Gizonemakumeak hainbat ikuspegitatik eta hainbat modutan iker daitezkeenez, gaur antropologia-mota askotarikoak aurki daitezke bereizita, aukeren arabera: antropologia naturalista edo biosoziala, biopsikikoa, kulturala edo soziala (etnologikoa), pedagogikoa, **politologikoa** (edo politikoa), ekonomikoa, teologikoa (edo erlijiosoa), filosofikoa edo, baita ere, estrukturala, hermeneutikoa, etab. Askoren artean

## **politologo** *iz* politika aztertzen duen ikerlaria.

luri Korguniuk, Indem fundazioko **politologoak**. Berria - Mundua

Azken urteetan ondokoak udazkenean bezala agertu dira kazetariek, **politologoek**, ekonomialariek edo soziologoek egin izan dituzten azterketa eta analisiak. James Jacob irakasle jaunarekin solasean nengoela, aldi batez, ateraldi hau egin zidan **politologo** horrek: zuek ez dakizue ez dugula denok demokraziaren definizio bera erabiltzen: frantsesentzat zer da demokrazia? Pello Salaburu

Michael Edinger **politologoak** ikuspegi hori baztertu egin du: «Dakigunaren arabera, bi gauza elkartu behar dira jendeak Alemanian eskuin muturrari bozka diezaion».

Berria - Mundua

## **politoxikomano** *izond/iz* zenbait drogaren mende dagoena.

Epaitegiak, baina, zigorra gutxitu dio, akusatua, oso gaztetatik, drogaren mendekoa eta **politoxikomanoa** delako. Berria - Euskal Herria

**Politoxikomanoa** izatearen ondorioa, gero polipuritano bihurtzen zarela. Xabier Mendiguren Elizegi

## politpolit ik **polit 12**.

## **politsai** *iz* Bigarren Mundu Gerran, alemaniar poliziaren ukrainiar laguntzailea.

Bada gizatxar bat, Epstein deitzen dena [...] besokoa darama eta alemanekin ibiltzen da, bahiketan ari direnean, galdaketetan ere parte hartzen du, **politsai** ukrainarrekin batera mozkortzen da, eta jendeen etxeetara bidaltzen dute vodka, dirua, janaria kentzera. Felipe Juaristi

Alemanak eta **politsaiak** kamioietan etortzen dira, gizon batzuk hartzen dituzte lurra iraultzeko, lubakiak egiten dituzte; bi edo hiru egun geroxeago, alemanek lubaki hauetaraino eramaten dituzte gizon-emakume juduak eta denak tiroz jotzen dituzte, bat bera ere bizirik uzteke. Felipe Juaristi

## politt ik **polit**.

## politto ik **polito**.

## **politu**, polit(u), politzen du *ad* polit bihurtu.

Astiro-astiro, beste herri batzuen kantetatik ere ikasiz, baladak **polituz** eta aberastuz joan ziren, eta txukunduz eta apainduz. Joxe Azurmendi

## politxo ik **politto**.

## **poliuretano 1** *iz* poliesterrak kondensatuz lorturiko erretxina, dentsitate urria ezaugarri duena.

Oraingoan ere **poliuretano** gardenak dira jaun eta jabe eta material egokia lortzeko prozesuan kristaltasuna ongi kontrolatu behar da (materialaren gardentasuna eta kristaltasuna aurkakoak dira). Berria - Gaiak

*Snowboard*eko taulen kasuan sandwich motako material oso arinak erabiltzen dira, baina beti ere **poliuretanoa** oinarri hartuta. Berria - Gaiak

**Poliuretano** erdizurrunez egindako bi bentrikulu ditu bihotz artifizialak eta **poliuretanozko** lau diafragma malgu, odol-ganbara eta aire-ganbara bereizteko. Eski gehienak **poliuretanoz** eginak daude. Berria - Gaiak

Ateak itxi direnean, **poliuretanozko** hormatik plastiko beltzeko zoruraino irristatu zara. Eider Rodriguez

## 2 (hitz elkartuetan)

Behar bakoitzera egokitutako **poliuretano** formulazioak erabil daitezke eta, horren bidez, hainbat eskizetako motatarako erremintak erraz lor daitezke. Berria - Gaiak

# poliza<sup>1</sup> iz diru kopuru jakin bat kobratzeko eskubidea adierazten duen agiria.

Bizi-aseguru bikaina egin nuen dolarretan, eta hari eman nion **poliza**. Karlos Zabala

**Poliza** bat dauka, denetarako erreminta horietako bat, edozertarako balio diona. Xabier Olarra

Zuen adituen kalkuluen arabera, seguru aski aurreratuak izango ditut, erretzen denean, bestela zuri ordainduak izango nituzkeen prima guztiak... eta, guztira, nik erositako izango nituzkeen **polizaren** bermea baino dirutza handiagoa egingo lukete. Xabier Olarra

Lapurretarik izanez gero, arrisku guztiarako **poliza** dutenei ordainduko zaie. Berria - Ekonomia

Aseguru etxeek atzo jakitera eman zuten arrisku osoko **poliza** duen aseguratuari ordainduko dizkiotela soilik kalteak. Berria - Ekonomia

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zortzi mila dolar garbi desfileko, bidaiak eta aseguru **poliza** aparte utzita. Patxi Iturritegi

Hogeita zortzi urteko haren hirugarren emazte Maureen-ek eskuratu zuen milioi bat eta sei ehun mila dolarreko aseguru-**poliza**, eta gero, hilabete bat besterik igaro ez zelarik, Manhattango pisua saldu eta desagertu egin zen. Oskar Arana

Milioi bat dolarreko bizitza-**poliza** erabateko bat saldu nion 1976an, garai hartarako dirutza izugarria. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aseguru poliza** (4)

poliza<sup>2</sup> ik **polizia**.

polizagizon ik **polizia** 13.

polizategi ik **poliziategi**.

## polizeman (orobat *policeman*) iz poliziakidea. ik **polisman**.

Faro barria egiten ari ziren eta **polizemanek** ez zuten gura jenderik inguruetan, harriak eta burdina puskak desagertzen ei ziren aldizka, baina langileak hurbilduak zitzaizkizuen eta bertora eroan zintuzten arrazoia jakindakoan **polizeman** biek ere bat egin zuten suminduran, Ingalaterrak Espainia kolonizatu behar zukeela marmarikatu zuten batek ahapetik. Koldo Izagirre

polizetxe ik **polizia** 12.

## polizia (orobat *P larriarekin*; orobat *poliza g.er.*) 1 iz ordena publikoa zaintzeko eta lege-hausleak epaileen aurrera eramateko zeregina duten erakundeen multzoa.

**Polizia** berehala hasi zen lanean. Gotzon Garate

**Poliziak** ziztakoaan harrapatu zuen Hamilton. Gotzon Garate

**Poliziak** haren arrastoa galdu du. Karlos Zabala

New Yorkeko **Poliziak** berrogeita bat tiro emanda erail baitzuen, Bronxen. Harkaitz Cano

Indarrez atera gintuen **Poliziak** handik, azkenean. Edurene Elizondo

100 metroko Donostia postal hartan kokatzen den historiak, gazte korrikalari **poliziak** tiroz hilarenak, ezer gutxi du postaletik, simulakrotik. Iñaki Iñurrieta

- **Poliziaren** esku jarriko al zenuke? Anjel Lertxundi

Hiru hilabetez egon zen ospitalean, **Poliziak** zainduta. Jokin Urain

Epaitegi eta polizia talde bereziak sortuko dira Guardia Zibilean eta Espainiako **Polizian**. Berria - Euskal Herria

Hiltzaileaz **polizia** arduratuko da. Migel Angel Mintegi

**Poliziak** eta armadak ez dute demokrazia behin ere onartuko. Ramuntxo Etxeberri

Nikosen atea jo eta **polizia** deituko zuela ohartarazi zuen. Iñaki Zabaleta

Deitu **poliziar** -esan zuen gero-, putakume bat akabatu berri dut. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Polizia** indarrez sartu zen zezen-plazan, eta istiluetan tiroz akabatu zuten Rodriguez Orreaga karrikan. Iñigo Aranbarri

**Polizia** orain erabat sinetsirik dago Cacacek antolatuko zuela Dolsen hilketa. Gotzon Garate

**Polizia** engainatzeko jukutriak eta aztarna faltsuak. Rafa Eiguren

Behingoz **polizia** ondo portatu da. Pako Aristi

Lehenbiziko momentuetan **polizia** krimen pasionalaren arrastotik ibili bada ere, [...]. Aingeru Epaltza

Paulek ihes egin zuen Odessatik, **polizia** bila joan zitzaionean. Felipe Juaristi

Arrieta susmagarri nagusia izan arren, ez zuen ematen **polizia** atzetik zebilkionik. Migel Angel Mintegi

Jakizu behingoz **polizia** inguruka dabilkigula. Patxi Zubizarreta

Une hartan, **Polizian** sartzeko asmotan zeuden mila bat lagun inguru zain zeuden ilara batean. Berria - Mundua

Leibniz bera, bestalde, zital samarra bide zen, **poliziaren** eta ordenaren aldeko sutsu. Markos Zapiain

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Avilako Poliziaren Eskola Nagusian **Polizia** Nazionalarekin batera ikastaro bateratu bat egin zuen garaikoak. Harkaitz Cano

**Polizia** judizialekoak izan behar zuten. Harkaitz Cano

**Polizia** militarren besoko gorriak zeramatzen. Juan Kruz Igerabide

**Polizia** metropolitanoan badago Kafka irakurri duen norbait. Pako Aristi

Frantses **poliziak** bidaia honen susmoak ba omen dituela. Txillardeggi

-Ez naiz alferrik izan Errusiako **polizia** sekretukoak -esan zuen Golubtxikek. Matías Múgica

Iraneko **polizia** isilekoa. Juan Kruz Igerabide

Pikaza **Polizia** Motorizatuaren buruak agindu zion Joseri ardura zedila itsasontzien zaintza antolatzeaz. Lutxo Egia

**Polizia** frankistak lagun batzuekin batera harrapatzen du protagonista Bilbon. Rafa Eiguren

**Polizia** sobietarrak Kauffmann izurrite batez hil zela zabaldu zuen, eta inork besterik susma ez zezan, beste baten gorpua sartu zuten hilkutxan. Felipe Juaristi

Mussoliniren **polizia** politikoa zela. **Anjel Lertxundi**

**Polizia** integrala nahi zuen. **Jokin Urain**

Itsasoko **Polizien** Etxetik zuzenean moilara jo genuen. **Edorta Jimenez**

-Emigrazioko **poliziak** etorriko lirateke eta... **Iñaki Zabaleta**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **polizi**) ik **polizial**; **poliziako**.

Kontu handiz kopiatua zuen han, zer, eta **polizia** -txosten bat. **Jon Muñoz**

Iñaki Arinek eta Legorretako Larraurik egin zituzten **polizia** lanak. **Rafa Egiguren**

Chicagoko saihesbidean gertatu den **polizia** -pertsekuzio ikusgarri bati. **Txema Ramirez de la Piscina**

Gehienek oso gustura irakurtzen omen zituen **polizia** -eleberriak. **Gotzon Garate**

Geltokietako kioskoetan erositako **polizia** -nobelak. **Fernando Rey**

Telebistan noizbehinka ikusten nituen **polizi** pelikulen eraginagatik. **Joan Mari Irigoien**

**Polizia** autoa emeki-emeki dator, paseatzen bezala. **Gotzon Garate**

**Polizia** patruila bat pasa zen abiaduran eta argiak keinuka. **Bernardo Atxaga**

**Polizi** patruila baten bisitak, hesiaren beste aldean. **Iban Zaldúa**

Aurrean, **polizia** furgoi batek Abenidaren kale-ahoa zeharkatu zuen. **Pedro Alberdi**

Berehala heldu da **polizia** -ontzia. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Deustuko Unibertsitatean ere bi **polizia** zakur ditugu. **Gotzon Garate**

Euskal Herrian **polizia** arazo garbiak daude, eta **polizia** arazo horiek poliziak konpondu behar ditu. **Pello Salaburu**

Kanpoan **polizia** kordio bat dago. **Pablo Sastre**

Los Angelesko **polizia** zerbitzuetako funtzionarioak izanagatik pobreak ziren. **Itxaro Borda**

New Yorkeko **Polizia** Departamenduko kideen koadrila batek. **Harkaitz Cano**

**Polizi** -buruzagitzak ezarria zen, eta harri eta zur utzi zuen. **Jon Muñoz**

Zehatzago esateko, **polizia** sailean egiten du lan. **Patxi Zubizarreta**

Azkenean, **polizia** prefekturan, handik zortzi egunera, anaia preso zegoela jakin zuen. **Karlos Zabala**

Ikuskatzaile bat **polizia** komisarioa da. **Karlos Zabala**

Croly **Polizia** Sarjentuak adierazi zuen ezen bera iritsi zenean hildakoa nasan etzanda aurkitu zuela. **Irene Aldasoro**

Bankuko **polizia** -zaintzaileak ez zuen pistola ateratzeko astirik izan. **Gotzon Garate**

Zerbait apokaliptikoa espero genuen tokian, **polizia** agente arruntak topatu genituen. **Pablo Sastre**

Plazako monumentuaren suntsiketaz geroztik maiz izaten ziren **polizia** kontrolak Obabako inguruetan. **Bernardo Atxaga**

Kontua da bi gizonak, ez harmonia txarrean, geltokiko **polizia** -gunera joan zirela. **Anjel Lertxundi**

Egunaren argia leiho batetik sartzen ari zen, **polizia** -bulegoko iluntasuna eta logalea urratzen. **Fernando Rey**

Ez ziaten ezer irakatsi hire zorioneko **polizia** -eskolan? **Alberto Ladrón Arana**

Bonba-auto bat lehertu zen atzo Kirkuk hiriko **Polizia** akademiatik gertu. **Berria - Mundua**

Inork ez zuen **polizia** -kontu hura aintzat hartu. **Pedro Alberdi**

Butaliak, **polizia** -teniente batek, garesti ordaindu zuen azterketa horiez ez axolatzea. **Gotzon Garate**

**Polizia** jendearekin? **Juan Kruz Igerabide**

- Irlandako Errege **Polizia** Sailean. **Irene Aldasoro**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berehalaxe jo nuen Zürichera, Hannarekin batera Atzerri-**Poliziarengana** aurkezteko. **Joxe Austin Arrieta**

### 5 poliziakidea, poliziakoa. ik beherago **10** eta **13**.

Une hartantxe, **polizia** batek besotik heldu zion. **Fernando Rey**

**Poliziak** begira eta ezertxo egiten ez. **Gotzon Garate**

Hilabete haietan hil zuten Manzanak **polizia** ere. **Pello Salaburu**

57E **Poliziak** baieztatu egin zuen lekukotasuna. **Irene Aldasoro**

Osaba ere **polizia** zuen. **Gotzon Garate**

**Polizia** judizialekoak izan behar zuten. **Harkaitz Cano**

Argiegia **polizia** izateko. **Harkaitz Cano**

Lau **polizia**, lapur baten atzetik zebiltzela aitzakia eginez, hotel batean sartu ziren. **Gotzon Garate**

Ondorioz **polizia** bat hilik suertatu zen eta biga zauriturik. **Itxaro Borda**

Halako batean, pistola baten muturra lokian, Anton ikusi duzue **polizia** baten mende. **Rafa Egiguren**

**Polizia** eta detektibe gehiegi hiri honetan. **Lopez de Arana**

Homizidio brigadako bi **polizia** ere ba omen ziren, eta ezkongaien argazkiak egin omen zituzten. **Josu Zabaleta**

Mafiak, hilketak, droga, prostituzioa, **polizia** ustelak. **Gotzon Garate**

**Polizia** hildakoen etxera etorri zenean, artean zakurra bizirik zegoen. **Gotzon Garate**

Zeruak salba gaitzala **polizia** egin den lapurrengandik. **Anjel Lertxundi**

### 6 (izenondo eta izenlagunekin)

Gottik Lee Brown **polizia** nagusiari Hamiltonen berri eman zion. **Gotzon Garate**

Ikusi orduko ohartu zen **polizia** ohi baten aurrean zegoela. **Miguel Angel Mintegi**

**Polizia** sekretuak "Dutch" Robinson eta bere laguna atxilotu ditu, hain zuzen ere, "Flapper Bandid" ezizenez ezaguna den neska. **Lopez de Arana**

Ikaskide hura, **polizia** nazional baten alaba, hil zutenean. **Mikel Hernandez Abaitua**

-Eman dizute? -galdetu dit sarrera zaintzen zuen **polizia** turkiarrak. **Jon Arretxe**

**Polizia** armatu bat dago zaindari. **Rafa Egiguren**

Agentziatik kanporatzen ari ziren bi **polizia** uniformedunen artean. **Aingeru Epaltza**

**Polizia** zintzoa eta **polizia** gaiztoa bezala gara. **Harkaitz Cano**

Italiar **polizia** bat igo da busera. **Anjel Lertxundi**

Isileko **polizia** bazter batera eraman, eta galdetu zion: [...]. **Jose Morales**

Kalez jantzitako **poliziak** dabilzkizu buruan. **Rafa Egiguren**

### 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **polizi**)

Kopeta kristalean nengoela, **polizia** bikote bat sartu zen gure konpartimenduan. **Anjel Lertxundi**

**Polizia** bikote bat zetorren sokatik lotuta zeramaten zakur batek bidea erakusten ziela. **Unai Iturriaga**

Stein arma-fabrika zaintzeaz arduratzen zen **polizia** -taldea txanda-aldaketa egitera zihoan. **Pedro Alberdi**

### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haiek muga-**polizia** batekin eta nik beste batekin, baina batera hasi gara pasatzen. **Harkaitz Cano**



## 9 poliziako izlag ik poliziako

Gutziz ezaguna egin zen Dupinen izena **poliziako** kideen artean. **Koro Navarro**  
**Poliziako** goi mailako buru batek honela zioen: [...]. **Jon Muñoz**  
**Poliziako** nagusiek lanpostuz aldatu zuten Gallinone. **Pello Lizarralde**  
Han **poliziako** auto bat zegoen, leihoetan burdinak zituena. **Matias Múgica**  
Jaun serio hura **poliziako** komisario bezala aurkeztu zen. **Josu Zabaleta**  
Eskegi eta segundo pare baten buruan hantxe zegoen Itsasoko **Poliziako** gizonetako bat. **Edorta Jimenez**  
Ikuskatzaileak giroa baketu zuenean, mingainak astindu zituzten luze, Lebigrerren berri emateko: **poliziakoa** omen zen. **Karlos Zabala**  
Orain, beraz, **poliziakoa** nintzen, Okhranakoa, adiskideak. **Matias Múgica**  
**Poliziakoak** gara... **Agurtzane Juanena**

## 10 polizia-andere ik beherago 13 eta gorago 5; ik poliziakide.

**Polizia-andereak** besoak altxatzen zituen: zer gehiago egin? galdezketak zirauela, **polizia-andereak** etsaien izen-deiturak eskatzen zizkieten eta behaztopatzen ziren, ez zekiten, mutu zeuden. **Itxaro Borda**

## 11 polizia-buru ik polizaburu.

## 12 polizia-etxe (361 agerraldi, 26 liburu eta 224 artikulutan; orobat polizietxe g.er., polizietxe g.er. eta polizetxe g.er.) ik poliziategi; komisaria.

Bikoteak gaua **polizia-etxean** eman behar zuela deliberatu zuen komisarioak. **Jose txo Azkona**  
Horretarako nahikoa izan du Pako Garaik telefonoz **polizia-etxeko** buruarekin hitz egitea. **Edorta Jimenez**  
Lehena bere kabuz aurkeztu zen Iruñeko Foruzaingoaren **polizia etxean**. **Berria - Ekonomia**  
Ez zuen etsi ni erabat ikaratu arte: lagundu egin beharko niola **polizia-etxera**, nire gurasoei deitu beharko ziela, a zer atsekabea hartuko zutena nire ibileren berri jakindakoan. **Pako Aristi**  
Bovek eta beste pertsona batek Frantziako hegoaldeko Millauko **polizia-etxera** joan behar izan dute deklaratzera. **Berria - Gaiak**  
Beste ekintzaile batzuk etxe barruan atxilotuta daude edo tokian tokiko **polizia-etxeetara** joan behar dute egunero. **Berria - Mundua**  
**Polizia etxean** gidatzailea gizaseme lerro batean ipini zutenean, gaztetxoak ez zuen dudarik izan, "horixe da", seinalatu zuen. **Gotzon Garate**  
Agnès **polizia-etxera** eraman zuten. **Berria - Harian**  
Alberto, bere lagun minetako bat baitzen, **polizia-etxera** deitu eta galdeketa egin zioten. **Fernando Rey**  
Ustezko hiltzaileari Gernikako **polizia etxean** galdeketa egiten ari zitzaion bitartean. **Iñigo Aranbarri**  
Kartzela **polizia-etxean** zegoen eta nire ziega hamabigarren solairuan. **Fernando Rey**  
Ahal nuen denbora guztian eduki ditut **polizia-etxean** atxiloturik. **Hasier Etxeberria**  
Espainiako Poliziak Santiagon txiki zituela eta **polizia etxean** tratu txarrak jasan zituztela salatu dute gazteek. **Berria - Harian**  
Urte honetan atxilotu zituzten Juan Jose Etxabe eta Jon Ozaeta, eta, **polizia-etxean** torturatu ondoren, ETAko militante gisa kondenatutako lehenak izan ziren. **Jokin Urain**  
Biak pasatu ziren azkenik **polizia-etxeko** bulego nagusira. **Jose txo Azkona**  
Erresistentziak **polizia etxe** baten kontra jo eta 4 polizia hil ditu dio Bagdaden. **Berria - Harian**

## 13 polizia-gizon (38 agerraldi, 6 liburu eta 14 artikulutan; orobat poliza gizon 26 agerraldi, liburu 1 eta 23 artikulutan, eta polizagizon g.er.) Poliziako kide gizonezkoa. ik gorago 10 eta 5; ik poliziakide.

Autobus batean metatuak gira, **polizia gizonak** beren mitralletekin inguratzen gitudze. **Michel Oronoz**  
140 bat **polizia-gizon** eta jendarme, gaitzeko xixtuan ibilki, etxe-miatze batzu eginez goizean goizik. **Herria**  
Zoaz Elpidesen iratzarrazterta [...] Zitziko ministroaren **polizia-gizonak** sumatu eta arrastatu aitzin. **Itxaro Borda**  
Gobernuak ihardesten diote igorritz bere polizia, eta biziki bortizki dira **polizia gizon** horiek oldartu itxidianteri. **Herria**  
Enbaxadaren barnean, **polizia gizonak** kontsularen bulegora eraman zuen. **Ramuntxo Etxeberri**  
Horiek hola, Villafrañcan, **polizia-gizon** bati galdegin diot beribila plazan uzten ahal dudanez bizpahiru egunez. **Piarres Aintziart**  
Bertze manifestaldi bat izan da gisa berean Atenan, hartan parte hartzen zutela ere **polizia gizonak** eta su hiltzaiek. **Herria**  
**Polizia gizon** ikertzaiek diote ez dela dudarik Ben Laden-en kidekoen jokoak direla horiek oro. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aebetako poliza (6); armada eta poliza (11); aurkako poliza (17); aurkako poliza operazioa (8); auzoko poliza (6); baionako poliza (18); bi poliza (105); bilboko poliza (11); bilboko poliza operazioa (5); bordeleko poliza (5); bost poliza (6); ehun poliza (5); espainiako poliza (112); espainiako poliza batek (12); espainiako poliza nazionalak (6); europako poliza (5); frantses poliza (6); frantziako poliza (31); hainbat poliza (13); hamar poliza (5); hiru poliza (40); hiru poliza hil (10); ipar irlandako poliza (9); irakeko poliza (14); irlandako poliza (12); irungo poliza (7); irungo poliza etxera (5); justizia eta poliza (13); kontrako poliza (21); kontrako poliza operazioa (5); kontrako poliza operazioan (8); lau poliza (43); lau poliza hil (8); lau poliza irakiar (7); mila poliza (5); new yorkeko poliza (6); paneko poliza (9)  
polizia agertu (16); poliza agertu zen (7); poliza andana (5); poliza arloko (7); poliza armatu (8); poliza armatuak (8); poliza asko (5); poliza atzetik (15); poliza auto (19); poliza auto bat (7); poliza bat (150); poliza bat hil (31); poliza bat sartu (5); poliza bat zauritu (5); poliza bat zen (5); poliza batzuk (9); poliza bera (5); poliza bi (5); poliza bidali (7); poliza buru (14); poliza burua (10); poliza buruak (12)  
polizia eta justizia (17); poliza eta soldadu (7); poliza eta zibil (5); poliza etorri (12); poliza etxe (50); poliza etxe bat (8); poliza etxe baten (13); poliza etxea (6); poliza etxeak (6); poliza etxean (112); poliza etxean egindako (6); poliza etxearen (16); poliza etxeari (5); poliza etxeetan (21); poliza etxeke (9); poliza etxera (95); poliza etxera eraman (34); poliza etxera joan (14); poliza etxetik (14); poliza filmak (8); poliza furgoi (5); poliza gazte (7); poliza gazteak (5); poliza gehiago (15); poliza gisa (8); poliza gizon (16); poliza gizonak (12); poliza gizonak (5); poliza guztiak (10); poliza guztiak (5); poliza haiek (5); poliza hil (75); poliza hil dira (7); poliza hil dituzte (7); poliza hil ziren (22); poliza hil zituzten (10); poliza hiltzailea (8); poliza hori (9); poliza horiek (9)  
polizia ikerketa (10); poliza indar (8); poliza indarrek (10); poliza indarre (18); poliza indarren (10); poliza indarretako (5); poliza inguru (9); poliza irakiar (51); poliza irakiar bat (8); poliza irakiar hil (27); poliza irakiarrek (11); poliza irakiarrek (6); poliza irakiarren (8); poliza iritsi (9); poliza iturriak (14); poliza iturriak aipatuz (11); poliza iturriek (50); poliza iturrien (69); poliza iturrien arabera (64); poliza iturrietatik (5); poliza izan (18); poliza izateko (5); poliza judiziala (10); poliza judizialak (14); poliza judizialaren (6); poliza kontrolak (6); poliza kopurua (5); poliza militar (6); poliza militarrek (8); poliza militarreko (7); poliza mota (6); poliza nazional (5); poliza nazionala (10); poliza nazionalak (17); poliza nazionalaren (11)  
polizia oldartu (8); poliza operazio (33); poliza operazio batean (5); poliza operazio berean (5); poliza operazioa (53); poliza operazioak (17); poliza operazioan (26); poliza operazioan atxilotu (11); poliza operazioan atxilotutako (6); poliza operazioaren (21); poliza patruila (5); poliza sartu (9); poliza sekretua (9); poliza sekretuak (5); poliza sekretuko (7); poliza talde (11); poliza talde bereziak (5); poliza taldeak (5); poliza txosten (6); poliza txostenak (7)  
polizia ugari (11); polizia zaintza (5); polizia zakur (5); polizia zauritu (18); polizia zauritu ziren (9); polizia zerbitzuko (6); polizia zeuden (11)  
sei poliza (23); sei poliza hil (5); sei poliza irakiar (8); soldadu eta poliza (19)  
polizi buru (14); polizi buru nagusiak (8); polizi burua (8); polizi buruak (10); polizi etxe (7); polizi etxera (14); polizi etxera eraman (6); polizi iturriek (9); polizi kapitainak (9); polizi operazio (6); polizi operazioa (17); polizi operazioak (13); polizi operazioan (10); polizi operazioaren (16)  
alemaniako poliziak (6); arabiar poliziak (7); atxilotu ditu poliziak (17); atxilotu du poliziak (8); atxilotu zituen poliziak (20); atxilotu zuen poliziak (14); atzemanean poliziak (6); aurkitu zituen poliziak (10); belgikako poliziak (13); bi poliza (22)  
egin zituen poliziak (10); egin zuen poliziak (9); erresuma batuko poliziak (11); esan du poliziak (6); esan zuen poliziak (6); espainiako poliziak (350); espainiako poliziak atxilotu (9); espainiako poliziak atxilotutako (8); foru poliziak (9); frantses poliziak (11); frantziako poliziak (159); hil ditu poliziak (6); hil zituen poliziak (6); hiru poliziak (6); indiak poliziak (6); irakeko poliziak (34); irlandako poliziak (8); israelgo poliziak (14); italiako poliziak (16); jakinarazi zuen poliziak (6); lortu zuen poliziak (6); marokoko poliziak (9); paneko poliziak (7)  
poliziak adierazi (16); poliziak adierazi zenez (7); poliziak atxilotu (41); poliziak atxilotu zuen (14); poliziak atxilotutako (18); poliziak atzo jakinarazi (7); poliziak aurkitu (7); poliziak babestuta (6); poliziak berak (17); poliziak egin (10); poliziak egindako (12); poliziak esan (22); poliziak esan zuen (8); poliziak eta armadak (7); poliziak eta guardia (32); poliziak hil (8); poliziak jakinarazi (25); poliziak jakinarazi zenez (9); poliziak uste du (10); saudiarabiako poliziak (7); turkiako poliziak (7); uste du poliziak (25)  
espainiako poliziako (30); irakeko poliziako (11); poliziako bi (6); poliziako buru (8); poliziako iturriek (6); poliziako iturrien (6); poliziako iturrien arabera (6)  
espainiako poliziarakin (6); poliziarakin izandako (13)  
bi poliziararen (11); bi poliziararen artean (7); erresuma batuko poliziararen (6); espainiako poliziararen (118); espainiako poliziararen esku (15); europako poliziararen (6); frantziako



**poliziaren** (30); **irakeko poliziaren** (17); **poliziaren adar** (6); **poliziaren aurka** (8); **poliziaren aurrean** (18); **poliziaren auto bat** (7); **poliziaren buru** (7); **poliziaren egoitza** (11); **poliziaren emaztea** (8); **poliziaren esanetan** (22); **poliziaren esku utzi** (7); **poliziaren eskuetan** (24); **poliziaren ikerketa** (6); **poliziaren iturriek** (6); **poliziaren jarrera** (16); **poliziaren jazarpena** (6); **poliziaren kontra** (6); **poliziaren kontrako** (10); **poliziaren kontrola** (6); **poliziaren lana** (13); **poliziaren patruila** (9); **poliziaren patruila bat** (6); **poliziaren presentzia** (12); **poliziaren ustez** (18); **poliziaren zaintzapean** (10)

**poliziereengana jo** (7); **poliziereengana joan** (7)

**espainiako poliziar** (33); **poliziar** **dei** **egin** (9); **poliziar** **deitu** (32); **poliziar** **deitu** **zion** (13); **poliziar** **deituko** (16); **poliziar** **deituko** **diot** (6); **poliziar** **deitzeko** (8)

**poliziaz beterik** (6); **poliziaz inguratuta** (7)

**bi poliziek** (7); **espainiako poliziek** (10)

**espainiako polizien** (15); **polizien aurka** (7); **polizien aurrean** (6); **polizien eskuetan** (6); **polizien kontra** (8)

**polizietako bat** (7); **polizietako batek** (8)

## poliziaburu *(109 agerraldi, 6 liburu eta 53 artikulutan; orobat polizia-buru 46 agerraldi, 14 liburu eta 19 artikulutan, eta poliziburu g.er.) 1 iz* poliziako sail bateko burua.

**Poliziaburuak** foroaren antolatzaileekin bildu dira. Berria - Harian

Orain dela gutxi jakin da zigortutako bi polizietako bat **poliziaburu** egin dutela Tenerifen. Berria - Euskal Herria

Polizia Nazionaleko drogaren aurkako buru Evens Brillant, Jean Oriel segurtasun arduraduna eta Mendebaldeko Departamentuko **poliziaburu** Hermione Leonard ere atxilotu dituzte. Berria - Harian

Said al Raiek **poliziaburu** Al Adala auzoan hil zuten tiroz. Berria - Mundua

Thailandia hegoaldeko probintzietako **poliziaburu** Proong Bunphandurung jeneralak eman zituen argibideen arabera. Berria - Mundua

Hilketa izan zenean **poliziaburu** zen Vauxek ez du azalpenik eman. Berria - Mundua

John Biscay ere artzain hasi zuan Mojaveko mortuan eta soik, orain Los Angelesko **poliziaburu** duk. Itxaro Borda

Barrutiko **poliziaburuak**, hantxe baitzegoen, herritarrei agindu zien atzerantz joateko. Jose Morales

«Kanputxea ez da atzerritarrek suizidatzera etortzeko leku bat», azaldu du Sok Phal Kanputxeako **poliziaburuak**. Berria - Gaiak

*Erosi, banoa-eta*, izan zen Andres Kutz Urta doktoreak Mingorance **poliziaburuari** igorri zion mezua. Joxemari Iturralde

Ordu erdi bat geroago, atea zabaldu zen, eta **polizia-buruaren** bulegora eraman ninduten. Juan Kruz Igerabide

Horra zertaratu den nire gaztetako Potzolo: polizia puta bat, Tomas, **poliziaburu** puta bat! Aingeru Epaltza

## 2 (hitz elkartuetan)

-Ene LAPDko **poliziaburu** plaka ematen deat boy! Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**poliziaburu ohia** (3)

**poliziaburuaren etxera** (4)

## poliziaburuorde iz

 poliziaren buruaren ordekoa.

Dorako auzunean zituzten ere Bagdadeko **poliziaburuorde** Amar Ali Naief eta haren semea hil, joan den urtarrilaren 10ean. Berria - Harian

## poliziaetxe ik polizia 12.

## poliziagai iz

 poliziakide izateko prestatzen adi den pertsona.

Bonba-auto bat lehertu zen atzo Kirkuk hiriko Polizia akademiatik gertu, **poliziagaiak** etxerantz zihoazela, eta gutxienez 17 hildako eta 36 zauritu eragin zituen. Berria - Mundua

## poliziakide *(27 agerraldi, 2 liburu eta 8 artikulutan) iz* poliziako kidea. ik polizia 5; polizia 13.

Euskal Herrian 34.000 agente armatu daudela nabarmendu zuen [...] **poliziakide** ezberdinak zein bizkartzain pribatuak kontuan hartuta. Berria - Euskal Herria

Tiroketa batean ekintzaile batzuek **poliziakide** batzuk hil dituzte, Riaden. Berria - Mundua

Hiru soldadu eta hiru **poliziakide** hil dira. Berria - Mundua

Etorkin magrebtar bat torturatzeaz akusatutako Mossos d'Esquadra 14 **poliziakideak** errugabetu zituen atzo Gironako epaitegiak. Berria - Mundua

**Poliziakidea** zerbituz kanpo omen zegoen, eta hainbat tiro eta labankada eman zizkion Berroetari eztabaida sutsu baten ondoren. Berria - Euskal Herria

Zer gertatuko da, gero, torturatu dutenaren kideek, mendeku bila, **poliziakidearen** senide guztiak hiltzen badituzte? Askoren artean

Galdeketa arduratuko diren bi **poliziakideek** ea atxilotua torturatuko dutenez erabaki behar dute. Askoren artean

Belar edo ogi biltze sasoietan neskekin ederkj jostatzen zela zerasaion segidan, ondoan zeukan Mike **poliziakide** beltzaran interesatuari. Itxaro Borda

## poliziako 1 izond

 eleberri, film eta kidekoez mintzatuz, protagonistatzat polizia edo detektibe bat duena. ik poliziako 9; polizial 2.

-Ez, ez dut uste ezer; aitortu beharra dago eleberri **poliziako** batean bezala ageri direla aztarrenak, iritzia nahasteko. Josu Zabaleta

Nobela **poliziako** klasikoetan bezala, auziaren muina denbora-faktorea zen. Jon Alonso

Baina honako istorio hau ez da kronika **poliziako** bat edo biografia baten kontatze soil hotza. Karlos Linazasoro

Hari **poliziako** baten bitartez, kontatzen dut itzultzaile bati testu bat itzultzeko agindua iritsi zaiola eta horrek Erdi Arora eramango duela. Berria - Kultura

Orduan nonbait hasi zitzaizkion itolarriki eta bihotzkeoak jo zion telebistaren aurrean zegoela, film **poliziako** amerikano bat ikusten, miretsi egiten zituen amerikanoak, inozoa alaena. Karlos Zabala

Film **poliziako** bat zen, *Azken extasia*. Joxemari Iturralde

-Genero **poliziakoa** oso gustukoa zuen -jarraitu zuen, Justoren harridurarako-. Joxemari Urteaga

## 2 poliziar

 dagokiona. ik polizial.

Arte galeria batean gertatzen den inkesta **poliziako** bat eta ondotik frantsesez Marcel Aymé famatuaren "La patte du chat" antzerkia. Herria

Sistema politiko- **poliziakoa** ezartzeko gaitasuna ikusten diote Errusiako aditu ugari Putini. Berria - Mundua

## polizial 1 izond

 poliziar dagokiona. ik poliziako 2; polizia 3.

Egunetik egunera harrigarriagoa egiten zaizu txosten **polizialarekin** itxuraz zerikusirik ez duten kontuekin erakusten dizun interesa. Rafa Egiguren

Aparatu **polizialak** indar handia dauka, eta kontuz ibili behar izaten dugu. Rafa Egiguren

-Guardia Zibilaren buruak lasaitasuna eskatu zion herriari, indar **polizialak** Errepublikaren alde zeudela esanez. Eider Rodriguez

Txetxeniako iturri **polizialen** arabera, manifestazioan 10.000 pertsona bildu ziren. Berria - Mundua

Askok usteko dute ezerk ez diola hainbesteko eskarmentua, zuhurtzia, inteligentzia ematen gizonari nola operazio **polizialek**, baina oker daude. Matías Múgica

Munduko artxibo **polizial** guztiak gizentzera. Aingeru Epaltza

Zer balio eduki dezake, nolana ere, ikerketa **polizialaren** helburuari begira? Rafa Egiguren

Berarekin dira irlako ordezkari **polizial** gorenak ere. Hasier Etxeberria

Ez zirela alderdi komunistak neurri ekonomiko zein **polizialak** gainditzeko gauza. Bernardo Atxaga

Irtenbide militar eta **poliziala** besterik ez du buruan. Berria - Kultura

Auzi honi muntaia politiko-juridiko-**poliziala** iritzi zion. Berria - Euskal Herria

## 2 eleberriez eta kidekoz mintzatuz, poliziakoa.

'Skyroom', Etxeberri idatzi eleberri **poliziala**, kalean da. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bide polizial** (5); **eraso polizial** (3); **indar polizial** (12); **politiko polizial** (3); **polizial eta judizialak** (4)

**eleberri poliziala** (3); **jazarpen poliziala** (6); **muntaia poliziala** (3); **operazio poliziala** (4); **txosten poliziala** (3)

**bide polizialak** (4); **indar polizialak** (4); **neurri polizialak** (3)

**indar polizialek** (11); **iturri polizialek** (3)

**indar polizialen** (7); **iturri polizialen arabera** (4)

## polizialki *adlag* era polizialean.

Ezer negoziatu gabe ETA **polizialki** garaitu beste biderik ez dagoela. Berria - Euskal Herria

Alonsoren hitzetan, operazioa «arrakastatsua» izan zen, «bai **polizialki** eta bai politikoki». Berria - Euskal Herria

ELAren esanetan, Ibaiguen «**polizialki**» kudeatzen ari da greba, «Udaleko baliabideak langileei jazartzeko eta haiek zigortzeko erabilita». Berria - Ekonomia

## poliziar 1 *izond* poliziala.

Bideo-zaintzaileek, teknologiak, Estatu **poliziarrak**, "gaztetasun" eternalezko mundu publizitarioak, mediek zaintzen eta zabaltzen diguten "normaltasunak" ikaritzen nau.

Ana Urkiza

## 2 ik polizier.

## poliziategi (*orobat polizategi*) iz polizia-etxea.

Ondoan, **poliziategia**, hemen ukan dut zigitua. Piarres Aintziart

Borta guziak bortxatzen zituen, prefeturakoak, apezpikutegikoak, **polizategikoak**, auzitegikoak, herriko-etxeakoak, bere mezuaren entzunarazteko eta behar zituen bultzaden ardiesteko. Michel Oronoz

Droga saltzaile gazte bat hil da **polizategi** batean, ez baitiozkate eman hartu behar zituen erremedioak. Herria

Lehegailu militarrek jaurti zituzten Bagdad erdialdean, hauek, antza denez, **poliziategia** zeukatelarik jomuga. Berria - Mundua

150-200 okupatzaile errusiar eta polizia kolaboratzaile hil, 7 base militar edo **poliziategi** suntsitu, 23 ibilgailu militar txikitu eta armaz eta munizioz betetako 2 kamioi bahitu.

Berria - Mundua

## poliziatxo iz *irud* polizia txikia.

Urduri heldu naiz, pentsatuz igual susmo okerra izan daitekeela, euliaren tamainako **poliziatxo** espainol bat baitaramagu beti bihotzaren alboan. Joseba Sarrionandia

## poliziazale iz poliziaren zalea.

Esaten nuen nik, bai, zoroegiak zinetela zuek **poliziazaleak** izateko. Juan Luis Zabala

## poliziburu ik poliziaburu.

## polizier (*orobat poliziar g.er.*) iz ipar polizia.

Madriren lau hil bederen izan dira, heietarik bat **poliziera**, [...] etxe bat zapartatu delarik bat batean. Herria

Haatik badira **polizierak** akusatua, berek zutela pidaia hori pagarazia. Herria

Jazarketa bat egin duke hango poliziak eta, iduriz, frantses **polizier** batzuk ere bai, holako kolpe batzuetan trebatuak. Herria

Erran behar da ere 41 lagun hil dituztela kamikaz terroristek Irakian, eta heietan 32 **polizier** irakiar. Herria

Hilabetero, Jackek **poliziar** ustel batzuk [...] diskretuki pagatzen zituen. Ramuntxo Etxeberri

## polizietxe ik polizia 12.

## poliziklo iz hidrokarburuez mintzatuz, ziklo bat baino gehiago dituena.

Horrek **poliziklo** hidrokarburo aromatikokoak (PH) sortzen ditu, eta horiek «oso agente kutsatzaile arriskutsuak dira». Berria - Euskal Herria

## polizoi 1 iz ezkutuan ontziratzen edo hegazkineratzen den pertsona.

Aste osoa iragan dut Pasaiaiko portuan Afrika aldetik etorritako bederatz **polizoi**en gorabeheran eta han sartu zaidan hotza ez zait oraindik irteten gorputzetik. Hasier

Etxeberria

Batetik, Olivier Legrand dago, 1886an Askatasunaren Estatuaren barruan gorderik New Yorkera iritsi zen **polizoia**. **Beria - Harian**

**Polizoia** kubiertain agertzen denean, gauza bakarra erregutzen du: lehenbaitlehen lanean jar dezatela, hori baita barkamenaren seinalea eta prezioa. **Harkaitz Cano**

Batetik, Olivier Legrand dago, 1886an Askatasunaren Estatuaren barruan gorderik New Yorkera iritsi zen **polizoia**. **Beria - Harian**

## 2 (adizlagun gisa)

Lau izar ageri zirela aurkitu zuten, ez txalupa bat Sethe **polizoi** joateko, ez ontzi-zainik prest zegoenik iheslari bat eramateko, halakorik ez, baizik barku oso bat, lapurtzeko.

**Anton Garikano**

## 3 irud/hed

Eta nork ez du **polizoi** bat barruan? **Harkaitz Cano**

## polka 1 iz poloniar jatorriko dantza, eritmo bizikoa.

Euskal dantzetarik kanpo, bazen denen gustukoa, vals edo **polka** edo skotish edo mazurka, denak zalu zalua joiten zituen orkestrak, beraren klarineta entzuten zela ozen eta xotil, denen gidari. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bestetik, modan zeuden piezak moldatzen zituen, hala nola pasodobleak, tangoak, mazurkak, **polkak**, fox-trotak... **Pako Aristi**

Preobrajenskyko eta Pavlowskyko errejimentuen musika bandak etengabe aritu ziren beren erreperitoriotik hautatutako **polka**, mazurka, scottish eta baltsik ederrenak jo eta jo.

**Karlos Zabala**

Kontatzen du nola Konstituzio Plazan noiznahi sortzen ziren dantzaldiak, besterik gabe, banda militarrek jotzen zuen **polka** batek alaituak. **Askoren artean**

Donostiarrek ongi ezagutzen zituzten musika militar horiek, eta dudarik ez da **polka** haietako batzuk dantzatzen zituztela, aukerarik txikiena zenean ere. **Askoren artean**

**Polka** entzuten da berriz. **Xabier Paya**

**Polka** ozenago entzuten da BLANCHE logelan sartu ahala. **Xabier Paya**

**Polka** eten egin da. **Xabier Paya**

## 2 (hitz elkartuetan)

Zuk eten duzu buru barruan eztanda egiteko zorian nuen **polka** doinua. **Xabier Paya**

polliki ik **poliki**.

pollikiño ik **polikiño**.

pollikitto ik **polikitto**.

pollikitu ik **polikitu**.

pollit ik **polit**.

pollitasun ik **polit**asun.

pollito ik **polito**.

## polo<sup>1</sup> iz lurburua; buru horren inguruko eskualdea.

Mahai gaineke globomundiaren alboan jarri eta Don Patriciok bi **polo** daudela esan zigun, goikoa iparraldekoa eta behekoa hegoaldekoa. **Joseba Sarrionandia**

**Poloak** eta basamortuak, Lurraren bioaniztasunaren gune hauskorak dira. **Beria - Gaiak**

Nik banekien eskimalak **poloan** bizi zirela. **Joseba Sarrionandia**

**Polo** aldean, berriz, beti eguraldi hotza, prezipitazio oso eskasekin. **Pello Zabala**

**Polo** aldeko bakardade izoztuetan barrena. **Anton Garikano**

Guretzat zuri bakarra dagoen arren, Ipar **Poloan** dagoen Groenlandiako inuitak zuriaren aldaera ugari bereizteko gai dira. **Beria - Mundua**

Mikel Alvarez Ipar **Polo** geografikora iritsi da. **Beria - Kirola**

## 2 (gainerako planetena eta sateliteena)

Ilargiaren Hego **Poloaren** inguruko eskualde bat ikertuko du Smart-1 zundak. **Beria - Gaiak**

400 kilometro baino gehiagoko izotz zatiak atzeman ditu ESAren Mars Express espazio zundak planeta gorriko hego-**poloan**. **Beria - Gaiak**

'Venus Express'-ek Artizarren hego **poloari** argazkiak egin dizkio. **Beria - Gaiak**

Titanen hego **poloan** metanozko lainoa atzeman du Cassinik, ustez. **Beria - Gaiak**

## 3 zeru esferako iparburu edo hegoburua.

Zeruaren esfera handia biratzen bada, esan behar dugu aireak **polo** bietatik sakatzen eta kanpotik eusten diola, eta bietatik ixten duela. **Xabier Amuriza**

Izan ere, bi Hartzak, iparraldeko **poloaren** inguruan biratzen dutenean, ez sartu eta ez lurraren azpian gordetzen ez diren bezala, hala, unibertsoaren inklinazioarengatik lurraren azpian geratzen den hegoaldeko **poloaren** inguruan biratzen duten eta ezkututzen diren konstelazioak ez dira inoiz lur gainera ateratzen. **Santiago Iruretagoiena**

## 4 irud/hed elektrizitate zirkuitu baten buruetako bakoitza, bata elektrizitate positiboz eta bestea elektrizitate negatiboz kargatua; iman baten buruetako bakoitza.

**Polo** bion inguruetan biltzen dira gainerako elementuak. **Joxe Azurmendi**

"Lexiko" eta "arbitrario" alde batean, eta "gramatika" eta "motibazio erlatibo" bestean, haien artean sistema osoa mugitzen den bi **poloak** dira. **Isabel Arrigain**

Berez baliogabeke edo neutralak diren polaritateak ere, balioz kargatzen ditugu: arra/emea, handia/txikia, zuria/beltza, eta bietako bat **polo** negatiboa bihurtzen dugu. **Joxe Azurmendi**

Mentalitate alternatibista edo manikeoaren propioa izaten da, errealtate osoa bi **poloren** arteko oposizio eta borroka bezala ikustea (Jainkoa/Deabrua, Ongia/Gaizkia); eta bi **poloak**, ez zerbeit-izate bezala, baizik balioak bezala ulertzea, bat positiboa eta bestea negatiboa. **Joxe Azurmendi**

"Abstrakzioaren" **poloa** alde batetik, estilo bestetza inorganikoa duena, [...] eta *Einführung* **poloa** bestetik, naturalismoaren, organikoa. Josu Zabaleta  
Bi ikuspen-modu horiekin, irudikapen-artearen muturreko bi joera edo **polo** lortzen zituen Hildebrandek: **polo** optikoa, urrutiko ikuspenari dagokiona [...]; beste muturrean, **polo** haptikoa (ukimenezkoa) dago. Josu Zabaleta  
Andreieven obra guztiak hiru **polo** nagusi izan zituen: errealaismoa, sinbolismoa eta espresionismoa. Jose Morales  
Posible ikusten duzue **polo** bakarreko mundu honetan, boterea herriarentzat hartzea eta sozialismoa eraikitzea? Berria - Mundua  
Bluesa, punka, rocka eta countrya egiten dituzte, eta **poloak** elkartzen. Berria - Kultura

## 5 zenbait gauza biltzen diren gunea.

Hari horretatik, beste bi **polo** nagusiak -ezker abertzalea eta alderdi sozialista- indargabetzen saiatu zen. Berria - Euskal Herria  
Ezkerreko **polo** subiranista plurala sortzeko ernamuina jartzen ari gara. Berria - Euskal Herria  
EAJren alternatiba izan nahi duen «**polo** independentista» osatzen dutela. Berria - Euskal Herria  
Herri honentzat alternatiba politiko bilaka litekeen ezkerreko **polo** bat egituratzea. Berria - Euskal Herria  
Euskal erakustokia idekia eta Irisarriko Ospitalea laster idekiko dela ikusirik, Baionak eta departamenduak bultzatzen dute ondarearen "**polo**" baten sortzea. Herria  
Ondare "**polo**" horren aldeko elkartean partaide izaitea bozkatu du Baionako kontseiluek. Herria  
Europako Konstituzioa behar dugu aberastasun eta hazkunde **polo** gisa, globalizazioari buru egiteko. Berria - Euskal Herria  
Unibertsitate **poloaren** garapenak Baiona Tipiko bizi-kalitatea hobetuko du Herriko Etxearen iritziz. Berria - Euskal Herria  
*Garaia* Innobazio **Poloaren** lehen harri jartzean ere izango dira Espainiako errege-erreginak, osteguneko bisitan. Berria - Euskal Herria

## 6 izozki makiladuna.

Limoizko **polo** merke bat erosi zioten Harryri. Iñaki Mendiguren  
Hura ere ez zegoela txarra pentsatu zuen Harryk, **poloa** miatzatu eta gorila bati begira zegoen bitartean Iñaki Mendiguren

## 7 polo magnetiko iparrorrazak markatzen dituen Lurreko bi puntuetako bakoitza.

Gizon hark desio zuen, eta horrek neskaren bihotzean zirrara eta mirespena pizten zituen, hain zuzen ere **polo** magnetiko batek bezalatsu erakartzen zuen limurtasunezko plazerarekin batera. Patxi Zubizarreta

## polo<sup>2</sup> 1 iz hockeyaren antzeko kirola, zaldi gainean jokatzen dena makila mazodun luzeekin.

Zaldi gaineko buru-malabarismoetan edo buruaz **poloan** jardutea. Iñaki Mendiguren  
Behin berarekin **poloan** jokatu huen. Edorta Jimenez  
Winston Guest **polo** jokalaria-ohi milioiduna. Edorta Jimenez  
1930ekoetan **polo** txapeldun ospetsua izan zen, eta bere hegazkin konpainiaren jabea. Edorta Jimenez  
Kirol ekitaldiak: saski baloi, errugbi, pilota, ur-**polo**, mahai-tenisa, karrika-hokeia, kanoe-kaiaka, tenisa. Herria

## 2 alkandora-lepoa duen jertsea, bularraren goialderaino irekia.

Ni nahiko formal nago jantzita, *Three Riversen* edo *Visalían* gestioak egiteko erabiltzen nuen traje ilunarekin eta **polo** zuri batekin. Bernardo Atxaga  
Belaunetarinoko gona, bota garaiak, eta sama berotzen dizun **polo** beltza. berrogei urte inguruko fosil bat Lacoste markako **polo** batean kabitu ezinda. Urtzi Urrutikoeetxea  
Idun jasoko **polo** beixaren gainetik galtzen zaio adats kirru gominatua. Urtzi Urrutikoeetxea

## polones 1 izlag/iz ipar poloniarra.

Lehen partean, **polones** organista batek, Krzysztof Pawlisz, eskainiko du musikaldi bat. Herria  
Beldurrik gabe oldartu dira **polones** langileak, beren langile sindikatak sortuz eta, azkenean, kanporatuz Errusoen esku-makilak. Herria  
Hor ere bahitzaile terroristak gauza bera galdatua zioten **polones** gobernamentuari: bere eginahalak egin zitizan amerikanoen presondegietan dauden emazte irakiarren libratzeko. Herria  
Apez **polones** batek eta aleman batek ez dute aise elgar aditzen. Marzel Etxehandi  
Sortzez **polonesa** zen eta judua. Herria  
Orduan katolikoek bakarrik eginen zutela desmartxa, aleman bat, frantses bat, **polones** bat joan ziren. Marzel Etxehandi  
Bazen **Polonesen** biltzarra, Hungariarrena, Yugoslabiarrarena, besteak beste, libratu aitzin ideia onen zabaltzeko. Marzel Etxehandi

## 2 poloniera.

Hor ikusten da, **polonesetik** frantseserat itzuliak, berrikerari horrek bere bizi luzean idatzi artikulu bilduma bat. Herria  
Aita Sainduaren mezua ere izan da, Poloniako nuntzio apostolikoak Erromatik ekarririk **polonesez** irakurri duena. Herria

## polonesa iz poloniar dantza, lasaia eta erritmo markatukoa.

Halako batean, "**polonesa**" dantzatzeko deia jo zuten, eta maila guztietako gonbidatuak abiatu ziren horrelako ospakizunetan dantza nazionalaren garrantzia hartzen ohi duen ibilaldi kadentziatsuan parte hartzera. Karlos Zabala

## poloniar 1 izlag Poloniakoa, Poloniar dagokiona.

Napoleonek frantziar legearen kodetze egin berria sartu zuen bere inperioko italiar, flandriar, alemaniar eta **poloniar** lurraldeetan. Iñaki Mendiguren  
Ryszard Kapuscinski **poloniar** kazetariak. Iñigo Aranbarri  
Chmielnitzki eta bere kosakoak **poloniar** agintarien kontra altxatu ziren. Koro Navarro  
Armak saldu omen dizkie **poloniar** matxinoei. Felipe Juaristi  
Aldi hartan **poloniar** preso bat zuen buru. Eneko Bidegain  
Franco hilez geroz ere, Joanes Paulo zena Loiolara eta Xabiererra etorri zelarik, zer jukutriak ez zituzten erabili Madrileko elizak eta gobernuak, ez ziezaion gure lehendakari Garaikoetxeak eman lehen agurra gure lurrean **Poloniar** Aita Sainduari! Herria  
Baina hauek ere ez ziren gehiagi bereizten apur bat harantzagoko artista **poloniar**, italiar edo portugaldarren artetik. Hasier Etxeberria  
Baziren zapata-saltzaile **poloniar**, maskor-saltzaile turkiarrak eta perla-saltzaile errumaniarrak. Felipe Juaristi  
Agian horrelakoetan, beso gihartsudun etorkin **poloniar**, italiar eta afrikar saldoek oihu egingo zuten norberak bere hizkuntzan, elkar ulertu gabe, dezepzioak eta amorruek jota. Harkaitz Cano

• **2 iz** Poloniako herritarra.

Atzo bertan **poloniar** batekin afaldu nuen, eta gauza bera bota zidan: alemanek bere herria bonbardatu genuela. Ramon Saizarbitoria  
Autoaren gidaria **poloniarra**. Harkaitz Cano  
-Lituaniako **poloniarra**, hobeto esanda -erantzun zuen Juvenaliak. Felipe Juaristi

**Poloniar** gehienek bazuten beti halako aihkerendua bat frantsesentzat eta ez zuten desberdintasunik egiten euskaldun eta frantsesen artean. **Eneko Bidegain**

**Poloniar** sutsua izan zen Rufin Piotrowski bizitza osoan, eta beti aldarrikatu zuen bere jaioterria, bere Podolia maitea, Poloniaren zati bat zela. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**poloniar** frantsestu bat. Guillaume Apollinaire Kostrowizki, askoren iritziz poesia modernoaren aita. **Iñigo Aranbarri**

**Poloniarrak**, italiarrak, japoniarrak, jatorri askotako jendea izaten nuen lagun eserialdi haietan. **Xabier Montoia**

Elkarrekin hil ziren: sionistak, bundistak, **Poloniar** Alderdi Sozialistako kideak, ukrainar nazionalistak, eta besterik gabe erbesteratu zituztenak, langile falta zegoelako atxilotuak denak. **Koro Navarro**

## poloniera 1 iz Poloniako hizkuntza ofiziala.

Eslaviarrak (errusiera, **poloniera** ...); baltikoak (letoniera, lituaniera). **Herria**

Émile negarrez ari zuan isilean, bere baitarako **polonieraz** hitz egiten. **Josu Zabaleta**

Errabinoak ez zuen **polonieraz** egiten. **Koro Navarro**

Bera hemen jaioa da eta lituanieraz zein **polonieraz** daki. **Berria - Mundua**

**Polonieraz** idatzitako literaturaren sustatzaile izan zen. **Berria - Kultura**

Pasa den mendeko azken hamarkadan txekiarrez idatziriko 10 edota 15 liburu inguru itzultzen ziren **polonierara**. **Berria - Euskal Herria**

Hala, esaten da frantsesezko azentua azken silaban dagoela; txekierazkoa, berriz, hitzaren lehen silaban; **polonierazkoa**, azken-bigarrenean. **Lourdes Oñederra**

## 2 (hitz elkartuetan)

Laster ekarri zuen Piettkak beste bat, nire adineko eta -geroago jakin nuenez- arrazako gaztea, baina **poloniera** -hiztuna. **Urtzi Urrutikoetxea**

## polpolka *adlag* pol-pol eginez.

Dirua belarrietatik **polpolka** eta, hala ere, sarea muntatu behar Donostiako emakumerik finenekin jolasean ibiltzeko. **Hasier Etxeberria**

## poltrona 1 iz besaulki eroso.

Andreas gela hartan bakarrik gelditu orduko, hango **poltrona** erosoan eseri, arrosa koloreko repsez tapizatua, eta inguruko gauzei erreparatzen hasi zen. **Matías Mujika**

## 2 (utzi nahi ez den agintearen ikur gisa)

Euren **poltronak** defendatzen dituzte, bost axola zaie gainerako gutzia... hurrengo hauteskunde kanpainara arte. **Jokin Urain**

## poltronero iz ipar poltronaren (bigarren adieran) zalea dena.

Bidaia luze hau alferrikakoa izango da orain arteko **poltroneroen** esku uzten badugu. **Berria - Euskal Herria**

## poltsa 1 iz gai malguzko ontzi modukoa, goialdetik irekia, gehienetan eskulekuduna. ikzorro.

Bere zorrotik larru beltzez josiriko **poltsa** atera zuen eta latinezko liburua irakurtzen hasi. **Jasone Osoro**

Orendaingo bidean gora gindoazela gure bizkarrak okertzen zituzten **poltsa** eta zorroak arakatu izan balituzte, oso bestelako gauzak ere aurkituko zituzten: batek patxarana, besteak ginebra, honakoak koñiaka, harakoak vodka... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hainbeste **poltsa** eta hainbeste zorro. **Fernando Morillo**

**Poltsaren** kremlera itxi nuen. **Anjel Lertxundi**

Goioek ez zion armen **poltsa** hura inori erakutsi. **Joseba Sarrionandia**

Espaloi erdian gelditu zen liburuen **poltsa** eskuan zintzilik zuela. **Ramon Saizarbitoria**

Golfeko pilota arruntan **poltsa** bat atera zuen. **Iñaki Mendiguren**

Ezker eskuan **poltsa** bat zeraman; eskuinean, berriz, pistola txiki bat. **Aritz Gorrotxategi**

Altzoan zeukan larruzko **poltsa** estutu zuen bi eskuez, lapur baten edo bortxatzaile baten aurrean balego bezalako imintzioa eginez. **Anjel Lertxundi**

Plastikozko **poltsa** bi zekartzan, janariz beteta, bakoitza esku banatan. **Joxemari Iturralde**

Arropa zikinak plastikozko **poltsa** batean sartu eta garbitegira abiatu zen libixa egitera. **Iñaki Zabaleta**

Tati erostetxeetako **poltsa** arrosak ikusten ziren han-hemenka. **Joseba Urteaga**

**Poltsa** beteoa neramala atera nintzen merkatutik. **Aingeru Epaltza**

Izeba ganbarara igo zen, eta hautsez estalitako **poltsa** batekin itzuli zen. **Juan Kruz Igerabide**

Laguntzaileak bidaiariak erabilitako edontziak eta paperak plastikozko **poltsa** batean ari ziren jasotzen. **Javi Cillero**

Gure anaiak ez zuen han musika tresnarik jotzen baina bukaeran berak zuen **poltsa** pasatzeko ardura. **Jon Maia**

Pauso txiki eta lotsatiekin, bizkarra pixkatxo bat okerturik, **poltsa** esku biekien oratuz maldan gora. **Eider Rodríguez**

Eta gu autopista bazterrean, orain eskuinaldean, kolga-kolga eginda, **poltsa** banarekin. **Pako Aristi**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berak zeraman errautsen kutxa, Brightman Attic-en logoa zeukan erosketa-**poltsa** berde batean sartuta. **Oskar Arana**

Liburu-**poltsa** erakutsi nion, baldar; liburu-dentatik nentorrela. argazki-**poltsa** hartu eta igo zituen ganbararako eskailerak, bonbilla ziztrin batek argitutako erdi ilunpean. **Juan Kruz Igerabide**

Hiru milioi billete txikietan kirol **poltsa** antzeko batean eta gizon baten argazkia jakaren goiko poltsikoan. **Sonia Gonzalez**

Larru gorritzko bide **poltsa** bat zeraman aldean, eta besterik ez, nonbait. **Karlos Zabala**

## 3 (itxia dena) ik zorro.

Bari hiritik hurbil, **poltsa** handi bat diruz bete aurreratu zuen bidean, merkatariek "zorroa" deitzen duten horietakoa. **Askoren artean**

Urrez, zilarrez eta brontzez beteriko **poltsa**, Harryren patrikan tintin-hots alaia ateraz, gastatzeko eskatzen ari zen. **Iñaki Mendiguren**

Bud **poltsa** bateko kakahuetak jaten ari zen. **Lopez de Arana**

Mahaipetik, tabako pakete bat baino gutxi handiago zen zerbait pasatu zion plastikozko **poltsa** batean bildua. **Unai Iturriaga**

Bat-batean **poltsa** zabaldu zitzaion, eta gutun sorta bat erori zen elurretara. **Koro Navarro**

Komuneko apalean aurkitu zuen [...] bizarra mozteko gauzen binilozko **poltsa**. **Koro Navarro**

Dendaren erdi-erdian zegoen zutik, mugitu ere egin gabe, barazki betetako **poltsa** bat eskuan, eta zozo aurpegi izugarriaz. **Unai Iturriaga**

Tatarrazka eraman zenuen, gurpiltxo mugikor batzuen gainean, zintzilik zegoen serumaren **poltsa** gardena. **Hasier Etxeberria**

Bururdi termikoa, ur beroko **poltsak**, limoi zukua eta termometroa bi orduz behin. **Josu Zabaleta**

Porru bat lotzen hasi zen laguna, zelofanezko **poltsa** tiki batetik marihuana iharra aterata. **Aingeru Epaltza**

Mahaipetik, tabako pakete bat baino gutxi handiago zen zerbait pasatu zion plastikozko **poltsa** batean bildua. **Unai Iturriaga**

Zeilango le gorria gortzen zuen metalezko kutxatik bi **poltsa** txiki hartu, eta logelara itzuli zen berriro. **Aritz Gorrotxategi**

**Poltsa** bat izotzek ere efektu bera egiten du, izotza ur bihurtzeko ere beroa behar baita. **Irene Aldasoro**

#### 4 (hitz elkartuetan igarren osagai gisa)

Janari **poltsa** berriz ere lur gainean pausatu nuen. Bere gelara doa gaileta- **poltsa** huts baten bila eta barruan sartzen dut. **Aingeru Epaltza**

Semea han atzean zegoen, karamelu **poltsa** bat zeukala eskuetan. **Joseba Sarrionandia**

Beste mutil batekin zihoan, eta patata frijitu **poltsa** bat pasatzen zioten elkarri. **Koro Navarro**

Ur irakina bakarrik atera zien katilu handietara (te- **poltsak** ipintzea ahaztu baitzaitzaion). **Iñaki Mendiguren**

Zabor- **poltsa** gordetzen duen plastikozko ontzia atera eta linterna luzatzen dut armairu barrura. **Josetxo Azkona**

Robertok laguntzaileari keinu bat egin eta honek plastikozko zabor **poltsa** ireki zuen. **Harkaitz Cano**

Txirbil **poltsa** bat lortu, eta lurrean lo egin ahal izango dugu. **Josu Zabaleta**

Pentsaturik bazkariak ez diola onik egin, gonbito- **poltsaren** bila hasi naiz aurreko aukiarenekin zorroan. **Anjel Lertxundi**

Anbulantziatetik, erizainak iriteten, odol- **poltsa** eta ohatilekin. **Anjel Lertxundi**

#### 5 irud/hed

Begiak argi, bizkor eta gazte itxurako zituen, haien azpian hutsik zintzilikatzen ziren larru- **poltsa** handi finak gora-behera. **Juan Garzia**

**Poltsa** moduko bat ari zitzaionan sortzen masailezur azpian. **Anton Garikano**

Barrabilen **poltsa** -eskrotoa- emakumearen kanpoko ezpainak baino ez da. **Luis Elberdin**

Ondoren, emeak **poltsa** edo xixku berezi batean jasotzen du arrak emandako hazia. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Aspaldiko istorio batez geroztik Gofi gantz- **poltsa** hura ez zuen batere gustuko. **Harkaitz Cano**

Loria eta bakardadea, fama eta anonimata, onarpena eta porrota bizkar **poltsa** berean sarturik. **Anjel Lertxundi**

#### 6 (diruarena)

Esku hark **poltsa** bat bete diru bota zuen da Rua eta bere lagunak zeuden mahaira. **Felipe Juaristi**

Utzi dut tenta nazaten, askatu dut **poltsa** eta hotelera igorri dut saldu didaten guztia. **Koldo Izagirre**

Bere **poltsa** ireki, ehun dolarreko billete bat atera eta luzatu egin zidan. **Fernando Rey**

Mutilaren **poltsa** hartu eta jeneralari eman zizkion urrezko txanponak. **Xabier Aranburu**

Egun hartan, zulora sartu eta **poltsa** bat aurkitu genuen, urrezko txanponak bete. **Bernardo Atxaga**

Hori esan zuen, ez behartsuak axola zitzaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru- **poltsa** berak zuenez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako. **Elizen arteko biblia**

Beti bezain burugabe segitzen nuela adierazi zidan amak, **poltsa** isila osatzeko beta izanagatik, oso inozo utzi bainuen neure buruaz zernahi egitea. **Joxan Elozegi**

Falta izan al zenuten ezer, **poltsarik** eta zakutorik eta oinetakorik gabe bidali zintuztedanean? **Elizen arteko biblia**

· Hustu zaio dagoeneko **poltsa**: horra urrezko hitz guztiak gastatu. **Juan Garzia**

#### 7 eskuko zorroa, gehienetan txikia, larru edo oihalezkoa, itxituraz eta askotan heldulekuz hornitua, emakumeek dirua eta hainbat gauzaki eramateko erabiltzen dutena.

Teresak txaketa eta gona horiko traje bat zeraman, eta **poltsa** zuri bat, sorbaldatik zintzilik. **Bernardo Atxaga**

**Poltsa** arrosatik lapitza atera eta ezpainak apaintzen hasi da ispilu txikian. **Alberto Barandiaran**

Gasazko musuzapi bat eskumuturrekoan lotua, letra margotuak eta herskailu irtenak zituen **poltsa** ilun bat, eta poltsaren barruko aurpegiko hautsak, autobuseko txartela eta txelin bat. **Koro Navarro**

Kristinak, arestiko edalontziarekin batean, bere **poltsa** urdin berria zekarren. **Aingeru Epaltza**

Han zegoen andrea zutik, kalerako jantzita, berokia soinean, sonreroa eta eskularruak ere bai, **poltsa** eta euritakoa eskuan. **Matías Mujika**

Takoiaren gainean zuen ibiltzeko tankera deserosoak [...], **poltsa** eskuetan eramateko zuen modu dotoreak [...] edo bere sorbalda beti biluziak mugitzeko erak nahastu egiten ninduten. **Joxean Agirre**

**Poltsa** -ukaldiak saihestu behar izan dituzte prostituta koadrillaren parera iritsi direnean. **Jokin Muñoz**

#### 8 (bestelakoak)

Iruditzen zitzaion golf makilen **poltsa** oso pertsonala zela. **Joxemari Iturralde**

#### 9 irud/hed

Aire- **poltsa** beroago eta lehorragoak suntsitu eta xurgatu egiten zion umeldura eta hezkura. **Pello Zabala**

Ipar poloko aire **poltsa** handi hori kizkurtu egingo litzateke, gutxitu. **Pello Zabala**

Labaina, herrialde aberatsetan pobrezia **poltsa** handi-handiak daude **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

#### 10 burtsa.

Ekonomia munduak dardara izugarria izan zuen 1929an **poltsa** hankaz gora jarri zenean Wall Street-en. **Pello Salaburu**

Eskolako tontoak, mordoia behintzat, exekutibo eta kudeatzaile egin dira, eta enpresa, aseguru, banku, **poltsa**, higiezin, aholkularitza eta abar zikin horietan erori dira. **Iñaki Segurola**

#### 11 *bidaia-boltsa* ik *bidaia*.

#### 12 *esku poltsa* ik *esku*.

#### 13 *eskuko poltsa*

**Eskuko poltsa** bat eta arropa beharrezkoenak erosi nituen. **Anjel Lertxundi**

Andereñoak **eskuko poltsatik** arkatza atera eta bere agendako orri bat moztu zuen. **Anton Garikano**

Ohetik altxatu, eta **eskuko poltsa** hartu zuen. **Ramon Saizarbitoria**

**Eskuko poltsa** bat eta arropa beharrezkoenak erosi nituen. **Anjel Lertxundi**

**Eskuko poltsa** handian zerbaiten bila zebilen bitartean hitz egiten zuen. **Ramon Saizarbitoria**

-Epa, Tom -esan zuen Honeyk, **eskuko poltsa** salmahaiaeren gainera erortzen utziz. **Oskar Arana**

#### 14 *lan poltsa* ik *lan 27a*.

#### 15 *poltsa arindu* gastatu; lapurtu.

Bidaiari guztiak ez zuten **poltsa** gogo onez arindu nahi izaten. **Aingeru Epaltza**

Ikasia baitzuen ordurako norberaren inozotasunak erukira bainoago maltzurkeriara bultzatzen dituela besteak, balizko inozoaren **poltsa** arintzeko helburuz lapurbidera alegia. **Felipe Juaristi**

#### 16 *poltsa-zimur izond*

Topikoak bestela badio ere, katalan guztiak ez dira xuhurrak ez **poltsa** -zimurrak, ezta gutxiago ere. **Joan Mari Irigoien**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aire **poltsa** (5); armen **poltsa** (3); beteriko **poltsa** (4); betetako **poltsa** (5); betetako **poltsa** bat (3); bidai **poltsa** (11); bidaia **poltsa** (4); bihotz itxurako **poltsa** (3); diru **poltsa** (15)

eguneko lan **poltsa** (8); erosketa **poltsa** (3); eskari **poltsa** (6); eskolako **poltsa** (5); esku **poltsa** (7); eskuko **poltsa** (16); gasolio **poltsa** (3)

janari **poltsa** (4); kirol **poltsa** (6); kokaina **poltsa** (3); lan **poltsa** (24); lan **poltsa** eskaini (5); larruzko **poltsa** (5); liburu **poltsa** (3); liburu **poltsa** (4); paperezko **poltsa** (8); patata frijitu **poltsa** (3); patata **poltsa** (4); plastikozko **poltsa** (40); plastikozko **poltsa** bat (3); plastikozko **poltsa** batean (9); plastikozko **poltsa** jarri (3)

**poltsa** atera (4); **poltsa** bana (5); **poltsa** barruan (7); **poltsa** bat atera (3); **poltsa** bat atzeman (3); **poltsa** bat aurkitu (3); **poltsa** bat eskuan (3); **poltsa** bat hartu (4); **poltsa**



bat zeraman (3); **poltsa batean sartu** (9); **poltsa baten barruan** (3); **poltsa beltz** (3); **poltsa berrian** (3); **poltsa berrian egoteko** (3); **poltsa bete** (8); **poltsa buruan jarri** (4)

**poltsa egin zidaten** (4); **poltsa egin ziotela** (3); **poltsa erakutsi** (3); **poltsa eskaini** (5); **poltsa eskaini dute** (3); **poltsa eskuan** (10); **poltsa eskuan zuela** (3); **poltsa eskuetan** (3); **poltsa gorri** (5); **poltsa handi** (17); **poltsa handi bat** (10); **poltsa handia** (5); **poltsa handiak** (3); **poltsa handian** (3); **poltsa hartu** (18); **poltsa hartu zuen** (4)

**poltsa ireki** (9); **poltsa itxi** (3); **poltsa jarri** (15); **poltsa jarrira** (3); **poltsa lapurtu** (3); **poltsa lurrean utzi** (4); **poltsa lurretik hartu** (3); **poltsa mota** (3)

**poltsa txiki** (5)

**poltsa zabaldu** (8); **poltsa zahar** (3); **poltsa zimurrean** (5); **poltsa zuri** (3)

**tabako poltsa** (4); **zabor poltsa** (18)

**betetako poltsak** (4); **diru poltsak** (5); **erosketa poltsak** (5); **eskolako poltsak** (4); **janari poltsak** (3); **kokaina poltsak** (3); **lan poltsak** (3); **plastikozko poltsak** (18); **zabor poltsak** (6)

**eskua poltsan** (3); **eskuko poltsan** (4); **lan poltsan** (7); **plastikozko poltsan** (3); **poltsan gorde** (4); **poltsan sartu** (13); **poltsan sartuta** (3); **poltsan sartzen** (6)

**poltsara sartu** (4)

**lan poltsarako** (3)

**diru poltsaren** (4); **lan poltsaren** (6); **poltsaren barruan** (4); **poltsaren bila** (3)

**poltsarena egin** (3)

**amaren poltsatik** (3); **atera zuen poltsatik** (4); **bere poltsatik** (10); **eskuko poltsatik** (5); **plastikozko poltsatik** (5); **poltsatik atera** (17); **poltsatik aterata** (3); **poltsatik lapurtu** (3)

## poltsadun *izond* poltsa daramana.

Halatan, behin, halako pentsakizunetan doala, emakume **poltsadun** batekin estropezu egin, eta han joango dira lurrera biak. **Iñaki Iñurrieta**

Bidesaria ordaindu eta bi behargin eta judu txiki **poltsadun** batekin garraiatu gintuzten. **Irene Aldasoro**

## poltsakada *iz* poltsakada baten edukia.

Ordaintzeko era kaskarra da hau... **poltsakada** bat trikimailu magikoren trukean haien sakrifizioa arriskuan jartzea. **Iñaki Mendiguren**

Behin batean, amak **poltsakada** bat barazki ipini zidalarik Adelari eramateko, maistraren etxera igo, eta liburu hura jo nuen begiz apal batean. **Juan Kruz Igerabide**

## poltsaratu, poltsara(tu), poltsaratzen du *ad* poltsara eraman.

Bere jabetza guztiak atzera **poltsaratu** arte ez zen berriz mintzatu. **Aingeru Epaltza**

## poltsatto *iz* poltsatxoa.

Berandaren maldan bizpahiru abere-bazka **poltsatto** zeuden eta bizkar-zakuan sakatu zituen. **Itxaro Borda**

## poltsatxo 1 *iz* poltsa txikia.

Emakumeak **poltsatxo** bat zeraman ezkerreko eskuan; besaurrean, berriz, juduek derrigorrez josi beharreko besoko horia, Dabiden izarrarekin. **Anjel Lertxundi**

Almak asteburu osoan ireki ere egin ez zuen **poltsatxo** bat zekarren aldean. **Harkaitz Cano**

**Poltsatxo** batean kako-iltze batzuk sartu bitartean. **Iban Zaldúa**

Kosto harria, tabako pakete baten zelofanean; hiru mikropuntu, **poltsatxo** batean; farlopa gramo erdia -gutxi gorabehera-, [...]. **Sonia Gonzalez**

Berriz ere **poltsatxoa** atera, tabakoa galkatu, piztu eta, gure artean ke hodei urdinxa bat egotzita, hitz egiten hasi zen. **Alberto Ladrón Arana**

Bidaiazteko **poltsatxo** bat presta zezala eta ekartzeko, baita ere, pasaporteak. **Joxemari Iturralde**

Berakatzetaz betetako **poltsatxoak**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Amonak gerrikoaren barren aldean jositako **poltsatxoa** haztatu nuen. **Anjel Lertxundi**

Narruzko **poltsatxo** bat bazen, txanpenez beteak. **Edorta Jimenez**

Dendako kutzako dirua, kartera bat eta diruz beteriko **poltsatxo** bat ostu omen zituen akusatuak. jatetxeko paperezko ahozapia, azukrearen **poltsatxoa**, bazkariaren faktura. **Berria - Euskal Herria**

Diruen **poltsatxoa** ez zitzaidan txarto etorriko. **Edorta Jimenez**

Sendagarrien **poltsatxoa** erakutsi nion, anpuluak atera nuen eta, nire buruarekin egina nuen moduan, tanta hatz lodiaren mamian isuri nuen. **Edorta Jimenez**

Gobernua arduratzen da kalamuaren ekoizpenaz eta medikuen bitartez saltzen zaie gaixoei: 30 haziko **poltsatxoak** 20 dolar. **Berria - Harian**

Arrautzaren erdibitzea, hots, lehenbizi bi, gero lau zelula sortzea; gero zelula-bolatxo bat, gero **poltsatxo** bat. erlearen sabelean dagoen **poltsatxoa** ireki eta ezti zaporea dastatu zuen. **Juan Garzia**

Goxokiez gainera, kokkor batzuk eta **poltsatxo** bat azukre. **Joxan Elozegi**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagaia gisa)

Sentitzen dut, baina te-**poltsatxoak** bakarrik ditut... **Iñaki Mendiguren**

Espero bainuen egun batean ez bazen bestean bere droga-**poltsatxoak** banatzeko eskatuko zidala. **Fernando Rey**

Emakumetxoak txabustinaren sakelatik tabako-**poltsatxo** bat atera eta pipa galkatzen hasi zen. **Alberto Ladrón Arana**

Azukre **poltsatxoari** begiratu zenion eta zalantza une baten ostean poltsikoan sartu zenuen, enkontruan lekuko bezala, segur aski, fetitxea. **Lander Garro**

Poliziak xiringak, odol **poltsatxoak** eta ur destilatuko anpuluak atzeman zituen logetan. **Berria - Kirola**

Diru **poltsatxo** bat ere bazen, osterak. **Edorta Jimenez**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**botiken poltsatxoa** (3); **diruen poltsatxoa** (3); **sendagarrien poltsatxoa** (4)

## poltsatzar *iz* adkor poltsa handia.

Poltsa horiek halako **poltsatzar** batean sartzen dituzte, beste leku batera eroan eta hantxe miatzeko. **Edorta Jimenez**

Hasieran, arropa zikinez beteriko **poltsatzarrek**in agertzen nintzen bakoitzean, marmarka hasten zitzaidan ama. **Iban Zaldúa**

## poltsazale *izond* poltsaren zalea dena.

Anaia guztiok eduki dezagun hura anaia faltsu, apostata, lapur, gaizkile eta **poltsazaleztat**, benetan damutzen ez bada behintzat. **Askoren artean**

# poltsiko (812 agerraldi, 128 liburu eta 113 artikulutan) 1 iz sakela. ik patrika.

Agustinak sakristiako giltza gorde zuen **poltsiko** batean. **Aitor Arana**

Josebak **poltsikoan** sartu zuen sobrea. **Iñaki Zabaleta**

Gabardinaren iduna goratu, eskuak igurtzi eta eskumako **poltsikoan** sartu zuen eskua. **Joxemari Urteaga**

Ezkerreko eskuaz egin zuen hori guztia errepublikarrak, eskuinekoa jakaren **poltsikoan** baitzeukan. **Juan Kruz Igerabide**

Congok txalekoaren **poltsiko** batetik txartel bat atera zuen. **Lopez de Arana**

Kozkor bat antzematen zitzaion **poltsiko** hartan, pistola, inork inoiz ikusi gabea. **Juan Kruz Igerabide**

Atea ireki eta eskuineko **poltsikoan** zekarren linterna piztu zuen. **Joxemari Urteaga**

Beste bat, berriz, mutilaren **poltsikoak** miatzen hasi zen. **Xabier Aranburu**

Khabul Khanek eraztun bat atera zuen bere galtza zabaletako **poltsiko** batetik, harri berde bat, Star zahar bat zeraman zirako **poltsiko** batean. **Felipe Juaristi**

Txanponen bat neukan **poltsiko** txikian. **Bernardo Atxaga**

Jakaren **poltsiko** sakonetako batean gorde zuen belus horiko azalekiko koaderno. **Xabier Olarra**

Inora ailegatu eta labana **poltsikoan** beti, gizakia... **Joseba Sarrionandia**

Berokiaren barruko beste **poltsiko** batetik hontz bat atera zuen... benetako hontza, bizia, lumak harro samar zituena... **Iñaki Mendiguren**

Eskuak **poltsikoan**, unetxo bat eman zuen Gusi eta haren emazteari begira. **Lopez de Arana**

Unetxo batez norantz jo jakin gabe, hormari pega-pega eginda egon zen, eskuak **poltsikoetan**. **Lopez de Arana**

Mekanismoa bazebilen, baina **poltsikoko** erloju hark ez zeukan kristalik, ez orratzik. **Juan Kruz Igerabide**

Bi urtero egiten duen bezala, Herriko Etxeak xehetasunen **poltsikoko** liburuxka argitaratu du. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (aditz baten objektu gisa)

Botila haien estalkiak biltzen aritu ginen, **poltsikoak** bete arte. **Juan Kruz Igerabide**

Bere **poltsikoak** husteko eskatu diot Potterri. **Iñaki Mendiguren**

Baso-guardak **poltsikoak** miatu zizkion. **Joxemari Urteaga**

Bere arropetako **poltsiko** guztiak arakatu ondoren argazki batzuk atera zituen azken patrikatik. **Harkaitz Cano**

Praken **poltsikoak** haztatu eta berehala, txanponen hotsa heldu zitzaion belarrietaraino. **Aritz Gorrotxategi**

-Potter, atera kanpora zure **poltsikoak**! -bota zion bat-batean. **Iñaki Mendiguren**

## 3 irud/hed

Hauexek dira -erran zuen paper eskutada bat ateraz maletako **poltsiko** batetik. **Alberto Ladron Arana**

Autoko alboko **poltsikotik** dokumentazioa altxatzeko larruzko karpeta granatea atera zuen eta belauan gainean ezarri. **Aingeru Epaltza**

Agirre, bitartean, paperen bila saiatu zen atearen **poltsikoan**. **Rafa Egiguren**

Ohartzen naiz, Patri, gertaera berri hauek nire etikaren **poltsikoetan** eroso gordetzeko zahartzen hasia naizela, ez nagoela prestatuturik. **Hasier Etxeberria**

## 4 (diruaren sinbolo gisa)

-Urteak nire soldataz haren **poltsikoa** gizentzen, eta horra ordaina. **Aingeru Epaltza**

Alderdien **poltsikoak** betetzeko proiektu faraonikoak. **Berria - Euskal Herria**

Gainera, diru zorrak egin zituen -kartzelatik libratzeko **poltsikoak** ere askatu behar izaten dira maiz-. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eta inork ez zidak **poltsikoa** hustu. **Lopez de Arana**

Israelera bidaiatzea ez dago **poltsiko** guztien eskura. **Berria - Kirola**

Margolari eta eskulturagile izan zen garai batean, bere espirituaren onerako eta **poltsikoaren** kalterako. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Petrolioaren gorakada **poltsikoetan** nabaritzen ari dira ibilgailuetako gidariak. **Berria - Ekonomia**

Kontua edatea baitzen, edatea eta festan segitzea, **poltsiko** ximurrak ematen zuen bitartean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

1885ean Londresera abiatu zen, **poltsikoak** hutsik. **Julen Gabiria**

Emakumeek inoren **poltsikoa** hartzen dute kontuan, eta ez bihotza... **Lopez de Arana**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artistak atea zabaldu duenean, postariak **poltsiko-liburu** baten neurriko bere buruñoa luzatu du atearen markoak eta artistak uzten dioten zirritutik. **Berria - Kultura**

Bederatzi obra ikusgai Donostiako **'Poltsiko** antzerkia'-ren barruan. **Berria - Kultura**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aski zuen bere langile-patrika betexea alderatzea gure ikasle-**poltsiko** hutsekin. **Aingeru Epaltza**

Giovanni Mazonik jakaren barne-**poltsikoan** gorde zuen, bihotzaren aldean. **Joxemari Urteaga**

Tinta isurkorregia badute, lumaren muturretik ihes egin ohi du hark, eta alkandora-**poltsikoetan** orban ezabaezina utzi. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Urtebetetzearen aurreko hamabost egunetan, aztarnak uzten ibili nintzen lekurik bitxienetan, bainugelako ispiluan, hozkailuaren atean, praka-**poltsikoetan** ..., **Juan Martin Elxepuru**

## 7 poltsiko liburu poltsikoko liburua.

Une horretan, postariaren **poltsiko**-liburu baten neurriko buruñoak busto klasiko baten itxura osoa hartu zuen. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**poltsiko liburu baten** (3)

**poltsikoak arakatu** (3); **poltsikoak arakutzen** (4); **poltsikoak haztatu** (4); **poltsikoak miatu** (3)

**atzeko poltsikoan** (5); **barne poltsikoan** (3); **barruko poltsikoan** (4); **eskuak poltsikoan sartu** (5); **gabardinaren poltsikoan** (3); **galtzen poltsikoan** (3); **jakako poltsikoan** (8); **jakaren poltsikoan** (7)

**poltsikoan aurkitu** (3); **poltsikoan eraman** (5); **poltsikoan gorde** (23); **poltsikoan gorde zuen** (9); **poltsikoan gordetzen** (3); **poltsikoan neukan** (3); **poltsikoan sartu** (46); **poltsikoan sartu zuen** (9); **poltsikoan sartuta** (7); **poltsikoan sartzen** (9); **poltsikoan zeukan** (5); **poltsikoan zuen** (4)

**praketako poltsikoan** (4)

**herritarren poltsikoaz aberasteagatik** (3)

**eskuak poltsikoetan sartu** (3); **eskuak poltsikoetan sartuta** (3); **poltsikoetan sartu** (8); **poltsikoetan sartu zituen** (3); **poltsikoetan sarturik** (4); **poltsikoetan sartuta** (5)

**praketako poltsikoetan** (4)

**poltsikora eraman** (7); **poltsikora sartu** (6)

**alkandorako poltsikotik** (3); **atera poltsikotik** (4); **atera zuen poltsikotik** (13); **atzeko poltsikotik** (4); **barruko poltsikotik** (5); **euren poltsikotik ordaindu** (3); **jakako poltsikotik** (3); **poltsikotik atera** (20); **poltsikotik ateratako** (6); **poltsikotik ateratzen** (3); **poltsikotik erlojua atera** (3); **poltsikotik ordaindu** (7)

## poltsikodun izlag poltsikoa duena; poltsikoak dituena.

Egurrezko etxetxoan ezkatutu zen, eta esan zuen ez zela irtego, harik eta norbaitek **poltsikodun** praka zabal batzuk ekarri arte. **Julen Gabiria**

# poltsikoratu, poltsikora(tu), poltsikoratzen 1 du *ad* poltsikora eraman, poltxikoa sartu. ik **sakeleratu**.

Doi-doi eduki nuen denbora derbirako sarrera-multzoz bat hartu eta **poltsikoratzeko**. **Jon Alonso**

Ezinezkoa dela jende honek hamar minututan lau mila dolar **poltsikoratzea** harritxoak huskeria batean erosit [..] compadre bati, compadrito horri ziria sartuz prezioen ideiarik ez duelako eta ingelesez ere gutxi ez dakielako. **Bernardo Atxaga**

Betebehar hartatik sekulako soldata atera ez arren, pisuaren alokairua eta bizio txikiak ordaintzeko adina **poltsikoratzen** zuten. **Jon Arretxe**

Chicago ez zen arte-munduaren erdigunea, baina ez zen basamortu galdu bat ere, eta bazebilen hiri hartan nahikoa aberastasun hara eta hona, gizon argi batek apur bat **poltsikoratzeko** beste. **Oskar Arana**

Dow Chemicalak 469 milioi dolar garbi **poltsikoratu** ditu aurtengo lehenengo hiruhilekoan. **Berria - Ekonomia**

## 2 irud/hed

Jendea **poltsikoratu** zuen, eta txapela ere, zalantzarik baldin bazen, erabat bere egin zuen. **Berria - Kultura**

Ederrak, benetan, nafarren kontakizuna, girotzea eta umeak **poltsikoratzeko** era. **Berria - Kultura**

Jokoa egon diren puntu guztiak **poltsikoratuta** hartu nahi du Portlandek neguko atsedenaldia. **Berria - Kirola**

Bitan, gainera, UEFArako txartela **poltsikoratu** zuen. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**txartela poltsikoratu zuen** (3)

## poltsikotxo *iz* poltsiko txikia.

Bitan, gainera, UEFArako txartela **poltsikoratu** zuen. **Berria - Kirola**

Korailoaren **poltsikotxotik** ateratako zilarrezko erlojuan bostak ikusi zituen Mariek zer ordu ote zen galdetu zionean. **Joxemari Urteaga**

## poltsa *iz* emakumearen poltsa. ik **poltsa 7**.

Negar ezti nasaik isuri zituen Eusebiak, **poltsotik** eskuratutako musuzapi zuriaz txukatu zituenak. **Josu Landa**

Lagunekin parrandan ibili ondoren, etxera itzultakoan, neskak zorro tiki bat topatu du bere **poltsaan**. **Patxi Zubizarreta**

Baten batek **poltsotik** -edo ikurrin txikia atera eta jendea elkartzen hasten zen. **Alberto Barandiaren**

## poltsu ik **pultsu**.

## poluitu, polui, poluitzen 1 du *ad* kutsatu.

Herritarren %60ren ustetan fabrikak dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ingurumena gehien **poluitzen** dutenak. **Berria - Euskal Herria**

1998an, estazioen %20 kalifikatu zituzten **poluitu** gabeko estazioetat; 2003an, berriz, estazioen %37. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Lurzoru **pol[ui]tuen** berreskuratzean. **Berria - Euskal Herria**

## poluitzaile *izond/iz* kutsatzailea.

Kontinenteko eta itsasertzeko uretako karga **poluitzaileak**. **Berria - Euskal Herria**

Ibai eta estuarioetara egiten diren substantzia **poluitzaileen** isurketan. **Berria - Euskal Herria**

Karbono dioxidoa eta beste **poluitzaile** batzuk aineratzen dira, baina horien kontzentrazioak ohiko zentral termikoetan aineratzen dena baino txikiagoak dira. **Berria - Euskal Herria**

Europako Batzordeak **poluitzailetzat** jotzen dituen gaiak aineratzen edo isurtzen dituzten jardura ekonomikoaren zerranda. **Berria - Euskal Herria**

## poluzio 1 *iz* kutsadura.

Langileak agurtu eta berehala aldendu zen Miarritzera, kalte egiten zion Bilboko **poluzioak**. **Berria - Kultura**

Itsasoko eta kostaldeko **poluzioa**, hiriko bizimoduarekin loturiko arazoak (trafikoa, zarata, hondakinak...) eta kontsumo ohitura egokirik eza dira kezka handiena eragiten duten gaiak. **Berria - Euskal Herria**

Administrazioek azpiegiturak eraikitzen jarraitzen dute, eta horrek **poluzioa** gehitu besterik ez du egiten. **Berria - Euskal Herria**

Ordukotz arma nuklearrak kenduak ziozkaten eta ez du **poluzio** irrisurik batere ekarri ixtripu horrek. **Herria**

Herritarren %79k uste dute lehentasunezkoak direla ingurumenaren babesa eta **poluzioaren** kontrako borroka. **Berria - Euskal Herria**

Lurzoruaren **Poluzioa** Prebenitzeko eta Zuzentzeko Legea. **Berria - Euskal Herria**

## 2 irud/hed

Zaratak **poluzio** handia eragiten du. **Berria - Euskal Herria**

## 3 hazi-isuria.

Gaueko botaldi bat izan nuen; nire amets erotikoak sortutako **poluzioa**. **Aitor Arana**

## 4 *gau poluzio* gauezko hazi-isuria.

Dena eskaini, gorputzeko azken malko eta odol tantaraino, azken gau-**poluzio** azken espermatozoidea ere bai. **Harkaitz Cano**

Dodov berez esnetzen zen, gau-**poluziotan** murgiltzen zen zintzurerraino. **Karlos Linazasoro**

## pomada (*orobat pumada g.er.*) 1 *iz* gantzaz eta beste gai batzuek prestatzen den nahastura, sendagai edo kosmetiko gisa erabiltzen dena.

Edurenek **pomada** bat atera zuen bere botikinetik. **Aingeru Epaltza**

Mikelen orkatila bihurrituarentzako **pomada**. **Eider Rodriguez**

**Pomadaz** igurztzen die burua anaiei. **Itziar Otegi**

Orain damu dut horrela gertatu izana, zeren oineko behatza infektatu egin baitzait eta **pomada** jarri behar dut. **Josu Zabaleta**

Gerokoz utzi nuen atal zafratuan horma puxka bat edo **pomada** ezartzea. **Aingeru Epaltza**

Kasu horretan dietarekin eta **pomadekin** batera, kirurgia erabiltzen da odoluzkien tamaina murrizteko. **Berria - Gaiak**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Pomada** usaina, arestiko urrin gaziarekin batean, hatz guri zetazkoen azal. Aingeru Epaltza

## pomelo 1 iz lanjaren antzeko fruitua, hura baino zapalagoa, zapore garratzekoa.

**Pomelo** edo laranja txiki baten tamainaraino hazia zenez, kirurgialariek ia osorik kentzea lortu arren, ezin izan zuten konpondu ordurako egina zen kaltea. Xabier Olarra

## 2 (hitz elkartuetan)

Bi tragotan edan du **pomelo** zukua, eta gustura edango luke beste bat, baina ez daki onik egingo dion hainbeste likido hartzeak. Patxi Iturritegi

Ivy hantxe, oraindik jantzi gabe, **pomelo** pare bat plater batean paratzen ari eta niri galdezka ea kaferik nahi al nuen. Joxe Austin Arrieta

## pomeraniar izlag/iz zati handiena Poloniako eskualde den Pomeraniakoa, Pomeraniari dagokiona.

"Merci beaucoup", eta Beatrice **pomeraniarrarekin** batera joan da, dotore baino dotoreago, *Grand Plageko* itsas pasealeku bustian zehar. Iban Zaldúa

## pomo iz ezpatez eta kidekoez mintzatuz, eskutokia.

Eskuan, berriz, zetro handia zeukan, zeinaren urrezko **pomoak** diz-diz egiten zuen, eguzki sagarra bailitzan. Matías Múgica

## ponderatu, pondera, ponderatzen 1 du ad zerbaiten alderdi guztiak pisatu edo haztatu; alde bakoitzari pisu jakin bat eman.

Datu hotzak -mapetan azaltzen diren kilometroak- **ponderatu** egin behar zirela iruditu zitzaigun, eta, esaterako, heterogeneotasun indize bat erabili behar zela. Bernardo Atxaga

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Sufragio unibertsalaren sistema lehen aldiz erabiltzen bada ere, boto guztiak ez dute balio bera izango, botoa **ponderatua** izango delako. Berria - Euskal Herria

Batzordekideen arteko bozketan berdinketa izan zen emaitza, baina boto **ponderatua** kontuan hartuta (talde bakoitzak legebiltzarrean duen indarraren arabera), proiektua ez zen onartu. Berria - Euskal Herria

Sufragio unibertsal **ponderatuaren** ondorioz ikasleone ahotsa gutxietsi nahi zuten. Berria - Euskal Herria

Sistema **ponderatua** erabili dugu hauteskundeotan. Berria - Euskal Herria

## 3 orekatua, neurritsua.

Hiritar burutsu, eraginkor, serio, arrazional eta **ponderatu** batzuek osatutako iritzi-korrante bateko lider. Jon Alonso

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**sufragio unibertsal ponderatua** (8)

**sufragio unibertsal ponderatuaren** (3)

## ponderazio iz zerbaiten elementu bakoitzari pisu jakin bat ematea.

Hauxe izango da **ponderazioa**: funtzionario doktoreak (%51), gainontzeko irakasleak (%18), ikasleak (%20) eta administrazio eta zerbitzuetako langileak (%11). Berria - Euskal Herria

Irakasle funtzionarioen botoek %51eko **ponderazioa** izango dute, irakasle kontratatuene %18koa, ikasleene %20koa eta administrazioko eta zerbitzuetako langileene %11koa. Berria - Euskal Herria

**Ponderazioa** egin eta gero ere, bere botoen pisuaren erdia baino gehiago ikasleena da. Berria - Euskal Herria

Hauteskundeetan beti daude **ponderazioak** Bizkaian diputatu bat lortzeko Gipuzkoan baino boto gehiago behar dira, adibidez. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ponderazioa egin** (4)

## pondu ik puntu.

## ponduño ik puntuño.

## ponente iz txostengilea.

sala beste bost epailek osatzen dute: Pablo Garcia Manzano, Maria Emilia Casas, Javier Delgado, Roberto Garcia Calvo eta Jorge Rodriguez-Zapata -bera da **ponentea**-. Berria - Euskal Herria

Bi epaiak argudio berberak ematen dituzte, hitzez hitz, pasarte gehienetan, **ponente** banak idatziak diren arren (Ignacio Sierrak bata eta Luis Gilek bestea). Berria - Euskal Herria

Jon Kortazar euskal literaturako sarien **ponentearen** ustez, «erregistro desberdinak» erabili ditu Canok *Neguko zirkua*-n. Berria - Kultura

## ponentzia 1 iz txostena.

Galiziarako autonomia estatutuaren eraketa eta defentsaren prozesuan funtsezko oinarria izan zen Boveda, Galiziako Udalen Asanblean Santiagon 1932an egina aurkeztutako **ponentziaren** egile, ordezkeri eta defendatzaile izan baitzen. Berria - Mundua

ELAk asteberu honetako kongresuan Ipar Euskal Herriaz aurkeztuko duen **ponentziaren** berri eman du. Berria - Ekonomia

Bi **ponentzia** eztabaidatuko dira, sindikatuaren antolakuntzari buruzkoa bata, eta estrategia politikoa eta sindikalari buruzkoa bestea. Berria - Ekonomia

**Ponentziak** buruz ikasten dituen militantea, militante txarra da. Koldo Izagirre

Klase eta **ponentziekin** edo kafetegi eta liburategietako etenaldiekin bete beharreko egun-segida sorai bat. Joseba Urteaga

Hitzaldiak eta **ponentziak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Roberto Gonzalezek Batzar Nazionalan onartu zen **ponentzia** politikoaren ildo nagusiez mintzatu zen. Berria - Euskal Herria

## 2 batzorde txostengilea.

Hortaz arduratuko da Autonomia Erkidegoen Batzorde Orokorrak izendatuko duen **ponentzia** bat. Berria - Mundua

Autonomia Estatutua erreformatzeko **ponentzia** abian jarri du Kataluniako Legebiltzarrak. Berria - Mundua

Hizkuntza Politika aztertzeko **ponentziaren** lehen gonbidatua izan zen Pedro Pegenaute. Berria - Euskal Herria

Agerraldia egin dute taldeko kideek Nafarroako Parlamentuko hizkuntza politikari buruzko **ponentzian**. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**onartu zen ponentzia** (3); **ponentzia eztabaidatuko** (3); **ponentzia politikoa** (8); **ponentzia politikoaren** (4)

**alderdiaren ponentziak** (4)

**nafarroako parlamentuko ponentzian** (3); **parlamentuko ponentzian** (5)

---

**ponitu**, poni, ponitzen du *ad adkor* berotu; zopatu.

"Materiala" deitzen diogu lainezaz, badakigularik ere lautik hirutan estrikiniaz gozatutako placebo ideal bat besterik ez dela, eta ideia eta laineza soil horrexek **ponitzen** gaituela, horixe dela kasik gure kabituzen uesteko sendagarrien printzipio aktibo bakarra. lñaki Segurola

---

**ponpa**<sup>1</sup> (*orobat **punpa** g.er.*) **1** iz isurkari bat edo gas bat lekualdatzeko tresna.

**Ponpak** hutsik ponpatzen segitzen zuen, eta orratza atmosfera heren baten inguruan zabu-dantzan zebilen. Juan Garzia

Zikiistak [...] gurpilak haizatzeko **ponpa** bat zeraman eskuan. Fernando Rey

**Punpa** elektriko eta diesel indartsuak erabiliz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Ponpa** zentrifugoareen kirinkots larri garratza erregailuaren trumoihots sakonari gainkatu zitzaion. Juan Garzia

Haizezko **ponpa** bat. Oskar Arana

**Ponpa** xurgatzaile baten bidez. Joan Mari Irigoien

Bihotzak, **ponpa** gisa begiratzen bazaio, mirespena eragingo dio ingeniari hidraulikoari. Irene Aldasoro

Komuneko **ponpa** entzun nuen. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erreguladore bat jartzea ere pentsa lezake: pareta elastikozko hodi zati bat, alegia, **ponpa** -bulkada bakoitzean zabaltzen dena. Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zuhaika zabartu batzuk han-hemen, zeinetako baten azpian aurkitu bainuen aurreko maizterren bizikleta-**ponpa**. Iturria, zalantzarik gabe, bide bazterrean egon ohi diren ur **ponpa** horietako bat. Irene Aldasoro

Petrolio **ponpak** eta belar metak. Koro Navarro

Garagardoa debalde da gaur -garagardo **ponparen** heldulekuari tiratu zion-. Koro Navarro

Gas kantitate baten bolumena murrizten denean (pneumatiko-**ponpa** bat sakatuz, esate baterako), handitu egiten da gasaren presioa. Irene Aldasoro

Haize-**ponpa** eta urtegia ikustera doaz jabegoaren mugaraino. Oskar Arana

Erregai-**ponpa** diafragma-**ponpa** bat izan ohi da. Irene Aldasoro

Oraindik ez da ezagutzen gizakiak egindako materialik, bihotz-**ponpa** baten taupada indartsuei eusteko bezain sendo lotu dakiekeenik muskuluei edo beste ehun batzuei. Irene Aldasoro

Ezin hobeki ikusten nuen ez zela modurik iragateko sustrai, zurrupatze-**ponpa** izateko haren eginkizunetik, hura izatera, foka-larru gogor eta trinkoa, itxura koipetsu, kailutsu, temati hura. Monika Etxebarria

Urean fite munta daitezkeen barraderak, sua hiltzeko haguna botako duten tresna indartsuagoak eta, urean dabilzan sute **ponpa** azkarragoak. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ur ponpa** (7)

---

**ponpa**<sup>2</sup> *iz* hotsandia, ospea.

-Denok batera egingo diogu uko deabruari -esan zuen-, eta haren obra eta **ponpa** guztiei. Irene Aldasoro

---

**ponpa**<sup>3</sup> *iz* burbuila.

Dena da ona, xaboi **ponpak** baino ez daudela ematen du. Berria - Euskal Herria

---

**ponpaka** *adlag* ponpatzen.

Zer izan zen zerraren hortzak pasatzeko kokots txikiaren azpitik, eskuetan sentitzea haurraren odola olioia bezala **ponpaka**, aurpegiari eustea burua ez erortzeko, estutu eta herioaren espasmoak zurruparaztea gorputz adoratu, mardul eta bizitzaz bete hari. Anton Garikano

---

**ponpaketa** **1** *iz* ponpatzea.

Bihotzaren **ponpaketaren** eta grabitatearen eraginaren konbinazioari esker iristen da odola oinetara. Irene Aldasoro

Etenkako **ponpaketa**, teknikoki, ez da batere eraginkorra, zeren eta presio eta emari maximoak jasateko eginak egon behar baitute kasu horretan ponpak, hodie eta balbulek. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Etenkako emari baten gorabeherak leundu beharrean gertatzen den ingeniariak espantsio-ontzi bat jartzea pentsatuko luke ziur asko, **ponpaketa** -zikloaren hasierako likido-soberakina gorde eta bulkada batetik besterako tarteetan emateko. Irene Aldasoro

· Agintariak ur **ponpaketarako** eraikuntza bat zabaltzen ari ziren, eta antza, herritar ugari hurbildu zen inaugurazio ekitaldira. Berria - Mundua

---

**ponpatu**, ponpa(tu), ponpatzen (*orobat **punpatu** g.er.*) **1** du *ad* ura edo beste isurkari bat ponparen bidez goratu.

Ponpak hutsik **ponpatzen** segitzen zuen, eta orratza atmosfera heren baten inguruan zabu-dantzan zebilen. Juan Garzia

Lehenengo garaietako lurren-makina, pistoia zilindro baten barruan mugitzen zena, atzera-aurrerako motor xume eraginkor bat zen; ura **ponpatzeko** erabiltzen zen batez ere, pistoiaren gora eta beherako mugimendua oso egokia baitzen horretarako. Irene Aldasoro

Cortesko etxeetan ura ateratzeko eta **ponpatzeko** lanak gelditzekeo datu Nafarroako Gobernuak egindako azterketa geologiko batek. **Berria** - Euskal Herria

Lehenengo zirkuituan, bihotzaren eskuineko aldetik birika-arterietara **ponpatzen** da odola. **Irene Aldasoro**

## 2 irud/hed

Haren gainean makurtzen naiz, ipurdia aurpegian jartzen diot, eta bere potroetako hazia adorez **ponpatzen** dudan bitartean, [...]. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Laugarrena hasi aurretik, handituta zeukan ezkerreko bekaina eta haragi **ponpatuak** bekokia desitxuratzen zion zantarki. **Josu Landa**

## ponpatze *(orobat punpatze)* iz ura edo beste isurkari bat ponparen bidez goratzea.

Taupada-markagailuaren eremutik bentrikuluetara zabaltzen da bulkada erregulatzaila; bihotzak **ponpatze**-indar handiena egiten duen lekura, alegia. **Irene Aldasoro**  
Horrek erran nahi baitu [...] arte huntan petrolakia beharko dela dena punpatu! Madriletik jakin da ere, artetik erraiteko, **punpatze** hori ez litakeela gosta lau ehun miliun euro. **Herria**

## ponperia iz arrandia, handikeria. ik **ponpezia**.

Harrokeria eta handiustea, frankotan, apaltasun iduriko baten mozorropean ezkututzen dela, non eraikitzen baitu aldi berean banitateak eta **ponperiak** ere bere habia. **Joan Mari Irigoien**

Seko mozkorrak egon bagina baino **ponperia** handiago batez ari ginen, baina artean ez geunden edanda. **Anjel Lertxundi**

Alboko estatuen **ponperia** imitatzen saiatzen garelarik, patetikoak gara. **Markos Zapiain**

## ponpezia *(oroat punpezia)* iz arrandia, handikeria. ik **ponperia**.

Urteak alferrik iragan ez zaizkidan arren, atzo balitz bezala oroitzen dut festa hura, jaun André: hango koloreak, hango luxua, hango **ponpezia** eta gehiegikeria! **Joan Mari Irigoien**

Asmoaren **punpeziak** ez dio duintasunik ematen, haren hutsalkeria ezaguna kontrastez nabarmendu baizik. **Xabier Olarra**

Farola guztiak piztuta zituzten etorbideak, eta etxe bat, **punpeziagatik** eta antigoleko gauza luxuzkoengatik, nik ordu arte sekula ikusitakoez oso bestelakoa. **Fernando Rey**

## ponpier iz ipar suhiltzailea.

Handik gutxira **ponpierrek** aintzirako lohi hiletarik gorpu urez hantu berdatua jalgi zutela miretsi nuen. **Itxaro Borda**

Kamioi gainean, **ponpierra**, lankide bati ume bat besoz beso uzten. **Iñigo Aranbarri**

L. auzapezak tira dezala zirena **ponpierrezan** delarik, eta lan egin herriko etxean bere axuarenta eta hautetsiek. **Herria**

## ponpoilo *(orobat ponpoilu)* iz burbuila.

Hodei trumiltsuei begira, ezinegona gandorrean eta kiskalibeharra erraietan daramatela, laino zurizko **ponpoiluak** puuffa-puuffa baldartsu puztuzten doazen bitartean. **Pello Zabala**

Bennettek, eskua irmo, arrautza gisako ebaki sakon bat egin, melanomaren inguruan hazbeteko tartea utziz, eta berrogei segundoan kendua zuen, gantz eta azal puska batekin batera; tamainaz, Brasilgo intxaur baten antzeko **ponpoilo** bat. **Xabier Olarra**

## ponpoilu ik **ponpoilo**.

## ponpos ik **ponpoxo**.

## ponposo ik **ponpoxo**.

## ponpox ik **ponpoxo**.

## ponpoxo *(orobat ponpox, ponpos g.er. eta ponposo)* 1 izond hanpurutsua, arranditsua.

Mediku **ponpoxo** batzuk iritsi ziren, esmokin beltza eta txaleko zuria soinean, beren patrika-erlojua eta guzti. **Xabier Olarra**

Beste garai batzuetako pentsalari eta intelektual **ponposoak** kilkerra euri egunetan bezain ezkutatuak dabilta. **Hasier Etxeberria**

Batzuetan eskolatua izaten da, maiz aberatsa, normalean txukuna eta beti **ponpoxoa**. **Xabier Olarra**

Andere **ponpoxaren** agerpenen arabera, Goikotxea baserri aberats eta ederra zela imajinatua zuen neskek. **Itxaro Borda**

-Eroango nindukek hire moto **ponposo** horretan auzokoen begietatik urrun? **Josu Landa**

Enperadoreak ordezkoak bidali zituen eliza-ekitaldi **ponposo** eta loretsura. **Felipe Juaristi**

Baliteke metodologia kontuez hitz eginik agian hitz **ponpoxoen** azpian eztabaidan zegoena botere banaketaren kontua izatea, ez besterik. **Pello Salaburu**

Egia da filosofiaren eta filologiaren artean irrist eginez esaldi **ponpoxo** eta handigurak erabiltzea asko gustatzen zitzaiola Jean-Baptisteri. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Kaligrafia xehe **ponpoxoaz**. **Aingeru Epaltza**

Argaingo auzotegiak ere ari du itxura **ponpoxa** bat eskuratzen. **Herria**

Badaki aspertu egingo dela bilera amaitezin **ponposoetan**. **Lourdes Oñederra**

## 2 (adizlagun gisa)

Bazaude etsita, eguzkiari goraintziak bidaltzekotan, eta hor azalduko zaizu biribil eta **ponpoxo**. **Pello Zabala**

Neska, oraindik bere onera etorri gabe, ez zen mutila bezain **ponpox** eta alai jartzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

· Ohi zuenez, **ponpox** antxa jantzia zegoen. **Aingeru Epaltza**

## 3 *ponpoxo-ponpoxo* adlag



Interesatzen zitzaiena greukin argazkia ateratzea zen, eta egun horretan **ponposo-ponposo** agertzea, gure ondoan baleude bezala. **Berria - Euskal Herria**  
Haren hiru seme-alabak, berriz ere **ponpox-ponpox** jantziak, osaba-izebek eta lehengusuek inguratutik zeuden. **Aingeru Epaltza**

## ponpoxokeria *iz* egite ponpoxo gaitzesgarria.

Gizakien artean sortu eta garatzen ikusi izan ditudan sinpatiazko harremanak, azkenean beti ito egin izan dituk egolatriaren eta **ponpoxokeriaren** zingiretan. **Xabier Olarra**

## ponpoxotu, ponpoxo(tu), ponpoxotzen da/du *ad*

Mesmerismo [...]: hipnosia, jantzi dotorez hornitu, ibilera **ponpoxotu** eta sinesgogorkeria afaltzera gonbidatzen hasi aurretik. **Xabier Olarra**

## ponte 1 *iz* bataiarria.

Senaren atezuak ur bedeinkatuaren **pontean** hatz-puntak sartzera eraman zuen Jose, aitaren egiteko. **Anjel Lertxundi**

Pedro Martínez de Oyanederra **ponteko** ur santuak hartzekoan para zioten izena. **Patziku Perurena**

Spainiako Alderdi Sozialistako Isidorori aspaldi itzuli zioten **ponteko** izena. **Iñigo Aranbarri**

### 2 (hitz elkartuetan)

Doroteo Arango deitzen zen **ponte** izenez, eta Pablo Neruda bezalaxe, hemendik joanak ziren amaren aldekoak. **Iñigo Aranbarri**

Marcelino Soroa idazleak (1848-1902) Omar Celin izenez sinatu zituen [...] idazlan batzuk, eta erraz antzematen dira ezizen horren azpian **ponte** izenaren letrak. **Iñaki Arranz**

-Greziako bataio-**ponte** zenbaitetan palindromo hau irakur omen daiteke: [...]. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

### 3 *iz* aita ponteko.

Nire ustekabea, Joxerramon Arrigainek esan zidanean konfirmadoek ospakizunean aitabitxi bana behar zutela, jadanik konfirmatua noski, eta bere **pontekoa** ni izatea nahi zuela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Gure **pontekoa**, eta hi jaiotzearen kulpantea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire sinesmen-gabezia ezaguna bide zuenez, **pontekotzat** ni hartuta, modu sinboliko batean, bere buruarentzat bada ere, ekitaldi harekiko arbuio antzeko bat adierazi nahi zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 4 *aita ponteko* ik *aita*.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aita ponteko** (5); **ponteko izena** (3)

**aita pontekoa** (5)

**aita pontekoak** (3)

## pontifikal 1 *izond* aita santuarena, aita santuari dagokiona.

Ba ote zen lege bat, Oswald Spengler-ek K.o. 1919an argitaratutako Mendebaldearen Gainbehera lan **pontifikalean** ezartzen zuena bezalakoa [...] ala aske ote ginen geure akatsak zuzentzeko eta geure patua eratzeko? **Iñaki Mendiguren**

### 2 *meza pontifikal* gotzain meza.

Meza **Pontifikala** amesten genuen. **Marzel Etxehandi**

## pontifikatu, pontifika(tu), pontifikatzen 1 *du ad* pulpitutik aritu, maisuarenak egin.

Eta horien aurrean, bi ikuspuntu erabat antagoniko daude: batetik, teknika berri horiek erabat **pontifikatzen** dituztenak ("erabili beharrekoak dira", "ezin dira utzi enpresaren konkurrentzia areagotu nahi bada", eta abar). **Iñaki Heras**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Arazoa bikoitza da: batetik, lupaz aztertu behar dira estatistika **pontifikatuak** -esaterako, badira langabeziari buruzko ikerketak, Europaren aldean, Ameriketako Estatu Batuen estatistika eta datu ustez hobeak erabat zalantzan jartzen dituztenak-; eta bestetik, argi asko nabarmendu behar da tasek ez diotela ezer enpleguen kalitateari buruz, zenbatekoari buruz ari direla soilik. **Iñaki Heras**

## pontifize 1 *iz* aita santua.

Erdian **Pontifize** gorena dago zutik, Kristoren Elizaren senarra. **Askoren artean**

Baina Jainkoaren laguntzarekin bai Parisetik eta bai Erromako **Pontifizearen** eta Kuriaren aldetik onarpena merezi izan zuten nola bizitzarena hala doktrinarena. **Joan Mari Lekuona**

Erroman, oinordekotza oinordekoak egin beharreko zenbait sakrifizioi lotuta zihoan, eta **pontifizeen** zuzenbideak arautzen zituen sakrifiziook. **Iñaki Iñurrieta**

Jainko biziaren behatzaz Jesus Jaunaren Zauriak inprimatu zitzaizkion Frantziskori, Kristo **Pontifize** Nagusiaren bulda balira bezala, bai Erregelaren erabateko baieztapenerako, bai beraren egilearen gomendiorako. **Askoren artean**

Beraz, **Pontifize** jakintsuak, aurrean zuen Jainkoaren zerbitzariagan arima xaloaren garbitasuna, munduaren mespretxua, pobretasunaren maitasuna, perfekzio-asmu iraunkorra, arimen aldeko grina eta borondate santuaren sugarra ikusi zituenean, esan zuen: [...]. **Askoren artean**

### 2 irud/hed

Ez da halako gauzetan sinesten zuten ala ez: Zizeron goren **pontifizeak** gauza horien aurka tratatu bat idatzi zuen. **Xabier Amuriza**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Pontifize** -insigniez apaindua, urrez bordaturiko eta harribitxi zizelkatuz ederturiko jantzi sakratuak ditu soinean. **Askoren artean**

Hamabi **pontifize** -aulkigilek eraman zuten Eliza katolikoko buruaren gorpua Jauregi Apostolikotik basilikaraino. **Berria - Harian**

Harritzeko bada ere, Erroma zaharreko **pontifize** tituluak, lehen enperadorearena zenak, eta egun aitasantuak bereganatzen duenak, zubigile esan nahi du. **Patziku Perurena**

## pontoi *iz* ala, gabarra. ik *pontoiontzi*.

Ezin dut ia, zuen nagikerian bainaturik, oi baga, kotoi eroalei euren lorratza erauzi, ez-eta bandera eta estandarteen harrokeria iragan, ez **pontoien** begi izugarrien azpian egin igeri. **Anjel Lertxundi**

# pontoiontzi iz pontoia.

Hiru mila tonako **pontoiontzia** dugu eta hirurogei langile. [Joseba Sarrionandia](#)

## pontxe 1 iz edari alkoholoduna, osagai nagusizat limoiz eta kanelaz lurrinduriko rona duena. ikpuntx.

**Pontxea** ere prestatzen nion ezti, berakatez, limoiz, ereinotz eta sendabelarrez. [Bego Montorio](#)

**Pontxe** edaten eta zigarroak erretzen ari ginen, eta bitartean literaturaz eta pinturaz mintzaten. [Josu Zabaleta](#)

Sudurretara iristen zitzaion jada **pontxearen** lurrun kiribilaren usaina. [Irene Aldasoro](#)

Limoia **pontxean** bezain erreak bukatu genuen ia! [Karlos Zabala](#)

Ez ezak whiskya **pontxea** bezala edan: hustu edontzia! [Irene Aldasoro](#)

Gure amak suspergarri bat erosten zidan eta **pontxea** ematen zidan goizean indar nendin. [Pello Lizarralde](#)

**Pontxe** beroak hartzeko gaua egiten zuen. [Irene Aldasoro](#)

Horrekin batera antoisin handi bete **pontxe** atera zion ikasleari. [Josu Zabaleta](#)

Lemazainaren egoitzan eseri ziren epaileak, katilu handi bat **pontxe** beroren aurrean, pipak eta tabakoa aldean. [Juan Garzia](#)

Lebigre jaunak hiru edontzi **pontxe** atera zizkien. [Karlos Zabala](#)

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahasmendu handienean garraiatu zituzten besaulkiak, sofak, aulkiak, kaxetak, **pontxe** -katiluak, gazta-plater bat, boomerang australiar bat, lastairak. [Joxan Elozegi](#)

Louisenean **pontxe** usaina hartu duanez, berriro hasteko igo haiz. [Josu Zabaleta](#)

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hagridek gero eta ozenago hitz egiten zuen, arrautza-**pontxetik** kopakada bat bestearen ondoren hartu ahala. [Iñaki Mendiguren](#)

Palmondo baten azpian eserita, esku batean ron **pontxea** eta bestean Montecristoa, ilunabarrean olatuei beha. [Oskar Arana](#)

Lumatxazko ohazal bat jartzen zion Kearney andreak oinen gainean eta ron-**pontxe** sendo bat egiten zion. [Irene Aldasoro](#)

## pontxo iz Hego Ameriketako berokia, burua sartzeko irekidura bat duen tapaki batek osatua.

Beren **pontxoetan** bilduta, burua sartzeko zulo bat daukaten kotoizko burusi laukidun luzeetan alegia, hamaika koloretako marradun praka zabalez jantzita, Guayaquileko lastoz egindako hegadura zabaleko kapelez estalita, hitz, oihu eta keinu egiten zuten. [Berría - Harian](#)

*Kortaturen* garaiko nire kamiseta koloregabeta, praka higatuak eta **pontxo** hegoamerikarra etorri zitzaizkidan gogora, eta nire aita alua, etxerako bidean barrezka imajinatu nuena. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Pontxo** mexikarrei buruz eta estasian ahitu eta *un-concho* geratu arte larrua jotzeari buruz hitz egiten zuen kantu nahiko hippya, ate baten ondoan biluzik zegoen emakume baten eta Zappa beraren arteko harreman psikodelikoaren istorioa. [Harkaitz Cano](#)

Dahlmann-ek poz-atsegin ez kontu egin zien *vinchari*, baietazko **pontxoari**, *chiripá* luzeari eta moxal-larruzko botei. [Juan Garzia](#)

## pop 1 iz aurreko mendeko hirurogeietan sorturiko musika estiloa, britainiar hiri musikako eta rock musikako elementuak dituen, eta melodiari garrantzi handia ematen diona.

Bestalde, *Los Planetas*ena inbentatuta zegoen aspaldi: betiko **pop** -a duk, ezer berririk ez. [Iban Zaldúa](#)

Punka, **popa**, ironia eta irainak. [Berría - Kultura](#)

Entropia madarikatuak ez du ezer barkatzen, ezta **poparen** behirik sakratuenak ere. [Patxi Iturritegi](#)

90eko hamarkadan **poparen** eta dance musikaren xarmaz busti ondoren, rockaren eta technoaren arteko nahasketa definitiboak egin nahi izan zuten Bonok eta lagunek. [Berría - Harian](#)

Funketik eta souletik edanez baina baita **popetik**, psikodeliatik eta jazzetik ere. [Berría - Kultura](#)

**Popa** eta teknoa uztartzen ditu, eta Aizpururen ustetan, «David Bowie eta Roxy Music iradokitzen ditu». [Berría - Kultura](#)

**Popa** esperimentaziorako tresna gisa ulertzen duten lanak. [Berría - Kultura](#)

### 2 (izenondoekin)

Rock and roll girl, The kids are the same eta beste hamaika kantu energiaz beteriko **pop** melodikoaren fruitu bikainak dira. [Berría - Kultura](#)

**Pop** dotore eta ederra. [Berría - Kultura](#)

**Pop** italiar inozoa entzuteko gogoak daukat. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Walking Wounded horren aurreko diskoek ez baitute zerikusirik musika elektronikoarekin, **pop** lasai eta jazzy moduko batekin baizik. [Iban Zaldúa](#)

*The Magnetic Fields* laukotearen **pop** sinfonikoa entzuteko parada emango du. [Berría - Kultura](#)

Estilo aldetik, **pop** eta jazz intimistaren arteko zerbait aterako dela dio Ruedak. [Berría - Harian](#)

### 3 (izenondo gisa)

Entzun al duk inoiz lelorik gabeko kanta **pop** bat? [Iban Zaldúa](#)

Esan nion ez zitzaidalda batere gustatu, musika oso txarra iruditzen zitzaidalako, musika **pop** komertziala baitzen. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

80ko urteetako guruak eta garai hartako psikoterapeuta **pop** haiek Werner Erhard bezalakoak negozio pertsona zorrotzak ziren, beste ezeren gainetik. [Berría - Gaiak](#)

### 4 (izen baten ezkerrean)

Juan Carlos Perezek gidatutako **pop** taldearen *Espaloian* abestiaren «bertsio pertsonala» egin dute. [Berría - Kultura](#)

Ez dugu **pop** izarrak izateko asmorik, baina gustura gaude, gure lekua egin dugulako. **Pop** artista horien zenbait lan ikus daitezke Bilboko Guggenheim museoa. [Berría - Kultura](#)

Egoitzaren egongelako **pop** estiloko sofa gorrian eserita egonik, indiskretua ematen du galderak. [Berría - Gaiak](#)

**Pop** estetika horren barruan erreferentzia interesgarri gutxi aurkitzen ditut nik egun: Elvis Costello, Joe Jackson... [Berría - Kultura](#)

Izan ere, haren proposamena mainstream kutsuko **pop** melodia itsaskorretara mugatzen zen. [Patxi Iturritegi](#)

**Pop** eta heavy doinuak nahastu zituen. [Berría - Kultura](#)

Hain ote ziren bada haren sinesmenak gogorak non babestu egin nahi baitzuen alabatzakoa amerikar **pop** kulturaren inauteri erotik. [Oskar Arana](#)

50eko hamarkadaren erdialdean Erresuma Batuan sortu eta 60ko urteetan AEBetan garatu zen **pop** artea. [Berría - Gaiak](#)

**Pop** eta rock festa San Adrianen. [Berría - Kultura](#)

**Pop** eta op arteak, minimalismoa eta abstrakzioa, diseinu-margolanak eta argazkiak, bideo-arte eta Espresionismo Berria... [Oskar Arana](#)

Modu berean, margolaritza-higikunde batzuek, **pop-art**-ak edo hiperrealismoak, adibidez, desberdin "ikusarazi" dizkigute eguneroko mundua eta mundu horretako objektuak. [Josu Zabaleta](#)

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gitarra, gitarra-baxua, emakume kantariak, rock taldeak, txalaparta, alboka, triki-**popa**, Itoiz. [Pako Aristi](#)

Gaztetxo aurpegia duen gitarrista eta abeslariak *Noise Addict* punk-**pop** taldean jo zuen 90eko hamarkadan. [Berría - Kultura](#)

Elektro-**pop** sailean kokatzen den obra, poesia eta soinuk naturalki uztertuz. Herria  
Albertok isilik jarraitu zuen, David Sylvian-en ahotsak techno-**pop** doinu hura bozgorailuetatik eraiki bitartean. Iban Zaldúa

## 6 pop-rock

Berehalaxe antzematen zitiaren musika mota hari, halako kutsu islamiarra nahasten baldin bazen ere **pop-rock**-etik harturiko zenbait erritmo eta doinurekin. Joxemari Iturralde

Etxebarria parkean, **pop-rock** kontzertu nagusia izango da. Berria - Euskal Herria

Gaur egungo euskal **pop-rock** musikaren egoera aztertzeko. Berria - Kultura

Jazz eta blues doinuei **pop-rock** ukitua ematen diete. Berria - Kultura

*Dunkelheit* taldeak irabazi du Donostiako **Pop-Rock** Lehiaketa. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**absurdo pop** (3); **afro pop** (3); **euskal pop** (4); **ingalaterako pop** (3)

**pop artea** (7); **pop arteak** (5); **pop artearen** (5); **pop doinuak** (4); **pop estiloko** (3); **pop eta rock** (6); **pop kantua** (4); **pop kantuen** (3); **pop lasaia** (3); **pop melodiak** (4); **pop musika** (9); **pop musikaren** (11); **pop rock** (55); **pop rock atalean** (3); **pop rock lehiaketa** (15); **pop rock musikaren** (4)

**power pop** (8); **rock eta pop** (3)

## popa 1 iz itsasontziaren atzealdea. ik txopa.

Palmondo berdexka bat zeukan gainazalean; hondoan, urperatutako guda-galeoi baten **popa**. Fernando Morillo

Juan Bautistak eta Goioek berehalaxe antolatuta zuten ontzia, bina arraun hartu eta, ni **popan** eseri nintzen artean, arraunean hasi ziren. Joseba Sarrionandia

Moilatik jo zuen, hirira gabe, haizea **popan**. Koldo Izagirre

Mendiak eta zelaia **poparantz** iheska ikusten dira, ontzia haien aurrean bogatzen eta belak airatzen ditugunean. Xabier Amuriza

Estropada joan eta estropada etorri, kontrarioei **popa** erakusten ohiu zen *La Marinera*. Berria - Kirola

Neuk jasoko diat **popatik** aurrea, gero sar hadi heu branka azpira. Koldo Izagirre

Edna urduri helduko da painelua ahoan, istriborretik **popara** joan eta ababorretik brankara buelta osoa emanez, gero istriborretik **popara** jarraitzeko. Joseba Sarrionandia

Toldoak zabalduko dira **popa** aldean armazoi gogorraren gainean. Joseba Sarrionandia

Alessandro eta osaba Joanikot eztabaida bizian ari zirela **popako** gazteluan. Joan Mari Irigoien

## 2 ipurdia.

Bere **popa** osoa nire begien aurrean geratu zen. Aitor Arana

Zenbat eta gehiago miatzatu emearen hankarte-**popak**, orduan eta beroago nengoen. Aitor Arana

Hoa **popatik** hartzera. Juan Kruz Igerabide

**Popatik** hartzera dena! Sonia Gonzalez

Nik pozik usaintzen nion hankarteko krabelin gorri-beltza, oso gogoko bainuen usaina, baina normalean **popatik** ematen nion. Aitor Arana

Ale, emaidak **popatik**, Agustín! majo kostatzen zaik, mutil! Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio

Luzaro egin genuen txortan, laguna txakurka eta ni bere **popan** belauñ bakar baten gainean belauñiko. Aitor Arana

## 3 popatik

-Hoa **popatik**, Olatz. Harkaitz Cano

Zoaz **popatik**, neska. Harkaitz Cano

-Doala **popatik** hartzera eta goazen hemendik! -Ximurak. Aingeru Epaltza

Joseluk "hoa **popatik**!, niri ez didak sartuko, joder!" edo horrelako zerbait bota du. Alberto Barandiaren

-Tx! **Popatik**, hi. Patxi Iturrategi

-**Popatik** futbola! Unai Iturriaga

**Popatik** atso madarikatua. Harkaitz Cano

**Popatik**! keinua egin zion mutilak Umbertori. Anjel Lertxundi

-**Popatik**! Anjel Lertxundi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**hoa popatik** (13); **hoa popatik hartzera** (5); **popatik eman** (6); **popatik ematen** (8); **popatik hartzera** (39); **popatik hartzera bidali** (6); **popatik hartzera bidaliko** (3); **zoaz popatik hartzera** (4).

## popabistero (orobat popabisteru) iz

Bata da biluztasun biluzia edo gorria, eta hor ez dira sartzen ustekabeak ez diren biluztasun ohiturazko edo arautuak [...], eta ezta toki jakinetan "nudismoa eta naturismoa naturaltasun osoz" praktikatzaren duten **popabisteroen** biluztasun zuri edo jantzia ere: hori jantzita egoteko beste era hagitz errespetagarri bat baizik ez da, nudismoaren teorikoek berek aitortzen eta defendatzen dutenez. Iñaki Segurola

Gantzeru eta **popabisteru**, zelan bestela? Iñigo Aranbarri

## popabisteru ik popabistero.

## popada iz

**Popadan** gindoazen Hendaiaiko kostaperantz martina baten atzetik. Koldo Izagirre

## popahandi ik popandi.

## popalde iz ipurtaldea.

**Popalde** ederra bai, harena, trailer baten parekoa, alajaina. Aingeru Epaltza

## popandi *(corpusean **popahandi** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegiagian **popandi** agertzen da) izond* ipurtandia.

Buruan zeukan neska bikainaren ordeaz, atso **popahandi** bat aurkitu zuen han barruan, xiringatzarra eskuan. Jon Arretxe

## popazale *izond* adkor homosexuala.

Gero aurrerapen handiak eginez, gogotik estutzen diozu eta baita galtzaren zirritua irekitzen hasten ere, garai haietan botoiduna noski eta behin ere ez kremaileakoa, kremaileara edukitzea, beren ar izaera besteek baino barrenerago sartua zutenentzat, **popazaleen** kontua baitzen. Karlos Zabala

## pope 1 *iz* eliza kristau ortodoxoetako apaiza.

Gaur **pope** batek elizkizunak egin ditu han, meza-jantzia soinean. Jose Morales

Sotanz jantzitako **popea**. Jose Morales

Errusiako Sinodo Santuko apezpiku eta **popeak** ez zeuden oso gustura [...] siberiar baldan eta lizun harekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Izan ere, **pope** baten semea zen. Jose Morales

Esaera zaharrak dienez, batek **popea** gustuko eta beste batek **poperean** emaztea gogoko. Jose Morales

## 2 irud/hed

Probintziako **pope** literarioetariko bat zen, sei-zortzi poesia libururen egile. Aingeru Epaltza

## popekume *iz* adkor poperean semea.

Ez, gezurra duk hori, ni estatu-kontseilaria nauk, ez **popekumea**; hi bai haizela **popekumea**! Jose Morales

## popelina *iz* ehun sarria eta arina, zeta edo kotoizkoa, arraia horizontalak eratzen dituen.

Flanela deigarritzako soineko bat agintzen zion bere buruari, edo kotoizkoa eta adarrez estanpatua, edo **popelina** gorrimezkoa. Larunbateko lepoa eta **popelinazko** soinekoa jantzi ditin berriz ere! Karlos Zabala

## popperdar *izlag* K. Popper-i dagokiona.

**Popperdar** metodologia luzaz ikusmolde estandarren egiaztagarritasunean oinarrituriko metodologiaren alternatiba gisa ulertua izan bazen ere, gaur egun bien arteko aldea lausotuago ageri zaigu. Askoren artean

## populagarri *izond* jendezta daitekeena, jendeztatzeko modukoa.

Bere jarduera nagusia beste animaliak eta bere espeziekoak suntsitzea da, zeinak halako zitzu bizian ugaltzen diren, non lur **populagarri** guztia, eta are Kanada ere, jendez leporaino betetzen duten. Xabier Olarra

## populakuntza *iz* populazioa.

Ez zen sekula galdea honela pausatzten: eta **populakuntzari** bost axola baldin bazaio? Itxaro Borda

Abertzale ez den **populakuntza** horren kontzientziazteko. Itxaro Borda

## popular 1 *izond* herriak osatzen duen gizarte klase xeheari dagokiona.

Erakunde sozial hauek botere **popularra** [...] eta demokrazia partizipatiboa defendatzen duten talde progresista gisa aurkeztzen dute beren burua. Iñaki Heras

Ez al da Thatcher-en kapitalismo **popular** hura izan garaile atera dena? Iñaki Heras

Herri-jendeak asmatutako *txakil-ardo* izeneko zerga **popular** honek, esango nuke baduela sanidade bat, jakinduria bat eta arrazoi eder bat: aspiko arrazoi zatar bat agerrarazten duen arrazoi eder bat. Iñaki Segurola

Artaburu nardagarri hark kazetaritza **popularrari** buruzko lezio bat eman berri zion. Unai Iturriaga

Hegoaldekoek, aldiz, maosismoaren ikuspuntutik hurbilago, Iraultza Demokratiko **Popularra** aldarrikatzen zuten. Rafa Egiguren

## 2 jende gehienak ezagutzen edo onartzen duena.

Hauteskundeak baino lehen, hautesle talde indartsuenen gogoko ekonomia-politika ezartzen da, alegia, neurri **popularrak**, eta hauteskunde osterako, berriz, hain **popularrak** ez diren neurriak uzten dira. Iñaki Heras

Emakumeak, konparazio, joaten ahal ziren, baldin film oso **popular** bat ematen bazuten, alditik aldira, oro bat eginda, zinera. Pablo Sastre

Irunen «izugarri **popularra**» behar zuen, bai zortzi urtez Irungo Udaleko zinegotzi errepublikanoa izan zelako eta baita bertsotan «oso ona» zelako ere. Berria - Kultura

## 3 zenbait alderdi politiko kontserbadoreek ere burura izendatzeko erabiltzen duten izenondoa.

Baina izen berak gauza ezberdinak sal ditzake eta, gaur egun badakigu ez direla fidagarri populuaren ala herriaren izenean mintzo zaizkigun alderdi **popular** demokrata asko. Piarras Xarriton

Luiz Inacio da Silva Lula presidentea kargugabetzeko laguntza eskatu zien atzo herritarrei PPS Alderdi **Popular** Sozialistak, Gubernua ustelkeria akusazioez lepo dagoela argudiatuta. Berria - Mundua

Espainiako Kongresuak PSOE alderdi sozialista, PP Alderdi **Popular** eta CC Koalizio Kanariarren 294 botoekin onartu zuen Valentziako Estatutuaren erreforma proiektua. Berria - Mundua

Badituztela partidu **popular** hortan, hogei mila partalier berri beren alde. Herria

· Sozialistek Europako Talde **Popularrarekin** sinatu zuten paktuari esker lortu zuen Borrellek gehiengo legebiltzarrean. Berria - Mundua

## 4 Espainiako Alderdi Popularrari dagokiona.

Allik salatu zuen Nafarroarekin muga egiten duen erkidego autonomo bateko kontseilari **popular** batek, PSOEren kontrako kanpaina bateratua egitea proposatu ziola CDNko kontseilari bati. Berria - Euskal Herria

EAJk eta PSE-EEk babestuta, osoko bilkurak «erantzule politikotzat» jo du Alfonso Alonso alkate **popularra**, interes publikoaren urraketa «bere utzikeriarekin» errazteagatik. Berria - Ekonomia

Ekimen «lotsagarria eta arduragabea» izan da, buruzagi **popularraren** hitzetan. Berria - Harian

Legebiltzarreko talde **popularraren** jokabidea. Berria - Kultura

## • 5 *iz* Espainiako Alderdi Popularreko kidea.

Hiriko aurrekontuetan adostu eta gero, proiektu estrategikoak negoziatzeko mahaia eratu zuten **popularrek** eta sozialistek. **Berria - Kultura**

Jose Maria Aznar **popularraren** Espainiako Gobernuak. **Berria - Ekonomia**

Plana bera Eusko Jaurlaritzak orain arteko kultura politikari egindako «zentsura mozioa» dela uste dute **popularrek**. **Berria - Kultura**

Javier Arenas **popular** espainiarrak bezperan adierazitakoaren arabera, [...]. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**alderdi popular** (3)

**alderdi popularra** (43); **europako alderdi popularra** (4); **fronte popularra** (3); **pp alderdi popularra** (13); **talde popularra** (3)

**alderdi popularrak** (130); **eaeko alderdi popularrak** (3); **espainiako alderdi popularrak** (5); **europako alderdi popularrak** (14); **partidu popularrak** (7); **popularrak eta sozialistak** (3); **popularrak irabazi** (4); **popularrak izan ezik** (3); **pp alderdi popularrak** (33); **talde popularrak** (4)

**alderdi popularrarekin** (8); **talde popularrarekin** (3)

**alderdi popularraren** (61); **europako alderdi popularraren** (3); **fronte popularraren** (4); **pp alderdi popularraren** (17); **talde popularraren** (3)

**popularrak eta sozialistek** (7)

**alderdi popularreko** (78); **alderdi popularreko buru** (4); **alderdi popularreko gobernauk** (3); **alderdi popularreko idazkari** (4); **alderdi popularreko kide** (3); **alderdi popularreko kideak** (4); **alderdi popularreko presidente** (11); **alderdi popularreko presidentek** (4); **espainiako alderdi popularreko** (6); **europako alderdi popularreko** (13); **fronte popularreko** (4); **kataluniako alderdi popularreko** (10); **madrilgo alderdi popularreko** (3); **pp alderdi popularreko** (16)

**eaeko popularrak** (3)

## popularitate 1 iz ospea, entzutea.

Alkoholikoa zen, maitale bat zeukan gobernuan, eta halere, bere azken egunetara %65eko **popularitatearekin** iritsi zen. **Pako Aristi**

Bushen **popularitateak** dagoeneko nabarmen egina zuen behera Irakeko gerrarengatik. **Berria - Harian**

Sarkozyk UMPko diputatuei azken bileran azaldu die bere **popularitatea** lau puntu igo dela, %48raino, eta De Villepinena 7 puntu jaitsi, %29raino. **Berria - Ekonomia**

### 2 (hitz elkartuetan)

Gizarte-egoeran aldaketa handirik sumatzen ez bada ere, une hauetan bere **popularitate** maila %69an dago. **Pako Aristi**

## popularizatu, populariza, popularizatzen da/du ad jendarteratu, (jendartean) zabaldu.

Gonzalo utzi eta Hilariorengana, [...] taberna batean besotik heldu eta gaitza **popularizatu** zenetik nonahi kontatzen den istorioa kontatzen didana: [...]. **Bernardo Atxaga**

## populatu, popula, populatzen 1 du ad jendeztatu.

Gauza jakina da katalanek **populatu** zituztela Balear Uharteak, eta balearrek katalantzat izan dute ordutik oraintsu arte euren burua. **Koldo Zuazo**

Herralde horiek **populatzin** zituzten nazioei esker, asiriarren, mediarren eta pertsiarren inperio handiek komunikazioa zuten sortaldeko eta sartaldeko parte urrunekin.

**Iñaki Iñurrieta**

**Populatu** gabeko lurraldeetan galdurik. **Agustin Otxoa**

Batasuneko lurralde zabalak industrialki gutxiegi **populatuak** zeudenez, Errepublikak ongietorria egin behar ziela gurtzietan, "zenbat eta gehiago, hobe" printzipioan oinarrituz.

**Iñaki Mendiguren**

### 2 irud/hed

Errezatu egin nien Jainkoari eta eliza **populatzin** zuten igeltsuzko, egurrezko eta marmolezko irudi nekatu eta insomneei. **Joseba Sarrionandia**

Urgaina neurri guztietako izotz eskonbroz **populatu** da. **Joseba Sarrionandia**

Eta hala **populatu** da izaki berriz unibertso matematikoa. **Jon Muñoz**

Horren ondotik, nerbio, bihotz, bular eta buruko espezialistengana jo zuen, eta mikrobioek eta gaitz ezkutuek **populatu** mundu baten atek zabaldu zitzaizkion. **Patxi Zubizarreta**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Munduko lurralde **populatu** da Gaza: 1,3 milioi palestinar bizi dira, 40 kilometroko luzera eta 5 kilometroko zabalera duen eskualdean. **Berria - Mundua**

India munduko bigarren estatutik **populatu** da. Munduko hamar hiriburu **populatu** edozeinetan. **Berria - Mundua**

Bailara oparoa eta oso **populatu** zen. **Agustin Otxoa**

## populaxero izond jendailarena, jendailari dagokiona.

Zineko banidade zaildu gordea baino askoz nazkanteagoa duk nor bere "egoa" apaldu ustez harrotu egiten duen banidade **populaxero** hori. **Patziku Perurena**

Prestek, fraileak, apezak eta antzekoak, egun itzal handiko gizon diruditen arren, historian zehar, batez ere Trentoko Kontziliara arteinokoa, eta oraintsu arte ere bai gure herriska askotan, hagitz jendaje **populaxeroak**, makurrak eta ilunak izandu dira. **Patziku Perurena**

## populatzin iz jendeztatzea.

Moranen irudiko, Gipuzkoak **populatzin** homogeneo samarra» izan du, eta ezaugarri horrek bere hartan jarraitzen du XXI. mende hasieran. **Berria - Euskal Herria**

## populazio 1 iz gune jakin bat hartzen edo betetzen duen izaki bizien multzoa.

Larruzalak badu bere germinen **populazio** jori bat, nahiz eta germentatik bat ere ez izan oso arriskutsurik. **Irene Aldasoro**

Genetikoki oso antzeko diren banakoz osaturiko **populazio** bat ezbehar baten arriskuaren mende legoke, izurritez zein bizi-baldintzen aldaketa tupustekoz. **Juan Garzia**

**Populazioen** genetikaren arabera, aldaketa ebolutiboa geneen frekuentzien aldaketa da. **Askoren artean**

**Populazio** polimorfo batean, hautespen naturalak egitura proteikoak faboratzen zituen, eta, beraz, gene-egiturak "-alelo" direlakoak-, ugalketarik oparoena ahalbidetzen baitzuten. **Juan Garzia**

### 2 biztanleria; jendegunea.

Giza geografiak **populazioa** aztertzen zuen. **Joseba Sarrionandia**

300 urte barru, Lurreko **populazioa** 9.000 milioi biztanleren bueltan egonkortuko dela ondorioztatu du NBEk. **Berria - Gaiak**

Idea eugenetikoko oso erakarria, nahi zuen Estatu Batuetako **populazio** zuria babestu, berak beltzen, poloniarren eta italiarren kutsadura genetikotzat zeukanetik. **Juan Garzia**

Bazekiten nekazarien **populazio** osoa matxinaturik zegoela. **Agustin Otxoa**

Egun badago planeta osoko **populazio** guztia elikatzeke adina janari: ondo banatzean datza gakoa. **Edorta Agirre**

Malthusek **populazioaren** hazkundea artifizialki muga zitekeela uste zuen. **Xabier Olarra**

**Populazio** egoera higieniko-santitarioa zaintzeko. Edorta Agirre

Munduak jakin zuenean **populazio** zibil defentsarik gabekoaren gainean eragindako hondamendiaren nolakoa eta zenbatekoa, [...]. Jon Alonso

Ahaide-talde primitiboak *comitatus* barbaroan desegin ondoren berehala dator *comitatus*-aren beraren desegitea mendeko **populazio** atzerritarraren eskuetan. Iñaki Mendiguren

Baina zer da euskaldunak, abertzalegoak preseski, bere **populazio** apatikoari barkatzen ez diona? Itxaro Borda

Ez da ahaztu behar oso **populazio** gaztea duela Iranek. Berria - Mundua

**Populazioen** ikerketa eta Euskal Herriaren berezitasun linguistikoa. Herria

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Auzo zenbaitzuetan **populazio** dentsitatea kasik 150.000 jendekoa da. Ramuntxo Etxeberri

**Populazio** politika: Indonesiako beste hainbat lekutan bezala, Jakarta bultzaturiko **populazio** mugimenduak liskar sortzaile dira. Berria - Mundua

**Populazio** -mugimenduak, W. Kymlicka-k azaldu duenez, multikulturalismoaren arazoari buruzko hausnarketa bultzatu du. Askoren artean

Sintesi Modernoaren ikuspegitik, hautespen naturala organismo indibidualak **populazio** -mailan duten konpetentziaren ondorioa da. Askoren artean

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zelulosa almidoi bihurtzeko gaitasuna duen bakterio- **populazio** bat. Irene Aldasoro

Germen- **populazio** oparoa edukitzen badu ere, beren lekuan eusten die larruazalak germenoi, gorputzera sartzen utzi gabe. Irene Aldasoro

Aurrerantzean, berriz, DNA azterketetatik ateratako elefante **populazioen** mapa genetikoa erabiliko dute jatorria argitzeko. Berria - Gaiki

Landa- **populazioa** Mendebaldeko Kristau Gizartearen barne-proletalgo izateko estatusera murriztu zuten. Iñaki Mendiguren

Ikerketari eta Ikertzaile- **Populazioari** buruzko Azterketa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**populazio aktiboaren** (5); **populazio fondoak** (3); **populazio handia** (3); **populazio mugimenduak** (3); **populazio osoaren** (5); **populazio zibila** (5); **populazio zibilaren** (5)

**handitu da populazioa** (3); **munduko populazioa** (5); **populazioa sendotzeko** (5)

**ebko populazioaren** (3); **irakeko populazioaren** (3); **munduko populazioaren** (7); **populazioaren erdia** (4); **populazioaren hazkundea** (6); **populazioaren herena** (4); **populazioaren zati** (3)

**populaziorik handiena** (3)

## populismo 1 iz herriarengan arrakasta duenari begira aritzen den joera politikoa.

**Populismoa** nekazari mugimendu eraberritzaile bat zen, industrializazioaren eta diruaren kontzentrazio gehiegizkoaren aurkakoa. Xabier Olarra

Gramscik "herri borroka" (gizartea bi zatitan kontrajartzen dituenak, **populismoa** funtsean) eta "borroka demokratikoak" (gizartearen espazio anitzak gordetzen dituenak) bereizten zituen. Joseba Zulaika

Peter Mandelson merkataritza komisarioak hilaren 16an Europako Parlamentuan bozkaturiko duten araua defenditu zuen, Bolkestein araua, eta Europak «**populismoari** aurre egin behar diola» esan. Berria - Ekonomia

Beraz, hango estatu kapitalismoei **populismo** deitzen zaie. Berria - Mundua

Ez da zuzena nabarmenkeria eta **populismo** merkea sustatzen duten jarrera demagogikoak izatea. Berria - Euskal Herria

Ustelkeriaz eta **populismoaz** lepo dabilzten kargu politikoa. Iñaki Heras

Komandante Jefeak esaten du zer egin eta denok haren aginduetara, bere jokoak **populismoa** da, pertsonalismoa. Pako Aristi

### 2 (hitz elkartuetan)

Eskuzabaltasuna bera ere, hots denak oro erauzten dituen erabateko hondamendi eta **populismo** izurrite hau guztiz deitoragarria da. Berria - Harian

## populista 1 izond populismoaren aldekoa.

Alejandro Toledo perutar lider **populista**. Iñaki Heras

Bere instinto **populista** seguruak Hugoren eboluzioa bide seguritik gidatzen du, bera ere honezkero "herriaren bila". Koldo Izagirre

Mussolinik, ez baitu artean agintea lortu, bazka ezin hobea du poetaren jardun **populista**. Anjel Lertxundi

Legeak egiten dituzte, eleberririk **populista** idazten dituzte, ezkontzen dira, haurrak izateko ergelkeria gehiegizkoa egiten dute. Monika Etxebarria

Hango argitaletxe **populista** hartan akademikoegitza daukate, hemengo elitista honetako arduradunentzat, berriz, dibulgaziozkoegia da. Anjel Lertxundi

Txanponaren bi alde ilunenak, politika neoliberal latzena eta estatu parte-hartzailearen eredu **populisten**, biak elkartu dira gizarte argentinarra eskutik amildegira eramateko. Iñaki Heras

Vlaams Blok alderdi **populisten** amaiera ekar dezakeen auzia, abian. Berria - Mundua

Pim Fortuyn eskuin **populisten** buruaren adierazpenak dira. Berria - Mundua

Gabriele D'Annunzio, Italiako idazle aristokratetan aristokratena eta, aldi berean, **populisten populisten**. Berria - Kultura

### 2 (izen gisa)

Zapatero traidoretzat zuten duela egun batzuk **populista** eta nazionalista historikoen, baina gaur bere lekua egin du historian. Berria - Harian

Finkielkrautek [...] Shakespeareren defentsa egiten du **populista** errusiarren, XIX. mendean, eta deskolonizazio-filosofia eta zurrburri postmodernoaren anatematik, XX.ean. Joxe Azurmendi

Nola ez ditut berreskuraturiko pentsio planen edo euskotramoen ideiak ni horien gurasoa izan banaiz? **populista** itxura emateak ez dit ardura. Berria - Euskal Herria

## populu 1 iz herria, pertsona komunitatea.

Irakatsi izan da beti, Estatu eta Nazioa eta **Populua** eta Aberria [...] denak gauza bera direla, egundainotik eta sekulakotz Frantzian. Piarres Xarriton

Gizakien eta **populu**en askatasuna. Koldo Izagirre

Batetaratu behar dira Europa zaharreko **populuak**. Menane Oxandabaratz

Euskalduna [...] **populu** leiala zen, sentimenduetan fidela, elkartasunean, auzolanean eta isiltasunean sinesten zuena. Itxaro Borda

Gu frantsesak, zatikatuak ginen gure artean, eta beharbada beste **populu** batzuk ere, arrazoin berengatik. Marzel Etxehandi

Biarnes jakintsu handiak ere aitortzen zuela nola euskaldunak **populu** bat garen eta nazio bat ere. Piarres Xarriton

Ez dago aspalditxotik zinetan euskal herri dei daitekeen zerbaiten antzik duen gauzarik, erabateko **populu** edo lur hedaturik. Iñaki Seguroa

**Populu** guztiak, edozein izanik ere haiek osatzen duten herritarren kopurua eta zernahi izanik ere haiek hartzen duten lur eremua, osoki beren buruen jabe direla. Piarres Xarriton

Munduko **populu** bakoitzak herri izateko eskubidea du. Itxaro Borda

Euskal **populua** errotik ezagutzen zuen. Menane Oxandabaratz

Munduko **populu** primitiboak. Itxaro Borda

1918an, Georges Wilson Ameriketako presidentek berriz aipatu zituen aspaldiko Nazionalitateen printzipioa eta **Populu**en Autodeterminazio Eskubide agertu berria, printzipio horien arabera antolatu nahiz Europako mapa berria. Piarres Xarriton



## 2 herria, gizarte klase xehea.

Klodio, plebeiu bilakaturik, **populuaren** tribuno izendatua izan zen. Juan Garzia  
Klodioren aldera **populuak** zuen jaidura gutxituz zihoan. Juan Garzia  
-Euskal Herritik at, Puzu, Don Carlosek ez du **populua** inarosten. Txillardegi  
Pinet eta Monestier "**Populuaren** Errepresentantek" eginiko dekretuan, hala irakur daiteke: [...]. Iñigo Aranbarri  
**populuaren** opioa da kirola. Joxerra Garzia

## 3 herria, hiria.

Gero Lizarrarat, herriaren agurtzera, aitzindariak, jaunak eta **populu** guzia. Michel Oronoz  
Londres-ko **populua** Tamesiaren erdian amarraturiko ontzietara erretiratu zen. Juan Garzia  
1789. urtean, Parisko **populuak** Bastille hartzen zuen bitartean, [...]. Harkaitz Cano  
Bere **populu** jendekinarekin, bere etxe txuri politekin, bere duna zabalekin [...] Miarritze leku miragarria da. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**munduko populu** (9); **munduko populu guztien** (3); **populu elkartuen** (3)  
**euskal populua** (4)  
**ene populuaren bihotza** (3); **euskal populuaren** (9); **gure populuaren** (3); **populuaren bihotza** (3); **populuaren zati** (3)  
**populuaren autodeterminazio** (3); **populuaren europa** (3)

## populutsu iz jendetsua.

Itsas ertz biluzi, harrobi ilun, antzoki **populutsu** nahiz trenetan atseden handian lerra naiteke. Itxaro Borda

## popzale izond pop musikaren zalea dena.

Horregatik, zenbait proiektutan, **popzaleenetan** adibidez, diskoak egin izan ditut. Berria - Kultura

## pordoi iz erromesak edo bidaztiak eraman ohi duen makila luzea.

Euren ametsetan berehala Enrique zalduna agertu zitzairen, erromero-jantzi eta itxuraz, eta eskuan bazekarren palmondozko **pordoi** bat, eta bi gizonezkoei hitz egin zien. Jon Alonso  
Kanta hura akabatu, entzuleen txaloak eta haien diru-saria jaso, gitarra larruzko zaku batean gorde, hura bizkargaineratu, eta zorutik makila luze bat hartu zuen, **pordoi** bat ere izan zitekeena. Joan Mari Irigoien

## 2 irud/hed

Are gutxiago, nire errege-**pordoi** berria izango zela adierazi ere egingo zidala. Joxan Elozegi

## porfido (orobat porfiro) iz materia amorfo batez eta feldespatozko eta kuartozko kristalez osaturiko harkaitz gogorra, leuntzen denean itxura ederra hartzen duena.

Kalea **porfido** -harrizkoa zen, zola galtzadarri arrosakarekin egina, eta kaleak Indi gaztainak zituen alde banatan. Fernando Rey  
**Porfiro** haitzean zulaturiko pasabide luze batean barrena iragan zen. Juan Garzia  
Burdinazko atea kanka zarratu zen ostera **porfirozko** pasabidean. Juan Garzia

## porfiro ik porfido.

## poriomania iz etxetik nahiatarara atera eta alderrai ibiltzeko bulkada patologikoa.

**Poriomania** indar ezinago jauzkorra da, obsesiboa, bakerik ematen ez duena. Karlos Linazasoro  
**Poriomania** ezin kontrolatuzko hura, presoek kartzelatik ihes egiteko gogo eutsiezinarean antzekoa duarik gabe, laster batean zabaldu zen hiritar etsitu askoren artean. Karlos Linazasoro  
Hurrengo goizean, **poriomaniak** ahazturik, deinosiak lasaiturik, langileek lantokirako bidea hartu zuten, isilik, fusilen begi zorrotzen begiradapean, tankeen presentzia betiko eta izuzkoaren aurretik. Karlos Linazasoro

## porkeria 1 iz zikinkeria.

Holako etxe ederra, holako **porkeriek** bete behar dutela [...]. Eneko Bidegain

## 2 (izenondo gisa)

Segur naiz zure aitaxi judu **porkeria** bat zela. Eneko Bidegain

## porkofagia iz txerria jatea.

Trikinosi [...]: **porkofagia** proposatzen dutenei zerriak emandako erantzuna. Xabier Olarra

## porkulo adlag ipurditik, popatik.

-Zoaz **porkulo** hartzera! Joan Mari Irigoien  
-Hoa **porkulo** hartzera. Xabier Mendiguren Elizegi  
Nik **porkulo** hartzera bidali nuen, eta alde egin nuen handik. Fernando Morillo  
Garbi bezain zikin hitz eginda, Espainiak **porkulo** eman izan dit beti, zentzu guztietan, eta baita zentzu haragizkoenean ere. Iñaki Segurola

## porlan 1 iz zementua.

Pareta zahar harri eta lur jasotako haiek, edo **porlan** apur batekin hartutako haiek. Pello Zabala

Ibaira joaten ziren, [...] edo ubideetako erretenetara, presako harresiei **porlana** ematera. Koldo Biguri

Hesi fisikoak, **porlan**, metal eta alabrez eginak. Berria - Mundua

Proletargo-auzo bateko handitasunik gabeko eliza da, dena **porlan**, dena aluminio, dena antzinako estilo arkitektonikoen imitazio merke eta nahasia. Iban Zaldúa

Ibilgailua berehala galdu zen **porlanezko** pistan aurrera joanda. Aitor Arana

Erratza lakar bat pasatu zuen **porlanezko** zoruan. Anjel Lertxundi

Parke batean nago, kolore biziz pintaturiko burdin eta **porlanezko** parke batean. Eider Rodriguez

Motxila ere **porlana** bezain pisua zaio gaur, trekaren seigarren egunean. Aingeru Epaltza

Etxe garaiak, hogeitaka solairutakoak, gizakiaren oreka zentzua ere zalantzan jartzen zutenak: harri eta altzairu, **porlan** eta beira, iragarki erraldoiak etxe erraldoien zapeletan. Hasier Etxeberria

Eraikinak **porlanaren** kolorekoak dira, bai, baina kaleak beste inon baino zabalagoak. Edorta Jimenez

**Porlanak** hartu ditu azpian. Eduarne Elizondo

## 2 (izenondoekin)

**Porlan** zurizko balaustrada ikusten nuen, itsasoa dirdirka zegoen tarteen artean. Monika Etxebarria

Aitak **porlan** freskoa bota berri zegoen espaloi zati bat seinatu zuen. Harkaitz Cano

Geletako batean sotoko ateorde karratua irekita zegoen; **porlan** gordinezko maila batzuk itzalean galtzen ziren. Juan Garzia

Gure erraiak horma zaharretako **porlan** pitzatua ziren. Lander Garro

## 3 (neurriekin)

36.000 tona altzairu eta 205.000 tona **porlan** erabili dituzte altxatzeko. Berria - Gaiak

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Porlan** blokez eta alabre-hesiz inguratuta. Berria - Mundua

Gogoratzen dudana hurrengo gauza da ohean nengoela adreilu eta **porlan** zatiz beteta eta ez zegoela paretarik, kalean lo egitea bezala zen. Mikel Hernandez Abaitua

Nik **porlan** -zaku batzuk garraiatu, besterik ez nuen egin. Jon Alonso

Burdinazko hesiaren kontrako kolpea eta zerutik eroritako **porlan** -zakukada batena bezalako hotsa. Anjel Lertxundi

Harengana oldartu eta, **porlan** -hautsez zurituriko arropetatik tiraka, egongelaraino eraman nuela. Alberto Ladron Arana

Zeregin horrek Donostiako Rezola **porlan** enpresarekin duen lotura bistakoa da. Berria - Kultura

**Porlan** mota baten material fotovoltaiako batekin estali zuten errepide zati bat (7.000 metro koadroko eremua), eta, orduan, oxido mailak %60 egin du behera proiektuaren sustatzaileen esanetan. Berria - Gaiak

## 4 irud/hed

Gobernuak **porlana** bota du hogeita hamar urteko historiaren gainean, baina ez dugu onartuko gauzak horrela gelditzea. Berria - Mundua

Nafarrekin **porlanezko** defentsa eraiki zuten Palaun, eta etxeko taldeak horma horren aurka egin zuen talka behin eta berriro. Berria - Kirola

**Porlanez** eraikitako gezurrari. Eduarne Elizondo

Gobernuak **porlana** bota du hogeita hamar urteko historiaren gainean, baina ez dugu onartuko gauzak horrela gelditzea. Berria - Mundua

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**porlan zaku** (3)

**horman porlana sartzeko** (3); **porlana garraiatzeko** (14); **porlana garraiatzeko kableak** (6); **porlana garraiatzeko sistema** (3); **porlana garraiatzeko sistemako** (4); **porlana sartzeko** (3); **porlana sartzen** (5); **urtegiko porlana garraiatzeko** (4)

**porlanez betetako** (5); **porlanez betetzen** (5)

**porlanezko gezurra** (7); **porlanezko horma** (8)

## porlaneztatu, porlanezta, porlaneztatzen du ad pornalezko geruza bat ezarri.

"Baso-bideetan" sei zaldiko gurdiak ibili ordez, macadam eta **porlaneztaturiko** bideetan automobilak ibiltzen ziren. Iñaki Mendiguren

## porlangile iz zementugilea.

Portland **porlangileak** Cementos Lemonaren %96,6 bereganatu duela jakinarazi du, egindako Erosteako Eskaintza Publikoaren buruan. Berria - Ekonomia

## porlangintza iz zementugintza.

Nazio eraikuntzaren izenean **porlangintza** nazionala egiten ari gara. Berria - Euskal Herria

## porno 1 izond pornografikoa.

Behin *Ducados* pakete oso bat aurkitu zuten langileen etxolen ondoan, eta aldizkari **porno** bat. Jokin Muñoz

Luxuzko film **porno** baten aktorea ematen zuen. Karlos Zabala

Bideo **pornoak** alokatzen zituen. Karlos Linazasoro

Europako hainbat kanal ikus ditzake, baita Frantziako kanal **porno** bat ere. Jon Arretxe

Bere joera alternatibo hori maluz eta amorrutaz beteriko poemetan gauzatzen du, edo ipuin **porno** gordinetan bestela. Xabier Mendiguren Elizegi

Ordenagailuaren aitzinean orenak egiten zituen, prentsaren miazte azkenerainokoan, adiskideekin txiste-trukean edo orrialde **pornoetan**. Aingeru Epaltza

Lehegoan, Interneten nenbilela, site **porno** batean sartu nintzen, ohitura dudana bezala, eta mutil gazte baten iragarkia irakurri nuen. Karlos Zabala

Kontaketa, liburuan bertan esaten denez, testigantza sozio-historiko-literario-**pornoa** da. Berria - Kultura

## 2 (izen gisa)

Koonsen mundu ironikoak, berriz, **pornoarekin** eta gizarte kontsumistarekin du zerikusi handiagoa. Joseba Zulaika

Ez pentsa, hala ere, **porno** gogorra ikusten genuenik; erotismo txatxua zen gehienetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Gordina gordindu beharrez, **pornoak** urrak berriak egiten jarraitzen du. Berria - Kultura

Duela hiru aste ostiral gauean ikusi genuen **pornoan**. Jon Arretxe

## 3 (izen baten ezkerrean)

**Porno** -neurriko zakil bat, zer esan nahi dudana ulertzen badidazu, baina batere erakargarria ez nire begietarako. Oskar Arana

Abdul gauza asko izan zen bere bizitzan: suhiltzaile, **porno** aktorea, gigolo, postari, organista, aseguru-saltzaile, bortxatzaile, poeta, exhibizionista, diseinatzaile, maisu...

Karlos Linazasoro

Birus batek suntsitu zigun "Zimino lizuna" **porno** web-era jaitsitako bideo klipen artean, bazen Ginger Lynn izeneko artista bikain batena: den-dena, edozer, egiten zuen geldiro-geldiro. **Markos Zapain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldizkari porno** (4); **film porno** (4)

**bideo pornoak** (4); **film pornoak** (4)

## pornoerotiko *izond* pornoa eta erotikoa.

Literatura **pornoerotikoaz**. **Berria - Kultura**

## pornofilo *izond* pornozalea.

Ez dira sasoi onenak lizunkeria testu idatzian (ere) topatzen saiatzen garen freak **pornofilo** errukariontzat. **Berria - Kultura**

Ostielako giputz **pornofiloei**. **Patziku Perurena**

## pornografia *iz* 1 jarduera sexual esplizituen agerpena, sexu kitzikapena helburu duena.

Ondorioz, **pornografiaren** sarean erortzeko aukera handiagoa dute. **Berria - Gaiak**

Zehaztu beharko da zer esan nahi duen "**pornografia**" hitzak, eta ez da batere lan erraza. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Erotismo eta **pornografia** terminoak ez dira irizpide egonkorretan sustraitzen, abiada ikaragarrian aldatzen direnetan baizik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**Pornografia** politikoki zuzena eskaintzen da hoteletan. **Edorta Jimenez**

**Pornografiako** liburuak irakurtzen ziren, bere transzendentaltasunagatik beragatik barregarria zen **pornografia** bat zekartenak. **Josu Zabaleta**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **pornografiko**.

Joan zen martxoan, 40.000 **pornografia** iruditik gora aurkitu zituzten hango ordenagailuetan. Interneteko **pornografia** orrietan sartzea aldizkari infinitu batean murgiltzea bezala duk. **Pako Aristi**

Erabiltzaileei Interneten zer edo zer bilatzen ari direnean **pornografia** gaiak zenbatetan agertzen zaizkien jakitea. **Berria - Gaiak**

**Pornografia** delituen kartzela zigorrak aldatu zituen. **Berria - Euskal Herria**

Etxeak miatu dituzte Gipuzkoan, haurren **pornografia** sare zabal bat ikertzeko. **Berria - Euskal Herria**

Erresuma Batuko taldearen arabera, 1988az geroztik,%1.500 gehiago dira **pornografia** kasuak. **Berria - Gaiak**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gutxi harritu, denda saldu eta sarean haur- **pornografia** saltzen hasten banaiz. **Jon Alonso**

186 gizon, hiru apaizak, salatutik Italian, haur **pornografia** dela eta. **Iñigo Aranbarri**

Herritar asko jakin-minagatik sartzen da haur **pornografiako** edukiak dituzten web orrialdeetan. **Berria - Harian**

Ume **pornografiaren** gune nagusia Internet bada ere, delitu horrek baditu beste bide batzuk. **Berria - Gaiak**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**haur pornografia** (44); **haur pornografia kontsumitzen** (6); **haurren pornografia** (9); **haurren pornografia sare** (3); **pornografia aurkitu** (3); **pornografia edukitzeagatik** (3); **pornografia kontsumitzen** (6); **pornografia sare** (5); **umeen pornografia** (6)

**haur pornografiako** (3)

**haur pornografian aritzea** (4)

**haur pornografiaren** (14); **haur pornografiaren aurkako** (3); **haur pornografiaren ingurukoak** (3); **pornografiaren aurkako** (6)

## pornografiadun *izlag* pornografiako.

Ez du plazerik, ez morborik ez antzekorik bilatzen haur **pornografiadun** web orrialdeetan. **Berria - Harian**

## pornografiko 1 *izond* pornografiari dagokiona. ik **porno**; **pornografia 2**.

"**Pornografiko**" etiketa jartzen zaiola garai jakin bateko eredu kulturalak onartu nahi ez duen guztiari. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Baimenduta dagoena da erotikoa, araua gainditzen duena **pornografikoak**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Helduendako komikiak eta aldizkari **pornografikoak**. **Aingeru Epaltza**

Show erotiko eta **pornografikoz** beteriko kalea zen 42. **Harkaitz Cano**

Badira, ordea, irudi **pornografikoak** doan eta inolako daturik eskatu gabe banatzen dituztenak ere. **Berria - Gaiak**

Liburu erotiko eta **pornografiko** ugari irakurri ditut, oso txarrak gehienak. **Karlos Zabala**

Kartzelara hezitzaileak eta liburu eta argazki **pornografikoen** saltzaileak! **Fernando Rey**

Aldizkari **pornografikoaren** kontu harekin ez nintzen hain aise libratuko. **Bernardo Atxaga**

Bideo **pornografikoak** ematen dituzten ostaluetan. **Itxaro Borda**

Material **pornografiko** egiteko 13 urtetik beherako haurrak erabiltzeagatik. **Berria - Euskal Herria**

Ehun disko gogor baino gehiago eta milaka disko konpaktu eta DVD, «eduki **pornografikoekin**», Espainiako Poliziaren esanetan. **Berria - Euskal Herria**

Nire helburua testigantza **pornografiko** bat ematea zen. **Karlos Zabala**

Gaszte zela hainbat gizonekin izaniko sexu harremanak bildu ditu idazle siziliar gazteak '100 colpi' liburu erotiko-**pornografikoan**. **Berria - Kultura**

### 2 irud/hed

Erantzukizun metafisikoaren eta egoismo **pornografikoaren** arteko amildegia. **Anjel Lertxundi**

Enpresaburuek irabaziez harrotzea ia **pornografikoa** da Elorrietarentzat. **Berria - Ekonomia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ia pornografikoa** (3); **liburu pornografikoa** (3); **material pornografikoa** (4); **obra pornografikoa** (3)

**aldizkari pornografikoak** (6); **film pornografikoak** (4); **irudi pornografikoak** (8)

**aldizkari pornografikoaren** (4)

## pornografo *iz* pornografia-lanen egile edo argitaratzailea.

**Pornografoa** eta ustelkeri zalea deitu zioten besteak beste, bere lehenengo eleberrri handia argitaratu zuenean. Karlos Zabala  
Zerbaitek diost, poeta erromantikoek maitasuna bezala, guk -psikoanalista, sexologo eta **pornografoen** laguntzaz, hori bai- sexu-plazera akabatu egin dugula. Patxi Iturritegi

## pornograma iz film pronografikoa.

Zuena, antza, ez da erotismoaren mugarrietara iristen, sexu hutsa da, sexu basatia: Ataun Zugarramurdi Lesakako Sanferminak Santimamiñeko **pornogramak** : aluak eta zakilak handik eta hemendik, seiak eta bederatzia. Lutxo Egia

## pornoki iz gai pornografikoa.

Mirakulua izanen zen naski gizonezko erkide batekin **pornokien** komentatzeko ekina. Itxaro Borda

## pornozale izond/iz pornoaren zalea dena.

Burua altxatu, ate atzean gaueroko gazte **pornozaleak** barruntatu eta aurreko ametsa ahogozatuaz joan nintzen irekitzera. Xabier Mendiguren Elizegi  
**Pornozaleak** zinemazalearen aurrean bezala, komiki irakurleak azalpen ugari eman behar izaten ditu literaturazalearen aurrean. Berria - Kultura

## poro (orobat poru g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian poro agertzen da) 1 iz landare eta animalien azaleko zulo guziz txikietako bakoitza; bereziki, ugatzunen azalekoa, izerdi guruinen isurbidea dena. ik xularme.

Oso **poro** txikiko belaki baten antzeko egitura erakusten du kartilagoak, mikroskopia elektronikoz begiratzen bazaio. Irene Aldasoro  
Gauero, makilajea aurpegitik kentzeko esnea eta **poroak** ixteko tonikoa. Jasone Osoro  
Izerdia kanporatzeko, ordea, izerdi guruinak behar dira eta izerdi hori larruazalera eramango duten xularme edo **poroak**. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Badirudi edandako guztia azaleko **poroetatik** agertzen dela berriro. Paddy Rekalde  
Ordu arteko lanaren beroak atera ez dion izerdia dario bekokia behera, matelgaineko **poroetatik** behera. Pako Aristi  
Izerdia tontorka zerien nire **poro** guztiei, eta anpulu handi hotzetan geratzen zitzaidan kopetan itsatsita. Koro Navarro  
Nik odolaren beroa sentitzen nuen aurpegiko **poro** guztietan. Anjel Lertxundi  
Sentitu egiten duzu adeitasuna haren gorputzeko **poro** guztietatik dariola. Oskar Arana  
Sarritan mintzo gara ate itxian barna, eta ez da mirari, hotsa minik gabe pasa baitaiteke gauzen **poro** bihurretan zehar. Xabier Amuriza  
Arima gorputzaren **poro** guztietatik galtzen dute. Xabier Amuriza  
Larruki bakoitzeko **poro** bakoitza tranpa bat bezala zen kopiatzailearentzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

### 2 irud/hed

Eta orduan geureak izanen dira goiz-txintak, itsasoak, mitxoletak, ansfelbitak, hiriak eta gauak, hariztiak, liburuak, zorionaren **poro** guztiak. Karlos Linazasoro

### 3 (hitz elkartuetan)

Franciek azkar begiztatu zizkion sudur-**poroetatik** zerizkion izerdi-tanta txikiak. Lopez de Arana

## porodun izond poroak dituen. ik porotsu.

Azkenik, lurraren gorputza **poroduna** denez eta itsasoa ukitzen eta nonahitik inguratzen dagoenez, lehorreko urak itsasora doazen bezala, lautada gazitik lehorrera ere berdin joan behar dute, mingostasuna iragazita. Xabier Amuriza

## porogatu ik frogatu.

## porositate iz porotsua denaren nolakotasuna.

Eraikin historikoa eraberritzean, adabakiak kentzeaz gain, harrizko egituren azterketa egingo dute, **porositatea**, dentsitatea, hezetasuna, erresistentzia eta harriaren osagaiak aztertzeko. Berria - Harian

Ikatzaren berezko **porositateagatik** eta zangetan sartu diren hodiengatik kanpora aterako dira urak eta pasealekuak lehor eta inolako hezetasunik gabe geratuko dira. Santiago Iruretagoiena

## poroso izond porotsua.

Polimero **poroso** batek osatzen du konposatuaren egitura eta zeramika hauts finak ematen dio sendotasuna. Berria - Gaiak

## porotsu 1 izond

Harriak berez bigunak eta **porotsuak** izaten direnez, erabat lehortzen dute morteroa, ur guztia xukatuz. Santiago Iruretagoiena

Zakila, gorputz **porotsua** izanik, odolez bete litekeela eta bigunetik gogorrera igaro. Xabier Mendiguren Elizegi

Sarreratik 2-3 zentimetrora himenaren mintz **porotsua** dago. Luis Elberdin

Erregai-pila baten oinarritzko unitatea «monogelatxoa» deritzona da, bi elektrodok **porotsuen** artean elektrolitozko xafla ipinitakoan sortutako sandwicha. Berria - Gaiak

### 2 irud/hed

**Porotsua** dugu gogo ahanzturarekiko; ni neu ere faltsatuz eta galduz noa, urteen higadura lazgarriaren mende, Beatrizen hazpegiak. Juan Garzia

## porra ik borra<sup>1</sup>.

## porraka ik borra.

porrazo ik **borrazo**.

porrazoka ik **borrazoka**.

porro ik **txirri**<sup>1</sup>; **porru**<sup>2</sup>.

porrogile ik **porrugile**.

porrogintza ik **porrugintza**.

**porroi** *iz* beirazko botila modukoa, likido turrusta zuzenean ahora iraultzeko mutur konikoa duena.

Ehunka lagun, gizaseme zein emakume, milaka esatea hobe, eserita zeuden jadanik belazean, multzoka; eta **porroi** bakanak eta zahato ugariak lehia bizian altxatzen zituzten. **Txillardegi**

Zuk botila bat aukeratu, nik **porroian** hustu, eta kitto. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**porrokaezin** *izond* ezin porrokatuzkoa.

Kontsolamendua aurkitu zuen bere fede **porrokaezinean**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**porrokaldi** *iz* suntsialdia.

Etsaien **porrokaldia**. **Elizen arteko biblia**

Dena hondamendi, Sodomaren **porrokaldikoan** bezala. **Elizen arteko biblia**

**porrokarazi**, porrokaraz, porrokarazten du *ad* porrokatzekora behartu. ik **suntsiarazi**.

Baina hara non, bat-batean, inarrosaldi batek eraso egin zion, gorputz-arimak **porrokarazi**. **Patxi Zubizarreta**

**porrokatu**, porroka, porrokatzen (*orobat purrakatu g.er.*) **1** du *ad* suntsitu, desegin. ik **porroskatu**.

Harresiak deuseztu eta desegin zizkietela eta jauregiaren bi muturretan zeuden defentsarako dorreak **porrokatu** eta eraitsi. **Joan Mari Irigoien**

Tamala duk, gero, gu zoriontsu samar izateko mundua gerra odoltsu batean **porrokatu** behar izatea! **Patxi Zubizarreta**

Eufrates ibai ondoko Karkemix hirira iritsi zelarik, Babiloniako errege Nabukodonosorrek **porrokatu** egin zuen. **Elizen arteko biblia**

Jendea sakrifizioak eskaintzera behartzen zuen funtzionarioa ere hil egin zuen, eta aldarea **porrokatu**. **Elizen arteko biblia**

Joab bidali zuen Dabidek, ofizialekin eta Israelgo soldadu guztiekin, amondarrak **porrokatzer**a eta Raba hiria inguratzer

Orro, sakre eta mehatxuei lotu eta muturra **porrokatu** nahi izaten diote elkarri. **Xabier Montoia**

Hitz huts batez **porrokatu** eta txiki-txiki egin zaitzakeen sultanaren alabarekin ezkondu nahi ez duzu ba! **Patxi Zubizarreta**

Tetraziklinak **porrokatu** egin zituen jendeak gorputzean zituen bazilo arrikutsu guztiak. **Gotzon Garate**

Justizia gizakiaren ilusio bat da; funtsean, **porrokatzea** da dena, sortzea da dena. **Josu Zabaleta**

Eritasunak osasunaren harresi eta babestoki kasik gehienak desegin eta **porrokatu** zizkion orduko. **Joan Mari Irigoien**

Sufrimendu horrexek berak **porrokatu** zuen ene bihotza. **Patxi Zubizarreta**

Hasanek gogotik besarkatu zuen, emakumearen hankartean barneratu, eta kanoia hartara zuzendurik, harresiaren kontra tiro egin, eta halaxe **porrokatu** zuen gaztelua.

**Patxi Zubizarreta**

**2** irud/hed

Bere karrera akademiko guztia eman zuela estereokimika arloan zebilen teoria bat **porrokatzen**, ez esperimenez, argitalpenez baizik. **Juan Garzia**

Ez sumindurari utzi gure amodioa **porrokatzen**. **Patxi Zubizarreta**

Harritu egiten zen emazteak bere asmoak **porrokatzeko** egiten zituen ahaleginekin. **Patxi Zubizarreta**

Harreman hori **porrokatzer**a datorren hirugarren pertsonarena. **Patxi Zubizarreta**

Erraz mendekatu ahal izango baitzituen sufriarazi zutenak eta bizitza eroso eta zoriontsua **porrokatu** ziotenak. **Patxi Zubizarreta**

Sendagileak, baina, oharpen eta gomendioen poderioz, haren ilusioak **porrokatu** zituen eta bizitasun doi bat besterik ez zitzaion geratu. **Patxi Zubizarreta**

**3** (era burutua izenondo gisa)

Lurra kiniela boletu **porrokatu** eta txikituz beteta dago, itxaropenarekin beteak izan diren zaldi lasterketen apustu-txartelak txikituta eta zimurtuta daude orain. **Harkaitz Cano**

Etsetto zapal goibel hura egoniko lekuan egurrezko habe eta adreilu pila itxuragabea agertu omen zen, inguruko eraikin **porrokatuetatik** nekez bereizten zena. **Alberto Ladron Arana**

Galindez ofizialari agindu diote armada **porrokatu** hartako gizonak multzo bitan banatzeko aginduak ematea. **Edorta Jimenez**

Gasolindegia, auto-saltokiak beren banderaño eta zurezko hesiturekin, auto **porrokatuz** metatu txartategiak. **Xabier Montoia**

**4** amorratua, sutsua.

Muslari trebeak ziren segur, baina oroz gainetik euskaldun **porrokatuak**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Langile **porrokatua** eta hitzekoa. **Herria**

Erretzaile **porrokatua** izan arren, ez zuen nire aitaren aurrean, ordea, zigarrorik ateratzen. **Ramon Saizarbitoria**

Haren miresle **porrokatu** izan ziren hasiera-hasieratik. **Mirentxu Larrañaga**

Izan ere, Manuel ez zen sekula edale **porrokatua** izan. **Pedro Alberdi**

Mutilzahar **porrokatu** paradigmatikoa genuen bertsolaria bizitza errealean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Nire bigarren senargaia maritxu **porrokatua** zen eta erdi inpotentea, baina harekin ezkontzeko zorian egon nintzen. **Karlos Zabala**

Izan ere, munduan bizi zela, goiko ondasunen maitale **porrokatu** honek ez zuen munduan ezere jabetzarik nahi izan, ona bere osotasunean beteago eta alaiago eduki ahal

izateko. Askoren artean

Pentsatzen dut sinatu duela bertze norbaitek -jakobino porrokatua, dudarik gabe- idatzi ziona. Herria

Nire nabak txoro-txoro egina nindukan, sorgindua nengoen, haren fanatiko porrokatua nintzen. Karlos Zabala

Uste zen etorkin guztiak, edo Europatiko etorkin guztiak, behintzat, berehala bihurtuko zirela amerikar abertzale "porrokatu". Iñaki Mendiguren

Rothschild edo Rockefeller edo Ford edo Morris edo Mendebaldeko beste edozein aberats porrokatu bezain aberatsa. Iñaki Mendiguren

Argiaren zale porrokatua da urkia. Pello Zabala

Tripazaku galantak, txantxa eta trufazale porrokatuak, zorionean bizi ziren. Patxi Zubizarreta

Errepublikazalerik porrokatuenetarikoa da. Jon Muñoz

Handik aurrera jardun porrokatuan tematu zitzaion Mentxuri botikadenda propioa zabaltzeko eta zabaltzeko. Josu Landa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**demokrata porrokatua** (3); **erretzaille porrokatua** (4); **etsai porrokatua** (6); **langile porrokatua** (12); **musikazale porrokatua** (3)

**langile porrokatuak** (3); **mozkor porrokatuak** (3)

## porrokatzaile *izond* porrokatzen duena. ik **suntsitzaile**.

Abasek lortua zuen neskaren egonezin porrokatzaile hura doi bat ezitzea, baina begien bistan zegoen hura ez zela bere gogobeteko gizona. Patxi Zubizarreta

Ni hotzikara porrokatzaile batek zeharkatu nau buruko ile garaienetatik oinetako behatz tiikienaren atzazaleraino. Patxi Zubizarreta

Bizi esperientzia aski laburrekoa izan arren, haren handinahi porrokatzaileak eta berezko zakarkeriak eta larderiak hartaratu, ongi ohartzen zen ezen amildegi bat zegoela berak maite zuen gaztearen eta amesten zuen pertsonaiaren artean. Patxi Zubizarreta

## porrokatze *iz* suntsitzea, desegitea.

Ehizatzea, gudua egitea, digeritzea, arnasa hartzea, sorkuntza- eta porrokatze -moduak dira aldi berean. Josu Zabaleta

## porroska *(orobat porroxka g.er., purruska g.er. eta purrukska g.er.) 1* iz puska txikia, hondarra, hondakina.

Erreka bazterretan zeuden egur, trunko eta zuhaitz guztiak airez aire herrestatu zituen, porroska mota guziekin batean, non ere zubietan kokatzen baitziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Goitik etor daitezkeen porrosken zain egoteko ordez, herriak geroa bere gain hartuz baizik ez dezakeela egin aurrera. Berria - Ekonomia

Legar xeheko hondartzan urak ekarri porroskak, adar mutur, xori eta arrain ustel. Aurelia Arkotxa

Gelditzen zaizkio oraino Frantziari, munduaren lau hegoaldean, bere inperioaren hondarrak, hauek baitira: Kaledonia Berria, Polinesia, Réunion, Guyana, Guadalupe, Martinika, Mayotte edo beste zenbait porroska. Piarres Xarriton

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ozeano urdinean galduak diruditen lur porroska batzuk uli kakak bezain txikiak agertzen dira maparen gainean. Ramuntxo Etxeberri

Berriz ere, egun hotan petrolaki purruska batzu, batzuetan frango pikor larriak, ikusi dira itsas-hegi hortan. Herria

Ostia porroskak banatzen ditu ahurtaraka katiximaren ondotik, hortzekin krask eta krask haurrak loriatzen baitira. Michel Oronoz

Gelditzen zitzaien gau porroska bera galtzea batzuei soberaxko idurituko bazitzaien ere [...] elkartasuna denen gainetik zegoen. Eneko Bidegain

Larunbatean Ax-les-Thermes-eko gainetaraino egin du berea segundu porroska bat bereganatuz Armstrong eta haren artean 15 segunduren diferentzia dela bakarrik. Herria

Jakitare porroska zenbait bildu. Michel Oronoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ogi porroska** (3)

## porroskarazi, porroskaraz, porroskarazten *(corpusean purruskarazi soilik)* du *ad* porroskatzera behartu.

Helbururat lasterregeri heldu nahian, aldiz, pazientzia eskasak kalte handia ekar liezaioke ardietsi nahi denari, batzutan guti aski baita gostaiak gosta eraikitakoa purruskarazteko. Herria

## porroskatsu *(corpusean purruskatsu soilik)* izond puska txikiez, hondakinez betea.

Bizkitartean biek, ondare bihiken antzera, xume eta purruskatsu, zentasunaren baheetarik isuriz soilik izaten ikasiko genukeen. Itxaro Borda

## porroskatu, porroska, porroskatzen *(orobat purruskatu g.er., purruskatu g.er. eta purruksatu g.er.) 1* du *ad* porrokatu. ik **zehatu; suntsitu**.

Mendeen higadura ez da debalde izan guretzat: porroskatu gaitu... Itxaro Borda

Ministroak libratzera edo errebotariei oldartzera entseatuz gero, indar aski bazutela gogor ihardukitzeko, baita Garrúze goitik beheiti porroskatzeko ere. Aingeru Epaltza

Giriek, atzera beharretan abandonatu behar izango zituzten eskualdeak eta etxaldeak erabat porroskatzea erabaki zuten. Txillardegi

Murruak eraitsi eta porroskatu. Txillardegi

Erroak hor genituen Afganistanen, erro deseginak, erro ezabatuak, erro galduak Talibanek porroskatu dituzten budisten harrizko iduri alimaleekin. Herria

Egia zen, beraz: bi hegazkinek jo zuten dorre bikien kontra, eta hauek porroskatu erori ziren. Xabier Mendiguren Elizegi

### 2 (da ad gisa)

Autoa bertan porroskatu zen. Berria - Euskal Herria

Kolpe lehor bat jo lurraren kontra, eta [Pedro Páramo] goitik behera porroskatuz joan zen bertan, harri pila bat balitz bezala. Juan Garzia

### 3 irud/hed

Horra bi esalditan nire goi-asmoak porroskatu, nire balizko harrotasunak lurrarekin berdindurik. Xabier Mendiguren Elizegi

Esperantza porroskatua denean ere, beti gelditzen dira esperantzazko papurrak. Herria

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Bizitza horixe baitzen: gorputzaren galera, arimaren galera, giza galera porroskatua, azken finean porrota. Felipe Juaristi

Galdea galdekaten ari da beti eta beti, galdea errepikatuz, moztu-itzulikatuz [...] galdea zer galde duen, iduri bestelakatz baina ez aldatuz, puskatua, galde porroskatua, ezin jasana baitu berak erantzunik gabeko galdea izaitea. Michel Oronoz



# porroskatzaile *izond/iz porrokatzailea*.

Ez genuen mastekaterik, sukaldeko **porroskatzaileek** jadanik egina baitzuten. **Marzel Etxehandi**

## porroskeria *(orobat porroxkeria eta purruskeria) iz hutsalkeria*.

**Porroskeriak** lehenik eta gero peza handiagoak gelditu dira Landesetako eta Gironde departamenduko hondartzetan, urrunago ere joanez Charente Maritime eta Vendee departamenduetaraino. **Herria**

Ardurenean, zenbat solas eta urrats, higatu artino, frangotan **porroxkeria** batzu baizik ez ukaiteko! **Herria**

Dena ere on, erranen dute ainitzek, baina zinez % 1 hori **purruskeria** bat baizik ez da! **Herria**

Filipinetan orrona edo tenpesta izigarri batek herri horren ekialdea funditu du han gaindiko isla **porroskeria** bat ainitz hunkituz eta xehatuz. **Herria**

Ahal gehiago hitzeman, lanpostu gehiago hitzeman, diru gehiago hitzeman, hitzeman eta hitzeman... eta deusik ez, edo **porroxkeriak!** **Herria**

## porroskila *(corpusean porroxkila soilik) iz adkor porroska, hutsalkeria*.

Horrara etortzen zirenak: erosle bakar batzu, gehienik haurrak edo adinekoak; zerbait **porroxkilaren** erosteko estakuruarekin eleketa aritzera jiten zirenak ere. **Michel Oronoz**

## porrot 1 iz huts egitearen edo espero zena ez lortzearen ondorioa, porrot egitea.

Arrakasta gaur eta **porrota** bihar boladako haizearen menera. **Aingeru Epaltza**

Benetan ote da garrantzitsu amaiera, jakin badakigularik amaiera orok, garaipen edo **porrot**, heriotza duela benetako helmuga, eta hantxe ezabatuko dela? **Juan Kruz Igerabide**

Bizitza horixe baitzen: gorputzaren galera, arimaren galera, giza galera porroskatua, azken finean **porrota**. **Felipe Juaristi**

Saio berri bakoitzak hutsegite mordoia zekarren, baina **porrot** bakoitzak ez zituen ebazlegaiak adoregabetzen. **Jon Muñoz**

**Porrot** hura irentsi nahi ez. **Txillardegi**

**Porrot** horiek esplikatu daitezke, baina ez desenkusatu. **Iñaki Mendiguren**

**Porrot** horren ondoren, Liu Pang mundu sinikoko nagusi bakar bihurtu zenean, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Baina orain etxaldea uzten badut, **porrota** izango da niretzat, eta **porrota** eramango dut nire barruan bizitza osoan. **Oskar Arana**

-Ez nauzu ezagutzen -esan nion lehor, **porrota** duintasunez eramateko prest. **Ramon Saizarbitoria**

Etxean entzundakoogatik dakit ez zuela **porrota** irensten jakin. **Anjel Lertxundi**

Irratian entzun nuen haren oroitarirako antolatutako zuten diru-bilketa **porrota** izan dela. **Josu Landa**

**Porrot** hura garaitu behar nuen, nola edo hala. **Joan Mari Irigoien**

Horregatik gindoazen beti **porrotez porrot**. **Fernando Morillo**

**Porrotak** zatiketa eragiten du. **Josu Zabaleta**

**Porrotak**, aldiz, inkoherentzia, aspertasun, eta batez ere hutsalkeria giro batean beratzen ditu gizonak. **Josu Zabaleta**

Gu jada **porrotaren** umeak garelako. **Joxe Azurmendi**

Hura izan zen **porrotaren** gako. **Txema Ramirez de la Piscina**

**Porrotaren** zapore mikatza ahosabaia iritsita gelditu zait betiko. **Anjel Lertxundi**

Besteek ez zitoten erantzun, alderantziz, lurrera begira geratu edo bizkarra eman zioten **porrotaren** sentsazioa ezkatutu nahian. **Joanes Urkixo**

Bildu zituen bere ohar guztiak [...] bere hamahiru zatitako ikergai **porrot** joaren ezin konta ahala zirriborroak, eta erre egin zuen orrialde bakoitza bidai batean. **Oskar Arana**

## 2 (-en edo -ko atzikiaren eskuinean)

Borges maitemin-sentiberarentzat, munduaren zentzugabekeria eta ezbidet guztiak baino nahigabe handiagoa zen, agi danean, amodioaren **porrota**. **Juan Garzia**

Han hasi zen alemaniarren **porrota**. **Pako Aristi**

1934ko iraultzaren **porrotaren** ondoren ehunka preso, asturiarrak eta eibarrak batez ere, sartu zituzten [San Kristobal gotorlekuan] eta bertan hil ziren haietako asko. **Jokin Urain**

Ministro letradunen eta Hugolino kardinalaren presioak frantziskotar idealaren frakasoa eta Frantziskoren **porrota** ekarri zituela. **Askoren artean**

Estrategia horren **porrotaz** inork ez du gaur egun dudarik egiten. **Koro Navarro**

Mendebaldeko Kristandadea berriro anarkian erori zen Karlomagoren Erromatar Inperio berri abortatuaren **porrotaren** ondoren. **Iñaki Mendiguren**

1588an, Espainiako Armada Garaitezinaren **porrotak**, espainiarrek Atlantikokoan zuten nagusitasunaren bukaera ekarri zuen. **Koro Navarro**

1892an, *La Débâcle*, non Sedango **porrota**, inperioaren amaiera, Hirugarren Errepublikaren aldarrikatzea, Parisko setioa, Komuna eta haren kontrako errepresioa kontatzen diren. **Karlos Zabala**

Oraingo **porrota** porrot, Chirac-en UMP alderdiak gehiengo absolutua du oraindik Legebiltzarreko bi ganberetan. **Berria - Mundua**

Hitz hauekin, Venezuelako enpresari buruak, inplizituki bada ere, erreferendumeko **porrota** onartu zuen atzo. **Berria - Mundua**

Apenas egon zen eztabaidarik hauteskundeetako **porrotari** eman beharreko erantzunari edo aurrera begirako politikari buruz. **Berria - Mundua**

## 3 (izenondoeekin)

Nahigaberen baten itzala zeraman nonbait arrastaka, edo **porrot** handiren baten zama. **Joxean Agirre**

Ez distira handiz, baina **porrot** handirik ere gabe, Andres Hurtado aurrera zihoan bere karreran. **Josu Zabaleta**

**Porrot** ederra hire bizitza, Joseph Harland. **Lopez de Arana**

Drogen aurka bildu zuten amorrut guztia beste batzuek, nahiz eta amorrut haren jatorria ere aldaketa historikoak sortutako itzaropenen **porrot** mingarrian egon. **Juan Kruz Igerabide**

Borrokaren azkena ez zen garaipena izan, **porrot** lotsagarria baizik. **Askoren artean**

Mutil-kontuetan izandako **porrot** amaigabeen berri ematen ari zen. **Jon Arretxe**

Horrek guztiak lasaitu egin ninduen, bizi-gogoia berpiztu zidan, eta denbora gutxian eman nion buelta **porrot** emozionalari. **Juan Kruz Igerabide**

Barojak ezkontza burgesa ikusten du gizaro erakunde bat balitz bezala, ez aukera pertsonal bat; etsigarria, aurretiaz **porrot** sentimentalera eta afektibora bideratua. **Josu Zabaleta**

Kerenskyren erregimena **porrot** hutsa izan zen, lastorik gabe adreiluak egiteko zereginaren zama baitzuen. **Iñaki Mendiguren**

Garaitzak **porrot** partzialak behar dituela. **Koldo Izagirre**

Etxe aldera egin zuen emeki Letuk, bere ametsen gordailua izan eta bere **porrot** erabatekoa orotarazten zion hartara. **Xabier Montoia**

Ondorioa Maraton, Salamina, Platea eta Mikaleko **porrot** historikoak izan ziren. **Iñaki Mendiguren**

1992an, berak kudeaturiko funtsekin Ingalaterrako Bankua **porrot** teknikoan utzi eta libra esterlina Europako diru sistematik atera zuena da G. Soros hau. **Iñaki Heras**

## 4 (izenlagunekin)

Lan hura penitentzia-modu bereziki nekagarria izan zen, bere asmorik kutunen bat-bateko **porrotarengatik** dolu egiteko modu bat. **Oskar Arana**

Balitzko **porrota**, saiatu xatarra dio, eta hurrengorako eskarmentu pilotuko da gainera. **Andoni Egaña**  
Otsailaren 8an, Amyk deitu zidan telefonoz: Virgilek erabateko **porrota** izan zuen. **Xabier Olarra**  
Ezinbestekoa da, hala ere, bihar Harlondera iristea, erabateko **porrota** izango dugu bestela. **Agustin Otsoa**  
Halabeharrendaren haizeak gure aldera joka, lehendabiziko erasoaren ustekabeko **porrota**, Kapitain Handiaren heriotza. **Agustin Otsoa**  
Lehenengo ekinaldian, ordea, izugarritzko **porrota** egin zuen. **Pako Aristi**  
Ikaragarrizko **porrota**. **Iñaki Mendiguren**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Porrot** sentsazio handi batek hartu ninduen. **Joan Mari Irigoien**  
Ezagutzen nuen lehendik **porrot** sentsazio hori, baina oraingoan argi neukan zer egin. **Jon Arretxe**  
Elizaren hierarkia-egitura [...] haustura- eta **porrot**-mehatxupean aurkitzen da. **Joan Mari Lekuona**  
Bere pertsona kristalizatzen ziren **porrot** mota guztiak, eta ez jada istripuz, patu existentzialerik baizik. **Joseba Zulaika**  
Eta urduritasuna, beste behin ere **porrot** egunaren bezperan egon gaitzkeela pentsatzeak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskola-**porrotarena**, lan-merkatua ezinbestez utzi beharrena, familia-taldearen hausturarena, egoitza-txartela ez berriztatzearena, eta abar. **Koro Navarro**  
Ospitalean zegoen, erotzeko zorian (nerbio-**porrotaren** mugan). **Xabier Olarra**  
Aita-amen ezkon-**porrotaren** ondorioz zurzatsunaren sareetan trabatutako gure seme errukarri eta errugabearenganako. **Aingeru Epaltza**  
Zelotismoaren eta herodianismoaren auto-**porrot** uniformeak. **Iñaki Mendiguren**

## 7 *porrot egin* irabazpide batez edo egiteko batez mintzatuz, oker atera, huts egin, espero zena ez lortu.

Asko dira **porrot egiten** dutenak, gutxi, ordea, irabazten dutenak. **Esteban Antxustegi**  
Pertsona zintzo batek nola ez du ba beti **porrot egingo**, jende faltsuz beteriko gizarte batean? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Une batez, egia da, bazirudien Karlomagno bere agintea ezarriko zuela eremu osoan; itxaropen horrek, dakigun bezala, **porrot egin** zuen. **Iñaki Mendiguren**  
Etorkizuneko matematikariek arrakasta izango ahal dute nik **porrot egindako** lekuan. **Jon Muñoz**  
Badoaz nire egunak, **porrot dagite** nire egitasmo eta ametsek. **Elizen arteko biblia**  
Bakides erabat lur joa gelditu zen, beraren asmo eta erasoek **porrot egin** zutelako. **Elizen arteko biblia**  
Gure izeben lur-sail pilo bat saldu eta torloju-fabrika bat muntatu zuen, laster **egin** zuen **porrot**. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Espedizioek **porrot egin** dute. **Luis Elberdin**

## 8 (egin ezabaturik)

Hamaika saio egin nituen, eta denetan **porrot**. **Iñaki Iñurrieta**  
Rafaren negoziok ere **porrot**, eta gero bestea etorri zen, emaztearekin etetea eta hori guztiak. **Urtzi Urrutikoeetxea**  
Nire poz guztiak, **porrot**. **Anjel Lertxundi**

## 9 *porrot eginarazi*

Bati baino gehiagori **porrot eginarazia** zion, berari baino lehenago ere, kontu horrek. **Jon Muñoz**  
«Garrantzi historikoko huts larria» izango litzateke Batasunak Eusko Jaurlaritzaren Estatutu Proposamenari «**porrot eginaraztea**». **Berria - Euskal Herria**

## 10 *porrot eragin*

48ko errepublika, berriz, iruzur galanta zen, langileek **porrot eragin** zioten. **Karlos Zabala**  
Hori erakutsi zuen danubiar printzerrietako errumaniar jendeak 1821ean, 110 urtez greziar fanarioten gobernuaren esperientzia bertan izan ondoren, Hipsilandiren erasoari **porrot eragin** ziotenean. **Iñaki Mendiguren**  
Akaziasekin elkartu zarelako, Jaunak **porrot eragingo** die zure lanei. **Elizen arteko biblia**

## 11 *porrota eragin*

Xiiten iraultza islamikoak Mohamed Reza Pahlevi sha-aren **porrota eragin** zuen. **Berria - Mundua**  
Lauko finalean egoteko aukerarik ez duen arren, edozein talderen **porrota eragin** dezake, edozein garaitzeko moduko taldea baitu. **Berria - Kirola**  
Ez da aztertzen zeintzuk izan diren **porrota eragin** duten faktoreak eta hortaz, ez da neurri zuzentzailek proposatzen. **Berria - Euskal Herria**  
Frantziak eta Alemaniak ere ez diote erraztasunik emango, Deskontu britainiarra negoziatu nahi ez izatea eta goi bileraren **porrota eragitea** egotzen diotelako. Wafdean kidetuko bazina, Kontseilu Presidente Sidki Paxari bezalako batek **porrota eragiten** ahal ditu. **Berria - Harian**  
Merkatu indartzen hasi guztietara zabaldu zen orduan mesfidantza, eta *Long Term Capital Management* estatubatuar inbertsio-funts handiaren **porrota eragin** zuen ia. **Koro Navarro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**aurkako porrot** (7); **bi porrot jaso** (6); **egin du porrot** (5); **egin zuen porrot** (8); **elkarrizketek porrot egin** (7); **ereduak porrot egin** (4); **estrategiak porrot egin** (9); **negoziazioek porrot egin** (6); **planak porrot egin** (8); **politikak porrot egin** (7)

**porrot bakarra** (5)

**porrot egin** (380); **porrot egin du** (52); **porrot egin dute** (34); **porrot egin izana** (4); **porrot egin ondoren** (14); **porrot egin ostean** (5); **porrot egin zuen** (58); **porrot egin zuten** (25); **porrot egina** (5); **porrot eginda** (20); **porrot egindako** (15); **porrot eginen** (5); **porrot eginez gero** (14); **porrot egingo** (71); **porrot egingo du** (8); **porrot egingo dute** (11); **porrot egitea** (18); **porrot egiteko** (22); **porrot egiteko zorian** (4); **porrot egiten** (43); **porrot egiten badu** (7); **porrot egiten du** (9); **porrot egiten dute** (6)

**porrot egoeran** (5); **porrot ekonomikoa** (4); **porrot gisa** (4); **porrot handia** (12); **porrot handia izan** (5); **porrot hutsa** (5); **porrot hutsa izan** (4); **porrot izugarria** (6); **porrot jarraian** (6); **porrot jaso ditu** (5); **porrot mingarria** (14); **porrot mingarria izan** (4); **porrot nabarmena** (5); **porrotez porrot** (5); **saioak porrot egin** (11)

**arrakasta edo porrota** (7); **aurkako porrota** (12); **azken porrota** (8); **behin betiko porrota** (4); **erabateko porrota** (23); **erabateko porrota izan** (10); **ereduen porrota** (4); **eskola porrota** (7); **hirugarren porrota** (6); **izandako porrota** (12); **kontrako porrota** (5); **lehen porrota** (17); **lehen porrota jaso** (6); **pentsamenduaren porrota** (5); **planaren porrota** (7); **politikaren porrota** (13)

**porrota ahazteko** (6); **porrota eragin** (12); **porrota eragin zuen** (5); **porrota erakusten** (4); **porrota gertatu** (4); **porrota ikusirik** (5); **porrota iragartzen** (6); **porrota islatzen** (4); **porrota izan** (53); **porrota izan da** (11); **porrota izan zen** (6); **porrota izango** (15); **porrota izango da** (6); **porrota jasan** (6); **porrota jaso** (9); **porrota litzateke** (8); **porrota onartu** (13); **porrota onartzea** (4); **porrota onartzen** (4)

**ppren porrota** (6)

**atzoko porrotak** (7); **aurkako porrotak** (10); **igandeko porrotak** (4); **izandako porrotak** (5); **porrotak izan** (4); **ppren porrotak** (4)

**aurkako porrotaren** (4); **izandako porrotaren** (7); **jasotako porrotaren** (5); **porrotaren arrazoi** (4); **porrotaren errua** (7); **porrotaren isla** (4); **porrotaren ondoren** (25); **porrotaren ondorioz** (5); **porrotaren ondotik** (4); **porrotaren ostean** (11)

**etsaien porrotak** (4)

**azken bi porrotak** (5); **bi porrotak ostean** (5); **porrotak ondoren** (4); **porrotak ostean** (17)

**porrotez porrot** (5)

**porrotik handiena** (6)

## porrotaldi iz porrot egiten den aldia.

Herriaren negar-kanta; **porrotaldian** laguntza-eskaria. **Elizen arteko biblia**

## porrotatu izond porrot eginikoa.

Beraren zorigaitzaren historiarekin hain loturik zegoen liburu hura aldean eramatea zorigaitz hori ezerezturik zegoela baiezteada zena, eta gaizkiaren indar **porrotatuei** bozkariozko erronka isilpeko bat egitea adina. **Juan Garzia**

porroxka ik **porroska**.

porroxkeria ik **porroskeria**.

porroxkila ik **porroskila**.

**porru**<sup>1</sup> *1 iz* baratxuriaren familiako landarea, baratzean lantzen dena, erraboila luzea eta bakuna, hostoak lauak, luzeak eta meharrek, eta loreak zuri gorrixkak dituena, egosia jaten dena (*Allium porrum*).

Eltzekarirako barazki sorta lotuak ere saltzen zituen: lau **porru**, hiru azenario, txiribi bat, bi arbi, bi apio hosto. **Karlos Zabala**

**Porruak** garbitu, azenarioa zuritu eta txikitu. **Unai Iturriaga**

**Porru** gordin baten zuztarpeko bixarrak. **Jon Alonso**

**Porruarekin** ondo etortzen da beti ere patata. **Pablo Sastre**

**Porrua** ere astiro egosi delarik, errezetaren bigarren urratsa azaltzen has gintezke. **Patxi Zubizarreta**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Uraza, tipula, **porru** eta apio ildoek berunezko soldaduen desfile bat ematen zuten. **Karlos Zabala**

**Porru** pastel bat egiteko, izenak berak dioenez, **porru** sorta fresko bat behar da. **Patxi Zubizarreta**

Eltzean dagoen **porru** eta besamel oreari gatza bota behar zaio. **Patxi Zubizarreta**

**Porru**-bizarrak eta baratzuri-azalak... **Pako Aristi**

**3 frantses porru** ik **frantses 8**.

**4 porru eginda/eginik** oso nekaturik.

Gaur gauean **porru eginda** nago, **porru eginda**, benetan. **Lopez de Arana**

Bi egunez basatasunera itzuli ondotik, nire gorputz hiritar usadio gabea **porru eginda** egoten zen igande iluntzean zibilizaziora bueltatzean. **Aingeru Epaltza**

Pozik nengoen hilekoa berriro normaldu zitzaidalako, baina beti bezala **porru eginda** uzten ninduen, oso nekaturik nengoen eta ez nuen kemenik, deusetarako ere.

**Joxan Elozegi**

Gizona astindualdi latz batekin bizitza guztirako **porru eginda** gelditzen da... ni nagoen moduan. **Pako Aristi**

Ettxera itzultzean, euritan blai eta **porru eginik**, azalpen lausoak eta gezur garbiak erran behar izan nizkion negar batean aurkitu nuen amari. **Alberto Ladrón Arana**

Bai, samurkiro maitatu ditugu gure hildako maiteak, baina akiturik, leher eginik, **porru eginik** utzi gaituzte aldi berean. **Joxan Elozegi**

**5 porru-patata** (*orobat porrupatata; Euskaltzaindiaren Hiztegian porru-patata agertzen da*) *pl* porru eta patatekin prestatzen den janaria.

**Porru**-patatak jartzen dizkigu Gabrielak. **Arantxa Iturbe**

Juanak berehala **porru patatak** zerbitzatu dizkio. **Pello Lizarralde**

Mikelen ukitua **porrupatatei**. **Unai Iturriaga**

**6 porrua sartu** engainatu, atzipetu.

Sartu diguten **porrua**, tamainakoa da. **Iñigo Aranbarri**

Baina hori esatean alkateak **porrua** sartu nahi zigun, besterik ez, eta hortik jo zuen erreformak oso salmenta zaila zuelako. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**porru eginda** (22); **porru eginda nago** (5); **porru eginda nengoen** (3); **porru eginik** (3); **porru eta** (5); **porru pastel** (4); **porru pastel bat** (3)

**porru**<sup>2</sup> (*orobat porro; Euskaltzaindiaren Hiztegian porru agertzen da*) **1 iz** abakoa eta marihuana nahasiz egiten den zigarreta. ik **txirri**<sup>1</sup>.

Inoiz ez nuen ikasi **porruak** erretzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Charlyk bertze **porru** bat egin zuen eta hainbat segundoz isilik erre genuen. **Aingeru Epaltza**

**Porrua** bildu zuen berberak piztuko zuen, hark egingo zuen lehenengo zupaldia, eta [...] aurpegiera serioz esango zuen, ahapeka: "jotzen du, bai". **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Porru** bat lotzen hasi zen laguna, zelofanezko poltsa tiki batetik marihuana iharra aterata. **Aingeru Epaltza**

Ebek **porroa** pasatu zidan. **Sonia Gonzalez**

**Porroari** azken xurgada kendu eta itzali du harri baten kontra. **Aingeru Epaltza**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Edanean barrezka ibili ohi ginen beti edo eskuarki, eta **porru**-erreketan aldiz serioa zen gure jarrera, ekintza debekatuak halako zerbait eskatzen zuelakoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gorde samarrean piztu zuen Jonasek **porru** mutxikina. **Pablo Sastre**

Tipik ni hautatu ninduen **porru**-jiraren segida-emaile. **Aingeru Epaltza**

- Haien bileretan, **porro**-mistelak lagun, ideia zaparradak bat-batean hasten ziren. **Iñaki Iñurrieta**

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Katxi bat garagardo eskuman eta marihuana **porro** bat ezkerrean. **Sonia Gonzalez**

**porrukin** *iz* porruaren hondakina. cf **zigarrokin**.

**Porrukina** hautsontzian maspildu nuen. **Aingeru Epaltza**

porrupatata ik **porru**<sup>1</sup> **5**.

## porrusalda 1 iz porruz egindako salda.

Nik ez nekien garai hartan **porrusalda** eta arrautza prejituak maneatzeko. Txillardegia

Gure etxeko sukaldean ginen, eta marmitakoa edo **porrusalda** ari zen prestatzen, ez naiz oroitzen. Iban Zaldúa

**Porrusalda** egingo dizut, bale? Pablo Sastre

Goizean **porrusalda**, eguerdian azak. Patziku Perurena

Lehen-lehenik aitatxiren **porrusalda** beroarazi zuen. Daniel Landart

## 2 euskal dantza bizi baten izena.

Txapelketa hartan launa pieza jo zituzten bi bikoteek: fandangoa, arin-arina, trikitixa eta **porrusalda**. Xabier Etxabe

Hamabost pieza datoz bertan, sei jota edo "astiroko", sei **porrusalda** edo "arineko" eta hiru biribilketa edo martxa. Xabier Amuriza

Gaur entzuten diren **porrusalda** askoren *copyrighta* berea da. Pako Aristi

## porrutu izond

Eta denok goxoarekin erlazionatzen dugun masa itsaskorra isurtzeko, zer plastikoagoa eta estetikoagoa zakil **porrutu** bat baino? Unai Iturriaga

## porrutxo iz adkor porru txikia.

Tabakoa atera dut orduan, nire atzamar artrosidunekin eginiko **porrutxo** bat. Koldo Izagirre

## portable izond eramangarria, eskukoa. ik portatil.

Zazpi edo zortzi gizon ontzian gera zitezen agindu zuen; berak, besteekin eta Lewis etxeko hamabi metrailadore **portableekin**, talde multzo bitan banatu ostean, herrira jo du.

Edorta Jimenez

**Portablea** badinat. Itxaro Borda

## portada 1 iz liburuez, egunkariez eta kidekoez mintzatuz, azala.

Nahi gabe begiak **portadako** izenburu honetan iltzatu zaizkit: "Maitemin gene ahitua". Patxi Zubizarreta

Garai hartako kartelak, liburuetako **portadak**, pegatinak. Anjel Lertxundi

Lou Reedek aspaldiko disko bateko **portadan** zuen itxura zeukan. Harkaitz Cano

Durangon ikusi nuenean nire azken liburua, zuri-zuria bestean **portada** koloretsuen artean, erdi ezkutuan eta argialetxerik gabe... Ana Urkiza

Hanover Squareko liburu-denda txiki batean egin nuen lehenengoz: inork begiratzen ez zidanean, pilotxoaren goiko liburuari buelta eman, eta nire **portada** azaleratu nuen.

Iban Zaldúa

Alkateak habano bat ekarri zion aitari, eta *Blanco y Negro* errebista ere bai, **portadan** jeneralismoaren erretratua zekarrena zaldiekin, banderekin eta mairuekin. Joseba Sarrionandia

Dagoen lekutik ondo baino hobeto ikusten du Marca-ren **portadan** Johann Cruyff-i buruzko titulua dela nagusi. Iban Zaldúa

Tusquets-ek beste nobela bat argitaratu zuela *La asesina ilustrada*-ri zegokion **portadarekin**. Iban Zaldúa

Ez ginen harritu euskarazko hiru **portada** soilik zeudela ikustean. Berria - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan)

Sukaldeko horma guztiak disko **portadaz** beteta ditu. Harkaitz Cano

## portaera 1 iz jokabidea, portatzeko modua.

Bi **portaera** dira posible, nahiz eta adostezinak izan, bakoitzak bere moralitatea baitu. Joseba Zulaika

Ezin zuen **portaera** hura eraman, bera beste modu batekoa zelako erabat. Bernardo Atxaga

Ez zukeen bere **portaera** zuritu behar izango. Joxan Elozegi

Elizaren inguruan bildu ziren, buruak umil, ahalkea aurpegietan, beren **portaera** justifikatuko lukeen argudiorik gabe, biluzik ikararen aurrean. Ramon Saizarbitoria

Frantziaren **portaera** salatu du gobernu independentistak. Berria - Mundua

Virgilen **portaera** ez zen egiaz ikusten duen gizonarena, baina itsuarena ere ez. Xabier Olarra

**Portaeran** gozoa, izaeraz lasaia, hitzetan atsegina, aholku ematen burutsua. Askoren artean

Lasai nago nire **portaera** zuzena izan delako. Migel Angel Mintegi

Beren **portaeragatik** ez ziruditen senar-emazte. Juan Martin Elexpuru

**Portaeraren** ez-normaltasunak eta berbaldiaren normaltasunak kontraste harrigarria egiten zuten. Xabier Olarra

Etikarik gabeko **portaera** honek krisi larria eragin zuen NYT kazetan. Txema Ramirez de la Piscina

AEBetako telebista katean **portaera** da horren lekuko. Txema Ramirez de la Piscina

Polimeroen beste propietate garrantzitsu bat beroaren aurrean duten **portaera** da. Berria - Gaiak

Temperatura baxuetan [ferrojelek] material ferromagnetikoen **portaera** dute. Berria - Gaiak

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Portaera** akasgabea izan zenuen sortu zintuzten egunetik, maltzurkeriaz jokatzeko hasi zinen arte. Permachekek kritikatu zuen PSOEn **portaera** bikoitza. Elizen arteko biblia

Badirudi emearen **portaera** basatiak erraztu egiten duela arraren esperma isurketa. J.M. Olaiola "Txiliku"

Kukuaren **portaera** harrigarria da hegaztien artean. J.M. Olaiola "Txiliku"

Jarri belaniko haren aurrean eta barka eskatu alabarekin izan duzun **portaera** negargarriagatik... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Oso **portaera** txarra; batere irekia ez izaeraz. Jon Muñoz

Gazte denboran bere **portaera** lizunagatik kartzelaratu zuten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eguzkiari jarraitzen dion lorearen **portaera** ikusgarria. J.M. Olaiola "Txiliku"

Ba al dago **portaera** induktiborako justifikazio razionalik? Askoren artean

Hogei urte bete baino lehen hiru aldiz agertu behar izan zuen hiriko agintarien aurrean eskandaluzko **portaera** izateagatik. J.M. Olaiola "Txiliku"

Errukizko **portaera** legendunekin, hau da, gizarteko pertsona miserable eta baztertuenekin. Askoren artean

Hemen aipatzen dena azaleko **portaera** da bakarrik. Joan Mari Lekuona

ELAri «muturreko **portaera**» izatea egotzi zion. Berria - Euskal Herria

Beren lagunekiko **portaera**. Askoren artean

Zutik eta belauniko jartzen zen une egokian, behar bezalako **portaera** gizalegezkoa izaten saiatzen zen. Karlos Zabala

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oso-osoko menpetasuna izango da han aukeran egongo diren pertsonen **portaera** -araua. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere izaeraren arrastoak, **portaera** -eredu batzuk -onak eta ez hain onak-, giza kontzientzia bat. Ana Urkiza

**Portaera** paradigma berria. Joseba Zulaika

Maitemindua nengoen; eta hurrengo egunetan ere, maitemindu-arketipoaren **portaera** -kanonari estu lotzen nintzaiola, halatsu ibili nintzen, Sararen irudia burutik baztertu ezinik. Joan Mari Irigoien

**Portaera** kode bat adostu dute denen artean. Berria - Gaiak

Sintomak nabarmen apaldu zaizkie, eta lobotomiaren ondoko **portaera** -arazo txikietariko batzuk baizik ez dituzte nabari. Xabier Olarra

Gaitzak eragindako **portaera** -akatsak eta garuneko kalteak murrizteko hainbat txerto probatu dituzte. Berria - Gaiak

Dagoeneko mutikoa ez zela hain ume eta beregan eragindako **portaera** -aldaketa zuela haren froga zuzena. Josu Landa

**Portaera** -mota berriak patologia modura ezaugarritzen dira. Xabier Arregi

Pentsaera eta **portaera** kontuetan, nor bere buruaren jabe izatea anomala izatea da, eta anomala izatea, berriz, gorrotatua izatea. Xabier Olarra

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ba al dago arrazoiren bat giza **portaera** guztiak erakutsi ahal izateko, sexualak izan ezik? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gaitzetsi egiten zuen bere ustez ume- **portaera** omen zena. Iñaki Mendiguren

Neure paziente postentzefalitiko batzuk ekarri zizkidan gogora, eta Touretteren sindromea duten batzuk ere bai, ikusiak bainizkien halako usaintzaile- **portaerak** . Xabier Olarra

Errenkadaren ematen ditu Sendenek operatu ondoren halako "itsu- **portaera** " duten gaixoen kasuak nahiz "ikusteari uko" egiten diotenenak. Xabier Olarra

Oro har, euskal panoraman, agertu izan diren kritika- **portaera** batzuek, ongi erakusten dute autore kanonizatuak gizonak direla... Ana Urkiza

## portafolio 1 iz paper zorroa.

-Bai, hemen dituzu - **portafolio** bat luzatu zion Angiek. Iñaki Zabaleta

Hantxe zegoan emakume-tximeleta, dekorazio moduan erabilia **portafolio** batean. Koldo Izagirre

### 2 (hitz elkartuetan)

Atlantikoaren alde honetan, Mars Express probaren argazki **portafolioa** iragartzen aritu da ESA. Berria - Gaiak

### 3 irud/hed

Erosketa garbier gain, **portafolioen** berregokitzeak gertatu ohi dira inbertsiogileen artean. Berria - Ekonomia

## portal ik portale.

## portale *(orobat portal; Euskaltzaindiaren Hiztegian portale agertzen da)* 1 iz harresi, gaztelu eta kideetako ate handia.

Jauregiko **portalearen** ondoan lotu zuen. Fernando Rey

Santiagoko **portaletik** igaro ziren, Kale Nagusian sartu eta lekuri bazen galdetu zuten ostatuan. Koro Navarro

Herri zaharreko **portaleko** eskailerak igotzen dituzte, hiriko bi kale nagusiak korritu, eta erromantikoak iruditzen zaizkien lekuen eta apretagile taldeen argazkiak egiten dituzte. Koro Navarro

Noizbait heldu ziren burdinezko **portale** beltz handi bezain lazgarri baten aitzinera. Eneko Bidegain

Hemendik goiti hilerrietako **portaleak** gako izanen direla aratsetan. Herria

Oroitzen naiz ere Hazparneko ikastegira bidali nindutelarik [...] sartzeko **portale** gainean idatzia zuen aholkua irakurri nuela: *Ez lotsa, ez lokar!* Piarres Xarriton

### 2 eskaratza, ataria.

Karpeta besapean, bazkalondoan dutxa bat hartu eta alkandora garbia janzteko desioz sartu zen 77 zenbakidun **portalean** . Joxemari Urteaga

**Portalean** sartu eta propagandaz betetako buzoia garbitu zuen. Joxemari Urteaga

Eskailerak jaitsi eta, **portaletik** atera bezain laster, ezker-eskuin begiratu duzu badaezpada. Rafa Egiguren

### 3 irud/hed

Neure mihiari ausiki egiteko eta kolpe hartaz gustuari eta zaporeari **portale** guztien zerratzeko asmotan. Joan Mari Irigoien

## portamento iz nota batetik beste batera, tarteko nota guztiak loturik kantatuz edo joz, igarotzeko prozedura.

Hasierako nostalgiazko esaldiak ondo lotu zituen, vibrato, **portamento** eta azken finean fraseatze txukunez beterik. Berria - Kultura

Legato txukuna, koloreak, **portamento** eta filado-etan ondo aritu zen hasierako *Lo sguardo...*, *Tu del mio Carlo* aria eta *caballeta* egiteko. Berria - Kultura

## portamolde iz portaera.

Ez dira gizonezkoak [...] existitzen diren **portamolde** diskriminazialeen hoberendun bakarrak. Ana Urkiza

## portatibo iz organo ez mintzatuz antzinako organo txikia, hauspoduna, uhal batez loturik bizkarrean eramaten zena. ik positibo 12.

Laukotearen buru Bonizzoni da, bere organo **portatibotik** dena zuzenduz. Berria - Kultura

## portatil izond eskukoa; eramangarria. ik portable.

Ni ohituta nengoen oraingo gazteekin, piercing, argazki makina digitala eta ordenagailu **portatilaren** belaunaldiarekin, eta bizardun potoloa agertu zitzaidan, orduko argazkietan asko ateratzen ziren bizardun horietako bat. Alberto Barandiaran

Eta debiletaren kontra lehertua foniako **portatilaren** zati bat. Koldo Izagirre

Ring **portatilaren** gainean. Harkaitz Cano



# portatu, porta, portatu 1 da adakatu, aritu. ik gobernatu.

Zer dioten gizonezkoek basamortuko emakumeok **portatu** beharko ginatekeen moduz. **Xabier Aranburu**

Hori horrela izateak esan nahi du bere portaera, zeinaren bidez eta zeinean halako gizaki den heinean, nabarmendu egin behar dela **portatzeko** gainerako moduen artean. **Piarres Xarriton**

Europak "bizi eta **portatzeko** jatorrizko idealelara" itzultzeko hartu zituen bideetako batzuei buruz. **Iñaki Mendiguren**

Parisen, aipatutako urte horietan, bizitzeko, janzteko eta **portatzeko** modu ezohizkoak [...] zituzten artista-jendeei *la bohème* deitu zitzaizen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Nola **portatu** da laguna zurekin bidaia honetan? **Askoren artean**

## 2 (adizlagunekin)

Gaixo bat bezala **portatzen** ari zela oharitu orduko, buzoitik urrundu zen pausoa luzatuz, bere buruaz lotsatuta. **Harkaitz Cano**

Aita ondo **portatzen** da nirekin, eta askoz hobeto ulertzen dit. **Josu Zabaleta**

Gaizki **portatzeagatik**! **Josu Zabaleta**

Peterrek ere bazekien gizalegez **portatzen**. **Julen Gabiria**

Ikusleak hainbestean **portatu** ziren, txukun antzera. **Karlos Linazasoro**

Bizitza honetan egiaren bila saiatzan direnak eta zintzo **portatzen** ahalegintzen direnak Jaungoikoaren hirikoak dira. **Imanol Unzurrunzaga**

Hala ere, zera esan behar da Gortariren alde: gizon **portatu** dela, azkenean bere patua onartzen jakin duela. **Patxi Iturritegi**

Dotore **portatu** zen zuzendaria. **Joxan Elozegi**

Egiaz, ez dago zabarrago **portatzerik**. **Patxi Iturritegi**

Nik ere leial **portatu** behar nuen berarekin. **Xabier Olarra**

Iruditzen zitzaidan hain gizabidetsu eta jator **portatzean** zetzala nire hutsa, hots, hain begiratu eta inozo izatean. **Juan Garzia**

Hezitza hobeto egongo direlako hezi gabe basati **portatuko** zirenak. **Imanol Unzurrunzaga**

Horren ondoren amultsu **portatzera** behartzen nuen neure burua. **Josu Zabaleta**

Oso abegitsu **portatzen** da nirekin, eta ni ikustera joatea egiaz gustatzen zaio, nik uste. **Josu Zabaleta**

Ezin hobeto **portatu** zinen. **Aritz Gorrotxategi**

Lehen beharbada zakar samar **portatu** nauk eta... ea noiz utzi behar nion hain ume **portatzeari**, kalte besterik ez zidala egiten-eta. **Pako Aristi**

Zer ondo ari zaren **portatzen** gaur! **Bernardo Atxaga**

## 3 (zerbait) egoki egin.

Beteranoa **portatu** egin da. **Harkaitz Cano**

-Azkenean **portatu** haiz, txinbo -esan zion Gorkak motor gainera salto eginez-. **Patxi Iturritegi**

To, eta eutsi goiari, Werner, **portatu** haiz! **Anjel Lertxundi**

-Oso ondo, oso ondo, ea aurrerantzean ere **portatzen** haizen! **Jose Morales**

-Ea zuen orkestratxo hori **portatzen** den, eta bisean nik dakidan pieza bat jotzen digun, e Zabaleta? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Epeak epe, **portatu** zaizkidan lagunak ere izan ditut. **Joxerra Garzia**

Eguraldia **portatu** zitzaizen, ateri egon baitzen Kontxako pasealekutik Bulebarrerako bidean eta Bulebarrean jendeari euren eskaeren inguruko esku orriak banatzen egon ziren bitartean. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bikain portatu** (3); **ezin hobeto portatu** (4); **gaizki portatu** (11); **gizon portatu** (6); **hobeto portatu** (4); **jator portatu** (6); **nola portatu** (9); **ondo portatu** (18); **ondo portatu zen** (3); **ongi portatu** (10); **ongi portatu zen** (3); **oso ondo portatu** (4); **primeran portatu** (4); **zintzo portatu** (5); **zoragarri portatu zen** (3)

**ondo portatuko** (4)

**euritsu portatzen** (3); **gaizki portatzen** (9); **moduan portatzen** (3); **nola portatzen** (7); **nola portatzen den** (4); **ondo portatzen** (30); **ondo portatzen ziren** (3); **ongi portatzen** (4); **oso ondo portatzen** (3); **txarto portatzen** (4); **zintzo portatzen** (7)

## portatze iz jokatzea, aritzea.

Eta, kristautasuna nagusi den gure gizartean, bitxi gertatzen da halako jokabide bat, eremu guztietan gizon **portatze** hori. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## porteria 1 iz futbolean, atea.

Erreglamentarioa deitzen zen futbol zelaiak hartzen zuen espaziorik hoberena, metalezko **porteria** saredunekin. **Joseba Sarrionandia**

Baloia **porteria** barruan geratu zen, Juamanuel joan zen ateratzera. **Joseba Sarrionandia**

**Porteriatik** hamaika pauso kontatu eta Emiliok baloia lurrean jarri zuen astiro. **Joseba Sarrionandia**

Mahaien arteko hutsunek osatzen zituzten **porteria** irudikatuetan golak sartuz. **Aritz Gorrotxategi**

## 2 etxe eta kidekoetan, atezaindegia.

Askok ezagutu dukete Arantzazuko Anaidiko **porterian** atezain, beti alegera. **Herria**

## portero 1 iz futbolean, atezaina.

Ez genuen **portero** altu ilegorririk, baloiak Iribar edo Yazhinen moduko jauziz harrapatzeko. **Joseba Sarrionandia**

Futbolearen bazuen maina, batik bat **portero** lanak egiten jartzen zutenen. **Xabier Etxabe**

## 2 etxe eta kidekoetan, atezaina.

[Behatokiak] izan dira, adibidez, fabrika batzuetako **portero** eta atezainen kokagunean, edo hainbat mendizainen etxetako postuak. **Pello Zabala**

## portiko 1 iz eliz ataria.

Hernanik ez dauka monumenturik, eliza arrunt bat -Pompador estiloko **portiko** aberatsa duen arren-, udaletxe ezdeus bat. **Koldo Izagirre**

Eliza noizbait hustu delarik [...] oposizioak protagonismoa kentzen dio Azcarraga jeneralari, Grilo poeta insigne eta Castelar diputatu ezaguna besarkada baten bildu baitira **portikoan**, kazetariak inguratuak. **Koldo Izagirre**

**Portikoari** so egin geniola bai eta Kristoren erregetzaren errespetuan zeuden jendeari beha egon nintzela. **Piarres Aintziart**

## 2 atari zutebeduna.

Barruko aldean bi pisu koloma ditu altueran, paretetatik urrun eta inguru guztian, peristiloetako **portikoen** antzera. **Santiago Iruretagoiena**

Grekoek karratu baten formarekin eraikitzen dituzte foroak, **portiko** zabal eta bikoitzekin osatuta, koloma ugariarekin. **Santiago Iruretagoiena**

Cella-ko paretak santutegitik kendu eta alboko **portikoen** kolomarteeetan atxikita jarriz, espazio horrekin handitu egiten dute cella-ren tamaina. **Santiago Iruretagoiena**

-Gloriaz ospatu zuten garaipen hura beren arpilaketa eta harrapakinekin, eta ateratako diruekin **portiko** pertsiarra eraiki zuten hiritar guztien adorea eta ekintza ospatzeko.



## portilo iz itsasontzi bateko albo irekidura.

Nik uste nuen berehala azaldu behar zuela kanoiak lainoa ateratzen gure **portiloren** batetik, horretarako egin genuela hamazazpigarren mendeko galeoiaren maliobra.

**Koldo Izagirre**

**Portiloak** leherluak, atek eramanak, mastak etzanak, lemako gurrilik ez... **Koldo Izagirre**

## portu 1 iz itsasontziak babes hartzeko, edo karga hartu edo uzteko leku egokia, berezkoa nahiz eraikia. ikkai.

**Portu** bat zuen Asiako salerosgaiak hartzeko, eta beste bat Italiakoak hartzeko. **Iñaki Iñurrieta**

Sasoi hartan **portuak** hamabosten bat enbarkazio izango zituen, ontziola ere bai konponketak egiteko, eta elur fabrika, eta beste gauza asko. **Joseba Sarrionandia**

Donostiako **portua** moilarri-muturren mataza bitxia da. **Koldo Izagirre**

1937ko otsailaren 27an *Paris* itsasontziko ganbareta batean da, New Yorkeko **portuan**, Europara jotzeko prest. **Edorta Jimenez**

Pasaiaiko **portuan** ainguraturiko merkataritza hori ikaragarri bati so. **Harkaitz Cano**

Haren yatea -hura bai yatea!- Bahiako **portuan** atrakatu zen. **Karlos Zabala**

Gure **portu** gehienek euren neguko babes eta abaro lekuak erreka eta ibaietan atundurik dituzte. **Edorta Jimenez**

Donibane Lohizunen, gauaz eta gaixtakeriaz, hamar mila pinta gasoilki nunbait han ixuri dira **portuan**. **Herria**

**Portu** horietan ontziek euren tankeak garbitu eta haietan gertau ohi diren hondakinak jasotzeko azpiegitura egokia egotea oinarritzkoa da. **Berria - Gaiak**

Zeharbide ilun batetik **portu** aurreko kale zabal eguzkitsura iritsi nintzen. **Anjel Lertxundi**

Ezagutzen ez nuen hiri bateko **portu** aldera nindoala. **Anjel Lertxundi**

Kezka iturri da oraindik Nikisko **portu** parean hondoa jota dagoen *Seabulk Pride* petroliontzia. **Berria - Gaiak**

Zenbat eta **portu** alderago, hainbat eta ozenago zalaparta. **Xabier Montoia**

Pasaiaiko **portu** inguruko pabilioiek osatu perfilak bazuen hortzadura izorretatik zuen agure zahar baten ahoaren antza. **Harkaitz Cano**

-Gure bizitzak itsasontziak dira, portuz **portu** dabilzanak. **Felipe Juaristi**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sirakusak ere bi portu ditu, elkarri bizkarra ematen diotenak: **portu** handia eta **portu** txikia. **Jon Muñoz**

Arrunt gogoan dut nola iragan nuen goiz hura Marsellako **portu** zaharrean. **Janbattitt Dirassar**

Itsasontziak ekaitzetik babesteko egokiak diren berezko **portu** naturalik ez baldin badago, [...]. **Santiago Iruretagoiena**

**Portu** industrial peto-petoa da Bilbokoa. **Berria - Ekonomia**

Faby jauna, Bouvilleko **portu** autonomoko administrazio kontseiluko burua. **Monika Etxebarria**

Rodaskoak beren ondo hornitutako flotarekin **portu** nagusian sartu zirenean [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Horiek ere **portu** babestura iristen dira. **Joan Mari Lekuona**

**Portu** ederra izango da, behin atrakatu ondoren edonongo haizeetatik gordean egongo zaretelako. **Joseba Sarrionandia**

Lakua ireki zuen itsasora eta lakuarekin hiribilduarentzat **portu** eder bat egin zuen. **Santiago Iruretagoiena**

Gau gaiztoetan, **portu** ezkutueta sartzen zarete, jauntxoan yateek ezagutzen ez dituzten horietan. **Julen Gabiria**

Ezkerreko aldearen azpian ezkutuko **portu** bat geratzen da mendien magalean gordeta. **Santiago Iruretagoiena**

Laborarien karrika esaten nion nik, eta biziki atsegin nuen, lekuz kanpokoa eta paradoxikoa zelako merkataritzako **portu** batean. **Monika Etxebarria**

**Portu** sekulakoak ontzi sekulakoekin milioika salgai garraiatzeko. **Fernando Rey**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Portu** -hiri guztietan bezala, Triesten ez zen ostaturik eta apopilo-etxerik falta. **Anjel Lertxundi**

**Portu** sarreraren olatu itsuak barraren kontra lehertzen zirela. **Joseba Sarrionandia**

**Portu** sarrerako labarretan ez baina hurbilago ordea. **Koldo Izagirre**

Hong Kongeko finantza, merkataritza eta **portu** -logistika. **Koro Navarro**

Zaharrok **portu** -muturreko hormaren pazientzia zementuzkoa ere ahituko genukeelako. **Anjel Lertxundi**

Gero, kartzelatik irteerakoan, gabarra-gidari edo **portu** -zaindari lanpostu bat emango didate. **Lopez de Arana**

**Portu** agintaritzako presidentek emandako datuen arabera. **Berria - Harian**

Pasaiaiko **Portu** Agintaritzak begi onez hartu du egitasmoa. **Berria - Harian**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina beraien eta babes-**portu** haren artean uharrak apartu eta trumoiak zeuden. **Iñaki Mendiguren**

Handik ordu pare batera, elurrak ia erabat zurutu zuen itsas **portua**. **Harkaitz Cano**

Efesoko hiria, Herostratos-en sorteria, Kaistroaren bokalean hedatzen zen, bertako bi ibai-**portuekin**, Panormoko kairaino. **Juan Garzia**

Obran hasiak dira Hendaian kirol-**portua** handitu beharrez, 115 unti gehiago kokatzeko gisan. **Herria**

Cojimar-eko auzo bat zen, Ernest Hemingway Kuban bere unerik goxoan igaro zituen arrantzale **portu** txikikoa. **Jon Muñoz**

Ikatz eta egurra hartzeko makineria onenaz hornituriko merkataritza-**portua** bihurtu dute Bouville. **Monika Etxebarria**

Arrantza **portua** arripiztu zen duela hogoita-zonbait urte, unti batzu Donibane-Ziburutik joan baitziren Hendaierat. **Herria**

Petrolio-**portu** bat da, ikusiko duzu. **Joxe Austin Arrieta**

Ziklo konbinatuko zentrala egin nahi dute Pasaiaiko kanpo **portuan**. **Berria - Harian**

Jaimanitas-en [...] Habanaren mendebaldean zegoen auzo-**portu** bat. **Jon Muñoz**

## 5 irud/hed

Gau hartan kondesaren gorputza **portu** eta babes izan zitzaion Irisarri, nekearen bizigarri, izuaren lasaigarri. **Felipe Juaristi**

Pentsatu nuen liburu-denda hura marinel bakarti askoren **portu** txiki bat izango zela. **Anjel Lertxundi**

## 6 mendatea.

Deskarga **portuaren** oinean. **Unai Iturriaga**

## 7 portu franko zergak pagatetik libre dagoena.

Ekonomiazko merkataritza egiten duten estatuetan, **portu franko** bat ezar daiteke. **Iñaki Iñurrieta**

Hamaseigarren mendean, Caracasko Konpainiak [...] Pasaian zeuzkan bere **portu frankoa** eta bere biltegiak. **Koldo Izagirre**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**algortako portu zaharrean** (3); **arrantzale portu** (4); **azken portu** (4); **babes portu** (4); **itsas portu** (6); **itsasoko portu** (3); **kirol portu** (7); **kirol portu bat** (3); **pasaiaiko portu agintaritzak** (6); **pasaiaiko portu agintaritzako** (6)

**portu agintaritzak** (12); **portu agintaritzako** (9); **portu agintaritzako presidente** (3); **portu agintaritzako presidentek** (3); **portu aldean** (9); **portu aldeko** (4); **portu aldera** (12); **portu aldetik** (3); **portu barruan** (7); **portu bazter** (10); **portu bazterean** (9); **portu bazterreko** (3); **portu berri** (9); **portu berri bat** (5); **portu berria** (12); **portu berriak** (4); **portu berriaren** (7); **portu burua** (4); **portu buruak** (6)

portu eder (3); portu frankoa (4); portu handi (4); portu handia (3); portu hegi (6); portu hegi hortan (6); portu herria (3); portu hiri (3); portu hori (10); portu horietan (3); portu horretara (3); portu hortako (3); portu hura (3)

portu inguruan (3); portu inguruko (4); portu nagusia (3)

portu onak (3); portu ondoan (6); portu ondoko (7); portu osoa (5); portu ttipia (3); portu txiki (5); portu txiki bat (3)

portu zaharra (4); portu zaharrean (3); portu zaharra (5); portu zaharrean (14); portu zaharreko (4)

porturik portu (6); portuz portu (7)

azken portua (3); gaur egungo portua (4); itsas portua (4); kanpo portua (28); kanpo portua egiteko (3); kanpoko portua eraiki (3); kirol portua (12); pasaiaiko kanpo portua (12); pasaiaiko kanpoko portua (4); pasaiaiko portua (13); portua egin (4); portua egiteko (4); portua eraiki (4); portua handitzeko (3); portua utzi (3)

babes portuak (3); kanpo portuak (5); portuak merkantziak ateratzeko (4)

hiriko portuan (7); kanpo portuan (5); kirol portuan (8); portuan ainguraturik (3); portuan ainguratuta (3) portuan lan egiten (3); portuan lehorreratu (4); portuan lotu (3); portuan sartu (6); portuan sartzen (3); portuan zegoen (6); portuan zehar (3)

kanpo portuaren (20); kanpo portuaren alde (3); kanpoko portuaren (3); pasaiaiko kanpo portuaren (8); portuaren alde (3); portuaren aurka (4); portuaren ondo hortan (3); portuaren parean (3); portuaren proiektua (4)

portuari begira (5)

portuetako ingeniariaren (4); portuetako langileen (3); ubideetako eta portuetako (5)

hango portuetan (3)

azken portuko (6); pasaiaiko portuko agintaritzako (5); portuko agintaritzak (7); portuko agintaritzako (6); portuko agintaritzako presidentek (4); portuko erretegia (17); portuko langile (5); portuko langileen (4); portuko merkantziak (3); portuko ontzi (4); portuko sarrera (5); portuko soto (3); portuko tabernan (5); portuko trafikua (6); portuko ur (4); portuko uretan (7); portuko uretara (4)

azken portura (5); gure portura (4); portura ekarri (4); portura ematen (4); portura ematen zuen (3); portura eraman (7); portura heldu (3); portura iritsi (20); portura iritsi ziren (4); portura itzuli (5); portura jaitsi (3); portura joan (6); portura sartu (3); portura sartzen (6)

porturako bidea (4); porturako bidean (3)

porturik portu (6)

portutik abiatu (4); portutik abiatu zen (3); portutik atera (6); portutik gertu (5); portutik hogei miliatara (3); portutik hurbil (5); portutik irteten (3); portutik merkantziak ateratzeko (3)

portuz portu (7)

## portuburu *(corpusean portuburu soilik) iz* portu bateko agintaria.

**Portu-burua** konpontxo eginda dago Casablancako agintariekin. Anjel Lertxundi

Ontziak agintarien baimena behar du, portutik irtengo bada; eta **portu-buruak** prezioa jarri dio baimenari. Anjel Lertxundi

Erbaki horretan ba ote duertzik **portu-buruarekin** bizpahiru gauetan afaltzera irten den operako sopranoaren irribarre sentsualak? Anjel Lertxundi

## portugaldar *(orobat portugaletar g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian portugaldar agertzen da) 1 izlag* Portugalekoa, Portugali dagokiona. ik **portuges**.

Ibilbide berri horren aurkikuntzak esplikatzu den, dudarik gabe, **portugaldar** erregeak Kristobal Kolon genoatarraren espedizioa finantzatzeari ezetza eman izana. Koro Navarro

Truke libreko egoeran, **portugaldar** ardo-ekoizleek truke-tasa hobea dute ingeles merkatuan beren merkatuan baino. Koro Navarro

Antoniok ere, hemengoan izanagatik, zerbitzari **portugaldarren** gisara jokatzu du barraren atzean: gorputza motel eta gogoaz auzoan. Aingeru Epaltza

Honela, beren erlijiozko uste sendoen zintzotasuna erakustean, espainiar eta **portugaldar** inperiogileei musulmanek hartu zieten aurrea. Iñaki Mendiguren

Polloeko hilerrira iristean, matrikula **portugaldarra** duen kamioi bat begiz jo du. Patxi Zubizarreta

Horregatik eman zioten etxeari **portugaldar** kutsua. Felipe Juaristi

Elastikotasuna batetik gorakoa bada, **portugaldar** inportazioen bolumena prezioen beherakada baino neurri handiagoan haziko da. Koro Navarro

Armada **portugaldarra** inurri zurien multzoa bezalakoa da. Jon Alonso

### 2 iz Portugaleko herritarra.

1490. urteaz gero, Afrika osorik itsasoz inguratzeko ideia zehazten ari ziren **portugaldarrak**. Koro Navarro

Allino Pinheiro **portugaldarren** kasua da hori. Berria - Harian

Gaur egun holandarrek indiar printze txikiei ezartzen dizkieten lege gogaikarriak, **portugaldarrek** ezarri zituzten aurretik. Iñaki Iñurrieta

Harrezkero, **portugaldarrek** saudadea dugu buruan, ezagutzen ez dugun tokiarekiko mina. Felipe Juaristi

Mairuak ahultzen hasi ziren, **portugaldar** adoretzuenek aurrera egin zuten, santu guztiei eta Andredena Mariari laguntza eskatuz. janzteko eragatik **portugaldarra** behar zuen gidari malenkoniatsu batek ez zuen hitzik egiten. Jon Alonso

Lehen **portugaldarra** nintzen; orain ez dakit zer naizen. Felipe Juaristi

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espainiar eta portugaldar (3); portugaldar bat (6)

alboko portugaldarra (3); fernando silva portugaldarra (3)

entrenatzaile portugaldarrak (3); jokalaririk portugaldarrak (3)

portugaldarrei lagundu (4)

portugaldarren kanpamentua (3)

## portugaletar ik portugaldar.

## portugaletear ik portugaletetar.

## portugaletetar *(orobat portugaletear g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian portugaletetar agertzen da) izlag/iz* Portugaletekoa, Portugaleteri dagokiona; Portugaleko biztanlea.

Enrique Lopez **portugaletearra** erakasle zen Leioako Unibertsitatean. Herria

Orduan jakin zuen **portugaletetarra** zela Rafa, herriko organujole famatuaren semea. Josu Landa

Hirugarren kaletik atera ziren santurtziarrak, eta azkenekotik **portugaletetarrak**. Berria - Kirola

## portuges 1 izlag

 Portugalekoa, Portugali dagokiona. ik **portugaldar**.

Hona zer dioen Barbosa **portuges** kanonista aipatuak: [...]. Piarres Xarriton

Fernando Pessoa **portuges** poetaren eta Bernardo Atxagaren bi poema. Herria

Euskal Herria luzaz zeharkatu du **portuges** kazetariak, herri hunen gora-beherak hurbilagotik senditzeko eta konprenitzeko. Herria

1961eko urtarrilaren 22an Santa Maria **portuges** transatlantikoa bahitu zuten 24 ekintzaile antifaxistek, Venezuelako La Guaira portuan. Berria - Kultura

Badira **portuges** arno batzu biziki onak! Menane Oxandabaratx

Maio, Victor Silva Vieira margolari **portuges**a atzo hil zen. Berria - Kultura

Matheus (1894-1931) abiadore **portuges**a zen. Unai Elorriaga

Emakume **portuges** guztiek hartzen dute ipurditik [...] baginaren birjintasun santuari eusteagatik, hemen bezala. Karlos Zabala

Parisen kokaturiko ipuin horretan, literatura **portugesak** leku handia hartzen du. Berria - Kultura

## • 2 iz Portugaleko herritarra.

Indiako lehenengo kolonialistak **portugesak** izan ziren. Gotzon Garate

Garai hartan, **Portugesek** Afrikaren itzuli osoa egiten zuten, gaurko Indonesiako Moluques izeneko ugarteetara joateko. Ramuntxo Etxeberri

**Portuges** bat etorri zait burura, Nuno, **portuges** bat eder-ederra, harekin ibili nintzen bolada batean. Karlos Zabala

Emakumeak begiko zuen **portuges**a, baina ez zegoen inolaz ere senarra traizionatzeko prest. Martin Anso

**Portugesak** bi neska gobernatzaren omen zituen *Petit Maison* txaletean. Joseba Sarrionandia

Izan da koadrila bat, **portugesak** ematen zuten, baina karuegia iruditu zaie. Josu Landa

## 3 Portugalen, Brasilen eta portugaldarren kolonia ohietan hitz egiten den hizkuntza.

Umetan, errusiera ikasi nuen **portuges**a baino lehen. Unai Elorriaga

Idazle handia eta kristau zintzoa izan zela esan zuen, titulu bat baino gehiago omen zeukan itzulirik **portugesera**. Koldo Izagirre

Lehen batean **portugesez** eta gero espainolez agertu ondoan, frantsesez da gaur agertzen bere liburua. Herria

Sexuaz hitz egiten hasi eta, **portugesez** behinik behin, taberna-zulotik atera berri den andre lotsagaldua ematen duzu. Karlos Zabala

Paulok **portugesez** eta nik gazteleraz jardun dugu. Edorta Jimenez

**Portuges** zaharrear jatorrizkoan. Jon Alonso

**Portugesezko** hiztegia hartu zuen orduan. Unai Elorriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**langile portuges** (3); **portuges bat** (8)

**portugesezko hiztegia** (7); **portugesezko hiztegiarekin** (3)

## portulano iz portuen eta kostaldeen plano edo plano bilduma.

Erdi Aroko eskuizkribu irudiz apaindu gehien-gehienetan aurkitzen da, adibidez; berdin dio Eneidako irudiak diren ala Ebanjelioak, botanikazko irudiak diren ala **portulanoak**. Josu Zabaleta

## portunatu ik fortunatu.

## porturatu, portura(tu), porturatzen da/du ad portura heldu; portura eraman.

Hemen **porturatu** ziren urez hornitzeko eta nabigazioak sortzen dituen nekeetatik eta ekaizen nahigabeetatik atsedean hartzeko. Jon Alonso

Itsas armada amerikanoaren itsasontziak **porturatu** orduko, emakume-jendea itsasertzera biltzen zen saltoka. Karlos Zabala

Lehenengo sarreratik **porturatu** ziren, bagoietako biak gainez egindako kanale estuak ziren autoaren argi ahuletan. Koldo Izagirre

Non arraio **porturatu** behar gaituzte? iragan ostegunean Italiako Lampedusa uhartetik gertu ikusi eta nora ezean zihoan ontzia atzo **porturatu** zuten. Lopez de Arana

Haren esanetan, herenegun itsasoratu ziren hiru ontzien artean 400 kaxa sardina baino ez zituzten **porturatu** atzo. Berria - Ekonomia

Hango kostaldean hiru egun nora ezean zebiltzan bi ontzitatik 75 etorkin bizirik **porturatzea** lortu zuten salbamendu taldeek. Berria - Mundua

La Habanan hiru aste generamatzala, zazpi galeoi dotore haiek **porturatu** zitzaizkigun, baita haien babesean zetozen hogeit bat zamauntzi ere, guztiak Cartagena de Indiatik zetozenak. Joan Mari Irigoien

Almeidak, saminaren saminez, gorpua **porturatu** eta mediku bati baltsamatzeko eskatu zion. Martin Anso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**porturatu zen** (3)

## porturatze iz portura heltzea; portura eramatea.

Ahaztu barik, jakina, askotan alferrik direla aurreikuspen guztiak, ez delako astirik izaten erabakia tentuz hartu eta **porturatzea** ganoraz egiteko. Berria - Euskal Herria

## porturatzeke adlag porturatu gabe.

Bitartean, Evorak **porturatzeke** jarraitzen zuen eta, gainera, bolada batean berdin jarraitzeko itxura osoa zuen. Xabier Montoia

## portutxo iz portu txikia.

Irkutskera bidali zituzten negualdia **portutxoan** igarotzen zuten ontziak oro, eta, eraman ahal guztia harturik, garaiz babestu ziren ekialdeko Siberiaren hiriburuan. Karlos Zabala

Handik urrun ez den Elantxobeko **portutxoraino** egin da itsasontzi prozesioa. Herria

**Portutxo** lainoztatutik urrunxeago, ur bazterrari jarraikiz, bateliku huts geldien itzalak zimurtzen dira emeki. Aurelia Arkotxa

## portxe iz atari arkupeduna.

Elizaren aurrealdean **portxe** sendo bat zegoen, non garai batean bezeroak eserita egon ohi ziren, eta umek barre egiten zioten burua barandan katigatuta geratu zitzaion mutilari. Anton Garikano

Hiru solairuko etxe zuri bat da; hamasei logela ditu, eta, etxe aurrean, **portxe** estali bat. Oskar Arana

Jertseak jantzita dauzkagula, atariko **portxera** atera eta begiratu bat ematen diogu soropil heze ihintzez estaliari. Oskar Arana

Altxa eta **portxearen** alde batetik bestera ibiltzen hasi nintzen. **Bernardo Atxaga**  
Ordurako altxatuta gaude Tom eta biok lorategi-aulkietatik, eta **portxean** gaude eserita, politikaz hitz egiten. **Oskar Arana**  
Gero, xanpaina hoztu bitartean, **portxean** eseri eta langile mexikarrak zaldiekin egiten ari ziren lanari begira egon ginen. **Bernardo Atxaga**  
Mary Annek zigarrora itzali zuen lurrean utzita zeukan hautsontzian, eta **portxeko** apal batean begiratzen hasi zen. **Bernardo Atxaga**  
Horiek hartuta joan zen **portxeko** eskaileretara, eta eseri zen bertan. **Anton Garikano**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**portxean eseri** (6); **portxean eserita** (4)  
**portxeko argia** (3); **portxeko eskaileretan** (4)  
**portxera atera** (3)

## portxedun *izond* portxea duena.

Etxe gehienak unifamiarrak eta **portxedunak** ziren, eta aldiari-aldiari gurutzatzen genituen belardietan zaldiak eta behiak zebiltzan larrean, nik inoiz ikusitako behirik txurienak. **Bernardo Atxaga**

## portzelana 1 *iz* gai zeharrargia, irazgaitza, buztingintza finean erabiltzen dena. *iktoska*.

Haritza, **portzelana**, Finlandiako kristala. **Iban Zaldua**  
Garai batean, 50 langiletaraino ari zen hor lanean, inguruko harrobi zonbeiten harri xuria tratatuz, **portzelana** egiteko. **Herria**  
Urteek aurrera egin ahala, galdarak, bainuontziak eta komunerako **portzelana** ekoizten hasi ziren. **Berria - Ekonomia**  
Ylo Valdmaak **portzelana** erosi eta saltzeko lantegi propioa du. **Berria - Mundua**  
**Portzelanaren** kontrako ur beroaren zarata dutxatik heltzen da gelaraino. **Sonia Gonzalez**  
Odol xirripa bat isuri zitzaion ipurtxuntxurretik isatseraino, eta, tantaz tanta, **portzelanaren** zurbiltasuna zikindu zuen. **Karlos Zabala**  
Argizari eta **portzelanaz** egina ematen zuen, orduko modelo guzti-guztiak bezala, bidenabar esan. **Matías Múgica**  
Beroa eta pontxea zerbitzatzeko **portzelanazko** teontziak zeuden lotan, gas sutegiaren gainean. **Karlos Zabala**  
Ura sentitu zen borborka leiho ondoko **portzelanazko** bi berogailuetan. **Anjel Lertxundi**

### 2 (izenondoekin)

**Portzelana** esmaltatzeko kapsula bat aurkitu nuen. **Juan Garzia**  
Hotzak egoten zen; horregatik agindu zuen beti piztuta egon zedila **portzelana** zurizko suontzi biribila. **Xabier Olarra**  
**Portzelana** frantsesezko platerak jarri al dituzu? **Xabier Olarra**  
**Portzelana** txinatarrak katakume basati bat, oldartzeko zorian beti, **portzelana** txinatarrak sagu potolo eta babesgabe baten gainera. **Mirentxu Larrañaga**  
Neville te-kikarak zeuden apalera iritsi orduko, **portzelana** apurtuaren tintin-hotza entzun zen. **Iñaki Mendiguren**  
Txalupariak entzuten ditut urrunean kantari, eta ez naiz konturatzen **portzelana** lozazkoa dela eta zilarra eztaizuzkoa. **Koldo Izagirre**  
Lau baxera sorta erosi ditut **portzelanarik** hobereenekoak eta kristaleria ugari. **Ramon Etxezarreta**  
Jenerala jaiki, eta suontzi biribil **portzelanazkoaren** ondoan gelditu zen. **Xabier Olarra**  
Aralga eta altua zen, sotana beltza oinetako beltzetatik samaraino, **portzelanazkoa** ematen zuen samako zuria, ezpain fin finak. **Joseba Sarrionandia**

### 3 (erkaketetan)

Haien begitarreak, baita indargeenak ere, **portzelanak** bezain aratzak ziren. **Monika Etxebarria**

### 4 portzelanazko gauzakia.

**Portzelana** horietako batzuk eskegita daude, grabazioak balira bezala. **Berria - Kultura**  
Oihal zuri bat zabaldu zuen mahai gainean, eta, **portzelana** aterata, bost lagunentzako labanak eta katiluak jarri zituen. **Koro Navarro**  
Kariolio eolikoak, ispiluak, bionboak, **portzelanak**, buda zorionsuak, koloretako arrainak... **Patxi Iturritegi**  
Armairu bat ere bazegoen [...] zilarrezko ontzi zaharrez, pegartox eta Txinako **portzelanez** bete. **Jose Morales**  
Bere etxean utzi behar izan zituen **portzelana** ederrez eta aulki dotoreez. **Josu Zabaleta**  
Hantxe zenbait mahai handi prestatuta zeuden, era ikusgarriaz homiturik eta **portzelana** balioez eta urrezko baxeraz oparo-oparo beterik. **Karlos Zabala**  
Gorputza Sevresko **portzelana** baten antzera gardenki distirarazten dion zuritasun sutsu berezi hori. **Jose Morales**  
Beira-arasetan, egongelako mahai nagusian eta osagarrietan, boli eta **portzelana** franko ikus zitekeen. **Migel Angel Mintegi**

### 5

-Itxaron apur bat -esan zuen **portzelana** -merkatarik batek-: platertxo bat ere emango dizut. **Julen Gabiria**  
Arma lantegiak, **portzelana** tailerrak, harrobiak... **Alberto Ladron Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**portzelana zurizko** (3)  
**portzelanazko irudi** (3); **portzelanazko kikara** (3)

## portzentaia ik portzentaje.

## portzentaje (104 agerraldi, 11 liburu eta 67 artikulutan; orobat portzentaia 112 agerraldi, 7 liburu eta 82 artikulutan, eta porzentaia g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiari portzentaje agertzen da) 1 iz ehuneko.

Bankuek jasotzen dituzten gordailuen ehuneko jakin bati erreserba gisa eutsi behar izaten diote beren kutxetan; **portzentaje** horri *kutxa-neurria* deritzo. **Iñaki Heras**  
Nagusiak **portzentajea** pittin bat altuagoa uzten zidan gainera. **Joxan Elozegi**  
Herrialde orotan, Barne Produktu Gordinak (BPG) gora egitea eta gorakada horren **portzentajea** funtsezko gaietako bat da politika ekonomikoan. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Guk oso **portzentaje** txikia ataraten dogu liburuen salmentatik. **Jon Arretxe**  
**Portzentaia** ere, txikia: ez da ehuneko hirura iristen. **Iñigo Aranbarri**  
Zenbakiak gehitu, kendu, **portzentaia** atera... **Berria - Kultura**  
Helduen artean, malariak hildakoen **portzentaia** %61,9tik %17ra jaistea lortu dute bost urtean. **Berria - Gaiak**  
**Portzentaiearen** partetik handiena, %1,19, enpresek egindako gastua da. **Berria - Ekonomia**  
Herrialdekako datuak kontuan hartuta, Nafarroak dauka **portzentajerik** handiena (%11,69). **Berria - Ekonomia**  
Ezezkoak **portzentaje** handiagoak lortu ditu herenegungo galdeketan: eroldaren %12,7 eta boto-emalleen %32,6. **Berria - Harian**

**Portzentaia**k oso kontsolagarri izan badaitezke ere, errealitate gordinak kaltetuaren edonortasuna erakusten zuen. **Bernardo Atxaga**

## 2 (hitz elkartuetan)

Bere kalkuluen arabera, ehunetik batekoa da barkamen **portzentajea** ; borroari ez asko ez gutxi iruditzen zaio. **Karlos Linazasoro**  
Ez die aurre egiten drogen gaineko lege gogorrei edo gizonezko afroamerikarren kartzelatze **portzentaje** handiei. **Berria - Mundua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**portzentaje txikia** (3)

**portzentaia handi batek** (4)

## portzierto *(orobat porzierto) lot*

**Portzierto** , dantzari fina, gure apaiza, eta neska ez ziren batere txarrak. **Joxean Sagatzizabal**

**Portzierto** , zer adierazi nahiko zuen neskatoak laguntza eskaini didanean? **Jon Arretxe**

**Portzierto** , ba al dakizue zer erantzun zion abadeak mutikoari? **Joxerra Garzia**

**Portzierto** : deskuiduan ez duk Juanito bizirik egongo? **Xabier Etxabe**

A, **portzierto** , *Consum*-eko txartela hirea zunan, nireak zero azpitik markatzen din; sosak hireak hituan, beraz. **Antton Olano**

Eztezu inor hil beharrik, eta **portzierto** , ni Ixabel Penelope bataiatu ninduten. **Joxean Sagatzizabal**

Homerok etengabe mesprezatzen zituen "egun endekatu hauetan bizi diren gizonak", eta agian horregatik jasan zioten eskean ibiltzea... txarrari ona bihurtzearen adibide nabarmena dena **portzierto** . **Xabier Olarra**

## poru ik poro.

## porzentaia ik portzentaje.

## porzierto ik portzierto.

## posabaso iz edontzi-azpikoa.

Mahai gainean zabaldurik zeuden **posabasoak** txukuntzeari ekin diozu. **Lourdes Oñederra**

Pentsamenduek ihes egiten dizute eta, **posabasoak** sailean tartekatzean, zure baitan amona ikusten duzute bateko urrean aritzeko kartak bertartekatzen. **Lourdes Oñederra**

## posada iz osatua.

Billie **posadan** sartzen da Juanitoren bila: "Etxeratzeko tenorea duk"... **Pablo Sastre**

## posatu, posa, posatzen du ad (argazki edo kideko baterako) paratu, jarri.

Bai, **posatzen** nagoela dirudi. **Anjel Lertxundi**

Argazkiak zituzten egunkariak ziren, eta haietan neska zeuden, **posatzen** , oso soineko bitxiak jantzita. **Fernando Rey**

Gainera, gorpuzkera bikaina dik madarikatuak; biluzik ikusi diat, eta, niretzat **posatu** nahiko balu, zerupearan... **Karlos Zabala**

Han zutik jarrita, atzean Obabako haran guztia zuela, argazki baterako **posatzen** ari zela ematen zuen. **Bernardo Atxaga**

-Nire erretraturako **posatzen** ari naiz -esan zuen emakumeak bere kopa kontrargitan altxatuz. **Lopez de Arana**

Erreportariak alkatea harrapatu zuten lehoinar-larruak jantzirik eta *Hiritarren Bertute* gisa **posatzen** . **Lopez de Arana**

Prusiarrak desesperazio hasperen bat egin du (artista alua, eruditua, beti **posatzen** esan nahi duenak bezala) eta zigarro bat piztu du. **Harkaitz Cano**

## posdata ik postdata.

## pose 1 iz posatze jarrera.

Bi lagun, zein baino zein gihartsuagoak, **pose** erotikoak egiten. **Patxi Iturritegi**

Saizarbitoriaren **posea** imitatzen ikusten zaitut, *El País*-eko argazki batean, astebeteko bizarra eta gaupasa aurpegiarekin. **Eider Rodriguez**

Bere azken argazkia -Angela aurrez eta hiru laurdenez, graziaz beteriko **pose** bat osatuz- albistegi guztietan pasatu dute dagoeneko. **Patxi Iturritegi**

Nik ez dakit mutil hark zinez esaten zizkigun gauza haiek, edo **pose** bat ote zen. **Joan Mari Irigoien**

Zer zerikusit ote zeukaten **pose** haiek guztiek berak bortxaketa zela susmatzen zuenarekin?... **Oskar Arana**

Bere itxura, bizimodu eta **poseetan** idazle bat izatera iritsi zen, baina inoiz ezer idatzi gabe. **Joxean Agirre**

## 2 irud/hed

Badakizue, poetaren **pose** terriblista... **Iñigo Aranbarri**

Kontalariak "garai hartan dena zen posible"ka ekitea, kasu, ez da **posea** bakarrik; bada hor beraren gainetik -beraren ezjakinean- dabilen jakituria puntu bat. **Iñaki Iñurrieta**

Baina -aitortu ezak- **posea** besterik ez duk, defentsa mekanismo bat, alegia, ikasleen aurrean sarri erakusten duan harrokeria. **Jokin Muñoz**

Nik so egiten nion begietara, eta azerizko ninietan dantzan ari zen argi maleziazkoari erreparatzea nahikoa zen jakiteko ongi ikasitako **posea** baizik ez zela. **Jon Alonso**

"Gexo" egote hori seinale bat da, iragarpen bat; "**posea**" esango genuke gaur gaizto jarrita. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 (hitz elkartuetan)

Nardagarriak iruditzen zaizkit beren maskarak, onberatasun **poseak** eta kausa handien aldeko beren aldarrikapenak. **Joxean Agirre**

# posesio 1 *izond* edukitzeko edo menderatzeko grina erakusten duena.

Ez nintzaion barregarri gelditu nahi, burges tiki **posesibo** baten gisara agertuz. [Aingeru Epaltza](#)

Gero, nagusitutakoan, ezkontza heterosexual, monogamiko, leial, **posesibo** eta ugalkorren bidean sartzeko. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

## 2 *noren* kasuari dagokiona.

«Nire orkestra da», dio (eta gero nire horrek ez duela zentzu **posesiborik** argitzen du). [Berria - Kultura](#)

*Makal* (ahula eta zuhaitza), *horma* (parea eta izotza), *arrantza* (arrainena eta astoarena), *arte* (ertia, zuhaitza, tartea, animaliak harrapatzeko tresna, amarrua, trebetasuna, denborazko postposizioa), *zuen* (**posesiboa** eta adizkia), eta abar. [Iñaki Arranz](#)

## posesio 1 *iz* jabetza, jabegoa.

Seme-alabak bere **posesio** direla uste duen Aita eroari esku artetik kendu behar zaio bere gauzarik preziatuena ere. [Joseba Zulaika](#)

Satanismoa eta **posesio** diabolikoak, Magia zuria/Magia beltza, Sorginkeria gaur eta abar. [Aingeru Epaltza](#)

Gertatzen da halako mendean-hartzerik, **posesio** edo desposesiorik, lobulu temporaleko epilepsia duten batzuegan, eta nabarmen onuragarri izaten da berentzat batzuetan (baina maizago txikitzaile edo desegile). [Xabier Olarra](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Zeren **posesio** unean bertan ere, maitaleen sugarra zalantzan eta noraezik fluktuatzen baita, lehenik eskuz ala begiz gozatu ez dakiela. [Xabier Amuriza](#)

## posfazio *iz* gibel-solasa.

Eta geratzen zaigu Magrisek, emaztea hil zitzaionean, liburuari idatzi zion batere sentimentalismorik gabeko -eta sentiberatasun aparteko- **posfazioa** ere. [Anjel Lertxundi](#)

## posibilismo *iz* zerbaiterako aukerak baliatzeko joera.

EAK independentzia du azken helburu, baina pausoz pauso, **posibilismotik** abiatuta egin nahi dugu aurrera. [Berria - Euskal Herria](#)

Ismail Hania moderatutzat jotzen dute eta hura lehen ministro aukeratzek **posibilismoaren** bidea ireki lezake agian. [Berria - Mundua](#)

Trimblek eskainitako **posibilismoa** baztertu izanak eta DUPen buruzagitzan lan Paisley bezalako gizona mantentzek [...], erantzun ezkorra iradokitzen dute epe motzean. [Berria - Harian](#)

**Posibilismoan** eta estrategia zatikatzaileetan egindako proposamenak dira biderik ez dutenak. [Berria - Euskal Herria](#)

EAJren pendulua, oraingoan, **posibilismoaren** aldean kokatu da (itunean alde positiboak biltzeko berebiziko ahalegina egin du). [Berria - Harian](#)

## posibilista *izond* posibilismoarena, posibilismoari dagokiona; posibilismoaren aldekoa.

Metxak pikutara bidaltzen du orobat euskal presoen kolektiboaren abokatu **posibilista**, pikutara pedagogia, tentua, kalkulua. [Markos Zapiain](#)

VI. biltzarrean gazte problematika identifikatzen, lehentasunak markatzen eta borroka **posibilistak** jorratzen hasi ginen. [Berria - Euskal Herria](#)

Historia zer den eta zer izan behar lukeen, politika **posibilistaren** miseriak eta traizioak, Latinoamerikako iraultzaren lilura ergel eta paternalista... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Hizkuntza normalizazioa bururaino eramateko, hezkuntza eredu **posibilistena** eraginkorra izango zela saldu ziguten. [Berria - Euskal Herria](#)

Dugun ordezkaritza kontuan izanik, mundu **posibilistan** jokatu behar dugu. [Berria - Euskal Herria](#)

## posibilitate 1 *iz* aukera.

Nire aburuz, egiatan gertatu ote zen, **posibilitate** gutxi dago. [Jon Alonso](#)

Milioiko **posibilitate** bakarra nuen lortzeko, baina lortu egin nuen: bonba tximiniatik behera amildu zen. [Koldo Izagirre](#)

**Posibilitate** asko daukazu onik ateratzeko. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Araututako moduak dira (eta neurri horretan deskribagarriak) diskurtsoaren **posibilitateak** lanean jartzeko. [Xabier Arregi](#)

Ihes egiteko **posibilitateak** kalkulatzen saiatu zara ahalik lasterren. [Rafa Egiguren](#)

Sinesten al didak azken berrogeita bat urte honetan pauso ulertezin hori argi dezaket **posibilitate** guztiak banan bana bilatu eta aztertu ditudala? [Xabier Olarra](#)

Oraindik ez da benetako **posibilitaterik** bihotz artifizial bat oso-osorik gorputzean inplantatzeko, ezta esperimendu-animalietan ere. [Irene Aldasoro](#)

Gauza ederra litzateke giltzurrun naturalaren tamaina bertsuko baliokide artifiziala izatea, baina gaur egungo tekniken irispidetik oso urrun geratzen da **posibilitate** hori. [Irene Aldasoro](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Kanpoko birfinantzaketa- **posibilitateek** bakarrik mugatzen dute kredituaren eskaintza. [Koro Navarro](#)

## 3 gerta daitekeen gauza.

Aipatzekoa da, bide batez, ideia honen eta zineman [...] eremuz kanpokoaren **posibilitatea** gertagarri egiten duen uste analogoaren artean dagoen antz harrigarria. [Josu Zabaleta](#)

Beste **posibilitate** bat -gertagarriagoa- Virgilen etengabeko hipoxiari lotua zen: urtebetean odola behar bezala oxigenatu ezari, alegia. [Xabier Olarra](#)

Nahiz egunero ez den norbait lintxatzen, lintxamendua, sinbolikoa edo erreala, hortxe dago beti, lozorron, egiazko **posibilitate** bezala. [Bernardo Atxaga](#)

**Posibilitate** bat besterik ez zuan. [Iban Zaldua](#)

**Posibilitate** metafisikoak ez lirateke eztabaidatu behar. [Joxe Azurmendi](#)

Baina buruan erabili nituen hamaika **posibilitateen** artean bat ahaztu zitzaidan, eta huraxe gertatu behar: [...]. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## 3 gertagarritasuna.

Beste ikuspegi bat, matematikak ematen ziona: zoriari aplikatutako matematikak konbinazioen **posibilitate** finituak zehatz zitzakeen, eta formula matematiko batean eman.

[Iñaki Iñurrieta](#)

Epistemologia horren helburua ezagutza (zientifikoaren) **posibilitate** -baldintzak aztertzea zen. [Askoren artean](#)

Aprioriko ezagutzaren edo metafisika razionalistaren **posibilitatea**, ideien sortzetiko izaeren mende dago. [Askoren artean](#)

## 4 *p/* ahalbideak.

Larrua euskara desberdinetan jotzeko ahalbideez-eta, euskal kamasutra linguistiko-espirtualaren **posibilitateez**. [Iñaki Iñurrieta](#)

Ahalmenei, **posibilitateei** dagokienez aurrera egitea eskatzen du. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**posibilitate** asko (4); **posibilitate** bakarra (3); **posibilitate** guztiak (5); **posibilitate** guztien (3)

**egiteko posibilitatea** (4); **lortzeko posibilitatea** (3)

**posibilitateen artean** (3)



## posible 1 *izond* litekeena, daitekeena; gertagarria.

**Posiblea**, existi daitekeena edo existi ez daitekeena da eta izatea ez-izatea bezain ongi dagokiona. **Xabier Kintana**

Nire aldetik, ez bakarrik **posible**, aldiz, probablea ere badela esango nuke [...] berak ezagutzen zuen edo bera ezagutzen zuen pertsona bat bera ere topatu gabe ibil zitekeela Marie. **Koro Navarro**

Leibniz-ek dio ezen, mundua egiteko, **posibleen** artean hoberena hautatu duela Jainkoak. **Juan Garzia**

Garbi dago, hortaz, beharrezkoa, **posiblea** eta ezinezkoa bereizteko badela beste zerbait, irudimena ez dena. **Xabier Kintana**

## 2 (izen baten eskuinean)

Hori ondorio **posible** eta ezinezkoetaraino eraman nuen. **Karlos Zabala**

Mundu **posibleak**, kopuruz eta tamainaz ere infinituak izan daitezkeenak. **Xabier Amuriza**

Une honetako mundua ez da mundu **posible** guztien artean beste bat baizik. **Askoren artean**

Hiru modu **posibleak** gustatzen zaizkit: emakume bat eta bi emakume, emakume bat, gizon bat eta beste emakume bat, emakume bat eta bi gizon. **Karlos Zabala**

Biografoak, maila apalagoko dibinitate baten gisa, badaki hautatzen, giza aukera **posibleen** artean, berdinek ez duen hori. **Juan Garzia**

Ekintzen aurrean har zitzakeen neurri **posibleei** buruz hitz egiten. **Iban Zaldua**

Askotan garapen-prozesuak berak murriztapenak jarriko dizkio eboluzio **posibleari**. **Askoren artean**

Kontzeptu honen helburua organo edo gauza baten funtzioa zein den azaltzea da, organo edo gauza horren beste funtzio **posibleak**, baina akzidentalak, baztertuz.

**Askoren artean**

Horrek berekin dakar, gertakari iraganen irudiak gordetzeko gaitasuna ez ezik, gertakari **posibleak** irudikatze eta, horrenbesterekin, etorkizuna asmatzekoa ere. **Juan Garzia**

Konboia Caradacheko tratamendu lantegira eramateko lau ibilbide **posibleetako** batean agertzen da Begles. **Berria - Gaiak**

## 3 *posible izansup\_1* da *ad* litekeena izan; ahal izan.

Mistika **posible da**, baina hori ezin gerta daiteke heriotzako orduan besterik. **Xabier Kintana**

Esan behar zaie teknikoki edo ekonomikoki **posible dena** batzuetan ez **dela** sozialki edo politikoki **posible** ez desiragarria ere. **Iñaki Heras**

**Posible da**, baina ez da erraza. **Karlos Zabala**

Nola **da posible**, hortaz, izatearen zientzia? **Askoren artean**

Halakorik gabe ez **litzateke posible** sormena. **Iñaki Iñurrieta**

**Posible bada**, noski. **Iban Zaldua**

Ez zen **posible izan**. **Iban Zaldua**

Komeni da, nik uste, paradoxak beste baterako utzi eta, errealistak izanik, **posible dena** eskatzea. **Bernardo Atxaga**

Frogatuko zen **posible zela** txertoak asmatzea. **Juan Garzia**

Logika horientzat onartu ditugun hainbat gauza aldatuz **posible litzateke** beste logika batzuk definitzea. **Askoren artean**

Horra berriro nola ingeniariatza genetikoaren jaiotza, hura **posible izateko** baldintza bera, guztiz modu ezin aurreikusizkoan etorri zen. **Juan Garzia**

Algara isilean zebiltzan biak, halakorik **posible bada** behintzat. **Harkaitz Cano**

Ez **da posible**, fisikoki ez **da posible** hara itzultzea... **Lourdes Oñederra**

**Posible bada**, kafesne eder batekin hasi behar da eguna, eta ondoren kaka pilo eder bat. **Unai Iturriaga**

Behar genuela poetaren konbertsioa aztertu, ikertuz, **posible bazen**, poesiaren eta fedearren arteko lotura edo bederen harreman iragankor misterioitsuak. **Piarres Aintziart**

-Nola **izan da posible** ezin argutu izana? **Txillardeggi**

-Kontrolari eusteko, oso **posiblea** da *zaitu eta agindu* printzipio inperiala ezartzea, gerra zibila eragiteko arriskua egon arren. **Berria - Harian**

## 4 *posible izansup\_2* du *ad* litekeena izan.

Hark proposatu egun eta orduan, ni ez libre, eta nik **posible nuelarik**, hark ezin. **Daniel Landart**

Berak ere gizarte horretan "karrera egin" nahi baleza, **posible du** egitea, bai. gaur egun gorrek ere **posible dutela** Interneten ibiltzea. **Joxe Azurmendi**

-**Posible bazenu** baxuago berba egin... **Josu Landa**

Mende erdiaren buruan aitortu zidanean, ez **nuen posible izan** hura sinestea. **Aingeru Epaltza**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akordioa posible da (3); aldaketa posible (5); alternatiba posible (3); aukera posible (3); azalpen posible (3); bakea posible dela (3); bide posible (6); bide posible bakarra (3); bizitzea posible (7); bizitzea posible dela (6)

ea posible den (8); ebazpena posible den (3); egitea posible balitz (3); egitea posible da (3); egitea posible dela (5); egitea posible izango (5); egoera posible (3); elkarlana posible (3); elkarrizketa posible (4); ematea posible (5); erakitzea posible (5); eramatea posible (5); esker posible (3); etorkizun posible (3); ez baita posible (11); ez baitzen posible (4); ez da posible (180); ez dela posible (31); ez duk posible (24); ez dun posible (4); ez litzateke posible (8); ez zela posible (21); ez zen posible (55); ezagutza posible (3); gai posible (3)

irabaztea posible (5); iristea posible (3); irtenbide posible (5); jokoa posible izango (3); konbinazio posible (6); konbinazio posible guztiak (3); lortzea posible da (7); lortzea posible dela (8); modu posible (4); mundu posible (15); mundu posible orotan (3); nola da posible (59); nola den posible (13); nola zen posible (7)

ondorio posible (5); oraindik posible dela (3); oso posible da (3); oso posible dela (3)

posible bada (21); posible baita (9); posible baldin bada (5); posible balitz (31); posible balitz bezala (3); posible bihurtu (3); posible bilakatu (4); posible da (229); posible dela adierazi (8); posible dela dio (5); posible dela erakusteko (4); posible dela erakusten (10); posible dela erakutsi (7); posible dela esan (9); posible dela iritzi (4); posible dela sinesten (3); posible dela uste (14); posible den kasuan (3); posible dena (9); posible denaren (4); posible denari (3); posible denik (7); posible dira (9); posible direla (8); posible diren (3); posible du (3)

; posible egin (25); posible egin zuen (4); posible egingo (14); posible egingo duen (6); posible egiteko (12); posible egiten (26); posible egiten duten (4); posible eta beharrezkoa (5); posible ez bada (8); posible ikusten du (8); posible ikusten duzu (7); posible iruditzen (3); posible izan (88); posible izan da (7); posible izan dadin (13); posible izanen (13); posible izanen da (5); posible izango (107); posible izango da (29); posible izango dela (10); posible izango den (5); posible izango zela (5); posible izatea (8); posible izateko (9); posible izaten (3); posible litzateke (23); posible ote da (23); posible ote den (5); posible ote zen (22); posible zaion (3); posible zela (51); posible zen (66); sortzea posible (4)

teknikoki posible (7); tortura posible izan (3)

uztarteza posible (3); zelan da posible (4)

## posibletasun *iz* posibilitatea.

**Posibletasun** hori baliatu du biografoak: kontatu berri duen pasadizoa sinesgarri eta zilegia da, ez soilik bidaiaren kontakizunari kolorea emateko, ez soilik egia delako Garibaik ezagutzen zuela Calvinoren doktrina. **Anjel Lertxundi**

## positibatu, positiba(tu), positibatzen du *ad* argazkiez mintzatuz, positiboa atera.

Argazki batzuk **positibatu** berri ditut. **Iñaki Zabaleta**

Bere argazkilari lana, berriz, nahiko ezezaguna da, besteak beste, egin zituen argazkietako asko [...] **positibatu** gabe zeudelako orain dela gutxi arte. **Berria - Kultura**

Pixkanaka, orotariko horretatik marrazki bat ezari-ezarian agertzen hasiko balitz bezala, nola argazkia **positibatzean**: paper gainean ez dago ezer, eta errebelatzeko likidoan

## positibismo *iz* esperientzian oinarrituriko zientzia eta ezagupena baino onartzen ez duen teoria filosofikoa.

Idealismoa amets eta elizkeriekin identifikatzen da, [positibismoa](#) zientzia eta progresoarekin. [Joxe Azurmendi](#)

Izan bat, intuizioak bakarrik atzeman ahal izateko modukoa [...], hots, ente ahistoriko, metafisiko bat azkenean, [positibismo](#) txarretan maiz bezala. [Joxe Azurmendi](#)

[Positibismoak](#) sortarazi duen hizkuntza doktrina multzo antolatuetatik onena. [Isabel Arrigain](#)

Manifestu artistiko bat ikusten zuen horretan, artearen [positibismoa](#), arte modernoa, erabat esperimentalta eta erabat materialista. [Karlos Zabala](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

[positibismo logikoa](#) (4)

## positibista *1 ond* positibismoari dagokiona; positibismoaren aldekoa.

Izaera soziologikoa duten ikasketa horiek ez zuten funtsean zalantzan jarri zientzia-jarduera ulertzeko zientziaren filosofia [positibistak](#) utzitako ikuspegi estu hau. [Askoren artean](#)

Historizismo enpirikoak, [positibistak](#), historia desmetafisikotik guraz (Izpiritu unibertsal hegeldarra baztertuz), herrien izpirituak metafisikotik ditu. [Joxe Azurmendi](#)

Zeren eskola edo doktrina [positibistatik](#) sortu baita, izan ere, obra hau. [Isabel Arrigain](#)

Ez da konbentzionala teoria [positibisten](#) zentzuan, ez baitu gauzen deskripzio osoa eta erabatekoa bilatzen; alegia, ez du sortu (generatu) nahi fonologikoki posible diren fonologia guztien bilduma. [Lourdes Oñederra](#)

Helburua da garapenak sortutako optimismoaren kontra joatea, diskurtso [positibistaren](#) alde ahulak nabarmentzea. [Berria - Harian](#)

### 2 *iz*

[Positibistak](#) orain, filosofoak lehenago erlijioaz bezala, filosofoez burlatzen dira. [Joxe Azurmendi](#)

[Positibistek](#) eta materialistek bilakabide historikoaren interpretazioa antropologia biologista hutsarekin egin nahi dute (historiaren filosofiarik gabe). [Joxe Azurmendi](#)

Termino batek esanahia izan dezan eta termino hori zientzian erabilgarria izan dadin intersubjektiboki egiaztagarria izan behar du [positibisten](#) ustez. [Askoren artean](#)

[Positibista](#) Logikoek psikologia egiteko modu "introspektiboa" gogor kritikatu zuten, haien ustez publikoki (intersubjektiboki) kontrastagarriak ez diren terminoek ez baitute inolako esanahirik. [Askoren artean](#)

## positibitate *iz* positiboa denaren nolakotasuna.

Kausa hori gabetze oro baino askozaz goragokoa dela eta oso goitik urrundua negatibitate eta [positibitate](#) orotatik [Joan Mari Lekuona](#)

## positibizatu, positiba(tu) positibizatzen du *ad* izaera positiboa eman.

Bestetik, nazio ikuspegiaren planteamenduak [positibizatu](#) egin ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

## positibo *1 izond* esperientzian soilik oinarritzen dena, hari baino ez dagokiona.

Analitika transzendentalaren pentsatzearen forma hutsen teoria [positiboa](#) da, hau da, egiazkoak ez ezik, egiazko ezagutza ororen baldintzak ere badiren formen teoria. [Ibon Uribarri](#)

Nonbait arrazoimen hutsaren lurraldean kokatzen diren ezagutza [positiboan](#) iturri batek egon behar du. [Ibon Uribarri](#)

Adimena ezagutza [positiboaren](#) ahalmena da (utilitatearena), arrazoimena espekulazioarena (egiaarena). [Askoren artean](#)

Autore horiek bereizten dituzte, alde batetik, ekonomia normatiboa -balio-iritziak, zerbaite on edo txarra den eta gisako egiaztapenak jasotzen dituen- eta, bestetik, ekonomia [positiboa](#) -egitateen bidez egiaztatu daitezkeen baieztapen egiazko ala gezurrezkoak jasotzen dituen-. [Iñaki Heras](#)

Izpiritu argitu eta [positiboentzat](#), metafisika "ilargi zahar bat" [...] besterik ez da. [Piarres Aintziart](#)

### 2 onuragarri dena, kaltegarria edo negatiboa ez dena.

Globalizazio prozesuaren handitasunari buruz baino prozesuak sor ditzakeen ondorio [positibo](#) edo negatiboei buruzko eztabaida hau, are da sakonagoa. [Iñaki Heras](#)

Egitasmoan «alde [positiboak](#) eta negatiboak» ikusten dituztela esan dio berriari Marti Gasull Hizkuntzaren Aldeko Plataformako buruak. [Berria - Mundua](#)

Gizon eta andrekoak gizarte animaliak garena, animalia politikoak, eta ez dagoela gizartearen eragin [positibo](#) zein negatiborik gabeko indibidualtasunik. [Bernardo Atxaga](#)

[Positiboa](#) da Giza Eskubideak publikoki eta legalki onartuak egotea, kontzientzi gradu baten aitortza eta espresioa baita. [Joxe Azurmendi](#)

Kritikaren zerbitzu honi bere onura [positiboa](#) ukatzea poliziak balio [positiborik](#) ez duela baieztatzea adina litzateke. [Ibon Uribarri](#)

Gauza batzuen egitera determinatzen duen edozein gauza, nahitaez zerbaite [positibo](#) da (berez nabari den bezala). [Piarres Xarriton](#)

XIX. mendeko nazionalismoak [...] bazuen zentzu [positibo](#) bat, baina nazismoaren ondoren hasi zen nazionalismoaren zentzu [positibo](#) hori galtzen. [Berria - Mundua](#)

Globalizazioaren kritikoentzat prozesua ez da inondik inora horren [positiboa](#). [Iñaki Heras](#)

### 3 baiezkotan edo baietan oinarritzen dena; aldekoa.

Froga [positiboa](#) eskatzen zuen, froga negatiboa aski zelarik. [Iñaki Iñurrieta](#)

Biak ala biak dira tragedian diren pertsonaia [positibo](#) bakarrak. [Berria - Kultura](#)

Ijitoak ere salbatzen dituk orduan hire diskriminazio [positibo](#) horretan. [Harkaitz Cano](#)

Hemen Kawabata hasierako asmo berritzaileen eta tradizioaren balioespen [positibo](#) berri baten artean dabil. [Ibon Uribarri](#)

Hala ere, hau era [positiboan](#) erabil daiteke, h[au] d[a], faltsutasuna eta errakuntza (hau kontraesanean funtsetan den heinean) baztertzeko ez ezik, egia berrezagutzeko ere bai. [Ibon Uribarri](#)

Estatutu Proposamenak irekitako eztabaidan «era [positibo](#) eta eraikitzaileen» ekarpena egiteko borondatea adierazten du. [Berria - Ekonomia](#)

Faktore negatibo batek garrantzi handiagoa izan dezake sailkapenerako faktore [positibo](#) batek baino. [Isabel Arrigain](#)

Eugenesia negatibo, kentzezko horren beste aldean, berriz, eugenesia [positibo](#), hautespeneko dugu, haurrik gogobetekoak izateko ahaleginean oinarritua. [Juan Garzia](#)

Esan nahi du jarrera [positibo](#) eta aktiboa izatea; egoera berean dauden beste pertsona batzuekin batera lan egitea. [Luis Elberdin](#)

Etorkinek euskararen inguruko jarrera [positibo](#) edo neutroa dutela. [Berria - Euskal Herria](#)

### 4 noranzko egokian egiten dena.

Hori urrats [positibo](#) bat izango litzateke bakeari begira. [Berria - Euskal Herria](#)

IRAK «urrats [positiboak](#)» egin dituela diote bi gobernuak. [Berria - Mundua](#)

DUPk Stormonteko legebiltzarrean duen taldeko goizean eginiko bilkuran ahobateko erreakzio [positiboa](#) izan du alderdiko buruak negoziazioez emandako azalpenen aurrean. [Berria - Mundua](#)

## 5 baikorra; alde onei txarrei baino gehiago begiratzen diena.

Galdu arren, hobe da **positibo** izatea. **Beria - Kirola**

Gaur ere **positibo** izateko eta esperantza ez galtzeko esan diot. **Joseba Sarrionandia**

Atzoko dataren haritik, mezu **positibo** eman nahi izan zuen NBERen Nekazaritza eta Elikadurarentzako Agentziak (FAO). **Beria - Gaiak**

Datuekin batera, mezu **positibo** ere egin dute publiko. **Beria - Gaiak**

Istoria **positiboak** kontatzeko hautua egin dut. **Beria - Kultura**

Analogia zer ez den azaldu ondoren, ikuspegi **positibotik** aztertzen badugu hori, [...]. **Isabel Arrigain**

Gaitzari aurrea hartzeko gakoa «bizieta intelektual eta sozial **positibo** izatea» dela dio. **Beria - Harian**

## 6 alde txar baino on gehiago dituena.

Pluralismoa, erakuntza denean bakarrik izan daiteke **positibo**. **Joxe Azurmendi**

Bilakaera **positibo** horretarako oztopo da, beraz, inbertsioaren jaitsiera, eta hori da, hain zuzen ere, atzo Chiracek iragarritako neurriak konpondu nahi duena. **Beria - Ekonomia**

Oro har, balantze **positibo** egin zuen hiru urte hauetaz. **Beria - Mundua**

## 7 kopuruz, zenbakiez edo kidekoz mintzatuz, zero baino handiagoa.

Zenbaki **positiboak** baizik ez ditu onartzen Al Khuarizmik, osoak nahiz zatikiak. **Jon Muñoz**

-Zenbaki osoak - **positiboak** eta negatiboak- aljebraikoak dira. **Jon Muñoz**

Ordu arte erabilitako zenbakiei, berriz, - **positiboak** eta negatiboak, arrazionalak eta irrazionalak - zenbaki erreal deitu zitzaizkien. **Jon Muñoz**

Zenbaki **positiboak** baizik ez ditu onartzen Al Khuarizmik, osoak nahiz zatikiak. **Jon Muñoz**

Zenbaki baten karratua **positibo** da beti, **positibo** zein negatibo izan zenbakia. **Jon Muñoz**

Herraldeak duen dibisa-premiak justifikatu dezake ekoizpen defizitario bat tokiko diruaz laguntzea, baldin dibisen balantza garbia **positibo** bada. **Koro Navarro**

PFEZaren 335.000 aitortzen espero dituzte Aldundiak, horietatik 75.000 **positiboak**. **Beria - Ekonomia**

Aurrezkiari buruzko itxaropena da konfiantza indizearen osagarrietan balio **positibo** dagoen bakarra, 3an. **Beria - Ekonomia**

Hamar behatza, bi belarri, hiru musu, berrogei puntu eta zazpi **positibo**. **Karlos Linazasoro**

## 8 elektrizitatean, protoietatik edo elektro urritasunetik datorrena.

Karga elektrikoak **positibo** eta negatibo gisa deskribatzen den bezala, quarkak gorriak, berdeak edo urdinak izan daitezkeela esan zuten. **Beria - Gaiak**

Haizea ionizatu egiten da, eta elementu **positiboak** eta negatiboak banatzen ditu. **Joseba Sarrionandia**

Sodio ioi bakoitzak karga **positibo** bat daramanez, berehalaxe desegiten da zelularen barruan dagoen karga negatiboa. **Irene Aldasoro**

Sodio ioiek karga **positibo** dute, eta, ioi multzo handi batek kapilarretarako bidea egin duenean, haien karga **positibo** metatuak karga negatiboa duten ioiak (kloroa, adibidez) erakartzeko gaitzaitik odolera. **Irene Aldasoro**

Tximista erakarri dezakeen indar **positibo**-negatiboen tupust egiten deneko hori ez baitu errazten lizarrak; lizarrak ez du antenarena egiten pago eta haritzek dagiten bezala. **Pello Zabala**

Giroa elektrikoak izango da, karga **positibo** eta negatiboz gainezka, argi psikodeliko eta itzelezko zaratarekin. **Joseba Sarrionandia**

## 9 erlijioaz, legeaz eta kidekoz mintzatuz, Jainkoak edo gizakiek ezarria, ez berezkoa edo naturala.

Horiek interes orokorreko gaiak eta erlijio **positibo** baten jarraitzaile guztientzat beharrezko baiespenak zirelakoan. **Xabier Kintana**

Jendeen arteko zuzenbide naturalak eta Jendeen arteko zuzenbide **positiboak** hitz egiten bada, xedea, beti-beti, hauxe da: [...]. **Andres Urrutia**

Legeen zatiketa lege jainkotiarretan eta giza legeetan; jainkotiarren naturalak eta **positiboak**; naturalak partikularren eta jendeen legeetan. **Esteban Antxustegi**

Hori da ezkontza, bere horretan eta ondorio naturaletan azalduta, lege **positibo** guztietatik aldendua. **Andres Urrutia**

Lege **positibo** guztiak baino lehenagokoa da, gure izatek bertatik datorkigu eta. **Andres Urrutia**

Ez dira definitzen inolako lege **positibo** jainkotiarren bitartez. **Esteban Antxustegi**

Profanazio handiagoko kasuan, sakrilegio deiturikoetan, legeria kriminalari buruzko gure bildumak [...] elizetan egindako lapurrez mintzatzen dira bakarrik, eta ez dute lege **positibo** bakar bat ere aldarrikatzen. **Juan Martin Elexpuru**

Iusnaturalismo eta zuzenbide **positiboaren** arteko harremanak buruzko galdera. **Askoren artean**

Lamasourere eta Poulouk euskararentzako lege proiektuaren xedea aurkeztuko dute **Eskubide positibo** bat sortu eskualdetako hizkuntzentzat lelopean. **Beria - Euskal Herria**

## 10 analisisiez eta kidekoz, bilatzen dena baieztatzen duena.

Testaren emaitza **positibo** atera dela? **Patxi Iturrirategi**

Haurdunaldi testetan gertatu ohi den moduan, testa egin eta 2-3 minutuan jakin daiteke **positibo** edo negatiboa den. **Beria - Gaiak**

Kontranalisan **positibo** eman zuen arren, oraindik ez diote Rodriguezi zigorrik jarri. **Beria - Harian**

Antisorgailu estrogenodunek **positibo** emango dute dopin kontroletan. **Beria - Euskal Herria**

Haurdun dagoela dio, proba bat egin dutela eta **positibo** eman diela. **Luis Elberdin**

Iruditzen zait sail honetan lan handia gelditzen zaidala egiteko eta, inon **positibo** ematekotan, hementxe ematen dudala. **Iñaki Segurola**

Izan ere, testetan hegazti denek ematen dute **positibo**. **Beria - Gaiak**

Nazioarteko Federazioak bi urterako zigortu du, klenbuterolarekin **positibo** emateagatik. **Beria - Kirola**

Kokaina **positibo** eman zuen jokalaritari eten egin diote kontratua. **Beria - Kirola**

## 11 adierazten dena badaukana.

Politikoki polita, berriz, mutikoa "euskaldun" edo "RH **positibo**" bihurtuta geratuko litzaidake, inguru jakin batzuetan behintzat, txistea. **Joxerra Garzia**

## 12 organoek mintzatuz, antzinako organo txikia, hauspoduna, uhal batez loturik bizkarrean eramaten zena. ikportatibo.

Nabarmendu behar ditugu etengabeko baxua osatzen zutenak: biolontxelo, kontrabaxua eta organo **positibo**. **Beria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**alde positibo** (4); **gauza positibo** (4); **gidariak positibo eman** (3); **ikuspuntu positibo** (3); **karga positibo** (3); **kokainarekin positibo emateagatik** (3); **lege positibo** (5); **positibo eman** (83); **positibo eman du** (7); **positibo eman dute** (5); **positibo eman duten** (4); **positibo eman ondoren** (3); **positibo eman zuela** (6); **positibo eman zuen** (23); **positibo emango** (4); **positibo emateagatik** (16); **positibo ematen** (8); **positibo ematen duen** (4); **positibo falsuak** (3); **positibo iriziti** (3); **proban positibo eman** (3); **probetan positibo emateagatik** (3); **urrats positibo** (6)

**akordio positibo** (3); **alde positibo** (4); **balantze positibo** (12); **balantze positibo** (8); **balantzea oso positibo** (3); **balantzea positibo** (4); **balorazio positibo** (23); **balorazio positibo egin** (13); **balorazio positibo egiten** (4); **balorazioa positibo** (3); **balorazioa positibo da** (3); **bazterketa positibo** (9); **bilakaera positibo** (7); **bilakaera positibo izan** (5); **bilera oso positibo** (3); **bilera positibo** (6); **bilera positibo izan** (4); **datu positibo** (3); **diskriminazio positibo** (12)

**ebalazio positibo** edukitzea (4); **ekarpen positibo** (4); **emaitza positibo** (7); **erabat positibo** (4); **eragin positibo** (18); **eragin positibo izan** (4); **eragin positibo izango** (3); **erantzun positibo emateko** (3); **eskumen gatazka positibo** (4); **esperientzia oso positibo** (3); **esperientzia positibo** (3); **garapen positibo** (3); **gatazka positibo** (4); **giro positibo** (3); **gutiz positibo** (5)

**irakurketa positibo** (10); **irakurketa positibo egin** (5); **irudi positibo** (3); **jarrera positibo** (16); **joera positibo** (5); **karga positibo** (4); **mezu positibo** (6)

**oso balorazio positibo** (3); **oso positibo** (45); **oso positibo da** (11); **oso positibo izan** (19)

**positibo atera** (3); **positibo eman** (19); **positibo eman nahi** (4); **positibo eman zuten** (5); **positibo ematea** (5); **positibo emateko** (6); **positibo eskatzen** (3); **positibo iruditzen** (3); **positibo izan** (65); **positibo izan da** (19); **positibo izan daiteke** (4); **positibo izan zela** (6); **positibo izan zen** (17); **positibo izango** (12); **positibo izatea** (4); **positibo zela esan** (6)

**urrats positibo** (3); **zerbait positibo** (4)

**alde positiboak** (7); **balio positiboak** (3); **ekarpen positiboak** (3); **ekintza positiboak** (4); **elementu positiboak** (3); **emaitza positiboak** (4); **emaitzak positiboak** (3);

**erantzun positiboak** (4); **gauza positiboak** (10); **lege positiboak** (3); **mezu positiboak** (4); **neurri positiboak** (3); **ondorio positiboak** (4); **oso positiboak** (5); **oso positiboak izan** (3); **positiboak eta negatiboak** (8); **positiboak izan** (14); **positiboak izan dira** (7); **urrats positiboak** (4); **zantzu positiboak** (3)

**alde positiboan** (3); **era positiboan** (3); **esanahi positiboan** (3); **modu positiboan** (4); **zentzu positiboan** (5)

**positiboaren kontranalisia** (3)

**ekintza positiborako** (3)

**oso positibotzat jo** (15); **positibotzat jo** (53); **positibotzat jo du** (9); **positibotzat jo zuen** (23); **positibotzat jo zuten** (6); **positibotzat jotzen** (7); **positibotzat jotzen dugu** (4)

## positiboki 1 *adlag* era positiboan.

Zuzenagoa da akzidentea substantzia baten izatea **positiboki** determinatua izateko moduaren bidez izendatzea. **Ibon Uribarri**

Jakintzat ematen da kontzeptu hauek bereizgarriak direla; ez daude **positiboki** definituak beren edukiaren arabera, baizik eta negatiboki, sistemaren beste terminoekiko erlazioengatik. **Isabel Arrigain**

Har bitza Espainia, Frantzia, Ingalaterrako histori testuak eskuan, eta esplikatu beza nola han **positiboki** azaldurik aurkituko dituen biolentzia loriatsu guztiek, ondorio gaiztoak bakarrik ekarri dituzten Espainia, Frantzia, Ingalaterrarentzat. **Joxe Azurmendi**

Alderdi politikoekin eginko bilera **positiboki** baloratu du Bilbaok eta aurrera begira hartu izateko konpromisoa hartu dute bi aldeek. **Berria - Euskal Herria**

Hainbat lekutan ikusi ahal izan dut neronek hori espreski, hau da, **positiboki** debekatuta! **Joxe Azurmendi**

Argitaletxeek momentu honetan daukaten politika **positiboki** diskriminatzailea dela esango zenuke? **Ana Urkiza**

Azterketa arkeologikoak, horien [zientzia eta jakitearen] artean bazterketa edo kenketa-harremena definitu beharrean [...] erakutsi behar du **positiboki** nola txertatzen den eta nola funtzionatzen duen zientzia batek jakitearen ingurumenean. **Xabier Arregi**

## 2 karga positiboarekin.

Nukleoak **positiboki** kargatuta zeudenez, aldaratu egiten ziren. **Fernando Morillo**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**positiboki baloratu** (8); **positiboki baloratzen** (3)

## positibotasun 1 *iz* positiboa denaren nolakotasuna.

*Volksgelista*, Ortega-rentzat, positiboa izan liteke [...] eta negatiboa izan liteke; baina hau, antza, alde batetik filosofia higituen liburuetako kontua omen delako (zer **positibotasun** aitortzeko orduan gaur?), edo *Volksgelista* jatorraren degenerazioa delako, nazionalismo eta kostunbrismo bihurtua. **Joxe Azurmendi**

Nahiz sistema idiosinkroniko baten barnean ezarritako bereizketek, funtsatzen diren balioekin **positibotasunagatik** ez, baizik sistema horren osotasunak negatiboki finkatuak edo mugatuak gertatzen direlako balio duten, halere, adierazlearen eta adieraziaren arteko elkarketa "egite positiboa da". **Isabel Arrigain**

Diskurtso baten **positibotasunak** -hala nola historia naturalarenak, ekonomia politikoarenak edo medikuntza klinikoarenak- bere batasuna ezaugarritzen du denboran zehar eta banakoen ekintzez, liburuaz eta testuez gaindi. **Xabier Arregi**

Ezartzen ahalegindu naizen **positibotasunak** ez dira ulertu behar gizabanakoen pentsamenduari kanpotik ezartzen zaizkion ebazpen-multzo bat bezala, ezta barrutik eta alde zurretik bertan bizi den ebazpen-multzo bat bezala ere; eurek gehiago osatzen dute baldintzen multzo bat, [...]. **Xabier Arregi**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontzeptu berriak definitzen dituzte edo existitzen direnen erabilpen-erlazioa aldatzen dute; baina diskurtsoaren **positibotasun**-sisteman ezer aldatu gabe. **Xabier Arregi**

Eraketa diskurtsibo bat aztertzea diskurtso baten **positibotasun** -mota definitzea da. **Xabier Arregi**

**Positibotasun** era honek [...] arlo bat definitzen dute, non beharbada heda daitezkeen identitate formalak, jarraitasun tematikoak, kontzeptuen traslazioak, joko polemikoak. **Xabier Arregi**

Bera [matematika] da zientzia bakarra behingoan iragan duena **positibotasun** atalasea, epistemologizazioarena, zientifikotasunarena eta formalizazioarena. **Xabier Arregi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**positibotasun mota** (3)

## posizino ik posizio.

## posizio (*orobat posizino g.er. eta posizione g.er.*) 1 *iz* egongunea, kokagunea.

Nire begiek taulako lauki guztiak aztertu zituzten, pieza bakoitzaren **posizioaren** berri emanez bat-batean pizturiko garunari. **Alberto Ladrón Arana**

Hegazkinean pantaila bat dago Amerikaren maparekin eta ikono mugikor batek seinaltzen du gure **posizioa**. **Joseba Sarrionandia**

Bilatzaile zen Slytheringo quidditch-taldean, eta Harryk **posizio** berean jokatzeko zuen Gryffindorreko taldean. **Iñaki Mendiguren**

Buruz ikasi nituen pieza eta pieza **posizioa**. **Unai Elorriaga**

Kameran, objektiboaren **posizioa** mugituz aldatzen da foku-luzera. **Irene Aldasoro**

Egosteko edo erretzeko [...] eduki 6 minutuz 850 wateko **posizioan**. **Edorta Agirre**

[Hizki] bereberak adierazten dute zerua, itsasoa, lehorra, ibaiak, eguzkia, uzta berak, zuhaitzak, animaliak; denak ez bada ere, gehien-gehienak antzekoak dira; hizkien **posizioan** dago aldea. **Xabier Amuriza**

Telegrafistak SOS bat igorri du gure **posizioa** emanez. **Koldo Izagirre**

Zibilizazio Iraniko musulmanak are sendoagoa zirudien **posizio** estrategikoa zeukan. **Iñaki Mendiguren**

Kotxea zegoen **posizioagatik**, bainuetxea gelditu zitzaizkan begipea atea zabaldu zidatenean. **Koldo Izagirre**

## 2 kokaera, kokatzeko modua.

Semaforoak **karrak** egin zuen eta argi berdea gorri bihurtu zen eta besoa **posizio** horizontalean jarri. **Fernando Rey**

Dantzaria erabat biluzik azalduko da **posizio** horizontalean. **Berria - Kultura**

Igerian ez dakiena urpera ez joateko ahaleginean hasten denean, besoak altxatzen ditu beti, eta burua bere ohiko **posizio** zutean edukitzen saiatuko da. **Koro Navarro**

Neskek lo jarraitzen zuten, baina bera joandako bitarte hartan **posizioz** aldatu ziren, orain biak baitzeuden suaren aldera. **Anton Garikano**

Horixe zen nik haientzat nahiago nuen **posizioa**, zakila bortxa handiagoz sartzen da. **Karlos Zabala**

**Posizio** antihigieniko horretan egon zen hagin-garbitzaileak alde egin zuen arte. **Unai Elorriaga**

Nire zerbitzu txanda zen, seinaleak bide librean emateko edo itxeko **posizioan** jartzen nituen. **Fernando Rey**

## 3 norbaiten lekua gizarte mailetan edo hierarkia jakin batean.

Zure **posizioak** hala eskatzen du... **Lopez de Arana**

Haren harrotasuna bestelakoa zuan, bere maila, jatorri, ondasun edo **posizioaz** edo bere izatearen edukiaz eta izaeraz harro diren pertsonenaren aldean. **Xabier Olarra**

Organizazio hartako sozio guztiak [...] Mariah bezain **posizio** onekoak ziren. **Pablo Sastre**

**Posizio** oneko jendea baina, hala ere, bizimodu latza dutenak. Edorta Jimenez  
Ezin zuen horrelakorik imajinatu gizartean **posizioa** eta begirune handia zuen halako gizon batengan. Bego Montorio  
Connor epaitegian duen **posizioaz** baliatu duk helburu politikoak lortzeko. Lopez de Arana  
-Zu nire **posizio** sozialarengatik ezkondu zinen nirekin, hori badakizu zuk. Lopez de Arana  
Printzeak oso **posizio** goratua eta oso itzal handia zuen. Matías Múgica

#### 4 gerretan, soldadu eta instalazioen kokalekua.

Polikarpov zaharrea egiten dute hegan gure herria suntsitu nahi duen etsaiaren **posizioak** metrailatzen. Koldo Izagirre  
Jakina baitzen Guadalajara aldean erasoaldi bortitza joa zutena [...] eta gure **posizioak** jausten zihoazena. Edorta Jimenez  
**Posizioa** galduz gero, akabo. Anjel Lertxundi  
Jomuga zuten **posizioa** menderatu ondoren. Edorta Jimenez  
Gudarostea, lubaki karlistei kanoiez eraso egin ondoren, aurrera zihoan, eta etsaia bere **posizioak** uzten ari zen. Koro Navarro  
Eguarte batean hartu zuten **posizioa**, eta ama besarkatzeko aukera izan omen zuen, baina atzera karlistak egin ziren auzuneko jabe. Inazio Mujika Iraola  
Nire soldaduek formatzea lortu orduko, zurek dagoeneko hartua dute **posizioa** gudazelaian haien zain. Pedro Alberdi  
Egun hartan bertan, iluntzean, Molaren tropen **posizioak** zeharkatu nituen. Alberto Ladrón Arana  
Batailoi karlistek hartutako **posizioak** gurutzatu zituzten. Koro Navarro  
Ospitale hori **posizio** militarra da orain. Berria - Mundua  
Bera talaian zegoela jakinda, lasai asko sartu ginen **posizio** defentsagabera. Joseba Sarrionandia

#### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oso sistema eraginkorra da labirintoa **posizio**-aldaketa detektatzeko. Irene Aldasoro  
**Posizio** gerra izan baitzen Teruelgo bataila. Koldo Izagirre  
Gramscik hemen **posizioen** gudu kontzeptua erabili zuen, esan nahi baita, gizartean edozein jarrera ez dela betiko itxia, [...] anbiguotasuna nahitaezko duela. Joseba Zulaika  
Ez zuen jakin **posizio** labirinto hartan orientatzen eta nazionalen zentinelaren segadan eroria zen. Koldo Izagirre  
Goardiak motorra itzaltzeko eta **posizio** argiak uzteko agindu dio bidaiantari. Pello Lizarralde  
**Posizio**-argi berdearen pean. Koldo Izagirre

#### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Honi guztiari gehitu behar zitzaion ezen Gizon Handiak, hainbeste karguren jabe izan eta gero, zeukan gizarte-**posizioa** izanda [...] ongia eta gaizkiaren gainean zegoelako itxurak gorde behar zituela. Jon Alonso  
Botere **posizioengatik** lehiatzen ari dira. Berria - Mundua  
Ekoizle eta erosle askoz osaturiko merkaturak, non enpresak beren lehia-**posizioa** hobetzeko produktuak desberdintzen saiatzen diren. Iñaki Heras  
Muga-**posizioetan** dauden herriek, etengabeko erasoaren arriskupean, garapen distiratsua izaten dute posizio babestuagoetan dauden auzokoei baino. Iñaki Mendiguren  
Kiki-gordeka aztertzen zuten hirurek, haren ikuskatzaile **posizio** berri horrekin erabat harriturik, nonbait. Karlos Zabala

#### 7 jarrera, egoera.

**Posizio** positibista edo naturalista hori eliminatibismoa da, eta gogorik ez dela dio. Askoren artean  
Gombrichek, bere liburuan **posizio** konstruktibista hartzen du ikusmenezko pertzepzioaren aurrean. Josu Zabaleta  
Beste hitzetan esanda, jarrera, **posizio** bat hartu behar dut liburuari buruz, aldeaz aurretik. Jon Alonso  
Beste neskek harekin ibili nahi zuten beti eta esaten zuten, bere pribilegiozko **posizioarengatik** ere, ez zela batera harroa. Koro Navarro  
Indarrezko **posizioan** jarri ditu 1980ko hamarraldiaren hasierako zorraren krisiak. Koro Navarro  
Nehemiasek Susan enperadorearen etxean zuen **posizioak** aukera eman zion Artaxerxes I.aren babesa lortzeko Jerusalemgo tenplu-estatuarentzat. Iñaki Mendiguren  
Krisiak Villepinen **posizioa** ahuldutako duelakoan, isilik egon da Sarkozy orain arte. Berria - Ekonomia  
San Petersburgok bere **posizioari** eutsi zion berrehun urtez. Iñaki Mendiguren  
Manipulazio horiek jaunen errentak ere murrizten zituzten, eta, hala, areago ahuldu zen jaunek estatuaren aurrean zuten **posizioa**. Koro Navarro  
**Posizio** hegemonikoaren beharaldiarekin batera, nazioarteko aliantza-sistema ere hondatu zen eta herrialde lehiakideak sortu ziren. Koro Navarro  
Gaineratu du Sinn Feinen **posizioan** «argitasuna» egotea beharrezkoa dela aurrera egiteko. Berria - Mundua

#### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Uko egingo zaio, beraz, diskurtsoan adierazpen-fenomeno bat ikusteari [...]; gehiago bilatuko da subjektibotasun-**posizio** ezberdinentzako erregulartasun-arlo bat. Xabier Arregi  
1985 urte horretan berorretan, Lehen Mundu Gerraz gero aurreneko aldiz, negatiboa bihurtu zen Estatu Batuen kanpoko finantza-**posizioa**. Koro Navarro  
Erdi Aroko Mendebaldeko hiri libreak eskaintzen dute gizarte-**posizioa** eta finantza-metaketa nahastera jotzen duen gizarte-egituraren lehen adibidea. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**posizio argiak** (3); **posizio estrategikoa** (3); **posizio politikoak** (4); **posizio soziala** (3)  
**bere posizioa** (11); **gure posizioa** (7)  
**hartutako posizioak** (3); **posizioak hartzen** (3)  
**posizioan jarri** (4)

## posizionamendu iz jarrera; jarrera hartzea.

Hiru puntuak mozioan *Sustraiak* taldeari «bere **posizionamendua**» eskatzen diote. Berria - Euskal Herria

## posizionatu, posizona, posizionatzen da ad jarrera hartu.

Garai hartan langileria ez zen ETArekin kontra **posizionatzen** urte batzuk geroago bezala. Mikel Hernandez Abaitua  
Herri honen arazoaren aurrean **posizionatu** beharra ikusi zuten, eta bi belaunaldi geroago hemen **posizionatzean**, zapalduenen bandoan jarri ziren, abertzaleen bandoan. Berria - Kultura  
Ezker abertzaleak galde horiek plazaratzen dituelarik, gainerako alderdiak horren arabera **posizionatzen** dira. Berria - Euskal Herria

## posizione ik posizio.

## poskarlismo ik postkarlismo.



posmodernia ik **postmodernia**.

posmodernismo ik **postmodernismo**.

posmodernitate ik **postmodernitate**.

posmoderno ik **postmoderno**.

posmoralista ik **postmoralista**.

posnazionalismo ik **postnazionalismo**.

**posologia** iz sendagaien dosi egokiaren adierazpena.

**Posologia**. Lehenengo egunean 40 mg hartu behar dira, dosi bakarrean edo dosi gehiagotan, [...]. **Unai Elorriaga**

pospolin ik **poxpolin**.

**pospolo** (**163** agerraldi, **62** liburu eta **9** artikulutan; orobat **poxpolo 57** agerraldi, **16** liburu eta artikulua **1**ean, **poxpolu 12** agerraldi, **4** liburutan, **pospolu g.er.** eta **poxpolo g.er.**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pospolo** agertzen da) **1** iz zotz txiki eta mehea, buruan igurtzien bidez pizten den gai bat duena. ik **supizteko**.

Kendu begien bistatik hautsontziak, pizgailuak eta **pospoloak**. **Beria - Euskal Herria**

**Pospolo** bat piztu nuen, ikus zezaten nire aurpegia itzal dramatiko batean. **Koro Navarro**

**Pospolo** bat piztu zuen hormako karearen kontra igurtziz. **Anjel Lertxundi**

Cesar Telleriak kanpoan itxaron zuen, bi hatzekin **poxpolo** bat piztu eta bi hatzekin zigarro bat errez. **Harkaitz Cano**

Mahaira hurbildu, **pospoloak** atera eta keinu baldar eta uzkurrez petrolio-lanpara piztu zuen. **Ander Irizar**

**Pospolo** baten karraska entzun nuen; zigarro bat piztu zuen bietako batek. **Ander Irizar**

**Pospolo** bati *raixt* eragin, ahoarekin imintzio arraro asko eginez pipa piztu, eta arasa bernizatzeari ekin zion ostera. **Juan Garzia**

**Pospolo** bat hartu eta pipa piztu zuen. **Koro Navarro**

Gero, pipa beltzera **pospoloa** eramanez, sua bizitu, eta mintzalekutik irten da. **Anjel Lertxundi**

Komuneko atearen atzean, erabilitako bi **pospoloren** zotzak, ikusi ere egiten ez dituztenak. **Oskar Arana**

Denek bazekiten **pospoloek** baino buru gehiago ez nuela, baina bai aurrera egiteko gogoia. **Jesus Mari Mendizabal**

**Pospolo** bat itzaltzen den erraztasun berarekin desagertu zen hura ere. **Lander Garro**

Diru xehea eta **pospoloak** eta orrazi bat aurkitzen ditut, baina diru zorroa ez. **Koro Navarro**

Trastategietako alanbre sareak zulatu nahian, **pospolo** piztuak barrura botatzeko. **Karlos Zabala**

Izetu ezinik txinpartak ateratzen dituzten **pospolo** bustiak lez. **Joseba Sarrionandia**

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bada fosfororik **pospolo** -buruetan ere, eta neskato maitemenez etsiek jan egiten zituzten suizidatzeko. **Juan Garzia**

Potoloak ez daki nola moldatu **poxpolo** -muturrari azazkal-puntekin heldu eta aldi berean Itziarri pasatzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Esku ukaldika uzten zituzten kartak mahai gainean, **pospolo** ontzia igurtzen zuten, tiratzen zioten pipari. **Koro Navarro**

**Pospolo** ontzi batean irakurri dut. Sukaldeko **poxpolo** -kaxa bat da, handi horietakoa. **Koro Navarro**

Beste **pospolo** kaxa bat zabaldu nuen. **Bernardo Atxaga**

**Poxpolo** -kutxa biltzaile bat, 50 eko urteetako aleek txundi-txundi eginik uzten zuten horietakoa. **Joxan Elozegi**

Stockholmeko **pospolo** fabrikako jabeak bere buruaz beste egin zuela. **Beria - Kultura**

**Pospolo** saltzaileei gogorkeriaz uko eginez, jendetza zarpailetik begiak apartatuz. **Koro Navarro**

**Poxpolo** -jokoarena ez da begiraleen ideia izan, hala ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pospolo bat piztu** (14); **pospolo kaxa** (14); **pospolo kaxa bat** (7); **pospolo kaxak** (3)

**poxpolo jokoan** (3)

pospolu ik **pospolo**.

pospositibo ik **postpositibo**.

posposizional ik **postposizional**.

post-sabindar ik **sabindar**<sup>1 2</sup>.



# post-separatista izond separatismoaren ondokoa.

Europa federalaz, adibidez, asko pentsatu du ETA post-**separatista** honek. [Joseba Zulaika](#)

## posta<sup>1</sup> 1 iz zaldiak aldatzeko tokia, pertsonen eta gutunen garraioa bermatzeko, bidean zehar, bi edo hiru lekoan behin, jartzen zena; zaldi horien multzoa; posten arteko bidea.

Aldea handiagotu zuten Mikel Strogoffek eta haren bidelagunek, eta alde hori garrantzitsua izan zitekeen oso, hurrengo **postan** zaldi gutxi edukiz gero. [Karlos Zabala](#)

Egun hartan, arin eraman zuten tarantasa **postatik postara** txandakatzen ziren *iemstxikek*. [Karlos Zabala](#)

Ontzi bat pleitatuko nuen nire lehengusinarean kontura, edo **postan** joango nintzen hogeikopek ordainduz verstako eta zaldiko. [Karlos Zabala](#)

*Podaroshna* bat ez da **postako** zaldiak hartzeko baimena besterik; baina Mikel Strogoffek ezin zuen noiznahi erabili. [Karlos Zabala](#)

Merteuil andreak prestakizunak egin zituen, eta bakarrik partitu zen gauzez eta **postako** orgaz. [Jon Muñoz](#)

Ez zen tarantasa bat, ezta telega bat ere, **postako** berlina bat baizik, hautsez zeharo estalirik, eta ordurako bidaia luzea egindakoa inondik ere. [Karlos Zabala](#)

Euri-tantak **postako** bide hautsez betea bustitzen hasiak ziren. [Jose Morales](#)

Bi zalgurdi hornitzea gehiegi izango zen agian **postako** nagusiarentzat, bai behintzat epe laburrean. [Karlos Zabala](#)

Entseia hadi orobat gutunak **postara** eramaten dizkion sehiaren adiskide egitera. [Jon Muñoz](#)

Azkenean, gutunak **postatik** heldu ziren orduko, 27ko zure gutuna eman zidaten. [Jon Muñoz](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Prelatu-pila batek **posta**-zaldi publikoak erabili dituelako, beraiek 'sinodo' deitzen dituzten horiek direla eta, harat-honat bizkor ibiltzeko. [Iñaki Mendiguren](#)

Benetako **posta** zaldi bat bezain agudo ibiliko zara! [Karlos Zabala](#)

Trena, **posta** kotxeak, lurrin ontziak, zaldiak, denen eskura zeuden, eta, hortaz, baita tsarraren mandatariaren eskura ere. [Karlos Zabala](#)

**Posta**-mutila hil, mandoak eraman, gurdia hustu eta bidaiariak atrakatu dituzten ohoen batzuek. [Koldo Izagirre](#)

**Posta** gidari bat, *iemstxik* bat, hango hizkuntzaz esanda, arduratu zen zaldiak lotzeaz. [Karlos Zabala](#)

Bera arduratu zela **posta**-geltoki gutzietan ordezeko zaldiak prest egongo zirela ziurtatzeaz. [Jose Morales](#)

**Posta** zerbitzuaren bide nagusia da, ongi zaindutako zaldiez hornitua. [Karlos Zabala](#)

Irkutsketik hariaren adar bat Kiatkara doa [...] eta handik Pekinera hamalau egunetan eramaten ditu mezuak **posta** zerbitzuak, hogeita hamar kopek hitzeko. [Karlos Zabala](#)

Horrelako baserriak makina bat badira Euskal Herrian, garai batean ostatu edo **posta**-leku izandakoak. [Bernardo Atxaga](#)

## 3 gutuneriaren garraioa; garraio horren ardura duen herri zerbitzua.

**Postak** guztira 17.000 bulego dauzka Frantzia osoan zehar banatuta. [Berria - Ekonomia](#)

Estatuak bihotz bazalez onartu dio **postari** banko zerbitzu baten idekitzeko moldea, hots orain arte jada **postan** egin daitezkeen diru operazio guzien legestapena. [Herria](#)

Bai iritzi artikulua, bai marrazkiak TKTr-i bidali beharko zaizkio **posta** arruntez edo **posta** elektronikoz. [Berria - Euskal Herria](#)

Nire etxejauna, lanbidez **postako** funtzionarioa, aski goraki ari zen hizketan kanpotarrarekin pasilloan. [Matías Múgica](#)

**Postako** zigiluen bilduma bat nuen. [Monika Etxebarria](#)

Tabakoa **postako** zakuetan ekartzen zuten. [Josu Landa](#)

-Ilgandean ez dago **postarik** -gogorarazi zien etxekoei. [Iñaki Mendiguren](#)

-Heuk etorri beharko duk Parisa materialaren bila, hori ez zagok eta **postaz** bidaltzerik. [Hasier Etxeberria](#)

Van Daan andrea: ingeles ikasten ari da, **postaz**. [Josu Zabaleta](#)

Bere emazteari gutunak idazten dizkio, eta, hori gutxi balitz, sarri ditu **postazko** harremanak beste zenbait pertsonarekin. [Josu Zabaleta](#)

Harentzat ederrena, halako harreman antzu bat **postazko** erlazio bihurtzea zen. [Anton Garikano](#)

## 4 posta zerbitzuaren bidez heltzen diren gutunak. ik gutuneria.

Hona gaurko **posta**, Shiranai jauna. [Joxan Elozegi](#)

Arratsaldeko **postarekin** iritsitako egunkaria irakurtzen bukatu zuen Pepponek. [Koldo Biguri](#)

Azpil batean, pilatutako **posta** ekarri zion. [Eduardo Matauko](#)

Goizean, patxada ederrean **postari** begiratu bat eman, gero kafetegira joan eta kaleko joan-etorriari so egon. [Anton Garikano](#)

Musuka berriro hura, nik **postako** gutunak gainbegiratzen niharduela. [Joxe Austin Arrieta](#)

Une hartantxe, **posta** iritsi zen. [Iñaki Mendiguren](#)

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik postal 6.

Joandako bi urte eta erdian haren **posta**-helbidea Joliet-ko espetze federala izana zen. [Oskar Arana](#)

Familian egon izan zen diru bakarra aitak **posta**-bulego nagusian **posta**-sailkatzaile zeukan lanpostutik astero etxera ekarri ohi zuen soldatakoa baizik ez zen izan. [Oskar Arana](#)

Zerbitzua markaren atxikitzeke hala ere, edo herriko etxean, edo ostatu batean edo zerbitzu zentroan horrelakorik baldin bada, "**posta** puntu" bat ezarriko dute. [Herria](#)

Paueko **Posta** zuzendaritzan zen auzotarren elkarteko buruzagiekin irailaren 21ean. [Herria](#)

Astebeterik ez zen pasa **posta**-gizona El Rosal-en agertu zenerako. [Joxemari Urteaga](#)

Gizakiren batek botatuko **posta**-zigilu bat irakurtzen. [Julen Gabiria](#)

Oihu egin zuen gorantz, **posta**-seilu baten tamaina zuen argiunerantz, tranpola irekirantz, alegia. [Iñaki Mendiguren](#)

Hiru tanke ziren, Lousianatik, Baton Rougetik, **posta** paketez helduak. [Koro Navarro](#)

Internet bidez **posta** zerrenda bat sortu zuten. [Berria - Kultura](#)

Kopuru hori **posta**-giroz bidaliko da bitarteko bizkor eta seguruagoa delako. [Bego Montorio](#)

Zorionez, garai hartan ez zegoen artean airetiko loturarik edo errepede erregularrik eta **posta**-zakuak ahal zuenean egiten zuen aurrera. [Bego Montorio](#)

Bepek **posta** bidezko takigrafia ikastaro bat eskatu du akademia batera, Margotentzat, Peterentzat eta hirurontzat. [Josu Zabaleta](#)

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gutunazal bat heldu zitzaidan unibertsitateko barne-**postaz**. [Iban Zaldúa](#)

Mintzaldia ezin izan diat gaur arte jaso, baina honezkero aire **postaz** igorria duk. [Edorta Jimenez](#)

Horrekin batera, hegazkin-**postaz**, 50 Kg., berorren kostua arren gure kontutik eta abar. [Juan Garzia](#)

## 7 postetxea.

Espeleta ez da hain handia, merkatu plaza bat baizik ez dauka eta **posta** bakar bat. [Janbattitt Dirassar](#)

**Postan** ematen zizkidaten zaku berezi batzuetan sartzen nituen liburuok eta itsasontziz Deustuko Unibertsitatera igortzen nituen. [Gotzon Garate](#)

Berak ordea, kannada hizkuntzaz bakarrik daki idazten eta **postan** hizkuntza horretaz idatzitako eskutitik etxera ez dela iritsiko esaten diote. [Gotzon Garate](#)

Merkatu plazaren aldean, toki ederra dago autoen uzteko, **Postaren** aitzinean. [Janbattitt Dirassar](#)

Errazu, Agata, **postara** behar nuke arratsalde honetan: jinen zara enekin? [Itxaro Borda](#)

**Postara** jo zuten kontu korronte bat irekitzeko. [Itxaro Borda](#)

Batzuetan **postan** 9 orduen artzen naiz, eta beste batzuetan, 6 ornez. **Ana Urkiza**

## 8 posta elektronikoa.

Ordenagailua piztu eta **posta** zabaldu zuen. **Antton Olano**

Ez bakarrik **posta** bidaltzerakoan, esaterako, munduaren mutur batetik norbaiti idatzi eta berehala har dezakegulako erantzuna, edo aldi berean egon gaitzkeelako pantaila bidez elkarriketa idatzia egiten milaka kilometrotara dagoen norbaitekin, [...]. **Pello Salaburu**

Neskak mezu elektronikoa pila bidaliko dizkio, irudi, ahots-artxibo eta guzti. **postak** gainezka egin arte. **Antton Olano**

## 9 e-posta posta elektronikoa; mezu elektronikoa.

Berriz ere irakurri ondoren, gauza batzuk aldatu ditut eta **e-postan** jarri dut bigarreneko aldiz, oraingoan hartuko duzulakoan. **Pello Salaburu**

Ez dakit konturatzan garen zenbat eta zenbat txiste, istorio eta ipuin barregarri heltzen zaizkigun **e-postaren** bitartez. **Iban Zaldua**

Zer esan denborarik eza aitzakiatzat jarri eta eskuz idatzitako gutun luzeari erantzunez **e-posta** triste bat bidaltzen dutenei buruz. **Harkaitz Cano**

Ekintza txiki sinbolikoak, hala nola hil-mezua idaztea, hitzak eta izenak aukeratzea, argitaratze epea errespetatzea, lerroak kontaktzea, **e-posta** garaiz iritsia zela egiaztatzea, egunkaria erostea, eskola non argitaratu zuten ikusteko eta oker handirik ez zela ziurtatzeko... **Joxan Elozegi**

## 10 **posta elektronikoa** sare baten bidez konektaturiko ordenagailuen artean mezu trukaketa ahalbidetzen duen sistema; post elektronikoko helbidea. ik gorago 8.

Ordenagailua piztu eta **posta elektronikoa** behatu nuen. **Aingeru Epaltza**

**Posta elektronikoa** zabaldu..., eta bat-batean iritsitako azken mezuen zerrenda agertzen zaio begien aurrean. **Antton Olano**

**Posta elektronikotik** bidaliko nioke. **Antton Olano**

Neskak **posta elektronikoa** bidaltzeko eskatu dio, edo bestela faxez. **Pako Aristi**

Presako mezu bat duzu **posta elektronikoa**. **Berria - Harian**

**Posta elektronikotik** etorritakoa laburtzeko lan distiragabeari, hizkera periodistikoaren ustezko bizitasunaren kolorea baizik ez nion erantsi. **Aingeru Epaltza**

**Posta elektronikoa**ren bidezko sedukzio jokoaren ondorio bezala. **Janbattiti Dirassar**

Ordenagailu gelan euren **posta elektronikoko** helbidea kontsultatzeko aukera izan zuten arte. **Jon Arretxe**

Tel/faxa 05 59 25 77 54; **posta elektronikoa** : *euskara@club-internet.fr*. **Herria**

-Badaukat zure **posta elektronikoa**. **Fernando Morillo**

## 11 **posta-karta** posta txartela. ik beheago 22.

Emazte zaharrari bizpahiru **posta** karta erosi dizkiot zigilu sari. **Piarres Aintziart**

## 12 **posta-kode**

Telefona eta **posta** kodea paratu dituzte, joateko aukera ez dutenek botoa delegatu dezaten: 902 54 00 43, 170 Donostia. **Berria - Kirola**

## 13 **posta-kutxasup\_1** posta bulego batean norbaitek, bere gutuneria gordetzeko, alokatzen duen kutxa zenbakiduna.

**Posta-kutxa** baten zenbakia eman nizan. **Eduardo Matauko**

Helbidea: Hizkuntza Kontseilua, **Posta Kutxa** 16, 64480 UZTARITZE-USTARITZ. **Herria**

Torturaren Kontrako Taldea (Agirika) **Posta** Kutxa 113. **Berria - Euskal Herria**

Idatzi Balançoneko H.G. **posta kutxara**. **Josu Zabaleta**

Vilmak postariaren eskuetatik jasotzen zituen beti eskutitzak, eta jakin-min bereziz aritzen zen haietan kuxkuxean; **posta-kutxako** giltza ere berak gordetzen zuen. **Ander Irizar**

## 14 **posta-kutxasup\_2 (orobat postakutxa)** postontzia.

**Posta-kutxan** propaganda baizik ez du aurkitu, eta partiduko idazkaritzako gutun bat. **Iban Zaldua**

Eraikina berria zen, **postakutxetako** izenak irakurri zituen, kutxa bakoitzean koloretako kartulina zatitan eskuz idatzirik izen bat edo bi baitzeuden: Pedro Gonzalez Aller 1-A, [...]. **Joseba Sarrionandia**

Agur esan zion lehengusuari, eta ate ondoan zegoen **posta-kutxari** erreparatu zion. **Javi Cillero**

Hamar minutuero **posta kutxara** jaisten nintzen, postariak zerbait utzi ote zidan ikusteko. **Ramon Saizarbitoria**

## 15 **posta-kutxasup\_3** posta zerbitzuaren aurrezki kutxa.

Baina dena txukun-txukun zegoen eta! zilarrezko txanponen platera, haren ondoan bi eraztunak, koralezko katea, **posta-kutxako** libreta eta bi estanpak. **Anton Garikano**

## 16 **posta laster (corpusean postalaster soilik)**

Vienako diagnostiko-zentro baten **postalaster** batekin hasi zen; oso modu gizalegetsuan idatzirik zegoen, ohartarazpen bat areago kexabide bat baino **Juan Garzia**

## 17 **posta-marka** postan, tanpoiarekin zigituan egiten den marka.

Gutun-azaleko zigituek gutuna nondik bidalia zen argi eta garbi adieraztea zen gauzarik bitxiene: Kubatik bidaliak ziren, eta **posta** markatan jarrita zeuden datak garai ezinezko batekoak ziren. **Jon Muñoz**

**Posta** marka zaharrena zuen gutuna kutxa haren barne-barnean zegoen. **Jon Muñoz**

## 18 **posta-mutil (orobat postamutil)**

**Posta-mutila** hil, mandoak eraman, gurdia hustu eta bidaiariak atrakatu dituzten ohoin batzuek. **Koldo Izagirre**

Zortzi ilabetez **posta** -mutil bezala hor lanean ari niz. **Michel Oronoz**

Maioralak, **postamutilak** eta mandamutilak mandoen atzetik ekin diote, biraoka eta gurdia utzita. **Koldo Izagirre**

## 19 **posta-ontzisup\_1** posta daraman itsasontzia.

Hamaika urterekin, **posta** ontzi batean itsasoratu zen Indiar joateko. **Karlos Zabala**

## 20 **posta-ontzi<sup>2</sup>** ik postontzi.

## 21 **posta-truke**

Helbidea lorturik, bertatik bidali nion, **posta** -truke pertsonal gisa, *Se questo è un uomo* neure liburuaren aleman itzulpenaren ale bat. **Juan Garzia**

Trajano enperadoreak eta haren goi-mandataria zen Pliniok Bitinia eta Pontoko probintziako kristauen sekta ilun baten tratamenduaz izandako **posta** -trukea. **Iñaki Mendiguren**

Bere obretako pasarteak, pasarte autobiografikoak eta Eugenio Coselschi idazkariarekin nahiz Vallechirekin 1922tik 1927ra bitartean izan zuen **posta trukea** jasotzen ditu. **Berria - Kultura**

Jada ezin da isilean nabigatu, eta inork ezin du bermatu, era berean, Internet bidezko **posta trukea** ere isilekoa dela **Berria - Gaiak**

## 22 **posta-txartel** postaz bidal daitekeen txartela, alde batean argazki edo kideko bat eduki ohi duena. ik postal.

**Posta-txartel** bat, non kostaldeko paisaia bat ageri baitzen: arrantzale batzuk nasan, ilunabarreko zeru gorri ilun baten argia atzetik zutela. **Xabier Olarra**

Oso gutxitan idatzi zigun atzerrian izan zen bitartean, eta gehienetan **posta-txartelak** baizik ez. **Ander Irizar**

Aitak Portobelotik bidali zion **posta** -txartel hura ezin egokiagoa da horretarako: hondartza zabal bat jenderik gabe, itsaso urdina, palmondoak eta, hondartzan, piraten erasoetatik babesteko kanoiak. **Antton Olano**

Behin **posta-txartel** bat bidali zidaten Barranquillatik, baina ez zegoen idazkera ulertzerik. **Javi Cillero**

Turismo prospektuak, hiri planoak, **posta-txartelak**, bisitarako gida-liburuxkak. **Joxan Elozegi**

## 23 **posta txeke** postaz bidaltzen den txekea.

Bai, bai, berehala bidaliko dizut **posta** -txekea... **Javi Cillero**

Bi kaxa lapurtu dituzte berriro florinekin, **posta** eta banku txekiak. **Josu Zabaleta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**e posta** (3)

**ako posta egoitzan** (3); **posta arruntez** (3); **posta bidez** (11); **posta bidezko** (7); **posta bulego** (15); **posta bulegoa** (7); **posta bulegoak** (8); **posta bulegoan** (10); **posta bulegoaren** (5); **posta bulegoen** (14); **posta bulegoen aintzinean** (4); **posta bulegoetan** (3); **posta bulegora** (4); **posta egoitzan** (14); **posta elektronikoa** (8); **posta elektronikoa bidez** (4); **posta elektronikoa** (34); **posta elektronikoak** (6); **posta elektronikoan** (6); **posta elektronikoaren** (11); **posta elektronikoaren bidez** (5); **posta elektronikoko** (5); **posta elektronikoz** (14); **posta gastuak** (3); **posta gelan** (4); **posta geltoki** (5); **posta kutxa** (9); **posta plazan** (6); **posta trukea** (3); **posta txartel** (9); **posta txartel bat** (3); **posta txartelak** (8); **posta txostena** (5); **posta zerbitzu** (5); **posta zerbitzua** (8); **posta zerbitzuak** (10); **posta zerbitzuaren** (6); **urruñ**

**postako barroki** (3); **postako langile** (4); **postako langileak** (6); **postako langilek** (3); **postako nagusiak** (6); **postako zaldiak** (3)

**postaren aintzineko plaza** (5); **postaren aintzinean** (3)

**postaz bidali** (5); **postaz igorri** (4); **postaz igortzen** (5)

**postetako langileen** (3)

## posta<sup>2</sup> 1 iz berunezko bala, perdigoia baino handiagoa.

Beteranoak ziren gehienak, ea inoiz **postarekin** tiro egindakoak ginen, zenbat lumako eta zenbat ileko botoak ginen. **Koldo Izagirre**

Bitarte horretan goseak ez hiltzeko, ehizarako bi eskopeta, 80 kartutxo eta 40 **posta** zituzten. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Jon izan zen idazkariari sabelean bi tiro egin zizkiona, **postako** eskopetarekin. **Jokin Muñoz**

## 2 (hitz elkartuetan)

Lau gorpuek guztira 113 bala eta **posta** zauri zituzten, autopsien arabera. **Berria - Harian**

Patrikan daraman **posta** kartutxo pareaz laztantzen du; bada balak oroitzen ederrenek bailiren laztantzen dituen jendea. **Pako Aristi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**posta zauri** (5)

## posta<sup>3</sup> ik **postu**.

## postabide iz

Eta jukutria bat baliatuz bertako **postabidea** erabiltzeko, hauxe adierazi nion: [...]. **Txillardegi**

## postaburu (orobat *posta-buru g.,er.*) iz posta-zerbitzuko burua.

Gobernadorearenean eta **postaburuarenean** izan dut gizon prestu hau ezagutzeko ohorea. **Jose Morales**

Beti egoten baitzen kotxe bat edo beste ostatuko ate aurrean, noiz **postaburuarena**, noiz prokuradorearena, noiz ganberaburuarena. **Jose Morales**

Baina gainerako funtzionarioek ez zioten egiaren antz handirik hartu Txixikov Kopekin kapitaina zelako horri, eta uste zuten **postaburu** urrunegi joan zela. **Jose Morales**

Paueko **posta** buruek aski erakutsi dute Luhuson egiten dena. **Herria**

## postakutxa ik **posta**<sup>1</sup> 14.

## postal (orobat *postale g.er.*) 1 iz posta-txartela, postaz bidal daitekeen txartela, alde batean argazki edo kideko bat eduki ohi duena. ik **posta**<sup>1</sup> 22.

**Postal** guztiz arruntak dira, mende hasieran Marseillan Sulim Anaien inprimategian egiten zirenak eta "munduko bazter miresgarriak" irudietan agertzen dituztenak. **Joxean Agirre**

Goio **postalaren** bestaldeko hitzak irakurri zituen. **Joseba Sarrionandia**

Mary Annen bigarren **postal** bat iritsi zitzaidan berehala, eta egiari beste erdia gehitzen zion: "Ulertu dut". **Bernardo Atxaga**

Beste **postal** batean honako hau dio: "Amazonapetan nago, eltxoak dabilza hara eta hona". **Joxean Agirre**

Bidaliko dinat **postalen** bat Basileatik. **Anjel Lertxundi**

- **Postal** bat jaso nuen ez dakit zein leku malapartatutatik. **Lopez de Arana**

Aita potzoloak hotelean **postalak** idazten dituen artean. **Koro Navarro**

Ez zen urtebetetzea zoriontzeko **postala**. **Iñaki Mendiguren**

Cesar Telleria **postal** baten bila zebilen liburudenda baten kanpoaldeko alanbrezko apalategi birakorrean. **Harkaitz Cano**

**Postal** bat zen, karnaba batek izututa begiratzen zuen bertatik. **Bernardo Atxaga**

Komodako ispiluan inpresionisten **postalak** zituelako itsatsita. **Ramon Saizarbitoria**

**Postaletan** baliatu argazkiak dira gehienak. **Herria**

Haien etxeak lasaitasun eta bakezko **postal** bat zirudien. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Postaletako** Donostia hura simulakroa zen. **Iñaki Iñurrieta**

Tristea da, baina **postalezko** hiri batek **postalezko** ezkertiarak baino ezin ditu sortu. **Berria - Kultura**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gerraren idealizazio aberkoia, Alpeetako **postal** zahar batean. **Anjel Lertxundi**

Kontuan har zezala gurasoei eragingo zien mina, aurrez aurreko azalpena zor zuela eta azalpen hori ezin zuela Italiatik bidaliriko **postal** hotz baten bidez eman. **Xabier Montoia**

**Postal** kitschetako txistularia ematen zuen, lauburu eta guzti kaikuaren paparrean josita. **Hasier Etxeberria**

Liburuaren azalak berak ere hiriaren **postal** turistiko tipiko bat erakusten digu. **Berria - Kultura**

Oroigarri moduan **postal** ikaragarri kitsch bana oparituko dizue. **Joseba Sarrionandia**

*Mugarik Gabeko Kazetariak* elkarteak eguberriko **postal** bat banatu zuen herenegun Parisen. **Berria - Mundua**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizon bien atzetik etorri zara, **postal** saltoki, iragarki eta letrero guztiei begira. **Lourdes Oñederra**

**Postal** itxurako karta batean izenpetu behar da. **Berria - Euskal Herria**

Puntarossako eliza mendi tontorrean zegoen eta **postal** -irudi bat zirudien. [Koldo Biguri](#)

Udaberrri guztiak bat dira, **postal** kaxa bateko oroitzapenak bezala. [Lander Garro](#)

-Ene kupido **postal** -eramaile adiskidetsuak! -Lockhartek, irribarrez-. [Iñaki Mendiguren](#)

#### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zorion **postalak** noizbehinka. [Lourdes Oñederra](#)

Kerley andrea, ileurdina, hauskorra eta arretatsua, eri zeudenei urtebetetze-**postalak** bidaltzea eta beirazko pote bete zopa eramatea baino beste gogoetarik ez zuena. [Mirentxu Larrañaga](#)

Urtemuga **postalak** edo urteberri-zoriontsukoak. [Lourdes Oñederra](#)

Bisitaleku zituen toki ikusgarrien irudi-**postalak** igortzen zizkion beti, ia behin ere hutsik egin gabe. [Mirentxu Larrañaga](#)

#### • 5 iz/izond irud/hed

**Posta** batean bizi gaituk, hilda gatxaudek, su eman diezaiogun honi. [Iñaki Iñurrieta](#)

Hala ere, 100 metroko Donostia **postal** hartan kokatzen den historiak, gazte korrikalari poliziak tiroz hilarenak, ezer gutxi du **postaletik**, simulakrotik... [Iñaki Iñurrieta](#)

Beharbada baziren Donostian hiria modu **postalaz** bestera bizi zutenak. [Iñaki Iñurrieta](#)

Erantzun estetikoa, baina inguratzen zituen estetika **postal** hari, marko inkomparabilearenari, tu egingo ziona; hortik etikoa. [Iñaki Iñurrieta](#)

Elurra bakarrik falta zen gabon-**postal** hura borobiltzeko. [Harkaitz Cano](#)

Zorion-**postal** baten itxurako birusak ehunka ordenagailu kutsatu ditu. [Berria - Gaiak](#)

#### 6 postarena, postari dagokiona. ik **posta**<sup>1</sup> 5.

Gainontzeko 2.500ak, berriz, zerbitzu **postalak** eskaintzeko, Postarekin hitzarmen bat sinatua duten agentzia **postalak** edo saltoki pribatuak dira. [Berria - Ekonomia](#)

#### 7 karta **postal ipar** posta-karta, posta-txartela.

Karta **postal** batek gure etxeok abisatu behar zituen bagindoazela. [Marzel Etxehandi](#)

Mathiasek urte berri ona gutiziatzeko bidali zidan karta **postalean** idatzitakoa hiruzpalau aldiz irakurri nuen. [Daniel Landart](#)

Berek moldatutako **karta postal** batzu saltzen dituzte, baktaxa 2 eurotan. [Herria](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**karta postal** (3)

**apostoluen postala** (3); **postala eman** (3); **postala jaso** (3)

**pariseko postalak** (3)

postalari ik **postari**.

postalaster ik **posta**<sup>1</sup> 16.

postale ik **postal**.

**postalgintza** iz posta-txartelak egiteko jarduera.

Turismo enpresa batek eginahal berezia egin du **postalgintza** berritzeko, eta azken asteotan Habanako opari-dendak Raimundo Nick Valdibieren postalez bete dira. [Pako Aristi](#)

**postalkara** izond posta-txartel itxurakoa.

Testu propagandistiko haietan aurkitu zuten, non bestela, Godotek begitan hartuta zeukan Donostiaren irudi **postalkara**. [Iñaki Iñurrieta](#)

Eramenezina egiten zitzaion bere burua hirixka **postalkara**, pastelkara hartan aurkitzea, jende kaxkar dotorez, donostiar nardagarri inguratuta. [Iñaki Iñurrieta](#)

Denek ere Donostia **postalkara** agertuko dute. [Berria - Kultura](#)

**postalkeria** iz postaltasun gaitzesgarria.

Balio ez bazuten bizitarako, erantzun bat emateko, alferrik ari zirela poeta izatera jolasten, **postalkerietan** jardutea zela hura ere. [Iñaki Iñurrieta](#)

**postaltasun** iz postal bat bezalakoa denaren nolakotasuna.

Hemen eta orain, gure ingurunearen **postaltasuna** salatu beharra zegok. [Iñaki Iñurrieta](#)

Donostiaren **postaltasunaren** salaketa, ez al zen hori Godotek proposatutako gaia? [Iñaki Iñurrieta](#)

**Postaltasun** horrexen muineraino joan zeure mugak haustera. [Iñaki Iñurrieta](#)

**postaltxo** iz *adkor* postala.

Gero, txokolate ontza pare bat edota bestelako gozoki batzuk eman, baita Begoñako amabirjinaren **postaltxoren** bat ere, eta poz-pozik alde egiten zuen... [Paddy Rekalde](#)

postamutil ik **posta**<sup>1</sup> 18.

**postari** (*orobat **postalari** g.e.r*) 1 iz posta banatzen duen enplegatua.

Gutunak pasarazten zituen, **postari** baten bitartez. [Eneko Bidegain](#)

Bi **postari** lauhazka zetozen haien norabidean. [Elena Touyaru](#)

**Postari** gaztea hil egin da; hamazazpi urte baino ez zituen. perfume goxo baten ukitu arina zuen **postariak** ekarritako gutun hark. [Joxemari Urteaga](#)

Izan ere, Mikel Strogoff zela hasi zen esaten, nobela ospetsuko tsarraren **postaria** bezala. Pello Lizarralde

**Postariaren** lanbidea guztiz ogibide literario eta kilikagarria zela, horretan oinarrituta hainbat ipuin asma zitezkeela. Xabier Mendiguren Elizegi

Bizkaiko **postariak** gaur bueltatuko dira lanera Correosek egindako azken proposamena onartu eta gero. Berria - Ekonomia

Postako zuzendari berriak gomendatzen die euskal **postalariei** marka bat ezartzea beren aitzinean edo papoan, gure mintzaira badakitela. Herria

Berrikitan irakurri dut Bartzelona bi pittbullek **postari** emakume bati eraso diotela. Gotzon Garate

Eguna joan eta eguna etorri imajinatu zuen Jeronimo Badiola aitona **postariari** itaunka, bidean galdutako gutunen zain, eta egunero buruaren keinu ezezkor berbera jasotzen. Joxemari Urteaga

## 2 irud/hed

Protesta mezua bideratzeko **postari** bereziak aukeratu dituzte: Patxi Lopez eta Jose Antonio Pastor, Espainiako presidentearen alderdikideak. Berria - Euskal Herria

-Tsar gorriaren **postaria** berandu dabil -erantzun zuen Pepponek-. Koldo Biguri

## 3 (hitz elkartuetan)

SIPMko txostenen arabera, "Burusoilak" **postari** eta bitartekari lanetan jarduten zuen Iparraldeko euskal erakundeen artean. Alberto Ladron Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**postari gaztea** (6)

**postariak ekarritako** (3)

**postariaren seme** (13); **postariaren zain** (3)

## postarkaiko *izond* aro arkaikoaren ondokoa.

Giotoren belaunalditik hasita milurteko-erdi bat baino luzaroago, Mendebalde modernoko pintura-eskola batek, ikus-arte helenikoen fase **postarkaikoko** ideal naturalistak dudarik gabe onartu zituenak, argitzalaz egindako inpresio bisualak adierazteko zenbait metodo asmatu zituen bata bestearen ondoren. Iñaki Mendiguren

## postatu, posta, postatzen du *ad* postara edo postontzira bota.

CFDT-ek uste du lan postuak kenduko dituztela, publikoaren errezibitzeko orenak eta ere **postatzeko** ordutegia txipituko. Herria

Denborarik gabe, beraz, baniazu hau **postatzerat** . Jose Angel Irigaray

## postbudiko *izond* Budaren aroaren ondokoa.

Hinduismoaren erlijio nagusi **postbudikoak** filosofia budista kanporatu zutenean ez zuen dinastiaren aurkakotasunik izan. Iñaki Mendiguren

## postdata *iz* idatzi-ondokoa. ik **postscriptum**.

Besarkada baten ondoren, musu bat bidali zion **postdatan** . Joxemari Urteaga

Alferrik izan zen "beraien barruan aurki ditzakegun lerro zoragarri horiek ez aipatzeagatik, jakina" erantsitako esaldi inozo hura, **postdata** alferrikako eta aitzakia merkearen usaina zeriona, desenkusa barkaezina, Inezen denboratik eta umoretik ulertezina zen esaldi desegokia. Harkaitz Cano

## poste 1 *iz* zutoina, zutikoa.

Armazoi horren gainean **poste** batzuk jarriko dira ondo trabatuta. Santiago Iruretagoiena

Perla argiztatuaren antzera argi egiten zuten lanparek beren **poste** luzeen puntatik beheko ehundura bizira. Irene Aldasoro

Elurrak bota dik **postea** eta kortozikuito bat izan duk. Pablo Sastre

Txalupa txiki batzuk zeuden egurrezko **poste** erdi ustel bati lotuta. Anjel Lertxundi

Garner jaunak gurditik salto egin eta burdinazko **poste** sendo batean lotu zuen zaldia. Anton Garikano

Trenbideko **postea** zenbatzen. Unai Iturriaga

Trenbideari jarraitzen dioten **postetik postera** doazen kable haietako edozein izan zitekeela nire bizitzaren haria. Jon Maia

Tim amak bide bazterrean **poste** bati estekaturik abandonatu haur bat zen. Herria

la goian zegoen, **poste** latzari gogor ertsita, handik goitik itsasoa ikusi ahal izango zuen. Joseba Sarrionandia

Gero, argindarraren **poste** zaharrean gora igo zen, **postea** gogor besarkatu eta zangoak altxatuz, zangoak sakatu eta soin besoak goratuz. Joseba Sarrionandia

Motorra errepidetik atera zen eta gidariak errepede ondoko **poste** bat jo zuen. Berria - Euskal Herria

Leihoetan pausatzen dira begiak, eta ate txikietan, ate gaineko sinboloetan [...], kanal-ondoan lotuta dagoen ontzi txikian, frutaz kargaturiko txalupan, **poste** baten puntan pausatu den kaioan. Anjel Lertxundi

**Poste** bat bezalaxe geratu nindunan txutik, zer esan asmatu ezinik. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizon batek **poste** -zulo bat hirurogei segundotan egin dezake. Xabier Olarra

Bidean atzera egingo banu, **poste** ilara hori atzera ibiliko banu, iritsiko nintzela istorioaren hasierara. Jon Maia

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Argi **postetik** eskegi ahalko genikek. Koldo Biguri

Argiak inor itsutzeko moduan jotzen zuen burdinazko trenbidean, burdinazko zutabe eta argi-**posteetan**, burdinazko iragarki zaharren xafletan. Anjel Lertxundi

Bazkariko soberakinak zakurrei ekartzera ez bazen, labanak zorroztera joango ziren, animaliei ura aldatzera bestela edo balinarekin tiro batzuk egitera; besterik ez bazen, elektrizitate **posteei** tiratzera. Jon Maia

Telefono **postez posterako** kable apur bat kurbatuen sabelak imajinatu zituen. Harkaitz Cano

## postenzefalitiko *iz* entzefalitisak joa izan ondokoa.

Neure paziente **postenzefalitiko** batzuen hustasun-egoerak ekartzen zizkidan, nolabait, gogora, eta, haiena bezala, dientzefaloaren lesio sakonekin loturik gertatzen zen egoera hori. Xabier Olarra

Maila askotan gerta daitezke halako "mendean-hartzeak", eta maiz nabarmentzen zaizkie sindrome **postenzefalitikoak** edo Touretteren sindromea dituztenei. Xabier Olarra



## poster 1 iz horma<sup>1</sup> 11.

Paretetako **poster** guztien atzean begiratu zuten. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Kartelak, **posterrak** eta pegatinak nonahi. **Sonia Gonzalez**  
Hormako **posterra**, zuri-beltzeko hatz-marka erraldoia dibujaturik zuena. **Harkaitz Cano**  
Aztarna digital baten irudia marrazturik zuen zuri-beltzeko **poster** bat. **Harkaitz Cano**  
Kristalez estalitako hiru **poster**. **Iban Zaldua**

## 2 (izenondoekin)

Gogoratzen dut hormetako batean, Amelio Mendijur ziklistaren **poster** handi bat zutela markoztatua. **Jon Maia**  
Che Guevara zeritzon morroi bizartsu baten **poster** zaharkitua ikus zitekeen, txano izarduna buruan eta begirada hodeiertzean. **Jon Arretxe**  
Jesus Christ Superstarren **poster** plastifikatua. web gune horren sustatzaileek sortu dituzten hainbat **poster** bitxi eta adarjotzaile. **Iban Zaldua**  
Karrajutik paseoan, nesken geletako **poster** horterak aztertuz. **Jon Arretxe**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**poster handi** (3)

## posterlijioso izond erlijioaren nagusitasunaren ondokoa.

Garai **posterlijiosoetako** elizgizonak. **Oskar Arana**

## postscriptum ik postscriptum.

## postestatu iz estatuak desagertu ondoko aroa edo egoera.

Baina zure arazoa horixe da, eta askalekuak lehenik eta azkenik Estatu zahar zaharkitu horrekin zerikusi beharko du, ez **Postestatu** edo Posnazionalismoen literatura faunekin. **Joxe Azurmendi**

## postestrukturalismo iz estrukturalismoaren ondoko doktrina.

Filosofia kontinentalaren **postestrukturalismoan** bezala, filosofia analitikoan postpositibismoa sortu zen azken hamarkadotan. **Askoren artean**  
Frankfurteko Eskolaren planteamendutik oso gertu, Frantzian estrukturalismoa eta **postestrukturalismoa** hedatu ziren. **Askoren artean**  
**Postestrukturalismoaren** estrategietan hurrengo izen berezi hauek nagusitu dira: Michel Foucault eta Jacques Derrida. **Askoren artean**

## postestrukturalista izond postestrukturalismoarena, postestrukturalismoari dagokiona.

**Postestrukturalista** zer den aditzen ez duen modu berean. **Berria - Euskal Herria**

## postetxe (59 agerraldi, 17 liburu eta 24 artikulutan; orobat **posta-etxe** 61 agerraldi, 5 liburu eta artikulua 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegia **postetxe** agertzen da) iz hiri bateko posta zerbitzua antolatzen den etxea edo bulego nagusia. ik**posta**<sup>1</sup> 7.

**Postetxea** hiriarren bihotzean zegoen, erraz antzematen zen: harrizko etxe handi bat, harrizko etxe ederrez inguratua. **Anjel Lertxundi**  
**Postetxean** lan egiten duzu, gutunak jaso eta bidaltzea beste ardurarik ez duzu. **Jose Morales**  
Gure herriko **postetxeko** gutun-garraiatazailea baserritar hutsa zen. **Koro Navarro**  
Mary Annek Three Riverseko **postetxearen** postal batekin erantzun zidan. **Bernardo Atxaga**  
Hogeitamar bat langile bildu dira Baionako **postetxe** aitzinean joan den egunean. **Herria**  
**Postetxeen** funtzioa tabernetan ezartzea begi txarrez ikusten du, horren ondorioa posta gutxiago erabiltzea izan delako. **Berria - Ekonomia**  
**Postetxekoa** amaitu zuenean berriro kaleratu zen. bi egun omen ziren **postetxean** jarri zuela; beraz, jasotzean izan behar nuen. **Joxemari Iturralde**  
Mikel Strogoffek bere *podaroshna* erakutsi zezakeen arriskurik gabe, Siberiara iritsi artean, eta **posta etxeko** nagusiek lehentasunez lotuko zizkioten zaldia bere gurdiari. **Karlos Zabala**  
**Posta etxeetan** ohea eta mantenua aurkitzen dira. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**postetxearen ondoan** (3)  
**ixingo posta etxean** (5)

## postfeminista izond feminismoaren ondokoa.

Teoria **postfeministek** (Judith Butler edo Teresa de Lauretis) kritika bat egin dute; baina, funtsean, gaur egun feminismo instituzionala da nagusi, gizon eta emakumeen nortasunetan gertatutako hainbat eta hainbat aldaketa ahaztuta. **Berria - Gaiak**

## postforal izond foralismoaren ondokoa.

Unamuno Bilboko publikoaren aurrean, estudiante gazteak Unibertsitatean harrapatu zuen sukar intelektual krausopositibista ari da garatzen, Madrilgo Ateneoan Espainiari eta historia espainolari buruzko gogoeta kritikoa zena [...] berak "El Sitio"n Euskal Herri **postforalari** aplikatuz. **Joxe Azurmendi**

## postfrankismo iz F. Francoren erregimenaren ondoko aroa edo egoera.

Bere izena erabilia izan zen izenorde moduan **postfrankismoaren** aurreneko urteetan, *Berriak* aldizkari nafarrean artikulua izenpetzeko. **Josu Zabaleta**

## postheleniko izond helenismoaren ondokoa.



## postidealista *izond* idealismoaren ondokoa.

Sarrera honen lehenengo zatian XX. mendeko filosofiaren sistema **postidealisten** ibilbidea aztertzen da. **Askoren artean**  
Helmuga horretara iritsita, sistema **postidealisten** jarrerak elkartuz doaz, bai filosofia anglosaxoian, bai filosofia kontinentalean. **Askoren artean**  
Gauden bidegurutzean paradigma **postidealista** berria asmatzeko beharra dugu. **Askoren artean**

## postiloi ik postilloi.

## postilloi (*orobat postiloi eta postiloi*) iz posta-kotxe bat edo zalgurdi bat zaldi baten gainetik gidatzen zuen mutila.

Nik neuk, isilean, eskuineko zaldiaren gainean etorri ohi zen **"postilloi"** mutikoa miresten nuen bereziki. **Txillardegi**  
Denbora aurreraka joan zen [...] eta, **postilloi** bihurtuta, lehenengo mandoan edo zaldian igota joaten nintzen, gainerako guztiei bidea erakutsiz; behar-beharrezko gauza, orduko kamioak ez baitziren oraingoak. **Bernardo Atxaga**  
Asto samarra izateaz harrotzen zen eta nabarmentxo janzen zen, antzinako **postilloien** dotoretasun bizi horrekin. **Koro Navarro**

## postiloi ik postilloi.

## postilustratu *izond* ilustrazioaren aroaren ondokoa.

Ikuspide pluralista da hori, diferentearen eta erlatiboaren maitalea, batasun biziarena ("organikoarena", esaten zuten filosofo **"postilustratu"** edo, gure artean zenbaitek dioenez, antiilustraturen batzuek). **Joxe Azurmendi**

## postindustrial *izond* industria-aroaren ondokoa.

Diseinu grafikoko espezialista batek dekorazio aldizkari baterako atonduko bodegoi **postindustrial**. **Aingeru Epaltza**  
Hondakin hegalariki atalean mundu **postindustrialaren** gainbehera zikloak hausnartzen ditu, Kaliforniako Mojabeko basamortuko teknologi hondakinetan mugitzen diren gizon eta emakume biluziekin. **Berria - Kultura**

## postinpresionismo *iz* inpresionismoaren ondoko estila.

Inpresionismoak, fauvismoak eta **postinpresionismoak** nabarmen eragin zuten Etxebarriaren obran, «baina korrante horien morrontzatik aske ere lan egiten jakin zuen». **Berria - Kultura**

## postinpresionista *izond* postinpresionismoarena, postinpresionismoari dagokiona.

Elijah Jorowitz Poloniako Lodz hirikoa zen jatorriz, eta margolaria zen: gerra aurretik erretratuak eta balio gutxiko olio **postinpresionistak** pintatzen zituen. **Iban Zaldúa**

## postizo *izond* ordezkoa; faltsua.

Arrastiri eta ilbeherak zituen gogoko; emakume kadukatuak, **postizoak** eta gezurrezkoak zitzaizkion atsegin. **Joxean Agirre**  
Joseba zurrundurik geratu zen, gizonak bizkarra aurreratu zuen, hura zen! bizar eta peluka **postizoz**. **Iñaki Zabaleta**  
Gaztetan jende askok galde egiten zidan, ea hortza **postizoak** ote nituen. **Patziku Perurena**  
Armairua gero eta beteago dinagu mozorroz, eta irribarre **postizoz**. **Berria - Kultura**  
Gero atzeko atetik ateratzeko, ileordeak, **postizoak**, gabardinak eta bestelako mozorroak erabili nituen. **Jon Alonso**

## postkantiar *izlag* Kanten filosofiaren ondokoa.

Arazakeriarik gabeko ilustrazio altermundialistak lerro **postkantiar** berria eman digu: «Desobedi ezazue nahi duzuen, baina pentsatu!». **Berria - Kultura**

## postkarlismo (*orobat postkarlismo*) iz karlismoaren ondoko doktrina.

**Postkarlismoari** dedikatutakoa eta Joakina Txapaltegi deskubritu zutenekoak, bereziki. **Berria - Kultura**  
6. zenbakian *Karlismoa hil da, bira* **postkarlismoa** izenburuaren inguruan osatu zuten aldizkaria. **Berria - Kultura**

## postklasiko *izond* klasizismoaren ondokoa.

Jakintza siniko klasiko ezagun bat hausnartzeko zeregin atseginean gogoia jarrarazi zion gertakari **postklasikoa**. **Iñaki Mendiguren**

## postkolonial *izond* kolonialismoaren ondokoa.

"Gure" mundu **postkoloniala**. **Joxe Azurmendi**

## postkubismo *iz* kubismoaren ondoko estila.

Esperimentatzea maite zuen: **postkubismoa** joko zizun, inpresionismora halako batean, abstraktura ondoren, beste batzuetan kubismoa... **Berria - Kultura**

## postmetafisiko *izond* metafisikoen ondokoa.

Habermasen ahaleginetan Frankfurt-eko Eskolaren azken oihartzunak entzuten dira, ahulak izan arren, Habermas ilustratu unibertsala baita: alemaniar **postmetafisiko** baina ilustratua, azken buruan. **Askoren artean**

## postminimalismo *iz* minimalismoaren ondoko estila.

Minimalismoari, **postminimalismoari** eta kontzeptualismoari buruzko erakusketa zabaldu dute New Yorkeko Guggenheim museoan. **Berria - Kultura**

## postminoiko *izond* aro minoikoaren ondokoa.

Kriminalitatea, eta ez hutsalergia soila, da Hesiodok aro heroiko **postminoikoaren** aurka duen salaketaren kargua, haren garaian oraindik Zibilizazio Heleniko jaio berria obsesionatzen zuena. **Iñaki Mendiguren**

Gero Völkerwanderung **postminoikoaren** uhinak azpian hartu zituen, eta aurrerantzean komunitate fosil mordo batean iraun zuten bizirik, Tauron hankalatraba. **Iñaki Mendiguren**

## postmodernia (*orobat posmodernia*) *iz* moderniaaren ondoko aroa.

Erdi Aroarekin zein **Postmoderniarekin** alderaturik, Modernitatea bere osoan razionalismoaren aroa izan da ikuspuntu filosofikotik. Descartesen aurretik, Erdi Aroa; Nietzschek ondotik, **postmodernia**. **Askoren artean**

Konbatitzen diren erlatibismo edo subjektibismoak eta kulturaren kontzeptu nahasketak berak, salatzen den **"postmodernia"** hitz batean, frantsesa da. **Joxe Azurmendi**  
**Postmoderniarekin** erlatibismoa hain zuzen indibiduoaren autonomia eta askatasunaren lehen baldintza bilakatu dela. **Joxe Azurmendi**

## postmodernismo (*orobat posmodernismo*) *1* *iz* postmodernitatea.

Hori izan zen [Ba al da zientzia objektiborik?] **"postmodernismo"** izeneko mugimendu baten aldekoek bere buruari egin zioten galdera. **Pello Salaburu**

### 2 modernismoaren aurkako literatura- eta arte-higikundea.

Pare bat urte geroago Juan Antonio Agirrek *La pintura es la política* margotu zuen, **postmodernismoaren** begirada alai eta koloretsuaren ildotik. **Berria - Kultura**

## postmodernista *iz* postmodernitatearen aldekoa den pertsona.

**Postmodernista** hauek beren ideiak zenbait aldizkaritan argitaratu izan dituzte, eta agian ezagunena [...] *Social Text* izeneko bat da. **Pello Salaburu**

## postmodernitate (*orobat posmodernitate*) *iz* arrazionalismoaren kritika egiten duen kultura-higikundea.

**Postmodernitatearen** gizakia *homo digitalis* bilakatu da, gogoeta abstraktu eta analitikorako gero eta elbarrituago, gero eta ezinduago. **Txema Ramirez de la Piscina**

Joera berriak sortu ziren, besteak beste, N. Bobbio, A. Giddens eta J. Habermas-en sozialismo liberala, errepublikanismo berria eta demokratismo erradikala hurrenez hurren, **postmodernitatearen** joera politikoak. Pedro Garcia Carok egindako lanaren harira, nortasunaz, modernitateaz eta **postmodernitateaz** hitz eginez hasi zuten, atzo, ikastaroa, eta Anton Figuroaren teoriarekin jarraitu zuten. **Askoren artean**

Ez da egia **postmodernitatean** filosofia osoa baliogabea denik. **Askoren artean**

Gilles Deleuz-ek baieztatu zuen **postmodernitatean** filosofoak surf egiten duela. **Askoren artean**

## postmoderno (*orobat posmoderno*) *1* *izond* postmodernitatearena, posmodernitateari dagokiona.

Giro horretan baldintza **postmoderno**a gako bihurtu zen (modernitatearen) amaieran. **Askoren artean**

Idealismo horren oihartzuna oraindik entzuten da, hala etnografia **postmodernoan** nola antropologia hermeneutikoagoan. **Askoren artean**

Aldi berean arkaikoa, moderno eta **postmoderno**a zela esaten zuen Derridak. **Berria - Kultura**

Supermoderno eta **postmoderno** eta progre bezala saltzen zaigun azken-garrasi merkaduria asko eta asko, tradizio kontserbakor hobereneko zapi zaharrak baino ez direla. **Joxe Azurmendi**

Politika erradikala arte eta kultura **postmodernoaren** osagai bihurtu da. **Berria - Kultura**

### 2 irud/hed

Izaki **postmodernoaren** barne haustura aterpetzeko etxe txikiak eraiki beharko dira, modernitateko amets erorien hondakinekin. **Berria - Kultura**

Orduko orkatila estaltzen zuten Converse zapatilen, burdinazko uztaien eta larruzko baloi astunen orde, egun, kirol material **postmoderno**a, uztai hidarulikoak eta puzgailua erantsita dakarten baloiak ikusten dira. **Berria - Kirola**

Edozein ziegartara sartzean halakoxe dekoratu **postmoderno**a aurki dezakezu. **Jokin Urain**

Eraikin itxuroso askoa zen lehen, eta orain porlan eta plastikozko artelan **postmoderno**a, ikaztu eta gaixotia besterik ez zuen ematen. **Fernando Morillo**

Hamar birjinen parabolaren bertsio **postmoderno**a ematen du honek. **Patxi Iturritegi**

Orduko orkatila estaltzen zuten Converse zapatilen, burdinazko uztaien eta larruzko baloi astunen orde, egun, kirol material **postmoderno**a, uztai hidarulikoak eta puzgailua erantsita dakarten baloiak ikusten dira. **Berria - Kirola**

Filmetako afixa zenbait hormetan, margolari handien koadro batzuen erreproduzioak, diseinuzko altzari **postmodernoak** ... **Unai Iturriaga**

## postmodernotasun *iz* posmodernitatea.

**Postmodernotasuna** eta gaizki-ulertzeak . **Berria - Ekonomia**

## postoniko *izond* silaba azentudunaren ondokoari dagokiona.

Erdiko goi alemanez, i,e,a,o bokal **postonikoek**, e-ren tinbrea hartu zuten. **Isabel Arrigain**

Ikus dezakegu gaur egungo alemanez kontsonante asko metatu ohi direla; dena den, kasu askotan, duela gutxi gertatu da metatze hori, eta bokal **postonikoen** galeraren ondoriozkoa da. **Isabel Arrigain**

## postontzi 1 iz posta-gutunak botatzeko kutxa edo ontzi irekiduraduna. (etxekoa)

Harpidetzari esker izaten dugu goizero, bakoitzarendako ale izen-deituraduna etxeko **postontzian** sartuta. **Aingeru Epaltza**

Harpidedunek etxeko **postontzian** jasoko dute egunkaria. **Berria - Euskal Herria**

Ateek kartzela batekoak dirudite eta bebarruko **postontzi** koloretsuek [...] etxean bizi diren auzoen originaltasuna salatzen dute. **Harkaitz Cano**

Txarteltxoak egin bere helbidearekin eta telefonoarekin, eta auzoko **postontzi** guztietan banatu ditu: telefono eta guzti, aizu, ezta emagina balitz ere. **Juan Garzia**

Behin jaitsi da atarira, eta **postontzia** hutsik dagoela ikusi du. **Iban Zaldua**

Estudioan *free-lance* gisa lan egiten genuenon **postontzia** zabaldu nuen. **Anjel Lertxundi**

Zabaldu al duzu inoiz **postontzi** huts bat? **Eskarne Mujika**

Goizero geneukan **postontzia** tonaka foiletoz gainezka. **Jesus Mari Mendizabal**

Ohar bat nuen **postontzian**: posta-bulegora joan behar nuen gutun zertifikatu baten bila. **Eskarne Mujika**

Ate ondoko **postontzi** metalikoari erreparatu nion: W. P. Weber izena irakurri nuen, letoizko txapatxo batean irarrita. **Alberto Ladrón Arana**

Igogailua etorri artean, **postontziko** izenak irakurri nituen. **Aingeru Epaltza**

1994ko udazkenean, Frankfurtoko **postontzi** partikular askotan *Frankfurter Rundschau* (FR) kazetako "azken edizioa" agertu zen. **Txema Ramirez de la Piscina**

## 2 (kalekoa)

Polizietako bat **postontzi** baten ondoan ezkutatu zen, ate ondoan, eta bestea zuhaitz baten atzean babestu. **Xabier Olarra**

Parisko espresa Donibaneko tren geltokian txistuka sartzeaz batera bota zuen geltokiko **postontzian**. **Javi Cillero**

Eskolatik etxerakoan bota nuen **postontzira**. **Jesus Mari Mendizabal**

Raimundo Silvak, gutuna **postontzira** eramatera joan eta gero, etxeko eskailera igotzen ari zela, telefonoa entzun zuen. **Jon Alonso**

Zazpigarren Etorbideko posta-bulegoaren aurrean dauden **postontzietako** batean sartu nuen. **Oskar Arana**

Jakako patrikan haztaka ibili eta gutunazal bat atera zuen **postontzian** sartzeko. **Javi Cillero**

**Postontzi** bat ematen zuela oihukatu zuen publiko artetik norbaitek. **Karlos Linazasoro**

## 3 irud/hed

Zestoako *Bagoaz* herri plataformak **postontziak** jarri ditu herrian zehar, 2004rako aurrekontuei buruzko iritzia jasotzeko. **Berria - Euskal Herria**

## 4 (posta elektronikoa eta kidekoetakoa)

Ibai hegira bidean, ziberkafe batean sartu-irtena, **postontziari** begiratu emateko. **Iñigo Aranbarri**

Zerbitzuko beste kideekin harremanetan jartzeko aukera izango dute; euren **postontzi** pribatuan mezuak jasoko dituzte; eta nahi dutenarekin elkarrizketak on-line hasteko aukera izango dute txat zerbitzuaren bidez. **Berria - Euskal Herria**

Telefono mugikorren zenbakia utzi zion ahots-**postontzian**. **Migel Angel Mintegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**postontzia hutsik** (3)

**etxeko postontzian** (4)

## postpositibismo iz positibismoaren ondoko doktrina.

Filosofia kontinentalaren postestrukturalismoan bezala, filosofia analitikoan **postpositibismoa** sortu zen azken hamarkadotan, zientziaren azterketara biraketa historikoa eraman ondoren. **Askoren artean**

## postpositibo (corpusean *postpositibo soilik*) izond postposizioari dagokiona; batez ere postposizioak erabiltzen dituen.

Alderantziz, gure inguruan dauden hizkuntzak (gaztelania, frantsesa, ingelesa, eta abar) bere garaian ongi garatu ziren, sistema **postpositibo** batetik sistema prepositibo batera pasatuz, esaterako, eta sekulako aldea hartu zioten horrela euskarari. **Pello Salaburu**

Baina horren ordez erabaki dut erabiltzea gurean dabilen teknolekto xelege bat, euskararen berezko izaera **postpositiboa** prepositiboa bihurtu nahi duen ideolektoa. **Berria - Kultura**

## postposizio iz aldatzen ez den hitza, preposizioaren funtzio bera duena baina dagokion sintagmaren eskuinetara jartzen dena.

*Makal* (ahula eta zuhaitza), *horma* (parea eta izotza), *arrantza* (arrainena eta astoarena), *arte* (ertia, zuhaitza, tartea, animaliak harrapatzeko tresna, amarrua, trebetasuna, denborazko **postposizioa**), *zuen* (posesiboa eta adizkia), eta abar. **Iñaki Arranz**

Zer da, beraz, Iparraldeko *buruz?* bada, euskaldun guztiok erabiltzen dugun *aldera* **postposizioaren** berdina. **Koldo Zuazo**

## postposizional izond (corpusean *postposizional soilik*) izond postposizioarena, postposizioari dagokiona.

Komunikaziorako hainbat hobe litzateke, baldin menpeko esaldi-kateetan tresna preposizionalaz josiriko osagarriak erabiliko bagenitu, nekez kateatu daitezkeen osagarri **postposizionalen** ordez. **Pello Salaburu**

## postpredikamentu iz predikamentuaren ondokoa.

Jarraian beste bost bilatu zituela uste izan zuen, **postpredikamentuen** izenarekin gaineratu zituenak. **Ibon Uribarri**

## postprodukzio iz film edo bideoaren grabatze lanen ondoko azken egitekoen multzoa.

Herrmann joan den irailean hil zen, film horren **postprodukzioa** egiten ari zela. **Berria - Kultura**

Bost sail nagusitan banatzen dira azokara aurkeztutako lanak, filma egiteko lanak zein fasetan dauden aintzat hartuta: guztiz amaitutakoak; kontzeptuan daudenak; garatze bidean daudenak; **postprodukzioan** daudenak; eta ekoizte lanetan daudenak. **Berria - Kultura**

Esnal eta Altuna abuztuaren amaieran hasi ziren filma zuzentzen, eta egun **postprodukzio** lanak egiten ari dira. **Berria - Kultura**

## postpunk (orobat *post-punk*) iz punkaren ondoko estiloa.

John McGeoch, **postpunkaren** gitarrista ospetsuenetakoa, martxoaren hasieran hil zen Londresen, 48 urte zituela. **Berria - Kultura**

## postraglandina iz hogei karbonoko gantz-azidoetatik eratorririko gaia, lipido izaerakoa.

**Postraglandinak** isolatu, identifikatu eta ikertzeagatik saritu zituzten. **Berria - Gaiak**

## postre 1 iz azkenburukoa.

Bakailao tortilla, piperrez lagundutako bakailao frijitua, txuleta eta **postrea** (gazta, intxaurrek eta irasagar-gozokia). **Edorta Agirre**

Espagetiak, haragi errea, ardoa, **postre** goxoak. **Fernando Rey**

Bizkotxo, jelatinaz, fruituz eta esnekiz egindako **postre** gozoa. **Iñaki Mendiguren**

Afaria izan zen zopa moduko bat, bigarren platera eta **postrea**. **Unai Elorriaga**

Hozkailuaren gainean gaueko **postrea** zegoen: esnegain irabiatuzko meta handi bat eta azukrezko bioletak. **Iñaki Mendiguren**

**Postrea**, etxeko flana, karamelu askorekin. **Lander Garro**

**Postre** gisa, fruta. **Joxemari Iturralde**

Jertse lodiko gizon eskasa hurbildu zitzaigun **postreen** zerrenda luzea irakurtzera. **Aingeru Epaltza**

**Postreak** eskatu genituen. **Bernardo Atxaga**

-**Postrerako** zer hartuko duzue, jaunok? -esan digu neskameak. **Monika Etxebarria**

Modu berezian egiten zekien kremazko tarta prestatu zuen **postrerako**. **Juan Kruz Igerabide**

**Postrerako**, Adelak jogurt bana atera zuen, berak egina, aran eta sagar zati txikiekin, eta masusta-marmeladarekin. **Juan Kruz Igerabide**

Gu **postreetan** geundenean sartu zen bera salan. **Ramon Saizarbitoria**

**Postrea** amaituta, agur esan zien, arratsaldea aprobetxatu nahi baitzuen. **Iban Zaldua**

**Postreetarako** hustua genuen botila, eta bigarrena eskatu zenuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurbildu eta **postre** -zerrenda irakurri die kamareroak. **Joxerra Garzia**

Joxe Mari koilaratxoarekin jolasean ari zen **postre** -plateran. **Juan Kruz Igerabide**

Bapo jan dugu, eta **postre** garaian bertsotan hasi dira Maialen eta Andoni. **Xabier Etxabe**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Badizute gozoki bat ere, lizar-**postre** molde bat, *freixuelos* deitua, lizar-zukua berekin duena. **Pello Zabala**

## 4 irud/hed

**Postrea**, horixe da EPELeke antolatutako duen aurtengo udako azken torneoa. **Berria - Kirola**

Orgasmoa -klitoria estimulatuta- **postrea** izango litzateke, hainbesteko grina eta pasioaren azken burukoa. **Luis Elberdin**

Zigarro-bazkariaren ostean, zigarro-**postrea**, jantzi bitartean, beraz, hautsontzian erretzen da bera bakarrik. **Sonia Gonzalez**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**postre garaian** (4); **postre gisa** (3)

**postrea amaitu** (3)

## postscriptum (orobat *postscriptum*) iz

**Postscriptum** labur batek soil-soilik zioen Txixikoven bihotzak igarri beharko zuela nor zen egilea, zeina biharamunean gobernadorearen etxean egitekoa zen dantzaldira joango baitzen. **Jose Morales**

**Postscriptuma**. **Mirentxu Larrañaga**

## postu (orobat *posta g.er.* eta *puesto g.er.*) iz 1 iz soldadu bat edo gudari talde bat, buruzagien aginduz, kokaturik dauden lekua.

Gush Katif kokagune juduan Israelgo Armadak duen **postu** militarrean erresistentzia palestinarrek soldadu bat hil eta beste bost zauritu zituen. **Berria - Mundua**

Ikastetxerako bidean galduta eta oharkabean Armadako **postu** batera hurbildu zen Iman al Hams. **Berria - Mundua**

Hiletaren ondoren hainbat manifestari Armadako **postu** batera hurbildu ziren eta soldaduak tiroka hasi eta 12 urteko mutiko bat hil eta beste 12 palestinar zauritu zituzten.

**Berria - Mundua**

Poliziaren **postu** baten aurka auto bat leherrarazi zuten goizean. **Berria - Mundua**

Zeure **postua** utzi zenuen [...] Kapitainaren baimenik gabe. **Agustin Otsoa**

Ithiliengo defentsen mendebaldeko **postu** aurreratua, Azken Aliantzaren ostean eraikitakoa. **Agustin Otsoa**

Setiatzaileren lehenengo **postuak** harresitik versta batera baino hurbilago zeuden. **Karlos Zabala**

Ez zuen espero hilabete batzuk geroago soldaduen **postu** bat eraikiko zutenik hantxe, gure leihetatik ehunka metro gutxira. **Juan Kruz Igerabide**

Txiki-txiki egin nintzen, eta pixka bat lasaitu ere bai, leku hark ez baitzirudien mugako **postu** bat, eta gainera militarrek itxura miseralea baitzeukan. **Juan Kruz Igerabide**

Sderot hirian bi israeldar hil dituzte; Gazan soldadu bat, **postu** bat leherrarazita. **Berria - Mundua**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Muga-**postuak** sistema beraren parte dira, muga-lerroak albo-bide ere izaten baitira beti. **Iñaki Mendiguren**

Duke handiak eta Voranzoff jeneralak defentsa **postuak** bisitatu zituzten. **Karlos Zabala**

Aginte **postura** heldu zirenean ez zegoen anbulantziarik, eta lurrean utzi zuten berririo. **Ramon Saizarbitoria**

Horrela gure kontrol **postuak** eta defentsa guneak aztertu ahal izan nituen. **Edorta Jimenez**

Lehenengo erasoak atzo goizeko 05: 00ak inguruan gertatu zen, erasotzaile andana bat Bagdadeko Al Amel auzuneko polizia **postu** bati oldartu zelarik. **Berria - Mundua**

Erromatar eta arabiar goarnizioak kolonia zibilen gune bihurtu ziren, eta gauza bera gertatu bide da goarnizio-**postu** inperialetan. **Iñaki Mendiguren**

Beren gudari-**postuak** utzirik, eta nor bere herrialdera joan zen. **Elizen arteko biblia**

Ordurako Mendebaldeko erasotzaileek ia galduta zituzten Sirian beren aitzindari-**postu** babesgabe guztiak. **Iñaki Mendiguren**

3 soldadu erusiar hil ziren eta beste 10 zauritu euren zainketa-**postu** bati eraso ziotelarik, Grozni hiriburutik hurbil. **Berria - Mundua**

-Emaidak horretara aste pare bat; eta borroka-**postu** egoki bat bilatuko diat. **Txillardegí**

## 3 erabilera jakineko gunea edo lekua.

Haría moztuta ez daukatena **postu** telegrafiko guzti-guztietara. **Karlos Zabala**

Taberna batean sartu ziren: baina barrura orduko konturatu ziren poliziaren **postu** bat zela. **Josu Zabaleta**

Kalaxnikov batekin militar bategu zituden bidaiari guztien pasaporteak, eta kontrolako **postu** batera sartu zen. Juan Kruz Igerabide  
Agentziako satelite batek [seinale elektronikoko batzuk] hartu eta berriz igortzen zituenak gure **postu**, bulego eta estazioetara. Jon Alonso  
Becheveko neskek beren leihoetako **postuetatik** begira egon ziren, nola zihoazen biak lepotik helduta. Koro Navarro

## 4 irud/hed

Zehatza izateko, garunaren benetako **postu** aurreratu bat da erretina, ez organo bereizi bat. Irene Aldasoro

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jendea dabil aterpean, apur bat urrunxeago dauden salmenta-**postuetan** baino gehiago menturaz. Urtzi Urrutikoeetxea  
Aurreko lau mendeetan zehar, europarek merkataritza-**postuak** ezarri zituzten Afrikako mendebaldeko eta ekialdeko kostaldeetan. Koro Navarro  
Tripako minik txikiena sentitzen baduzue, joan bizkor Gurutze Gorriak atarian jarri duen sorospen-**postura**. Iban Zaldua  
Izarrek ere distira egiten dute beren zaintza-**postuetan**, pozez beterik. han-hemenka ehiza **postuen** antzeko eraikinak, ertzak, dorreak, tximiniak igartzen nituen. Elizen arteko biblia  
Nik trenbideetatik aditu nuen guardia **postu** batetik bestera zihoan seinale hotsa, mailu bat kanpai arraildu bati joka, eta berehala jakin nuen nire trena zela. Fernando Rey  
Ekialderantz jarraitu zuten aitzindari-**postu** bat Mendebaldeko Ozeano Barean jartzeko. Iñaki Mendiguren  
Bertako zerbitzu-**postu** eta denda gehienak itxita daude. Anjel Lertxundi  
-Hi ardura hadi blokeo-puntuak, mezulariak eta zaindari-**postu** aurreratuak antolatzeaz. Koldo Biguri  
Makina bat galdera egin dizkirate kontrol-**postu** guztietan: "Nora zoaz? zergatik zaude bakarrik? zure gurasoek badakite? non dago zure senarra?". Jon Arretxe

## 6 kalean edo azoka batean kokaturiko saltegia.

Ogitartekoak eta crêpe-ak saltzeko **postu** txiki bat ireki zuen Quartier Latin-en. Iban Zaldua  
Bi aldeetan, kale saltzaileek beren **postuak** prestatu berriak zituzten, ohol batzuk saski handien gainean paratuz. Karlos Zabala  
Denda-mutil hasi zen Zabalguneko merkatu-plazako **postu** batean. Aingeru Epaltza  
Plazara iritsi zirenean, **postu** batzuk ikusi, eta haietatik batek berehala bereganatu zuen Sergioren arreta, zeramikaren originaltasunagatik. Joan Mari Irigoien  
Itsuek loteria saltzeko ohi duten **postu** bat. Joxemari Iturralde  
Kale-kantoiari Rose Segal eta Lillian Diamond topatu zituen **postu** batean koka kola edaten. Lopez de Arana  
Haragi erreko ogitartekoak dastatzeko **postu** ugariak. Jon Arretxe

## 7 irud/hed

**Postu** finkorik gabeko saltzaileek, estalpeko kalearen zorian jartzen zirenek, kalte handia egiten zieten. Karlos Zabala  
Zenbait txerpolar beren **postu** ibiltariak antolatzen ari ziren. Karlos Zabala

## 8 (hitz elkartuetan)

Saltzaileak freskagarri-**postuen** marmolezko salmahaiak garbitzen ari ziren. Lopez de Arana  
Barazki **postuen** luzera guztian ageri ziren ereinda ugari baino ugariago, beren bi koloreen nahasketaz merkatuari distira ematen ziotela. Karlos Zabala  
Hogei urterekin fruitu **postu** bat hartu eta bere kontura jarri zen. Karlos Zabala  
Clairek [...] ur gezatako arrain **postu** bat hartu zuen. Karlos Zabala  
Panpina-tiro **postu** itxiak, lonetaz estalitako zaldi-feria geldiak. Harkaitz Cano  
-Verlaque jaunak, espaloian zehar bira eginez, enkante **postu** baten barrutira eraman zuen. Karlos Zabala

## 9 norbaitek hartzen edo betetzen duen kargua edo betekizuna; lanpostua.

Behin-behineko gobernu berrirako 30 **postu** gorenak betetzeko saioek ez dute orain arte emaitzik jaso. Berria - Mundua  
Baztertuak ginen neurrian, lan mota askotan ez geneukan aukerarik, ez unibertsitatean, ez administrazioan, eta ez edozein **postu** garrantzitsutan. Juan Kruz Igerabide  
**Postu** altua eman zidan administrazioan. Matías Múgica  
**Postu** hobe hori lortu zuen enpresan eta autoa erosi zuen. Eider Rodríguez  
**Postu** berriak lasaitasun handiagoa eman zion, hobeto ordainduta egonik, ongizate handiagoaz gain, nolabaiteko ospea ere ematen ziolako. Bego Montorio  
Frantziara itzuli beharko naiz eta enpresa handien itzulia egin **postu** on baten lortzeko. Ramuntxo Etxeberri  
Gazteegiztat neukauan neure burua **postu** horretarako. Xabier Olarra  
-Zeure zuzeneko gainekoa naiz ni eta mundu guztiak daki neuk eman dizudala **postu** hori. Joxan Elozegi  
Madeleinek uste zuen lthurbidek **postu** garrantzitsu bat bazuela, Baionan edo hor nonbait. Elena Touyarou  
Nolabait esatearren, marinelen ontzi-terminologia erabilita, nor bere **postu** eta zereginetara itzuli zen. Harkaitz Cano  
Gurutzetako garai nahasietan handik erretiratu ziren, eta pixkana Europa osoan barreiatu, eta politika, arte, literatura, zientzia eta teologiako **postu** goi gehienak bereganatu zituzten. Xabier Olarra  
*El Siglo Médico*n landa-medikuen **postu** bete gabeak irakurtzen zituen. Josu Zabaleta  
**Postu** horretarako aurkeztu nahiko bazenu, aitaren botoa izango zenukeela uste dut. Iñaki Mendiguren  
Lan bilatze kontuetan benetako liskarrak izaten zirela **postu** hoberenak erdiesteko. Joxemari Iturralde  
Lapurtarren bigarren lerroan **postu** finkoa zuen jokalaria zen Olibeau. Berria - Kirola

## 10 irud/hed

Eraskuntza elebidunaren garapenak **postu** bat osoa ekartzen du Mendikota eta Urdinarberen artean banatuko dena. Herría  
Beste bi **postu** eta erdi ezarriak dira lehen mailako gela elebidunak irekitzeko. Herría  
Frantsesezko **postu** -erdi bat galtzen badute heldu den ikasturterako, euskarazko **postu** -erdi baten ukaitea ardietsi dute. Herría

## 11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Etorri nauk hiri erratera ene Sarako komisario **postua** uzten dudala. Gobernari-klase berria sortu zuen, indiar guztiak gobernu-**postu** gorenetatik baztertzear. Elena Touyarou  
Ea hurrengo ikasturterako han edo hemen irakasle-**postu** bat ematen zidaten. Xabier Mendiguren Elizegi  
SDLPk sei legebiltzarkide **postu** galdu ditu. Berria - Mundua  
Nire iritzian, ikuskatzaile **postua** onartu behar du inolako dudarik gabe. Karlos Zabala  
Atarratzeko eskolak frantses **postu** erdia atxikiko du, Baiona zezen plazakoak eraikasle **postu** osoa ere bai. Herría

## 12 sailkapen edo kideko batean hartzen den lekua. ikleku 7.

Diskoetxearen marketing eta banaketa lan ereduagariari esker, *Billboard*eko lehenengo **postura** heldu ziren berriro ere. Patxi Iturritegi  
Asiako herrialdeei dagokienaz, Taiwanek bosgarrenetik laugarren **postura** egin du jauzi, eta Japoniak 11.etik bederatzigarrenera. Berria - Ekonomia  
Ez herriko emakume ausarten zerrendan hirugarren **postua** eskuratzegatik. Arantxa Iturbe  
Ademar Leon ere hirugarren **postu** hori lortzeko lehian dago sartua, eta talde hori da aukera gehien duena, gainera. Berria - Kirola  
Sailkapenean **postu** bat irabaziko dugu Real Madril mendean hartuz gero, eta bigarren postua dago jokoan. Berria - Kirola  
Aurrerapauso bat eman nahi dugu, ea 14. postuan sailkatzeko lehian egon beharrean 10. **postu** inguruan bagabiltza. Berria - Kirola  
Coulthardek eta Massak motorra aldatu dute eta 10 **postu** atzerago aterako dira Malaysian. Berria - Kirola  
Frantziari kendu dio **postu** hori. Berria - Ekonomia  
Lehen **postuan** jarriko zaituzte Jaunak, inoiz ere ez azkenekoan. Elizen arteko biblia



**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

bigarren postu (18); bigarren postu hori (4); erakasle postu (25); erakasle postu bat (4); euskarazko postu (6); hirugarren postu (9); irakasle postu (12); kontrol postu (7); laugarren postu (5); lehen postu (12); lehen postu hori (5)

postu aldaketak (4); postu asko (4); postu askotan (5); postu bakar (4); postu bakarra (4); postu bakoitzeko (8); postu batetik bestera (4); postu berean (8); postu berri (14); postu berria (4); postu berriak (9); postu erdi (41); postu erdi bat (15); postu erdi baten (7); postu erdia (5); postu eta erdi (4); postu finkoa (5); postu gozoenetan (4); postu idekiko (4); postu lortu (4); postu on (24); postu on asko (11); postu on bat (6); postu ona (19); postu ona lortzea (5); postu ona lortzeko (5); postu onak (10); postu onak lortu (4); postu onean (4); postu sortu (5); postu ziarra (7)

sailkapen nagusian postu (7); sailkapenean postu (6); sailkapeneko postu (8)

azken postuak (7); bi postuak (14); bigarren postuak (9); hiru postuak (5); hirugarren postuak (7); igoera postuak (4); irakasle postuak (11); jaitziera postuak (49); jaitziera postuak saihesteko (5); jaitziera postuak (6); laugarren postuak (8); lehen bi postuak (10); lehen postuak (10)

postuak atzean utzi (4); postuak erabakitzeko (9); postuak finkatzeko (6); postuak kendu (4); postuak saihesteko (5); seigarren postuak (5); uefako postuak (8); uefarako postuak (4)

atezain postuan (5); atzelari postuan (7); aurreko postuan (9); aurrelari postuan (7); azken aurreko postuan (8); azken postuan (53); azken postuan da (6); bederatzigarren postuan (19); bederatzigarren postuan sailkatu (5); bigarren postuan (150); bigarren postuan amaitu (5); bigarren postuan da (6); bigarren postuan dago (7); bigarren postuan geratu (6); bigarren postuan sailkatu (29); bosgarren postuan (37); bosgarren postuan bukatu (4); bosgarren postuan sailkatu (9); euskarri postuan (17); euskarri postuan aritzen (4); hamahirugarren postuan (4); hamaikagarren postuan (7); hamargarren postuan (9); hemezortzigarren postuan (4); hirugarren postuan (101); hirugarren postuan amaitu (4); hirugarren postuan da (5); hirugarren postuan dago (8); hirugarren postuan sailkatu (16); laugarren postuan (66); laugarren postuan da (6); laugarren postuan dago (5); laugarren postuan sailkatu (13); lehen postuan (171); lehen postuan amaitu (14); lehen postuan amaitzeko (4); lehen postuan bukatu (4); lehen postuan da (9); lehen postuan dago (7); lehen postuan jarraitzen (6); lehen postuan jarri (10); lehen postuan sailkatu (5); lehenengo postuan (8); multzoko lehen postuan (12)

postuan amaitu (45); postuan amaituko (4); postuan amaitzea (5); postuan amaitzeko (5); postuan aritzen (7); postuan atera (5); postuan bukatu (36); postuan bukatu du (8); postuan bukatu zuen (15); postuan bukatu zuten (4); postuan bukatuko (4); postuan bukatzea (6); postuan da (82); postuan dago (71); postuan daude (12); postuan dira (16); postuan egon (9); postuan egongo (4); postuan egotea (4); postuan gaude (5); postuan gelditu (7); postuan geratu (16); postuan helmugaratu (15); postuan iritsi (7); postuan izan (4); postuan jarraituko (5); postuan jarraitzen (17); postuan jarri (18); postuan jartzea (4); postuan jartzen (5); postuan jokatu (4); postuan jokatu (5); postuan jokatzeko (8); postuan sailkatu (148); postuan sailkatuta (8); postuan sailkatzea (4); postuan sailkatzeko (4); postuan sartu (6); postuan zegoen (7); postuan zen (5)

sailkapenaren bigarren postuan (5); sailkapeneko azken postuan (5); sailkapeneko bigarren postuan (6); sailkapeneko lehen postuan (7); seigarren postuan (30); seigarren postuan amaitu (6); seigarren postuan da (4); seigarren postuan sailkatu (4); zazpigarren postuan (23); zazpigarren postuan sailkatu (5); zortzigarren postuan (19); zortzigarren postuan dago (5); zortzigarren postuan sailkatu (6)

bigarren postuarekin (11); bigarren postuarekin konformatu (5); hirugarren postuarekin (5)

bigarren postuari (16); bigarren postuari eutsi (4); bosgarren postuari (4); postuari eustea (12); postuari eusteko (16); postuari eusten (6); postuari eutsi (18); postuari eutsi dio (4); postuari eutsiko (5)

bigarren postuaz (5); postuaz hitz (4); postuaz jabetzeko (5)

goiko postuei (4); postuei eusteko (5)

jaitziera postuekiko (4)

postuen arabera (4); postuen lehian (4)

aitzineko lau postuetan (5); ardura postuetan (4); atzeko postuetan (4); aurreko postuetan (9); aurreneko bi postuetan (4); aurreneko lau postuetan (4); aurreneko postuetan (7); azken postuetan (33); azken postuetan dauden (6); beheko postuetan (12); europako postuetan (10); gaitzeko postuetan (4); goiko hiru postuetan (5); goiko postuetan (48); hirugarren postuetan (6); igoera postuetan (15); jaitziera postuetan (71); jaitziera postuetan dago (15); jaitziera postuetan (14); jaitziera postuetan dago (5); lehen bi postuetan (13); lehen bost postuetan (4); lehen hamar postuetan (5); lehen hiru postuetan (10); lehen lau postuetan (5); lehen postuetan (53); lehen zortzi postuetan (4); lehenengo postuetan (5); ligako postuetan (10); maila gaitzeko postuetan (4); ohorezko postuetan (4)

postuetan da (9); postuetan dago (31); postuetan daude (8); postuetan dira (7); postuetan egon (16); postuetan egongo (5); postuetan egotea (6); postuetan egoteko (7); postuetan izan (8); postuetan jarraitu (5); postuetan jarraituko (5); postuetan jarraitzen (13); postuetan jarraitzen du (9); postuetan sailkatu (8); postuetan sailkatuta (7); postuetan sailkatzea (4); postuetan sartu (16); postuetan sartuta (4); postuetan sartzeko (11); postuetan zegoen (4)

sailkapenaren azken postuetan (7); sailkapenaren goiko postuetan (5); sailkapeneko azken postuetan (12); sailkapeneko goiko postuetan (5); sailkapeneko lehen postuetan (8); txapeldunen ligako postuetan (10); txapeldunen ligarako postuetan (7); uefako postuetan (11)

azken postuetatik (6); beheko postuetatik (15); europako postuetatik (7); goiko postuetatik (10); goiko postuetatik gertu (5); igoera postuetatik (6); jaitziera postuetatik (77); jaitziera postuetatik atera (4); jaitziera postuetatik gertu (5); jaitziera postuetatik kanpo (13); jaitziera postuetatik urrundu (4); jaitziera postuetatik (7); lehen postuetatik (9); lehen postuetatik urrun (5)

postuetatik aldentzeko (4); postuetatik aldentzeko aukera (4); postuetatik atera (6); postuetatik ateratzeko (5); postuetatik gertu (18); postuetatik hiru puntura (4); postuetatik ihes egin (7); postuetatik ihes egiteko (9); postuetatik kanpo (22); postuetatik kanpo dago (4); postuetatik kanpo dagoen (5); postuetatik urrun (9); postuetatik urrundu (6); postuetatik urruntzeko (7)

bigarren postura (10); bigarren postura igo (4); hirugarren postura (7); lehen postura (13); postura aldatu (4); postura egin du (5); postura igo (12); postura igo da (4); postura igo zen (4); postura jaitzi (8); postura jaitzi da (4); postura jauzi (4)

posturaino igo (6)

bigarren posturako (28); bigarren posturako lehia (4); bigarren posturako lehian (5); euskarri posturako (6); hirugarren posturako (15); hirugarren posturako lehia (4); hirugarren posturako lehian (5); laugarren posturako (5); lehen ministro posturako (5); lehen posturako (8); posturako borrokan (7); posturako lehia (14); posturako lehian (15)

posturik onena (13); posturik onenean (5)

azken postutik (10); bigarren postutik (8); bosgarren postutik (5); laugarren postutik (6); lehen postutik (14); seigarren postutik (6); zortzigarren postutik (4)

**postulante** iz erlijiozko helburuetarako eske-egilea.

Jainko Jauna Eliza santu katoliko eta apostolikoaren baitan zerbitzatu nahi duten guztiei, maila guztietako: apaiz, diakono, subdiakono, akolito, exortzista, irakurle, atezain eta kleriko guztiei, erlijioso eta erlijiosa guztiei, donadu eta **postulante** guztiei. **Askoren artean**

**postularazi**, postularaz, postularazten du *ad* postulatzerara behartu.

Orduan, balio moralen absolututasunak (hau eztabaidea da Hartmannentzat) ateismoa **postularazten** du. **Joxe Azurmendi**  
Kant baitan, izan ere [...] beste ezerk ez eta justu lege moralak **postularazten** zuen Jainkoaren existentzia. **Joxe Azurmendi**

**postulatu**<sup>1</sup>, postula, postulatzen du *ad* postulatu gisa proposatu.

Objektu fisikoak egon badaude, baina **postulatu** egiten dira, gure gogoan hautematen duguna (ideiak, errepresentazioak) haiek kausatzen baitute. Lehen kasuan, baldintza **postulatu** egiten da (*per thesin*), bigarrenean, suposatu egiten da (*per hypothesin*). **Askoren artean**

Izate hau **postulatu** egin behar da, zeren baldintza determinatu hori inferitzeko erabiltzen den baldintzatukia bera *a priori* behar-beharrezkoa bezala ezagutzen baita. **Ibon Uribarri**

Hala **postulatu** zuen Einsteinek hurrengo artikuluan. **Berria - Harian**

Identitatea **postulatzen** duen generoen printzipio logikoari beste bat kontrajartzen zaio, hots, espezieena. **Ibon Uribarri**

Locke-k, XVII. mendean, hizkuntza ezinezko bat **postulatu** (eta gaitzetsi) zuen, zeinean gauza bakoitzari, harri bakoitzari, txori bakoitzari eta adar bakoitzari izen berezi bana egokituko baitzaitzaion. **Juan Garzia**

**Postulatzeak** esakune bat zuzenki ziurtzat hartzea esan nahi duela, legeztapen edo frogarik gabe. **Ibon Uribarri**

**postulatu**<sup>2</sup> 1 iz frogatu beharrik egiazkotzat hartzen den printzipioa, beste arrazoibide batzuen oinarri gisa balio duena.

Definizioen ondoren, **postulatuak** eta axiomak datoz. **Jon Muñoz**



Horiek dira ardiarioen premisak edo **postulatuak**. Askoren artean

Ondoren, postulaturik ezagunena: paraleloen **postulatu**. Jon Muñoz

**Postulatu** horri zor zaio triangelu lau baten angeluen batura berdin 180° dela esan ahal izatea, edo angeluzuzenak badirela, besterik gabe. Jon Muñoz

**Postulatu** hori gabe, akabo Pitagorasen teorema. Jon Muñoz

Arazoimenaren **postulatu** logikoa da adigai batek bere baldintzekin duen elkarlotura. Ibon Uribarri

Eta orain ahalgarritasunaren **postulatu** honen onura zabalda eta eragina begi-bistan jarri nahi ditugu. Ibon Uribarri

**Postulatu** hori onartuz gero, zientziak ez du inolako muga edo oztoporik nahi duena baiesteko, isilik egon ordez. Jenaro Garate

Jaungoikoa ez da urrutiko **postulatu** mutua, Kanten Jaungoikoaren antzekoa. Jenaro Garate

Oinarrizko **postulatu**a : irudikapenaren historiak bere baitan hartzen du pintura eta zinema, baina horiek baino urrutirago iristen da, garai guztietan eta irudi mota guztietan oinarrian dauden printzipio ikoniko guztiak hartzeko. Josu Zabaleta

## 2 (hitz elkartuetan)

Ez du helburu gisara garai jakin bateko ezagupenek obeditzen duten **postulatu** -sistema berriz eratzea, baizik eta harreman-arlo zehaztugabe bat zeharkatzea. Xabier Arregi

Ezintasun hori erremediatzeko, bere **postulatu** -kokalekutik kendu eta teoremaren egoera aruntagora ekarri nahi izan dute behin eta berriz matematikariek. Jon Muñoz

· Ikusi dugun moduan, ez dago sorrera **postulatu** beharrik profeziaren posibilitatea onartzeko. Xabier Kintana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**postulatu hori ezarri** (4)

## postumo *(orobat postumu g.er.)* 1 izond aita hil eta gero jaioa; egilea hil eta gero kaleratua.

"Justine-ren egilearen lan **postumoa**" zela esanez editatu zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kritikok testamentu gisa utziko dudan testura lerratuko dira eta nik oso idazle gutxi izan duten zoriaz gozatuko dut, bizirik egonik nire fama **postumoa** bideratu eta kontrolatzeko aukera izango nukeelako. Joxean Agirre

Arrazioa izatea izan da, zalantzarik gabe, pentsalari erraldoi honen betiko grina, eta horren froga berria dugu sasi autobiografia **postumo** hau. Berria - Kultura

Marai bezala, Kosztolanyi (Szabadka 1885-Budapest 1936) «arakasta» **postumua** ari da lortzen gure mendebalde honetan, Berria - Kultura

## 2 (adizlagun gisa) ik postumoki.

*Prélude à une déclaration des devoirs envers l'être humain*, Paris 1949 (**postumo** argitaratua), Joxe Azurmendi

## postumoki *adlag* egilea hil eta gero.

Hautatu zuten argazkian, ordea, margolari ospetsua ezpain artean zigarro bat zuela azaltzen zenez, ordenagailu bidez irudia birmoldatu eta ezabatu egin zuten zigarroa, **postumoki** bada ere, Pollocki bizioa uzten lagunduz. Harkaitz Cano

## postumu ik postumo.

## postura<sup>1</sup> iz gorputz jarrera.

Haren mugimendua aprobetxatu zuen Sethek, berak ere **postura** aldatzeko. Anton Garikano

Biluzik baino larrugorriago, ez dakit zein **postura** hartu, eskuez zer egin, arnasari nola eutsi. Anjel Lertxundi

Gero, futbol atezainaren **posturan** jarri naiz, hankak zabalik eta enborra makur. Harkaitz Cano

Denbora horretan lurrean eserita egon omen zen, yogan "loto lorea" deitzen zaiion **posturan**. Bernardo Atxaga

Besoak zabaldu zituen, astiro eta dotore, gurutziltzatuaren **postura** hartu arte. Unai Elorriaga

"Nobela bat dut eskuartean" esan nion, eta, arreta jartzeko bere **postura** harekin -besoak gurutzatu eta gorputza mahai gainean aurreratuta-, ea zeri buruzkoa zen galdetu zidan. Ramon Saizarbitoria

Ezin nintzen mugitu, ezta hitzik egin, eserita nengoen eta **postura** horretan jarraitzen dut. Iñaki Arranz

**Postura** horretan neskak atzea eskainiko dio zaldunari, eta honek ipurditik emango dio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Postura** hura biziki lizuna iruditzen zitzaidan eta, horregatik, gero eta gehiago kilikatzen ninduen. Juan Martin Elexpuru

Erabateko erlaxazio eza agerian uzten duen **postura**, besoak guztiz beheratu gabe, gerri pare horretan edukirik, pistola istantean atera ahal izatea errazten diena. Patxi Zubizarreta

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Geu gara, **postura** egokia aurkitu ezinda, loak noiz harrapatuko egoten garenak. Arantxa Iturbe

Bere jestua utziz, **postura** normalera itzuli zen. Ramuntxo Etxeberri

Harri gainean lo egiten dute, eskuak edo zangoak **postura** nekagarrietan izaten dituzte denbora luzean. Gotzon Garate

Begietan eta gorputzaren **postura** tentean, gizon hark zerbait bazuela sumatu nuen, patologia psikikoren bat edo. Hasier Etxeberria

Burua altxatzen dik, lepo liraina okertu, gorputza atezuan jartzen zaiok, segundo batzuk egiten ditik horrela, **postura** bikainean, hire aurrean, harri bihurturik bezala. Xabier Olarra

**Postura** koreografiko hori hartu ohi zuen urduri zegoenean, bere giharrei heltzeak segurtasuna ematen zion nonbait. Joxean Agirre

Zutikako **postura** bertan behera utzi zian, ez zidaan begietara begiratzen, ez zuan nagusiaren aurrean zegoen soldadua. Xabier Olarra

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ballet **postura** bat entseatu ondoren, gelditasun berdinarekin atzera tolestu eta melodia bukatzerako kaxara bere burua bilduz. Harkaitz Cano

Borreroak koadernotxo bat marraztua du berak asmaturiko urkatze-**postura** desberdinekin. Karlos Linazasoro

Hori esan al zuen? -galdetzen du gonbidatuak, eta mugitu egiten da: gizamolde-**postura** aldatu eta eztarria argitzen du. Xabier Olarra

## 4 pentsateko edo aritzeko jarrera.

Chavezen **postura** gogorra izan da, tinkoa. AEBetako presidentetzarako hautagai demokrataren bozeramaileak, bestalde, argi utzi zuen bere alderdiaren **postura**. Pako Aristi

Eman dezagun oso **postura** progresistak hartzen dituela politikan. Bernardo Atxaga

Europa federal baten aldeko **postura** militantea zuen ETAk hasieran. Joseba Zulaika

**Postura** "demokratiko" horrekin ere, ez ote da zilegi izango eszeptiko samarrak izatea? Joxe Azurmendi

Estatuaren eliminazioa eskatzen zuen anarkisten **posturara** iritsi gabe. Joseba Zulaika

Garapen Kontseiluak **postura** bat hartu du laborantza ganberaz. Berria - Euskal Herria

Alderdi Kontserbadorean are handiagoa da EBren Lege Nagusiaren aurkako **postura**. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)  
postura aldatu (4); postura desegin dute (3); postura egokia (3); postura zurrin (3)

## postura<sup>2</sup> 1 iz apustua.

Alferrik zela bihotza bakarrik asmo onez betetzea, garaiz iristeko behar zuela auto azkarra, **postura** irabazi behar genuela, trufa eta ironia guztiek beste zentzu bat hartu zuten... [Koldo Izagirre](#)

### 2 postura egin

- **Postura** egingo nuke baduzula beste zerbait niri esateko. [Josu Landa](#)  
- Irabazi egingo dugula egin zioat **postura**! [Koldo Izagirre](#)  
Ezin diagu porrot egin, **postura** egin diat irabaziko dugula! [Koldo Izagirre](#)  
**Postura** egingo zuen Matiasek harri leundu haiek ez zirela harriak, hilarriak zirela. [Unai Elorriaga](#)

## posturatxo iz apustu txikia.

Lantzean behin, Jatabeko probetara eta joaten zan, **posturatxoak** eta gustaten jakozan eta. [Xabier Amuriza](#)

## postutxo iz adkor postua.

Txaplik bere **postutxo** zabaldu eta lortu zuen gramotxo batzuk saltzea. [Unai Iturriaga](#)  
Osabak zerbitzari **postutxo** bat eskuratzen bazion dendan, betiere esker oneko eta zorretan geldituko zitzaion eta abar. [Bego Montorio](#)

## pot-pourri iz saski-naskia.

Ümore hona ez zen eskas, bost musikariek **pot** pourri' bat eskeini beit dñe, lastozko txapelak jañtsirik beren trebezia erakutsiz [Herria](#)

## pot<sup>1</sup> (orobat **pott**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pot** agertzen da) 1 iz musua.

Edozein lekutako mateletan mila **pot** pausaturen nizkiola. [Itxaro Borda](#)  
Emankizun guziak beti bururatu ditut entzuleri mila **pott** eskainiz eta heldu den astelehenean arte erranez. [Menane Oxandabaratz](#)  
Laster eman dit **pota** saman, gosebera, bularrak itsatsiz nire aurka. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)  
Erakutsia emateko, berak kendu dio lehenengo **pota** Matilderi, sari gisa. [Itziar Otegi](#)  
-Deus baino gehiago "eza" dut maite! -erran-eta **pot** lizun eta luzeskoa ematen dio dantzaren zorabioan jirabira dagien bitartean. [Jose Angel Irigaray](#)  
Hargatik, besteak baino gutxiago ez zela frogatzeko, **pott** nasaia eman zion. [Itxaro Borda](#)  
Badakik hik ukuiuletako jenio hori, Akerbeltz, bazela akelarreko apaiz burua ere, eta akelarreetara joaten ziren emazte guztien **potak** jasotzen zituela uzkian. [Anjel Lertxundi](#)

### 2 pot egin (orobat **potegin g.er.**) musu eman.

Ipini zidan esku bat masailan, goratu zituen ezpainak, eta **pot egin** zidan bekokian. [Joan Mari Irigoien](#)  
**Pot egin** nion masailan aurpegi zabal eta bilo argiko umeari. [Xabier Montoia](#)  
Pixa egin nion burutik behera eta, ostera galtzak jaitsirik, ipurdian **pot egitera** behartu nuen. [Anjel Lertxundi](#)  
**Egidak pot**, judu zikina, **egidak pot**, **egidak pot**, zikin horrek! [Anjel Lertxundi](#)

### 3 pot eman musu eman.

Osabak **pot eman** zion matelan, eta haurra ferekatu ondoan, jin bezala joan zen. [Elena Touyarou](#)  
Ishmirrek, pozarren, **pot eman** nahi izan zion, baina ipotxak atzera egin zuen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)  
**Pot emateko** gogoak zigarroa lurreko baldosetara jausten uztera behartu zuen. [Josu Landa](#)  
Sorgin auzietan ere, maiz ageri da, aker beltzari ipurdian (uzkian) **pot emate** kontua, kristau xuriekiko ofentsa zikin moduan. [Patziku Perurena](#)  
Ez zuen gauza handirik galdegiten, baizik eta etxera bizirik itzultzea, amari **pot emaita**, ohean sartzea eta han hiltzea baina etxean hiltzea. [Eneko Bidegain](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egidak pot (3); egiguk pot (4)

potta eman (3)

## pot<sup>2</sup> (orobat **pott**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **pot** agertzen da)

### 1 pot eginsup\_1 leher egin.

Magnolia Crescent kaleko horma apal batean **pot eginda** eseri zen, kutxa garraiatzen egindako ahaleginagatik arnasestuka. [Iñaki Mendiguren](#)  
Loguratuta dago, begiak ixten zaizkio, **pot eginda** dago. [Luis Elberdin](#)  
**Pott eginda** zeuden, bide egin berriak birrinduta. Berdin batean sekulako denbora luzez tente egoteko gauza zela iruditzen zitzaion, edo hurrengoan hain zegoen nekatura non ahaleginik txikiak ere **pot eginik** uzten zuen. [Xabier Montoia](#)  
Pozik baina **pot eginda**. [Berria - Kultura](#)  
**Pot egin** arte, lanean. [Berria - Ekonomia](#)  
Entrenamendu eta zaintza-lan gehigarriez akituta, aurki **egin** nuen **pot**. [Mirentxu Larrañaga](#)  
- Hari ere etortzen zitzaion tristezia, **pot** eta leher **egin** arte lan egin besterik egin ez eta gero "bizitza! bizitza!" esaten duten haiei begira. [Fernando Rey](#)  
Hotzarekin zurrunduta eta erdi **pot eginda** atera ziren Etxabeko kaskora. [Pablo Sastre](#)

### 2 pot eginsup\_2 porrot egin, huts egin.

Batxilergoko 5.ean ikasketetan berriz ere **pot egin** zuen. [Aingeru Epaltza](#)  
Gure lantokian militanteegiek **pot egiten** dute lehenago edo geroago. [Aingeru Epaltza](#)  
Kasik poztu nintzen, Javier idatzi eta makinak berriz ere **pot egina** nuela adierazi zidalarik. [Aingeru Epaltza](#)  
Beste guztiak **pot egiten** duenean, hondar-identitate hori da geratzen dena. [Joseba Zulaika](#)  
Baina agian hobe beste hontz bat erabiltzea, lehengoa berriro bidaliz gero, **pot egingo** duela uste dut eta. [Iñaki Mendiguren](#)  
Osaba Vernonon adorea **pot egin** zuen berriro; paretaren kontra kikildu eta mutu geratu zen. [Iñaki Mendiguren](#)

### 3 (egin ezabatutik)

Horretan ere **pot**. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pot eginda** (10); **pot egiten** (6)

**pott egin** (11); **pott egin zuen** (5); **pott eginda** (8); **pott egingo** (3); **pott egitea** (3); **pott egiten** (4)

## potá (orobat *potxa*) iz xibiaren antzeko soinbera, ez hain fina (*Ommastrephes sagittatus*).

Muturzorrotzak zer diren jakitea ez da gaur gauza erraza, baina **potxak** - **potá**, txipiroiaren antzeko animalia, handiagoa eta zabalagoa- harrapatzeko era bertsua erabiltzen da. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

**Potxa** emea harrapatu, lotuta ipini eta arrak noiz etorriko zain egon... **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

## potaje 1 iz eltzekaria, eltzea, lapikokoa.

Mahaiaren erdian eltzea jartzen zuten, **potajez** betea jeneralean, eta inguruan etxeko guztiak kutxara bat eskuan zutela, bertatik jaten. **Xabier Etxabe**

**Potajea** izaten zuten gehienetan, edo **potaje** izeneko behintzat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Antoniak **potajearen** lapikoari eta arrainaren kaxuelari azken astinaldiak eragiten zizkien bitartean. **Josu Landa**

Lehen, etxeko sukaldean garatzen ziren lan gehientsuenak egun fabrikari egiten dira: kroketak, zopak, **potaje** edo eltzekariak, albondigak, kontserbak, postreak, tortillak, saldak, pastak... **Edorta Agirre**

## 2 (hitz elkartuetan)

Han, eguneko edozein ordutan emango zizkizuten erremolatxa **potaje** gorri-gorria, arrain errea edo gisadua. **Matias Múgica**

## potapsia iz

Ezteietan urdaidun **potapsia** eta Ukrainako beste zizka-mizka batzuk atera dituzte: azaz, sagarrez, perniluz, pepinoz eta tomatez eta indioilar zatiez egindako pintxoak.

**Urtzi Urrutikoeetxea**

## potasa iz potasio karbonatoa, landare errautsetatik batez ere ateratzen dena.

Kasu horretan, **potasa** edo sosa izaten dira katalizatzaile erabilienak. **Berria - Gaiak**

**Potasako** xaboiz irakindako uretan. **Bego Montorio**

## potasio 1 iz gai bakuna, zilar koloreko metal malgua, 63,5 °C-tan urtzen dena eta oso erraz oxidatzen dena (K; at. z. 19).

**Potasioa**, esan dudanez, sodioaren bikia da, baina are indar handiagoz erreazionatzen du airearekin eta urarekin. **Juan Garzia**

Haize hegoak jotzen duenean nerbio sistemaren barruan sodio eta **potasiozko** partikulen dantza gelditu egiten da eta horixe omen zen haize hegoarekin hainbat pertsonak sentitzen zuten ondoezaren arrazoia. **Joseba Sarrionandia**

Flasko bat **potasio** aurkitu nuen. **Juan Garzia**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fenoltaleinarekin tratatu nuen: basikoa zen, **potasio** hidroxidoa zen. **Juan Garzia**

Sodio-glutamatoa, gesala (**potasio**-nitratoa), gatz urdin edo grisa, itsas gatza, etc. **Edorta Agirre**

Sendagile bati deitu nion, eta **potasio** bromuroa eta dutxak agindu zizkidan. **Josu Zabaleta**

Nutrizio alderditik begiratuta, sodio-kloruroaren ordez **potasio**-kloruroa baliatzen hasiak dira goi-sukaldari aitzindari batzuk. **Edorta Agirre**

Bon! egin zuen gasolinak azido sulfuroarekin eta **potasio** klorotoarekin bat egindakoa. **Rafa Egiguren**

## pote 1 iz *adkor* baxoerdia edo kidekoa.

Tabernan **pote** bat hartu, eta jatetxerantz abiatu gara. **Iban Zaldua**

-Goazen Kutxira **pote** batzuk hartzera -manager paregabea zen Txapli-. **Unai Iturriaga**

Bazakiat zer gertatuko den **pote** batzuk hartzen hasiz gero. **Unai Iturriaga**

Gaur ezer inportanterik ez badaukazu egiteko, joan gintezke zer edo zer hartzera, **pote** bat edo. **Sonia Gonzalez**

Gaur bakarrik kanporatu arren, bere lako alprojaren bat ez da faltako **pote** pare bat hartzeko gogoz. **Sonia Gonzalez**

Gero azken **pote** bat hartzera joan ginen, Zazpira. **Iban Zaldua**

## 2 potoa.

Zorterik ez baduzu, **pote** batean luzokerrak eta mustarda saltsa pixka bat besterik ez dator. **Josu Zabaleta**

-Kafe alerik gogokoena gorde nituen **pote** batean, eta ez dut uste urte hauetan galduko zirenik. **Javi Cillero**

Mihi-arrain kontserbazko **pote** bat hondatu egin da. **Josu Zabaleta**

Boligrafoa hartu zuen "Kaskagorrik" mahai gaineko **pote** borobil eta loratu batetik. **Joxemari Urteaga**

Oso noizean behin zabaltzen du **pote** bat. **Anjel Lertxundi**

Aurpegirako hautsen **pote** bat irauli zuen. **Lopez de Arana**

Potter **potean** pixka egiten! -esan zuen Peevesek kar-kar. **Iñaki Mendiguren**

Poltsikotik kristalezko **pote** bat atera zuen, ukenduz betea, eta Albertori luzatu zion. **Juan Kruz Igerabide**

Portzelanazko **pote** batetik ontzi txiki batera isuri zuen likido garden txorrotadatxo. **Josu Landa**

Zuzendariak, presoekin hitz egin partez Polizia sarrarazi zuen kezko **pote** eta gomazko pilotak jaurtikiz. **Jokin Urain**

Orain eraikin triste bat iruditzen zait, latorrizko **pote** marruskatu bat erreka-bazter zikinera jaurtikia. **Patxi Iturritegi**

Garbigarri ezagun baten **pote** handi hustu bat. **Jokin Muñoz**

Kafeontzia, bi kikara eta **pote** bat gaileta ekartzeko erabili zuen. **Migel Angel Mintegi**

## 3 (neurri gisa)

-Hamar **pote** arrain, berrogei **pote** esne, hamar kilo esne hauts, hiru botila olio, lau **pote** (kontserbatakoak) gurinez beteta, lau **pote** haragi, bi pitxer marrubi, [...]. **Josu Zabaleta**

Eri zeudenei urtebetetze-postalak bidaltzea eta beirazko **pote** bete zopa eramatea baino beste gogoetarik ez zuena. **Mirentxu Larrañaga**

Jende elemeria serio-serio begiztatuko duzu, nor bere **pote** bete urarekin, kaka egitera irtenda. Gotzon Garate

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Marinel mozkorti batek **pote**-irekigailu batez egina dirudi. Javi Cillero

**Pote** pila hura hasi zen bederen pixkanaka beherantz egiten. Iñaki Iñurrieta

Diru-kutxan zeuden azken hondarrek babarrun **pote** pila bat erostea deliberatu zuen Luis Angelek. Iñaki Iñurrieta

Sanchezeneko sardin-**pote** kajak eta, zer ez ote genituen eraman... Pablo Sastre

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi piper **pote** daude hozkailu gainean: hutsik bat, kotoi maluta bat gordetzen du besteak. Eider Rodriguez

Hara eramaten du gas-sukaldetxoa, tea egiteko edo kontserba-**poteetako** janaria berotzeko. Oskar Arana

Lekale-**poteak** eta oliba-pitxerrak ikusten zituen. Lopez de Arana

Beti ekartzen dizkit marmelada eta jele **poteak**. Lopez de Arana

Zigarro-pakete eta zerbeza-**pote** abandonatuek. Berria - Kultura

Zainzuri-**pote** bat askatu, entsalada bat prestatu, eta arrautzopil bat egin genuen txanpinoiekin. Juan Kruz Igerabide

Garagardo botila eta sardina-**pote** zirtzilduak pilatzen diren lekua. Xabier Olarra

Plater birakarari batean edukitzen ziren plastikozko espezia-**pote** haiek. Joxan Elozegi

Maiatzaren 20an aitak bost jogurt **pote** galdu zituen Van Daan andrearekin egindako apustu batean. Josu Zabaleta

Apal bat ukendu **pote** batzuekin. Koldo Izagirre

Eta nik erosi nituen sei pintura **pote** haiek zer? Pako Aristi

Handik gutxira, oso gutxira, Poliziaren sirena hotsak, ke **pote** eta pilotakaden danbada sikuak. Paddy Rekalde

Llum aukitik altxatzen da, Coca-cola **pote** hutsa hartzeaz batera. Antton Olano

'Fairy ultra' **pote** bat. Pako Aristi

Txerri gantz **potea** edo barraskilo kaxa ekartzeko eskatzen zion mutilari. Karlos Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

marmelada **pote** (3); **pote bat hartzera** (3); **pote batzuk hartzera** (3); **pote pila** (3); **ukendu pote** (3)

**potea hartu** (4)

garagardo **poteak** (3); **ke poteak** (7)

## poteatu, potea, poteatzen du *ad* poteak hartzen ibili.

Lanean, bestaz besta, manifestaldietan, **poteatzen**, kanutoak erretzen zituzten edo rock musika entzuten zuten. Itxaro Borda

Gero tabernaz taberna doaz, **poteatzera** eta marikoikeriatan ibiltzera, maritxuak dira baina gizon-gizonak. Karlos Zabala

Egoitza nagusia bisitatu, estatutuen xehetasunak azaldu, bibliotekan genituen liburu eta aldizkariei buruz hitz egin, **poteatzera** irten... Iban Zaldua

## poteatzaile *iz* poteak hartzen ibiltzen den pertsona.

**Poteatzaileak** joanak ziren, eta tabernaria Mikelen mahaiko basoak eta hautsontzia batzen ari zen. Unai Iturriaga

## potegin ik pot<sup>1</sup> 2.

## potekarro *iz* *adkor* poteak garraiatzeko ibilgailua.

Baserrietako atarian zenbat **potekarro** pilatzen diren ikustea besterik ez dago jabetzeko baserri-giroko autismoak (nork esan behar zuen?) ez diola xiudadekoari batere zorrik: bizia beti beste nonbait dago. Iñaki Segurola

Jendea, berriz, hara hurreratu ez zena, dena teiltatuetara igota, **potekarro** hura ia zuzen-zuzen gorantz nola zihoa ikusirik harrিতuta, motor hots eta burrundara izugarrien erdian arbolak atzean utziz. Pako Aristi

## poteño *iz* potetxoa.

Behintzat, Prince Albertera iritsi gabe, bideko ospitale batean hil zitzaion ama Michaëli; handik aurrera haren errautsak **poteño** batean sartuta zeramatzala segitu zuen berak.

Pablo Sastre

## potentatu *iz* diruduna, ahalduna, aberatsa.

Milaka soldadu gazte harakinari entregatzen zizkion ministro honengana, halako lur oparo eta aberatsean prosperoa izan zitekeen herri espainiarra zergapean hondoratzen duen **potentatu** honengana. Koldo Izagirre

## potente 1 *izond* ahalmen handikoa.

- **Potentek** dira lanparak? Unai Elorriaga

Ezin eskatuko diegu haiei ordenadore **potente** baten ziurtasunik. Pello Zabala

## 2 irud/hed

Esan zion erle guztien ama dela erlama; erlerik **potenteena** dela erlama. Unai Elorriaga

Kutrea bai, baina han arnas zitezkeen kontzertu **potente** baten osteko izerdi kiratsa nahiz arrakastaren lurrin berezia. Unai Iturriaga

Oso dibertigarria da, jendeak barre asko egiten du, baina atzean istorio **potente** bat dago. Berria - Kultura

Argudio **potenteagoren** bat eman beharko didak Clapton kentzeko. Iban Zaldua

Liburuki **potente** hauetako inon ez da azaltzen, mairuak hain beldur jartzen zituen fabrika hilkor horren gutxi gorabeherako ideiarik ematen duen marrazkirik ez dago. Jon Alonso

Jende dexente, soinua **potente**, giro ederra. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 *tente potente* ik *tente*.

# potentzia 1 iz fisikan, denbora unitatean egiten den lana.

Horregatik dituzte 1 Formula autoek halako **potentziak** : 3 litroko V10 motorrek 900 zalditik gora eskaintzen dituzte. Berria - Kirola

1.997 cc.ko motorra du, eta 300 zaldiko **potentzia** lortzera iritsi daiteke. Berria - Kirola

Autobus horiek daramaten hidrogenozko pilak 205 kilowatteko **potentzia** ematen die, eta betiko autobusak ibiltzen diren antzera ibil daitezke. Berria - Gaiak

Santurtziko zentralaren **potentzia** 400 megawatt handituko da. Berria - Ekonomia

Gizakiak 6 zaldi **potentziako** (zp) indarra egin dezake segundo batean edo bitan (pisu-jasotzen, esate baterako), eta atleta batek 2 zp inguruko **potentzia** manten dezake 100 metroko lasterketan. Irene Aldasoro

86 haize errota egingo ditu Asturiasko Baos y Pumar eta Curiscao parke eolikoetan 73 Megawatteko **potentzia** instalatzeko. Berria - Ekonomia

Gobernuko Industria Sailak 936 MWeko **potentzia** ekoiztea pentsatua du 2005erako. Berria - Euskal Herria

28 parke eoliko daude Nafarroan, eta 693, 2 MWeko **potentzia** sortzen dute. Berria - Euskal Herria

Mercedesak jauzi egin zuen aurrerantz, bere **potentzia** itzelaren ahal guztiaz bultzaturik. Alberto Ladron Arana

Autoa, **potentzia** handikoa baitzen, arin eta nekerik gabe egiten ari zen bidea nik ezagutzen ez nituen paraje ederretan barna. Anjel Lertxundi

Makinak **potentzia** handikoak izanik ere, hamasei versta orduko baino gehiago ez zuen egingo Kaukaso ontziak. Karlos Zabala

**Potentzia** osoari eman zion, eskulitari eraginez. Jon Muñoz

## 2 ahalmena, indarra.

Gizakiaren **potentzia** diren adimena, nahimena eta oroimena, eta zentzumenak, gizakiaren beso eta hankak dira, buruarengandik desberdinak. Jenaro Garate

**Potentzian** den gauzaren aktoa da higidura, baina "akto inperfektu" gisa ulertzeke dagoena, gutxika infinituari hurbiltzen zaiona. Askoren artean

Izan ere, hori onartuko balitz, ez litzateke betegina "**potentzian**" besterik, eta **potentzia** orok aldean "gabezia" dauka, eta **potentziatik** eginera iragaten den guztiak nahitaezkoa du eginean dagoen beste gauza bat, beronek eginaraz dezan. Xabier Kintana

Materia eta forma, **potentzia** eta aktua: iraganeke kontuak dituk horiek, Joanes...! Joan Mari Irigoien

Horri esaten zaio, betiko alarde honetan, "ohean ona" izatea: txorta-laguna errenditzea, menderatzea; ahalmena, **potentzia** edo boterea erakustea bere gorputz errepresibo edo aparatu oldarkorrek, gauza izatea. Iñaki Segurola

Espainiako irrati bat etorri, eta bere **potentziarekin** Baionaraino sartzen da. Berria - Harian

Indar horretan bozaren indarra, "**potentzia**", ere barrenean ezartzen dut. Ana Urkiza

Grina horiek gutxitu edo gehitu egin dezakete jarduteko **potentzia**. Piarres Xarriton

Eta hemendik urte gutxitara, egungo neurri sistemak ere eskas ditugula, teraflop-etan hasiko gara konputagailuen **potentzia** neurtzen. Pello Salaburu

## 3 (hitz elkartuetan)

Dotorezia fisikoa eta gihar-**potentzia** eta tonu sinestezina direlako Pilobolus konpainiaren ezaugarriak preziatuena. Berria - Kultura

Naumon-en 932 zaldi-**potentziako** makinak gutziz geldituta zeuden. Berria - Kultura

## 4 nazioarteko politikan eragina izan dezakeen nazio eta estatua.

Erromatarak eta partiarak bi **potentzia** etsai izan ziren, eta elkarren kontra borrokatu ziren ez zein nagusi izango jakiteko. Iñaki Iñurrieta

II. Mundu Gerla bukatzean [...] bi **potentzia** handien artean behin finkatu den terrorearen orekak begiratu gaitu gerla hotzetik gerla berora lerratzer. Piarres Xarriton

**Potentzia** nuklear handi baten zerbitzu sekretuan sartu nahian dabilen gizon baten joan-etorri kafkiarrak kontaktzen dizkigu. Iban Zaldúa

FANeko gerrillariak Frantzia, **potentzia** kolonial ohia, presionatu nahi zuten. Berria - Mundua

**Potentzia** hegemoniko batek bermaturiko dirua. Iñaki Heras

Ezaguna denez, 1937ko apirilaren 27an, Gobernuak, atzerriko **potentzia** baten abiazioaz baliatuz, Macondo herri meatzaria birrindu zuen, mila hildako baino gehiago eraginez, gehienak haurrak, emakumeak eta zaharrak. Jon Alonso

Hartara, **potentzia** izaten jarraituko du Israelek. Berria - Mundua

Itunean Europako Batasunak «**potentzia** izateko bokazioa» agertu eta «ahalmen militarra azkartu» egiten du. Berria - Euskal Herria

## 5 irud/hed

Frantzia Europako **potentziarik** handiena da futbolean. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizakiaren **potentzia** (4); megawatteko **potentzia** (7); munduko **potentzia** (9); nazioarteko **potentzia** (3); **potentzia** bakarra (3); **potentzia** ekonomikoa (4); **potentzia** handiagoa (4); **potentzia** handien artean (3); zaldiko **potentzia** (3)

nazioarteko **potentziek** (3)

nire **potentzien** (3)

# potentzial 1 izond ahalzkoa; izan daitekena.

Europa 450 milioi kontsumitzaile **potentzial** baino zerbait gehiago dela. Berria - Harian

Ekoizpena gehitzeko teknologiaren gaitasun **potentziala**. Iñaki Mendiguren

Diruaren hazkundeak eskaintza **potentzialaren** hazkundearekin batera joan behar zuen, horixe baitzen inflazio-iragarpenak aldatzeko eta prezioen egonkortasuna berreskuratzeko modu bakarra. Koro Navarro

Berriz ere, eskari **potentziala** finkoa hartzen dute. Iñaki Heras

Zure merkatu **potentzialaren** %33 galdu duzu. Berria - Euskal Herria

Mehatxu **potentzialez** beteta dagoen mundu batean. Berria - Mundua

Erakustokiaren ikusleria **potentziala** ez dela Baionako herritarretara mugatzen. Berria - Kultura

Arreta maitale **potentzial** izan daitezkeen hainbat pertsonarengan jartzera bultzatzen gaitu desioak. Luis Elberdin

Hizkuntza ikur sistema **potentzial** gisa. Lourdes Oñederra

Hortaz, ekidin nahi diren ondorio **potentzial** ezkorrek arrisku terminoetan kontzeptualizatzen dira. Berria - Gaiak

Hori guztia oso urrun geratzen da jaio ginen eguneko ahalmen **potentzialaren** aldean. Luis Elberdin

Mundu islamikoa urkamendi **potentzial** horretan oso bat-batean erortzea baino harrigarriagoa izan zen musulmanen arerioek edo musulmanek berek behar izan zuten denbora luzea egoeraz jabetu eta neurriak hartzeko. Iñaki Mendiguren

Dena dela, *Estilo-ariketak* bera dugu literatura **potentzialaren** adibiderik garbienetako bat. Xabier Olarra

Hizkuntza, izan ere, filosofia **potentziala** da. Joxe Azurmendi

## 2 irud/hed

Energia **potentzial** gehiago omen dago New Yorken. Harkaitz Cano

## • 3 iz zerbaitetarako gaitasuna, ahalmena, indarra.

Euskal Herriak **potentziala** badu, baina ez dugu aski erabiltzen. Berria - Harian

«Pena da partida hori ez erabili izana eskualde baten **potentziala** erakusteko» adierazi zuen, Baionaren eta Donostiaren arteko harremana aipatzean. Berria - Kirola

Ezker abertzalearen «kapital eta **potentzial** politikoa» borroka instituzionalera eta «masa borrokara» bideratu beharko litzatekeela. Konstituzioak jasota dituen eskubide historikoek **potentzial** juridiko eta politikoa itzela dute autogobernu osoan sakontzea eta kontsentsu politikoa handitzea ahalbidetzeko. Berria - Euskal Herria

Biomasa (biogasa edo energia mota) hondakin motak ustiatzeko **potentzialen** ebaluazioa egin ondoren, [...]. Berria - Euskal Herria

**Potentzial** soziala antolatzen ibili ginen, herri batzorde ugari genituen, hainbat arlo jorratzeko. Berria - Mundua

## 4 (hitz elkartuetan)

Estatu guztien ingurumenaren arloko politikek garatze bidean dauden herrialdeen egungo edo etorkizuneko hazkuntza-**potentziala** areagotzera bideratuta egon beharko lukete. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Estatu guztien ingurumenaren arloko politikek garatze bidean dauden herrialdeen egungo edo etorkizuneko hazkuntza-**potentziala** areagotzera bideratuta egon beharko lukete. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Munduko egungo gerra-**potentzial** industriala. Iñaki Mendiguren

Kanpainaren barruan askotan aipatu da unibertsitatean giza **potentzial** handia daukagula, euskaraz ari den profesional eta ikasle asko ditugula. Berria - Euskal Herria

## 5 gorputz eroale batean metaturiko energia elektriko.

Tximino anestesiatuei ikusmen-kortxean mikroelektrodoak sartu, eta estimulu koloretakoak ematean sortzen ziren **potentzial** neuronalak neurtzen zituen. Batzuentzat, Zeusen suminaren isla da tximista; beste batzuentzat, berriz, lurraren eta hodeien arteko **potentzial**-aldeak eragina. Xabier Olarra

## 6 *potentzial diferentzia*

Honelako «gelatxo» batek sortaraz dezakeen **potentzial** diferentzia volta bat baino handixeagoa da, eta, horregatik, tentsio altuagoak eragin nahi direnean, gelatxo ezberdinak elkarren ondoan jartzen dira. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**literatura potentzialaren** (3)

## potentzialidade ik **potentzialitate**.

## **potentzialitate** (*orobat **potentzialidade g.er.***) **1 iz** gerora izateko gaitasuna edo ahalmena.

**Potentzialitate** handiko istorioa dago eleberraren muinean. Berria - Kultura

Gernikako Estatutuak zituen **potentzialitateek** -Nafarroa «eransteke» aukera eta eskubide historikoak- ez dute emaitzik eman 25 urtetan. Berria - Euskal Herria

Elkarlan horrek duen **potentzialitatea** altxor bat da etorkizunari begira. Berria - Euskal Herria

Abertzaleek badute **potentzialitate** bat, azken hauteskundeetan osoki erabili ez zutena. Berria - Euskal Herria

Hezkuntzarekin zerikusia izan beharko luketela hedabideek, batez ere euskal hedabide publikoek, hizkuntza aldetik duten **potentzialitatea** kontuan hartuta. Berria - Kultura

Sinn Fein konturatu zen presoek kolektiboak zuen **potentzialitateaz**. Berria - Euskal Herria

Esaten da AEBetako eta Israelgo agenteek Irakeko zientzialari, mediku eta gisa horretako profesionalak hiltzen dituztela, Irakek etorkizunean halako jende baliagarrik izan ez dezan eta **potentzialitate** murrizta izan dezan. Berria - Mundua

Adierazle horren **potentzialitateetako** bat hezkuntza mailan izan dezakeen indar handia dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eskubide historikoen «**potentzialitatean**» oinarritutakoa. Berria - Harian

Binomio fantastiko horretan datzan **potentzialitateak** bultzarazten gaitu. Iñaki Iñurrieta

Literaturaren **potentzialitateak** non egon zitezkeen bilatzen eta murgiltzen ibiltzen zen. Berria - Kultura

## **2 potentziala** denaren nolakotasuna; **potentzian** baino ez dena.

Pentsamendu berriak sistema hegeliar bera sistema inpotentea zela azpimarratu zuen, **potentzialitate** hutsez egina, baina Borondate irrazionalaren ekintzarik gabe gauzatu ezin dena. Joseba Zulaika

## **potentzialki** *adlag* era potentzialean.

Landareak, hegaztiak, arrainak eta gizakiak **potentzialki** sortuak izan ziren, hots, euren arrazoi seminaletan. Imanol Unzurrunzaga

Baita urak eta lurrak **potentzialki** eta kausalki sortutako izakiak ere, gerora Jaungoikoak orain arte diharduen ekintzan guk ezagutzen ditugun moduan azaltzen zaizkigunak. Imanol Unzurrunzaga

Errealitateari zentzu sakon bat **potentzialki** bada ere- aitortzen zioten testuinguruetan baizik ez du indarrik izan definizio honek. Josu Zabaleta

Denak gara idazle, **potentzialki**. Karlos Linazasoro

Gizakiaren berezko gizartekoitasunaren indarrez, gizarte guztiak **potentzialki** unibertsalak dira. Iñaki Mendiguren

## **potentzialtasun** *iz* potentzialitatea.

Garatzea, berriz, zerbaiten gaitasun edo **potentzialtasunak** areagotzea da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Espazioa gertaeren bilduleku potentzial bat da, eta espazio irudikatua ia beti gauzatzen du **potentzialtasun** hori. Josu Zabaleta

Ikasteko **potentzialtasunean** sumatu zen, batez ere, hobetzea. Berria - Harian

Ezin da ukatu beharrezkoa dela zientziaren eta teknologiaren **potentzialtasun** negatiboak (arriskuak) murriztuko lituzketen neurriak hartzea. Askoren artean

Iñaki Egigurenek, pilotari ohia ez ezik marketin aditua izaki, Karmelo Balda pilotalekuaren **potentzialtasun** ekonomikoak aztertu zituen. Berria - Kirola

Umekiaren **potentzialtasuna** eta gizaki bihurtzeko ahalmena babestea. Berria - Gaiak

Zeppo, denetan argiena zen, idazteari uzten dioten idazle horietako bat, osoko Bartleby bat, Salinger bat, bere **potentzialtasunean** isiltzea erabakitzen duena, eskubide guztiarekin. Harkaitz Cano

## **potentziatu**, potentzia(tu), potentziatzen du *ad* indartu, sustatu.

Tesi bikoitz hau, gutxien-gutxiena hartarakoxe zen Lore Jokoetako tribuna festaliarretik proklamaturia, sozietateko eskandalutxo baten goragailuak are gehiago **potentziatua**. Joxe Azurmendi

## **potentziometro** *iz* potentzial diferentziak neurtzen dituen gailua.

Ondoren SRM **potentziometroa** eta pulsometroa lagun, entrenamenduetan murgiltzen da. Berria - Kirola

## **poteo 1 iz** poteatzea, poteoan ibiltzea.

**Poteoa** bukatutakoan atzera lehengo tabernara itzuli gara, afaltzeko ordua da eta. Xabier Etxabe



Erritmo bizi samarrean nabil **poteoa** egiten, ni bakarrik, eta dagoeneko "puntutxoa" hartuta daukat. **Jon Arretxe**  
Eguerdioko 13:00etan hasita **poteo** herrikoia, herri bazkaria, omenaldia, kalejira, etab. antolatuta dituzte. **Berria - Euskal Herria**  
Ortizirale aratsean, Heletan, **poteo** berezia, zernahi artixta partzuer. **Herria**  
Bazkalondoan, joko, bertsu, karaoke, **poteo**. **Herria**  
Agur txokoari, agur bolada batez gu-eta-gutarrei, agur, agur zuri ere, agur koadrilari eta Parte Zaharreko **poteo** euritsuei. **Lourdes Oñederra**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Poteo** garaian beltz bat taberna bakoitzeko eta afaltzerakoan sagardoa, txarra gainera. **Xabier Etxabe**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kanpinak atondu ostean herri **poteoa** egin zuten trikitilariak lagundurik. **Berria - Euskal Herria**

Ortzegun aratsean, bertsu-**poteoa** herriko ostatueta eta ondotik bertsu-afaria. **Herria**

Egun osoan izanen da animazione, triki-**poteo**, bertsu-bazkari eta kantu. **Herria**

## 4 **poteoan**

Topatu genuen hurrengoan uzkur sumatu genuen, artega, baina gurekin geratu zen **poteoan**. **Iban Zaldua**

Hirurak eta laurden arte **poteoan** ibili gara Iñaki eta biok, Donostiako Parte Zaharreko pintxorik onenen ehizan. **Iban Zaldua**

Hiriko alderdi zaharrean **poteoan** ibiltzen ziren koadrilak bihurtu ziren aurrerantzean nire jomuga. **Jon Arretxe**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**poteo alaitua** (3); **poteo delakoa** (3)  
**bertso poteoa** (4); **eta poteoa** (3); **poteoa egin** (3); **poteoa eta** (4); **triki poteoa** (7)

## **poteokide** *iz* poteoan dabilen lagunetako bat.

Hurrengo orduetan pintxo askorik ez zuten jan nire **poteokideek**, baina edan... geratu barik edan zuten. **Jon Arretxe**

## **poteolari** *iz* poteoan ibiltzen den pertsona.

Arratsaldeko **poteolari** batzuk ere agertzen ziren hurrena; harainoko ibilaldiak ordurarteko baxoerdiak asentatzen laguntzen ziela eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## potere ik **botere**.

## **poteria** 1 *iz ipar* eltzegintza.

Ziburun, Bordagaineko dorrean muntatu **poteria** eta margo erakusketak arrakasta gaitza ukan du. **Herria**

Aurten ere,bi egunez, helduden asteburu hortan hain xuxen, **poteria** edo eltzegintza erakusketa bat gaitza izanen da Bastidan. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Zernahi **poteria** mota izanen da ikusteko. **Herria**

## **potestate** *iz* eskua, agintea.

Hortik ondorio hau dator, aitak ezin ziola testamentua egiten utzi bere **potestatepean** zegoen semeari. **Iñaki Iñurrieta**

## **potetxo** 1 *iz* pote txikia. ik **poteño**.

Hotzikara antzeko bat sentitu eta **potetxoa** eta pintzela erori zitzaizkion hatzen artetik. bolalumak eta errotuladoreak sartzeko **potetxoak**. **Koldo Biguri**

Arroz-hautsen **potetxoa** hartu zuen gero, eta aurpegiko kolore-aldaerak berdindu zituen, behin eta berriro **potetxoan** sartzan zuen belaki txiki batez. **Anjel Lertxundi**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nik Bavaria tabernako sototik lapurtu eta, Angelaren giltzaren laguntzaz, Roma dendakoan utzitako hiru kutxa haiek kausitzean... penizilina **potetxoz** beteriko hiru kutxak.

**Alberto Ladron Arana**

Krema **potetxoa** itxi eta ispilu atzeko armairutxoan gorde du. **Jokin Muñoz**

Pintura **potetxoak**, eta leihoak eta paparrerako beste itsasgarri batzuk atera ditu, margotzeko. **Jokin Urain**

## 3 industrialki prestaturiko haur janaria daukan kristalezko potetxoa. ik **potito**.

Haurrentzako saltzen dituzten ahi **potetxoz** beteta zeukan hozkailua. **Harkaitz Cano**

## potiko ik **putiko**.

## **potin** 1 tamaina ertaineko txalupa mota, arrantzan erabiltzen dena.

Karrusel bateko behorrak putingoka pabetan lotutako **potinak**, batelak, txalupak, txanelak, txintxorroak. **Koldo Izagirre**

Egun egokia iruditu zaizu etxe ondoko lorategietan hara eta hona ibiltzeko, jitoan dabilen **potinaren** antzera. **Lutxo Egia**

Bere buruaren sermoiak ardotan eta ketan itoak ziren, itsaso gorrian laino egun batean naufragatzen duten **potinak** legetxe. **Unai Iturriaga**

Jainkoak gizona buztin eskukada batez egin zuenetz, zalantzarik ez; orain **potinak** egiten diren bezala. **Edorta Jimenez**

## 2 (hitz elkartuetan)

Alboetako dominetan akolitoak daude, S. Marçal, esatera, suteetatik babesten duena, S. Antonio, **potin**-konpontzailea eta bidez tronpatu diren gauzakien aurkitzaile gorena.

**Jon Alonso**

## **potinga** *iz* sendagaia.

Basa mirikua, **potinga** (sendagaia) egiteko armiarma sareak biltzen zituena -irin hautsa zeukatenak hobeak omen ziren eta. **Pablo Sastre**

# potito iz industrialki prestatuturiko haur janaria daukan kristalezko potetxo. ik potetxo 2.

-Eta beti **potitoak** ematen al dizkiuzu? **Arantxa Iturbe**

## potiz iz

Kupulak eta kanpandorre txikiak ageri dira, puntetan orratz segailak zerura, minareteen antzekoak, eta domo sabel-handiak apaingarri. **potiz** japoniarrek irudi dutenak.

**Karlos Zabala**

## poto 1 iz kontserba-ontzia edo kidekoa. ik pote.

Ume-umetan ere, kalean harri edo **potoren** bat ikusten nuenean, automatikoki joaten zitzaidan hanka bertara. **Joan Mari Irigoien**

Tomatea aurretik eginda zeukanez, frigorifikotik **potoa** eskuratu, ireki eta kazuela batean bota zuen. **Jon Alonso**

Jerryk garagardoa bukatu eta **potoa** zanpatu zuen. **Koro Navarro**

Marmeladakoen antzeko **potoa**. **Jon Arretxe**

Ematen du baten batek berrogeita hamar bat **poto** Koka-kola hustu balitu bezala gasolina-tankera. **Oskar Arana**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tiraderan, lata-, **poto** -, ontzi-irekitzekoak, tapoi-kentzekoak, kortxo-ateratzekoak eta antzeko beste zerbaitek. **Edorta Agirre**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kontserba **potoetan**, diskoetan, hegalauek latetan eta gauzak gordetzeko erabiltzen dituen kartoizko kaxetan ere bai. **Lander Garro**

Ontzi bat urez bete, gat pitin bat disolbatu bertan, marmelada **poto** huts bi buruz behera sartu, gomaz estaliriko bi kobre-hari inguratu, pilaren poloetara lotu, eta mutur bana erantsi nien **potoel**. **Juan Garzia**

Bazkariak geroztik mahaiaren gainean zegoen pepinillo **potoari** begiratu zion. **Koro Navarro**

Jerryk bere garagardo **potoa** hustu, zanpa-zanpa egin eta eskuan ibili zuen puska batean. **Koro Navarro**

Edari-**potoa** irekitzeko. **Jesus Mari Mendizabal**

### 4 ontzi berez zilindrikoa, askotan estalkiduna.

Nire etxeko bainugelan **poto** mordo bat zegoen. **Jasone Osoro**

Pazkorako pinta banako berrogei **poto** nahi nituen prest, denak berdinak, beren estalki itxurazkoekin, leun eta biribilak, begiak ere bai baitu bere zer esana. **Juan Garzia**

Esku-argi bat zeraman esku batean eta zerbaiten **poto** bat bestean. **Koro Navarro**

Alemanek sotoan otarre bat bete arrautza eta **poto** bat ezti aurkitu zituzten. **Felipe Juaristi**

Boligrafoa **potoan** utzi eta eskuan zuen orria zimurtu egin zuen. **Joxemari Urteaga**

Letoizko **potoa** hartu zuen esku artean, berriro; "Sugar" bazioen ere, ez zuen azukrerik topatu tapa altxatzean. **Joxemari Urteaga**

Lizarriturri **potoko** esnea baino lasaiago dator barrara. **Pako Aristi**

Etxe askotan **potoetan** biltzen diren zentimo bateko eta biko txanponak. **Berria - Ekonomia**

Txanponak eta billeteak jasoko zituen, eta **pototik** aterako zuen atzerako dirua. **Koro Navarro**

Azkenean han etorri zen Fructuoso bi **poto** handi pintura esku banatan. **Inazio Mujika Iraola**

Bi penike utzi nituen **potoan**. **Koro Navarro**

Sutontzi baten gainean edabe bat egosten ari baitzen metalezko **poto** batean. **Juan Garzia**

Ertzaintzaren arabera, bi aerosolekin eta gasolina **poto** batekin zegoen egina lehegailua. **Berria - Euskal Herria**

### 5 (hitz elkartuetan)

Halako batean, nire abokatuak, dado-**poto** bat harturik, airean astindu, eta dado bat bota du mahai gainera. Sam bere hauts **potoarekin** hurbildu eta hautsa bota zion.

**Anjel Lertxundi**

Diru-kutxako giltza atera zuen azukre-**poto** azpitik. **Joxemari Urteaga**

Neskafek **poto** hutsaren aurreko depresioaldiak. **Harkaitz Cano**

Jetruk eskura eman zion pintura-**potoa** hartu, eta bide-seinaletara jo zuen zuzen-zuzen. **Inazio Mujika Iraola**

Txemiren lan-mahaiaren aurrean dago leihoa, eta bertan bi lore-**poto**. **Berria - Kultura**

Barkatzen diot geranio **potoa** apurtu izana. **Koldo Biguri**

### 6 ontzia, flaskoa.

Perfumea **poto** ttikian... pozoia ere bai. **Joxemari Urteaga**

Lurrinak zeuden apalean geratzen zen eta gizonezkoen Tabac kolonia **potoa** hartuta fris-fras eskumuturrak langartzen zituen aurrea. **Jasone Osoro**

Azazkalak margotzeko dozena erdi **poto**. **Jasone Osoro**

Goiz hartan armairua ireki eta Valium **potoa** iodo **potoare**n alboan herdoilari itsatsirik ikusi nuenean izan nuen susmoa. **Lander Garro**

Kristalezko **poto** txiki bat atera zuen bere patrikatik, eta bertan sartu zuen txindurria kontu handiz. **Josetxo Azkona**

Kilkerrak eta matxinsaltoak, berriz, **poto** batzuetan sartu, eta banan-banan ateratzen nituen, haien hegala edo barailak aztertzeko. **Joan Mari Irigoien**

### 7 bertsolariak oin bera esanahi beraz bertsoaren bi puntutan errepikatzean egiten duen hutsa.

-Errima-hitza errepikatuz gero, **poto** egingo du bertsolariak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Bertsolariak ere baliatzen dira hitz homonimiko hauetatik, **poto** egitea galarazten baitute. **Iñaki Arranz**

Zuri hitza hirutan erabili zuen **potorik** egin gabe; aberatsa, benetan. **Berria - Kultura**

Saio gorabeheratsua, Unai Iturriagak bereziki ona eta txarra eskaini duelarik, bertsu hoberena kantatuz bainan ere bi **poto** eginez. **Herria**

Goiburuk ongi baliatu du berriz hitzaren polisemia, **poto** egin gabe hoskidetasun bete-betea lortzeko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Azken batean, edonor bertsogile bihurtzeko, **potorik** egin gabe errimatzea da lehen baldintza. **Andoni Egaña**

**Potoa** da, alderdi teknikoan artean, bai epaimahaiak eta bai entzuleak gehien "zigortzen" duten akatsa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

### 8 porrot egin. ik pot<sup>2</sup> 2.

Nafartarek egun pare batez eutsi zioten oraindik, baina asteazkenerako **poto** egin zuten. **Txillardeggi**

Kinka hartan gutarrak zeudelarik, abuztuaren 24an, igandean, bat-batean beltzek **poto** egin. **Txillardeggi**

Ez dira inoiz egon, berbarako, epaiketa militar batean, ez dute heriotza zigorra hartu, beldur dira legearen eta epaiketaren katramiletan nahasita ez ote duten **poto** eginen.

**Koldo Izagirre**

Ziplo gelditu zituen eskolak irakasleak, Niccolo bertan behera utzirik, alfabetoaren herenean hantxe **poto** eginik. **Jon Muñoz**

### 9 piper pota ik piperpoto.

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azukre pota (3); gantzaren pota (3); lore pota (3); pota egin (6); pota egin zuen (3); pota handi (3)

azukre potoa (7); letoizko potoa (3); potoa hartu (7); valium potoa (3)

potoin ik **botoi**.

## potoko *izond* potoloa.

Ingeles-itxurako gizon txiki **potoko** batek emaztea jipoitzen zuen, bideko putetxeetan ikusitakoak emazteak egin nahi ez zizkiolako. **Anjel Lertxundi**

## potokote *izond adkor* potoloa.

Poztu egiten zara aurrean eserita daukazun emakumea beltza delako, beltza eta bere aldameneko gizon gazte **potokote** zuri biguina baino askoz ere ederragoa. **Lourdes Oñederra**

## potola (*orobat pottola*) *izond* emakumezkoen mintzatuz, potoloa. ik **potolo 2**.

Lentejuelez hornitutako soineko bat jantzirik zuen emakume **potola** bat sartu zen, haiek orein-adarrez apaindutako jangela handi bateko mahaian eseri ondoren. **Lopez de Arana**

**Potola** eta moztaka zen, eta hitzaldia ematen ari balitz bezala hitz egiten zuen beti. **Xabier Olarra**

-Tira, **potola**, ea dakizuna kantatzen duzun. **Xabier Olarra**

## potolantxa *izond* potola xamarra.

Gelara egin zuen Larraitzek: ile beltz-gorri tximatuekiko neska bixi **potolantxa**. **Pablo Sastre**

## potolatxo *izond adkor* potola.

-Lehen basoko lore bat bezalakoa zen, Elaine, freskoa eta arrosa eta irlandar peto-petoa; orain, ordea, enpresaburu itxurako emakume **potolatxo** bihurtu da. **Lopez de Arana**

Gizonek zuri txatxamurka egitea gustuko izateko behar bezain **potolatxo**, ez besterik. **Lopez de Arana**

## potolaxka (*corpusean pottolaxka soilik*) *izond adkor* potola.

Horrela ere ez zitzaion paparrera ere iristen, **potolaxka**. **Jokin Muñoz**

## potolo (*orobat pottolo g.er.*) **1** *izond adkor* gizona, lodia. ik **totolo**. (gizonezkoen)

Obispoarengatik galdetu zigun, nolakoa ote zen, altua, baxua, **potoloa**, argala, zenbatsu urte. **Inazio Mujika Iraola**

Berrogeita hamar urte inguruko gizon **potolo** batek irribarre polit bat itzuli zidan, gizabidetsu. **Monika Etxebarria**

Gizon **potoloa** baino gehiago, lodikotea zen taxista. **Joxemari Iturralde**

Izertitzen hasitako ume **potolo** batek erdi irrikaz erdi angustiaz begiratzen du, aldiz arbolen itzalpe urrunari, aldiz autobusak agertu beharra duen bide-zatiari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Doi-doi kabitzen zen barruko arropa zurien azpian, troxetan bildutako umegorri **potolo** bat zirudien. **Karlos Zabala**

"Zer duzu, Iñaki?", galdetu dio Amaiak, eta, **potoloak** ezer esaten ez duenez gero, galdezka ekin diote beste guztiek ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bere lagunak, bibote-itzal bat zuen **potolo** bizkarzabal batek, ukondoa ukitu zion eta hitz batzuk xuxurlatu. **Monika Etxebarria**

"**Potolo** zikina! hiregatik galdu diagu". **Xabier Mendiguren Elizegi**

"Jainko **potoloa**!" entzun zitzaion marmarka doktoreari. **Julen Gabiria**

Halako giza piltzar **potoloa** bihurtu zen, nire nahien eta apeten menpe erabat. **Karlos Zabala**

Urde **potolo** hura jantokian sartzera zihoan Mikelek berriro besotik heldu zuenean. **Unai Iturriaga**

## 2 (emakumezkoen) ik **potola**.

Hamar minutu pasatu baino lehen, azaldu zen mojaz jantzitako emakumezko **potoloa**. Ama Begoña zuzendaria. **Joxemari Iturralde**

Andre **potolo** bat etorri zen nire eskuinean jesartzera. **Monika Etxebarria**

Augustinek prest zegoela zioen, barreka, haurtzaroa utzi gabeko neskatxa **potolo** baten gisa. **Karlos Zabala**

Emakume hau, hondatua dirudien emakume **potolo** hau da hunkitzen nauena eta maite dudana. **Monika Etxebarria**

Neskame **potoloa** etorri da aurrena bere onera: ez du irudimenik. **Monika Etxebarria**

Lisa **potoloak** dirua sakelan sartuko dizu egunen batean, eta kendu egingo dizu berriz ere. **Karlos Zabala**

Amak aski garbi esana zion "aita-amek larrua zartzatzeraino janarazi eta janarazi egiten zioten neskato **potolo**" harekin jolastea debekatua zuela. **Karlos Zabala**

Berriz ikusi nituen, tupustean, Chez Camille ostatuko neska **potoloa**, Achille jaunaren aurpegi aztoratua, [...]. **Monika Etxebarria**

## 3 (bestelakoak)

Portzelana txinatarrezko katakume basati bat, oldartzeko zorian beti, portzelana txinatarrezko sagu **potolo** eta babesgabe baten gainera. Haren esku **potolo** arrosa-biziek arintasun bigunez ukitzen zituzten okelak. **Mirentxu Larrañaga**

Zakil lodi eta **potoloa** sentitzen nuen hatz artean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Dudleyk hogeitazko libretu berri-berria zeukan bere ukabil **potoloan** estututa. **Iñaki Mendiguren**

Quenuri laguntzen zion batzuetan, hesteei eusten zien bere hatz **potoloekin**, mutilak okelaz eta urdaiz betetzen zituela. **Karlos Zabala**

Arrautza luzangak oilaskoa dakar; arrautza **potoloagoak**, oilanda. **Pello Zabala**

Arteetan tanta **potoloren** bat lerratzen zaio matelan. **Xabier Montoia**

San Joan udareak, dukesak, batzuk **potoloak**, beste batzuk luzeak. **Karlos Zabala**

Tximinia **potolo** eta karratua zen, aho zabalekoa. **Urtzi Urrutikoetxea**

Harri horiek borobilean jarri, txotx ihar batzuk bilatu, enbor **potoloagoren** bat ekarri. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Balzacen Giza Komedia-ko 85 tituluak bost liburuki **potoloetan** biltzen zituen edizioa. **Jon Alonso**

Garestia, atzamar batean daraman eraztun **potoloa** bezalaxe. **Jokin Muñoz**

Igandeko murmurio **potoloa** jabetu da guztiz notarioen karrika honetaz. **Monika Etxebarria**

Ideia bati eusten genionan, nork bere konpromezuari, hitz **potoloak** erabiltzen genituen-eta. **Javi Cillero**

Garestia, atzamar batean daraman eraztun **potoloa** bezalaxe. **Jokin Muñoz**

## 4 irud/hed

Gero bazkide **potoloak** bilatu behar izan genituen eta ez zen nahikoa izan. **Berria - Kirola**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**emakume potolo** (8); **emakume potolo bat** (3); **gizon potolo** (4); **hitz potolo** (6); **lan potolo** (3); **mutil potolo** (4)

**behatz potoloa** (3); **hatz potoloa** (4); **jainko potoloa** (4); **liburu potoloa** (3); **otso potoloa** (3); **sari potoloa** (3)

**emakume potoloak** (4); **hitz potoloak** (11)

**sari potoloena** (3)

## potolotasun iz potoloa denaren nolakotasuna.

Ez zuen laguntzen Tom gizendurik egoteak, behialako mardotasun hura ia erabateko **potolotasun** ahalkegarri bihurtu izanak, baina are ondoez handiagoa eragiten zuen ikusteak ez zuela ematen batere planik zeukanik, ez zuela inoiz hitz egiten bere buruari egindako kaltea konpondu eta berriro zutik paratzeko egingo zuenaz. **Oskar Arana**

## potolotu (orobat pottolotu g. er.), potolo(tu), potolotzen da/du ad potoloago bihurtu.

Esan beharra dut uste baino atseginagoa egin zitzaidala, nahiz eta berehala **potolotu** zen eta ahoa zeharo bete zidan. **Juan Martin Elexpuru**

Egunari zegokion ezaugarriaren bat tartekatuko nuen, beti eguraldiarena patxadan aletu ostean, egunaren ekarria gizenduz eta **potolotuz**. **Pello Zabala**

Taxidermista konplexua ari zait sartzen; astea joan eta astea etorri, susmoa **potolotzen** ari zait: ez ote ditudan erakusten artista disekatuak, ez ote ditudan hilotzak baino erakusten, ez ote naizen ari orri erdi hau museo bihurtzen. **Berria - Kultura**

Mittoa gehiago ari naiz **potolotzen**, badakit, baina horixe da ikusi genuena. **Berria - Kultura**

Eman zidan, bada, esku bigun potoloa, traiziozko gantzez **potolotua**, antza. **Matías Múgica**

## potolotxo izond potolo xamarra.

Arrantzako kanaberekin egoten diren Aita Noel **potolotxo** horiek bezalakoak. **Iñaki Mendiguren**

Weasley andre **potolotxoa**, Wesley jaun luze eta burusoila, sei seme eta alaba bat, guztiak ile gorri-gorriarekin. **Iñaki Mendiguren**

## potor (orobat pottor g.er.) izond gotorra, handia.

Bi gizonezkoak jaitsi eta estuasunean harri **potor** batzuek jarri zituzten burdin-bidean. **Pako Aristi**

Amaiak bolantea bortitz jiratu behar izan zuen, bide bazterrean zegoen harri **potorra** joko ez bazuen. **Aitor Arana**

Hanka artean izter erdialderainoko zakil sendoa zeraman zintzilik, bi barrabil **potorrez** ongi horniturik. **Aitor Arana**

Oldartzen diren laino **potor** handi hodeitsu biribil fafa-fafa handitzen doazen horiek, hego punttuak bidalita, honuntzaka datoz. **Pello Zabala**

Mahaiaren erdian, laranja eta amerikar sagarrezko piramide bati eusten zion fruta-ontziaren zaindari gisa, antigoaleko bi likore-botila **potor**, kristal landuzkoak, bata oportoz eta bestea jerez gozoz beteak. **Irene Aldasoro**

Aurpegi **potor** musugorridun bezero bat erdi oldartu zitzaion tabernariari: [...]. **Anjel Lertxundi**

## potoratu, potora(tu), potoratzen da/du ad potora sartu.

Landarearen kukula **potoratu** egingo dela uste dut. **Berria - Harian**

## potorro (orobat pottorro g.er.) iz adkor alua. ik motxin; pottotta.

Horrek bai **potorro** polita! diamante itxuran depilatua. **Patxi Iturritegi**

Ze **potorro** basaka lnesena, Jainkoak bedeinka diezaiola. **Patxi Iturritegi**

-Bai, Madonnaren **potorroa**, hi. **Patxi Iturritegi**

## potots (orobat pototx) 1 izond hatzez mintzatzuz, handia, lodia. ikerpuru.

-Orbain hau ikusten duzu? -galdegin zion, eri **pototsa** matelan trebes iraganez-. **Elena Touyarou**

Bikainaren keinua egin zidan ukabiletik atzamar **pototsa** goitituta begi bat itsutuz. **Koldo Izagirre**

'Dégueulasse!' -ihardetsi zion Ninak irriño prestu zabal batekin, eri **pototsa** altxatzuz-. **Ramuntxo Etxeberri**

Zendu aitzin, azken jestu bat bideko salbean eri **pototsaz** marratu "Aski". **Piarres Aintziart**

### • 2 (izen gisa)

Zapela begietan aulkian erdi etzana dagoen alprojarengana egin du **pototsaz** atzerantz. **Koldo Izagirre**

## pototx ik potots.

## pototxo iz poto txikia.

Denbora pilo baten ondoren, gizonak, pintzela eta **pototxoa** utzi, eta egunkarizko barkutxoa kendu zuen burutik, eta orduan ikusi zen gainerako gizonek bezalakoak zituela ileak. **Juan Garzia**

## potret 1 iz egiazko pertsona bat, eta bereziki haren aurpegia, irudikatzen duen margolana edo marrazkia. ikerretrato.

Gehexan Jaurenea gaztearen **potreta** zen zinez, bizi berritua. **Elena Touyarou**

Zer ez duen adierazten haren aurpegiak!, pintzela hartu eta haren **potreta** egiteko gogoia ematen du: horra hor Prometeo, benetako Prometeo bat! **Jose Morales**

Ez du -esaterako- sudurrari edo ezpaineri buruzko zertzeladez apainguko; marra bat pintatu, eta bukatua du **potreta**, burutik oinetarainoko **potret** biribila! **Jose Morales**

## 2 irud/hed

Astezkaren, **Artean** digu Salbador Allende, Txileko lehendakari izanaren **potreta**. **Heria**

Artean gazte eta berdeegi nintzen garaiko artista-gosearen **potreta** osatzeko pintzeladak biltzen hasiko banintz, uda-gau bateko ordu txiki sargorietan kokatu beharko nuke Rimbaud ezagutu nuen mentura. **Anjel Lertxundi**

Froga ahal diezazudan behingoz nitaz egin dizuten **potret** gorrotagarriaren zeinen bertzelakoa naizen. **Jon Muñoz**

Emitza heroi baten maitasunezko **potreta** duzu. **Markos Zapiain**

Gutun bat arimaren **potreta** dun ordea. **Jon Muñoz**

### 3 argazkia.

Honek errana dit zubi honen **potreta** edo argazkia ikusi zuela Paueko prefeturan, paperren eta kontratuen egitera joan zenean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Marcek palto kakiaren barruko sakelara zeraman bere emaztegiaren **potreta** Beinati eman zion kapitainak: [...]. **Itxaro Borda**

Dendako erakusleihoa, neurri guztietako ezkontza argazkiz eta jaunartze eguneko **potretaz** josita zegoen. **Harkaitz Cano**

Desgogora atera zigan Eiffel dorrearen kartoizko hondo faltsuaren gainean **potreta**. **Harkaitz Cano**

**Potretak** egiteko ezohiko teknikak ikustera emanen dituzte argazkilariek. **Berria - Kultura**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire ustez, batzuetan komeni da historiaren lerro nagusiei antzematea, irudi bat osatzen dutelako, hala nola, emakume **potret** bat egitean bezala. **Javi Cillero**

Familia **potret** bat dago barruan. **Javi Cillero**

### • 5 izond okerra, moldakaitza.

Bestalde, Frantzia zortzi bozgunetan ezartze hori ez dea aski molde **potrean** egin izan? **Heria**

Nahi bezen **potretak** izanikan ere. **Heria**

Mutxokatze hori ere arras molde **potrean** egin zen haatik. **Heria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**molde potrean** (3)

## potretaratu, potretara(tu), potretaratzen du *ad* potretara eraman.

Bertzela, nekez zenekike so duzun hori jadanik **potretaratu** duzun, hain zaizkizu elkarren antzeko. **Xabier Montoia**

## potretatu, potreta(tu), potretatzen du *ad* argazkia atera.

Utz tximinoen **potretatzeari** eta hator nirekin. **Xabier Montoia**

**Potretatzeko** gisakoak denak. **Xabier Montoia**

## potro 1 *iz adkor* barrabila.

Gizonaren **potroak** ageri-agerian zeuden eta zakil beltzaren enborra nire bikotekidearen uzkiari ongi banerata ikusten zen. **Aitor Arana**

-Tabernari, igurtzizkidak **potroak**. **Juan Kruz Igerabide**

Osabaren **potro** iletsuak laztantzeari ekin nion bere ondoan belauniko jarriz. **Aitor Arana**

Orgasmoa sentitu bitartean, esku batez nire **potro** uzkuartuak laztantzeko mesedea egin zidan. **Aitor Arana**

Ostiko bat **potroetan** eta karrikara, egindako zerbitzuen esker onez. **Aingeru Epaltza**

Artean **potroetatik** oratuta zeukan, eta barrez ari zen Jonek barrabiletako mina ekiditeko ematen zizkion ostiak jaso bitartean. **Unai Iturriaga**

Gu haietaz ondo aprobetxatu ondoren, ez dago gauza goxoagorik, depositua beteta eta **potroak** lehertzeaz dauzkatenean, popatik hartzera bidaltzea baino. **Jon Arretxe**

Etzatera behatu du bibotedunak, eta ahoz behera dagoela, ostiko batez lehertu dizkio **potroak**. **Patxi Iturritegi**

### 2 (gizontasunaren ezaugarri bezala)

Gizonak, gizon bada, potroak behar ditu, bi **potro** eder. **Karlos Linazasoro**

**Potro** pareak behar duk, egunik egun zerrikiari, ogiari, jaki frijituei eta gainerakoiei uko egiteko. **Aingeru Epaltza**

Hoztasun apur bat besterik ez zuen behar; duintasuna eta **potro** pareak. **Fernando Morillo**

-Esan ezak berriz, **potrorik** baldin baduk. **Juan Kruz Igerabide**

Hi komunista izanzen haiz, baina maritxu horrek hik baino **potro** gogorragoak zeuzkala. **Koldo Izagirre**

Kristinak, beti bezain amultsu eta juzku oneko, **"potro falta"** erraten zion. **Aingeru Epaltza**

Haren kide batek hartu zuen hitza, bere lagunaren **"potroak"** goraiatzeko, ez baitzuen, nonbait, txintik ere atera, eta alderdiaren egitura osoa poliziatik babesturik geratu zen hala. **Juan Kruz Igerabide**

**Potroak** ez ditu edukiko, baina gibela eta bekokia bai, sekulakoak. **Xabier Montoia**

Ze ostiatarako **dituk potroak**? -gogor egin zion Gorkak lagunari. **Patxi Iturritegi**

### 3 (hitz elkartuetan)

Putak **potro** -berotzaile hutsa delako. **Jon Arretxe**

### 4 (esapideetan)

-Lana topatu orduko zu eta zure txakur abortu hori kalera joango zarete, ze **potroetaraino** nago jada bere usainaz eta galtzen duen ileaz. **Jon Arretxe**

-**Potroetaraino** eginda nengoan, muga -Ximurra, zalapartariari begirik eman gabe. **Aingeru Epaltza**

Azkar eta zakar esanda, **potroetan** jarri zaidalako egiten dut. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bazakiat, ez zitean ezer frogatu, baina nahikoa aitzakia ditek **potroetan** jartzen zaien guztia egiteko. **Anjel Lertxundi**

Denok **potroetatik** helduta ginduzkala esan nion; nazkatuta nengoela ni ere, hura zegoenean era batera ibiltzen ginela, eta, haren muturra ate izkinan agertzen ikusi orduko, haur gaizki hezien gisa harrotzen ginela. **Inazio Mujika Iraola**

-**Potroetatik** zauzkate harrapatuta, Harry, eta konturatu ere ez zara egiten. **Oskar Arana**

Joxe Marik negar egiteari utzi zion; **potroak** eztabarran zeuzkala uste dut, neraman ziztuarekin. **Juan Kruz Igerabide**

-Hi, Etxabe, niri ez **potroak** berotu. **Xabier Etxabe**

Ez **potrorik** ukitu niri, mesedez. **Potroak** behar ditu gizonak! **Karlos Linazasoro**

'**Potroak** moztuko dizkiogu hurrengoan!' esan zuen batek apartatuz. **Joseba Sarrionandia**

Zoroaldia bat-batean pasaturik, **potroak** jorratu zituen eta lehengo tonuan ekin zion osterara ere: [...]. **Jon Alonso**

-Nik hiri dirua eman? bai, **potroetatik**! **Patxi Iturritegi**

### 5 *potro jorran* ik *potrojorran*.

### 6 *potroak izan (orobat eduki)* du *ad* ausarta izan.

-Juaninek **potroak ditu**, behar denean -sartu zen Idoia, giroa baretze aldera hura ere. **Juan Kruz Igerabide**

Hik dauzkak **potroak** ! Unai Iturriaga

Horrek zauzkak horrek **potroak** ! Harkaitz Cano

Baditu **potroak** ateratzen ari den aldizkari hori ateratzeko. Alberto Barandiaren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**potro falta** (3)

**potroak behar** (3)

**potroetaraino nago** (4); **potroetaraino nengoen** (3)

**potroetatik helduta** (3)

**ez duk potrorik** (3); **potrorik ez** (5)

## potroazal *iz* potroen azala.

-Bibotean eta sabelean ezezik, hanketan eta **potroazalean** ere sortu zaizkit ileak, osaba. Aitor Arana

Nik **potroazala** milikatzeari ekin nion eta gustuko gertatu zitzaion. Aitor Arana

Ongi zekien zer nahi nuen eta, besterik gabe, **potroazala** ferekatzen hasi zitzaidan. Aitor Arana

Biek ere uzkurtuta zeuzkaten barrabilak, **potroazal** barnean ederto goraturik. Aitor Arana

## potrodun *izond* potroak dituena.

Ileluze **potrodun** eta ero samar hura, orain ile ondo moztu eta orraztuarekin ageri zen, bizarra eginda, eta PSOEn oso aurrera zebilen. Juan Kruz Igerabide

Lekeitioko adiskide marinela, eskuaz aharia seinalatzen: zelan da ba hori, hori bekerekia, **potroduna** ? Iñigo Aranbarri

## potroetako *iz* potroetan jotako ukaldia.

Euskadiko Kutxako lerroa pikutara bota zion eta belaunaz **potroetako** bat eman. Unai Iturriaga

-Ez hadi putakumea izan eta eskatu egioak bokata bat atoan, **potroetako** bat hartu nahi ez baduk! Unai Iturriaga

## potrohandi *(orobat potrohandi)* izond adkor gibelandia.

Eta gainera, inoren kontutik bizi zen babu **potrohandia** ! Baina **potrohandi** hauekin... kostata baina, eztabaiden ondoren, iritsi gara taberna. Unai Iturriaga

## potrohandi ik potrohandi.

## potrojorran *(orobat potro jorran; Euskaltzaindiaren Hiztegian potrojorran agertzen da)* adlag adkor alferkerian.

Gure pisukideak oso larru gogorra zeukala, ez zuela behar egin nahi eta gehiago atsegin zitziola eguna **potrojorran** ematea lanpeturik egotea baino. Jon Arretxe

Zuk segi hor **potrojorran**, porru eginda egongo zara eta. Patxi Iturritegi

Lortzen ez bazuen, halere, ez zen **potrojorran** egoteagatik izango. Migel Angel Mintegi

**Potrojorran** egoteaz gain ezer egingo bazenu! Jon Arretxe

-Zer egin beharko nuke... zabortegei honetan apatx egin eta **potro-jorran** aritu gau osoan? Mirentxu Larrañaga

Gaurkoari dagokionez, ez duk pentsatuko orain arte **potro jorran** ibili naizela, ezta? Aingeru Epaltza

Goiza, uste dut, **potrojorran** pasatuko dudala. Unai Iturriaga

-Estudiante tunantearen eredurik klasikoenean ibili zitzaigun han; **potro-jorra** alegeran, nahi bada. Alfredo, Idoia, egun osoa aurrera eta atzera, erosketak egiten, kriston pisua dakart eta zuek hor, **potrojorretan**. Aingeru Epaltza

## potromotz *izond*

Eta ume bat egingo zioat hire andreari erratz-kirtenarekin, hik egiteko potrorik ez duk eta, **potromotz** ! Juan Kruz Igerabide

## potroso *izond adkor* zortea handia duena; potrohandia.

-Jauntxoak, esaten dugu guk -esan zuen Ligugnanakoak- eta haiekin dauden **potroso** horiek. Josu Zabaleta

-Utz ezazue bakean zahar **potroso** hori -esan zuen Ninik. Historiaurreko neandertal **potroso** koadrila negargarri hartatik atera gabe egin behar gure aukera. Josu Zabaleta

## potrozorri 1 *iz adkor* bartza.

Gainerakoak ixtaklots omalki eta **potrozorriz** beteak. Jose Angel Irigaray

### 2 *izond/iz (irain gisa)*

-Mutil **potrozorri** hori! -erantzun zion Mateok, gorputzez behintzat neu baino zorriago zen baina. Edorta Jimenez

Baina lehenago hire txanda duk, **potrozorri** hori! Edorta Jimenez

-Ez duzu pentsatuko billete horrekin ordaintzea, ezta? -aurpegiratu dit halako batean **potrozorri** halakoak artean aurpegira begiratu gabe. Patxi Zubizarreta

**Potrozorri** fina ere bada. Urtzi Urrutikoetxea

## potrozuri *izond adkor*

Alemaniarra duk, ez zakiat nongo komentutan abade alfer **potrozuri** batzuek egina; hauxe ei duk euren plazer lurtar bakarra. Paddy Rekalde



**pott** ik **pot**<sup>1</sup>.

---

## **pottoka** 1 *iz* Euskal Herriko zaldi txikia.

Asteartean ere feria eguna dutela, bereziki zaldi eta **pottokentzat**. **Herria**

116 **pottoka** ziren lehian, bai mendiko bai pentzetako **pottokak**, bi urtekoak, hiru urtekoak, umedunak eta umegabeak. **Herria**

**Pottoken** irrintzina entzun. **Herria**

Ez zen eneatu ere, segur baita denbora pasa, orori so egon zela lurreko mamutza ttipi, ardi, ahuntz, **pottoka**, bele, buzoka... **Michel Oronoz**

Hurrengo abuztuaren lehenean, feriara saltzerat ekarritako **pottoka** eta zantzen artean, zertaz ez nuen nik noizbait buruz buru eginen, Garrüzeko plazan, ene ama Katalinarekin? **Aingeru Epaltza**

Haien artean Lomu 115 kiloko **pottoka**. **Herria**

Euria gutixko, eta mendian ere ez soberakinik gure ardientzat, behiak bestalde eta **pottokak** ere hor hezurrak agerian. **Herria**

Orai arte bezala, orai bezain airos ibiliko ote da **pottoka** mendian, ibiliko iduriz bai, baina halere gauza batzu kanbiatuko zaizko. **Herria**

Lehenean zaldikundea nausi: asto, **pottoka**, zaldi. **Herria**

Zaldizkariak beren **pottoken** gainean ibilaldiaren aintzinean. **Herria**

## 2 irud/hed

Noiztenka aintzinean, eta gero gibebeko **pottokak** baliatuz nahi zutena egin dute lehen denbora erdian, nahiz ez duten entsegurik markatu. **Herria**

Gibebeko **pottokak** markatu dituzte entseguak horiek direlarik Bory, Traille eta joan den astean "perla" deitzen nuena, Vincent Clerc bi aldiz pasatu duela entsegu marra. **Herria**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Larunbatean, Saran, **pottoka** -besta. **Herria**

**Pottoka** feria. tokiko mozkinen erakusmahaiak, bai-eta dotzena bat margolariren obrak; "Kabalkada ttipi" afitxa lehiaketa; **pottoka** ibilaldiak ere bai... **Herria**

Arras ederki iragan da, ibiakoitzean, Euskal Herriko **Pottoka** Elkarteak antolatua zuen feria. **Herria**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goizean, mendi **pottoken** arteko xapelgoa. **Herria**

## 5 pottokoa.

Hartzen dute behor andana bat beren **pottoka** gazteekin, behorrek bi aldeetarik kakaletarik dilindan diren eta gainetik estaliak ez diren bi ontzi huts handiz kargatzen dituzte.

**Aurelia Arkotxa**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pottoka baten pisua** (3); **pottoka feria** (9)

**pottokaren pisua** (3)

**pottoken gainean** (3)

---

## **pottokategi** *iz* pottoken zalditegia.

Haratxago, **pottokategi** haundi bat... **Herria**

---

## **pottoko**<sup>1</sup> *iz* zaldikumea. ik **moxal**.

Bost urte nituzkeen, hauta nezan gustukoa nuen **pottokoa** erran zidan. **Ana Urkiza**

---

## **pottoko**<sup>2</sup>

1 *harri pottoko* ik **harri 11**.

---

**pottola** ik **potola**.

---

**pottolo** ik **potolo**.

---

**pottolotu** ik **potolotu**.

---

**pottor** ik **potor**.

---

**pottorro** ik **potorro**.

---

## **pottotta** (*orobat pottotto g.er.*) *iz* alua. ik **motxin**; **potorro**.

Titiburuak arroxak eta biribilak, **pottotta** bikaina, ile gorri nahaspilatuek estalia. Basaki ari ziren, baina zertan ez zekien Maddik, nahiz eta ilerik gabeko **pottotta** ikara susmatzen zuen. **Karlos Zabala**

Ezkerreko ahurra **pottottara** eramanik, bere larru leun eta garbia baino ez zuen haztatu. **Itxaro Borda**

· Eta gure goizoilandak, **"pottottobero"** samarren fama izaki, berriz, auzo herrietan! **Patziku Perurena**

---

**pottotto** ik **pottotta**.

**potxa**<sup>1</sup> iz babarrun mota.

**Potxak potxak** dira, eta babarrunak babarrunak. [Jon Alonso](#)

Laidoen zerrenda aletu nion: lehena, eta barkaezina, hainbat errezeta gaizki emana, batez ere **potxak** babarrun gorriak balira bezala idatzi zueneko hura. [Jon Alonso](#)

potxa<sup>2</sup> ik **pota**.

**potxe** iz harkaitza.

Ainizentzat lehen aldia zen itsas untzian ibiltzen zirela eta miresgarriko leku bereziak ikusi ahal izan dituzte itsas bazterreko ondartzat ederretarik haste mendi ta **potxetarat**.  
[Herria](#)

**potxer** (*corpusean potxero soilik*) iz bisiguak harrapatzeko erabiltzen diren kordel zati motzetako bakoitza.

**Potxeretatik** 1.300 bat amu zintzilikatzen dira. [Berria - Gaiak](#)

**potxingo 1** iz putzua, istila.

Bide beretik, kaleetako istilak eta **potxingoak**, hormaturik topatu genituen ez gutxitan. [Txillardegi](#)

Kaleetako harlauza apurtuetan **potxingoak** sortu dira. [Sonia Gonzalez](#)

Duguna ez da dagoenaren itsaso zabalean bakarturiko **potxingoa** baizik. [Markos Zapiain](#)

Oka egin duen mutikoak burua altxatu du azkenik, behearen gainean **potxingo** enpagugarria utzita. [Sonia Gonzalez](#)

**2** (hitz elkartuetan)

Hatz bat baino sakonago ez den ur **potxingo** batek, bide galtzadetakoko harri artean gelditzen denak, zero-lurren arteko bitartea altua den bezain ikusmira sakonak eskaintzen ditu lurperantz. [Xabier Amuriza](#)

Adur **potxingo** bat utzi zuten txotxak mamurtzen zituzten australopitecus haiek euren solisombra edalontzien aurrean. [Sonia Gonzalez](#)

**potxola** (*orobat potzola g.er.*) **1** izond emakumezkoek mintzatuz, potxoloa. ik **potxolo 2**.

-Zer dun, **potxola**? [Eider Rodriguez](#)

Zigorrek *Egun on* **potxola** esan dio, eta muxu bero bat eman. [Eider Rodriguez](#)

Ez naun alferrik ari hizketan, **potxola**. [Jon Muñoz](#)

-Gero, **potxola**, bokata-latsean elkarrekin ariko gara! [Itxaro Borda](#)

**2 potxola-potxola**

Beste haur batek, emakume zuri-zuri **potxola-potxola** bati begi bat kendu zion. [Pablo Sastre](#)

**potxolo** (*orobat potzolo*) **1** izond lodixkoa, gizentxo (txerazko ñabarduraz, askotan deiki gisa).

-Den-denok hil behar dugu, **potxolo** -esan zuen Rufusek, beste txirri bat pitzen zuelarik-. [Oskar Arana](#)

Emaztegaia, ordea, mutiko **potxolo** batez erdi zen handik zazpi hilabetera. [Karlos Zabala](#)

Ai, nire umetxo **potxoloa**. [Jose txo Azkona](#)

-Zer **potxoloa**, zer goxoa den Mario!, esaten zuen gure amak. [Fernando Rey](#)

"Zeinen **potxoloa** zen txikitan!", kexatzen zen. [Fernando Rey](#)

Mutila oso ezaguna zen herrian, jator-jatorra, denen iritzian, **potxolo** masail-gorri bat, atsegina, ondo hezia, jendearekin gozua, maitagarria. [Karlos Zabala](#)

**Potzolo** moztaka, ilea motz-motza eta aurrean ile-xerlo bat tente, bekain gorriak eta triangelu isoszele baten formakoak. [Fernando Rey](#)

**2** (emakumezkoek)

"Ai, **potxoloa**, ene alaba laztana!". [Jose txo Azkona](#)

Hain ilaun sentitzen zen gaualdi bare hargatik [...] hain motel, Pauline **potxolo** hura bere belaunen gainean lo gelditu ondoren. [Karlos Zabala](#)

**3 potxolo-potxolo**

Joan omen zen behin harengana Donostiako jauntxo bat, familia karlistakoa, ojalatero deitzen zituztenetakoa, **potxolo-potxoloa** eta guri-guria. **Potxolo-potxoloak** daude.

[Koro Navarro](#)

**potxolokeria** (*corpusean potzolokeria soilik*) iz

**Potxolokeriak**. [Aingeru Epaltza](#)

**potxon** (*orobat potxona*) **1** iz alua. ik **potxotx**<sup>1</sup>.

Pozik baieztu nuen taketa ez zela makaldu izebaren **potxonan** egondako denbora guztian eta gogor jarraitzen zuela. [Aitor Arana](#)

Uzkur zebilen beste zulo bat neskaren uzkia zen, **potxona** baino pixka bat gorago tentagarri eta zabalkor ikus nezakeena. [Aitor Arana](#)

Esku batez behiaren buztana alde batera kendu nuen trabarik ez egiteko eta bestearekin neure buztana aberearen **potxon** bigun, heze, luze eta zabalera zuzendu nuen.

[Aitor Arana](#)

**2** (hitz elkartuetan)

Gehiago egon ezinik, ohearen gainean belauniko nengoela, zakila zulo abegikor hartara hurbildu eta aste osoan jan ez duenak pastel goxoa dastatzen duen bezala dastatu nuen nire lehen emakume-**potxona**. [Aitor Arana](#)

potxona ik **potxon**.

## potxondu, potxon(du), potxontzen da/du ad potxon bihurtu.

Berak, umore onez, niri popa eskaintzen jarraitzen zuen eta irribarretsu esan ohi zidan uzkia beraren moduan "**potxonduta**" baneuka, sexuketaren bi alderdiak betetasun osoz gozatuko nituzkeela. [Aitor Arana](#)

## potxor iz potxona.

-Etorri hona, mari-**potxorra** -esan zion Nano Zuriari larderiatsu, txandal prakak txorkatiletaraino jaitsita. [Patxi Iturritegi](#)

## potxotx<sup>1</sup> 1 iz alua. ik potxon; motxin.

Bero-bero nengoen, **potxotxa** pilpiraka eta sutan neukan. [Juan Martin Elexpuru](#)

Titiburuak ferekatzen nabil, tente-tente jartzen ari dira, nire **potxotxa** melatuta dago eta taupadaka hasi da. [Juan Martin Elexpuru](#)

Ipurditik ematen karraitu zaio, bere nahikundearen indar guztiaz, esku bat **potxotxeko** arrakalan sartzen dion bitartean. [Juan Martin Elexpuru](#)

Denbora eman zuen bere mihiaz nire pubiseko ilearekin jolasean, okotzarekin zabaldu zuen nire **potxotxa** ... [Juan Martin Elexpuru](#)

Sentitu nola kitzikatzen zaituzten nire bularrek, sentitu nola mugitzen den nire ipurdia zure pubisaren ondoan, ikutuidazu **potxotxa**, ikusiko duzu nola poztuko den zure zirriekin. [Juan Martin Elexpuru](#)

Dolmancé: Zoragarri! ezteki eskaintzen zait **potxotx** birjina txiki polit hau. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Beste gizonak **potxotx** -zuloa xerkatu du, eta nekerik gabe sartu zakil osoa bertan. [Juan Martin Elexpuru](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**nire potxotxa** (3)

## potxotx<sup>2</sup> 1 izond

-Ez izan beldur, **potxotxa**. [Patxi Iturritegi](#)

### 2 mari-potxotx

Gabon, ondo lo egin, mari-**potxotxa**. [Patxi Iturritegi](#)

## potzo izond adkor potoloa, asea.

Badakigu nolako izan behar duen gazte doktore baikor lasai **potzoak**, hamar dozena soldatarekin. [Patziku Perurena](#)

### 2 potzo-potzo

Botalarria, bezperan ardoz **potzo-potzo** egin izan banu baino sabel-astunago. [Anjel Lertxundi](#)

## potzola ik potxola.

## potzolo ik potxolo.

## potzolokeria ik potxolokeria.

## potzu ik potzu.

## pox 1 iz adkor poza.

Eta emaidak gaur azkeneko **pox** hori behintzat! [Txillardegi](#)

Horrek ere halako **poxa** ematen zidan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Eta **pox** horren falta ere, transmititu egiten zaio entzuleari. [Andoni Egaña](#)

Berritsuak ziren, eta oso zaleak lagunekin egoteko eta ordu erdiko **poxa** hartzeko, eta bazituzten haiek ere beren ahuleziak. [Josu Zabaleta](#)

Atzean ikusteak ere **poxa** ematen du, ilusioa egiten. [Berria - Kirola](#)

**Pox** tiki hori nolabait ospatu behar eta, Anaren irudia ekarri nuen neure baitara. [Aingeru Epaltza](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Gabin harrituta zegoen Hausterren begiradan **pox** txinparta zitezkeenak atzemanda; bestela hits agertu ohi zen Hausterrengan. [Iñaki Iñurrieta](#)

Orduantxe hasi zen Regina, aurki ezkontzekoa eta horrexegatik duintasunez eta jakintzaz jantziagoa zena, **pox** oihuka, plaza aldean mutil tropa bat beren bizikletetan eseririk ikusita: [...]. [Josu Zabaleta](#)

### 3 poxik

Ikusten duk Patziku, edozein erdaratan ergelkeria dena, euskaraz kultura bihurtzen zigutek, eta gu **poxik**. [Patziku Perurena](#)

### 4 pox-poxik

Korrespondentzia horren izaera zehatzagoaren askalekua, Hegel ausartu ez dena ematen, berak eman duela esaten digu Ortega-k, **pox** -poxik bere buruarekin. [Joxe Azurmendi](#)

## poxelagarri (orobat poxolugarri) iz eragozgarria.

Hain handi eta **poxelagarri** bihurtu zen berehala jendeketa, non Napoleonek urratsa arindu baitzuen. [Koldo Izagirre](#)

Berriz ere orroitarazten dautzuegu, zikin pizu eta **poxolugarrien** biltzeak, egun berezietan direla. [Herria](#)

# poxelatu

poxela, poxelatzen (*orobat poxulatu eta poxulutu*) du *ad* eragotzi, oztopoak jarri, trabatu.

Bilgorrak **poxelatzen** ninduen, malintzen, eta indar handia egiterakoan, hatsa bera laburtua neukan. **Daniel Landart**

Milaka intsektuk **poxelatzen** naute. **Koldo Izagirre**

Honaino bidelagun izan duzuen mortuko haizeak, zirrikituren batetik sartu eta, hondar gorria zure buruaz jabeturik, burmuinaren lana **poxelatzen** du. **Xabier Montoia**

Honak motz ditazke, girtoinak ito, bainan nehork ez dezake primadera etortzetik **poxula**. **Herria**

Uste izan dugu igande goizean besta hori ar txarrak **poxulutuko** edo berdin ezeztatuko zaukula. **Herria**

## poxelu (*orobat poxolu*) 1 iz oztopoa, eragozpena.

Gorpua agerian ipiniz gero, arimak gora hegaldatzeko **poxelu** guttiago izaten du. **Gotzon Garate**

Artzain horiek orratza eta haria ibiltzen zituzten txapel edo bonetaren azpilduran; azpilduraren zentzu berean sartu orratza eta eman haria inguruan; gisa horretan ez zuen den mendreneko **poxelurik** senditzen artzainak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gorpua agerian ipiniz gero, arimak gora hegaldatzeko **poxelu** guttiago izaten du. **Gotzon Garate**

Galde batzuk beti **poxeluko**. **Janbattitt Dirassar**

### 2 poxelu egin ik poxelatuz.

Denek, berdin, gura dutenez, denek, berdin, elkarri **poxelu** egiten diote, eta, denek, beti, goretsiak edo maitatuak izan nahi baitute, denek elkar ezinikusia dute. **Piarres Xarriton**

Telebistak mutu egon ohi ziren, eta Xarlesek sobera maite ez zuen sasi-rock'n'rollak baizik ez zion **poxelu** egiten hara bildutakoen solasari. **Xabier Montoia**

Tolosak, bere jardunean, bere industrian [...] hiri frantses polit baten antza du; iduri luke **poxelu** egin behar liokeela marruma honek auzo duen Gaztela Zaharrari, eta honek, dagoen lozorrotik erdi esnatuta, harengana itzuli eta esan behar lukeela: isilduko ahal haiz behingoan! **Koldo Izagirre**

### 3 poxelu izan

Ortodoxiarentzat, **poxelu** zaio aberastasuna bertuteari; eta hiritarrak esku hartu behar du politikan. **Markos Zapiain**

Hala ere, **poxelu** zitzaigun umea. **Xabier Montoia**

Gainerakoentzat **poxelu zinateke** eta hemen berean utziko zintuzke Cartierrek **Xabier Montoia**

## poxeta iz ipar sakela modukoa, txikia,

**Poxeta** ttipietan eta sasoin hastapenean, merkatuan guti ateratzen delarik orduan kario da; sasoina aitzinatzearekin aldiz merkeago. **Herria**

Gero xukatzeko labea, ehotzeko tresnak eta gero bokaletan edo **poxetetan** ezartzeko maxineria. **Herria**

## poxi 1 iz apurra.

Ez du hain segur irauenen, baina den **poxi** horretaz baliatzea hobe... **Eneko Bidegain**

Deus guti dakizu, eta dakizun **poxi** hori debaldekoa duzu orain eta hemen. **Xabier Montoia**

Nahiz eta egun hartan laster akitu zen, agertu zuen **poxi** hortarik ezagun da, dio beti medikuak, bertsulari hobereatarik dela. **Michel Oronoz**

Mintzaira horrez dakien **poxiaz** jadanik zein laño baliatzen den ikustea baino gauza atseginagorik ez da! **Jon Muñoz**

Sosa gutiegi denean eskualde batean, jendeek nahiago dute beren lurretan denetarik **poxi** bat egin, etxeko doia, kanpotik sobera gauza ekarraz gabe, hain dira gostatzen.

**Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; ik beherago 4)

Kamareroa hurbildu zitzaidan eta lagundu egin ninduen berinaki **poxiak** biltzen. **Daniel Landart**

Istant batez, hotzak hila zen xoria ferekatzen genuen eta denak libro uzten genituen, lurlean zeuden ogi **poxien** bila jin zitezen, beldurra airatuta. **Piarres Aintziart**

Portu-buruak azkenean askitatzat eman ote ditu ontzikoei geratzen zitzaizkien diru **poxiak**, balio sentimentala beste deusik ez zuten pitxiak, koadroak, ontziteriak? **Anjel Lertxundi**

Osaba burgesa izan omen zen galerianoaren anaiaren etxean ere, eta diru-**poxi** onak eta ohoreak eskaini omen zizkion seme premua gerrara bidaltzearen truke. **Anjel Lertxundi**

Ogi xerra **poxi** hura, haatik, hauta zen. **Eneko Bidegain**

### 3 poxi bat adlag apur bat.

Haren bihotzean sartu gira, gutti bainan hala ere **poxi** bat... **Menane Oxandabaratx**

Asma dezagun **poxi** bat, orai ehun urte, euskara Nafarroan hain hedatua zen denboretan, ukan baginu egunkari euskaldun bat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Agaramont haien artean zen, eta haren agur beroak beratu zizkion **poxi** bat bihotzeko zainak. **Aingeru Epaltza**

Zalantza txiki baten ondoren, ahoak **poxi** bat ireki ziren, bat-batean musua total, bizi, grinatsu bilakatu zen. **Jon Alonso**

Badakigu badirela beste horrenbeste, **poxi** bat eskas dabiltzanak hizkuntza kontuetan. **Pello Salaburu**

### 4 (izen baten eskuinean)

Horra zergatik aroski ari izan giren kontrabandan, anai batzueri zerbitzu eginez eta ber denboran sos **poxi** bat irabaziz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ondoko udan, sos **poxi** bat baztertuta-eta, hiru asterentzat oporretan izanki, deliberatu nuen norabait behar nuela mugitu. **Janbattitt Dirassar**

Zernahi eginen lukete ur **poxi** baten truke. **Xabier Montoia**

Bainan halere diferentzia **poxi** bat bada. **Menane Oxandabaratx**

Denbora **poxi** baten buruko, kasik ahantzia duzu. **Janbattitt Dirassar**

Marro zerri hari ez nion utziko hauts **poxi** bat gehiago saltzen Adelari. **Juan Kruz Igerabide**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**biper poxi bat** (3); **denbora poxi bat** (14); **denbora poxi baten** (3); **deskantsu poxi bat** (3); **diru poxi bat** (8); **eskugain poxi bat** (3); **esperantza poxi bat** (3)

**poxi bat** (226); **poxi bat bada** (3); **poxi bat egin** (3); **poxi bat egiten** (3); **poxi bat gehiago** (4); **poxi bat goiti** (7); **poxi bat hartu** (3); **poxi batekin** (9); **poxi baten** (26); **poxi batez** (5)

**sos poxi bat** (11); **sos poxi baten** (3); **sukar poxi bat** (11); **zentzu poxi bat** (8)

## poxika 1 adlag apurka.

Gainbehera apurka eta **poxika** abiatzen denean, malkarrak berak egiten du pendiza. **Pello Zabala**

### • 2 iz poxia, apurra.

Nik ere nahi nuke, gelditzen zaizkidan ingeles **poxikekin**, zerbait erran. **Piarres Aintziart**

## poxikatu, poxika, poxikatu du *ad* poxietan zatitu.

Lantegi bakoitz ikusi behar zoin egun berexten den eta gisa guziz egun berezirik gabe ere jokatzeko ahal, urtean zazpi oren emanez elkartasunari, zazpiak segidan edo "**poxikatu**" berdin, denen buru kondua xuxen jalgitzekotan! **Herria**

## poxin 1 *iz* poxia, apurra.

Han neuzkan pasaporte, han diru **poxinak**, han edozein bankutan dirua ateratzeko agiriak. **Anjel Lertxundi**

Hastetik beretik hartu nuen atsegin, lehen **poxinetik** eta ahamenetik. **Joan Mari Irigoien**

## 2 *poxin bat* poxi bat. (izen baten eskuinean)

Zehaztasuna, poz **poxin** bat, eta irakurlearen alde nobleenganako begirunea. **Anjel Lertxundi**

Denbora **poxin** bat hartu behar izan dut nire begiak ohi daitezten. **Anjel Lertxundi**

Eguberri haietan gertaturikoak adieraz dezake, zehaztasun **poxin** batez, esan nahi dudana. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diru poxinak** (3)

## poxiño (*orobat poxino g.er.*) 1 *iz* apurtxoa.

Bakoitzarentzat ahamen ttipi bat baizik ez zen gelditzen, baina zer besta; **poxiño** hura ere hartzeko on. **Eneko Bidegain**

Gosaritarako, baso tiki bat bete kafe-esne, ogirik gabe; kafe-esnea izenez, baina izatez ur zikin **poxino** bat hauts-esne pixkatez nahastuta. **Jokin Urain**

## 2 *poxiño bat* poxi bat.

**Poxiño** bat erotzekoa ere bada, gaurko egunean. **Menane Oxandabaratx**

Eta ainitz eta ainitz irakurri dut eta horrek **poxiño** bat salbatu egin nau, bai. **Menane Oxandabaratx**

Izan naiz halere **poxiño** bat Espainan, Italian, Portugalen eta Belgikan. **Menane Oxandabaratx**

Eta ikasi egin nahi nuen... "**poxiño** bat bederen". **Txillardegi**

Entzuleak hor baldin badira, hek ere gimnastika **poxiño** bat egiten ahal dutela. **Menane Oxandabaratx**

Hor gaindi hoinbeste espantu euskara behar dela salbatu eta gero hoinbeste jestu euskarari toki **poxiño** baten egiteko. **Herria**

## poxitto *iz* apurtxoa.

Bero itogarrietan, lur azala elkortzen hasi baino lehen, euri **poxitto** bat nahi zutenean, aurrena: *Jondone Laurendiz euria goxo*. **Pello Zabala**

## poxoin ik **pozoi**.

## poxoitu ik **pozoi**tu.

## poxolu ik **poxelu**.

## poxolugarri ik **poxelugarri**.

## poxpoilo ik **pospolo**.

## poxpolin (*orobat pospolin g.er.*) 1 *izond/iz* pertxenta, liraina.

Ahaztu haiz zelan konkistatu huen neskatila **poxpolin** hura? **Urtzi Urrutikoeetxea**

Nerea eta biok liburuan emakume independenteen eta emakume **poxpolinen** arteko bereizketa egiten zenuen. **Ana Urkiza**

**Poxpolin** aparta da urrunean, ea distantzia hurbiletan are hobeto moldatzen den. Politasun eta kuttuntasun sinboloa hartzen du hor, galeperraren irudira, haur **pospolin** horrek. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Eseri, nire **poxpolina**, apatx hemen! **Antton Olano**

-Hara, **poxpolin** hori -esan zion xuxurlaka-, nire ama izango zarena zin egiten badidazu, salbatuko zaitut. **Julen Gabiria**

## • 2 *iz* Espainiako bigarren errepublika garaiko dantza talde abertzeleetako emakumezkoa.

Jantziteri aldetik **pospolin** txuri-gorri-beltzak desagertu eta fiabarduretan sakondu du. **Berria - Kultura**

Besoetan hartzen nuen bakoitzean eta haren esne usain mingostua usaintzean, halako batean irentsi egingo nuela iruditzen zitzaidan, hain baitzen ederra **pospolina**. **Hasier Etxeberria**

Neurekoikeriaz ari naiz: sudurluzeok susmagarriago izango gara beti ariar arrazako **poxpolinak** baino. **Joxerra Garzia**

Txarangaren atzetik pailazo gehiago doaz, saltoka, taliban koadrilla bat, hiru **poxpolin** bizardun eta marine talde batekin batera **Jokin Muñoz**

## poxpolo ik **pospolo**.

## poxpolu ik **pospolo**.

## poxtu, pox(tu), poxten 1 du *ad adkor* poztu.

Bere izpiritu ahula jendaurrean **poxten** duen jende gehienak, izaten du berez halako ukitu afeminatu bat. **Patziku Perurena**

## 2 moxkortu.

-Dahlmann jauna, ez egin kasurik gazteoi, erdi **poxtuta** daude eta. **Juan Garzia**

## poxulatu ik **poxelatu**.

## poxulu ik **poxelu**.

## poxulutu ik **poxelatu**.

## **poz 1** iz atsegin beteak sortzen duen gogo egoera edo zirrara.

Zeruko Jainkoak bihur dezala **poz** zure nahigabea.

**Poza** eta zoriona lagun izan ditzazula. **Jose Antonio Mujika**

Barre egin zuen **pozak**, urduritasunak eta tentsioak eraginda. **Aitor Arana**

Beldurrak eta **pozak** aldi berean hartu zuten Anshel. **Koro Navarro**

**Pozak** labor irauñ zion. **Gotzon Garate**

Ez nion **poz** hori erantsiko haren garaipenari. **Anjel Lertxundi**

Arestian sentitutako **poza** puskatu egin zitzaidan barruan. **Bernardo Atxaga**

Hatzak miazkatuz, baina **poza** kamustu zitzaion apur bat, gozoagoa izango zela uste baitzuen. **Karlos Zabala**

Gutxi irauñ zigan **poz** hark. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Galdu egiten dut **poz** guztia, Mardoqueo judua atarian ikusten dudanean. **Elizen arteko biblia**

Emaiozu **poz** hori, emaiouzu, egia da eta! **Josu Zabaleta**

Akabo goizeko erregaluen **poza**. **Xabier Etxabe**

Hura Andoniren **poza**, Big Ben ketan. **Koldo Izagirre**

Leitzara etorri berri hartan, hura **poza** gurea, herri inguruko bazterretatik Sanjoan sutarako epuruketan. **Patziku Perurena**

Oi! hura **poza** hartu nuena! **Josu Zabaleta**

Nere bihotzaren **poza**! **Patziku Perurena**

Haren **poza**, begien aurrean horrelako ume ederra ikusita! **Gotzon Garate**

Eztei-egunetako negarra hain da **pozaren** bidelagun aparta! **Anjel Lertxundi**

**Poz** batean zebiltzak. **Bernardo Atxaga**

Oihu egin beharreko orduak, edo neurrigabeko **poz** edo etsimenduzkoak. **Iñaki Seguro**

Maitasunak eta **pozak** gainezka egiten zioten. **Fernando Rey**

Neure burua kontrolatu behar ere bai nik, **pozak** gainezka egin ez ziezadan. **Joxe Austin Arrieta**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

David erregeak ere **poz** handia hartu zuen. **Elizen arteko biblia**

Eta zer **poz** handia hartu nuen: hiruzpalau segundoko **poz** biribila! **Joan Mari Irigoien**

Festa bukatu eta **poz** barbaroaren atzetik beti etortzen den tristezia barbaroa nagusitu zen salaz. **Bernardo Atxaga**

Egia esan behar bada, **poz** ñimiño bat ere nabaritzen du, doilortasun moduko bat. **Hasier Etxeberria**

Frantziskok egiaz mundu osoa **poz** berriz alaitzen du. **Askoren artean**

Hiltzailearen **poz** ankerra. **Jose Morales**

Bizirik dirauenaren **poz** isil garailea. **Joxan Elosegi**

Idatz ezazu ez dagoela hor **poz** bete. **Askoren artean**

Horrela **poz** bete-betea izango dugu elkarrekin. **Elizen arteko biblia**

Mundu osoa **poz** salbagarriz beteko duen egun bedeinkatua. **Askoren artean**

Gero denak gainezka egin zuen, ezarriak biluztu ziren, sabelak lehertu ziren **poz** gaiztoz. **Karlos Zabala**

Borrokari ari zaizkit **poz** negargarriak negar pozgarriekin. **Imanol Unzurrunzaga**

Ezagutzen ez nuen bezalako **poz** harrigarri batez entzun nuen haren mekanika xumearen tik-tak hotsa. **Josu Zabaleta**

Egia esateko, nire barruan sekulako **poz** apartu bat jauzika sentitzen nuelako bururatu zait halako gauza ezohiko bat. **Anjel Lertxundi**

Arropak lehor etxeratzen zenean, halako esker on, halako **poz** zehaztugabe bat sentitzen zuen. **Karlos Zabala**

**Poz** sinestezinak tristura arintzen zien, eta mirari berri batek haien gogo-bihotzak harriduraz gainezka utzi zituen. **Askoren artean**

Bihotzeko **pozak** bizia ematen dio gizakiari, eta alaitasunak bizitza luzatzen. **Elizen arteko biblia**

Jainkoak eta bere aingeruek, beren eraginaldietan, zinezko alaitasuna eta **poz** espirituala ematen dute. **Patxi Altuna**

Bere olio koloreko begiek ez zuten inolako **pozik** adierazten. **Bernardo Atxaga**

Zenbat alferrikako **poz** eta egun seinalatu, mundua haur eder baten bila zorutzen balebil bezala! **Anjel Lertxundi**

Zer ikusiko eta, ai miraria, ai ustekabeko **poza**! **Josu Zabaleta**

Ezusteko **poz** bat emateko. **Josu Zabaleta**

Tarteka neurritz goitiko **poz** batek inarosten zuen. **Fernando Rey**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Israeldar guztiak igo ziren Jaunaren itun-kutxarekin batera, **poz**-oihu artean. **Elizen arteko biblia**

Marmarra **poz**-eztanda bilakatu zen. **Fernando Rey**

Basoa soinuz betetzen da eta harkaitzek oihartzun egiten diete **poz**-kantuei. **Askoren artean**

Egin **poz**-irrintzi eta oihu, Siongo bizilagunok. **Elizen arteko biblia**

Bi-biek halako **poz** marraska bat bota zuten. **Josu Zabaleta**

Egizu **poz**-ikara, oi lur, Jabearen aurrean. **Elizen arteko biblia**

Aitak, serio, ez zien semearen **poz**-keinuei berehalakoan erantzun. **Josu Landa**

Buruaz **poz**-keinua egin zuen alkateak. **Felipe Juaristi**

Inguruko **poz**-begiratuenez merezimendua irabazi duenaren segurantzia. **Xabier Etxabe**

Lan errepikakorren neke-asperdura **poz**-pilpira bilakatu ziohoan. **Juan Garzia**

Koilarakada bakoitzak halako **poz** zipiztina ematen zidan. **Bernardo Atxaga**



"Arraio!" esan zuten gordelekuko mutilak, eta bere **poz** harridura erakusteko, ia lurraino makurtzen zuten toles-toles eginda. [Josu Zabaleta](#)

Alditan isilitasun erlijiozkoaz lagundua, alditan **poz**-jario erromeriazko batez lehertua. [Anjel Lertxundi](#)

Edanean **poz** aparretan, irudi zuen Armadako soldaduak-edo zirela. [Edorta Jimenez](#)

Fabrikako egunak **poz**-egun dira niretzat. [Eskarne Mujika](#)

Hain zuzen ere horregatixe, laboratoriorio ostera bisitatu **poz**-iturri joria da, eta xarma bizia dario. [Juan Garzia](#)

Mahlerren laugarren sinfonia etorri zitzaion burura, **poz**-uhartea balitz bezala. [Felipe Juaristi](#)

**Poz**-hiri bihurtuko baitut Jerusalem, alaitasun-herri bertako jendea. [Elizen arteko biblia](#)

#### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Inguruan ditudanentzat lagungarri eta **poz** emaile izan nahi dut, ezagutzen ez banaute ere. [Josu Zabaleta](#)

Jauna **poz**-emaile. [Elizen arteko biblia](#)

#### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak adizlagun balioa duela)

Zuek ikustean, mendi eta muinoek **poz**-irrintzika ekingo diote, landako zuhaitz guztiek txalo joko. [Elizen arteko biblia](#)

Alai eta **poz**-oihuka sartuko dira Jaunaren pozetara. [Askoren artean](#)

Barrez bete zitzaigun ahoa, **poz**-oihuz ezpainak. [Elizen arteko biblia](#)

Herriak oihu handiak egin zituen eta hiri osoa **poz**-deiadarrez bete zen. [Elizen arteko biblia](#)

Frantziskok ikusi zitueneko, **poz**-lasterka joan zen haiengana. [Askoren artean](#)

**Poz**-jauzika aterako zarete, ikulutik askaturiko zekorra bezala. [Elizen arteko biblia](#)

#### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketa kopulatiboetan)

Ezkonberritako **poz**-nekeez onduak. Maitasunik gabe ezinezkoa gertatzen bada elkarren arteko komunikazioa, hau da, eguneroko harremanak eta agurrak eta **poz**-haserreak, nola da posible bizitza? [Anjel Lertxundi](#)

Hura aintzaz beterik etortzean **poz**-alaitasunez bete zaitetzen. [Elizen arteko biblia](#)

Haien **poz**-atseginen, haien pena-tristuren lekuko zintzo bilakatua. [Felipe Juaristi](#)

#### 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako barne-**poz** aitorrezinaren bulkadaz. [Itxaro Borda](#)

Xafla izurtu zartakari horrexen arrabotsa, eta nire haur-**poza** hori guztiagatik, nire erabateko atsegina: kantari hasten naiz. [Joxe Austin Arrieta](#)

"Espainian ez dago inor hain gazterik hain lan on zabala idatzi duenik", dio biografoak halako auzo-**poz** harrokeriazko batez. [Anjel Lertxundi](#)

Hala eta guztiz ere, gizonak bere gogo-**pozetan** segitzen du. [Edorta Jimenez](#)

#### 8 bizi **poz** ik **bizipoz**.

#### 9 **pozak** (adizlagun edo kideko baten ezkerrean)

Zazpi gringo puta akabatu izanak ematen duen **pozak** puztuta. [Hasier Etxeberria](#)

Pentsatuko duzunez, **pozak** zorutzen gauzka gertakari zorionsu horrek. [Mirentxu Larrañaga](#)

-Ene!, **pozak** zorutzen jarriko nintzateke Walter Williams bezalako gizaseme bat etxera etorri eta guretzat kantuan arituko balitz. [Mirentxu Larrañaga](#)

**Pozak** txoratzen jarri ziren eltzea seinalatu eta nahi zuten guztia hartzeko esan nienean. [Bernardo Atxaga](#)

Ingelesa, ordea, **pozak** zoratu beharrean zegoen. [Xabier Aranburu](#)

**Pozak** airean zebilen hirian zegoelako. [Mirentxu Larrañaga](#)

**Pozak** airean erantzun nion: [...]. [Joan Mari Irigoien](#)

Laguntza iraultzailearen eske ingurutzen gara geure anaiengana, **pozak** urduri. [Koldo Izagirre](#)

Eskua ukabildu du **pozak** hunkituta. [Koldo Izagirre](#)

Bakar-bakarrik sartu nintzen han, eta, ilunpean, bertan ezagututako **pozak** gogoan, estasi moduko batean sartzen nintzen. [Monika Etxebarria](#)

#### 10 **pozez adlag**

Fang ia erotu zen **pozez** haiek ikustean. [Iñaki Mendiguren](#)

**Pozez** jakin dugu gorde duzuela gurekin egin zenuten hitzarmena. [Elizen arteko biblia](#)

Barre egin zuen Wernerrek, kezkek kutsaturiko **pozez**. [Itxaro Borda](#)

**Pozez** begiratu genuen atzera, hesiaren kontra zeuden gizonen aldera. [Koro Navarro](#)

Poztu **pozez** daudenekin; egin negar negarrez daudenekin. [Elizen arteko biblia](#)

Ez dut jakiten **pozez** ala negarrez behar ditudan ospatu haien emaitzak. [Hasier Etxeberria](#)

Ikasleak, berriz, **pozez** eta Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren. [Elizen arteko biblia](#)

Emakume zaharraren bihotza **pozez** eta saminez bete zen aldi berean, eta malkoa zetorkion begietara. [Juan Kruz Igerabide](#)

**Poz** eta adorez bete nau zure maitasunak. [Elizen arteko biblia](#)

#### 11 (adizlagun edo kideko baten ezkerrean)

Orduan, anaiak, **pozez** gainezka, korura joan ziren. [Askoren artean](#)

Herri osoak **pozez** oihuka eta irrintzika goستن zuen Jauna. [Elizen arteko biblia](#)

Hitz egiten jarraitzen zuen, irribarretsu eta begiak **pozez** dirdirka: [...]. [Jose Morales](#)

Emakumea **pozez** dardarka hasi zen. [Jose Morales](#)

**Pozez** jauzika jartzen zen bere semeen egintzen usain gozua iristen zitzaionean. [Askoren artean](#)

Eta, espiritua **pozez** blai eta bere anaiak ere Jaunagan adoreturik, bideari ekin zion haiekin batera. [Askoren artean](#)

Puritanoek uste zuten herriak gogo handiz eta **pozez** beteta hartuko zuela errepublika berria. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Astiro marraskatzen zuen, papurrez papur, **pozez** zorutzen. [Karlos Zabala](#)

Saltoka hasi zen, **pozez** zorutzen. [Julen Gabiria](#)

Peppone **pozez** lehertzen zegoen. [Koldo Biguri](#)

#### 12 **pozezko izlag**

**Pozezko** oihu bat egin du. [Monika Etxebarria](#)

Beti berdina zen **pozezko** hots bat, usoen urrumaren antzekoa. [Askoren artean](#)

Zergatik eragin zidan etxe haren ikusteak **pozezko** hozkirri hura? [Josu Zabaleta](#)

la gehien-gehienak **pozezko** oroitzapenak. [Gotzon Garate](#)

**Pozezko** oihuz eta malkoz egin genien ongietorria Jani eta Miepi. [Josu Zabaleta](#)

Zorionezko eta **pozezko** denborak haiek, Mantxako Don Kijote, zaldun txit ausarta, munduko plaza erdira atera zeneko egunak. [Patxi Ezkiaga](#)

Arima ere asaldatzen dute atseginezko eta oinazezko grinekin, **pozezko** eta tristurazkoekin, beldurrezko eta desirazkoekin, urduritasunezko eta arduratiekin. [Joan Mari Lekuona](#)

#### 13 **pozik** ik **pozik**.

#### 14 **poz eman** (18 agerraldi, 12 liburu eta artikulu 1ean)

Gure amari **poz eman** zion oraingoan literatura estatubatuarren klasiko gisa agertu izanak. [Ramon Etxezarreta](#)

Herriak erlijioa behar du, esan da, dibertitu egiten du, **poz ematen** dio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Ikuste hutsak **poz ematen** dit. Patziku Perurena  
Orduan, Pilatok, jendeari **poz emateagatik**, Barrabas askatu zien. Elizen arteko biblia  
Begitarte onez begiratzen zion komisario zaharrari, haren umore onak eta izaera alaiak **poz emango** baliote bezala. Jose Morales  
Orain, **poz emateagatik** eta zor diodalako, nire panpina-ohola antolatu dezadan; deus ordaintzeke, bentan dauden guztien atseginerako izan dadila. Patxi Ezkiaga  
Seme zuhurrak aitari **poz ematen**, seme zentzugabeak ama mesprezatzten. Elizen arteko biblia  
Jaunak Sion kontsolatzen du, hondatua dagoen hirari **poz ematen**. Elizen arteko biblia

## 15 **poz hartu** (21 agerraldi, 16 liburutan)

Aldian behin ekintzaren bat egiten zuten, eta **poz hartzen** genuen. Rafa Egiguren  
Hizkuntzalaritzak **poz hartuko** du horrelako egoera ikustean. Isabel Arrigain  
Noiz edo behin horrelakoren bat ere sortzen du bertsolariak, eta **poz hartzen** du horrelakoetan, baina bere xedea ez da hori. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua  
- **Poz hartzen** diat ongi haizela ikusirik. Juan Garzia  
Seguru nagok **poz hartuko** duela hi ezaguturik. Juan Garzia  
Jakina, **poz hartu** dugu zu ikusita..., zu eta umeak. Ander Irizar  
Okerragoa da, izan ere, zitalkeriagatik **poz hartzea** hondamenaren damu izatea baino. Imanol Unzurrunzaga  
Mendekua ikustean, zintzoak **poz hartuko** du, gaizkileen odola oinetatik garbituko. Elizen arteko biblia

## 16 **poz jario** (orobat **pozjario g.er.**) iz

Oinetako-garbitzaileak, ordea, ez zuen jendearen **poz-jarioa** bizi, begi-bistakoa zen ez zitzaiola soldaduen fanfarroikeria atsegin. Anjel Lertxundi  
Héraclius Gloss, berriz, esan beharrik ere ez dut **poz jarioz** zegoela, argitasunez beterik, eraldaturik. Josu Zabaleta

## 17 (izenondo gisa)

Gure buruen gainean mahaira eseritako milizianoen kantu **pozjario** errutsuak entzuten genituen. Juan Garzia  
Xaloe, bere gixenean ere sendoa, **poz-jario**. Matías Múgica

## 18 **poz-pozik** ik **pozik**.

### 19 **poza eman** (93 agerraldi, 45 liburu eta 23 artikulutan)

**Poza ematen** zuen mahai hark **poz gutxi eman** zion Frantziskori. Askoren artean  
Artaburu urre kolorekoak **poza ematen** digu uztaroan. Patziku Perurena  
Eta zerk ez zidan orduan **poza emango**, nire bizitzako lehen ordu zioritsueta? Matías Múgica  
Berak ere ez zekiela deus etorkizunaz, baina **poza ematen** ziola, nolana ere. Joxe Austin Arrieta  
Gauza guztietan **poza eman** nahi nizuke. Gotzon Garate  
Urte batzuk ditugu aurrean, elkarriz **poza emateko**. Gotzon Garate  
Bere buruan ere zenbakiak zebiltzala ohartzeak **poza eman** zidan. Bernardo Atxaga  
- **Poza ematen** dit entzuteak -esan zion don Hipolito erretoreak-. Bernardo Atxaga  
- **Poza ematen** dik hi horrela ikusteak, Potto. Jesus Mari Mendizabal  
- -Hau **poza eman** didazuna... Jose Morales  
Jakingo bazenu zer **poza ematen** didazun. Antton Olano  
Ez dakizu zer-nolako **poza ematen** didazun! Patxi Iturritegi  
Kugler jaunak sekulako **poza ematen** dit astelehenero *Cinema&Theater* aldizkaria ekartzen didanean. Josu Zabaleta  
Ez gintuzten sekula harrapatzen, eta aitor dut berebiziko **poza ematen** zidala erizainen ezinak. Anjel Lertxundi

### 20 **poza hartu** (53 agerraldi, 27 liburu eta 11 artikulutan)

Atera itzazu, mesedez, nire alabak **poza hartuko** du eta. Bernardo Atxaga  
Alde batera lotsatu egiten naiz nire buruarekin, baina, bestera, **poza hartu** dut kearen atseginarekin. Hasier Etxeberria  
- **Poza hartzen** diat, **poz handia**; izan ere, lan asko zegok egin beharra. Rafa Egiguren  
Kalte-ordainak jasoko zituela jakin zuenean, **poza hartu** zuen, baina sosik jaso gabe hil da. Berria - Harian  
- Oi! hura **poza hartu** nuena! Josu Zabaleta  
Era berean, a zer **poza hartu** dudana ezjakintasuna ahultzen ikusi dudana bakoitzean! Jon Muñoz  
Eta zer **poza hartu** zuen hura aurkitzean! Bernardo Atxaga  
Gizakiak ikusi eta gogoratu nahiko balu, nolako **poza hartzen** duen Jainkoak berak, bere naturari dagokionez, [...]. Joan Mari Lekuona  
Sekulako **poza hartu** nuen. Bernardo Atxaga  
Erantzun honekin berebiziko **poza hartu** zuen San Frantziskok eta eskerrak ematen zizkion Jainkoari. Askoren artean

### 21 **pozaren pozez** **poz** hutsez.

Herri xeheak **pozaren pozez**, bibaka eta bizibedika hartu zituen Xaraman eta Kamar Al-Saman erregea. Patxi Zubizarreta  
Nik, **pozaren pozez** azalak hartzen ez ninduela, baietz erantzun nion. Fernando Rey  
**Pozaren pozez** onartzen du heriotza. Askoren artean  
Gaur zioritsu naiz eta **pozaren pozez** nago. Patxi Zubizarreta  
Bihotza **pozaren pozez** lehertuko zitzaioela ere pentsatu zuen. Agustin Otsoa  
Ezkontza gauean, Maitek [...] bihotza **pozaren pozez** dardarka zeukan. Gotzon Garate  
Han ilunpean **pozaren pozez** negarrari eman nion. Eduardo Matauko  
**Pozaren pozez** pozturik, zeinen erraz hasiera eman zion bere egitasmoari. Patxi Ezkiaga  
- **Pozaren pozez** -onartu zuen zurginak, eta hitzorduaren egunerako eramango ziola adierazi zion. Patxi Zubizarreta

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

barne **poz** (4); **barruko poz** (5); **halako poz** (5)  
**poz alaitasunezko oihuak** (5); **poz bakarra** (8); **poz benetakoa** (4); **poz bera** (6); **poz betea** (14); **poz betean** (5)  
**poz eman** (4); **poz ematen** (7); **poz eta alaitasun** (6); **poz guztia** (6); **poz handi** (9); **poz handia** (115); **poz handia eman** (15); **poz handia ematen** (16); **poz handia hartu** (26);  
**poz handia hartuko** (5); **poz handia hartzen** (5); **poz handia izan** (9); **poz handiagoa** (17); **poz handiagoa hartzen** (5); **poz handiarekin** (4); **poz handirik** (7); **poz handiz**  
(41); **poz handiz hartu** (5); **poz hartu** (7); **poz hartzen** (9)  
**poz irrintzi** (7); **poz iturri** (8); **poz izugarria** (6)  
**poz oihu** (25); **poz oihuak** (4); **poz oihuka** (15); **poz oihuz** (14); **poz pixka** (10); **poz pixka bat** (9); **poz pozik** (185); **poz pozik dago** (8); **poz pozik eman** (4); **poz pozik eta** (5);  
**poz pozik nago** (5); **poz pozik zegoen** (9)  
**poz txiki** (6)  
**a ze poza** (5); **a zer poza** (4); **bai poza** (5); **barne poza** (6); **barruko poza** (5); **benetako poza** (8); **bere poza** (29); **bere poza agertu** (7); **berebiziko poza** (12); **beren poza**  
(11); **bihotzeko poza** (7)  
**euren poza** (9); **gehiagizko poza** (6); **gure poza** (12); **hau da poza** (4); **hau poza** (22); **hura poza** (25); **hura poza nirea** (4)  
**inpernuko poza** (5); **itzelezko poza** (5); **izugarritzko poza** (16); **nire poza** (21); **nolako poza** (12)  
**poza adierazi** (14); **poza adierazi zuen** (4); **poza adieraziz** (4); **poza adierazteko** (5); **poza agertu** (30); **poza agertu du** (10); **poza agertu zuen** (14); **poza agertu zuten** (4);

**poza azaldu** (10); **poza azaldu zuen** (4); **poza azaldu zuten** (4)

**poza ekarri** (6); **poza eman** (25); **poza eman zidan** (4); **poza eman zion** (6); **poza emango** (5); **poza ematen** (54); **poza ematen dit** (11); **poza ematen du** (5); **poza eragin** (9); **poza eragiten** (4); **poza eta alaitasuna** (7); **poza eta ilusioa** (4); **poza eta itxaropena** (5); **poza eta zoriona** (5); **poza ezkutatu** (4); **poza hartu** (34); **poza hartu dut** (5); **poza hartu nuen** (8); **poza hartu zuen** (9); **poza hartuko** (10); **poza hartzen** (9)

**poza izan** (17); **poza izan da** (4); **poza izan zen** (4); **poza kantatutzen det** (5); **poza nabari** (6); **poza nagusitu** (4); **poza nirea** (6)

**poza sentitu** (18); **poza sentitu nuen** (8); **poza sentitu zuen** (6); **poza sentitzen** (13); **poza sentitzen duzu** (4); **poza sortu** (5); **poza sortzen** (4); **poza sumatzen** (4)

**pozaren poza** (5); **sekulako poza** (31); **sekulako poza hartu** (10); **sentitzen zuen poza** (4); **ustekabeko poza** (5); **ze poza** (6); **zelako poza** (8); **zer nolako poza** (5); **zer poza** (21)

**iraun zuen pozak** (4); **pozak airean** (12); **pozak eta atsekabeak** (4); **pozak eta penak** (4); **pozak gainezka** (6); **pozak gainezka egin** (4); **pozak txoratzen** (12); **pozak zoratzen** (27)

**pozaren arrazoia** (5); **pozaren poza** (5); **pozaren pozaz** (6); **pozaren pozez** (149)

**pozez bete** (33); **pozez bete zen** (12); **pozez beteko** (4); **pozez beterik** (55); **pozez betetzen** (16); **pozez ezin kabiturik** (5); **pozez gainezka** (106); **pozez gainezka zegoen** (9); **pozez hartu** (53); **pozez hartu du** (12); **pozez ikusi** (4); **pozez jauzika** (10); **pozez lehertu** (5); **pozez lehertzen** (7); **pozez oihuka** (12); **pozez saltoka** (8); **pozez txoratzen** (23); **pozez zoratzen** (70); **pozez zoratzen zegoen** (14)

## pozadera 1 iz putzua.

**Pozaderatik** (well) ateratzen zuten ura. **Gotzon Garate**

**Pozadera** batean behera bota zuen bere burua. **Gotzon Garate**

Behin mina jasan ezin, zoratu, eta txikitu egin zuen **pozaderako** pertza. **Anton Garikano**

Sholapurren leopardo **pozadera** batean erori zen. **Gotzon Garate**

## 2 (hitz elkartuetan)

Laguna zuen zakurra ohartu zen eta **pozadera**-ezpainetan zegoen baldea besoarekin putzu barrura bota zuen. **Gotzon Garate**

## pozagotu, pozago(tu), pozagotzen dau ad pozago bihurtu.

Mahai astunaren hankari lotuta egoteak ematen zion amorruek eragiten zizkion aieru-itsuskeriek ez zuten besterik lortzen ezpada borrarero tentatzailearen poza **pozagotu**.

**Josu Zabaleta**

## pozaldi iz pozezko denbora.

Bere grinak, bere **pozaldi** eta bere etsialdiak dituen mundu bat. **Juan Garzia**

-Apaiz bati **pozaldi** bat ez emateko! **Koldo Biguri**

Etorriko omen ziren diruak eragin zion **pozaldi** hartan, aita, batzuetan, seme gizagaixoaz harro hitz egitera ere iristen zen. **Pello Lizarralde**

**Pozaldiak** ez zion askorik irau. **Jon Muñoz**

Zenbat **pozaldi** eta zenbat ilunaldi? **Patziku Perurena**

**Pozaldien** eta lehorraldien azturaz eta espiritu sail bat bereizteaz aski argitasun eta ezaguera hartzen denean. **Patxi Altuna**

Gizakia, harroaldi, itsualdi, **pozaldi**, eroaldi, urrialdi, itxuraldi, zintzoaldi... eta beste hutsaldi ugariz betetako zorro sintetikoak baita. **Patziku Perurena**

Konturatzen ez bagara ere, "kontzientzia azpiko" indar ezkutuek, grinek, **pozaldiek** eta nahigabeek eragin izugarria dute gure baitan. **Gotzon Garate**

Gaixoarentzat ez da samurra irria, baina, lubakian ere, leku egin nahi lioke **pozaldiari**, oraingoz isildu baitira tiro hotsak, eta bihotza epeldu baitiote eguzki-printzek. **Imanol Zurutuza**

## 2 (izenondo eta izenlagunetan)

**Pozaldi** handi batek hartu zuen gizona. **Jon Muñoz**

Esne-esnetan zegoen, mila **pozaldi** kilikagarri gozatzen zituen, bere lekua aurkitu zuen munduan. **Karlos Zabala**

Hirugarrena, espirituko **pozaldia**. **Patxi Altuna**

## pozalditxo iz adkor pozaldia.

Utz nazazu bakean, **pozalditxo** bat izan dezadan. **Elizen arteko biblia**

## pozarazi, pozaraz, pozarazten du ad poztera behartu.

Bere herriari justizia egin eta bere errukiaz **pozarazi** arte. **Elizen arteko biblia**

Zerbait dela-eta **pozaraz** dezakete arima aingeru onak bai txarrak, asmo desberdinez; aingeru onak, arimari on egiteko, onetik hobera hazi eta igo dadin; aingeru txarrak, bere asmo ustel pozoitsuaz arima galtzeko txarrez. **Patxi Altuna**

## pozarren adlag pozik, oso pozik.

Bikain jokatu zuen gure alde Jaunak eta **pozarren** gaude. **Elizen arteko biblia**

Erregeak **pozarren** eta alegera hartu zuen jakintsua. **Patxi Zubizarreta**

- **Pozarren** eseriko naiz, baina ez dut deus hartuko. **Anjel Lertxundi**

Ama **pozarren** itzuli zen bidaiatik, "bere errainarekin" txoratzen. **Juan Kruz Igerabide**

Eta ni **pozarren**, azkenean dena ongi atera zelako. **Joxe Austin Arrieta**

Laster jakin zuen Artur bizirik zegoela, eta **pozarren** agertu zen harengana. **Juan Kruz Igerabide**

Ishmirrek, **pozarren**, pot eman nahi izan zion, baina ipotxak atzera egin zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Pozarren** ibili da azken egunetan, haurra jaio zenetik ez bezala libre. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Pozarren** zetorren billete-sorta bat eskuetan zekarrela. **Lopez de Arana**

Preso arrisku handikoa azken harresia iragaiten ari dela harrapatu balute bezain **pozarren** hartu naute. **Koldo Izagirre**

Morrosko saiatu haiek bibaka hasi dira **pozarren**. **Txillardegí**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere baitan pozarren** (3); **pozarren agertu** (9); **pozarren agertu zen** (5); **pozarren dago** (3); **pozarren egin zuen** (4); **pozarren egongo** (3); **pozarren esan** (3); **pozarren eta alegera** (24); **pozarren hartu** (15); **pozarren hartu zuen** (3); **pozarren ibili** (3); **pozarren joan** (3); **pozarren nengoen** (5); **pozarren onartzen** (3); **pozarren zegoen** (10); **pozarren zeuden** (3)

## pozarte iz poztasunezko artea.

Hara, ni aspaldidaniko gogolarritasun batetik liberatu eta lehenbailehen **pozarte** apurten bat emateko erakusten zuen lehia bizi hura ez ote zetorren patua niretzat prestatzen ari zen paraderoaren intuizio ilun batetik, eta hura desbideratu nahian ez ote zebilen oharkabean. **Juan Garzia**

## pozbera iz pozik egoteko joera duena.

Haizeak haize, abuztuko ortziral arratsalde horretako ikuskizunak depresioa sorraraz ziezaiokeen lagunik **pozbera** eta jostaerrazenari ere. **Aingeru Epaltza**

## pozvide 1 iz pozteko zergatikoa.

Suaren eta egurraren arteko antzekotasunaren estadioan gauden artean, ez dugu aurkituko ez atsegini, ez gozotasunik, ez bakerik, ez **pozviderik**. **Joan Mari Lekuona**

Ni umiliatzea baitzuen **pozvide**, eman niezaiokeen poz bakarra. **Joxe Austin Arrieta**

Inoiz sofrikari zaie hori, sarritan **pozvide**, eta bi jokabide-eskema desberdin dituzte, beren kabuz ari diren ala "beren eginkizunei dagozkien jardunbidean". **Juan Garzia**

Jerusalem **pozvide** izango da niretzat. **Elizen arteko biblia**

Baina Jainkoaren hitzak esaten digu oinazea behar dugula **pozvide** bihurtu. **Joan Mari Lekuona**

Zergatik engainatu neure burua eta bilatu **pozvidea** horren garaipen urrian? **Ander Irizar**

Emakume hark beste **pozvide** bat gehitzen zien erakusleihoko alaiagarri koipetsuei. **Karlos Zabala**

Baina Kristo aurrera joan zen hala ere, ezer esan eta **pozviderik** eman gabe. **Askoren artean**

-Dohakabe guztien **pozvidea**! **Jose Morales**

Irribarre **pozvidekoa** atera zitzaidan nahi gabe, ikusirik apustua irabazia niola agure orojakileari. **Aritz Gorrotxategi**

## 2 pozviderik ez mug

Aitzitik, **pozviderik**-ez hori dute, gogortasun gehiago edo gutxiagorekin adierazia, beren errebeldiaren funtsezko oinarria. **Josu Zabaleta**

Ez da zer harriturik Andres Hurtadoren nihilismoarekin ezta haren **pozviderik** ezarekin eta alferrikako errebeldiarekin ere. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dohakabe guztien pozvidea** (7)

## pozgabe izond pozik gabea.

Kultu aniztasuna alde batera utzita ere, lege zibilak saihesten dezake indarra eta bortxa erabiltzea, senar-emazte **pozgabeak** loturik edo ezkon barruko ezkongetza nahitaezkoan iraunarazteko. **Andres Urrutia**

Irribarrea berehala aienatu zen izeba Juliaren aurpegitik, eta haren begi **pozgabeak** ilobaren aurpegira itzuli ziren. **Irene Aldasoro**

## pozgabetu, pozgabe(tu), pozgabetzen da/du ad pozgabe bihurtu.

Nik ezezkoa eman nien, eta berak handik pixka batera itzuli ziren, **pozgabeturik**: tronboi bat *Faccetta Nera* jotzen baino ez zen entzuten. **Juan Garzia**

Jainkoaren argirik eta maitasunik gabe gelditu zen; guztiz **pozgabetua** zegoen, atsekabez eta saminez bete. **Askoren artean**

## pozgarri 1 izond poza ematen duena.

Berri **pozgarria** niretzat, baina bai artzagarria ere. **Matías Múgica**

Une saminak eta une **pozgarriak**, betiere bizi-indarrez eta itzaropenez gainezka, borborka. **Juan Kruz Igerabide**

Ezusteko **pozgarria** niretzat, Sabeth, bere bakero beltzekin. **Joxe Austin Arrieta**

Hala ere, egun **pozgarria** izan zen guretzat. **Antton Olano**

Oroitzapen **pozgarri** baten bila hasi zen Harry. **Iñaki Mendiguren**

Kasualitate **pozgarri** bategatik parrokiaren itzalean sortutako kirok talde baten ospea. **Koldo Biguri**

Borrokan ari zaizkit poz negargarriak negar **pozgarriekin**, eta ez dakit nor irtengo den garaile. **Imanol Unzurrunzaga**

Guri ezbehar latzak begitantzen zaizkigunak, itxuraz aldatutako gertaera **pozgarriak** baizik ez dira askotan. **Antton Olano**

Oso albiste **pozgarria** zen, gerra hasi zenetik izan dugun albisterik atseginena agian. **Josu Zabaleta**

Oso poztu zen Santxo hain erantzun **pozgarria** hartu zuenean. **Patxi Ezkiaga**

Poztasunak gauza **pozgarrien** existentzia finkatzen du, zenbat eta handiagoa baita Poztasunezko afektua, hainbat eta areago. **Piarres Xarriton**

Aita dohatsuaren konpainia **pozgarrian**. **Askoren artean**

Jainkoak, zeure Jainkoak, gantzutu zaitu, jai-giro **pozgarrian**, lagunen artean aukeraturik. **Elizen arteko biblia**

Argi zuriaren osaera aurkitzea izan zen Newtonentzat beraren aurkikuntzetatik **pozgarriena**. **Xabier Olarra**

Baina ordurako niri albiste hori ez zitzaidan **pozgarri** suertatu. **Joxemari Iturralde**

## 2 (izan aditzarekin)

**Pozgarria** da gure aurreneko maitasuna izan zen pertsona ustekabeen ikustea. **Bernardo Atxaga**

Astebeteko su-etena ere **pozgarri** da lubakian dagoenarentzat. **Imanol Zurutuza**

Ez kezkatu, zuretzat mesedegarria dena **pozgarria** da niretzat. **Migel Angel Mintegi**

**Pozgarriak** ziren, halaber, Müller jaunaren oniritzia eta Anghiosen laudorioak. **Anjel Lertxundi**

-Zarena zarela, **pozgarri** izango zaio zu ikustea. **Juan Garzia**

Aitor dut: ezkongabezia ez da beti **pozgarri**, sasoiaren ere ez baikara beti egoten. **Joxe Austin Arrieta**

Geroa ez baita, iduriz, hain **pozgarria**. **Marzel Etxehandi**

Gau argitsuak **pozgarriago** dira eguzki beteko egunak berak baino. **Josu Zabaleta**

Etengabe zetorkidan burura zein **pozgarria** zatekeen gauza haiek biok batera besotik helduta ikusi ahal izatea. **Ramon Saizarbitoria**

**Pozgarri** zaio gizonari horretarako indarrak bildu dituela ikustea. **Imanol Zurutuza**

Garai batean, aspaldi, [...] **pozgarri** zitzaidan edozein leku ezezagunetara lehenbiziko aldiz iristea. **Jose Morales**

## 3 (izan ezabaturik)

-Bai **pozgarria**, zure umore ona. **Joanes Urkixo**

Bai **pozgarria** erantzuten jakitea! **Elizen arteko biblia**

**Pozgarria** benetan zu berriro ikustea. **Iñaki Mendiguren**

## 4 (izen gisa)

**Pozgarri** bat zeukan zain **Juan Garzia**

Zeren eta zure gutun berri bat iritsi baitzait orain berean [...] eta hori ez da egunoroz gertatzen den **pozgarria** ... **Joan Mari Irigoien**

## 5 (hitz soila -en atzikiaren eskuinean)

Muino eder, lur osoaren **pozgarri** !

Nire belarrien **pozgarri** baita haien dardara. **Josu Zabaleta**

Jaunaren legeak zuzenak, bihozaren **pozgarri** : Jaunaren agindua distiratsua, begien argigarri. Batasun horrek agian segituko du, herriaren **pozgarri** . **Elizen arteko biblia**

Hil ostean, ordea, guztiz ederra da haren itxura, zurtasun miresgarritz distiratsua eta ikusten dutenen **pozgarri** . **Askoren artean**

Gizaseme, zure begien **pozgarri** dena kenduko dizut bat-batean. **Elizen arteko biblia**

Batzuen **pozgarri** bertze batzuen penetan. **Herria**

Gaur bata bestearen **pozgarri** , bezperan eta biharamunean, atzo eta etzi, etsai. **Xabier Etxabe**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**albiste pozgarri** (3); **begien pozgarri** (3); **berri pozgarri** (5); **berri pozgarri bat** (3); **pozgarri da** (6); **pozgarri izan** (3); **pozgarri izango** (4)

**albiste pozgarria** (17); **albiste pozgarria** (4); **berri pozgarria** (19); **berri pozgarria da** (7); **beti da pozgarria** (5); **egun pozgarria** (3); **ezusteko pozgarria** (3); **gustiz pozgarria** (3); **hori pozgarria da** (6); **niretzat oso pozgarria** (3); **oso pozgarria** (31); **oso pozgarria da** (18); **oso pozgarria izan** (7); **pozgarria da** (104); **pozgarria da hori** (4); **pozgarria dela** (15); **pozgarria dela iritzi** (4); **pozgarria iruditzen** (3); **pozgarria izan** (24); **pozgarria izan zen** (11); **pozgarria izango** (5); **pozgarria litzateke** (7); **pozgarria zen** (6)

**jai giro pozgarrian** (3)

**albisterik pozgarriena** (4)

**berri pozgarritzat jo** (3)

## pozik 1 *adlag* pozez, poztasunez.

Ni ere **pozik** sentitzen nintzen -zoratzear, egia esateko- adierazpen harengatik. **Ramon Saizarbitoria**

Ez zegoen **pozik** Sobakevitxen jokaerarekin. **Jose Morales**

**Pozik** zirudien Ruche jaunak. **Jon Muñoz**

Egia esan, ni **pozik** nintzen. **Matías Múgica**

**Pozik** jarri nintzen taldeko giro berriarekin. **Bernardo Atxaga**

-Ikusten?, **pozik** utzi du mundu guztia -esan zuen Platonovek-. **Jose Morales**

Gustura asko umiliatuko zuen betiko, **pozik** jakinaraziko zion bera baino gutxiago zela. **Koro Navarro**

**Pozik** joan zen, **pozik** eginiko lanarekin eta areago oraindik atera behar zion etekinarekin. **Miguel Angel Mintegi**

-Armak, arma luzeak! -esan zidan **pozik** . **Rafa Egiguren**

Hain nago **pozik** . **Antton Olano**

**Pozik** ni, bakarrik nengoelako. **Joxe Austin Arrieta**

Nini, **pozik** , jiratu eta besteei hots egin zien. **Josu Zabaleta**

Eta joaten utzi zien, onik eta **pozik** . **Jose Antonio Mujika**

Hauxe izan zen haren jokamoldearen araua: haurra alai eta **pozik** handitzen ikustea. **Karlos Zabala**

Neure buruarekin **pozik** nagoenean harrotu egiten naiz, Wendy. **Julen Gabiria**

Patxi **pozik** nire besoetan. **Gotzon Garate**

Erresidentzia pribatu bateko horma artean aldi bat egin ondoren, lehen baino okerrago itzuli zen etxera, beti barrez, beti **pozik** , beti txoro. **Bernardo Atxaga**

Ni ikusi orduko, jauzika etortzen zaizkit zakurrak, **pozik** baino pozikago. **Gotzon Garate**

## 2 (beste adizlagun edo kideko baten eskuinean)

Oso **pozik** ikusten zaitut gure artean. **Bernardo Atxaga**

Maistrak oso **pozik** zirudien, benetako albiste on bat hartu berrian bezala. **Bernardo Atxaga**

Hasieran David oso **pozik** ibili zen zuhaitz batetik bestera, hunkituta ere bai. **Bernardo Atxaga**

Ondo **pozik** nagok, bai horixe, jaioterri zaharrera itzuli izanaz. **Irene Aldasoro**

Inolako erabakirik hartzeko ez-gauza, baina aski **pozik** , halere, zerbeza hura benetan bikaina zelako. **Joxe Austin Arrieta**

Gure herrian finkatzea hautatu duzue eta hortaz biziki **pozik** naiz. **Herria**

Aladin ez zegoen guztiz **pozik** eta, sultanarenganaino joanik, esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Hasieran uzkerkeriaz onartu zuen arren, azkenerako erabat **pozik** zegoen familiaren panteoia Artaxonan zuelako. **Ramon Saizarbitoria**

Mathew Propp, 23 urteko gaztea, arras **pozik** bizi zen New Mexicon bere gurasoekin. **Gotzon Garate**

Arras **pozik** nengoan. **Daniel Landart**

Denak arrunt **pozik** dauzkat nonbait. **Patziku Perurena**

Alabaina, ez zegoen zeharo **pozik** . **Hasier Etxeberria**

Osabaren ahotsa telefonoan entzun nuenean, hain **pozik** libre utzi nindutelako, ez nintzen hitz bakar bat ahoskatzeko gauza izan. **Bernardo Atxaga**

Zoroak bezain **pozik** , Sekula Betiko Lurraldera gerturatzen hasi ziren. **Julen Gabiria**

-Bai **pozik** . **Aitor Arana**

## 3 *poz-pozik* (orobat *pozpozik* g.er.)

Urduri, baina **poz-pozik** . **Berria - Kultura**

Axolarik gabe eta **poz-pozik** gindoazen. **Bernardo Atxaga**

Musikaren bidez bere familia eta jatorria aurkitzeaz **poz-pozik** zegoen gizon bat. **Herria**

Achille jauna **poz-pozik** dago; doktorearen arreta erakarri nahi luke. **Monika Etxebarria**

**Poz-pozik** eman nion berri ona Florari. **Ramon Saizarbitoria**

Sarritan, txorrotatik irekitzen zuen isil-ostuka, eta **poz-pozik** jartzen zuten zurrustaren zipriltzinek. **Karlos Zabala**

«Ez da askotan izaten aukera hori, eta aprobetxatu beharra dago», zioen **poz-pozik** haur batek. **Berria - Harian**

## 4 *pozik asko* oso *pozik*.

**Pozik asko** emango nikeen su! **Joxe Austin Arrieta**

**Pozik asko** jango zukeen aberatsaren mahaitik lurrera botatzen zutena. **Elizen arteko biblia**

Ziur nago **pozik asko** emango dizutela argibide gehiago. **Antton Olano**

Etxekoandreak olio frijituaren usaina zuen, eta telebista batean **pozik asko** lana egingo zukeen neska baten izeba zen. **Anjel Lertxundi**

San Franciscora ere joan gara Sarasua, Egaña eta hirurok, **pozik asko** . **Joxerra Garzia**

Santxo [...] ez zegoela ikusiz, halako manta-joko harena esan zien; bai **pozik asko** entzun ere. **Patxi Ezkiaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)



**alai eta pozik** (7); **alde batetik pozik** (5); **ama pozik** (6); **antolatzaileak pozik** (8); **antolatzaileak pozik agertu** (5); **arduradunak pozik** (7); **arras pozik** (10); **bai pozik** (15); **batere pozik ez** (4); **benetan pozik** (12); **bere buruaz pozik** (4); **beti pozik** (15); **bi aldeak pozik** (7); **biak pozik** (7); **bihotza pozik** (5); **biziki pozik** (11); **denak pozik** (24); **denok pozik** (7)

**egindako lanarekin pozik** (9); **egoteaz pozik** (4); **emaitzarekin pozik** (6); **emaitzekin pozik** (7); **entrenatzailea pozik** (5); **erabakiarekin pozik** (6); **erabat pozik** (14); **esan zuen pozik** (9); **etxera pozik** (4); **gobernua pozik** (6); **guztiak pozik** (14); **harro eta pozik** (4)

**ikusita pozik** (4); **izanaz pozik** (5); **izugarri pozik** (4); **jendea pozik** (13); **lagunak pozik** (4); **lanarekin pozik** (13); **lanaz pozik** (4); **langileak pozik** (4); **lasai eta pozik** (5); **nagusia pozik** (7); **nahiko pozik** (17); **neu ere pozik** (4); **ni oso pozik** (8); **ni pozik** (33); **ni pozik nago** (5)

**oso pozik azaldu** (4); **oso pozik dago** (17); **oso pozik daude** (10); **oso pozik egon** (4); **oso pozik egongo** (5); **oso pozik ematen** (8); **oso pozik gaude** (25); **oso pozik geratu** (9); **oso pozik jarri** (6); **oso pozik jartzen** (4); **oso pozik joaten** (4); **oso pozik nago** (67); **oso pozik zegoen** (18)

**poz pozik** (185); **poz pozik dago** (8); **poz pozik eman** (4); **poz pozik nago** (5); **poz pozik zegoen** (9)

**pozik abiatu** (4); **pozik ageri** (16); **pozik ageri zen** (6); **pozik agertu** (265); **pozik agertu da** (55); **pozik agertu zen** (154); **pozik amaitu** (8); **pozik ari** (6); **pozik asko** (13); **pozik atera** (14); **pozik atera ziren** (6); **pozik azaldu** (59); **pozik azaldu zen** (41)

**pozik begiratu** (4); **pozik begiratzen** (4); **pozik bizi** (51); **pozik bizi izan** (7); **pozik bizi zen** (8); **pozik biziko** (6); **pozik da** (50); **pozik dabil** (6); **pozik dago** (157); **pozik daude** (71); **pozik dira** (26)

**pozik egin** (4); **pozik egingo** (14); **pozik egiten** (9); **pozik egiten zuen** (5); **pozik egon** (71); **pozik egonen** (7); **pozik egongo** (48); **pozik egongo zara** (9); **pozik egotea** (12); **pozik egoteko** (78); **pozik egoteko arrazoia** (4); **pozik egoteko arrazoiak** (14); **pozik egoteko moduko** (6); **pozik egoteko modukoa** (4); **pozik egoteko motiboak** (5); **pozik egotekoa** (6); **pozik egoten** (12); **pozik eman** (11); **pozik emango** (9); **pozik ematen** (17); **pozik ematen zuen** (7); **pozik entzun** (8); **pozik entzuten** (6); **pozik esan** (7)

**pozik eta alai** (14); **pozik eta gustura** (4); **pozik eta harro** (16); **pozik eta irribarretsu** (4); **pozik eta itxaropentsu** (4); **pozik eta lasai** (4)

**pozik etorri** (5); **pozik gabe** (5); **pozik gabeko** (7); **pozik gaude** (97); **pozik gelditu** (18); **pozik gelditu zen** (5); **pozik geratu** (44); **pozik geratu zen** (9); **pozik geratuko** (10); **pozik geratuko naiz** (4); **pozik geratzen** (5); **pozik handiena** (8); **pozik handienaz** (4); **pozik hartu** (96); **pozik hartu dute** (24); **pozik hartuko** (18); **pozik hartzen** (9); **pozik hartzen zuten** (4); **pozik hilko** (4); **pozik hitz egin** (4); **pozik hura** (4)

(5); **pozik ibili** (5); **pozik ikusi** (10); **pozik ikusiko** (8); **pozik ikustea** (4); **pozik ikusten** (13); **pozik irakurri** (5); **pozik irten** (10); **pozik itzuli** (14); **pozik itzuli zen** (5); **pozik itzuliko** (4); **pozik izan** (7); **pozik izango** (15); **pozik izaten** (4); **pozik jakingo nuke** (5); **pozik jarri** (19); **pozik jarri zen** (11); **pozik jarriko** (7); **pozik jartzen** (16); **pozik jartzen zen** (4); **pozik jaso** (7); **pozik joan** (12); **pozik joango** (11); **pozik joaten** (12); **pozik lagunduko** (6); **pozik mintzatu** (6); **pozik mintzatu zen** (5); **pozik nago** (219); **pozik naiz** (5); **pozik nintzen** (10)

**pozik onartu** (11); **pozik onartu zuen** (5); **pozik onartzen** (7); **pozik ospatu zuten** (4); **pozik sentitu** (12); **pozik sentitu zen** (4); **pozik sentitzen** (17); **pozik sentitzen nintzen** (4); **pozik utzi** (21); **pozik utziko** (7); **pozik uzteko** (9); **pozik zebilen** (6); **pozik zegoen** (151); **pozik zen** (37); **pozik zeuden** (37); **pozik ziren** (20); **pozik zirudien** (21); **pozik ziruditen** (4)

**zein pozik** (12); **zein pozik nagoen** (4); **zeinen pozik** (4); **zer pozik** (4); **zuzendaria pozik** (7)

## pozima iz edabea.

Pliniok dioenez, edozein pozoini kontra egiteko oso ona omen da lizarrostoa morddo baten **pozima**. Patziku Perurena

Artritisa sendatzeko gure artean asko erabilia izan da "lizar ardoa" izeneko **pozima**. Patziku Perurena

## pozjario ik poz 16.

## pozkari iz bozkarioa.

bidezkoago da, beraz, gogoia lasaitzen duten **pozkari** gozoen, gaur ere laterri handietan zabal direnen, emaillea jainkotzat jo dezagun. Xabier Amuriza

## pozkario ik bozkario.

## pozkida iz poztasuna.

Poza eta **pozkida** zeriola etorri zen Santxo bere etxera. Patxi Ezkiaga

Glorianak besoa laguntza eskatzeko jasoko zuen, ez **pozkidaz**, larriduraz baizik. Karlos Linazasoro

## pozkiro adlag pozik.

Baina ez zekien zilegi zitzaion, bere emazte zena erraustu behar zuten goizean, horregatik **pozkiro** agertzea. Imanol Zurutuza

## pozkirri iz adkor poza.

Bakarrik, Andreasen gorputzeko usain sarkorretik, Andreasen begietako argitik, Andreasen hitz xuxurlariatatik ordu pare batez urrundu, eta bihotz-barreneko zoko ezkutuenetan ere sentitzen zuen **pozkirri** handi haren neurria eta burubidea erabakitzeo. Anjel Lertxundi

## pozkor izond pozteko edo pozik egoteko joera duena.

Han zeuden guztiek bihotz **pozkorrez** eta aurpegi alaiz jaso zuten mandatu hau. Askoren artean

Aipatu maisulanetan, zenbat ahantziago eta ahulago historia, hainbat bizkor eta **pozkorrago** bizitza; eta, historia ageri delarik, bizitza hautsi egiten da. Markos Zapiain

## pozño iz adkor poz txikia.

Eta horrek bizipoza ematen dit, **pozño** txiki bat bederen azken egunei aurre egiteko. Karlos Linazasoro

## pozoi (orobat pozoin; Euskaltzaindiaren Hiztegian pozoi agertzen da) 1 iz organismo baten heriotza edo hondamendi larria dakarren edozein gai. ik eden<sup>1</sup>.

Gela itxi batean jartzen dira katu bat, substantzia erradioaktiboren bat eta botila bat **pozoi**. Fernando Morillo

Saguak akabatuzeko **pozoi**a bota zuen jaki-gordailuko harraskaren azpian. Mirentxu Larrañaga

**Pozoina** ezarri ziotela jatekoan nahasirik. Aurelia Arkotxa

Badakigu kopa garden batetik esmeralda koloreko **pozoi**a edan zuela. Juan Garzia

**Pozoi** horren bost tanta bota zituen Peterren kopan. Julen Gabiria

Beste **pozoi** batzuek, hala nola zianuroa, artsenikoa eta eritasun infekziosoek sorturiko toxinak, modu konplikatuagoan funtzionatzen dute. Irene Aldasoro

Han netzan, ero batek lurpera emanik, **pozoi** bat harrarazi ondoren. Juan Garzia



Arrebaren maitaleak isuri omen zion **pozoia**. [Jon Muñoz](#)

Kobrak atzeman eta farmazietara saltzen dituzte, **pozoia** ken diezaieten. [Gotzon Garate](#)

Teresak [...] tamalez ez dauka odoletik **pozoia** xurgatuko dion inor. [Oskar Arana](#)

Senargaiak, neskatxaren azkenaren berri jakin zuenean, **pozoia** hartu eta bere buruaz beste egin zuen. [Gotzon Garate](#)

Etzetik alde egin nuenean, arratoiak **pozoia** hartu zuen. [Koro Navarro](#)

Bi urte eta erdiren buruan, **pozoia** eragin metatuak eta dosiarekin izandako zorigaitzoko gorabehera batzuek hilotzira eraman zuten Duvrescu, autopsiak konfirmatu zuenez. [Iban Zaldúa](#)

**Pozoia** eta hilketak **pozoia** eta hilketen bidez justifikatu zituen. [Iñaki Iñurieta](#)

**Pozoiak** ere gure humore propioetan sortutako beste **pozoia** deuseztatze baliokidetuak dira, eta beraz, sendagaien bilduma oso batean (botikan) ezin dira falta. [Ibon Uribarri](#)

**Pozoizko** tua egiten zion Namahk, eta kea eta sua botatzen zituen sudur-zuloetatik. [Koro Navarro](#)

## 2 (izenondoekin)

Otso guztiak horzkada amorratua duten bezala eta bele guztiak atzaparra, sugerri guztiak dute **pozoia** hilgarria. [Anjel Lertxundi](#)

**Pozoi** indartsua erabat gailentzen duk ene baita. [Juan Garzia](#)

Agian lotarako drogaren dosia oso handia zatekeen, agian **pozoia** arin bat. [Ibon Uribarri](#)

**Pozoi** industrial eta hormonalaren pikardiak agerikoegiak egin dira Ongizatepeko gorputz-arimetan. [Iñaki Segurola](#)

Aihotzak, labanak, **pozoia** biologikoak eta tresna tradizionalak ditugu eta, gure bizitzengatik zin egiten dugu, matxino eta oposizioaren kontra erabiliko ditugula. [Berria - Mundua](#)

## 3 irud/hed

Olatzi **pozoia** eta sua zerizkion begietatik. [Harkaitz Cano](#)

Hitzak jango ditu, hitzak edango ditu [...] hitzen **pozoia** hartuko du. [Koro Navarro](#)

Orduan hasten dira liberalak beren aldetik, **pozoia** ahoan, erranez kalonjeek 4 000 duro eman dizkietela karlisteri. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Zuzenbidea **pozoia** bihurtu duzue, justizia samindura. [Elizen arteko biblia](#)

Nire arma gosez gainezkako biltegiak izango dira; nire **pozoia**, sukar eta izurrite gaiztoak. [Jose Antonio Mujika](#)

Bufoiren bat behar zuenean, bere miztoko **pozoia** guztia hari sartzeko, aski zuen edozein aitzakia. [Juan Kruz Igerabide](#)

Izututa aita santuak bere barruan ezagutzen zuela ikustean, gorrotoaren **pozoia** guztia azaldu zuen. Zer mihi biko anaia, Elkartearen eskandalu, komentuko **pozoia** eta batasunaren hondatzaile baizik? [Askoren artean](#)

**Pozoi** beteriko goxokiak oparitzen dizkigute inperioaren zerbitzura diharduten intelektualek. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## 4 (irud/hed izenondoekin)

Gin-tonika edaten zuen -azkar edan ere- eta nik orobat egin nuen, nire **pozoia** gogokoena edari burbuilatsu horrekin gezatuz. [Aingeru Epaltza](#)

Partekatuz, hots, txandaka larrua joz, eta dena primeran doa, hariak eta **pozoia** burgesa agertzen den arte. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ezin du inork mihia hezi, gaiztoa eta menperagaitza baita, **pozoia** hilgarriz bete. [Elizen arteko biblia](#)

Despedida egunean bezalatsu, barneko tristura iluna eta bere ezpainak **pozoia** gozoaren beharra aipatzen zizkion. [Joxemari Urteaga](#)

Emakumeekiko etxekotasuna, gizon santuak ere desbideratzen dituen **pozoia** ezitua, erabat saihestea agintzen zuen. [Askoren artean](#)

Erreko ditut harenak, arima usteldu didan **pozoia** arriskutsuaz kutsatuak bailiran. [Jon Muñoz](#)

Baionako Seminarioan ez zen oraino sartua abertzaletasunaren **pozoia** atea. [Piarres Aintziart](#)

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horretan ari zirela, Himmlerrek ahoan ezkutaturik zeraman **pozoia** pilula bat irentsi zuen. [Alberto Ladron Arana](#)

Tratamendu osoa egin zuenerako, astar bat edo elefante-kumea hankaz gora botatzeko **pozoia** kopuruak ardo basokada bezain erraz jasateko prestatuak zegoen Mitridates erregea. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Berak, Elenak, hornitzen zuen **pozoia** dosi haietaz. [Iban Zaldúa](#)

Beste modu batez esateko: **pozoia** tanta bat irentsi duk, eta tanta horrek beste **pozoia** tanta askoren erasoan aurrean eri-egin egin hau. [Edorta Jimenez](#)

Behin ere mozkortzen ez nintzen hau, **pozoia**-edari azkarrak behar baitira niri burua galarazteko, hektolitroen aparrean itotzen ari nintzen dena. [Fernando Rey](#)

Geroztik, alferrik izan ziren Arantza etxekoandreak erosi zituen **pozoia**-hauts guztiak. [Gotzon Garate](#)

Lanpara haiek **pozoia**-bonbil argituak iruditu zitzaizkidan. [Matías Múgica](#)

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Behin mamorro-**pozoia** jan zuen, bestean pozadera batean behera bota zuen bere burua. [Gotzon Garate](#)

Gaur egun ziur dakigu gure alabaren heriotza ez zuela suge-**pozoia** eragin. [Joxe Austin Arrieta](#)

Haien mihian azpikeria, haien ezpainetan sugerri-**pozoia**. [Elizen arteko biblia](#)

Leherketek eragindako deskalabruak egunero toki eta itxura beretan topatzen ohitu ahala, hiriko zauriak hastapenetako beren oinaze **pozoia** hura galduz joan ziren. [Txillardeggi](#)

Vietnamgo basoetan agente laranja izenez ezaguna egin zen 70 milioi litro belar-**pozoia** bota zituzten. [Berria - Mundua](#)

Belar pozoitsua, alargun-belar izenez ere ezaguna -ingelesez *wolfsbane*, otso-**pozoia**. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pozoia** dosi (3); **pozoia** hilgarri (3); **pozoia** hilgarria (7); **pozoia** hutsa (3)

**bere pozoia** (3); **nire pozoia** (3); **pozoia** balitz bezala (3); **pozoia** botatzen (3); **pozoia** hartu (3); **pozoia** jarri (3); **pozoia** kendu (3)

**pozoia** eragin (4)

**pozoia** gogorra (4)

## pozoidun 1 *izond* pozoia duena. ik **pozoitsu**.

Sutara botatzen dute ondo **pozoidun** jakin bat, suarekin batera airetara joanik, espiritu gaizto guztiak pozoiz kutsatuta uxatzen. [Pello Zabala](#)

Gas kutsatua franko, auskalo zenbat, tximnietatik gora, eta ur zikin **pozoidun** gehiegi. [Pello Zabala](#)

Horixe baita, azken funtsean, zeloan azpian narratsean ibili ohi den suge **pozoiduna**; jabetasun sentimenduak. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Ai, animalia **pozoidunek** betetzen dute lur osoa, eta ez da gizon zuzenik bekaiztien haginkadari ihes egin diezaiokkeenik! [Askoren artean](#)

## 2 *mihi-pozoidun* mihia pozoiduna duena.

Bartzelonako auzo gorriko kale bakarti batetik bakar-bakarrik nindoala, gezurrezko pistola bat eskuan, mihi-**pozoiduna** agertu zitzaidan, bat-batean. [Joan Mari Irigoien](#)

Baina lotsak berehala egin zion tokia errabiari, mihi-**pozoidunak**, handik gutxira -abenduko lehen egunetan, ausaz- halaxe esan zidanean.[...]. [Joan Mari Irigoien](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**mihi pozoiduna** (3)

## pozoidura iz pozoia.

Nigana jiratu zen, eta begietara erreparatu zidan, **pozoidura** zerien begi-nini lausotuez. Koro Navarro

## pozoigarri izond pozoitzen duena.

**Pozoigarria** izan daiteke tartean dabiltzan guztientzat, batez ere ohartzen bazara, hasteko, beharbada ez zeundela egina ezkontzarako. Oskar Arana

Sanchezen alabak moja joan nahi zuen; idazkariarenak pinpirinkeria bat zinez **pozoigarria** zuen Josu Zabaleta

## pozoijale (korpuzean pozoiz jale soilik) izond pozoia jaten duena.

Neurtu behar liteke uraren kalitatea Aturrira heltzen den mementoan, landare **pozoiz** jaleen balioa zer den jakiteko. Herria

## pozoikeria (orobat pozoinkeria; Euskaltzaindiaren Hiztegian pozoikeria agertzen da) iz pozoitzea; gauza pozoitsua.

Hala agindu zuen errege Karlosek eta hala konplitu zen -konparaketak egiterakoan, tearen **pozoikeria** frogatzeko aukera ere ezin bada galdu errege esperientziazale hark!

J.M. Olaizola "Txiliku"

Ingurumenaren funditzaek osagarriari ekartzen dituen desmasiak salatzen dituzte bai eta funditze horren jatorrian diren **pozoinkeri** ekoizte eta erabiltzaek. Herria

## pozoiketa 1 iz pozoitzea.

Ez zegoen bazterterik istripua bera ere **pozoiketa** horrek eragina izatea. Xabier Olarra

Legebiltzarreko Ikerketa Batzordeko buru Volodimir Sivkovitxek adierazi zuen ez zegoela zantzurik esateko hilketa saioa izan zela, baina ez zuen baztertu **pozoiketaren** teoria. Berria - Mundua

## 2 (hitz elkartuetan)

1950eko hamarkadan girotutako detektibe eta **pozoiketa** istorio bat harilkatu nuen. · Oso-osorik kontatu nion Tampicoko arrain-**pozoiketaren** itxorio aspergarria, 1951. urtean gertatua, sei urte lehenago, alegia. Iban Zaldua

## pozoiki (corpusean pozoinki soilik) iz gai pozoitsua.

Europak hamabi "zikintsuen" kontrako guduka sinatu du, zikintsu horiek direlarik industrian edo laborantzan ere erabiltzen diren **pozoinki** zernahi, ingurumenaren eta osasunaren kaltekor haundiak denak ere. Herria

Hasian hasi balitake oraino beste gauza frango erraiteko nun nahi noiz nahi eta nola nahika hedatzen diren **pozoinki** horietaz! Herria

## pozoikor (corpusean pozoinkor soilik) izond pozoitzailea.

Ondarkin horiek, izan urtxo arrotzearen heineko pikorrak ala eskuaren beteko taloak, denak kaltekorak dira! zikinak, bixtan da, bainan ere **pozoinkorrak**! Herria

pozoiz ik **pozoiz**.

pozoizatu ik **pozoizatu**.

pozoizdatu ik **pozoizatu**.

pozoizindu ik **pozoizatu**.

pozoizinkeri ik **pozoizkeria**.

pozoizinki ik **pozoiziki**.

pozoizinkor ik **pozoizkor**.

pozoizintatu ik **pozoizatu**.

pozoizintsu ik **pozoizitsu**.

## pozoitasun iz pozoia izateko nolakotasuna.

Zigortuaren portaerak aztertzeke -zientziak erakusten duen zehaztasunarekin- eta kafearen **pozoitasuna** ondo frogatzeko, harekin kartzelan bizi guztirako zeuden beste bi zigortu hartu zituen konparatze kontuetarako, "kontraste" gisa. J.M. Olaizola "Txiliku"

## pozoitsu (orobat *pozoitsu* g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian pozoitsu* agertzen da) 1 izond pozoia duena, pozoiez betea. Ik edentsu; pozoidun.

Suge **pozoitsu**en gainean ibiliko zara, basapiztiak oinazpian hartuko. **Elizen arteko biblia**  
Eta erakutsi zion perretxiko onak eta **pozoitsuak** bereizten. **Koro Navarro**  
Ez dadila zuen artean guztiok nahasi eta kutsatuko zaituzten landare **pozoitsurik** hazi. **Elizen arteko biblia**  
Ez du harrapatuko, ez, zure gezirik **pozoitsu**enak ere. **Juan Garzia**  
Hiltzeko bere metodoak harrigarriak dira benetan, letagin beldegurri eta **pozoitsu**ez gain, basiliskoak begirada hiltzailea baitu. **Iñaki Mendiguren**  
Aire kiratsua eta **pozoitsu** honekin ez dira biziko! **Agustín Otsoa**  
Multinazionalak uko egin zion hasieran gas **pozoitsu**aren konposizio zehatza zabaltzeari. **Berria - Gaiak**  
Pentsa daiteke lohi horiek garraiatzen dutela onkailu kimikoek baino aise elementu metaliko **pozoitsu** gehiago? **Herria**  
Aurkitzen dira, berebat, hilgarriak diren urak ere, lurreko zuku kaltegarriak zeharkatzeagatik beren baitan indar **pozoitsu** hori jasotzen dutenak. **Santiago Iruretagoiena**  
Ke-bolada ezinago **pozoitsu** bat zetorren atmosferaren goialdetik. **Josexo Azkona**  
Karbono monoxidoa **pozoitsu**a da, odolean oxigenoa garraiatzea galarazten baitio hemoglobinari. **Irene Aldasoro**  
Amoniakoa **pozoitsu**a da ia bizitza-forma guztientzat. **Irene Aldasoro**  
-Ez al da **pozoitsu**a -edo? -galdetu zuen Morse andreak. **Mirentxu Larrañaga**

## 2 irud/hed

Billy, a ze mihi **pozoitsu**a zurea! **Lopez de Arana**  
Ezpata bezain zorrotza dute mihia, geziak bailiran botatzen hitz **pozoitsuak**. **Elizen arteko biblia**  
Ikusiak ikusi, beste askok buruan duten irudia paperean jarri baino ez du egin egunkari **pozoitsu** horrek. **Joxerra Garzia**  
Egunkariko lankide ohia nuen Tomas, eta hala izanagatik, lanbide **pozoitsu** honetan aurkitu dudana lagun bakarrenetarik. **Aingeru Epaltza**  
Bederatzi garren koadroan ezker horman itsatsitako pilota **pozoitsu**a eraman beharko du. **Berria - Kirola**  
Bere bulegotik zuzendariarekin irterekoan, begiratu **pozoitsu**a egin zien Snapek Harryri eta Roni. **Iñaki Mendiguren**  
Opari **pozoitsu**e zaila da kokagunea aurkitzen norberekoikeriaren apalategietan. **Pako Aristi**  
Polemika hori **pozoitsu**a da erabat, eta bizi garen garai hauen miseria erakusten du. **Bernardo Atxaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gas pozoitsu** (3)  
**suge pozoitsu**a (3)  
**suge pozoitsuak** (3)  
**suge pozoitsu**en (3)

## pozoitu (orobat *pozoinatua* g.er., *pozoindatu* g.er., *pozoindu* g.er. eta *pozointatu* g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegian pozoitu* agertzen da) 1 du ad pozoia harraraziz edo emanez hil, edo hil zorian edo jarri.

43 urterekin hil zen Ludovico, arrea hartzek **pozoituta**, nonbait. **Jon Muñoz**  
Haurra izan eta biharamunean berak **pozoitu** zuen. **Gotzon Garate**  
Zotz horien pozoia nahikoa izan zen hiru artzainak **pozoitu** eta hiltzeko. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Orain Mireia **pozoitu** egin zutela jakin dute. **Fernando Morillo**  
Hiltzera kondenatu zuten Giovanni Battista, emaztea **pozoitzeagatik**. **Jon Muñoz**  
Senarrak emaztea **pozoitu**; arrebak neba! **Jon Muñoz**  
Justxeneko dioxinaz **pozoitu** zutela jakinarazi dute haren medikuek. **Berria - Mundua**  
**Pozoitu** ote zuten argitzeko analisi medikoak egingo dizkiote han. **Berria - Mundua**  
Egizu nahi duzuna; niregatik libre duzu mundu erdia **pozoitzen** baduzu ere; berdin dit. **Josu Zabaleta**  
Aladinoren historiak erakuntzaz kontatzen du afrikar magoa bere jauregian **pozoitua** izan zela eta haren gorputza, drogaren poderioz belztu eta arrakalatu, zakur-katueta bota zutela. **Juan Garzia**  
Nire bekatu ezkutuek hurkoek biriketaratzen duten airea **pozoitzen** dute. **Anjel Lertxundi**  
Andresek bere burua **pozoitu** zuen. **Josu Zabaleta**  
Chapeleau, bizilagunaren behiak **pozoitzeagatik** kondenatu zuten. **Harkaitz Cano**

## 2 (da aditz gisa) nahi gabe-edo pozoia hartuz hil edo hil zorian gertatu.

**Pozoitzen** banaiz ere, denbora gehiegi edan gabe egonez gero, ito egiten naiz. **Jose Morales**  
Askok etxean pasatzen dituzte tripako minak, perretxikoekin **pozoitu** direla ez esatearren. **Berria - Gaiak**  
Garuna oxigenorik gabe eta karbono dioxidoz **pozoiturik**, gorabeherak eta itzalaldiak izaten zituen Virgilen kontzientziak. **Xabier Olarra**  
Autopsiak erakutsiko zuen Véra lo-pilulaz **pozoiturik** hil zela. **Eskarne Mujika**

## 3 pozoia nahasi, pozoia ipini.

Zaldun gaizto hark, fruta bat **pozoitu** zuen, baina ez zion Gwaini zuzenean eskaini, Ginebrari baizik, hark Gwaini eskainiko ziolakoan. **Juan Kruz Igerabide**  
Kopa hura **pozoituta** zegoen. **Julen Gabiria**  
Mendeku gisa, maitale ohiak **pozoitutako** lore-sorta egin zion opari. **Martin Anso**

## 4 irud/hed

Gizonen bat **pozoituko** zuen lotsagaldu horrek. **Karlos Zabala**  
Gizarte osoa dago erasoan, lan mota jakin bat egin dutelako daudelako auzipetuta, eta horrek gizarte osoa **pozoitzen** du. **Berria - Harian**  
-Gizon hau, eta bera bezalako beste asko, gezur horretan, literatura eta hitzontzikeria itxurati baten hondarrez **pozoiturik** bizi direla pentsatzea ere, harrigarria da zinez!  
**Josu Zabaleta**  
Irribarre egin zuen Frantziskok, apaizaren barrua zekenkeriaz **pozoitua** ikusiz. **Askoren artean**  
Bekaizkeriak **pozoitutako** haginekin hozkatu naitek! **Patxi Zubizarreta**  
Ez al dinat beti esan eliztar hauek politikaz **pozoituta** dutela mingaina? **Koldo Biguri**

## 5 (era burutua izenondo gisa)

Mateo Vicalviko elizgizon **pozoitu**aren sendatzea. **Askoren artean**  
Begara, suge **pozoituak** bidaliko dizkizuet. **Elizen arteko biblia**  
Burua eta oinak dardara batean ditut, ogi **pozoitua** jan banu bezala. **Askoren artean**  
Denek ikusi zuten erregina fruta **pozoitua** zaldunari ematen. **Juan Kruz Igerabide**  
Belarmina emango diet jateko, ur **pozoitua** edateko. **Elizen arteko biblia**  
Eltzekari **pozoitua**. **Elizen arteko biblia**  
Bourg-la-Reineko gizonak kutsatu dute hiltzen nauen aire **pozoitu** hori. **Jon Muñoz**

Erantzun zion horrek ez zuela hunkituko, mingain **pozoituen** gainerik zegoela. **Karlos Zabala**  
Saderengan hitzak ez dira mintzabide huts; armak dira, azkon **pozoituak**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Iragan **pozoitu** horretatik ezer jaso ote genezake ondare kultural baliagarri baterako? **Joseba Zulaika**  
Jende on-onen gizarte onak malko epel gezurrezko bat ixurtzen du mendizale zintzoaren heriotzan, eta nazka hotz egiazko bat sentitzen jonki zikin **pozoitua**, ongi merezita, nirbana ttipitik nirbana handi betikora irristatu eta hiltzera etzaten denean, metro pasatxoko hegaldi motz itsusian. **Iñaki Segurola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**pozoitu direla** (3); **pozoitu zuen** (5); **pozoitu zutela** (3)  
**ogi pozoitua jan** (3); **pozoitua izan** (10); **pozoitua izan zela** (4); **ur pozoitua** (4)  
**pozoiturik hil** (5)  
**pozoituta dago** (3); **pozoituta hil** (5); **pozoituta hil zen** (3)  
**airea pozoitzen** (3)

## pozoitzaile 1 *izond/iz* pozoitzen duena.

Sainduari eta burezurrari begira nago, eta hasperen egin dut nahigabe, kafe **pozoitzailea**, Alois Miedl, gure aita eta agurearen osabaz gogoratuta. **Javi Cillero**  
Mail-a alderik alde korritu zuen, errege-segizio guztian barrena, zurdazko zuzi izeki bat astinduz eskuan, printze **pozoitzailearen** gainean argi egin beharrez. **Juan Garzia**  
**Pozoitzailea**, bizpahiru lagun isilekin, berriro sartu, eta deitore-itxurak eginez biltzen zaio erreginari. **Juan Garzia**  
**Pozoitzaileak** opariz gogatu nahi du erregina. **Juan Garzia**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarteak izenondo balioa duela)

Harridura horrez elikatzen da, gogoia lainope, eta ez du falta mihi-gaizto belarri-**pozoitzailearik**, bere aitaren heriotzari buruzko esamesari kirats. **Juan Garzia**

## pozoitze 1 *iz* pozoia hartuz, harraraziz edo emanez hiltzea edo hil zorian ezartzea.

Oso garrantzitsua da intoxikazio mota ondo identifikatzea; **pozoitze** larri askotan, goiz hartuta eta tratamendu egokia emanda, jendea onik ateratzen da. **Berria - Gaiak**  
Ez dakit inork gogoan izango dituen Josef Duvrescu idazle errumaniarraren **pozoitzearen** ingurukoak. **Iban Zaldua**  
Nire bekatu ezkutuek hurkoek biriketaraten duten airea **pozoitzen** dute. **Anjel Lertxundi**  
Madarikatuak, niretzat ez zuten beste izenik lur alemaneko airea **pozoitzen** zuten haiek. **Anjel Lertxundi**  
Erori, ez gau ero bateko sualdi labor batean, baizik eta zorameneko erabateko **pozoitze** batean, maitasun gori gertagaitz batean. **Oskar Arana**  
- **Pozoitzearena** gertatu zenean, ez al zegoen Mahai Biribileko zaldunik gazteluan? **Juan Kruz Igerabide**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta egiazko -ala gezurrezko- bere kontakizun haiekin atsegin hartuz-edo, **pozoitze** lanaren deskripzioa bidali zion, xehe-mehe. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Bi heriotza-zigor eman zizkiotela: bat **pozoitze** ahaleginagatik, lepoa mozttera, bestea sodomiagatik, sutan erretzera. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
**Pozoitze** -kasuek konponbide ona dute askotan, dialisiaren bitartez substantzia toxikoak kanporatu eta odola garbitzen baita. **Irene Aldasoro**  
Batez ere **pozoitze** -kasuak tratatzeko erabili zen giltzurrun artifiziala 1960 arte, eta, bereziki, giltzurrunaren gutxiegitasunez odolean urea gehiegi pilatzean gertatzen den **pozoitze** mota tratatzeko. **Irene Aldasoro**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Janari **pozoitzea** diagnostikatu zuten mediku ukrainarrek. **Berria - Mundua**

## pozpozik ik **poz** 3.

## pozpuztu, pozpuz(tu), pozpuzten da *ad* pozez puztu.

Azken finean, bere ironia baieztu baino ez dut egin, eta **pozpuztu** egin da. **Koldo Izagirre**  
Izagirreraren paralelotasunaren arabera, oster, aldi berean **pozpuzten** edo ahitzen dira bizitza eta historia. **Markos Zapiain**

## poztasun 1 *iz* poza, pozezko egoera. ik **alaitasun**.

Kalezuloko ezkongai egoki bakarra zelakoan, Um Hamidak **poztasuna** hartu zuen. **Patxi Zubizarreta**  
Kixxaren **poztasuna** gazteak berriketari ekiten ziola ikusirik. **Patxi Zubizarreta**  
Sexua ongizaterako, **poztasunerako** eta plazererako bidea da; emozio eta maitasun eragile. **Luis Elberdin**  
Biek sentitzen zuten **poztasun** bera, olatuen mugimenduak piztua. **Anton Garikano**  
Gure **poztasuna** joana zen, eta urduri begiratzen genion aitari, gero eta haserreago baitzegoen. **Juan Kruz Igerabide**  
Jendearen **poztasun** eta alaitasunerako. **Askoren artean**  
Zergatik tragediatzat jo **poztasuna** eta ontasuna darion jakituriaren agerpen bat dena? **Patxi Zubizarreta**  
Begiak dirdaitu, ahoa **poztasunak** eta estekabeak zabaldua. **Patxi Zubizarreta**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Neke handirik gabeko lan bat, **poztasun** xaloz betetako bizimodu bat. **Karlos Zabala**  
Koblakariak lehenago egundo sentitu ez zuen **poztasun** bete sentiara zion. **Patxi Zubizarreta**  
Lo gozo batera lerratze hura baino **poztasun** handiagorik ez zegoen. **Ibon Uribarri**  
**Poztasun** handia izan zen bisitari nobleen taldean, eta espirituko gozotasunen artean malko ugari isuri zuten. **Askoren artean**  
**Poztasun** betean hartu ninduen Buruk. **Edorta Jimenez**  
Carlos Argentinoren eromenak **poztasun** maltzurrez bete ninduen. **Juan Garzia**  
Kristoren zerbitzaria **poztasun** santuz bete ikustean, ezin diote deabruak minik egin. **Askoren artean**  
Sergiore **poztasun** urduriaz ohartu zen Sara. herioaren larritasunaz batetik, **poztasun** hutsal eta faltsuaz bestetik. **Joan Mari Irigoien**  
Batetik handi-mandi bridatzaileak, bertetik ixiltasunera behartua den jende bridatua, artean popularean gehiago bat halako **poztasun** faltsu batean atxikia. **Herria**  
Irria, Jolasa bezala, **Poztasun** hutsa baita, eta, beraz, gehiegizkoa ez bada, segurik, ona da berez. **Piarres Xarriton**  
Gizon jainkozalea, malko-jario hauen artean halako zerutiar **poztasun** batez azaltzen zen, gozo eta bare bai barnean eta bai aurpegian. **Askoren artean**  
Fraidegaiog begiratu zigun, lana ondo egiten ari den baten **poztasun** halako batez. **Anjel Lertxundi**  
Seme hori, Florent, lehenbiziko ezkontzan sortua, txit gozoa zen eta **poztasun** handiak eman zizkion. **Karlos Zabala**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Helegite azitegiaren erabakia **poztasun** oihu eta txalo artean hartu zuten. **Berria - Mundua**  
Nola hartzen zituen **poztasun** eta betetasun sentimendu batek Sararen bihotz-buruak guztiz! **Joan Mari Irigoien**

Bada, hura harturik, hantxe itxi zuen, **poztasun** keinu batek lagundurik. **Edorta Jimenez**

Beraz, **Poztasun** mota batez hunkitzen gaituen gauza batez oroitzen garenean, ahalegintzen gara, horrenbestez, aitzinean bagenu bezala gauza haren kontenplaten, **Poztasun** afektu berdinarekin. **Piarres Xarriton**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egungentziaren argitan Gñlbaharren aurpegia ume- **poztasun** batek piztua zegoen. **Fernando Rey**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**poztasun edo tristura** (4); **poztasun handia** (3); **poztasun handiago** (3); **poztasun handiagoz** (3); **poztasun handiz** (5)

**hunkitzen gaituen poztasuna** (3); **lagun daraman poztasuna** (10); **poztasuna edo tristura** (3); **poztasuna eta tristura** (4); **poztasuna hartu zuen** (3); **sorturiko poztasuna** (6); **sortzen den poztasuna** (8)

**poztasunaren edo tristuraren** (6)

**poztasunari edo tristurari** (3)

**poztasunera daramala irudikatzen** (3)

**poztasunetik sortzen den** (3)

**poztasunez edo tristuraz** (10); **poztasunez hartu** (4); **poztasunez hunkitua** (10); **poztasunez hunkitua dela** (3); **poztasunez hunkitua izan** (3); **poztasunez hunkitzen** (14); **poztasunez hunkitzen duela** (7)

**poztasunezko afektu** (4); **poztasunezko edo tristurazko** (3); **poztasunezko eta desirazko** (3); **poztasunezko eta tristurazko** (3); **poztasunezko nahiz tristurazko** (3)

## poztu, poz(tu), pozten 1 da/du ad poz hartu, poz eman, pozez bete. (norbait)

Lasaitu nintzen, beraz, eta **poztu** ere bai, benetan. **Joxe Austin Arrieta**

Nire bizimodu bitxi eta irreal hark ez zuen, ez kezkatzen, ez **pozten**. **Joseba Urteaga**

Benetan da osasungarri **poztea** eta alaitzea izan duten ohoreagatik eta zoriagatik. **Joan Mari Lekuona**

**Poztu** egiten naiz, horregatik, eta zurekin bozkariatzen, eta zorionak ematen dizkizut, bertutearen bidetik adoretu aurrera zoazelako. **Askoren artean**

Alaba, aita hain zorionsu ikusirik, **poztu** egin zen bera ere, izugarri maite baitzuen. **Felipe Juaristi**

Egiaztapen horrek ez zuen ez **poztu**, ez penatu. **Eduardo Matauko**

Ez dakit **poztu** ala haserretu Abelen hanka-sartze bat izan zela entzunda. **Anjel Lertxundi**

"Hau duk hau aukera, esku artera etorri zaidana!", **poztu** zen Agravain. **Juan Kruz Igerabide**

**Poztu** zaitez zu ere, ahizpa laztana, beti Jaunarengan. **Askoren artean**

**Poz** zaitez zeure seme-alaba zintzoengatik, bilduko baitzaizkizu berriro guztiak eta betiereko Jauna goretsiko dute. **Elizen arteko biblia**

Berri hunek **pozten** ditu euskaldun guztiak eta lehenik Migel Madariaga, taldearen arduradun nagusia. **Herria**

**Poztu** egiten naizela, **poztu**, gertatu zainanagatik. **Antton Olano**

**Poztu** egiten zela nire asmoarekin, eta bidaliak zizkidala, lagunduko zidatelakoan, paperak eta argazkiak. **Bernardo Atxaga**

Eraztuna jantzi izanaz **poztu** zen, orkoen beste konpainia bat hurbiltzen ari baitzen. **Agustin Otxoa**

**Poztekoa** da etxeko norbaitek nigan konfiantza izatea. **Bernardo Atxaga**

**Pozten** naiz hori entzuteaz. **Oskar Arana**

**Pozten** nau hori entzuteak. **Joanes Urkixo**

Gainera, uste nuen **poztuko** zintuela ilobarekin gelditzeak. **Aingeru Epaltza**

Horrek asko **poztu** zuen Wendy. **Julen Gabiria**

## 2 (adizlagunekin)

Badaki deitzen badio asko **poztuko** dela. **Lourdes Oñederra**

Agur egiten zidan lehenengo aldia zen aspaldian, eta asko **poztu** ninduen. **Josu Zabaleta**

Ez gaitu askorik harritu, baina gure artean inor ere ez da asko-asko **poztu**. **Josu Zabaleta**

Nire emaztea oso **poztuko** duk hi ezagutzeaz. **Irene Aldasoro**

Salomonen eskari hau hartzean, Hiram biziki **poztu** zen. **Elizen arteko biblia**

Ulises biziki **poztu** zen harreragatik, eta Zeusen izenean bedeinkatu zuen. **Juan Kruz Igerabide**

-Izugarri **pozten** nau zuk hori pentsatzea -esan zuen andreak-. **Mirentxu Larrañaga**

Unai ikaragarri **poztuko** da. **Aingeru Epaltza**

Pozten naiz, benetan **poztu** ere, zu bizirik ikusteaz! **Agustin Otxoa**

Berria-rekin ez nuen asmatu, eta zinez **poztu** nintzen. **Iñigo Aranbarri**

Bakarrik geratu arren, solaskiderik gabe, zeharo **poztu** zen Lucas. **Unai Elorriaga**

Baina ni gelditzeak ez zuen batere **poztu** mutila, nabari zitzaion. **Fernando Rey**

**Poztu** nintzen galanki, eskala egin genuenean. **Joxe Austin Arrieta**

## 3 (zerbait)

Bihotza **poztu**, arima handitu eta indarrak berritzen dituzten abentura horietako bat izan zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Haren begi txikiak **poztu** egin ziren. Ikutidazu potxotxa, ikusiko duzu nola **poztuko** den zure zirriekin. **Juan Garzia**

Piztu ziren argiak, hasi ziren musikak, **poztu** ziren ikusleen eta teleikusleen bihotzak. **Karlos Linazasoro**

Jaiki zaitez, jan, **poztu** barru hori. **Elizen arteko biblia**

Egia esan, mutil hark bidaia desatsegina **poztu** zion. **Sonia Gonzalez**

## 4 (era burutua izenondo gisa)

"Bai, bai, bai", taldekide **poztuen** oihartzuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**asko poztu** (67); **asko poztu ninduen** (10); **asko poztu zen** (28); **atsekabeetan poztu** (4); **batere poztu** (3); **biziki poztu** (44); **biziki poztu zen** (26); **biziki poztu ziren** (8); **gehiago poztu** (6); **harritu eta poztu** (3); **ikaragarri poztu** (4); **ikusteak poztu** (3); **izanaz poztu** (5); **izugarri poztu** (20); **izugarri poztu zen** (10)

**poztu da** (12); **poztu eta alaitu** (3); **poztu eta harrotu** (3); **poztu gaitzean** (6); **poztu hadi** (3); **poztu zen** (114); **poztu zuen** (13)

**poz bitez** (5); **poz dadila** (3); **poz zaitezte** (10)

**asko poztuko** (19); **biziki poztuko** (4); **gehiago poztuko** (5); **izugarri poztuko** (6)

**pozteko moduko** (7); **pozteko modukoa** (6); **pozteko modukoa da** (3); **pozteko modukoak** (3)

**poztekoa da** (24)

**asko pozten** (47); **asko pozten naiz** (11); **asko pozten nau** (12); **benetan pozten** (5); **benetan pozten naiz** (3); **bereziki pozten** (3); **bihotza pozten** (7); **biziki pozten** (13); **biziki pozten naiz** (4); **biziki pozten ziren** (3); **gehiago pozten** (5); **ikaragarri pozten** (4); **izugarri pozten** (17); **izugarri pozten naiz** (9); **pozten da** (29) **pozten du** (7); **pozten gaitu** (8); **pozten gara** (17); **pozten naiz benetan** (3); **pozten nau ikusteak** (3); **pozten zen barrutik** (4); **pozten ziren jaunagan** (3)

## poztxo iz poz txikia.

Bahitu nindutenetik, huraxe izan nuen **poztxo** bakarra. [Anjel Lertxundi](#)

Deliberamendu horrek **poztxo** bat ekarri zidan: nire bizitzan lehendabiziko aldiz, familiaren on beharrez ari nintzen, eta ez neure onaren bila. [Anjel Lertxundi](#)

## pragatar izlag/iz Pragakoa, Pragari dagokiona; Pragako biztanlea.

Demagun Kafka: idazle **pragatarrek** Hamalauko Gerra Handiaren garaian idatzi zuen bere obrarik garrantzitsuena. [Anjel Lertxundi](#)

**Pragatarrek** asteburuetan kanpora ihes egin ohi dute, baina gelditzen direnentzat, Wenceslas plaza da bilgune nagusietako bat. [Berria - Mundua](#)

Denda berria ireki zuen, Azoka Plaza Zaharrean, **pragatarren** oroitzazenez geroztik, erloju astronomikoa dagoen plazan. [Felipe Juaristi](#)

## pragmasia iz

Errealitateak erakutsi egin dio eta **pragmasiaren** bidez antzeman du giza abereak ez diola nolana izan mugatu. [Askoren artean](#)

## pragmatika 1 iz hizkuntzalaritzaren adarra, mintzaira aztertzen duena hiztunen eta hizketaldia gertatzen den egoeraren eta zertzeladen aldetik.

Erretorika berriek, **pragmatikak**, antropologiak, ahozkotasanaren teoriak eta, batez ere, bertsolariak berek albora utzi ezinako arrasto baliagarri mordo bat eskaini dizkigute azken urteotan. erretorika klasikoaren kanonen egokitzapen bat da funtsean gure markoa, gaur egungo **pragmatiken** ekarpenez berritu eta osatua. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Irakasgai bakoitzak badu berezitasuna, eta antzik ez du normalean egiten dugun lengoaiarekin semantika, sintaxi edo **pragmatikaren** aldetik. [Berria - Euskal Herria](#)

Garapen berri horiek sintaxiaren, semantikaren eta **pragmatikaren** arteko zubiak sendotu zituzten. [Askoren artean](#)

Bigarren hizkuntzaren jabeakentzari dagokionez, fonologiako azterketak sintaxikoak, diskurtsoari buruzkoak eta **pragmatikazkoak** baino atzeratuago dabilta kopuruaren aldetik behintzat. [Lourdes Oñederra](#)

### 2 aritzeko moduari buruzko jakinbidea.

Baina segituan kontrarreforma bultzatu zuen Eliza katolikoak, eta euskal literatura aszetika eta **pragmatika** erlijioso katolikoko liburuak egitera bideratu zen. [Berria - Harian](#)

### 3 lege xedapena, errege edo kideko batek, inongo kontseilu edo biltzar politikoren baiespenik gabe emana.

Ez al ziren bata bestearen ondoan etorri, senatukontsultuak, plebisituak, pretoreen ediktuek, kontsulen ordenantzak, edilen araudiak, juriskontsultoen erantzun edo erabakiak, **pragmatika** -berronespenak, erreskriptuak, ediktuek eta enperadoreen nobelak? [Andres Urrutia](#)

## pragmatiko 1 izond ekintzari, eta ez gogoetari, dagokiona; praktikari edo ekintzari lehentasuna ematen diona.

Zorionaren eragileetatik abiatzen den lege praktikoa **pragmatikoa** deitzen diot. [Ibon Urbarri](#)

Azalpena garapen horren kontzeptu **pragmatikoan** -praxiari loturikoen- inguruan gauzatuko da. [Askoren artean](#)

Ez naiz, ezta ere, negarrez hasiko munduak literaturari soilik alde **pragmatikoa** -entretimenendua- eskatzen diola ikusita. [Anjel Lertxundi](#)

Han ikuspegi **pragmatikoa** nagusitu da eta ez dogmatikoa. [Iñaki Heras](#)

Demokrata kristauak eta komunistek *entente cordiale* moduko bat adostu zuten, eta ateak zabandu zizkieten garai **pragmatikoago** batzuei. [Anjel Lertxundi](#)

Helburua **pragmatikoa** da erabat Giereren zientziaren azalpen filosofikoan: nola atzeman eta erabiltzen dira teoriak praktika zientifiko errealean? [Askoren artean](#)

Fikzioari berea eman ordez, ez baitzen federik fikzioak ezer lor zezakeenik, hain juxtu euskaldunon jite **pragmatiko** kate motzekoa nagusitu zen... [Iñaki Iñurieta](#)

Uste dugu ariketa logiko horren bidez ez dela gehiegi lausutzen sofistekaren espiritu **pragmatikoa**. [Askoren artean](#)

Hauxe da bigarren alderdia, ikuslearen desireri, hark dituen esperantzei, lotuagoa, ikuslearen egoera **pragmatikoari** dagokiona, alegia. [Josu Zabaleta](#)

Esan daiteke batez ere Jean T.k oso era **pragmatikoan** jokatu zuela. [Joseba Urteaga](#)

### 2 (pertsonez)

Teknikariak arras **pragmatikoa** zirudien, bazekien zer obratu behar zen, buruaz beste egin gabe, merkatuari egokitzeko. [Itxaro Borda](#)

"Gainera hotza egiten hasi du", bururatuko zaio erromantizismo kutsurik gabeko **pragmatiko** bati. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Jendea **pragmatikoa** da. [Berria - Ekonomia](#)

### 3 (hitz elkartuetan)

Bazekien, baina ez zion inporta, jarrera **pragmatiko**-egoentziko ibiltaria zen harena, hura bezalako jenderik ez da gehiago, ezin izan, jakina. · Doris Allen psikologoak "defizit semantiko-**pragmatiko**" tzat deskribatzen du autismoaren alderdi hori. [Karlos Zabala](#)

### 4 pragmatikarena, pragmatikari dagokiona.

Nola integratu hiru mailako egituraren aspektu **pragmatikoak**? [Askoren artean](#)

Diskurtsoaren mugaketa-arau **pragmatikoak**. [Joxe Azurmendi](#)

## pragmatikoki adlag era pragmatikoan.

Irudi baten balio simbolikoa **pragmatikoki** definitzen da, beste ezerena baino nabarmenago, irudikatzen diren sinboloen onargarritasun sozialaren bidez. [Josu Zabaleta](#)

Iritsiko ote zen haietako inor bere kasa moldatzera, automatismo sozialak **pragmatikoki** erabiltzera, munduan funtzionatzeko moduan? [Xabier Olarra](#)

Erabakitze eskubideari dagokionez, IBren iritzi Frantziak ez du horrelakorik onartuko eta **pragmatikoki**, departamendua lortu behar dela azaldu du. [Berria - Harian](#)

## pragmatikotasun iz pragmatikoa denaren nolakotsuna. ik pragmatismo.

Euskaldunak arte antirrokokoak egin du, ez du bilatu edertasuna, **pragmatikotasuna** baizik. [Berria - Kultura](#)

Ikuspegi kritikagarria, eta baita arbuigarria ere, nola ez, bere **pragmatikotasunean**, garapen eredu jakin bati buruz determinista izanik. [Iñaki Heras](#)

Iraunkortasuna, egonkortasuna, seriotasuna, **pragmatikotasuna**, gogortasuna forjetan... dira ezaugarri horiek. [Berria - Kultura](#)

## pragmatismo 1 iz gauzen alderdi praktikoa lehentasuna emateko joera. ik pragmatikotasun.

**Pragmatismoak**, eraginkortasunean oinarrituriko jarrera horrek, aurrean jartzen zaizkion aukera eta gertakizun guztiak baliatzen ditu [...] eta errezeloz begiratzen dio apriorismoaren, dogmaren edo ideologiaren kezka-usain desatsegin hori duela iruditzen zaion guztiari. [Anjel Lertxundi](#)

**Pragmatismoa** izan dugu euskaldunok harroen erakutsi dugun ezaugarrietako bat. [Anjel Lertxundi](#)

Bigarren arrazoina da **pragmatismoarena**: ez da aski erraitea "Pauetik ez dugu deus espero", hori frogatu gabe! [Herria](#)



Tradizioz, lider instituzionalari **pragmatismoz** jokatzeko dagokio, hitzarmenek mugatuago jokatu beharrez, eta alderdiko liderrari azken beharuei eustea. Berria  
- Harian

Aldaketa garaiotan ezker abertzaleak «etxerako lanak eginak» dituela eta «malgutasunez eta **pragmatismoz**» jokatzeko prest dagoela adierazi zuen Otegi. Berria  
Euskal Herria

## 2 teoria filosofikoa, doktrina baten balioa neurtzeko haren ondorio praktikoei baino ez zaiela begiratu behar dioena.

**Pragmatismoaren** arabera, posible da indukziozko metodoa aldarrikatzea kontzeptualki; ez du onartzen, alabaina, azken horrek aukera handirik ematen digunik egiazko ondorioetara ailegatzeko. Askoren artean

Charles Sanders Peirce, William James, Josiah Royce eta John Dewey-ren **pragmatismo** amerikarraren filosofiaren eskutik. Askoren artean

Quineren belaunaldiaren ondoren, hizkuntza eta zientziaren analisiaren filosofia estatubatuarrean hezitako pentsalariek [...] **pragmatismoaren** eta Europako filosofia kontinentalaren arteko elkarrizketa osatu zuten. Askoren artean

Agerian geratzen da nola lotzen diren ideien bidez **pragmatismoaren** filosofia eta nazio baten interesak. Askoren artean

## pragmatista 1 izond pragmatismoarena, pragmatismo filosofikoari dagokiona.

Egiarekiko ikuspegi **pragmatista** : perpaus bat egiazkoa da hura mantentzeak efektu "positiboak" badakartza. Askoren artean

### • 2 iz pragmatismoaren aldeko pertsona.

Hobeto ulertzeko, **pragmatistak** hitz berezi bat darabil du behin-behineko indukziozko baieztapenei buruz ari denean: posit (postulatu). Askoren artean

Rortyk ilustrazioaren liberalismoa salbatzeko, haren razionalismoa eliminatzea proposatzen du, **pragmatista** ilustratu gisa jarraitu ahal izateko, dogmatismoak oro utzita. Joxe Azurmendi

Humeri emandako erantzun bat Charles S.Peirce **pragmatista** ipamerikarraren abdukziozko arrazoinamendua da. Askoren artean

## praile ik fraide.

## praka (361 agerraldi, 106 liburu eta 30 artikulutan; orobat fraka 90 agerraldi, 35 liburu eta 7 artikulutan; soilik praka- eta fraka-formen maiztasuna) 1 iz pl gorputza gerritik behera eta bi zangoak banaka estaltzen dituen janzia. ikgaltza.

Soinean alkandora zuri garbi-garbia zeraman, izur txukuna eginez lisatutako **prakak**, oinetako distiratsiak. Urtzi Urrutikoetxea

**Prakak** eta galtzontzilo urdin argiak erantzi nizkion hantxe, ohean eserita zegoen bezala. Aitor Arana

Belauniko jarri naiz, **prakak** jaitsi dizkiot, eta bere zakila dakust mardo-mardo. Juan Martin Elexpuru

Budek **prakak** jantzi eta gizonari quarter bat luzatu zion. Lopez de Arana

**Prakak** jantzi zituen badaezpadan, eta orkatiletarainoko gabana. Josu Landa

Elastikoaren ondoren gizonak oinetakoak kendu eta **prakak** askatu zituen. Aitor Arana

**Praketako** botoiak askatzen hasi zenean. Unai Elorriaga

Neskaren hatzek Josebaren **praketako** kremlera jaitsi zuten. Fernando Morillo

Bere atzamar izoztuak etengabe mugitzen ziren **praken** poltsikoen barruan. besotik hartuta hor eraman zuen Prantxixko Zabaleta gizona, ikararen ikaraz **praketan** pixa eta kaka eginda. Lopez de Arana

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ilea atzealdean bildua, **praka** motzak eta niki tiranteduna. Paddy Rekalde

–**Praka** motz horiek denak *Caritas*-era! Koldo Izagirre

Ahizpa ikusi zuen ohe gainean minez iraulkatzen eta **praka** laburreko mutil argal zurbila zutik zegoen bere ondoan, eskuak urkielez beterik. Lopez de Arana

Dotore etorri zen Ane, beltzez goitik behera, larruzko **praka** beltzak eta jakanarru beltza. Unai Iturriaga

Nik amerikar armadako panazko **praka** berdeak neramatzan. Urtzi Urrutikoetxea

**Praka** beltz estuak eta jertse fin urdina. Sonia Gonzalez

Maiza atzetik, begiak **praka** estuetan nabarmentzen ziren aldaketan jarririk. Migel Angel Mintegi

Biribilguneak ongi markatzen zizkioten **praka** malguak janzen zituen. Migel Angel Mintegi

Oinen gainean dilindan zituen **praka** zabal nabarrei so egiteko. Lopez de Arana

**Praka** zabal-eroak, artilezko jertse gorria eta zetazko zapia lepo inguruan. Fernando Morillo

Orduan ordezkari sindikalek eskaleen antza edukitzen zuten euren bizar zabar, trikota ilun eta **praka** zaharkituekin. Hasier Etxeberria

**Praka** marradun zuri-beltz batzuk, nahikoa marazturik zeudenak. Josetxo Azkona

Janzen zituen likrazko **prakek** bere izterretako gihar boteretsuen gorabeherak nabarmenagotzen zituzten. Jon Alonso

Mahonezko **praka**, arkondara koadrodun, gerriko baltz eta txapel hutsik bakoz. Xabier Amuriza

### 3 (mota adieraziz)

Gizontto bitxi bat ere bazen, sudur berezia zeukana, bizkar zorro handia, "golfeko **prakak**" esaten zaizkienak eta bota itzelak. Urtzi Urrutikoetxea

Surflariak erabiltzen dituzten neoprenoazko **praken** antza du. Berria - Gaiak

Bata bestearen ondoan zetzan, biak ere **praka** bakero koipetsuak jantzita. Lopez de Arana

**Praka** kakaik jantzirik, soldadu batzuk kantuan hasi ziren. Lopez de Arana

Jertse estuak eta **praka** elastikoek nabarmendu egiten zioten gorputzaren liraintasuna. Migel Angel Mintegi

-Goretex gehiegi: mendiko botak, mendiko **prakak**, mendiko jaka... Sonia Gonzalez

### 4 (modua adieraziz)

Zu bezalako gazteak nituela inguruan, batzuk **praka** motzetan, besteak kirol arropetan. Pello Salaburu

**Praka** laburretan pilota baten atzetik dabilzan aurrelari, atzelari eta defentsak. Sonia Gonzalez

Oinetako deportibo eta **praka** bakeroetan bistaratu zuen bere Pietatea. Unai Iturriaga

Ni etxean **praka** laburraz ikusterik ez jakon gustaten. Xabier Amuriza

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sakelakoa **praka** poltsikoan edo gerrikoari lotuta eramateak haziaren ekoizpenari egiten dio kalte. Berria - Gaiak

Berokia erantzi, eseri eta **praka**-erretenak zuzendu. Joxe Austin Arrieta

Ez zen argala, potoloa ere ez, inondik ere, baina haragiz ondo beteta zituen **praka-barruak**. Joxean Sagatzizabal

Laster asko ikasi nuen hitz dontsuaren esanahia, eta handik aurrera eskrupulu handienaz hasi nintzen hartzen neurriak, batez ere **praka**-gurutzekoak. Anjel Lertxundi

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barregura puxkat eman dit jarri duen inozo aurpegiak, baina haren kirol-**praken** azpian antzematen den handituak ondo goazela adierazten dit. Juan Martin Elexpuru

Alkandora eta gaitibu-**prakak** nire zauri irekietara itsatsita zeudela Urtzi Urrutikoetxea

### 7 (esapidetan)

Dei mehatxagarri batzuk egin eta kito, denak kaka **praketan** edukiko nituzke, eskatzen zaien guztia emateko prest. **Jon Arretxe**

**Praketan** kabitu ezinik da, normala den bezala. **Berria - Kirola**

## 8 ahuntz-praka ik ahuntz.

## 9 kuku-praka ik kuku 9.

## 10 praka-barren (orobat prakabarren g.er.) pl praken behealdea.

Gizon zahar bat, **praka barrenak** narras eginda, egurrezko maleta bat eskuan. **Javi Cillero**

lleak bekokiaz itsatsita, **praka barrenak** arrastaka. **Alberto Barandiaren**

Erabat bustita zeramatzan zapatak, galtzerdiak eta **praka barrenak**. **Unai Iturriaga**

Euria ari du oraindik ere, eta **praka barrenak** basaz beterik daramatza. **Sonia Gonzalez**

Une batez geratu egin zen, galtzerdi lodiak **praka barrenen** gainetik ipintzeko. **Jon Alonso**

## 11 praja-jario izond galtzak eroriak daramana.

Bere irakasle fosilduek amorrua ematen zioten, bere ikaskideek berdin, eta are eta amorru handiagoa ematen zioten nesken ikastetxeetara joan eta, larrua jotzea beste pentsamendurik gabe, hormak *fuck* hitzaz zikintzen zituzten **praka-jario** guztiek. **Bernardo Atxaga**

## 12 praka-lasai (corpusean frakalasi soilik) izond praka-jarioa.

-Nire lehengusu **frakalasai** horrekin ez naiz berriro inora joango -Adelak-. **Patxi Zubizarreta**

## 13 praka-motz (corpusean prakamotz soilik) praka motzak erabiltzen dituen mutila.

Egun txarrak izan ziren arrantzarako, mundu guztia zebilen haserre eta auzoko **prakamotzek** ezin zuten txalupa batera hurbildu inguruko heldu guztiak garrasika jarri gabe. **Koldo Izagirre**

## 14 praka pare

Bi **praka pare**, hiru alkandora eta poltsikoan sos gutxi batzuk baino ez zituela. **Bego Montorio**

Horixe zuan nire azken **praka pare** ona. **Patxi Iturritegi**

-Bere burua kausitu zuen kontu handiz tolestutako **praka** itsas urdin **pare** bati beha. **Lopez de Arana**

## 15 prakak bete lan lan asko.

Baserrian guzti-guztientzat **prakak bete lan** izaten da. **Gotzon Garate**

**Prakak bete lan** dabil. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahuntz praka (3); praka bakero (4); praka bakeroak (7); praka barrenak (9); praka beltz (3); praka beltzak (4); praka estuak (4); praka motz (7); praka motzak (6); praka pare (3); praka zabal (3); praka zuri (3); praka zuriak (5)

alkandora eta prakak (3); galtzerdiak eta prakak (3); mahoizko prakak (3); prakak erantzi (3); prakak jaitsi (5); prakak jaitsita (6); prakak jantzi (4)

praketako botoiak (4); praketako kremailera (3); praketako poltsikoan (4); praketako poltsikoetan (4)

## prakabarren ik praka 10.

## prakadun 1 izond prakak dituen.

Urrats luzeak eginez zebiltzan hankak: hanka argalak, hanka **prakadunak**, bonbatxodunak, gonadun hankak. **Lopez de Arana**

## • 2 iz gizona.

Gertatzen dira halakoak **prakadunen** artean **prakadunak** mutikoak izan arren. **Koldo Izagirre**

**Prakadunen** arteko zikinkeria horietarikoak izan genuen hura. **Koldo Izagirre**

## 3 laikoa.

Eta honi dagozkion gogoetek, apaiz izan zein **prakadun**, inarrosi egiten dituzte denak, eta gure oinarriak berak dardarazten. **Txillardegi**

## 4 zibila.

Une hartan Dols ez zen polizia lanetan ari eta edozein **prakadun** bezala jantzita zegoen. **Gotzon Garate**

## prakalasai ik praka 12.

## prakamotz ik praka 13.

## prakatxo iz pl praka txikiak.

Oso azal zurikoa zen, eta bere satenezko **prakatxo** gorriekin, bere goante beltzekin, irudi eder bat osatzen zuen. **Bernardo Atxaga**

## prakerre izond/iz liskarzalea.

**Prakerre** bat agirika hasi zait, gurasoekin ari nintzela, ez dakit zer sartu zaion ipurtzuluan, keinuka hasi zait eskuaz eta uste nuen perbertitu bat zela. **Javi Cillero**

## praketa iz galtzazuloa.

Beti egiten diot bigarren begirada neure buruari, **praketa** ondo itxi dudala ikusteko. **Xabier Etxabe**

## praktika (orobat pratika g.er.) 1 iz ondorio jakin bati begiratzuz aritzea; jardun batean aritzeko molde jakina. ikariketa; praxi.

Bai, hitz egin dezagun sexuaz, baina **praktikak**, noiz? **Luis Elberdin**

Kontzienteki prestatutako algoritmoak eta denbora eta **praktika** puska bat beharko genituzke. **Xabier Olarra**

Idatzitako lanez bestalde behar zuen ere mintzaira praktikatu eta **praktika** horiek Arnegin egin zituen, 1920tik goiti. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Praktika** horiek direla beren osasun sendo eta urte jorien kausa. **Xabier Olarra**

Erljioa, ez zatekotan, gizarte-fenomeno da, sinesmen eta **praktika** asko eragiten dituen zerbit. **Askoren artean**

**Praktika** asko behar da *ciao* lau aldiz eta hark bezain bizi esateko. **Anjel Lertxundi**

Mexikon eta Liberian iaz utzi zuten bertan behera heriotza zigorra ezartzeko **praktika**. **Berria - Mundua**

Balio kultural eta politiko batzuen defentsan [...] posible zen indarkeria justifikatzea eta **praktikara** eramatea. **Joseba Zulaika**

Esperientzia **praktikaren** ariketa jarraitu eta errepikatua da. **Santiago Iruetagoiena**

## 2 (teoria-ri kontrajarria)

Teorian badakizu dena, **praktika** besterik ez zaizu falta. **Josu Zabaleta**

Teoriatik **praktikara**, giza nortasunaren izaeratik historiaren erregistroa igarotzen garenean, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Ezagutzeko modukoak izan baitaitezke [...] teoriak eskaintzen dizkigun abantailak eta ez, ostera, haren gaitzak, horiek bakar-bakarrik **praktikak** idoro ditzakeelako. **Andres Urrutia**

Teoria ez ezik **praktika** ere ikasi zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Teoria hau **praktikara** eraman nahi du Platonek eta politikaren diskurtsoan txertatzen du. **Askoren artean**

Teoria eta **praktika** uztartuz, Dolmacé eta Saint-Ange jaun-andere libertinoek plazeraren eta bizitzaren sekretu guztiak erakusten dizkiote Eugeniari. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Teoria eta **praktika** elkartu teknozientzia berri batean. **Askoren artean**

Orduan ere, bat gertatu zitzaidan teoria, eta beste bat **praktika**. **Joan Mari Irigoien**

**Praktika** horiek teoria tradizionalak baino hobeto azaltzen dute nazioarteko merkataritzaren gaur egungo errealitatea. **Koro Navarro**

Bere garaikideak baino zuhurragoa zen Baglivi [...] konturatu baitzen teoria baino garrantzitsuagoa zela **praktika**. **Irene Aldasoro**

## 3 (-en atzikiaren eskuinean)

Garai modernoetan, hiru izan dira medikuntzaren **praktika** eraldatu duten iraultzak. **Irene Aldasoro**

Muskulua, funtsean, motor lineal bat da [...], alderdi askotatik begiratuta, gaur egungo ingeniartzaren **praktikaren** aurretik doana. **Irene Aldasoro**

Erakundearen **praktika** nazionalistaren adibide jarri zituzten horiek guztiak. **Rafa Egiguren**

Doktrinaren gordailua, egunero eraberritzen dena, epaitegietao eztabaiden **praktika** eta gatazkak direla bide. **Joan Mari Lekuona**

Jainkoa gozamenaz baliatzen da gizakia erakartzeko eta bertutearen **praktika** gogorragoetan trebatzeko. **Joan Mari Lekuona**

Argi honek berak argitu behar luke baita ere ohitura-bertuteen **praktika**. **Joan Mari Lekuona**

Arreta handiz entzuten zituen koronelaren alaben **praktikak**, haiek pianoan sonata eta minuetak jotzen zituztenean. **Xabier Olarra**

Betroinen **praktika** horiek hemen ere zabaldu nahi zituen Ploermeleko fraileak etorraziz Garaziko Maiorga eskolara. **Xipri Arbelbide**

Interesgarria iduritu zaigu honen **praktika** bultzatzea. **Herria**

## 4 (izenondo eta izenlagunekin)

Ikasketa luze eta **praktika** zorrotzen ondoren. **Xabier Olarra**

Iraultzaile handienekin gertatzen den bezala, teorian ziren lehenik aurreratuak eta hori izan zen beren **praktika** iraultzailearen osagai oinarritzakoa. **Joseba Zulaika**

Haren jokabidea **praktika** arrunt baten erakusgarria besterik ez baitzen. **Joseba Urteaga**

**Praktika** satanikoak gure hirian? **Aingeru Epaltza**

Nola atzeman eta erabiltzen dira teoriak **praktika** zientifiko errealetan? **Askoren artean**

Gai honi buruz erretorika eta **praktika** neoliberalaren artean dagoen amildegia handia da oso. **Iñaki Heras**

Urrian barrena **praktika** militarrek egin genituen Larraitx inguruan. **Txillardeggi**

Urtebeteko **praktika** judizialak egin ondoren, 1907ko urriaren 1ean hasi zen *Assicurazioni Generali* izeneko aseguru etxean lanean. **Pedro Alberdi**

Al eta BAK-en ustez, «Espainian tortura ez da **praktika** sistematikoa». **Berria - Euskal Herria**

**Praktika** hegemonikoak gizarte osaezin eta irekiaren artikulazioak dira. **Joseba Zulaika**

Diskurtso baten objektuen eraketa deskribatzean, ahalegintzen gara **praktika** diskurtsibo bat ezaugarritzen duten harremanak kokatzen. **Xabier Arregi**

Zuzeneko **praktikatik** datozen intuizio pare bat baizik ez dugu azalduko gai honen inguruan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Erljiozko **praktika** primitiboak helburu bat da bere horretan. **Iñaki Mendiguren**

Juduen zuzenbidea [...] Ipar Arabiako estepetatik Siriako landa eta hirieta etorritako nomaden ohiturazko **praktika** barbaro gisa sortua zen. **Iñaki Mendiguren**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Udatik aurrera, 50.000 **praktika** kontratu egingo dira arazoetan diren lanbideetan. **Berria - Harian**

Merkantilismoa, benetako doktrina baino areago, **praktika** multzoa izan zen, eta berehala kondenatu zuen pentsamendu ekonomikoak. **Koro Navarro**

-Gehiegi eskatzen diozu zeure buruari -esan zion zorrotz Lupin maisuak, laugarren **praktika** -astean-. **Iñaki Mendiguren**

**Praktika** falta, esaten zuten; baina benetan gertatzen zena zen jada ez zutela horretan sinesten. **Julen Gabiria**

-**Praktika** faltarena duk hori. **Iñaki Iñurrieta**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sorgin **praktika** bat da, espirituak lasaiarazteko, gaixotasun bat uxatzeko edo euria eginarazteko egiten dena. **Juan Kruz Igerabide**

Ba da berezitasun nagusi bat Angelun, ikasketak ala enpresa **praktikak** mugaz bi aldeetan egiten direla. **Herria**

Alde batetik, teoria "zientifiko" ergel bat, eta, bestetik, nekazaritza **praktika** katastrofiko bat. **Juan Garzia**

Bertan zientzia **praktika** desberdinei, zientziaren elkarte-jarduerari edota aldaketa zientifikoari dagozkien auzi berriak zerrendatzen dira. **Askoren artean**

Hainbat elikagai eta elikadura **praktikaren** hedapen transkulturala. **Edorta Agirre**

Jende, hizkuntza eta bizitza **praktika** dibertsitate handi bat da. **Ana Urkiza**

"Jostatze **praktika**" horiek hartuko lukete aisialdiaren zati handi bat irratia eta telebistaren aroan. **Iñaki Mendiguren**

-Orduan ez dizu ardura ikasgelan sartzea, gure ikasleek mintza **praktika** apur bat egin dezaten? **Jon Arretxe**

## 7 eskarmentua.

Ez daukat **praktika** handirik honelako azterketak prestatzen. **Jon Arretxe**

Baina saiatzen nintzen, ahal bezain ondoen, **praktika** ez galtzen. **Oskar Arana**

## 8 **praktika-aldi** (orobat **praktikaldia**) praktikak egiten ematen den aldia.

Jonas Weinberg hogeietan oso aurrera zihoan ordurako, mediku peto-petoa zen eta **praktika-aldia** amaitzen ari zen *Bellevue Hospital* erietxean. **Oskar Arana**

Nik, bederen, zuzendariari proposatuko zioat, **praktikaldia** bukatuta, egunkarian erredaktore geldidadin. **Aingeru Epaltza**

## 9 **praktikak** egin

Eskola teorikoetako gelak, **praktikak egiteko** gelak, agian laborategi batzuk. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Abokatu ikasketak amaitzen ari zen; bi asignatura falta zitzaizkion, eta bulego batean ari zen **praktikak egiten**. **Joxemari Iturralde**

"Diana bat da, ez?" "Pistolarekin **praktikak egiteko** erabiltzen dut", esan zuen. **Bernardo Atxaga**

Kazetaritzako **praktikak egiten** ari dela han. **Anjel Lertxundi**

Fakultatean bi gorpu erabiltzen genituen laboratoriko **praktikak egiteko**. **Harkaitz Cano**

Hala, bada, oposizioetarako prestakuntzan, idazmakinako **praktikak egiten** zituen Sarak. **Joan Mari Irigoien**

Batera sartu ginen egunkarian, udako **praktikak egitera**. **Aingeru Epaltza**

## 10 **praktikan** errealitatean, ez teoria hutsean.

Teorian hala da, baina, askotan, ez da hala gertatzen **praktikan** . Iñaki Heras

Teorian proposatu baino askoz lehenagotik aplikatzen zelako **praktikan** . Josu Zabaleta

Teorian nahiz **praktikan** erantzuna ezezkoa litzateke. Iñaki Mendiguren

**Praktikan** , ordea, zenbait arrazoi direla medio, ereduak kale egiten du errealitatea deskribatzerakoan. Iñaki Heras

Ideal utopikoa da, ederra, baina **praktikan** , lanerako motibazio falta, ekimenik eta sormenik eza sustatzen dituen. Iñaki Heras

Ez baitira kontuan izaten, askotan, errealitatean edo **praktikan** oso garrantzitsuak diren aldagai eta gertaerak. Iñaki Heras

Unibertsitatea, **praktikan** , gazteen aparkaleku gisako zerbait bihurtzen delako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hau guztia, hala ere, gehiago gertatu zen teoria mailan **praktikan** baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Erregutu, ager diezagula horri buruzko bere borondatea eta erakuts diezagula hori **praktikan** nola bete. Askoren artean

Zer esan nahi du horrek **praktikan** ? Askoren artean

Baziren gauza bitxiak eguneroko **praktikan** . Josu Zabaleta

## 11 **praktikan jarri** (orobat **ipini g.er.** eta **ezarri g.er.**)

Ederki, goazen eta **jar** ditzagun gure teoria berriak **praktikan** ! Iñaki Mendiguren

Ikasi duguna **praktikan jartzeko** ordua dugu. Luis Elberdin

Diogenesek aholkatzen zuen guztia **jarri** zuen **praktikan** . Juan Garzia

Gogoan izango ditut eta **praktikan jarriko** ikasgai horiek, ez zalantzarik izan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Edukia ez da argia eta ez du zehazten asmo hori nola **jar** daitekeen **praktikan** . Berria - Gaiak

Gogoan izango ditut eta **praktikan jarriko** ikasgai horiek, ez zalantzarik izan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bazirudien **praktikan jarri** nahi izan zuela irakurritako guztia. Joxemari Urteaga

Hori baita bere estiloa, hitza zuzenean, luzapenik eta interpretaziorik gabe, **praktikan jartzea** . Askoren artean

Tamalez, tresna berriok **praktikan ezartzeko** ausardia falta izaten da sarri. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskal Herrian bada masa kritiko nahikoa **Bestelako Komunikazioa** garatzeko, alternatiba kritikoak **praktikan ipintzeko** . Txema Ramirez de la Piscina

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eguneroko praktika (4); erakasleen praktika (3); mintza praktika (6); praktika asko (6); praktika kulturalak (7); praktika politikoan (5); praktika sistematikoa (4); praktika zientifiko (3); teoria eta praktika (15); zientzia praktika (6)

eguneroko praktikak (3); praktikak egin (4); praktikak egiteko (11); praktikak egiten (8); praktikak egiten ari (3); praktikak egitera (4)

eguneroko praktikan (4); euskal curriculumak praktikan (3)

praktikan jarri (18); praktikan jartzea (10); praktikan jartzeko (20); praktikan jartzeko aukera (4); praktikan jartzen (12)

praktikara eraman (13); praktikara eramatea (8); praktikara eramateko (8); praktikara eramaten (6); teoriatik praktikara (4)

praktikaren bidez (3); teoria eta praktikaren (3); zientzia praktikaren (3)

praktiketari aritu (4)

## praktikaldia ik **praktika**.

## praktikante 1 iz injekzioak jartzea eta kideko lanak egiten dituen erizaina.

Oharren arbelean sendagile eta **praktikanteen** batzar-deiak eta sindikatuen iragarkiak irakurri ditu. Urtzi Urrutikoeetxea

**Praktikantea** eta erizain bat katuaren atzetik hasi ziren sala guztian zehar. Josu Zabaleta

## • 2 (orobat **pratikante g.er.**) izond praktikatzailerak.

Zeren, bera ere kristaua delarik, nahiz eta **praktikantea** ez izan, zenbait hipokresiak, hainbat bekaizkeriak [...] bere onetatik ateratzen baitute. Jon Alonso

Ez dut azalduko elkarrizketa batean **praktikantea** naizen edo ez. Berria - Kultura

Gazteen %8 katoliko **praktikantea** da eta %37 praktikatzen ez duen katolikoa. Berria - Euskal Herria

## praktikatu, praktika, praktikatzen (orobat **pratikatu g.er.**) du ad jarduera jakin batean aritu, jardun; praktikak egin.

Maizago **praktikatu** beharko zenuke. Eskarne Mujika

Zenbat duen pertsonak egiten, hainbeste daki; eta zenbat duen **praktikatzen**, hainbeste da ona haren otoiiza. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arratsalde askoten, eskolaren ondoren, aitaren garajearen sar-tzen nintzen, motorrarekin **praktikatzeraz** . Juan Kruz Igerabide

Makila magikorik gabe **praktikatuko** dugu sorginkeria. Iñaki Mendiguren

Egia zen asteburuetan-eta aeromodelismoa **praktikatzen** nuela. Joan Mari Irigoien

Bortxa **praktikatu** eta justifikatu, historiari begiratzen badiozu, balio absolutuekin eta balio erlatiboekin berdintsu egin daiteke, dirudienez. Joxe Azurmendi

Idatzitako lanez bestalde behar zuen ere mintzaira **praktikatu** eta praktika horiek Arnegin egin zituen, 1920tik goiti. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ingelesa **praktikatu** nahi duenarentzat. Harkaitz Cano

Iruditzen zaitz sexua **praktikatu** ezin dutelako arduratzen direla horrenbeste sexualitateaz. Berria - Gaiak

Ez ahaztu **praktikatu** dugun eskumuturreko mugimendu polit hori! Iñaki Mendiguren

Aurretiaz kristautasuna **praktikatu** duten musulmanek ez dute erlijio aldaketarik egin behar, «erlijio bakarra baitago, Jainkoarena». Berria - Harian

Bere amoranteekin uzki-koitua **praktikatzea** leporatzen zioten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez du borroka artea **praktikatzeari** uzteko asmorik, «ez gorputzak irau bitartean, behintzat». Berria - Kirola

Niretzako balorerik handiena askatasuna da eta askatasun hori lortzeko, intsumisioa **praktikatu** dut. Ana Urkiza

-Komunismo pixka bat **praktikatzeraz** noak. Iñaki Iñurrieta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

irakatsi eta praktikatzen (3)

## praktikatzaile (orobat **pratikatzailerak g.er.**) izond praktikatzen duena. ik praktikante 2.

Erlijiozko praktika primitiboa helburu bat da bere horretan, eta **praktikatzaileei** ez zaie bururatzen zertzen dituzten errietoek harantzago begiratzerik, errieto horiek adieraz dezaketenez egiaren bila. Iñaki Mendiguren

Agustinek dio manikeoen ohiurak kristauenak baino desegokiagoak direla eta hondamen moralera daramatzatela **praktikatzaileak** . filosofia higuin garri honen

**praktikatzaile** klasikoak, Imanol Unzurrunzaga

# praktiko

Mugaz bestaldeko barbaroa ez da, ordea, konformatzen alboko zibilizatiotik ikasi dituen taktika nagusiak **praktikatze** hutsarekin; hobetu ere egiten ditu sarritan **Iñaki Mendiguren**

## praktiko (orobat *pratikoa* g.e.r.) 1 izond ekintzari, praktikari dagokiona; baliagarritasunari, onuragarritasunari begiratzen diona.

Jakitearen sistema zuhaitz baten pareko ei da: metafisika da erroa, fisika enborra, adarrak zientzia espezializatuak (mekanika, fisiologia, psikologia) eta fruituak diziplina **praktikoak** (teknika, medizina, etika). **Askoren artean**

Jakiteaz gogoeta egiten duenean jakite **praktikoaz** ari da, zehazki, athenaitarrentzat hain egoera oparoa ekarri duen teknikaz. **Askoren artean**

Esparru horri esaten zaio etika **praktikoa** edo aplikatua. **Askoren artean**

-Esperientzia **praktiko** pixka bat eman nahi izan digu. **Iñaki Mendiguren**

Jar dezagun adibide **praktiko** bat. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Fraideek beren bizitza **praktikoa** -bizimoduan- Ebanjelioa nola gauzatzen duten. **Askoren artean**

Zientzialariak ikerketa batekin gora eta behera ari direla, uste gabean pentsatzen ez dutena aurkitzen dute zenbaitetan, zuzenean ikertzen dutenarekin loturik ez dagoena, baina izugarriko aplikazio **praktikoak** izan ditzakeena gure eguneroko bizitzan. **Pello Salaburu**

Nik erabilera **praktikoa**, berehalakoa nahi nuen esan. **Josu Zabaleta**

Interes **praktikoa** eta espekulatiboa bateratzeko. **Ibon Uribarri**

Ekonomian oso kontuan edukitzekoa da ideia eta teoria **"praktikoek"** duten eragina. **Iñaki Heras**

## 2 (teoriko-ri kontrajarria)

Frantziskok egiten duen Ebanjelioaren irakurketa **praktikoa**, ez teoriko- guztiz berria eta berritzailea gertatu zen bere garaiko Elizaren eta gizartearen baitan. **Askoren artean**

Egia da eskola teoriko bat berdintsu eman daitekeela aurrean 50 ikasle baldin badira edo 200, baina ez da gauza bera gertatzen eskola **praktikoekin**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Kasu honetan, jarduera **praktikoa** jarduera teorikoari kontrajarria ulertzen dugu. **Askoren artean**

Lehena, arrazoimenaren ezagutza teoretikoa da, bigarrena, ezagutza **praktikoa**. **Ibon Uribarri**

## 3 (predikatu gisa)

**Praktikoa** den heinean, arrazoimen hutsaren galdekizuna da, baina, hainbestez, ez da transzendentala, morala baizik, eta beraz, gure kritikak bere baitan ezin du honetaz jardun. **Ibon Uribarri**

Jakitearen kontzeptu homerikoa **praktikoa** da, bestalde, bidearen eta unearen aukeraketa egokian laburbiltzen baita. **Askoren artean**

## 4 helburuari ongi egokitzen zaiona, baliagarria.

Organo sentikor eta **praktikoa** da belarria, baina ez da, bihotza bezala, bizitzeko guztiz beharrezkoa. **Irene Aldasoro**

Esaldi laburrak, irizpide orokorrak, aholku **praktikoak**, adibide errazak, ereduak... **Askoren artean**

Eraginkortasuna da [...] bi motor konparatzeko modu **praktiko** bat. **Irene Aldasoro**

## 5 (predikatu gisa)

Aitak esan zidan **praktikoagoa** zela ingelesa ikastea euskara ikastea baino. **Ana Urkiza**

Paragrafoak: luzeegiak izatea ez da ez **praktikoa** ezta itxurosoa ere. **Askoren artean**

Nire susmoa da Hassan eta beste guztiek arrazoi soil batengatik jotzen dutela irrazionaltasunera, beren egoeran **praktikoena** zaielako. **Bernardo Atxaga**

Mikrofono bat jarriko luke aztertu nahi dituen soinuak jasotzeko eta soinuok bulkada elektriko bihurtzeko, bulkada elektrikoak **praktikoagoak** baitira grabatzeko eta gero aztertzeko. **Irene Aldasoro**

Erabat **praktikoa** da horrelako fitxak egitea. **Askoren artean**

Liburua tresna bat da, nahiko **praktikoa**. **Ana Urkiza**

Gaitasun hori [soinua nondik datorren jakitea], garai batean, hil edo bizikoa izan zen gizakiarentzat ere, eta oraindik ere **praktikoa** da. **Irene Aldasoro**

## 6 (pertsonez mintzatuz)

Loiolako gizona zen partez, gizon **praktikoa** ere izango zen don Hipolito, ez zuhurra soilik. **Bernardo Atxaga**

Gizon bat hiltzea pertsona **praktikoen** lana da noski. **Koldo Izagirre**

Zu gizon **praktikoa** zara, modernoa, dagoeneko hogeita bigarren mendean bizi zara. **Jon Alonso**

Gizon **praktikoa** zenez, Del Vallek berehala baztertu zituen kezka haiek guztiak. **Alberto Ladron Arana**

Jaiduraz **praktikoa** baitzen, azkar bihurtu zuen bere ametsa egia. **Xabier Olarra**

Ernesto Valverde Athleticceko entrenatzailea **praktikoa** da. **Berria - Kirola**

Ni, sinpleki, emakumeei batere gustatzen ez zaien gauza bat naiz: erabat **praktikoa**. **Joxe Austin Arrieta**

## 7 ez-praktiko izond

Zerbit hori asmo bat zen, alegia: jokoan parte hartu dutenentzat zein parte hartu ez dutenentzat, jokoak beti edukiko du potentziala interes **ez-praktikoa** pizteko, eta interes hori oso xurgagarria izango. **Askoren artean**

Zeren eta, ez hemezortzigarren mendeko Polonia-Lituaniaren anarkia **ez-praktikoa**, ez Austriako habsburgotarren monarkia tarteka ilustratua, ezin baitziren konparatu otomandarren miliet sistemarekin. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibide praktikoa (7); adibide praktikoa bat (3); alderdi praktikoa (3); arazo praktikoa (3); ariketa praktikoa (3); aurkitze prozedura praktikoa (3); erabilera praktikoa (5); helburu praktikoa (3); informazio praktikoa (3); interes praktikoa (3); kasu praktikoa (3); modu praktikoa (4); ondorio praktikoa (3); praktikoa eta mekaniko (3); praktikoa gisa (5); prozedura praktikoa (4); prozedura praktikoa bat (3)

adibide praktikoa (6); gizon praktikoa (5); ikastaro praktikoa (3); interes praktikoa (3); kasu praktikoa (3); oso praktikoa (8); oso praktikoa da (3); praktikoa izan (6); praktikoa izango (3); praktikoa izaten (3)

praktikoagoa izan (4)

aholku praktikoa (3); ariketa praktikoa (4); arrazoi praktikoa (3); arrazoimen praktikoa (3); eskola praktikoa (5); gauza praktikoa (3); ondorio praktikoa (5); urrats praktikoa (7)

alde praktikoa (4); bizitza praktikoa (3); erabilera praktikoa (8); maila praktikoa (3); modu praktikoa (6); zentzu praktikoa (3)

arrazoimen praktikoa (6); arrazoimen praktikoa kritika (4); etika praktikoa (3); jarduera praktikoa (3); praktikoa kritika (4)

erabilera praktikoa (3)

ekintza praktikoa (3)

balio praktikoa (5); ondorio praktikoa (6); urrats praktikoa (3)

## praktikoki 1 adlag praktikan.

Munduaren konfiguratuzaile nagusia den jarduera zientifiko-teknologikoko konfigurazioaren zentzua **praktikoki**, de facto, inposatzen du, konfigurazio hori halabeharrezko ondorio gisa aurkeztuz. **Berria - Gaiak**



Zerizan goren baten izatea aurreuposatu ez ezik, gainera beste ikuspuntu batetik behar-beharrezkoa denez postulatatu ere egiten duela bidezki, nahiz **praktikoki** besterik ez egin noski. **Ibon Uribarri**

Baina askoz larriagoa da kontrako arriskua, bezeroak zuri gaina hartzea: aise asko gerta baitaiteke noski, zeren hark etxean jokatzeko baitu, hots, berak erabiltzen ditu **praktikoki** zuk saltzen dizkiozun produktuak. **Juan Garzia**

**Praktikoki** ezinezko gertatzen da horrelako pertsonen laguntzea, pertsona hauen izpiritua norberak nahi duena egiteko borondatearen menpe baitago. **Joan Mari Lekuona**

2 ia.

Hartarako, PPrekin akordioa **«praktikoki** itxita» dagoela iragarri du Blancok. **Berria - Euskal Herria**

Teknologia automatizatuarekin lehen gizakiak egiten zituen akatsak zuzendu nahi dituzte eta, beren esanetan, lortutako emaitzak **«praktikoki** ehuneko ehuneko izango dira fidagarriak». **Berria - Euskal Herria**

## praktikotasun 1 iz praktikoa denaren nolakotasuna.

Gure gurasoek, jakituria osoz eta **praktikotasun** handiz, erabaki zuten beren burutazioak idazkietan jaso eta ondorengoei transmititzea, guztiak ez zitezen galdu. **Santiago Iruetagoiena**

Liburua tresna bat da, nahiko praktikoa, eta **praktikotasun** horrek salbatuko du. **Ana Urkiza**

2 (hitz elkartuetan)

Eta hortik aurrerakoan, Burke jaunak bere **praktikotasun** -senaren indarra erakusten zuen. **Juan Garzia**

**Praktikotasun** kontua da nagusiki. **Berria - Ekonomia**

## praline iz txokolatez eta almendra karameluztatuz eginiko krema.

Bai, hantxe dago bigarreneko bonboitxoak, nire **pralinezko** panpina beltzarana. **Patxi Iturritegi**

pranko ik **franko**<sup>1</sup>.

## prantaketa iz prestaketa.

Jauregiko sukaldeetan azken orduko **prantaketak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## prantatu, pranta, prantatzen 1 da/du ad adkor jarri.

Zergatik **prantatzen** da hor erdi-erdian, argia galerian sartzea oztopatzeke? **Joanes Urkixo**

Tabernariak, urrutitik diosal eginik, ardo gorri berezi eta hotza **prantatu** zion barran. **Joxerra Garzia**

Lizar-abar dotore bat **prantatzen** dute guri-belarraren buruan. **Pello Zabala**

Tente **prantatzen** dituela, alegia, arto erdi eroriak. **Pello Zabala**

Gero harritu egin zara bi musu **prantatu** dizkizunean, partitzeko tenorean. **Hasier Etxeberria**

2 prestatu.

Bederatziak jo ditu jaiki, gosalduta eta **prantatzerako**. **Pako Aristi**

Poltsatik zama atera, belar gainean zabaldu, eta dena **prantatzen** hasi zen. **Iñaki Iñurrieta**

Atzean, sukaldeko isiltasunean, ama sumatzen dut, makinaz josten, edo arropa lisatzen, edo afaria **prantatzen**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Afaria **prantatzen** amaitu du. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Guretzat **prantatu** ez zen bazkaria da. **Joxe Azurmendi**

prantzes ik **frantses**.

pratika ik **praktika**.

pratikante ik **praktikante 2**.

pratikatu ik **praktikatu**.

pratikatzaile ik **praktikatzaile**.

pratiko ik **praktiko**.

## praxi 1 iz helburutzat mundua eraldatzea duen jardunen multzoa; ondorio bat (eta ez ezagutza, ezta izatea ere) lortzera zuzentzen den jarduna. ik **praktika**.

Agian horrexegatik egin dute Donibane Lohitzuneko abertzale eta euskaltzale guztiak, ortodoxiatik **praxirako** jauzia. **Hasier Etxeberria**

Jesusen eta ikasleen mezua eta **praxia** gaurkotu, oraina argitu eta geroa birsortzeko... **Askoren artean**

Azalpena garapen horren kontzeptu pragmatikoen - **praxiari** loturikoen- inguruan gauzatuko da. **Askoren artean**

Subiranismoak **praxi** erreal batean sartu behar du, eta horretarako gutxieneko akordioak iritsi behar dira, hori posible izateko aukera argiak badaudelako. **Berria - Ekonomia**



Eta ziadiren **praxia** arazo-ebazpen jardua da. Askoren artean

**Praxi** politiko eta ekonomikoa erabat antisubiranista da. Berria - Ekonomia

## 2 (teoria-ri kontrajarria)

Modernitatearen arrazoimenaren paradigma finkatzeko proiektua da, eta hura aurrera eramateko hala teoriaren nola **praxiaren** oinarriak jarriko ditu. Askoren artean

Ez dut handinahikerietan sinesten, teoriaren gainerik, **praxia** nahiago izan dudalako beti. Txema Ramirez de la Piscina

Azterketa horren emaitza, berriz, Erretorika izan zen: diskurtsogintzaren nondik norakoak argitzen duen teoria, aldi berean diskurtsogintzaren **praxia** hobetzeko bidea ematen duena. Joxerra Garzia

## prebarikatu, prebarika, prebarikatzen du *ad* (funtzionario edo erakunde publiko batek) bidegabeko erabaki bat hartu bidegabekoa dela jakinik.

Divarrek dio epaileei egoera aintzat hartzeko eskatzea **prebarikatze** eskatzea dela. Berria - Euskal Herria

Ez naiz jurista, baina dakidana da legez kanpokoa dela egin dutena, **prebarikatzen** ari direla. Berria - Harian

**Prebarikatze** aginduko genioke funtzionarioari. Berria - Euskal Herria

Pepin, Italiako erregeak, hala frankoentzat nola lonbardiarrentzat egindako konstituzio batean, justizia egitean **prebarikatu** egiten zuten edo atzeratu egiten ziren konde eta errege-ofizialei zigorrak ezarri ondoren, zera agintzen du [...]. Iñaki Iñurrieta

EAJk dio Madrilek **prebarikatu** egingo duela Kupotik 32,2 milioiak kenduz gero. Berria - Ekonomia

## prebarikatzaile *izond/iz* prebarikatzen duena.

Ouroanak galdetuko dio Mogueimeri bera izan ote zen soldadu **prebarikatzaileak** hil zituena. Jon Alonso

**Prebarikatzailea**, hemen, deklarazio zuzen bat egin beharrean ihesbidea bilatzen duena edo okertzen duena da, eta hala ere gezurtia. Xabier Olarra

Krimena agerian geldituko den lekuak erakartzen du Raimundo Silva, **prebarikatzaile**, biluzik, faltsu eta defentsarik gabe, epaileak kondenatuko duen epaia emateko bilduko diren lekuak. Jon Alonso

## prebarikazio 1 iz prebarikatzea.

Komisario bat inputatuta Irunen, **prebarikazioagatik**. Berria - Euskal Herria

Ekologistek Burguete kontseilaria salatu dute, **prebarikazioa** egotzita. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Gorenak **prebarikazio** nabarmena egin du, ebazpen judicial bat atzeraeraginez aplikatuz. Berria - Harian

Abokatuaren ustez «**prebarikazio** judicial kasua» da hau, «zigorra bete ostean ere kartzelaztea mantentzen delako [...] eta espetxeari egoera hori mantentzeko agintzen zaiolako». Berria - Euskal Herria

Espainiako Gobernuak **prebarikazioa** egingo du Kupotik 32,2 milio euroak kenduz gero. Berria - Ekonomia

Sinn Feinek funtsik gabekotzat jo zuen atzo dokumentua, eta «**prebarikazioa** bultzatzeko» besterako ez duela balio salatu zuen. Berria - Mundua

Edo jaunak esaten zuen epaiketa orokorrean faltua eta gaiztoa zela, edota bere gizonari **prebarikazio** pertsonalak egotzen zizkion. Iñaki Iñurrieta

Dela gurasoen arduragabekeria, dela erregistro publikoak jagoten dituztenen **prebarikazioa**, dela, azkenez ere, erregistro horien hondamena edo galera. Andres Urrutia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Auzian inputatuta dauden hamar lagunei erokeria eta **prebarikazio** delituak egotzen zaizkie. Berria - Euskal Herria

Iruñeko Instrukzio Epaitegiak Pedro Pegenaute Nafarroako Hizkuntza Politikarako zuzendariaren eta Fermin Villanueva Hezkuntza zuzendariaren aurka ahozko epaiketa zabaltzea erabaki du, ustezko **prebarikazio** delituagatik. Berria - Euskal Herria

EAeko Auzitegi Nagusiak ez du onartu hiru epaileren kontrako **prebarikazio** kereila. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prebarikazio delitua** (4); **prebarikazio delituagatik** (3)

**prebarikazioa egin** (3)

## prebenda *iz* eliz kargu bati dagokion saria; lan gutxiko eta probetxu handiko egitekoa edo lanbidea.

Oraingoz, **prebenda** hori Marques de Mingafriari bakarrik dagokio. Bernardo Atxaga

Alabaina, jende honek eta beste hainbatek euren **prebendak** kobratu ahal izateko, beharrezkoa zen, lehengoz eta behin, lehorreraztea, eta hortxe dauzkagu **prebenda** horiek armez merezi izateko prest. Jon Alonso

Aristokrazia, noblezia, leinu bateko eskubideak beste leinu baten gainekoak, pribilegioak eta **prebendak** deuseztatu egiten dira mamu handinahiak balira bezala. Esteban Antxustegi

## prebendadun *iz* prebenda baten jabe den pertsona.

Presbiteroak, primatuak, **prebendadunak**, erromesak, igarleak, imamak, benefiziadunak, elizgizonak, Xabier Olarra

## prebenitu, prebeni, prebenitzen du *ad* aurrea hartu, aitzindu.

Bizikidetza eta bitartekaritza programek arazoak **prebenitzen** dituztela eta gaiztatu aurretik konpontzen dituztela nabarmendu du. Berria - Euskal Herria

Zitologia neurri prebenitiboa da, batez ere infekzioak eta uteroko lepoko minbizia **prebenitzeko**. kloruroa ofizialki sartu zen, birika-mamitzearen arriskua **prebenitzeko**. Luis Elberdin

Zein da delituak **prebenitzeko** modurik onena? Juan Martin Elexpuru

Garbi izan behar da egokiagoa eta zuzenagoa dela **prebenitzea** zigortzea baino. Juan Martin Elexpuru

Lurzoruaren Poluzioa **Prebenitzeko** eta Zuzentzeko Legea. Berria - Euskal Herria

Hiesa Kontrolatzeko eta **Prebenitzeko** Estatutua. Berria - Gaiak

## prebentibo 1 *izond* prebentiozkoa, zergertaerekoa. ik **prebentzio 2**.

Zitologia neurri **prebentiboa** da, batez ere infekzioak eta uteroko lepoko minbizia prebenitzeko. Luis Elberdin

Gerra **prebentibo** bat deklaratzeko eskubidea. Joseba Zulaika

Munduaren jaun eta jabeek praktikatzen duten antiterrorismo **prebentiboa**. Iñaki Segurola

Medikuntza **prebentiboko** zerbitzuko harrera-bulegoan nire zenbakia entregatu nuen. **Joseba Urteaga**

Konpainia deuseztatzeko eraso **prebentiboa** dirudi. **Berria - Ekonomia**

Ertzaintzak egindako kontrol gehienak **prebentiboak** izan dira: 44.870, %90. **Berria - Euskal Herria**

Atxiloketa **prebentiboak** gerta daitezke laster. **Berria - Euskal Herria**

Plana **prebentzioan** oinarritzen da. **Berria - Euskal Herria**

Larunbateko mobilizazioak -era **prebentiboa** -debekatu zituen. **Berria - Euskal Herria**

## 2 presoez mintzatuz, behin-behinekoa.

Harena ez da istorio samurra, 2000. urteko uztailen preso **prebentibo** moduan bere borondatez Basauriko (Bizkaia) kartzelara sartu zenez geroztik. **Berria - Harian**

Baina zu **prebentiboa** zarena, eta **prebentibo** egoeran daudenei ezin zaie abokatuen bisita ukatu. **Koldo Izagirre**

Baina ez didate luzaz patiora besteekin utzi, ez **prebentiboekin** ez zamatutakoekin. **Koldo Izagirre**

Pieri kartzelaldi **prebentiboa** dago. **Berria - Mundua**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eraso prebentibo (3); gerra prebentibo (3)

gerra prebentiboa (7)

atxiloketa prebentiboak (3); eraso prebentiboak (15); eraso prebentiboak egiteko (3); neurri prebentiboak (3)

segurtasun prebentiboko (3)

## prebentzio *(orobat prebentzione g.er.)* 1 iz prebentitza, aurea hartzea.

Ez dela gauza bera aurretiko arreta eta ondorengo eskuhartzea, **prebentzioa** eta interbentzioa? **Joxe Austin Arrieta**

Gaitzaren **prebentzioa** edo aintzinetikako neurriak. **Herria**

Zigorren helburua **prebentzioa** dela, gaur egun **prebentzio** orokorra deitzen duguna, eta **prebentzio** hau oreka-irizpidea errespetatuz lor daitekeela bakarrik. **Juan Martin Elexpuru**

Jakintza fakultatiboak (terapia eta **prebentzioa**). **Edorta Agirre**

Lankidetzeta eta koordinazioa, gatazken **prebentzioa** eta kudeaketa. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Prebentzio** hauek guztiak gogorarazten ditugu beti eduki dezagun gogoan ez dela komeni nahastea dirudiena eta segurutzat izaten ari dena. **Jon Alonso**

**Prebentzioa** bultzatzeak zer etekin izan dezakeen hausnartuko dute. **Berria - Ekonomia**

**Prebentzioa** hobetzen lagun dezaketen ekimenak sustatzen jarraituko dute. **Berria - Ekonomia**

Hiesaren **prebentziorako** neurri berriak. **Berria - Gaiak**

Madrilgo Torturaren **Prebentziorako** Elkarteak. **Berria - Harian**

Lan Arriskuen **Prebentzioa**. **Berria - Ekonomia**

Gerra Nuklearraren **Prebentziorako** Nazioarteko Fisikariak. **Berria - Mundua**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik prebentibo.

agintariak 150.000 pertsona ebakuatu zituzten **prebentzio** neurri gisa. **Berria - Mundua**

Kontua da maitasuna, grina eta desioa **prebentzio** neurri batzuekin uztartzea. **Luis Elberdin**

**Prebentzio** planak «neur daitezkeen helburuak» ezarri behar dituela adierazi zuen. **Berria - Ekonomia**

«Informazio eta **prebentzio** kanpaina ugari bultzatu ditugu. **Berria - Gaiak**

**Prebentzio** programa gehiago zabaltzea eskatua da, jendeen baitan minbizi hori lehen bai lehen aurkitzeko gisan. **Herria**

Eskerrak **prebentzio** -zerbitzuek mirestekoa den zalutasunaz ekin dioten. **Jon Alonso**

Emakumeak **prebentzio** praktikak egitera animatu ditu Beobidek, mamografiak kasu. **Berria - Harian**

**Prebentzio** -medikuntzari ez zaio jada aski gure herritarren [...] osasuna aurreikusteko ahalegin hori. **Juan Garzia**

Eta **prebentzio** tratamenduak laster iritsiko dira? **Berria - Gaiak**

Bankuen usadiozko funtzioan kontzentratu izan da **prebentzio** -ahalegina, hau da, kredituak ematean. **Koro Navarro**

Lege batetik eratortzen den **prebentzio** -ahalmena ez dago bere gogortasunean, legea gauzatuko den ziurtasunean baizik. **Juan Martin Elexpuru**

**Prebentzio** kultura baten bidez. **Berria - Ekonomia**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

UGTk eta CCOOK ere salatu dituzte lan istripu horiek eta lan **prebentziorako** legea ez betetzeak ekartzen dituela salatu dute. **Berria - Ekonomia**

## 4 erreparoa, atzerakuntza.

Arrazoi zientifikoengatik uka liteke, edo **prebentzio** erlijioso-moralengatik. **Joxe Azurmendi**

Emakumeak erakusten zion erreparo hura ez zitzaidan arrotza, geltoki aurreko tabernariak **prebentzio** berarekin tratatu baitzuen Umberto ni Triestera iritsi nintzanean.

**Anjel Lertxundi**

Nolanahi ere, Klaus ezagutu nuen arratsalde hartatik aurrera jaramon egin nion senari eta **prebentzioz** jokatu nuen berarekin egon nintzen guztietan. **Anjel Lertxundi**

## 5 prebentziozko ik prebentibo.

Indarkeriaren aurka hartutako **prebentziozko** neurriak direla eta, *Egunkaria* itxi zuten 2003ko otsailen, badaezpadako neurri gisa. **Berria - Euskal Herria**

**Prebentziozko** medikuntzaren bidez hilkortasun-tasa jaisten ari zen garaietan, zein izango ziren giza espeziea zabaltzeko "askatasun pertsonal" kontrolik gabearren ondorioak?

**Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hiesaren prebentzio (3); prebentzio gisa (4); prebentzio kanpaina (5); prebentzio lana (4); prebentzio neurri (10); prebentzio neurri moduan (3); prebentzio neurriak hartu (3); prebentzio neurriak (16); prebentzio neurriak hartu (3); prebentzio neurriak (4); prebentzio neurriak (4); prebentzio politikak (3)

arriskuen prebentzioa (10); eta prebentzioa (8); lan arriskuen prebentzioa (4); prebentzioa da (11); prebentzioa da gako (3)

prebentzioaren alde (4); prebentzioaren kultura (4)

lan arriskuen prebentziora (4)

arriskuen prebentziorako (11); arriskuen prebentziorako legea (4); arriskuen prebentziorako legearen (5); gaitzen prebentziorako (6); genero indarkeriaren prebentziorako (3); indarkeriaren prebentziorako (4); lan arriskuen prebentziorako (10)

prebentziorako batzordeak (3); prebentziorako eta kontrolerako (8); prebentziorako koordinakundeak (4); prebentziorako legea (7); prebentziorako legearen (6); suizidioaren prebentziorako (3); torturaren prebentziorako (18); torturaren prebentziorako batzordeak (3); torturaren prebentziorako koordinakundeak (3); torturen prebentziorako (3)

## prebiotiko 1 izond

Urdatenetak zuzendutako taldeak elikagai **prebiotikoak** eta probiotikoak eragin onuragarria duten aztertuko du. osagai oligosakaridoren bat edo osagai fenolikoren bat izaten dute produktu **prebiotikoak**. **Berria - Gaiak**

## 2 (izen gisa)

**Prebiotikoak**, normalean, landare jatorriko produktuak izaten dira. Berria - Gaiak

Nik esango nuke **prebiotikoan** eta probiotikoen inguruan egiten den publizitatea gehiegizkoa dela. Berria - Gaiak

Bihotz-hodietako gaitzak dituztenentzat, beraz, egokiak lirake **prebiotiko** horiek. Berria - Gaiak

Inulina da **prebiotikoetako** bat. Berria - Gaiak

## prebisible *izond* aurrez ikus daitekeen, aurrez ikusteko modukoa.

Bai, halako zerbait egingo zenuela pentsatu nuen... **prebisiblea** izaten hasi zara Koldo... Berria - Kultura

Horregatik izan du batzuetan irakurle honek *deja vu* sentsazioa liburua irakurri ahala (zenbait bukaera **prebisible** xamarretan, esaterako). Berria - Kultura

## prebisio *(orobat prebisione g.er.)* 1 *iz* aurrez ikustea.

**Prebisioak** aldatu eta igo beharko dituztela uste du Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak. Berria - Ekonomia

Aurtengo **prebisioa** (%2,6) igo beharko duela uste du Gobernuak. Berria - Ekonomia

Garapen ministerioak kaleratutako azken **prebisioetan** hazkundeak %6,6koa izan behar zuen. Berria - Ekonomia

11-12 milioi auto ibiliko direla diote **prebisioek**. Herria

Heldu den iraileko sartzarako **prebisioak** biziki onak dira. Herria

Muturrera eraman dituzte **prebisio** ezkorrak. Berria - Gaiak

Osabaren **prebisioneak** beterik, [...]. Joan Mari Irigoien

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zirriborroak duen neurririk arrikutsuena dirua aurrezteko **prebisio** sistemei dagokien puntua da. Berria - Ekonomia

Orduan, Henrike zaldunak, bere **prebisio** faltagatik lotsaturik, atzera jotzeko agindua eman zuen, orain hondeztaileek hartuko zieten txanda zurginei. Jon Alonso

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizarte **prebisio** eta segurantza arloan. Berria - Euskal Herria

Goiz da, hala ere, eguraldi **prebisioak** egiteko, arduradunen esanetan. Berria - Euskal Herria

- Eusko Jaurlaritzaren Gizarte **Prebisio** idazkaria izan zen. Berria - Kultura

## prebisione ik **prebisio**.

## preboste *iz* ofizial publikoa, lurralde bat administratzeko erregeak izendatzen duena.

Haren lagunek esan zioten farfaillinari orga-ipurdi batean zurratu zutela gizona eta Paristik egotzi. **prebostearen** aginduz, Baudoyer atetik. Juan Garzia

Kartzelako gizonak **preboste**a ohartarazi zuten. Juan Garzia

## prebosteorde *iz* prebostearen ordekoa.

**Prebosteordeak** epaiaren hitzak ebaki zituen, bertan zipla. Juan Garzia

## predatzaile *iz* harraparia.

Neskatoaren sufrimenduaren unerik egokiena hartzeko objektiboa doitzen duen gizonak beste **predatzaile** bat izan behar du, beste sai bat agertokian. Iñigo Aranbarri

## predeiku ik **prediku**.

## predestinatu, predestina, predestinatzen 1 du *ad* Jainkoak, munduaren sortzeaz gero, betiko zeruratu edo infernuratuko direnak izendatu.

Esaten baitzion ezen, batzuk hondamendiaren patuak joak badira ere, beste batzuk salbatzeko **predestinatuak** direla. Xabier Olarra

Egia handia denez gero ez daitekeela inor salba **predestinatua** izan gabe eta sinesmenik eta graziaz gabe, izan dezagun kontu handia gauza horietaz guztietaz hitz egitean. Patxi Altuna

Etxeberrirekin, goiza luze joaten zitzaigun ikasten nola fedea obrei gailentzen zaien eta nola Jainkoak **predestinatu** gaituen bere semearen imajinaren konforme izateko. Aingeru Epaltza

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Frantzisko gizon **predestinatutzat** aurkezten digu, Elias berria, Apokalipsiko seigarren zigiluko aingerua, irudi transzendente eta idealizatua. Askoren artean

### 3 aldez aurretik xedatu.

Nor bere mailarako eta bere gradurako **predestinaturik** balego bezala. Joan Mari Irigoien

Jo zuen bai pilotak **predestinatutako** hiru horma horietan, eskumako horman, sabaian eta ezkerreko horman, Unai Elorriaga

## predestinazio 1 *iz* munduaren sortzeaz gero, betiko zeruratu edo infernuratuko direnak Jainkoak izendatuak egotea.

Oroitzen naizenean nazioak zatitu direla eta gudu odoltsuak izan direla aurre-erabakiaren eta **predestinazioaren** arteko aldeetatik [...]. Xabier Olarra

Kausak oro, dela **predestinazioz** edo dela ekintza mekaniko hutsez, efektuak sortu eta sortuko dituela. Jon Alonso

Arimaren alferkeriatik **predestinazio** mahometarra sortzen da, eta **predestinazio** horren dogmatik arimaren alferkeria. Iñaki Iñurieta

Higanotak berak baino hobeto ezagutzen ditu Garibaik bai Calvinok bai Calvinoren teologia, **predestinazioaren** doktrina, eskritura sainduen ezagutza zuzenari buruzko pentsamendua. Anjel Lertxundi

**Predestinazioaren** teoria hau indartu nahi izanez gero, hona Eustakioren beste poema-zati bat, 1966koa eta Arestiren Harri eta herri-ren eragin formala agerian duena, edukietan lehengo lepotik segitzen duen arren. Xabier Mendiguren Elizegi

### 2 irud/hed

Kontua da **predestinazioaren** teoria bat landu nuela neure artean, hots, mundu zabalean norbait egon behar zuela niretzat izendatua, ni harentzat lotua. Xabier

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**predestinazioaren teoria** (3)

## predeterminatu, predetermina, predeterminatzen du *ad* aldez aurretik determinatu.

ia arnasaldi berean, **predeterminaturiko** egitura batekin konprometitu zen, non "kontinente" bereiztezin baten historia gizadiaren historia osoarekin parekatzen baitzen.

**Iñaki Mendiguren**

## predikadore iz predikaria.

Artzapezpikuak, apezpikuak, abadeak, prioreak, **predikadoreak**, padreak, abadesak, nobizioak, ordena eskaleak, bikarioak, patriarkak. **Xabier Olarra**

## predikagarri izond zerbaitez predika daitekeena.

Baimen bekik eratorritakoak baina hutsak diren adimenaren adigai hauei adimen hutsaren **predikagarriak** deitzea (predikamentuei kontrajarriz). **Ibon Uribarri**

Asmo hau kasik lor daiteke Ontologiako eskola-liburuak eskuan hartu eta, adibidez, indarra, ekintza eta pairamenaren **predikagarriak** kausalitatearen kategoriari menperatuz.

**Ibon Uribarri**

## predikalari ik predikari.

## predikalki iz eliz hitzaldia egiteko mintzaleku garaia. ik **prediku 4**.

*Uskaldun filosofoaren* ikuspegi zabala ordezkatzea **predikalkietan**. **Herria**

## predikamendu iz eragina, itzala.

Etika kristaua Mendebaldean doktrina etiko kristauak izan du **predikamendurik** handiena. **Askoren artean**

## predikamentu iz kategoria logikoa.

Hor egileak egintzaren atributuak xeheki azaltzen baititu, horiek hamar kategoria edo **predikamentuetako** batzuk izanik, eta garrantzi handikoak. **Xabier Kintana**

Gure ideia hau orain hipostasiatzen dugun heinean aurrera egiten baldin badugu, orduan jatorrizko zerizana errealitate gorenaren adigai soilaren bitartez zerizan bakar, bakun,

oroaskidun, betierekoa, eta abarren gisa, hitz batean, **predikamentu** guztien bitartez bere baldintzatugabeko osotasunean determinatu ahal izango da. **Ibon Uribarri**

## predikarazi, predikaraz, predikarazten du *ad* predikatzerara behartu, semoia eginarazi.

Gotzainak bere hiriko kleroa bildu zuen eta Pian del Carpineko Joan anaiari, Saxoniako lehen kustosioari, kleriko talde osoaren aurrean **predikarazi** zion. **Askoren artean**

## predikari (178 agerraldi, 29 liburu eta 51 artikulutan; orobat *predikalari g.er.*) 1 iz predikatzen duen pertsona; egiteko nagusitatzat eliz hitzaldiak ematea duen elizgizona. ik **sermolari; predikatzaile**.

Elizarik gabeko **predikari** bihurtu zen, pulpituak bisitatu eta bere bihotz handia zabalduz premia zutenei. **Anton Garikano**

Saudi Arabiako meskitetan sermoia ematen zuten 900 **predikari** kargutik kendu dituzte. **Berria - Mundua**

**Predikari** eta arima-artzain bezala ari izan zen, batez ere moja-komentuetan, Kolonia, Strassburg eta Basilean. **Joan Mari Lekuona**

**Predikari** gisa Genevara joan zelarik, ikastetxeko arduradun nagusi egin zuten, hots, ministro esaten zaiona. **Juan Martin Elexpuru**

Ministro eta **predikariak** oharatarazten eta bultzatzen zituen apaltasun-egintzak obratzera. **Askoren artean**

Prelatu eta **predikariak** oitotzean eta egintza apaletan jardutea nahi zuten Nagusi eta **predikariak** beharrezko dituzten bertuteez. **Askoren artean**

**Predikarien** Ordenako anaia baten eskariz, pasarte profetiko bat azaldu zuen. **Askoren artean**

Domingo santua, Anaia **Predikarien** burua eta fundatzailea, etorri zen kapitulu horretara. **Askoren artean**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken urteetako eleberri horiek gerizpean eta kasik ahazturik geratu dira, bai beren **predikari** kutsuarengatik, bai Zolak Dreyfus aferan izan zuen esku hartze sonatuarengatik. **Karlos Zabala**

Bonok bere barnean daraman **predikari** arima ateratzen badu ere emanaldietan [...] alai eta hedonistak ere azaltzen dira kontzertuetan.. **Berria - Harian**

Guziz ezagutu zioten alki saildunik mintzatzeko dohaina berezi bat eta denbora laburrez haren **predikari** fama urrun hedatu zen. **Xipri Arbelbide**

**Predikari** lanetan suhar higatzen anitzetan miretsi nuen. **Itxaro Borda**

### 3 (adizlagun gisa)

Azeria hasten denean **predikari**. **Herria**

Enplegu finkorik gabe ere, Agerrek arrakasta handia erdietsia zuen San Zerningo nahiz San Nikolas eliz parrokitan **predikari**. **Aingeru Epaltza**

Elizkizun kartsua izan da, Pierre Moleres jaun apezpiku buru, Emile Larre ginuelarik **predikari**. **Herria**

### 4

Bongo danborrak, **predikari** raperoak eta ohiko arazo tekniko zahar-berriak. **Berria - Mundua**

Brecht, utopia sozialaren **predikaria**. **Joseba Zulaika**

Denak daude zorrotuta: komunistak, faxistak, demokraziaren **predikariak**, idazleak, margolariak, elizgizonak, ateoak. **Koro Navarro**

Cachenaut apezka **predikari**, apez lagun multxo baten erdian, eta eliza bete beterik. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**predikarien ordenako** (5)

# predikaritzea iz

**Predikaritzea** krimenaz eta Antonioz.

Juan Martin Elexpuru

## predikatibo *izon*d logikan, predikazioari dagokiona.

Batetik, "Greta" eta "Belle" bezalako izen propioak (edo, oro har, "aulki hau", "zakur hori" eta antzeko termino singularrak) eta, bestetik, adierazpen **predikatiboak**, hala nola, "beltza da", "zakur bat da" eta "baino handiagoa da". **Askoren artean**

Azken buruan, errealistak izen propio/banako eskema adierazpen **predikatiboetara** hedatzen du, eta adierazpen **predikatibo**/unibertsal eskema finkatzen du. **Askoren artean**

Predikatua edo adierazpen **predikatiboa** perpausaren osagaia da, propietatea eta unibertsala, mota, tasuna, ezaugarria, kalitatea eta abar), berriz, ontologiarena. **Askoren artean**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**adierazpen predikatibo** (8); **bi adierazpen predikatibo** (6)

**adierazpen predikatiboa** (4)

**adierazpen predikatiboak** (8)

## predikatu<sup>1</sup>, predika, predikatzen 1 du *ad* (jainkozko egia) erakutsi.

Apostoluak atenastarrei Jaungoikoa **predikatzean** zioena. **Imanol Unzurrunzaga**

Guk, berriz, Kristo gurutziltzatua **predikatzen** dugu, juduentzat onartezina eta jentilentzat zentzurik gabekoa. **Elizen arteko biblia**

Nahi nuke lur guzira kurrutu Ebanjelioa **predikatuz** munduko 5 eskualdetan! **Herria**

Ancona hirian Jaunaren hitza **predikatu** zuen. **Askoren artean**

Kristok gizonezkoen arteko anaitasuna **predikatu** zuenez gero. **Joan Mari Irigoien**

Pobre eta baztertuekin bat egin zuen, adiskidetzea eta bakea **predikatu** zituen. **Askoren artean**

Izan ere, etortzen zaizue norbaitek, guk **predikatu** genizuen ez bezalako Jesus **predikatuz** [...] eta zuek lasai-lasai onartzen duzue. **Elizen arteko biblia**

Gu ez gara Biblia mailuka sartzen eta infernuko sua **predikatzen** ibiltzen den kristau-sekta horietako beste bat. **Oskar Arana**

Beste batzuek Mahomak **predikatutako** erlijioa eta islameko dotrinak hartu zituzten jarraibide eta ardatz. **Joan Mari Irigoien**

Mediku gazte haren ama ezagutu nuen bi misio **predikatu** nituelarik parrochia hartan. **Marzel Etxehandi**

## 2 (zer/nor osagairik gabe) sermoia egin.

**Predikatzen** duzuen guztietan, ohartarazi herriari bihotz-berritzeaz eta esan, ezin dela inor salbatu, Jaunaren gorputz-odol txit santuak hartzen dituenak baizik. **Askoren artean**

Nazio eta herriei, errege eta printzei **predikatuko** diete eta asko itzuliko dira Jaunarengana. **Askoren artean**

Aita Frantzisko benegarriak txoriei **predikatu** zien garaian. **Askoren artean**

Lore-sail bat ikustean, **predikatu** egiten zien eta Jauna gorestera gonbidatzen zituen, adimena balute bezala. **Askoren artean**

Apostolu izateko edo **predikatze**ko boterea, Jesu Kristo gure Jaunak eman zieten apostoluei. Adoretzu eta kartsuki **predikatu** zien Aita santu eta kardinali, Espirituak adierazten zionetik bihotza gainezka. **Piarres Xarriton**

Libreki **predikatu** ahal izateko pribilegioa. **Askoren artean**

Hain bikain **predikatu** zuen, non heretiko haiek guztiak konbertitu baitzituen. **Askoren artean**

## 3 irud/hed

Egia jakiteko, **predikatu** gezurra. **Jon Muñoz**

Nirekin ezkontzeko eskatu nion, baina Beatriz Frost, Nora Erfjord bezala, Ibsen-ek **predikaturiko** fedearen jarraitzaile zintzoa zen eta ez zuen inorekin lotu nahi. **Juan Garzia**

Bordwellek indar handiz **predikatu** du berak "neo-formalismo" deitzen duenaren alde. **Josu Zabaleta**

Humanismoak Gizona **predikatu** du. **Josu Zabaleta**

Irakasteak eta **predikatzeak** giza indarra gainditzen dute, susmatzen zuen Lilyk. **Anton Garikano**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**herriari predikatu** (3); **predikatu zien** (9); **predikatu zion** (4); **predikatu zuen** (12)

**munduan zehar predikatuz** (4)

**elizbarrutian predikatze**ko (4); **herriari predikatze**ko (5); **penitentzia predikatze**ko baimena (3); **predikatze**ko baimena (12); **predikatze**ko baimena eman (7); **predikatze**ko ofizioa (3)

**anaiei predikatzen** (4); **berri ona predikatzen** (3); **herriari predikatzen** (6); **munduan zehar predikatzen** (3); **predikatzen ari** (26); **predikatzen ari zen** (8); **predikatzen dute** (3); **predikatzen jarraitu** (3); **predikatzen zebilela** (4); **predikatzen zien** (3); **predikatzen zion** (3); **predikatzen zuen** (9); **predikatzen zuena** (3)

**herriari predikatzer**a (4); **ikasleak predikatzer**a bidali (3); **joan zen predikatzer**a (3); **predikatzer**a joan (8); **sultanari predikatzer**a joan (3)

## predikatu<sup>2</sup>, predika, predikatzen du *ad* logikan, subjektu batez zerbaite esan.

Era honetako atributuak subjektuaren esentziatik urrun kokatzen dira, eta horrexegatik zilegi da horiek Jainkoaz ere **predikatzea**, betiere egintza ezberdinok ez direla nahitaez isurtzen haien egilearen esentzian diren nozioetatik, azalduko denez. **Xabier Kintana**

## predikatu<sup>3</sup> iz 1 logikan, proposizioaren elementua, zeinean subjektuaz zerbaite predikatzen baita.

Aristotelesen Topikoetan topikoak lekuak dira, ikuskerak **-predikatuak**, atributuak-, **predikatu** batek subjektuarekin elkarrekikotasuna egiten ahal duelarik. **Askoren artean**

Termino singular batek edo **predikatu** batek estentsio bat eta intentsio bat (edo "zentzu" fregear bat) dauzka. **Askoren artean**

**Predikatuen** logikan bagaude, terminoak konstanteak edo aldagaiak izango dira bakarrik. **Askoren artean**

Lehen **predikatuaren** esanahiak bigarren **predikatua** inpliketzen du. **Askoren artean**

Subjektu batek baiezko **predikatua** daraman aldi guztietan, eta hartaz halakoa dela esaten denean, atributu hori, nahitaez, ondoko sail hauetako batean kokaturik egonen da. **Xabier Kintana**

**Predikatu** batez deskriba daitekeena partikularra da. **Joseba Zulaika**

Edota B **predikatua** A subjektuari dagokio, A adigai horretan (ezkutuan) barnebilduta dagoen zerbaite gisa; edo B erabat A adigaitik at geratzen da, berekin elkarloturan badago ere. **Ibon Urbarri**

Judizio analitikoak (baieztaileak), beraz, **predikatuak** subjektuarekin identitatezko elkarlotura duenean ditugu. **Ibon Urbarri**

Halako **predikatuaren** eransketa, beraz, judizio sintetiko bat sortzen du. **Ibon Urbarri**

Subjektua (Jainkoa) bere **predikatu** guztiekin batera biltzen badut (hor ahalguztiduntasuna ere hartuta) eta Jainkoa dela edo Jainko bat dela esaten badut, orduan Jainkoaren adigaiari ez diot **predikatu** berririk ezartzen, baizik subjektua bera besterik ez dut ezartzen bere **predikatu** guztiekin batera. **Ibon Uribarri**

Beharrezkotasuna, amaigabetasuna, batasuna, mundutik at izatea [...] eta abar. **predikatu** transzendental soilak dira, eta horregatik, beren adigai araztuak, Teologia orok oso beharrezkoak dituenak, Teologia transzendentaletik soilik lor daitezke. **Ibon Uribarri**

Adigai horretatik at ideiaaren determinazio osoari dagokion guztia ere barnebiltzen du; izan ere, kontrajarritako **predikatu** orotatik bakarria soilik egokitzen zaio gizaki betegenaren ideiarri. **Ibon Uribarri**

## 2 (hitz elkartuetan)

Proposizio bat a priori dago justifikatuta haren **predikatu**-kontzeptua subjektu-kontzeptuaren barne dagoenean. **Askoren artean**

Formako sinboloak **predikatu**-sinboloak ere deituak izan dira. **Askoren artean**

Sinbolo ez-logikoen artean konstante indibidualak, **predikatu**- edo erlazio-sinboloak eta funtzio-sinboloak ditugu. **Askoren artean**

## 3 gramatikan, perpaus baten subjektuaz esaten dena.

Ingelesaren gramatikan "egile-ekintza" perpaus errazen azterketatik edo subjektu-**predikatu**, aditz-objektu gramatika harreman errazetatik abiatzen direnean. **Itziar Laka**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**kontrajarritako predikatu** (3); **predikatu ahalgarri** (9); **predikatu ahalgarri ororen** (3); **predikatu gisa** (8); **predikatu guztiekin** (5); **predikatu guztiekin batera** (4); **predikatu ororen** (3); **predikatu soil gisa** (3); **subjektu predikatu** (3)

**predikatuen bitartez** (4)

**predikaturen bitartez** (3)

## predikatzaile (31 agerraldi, 9 liburu eta 5 artikulutan) 1 iz predikaria.

Jainkoa bera den maitasunagatik erregutzen diet neure anaia guztiei, **predikatzaile**, otoizlari eta langile, kleriko nahiz laiko, saia daitezela gauza guztietan apal izaten.

**Askoren artean**

Halako **predikatzailea** baino hobe da -esaten zuen- anaia xume eta hitz motela, baina bere etsenplu onaz besteak on egitera ziriketzen dituen. **Askoren artean**

Frantzisko, Elias berri bat balitz bezala, egiaren **predikatzaile** lehiatsu izaten hasi zen. **Askoren artean**

Apaiz alemaniar bat zen, oso **predikatzaile** ospetsua. **Rafa Egiguren**

Nekazariak, izurritearentzat erremedio bila, **Predikatzaileen** Ordenako kide bati eskatu zioten aholkua. **Askoren artean**

Armada eta Hussein Badr Eddin al-Houti **predikatzaile** islamistaren miliziaren artean izaniko borrokak. **Berria - Mundua**

## 2 (izenondo gisa)

Fraide **Predikatzaileek** (Domingotarrek), beren aldetik, Domingo santuaren bizkar jarri dute Elizari eusteko eginbehar hau. **Askoren artean**

## 3 irud/hed

Biziaren **predikatzaile** bioenergetikoen gisa hasten gara ("bizia indar sortzaile bat da, askea, ederra, zoragarria, indartsua, gihartsua, geldiezina..."). **Iñaki Segurola**

Ez ditiagu **predikatzaileak** behar, bufoiak baino! **Harkaitz Cano**

## predikazio<sup>1</sup> 1 iz predikatzea, sermoia egitea.

Denbora gaizki banatzen zutela zioen, **predikazioari** dena ematen ziotelako eta ezer ez debozioari. **Askoren artean**

Anaien **predikazioa** entzunik, bihotz damuturik etortzen zitzaizkien, esanez: "eta guk zer egin behar dugu?". **Askoren artean**

Aita Frantzisko dohatsuaren konbertsio miragarria; Jainkoaren hitzaren **predikazio** eraginkorra. **Askoren artean**

Mintzaira gordina da hau guztia, **predikazio** kristauaren samurtasuna baizik ezagutzen ez duten belarrientzat batez ere. **Joxe Azurmendi**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Predikazio**-ofizioa nahiz anaien zaintza duten anaientzat. **Askoren artean**

Salbazioaren **predikazio**-lanerako. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**predikazio eraginkorra** (3)

**joan etorriak predikazioan** (3)

## predikazio<sup>2</sup> iz logikan, subjektu batez zerbait esatea.

Lehen auzi-multzoa erreferentziaren arazoa da; bigarrena, **predikazioarena**. **Askoren artean**

## prediku (orobat predeiku g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian prediku agertzen da) 1 iz sermoia.

Harenga horrek antz handiagoa daukalako fraideek handik sei edo zazpi mendetara botako dituzten **prediku** bihurriekin. **Jon Alonso**

Eskritura Sainduen irakurketa ozenak, himnoen kanta beroak, **prediku** suharrak Jainkoaren egiazki ohoratzekeko manieraz. **Aingeru Epaltza**

Gero meza nagusia **predikuarekin**. **Marzel Etxehandi**

San Antonio pasatu zela itsasoko hondartzetara, eta arrainei dei eginik, **prediku** izugarri ederra egin ziela. **Jon Alonso**

Hau esan zuen anaia batzuei eginiko **prediku** batean, haiengan beste guztiengana ere zuzenduz: [...]. **Berria - Ekonomia**

Masail batean jotzen bazaituzte, bestea jartzeko, Mendiko **Predikuan** irakasten da. **Joxe Azurmendi**

Hor daude lekukotzat zenbait sermoi edo **prediku** gure mintzairan emanak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Frantziskok egokiera eta garai ezberdinetan anaiei eginiko **prediku** eta aholku espiritualen laburpenak. **Askoren artean**

Sauloren **predikua** Damaskon. **Elizen arteko biblia**

Zaldia ia geldirik baitzeuden, giharrak lasaiturik **prediku** mamitsuaren urruma gozoaren eraginez. **Jose Morales**

Ezekielen **predikuaren** laburpena. **Elizen arteko biblia**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Saiatu eta gartsu otoitzean, barau eta bijilietan, **prediku** eta apostolutza ibilaldietan. **Askoren artean**

Elkartea ongi zuzentzen duten arduradunek estimu bikoitza merezi dute, **prediku**- eta irakaste-lanetan ari direnek batik bat. **Elizen arteko biblia**

Bihotz kartsuz, horma txiki batera igo eta predikatzen hasi zen, **prediku**-gai bezala hitz hauek herri hizkuntzan hartuz: [...]. **Askoren artean**

## 3 irud/hed

**Prediku** hori nirea zen, baina ez nion royaltyrik eskatzeko asmorik. **Aingeru Epaltza**

Liburu argi eta koloretsu hortaz, ez dugu **prediku** handirik eginen, erranen bakarrik arraroa dela. **Herria**

Eta horretaz guziaz mintzo zaigu Filipe, **prediku** aspergarririk gabe beti; bere bizipenak, bere esperientzia kontatuz bakarrik. **Filipe Bidart**



**Prediku** gaitzak entzun edo irakurri ditugu maiz euskararen alde, gehienetan nahikunde edo inkantazio hutsak gelditu baitira. Herria

Don Carlosek orduan **prediku** gaitzak bota dizkie honi eta hari, eta aholku zuhurrak txit eta ugari eman ditu. Txillardegia

Elena mainutik atera zenean, egundainokotan musu batzuk emanik berriz hasi zitzaidan **predikuan** : [...]. Janbattitt Dirassar

Chirac presidentak ere **prediku** andana bat egin du azken egun hotan. Herria

#### 4 **prediku aulki** (*orobat **prediku alki** eta **predikalki g.er.***) predikua egiteko mintzaleku garaia.

Sarako elizako **prediku aulkian**. Itxaro Borda

Ihardetsi nion ene adetetik, agian aingeruen gramatika zuela erabiliko bere **prediku aulkitik** euskaldunei mintzatzeko zitzaielarik. Piarres Xarriton

Behin ere ez zutela **prediku alkitik** erran bekatu mortala eginen zutela gorrien alde bozkatzuz, eta ifernuaz gaztigatuak izanen zirela. Xipri Arbelbide

Ez zuten hiriairen premiariak: zergatik bada abiatuko ziren erretoreak **prediku aulkitik** salatzen zuen Baiona bezalako galtokira? Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dena prediku** (3); **eginiko prediku** (3); **prediku alkitik** (6); **prediku aulkitik** (4); **prediku gaitzak** (3); **prediku labor** (3)

**egin zuen predikua** (3); **frantziskoren predikua** (4); **lehen predikua** (4); **nire predikua** (3); **predikua bukatu** (7); **predikua bukatu arte** (3); **predikua egin** (16); **predikua egin zuen** (6); **predikua egiten** (8)

**bere predikuan** (7)

**berauren predikuaren bidez** (3)

#### **predikuño** *iz adkor* predikua.

Aipa ditake **predikuño** bat eginez, apez baten pare plantatuz, ospatuz Jesusen sortzea, oroitaraziz nor zen Jesus, Jainko seme gizon egina, gu salbatzea gatik gure arterat jautsia... Herria

#### **predikzio** *iz iragarpena.*

Eta bete egin **predikzioa**. Patziku Perurena

#### **predisposizio** *iz (corpusean **predisposizione soilik**) (aldez aurreko) joera.*

Eta beti izan zen horrelakoa, bertzalde, nahiz eta dispozione edo **predisposizione** hura gero eta errotikoagoa egin zitzaion. Joan Mari Irigoien

#### predisposizione ik **predisposizio**.

#### **prefabrikatu**, prefabrika(tu), prefabrikatzen (**24 agerraldi**, **9 liburua** eta **12 artikulutan**; cf **aurefabrikatu 8 agerraldi**, **3 liburua** eta **2 artikulutan**) **1 du ad aurrez** fabrikatua. ik **aurefabrikatu**.

Ostegun arratsetan biltzen gara, Otsabideko komisarioaren gibelego **prefabrikatuetak**o gelaren batean. Itxaro Borda

#### 2 irud/hed

Alegiazko bi arte-mota horiek emozioak nahi dituzte oroitu, baina emozio horiek aldez aurretik daude diseinatuta, **prefabrikatuta**, oinetakogilearen kasuan gertatzen den moduan. Askoren artean

#### 3 (era burutua izenondo gisa)

Ikasgelak ere falta dira eta klaseak emateko egoitza **prefabrikatuak** baliatu behar dituzte. Berría - Euskal Herria

Emandako 19 geletatik, zortzi modulu **prefabrikatueta**n daude, eta lau urte dira erabiltzen ditugula. Berría - Euskal Herria

Ore **prefabrikatua** labean sartu, berotualdia eman, eta gertu da kontsumitzeko. Iñigo Aranbarri

Ogi **prefabrikatu** usaina izertiarekin nahasturik. Eider Rodriguez

Esaldiak, aldiz, pilean-pilean datoz, oilategi **prefabrikatu** bateko sailak balira bezala. Iñigo Aranbarri

"Formula" deitu dio unitate **prefabrikatu** horietako bakoitzari. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

#### 4 (era burutua izenondo gisa, irud/hed)

Benetakotasuna: ez dezala irakurleak sentitu testu **prefabrikatu** baten aurrean dagoela. Ana Urkiza

Botz-garagailuetik **desira** prefabrikatuaren herotsak estereotan hegaldatzen ziren, ene gaizki izatea multiplikatzuz. Itxaro Borda

Beti "Ados?" irribarretsua eta **prefabrikatu** batez galdetzen zidatela ea ulertzen nuen. Jon Alonso

· Inurri lana eginez kopurua 28ra eramatea lortzen badute, gaur egungo **prefabrikatuak** ttipi geldituko dira. Berría - Euskal Herria

#### **prefaxismo** *iz faxismoa iragartzen duen ideologia.*

Arima espainol gaixo hori sendatzearren (Costa), hor Tierno Galván-ek **prefaxismo** espainol bat salatu ahal izateraino. Joxe Azurmendi

#### **prefazio** *iz sagara aurea, mezaren zatia.*

Goizean elizarat oro bildurik kantatzen zuten meza burutik-buru, bai eta **Prefazioa** eta Paterra. Xipri Arbelbide

Eguberritako **prefazioaren** moldeko hitzak: *per hunc in invisibilium amorem rapiamur*. Askoren artean

Eta Andre Mariaren **prefaziora** iristean, hain indar handiz hasi zitzaion hazten Jainko-argitasuna eta Jainko-maitasunaren grazi gozotasuna, ezen Qui pridie quam hitzak esateko unera iristean, ezin baitzuen jasan hainbestearinoko samurtasun eta eztitasuna. Askoren artean

#### prefekto ik **prefektu**.

#### **prefektu** (*orobat **prefekto g.er.** eta **prefet g.er.**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **prefektu** agertzen da*) **1** iz erlijiozko ikastetxe eta kidekotean ikasleen diziplinaz arduratzen den apaiza.

Bederatziak hogei gutxi izaten ziren ordurako, eta kolegioko **prefektuak**, Hipo edo Hipopotamo deitzen genion fraideak, ematen zigun sarrera. Bernardo Atxaga

**Prefektuari** eta kolegioko zuzendariari azalpenak ematen egotea. Bernardo Atxaga

-Ikastetxeko **prefektu** naizenez...

Uste dut **prefektuoi**, gutxienez, esan egin behar zigula.

-Beguirune handixeagoa izan beharko zenioke eskolako **prefektu** bati! -esan zion-.

## 2 (hitz elkartuetan)

Dagoeneko jantzita zegoen, eta Hogwartseko **prefektu** -ikurra puntuzko txalekoari itsatsia zuen.

Percy nola zebilen Fred eta Georgeren atzetik dorrean gora eta behera, anaiek **prefektu** -plaka ostu ziotelako.

## 3 antzinako Erroman, goi funtzionario zibila edo militarra.

Harrigarri zitzaion hain neska zuhurrak erromatar **prefektu** bat halako punturaino xarmatu izana, non [...].

Apezpikuek, metropolitanoek eta primatuek leialtasuna zieten eskualdeko patriarkei, hierarkikoki pretoriar **prefektu** dioklezianikoen parekoei.

## 4 (hitz elkartuetan)

Galieta **prefektu** -kargu pretoriarra bereganatzean bere lanbidearen gailurrera iritsitako funtzionario baten semea zen.

Xenofonte, *Errentak* liburuan, prozesuak bizkorren erabakitzen zituzten merkataritza-**prefektuei** sariak ematearen alde ageri da.

## 5 Italiako probintzia bateko buru den karguduna, estatuko eta probintziako aginpidearen ordezkari dena. ik**prefet**.

Pepponek tonu horretan jarraitu eta protesta manifestaldi bat egon zen, gero batzorde bat eratu eta ultimatum bat prestatu zuen **prefektuari** bidaltzeko.

## 6 Erromako Kurian, kongregazio edo kideko baten buru den prelatua.

Eta horren kontra egiteko, Joseph Ratzinger Fedearen Doktrinarako Kongregazioko **prefektua** ikusten dute askok egokien.

"Fedearen Doktrinarako Kongregazioaren" **prefeta** gisa, Erroman.

Hil-kapera ikusteko aukera izango dutela gogoratu zien atzo aita santuaren jarraitzaileei Acchille Serra **prefektuak**.

Nork daki ze gertatuko den Benedikto XVI, dogmaren zaintzaile **prefet** ohiarekin.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prefektu ikurra** (3)

**kongregazioko prefektua** (3)

## prefektura *(orobat **prefektora** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **prefektura** agertzen da)* 1 iz antzinako Erroman, prefektuaren kargua.

Ekialdeko **prefektura** dioklezianikoa azkenean zatitu egin zen Alexandria, Jerusalem, Antiokia eta Konstantinoplako lau patriarka-hirien artean, eta beste hiru **prefekturak**

Erromako patriarka-hiri bakar eta ikaragarri zabal baina askoz biztanle gutxiagokoan elkartu ziren.

Harrobi asko daude, gainera, Tarkiniaren inguruetan ere [...] kolorez Albakoen antzekoak dira; harrobi nagusienak batez ere Bolsenako lakuaren ondoan aurkitzen dira, eta

baita Estatioko **prefekturan** ere.

## 2 hainbat herrialdetan probintzia edo kidekoa.

Kanazawa: Ixikawa **prefekturako** hiriburua.

Kontsebadoreek, aldiz, hiru **prefektura** lortu zituzten [Boliviain] eta gainontzeko laurak herri taldeen ordezkarien eskutan gelditu ziren.

Alkateak [Italiako herri batean] leku publikoetan burka erabiltzea galarazi zuen iragan uztailean, baina **Prefekturak** bertan behera utzi zuen gero.

[Venezuelako] Catiako guardia nazionalera eraman zuten, eta handik auzo bereko polizia **prefekturara**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**polizia prefekturan** (3)

**prefekturaren arabera** (3)

## preferente *izond* Espainiako Liga eskualdeka banatzen den mailetako bat.

Orain dela lau urte sortu zen kluba, eta presidentek funtzio asko bete ditu lehen urteetan Regional **Preferente** Mailan hartu eta Bigarren Mailan kokatu du.

Bestetik, Laudio, Fortuna, Barakaldo eta Mikel Gurea euren lurraldeetako **preferenteetara** jaitsiko dira.

Arratian nire jokalaririk izan zen **Preferente** Mailan, 16 urterekin.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**preferente mailan** (3)

## preferentzia 1 iz lehenestea; lehentasuna. ik **hobespen**.

Auzapezak berriz ere erran du herriak etxegune berri bat egitekoa duela eta autobidearen gatik beren etxea galduko dutenak han jartzen ahalko direla, heiek ukanen dutela

**preferentzia**.

Antropologia kulturalak gizakiaren definizio unibertsalaren aldeko **preferentzia** errotik eztabaidatu izan du.

Ez da hain errex, eta hortako injustizia bat dela, bakoitzak bere **preferentziak** eta bere gustuak sobera jokoan dituelakotz hor...

Irakurle bakan batzuen **preferentzien** artean lekutxo bat aski zuen.

-Ordenan jarriak ditut, neure **preferentzien** arabera, batetik berrogeiraino.

## 2 Espainiako estadioetan eta kidekoetan, erdiko mailako eserlekuak dauten eremua.

Pare-pareko harmailetatik etorri zen tiroa, iritsi zen bala, **preferentziatik** alegia.

## prefet *(orobat **P** larriz; orobat **prefektu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **prefet** agertzen da)* 1 iz Frantziako departamendu bateko buru den karguduna, estatuko aginpidearen ordezkari dena.

Omenaldia edo hitzordua garrantzitsuagoa zela, suprefetaren, **prefetaren** edo ministro baten presentzia segurtatua zenean.

Den gutienik hiru urte egoiten dira **prefetak** departamendu batean gobernuaren ordezkariak direla.

1878an **prefetek** igorri txostenen arabera 31 apezpiku "tzarrak" ekarriak ziren, 27 "dudazkoak", "25 onak", gobernuaren arabera bixtan dena.

**Prefetak** finkatuak ditu erkidego horren mugak, Hendaia barne ezarri.

III. Errepublikak bere **prefetak** xaxatu zituen apezak mehatxatzeraz Flandrian eta Bretainian.

Philippe Gregoire, **prefet** berria Pirinio Atlantikoetan.

Paristik gertu dagoen Seine-Saint Denisko **prefet** Jean-François Cordet ez zion beharrezko iritzi bere departamenduan neurria ezartzeari, han egunotan liskarrak

«gutxitzen» joan direla argudiatuta.

Dartout **prefetak** berriki Angeluko zine proiektuaren kontra ezarri errekurtoa bigarrena da.

Izendatua berri den **Prefetak** denbora apur bat hartuko du hain segur, proiektu horri baietz edo ezetz erraiteko. **Herria**

Bihar bertan **prefetari** idatziko diot lantegia zutik atxikitzeko erreserba fondoko dirua desbloka dezan. **Itxaro Borda**

Bere gain hartu zuen **Prefektuak** hogei mila liberaren eskaintza egitea 'hiltzailearen salaketa' lortzeko. **Koro Navarro**

Maurice Papon **prefektu** ohiari 10 urteko kartzela zigorra ezarri zioten humanitatearen aurkako krimenetan parte hartzeagatik, eta bi urtera aske utzi zuten. **Berria - Mundua**

Jaun **Prefetak** ukan du indar eta kemen. **Herria**

## 2 polizia-prefeta.

**Prefektuak** ohiz kanpoko lana egin zuen; eta, esan gabe doa, Parisko polizia-indar guzti-guztiak jarri ziren kasu hau argitzera. **Koro Navarro**

## 3 polizia-prefet Pariseko polizia prefeturako burua.

Noiz jakinen da egia? nor izan zen manatzailea? egile nagusia, Pariseko polizia-**prefeta**. **Herria**

Rick, Ilsa, Victor Laszlo eta Renaud **polizi prefeta**, aireportura heltzen dira. **Pako Aristi**

Beren ipuineko G. polizia-**prefektuak** metodo sofistikatuenak baliatzen ditu lapurtutako objektuak bilatzeko. **Anjel Lertxundi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**korsikako prefet** (3); **prefet ohi** (3)

**claud erignac prefeta** (14); **erignac prefeta hil** (4); **jaun prefeta** (3); **korsikako prefeta** (4); **paueko prefeta** (7); **pirinio atlantikoetako prefeta** (3); **prefeta bera** (4); **prefeta eta suprefeta** (4); **prefeta hiltzeaz akusatuta** (3); **prefeta hiltzeaz akusatutako** (3)

**dartout prefetak** (3); **jaun prefetak** (6); **paueko prefetak** (11); **pirinio atlantikoetako prefetak** (17); **prefetak esan** (3); **prefetak onartu** (3); **viu prefetak** (3)

**paueko prefetarekin** (3)

**claud erignac prefetaren** (6); **jaun prefetaren** (4); **korsikako prefetaren** (3); **prefetaren arabera** (5); **prefetaren baimena** (4); **prefetaren erabakia** (5); **prefetaren gutuna** (3); **prefetaren hilketan** (3); **prefetaren hilketaren** (3); **prefetaren hiltzailea** (3); **prefetaren hiltzea** (3); **prefetaren jokamoldea** (3); **prefetaren manuz** (9)

**paueko prefetari** (3)

## prefetetxe iz prefetaren etxea.

Gure seminarioko balentriaz ez zuten deus jakin orduan, ez eliza-buruek ez estatu-gizonak: ez ziren berri guztiak heltzen oraino ez Paueko **prefetexera**, ez Pariseko nuntzioarengana, zenbait urte geroago, Finaly juduen aferarekin edo Baionako apezpikuen aldaketeekin gertatu ohi zen bezala **Piarres Xarriton**

## prefetorde iz prefetaren ordekoa.

Korsika: Christian Lambert segurtasunerako **prefetorde** izendatu zuten. **Berria - Mundua**

## prefetura (orobat prefektura g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian prefetura agertzen da) 1 iz prefetaren kargua eta eginkizuna; prefetaren egoitza edo bulegoa.

**Prefeturaren** aurkako erabakia hartu du Baionako auzitegiak. **Berria - Euskal Herria**

Baionako Suprefeturak eta Paueko **Prefeturak** argi erakusten dute ezin diotela eutsi Barne Ministerioak iragarritako kopuruak betetzeko obsesioari, eta legea urratzeraino eraman ditu horrek. **Berria - Euskal Herria**

**Prefeturak** izendatu hiru bitartekarien gastuak 1712,36 eurokoak izan dira. **Herria**

Manifestariak **prefetura** eta Kontseilu Nagusiaren egoitza harrikatu zituzten. **Berria - Mundua**

**Prefeturaren** arabera 28.000 pertsona bildu dira Marseillan, 250.000 sindikatuen arabera. **Berria - Harian**

Altxorren bulegoak, Jendarmeriaren kasernak, justizia jauregiak eta **prefeturak** izan ziren jomuga. **Berria - Mundua**

CAREk elkarretarazte batera deitu zuen Aiacciuko **prefetura** aitzinean. **Berria - Mundua**

Pirinio Atlantikoetako **Prefeturak** etorkina bere sorterrira itzularazteko agindua eman zuen. **Berria - Euskal Herria**

Balançoneko sendagile guztiei deitu zieten **Prefekturara**, eta ahobatez deklaratu zuten erotuta zegoela Héraclius Gloss. **Josu Zabaleta**

Hiru kandidatuek goraki diogu ordu dela Baionan **prefektura** bat antola dadin Xiberua, Baxenabarre eta Lapurdi elgarretartzeko Euskal Herri-Departamendu batean.

**Herria**

Lanpostua **prefeturaren** menpean dago. **Karlos Zabala**

Bordeleko **prefeturaren** idazkaritzan. **Josu Zabaleta**

## 2 (hitz elkartuetan)

Baiona asumitzeko prest da **prefetura** hiri bilakatzea, sekulan eta bigarren departamendu bat balitz. **Herria**

Ez dakit irakurri duten baina telebixtak salatzen du botatzen dituztela edo **prefektura** ateetan edo berdin ondankinetan. **Herria**

## 3 polizia prefetura Parisen, polizia zuzendaritzaren zerbitzuak.

-Bi kontrol daude -ziotson-, Senako prefeturarena eta polizia **prefeturarena**. **Karlos Zabala**

*Lingerie* kaleko postuan, soldadu mozkor batzuek fusilatu nahi izan zuten; argia pizturik zeukaten jadanik, baina agindua iritsi zen gatibu guztiak polizia **prefeturaren** gordetegian elkartzeko. **Karlos Zabala**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**paueko prefeturak** (3)

**paueko prefeturan** (4)

## prefiguratu, prefigura(tu), prefiguritzen du ad alde aurretik irudikatu.

Gramatika orokorraren esparru arkeologikoak Fabre d'Olivetaren ameskeriak biltzen ditu [...] ez atribuzio-proposizioen azterketa baino gutxiago (orduan egia nabarizat hartzen zena, eta bertan gramatika generatiboak gaur egun aurki dezake **prefiguratu** bere egia). **Xabier Arregi**

## preilosofiko izond filosofiarene aurrekoa.

Baina hemen gizakiaren filosofia "**preilosofiko**" batean ibiliko ginatke oraindik. **Askoren artean**

## preformazio iz alde aurreko formazioa.

Arrazoimen hutsaren **preformazioaren** sistema baten moduko zerbait litzatekeena **Ibon Uribarri**

# prefrontal *izond* burmuineko lobulu frontalen aurrealdeari dagokiona.

Haien esanetan, ezker alboetako kortex **prefrontalak** sumatzen ditu estetika kontuak. Berria - Gaiak

Garuneko bi zatiri egiten die kalte bizkarrezurreko min kronikoak: talamoari eta kortex **prefrontal** dortsolateralari. V4ko zelulek hipokanpoko eta kortex **prefrontaleko** oroimen-sistemetaraino bidaltzen dituzten informazioen isuriaren etenak azaldu ahal izango liguke, hein batean, zergatik "ahaztu" zuen I.k kolorea. Berria - Gaiak

Garai hartan asmatu zuen Egas Moniz neurologo portugesak "leukotomia **prefrontala**", eta berehala egin zien egin ere, hogeai gaixori; horietako batzuk larridura eta depresioak joak ziren, beste batzuk eskizofreniko kronikoak. Xabier Olarra

## pregoi 1 *iz* aldarrikapena, iragartze ageria; bereziki udalak egiten duena. **ikbando**<sup>1</sup>.

Ekitaldia Nafarroako Erregeen Jauregian Iruñeko Parte Zaharrea eginen den **pregoiarekin** hasiko da. Berria - Kultura

Babesaren Kristoaren Eskola Santuko Anaia Maiordomo Nagusiaren gonbidapenez, Aste Santuko **Pregoa**. Josu Landa

Festa handiaren **pregoia** irakurriko du. Berria - Harian

Gotzainak alkatea eskomikatu zuen, eta honek, **pregoi** baten bidez, inork gotzainarekin salerosketarik edo inolako traturik egitea debekatu zuen. Askoren artean

Herritarrei **pregoi** baten bidez jakinarazi zien laneko abere guziak [...] haren meneko zirela, orga eta karroak bezalaxe. Elena Touyarou

Gerra deklarazioaren **pregoia** agindu zuelako fusilatu zutela. Joseba Sarrionandia

Beste egun batean ere **pregoia** jo zuen danboliteroak, tan tan tatan tan, abisatzeko biharamunean Don Adolfo Arguedas Goñi guardia zibilen sarjentua epaitua izango zela udaltxeko epaitegian. Joseba Sarrionandia

### 2 (hitz elkartuetan)

Hara han danboliteroa bere **pregoi** abisuarekin tan tan tantanka zetorrela ikusi arte. Joseba Sarrionandia

### 3 irud/hed

Seinale barraskiloa suelto samar zebilela, euri eta bustiaren **pregoia** zuen hori ere. Pello Zabala

Izan ere, zizarea axaletik gertu, uraren eta bustiaren **pregoitzat** hartzen zen beti. Pello Zabala

### 4 *pregoi-jole* ik **pregoilari**.

Sarritan, gainera, hitz bakarrak herri guztiaren belarriak jotzen ditu, **pregoi**-jolearen ahotik hara. Xabier Amuriza

## pregoilari 1 *iz* pregoia jotzen duen pertsona.

Igandean, saltinbankiek bando bat irakurrarazi zioten **pregoilariari**, ikuskari berezia eta guztiz interesgarria eskaini behar zutela esanez. Koro Navarro

Lagunari agindu zion lot ziezaiola soka bat lepotik eta eramán zezala horrela, lapur baten modura, hirian zehar, **pregoilari** gisa hau aldarrikatuz: "hara, ikus tripazain hau, zuen ezjakinean oilasko-haragiz bapo jarri dena". Askoren artean

Gutxi eman eta asko mintzen du, **pregoilariak** bezala aldarrikatzen baitu. Elizen arteko biblia

Errege handiaren **pregoilari** nauzue. Askoren artean

*Geldi hadi hor, Jainkoaren **pregoilari** arlote hori!* Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

### 2 (hitz elkartuetan)

Gandolfo zen, udal **pregoilaria**, besamotza bera, bibote luzearen puntak beherantz zituena, kosako baten gisa. Felipe Juaristi

### 3 irud/hed

Aurretik **pregoilari** zetorkion fronte beroak lainoa besterik ez zuen ekarri: kosta aldetik bai, han utzi zuen zer edo zertxoren bat. Pello Zabala

## pregonari *iz* pregoilaria.

Harategira eta Price jaunaren etxera ere joan ginen, eta **pregonari** baten moduan errepikatu zuen Griff jaunak haietan ere bere mezua. Koro Navarro

Heriotzara zigortu zuen, eta horixe aldarrikatu zuten **pregonariak** hirian barrena. Patxi Zubizarreta

## prehispaniko *izond* Amerikaz mintzatuz, espainiatarren konkista baino lehenagokoa.

Duela bi urte inguru, bestalde, Cockek Tupac Amaru kokagunearen inguruetan, adituen arabera, Hego Amerikako hilerri **prehispaniko** «garrantzitsuenetariko bat» dena aurkitu zuen. Berria - Gaiak

## prehistoria 1 *iz* historiaurrea.

Sánchez Albornoz-entzat zer espainola -izpiritua, aiurria- finkatua zegoen **prehistorian** jada. Joxe Azurmendi

**Prehistoriak** herrien migrazio hipotetikoez. Joxe Azurmendi

**Prehistoriaz** izan dugun obsesioa alde batetik, eta edozein utopiaren iraultzan sinesteko erraztasuna bestetik, iragan historikoa ukatzeko eta deuseztatzeko moduak izan dira neurri handian. Joseba Zulaika

Gipuzkoako **Prehistoriaren** Museoa. Berria - Kultura

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **prehistoriko**.

[Arestik] Danteren eta Vicoren antzo, bidaia alegoriko bat marrazten du, non gizadia eta euskaldunak **prehistoria** denboretatik gaurko egoera urbanoetara garatu diren.

Joseba Zulaika

Anzadi-Barandiaran-Eguren **Prehistoria** Ikerketa Lan taldeak hamaika indusketa eta ikerketa egin zituen. Berria - Harian

## prehistorialari *iz* historiaurrean aditua den pertsona. ik **aurrehistorialari**.

Beste mendilerro batean nago orain, Atapuercako mendilerroa: hemen bizi zen, diote **prehistorialariak** Europako "homo sapiens" zaharrena: patar xut eta luze bat iragan dut. Piarres Aintziart

## prehistoriko 1 *izond* historiaurrekoa. ik **prehistoria 2**.

Herri **prehistoriko** marjinauén, jopu herrien teoria. Joxe Azurmendi

Europako gizadia nola omen dagoen osatua gaineko geruza batez, arraza konkistatzaile indoeuroparrena, noblea, eta arraza konkistatu **prehistorikoen** substratuaz. Joxe Azurmendi

Gizon **prehistorikoen** aterbe edo geriza lekuak. Herria

Arraza **prehistoriko** hutsak. **Joxe Azurmendi**  
Garabiak eta hondeamakina goizean goiz hasi dira mugitzen, behelaino artean, animalia **prehistoriko** moduan. **Joseba Sarrionandia**  
1937an Ipar Euskal Herriko ikerketa **prehistoriko** eta etnografikoak hasi zituen. **Berria - Harian**  
Arkeologia **prehistorikoa**. **Berria - Kultura**

## 2 adkor aspaldi-aspaldikoa.

Esan behar dut nire teleskopio **prehistorikoak** ez duelako horrelakorik. **Berria - Gaiak**

## prehominido *izond* primateez mintzatuz, hominidoen aurre-aurrekoa.

Beltx AB-ren txantxetako hitz greko-latindarrek **"prehominidoetan"** lehenen eta "amerikar menderatzailea" adierazten dute. **Xabier Olarra**

## preindoeuropar *izond* indoeuropearraren aurrekoa.

Arazialtasun aleman garbiaren kriterioa legalki doitzeak hainbat korapilo gehiago sortzen du Alemania (Estatu) batean, non jende **preindoeuropar**, germaniar, eslabiar, zelta, "erromatar" eta nolnahi bestelakoa joan-etorri ibili den denboran zehar, eta, bestetik, "alemanak" berak Estatu ezberdinetan banatuak daudenean. **Joxe Azurmendi**  
ETAk zera esaten dio nazionalismo historikoari: Jaun Goikoa, Prehistoria, Asaba Zaharren Baratza, Euskara **preindoeuroparra** ... ez dugu zuen ideia handi horietan federik; zuen identifikazioak dagoeneko ez dira gureak. **Joseba Zulaika**

## preislamiko *izond* islamaren aurrekoa.

Kristautasuna deshelenizatze arima siriakoek egindako ahalegin **preislamikoak** ziren hainbat kristau-heresiaren [...] artean. **Iñaki Mendiguren**

## prejitu ik frijitu.

## prejuizio *iz* aurreiritzia.

Dena baita, bota dezadan behingoz, **prejuizioz** beterik neukan iduri makurraren kontrario absolutoa **Patziku Perurena**

## prekanbriko *izond* aro geologikoez mintzatuz, kanbrikoaren aurre-aurrekoa.

**Prekanbrikotik** gaur egunera doan tartean gertatutakoaren laburpena eginez. **Jon Alonso**

## prekapitalismo *iz* kapitalismoa agertu aurreko sistema ekonomikoa.

Erdi Aroko **prekapitalismoa**. **Koro Navarro**  
Zentzu horretan, **prekapitalismoa** baino ez zen sistema hura. **Koro Navarro**

## prekapitalista *izond* prekapitalismoarena, prekapitalismoari dagokiona.

Gizarte **prekapitalistetan**, antolamendu ekonomikoaren ikuspuntutik, ekonomia ez zen alor beregaina; aitzitik, sistematikoki txertatua zegoen gizarte-harremantetan. **Koro Navarro**  
Zibilizazio **prekapitalista** gehienetan, Smithek dioenaren kontra, gizabanakoa ez da trukearen zale izaten. **Iñaki Heras**  
Erreferentzia horrek merkatuaren lege inpersonalen mende ez legokeen ekonomia baten ikusmolde **prekapitalista** adierazten du. ndustrializazio basatiaren aurreko jarrera **prekapitalista** bat, naturarekiko sentiera protoekologista, langile etorkinen mundua bere sisteman integratu ezina, horrek denak eragingo dio Lauaxetari meatze gorria zaurizat hartzeko. **Koro Navarro**

## prekarietate (290 agerraldi, liburu 1 eta 175 artikulutan; orobat **prekaritate** 49 agerraldi, 2 liburu eta 30 artikulutan) 1 iz prekarioa denaren nolakotasuna. (enplegetan)

**Prekarietatea**, eguneroko zama. **Berria - Harian**

**Prekaritateak** aurpegi anitz ditu. **Berria - Harian**

Behin-behineko kontratazioa erruz ari da zabaltzen (%33 inguru, Espainian), eta ezegonkortasuna eta **prekaritatea** handia da oso. **Iñaki Heras**

Tamalez, gazteentzat malgutasunak **prekaritatea** esan nahi du askotan baino maizago, bereziki kualifikazio apaleko lanetan. **Iñaki Heras**

*Askatasunaren* iritiz, iheslariak «**prekaritatean** bizitzera behartzen» ditu Frantziak. **Berria - Euskal Herria**

Etxebizitzaren arazoak eta enpleguaren **prekarietateak** eragindako kinka larriari buruz argi hitz egiten dute gazteek, arazoaren muintetik. **Berria - Harian**

Lan istripuak «**prekarietatearen** isla larrienak». **Berria - Euskal Herria**

Gutarteko **prekaritatearen** seinale, 8000 herritarrek CMU eritasun geriza baliatu dute. **Herria**

Hori esanda, kanpora irten ziren, ManWork-en, ETTen eta **prekarietatearen** aurkako oihu artean. **Iban Zaldúa**

### 2 (bestelakoetan)

Nik banekien sentimenduen **prekaritatea**, larrua jo ondoko arrotz izatea, inork ez zuela inoren beharrik. **Itxaro Borda**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Une honetan, Europako batez besteko **prekarietate** eta behin-behinekotasun tasa 15 puntutan gaintzen dugu. **Berria - Ekonomia**

«Gazteek bizi duten **prekarietate** egoera» salatu zuen atzo. **Berria - Ekonomia**

Administrazio Publikoek ezin onar dezakete egun dagoen langabezia eta **prekarietate** maila mantentzea. **Berria - Ekonomia**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Martxoaren 11n, lan **prekaritateaz**. **Herria**

Espainiak [...] langabeziari dagokionez, Europako Batasuneko azken estatua izaten jarraitzen du, baita lan **prekarietatean** ere. **Berria - Mundua**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**prekarietate egoera** (7)

**lan prekarietatea** (7); **prekarietatea amaitu** (3); **prekarietatea areagotu** (5); **prekarietatea areagotuko** (3); **prekarietatea areagotzen** (3); **prekarietatea salatu** (5);

**prekarietatea salatzeko** (3)

**prekarietatearen aurka** (6); **prekarietatearen aurkako** (14); **prekarietatearen aurkako borroka** (3); **prekarietatearen kontra** (3)

**prekarietateari aurre egiteko** (7)

**prekarietaterik gabeko etorkizun** (3); **prekarietaterik gabeko etorkizuna** (3)

## prekario 1 *izond* segurtasunik gabea, ez-egongorra.

Berehala itzuliko baitzen hura bere bizitza **prekario** baina munstroski libre hartara. **Juan Garzia**

Hain egoera **prekario** eta ilunetan, baikortasun dogmatikoa ezkortasun dogmatikoa bezain justifikaezina zen. **Iñaki Mendiguren**

Langileen egoera **prekarioa** amaitu guran deitu dugu lanuztera. **Berria - Ekonomia**

Lanik **prekarioenak** eta gaizkien ordaindutakoak egiteko. **Berria - Euskal Herria**

Herri honetan enplegu **prekario** asko dago, eta txarto dagoen makina bat lagun. **Berria - Euskal Herria**

Langile espezializatuen lekuan eskulan **prekarioa** jartzeko bidea eman nahi die Europako Batasunak ontzi enpresa handiei. **Berria - Ekonomia**

Betiko sindikatuak ez dira erabilgarriak moldaketa neoliberalak sortu dituzten eredu berrietarako, ez dituzte langile **prekarioak** edo etorkinak ordezkatzeko. **Berria - Ekonomia**

Lan jardun amaigabeak, ordainsari eskasak eta kontratu **prekarioak**. **Berria - Euskal Herria**

Lan postu berriak kasik denak **prekarioak** direla. **Herria**

Horregatik, azpiegiturak oso **prekarioak** dira. **Berria - Mundua**

Bozkario denboraz kanpoko eta **prekarioa**. **Juan Garzia**

Bertako langileek ere modu **prekarioan** kontratatutak daudelako gehienetan. **Edorta Agirre**

Oso modu **prekarioan** ematen genituen klaseak orduan, baina entusiasmo handiz. **Ana Urkiza**

## 2 (izen gisa) langile prekarioa.

**Prekario** bakoitzaren osasunarentzat egunean bi euro eta erdi pagatzen du euskal jendarteak. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egoera prekario** (3)

**egoera prekarioa** (6)

**baldintza prekarioak** (3); **kontratu prekarioak** (3); **langile prekarioak** (3)

**egoera prekarioan** (8); **modu prekarioan** (4)

**baldintza prekarioetan** (3)

## prekaritate ik prekarietate.

## prekarizatu, prekariza, prekarizatzen du *ad* prekario bihurtu.

Enpresariak langilearen egoera «**prekarizatu** duela» erran eta 17.500 euro ordaintzera kondenatu du auzitegiak **Berria - Ekonomia**

## prekarizazio *iz* prekarizatzea.

Legegintza babesgarri baten ezaren ondorioak askotarikoak dira, eta bat larria eta begi-bistakoa: **prekarizazioa**. **Berria - Euskal Herria**

Euskal gizartearen bizi-baldintzen erabateko **prekarizazioa** gertatzen ari da. **Berria - Euskal Herria**

Enpleguen hazkunde-erritmo handi hori enpleguaren **prekarizazio** gero eta handiago batekin lotua dago, eta batez besteko soldata errealen 1972-1995 arteko behaldi ia etengabearekin. **Koro Navarro**

Funtsezkoa da bizimoduaren **prekarizazioa**, horrek eragina baitu osasunean eta zaintza jasotzeko aukeran. **Berria - Euskal Herria**

## prekauzio (*orobat prekozione*) *iz* arreta, kontua, ardua.

Kontuan harturik zientzialariek transgenikoan arloan ez dutela segurtamenik, Ingurumenaren Itunean aipatzen den **prekauzioaren** irizpidea hobestea eskatzen dugu.

**Berria - Euskal Herria**

Orria urrututa zegoen, lau aldiz urrututa, hori baino gutxiago ez da nahikoa orria balio gabetzeko eta hori baino gehiago **prekauzio** maniako da. **Jon Alonso**

Iruditzen zitzaioelako bere adiskide puruzalea beti harro samarra izan zela, eta mugimenduak eta **prekauzioak** areagotzen ari zela berari lezio bat ematea beste helbururik ez zuen patxada batez. **Jon Alonso**

Denek beren **prekozioneak** hartuak zituzten, hor arropak aldatzeko, izerdiez eta euriarekin bustiak izaiten baitira. **Herria**

Ortega-k bere duda-mudak izan ditu, batez ere bere **prekauzioak** beti hartu ohi ditu, gauzak esan bai, baina [...] anbiguitate tarte bat atxikiz badaezpada bere estilo manieristaren kiribilen artean. **Joxe Azurmendi**

**Prekauzioak** oro ez dira aski. **Jon Alonso**

## preklaro *izond* argidotarra.

Ofizialtasunik gabeko iritzi ezkor eta zabalduraren arabera, Kolko Mitxoletaren hitzak etsipenezkoak ziren, "Elementia Nebrijana" talde higuinarriko elementurik

**preklaroenak** sorrarazia. **Jon Alonso**

## prekolonbino *izond* C. Colon-ek Amerika aurkitu aurrekoa.

Bazen behin, Euskal Herri **prekolonbino**, zahar, eder eta idiliko hartan *artoa* izeneko landare musker bat, landare guztiak bezala bere fruitua ere ematen zuena. **Iñigo**

**Aranbarri**

## prekonstituyente *izond* kontutuzioa egin aurrekoa.

Ahaztu gabe agian oraintxe bertan prozesuaren alde jartzen ari direla, sedo beharbada ez erabat prozesuaren alde baina bai dinamika **prekonstituyente**, edo rekonstituyente batean sartzeko moduan. **Jon Alonso**



## prekoiz/sukaldatua saltzen dena.

Eskuarki ez da alde handirik izaten -lehengai eta "mimo" industrialean izan ezik-Thailandiako eta Tafallako **prekoizatu** artean. **Edorta Agirre**  
Hondakin-sortzaile handienak direlako elikagaien industria (kontserberak, **prekoizatuak**), katering (enpresa eta antzeko kolektibitate handientzakoak) eta zentro banatzaileak. **Edorta Agirre**

## prekoizone ik prekoizio.

## prelatu 1 iz Elizako goi karguduna.

**Prelatu** hitza aginpidea duten Elizako klerikoei dagokie. **Askoren artean**  
Sultanak aginpide politikoa eman zion Konstantinoplako **prelatu** horri [...] kristau-herrien gain. **Iñaki Mendiguren**  
Hortik aitzinatu da patriarken eta primatuen, artzapezpikuen, apezpikuen bitartez helduz xeheenetaraino, hau da, beste **prelatu** apaletaraino, san Leonen eta Anakletoren arabera. **Piarres Xarriton**  
Hor Aita Saindua jarri zen bere aulkian eta Kardinaletan beren zizeiluetan, gibeletik zeuzkatela zutik kongregazioneko **prelatuak**. **Piarres Xarriton**  
Etortzen dira gotzainak eta abadeak, eta urrutieneko lurraldeetatik ere Elizako **prelatuak** biltzen dira; bada erregerik ere, eta noble eta handikien multzo handia. **Askoren artean**  
Errege, noble edo **prelatu** handien jauregietan. **Askoren artean**  
Ez zela Artzapezpikua preso sartu behar, ikusten baldin bada orain askatu beharko dela, erranez, hain **prelatu** handia ez dela preso ezartzen, askatzeko gero. **Piarres Xarriton**  
Egiazko otoitza bere **prelatuaren** nahia egitean datza. **Askoren artean**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire ofizioa, **prelatu** -kargua alegia, espirituari bakarrik dagokio, hau da, bizioak menderatzeari eta espirituaren arabera haiek zentzarazi eta zuzentzeari. **Askoren artean**  
**Prelatu** -ofizioak eta predikazioaren ardurak ez zirela inola ere eragotzi behar otoitz santu debotoa, ezta limosna eske joatea ere. **Askoren artean**  
Izan ere, nire ofizioa, **prelatu** -kargua alegia, espirituari bakarrik dagokio, hau da, bizioak menderatzeari eta espirituaren arabera haiek zentzarazi eta zuzentzeari. **Askoren artean**  
Eta ezarritako egunean, **prelatu** multzo handia eta ezin konta ahalako herriko jendetza sartu zen Asis hirian Aita santuarekin batera, Frantziskoren kanonizazioa ospatzea, santuaren ohore handiagorako. **Askoren artean**  
**Prelatu** -pila batek posta-zaldi publikoak erabili dituelako, beraiek 'sinodo' deitzen dituzten horiek direla eta, harat-honat bizkor ibiltzeko. **Iñaki Mendiguren**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gregorio Aita santua -une hartan Perugian zen kardinal guztiekin eta beste hainbat eliz **prelatuarekin** - Frantziskoren kanonizazio-auzia planteatzen hasi zen. **Askoren artean**  
**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**prelatu handi** (4); **prelatu handia** (3)

## prelatutza iz prelatuaren kargua; prelatuaren aginte eremua.

Pedro Casaldaliga Sao Felix do Araguaia **prelatutza** gotzaina ere Nascimientoren ildotik mintzatu zen. **Berria - Gaiak**

## prelogiko izond logikaren arauak betetzen ez dituen.

Hogeita hamarretik aurrerako urteetan batez ere, "barne mintzaira" horren eredu gisa gogoeta modu primitiboagoak, **"prelogikoak"** proposatzen ahalegindu zen Eisenstein. **Josu Zabaleta**  
Pentsamendu **prelogikoa**, organikotasuna, estasia. **Josu Zabaleta**

## preludio iz musika-lana, berez beste musika-lan luzeago baten sarrera gisa jotzen dena.

Chopin **preludioak** oso lagungarri izan zitzaizkidan zure osaba gaixoa hil zenean. **Monika Etxebarria**  
Markesak gonbiteren bat egin dio pasilloan [...] baina Katalin agentokiaren erdian dago ordurako, oihala noiz jasoko eta orkestrak Eleder suitearen **preludioari** noiz ekingo. **Anjel Lertxundi**  
Candendok Bachen **Preludioa** eta Fuga Do minorrean BWV 546 eskaini zuen. **Berria - Kultura**  
Pianoa bi aldiz hasi zenez lehen dantza-mugimenduaren **preludioa** jotzen, Mary Janek presaka eraman zituen bildu zituen kideak gelatik. **Irene Aldasoro**  
Cazalis-en poema batean oinarrituriko **preludio** korala. **Anjel Lertxundi**

## premarxista izond Marxen doktrinaren aurrekoa.

Eta bada filosofo materialista **premarxista** gisa ikusten duenik ere. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## premeditazio iz aurrez pentsatzea.

**Premeditaziorik** gabeko keinua izan zen, senak zientziak ahaztuta daukanari laguntzen dion aukera horietako bat izan zen. **Jon Alonso**  
Epaiketaren buruan frogatua gelditu dela uste dut Michele Angiolillo Lombardi jaunak **premeditaziozko** hilketa egin zuela. **Koldo Izagirre**

## premia (orobat premia g.er.) 1 iz beharra, bereziki behar handia, larria edo hertsia.

Gogo hori **premia** baino gehiago da, ezinbesteko halabeharra da. **Josu Zabaleta**  
**Premiak** behartzen dituenek oinetakoak ere erabil ditzaketela. **Askoren artean**  
Azkenean, **premiak** eraginda, Erregearengana itzuli zen laguntzaren bat eman ziezaiola erregutuz. **Santiago Iruretagoiena**  
**Premia** bete eta gero. **Migel Angel Mintegi**  
Jainkoaren zerbitzariak kontu egin behar du bere gorputzari behar duena zuhurtasunez emateko, jatean, lo egitean eta gorputzeko beste **premiak** asetzeari. **Askoren artean**  
Bere buruari galdezka ea han bilduta zeuden liburuen artean zenbaterik "betetzen zuen **premia** bat"? **Jon Muñoz**

Bere **premia** estaltzeko behar emango diozue maileguz. [Elizen arteko biblia](#)  
Gure organismoaren **premia** guztiak -osasuna, adina, sexua, lanbidea eta gainerakoak aintzat hartuta- aseko dituzten gehigarriak edukiko dituzte. [Edorta Agirre](#)  
Gizakiaren **premiak** mugaezinak omen dira, eta baliabideak berriz [...] mugatuak. [Iñaki Heras](#)  
**Premian** balira, ordea, bizitzeko beharrezkoak har ditzakete anaiek. [Askoren artean](#)  
Analogia-desira ororen funtsean dagoen ilusio magikoaren **premia**. [Josu Zabaleta](#)  
**Premiak** ez baitu legerik. [Askoren artean](#)  
Nik, Jaunak, erantzungo diot haien **premiari**, nik, Israelen Jainkoak, ez ditut bazterreraz utziko. [Elizen arteko biblia](#)  
**Premiarik** gabe hizkuntza aldatzen ez jardutea. [Koldo Zuazo](#)

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horren **premia** handia ikusten dut. Mikel Strogoffek inoiz baino **premia** handiagoa zuen Ivan Ogareffin ihes egiteko. [Ana Urkiza](#)  
Segi dezadan kaka botatzen, badago **premia** galanta eta. [Iñaki Segurola](#)  
Gizartea, dena dela, etengabe aldatzen ari da, eta hizkuntza ere **premia** berrietara egokitu beharra dago. [Koldo Zuazo](#)  
Esportazioak dibertsifikatzeko **premia** larria. Maskuria husteko **premia** larriak iratzarri zuen. [Koro Navarro](#)  
**Premia** larriko eginbeharrak ditut etxean -esan zuen Kostanjoglok. [Jose Morales](#)  
Xuhurrak presa izaten du aberasteko; ez daki **premia** gorria datorkiola gainera. [Elizen arteko biblia](#)  
Garbi dago, azken batean, gizartean ez zegoela batasun **premia** gorririk. [Koldo Zuazo](#)  
Europa bisitatzeko **premia** hertsia. [Joxe Austin Arrieta](#)  
Loa da humanitatearen **premia** nagusia. [Anjel Lertxundi](#)  
Planetako biztanleria osoaren oinarritzko **premia** materialak asetzear. [Iñaki Mendiguren](#)  
Inork esango du **premia** ekonomikoak eragindako jarrera dela. [Anjel Lertxundi](#)  
XX. mendeaz geroztik hasi dira artearen historialariak antzinako gizon jainkozale haiek ez ziren gauza beren **premia** izpiritualak asetzeko adina jainko sortzeko. [Josu Zabaleta](#)  
Artearen sorrera esplikatzen imitazioa edo erlijiozko erritua ez diren bestelako **premia** psikologiko batzuetan oinarritzen.Ezin baitzituzten, eguneko lan neketsuaren ondoren, gorputzeko eta arimako **premiak** ase. [Josu Zabaleta](#)  
Bi gauza horien erabateko **premia** dute zuhaitzek. [Jon Muñoz](#)  
Ezin utsizko **premia** sentitzen nuen berriro hura eskuetan hartzeko, ukitzeko. [Josu Zabaleta](#)  
Hil edo biziko **premia** bat antzeman nion esku ihar haien estutuari. [Alberto Ladrón Arana](#)

## 3 (-tzeko atzikiaren eskuinean)

Zigarroak bata bestearen atzetik erretzeko **premia**. Gauza oso ilunak adierazteko **premiak** zenbait xehetasun azaldu eta beste batzuk ezkutatuz behartzen du. [Bernardo Atxaga](#)  
Badago lasai egoteko **premia**, mesfidantza sortzen duen froga mota baten aurrean. [Andres Urrutia](#)  
Elenarekin hitz egiteko **premia** piztu zait, horretaz hitz egiteko **premia**. [Iban Zaldúa](#)  
Joan egin nahi zuen gelatik, baina bere hitz egiteko **premia** handiagoa zen. [Bernardo Atxaga](#)  
Maila berekoa da Sortzailearengandik (gorets bedi!) "esentziako" atributuak baztertzeko **premia** ere. [Xabier Kintana](#)  
Supituan, Elsbethi aurpegira begiratzeko **premia** sentitu nuen. [Anjel Lertxundi](#)  
Bestekin konpartitzeko **premia** azaleratu zitzaidan, eta irakurlearen edo, nire kasuan, entzulearen iritzia jakin nahia. [Ana Urkiza](#)  
Markoaren indarrak, 1999 arte, ez dio askorik eragin espazio-konkurrentziari [...] eta, aldi berean, enpleguak sortzeko **premia** eskasari esker, hazkunde moteldua izan ahal izan du. [Koro Navarro](#)  
Bizieta osoa pasatzen dugu amasa hartzen, amasa hartzen ari garela edo zer amasten dugun jakiteko **premiarik** gabe. [Anjel Lertxundi](#)  
Gogoa ez ezik, gorputza ere freskatzeko **premia** nekarren. [Aingeru Epaltza](#)  
Giza izaera -inoiz ulertuko ez dugun, baina ulertzeko **premia** dugun izaera hori- aztertu nahi luke artistak. [Anjel Lertxundi](#)  
Errekalorrena jo beharrean, pisura itzuli zen, Aitorrekin egoteko, hitz egiteko **premiari**. [Iban Zaldúa](#)  
Giroa berotzeko **premiarik** gabe, elkarretaratze isila egin zuten sindikatuko kideek. [Berria - Harian](#)

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Premia** ordu hartan behar zen laguna suertatu zen Euskal Herrian. [Koldo Zuazo](#)

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikusten ari ginena giza **premia** sakon baten froga iruditzen zitzaiola errepikatzen zidan. Gure heroi- **premia** asetzeko. [Bernardo Atxaga](#)  
Iruditzen zaigu gisa horretako ekimenean oinarri-oinarrian bertsolaririk gazteenen komunikazio **premia** bat dagoela. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)  
-Arrazoi duzu, atsedena- **premia** handia izango duzu hain bidaia nekagarriaren ondotik. [Jose Morales](#)  
Herrialdeak duen dibisa- **premiak** justifikatzen dezake ekoizpen defizitari bat tokiko laguntza. [Koro Navarro](#)  
Aldi horretan, metaturik, Estatu Batuen kanpoko finantza- **premia** 600.000 milioi dolarrean igo zen. Aurrezkoa gehitzeak ez baitu ekartzen nahitaez kanpoko defizita gutxitzea, eta, hortaz, ezta nazioaren finantzaketa- **premia** gutxitzea ere. [Koro Navarro](#)  
Gaztetan mediku **premia** ikaragarria izan zuenez gero [...]. [Jon Muñoz](#)  
Hala ere, unatua zen eta lo **premiari**. [Aingeru Epaltza](#)  
Ilusio "**premia**" ez baita handituz joan. [Josu Zabaleta](#)

## 6 **premia** egon

Sekula baino gehiago hitz egiten da inteligentzia emozionalaz, **premia dagoelako**. [Ana Urkiza](#)  
Uste dut **premia badagoela**, baina ez dakigu tokia dagoen. [Berria - Harian](#)  
Zer **premia egon** liteke zuhaitz askok halako hostoak edukitzeko, udazken oroz erori eta udaberrian atzera irten behar dutenak? [Juan Garzia](#)  
«Orixe gizona ezagutzeko **premia dago**» Iztuetaren iritziz. [Berria - Kultura](#)  
Horretan jarduteko, batez ere, prestaketa teknikoaren **premia dago**. [Askoren artean](#)  
Ez zekiela baimenen **premia** zegoenik. [Anjel Lertxundi](#)  
- Ez zegoen **premiarik**. [Anjel Lertxundi](#)

## 7 **premia** izan du ad

Elizarik gabeko predikari bihurtu zen, pulpituak bisitatuz eta bere bihotz handia zabalduz **premia zutenei**. [Anton Garikano](#)  
Eta **premia dutenean**, bihoaz limosna eske. Eta bada han ogirik **premia dutenezat**? [Xabier Olarra](#)  
**Premia** izan **dutenean**, kanpoko finantzaketara jo dute teknologia burutua eta bertan jarria erosteko. [Koro Navarro](#)  
Baina horretatik guztiatik guk ez **dugu** inolako **premiarik**. [Xabier Kintana](#)  
Izan ere, anaia atzerritar hauek maitasunez onartuak izateko **premia dute**. [Askoren artean](#)  
Ihes egiteko **premia dut**. [Anjel Lertxundi](#)  
Zer **premia zuten** hona etortzeko? [Monika Etxebarria](#)

## 8 (zerbait)

Zangoak ez ezik, eskuak ere **premia ditu** han-hemen, aitzina eginen badu. [Aingeru Epaltza](#)

## 9 (zerbaiten)

Herrialdeak zuen **premia du** . Mirentxu Larrañaga  
-Gure **premia din** mundu berriak, Nora... Anjel Lertxundi  
Handiak beti **du** bi txikiagoen **premia** . Jon Muñoz  
Bere azalpena bukatzeko, jende gehienak erlijioaren **premia zuela** esaten zuen. Karlos Zabala  
Nartzisismo primitiboarekin etenaren **premia du** malenkoniak. Joseba Zulaika  
Bada oraindik beste metodo bat, sistema honen aldekoek onartzen dituzten hipotesietako baten **premia duena** . Xabier Kintana  
Nazio guztiek elkarren **premia dutelarik** , maiz gertatzen da batek bestearen salerosgai asko nahi izatea, eta honek haren oso gutxi. Iñaki Iñurrieta  
Zer **premia nuen** nik erokeria honena? Koro Navarro

## 10 *premián* egon

-Ba kuartillu bat alkohol besterik ez, **premián** nago eta. Juan Garzia  
-Pentsatu dut -diost- loaldi luze baten **premián** zeundela... Joxe Austin Arrieta  
Aitortzen dut halaber ezen zure bihozberatasunaren **premián** egotea ez zela eskubide hori erdiesteko agiri bat. Jon Muñoz  
-Ba, kontua da traslado baten **premián** nagoela... -hasi zen Andoni urduri samar. Bernardo Atxaga  
Goretsia izan bedi Jainkoa, ze, Beraren eskuzabaltasunari esker kontsolatu ahal izan baitituzte ni kontsolatzeko **premián** nengoela uste zutenak. Patxi Zubizarreta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldatzeko **premia** (12); alde egiteko **premia** (4); ateratzeko **premia** (6); benetako **premia** (4); bere **premia** (15); beren **premia** (5); berritzeko **premia** (4); bilatzeko **premia** (4); diru **premia** (13); egiteko **premia** (52); egoteko **premia** (12); emateko **premia** (5); eskulan **premia** (5); garaipen **premia** (4); gehiagoren **premia** (4); gizartearen **premia** (5); gure **premia** (5); hitz egiteko **premia** (15); hobetzeko **premia** (4); ihes egiteko **premia** (4); ikasteko **premia** (4); ikusteko **premia** (5); irabazteko **premia** (18); izateko **premia** (15); joateko **premia** (5); kontatzeko **premia** (4); laguntza **premia** (13); laguntzaren **premia** (7); legearen **premia** (5); maitasun **premia** (5); nire **premia** (4)  
**premia aipatu** (9); **premia aldarrikatu** (5); **premia asetzeko** (9); **premia azpimarratu** (17); **premia badagoela** (4); **premia bizia** (5); **premia dago** (9); **premia dagoela** (15); **premia dauka** (7); **premia du** (26); **premia duela** (9)  
**premia egoera** (4); **premia gorria** (12); **premia gorriak** (4); **premia gorrian** (23); **premia guztiak** (8); **premia handia** (34); **premia handiagoa** (17); **premia handiagoa du** (4); **premia handian** (5); **premia handiko** (4); **premia handirik** (8)  
**premia ikusi** (9); **premia ikusten** (11); **premia izan** (19); **premia izan zuen** (4); **premia izanez** (10); **premia izanez gero** (9); **premia izango** (11); **premia izaten** (8); **premia larri** (6); **premia larria** (34); **premia larria du** (4); **premia larriak** (7); **premia larrian** (33); **premia larriarekin** (4); **premia larriko** (6); **premia nabarmendu** (14); **premia nabarmendu zuen** (5); **premia nagusia** (4); **premia neukan** (4); **premia nuen** (16)  
**premia sentitu** (14); **premia sentitu zuen** (4); **premia sentitzen** (24); **premia sentitzen zuen** (6); **premia sortu** (5); **premia sumatzen** (4); **premia zeukan** (9); **premia zuela** (6); **premia zuen** (12)  
**puntu premia** (38); **puntu premia handia** (5); **puntu premia larrian** (9); **puntuena premia** (4); **sentitzeko premia** (4); **sortzeko premia** (9); **urrutzeko premia** (4); **zer premia** (8); **zerbaiten premia** (9)  
**bere gorputzaren premiak** (5); **bere premiak** (5); **diru premiak** (8); **gorputzaren premiak** (8); **premiak ase** (6); **premiak asetzeko** (16); **premiak asetzen** (7); **premiak behartzen** (4); **premiak bete** (5)  
**diru premián** (7); **egiteko premián** (7); **premián aurkitzen** (5); **premián bizi** (5); **premián dago** (9); **premián daude** (5); **premián diren** (6); **premián egotea** (4); **premián gaude** (4); **premián nago** (5); **premián zeuden** (4); **puntu premián** (8)  
**puntu premiarekin** (5)  
**premiaren arabera** (6)  
**batere premiarik** (5); **egiteko premiarik** (10); **ezeren premiarik** (6); **inolako premiarik** (8); **inoren premiarik** (4); **premiarik ere ez** (6); **premiarik ez** (40); **premiarik gabe** (38); **premiarik gabeko** (4); **premiarik ikusten** (4); **premiarik izan** (10)  
**premiaraz ohartarazi** (6)  
**premiaraz arabera** (28); **premiaraz berri** (5)  
**premiaraz egokitze** (4)  
**gizarte premiatarako laguntzak** (4)

## premiadun *izond* premia duena.

Haren karitate-espiritua eta bihozberatasuna ez zen gizaki **premiadunengana** bakarrik luzatzen, baita adimengabeko animalia mutuengana ere, narrasti, hegazti eta bestelako izaki zentzudun ala zentzugabeetara. Askoren artean

## premiagabe *izond* premiari gabea.

Jainko bakar batek erraz sorraraz zezakeen existitzen den gutzia, eta orduan bigarrena gehiegizkoa eta **premiagabea** litzateke. Xabier Kintana  
Are gehiago izutu zen pentsatu zuenean zein zentzugabeki hondatu zen dena, eta krimen ergel, anker eta **premiagabe** hori egiten bazuen ere, ziur aski, dena hondatuko zela. Jose Morales  
Une horretan, txikieria nazkagarri, izugarri, **premiagabe** eta aldi berean halabarrezko hori lehergailuek hildako lagunen heriotza bera baino desatseginagoa gertatu zitzaion. Jose Morales

## 2 *premiagabeko izlag* premiagabea.

Baina, hark ezetz erantzun zion, argudiatuta epaileak aukera duela «lekuz kanpoko, **premiagabeko**, alferrikako eta bidegabeko» irizten dituen froga eskaerak atzera botatzeko. Berria - Euskal Herria

## premialdi *iz* beharraldia.

Anaia guztiek ere, **premialdi** nabaria denean, joka bezate, beharrezko gauzei dagokienez, Jaunak emango dien graziaren arabera, "premiak ez baitu legerik". Askoren artean  
Hurbil gaitzen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren onginiaren tronura, errukia iritsi eta **premialdian** laguntza izan dezagun. Elizen arteko biblia  
Jauna ihesleku gertatu da behartsuentzat, **premialdian** eta larrialdian laguntza. Askoren artean  
Honelako egitasmo marduletan gertatu ohi denez, **premialdian** behar diren laguntza premiatsuak jaso ditugu. Askoren artean

## premiamendu *iz* hertsadura.

Iruadiaren izaeraren alderdia da, denborazkoa izatea ala ez izatea; eta beharkizun edo **premiamendu** gisa azaltzen da. Josu Zabaleta  
Seta gozo bateko eta barne **premiamenduzko** gizona zen nire aita. Josu Zabaleta  
Ez ahal diok abegi hotza egingo gure errege-agindua honi, zeinak argi eta garbi baitu xedatzen, hartarako **premiamendu** -gutun zehatz-mehatze, heriotza emateko ber-bertan Hamleti. Juan Garzia

## premiatasun *iz* premia.

Kontzilioari jarraikiz, ekitaldi hunen helburua da Elizaren iragarpenaren alde ihardun duten taldeen lana baliostatzea eta lan horren **premiatasuna** erakustea. Herria

## premiatsu *izond* premia handikoa.

Hori enetzat gauza **premiatsua** da. **Menane Oxandabaratz**

Hainbat «behar **premiatsu**» sumatu dituztela adierazi zuen Erkiziak: erasoei aurre egiteko ahultasuna, nazio instituzio gabezia eta abar. **Berria - Euskal Herria**

Iragan astun horren petik askatzeko, kultura da zereginik **premiatsuen**a. **Joxe Azurmendi**

Bazuten bederen gure arrazoinamendu eta argumentuek arrazoi **premiatsurik**? **Piarres Aintziart**

Orain **premiatsua** Espainiaren esentzia salbatzea dela. **Joxe Azurmendi**

Bestalde, gauza guziz **premiatsua**, euskaraz mintzatzen jakin beharko zuten. **Elena Touyarou**

Holako garaipen ttipiak biziki **premiatsuak** dira bakartasunean irauteko. **Filipe Bidart**

-Bisitak abiatu aitzin, gauzarik **premiatsuenak** finkatu behar ditugu. **Daniel Landart**

## premiatsuki *adlag* era premiatsuan; premiaz.

Etnozentrismoaren behar-beharrezko zuzenketa bat izan zen erlatibismoa gure mendearen lehen erdian; baina, batzuen ustez, "zuzenketaren zuzenketa da orain

**premiatsuki** beharra dagoena". **Joxe Azurmendi**

## premiatu, premia(tu), premiatzen du *ad* behartu, hertsatu.

-Galde egiozu orain **premiatu** zuen isilka Ronek Harry. **Iñaki Mendiguren**

Sabetek adierazi zidan (nik hartara **premiatu** gabe) berak ere nahi lukeela makina-aretoa bisitatu, nirekin. **Joxe Austin Arrieta**

-Tira, gau osoa hemen igaro nahi duzu? -argi eta garbi hitz egitera **premiatu** zuen Maizak. **Migel Angel Mintegi**

**Premiatuta**, gelditzeko eskatu nion keinuka. **Aingeru Epaltza**

Gero, inork gosaria bukatu baino lehen, lehenbailehen zelaira joateko **premiatu** zituen, hango egoeraz jabe zitezen. **Iñaki Mendiguren**

Museoko zuzendaria **premiatu** zuen, argitu dezan kopiak bertan diren ala ez. **Berria - Kultura**

Goiz batez, obramenduetarako **premiatu** zelarik, erizain bati deitu zion komunera eraman zezan. **Anjel Lertxundi**

## premiatzko 1 *izlag* premia duena.

Esan bezala, gauean **premiatzko** agindu guztiak emanik, oso goiz esnatu zen biharamunean. **Jose Morales**

Pobrezia murriztarazteko nazioen artean behar den **premiatzko** eta ezinbesteko ituna. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Premiatzko** erosketak eta gainerako prestaketak egiteko orduan. **Anton Garikano**

**Premiatzko** batzarrera deitu zituzten lurraldeetako buruak, Busturian bertan zegoen Gernika herrira. berorren anaiaren **premiatzko** mezua dakart. **Joanes Urkixo**

Gizon betegina bera ere [...] **premiatzko** zeregin horietan murgiltzen bada, eta are arrazoi handiagoz, **premiatzkoak** izan ez arren irrikaz desiratzen dituenean, espekulaziorako nahiak ahuldu eta beharretako zaizkio. **Xabier Kintana**

Etzerako **premiatzko** gauzak erosit. **Mirentxu Larrañaga**

Baina azken orduko arazo **premiatzko** bat sortu da, ustekabean. jendeak zeregin **premiatzkoagoak** dituelako gaur egun, gaixoezin egotea baino. **Jon Alonso**

Itsusia da, badaki, baina **premiatzkoa**. **Iban Zaldúa**

Jendearentzat **premiatzkoak** diren gauzak Gizabanakoak, haren ustez, bizitzearen zientzia du guztietan **premiatzkoena**. **Santiago Iruretagoiena**

Eskupeko diru zikinak onartzeko joera arbuigarri hori ezinbesteko eta **premiatzko** bilakatu da guztiontzat. **Jose Morales**

**Premiatzkoa** da, hala esan ohi da behinik behin, ondo konpontzen ez diren senar-emazteei laguntza ematea. **Andres Urrutia**

Etzerako **premiatzkoak** ziren gauza materialen harrapatzaile suharra. **Itxaro Borda**

Haren egoera tamalgarriaren berri jakinik, dirua bildu zuten guztien artean, **premiatzko** zitzaizkien gauza asko saldurik. **Jose Morales**

Hain **premiatzkoa** zara niretzat! **Mirentxu Larrañaga**

Askoz **premiatzkoagoa** zen Fionnen gorputza ezkatzea, Gol eta Luth itzuli aurretik. **Joanes Urkixo**

### 2 *premiatzko izan* du *ad*

Hiri batek garaizko elikagai-hornidura bezain **premiatzko ditu** esamesak. **Jose Morales**

Anaia Platonek **premiatzko dik** jendea, mundua eta bizitza ezagutzea. **Jose Morales**

Horretarako **premiatzko zituela** aitzakiak, arrazoi xume baina sinesgarriak, errezelarik sortu nahi ez bazuen. **Karlos Linazasoro**

**Premiatzko dituen** objektu guztien erabilera. **Ibon Uribarri**

Hautatu genuen bidean adore emateko, bide horren arriskuez eta oztipo-segidez ohartarazi eta hain **premiatzko genuen** maltzur-jakitiaren jabe egiteko. **Juan Garzia**

-Herrialde nagusien arteko oreka da mundu-ekonomia kapitalistaren ezaugarri nagusietako bat, kapitalismoak, aldi berean, iraungo badu, **premiatzkoa duena**. **Koro Navarro**

Zeinen **premiatzkoa duen** gizakiak Egiaren bilaketa. **Imanol Unzuurrungaga**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Oxigenoak betetzen dakien eginkizun bizi-**premiatzko** zein suntsitzaile askotarikoen artean, guri bernizginoi bat interesatzen zaigu oroz gainera: [...]. **Juan Garzia**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**premiatzko agerraldia** (3); **premiatzko bihurtu** (3); **premiatzko bilera** (39); **premiatzko bilera bat** (5); **premiatzko bilera deitu** (4); **premiatzko bilera egin** (14); **premiatzko bilera egingo** (4); **premiatzko bilera eskatu** (4); **premiatzko bilerara** (3); **premiatzko diru** (3); **premiatzko diru laguntza** (3); **premiatzko ebakuntza** (6); **premiatzko ebakuntza egin** (4); **premiatzko eta ezinbesteko** (3); **premiatzko gauzak** (3); **premiatzko helburua** (3); **premiatzko laguntza** (9); **premiatzko lehentasuna** (4); **premiatzko prozedura** (4); **premiatzko prozedura erabili** (3)

**gutziz premiatzkoa** (3); **hain premiatzkoa** (3); **oso premiatzkoa** (4); **premiatzkoa bada** (5); **premiatzkoa da** (42); **premiatzkoa dela** (26); **premiatzkoa dela adierazi** (3); **premiatzkoa du** (6); **premiatzkoa dugu** (3); **premiatzkoa iritzi** (7); **premiatzkoa iritzi zion** (4)

**gero eta premiatzkoagoa** (3)

**premiatzkotzat jo** (11); **premiatzkotzat jo zuen** (5); **premiatzkotzat jotzen** (3)

## premiatzkotasun *iz* premiatzko denaren nolakotasuna.

Beren ustez, curriculumak ez du genero berdintasuna helburutzat jartzen, ezta hezkidetzako curriculum baten **premiatzkotasuna** azaltzen ere. **Berria - Euskal Herria**

Romanoren tortura salaketa artxibatzeak eta, gainera, torturak salatzeagatik Guardia Zibilak bere kontra kereila jarriko duela iragartzeak **premiatzkotasuna** justifikatzen duela irizita. **Berria - Euskal Herria**

## premiership *iz* Ingalaterrako errugbi txapelketa nagusiari ematen zaio izena.

Atsedenean arreta galdu dute jokalariek, erlaxatu egin dira eta **Premiership**-ean ezin dugu halakorik egin. **Berria - Kirola**

## premina ik premia.

## premio iz saria.

Utzi zuen eta **premio** bezala amona beltzaren bixita. **Bernardo Atxaga**

Egoera paradoxala zen, ikastea maite nuen, **premioak** ere irabazten nituen anitzetan, baina zorigaitzez, eskolara joateak berak beldurra ematen zidan, irakasle horrek ikarutzen baininduen. **Ana Urkiza**

Sortu ginela bizitzeko, bizi girela hiltzeko, hilen girela jutiaki izaiteko eta izanen girela jutiaki betiko **premioa** (saria) edo punimendia (zigorra) Jainkoaren eskutik errezebitzeko gure obra onen edo gaixoen konformitatera. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## premisia 1 iz argudioen abiapuntutzat hartzen den perpausa edo perpaus multzoa.

Logikaren oinarria silogismoa da: **premisia** nagusia, bigarren **premisia** eta ondorio batez osatzen da. **Xabier Olarra**

**Premisia** nagusia: hirurogei gizonek lan bat gizon batek baino hirurogei aldiz azkarrago egin dezakete. **Xabier Olarra**

**Premisetatik** atera diren dedukzioak logikoak eta zorrotzak dira; baina **premisia** horiek, bi puntutan behinik behin, behaketa okerretan oinarritzen dira. **Koro Navarro**

Orain ikusten dugu aurrerapenaren doktrina zenbait **premisia** faltsutan oinarritua zegoela. **Iñaki Mendiguren**

Silogismo hori zuzena da; ezin ditugu zalantzan jarri lehenengo bi **premisak**. **Askoren artean**

Hogeita sei **premisotan** oinarriturik, Jainkoaren existentzia eta haren ezaugarri kardinalak, bakartasuna eta gorpuzgabetasuna, frogatuko ditugu. **Xabier Kintana**

Logikan edo matematikan, zuzena da esatea dedukziozko argudio batean ondorioa **premisetatik** lortzen dela modu biribilean; beraz, ezin da ondorioa ukatu **premisak** onartzen diren bitartean. **Askoren artean**

Humeren ustez, indukziozko **premisak** eta ondorioak bi proposizio-mota oso desberdinak dira. **Askoren artean**

## 2 irud/hed

Gero ikusiko dugu nola arimaren hilezkortasuna izanen den Jakinduria lortzeko funtsezko **premisetako** bat. **Imanol Unzurrunzaga**

**Premisa** hori ez da 18/98 makrosumarioan betetzen. **Berria** - Euskal Herria

Sistema kapitalista edo merkatu-ekonomia hiru **premisia** handitan oinarritzen da: ekoizpen baliabideen jabe go pribatua, merkatu askatasuna eta enpresa askatasuna. **Iñaki Heras**

Ekuazioa industriaren **premisia** batean oinarritzen da. **Berria** - Harian

Gombrich ez da jarrera hori duen bakarra: beste batzuek ere, oso **premisia** desberdinetatik abiatuak sarritan, hurbilpen analitikoak osatu dituzte. **Josu Zabaleta**

Jokoarena **premisia** jakina da: gozatu nahi duenak lehenik arriskatu egin behar du, sufritzeko prest egon. **Joseba Zulaika**

Gorenak badaki legea zergatik eta zertarako aldatu zen; beraz, ezin du proiektuaren aldeko sententziarik plazaratu aurrez onartu duen **premisia** horren kontra egin gabe. **Eduarne Elizondo**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi premisa** (3); **bigarren premisa** (5)

**premisak egiazkoak** (3)

## premodernia iz moderniaurreko aroa.

Hau da, maite ditzakezu Santimamiñeko zalditxoak baina baita Jeff Koonsen zakur loratua ere, Chillidaren haize-orrizi heroikoak eta era berean Schanabel-en kitcha, **premodernia** eta posmodernia aldi berean. **Joseba Zulaika**

## premoderno izonk erdi Aroko pentsamenduari dagokiona.

Azken batean, heroismo **premodernoa** da hori: subjektuak guztia arriskatzen du Kausagatik. **Joseba Zulaika**

Hots, ez hiritarra, edo, azken finean, ez modernoa, **premodernoa**. **Koldo Izagirre**

Horrela, Japonian paradisu **premoderno** bat aurkitzeko asmotan dabilzananen exotizismoa indartzen da. **Ibon Urbarri**

## premonitorio izond premonizioarena, premonizioari dagokiona. ik premonizio 2.

Kontzientziak igortzen dion gaztigu **premonitorio** hau ez duela ahaztuko agintzen dio bere buruari. **Jon Alonso**

Eta, osabaren hitzak **premonitorioak** balira bezala, gertatu beharrekoak gertatu zen berant gabe, handik hiruzpalau egunetarat: tigrearen ihesa. **Joan Mari Irigoien**

## premonizino ik premonizio.

## premonizio (orobat premonizino g. er.) 1 iz etorkizun den zerbait iragartzen duen bihozkada.

Urte mordoxka lehenago, 1933an, **premonizio**, profetia, aurreikuspen logiko edo dena delako zerbait egin zuen Eli Gallastegi *Gudari*-k: "Espainiak autonomia zabal bat emango die egunen batean Kataluniari, Galiziar..." **Jokin Urain**

**Premonizio** moduko batek eraginda, albo batera bota zuen gorputza, eta une berean norbaitek arroka baten gainetik saltatu eta, bera egondako lekuan bertan josi zuen ezpata lurrean. **Joanes Urkixo**

Azkenean, baietza lortu eben eta Rufinoren **premonizinoa** bete egin ei zan. **Xabier Amuriza**

Tarte horiek Lorraine pertsonaia narkoleptikoak dituen ametsen bidez lotzen dituzte, eta, onirikoak izanik ere, kanpoko errealitatean gertatzen ari denaren erretratua egiten dute, kasik **premonizio** gisa. **Berria** - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik premonitorio.

Kontakizun labur honi **premonizio** balioa eman izan zaio, Roth bere eskuz idazteko gauza ez zela eta heriotza hurbil zuela somatuz idatzia baitirudi. **Matias Mujika**

## premonstratense izond San Norbertok sorturiko erregelapeko kalonjeen ordenakoa.

Ursperg-eko Burkardo (1230 †) **premonstratensearen** *Kronika*. **Askoren artean**



**premu** (*45 agerraldi, 17 liburu eta 5 artikulutan; orobat **primu** 17 agerraldi, 4 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **premu** agertzen da*) **1** iz oinordekoa; seme edo alaba nagusia. ik **prima**<sup>4</sup>.

Gabriela Lohitegi eta Piarres Irigarai familia aberatsetako **premuak** ziren eta haien arteko ezkontza zegokien mailakoa izan zen. Martin Anso  
Gehexan Jaureneak dena uzten zion Xan semeari, **premuari**, amaz eta arreba Enrietaz arte hartzeko baldintzarekin. Elena Touyaru  
1706eko apirilaren 18an Herriko **premuek**, usaia zuten bezala, beren biltzar nagusia Anhauze elizako kalostrepean egin zutela. Michel Oronoz  
Bazkak zirela eta, gatazkak sortzen ziren etxeko **premu** eta han ibiltzen ziren artzainen artean. Michel Oronoz  
Hauxe andre mindulina bilakatu den Traputegiko **premu**! Itxaro Borda  
Tenorez etorri zen **premu** berria dinastiari segida ematera. Aingeru Epaltza  
Aitak, **premuari** dagokion sortzeko parte eman ordez, semea doterik gabe utzi eta galeretarako salduko du. Anjel Lertxundi  
Gazte sasoiokak, nekeari eta tiroei bizkarra erakutsiko ez dietenak, horrelako jendea behar du beti gerrak, **premu** izan edo ez. Anjel Lertxundi  
Hura zen **primua** eta herederoa, eta ni kateko bigarrena. Joan Mari Irigoien  
**Premu** nintzen, eta etxeko segida hartu beharra. Piarres Aintziart

## 2 (izenondo gisa)

Diru-poxi onak eta ohoreak eskaini omen zizkion seme **premu**a gerrara bidaltzearen truke. Anjel Lertxundi  
Eta aitak goizero-goizero agurtzen zuen, irria ezpainetan, seme **primuaz** ezin harroago. Joan Mari Irigoien

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zin egin zion Esauk eta **premu**-eskubidea saldu zion Jakobi. Jose Antonio Mujika  
Ez du gerratik bueltatzerakoan **premu**-dotea jasotzeko esperantza galdu. Anjel Lertxundi  
Plumagaineo **premu** gazteak, ordea, urrutiko gerra bat baino asmo xehe hurbilagokoak ditu, eta aitarengana joan da bere **premu**-partea eskatzera. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**premu eskubidea** (6)

**plumagaineo premua** (3)

**etxeko primu** (3); **primu eta heredero** (3)

**premutasun** (*orobat **primutasun**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **premu** agertzen da*) iz oinordekotza.

Beraz, Jazinto semetzako hartua zuten, eta bere senideordekoen adinari erreparatzen badiogu **premutzako**, maiorazkotzako hartua izan zela pentsa genezake. Koldo Izagirre

**premutza** iz oinordekotza.

Beraz, Jazinto semetzako hartua zuten, eta bere senideordekoen adinari erreparatzen badiogu **premutzako**, maiorazkotzako hartua izan zela pentsa genezake. Koldo Izagirre

**prenazionalista** *izond* nazionalismoaren aurrekoa.

Askotan kritikoa zorrotz horiek euskaldunen XIX. mendeko mito erromantikotzat eta euskaldun nazionalisten edo **prenazionalisten** tipikotzat jotzen dituzte, gutxienez jada Erdi Aroan, baina batez ere Ernazimentutik hara eta ilustrazioan bertan Europa guztian arruntik arruntak izan diren kontakizun historikoak. Koldo Izagirre

**prenda** *1* iz jantzi-pieza.

Nire arropa zuriarekin nahasian arkitu izan ditut bere musuzapi niriñoak edo kolore desberdinetako bragak, Monikak **prenda** hori etengabe aldatzeko ohitura baitzuen, umorearen arabera beharbada, zuriak goizetan edo beltzak gauez ateratzen ginenean. Joxean Agirre  
Azkenengo **prenda** kendu zuenean -leopardo larruzko tanga bat-, irrikaz beterik ikusi genuen zakil tente eta kulunkari bat guregana apuntatzen. Juan Martin Elexpuru  
Ohe deseginaren gainean, ukitzeak ere erreparoa ematen duen **prendaren** bat edo beste ikus zitekeen. Joxean Agirre  
**Prenda** hau, nire bularretakoa alegia, lurrean eta denon begi bistan agertu zen arte. Josetxo Azkona

## 2 bahia.

**Prenda** bat, edo bestela egia esan egingo dizuten galderai. Xabier Mendiguren Elizegi  
"Egia", esan du Potoloak etsita, **prenda** gisa edozer zerrikeria agindu diezaioketela-eta. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 (hitz elkartuetan)

Eguberrietan, etxez etxe eskean ibiltzekoan ere, **prenda**-jokoak eta beste jolasak egiteko usadioak zituzten, gabon-kantetan biltzen zirenak. Pello Zabala  
Batzuetan, ni baino lehen altxatu eta bere egitekoetara joaten zelarrik, **prenda** lorratz bat utzi ohi zuen pasilloan barrena. Joxean Agirre

## 4 bihotzeko prenda

Esku laztantsu bat harengana jaso orduko, Lutezia, nire **bihotzeko prenda**, aurpegian joka hasi zitzaidan bi ukabilekin. Matías Múgica  
Ez nuen pentsatzen nire **bihotzeko prendari** gezurrik lotsagarri, zital, narrasena esan nizkiola nireganatzeko. Matías Múgica

**prendatu**, prenda(tu), prendatzen da *ad* liluratu, maitemindu

Eta irudi horrekin **prendaturik**, beste hau ere bai, dotore asko adierazia: Eta hainbeste apirillen erdian, zu bakarrik izango zera maiatza. Pello Zabala

prentsa ik **prentsa**.

**prentsa** (*orobat **prentsa g.er.***) **1** iz bere bi zatiren artean hainbat gauza sakatzeko prestatua dagoen tresna. ik **prentsagailu; dolare**.

Berdin, gurdí, lau gurpileko kotxe, danbor, gurpil, koklea, eskorpioi, balezta, **prentsa** eta gainerako makinaren kasuan ere. Santiago Iruretagoiena  
Metal preziaturik ez dutenez, ez eta lurrinezko **prentsa**, laminagailu eta sufre-azidorik, altxor-dirurik txanpontzeko, onenean besteek altxor baten lekua seinala diezaiaketen. Juan Garzia  
G1 motako **prentsa** automatikoen linea bat eta **prentsa** hidraulikoen beste bat entregatu dizkiote Poloniako Gestamp taldeari MCC taldeko Fagor Arrasate eta Ona Pres



kooperatibek. [Berria - Ekonomia](#)

Bi [prentsa](#) jarri behar badira leku horretan, hogeita lau oin emango zaizkio zabalean. [Santiago Iruretagoiena](#)

Asaldatzen zenean, mekanismo baten indar eta zehaztasunarekin hasten zen lanean, [prentsa](#) hidrauliko baten antza hartzen zuen, eta [prentsa](#) horrek, poliki-poliki jaitsiz, hariak birrintzen zituen, burdinazko habeak okertzen zituen, azpian erortzen zen jendea zapaltzen zuen, axolagabeki, astiro eta geldiezin. [Jose Morales](#)

## 2 aldizkarien multzoa; aldizkarien inguruko erakundeen multzoa.

Telebistak, [prentsak](#), mundu mediatiakoak tiratzen nau. [Jon Alonso](#)

[Prentsa](#) ere bazegoen etxe hartan, Bordelekoa. [Txillardegi](#)

[Prentsa](#) saltzen duen papertegia. [Txillardegi](#)

[Prentsak](#) dakartzan albisteen harira. [Joxerra Garzia](#)

Txinako [prentsak](#) atzo zabaldu zuenez, herrialdearen lurren %30 euri azidoak jota daude eta urak kutsaturik daude proportzio berean. [Berria - Gaiak](#)

Agintariek ez zuten ezer esan eta [prentsak](#) ez zuten ezer atera. [Rafa Egiguren](#)

Dirudianeaz, eta hala dio [prentsak](#), elgarren bete izan dira, nehork ez du irabazi. [Herria](#)

Bezperako [prentsa](#) banatu digute irakurtzen genekieno. -Ikusi al duk gaurko [prentsa](#)? [Txillardegi](#)

[Prentsak](#) kaleko edozeinek ez duen erantzukizuna du. [Iñigo Aranbarri](#)

[Prentsa](#) alde izango diat. [Lopez de Arana](#)

[Prentsako](#) erreseinen funtzio duin baina txepela gainditu egiten du. [Markos Zapiain](#)

[Prentsako](#) morroi horietakoren bat zinela uste nuen. [Koldo Izagirre](#)

[Prentsako](#) lehen orrialdean eta albistegietako sumarioan agertzea. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Gelara sartu baino lehentxeago ikusi zuen [prentsako](#) argazki batean. [Josexo Azkona](#)

Jende gehienari azken batean bost inporta zaiola herrietako euskal [prentsa](#). [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kableak mozteagatik lau urteko eta hamar hilabeteko zigorra jaso zuten solidarioek [prentsaren](#) aurrean agerraldia egin zuten Euskal Herrian. [Eduarne Elizondo](#)

Edonork izan behar luke [prentsako](#) futbol albiste bat irakurtzeko gauza. [Koldo Zuazo](#)

## 3 (izenondo eta izenkagunekin)

Hona gaur egungo [prentsa](#) idatziaren ezaugarrietako bat. [Iñigo Aranbarri](#)

Igandeko [prentsari](#), Kristina eta bion bahituraren berri ez zen inon ageri. [Aingeru Epaltza](#)

Hiru asteren buruan, inor gutxi gogoratuko da tokiko [prentsari](#) komentario labur batzuk ere merezi izan dituen istiluaz. [Iban Zaldúa](#)

Badugu zer pentsatua erregistroen gainean [prentsa](#) heldua nahi badugu. [Iñigo Aranbarri](#)

[Prentsa](#) espezializatuak dienez, Gortarik bere buruan gordetzen zituen mamu-itzalak plazaratu ditu oraingo honetan. [Patxi Iturritegi](#)

[Prentsa](#) sentsazionalista zein kalitatezkoak, eskuinekoak zein laboristak, den-denek kritikatu zuten oso gogor Blair-en jokamoldea. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Demokraziaren eragina hezkuntzan, [prentsa](#) horiaren eta diktadura faxisten sorrerak argitzen duen bezala. [Iñaki Mendiguren](#)

Frantziako [prentsa](#) zibilaren sorrerako izen haiek, idazlez osatutako erredakzioak: Maupassant, Dumas, Zola... [Iñigo Aranbarri](#)

Franses [prentsari](#) edo franses irrati-telebixtetan frantsesek bakarrik merezi dituzte laudorioak. [Herria](#)

Lasaia sentiitu duzu zeure burua, horren den eskandaluzkoa hil honetako [prentsa](#) britainiarra. [Lutxo Egia](#)

Ordu erdi inguru pasatu dut galeria batzuetako gelatxo baten, nazioarteko [prentsari](#) arakutzen. [Jon Arretxe](#)

[Prentsa](#) digitalak izugarri egin du gora mundu osoan. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Asaldura atxiki ahala atxikiz, mutur aitzinean ezarri nion [prentsa](#) -agiria. [Aingeru Epaltza](#)

AFP agentziako [prentsa](#) oharrak. [Iñigo Aranbarri](#)

Han, azken egunetako [prentsa](#) ebakinak zeuden, orri zurietan itsatsiak. [Aingeru Epaltza](#)

Barruan, egunkari horietako batetik hartutako [prentsa](#) -adabaki bat zegoen. [Karlos Zabala](#)

[Prentsa](#) orri moztuak zeuden txintxetaz josita. [Joxemari Iturralde](#)

*Culture of lies* (Gezurren kultura), izeneko liburuan bildurik dira Dubraukaren [prentsa](#) -artikuluak. [Edorta Jimenez](#)

Su-etena eta giroa sendotu ahala, [prentsa](#) dosierak naroago etorriko zaizkigu. [Iñigo Aranbarri](#)

Turistenen antza dute [prentsa](#) argazkiek. [Iñigo Aranbarri](#)

Beste politikari baten [prentsa](#) -agerraldiaren segundo batzuk eskaini dituzte ondoren. [Lutxo Egia](#)

Interpretatzeko aukera moztu eta era bakar batean ulertzeko ematen da [prentsa](#) -narrazioa. [Iñigo Aranbarri](#)

Condor legioak Gernika bonbardatu zuelarik, Frantziako Havas [prentsa](#) agentzia izan zen suntsiketaren inguruko gezurra Europan barrera zabaldu zuena. [Iñigo Aranbarri](#)

Hurbil zegoen [prentsa](#) -kiosko baterantz. [Josexo Azkona](#)

Politikarien [prentsa](#) bulegoetan. [Iñigo Aranbarri](#)

[Prentsa](#) -gelan ikusminaren zantzuak airean. [Jose Angel Irigaray](#)

-Gaur goizean ikusi diat Bolin [prentsa](#) -arduradun nagusia. [Lutxo Egia](#)

1985 eta 1995aren artean 600 [prentsa](#) kazetari hil zituzten. [Pello Salaburu](#)

Hainbat [prentsa](#) langile ere, hala dabil, hori duela begiko fitsa. [Iñigo Aranbarri](#)

Helburu askoren mendean egon da, eta dago, [prentsa](#) argazkilaritza. [Iñigo Aranbarri](#)

Gizakietan hiruko bat, 2.000 milioi lagun, [prentsa](#) askatasunik ez den herrietan bizi da. [Pello Salaburu](#)

Hilabete guziez [prentsa](#) tokietan aurkitzen ahalko du hemendik harat. [Herria](#)

Ipar-Euskal-Herriko [prentsa](#) -elkartearen gerizapean. [Herria](#)

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Usua goa da erregio [prentsa](#), izararen besteko lau-bost-sei plegu, Frantziatik nazioartera eta kiroletatik iragarkietara, txokokerian barna. [Iñigo Aranbarri](#)

"Herri [prentsako](#)" langilea. [Iñigo Aranbarri](#)

Beraiek gure kontra borrokatzeko aholkuak irakurtzen dituzten bitartean guk kirol [prentsa](#) irakurtzen ematen dugu denbora. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

## 6 *prentsa aurreko* ik *prentsaurreko*.

## 7 *prentsa bidez* prentsaren bitartez.

[Prentsa bidez](#) ikasten nuena. [Txillardegi](#)

Jean Grenet eta Didier Boroira hautetsiek [prentsa bidez](#) jakin dute aldaera horren berri. [Herria](#)

[Prentsa bidez](#) bakarrik; eta eskutitz publiko batez agurtu nuen Zeruko Argia astearian: Andolin Eguzkitzari erantzunez. [Berria - Kultura](#)

## 8 *prentsa buru* ik *prentsaburu*.

## 9 *prentsa ona izan* du *ad* prentsak ongi tratatu.

New Yorken [prentsa](#) ona dute hala ere clintondarrek. [Harkaitz Cano](#)

Kontserbatismoak ez du [prentsa](#) onegirik (ez zuen behintzat oraintsu arte). [Joxe Azurmendi](#)

anoetako prentsa aretoan (4); azken prentsa agerraldia (4); azken prentsa (5); euskal herriko prentsa (5); euskal prentsa (12); euskarzko prentsa (16); frantziako prentsa (4); igorri prentsa oharrean (5); igorritako prentsa ohar (7); igorritako prentsa oharrek (6); igorritako prentsa oharrean (14); interneteko prentsa askatasuna (5); kaleratutako prentsa ohar (5); kaleratutako prentsa oharrek (4)

prentsa agentzia (5); prentsa ageri (5); prentsa agerraldia (6); prentsa agerraldia (12); prentsa agerraldia egin (4); prentsa agerraldian (11); prentsa agiri (19); prentsa agiri baten (11); prentsa arduradun (7); prentsa arduraduna (8); prentsa arduradunak (11); prentsa arduradunari (4); prentsa aretoa (5); prentsa aretoan (41); prentsa aretora (4); prentsa argazkilari (5); prentsa artikulu (7); prentsa askatasuna (27); prentsa askatasunaren (21); prentsa aurrean (5)

prentsa bidez (7); prentsa bildu dute (4); prentsa bulegoak (6); prentsa bulegoan (4); prentsa bulegoko (4); prentsa bulegotik (6)

prentsa elkarteak (4); prentsa guztia (4); prentsa idatzia (11); prentsa idatziak (12); prentsa idatzian (11); prentsa idatziaren (5); prentsa idatziari (8); prentsa irakurtzen (5)

prentsa ohar (270); prentsa ohar bat (7); prentsa ohar batean (89); prentsa ohar baten (141); prentsa ohar batez (4); prentsa ohar bidez (15); prentsa oharra (41); prentsa oharra igorri (4); prentsa oharra kaleratu (9); prentsa oharra plazaratu (10); prentsa oharrek (34); prentsa oharrek dioenez (6); prentsa oharrean (16); prentsa oharrean arabera (4); prentsa oharrean bitartez (7); prentsa oharrean (107); prentsa oharrean adierazi (12); prentsa orri (4)

zabaldutako prentsa (6); zubietako prentsa aretoan (5)

espaniako prentsak (6); euskal prentsak (12); euskarzko prentsak (4); frantziako prentsak (5); nazioarteko prentsak (7)

euskal prentsako (4)

eguneroko prentsan (6); euskal prentsan (10); prentsan agertu (6); prentsan agertutako (6); prentsan argitaratu (4); prentsan irakurri (5)

euskal prentsaren (19); euskal prentsaren lanak (11); euskarzko prentsaren (8); prentsaren aitzinean (17); prentsaren arabera (19); prentsaren arreta (4); prentsaren aurrean (59); prentsaren aurrean agertu (8); prentsaren aurrean egindako (6); prentsaren aurrean eginiko (5); prentsaren aurreko (15); prentsaren aurreko agerraldia (11); prentsaren aurrera (7); prentsaren bidez (22); prentsaren bidez izan (4); prentsaren bidez jakin (9); prentsaren bitartez (7); prentsaren lanak (11); washingtongo prentsaren (4)

prentsaurreko ik **prentsaurreko**.

**prentsabide** *iz* prentsa hedabidea.

Haatik gostatzen ere zaizkie horiek oro, ixilean eta **prentsabideak** baztertuz egiten baitira lan horietarik ainitz. **Herria**

Hedabide eta komunikabideeri Eusko Jaurlaritzak emanen dituen laguntzetan apaltze bat 300.000 eurokoa agertu baita azken erabakietan, asaldatu dira hegoaldeko **prentsabideak** eta beren ezin ulertzea jakinarazi ere. **Herria**

**prentsaburu** (*orobat prentsa buru*) *iz* erakunde baten prentsarekiko harremanetarako burua.

Gerry Adamsen ondoan, Richard McAuley **prentsaburua**. **Berria - Harian**

Chavezek bi **prentsa buru** dauzka: bata zibila, Juan Barreto hau, eta bestea militarra, Lisber Berrios tenientea, emakume fina. **Pako Aristi**

«Ezinezkoa da bi asoziazioen artean prezio akordio batera iristea; legez kanpo dago», esan du Unespako **prentsa buruak**. **Berria - Ekonomia**

**prentsagailu** *iz* prentsatzeko gailua.

Adierazi zidan ez zegoela betarik halako sotilkerietarako: aurrera erauzkinekin, nahiz hala--hola eginak izan, ur beroz eta **prentsagailuz**, eta gero huspean kontzentratuak: untxiei hestegorriraino zintzurreratu, eta haien gluzemia neurtu. **Juan Garzia**

**prentsaintzineko** *iz* prentsaurrekoa.

**Prenstaintzineko** baten karietara, HEMEN-en arduradunek jakin arazten dute BAB eskualdean bertze bi CLEFE-en sortzeko xedea. **Herria**

**prentsaondo** *iz*

-Zer prentsa eta zer **prentsaondo** ...! **Lopez de Arana**

**prentsatu**, prentsa(tu), prentsatzten **1 du ad** prentsaz zapaldu.

Dolarea erakutsi zioten Andresi: antzinako modukoa, **prentsatzeko** hagarekin, zapaltzaileek oinetan janzten dituzten zurezko eta espartzuzko txinelekin, eta haiek lotzeko lotailuekin. **Josu Zabaleta**

Molotov koktelekin batera bolbora **prentsaturua** bota zutelako eraikinaren aurreko aldean. Belarrondoko bizarrak luzeak eta zuzen-zuzenak ziren; ilea, orrazkera, sudurra, ezpainak, kokotsa..., bazirudiren **prentsaturik** eduki zuela dena ordu arte. **Berria - Euskal Herria**

Bazirudien eraikin erraldoi haiek **prentsatu** egin behar zutela, baina lasai zegoen gizona, irribarretsu **Iñaki Zabaleta**

**2 prentsa-prentsa egin**

Belarra kargatu, **prentsa-prentsa** eginda, eta etxera. **Joxean Sagatzizabal**

**prentsaurre** *iz* prentsaurrekoa.

Haize firin batek eramaten zituen hitzori hariak suhiltzaileak zeuden tokira, ustekabeko **prentsaurrea** gertatzen ari zen tokitik hogeit bat metrora. **Jon Alonso**

Georgiako Defentsa ministroak **prentsaurrean** azaldu zuenez, indar hau «Errusiatik heldutako 15 edo 20 mertzenariok osatzen dute». **Berria - Mundua**

Patxi Izko Osasunako presidenteak **prentsaurrea** eskaini zuen. **Berria - Kirola**

Donostian ohikoa ez den kazetari multzo handiak egin zion harrera New Yorkeko argazkilaritari atzo eman zuen **prentsaurrean**. **Berria - Kultura**

Popularrei «makillajea» kentzeko tenorea iritsi dela esan zuen Errok atzo zerrenda osoa aurkezterako eskaini zuen **prentsaurrean**. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**prentsaurrean aurkeztu** (3)

**prentsaurreko** (*orobat prentsa aurreko eta prentsaurreko g.er.*) *iz* pertsona edo talde batek kazetariekin egiten duen bilera, zerbaiten berri emateko edo haien galderei erantzuteko.

Ismael Hurtado Soucre jeneral eta Defentsako Ministroa agertu zen **prentsaurreko** batean koronel ospetsu baten suizidioaren berri emateko. **Pako Aristi**

**Prenstsaurrekoan** esango ditugu denok esatekoak, bihar. **Koldo Izagirre**

Frente Institucional Militar, FIM delakoak **prentsaurrekoa** eman zuen. **Pako Aristi**

Lehenago batean banangoen horietako jauregi eder batean, gure agintariak euren **prentsaurrekoak** egiteko hautatzen dituztenetako batean. **Hasier Etxeberria**

"Gure borroka aitzina segituko da!" hitzekin bururatu zuen **prentsaurrekoa** elkarteko boz eramaileak. **Itxaro Borda**

Hamar bat lagunek, denek beren aurpegia gorderik muntatu **prentsaurreko** batean. **Herria**

Urriaren 15an Filiperen galdea sustengatzeko kanpaña bat abiatuko dugu **prentsaurreko** baten bidez. **Herria**

Engungo kazetaritza **prentsaurrekoek** irentsi ditek. **Iñigo Aranbarri**

Inork ez du ganorazko ezer galdetzen **prentsaurrekoetan** . **Txema Ramirez de la Piscina**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**atzo prentsaurreko batean** (4); **bilbon eskainitako prentsaurreko** (3); **donostian eskainitako prentsaurreko** (3); **egin zuen prentsaurreko** (3); **egindako prentsaurreko batean** (6); **eginiko prentsaurreko batean** (3); **emandako prentsaurreko** (7); **emandako prentsaurreko batean** (4); **emandako prentsaurreko baten** (3); **eskainitako prentsaurreko** (14); **eskainitako prentsaurreko batean** (10); **prentsaurreko bat eman** (6); **prentsaurreko bat emategatik** (3); **prentsaurreko batean azaldu** (3); **prentsaurreko baten bidez** (8); **prentsaurreko berean** (6); **prentsaurreko eman** (3); **prentsaurreko jendetsuan** (4)

**atzoko prentsaurrekoa** (4); **eman zuen prentsaurrekoa** (8)

**prentsaurrekoa antolatu** (3); **prentsaurrekoa egin** (7); **prentsaurrekoa egin zuten** (3); **prentsaurrekoa egingo dute** (5); **prentsaurrekoa eman** (76); **prentsaurrekoa eman zuen** (41); **prentsaurrekoa eman zuten** (30); **prentsaurrekoa emango** (14); **prentsaurrekoa emango dute** (7); **prentsaurrekoa eskaini** (51); **prentsaurrekoa eskaini zuten** (26); **prentsaurrekoa eskainiko** (7); **prentsaurrekoa eskainiko du** (4); **prentsaurrekoa hasi** (5); **prentsaurrekoa izan** (5); **prentsaurrekoa izan zen** (4)

**atzo egindako prentsaurrekoan** (3); **atzo eginiko prentsaurrekoan** (6); **atzo emandako prentsaurrekoan** (9); **atzo emaniko prentsaurrekoan** (3); **atzo eskainitako prentsaurrekoan** (8); **atzoko prentsaurrekoan** (67); **aurretik emandako prentsaurrekoan** (3); **azaldu zituen prentsaurrekoan** (3)

**batzordearen ondorengo prentsaurrekoan** (3); **bezperako prentsaurrekoan** (3); **bilbon egindako prentsaurrekoan** (3); **bilbon emandako prentsaurrekoan** (5); **bilbon eskainitako prentsaurrekoan** (7); **bilera osteko prentsaurrekoan** (3); **bileraren osteko prentsaurrekoan** (14)

**donostian emandako prentsaurrekoan** (8); **donostian eskainitako prentsaurrekoan** (9)

**egin zuen prentsaurrekoan** (8); **egin zuten prentsaurrekoan** (3); **egindako prentsaurrekoan** (23); **eginiko prentsaurrekoan** (22); **egoitzan eskainitako prentsaurrekoan** (3); **eman prentsaurrekoan** (3); **eman zuen prentsaurrekoan** (13); **eman zuten prentsaurrekoan** (4); **emandako prentsaurrekoan** (79); **emandako prentsaurrekoan egin** (4); **emaniko prentsaurrekoan** (9); **emateko prentsaurrekoan** (3); **eskaini duen prentsaurrekoan** (5); **eskaini prentsaurrekoan** (7); **eskaini zuen prentsaurrekoan** (12); **eskaini zuten prentsaurrekoan** (5); **eskainitako prentsaurrekoan** (90); **eskainitako prentsaurrekoan azaldu** (4); **eskainitako prentsaurrekoan egin** (3)

**goizean eskainitako prentsaurrekoan** (4)

**ean emandako prentsaurrekoan** (3); **iruñ izan ziren prentsaurrekoan** (7)

**ondoren emandako prentsaurrekoan** (4); **ondoren eskainitako prentsaurrekoan** (3); **ondorengo prentsaurrekoan** (12); **ostean emandako prentsaurrekoan** (5); **osteko prentsaurrekoan** (26)

**prentsaurrekoan adierazi** (15); **prentsaurrekoan adierazi zuenez** (9); **prentsaurrekoan agertu** (7); **prentsaurrekoan agertu zen** (3); **prentsaurrekoan argitu** (3); **prentsaurrekoan azaldu** (20); **prentsaurrekoan azaldu zuenez** (15); **prentsaurrekoan bertan** (3); **prentsaurrekoan egin** (14); **prentsaurrekoan egin zituen** (11); **prentsaurrekoan eman zuten** (3); **prentsaurrekoan esan** (4); **prentsaurrekoan izan** (4); **prentsaurrekoan jakinarazi** (6); **prentsaurrekoan jakinarazi zuenez** (3); **prentsaurrekoan parte hartu** (4); **prentsaurrekoan salatu** (3)

**prentsaurrekoaren ostean** (3)

**prentsaurrekoetan parte hartu** (3)

**prentsaurrekora deitu** (3)

## prentsazale *izond* prentsaren zalea dena.

**Prentsazale** amorratua zen, eta berdin irakurtzen zituen marinelek geletan ahaztutako italierazko egunkariak edo tabernetan aurkitutako edozein aldizkari. **Josu Landa**

Badirudi belaualdi gazteak ez datozela oso **prentsazaleak** . **Berria - Euskal Herria**

## preokupatu, preokupa, preokupatzen da *ad* kezkatu.

Gero denbora pasa eta nola esan zigun pipa-pipa eginda zeundela **preokupatzen** hasi ginen. **Joxean Sagartzizabal**

Ez dut nahi, nigatik **preokupatu** dadin. **Pablo Sastre**

## preokupazio *iz* kezka.

Horrek buruan piztarazi dizkion ideiak azkeneraino gogoetetzen dituela, zoli, sarkor -beti azkarra horretan- eta aldebakar pijo, koherentziaren **preokupaziorik** gabe. **Joxe Azurmendi**

Mariaren estreinako **preokupazioa** anaiaren osasuna izan zen. **Xabier Etxabe**

Euskal Herrira besterik gabe atsegiteko egin duen etorreran, despreokupatuta egin duen bidaiari, **preokupazio** batzuek eta kezka ideologiko batzuek menperatu dutela. **Koldo Izagirre**

## prepalatal *izond* ahotsez mintzatuz, sabaiaurrekoa.

Bikarien eta sabaiaurrekoen arteko muga garbirik ezaren isla besterik ez diren **prepalatal** , palatoalveolar, postalveolar bezalako aukera terminologikoak. **Lourdes Oñederra**

## preparakuntza *iz* prestaketa.

Lehenik jateko ezberdinen **preparakuntza** , ondotik sukaldetan aurki daitazken arriskuen ezagutza eta ihardespena sokorritzaile baten laguntzarekin, hirugarren partean jatekoen gauzatzea eta egostea, azkenik hoiien jastatzea ahaide, burraso eta antolatzailekin. **Herria**

## preparatu, prepara, preparatzen 1 1 da/du *ad* prestatu.

**Preparatzen** hasi nintzen nola mintza Emmari. **Daniel Landart**

Apusturako fin **preparatzen** zen. **Xabier Etxabe**

Oso **preparatuta** etorri haiz aurtin, Opin, helduleku eta guzti. **Bernardo Atxaga**

Saran, azken uzten biltzen ari ziren, eta larrazkanean ereiteko landen **preparatzen** . **Elena Touyrou**

Ume egin baino lehenago habia **preparatzen** du. **Gotzon Garate**

Deskuiduan dena gaizki ateratzen bazen, **preparatzeko** ; obispoaren ondoan ikusi nahi nuela, eta hormaren kontra! **Inazio Mujika Iraola**

Frantxis bere betiko borroka lagunak suprefeturaren jautsarazteko **preparatzen** zuen auto-bonbarekin mila puxinketan zapartatu zen. **Itxaro Borda**

Biharamuneko ihizirako sareak **preparatu** ondoan etxeratzen ziren herritarren artean nahasten baitziren. **Elena Touyrou**

Hementxe, jubilazioa **preparatzen** . **Pablo Sastre**

## 2 (janariak)

Baratzuri salda **preparatu** zion. **Elena Touyrou**

Dakien batek **preparaturik** , azeri buztan jatea. **Herria**

## preparatzaile iz prestatzailea.

Besten **preparatzaileek** ere beren kopa eskuan lan guziaz erabili dute elgarren artean ontsa adituz, Jerome buru zutela, neska eta mutiko... **Herria**

## preparatze iz prestatzea.

Bainan betiko galdea dator **preparatze** delakoari buruz. **Herria**

## preparazio 1 iz prestatzea.

Hor hasten ziren hurrengo egun berezietarako **preparazio** guztiak. **Pello Zabala**

Jauzilariak ere **preparazio** berbera egin bide zuen bere kirol-bizimoduan. **Karlos Linazasoro**

### 2 prestakina.

Eszeptizismo horretarako euskarri on bat Terapeutikako irakaslearen azalpenek ematen zioten, haren iritzian alfer-alferrik baitziren, kaltegarriak ez baziren, farmakopeako ia **preparazio** guztiak. **Josu Zabaleta**

## prepario iz ipar prestamena.

Aldi huntakoan apailu eta **preparioak** dituzte bakarrik. **Herria**

## prepositibo izond preposizioari dagokiona; batez ere preposizioak erabiltzen dituena.

Alderantziz, gure inguruan dauden hizkuntzak (gaztelania, frantsesa, ingelesa, eta abar) bere garaian ongi garatu ziren, sistema pospositibo batetik sistema **prepositibo** batera pasatuz, esaterako, eta sekulako aldea hartu zioten horrela euskarari. **Pello Salaburu**

Horren ordez erabaki dut erabiltzea gurean dabilen teknolekto xelebrea bat, euskararen berezko izaera pospositiboa **prepositiboa** bihurtu nahi duen ideolektoa. **Berría - Kultura**

## preposizio 1 iz hainbat hizkuntzatan, dagokion osagarriaren aurre-aurrean doan gramatika hitza, perpausaren barnean hitz batzuk beste batzuen mende ipintzen dituena eta lotzen dituen osagaien arteko erlazioa adierazten duena.

Erlazio asko eta asko, hizkuntza batzuetan, kasuen zein **preposizioen** bidez adierazten dira. kasuen balio batzuk **preposizioen** bidez adieraziak. **Isabel Arrigain**

Komunikazioaren ikuspuntutik begiraturik, garatutzat jo daitezkeen hizkuntza guztiak bide hori segitu dute (deklinabide markak utzi eta **preposizioetara** iragan, adibidez).

**Pello Salaburu**

### 2 (hitz elkartuetan)

Preposizioak normalean, gramatikari sartzeko dira; baina "... " **preposizio** esapidea, aldiz, funtsean lexikologikoa da. **Isabel Arrigain**

## preposizional izond preposizioarena, preposizioari dagokiona.

Komunikaziorako hainbat hobe litzateke, baldin menpeko esaldi-kateetan tresna **preposizional** josiriko osagarriak erabiliko bagenitu, nekez kateatu daitezkeen osagarri posposizionalen ordez. **Pello Salaburu**

## prepotente 1 izond nagusikeriazkoa.

Negoiazio kolektiboan enpresen duten «jarrera arduragabe eta **prepotentea**» salatu dute sindikatuek. **Berría - Ekonomia**

Euskal alderdiek jarrera **prepotentea** agertzen dute gainerako guztiei beti baldintzak jarri nahian. **Berría - Euskal Herria**

### 2 larderiatsua.

Benetako tipo bat da, zintzoa, jatorra, garbia, hori bai, batzuetan oso handiustea eta **prepotentea**. **Pako Aristi**

## prepotentzia iz nagusikeria.

Gizonen **prepotentzia** ere aintzat hartzekoa da. **Berría - Gaiak**

Segituan harrotzen da, **prepotentziaz** jokatzeko du eta horrek ez du atzera bueltarik», diosku. **Berría - Euskal Herria**

## prepuzio 1 iz zakilaz mintzatuz, mokoaren azala.

Kliitoriaren estalgarria, bestalde, bat dator zakilaren **prepuzioarekin**. **Luis Elberdin**

Artean ez genuen ezagutzen zakilburu haren forma, **prepuzioari** atzera eragiterik ez zegoenez. **Aitor Arana**

Odoletan zuen glandea, eta **prepuzioa** puskaka erortzen zitzaion oso modu itsusian. **Patxi Iturritegi**

**Prepuzioak** moztu dituen tipoa da mohel hori, goi-mailako zeregina da Moisesen erlijioan. **Karlos Zabala**

Guk osabagandik ikasita "mottoa" esaten geniona, **prepuzioa** alegia, oso urrututa eta nahiko hondatuta zegoela ikusi genuen Nagorek alkoholez garbitu zuenean. **Aitor Arana**

### 2 (emakumeengan)

Kasu honetan kliitoriaren **prepuzioa** eta kliitoria bera kentzeaz gain genitaleko beheko ezpainak ere kentzen dira. **Berría - Gaiak**

## prerafaeldar izlag prerrafaelita.

Maita duen irudia edo irudiak itsasten ditu ekaiean eta horri jarraituz pastelez osatzen margolana bere giroan, hari **prerafaeldar** kutsu zerbait ekarri... **Herría**

## prerafaelista ik prerrafaelita.

## prerrafaelista ik prerrafaelita.

**prerrafaelita** (*orobat prerrafaelista g.er. eta prerrafaelista g.er.*) izond/iz XIX. mendean Ingalaterran sortu zen pintura-higikunde, Urbinoko Rafaelen aurreko estiloa imitatzen zuena; higikunde horretako margolaria.

Mendealde modernoko zientziaren eragiketa honek hain begirune gutxiz azpia jan ondoren margolaritzari, margolariak "mugimendu **prerrafaelita**" bat egin zuten, hain luzaroan arbuaturiko bizantziar maisuen norabidean. [Iñaki Mendiguren](#)

John Everett Millais pintore **prerrafaelista** sentikorraren koadroa nuen argi iturri. [Patziku Perurena](#)

Ez ninduten zorutzen **prerrafaelita** horiek, baina zerbait bazuten erakargarria. [Ramon Saizarbitoria](#)

Estilo gotikoa, esate baterako, askok beretu zuten XIX. mendean, eta, hala, estilo individual berriak ez baina garai bateko estiloak eratu ziren norberetxe horietatik (**prerrafaelitak**, adibidez). [Josu Zabaleta](#)

Koadroko Elizabeth Siddal-ek, Rossetti-ren emazte eta **prerrafaeliten** modelorik eztiak, itxura osasuntsua du. [Ramon Saizarbitoria](#)

## prerrazional izond arrazoimenaren aurrekoa.

**Prerrazionala**. [Joxe Azurmendi](#)

## prerrogatiba iz abantaila; eskumena.

Dirua jaulkitzeko **prerrogatibak** ematen duen probetxu moral automatiko hau [...] askoz baliotsuagoa izan zen erromatar gobernu inperialarentzat txanpongintzaren kudeaketak bide batez ekar diezazkiokeen finantza-irabazi huts guztiak baino. [Iñaki Mendiguren](#)

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak [...] Kontu Auzitegiak, Europako Banku Zentralak eta Eskualdeetako Lantaldeak beren **prerrogatibak** babesteko jarritako errekursoei buruz erabakitzeko eskumena edukiko du. [Berria - Harian](#)

## prerromatar izond erromatarren aurrekoa.

Izan ere, zer gertatzen da, jatorrizko substratu **prerromatar** hori bera ustela bazen, hots, ez indoeuroparra? [Joxe Azurmendi](#)

Inbasio eta okupazio guztiekin ere, "la contextura vital" espainola ez dela aldatu, hori betiere **prerromatarra** eta iberiko jatorra omen baita. [Joxe Azurmendi](#)

## presa<sup>1</sup> (orobat prisa g.er.) 1 iz zerbait laster eta astirik galdu gabe egiteko premia. iklehia.

Besteak, garagardo batzuk hartzera joateko **presa** besterik ez ahotan. [Anjel Lertxundi](#)

**Presak** burua galarazi zidan. [Agustin Otsoa](#)

**Presak** eta urduritasunak ez zioten partida ona egiten utzi. [Berria - Kirola](#)

-Nahi duzuean agertu, **presarik** ez da izaten gurean. [Joxemari Urteaga](#)

Eta zendako holako **presa**? [Janbatiit Dirassar](#)

Eta zer dela-eta hainbesteko **presa**? [Agustin Otsoa](#)

Mesfidati galdetu zigun ea zertara zetorren **presa** hura. [Inazio Mujika Iraola](#)

Lekutan ziren, hala bada, **presak** eta esturak. [Edorta Jimenez](#)

Zer dela-eta Ximurraren **presa** horiek izeba lurperatzeko. [Aingeru Epaltza](#)

Zuhurtasuna azken orduko **presa** baino kontseilari hobe omen. [Joan Mari Irigoien](#)

Taldearen tratuariak, **presak** jota, beste bi erosketa egin zituen azken orduan, apurren artean. [Berria - Kirola](#)

Pony gris tantotu gizen bat etorri zen **presarik** gabe zelaira eta belarra jaten hasi zen lasai-lasai. [Iñaki Mendiguren](#)

**Presarik** gabe eta bakan, Anorien zeharkatu eta Oihan Grisera heldu ziren. [Agustin Otsoa](#)

### 2 (izenondoekin)

**Presak** handia zuen oihu errukarri haiek egiten zituztenei laguntza emateko. [Karlos Zabala](#)

-**Presak** handiko afera batzuk eduki naute okupaturik -moztu zuen. [Elena Touyarou](#)

la ahaztu nuen **presak** handiko gauza bat. [Josu Zabaleta](#)

Adierazi behar dizuet **presak** ikaragarria dudala Omskera iristeko. [Karlos Zabala](#)

Sarara itzultzeko **presak** gorria zuen. [Elena Touyarou](#)

Aizkolariak tronko horretan **presak** besterik ez du sentitzen, **presak** ero bat, askotan, bere burua gehiegi behartzera daraman **presak** itsua. [Pako Aristi](#)

Ilunabarra baino ez zen 'gizatxar' haiei **presak** gaiztoak Madame Deluc-en begi zuhurrak iraindu zituztenean. [Koro Navarro](#)

**Presak** historiko bat sentitzen genuelako edo, euskal idazleoi isilik egoten ahaztu egin zaigu, neuregandik hasita. [Pako Aristi](#)

### 3 (aditzekin)

Jakiteko **presak** neukan. [Bernardo Atxaga](#)

-Ez daukat **presarik**, Mariano. [Joxemari Urteaga](#)

Nik itxaron egin nuen; ez neukan **presarik**; eskuak sendo nituen, inolako dardararik gabe, pistolari eutsiz Marrori buruz. [Juan Kruz Igerabide](#)

**Presak** geneukan iraultza egiteko. [Koldo Izagirre](#)

**Presak** daukan festara joateko, ezta? [Ibon Uribarri](#)

Ulertu nuen moduan, **presak** zegoen sinatu genezan. [Edorta Jimenez](#)

Baina denbora beraiek fabrikatzen zuten, ez zegoen **presarik**. [Harkaitz Cano](#)

**Presak** ematen zioten egipitiarrek herriari, beren lurraldetik lehenbailehen joateko eskatuz. [Jose Antonio Mujika](#)

Bulegariburua Parker andereñoari **presak** ematen hasi zitzaion, esaten ziola ezen marxa hartan ez zituela sekula eskutitzak postaren garairako mekanografiatuko. [Irene Aldasoro](#)

Bera atzetik etorri zitzaidan, harrituta bat-batean **presak** ura sartu zitzaidalako. [Ramon Saizarbitoria](#)

Gurekin harremanetan lehenbailehen jartzeko **presak** sartu behar diozu. [Ramon Etxezarreta](#)

Bukatzeko **presak** areagotu dit horrek, metro batzuen faltan lasterketa bertan behera uzteko beldurrez bezala. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Auzia lehenbailehen ixteko Gobernuak erakutsi zuen **presak** ez zela parte onekoa. [Joxean Agirre](#)

Bat-batean, amona zutitu egin zen, lanean hasteko **presak** sentitu izan balu bezala. [Anjel Lertxundi](#)

### 4 (izan aditzarekin)

**Presak** baitzen, inimini santean egin zuten lan hori, Beñat Arbusa, Cristeix eta Domingo Daguerrek, kurtsuak 1953-54 urte hartan berean hasteko. [Herria](#)

Denak ziren estu eta **presak**. [Karlos Zabala](#)



- Baina bego hori biharko, bada **presagorik**. **Herria**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikuspegian izan duenean **presa** keinu bat egin du Abelek. **Pello Lizarralde**

**Presa** -sentipen batek bultzaturik, tratatu lodi batean murgildu zen Ruche jauna. **Jon Muñoz**

Bertakoak azkar doaz, aurrera begira eta **presa** aurpegiaz. **Berria - Harian**

"**Presa** -garaiak direnean, karabanak ere azkar ibiltzen dira", pentsatu zuen Alkimistak. **Xabier Aranburu**

**Presa** -ordua da eta lepo doa [metroa]. **Harkaitz Cano**

Artean inolako **presa** -zantzurik gabe, kaiera itxi eta arkatzarekin batera lehengo lekuan sartu zuen poltsa barrenean. **Mirentxu Larrañaga**

Italiar "ario" askok juduekiko tratuan erakusten zuten **presa** -modu nabarmen hori ez zela halabehar hutsezkoa. **Juan Garzia**

**Presa** antzeko larritasun batek ez dio uzten bizitzan bere sustraiak ondo tenkortzen. **Pako Aristi**

Ez da **presa** kontua, azkar eta ondo idaztea baizik. **Iñigo Aranbarri**

## 6 *presako izlag* ik *presaka* 3.

Eguberri bezperan, andreak eta biok **presako** espedizioa antolatatu genuen merkataritza zentro erraldoi ireki berrira. **Aingeru Epaltza**

**Presako** mezu bat duzu posta elektronikoan. **Berria - Harian**

**Presako** posta zerbitzuaren bidez bidaliak zituen beste dekretu batzuk, Enperadore Horiaren izenpe eta zigiluekin. **Felipe Juaristi**

Kilometroak eta kilometroak egiten zituen Juanitok bere kamioian, beti **presako** lanean. **Xabier Etxabe**

Lehenbailehen ikusi behar dut, **presako** aferak! **Fernando Rey**

Gaur egungo egoerak **presako** konponbideak eskatzen ditu. **Berria - Euskal Herria**

**Presakoa** da al bait azkarren argitzea geroko industri planak. **Berria - Ekonomia**

Halaxe egin zuen idazkariak, zigilua jo eta posta zerbitzuaren jauregian utzi, **presakoa** zela gaztigatu gabe. **Felipe Juaristi**

Ez, lasai, ez duk **presako** ezer. **Xabier Etxabe**

*Elkarri*-k Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako ekimena **Presako** Legegintzako Batzordearen bidez tramitatzea erabaki zuen Legebiltzarreko Mahaia. **Berria - Euskal Herria**

## 7 *presan adlag* *presaka*.

Santiago el Real elizaren erretaula **presan** miretsi ondoan, eta Santiago Matamoros harrigarria agurturik, plaza zabalean harrizko aulki bat, jin bezala, hautaturik, apairu ederxkoa egiten dut. **Piarres Aintziart**

Gizon batzuk nola izaten dira beti **presan** eta beti berandu dabilzanak, etxe batera sartu, berokirik erantzi ez, maratila eskuan eduki denbora guztian, uneoro adio esatera apoderatu eta, azkenean, eseri balira baino luzaroago gelditzen direnak? **Matías Múgica**

Orai denak **presan**, eta laster balinba nahi beno hñsarte haboro, eñskara behera ari zaigün bezala. **Herria**

## 8 *presaz adlag*

- **Presaz** ala? **Josu Landa**

Hain irrika bizia zuen, non, gorputzez ahul bazegoen ere, erromes lagunari aurrea hartzen baitzion ibiltzen, eta, espirituz mozkortuta bezala, bere asmoa betetzera **presaz** hegan egiten zuen. **Askoren artean**

-**Presaz** nabil -esan zuen Lecœur andreak xuxurla batean-, ez dago inor dendan. **Karlos Zabala**

-Tira, laztana, utzi egingo haut, **presaz** nabilen eta. **Joxemari Iturralde**

Hutsik zegoen aldagela eta **presaz** erantzi eta gorputzeratu nuen bainujantzia. **Joxan Elozegi**

Aita santua, pozez gainezka, **presaz** jarri zen entzundako aholku salbagarria betetzera. **Askoren artean**

**Presaz** egindako ekintza bailitzan. **Iban Zaldúa**

- Zertara hoa heure herrira horrenbesteko **presaz**? **Juan Kruz Igerabide**

## 9 *presazko izlag*

**Presazko** eskutitz baten bidez, egun hartan hiritik ez joateko eskatua zion, harekin hitz egin beharrean zegoela eta. **Ander Irizar**

**Presazko** bilera egin zuten mahaikideek Donostian atzo. **Berria - Harian**

Frantziskok **presazko** arrazoiren batengatik alde egin beharra izan zuen. **Askoren artean**

Izan ere, ihesaldi **presazkoan** heriotzaren arrastoak nonahi ikusiagatik, ez ziren hiltzeko beldur, ohituta baitzeuden hartara. **Felipe Juaristi**

Anbulantziaren **presazko** sirenots eta argi beldurtuek bat egin zuten polizi autoarenekin. **Joxemari Urteaga**

Baina ostiral arratsaldea baita une honetan, badira beste zeregin **presazkoago** batzuk. **Oskar Arana**

Hurrengo goizez, hegazkin **presazkoan**, Nazio Batuen Erakundeak bidaliriko bi ikuskatzaileak iritsi ziren. **Karlos Linazasoro**

- **Presazkoa** da -esan zuen P-k. **Juan Garzia**

Nork deitzen dion, ea deia **presazkoa** den. **Anjel Lertxundi**

Iradoki zion **presazkoa** zela zerbait egitea zorteak zigortutakoan alde. **Bego Montorio**

## 10 *presa izan du ad*

**Presa** zuen Andreasek, eta **presa** zuelako ibili behar zuen, hain zuzen, astiro. **Anjel Lertxundi**

Xuhurrak **presa** izaten du aberasteko; ez daki premia gorria datorkiola gainera. **Elizen arteko biblia**

Hartu behar duzun denbora, ez izan **presarik**. **Luis Elberdin**

- Ez zuela inolako **presarik** ematen zuen. **Joxean Agirre**

- Ez izan halako **presarik** -erantzun Miseriak. **Patxi Zubizarreta**

- Orain sartzeko adinako **presa** izango ditek orduan irteteko -erantzun zion besteak. **Josu Zabaleta**

Ez zuen, nonbait, gosaltzeko **presarik**. **Anjel Lertxundi**

- Zergatik duk orain horrenbesteko **presa** Irkutskera iristeko, tsarraren gutuna kendu badiate? **Karlos Zabala**

Auskalo zer **presa**, zer zalantza, zer aurreikuspen edo zer beldur izango zituen nik ohean biluzik itxoiten nion bitartean soinekoa horren zakar botatzeko. **Joxean Agirre**

## 11 *presaren presaz* *presa handia dela eta*. ik *presaka*.

Andres egun horretantxe ezutaldi makur batek jo zuen, eta medikuarenera eraman behar izan zuten **presaren presaz**. **Jokin Muñoz**

Ni desenkusatu egiten natzaio, **presaren presaz**, berehalakoan ezagutu ez dudalako. gero berak ere ihes egin bide zuen, harrapakinarekin, zeraman **presaren presaz** atea zabalik utzita. **Joxe Austin Arrieta**

Erantzuteko **presaren presaz**, Harryk ia irauli zuen tinta-botilatxoa. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde egiteko **presa** (3); hainbesteko **presa** (6); halako **presa** (6); holako **presa** (7); horrelako **presa** (3); horrenbesteko **presa** (3); inolako **presa** (3); iristeko **presa** (4); joateko **presa** (4)

**presa** balu bezala (3); **presa** barik (12); **presa** berezirik (3); **presa** besterik ez (3); **presa** dauka (3); **presa** duk (3); **presa** eman (3); **presa** ematen (4); **presa** gaixtorik (5); **presa** handia (15); **presa** handia zuen (3); **presa** handiko (3); **presa** handirik (9); **presa** handiz (5); **presa** izaten (3); **presa** kontua (3); **presa** nuen (3); **presa** sartu (4); **presa** zeukala (3); **presa** zuela (3); **presa** zuen (14)

zendako holako **presa** (3); zer **presa** (3)

korrikak eta **presak** (3)

**presaren presaz** (14)



**batere** presarik (8); **ez dago presarik** (12); **ez daukat presarik** (5); **ez du presarik** (13); **ez dut presarik** (13); **ez duzu presarik** (3); **ez izan presarik** (4); **ez nuen presarik** (7); **ez zegoen presarik** (3); **ez zeukan presarik** (4); **ez zuen presarik** (10); **ezertarako presarik** (3); **inolako presarik gabe** (5); **inongo presarik** (8); **inongo presarik gabe** (3); **itzultzeko presarik** (3)

**presarik batere** (3); **presarik ere ez** (4); **presarik ez** (41); **presarik ez balu** (3); **presarik ez dagoela** (3); **presarik ez izateko** (3); **presarik gabe** (119); **presarik gabe bizi** (3); **presarik gabean** (3); **presarik gabeko** (5); **presarik gabekoa** (3)

**presaz haratago** (3); **presaz honatago** (4); **presaz honatago dauden** (3); **presaz nabil** (3)

**presazko agerraldia** (3)

## presas<sup>2</sup> 1 iz ibaietan, ura biltzeko eraikitzen den eragozpena; horrela osatzen den ur biltegia. ikurtegi.

Argindarra sortzeko, ura biltzeko eta ureztatzeko eraiki dira **presak** eta urtegiak. Berria - Gaiak

EBk eskatuko du halako **presak** egiterakoan gizartearen eta ingurumenean sortzen diren kalteak aintzat hartzeko. Berria - Gaiak

Ibaira joaten ziren, burdinazko zubiko tuerkak sartzerara, edo ubideetako erretenetara, **presako** harresiei porlana ematera. Koldo Biguri

Juanito Telleria-k, Jauregiko **presaren** aldaparoko petrilean eserita [...] haurrekin solastea maite zuen. Joxe Azurmendi

Emozioa begi-ertzean pilatzen denean, gainezka egiteko zorian den **presako** urak bezala. Joxerra Garzia

Nagoren, atzeko **presak** eraikitako egindako zundaketetan sima batekin egin dute topo. Eduarne Elizondo

Urte berean, bezperan gertatu zen Tous **presa** lehertu zeneko egun beltz hura ere. Pello Zabala

Duela hamalau urte itxi zuten Riañoiko **presa**, Leongo hegoaldea ureztatzeko eraikia. Eduarne Elizondo

Halaxe jarraitzen zuen itsasoaren bila Urtza izeneko **presa** hartan geldidune bat egin ondoren. Bernardo Atxaga

0,5 eta 2 hektometro kubiko arteko bolumenak irrist egitea nahikoa litzateke pilotutako materialek nolabaiteko **presa** sortzeko. Eduarne Elizondo

Bart, hiru mila pertsona atera zituzten beren etxeetatik eta, datozen orduetan beste bederatzita mila aterako dituzte, baldin eta inguruan dagoen **presak** gainezka egiten badu. Berria - Mundua

Artean ez zegoen argi indarririk, Olaberriko **presako** makinak hondatuta zeudelako. Joseba Sarrionandia

## 2 (izenondoekin)

Udako egunetan igeri egitera joaten ginen errekarren **presa** txikira. Bernardo Atxaga

Edo behera jaisten zen, urek azpian harturiko alderdietara eta **presa** gainezquetara. Jose Morales

Bestalde, ez dator bat agirian **presa** hidroelektriko handien inguruan egiten den aipamenarekin. Berria - Gaiak

· 1586an, Cuencan, Almonacideko **presa** konpondu berria, errotik darama uholdeak. Pello Zabala

## presaka (orobat *prisaka g.er.*) 1 adlag presa handiz.

Atera sagardoa iturri-askatik, banatu ogia eta gazta, eta otordua egiten genuen: lasai eta denbora hartuz Lubisek, Ubanbek, Opinek eta nik; **presaka** Pantxok eta Sebastianek. Bernardo Atxaga

Lasterka baitoaz gaiztakeria egitera eta **presaka** odola isurtzera. Elizen arteko biblia

Lanpetuta zebilen, eta korrika eta **presaka**, eta jendea zuen inguruan, baina "lartzana" deitu zidan bi alditan. Mirentxu Larrañaga

**Presaka** eta muturka batailoi zarpailetan elkarturik. Txillardegi

Batzar-aretoa **presaka** eta aztoratuta zeharkatu ondoren, Gernikako Haritz bizia agertu zitzaion begien aurrean. Juan Luis Zabala

Wanda Fordek larri, **presaka** ate-leihoak ireki zuen. Gotzon Garate

**Presaka** joan naiz, baina ez etxera, saltokira baino. Urtzi Urrutikoetxea

Axa, gero, axa, hildakoak **presaka** doaz... Anjel Lertxundi

Eskailburura itzuli nintzen **presaka**, baina ordurako hantxe zegoen Marro, atean. Juan Kruz Igerabide

Ikusten diat **presaka** habilela. Bernardo Atxaga

**Presaka** abiarazi zuen plan berri bat. Oskar Arana

Gutxi-asko dozena pare bat gutun-orri ziren, emakume baten letra ezezagun eta urduriaz **presaka** idatziak. Eduardo Matauko

Iduriz, gobernu biazirik presatua zen eta **presaka** onar-arazi diote deputatueri helduden urteko hauteskundeeri buruz bozka-legearen kanbiatzea. Herria

Janaria **presaka** ezarrirarte argituko balitz bezala gosearen sekretua. Felipe Juaristi

Lasterka baitoaz gaiztakeria egitera eta **presaka** odola isurtzera. Elizen arteko biblia

Une hartan, Pomfrey andrea sartu zen **presaka**. Iñaki Mendiguren

-Nora hoa horren **presaka**? Unai Iturriaga

## 2 (izen gisa)

Erizain bat datorkio atzetik, **presaka** txikian. Harkaitz Cano

Ez zait sekula ahaztuko zein gogor lan egin zuten lehenbiziko udaberrian, **presaka batean** *Memorial Day Weekend* egunerako gauzak prest eduki nahi zituztela eta. Oskar Arana

Kaputxeekin aurpegiak estalita, indarrean eta **presaka batean** etxetik atera zituzten. Jokin Urain

## 3 presakako izlag ik presas<sup>1</sup> 6.

Idazlan-proiektu bat egin nuen, bai, handi-mandia, **presakako** irakurketa haietako ekarriak eta eraginak bildu nahi zituen. Xabier Mendiguren Elizegi

- **Presakako** kolpea ez da zuzena izaten -esan zuen Aragornek-. Agustin Otsa

Errepideko erreskaterako ekipamenduak ere jarri ditu kanpainako ospitalearekin batera, mementoan **presakako** laguntzarik eman beharko balitz. Berria - Euskal Herria

Nola sortu da eguraldia eguneroko jakin behar **presakako** hau? Pello Zabala

Ez ditut hartu neure ezpata eta neure armak, erregearen agindua oso **presakakoa** baitzen. Elizen arteko biblia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**abiatu da presaka** (3); **abiatu zen presaka** (8); **beti presaka** (13); **beti presaka ibiltzen** (3); **esan zuen presaka** (3); **joan zen presaka** (8); **joan ziren presaka** (6); **korrika eta presaka** (62); **lasterka eta presaka** (4)

**presaka abiatu** (5); **presaka abiatu zen** (3); **presaka alde egin** (10); **presaka ari** (8); **presaka aritu** (11); **presaka atera** (10); **presaka atera zen** (3); **presaka batean** (3); **presaka bezala** (6); **presaka bizi** (5); **presaka dabil** (3); **presaka doaz** (3); **presaka egin** (13); **presaka egindako** (3); **presaka egiten** (5); **presaka eta korrika** (10); **presaka eta larri** (3); **presaka etorri** (8); **presaka gabiltza** (3); **presaka gurutzatu** (3); **presaka hartu** (5); **presaka harturik** (3); **presaka hasi** (3); **presaka hitz egin** (3); **presaka hurbildu** (3); **presaka ibili** (28); **presaka ibiltzea** (6); **presaka ibiltzeak** (5); **presaka ibiltzen** (6); **presaka ibiltzen naiz** (3); **presaka irten** (8); **presaka itzuli** (7); **presaka itzuli zen** (3); **presaka jaitsi** (8); **presaka jantzi** (4); **presaka jarraitu** (3); **presaka joan** (15); **presaka joan zen** (6); **presaka joaten** (4); **presaka nabil** (16); **presaka samar** (3); **presaka sartu** (6); **presaka utzi** (3); **presaka zebilela** (4); **presaka zebilen** (7); **presaka zebiltzan** (3); **presaka zihoen** (8); **presaka zihozten** (7)

## presakatu, presaka(tu), presakatzen da ad presatu.

Ikasgela zabaldu zuten, eta ikasleak komeria entreenigarri bat ikustera balihoaz bezala hasi ziren sartzen, **presakatuz** eta elkarri bultza eginez. Josu Zabaleta

Guk, ordea, gure kideenganantz lasterka joateko aukera dugu, eta festa baterako **presakatzen** garela iruditzen zait. Josu Zabaleta

Hirigoienarako metroaren zarata bertan zen eta Joseba **presakatu** egin zen. Iñaki Zabaleta

presako ik **presa**<sup>1</sup> 6.

## presakor *izond* presakoa, presakakoa.

Modu berean ateratzen dira goizeko ordu txikietan, zaratarik gabe, atalburuan musu **presakor** bat eman ondoren **Joxean Agirre**

## presakume *iz*

Ama hil nahi lukeen **presakumea**. **Joxerra Garzia**

## presaldi *iz* presakako aldia.

Angie zutik zihoan, beso bat gora, altzairuzko euskarri distiratsuari indarrez eutsiz [...] eta arnasa luzea hartu zuen, igarotako **presaldia**, ia egunerokoa bestalde, uxatzeko. **Iñaki Zabaleta**

## presape *iz* ibaian, presaren behealdean gertatzen den osina.

Zentral nuklearreko **presapean**, baserri bi egozan eta hango burdiak eta erremintak Rufinok atara ei zituan. **Xabier Amuriza**

## presarazi, presaraz, presarazten du *ad* presatzera behartu.

June-kukuso txikia, hala deitzen genion arrebari, nik hiru urte nituela jaiotzen, eta beraren jaiotzak **presarazi** zituen gurasoak Brooklyngo apartamentu beteegia utzi eta (Long Island-en) Garden City-ko etxe batera aldatzera. **Oskar Arana**

presaski ik **preseski**.

## presati 1 *izond* presaz dabilena, presazkoa. ik **presatsu**. (pertsonez)

Arrapaladan batu zituzten lan-poltsak bisitariak; zitu bizian hegaldatu ziren korridorerantz kapelak jantera, Matson andrea bere gonbidatu **presatiei** begira zegoela.

**Mirentxu Larrañaga**

"Benga, atzeratuta gabiltza-eta!", esan die aitzindari **presatiak**, begi biak bide-bazterretan itsatsita. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Denengana iritsi da abisua, baita aurrea hartuta azterna berrien bila dabilen **presatiarengana** ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hain **presati** zinela nork esango niri? **Xabier Olarra**

### 2 (bestelakoez)

Ondoeza eragin zion bere atzean Marjolinen ibilera **presatia** entzuteak. **Karlos Zabala**

Lasterketa **presatia** mantsogotuz zuen arte. **Juan Garzia**

Deus espantagarriak ez: musu batzuk eta bertze horrenbertze fereka **presati**, biharamunak irrealtasun gazi-gozaoren mihiseaz estaltzen zituenak. **Aingeru Epaltza**

Esku artean zeukan agiriari begiratu azkar bat emanda, keinu **presati** bat egin zion langako zaindariani. **Alberto Ladron Arana**

Amsterdameko bizitza **presati** eta oldarkorrean. **Felipe Juaristi**

Isiltasunak, trukean, beste hots batzuk ekarri zituen, eta salan barrena geratu ziren barreiaturik, aurreraka eta atzeraka **presatietan**. **Felipe Juaristi**

Lasterka iragan zen dantza-aretoetik, baltse arin **presatia** dantzatzuz bezala. **Felipe Juaristi**

### 3 (adizlagun gisa)

Gero, zango bolada desberdinak ikusi nituen, **presati**, metrotik joan-etorrian. **Ramon Saizarbitoria**

-Jaitsi kuleroak! Jaitsi kuleroak!-esan zuen Antoniok **presati**. **Juan Martin Elexpuru**

Altxatu egin zen eta mahaian atzaparka hasi, azpila estali nahian edo, **presati**, zikinak lurperatu nahi dituzten katuen irudira. **Karlos Zabala**

Egun hartako posta etxe guztietan jakinarazi zioten Mikel Strogoffi berlina aurretik zihoakiola beti ere, eta bidaztiak, hura bezain **presati**, ez zuela denbora izpirik galtzen estepan barrena Irkutskera bidean. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

keinu **presati** (3)

## presatsu 1 *izond* presazkoa. ik **presati**.

Zurrapada labor, **presatsuak** eman zizkion, gelditu eta berriro hasi zen. **Anton Garikano**

Lista zaitzete, otoi, bidaia **presatsu** horretarako; ezen girgiulak nahi dizkiogu ezarri orain oin-askeegi dabilen izugarri horri. **Juan Garzia**

### 2 (adizlagun gisa)

Bizkor alde egiten zuten, **presatsu**, gehienak pozik. **Urtzi Urrutikoetxea**

## presatu<sup>1</sup> (*orobat prisatu g.er.*), presa(tu), presatzen 1 da *ad* presa hartu.

Ez hadila **presa**, baduk denbora frango! **Janbattitt Dirassar**

Stanley garajera **presatzen** da guretzat lorategi-aulki batzuk ekartzera. **Oskar Arana**

Gaztea aitaren gelan sartzen **presatu** zen eta aitak marmarka jarraitu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Ez zen **presatu**, partez nekatuta sentitzen zelako, partez axolagabekeriaz. **Jon Alonso**

Iduriz, gobernua biziki **presatua** zen eta presaka onar-arazi diote deputatuari helduden urteko hauteskundeeri buruz bozka-legearen kanbiatzea. **Herria**

**Presatua** al zara? **Patxi Zubizarreta**

Ez zen **presatua**. **Elena Touyarou**

**Presatua** nintzela argudiatu nuen kanpora ahalik eta lasterren abiatzeko. **Aingeru Epaltza**

Nehork ez nehoi kasu egiten, denek **presatuak** iduri, kasik galduak, denak arrotzak, beste mundu batetik ateraiak bezala. **Janbattitt Dirassar**

Bidaztiak bakanak ziren eta **presatuak** : halako batean, haietako batek arreta erakarri zidan. **Juan Garzia**

-Hogeita bost sos, ezta? -esan zuen Lecœur andreak, **presatu** gabe. **Karlos Zabala**

Bidari zoriontsu honek, mundutik [...] irteteko **presatzen** bazen ere, mundu honetako gauzak baliatzen zituen. **Askoren artean**

Oi, ene maitea, uste nuen ez nintzela sekula helduko, hain nengoen **presaturik** zure besoetan egoteko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zerubidean abiatzeko zinez hain **presaturik** ote dagoen eta neke hori pixka bat geroratzen ahal ez ote duen galdegin dio bere buruari. **Aingeru Epaltza**

## 2 (du aditz gisa) presa eman.

Harryk aurrera joateko **presatu** zuen Ginny. **Iñaki Mendiguren**

Heltzeko segurantza izanez gero, bidaldia zergatik horrenbertze **presatu** ? **Jon Muñoz**

Herritik irtetea **presatu** egin zituen urratsak. **Juan Garzia**

Europako Parlamentuak eta Komisioak bultzatu egin beharko luketela Ekialdeko eta Mendebaldeko herrietako idazleen arteko elkarriketa eta **presatu** gobernuak nazio, eskualde eta Transeuropan bera oinarri izango dituen kultur erakundeak sortzeko. **Edorta Jimenez**

Une horretan ez zitzaizkidan interesatzen zehar-kontu horiek, eta jarraitzeko **presatu** nuen: "Nola egiten du?". **Iban Zaldua**

-Ea, segi, segi -**presatu** zuen gizonak. **Fernando Morillo**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Atzean, gidari **presatuak** , luzetsita, bozina jotzen ari. **Iñigo Aranbarri**

Haien behakoetako mesfidantza, haien ibilera **presatua** . **Elena Touyarou**

Nire esku **presatuek** eskelen orrialdea xerkatu zuten. **Aingeru Epaltza**

Eutsi ezineko indarrak bat-batean oin **presatuen** baso hartatik kanpora altxatu ninduen, nire inguruan izara handi moduko bat eta gainetik burusi bat kiribiltzen zirela. **Urtzi Urrutikoetxea**

2005-ko behar dituela 1,7 miliar dolar beharrrordu **presatueneri** buru egiteko. **Herria**

Bazutela segur beste mila gauza **presatuagorik** ... etxe berriaren egiten hasiak izanki eta. **Daniel Landart**

François Bayrou-k dio badela behar-ordu **presatuagorik** . **Herria**

Aste labur eta **presatu** haietan. **Itxaro Borda**

## 4 **presatuxe** presatu xamar.

**-Presatuxea** nengoan eta txostenaren berri jakin nahi nian lantokira agertu aitzin. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ez zen presatu** (3); **presatu gabe** (5); **presatu zen** (3); **presatu zuen** (6)

**ez zen presatua** (3); **presatua zen** (7)

## **presatu**<sup>2</sup>, presa(tu), presatzen **1** da *ad* (ura) presan bildu.

Sareak botatzen zituen Osin Beltzen, errekaen urak **presatzen** diren zulo beltzean. **Koro Navarro**

## **presatuki** *adlag* presaz.

Ikildu eta fite zerbait estakuru atzeman du **presatuki** eskapatzeko, publikoaren gandik galde zorrotzegiak jiten hasi aitzin. **Herria**

## presatuxe ik **presatu**<sup>1</sup> **4**.

## **presatzar** *iz adkor* presa handia.

Puentes de Lorcako **presatzarra** lehertu, eta han eraman zituen uholdeak 608 pertsona, hil eta galdutakoak; beste 809 etxebizitza hondatuta gelditu zirenak, auskalo zenbatazienda itotakoak. **Pello Zabala**

## presaz ik **presa**<sup>1</sup> **8**.

## presazko ik **presa**<sup>1</sup> **9**.

## **presbiterianismo** *iz* kalbinismotik sorturiko doktrina protestantea, apezpikuen aginpidea ezagutzen ez duena.

Eskoziar jatorriko familia aberatsa zen, **presbiterianismo** zorrotzekoa. **Koro Navarro**

## **presbiteriano** *izond* presbiterianismoari dagokiona; presbiterianismoaren jarraitzailea.

Apaiz **presbiterianoa** da. **Berria - Mundua**

Eskoziar garaiak, erregezale porrokatuak, eliza erreformatu **presbiterianoak** , katolikoak eta irlandarrak elkartu egin ziren [...] eta Charles II.a [...] izendatu nahi izan zuten errege. Eliza **Presbiteriano** Askearen sortzaile (1951ean) eta buru bakarra izatetik [...] unionisten buruzagi nagusia izatera heldu da. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lehenengo susmoa neska, laster ama izango dena, Canarsie-ko Ospitale **Presbiterianora** ambulanzian eraman zutenean piztu zen. **Lopez de Arana**

## **presbiteriar** presbiterianoa.

«Sinn Feinen hitzen ondotik ez da Provo-en ekinbide eza gauzatu», salatu zuen diputatu eta artzain **presbiteriarrak** . **Berria - Mundua**

Artzain **presbiteriarren** buruzagi izandako Ken Newellek esan zuen fanatismoa erlijio guztietan aurkitzen dela eta aurre egin behar zaiola. **Berria - Mundua**

## **presbiterio** *iz* eliza batean, aldare nagusiaren aldea.

Leiho biribileko argi motelduak eraikuntza-barrena zeharkatzen zuen alderik alde, eta **presbiterio** -moduko baten isla itzaltsuak erakusten zituen ekialdeko horman. **Anjel**

## presbitero iz meza emateko gai egiten duten ordenak hartu dituen persona. ikapaiz.

Artzainak, kalonjeak, monjeak, mollahak, vuduzaleak, **presbiteroak**, hierofanteak, prelatuak. **Xabier Olarra**

Mundakan jaioa zen Andres Untzain, 1918ko abenduaren 21ean egin zen **presbitero**, eta laster, 1918ko abenduaren 31z geroztik, Egin herrian jardungo du bataioko urrez jaio berriei ondo etorria ematen, hil-haginekoei olioz hobeto joana opatzen eta, oro har, auzokideen bekatu merkeen entzuten eta barkatzen. **Edorta Jimenez**

## presbizioa iz begiaren akatsa, gertuko gauzak ikustea galarazten duena.

Ez miopiak, ez astigmatismoak, ez **presbiziak**, ez kataratak ez zioten inoiz ikusmena lausotu edo ahuldu. **Jon Muñoz**

## present ik **presente**.

## presentable izond onartzeko moduko itxura duena.

Daliren koadroak, esaterako, ez dira argiak edo ederrak edo **presentableak**: Daliren koadroak dira karismatikoak. **Unai Elorriaga**

Ez dituk **presentableak**. **Bernardo Atxaga**

-Hamar minutu daukozak jantzita eta **presentable** egoteko. **Unai Iturriaga**

## presentadore iz aurkezlea.

Telebista piztu eta inkesta baten berri ematen ari ziren, esan zuten amerikarrek astean behin egiten zutela, astean behin, hi, eta hori adituta telebistako **presentadoreek** barre egin zuten, noski gutxi zelakoan. **Pablo Sastre**

## presentaezin izond onartzeko moduko itxura ez duena.

Dr. Jekyll prestuaren eta bere Hyde **presentaezinen** bertsio alkoholiko eta -nire inguruari begiraturik, bederen- aise ere gureagoa. **Aingeru Epaltza**

## presentagai iz aurkezteko gaia.

Oraino ainitz proiektu, aitzinean huna **presentagaiak**: [...]. **Herria**

## presentaketa iz aurkezpena.

Jean-Louis Biscay-ek goraki segurtatu du animazione, zozketa eta abisu guzien **presentaketa**, usaian bezala funtsean! **Herria**

## presentalari iz aurkezlea.

Euskitze **presentalariak**, adibidez, aski ongi paradigmazten zuela hiperkorrekzio txutxen okaztagarriaren mirakulua. **Patziku Perurena**

## presentapen 1 iz ipar aurkezpena.

Maiatz 40 agerkariaren **presentapena**. **Herria**

Diruzainak buxetaren **presentapena** egin du. **Herria**

Oueb gunearen **presentapena** eskainia da euskaraz, frantsesez, espainolez eta ingelesez. **Herria**

**Presentapenean** dira funtsezko aldaketak eta gaur egungo ekai modernoena erabiliak dira, soinua eta bideoa ahanzi gabe, euskal kulturari gaitzeko gaurkotasuna ekarriz. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Presentapen** lekura heldu delarik erran diote haatik ez zela listan sartua. **Herria**

## presentatu, presenta, presentatzen 1 du ad aurkeztu. (pertsanak)

**Presentatzen** bazaitu eta jakiten badute apeza zirela, izanen da ederrik! **Marzel Etxehandi**

Anaiak **presentatu** zidalarik bere neska-laguna, Heletako Santa Katalina feria gaueko dantzaldian, bihotza saltoka hasi zitzaidan. **Daniel Landart**

Zatoz, adiskide zenbait **presentatu** nahi dizkizut. **Elena Touyarou**

Argonek igorri hiru enbaxadoreak, Ulatai, Apuzka eta Koia **presentatu** zizkidan. **Aurelia Arkotxa**

Bere burua **presentatu** zuen, izena, zein presondegitik heldu zen... **Filipe Bidart**

## 2 (gauzak)

Gerla denboran, sosaz bestalde, behar ziren **presentatu** tiket batzu zeintan markatuak baitziren jateko bakoitzetik zenbat gramoren dretxoa zinuen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Euskal museoa bera **presentatzen** dute berrogei orrialdeko gida horretan. **Herria**

Doluminak **presentatzen** dizkiogu familiari. **Herria**

Kontseilu bilkuran **presentatuak** izan dira heldu den urteko orientabideak. **Herria**

## • 3 da ad aurkeztu, aurrean agertu.

Eta hola naiz ni ere gau batez **presentatu** eta kalakan hasi, arratseko solasaldietan parte hartuz, klub berezi horretan. **Filipe Bidart**

Gure herriko kontseilu osoa **presentatu** zen seroren eskolan. **Aurelia Arkotxa**

Kasu hartan ez zioten deitu lehenengoan bezala Gobernu Militarrean **presentatzeko**, polizia zuzenean joan zen etxera haren bila. **Mikel Hernandez Abaitua**

Rodeseko Hospitaliako zaldun bakartiar bat **presentatu** omen zen gazteluko ate nagusian. **Aurelia Arkotxa**

Botila bat brandy eman zigun gero, laurak bere aitzinean **presentatu** ginenean, zoazte errukarriari adore apur bat ematera. **Koldo Izagirre**

#### 4 (hautakundeata, azterketa batera)

Beste norbait **presentatu** balitz ez baininduten hautatuko. **Berria - Kultura**

Baietz, **presentatzen** dela bozetan Palestinaren president izaiteko. **Herria**

Lehen aldian **presentatu** zelarik, etxe guzti-guztietan pasatu omen zen, bozketa. **Daniel Landart**

Bi abertzale **presentatzen** dira: Richard Lapegue, 27 urte, Abertzalen Batasuneko kidea, eta Manex Pagola, Iparraldeko Eusko Alkartasuneko idazkari orokorra. **Herria**

- **Presentatu** ere ez hintzen egin azterketetara eta, zer nahi duk. **Iñaki Iñurrieta**

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lana **presentatu** (3); **presentatu da** (4); **presentatu daukute** (3); **presentatu dira** (4); **presentatu ditu** (7); **presentatu zen** (6); **presentatu zuen** (4)

**presentatua izan** (21); **presentatua izan da** (14); **presentatua izanen** (7); **presentatua izanen da** (3)

**presentatuak izan** (7); **presentatuak izan dira** (5); **presentatuak izanen** (6); **presentatuak izanen dira** (6)

**presentatuko dela** (3); **presentatuko dituzte** (4); **presentatuko du** (4); **presentatuko dugu** (3); **presentatuko dute** (6)

**bozetan presentatzeko** (3)

**berriz presentatzen** (5); **kontra presentatzen** (3); **presentatzen da** (15); **presentatzen dira** (3); **presentatzen diren** (4); **presentatzen ditu** (3); **presentatzen du** (5); **presentatzen dute** (4)

#### presentatzaile (orobat *presentatzale g.er.*) iz aurkezlea.

Hor izanen du Ugutz **presentatzaile** bere doinu eta itxorioekin. **Herria**

Haren ordeze daukagu orain Louis Laforge **presentatzaile** ona. **Herria**

Euskararen beherakada gelditua dela gaur egun iparraldean erran dute inkestaren **presentatzaileek**. **Herria**

#### presentatzale ik presentatzaile.

#### presentatze iz aurkeztea.

Hameketan hasi da elgarretaraztea, elkartearen **presentatze** labor batekin eta ondotik Kanbo, Garazi, Baiona, Hendaia eta Hazparneko bertsu eskolek ikusgarri ttipi bat emaiten zutela. **Herria**

Hor ere saio eder baten ondotik gehiago **presentatze** beharrik ez dagoen Amets Arzallus-ek janzten zuen txapela. **Herria**

#### presentazio (orobat *presentazione*) iz aurkezpena.

Herri Urratsen eleketeta ginaudela Martina gutara etorri zen eta politeziatz **presentazioak** erraztu nituen. **Itxaro Borda**

**Presentazioeak** egin ondoan, Trèves-eko aita Fischer-en esku bero eta azkarren artean ginen. **Marzel Etxehandi**

Uste dut ezen hauxe izan daitekeela don Frantziskoren ondotik izan genuen prezeptorearen **presentazioa** egiteko momentua. **Joan Mari Irigoien**

Xilerat joanen diren gazteen aurkezpen **presentazioarekin**, Delbos andere pilotari pilotazalea saristatua Kirolen ministerioko ordezkarien eskutik... **Herria**

#### presentazioe ik presentazio.

#### presente (orobat *present g.er.*) 1 izond aurrean dena edo dagoena.

Zuk, ikusten duzuna baino sinetsi nahi ez duzun horrek, entzun une batez: bertan dauden objektu **presenteak** gorputzaren begiez ikusten dituzu; zure pentsamenduak eta inginahi sentipenak arimaren begiez. **Imanol Unzurrunzaga**

Koadroan ikusten dena bezain **presentea** da mehatxua, atzetik segika datorkien arriskua. **Anjel Lertxundi**

Kazetaritzan, aldiz, **presenteago** dago beti hartzailea, dela irakurle zein entzule edo ikus-entzulea. **Joxerra Garzia**

Inoiz baino **presenteago** ditut egun hauetan kartoizko kaxak, arrain laranjak, aitaren zapata bustiak, gure urte urperatu haiek. **Harkaitz Cano**

Eskolakideak, irakasleak, amona... hirugarren mailan daude, baina, **presenteago** edo urrutiago, guztiek osatzen dute mutikoaren unibertsoa. **Berria - Kultura**

Barne presentzia egiazkoaz, ez itxurazkoaz, pentsatuko luke (ez baita deus bera baino **presenteagorik** bere baitan). **Imanol Unzurrunzaga**

Irakurlea **presenteegi** edukitzeak mugatu egiten du idazlea. **Ana Urkiza**

#### 2 (izen gisa)

Estatu demokratiko batean [...] ausenteek sinetsi egin behar diete **presenteei**. **Esteban Antxustegi**

#### 3 (predikatibo edo adizlagun gisa) aurrean.

Frantziskotarrak **presente** egon gara Arantzazun 500 urtez. **Askoren artean**

Itsasoa ere zure obran ia beti **presente** dagoen elementua da. **Ana Urkiza**

Frantzisko bera ezin zitekeen gorputzez **presente** egon; baina espirituz **presente** egoten zen bere orientabide arretatsuen, etengabeko otoitzaren eta bedeinkapen eraginkorren bidez. **Askoren artean**

Sekula aitatzen ez dena baina beti **presente** dagoena. **Anjel Lertxundi**

Ni neuretzat ez naiz beste bat, errepresentazioaren objektu bat, baizik eta neure kontzientziari berehala **presente** nagokion zerbait. **Askoren artean**

Matematikak eskakizun hau tankeraren eraiaketaren bitartez betetzen du, zeina sentsuei **presente** zaien agerpena den. **Ibon Uribarri**

Zin egin du euskal kultura eta euskara **presente** izanen direla lasterketaren inguruan egin ohi diren ekitaldietan zein etapa abiatzean. **Berria - Harian**

**Presente** dut ahotsaren tonua, **presente** baita gauaren epela ere. **Anjel Lertxundi**

Nire nortasun berria beti oso **presente** izatea. **Anjel Lertxundi**

Haren irudia ere aurrean izango dutela beraiekin **presente**. **Santiago Iruretagoiena**

Gutxi dituk bertatik bertara ikusi eta gertakizunak hain **presente** dituztenak. **Xabier Etxabe**

Oso **presente** daukat haurtzaroen zer nolako sentimendu bortitzak egoten diren, eta zer nolako ezintasuna sentitzen den. **Ana Urkiza**

Boukje Greuter ikasleak ere oso **presente** dauka Rembrandt bere ikasketetan. **Berria - Kultura**

Frantzisko dohatsua **presente** ikusiko balu bezala. **Askoren artean**

Urrutiko gauzak bertan zeudenak bezala atzematen zituen eta berbera ere era miragarrian **presente** egiten zitzairen urruti zeudenei. **Askoren artean**

#### 4 oraingoa, orainari dagokiona.

Dastamenaren ahogozatze **presentea** baino ez dago. **Imanol Unzurrunzaga**

Denbora **presentean** bizi gara, baina dirudien baino gehiagotan izaten dugu, une batez bada ere, iraganean erori garelako irudipena. **Bernardo Atxaga**

Iragana, memoria, denbora **presentearen** parte bihurturik, bertan xertaturik agertzen da narrazioaren diskurtsoan. **Berria - Kultura**

Denbora **Presentearen** Geldi-egotea da Eternitate. **Juan Garzia**

## • 5 iz orainaldia.

Ez du lehenik ez gerorik, bakarrik du une honetako bere buruaren jabetza, gauza guztiak bere baitan, **presente** bakar eta berdin batean, iraunkor beti. **Joan Mari Lekuona**

**Presente** eternal batean hormaturik dago, higidura termikoen dardara moderatuek axalean baino eragiten ez diotela. **Juan Garzia**

Berari, une honetaraino, xuxenago dagokio **presente** gramatikala, deskribapenaren denbora baita, ezen ez iraganetako bat, kontaktzen duenaren denborak baitira. **Juan Garzia**

Pasatzen ez den denbora bat nahi nuke, 'pertsuasioaren' ordua, bai baitakit ez daukadala nire zain bizitzen ari naizen **presentea** baino ederragoa den ezer. **Anjel Lertxundi**

## 6 oparia.

Bixtan da xede horrek enegu ainitz ekartzen diola bere judu herritarren aldetik eta palestinarrek ere ez batere fida beren aldetik etsai horren **presenteri**. **Herria**

## 7 presenteko izlag orainaldikoa.

Gu indeterminazioaren alde gaudela; jeneralean gauzen kontra egon ohi gara, edo sasi-gauzen alde [...] edo bestela ezezkako gauzen alde, nola baita, jaun-andereak, **presenteko** kasua. **Iñaki Seguro**

Izpirituak ez du bere Gorputzaren **presenteko** existentzia espresatzen eta ez ditu ere Gorputzaren **presenteko** afekzioak **presenteko** bezala pentsatzen, Gorputzak diraueno baizik. **Piarres Xarriton**

Erran nahi da, biak ikusiko dituela hor balira bezala non ez den zerbait kausa gertatzen haien **presenteko** existentzia baztertzeko. **Piarres Xarriton**

Joana joan, etorkizuna etorkizun, **presentekoa** da gurea, eta ez bertzerik. **Imanol Zurutuza**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**beti presente** (10); **beti presente dagoen** (3); **egon da presente** (3); **kanpainen presente** (3); **oso presente** (19); **oso presente izan** (5)

**presente dago** (9); **presente daude** (3); **presente egiten** (3); **presente egon** (26); **presente egon daitezen** (3); **presente egon zen** (3); **presente egongo** (9); **presente egongo da** (4); **presente egotea** (5); **presente egoteko** (5); **presente egoten** (3); **presente izan** (15); **presente izan zen** (4); **presente izanen** (7); **presente izanen da** (4); **presente izango** (3); **presente izatea** (3); **presente zegoen** (6)

**oso present izan** (4); **present bat egin** (3); **present egon** (15); **present egotea** (3); **present egoteko** (4); **present gisa** (4); **present izan** (16); **present izan ziren** (5); **present izanen** (3); **present izango** (4)

**dembora presentea** (3)

**gorputzaren presenteko egoera** (5); **gorputzaren presenteko existentzia** (5); **izpirituaren presenteko existentzia** (3); **presenteko bezala** (3); **presenteko existentzia** (16); **presenteko existentzia baztertzen** (7); **presenteko gauza** (13); **presenteko gauza baten** (8)

## presentzia *(orobat presentzi g.er.)* 1 iz aurrean izatea.

Zeren **presentzia** baten eta absentszia baten erregistro bikoitz horrekin ("errealitate bikoitzarekin") jokatzeko baitu irudikapenezko irudiak. **Josu Zabaleta**

**Presentzia** batek nabarmendutako absentszia! **Jon Muñoz**

Eta ausentziek **presentziek** baino leku handiagoa betetzen dute. **Eider Rodriguez**

Benetakoak ez diren hotsak entzungo genituzke gauean, edota benetakoak ez diren argi edo **presentziak** sumatuko. **Bernardo Atxaga**

Hedabideetan bertsoaritzak izan dezakeen **presentzia** zaintzea, lurraldean lurraldeko bertsoaritzak sustatzea, [...]. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

**Berriak** Ipar Euskal Herriko **presentzia** indartuz «egiazko egunkari nazional bat» dela frogatzen du. **Berria - Euskal Herria**

Hiru nazioek Espainiak Europan dituen ordezkaritzetan eta erakundeetan duten **presentzia** bermatzeko lanean aritzeko konpromisoa ere adierazi zuten. **Berria - Euskal Herria**

Nazioarteko euskal **presentzia** ziurtatzea sor daitezkeen ekimenetarako; adibidez, euskal selekzioak. **Berria - Euskal Herria**

Guardia Zibilak Bizkaian izandako **presentzia** salatu du Askatasunak. **Berria - Euskal Herria**

Euskarak inoiz ere izan ez duen **presentzia** du gizartean. **Pello Salaburu**

Lehiatu gaitu Euskal Herriko elizak artatzerat, "ez bakarrik lorez eta koralez, baina bai **presentziaz** eta otoitzaz". **Herria**

Enuntziatuak ez du ez-esandakoaren, esanahi ezkutuen, errepresioen, **presentziaren** erasoak jasotzen. **Xabier Arregi**

Har dezagun antitesia, esate baterako: Perelmanen iritzi **presentziak**o baliabide bat da, eta ez du arrazoi falta. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## 2 (-en atzikiaren eskuinean)

Justizia izango duzu aurretik gidari eta Jaunaren **presentzia** atzetik babesgarri. **Elizen arteko biblia**

Oharkabeen emakume baten **presentzia** nabaritzen hasi zen. **Aritz Gorrotxategi**

Ezin jakin zein asmorekin zetorren, baina bi morrioen **presentziak** ez zuen ezer onik iragartzen. **Anjel Lertxundi**

Frantziskotarrak presente egon gara Arantzazun 500 urtez; baina [...] gure **presentzia** gero eta mugatuagoa da herrian. **Askoren artean**

Itsuenarentzat ere nabarmenegia jada abioien **presentzia** ostertzean. **Ramon Saizarbitoria**

Gero eta nabarmenagoa da, zentzu onean, euskal liburuaren **presentzia** Europako liburu-azokarik garrantzitsuenean. **Joxerra Garzia**

Zikinkeria garbitasun bilakatzeta eta paper gabezia paperen **presentzia** bihurtzea zen kontua. **Joxan Elosegi**

Anaia dardarka hasi zen ikaraz, deabruaren **presentzia** sumatu balu bezala. **Askoren artean**

Iraganaren **presentziak** hiri batzuei ematen dien magia. **Ramon Saizarbitoria**

Maitasunaren **presentzia** benetako zen, eta nahikoa zen hori. **Aritz Gorrotxategi**

Heriotzaren **presentzia** ikaragarri horren aurrean, [...]. **Ramon Saizarbitoria**

Beti geratuko da zokoren batean eskularru pare bat, bufanda bat, euritako bat... absentsziaren **presentzia** mingarria, maite izateko azken forma hori. **Imanol Zurutuza**

Goretsiko dut, bai, berriz ere, haren **presentzia** salbatzailea.

## 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Mikroskopioaren gainean amasari eusten dion Pasteurrengan, **presentzia** trinko bat dago. **Josu Zabaleta**

Ahots bat zen, **presentzia** fisiko bat. **Aritz Gorrotxategi**

Ni ez naiz zure erromantizismoan baino bizi izan den **presentzia** nahasi bat besterik. **Pako Aristi**

Gizakien arteko benetako kontaktua **presentzia** isilaren bitartez baizik ez dela lortzen dio Cioranek. **Imanol Zurutuza**

Gaueko giroak, tabernek, alkoholak eta sexuak **presentzia** nabarmena dute liburu osoan. **Berria - Kultura**

Gatazka absurdu honen emaitza izango da eskatuko duela bazkaria sukaldeko mahaian eman diezaioten, eta ondoren aterako dela bi **presentzia** temati horietatik askatzeko. **Jon Alonso**

Heriotzaren eguneroko **presentziak** gaizkoaturiko eta aldi berean erusiar liberatzaileen hurbilketak aztoraturiko giro batean. **Juan Garzia**

Zinema, egiazko **presentziarik** batere eskaintzen ez duenez, bi zentzuetan -ohikoan eta teknikoan- irudimenezkoak diren ordezkatzaileez, adierazleez osatua da. **Josu Zabaleta**

Lokalean biak bakarrik zeudela iruditu zitzaion gizonari, bera eta jertse orlegiko **presentzia** haragizkoa. **Aritz Gorrotxategi**

Kristoren gorputzezko **presentzia**. **Askoren artean**

Hala bizi izan zen gure ama bertzeon baitan, bere ausentzia iduriko hartan, zeina baitzen, aldi berean, etengabeko **presentzia**. **Joan Mari Irigoien**

Denbora beharko zuen nire ustekabeko **presentzia** onartzeko... **Alberto Ladron Arana**



Irudikapen oinarritu baina irudikapen baina baino harago duen baintuz gaindiko **presentzia** bat ikusteko ahalegina. **Josu Zabaleta**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Soldata jaitsi gabe 2006rako **presentzia** orduak gutxinaka kentzen joatea da gure eskaria. **Berria - Ekonomia**

Antzelele bat [...] film batean presente dagoela esateak ez du askotara behartzen, ez bada hartan begibistan agertzen den adierazgarritasun-efektu bizi bat dagoela, **presentzia**-efektu bat gertatzen dela esatera. **Josu Zabaleta**

Erraza da egiaztatzea Historia naturalaren **presentzia**-eremua garai klasikoan ez datorrela bat bere formetan, aukeratzeko irizpideetan eta baztertze-irizpideetan. **Xabier Arregi**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Neure borondatez erretiratu nintzen lehen solairuko gelaxka desertu eta huts batera, giza **presentzia** orotatik urrun. **Juan Garzia**

Barne **presentzia** egiazkoaz, ez itxurazkoaz, pentsatuko luke. **Imanol Unzurrunzaga**

## 6 itxura fisikoa.

Hemendik aurrera zikoitz-antza joka heure dontzeila-**presentziaz**. **Juan Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**dabiden presentzia** (3)

**emakumearen presentzia** (8); **emakumeen presentzia** (11); **ertzaintzaren presentzia** (3); **eskualdeen presentzia** (3); **etengabeko presentzia** (4); **euren presentzia** (6); **euskal herriaren presentzia** (5); **euskal liburuaren presentzia** (3); **euskal presentzia** (3); **euskaldunen presentzia** (5); **euskarak duen presentzia** (3); **euskararen presentzia** (60); **gure presentzia** (11); **helduen presentzia** (3); **heriotzaren presentzia** (4)

**izandako presentzia** (4); **jainkoaren presentzia** (12); **liburuaren presentzia** (3); **nazioartearen presentzia** (3); **nire presentzia** (17)

**okupazio indarren presentzia** (3); **pertsona baten presentzia** (3); **poliziaren presentzia** (12); **polizien presentzia** (3)

**presentzia aintzatsua** (4); **presentzia berezia** (3); **presentzia bermatu** (3); **presentzia bermatzea** (7); **presentzia bermatzeko** (4)

**presentzia eremu** (3); **presentzia esanguratsua** (3); **presentzia eta erabilera** (3); **presentzia etengabea** (4); **presentzia fisiko** (3); **presentzia handia** (14); **presentzia handiagoa** (12); **presentzia handiagoa izan** (3); **presentzia hutsa** (6); **presentzia hutsak** (3); **presentzia hutsarekin** (4)

**presentzia indartu** (5); **presentzia indartzeko** (5); **presentzia itogarria** (4); **presentzia izan** (6); **presentzia izango** (4); **presentzia militarra** (9); **presentzia nabaria** (5); **presentzia nabariagoa** (4); **presentzia nabarmena** (5); **presentzia ordu** (5); **presentzia orduak** (5); **presentzia salatu** (4); **presentzia salatzen** (3); **presentzia salbatzailea** (3); **presentzia sentitzen** (3); **presentzia sumatu** (4); **presentzia txikia** (6); **presentzia ziurtatu** (3); **presentzia ziurtatzea** (4)

**egiaren presentziagatik** (4)

**bere presentziak** (3); **gizakien presentziak** (3); **gure presentziak** (4); **nire presentziak** (3); **presentziak eragiten** (3); **zure presentziak** (4)

**bere presentzian** (4); **haren presentzian** (5)

**haren presentziaren** (4); **presentziaren berri** (3); **presentziaren bidez** (4)

**bere presentziaz** (9); **haren presentziaz** (4); **nire presentziaz** (7); **nire presentziaz ohartu** (3); **presentziaz ohartu** (7)

## presentzial 1 izond aurrez aurrekoa.

Baina ez klase **presentzialen** bitartez. **Berria - Harian**

Niretzako, taldeak edo saioak **presentzialak** izan behar dira, aitzakia bat direlako jendearekin egoteko. **Ana Urkiza**

Orain arte, eskola ordu **presentzialek** eta azterketek pisu handia zuten. **Berria - Harian**

Irakaskuntza **presentzialak** ematen du ez **presentzialak** eman ezin dezakeen zerbaite: elkar truke aberatsa. **Berria - Euskal Herria**

Eduerren beraren esku-hartze **presentziala**. **Berria - Kultura**

## 2 ez-presentzial izond

Adibidez, irakaskuntza presentzialak ematen du **ez presentzialak** eman ezin dezakeen zerbaite: elkar truke aberatsa. **Berria - Euskal Herria**

## presentzialtasun iz aurrez-aurrekotasuna.

Lau helburu zituen idazle eskolak abian jarri zenean: batetik, EIE Euskal Idazleen Elkarteak, HAEK eta UNEDek elkarlana indartzea; bestetik, sormen bideak jorratzea; hirugarrenik, **presentzialtasuna** eta alderdi tematikoan sakontzea; eta azkenik, praktikotasunean oinarritzea. **Berria - Kultura**

## presentziatu, presentzia(tu), presentziaz du ad lekuko izan.

Gasetzkoek jendea nola tratatu duten ikusita, gizon zaharren aurpegian terrorea ikusi ondoren, ertzainen ihesaldi koldarra **presentziatu** eta gero, amorrua eman zidan.

**Mikel Hernandez Abaitua**

## preserbagailu iz preserbatiboa.

Galtzak erori zitzaizkion eta, gotortutako zakila salboin urez ezitiki garbitu ondano, **preserbagailuaz** estali zion. **Itxaro Borda**

Beren gisako errefera bota diote hauk aldiz Aita Sainduari, erreprotxu eginez hunek ere aski zituela delako **preserbagailuak** onartzea edo ez kondenatzea. **Herria**

## preserbatibo 1 iz estalki babesgarria, sexu harremanetan gizonak zakilean jartzen duena eritasun benereok saihesteko eta kontrazepzio metodo gisa. ik profilaktiko 2.

**Preserbatiborik** erabili nahi izanez gero, bezeroek susmo txarra hartzen diete. **Gotzon Garate**

Lurrean zetzan galtza parean patrika bilatu eta azkar jantzi nuen lekatik atera nuen **preserbatiboa**. **Harkaitz Cano**

Leku bakartietara eramaten ninduen, nire gainean etzaten zen, estu besarkaturik, **preserbatiboa** ipintzen zidan, eta txortan egiten genuen, zaldi erotuek bezala. **Juan Kruz Igerabide**

Onenean ari garela, ordea, burua makurtu, eta konturatzerako, ahoarekin sartu dit **preserbatiboa**, profesionalen modura. **Patxi Iturritegi**

**Preserbatiboak** erabiltzea bultzatzea ezagutzen dugun modu bakarra da hiesa ez hedatzeko. **Berria - Gaiak**

## 2 (hitz elkartuetan)

Gau-mahaiaren kaxoian gordetzen nuen **preserbatibo** kaxararen bila abiatu zen nire eskua, operazio hartara askotan ohitua; atera nuen kaxa, eta... **Joan Mari Irigoien**

Ordainez, gazteak eskuratuko du **preserbatibo** boata bat urririk. **Herria**

## preseski (orobat prezeski g.er., presaski g.er. eta presiski) adlag hain zuzen.

Azaroaren 3an **preseski**, Moriones eta Primo de Riveraren agindupean, tropa liberalen elkarketa munstroa antolatuta zen Sesman. **Txillardegui**

Baina zer da euskaldunak, abertzalegoak **preseski**, bere populazio apatikoari barkatzen ez diona? **Itxaro Borda**

Kezka horietan eraman ninduten, **preseski**, idaztera. **Ana Urkiza**

Libratzaile horietarik bat zen **preseski** Perkain famatua. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Gizon haundi horrek zuen **preseski** sinatua lehen aldikotz palestinar auzoekilako baka. **Herria**  
-Hori dizut **preseski** oraino erraiteko. **Janbattitt Dirassar**  
Hau izan da **preseski** argitaratutako lan honen garrantzia. **Berria - Gaiak**  
Hamabi urteko umea, **preseski**. **Txillardegi**  
Hitaz oroiti! hitaz oroiti! hire bila jina nuk **preseski**! **Michel Oronoz**  
Ez zen, **preseski**, deiaren esperoan. **Aingeru Epaltza**  
Aurki egiaztatuko duzuen bezala, ni ez nintzen **preseski** haur arrunta erraten zaiona. **Alberto Ladron Arana**  
Bai, baina nik, hori nahi bainuen **preseski**! **Daniel Landart**

---

presidengo ik **presidentgo**.

---

president ik **presidente**.

---

## presidente *(orobat **president** g.er.)* 1 iz estatu bateko burua; hainbat gobernu motatako burua. ik **lehendakari** 2.

1918an, Georges Wilson Ameriketako **presidentek** berriz aipatu zituen aspaldiko Nazionalitateen printzipioa eta Populuen Autodeterminazio Eskubide agertu berria. **Piarres Xarriton**  
Txileko **presidente** izan zen Augusto Pinochet-i deitzeko, "diktadore ohia" entzutera ohitu gaituzte. **Iñigo Aranbarri**  
1953an Amerikako Estatu Batuetako **presidente** izatera iritsi zen eta 1956an berriro hautatu zuten. **Alberto Ladron Arana**  
Kataluniako Generalitateko **presidente** ohi Jordi Pujolen ustez. **Berria - Harian**  
[Eskutitza] ingelesez idatzia, Roosevelt **presidentearen** semeari zuzendua da. **Edorta Jimenez**  
Abenduaren 11n Batista **presidentek** Alemania eta Italiari gerra aldarrikatzen dien agiria sinatu du. **Edorta Jimenez**  
Pompidouk, Errepublikako **presidente** guztiak bezala, elefante baten oroimena zuen, eta errinozero baten amorrua. **Juan Garzia**  
Foruaren Hobekuntza onartuta Urralburu bihurtu zen Diputazioko **presidente**. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Bihotza uzkuriturik, gero ere Parisen horiekien bilduko zen, eta baita Errepublikako **presidente** Negrinekin ere. **Edorta Jimenez**  
Venezuelako **presidente** guztiak izan omen dira lapurrak. **Pako Aristi**  
Kargua utzi du Hungariako **Presidentek**. **Anton Garikano**  
Lincoln memoriale, **presidente** haren omenez eraikitako eskultura erraldoia. **Harkaitz Cano**  
Eisenhower, Ameriketako Estatu Batuetako **presidente** izandakoaren hitzak dira. **Iñaki Heras**  
Karimov **presidente** jarri zuten. **Berria - Harian**  
Xaguen erresuman, katua **presidente**. **Joxerra Garzia**

### 2 erakunde bateko burua. ik **lehendakari** 3.

Batzar orokorrak Carlos Etxepare Gipuzkoa Donostia Kutxako **presidente** aukeratuko du datorren ostegunean. **Berria - Ekonomia**  
Zenbait ongintza-elkartetako **presidente** eta beste batzuetako partaide zen. **Anton Garikano**  
Ez gara laranjen edota gurpilen merkatuaz ari», nabarmendu du Iberdrolako **presidente** Iñigo Oriolek. **Berria - Ekonomia**  
Gamesako **presidente** Alfonso Basagoitiren hitzek eragin zuten zurrumurru handiena entzuleen artean. **Berria - Ekonomia**  
Andrei Srubov bertako txekako **presidentea** da. **Pablo Sastre**  
Historian eta matematiketan aditua da Filipe Etchegoyhen, *Euskal museoaren adiskideak* elkartearen **presidente** berria. **Herria**  
Lan karga gehitzea da Babcockeko enpresa batzordeko **presidente** berriaren helburua. **Berria - Ekonomia**  
Oihana ikastolak **presidente** berria. **Herria**  
**Presidente** izateko zilegitasunik ez zuela. **Berria - Kirola**  
[Athleticeko] -Norvegiako lehen ministro eta Batzorde horretako **presidente** zen Gro Harlem Brundtlan andrearen ohorez jarri zioten izen hori. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
1991-09-28: Antonio Aragon izendatzen du Ebroko Ur Konfederazioko **presidente**. **Eduarne Elizondo**  
Espainiako uren arloko estatu idazkari Pascual Fernandezek eta Uraren Plataformako **presidente** Juan Antonio Cabrerok hartu zuten hitza. **Eduarne Elizondo**  
Europako Batzordeko **presidente** izendatu zuten, lehen ministro izateari utzi eta urte batera. **Berria - Harian**

### 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Serbiako errepublikako jarduneko **presidente** Dragan Marsicaninek lehen ministrogai izendatu zuen Kostunica. **Berria - Mundua**  
Nolanahi ere, Jugoslavia ohiako Auzitegiko jarduneko **presidente** Fausto Pocar epaileak barne ikerketa bat manatu du. **Berria - Mundua**  
Gillaume de Lamoignon (1617-1677), Parisko Parlamentuko lehen **presidentea**. **Juan Martin Elexpuru**  
Aurreko **presidentek** ez zuten barrio bakar bat inoiz zapaldu. **Pako Aristi**  
Aurkibidea elebiduna da, **presidente** orokorraren hitzaldia ere bai. **Herria**  
Ibon Begoñak ere nortasuna ematen dio **presidente** ahalguztiduna eduki arren abizenik ez duen klubari. **Berria - Kirola**  
**Presidente** errepublikanoak herrialdearen eta askatasunaren alde borrokatzeko prest agertu zirenak goraiatu zituen. **Berria - Harian**  
Bitxia izan zen prestigioaren labela duten Espainiako zenbait kazetak Carmona **presidente** kolpistari eman zioten ongietorria: [...]. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Mexikoko lehen **presidente** indigena. **Berria - Gaiak**  
-Amerikako lehenengo **presidente** musulmana izango naiz. **Jon Arretxe**  
**Presidente** modernozalearen urratsen segitzea gustatzen zitzaion, zela pantailetan, zela egunkarietan. **Itxaro Borda**  
-Bularretakoaren bila makurtu nintzenean, sekulako burukada eman baitzidan **presidente** legatz begidunak. **Jose txo Azkona**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Direktorioko borrokariarik, beren jatorriari eta beren hildakoei omen egin guran legez, Unibertsitatea eta **Presidente** Jauregia hartu zuten. **Edorta Jimenez**  
Enpresarien buru Pedro Carmonaren autoizendatzea **presidente** kargurako. Itsasontzian zirelarik, hilaren hamabian, hura **presidente** kargutik kendu zutela jakin zuen. **Txema Ramirez de la Piscina**  
**Presidente** aulkian inor arrandian ibiltzeko. **Xabier Olarra**  
Jakitera eman duenez, Chirac sustengatuko du helduden urteko **presidente** bozetan. **Herria**  
Hala, bada, Nuriak, **presidente** eginkizunetan, hitz batzuk egin zituen, elkartearen asmoak biltzen zituztenak, enekozaletasuna bihotz eta ardatz. **Joan Mari Irigoien**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ministro, alkate eta errepublika **presidente** zenbaitek hartu gaitu. **Edorta Jimenez**  
Kontseilu **Presidente** Sidki Paxari bezalako batek porrota eragiten ahal dizu. **Patxi Zubizarreta**

### 6 **presidente** ohi

Mario Soares **presidente ohi** sozialista, eta Marcelo Rebelo de Sousa sozialdemokraten buru ohia dira bertan. **Berria - Kultura**  
Bush dinastiako George W. Bush presidenteari, George Bush CIAko zuzendari ohi eta AEBetako **presidente ohiaren** semeak. **Harkaitz Cano**  
Gogora dezagun, bat aipatzearen, José María Aznar Espainiako **presidente ohiak** Al Qaedaen Madrileko atentatuaren ondoren esan zuena. **Bernardo Atxaga**  
Harold Good, Irlandako Eliza Metodistako **presidente ohi**, eta Alec Reid, apaiz erredentorista. **Berria - Harian**  
Kenneth Lay Enron enpresako **presidente ohiak** bere errugabetasuna laster frogatuko duela adierazi zuen. **Berria - Ekonomia**  
Ebroko Ur Konfederazioko **presidente ohi** Jose Vicente Lacasa eta Tomas Angel Sancho. **Edurne Elizondo**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aebetako presidente (135); aebetako presidente ohi (9); afganistango presidente (12); aginte nazionalako presidente (68); alderdi popularreko presidente (11); alderdiko presidente (40); aristide presidente ohiaren (9); asanbleako presidente (11); atleticeko presidente (20); atleticeko presidente izateko (11); aukeratu zuten presidente (9); auzitegi goreneko presidente (11); auzitegi nagusiko presidente (16); aznar espainiako presidente (8); aznar presidente (10)  
batauneko presidente (9); batauneko txandakako presidente (14); batzarreko presidente (11); batzordeko presidente (134); behin behineko presidente (27); behineko presidente (27); bertako presidente (8); bertrand aristide presidente (11); bill clinton presidente (8); boli kostako presidente (8); boliviako presidente (14); brasilgo presidente (9); buru batzarreko presidente (9)  
catalunyoako presidente (14); ciuko presidente (9); clinton presidente (10)  
eako ppko presidente (13); eajko ebbko presidente (12); eajko presidente (14); eako presidente (38); ebbko presidente (36); ebko txandakako presidente (13); eeko presidente (8); egiptoko presidente (16); egungo presidente (33); elkarteko presidente (42); erakundeko presidente (21); ercko presidente (12); errepublikako presidente (18); errusiako presidente (53); espainiako gobernuko presidente (84); espainiako presidente (110); espainiako presidente ohi (17); espainiako senatuko presidente (16); estatu batuetaiko presidente (85); europako batzordeko presidente (60); europako legebiltzarreko presidente (24); eusko legebiltzarreko presidente (16)  
federazioko presidente (29); filipinetako presidente (9); frantziako presidente (63)  
ganberako presidente (8); gbbko presidente (10); generalitateko presidente (47); georgiako presidente (23); gobernuko presidente (166)  
haitiko presidente (30); hegoafrikako presidente (10); hussein irakeko presidente (25); hussein presidente (21); hussein presidente ohi (9)  
irakeko presidente (63); irakeko presidente ohi (18); irakeko presidente ohiaren (21); irango presidente (39); israelgo presidente (9); italiako presidente (14); izango da presidente (9)  
jarduneko presidente (20)  
jugoslaviako presidente (36); jugoslaviako presidente ohi (12); jugoslaviako presidente ohi (9)  
kataluniako generalitateko presidente (17); kataluniako presidente (16); konfederazioko presidente (13); kongresuko presidente (15); kontseiluko presidente (29); kosovoko presidente (8); kubako presidente (9); kutxako presidente (8)  
langileen batzordeko presidente (37); legebiltzarreko presidente (90); lehen presidente (10); liberiako presidente (12); libiako presidente (8)  
mankomunitateko presidente (13); mexikoko presidente (12); mexikoko presidente vicente (8)  
nafarroako gobernuko presidente (52); nafarroako parlamentuko presidente (10); nafarroako presidente (40)  
orduko presidente (16); osasunako presidente (10)  
pakistaneko presidente (13); paneko presidente (51); parlamentuko presidente (21); poloniako presidente (8); popularreko presidente (11); ppko presidente (49); presidente aukeratu (25); presidente aukeratu zuten (14); presidente aukeratua (9)  
presidente berri (16); presidente berria (90); presidente berria aukeratzeko (8); presidente berriak (64); presidente berriaren (17); presidente berriari (10); presidente bihurtu (8)  
presidente enrique martinez (8)  
presidente george bush (31); presidente george bushek (91); presidente george bushen (25); presidente george bushi (14); presidente gerry adamek (25); presidente gisa (21)  
presidente hamid karzaik (8); presidente hautatu (26); presidente hautatu zuten (8); presidente hosni mubarak (8); presidente hugo chavez (8); presidente hugo chavez (8)  
presidente independentistak (8); presidente izan (55); presidente izan zen (21); presidente izandako (28); presidente izandakoa (13); presidente izandakoak (8); presidente izandakoaren (12); presidente izango (17); presidente izateari (11); presidente izateko (52); presidente izaten (11); presidente izendatu (42); presidente izendatu zuten (21)  
presidente jacques (54); presidente jacques chircak (10); presidente jacques chiracek (39); presidente jasser arafat (10); presidente jasser arafatek (24); presidente jasser arafaten (9); presidente josep borrell (12)  
presidente kargua (70); presidente kargua hartu (27); presidente karguan (16); presidente kargurako (13)  
; presidente mahmud abbas (12); presidente mahmud abbask (33); presidente mahmud abbasi (10); presidente mahmud ahmadinejad (14); presidente mariano raxoi (17); presidente miguel sanz (14); presidente miguel sanz (40); presidente miguel sanzekin (10); presidente miguel sanzen (8)  
presidente ohi (146); presidente ohi (140); presidente ohiak (117); presidente ohiaren (115); presidente ohiari (28)  
presidente pasqual maragall (29); presidente pervez musharraf (8)  
presidente romano prodik (11)  
presidente vladimir putin (11); presidente vladimir putinek (31)  
presidente zela (10); presidente zen (11)  
pse eeko presidente (8); realeko presidente (9); saddam hussein presidente (20); salako presidente (8); senatuko presidente (23); sepiko presidente (8); serbiako presidente (14); sinn feineko presidente (20); taldeko presidente (39); txandakako presidente (38); txetxeniako presidente (32); txileko presidente (15); txinako presidente (8)  
ukrainako presidente (10); ur konfederazioko presidente (8); venezuelako presidente (32); xuntako presidente (12)  
aebetako presidentea (23); aginte nazionalako presidentea (11); alderdiko presidentea (14); aristide presidentea (10); batzordeko presidentea (34); behin behineko presidentea (9); bush presidentea (22); chavez presidentea (16); chircak frantziako presidentea (10)  
eako presidentea (15); ebbko presidentea (18); egungo presidentea (24); elkarteko presidentea (18); erakundeko presidentea (8); errepublikako presidentea (11); espainiako gobernuko presidentea (29); espainiako presidentea (15); estatu batuetaiko presidentea (11); europako batzordeko presidentea (10); eusko legebiltzarreko presidentea (8); federazioko presidentea (14); frantziako presidentea (14); generalitateko presidentea (11); george bush presidentea (10); gobernuko presidentea (47); hugo chavez presidentea (14); hurrengo presidentea (11)  
imaz ebbko presidentea (8); jarduneko presidentea (8); kontseiluko presidentea (23); langileen batzordeko presidentea (8); legebiltzarreko presidentea (21); nafarroako gobernuko presidentea (8); nafarroako presidentea (12)  
paneko presidentea (9); ppko presidentea (17)  
presidente aukeratzeko (20); presidentea bera (17); presidentea hautatzeko (11); presidentea hii (17); presidentea izan (37); presidentea izan zen (21); presidentea izango (27); presidentea izango da (13); presidentea kargutik kentzeko (10); presidentea zen (15)  
sanz presidentea (9); taldeko presidentea (9)  
aebetako presidentea (79); aginte nazionalako presidentea (11); ahmadinejad presidentea (8); alaveseko presidentea (9); aristide presidentea (9); astiazaran presidentea (12); banku zentralako presidentea (13); batzordeko presidentea (76); bush aebetako presidentea (46); bush presidentea (68); cdnko presidentea (10); chavez presidentea (13); chircak frantziako presidentea (43); chircak presidentea (24)  
eako ppko presidentea (19); eajko ebbko presidentea (18); eajko presidentea (18); eajren ebbko presidentea (9); eako presidentea (73); ebbko presidentea (66); ebzko presidentea (16); egungo presidentea (24); elkargoko presidentea (9); elkarteko presidentea (61); erakundeko presidentea (11)  
errepublikako presidentea (16); erreserba federalesko presidentea (9); errusiako presidentea (25); espainiako gobernuko presidentea (64); espainiako presidentea (44); estatu batuetaiko presidentea (36); europako batzordeko presidentea (8); eusko legebiltzarreko presidentea (15); federazioko presidentea (28); fernando lamikiz presidentea (12); frantziako presidentea (60); fuentes presidentea (8); fundazioko presidentea (8); gaineratu zuten presidentea (8); ganberako presidentea (13); generalitateko presidentea (27); george bush presidentea (36); gobernuko presidentea (91); hugo chavez presidentea (9)  
imaz eajko presidentea (10); imaz ebbko presidentea (19); irango presidentea (16); jacques chircak presidentea (22); jarduneko presidentea (18); karzai presidentea (12); kongresuko presidentea (8); kontseilu nagusiko presidentea (10); kontseiluko presidentea (26); kutxako presidentea (11); lagos presidentea (8); lamikiz presidentea (13); lan taldeko presidentea (9); langileen batzordeko presidentea (25); legebiltzarreko presidentea (36); lpeeko presidentea (9); luis astiazaran presidentea (11); maragall generalitateko presidentea (11); miguel fuentes presidentea (8); miguel sanz presidentea (14); musharraf pakistango presidentea (10); nafarroako gobernuko presidentea (12); nafarroako presidentea (49)  
osasunako presidentea (12); pakistango presidentea (13); paneko presidentea (26); parlamentuko presidentea (11); patxi izko presidentea (13); piterman presidentea (9); ppko presidentea (54)  
presidentea adierazi (30); presidentea adierazi zuten (13); presidentea azaldu (23); presidentea azaldu duenez (8); presidentea azaldu zuenez (9); presidentea berak (28); presidentea berretsi (9); presidentea egindako (15); presidentea eman (9); presidentea erredakzioa (18); presidentea esan (48); presidentea esan zuten (20); presidentea esan zuenez (10); presidentea iragarri (13); presidentea jakinarazi (15); presidentea jakinarazi zuenez (8); presidentea nabarmendu (9); presidentea ohartarazi (12); presidentea onartu (8)  
pse eeko presidentea (11); putin erusiako presidentea (16); raxoi ppko presidentea (13); realeko presidentea (14); rodriguez zapatero presidentea (8); sanz nafarroako presidentea (24); sanz presidentea (16); senatuko presidentea (17); sepiko presidentea (11); taldeko presidentea (27); trichet ebzko presidentea (10); txandakako presidentea (15)

upnko presidenteak (16); venezuelako presidenteak (12); zapatero espainiako presidenteak (18); zapatero presidenteak (14)  
gobernuko presidentearekin (9); presidentearekin batera (13); presidentearekin bildu (33); presidentearekin bildu zen (11)  
aebetako presidentearen (32); batzordeko presidentearen (16); bertrand aristide presidentearen (14); bush aebetako presidentearen (19); bush presidentearen (26);  
chavez presidentearen (20); chirac frantziako presidentearen (8); chirac presidentearen (10); eako presidentearen (12); ebbko presidentearen (12)  
egungo presidentearen (11); errusiako presidentearen (11); espainiako gobernuko presidentearen (20); espainiako presidentearen (14); frantziako presidentearen (9);  
generalitateko presidentearen (9); george bush presidentearen (16); gobernuko presidentearen (26); hugo chavez presidentearen (15)  
jacques chirac presidentearen (9); karzai presidentearen (9); nafarroako presidentearen (13)  
paneko presidentearen (16)  
presidentearen aburuz (8); presidentearen aholkulari (14); presidentearen aldeko (16); presidentearen arabera (53); presidentearen aurka (14); presidentearen aurkako  
(31); presidentearen dimisioa (13); presidentearen esanetan (23); presidentearen esku (8); presidentearen gobernuak (12); presidentearen hitzak (19);  
presidentearen hitzetan (22); presidentearen iritzi (9); presidentearen irudiko (8); presidentearen jarrera (11); presidentearen kontra (11); presidentearen kontrako  
(19); presidentearen ustez (31)  
sanz nafarroako presidentearen (8)  
venezuelako presidentearen (9)  
aebetako presidenteari (12); bush aebetako presidenteari (8); bush presidenteari (15); espainiako gobernuko presidenteari (23); espainiako presidenteari (25); frantziako  
presidenteari (9); george bush presidenteari (10); gobernuko presidenteari (28); legebiltzarreko presidenteari (9); nafarroako presidenteari (9); paneko presidenteari  
(13); sanz nafarroako presidenteari (8); zapatero espainiako presidenteari (14); zapatero presidenteari (11)  
erkidegoetako presidentekin (11)  
autonomia erkidegoetako presidenteen (16); erkidegoetako presidenteen (34); presidenteen konferentzia (10); presidenteen konferentziaren (9)  
bush president (8); errepublikako president (11); president berria (17); president berriak (12); president berriaren (13); president bozak (17); president bozeri buruz (10);  
president bozetan (18); president kargua (9); president karguan (12); president ohia (41); president ohiak (12)  
amerikano presidenta (9); bush presidenta (10); chirac presidenta (23)  
amerikano presidentak (24); bush amerikano presidentak (18); bush presidentak (42); chirac frantses presidentak (13); chirac presidentak (50); chirac presidentak berak  
(8); frantses presidentak (18); presidentak berak (16)  
bush presidentaren (11); chirac presidentaren (10); presidentaren hautatzeko (13)  
bush presidentari (10); chirac presidentari (8)

## presidentealdi iz presidente baten agintaldia.

Hilabete honetan, Irlandaren **presidentealdian**, hori moldatzea nahi nuke. **Berria - Euskal Herria**

## presidentegai (orobat *presidente gai g.er.* eta *presidentgai g.er.*) 1 iz presidentetzarako hautagaia. ik lehendakarigai.

George Bush **presidentegai** izendatuko duen konbentzioa manifestazio handien artean hasi da. **Berria - Mundua**

1952an deiturik ziren hauteskundeak egiteko astirik eman barik, haietara bere burua **presidentegai** aurkeztua zuen Fulgencio Batistak estatu kolpea jo zuen, martxoaren 1ean. **Edorta Jimenez**

Euskal departamendua eta beste promesa eder zenbait egin zizkigun lehenago François Mitterrand **presidente-gai** sozialista zenak. **Piarres Xarriton**

Izan ere, Beckham zen Laportaren hauteskundeetako bandera eta azkenean Florentino Perezek eskutik kendu zion Bartzelonako **presidente gaiari**. **Berria - Kirola**

Europako Batzordeko **presidentegai** Jose Manuel Durao Barrosok gaur aurkeztuko dio Europako Legebiltzarrari erakundearen osaketa. **Berria - Mundua**

**Presidentegai** aurkeztu da Temaru independentista. **Berria - Mundua**

### 2 (hitz elkartuetan)

Gobernu **presidentegai** batek beldurra izateko baimenik ez duela esan bazuen ere. **Berria - Euskal Herria**

## presidenteorde (orobat *presidente orde g.er.* eta *presidentorde g.er.*) 1 iz presidentearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa. ik lehendakariorde.

Itxura denez, Agirre, Rockefeller haren ordezkariak ez ezik, Estatu Batuetako **presidenteordeak** ere hartu zuen. **Edorta Jimenez**

Horretan nenbilela, Anttoni Irazusta hendaia eta ezagutu nuen, Medecins du Monde elkarteko **presidenteordea**. **Hasier Etxeberria**

*Bizi Garbiako* **presidente ordearekin**, Mixel Lahetjuzanekin mintzo gara. **Herria**

Legebiltzarrak presidente bat eta bi **presidenteorde** aukeratuko ditu. **Berria - Harian**

Espainiako bigarren **presidenteordea** eta Ekonomia eta Ogasun ministroa izango da Jose Luis Rodriguez Zapaterok egindako proposamena onartu ostean. **Berria - Ekonomia**

«Nazioarteko elkarlana ez da inoiz izan horren garrantzitsu eta premiazko», esan zien Qiao **presidenteordeak** ordezkariak. **Berria - Gaiak**

Espainiako **presidenteorde** Maria Teresa Fernandez de la Vegak. **Berria - Euskal Herria**

**Presidenteordeak** elkartasuna adierazi zien Gobernuaren izenean, biktimen lagun eta senideei. **Berria - Harian**

### 2 (hitz elkartuetan)

Pedro Solbes Espainiako Ekonomia **presidenteordeak** arrazoitu zuen «enpresen lehiaren eta hiritarren interesen arteko oreka» bermatzea izan dutela helburu. **Berria - Ekonomia**

## presidenteordegai iz presidenteordetzarako hautagaia. ik lehendakariordegai.

Cheney errepublikanoa eta Edwards demokrata **presidenteordegaiak** dira. **Berria - Mundua**

Hurrengo eztabaida garrantzitsua beste telebista eztabaida bat izango da Dick Cheney presidenteordearen eta John Edwards **presidenteordegai** denaren artean. **Berria - Mundua**

## presidenteordetza iz presidenteordearen kargua eta titulua. ik lehendakariordetza.

Nahiz Lula zentro-ekzerreko politika bultzatu, **presidenteordetza** duen PL, adibidez, zentro-eskuinekoa da. **Berria - Mundua**

**Presidenteordetza** eta Justizia, Askatasuna eta Segurtasuna: Rocco Buttiglione, Italia. **Berria - Mundua**

## presidentetza 1 iz presidentearen kargua eta titulua. ik presidentzia; lehendakaritza.

Denbora gutxi zerman boterean, 1989an hartu baitzuen Serbiako **presidentetza**. **Berria - Harian**

AEBetako **presidentetzara** bigarren aldiz iritsi zenetik 100 egun betetzen zirela. **Berria - Harian**

Osasunako **presidentetzara** iritsiz geroztik, hirugarren denboraldia hastera doa Patxi Izkorentzat. **Berria - Kirola**

Silvio Berlusconi lehen ministroa eta [...] Romano Prodi **presidentetza** eskuratzeko lehiatuko dira bozetan. **Berria - Mundua**

Ostiralean hartuko du **presidentetza** Perez Touriñok. **Berria - Harian**

EBko **presidentetza** Irlandak du. Berria - Euskal Herria

Palestinako Medikuntza Laguntzarako Elkarteko **presidentetza** utzi du bozetara aurkezteko. Berria - Mundua

Jose Maria Rosell kataluniarra ez delako aurkeztuko CEOEko **presidentetzara**. Berria - Ekonomia

Inkesten arabera, George Bushi **presidentetza** kenduko lioke hautagaiak, bozetara aurkeztuz gero. Berria - Mundua

Nixon **Presidentetzatik** atera zuen kazetariaren azken liburua ezinegon handia sortu du Etxe Zurian. Berria - Mundua

Gobernuak uztailaren 1ean hartuko du EBko txandakako **presidentetza**. Berria - Harian

Oraindik ez daki inork Osasunako **presidentetzarako** hauteskundeak zein egunetan egingo diren, **Presidentetzarako** hauteskundeetan bozen %57 eskuratu zituen. Berria - Kirola

Sarkozy garaile **Presidentetzarako** lasterketan. Berria - Harian

Baina Frantziako **Presidentetzarako** lehen itzulian gertatutakoak eragin dituen gauza eta kontu batzuk, irigarriak egiten zaizkit. Hasier Etxeberria

Urtebete pasatxo ibili zen **Presidentetzarako** kanpaina prestatzen. Berria - Harian

Klub baten **presidentetzan** egoteak egundoko ardura du, familia eta lana baztertu behar dituzu. Berria - Kirola

EBko **Presidentetzan** jardungo dudan epean, Europaren etorkizunaz zinezko eztabaida bat abian jartzeko asmoa daukat. Berria - Mundua

Lau urte egin ditu **presidentetzan**, eta egindakoaz harro ageri da Izko. Berria - Kirola

Jacques Chiracen **Presidentetzaren** azken urtea. Berria - Harian

## 2 presidentearen bulegoa eta bulegoko taldea.

«Herrialdeen gehiengo zabala **presidentetzaren** azken proposamenarekin ados zegoen, baina gutxiengoak uko egin zion. Berria - Harian

Kolonbiako **Presidentetzak** atzo ukatu zuen Newsweek-ek dioena. Berria - Mundua

Europako Batasuneko **presidentetzak**, aldiz, Tel Avivin ohartarazi zion «EBrekin duen elkarlan motaren arabera» emango dizkiola diru laguntzak. Berria - Mundua

Elkarrizketarako atea beti irekita egon dela nabarmendu zuen atzo **Presidentetzako** eledun Ruben Aguilarrek. Berria - Harian

Carondelet **presidentetzako** egoitzaren aurrean, bestetik, segurtasun neurriak areagotu zituzten atzo. Berria - Harian

Kanarietako **Presidentetza** eta Justizia kontseilari Jose Miguel Ruanok. Berria - Harian

Soilik Europarlamenturako botoa emateko aukera dugu, gero ez dugu hitzik ez **Presidentetzaren** hautaketan, ez Banku Zentralaren kontrolean... Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mila bat palestinar bildu zen atzo Ramalan (Zisjordania), Jasser Arafaten Mukata **presidentetza** egoitzaren inguruan. Berria - Mundua

Milaka lagun Miraflores **presidentetza**-jauregiaren inguruan paratu ziren Chávezen itzulera aldarrikatuz. Txema Ramirez de la Piscina

Beharrezkotzat jo du AEBetako **presidentetza** hauteskundeak datorren azaroan izan baino lehen egin daitezela. Berria - Mundua

Irlandarraren buruzagitza EBk 15 partaide dituela hasi da, Ahernen **presidentetza** txanda amaitzean, baina, 25 izango dira. Berria - Mundua

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ebko presidentetza** (11); **ebko txandakako presidentetza** (10); **europako batasuneko presidentetza** (4); **hartuko du presidentetza** (3); **lortu zuen presidentetza** (3); **presidentetza daraman** (5); **presidentetza duen** (9); **presidentetza eskuratu** (5); **presidentetza eskuratu zuen** (3); **presidentetza eskuratzeko** (7); **presidentetza hartu** (7); **presidentetza hartu zuen** (4); **presidentetza hartuko** (4); **presidentetza hartzeko** (3); **presidentetza lortzeko** (4); **presidentetza utzi** (5); **txandakako presidentetza** (18)

**txandakako presidentetzak** (3)

**presidentetzan egon** (4); **presidentetzan jarri** (3)

**irlandako presidentetzapean** (3)

**presidentetzara eraman** (3); **presidentetzara iristeko** (4); **presidentetzara iritsi** (4)

**aebetako presidentetzarako hautagai** (4)

**presidentetzarako bozak** (44); **presidentetzarako bozak egin** (4); **presidentetzarako bozak egingo** (4); **presidentetzarako bozak irabazi** (15); **presidentetzarako bozak irabazteko** (3); **presidentetzarako bozen** (28); **presidentetzarako bozeramalleak** (4); **presidentetzarako bozetako** (7); **presidentetzarako bozetan** (32); **presidentetzarako bozetara** (9); **presidentetzarako bozetarako** (11)

**presidentetzarako egitekoak diren** (3); **presidentetzarako eta legebiltzarrerako** (10)

**presidentetzarako hautagai** (44); **presidentetzarako hautagai demokrata** (3); **presidentetzarako hautagai demokratak** (4); **presidentetzarako hautagai gisa** (3);

**presidentetzarako hautagai ohia** (3); **presidentetzarako hautagaia** (7); **presidentetzarako hautagaiak** (8); **presidentetzarako hautagaiaren** (4); **presidentetzarako hautagaiek** (3); **presidentetzarako hautagaien** (3)

**presidentetzarako hauteskundeak** (36); **presidentetzarako hauteskundeak egin** (3); **presidentetzarako hauteskundeak irabazi** (3); **presidentetzarako hauteskondeei** (5); **presidentetzarako hauteskondeei begira** (4); **presidentetzarako hauteskondeen** (16); **presidentetzarako hauteskundeetako** (9); **presidentetzarako hauteskundeetan** (23); **presidentetzarako hauteskundeetarako** (5)

**presidentetzarako lehia** (3)

## presidentgai ik presidentegai.

## presidentgo *iz ipar* presidentetza.

Denbora berean Barack jaunak jakin arazi du uzten zuela ere sozialist alderdiaren **presidentgoa** bai eta bere deputatu alkia. Herria

Bozetan presentatuko dela Errusiako **presidentgorat** bigarren aldiz hupatzeko. Herria

Hautagaiak, **Presidentgorako**: Abdelaziz Bouteflika orain artinoko presidentea, Abdallah Djabballah, Ali Fawzi Rebaïne, Saïd Sadi, Louisa Hanoune eta Ali Benflis, 59 urtetan Bouteflika desafiatzen duena berriz. Herria

## presidentorde ik presidenteorde.

## presidentzia 1 *iz* presidentetza.

Trajkovskii 1999an lortu zuen **presidentzia**, eta bost urteko agintea beteko zukeen aurtengo abenduan. Berria - Mundua

Aznarrek Espainiako Gobernuaren **presidentzia** utziko duela-eta, «epe berri baten aurrean gaudela», adierazi zuen Azkaratek. Berria - Euskal Herria

Alderdi demokratak **presidentzia** utziko duela iragarri du lehen ministroak. Berria - Mundua

Fernandezek **presidentzia** hartzen duenean Jaurilaritzarekin lankidetzara harremanak sendotzea espero duela esan zuen Madrazok. Berria - Euskal Herria

Bere eskuetan metatzen dira alderdiko **presidentzia**, barne ministro kargua eta engoitik lehen ministroak buru ezin izan duen eginkizuna. Berria - Ekonomia

Zuzendaritza organoak: Kontseilu Politikoa (75 edo 80 kidekoa) eta **Presidentzia** (17 kidekoa) aukeratuko ditu igandean biltzarrak. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik presidentzial.

Doris Algreen, asebeteko irribarre ukatu ezin bat ezpainetan zuela, aretoko **presidentzia**-mahaitik jaiki eta dotoreki joan zen aurreko oholtzara. Josetxo Azkona

Lehendakari batez eta bi lehendakariordez osatuta legokeen **presidentzia** talde hori bost kidez osatua egon dadin eta hauetatik hiru xiitak izan daitezela. Berria - Mundua

Espainiako **Presidentzia** ministroa. Berria - Euskal Herria

Calahorrako hileta elizkizunetara Sanz ez joatea eta **Presidentzia**, Justizia eta Barne sailburu Javier Caballero bidaltzea erabaki zuen UPNko Gobernuak. Berria - Euskal



## presidentzial *izond* presidentearena, presidentziari dagokiona. ik **presidentzia 2**.

Auto **presidentziala** Cadillac Brougham beltz bat da. [Pako Aristi](#)

Jauregi **presidentzialaren** aurrean, Prevalen milaka jarraitzaile bildu ziren. [Berria - Mundua](#)

Guardia **presidentzialeko** militar talde batek ostegun gauean egindako esutu kolpe saioak porrot egin duela. [Berria - Mundua](#)

Ebazpen **Presidentzial** Orokorra bultzatu, eta proposamena Bozeramaileen Batzordeak onartu beharko luke. [Berria - Harian](#)

Zein estatubatuarrek gasta dezake arazorik gabe hauteskunde **presidentzialetan** 2.000 dolarreko zenbatekoa? [Berria - Mundua](#)

Gure ardura zibikoa betetzen dugu hauteskunde guzietan: municipalak, legislatiboak edo **presidentzialak**. [Herria](#)

Filbinger Hauteskunde Batzorde **Presidentzialeko** ordezkari izatea gogor salatu izan dute. [Berria - Mundua](#)

## presidentzialdi *iz* presidentearen agintaldia.

Egun hauetan, eta oraino zorbait astez entzunen ditugu, **presidentzialdiak** badira, sinesten duzu? [Menane Oxandabarat](#)

## presidentzialismo *iz* errepublikako presidentea orobat gobernuko presidentea den sistema politikoa.

Mesianismoa, pertsonalismoa, **presidentzialismoa**? [Pako Aristi](#)

## presidentzialista *izond* presidentzialismoarena, presidentzialismoari dagokiona.

Batzuk sistema **presidentzialistaren** aldekoak ziren; besteek nahiago zuten parlamentarioa, non presidenteak ez duen hainbeste botere izango. [Berria - Mundua](#)

Agian bere erregimena **presidentzialista** bilaka dezake horrela, baina une honetan hori behar dugu. [Pako Aristi](#)

Hamid Karzai Afganistango presidenteak exijitu zuen sistema **presidentzialista** ageri da Konstituzioaren testuan. [Berria - Mundua](#)

Kalifatoaren ordezkari erregimen **presidentzialista** ezarri zuen, alfabeto latinoa jarri eta emakumeei legearen aurreko berdintasuna onartu [Fernando Rey](#)

## presiditu, presidi, presiditzen 1 *du ad* buru izan. (pertsonek)

Heldu zen prozesioa Urkabeko Plazarat; jarri zen tribunan, ikuskizunaren **presiditzen**, erregeordea. [Joan Mari Irigoien](#)

Rato da favorito [Munduko Diru] Funtsa **presiditzeko**. [Berria - Ekonomia](#)

Urtero bezala, Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak Arantzazuko Amaren omenezko meza nagusia **presiditu** zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

## 2 (gauzek) buru izan, gailen izan.

Errealitatea zen uko egiten geniola, gure anai-arreba zaharrenek hala aginduta, eskola **presiditzen** zuen bandera gorri-horia besoa goratuta agurtzeari. [Bernardo Atxaga](#)

Gero, noiz eta urkabea zegoen plazarat joan bainintzen, oholezko tribuna bat begiztatu nuen, Inkisizioaren hainbat estandartek **presiditua** eta apaindua. [Joan Mari Irigoien](#)

Egunerokotasun hura, ordea, ez zen garai batekoa bezalakoa, ilusioak eta biznahiak bizitzako ekintzarik xumeena **presiditzen** zutenean. [Joan Mari Irigoien](#)

## presidium *iz* SESBeko sobiet gorenaren batzorde iraunkorra.

1973an Politburoan sartu eta Sobiet Gorenako **Presidiumgo** lehendakari izan zen. [Bernardo Atxaga](#)

Gizona 1938-1946 bitartean sobiet gorenengo **presidiumgo** lehendakari izan zen. [Edorta Jimenez](#)

## presinboliko *izond* sinboloen aurrekoa.

Jainko hori ez da gozamenaren Aita lizun **presinboliko** hura. [Joseba Zulaika](#)

## presing *iz* presio egitea.

Bai aipatu nahi nukeela, urtaro hasierako data horietan, zenbateko **presing** eta estuasunak ikusi izan ditudan euren aldetik. [Pello Zabala](#)

## presino ik **presio**.

## presio (*orobat **presione** g.er. eta **presino** g.er.*) 1 *iz* gorputz batek beste bati egiten dioen indarra, bereziki, fisikan, azalera unitateko.

Pertsona bat ez da tenperatura, argi, egurats, **presio** eta egoera animikoaren nahasketa besterik, hein handi batean. [Harkaitz Cano](#)

Olioaren **presioari** begiratu bat egiten diot. [Josu Zabaleta](#)

Nazioarteko Espazio Estazioa **presioa** galtzen ari da. [Berria - Gaiak](#)

**Presioa** eta bibrazioa giltzarriak dira plazer sexualerako. [Luis Elberdin](#)

Odolaren **presioa** eta emaria erregulatzeko. [Irene Aldasoro](#)

Bridaren **presioa** laxaturik sentitu zuelarik, zaldia lauhazka atera zen. [Jon Alonso](#)

Glotis aigo egiten bada, aire itxi horren **presioa** igo egingo da, lekua txikitu egiten baitzaio. [Lourdes Oñederra](#)

Hezurrek [...] zurrunka izan behar dute, baina ez zurruneziak, hobe baita **presioaren** eraginpean zertxobait deformatzea, haustea baino. [Irene Aldasoro](#)

Atera egin behar izan nuen nire zera, kremaieraren **presioak** min ematen zidalako. [Juan Martin Elexpuru](#)

Sistema horretan, olioak **presioan** sartzen da bi gainazalen artera, eta, hartara, olio geruza eraginkor bat mantentzen da mugimendurik ez denean ere. [Irene Aldasoro](#)

**Presioak** tinpanoak urratu zizkion; aurpegia uzkurto, eta begiak itxi zituen. [Jon Muñoz](#)

**Presioko** garagardo bat eskatu, eta gogoetan hasi zen. [Jon Muñoz](#)

## 2 (izenondoekin)

Atzamarraren **presio** txiki bat gakoan eta kito, **presio** txiki bat eta dena amaituko da. [Agustin Otsoa](#)



Noizik behiko **presio** txikia egiten nuen, nuen sakatu nuen erabakitzeko. [Anjel Lertxundi](#)

Ura **presio** handian, badakik. [Harkaitz Cano](#)

Birikak hornitzen dituen birika-zirkulazioak nahiko **presio** apala izaten du. [Irene Aldasoro](#)

Andreasek **presio** leuna egin zion belaunetan, jaiki ez zedin. [Anjel Lertxundi](#)

Bularreko presioa (birikak barne) kanpoko **presio** atmosferikoa baino txikiagoa denez, [...]. [Irene Aldasoro](#)

- **Presio** barometrikoa. [Pello Zabala](#)

**Presio** mekanikoaren ondorioz korronte elektrikoa sortzeko gaitasuna. [Irene Aldasoro](#)

Uhinaren **presio** positiboa iristean, burbuilako lurrina kondentsatu, eta prozesu osoan lortutako energia eskualde txiki batean biltzen da. [Fernando Morillo](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urmaelereko bidean Petrus halako eta bestelako erreguladore-motzez doa hizketan, **presio** -balbulez, loturez. [Oskar Arana](#)

**Presio** erreaktore berriak eraiki beharrean egungo zentralen segurtasuna hobetzeko eskatu diote Parisi. [Berria - Gaiak](#)

Uraren **presio** -sistemak, makina automatikak eta beste era askotako bitxikeriak esplikatzen zituen. [Santiago Iruretagoiena](#)

Korronte elektriko bihurtzen dira orratzari eragiten zaizkion **presio** -aldaketak. [Irene Aldasoro](#)

Bihotzari eta bular-kaiolaren barruko zainei ere eragiten die **presio** -jaitzierak. [Irene Aldasoro](#)

Zabalera handiagoko hots-uhina da hots ozenagoa, **presio** igoetze eta jaitze bortitza gertarazten dituenak, alegia. [Lourdes Oñederra](#)

Espazioan zehar mugitzen da, beraz, hotsa **presio** -uhinetan entzulearengana iristeko. [Lourdes Oñederra](#)

Zenbat eta **presio** -gradientea pikoagoa izan, orduan eta haize latzagoa. [Pello Zabala](#)

**Presio** eta bero konbinazio horrengatik, ezin interesgarriagoa da aintzira biologoentzat. [Berria - Gaiak](#)

- Termostatoa 800°C-ra graduaturik, edukiontzia **presio** -gutxitzailea erregulatzen. [Juan Garzia](#)

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire ohartarazpena, honelako eraikuntza batek jasan behar izaten duen ur-**presio** gaitzari buruzkoa, dagoeneko gehiegizkoa gertatu, nonbait, neskarentzat. [Joxe Austin Arrieta](#)

Ingeniaritzari dagokionez, bere kabuz husten den zisterna bat da maskuria, barne-**presioa** maila jakin batera igoztean jaregite-mekanismoa abiarazten duen tentsio-galga batek kontrolatua. [Irene Aldasoro](#)

-Odol **presio** altua. [Koro Navarro](#)

Pertsona normal batek aortan, bihotzaren ondoan, duen arteria-**presio** maximoa 120-150 mm Hg da (1 kg inguru 6 cm<sup>2</sup>-ko). [Irene Aldasoro](#)

1.700 milioi euroren diru sarrerak espero dituzten hagei urteetan Trent-900 motorraren behe **presio**ko turbina egitetik. [Berria - Harian](#)

- Besoarekin garagarno **presioaren** keinua eginez ulertarazi dio zer nahi duen. [Eneko Bidegain](#)

### 5 zerbaiten edo norbaiten gainean, bere egoera edo jokaera aldetzeko, egiten den indar ez-fisikoa.

Baina nor zen azkenean **presio** horrek guztiak sortzen zituen behar ekonomiko berrien erantzulea? [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Atzeraldi fasean, biztanleriaren **presioarekin** edo presiorik gabe ere, maileguz bidez finantzaturiko inbertsio publikoak egingo dira, oso maila handiko langabezia saihesteko. [Iñaki Heras](#)

Nafarroako agintarien **presioak** suntsitu zuen aukera hura. [Eduarne Elizondo](#)

Gizarteak ezartzen dio kirolariari **presio** hori. [Joxerra Garzia](#)

Eskulan industriaren hazkunderak [...] badu ekonomia osora hedatzen den beste efektu bat: lursailen gainean den **presioa** murriztu egiten da, eta era horretan nekazarien soldatek gora egiten dute. [Iñaki Heras](#)

Kataluniak oso ondo erantzun die Espainiaren eta hango alderdien **presioei**. [Berria - Harian](#)

Familiak askotan, gehiegizko **presioa** eragiten du gaztearengan. [Berria - Harian](#)

Izugarritzko **presioa** pairatzen baitugu konputagailu sailean. [Iñaki Zabaleta](#)

### 6 (izenondoekin)

**Presio** handia sentitu nuen, jakin minez begiratzeko gintuztelako. [Ana Urkiza](#)

Zuri-gorriek estu hartu zituzten madrildarrak; **presio** handia egin zuten Casillasen arean. [Berria - Kirola](#)

Ekimenak ezarrazazteko **presio** handiena enpresaren *stakeholders* delakoek egin beharko lukete. [Iñaki Heras](#)

Familiak **presio** izugarria jasango zuen soluziobiderik ez zegoela ikusita. [Joxemari Iturralde](#)

Apustuak **presio** psikologiko izugarria sortzen du. [Pako Aristi](#)

**Presio** demografiko horrek, besteak beste, gero eta lursail elkorragoak lantzen eramatea du eta gurpil zoroa indartzera. [Iñaki Heras](#)

**Presio** fiskalak ere zaildu egiten die Europako Batasuneko kide diren herrietako ikertzaile gazteei herrialde horretan lan egitea. [Berria - Gaiak](#)

Europako prentsaren **presio** mediatikoaren mende ez daudelako. [Edorta Jimenez](#)

Mehatxu militarrik eta **presio** diplomatikoa, beraz, izan ziren Europako industriaren sarreraren laguntzaileak. [Koro Navarro](#)

Edozein **presio** politikok dardaraz jartzen du. [Fernando Morillo](#)

**Presio** soziala jasotzen dutelako. [Iñaki Heras](#)

### 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Askatasuna aldarrikatzen duen gizarte honek **presio** -puntu ugari eta itogarriak asmatu ditu jendea modu zehatz batean bizitzera derrigorria senti dadin. [Pako Aristi](#)

Intelektual, filosofo, politikari, artista eta pentsalariz osaturiko **presio** talde eraginkor bat. [Harkaitz Cano](#)

Protesta horiek ilegalak eta ez-legitimoak dira, **presio** -formula onartezina. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

**Presio** lana egin zuen Gasteizko taldeak, Celtako joko sortzaileak ondo geldituz. [Berria - Kirola](#)

**Presio** lerroa berriro aurreratu zuen Alavesek, eta Leganesek hamaika arazo izan zituen gustukoaren duen jokoak egiteko. [Berria - Kirola](#)

### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gastu publikoa finantzatzeko zerga-**presioa** areagotu zen, eta presio hori ekonomia hazkunderaren kalterako izan zen. [Iñaki Heras](#)

Atzera utzia zuen mutilzahar itsuaren bizitza beti-batekoaren marta; igurikapen-**presio** izugarri baten pean zegoen; eta ikustea bera ere nahasgarri eta leher-eragingarri zitzaion. [Xabier Olarra](#)

### 9 presio egin (95 agerraldi, 7 liburu eta 81 artikulutan) ik beharago 11. ik presionatu.

Eskuburdinek **presio egiten** dizute, eta makur-makur eginda begiratu diozu behetik gora. [Rafa Egiguren](#)

Zapatak kendu zituen gero, orpoaz orpoan **presio eginez**. [Anjel Lertxundi](#)

Gehiegizko gantzak zelulei **presio egiten** dietela ondorioztatzen dute Harvard unibertsitateko ikerlariak. [Berria - Gaiak](#)

Adak **presio egin** zidan berriro belaunetan, eta hizketan hasi zitzaidan ostera. [Anjel Lertxundi](#)

Gizarteak idazleari **presio egiten** diola esango zenuke? [Ana Urkiza](#)

Emakume ausarta da, eta bakardadeari desafio egingo dio, **presio egiten** dion inguruari. [Berria - Kultura](#)

Beharbada familiak ez zuen nahikoa **presio egin**, edo herentzia arazoak edukiko zituzten eta senideek mahiagoko zuten bat gutxiago egotea partila egiterakoan, bera zen premua gainera. nazioarteko komunitateak **presio egingo** diola Israeli eta negoziatzera behartuko duela. [Koldo Izagirre](#)

Juan Carlos Rodríguez Ibarra eta Jose Bono **presio egiten** ari dira nazio hitza kentzeko estatututik. [Berria - Harian](#)

### 10 presio eltze

Edabeak ziztu-hots handia ateratu zuen, **presio** -eltzeak bezala, baita bits handia ere. [Iñaki Mendiguren](#)

- **Presio** -eltzea erori zaidak eguerdian, fregatzen hasi naizenean. Berria - Mundua

Lehergailua **presio-eltze** baten barruan zegoen sartuta. Berria - Mundua

Bezperan bezala burua **presio-eltze** bihurtua zeukan. Migel Angel Mintegi

## 11 presioa egin (102 agerraldi, 9 liburu eta 85 artikulutan) ik gorago 9.

**Presioa egiten** hasi zait, belaunak zabal ditzadan. Anjel Lertxundi

Itxaso Asierren hankartea laztantzen hasi da, arnaska batean, galtza bakeroen metalezko botoiak askatuz trebetasun handiz, barrutik Asierren zakil handi eta gogorrak

**presioa egiten** dion arren. Pako Aristi

G7 herrialde petrolio ekoizleei **presioa egin** nahian dabil produkzioa handitzen has daitezen. Berria - Ekonomia

Nazioartean horrelako gatazka bat ezagutarazi egin behar da, **presioa egiteko** modu bat da. Berria - Harian

Ikasle gehienok Piretiren eskoletara joateari utzi genion, eta ikasketa-buruaren bulegora joan ginen **presioa egitera**. Anjel Lertxundi

- Badaki non laztandu, noiz eta nola, zenbateko **presioa egin** eta zer erritimotan, noiz geratu eta noiz jarraitu. Luis Elberdin

Nolabaiteko **presioa egiteko** asmoa dagoela uste al duzu? Berria - Mundua

Bigarren zatian erabateko **presioa eginez** ekin zion Mulhousek, eta etxeko jokalaririk ohi batek ezarri zuen2-2koa: Lionel Bilbaok. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**europako presio erreaktorea** (4); **kanpoko presio** (4); **nahiko presio** (4); **odol presio** (7)

**presio aldaketak** (6); **presio atmosferikoa** (4)

**presio egin** (29); **presio eginez** (4); **presio egingo** (5); **presio egitea** (12); **presio egiteko** (38); **presio egiteko eskatu** (8); **presio egiten** (21); **presio erreaktorea** (4); **presio fiskal** (4); **presio fiskala** (6); **presio gehiago** (7); **presio gogorra** (8); **presio gutxi** (4); **presio gutxiago** (9); **presio gutxiagorekin** (4); **presio handia** (91); **presio handia egin** (17); **presio handia egiten** (18); **presio handia izango** (4); **presio handia jasan** (7); **presio handia jasaten** (6); **presio handiagoa** (21); **presio handiak** (12); **presio handiko** (7)

**presio itogarria** (5); **presio itzela** (8); **presio itzela egin** (5); **presio izugarria** (5); **presio lanetan** (5); **presio politiko** (14); **presio politikoa** (9); **presio politikoa** (17); **presio politikoa izan** (7); **presio politikoen** (7); **presio psikologiko** (5); **presio psikologikoa** (5); **presio psikologikoa** (4); **presio soziala** (12); **presio sozialak** (4); **presio talde** (7); **presio txiki bat** (4)

**egin zuen presioa** (4); **egindako presioa** (13); **eginiko presioa** (6); **egiten duen presioa** (5); **gehiagizko presioa** (4); **gizarte presioa** (4); **gizartearen presioa** (4); **gobernari presioa** (5); **herri presioa** (8)

**kanpoko presioa** (4); **nazioarteko presioa** (6)

**odol presioa** (7); **odolaren presioa** (7); **ppren presioa** (5)

**presio areagotu** (7); **presioa egin** (50); **presioa egin behar** (5); **presioa egin zuen** (12); **presioa eginez** (9); **presioa egitea** (13); **presioa egiteko** (40); **presioa egiteko eskatu** (7); **presioa egiten** (42); **presioa egiten ari** (7); **presioa egon** (5); **presioa eragiten** (4); **presioa eta bibrizioa** (4); **presioa gaintu** (5); **presioa gainetik kendu** (4); **presioa handia** (11); **presioa handitzen** (4); **presioa izan** (5); **presioa jaitsi** (4); **presioa jasan** (8); **presioa jasaten** (4); **presioa jaso** (4); **presioa kendu** (6); **presioa salatu** (6); **presioa sentitzen** (6); **presioa zela eta** (7)

**sekulako presioa** (6)

**zaleen presioa** (9)

**egindako presioak** (9); **gizartearen presioak** (4); **mehatxuak eta presioak** (5); **presioak direla** (5); **presioak egin** (6); **presioak eraginda** (7); **presioak izan** (10); **presioak jasan** (10); **presioak jasaten** (5); **presioak jaso** (4); **presioak salatu** (5)

**presioarekin jokatu** (4)

**egindako presioaren** (4); **eginiko presioaren** (4); **presioaren aurrean** (5); **presioaren bidez** (4); **presioaren eraginez** (5); **presioaren ondorioz** (12)

**presioari esker** (10); **presioari eutsi** (4)

**presioei aurre egiteko** (4); **presioei men egin** (4)

**nazioarteko presioak** (4)

**egindako presioen** (11); **egindako presioen ondorioz** (6); **presioen aurrean** (6); **presioen eraginez** (8); **presioen ondorioz** (23)

**egindako presioengatik** (5)

**inolako presiorik gabe** (11); **inongo presiorik gabe** (4); **presiorik egin gabe** (4); **presiorik gabe** (62); **presiorik gabe jokatu** (6)

## presio bidea iz presioa egiteko bidea.

Hire bidez, Urtxipia informazioa tantaka ematen ari zela uste zitean bieku, Soriarenganako **presio bidea** gisara. Aingeru Epaltza

Deialdia egiten dizuegu batzarkide guztioi, alabaina, ahalegin horretan tematzeko, Kolektiboaren parte hartzea bete eta emankorra izan dadin **presio bidea** indartuz.

Berria - Harian

EAIko udal taldeko buru Mikel Martinezek, adibidez, gogortu egin zuen abuztuan iragarritako **presio bidea**. Berria - Euskal Herria

## presio gunea iz presio egiteko gunea.

1983an Volvo enpresako lehendakariak **presio gunea** bat osatzeko urratsak egin zituela azaldu zuen Selysek: «Hainbat txosten egin zituzten eta bertan zerbitzu publiko errentagarriak aztertu zituzten». Berria - Euskal Herria

## presionatu, presiona, presionatzen 1 du ad presioa egin.

Esperekuak uretrako esfinterra pixka bat **presionatu** egiten duenez, baliteke pixka egiteko gogoia sentitzea. Luis Elberdin

Ez da zilegi inorentzat kontzientziak **presionatzea**. Berria - Harian

Non dago ur-masa ikaragarri horren azken sorburua, gero eta bolumen handiagoaz **presionatzen** duelarik urtegiaren aurreko horman? Iñaki Mendiguren

Sabelean ukondo biez **presionatuta** zeukan zakutoa ere arrotza egiten zitzaion. Josu Landaa

## 2 presio ez-fisiko egin. ik presio 5.

Enpresarien sektore horrek asko **presionatu** du Chavez, hura kontrolatu nahian dabilta. Pako Aristi

Zu nirekin etortzea gustatuko litzaidake, baina ez zaitut **presionatu** nahi. Anjel Lertxundi

Ordu bete edo bi orduko tarte badaukat, **presionatua** sentitzen naiz. Ana Urkiza

AHTren Aurkako Asanbladak gogor salatu du Euskal Y-aren auzia Espainiako Gobernuaurrezko tresna bihurtu dela Eusko Jaurlaritza kontrolatu eta «politikoki **presionatzeko**». Berria - Harian

Ez da zilegi inorentzat kontzientziak **presionatzea**. Berria - Harian

## presione ik presio.

## presiski ik preseski.

preskatu ik freskatu.

preskribatu ik preskribitu.

**preskribiezin** *izond* ezin preskribituzkoa.

Besteak beste, Nafarroak Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko eskubide «**preskribiezina**» duela zioen Gernikako testuak, baina eskubideari betikotasuna aitortzen zion hitza kendu egin zuten azkenean. [Berria - Euskal Herria](#)

**preskribitu**, preskribi, preskribitzen (**69 agerraldi**, **4 liburu eta 32 artikulutan**; orobat **preskribatu 36 agerraldi**, **liburu 1 eta 18 artikulutan**) **1 da/du ad** baliogabe gertatu; baliogabe utzi.

Asmo zahar baina inoiz **preskribitzen** ez direnak agerrarazi behar ditugu beren deuseztapenaren gainean betiko bakea oinarritzeko. [Ibon Uribarri](#)

Epaia delitua **preskribituta** zegoelako absolbitu zuen, baina fiskala ez dago ados horrekin. [Berria - Euskal Herria](#)

Hamabost urte igaro dira; inondik ere kasua **preskribiturik** egongo da. [Eskarne Mujika](#)

Haren arabera, delitua **preskribitu** izanak Berlusconi erruduna dela frogatzen du. [Berria - Mundua](#)

• **2 du ad** (zer/nor osagaririk gabe)

Argi gelditu da zergatik **preskribitu** duen delituak? [Berria - Euskal Herria](#)

Autoa atera behar du auziak **preskribitu** duela esateko, eta helegitea jar daiteke Nafarroako Justizia Auzitegian. [Berria - Euskal Herria](#)

Aralarrek ukatu egin zuen aferak **preskribitu** duela, eta salatu zuen inputatuen jarrera «lotsagarria» izan dela. [Berria - Euskal Herria](#)

**Preskribitzen** ez duen genozidio delitua, berriz, 1992. urtean onartu zela eta, ondorioz, atzera eraginik ez duela zehaztu zuen. [Berria - Mundua](#)

**3 du ad** agindu.

Baietz erantzuten badu, erakundeko sendagile batek barbituriko dosi hilgarria **preskribitzen** dio. [Berria - Gaiak](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**delitua preskribitu** (13); **delitua preskribitu egin** (10); **eroskeria delitua preskribitu** (7); **preskribitu duela** (4); **preskribitu egin duela** (6); **preskribitu egin dutela** (4); **auzia preskribituta** (3); **delitu gehienak preskribituta** (3); **delitua preskribituta** (4); **preskribituta dagoela** (4); **preskribituta daudela** (4); **preskribituta zegoela** (3)

**preskribitze** *iz* baliogabe uztea; baliogabe gertatzea. ik **preskripzio**.

**Preskribitzeari** buruz Zigor Kode zaharrak 113. artikuluan eta berriak 30 eta 31.ean esaten dute bi gauzak bakarrik preskribitzen dutela: delituek eta zigorrak. [Berria - Euskal Herria](#)

**preskriptibismo** *iz*

**Preskriptibismo** Unibertsalaren arabera, etika izan daiteke objektiboa arazo moralak metodo razionalen bitartez aska ditzakeen neurrian. [Askoren artean](#)

**preskriptibo** *izond* preskribitzailea dena, aginduzkoa dena.

Ezagutu honen eta zientzia politikoaren arteko erlazioan, batak -**preskriptiboa** denak- besteari -deskriptiboa denari- aurre egiten dio. [Askoren artean](#)

Teoria honek hizkuntza morala deskriptiboa baino gehiago **preskriptiboa** dela onartzean emotibistekin bat egiten badu ere, horiei kontrajarriz, judizio etikoei buruzko arrazoiak egitea etikaren funtsezko jarduna dela aldarrikatzen du. [Askoren artean](#)

**Preskriptiboa** izanagatik, hizkuntza moralak ez dio uzten unibertsalizagarri izateari. [Askoren artean](#)

**preskripzio** **1 iz** agintzea, agindua.

Hiperaktibitatea tratatzeko botiken **preskripzioa** kontrolaz kanpo dagoela esaten hasi dira hainbat psikologo eta sendagile. [Berria - Gaiak](#)

Deskripzioaren eta **preskripzioaren** arteko banaketari eusten bazaio esplika daiteke auzi hau. [Askoren artean](#)

Azkenik, **preskripziora** besterik ezingo dute jo, edo kritikak itxura dogmatikoa erraz azalduko du. [Ibon Uribarri](#)

Ez ote litzateke izango, hobe esanda, arauen multzo bat [...] ahalezkoak bihurtu dituztenak lanabesen bidezko behaketak, laborategietako esperimenteren protokoloak, kalkulu estatistikoak, egiaztapen epidemiologikoak edo demografikoak, araudi instituzionalak, **preskripzio** terapeutikoak? [Xabier Arregi](#)

**2 baliogabe uztea; baliogabe gertatzea. ik preskribitze.**

Legeak berak ere delituen **preskripzioa** ezartzen du. [Ander Irizar](#)

Herri akusazioak, berriz, **preskripzioak** 10 urtekoa izan behar duela esan zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

Delitu ankerrengatik [...] ikerketa-denbora laburtu egin behar da akusatua errugabetasun-probabilitatea handitzeko, eta **preskripzioaren** denbora luzatu, zeren eta errudun edo errugabe jotzen duen epai behin betikoak ekarriko baitu inpunitatearen lilura kentzea. [Juan Martin Elexpuru](#)

Frogatuta dauden eta gizonen gogoan geratu diren delitu basatietan, ez da ihes egin duen errudunaren aldeko inolako **preskripziorik** eman behar; baina delitua txikiak eta ilunak direnean, **preskripzioak** balio behar du hiritar baten zoriaren zalantza ezabatzeke. [Juan Martin Elexpuru](#)

**3 (hitz elkartuetan)**

Berriro atxilotu daitekeela delitu berberetatik, eta ikerketa berriekin hasi, baldin eta legeak seinalatutako aztarna berriak agertzen badira, eta ez bada bere delituari jarritako **preskripzio** -epea igaro. [Juan Martin Elexpuru](#)

Auzitegiak, ordea, berriro zabaldu du ikerketa: **preskripzio** epea ez dela bete erabaki du, eta operazioan parte hartu zuten polizia hilketa delitua egin zuten zantzuak daudela baieztatu du. [Berria - Harian](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**preskripzio epea** (4)

**preso** **1 adlag** pertsoez mintzatuz, espetxean edo ezin alde egin dezakeela lotua. **ikatxilo; gatibu.**

Udaletxean **preso** egon bitartean ikusitako atun kontserbak ere etorri zitzaizkion burura. [Bernardo Atxaga](#)

Aita Aizoango San Kristobalگو kartzelan egon zen **preso** gerra denboran. [Iñigo Aranbarri](#)

Ehun mila pertsona hartu zituzten **preso**. Elizen arteko biblia  
Auvergne-ko makian **preso** hartua, Dachau-n zegoen. Marzel Etxehandi  
Sanz koronel-ordea, bere agindupeko 3 kapitainak, 7 ofizialeak eta 475 soldaduak, **preso** altxa genituen. Txillardegia  
Inguru haietako jauntxoak semeak bahituran hartu eta Jerusalemgo gotorlekuan **preso** sartu zituen. Elizen arteko biblia  
1559ko abuztuan, Toledoko artzapezpiku zelarik, Espainiako Inkisizioak heretikotzat jo zuen eta **preso** sartu. Piarres Xarriton  
-Jeneral karlista bat eta bi moja dakartzagu **preso**. Koro Navarro  
Zergatik naramazue **preso**? Jon Muñoz  
Dorrera **preso** igorri zuten eta han giltzapetu, eta gero Portsey Castle-era. Juan Garzia  
Errege hori, Luis hamaseigarrena, lehenik **preso** atxiki zuen eta gero hil. Xipri Arbelbide  
Perugia eta Asis hirien arteko gerratean, gatibu hartu zuten Frantzisko beste hiritar askorekin, eta **preso** eduki zuten Perugian. Askoren artean  
Eskuburdinak jarrita, Donapaulera eraman zuten pistolaren mehatxupean **preso**. Rafa Egiguren  
Urtebete ematen du **preso**. Askoren artean  
Bost urte **egin ditu preso**. Berria - Mundua  
Bere begiz ikusi zituen zaldun harroak, gorpu edo **preso**, gudatokiko lokatzean eroriak. Aingeru Epaltza  
Ordurako Gortari ez zen estudioan azaldu ere egiten, eta egun osoa ematen zuen pisu zaharreko gela abandonatueta **preso**, labirintoan galdu den saguaren antzera.  
Patxi Iturritegi  
• **Preso** eramanen artean bazen bat, Katalin Galtzagorritegia, Sarara etorri berritan erretoretxean neskato hartu zuena. Aingeru Epaltza

## 2 (izan aditzarekin; da ad)

Gazteluan **preso nintzen**, baina ni bezain **preso ziren** gainerako neska-mutikoak. Aingeru Epaltza  
**Preso direnen** sustenguz. Herria  
Arrastatu zuten bere lagunen artean eskea egin zuelakotz **preso zirentzat**. Marzel Etxehandi  
Ofizio Sainduaren larderiarri dagokiola jadanik **preso den** gure Jaun Artzapezpiku Agurgarria, hobetik gabea izanik ere, bederen kargutik kentzea. Piarres Xarriton  
1988 urteaz geroz **preso den** herritar horrek itzuli mitzulirik gabe ihardesten du hor ezker abertzaletasunaz egin zaizkon galdeeri. Herria  
Biziki on da Elizarentzat, orai fraideak **preso izan** ditzen. Marzel Etxehandi  
Astearteak egun bereziak izan ohi dira Pariseko kartzeletan **preso diren** euskaldunentzat. Xabier Montoia  
Ni ere **preso izandakoa** naiz. Fernando Rey  
-Mundu honetan denok gara **presoak**. Koldo Izagirre

## 3 (izan aditzarekin; du ad)

Neskatxak orduantxe jakin zuen ez ziola militar laguntza ukatzerik, **preso zutela** haren begiek, eta **preso izango zutela** beti. Felipe Juaristi  
Txinan 32 kazetari **dituzte preso**. Berria - Gaiak  
Ikusten diat gazteek ez ziozkatekela mila galde egiten beren buruari **preso duten** lagunari bixita egiteko. Herria

## • 4 iz preso dagoen pertsona.

Bagenuen gure artean **preso** bat, Longarte, oso mediku ona. Koldo Izagirre  
Dotzena bat medikuk -haiek ere **presoak** - eriak ikusten zituzten. Marzel Etxehandi  
**Presoak** zazpi brigadatan banatuta zeuzkaten. Jokin Urain  
Jose atxilotu eta erregearen **presoak** zeuden kartzelan sartu zuen.  
Hiriko Gubtxekako sotoetara bost **preso** ekarri dituzte. Pablo Sastre  
Berrogei urte luzetan 361 **preso** hil zituzten bertan. Harkaitz Cano  
Tafallakoan zeuden **presoetatik** 86 urriaren hondarrean fusilatu zituzten. Jokin Urain  
**Presoaren** gelatik zetorren doinuaren gainetik ibili zituzten beren ahotsak. Felipe Juaristi  
*ik beherago* 9. Askoren artean  
Zaintzaileak **presoan** gelak miatzen hasi zirenean hasi ziren borrokak. Berria - Mundua  
**Preso** guztiek ikasi dituzte bertsook, buruz ikasi ere. Anjel Lertxundi  
Beisboleko bate bat hartu eta kristoren ostiaioak eman zizkioan ipurdi masailean, **preso** guztien aurrean, eta gero besteari berdin. Pako Aristi  
**Preso** bat eskuetan galdu zitzaie, haren burua gorotzez beteriko aska batean behin eta berriro sartu eta sartu ibili ondoren. Anjel Lertxundi  
Hamabi ordu soldaduz inguratu, [...] hamabi ordu **presoaren** jantzi arraiaduna soinean. Felipe Juaristi  
**presoan** expedienteak sekretupekoak direla. Koldo Izagirre  
**Presoen** birgizarteratzeari buruzko polemika dela eta. Bernardo Atxaga  
Euskal **preso** politikoon kolektiboak ez omen duela **preso** bakoitzaren duintasun pertsonala errespetatzen. Jokin Urain  
Bere kateez ohartzen ez den **preso** baten koadroa da hori. Iñaki Mendiguren  
Lokutorioetara eraman ninduten, **presoarengana**. Iban Zaldia

## 5 (izenondo eta izenlagunekin)

**Preso** politikoen artean baino anitzez jende gehiago hil zen judu, ijito eta tziganoen artean. Eneko Bidegain  
ETAkoen dispersioari buruz protesta egiten dutenek arrazoia izango dute, apika, baina **preso** sozialez inor gutxi gogoratzen da. Iban Zaldia  
Hidalgorekin ikusi dut solasean hiltzaile frustratu hau **preso** komunuen patioko sarreran. Koldo Izagirre  
Beren artean zorrak eta antzekoak izaten zituzten **preso** arruntek, gainera. Lander Garro  
Esparru nazietako **preso** ohiekin hainbat orduz eginiko elkarrizketetan azalduko oroitzenak. Joxan Elozegi  
**Preso** ohi biok tarteko zirela, lagunarte polita osatu genuen Arrasaten. Joxerra Garzia  
**Preso** administratiboak ziren gehienak, hots, inolako auzipetzerik gabe kartzelaratu zituztenak. Hango **preso** langileek ez zuten hiru hilabete baino gehiago irauten postu hartan. Iñigo Aranbarri  
Rufinek bi erabaki sendo hartu zituen: **preso** eredugarri bihurtzea eta handik ihes egitea. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Zenbat ematen diate farmakoen multinazionalak, **preso** hiesdunekin probak egitearren? Koldo Izagirre  
Lo utzi ditu agureak **preso** txepel hauek. Koldo Izagirre  
Washingtonen iaz 280 ume baino gehiago izan zituen gerrako **preso** gisa, besteak beste, Guantanamo. Berria - Gaiak  
Berehala ulertu zuen, Joanesek, gerlako **preso** zela. Eneko Bidegain  
Poloniar **preso** hark frantsesa biziki ongi mintzo zuen. Eneko Bidegain  
**Preso** arrisku handikoa azken harrisia iragaiten ari dela harrapatu balute bezain pozarren hartu naute. Koldo Izagirre  
Hurrengo egunean **preso** gosari-ekarlea behartu ez dezaten zuk utzitako kuxidada garbitzera. Koldo Izagirre

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Preso** talde bat eskapatzera ahalgindu zen, lur azpian tunel bat zilatuz. Eneko Bidegain  
Ordu arte ezin uretara hurbildu ibai bazterra mukuru betetzen zuten **preso** lerroak zirela-eta. Karlos Zabala  
Ez zezan nehongo negoziotan, ez bere burua ager, ez bere iritzirik eman, **preso** denborak irauz dezano, besterik agintzen ez zaion arte. Piarres Xarriton  
Aurretiaz erabilitako jantzia zen, [...] oihalezkoa eta marra zuri-urdinekin -egiazko **preso** -jantzia, edonondik begiratuta ere. Urtzi Urrutikoetxea

Adi-adi begiratu zion buruari, arretaz, interes handiz, **preso** -zapata handietatik hasi eta sabelaraino, non atarra horretan baitziztaion. **Jose Morales**

**Preso** -atorra ez zen bere neurrikoa. **Jose Morales**

SSei berdin zitzaiela, **preso** miaztaileek ikaragarriak egin zizkiguten, oitoz liburuak urratuak eta zangopilatuak, arrosarioak eta medailak berdin laidoztatuak... **Marzel Etxehandi**

Brigadakoak -Basco-Pirenaica hartakoak-, Gürs-eko **preso** -zelaira eroan dituzte. **Edorta Jimenez**

Naziak eta halakoak **preso** -eremuetan sartu badituzte ere [...] Braden kexu da, horiek giltzapetik zein erraz libratu eta ihes egiten duten. **Edorta Jimenez**

Montgommeryk beretako gorde zuen Terride, **preso** trukea egiteko asmotan. **Aingeru Epaltza**

Kolorezko hiruki batek desberdintzen zituen **preso** motak. **Eneko Bidegain**

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina gerra-**preso** nengoen ni ere esparru nipondar batean. **Joxan Elozegi**

Gurasoen ohearen ertzean, aitaren aldean, irekitzen zen tiradera saski-nahaski txikian, haren gerra-**preso** politiko txartela ikusi nuen, piezatxo zahar, erloju eta beste atxamarta askoren artean. **Joxan Elozegi**

## 8 (izenondo gisa)

Funtzionario batek ikasle **presoarengana** eraman zuen, azkenean. **Iban Zaldua**

Atzo Gasteizko Instrukziozko Bigarren Epaitegian, emakume **preso** batek aurkeztutako salaketaren ondorioz. Burua apez **preso** bat zuten, bere inguruokoa ere anitzak apezak zituela. **Berria - Harian**

## 9 irud/hed

Amodioaren sareetan **preso** zegoen garaian. **Itxaro Borda**

**Preso** zaude / ene bihotzean. **Patxi Zubizarreta**

Hiztegien **preso** da kazetaria, hiztegien aberrian. **Iñigo Aranbarri**

Laster, gizonaren erasoak makaldu egin dira, eta haren zakil bigundua berez irten da **preso** zuen kutxatila ederretik. **Juan Martin Elexpuru**

Aberastasun egarriak eta negozioaren ardurak **preso** hartuta, ukatu egin zion limosna. **Askoren artean**

Horra, adiskideak, zenbateraino nintzen ergela eta harroa garai hartan, nahiz eta ergelkeria baino askoz handiagoko grina baten **preso** nengoen. **Matías Múgica**

Orduan, bere bultan hartzen zaitu ur horrek eta **preso** atxikitzen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Troiako suntsiketa itsusia kontatu ez baldin bazuen Homerok, *Iliada* linbo ilunpeetan **preso** geratuko zen. **Itxaro Borda**

Deabruen kateetan **preso** egondako jendeari bezala hitz egiten dizuet. **Askoren artean**

Bortxatuak eromenaren lakirioak **preso** hartu baitzituen. **Felipe Juaristi**

Poliki beren eskuetan haizea **preso** hartu zuten oihal koadroak. **Felipe Juaristi**

Petroliaren prezioa %10 behera eta finantza merkatuak **preso** izan dituen izua gero eta lausoago. **Berria - Ekonomia**

## 10 *preso gela* (*corpusean presogela soilik*) ik ziega.

Graxik eta amatxik bospasei egun iragan zuten han, **presogela** ustel bihurtuak ziren soto hezeetan. **Eneko Bidegain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**egon zen preso** (8); **ehunka preso** (10); **emakume preso** (12); **espetxean preso** (24); **euskal preso** (536); **euskal preso bakarra** (12); **euskal preso ohia** (8); **euskal preso politiko** (42); **euskal preso politikoak** (45); **euskal preso politikoei** (15); **euskal preso politikoek** (31); **euskal preso politikoen** (150); **frantzian preso** (13); **gerra preso** (17); **guntanamon preso** (10); **kartzelan preso** (23); **kartzeletan preso** (12); **mexikon preso** (27); **mexikon preso dauden** (17); **orain preso** (8); **oraindik preso** (15); **oraino preso** (11)

**preso altxatu** (31); **preso altxatu dute** (9); **preso altxatua** (32); **preso altxatua izan** (22); **preso altxatuak** (12); **preso arrunt** (14); **preso askatu** (21); **preso askatu zituzten** (9); **preso askatuko** (8); **preso asko** (25); **preso atxiki** (13); **preso atxikia** (10); **preso atxikitzen** (12)

**preso baino** (12); **preso bakarra** (17); **preso bakoitzak** (8); **preso bat** (106); **preso bat hil** (11); **preso batek** (48); **preso baten** (31); **preso bati** (22); **preso batzuek** (9); **preso batzuk** (28)

**preso da** (17); **preso dago** (39); **preso dagoen** (45); **preso daude** (59); **preso daudela** (12); **preso dauden** (112); **preso dauden emakume** (8); **preso dauden sei** (17); **preso daudenen** (8); **preso dela** (8); **preso den** (14); **preso diren** (30); **preso direnak** (14); **preso direnen** (8); **preso dituen** (10); **preso dituzten** (21)

**preso eduki** (17); **preso egin** (16); **preso egon** (101); **preso egon ondoan** (18); **preso egon ondoren** (18); **preso egon ostean** (10); **preso egon zen** (16); **preso egona** (13); **preso egondako** (11); **preso eman** (14); **preso eraman** (21); **preso ere** (11); **preso espetxez** (9); **preso espetxez aldatu** (9); **preso eta** (134); **preso eta iheslari** (17); **preso eta iheslariak** (8); **preso eta iheslarien** (17); **preso euskal** (10); **preso ezarriak** (8)

**preso gaixoak** (10); **preso gehiago** (23); **preso gehienak** (17); **preso gisa** (8); **preso guziak** (15); **preso guztiak** (42); **preso guztiei** (9); **preso guztiek** (11); **preso guztien** (17)

**preso hartu** (129); **preso hartu eta** (14); **preso hartu zituzten** (13); **preso hartu zuen** (10); **preso hartu zuten** (15); **preso hartua** (14); **preso hartuko** (11); **preso hartutako** (18); **preso hartzeko** (13); **preso hartzen** (12); **preso hil** (49); **preso hil dira** (18); **preso hil ziren** (9); **preso hil zituzten** (8); **preso horiek** (19); **preso horien** (11)

**preso inguru** (23); **preso inguru daude** (8); **preso irakiar** (20); **preso irakiarrek** (20); **preso irakiarrei** (23); **preso irakiarrek** (11); **preso irakiarren** (14)

**preso izan** (22)

**preso jarraitzen** (12); **preso joan** (9)

**preso kopurua** (10)

**preso ohi** (53); **preso ohia** (37); **preso ohiak** (44); **preso ohiaren** (15); **preso ohiari** (18); **preso ohiei** (11); **preso ohiek** (24); **preso ohien** (21)

**preso palestinar** (20); **preso palestinarrak** (17); **preso palestinarek** (16); **preso palestinarren** (13); **preso politiko** (186); **preso politiko askatu** (9); **preso politiko eta** (8); **preso politiko guztiak** (16); **preso politiko guztien** (8); **preso politikoa** (22); **preso politikoak** (126); **preso politikoak euskal** (8); **preso politikoaren** (15); **preso politikoei** (29); **preso politikoek** (53); **preso politikoekiko** (8); **preso politikoen** (271); **preso politikoen aldeko** (12); **preso politikoen eskubiden** (12); **preso politikoen eta** (11); **preso politikoen kolektiboa** (12); **preso politikoen kolektiboak** (40); **preso politikoen kolektiboaren** (13); **preso politikoen nazioarteko** (10); **preso politikoon** (8); **preso politikorik** (9)

**preso sar** (8); **preso sartu** (54); **preso sartuko** (11); **preso segitzen** (12); **preso sozial** (13); **preso sozialak** (12); **preso sozialek** (11)

**preso talde** (11); **preso tolosarra** (12)

**preso zegoela** (16); **preso zegoen** (19); **preso zeuden** (46)

**sartu zuten preso** (10); **zegoen preso** (24); **zenbait preso** (16); **zeuden preso** (11); **zortzi preso** (9)

# presoadi *iz* espetxealdia.

Bonabenturak isilpean uzten ditu Perugiaren aurkako guda eta Frantziaskoren **presoadia** . **Askoren artean**

Madariagak Madrileko Soto del Real eta Aranjuezen eman du **presoadia** . **Berria - Euskal Herria**

1972ko urtarrilaren 8an epaitu zuten Madrilen, eta lau urteko **presoadi** txikia eman zioten legez kontra elkartzeagatik, eta beste horrenbeste Espainiako lurraldeetan isilpean sartzeagatik. **Rafa Eiguren**

Poliziaren ahalmenak areagotu ziren, konfinamendua (askatasuna murrizten duen zigorra) ezarri zuen eta **presoadi** prebentiboaren epeak luzatu zituen. **Berria - Mundua**

Zigorraldia betetzeko hiru urte falta dituela *prisión atenuada*n -**presoadi** arinduan- jarriko zuten, Mundakan. **Edorta Jimenez**

Iragan ekainean jutatua izan da Versaillesko auzitegian eta hilabete baten baldintzapeko **presoadirat** kondenatua. **Herria**

Hemen hamabost hilabete daramatzagu kazeta bat itxia eta pertsona bat behin-behineko **presoadian** . **Berria - Euskal Herria**

# presoadikide (*corpusean presoaldi kide soilik*) *iz* presoaldi bereko pertsona.

Preso egondakoaren beraren edo **presoadi** kiden zinpeko testigantza frogatzat hartua izatea. **Berria - Euskal Herria**



## presokide iz presondegi berean preso dagoen pertsona.

*Round Point* delakoa gibelean utzi eta nehor -ez presozaín, ez **presokide** - hauteman gabe erdiko dorrera da heldu. Xabier Montoia

Lehen zazpi egunetan ez zioten lanik eman Joanesi, ez eta ere harekin batean heldu ziren **presokideei**. Eneko Bidegain

Igor Angulo eta Roberto Sainz del Olmo gure **presokide** eta lagun maiteak akabatu ditu espainiar espetxe politika kriminalak. Jokin Urain

**Presokideei** gustatu ez zitzaíen esaldi bat atera zuen: «Ez naiz inoiz izan presondegian bezain aske». Berria - Kultura

Han, berrítz haste... hango **presokideekin** harremanetan sartu eta elgarren berri eman... Filipe Bidart

## presokratiko 1 izond filosofo grekoez mintzatuz, Sokratesen aurrekoa.

Ondoren, filosofo **presokratikoen** ezaugarri batzuk zehazten dira. Askoren artean

Gerora asmatu-rik kosmogonietan, pentsalari **presokratikoek** [...] nahiago dute betiere elementu soíeko singularitasun iníziala, ahalik eta bakartuena eta xínpleena, hala nola, sua, airea, ura, Jainkoa, edo Big Bang delakoa. Patziku Perurena

### 2 filosofo presokratikoena, filosofo presokratikoi dagokiena.

Sarrera honetan Sokratesen aurreko helendarren filosofia aztertzen da (Filosofia **Presokratikoa**). Askoren artean

Kontzeptu filosofiko **presokratikoetan** oinarritu da Koteron Airean- n landutako hitzak sortzeko. Berria - Kultura

### • 3 iz filosofo presokratikoa.

Hasten da bat **presokratikoak** irakurtzen [...] eta susmoa hartzen du haien razionalizazio-jardueran asko dagoela mitotik. Askoren artean

Filosofiaren historia osoa ageri zen, hasi **presokratikoetatik** eta filosofia analitikoraino. Joxerra Garzia

Esan dezake, Sokratesen itzala zertxobait luzaturik, filosofiak **presokratikoekin** egiten du sarrera historian. Askoren artean

## presona ik pertsona.

## presondegi (1144 agerraldi, 95 liburu eta 427 artikulutan; orobat presontegi g.er., prisondegi g.er.; cf espetxe 4211 agerraldi, 86 liburu eta 1455 artikulutan) 1 iz presoak edukitzeko prestatua dagoen eraikina edo lekua. ik kartzela; espetxe.

Hau dugu bakartasuna, hau **presondegia**, hau sistema guziz ohoratua eta berniz demokratiko batek zilegiztatua. Filipe Bidart

**Presondegiak** muku-ru beteak zeuden. Elena Touyrou

Altxortegia, **presondegia** eta kuria edo senatu-etxea foroari itsatsita egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

Bada han ere (Gasteizen) presorik eta atxiloturik ugari; karmelotarren fraide etxea ere **presondegi** bihurtua baitute. Jokin Urain

**Presondegiko** puska eman zizkidaten, paketaia: estalkia, mihísea, platera, baxera batzuk, hortzak eta muturra garbitzeko puska batzuk, bizarra mozteko plastikozko tresnak, botatzen diren horietarik. Filipe Bidart

Francis herio-lerroan dago Kaliforniako **presondegi** baten. Gotzon Garate

- **Presondegi** bateko elkarrizketa-gune bat dirudi. Juan Kruz Igerabide

Egia erran, **presondegian** sartu baino lehen deus ez nakien **presondegiak**, deus edo arras gutti, eta bakartasunaz oraino guttiago. Filipe Bidart

Ni La Santé-ko **presondegira** eraman ninduten. Filipe Bidart

Otaegi, berriz, 1974an atxilotu eta hurrengo urtean fusilatu zuten, Burgosko **presondegian**. Xabier Mendiguren Elizegi

Katez loturik, Babiloniara eraman zuen Nabukodonosorrek eta **presondegian** eduki hil arte. Elizen arteko biblia

Buruu tente asko zutela, Espainiako Erregearen **presondegi**etara eramango zituzten itsasontzien zain zeuden. Bernardo Atxaga

ELB-ko kideak Montpellier aldeko **presondegi** aintzinean bildu dira, José Bové-ren sustenguz. Herria

Hori salatze-ko, jendea deitua da Baionako **presondegi** aintzinean biltzerat. Herria

**Presondegien** Erakunde-ko Zuzendarí Nagusia. Koldo Izagirre

**Presondegi**etako Zaindaritzako epaileari. Koldo Izagirre

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kartierretik atera eta **presondegi** normalean sartzén nintzen, beti ene eskoltarekin. Filipe Bidart

Izua zen neurririk onena halako **presondegi** erraldoia agintepéan edukitzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Espainiako eta Frantziako **presondegi** ankerretan beren urterik onenak galdu dituzten preso abertzaleen gorazarrez. Txillardegi

Arezzoko Alberto **presondegi** oso gogor batean zeukaten, bidegabe egotzi zizkíoten zorrak zirela eta. Askoren artean

Hain jukutria ala zalaparta guti daraman gizonak, hain luzaz eta halako **presondegi** hertsian egon behar izan duela. Piarres Xarriton

Ustez erabat gorroto eta gáinditurik neukan hiri militarraire hura, Matxoko bere **presondegi** lizunduak, eta bere bandera harroak eta tronpetaldi higuíngarriak, nire barne-  
muinetan zeutzaala erreparatu nuen. Txillardegi

Zerbait aipatzen ari ziren andreaz, emakumeen **presondegian** sartuta zegoela Sacramenton. Javi Cillero

Texaseko segurtasun goreneko **presondegi** batean. Berria - Kultura

Katxo ospitalean egon zen, hanka bat moztu zioten eta frantses **presondegi** batera bidali zuten gero. Koro Navarro

### 3 (zigor gisa)

Ihes egiten laguntzen zituztenen zigorra **presondegia** zen. Elena Touyrou

**Presondegiaren** orde-zko zigorren hedatzea. Herria

**Presondegi** garratz hori apur bat arindu zitzaion hilabete bat eta erdiren buruan, baina 1563ko martxoan ez zuen oraino legoa bat baino gehiago hiritik urruntzeko baimenik  
Piarres Xarriton

### 4 (hitz elkartuetan)

Dekanoak begi onez ikusten du **presondegi** hegal batean zortzi zelda berrítzen ari dituztela. Gaxuxa Arrambide 25 urteko mugertar gazteari 6 urteko **presondegi** zigorra  
eman dio Pariseko auzitegiak. Herria

Joel Sistiague uzta-ritzat gazteari 5 urteren **presondegi** zigorra eman zaio. Herria

Saldukeria **presondegi** zigorrez eta, maiz, heriotzez ordaintzen da. Elena Touyrou

Euskal Herrian Euskaraz taldeko bost lagun **presondegi** mehatxu pean ezarri ditu Gernikako juje batek. Herria

Idatzí honetan **presondegi** denborako hastapenak kontatzen dizkígu. Filipe Bidart

Auzune pobreenetan etxeek beti dute **presondegi** tankera. Lutxo Egia

Ziur naiz une hartan Mallonari gogora etorri, Cabo Quílates eta Altuna-Mendi **presondegi**-ontzietako jazoerak etorri zitzaizkiona. Edorta Jimenez

Argi zuen Larrinagako kartzela eta Cabo Quílates **presondegi**-itsasontziko triskantza famatuén erantzuleak, hurrenez hurren, UGTkoak eta Cartagenako miliziar-  
rak izan zirela. Lutxo Egia



**Presondegia** proiektu berriak badira, bainan beti gibelatuak. Heria

## 5 irud/hed

Egoera hartan eroritako edonor preso gelditzen zen, burdin hesirik gabeko **presondegian** itxita. Elizen arteko biblia

Munduko ohandte goxoenaren itxura eman badiozu ere, **presondegia** bat dateke. Janbattitt Dirassar

Denbora **presondegia** duzu, mendi hauek **presondegia** dituzun era berean. Xabier Montoia

Ordudunik larriari atxikirik eraman zuen babesleku hura, **presondegia** intimo hura. Joxan Elozegi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baionako presondegia** (4); **presondegia aitzinetik** (3); **presondegia barnean** (6); **presondegia barneko** (3); **presondegia berri** (10); **presondegia berri bat** (3); **presondegia zigorra** (18); **presondegia zigorra eman** (3); **urte presondegia** (5); **urteko presondegia** (12); **urteko presondegia zigorra** (8)

**bi urteren presondegia** (3); **hilabeteren presondegia** (10); **hilabeteren presondegia bildu** (3); **presondegia bildu** (5); **presondegia bildu du** (4); **presondegia itxi** (3); **urteren presondegia** (12)

**abu ghraib presondegian** (3); **abu ghraibeko presondegian** (3); **apezpikuen presondegian** (9); **baionako presondegian** (4); **burgosko presondegian** (3); **clairvauxko presondegian** (3); **herriko presondegian** (3); **hiriko presondegian** (3); **martuteneko presondegian** (3); **paueko presondegian** (4); **presondegian dago** (8); **presondegian hil** (3); **presondegian izan** (4); **presondegian sartu** (16); **presondegian sartu zuten** (4)

**presondegia**ren itzulia (3); **presondegia**ren patiorantz (3)

**irakeko presondegietako** (3); **israelgo presondegietako** (3); **presondegietako egoera** (4); **presondegietako nazioarteko behatokiko** (4)

**espainiako presondegietan** (5); **frantses presondegietan** (3); **frantziako presondegietan** (10)

**arabako presondegiko** (3); **baionako presondegiko** (3); **presondegiko patioan** (3); **presondegiko zuzendariaren** (3)

**presondegira eraman** (8); **presondegira eraman zuten** (5); **presondegira kondenatu zuten** (3)

**presondegirako bidean** (3)

**urte presondegitarra** (3)

**presondegitik atera** (7); **presondegitik ateratzea** (3); **presondegitik ateratzeko** (4); **presondegitik ateratzen** (4); **presondegitik ihes egiteko** (3); **presondegitik jalgi** (7)

## presondegiratu, presondegira(tu), presondegiratzen 1 du ad espeteratu.

Baina han atxilotuak izateko arriskua lukete eta, ondorioz, **presondegiratuak** eta epaituak izan lirateke. Beria - Euskal Herria

Jakobinoen leloa *Aske izan edo hil* kantonomendu guzietan idatzia izan dadin manatuko dut, eta aintzakotzat hartuko ez duten guziak auzitegira jaukiko ditut, edo bestela

**presondegiratu**ko. Elena Touyarou

Spainian **presondegiratu** izateko arriskua du. Beria - Euskal Herria

Kolore nazionalez kanpo edozein jazartze seinale zeraman norahi **presondegiratu** edo eraila izan zen. Elena Touyarou

Hamasei ordezkari **presondegiratuak** izan ziren berehala, Herria

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Segi eta Haikako kide **presondegiratuen** aldeko elkartasuna agertu zuten. Beria - Euskal Herria

400 000 euro ekarri zizkieten Garzoni **presondegiratuen** librazteko auzia aitzin. Herria

## presondegiratze 1 iz espeteratzea.

Legez kanpoko hilketak, desagertzeak, tortura eta tratu txarrak, jujamendurik gabeko **presondegiratzeak**, heriotz zigorrak, emazteen kontrako indarkeriak... badu zer sala Amnesty-k. Herria

Blanko abokatak salatu dute **presondegiratze** hori. Herria

Bistan da zer-nolako kaltea egin zioten autoritate soberanoari printze horren **presondegiratzeak** eta denen aurrean egin zuen penitentziak. Iñaki Iñurrieta

Herri honetan behin-behineko **presondegiratze** frogak lortzeko da erabiltzen. Beria - Harian

Laurence Levert epaileak Josean Zurutza Sarasola **presondegiratze**ko agindua eman zuen atzo. Beria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dider Aguerrepagolar presoak 3 urteren **presondegiratze** zigorra hartu du, aitzineko zigorraren gainera. dei auzitegiak 13 urterako **presondegiratze** zigorra berretsi zuen, 2005eko uztailaren 18an. Herria

Horrez gain, ezin du bertze euroagindu bat eman, **presondegiratze** eskaria 2001eko martxoaren 11koa baita, auzi bereko bertze hainbat gazterenarekin batera. Beria - Euskal Herria

## presondegizain (corpusean presondegia zain soilik) iz espetxezaina.

Nantes-eko **presondegia-zain** batek dio: "Ez dugu lan onik egiten ahal". Herria

## presoner (orobat presuner, presonero g.er., prisionero g.er. eta presonier g.er., prisoner g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegia presoner agertzen da, r bigunarekin) 1 iz preso. ik atxilotu.

Ez dira preso arruntak: enetzat gerlako **presonerak** dira. Herria

Etixerat sartu eta laster“ Camp de Souges” berriz altxatua eta handik 40 eko gerlarat joan eta bertze bortz urte **presoner** egon. Herria

Hor zituzten **presoner** bildu Eblo eta Aznar buruzagiak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Presonerren** jazarkunde bat aipu da Aliatuak hurrandu bezain laster. Michel Oronoz

Zenbait hilabete geroago soldadu alemanak eta haien mongoliar **presonerak** itzuri zitzaizkigun beren mando eta karroekin Frantziako iparraldera. Piarres Xarriton

Laster hartuko du **presoner** berri bat ziega hutsak. Koldo Izagirre

Horregatik, bertzeak bertze, ezartzen diote bakartze zigorra altxatu den **presoner** euskaldunari. Filipe Bidart

Departamenduko **Presoner** eta Gerlari ohien biltzerra. Herria

Funtsean ez girea denak guti aski presondegian eta **presoner** ? Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Hunek ere, gerla eta **presoner** denbora salbu, bere bizia ereman du sortetxean. Herria

## presonergo (corpusean presonergo soilik) iz preso dagoenaren egoera.

Behazuen sortua, 25 urtetan apeztua, Baionako katedralean bikario, gazteria eder bat elizari aski josia zen denboran, gerla denbora, eta **presonergokoa**, handik jin zen alemanak eta oro ikasirik baina herria eta bereak gogoan. Herria

presonier ik presoner.

presontegi ik presondeg.

**presozain** (orobat *preso zain g.er.*; Euskaltzaindiaren Hiztegian *presozain* agertzen da) iz presoak zaintzen dituen pertsona.

Nijni Novgorodeko azokan oso arrunta zen usadio bati jarraituz, bihotz onekoek karitatez emandako kopek batzuen truke, **presozainek** atea zabaltzen zieten presoeri.

Karlos Zabala

Presondegia toki ikaragarriak dira eta presoek gisa guzietako oinazeak pairatzen dituzte [...] emazteak biluzgorri zafratuak dira, eta gainera **presozainek** gutiziatzen duten bezainbat aldiz bortxatuak. Elena Touyarou

Bi presoek **presozaina** eta Smithers andrea bistatik galdu arte itxoin zuten eta orduan berriz lehengoari ekin zioten. Fernando Rey

Round Point delakoa gibelean utzi eta nehor -ez **presozain**, ez presokide- hauteman gabe erdiko dorrea da heldu. Xabier Montoia

-Zergatik askatu naute? -galdetu zion **presozainari**. Fernando Rey

Ez gara munduaren **presozainak**, baina jende arriskutsua da Berria - Mundua

**presozaintza** (*corpusean preso-zaintza*) iz presoak zaintzeko lanbidea.

Baina **preso-zaintzan** aritzen ziren alemanek, SSetakoak denak [...] susmo txarra harturik, Alma zegoen baserria arakatu zuten goitik behera ilunabar batez. Felipe Juaristi

prespektiba ik perspektiba.

**prest** 1 *adlag* prestaturik. ik gertu<sup>1</sup>; pronto.

Grabagailua **prest** eta belarriak tente gerturatu gintzaizkien. Aingeru Epaltza

-Kanoiak **prest** -aldarri egin zien gizonen halako batean. Edorta Jimenez

Kafea **prest** zegoen. Bernardo Atxaga

Hire zerraldoa **prest** zegoen... Juan Kruz Igerabide

-Nik afaria **prest** dagoela iragarriko dut -esan zuen izeba Petuniak. Iñaki Mendiguren

-Ez daude **prest** -erantzun zion postako nagusiak, burua makurtuz. Karlos Zabala

Benetako gizonen beti **prest** egon behar ditek. Juan Kruz Igerabide

Gaua zen oraindik; segituan zen taldea **prest**. Koro Navarro

**Prest** dira jaio orduko. Oskar Arana

Erantzunak **prest** daukazu dagoeneko. Rafa Egiguren

**Prest** utzi nuen bizikleta. Juan Kruz Igerabide

Eskua patrikan sartu, eta ohe gainera bota zuen **prest** zeraman dirua. Ramon Saizarbitoria

Pazkorako pinta banako berrogei poto nahi nituen **prest**, denak berdinak. Juan Garzia

Soldadu tatariarrek **prest** agertu ziren segituan, armak eskuetan. Karlos Zabala

Pentsamendu bakarra izan zuten, aurea hartu eta posta etxera lehenago iristea, han **prest** izango ziren abereak beste inorentzat ez izatea ororen gainetik ziurtatzeko. Karlos Zabala

**Prest** nintzen barruko gelak altzari elkarrekin gaizki egokitu eta hautsien bilduma higuigarri batez lepo beterik aurkitzeko. Oskar Arana

Aizkora ere **prest** dute eta! Iñaki Mendiguren

**Prest** nengoen edozertarako. Juan Kruz Igerabide

Honek garbi utzi zuen langile fina zela, beti **prest** lanerako eta Erresuma Batuko erreginarenera zerbitzari fin eta leiala izateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Prest** egon behar zuen guztiak hurrengo iganderako. Jon Muñoz

**Prest** al dago horretarako? Oskar Arana

-**Prest**? -esan zion Lupinek, kaxaren tapari helduta. Iñaki Mendiguren

Espiritua **prest**; haragia ahul. Anton Garikano

Buruzapia goian lotua bi punta utziz arrain saltzaile klasikoaren erara, ahotsa beti gora, keinua beti **prest**. Karlos Zabala

-Ni gizagaixo bat naiz, umiliatzera **prest** beti, hartarako bulkada sentitzen dudana bitartean. Juan Garzia

2 (-tzeko atzikiaren eskuinean)

Hiruzpalau polizia daukazue pare pare, edozein momentutan tiro egiteko **prest**. Rafa Egiguren

Hantxe geldirik hura, aieratzeko **prest**, itxuraz. Joxe Austin Arrieta

"Igotzeko **prest**?", galdetu zidan gero burua niregana jiratzuz. Bernardo Atxaga

-Nor egongo ote da nirekin ezkontzeko **prest**? Patxi Zubizarreta

Azkenean, mugitu ezinik, zaldun zuriaren mende geratu zen Mador, hiltzeko **prest**. Juan Kruz Igerabide

Kuarteletan zeuden, inondik ere, bat-batean abian jartzeko **prest**. Karlos Zabala

Adiskide minduarena egiteko **prest** nengoen. Aingeru Epaltza

Ergelkeria bat iruditzen zitzaidan hura guztia, ez nengoen fartsan parte hartzeko **prest**. Anjel Lertxundi

Indar itsua erabiltzeko **prest** datorrelako. Rafa Egiguren

3 (-rako atzikiaren eskuinean)

Hermann ordurako jantzita zegoen, kalerako **prest**. Anjel Lertxundi

Arratsaldean, Petrusen berak jotzen du atzeko atean, beti bezala lanerako **prest**, botak oinetan eta lan-jantzia soinean. Oskar Arana

Funtsean, tigre bat zen, jauzirako **prest**, baina otzandu egiten zena harrapakina hobeki inguratzearen. -Egon hadi edozertarako **prest**, ekaitza gainean dinagu eta! Patxi Zubizarreta

Ez zuen pentsatzen, ezta hurrik eman ere, halako zerbaiterako **prest** egon zitekeenik Lancelot. Juan Kruz Igerabide

Makila soil bat eskutan zetozenak ez baitziren urri, zorigaitzez, nahiz gogotsu den-denak eta borrokarako **prest**. Txillardeggi

Eskuzabal sentitzen nintzen iluntze hartan, barkamenerako **prest**. Joxemari Iturralde

4 (adizlagun baten eskuinean)

Erabat **prest** baitzegoen ni kontrabandoz lantegian sartzeko. **Xabier Olarra**

Erabat **prest** baitzegoen ni kontrabandoz lantegian sartzeko. **Xabier Olarra**

Baina, azkenik, zalantza-izpirik gabe egiaztatu ahal izan zuen Jaunaren zerbitzaria Kristorengatik edozer zakarkeria jasateko guztiz **prest** zegoela. **Askoren artean**

Soinu efektuak grabatu eta efektu horiek filmeko musikan txertatzea baino ez da falta filma guztiz **prest** izateko. **Berria - Kultura**

Batzuk pogrametarik ihesi, gehienak sos pixarren bila, asko beren lege barrukoak, batzu-batzuk aldatzeko oso **prest**. **Pablo Sastre**

Oso-oso **prest** egon behar dik. **Anton Garikano**

## 5 prestago

Laster jakin nuen ez zela nirekin Tomekin hitz egiteko baino **prestago**. **Oskar Arana**

Aurretik jakintzat eman behar da edozein kristau onek **prestago** egon behar duela hurkoaren esana onesteko gaitzesteko baino. **Patxi Altuna**

Zenbat eta nobleagoa den nire semea -esaten zuen-, hainbat eta **prestago** egon behar du joateko, horrela merezimenduak pilatzen zaizkio eta. **Askoren artean**

Eta bera prest badago, **prestago** nago ni! **Josu Zabaleta**

Erabat gaindituko ditu, haiek edukitzeko eta kudeatzeko prest, behar izanez gero, eta galtzeko eta ez edukitzeko **prestago**. **Imanol Unzurrunzaga**

Aita Turinen hiltzorian, amerikarrak Bataan-en garaiatuak, alemanak Crimean nagusi, eta, hitz batean, zepoa tenkatua, krausk egiteko **prest-prest**. **Juan Garzia**

## 6 prest-prest guztiz prest.

Esateko modu laburbidezko bat baino ez zen hura, eufemismo bat, ulertzeko **prest-prest** dagoenari esaten zaizkion horietakoak. **Juan Garzia**

Denak **prest-prest** egoten dira. **Berria - Harian**

Sukaldera azaldu nintzenerako, **prest-prest** zeukan gosaria Romanek. **Inazio Mujika Iraola**

- **Prest-prest** zertarako, baina? -galdetu zion Karmenek. **Inazio Mujika Iraola**

## 7 prest-presta ipar prest-prest.

Basaizeak antolaturik, hor dugu **prest-presta** aurtengo Baigorriko kulturaldia, apirilaren 10 etik 30 era joanen dena. **Herria**

Auzapezen iduriko, Ainhoa eta Itsasuren kasuan orenak ttikitzearekin argi da jende gutiago hurbilduko dela, eta ondorioz Postak estakurua **prest presta** izanen duela geroxago bulego horien hesteko. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**abiatzeko prest** (31); **afaria prest** (11); **agertzeko prest** (11); **aldatzeko prest** (27); **alde egiteko prest** (13); **amore emateko prest** (40); **aritzeko prest** (44); **armak prest** (9); **ateratzeko prest** (20); **aurre egiteko prest** (64); **aurrera egiteko prest** (9); **aztertzeko prest** (18)

**babesteko prest** (17); **barkatzeko prest** (12); **bat egiteko prest** (22); **bazkaria prest** (12); **betetzeko prest** (43); **beti prest** (103); **bidaltzeko prest** (13); **biltzeko prest** (17); **bizia emateko prest** (11); **borroka egiteko prest** (8); **borrokarako prest** (37); **borrokatzeko prest** (19); **botatzeko prest** (10); **bultzatzeko prest** (8)

**defendatzeko prest** (14); **dena dago prest** (8); **dena emateko prest** (18); **dena prest** (136); **dena prest dago** (23); **dena prest zegoen** (10); **denak prest** (12)

**edozer egiteko prest** (25); **edozerarako prest** (27); **egiteko prest** (636); **egoteko prest** (11); **ekiteko prest** (30); **elkarlanean aritzeko prest** (15); **emateko prest** (273); **emateko prest agertu** (33); **emateko prest zegoela** (11); **entzuteko prest** (41); **erabat prest** (9); **erabiltzeko prest** (28); **eramateko prest** (19); **erantzuteko prest** (21); **erasotzeko prest** (16); **erosteko prest** (8); **errespetatzeko prest** (16); **esateko prest** (8); **eskaintzeko prest** (11); **etortzeko prest** (8); **eusteko prest** (14); **ez dago prest** (40); **ez daude prest** (17); **ez gaude prest** (30); **ez nago prest** (22); **ez zegoen prest** (25); **ezker abertzalea prest** (8); **eztabaidatzeko prest** (20)

**galtzeko prest** (16); **gelditzeko prest** (9); **gobernua prest** (16); **gu prest** (25); **gu prest gaude** (15); **guztia emateko prest** (9); **guztia prest** (10); **guztiak jokatzeko prest** (10); **guztiak prest** (16)

**hartzeko prest** (140); **hartzeko prest dago** (9); **hartzeko prest dagoela** (11); **hasteko prest** (55); **hiltzeko prest** (42); **hitz egiteko prest** (88); **hori egiteko prest** (9); **hori onartzeko prest** (13); **horretarako prest** (32)

**igotzeko prest** (12); **ikusteko prest** (10); **irensteko prest** (13); **iristeko prest** (16); **irretzeko prest** (9); **itzultzeko prest** (29); **izango ditu prest** (9); **izateko prest** (36)

**jaisteko prest** (10); **jarraitzeko prest** (40); **jartzeko prest** (37); **jasateko prest** (9); **jasotzeko prest** (21); **jateko prest** (13); **jaurilaritza prest** (8); **jauzi egiteko prest** (12); **joateko prest** (50); **jokatzeko prest** (126); **jokatzeko prest dago** (14); **jotzeko prest** (16); **kentzeko prest** (8); **konpontzeko prest** (8)

**laguntza emateko prest** (11); **laguntzeko prest** (128); **laguntzeko prest agertu** (17); **laguntzeko prest dagoela** (11); **lan egiteko prest** (56); **lanean hasteko prest** (9); **lanerako prest** (28); **lortzeko prest** (11)

**mintzatzeko prest** (9)

**negoiazteko prest** (79); **negoiazteko prest agertu** (14); **negoiazteko prest dagoela** (9); **neurriak hartzeko prest** (8); **ni prest** (36); **ni prest nago** (12); **noraino iristeko prest** (8)

**onartzeko prest** (145); **onartzeko prest agertu** (17); **onartzeko prest dago** (9); **ordaintzeko prest** (48); **osatzeko prest** (12)

**pagatzeko prest** (8); **parte hartzeko prest** (30); **pausoak emateko prest** (8)

**prest agertu** (371); **prest agertu zen** (148); **prest agertzen** (18); **prest azaldu** (81); **prest azaldu zen** (32)

**prest badago** (9); **prest baitago** (8); **prest baitzegoen** (14); **prest beti** (17)

**prest da** (71); **prest dago** (394); **prest dagoela** (292); **prest dagoela adierazi** (20); **prest dagoela dio** (11); **prest dagoela erakutsi** (10); **prest dagoela esan** (36); **prest dagoela jakinarazi** (12); **prest dagoela nabarmendu** (9); **prest dagoelako** (9); **prest dagoena** (17); **prest dagoenik** (9); **prest daude** (153); **prest daudela** (157); **prest daudela adierazi** (11); **prest daudela esan** (21); **prest daudenak** (14); **prest daudenean** (8); **prest dauka** (8); **prest dela** (44); **prest dira** (63); **prest direla** (22); **prest diren** (18); **prest direnak** (13); **prest ditu** (11); **prest dituzte** (8); **prest du** (24); **prest dute** (12)

**prest eduki** (13); **prest edukitzeko** (10); **prest egon** (203); **prest egonen** (10); **prest egongo** (158); **prest egongo da** (16); **prest egongo dela** (17); **prest egotea** (70); **prest egotea espero** (13); **prest egoteko** (19); **prest egoten** (30); **prest ez dagoela** (11); **prest ez daudela** (9)

**prest gara** (11); **prest gaude** (202); **prest gaudela** (15); **prest geunden** (14)

**prest ikusten** (16); **prest izan** (34); **prest izanen** (34); **prest izanen dira** (8); **prest izango** (86); **prest izango da** (18); **prest izango dira** (9); **prest izatea** (20); **prest izateko** (14); **prest izaten** (13)

**prest jarri** (17)

**prest legoke** (24); **prest legokeela** (16)

**prest nago** (151); **prest nagoela** (19); **prest nagok** (14); **prest naukazu** (8); **prest nengoela** (15); **prest nengoen** (70); **prest nintzen** (12)

**prest prest** (12)

**prest utzi** (12)

**prest zaude** (34); **prest zaudela** (10); **prest zaudete** (10); **prest zegoela** (159); **prest zegoela adierazi** (15); **prest zegoela esan** (17); **prest zegoen** (179); **prest zegoena** (11); **prest zegoenean** (10); **prest zela** (13); **prest zen** (10); **prest zeudela** (33); **prest zeuden** (80); **prest zeudenak** (8); **prest zeukan** (19); **prest zirela** (9); **prest ziren** (19); **prest zuen** (12)

**saltzeko prest** (26); **sartzeko prest** (43); **segitzeko prest** (8); **sinatzeko prest** (12)

**taldea prest** (10); **tiro egiteko prest** (13)

**uko egiteko prest** (20); **uzteko prest** (72); **uzteko prest agertu** (12)

**zabaltzeko prest** (10)

## prestabide iz prestatzeko bidea.

**Prestabide** erabilgarri bakarra zaharrena ere bazen: ez zirudien hain zaila jarraitzen, eta azido urikoaren oxidazio bidezko suntsiketa batean zetzan. **Juan Garzia**

Zuk, berriz, ez duzu eskuarki halako ezaguera mingabe eta desinteresatu bat baino, sarritan optimista, laboratoriotik edo produktuen **prestabideetatik**. **Juan Garzia**

## prestaera (19 agerraldi, 10 liburutan) 1 iz prestatzea; prestatzeko modua. ik prestaketa; prestamen.

Gauzen izenak, zaleatasunen deskribapenak, jakien **prestaerak**, izen propioak... denak konbentzio hutsak dira; edozein izan zitezkeen. **Jon Alonso**

-Ordubeta eman omen dio Don Manuelek arimako **prestaera** egiteko. **Txillardeggi**

Hauek dira **prestaera** hurbilenaren eta egiazkoaren baldintzak, Izpiritu Santua hartzeko geure buruak apailatu nahi baditugu. **Joan Mari Lekuona**

Hartze bakoitza **prestaera** berri bat izango da, hartzeko gaitasuna handiagotuko duena. **Joan Mari Lekuona**

Hitz batean, Kristorekin antzekotzen zuten bertute ugariak, zer ziren Kristorekin bat egiteko bide eta haren zauri sakratuak hartzeko **prestaera** moduko bat baino? **Askoren artean**

## 2 (hitz elkartuetan)

la hirurogeita hamar urte ziren aloxana ezagutzen zela, baina laboratoriorik bitxikeria gisa: deskribatzen ziren **prestaera** -metodoak balio akademiko hutsa zuten. **Juan Garzia**

## prestaerraz izond erraz prestatzen dena.

Arraina erruz dago, ordea, eta «goxoak bezain **prestaerrazak**» diren hanburgerren bidez atera nahi diote etekina soberakinei. **Berria - Harian**

## prestaketa (423 agerraldi, 60 liburu eta 242 artikulutan) 1 iz prestatzea. ik prestaera.

**Prestaketa** besterik ez dago / ez dago helmugarik. **Lourdes Oñederra**

**Prestaketa** zientifikorik ez dut, gainera. **Josu Zabaleta**

Minioaren **prestaketara** itzuliko naiz orain. **Santiago Iruretagoiena**

Milheresek eta Chouchanek ez zuten minutu anitz jokatu, eta, horregatik, atzo **prestaketa** fisikoa egin zuten. **Berria - Kirola**

Jostun profesionala izan zitekeela, eta horregatik joaten zela Villa Lecuonara, eta ez soilik ezkontza aurreko **prestaketa** egitearren. **Bernardo Atxaga**

Profesionalek materialaren **prestaketan** parte-hartu izanari egoki baino gehiago iritzi dio, «hala behar zuen». **Berria - Harian**

Asko izan baitira, neurri batean edo bestean, itzulpenean nahiz beste osagaien **prestaketan** lanean jardundakoak. **Askoren artean**

## 2 pl zer bait prestatzeko egiten diren gauzak.

**Prestaketa** luzean ondotik, noizbait ere karabana abiatu zen. **Patxi Zubizarreta**

Ikustekoa ei zen zure patxada borroak bere **prestaketa** izugarriak egiten zituen artean. **Koldo Izagirre**

Andresak bere ekipajearen **prestaketak** bukatu zituen. **Josu Zabaleta**

Galilean eta Galaaden gudukatzeko **prestaketak**. **Elizen arteko biblia**

Gerrarako **prestaketa** hauek guztiak ezerezean geratu ziren. **Anton Garikano**

Festarako **prestaketak** egiteko eguna zen eta larunbata hastera zihoan. **Elizen arteko biblia**

Haren hiletarako **prestaketak** egiten ari ziren. **Askoren artean**

Hantxe ezagutu nuen nik, artean hutsik zegoen areto batean, mahai baten aurrean jarri eta hitzaldi baterako **prestaketak** egiten. **Bernardo Atxaga**

Omskera joateko **prestaketak** ordurako eginda zeuzkala. **Karlos Zabala**

Juvenalia ere berehala etorri zen, espero baino lehentxeago, aitari lagundu nahi ziolako **prestaketetan** esan zuenez. **Felipe Juaristi**

Omskera joateko **prestaketak** ordurako eginda zeuzkala. **Karlos Zabala**

Hik hartuko duk **prestaketen** ardura. **Agustin Otsa**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Prestaketa** lan hori eta irailaren 11ko atentatuak izan ziren, iritzi publikoaren aurrean Afganistan inbaditzeko arrazoi nagusiak. **Iñigo Aranbarri**

Borroak beren zimitarra handi eta astunak zorrotzen ari ziren, biharamunerako **prestaketa** -lanak bukatzen. **Fernando Rey**

Pioren azken eskutitzari baitzeta ematea erabaki zuen, gurasoekin hitz egin ondoren noski, eta **prestaketa** lanetan hasi zen berehala. **Xabier Etxabe**

Larunbatean egin ohi dut **prestaketa** proba osoa eta asterdian serieak. **Berria - Kirola**

**Prestaketa** saioa amaituta, gihar-luzatzeak egin zituen. **Berria - Kirola**

Bizikleta horren gainean egiten zituen **prestaketa** ordu gehienak. **Xabier Etxabe**

Medikuntzako eta farmaziako **prestaketa** -urteko kimika orokorreko eskola. **Josu Zabaleta**

Lehen **prestaketa** moduko bat egiten zaio janariari ahoan. **Irene Aldasoro**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Semeari esaiozu aintzat hartzen dudala bere eskaria, baina hiru hilabete baino lehen ezin ditudala ezkontza **prestaketak** burutu. **Patxi Zubizarreta**

Nahiago izan zuen zahar eta gaixo sentitzen zela esan, bere gogo **prestaketaz** baino ez zuela kezkatu nahi. **Bego Montorio**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken **prestaketa** (5); bere **prestaketa** (3); hauteskondeen **prestaketa** (3); lehen **prestaketa** (3)

**prestaketa** berezirik egin (3); **prestaketa** egin (6); **prestaketa** egin du (3); **prestaketa** egiten (3); **prestaketa** fisiko (3); **prestaketa** fisikoa (8); **prestaketa** gogorra (3); **prestaketa** lan (4); **prestaketa** lanak (9); **prestaketa** lanetan (11); **prestaketa** moduan (3); **prestaketa** ona (7); **prestaketa** osoa (3); **prestaketa** saio (6); **prestaketa** saioa (10); **prestaketa** saioak (5)

tourrerako **prestaketa** (3)

afarirako **prestaketak** (5); azken **afarirako prestaketak** (3); **prestaketak** egiteko (9); **prestaketak** egiteko eguna (4); **prestaketak** egiten (7)

**prestaketan** buru belarri (3); **prestaketan** parte hartu (3)

**prestaketari** ekin (3)

## prestakin iz erabiltzeko edo kontsumitzeko prestatzen den gauza, hainbat gaiez osatua.

Substantzia eraginkorrik ez duen **prestakina** da plazeboa, eta botika baten ordez ematen da, gaixoaren eragin psikologikoa guztiz baztertuz botikaren benetako eragina aztertzeko. **Berria - Gaiak**

**Prestakinaren** lurrunak nahikoa omen dira emakumeak itzaltzeaz zekuan sua berpizteko, alboan daukan gizona oheko kontueterako bi eskuetatik besamotza ez bada behintzat... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Beita: amua irensgarriago bihurtzen duen **prestakina**. **Xabier Olarra**

## prestakizun (41 agerraldi, 12 liburu eta 8 artikulutan) iz pl prestaketak.

Festa handi baten **prestakizunak** egiten ari ziren. **Joanes Urkixo**

Gau osoa eman omen zuen **prestakizunak** egiten, eta neska gaixoak ez omen zuen bi oreneko loa baizik egin. **Jon Muñoz**

Armiarma bere amaraunean, bazkaltzeko **prestakizunak** egiten ari duk. **Jon Muñoz**

**Prestakizunak** oro eginak ditut jadanik; dena prest dago, nire begien aitzinean; begiok ezin pausa ditzaket partitze krudel hori iragarriko ez didan deusen gainean. **Jon Muñoz**

Jakin zuenean ama bizirik atera zela gerratik, bera ikustera Ameriketara etor zedin egin beharreko **prestakizunei** ekin zien. **Oskar Arana**

Une hartan, kapitainaren ahotsa aditu zuten bozgorailutik, lurra hartzeko **prestakizunen** berri emanez. **Javi Cillero**

Egingo nuke Stanleky hartu egin diola telefonoa, eta zuek hirurok hara gora eramateko **prestakizunetan** dabiltzala. **Oskar Arana**

**Prestakizun** ugari eta lan gogorra eskatzen ditu. **Oskar Arana**

**prestakuntza** (*713 agerraldi, 69 liburu eta 367 artikulutan*) **1** iz (norbait) egiteko edo lanbide bateko prestatzea; prestatze horren ondorioa.

Platonen iritziz, ederra den zerbait maitatu ahal izateko, **prestakuntza** eta heziketa behar dira. **Askoren artean**

Guraso gehienek ez baitute goi mailako **prestakuntzarik**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Irakasle asko baitaude edo egon baitaitezke eskolak ingelesez emateko moduko **prestakuntza** dutenak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ikerkuntza egiteko **prestakuntza** eta gogoia sustatu behar dira. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hiru urteko **prestakuntza**. **Berria - Mundua**

Doktore gradua lortu ondoren edo lortzeaz dagoela, laguntzaile gisa has daiteke ikertzaile berria bere **prestakuntzaren** bigarren aldia. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Aipagarriak dira horien artean *Composition Studies* direlakoak, hau da, idazle eta irakurleen **prestakuntzarako** ikasketak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Eusko Jaurlaritzaren Ikertzaileen **Prestakuntzarako** beka bat du. **Askoren artean**

Hizkuntzaren bulegoak ezagutzak biltzeko, irakaskuntza kodetzeko, **prestakuntza** antolatzeko, sentsibilizazioa sustatzeko [...] balioko du. **Berria - Mundua**

Horregatik da ezinbestekoa unibertsitateko irakaslearentzat, hori baita bere **prestakuntzan** barneratuko duen zerbait, eta hori erabiliko baitu gero ikasleei jakintza pasartzeko orduan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hau ez duk bizitza, hau bizitarako **prestakuntza** besterik ez duk: zerbitzuan zegoen benetako bizitza. **Jose Morales**

Bizitza osorako **prestakuntza**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Baina jakituria lortzeko are **prestakuntza** handiagoa behar da. Bazen zatidura bat, aski iragarria, exortzista lanbiderako Eliza Amak eskatzen duen **prestakuntza** bereziaren berri ematen zuena. **Xabier Kintana**

Oso **prestakuntza** mugatua nuen nik liburua ulertzeko: ezer gutxi nekien historiari, materialismo dialektikoari, [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ikasketak maila guztietan berdin gertatzen da joera hori, eta beti leporatzen zaio **prestakuntza** txar horren erantzukizuna aurreko mailari. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Tibetoko monjeena bezalako **prestakuntza** luzea eta lasaia. **Bernardo Atxaga**

Gaur-gaurkoz ez daukate ez eskarmentu ez **prestakuntza** politiko nahikorik. **Rafa Egiguren**

Kultura-hornidura nabarmena zekarten eta **prestakuntza** erlijioso eta teologikoa hartzeko gogo bizia. **Joan Mari Lekuona**

Guk ez dugu beti dena ulertzen, aise da jakitea zergatik, **prestakuntza** teknikoak falta, zuzentzaile jauna, **prestakuntza** teknikoak. **Jon Alonso**

Elkarrizketa gehienetan, hegazkinlariak berebiziko garrantzia ematen zioten **prestakuntza** fisikoari. **Anjel Lertxundi**

Hasierako **prestakuntzari** dagokionez, hau da, lizentziak eskuratzerako bideratuta dauden ikasketei dagokienez, [...]. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hau da etengabeko **prestakuntza** deitzen duguna, jakintzen gaurkotzerako tresnarik egokiena. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ohiko unibertsitate oinarriko **prestakuntza** horretan oinarritu izan da. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hori **prestakuntza** orokorrako eta oinarrikoago batek ziurtatuko luke. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaur egun inoiz baino **prestakuntza** maila garaia dute euskal herritarrek. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ikasketak planak ez dira egituratu alde aurretik finkaturiko **prestakuntza** helburuak betetzeko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Aspalditik nirekin lanean ari ziren bi ikertzaile, Charles Babinet eta Hubert Condamine, **prestakuntza** -ikastaro bana egitera abiatu ziren, bata Ingalaterrara eta bestea Estatu Batuetara. **Juan Garzia**

Bilerak, batzarak, **prestakuntza** -saioak. **Aingeru Epaltza**

Zientzia ikasketak erakargarriago egitea eta **prestakuntza** aukerak zabaltzea dira aztertutako moduetako bi. **Berria - Gaiak**

Hori ezinezkoa litzateke hasierako **prestakuntza** -ikasketak luze horiek gabe. **Xabier Kintana**

Zure **prestakuntza** -aldia hasi besterik ez da egin. **Lopez de Arana**

**Prestakuntza** aldi hori amaitu ondoren, irakasle/ikertzaile "osoa" izateko urratsa eman dezake prozesua hasi duenak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Europar Batasunak eta gobernuak laguntza asko eman izan dituzte gaurkotze **prestakuntza** hau bultzatzeko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hori dela eta, aberasgarri samarra da tesia euskaraz idaztea, bai doktore berriaren hizkuntza **prestakuntzaren** ikuspuntutik. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 5 prestaketa.

Behin betiko idazketa, oharren **prestakuntza**, azken bibliografia, eranskinak. **Askoren artean**

Hiletarako **prestakuntzak** egiten ari ziren. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etengabeko prestakuntza** (10); **irakasleen prestakuntza** (11); **prestakuntza fisiko** (8); **prestakuntza fisiko** (13); **prestakuntza ona** (8)

## prestalan iz prestaketa-lana.

Zerbitzua bera baino goratuago iritzi zion zerbitzurako **prestalanari**. **Jose Morales**

Ruche jaunaren hitzaldiari bezain arretatsu segitzen zituen Léak osso buccoaren **prestalanak**. **Jon Muñoz**

Aurreko **prestalanik** gabe jakinduriaren erpinera heltzerik balego, horiek ez lirakeela prestatze-lanak, alferreko zereginak eta arinkeria hutsak baizik. **Xabier Kintana**

Bai udaldian beroetatik eta bai negutegian hotzetatik babesteko, eurite, elurte eta haizeteetatik gordetzeko, gizakiak aurretik **prestalan** asko egin behar izaten ditu, eta horiek ezin dira mamitu pentsaera eta gogoetaren bitartez ez bada. **Xabier Kintana**

## prestamen (48 agerraldi, 12 liburutan) 1 iz prestaketa.

Jakin ezazue **prestamen** bat behar duzuela, ohitura bat alegia, eterraren ondorio bereziak bete-betean sentitu ahal izateko. **Josu Zabaleta**

Udaberria esnatzearekin batera, lanak hasten dira: garraioa eta egurketa, bide guztiak lokazturik daudela; ereintzarako **prestamenak**; bihitegiaren aleak aukeratu, pisatu, eta lehortzen jarri berriro; nekazarrien zerga berriak ezarri. **Jose Morales**

Andresek berebiziko emozioz jarraitu zituen gerrarako **prestamenak**. **Josu Zabaleta**

**Prestamenak** egiten hasi, eta Mikel Strogoff konturatu zen ustekabeko zorteari esker destakamenduak ez zuela inola ere pentsatzen basoa bisitatzea. **Karlos Zabala**

Apaizarekin aitortzea goratu eta eukaristia txit santua urtean behin hartzea, eta askoz hobe hilean behin, eta are hobeto zortzi egunehi behin, behar diren **prestamenak** beterik. **Patxi Altuna**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Prestamen** -otoitza Jainko gure Jaunari grazia eskatzea da, ene asmo, egintza eta ariketa guztiak Jainko handiaren zerbitzurako eta gorespenerako garbiri zuzen daitezen. **Patxi Altuna**

**Prestamen** -otoitzaren eta hiru hitzaurreen ondoren, lehen eta bigarren jardunen berriztatzea egingo da. **Patxi Altuna**



## prestamista iz mailegu-emailea.

Ministroa ez ezik, **prestamista** ere zela, hain abariziosa eta hain eskulaburra, non koberatzen baitzien bere bezeroei, interesetan, %10a, Kalvinek ezarri zuen %5eko mugaren gainetik. **Joan Mari Irigoien**

Askotan herritarra bera izan ohi zen [...] justizia bere esku hartzen zuena, judutegiak purrakatu eta **prestamistarik** beketsenak bertan garbituz. **Patziku Perurena**

## prestamu iz mailegua.

Ez badut azterketa gaintitzen Genevièvek ez zidak **prestamurik** egingo. **Bernardo Atxaga**

Baldintza bat halere: PCE horren ardiesteko, haren heinaren doblera bederen eta berdin hiru aldiz gehiagora hel daitekeen epe ertain edo luzerako beste **prestamu** bat behar du banko baten ganik bildu enpresa sortzaileak. **Herria**

## prestarazi, prestaraz, prestarazten du ad prestatzera behartu.

Otordu oparoa **prestarazi** zuen, bada, eta janari gozoak errepikaturik eskaini zizkien. **Askoren artean**

Janariak **prestarazten** zizkion kanporako, okela erre eta txerri saiheskiak ozpinetako pepinoekin eskatzen zion bereziki. **Karlos Zabala**

Hirira joan eta katilukada bat irin **prestarazi** zuen koipearekin. **Askoren artean**

Jose, bere zalgurdia **prestarazi** eta bere aita Jakobi bidera atera zitzaion. **Elizen arteko biblia**

Burdina ugari **prestarazi** zuen, ate-orrietako iltze eta gakoak egiteko. **Elizen arteko biblia**

Horma sendoz inguraturiko kartzela iluna **prestarazi** zuen, eta barruan burdina-iltzez jositako ohol sendoen artean lotu zuen presoak. **Askoren artean**

Datorkeen pozaldirako bere burua **prestaraziz** eta moldaraziz. **Patxi Altuna**

Entrenatzaileek gogor **prestarazi** digute eta lurtean aritu izanak mesede egin digu. **Berria - Kirola**

## prestasun (orobat prestutasun g.er.) 1 iz prest dagoenaren egoera edo nolakotasuna.

Urteen buruan, seme zapuztua jaun enpresari honexen zerbitzura hasiko da lanean, baita haren konfiantza lortu ere, bere **prestasun** eta prestutasunagatik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Aberriagatik azken odol tantoa ere emateko **prestasuna** eskatzen dute militarrek. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Badakit emakumeen artean ohikoa dela, amore emateko gogo bizia izanda ere, **prestasun** hori ukatzea. **Eduardo Matauko**

Garaipen horrek ikasgai bat du, batez ere, guretzat: engainatuak izateko **prestasunak** duen garrantzia. **Josu Zabaleta**

Bere arreta eta **prestasun** guztia, pikutara! **Irene Aldasoro**

Barne memoriak, informazio pantailak, telekomandoari erantzuteko **prestutasuna**, bateriak betetzeko funtzioa... **Berria - Gaiak**

Euskal herritarren eskubideen alde hasitako bidea azken muturreraino egiteko **prestutasuna** adierazi nahi dugu. **Berria - Harian**

Nikolas izeneko zerbitzari bat zeukan ondoan, oso maite zuena eta etxeko lanetarako **prestasun** handikoa. **Askoren artean**

### 2 (hitz elkartuetan)

Ez zuen aurpegi tristerik ikusi nahi, honek gehienetan on egiteko espirtuaren gogogabekeria eta **prestasun** falta eta gorputzaren nagitasuna adierazten baititu. **Askoren artean**

## prestatu, presta, prestatzen (orobat prestau g.er.) 1 du ad (zerbait edo norbait) zerbaitetarako egoera egokian, erabilia izateko eran edo bere egitekoa betetzeko moduan jarri. ik atondu; apailatu. (gauzakiak eta kidekoak)

Zuzi batzuk **prestatu** zituen gero. **Jose Antonio Mujika**

Zazpi aldare **prestatu** ditut, eta bakoitzean zekor eta ahari bana eskaini.

Gau hartan zaldun guztiek ondo **prestatu** zituzten armak eta zaldien zelak eta uhalak. **Juan Kruz Igerabide**

- **Prestatu** forzepe sak segituan. **Josu Zabaleta**

Eskatutakoa egin genuen: bonba atomikoa **prestatu**. **Fernando Morillo**

Erregearengana zetorren, Mardoqueo urka zezala eskatzera, horretarako **prestatua** zuen urkabean. **Jose Antonio Mujika**

Axelek bere tresneria sismoakustikoak **prestatu** eta eginen ditu bere azterketak. **Joseba Sarrionandia**

Onbideratzen ez badira, ezpata zorrozten du, uztai teinkatu eta botatzeko **prestatzen**. **Elizen arteko biblia**

Puntu-puntu zegoela iritzi zuenean, lakio bat **prestatu** zuen Teresak. **Martin Anso**

Gaur maletatxo bat **prestatu** dut, ihes egin behar izanda ere nire gauzarik beharrezkoenak edukitzea. **Josu Zabaleta**

Andrea dena **prestatu** dik: tantaz tantakoa, pixontzia, morfina-antipuluak... **Iban Zaldúa**

Niri, lehen egunean, zink sulfatoa **prestatzea** egokitu zitzaidan halabeharrez. **Juan Garzia**

Brompton dosia **prestatu** behar duzula gogoratu. **Joseba Sarrionandia**

Mina bat nola egin, bolbora nola **presta**, kanoiaren atalak zein diren, denetatik. **Txillardegi**

Zintzoari zuzentasunak bidea **prestatzen**, gaiztoa bere maltzurkeriak erorarazten. **Elizen arteko biblia**

Beheko solairuan gela handi bat besterik ez dut -esan zuen emakumeak-, baina **prestatu** gabe dago. **Josu Zabaleta**

Zulo-galeria luze bat **prestatu** zuten orduan karlistek komentuen zorueta-raino. **Txillardegi**

Guretzat **prestatu** dituen hiru logeletatik, bat Marx Anaiei eskainia da, beste bat Buster Keaton-i, eta azkena Laurel-i eta Hardy-i. **Oskar Arana**

### 2 (janariak edo edariak)

Lagunak esnatu, eta oturuntza eder bat **prestatu** genuen. **Juan Kruz Igerabide**

Hala, bada, joan ziren Aman eta biak Esterrek **prestatua** zuen oturuntzara. **Jose Antonio Mujika**

Aspaldiko partez gosari oparoa **prestatu** du: zukua, gurina, marmelada, ogi xigortua... **Patxi Iturritegi**

Egun horietan ez duzue lanik egingo, bazkaria **prestatzeko** ez bada. **Elizen arteko biblia**

Afaria amak **prestatu** zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Amak txokolate beroa **prestatu** zigun, ogi xigortuarekin eta gurinarekin. **Juan Kruz Igerabide**

Escaldako amuarrainak borgoniar erara **prestatuak**. **Felipe Juaristi**

Kalean ez dagonean sukaldean sartuta egoten da, kroketak **prestatu** eta **prestatu**. **Jokin Muñoz**

Bizkotxoak **prestatu** dizut; bai, zuk jateko modukoa da, egon lasai. **Iban Zaldúa**



-Xeratu nintzanean, Myrnak kafe bat **prestatu** zidan. Koro Navarro

-Zeuk ere nahiko duzu, ezta? -esan eta berehala **prestatu** zidan basokada bat. Jasone Osoro

Ekarri ehiza eta **presta** iezadak jaki on bat. Jose Antonio Mujika

Nire buruari *bloody mary* bat **prestatu** eta erdi ahaztu nintzen guztiaz. Iban Zaldua

Ardoa, hoberenetik izanen omen duzu, eta tea ere bero beroa, eta gailetatxoak, eta muskuilu erreak, bero beroak, jateko jada **prestatuak**. Joseba Sarrionandia

### 3 (zertarako adieraziz)

Mirabeak eta dendak, gameluak eta mandoak bidaiarako **prestatu**, eta Xariar anaiarengana abiatu zen. Patxi Zubizarreta

Eskola amaiturik, ohartzen zara bizitzan beharbada inoiz beharko ez duen gauza mordo bat ikasarazi diozula, eta, aldiz, hutsik gabe egin beharko duen bakar hartarako ez duzula **prestatu**. Joxerra Garzia

Gizagaixoa, pentsatu nuen nire kabutan, hori esaten duenak oinaze esanezinetarako **prestatu** behar du bere burua. Karlos Linazasoro

Modu berezian egiten zekien kremazko tarta **prestatu** zuen postrerako. Juan Kruz Igerabide

-Ea, **prestatu** borrokarako, zital doilor hori! -oihu egin zion sir Cadoganek. Iñaki Mendiguren

### 4 (pertsonak)

Titulu-dantza horrez gain, ikasleak **prestatu** behar izaten ziren, inspektoreak gela batzuk aukeratu eta galdera bihurriak egin zale izaten ziren eta. Joxerra Garzia

Sukaldean eseriko ginen eta kafea hartuko genuen elkarrekin, umeak batera eta bestera katagorrien moduan korrika ikusiz beren amek eskolarako **prestatzen** zituzten bitartean. Oskar Arana

Nondik atera dira gure seme-alabak **prestatzen** dituzten eskoletako maixu-maistrak eta institutuetoako irakasleak? Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aukeraturiko gazteak **prestatzeko** erregeak ezarri zuen epea betetzean, funtzionarioburuak Nabukodonosorri aurkeztu zizkion. Elizen arteko biblia

Enpresa arduradunek nahi lukete unibertsitatean beren enpresetan lana ongi egingo duten espezialistak **prestatzea**, ikasketa praktikoak egitea alegia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ohiko unibertsitate oinarritzko prestakuntza horretan oinarritu izan da [...] eta arlo horietan adituak **prestatzea** izan du helburu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egun batzuk gehiago eman zituen bere burua **prestatzen** hautesleriaren aurrean aurkeztu eta bere eginbeharrak eta beragandik espero zezaketenaz hitz egiteko. Bego Montorio

**Prestatu** beharra zaukaat neure burua. Jon Muñoz

Jende buruduna behar zen haren iritzi, ikasketaz-eta ongi **prestatua** eta libertarioen doktrinaren marka sakon errotua izango zuena. Inazio Mujika Iraola

### 5 (bestelakoak)

Egoera hartan **prestatu** nuen batxilergora sartzeko proba. Juan Kruz Igerabide

Lukas Dorronsorok liburu horren euskarazko moldaketa bat **prestatu** zuen. Martin Anso

Hark eskatu zien gelditzeko bere etxean jasotako gutunaren erantzuna **prestatu** bitartean. Felipe Juaristi

Iluntzean **prestatu** dut eskaria eta posta elektronikoz igorri diot Cristinari. Pako Aristi

Auzoan paperak bota zituzten, ekintza nola **prestatua** zuten adierazten zuten azalpenekin. Juan Kruz Igerabide

Manson, zer krimen berri ari haiz **prestatzen**? Bernardo Atxaga

Putakeria galanta **prestatu** ziona, arraioa! Migel Angel Mintegi

Deabruzko amarru bat **prestatu** zuen niri sinestarazteko beisbol partida bat ikustera joan beharra neukala *Shea Stadium*-era. Oskar Arana

Hauxe izan zen **prestatu** nuen plana: [...]. Jon Alonso

Azterketak elkarrekin **prestatzen** zituzten etxean. Eneko Bidegain

Material hauekin txostenak **prestatu** eta zuri entregatuko dizkizut. Iñaki Zabaleta

Aitagarrebagai perfektuarena jokatzeko **prestatu** nuen neure burua. Aingeru Epaltza

### 6 da ad

Berehala jaiki eta **prestatu** egin naiz. Agurtzane Juanena

Hogeita hamazazpi minutu behar ditut **prestatzeko**. Bernardo Atxaga

Martinek ez zuen ezetik esan eta **prestatu** ziren arte itxoin zien, gero haiekin joateko. Koro Navarro

Gezi Beltzen dibisio italiarrari armak entregatzeko **prestatu** ziren euskaldunak eurentzat gerra amaitua zelako. Jokin Urain

Dutxa bat hartu, eta apain-apain **prestatu** nintzen Dabidekin irtekeko. Patxi Zubizarreta

Lisa gaua pasatzeko nola **prestatzen** zen entzuten zuen. Karlos Zabala

Prestatu ere **prestatu zen** asmoa burutzeko. Askoren artean

Ustez handikeriaren bat kontatuko zuela, eta barre egiteko **prestatu** ziren denak. Erabakia harturik, Mikel Strogoff asmo hura betearazteko **prestatu** zen. Josu Zabaleta

Edota turutak soinu nahasia jotzen badu, nor **prestatuko** da gudurako? Elizen arteko biblia

Kementsu **prestatzen** da lanerako, ez zaizkio inoiz besoak nekatzen. Elizen arteko biblia

Gazte indartsu asko **prestatu** ziren lehiarako, haien artean Altzinooren hiru seme. Juan Kruz Igerabide

Nerbioak dantzan, indarrak bildurik, **prestatu** zen erasorako. Migel Angel Mintegi

Afaria amaitu zutenean, lotarako **prestatu** ziren. Jose Antonio Mujika

### 7 (inpersonalak)

Nitrogeno oxidoa amonio nitratoa kontu handiz berotuz **prestatzen** da. Juan Garzia

Urki-adaxkak perfekzio aerodinamiko bilatuz **prestatu** dira. Iñaki Mendiguren

Produktua ez zen fabrikazio arruntekoa, kantitate txikitan **prestatzen** zen eta berariazko eskaeraz soilik. Juan Garzia

Operazioa berehala **prestatuko** da. Joseba Sarrionandia

Bulego lasaietan **prestatu** dira gas-ganbarak, automobil hilgarriak, labeak... Felipe Juaristi

Kameratik filmagairako distantziaren eta filmagai horren itxurazko taminaren arteko lotura ere azaltzeko tipologia bat **prestatu** da, guztiz empirikoa eta aski arrunta, plano-tamainean eskala deitua. Josu Zabaleta

Osagaiak, beraz, bereiz **prestatzen** dira, eta gero, azkenean, elkartzen. Juan Garzia

Probintzietan gerra anker eta odoltsu bat antolatzen eta **prestatzen** zen bitartean, Madrilen, politikariak eta hizlariak zoratu beharrean ari ziren erretorika-ariketa ederretan. Koro Navarro

### 8 (aditz erroa hitz elkartuen lehen osagai gisa; cfprestalan)

Zientziaren azken xedeen bila ari dira eta haiez mintzo, hasierako **presta**-ikasketez arduratu gabe. Xabier Kintana

### 9 (era burutua izenondo gisa)

Bizkotxo hautsien kutxak ekartzen zizkigun lantegitik, eta berdin janari **prestatuak**, usain eta dasta arraro samarrarekin baina. Juan Kruz Igerabide

Urtetik urtera gero eta aukera gehiago daude, gero eta irakasle **prestatuagoak**. Berria - Kultura

Jende **prestatua** behar da. Berria - Gaiak

Jende **prestatua** eta prestua. Berria - Euskal Herria

Hogei urte zituenerako gazte **prestatu** zen eta aberatsen munduan loratzeko egokitua zegoen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horrexez gaitik zaudete zuek hemen, operazio honetarako elementu egokiak eta **prestatuenak** zaretelako. Joxemari Iturralde

Hala, anbulatzia **prestatuago** bat iritsi arte itxaron behar izan zuten. Berria - Kirola

## 10 **prestatuxe** prestatu xamar.

Gobernuak **prestatuxea** du helduden urteko buxeta. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abiatzeko prestatu (5); afaria prestatu (19); alde zurretik prestatu (6); asko prestatu (8); ateratzeko prestatu (8); aurre egiteko prestatu (5); aurretik prestatu (10); bazkaria prestatu (7); behar bezala prestatu (4); berehala prestatu (4); bereziki prestatu (4); bidaia prestatu (4); bidea prestatu (5); borrokarako prestatu (6); buru belarri prestatu (8); burua prestatu (4)

egitarau zabal prestatu (8); egitarau prestatu (8); egiteko prestatu (24); egiteko prestatu zen (6); emateko prestatu (4); erasotzeko prestatu (6); erasotzeko prestatu ziren (4); europa batuarentzat prestatu (9); gogor prestatu (4)

hauteskundeetarako prestatu (5); hobeto prestatu (13)

ikuskitzuna prestatu (4); izateko prestatu (4); janaria prestatu (7); joateko prestatu (7); joateko prestatu zen (4); kafea prestatu (9); kanpaina prestatu (4); lekua prestatu (4); mahaia prestatu (4)

ondo prestatu (26); ongi prestatu (14); oso ondo prestatu (4); otordua prestatu (4); partida prestatu (8); plana prestatu (15)

prestatu bazkaria (4); prestatu bidea (6); prestatu bidea januari (5); prestatu da (15); prestatu du (113); prestatu dute antolatzaileek (8); prestatu lege nagusia (7); prestatu zuten mahaia (4)

programa prestatu (5); programa prestatu du (4); propio prestatu (4); segada prestatu (7); taxuz prestatu (4); tea prestatu (4); txapelketa prestatu (7); txostena prestatu (8); txostenak prestatu (5)

ugari prestatu (5); zer prestatu (5)

aurretik prestatua (6); dotore prestatua (4); ederki prestatua (4); egiteko prestatua (6); jende prestatua (6); ondo prestatua (7); ongi prestatua (13); oso prestatua (5); prestatua da (6); prestatua du (15); prestatua zuen urkabea (4)

hobeki prestatuak (6); ongi prestatuak (9)

ongi prestatuak (5)

aurrez prestatuak (8); ongi prestatuak (4); propio prestatuak (6)

alde zurretik prestatuta (6); aurrez prestatuta (4); behar bezala prestatuta (5); egiteko prestatuta (7); hartzeko prestatuta (4); hobeto prestatuta (7); horretarako prestatuta (16); ondo prestatuta (31); ondo prestatuta joan (4); ongi prestatuta (21); oso ondo prestatuta (6); oso ongi prestatuta (5); prestatuta egon (15); prestatuta egotea (5); prestatuta egoteko (5); prestatuta joan (5)

alde zurretik prestatutako (6); aurretik prestatutako (8); aurrez prestatutako (6); bereziki prestatutako (10); espainiako gobernuak prestatutako (4); eusko jaurlaritzak prestatutako (4); gobernuak prestatutako (6); horretarako prestatutako (9); jaurlaritzak prestatutako (10); ondo prestatutako (9); ongi prestatutako (10); propio prestatutako (11)

afaria prestatzea (5); ondo prestatzea (4); ongi prestatzea (5)

prestatzeari ekin (22)

afaria prestatzeko (4); aurkako partida prestatzeko (5); bat prestatzeko (33); baterako prestatzeko (4); batzuk prestatzeko (4); behar bezala prestatzeko (16); berriak prestatzeko (5); bezala prestatzeko (16); bidea prestatzeko (4); bilera prestatzeko (5); defentsa prestatzeko (16); dena prestatzeko (6); diskoa prestatzeko (4)

elkarrizketa prestatzeko (4); eraso prestatzeko (4); eta janaria prestatzeko (4); eta prestatzeko (10); finala prestatzeko (4); finalerdia prestatzeko (4); gaurko partida prestatzeko (4); hauteskundeak prestatzeko (6); hori prestatzeko (7); hura prestatzeko (4)

irakasleak prestatzeko (7); janaria prestatzeko (14); jokoak prestatzeko (5); konferentzia prestatzeko (4); kopa prestatzeko (10); lanerako prestatzeko (4); lehia prestatzeko (5); munduko kopa prestatzeko (5); munduko txapelketa prestatzeko (4); neurketa prestatzeko (6)

olinpiar jokoak prestatzeko (4); ondo prestatzeko (8); ongi prestatzeko (10); partida prestatzeko (25); plana prestatzeko (6)

prestatzeko agindu (21); prestatzeko agindu zien (4); prestatzeko agindu zion (4); prestatzeko ardura (11); prestatzeko asmoa (8); prestatzeko asmoz (8); prestatzeko astirik (5); prestatzeko aukera (6); prestatzeko beharra (4); prestatzeko beta (4); prestatzeko betarik (6); prestatzeko betarik izan (5); prestatzeko bilera (6); prestatzeko denbora (13); prestatzeko denborarik (6); prestatzeko erabili (4); prestatzeko erabiltzen (4); prestatzeko ere (7); prestatzeko esan (4); prestatzeko eskatu (11); prestatzeko gisan (7); prestatzeko izan (4); prestatzeko lanean (4); prestatzeko lanetan (5); prestatzeko modua (4); prestatzeko orduan (9); tourra prestatzeko (6); txapelketa prestatzeko (15); txostena prestatzeko (8)

afaria prestatzen (20); afaria prestatzen ari (7); ari da prestatzen (15); ari dira prestatzen (12); ari naiz prestatzen (7); ateratzeko prestatzen (7); ateratzeko prestatzen ari (5); aurre egiteko prestatzen (5); bat prestatzen (132); bat prestatzen ari (72); bat prestatzen hasi (7); baten prestatzen (18); baten prestatzen ari (12); baterako prestatzen (11); baterako prestatzen ari (8); batzuk prestatzen (5); bazkaria prestatzen (7); belarri prestatzen (4); berezia prestatzen (6); berezia prestatzen ari (4); bereziki prestatzen (4); berri bat prestatzen (5); berria prestatzen (11); berriak prestatzen (6); berriak prestatzen ari (6); bertan prestatzen (4); bezala prestatzen (4); bidea prestatzen (6); borrokarako prestatzen (5); bozak prestatzen (7); buru belarri prestatzen (4); buruz prestatzen (5); buruz prestatzen ari (4); da prestatzen (21); dena prestatzen (4); denboraldia prestatzen (14); dira prestatzen (15); diskoa prestatzen (6); edabeak prestatzen (4); egitasmoa prestatzen (4); egiteko prestatzen (29); egiteko prestatzen ari (16); egunero prestatzen (4); elkarrekin prestatzen (5); emateko prestatzen (4); eraso bat prestatzen (5); eraso prestatzen (11); eraso prestatzen ari (9); erasoak prestatzen (8); erasoak prestatzen ari (6); ere prestatzen (6); espainiako gobernuak prestatzen (6); eta prestatzen (15); etxean prestatzen (4); gara prestatzen (5); gauzak prestatzen (4); gehiago prestatzen (10); giroa prestatzen (4); gobernuak prestatzen (11); gobernuak prestatzen ari (11); gosaria prestatzen (9); goxoak prestatzen (4); guztia prestatzen (4); handi bat prestatzen (4); hartzeko prestatzen (6); hauteskundeak prestatzen (5); hobeto prestatzen (4); hori prestatzen (7); horiek prestatzen (5); horren prestatzen (5); horretarako prestatzen (8); hura prestatzen (8); hurrengo denboraldia prestatzen (4); iriteko prestatzen (5); itzultzeko prestatzen (4); izateko prestatzen (9); izateko prestatzen ari (5); janaria prestatzen (13); joateko prestatzen (7); joateko prestatzen ari (6); jokoak prestatzen (7); kafea prestatzen (12); kanpaina prestatzen (5); kopa prestatzen (6); lege berria prestatzen (4); liburua prestatzen (4); mahaia prestatzen (7); mahaia prestatzen (4); maratoia prestatzen (4); materiala prestatzen (5); naiz prestatzen (9); neuk prestatzen (4); nola prestatzen (20); nola prestatzen da (4); nola prestatzen den (6); olinpiar jokoak prestatzen (6); ondo prestatzen (9); ondo prestatzen ditu (4); ongi prestatzen (10); otorduak prestatzen (5); partida prestatzen (14); plan bat prestatzen (5); plana prestatzen (5); plana prestatzen ari (4); prestatzen ari (617); prestatzen ari balitz (4); prestatzen ari da (92); prestatzen ari dela (20); prestatzen ari den (46); prestatzen ari dira (75); prestatzen ari direla (29); prestatzen ari diren (18); prestatzen ari ditu (4); prestatzen ari du (5); prestatzen ari gara (12); prestatzen ari ginela (4); prestatzen ari naiz (9); prestatzen ari nintzela (5); prestatzen ari nintzen (11); prestatzen ari omen (8); prestatzen ari ote (5); prestatzen ari zara (4); prestatzen ari zela (33); prestatzen ari zen (68); prestatzen ari zirela (31); prestatzen ari zirelarik (4); prestatzen ari ziren (42); prestatzen ari zirenean (4); prestatzen aritu (28); prestatzen aritu gara (4); prestatzen aritzea (9); prestatzen badira (5); prestatzen da (19); prestatzen den (12); prestatzen dio (5); prestatzen dira (12); prestatzen ditu (13); prestatzen dituela (4); prestatzen dituen (8); prestatzen ditugu (6); prestatzen ditut (5); prestatzen dituzte (16); prestatzen dituzten (5); prestatzen du (35); prestatzen dudan (5); prestatzen duen (9); prestatzen duena (6); prestatzen dut (6); prestatzen dute (15); prestatzen duten (14); prestatzen edo (5); prestatzen egon (4); prestatzen eman (7); prestatzen eta (32); prestatzen ez (7); prestatzen hasi (88); prestatzen hasi behar (5); prestatzen hasi beharko (5); prestatzen hasi da (6); prestatzen hasi ginen (7); prestatzen hasi nintzen (10); prestatzen hasi zen (18); prestatzen hasi ziren (6); prestatzen hasia (5); prestatzen hasiak (6); prestatzen hasiko (17); prestatzen hasiko da (6); prestatzen hasiko dira (5); prestatzen hasteko (19); prestatzen hasten (5); prestatzen ibili (8); prestatzen jardun (4); prestatzen lagundu (11); prestatzen nuen (4); prestatzen saiatu (6); prestatzen zen (12); prestatzen zidan (6); prestatzen zigun (4); prestatzen ziharduten (6); prestatzen zion (6); prestatzen ziren (7); prestatzen zituen (23); prestatzen zituzten (9); prestatzen zizkidan (6); prestatzen zuen (21); prestatzen zuen bitartean (7); prestatzen zuten (10); proiektua prestatzen (5); proiektua prestatzen ari (5); sasoa prestatzen (6); sediziorako prestatzen (6); sediziorako prestatzen du (4); tea prestatzen (11); tesia prestatzen (6); tesia prestatzen ari (4); txapelketa prestatzen (14); txapelketa prestatzen ari (5); txostena prestatzen (4); vuela prestatzen (4); zen prestatzen (7); zer prestatzen (5); zerbait prestatzen (9)

## prestatugabe *izond* prestakuntzarik ez duena.

Hotzak eta goseak geunden, Piamonteko partisanorik desarmatuenak ginen, eta ziur aski **prestatugabeenak** ere bai. **Juan Garzia**

## prestatzaile 1 *iz* (zerbait edo norbait) prestatzen duen pertsona.

Eta lana aurrera zihon ber, **prestatzailea** ohartu zen obra berria eskuetatik irteten ari zitzaiola. **Berria - Harian**

Zurrutas-ek ez zuen lona gainera irteteko asmorik agertu, baina Joseluk norbait besarkatu beharrez besotik tira egin zion **prestatzaileari**. **Josu Landa**

Alberto Garmendia atezainen **prestatzaileak**, berriz, bigarren entrenatzaile lana ere beteko du. **Berria - Kirola**

Sortzez laborari alaba baina farmazia batean lan egiten zuen, **prestatzaile** gisa. **Daniel Landart**

Eskuizkribuari buruzko ikerlana ere idatzi du edizioaren **prestatzaileak**. **Berria - Kultura**

Ez zuela sinesten ETA izan zitekeenik halako astakeriaren **prestatzailea**. **Iban Zaldúa**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hala jakin zuten, kar-kar-kar, afari- **prestatzaileen** txantxa izan zela arrantza-egun isilpeko hartan gertatutako guztia. **Anjel Lertxundi**

Suschitzky andrea -garai batean ezkontza- **prestatzailea** zena, [...], orain putetxe narrasak alokatzetik bizi zen. **Anton Garikano**

Baziren sendagileak, hizkuntzalariak, zerga-biltzaileak, salerosketan trebezia handiko bidaiariak, jakintsuak, artisau finak, diru- **prestatzaileak** ... **J.M. Olazola "Txiliku"**

Larunbat aratsaldean, Ziburun, bakalau **prestatzaileen** arteko lehiaketa eta ondotik herri-afaria ehun liberetan. **Herria**

Ardeo tiralari- **prestatzaileak** adierazi zuen hori tiralaria "babesteko" egiten dutela. **Berria - Kirola**  
Hauek eta beste antzerako buruhauste franko izan dira eta dira iragarpen **prestatzaileei** aurpegiratu zaizkigunak eta egunero erasia ohi zaizkienak. **Pello Zabala**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lehen taldeko prestatzaile (3); pako aiestaran prestatzaile (3); prestatzaile fisiko (11); prestatzaile fisiko (17); prestatzaile fisikoak (9); prestatzaile fisikoarekin (5); taldeko prestatzaile (5); taldeko prestatzaile fisiko (3)

prestatzailearen esanetan (3)

arrain saltsaki prestatzaileen (3); bakalau prestatzaileen (3); prestatzaileen arteko lehiaketa (3); prestatzaileen lehiaketa (6)

## prestatze 1 *iz* (zerbait edo norbait) zerbaitetarako egoera egokian, erabilia izateko eran edo bere egitekoa betetzeko moduan jartzea.

Harrezkero, isiltasun osoz egindako operazioa bihurtzen zen oherako **prestatze** hura, eta isilik jardute horrek halako zeremonia kutsua ematen ziola esango nuke. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Beren ongaitzak badituztela, pilotan sartzen airoski, xokoak xixtatzen kurioski baina ainitz ikasteko halere, bereziki Capellanek, hunek lehen aldia baitzuen, azken orduko **prestatze** batzu gorabehera. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurreko **prestatze** -ikasketen iraute luzea. **Xabier Kintana**

Galoisek ezin izan zuen maxinada hartan parte hartu, bere borondatearen kontra atxikia baitzeukaten, **prestatze** -ikastaroan, barneko ikasle gisa, Louis-le-Grand institutuan. **Jon Muñoz**

Izan ere, ohartu nintzen, nire bizitza osoa Lantza aurkitzeko **prestatze** bidea besterik ez zen izan. **Alberto Ladron Arana**

Paradoxa dirudi: lana ongi ikusia zegoen eta **prestatze** -lana gaizki. **Andoni Egaña**

Merryk gogo txarrez segitu zuen abiatzeko **prestatze** -lanei begira. **Agustin Otsoa**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bai Seaskakoa, ba hori ez da zure lana diru aldetik, eta Elkar-eko hori, diska **prestatze** eta holako. **Menane Oxandabaratz**

Eguberriko egitarau **prestatze** eta kantu ikaste, horra hauien xedea. **Herria**

Fusio-sukaldaritz: lehengaiez (beren aho-ukitu, usain, zapora, kolore eta guzti), egospenez (tenperatura, denbora, aurre-**prestatze**, etab.). **Edorta Agirre**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

prestatze lana (3)

## prestatzeke *adlag* prestatu gabe.

Xehetasun batzuk **prestatzeke** daude oraindik, eta negozioa erabat lotu artean, ez dago zertan gehiegi aztoratu. **Oskar Arana**

## prestau ik prestatu.

## prestazio 1 *iz* pertsona, enpresa edo erakunde batek beste bati eskaintzen dion zerbitzua edo laguntza.

INEMek ere superabita dauka, langabezia finantzatzeko kotizazioek urtean 400 milioi eurotan gaintzen baitituzte **prestazioak** (ordaindutakoaren arabera **prestazioak** zein asistentzia-subsidioa). **Berria - Ekonomia**

Argumentu praktikoa edo teknikoa eman baitzuen errentaren birbanaketaren politikaren alde (zehatz esanda, errentaren gaineko zerga progresiboaren alde, edota **prestazio** sozialak ezartzearen alde). **Iñaki Heras**

Salneurriari eta **prestazioei** begiratzen diogu teknologia berri bat onartzeko orduan. **Berria - Harian**

Horrez gain, beharrezko diren zerbitzu eta **prestazioen** katalogo bat osatzeko eskatu diote. **Berria - Euskal Herria**

Jaurilaritzak 209 milioi euro ematen ditu pobrezari aurre egiteko **prestazioetan**. **Berria - Euskal Herria**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Langabezia **prestazioak** jasotzeko baldintzen hobetzerik ez dela aipatu ere salatu du sindikatuak, «langabeen erdiek saririk jasotzen ez dutenean». **Berria - Ekonomia**

Gizarte Segurantzara kotizaziorik egiten ez dutenez, etorkizuneko gizarte **prestazioak** baldintzatuko dituzte. **Berria - Ekonomia**

Erasoek eragindako lanuzteengatik ezintasun **prestazioa** jasotzeko eskubidea izango du biktima **Berria - Euskal Herria**

## 3 makinez eta kidekoek mintzatuz, eskaintzen dituen ezaugarri teknikoaren multzoa.

Nire lantokia iraultza teknologikoaren gupilari uztartu zitzaionetik honat, bitan aldatu dizkigute aparatuak, "azken belaunaldiko" bertze batzuk ekartzeko. "Potenteagoak", **"prestazio** gehiagokoak", "sistema guztiekin bateragarriak". **Aingeru Epaltza**

Kontua da oraingoak baino **prestazio** gehiago dauzkan kotxe bat nahi dudala; klimatizadorea ahaztu gabe, noski. **Jon Arretxe**

Autoen **prestazioak** jaistea nahi izan den denboraldian, alderantziz gertatu da. **Berria - Kirola**

Kontu handiz zaindu dituzte Abiadura Handiko Trenaren -Jaurilaritzak gaitasun edo **prestazio** handikoa deitzen du proiektua- prestatzeko pausoak. **Berria - Euskal Herria**

## 4 irud/hed

Agian ez zitzaigula botika gustatuko, bigarren mailako ondorioak eduki zitzaieela, norberaren aldetik **prestazio** gogortxoak eskatzen zituela... **Jon Alonso**

## preste *iz* elizkizun bat egiten duen apaiza.

Beste aldetik, ordea, **presteak**, fraileak, apezak eta antzekoak, egun itzal handiko gizon diruditen arren, [...] hagitz jendaje populatxeroak, makurrak eta ilunak izandu dira. **Patziku Perurena**

## prestidigitadore *iz* eskujokaria, inkaminaria.

**Prestidigitadoreak** kapelu luzetik unxi bat ateratzen duenean bezala. **Juan Garzia**

Mirakulu horietan sinestea, Jainkoa **prestidigitadorea** dela sinestea da. **Joan Mari Irigoien**

Dentista: ahoan metala sartu eta patrikatik txanponak ateratzen dizkizun **prestidigitadorea**. **Xabier Olarra**

Zuzentzaile bat lanean serio jokatzeko duen pertsona da, ez dabil jolasetan, ez da **prestidigitadorea**, gramatiketik eta eskuliburuak ezartzen dutena errespetatzen du. **Jon Alonso**

Esperimentu ikusgarriak eskola-amaierarako utzi asetzen zuen bere haur-harrotasuna, hala, **prestidigitadore** baten gisan txalo artean alde egiteko. **Josu Zabaleta**

## prestidigitazio *(orobat prestidijitazio)* iz eskujokoa, inkamina.

Kontua argi eta garbi gelditzen da, lexikoa eta ortografiaren berezitasunak gorabehera, irakurtzen dena da Mogueime konkortu zela Mem Ramires bere gainera igo zedin, eta honek hala aginduta konkortu zela, ez da beste irakurketarik zilegi egiten duten bestelako hizkuntza-kasuistikarik, ez interpretazio mailako **prestidigitaziorik**. **Jon Alonso** Bularrei atzera-aurrera eraginik eta, aldi berean, sorbaldak pixka bat behartuz, eskurik erabili gabe, bularretakoa askatu zuen abildade handiz, **prestidijitazio**-saio batean ariko balitz bezala. **Anjel Lertxundi**

## prestidijitazio ik prestidigitazio.

## prestigiatu, prestigia, prestigiatzan du *ad* prestigioa eman.

Hizkuntza **prestigiatu** ere egin behar da. **Berria - Euskal Herria**

Euskarari eusteko, euskara **prestigiatzeko**, goratzeko, garrantzitsua da Udaleko idazkariak euskaraz egitea. **Berria - Euskal Herria**

Euskalkiak beste barik loratzea eta batua bazterreratzea bezala ulertzen bada **prestigiatzea**, horrelakorik ez dugu nahi. **Berria - Euskal Herria**

## prestigio *(orobat prestijio g.er.)* 1 iz ospe handiko egoera, arrakastaren, eraginaren edo aberastasunaren bidez lortua; eragiteko edo zirrara sortzeko gaitasuna.

Idazki bikainak ziren, biziak, motzak, zorrotzak, bere sorterriko irakurleen artean **prestigio** apur bat eman ziotenak, baina inolaz ere ez nahikoa literaturatik bizi ahal izateko. **Iban Zaldúa**

Unibertsitate ikasketek badute pisua eta unibertsitateko titulu bat eskuetan izateak nolabaiteko **prestigioa** ematen dio agiriaren jabeari. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Gizarteak, oro har, idazle izateari gehiegizko **prestigioa** ematen dio. **Ana Urkiza**

**Prestigioa** zaindu behar baita, gainerako gizakiengandik bereizteko. **Edorta Agirre**

Errespetu eta **prestigioa** bereganatu ditu. **Txema Ramirez de la Piscina**

Ekoizpenak gora egin behar du, baina **prestigioa** eta kalitatea alde batera utzi gabe. **Berria - Ekonomia**

**Prestigioa** galtzen ari da. **Andoni Egaña**

Orain, lehen ez bezala, lana, lanaren aukera eta **prestigio** ez dira lotzen "unibertsitatearekin", modu abstraktuan, baizik "unibertsitate honekin eta ikasketa hauekin", aski modu zehatzean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

### 2 (izenondoekin)

Hamasei urte zituen, eta **prestigio** handiko ikastetxe batean estudiatzen zuen. **Bernardo Atxaga**

Aldizkariaren zuzendariak lanaren arloan **prestigio** handiko beste jakitun bi edo gehiagori bidaltzen die lanaren zirriborroa. **Berria - Gaiak**

Kultura greko eta erromatarretan, oso normala eta **prestigio** sozial handikoa zen gizon ezkonduak amorantzetat mutil gazte bat izatea. **Luis Elberdin**

«**Prestigio** argia» duten elkarteei soilik emango litzaieke horretarako baimena. **Berria - Euskal Herria**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Botere Publikoekin batera euskararen aldeko **prestigio** kanpainetan parte hartu du Xarritonek. **Berria - Euskal Herria**

Llanak Zarautzen erakustea **prestigio** iturri bihurtu da denborarekin, hamabi urte hauetan argazkilaria ezagunen obra erakutsi baitu. **Berria - Kultura**

Eusko Jaurlaritzaren esanetan ikasle kopuruaren igoera lanbide heziketak izan duen **prestigio** berreskuratzeari dagokio. **Berria - Euskal Herria**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azterketa dut irailaren hasieran, eta Daviden irakasle **prestigioa** dago jokoan. **Bernardo Atxaga**

### 4 *prestigioko izlag*

Deustuko Unibertsitatea zegoen Bilbon, **prestigioko** unibertsitatea. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Rosales zuzendaria kargutik kentzea, eta patronatukide guztiak elkar litzakeen **prestigioko** zuzendaria izendatzea. **Berria - Kultura**

**Prestigioko** irakasleak Euskal Herriko Unibertsitatean, iraganean erantzukizun handiak izan dituzte unibertsitatean, eta etorkizuneko atak ere zabalik dituzte. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

### 5 *prestigiozko izlag*

**Prestigiozko** poeta epel bihurturik. **Eider Rodriguez**

Pariseko **prestigiozko** hizkerarekin hasi omen zen aldaketa baten bultzadaz. **Lourdes Oñederra**

**Prestigiozko** epaimahaiburua da, baina egokia den ez dakit. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prestigio handia** (4); **prestigio handiko** (4)

**duten prestigioa** (3); **prestigioa berreskuratu** (3); **prestigioa ematen dio** (3)

## prestigiodun *izond* prestigioa duena, prestigiokoa. ik prestigiotsu.

Georges Bigot frantziar antzezle eta zuzendari **prestigiodunak** zuzendu du muntaia. **Berria - Kultura**

Azterriko artista **prestigiodunen** lanaren erakuslehiio izan nahi du museoak. **Berria - Kultura**

Eskolok headadura garrantzitsua hartu zuten hala ere, **prestigiodunak** ziren beti kolokan egon arren, eta toleratuak izatera pasa ziren, hezkuntzako inspektoreen bisitak eta guzti. **Joxerra Garzia**

EAEko osasun zerbitzua kalitatezkoa eta **prestigioduna** dela onartu arren, [...]. **Berria - Euskal Herria**

Aholkularitza batzorde «**prestigioduna**» sortzea proposatu du. **Berria - Kultura**

Polonian, hala diote adituek bederen, literaturaren osagairik **prestigiodunena** poesia da. **Berria - Kultura**

## prestigioso *izond* prestigiokoa, prestigiotsua.

Hori guztia ondo frogatuta dago, aldizkari **prestigioso** batean, lehengo urteko abenduan. **Unai Elorriaga**

**prestigiosoak** ziren abokatuak. **Unai Elorriaga**

## prestigiotsu *izond* prestigiokoa. ik prestigiodun.

Cecilia Bartoli Italiako mezzosoprano **prestigiotsuak** Haendel eta Scarlattiren ariak abestuko ditu. **Berria - Kultura**

Judith Miller-ek, kazeta duen erreportari eta **prestigiotsuak**, sarritan agertu zituen tesi hori berresten zuten pertsonaioak lehen orrialdean. **Txema Ramirez de la Piscina**

Marjinatuak izaki, artikulu bat Metropoliko egunkari **prestigiotsuenean** marjinatea lortzea da beren ametsa eta loria. **Joxe Azurmendi**

New Yorkeko inportazio eta esportaziorako enpresarik zaharrenetako eta **prestigiotsuenetako** bat. **Lopez de Arana**

Europako unibertsitate **prestigiotsuek** eskainitakoekin homologa daitezkeen tituluak. **Berria - Euskal Herria**

1977an Goncourt akademia **prestigiotsuko** kide egin zuten. **Berria - Kultura**

Orain erakunde handi eta **prestigiotsua** zen, Elizako beste Ordenen pareko estatusa zuena. **Askoren artean**

Petrarca sari **prestigiotsua** eman zioten hil zen urtean, 1980an. **Berria - Kultura**

## prestijio ik prestigio.

## prestik *adlag* prest.

Eta, bazkaria **prestik** zuten arren, amarenean gelditu ziren bazkaltzen, azkenik. **Joan Mari Irigoien**

Iraken segurtasuna kolokan jartzen jarraituko dutenentzat, ordea, ezpata zorrotz bat **prestik** daukagu. **Berria - Mundua**

Osabak **prestik** utzi zuen teleskopioa bere estudio bakoiko hartan. **Joan Mari Irigoien**

Guztiak festarako **prestik** eta iratzarririk. **Joan Mari Irigoien**

España aldetik dena **prestik** balin bada, Aspe aldean arrenkürak barutzen dira... **Herria**

## presto iz musikan, mugimendu bizia, allegroa baino lasterragoa.

Laugarren mugimenduari ekin zioten, **prestoari**, eta isiltasuna ez zen zegoenetik inora joan. **Felipe Juaristi**

Laukoteak ez zuen **prestoari** ekiteko aukerarik izan, adagioa indarrez amaitutakoan txalo-zarta batek, luze iraun zuen esku-jotze batek, geldiarazi baitzieten lauei. **Felipe Juaristi**

## prestriatu *izond*

Zelulagune txiki bat mugatu zuen garunaren alde bakoitzean tximinoen kortez **prestriatuan** (V4 deritzen aldeetan), koloreari erantzuteko espezializatua ematen zuena. **Xabier Olarra**

## prestu (*orobat perestu*) 1 *izond* eskatzen zaizkion bertuten eta tasunen jabe dena. (pertsonez) ik zintzo.

Hasieran pentsatu nian gizon **prestua** hintzela, baina lagunartean behar bezala gobernatzen ere ez dakik. **Jose Morales**

Orain baino lehen ere edan dute ondo gizon **prestuek** botilatik. **Irene Aldasoro**

-Oinez, orduan, jaun jator eta andre **prestu** hori! **Iñaki Mendiguren**

Neska **prestu** batenganako amodio benetakoa. **Matías Múgica**

Susanna izeneko emakume maratz **prestu** batez maitemindu zen. **Juan Garzia**

Matson jauna irrikaz dago mutikoa lehenbailehen hezi eta hazteko, etorkizunean negozio-gizon **prestu** eta zentzuduna bilaka dadin. **Mirentxu Larrañaga**

Eskerrak eman zizkion hain esaneko eta **prestua** izateagatik. **Patxi Zubizarreta**

Gu ere, burgeskume alaeonok, Zabalguneko bizilagun **prestu** eta zintzo, inoiz gutitan zanpatu gabeko tokiak urratzen hasi ginen jaiegunetako bezperetan. **Aingeru Epaltza**

Italiar belaualdi oso baten alai-aire ironikoa zen, faxismoa arbuizatzeko aski buruargi eta **prestu**, aktiboki kontra egiteko eszeptikoegi. **Juan Garzia**

Horrexegatik baitzuketen, beste jende **prestu** ustekook ez bezalako izaera berexia. **Patziku Perurena**

-Zaldun **prestu** hori: dohain baten eske natorkizu. **Juan Kruz Igerabide**

Oi, ez, Jaun Txit **Prestu** hori nola kezkatuko da, bada, halako txikikeriez? **Mirentxu Larrañaga**

### 2 (pertsonez; hed.)

Baina patuak gure protagonistaren saihetsak, sorbaldak eta gainerako gorputz-atal **prestu** guztiak salbatu nahi izan zituen. **Jose Morales**

Inoiz behar baduzue bihotz **prestu** eta adore handikorik, deitu sir Cadogani! **Iñaki Mendiguren**

Garaiera txikikoa zen; finak eta **prestuak** zituen hazpegiak. **Jose Morales**

Ondotxo dakite hori, eta ziurtasun osoz, puntu honetaz egia buruz kontsulta egin dakiekeen adimen **prestu** bakaneak. **Imanol Unzurrunzaga**

Hemendik aurrera ziur naiz, aldatu egingo dela gure herri txit **prestu** eta ohoragarri honen bitzita. **Felipe Juaristi**

Izen **prestu** baten legezko oinordeko gisa. **Bego Montorio**

### 3 (pertsonez; izen gisa)

**Prestuak** biziko baitira lurrean eta zuzenek iraungo bertan. Lurrezko munduan, mundu errealean, badira armadunak, Auschwitz eraikitzen dute, eta **prestu** eta armagabeek lautu egiten diete bidea. **Elizen arteko biblia**

Zuzenak bide txarretik eramaten dituen, berak prestatutako tranpan jausiko da; baina **prestuek** zoriona izango dute sari. **Elizen arteko biblia**

### 4 (bestelakoez)

Horixe bai abere **prestu** eta noblea, laztana! **Mirentxu Larrañaga**

Haren txakurra otso bikain bat zen, berdin jator-**prestu** eta estimatua. **Juan Garzia**

Ez dezadala jakin tentatu duzula berriz ere zure jarrera **prestu** eta jokaera lotsagarri horrekin. **Arantxa Iturbe**

Herritar fidagarriak aukeratuko ditut kontseilari, jokabide **prestuko** gizonak zerbitzari. **Elizen arteko biblia**

Errusiarari kutsu **prestuagooa** eman nahirik. **Jose Morales**

Ez ninduten betetzen damu- eta elkartasun-aldarrikapen **prestu** eta orokor haiek, sekula ikusi gabeko jendeak eginak. **Juan Garzia**

Utzi egin nien gizon-ausardiako eta norberaren sakrifizio **prestuzko** amets haiei. **Oskar Arana**

-Nire herriko lege zaharrak agintzen duen berrogeita bost graduko inklinazio **prestu** eta eskuzabal horrekin. **Harkaitz Cano**

### 5 (adizlagun gisa)

Neskak ez zuen nirekin **prestu** agertzeko asmorik. **Aingeru Epaltza**

Guztiekin **prestu** eta atsegin jokatu zuen, ez hain aspaldiko traizioa airean lurrindua iduri. **Aingeru Epaltza**

Zintzoak **prestu** jokatzen du beti; zorioneak haren ondorengo seme-alabak! **Elizen arteko biblia**

Orduan ikasiko duzu zuzen, zintzo eta **prestu** izaten, eta ongi jokatzen. **Elizen arteko biblia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**emakume prestu** (3); **gizaseme prestu** (3); **gizon prestu** (30); **gizon prestu bat** (4); **gizon prestu batek** (3); **jende prestu** (7); **prestu prestua** (3); **zaldun prestu** (3)



**emakume prestua** (3); **gizon prestua** (34); **gizon prestua zen** (6); **jaun prestua** (5); **jende prestua** (4); **neska prestua** (3); **oso prestua** (3); **prestua eta zuhurra** (3)  
**ezin prestuagoa** (3)  
**gizon prestuak** (5); **jende prestuak** (4); **oso prestuak** (4)  
**jende prestuen** (3)  
**jaun prestuok** (3)  
**gizon presturik** (4)

## prestuez *izond* prestutasunik gabea.

Eta orduan Da Vincik esaten zuena adierazi behar izan nion aurkezle **prestuezari** : [...]. **Karlos Linazasoro**

Kimikaren jatorria **prestueza** zen, edo ez garbi-garbia bederen. **Juan Garzia**

Piantabini esaten zioten, behinola "rashàn" batek (**prestuez** batek), adarra jotzen ari zitzaiola, ziria sartu baitzion gizaixoari. **Juan Garzia**

## prestuki *(orobat perestuki g.er.) adlag.* prestutasunez.

Denak **prestuki** egoten dira jatekoaren beha eta fraileak baimena ematen dielarik hasten dira urrezatuak diren zilarrezko ontzi zabal batzuketan jaten. **Aurelia Arkotxa**

Garaiera handikoa zen mutil gaztea, sorbalda eta bular alde zabalekoa, eta eite estukoa gainerakoan, eta giharrek **prestuki** erantzuten zioten agindua emandako une berean. **Mirentxu Larrañaga**

Ama aurkitu genuen bere aulkian **prestuki** eserita eta joste-lanak egiten. **Mirentxu Larrañaga**

Gelditu ginen, **prestuki**, azken akitanirrak oro bezala, Galiarrei loturik eta, geroztik, erlijioaren eta politikaren arteko zalantzek burzoraturik. **Piarres Xarriton**

## prestutasun<sup>1</sup> *1 iz* prestua denaren nolakotasuna.

Jesu Kristo Gure Jaunak bere ordezkari Goihearen alde otoitz egin zuelakotz, haren **prestutasun**, zintzotasun eta zuzentasunaren baitan handizki sinetsi eta sinesten baitugu. **Piarres Xarriton**

Non dago urteetan eskaini izan dizudan jendetasuna eta **prestutasuna**? **Patxi Zubizarreta**

Urteen buruan, seme zapuztua jaun enpresari honexen zerbitzura hasiko da lanean, baita haren konfiantza lortu ere, bere prestasun eta **prestutasunagatik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hala moduzko solidaritate izpi batek **prestutasuna** ematen zion proposamen anker hari. **Koldo Izagirre**

Gizonek euren aldetik ere halako **prestutasunez** betetzen zituzten agindutakoak, ze, maniobra amaitu genuenerako nasan bainengoen. **Edorta Jimenez**

Higanotak, ordea, pitzadurarik gabeko **prestutasun** batez jokatzeko du. **Anjel Lertxundi**

Horra hartu ditugun arreta guztiak, ezkontzaren **prestutasun** eta zehaztasunerako. **Andres Urrutia**

## 2 (izenondoekin)

Badira gero **prestutasun** eskaseko hitz batzuk [...] zeinak ez baitira soilik haurren aurrean berezko zentzuan erabiltzekoak, baizik eta, orobat, biraoen orde. **Juan Garzia**

Bazkari osoko **prestutasun** adiskidetsuak keinu batean alde egin zion Potzolori. **Aingeru Epaltza**

Nire epitafioa asko ari da galtzen bere **prestutasun** latz hartatik. **Josu Zabaleta**

Burutik pasatu zitzaion bere lana suntsitu edo eraberritzea; gero, **prestutasun** arranguratsuz, Erromara bidali zuen, hitzik aldatu gabe. **Juan Garzia**

Baina **prestutasun** moral handieneko gizonak ere izugarri aldaberak ditun besteren xarma fisikoen eraginpean. **Aniton Olano**

Aitatasunaren ikerketa mugatu egin zen, ez, ordea, arrazoi moralen eraginez, baizik eta **prestutasun** gutxiko emakumeek gezurretan salatutako gizonen ohorea salbu uzteagatik. **Ramon Saizarbitoria**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Administrazio guztiz egoki batean, gizakiak engranaje eginkizuna baizik ez duela, nagitasunak, **prestutasun** ezak, justiziarik ezak ez dute zertan nagusi izanik. **Josu Zabaleta**

Bere heriotzaz **prestutasun** eta onbide-eredu gogoangarria utzi zien, gazteei ez ezik, bai eta herri osoari ere. **Elizen arteko biblia**

Joera interesgarria izan zen, bere **prestutasun** -puntua bazuena, eta maiz ikusten da tentazio hori bera berriro pizten (laurogei ondoko hamarraldian batez ere). **Josu Zabaleta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**lortzeko prestutasun osoa** (3); **prestutasun osoa** (14); **prestutasun osoa duela** (4)

**bere prestutasuna** (3); **egiteko prestutasuna** (5); **elkarrizketarako prestutasuna** (5); **jarraitzeko prestutasuna** (3); **prestutasuna adierazi** (3); **prestutasuna agertu** (14); **prestutasuna agertu zuen** (4); **prestutasuna agertzea** (3); **prestutasuna azaldu** (3); **prestutasuna erakutsi du** (4)

## prestutasun<sup>2</sup> ik **prestasun**.

## presumitu *izond* harroxkoa, handiustekoa.

Zeren eta Madrilidik aldizka itzultzen zitzaigun Mattin hura, berez aski urguilutsua zena, gero eta **presumituago** eta handinahiago egin baitzitzaigun, Madrilekin eta Madrilgo gortearekin zoraturik. **Joan Mari Irigoien**

## presuna ik **persona**.

## presuner ik **presoner**.

## presunergo ik **presonergo**.

## presuntzio *1 iz* ustekizuna, susmoa.

Legearen **presuntzioan**, nahiz senar-emazteen elkarrekiko bizimodua, nahiz senarraren interes eta zainketa, nahiz andrazkoaren errugabetasuna -alde zurretiko- uste izateko betebeharra, horiek guztiak dira oinarri, magistratuaren ezinegonak ostendu eta norbanakoaren egoera eta familien lasaitasuna bermatzeko. **Andres Urrutia**



Lege frantsesek iruzurtzat jzotzen dute merkatarik batek bankaratu egin horretarako gutzia; hamar legearen **presuntzioa**. **Iñaki Iñurrieta**  
Erromatar legeak zigortu egiten zuten adulterioaren ondoren emaztea berekin gordetzen zuten senarra, salbu eta erabaki hori auziren baten beldurrez edo bere lotsaren axolarik ezaz hartu bazuen; horra gizonaren **presuntzioa**. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Presuntzio** -kontuetan, legearenak gizonarenak baino gehiago balio du. **Iñaki Iñurrieta**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Errugabetasun **presuntzioa** hautsi du Tourrak. Pinochetek ez luke berriro errugabea dela harro esan behar eta, behingoz, bera babestu duen errugabetasun-**presuntzioarekin** amaitu beharko litzateke. **Berria - Kirola**

«Erruduntasun **presuntzioa**» erabiltzea egotzi dio Azkarragak PSOeri. **Berria - Euskal Herria**

Zeinek hartzen du hizkuntza horretatik berezitasuna, izen ona, eta norengandik, ostera, hartzen du hizkuntza horrek bermea edo gutxienez egia: **presuntzioa**? **Xabier Arregi**

Teknikoei egitasun **presuntzioa** aitortuko zaie, laneko ikuskatzaileen gisara. **Berria - Ekonomia**

Zuzenbide **presuntziorik** ez dago haren alde eta egintza ilunetan du jatorria, horien frogara ere ezina dela sarritan. **Andres Urrutia**

Azken 20 urteetan zehar mugimendurik egin gabe egon diren gordailuen titular diren bezeroei jakinarazten zaie iragarpen honen bidez, ezen, jadaneko legeriaren arabera, abandonu-**presuntzioa** erori direla. **Joseba Sarrionandia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzipetuen errugabetasun **presuntzioa** (4); errugabetasun **presuntzioa** (33); **errugabetasun presuntzioa** aldarrikatu (3); **errugabetasun presuntzioa errespetatu** (3); **errugabetasun presuntzioa errespetatzeko** (5)

**errugabetasun presuntzioaren** (5)

## presupostu 1 iz alde aurreko oinarria edo hatsapena.

Izan ere, eztabaida razional bat nahi baldin bada [...] **presuposturik** elementalena da kontrarioari razionalitatearen bat suposatu beharra dagoela. **Joxe Azurmendi**

Araudi horrek sistemaren barruan eta sistemaren **presupostuekin** koherentzia bakarrik balio duela, sistematik kanpora araudi guztiek balio erlatibo bera izaki. **Joxe Azurmendi**

Euskadin eztabaida politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala zabaldu eta aberasteko asmo betea dugu, uste baitugu nazionalismo modu baten eraginez mugatua eta pobretua dagoela [...] eta nazionalismo modu horren interes eta **presupostu** ideologikoetara modu itogarrian itxia. **Berria - Euskal Herria**

## 2 aurrekontua.

Zihigatik 649 kilometrora dagoen espetxean, furgonak garestiak dira eta ez daukate nahi adinako **presupostua**. **Koldo Izagirre**

## presurizatu izond atmosfera-presio ohikoan atxikia.

Kontrol kabina **presurizatuan** bi kreatura adimentsu zihozten, bi afroditak nerabe. **Patxi Iturritegi**

Zentral berri horiek, Cherbourgeko barne, teknologia aurreratuagoko erreaktore berri bat edukiko dute, EPR (Europako Erreaktore **Presurizatu**) delakoa. **Berria - Gaiak**

## preteknologia iz eskuzko lanak.

**Preteknologia** edota Gimnasiako klase-orduetan izaten ziren saioak, eta antzerki taldean sartzeko nota onak izan behar ziren. **Iban Zaldúa**

## preteknologiko izond teknologiaren aurrekoa.

Zeru Goienetako Arkitekto Nagusia, birrin eta deusezta, zabal eta heda ezazu kosmosean barna naizen izaki **preteknologiko** eta frakasatu honen hautsa! **Jon Alonso**

## pretendiente iz ezkon-nahia.

Bere amaren **pretendientea** izan zelako estimatzen zuten Belom jauna. **Fernando Rey**

-Ulises etxera bueltatu zenean, Peneloperen **pretendientek** hil zituen, baina nik ez dut hori egin beharko, ezta? **Joxean Sagartzizabal**

Bertze **pretendientek** joanak ziren. **Aurelia Arkotxa**

"**Pretendienteen**" garaiki aspaldi joan ziren, eta urrun samar geratzen zaizkie gaur egungo neska-mutikoei. **Andoni Egaña**

## pretenditu, pretendi, pretenditzen 1 du ad helburu izan.

Ez dut **pretenditzen** inori sinetsaraztea santu bat naizenik. **Jon Alonso**

## 2 norbaitek norbaitekin, gizon batek emakume batekin bereziki, ezkontzarako harremanak nahi izan.

Maisu Txikiak bazuen denda sastar bat Fucar kalean, eta han egon ohi zen sarritan bere alaba Silveriarekin; neska jatorra, oso polita, Victorio, mailegu-emailearen ilobak **pretenditzen** zuena. **Josu Zabaleta**

## pretensio ik pretensio.

## pretensio (orobat *pretensio g.er.*, *pretensione g.er.*, *pretentzio g.er.* eta *pretentzione g.er.*) 1 iz asmoa, nahikaria, helburu izatea.

Liburu bat bakarrik ondo pasatzeko irakur daiteke, beste **pretentsiorik** gabe. **Ana Urkiza**

Artean idazten nuen, baina inolako **pretentsiorik** gabe. **Ana Urkiza**

Ez dugu **pretentsiorik**, bistan da, adierazpenaren definizio bateratzaile bat emateko. **Josu Zabaleta**

Ez dut **pretentsiorik**, nik ez dut jendea behartu nahi nire entzuterara etor dadin. **Berria - Kultura**

Zein dira bada nire **pretentsioak**? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Akabo mementoko haren ONU-ko idazkari nagusi izaiteko **pretentziona**! **Herria**

Herri bat ordezkatu eta haren nahi edo gurariaren interprete bihurtu nahi duen edozein antolakunde edo talderen **pretentsioari** tinko aurre egitea da bakean eta elkarbizitan sinestea. **Berria - Euskal Herria**

Egileak Historia emateko **pretentsiorik** izan balu (Sistema Osoa), sistema periodikoko elementu guztiak jorratu behar zituzkeen, bere metaforarekiko zintzo. **Juan Garzia**

Nire **pretentsioen** artean seguru esan dezaket ez dagoela arbaso mistiko bat izatea, begiak zuri jarrita Jesukristo gurgiltzatua ikusten zuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Iraganaren ikur gertatzen dira hondakinak; edozein proiektu eta asmoen **pretentsio** behin-betikoeak zer nolako hareazko oinarriak zituzten erakusten digute; mitoaren, ametsaren, desiraren, grinaren aurkako antidoto bortitzak dira. **Joseba Zulaika**

## 2 (hitz elkartuetan)

Eta horrexeri ekin dio batek baino gehiagok, egiantz **pretentsiorik** gabe. **Iñaki Arranz**

pretentsione ik **pretentsio**.

pretentzio ik **pretentsio**.

pretentzione ik **pretentsio**.

## preterito 1 *izond* igarotakoa, iragana.

Ez diozu erantzungo eta bere oroimen **preteritoaren** erakusketarik egin gabe aldatuko du gaia Andonik. **Joseba Sarrionandia**

### • 2 *iz* lehenaldia, iraganaldia. • *irud/hed*

Memelo aurpegi guztiz ezezagun bat irribarrez ikusi zuen Goioi erretratuko **preterito** inperfektuan. **Joseba Sarrionandia**

Hor dago azken ilaran Emilio, ilehoria, izkinatik burua gora luzatzen, futuroaren **preteritoan** ez agertzeko beldurrarekin, nire burua ere hor dago bigarren ilaran ezkerretik seigarrena. **Joseba Sarrionandia**

## pretexta *iz ipar* aitzakia, desenkusa, estakurua.

Beti **pretexta** berak dituzte boterearen hartzeko. **Menane Oxandabaratx**

Nola laidostatua zen, nola farisauak eta... nola etortzen ziren beti, dena traba, dena **pretexta** ... eta erlijione **pretextekin** ! **Menane Oxandabaratx**

## pretil ik **petril**.

## pretore *iz* antzinako Erroman, magistratu judiziala, legea betearazteko eta interpretatzeko ahalmena zuena.

Zenbait aitak ez zuten izena eman errodan, beren jarauntsia alabari utzi ahal izateko; eta **pretoreek** juzgatu zuten hala eginda letra bortxatzen ez zenez, ez zela Lege Vokoniarra bortxatzen. **Iñaki Iñurrieta**

Senpronio Aselo **pretoreak** zordunei legean arabera jokatzeko utzi ondoren, hartzekodunek hil egin zuten, berritu ezinezko zurruntasun bat gogora ekartzeagatik. **Iñaki Iñurrieta**

Jokoen ospakizunak direla-eta **pretoreek** eta agintariek urtero hainbat mekanismo prestatu behar izaten dituztenez, [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Erroman, adin gutxiko bat lapurretan harrapatzen zutenean, **pretoreak** nahi adina zigorkarazten zuen, Lazedemonian bezala. **Iñaki Iñurrieta**

**Pretoreen** ediktuak, kontsularen ordenantzak, edilen araudiak, juriskontsuluen erantzun edo erabakiak. **Andres Urrutia**

## pretoriar 1 *izlag* pretorearena, pretoreari dagokiona.

Apezpikuek, metropolitanoek eta primatuek leialtasuna zieten eskualdeko patriarkei, hierarkikoki **pretoriar** prefektu dioklezianikoen parekoei. **Iñaki Mendiguren**

Galietaiko prefektu-kargu **pretoriarra** bereganatzean bere lanbidearen gailurrera iritsitako funtzionario baten semea zen, **Iñaki Mendiguren**

### 2 *petroriar guardia* (*orobat guardia pretoriar*) erromatar enperadore baten guardia pertsonala.

Haiek guztiek **pretoriar guardiako** kapitain sailduak baino sastatuago eta zulatuago akabatu zuten zuzenez gero... **Joan Mari Irigoien**

Lehenengo lana, hortaz, akats txiki horiek ahalik eta gehien, posible zen bezainbestean ezkutatu zituen **guardia pretoriarra** osatzea izan zen. **Jon Alonso**

## prexixo 1 *adlag adlag* hain zuzen. ik **preziso**.

Gaur egun, ardura guztiak biren artean partitzejo joera gailentzen ari denean (eta ez **prexixo** etxetik kanpo lana egiten zutenek bultzatuta). **Arantxa Iturbe**

### 2 *prexixo izan* beharrezko izan.

-Ez da **prexixo** -esan zuen ahots ezin apalago batez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## prezaezin (*corpusean prezaezin soilik*) *izond* ezin prezatuzkoa.

Ruby **prezaezinak** "emakumearengana" lagundu zion Roseri; arratsalde hartantxe geltokiraino eramane eta ahizparenerako bidean abiarazi zuen tren batean. **Mirentxu Larrañaga**

## prezagarri (*orobat preziagarri; Euskaltzaindiaren Hiztegian prezagarri agertzen da, ipar markarekin, eta preziagarri ez erabiltzea gomendatzen da*) *izond* aintzat hartzekoa.

Plazatik haste, itxura kriket, plazegarri, alai bat beretuz, etxe xuri argiak eta gainerat oinkarientzat, zer geriza, **prezagarriak** diren harri pikatuz egin bazterbide egokiak. **Herria**

Ikerketa horretan laguntza **preziagarria** ekartzen digu Dominik Lagadec, Azkainen berriki kokatua den "Txopinondo" eta "Sagardun" kontsorzioko kideak. **Herria**

Gaitz horren kontrako borrokan, aintzinamendu **preziagarriak** egin dira segur bainan bada oraino bide egiteko eriek ukan dezaten sendatzeko molde hobea eta bestalde xertorik ere ez baita jendearen gaitz hortarik begiratzeko. **Herria**

Denbora **preziagarri** eta jainkozkoa galtzen duzue. **Joan Mari Lekuona**

Arrazoizko maitasun noble eta jakintsua ere gauza ospetsua da, **preziagarria** eta gustagarria. **Joan Mari Lekuona**

Horien presentzia, horien izate hutsa, **preziagarriago** da eta baliagarriagoa mundu guztiko egitatea baino. **Joan Mari Lekuona**

**prezarazi**, prezaraz, prezarazten (*orobat **preziarazi**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **prezarazi** agertzen da, ipar markarekin*) du *ad* aintzakotzat harrarazi.

Bilboko Euskalduna Jauregian Rostropovitxek Errusiako Estatuaren Orkestra Sinfonikoa zuzenduz du maiatzaren 6an kontzertu eder batean: Txaikosvski eta Txostokobitxen obrak **prezarazi** dizkiote harat bildu den musikazale ezagutzaileari. Herria

Bezperan hasiak ziren ibarreko ate idekitzeak, arrain, gasna, zingar eta arno lehiaketa batekin, tokiko mozkin horiek hobeki ezagutarazteko eta **preziarazteko**. Herria

**prezatu** (*13 agerraldi, 7 liburu eta 4 artikulutan –prezatz\* formak-; orobat **preziatu** 124 agerraldi, 25 liburu eta 79 artikulutan–preziazte\* formak-; Euskaltzaindiaren Hiztegian **prezatu** agertzen da, ipar markarekin*), preza, prezatzen **1** da *ad* aintzakotzat hartu, balioetsi. ik **estimatu; preziatu**<sup>1</sup>.

Gileneak ikasteko grina zuen; nik baino aise ere gehiago **prezaten** zituen Etxeberriren saioak. zenbaitek nahi luketen baino gehiago **prezaten** nautelako gure Aita Saindu Pio V.ak, Aita gorritz-jantziek eta erromatar guztiek. Aingeru Epaltza

Ene gorteko nesketan gehienik **preziatzen** eta estimatzen dudana da. Aurelia Arkotxa

Janari hori biziki **prezatu** da Nafarroan gaindi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Toki menditsu hau denbora txarrak estalten duenean, erromesek supazterreko sua **prezaten** dukete. Piarres Aintziart

· Haundizki **prezatu** zen bere lanean ala su hiltzale bezala. Herria

Xaxpienea deitu ostatua, ontsa ezagutua eta **prezatu**, eskuz aldatzen da. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Goresmen eta esker onak har ditzatela herritarren partez ere kaseta huntarik ororen zerbitzari **prezatu** horien guziek. Herria

Ezjakinak izanik ere, gizonak baitira, alabaina, eta behar orduan, giza laguntza, beste zernahi baino **prezatuagoa**, eman baitezakete. Piarres Xarriton

**3** da *ad* harrotu.

Eta nola **prezaten** eta loriatzen zen hartaz...! Joan Mari Irigoien

**4 ezin prezatuzko** ik **prezaezin**.

**Ezin prezatuzko** oparia eskaintzen baitie. Piarres Xarriton

Ezin izartuzkoak dira "Gure Aita"ren mezuak, eta lehenik Jesus Jainko Semeak erakutsia dauku "Gure Aita, zeruetan zirena" berri **ezin prezatuzkoa**: Jainkoa, gure Aita! Herria

· **Ezin** aski **prezatu** ohorea eta ongia ekar lezakeela gure Artzapezpikuaren absoluzio osoak. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**ezagutzen eta prezatzen** (3)

**prezatuki** (*orobat **preziatuki***) *adlag*

Eta badakit, orogarri ximple-apain hura, bakoitzak **prezatuki** etxera eraman zuela eta sukalde, egongela edo logelako murru-paretetan luzaz dilingo egon zela. Daniel Landart

St Willibrord karrika hustu eta isilduan, neguko fruituen kolkoak hormaren gardentasunean **preziatuki** altxatuak. Aurelia Arkotxa

**prezatzaille** (*corpusean **preziatzaille** soilik*) *izond* haintzat hartzailea.

Bainan badakigu badirela, hor nihun bezenbat, bertsularien **preziatzaille** onak. Herria

**prezeptiba 1** *iz* araubidea, araudia.

Lerrotoako nire aitortza hauek ez dira batere erosoak niretzat, **prezeptibako** irakasleak irakatsia baita idazten dakidan apurra. Anjel Lertxundi

Estreina Durán-ek, kritiko gisa [...] literaturaren historikotasun eta baldintzatze sozialaren doktrina ezarri behar du (**prezeptiba** klasizistaren aurka). Joxe Azurmendi

**2** (hitz elkartuetan)

Estetiken gorabeheraz gainera, **prezeptibaren** kezka ere bizi zuten Lizardik eta Orixek. Anjel Lertxundi

Gymnasium-ean irakasten ziguten literatur **prezeptibari** buztan-ziri egin, eta idazten hasi nintzen zehaztasuna ugaritasunaren jarioan itozteko kezkarik gabe. Anjel Lertxundi

**prezeptoral** *izond* prezeptorearena, prezeptoreari dagokiona. ik **prezeptore 2**.

Eredu **prezeptoral**, berriz, printzeen heziketarako erabili zen bakarrik, baina, horretan ere, ezin esan gizabanakotze-prozedurarik zegoenik, zeren jauntxo edo printze haiek adin jakin batean ziren ikasle bakarrik eta, haien maisuek, gainera, ikaslearekin batera ibili behar zuten ikasle zen bitartean. Askoren artean

**prezeptore** (*orobat **prezetur** g.er.*) **1** *iz* irakasten duen pertsona.

Aitona Nikolas, komunzki eta eskuarki, euskaraz mintzatzen zitzaigun, baina baita frantsesez ere, batik bat don Frantzisko, herriko apezpa, Mattin eta bion **prezeptore** izendatu zuenean. Joan Mari Irigoien

-Zure bi seme horiek nik baino gehiago dakite, eta **prezeptore** berria ekarri beharko zeniekete, baina **prezeptore** on bat. Joan Mari Irigoien

Eta zeren [...] bainuen orduko bertze mundu bat, edo bertze mundu batzuk, **prezeptore** jaun Marcelen eta osaba Joanikoten eskutik zetozkidanak eta gero eta neureagoak sentitzen nituenak. Joan Mari Irigoien

Gure **prezeptoreak** lauta jotzen ere baitzekien eta ongi jotzen gainerat. Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan) ik **prezeptoral**.

Don Frantziskorekin akabatzeke, kontatuko dizut nola eta noiz utzi zuen bere **prezeptore** kargua. Joan Mari Irigoien

Nahiz eta apezpa, bere **prezeptore** lanak utzi zituenetik, gero eta gutiago etortzen zen. Joan Mari Irigoien

**prezepzio** *iz* erregeak edo kidekoak lege jakin baten kontra eginiko gutuna.

Lege asko zeuden ezarrita, baina erregeek alferriko bihurtzen zituzten lege haien kontra egindako **prezepzio** izeneko gutunen bidez. Iñaki Iñurrieta

**Prezepzioak** ematen zituzten legez kontrako ezkontzak egin zitezen; oinordekotzak aldatzeko ere ematen zituzten. Iñaki Iñurrieta

Ahaideek legeak ezarritako ordenaren arabera izan ziren oinordeko; neska, alargun edo lekaimeekin ezkontzeko **prezepzio** guztiak indargabetu ziren, eta zigor larriak ezarri zitzaizkien haiek lortu eta erabiltzen zitzuztenei. **Iñaki Iñurrieta**

Erregeek hitz eman zuten ez zizkietela beren gizon libreak kenduko leudeei, eta ez zituztela emango eliz ondasunak **prezepzioen** bidez; hortaz, elizgizonek eta nobleek bat egin zuten beren interesetan. **Iñaki Iñurrieta**

---

## prezesio *iz* ekliptikaren eta zero ekuadorearen ebaketa-puntuen atzeranzko higidura.

Zirkulu batean zehar mugitzen da ardatza, eta 26.000 urte inguruan behin etortzen leku berera: ekinozioen **prezesioa**. **Jon Muñoz**

---

## prezeski ik **preseski**.

---

## prezetur *iz* zerga-biltzailea.

Karia hortako hor ziren (izenetan sartu gabe) Andere **Prezeturra**, diru laguntza ekarri duten jaun hautetsiak, obraren kudeatzaile, ofiziale langile, herriko sekretarioa eta kontseilukoak. **Herria**

· Bere parte beharko duela pagatu **prezeturean**. **Herria**

---

## prezeturtegi *iz* zerga bilketaren egoitza.

Ondorioz, kantonamendu bakoitzean bazen jandarmeria bat, bazen **prezeturtegi** bat eta bazen ere, besteak beste, afera frango xuritzen ahal zituen juje edo epaile bat.

**Herria**

Makur handiak, bi bunba azkartto leherturik, batto **prezeturtegian**, bestea aduanako bulegoen aintzinean... **Herria**

---

## preziaezin ik **prezaezin**.

---

## preziagarri ik **prezagarri**.

---

## preziarazi ik **prezarazi**.

---

## preziatu<sup>1</sup> *izond* balio handikoa.

Esmeralda harri **preziatu** ederra da, baina haren edertasuna ez zen gizonarentzat piztu, harik eta poeta baten begiek miretsi eta poeta baten hitzak izena eman zion arte...

**Joan Mari Irigoien**

Harribitxi handi eta **preziatu** bat aurkitu zuela. **Askoren artean**

Memoriaren kutxan gorderik, altxor **preziatu** bat balitz bezala. **Joan Mari Irigoien**

-Testamentua egin, eta nire liburu **preziatuak** esku onetan utzi nahi nituzke. **Patxi Zubizarreta**

Haundikien artekoa batik bat, ehizaki **preziatu** oro bezalatsu. **Patziku Perurena**

Eser zaitezte lurrean, erori baita zuen burutik errege-koroa **preziatua**. **Elizen arteko biblia**

Ardangelan, berriz, hantxe zeutzan botilak, ehundaka, ardo **preziatuak** oro ozpin. **Juan Garzia**

Moabeko mugei erasoko diet eta hiririk gabe utziko, herrialdeko hiri **preziatuena** ere suntsituz. **Elizen arteko biblia**

Eskua haren eskuineko saihets aldera irristatu zitzaion eta orbain **preziatu** hura ukitu zion. **Askoren artean**

Kristo Jesusen odol **preziatuaz** berrerositako arimengana. **Askoren artean**

Potter jaun **preziatu** hori: [...]. **Iñaki Mendiguren**

Txakurra, Tibeteko arraza **preziatu** batekoa, gaiztoa zen eta hozka egiteko prest ageri zen. **Ander Irizar**

Haren kideko bilakatzen zen horrenbestez, eta gorespen-esaldi lakoniko bezain **preziatu** baten ohorea zuen sari. **Juan Garzia**

Holako pertsonak informazio iturri **preziatuak** ziren nazientzat. **Eneko Bidegain**

Ene dohainik **preziatuena**z gabetu, eta kaleetan barrera ibiltzera behartzen nau. **Patxi Zubizarreta**

Bi txanpon eskuineko zirrituan eta aholku **preziatuak** jasotzen dira, hortzetara itsasten direnak goxoki bigunen antzera. **Monika Etxebarria**

Ez da aipatu ere egiten zenbait gizarte zerbitzu taxuz eskaintzeak delako lehiakortasun **preziatu** horretan duen eragin positiboa. **Iñaki Heras**

Bakoitza minutu erdi batez egoiten zen leiho bazterrean, sudur ziloak kanpora buruz, ahal zuen bezainbat aire hartzen denbora hain labur eta **preziatu** hartan. **Eneko Bidegain**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**altxor preziatu** (6); **harri preziatu** (3); **metal preziatu** (3)

**altxor preziatua** (11); **jaun preziatua** (3)

**metal preziatuak** (3)

**odol preziatuaz** (3)

**altxorrik preziatuena** (5); **gauzarik preziatuena** (3)

---

## preziatu<sup>2</sup> ik **prezatu**.

---

## preziatuki ik **prezatuki**.

---

## preziatzaile ik **prezatzaile**.

# prezintatu, prezinta, prezintatzen du *ad* zigilatu.

Kaxa batean gorde, **prezintatu**, eta larunbatean irekiko da finala jokatzeko. **Berria - Kirola**

Oraindik ez dakigu nor aurkitu zuen ohean, zintzilik bazegoen nor askatu zuen, zergatik zegoen gela **prezintatu** gabe eta nor eman zuen informazio guztia. **Berria - Euskal Herria**

Apezpikuak *Entredicho* izeneko zigorra ezarri zion auzoari, eliza **prezintatuz**, apezari ez auzoan ez beste inon meza eta elizakoak ematea debekatu. **Koldo Izagirre**

Egunkari gehienetan azaldu dena, polizia ateak **prezintatzen**; protesta eta txistu egiten zuen jendea; lehen uneko adierazpenak egin zituzten pertsonak. **Bernardo Atxaga**

## prezinto (orobat *prezintu g.er.*) iz zigilua.

Aste bete egin zuen zure etxeko ateak nolabaik itxita, hiriburuko komisaldegiko **prezinto** batekin josia, epailea azaldu zen arte. **Koldo Izagirre**

Kendu zuten **prezintoa** noizbait, eta orduan aitak sarraila konponarazi zuen. kazetariz inguratutako Poliziaren **prezinto** elastikoa urrunean ikusten hasi zenean, autoa utzi eta kontrol hesirantz abiatu ahala. **Koldo Izagirre**

Hurrengo gauean **prezinto** polizia ezkutuan pasa zuen pasaportea berreskuratzeko. **Harkaitz Cano**

## prezintu ik prezinto.

## prezio (3263 agerraldi, 193 liburu eta 1111 artikulutan) 1 iz ondasun bat saltzen edo erosten den diru kopurua. **iksalneurri.**

Merkataritzan jardun ahal izateko, diruak **prezio** bat izan behar du. **Iñaki Iñurrieta**

Izen baten jabe eta diru baten jabe egitea da arrakasta; hau da: letra eta numero gizez idaztea pertsona baten izana, balioa eta **prezioa**. **Iñaki Seguroa**

Ahaztu al zaizue anpolaiek zer **prezio** egin zuten? **Anjel Lertxundi**

-Zein da zure azken **prezioa**? -esan zuen Sobakevitxek azkenean. **Jose Morales**

-Zeuk jarri **prezioa** -esan nuen-. **Oskar Arana**

Zuek esan zenbat kobratu nahi duzuen zerbitzuaren truke, eta ondoren ikusiko dugu **prezioa** adostu ahal dugun. **Jon Alonso**

Jaki bakarra eskatu ohi zuen, eta, platera husteaz gain, gehiago nahi izaten zuen beti, baina, hori bai, **prezio** berean. **Jose Morales**

Bi sektore horietan, ahalmen berriak abian jartzeak **prezioen** gorakada gauza iraunkortzat hartzea dakar. **Koro Navarro**

Hamaiketan, **prezioak** beheratu eta azken salgaiak saltzen ditu. **Oskar Arana**

Spainian 2002ko urtarrilean, **prezioek** %0,1 egin omen zuten behera. **Iñaki Heras**

Katearen zuzendariak **prezioak** merkarazi zizkidan eta, enpresa ez kaltetzearren, murriztu ere egin behar izan nuen neure portzentajea. **Joxan Elozegi**

Enpresa gotorrek, **prezioak** hautsiz, kalitu nahi baitzituzten tiki guztiak. **Daniel Landart**

**Prezioen** beharaldiak ez du eragin bizkorgarrik izaten ia azken kontsumoan. **Koro Navarro**

Ondasunek edo zerbitzuek **prezio** bat dute, eta **prezio** horren osagaien kostuek gora egiten dutenean sortzen da kostu-inflazioa. **Iñaki Heras**

Merkatari erromatarra [...] gai zen guztiz Mediterraneoako hirien artean zeuden **prezioen** aldeaz baliatzeko. **Koro Navarro**

**Prezio** horretatik gora ingelesei ez zaie komeni portugaldar ardoa inportatzea. **Koro Navarro**

**Prezio** doblean saldu beharko dinat! **Unai Iturriaga**

Maizenik, Kontsumorako **Prezioen** Indizearen (KPI) bilakaerarekin neurtzen da inflazioa. **Iñaki Heras**

### 2 (-en atzikiaren eskuinean)

Lasterrago handitu baitziren salgaien **prezioak** fabrikazio-kostuak (soldatak eta lehengaiak) baino. **Koro Navarro**

Petrolioaren **prezioa** laukoiztu egin zen Yom Kippur-eko gerraren ondoren. **Koro Navarro**

Hainbat merkatu espekulatibotan [...] gertaturiko aktiboen **prezioen** erorikoak, banku-balantzen hondamenaren handitasuna agertu dute. **Koro Navarro**

Produktuaren **prezioak** behera egiten badu, *ceteris paribus* [...] produktu horretatik erositako zenbatekoak gora egingo du. **Iñaki Heras**

Ondasun baten **prezioa** ehuneko bat jaisten denean. **Koro Navarro**

[Nazioarteko merkataritzaren] bolumeneko hazkundea erdira jaitsi zen 1998an, eta lehengaien **prezioak** lur jota geratu ziren. **Koro Navarro**

### 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Oso **prezio** onean saldu diagu herritik eramandako guztia. **Jose Morales**

**Prezio** onak egiten dituzte erromesentzat. **Piarres Aintziart**

Jabeek hunkiko dituzten laguntzak handiagoak izanen dira gero **prezio** merkean errentatuko dituztela izenpetzen baldin badute. **Herria**

Bazkaria, **prezio** finkoa: 8 franko. **Monika Etxebarria**

Borgoinako barraskiloek **prezio** gehigarria dute. **Monika Etxebarria**

- **Prezio** berezia egingo dizut, nahi baduzu -esan zuen-. **Koro Navarro**

Erdi Aroko Europa kristauko teologoek osatu zuten "prezio zuzen" haren bertsio gaurkotua baizik ez da **prezio** egonkor eta ondo ordaindu hori. **Prezio** errealearen nozioa, hemen, lehengaien **prezio** erlatiboari dagokio. **Koro Navarro**

Lan-eskuaren **prezio** merkeaz baliatzeko asmoz. **Koro Navarro**

Ez zen errentagarria gertatzen aleko **prezio** altuak zituzten ondasunen ekoizpena. 1970eko hamarraldian HPEren **prezio** jasoen politikak eskaintza lehiakor bat gararazi zuen. **Koro Navarro**

**Prezio** konstanteetan, lehengaien beharaldia [...] etengabea izan zen aldi horretan guztian. **Koro Navarro**

Kalte edo irainen bat jasotzen zuenak hartu beharreko ordainari bidezko **prezioa** jartzen arduratu ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Halako faboreak kitatzeko gutieneko **prezioa** iturrien aipamena izaten ohi da gure lanbidean. **Aingeru Epaltza**

Arrazoizko **prezioa** egiten zidatek egunero bazkari-afariengatik, eta tratua etxekoa bezalakoa duk. **Aingeru Epaltza**

Konkurrentziak jartzen die bidezko **prezioa** salerosgai. **Iñaki Iñurrieta**

Norbaitek hamarren horietatik zerbait berreskuratu nahi badu, ezarritako **prezioa** eta bosteko bat gehiago ordaindu beharko du. **Elizen arteko biblia**

### 4 irud/hed

Baina bakardadea ordaindutako prezioaren zati bat baizik ez da izan, **prezio** osoaren ehuneko hogei edo hogeita bost gehienera. **Bernardo Atxaga**

Erromatar bakearen **prezioa** askatasun helenikoa galtzea izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Kapitalismoak pertsonaren duintasuna trukerako balio bihurtu du; hain **prezio** handitan lortutako askatasunak, merkatalgorako askatasun bakar eta nahi eta nahi ezkoak bilakarazi ditu. **Iñaki Heras**

Ez hori bakarrik: baita, **prezio** berean, euskarazko literatura idatzia eta euskarazko kultura bere osotasunean ere. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Oso larria baita lortu nahi diren zenbait helburu oso garesti ateratzea, baina are larriagoa izan daiteke, **prezio** berean, helburu gisa jarritakoa bera ere ez lortzea. **Iñaki Heras**

Atsegina helburu, **prezioak prezio**. **Edorta Agirre**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atetik zintzilik zeroen **prezio** zentzari kasurik egiteke. **Joxemari Iturralde**

Autopistaren baliatzaileak loriatzen dira **prezio** apaltze huneekin. **Herria**

Nehork uste baino **prezio** goratze handiagoa. **Herria**

Hemen ere arrangura batekin: Postak bost urte huntan, urtetik urtera, jasanarazten daukun **prezio** -emendatze gaitza. **Herria**

**Prezio** -tasatzaile judu baten begiezt begiratzen zien lurreko ondasunei. **Josu Zabaleta**

Gaur goizean Beethovenstraat-eko **prezio** -finkatzailea etorri da. **Josu Zabaleta**

Herralde batek, beraz, gehiago irabaziko du trukean zenbat eta sendoagoa izan inportazio-eskariaren **prezio** -elastikotasuna, eta zenbat eta ahulagoa izan esportazio-  
eskaintzaren **prezio** -elastikotasuna. **Koro Navarro**

· Indexazio-mekanismoek eragindako **prezio** -soldaten espiralak, inflazioaren gorakada izugarria ekarri zuen herrialde industrializatuetan. **Koro Navarro**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dira ondasun ekonomikoak; bestela esanda, merkatu- **prezioa** zero dute, ekonomia ortodoxoaren arabera nahi adina daudenez, ez baitira mugatu behar. **Iñaki Heras**

Legeak zerbait finkatuta utzi behar duenean, saihestu egin behar da, ahal den neurrian, diru- **prezioa** ezartzea. **Iñaki Iñurrieta**

Merkatu zoladura- **prezioa** baino are apalago saltzen zuten axurikia, dumping eginez. **Itxaro Borda**

Estatu Batuek, beren aldetik, beren energia mendekotasuna murrizteko konpromisoa hartu zuten, petrolioaren barne- **prezioa** igoz horretarako. **Koro Navarro**

Arrakastaz erasokorra den zibilizazio batek ordaindu behar duen gizarte- **prezioa** zera da: atzerriko biktimen kultura sartzen zaiola bere bizi-lasterrean. **Iñaki Mendiguren**

## 7 erdi prezioan

Kontua da nik eta nirekin bizi den batek baino gehiagok ordenagailu bana erosi genuela **erdi prezioan** . **Anjel Lertxundi**

Gizonak esnea, arrautzak, lekariak, erosi zizkion auzoko nekazari bati, **erdi prezioan** , hirian azalera handiko saltokietan jaki haiek balio zutenaren aldean. **Eskarne Mujika**

Txorizo eta lukainka ederrak ekartzen zizkigun bere herritik, zergia hiltzen zutenean, eta ardo beltz lodia ere bai, gero **erdi prezioan** saltzen zizkigunak, mauka! **Karlos Linazasoro**

Kanpoko garraiolariak, merkantziak portura ekarri eta etxerako bueltan, **erdi prezioan** betetzen dute kamioia. **Berria - Ekonomia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**erregaiaren prezio** (7); **lehengaien prezio** (8); **merkatuko prezio** (4); **petrolioaren prezio** (17); **petrolioaren prezio garestiak** (5)

; **prezio altua** (4); **prezio apalean** (4); **prezio apaletan** (4); **prezio bera** (6); **prezio berean** (22); **prezio berezia** (6); **prezio berriak** (5); **prezio bikoitza** (4); **prezio egokia** (5); **prezio elastikotasuna** (4); **prezio errealean** (4); **prezio garestia** (4); **prezio garestiak** (12); **prezio garestiek** (4); **prezio hazkuntza** (5); **prezio igoera** (14); **prezio igoerak** (12); **prezio jaitziera** (5); **prezio jakin** (5); **prezio merkean** (5); **prezio onean** (39); **prezio onean saldu** (5); **prezio politikoak** (10); **prezio politikorik** (29); **prezio politikorik ordaindu** (7)

**prezioak prezio** (4); **truke prezio** (4)

**aebetako petrolioaren prezioa** (4); **altzairuaren prezioa** (4); **azken prezioa** (5); **azukrearen prezioa** (5); **batez besteko prezioa** (12); **behí esnearen prezioa** (4); **diruaren prezioa** (19); **dolarreko prezioa** (4)

**egungo prezioa** (4); **energiaren prezioa** (4); **erregaiaren prezioa** (18); **esnearen prezioa** (12); **etxebizitzaren prezioa** (6); **etxebizitzaren prezioa** (6); **euroko prezioa** (7); **ezarriritako prezioa** (9); **ezarriritako prezioa eta** (5); **gasaren prezioa** (5); **gasolinaren prezioa** (9); **gasolioaren prezioa** (12); **gauzen prezioa** (4); **gehieneko prezioa** (5); **gutxieneko prezioa** (4); **hasierako prezioa** (4)

**lehengaien prezioa** (4); **lurraren prezioa** (5); **lurren prezioa** (4)

**ordaindu beharreko prezioa** (17); **petrolio upelaren prezioa** (9); **petrolioaren prezioa** (50)

**prezioa garestia** (6); **prezioa gora** (4); **prezioa igo** (16); **prezioa igoetzea** (8); **prezioa igoetzea** (7); **prezioa izan** (4); **prezioa jaitsi** (13); **prezioa jaitziko** (4); **prezioa jakin** (5); **prezioa jarri** (5); **prezioa ordaindu** (10); **prezioa ordaintzeko** (8)

**sarreraren prezioa** (4); **sarreraren prezioa** (5); **tabakoaren prezioa** (4); **txartelen prezioa** (4)

**upelaren prezioa** (24); **uraren prezioa** (8); **urre beltzaren prezioa** (4)

**akzioen prezioak** (5); **egungo prezioak** (7); **erregaiaren prezioak** (8); **erregaien prezioak** (6); **etxebizitzaren prezioak** (18); **garestitu ziren prezioak** (5); **garraioaren prezioak** (5); **igo dira prezioak** (6); **kontsumo prezioak** (4); **petrolio upelaren prezioak** (5); **petrolioaren prezioak** (38)

**prezioak behera** (11); **prezioak behera egin** (6); **prezioak gora egin** (12); **prezioak gora egiten** (5); **prezioak igo** (14); **prezioak igoko** (4); **prezioak igoetzea** (6); **prezioak igozteko** (6); **prezioak igoetzea** (4); **prezioak jaitsten** (4); **prezioak jaitzi** (7); **prezioak jaitziko** (5); **prezioak prezio** (4)

**produktuen prezioak** (6); **tabakoaren prezioak** (4); **upelaren prezioak** (10); **zerbitzuen prezioak** (4)

**erdi prezioan** (9); **erositako prezioan** (9); **prezioan saldu** (5); **prezioan salduko** (7); **prezioan saltzen** (10); **urrearen prezioan** (6); **urteko prezioan** (4)

**diruaren prezioaren** (4); **esnearen prezioaren** (7); **petrolioaren prezioaren** (30); **prezioaren espekulazioa** (4); **prezioaren etengabeko** (4); **prezioaren gaineko** (4); **prezioaren igoera** (4)

**prezioek behera egin** (10); **prezioek beherantz** (5); **prezioek gora egin** (11)

**etxebizitzaren prezioen** (4); **kontsumo prezioen** (33); **kontsumo prezioen indizea** (17); **kontsumo prezioen indizeak** (6); **kontsumo prezioen indizearen** (5); **lehengaien prezioen** (6); **petrolioaren prezioen** (9)

**prezioen arabera** (7); **prezioen bilakaera** (6); **prezioen egonkortasuna** (16); **prezioen egonkortasunaren** (5); **prezioen etengabeko** (4); **prezioen garestitzea** (5); **prezioen gorabeherak** (4); **prezioen gorakada** (15); **prezioen gorakadak** (7); **prezioen hazkuntza** (4); **prezioen igoera** (36); **prezioen igoerak** (6); **prezioen igoeraren** (8); **prezioen indizea** (20); **prezioen indizeak** (7); **prezioen indizearen** (6); **prezioen maila** (9)

**inoizko preziorik garestienara** (7); **preziorik garestiena** (6); **preziorik garestiengan** (5); **preziorik garestienara** (10); **preziorik garestienara iritsi** (9)

**edozein preziotan** (13)

## preziodun *izond* garestia.

Manexunek ez zuen nehoiz jakin nork eho zizkion Pentze Patarrean zeuzkan behor eta garaino **preziodun** haiek. **Itxaro Borda**

## prezios ik **prezioso**.

## preziosismo *iz* xehetasun guztien arretazko ardua.

Telebistarako edo zinemarako lan egiteak **preziosismorako** aukera handiagoa eskaintzen du, instrumentazio handiagoa erabilitzeko aukera baituzu, baina musikagileak egina datorkion irudi baten zerbitzuan egiten du lan, ez dago horren elkarriketa aberatsik. **Berria - Kultura**

## prezioso (*orobat prezios eta preziosu*) *izond* baliotsua.

Metal **preziosoen** garestitzeak eta produktzio kostu handiek beste krisialdi bat eragin zuten. **Pablo Sastre**

Orrialde zoin **preziosak** ! **Herria**

Laguntza eske edonoren deitzeko gutiziaz nagoenean, haren denbora **prezioso**a ebastearen beldurrez, norbait hura trabatuko baizik ez dudala iruditzen zait eta ezizatean urtzen naiz salbaiki, nekez eraikia erraz xitxifikatuz. **Itxaro Borda**

Ezin ahantzizko egonaldia izanen da, gure artean bizi izan ditugun memento **preziosentzat** baita ere han sortu harremanentzat. **Herria**

Euskarazko bertsio eskerga eta **preziotsu** honek. **Berria - Kultura**



preziotsu ik prezioso.

## prezipitatu<sup>1</sup>, prezipita, prezipitazen 1 da/du ad ontziaren hondoan jalki.

Aise ziurtatu nintzen horretaz, bentzenotan disolbatu eta zentrifugaturik; horratx probetaren hondoan **prezipitaturik**. [Juan Garzia](#)

## 2 atmosferako uraz mintzatuz, lurrera erori.

Munduan **prezipitazen** den euririk gehiena, hasieran elurra izanik, bidean urtutakoa da. [Pello Zabala](#)

Ebaporazioari gagozkiola, esan behar da ebaporatzen den guztia **prezipitazen** dela, nahiz-eta ez izan euri modura edo ikusteko eta sentitzeko eran. [Pello Zabala](#)

## 3 irud/hed

Nazioarteko desadostasunen kimikako gertaera interesgarria da bi abertzaletasunek elkar ukitzen duten unean beruna kopuru handitan **prezipitazen** dela. [Xabier Olarra](#)

## prezipitatu<sup>2</sup> iz erreakzio baten ondorioz, disolbaturik dagoen likidotik bereizi eta ontziaren hondoan jalkitzen den gaia.

Arduragabe ikuzten zituen **prezipitatuak**, nikel-dimetilgliosima pisatu, eta ederki kostatu zitzaidan buruan sartzea ez zela komeni analisiaren emaitzak puztea. [Juan Garzia](#)

Horra sulfurozko **prezipitatu** horia, eta anhidrido artseniosoa. [Juan Garzia](#)

Goizaldeko hirurak jota, hona emaitza: lehengo nikel-dimetilglioximazko lainotxo gorrixka barik, **prezipitatu** nabariki oparo bat. [Juan Garzia](#)

## prezipitazio 1 iz prezipitaztea.

Esterolen **prezipitazioa** berrogeita hamar urtetsuko gure arterietan? [Juan Garzia](#)

Laugarren batek baieztatzen du, Haeckeli jarraikiz, materia eterretik prezipitatu eta kondentsatu da... zeinaren existentzia **prezipitazio** eta kondentsazioz frogatzen den. [Xabier Olarra](#)

## 2 atmosferako ura lurrera erortzea.

Ilbetetik ilbetera neurtzeko euri eta **prezipitazioak**. [Pello Zabala](#)

Lainoak eta **prezipitazio** xumeak. [Pello Zabala](#)

Oso **prezipitazio** eskasa izan ohi da normalean: egiten duena elurretan beti. [Pello Zabala](#)

Urteko 600 litro **prezipitazio**. [Pello Zabala](#)

## 3 (hitz elkartuetan)

Ekaineko **prezipitazio** egunei, [...]. [Pello Zabala](#)

Har ditzagun Donostiako **prezipitazio** kopuruak eta aldera ditzagun Arantzazun bildutakoekin. [Pello Zabala](#)

Hortik **prezipitazio** intentsitatea jaso eta apuntatu. [Pello Zabala](#)

Bada beste **prezipitazio** mota bat. [Pello Zabala](#)

Tenerife aldean, Izañan-eta, 2.300 metro altueran, badira zuhaitzak **prezipitazio** jenero honekin ur dezente eskura uzten dutenak. [Pello Zabala](#)

## prezipitaziodun izond prezipitazioa gertatu dena.

Izan dugu, baita ere, urtarrilik, 27 egun **prezipitaziodun** eman dizkigunik, 1986a kasu. [Pello Zabala](#)

Arantzazun 21 egun izan ohi dira **prezipitaziodunak** maiatzean. [Pello Zabala](#)

## preziso (orobat prezisione g.er.) iz doitasuna, zehaztasuna.

Baina errealitatea ez dago "hor" inolako moduz: aitzitik, behar den adinako **preziszioz** esan dezakegu errealitatea beste mundu bat dela. [Iñaki Segurola](#)

**Prezisorik** gabe adjektibatzeari buruzko arriskuez ohartarazten gintuen. [Anjel Lertxundi](#)

Konturutzerako, artxipelago hartan marraztutako bide guztiek amarenera hurreratu ninduten, emeki baina **preziso** osoz. [Iban Zaldua](#)

Partikula elementalak puntu infinitesimalak lirarteke onenean ere, baina **preziso** jakin batekin begiratu ezkerre; handik gora, **preziso** jakin batetik haruntzago, hau da, xehekiago behatu ezkerre, lausotu egiten dira, lurrundu: izen-izanak galtzeko arrisku latzean amiltzen dira. [Iñaki Segurola](#)

Han lau kilo droga, **prezisioko** hiru balantza eta droga mozteko gaiak atzeman dituztela jakinarazi du Herrizaingo Sailak. [Berria - Euskal Herria](#)

## prezisione ik preziso.

## preziso 1 izond zehatza, doia.

Horrek lan berezi eta **prezisoa** egin beharko genuela pentsarazi zigun. [Pello Zabala](#)

## 2 (adizlagun gisa) hain zuzen.

Zerengatik ni, ibilian ideiak argitzeko gauza ez diren horietakoa bainaiz, eta **preziso** baso baten aurrean egon behar baitut pentsatzeko. [Matías Múgica](#)

Modak eta modistak "sortzeak eskas eman guzien konplikagarri" ditugu, jendearen konplejoak aultzeko, alegia, eta ez **preziso** gorputzeko apainduretan, izpirituko apainduretan eta okerrago. [Patziku Perurena](#)

Giro lehor eta beroa ohi da normalean, bero itogarria egiten ere badakielarik, baina ez **preziso** sargoria. [Pello Zabala](#)

**Preziso** behar zuela berez tolesgabatasun kantidade ederra eduki. [Matías Múgica](#)

Elurte nabarmenen eta sonatuenak ez baitira izan **preziso** elur kopuruarengatik, baizik ostean parera eta gainera iritsi den izotzaldiarengatik. [Pello Zabala](#)

## 3 preziso izan beharrezko izan.

Originala izatea ez da **preziso**; adi egotea bai. [Berria - Kultura](#)

## priapista izond zakila, sexu grinarik gabe, beti erekzioan duena.

Borreroak kondenatu **priapistarekin** pasatu zituen lotsak! [Karlos Linazasoro](#)

pribatasun ik **pribatutasun**.

## pribatibo *izond* norbaitena baino ez dena.

Software pribatua eta **pribatiboa** bereizten dituzu. [Berria - Gaiak](#)

Guztion eskura behar duten programak, baina, bi modutakoak izan daitezke: libreak edo **pribatiboak**. [Berria - Gaiak](#)

Guztion eskura behar duten programak, baina, bi modutakoak izan daitezke: libreak edo **pribatiboak**. [Berria - Gaiak](#)

## pribatisatze ik **pribatizatze**.

## pribatizatu, pribatiza, pribatizatzen 1 du *ad* pribatu bihurtu.

Denbora tarte horretan 2.500 enpresa publiko itxi eta beste 100.000 **pribatizatu** egingo dira Txinan. [Berria - Mundua](#)

Areva nuklearraren %40 ere **pribatizatuko** du Sarkozyk. [Berria - Ekonomia](#)

Ahalik eta enpresa gehien **pribatizatu**. [Iñaki Heras](#)

Irakasleak, berriz, hogeita lau orduko greba egingo dute, hezkuntza **pribatizatze**ko asmoak salatzeke. [Berria - Harian](#)

Zerbitzu militarrek **pribatizatu** egiten dira, soldadu lana egiteko. [Berria - Mundua](#)

Dena **pribatizatu** dute, baina ura **pribatizatzea** bizitza **pribatizatzea** da. [Berria - Mundua](#)

Lehia horrek lasterketa bat ekarri du, nork lehenago desarautu, **pribatizatu** eta zergak jaitsi, eta horrek guztiak auzitan jarri ditu keynestar garaitik zetozen gizarte-konpromisoak. [Koro Navarro](#)

Egungo gizarteak **pribatizatu** egin du heriotza. [Berria - Gaiak](#)

Mitoa abolitu du, erlijioa **pribatizatu**, eta gizartea laikoa dela aldarrikatu. [Joxerra Garzia](#)

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Urrezko akzioaren bidez, Espainiak Gobernuak erabakitzeko gaitasuna gorde du enpresa **pribatizatu**etan. [Berria - Ekonomia](#)

Enpresa handi publiko ohi **pribatizatu**etan PPK izan duen eragina eta beronen bilakaera ikuskizun dago. [Berria - Ekonomia](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**naval pribatizatu** (3)

**naval pribatizatze**ko (9); **ontziola pribatizatze**ko (7); **ontziola zibilak pribatizatze**ko (3); **pribatizatze**ko akordioa sinatu (3); **pribatizatze**ko asmoa (9); **pribatizatze**ko plana (4); **pribatizatze**ko proposamena (3)

## pribatizatzaile *izond* pribatizatzen duena.

Jaurlaritzaren eta PSE-EEren arteko akordioan alderdien interesak daude, modelo neoliberal eta **pribatizatzaileari** erantzuten dio, eta udalei gaitasuna kentzen die. [Berria - Euskal Herria](#)

## pribatizatze 1 *iz* pribatu bihurtzea. ik **pribatizazio**.

Errezeta-liburu berrian, desarauketa, **pribatizatzea** eta zerga presioaren murrizketa neurriak dira nagusi. [Iñaki Heras](#)

Praktikan, politika neoliberalaren transmisio uhal baino ez dira, zerbitzu publikoa suntsitzen laguntzen dutenak eta zerbitzu sozialen **pribatizatzea** sustatzen dutenak. [Iñaki Heras](#)

Sektore publikoaren gastua murriztea eta enpresa publikoen **pribatizatzea**. [Iñaki Heras](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Merkatuen liberalizatze eta **pribatizatze** politiken ondorioz. [Iñaki Heras](#)

## pribatizazio 1 *iz* pribatizatzea.

Era horretan, desarautzea, **pribatizazioa** eta zergak murriztea izan ziren liberalismora bihurtutako politika ekonomikoen giltza-hitzak. [Koro Navarro](#)

**Pribatizazioak**, maizenik, estatuaren finantza-premiak (zergen gutxiagotzeak areagotuko zituztenak) edo zor publikoaren zama murrizteko tresna izan ziren. [Koro Navarro](#)

Informazio-fluxu librearen filosofo berriak estatuarenak ziren hedabideen deseregulazioa (**pribatizazioa**, alegia) eskatzen hasi ziren. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

EDFren **pribatizazio** partzialaren aurka protesta egiten duten langileek argindarra moztu zuten atzo Eliseo jauregian. [Berria - Ekonomia](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iruñeko Udalaren **pribatizazio** politika salatu dute langileek. [Berria - Ekonomia](#)

Zerbitzu publikoen **pribatizazio** garaian, eremu publikoak herritarren erabilerarako berreskuratu behar dira. [Berria - Euskal Herria](#)

Sestaoko ontziolako langileek hainbat mobilizazio egingo dituzte hurrengo asteotan **pribatizazio** plana arbuizatzeko. [Berria - Ekonomia](#)

**Pribatizazio** saioa arbuia du sindikatu abertzaleak. [Berria - Euskal Herria](#)

Pribatizazioa baimendu egiten zuen joan den urte amaieran onartutako legeak eta geroztik gobernuak ez du ezkatu **pribatizazio** prozesua azkartzeko zuen asmoa. [Berria - Ekonomia](#)

Neurri hori «**pribatizazio** operazioa» dela salatu zuten. [Berria - Ekonomia](#)

Gobernuburu jardunean, **pribatizazio** andana gauzatu zuen Justxenkok, eta «gardentasunez» eginak izan zirela iritzi diote adituek eta nazioarte finantza erakundeek. [Berria - Mundua](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pribatizazio politika** (4); **pribatizazio prozesua** (3)

**eskolaren pribatizazioa** (4); **navalen pribatizazioa** (6); **pribatizazioa bultzatzen** (3); **uraren pribatizazioa** (4); **zerbitzuen pribatizazioa** (4)

**pribatizazioaren aurka** (3); **pribatizazioaren aurkako** (6); **pribatizazioaren gaineko** (3)

**pribatizazioari buruzko** (3)

## pribatu 1 *izond* jendaurreko edo jendartekoa ez dena; jendeak sarrera ez duena; gizabanakoari dagokiona.

Liburu honetan eraikin **pribatuei** buruzko printzipioak eta beren proportzioen erlazioak azalduko ditut. [Santiago Iruretagoiena](#)

Komunista hura eredugarri bihurtzen zen langileentzat bere bizitokian igerileku olimpiko **pribatu** bat eginez. [Pello Salaburu](#)

Klub **privatuak**, erre ahaliko da, baldin eta bazkideen gehiengoak begi onek ikusten badu. **Berria - Gaiak**

Bere gela **privatuetera** joanarazi ninduen. **Aurelia Arkotxa**

Atzeko aldean, gela txiki **privatu** bat zegoen, trenkada beiradun batek tabernatik bereizten zuena. **Karlos Zabala**

Aizu, mutil, non dago jangela **privatua**? **Lopez de Arana**

Eskaiera **privatua** ilunpetan galtzen zen. **Monika Etxebarria**

Gure etxean ez baitzegoen armairu bat, ezta tiradera bat bera ere, erabat **privatua**. **Ramon Saizarbitoria**

## 2 (gauza abstraktuak)

Bizio **privatuak**, bertute publikoak. **Anjel Lertxundi**

Gizabanakoaren arazo **privatuekin** zerikusi handia zuten herri-arazoetan. **Iñaki Mendiguren**

Euskararen izenean, eta batez ere erakunde publikoetatik dirua eskuratuz, negozio **privatu** ederrak egin dira. **Pello Salaburu**

Ohikoa zen, errezo ofizialez gain, ofizio eta brebiario **privatuak** errezatzea. **Askoren artean**

Zeregin **privatu** batek ez baitio utzi lana egiten, guri eman digu lekukoa. **Jon Muñoz**

Asmo **privatu** orotatik aske dagoen arrazoimen berak ezingo luke bestela juzgatu bere interes propioa baztertu eta zorientasun guztia besteei banatuko liekeen zerizan baten lekuan jartzen bada. **Ibon Uribarri**

Halako judizioak baiotasun **privatua** baino ez du eta ustea ezin da komunikatu. **Ibon Uribarri**

Unibertsitatean nobilela ere jadanik idazten nuen, baina gauza **privatuak** ziren. **Ana Urkiza**

Baina zer ari naiz ezer ulertu nahi ez duten hauei neure bizitza **privatu** eta intimoaren azaltzen? **Itxaro Borda**

Atzerritarrek onartuak dira, zabal nahiz estu, erakunde zibiletan, erakunde horiek askoz sakonago ukitzen baitituzte gizakiaren eskubide **privatu** horiek, herritarren egoera publikoa baino. **Andres Urrutia**

"Euskal touch" zelakoa, minoria **privatu** batentzat absolutuki zaintzekoa zen. **Itxaro Borda**

Horrela sortu dira gurasoen hainbat kooperatiba, eskolarik ez zuten auzoetan; edo irakasleek eurek sortuak izan dira, ez zutelako euren burua ez publikoan ez **privatuan** ikusten. **Berria - Euskal Herria**

*ik beherago* 6. **Askoren artean**

## 3 (personei buruz)

Hiritar **privatu** batek bere barkamenarekin ezin duelako ezabatu etsenpluaren beharra. **Juan Martin Elexpuru**

Hori zen detektibe **privatu** batek, edo hobe esanda, ikertzaile batek egin zezakeen hankasartzerik latzena. **Joxemari Iturralde**

-Eta ni, berriz, idazkari **privatu** izendatuko nauzu, John. **Irene Aldasoro**

## 4 (izen gisa)

Harryren iritzian, aitorlekua bezain abegikor eta **privatu** irudikoa zen tokia. **Oskar Arana**

## 5 herri erakundeek parte hartzen ez dutena; Estatuari ez dagokiona eta haren mende ez dagoena.

Zerbitzuen unibertsaltasuna eta izaera publikoa (ez **privatua**, ez kontzertatua) ezinbestekoa da. **Berria - Harian**

Diferenteak dira mediku **privatuen** kontsultetako eskailerak eta eskailera normalak. **Unai Elorriaga**

Espainiako telebista kate **privatu** bateko programa ospetsu batean. **Iñaki Heras**

Garraio **privatuaren** aldean garraio publikoaren erabilpena sustatzen dutenena. **Iñaki Heras**

Zerga haiei *census* zeritzen; eskubide ekonomikoak ziren, ez fiskalak; zor **privatuak**, ez karga publikoak. **Iñaki Iñurrieta**

Klinika **privatu** hura erosi zuen eta handik aurrera huraxe izan zuen denborapasa nagusia, esperimentazio klinika bat martxan jartzea. **Joxemari Iturralde**

Bi eskualde horiek bereganatu zituzten 1990-1996 bitartean garapen-bideko herrialdeen aldera eramandako kapital **privatu** garbien hiru laurden. **Koro Navarro**

Ikerkuntzan egiten diren inbestimenduak publikoak nahiz **privatuak** izan daitezke. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Enpresa **privatu** batek diru publikoak erabili ditzake ikerketak egiteko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ikerlari gisa proiektu askotan hartu du parte, finantzazio publiko nahiz **privatuekin**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Iparraldeko kolegio eta lizeo desberdinetan, izan publikoan, **privatuan** ala ikastoletan lan egiten duten erakasle talde bat bildu da salaketa horren egiteko. **Herria**

Izaera **privatu** nahiz publikoa duten erakundeek osatzen dute sistema osoa, eta sistema hau. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Espainiako telebista kate **privatu** bateko programa ospetsu batean. **Iñaki Heras**

## 6 **privatuan** bakarrean. ik **privatuki**.

Eta ez dute barkamenik eskatu, ez publikoki ez **privatuan**. **Berria - Kirola**

Ez duk **privatuan** hitz egiteko gaia. **Antton Olano**

Erresuma Batuko Gobernuarekin bildu nintzen **privatuan** eta adierazi nion ez zuela hitza bete. **Berria - Mundua**

**Privatuan**, futbola utzi egin nahi duela esaten du, baina Realak oraindik badu itxaropenik behin betiko ezezkoa eman ez duelako. **Berria - Kirola**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bilduma privatu** (5); **bizitza privatu** (6); **detektibe privatu** (5)

**ekimen privatu** (4); **elkarte privatu** (10); **elkarte privatu bat** (4); **enpresa privatu** (41); **enpresa privatu baten** (12); **erakunde privatu** (6); **eskola privatu** (12); **eskola privatu batean** (3); **eskola privatu batera** (3); **gela privatu** (3); **gela txiki privatu** (3); **hegaldi privatu** (3); **hegazkin privatu** (3)

**ikastetxe privatu** (7); **ikastetxe privatu batean** (3); **ikertzaile privatu** (3); **interes privatu** (5); **jabetza privatu** (3); **kabinete privatu** (3); **kartzela privatu** (3); **kate privatu** (4); **klinika privatu** (5); **kontu privatu** (3)

**ospitale privatu** (3)

**privatu baten bidez** (3); **privatu baten esku** (8); **privatu batera** (6); **privatu bati** (11); **privatu batzuek** (3); **privatu batzuetan** (4); **privatu eta** (30); **privatu eta publikoek** (3); **publiko eta privatu** (6); **publiko zein privatu** (3)

**sektore privatu** (4); **telebista kate privatu** (3); **telebista privatu** (3)

**unibertsitate privatu** (5); **zentro privatu** (5)

**alor privatua** (3); **arazo privatua** (4); **bere bizitza privatua** (7); **bilduma privatua** (3); **bizitza privatua** (36); **bizitza privatua bateratzeko** (3); **diru privatua** (3)

**ekimen privatua** (18); **ekimen privatua aberasteko** (3); **elkarte privatua** (6); **enpresa privatua** (7); **erakunde privatua** (5); **eremu privatua** (5); **eskola privatua** (11); **espaziontzi privatua** (4); **etekin privatua** (3); **hegaldi privatua** (3)

**ibilgailu privatua** (3); **inbertsio privatua** (5); **jabego privatua** (8); **jabetza privatua** (20); **kapital privatua** (15); **kontsumo privatua** (8); **kontu privatua** (4); **kudeaketa privatua** (3); **lehen espaziontzi privatua** (3); **lehen hegaldi privatua** (3); **liga privatua** (3)

**osasun privatua** (3)

**privatua eta publikoa** (5); **publikoa edo privatua** (3); **publikoa eta privatua** (7)

**sektore privatua** (4)

**arlo privatuak** (3); **banku privatuak** (4); **ekimen privatuak** (9); **enpresa privatuak** (21); **eragile privatuak** (3); **eraikin privatuak** (3); **erakunde privatuak** (5); **eskola privatuak** (5); **eskubide privatuak** (3)

**ikastetxe privatuak** (5); **inbertsiogile privatuak** (4); **interes privatuak** (9); **jabetza privatuak** (4); **kapital privatuak** (6); **kartzela privatuak** (3); **kate privatuak** (5); **kontsumo privatuak** (4)

**privatuak eta publikoak** (3); **publiko eta privatuak** (3); **publikoak ala privatuak** (3); **publikoak eta privatuak** (11); **publikoak nahiz privatuak** (5)

**sektore privatuak** (5); **telebista kate privatuak** (5); **unibertsitate privatuak** (8); **zerbitzu privatuak** (4)

**alor privatuan** (3); **arlo privatuan** (7); **bizitza privatuan** (12); **enpresa privatuan** (5); **eremu privatuan** (10); **eskola privatuan** (3); **esparru privatuan** (4); **modu privatuan** (6); **publikoan eta privatuan** (3); **sare privatuan** (4); **sektore privatuan** (8)

**jabetza pribatuarekin** (3)

**bizitza pribatuaren** (7); **ekimen pribatuaren** (5); **ekimen pribatuaren esku** (3); **enpresa pribatuaren** (7); **eremu pribatuaren** (3); **garraio pribatuaren** (3); **jabego pribatuaren** (3); **jabetza pribatuaren** (8); **kapital pribatuaren** (12); **kapital pribatuaren esku** (4); **kontsumo pribatuaren** (5); **privatuaren eta publikoaren** (4); **publiko eta pribatuaren**

(5); publikoaren eta pribatuaren (9); sektore pribatuaren (7); sektore pribatuaren (3)

bizitza pribatuari (4); sektore pribatuari (4)

enpresa pribatuek (21); eragile pribatuek (4); eskola pribatuek (3); eskualtegi pribatuek (3); ikastetxe pribatuek (3); inbertsiogile pribatuek (5); jabe pribatuek (3); publiko eta pribatuek (4); subjektu pribatuek (4); unibertsitate pribatuek (5)

enpresa pribatuekin (5)

elkarte pribatuen (5); elkarte pribatuen esku (3); enpresa pribatuen (29); enpresa pribatuen esku (12); eragile pribatuen (5); eraikin pribatuen (4); erakunde pribatuen (6); eskola pribatuen (3); inbertsiogile pribatuen esku (15); interes pribatuen (9); jabe pribatuen (4); kapital pribatuen (5); konpainia pribatuen (3); mediku pribatuen (5); publiko eta pribatuen (8); publikoan eta pribatuen (3); unibertsitate pribatuen (3)

enpresa pribatuetako (4); eskola pribatuetako (5)

bilduma pribatuetakoak (3)

enpresa pribatuetan (3); erakunde pribatuetan (3); erietxe pribatuetan (3); eskola pribatuetan (3); esku pribatuetan (19); esku pribatuetan utziko (3); esku pribatuetan uzteko (3); klinika pribatuetan (5); publiko eta pribatuetan (6); publikoetan eta pribatuetan (3); unibertsitate pribatuetan (4); zentro pribatuetan (3)

esku pribatuetara (4)

enpresa pribatuk (4)

bizitza pribatuko (5); eskola pribatuko (4); gela pribatuko (4); izaera pribatuko (3); segurtasun pribatuko (5); sektore pribatuko (9)

eremu pribatura (3); sistema pribatura (3)

bizitza pribaturik (4)

## privatuki *adlag* pribatuan; era pribatuan.

Horrela murriztuko duzu **privatuki** eta publikoki esandako hitzen aldea. **Pako Aristi**

**Privatuki** bere arrazoiak azaldu bazizkieten, dena kontu pribatu gisa gelditu zen, ez da inon jaso. **Jon Alonso**

## privatutasun *(orobat pribatasun g.er.)* 1 *iz* pribatua denaren nolakotasuna.

Interesa dutenek beren datuak eta harremanetan jartzeko modua jarri behar dituzte orrian (datuen **privatutasuna** ziurtatu dute). Erantzun zion burutik ondo zegoen edozeinek begiratu lukeen azken lekua zela hura, eta beraz bermatuta zutela nolabaiteko **privatutasuna**. **Berria - Euskal Herria**

### 2 barrukotasuna. ik **privazitate**.

Era horretan urritua izatea da **privatutasunerako** eskubide oro galtzea. **Oskar Arana**

Emakumearen intimitatea, **privatutasuna** eta autonomia ez dituztelako bermatzen. **Berria - Euskal Herria**

Zaharra morroi zuhurra zen eta arreta handiz zaintzen zuen bere **privatutasuna**. **Bego Montorio**

Ramsaytarren zortzi seme-alabak nor bere gelara abiatu ziren, **privatutasunik** gabeko etxe hartan zituzten gotorleku bakarrak. **Anton Garikano**

## privazio *iz* gabezia, gabetasuna.

Forma, higikariaren etorkizuna da; **privazioa**, haren iragana, eta, materia, beti presente dagoen hori. **Askoren artean**

Soziologian aspaldiko printzipio bat da **privazio** absolutuak ez duela itxaropenik ekartzen eta, aitzitik, **privazio** erlatiboak frustrazio ugari. **Berria - Euskal Herria**

## privazitate *iz* barrukotasuna. ik **privatutasun** 2.

**Privazitatea**, kontsumitzaileen babesa, jabetza intelektuala, egin daitezkeen kontratuak, eta abar, horiek guztiek nolabaiteko araudia behar dute etorkizunean, batez ere sareko merkataritza indartu egiten baldin bada. **Pello Salaburu**

Horretarako kontsumitzailea bera zen, eta da, produzitu beharrekoetan behinena, behar berriak asmatu eta publikizitatearen bitartez norbanakoaren **privazitatea** argituz, hornituz eta jantiz. **Iñaki Segurola**

Emakumeenganako jarrera bikoitza, amultsua eta aldi berean epela; haren manera xuabeak eta izaera biguna; haren **privazitate** jeloskorra. **Aingeru Epaltza**

## privilegiatu, pribilegia, pribilegiatzen *(orobat pribilegiatu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian pribilegiatu agertzen da)* 1 du ad pribilegioak eman.

Profeta handiak berak **privilegiatu** zuela Ordena, honen izena hain argi adierazi zuenean. **Askoren artean**

"Ordenei" (*ordines*) dagokienez, izena erromatar gorputz politikoan zeuden politikoki **privilegiaturiko** klaseetatik hartu zuten. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (era burutua izenondo gisa) ik **privilegio** 4; **privilegio** 6.

Frantziskoren ikasle **privilegiatu** bihurtzen da Klara. **Askoren artean**

Maila hau izaki **privilegiatu** batzuei baino ez dagokie. **Askoren artean**

Lanaren aristokrazia **privilegiatua**. **Iñaki Heras**

**Pribilegiatu** bat haiz, Mitxel: solairu honetan dagoen gaixorik **privilegiatua**. **Anjel Lertxundi**

-Egoera **privilegiatuez** ari naiz hizketan. **Monika Etxebarria**

Harreman **privilegiatuak** sortzea eta garatzea Québec-eko euskaldunen eta Euskal Herriko edo mundu osoko Euskal Herritarrekin. **Herria**

«informazio **privilegiatua**» helaraziko die Lokarriren parte-hartze sarean izena ematen dutenei. **Berria - Euskal Herria**

[Bazitekeen] askatasun hura gutxiengo baten pribilegioa izatea eta gutxiengo **privilegiatu** hura arduragabe eta zapaltzaile bihurtua izatea. **Iñaki Mendiguren**

**Pribilegiatuen** sinesmenak etengabeko asetasunaren kausaren zerbitzura jartzen dira, eta era bertsuan moldatzen dira garaiko ideia ekonomiko eta politikoak. **Iñaki Heras**

Eskolari esker, gainera, mundu guztiak daki orain lehen **privilegiatu** bakar batzuek baino ez zekitena. **Joxerra Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

gutxiengo privilegiatu (4)

egoera privilegiatua (3); leku privilegiatua (4); pribilegiatua izango (3)

egoera pribilegiatuak (3)

## privilegio *(orobat pribilegio g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian pribilegio agertzen da)* 1 *iz* gizabanako edo talde bati, guztientzako legetik at, ematen zaion eskubide edo abantaila berezia.

Lege gehienak **privilegioak** besterik ez dira, hots, denek ipintzen duten ordain-saria, gutxi batzuen onerako. **Juan Martin Elexpuru**

**Privilegioak** dira, ez eskubideak. **Berria - Harian**

Nobleziak **privilegioak** zituelako lege penalaren aurrean. **Juan Martin Elexpuru**

Pariseko Batzarrak **pribilegioak** eta jauretxe-abantailak oro ezeztatzen zituen, probintzia, printzerri, kantonamendu, hiri bai eta komunitate eskubideak barne. Elena Touyarou

Nabigatzaileek **pribilegio** batzuk jasotzen zituzten, inperioaren osasuna beren arduraren mende zegoelako. Iñaki Iñurrieta

Libreki predikatu ahal izateko **pribilegioa** eska zezan. Askoren artean

Zergatik onartzen zaio Elizari eskolak ematen segitzeko **pribilegioa** ? Berria - Harian

Berdin da zein **pribilegio** ematen zaion hauei batarik edo besteari. Xabier Arregi

Hiru mendez feudal kutsuko hainbat **pribilegio** gordetzeko bertako elite oligarkikoek gidaturiko ahaleginean. Iban Zaldua

Uko egiten dio Erromako kurian **pribilegioak** eskatzeari. Askoren artean

Latinarren erabilera ofiziala eskatu beharreko **pribilegiotzat** hartzen baitzen. Iñaki Mendiguren

Horregatik izan ote da beti hizkuntza idatzia elizgizonen **pribilegioa**, lehenbizi apaizena eta gero fraideena? Karlos Zabala

Elizgizonen **pribilegioen** kontra. Iñaki Iñurrieta

Klarak, bere bokazioaren berezitasuna gordetzearren, Pobretasunaren **Pribilegioa** lortzen du Aita santu Inozentzio III.aren gandik. Askoren artean

Napumoceno jaunak ez zuen inoiz onartu kudeatzaile bakarria izateko **pribilegioa** besteren esku uztea. Bego Montorio

## 2 (izenondo edo izenlagunekin)

Ezkonduerik **pribilegio** handiak eman zitzaizkenez, legeek ez zuten nahi alferrikako ezkontzarik. Iñaki Iñurrieta

Erromatar Legearen mende bizitzea erromatar herritarasunaren **pribilegio** ospetsuetako bat zen. Iñaki Mendiguren

**Pribilegio** berezi batez agertu zen markatua, hau da, zauri sakratuez izan zen ohoratua, gorputz hilkor honetan Gurutziltzatuaren gorputzaren irudiko egina. Askoren artean

Aholkulariek beto eskubidea izateari «**pribilegio** arkaikoa» iritzi diote. ondik ote zetorren halako **pribilegio** aparta? Berria - Mundua

Goa-ko erregeordeak partikularrei ematen zizkien **pribilegio** eskusiboak. Iñaki Iñurrieta

Lisboa hemendik goitik ikustea erabateko **pribilegioa** da. Edorta Jimenez

Frantziskok ez du inondiko eta inolako **pribilegiarik** nahi. Askoren artean

Ez dut nabarmendu nahi askatasunezko **pribilegio** honengatik. Askoren artean

## 3 abantaila edo dohain berezia.

Nagusia bulego dotorean sartzeko **pribilegioa** izan dut. Jon Arretxe

**Pribilegioa** da pelikula hau egitea, gustatzen zaigun istorioa gure erara kontatzea. Berria - Harian

Agian astero jokatzea **pribilegio** bat dela gogoratzeke ongi etorriko zitzaizun ordezkaria izatea. Berria - Kirola

Aukeratu ahal izatea **pribilegio** handia omen. Berria - Kirola

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik pribilegiatu 2.

**Pribilegio** tratua gaitzetsi eta bere txanda defendatzen zuten baten bat izatekotan, ulerkortasun faltaren marmararri egin behar izango zion aurre. Berria - Euskal Herria

Ez dira nahastu behar hiru **pribilegio** -mota horiek. Iñaki Iñurrieta

Ez da hor amaitu Mister Khanek aipatu didan **pribilegio** zerrenda luzea. Jon Arretxe

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pribatizazioak, dirulaguntzen eta «zerga-**pribilegioen**» murrizketa, eta zor publikoa handitzea. Berria - Ekonomia

Inmunitate-**pribilegioa** eta, beraz, justiziarena, elizgizonenak eta seglarrenak zirela, zeren eta batzuentzat zein besteentzat egin baita. Iñaki Iñurrieta

Herri **pribilegioak** ere kendu dituzte. Elena Touyarou

Jainkosak berak eta parekoek zuten hilezkortasuna bere giza maitaleari emateko eskatu zuten olinpiar lagunei; eta haien, beren jainko **pribilegioekiko** jelsokorrak izan arren, Erosek hainbestearinoxe gogaitu zituzenez, azkenean amore eman zioten emearen gogaikarritasunari. Iñaki Mendiguren

## 6 pribilegiozko ik pribilegiatu 2.

Beste neskek harekin ibili nahi zuten beti eta esaten zuten, bere **pribilegiozko** posizioarengatik ere, ez zela batere harroa. Koro Navarro

«Patronalaren **pribilegiozko** egoeraz» eztabaidatzeko paradarik ez dago sektoreko mahaietan. Berria - Ekonomia

Etxeak baloratu egin behar dira, eta, era horretara, Gasteizko iparraldea **pribilegiozko** zonalde bihurtuko da. Berria - Euskal Herria

Proporzio arkitektonikoak Vitruviorengan aparteko konparazio-termino **pribilegiozkoa** aurkitzen badu, [...]. Santiago Iruretagoiena

Politika-bide horiek murriztu egingo baitzuten oligarkiarenean errosahalmena eta kalte egingo zieten Europarekin zituen harreman **pribilegioezko**ei. Koro Navarro

Argi adierazten du Ekialde Urrunaren boterearen igoaldia, eta estatubatuar merkatuarekin dituen lotura oraindik **pribilegiozkoak**. Koro Navarro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pribilegio** bakarra (3); **pribilegio bat** (8); **pribilegio batzuk** (5); **pribilegio berbera** (3); **pribilegio berezi** (4); **pribilegio berezi batez** (4)

**izateko pribilegioa** (6); **pobretasunaren pribilegioa** (7); **pribilegioa eman** (3); **pribilegioa izan** (4)

**bere pribilegioak** (5); **dituzten pribilegioak** (4); **feudoen pribilegioak** (3)

**pribilegiotzat hartzen** (3)

## pribilegiadun *izond* pribilegioa duena; pribilegioak dituen.

Antzinako Erregimenean, norbanako **pribilegiadun** eta **pribilegiogabekoen** arteko bereizketa, leinuzkoen eta arrunten arteko horrek bazituen, ondasunen ikuspegitik, sailkapen ugari, gaur egun desagertu eta berriro biztuko ez direnak. Andres Urrutia

Ez dut zaindutako gorra edo **pribilegiaduna** izan nahi, eskubide guztiak dituen gorra baizik. Berria - Harian

## pribilegiogabe *izond* pribilegiarik ez duena.

Antzinako Erregimenean, norbanako **pribilegiadun** eta **pribilegiogabekoen** arteko bereizketa, leinuzkoen eta arrunten arteko horrek bazituen, ondasunen ikuspegitik, sailkapen ugari, gaur egun desagertu eta berriro biztuko ez direnak. Andres Urrutia

## pribilegiatu ik pribilegiatu.

## pribilegio ik pribilegio.

## prima donna *iz* operetan rol nagusiak kantatzen dituen emakumea.

Pauline Hall (1860-1919) **prima donna** amerikar ospetsua. Xabier Olarra

Batzuetan, gogo-berotasunaren beroz, **prima donna** handiren baten kotxeko zaldiak askatu eta berek eramaten zuten kalez kale hoteleraino. Irene Aldasoro

D'Annunzioren faxismoa eta haren **prima donna** itxura gorrotagarria. [Anjel Lertxundi](#)  
**Prima donna** baten antzera sartzen dira, munduan jendea egotearen arrazoia delakoan beren emanaldia. [Anton Garikano](#)  
Begiralea eseri zait aldamenean **prima donna** baten espantu eta frufuru berak eginez. [Anjel Lertxundi](#)

## **prima**<sup>1</sup> *iz* jarduera bati dagokion saria.

Emandako **primak** exekutiboen lan onarekin lotuta daude, Vodafonek egindako erosteko eskaintza areriotsuaren aurrean Mannesmannen balioa 70.000 milioi eurora igotzea lortu zutelako. [Berria - Ekonomia](#)  
Ardien **primak** hunkitzen dituzten laborariek behar dituzte egin deklarazioeak hilabete ondarreko. [Herria](#)  
Miliu eta ehun mila libera zahar banatu dire azizien **priman** herritarreri. [Herria](#)  
Instalatzeko **primak** erabiliz, etxaldea handitzeko zein barruki eta arditegiak berritzeko asmoa zuen. [Itxaro Borda](#)  
Lanaren balorazio ezberdinean, profesioen sailkapenean, soldatak egituratzeko moduan osagarriak edo **primak** eta sustapen sistemetan dago horren jatorria. [Berria - Euskal Herria](#)

## 2 ordainketa nagusiaren gehigarria.

Zuzendaritzak dio soldata horiek urte osoan izaten diren hainbat **prima** gehitzen zaizkiela. [Berria - Ekonomia](#)  
Hori, zergak ordaintzen dituztenentzat garestiago aterako da, haien zergetatik ordainduko baitira **primak**. [Berria - Ekonomia](#)

## 3 aseguru hartzaileak aseguratzailerari ordaintzen dion kuota.

Posta eta oroigarriak, banku-agiri, telefono eta argi fakturak, aseguru-**prima** edo zerga-inprimakien aldakien ondo-ondoan. [Joxan Elozegi](#)  
Truke-tasen aldaketa arriskurik ez dagoenez, ez dira arrisku horiek aseguru **primak** ordainduz babestu behar. [Iñaki Heras](#)  
Egidazu urteko **prima** hain baxu, non, seguru aski suak suntsitzen duenean, zuen adituak kalkuluen arabera, kalteordaina baino askoz gutxiago ordaindua izango duan. [Xabier Olarra](#)  
Zuk gehiago ordaindua izateko moduko **prima** ezarri behar dizugu. [Xabier Olarra](#)

## 4 ipar txapelketa-saria.

Uda huntan Bidarten izan diren konkurrentan gure taldeak **lehen prima** bildu eta ohorezko kopa ukan du. [Herria](#)  
Senpereko dantzariak **lehen prima** ardietsi ere zuten Donibane Lohizunen egin zen zoin-gehiagoka batean. [Herria](#)  
Hamar esnadunetarik seiek ukan dute **lehen prima** bakotzak bere mailean. [Herria](#)  
**Lehen prima** zen Eskual makila bat. [Herria](#)  
Hor ziren albaitari argituek, **primak** eman behar-eta... [Herria](#)

## 5 arrisku prima

Operazioak **arrisku prima** handiarazi diola uste dute eta bi egunotan gogotik zigortu dute. [Berria - Ekonomia](#)

### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lehen prima** (8); **prima berezi** (4); **prima berezi bat** (3)  
**kantonamenduko abereen primak** (4)

## **prima**<sup>2</sup> *iz* orduen liturgian, lehen orduari dagokion otoitza.

Ordu egokian erreza bezate **Prima**, eta Tertiaren ondoren eten bezate isiltasuna eta zilegi bekie hitz egitea eta beren amengana joatea. [Askoren artean](#)  
Laikoek, berriz, esan biltzate hogeita lau Gure Aita maitinen orde; gorespenen orde bost; **prima**, tertzia, sexta eta nona, bakoitzaren orde zazpi; bezperen orde hamabi, eta kompletan orde zazpi. [Askoren artean](#)  
Goizeko otoitzean (**priman**). [Askoren artean](#)

## **prima**<sup>3</sup>

### 1 *prima materia* lehengai.

Ahokotasunak ez zuela literaturarekin zerikusirik; ahokoak ez zuela estilorik, kaotikoa zela; **prima materia** soil, trakets eta xehea, besterik gabe [Bernardo Atxaga](#)

### 2 *opera prima* ik *opera*<sup>2</sup>.

## **prima**<sup>4</sup> *iz* emakumezko premua. ik **premu**.

Tikitan, gurekin, **prima** zuhurraren egitekoa, eta handitan, bere lau seme-alabekin, ama ume-zorriarena ederki bete baldin bazituen, izeba prestuaren xarmak ateratzen jakinen zuen oraingo aldiko gure Unairekin. [Aingeru Epaltza](#)

## primabera ik **primadera**.

## **primadera** (*orobat primabera g.er.*) 1 *iz* udaberria.

**Primadera** jadanik loretan dugu. [Herria](#)  
Ez diat bertze usainik senditzen, **primaderako** lore usainak, salda on baten usaina, ez ditiat gehiago sendi ere. [Michel Oronoz](#)  
*Bronchite*-a joan zitzaidan **primaderako** lehen eguzkiekin, nahiz-eta sasoina mokorra eta berankorra izan gure gustuko. [Marzel Etxehandi](#)  
**Primadera** egun batez, joan zen bakarrik, proosionerik gabe laguntzeko, zakurrik gabe ere, eta hori anitzek eskas bat bezala senditu zuten. [Michel Oronoz](#)  
**Primaderan** egin lana udazkenerat agertu. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

## 2 irud/hed

Hots, negua dela sozialixtentzat bainan negutik landa beti heldu dela **primadera** berri bat... [Herria](#)  
Badea **primaderarik** Irak-en? [Herria](#)

### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**primaderako feiria** (10)  
**heldu den primaderan** (3); **joan den primaderan** (8); **joanden primaderan** (3)



## primaka iz ipar leihaketa, leihaketa.

Ligi eta Atheiko karrikek, üsü üsia, artzaiñ txakür **primaka** bat, antholutzen ziren. **Herria**

"Antso Handia pastoral" alkarteak afixa moldatze **primaka** bat plantatzen dü, nahiant ororer zabalik. **Herria**

## primaketa iz ipar leihaketa.

Larunbat huntan beharra da gure herrian pottoka feria edo **primaketa**, goizeko 9etarik goiti. **Herria**

Urriaren 2an, ibiakoitz huntan, beharra da Garazi eta Baigorriko kantonamenduetako abere **primaketa** (behi, ardi eta zaldi) Donibane Garazin. **Herria**

Txirridularitza, zaldi lasterketa, zango eta eskubaloi partidak, sagarno lehiaketa, behi **primaketa**, indar joko, entzierro, kontzertu... **Herria**

· 18 etan, fandango zoiñgehiagoka: Azkaineko **primaketa** handia 5000 libera. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abere primaketa** (6)

## primak izond

Existentzia orok bizi du bere traumatismo **primaleko** eguna, bizitza lehengo baten eta ondoko baten artean banatzen duena, eta aski da haren oroitzen ilaunena ere abere-izu irrazional sendaezin bat sorrarazteko. **Joxan Elozegi**

## primaria iz pl hauteskudeez mintzartuz, primarioak. ik primario 3.

Ido horretan, **primariak** hasi baino lehenago favorito zen Howard Dean Vermontgo gobernadore ohiak hilaren 17an Wisconsinen egin behar den kaukan irabazten ez badu erretiratuko dela iragarri zuen. **Berria - Mundua**

## primario 1 izond lehena, beste zerbaiten aurretikoa, oinarritzkoa.

Sabaiaren paletan kolore **primarioak** milaka tonalitate sortzeko nahastu bezala. **Sonia Gonzalez**

Ibaietako algak, berriz, ekoizle **primarioak** dira eta horiek zuhaitzek lurtean egiten duten gauza bera egiten dute. **Berria - Gaiak**

Energia **primarioaren** %20 energia iturri berriztagarrietatik lortzeko konpromisioa hartzeko eskatuko die Greenpeacek Europako Batasuneko kide diren herrialdeei. **Berria - Gaiak**

Erretinatik garuneko ikusmen-alde **primarioa** igortzen ziren "zentzumen-datu" edo "inpresio"ekin parekatzen zen ikusmen-pertzepzioa. **Xabier Olarra**

Iradoki zuen existitu behar zirela ikusmen-gune bereizi batzuk, ikusmen-kortex **primarioan**, "argi-inpresio", "kolore-inpresio" eta "forma-inpresio"entzat. **Xabier Olarra**

Konstruktio teoriko horrek -ahozkotasun **primarioa**, kultura idatzi inprimatua, ahozkotasun sekundarioa- badu bere egitura kutsu ia bibliko halako bat. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Dena esateko -eta abere-sen hain **primario** hori azaldu beharrak lotsatu egiten nauelarik ere-, aitortu beharra dut jatea eta edatea bezalako behar oinarritzkoa ase ondoren fisiologiaren beste agindu batzuk bete nahiak eraman ninduela ohera. **Ramon Saizarbitoria**

Beraz ez da, sena bezala, egokitzaila, ez eta behar **primarioa** bezala, funtzionala, arras desegokitzaila eta disfuntzionala baizik. **Berria - Harian**

## 2 primitiboa, landugabea.

Ulertu egin nuen **primarioa** den jendeak zergatik hiltzen duen maitasun kontuetan. **Mikel Hernandez Abaitua**

Maitasun primitiboa gorroto primitiboa konkistatzen du, erruduntasun **primarioaren** kargarekin zamatzean. **Iñaki Mendiguren**

Maitatzeko modu nartzisista **primario** hau du bereizgarri haurrak; heldua den pertsona malenkoniatsuarena da nartzisismo mota bigarrena. **Joseba Zulaika**

Badagoela jendea zeinarentzat giza sexualitatea instintu edo sen bat besterik ez den, edo, behar **primario** hutsa. **Berria - Harian**

Higuin zituen debaldeko ihauterik, ezin sor baitezakete [...] garai guztiak berdinak direlako edo desberdinak direlako ideia **primarioak** eragindako lilura. **Juan Garzia**

Denak du hauts usain bera, **primarioa**, landugabea. **Eider Rodriguez**

Haizeak puzka egiten duen bezala esaten zuen hark gezurra, halako indar **primario** batez, poz hezikaitz batez. **Ander Irizar**

Gauza **primarioa**, giza aurrekoa da; apika denok, jakin gabe, geure baitan dugun zerbait. **Xabier Olarra**

Emozioa, berriz, "**primarioagoa**" da hori baino, eta esanahi jakinik gabe bizi izaten da askotan. **Josu Zabaleta**

Artelana bigarren mailako diskurtso bezala aztertzen da [...] baina diskurtso **primario**, inkontziente baten sintoma-aztarrenak dituela. **Josu Zabaleta**

Antiamerikanismo **primarioa**. **Itxaro Borda**

## 3 p/hauteskudeez mintzatzuz, alderdi politiko batean, hauteskunde jakin batzuetako zerrenda burua aukeratzeko egiten direnak.

Demokraten **primarioak** hasi aurretik, bera zen hautagai bihurtzeko favoritoa. **Berria - Mundua**

New Hampshire Estatuan asteartean eginitako **primarioetan**, bozen %39a lortu zuen, Howard Dean nabarmen atzean utzita. **Berria - Mundua**

Joan zen astean Iowan lehenengo **primarioak** egin arte, kolorerik gabeko eta irabazteko aukera handirik gabeko hautagaizat deskribatzen zuten Kerry. **Berria - Mundua**

Washingtonen irabaziko duela dio Deaneak, lehen **primarioetan** atzeko postuak baino lortu ez arren. **Berria - Mundua**

Udaberrian eginitako hauteskunde **primarioen** ondoren, beste une gorena da konbentzioa, azaroaren 2an egitekoak diren presidentetzarako hauteskunde bidean. **Berria - Mundua**

· Abenduaren 2ko presidentetzarako bozen aurretik, alderdi biltzar eta **primario** sail korapilatsua dator. **Berria - Mundua**

## 4 sektore primario ik sektore.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**demokraten primarioak** (4); **hauteskunde primarioak** (3)

**hauteskunde primarioetan** (4)

**hauteskunde primariotan** (3)

## primariotasun iz primarioa denaren nolakotasuna.

Lytardek (1970) hizkuntzaren lehenetasuna eraisteko gerra-makina bezala hartzen du figuraren kontzeptua, eta, horrela, desiraren, **primariotasunaren** (Freuden zentzuan) agerleku bezala hartzen du figura. **Josu Zabaleta**

## primate 1 iz eskuak oratzaileak, azazkalak lauak eta ahalmen psikiko aurreratua duten ugaztunen ordena, gizakia eta tximinoak hartzen dituena.

Animaliak gara, ugaztunak, **primateak**. Luis Elberdin

**Primateen** familiako ugaztunak gara. Luis Elberdin

**Primate** gehien-gehienek ez dute elkarren artean loturarik sortzen. Luis Elberdin

Larruazalaren zentimetro koadro bakoitzeko ile kopurua bertsua dela gizakietan eta gainerako **primateetan**. Irene Aldasoro

Giza garunaren berezitasun harrigarrietako bat lobulu frontalen handitasuna da; askoz txikiagoak dituzte beste **primateek**, eta ia nabariezina beste ugaztunek. Xabier Olarra

Ez dira animalia-bizia sortu ziren garaikoak, **primateetatik** hominidoetarako eboluzio garaikoak baizik. Berria - Gaiak

**Primate** emeengan kloria kanporago dago, beste ugaztun emeengan baino. Luis Elberdin

**Primate** arrek ere miazkatzen dituzte emearen baginako ezpainak. Luis Elberdin

Gizaki gizahiltzaileak gara, hominido homizidak: **primate** gorbatahun globalizatuak, nahi izanez gero, baina **primate** gizahiltzaileak azken buruan. Berria - Kultura

Karrajok, galtzontzilotan, *homo sapiens* baino bi eskail-maila beherago dagoen **primatea** zirudien. Unai Iturriaga

## 2 (izenondo gisa)

Giza masturbazioa aztertzeko orduan, ez dugu ahaztu behar [...] gure sexualitate **primatea**. Luis Elberdin

## 3 (hitz elkartuetan)

**Primate** talde bat gara, eta gu gatozen eboluzio lerrotik giboiak duela 25 milioi urte banandu ziren; orangutanak, duela 15 milioi urte; [...]. Luis Elberdin

Badakigu **primate** eta ugaztun familia askotan ere oso ohikoak direla sexu berekoen arteko jardura sexualak. Luis Elberdin

Lau milioi urte daramagu bi hankaren gainean ibiltzen, baina orain arte giza **primatearen** lan behinena bizirik irautea. Luis Elberdin

Xinpantzeak eta giza **primateak** sortu ziren adarraren banaketa duela 6 milioi urte baino ez zen gertatu. Luis Elberdin

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

giza **primate** (3); **primate emeengan** (4)

giza **primatea** (5)

giza **primateak** (5)

giza **primateek** (4)

giza **primateen** (15); **giza primateen artean** (4); **primateen artean** (7); **primateen sexualitatea** (3); **primateen sexualitatearen** (3)

giza **primateok** (34); **primateok bikotea osatzeko** (3)

## primatu<sup>1</sup> *izond* herrialde edo eskualde bateko gainerako artzapezpiku edo apezpikuen gainean nagusitasuna duena.

Ingalaterrako **Primatua** Canterburyko Artzapezpikua da. Xabier Olarra

Dioesi deitzen ziren probintzi multzo horietako baten administrazio-erdigune zen auklko apezpikua onartu zuten beren **primatu** gisa. Iñaki Mendiguren

Mundu guziko gure Anaia agurgarri Patriarkei, **Primatuei**, Artzapezpikuei, Apezpikuei eta beste eskualdeetako buruzagiei. Piarres Xarriton

Beraz, gure prelatu auzipetua, ez nonahiko Artzapezpikua delarik, baina Toledokoa, Espainietako **primatua** eta Eliza Katolikoaren hain printze handia, bi epaile soilen esku uzten da. Piarres Xarriton

## primatu<sup>2</sup>, prima(tu), primatzen du *ad ipar* saritu.

Lekeitioko festibalean **primatuak** izan diren bost euskal labor-metraia ikusten ahalko dira. Herria

Ligiko garagarardua, Parisen **primaturik**. Herria

Arraza bereko behi eta zezenetan, batzu **primatuak** izan dira Akitaniatik kanpo direnak, Alpetan frango gora ere haziak berdin! Herria

## primera 1 *iz* auto baten abiadurez mintzatuz, lehen sartzen dena.

Hiru martxa dauzka: **primera**, segunda eta *drick* ("directa" omen ingelesez). Pako Aristi

Tapaxek **primera** sartu, aurrera egin zuen; Saxok, kleenex paketeak eskuan, bera despeditu eta, kaltzadara egin zuen. Pablo Sastre

## 2 mailez eta kidekoez mintzatuz, hoberena. ik**lehen 6**; ik beherago **4**.

Orduan dena **primera**, segunda eta tertzerakoa izaten zen, treneko bagoiak eta eserlekuak berak, medikuak, hiletak..., zenbat diru zenuen. Patxi Zubizarreta

**Primerako** bagoia ia hutsik topatuko duzu eta trenaren pasillotik bagoirik bagoi joanen zara, primerakotik segundakora, segundakoa zeharkatu eta indioz, kipez eta oiloz betetako hirugarreneko bagoietara pasatuko zara. Joseba Sarrionandia

Egia da edozein kirol hartuta ere, gutxi batzuek osatzen dutela elitea, gainerakoak **primera**-ko sailekoak izan arren. Berria - Kirola

## 3 (izenlagun gisa) lehen.

-Kaixo, baliente, **primera** linean?g Iñaki Iñurrieta

## 4 *primerako izlag* bikaina.

Mikek argazki-estudio bat zuen etxean, **primerako** tresneria. Karlos Zabala

**Primerako** emakumea dela esango nuke: elegantea, azkarra, sen handikoa... Ana Urkiza

Ez al nintzen, bada, **primerako** fisiognomista? Matías Múgica

Orduan **primerako** morroiak: "eta hemen ere ez al dago behar baino taliban gehiago?". Joxerra Garzia

Beste batzuk, berriz, dirua dutenez **primerako** materiala dute. Berria - Euskal Herria

Txakurra alboan edukitzea **primerako** aitzakia da neskak gure aldera inguratzeke. Jon Arretxe

Europa **primerako** ehiza eremua da atzerriko zerbitzu sekretuentzat. Berria - Mundua

Esainek **primerako** maila eman du beti lau t'erdian. Berria - Kirola

Hala eta guztiz ere, **primerakoa** izan zen, nik esaten dudana bezala. Karlos Zabala

## 5 *primeran adlag* bikain.

-Osasunez **primeran** nago. Patxi Zubizarreta

**Primeran** atara zen dena. Koro Navarro

**Primeran** pasatzen zuen gauza horiek eginez, nik uste. Karlos Zabala

Uste dut **primeran** moldatuko garela. Mirentxu Larrañaga

Nik uste gaur **primeran** egingo dudala lo. Patxi Zubizarreta

Hannak **primeran** ulertzen omen zuen nire erabakia. Joxe Austin Arrieta

Mollyk **primeran** ezagutzen zituen izarrak -Hartz Handia, Esne Bidea, Iparrizarra- maiz ahalegindu ohi zen haien izenak niri irakasten. Mirentxu Larrañaga

-Kat, polit hori, lehengo egunean **primeran** ikusi zintudan, baina gaur ez daukazu aurpegi onik. Sonia Gonzalez

-**Primeran** -esan zuen mutilak-. Mirentxu Larrañaga

-Ederki, Eduardo, **primeran**! Aingeru Epaltza

**Primeran**, hi, **primeran**! Antton Olano

A bai, **primeran**, aizu! Antton Olano

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**primerako atzelaria** (3); **primerako giroa** (4); **primerako ikuskizuna eman** (3); **primerako joko** (3); **primerako maila eman** (4); **primerako partida** (3)

**primerakoa izan** (5)

**primerakoak izan** (3)

**atsedena primeran etorri** (3); **dena primeran doa** (4); **euskaraz primeran** (3); **guztia primeran** (3)

**primeran ari** (7); **primeran aritu** (11); **primeran aritu zen** (5); **primeran atera** (3); **primeran baliatu** (8); **primeran baliatu zuen** (5); **primeran bizi** (5); **primeran dabil** (4); **primeran dago** (10); **primeran datorkit** (4); **primeran doa** (7)

**primeran egin** (8); **primeran egingo** (4); **primeran egiten** (3); **primeran egokitzen** (3); **primeran egon** (4); **primeran erantzun** (3); **primeran etorri** (8); **primeran etorriko** (8); **primeran ezagutzen** (10); **primeran hasi** (3)

**primeran ibili** (6); **primeran iruditzen** (5); **primeran iruditzen zait** (3); **primeran izango** (3); **primeran joango zaigu** (3); **primeran jotzen** (3); **primeran konpondu** (3); **primeran konpontzen** (4); **primeran moldatu** (6); **primeran moldatzen** (22); **primeran moldatzen da** (6); **primeran nago** (6)

**primeran oroitzen** (3); **primeran pasa** (5); **primeran pasatu** (9); **primeran pasatu nuen** (3); **primeran pasatuko** (3); **primeran pasatzen** (10); **primeran pasatzen ari** (3); **primeran portatu** (4); **primeran sentitzen** (5); **primeran tratatu** (3)

**primeran ulertzen** (4)

## primerako ik **primera** 4.

## primigenio *izond* hasierakoa, jatorrizkoa.

Hastapenetan izan ziren halako izakiak, jakina, Unibertsoa osatu zutenak, izaki **primigenioak**, baina gu sapiensak gara, Unibertsoa habitatzen dugun gizakiak. **Karlos**

**Linazasoro**

Kobazuloetako gizakiaren lilura **primigenioa** berritu dute denek ere, biribil batean bildurik, lehenengo su-lama hori-gorriak altxatzen ikusi dituztenez. **Xabier Mendiguren**

**Elizegi**

Hemengo egunkari guztiek ekarri dute albistea: Atxaga asasinatu nahi omen du Joseba Irazu **primigenioak**. **Hasier Etxeberria**

## primitibismo 1 *iz* primitibotasuna.

Poema haiek, eragiten zuten zirrarekin, soinuaren eta erritmoaren indarrarekin, beren **primitibismoarekin**, eta irudi biblikoen eta sexualen arteko tentsioarekin, gehiago zor zioten galestar jatorriari bere garaiko poesia sozialaren aldeko gustuari baino. **Koro Navarro**

### 2 (teoria filosofikoa)

Mendebaldean kultura aztertzen duten joera nagusiak arakutzen dira: eboluzionismoa, **primitibismoa**, lege naturalaren doktrina eta idealismo alemaniarra. **Askoren artean**

Teoria konparatibisten artean eboluzionismoa eta **primitibismoa** ikusiko ditugu, **Primitibismoa** ez zen filosofia modernoan zabaldu, bai ordea literaturan eta artean (operan, eleberrietan, antzerkian, margolanetan). **Askoren artean**

Aurki guztiek beren binperra dute: eboluzionismoaren binperra **primitibismoa** da. **Askoren artean**

## primitibo 1 *izond* herri edo gizakiez mintzatuz, zibilizazio garatua, eta bereziki idazkera, ezagutzen ez duena.

Gizarte **primitiboak**, guk ezagutzen ditugun bezala, estatikoak dira. **Iñaki Mendiguren**

Eboluzionismoaren unerik gorenean antzinako gizarte **primitiboen** ezaugarriak erabat negatiboak ziren: gizarte **primitiboak** zibilizazioaren kontrakoak ziren. **Askoren artean**

Gizarte **primitiboetatik** lehen zibilizazioak sortu ziren garaitik. **Iñaki Mendiguren**

Aipa dezagun bide batez sentimendu horri esker sortzen dela herri **primitiboetan** hizkuntza aztura gisa hartzea, hizkuntza, jantzien edota armen ohituraren antzekoa bailitzan. **Isabel Arrigain**

Alabaina, historia eta zibilizazio gabeko euskaldun **primitibo** horiek legeria eta justizia paregabe bat funtsean txit modernoa ere finkatu dute. **Joxe Azurmendi**

Arabiar musulman **primitiboek** zakar astindua zuten beren bizimodu arkaiko tradizionala. **Iñaki Mendiguren**

Zibilizazio Heleniko eta Indikoak gizaki **primitiboagandik** heredaturiko erlijioekin. **Iñaki Mendiguren**

Barbaro **primitiboek** zigor handirik gabe egin zezaketen krimen bat ez baita zigorrik gabe geratzen diru-ekonomiari iritsi diren gizarteetan. **Iñaki Mendiguren**

Choriset troglodita bat zen; gizaki **primitibo** baten adimena zuen. **Josu Zabaleta**

Barbaro bihurturiko herri **primitiboen** artean ohitura **primitiboaren** endekapenaren emaitzetako bat. **Iñaki Mendiguren**

### 2 herri edo gizaki primitiboek dagokiena.

Aro Heroikoa gizarte-interregno bat dela, non bizitza **primitiboaren** aztura tradizionalak galdu diren. **Iñaki Mendiguren**

Denbora, distantzia, luzera, bolumen, pisu eta balioaren neurri estandarrak gizarte-bizitzako premiak dira edozein mailatan, maila **primitibotik** gora. **Iñaki Mendiguren**

Egiazko Jainko bakararekiko giza elkartasun honek, erlijio **primitiboetan** planteatua eta erlijio nagusietan lortuak. **Iñaki Mendiguren**

Haritza sinbologia **primitiboan** erregetzari atxeki zaion landare noblea baita. **Patziku Perurena**

Gogoeta modu **primitiboagoak**, "prelogikoak" proposatzen ahalegindu zen Eisenstein (haurren pentsamendua, herri **"primitiboen"** pentsamendua, [...]). **Josu Zabaleta**

### 3 (izen gisa)

**Primitiboek**, Herioa gainditu nahian, giza gorputza irudikatu egiten zuten; guk, ordea, ordezkatu egiten dugu giza gorputza. Maiz, kultura modernoa zigor gisa ikusten da eta **"primitibo** prestu"aren irudia asmatzen da, batez ere Mendebaldeko zibilizazioaren ustelkeria salatzearen. **Joxe Austin Arrieta**

### 4 hasierakoa, jatorrizkoa.

Protohistoriako ene arbaso **primitiboak** baino harroago Fanchengana itzuli nintzen. **Itxaro Borda**

Georges Laplacek dio agoteak girixtino **primitiboak** zirela, oihanetan gelditu zirenak bizitzen, Erdi-Aroan eremuak labakitu zirenean laborantzarako. **Herria**

Etzola **primitiboaren** teoria. **Santiago Iruretagoiena**

Gorputzak odola zertarako behar duen ikusteko, gure lehen arbasoen bizileku izan zen ozeano **primitibora** itzuli beharra dago. **Irene Aldasoro**

Oxigenorik gabeko atmosfera **primitiboan** bizitzaren jatorria kimikazko prozesuetan datza. **Jose Angel Irigaray**

Eguzki nebulosatik banan-banan askatuz joan ziren gasezko eraztun **primitiboak**. **Josu Zabaleta**

Itxura guztien arabera, dagoeneko bazen halakorik, forma **primitiboan**, gaur egun Lurrean bizi diren animalia guztien arbaso erkideren batean. **Juan Garzia**

Eliza **primitiboaren** legea eta tradizioa ezkontzaren aurkakoak ziren, zalantzarik gabe. **Antton Olano**

Helduak ureztatzea eta are urperatzea ere ohitura zaharra dira Eliza **Primitiboan**. **Antton Olano**

Ikusia dugu idazkera **primitibo** batzuek banako silabikoak markatu zituztela; sistema alfabetikoa geroago etorriko zen. **Isabel Arrigain**

Greziar alfabeto **primitiboak** miresgarria iruditzen zaigu. **Isabel Arrigain**

Sen hau **primitiboak** da, eta oraindik hor datza gainazaleko zibilizazio-estalkiaren azpian. **Iñaki Mendiguren**

Seguruenez orimen **primitibo** batek, itzalaren eta argiaren, egunaren eta gauaren forma oinarritzkoen pean ikusarazten digulako iraganeko bizitza. **Joseba Urteaga**  
Hor kokatzen dira emozio **primitiboak** -gosea, beldurra, atsegina, sexu-irrika-, banakoa nahiz espeziea arriskutik babesten dutenak. **Irene Aldasoro**  
Edertasuna, beraz, propietate bakuna da, ezin analiza daitekeena; termino **primitiboekin** gertatzen den moduan, definitu ezin den propietatea. **Askoren artean**

## 5 landugabea, garatu ez dena.

Bi zelula-geruza besterik ez da funtsean izaki **primitibo** asko: barrualde bat eta kanpoalde bat. **Irene Aldasoro**  
Garun **primitiboa** oso erlazio naturik zegoen usaimenarekin; ikusmena eta entzumena geroago garatuak dira. **Irene Aldasoro**  
XIX. mendeko europar pintura zale batentzat, Polinesiaiko etxoletako pintura bat zirriborro **primitibo** bat baizik ez zen izango, balio artistikorik batere ez zuena. **Josu Zabaleta**  
Hastapenetako baladak baldarrak eta **primitiboak** ziren eta pobreak. **Joxe Azurmendi**  
Durán-ek erromantzero zaharra, **primitiboa**, ez du maite. **Joxe Azurmendi**  
Antzinakotasuna, arraza **primitibo** eta garaezinaren seinale. **Joxe Azurmendi**  
Euskararen berezko ezgaitasunaren arrazoi funtsezkoa horren natura eranskaria -aglutinantea- da, giza mintzamenaren garapideko estadio **primitibo** bati, ahalbide linguistikoen garapenean maila apal bati, dagokion izaeratzat jotzen dena. **Joxe Azurmendi**  
Ez al zen gutasun bakar hori jende **primitibo**, ilunpetar, ezjakin eta bakartuenaren ezaugarrietarik bat? **Iñaki Segurola**  
Itxia eta atzerakoa da, **primitiboa**, probintzianoa, agrafoa, karlista edo nazionalista, arrazista, terrorista askotan. **Patziku Perurena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gizaki primitibo** (3); **gizarte primitibo** (9)  
**oso primitiboa** (3)  
**gizarte primitiboak** (9)  
**gizaki primitiboaren** (4)  
**musulman primitiboek** (3)  
**gizarte primitiboek** (3); **herri primitiboek** (4); **musulman primitiboek** (4)  
**gizarte primitiboetan** (3)

## primitibotasun 1 iz primitiboa denaren nolakotasuna.

Izan ere, ahozkototasuna **"primitibotasunarekin"** lotzen da usu. **Bernardo Atxaga**  
Frantseesa da benetako kultura bakarra, eta gu, euskaldun akulturatuok, gure **primitibotasunean**, futitu egiten gara benetako kulturaz, eta atzea ematen diogu aurrerabideari, eta mamuen hizkuntzan maite ditugu gure haurrak. **Berria - Kultura**  
Zeren eta bizirik iraundako gizarte primitibo guztiak eta mendebaldar ez ziren zibilizazioetako nekazari guztiak -ez askoz **primitibotasun** txikiagokoak- [...] Mendebaldeko Gizartearen barne-proletalgo handituan sartzen ari baitziren. **Iñaki Mendiguren**  
Hau bera arrazaren **primitibotasunaren** ezaugarria ei da. **Joxe Azurmendi**

## 2 arte primitiboko jarrera eta soluziobideez baliatzen den joera artistikoa.

Brancusi eskultura modernoan **primitibotasuna** eta abstrakzioa uztartzen aurrenetarikoa izan zen. **Berria - Kultura**

## primizia iz lehen berria.

Gara-ren irakurleek merezi dute **primizia** hori. **Markos Zapiain**  
Zer **primizia** eman dezake [...]. **Berria - Harian**

## primo iz lehengusua (deiki gisa).

-Lasai, **primo**, ez dio axolarik. **Joxemari Urteaga**  
-Eskerrik asko, **primo**. **Joxemari Urteaga**

## primordial izond jatorrizkoa, oinarritzkoa.

Freud-ek eman zigun Totem eta Tabu saiakeran "aita **primordiala**" ren kontakizun mitikoa; hauxe zen emakume guztiak beretzat nahi zituen Aita lizuna. **Joseba Zulaika**  
Horri esker, Gizon **Primordial** bihurtzen da, Naturaren sintesi, katabasia egin ondoren, hots, izatearen maila beherekoenetara jaitsi ondoren. **Iñaki Iñurrieta**  
Gizadi osoarentzat komunak diren irudi **primordialen** gaineko hurrengo mailan, gizarte partikular baten *ethos* berezia adierazten duten irudiak egotea gertatuko balitz, [...]. **Iñaki Mendiguren**

## primordialista izond etnizitatea aldez aurretik definituriko kultura-alderdietan –hizkuntzan, erlijioan, ohituretan...– oinarritzen dela dioten ikuspegien alde egiten duena.

Geroztik euskaldunok historian zehar "galdurik" bezala gauden umezurtzak garaia konbentzi nahi liguke ikuspegi **primordialista** honek. **Joseba Zulaika**

## primu ik premu.

## primula iz sanjose lorea.

Indianoaren jauregiko leihoetatik lorategi eder eta ongi zaindu bat ageri da inguruko palmondoak baino harago: hortentsiak, berak hainbeste maite dituen gerberaz betetako parterreak, **primula** kolore ezberdinetakoak, garo exotikoak... **Hasier Etxeberria**

## primutasun ik premutasun.

## printsesa ik printzesa.

# printza *(orobat printz g.er.)* 1 iz gauza edo gai baten zatiki txiki, mehe eta luzea. ikizpi 3.

Marmol-puskak, **printzak** ere deitzen direnak, alegia marmolgileek lanerakoan ateratzen dituztenak, birrindu eta eho egiten dira. Santiago Iruretagoiena

Ez nuen espero harri gogorrean **printza** eta pitzaturik topatuko genuenik. Pello Zabala

Bi mila libra hareatatik, ordea, ez zuen lortu bi **printza** urre baino ateratzerik. Juan Garzia

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiri eskuko egur **printza** bat kentzea bezala. Anton Garikano

Adarren eta hostoen artean belar **printza** luze batek akueduktu mikroskopiko bat osatu du. Koldo Izagirre

Hurrizt-makilatxoa puskatuz gero, beti orratz-**printzak** gelditzen zaizkiolako, kraska egin duen tokian. Pello Zabala

Etelka Springer alferrik ibili zen kristal **printzen** bila lurrean. Anton Garikano

Haragi-**printz** bakoitzez bere osabatasunean fosilizatua. Juan Garzia

Eguzkia erabat ostendu denean are gorri-moreago egin dira ostertzeko laino **printzak**. Jokin Urain

## 3 argiaz mintzatuz, zernahi argi arrasto zuzen, adibidez gela ilun batean zulo txiki baten zehar heltzen dena. ikizpi 3.

Ez baitakite airea, eguzkia, zero grisa edo oskarbia, haizearen bufadak, argiaren **printza**, isladura, giroa eta aurkintzaren fantasia munduak direla. Koldo Izagirre

Eguzkiaren lehen **printzak** sentitzen ari nintzela, etxejoauna ikusi nuen eskailera-burutik agertzen. Inazio Mujika Iraola

Goizaldean, egunsentiaren lehen **printzek** lorea miazkatzen dutelarik, edertasuna sentimen orotara hegaldatzen da sinestesia zoragarrien bide. Anjel Lertxundi

Eguzkia sartua zen ordurako, baina zerumuga argitsu zegoen artean ilunabarreko azken **printzekin**. Karlos Zabala

Eguzkiaren **printza** ahulak ozta iragazten zituzten hodeietara luzatu zuen besoa. Koldo Izagirre

Eguzkiaren azken **printzak** bakandurik sartzen ziren kale artera. Juan Kruz Igerabide

Olatuak ikus zitezkeen kristal birrindua bezala **printza** txuritan lehertzen harkaitz gainean. Anton Garikano

Errezeletan zehar, **printzak** labankada txikiak bihurtzen dira begientzat. Sonia Gonzalez

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi sakada egin zizkion zigarroari, eta kea eguzkiaren **printza**-sorta baterantz bota zuen bafada batez. Jon Alonso

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goizeko lauretan-edo, lehenengo argi-**printzak** Bera aldetik hasi dituk sumatzen. Txillardegui

Egun berriaren lehen argi **printzak** sartzen ari ziren kaperako ate irekitik. Aingeru Epaltza

Baita haien gogoeta eta sentimenduak ere, batere nekerik gabe, argi **printza** bezala ur azpira irristatu eta hango olatuak, eta ihiak, eta orekan dauden arraintxoak, eta amurrain isil zalua, denak batera argituz, dilindan, dardarka. Anton Garikano

Kostatik legoa laurdenera ikusten genuen ontzi eder hura, eguzki **printza** gozo batek argitua. Koldo Izagirre

Eguzki **printzek** laster urreztatzen ari dituzte bazterrak. Aurelia Arkotxa

Ilargi **printzen** pean lo hartu aitzin. Koldo Izagirre

Harriaren azalean egindako erretentxoaren ertzetan diamante-**printzaren** bat altxatuko zen, agian, baina besterik ez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ekaitz eta tximistak haren [Bulkanoren] sutegititik saltatutako su-**printzak** zirela zioten orduan. Pello Zabala

## 6 irud/hed

Bizitzak gogor astindu zuen jaio zenetik hil zen arte baina, hala ere, zorionaren **printzak** bilatu zituen eguneroko ahaleginean. Xabier Etxabe

Oroimena ahula baita, eta benetan gertatuei buruzko liburuak, maiz, ikusi eta aditu dugunaren **printzak** eta ezpal makalak baizik izaten ez direlako. Fernando Rey

Gertaera txikien bidez, gizakiaren eta gizartearen arimak **printzaz printza** ematen ditu, inpresionismo ezari-ezariko batez obra guztiz modernoa egiteraino. Berria - Kultura

## 7 irud/hed (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Antzinako frantziskotar iturriek egiazko bizi-**printzak** eskaintzen dizkigute, Frantziskoren giza nortasunaren zertzelada zehatzak. Askoren artean

Haren almindra itxurako begietan esperantza eta kezka **printzak** nabari ziren. Patxi Zubizarreta

Absurduaren poesia-**printza** batzuk hemen, lirismo arin bat han. Eskarne Mujika

Inguru desolatuan alaitasun **printzen** eran lehertu ziren zaldi kolore bizi haiek. Harkaitz Cano

Tristura-**printza** oinazegarriak. Mirentxu Larrañaga

Itxaropen **printza** batek berotu du aita Hilario. Koldo Izagirre

Itxaropen begi-ninietan ez zuen ez zalantza izpirik ez urduritasun **printzarik** nabaritu. Joxemari Urteaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argi **printz** (4)

argi **printza** (14); eguzki **printza** (9)

argi **printzak** (8); azken argi **printzak** (3); eguzki **printzak** (13); eguzkiaren lehen **printzak** (5)

eguzki **printzek** (13)

eguzki **printzen** (6)

eguzki **printzetan** (4)

eguzki **printzez** (4)

## printzaldi ik printzealdi.

## printzatu, printza(tu), printzatzen 1 da/du ad pitzatu.

Tarteka, hotzak **printzaten** dituen adaxken kraskatekoak entzuten dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hezurak **printzatu** eta ezterrari trabaturik gera daitezkeela. Gotzon Garate

Eguzkia, ordea, kiskalgarria zen, bizia, lurra harrotu eta biziarzaten duten horietakoa, bihia **printzatu** eta lotan diren hoziak pizten dituzten horietakoa. Josu Zabaleta

Zaila da [urkiaren] zura zartatzea eta **printzatzea**. Pello Zabala

## 2 irud/hed

Tristura oinazegarria xeheki **printzatu** zitzaion barrenean, harritar leun artean jausi izango balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Hara, kanabera **printzatua** bezala da Egipto: euskarriztat hartzen duenari eskua zulatzen dio alderik alde

## printze *(orobat printzipe g.er.)* 1 iz erregeren seme nagusia; errege familiako kidea; printzerri bateko buruak hartzen duen izena.

Zer modu, ene **printze** Hamlet? **Juan Garzia**

Eresumaren armadak, **printze** Henrike gaztea eta lotinant jeneral Antonio Agaramari buru zituela, erreginarendako berreskuratuak zituen Nafarroa Behereko lurak eta hiriak. **Aingeru Epaltza**

Banku-billeteek Khovanski **printzearen** sinadura eraman ohi zuten. **Jose Morales**

Felipe eta Letizia **printze** -printzesak ere izan ziren batzarrean. **Berria - Euskal Herria**

Neustria eta Borgoniako leudeek **printze** gazte hau hautatu zuten errege. **Iñaki Iñurrieta**

Odolez **printze** naizen arren, ogibidez zientzialari naizue. **Felipe Juaristi**

Etiopiako **printze** oinordekoak printzerri bat du, eta maitasunaren eta obediendiaren etsenplua ematen die sujetei. **Iñaki Iñurrieta**

Nobleek eta **printzeek** bat egitean elizgizonak amore eman behar izan zuten. **Iñaki Iñurrieta**

**Printze** batek, bere estatuan nagusi den erlijioa suntsitzea erabakitzen duenean, arrisku handia hartzen du. **Iñaki Iñurrieta**

Eredu prezeptoralak, berriz, **printzeen** heziketarako erabili zen bakarrik. **Askoren artean**

Errege, tirano eta **printze** zaharrek ere, hildakoan, beren guzizko jainkoei eskeintzen zien gibela. **Patziku Perurena**

Gaur zinegotzi direnek bihar konde, markes edo **printze** izan nahiago. **Felipe Juaristi**

Beren semea, Carlos, Viana-ko **printzea**, ez da sekulan erregetuko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

PPK, aldiz, saria Espainiako **printze** -printzesei ematea proposatu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Agintariak, ezin etsi eta, kapitain zaharren amore-pizgarri, **printze** izendatuko zutela agindu zioten, Palermoko **printze**, sumendiaren ahotsa isiltzea lortzen bazuen. **Felipe Juaristi**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zenbait dotrinaz blaitzen direnean, herritarrek uste dute zilegi zaiela Estatuari obediencia ukatu eta **printze** gorenaren eta botere gorenaren aurka egitea. **Esteban Antxustegi**

Teobaldo, Teodebertoren semea, **printze** gazte, ahul eta gaixoa, jauregian geratu zen lehen erregea izan zen. **Iñaki Iñurrieta**

Eztun ditut ere Albert **printze** berriaren laudorioak, nola preparatua izana den, nola aitak moldatu duen. **Herria**

Don Cleto kaleko ikuskariekin gozaten zuen; **printze** arrotz bat etortzea, politiko baten hiletak, sekulako gertaerak izaten ziren harentzat. **Josu Zabaleta**

**Printze** ospetsu batzuen eta beste gizon guztiz leialen ospeari eta ohoreari gaitzitu gabe. **Piarres Xarriton**

Francisco de Asis, Isabel II, Espainiako erregina bilakatu beharra zenaren senar eta **printze** kontsortea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Mariak ez zuen **printze** urdink nahi. **Jasone Osoro**

Nasir al Dinek eman digu kalifaren eta **printze** mongolaren arteko azken elkartearen berri. **Jon Muñoz**

Loreak eta kabiarrak eramaten nizkion etxera, nire irudiko **printze** erruso bati dagozkion bi opariak. **Matías Múgica**

Aita Hiazintzo Woroniecki, poloniar **printze** eta domingotar jakintsua. **Piarres Xarriton**

Arrats batez, Armeniako **printze** bihoztoi bat, gizaseme hile hori begi urdin lerdin bat, arribatu zen gaztelura eta atera zitzaion enkontrura damaren mutila. **Aurelia Arkotxa**

Eta halaxe gertatu zen **printze** ahaltzu eta boteretsu bat nekazari xumea bilakatu zela, bere herritik, bere maitearengandik urrun. **Patxi Zubizarreta**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxea berrehun urte lehenago armadaren hornitzaile batek eraikia zen [...] gerora **printze** titulua bereganatu zuen batek. **Xabier Olarra**

Sultanek **printze** kargua hartu zuen ekitaldi berean. **Berria - Harian**

Ohorea zela esan zuen, ohore ez nolana hiko, munduko **printze** -etxe ederrenetakoak herrian egotea. antzinako **printze** -leinu batetik datorrela. **Felipe Juaristi**

## 4 irud/hed

**Printze** giristino guztiei eta haietarik bakoitzari, edozein elizaren ala herriren, Inperio, Erreinu edo beste karguren jabe direnei, zernahi izen izanik ere. **Piarres Xarriton**

Berak Italian zehar ibili behar zuelako, Elizako **printze** baten konpainian, haren musika antolatzaile gisa. **Felipe Juaristi**

Kardinal hau Erromako kuriako beste **printze** eta handikien artean lurreko gauzen mespretxatzaile eta zerukoen maitale bezala nabarmentzen zen. **Askoren artean**

"Jainkoaren **printze**" honi ez zitzaion ezertan antzematen nagusi kargua zuela. **Askoren artean**

Jainkoaren, haren Ama Maria Birjinnaren eta aingeru eta arimen **printze** den Mikel dohatsuaren ohoretan. **Askoren artean**

Hitz hauek esan ondoren, ilunpean **printzeak** hain ilunpe izugarrian sartu zuen anai Rufino, non [...]. **Askoren artean**

## 5 kide lehena edo nagusia.

Ma'munek, Sinestunen **Printzeak** bultzatu nau horretara. **Jon Muñoz**

Hori bere egoera naturalagatik kexu balitz bezalakoa da; beste printzeen **printze** izan nahiko balu bezala. **Iñaki Iñurrieta**

Hemen, ohiko "Profeten **Printzea**" barik, "Jakintsuen **Printzea**" esaten zaio Moisesi. **Xabier Kintana**

Aleman batek eman zuen, azkenik, teoria horren lehenengo demostrazio osoa: Karl Friedrich Gausssek, "matematikarien **printzeak**". **Jon Muñoz**

Cocteauk "frantses literaturako **printze** beltza" deitu zion. **Joseba Zulaika**

Erdalduna baitzen euskal artearen **printze** gandiez in hura. **Juan Luis Zabala**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asturiasko **printze** (4); benetako **printze** (3); bere **printze** (3); ene **printze** (9); erromako **printze** ustelaren (3); espainiako **printze** (3); galesko **printze** (3); krapotkin **printze** gaztea (4)

**printze** edo **printzesa** (3); **printze** eta **jabea** (4); **printze** gazte (7); **printze** gaztea (9); **printze** goihena (3); **printze** handi (4); **printze** handia (5); **printze** henrike (4); **printze** henrikek (3); **printze** henrikerekin (3); **printze** izan (4); **printze** izendapena (3); **printze** izendatu (4); **printze** jauna (3); **printze** printzesak (5); **printze** turkiarra (3); **printze** txikia (17); **printze** ustelaren (3); **vianako** **printze** (5)

aloiz **printzea** (4); aloiz sarajevoko **printzea** (3); asturiasko **printzea** (9); asturiasko **printzea** saria (4); bonaparte **printzea** (3); danimarkako **printzea** (3); dol amrotheko **printzea** (5); hamlet **printzea** (4); imrahil **printzea** (7); kopenhageko **printzea** (5); krapotkin **printzea** (4); palermoko **printzea** (4)

**printzea** ikusi (5)

rainier **printzea** (3); samarcandako **printzea** (3); sarajevoko **printzea** (5); sintrako **printzea** (5); thuleko **printzea** (4); trebizondako **printzea** (4); **vianako** **printzea** (45); **vianako** **printzea** erakundeak (6); **vianako** **printzea** erakunde (4); **vianako** **printzea** saria (12); **wolf** **printzea** (3)

bonaparte **printzeak** (3); charles **printzeak** (3); gure **printzeak** (3); imrahil **printzeak** (3); krapotkin **printzeak** (6); palermoko **printzeak** (3); **vianako** **printzeak** (3)

bonaparte **printzearen** mapa (3); espainiako **printzearen** (9); espainiako **printzearen** ezkontzaren (3); hamlet **printzearen** (3); kieveko **printzearen** (3); krapotkin **printzearen** (3); orangeko **printzearen** (3); **printzearen** aurean (3); **printzearen** ezkontzaren (3); **printzearen** gelan (3); **vianako** **printzearen** (7)

**wolf** **printzeari** (3)

nobleek eta **printzeek** (3)

**printzeen** eskubideak (3)

## printzealdi *(corpusean printzaldi soilik)* iz printze baten agindupean dagoen estatu forma.

K. a. I. mende nahasia, zeinetan Erromak aldi berean ezagutu baitzituen bere behin betiko "inperio" bihurtzea, bere gobernu-forma errepublikarren amaiera eta, Julio Zesarren bidez, Augustoren irudian gauzatu ziren forma unipersonalen sorrera, **Printzaldiaren** inaugurazioa eta horren ondorengo barealdia, askoren ustez benetako errepublikaren aro baten etorrera izan zena. **Santiago Iruretagoiena**

Itxuraz bai baitirudi Vitruvioren karrera ia erabat amaituta egongo zela **printzaldiaren** hasieran, K. a. 29. urtearen ondoren, Erroma berritzeko egin zen ahalegin handi hura martxan jarri zenean. **Santiago Iruretagoiena**



## printzel iz distiratsua, fina.

Hurbil nuen *Arpoi baten eran*, Asteasuko Agirrerren kontakizunekin Inazio Mujika Iraola idazle honezkerok ez hain gazteak prestatutako liburu txit **printzela**. **Anjel Lertxundi** Artean eskuetan neukan Asteasuko Agirrerren edizio txit **printzela** hartu dit. **Anjel Lertxundi**

## printzerri 1 iz printze baten jaurgoari atxikiriko lurraldea.

Pariseko Batzarrak pribilegioak eta jauretze-abantailak oro ezeztatu zituen, probintzia, **printzerri**, kantonamendu, hiri bai eta komunitate eskubideak barne. **Elena Touyarou**  
Erromatar Inperioan **printzerria** sortu zen garaian. **Iñaki Mendiguren**  
Rainier Monako **printzerriko** buruzagia. **Herria**  
Bagnoregioko kondesak, Monacoko **printzerriko** izpiriturik finenetako batek. **Juan Garzia**  
Aragonek Ithiliengo **printzerria** eman zion Faramirri. **Agustin Otsoa**  
Erregeren mendeko erresuma eta **printzerrietan** latinez baizik ez zegoen liburu santuak irakurtzea. **Edorta Jimenez**  
Danubiar **printzerrietako** errumaniar jendeak. **Iñaki Mendiguren**  
Danilo II.ak printze-apezpiku izateari utzi, ezkondu eta **printzerri** laiko bihurtu zuen Montenegro. **Berria - Mundua**  
Bezero ziren **printzerriak** probintzia bihurtuta zeuden, eta probintziak, berriz, zuzeneko eta zentralizaturiko administrazioaren organo bilakatuta. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (hitz elkartuetan)

Mendebaldeko kristau-**printzerrien** kate bat ezarri baitzen Sirian, Antiokia eta Edessatik. **Iñaki Mendiguren**

### 3 irud/hed

Menua bizkor-bizkor irentsi, eta nire **printzerri** bakartira abiatzen nintzen. **Iban Zaldua**

## printzesa (orobat *printsesa g.er.*) 1 iz errege baten alaba; printze baten emaztea edo alaba.

Aski da ikustea zer arrakasta duten agerkari batzuk aipatzen dituztelarik erregeak, erregeinak, printzeak eta **printzesak**... Printzearen eta **printzesaren** enkontra. **Herria**  
Adarbakarrak **printzesa** iturri ondoan ikusi zuen eta berehala hurbildu zitzaion. **Martin Anso**  
-Hau ez da **printzesa** baten kategoriako autoa, Tom. **Iñaki Zabaleta**  
**Printzesak** gehien espero eta estimatzen zuen oparia. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Ana Komneno greziar **printzesa** historialaria aipa genezake. **Iñaki Mendiguren**  
Olga Janina **printzesa** zirkasiararekin. **Josu Zabaleta**  
1468an, Leonor **printzesak** herria aipatzen zuen "herri kaltetu" bat bezala. **Michel Oronoz**  
Valladolidera igan zen, han andere Juana **printzesa** gobernadoreak Leongo san Isidro eta Parraceseko Santa Maria agustindar bi komentuen erreforma eginarazi baitzion. **Piarres Xarriton**  
Erregeak izango dituzu haurtzain, **printzesak** inude. **Elizen arteko biblia**  
Fernando Redon Huitzi arkitektoak gaur jasoko du Vianako Printzea saria, Leireko monasterioan egingo den ekitaldian, Asturiasko printze-**printzesen** eskutik. **Berria - Kultura**

### 2 irud/hed

Gure Maddi -etxeko **printzesa**, aitaren azukre koxkorra, ene xagar-pastela- zer eta zabor UPN zale bilakatzeko bidean alu ustel ile-gorri batek garun-lixiba eginda! **Aingeru Epaltza**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**andere printzesa** (3); **badrubudur printzesa** (7); **budur printzesa** (6); **ene printzesa** (4); **lo dagoen printzesa** (6); **lo zegoen printzesa** (4); **nire printzesa** (4); **printze edo printzesa** (3); **printzesa eder** (3); **printzesa esnarazteko** (3); **printzesa ikusteko** (3); **printzesa izan** (4)

**badrubudur printzesak** (4); **printze printzesak** (5)

**diana printzesaren** (3); **lo zegoen printzesaren** (4); **printzesaren ondoan** (3)

**lo dagoen printzesari** (3); **printzesari esan zion** (3)

## printzetasun iz printzea izateko zertzelada.

Mutila han gelditu zen une batez, Mijail printzeak zer esango, baina konturatu zenean hura, bere **printzetasun** eta guzti, lo seko gelditu zela, jira egin eta alde egin zuen. **Felipe Juaristi**

## printzetu izond printze bihurtua.

Apo **printzetua** kasik; izan ere, kalpar luze eta bizar sarri lohien atzean ostentzen zen gizona, bere argalean ere, ez zen batere zatarra. **Xabier Montoia**

## printzetxo iz printze txikia.

Behin izan zen han Tiroleko **printzetxo** bat, hamabi urte zituela bere burua hil zuena; hain zuzen ere, bere lehengusu propio batez maitemindurik zegoelako. **Xabier Olarra**

## printzezale izond printzeen zalea dena.

Tamalez zioen, destainaz ere bai, Frantzisko Montoia sagarzale baitzen amorratua, eta ez **printzezale**. **Felipe Juaristi**

## printzipal 1 izond nagusia.

Hala zituela jauregiak, aitzinaldeko erdialdean, ate **printzipal** bat, eta bertze bi, alboetan. **Joan Mari Irigoien**

Estazio **printzipala** zen tailerra ere bazeukalako. **Unai Elorriaga**

Berdin jaurreriko bertze hiri **printzipalak**, hala nola Leskarre eta Morlas. erradiazio neto garbi hau da, baita ere, klimaren beraren egitura, proportzio eta fluktuazioak egin eta mantentzen dituen faktore **printzipala**. **Aingeru Epaltza**

-Jakina, ondo etor dadila, hori da **printzipalena**. **Arantxa Iturbe**

### 2 (pertsonez mintzatuz)

Bertzalde, ez zuen lehen aldia bertzeren baratzea ongarritzen, eta emazte **printzipalagoaren** pazientzia erretzeko beldur zatekeen. **Aingeru Epaltza**

Agaramen ondotik -eta haren kontra-, Nafarroa Behereko jaunik **printzipalena** zen Lüküze. **Aingeru Epaltza**  
Hala ere bere garaian ezagunak nituen ageri diren lagun batzuk, Banning Cocq eta Willem van Ruytenburgh, esaterako, gizon **printzipalak** Amsterdamen, sekula tiro bakar ere egin ez zutenak. **Felipe Juaristi**

Ez da harrizko frantsesez mintzo baziren etxen, nahiz española ere ongi bazakiten; funtsean beren espos lagunak garaztarrak ziren edo baigorriarrak, etxeko alaba **printzipalak**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eurak dira Mungia aldeko eta Uribe Kostako bikote **printzipala**. **Xabier Amuriza**

Mauleko familia **printzipalek** alde horretan dituzte beren jauregiak. **Aingeru Epaltza**

Elizkizuna hasi bitartean kafe-etxe hurbilean elkaturiko jende **printzipal** egarrituari. **Xabier Montoia**

Han biltzen ziren zaldunek beren buruari hain **printzipal** irizten bazioten, irizten zioten bezala, egin beharra nekosoenen zen tokira joateko beharra zeukatela, eta ez munduko ipurtzulo honetan gelditu. **Jon Alonso**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jende printzipalarekin** (3)

## printzipalki *adlag* batez ere. ik **nagusiki**.

Molde bateko eta bertzeko armak erakutsiko ditu: ezpatak, fusilak eta kanoiak, **printzipalki**. **Joan Mari Irigoien**

Nola aitona Nikolasek **printzipalki** frantsesez ikasi baitzuen, [...]. **Joan Mari Irigoien**

## printzipatu iz printzerria.

Gaskoiniak **printzipatua** VI. mendean hasten da, Pirineo mendietatik Vascones-en sarraldien ondotik. **Michel Oronoz**

Sanz-Guillaume hiltzen delarik, 1032an, Gaskoiniak **printzipatua** desegiten da. **Michel Oronoz**

**Printzipatu** horrek lotura hertsia baditu Iruñeko gortearekin. **Michel Oronoz**

## printzipe ik **printze**.

## printzionalismo iz

Ezintasun praktikoa honengatik ihes egiten da beti **printzionalismora** (printzipio absolutuetara). **Joxe Azurmendi**

**Printzionalismoa** bera ezintasun berri bat bilakatzen da gero. **Joxe Azurmendi**

## printzipio (*orobat **prinzipio** g.er.*) 1 iz oinarritzko egia edo legea. ik **hastapen 2; hatsarre 2**.

Euskal gizartean **printzipio** bat finkatu da: inposizioa ez da zilegi. **Berria - Euskal Herria**

Erlijioetik sortzen diren ideiak oso errespetagarriak izanik ere, ez dira lege zibilen **printzipio** gisa erabili behar, zeren eta lege hauek beste **printzipio** bat baitute, gizartearen on orokorra. **Iñaki Iñurrieta**

Nazioarteko trukea bi **printzipio** kontraesangarriren jokoaren mende dago: espezializazioaren **printzipioa** da bat, osagarritasunaren eragile dena, eta konkurrentziaren **printzipioa** bestea. **Koro Navarro**

Osagarritasunaren **printzipioa**, teorikoki, lotuta dago nazioartean banaketa desberdina duten faktoreen trukearekin ere (lana, kapitala). **Koro Navarro**

Kooperatibak erruz ari dira beren **printzipio** eta baloreen galera pairatzen. **Iñaki Heras**

Ondorengo liburuetan azaldu dituzte diziplina honen **printzipio** guztiak. **Santiago Iruetagoiena**

Filosofia transzendentalak bere adigaiak **printzipio** baten arabera bilatzeko abantaila dauka, baita obligantza ere. **Ibon Uribarri**

Arrazoimenaren berezko irrika ahalik eta azken **printzipio** gutxienetara iristea da, ahal izanez gero guztiaren lehen **printzipio** bakarrera, kausaz kausa edo premisaz premisa. **Askoren artean**

Zuzenbide zibilaren **printzipioen** arabera arautu beharreko gauzak oso gutxitan arau daitezkeela erlijioaren legeen arabera. **Iñaki Iñurrieta**

Gizonak ez du zertan makurtu edozein eratako agintearen aurrean, gizonak ez du zertan ontzat hartu fedez onartu beharreko edozein **printzipio**. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

*Cogito ergo sum* **printzipioaren** gainean txantxetan egindako hala-holako latinezko itzulpena. **Xabier Olarra**

Hark ere **printzipiozko** desberdintasun bat dagoela esaten baitu ikusteko modu normal baten [...] eta perspektibazko ikuspen-moduaren artean. **Josu Zabaleta**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jainko hau **printzipio** logiko eta metafisiko bat da, munduaren azalpen razionalerako ezinbestekoa. **Askoren artean**

Gauzen **printzipio** sortzailetzat airea ezarri zutenak [...] argi dago egia oso urrun aldaratu zirela. **Xabier Amuriza**

Behin baino gehiagotan aipatu zuen Carverrek, bere **printzipio** gidatzailetako bat zelakoan, Isaac Babelen esaldi hau: "ezerk ez du bihotza zulatuko bere lekuan jarrita dagoen esaldi batek zulatzen duen adina". **Koro Navarro**

Teoria etikoak **printzipio** absolutuen arabera egituratzen dira. **Askoren artean**

Berdintsu da beste **printzipio** edo balio absolutu batzuekin, "bizitza sakratua da" adibidez. **Joxe Azurmendi**

Garapen teorioaren azterketa ezin gauza daiteke **printzipio** metodologiko unibertsalean oinarrituz, garai historiko jakin bateko diziplina elkarte bati dagozkion **printzipio** kontestualetan eta erlatiboetan baizik. Saillaketa hau sistematikoki egin da **printzipio** komun batetik abiatuta, hots, juzgatzeko ahalmenetik abiatuta. **Askoren artean**

Descartes argudioaren azpian ezkutatzen den **printzipio** kausala ez da oso garbi ikusten. **Askoren artean**

Errealitate ororen azpian **printzipio** matematiko aldezin batzuk daude. **Joan Mari Irigoien**

Oso **printzipio** garbia du: beharrei erantzun behar die Unibertsitate Sistemak. **Berria - Euskal Herria**

XIX. mendeko nazionalitate **printzipio** famatu hura, 1919an Europako nazio bakan batzuek baliatu zutena beren estatu propioaren antolatzeko. **Piarres Xarriton**

Hemen, Natur Zientzia **printzipio** enpirikoetan oinarritzen den heinean besterik ez dut hartu nahi aintzat. **Ibon Uribarri**

Apriorizko **printzipio** seguruetatik abiatuta hertsiki frogatu behar baitu. **Ibon Uribarri**

Dibortzioaren **printzipio** funtsezkoenaren kontra doa, alegia, ezkontza baten haustea beste baten itxaropenagatik baizik ez onartzea. **Iñaki Iñurrieta**

## 3 hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hilketa biolento baten aurrean denok sentitzen dugun kontzientziako inarrosiaren edo esijentzia primario baten eran, samintasun eta dardara sentimendu hori **printzipio** mailara altxatu nahi dugularik. **Joxe Azurmendi**

Nire ezkondu nahi eza **printzipio**-kontua dela behin baino gehiagotan esana nion, edo iradokia behinik behin. **Joxe Austin Arrieta**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orduan, bizitza-**printzipio** bat da arima. **Askoren artean**

Nire doktrinan, gizonarengan betiko eta suntsiezina dena, beragan bizi-**printzipioa** eratzen duena, ez da arima, baizik eta nahimena. **Askoren artean**

Erljio- **printzipio** islamikoenez izena.

**İlâki Mendiguren**

Arazo honetan gizatasun eta solidaritate **printzipioek** beharko lukete izan orotan lehenak. **İlâki Heras**

Badirudi, tarte horretan, Zizeronen politika **printzipio** zenbait ahanzi zituztela Mendebaldeko teologo, legelari eta kanonista jakintsu anitzek. **Piarres Xarriton**

Teoria konparatibistetan (eboluzionismo sozialean bezala), herrien arteko ezberdintasuna aztertzen da erlazio- **printzipio** orokor bat dela medio. **Askoren artean**

Berdintasun **printzipioa** Identitate **printzipio** izatera behar izaten da orduan. **Josu Zabaleta**

Espazio hori eta denbora hori eta kausalitate **printzipio** hori ez dira existitzen guk ikusten ditugun bezala, gungandik kanpora. **Josu Zabaleta**

Bidez konpara daitezke arte abstratuaren teoria batzuekin, Kandinsky-renetik Vasarely-renera, lege hauekin onez konpara daitezkeen antolamendu, egitura edo forma **printzipioak** berraurkitzen baitituzte. **Josu Zabaleta**

Badira figura adierazpen modu berrien etengabeko sorkuntzatik erne den adierazpen- **printzipio** bereizi bat balitz bezala hartu duten teorialariak. **Josu Zabaleta**

Laudanek razionalitate- **printzipio** bat adierazten du: [...]. **Askoren artean**

## 5 *p/* norbaiten portaera gidatzen duen irizpide morala.

**Printzipiorik** ez duten mertzenario talde baten sostengua bilatzen ari da bozatarako. **Berria - Mundua**

Zaintzaile oso kezu zegoen nirekin, **printzipiorik** gabea nintzela, eta gure amak arrazoia ematen zion kontra egin gabe. **Pello Lizarralde**

Ez du **printzipioen** izenean egiten, baizik eta gogoak eman ahala, eta gogo horren iturria iluna da berarentzat. **Oskar Arana**

Ogi xigortua, arauak eta **printzipioak** dituen gizon honentzat, ia bizioa da, benetan sabeldarriotasun eutsiez in baten adierazpena ia. **Jon Alonso**

## 6 *printzipio aktibo* sendagai baten osagietako gaia, hari ezaugarri sendagarriak ematen dizkiona.

Honela bada, guztira 65 **printzipio aktibo** ezberdinez egindako 2.070 sendagai dira. **Berria - Euskal Herria**

Gehien jaitsi diren botiken artean simvastatina eta fluoxetina dutenak daude, eta **printzipio aktibo** hori duten sendagai ezagunenak Zocor eta Prozac dira, hurrenez hurren., Horixe dela kasik gure kabituzen ustezko sendagarrien **printzipio aktibo** bakarra. **Berria - Euskal Herria**

## 7 *printzipio eskabide* frogatzen den gauza aurrekari gisa ezartzean datzan hutsegitea.

Sinesten nuen sinesten nuelakotz, ez galdera bati erantzuna eskainiz, baizik **printzipio**-eskabide baten bidez. **Piarres Aintziart**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**apriorizko printzipio** (3); **arrazoimen hutsaren printzipio** (3); **arrazoimenaren printzipio** (24); **arrazoimenaren printzipio erregulatzailea** (5); **arrazoimenaren printzipio erregulatzailearen** (3); **azken printzipio** (3); **batasun sistematikoaren printzipio** (7); **batasunaren printzipio** (5); **bere printzipio** (6); **berena printzipio** (3); **nazionalitateen printzipio** (3); **oinarrizko printzipio** (13)

**printzipio aktibo** (7); **printzipio aldetik** (3); **printzipio bakar** (3); **printzipio bera** (5); **printzipio beraren** (4); **printzipio demokratiko** (5); **printzipio demokratiko bat** (3); **printzipio demokratikoa** (6); **printzipio demokratikoak** (8); **printzipio demokratikoaren** (3)

**printzipio enpiriko** (4); **printzipio enpirikoak** (3); **printzipio eratzaille** (4); **printzipio eratzaille gisa** (4); **printzipio erregulatzaile** (12); **printzipio erregulatzaile gisa** (5); **printzipio erregulatzailea** (11); **printzipio erregulatzaileak** (7); **printzipio erregulatzailearen** (7); **printzipio erregulatzailearen eskema** (3); **printzipio eta arau** (4); **printzipio etiko** (3); **printzipio formal** (3); **printzipio genealogikoaren** (3); **printzipio horien arabera** (4)

**printzipio komun** (4); **printzipio kontua** (4); **printzipio logiko** (3); **printzipio logikoa** (3); **printzipio logikoak** (4); **printzipio moralen** (3); **printzipio mota** (3); **printzipio nagusi** (3); **printzipio nagusia** (4); **printzipio nagusiak** (5); **printzipio nagusietako** (3); **printzipio nagusietako bat** (3)

**printzipio orokor** (3); **printzipio orokorra** (6); **printzipio orokorrak** (5); **printzipio politikoak** (3); **printzipio transzendentalak** (3)

**ahalgarritasunaren printzipioa** (4); **berdintasun printzipioa** (11); **berdintasunaren printzipioa** (5); **bere printzipioa** (4); **elkartasun printzipioa** (3); **erabateko gehiengoaren printzipioa** (3); **errugabetasun printzipioa** (10); **errugabetasun printzipioa aldarrikatu** (3); **espezializazioaren printzipioa** (3); **gehiengoaren printzipioa** (4); **gure printzipioa** (4); **konkurrentziaren printzipioa** (5); **nazionalitateen printzipioa** (7); **oinarrizko printzipioa** (3)

**printzipioa aldarrikatu** (3); **printzipioa betetzen** (4); **printzipioa den heinean** (3); **printzipioa hausten** (4); **printzipioa onartu** (3)

**zuhurtasun printzipioa** (3)

**arauak eta printzipioak** (3); **errugabetasun printzipioak** (3); **nire printzipioak** (3); **oinarrizko printzipioak** (13); **osagarritasunaren printzipioak** (3); **printzipioak barnebiltzen** (3); **printzipioak errespetatuz** (3)

**printzipioan oinarrituta** (3)

**konkurrentziaren printzipioaren** (6); **printzipioaren arabera** (16); **printzipioaren izenean** (3); **zuhurtasun printzipioaren** (4)

**printzipioari eusteko** (3)

**bere printzipioei** (5); **printzipioei buruz** (7); **printzipioei buruzko** (3); **printzipioei eutsi** (4); **printzipioei uko egin** (4)

**arrazoimen hutsaren printzipioek** (3)

**printzipioekin bat egiten** (3)

**demokraziaren oinarizko printzipioen** (3); **oinarrizko printzipioen** (7); **oinarrizko printzipioen aurka** (5)

**printzipioen arabera** (23); **printzipioen arabera** (3); **printzipioen aurka** (8); **printzipioen bidez** (4); **printzipioen defentsa** (3); **printzipioen kontra** (7); **zuzenbide zibilaren printzipioen** (4)

**printzipioetan oinarrituta** (5)

**printzipioetatik abiatuta** (5)

**printzipioez bederen** (3); **printzipioez behintzat** (5); **printzipioez ez** (4)

## printzipiodun *izond* printzipioak dituen.

**Printzipioduna**, baina azkenik gabeko jendea. **Pello Salaburu**

## prinzipio ik **printzipio**.

## prioi *iz* proteina infekziosoa, proteina natural batetik eratorria, nerbio sistema zentralerako eritasun batzuek eragiten dituen.

**Prioi** proteinaren bi gene homozigoto zituzten pertsonen gaixotasun hori garatzeko arrisku handiagoa zutela uste zuten zientzialariek. **Berria - Gaiak**

## priore *iz* komentu edo monasterio bateko nagusia.

La Pierre qui Vire-ko frailetxera joan zen (1872.08), Belokeko zuzendari izendatua izan (1880), **priore** (1884.02.25), abade (1890.03.20). **Xipri Arbelbide**

Orreagako kolegiatiko **prioreak**. **Berria - Euskal Herria**

Aipaturiko monasterioko **prioreak**, [...] barkamena eskatu zion beretzat eta beretarrentzat. **Askoren artean**

Eta etxeko aita **prioreari** obediencia zor baitiot. **Joan Mari Irigoien**

Frantzisko Nafarroako deitzen zen eta 1518an, Aita Sainduak izendatu zuen Orreagako **priore**. **Piarres Xarriton**

Eskutit bat bidaliko diot Orreagako Jaun **Prioreari**, Motiloako Frantziskoren bitartez, Nafarroarat joanen delarik, hoguei bat egun barne, menturaz. **Piarres Xarriton**

Aitzineko **prioreek** alabaina erreinuko jaun handien itxura hartua zuten eta haien bizimoldeak errenta guztiak irensten zituen. **Piarres Xarriton**

## priorema *iz* emakumezko priorea.

Sakristauak, eliz-atezainak, derbixak, irakurleak, eliz-zainak, kardinalak, **prioremaek**, apezpiku-laguntzaileak, akolitoak, erretoreak, apaizak, sufiak, muftiak, eta pum-pumak.

## prioreorde *iz* priorearen ordekoa.

Baina, hutsaren hurrengo da hori, Orreagako **prioreorde** jaun Huartek esaten dituenen aldean. **Patziku Perurena**

prisa ik **presa**<sup>1</sup>.

prisaka ik **presaka**.

prisatu ik **presatu**<sup>1</sup>.

prisionero ik **presoner**.

## prisma **1** *iz* bi buruetan poligono berdinak eta paraleloak, eta albo aurpegitzat paralelogramoak dituen poliedroa.

Geometria lauarekin egin zuen bezala, espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesek: solidoak: piramidea, **prisma**, konoa, zilindroa, eta esfera, jakina; eta horiez gainera, poliedro erregularrak ere bai. **Jon Muñoz**

Osaba Joanikotek **prismak** eta piramideak eta bertzte iduri geometrikoak irakatsi zizkigun denboran. **Joan Mari Irigoien**

### 2 prisma itxurako gauzakia.

Zertsalo: hiru **aldeko** prisma, zeinean idatzirik baitzeuden Errusiako lege nagusiak. **Jose Morales**

Planta karratukoa da patioa, bospasei metro luze-zabalean, sei solairutan gora egiten duen **prisma** ortogonal baten negatiboa. **Iñaki Iñurrieta**

*Sbarūa* delakoa sasiz eta txaraz lasturiko muino apal batetik ehun bat metro nabarmentzen den granitozko **prisma** bat da. **Juan Garzia**

Eraikinaren kanpoaldea greziar tenploarena eginez eraikia da, salbu eta hau osorik ingurutzen duten zutabeak **prisma** erakoak direla. **Edorta Jimenez**

### 3 optikan erabiltzen den prisma, gardena eta eskuarki triangeluarra.

Kasu horretan, ispilu bat erabiltzen da kamerako objektibotik iragan den argia jasotzeko, eta, lente eta **prisma** lagungarri batzuen bidez, bisore batera islatzen da argi hori.

**Irene Aldasoro**

Koloreari buruzko Goetheren obra gaitza, Newtonena bezala, **prisma** batekin hasi zen. **Xabier Olarra**

Newtonek, **prismaren** esperimentu ospetsuan, 1666an, erakutsi zuen elkarturiko kolorez osatzen dela argi zuria. **Xabier Olarra**

Gauza jakina da argi zuria [...] espektro ikusgarrian diren uhin-luzera guztiak dituen argi "nahaste" bat dela; hori aise froga daiteke argi hori **prisma** batez deskonposatuz, edo ostadarrari begiratzuz. **Josu Zabaleta**

### 4 (hitz elkartuetan)

Margolanei erreparatu zien, **prisma** islen argitan. **Karlos Zabala**

### 5 irud/hed

Ororen gainetik, bere umore zirtolaria, bizitza ikusteko **prisma** ironikoa eta pertsonaia bera gailentzen dira. **Berria - Kultura**

Herritar elebakarrak ere bizitako totalitarismoa beste **prisma** batetik ikusteko aukera daukalakoan nago. **Berria - Kultura**

Gai berberaz ari bada ere, abiapuntua duelako bestelakoa, berria (hizkuntza, batez ere, estetika dela) eta, beraz, **prisma** horretatik ikusita, ukitzen duen gai orori eransten dio berri usaina. **Berria - Kultura**

## prismatiko *iz* pl prismetz hornituriko betaurreko bikia.

**Prismatiko** handi batzuk zituen, huts egin gabe mendira eramaten zituena, naturaren ikuskariak eta hegazti harraparien hegaldiak mirestek. **Joan Mari Irigoien**

Berak trintxeratik ikusten zituen, **prismatiko**en laguntzaz. **Ramon Saizarbitoria**

Fusil bat ikusi nuen, zutik txoko batean, eta soldadu kasko bat eta **prismatiko** batzuk haren oinean. **Bernardo Atxaga**

Hermioneek Hagriden **prismatikoak** hartu zituen, baina gora, Harryri, begiratu ordez, jendartean begira hasi zen sututa. **Iñaki Mendiguren**

"Hor zetorrek", esan zuen Pantxok **prismatikoak** begietan zituela. **Bernardo Atxaga**

## prismatxo *iz* prisma txikia.

Eztainu kloruroa **prismatxo** lirain-bitxi, koloregabe eta gardenetan bereizten zen. **Juan Garzia**

prisondegi ik **presondegi**.

prisoner ik **presoner**.

## priszilianismo *iz* Priszilianoren heresia, manikeismoaren eta agnostizismoaren ildokoa.

**Priszilianismoaz**, ikus bedi: [...]. **Juan Martín Elexpuru**

## priszilianotar *iz* Priszilianoren heresiaren jarraitzailea.

Bere jaieguna ospatzen zen, eta oraindik ere ospatuko zen baldin eta **priszilianotarren** sektak bizirik iraun izan balu. **Juan Martín Elexpuru**

Egia da bi gotzain espainiarrek xaxatu zutela Maximo, honek heriotzeraino jazar zitzan **priszilianotarrak**, baina ez da egia txikiagoa alderdi nagusia pozik eduki nahi zuela Maximo tiranoak, heretikoen odola isuriz. **Juan Martín Elexpuru**

## pritzker iz Pritzker arkitektura-saria.

**Pritzkerria** Zaha Hadidentzat. **Berria - Kultura**

Hadid (Bagdad, 1950) saria jaso duen lehenengo emakumea da eta **Pritzkerria** joan den urtean Estrasburgoko tren geltokian egindako lanagatik irabazitako Mies van de Rohe sari europarrari gehitu behar dio. **Berria - Kultura**

## prixa iz JH

Hor kanpotarrekin batera multzo berean urturik genbiltzalako, artzainak, itzainak, espartingileak, ehuleak, txokolate **prixa** moldatzaileak. **Itxaro Borda**

## proasione ik prozesione.

## proba (orobat *proga g.er.*) iz 1 probatzea.

Sexua ez da azterketa bat, ez da inolako **proba**, eta ez dago inolako trebetasunik frogatu beharrik. **Luis Elberdin**

**Proba** bat egingo dugu izen batzuekin, eta orduan ikusiko duzu zer dakidan eta zer ez dakidan. **Oskar Arana**

Bururatu zaizkigun **proba** guztiak egin dizkiogu, eta badirudi dena behar bezala dagoela. **Iñaki Mendiguren**

**Probak** egin zizkiotek boxeolari izateko balio duen ikusteko. **Bernardo Atxaga**

Urtegia betetzeko **probak** hasi zirenetik, areagotu egin da haien kezka, herriko beste biztanle askorena bezala. **Eduarne Elizondo**

Egoera hartan prestatu nuen batxilergora sartzeko **proba**. **Juan Kruz Igerabide**

Bikain eman zidaten sarrerako **proban**. **Juan Kruz Igerabide**

Baxoko **probak** euskaraz bete daitezke eta 10 erakasle postu idekiak dira aurtan berean erakaskuntza elebidunerako. **Herria**

**Proba** gainditu ondoren, bera maite dutenei Jainkoak agindu dien betiko bizia jasoko baitu sari. **Elizen arteko biblia**

Excelsior estudioetako jeinu-bilatzaile batek ekarri ninduen eta **proba** bat egin zidaten..., baina ez dut besterik jakin. **Fernando Rey**

Ziurtatu dit **proba** bat lortuko didala festara etorritz gero. **Fernando Rey**

Hiesaren **proba** egin beharko dute. **Luis Elberdin**

Haurdun dagoela dio, **proba** bat egin dutela eta positibo eman diela. **Luis Elberdin**

Goizean egin dut **proba**, eta emaitza baiezkoa izan da. **Oskar Arana**

Tuberkulosiaren aurkako txerto batek **proba** guztiak gainditu ditu. **Berria - Gaiak**

Albo ondorioak galarazteko beharrezkoak diren **proba** guztiak egin gabe ezin dela merkatura atera. **Luis Elberdin**

Greziar, Turkian eta Errumanian hasi dira ja testa erabiltzen, **proba** moduan. **Berria - Gaiak**

Berriro konpresorra konektatu, eta zilindro nagusia betearazi zuen, eta kontu handiz aritu nintzen kontrolagailuarekin **probak** egiten. **Xabier Olarra**

Idazkeraren **proba** egingo dizute seguru asko. **Rafa Eiguren**

Orduko *Argia*-ko taldeak [...] egindako egunkari baten 0 zenbakia ematen du, **probako** alea, artean egunkariaren izena erabaki gabe zenean kaleratutakoa. **Berria - Harian**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Asteroko **proba** zen hura, tribukideak tribuko zirela frogatzekoa. **Iñaki Iñurrieta**

Behar bezala idazteko moduan ote zauden jakin nahi duela iruditu zaizu, baina **proba** grafologikoa ere izan daiteke. **Rafa Eiguren**

Are argiago ikusten da egoera **proba** simple bat eginenez. **Irene Aldasoro**

**Proba** medikoak egin zizkioten, baina ez zen inolako gaitzen aztarrenik ageri. **Juan Kruz Igerabide**

Gaitasun pedagogikoko **proba** praktikokoak Lyongo institutu batean egin nituen. **Joseba Urteaga**

Irakasle batzorde batek jarriko ditu **proba** publiko horiek, eta **probak** gainditzen dituztenei Ministerioak "egokitzapen" agiri bat emango die. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Desertura joaten ziren guztiek **proba** latzen bat zeukaten zain. **Bernardo Atxaga**

Askotariko **probak** eta esperimenduak egin izan ditugu. **Andoni Egaña**

Aleksandr Petrovitxek denetariko saioak eta **probak** egiten zituen haiekin. **Jose Morales**

**Proba** izugarri gogorak gainditu behar izaten omen zituzten taldean sartzeko. **Rafa Eiguren**

Hau ikaragarriko **proba** izan da beretzat. **Iñaki Mendiguren**

## 3 norbait probatzeko egoera larria.

Orain, tentaldien **proba** igaro ondoren, askatasun handiagoaren jabe zen. **Askoren artean**

Egonarri eramango ditugu patuak ezartzen dizkigun **probak**. **Iban Zaldúa**

Horrek... "**probak** eta sufrimendua" izango dituzula esan nahi du... sentitzen dut... **Iñaki Mendiguren**

Seme, Jauna zerbitzatu nahi baduzu, prestatu zeure burua **probarako**. **Iñaki Mendiguren**

Bakardadearen **proba** pasatu berria du, uxatu ditu fantasmak. **Bernardo Atxaga**

Zeruak, inondik ere, ez zion **proba** hori pasarazi nahi izan. **Karlos Zabala**

Fedea egarri hori jasatea da, Jaungoikoak ezarritako **proba** baten antzera hartuz, bihotz lasaiz. **Koldo Biguri**

Jainkoak bidaltzen diguna **proba** bat izan daiteke eta horrekin bizitzen ikasi behar omen dugu. **Lourdes Oñederra**

Ez dut uste nire apaizetatik inork, bere fedea defendatzeagatik, suaren **proba** hori jasan nahi izango duenik. **Askoren artean**

Kristau Eliza ez zen **proba** honetatik zauririk gabe irten. **Iñaki Mendiguren**

## 4 parte-hartzaileek elkarren kontra lehiatzen diren kirol jarduera.

Alpeak eta hango mendate ezagunak dira *Dauphine-libere* **proba** entzutetsuaren ikurrak. **Berria - Kirola**

Dozena bat **proba** jokatzen dira urtean Londresko ibai ezagunean. **Berria - Kirola**

17 **proba** ezberdin jokatuko dira eta 150 atletak hartuko dute parte. **Berria - Kirola**

Hiru atletok izango dira **proba** irabazteko favoritoak. **Berria - Kirola**

Har dezagun, esaterako, Joko Olinpikoetako **probarik** handiena: ehun metroak. **Joxerra Garzia**

Sailkatzeko **probak** dira, dena dela, goizeko guztiak eta arratsaldeko saioan jokatuko dira lehen finalak. **Berria - Kirola**

Munduko Txapelketako errepidekoa egun bakarreko **proba** da. **Berria - Kirola**

Turinen goia jo nahi du, eski alpinoko bost **probak** irabazi nahi baititu. **Berria - Kirola**

Hiru txanda izango ditu **probak**, eta txanda bakoitzean bost traineruk hartuko dute parte. **Berria - Kirola**



Uztailaren 6an eginen da bigarren **proba** : Zegama-Aizkorriko maratokia. **Herria**  
295 kilometro izanen ditu **probak** . Ohi bezala, pisu neurtuko **probak** izango dira, eta Elorrioko probalekuko harria erabiliko dute. **Berria - Kirola**

## 5 (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

Gai horrek arras berotu zituen herritarren gogoak; **proba** sail bat egin zen; palak zeuzkan hatz-marka freskoak aztertu ziren, eta dendariaren hatzekin bat ez zetozela ikusi zen. **Josu Zabaleta**

## 6 (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Demagun iniazio-**proba** bat izan zela hura: uhartearen denboraldi bat pasatzea, norberaren indar soiletara libratutik, inork ezer ez dakiela. **Iñaki Iñurrieta**

Ikuskatze moduko bat zela, lanari begira egindako gaitasun-**proba** . **Urtzi Urrutikoetxea**

Ni INEMen bidez sartu nintzen idazkari, euskara **proba** eta oposizioa gaindituta. **Berria - Euskal Herria**

Azken odol-**probaren** emaitzak gauerdia igaro eta berehala iritsi ziren. **Oskar Arana**

Txirindulari-**proba** luze horietako batean, berrehun eta gehiago kilometro korriturik, kateatu dira bi txirindulari pedaletatik. **Joxerra Garzia**

-Irrati **proba** bat egiten ari nintzen. **Josu Zabaleta**

Blusa poliziei eramango genien, ADN **proba** egin ziezaiotela eskatu, [...]. **Oskar Arana**

Percy, berriz, bere APEN (Aztia **Proba** Ezin Nekagarriagoak) gainditzeko prestatzen ari zen, Hogwartsek ematen zuen kualifikazio gorena. **Iñaki Mendiguren**

## 7 *p*/inprimategian, testu baten inprimaketa, kaleratu baino lehen, hutsak zuzentzeko, egiten dena.

Bihar ez badut liburu hori inprentan sartzen kristorenak eta bi gertatuko dira, eta dena **proba** -zuzenketarengatik. **Jon Alonso**

Editoreak eta **proba** zuzentzaileak. **Iñigo Aranbarri**

Errukarriak dira, gero, egileak, beti horrela sufrizten badute, eta **proba** -zuzentzailea baizik ez izateak poz apur bat eman zion. **Jon Alonso**

Pavese mahai atzean egoten zen, pipa ahoan, eta inprenta-**probak** tximistaren pare ikusten zituen. **Fernando Rey**

Armairu bateko paperen artean *Setioko* lehen **probak** bilatu ditu, oraindik baditu **proba** horiek, bigarrenak eta hirugarrenak ere bai, jatorrizko testua ez, ordea, hori argitaletxeak gordetzen du lehen zuzenketa bukatu ondoren. **Jon Alonso**

Ni ez naiz gauza **probak** zuzentzeko! **Fernando Rey**

Liburu harexen **probak** ziren, izan ere, 1987ko ekainean nik jasotakoak. **Xabier Olarra**

Poesia liburuko behin-betiko **probak** ematera doa. **Jon Alonso**

## 8 (*adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian froga agertzen da*) froga.

Tesi honen egiaztapenerako **proba** gisa Kristau Elizaren sorrera hartzen badugu, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Eskerroneko **proba** gisa. **Agustín Otsoa**

**Proba** enpirikoak eman digu oinarririk pentsatzeko [...] kointzidentzia hori gizakiaren lurreko bizitzaren "legeetako" bat izan daitekeela. **Iñaki Mendiguren**

Bolognan hil zen, bere santutasunaren **proba** ugari eman ondoren. **Askoren artean**

Ekonomiak moralarekin lotura handia du segurki, eta horren **proba** ontsa ikusi zen 1929an Wall Street-eko bankarrot famatū hartan. **Herria**

## 9 *asto proba* ik *asto*.

## 10 *idi proba* ik *idi* 12.

## 11 *proba egin* (zer/nor osagarririk gabe) ik *probatu*.

Utzidazue niri **proba egiten**, ea nire besoek gaztetan bezainbat indar duten. **Juan Kruz Igerabide**

-Egizu **proba** aurrena -esan zuen. **Koro Navarro**

Egin ezazu zerorrek **proba**. **Gotzon Garate**

Eta hementxe **proba egiten** badut? **Josu Zabaleta**

Ni **proba egin** gabe nago, noski, baina esaten dute Pyrophorus bakar batek ematen duen argitan irakurtzea badagoela. **Jon Alonso**

Onartu zuen zerbitzariak proposamena eta **proba egin** zuen hamar egunez. **Jose Antonio Mujika**

**Proba egin** ezean ez genuen asko aurreratuko eta, hortaz, atean kax-kax jo genuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Fikzio-idazlea naiz ni funtsean; orain, ordea, **proba egin** nahi dut, ea ezer asmatu gabe, gezurrik kontatu gabe, zer edo zer idatz dezakedan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 12 (-ekin, -teko eta -i atzizkien eskuinean)

Ea bromuroarekin **proba egin** al zuen galdetu zion. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Garai hartako anglo-eskandinaviar planteamendua erdibide bat aurkitzeko ahalegina zen, enpresa pribatua eta gizarte-justiziaren interesetan gobernu-arauketa konbinatzeko **proba eginez**. **Iñaki Mendiguren**

Liburuaren jabearekin bakarrik ezkonduko omen da, eta bere maite guztiei **proba egiten** die, ea liburu buruz ikasi duten. **Pako Aristi**

## 13 *proban jarri* (*orobat ipini*)

Ereduak asmatu eta **proban jartzeko**, ordea, oinarri gisa, ezinbestekoak ziren, lehenengo eta behin, entzima horiek katalizaturiko erreazio kimikoan azterketa zinetiko xeheak. **Juan Garzia**

Sumatzen nuen, hala ere, metro bakoitzarekin abiadura haziz zihoala, motorraren ahalmen guztia **proban jarri** nahian balebil bezala. **Aingeru Epaltza**

Itsuak Lehendakariari ziria sartu ziolakoan, musikari sail batek **proban jarri** zion oroimena hurrengo egunean. **Xabier Olarra**

Europako hainbat hiritan **jarri** dituzte autobusak **proban**, eta arrakasta handia izan dute. **Berria - Harian**

Egoi Martinez izan zen atzo euskal zaleriaren kirioak **proban jarri** zituena. **Berria - Kirola**

Emakumeak eta zerbitzariak **proban ipiniko** ditiagu; ikus dezagun zein ditugun alde eta zein aurka. **Juan Kruz Igerabide**

Ez hitz egin nahi izan berarekin parez pare, ez fidatu haren berbaldi luzeez, bere hitz-jarioaz **proban jarriko** baitzaitu eta irribarez ere aztertu egingo. **Elizen arteko biblia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alkoholemia proba (4); aurreko proba (4); aurreneko proba (4); azken proba (44); bakoitzak lau proba (11); bederatzigarren proba (6); bere proba (6); beste bi proba (5); beste proba (35); beste proba bat (14); beste proba batzuk (5); bi proba jokatu (5); bigarren proba (18); bigarren proba jokatu (4); bost proba irabazi (4); denboraldiko lehen proba (4)

egin proba (4); egin zuen proba (4); egindako proba (4); egingo diote proba (4); egizu proba (4); egutegiko azken proba (4); egutegiko proba (10); emakumezkoen proba (5); gaurko proba (4); gizon proba (10); gizonetzkoen proba (6); gure proba (5); hainbat proba egin (4); hasiko da proba (8); hirugarren proba (11); hurrengo proba (7)

idi proba (6); irabazi zuen proba (11); izan zen proba (4); izango da proba (4); junior proba (4); kopako lehen proba (5); kopako proba (13); lau proba izango (5); lau proba jokatu (5); lau proba puntuagarri (16); laugarren proba (11); lehen proba (51); lehenengo proba (7); ligako proba (6); munduko kopako proba (11); munduko proba (5); munduko txapelketako proba (4); nazioarteko proba (7); oroimenezko proba (4)

proba amaitu (5); proba antolatu (4); proba bat egin (12); proba bat egingo (6); proba bat izan (5); proba batzuk egin (9); proba berri (6)

proba egin (45); proba eginda (4); proba egingo (16); proba egingo dugu (4); proba egitea (15); proba egiten (16); proba ezberdinak (4); proba fisiko (4); proba gainditu (10); proba garrantzitsu (6); proba garrantzitsua (9); proba garrantzitsuena (7); proba garrantzitsuenak (4); proba gehiago egin (4); proba gisa (6); proba gogorra (11); proba guztiak gainditu (4); proba hasi (7)

proba irabazi (36); proba irabazi ditu (10); proba irabazi zuen (7); proba irabazteko (26); proba irabazteko favorito (6); proba izan (7); proba izango (25); proba izango dituzte (12); proba jokatu (17); proba jokatu (48); proba jokatu da (17); proba jokatu dira (19); proba jokatu dituzte (8); proba konbinatuak (5); proba konbinatuan (8); proba konbinatuetan (9); proba korritu (8); proba korrituko (11); proba korritzen (4); proba laburra (4); proba laburrean (5); proba luzea (7); proba moduan (10); proba nagusia (9); proba nagusiak (4)

proba ona (7); proba onena (4); proba onenak (5); proba oso (5); proba osoan (5); proba puntuagarri (19)

proba ugari (4); proba utzi (7)

probaz proba (21); sailkapen proba (9); sartzeko proba (4); seigarren proba (4); suaren proba (4); txapelketako bigarren proba (6); txapelketako hirugarren proba (4); txapelketako proba (7)



urteko lehen proba (6); urteko proba (4); zortzigarren proba (4)  
azken probak (9); egindako probak (9); egun bateko probak (4); idatzizko probak (4); idi probak (62); jakiteko probak (5); lehen probak (11); lehenengo probak (4); mando probak (17)  
probak egin (40); probak egingo (13); probak egitea (6); probak egiteko (19); probak egiten (50); probak gaur hasiko (5); probak irabazi (8); probak jokatu (5); probak jokatu (5); probak jokatu (9); probak korrituko (4)  
sartzeko probak (6); urtegia betetzeko probak (9); zaldi mando probak (17)  
ocean race probako (17); probako antolatzaileek (7); probako bigarren etapan (4); probako liderra (5); probako marka (8); probako sailkapen (4)  
alkoholemia proban (7); azken proban (37); emakumezkoen proban (5); hirugarren proban (10); jaitziera proban (4); jazarpen proban (7); jokatu zen proban (4); kopako proban (5); lehen proban (29); munduko kopako proban (4); nazioarteko proban (4); ocean race proban (12); proban ariko (7); proban jarri (11); proban nagusitu (4); sailkapen proban (5)  
azken probara (8)  
probaren burua (5); probaren ondoren (5); probaren ostean (6)  
azken probari (6)  
probarik ez (4)  
lehen probatik (4)  
egindako proben (5); proben arabera (7); proben artean (4); proben emaitzak (4); proben emaitzen (4)  
alkoholemia probetan (4); azken probetan (6); egindako probetan (6); eginiko probetan (4); egun bakarreko probetan (4); egun bateko probetan (8); lehen bi probetan (7); munduko kopako probetan (5); probetan positibo (4); sailkapen probetan (6)

**probabilismo** *iz* doktrina filosofikoa, iritzi edo teoria orori halako probabilitate maila esleitzen diona eta, hortaz, ziurtasun printzipioa baztertzen duena.

**Probabilismoak**, indeterminazio edo ziurgabetasunak, noiznolakotasunak, irrazionaltasunak edo kausagabeziak ez dirudite, begiratu batera, ortodoxiaren aldean etzateko moduko zerak. **Iñaki Seguro**

Ez al zuen zuztar bera, aldez behintzat, determinismoaren eta kausalitatearen banderadun gelditu zen [...] Einsteinek Bohr, Heisenberg eta abarren inderterminismoarekin eta **probabilismoarekin** izan zuen zeingehiagoka edo zeinegiagokak? **Iñaki Seguro**

**probabilistiko 1** *izond* probabilitatearena, probabilitateari dagokiona.

Aurreikuspenetarako, arriskuaren azterketa **probabilistikoa** ezin ahaztuzkoa da. **Berria - Ekonomia**

Hemen, zilegi da ondorio posible ezkorrekiko prebentzioz aritzea, nahiz eta ondorio posible horien neurketa **probabilistikoa** eskuragarri ez izan. **Berria - Gaiak**

**2** probabilismoarena, probabilismoari dagokiona.

Arrazoibide induktiboen eta **probabilistiko** erabilpenarena. **Xabier Arregi**

**probabilitate 1** *iz* gertagarritasuna.

Azarnak beren artean baino ez badira frogatzen, alegia, zenbat eta frogia gehiago ekarri, orduan eta txikiagoa da gertaeraren **probabilitatea**. **Juan Martin Elexpuru**

**Probabilitaterik** handienaren printzipioa. **Josu Zabaleta**

Topikoen helburua edozein arazoz argudiatzea da, **probabilitate** handiko premisetatik hasirik. **Askoren artean**

Pentsatu beharra dago izan daitezkeen konfigurazio geometriko desberdin guztien artean, izateko **probabilitate** gehien duena "aukeratzen" dela garunak. **Josu Zabaleta**

Oso **probabilitate** gutxi zeuden -berak jadanik pentsatu zuen hartan- halako asteburu bat bititza osoan berriro bititzeko. **Aitor Arana**

**Probabilitaterik** gutxieneko gertaera zen hura; ez, ordea, **probabilitate** nulukoa; alegia, gertaera zeharo gertagaitza zen; ez, ordea, ezinezkoa. **Jon Muñoz**

Ziurtasun morala, estu hartuta, **probabilitate** bat besterik ez dela pentsatzen duenari, desegin egingo zaio paradoxa; hau ziurtasuna deitzen zaion **probabilitate** morala baita, zentzuneko pertsona orok onartzen duelako jardun beharretik sortutako ohitura dela, eta espekulazio guztien aurretikoa **Juan Martin Elexpuru**

**2** zerbait gertatzeko aukeren kalkulu matematikoa.

**Probabilitateen** kalkulia. **Jon Muñoz**

Bazekien beren bideak une eta leku hartan elkartu izana **probabilitateen** legearen kontrako zela. **Imanol Zurutuza**

Hari [Denis Poisson] zor zitzaion, besteak beste, **probabilitateen** teoriako lege polit bat. **Jon Muñoz**

Gertaera baten **probabilitatea** aldeko kasuen kopurua zati kasu gertagarrien kopurua da. **Jon Muñoz**

**Probabilitateen**, ezinaren adierazpen matematikoa da 0; 1, berriz, ziurtasunarena. **Jon Muñoz**

**Probabilitate** bat 0ren eta 1en artean hertsiki kokatuta dago. **Jon Muñoz**

Ordubetea, gai erradioaktiboak erradiazioa igortzeko %50eko **probabilitatea** du. **Fernando Morillo**

Komunikazio-teoriako hizkuntz eredu oinarritzko hau osatzeko, **probabilitate** bat egotzen diogu egoeratik egoerarako aldaketa bakoitzari. **Itziar Laka**

Aipatutakoez gainera, Ruche jaunak, hirurogei urte geroago, hauek gogoratzea lortu zuen: aljebra, trigonometria, **probabilitateak**, estatistika, mekanika. **Jon Muñoz**

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zehaztasun matematikoaren ordez **probabilitate** -kalkulia sartu behar da aritmetika politikoan. **Juan Martin Elexpuru**

Bi delitu hauen arteko **probabilitate** -ezberdintasun txit handiak eskatzen du hauen arauketa oinarri ezberdinekin egitea. **Juan Martin Elexpuru**

Ez dago kasualitaterik munduan, dena **probabilitate** jokoaren omen da. **Lourdes Oñederra**

**Probabilitate** kontua da. **Jon Alonso**

Juan del Olmo epaile Instruktoreak agindutako auzipetze autoak bertan behera uzteko eskatu zuen atzo Iruinek «**probabilitate** epairik» ez dagoela argudiatuz, eta hori beharrezkoa da auzipetzeak erabakitzeke. **Berria - Euskal Herria**

Lorturiko indukziozko babesaren eta erabilitako **probabilitate** -motaren arteko erlazioaren azterketa. **Askoren artean**

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Delitu txikietan, akusatuaen errugabetasun-**probabilitatea** gutxitu egiten denez, luzatu egin behar da ikerketa-denbora, eta inpunitatearen kaltea txikiagoa denez, laburtu egin behar da preskripzioarena. **Juan Martin Elexpuru**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**probabilitate gehiago** (3); **probabilitate handia** (4)

**errugabetasun probabilitatea** (3); **gertaeraren probabilitatea** (3); **probabilitatea handitu** (3)

**probabilitateen kalkulia** (3)

**probable** *izond* gertatzeko aukera asko dituen. ik **gertagarri**.

Nire aldetik, ez bakarrik posible, aldiz, **probablea** ere badela esango nuke [...] berak ezagutzen zuen edo bera ezagutzen zuen pertsona bat bera ere topatu gabe ibil zitekeela Marie. **Koro Navarro**

Mutazio aukeratu bat biltzea, bada, lehen-lehenik, haren eragin **probableak** irudikatzea da. **Juan Garzia**

Aitoritzen dut liburua honetan ez demostratuta baizik **probable** bezala gelditu den gauza bakarra. **Esteban Antxustegi**

Bi teoriak aski **probableak** direnez, ez dut oztoporik ikusten biak ala biak sinesteko, eta Snedeker doktorea ere arazoaren ikuspegi honetara makurtu zen. **Xabier Olarra**

Onartu behar nuen ez zela oso **probablea** pistolariak nire lorratzean etorri izana. **Alberto Ladron Arana**

1 baino **probableago** izatea zuria baino zuriago izatea da! **Jon Muñoz**

Gure solasaldi honetan entzun den proposiziorik atseginenena, sakonena, **probableena** horixe izan da, eta Jaungoikoa gurekin bada, egiazkoena ere bai. **Imanol Unzurrunzaga**

**Probableena** da Lukreziok ez zuela azken ukiturik emateko astirik izango. **Xabier Amuriza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**oso probablea** (3)

## probaburu *iz* proba batean aurrean doan pertsona.

Masilako Txapelketako arantza atera zuen, hartan ezin izan baitzion **probaburuari** eutsi azken bi enborretan. **Berria - Kirola**

## probagarri ik frogagarri.

## probagela *iz* jantzi denda batean arropa probatzeko gela.

**Probagelako** atearren azpitik pasatu zizkigun guri; oso andre diskretua zen eta oso dotorea, eta horrelako lan bat gogoz hartuko nukeela esan nuen neure artean. **Joxan Elozegi**

Denda dotoreko **probagelan** egin genuen amodioa lehenengo aldiz. **Joxan Elozegi**

## probaketa 1 *iz* probatzea, saioa.

Gero jakin diagu han hil zituzten mila eta bostehunak, nire familiakoak tartean, **probaketa** batean hil zituztela. **Bernardo Atxaga**

**Probaketa** berrikerik egin nahi gabe, zelata kide txit fintzat onartu eta baietsi zuen. **Patxi Ezkiaga**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Igandean, martxoaren 30a, besta handia: musika, azoka, sukaldaritza lehiaketa, txakoli **probaketa**, herri bazkaria, kantu eta dantza. **Herría**

Hasieran herabe, eta soineko koloretsuak probatzen jardun ahala suharrago [...] goxoki ugarien artean bakar bat hautatu behar duen haurraren erabaki neketsua bihurtzen ari zitzaien Norari soineko-**probaketa**. **Anjel Lertxundi**

Atzo egin zuten material **probaketaren** ondoren, Titinen kontra jokatzeko gogo handia duela adierazi zuen. **Berria - Kirola**

Zenbaiti, odolberotasuna eta erronkazaletasuna, mugapen fisiko eta sozialekiko etengabeko indar-**probaketa**. **Xabier Olarra**

## probalari 1 *iz* idi proba eta kidekoetan parte hartzen duen pertsona.

Ostiralean idi dema jokatu zuten Aian, eta Mikel Rezabal **probalaririk** irabazi zituen alde bakoitzak jarritako 1.200 euroak. **Berria - Kirola**

Hiru **probalariren** idiak plazaratuko dira ordu erdiko lana egiteko: Lasarteko Telleria, Goiberri Erandioko Juan Agustin Bilbao eta Errenteriko Enrike Artolarenak. **Berria - Kirola**

Biharko lehen saioan hiru **probalariren** uztarriak plazaratuko dira. **Berria - Kirola**

Munitibarko probalekuak hartuko du finala, eta sei **probalariren** abereak ariko dira bi txandatan. **Berria - Kirola**

Guztira 11 **probalariren** astoak ariko dira Etxebarriko harriari tiraka. **Berria - Kirola**

85 kilo azpiko hiru **probalaririk** plazaratuko dira, bihar (21:00): Fernando Zarrabe Basaibar, Karmelo Ibarluzea Satxibar eta Eneko Urionaguena. **Berria - Kirola**

## 2 (hitz elkartuetan)

Zortzi idi **probalariren** uztarriak ariko dira lehian. **Berria - Kirola**

Mikel Altzola gernikarrak oso garbi utzi zuen herenegun gizon **probalaririk** onena dela. **Berria - Kirola**

## 3 lasterketa-autoak probatzen dituen pertsona. ik **probatzaile 2**.

Williamsen lau urtez **probalaririk** izan ondoren, bigarren urtea du Ferrarin, autoa milaka kilometrotan gidatuz proba saioen bakartasunean. **Berria - Kirola**

## probaldi *iz* proba-denbora; proba.

Agintariek aditzera eman dutenez, orain abiatu dutena zazpi hilabeteko **probaldia** da, eta ondoren erabakiko dute suediarrek erabakiarekin aurrera jarraituko duten. **Berria - Gaiak**

**Probaldiko** urtea betetzean, onartuak izan bitez anaiarteko obedientziara. **Askoren artean**

Izan ere, badaki Jaunak gizon zintzoak **probalditik** ateratzen eta gaiztoak auzi-egunean zigortzeko gordetzen. **Elizen arteko biblia**

Latinez *Exceptio probat regulam* esaldiak adierazten du salbuespenak araua zalantzan jartzen duela, **probaldian** jartzen duela, ez, ordea, frogatzen duela. **Xabier Olarra**

Bera ere nekeetan probatua izan delako, gauza da orain **probaldian** daudenei laguntzeko. **Elizen arteko biblia**

Portuan egin lantxoak **probaldi** estetiko batzu ziren. **Piarres Aintziart**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**probaldian sendo irauten** (3)

## probaleku 1 *iz* idi proba eta kidekoak jokatzeko lekua.

Idi probak jokatu dira Getxoko Andra Mari **probalekuan** desafio handiak. **Herría**

Gaur hasiko dira Getxoko Andra Mari **probalekuko** zaldi-mando probak. **Berria - Kirola**

Aiarren arteko dema izango da gaur ikusgai, Aiako **probalekuan**, 22:00etan. **Berria - Kirola**

Munitibarko **probalekuak** hartuko du finala, eta sei probalariren abereak ariko dira bi txandatan. **Berria - Kirola**

Oh! bezala, pisu neurtuko probak izango dira, eta Elorrioko **probalekuko** harria erabiliko dute. **Berria - Kirola**

Gizonezkoen 320 kiloko finala jokatu dute Abadiñoko **probalekuan**, eta horrek emango dio amaiera txapelketari. **Berria - Kirola**

Gaur 680 kiloko finala jokatu dute Abadiñoko **probalekuan**. **Berria - Kirola**

Bigarren a gaur erabakiko dute Larretxeak eta Olasagastik, 12 enberrera, Aiako **probalekuan**. **Berria - Kirola**

## 2 probatzeko lekua.

Kazetaritzako bekarioen **probalekutat** ere ez dute balio. «Daukagun demokrazia mailaren **probalekua** da hori», gaineratu zuen. **Txema Ramirez de la Piscina**

Ondoko urteak klase eta jite ugaritako lanbideen **probaleku** izan zituen, zein baino zein bereziago: tailer bateko mekanikari-lagun, obretako peoi edo pintore-ikastun, batetik bertzera oporaldiak tartekatzen zituela. **Aingeru Epaltza**

Hamaika mila plaza pasa eginak gaude gaudeneko, denboraren **probaleku** berrizahartuan, galtzaileen arteko dema alferrikakoan. **Joxerra Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**probalekuak hartuko du** (3)

## probantza iz proba.

1962an, urtebetez, Hirugarren **Probantza** Urtea egin zuen Gandian (Valentzia, Herrialde Katalanak) eta hala jesuita karrera burutu zuen. **Berria - Kultura**

## probarazi, probaraz, probarazten du ad probatzera behartu.

Nire gogoan Frantziaren porrota lotuta gelditu zen betikoz Pavese, ailegatzean, bere esku patxadatsu eta zapuzarekin sakelatik banaka-banaka atera eta **probarazten** zizkigun gerezi haiekin. **Fernando Rey**

Horietan gazteei etxeko mozkinak **probarazten** zaizkie. **Berria - Euskal Herria**

## probasaio iz entsegua.

Hainbat egunetan, deitzen nuelarik atera beharreko bozaren **probasaioak** egiten aritu nintzen etxeko komunean: "Urdekume halakoa, faxista zikina, jomugan haugu...!".

**Aingeru Epaltza**

## probatu, proba(tu), probatzen 1 du ad zerbait, omen den bezalakoa ote den, saio edo azterketa bidez egiaztatuta. ikproba 11. (zerbait)

Motorra, zikin-zikina, baina ondo; **probatu** nuen, eta gasolina ere bazeukan. **Joxe Austin Arrieta**

Bi misil berri **probatu** ditu Teheranek. **Berria - Mundua**

Miñako Aeronautika Teknologien Zentroan A380ko piezak ere **probatu** dira. **Berria - Harian**

AEBei erositako misilen aurkako defentsa sistema **probatu** zuen Taiwanek. **Berria - Harian**

Militarrek hiri batean **probatu** nahi zuten [bonba atomikoa], japoniarrek lehenbailehen errendi zitezten. **Fernando Morillo**

Autoan aire-freskagarriak jartzen hasi zen, mota guztietakoak [...] merkaturan aurki daitezkeen guztiak **probatu** zituen taxistak, arrakastarik gabe. **Iban Zaldúa**

Berritutako txertoa animaliekin soilik **probatu** duzue? **Berria - Gaiak**

Zezenak ere **probatu** zituzten gerrako zerbitzuan eta basurde ankerrak etsaien aurka bidaltzen ere saiatu ziren. **Xabier Amuriza**

Inguruan hainbat lekutan **probatu** ondoren, Cosmic Diner hautatu nuen bazkaltzeko ohiko lekutat. **Oskar Arana**

### 2 (gauza abstraktuak)

Nola anai Maseok San Frantziskoren apaltasuna **probatu** nahi izan zuen. **Askoren artean**

Esaten eta tolestutzen zail den hori, esateko gai den **probatu** nahi du eta arriskua hartuko du bere mugak arakatzeko aldera. **Andoni Egaña**

Milaka ziren munduan, oraindik ikusi ez eta ikusi nahi nituen bazterrak, egin nahi nituzkeenak, irakurri, **probatu**, bizi! **Xabier Mendiguren Elizegi**

Txirrin batekin **probatu** zuen Laurak, baina ez zuen erantzunik jaso. **Jon Arretxe**

Beste konbinazio batzuk **probatu** behar. **Iñaki Iñurrieta**

-Sekula zeure gorputzean **probatu** duzu haxixaren eragina? -galdetu zuen Hofrat jaunak. **Anton Garikano**

### 3 (norbait)

Fedeari esker eskaini zuen Abrahamek Isaak, Jainkoak **probatu** zuenean. **Elizen arteko biblia**

**Probatu** egin zaituzte, bai, egoera latzean jarriz, baina zeuen onerako izan da azken batean. **Elizen arteko biblia**

**Proba** nazala, urrea bezain garbi aterako naiz. **Elizen arteko biblia**

### 4 (janariez, edariez eta kidekoiez mintzatuz) ik dastatu.

Ogia **probatu** bezain laster, gaixoak halako indar miragarri bat sentitu zuen bere baitan. **Askoren artean**

Inoiz ez zuten patatarik horrela **probatu**, gehienetan etxean ez zen eta gantzik edo oliorik izaten. **Pako Aristi**

Esan ohi baitzuen bijiliarik onena ez dela gauzak **probatu** gabe uztea, gustatzen zaizkigun gauzetan neurria hartzea baizik. **Askoren artean**

Nik, berriz, tantorik **probatu** ere ez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Proba** ezazu tabako aljeriarra. **Anton Garikano**

Drogak **probatu** ez **probatu** zalantzan dabilen gazte baten paperean. **Joxerra Garzia**

Haiek ere gauza jakintzat zuten euskaldunen artean arrunt guti zirela Kalbinoren dotrinen aldekoak, apez eta fraideen artean emakumea **probatu** gabeak baino bakanagoak. **Aingeru Epaltza**

### 5 (jantziez-eta mintzatuz) ik saiatu.

**Probatu** nuen, bada, jertsea. **Joan Mari Irigoien**

Barre egiten dut neure kautan, soinekoa **probatu** dudala esango banio, aitzak izango lukeen erreakzioa imajinatuz. **Anjel Lertxundi**

Egun batean gazte bat etorri zunan harentzat egiten ari ginen trajea **probatzera**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bortz minutu geroago, fisik erosi eta **probatu** gabe alde egin zuten, arropa-denda guztia itzulipurdikatu ondotik. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**denetarik probatu** (5); **denetik probatu** (3); **eratzuna probatu** (3); **gizakiekin probatu** (3); **jainkoak probatu** (6); **lagunekin probatu** (3); **mokadurik probatu** (5); **probatu aurretik** (4); **probatu beharra** (7); **probatu dute teknika** (3); **probatu ondoren** (9); **probatu ostean** (4); **probatzea erabaki** (3)

**autoa probatzeko** (3); **berriro probatzeko** (3); **botika probatzeko** (3); **jantziak probatzeko** (3); **probatzeko aukera** (7); **probatzeko prest** (3)

**materiala probatzen** (3); **probatzen utzi** (4); **txertoa probatzen** (3)

**probatzera etorri** (5); **probatzera joan** (4)

## probatxo iz adkor proba.

Han **probatxoak** egin eta gero, ez zitzaion gunerik egokiena iruditu, eta Donostia gertuko Igeldoko Mendizorrotz aukeratu zuen berak gunerik aproposena. **Pello Zabala**  
Egunon, barkatu, Silva jauna, hain goiz etorri izana, **probatxoan** bila nator, badakizun. Costak benetan nahi du barkatua izatea. **Jon Alonso**

## probatzaile 1 *izond* probatzen duena.

Jarrera **probatzaile** eta sortzailea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Mark Gene, Ferrariko gidari **probatzailea** izatetik gertu. **Berria - Kirola**

De Larosak ere pilotu **probatzaile** ona dela erakutsi du, eta aurrenekoekin egon da denboretan. **Berria - Kirola**

## 2 *iz* probatzen duen pertsona. ik **probalari 3**.

Ferrari taldea **probatzaile** bila dabil. **Berria - Kirola**

Kataluniarra esperientzia handiko pilotua da, azken lau urteetan Williams taldeko **probatzaile** izan baita. **Berria - Kirola**

Bi euskal marinelak Sydneyn izan ziren, baina sparring bezala, **probatzaile** moduan. **Berria - Kirola**

## 3 (hitz elkartuetan)

Sei urte daramatza gidari kataluniarrak auto **probatzaile** lanetan. **Berria - Kirola**

## probatze *iz* zerbait, omen den bezalakoa ote den, saio edo azterketa bidez egiaztatzea.

**Probatze** prozesuan. **Berria - Gaiak**

## probentzal (**28** agerraldi, **12** liburu eta **10** artikulutan *–probentz\* formak-*; orobat **probentzal 19** agerraldi, **10** liburu eta **3** artikulutan *–probentz\* formak-*) **1** *izond* Probentzakoa, Probentzari dagokiona; Probentzako herritarra. ik **probentzar**.

Chrétien Troiakoa, XII. mendeko idazle gortisaua, irakurle kulto eta dotore haien gustorako izkiriitzen saiatu zen, inspirazio grekolatinoak, bretoiak, **probentzalak** eta mistikoak baliatuz eta nahastuz. **Patziku Perurena**

Txistua inportanteagoa da euskaldunentzat txirula **proventzalentzat** baino. **Mikel Hernandez Abaitua**

## 2 Probentzako hizkuntza.

Frantsesa eta **Probentzala**, esaterako, biak latin arruntetik sortuak dira, latin arruntak Galiako iparraldean eta hegoaldean izan zituen bilakaera desberdinen ondorioz. **Isabel Arrigain**

Geroztik haatik, hizkuntzaren batasuna doi bat galdu da, eta gaur egun lau azpi-mintzaira bereixten dira: gaskoina (Garona ibaiaren pekaldean), **probentzala**, Languedoc eskualdeko mintzaira, eta ipar-okzitaniera (Auvergne-Limousin eskualdean). **Herria**

## probentzar (*corpusean probentzar soilik*) *izlag/iz* probentzala.

Egia baldin bazen Mendebaldeko eskola honetako **proventzar** trobadore aitzindarien ideia eta idealek, baita bertsifikazio eta errimak ere, andaluziar musulmanen artean izan zutela sorburua. **Iñaki Mendiguren**

Mutil zurbil argal horrek bere lehenbiziko senarra zekarkion gogora, emetasun laztangarriko **proventzar** horietako bat. **Karlos Zabala**

Beheko solairuak kalera ematen zuen; lehenengo solairuak, berriz, barrualdeko patiora, eta **proventzar** itxurako balkoi luze bati esker zegoen, hain zuzen, haren gainera irtena. **Jon Muñoz**

## proberbial *izond* ezaguna, jakina.

Bestalde, **proberbiala** zen traje italiarrak oso ongi ematen ziotelakoa, eta haien bilduma ederra zuela. **Jon Alonso**

## probestu<sup>1</sup>, probes, probesten du *ad* aprobetxatu.

Hasian hasi eta haize-alde, egokiera **probestea** erabaki nuen. **Aingeru Epaltza**

Abagunea **probestu**. **Jose txo Azkona**

Ananen ustez, Espainiako Gobernuak ez ezik, alderdi eta erakunde guztiek sortutako egoera berria **probestu** eta kudeatu beharko lukete. **Berria - Euskal Herria**

Berdinketa 60 minutuan iritsi zen, Uchuk Fagoagak defentsan eginiko errua **probestu** eta Iraizoz gaingitu zuenean. **Berria - Kirola**

Esker hitzekin batera instituzioei dei bat egiteko ere **probestu** zuten bere hitzalditxoak. **Berria - Kultura**

**Probestu** ote zituen momentu horiek. **Berria - Kultura**

Bazakiaz ez dela polita bertzeen ahulaldiak **probestea** gure xedeen lortzeko, baina, ergelkeria izanen zuan ez baliatzea. **Aingeru Epaltza**

Lurretik oinak altxa gabe dantza txikiren bat tarteka, begiraleak entrenitututa zeudela **probestuz**, alaitasun erakustaldiak debekatuta baitzeuden. **Harkaitz Cano**

Leihoa ireki eta zigarro bat piztu du, laguna kanpoan dela **probestuta**. **Aingeru Epaltza**

## probestu<sup>2</sup> *iz* antzinako udal-enplegatua, alkatearen aginduak betearazten zituena.

Bourges-en, **probestuak** norbaiti deitu eta hau etortzen ez bazen, honela esaten zuten: [...]. **Iñaki Iñurrieta**

## probeta 1 *iz* saio hodi oinduna, eskuarki mailakatua.

Ingalaterran, talde batek lortua zuen haur bat sorraraztea, zeinaren ernalkuntza, bederatzir hilabete lehenago, ez baitzen gertatu bide klasikoetatik, **probeta** batean baizik. **Juan Garzia**

Lagin bat hartu zuen galdaratik, hozten utzi, eta erreaktiboarekin tratatu zuten: **probetak** garden iraun zuten segundo batzuk; gero, esnea bezalako zuri bilakatu zen. **Juan Garzia**

1978an sortu zen lehenbiziko ume-**probeta** Ingalaterran. **Pello Salaburu**

## 2 irud/hed

Gora anarkia! nahasmena eta jeniotasuna **probeta** berean sartzen direnean ez dago asmatzerik zer sor daitekeen koktel lehergarri horretatik. **Berria - Kirola**

Gizarte honek **probeta** kume bihurtu gaitu guztiok eta gure bizitzaren une batean edo bestean sustraiak dauzkagula frogatu nahi dugu. **Berria - Kultura**

## 3 **probeta-haur** saio hodiko haurra.

Txalo-zaparrada batek egin zion, bada, ongi-etorria lehenbiziko **probeta**-haurrari. **Juan Garzia**

# probetaldi *iz* enbrioiak probeta barruan igarotzen zuen aldia.

Dagoeneko hizpide da ernalkuntzaren osteko urratsetara zabaltzea enbrioiaren **probetaldia**. **Juan Garzia**

# probetatxo *iz* *adkor* probeta.

Ez zezakeen edonork irakurri termometro bat edo euria neurtzeko **probetatxoa**... **Pello Zabala**

# probetxagarri ik **probetxagarri**.

# probetxamendu ik **probetxamendu**.

# probetxatu ik **aprobetxatu**.

## probetxu *(329 agerraldi, 97 liburu eta 54 artikulutan)* *iz* 1 *iz* zerbaitetik, norbaitentzat edo zerbaitentzat gertatzen edo ateratzen den ondorio ona. ik **onura**.

Aski dela frogatzea delako auzi hura hemen egitea ez dela ez zilegi, ez gisa, ez eta zuzen, baina **probetxu** baino kalte gehiagoren ekarle. **Piarres Xarriton**

Lanak emaiten dauku idekidura, gizartean gure toki, gure **probetxua**, gure saria. **Herria**

**Probetxua** eta onura, baldin ene asmoak onartuko bazenituzte, bi aldetarik iritsiko litzaizueke. **Joan Mari Irigoien**

Atsegin dituzte zure hitzak, baina beren **probetxu** bila dabilta barruan. **Elizen arteko biblia**

Gizonik gehienak, gure izaera maltzurragatik, motiborekin edo motiborik gabe, norberaren **probetxuaren** atzetik ibiltzen baitira. **Esteban Antxustegi**

Buruberokeriak ez dituk nehoentzat **probetxu**. **Daniel Landart**

Zer **probetxu** da amets bati lotzeaz, haren betetzea ezinezkoa denean? **Joan Mari Irigoien**

Predikatzen dutenean, beraien hizkera neurritsua eta garbia izan dadila, herriaren **probetxu** eta eraikuntzarako. **Askoren artean**

Ohore duzue hau eta gorputz-arimentzako **probetxu**. **Askoren artean**

Baina ez da **probetxurik**, laguna ez du beti untsa plazatua, deneri lotzen bada ere bereziki airez, eta zenbait aldiz bere hetarik egiten, bereziki gantzoaz. **Herria**

-Ez da tokirik hiritar zintzoentzat; sasi abokatuez eta etxeko **probetxu** ari diren jendeaz osatu gobernua gure erresumaren errekaratzen ari da. **Elena Touyarou**

Zoazte, beraz, eta egin otoitz Jaunari [...] arimen **probetxurako** eta gure Ordenaren etsenplu onerako gehien komeni den probintzia aukeratzea eman diezadan. **Elizen arteko biblia**

Gizon basatiak ez dio inori kalterik egiten bere buruaren **probetxurako** ez bada, baina lege txarrek besteei gaitz egitera daramate sarri gizon gizarteratua, bere buruari mesede egin gabe. **Juan Martin Elexpuru**

## 2 (izenondoekin)

Bere **probetxu** pertsonala eta Konpainiarena urbiaindarraren salbazionearen gainetik paratzen zuela... **Joan Mari Irigoien**

Ez zen inolaz **probetxu** materialen bila ari. **Matias Múgica**

Frisiako itsas marka-gizonengandik ikasia zuten ontzigitza eta itsasketa-teknikari hain **probetxu** ona atera ziotenez, itsasoko agintea eskuratu zuten. **Iñaki Mendiguren**

**Probetxu** handiko elkarrizketa izan da gurea. **Xabier Etxabe**

Sofrikario oro **probetxu** handikoa litzateke zuretzat, nahiz eta txikia izan, burutik sentitu ere gabe erortzen den ile hutsalaren moduan. **Joan Mari Lekuona**

Kontzeptu hori aise heda daiteke, **probetxu** handiz gainera, aztertzen ari garen gai honetara. **Josu Zabaleta**

Hartara **probetxu** txikiren bat aterako diot, besterik ez bada. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 (aditzen objektu gisa)

Oraindik astia bazuenez, Niker **probetxu** atera nahi zion bisitaldiari. **Antton Olano**

Kolonoetako batek iturriko uraren ontasunaz baliatuz eta hari **probetxu** ateratzeko asmoa hartuz, dendatxo bat jarri zuen era guztietako gaiekin. **Santiago Iruretagoiena**

Egoera eta jazoera bakoitzari ateratzen dio bere **probetxua**, atsegin eta bertutearen ordena berria bertatik plazaratzeko. **Andres Urrutia**

Konpainia berriak ere sortu ziren inbertsore berrien eske zegoen euforia-giroari **probetxua** ateratzeko asmoz. **Iñaki Heras**

Izan ere, zer **probetxu** ekarzen die, adibidez, gizonei edo bera bezala garaille izan zirenei Milon Kretonakoa inoiz garaitua ez izateak [...]? **Santiago Iruretagoiena**

Ez baitie ezeren laguntzarik eta **probetxurik** ekarriko, lotsa eta laidoa baizik. **Elizen arteko biblia**

Horietaz **probetxu** egiten ikusten zaitut, lotsarik gabe. **Itxaro Borda**

Kalean egindako lan horren **probetxua** ERC jasotzen ari da. **Berria - Euskal Herria**

## 4 (hitz elkartuetan)

Bizi **probetxu** pixka bat gehixeago har zezaten. **Josu Zabaleta**

Kristau-**probetxurako** izan zen erromatar kolonia baten adibiderik ohargarriena ez da Korinto, Lyon baizik. **Iñaki Mendiguren**

## 5 **probetxuzko** *(68 agerraldi, 39 liburu eta 5 artikulutan)* ik **probetxugarri**.

Gizakia animalia politikoa da, mintzo baita eta bere idurikoekin **probetxuzko** eta justiziako harremanak baitaizka. **Askoren artean**

Ahalegintzen naiz, egunen batean **probetxuzko** norbait bilakatzeko. **Juan Kruz Igerabide**

**Probetxuzko** aholku bat emango dizuet: [...]. **Askoren artean**

**Probetxuzko** irakurketa. **Askoren artean**

Hizketaldi **probetxuzkoa** izan zen, atseginaz gainera. **Felipe Juaristi**

la dena du **probetxuzkoa**: azala, txotxak eta abarrak sua pizteko ezin hobeak; zura material primerakoa: lantzeko biguna, hezedurari aurre egiteko ona, ustelkaitza. **Pello Zabala**

Ordu arte **probetxuzko** gauzak ikasi eta egiten zituen bezala, aurrerantzean aitari oso **probetxuzkoak** iruditzen ez zitzaizkion gauzetan hasi zen semea. **Pako Aristi**

Ez da, egia esan, ondroso-ondroso horietakoa, baina ofizio **probetxuzkoa** da, dudarik gabe, **probetxuzkoenetakoa**, Estatuaren interesetarako esan nahi dut. **Matias Múgica**

Agintariak berehala ikusi zuten irakasle despistatu itxurako preso hark zekalea palaz pilatzen baino lan **probetxuzkoagoa** egin zezakeela bulegoetan. **J.M. Olaizola**  
"Txiliku"

Aurreko bi solasaldietan egin al dugu **probetxuzkorik** ezer? **Imanol Unzurrunzaga**

## 6 **probetxu gabeko** probetxugabea.

**Probetxu gabeko** hitzarmena. **Elizen arteko biblia**

Hor daramazkiote beren aberastasun bikainak, astoen bizkarretan eta gameluen konkoretan, **probetxu gabeko** herriari. **Elizen arteko biblia**



**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere probetxu** (3); **probetxu atera** (10); **probetxu ateratzeko** (3); **probetxu ateratzen** (3); **probetxu gabeko** (3); **probetxu handia** (4); **probetxu handiagoa** (5); **probetxu handikoa** (4); **probetxu ona** (3); **probetxu ona atera** (3); **probetxu pertsonalerako** (3); **zer probetxu** (6)  
**probetxua atera** (7); **probetxua ateratzeko** (5); **probetxua ateratzen** (5)  
**bere probetxurako** (6); **beren probetxurako** (6)  
**ez da probetxurik** (3); **probetxurik atera** (3); **probetxurik aterako** (3); **probetxurik gabeko** (4); **probetxurik handiena** (4)  
**probetxuzko norbait** (3); **probetxuzko zerbait** (4)  
**probetxuzkoa izan** (3)

## probetxugabe *izond* probetxurik gabea, probetxu gabekoa. ik **probetxu 6**.

Aristokrata haize-buru **probetxugabe** horietako bat. [Matías Múgica](#)  
Dohakabeak jakinduria eta heziketa mesprezitzen dituztenak; hutsa da horien itxaropena, alferrikakoak horien nekeak, **probetxugabeak** egintzak. [Elizen arteko biblia](#)  
Bada beste asko hezitzen trebe denik, baina bere buruarentzat **probetxugabea**. [Elizen arteko biblia](#)

## probetxugarri (**38** agerraldi, **24** liburu eta **7** artikulutan) *izond* probetxuzkoa.

[Denbora] zati bat lagun hurkoen aldeko lan **probetxugarrietan** ematen zuen, eta beste zatia estasi-kontenplazio lasaietan. [Askoren artean](#)  
Lehenago baserrietako atea jotzen zituztenek orain ate **probetxugarriagoak** irekitzen ikasi dute, eta Buletin Ofizialean esaten dute "Ave Maria!". [Pello Salaburu](#)  
Hain denbora gutxian zaila da ikasleei **probetxugarri** den zerbait erakustea. [Berria - Kultura](#)  
**Probetxugarria** da oinazea, natura hobea izatera bultzatzen duenean; okerragora daramanean, berriz, alferrekoa. [Imanol Unzurrunzaga](#)  
**Probetxugarri** bazara, zutaz baliatuko da; beharrea baldin bazaude, bertan behera utziko. [Elizen arteko biblia](#)  
Asmo garbi eta soila Jainkoa bakarrik bilatzeko, inolako nahikunderik gabe ez bere burua, ez **probetxugarri** gerta dakiokoen ezer bilatzeko. [Joan Mari Lekuona](#)  
Ezer **probetxugarririk** aurkitzen ez badute, eman dezatela inoiz izkiriatu ez balitz bezala. [Xabier Kintana](#)  
Sekula ez dute deus ere frogatu bene-benetan eta sekula ez dute deus ere **probetxugarririk** sortu. [Karlos Zabala](#)  
Neure senari jarraituz, hiriko alderdi zaharrerantz abiatu nintzen berriz ere, patxadatsu, inon ezer **probetxugarririk** aurkitzekotan hantxe aurkituko nuelakoan. [Jon Arretxe](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**probetxugarria izan** (3)

## probidente *iz* besteenganako arduratia.

Lukrezio erlijioari erasotzen dio, honek jainkoak ahalguztidun egiten dituelako, ez jakintsu edo **probidente**, indar gizagainekoz eta suprakosmikoz hornituak baizik. [Xabier Amuriza](#)

## probidentzia 1 *iz* Jainkoak munduaz duen ardura. ik **goi 21**.

Jainkoak bererentzat duen **probidentzia**. [Askoren artean](#)  
Ez dakit patua izan den, kointzidentzia, kasualitatea edo Jainkoaren **probidentzia**. [Joan Mari Irigoien](#)  
Jaungoikoaren **Probidentziak** oro zuzentzen du. [Imanol Unzurrunzaga](#)  
Jainkoaren **probidentziaren** erabakiz, hiru eliza material eraiki zituen. [Askoren artean](#)  
Ene anaia, deabruak ezin dute ezer egin, Jainkoaren **probidentziak** egiten uzten diena izan ezik. [Askoren artean](#)  
Jainkoaren **probidentziak** moldatu zituen gauzak horrela. [Askoren artean](#)  
Arrazoiz esan da, jainkozko **Probidentziak** ez duela ez kein izaki hutsera itzultzen uzten. [Imanol Unzurrunzaga](#)  
Orduan, nahi izan zuen **Probidentziak** -edo, fede gutxiagoko gizonek esango luketen bezala, Halabeharrak-, Andreas berriro hamarretako meza hasia zela iritsi zedin. [Matías Mujika](#)  
Denetik hazten den lur batean bizi gaituk, **Probidentziari** esker; baina garraztasunak jota zatorrek gutzia. [Juan Garzia](#)  
Han ez zitzaizkidan Fortunaz mintzatu, baina **Probidentziaz**. [Joan Mari Irigoien](#)  
- **Probidentziak** ez du deus ere eginen, aitzinetik guk deus ere egiten ez badugu... [Joan Mari Irigoien](#)

### 2 (izenondoekin)

Jainkoaren **probidentzia** bihozberak espirituaren ezkutuko gaitza haragiaren ageriko kauterioaz sendatu zuen. [Askoren artean](#)  
Gauza guztien Lemazainak bere **probidentzia** onberaz lagundu zion, bera eta beste asko heriotza-arriskuetatik libratuz. [Askoren artean](#)  
Pietatea izan dezagula bidelagun, **Probidentzia** jainkozkoaren baimenez hasi dugun ibilbidean jarraitu eta helmugara onik iritsi gaitezen. [Imanol Unzurrunzaga](#)

### 3 (hitz elkartuetan)

Berrogei urte izan dira beraz, gehienara ere; urte horietan **probidentzia** -estatuek erantzun lasaigarriak eman baitzizkien industria-iraultzak eragindako aldaketa beldurgarriei. [Koro Navarro](#)  
· Ordena kanpoko erasoetatik babestea, ez baita bidezko Frantziskori eta honek jainko- **probidentziaz** sortutako obrari, Ordenari alegia, erasotzea. [Askoren artean](#)

### 4 helburu jakin bat lortzeko edo arrisku jakin bat saihesteko hartzen den neurria.

Ezin zuen iragana desegin, ez zekien etorkizuna nola antolatu, aitaren mende egon baitziren betidanik batari zein besteari buruzko **probidentziak**. [Anjel Lertxundi](#)  
Epaileak **probidentzia** batean adierazi duenez, Ugalderean aurka hartutako neurriak «soilik» behin-behinekoak izan ziren, eta ez zuten bere pertsonaren kontra jo. [Berria - Harian](#)  
Bien bitartean, bertan behera utziko du datorren 22an Vera deklaratzera deitzeko ateratako **probidentzia**. [Berria - Euskal Herria](#)  
Jone Goirizelaia abokatuak «kezka» agertu zuen atzo, **probidentzia** horrek ekar ditzakeen ondorioen inguruan. [Berria - Euskal Herria](#)

### 5 **probidentziako** ik **probidentzial**.

Entzute handia lortu zuen arimen gidari **probidentziako** eta bizitza izpiritualaren bultzatzaile gisara. [Joan Mari Lekuona](#)  
Limes-a ez zen izan zibilizazioaren gordeleku bakarrik, baita **probidentziako** salbagailu ere barbaro erasotzailearentzat bererentzat, bere baitan zituen indar demoniakoki autosuntsitzaileen aurka. [Iñaki Mendiguren](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jainkoaren probidentzia** (8); **probidentzia estatuaren** (3); **zure probidentzia** (3)  
**jainkoaren probidentziak** (19); **jainkozko probidentziak** (3); **jaungoikoaren probidentziak** (6)  
**jainkoaren probidentzian** (4)  
**jainkoaren probidentziaren** (4); **jainkozko probidentziaren** (3)



## probidentzial 1 *izond* jainkozko probidentziari dagokiona. ik probidentzia 5.

Gustatu egiten zitzaidan amonak eskaintzen zidàn Jainkoa, hain **probidentziala** -hala onean nola txarrean- eta hain bere hurbilekoa. **Joan Mari Irigoien**

## 2 oso egoki edo onuragarria; halako kalte edo zorigaiztoko gertaera saihesten duena.

Lisboako Setioaren Historia idatzi duen mahai txikiaren aurrean eseririk, azken orriari begira, erakarmenaz edo talkaz eten den jarria berriz piztuko duen hitz

**probidentzialaren** zain. **Jon Alonso**

Aldi berean suspentsiboa eta **probidentziala** den ondorio honek ahalbidetzen digu, plano narratiboa trebeki aldatuz, Raimundo Silva zuzentzailearengana itzultzea. **Jon Alonso**

Barren-barrean gizagaixo historiko bat zen, eria, bere eginkizuna **probidentziala** zela zeharo sinetsia. **Koro Navarro**

## probidentzialista *izond* dena Jainkoaren probidentziaren arabera gertatzen dela aldarrikatzen duena.

Agustin ez da, greziarrak bezala, fatalista, ez eta determinista ere; Historiaren ikuspen **probidentzialista** defenditzen du. **Imanol Unzurrunzaga**

Baina nahiz eta puntu batzuetan hautsi, «mende hasierako abertzaletasunari eutsiko dio puntu batzuetan»: baserriari, arbasoen historiari eta euskara garbiari buruzko ikuspegian, foruen aldeko jarreran, politikaren eta historiaren irakurketa **probidentzialistan** ... **Berria - Kultura**

## probidentzialki *adlag* era probidentzialean.

Deuterisaias, Ezra eta Nehemias liburuen egileen begietan Akemenestar Inperioa Jahvek hautaturiko tresna zen judaismoa hedatzeko, eta Leon Handia aita santuak antzera ikusten zuen Erromatar Inperioa, kristautasunaren hedapena errazteko Jainkoak **probidentzialki** agindua. **Iñaki Mendiguren**

Eta sinetsi nuen, halaber, ezen Jainkoak **probidentzialki** jarri zizula aita Bartolome, zeure xedearen erdiesteko izan zenezakeen gidaririk argiena. **Joan Mari Irigoien**

## probintzia 1 *iz* antzinako Erroman, Italiatik at bereganaturiko lurraldea, erromatar legeen eta gobernari baten mendean ipinia; hainbat erreinu edo estatu, edo horietako eskualdeak, banatzen diren zatietako bakoitza.

Klaseen arteko gorrotoen eta **probintzia** arteko etsaigoen azalpen etsigarri bat. **Oskar Arana**

Honorioen garaian, Armorikako aldea eta Galiako beste **probintziak** errebolatu egin zirela, eta errepublika modukoa eratu zutela. **Iñaki Iñurrieta**

Zabala zen Asueroren Inperioa: Indiatik Etiopiaraino hedatzen zen eta ehun eta hogeita zazpi **probintzia** zituen bere mendean. **Jose Antonio Mujika**

Bezere ziren printzerriak probintzia bihurtuta zeuden, eta **probintziak**, berriz, zuzeneko eta zentralizaturiko administrazioaren organo bilakatu. **Iñaki Mendiguren**

Frantsesez idatziko banu, Frantziako **probintzia** txiki bateko idazlea nintzateke. **Ana Urkiza**

Patuari atsegin zaizkio errepikapenak, aldaerak, simetriak; hemeretzi mende geroago, Buenos Aireseko **probintziako** hegoaldean, gaucha bat beste gaucha batzuen erasoan erortzen da. **Juan Garzia**

Burgosko **probintzia** hemen bukatzen zait eta hasten Palenciakoa; beste eremu mota batean sartu naiz, Tierra de Campos delakoan. **Piarres Aintziart**

Oraindik ere Bartzelonako **probintzian** geunden. **Rafa Egiguren**

Rieti **probintzian**, izurrite oso larria zabaldu zen, behi- eta ardi-azienda guztiak krudelki garbitzen ari zena. **Askoren artean**

Errusian bertan ikusi ditugu biak, Nijni Novgorod **probintzian**, azpajokoak prestatzen. **Karlos Zabala**

Jatorri asiarrak atzerriar guztiak **probintziatik** atera behar dute hogeita lau ordu igaro baino lehen. **Jon Alonso**

Patuari atsegin zaizkio errepikapenak, aldaerak, simetriak; hemeretzi mende geroago, Buenos Aireseko **probintziako** hegoaldean, gaucha bat beste gaucha batzuen erasoan erortzen da. **Juan Garzia**

**Probintziako** Turismo bulegoak pagatua. **Piarres Aintziart**

Kapitala ez dena ez da ezer, edo, hobeki esanda, **probintzia** da, kapitatek kudeatzen den **probintzia**. **Iñaki Seguroa**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erromatar **probintzia** bihurtu zen Egipto. **Jon Muñoz**

**Probintzia** Batuak ziren orduan Europako ekonomian nagusi, eta haiek eman zuten jarraibidea, koloniekiko harremanetako monopolioa zuten lehen konpainia handiak sortuz. **Koro Navarro**

Hiru **probintzia** autonomoetan. **Herria**

Bereziki Kabilian, Aljeriako **probintzia** demokratikoan bertan da Aljereko podorea. **Herria**

Gobernu zentralak eskualde eta **probintzia** ekoizleekin elkarlanean administratuko ditu petrolio eta gasa. **Berria - Harian**

Toki-apezpiku bat, bere aulkia erromatar **probintzia** dioklezianiko baten erdigune zuena, beren nagusiztat onartu zuten **probintzia** bereko beste apezpikuek. **Iñaki Mendiguren**

Inperioko **probintzia** ekialdekoenak. **Iñaki Iñurrieta**

Gipuzkoa **probintzia** txikia delako. **Berria - Kirola**

Itolarria giro urbano itxi eta bakartietatik Sinistra deritzon **probintzia** galdura daramagiku Bodorrek. **Berria - Kultura**

-Bai, **probintzia** baltikoetako errusiarra. **Karlos Zabala**

Agudo konkistatuko dituk Tobolskeko **probintzia** siberiarrak Ural mendietaraino. **Karlos Zabala**

Makabeoen erresuman sartu berria zen **probintzia** jentil bateko seme hura. **Iñaki Mendiguren**

Bidezko da eta on iruditzen zait, ni neu ere urrutiko **probintziaren** batera joatea. **Askoren artean**

Inbadituriko **probintziak** zeharkatu nahian segituko zuen oraindik, edo tatararren preso izango zen aspalditik? **Karlos Zabala**

## 3 irud/hed

Mundu hau Jainkoaren erreinuko **probintzia** bat da. **Iñaki Mendiguren**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat probintzi) ik probidentzial.

Soldadu hauen hilketa taliban islamista integrista miliziarri egotzi zion Zabolgo **probintzia** gobernua. **Berria - Mundua**

Nafarroako **Probintzia** Auzitegiaren sententzia Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi zuen. **Eduarne Elizondo**

Uarkape kiroldegitik Oñatiko **Probintzia** Artxibo Historikora eramango dituzte dokumentuak. **Berria - Kultura**

Ez da izanen notiziarik hain erraz sortu eta hain arin zabaltzen denik, batez ere baserri auzo eta **probintzia** herrietan, ezkontzei buruzkoa baino. **Patziku Perurena**

Landetxeen sarrerako mosaiko galaituen aurrean, zeinetan libertoek, sestertzioz josirik, **probintzia**-hiritan udal eginkizunak beretzeko modua bilatzen baitzuten. **Juan Garzia**

Lege berriarekin unibertsitatea «**probintzia** unibertsitate bilakatzeko arriskutik kanpo» geratzen dela gogoratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Lege horretan banaketa geografikoa ere kontuan hartuko da, zehazki Autonomia Erkidegoetako, eta beharrezko zuzenketak egingo dira **probintzia** mailan edota tokian-tokian. **Berria - Ekonomia**

**Probintzia** aldeko plaza bat eurpean. **Monika Etxebarria**

Gasteizen 300 bat lagun bildu ziren **Probintzia** plazan egindako kontzentrazioan. **Berria - Euskal Herria**

"Delituez eta Zigorrez" liburuari buruzko iruzkinak, **probintzia** -abokatu batek eginak. **Juan Martin Elexpuru**

**Probintzi** hiruburu batean izan daitekeen jokamolderik finenaz estalirik zegoen hori guztia. **Jose Morales**

Erregimen sekularrarekiko burujabetasun orijinal horren indarrez, zeinen **probintzi** antolaketa egokitu baitzuen bere helburuetarako. **Iñaki Mendiguren**

Orduan hitzaldi labur bat bota die Erregek gaztelaniaz buruzagi politiko, eliz agintari, **Probintzi** Guraso eta Bizkaiko alkateei. **Txillardegi**

## 5 Erliijo ordena baten eskualdea, komentu eta etxe kopuru jakin bat daukana; artzapezpiku baten manupeko eliz eskualdea.

Arantzazuko Frantziskotar **Probintziak** eraginda. **Askoren artean**

Orduan jakin zuen zenbat ziren Ordenako eta **probintzia** bakoitzeko anaiak, eta gainera haien izenak, adina eta profesia-maila, haien kargu eta ohore-tituluak, eta haien dohainak eta erruak ere bai. **Askoren artean**

Jaunaren 1247. urtean, Lyongo kapituluan, anai Gofredo, Saxoniako **probintzia** hiru urte eta hilabete batzuek gobernatu ondoren, ministro-kargutik aske utzi zuten.

**Askoren artean**

## 6 (P larriz) Gipuzkoa.

Hemen *aratusteak* deritze, **Probintzia** -aldean *iñoteriak* edo *iñauteriak*, Nafarroan *iagoteak*. **Pello Zabala**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bilboko probintzia auzitegiko** (3); **erromatar probintzia** (3); **frantziako probintzia** (4); **gipuzkoako probintzia auzitegiak** (4); **gure probintzia** (4); **inperioko probintzia** (5); **madrilgo probintzia auzitegia** (3); **madrilgo probintzia auzitegiak** (6); **nafarroako probintzia auzitegiak** (9)

**probintzia auzitegia** (3); **probintzia auzitegiak** (23); **probintzia auzitegian** (5); **probintzia auzitegiko** (7); **probintzia batuak** (3); **probintzia batuen** (4); **probintzia ezberdinetara** (3); **probintzia ezberdinetatik** (3); **probintzia honen inguruetan** (3); **probintzia osoa** (3); **probintzia osoan** (8); **probintzia osoan ez** (3); **probintzia osoko** (6)

**zazpi probintzia** (6)

**probintzi auzitegiak** (3)

**euskal probintziak** (3); **zazpi probintziak** (7)

**asiako probintziako** (6); **gure probintziako** (3); **probintziako gobernadore** (6); **probintziako gobernadorea** (4); **probintziako gobernadoreak** (4); **probintziako gobernu** (4); **probintziako herri** (5); **probintziako hiri** (8); **probintziako hiriburura** (4)

**anbargo probintzian** (3); **anhui probintzian** (3); **arabako probintzian** (3); **asia probintzian** (4); **fukui probintzian** (3); **helmand probintzian** (4); **henan probintzian** (3); **markako probintzian** (3); **massa probintzian** (3); **probintzian bertan** (3); **probintzian bizi** (3); **probintzian dago** (5); **probintzian sartzean** (3); **probintzian zehar** (5)

**urrutiko probintziaren batera** (3)

**probintziatarazabaldu da** (4)

**probintziatik atera** (4); **probintziatik kanpo** (3)

**euskal probintziek** (3)

**euskal probintzien** (3); **probintzien arteko** (4); **zazpi probintzien** (6)

**gure probintzietako** (3); **hiru probintzietako** (9); **lau probintzietako** (4); **uskal probintzietako** (4); **zazpi probintzietako** (14); **zazpi probintzietako dantzak** (6)

**beren probintzietan** (6); **beste hiru probintzietan** (3); **ekialdeko probintzietan** (3); **euskal probintzietan** (5); **hegoaldeko probintzietan** (4); **hiru probintzietan** (16); **lau probintzietan** (6); **mendebaldeko probintzietan** (4); **probintzietan barrena** (3); **zazpi probintzietan** (6)

**hiru probintzietan** (3)

## probintziakeria iz norbera sortu den probintziarekiko miresmen hertsia eta hutsala. ik**probintzianismo**.

Hedabideek eragindako kinielak, Belodromoak erakartzen duen jende-samaldak, **probintziakeria** txatxak... forofismorako bide eman diezaiokete bertsozaleari. **Andoni Egaña**

**Probintziakeria** konstituzioa baino maiteago duten kazeta independenteen estilo liburua. **Berria - Kultura**

## probintzial 1 iz probintziakoa, probintziarena, probintziari dagokiona. ik**probintzia 4**.

-Badakite bi gobernuek, federalak eta **probintzialak**, gurekin kontatu behar dutela. **Aurelia Arkotxa**

Diputazio **probintzialeko** administrarietatik hasi eta [...]. **Josu Zabaleta**

Bilboko Auzitegi **Probintzialeko** hiru epailek Espainiako Auzitegi Konstituzionalera jo dute. **Berria - Euskal Herria**

Hauteskunde Batzorde **Probintzial** guztiei. **Berria - Euskal Herria**

Errepide **probintziala** Po-ren bazterretako ezpondekin gurutzatzen den lekuan Ragazzolako etxaldea dago. **Koldo Biguri**

Guk hitzarmen **probintziala** eta soldata igoera lortu arte, gose greban jarraituko dugu. **Berria - Ekonomia**

## 2 (eliz probintzietakoa)

Ministro **probintzialak** behartuak beude Kapitulu horretarako beti elkarrekin biltzera, Ministro jeneralak erabakitako edozein lekutan. **Askoren artean**

Jaunaren 1224. urtean, Kapitulu **probintziala** egin zen Würzburgen, Ama Birjinaren Jasokunde egunean. **Askoren artean**

Erliijo nagusi batek antolaketa **probintzialaz** egindako erabilera, Kristau Elizaren garapenaz argitua. **Iñaki Mendiguren**

Juan Miguel Arregi (Jesusen Lagundiko **probintziala** Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan). **Berria - Harian**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ministro probintzial** (4)

**kapitulu probintziala** (9); **kapitulu probintziala egin** (4); **kapitulu probintziala ospatu** (3); **ministro probintziala** (5)

**ministro probintzialak** (4)

**errepide probintzialaren** (4)

**ministro probintzialesi** (4)

**gainerako ministro probintzialesi** (3); **ministro probintzialesi** (5)

**auztegi probintzialeko** (10); **bilboko auzitegi probintzialeko** (6)

## probintzianismo iz probintzianismoa.

Frantses **probintzianismo** bat lantzen dute. **Berria - Kultura**

## probintzianismo iz norbera sortu den probintziarekiko miresmen hertsia eta hutsala. ik**probintzianismo**.

Miranderi Frantziako eragintza hurbilago geratzen zitzaioela; guri, Miranderen euskal irakurle hegoaldekoari alegia [...] ezagunagoa egiten zaigu Espainiakoa ezinbesteko gure **probintzianismo** espainolean. **Joxe Azurmendi**

## probintziano 1 izond pentsamolde hertsia eta atzerakoikoa, txokokeriari dagokiona.

Gerra osteko Gasteiz txiki eta **probintziano** hartan. Mikel Hernandez Abaitua

Rockarenganako zaletasuna hark piztu zigun, gure hiriburu **probintziano** eta sakristiazalean oraino nabarmenkeria gertatzen zen garaian. Aingeru Epaltza

Ironia zorrotz eta, aldi berean, arin batez baliatzen da egilea mundu **probintziano** hori disekezionatzeko. Berria - Kultura

Prentsa **probintzianoa** egin nahi baldin badugu, ezinbestekoa dugu adjektiboak usu erabiltzea. Iñigo Aranbarri

Baina "ez da deus motzago, zekenago eta barregarriagorik Paris faltsu bat baino" eta "Madril faltsu bat" hainbat ziztrinagoa, kopiaren kopia **probintzianoa**. Itxia eta atzerakoa da, primitiboa, **probintzianoa**, agrafoa, karlista edo nazionalista, arrazista, terrorista askotan. Koldo Izagirre

## 2 gipuzkoarra.

Larramendi eta Garibai **probintziano** kakazuen garaitik hona, akonplejatuen portaera gailendu da erabat azken milurte erdian. Patziku Perurena

## probintziar iz probintziako pertsona.

Tribukeria horrek nere **probintziarrak** euskaltzaletasunetik maiz urrundu ditu eta bizkaitarrei bezala "euskaldun gaizto" sentimendu bat sortu, euskararen atzerakadaren zio bat izan dena Zuberoan. Koldo Zuazo

**Probintziar** idazle gaixo bat besterik ez nintzela eta azal ziezadala arren astiroago puntu hura. Karlos Linazasoro

Dezagun garbiki ager geure iduriko, **probintziarrentzat** ahamen handiskoa dela *autonomia vasca*, Euskal Herria bere gain izaitea. Piarres Xarriton

## probiotiko izond elikagaiez mintzatuz, mikroorganismo biziak gehitzen zaizkiona.

Elikagai funtzional, "**probiotiko**" edo "nutrizeutikoen" (nutrizio botika, aldi berean) kontsumoa hasia da dagoeneko hedatzen. Edorta Agirre

Elikagai **probiotikoek**, ostera, normalean bakterioak izaten dituzte. Berria - Gaiak

Erantsitako "bio", gehituriko **probiotiko**, gaineratutako "light" horiek entelekia baizik ez direla frogatuta, egia bila abiatu beharko, ostera ere, baina bidean tarte hori hobeki arakatuta. Edorta Agirre

Probiotikoen eta **probiotikoen** gainean ezer gutxi dakigula dio Elena Urdanetak, eta ez dagoela egiaztatuta elikagai horiek osasunerako onuragarriak direla; batzuei on egin diezaieketela dio eta beste batzuei gaitz. Berria - Gaiak

## probisio (orobat probisione g.er.) 1 iz hornidura.

Gamesa Aeronautikan 60 milioi euro inguruko ezohiko **probisio** bat egin behar dutela ere azaldu zuten. Berria - Ekonomia

Bat baino gehiagok ederki baliatu zuen aukera, eta egokitzen zitzaiona baino gehiago harrapatu zuen, norgehiagokarako **probisio** bezala. Berria - Kirola

## 2 pl/jangaiak.

Amak azkeneko **probisioak** atera zituen: hamar libra arroz; hogeita lau zati egin zituen: eguneroko gutxienekoa, bizirik jarraitzeko denek. Pablo Sastre

**Probisioak** erosten hasia nauk. Eider Rodriguez

## probisional izond behin-behinekoa.

Eskuz eginiko pankarta bana lotuta mahai **probisionalen** atzean, hedabideetan agertzeko prest. Berria - Euskal Herria

Haren moral **probisional** edo "behin-behineko moralaren" bigarren arauak, ekintzaren orduan enura guztiak bazterrerara uzteko eta determinatuki aritzeko agintzen du. Joxe Azurmendi

IRA **Probisionalak** eta Ofizialak su-etena eman zuten 1972an, Bloody Sunday-n (Igande Odoltsua) britainiarrek eragindako sarraskiaren ondoren herritarren babesa izugarri handitu eta gero. Berria - Harian

## probisionalitate iz behin-behinekotasuna, probisionalotasuna.

Bere burua espetxean imajinatzea ezinezko egiten zaiola aitortzen du, eta epaiketaren zain izatearen «**probisionalitatean**» bizitzea kosta egiten zaiola. Berria - Harian

## probisionalki adlag behin-behinean, behin-behinekoan.

Konstituzio hau, ez oraino aldebatetako baina, mementoko nahi zuten sinatu **probisionalki** Bush eta Bremer jaunak, erakusteko gauzak ongi zoatzila. Herria

"... zitza honetan **probisionalki** gaudela..." baino ez diot jaso. Pako Aristi

## probisionalotasun iz behin-behinekotasuna.

Eternitatea dirudien **probisionalotasun** baten usteltzean murgiltzen da poliki-poliki. Josu Zabaleta

Horretan Frantziskok bere ibilbidearen hasiera gogoratzen die anaiak [...] eta hasierako bizimoduaren ezaugarri nagusiak: pobretasuna eta xumetasuna, guztiekiko mendetasuna, **probisionalotasuna**, etab. Askoren artean

## probisioe ik probisio.

## probisore iz hornitzailea.

Lizeoko **probisore** bururatu du bere lan denbora, geroztik Angeluko hautetsi egon da beti ere ezkerreko oposizioan joan den azaroa arte. Herria

## problema (568 agerraldi, 96 liburu eta 75 artikulutan; orobat prolema g.er.; cf arazo 14986 agerraldi, 268 liburu eta 5633 artikulutan) 1 iz arazoa; buruhaustea.

Hatsa hartzeko-eta, ez nuen gehiago **problemarik**. Menane Oxandabaratz

Eta **problema** izan zen dirua berriro. Unai Elorriaga

Hori **problema** bat da, ez bakarrik ekonomikoa, ez. Menane Oxandabaratz

Atano III.ak ere arazo edo **problema** berak izan zituen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Problemaren** bat bazuen, ordea, niregana etortzeko. Gotzon Garate

Han zeuden betiko **problemak**: sufrimena; heriotza; behartsuak. Anton Garikano

Hasieran **problema** egon ziren, esan zuen Matildek, udalarekin-eta. Unai Elorriaga

Tira, tira, zer **problema** ote dago horretan? Patxi Iturritegi

Has dadila garaiz erremedio bila, soluzio bila bere **problematzat**. Iñaki Segurola

Proposamenak egin beharko ditu, irailan ez daitezten **problema** berak pausatu. Berria - Kirola

25 urteko agintaldian EAJK ez ditu herri honetako betiko arazoak konpondu eta **problema** berriak ekarri ditu. Berria - Euskal Herria

Otoitzak eta penitentziak gaindituko zituztela **problema**. Piarres Aintziart

**Problema** hori konpontzen ez duano, ez haiz sekula zinez zoriontsu izaten ahalko. Daniel Landart

Semir Zeki, berriz, Londresen lan egiten zuen ikertzaile bat, maila fisiologikotik ari zitzaion hurbiltzen **problemari**. Xabier Olarra

Max Weber oso zorrotza da bere kritikan: Foerster-en printzipio hura egia balitz -ongitik ongia, etab.-, **problema** moralik batere ez litzateke egongo historian. arratsak

Ginorekin ematen zituen, fabrikako **problema** gora eta behera eztabaidan. Joxe Azurmendi

Deskribatutako kasu askok bestelako **problema** ere bazituzten arren [...] ematen zuen asoziazio-kortexaren erdialdean zeudela lesio erabakigarriak. Xabier Olarra

Gaitzaren **problema** etzait luzaz bururat etorri. Piarres Aintziart

Bakoitzak bere bizimodua du, bere arazoak, bere **problema**, bere gauzak. Joseba Sarrionandia

Beraz, garbi baldin bazaude, akabo zure **problema** eta larrialdiak. Migel Angel Mintegi

Datozen **problemen** nahaste-borraste honetan, suntsimen honetan, zatitan banatu gara geu ere. Josu Zabaleta

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gordon Holmes neurologo ospetsuak, ikusmen-kortexean balek sortutako ikusmen-**problemen** berrehun kasu aztertu bazituen ere, ez zuen akromatopsia kasu bakar bat ere aurkitu. Xabier Olarra

Komunikazio **problema** dituzu, benetan. Zertarako esan duzunean nabarmendu denez. Joseba Sarrionandia

Bada autismoaren atxikimendu-**problemetan** askoz bakanagoa den beste zerbait. Xabier Olarra

Tesoreria **problema** larriak ditu enpresa horrek. Herria

Eskala-**problema** hutsa azken batean, alegia, Jackson Pollocki, bere garai oparoenean, miniatura akriliko bat egitea enkargatu baliote bezala. Patxi Iturritegi

Hasi direlarik diru **problema** agertzen gure elkarteko kideek parte hartzen zuten gogoetaldia gelditu da. Herria

## 3 matematiketan, argitu edo ebatzi behar den arazoa, zenbait argibidetatik abiatuz emaitza ezezaguna aurkitzean edo horretarako metodoa zehaztean datzana.

-Ekuazioak ez ziren **problema** bat izendatzeko sortu, mota bereko **problema** sail osoak izendatzeko baizik. Jon Muñoz

Berehala grinatu zen Fermat Alexandriako matematikari zaharrak planteatutako **problema** motekin. Jon Muñoz

Angeluaren trisekzioaren **problema** ez zen hirugarren mailako ekuazio bat ebatzea besterik. Jon Muñoz

Geometriako **problema** bat ebatzi beharrean zebilen edonork jarraibide hauei egin behar zien jaramon [...]. Jon Muñoz

Ondoren matematikako **problema** oso zail bat ebatzi nuen eta frantses gramatikako hiru orrialde itzuli nituen. Josu Zabaleta

Matetako **problema** irakurtzen nuen ostera, pilatu beharreko ez dakit ba nik zenbat zementu-zakuren pijada bat. Jesus Mari Mendizabal

Saio enpirikoa egin beharko zuen **problema**ren aldagaia askatzeko. Fernando Morillo

Alor geometriko hutsetik alde egin, han hesituta egon baitzen ordu arte, eta aljebraren alorrera etorria zen **problema**! Jon Muñoz

Anaxagoras preso zegoen, preso politikitat atxilotua, koadraturaren **problema** ebatzeko erabaki sendoa hartu zuenean. Jon Muñoz

**Problema** sinpleak ebatzeko estrategiak aukeratu eta aplikatzen dituzte. Berria - Harian

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Matematika edo xake-**problema** baten antzekoa da, baina bariante guztiak aztertu dira. Jon Alonso

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo edo problema (6); bere problema (9); egiazko problema (4); gure problema (4); matematikako problema (3)  
problema ebatzea (3); problema ebatzeko (6); problema handi (3); problema handia (3); problema handia (3); problema izan (4); problema serioa (3)  
problema ebatzi (4)  
ez dago problemarik (4); inolako problemarik (5); inongo problemarik (3); problemarik ez (4); problemarik gabe (12)

## problematika 1 iz zerbaiti edo norbaiti dagozkion problemen multzoa.

Berriz ere, giza pentsaera kritiko eta filosofiari benetako erlijioaren **problematika** planteatzen zaio. Askoren artean

Nazio mailako **problematika** pausatzen dugunak %12 baizik ez gara Iparraldean. Berria - Euskal Herria

Leküko **problematiken** üngürüan interes ezberdinak düüen jenten biltzea, 50-60ko hamarkadan Euskal Herriak bizi izan duen **problematikaren** analisi sakona. Piarres Xarriton

Aldi huntan, Britainia dauku beraz aurkezten, lehen denboretako xut-harrietarik gaur egun arte, gaurko Britainiako **problematikari** behako xuxen eta xorrotx bat emanez... Herria

Azterketa honek jatorriaren **problematika** txertatzen du berriz historiaren osagai enpirikoan. Xabier Arregi

**Problematika** garrantzitsua eta konplexua zegoen atzetik, adar ugariako. Askoren artean

Hizkuntzaren inguruko **problematika** gramatikala eta logikoa sakon aztertzeari ekin zitzaion. Askoren artean

Ingeniari erromatarren ideiak Cinquecentoko klasizismoaren **problematika** arkitektonikora [...] egokitzen saiatzen zirenak. Santiago Iruretagoiena

## 2 (hitz elkartuetan)

Ondoren, VI. biltzarrean gazte **problematika** identifikatzen, lehentasunak markatzen eta borroka posibilitat jorratzen hasi ginen. Berria - Euskal Herria

## problematiko izond problemak sortzen edo ekartzen dituena; zalantzakoa, arazotsua.

Egia esan, oso gizon **problematikoa** zen. Berria - Euskal Herria

Judizio **problematikoak** baieztatzea edo ezeztatzea ahalgarriztat (apetaz) besterik onartzen ez dituzten judizioak dira. Ibon Uribarri

Idealismo **problematikoak** ez du horrelakorik baieztatzen, baizik eta gugandik kanpoko izate baten esperientzia zuzena frogatzeko ezigaitasuna adierazten du. Ibon Uribarri

Batetik, Mendebaldean zabaldu nahi da mundu musulmana **problematikoa** dela eta, bestetik, mundu musulmanari esaten zaio Mendebalde dela **problematikoa**. Berria - Mundua

Laborategiko baldintza kontrolatuetan lortutako emaitzak gizakira estrapolatzea **problematikoa** da ezinbestean. Berria - Gaiak

Azalpen akademikoaren eta ondorio politikoaren arteko aldea oso da meharra eta **problematikoa**. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adigai problematikoa (3); problematikoa da (6)

# problematikoki *adlag* era problematikoan.

**Problematikoki** baino ez dira pentsatzen, berekin harremanean (fikzio heuristikoak bezala) adimenaren erabilera sistematikoaren printzipio erregulatuak esperientziaren alorrean oinarritzeko. **Ibon Uribarri**

Orubezale" hitzak "orobeherazale" hitzarekin duen antza **problematikoki** adierazgarria da, baina dudarik gabe iradokitzailea. **Xabier Olarra**

Horregatik, halako judizioak nabarmenki faltsuak izan daitezke, baina **problematikoki** hartuta egiaren ezagutzaren baldintzak dira. **Ibon Uribarri**

Noumeno baten adigai, **problematikoki** soilik hartuta, onargarria izan ez ezik, ezinbestekoa ere bada sentimenari zedarrak ezartzeko adigai gisa. **Ibon Uribarri**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**problematikoki hartuta** (3)

## problematizatu, problematiza, problematizaten 1 du *ad* problematiko bihurtu.

Jarraitasunaren aurreko forma hauek, **problematizatu** gabe onartzen diren sintesi horiek guztiak, esekita utzi behar dira. **Xabier Arregi**

Galdetzen badidazu ea literaturak derrigorrez esan behar dion "amen jesus" agintearen diskurtsoari, esango dizut idazleak bere kontzientziak eskatzen diona **problematizatu** behar duela. **Ana Urkiza**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Beren koherentzia teorikoa dute forma historiko bereziak mugatzean, non gure baitakoekiko, besteekiko eta gauzekiko harremanen orokortasunak **problematizatuak** izan baitira. **Askoren artean**

## problematxo *iz* gorabehera txikiko problema.

**Problematxoren** batzuk badaude (ekonomian batik bat, petrolioarengatik pixka bat, ETArengatik bestea), baina bestela mendebala ez dago inola ere krisian, egonkor eta sendo dago, beste "ostiral beltzik" ez zaigu burugaineratuko. **Joxe Azurmendi**

Batzuetan, **problematxo** batzuk jartzen zizkiguan: "Karamelu batek xentimo bat balio badu, hamar xentimoz zenbat eros ditzakezue?". **Joan Mari Irigoien**

## probokatibo *izond* probokatzailerak.

Pasarte **probokatibo** horren argitalpenetik igarotako berrogeita bat urteetan. **Iñaki Mendiguren**

"Jacquesen bila nabi" errepikatu [...] behin eta berriz, gero eta ozenago ordea, gero eta sorraioago ordea, gero eta **probokatiboago** ordea, titiladeko kremallera aldiro maila bat jaitsiz. **Karlos Linazasoro**

SEADek «legez kanpoko, iraingarri eta oso **probokatibo**» irizten die Marokok Frantziako eta AEBetako konpainiei hustiaketa baimenak eman izanari. **Berria - Mundua**

## probokatu, proboka, probokatzen 1 du *ad* indarkeriara, sexura edo kidekoetara jotzeko zirrikatu.

Ez duzu zeure hurkoa tentaldira eraman behar, ez duzu bekatu egitera gonbidatu behar, ez duzu **probokatu** behar. **Koldo Biguri**

Kasu horretan erasotzaileek esaten ohi dute biktimek **probokatu** egiten dituztela. **Berria - Euskal Herria**

-Jendea **probokatu** diagu, eta jendeak erantzun egin dik. **Koldo Izagirre**

Azkenean beti nahi izan zuena lortu zuen bere obrek: **probokatzea** eta eskandalizatzea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

"Ez haiz biharko manifestaziorako geratuko, beraz", bota nion, **probokatzeko** gustu hutsagatik. **Iban Zaldia**

Beren bandera espainolekin **probokatzera** etorriko direnak. **Berria - Euskal Herria**

Eta batzuetan nihaurk nituen **probokatzan**, ez bortizki baina keinu ttipiekin, erakusteko ez nuela burua makurtzen, ez eta makurtu nahi ere. **Filipe Bidart**

Don Manuelek bilatu egin zuela aitona, **probokatu** nahi izan zuela, **probokatu** behar zuelako. **Alberto Barandiaren**

Eta jakin badaki ez dela aski ikusleen onarpen pasiboa, **probokatu** egin beharra dauka. **Patxi Iturritegi**

### 2 eragin.

Balkan Txiki argitaletxearen arduraduna bera izan zen sua **probokatu** zuena. **Jon Alonso**

Sebasen onospena **probokatu** nahi zuten esaldiak elkar lotzen hasi zen. **Eider Rodriguez**

Pintorea harakina da, kolorezko zauriak **probokatzan** dituena. **Berria - Kultura**

Nire hitzek **probokaturiko** erauntsia baretu zitzaionean, Umbertok berritua galdetu zidan nire iritzia. **Anjel Lertxundi**

Nahi gabe, noski, eta kasualitatez, noski, eta kasualitatez **probokatu** gabe, noski. **Unai Elorriaga**

Gizarte tradizionala hankaz gora zihonan eta, ohi denez, balio tradizionalen krisiak alde bateko erradikalismoak **probokatu** zituen. **Joxe Azurmendi**

Ametza **probokatu** zion argazkia ere laranjaz bustirik zegoen. **Eider Rodriguez**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Reichstag-aren sute **probokatuari** jarraitu zaion oposizioko edo zernahigatik madarikaturiko jendeen pertsegizioa. **Joxe Azurmendi**

Behin Göering-i entzun nion esaten aleman ez-duin asko zegoela istripu **probokatu** batean bere burua zauritu, gerrari izkina egin eta gerra-pentsioa kobratzen zuena. **Anjel Lertxundi**

Erealismotik sinbolismora egin duzun jauzia naturala ala **probokatu** izan da? **Ana Urkiza**

## probokatzailerak 1 *izond/iz* probokatzan duena. ik probokazio 5.

Tranpa jarri zion agente **probokatzailerak** bat. **Anton Garikano**

Bazuen zugana oldartzeko moduan halako zer **probokatzailerak** bat, halako adimen zirikatzaile eta eztenkari bat. **Oskar Arana**

Disimuluzko irribarre **probokatzailerak** bat. **Jon Alonso**

*Filosofia apaingelan* testu libertinoa da; hots, apurtzailea eta **probokatzailerak**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Liburutegitik izen **probokatzailerak** bat duen liburu bat ekarri digute: *Zer iritzi duzu neska modernoari buruz?* Aldi berean **probokatzailerak** eta inuxente izan beharra dago. **Josu Zabaleta**

**Probokatzailerak** daukazu zeure burua? **Ana Urkiza**

João Peculiarrek, amorrutatuak suturik, **probokatzailerak** lotsatu behar zukeen esaldia bota zuen, [...]. **Jon Alonso**

**Probokatzailerak** beltza zela baieztatzeak infinituraino piztu zuen Aita Zaindarien kolera. **Jon Alonso**

Orduan sandaliak erantzi eta alde batetik bestera hasi zinen guztia ukitzen, nire intimitatea era **probokatzailerak** bortxatzen. **Lander Garro**

### 2 (adizlagun gisa)

Eta deus esaten ez zutenetarik askotxok pentsatuko zuten, ni orduan horrela ikusita, patronalaren zerbitzuko **probokatzailerak** ibili nintzela moilan justizia banatzen genuen urte haietan. **Koldo Izagirre**



# probokatze *iz indarkeriara, sexura edo kidekoetara zirikatzea.*

Inolako neurririk gabe hasi nintzen oihuka, **probokatze** hutsagatik. [Anjel Lertxundi](#)

## probokazio (*orobat probokazione g.er.*) 1 *iz probokatzea.*

Izan ere, gizon hura parte txarrekoa zen, esan nahi dut, bere **probokazio** eta agindukoikeriarekin ez zegoen hura jasango zuenik. [Koldo Biguri](#)

Desafioari aurre egiteko beste dohainik baduk, ordea, Desafioa baino **probokazioa** deitu beharko huke, hobeki esateko. [Jon Alonso](#)

-Onartu behar al dugu honelako **probokaziorik** hemen, gorrien gotorlekuan? [Koldo Biguri](#)

Sindikatuak «**probokaziotzat**» jo zuten Adegiren jarrera. [Berria - Ekonomia](#)

**Probokazioei** kasu eman gabe."Eta ez **probokazioei** erantzun", markatu zuen ahots larriz, Fructuosori begira. [Inazio Mujika Iraola](#)

Guk probokatzen badugu, haiek ditek **probokazioei** erantzuteko eskubidea. [Koldo Biguri](#)

Mentxuk antzeman uste izan zuen Joseluk eutsi egin ziola **probokazioari**, zetorkion erreakzio berezkoari. [Josu Landa](#)

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Emakume beltz batek halakorik abestea **probokazio** galanta zen garai hartan. Hark zerbait bota orduko erreakzionatzen genuen, protestaka hitz haiek **probokazio** garbia zirela. [Harkaitz Cano](#)

Eta bai, hori **probokazio** hutsa da. Honelako **probokazio** argi eta lotsagabea egiten badu honek, esan nahi dik nire erreakzioa bilatzen ari dela. [Ana Urkiza](#)

EBren ustez, atzokoa «**probokazio** iraingarria» izan zen. [Berria - Euskal Herria](#)

Beldur zen **probokazio** hutsalen batek leherketa eragin eta Erromatar Inperioari kalterik larriena ekarriko ote zion. [Iñaki Mendiguren](#)

**Probokazio** erotiko hutsa! [Patxi Iturritegi](#)

Errusiar **probokazioaren** bati amerikarrek emandako erantzun zalapartatsuaeren nahigabeko ondorio gisa. [Iñaki Mendiguren](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ni harroka eseri nintzen, hankak gurutzatu eta **probokazio** doinu batez galdetu nuen: [...]. [Matías Múgica](#)

Luteziak bere esku gurutzatuetan kokotsa jarri eta **probokazio** aire batez begiratu zidan, ia erronkaz. [Matías Múgica](#)

Ertzaintzak **probokazio** estrategiak erabili ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

Gaztetasuna, amorrua, irrika, urgentzia eta **probokazio**-nahia darion poesiarekin topo egitea. [Berria - Kultura](#)

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oraindik ederki mugitzen du ipurtaldea taula gainean Detroiteko neska txiki meharra, eta ez zaio ahaztu kontzertua aurrera eramaten, titi-kolpez eta sexu **probokazioen** bitartez bada ere. [Patxi Iturritegi](#)

## 5 *probokaziozko* ik *probokatzaile.*

-Hemen, aldiz, esaten dute berorren jokaera **probokaziozkoa** zela, are gehiago, lotsagabeki **probokaziozkoa**. [Koldo Biguri](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**probokazio gisa** (3); **probokazio hutsa** (9)

**probokazioa da** (8); **probokazioa dela** (4); **probokazioa iritzi** (3)

**probokaziotzat jo** (11); **probokaziotzat jo zuen** (5)

## probokazione ik **probokazio.**

## prodigio ik **prodijio.**

## prodigo *izond* hondatzailea.

Urrun joan zen haur **prodigoak** zer ote zuen hobena? [Herria](#)

## prodijio (*orobat prodigio*) 1 *iz miragarria, miraria. ik miragarri 3.*

Elizak beren santuen mirari eta **prodigioen** bidez defendatu ziren haien kontra. [Iñaki Iñurrieta](#)

Bi mirakulu egin zituen zugan Antoniok, **prodijio** bakarrean. [Jon Alonso](#)

Sekretua da, halaber, baita **prodijioa** ere, edo misterio ezagutezina, birjintasuna, galdu eta berehala, berriz osatzeko duten bertutea. [Jon Alonso](#)

Ahots- **prodigioa** da, eta ahotsaren erabateko kontrola du. [Berria - Kultura](#)

## 2 *haur prodijio*

Orain dela urte gutxira arte haur **prodijioa** zen Juan Manuel Fernandez Farruquito; egun, ostera, flamenko eskola garbizalearen partaide arrakastatsua mundu mailan. [Berria - Kultura](#)

Haur **prodigioa** nagusitu zenekoa. [Berria - Kirola](#)

Duela berrehun urte jaio zen musikari bilbotarra, gazterik hil arren obra handiak utzi zituen haur **prodijioa**. [Berria - Harian](#)

## prodijioso *izond* mirarizkoa.

Bi mirakulu egin zituen zugan Antoniok, prodijio bakarrean, mirakulu hau askotan **prodijioso** izan zedin. [Jon Alonso](#)

## produktibismo *iz* ekoizpena emendatzeko joera nagusitzen den sistema ekonomikoa.

Produktibitatearen eta **produktibismoaren** arteko diferentzia garrantzitsua da: lehenengoan, giza beharrak aseztatzeko eragileak bilatzen da, "hori gabe oraindik paleolitikoa izango ginatke"; "baina errendimendu bilaketak, gizakiaren osasunaren eta ingurunearen kalterako izanik ere, mozkinak eragotzea besterik ez duenean helburu, orduan, produktibitatearen bilaketak **produktibismoari** ematen dio txanda". [Iñaki Heras](#)

Gazteak **produktibismo** instrumentuak baino gehiago gara. [Berria - Ekonomia](#)

INRA (*Institut national de la recherche agronomique*) delakoak zioen, ahoan bilorik gabe, **produktibismo** famatu hori arras ez emankor agertzen zela. [Herria](#)



# produktibismoa izond produktibismoari dagokiona.

Izan ere garai bateko baserriko munduari buruzko ikuspegia oso da desberdina gizarte materialistaren eta **produktibistaren** muturreko kritikoaren artean eta garai hura bizi izan zutenen artean. [Iñaki Heras](#)

## produktibitate 1 iz produkzio jakin baten eta hori lortzeko erabili diren bitartekoen arteko erlazioa.

**Produktibitatea** zer da? ekoizpenaren emankortasunaren neurria. [Iñaki Heras](#)

Gaur egun enpresek %30eko **produktibitatea** daukate soilik, hau da, euren ahalmenaren %70 geldirik daukate. [Pako Aristi](#)

1996 eta 1999 urte bitartean **produktibitatea** urteroko 2,6ko batez bestekoa hazi zen. [Iñaki Heras](#)

**Produktibitatea** [...] eginkizunen espezializaziotik dator, espezializazioari esker aski denbora irabazten baita, eta makinak erabiltzen ahal baitira. [Koro Navarro](#)

Ez da aipatu ere egiten diskurtso ekonomiko zabalduan, gizakian inbertitzeak ere eragin positiboa duela **produktibitatean** eta lehiakortasunean. [Iñaki Heras](#)

Geure bizitza mailari eusteko bide bakarra **produktibitatea** eta soldatak lotzea da. [Berria - Ekonomia](#)

Izan ere **produktibitateak** gora egiten duenean sortzen diren irabaziak hainbat modutara bana baitaitezke gizartearen, eta hortxe baitago, finean, koska. [Iñaki Heras](#)

Eraikuntza epeak murriztuko ditu, kostuak txikitu eta **produktibitatea** handitu. [Berria - Ekonomia](#)

Lanorduak galtzea, **produktibitatea** beharrezkoa, etxeko sarreraren murrizketa, aurrezkiaren galera... [Pello Salaburu](#)

**Produktibitatea** ez da aldagai teknikoa soilik, soziala ere bada. [Iñaki Heras](#)

Desberdintasunak murriztuko lituzkeen **produktibitatearen** banaketa sozial ekitatiboarekin. [Iñaki Heras](#)

Ezin da gehiago onartu **produktibitatea** lege nagusi izan dadin. [Herria](#)

### 2 (izenondoekin)

Beren jarduerak eduki teknologiko eta **produktibitate** handiko sektoreetara bideratzen badituzte. [Koro Navarro](#)

**Produktibitate** apalagoko enpleguak ere aintzat hartu behar dira. [Berria - Ekonomia](#)

Ekoizpen-faktore bakar bat baino ez baitzuen hark kontuan hartzen, lana alegia, **produktibitate** aldakorra zuena. [Koro Navarro](#)

Enpresa ez dago prest **produktibitate** esakasa argudiatuta gatazkaren hasieran kaleratu zituen bi emakumeak berriro hartzeko. [Berria - Ekonomia](#)

Trukeen eremua zabaltzeari esker haz daitezke ekonomiaren **produktibitate** globala. [Koro Navarro](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Are gutxiago halako lantegi batean, hemen errentagarritasun, kalitate eta **produktibitate** ratio oso onak baititugu. [Berria - Ekonomia](#)

Desiragarria izango litzateke gisa horretako ekonomia berri baten sorrera, baldin eta **produktibitate** tasak haziz, eta naturarekiko begirune berezi batez, produktibitatearen areagotzearen ondorioz, benetako zirkulu bertuosoa batean sartuko bagina. [Iñaki Heras](#)

Manufaktura-industriako **produktibitate**-irabazien ahultasuna. [Koro Navarro](#)

Garapen teknologikoak eragiten dituen **produktibitate** igoerak direla eta. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Ikusten da ondasun iraunkorretan %7,3koa izan dela azken aldi horretako **produktibitate** hazkundea eta ondasun ez-iraunkorren kasuan, berriz, %2,1ekoa. [Iñaki Heras](#)

**Produktibitate** gehikuntzak soilik enpresen irabazien onerako badira, gutxi batzuk hobetuko dute beren bizi maila materiala. [Iñaki Heras](#)

**Produktibitate**-areagotzea ekonomia hazkundearen iturri nagusia da. [Iñaki Heras](#)

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Golf zelaia hartuko dituen lurren zati handi bat nekazaritza **produktibitate** handikoa dela azaldu zuten ekologistek. [Berria - Euskal Herria](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**produktibitate handiko** (3)

**lanaren produktibitatea** (3)

## produktibo 1 izond ekoizten duena; ekoizteari dagokiona.

Zenbatekoa da norbanako bakoitzari dagokigun lurralde **produktibo** horren zatia? [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Mugimendu horien parterik handienak ez du zer ikusirik merkataritza elkartrukeekin, ez eta inbertsio **produktiboekin** ere. [Iñaki Heras](#)

Enplegu sistemak egin daitezke, baina kontuan hartuz egitura **produktiboa** guztiz aldatu dela. [Berria - Harian](#)

Nafarroako Gobernuaren araudiaren arabera, galarazita dago landa eremu **produktiboak** okupatzea. [Berria - Euskal Herria](#)

Epe laburreko maileguak hartu zituzten, dibisetan, tokiko inbertsioak finantzatzeko, epe ertainekoak nahiz epe luzeak, **produktiboak** edo espekulatiboak. [Koro Navarro](#)

Ekologikoki **produktiboa** den lurra -landaketak, larreak, basoa-. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Garbi ikus dezakegu gutako bakoitzari dagokigun lur ekologikoki **produktiboa** izugarri murriztu dela. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Hurrengo belaunaldiari erakusteko konplexurik gabeko ikasketei loturiko lan **produktiboa** bide eraginkorra dela gizona iluntasunetik eta miseriatik ateratzeko. [Bego Montorio](#)

Gizonak emakumea erabili eta esplotatu egiten zuen, eskulan merke eta **produktiboa** baitzen. [Luis Elberdin](#)

Lan soldata apalak dituzten herrialdeak eskulanean intentsiboak diren produktuetan espezializatuko dira, eta soldata garaiki dituzten herrialdeak berriz, beren langileak beste modu **produktiboagoan** erabiliko dituzte. [Iñaki Heras](#)

Goi hezkuntzak nolako harremana izan behar duen sistema ekonomiko-**produktiboarekin**, nolako eragina izan behar duen eskualdeen garapenean. [Berria - Euskal Herria](#)

### 2 emankorra.

Tematu egin zitzaiola lan serio eta **produktibora** lot zedin. [Bego Montorio](#)

Irudimena, beraz, apriorizko sintesi baten ahalmena ere bada, eta horregatik ematen diogu irudimen **produktiboaren** izena. [Ibon Uribarri](#)

Normala denez, ideia sormentsu eta **produktiboan** artean beste asko eta asko tartekatzen ziren, probetxu handikoak ez zirenak, alegia. [Berria - Kultura](#)

Sexuak ere **produktiboa** izan behar du, "erreproduktiboa", alegia. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

### 3 ez-produktibo izond

Hazkunde hori, errentaren mailaren mendeko baino areago, errentaren erabilera produktiboaren edo **ez produktiboaren** mendeko da. [Koro Navarro](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ekologikoki produktiboa** (3)

**irudimen produktiboaren** (6)

produkto ik **produktu**.

**produktora** 1 iz ikus-entzunezko emanaldiak ekoizten dituen enpresa.

## 2 (hitz elkartuetan)

Ille-apaindegirik ez zuen Fininvestek, baina bai ia sektore ekonomiko guztietako enpresak: telebista kateak, egunkari eta aldizkariak, zinema **produktorak**, musika ekoiztetxeak, publizitate agentziak, [...]. **Berria - Harian**

Bereak dira, besteak beste, *topolino*, sagutxo, alegia, Fiat etxearen auto txikiari deitzeko eta *Pisorno*, Pisa eta Livorno artean eraiki zen zinema **produktorari** eman zitzaion izena. **Iñigo Aranbarri**

## produktore 1 iz ikus-entzunezko emanaldiak ekoizten dituen pertsona.

-Eta ni **produktorea**, nik jartzen dut dirua. **Fernando Rey**

Hollywoodeko jende ospetsu guztia joanen da, **produktoreak**, zuzendariak, izarrak, eta ez da inoiz jakiten horietako batek noiz begiz jotzen zaituen. **Fernando Rey**

Martin Ibarbiak deitu zidan, telebistarako lanak egiten zituen **produktore** batek, *Sei ipuin amodiozko* irakurri zuela eta nirekin hitz egin nahi zuela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zuzendari, **produktore**, errealizadore, esatari... hori guztia nintzen ni. **Joxerra Garzia**

-Nola adieraziko da hori pelikulan? -galdetu zuen **produktoreak**. **Fernando Rey**

**Produktoreetako** bi oso kezkatuak zeuden izarren berehalako grebarekin. **Fernando Rey**

## 2 ekoizlea.

Arago, **produktore** batzuei ere ez zaie beraiek ekoizitakoa heltzen. **Edorta Agirre**

Kontsumitzaile eta gizarte taldeez gain, industrializaturiko herrialdeetako **produktoreak** ere agente nagusia izan omen dira produktuen ekoizpenean baldintza hobeak ezar ditzaizela eskatzen dutenen artean. **Iñaki Heras**

Ekonomia, merkatua, eskaera/eskaintza eta gainerakoak indarrean, **produktoreak**, eta, hein handiago batez, metatzaile-banatazaile handiak agintzen du kontsumitzaileak zer hartu behar duen. **Edorta Agirre**

Merkatu-ekonomian, gizakia ez du soilik lanak ustiatzen eta alienatzen, **produktoreen** eta saltzaileen aldetik ere, nolabaiteko merkataritza-ustiaketa jasotzen baitu, eta ondorioz, alienazioa. **Iñaki Heras**

Hiria hiru jende-klasez osatua dagoen gisan -legegile/gobernariz, defendatzailez eta **produktore**/kontsumitzailez: legeak, armak, produkzioa -, dago hiru hiritar edo gizon-emakume mota, bakoitzak arimaren zati desberdin bat duela gailen. **Askoren artean**

## produktu (orobat *produktu g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian produktua agertzen da*) 1 iz ekoizten den gauza. ik ekoizkin; mozkin 4.

Sistema ekonomikoa, ekoizpenari eta **produktuaren** banaketari zegokienez, ez zen antolatzen gizabanakoen irizpide arrazionalen arabera. **Koro Navarro**

Horren ondorioz prezioek - **produktu** eta zerbitzuak erosteko ordaindu beharreko diru kopuruak, alegia- gora egiten dute. **Iñaki Heras**

Orain lantegi guztiek **produktu** guztiak ekoizten dituzte. **Berria - Ekonomia**

Zenbait ekoizpen adarretan parte hartzen du **produktuak** edo zerbitzuak ekoiztiz. **Iñaki Heras**

Lehenetsuna emango dio Ben'Olíel enpresari zuek inportatzen dituzten **produktuak** eskuratzerakoan. **Bego Montorio**

Multinazionalari **produktua** erretiratzeko eskatu diote. **Berria - Gaiak**

Primorskeko portutik 30 milioi tona ateratzen dira egunero, eta gehien garraiatzen den **produktua** petrolioa da. **Berria - Gaiak**

Belgikako Gent unibertsitateko ikertzaileak genetikoki eraldatutako **produktuak** kaltegarri direla ukatu zuen atzo. **Berria - Gaiak**

Prebiotikoak, normalean, landare jatorriko **produktuak** izaten dira. **Berria - Gaiak**

Merkuriorik gabeko zilar oxidozko pila sortu du Sony goi-teknologiako **produktuak** ekoizten dituen etxeak. **Berria - Gaiak**

Lehiakorrek ez diren **produktuek** desagertzera jotzen dutelako. **Koro Navarro**

Liburua jogurtaren pareko zerbitzu bihurtu da: **produktu** bat. **Ana Urkiza**

Literatura, berez, **produktu** bezala, ez da existitzen. **Ana Urkiza**

## 2 (izenondoeekin)

**Produktu** berri bat merkaturatzea edo beste ekoizpen planta bat irekitzea. **Iñaki Heras**

Progestagenoen eta beste **produktu** kimiko batzuen arteko konbinazioari buruz hitz egin zuten. **Luis Elberdin**

Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen den **produktu** industrialaren %8-9a inguru. **Iñaki Heras**

**Produktu** naturalen industria garbi-ustekoari ahoko zuloan jarri zaio mamaxa. **Iñaki Segurola**

Lau orduz jardun zuen bere **produktu** informatikoen xehetasunak, gorabeherak eta inguruabarrak azaltzen. **Jon Alonso**

Dibisen sarrerek **produktu** inportatuen kontsumoa areagotu zuten. **Koro Navarro**

Elikadura eta **produktu** manufakturatua irauliko zituzten **produktu** ezezagun asko. **Koro Navarro**

Alferrik, **produktu** birtuala baitzen, publizitatearen eragin itzela azpimarratzeko broma bat besterik ez. **Iñaki Heras**

**Produktu** ordezkarriak ekoizten dituzten ekonomia adarretan. **Iñaki Heras**

**Produktu** jakin batzuk kontsumitzeak egingo gaituela ausart, zuhur, gazte, edota sortzaile. **Iñaki Heras**

Gaur egungo finantza merkaturaren garapenarekin nekez bereiz daitezke epe motzerako eragiketak eta epe luzeak, **produktu** eratorrien merkaturako. **Iñaki Heras**

Geneak aldatzea da naturaren prozesu natural bat, etengabe gertatzen dena, nahiz azkenean **produktu** berri batera iristen garenerako **produktu** hori milaka urteko aldaketan prozesua izan. **Pello Salaburu**

## 3 (izenlagunekin)

Kartagoarrek greziar **produktuak** inportatzen zituzten, beraiek ekoizti zezaketen edozer baino erakargarriagoak zirenak. **Iñaki Mendiguren**

Oinarrizko **produktuen** eta elikagaien esportazioak debekatu ziren. **Koro Navarro**

Eskura zuten edozer lapurtzen zuten: altzariak, zapatak, koltxoak, izozkailuak, garbiketarako **produktuak**. **Harkaitz Cano**

Atzerriko **produktu** merkeagoek herrialdea inbaditu zuten. **Iban Zaldúa**

Inportaturiko **produktu** eskuz landuek, OCDEko herrialdeen BPGaren %2a inguru baino ez omen dute hartzen. **Iñaki Heras**

Merkaturatutako **produktu** transgeniko kopurua ezagutu ahal izateko sistema berri bat. **Berria - Gaiak**

Bukatutako **produktu** edo zerbitzuaren kalitateaz. **Iñaki Heras**

Ez zen erraza analisirako **produktu** pururik aurkitzea, eta zenbait aste eman behariko nituen bentzeno, klorobentzeno, klorofenol, toluidina eta beste arazten. **Juan Garzia**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Produktu** eskaria handitzen zen garaietan, gau eta egun, eten gabe, txandaka aritzen ziren. **Iñaki Heras**

Gizakiaren ongizatea areagotzea, gizakiaren diru-errenta edo eskura duen **produktu** kopurua areagotzea dela asumitzen baitu. **Iñaki Heras**

-Egun, kirol **produktu** etxe gehienak dabilta finaleko ezustearen irudi eskubideen bila. **Berria - Kirola**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jarduera ez formalek [...] garapen-bideko herrialdeetako nazio-**produktuaren** eta, horren ondorioz, bizitza-mailaren gutxiespena ekar dezakete. **Koro Navarro**

OECDko industria **produktuen** merkataritza guztiaren %40a, gutxienez, ETNek gauzatzen dutela aurreikusitako izan da. **Iñaki Heras**

Herrialdeak pobreetan nekazari-**produktuei** Europar sartzen utziko bagenie, [...]. **Iñaki Heras**

Bere aurrezki libretan edo beste finantza-**produktu** batean agertzen den anotazio kontablea. **Iñaki Heras**

Bolkestein araudiak «zerbitzu publikoak merkatu **produktu**» bihurtuko dituela salatu zuten. **Berria - Ekonomia**

Ingurugiroari konpondu ezinezko kalteak, kontsumo-**produktuen** inguruko makina bat istilu, edota lehiakortasun preziatuaren bila lan egoeran gero eta murrizketa handiagoak. **Iñaki Heras**

Landare **produktuak**, ozpinetan onduak. **Josu Zabaleta**

Informatika eta telematika **produktuak** dira, besteak beste, multzo horren barruan sartzen direnak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hileroko tripako mina, bularretako bat edo edertasun-**produktuak** aukeratzeara. **Joseba Urteaga**

Tesi horrek ondorio txarrak ekarriko lituzke, esaterako, artelan gisa onartzen ditugun objektu asko arte-**produktu** ez direla esatea. **Askoren artean**

Literatur **produktu** baten fase guztiak ezagutu behar izan genituen egun gutxitan: proiektuaren ideia asmatzea, testuen sorkuntza bera, produkzioaren zeregin neketsuak eta, azkenik, salmentaren lan beti esker txarrekoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 6 emaitza. ondorioa.

Garai jakin bateko mentalitate burgesaren **produktu** da marxismoa, milioika eta milioika jenderengan eragin handia izan duena. **Iñaki Heras**

Eskema bere baitan beti irudimenaren **produktua** baino ez da. **Ibon Uribarri**

Dagoena, egon, Espainia-Estatua da, konkistaren eta krimenaren **produktua**. **Joxe Azurmendi**

Andrea, fintasuna, dotorezia, emetasun heldu elegantea, zibilizazioaren **produktua** da. **Koldo Izagirre**

Hau, hala ere, ez da margolan osoa; zeren eta, gizarte-kolapsoarekin batera zertu eta gutxiengo menderatzaileen **produktu** izateaz gain, estatu unibertsalek badute hirugarren ezaugarri nabarmen bat. **Iñaki Mendiguren**

Lepo gaineko buru karratua gihar bat gehiago besterik ez zen gimnasioko **produktu** hartan. **Unai Iturriaga**

Izateko estilo bat den Don Quixote fikziozko hori, izateko estilo erreala den Cervantes-en **produktu** bat da. **Joxe Azurmendi**

Zientziaren ikasketan berriro ere egonkor bilakatu den auziguneren arteko bereizketa zientziagintzaren erlazio sozialen **produktu** kontingente bat baino ez da. **Askoren artean**

## 7 (hitz elkartuetan bigaren osagai gisa)

Lehenengo zibilizazioen erlijio-**produktu** garatu gabeek bigarren belaunaldiak sortutako erlijio nagusien inspirazioetara egin zuten beren ekarpena, denboraren harian. **Iñaki Mendiguren**

Mendebaldeko teknologiaren aparatu miragarri eta beldurgarria Mendebaldeko kristau-monakismoaren albo-**produktua** zen. **Iñaki Mendiguren**

Barbaroak, mugaz harantzago dagoen bitartean, arrakasta izaten duela energia psikiko arrotzaren eragin honen parte bat, behintzat, kultur **produktu**-politiko, artistiko eta erlijioso- bihurtzen. **Iñaki Mendiguren**

## 8 azpi-produktu ik azpi.

### 9 barne produktu garbi

BPGa kalkulatzeko unean balio galera kontuan hartzen bada, hau da, erabilerak makinerian, ekipoen edota beste kapital-ondasunen batean eragiten duen balio galera, **Barne Produktu Garbia** ateratzen da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

### 10 barne produktu gordin

Ekonomia jarduera neurtzeko gehien erabiltzen diren adierazleak dira **Barne Produktu Gordina** (BPG) eta Nazio Produktu Gordina (NPG). **Iñaki Heras**

Defizit publikoa ez izatea **Barne Produktu Gordinaren** ehuneko 3 baino handiagoa; sektore publikoak metatutako zorraren maila ez izatea **Barne Produktu Gordinaren** ehuneko 60a baino handiagoa. **Iñaki Heras**

Bi dira hori guztia neurtzeko erabiltzen diren erreferentzia nagusienak: "**Barne Produktu Gordina**" (BPG), gizarte horretan produzitzen denaren balioa alegia, eta "Ikerketa eta Garapenerako" (IG) erabiltzen diren inbestimenduak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

**Barne Produktu Gordinaren** %3 ikerkuntzari eskainiko ziola agindu zuen orduan Jacques Chiracek. **Berria - Gaiak**

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren **Barne Produktu Gordina** hupatu da ehuneko hiruan aurtengo azken lau hilabetetan. **Herria**

Kontu nagusia hazkunde bultzatzea da, hau da, **Barne Produktu Gordina** handitzea. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako barne produktu (4); alemaniako barne produktu (3); barne produktu (217); barne produktu gordina (72); barne produktu gordinak (13); barne produktu gordinaren (118); barne produktu gordinen (6); bestelako produktua (4); eako barne produktu (7)

errusiako barne produktu (3); espainiako barne produktu (3); euroguneko barne produktu (6); euskarazko produktu (4); frantziako barne produktu (5); gipuzkoako barne produktu (4)

kalitateko produktu (3); kultur produktu (3); munduko barne produktu (3); nafarroako barne produktu (4); nazio produktu gordina (4)

produktu berri (7); produktu berriak (23); produktu berriak sortzeko (3); produktu berrien (3); produktu berritzaileak (4); produktu biologikoak (3); produktu bukatuak (4); produktu eratorrien (5); produktu eratorrien merkatuetan (3); produktu eta zerbitzu (4); produktu eta zerbitzuak (5); produktu eta zerbitzuen (8); produktu kimiko (9); produktu kimikoak (7); produktu kimikoen (6); produktu manufakturatua (3); produktu manufakturatuen (7); produktu naturalak (4); produktu onak (3); produktu toxiko (4); produktu transgeniko (5); produktu transgenikoak (5); produktu transgenikoek (3); produktu transgenikoen (3)

saltzen diren produktu (3)

## produktzio ik produkzio.

## produktzio (745 agerraldi, 40 liburu eta 340 artikulutan orobat produktzio g.er. eta produkzio g.er.; cf ekoizpen 1678 agerraldi, 52 liburu eta 785 artikulutan) 1 iz ekoizpena.

Enpresa lehiakideari **produktzioa** erosi eta desegitea. **Edorta Agirre**

Kontua da, sistemak aginduta, gure eta etorkizuneko enprek harik eta atzerago eramatea, produktzio-adina luzatzeko, **produktzioa** areagotzeko. **Edorta Agirre**

**Produktzioaren** katearen hasieran egotearen ondorioa da hori. **Koro Navarro**

Marxistentzat, berriz, ekonomiak **produktzioa** gidatzen duten giza erlazioak aztertzen ditu. **Iñaki Heras**

Botere politikoa, azoka libre bateratua, lehia librearen eta eske-eskaintaren legea **produktzioan** eta banakuntzan, bai horixe lortu zituela horiek denak. **Joxe Azurmendi**

BPGaren gorakaden eragileen artean edozein motatako ondasun edo zerbitzuren **produktzioan** izandako igoerak egon daitezke. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Azkeneko urteetan, ordea, zertxobait aldatzen hasi zen Maupassanten **produktzioa**. **Josu Zabaleta**

Askatasuna, bai, baina askotasuna da hor berez axola duena, askotasunaren **produktzioa**, gizabanako eta gauzabanako askoren askotasun entretenigarria. **Iñaki Seguro**

Zientzia bide onetik baitoa, eta zientzialariei, "adituei", dagokie haren **produktzioaren** kudeaketa. **Askoren artean**

## 2 (izenondoekin)

**Produktzio** handiagoa behar al da oraindik emakumezkoen literaturaz hitz egin ahal izateko? **Ana Urkiza**

AEBetako **produktzio** industriala %0,1 baino ez zen igo abuztuan. **Berria - Ekonomia**

**Produktzio** nuklear eta eolika hazi dira gehien epe horretan. **Berria - Ekonomia**

Norbanakoen arteko harremanak arautzen dituzten konbentzioen indarrez erabilgarri diren **produktzio** sozializatuen munduaren mende, alegia. **Josu Zabaleta**

Ohartzen gara ere horrelako gasolio profesionala ezin dela egon guztiz libre, adibidez, **produktzio** intentsiboa lagundua ater daitekeelako. **Berria - Ekonomia**

Balkan Txiki argitaletxe argitaletxe zena, **produkzio** laborra baina zaindua kaleratzen zuena. [Jon Alonso](#)

Giza fenomeno guztietatik hizkuntza da garrantzitsuen, **produkzio** adierazgarrietan interesa duen ororentzat. [Josu Zabaleta](#)

Ez da **produkzio** literario zabala, baina bai adierazgarria. [Askoren artean](#)

Horrek eragin zuzen-zuzena du EHUren **produkzio** zientifikoan. [Berria - Harian](#)

Euskal **produkzio** kulturalaren ikonografia (garai hartako kartelak, liburuetak portadak, pegatinak...). [Anjel Lertxundi](#)

Ingurumenean uztartzen den **produkzio** iraunkorra. [Berria - Ekonomia](#)

**Produkzio** eta kontsumo biologiko eta ekologikoaren hedapena. [Iñaki Heras](#)

Zur, paper eta egur eskaria, mundu mailan, basoen **produkzio** iraunkorretik oso gora dago jada. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artea gizakiaren **produkzio**-alor berezi bat da, hizkuntzarekin aldera daitekeena. [Josu Zabaleta](#)

Garapen iraunkor batek... ingurumena babestu behar hori betetzen duen **produkzio** sistema bat behar du. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

**Produkzio** bitartekoen jabetza langileriaren eskuetara pasatu behar da. [Jon Alonso](#)

Horretarako **produkzio**-bideen jabetza pribatua desegin behar da nahitaez. [Rafa Egiguren](#)

Produktzioarako teknologia berrikuntzek, ikusiko denez, **produkzio** eredu fordistaren gainbehera ekarri dute. [Iñaki Heras](#)

**Produkzio** kuota 17,4 milioi tonatik 14,6ra jaitsi nahi du Bruselak. [Berria - Ekonomia](#)

Balio gordin batetik balio garbi batera igarotzean, **produkzio** prozesuan gastatzen den kapital-stockaren zatia hartzen da kontuan. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Jabetza nazionalerako **produkzio** faktoreek denboraldi jakin batean ekoizirikiko ondasun eta zerbitzuen merkatu balioa. [Iñaki Heras](#)

LPEEko gainerako kideen **produkzio** ahalmena ia %100ean dago. [Berria - Ekonomia](#)

Volkswagenek **produkzio** gehigarria ordain gisa erabili nahi izatea ere gogor salatu zuten sindikatuko bazkideek. [Berria - Ekonomia](#)

Liho-, kotoi- eta artile-haria atzerititik inportatzen hasi behar izan zuten, eta horrek **produkzio**-kostuak igoarazi eta erresumako ehunen lehiakortasuna larriki murriztu zuen. laborantzazko ekoizpen eta **produkzio** elkarrean. [Iban Zaldúa](#)

Dirudien zuzendariak **produkzio**-bulegora deitu du, eta handik publizitatera deitu dute. [Fernando Rey](#)

Estrategia horretan, berriro ere ahalik eta elementu gehien inplikatzea lortu nahi da, hala nola **produkzio** agenteak, herritarrek eta administrazioa. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Saudi Arabiako Petrolio ministroak adierazi zuen **produkzio** igoerak ez duela konpondu behar arazoa nahitaez. [Berria - Ekonomia](#)

**Produkzio** masarik ez dagoen bitartean ezin al da konparatu gizonezkoek eta emakumezkoek egindako literatura? [Ana Urkiza](#)

Gure baloreak, bizimoduak, kontsumo eta **produkzio** jarraibideak aldatzea eskatzen duen garapen eredu berri bat. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esate baterako, arma **produkzioan** gertatutako gorakada izan daiteke, edo eskolen eraikuntzari edo sendagai **produkzioari** esker izandako gorakadak. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Ogasunak ere laster nozitu zituen kalteak: alde batetik, artisautza-**produkzioaren** gaineko zergen bilketak behera egin zuen deblauki. [Iban Zaldúa](#)

Kontua da aldaketa kultural gogorrek gertatu direla eta ez soilik nekazaritza **produkzioan**. [Berria - Gaiak](#)

Konponbidea "zero hazkundera" zen, hau da, biztanleriaren eta industri **produkzioaren** hazkundera egonkortzea. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Zientzia-**produkzioaren** izaera komunitarioa azaldu nahi izan zuen Kuhnek, bereziki zientzia-garapenaren dinamikaren berri eman ahal izateko. [Askoren artean](#)

Esanahi-**produkzio** bezala arbuiaurik, subjektu baten berriazko produkzio bezala arbuiaurik, adierazgarritasun formal kodetura mugaturik geratzen da adierazpena. [Josu Zabaleta](#)

Halaber, sindikatuen erantzuna jakinda, Iruñeko lantegiak 2006. urterako egina zuen auto **produkzio** eskaintza beste 1.000 autotan jaitsi du. [Berria - Ekonomia](#)

### 5 ikus-entzunezkoen ekoizpena.

Libreto horretan oinarritutako **produkzio** baten bila, Alemaniako Manheimgo Nationaltheater-ek Werner Schroeterekin 2000. urtean egindakoarekin egin zuen topo Cobos musika zuzendariak. [Berria - Kultura](#)

Unai Iturriagak egin du gidoia, eta errealizazioa IKBrena da: **produkzioa**, berriz, AEKrena. [Herria](#)

Eisensteinen beraren **produkzioan**, *Ivan Izugarria* filma egin zuen garaikoa da estasiaren teoria hau. [Josu Zabaleta](#)

Eszena aldetik esan behar da soiltasuna nagusi dela **produkzio** honetan. [Berria - Kultura](#)

Biblia horrek eman du bidea, nonbait, Hollywoodeko zinema beltzaren **produkzio** batzuk (zuri-beltzeko kontraste markatuagatik, inondik ere), edo komiki asko, oso "beltzak" itxuraz, "espresionistatza" har zitezten. [Josu Zabaleta](#)

[Soinu-efektuak ditu filmetarako] **produkzio** osteko prozesuaren zati bat da. [Oskar Arana](#)

**Produkzio** digitalaren azken urratsak. [Berria - Kultura](#)

Maiatzaren 5ean Hukkle **produkzio** hungariarra eta Pablo Carbonellek zuzendutako *Atun y chocolate* izango dira. [Berria - Kultura](#)

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Filmaren **produkzio** zuzendari Puy Oriaren laguntzailea da Toni. [Berria - Kultura](#)

Steven Spielberg izango da **produkzio** arduraduna eta Zhang Ziyi aktore txinatarraren protagonista. [Berria - Kultura](#)

**Produkzio** lanak Igeldo Komunikazioak egingo ditu. [Berria - Kultura](#)

Harrigarria da benetan ikuskizunaren **produkzio** maila eta arlo guztien arteko koordinazioa, telebistakoa bezain zorrotza baita. [Berria - Kultura](#)

"Endemol" telebistako **produkzio** etxe famatuak "Baserría" edo "La ferme" emankizuneko araudiak aste guziz aldatzen dituen gisan, [...]. [Herria](#)

### 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atomizatutako konpainien antzerki **produkzio** eta birek hainbat arazo izaten dituzte zirkuitu koordinazio, banaketa eta formatuetan, errentagarritasuna bilatu behar dutelarik. [Berria - Kultura](#)

Mundua konkistatu nahi dugu gure kultur **produkzio** abangoardiakoekin. [Berria - Kultura](#)

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako **produkzio** (3); **bere produkzio** (6); **gaur egungo produkzio** (3); **kontsumo eta produkzio** (4)

**produkzio ahalmena** (3); **produkzio beharren arabera** (4); **produkzio burua** (3); **produkzio buruak** (4); **produkzio eta kontsumo** (7); **produkzio etxearen** (3); **produkzio gehigarria** (4); **produkzio kostuak** (5); **produkzio kuota** (3); **produkzio lanak** (3); **produkzio literario** (3); **produkzio maila** (3); **produkzio modu** (3); **produkzio prozesuak** (3); **produkzio prozesuan** (4); **produkzio sistema** (6); **produkzio sistemari** (3)

**auto produkzioa** (6); **autoen produkzioa** (3); **bere produkzioa** (3); **euskarazko produkzioa** (4); **industria produkzioa** (3)

**produkzioa eta kontsumoa** (3); **produkzioa gelditu** (3); **produkzioa handitu** (8); **produkzioa handitzeko** (4); **produkzioa igo** (4); **produkzioa igotzeko** (3); **produkzioa jaitsi** (3); **produkzioa murrizteko** (4); **produkzioa murriztu** (3)

**zabor produkzioa** (6)

**etxeko produkzioaren** (3); **industria produkzioaren** (3); **produkzioaren parte bat** (5); **produkzioaren zati** (12); **produkzioaren zati bat** (7)

**produkzioari esker** (3)

## produkzioburu (*corpusean produkzio buru soilik*) iz produkzioaren buru den pertsona.

Zuzendari literarioak eta **Produkzio-buruak** berriro muturu ziren, betebeharrak aintzat hartzen zituen emakume hauskor batek [...] ahuleziak akusatuko ote zituelako lotsaz, agian, eta horregatik gogortasun egokiaz begiratu zioten zuzentzaileari. [Jon Alonso](#)

Eskuinean eserita dagoena **Produkzio burua** da, baina ez du inoiz emakumea argitaletxean ikusi. [Jon Alonso](#)

## produktzioe ik produktio.

## produktzio txo *iz adkor* produktioa.

Nork bere lubakian gordeta segitzen dugu, urtean behin, birritan, hirutan edo lautan atera, nork bere **produktzio txoa** kanpoan utzi eta berriro lubakira bueltatzen dena.

Berria - Kultura

## produktzio *(126 agerraldi, 21 liburu eta 42 artikulutan; cf ekoitzi 1184 agerraldi, 46 liburu eta 578 artikulutan)*, produktio, produktio txo 1 du ad ekoitzi.

Berak **produktzio txo** duena bakardadean jaiotzen da, baina bakardadean jaiotzen merkatua doa zuzen-zuzenean. Anjel Lertxundi

Patente eskubiderik ezean sortzaileek gutxiago **produktzio txo** luke. Berria - Gaiak

Guk geuk pobrezia kontra borrokatzen dihardugu herritarrei janaria helarazten, eta beren janaria **produktzio txo** baliabideak sortzen. Berria - Mundua

Lur gutxiago behar da familia bati bizibidea emateko, beste ale-mota batzuk **produktzio txo** dituzten herrialdeetan baino. Iñaki Iñurrieta

Bertan kontsumitzen den energiaren %59 martxan diren 59 zentral nuklearrek **produktzio txo** dute. Berria - Gaiak

Hondakinak ere ez dira kontuan hartzen, nahiz eta produktio prozesuaren etapa guzti-guztietan ageri diren -baliabideak prozesatzean, ondasunak **produktzio txo** eta ondasunak kontsumitu ostean-. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Baliteke klasizismo garai bat "hobea" iruditzea, artelan beteagoak, iraunkorragoak **produktzio txo** dituela iruditzea: hori, ordea, gure ikuspegitik begiratuta baizik ez da egia.

Josu Zabaleta

Posible al da natur baliabideen ordez gizakiek **produktzio txo** baliabideak jartzea? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Izan ere jadanik **produktzio txo** dagoena gastatzea baino ez baita kontsumoa. Iñaki Heras

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Ezinezkoa da kapital **produktzio txo** sortzea kapital naturalean oinarritu gabe. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

### 3 sortu.

Hiri honetan 13.000 tona zabor **produktzio txo** dira egunero. Harkaitz Cano

Edandako hogeita hamar gramo alkoholeko, hirurehun gramo gernu gehiago **produktzio txo** da. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**produktzio txo** kapitalaren (3)

**gehiago produktio txo** (3)

## produktzio txo *iz* produktio txo duen pertsona.

Psikoanalisiaren sortzaileek [...] sarri izan zuten tentazioa arte-produktzioa bere alderdi subjektibotik ikusteko, produktio txo hori **produktzio txo**, artistarekiko erlazioaren arabera aztertzeko. Josu Zabaleta

Sortzaile edo **produktzio txo**. Berria - Kultura

## proemio *iz* atariko, hitzaurrea.

Ikus Ortega-ren **Proemioa** ere Spengler-en itzulpen espainolar. Joxe Azurmendi

## proeza *iz* balentria, egitandia.

Hori bera, Estaturik ez edukitzera bihur daiteke apika: euskaldunek (Okendo, San Inazio) hainbat **proeza** egin dute, baina beti besteren historian Joxe Azurmendi

## profanatu, profana, profanatu 1 du ad sakratua dena begirunerik gabe tratatu edo erabili.

Irango aiatola Ali Khameneik eta Mohamed Khatami presidenteak ohartarazi dute ez dutela onartuko leku sakratuak **profanatu**. Berria - Mundua

Zure tenplua **profanatu** nahi dute asiriarr horiek. Elizen arteko biblia

Gure santutegi eder eta ospetsua, horra toki bakarti bihurtua, jentil-herriek **profanatu**. Elizen arteko biblia

Hilobi bat **profanatu** zuen, bai, baina zakur bat zabor artean bezalaxe, hezur usteletan mokaduren bat topatzeko esperantzarekin. Patxi Zubizarreta

Ez ote zuten Sabino Aranaren hilobia **profanatu** nahiko, jakinik abertzaleen iturburu zela. Ramon Saizarbitoria

Kalizak eta aldareak **profanatu**, zaldiz sartu ziren hunoak monasterioko liburutegian. Juan Garzia

Behar ez bezala Jaunaren ogia jaten eta kopatik edaten duena errudun bihurtzen da, Jaunaren gorputz-odolak **profanatu** baititu. Elizen arteko biblia

Zuek, ordea, **profanatu** egiten duzue nire izena, nire mahaia ez zaiola begirunerik zor esanez. Elizen arteko biblia

Heretikoa izatea eta islama **profanatu** leporatzen dizute. Berria - Kultura

Larunbata **profanatu** duenak heriotza-zigorra izango du. Elizen arteko biblia

### 2 (hitz elkartuetan)

Lankideek hilobi **profanatu** esaten zioten, eta "Burke eta Hare, gales nazionalista", deitzen zioten adiskideek. Koro Navarro

### 3 irud/hed

Etxea den tenplutik aterako da fenomeno honen inguruko liturgia, eta, hortaz, elikatzea **profanatu** egingo da jarduera funtzional hutsa bihurtuko da. Edorta Agirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hilobia profanatu** (3); **ituneko odola profanatu** (3); **santutegia profanatu** (4); **tenplua profanatu** (3)

**izena profanatu** (3)

## profanatu *iz* profanatu duen pertsona.

Santuaren jai egunaren **profanatu** eta haren aintzaren etsaia. Askoren artean

**Profanatu** bera ere hil egin zuten tenpluko altxortegi ondoan. Elizen arteko biblia

Gaizto, errebelde, erlijio gabe eta bekatarientzat, sakrilego eta **profanatu**, aitamen hiltzaile eta giza hiltzaileentzat. Elizen arteko biblia

Santuaren jai ospatzeari muzin egin zioten, eta **profanatu** miragarri zigorruak izan ziren. Askoren artean



# profanazio *(orobat profanazione g.er.)* 1 iz profanatzeara.

Gazte alferrik galduek bakarrik egiten dituzte **profanazio** sakrilegoak. Juan Martin Elexpuru

- **Profanazio** makabroa bezain alferrikakoa. Ramon Saizarbitoria

Hiria setiatuak dagoenez ezin baita hilerrira iritsi, non galiziarrek litezkeen **profanaziorik** gaitzesgarrienak egin baitituzte. Jon Alonso

Adierazi nahi diet munduko musulman guztiei ez dugula koranaren aurkako **profanaziorik** onartuko. Iñigo Aranbarri

Alemanak erraiten dit zein kontent den apez baten ikusteaz eta hoinbeste **profanazione** jasan dituen arrosario baten benedikarazteaz. Marzel Etxehandi

## 2 irud/hed

Kopari kopa, Italiako eta Europako estadioetan, Napolik irabazi egiten zuen, eta gol bakoitza aurrez ezarritako ordenaren **profanazioa** eta historiaren aurkako errebantxa zen. Berria - Kirola

## profanazione ik profanazio.

# profano 1 izond sakratua ez dena; gauza sakratuak begirunearekin erabiltzen ez dituenak.

Ziur nago fedea izan dezakedala zuengan gauza guztietan jarraituko didazuela, hala sakratuetan nola **profanoetan**. Oskar Arana

Berrehun eta berrogeita hamar metroko karratua zen, eta Jainkoari sagaraturiko esparrua eta esparru **profanoa** bereizten zituen. Iban Zaldúa

Batzuentzat sakratua dena, **profanoa** da besteentzat, eta batzuentzat bidezkoa dena itsusia da besteentzat. Piarres Xarriton

Ahots taldeen bi sari nagusiak, musika **profanoari** eta erlijiosoari dagozkionak, Suediako *Voces Nordicaek* irabazi ditu. Berria - Kultura

Gauza erlijiozkoetan nola **profanoetan** egin dituzuen ekintzen kontaketa dioenez fio gara. Jon Alonso

Ez dute bereizten sakratua eta **profanoa**, ez dute ezagutarazten garbiaren eta kutsatuaren arteko aldea. Elizen arteko biblia

Ekialdean erlijioak eta filosofiak bat egiten dute, ez dago sakratua eta **profanoaren** arteko banaketarik. Berria - Gaiak

Hondakinen lezioak malenkonismo faltsuetatik gorde gaitzake eta, Benjaminek nahi zukeen eran, iluminazio **profanoaren** erradikalasuneran eraman ere. Joseba Zulaika

Kultura **profanoa** Amerika suntsitzen ari zen, esan zuen. Oskar Arana

Kantu **profanoen** sortzaile famatu bat zegoen, Enperadoreak poeta koroatu zuenetik "bertsoen errege" deitzen ziotena. Askoren artean

## 2 (izen gisa)

Funts-funtsean, merezia nuen: horra zer gertatzen zaien **profanoei**, tenpluaren ateen aurrean jostatzen geratzen direnei, tenplura sartu ordez. Juan Garzia

## • 3 izond/iz ez-aditua, ezjakina dena.

Bi eratako entzuleengan pentsatuz dago idatzia: aipatutako "profesional" horiek osatzen dutena batetik eta [...] publiko aditu baina **profanoak** osatzen duena bestetik.

Santiago Iruretagoiena

Batek jakin **profano** esperientziagabeok zer egingo genuen, gure galduan, harekin. Juan Garzia

**Profanoaren** ustez, berriz, zientziak ez du egiten datuak erregistratu baino, bere inguruan argazkiak aterako lituzkeen kamera baten modura. Juan Garzia

Esan nion neure zein inoren gertakari bila nembilela, gero liburu batean erakusgai ipintzeko, ea horrela lortzen nuen **profanoak** gure lanbidearen zapora gogor eta mingotsera zaltetzea. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**musika profanoa** (4)

## profaitatu ik profaitatu.

# profesa 1 iz lekaide edo lekaima batek erlijiozko ordena bateko botoak beteko dituelako adierazpena edo zina egiten den elizkizuna.

Gorrito izan behar dio diruari, hau baita gure **profesaren** eta ebanjelio-perfekzioaren galbide nagusia. Askoren artean

**Profesaz** zu bezalako garenok ez iezaguzu utz bizieraz bestelako izaten. nik ez dut nire kontzientziaren eta Ebanjelio santua betetzeko egin genuen **profesaren** aurka joan nahi. Askoren artean

**Profesakoan** hitzemandako izaerari leial eutsiko dioten anaiei betiko aintza agintzen die. Askoren artean

## 2 (hitz elkartuetan)

Orduan jakin zuen zenbat ziren Ordenako eta probintzia bakoitzeko anaiek, eta gainera haien izenak, adina eta **profesa**-maila, haien kargu eta ohore-tituluak, eta haien dohainak eta erruak ere bai. Askoren artean

## 3 irud/hed

Fede musulmanaren **profesa**: "Jainkoa beste jainkorik ez dago, eta Mahoma da Jainkoaren Profeta". Patxi Zubizarreta

## 4 profesia egin ik profesatu.

Munduko handikeriak erabat arbuatu zituen eta Aita dohatsuari batu zitzaion, haren Ordenan **profesa** eginez. Askoren artean

Inesak etxetik ihes egin eta bere ahizpari jarraitu zion, honek **profesa** egin eta egun gutxira. Askoren artean

Gainera ez diote aterik ixten beren Erlijioan sartu nahi duen inori, ezkontuta edo beste Ordena batean **profesa** eginda ez badago behintzat. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**profesa egin** (3)

**profesan agindutakoa** (3)

# profesatu, profesatu, profesatu 1 du ad profesia egin.

Inozentzio gotzainak [...] Kristorengan alaba maite ditudan Klarari eta Asisko San Damian elizako Kristoren beste mirabe guztiei, oraingoei nahiz etorkizunean Erregelaren araberako bizimoldea betiko **profesatuko** duten beste guztiei. Askoren artean

Ez bedi inor gurekin monasterioan bizi, **profesatu** dugun bizimoldearen arabera onartua izan ez bada. Askoren artean

Ikuspuntu ezberdinak har daitezke obra irakurtzean: jatorriak ikertzen dituen historialariarena; [...] behin **profesatu** zuen Erregela, hasieratik hainbeste kontzientzia-arazo sortu dituen Erregela, nola bizi jakin nahi duen frantziskotar anaiaarena; [...]. Askoren artean

## 2 doktrina bati jarraitu.

Erlijio intelektual batek Jainkoak egindako aukera baten ideia ematen digunean, eta hura **profesatu** dutenen eta **profesatu** ez dutenen arteko bereizketa batena, horrek asko atxikiagotzen gaitu erlijio horrekin. Iñaki Iñurrieta



Batek ezin du ulertu, noski, balioen erlatibismoa **profesatzeak** gaur ETaren indargintzaren alde zer ikusi behar duen gehiago haren kontra baino. **Joxe Azurmendi**  
Ortega-ren kasuan [...] hori problematiko askoa izanik ere, gizartearen eta historiaren teoria elitista bat, oligarkikoa, **profesatu** izatean baino gehiago, hori arrazaren teoriarekin bategitean datza. **Joxe Azurmendi**

### 3 jarraitu.

Errespetatzen ez dituen bertuteak **profesatzen** dituelarik, mesprezatzen duenaren itxura ematearen abantailari atxikitzen zaiona. **Xabier Olarra**

## profesio (49 agerraldi, 16 liburu eta 5 artikulutan; cf lanbide 1250 agerraldi, 187 liburu eta 323 artikulutan) 1 iz lanbidea. ik ogibide.

Ni profesional bat nintzen, eta **profesioan** hobetzeko aukera guztiak aprobetxatu behar nituen, gainerako ofizioetako jendeak egiten zuen bezala. **Joan Mari Irigoien**

Orain dela urtebete hasi zen lanean eta, norik esan, sei hilabete eskasean berriro igo da **profesioaren** gailurrera. **Patxi Iturritegi**

Hor ikasi dute **profesioa**. **Berria - Kultura**

Laborantza munduari sostengu tekniko eskaintzea eta **profesioarekin** harremana segurtatzea. **Berria - Harian**

**Profesioen** sailkapenean. **Berria - Euskal Herria**

**Profesioan** jarduteko nahitaezkoa izango baita ikasketen laugarren urte horretan enpresa batean praktikak egitea. **Berria - Gaiak**

Demagun A gizartearen **profesioei** lotutako oso aldaketa txikiak daudela errentan. **Iñaki Heras**

Bere lana eta **profesioa** duintzearen alde borroka handia egin du. **Ana Urkiza**

Tira ezak Cortesetarantz, Raimundak oraindik ere **profesioari** dedikazioa eta beharrezko berotasuna ematen dio-eta. **Urtzi Urrutikoetxea**

### 2 (hitz elkartuetan)

Neuk, behintzat, nire bizitzako **profesio**-eginkizun filosofo-pentsalariak aztertzea izan dudanak, horrela deritzot. Arkitekto-**profesioaren** izaera liberala edo ez-liberala, **Jenaro Garate**

### 3 profesatzea.

Hitzik gorenak musulmanentzat, haien fede **profesioa**. **Bernardo Atxaga**

Frantziskok, anaia batzuek Ordenan etsenplu txarra ematen zutela eta anaia beren **profesioaren** gailurretik gain behera zetozela entzun eta konturatu zenean, [...]. **Askoren artean**

Bedeinka itzazu, arren, anaia haiek bedeinkapen zabalez, eta santu egin itzazu dohain bereziz etsenplu onen bidez beren **profesio** erlijiosoa usain gozoko bihurtzen dutenak. **Askoren artean**

Denek gogo bera zuten gure **profesio** eta bokazioari eta etsenplu onari dagozkien gauza guztiak gordetzeko arduran. **Askoren artean**

Haiek beren bokazioan eta **profesioan** iraun zuten bitartean, [...]. **Askoren artean**

## profesional (orobat profesional g.er.) 1 izond lanbideari dagokiona.

Kontsulta **profesional** bat egin nahi zidala. **Joan Mari Irigoien**

Ikasle multzo bat gure etorkizun **profesionalaz** ari ginen ikastetxeko patioan. **Aingeru Epaltza**

Jakin-min **profesional** batek -ez **profesional** huts-hutsa ere, naturaz gaindikoa eta deabruzkoa ere bai-. **Matías Múgica**

Kontzientzia **profesionalak** eskatzen dio, gutxienez, orriak poliki-poliki pasatzea, begi adituak hitzen gainean noraezean bezala galduz. **Jon Alonso**

Maila **profesional** duina erdietsi dute. **Txema Ramirez de la Piscina**

Vitruviok Julio Zesarren eta Augustoren garaian egin zuen bere jarduera **profesional** eta enpresariala. **Santiago Iruretagoiena**

Arantxa askoz ere ibilbide **profesional** bizkorragoa egiten ari zela. **Iban Zaldúa**

Nagusiarekiko tratua pertsonal (eta, batzuetan, **profesional**) atsegina erdiesteko aukera, apaindurarik gabea. **Edorta Agirre**

Mintzamoldea **profesionalagoa** bilakatu zen, urrunagoa, harroagoa. **Aingeru Epaltza**

Huts **profesional** baterako prest egongo zen nik hala eskatu izan banio. **Joxan Elosegi**

Xede **profesional** tinkoak. **Aingeru Epaltza**

### 2 halakoa lanbidez dena, ez amateur gisa.

Errepublikaren Gobernuak zenbait ofizial **profesional** bidali zizkigun Bizkaira. **Jokin Urain**

Musikagile **profesional** baten adimena zuela, alegia, musikaren arloan. **Xabier Olarra**

Igandean berean hiltzaile **profesional** bat aipatu hidan. **Aingeru Epaltza**

Boxeolari **profesional** batek bost egunez entrenamenduetarako zaku bezala baliatu izan bailuen. **Harkaitz Cano**

Gero talde **profesional** batek fitxatu ninduen. **Unai Elorriaga**

Greziar mertzenarioen indar **profesional** mugikor baten erreklamenduak Alexandro Handiak Akemenestarren Inperioa hartzea ekarri zuen. **Iñaki Mendiguren**

Piano-kafe batean hasi nuen karrera **profesionala**. **Anjel Lertxundi**

Halako edariak egiteko erabiltzen zituzten substantzia kimikoek bera moduko boxeolari ia **profesional** baten giharretan zelako kaltea erakar zezaketen. **Josu Landa**

Dekorazioa dotoreagoa da, zuzendaritza-lana **profesionalagoa**. **Oskar Arana**

Oso erretratu **profesionala**. **Iban Zaldúa**

Oso **profesionala** ematen zuen. **Bernardo Atxaga**

### 3 irud/hed

Haien meriturik handiena afizioa ofizio bihurtzea izan zen: juergazale **profesionalak** ziren. **Xabier Etxabe**

Hau ez da eskale **profesional** horietakoa. **Patxi Zubizarreta**

Zakurra katuen salbatzaile **profesionala**. **Gotzon Garate**

### 4 (izen gisa)

Ni **profesional** bat nintzen, eta profesioan hobetzeko aukera guztiak aprobetxatu behar nituen. **Joan Mari Irigoien**

Unibertsitateak, bada, **profesionalak** sortzeko balio du, enpresek behar dituzten **profesionalak** prestatzeko, besteak beste. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ni, jakina, ez nintzen **profesional** bat, baina odolean neraman ofizioa. **Joan Mari Irigoien**

Gaur egun, ordea, Euskarazko Kazetaritza Euskal Herri osoan presentzia duen errealitatea da: 500 **profesional** inguru eta 250etik gora hedabide (handi, txiki eta ertainen artean). **Txema Ramirez de la Piscina**

Ekipoko **profesional** guztiak haren inguruan egin behar dute lan. **Berria - Gaiak**

Emakumea gizonezkoen tartera doanean, emakume bezala doa, ez **profesional** bezala. **Ana Urkiza**

Pertsona, **profesional** eta idazle askea da. **Ana Urkiza**

-Pertsonekin hain arin jokatzeko duen bat ezin da **profesional** ona izan. **Anjel Lertxundi**

Haren arabera Miren Arteaga **profesional** ona eta etorkizun handikoa zen. **Migel Angel Mintegi**

Alferrik esango didate **profesional** independenteak direla. **Joxerra Garzia**

Hildakoa **profesional** ezaguna zen gure hiriburuan informazio konfidentzialaren alorrean. **Aingeru Epaltza**

**Profesional** ohartua zenez gero, berehala heldu zion berriz ere hitzaldiari. **Jon Muñoz**

Ez dugu uste **profesional** txarrak txarrik auste dugu hobekuntza handiak izan direla azken eteotan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Gero talde **profesional** batek fixatu ninduen. **Unai Elorriaga**

Ondotxo zekien bere mailako **profesional** gehienek ihes egiten diotela segada moduko horri, etxe propioa izateari alegia. **Patxi Iturritegi**

**Profesional** gisa ganorazko gauzak zuzen egiteko gai dela erakusten ari duk hilabete hauetan. **Aingeru Epaltza**

Hiru egun falta zaizkizu **profesional** hasteko. **Berria - Kirola**

Baquek bi urte egin ditu **profesionalen** mailan. **Berria - Kirola**

**Profesionalen** talde bat zuzentzea zer da zuzentzat, erronka bat edo arazo bat? **Berria - Kirola**

## 5 (hitz elkartuetan)

1992ko abuztuan ekin zion **profesional** mailan Galdeano anaia zaharrenak, Artiach taldearekin. **Berria - Kirola**

Euskal Herriko **profesional** mailako denboraldia gaur hasiko da Lizarran. **Berria - Kirola**

**Profesional** mailako bi jaialdi antolatatu ditu Aspe enpresak gaurko. **Berria - Kirola**

Itxaron egin beharko du, Apraizen antzera, **profesional** mailara salto egiteko. **Berria - Kirola**

Hilabetero joaten da **profesional** talde bat bertara eta hamar egun inguru egiten dituzte han. **Berria - Gaiak**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

boxeolari profesional (3); dantzari profesional (3); estudio profesional batean (3); gaixotasun profesional (3); ibilbide profesional (6); jokalaria profesional (4); kirolari profesional (4); kontinental profesional mailako (5); lan profesional (4); oso profesional (3); pilotari profesional (7); pilotari profesional gisa (3)

profesional bakarra (3); profesional berria (5); profesional duina (3); profesional egin (7); profesional handia (3); profesional izan (4); profesional izatea (3); profesional izateko (4); profesional mailako (43); profesional mailako debuta (5); profesional mailako jaialdi (3); profesional mailan (8); profesional mailara (4); profesional moduan (5); profesional ona (4); profesional onak (5)

talde profesional (13); txirrindulari profesional (3)

aktore profesionala (3); bere ibilbide profesionala (5); bere jarduera profesionala (3); bizitza profesionala (5)

erabat profesionala (6); futbol profesionala (3); garapen profesionala (8); gasolio profesionala (17)

ibilbide profesionala (12); idazle profesionala (12); jarduera profesionala (3); kirol profesionala (5); konprometua eta profesionala (3); kontratu profesionala (6); liga profesionala (5)

oso profesionala (7); pala profesionala (3); pilota liga profesionala (3); pilota profesionala (7); pilota zirkuitu profesionala (3)

profesionala eta pertsonala (3); profesionala izan (18); profesionala izango (3); profesionala izatea (6)

talde profesionala (8); txirrindularitza profesionala (4)

unibertsitate profesionala (3); unibertsitate profesionala lortzeko (3); zerga profesionala (5); zirkuitu profesionala (5)

afizionatuak eta profesionalak (3); aktore profesionalak (3); dantzari profesionalak (3); elkarte profesionalak (4); etorkizuneko profesionalak (3); futbol liga profesionalak (11); musikari profesionalak (5); musikari profesionalak sortzea (3); osasun arloko profesionalak (3); pilota profesionalak (3); pilotari profesionalak (4)

profesionalak izan (4); profesionalak izango (5); profesionalak prestatzen (3); profesionalak sortzea (3)

talde profesionalak (7)

talde profesionalarekin (3)

gasolio profesionalaren (4); kirol profesionalaren (3); pilota profesionalaren (6)

ibilbide profesionalari (3)

futbol liga profesionalean (3); futbol profesionalean (6); ibilbide profesionalean (3); kirol profesionalean (5); liga profesionalean (6); maila profesionalean (6); modu profesionalean (5); saskibaloia profesionalean (3); tropel profesionalean (3); txirrindularitza profesionalean (6); zirkuitu profesionalean (3)

alorreko profesionalei (3)

arloko profesionalek (5); elkarte profesionalek (3); osasun arloko profesionalek (3); sektoreko profesionalek (3)

elkarte profesionaleko (4); futbol liga profesionaleko (4); liga profesionaleko (8); liga profesionaleko lehendakaria (3)

arloko profesionalen (9); artista profesionalen (3); osasun arloko profesionalen (4); politiko profesionalen (3)

profesionalen artean (13); profesionalen arteko (4); profesionalen laguntza (4); profesionalen mailan (3)

surflari profesionalen (3); talde profesionalen (4)

arrazoi profesionalengatik (3)

profesionala lehen partida (4); profesionala lehen urtean (3)

ari da profesionala (6); debuta profesionala (14); debutatu zuen profesionala (6); kirol profesionala (3); partida profesionala (3)

profesionala ari (4); profesionala aritzeko (5); profesionala aritzeko aukera (3); profesionala bidea egiteko (3); profesionala egindako urteak (5); profesionala jarduteko (3); profesionala jokatzeko (3); urte daramatza profesionala (3); urte daramatzat profesionala (4)

afizionatuetatik profesionala (3); profesionala pasatu (3)

profesionalizatzen jo (3)

## profesionaldu, profesional(du), profesionaltzen (orobat profesionaldu) da/du ad profesionalizatu.

Bainan **profesionalduz** gero errugbia, bada orain denetarik. **Herria**

## profesionalismo iz kirola edo beste jarduera bat irabazbide gisa hartzea.

Izan ere **profesionalismo** literarioaren mozorroa oso urruti egon da beti nire gustuetatik, pentsamenduetarako terapia baten alderantzizkoa baita. **Pello Lizarralde**

Bestelako helburuak ditu, **profesionalismoa** eta lehiakortasunaren munduan leku gehiegi ez dutenak: «Harrobi lana egin nahi dugu, txirrindulari gazteei profesionala aritzeko aukera eman, eta behin gure taldean daudela, erakusleio izan profesionala bide luzea egin dezaten talde indartsuago batean». **Berria - Kirola**

## profesionalitate iz profesionaltasuna.

Zure **profesionalitatea** zalantzan jartzen dutela ikustea al da gauzarik mingarriena? **Berria - Kirola**

## profesionalizatu, profesionaliza, profesionalizatzen da/du ad profesional bihurtu.

Duela zazpi urte, hona etorri nintzenezan, kudeaketa ere amateurra zen, eta orain hori guztia **profesionalizatu** egin da. **Berria - Kultura**

Koxkortu ez ezik, ikaragarri hobetu da irratia: **profesionalizatu** egin da. **Joxerra Garzia**

Hitzaldiak '**profesionalizatu**' edo egin dira; nik 'funtzionarizatu' esango nuke. **Pako Aristi**

Presidentearen eta zuzendarien karguak **profesionalizatzea** ez zaigu burutik pasatu ere egin. **Berria - Kirola**

Suitzan txirrindularitza **profesionalizatzen** ari da oraindik. **Berria - Kirola**

Segida izatea nahi dugu, eta, hori lortzeko, **profesionalizatze** beharra ikusi dugu. **Berria - Kultura**

Zer da lehenago, beraz, lehendabizi idazleak **profesionalizatzea** edota **profesionalizatze** baliabideak eskuratzea? **Ana Urkiza**

Ordenagailuek izaten dituzten erasoak asko ugariatu dira aurtun, eta erasotzaileak **profesionalizatu** egin dira. **Berria - Gaiak**

## profesionalizazio *iz* profesional bihurtzea. ik profesionalizazio.

Maila pertsonal batean **profesionalizatzea** ezkontzea bezala ikusten dut. **Berria - Kultura**

Ahaztea komeni zitzaigula, egun batez bederen, betiko zoritxar-igarleek aipatzen dutena, hots, armaden **profesionalizatz**-prozesuetan eragin dezente handiagoa izan duela Mendebaldeko gizarte-kontrolaren eguneratzearen logikak. **Iban Zaldúa**

## profesionalizazio *1 iz* profesionalizatzea.

**Profesionalizazioa**, oraingoz, jasateko zaila da klubentzat. **Berria - Kirola**

Ez inbestekoa da gizarte interpreteen **profesionalizazioa** lortzea, gaur egun ikusezina balira bezala aritzen baitira ezagutu gabeko lanean, eta, gainera, soldatarekin zerikusia duten arazo askorekin. **Berria - Euskal Herria**

**Profesionalizazioa** saldu digute, eta baserrietako ekoizpenaren intentsifikazioarekin batera, emakumeak landa mundutik at geratu dira. **Berria - Ekonomia**

**Profesionalizazioa** jotzea ikusten du arraunean aurrera egiteko modu egoki bat, baina ordaindu beharreko prezioa garestia dela deritzo. **Berria - Kirola**

Elkartearen «**profesionalizazioa**» bultzatzeko baliatuko du dirua Aranzadik. **Berria - Kultura**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Profesionalizazio** kontratua: lanaldi partzialekoa. **Berria - Ekonomia**

## profesionaliki *adlag* era profesionalean, profesional gisa.

Eskoziako lehen ministro Jack McDonnellek Poliziaren jokaera defenditu, eta «**profesionaliki**» jokatu zuela esan du. **Berria - Hariari**

Honek, beti doinu berean, **profesionaliki**, eskatu xehetasunak eman zizkien. **Daniel Landart**

Bai pertsonalki eta baita **profesionaliki** ere. **Ana Urkiza**

Harik eta egun zahar txarretan gizatiarregi indiaruturiko "nabob" ingelesa britainiar funtzionario **profesionaliki** akasgabe eta pertsonalki hurbilgaitz bihurtu zen arte. **Iñaki Mendiguren**

Ikastegiaren moral oihesa ezaguturik, pentsa zitekeen hautaketa natural delakoaz erabaki zedin utzi ote zuten, erabat, gure artekin nork iraun, fisikoki eta **profesionaliki**, bizirik. **Juan Garzia**

Automobilismoan **profesionaliki** lehiatu zen zazpi urteak bere patrikatik ordaindu ondoren, [...]. **Berria - Kirola**

Ni, hala ere, ez naiz sekula **profesionaliki** kazetaria izan. **Lopez de Arana**

**Profesionaliki** urrats berriak egin nahi nituelako etorri nintzen. **Berria - Euskal Herria**

**Profesionaliki** lanbide horretatik bizitzeko aukera. **Ana Urkiza**

Idaztea gustatzen bazaizu, kazetaritzak ematen dizu hori **profesionaliki** egiteko aukera. **Ana Urkiza**

Berak oso **profesionaliki** joko ditu. **Bernardo Atxaga**

## profesionaltasun (*83 agerraldi, 15 liburu eta 54 artikulutan; orobat profesionaltasun g.er.*) *1 iz* profesionala izateko nolokotasuna.

**Profesionaltasuna**, edozertan dela ere, asko laudatzen da egunotan. **Joxerra Garzia**

Euskal kulturak antolatzaile onak behar ditu, bertako sorkuntza zabaltzen jakingo duten kudeatzaileak, militantziari **profesionaltasuna** erantsiko diotenak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Profesionaltasunak** ez du bete (edo ez du bete nahi izan) militantziak hasi eta jorratu bidea. **Herria**

Profesional askok sentitu dute auzitan jarria beren lan gaitasuna eta **profesionaltasuna**. **Berria - Euskal Herria**

-Zuk aspalditik ezagutzen duzu nire lan egiteko **profesionaltasuna**. **Joxemari Iturralde**

**Profesionaltasunak** edo mendeku nahiak eraginda ari izan zarela uste duzun arren, ni bertze baten besoetan ikusi ezinak ziztatu zaitu oroz gain. **Aingeru Epaltza**

Jendarme handi batek bizkor eta **profesionaltasunez** miatu ninduen, besapeetatik praka laburrez jantzitako hanketaraino. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ez ditu ezagun hango gure ezagunak, ez daki fitsik euskal sukaldaritzaz ("oraingoz", dio, xumetasunez): **profesionaltasun** apurra. **Edorta Agirre**

### 2 (izenondoekin)

**Profesionaltasun** literarioak berekin dakar idazleak establishment-ean parte hartzea, haren funtzionamenduari men egitea. **Berria - Kultura**

Katharine Hepburn, butaka baten ertzean eserita, lan-baldintzak zehazten ari zitzaion Spencer Tracyri, bere emetasuna ederragotzen zuen **profesionaltasun** hieratik batez. **Anjel Lertxundi**

Oholtza gaineko bikoteak, ordea, **profesionaltasun** handiz, bere horretan jarraitu zuen, japoniarren buila eta algarei kasu zipitzik egin gabe. **Joxemari Iturralde**

### 3 (hitz elkartuetan)

**Profesionaltasun** kontua da: langilea zenbat eta jantziagoa, lan eraginkorragoa egingo du. **Berria - Ekonomia**

**Profesionaltasun** itxurak egin nahi ditu, denborari kosk egiteko. **Javi Cillero**

Legebiltzarrak atzera bota zuen Barrosoren proposamena, hainbat komisariogairen **profesionaltasun** eza argudiatuta. **Berria - Mundua**

Bi euskal taldeek egoera horretatik aldendu eta gaurko partidaren buru-belarri sartu behar dute, **profesionaltasun** erakustaldi batean. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**profesionaltasun handiz** (3)

## profesionaltze *iz* profesionalizatzea.

Baina **profesionaltzearekin** egitekoa lanbide, ogibide bilakatzen da. **Joxerra Garzia**

## profeso *1 izond* profesia egin duena.

Kapitulu honetara, Ordenaren orduko usadioaren arabera, anaia **profesoak** ez ezik, nobizioak ere bildu ziren, eta hiru bat mila anaia elkartu omen zen. **Askoren artean**

### 2 irud/hed

Denek ezaguna dute Horazioren epikureismo **profesoa**. **Xabier Amuriza**

## profesore (*orobat profesur g.er. eta profezur g.er.*) *iz* irakaslea.

Behilalako estudianteak oraingo **profesoreak** dira. **Joxe Azurmendi**

Zer nahi dute komite horretako kazetari, kritiko, **profesore** eta abarrek? **Bernardo Atxaga**

Zeki **profesoreari** telefonoz deitu nionean gaito bakan haren berri emateko, jakin-min eta harridura handia sortu zitzaion. behilalako esdiantek oraingo **profesoreak** dira. **Xabier Olarra**

Salamancan -orain **profesore** - periodo berri bat abiatzen du: filologiara mugatu gabe, kazetaritzan oso aktibo, hasieratik hiri hartako gizarte kontserbakoi itxiarekin eta gotzain Cámara-rekin talka egiten du. **Joxe Azurmendi**

## profesorego *(corpusean profesorgu) iz irakasletza.*

Otoi, zure **profesorgua** egizu errespetu pixka batekin, bidearen erdian ibiliz etzaitela has ttipien zapatzen hitz bihurri batzuekin. **Herria**

Ez naiz ere, aipatzen duzun bezala zu baino jakintsuago, zu baino haundiago, **profesorgu** gutti eginen dauzut. **Herria**

## profesur ik profesore.

## profeta 1 iz Jainkoak argiturik eta haren izenean egia ezkutuen edo etorkizuneko gertaeren berri ematen omen duen pertsona. ik igarle.

Nik, aldiz, garbiki erraiten nuen ez nintzela ez sorgina, ez **profeta**, eta ez nekiela zer gertatuko zen. **Piarres Xarriton**

**Profeta** esatean ulertzen dugu hemen izpiritu handiak, zorrotzak eta arrazoikiariak, beren naturazko asmatenaren zorrotzasunari emanak daudenak, eta hortik beren harrokeria. **Joan Mari Lekuona**

Jainkoa beste jainkorik ez dago, eta Mahoma da Jainkoaren **Profeta**. **Patxi Zubizarreta**

**Profeta** bat bidali zien Jaunak, esatera: [...]. **Elizen arteko biblia**

Horiei buruz dio **profetak**: Madarikatuak zure aginduetatik aldentzen direnak! **Askoren artean**

Honela esaten da **profeten** liburuan: [...]. **Elizen arteko biblia**

**Profeta**, goi-agerpenaren eraginez, lagun batzuei oihal-etxola eta kutxa eramateko agindu eta mendira joan zen. **Elizen arteko biblia**

Jaunak Natan **profeta** bidali zion Dabidi. Jeremias **profetaren** ahoz iragarritakoa bete zuen Jaunak. **Jose Antonio Mujika**

Mahoma **profetaren** garaiko ekitaldi wahabita. **Berria - Harian**

Arestiren poemak menditik ebanjelio berria predikatuzera jaisten den **profeta** parodiatzen du. **Joseba Zulaika**

**Profetak** putzaren pareko dira: Jaunaren hitzik ez haien ahoan. **Elizen arteko biblia**

Ondoren etorriko dira Errege indartsu eta **Profeta** handien garai argi eta ospetsuak. **Jose Antonio Mujika**

Dabid **Profeta** Santuak, nahikunde sutsuak eraginik, hots egin zuen: [...]. **Joan Mari Lekuona**

Laurehun eta gehiago **profeta** gaizto suntsitu zituen. **Jose Antonio Mujika**

## 2 irud/hed

Orduz geroztik, gisa bereko **profeta** eskolatu asko badugu entzunik, hala nola, Pariseko teologia ikasirik, etxerakoan bere ebanjelio berria irakatsi nahi zidan hura. **Piarres Xarriton**

Berpizkunde helenikoaren **profeta** Mendebaldean Northumbriako bat izan zen, Bida beneragarria. **Iñaki Mendiguren**

Aresti beti izan zen "**profeta**", euskara modernoa beste inork baino hamarkada bat edo bi lehenago asmatu zuena. **Joseba Zulaika**

Nahiz **profeta** biarnesa oker zebilen, duela 115 urte, euskaldun populu tipia eta haren hizkuntza euskara, ja galduak, laster hil eta suntsituko zirela uste zuelarik. **Piarres Xarriton**

Aski da ikustea, espartakistak, sindikalista iraultzaileak, **profeta** kiliastikoak eta beste zer jendaje dabilen Max Weber-en lerroetan aipatua. **Joxe Azurmendi**

Ala ahantzia dute gazteek, **profeta** berriek dioten bezala, autokritikarik gabe ez dela nehoiz, nehon deus egin? **Piarres Xarriton**

Erljio berria jabetu da gutaz, eta hedabideak dira haren **profeta** nagusiak. **Iñigo Aranbarri**

Etxean **profeta**: galdakoztarrak Bizkaiko torneoko jokalarari onena izan da. **Berria - Kirola**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izan nadila, otoi, zure **profeta** -espirituaeren oinordeko. **Elizen arteko biblia**

San Frantziskoren **profeta** -espiritua eta iragarpenak. **Askoren artean**

Erregeari amaiera iragarri zion, lurpetik ere bere **profeta** -ahotsa entzunarazi zuen herriaren gaiztakeria ezabatzeke. **Elizen arteko biblia**

Sarrera: Ezekielen **profeta** -Bokazioa. **Elizen arteko biblia**

Joan Bataiatzailearen **profeta** -deia. **Elizen arteko biblia**

Eta zeu, Paxhur, eta zure familia osoa gatibu eramango zaituztete Babiloniara; han hilko zara eta han hilobiratuko zaituzte, gezurrezko **profeta** -mezua ematen zenien adiskide guztiekin batera. **Elizen arteko biblia**

Betelen zegoen **profeta** -taldea bidera atera zitzaion Eliseori; honela esan zioten: [...]. **Jose Antonio Mujika**

Eguerdi ostean, berriz, **profeta** -trantzean sartu ziren, eta horrela egon ziren oparia eskaintzeko ordua arte. **Jose Antonio Mujika**

Daugin mendeari buruz oroituko gara ez dela **profeta** ofizioa lanbide erraza, eta orobat, ez garelako Euskaldunak ez munduko ez Europako nazio tipi bakarra, aspaldian suntsitu beharra izan arren, beti bizirik dirauena. **Piarres Xarriton**

**Profeta** eredua da, bere duintasuna gurea da lelopean 50 pertsona inguru bildu ziren, isilean, ordu erdi luze batez. **Berria - Mundua**

Ate baten aitzinean, gizon bizardun bat, "mai 68"eko **profeta** aire batekin. **Piarres Aintziart**

## 4 profeta andere ik profetes.

Miriam **profeta** -andreak, Aaronen arrebak, danbolina hartu zuen eta ondotik joan zitzaizkion emakume guztiak ere, danbolina joz eta dantzatzen. **Jose Antonio Mujika**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiskide eta profeta (3); bere profeta (8); elias profeta (6); erregearen profeta (3); jeremias profeta (6); natan profeta (12)

profeta bezala mintzo (4); profeta espiritua (6); profeta espirituz (4); profeta eta errege (3); profeta gisa (6); profeta jardunean (4); profeta santuen (3); profeta sortaraziko (3); profeta taldea (9); profeta taldeko (4); profeta trantzean (10); profeta trantzean sartu (4); profeta zaharrak (3)

apaizak eta profetak (5); isaias profetak (13); jaunaren profetak (3); jaunaren profetak suntsitzen (3); jeremias profetak (12); mahomet profetak (3); natan profetak (7)

profetak esan (6); profetak esana (4); profetak esanaren arabera (3); profetak esandako (3); profetak hil (4); profetak otoitz egin (3); profetak suntsitzen (3)

; ageo profetaren (4); ahias profetaren bidez (3); isaias profetaren (9); isaias profetaren bidez (4); jaunak profetaren bidez (5); jeremias profetaren (6); jeremias profetaren ahoz (3); mahoma profetaren (18); mahoma profetaren karikatukurak (4); natan profetaren (3)

profetaren ahotik (3); profetaren ahoz (5); profetaren bidez (22); profetaren bidez esana (8); profetaren biloba (3); profetaren bitartez (5); profetaren hitzak (3); profetaren otoitza (5)

jonas profetarena (3)

isaias profetari (3); jeremias profetari (7); natan profetari (4)

zerbitzari profetei (5)

profeten artean (3); profeten aurka (4); profeten bidez (16); profeten bitartez (5); profeten esanei (3); profeten kontra (3); profeten liburuetan (9); zerbitzari profeten (8); zerbitzari profeten bidez (4); zerbitzari profeten bitartez (3); zeure zerbitzari profeten (3)

## profetagitza iz profeta-lana.

Ezekiel **profetagitzarako** deitua.

[Elizen arteko biblia](#)

Gizaseme, hitz egin nire izenean Israelen profeta omen direnen aurka; beren kabuz **profetagitza** diharduten horiei, esan nire hitza.

[Elizen arteko biblia](#)

Jaunak apaiz izendatu zaitu Joiadaren ordean, eta zeu zara orain tenpluko arduradun nagusi; zeuri dagokizu, bada, ahoberoren bat **profetagitza** hasten bada, zepoan eta katez loturik ezartzea.

[Elizen arteko biblia](#)

Eguerdi ostean, beren **profetagitza** jarraitu zuten arratsaldeko oparia eskaintzeko ordurarte; han ez zen, ordea, inolako ahotsik izan, ez eta erantzun-arrastorik ere.

[Elizen arteko biblia](#)

## profetaurreko izond profeten aurrekoa.

Zeren eta kristautasunaren sustrai judaikoak bere moisesar sustraia baitzuen, eta Israel eta Judako erlijioaren **profetaurreko**aldi hau aurreko hondamendi sekular baten emaitza zen, Egiptoko "Inperio Berriaren" kolapsoarena.

[Iñaki Mendiguren](#)

## profetesesa (orobat profetisa; Euskaltzaindiaren Hiztegian profetesaga agertzen da) iz andre profeta. ik profeta 4.

Miriam **profetesak**, Aaronen arreba, danbolina hartu zuen eta emakume guztiak atzetik joan zitzaizkion, dantzan eta danbolina joz.

[Elizen arteko biblia](#)

Aldi hartan, Lapidoten emazte Debora **profetesak** gobernatzan zuen Israel.

[Elizen arteko biblia](#)

Gogoan izan Noadias **profetesesa** eta beldurra sartu nahi zidaten beste profetak ere! badut zerbaiz zure aurka: bere burua **profetesatzat** duen Jezabel horri utzi egiten diozula bere irakatsiek nire zerbitzariak engainatzen, Jainkoarekiko desleial izan eta sasijainkoei eskainiriko haragia jatera bultzatuz.

[Elizen arteko biblia](#)

Bien bitartean, neure emazte **profetesarekin** harremanak izan nituen; haurdun gelditu zen eta semea izan zuen.

[Elizen arteko biblia](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hulda profetesari** (3)

## profetiko izond profetari edo profeziari dagokiona. ik profezia 3.

Gogoan har alegoria **profetikoak** bitarikoak direla: batzuetan hitz bakoitzak bere adiera behar du; baina badira beste batzuk zeinetan alegoriaren multzoa objektu irudikatua osotasunak erakusten duen.

[Xabier Kintana](#)

Pasarte **profetiko** baten azalpena.

[Askoren artean](#)

Ez gorde isilpean liburu honetako mezu **profetikoak**, beteko den garaia hurbil baitago.

[Elizen arteko biblia](#)

Jakoben testamentu **profetikoak**.

[Jose Antonio Mujika](#)

Santuaren iragarpen **profetikoaren** bidez, zaldun debotoak bat-bateko heriotzari aurea hartu zion.

[Askoren artean](#)

Aurrerantzean bi aginpide burujabe zeuden, erbelazio **profetikoak** eta arrazoi filosofikoa, eta bakoitzak erabateko eskumena eskatzen zuen adimenaren ekintza-eremu osoaren gain.

[Iñaki Mendiguren](#)

Tratatu honetan ukitzen ditugun hitzen balioaniztasuna eta adiera metaforikoa azpimarratuko zaizkie, harik eta Jainkoaren batasunaz eta liburu **profetikoan** egiazkotasunaz konbentzitu arte.

[Xabier Kintana](#)

Vilnius hiriko handi bat sortuko zela pentsatu zuen Gediminas dukeak XIV. mendean, **profetikotzat** jo zuen ametsa interpretatzean.

[Berria - Mundua](#)

Bazuten zapata-garbitzaile haiek **profetikotik** zerbaiz, misio baten zain dauden espiak edo jainkoek bidalitako ordezkariak ziruditen.

[Harkaitz Cano](#)

Lastima, ordea, etorkizunak -orainak, alegia- *Blade Runner* filmeko euri artean galtzen ziren erreplikantearen malko lirikoekin baino, *Independence Day* eta gisa bereko film apokaliptiko eta **profetikoekin** zerikusit handiagoa izatea.

[Iñaki Heras](#)

## profetikoki iz era profetikoan.

Une historiko batean gutxiengo batek **profetikoki** aldarrikatzen zituenak ("subjektiboak"), gizarte osoarentzat fundamentalak bilakatu dira denborarekin (tolerantzia)...

[Joxe](#)

[Azurmendi](#)

## profetisa ik profetesaga.

## profetismo iz profetizatze jarduera.

"Ikusten" eta "entzuten" diren gauzak "hautematen" dituela, eta Berak "ezagutu" egiten dituela; eta, beste aldetik, Bera "mintzatu" egingo balitz bezala aurkeztu digute, erran nahi baita, Berak gauza batzuk Profetei jakinarazi dizkiela; horixe da **profetismoaren** esangura.

[Xabier Kintana](#)

Halere, oraindik ez da galdetu behar ea **profetismoak** nola irauz lezakeen, mundua betierekoa izanez gero.

[Xabier Kintana](#)

Itzulpen horrek, halaber, **Profetismoaren** ikuspegi garrantzikoenetako bat azalarazten digu.

[Xabier Kintana](#)

## profetizatu, profetiza, profetizatzen 1 du ad profeta gisa iragarri.

Pozez beterik eta Espirituak argiturik, guri buruz **profetizatu** zuen Jaunak gerora bete zuena.

[Askoren artean](#)

Eliezer profetak honako hau **profetizatu** zuen Josafaten aurka: "Akaziasekin elkartu zarela, Jaunak porrot eragingo die zure lanei".

[Elizen arteko biblia](#)

Azken egunetan neure espiritua isuriko diet gizaki guztiei: zuen seme-alabek **profetizatu** egingo dute zuen gazteek ikuskariak izango, zuen zaharrek ametsak egingo.

[Elizen arteko biblia](#)

Orduan, esan zidaten: "Berritua ere, anitz herri, nazio, hizkuntza eta erregeren aurka **profetizatu** beharko duzu".

[Elizen arteko biblia](#)

Joanek bere amaren sabel barruan preso zegoela **profetizatu** zuen; Frantziskok, berriz, munduko kartzela batean preso, oraindik Jainkoaren asmoa ezagutu gabe zegoela, etorkizuna iragarri zuen.

[Askoren artean](#)

### 2 irud/hed

Agurtzerakoan, kontsolatze aldera, Paiva jaunak **profetizatu** zion urte hartan euria egingo zuela eta azkenean salgai guztiak salduko zituela.

[Bego Montorio](#)

Zuek, jaunok, azkeneko urte hauetan egiten ari zareten guztiarekin ere, hipnotismo, sugestio, magnetismo deitzen duzen horrekin, hura ari zarete iragartzen, hura ari zarete aurrez **profetizatzen**!

[Josu Zabaleta](#)

-Dohain hori zure baitan hobeto **profetizatu** dezaket beste edozein emakumerengan baino.

[Lopez de Arana](#)

## profezia 1 iz profetak batek egiten duen iragarpena.



Gaur bete da **profezia** hau entzuten dazazuenontzat. **Elizen arteko biblia**

**Profezia** horietako batek ere ez du huts egingo. **Elizen arteko biblia**

Haren ikasleak ez ziren orduan **profezia** honetaz jabetu, baina gero, Jesusen Jainko-aintza azaldu zenean, konturatu ziren Liburu Santuak zioen huraxe egin ziotela Jesusi.

**Elizen arteko biblia**

Hitz emana nuen gai zailak **Profeziaren liburu** eta **Harmoniaren Liburu** izeneko obretan azalduko nituela. **Xabier Kintana**

**Profeziaren** eginbehar politikoa, eta maila apalagoan legearen jakitunena, beren legeen bidez masak gidatzea da. **Xabier Kintana**

Horixe da sinetsi behar dena **profezia**zko liburuetan aipatzen denaren arabera. **Xabier Kintana**

## 2 irud/hed

Mexikar batek iragarri zion **profezia** Henry Swollenfoot-i, Domu Sainduen bezperan: aita erailko zuen, eta amarekin oheratuko zen. **Javi Cillero**

Zentzu poetikorik adierazgarrienean gertatu zen Maldan behera **profezia**. **Joseba Zulaika**

Aresti oinazetuaren **profezia** iniziatikoa, "maldan gora eginiko gogoeta eroak". **Joseba Zulaika**

Askok adar-jotze ankerrak egiten zizkioten funtsik gabeko **profezia** haiek zirela eta, baina bada entzun nahi izan ez eta gaizki bukatu eta damutu zenik. **Pello Lizarralde**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, orobatprofezi) ik profetiko.

Nahiz eta **profezi** dohaina izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko adinako sinesmena izan, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. **Elizen arteko biblia**

Eta hara nola, **profezi** espirituz beterik, aurrez adierazi zuen gerora egiaz gertatuko zena. **Askoren artean**

Tratatu honen helbururik behinena **profezi** liburuetan ageri diren izen edo hitz batzuk azaltzea da. **Xabier Kintana**

Jainkoarengandik datorrela ulertzen den zerbait, bai sorturiko ahots baten bidez eta bai geroago azalduko dugun **profezia**-bideren batetik. **Xabier Kintana**

Doktoreak (bedeinka bedi haien oroitzapena!) sarritan honela mintzo dira, baina gehienetan erlijio-aginduei edo moralari dagozkien **profezi** gaiez ari dira. **Xabier Kintana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**profezia** hau egin (3)

**profezi dohaina** (7); **profezi espiritua** (7); **profezi liburuetan** (4)

## profesional ik profesional.

## profesionaldu ik profesionaldu.

## profesionaltasun ik profesionaltasun.

## profesur ik profesore.

## profil (96 agerraldi, 25 liburu eta 46 artikulutan) 1 iz soslai. ik perfil.

Estepe hartan goragune bakar bat ere ez zen ageri bistara, telegrafo zutoinen **profilak** izan ezik. **Karlos Zabala**

Dauden lekutik pixka batean begira egon ondoren, Gabin erreparatu da bi **profilek**, Igeldorenak eta uhartearenak, bat egiten dutela. **Iñaki Iñurrieta**

Argi jokoek merkatuaren **profilak** aldatzen zituzten ordu oro. **Karlos Zabala**

Beatriz Viterbo, **profilez**, koloretan. **Juan Garzia**

Hark masailetik hartu ninduen eta **profilez** jarrazti. **Aingeru Epaltza**

## 2 (izenondoekin)

Esku babatsu gogorak zituen, handitzarrak, **profil** hezurtsu koskatsua, aurpegia eguzkiak erre-zaildua. **Juan Garzia**

Burdinurtzuko egitura izugarria itotzen zen, urdintzen zen, egungentziaren sugarretan; **profil** ilun bat besterik ez zen. **Karlos Zabala**

Koloreez eta **profil** orokorrez baizik ez zen jabetzen. **Xabier Olarra**

Gorputz atalak beren lekueatik erauzten ziren miragarriro, **profil** mutu amorratuek gelako eztabaida sutzuen berri ematen zuten kanpora traizioz. **Karlos Zabala**

## 3 (hitz elkartuetan)

Gavarden pistolaren itzala ikusi zuen, errebolber **profil** ikaragarri handi bat, beltz-beltza kristalen zurbiltasunean, kanoia luzaturik. **Karlos Zabala**

## 4 norbaiten edo zerbaiten edo izaera zehazten duen ezaugarrien multzoa.

Halako **"profilak"** ohikoak dira autisten artean: adimen-test direlakoetan, "barreiamendua" edo muga-mugako irregulartasuna erakutsi ohi dute). **Xabier Olarra**

Nobela-irakurleen **profiletan** emakumezkoarena agertzen da nabarmen. **Ana Urkiza**

Soldaten justizia, diskriminaziorik eza, lanpostua pertsonen **profilera** egokitzeko aukera eta egonkortasuna. **Berria - Ekonomia**

Haur pornografia kontsumitzailearen **profila** egiterik jada ez dagoela azpimarratu du. **Berria - Harian**

Balitzko hartzailearen **profila** oso ongi aztertu behar da, mezua horren arabera egituratuko baita. **Txema Ramirez de la Piscina**

Etxeandiak argi asko dauka gazte hauek **«profil** zehatz» bat dutelako kriminalizatzen dituztela. **Berria - Euskal Herria**

Garrantzitsua da ere ikasleen **profila**, euskal komunitate zientifikoa osatuko dutenak prestatzen ari garelako. **Berria - Euskal Herria**

Hortxe dago nire maiteminduen fitxategia, gustuko ditudan **profilak** gordetzen ditut bertan, eta ez dira gutxi ageri. **Karlos Zabala**

Norbait berria ezagutu eta haren **profila** nire gustukoaren artean baldin badago, beste trabarik ez diot jarriko nire buruari harekin guztiz maitemintzeko. **Karlos Zabala**

**Profila**: jantegiko kontabilitatea eskoletako zerbitzu horren sarean. **Herria**

CDNk egun daraman politika eta hitzaldia UPNren berdina da eta lehen zuen eskuin-zentroko **profila** galdu du. **Berria - Euskal Herria**

Hizkuntz eskakizuna "zero" **profilera** jaistea izan zen lehen neurria. **Aingeru Epaltza**

## 5 (izenondoekin)

**«Profil** apaleko» tekniko bikote langile eta prestuarekin. **Berria - Kirola**

Horrek guztiak **profil** psikologiko zehatz bat margotzen du. **Jon Alonso**

Delitugileen **profil** genetikoaz gain, horien ADN fisikoari buruzko datuak ere gordetzen ditu Erresuma Batuko Poliziak. **Berria - Gaiak**

## 6 (hitz elkartuetan)

Ikasleen hizkuntz **profilen** gaineko informazioa edukitzeko mekanismoen diseinua egingo da. **Berria - Euskal Herria**

Urriaren 1etik aurrera euskara **profila** ez duten irakasleen gehiengoak, «nahi izanez gero», lanean jarraitzeko aukera duela nabarmendu du Camposek. **Berria - Harian**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**



## profilaktiko 1 *izond* eritasunetik babesteko balio duena.

Gero ni miatu naute, eskularru **profilaktikoak** dakartzate eta ez tultu eginarazi didate herriko medikuak prostata aztertzen zidanean bezala. [Koldo Izagirre](#)

B motako meningitisari aurre egiteko txertorik ez izatean, kasu hauetarako erabili ohi dituzten botika **profilaktikoak** eman zizkieten. [Berria - Euskal Herria](#)

Halako atari higieniko-**profilaktikorik** gabe ere, berdin birtopatzen ahalko ziren gure gorputzak. [Aingeru Epaltza](#)

### 2 irud/hed

**Profilaktikoa** dela esango nikek hitz zehatza erabiltzera norbaitek behartuko banindu. [Joxemari Iturralde](#)

### • 3 *iz* preserbatiboa.

Brunok argi ikusi zuen **profilaktikoa** nola kentzen zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

## profilaktikoki *adlag*

Eta nik ere "auskalo" diot, baina zinezko auskalo bat, ezezakoa auskalo garbi bat; ez dakigula, ez dagoela jakiterik, gerokorik ez dela orain tokatzen, eta ez duela inork

**profilaktikoki** eta prospektiboki nere eskurik irakurriko. [Iñaki Segurola](#)

## profilaxi 1 *iz* eritasunetik babesteko hartzten diren neurrien multzoa.

Eritasun birulentoak; virus-txertoak; errabiaren **profilaxia**. [Juan Garzia](#)

Inongo minik ez daukanari etor dakizkiokeenak (hau da, lekizkiokeenak) behar zaizkio ezagutarazi (alias "aurre-zainketa", "**profilaxia**"), erremedio bila has dadin eta inongo minik izan ez dezan. [Iñaki Segurola](#)

Emaigun begirada bat estatistikari: tuberkulosiaren atzerakada, esate baterako, **profilaxiaren** arrakastaz: %30etik %8rainoko jaitsiera. [Joxe Austin Arrieta](#)

### 2 irud/hed

Hemen **profilaxi** demokratikoari buruz ari gara, ez PSOeren hauteskunde iruzurraz, promesak ez betetzeagatik. [Berria - Harian](#)

### 3 (hitz elkartuetan)

-Nire **profilaxi** botikina. [Lopez de Arana](#)

## profilmiko *izond* kameraren aurrean, grabatua izateko gai dena.

Bereizkuntza honek espazio plastikoaren, espazio **profilmikoaren** eta espazio diegetikoaren bereizkuntza errepikatzen du neurri handi batean. [Josu Zabaleta](#)

Arkitekturazko espazioa, existentzia **profilmiko** objektiboa duten munduaren zati naturalei zein gizakiak eginei dagokiena. [Josu Zabaleta](#)

## profit *iz* probetxua.

"**Profit** dagiala!", erabaki nuen gutunazala eta gutuna patrikan gorderik, "eskribaua izango natzaik". [Anjel Lertxundi](#)

Konfesionearen **profita** eta onura mintzagai zutela. [Joan Mari Irigoien](#)

## profitabide *iz* aprobetxatzeko bidea.

"Hala da bizitza", nahiz bakanetan baino ez den horrela deskribatzen: nonbait txertatze bat, **profitabide** bilatze bat, energiaren gainbehera bizkarroitze bat, eguzki forma noble hartatik temperatura apaleko bero forma endekatu horretara eraldatzen baita energia hori. [Juan Garzia](#)

## profitagarri *izond* aprobetxagarria.

Orduan esan zigun zeria zela animaliarik **aprobetxagarriena**, zerritik dena aprobetxatzen zela. [Karlos Linazasoro](#)

Pentsatuz ere bai Enperadore Horiaren ahulezia agerikoa zela behin egindakoa zuzentzen eta txukuntzen saiatzen bazen: zirrikitu **aprobetxagarria** beraz. [Felipe Juaristi](#)

FIFAk lehen bazuen hutsune bat bere araudian, eta **aprobetxagarria** zen. [Berria - Kirola](#)

Gizartearen gehiengoak, banan bana hartuz gero, zeharo **aprobetxagarria** da. [Berria - Euskal Herria](#)

## profitatu, profita, profitatzen (*orobat profeitatu g.er.*) 1 da *ad* aprobetxatu.

Iraganean lekurik gabe ibilitako euskaldunak eskaintzen zitzaiena hartzten hasi ziren, balio berriaz **profitatzen**, beren burua estimatzen. [Bernardo Atxaga](#)

Otsailaren 13an, arratseko ilunaz **profitatuz**, ihes egin zuen Manexek, eta, adarra jotzeko edo, sarrera nagusiko ate ondoan utzi zituen bi makuluak. [J.M. Olaizola](#)  
"Txiliku"

Badira, ostera, beste batzuk, M-11z uesteko gaizkile arrunt horiek baino gehiago **profitatu** direnak. [Berria - Harian](#)

Utz dezagun hori eta **profita** gaitzean begi parean suertatu zaigun edertasunaz. [Berria - Kultura](#)

Nik ordea, ez dakit aukeraz **profitatzen**. [Monika Etxebarria](#)

Erreginaren senarrarekin ahaidetzea kolpe polita izan zitekeen familia osoarendako, egoeraz **profitatzen** jakinez gero. [Aingeru Epaltza](#)

Udagioren lasotasunaz **profitaturik** eta erlojuaren eta kanpo-arriskuen kezkarik gabe, [...]. [Aingeru Epaltza](#)

### • 2 du *ad*

Mendeetan zehar, Ingalaterrak muturreraino eraman duen babes-sistema bat **profitatu** du. [Koro Navarro](#)

Ageri da ni kanpoan egon bitartean denbora ederki **profitatu** duzuela. [Aingeru Epaltza](#)

-**Profita** ezan hemen gaudela eta elkarrizketa egion dendari zaharren bati. [Aingeru Epaltza](#)

Baretasuna poliki-poliki itzultzen ari dela **profitatuz** zutitu egin da. [Jon Alonso](#)

-Denok, edo gehienok hemen bildu gara **profitaturik**... -hasi da, tonu leizarragarrari nolabait eutsi nahian. [Iñaki Iñurrieta](#)

Aukera **profitatuko** dugu erakusteko ez gara beste edozein baino gutxiago ontasun, karitate eta anaitasun kontuetan. [Jon Alonso](#)

Aukera daukan bakoitzean, **profitatu** egiten du. [Hasier Etxebarria](#)

Maiz joaten nintzaion prentsak zekartzanak besapean hartuta eta **profitatzen** nuen eguraldiaren edo Hendaiaren ederraz berarekin mintzatzeko. [Hasier Etxebarria](#)

Tarte hori guztia **profitatu** zenuen zer esan eta zer erantzun erabakitzeko. [Hasier Etxebarria](#)

Haien mintzairako zenbait hitz ikasteko **profitatu** dut. [Juan Garzia](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**ederki profitatu** (5); **egiteko profitatu** (4); **galdetzeko profitatu** (3); **profitatu beharra** (3)

## profugo iz iheslaria.

Haietarik bat, kronikagilearen ahalkegarri, ETAkide izateagatik kondenatua zen, eta **profugo** dabil oraindik. **Berria - Kultura**

## proga ik proba.

## progestageno iz progesteronaren taldeko hormona, dosi altuan haurdunaldia eten dezakeena.

Orduan, **progestagenoen** eta beste produktu kimiko batzuen arteko konbinazioari buruz hitz egin zuten; horrekin posible zela barrabilek aldi batean espermatozoideak ekoizteari uztea. **Luis Elberdin**

## progesterona iz obulutegiak jariatzen duen hormona, uteroa haurdunaldirako prestatzen duena.

Haurdunaldiaren hasieran, **progesterona** hormona ezinbestekoa da arrautzaren garapenerako. **Luis Elberdin**  
Obulua ernaldu ez denez, estrogeno eta **progesterona** hormonon kopurua jaitsi egiten da, umetokiko paretak (endometrioak) ezin dio eutsi eta odola kanporatu egiten da. **Luis Elberdin**

## programa 1 iz ondorio edo emaitza bat iristeko eman asmo den urrats ordenatuen segida; pertsona, talde, alderdi... baten asmoen adierazpen ordenatua. ik **egitarau**; **egitamu**.

*Rio'92k* eta bere kontzeptu, **programa** eta gauzatzeko lanabesak baliozkoak zaizkigu orain ere. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Erroraraino autostopez joateko asmoa, berriz, ezin hari burutik kendu inola ere; are, **programa** zehatza zeukan egina. **Joxe Austin Arrieta**  
EAJk bere egin du ETaren **programa**, esana du PPko buruzagiak. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Razionalista da Lockeren **programa**: ideien analisi edo adimenaren azterketaren bidez "giza ezagutzaren jatorria, ziurtasuna eta hedadura ikertzen" ditu. **Askoren artean**  
NBGP Nazio Batuen Garapenerako **Programa**. **Koro Navarro**  
Eta haren **programa** irakurtzen baduzu, ideia sozialista anitz aurkituko dituzu. **Alberto Ladron Arana**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Programa** sozialak, eta ez bestelako **programa** batzuk, hala nola militarrik. **Iñaki Heras**  
Herrialdearen beharrei aurre egiteko **programa** koherente bat. **Iñaki Heras**  
Era guztietako **programa** eta proiektu terapeutikoak jarri ziren martxan. **Xabier Olarra**  
Bazen aukera, zoritxarreko egunen batean, **programa** komunista bere bidea egiteko Indiako gobernuaren aztergai-zerrendaraino. **Iñaki Mendiguren**  
"Utopiak" orokorrean gainbehera doazen zibilizazioen produktu direla eta, **programa** praktikoa bat duten neurrian, gainbeheratze hori gerarazteko ahalgintza direla. **Iñaki Mendiguren**  
**Programa** berezien finantzaketaren bidez herrialdeen arteko errenta aldeak murrizteko asmoz. **Iñaki Heras**  
Zerrendak eta **programa** politikoa zehazten ari dira koalizioa osatzen duten alderdiak. **Berria - Euskal Herria**  
PSOEk **programa** propiorik ez duenez, PPko gobernuak eraikitako guztia suntsitu nahi du. **Berria - Euskal Herria**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oinarri horiek maila ezberdinetan deskriba daitezke, hau da, fisikoki, funtzionalki eta **programa**-mailan. **Askoren artean**  
Orain arte ezagutu dugun **programa**-lanabesik garrantzitsuenak da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bazituzten irakasleak eta bazuten lan-**programa**, bidenabar esan badaiteke, gauza askotan gutzit orijinala eta berritzailea. **Andoni Egaña**  
Garapen-bideko herrietan eta Europa Ekialdean, pribatizazio **programak** zabaldu izana, inbertsio-erregimenaren liberalizazio etengabearekin batera. **Koro Navarro**  
Paristik bertatik, ekin zion Bonabenturak bere gobernu-lanari, erreforma-**programa** zabala aurkeztuz. **Askoren artean**  
Lauzabost orriko txosten bat zen, errehabilitazio **programa** bateko mediku psikiatrick sinatua. **Joan Mari Irigoien**  
Birgaitze-**programatik** atera nintzenez, Davidek eta biok Kaliforniatik alde egin genuen. **Oskar Arana**  
Dena iaz udaletxeko teknikari hark bizimodua aldatzeko aukera neukala esan zidalako, "Bergizarteratze **programa**". **Jasone Osoro**  
Frantziskok bizi-**programa** labur bat, orientabide praktikoa batzuekin, eman zien Klarari eta honen lagunei. **Askoren artean**  
Beste filosofo batzuek ikerketa-**programa** edota ikerketa-tradizio bezalako kontzeptuak erabili dituzte teoria zientifikoa ezaugarritzeko. **Askoren artean**  
Agenda-21 toki mailako aplikazioa duen garapen iraunkorrerako ekintza **programa** bat da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Egun, zerrenda osatzeko eta hauteskunde **programa** prestatzeko lanean ari da bere lantaldearekin batera. **Berria - Euskal Herria**  
Euskal ingurumen politika gauzatzeko Ingurumeneko Esparru **Programa** bat izango da lau urterako. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

### 5 ikastaro bateko ikasgaien edo azterketa baten gai ordenatuen adierazpena; ikastaro baten erakusten diren eta azterketa batean eskatzen diren gai ordenatuen multzoa.

Euskara ere ematen ziguten ikasgai gisa, ez dakit askorik ikasiko genuen baina, ez **programarik** ez antzekorik egonda. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Irakurketa behartu akademikoak zatika hautatuak ziren; antologietan-eta zeudenak; **programa** bat bete beharrez gidatuak. **Anjel Lertxundi**  
Beharko **programa** osoa landu, ikastaroaren amaieran Selektibitate gainditu beharra zegoen eta. **Joxerra Garzia**  
Hezkuntzak unibertsala behar duela dio, baina, jakina, ezin du ikusezina zaion hori -euskal hizkuntza eta kultura, bizimodua- **programan** sartu. **Bernardo Atxaga**  
Bere gaiaren **programa** klasean azaltzeko luzeegia zela-eta, Mitxelenaren lan mordoak irakurrarazi zigen. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
**Programa** akademikotik aske ibili zale, ikasleokin kolega gisa jokatzeko gustatzen zitzaion. **Anjel Lertxundi**  
Ikasturte osorako **programa** estandarra prestatzen dute. **Berria - Euskal Herria**  
Badira eskolan gaizki dabilzantentzat **programa** bereziak. **Berria - Euskal Herria**  
Pskikologian, adibidez, konduktismoak bat egiten du, oro har, Positibista Logikoen **programarekin**. **Askoren artean**

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi liburu horiek Euskal Filologia ikasketen **programa** ardatz bikain lirarteke. **Lourdes Oñederra**

### 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hezkuntza Sailak ezarritako kalitate **programa** betetzen ari diren zentroetakoak «oso gustura» daude. **Berria - Euskal Herria**

Ikaskuntza **programa** bat Frantziatik pagatua. **Menane Oxandabaratx**  
Zein diren unibertsitate hobereak ikasketak jakin batzuetan, edo ikerketa mota batean, edo doktorego **programa** batean, etab. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 8 emanaldi, zeremonia edo kidekoetako egitaraua edo egitarauaren zatia.

**Programa** entzuten ari nintzen, nola hala, eta norbait ari zen giza Existentziaz hitz egiten. **Oskar Arana**

Chavezen irratiko **programara** joan nintzenezan. **Pako Aristi**

Etxeoandreak, telebista ikusten ari zelarik, nire izena ikusi omen zuen ez dakit zein **programatako** kreditu-tituluetan. **Anjel Lertxundi**

Telebistakoak gustura nonbait nirekin, eta beste **programa** baterako kontratatu ninduten. **Anjel Lertxundi**

Hilean **programa** bat egiteko konpromisoa sinatua neukan telebistarekin. **Joxerra Garzia**

Joan den astelehenean abiatu ditu **programa** berriak *France Bleu Urdin* irratian. **Herria**

Espainiako telebista kate pribatu bateko **programa** ospetsu batean barrabarra egin zen "Cacao Maravillao" izeneko txokolate baten promozioa. **Iñaki Heras**

**Programan**: King Mafrundi, Skunk eta Speizurdiak... **Daniel Landart**

Telebista piztu nuen, baina ez zegoen gauza entretenigarririk ikusteko, ordaintzekoa zen **programa** pornografiko baten iragarkia izan ezik. **Ramon Saizarbitoria**

Arratsaldeko 18:00etan errepikatzen dute berriro **programa** osoa. **Pako Aristi**

**Programan** jarrita zaude. **Bernardo Atxaga**

## 9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azkona Estudioiko **programa** -arduraduna zen Koldo, eta oso gutxitan kontaktzen zuen nirekin. **Anjel Lertxundi**

Mauka bat, **programa** -zuzendariaren hitzetan. **Anjel Lertxundi**

Hanka batez **programa** -aretoko ateari bultza egin, eta erredakzioan sartu ginen. **Anjel Lertxundi**

## 10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irratia piztu, musika **programa** bat bilatu eta eserlekuan jarri zen egunkariekin. **Joxemari Iturralde**

*Hitzetik Hortzera* bertso **programa** zuzendu eta aurkeztu. **Joxerra Garzia**

Bertso **programa** zuzenean etenarazi zuen gauean bertan. **Joxerra Garzia**

Tertuliaren osteko kirol **programa** hasia zen. **Unai Iturriaga**

Chavezek irratia **programa** amaitu zain daudenetako batzuek. **Pako Aristi**

Garai bateko telebista **programa** jasanezin hartakoak ematen zenuten. **Jokin Muñoz**

Urteroko abonu-**programarekin** batean esku-paper bat eman ohi digute Euskadiko Orkestrakoek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zarauzko Euskal Jaien esku-**programa**, 1925. **Xabier Etxabe**

Esku-**programak** dioenez, giza ahotsaren antzeko tesitura omen du biolontxeloak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 11 konputagailu bati edo makina automatiko bati kalkukuak egiteko edo eginkizunak betetzeko ematen zaizkion agindu kodetuen multzoa.

Ordenagailuko **programa** bat bezalakoa, behin betiko konfiguratu dezakezun horietakoa. **Karlos Zabala**

Ordenadoreko **programa** automatiko bat, duela bost urte EEBBetan erosia. **Javi Cillero**

**Programa** informatikoen, 800 konputagailu erabiliz, elkartzen dituzte ondoren zatiki guztiak modu automatiko batean muturrak bat egiten duten bakoitzean. **Pello Salaburu**

Konputagailu eta **programa** konplexuak erabiliz 25.498 gene aurkitu dituzte landare honetan. **Pello Salaburu**

Habe erakundeak eskainitako Hezinet **programa** informatikoa eta bertzeleko **programa** didaktikoak. **Herria**

Microsoftek ez du nahi formatu hori irakurtzeko gai den **programa** liberik, eta edozer egingo du hori eragozteko. **Berria - Gaiak**

Ertzaintzak hamar lagun auzipetu ditu, ustez **programa** piratak saltzeagatik. **Berria - Euskal Herria**

## 12 (hitz elkartuetan)

Bizitza..., bizitza ordenagailu-**programa** bat baino ez zen. **Antton Olano**

## 13 irud/hed

Azkenik, azpimarratu nahi dute genotipoaren eta fenotipoaren arteko erlazioa ez dagoela **programa** batek determinaturik. **Askoren artean**

Nolatan ez ziren gai izan semearentzat hilezkortasun **programa** genetiko bat ordaintzeko. **Iban Zaldua**

## 14 azpi-programa ik azpi.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aberasteko programa (9); aurre egiteko programa (4); bere programa nuklearra (7); bertso programa (4); doktorego programa (6)

egitarau edo programa (5); egiteko programa (11); ekintza programa (6); errehabilitazio programa (4); euskalduntzeko programa (4); gobernu programa (5); gure programa (11); hauteskunde programa (23); hezkuntza programa (6)

ikerketa programa (8); iranen programa (15); iranen programa nuklearra (6); iranen programa nuklearraren (4); irango programa (23); irango programa nuklearraren (10); izeneko programa (10); media player programa (4); nazioarteko programa (5)

ordenagailu programa (4)

programa aberatsa (4); programa abian jarri (4); programa abiatu (4); programa arduradunak (7); programa aurkeztu (16); programa aurkeztu zuen (8); programa berezi (6); programa berezi bat (5); programa bereziak (12); programa berri (10); programa berri bat (4); programa berria (4); programa berriak (7)

programa informatiko (4); programa informatikoen (4); programa izan (4); programa jarri (10); programa nuklear (7); programa nuklearra (65); programa nuklearrak (20); programa nuklearrarekin (6); programa nuklearraren (30); programa nuklearraren auzia (7); programa nuklearraren inguruan (4); programa nuklearrari (14); programa nuklearrari buruz (4); programa nuklearrari buruzko (5); programa nuklearrak (5); programa nuklearren (4)

programa osoa (6); programa pilotua (5); programa politikoa (6); programa politikoa (10); programa prestatu (5); programa prestatu du (4); programa sortu (5); programa sozialak (5)

programa zabala (5)

teheranen programa (9); teheranen programa nuklearra (4); telebista programa (10); telebistako programa (12); uranioa aberasteko programa (8); zuzendutako programa (4)

beren programak (5); elikagai programak (7); elikagaien munduko programak (6); elikagaien programak (4); euren programak (6); garapenerako programak (5); hauteskunde programak (5); hezkuntza programak (4); izeneko programak (4); munduko elikagai programak (6); munduko elikagaien programak (4); munduko programak (7)

saihesteko programak (4); segurtasun programak (4)

errehabilitazio programako (11); hies programako (4); programako arduraduna (4)

gobernu programan (4); gure programan (5); hauteskunde programan (10); programan parte hartzen (4); programan sartu (7)

bere programaren (8); elikagai programaren (6); hauteskunde programaren (8); irale programaren (5); munduko elikagai programaren (4)

programaren arabera (8); programaren ardatz (4); programaren arduradunek (4); programaren barnean (8); programaren barruan (25); programaren berri (6); programaren bidez (6); programaren bitartez (4); programaren helburua (4); programaren ildo nagusiak (5); programaren inguruan (4); programaren inguruko (4); programaren oinarria (4); programaren xedea (5)

programari buruz (4); programari esker (7)

programatik kanpo (4)

programei esker (4)

programen bidez (7)

# programaketa (12 agerraldi, 2 liburu eta 10 artikulutan) 1 iz programatzearen ondorioa. ik programazio.

Zenbait urtetarako **programaketa** osatuko dugu eta gelak irekitzeko beharren karta finkatu. [Berria - Euskal Herria](#)

Guk erabakitzen ditugu urteko **programaketa** eta lan ildoak. [Berria - Euskal Herria](#)

**Programaketa** berriak nahi ditu atxiki usaiako entzuleak eta ideki gazte munduari. [Herria](#)

Kontzertazio horretatik aterako da urte zenbaitetarako **programaketa** bat. [Herria](#)

«**Programaketarik** eta xederik gabe ekin beharko diogu, eta badakigu zer gertatzen den halakoetan», azaldu zuen Max Brisson Hautetsien Kontseiluko Kultura arduradunak. [Berria - Euskal Herria](#)

Beren gorabeherak badituzte museoko **programaketaren** gainetik baina beti badira holakoak. [Herria](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

-Amodioa egitea ez da mugimendu **programaketa** bat. [Iñaki Zabaleta](#)

Helburua du tokiko informazioaren zabaltzea, bai-eta ere kultur ekitaldi, hezkuntza **programaketa** eta ahusagailuen berri emaita. [Herria](#)

## programakide izond/iz programa berean parte hartu duen pertsona.

Nola ahaztu nire **programakideen** paradero beltza? [Karlos Linazasoro](#)

## programatiko izond programarena, programari dagokiona.

Apatutako mundu mailako goi bilerak hainbat printzipio **programatiko** edo tipo ideal finkatuz joan dira. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Urte honetakoa, 1997koa urriaren 21ekoa, da Kataluniako eta EAeko PPK Bilbon biltzean egindako barne dokumentu **programatiko** bateratu sonatu hura. [Berria - Euskal Herria](#)

Gehiago berriak erdietsi nahi baditugu Herriko Etxe handietan, ezinbestekoa da abertzaleek koalizio politikoak eta akordio **programatikoak** egitea, hainbat tokitan Herriko Etxeak kudeatzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundera begira, «aukera elektoralek eta **programatiko** propioa» aurkezteari lehentasuna ematea erabaki zuten Aralarreko biltzarkideek. [Berria - Euskal Herria](#)

Duina Gazte Koordinadoraren taula **programatikoaren** berri eman zuten gazteek bilera hartan. [Berria - Euskal Herria](#)

Lehen galderak tankera **programatikokoak** dira: nola ulertu behar dugu zientzia? teorien genesian egon diren faktore sozialetatik abiatuz ulertu behar dugu zientzia? [...]. [Askoren artean](#)

Orain fase **programatikoan** gaude, baina gero hori guztia gauzatu egin behar da. [Berria - Euskal Herria](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**elektoral eta programatiko** (3)

## programatikoki adlag era programatikoan.

Obraren hasieran bertan (I. liburuen lehenengo kapituluak) geratzen da, **programatikoki**, ezarrita arkitektoa praktika hutseko munduaren gainetik -baina ez ertzean- geratzen den intelektual gisa hartu behar dueneko ideia. [Santiago Iruretagoiena](#)

## programatu, programa(tu), programatzen 1 du ad jarduera edo kideko zerbaiten programa gauzatu; programa baten arabera antolatu.

Ebakuntza-eguna du Bennettek ostirala, eta mastektomia bat zeukan **programatuta**. [Xabier Olarra](#)

Eguerdian Chopin-en sortetxea-edo bisitatzea dago **programaturik**. [Edorta Jimenez](#)

Ez al ditugu den-denok eguneko gauza guztiak **programatzen**? [Luis Elberdin](#)

Oporrak ez al ditugu **programatzen**? [Luis Elberdin](#)

Zenbaitetik ez dute ezta entzun ere egin nahi harreman sexualak **programatu** egin daitezkeela, elkartzeko sexualen errotua eta unea aurrez presta daitezkeela. [Luis Elberdin](#)

Entrenamenduak **programatu** eta dieta egokia jarri. [Xabier Etxabe](#)

Gero eta zinema gutxiago **programatzen** denez banatzaile independenteek arazoak dituztelako. [Berria - Kultura](#)

Oroitaraz genezake Gieure Baionako apezpiku gaskoinak erabaki bat hartu zuela, 1925ean, elizbarrutiko ikastegi guztietan euskal (edo gaskoin) irakaskuntza **programa** zedin Euskal Herrian. [Piarres Xarriton](#)

Elkarrizketa hura alde zurretik **programatua** zegoen arren, [...]. [Joan Mari Irigoien](#)

## 2 programa informatikoak egin edo aplikatu.

1980an, Estatu Batuetako Defentsa sailak **programatzeko** hizkuntza berezi bat asmatu zuen eta, haren ohorez, ADA deitu zion. [Pello Salaburu](#)

Eta Software bat **programatu** du pertsonen mugimenduak artikulatzeko. [Berria - Kultura](#)

## 3 makina edo kideko bati aginduak eman, bere egitekoa automatikoki egin dezan.

Argia itzali eta telebista **programatzen** dut ordu erdi barru berez deskonekta dadin. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Jakiak berotu edo egosi ahal izango dira bertan, aparatuak **programatzeko** aukera emango duelako. [Edorta Agirre](#)

Betekizun orokorretarako eginak daude dastamen-zelula guztiak, eta nerbioak emandako instrukzioen bidez **programatzen** da erantzun espezializatua. [Irene Aldasoro](#)

Immunitate sistema **programatu** daiteke, transplantatutako ehunak atzera bota ez ditzan. [Berria - Gaiak](#)

Ziur asko, horri dagokion informazioa zelula bakoitzak darama bere baitan eta zelulen jokaera genetikoki **programatuak** determinatzen du zelulaz gaindiko antolaera. [Juan Garzia](#)

Nire gorputz osoa pertsona hura bakarrik detektatzeko **programatuta** egongo balitz bezala. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Bikotekidea aldatzeak mesede handia egiten dio arrari, horretarako **programatua** dago. [Karlos Zabala](#)

Alemaniko zientifiko batzuek muinean iratzer ordua **programa** zitekeela ongi frogatu zuten. [Itxaro Borda](#)

Hitz batean, errudun sentitzeko **programatuta** gaude. [Luis Elberdin](#)

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Irri **programatu** eta estrategikoa aberrazioa baita beti nire ustez. [Pello Lizarralde](#)

Herriko Etxeek ordenadore hotz dirudite, eta herritarrek arima **programatu**. [Patziku Perurena](#)

## programatzaile 1 iz programatzen duen pertsona.

Donostiako Antzerki Feriarekin batera, atzerriko **programatzaileek** geurean egiten dena ezagutzeko ezinbesteko leihoa da. [Berria - Kultura](#)

Gehiago eman nahiko nitzuke, baina ez dago zirkuiturik, eta **programatzaileek** ez dute bertako taldeak kontratatuzko konpromisorik. [Berria - Kultura](#)

Kontzertu **programatzaileei** ehunka maketa iristen zaizkie eta gehienak zakarretara botatzen dituzte. **Berria - Kultura**  
Badaude informatikari eta **programatzaile** peto-petoak, eta badira kazetari eta dokumentalistak ere. **Berria - Euskal Herria**  
Kontent-kontent bizi da azpi-programa hori asmatu duen **programatzailea**. **Karlos Zabala**  
CVS sistemaren bidez, **programatzaileek** aplikazio baten bertsioak hobetu ditzakete. **Berria - Euskal Herria**  
Nekez bihur daiteke egun batetik bestera bitzta osoan tornulari izan den langilea ordenagailu **programatzaile**. **Iñaki Heras**

## • 2 izond programatzen duena.

Esan daiteke bera dela lehenbiziko andre **programatzailea**, berak zekielako makinari nola sartu datuak makinak bere lana egin zezan. **Pello Salaburu**

## • 3 iz programa bat automatikoki exekutatzeko duen tresna.

Ettxeko argia pizten duten **programatzaileak**, eta telebista edo musika pizten dutenak badaude. **Berria - Harian**

# programazio *(249 agerraldi, 16 liburu eta 155 artikulutan; orobat programazione g.er.)* 1 iz programatzea; programatzearen ondorioa. ik programaketa.

Ikasturtearen **programazioa** prest dugu, dena prest dago umeekin lanean hasteko», azpimarratu zuen LABeko Marisa Diaz de Arkaiki. **Berria - Euskal Herria**

Nazio eraikuntzaren aldarrikapen eta ekimenak bilduz, ordenatuz eta koordinatuz osatuko da nazio eraikuntzaren **programazioa**. **Berria - Euskal Herria**

Lanabes pedagogikoen **programazioa**, sentsibilizazio kanpainak eta familien eskaria biltzea. **Berria - Euskal Herria**

Hizkuntza **Programazio**, Ikerketa eta Garapenerako Zerbitzuak. **Berria - Euskal Herria**

Nazio Garapenerako Biltzarrek lau zutabe nagusi ditu lanerako: Nazio **Programazioa**, Nazio Erakundetzea, Gogoetarako Sarea eta Larrialdietarako Batzordea. **Berria - Euskal Herria**

Hizkuntza Garapen, **Programazio** eta Ikerketarako arduradun. **Berria - Euskal Herria**

Lanbide Heziketa osatzen duten heziketa zikloetarako erabiltzen diren **programazioak** eta haietan erabiltzen diren ekipamenduak ikusi, aztertu eta probatu ahal izango dira. **Berria - Euskal Herria**

Finantza **Programazioa** eta Aurrekontuak: Dalia Grybauskaitė, Lituania. **Berria - Mundua**

## 2 irratiz, telebistaz edo zinema, jaialdi eta kidekoetan ematen den programa-saila.

Hainbat programa berri txertatu ziren orduko **programazio** ihartu haietan. **Txema Ramirez de la Piscina**

Telebistak ohiko **programazioa** eten eta atentatu baten berri eman zuen. **Anjel Lertxundi**

Erresumako telebistek, jakina, debekatu egin zuten erreportajearen emisioa, baina atzerrian lortzen ari zen arrakastaz jabetuta, kate autonomiko batzuk, lehenengo, eta pribatu bat, geroago, beren **programazioetan** sartzen ausartu ziren, bertsio laburtuan besterik ez bazen ere. **Iban Zaldúa**

Zinemaldiaren **programazioa** hurrengo egunean, maiatzaren 8an, bukatuko da. **Berria - Kultura**

Ez dugu ibili beharrik teleikusleen merkatu antzu horretan nor baino nor gehiago, nahi eta ezin, iragarki eta lehiaketa arruntez bete nahian **programazioa**. **Pello Salaburu**

Bartzelonako Primavera Sound jaialdiko **programazioa**. **Berria - Kultura**

**Programazio** bat kudeatzea esperientzia bakana da. **Berria - Kultura**

ETBn kultura hedatzeko **programazioa** bultzatzea. **Berria - Kultura**

Zorionak eman zizkien **programazioaren** antolatzaileei, «ikusizunaren kalitateagatik». **Berria - Kultura**

Zinema emanaldien agendan Donibane Garazi, Donapaleu eta Mauleko aretoetako **programazioen** berri ere ematen zela. **Juan Luis Zabala**

Lehenbiziko bi obrak neguko **programazioaren** parte dira. **Berria - Kultura**

Zer sailetan paratu haute orain, telebistetako **programazioan** ala nekrologiketan? **Aingeru Epaltza**

## 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Orain gutxi bukatuiko urtean arte garaikideko Bilboko pinakotekak aurkezturiko **programazio** artistikoak izan du eraginik urtearen martxa oanean. **Berria - Kultura**

Arriaga antzokiak antzerkia eta dantzari buruzko **programazio** zabala aurkeztu du Auzoko Txarteldegirako. **Berria - Kultura**

«**Programazio** orekatua izango dugu, eskultura, pintura, marrazkia eta ikus-entzunezkoak aintzat hartuko baititugu», adierazi du Guggenheimeko zuzendariak. **Berria - Kultura**

Ez da bakarrik **programazio** egonkorra lortzea, gure herrietako jendeari horrelako musika eskaintzeko aukera on bat ere bada. **Berria - Kultura**

Dekretuaren zirraborroak dio udalek kudeatutako kateetan euskarazko **programazioek** gutxienez erdia hartu beharko dutela. **Berria - Harian**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ignazio Aranaz **programazio** arduradunak 12 ikuskizun antolatu dituztela aurreratu du. **Berria - Kultura**

Seaskako lehenakari izan eta dantza jaialdiaren **programazio** arduradun izatera pasatu zara. **Berria - Kultura**

Maitaldiko **programazio** lana hemendik aitzina Filgi Claveriek du hartuko bere gain. antzokien arteko **programazio** sarea hobetzeko bulego bat. **Berria - Kultura**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauetako telebista **programazioa** eguneko bezain txarra da, eta laster amaitu zen irakurri gura nituen liburuen zerrenda. **Iban Zaldúa**

Badira bideo **programazioak** antolatu dituztenak ere, eta aukera ona da azken garaian egindako bideo lanak ikusteko. **Berria - Kultura**

Normalean dantza **programazioa** ez duten herrietan jasotzen dituzte Escenako ikuskizunak. **Berria - Kultura**

Jazz **programazioa** udako hiru astetan pilotzen da eta neguan ez da ezer egoten. **Berria - Kultura**

Erakusketa **programazioa** osatzeko. **Berria - Kultura**

## 6 ordenadore edo kideko bat programatzea; egintza horren ondorioa.

Ikastaroetan XML multimedia dokumentuak egiteko erremintak, SOAP Internetarako aplikazioa eta CVS **programazioarako** teknologiak landu zituzten, besteak beste. **Berria - Euskal Herria**

Robotari jaso duen **programazioaren** arabera agindua ematen dio. **Berria - Gaiak**

Garbigailuaren **programazioaren** tankera duen amodiozko egunkari bitxi batekin hasten da Euskal Idazleen Elkartearen Hegats aldizkariaren 36. alea. **Berria - Kultura**

Lortu dute gorputza lehen baino askoz urte gehiago bizitzea, baina urte gutxiagorako prestaturik dagoen buruaren **programazioa** ez dute aldatu. **Pako Aristi**

Internet eta **programazioari** buruz gehiago ikastea izan da ikastaro hauetako helburua. **Berria - Euskal Herria**

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mintzamenarekin -eta hitzean oinarritutako pentsamendu mota ugarien **programazio** instrukzioekin- zerikusia duten oroimen-arrastoak ezkerreko hemisferioan kontzentratzen dira. **Irene Aldasoro**

Iturburu-kodea **programazio** hizkuntza batean idatziriko testu bat da, gizakiek irakurtzeko modukoa, eta ordenagailu batek egikaritzeko. **Berria - Gaiak**

**Programazio** - eta kontrol-lanetarako bi garunak banatu behar izanda ere, bien artean nolabaiteko komunikazioa izatea komeni da. **Irene Aldasoro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskarazko programazioa (7); nazio programazioa (11); nazio programazioa bideratzeko (3); programazioa bideratzeko (3); programazioa eta (3); programazioa eten (3); programazioa osatzen (3)

euskarazko programazioa (7); nazio programazioa (11); nazio programazioa bideratzeko (3); programazioa eten (3); programazioa osatzen (3)

programaziotik kanpo (3)



# programazio burua (orobat programazio buru) iz programazioren baten pertsona.

Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiko **programazioburua** izan zen 90eko hamarkadaren hasieran, eta egun Euskara Kultur Elkargoko lehendakaria da. **Berria - Euskal Herria**

Garai hartan ETBko **programazio buru** zen APren agindua izan zen hura. **Joxerra Garzia**

Hurrengo astelehenean, bere bulegora hots egin zidan **programazio buruak**. **Joxerra Garzia**

## programazione ik programazio.

### progre 1 izond adkor exkerrekoa, progresista.

Jende pila bat hemen horrelaxe ibili baita denbora askoan, exker pinpirin, kristautasun **progre** baten eta estetizismo amoralaren artean dilindan. **Joxe Azurmendi**

Orduko [68ko] mobidaz galdetu geniola, bere pedigri **progre** zela-eta seguru asko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ba zen behin bikote **progre** bat. **Joxerra Garzia**

Mark eta Kate ezkonberriak ziren, porroak erretzen zituzten eta aurrerakoi-**progre** horietakoak ziren. **Karlos Zabala**

1960ko hamarkadako moralista **progre** batek zioen ez geniola inolako beldurrik izan behar neska eta mutil gazteak elkarrekin egoteari, elkarrekin ikasteari eta elkarrekin hainbat bizipen izateari. **Luis Elberdin**

Euskal artista **progreen** katalogoak. **Hasier Etxeberria**

Hainbeste unibertitario kritiko eta **progre** dabilen Espainietan, arrazismo espainolak (Ortega, Sánchez Albornoz, etc.) ikerketatxoren bat ez ote du merezi? **Joxe Azurmendi**

Fraide eskuindarrek ezkertiar ateo bihurtu baldin baninduten, ez pentsa funtzionario ezkertiar **progre**-usteko haiek atzera ere eliza amaren magalera itzularazi nindutenik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 2 progrena, progreak joaten direna.

Tipo xeble hark Parisen izandako bizitza kontatu zion, nola erakusketa bat egin zuen taberna **progre** batean. **Unai Iturriaga**

### 3 (izen gisa)

Oraingo **"progreak"** gehien-gehienbat kontserbakoi horiengan inspiratzen dira. **Joxe Azurmendi**

Gizarte eta giza zientzietan (edo dena delako arlo horretan) murgiltzen diren **progreen**, modernoen, post-modernoen eta gainerako jendilajearen hitzontzikeria agerian utzi behar da. **Berria - Harian**

### 4 (hitz elkartuetan)

Besteak bezalakoak ginela, **progre** itxurak eginda ere kontsumo-gizartearen morroi. **Jon Alonso**

## progresatu, progresa, progresatzen du ad aurrera egin.

Ikusten dut mundua, mila logos berri ergel sortuz **progresatzen** doala, eta gure herrixka euskaldun miserable hau ere horren inbidiaz galtzera doala, eta min dut bihotzondoko zaineraraino, eta lurrrak urritzen ari zaizkit mina enterratzeko. **Patziku Perurena**

## progresia iz adkor exkerrekoen multzoa.

Madriren **progresia** sozialista liluratuaren faro argitsua da, edo izana da oraintsu arte. **Joxe Azurmendi**

Asaldagarria da nolabait, Horkheimer eta Adornoren despit modernaren mitoak nola arrakalarik txikiena gabe dirauen Euskal Herriko **progresian**. **Joxe Azurmendi**

Beldur naiz "arrazismo xuri" hau franko zabaldua dagoela hemengo demokraten artean; are, **progresia** berrienaren ezaugarria edo esijentzia bihurtzen ari dela, ematen du. **Joxe Azurmendi**

## progresibitate iz progresiboa denaren nolakotasuna.

Euskararen presentzia bermatzeko, **progresibitatea** erabili da. **Berria - Euskal Herria**

## progresibo 1 izond mailaz maila egiten duena aurrera.

Gainazal batek bere kurbaturaren eraginez izaten duen argiztapen-aldiera **progresiboa**. **Josu Zabaleta**

Ingurumenaren hondatze **progresiboa** galarazteko. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Zahartzearen hondatze **progresiboaren** aztarnak modu naturalean, espanturik gabe ageri dira hemen. **Unai Elorriaga**

Lurreko azaleraren bukgarritasun gaindiezinak muga bat jartzen dio gizakiaren jaki-horniduraren hazkunde **progresiboari**. **Iñaki Mendiguren**

Garapenak ekonomiaren eta gizartearen eraldaketa **progresibo** bat dakar berekin. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Hitzak modu **progresibo** batean gehitzearen edo kentzearen ondorioz, esaldi baten garapena atzeman daiteke. **Iñaki Arranz**

Desmilitarizazioak aldebikoa eta **progresiboa** izan behar du? **Berria - Harian**

### 2 aurrera egiten duena.

Euskal gizarte **progresibo** baten zerbitzurako aukeratutako "korapilo puntu" edo botere kontzentrazio partzial batzuen inguruko formazioetan. **Joseba Zulaika**

### 3 zergez mintzatuz, errenta altuak areago zergapetzen dituen.

Beste saikapen baten arabera, zerga **progresiboak** (sarreraren arabera tasa aldakorrik dituztenak) eta erregresiboak (tasa bakarrekoak) bereizten dira. **Iñaki Heras**

Zerga sistema **progresiboa** ezarri baino lehenagoko egoerara. **Iñaki Heras**

### 4 rock eta kideko musika estiloez mintzatuz, haien eraberritzea bultzatzen duena.

Disko musikaren eta rock **progresiboaren** erregelariaren aurkako erreakzio gisa sortu zen *The Ramones*. **Berria - Kultura**

Garai hartan rock **progresiboa** delakoan murgilduta baikuendun. **Mikel Hernandez Abaitua**

Techno mota ugari nahastu ditu, betiere, techno **progresiboa** eginez. **Berria - Kultura**

1966tik 1971rako tartean, gainera, eragin handia izan zuen folk **progresiboa** lantzen zuten talde gazteengan. **Berria - Kultura**

Metal melodikoa egin dute, indartsua, baina zaindua, eta, era berean, **progresiboa**, horregatik dira kantu gehienak hain luzeak. **Berria - Kultura**

## progresiboki adlag era progresiboan.

Plastikaren azterkizuna ez baita, izan ere, elementu diskretuz, etenez eratzen diren sistemak, *continuum* bat baizik, **progresiboki**, gradualki aldatuz doazen elementuak baizik. Gauzak **progresiboki** gertatzen joan ziren, monotonia itsuan, poliki-poliki, gradazio logiko baten barnean. **Josu Zabaleta**



Haurrak espazioa **progresiboki** ezagutzera zuzen Wallonek, eta ikuspegi global, "perspektibagarrri" bat izan aurretik, hurbileko azutasunezko erlazio gisa ezagutzen duela. Josu Zabaleta

Irango jendeak eskatzen dituen aldaketak poliki, leunki eta **progresiboki** gauzatzeko formula aurkitzeko. Berria - Mundua

Alozoko ikastola lehen mailako eskola bat da eta imertsioaren bidez euskaraz ikasten da; frantsesa aldez, CE1-etik harat **progresiboki** ikasten da. Herria

## progresibotasun iz progresiboa denaren nolakotasuna.

Topaguneak ez du **progresibotasunaren** kontu horrekin bat egiten: «gutxieneoak betetzeko hamar urteko epea emateko arrazoiak ez ditugu ulertzen». Berria - Harian

Guztiek eskatu dute xedapen gehigarrian euskararen presentzia ezartzeko arautzen den **progresibotasuna** kentzeko. Berria - Harian

**Progresibotasuna** ez da beti erabili euskararen alde. Berria - Harian

## progresio 1 iz aurrera egitea.

Mailaz maila, hitzetik hitzera egiten dugu salto, norabide jakineko **progresio** baten barruan. Iñaki Arranz

Birusen eta gaixoaren elkarrekintzak eta gaixotasunaren **progresioa** auresatea oso zaila da giza gaixotasun infekziosoetan. Berria - Gaiak

Normalena litzateke bere neurologoarekin hitz egitea gaixotasunaren **progresioari** buruz eta erabakitzea ze momentutan ez duen beste tratamendurik hartu nahi. Berria - Harian

Inork ezin du bidean geratu edo astiroago joan, denak doaz abiadura berdinean, denak **progresio** berean mugitzen dira. Imanol Unzurrunzaga

Gertatzen dena da, **progresioa** egiteko arraunlari onak behar dituzula, eta gu mugatuta gaude. Berria - Kirola

Jokalaria Osasunan ikusten jarraitzea ederra litzateke, baina **progresio** honekin jarraitzen badu, zaila izango da. Berria - Kirola

Geroago eta beranduago ailegatzeko ene **progresioa** goraiatu zuen. Joseba Sarrionandia

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Emanaldiaren luzera laburtuko nuke, **progresio** dramatiko baten ezean ikuslea nekatu daitekeelako esketx segida luzea ikustean. Berria - Kultura

Taldeek maila artistikoan gorako **progresioa** egin dute, baina antolaketa honekin aseturik, lokartu ere egin dira. Berria - Kultura

Herria lehiaketarengandik alderantzizko **progresioan** aldendu ez ote den ikusi beharko litzateke. Berria - Kultura

### 3 segida baten arabera aurrera egitea.

Gizakiok ez gaude, ez fisikoki ez psikikoki ez espirituali, **progresio** aritmetikoaren baitan bizitzeko prestatuak, gure mugak aski apalak dira. Karlos Linazasoro

Haren ustez, biztanleak **progresio** geometrikoan biderkatzen dira munduan, baina janariak ekoizteko gaitasuna **progresio** aritmetikoan bakarrik. Pello Salaburu

Hemen helburua ez da ahalik eta hitz gehien zerrendatzea, urratsez urratseko **progresio** bat agerian uztea baizik. Iñaki Arranz

Dolar korranteetan, **progresioa** urteko %22 da 1985ez gero, alegia, mundu-merkataritzaren hazkunde-indizea halako bi. Koro Navarro

Hona hemen udatiaren **progresioari** buruzko kopuruak, adibide modura: [...]. Askoren artean

## progresismo iz higikunde progresista.

Razionalismo eta **progresismo** burgesen etsaia, sozialismo eta anarkismo tankerako demokratismo erradikal eta kolektibismoen arerioa orobat. Joxe Azurmendi

Irtenbiderik erosoena Euskadiko Ezkerakoa egitea zen: abertzale *ma non troppo*, ezkerrekoa baina gehiegikeriarik gabe [...], beti eta nonahi ongi ikusiak, **progresismoaren** bandera egoki guztien eramaile. Xabier Mendiguren Elizegi

"Edo dena aldatu edo ezin da ezer aldatu" lemapean, garbikeriaz, maximalismoaz eta topikoz blai dirauen balizko **progresismo** anjelikal ezaguna. Iñaki Heras

Islamdarrak gainerako ikasleengandik apartatzeko iniziatiban, debatea da ez al gauden **progresismo** faltuen izenean makilatu nahi den arrazakeria baten aurrean. Anjel Lertxundi

## progresista 1 izond aurrerabide politiko eta sozialaren aldekoa dena.

Politika aldetik doktrina hau planteamendu **progresistekin** lotu izan da, hau da, konpromiso soziala azpimarratzen dutenekin. Iñaki Heras

Iraultzaren gutxienez bi kontzeptu dagoela, ezkerrekoa eta eskuinekoa, edo iraultzaren eredu **progresista** deritzona eta kontserbakoa. Joxe Azurmendi

Horrek onesten duena, *Volkgeist* **progresista** da, irekia, harremanzalea beste nazioekin, ez kastizista, bere baitan itxi, agresiboa nazio auzoekin. Joxe Azurmendi

Nik uste denak zirela Euskadiko Ezkerra ingurukoak, ia ezinbestean, beren kristautasun **progresistaren** ondorio bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskema ustez **progresista** askoren atzean ez da zaila bizitzari buruzko ikuspegi jansenista aurkitzea gaur ere. Anjel Lertxundi

Oso postura **progresistak** hartzen dituela politikan. Bernardo Atxaga

Prest nengoen azkenik irakaskuntza moderno, demokratiko, misto eta **progresistaren** gozoa dastatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Indar **progresista** eta euskaltzaleak batzea. Berria - Euskal Herria

Botere Judizialeko Kontseiluko Nagusiko gutxiengo **progresistako** gainerako kideekin batera. Berria - Euskal Herria

Paul Murphyk Sinn Feini eta Alderdi Unionista **Progresistari** (PUP) diru laguntzak kentzeko asmoa agertu zuen atzo. Berria - Mundua

### 2 (pertsonez)

Argitatekoa ez da batere sektarioa, orduko kulturaren ispilu baizik: anitza, zientzia berriei irekia, katoliko **progresistei** aterik ixten ez diena, liburu. Anjel Lertxundi

Irakasle **progresista** batek ez dituela ikasliburuak erabiltzen. Berria - Euskal Herria

Gure irakasle guztiak laikoak ziren, oso-oso laikoak; ezkertiarrik eta **progresistak**, oso **progresistak** beraien ustetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Savater eta Jon Juaristi bezalako gizon dotore, demokrata eta **progresistaz** osatutako epaimahai batek. Hasier Etxeberria

### 3 iz pertsona progresista.

Alderdi politikoen akordioa igurikatu gabe oinarritik kantonamenduka abertzaleen eta **progresisten** plataformen alde azaldu gara. Berria - Euskal Herria

Haserre hori «abertzaleen eta **progresisten**» artean ere sumatu dute. Berria - Euskal Herria

Ratzinger eta **progresisten** blokeko buru Martini kardinalaren arteko lehia izatea espero da. Berria - Harian

Haserre hori «abertzaleen eta **progresisten**» artean ere sumatu dute. Berria - Euskal Herria

## progreso (orobat progresu g.er.) 1 iz aurrerapena.

Idealismoa amets eta elizkeriekin identifikatzen da, positibismoa zientzia eta **progresoarekin**. Joxe Azurmendi

«Bakea, egonkortasuna eta **progresoa**» hedatzeko. Berria - Euskal Herria

Herder-ek ez du **progresoa** ukatzen, baina **progresoaren** ideia ez dago zergatik esplikatu derrigor eskala linealean. Joxe Azurmendi

**Progresoa** zeritson borrarren kolpez egin da Estatu modernoaren batasuna, hots, uniformitatea. Koldo Izagirre

**Progresoaren** hizkuntza Estatuaren hizkuntza bakarrik dela. Joxe Azurmendi

**Progreso** historikoaren buruan gizadiaren bategintzak itxaroten digu. Joxe Azurmendi

## 2 aurrerabidea.

Zientzien **progresoarekin** gizatasunaren eta askatasunaren **progreso** morala ia mekanikoa dela. **Joxe Azurmendi**

## progresu ik progreso.

## program ik pogrom.

## proiektagailu (14 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean) 1 iz irudiak pantaila batean proiektatzen dituen tresna. ik proiektore.

**Proiektagailu** baten fokua piztu zen, eta argiaren eztrandak oihala zuritu zuen. **Anjel Lertxundi**

Diapositiba hartu eta **proiektagailua** piztu zuen. **Joxemari Urteaga**

Transparentzien **proiektagailuaren** atzetik. **Jon Muñoz**

Keinu egin nion emakumeari **proiektagailua** gelditu eta atzera egin zezan. **Anjel Lertxundi**

Ilunpetan geratu ginen, jendea isiltzen joan zen, **proiektagailuak** argi egin zuen oihalean. **Anjel Lertxundi**

**Proiektagailuaren** salatzora igo zen salto txikiak emanez eskaileretan gora. **Anjel Lertxundi**

## 2 argi-proiektorea, argi-jaurtigailua.

Agertoki txiki-txiki batean zutik, **proiektagailu** ahulen argitan, emakume bat kantari. **Jon Muñoz**

## proiektatu, proiektu, proiektatzen 1 du ad filmen, diapositiben eta kidekoen irudi handiagotua pantaila batean eratu.

-Ez ditugu berriz **proiektatutako** pelikula horiek -agindu zidan. **Fernando Rey**

Pantaila txikiegia filmak **proiektatzeko**. **Imanol Zurutuza**

Segundoko 24 irudi **proiektatzean**. **Josu Zabaleta**

**Proiektatzen** diren irudien argitasunak ia segundo laurden bateko irudi-iraunkortasuna eragiten baitu. **Josu Zabaleta**

Hiru irudi "kolore-banatuak" lorturik, berak esaten zien bezala, irudi bakoitza zegokion filtroan barrera **proiektatuz** (filtro gorria erabiliz egindako argazkia argi gorritz **proiektatu** zuen, eta berdin besteak, zein bere kolorez) bata bestearen gainean jarri eta baturik pantailaratu zituen. **Xabier Olarra**

Max transparentziak **proiektatzeko** tresnaren atzean kokatzen zen bitartean, txanda hartu zion Ruche jaunak. **Jon Muñoz**

Erliebezko zinemaren printzipioa horixe bera dela: bi irudi **proiektatzen** dira pantailara -erretinetako bi proiektzioei dagozkienak-. **Josu Zabaleta**

Atzeko oihalararen atzean, gaizki konektatuta balego bezala-edo, argi berde bat piztuko da, eta Pertsonaien itzalak **proiektatuko** ditu, bakandurik eta handi. **Josu Zabaleta**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Irudi **proiektatua**, berriz, aldatzen zaila iruditzen zaigu, den bezala hartu edo uztekoa iruditzen zaigu. **Josu Zabaleta**

## 3 irud/hed

Eguzkiak harrizko erlojuan **proiektatzen** zuen marra ilunarekin, burdinazko ziria bitarteko. **Joan Mari Irigoien**

Atea Zabaldu duenean eguzki motel batek bete du ezkaratza eta zoruari bi itzal **proiektatu** dira. **Pello Lizarralde**

Ostatutik metro gutxira dagoenean ate nagusia ireki dute eta argizko lauki bat **proiektatu** da Lainezen oinen aurrean. **Pello Lizarralde**

## 4 zerbait beste zerbaiteira iritsarazi edo beste zerbaitean agerrarazi.

Ez ote duzu gaur egungo egoera hamaseigarren mendera nabarmenegi **proiektatu**? **Markos Zapiain**

Analisi historikoa, funtsean, garai desberdinetako eraketak plano bakar baten gainean **proiektatzean** datza. **Isabel Arrigain**

Askotan, irakasleek euren arazo pertsonalak **proiektatzen** zituzten ikasgelan. **Luis Elberdin**

Aitak bere gabeziak **proiektatzen** zituen nigan, nik hala uste. **Joan Mari Irigoien**

Hargatik esan nizkion hitz haiek Leireri, halaxe **proiektatzen** baititugu gurasook seme-alabengan geure goseak eta geure aseak. **Joan Mari Irigoien**

Haurrak gurasoak kanporantz **proiektatzen** ditu, naturaren indarrak pertsonifikatuz. **Markos Zapiain**

Haren esanetan, dibinitateak mundua sentitzeko **proiektatzen** duen organu bat da gizon bakoitza. **Juan Garzia**

Jatorriak bilatzea, aurrekarien lerroan barrera atzeraka jotzea mugapenik gabe, tradizioak suspertzea, kurba ebolutiboek jarraitzea, teleologiak **proiektatzea** eta bizitzaren metaforetara jotzea eten gabe. **Xabier Arregi**

Kontzeptu bat bestearen gainean **proiektatzea** ahalezkoa egin duten puntuak zehaztea, metodoak edo teknikak transferitzea baimendu duen isomorfismoa finkatzea. **Xabier Arregi**

-Ez naiz **proiektatzen** aurpegiarik gabeko etorkizun batera. **Josu Zabaleta**

## 5 jaurti.

-Zer paratzen diik hemen? -galdegina dio Joxek ia oihu batean burua mugitu gabe eta ahotsa kanposantu barrena **proiektatuz**. **Pello Lizarralde**

## 6 proiektua egin.

Handik gutxira, monje hargina itzuli, eta, berak **proiektaturiko** ateari zegokion tokian beste baten lana zegoela ikusita, ikaragarri haserretu omen zen. **Martin Anso**

Gaiaz luze eztabaidatu ondoren, azkenean, bi logela **proiektatu** zituzten, geroan munduratu egin zituzten bi seme-alabarentzat, hain zuzen. **Josetxo Azkona**

Hiribilduak, gainera, ez dira karratuak edota angelu itrenekin **proiektatu** behar baizik eta biribilean, etsaiek alde guztietatik ikusi ahal izateko moduan. **Santiago Iruretagoiena**

Bailaran **proiektatu** duten AHTren zatia ikus zitekeen han, muntaia bati esker. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irudi proiektatuak** (3)

**irudia proiektatzen** (3); **irudiak proiektatzen dira** (3)

## proiektatzaile iz filmak eta kidekoak proiektatzen dituen pertsona.

Apopilo hartzen gintuena zinema aretoko **proiektatzailea** zen. **Berria - Kultura**

Nik ez ulertuaren aurpegia jarriko nuen, Hermannek gaineratu baitzuen: joan zen igandetik bera duk pelikulen **proiektatzailea**. **Anjel Lertxundi**

## proiektazio iz diseinatzea eta kalkulatzea.

**Proiektazioak** eraikituzari irekitzen dio atea distributio-aren bitartez; kontzeptu horrek materialen eta eraikitze ahalmenean erabilera zuzena ukitzen du, ekonomi

## proiektibo *izond* proiektzioarena, proiektzioari dagokiona.

Azterketa etnografiko serioek (azken hamar-hogei urte hauetan, mende hasieran egiten zirenak bezain **proiektiboak** eta etnozentrakoak ez izaten saiatzen direnek) [...].

**Josu Zabaleta**

## proiektika *iz* proiektuen kudeaketa.

Helduden astean, ortzegunean Bidarteko teknogunean, eta ortziraletan Donostiako Miramar jauregian, muntatzen dituzte **proiektika** jardunaldiak, Topik izeneko ikerketa saila aurkeztuz. **Herria**

## proiektil (*Euskaltzaindiaren Hiztegian **jaurtigai** agertzen da*) *iz* jaurtigaia.

**Proiektila** lasterketaren erdian jausi zen, eta Cam nahiezik itzuli zen amagana, bidean hosto bat erazuitz. **Anton Garikano**

## proiektio *ik* proiektu.

## proiektore (**44** agerraldi, **17** liburu eta **5** artikulutan) **1** *iz* irudiak pantaila batean proiektatzeko dituen tresna. *ik* proiektagailu; foku.

Pantailaren luminantzia berebiziko eragina izango dute, aldiz, argi-iturriaren aldakuntzek; **proiektorea** lekuz aldatzeak, adibidez, zineman. **Josu Zabaleta**

Fotograma batetik bestera aldatzen den bitartean **proiektorearen** objektiboa gortina birakari batek estaltzen duelako. **Josu Zabaleta**

-Jar ezazu **proiektorea** mahai gainean -agindu zidan. **Fernando Rey**

Berak eragin zion diapositiben **proiektoreari**. **Jon Muñoz**

Maxek **proiektore** bat abiarazi, eta burrunbaka hasi zen motorra. **Jon Muñoz**

Botoi bat zanpatu eta **proiektorea** martxan jarri zen. **Fernando Rey**

Maxwellek ez bezala, zuri-beltzeko bi irudi bakarrik egin zituen [...] eta biak pantailan bata bestearen gainean ezarri zituen lente bikoitzeko **proiektore** batez. **Xabier Olarra**

Erritmo jakin batean aldatzen dira lau **proiektoretako** irudiak, kontrasteak sortuz. **Berria - Kultura**

### 2 (hitz elkartuetan)

Diapositiba **proiektore** bat, proiektatzen ari den bitartean, bera ere mugitzen baldin bada, hark proiektatutako irudia mugikorra izango da, baina ez du izango berezko mugimendurik. **Josu Zabaleta**

Film **proiektorean** pasatzen denean ikusten dugun irudi bera entzuten ari garen soinua sortzen ari dena da, eta, beraz, ikusten ari garena soinua da, eta irudia entzuten. **Berria - Kultura**

### 3 argi-proiektorea.

Horma nagusian, berriz, **proiektore** batek argituriko grabatu klasikoak, argi ia hezurkolore batez emanak. **Anjel Lertxundi**

Andre gaixoa izututa omen zegoen hiri gainetik igarotzen ziren ingeles hegazkinen kontra botatzen zituzten tiroengatik eta **proiektoreen** argi itsugarriengatik. **Josu Zabaleta**

Gau batez, Rhin ibai gainean, laurogei **proiektorek** harrapatu zuten Gavoille beren argi-sortetan. **Josu Zabaleta**

Mutikoak hiriaren errebaleraino eramaten du; ibai bat pasatzen da handik, isla horiak eginez, **proiektore** indartsu batzuek argiturik. **Eskarne Mujika**

### 4 *argi-proiektore* argia noranzko jakin batean jaurtitzeko duen tresna.

Bitartean argi **proiektoreak** pizten dituzte. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gauetz hainbestean: zenbait zailtasunen ostean, zenbait behaztopa eta lokatzetan irristatzeren ostean, nola-hala erdiesten genuen helmuga kanpoan argi **proiektoreekin**. **Urtzi Urrutikoetxea**

## proiektu (**6475** agerraldi, **118** liburu eta **2701** artikulutan; orobat **proietu g.er.**, **proiektu g.er.** eta **proiektu g.er.**; cf **egitismo 3792** agerraldi, **81** liburu eta **1903** artikulutan) **1** *iz* egin asmo den obra edo lana azaltzen duen ideia, idazkia, marrazkia edo kidekoa. *ik* **egitismo**.

Isidrok beste gizon bat ematen zuela, eta **proiektuak** zeuzkala aspaldiko partez. **Bernardo Atxaga**

Aukera sortu eta bost urteko **proiektu** batekin Nigeriara abiatu nintzelako, bertako gobernadore baten aholkulari pedagogiko gisa lan egitera. **Ana Urkiza**

**Proiektua** legez kanpokoa zela onartu zuen Auzitegi Nazionalak. **Eduarne Elizondo**

Lege humanitarioak egiteko **proiektuak** taxutzen zituen, arau horien bitartez oinazeko hiri hau aldatu eta zorioneko hiria sortuko zelakoan. **Karlos Zabala**

**Proiektu** hura 1969an jarri zen abian Hagako gailurrean. **Koro Navarro**

Baina **proiektu** hura ez zen behin ere mamitzen. **Bernardo Atxaga**

Egunerokoan eragina izango duten beste hainbat **proiektu** ere martxan dira. egungo kooperatibek Arizmendiarietak hasitako **proiektuari** ahal den leialtasun handienaz erantzuten diote. **Berria - Gaiak**

Guztiek aurpegiatzen zioten Manhattan **Proiektua** burutu izana. **Fernando Morillo**

Ikerlari gisa **proiektu** askotan hartu du parte, finantzazio publiko nahiz pribatuarekin. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Beste bost pisu zituen **proiektuak**. **Anjel Lertxundi**

Hiru ardatz ditu **proiektu** horrek: transmisioa, bilketa-ikerketa eta hedapena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Frantziako Kode Zibilaren lehen **proiektua**. **Andres Urrutia**

### 2 (izenondoekin)

Nafarroako Gobernuaren kontrako **proiektu** erraldoi guztietan sartuta dago. **Eduarne Elizondo**

Bost urteko kontratua eskaini didate, **proiektu** sendo bat, eta hartu egin dut. **Javi Cillero**

**Proiektu** konplexuak bideratzeko. **Koro Navarro**

**Proiektu** bideragarriena aukeratu dute. **Berria - Harian**

Kontua aurrera egitea baita, abertzaletasuna haztea eta herri honentzat **proiektu** bideragarri bat lortzea. **Hasier Etxeberria**

**Proiektu** komunak gauzatzeko ez bada ere, elkarri gure penak kontatzeko behintzat balio izaten dute horrelako topaketek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Merkatu askeen sorkuntza, egungo globalizazio prozesuarena bezalaxe, **proiektu** politiko bat izan zen. **Iñaki Heras**

Euskal Herria zena [...] ez zen osorik sartu Euzkadi izeneko **proiektu** politikoan, eta Euzkadi izenekoan ere ez da sartu. **Bernardo Atxaga**

Mahai gainean dauzkan **proiektu** industrialak zorrotz aztertzen eta zirt edo zart egin behar du. **Berria - Harian**

Arnegi/Saliase errepidearen 2X2 lerrotan ezartzeko **proiektu** teknikoa. **Herria**

Azken hogei urte hauetan idatzi dituen nobelak behiala ernatu zen **proiektu** literario erraldoi baten fruituak dira. **Jon Alonso**

Era guztietako programa eta **proiektu** terapeutikoak jarri ziren martxan, baina guztiek [...] porrot egin zuten azkenean. **Xabier Olarra**

Ez da ez ideia txarra, izan diren hainbat eta hainbat **proiektu** ez-konkretu eta ez-bideragarri kontuan izanik. **Iñaki Heras**

Lehenik, epistemologia kartesiarrak ariko gara, hori baita arlo honetan **proiektu** oinarrikoa. **Askoren artean**

Ebanjelioa izango du aurrerantzean bere eta lagunena **proiektu** bakarra. **Askoren artean**

### 3 (izenlagunekin)

Lehengaien mundu-merkatuen egonkortasunerako **proiektuek** berez izaten duten anbiguitatean datza auzia. **Koro Navarro**

Naturguneen Lege berria erabil ote daitekeen aurretik baliogabetutako **proiektu** bati babesa emateko. **Edurne Elizondo**

Lehen Saria eta Urrezko Domina bi eman dizkiote Rotterdango Nazioarteko **Proiektuen** Biltzar Nagusian. **Unai Elorriaga**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzarmen horrek iragartzen du 3,2 miliar liberaren haineko **proiektu** zerrenda bat gure lurraldearentzat. **Herria**

Ikasmaterialgintzako **proiektu** kudeatzaile bat bilatzen du. **Herria**

**Proiektu** ekarleen harreraz, Garazi-Baigorriko Zabaldun batasunaz eta indar berriztagarrietaz mintzatu da Jean Louis Harignordoquy. **Herria**

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azpiegitura-**proiektu** garrantzitsuak finantzatu. **Koro Navarro**

Zenbait ikerketa **proiektu** akademikotan hartu du parte. **Askoren artean**

Erreformaren Lege-**proiektu** onetsi ondorengo belaunaldiaren historia. **Iñaki Mendiguren**

Presondegia **proiektu** berriak badira, bainan beti gibelatuak. **Herria**

Maileguz hartutako funtsak inbertsio-**proiektu** errentagarrietan erabili zirenean. **Koro Navarro**

Bazauzkanat negozio **proiektu** pare bat kontu txarretatik erretiratzeko. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Kanten filosofia-**proiektua** zeharo humanista da. **Askoren artean**

Integrazio **proiektu** onest bat logikoki inposiblea da, beraz, a priori? **Joxe Azurmendi**

Idazlan-**proiektu** bat egin nuen, bai, handi-mandia, presakako irakurketa haietako ekarriak eta eraginak bildu nahi zituena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Aurreko aldiko arte-**proiektua** ez bezalako arte-**proiektu** bat izan dutelako. **Josu Zabaleta**

Gizarte **proiektua** zen berea, ez soilik enpresariala. **Iñaki Heras**

Beharbada familia-**proiektu** baten moduan ikusiko luke kontu hau. ezin dut saihestu -nahiz gezurra dela jakin- semea nire bizitza-**proiektuaren** adar bat balitz bezala ikustea. **Oskar Arana**

Frantziskoren jatorriak (aberats berrietakoa zen) eta gizarte-egoerak eragin zuzena dute haren bokazioan eta bizi-**proiektuan**. "Giza genomak **proiektua**" hartzen du izena eta batez ere Estatu Batuetako Osasun Institutu Nazionalak (NIH) eta Erresuma Batuko Welcome Trust daude atzean. **Askoren artean**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

enpresa proiektu (8); garapen proiektu (10); hezkuntza proiektu (6); ideia eta proiektu (8); ikerketa proiektu (9); kirol proiektu (7); kultur proiektu (7); lege proiektu (38); lege proiektu berria (7)

proiektu asko (12); proiektu aurkeztu (7); proiektu bakarra (11); proiektu bat aurkeztu (12); proiektu bat jarri (6); proiektu bera (10); proiektu berri (39); proiektu berri bat (15); proiektu berria (35); proiektu berriak (35); proiektu berrian (8); proiektu berriaren (14); proiektu berriari (7); proiektu erraldoi (8); proiektu estrategiko (6); proiektu gisa (9); proiektu handi (14); proiektu politiko (63); proiektu politiko bat (8); proiektu politiko guztiak (11); proiektu politikoak (35); proiektu politikoak (13); proiektu politikoaren (7); proiektu politikoaren (9); proiektu politikoa (9); proiektu ugari (8); proiektu zehatzik (7)

ahtren proiektua (8); aurkeztutako proiektua (7); aurrekontu proiektua (28); behin betiko proiektua (7); bere proiektua (32); betiko proiektua (7); bizi proiektua (15)

egiteko proiektua (36); eraikitzeko proiektua (9); errauste plantaren proiektua (9); estatutu proiektua (7); euren proiektua (6); gure proiektua (21); hezkuntza proiektua (9)

itoizko urtegiaren proiektua (11); konstituzio proiektua (11); kultur proiektua (6); lege proiektua (143); lege proiektua onartu (28); legearen proiektua (6); lehen proiektua (12); likidazio proiektua (10); lurzoruaren lege proiektua (13)

plantaren proiektua (10)

proiektua abian (16); proiektua aurkezteko (13); proiektua aurkeztu (48); proiektua aurkeztu zuen (17); proiektua aurkeztuko (6); proiektua aurrera ateratzeko (7); proiektua aztertzeko (7); proiektua bertan behera (26); proiektua bultzatu (6); proiektua egin (10); proiektua egiteko (14); proiektua garatzeko (12); proiektua gauzatu (12); proiektua gauzatzeko (17); proiektua izan (17); proiektua izan zen (6); proiektua kritikatu (7); proiektua lantzeko (7); proiektua martxan (8); proiektua onartu (45); proiektua onartu zuen (16)

sortzeko proiektua (6); urtegiaren proiektua (19); y aren proiektua (12)

aurrekontu proiektuak (9); egiteko proiektuak (10); euren proiektuak (8); gure proiektuak (7); handitzeko proiektuak (8); horrelako proiektuak (7); lege proiektuak (61)

proiektuak aurkezteko (7); proiektuak aurrera ateratzeko (6); proiektuak aurrera egin (7); proiektuak aurrera egingo (6); proiektuak bertan behera (7); proiektuak garatzeko (11); proiektuak izan (6); proiektuak porrot (8)

aurrekontu proiektuan (8); lege proiektuan (14); proiektuan parte hartu (17)

proiektuarekin bat (8)

bizi proiektuaren (6); handitzeko proiektuaren (7); lege proiektuaren (69); lege proiektuaren arabera (8); lege proiektuaren aurka (7)

proiektuaren alde (31); proiektuaren aldeko (7); proiektuaren arabera (26); proiektuaren ardatz (8); proiektuaren arduradunek (8); proiektuaren aurka (46); proiektuaren aurka agertu (8); proiektuaren aurkako (15); proiektuaren barruan (13); proiektuaren berri (25); proiektuaren bultzatzaileek (11); proiektuaren helburua (12); proiektuaren inguruan (24); proiektuaren inguruko (14); proiektuaren kontra (29); proiektuaren kontrako (12); proiektuaren sustatzaile (6); proiektuaren sustatzaileek (7); proiektuaren zati (6)

aurrekontu proiektuari (11); lege proiektuari (13); proiektuari buruzko (21)

## proiektual *izond* proiektuari dagokiona.

Kontzeptuek, beraz, praktikaren aurretik joan behar dute, eta I. liburuaren 2. kapituluaren eraike egoki bat egiterakoan bildu behar diren kontzeptu giltzarriak laburtzen eta, elkarrekin erlazioan, aipatzen saiatuko da, goitik behera doan "iter" **proiektual** batean kokatuz, hasi abstrakzio geometrikotik eta eraikuntza materialeraino iritsiz.

**Santiago Iruretagoiena**

## proiektuburu *iz* proiektu jakin baten buru den pertsona.

Badirudi Colin Pillingerrak, Beagle 2 **proiektuburu** den zientzialari britaniarrak, ez duela oraindik etsi nahi. **Berria - Gaiak**

Samien Informazio Zentroko **proiektuburu** da Anneli Lundmark. **Berria - Mundua**

## proiektudun *izond* proiektuak dituena.

Bizia eta bizitzeko gogo bat eta bera baldin badira, ze alde dago hildako garbiaren eta zinezko gogo edo gose-egaririk gabeko gizaki **proiektudunaren** artean? **Iñaki Seguro**

# izond/iz proiektuak egiten dituenak.

Sistema funtzioaniztuen baten adibide da odol-zirkulazioa, gorputzean diren beste asko bezala, baina ingeniari **proiektugilearen** aholmenetik kanpo dagoena. **Irene**

**Aldasoro**

Nork eta berak, Ministerioko **proiektugilerik** onenak. **Unai Elorriaga**

## proiektuka *adlag* proiektuen arabera.

Hemendik aitzina laguntzak ez dira zonaldeka banatuko, baizik eta **proiektuka**. **Berria - Euskal Herria**

Klusterrak, horretarako, hainbat irizpide jarraituko ditu bere jardunean: **proiektuka** lan egitea; kideen jarduera nagusiak zaintzea eta ez kaltetzea. **Berria - Euskal Herria**

## proiektutxo *iz adkor* proiektua.

Ezin konta ahala plan eta plantxo, proiektu eta **proiektutxo** asmatuko dira "bion artean", maite-denbora jakinaren betegarri edo sasi-bizigarri. **Iñaki Segurola**

## proiektzio (*orobat proiektzio g.er.*) 1 *iz* proiektatzea; proiektatzearen ondorioa.

Puntu batetik plano batera egindako **proiektzio** bat balitz bezala deskriba daiteke geometrikoki aldakuntza hau. **Josu Zabaleta**

Mundu mapetan Peters-en **proiektzioarekin** bezala, herri txikiak probintziarik handienaren neurria hartzen du. **Iñigo Aranbarri**

6. irudian garbi ikusten da proiektatutako irudi bat infinitu objektu posibleren **proiektzioa** izan daitekeela. **Josu Zabaleta**

Folioetan inprimatutako hainbat **proiektzio** erakusten dizkio Antoniok: "hauek dituk hogeit urtekoak, hauek hogeita hamarrekoak eta hauek berrogeikoak"; ilaje ezberdinak, desberdintasun txikiak, batzuk sumaezinak ia. **Iban Zaldúa**

Film baten **proiektzioa** edo antzezkitzunen bat ustekabearen eteten denean. **Martin Anso**

**Proiektzioak** dirauen bitartean (ia hiru ordu) ikuslea behartuta dago bere buruari bloke horien arteko denborazko erlazioen nondik norakoaz galdetzeraz. **Josu Zabaleta**

**Proiektzio** guztiak Antzoki Zaharrean emango dituzte, ohikoa denez. **Berria - Kultura**

Lehen **proiektzioa** 16:30ean egingo da; bigarrena, 18:30ean. **Berria - Euskal Herria**

Zutabe hau argitaratzen denerako azken biak geratuko dira ikusteko, eta haiekin batera zenbait hitzaldi, tailer eta film dokumentalen **proiektzio**. **Berria - Kultura**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erretinako irudia esaten zaion hori korneak, begi-niniak eta kristalinoak osatzen duten sistemari esker begiaren atzealdean eratzen den **proiektzio** optikoa baizik ez dela.

**Josu Zabaleta**

Perspektibazko **proiektzio** batek proiektatutako bolumenak eta haiek espazioan duten antolamendua. **Josu Zabaleta**

Bazela garuneko neurona-mailan, entzumenezko espazioaren "mapa" gisako bat, zentzumen bidezko informazioaren puntuz puntuko **proiektzio** ororen guztiz desberdina.

**Josu Zabaleta**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Proiektatzen denean, tarte beltzez bereizitako fotogramen **proiektzio**-jarraitasun batek sortzen du filmeko irudia. Begian eratzen den irudi optikoaren **proiektzio** izaera hori Antzinarotik ezagutzen da. **Josu Zabaleta**

Argi-dardara argi gertaera periodiko guztietan agertzen denez, **proiektzio**-lastertasuna geldiegia denean agertzen da zinemaz. **Josu Zabaleta**

**Proiektzio** angelua ezin hobea da; atzealde ilunarekin, gainera. **Berria - Kultura**

Erretinako irudia (irudi optikoa) ikusten den eszenako gainazal desberdinen luminantzien **proiektzio** bidezko irudikapen bat da. **Josu Zabaleta**

Beste mota batzuetako filmek erakutsi dute argien nola eraberritzen duen **proiektzio**-denborak filmaketa-denbora. **Josu Zabaleta**

Zaputak ez die askorik iraun, ordea, **proiektzio**-gelako erdi-ilunpe goxoak txantxetarako gogoia ekarri baitie berehala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Proiektzio**-aretoko argiak piztearekin batera. plastikozko pasabide luze bat doa ikusleengandik **proiektzio** pantaila bateraino. **Josetxo Azkona**

**Proiektzio** lanparen intentsitatea jaso zenean [...] 4 Hz-z goiti igo zen maiztasun kritikoa, eta segundoko 24 irudi proiektatzean berriro azaldu zen txinpartaketa. **Josu Zabaleta**

Beste mahai baten gainean, berriz, Talesi buruzko emanaldian dagoeneko erabilitako **proiektzio**-materiala, abian jartzeko prest. **Jon Muñoz**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Serbiako artistaren hiru bideo **proiektzio** aurkeztuko dituzte. **Berria - Kultura**

3Dko animazio **proiektzio** batean. **Berria - Kultura**

Guk ikusten duguna argi **proiektzio** batek eragiten du. **Josu Zabaleta**

### 5 irud/hed

Mito honek barbaroaren beraren arimako borroka psikologikoaz kanpoko mundura egiten duen **proiektzioa** dirudi. **Iñaki Mendiguren**

Erligioari dagokionez, Feuerbachen **proiektzioaren** teoriak bederen gaur egun arte jarraitzen du. **Askoren artean**

Beste kontu bat da, bere jardunak ematen dion **proiektzio** sozialaz baliatuko den edo ez kausa batzuen alde ekiteko. **Ana Urkiza**

Enuntziatua ez da egoera jakin baten edo errepresentazio-multzo baten **proiektzio** zuzena hizkuntzaren mailara. **Xabier Arregi**

Kontuan izanik tokiko esparrua ezin dela izan egitura mediatiko handiagoen **proiektzio** lokal hutsa, baizik eta lurraldeari eta bertan bizi den gizabanako zein kolektiboari lotutako telebista. **Berria - Harian**

Kultur Hedapenerako eta **Proiektzio** Unibertsitariarako errektoreordea. **Berria - Euskal Herria**

Munduko Bankuaren **proiektzioen** arabera 1994, 2020. urtean Taiwan eta Thailandia munduko lehen hamabost herrialde boteretsuenen multzoan sar daitezke. **Koro Navarro**

Urtean zenbat diren jakiteko ez dut **proiektzioa** egin beste erremediorik, gutxi gora beherakoa ateratzeko. **Iñigo Aranbarri**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**proiektzio** edo **irtengunea** (3); **proiektzio lastertasuna** (3)

**erretinako proiektzioa** (3); **filmaren proiektzioa** (3)

**bideo proiektzioak** (3); **erretinako proiektzioak** (4); **proiektzioak dirauen bitartean** (3)

proietu ik **proiektu**.

proiektu ik **proiektu**.

proiektzio ik **proiektzio**.



## projimo *(orobat protsimo)* 1 iz lagun hurkoa.

**Projimoa** maitatzen erakutsi digu ebanjeliotik Nazaretoko maisuak. **Pello Zabala**

## 2 lagun *projimo ipar* lagun hurkoa.

Nire lagun **projimoak**. **Pello Zabala**

Iduri luke France 2 gateko errienta eta France3 gateko Louis delakoa sortuak direla beren lagun **protsimoen** alde jokatzeko. **Herria**

Agatak zernahi entzun zezakeen, baina kontuz: lagun **protsimoa** sensibleren zen, Louiseren gisako emazte larderiatsua eta beren izaeraz ideia berezia zutenak batez ere. **Itxaro Borda**

## prokatartiko *izond* aurrez erabilgarria.

Presondegiotan egin zuen egonaldia ondorioz ekarri zuen, kausa **prokatartiko** gisa, haren eldarnio edo eromena, ez hala ere amorrubizikoa. **Juan Garzia**

## proklama *iz* aldarria.

Ez zen prokuradorearen **proklama** berri bat, baizik eta Batzar Nazionalak zabaldu erabaki bat, egiazko lege bat. **Elena Touyarou**

Baxenafarreko mistelaren bukoietan gordeta pasatzen zituzten Hegoaldera Karlos erregeagaien **proklamak**. **Anjel Lertxundi**

Hizkuntza "arruntetan" argitaratu **proklamek** ez zuten arrakastarik, ez eta armen hartzeko adina zuten gizonak beren kabuz aberriaren zerbitzuan jartzera sustatzen zituzten ordezkari herritarren presentziak ere. **Elena Touyarou**

Ez ditzatela erabili halako **proklamak** Euskal Herrian garatu beharreko prozesuaren funtsa desitxuratzeko edota herritarren artean nahasketa eragiteko. **Berria - Euskal Herria**

Neure **proklama** eginez amaitu nahi dut: Hemen, benetako galera, herrialde honetako hizkuntzarik garrantzitsuenaz ez ezagutzea da, eta ideia honen hedapena politikaren, maitasunaren eta literatur kalitatearen bitartez, hirurak bat eginik soilik lortuko dugu. **Berria - Kultura**

## proklamatu, proklama, proklamaten du *ad* aldarrikatu.

Estatu-nazioek eta inperioek ez dute izan lotsarik beren kultura eta zibilizazioen benetako esparrua "unibertsal" dela **proklamaten**. **Joseba Zulaika**

Hauteskundeak Fronte Popularrak irabazi zituela, Errepublikak **proklamatu** zela eta harrezkero dena aldatuko zela. **Joseba Sarrionandia**

-Chauvin-Dragon hiriko herritarrak, Frantziako herriaren ordezkari diren Pinet eta Cavaignac herritarrak gure artean ikusteko ohorea dugu egun! **proklamatu** zuen Monduteguyk, Irietan-. **Elena Touyarou**

## proklamazio *iz* aldarrikapena.

Gure moralaren gehiagotasun **proklamazioak**. **Joxe Azurmendi**

## proklisi *iz* esaldiko elementu azentugabe bat eskuinera duenari prosodikoki lotzea.

Horregatik **proklisia** eta enklisia hotsek elkarri eragitea errazten duten egoerak izan ohi dira. **Lourdes Oñederra**

## prokotsul 1 *iz* antzinako Erroman probintzia bateko gobernaria, botere guztiak biltzen zituena; kolonia edo kideko lurralde bateko gobernaria, botere osoa eta kontrolik gabekoa duena.

Flavio-k, Getulia-ko **prokotsulak**, berrehun soldadu eman zizkidan xede hartarako. **Juan Garzia**

Gero Metelo, **prokotsul** izendatua, Alpeez haraindik Galiara abiatu zen. **Juan Garzia**

Badirudi [...] diploma berean Anastasio enperadoreak **prokotsul** izendatu zuela Klodoveo. **Iñaki Iñurrieta**

Zesar Galian **prokotsul** zen eta ezin zezakeen deus egin. **Juan Garzia**

Irakerako **prokotsul** Paul Bremerrek. **Berria - Mundua**

Hori da Bremer **prokotsulak** inposatu nahi izan zuena 2003ko ekainean. **Berria - Harian**

## 2 (hitz elkartuetan)

Klovis Frankoak [...] Konstantinoplant urruti zegoen Anastasio enperadoreagandik **prokotsul**-titulua eta kotsul-intsignia eskuratu zituen. **Iñaki Mendiguren**

## prokotsulatu 1 *iz* prokotsularen kargua eta dignitatea.

Gregorio Tourskoak, kotsulatuaz ari delarik, ez dio ezer **prokotsulatuaz**. **Iñaki Iñurrieta**

## 2 prokotsula jardueran dagoen denbora.

**Prokotsulatu** hori sei hilabetekoa izango zen bakarrik. **Iñaki Iñurrieta**

## prokreatu, prokrea, prokreatzen du *ad* kumeak sortu.

Epe ahalk laburrenean antigaiaren gerizatze zulo beltz sakona jazarri beharrik gabe kolpeak hartzen dituen izate uherra, oinazea saihestuz, mina baztertuz, **prokreatzea** eta produkzioa segurtatzeko tresna kontzientea bihurtzea liteke xedea, arrangura eta kezka existentzialak ezabatuz. **Itxaro Borda**

## prokreazio *iz* kumeak sortzea.

Apuñatik isuri endomorphina ttantak premiazkoak zitzaizkidalda sinetsiz, ahurrak sabelpera bideratu nituen, onanismoak apainkeria egokiaren **prokreazio** helburu saindutik saihesten ninduela ustez. **Itxaro Borda**

## prokrustear *izlag* Prokruste-ri dagokiona; Prokruste-ren metodoak erabiltzen dituen.

Otomandar milletek erazi eta nazio-estatu erabat burujabeen forma exotikoan ebakitzeko **prokrustear** metodoak jada aipatu dira zati honetan. **Iñaki Mendiguren**

Mapa politiko erabat berregiteak, Mendebalde modernoaren diseinu iraultzaile moldatzeko, miseria ekarri zuen milioika gizakirentzat, eta eragindako sufrimendua are zabalagoa eta biziagoa izan zen, oinarri nazionalisten gainean politikoki gero eta nekezago antola zitezkeen lurralde eta populazioetan **prokrustear** operazioa arrakastaz



## prokuradore 1 iz herri ordezkari batzuei ematen zaien izena; salatari publikoa. ik**fiskal**.

Pontzio Pilato erromatar **prokuradoreak** [...] medailoietan enperadorearen irudia zeukaten erromatar zutoihal militarrek Jerusalemara sartu zituenean, juduen erreakzioa sutua izan zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Ikusiko da erabateko aldea zegoela kargudun horien eta guk egun alderdi publikoa deritzogunaren -hots, gure **prokuradore** nagusien, erregeren edo jaunaren **prokuradoreen** - artean. [Iñaki Iñurrieta](#)

Erresumako **prokuradore** nagusi Pedro Etxarten seme bigarrena. [Aingeru Epaltza](#)

Nazioko **prokuradore** izanez, auzitegietan ministerio publikoaren zereginak zituen, legeak idazten eta ikerketak agintzen zituen. [Elena Touyrou](#)

Girolamo Cardanoren aita, Fazio, altxor publikoko **prokuradorea**, doktorea, legelaria, eta eruditoa zen. [Jon Muñoz](#)

Saiatu ziren Jacquesen mailako izan zitezkeen gizon-emakumeekin, hiriko abokatu eta **prokuradoreekin**, harremanetan jartzen. [Felipe Juaristi](#)

Monduteguy izendatu zuten kantonamendu hiriburutzat Baiona zuen Uztaritzeko eskualde guziaren **prokuradore**. [Elena Touyrou](#)

Berebiziko zehaztasunez galdetu zuen nor zen hiriko gobernadorea, nor Ganberako burua, nor **prokuradorea**; labur esanik, ez zuen aipatu gabe utzi funtzionario nagusietako bat bera ere. [Jose Morales](#)

Aita Sainduak nahi lituzke epaile hauek, auzipetuak beste horiek eta **prokuradoreak** beste haiek. [Piarres Xarriton](#)

Baionako **prokuradoreak** artxibatu egin du Etxeberriren aurkako salaketa. [Berria - Euskal Herria](#)

Pierre Hontang **prokuradoreak** isun handiak eskatu ditu hamarnaka demoentzat, legearen izenean, berak lege hori lotsarik gabe urratzen duelarik. [Herria](#)

**Prokuradoreak** erabaki dezake, adierazpenen berri izatean, pertsona auziperatzea. [Berria - Harian](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Jaime II.a Mallorcako erregearen legetan erregeren **prokuradore** postuaren sorkuntza ageri da, egun gurek dituzten funtzioekin. [Iñaki Iñurrieta](#)

Bestela izan balitz ere, ez zatekeen sartuko, gisa horretako hika-miketean onuradun bakarrak legegizonak, auzitegi-**prokuradoreak** eta gainerako kideak baitira. [Migel Angel Mintegi](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baionako prokuradore** (5); **prokuradore nagusiak** (3)

**baionako prokuradorea** (3)

**baionako prokuradoreak** (3); **paueko prokuradoreak** (3); **prokuradoreak erabaki** (3); **prokuradoreak helegitea jarri** (3)

**prokuradorearen ahalak** (3)

**baionako prokuradoreari** (3)

## prokuradoreorde iz prokuradorearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa. ik**fiskalorde**.

2002an Baionako **prokuradoreorde** izendatu zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

Etxeberri jakitera eman duenez, **prokuradoreordeak** erran dio afera xumea dela eta ez duela zentzurik auziperatzeak. [Berria - Euskal Herria](#)

**Prokuradoreordeak** Jean-Jacques Loustaudaudine Donapaleuko auzapezak jarritako salaketan oinarririk ez dagoela adierazi du eta ondorioz segidarik gabe utzi du afera. [Berria - Euskal Herria](#)

## prokuradoretza iz fiskaltza.

Lehenengo salaketa jarri zutenetik, Mozambikeko **Prokuradoretzaren** eta Giza Eskubideen Ligaren babesba jaso dute; Baita Amnesty Internationalena ere. [Berria - Gaiak](#)

**Prokuradoretzari** bidalitako txostenean, mojek diote bikote horren etxean kentzen dizkietela organoak haurrei eta handik aireportura eramaten dituztela kaxetan. [Berria - Gaiak](#)

## prokuraketa iz prokurazioa.

Erreferendum horretan, bozkazale izena emana duen lekuan bozkatzerik ez duenak, **prokuraketa** bat eman diezaiokie beste bozkazale bati. [Herria](#)

**Prokuraketa** horren betetzeko joan behar da edo instantzia auzitegira, edo jandarmeriara edo polizetxera. [Herria](#)

## prokurazio iz ahal bat ordezkari bati uztea; ordezkari gisa aritzea.

Aiaciun **prokurazioz** emaniko 1.500 bozen zilegitasuna zalantzan jartzen dituzte abertzaleek. [Berria - Mundua](#)

Biltzar nagusi hori iragan da uztailaren 6an Uztaritzeko Eskuz Esku gelan 32 lagun bertara jinez eta 25 **prokuraziorekin**. [Herria](#)

Guri hoinbeste eskatzen diguten jendeek ez ote dute **prokurazioz** perfektu izan nahi? [Piarres Aintziart](#)

## prolapso iz gorputz organo bat, lokaiukuak amore emanda, beharrezkoa edo ateratzea.

-Zilbor hestearen **prolapsoa**. [Josu Zabaleta](#)

**Prolapsoaren** lilura. [Karlos Linazasoro](#)

## prolatibo izond/iz euskarazko -tzat atzikiari dagokion kasuaren izena.

Destinatiboan -entzat (*mendiarentzat*) eta **prolatiboan** -tzat (*menditzat*). [Koldo Zuazo](#)

**Prolatiboan** -tzat zein -tako onartu zen: *laguntzat* zein *lagundako* biak dira Batua. [Koldo Zuazo](#)

## prole 1 iz haurrak, umeak.

Eguneko lehen eta azken zigarreta ordu horretan ematen dut gauero, ahizparen ondoan, sofan etzanda, egun osoko ama langilearen jardueraren buruan, eta, azkenean, jainkoarren, **prole** osoa oheratuta dagoenean. [Berria - Kultura](#)

## 2 irud/hed ondorengoak.

Aski ezaguna da Wellsen *Munduen arteko gerra* (1898) nobelaren **prolearen** oparotasuna (inbaditzaile alienigenen istorio guztien iturburua da). [Berria - Kultura](#)

## prolegomeno *iz* atarikoak.

Oraindik **prolegomenoetan** gaude, beraz, sekretismorik gabe baina diskrezioz landu behar dugu bidea ea posible den adostasuna. **Berria - Euskal Herria**  
Kantek, **Prolegomenoen** sarreran, Humez ari dela: [...]. **Patziku Perurena**  
Filosofia arloren batentzako **Prolegomenoak** argitaratzen zirenean. **Anton Garikano**

## prolema ik problema.

## proletalgo ik proletargo.

## proletargo *(8 agerraldi, 6 liburu eta artikulu 1ean; orobat proletalgo 115 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean) 1 iz* proletarioak, langileria.

Diskutigarria duk **proletargoaren** diktadura, ez duk uste? **Koldo Izagirre**

**Proletargoaren** lider hura lege-eta-ordenaren aldeko bere etsaiek erosi zuten, eta isiltasun onuragarrian bizi izan zen eta aberastasun porrokatuan hil. **Xabier Olarra**

Bai nire militantzia, bai oroimenean itsatsita neuzkan kanta sentimentalak, bai, batez ere, etengabe erabiltzen genituen hitzak: "herria", "nazionala", "soziala", "**proletargoa**", "iraultza" eta beste hamaika halako. **Bernardo Atxaga**

Agian, hemendik aurrera, **proletargoaren** ordez prekariogoiari buruz hitz egin beharko dugu, horixe baita langileriaren helmuga neoliberalen logika aseezinean. **Berria - Euskal Herria**

**Proletargoaren** rocka egin nahi duk? **Unai Iturriaga**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Proletargo** -auzo bateko handitasunik gabeko eliza da, dena porlan, dena aluminio, dena antzinako estilo. **Iban Zaldúa**

Desintegrazioaren ezaugarri nabariena gizarte-gorputzaren zisma da hiru zaitan: gutxiengo menderatzailea, barne-**proletalgoa** eta kanpo-**proletalgoa**. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**proletargoaren diktadura** (3)

**barne proletalgo** (9); **kanpo proletalgo** (6)

**barne proletalgoa** (11); **kanpo proletalgoa** (4)

**barne proletalgoak** (8); **kanpo proletalgoak** (7)

**barne proletalgoaren** (10); **kanpo proletalgoaren** (6)

## proletario *1 iz* bizitzeko bere soldata besterik ez duen pertsona, eskuzko lana egiten duena eta bizitze maila apala duena, burgesa edo kapitalista ez dena. ik langile.

Alde batetik, ekoizpen baliabideen jabe direnak, kapitalistak; eta bestetik, bere lana baizik ez dutenak, **proletarioak**. **Iñaki Heras**

Bat-batean nekazari izateari utzi eta **proletario** bihurtutako jendea. **Anjel Lertxundi**

Lurra gizarte-klase berri batek lantzen du, jopuen klaseak; klase hori libre izandako eta **proletario** bihurturiko gizonek eta liberto edo esklabo askatuek osatzen zuten. **Koro Navarro**

Hori beldurra **proletario** hauek heriotzari diotena! **Fernando Rey**

Industria eremuetako **proletarioaren** profila ahitzen, lausotzen, egokitzen ari da herrialde garatuetan. **Txema Ramirez de la Piscina**

Hiriko **proletarioak** ondo daude hirian geratzen diren bitartean. **Koldo Biguri**

Hegoaldetik etorritako **proletario** askok. **Anjel Lertxundi**

Higikunde honek bat egin zuen errusiar **proletarioen** ideia iraultzaileekin, baina yiddishari eta judu nortasunari uko egin gabe. **Koro Navarro**

## 2 (hitz elkartuetan)

Han, aski egoera larriari, Erromako bazter auzoetako **proletario** mailarik apalenetako eta baztertuenetako langileria eta gazteria ezagutu zituen. **Josu Zabaleta**

## • 3 *izond* proletarioena, proletarioei dagokiena.

Familia **proletario** batean hazia naiz ni: aita, buzo urdina jantzita, goizeko zazpietarako sartzen zen egunero fabrikari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Auzo **proletario** bat zen Adurtza, eta hala da oraindik: etxe merke eta zapalak, Mesetako ibaien izenak dituzten tabernak, lantegietako hesi luzeak, belarririk gabeko parkeak. **Iban Zaldúa**

Kritikak arte **proletario** berriaren aitzindaritzat jo zuen. **Berria - Kultura**

Ukabila airean eta kantu **proletarioak** ikasten. **Joseba Sarrionandia**

"Iraultza", gure eta gure ondorengo belaunaldiarentzat, borroka **proletario** eta sozialistarekin asoziatzen dugun kontzeptua da. **Joxe Azurmendi**

Iraultza Sozialista eta internazionalismo **proletarioaren** beharra defendatu nahi genuen. **Rafa Egiguren**

Erromatar bakeak eskainitako aukera lehian zeuden zenbait erlijio **proletariok** hartu zuten. **Iñaki Mendiguren**

Kanpai hauetxek egingo diote agur iraultza **proletarioaren** egunsenti distiratsuari! **Koldo Biguri**

Gutxiengo menderatzailearen aurkako erreakzio **proletarioak** adierazpide boritza aurkitu zuen hainbat garaitan eta hainbat lekutan, Erdi Aroko nekazari-gerretatik Frantziar Iraultzako jakobinismoraino. **Iñaki Mendiguren**

## 4 irud/hed

Emakumea Kreazioaren **proletarioa** besterik ez baita, nahiz eta dotore jantzia baldinbait ere. **Joxe Austin Arrieta**

Gelatxo soinuaren langilea izan da, **proletarioa**, lana bukatutakoan etxera etortzen zena. **Pako Aristi**

Larba hori ez da osorik garatzen; langile bat da, **proletario** bat, lanerako eta mendekotasunerako espiritua duena. **Josu Zabaleta**

Sexu-bizitzaren **proletario** triste haiek bazuten beren talde harrotasuna. **Josu Zabaleta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**iraultza proletarioaren** (3)

## proletarizatu, proletariza, proletarizatzen da/du *ad* proletario bihurtu.

Auzoa **proletarizatu** egin zen. **Joseba Urteaga**

Langile-klaseak bertanaren bizi-maila materiala lortzea klase ertainaren zati handi baten bizi-maila espiritualki **proletarizatzearekin** batera ematen zen itxuraz. **Iñaki Mendiguren**

# proletarizazio iz proletariatzea.

**Proletarizazioaren** adibiderik nabarmenenak Estatu Batuetako "Hegoalde Zaharrean" eta Hego Afrikako Batasunean "zuri behartsuak" ziren, beren kide kolonizatzaile arrakastatsuegoen afrikar esklabo inportatuen edo bertako enbriatuen gizarite-mailara eroriak. [Iñaki Mendiguren](#)

Noren onurarako izaten da, batez ere, pammixia- eta **proletarizazio** -prozesu hori? [Iñaki Mendiguren](#)

Gutxiengo menderatzaileak "**proletarizatorako**" joera azaltzen du, barne-proletarizazioaren arruntasunak eta kanpo-proletarizazioaren barbarotasunak hartzen ditu, desegintzen azken etapan, bere bizimoduak beste haienarenetik bereiztezin bihurtu arte. [Iñaki Mendiguren](#)

## prolifiko izond emankorra.

Idazle eta kazetari **prolifiko**. [Berria - Mundua](#)

Gure aita guztiz **prolifiko** zen. [Berria - Kultura](#)

## prologo 1 iz hitzaurrea.

Dena den, hori dena interesantea izanik (Ortega-ren pentsamendu politikoa erantzuta), hemengo gure gaian, *ingelesei epilogoa* baino, *Alemanei* **Prologoa** interesatzen da gehiago. [Joxe Azurmendi](#)

*En torno al casticismo*-n (1895), **prologoan** Herrien Psikologiak bitartean Espainian duen oihartzun zabala konstatatzen da. [Joxe Azurmendi](#)

### 2 atarikoak.

Clermont-Ferrand (Frantzia) inguruan egindako **prologo** batekin hasi da aurtengo Dakarra. [Berria - Kirola](#)

## prologomania iz hitzaurreak idazteko zalekeria.

Jarraian, **prologomania** desegokietsi zuen, "aspaldian erabili baitzuen jada trufagai, Kixotearen aitzinsolas antzetsuan, Ingenioen Printzeak". [Juan Garzia](#)

## promena

### 1 promenat adlag pasiatzen. ik promenada 3.

Frantzian, Le Puy-tik honarako bidean, ikus daitezke herriko etxeek egin agusalekuak, beilan eta **promenan** dabilzanendako. [Herria](#)

## promenada (12 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean) 1 iz pasiera, paseoa.

Baiona eta Milafranga artean "Antsoteko ordokia" osatzen duten 300 hektara bazter berdeen antolatze gisan **promenada** eta publikoaren formatzeko, 111 000 euro ekartzen ditu Akitaniak. [Herria](#)

Bazen arratsaldero joaten ginen **promenada** eder bat ibaiertzeko zuhaizpean. [Koldo Izagirre](#)

**Promenada** amaiturik, etxera hartzen dut, bazkaldu eta banao harkaitzetan goiti. [Koldo Izagirre](#)

Ea noiz etortzen diren **promenaderako**. [Filipe Bidart](#)

Tentsioa ibiltokirat abiatzeko tenorean, aldiro aldatzen dizutelakotz **promenaderako** ordua. [Filipe Bidart](#)

Diziplina gutxieneko bat ezarriko dio bere buruari: ibiltokiko **promenadetan** huts ez egitea, ahal izanez gero, paseoa eta ariketa fisikoak uztartzea... [Filipe Bidart](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Bainan **promenada** denboran etxerat joateko permisionea ukaiteko behar zen nota onak izan diziplinakoan. [Menane Oxandabarat](#)

- Ez dut ordoko gisan berriz ikusi: Hondarribia aski herri polita da, behean zuhaitz **promenada** bat eta aldamentean itsasoa daukana, ordoki batean kokatua, Irundik hurbil antzean. [Koldo Izagirre](#)

### 3 promenadan adlag pasiatzen. ik promena.

Nik, vodka xume bati plastikozko basotik tiratuz, gure aurrean **promenadan** dabilen munduari begiratzen diot. [Edorta Jimenez](#)

## promenaldi iz pasiera, paseoa.

Hitzik erran gabe sartu zen, eta argi ikusi nuen **promenaldi** itxuratu hark niri gutuna ematea bertze xederik ez zuela izan. [Jon Muñoz](#)

Gaurdanik, hartu dut orobat neure gelan jateko xedea, eta ez dut handik jalgitzeko asmorik, ez bada **promenaldi** ttipiak egiteko. [Jon Muñoz](#)

**Promenalditik** itzuleran, emakume bikotea joana da. [Edorta Jimenez](#)

## promenan ik promena.

## promenatu, promena(tu), promenaten 1 da ad paseatu.

Bere baitaratzeko astia izan dezan, **promenaten** gara une batez basokan zehar; gero etxeari buruz daramat. [Jon Muñoz](#)

Harriesietan gaur **promenatu** naiz gauean, bakar eta gogoetatua. [Koldo Izagirre](#)

Bordeletik **promenatzeko** edo paseatzeko era guztien artean, egon behar du bakarren bat Ameriketatik iristen zen kakaoaren edo kafearen aztarna gordetzen duena. [Bernardo Atxaga](#)

Egun osoa hondartzan barrena **promenaten** eman ondoren, arratsa heldu zelarik, Baionara itzultzea pentsatu nuen. [Koldo Izagirre](#)

Hoteleko hallean **promenatzera** doa. [Edorta Jimenez](#)

Joaiten ginen aste barnean **promenaterat**, bi egunez... [Menane Oxandabarat](#)

### • 2 du ad Espainiako gerra zibilean, norbait epaiketarik gabe hiltzeko eraman.

Sartagudan -harrezkero Alargunen Herria deitu izan zaio- 86 gizonetako **promenatu** zituzten. [Jokin Urain](#)

## promenatzaile iz paseatzailea.

Umeek jolas egiten dute denden aitzinean; etxekoak jalgi egiten dira; plaza nagusia **promenatzailez** betetzen da. [Koldo Izagirre](#)

**Promenatzaile** samalda bat ikusi nuen nonahitik heltzen ari eta kotxeroak egoten ziren herriaren sarrera aldera lehenbailehen iritsi nahirik bezala, baina ez nion bestelako kasurik eman. [Koldo Izagirre](#)

# promenatze iz Espainiako gerra zibilean, norbait epaiketarik gabe hiltzeko eramatea.

Horien artean ez ditugu kontatzen bertze lagun anitz (1.000 inguru) **promenatze** ("paseo") bidez Bizkaian hil dituztenak. **Jokin Urain**

## promes (orobat **promesa**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **promes** agertzen da) 1 iz zerbait egingo dela aginduz ematen den hitza. ik **agintzari**.

Alferrik eginaraziko zitzaion hari ez edateko **promesik**. **Irene Aldasoro**

Esker onezko oparia egin beharrean nengoen, eta gaur bete dut **promesa**. **Elizen arteko biblia**

Baina ez nuen asmorik **promesa** kunplitzeko. **Juan Garzia**

Urteak joanean, ez zuen inoiz **promes** hori hautsi. **Juan Garzia**

Lortu nuen **Promes** horren gaineko zin solemne batek ez ziola beroni buruzko azalpen gehiago ematen uzten. **Jon Alonso**

Neure buruarengatik egin dut zin, **promes** sendoa, hitz aldaezina eman dut: [...]. **Elizen arteko biblia**

Zuk niri **promes** honen fede ematea nahi dut. **Askoren artean**

Ulertu behar da horrela agintzen duenak erabaki eta alda dezakeela bere jarrera, **promesaren** hartzaileak bere faborearekiko jarrera alda dezakeen bezala. **Esteban Antxustegi**

Berriz abiatu ziren kopek eder batzuen **promesik** gabe nekez ulertuko zen abiadura biziak. **Karlos Zabala**

Heriotzari diogun beldurreratik lortutako **promesak** baliozkoak dira naturazko egoeran. **Esteban Antxustegi**

Eguna argitu baino lehen, deiarar degizut laguntza eske: zure **promesetan** dut itxaropen! **Elizen arteko biblia**

## 2 (izenondoekin)

**Promes** eder hau heriotza arte gorde zuen, hutsik egin gabe. **Askoren artean**

Jaunak israeldarrei egindako **promes** eder haietarik batek ere ez zuen huts egin, denak bete ziren. **Elizen arteko biblia**

Goitik behera zintzilikaturik, **promes** urratu bat bailitzan. **Mirentxu Larrañaga**

Anaiak libratzeko **promes** faltsuarekin engainatuta. **Matías Múgica**

Inoiz ez zion federik emango **promes** huts bati, idatzizko konpromisoa behar zuen. **Matías Múgica**

Luteziaren eta nire artean bi izakiren artean **promes** baten, are **promes** solemne baten baliokide den konfiantza hori sortzea. **Matías Múgica**

## 3 (egin aditzarekin ik behe-rago 6)

**Promes** hau egin bainuen: "Jaunak Jerusalemara itzularazten banau, oparia eskainiko diot Jaunari". **Elizen arteko biblia**

**Promesa** egin ostean, etxera itzuli zen, eta lehengo osasunaren jabe aurkitu zuen hitzik eta korderik gabe utzi zuen eta jada hiliik egongo zela uste zuen gaixoa. **Askoren artean**

San Frantziskogana jo zuen errekuak eta **promesak** eginez. **Askoren artean**

Polita da elkarriz **promesak** egitea, tren batean bata besteari agur esatea. **Fernando Rey**

Frantzisko dohatsuari **promes** bat egin zion eta, hilzorian jada, haren laguntza eskatzen hasi zen. **Askoren artean**

Neskak **promes** asko eginak zizkion: huts egin ote zion? **Patxi Zubizarreta**

Gaztaro bete-betean bere burua behartu zuen Jaunari **promes** sendo hau eginez: alegia, ez ziola ahal zuen heinean laguntza ukatuko Jaunaren izenean eskatzen zion inori. **Askoren artean**

Jaunaren ituna: Abrahani eginiko **promesak** berri. **Jose Antonio Mujika**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gogoratu zuen bere hauteskunde **promesetako** bat PSOE-PP ituna «indartu eta berreskuratzea» izan zela. Ituna, leialtasun-**promesean** eta zin-hitzean eta hain poliki eta dotore deskribatzen den azken jai-otorduan iristen da bere gailurrera. **Berría - Euskal Herria**

Gizakiari, gizon eta emakumeen arteko maitasunaren aurrean, zorientasun **promesa** bat irekitzen zaio. **Berría - Gaiak**

## 5 etorkizun ona bide duen kirolari gaztea.

Atletak zazpi mailatan ariko dira: juniorretan (emakumezkoak eta gizonezkoak), **promesetan** (gizonezkoak), kros laburrean (emakumezkoak eta gizonezkoak) eta kros luzean (emakumezkoak eta gizonezkoak). **Berría - Kirola**

**Promesen** mailan, Ongai eta Diaz Ulzurrun irurtzundarrekin oso erraz irabazi zuten Garcia II.aren eta Aranbururen aurka (22-10). **Berría - Kirola**

**Promesetan**, Elezkano-Linzoain eta Urrutikoetxea-Aurtenetxe ariko dira. **Berría - Kirola**

**Promesak** : - Elezkano-Linzoain 22; Garralda-Beroiz 14. **Berría - Kirola**

## 6 promes egin ik promestu.

Haurrari **promes egin** zion txoriei eta landetako piztia gaixo guztiei hitz egiten erakutsiko ziola. **Juan Garzia**

Garbi dagoena da Knox doktoreari **promes egin** ziola ahalegin guztia egingo zuela laguntzeko. **Juan Garzia**

Ahaztua zuten biek **promes egin** ziotela Buckbeaken defentsa prestatzen laguntzeko. **Iñaki Mendiguren**

Damianek **promes egin** dio, bera arduratuko dela Leonen familia etorri baino lehen aspiradorea etxe osoan pasatzea. **Hasier Etxeberria**

Ematen zuen gidariak **promes egin** zuela ez geniola hitzik aterako, bidaia osoan ez baitzuen ahorik zabalzen. **Anjel Lertxundi**

Solasaldi labur hari azkena emaitako, **promes eginik** ezen ez nuela bakarrik utziko, handik kanporat jalgi nintzen, non aiduru bainuen gurdizaina. **Joan Mari Irigoien**

Damutu zen andrea egin zuenaz, eta **promes egin** zuen ez zuela gehiago santuaren jaian eskulanik egingo, eta, promesa egin bezain laster, amaitu egin zen odol-isuria irin orean. Onik zen lagunak **promes egin** zion Frantzisko santuari eta agindu zion, beraren merezimenduz gaixoak osasuna berreskuratzen bazuen, meza nagusian parte hartuz ospatuko zuela urtero beraren jaiak. **Askoren artean**

**Promes egin** bazion ere, neska ez zen bera bisitatzera itzuli. **Joanes Urkixo**

-Haraino lagundu baninduzu -segitu nuen-, atzo **promes egin** zenidan bezala, dena bestela aterako zen. **Matías Múgica**

Amak **promes egin** zion Frantzisko dohatsuari, eta honen merezimenduei esker berehala lortu zuen osasuna. **Askoren artean**

## 7 promes egite

Mitinak, ekitaldi koloretsuak, **promes egite** ugari eta arerioarekiko adierazpen garrantzak ez dira faltako kanpainak irau bitartean. **Berría - Harian**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**promes** bat (5); **promes eder** (3); **promes egin** (57); **promes egin zion** (11); **promes egin zuen** (9); **promes egiten** (4); **promes hau** (9); **promes hau egin** (7); **promes hori** (3); **promes hura** (3)

**bere promesa** (12); **egindako promesa** (12); **eginiko promesa** (7); **egiteko promesa** (3); **itzultzeko promesa** (3); **oilarraren promesa** (8); **promesa bat** (11); **promesa batekin** (3); **promesa baten** (3); **promesa bete** (11); **promesa bete zuen** (3); **promesa eder** (4); **promesa egin** (26); **promesa egin zuen** (5); **promesa hori** (6)

**egindako promesak** (8); **eginiko promesak** (4); **nire promesak** (3); **promesak beteko** (4); **promesak egin** (8); **promesak eginez** (3); **promesak egiten** (4); **zeure promesak** (4)

**egindako promesaren** (3); **zeure promesaren arabera** (5)

**promesen mailako** (3); **promesen mailan** (7)

# promesaldi iz promes baten denbora.

## promestu, promes(tu), promesten du *ad* promestu, hitzeman, agindu. ik **prometatu**.

Presidente berriak aldaketa sustatuko duela **promestu** zuen atzo: «Jarrera ireki batekin gobernatuko dut; inongo mendekurik gabe». **Berria - Mundua**  
PP ez bazen aurkezten eta haiek bakarrik aurkezten baziren, zinegotzi guztiak ateraz gero dimititu egingo zutela **promestu** zuten. **Berria - Euskal Herria**  
Atzo hamar luis eskaini nizkizun; gaur halaber dizkizut **promesten**. **Jon Muñoz**

## prometagarri *izond* esperantzak ematen dituena etorkizunari begira.

Mikel Azurmendiri (1994) ikerbide **prometagarria** iruditu zaio Juaristirena inondik ere. **Joxe Azurmendi**

## prometatu, prometa, prometatzen (*orobat prometitu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian prometatu agertzen da*) 1 du *ad* promestu.

Hamasei urte zituen, 1533ko urtarrilean Migel Mailuk bere fedea **prometatu** zionean. **Aingeru Epaltza**  
Osaba, **prometatu** bezala, zirkulutik urrats baterat paratu zen, hari bizkar emanik, bere buruaz ezin segurago. **Joan Mari Irigoien**  
Uste duzu garesti saldu nuela leku garrantzitsu hura: ez, oro **prometatu** nion musu baten truk. **Jon Muñoz**  
Eta **prometatu** zitzaionaren hautematea Jainkoaren egintzak (gorets bedi!) zirelako froga hauxe da, ez zitzaizkiola jakinarazi egintza-atributuak besterik. **Xabier Kintana**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Eta holaxe bizi gara, holaxe goaz bide luzean Lur **Prometaturantz**. Ertzioko edozein kiderentzat, are gehiago Joana Albretekoaren menpeko izanik, lur **prometatuaren** suerte bat zen Biarno. **Bernardo Atxaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**prometatu bezala** (3)

## prometear *izlag* Prometeori dagokiona; gizakiagan sinesten duena. ik **prometeiko**.

Gizon primitibo batek, [...] aspalditxo geldí geratuak, orain berriro askatu zuen bere **prometear** *élan*-a sozialki ezinbestekoa den ahalmen hori berori pertsonalitate sortzaileengana, aitzindari bide-urratzaile gisa agertzen zitzaizkionengana, zuzenduz. **Iñaki Mendiguren**

## prometeiko *izond* Prometeori dagokiona; gizakiagan sinesten duena. ik **prometear**.

Horren eraginez edo, barra-barra erabiltzen ditugu karga moral sekulakoa darien eta inoiz bukatzen ez diren kizun **prometeikoak**, kutsu subliminal moralista eransteraino euskal bizitza egunerokoari: euskaldunok, antza, dena dugu kizun. **Anjel Lertxundi**

Parkean nengoelarik bera baino bost aldiz handiagoko ogi-puska baten garraioan ari zen inurri gutzit heroi **prometeiko** bati begira, Dostoievski dontsua hurbildu zait. **Anjel Lertxundi**

## prometitu ik **prometitu**.

## promiskuitate 1 *iz* nahas-mahasa.

**Promiskuitate** hartan, han, piztia artean, eta zera zegoela! zezena! **Joxean Sagatzizabal**

### 2 zenbait pertsonetikiko sexu harreman nahasia.

Ezkontzatik kanpoko harremanak, **promiskuitatea** eta emakumeen komunitatea ez direla bekatu... **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Pentsatzen zuten nahi gabeko haurdunaldiak, abortuak, dibortzioak, **promiskuitatea** eta baita indarkeria sexuala ere amaituko zirela heziketa sexualarekin. **Luis Elberdin**  
**Promiskuitatean** bizi izan zen, irritsezko zurrunbilo baten erdian. **Oskar Arana**  
Euskaldun bat izan zen [...] bere furfuría sektarioan, Ostiral Santuko egunean, zenbat urtez ez gara gogoratzen, **promiskuitatezko** parranda publikoak antolatzen ere iritsi zena. **Askoren artean**

### 3 (hitz elkartuetan)

Aurreko testuinguru batean ikusi dugunez, gizarte-desintegraziozko garai baten bi ezaugarri nagusi **promiskuitate**-zentzua eta batasun-zentzua dira. **Iñaki Mendiguren**

## promiskuoa *izond* zenbait pertsonetikiko sexu harreman nahasia duena; harreman modu horri dagokiona.

Gure senide gertukoena bezala, giza primateok ere ez gara espezie monogamoak, oso **promiskuoa** baizik. **Luis Elberdin**  
Haien portaera sozialarengatik eta jarduera sexual **promiskuoa** eta sarriarengatik. **Luis Elberdin**

## promiskuoki *adlag* nahas-mahasean.

Susannaren, bada, meneko eta laguntzaile zen Marchin [...] zeinaren apaletan **promiskuoki** lerrokaturik baitzeuden hestebete, apaingarri sakratu, kutun eta otoiitz-liburuak. **Juan Garzia**  
Material akastuna, ordea, hornitzaile bien paperetan **promiskuoki** bildurik gertatu zuan. **Juan Garzia**

## promotora ik **promotore**.

## promotore (*orobat promotora g.er.*) 1 *iz* sustatzailea.

Hizlari: Jakes Iroume Irulegiko auzapeza, Jean Mixel Galant kontseilari orokorra, [...], Jean Pierre Indaburu **promotorea**, Antton Curutcharry baigorriar gaztea. **Herria**  
Bera **promotore** den eraikuntzetan alor hauek jorratu ez ezik promozio pribatuetan betearazi ere egin behar ditu. **Berria - Gaiak**

70 inguru hitz elkartuak, 72 inguru **promotore** eta lurzoruak jabeak. Berria - Euskal Herria  
Orain, bi gisetako bizitegiak nahi dituzte hor eraiki: sozialak behereko partean, nagusiki jende adintsuarentzat HLM sozietatearekin; gainera partean aldez hiriak **promotore** pribatuak lehia ezartzen ditu. Herria  
Harenak ziren edo dira: *Setim* **promotore** pribatuak 180 etxe eraiki dituen gunea, Herriko Etxeak berriki erositako Agerreko jauregia, [...]. Herria  
1991n ondo saldu geunsoan "Inmo-Viz" **promotoreari**. Txillardegi  
*Last Tour International* **promotorak** jakinarazi du Santanderren ekainaren 22tik 24ra bitartean egingo den jaialdiaren egitaraua. Berria - Kultura  
Kontzertu antolatzaile gisa *Noise on Tourek* eskuratu duen garrantziaren lekuko dira **promotoreak** datozen hilabeteotarako iragarri dituen taldeak: *Hugo Race&True Spirit*, *Nine Pound Hammer*, *Mick Harvey*, *Demolition Doll Rods* [...]. Berria - Kultura  
2.000 libra inguru batzea lortu ondoren, alde egin omen zuen **promotoreak**; jakina, horixe bai ekimen onuragarria! Iñaki Heras

## 2 (hitz elkartuetan)

Nire aita, Angelxo, Degrela jauna, Real Madrideko zuzendaritzako beste jaun bat eta Espainiako boxeoa **promotore** handiena. *Last Tour International* kontzertu **promotoreak** nazioarteko musika jaialdia antolatuko du Bilbon uztailaren 13tik 15era. Bernardo Atxaga

## promozio 1 iz sustapena.

Autorearen obraz hitz eginez gero, proiektzioak hitz egingo nuke, ez **promozioaz**. Ana Urkiza  
Irakasleen **promozioa** eta soldataren pizgarriak batez ere ikerkuntzan oinarritzen direla. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu  
Publikatzearen bide horretan lagunduko dion **promozioa** egiteko astia falta du. Ana Urkiza  
Bistan zegoen Anek oso ondo zekiela bere buruaren **promozioa** egiten. Xabier Mendiguren Elizegi  
**Promozioak** argitaletxe handiek antolatzen dituzte eta idazle konkretu batzuekin. Ana Urkiza  
80ko hamarkadan, Espainiako telebista kate pribatu bateko programa ospetsu batean barrabarra egin zen "Cacao Maravilla" izeneko txokolate baten **promozioa**. Iñaki Heras  
**Promoziorako** diru gabeziak kexu dira editore gehienak. Berria - Kultura  
Hemen gaidiko hamar bat hazkurriren **promozio** bateratua sustatzeko sortua den APPAB elkartearekin. Herria  
**Promozio** handia egiten ez bada, komunikabideetan iragarkiak jarri ezate baterako, oso zaila da film bati lekua egitea. Berria - Kultura  
Lehen mementoan harridura sor lezake [...] jendeak teologiako ikasketak **promozio** sozialaren ikuspuntutik baliagarri bezala edukitzeak. Askoren artean

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Promozio** kanpaina bitxiaren ondoren produktuaren kaleratzea etorri zen: aldiakaria, alegia. Txema Ramirez de la Piscina  
Oraingotz, **promozio** alea beizik ez dugu eskuratu, "Kaixo Ardizain" kantuekin. Herria  
Segidan MTVren boikota helduko zen, **promozio** bideokliparen mezua arrazista zela medio. Patxi Iturritegi  
«70eko hamarkadako kluxe onenekin batera, generoaren oinarriko eritimoak ageri ditu», dio disketeak banatutako **promozio** orriak. Berria - Kultura  
Dubliner bidaia bat tokatu zitzaion Eroskin, aurrez egindako bidaia baten **promozio** zozketan berak jakin gabe parte hartu zuelako. Pako Aristi  
Hantxe gelditu nintzen, bakarrik, nire **promozio**-lekuan. Joxan Eloseggi  
Biografoak inprimaketa eta **promozio** kostuak berdintzeko modurik aurkituko balu [...] pozik ekingo lioke hain kultur balio handia duen lana argitaratzeari. Anjel Lertxundi

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lakuak araua onartu zuen otsailaren, alkateak udal **promozioak** Etxebideren zerrendaren arabera zozketazera behartzeko. Berria - Euskal Herria

## 4 titulu, edo gradu bat denbora berean lortzen duten pertsonen multzoa.

Hirurogei bat lagunek osatzen genuen geure **promozioa**, bi gelatan banatuta, A eta B. Joxerra Garzia  
Biak aurtengo **promozio** ingeniariak. Herria  
Inkestak 2002. urtean graduatu zen **promozioaren** analisia egin du. Berria - Euskal Herria  
Mondragon Unibertsitateko 2000. urteko **promozioaren** %90,7 lanean ari da. Berria - Ekonomia  
Fakultatean bi gorpu erabiltzen genituan laboratoriorako praktikak egiteko, eta urtez urte bi gorpu berberak zitun, mila **promozio** ezberdinek bisturia sartu zietenak. Harkaitz Cano  
Denak gazteak ziren, denak ziren euren **promozioetako** azkarrenak, distiratsua. Pako Aristi  
Heziketa Fisikoko lehenengo **promozio** haietako partaideak ginen, Gasteizko fakultatera ikastera baino gehiago ondo pasatzera etorri ginenetakoak. Jon Arretxe  
Lagunak galdurik eta **promozio** berrietako gaztetxo ikastunz inguratutik ikusi genuen geure burua. Jon Arretxe  
Badirudi sartu berri den kartzela zaintzaile **promozio** gazteak zuhertasun handiz aplikatzen duela legea. Karlos Linazasoro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**promozio kanpaina** (4)  
**promozioa egiteko** (5); **promozioa izango** (3)  
**lehen promozio** (5); **promozio** (3)

## promozio bide (orobat promozio bide) iz sustatzeko bidea.

Idazlan baten atzean argitaletxe, **promozio bide**, merkatu eta interesak daudela, denak ere borrokan zer idazlan gailurrean jarri edota ixiltasunera bultzatu. Berria - Kultura  
Neurketa horren ondorioz errazago proposa daitezke **promozio** bideak, dela soldatan dela ibilbide akademikoan ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

## promozionatu, promoziona, promozionatzen du ad sustatu.

Argitaletxe batek idazle bat **promozionatu** nahi badu, kritikek hori bideratuko dute. Ana Urkiza  
Hargatik dute bankuek eta gainerako erakundeek holora interesa artistak lantzen eta **promozionatzen**, eta bazter guztiak artez betetzen. Iñaki Segurola  
Penelope Cruzen gorputz osoko argazki hortera bat hautatu dute filma **promozionatzeko**. Harkaitz Cano  
Liburua ez da batera **promozionatzen**, hil egiten da jaio orduko. Ana Urkiza  
Pioneer konpainiak Sunskit marka daramaten sodak **promozionatu** nahi ditu. Iñaki Zabaleta  
Frantsesek edozein aitzakia hartzen dute turismoa **promozionatzeko**. Mikel Hernandez Abaitua

## promulgatu, promulga, promulgatzen du ad lege eta kidekoez mintzatuz, ofizialki publikatu, indarrean jarri dadin.

Errepublikako presidentek hamabost egun ditu legea **promulgatzeko**. Berria - Ekonomia  
Kristandadeak bere legeak **promulgatu** zituen, gizarte-jardueraren eremu osoa hartzen zutenak Elizan eta Estatuan. Iñaki Mendiguren  
Legeak ezagutzea **promulgatu** behar dituen legegileari egotzen zaio. Esteban Antxustegi



Estatuek ingurumenari buruzko lege eragingarriak **promulgatu** beharko dituzte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde  
Karakalaren ediktua K.o. 212an **promulgatu** ondoren, Erromatar inperioko gizonezko aske guztiak, salbuespen txiki-txikiekin, erromatar hiritar izan ziren. Iñaki Mendiguren

## 2 (era burutuaz izenondo gisa)

Lege **promulgatuak** subiranoarengandik datozela, zuzenki eta filosofikoki hitz eginez, subiranoaren ahotik jaso direnean bakarrik jakin daiteke. Esteban Antxustegi

## promulgazio iz promulgatzea.

Itzasoz bestaldetik haien lurraldera sar zitezkeen etorkinen kopurua zorrotz murriztuz 1921 eta 1924ko **promulgazioen** bidez. Iñaki Mendiguren

**Promulgazioan** bi gauza azaldu behar dira: bat, legea promulgatzen duenak edo dutenek botere legegilea edukitzea; edo, daukanaren edo daukatenen baimenarekin egin dezatela; bestea, legearen zentzu propioa da. Esteban Antxustegi

Legegilearen borondatea deklaratzan ez bada, ez da legea; eta hori **promulgazioari** esker egiten da. Esteban Antxustegi

## pronominal 1 izond izenordainari dagokiona.

Osagai **pronominalak** edo loturako partikulak erabiltzen badituzte, lehenagoko edo etorkizuneko esaldiei dagozkienak. Xabier Arregi

## 2 aditzet mintzatuz, izenordain bihurkariez eratzen dena.

Esan dezakegu indoeuropar hizkuntzak bazuela neutro singularreko *-d* bukaera, adjektiboek agertzen zuten *-m*-tik desberdina zena, **pronominala** esaten diogun flexioan. Isabel Arrigain

## pronostiko 1 iz susmo edo aieruetan oinarrituriko iragarpena.

Elizabeth erreginari aldiari behin **pronostiko** eta iragarpen batzuk egitearen truke, lasai bizi eta ikasketetan murgiltzeko aukera izan zuen John Deek... J.M. Olaizola  
"Txiliiku"

**Pronostiko** guztien aurka, letra adintsu hura nik altxa asmo nuen eraikuntza intelektualaren zutabe bihurtzeko zorian zegoen. Bernardo Atxaga

**Pronostikoren** bat egitekotan... Berria - Kirola

Zaila da **pronostikoa** egitea, halere nik Koteto jotzen dut faborito, bera txapeldun handia baita. Berria - Kirola

Denek **pronostikoak** egiten dituzte gurutzatuek erantzungo dutenari buruz. Jon Alonso

Berak serio-serio **pronostikoa** bota du: «Juanek eta Peiok irabaziko dute, 22-15, hori bai Aimarren aurka lan asko egin beharko dute». Berria - Kirola

Lasterketari dagokionez, **pronostikoak** bete ziren. Berria - Kirola

**Pronostikoak** beteaz, berak lortu zuen boto kopuru handiena, ponderazioa egin eta gero. Berria - Euskal Herria

Partida hasi aurretik **pronostikoek** faboritotzat jotzen bazituzten ere, atzokoan urduritasunak kalte handiegia egin zien Iriondo eta Rekalderi. Berria - Kirola

**Pronostikoek** neurrak lehiatu bat aurreikusten bazuten ere, atzokoan Txafee eta Laskurain jaun eta jabe izan ziren Iruñeko Labriten. Berria - Kirola

Bilbao Basket Zaragozara abiatuko da gaur, **pronostikoak** hausteko asmoz. Berria - Kirola

## 2 diagnostikoaren arabera sendagileak egiten duen eritasunaren aurreikuspena.

**Pronostikoak** ziurtasunik gabea izan behar zuen, ordurako I. jaunaren egoera egonkorra zela zirudien arren. Xabier Olarra

Orain arte, gaixo baten oheburura deitutako medikuak diagnostiko bat egiten zuen, eta hartatik saiatzan zen eritasunaren bilakaera aurreikusten, hots, **pronostikoa** egiten. Juan Garzia

Gaitzak gero eta lehenago diagnostikatu, **pronostikoa** hobea izaten da. Berria - Gaiak

Disfagiaren %80k **pronostiko** ona izaten dute. Berria - Gaiak

Medikuaren agiriaren arabera, «**pronostiko** erreserbatuko gaixotasuna du». Berria - Euskal Herria

Gibelean tumore bat duela eta medikuntzak diagnostikatutako **pronostikoaren** kontra, zenbait urte gehiago bizitzea erabaki du. Berria - Kultura

## 3 (meteorologian) iragarpena.

Datu zehatzak ematea normahik egin ezazakeen, baina nor ausartuko zen **pronostikoa** egitera? Pello Zabala

Balioa zen sarritan bere **pronostikoa**, baina informazioa emateko modua zuen aparta. Pello Zabala

Hauxe zen baserritar eta artzain askorentzat neguko atariko anuntzio eta **pronostiko** fidagarria. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pronostiko ona izaten** (3)

**pronostikoak bete** (3); **pronostikoak egiten** (3)

## pronostikogile iz eguraldi iragarpenak egiten dituen pertsona.

Ate asko jo genuen **pronostikogilearen** bila, baina Bizkaiko Golkoko Meteorologia Zentrokoa batik bat. Pello Zabala

## pronto 1 adlag prest.

Hain urduri eta adeitsu emakume gazte batekin zeudelako eta hain aitakoi aldi berean, aholku bat beti **pronto** ezpainetan. Joxean Agirre

Hantxe ni **pronto**, zain, bezperatik kuidoaz landutako iragarpenarekin. Pello Zabala

Bueltatzerakoan horra non daukan kazola erbiarekin **pronto**. Koro Navarro

Kotxea **pronto** zegoak, nahi duanean eramango hau hirira, hik esan. Xabier Olarra

Ama alai zegoen, zopa **pronto** zegoela esateko igo zenean. Koldo Biguri

- **Pronto** hago? -esan zidan, autotik jauzi batez atereaz-. Koro Navarro

Nire mutilak **pronto** daude. Koldo Biguri

Kanoiak bolbora franko dauka, eta helburu berriak begiz jotzeko **pronto** dago. Berria - Kirola

Gezurra **pronto** izaten nuen. Eskarne Mujika

Algortako pisu batean egokitu ginen presoek dena **pronto** izan arte. Rafa Egiguren

Badaezpada ere, beti **pronto** dituen esaldiak esango ditu noizik eta behin. Xabier Etxabe

## 2 (-ko atzikiaren eskuinean)

Apusturen bat egiteko **pronto** inork erronka botaz gero. Xabier Etxabe

Mikrouhin labean hiru minutu egin eta mahaira eroateko **pronto**. Edorta Agirre

Luzaz bizi izan zen hango kobazuloan ermitau, beti ere bidaiariei laguntzeko **pronto**. Martin Anso

Gehiatsuenak, baina, lasaiago sentitu dira, udako beren umezurtegi partikular baten beste astebetarako askatasunaz gozatzeko **pronto**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Zoaz infernura, Fionn Mac Cumhail! -hots egin zuen, bere ezpata altxatu eta Fionni zartada emateko **pronto**. **Joanes Urkixo**

Mutila ere amore emateko **pronto** zegoen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egunkaria tolestu zuen, hitz egiteko **pronto** zegoela adieraziz. **Koro Navarro**

Etorrinak hartzeko **pronto** al gaude, akaso...? **Pello Zabala**

Bostak dira eta kalera ateratzeko **pronto** da, Miren bila etorriko baitzaio laster. **Xabier Etxabe**

Haren begi argi tristeek aspertuak ziruditen, denborak ekar zitzaizkeen gauza bitxi guztietarako **pronto**. **Koro Navarro**

Haien buru Morgana zetorren, eta gerrarako **pronto** zegoen baldin eta ez bazioten mirabe bat itzultzen. **Patxi Zubizarreta**

Festa egunerako **pronto**, horrela. **Pello Zabala**

-Etzirako **pronto** zaukaagu kotxea -esan zion Bautistak. **Koro Navarro**

### 3 **bezain pronto** bezain laster.

Etixeratu **bezain pronto**, telefona hartu eta komisariara deitu zuen. **Harkaitz Cano**

Ni hemen nintzela konturatu **bezain pronto**, alde egin zian. **Iban Zaldua**

Gora iritsi **bezain pronto** sakatu nion berriro jaitsierako botoiari. **Joxean Agirre**

-Nahi baino beranduago, baina ahal **bezain pronto**. **Arantxa Iturbe**

Larryk bere lan egutegia zuen, eta aukera izan **bezain pronto** joaten nintzen ni hara. **Koro Navarro**

Gaitzaren agerraldiak, azaldu **bezain pronto**, desagerrarazi egin behar dira, lehenbailehen. **Berria - Gaiak**

Ateetik sartu **bezain pronto** ia, justu hirurei eskua eman ondoren, oraindik mahai buruan esertzeko zegoela, bota zuen lehendabiziko gerora gutxienez hiru edo lau aldiz errepikatuko zuen "muga zaitzete gertakizunetara" bere ustez desegoki hura. **Ramon Saizarbitoria**

### 4 (erlatibozko atzizkiaren eskuinean)

Abisaiek astia hartzen duten **bezain pronto** espero ditudala. **Juan Garzia**

Hori etorri zait burura esnatu naizen **bezain pronto**, eta larrituta begiratu diot erlojuari: goizeko hamaikak eta hoge. **Agurtzane Juanena**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**agertu bezain pronto** (4); **ahal bezain pronto** (12); **amaitu bezain pronto** (10); **atera bezain pronto** (8); **beti pronto** (6); **bezain pronto** (328); **bezain pronto ekin** (3); **bezain pronto hasi** (5); **bezain pronto konturatu** (3); **bukatu bezain pronto** (8)

**egin bezain pronto** (10); **egiteko pronto** (7); **eman bezain pronto** (3); **emateko pronto** (4); **entzun bezain pronto** (4); **eseri bezain pronto** (3); **eskuratu bezain pronto** (3); **etorri bezain pronto** (4); **ezagutu bezain pronto** (4); **gertatu bezain pronto** (5); **hartu bezain pronto** (5); **hasi bezain pronto** (25); **heldu bezain pronto** (3)

**igaro bezain pronto** (3); **igo bezain pronto** (3); **ikusi bezain pronto** (14); **iritsi bezain pronto** (14); **izan bezain pronto** (15); **jaitsi bezain pronto** (3); **jakin bezain pronto** (17); **jarri bezain pronto** (6); **jaso bezain pronto** (12); **konturatu bezain pronto** (4); **lortu bezain pronto** (6)

**ohartu bezain pronto** (3); **pronto agertu** (3); **pronto ekin** (3); **pronto hasi** (5); **pronto hasi zen** (3); **pronto jartzen** (3); **pronto konturatu** (3); **pronto zegoen** (5); **sartu bezain pronto** (16)

**ukabilak pronto** (3); **utzi bezain pronto** (4)

## pronuntziatu, pronuntzia, pronuntziatzen du *ad* ahoskatu.

Agian ez du ongi entzun, agian ez dut ongi **pronuntziatu** ingelesez. **Iñaki Zabaleta**

## pronuntziazio *iz* ahoskera.

Neska bat, ingeles **pronuntziazioarengatik** hispanoa zitekeena, jarri zitzaion ondoan. **Iñaki Zabaleta**

## pronunziable *izond* ahoska daitekeena,

Mundu **pronunziablearen** barnean ere badira, ez dakienarentzat, esaten zail xamarrek diren hitzak eta izenak. **Iñaki Segurola**

Edozer gauza da inpronunziablea *impronunziable* esateko laineza pedanteak harrapatu duenarentzat, hots, mixeria **pronunziable** baten ziegan alferrik galdutako izpirituarentzat, eta, ororen buru, anabasa ero itxuragabe baina hagitx **pronunziable** bat baizik ez den mundu garatu edo informatu honentzat. **Iñaki Segurola**

## pronunziatu, pronunzia, pronunziatzen da *ad* iritzia azaldu.

Donostia ez zen mugitu, probintziako beste herriak nahi zuten bezala **"pronunziatu"** zitezela utzita. **Koldo Izagirre**

## proosino ik **prozesio**.

## proosione ik **prozesio**.

## proozone ik **prozesio**.

## propaganda 1 *iz* zerbait ezagutaraztea, jarraitzaileak edo erosleak lortzeko.

Nork erabaki lezake zer den informazioa eta zer **propaganda**? **Txema Ramirez de la Piscina**

Ekintza hura **propaganda** bidez azaltzeko ahaleginak atxiloteta asko ekarri zituen. **Rafa Eiguren**

Aholkulariek eskatzen zutena baino gutxiago gastatu zuen armadan, baina, **propagandaren** bidez, zutena baino lau aldiz gehiago zutela sinetsarazi zien denei. **Harkaitz Cano**

**Propagandak** badaki komeni denean xalo eta inozo itxura hartzen. **Joxerra Garzia**

Saiatu zen Berlinen egin ziren Joko Olinpikoak nazien aldeko **propaganda** bihurtzen. **Pello Salaburu**

**Propagandarekin** edozer lor daiteke, ezta Goebbels? **Harkaitz Cano**

Arazoa zen [...] Francoren **propagandak** komunistatzat azaltzen gintuela. **Alberto Ladron Arana**

Kontuan izan behar duzu naziek fede itsua dutela **propagandan**. **Alberto Ladron Arana**

- **Propaganda** inprimatzeko. **Harkaitz Cano**

**"Propaganda"** esaten diote adituek, baina "gezurra"ren beste izen bat baino ez da, azken batean. **Joxerra Garzia**

Bada, noski [...] bere burua erakutsielihoa edo ganadua bailitzan, **propaganda** edo fama edo nik ahal dakit zeren bila. Karlos Linazasoro

"Politika" zioen apala **propagandako** liburu eta panfletoz beterik zegoen. Koldo Biguri

Arriskua, oinarritzko heziketa unibertsalak **propagandarako** irekitzen zuen aukera zen. Iñaki Mendiguren

Artxibo pribatueta, garaiko filmetan eta **propagandazko** dokumentaletan arakutatuko lanekin, 36ko gerraren inguruko *The black dog* (Txakur beltza) collage poetikoa aurkeztu zuen atzo. Berria - Kultura

## 2 (izenondoekin)

Komunikabideak ahaltsuago, eta **propaganda** erabakigarriago Apaizen sermoiari **propaganda** ofiziala eta film amerikarretako publizitate subliminal guztia erantsita.

Joxerra Garzia

Borroka espirituala hasi zuten, non arma nagusia **propaganda** "ideologikoa" izango baitzen. Iñaki Mendiguren

**Propaganda** demokratikoaren abiaburuetan iragar zitekeenaren aurka, hitzaren garrantziak mintzo denean ekintzak prestatzeko, alegia, arrakasta lortzeko erabilgarri den arrazoinamenduaz ari da. Askoren artean

"Candido" izeneko astekari batean hasi zen idazten, **propaganda** demokristaua eta antikomunista eginez. Koldo Biguri

Pedagogia iraultzailea esaten genioan hari, **propaganda** armatua. Xabier Montoia

Hitz egin behar da, gizona, jendeari azaldu egin behar zaio nora iritsi nahi dugun, bestela hedabideen esku geratzen da informazio guztia, hedabide horien **propaganda** ilunak nahastu egiten du jendea. Pako Aristi

**Propaganda** hutsezko gerra asko dago munduan. Joxerra Garzia

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mahai zabal baten gainean, Don Carlosen aldeko **propaganda** orri mordo bat topatu dut. Metroko bagoietan, eliza baten **propaganda** mezua ageri da. Txillardegi

Bidean nindoala, Odeonsplatzeko zutoin batean **propaganda** afixa batzuk ikusi nituen. Alberto Ladron Arana

Albisteak zabaltzeko metodo modernoek eta **propaganda**-bide berriek, postatik hasi eta irratsaio eta prentsa arterainokoez, txanpongintza inperialean izan zuten baliokidea. Iñaki Mendiguren

Mendeko bi gerrate handietan ikaragarri perfektionatu ziren **propaganda** teknikak. Joxerra Garzia

Banderak, himnoak, indar neurtzeak, **propaganda** aparatuak eta bat egiteak. Iñigo Aranbarri

"Gerra hotza" **propaganda** mailako erantzuna zen armamentu fisikoen mailako erronkari. Iñaki Mendiguren

Kazetariekin ibili ohi zen, **propaganda** zereginetan. Edorta Jimenez

Musikaria zenez, **propaganda**-batailo batean sartu zuten, komisarioen eskumeneko. JOCEkoak gara [...] eta langileen aldeko **propaganda**-jarduerak egin ditugu askatasun sindikal eta politikoak eskatzeko. Felipe Juaristi

Behin eta berriro errepikatuta, azkenean Hitlerren **Propaganda** ministro zen Joseph Goebbels-ek berak ere, sinetsi egin zuen egia usteko gezurra. Iñigo Aranbarri

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Demokrazia Kristauaren prentsa-bulegoaren aginduetara, oilo katolikoek hauteskunde-**propagandarako** lan egiten dute. Koldo Biguri

## 5 propaganda-orri, mezu edo kidekoen multzoa.

Pentsu konpainia baten **propaganda**, 1924koa. Jon Maia

Lehorrean zenean, baforean gordetzen zigan **propaganda** guztia. Koldo Izagirre

Batzuetan **propaganda** ekarri izan dut. Agurtzane Juanena

**Propaganda** ere bota dute. Bernardo Atxaga

Jende gehiago geureganatzeko asmotan genbiltzan - **propaganda** banatzeko, besteak beste-, baina ererikoak gertatu ziren. Rafa Egiguren

Benetan ari naiz, neuk bakarrik zabaldu izan dut **propaganda**. Agurtzane Juanena

Sigla horiekin hornitutako panfletoak zabaltzeari ekin genion hortik zehar eta **propaganda** sartu genuen hainbat egunkari eta aldizkaritan. Jon Arretxe

Posta-kutxan **propaganda** baizik ez du aurkitu. Iban Zaldua

Sindikatuak **propaganda**, larunbaterako. Jon Maia

**Propaganda** subertsiboa zabaltzea izan zen nire ordura arteko lana. Rafa Egiguren

**Propaganda** instituzionala jaso dut garraio publikoaren alde. Pako Aristi

**Propaganda** bereko beste orri batean txaleten aurkako informazioa dator. Pako Aristi

## 6 (hitz elkartuetan)

Armadaren izen onaren zikintzailea, milizianoa, salataria, medikua fronteant, **propaganda** zabaltzaile zorrotza eta zinikoa... Edorta Jimenez

- Askok, hautes **propaganda** izango zelakoan, gogo biziz hartu zituzten, hautagaiarekiko begirunez. Patxi Zubizarreta

## 7 propaganda egiten

Nik, eskolan, **propaganda egiten** nuen inoren beldurrik ez duen fanatiko erreboltari baten moduan. emakume horrek ez dik egunkarietan **propaganda egiteko** beharrik, bezeroak lorez beteta joango zaizkiok-eta ate joka. Pello Lizarralde

Estatu laikoa da Espainia, eta ez da inola ere onargarri eskolan inork erlijio jakin baten aldeko **propaganda egin** dezan, ez hitzez ez janzkeraz. Joxerra Garzia

Eman dezagun Casarini izeneko hizlari bat ari zela hizketan keinu handiak eginez gobernuaren aldeko **propaganda egiten**. Pello Lizarralde

Eskualde hartan ez dela neholaz ere apez ihardokitzailerik onetsiko, eta, are gutxiago, lehengo eginkizunak bete eta iraultzaren kontrako **propaganda egiten** duenik.

Elena Touyarou

Munichen barrera dendaz denda ibili beharko bainuen nire produktuen **propaganda egiten**. Alberto Ladron Arana

Zer esan dezagun nahi duten, horrexen **propaganda egiten** digute, guk zer ikusi huraxe kondatuko baitugu. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldeko propaganda** (15); **aldeko propaganda egin** (3); **hauteskunde propaganda** (8)

**propaganda batailoiko** (3); **propaganda egin** (9); **propaganda egitea** (12); **propaganda egiteko** (8); **propaganda egiten** (13); **propaganda eman** (3); **propaganda gisa** (5); **propaganda handia** (3); **propaganda hutsa** (11); **propaganda hutsa da** (3); **propaganda kanpaina** (4); **propaganda politikoa** (4); **propaganda tresna** (4); **propaganda ugari** (3)

**hauteskunde propagandan** (3)

## propagandatsu *izond* propagandaz betea.

Paraiso **propagandatsuak**. Pello Zabala

## propagandista *izond*/iz propaganda egiten duena.

Kazetari **propagandista** probintziano bati. Joxe Azurmendi

Al Bahlul Al Kaedako «**propagandista** arriskutsua» dela esan du Pentagonoak. Berria - Mundua

Txekhoven **propagandistarik** handienetakoa bihurtu zen birraitona. Iban Zaldua

Musulman lurretan ibili zen boladan [...] indo-arabiar zifretara bihurtu zen; haren **propagandista** izan zen herrialde kristautuetan. Jon Muñoz

Mullerren sistemaren **propagandista** zen aldetik, atsegingarria gertatzen zitzaion ikustea zaindariak harridura nabarmenez begiratzen ziola. Jose Morales

## propagandistiko *izond* propagandarena, propagandari dagokiona.

Nolanahi ere, testu **propagandistiko** haietan aurkitu zuten, non bestela, Godotek begitan hartuta zeukan Donostiaren irudi postalkara. **Iñaki Iñurrieta**  
Ikuspuntu **propagandistiko** batetik begiratuta, Kavkaz Centerrek zabaldu dituen bideook golpe gogorra izan daitezke Kremlimentzat. **Berria - Mundua**  
Edo arrazoi "kontundente" **propagandistiko** bihurtzea. **Joxe Azurmendi**

## propagatu, propaga, propagatzen du *ad* hedatu.

Gure xedea eta helburua atergabeko lana eta azpilana egitea zela, urbiaindarraren artean gure sinesteen eta gure ideien hedatzeko eta **propagatzeko**. **Joan Mari Irigoien**

## propano *iz* hidrokarburo ase, gas sukoia, gas naturalaren osagaia dena (CH<sub>3</sub>-CH<sub>2</sub>-CH<sub>3</sub>).

Ingurumena, Jose Manuel Gisasolaren arabera, «gero eta energia elektriko, fuel-olio eta **propano** gutxiago kontsumitzeko joera dago». **Berria - Ekonomia**  
Karabanaren barruan **propanozko** bi butano eta kanpingasa zeudenez, Ertzaintzak errepidea itxi egin behar izan zuen. **Berria - Euskal Herria**

## propedeutika *iz* prestatze ikasketa, ikasketa sakonagoak ahalbidetzen dituen.

Logikak **propedeutika** gisa zientziaren ataria besterik ez du osatzen. **Ibon Urbarri**  
Estetika transzendentalak eta, bereziki, Analitika transzendentalak, "zientzia gisa agertu nahi duen etorkizuneko edozein Metafisikaren" aurrekariak edo **propedeutika** garatzeko egitasmoa jasotzen du. **Ibon Urbarri**  
Arrazoimen hutsaren zientzia, bere jatorri eta mugen juzgaketa soilaren zientzia, arrazoimen hutsaren sistemarako **propedeutikatzat** har daiteke. **Ibon Urbarri**

## propedeutikoki *adlag* ikasketa sakonagoak ahalbidetzen dituela.

Guk egiazko adieran Filosofia dei diezaiokeguna Metafisikak osatzen du benetan, beraz, bai izadiarenak, baita ohiturarenak ere, eta bereziki bere hego propioekin ausartzen den arrazoimenaren kritikak, hots, ariketa gisa (**propedeutikoki**) aurretiaz doan kritikak. **Ibon Urbarri**

## propentsio *iz* joera, jaugina.

Horretarako gauzaren ezaugarriak eta gaitasunak era disposizionalista batean definitu behar dira, joera edo **propentsio** legez ulertuta (probabilitateen bidez). **Askoren artean**

## propi ik **propio**.

## propial *iz* propioa, berezia.

Nork bere mundua duelako, **propiala** eta berezia, eta nor bere mundutik mintzatzen delako, azken batean. **Joan Mari Irigoien**  
Geroztik zazpi mila urte igaro badira ere, funtsean ez omen da aldatu gure sentiberatasun **propiala**. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Kontua da, polizia ezberdinez akituta dagoen gure herri hau, bere polizia **propiala** maitatu beharrean aurkitzen dela orain. **Hasier Etxeberria**  
Alboan nuen gizaseme gorraizetu samartzen hasiari bere estasi-une **propialari** buruz itaundu nion. **Karlos Linazasoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hizkuntza propiala** (3)

## propialki *adlag* berez.

Gau garbi eta baketsua behar du bai: baina hego xuabe geldoa, hego puntua menditik behera disimuluan datorrenkoa lur-haize, lehor-haize, barren-haize hori genuke terrala, berez, **propialki** esanda. **Pello Zabala**

## propietate 1 *iz* ezaugarria, berezitasuna, nolakotasuna.

Zuhaitz-mota bakoitzari dagokionez, azaldu ditut beren elementu-osaeraren arabera zein **propietate** dituen itxuraz bakoitzak. **Santiago Iruetagoiena**  
Zenbaki errealeen beste **propietate** bat definitzen lagunduko digute orain ekuaziook. **Jon Muñoz**  
Zuzentasunaren esentzia bera du, eta Zuzentasunaren eta Egiaren **propietate** guztiak bereganatzen ditu. **Joan Mari Lekuona**  
Logika batek **propietate** hau badu, logikoki baliozkoak diren formulak sistema formalaren teorema izango dira. **Askoren artean**  
Lockek "**propietate**" hitza erabili beharrean, "kualitate" hitza erabiltzen du. **Askoren artean**

## 2 (izenondoekin)

Euritik jasotzen den urak **propietate** osasungarriagoak izaten ditu. **Santiago Iruetagoiena**  
-Horrez aparte, -esan zuen ingelesak- badu Filosofoen Harriak **propietate** izugarririk. **Xabier Aranburu**  
Aspirinaren **propietate** mirakulosoek edo *Bisolvon Compositumaren* onurez panfletoak idazten ote dituen nago. **Harkaitz Cano**  
Material polimeriko bat sendotzeko eta bere **propietate** mekanikoak hobetzeko gehigarriak erabiltzea oso gauza hedatua da plastikoaren munduan. **Berria - Gaiak**  
Konposatu bakoitzaren **propietate** kimikoak ere aztertu ziren, usainarekin korrelazioaren bat aurkituko zelakoan. **Irene Aldasoro**  
Objektuen **propietate** espazialak ere gure sentikortasunarekin daude erlazionaturik, ez dira gure sentimeneko independenteak. **Askoren artean**  
Proposizioen logika honek **propietate** metalogiko interesgarriak ditu [...]: logika honetzako ohiko sistema formal bat finkatu ondoren, zuzena eta osoa dela gertatzen da. **Askoren artean**  
Oxidazioa murriztuta, gainera, zukuak **propietate** nutritibo eta bereizgarri organoleptikoak atxikiko dituzte. **Edorta Agirre**  
Odolak dituen **propietate** bikainetarikoa bat besterik ez da bere burua zigilatze ahalmena. **Irene Aldasoro**  
Beste **propietate** garrantzitsua dentsitatearena da. **Berria - Gaiak**

## 3 (hitz elkartuetan)

Egoera horretan gogo-egoera edo gogo-**propietate** murriztezin horiek zer arraio diren imajinatzea zaila da. **Askoren artean**

## 4 jabegoa, jabetza.

Era berean, gero eta gehiago dira neska edo merroia **propietate** bat gehiago dela uste dutenak. Markos Zapiain  
Inguru guztiko harresi eta burdinazko ateez babesten zuten, tinko eta gogor, jabeen **propietate** zentzua edo aparte bizitzeko gogoia. Joseba Sarrionandia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere propietate** (3); **c propietate** (3); **propietate bigarrenak** (3); **propietate fisiko** (4); **propietate fisikoak** (3); **propietate komun** (4); **propietate lehenak** (4); **propietate mekanikoak** (3); **propietate metalogiko** (3); **propietate onak** (3); **zein propietate dituzten** (3)

**c propietatea** (3); **zakurra izatearen propietatea** (3)

**bere propietateak** (3)

## propileno iz gas egoerako hidrokarbuo koloregabea, petroleoa fintzetik ateratzen dena.

Bada gure artean bere patua ezabaezinkiro bromoari edo **propilenoari**, -NCO taldeari edo azido glutaminikoari loturik eduki duenik. Juan Garzia

## propina 1 iz eskupekoa.

Hura ordaintzerakoan **propina** bat emanaz erakutsiko nion nire esker ona. Pako Aristi

Sei dolar eta hirurogeiko lenteja platerkada bat hartu eta hamar dolarreko **propina** utzi dit. Harkaitz Cano

Ez diat uste utzi diodan baino **propina** gehiago espero izango zuenik, ezin jakin inoiz. Joxemari Iturralde

Andreasek eskerrak eman, eta **propinako** dirua edan zuen, baina ez gehiago. Matías Mujika

Bertan geratu zen **propinaren** zain, paineluz kopetako izerdia lehortu eta hiruzpalau eguneko bizarrari hazka eginez. Joxemari Urteaga

Hemengo kamarero batek, **propinekin** bakarrik, egundoko dirutza irabaz lezake gau bakarrean. Harkaitz Cano

## 2 irud/hed

Saio normala amaituta, **propinen** txandan, "Itziarren semea" kantatu zuten, entzuleren batek eskatuta. Agurtzane Juanena

Edo taldeko kide egin edo atxilotuta geratu, eta, horrez gainera, astinaldi bat jaso **propina**. Koro Navarro

## propio (orobat *propi g.er.*) 1 izond berezia, berekia.

Euskal idazleek edo euskal literaturak atzerrian ideia berezi, ezberdin edo **propio** bat saldu dezakeela esango zenuke? Ana Urkiza

Fraide mendikanteek Elizan beren bizimolde **propio** eta bereziaren arabera bizitzeko zuten eskubidea legitimatzeko. Askoren artean

Irakurlea ohartuko zen aurkezle bakoitzak bere izaera zuela, desberdina, **propioa**. Karlos Linazasoro

*Eitiko* izendapenean bi termino bateratzen direla: *êthos* (eta letraduna), bizilekua, egoitza; eta *éthos* (*epsilon* letraduna) norbanakoaren profila, izaera **propioa**. Piarres Xarriton

Arraza bat posible da bere izpiritu **propioa** gabe, izpiritu **propio** bat ez hizkuntza **propioa** gabe. Joxe Azurmendi

XIX. mende hondarrean, bi bizkaitar gaztek, Luis eta Sabino Arana Goiri anaiek piztu zuten euskal bihotzetan nazio **propioaren** aldeko sugarra. Piarres Xarriton

Nazio bakoitzak bere estatu **propioa** izateko duen eskubidearen aitzakiaz, [...]. Piarres Xarriton

Harengatik negar egiten zuenak, berriz, bere gaitz **propioez** zuela samin, eta bere heriotza **propioaz** zuela, ilun eta itzal, gogoeta egiten. Juan Garzia

Emakumearen kapituluaren barruan, publikotasunari espazio **propio** bat eskaini diot. Ana Urkiza

Ezinezkoa zitzaidan lotura politiko-afektibo haiek guztiak etetea eta neure bide **propioan** abiatzea. Joxerra Garzia

Ez zutela sekula halako bikoterik ikusi, kodigo **propio** eta pribatu baten jabe, mundu estralurtar batean bizi zirela zirudien. Eider Rodríguez

Arima lotsor, txepelak ez du munduan misio **propio** bat: haren bizitzea hor-egotea eta irautea izaten da. Joxe Azurmendi

LUR argialetxeak bere baliabide ekonomiko **propioak** arriskatu zituen hiztegi entziklopediko bat argitaratzeko. Pello Salaburu

Nork bere gustua, nork bere iritzia, nork bere maitea eta nork bere gauza **propio** eta bere-berezko mordo bat edukitzera (edo asmatzera) bortxatzen gaituen legea. Iñaki Seguro

## 2 berezkoa.

Liburu honetan diziplinari **propio** zaion konplexutasunetik aparteko ezer ez sartzen ahalegindu gara. Askoren artean

## 3 gramatika-izenaz mintzatuz, berezia.

Izen **propioen** auzian, adibidez, Russellek gutzit baztertuko du izen **propio** batek denotatzea ez den beste eginkizunik izatea. Askoren artean

XIII. mendean bai, izen **propio** gisa agertzen zaigu *Orç'i* bat; izena bai, baina auskalo zerena edo norena. Iñaki Seguro

Zertzeladak, ordua eta izen **propio** bat edo beste ziren soilik faltsuak. Juan Garzia

Beste herrietako mintzairen hizkuntzak hartzen direla kasik izen **propio** bezala, hala nola Italiako "Giroa" eta, nahiz gutiago, Espainiako "Korridak". Herria

## • 4 *adlag* berariaz, nahita.

Ez ninduan heriotzari iheska ibili, baina **propio** haren bila ere ez. Xabier Olarra

Halako batean konturatu ginen umeek **propio** hondatzen zituztela jostailuak. Bernardo Atxaga

Mendoza, esan bezala, gizon xehea izan da, herrikoa, aukera hori **propio** egin zuelako. Berria - Ekonomia

Jakizu, bildu ahal izan ditugun datuen arabera, **propio** eman diotela su aipatu eraikuntzari. Josetxo Azkona

-Askotan iruditzen zait pasarte batzuk niretzat **propio** idatzi dituela. Joxean Agirre

Olazabalgo Don Tirso irundar aberatsa ere, artean, Donibane Lohitzunetik Parisa **propio** joana zela. Txillardegí

Ez da berez sortua izan, **propio** piztua baizik. Joxerra Garzia

Intentzio makurrez juduen aurka **propio** asmatua. Joxe Azurmendi

Sukarri pusketen artean piztu behar zen sua: hartarako **propio** markaturiko uzta biribil baten barruan. Pello Zabala

Baita Frantziatik harrera ofiziala egitera **propio** etorritako Castelnau jeneralak ere. Txillardegí

Horretarako **propio** asmatutako tramankulu batez. Joxerra Garzia

Ke-hodia aldatuta zeukan motor burrunbatsu batean, **propio** ahalik eta zarata gehien atereaz. Harkaitz Cano

Deskuido edo **propio**, ez dago jakiterik. Karlos Linazasoro

Gau soineko bat erosi behar izan zion festarako **propio**. Koro Navarro

Gidariak, handiuste kankailua bera, mugimendu arriskutsuak egiten zituen **propio**. Anjel Lertxundi

## 5 ez-propio izond

"Haragiaren borondatea" esatean adierazten du, haragi-irritserako isuria, gizakiaren borondatearen aurka dagoena, nahiz eta honek bere menpe har dezakeen: gorputzarena da, eta aldi berean arimarena ere bai, nahiz eta arimarena modu **ez-propio** batean dugun, eta hortik etorri indarrak eskatea eta ahultzea. Joan Mari Lekuona

## 6 lehengusu propio ik lehengusu 3.

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**hezkuntza sistema propio** (4); **hizkuntza propio** (4); **honetarako propio** (4); **horretarako propio** (23); **izen propio** (21); **lehengusu propio** (5)

**propio antolatutako** (4); **propio egin** (7); **propio egina** (7); **propio egindako** (10); **propio eginiko** (9); **propio etorri** (6); **propio horretarako** (8); **propio jarritako** (7); **propio**



prestatu (4); propio prestatuturiko (6); propio prestatuturiko (11); propio prestatuturiko (10)

sistema propio (8); sistema propio bat (4)

agentzia propioa (4); ahots propioa (24); araudi propioa (4); bere nortasun propioa (4); bide propioa (19); bilduma propioa (4); bizitza propioa (9); curriculum propioa (8)

eredu propioa (8); eremu propioa (5); esparru propioa (9); espazio propioa (7); estatu propioa (5); estilo propioa (17); estilo propioa duzula (5); etxe propioa (4); etxebizitza propioa (4); hezkuntza sistema propioa (8); historia propioa (4); hizkuntza propioa (16)

ikuspegi propioa (4); irakasleria propioa (5); iritzi propioa (6); izaera propioa (11); izen propioa (17); lege propioa (4); lehengusu propioa (6); leku propioa (5); modu propioa (4); mundu propioa (5); nortasun propioa (18)

politika propioa (5); proiektu propioa (5); sare propioa (9); sistema propioa (20); talde propioa (24)

baliabide propioak (11); estrategia propioak (4); ezaugarri propioak (9); izen propioak (130)

selekzio propioak (4); titulu propioak (4)

gorputz propioaren (4); hezkuntza sistema propioaren (4); interes propioaren (4); izaera propioaren (4)

izen propioen (5)

izen propioarik (4)

## propiodun izlag propioko.

Titan Eguzki Sisteman dagoen atmosfera **propiodun** ilargi bakarra da. **Berria - Gaiak**

Kultura handikoa izateaz gain, gizon sendoa eta irizpide **propioduna** zela ikusi nuen. **Berria - Euskal Herria**

Film zatarrak oso, baina modu askean eginak eta irudi eta ikonografia **propiodunak**. **Berria - Kultura**

## propioki 1 adlag berez; era propioan.

Esan gura da, **propioki** eta zuzenean Volksgeistaren teoria bat ez dagoela; dagoena da, literaturaren azterketak praktikatzerakoan edo historia unibertsalaren filosofia bat eraikitzerakoan, kontzeptu horren erabilpena baliabide -tresna- gisa. **Joxe Azurmendi**

Hori da Ortega-k **propioki** arima kontsideratzen duena, arima korporalaren eta izpirituaren arteko zubia eta iraganbidea. **Joxe Azurmendi**

Hizkuntza honetan posible izango da orokortzeak erabiltzen dituen argudioak **propioki** errepresentatzea, hau da, "oro" edo "edozein" partikulen erakoak. **Askoren artean**

I. Berlinen liburuak Herder ez du **propioki** nazionalista legeaz interpretatzen. **Joxe Azurmendi**

## 2 propio, berariaz.

Alemanez **propioki** ikasi duzu autore hauek irakurri ahal izateko? **Ana Urkiza**

Atera bezain laster helaraziko dizut ale bat esku zuretako **propioki** idatzitako eskaintzarekin. **Pello Salaburu**

## propiozepzio iz giza organismoari gurputz zatien kokapenaren berri ematen dion ahalmena.

Topagune horretan badira denborazko izaerarik ez duten alderdi asko eta asko; pantailan pertzibitzen den espazioaren eta **propiozepzioaren** espazioaren arteko espazio-bereizkuntzaren fenomeno psikologikoa da horietan garrantzikoena. **Josu Zabaleta**

## propiziatorio iz itun kuxtaren gainean kokaturiko urrezko xafla karratua.

Itun-kuxtaren estalkiaren bi ertzetan bi kerubin edo hegadun izaki zeuden elkarren buruz buru eta estalkiari begira: estalkia **"propiziatorioa"** ere deitzen da, berorren gain egiten baitzen barkamena lortzeko ohikunea. **Askoren artean**

Zuen gurasoak, jakintzaz beteak, senidetasunez begiratzen diote elkarri, itun-kuxtako kerubinek **propiziatorioari** bezala. **Askoren artean**

## proporzio (orobat proporzio g.er.) 1 iz gauza baten zatien arteko edo zati baten eta osotasunaren arteko egokitasuna.

**Proporzio** oro, edertasun oro, ordena oro, handi zein txiki, Jaungoiko Jaunagandik soilik izan daiteke. **Imanol Unzurrunzaga**

Edertasunaren sentimena ez dela printzipio, **proporzio**, kausa edo erabilgarritasunetik eratorzen den zerbait, zuzenean ematen dena baizik. **Askoren artean**

Ba ote dago **proporziorik** kirtenaren eta ontziaren artean? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Venus lumaduna edo Cupido kapaz jantzia agertzen badira, gorputz atalen liraintasun eta **proporziorik** bikainenaz ere, [...]. **Imanol Unzurrunzaga**

Ez da guztiz desegokia izango leku estu eta espazio itxietan lan egiten denean, kolomei **proporzio** lerdengoak emanez lan egitea. **Santiago Iruretagoiena**

Kontuan hartu behar dugu Ideian bertan badagoela Ongiaren Ideia osatzen duen anizkoitasuna -Edertasunak, **Proporzioak**, Egiak osaturikoa-. **Askoren artean**

Oraingoan ere, gorputzen **proporzioetan** edo anatomia-legeekiko fideltasunean jarri beharrean arreta, azal hutsean jarri nuen. **Bernardo Atxaga**

Keinuetan ikusten zitzaion erabide hura eta, batik-bat, mugitzeko zuen modu klasikoa, dena armonia eta **proporzioen** batzea. **Joxemari Iturralde**

Harresien gainean, mairuen irudi **proporziorik** gabeak. **Jon Alonso**

## 2 tamaina, dimentsioa.

Kanpoko izaki hori, bere **proporzioengatik**, bere iraupenagatik, bere tasun izendaezinezko eta barnera ezinezkoengatik, bere jatorriagatik, bere etorkizunagatik edo bere helburuengatik, [...]. **Josu Zabaleta**

Haragizko kurben gainetik, **proporzio** anatomikoen gainetik, kontzeptua maite du, emakume-kontzeptua. **Patxi Iturritegi**

Hartarakoxe **proporzio** egokiak ditueneko, hodei puska hori, goialdetik gandortzen joango da. **Pello Zabala**

## 3 zatidura biren arteko berdintasuna; kopuru biren arteko zatidura.

"Lehenak bigarrenari buruz bigarrenak bien baturari buruz duen **proporzio** bera duen erlaziora" deitzen zaio urrezko epaia (matematika bidez adierazita:  $a/b=b/(a+b)$ ); **proporzio** horrek, aise egiazta daitekeen bezala, 1,618-ko erlazio bat ematen du aldean arterako, "urrezko zenbakia" deitua). **Josu Zabaleta**

Lehen ontziaren tamainaren eta eramango lukeen pisuaren arteko **proporzioa** 8/4 litzateke, eta bigarren ontziaren kasuan, berriz, 4/2. **Iñaki Iñurrieta**

Orduan zilarraren eta kobreakaren arteko **proporzioa** 960/1 zen. **Iñaki Iñurrieta**

Demagun gastuaren eta urrearen arteko **proporzioa** 1/64 izan zela; zilar-kantitate bikoiztu zenean -eta, beraz, prezioa erdira urretu zenean-, **proporzioa** 2/64 izan zen. **Iñaki Iñurrieta**

Gure inguruko beste herrietan gertatzen dena baino apalagoa den baliora iritsi da gure unibertsitateen gaurko ikasle/irakasle **proporzioa**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Konposatu inorganiko bat da hezur-minerala, kaltzioz, fosforoz, oxigenoz eta hidrogenoz osatua, gutxi gorabehera formula honek adierazten duen **proporzioan**:  $3Ca_3(PO_4)_2$  **Ca (OH)\_2**. **Irene Aldasoro**

Odolean dauden gatz mineral guztien **proporzioa** % 0,9 inguru da (sodio kloruroa da nagusi). **Irene Aldasoro**

**Proporzioa** hauxe zen: %70 gizonezkoak eta ia %30 emakumezkoak. **Jon Muñoz**

**Proporzio** horren arabera, ontzi greziar edo erromatarrek urtebetean egiten zuten bidaia bat, hiru urtekoa zen gutxi gorabehera Salomonen ontzientzat. **Iñaki Iñurrieta**

Dirua bikoiztean, makutoak ere bikoiztu gero, **proporzioak** bere horretan iraungo du, bikoizte bataren eta bestearen aurretik bezala. **Iñaki Iñurrieta**

Zenbat eta txikiagoa izan animalia, orduan eta azalera handiagoa dauka gorputzak, duen bolumenaren **proporzioan**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gure ohituren kontra doa, merkataritza-espirituaren kontra eta zigorren **proporzioan** egon behar duen egokitasunaren kontra. **Iñaki Iñurrieta**



Argi ikus daiteke, **proporzioan**, goraka nola doan. Pello Zabala  
Bortxaz inportatua izan zen lekuetan, Estatu Batuetan bezala, **proporzioak** alderantzizkoak ziren. Iñaki Mendiguren  
**Proporzioak** gordetzea forma gordetzea da. Jon Muñoz  
**Proporzioak** gordetzean eta dimentsioak aldatzean gordetzen dena da forma. Jon Muñoz

## 4 (izenondo eta izenlagunekin)

Mariarena zelako probabilitateak ez ziren **proporzio** aritmetikoa ugalduko, **proporzio** geometriko edo metatzailean ugalduko ziren. Koro Navarro  
**Proporzio** berean besarkadera handiagoak erabili beharko dira goian, eta tornuen arrabolak ere handiagoak. Santiago Iruretagoiena  
Askatasun pertsonalaren eta gizarte-zuzentasunaren osagaiak zeuden **proporzio** desberdinetan konbinatuta. Iñaki Mendiguren  
Lapurreta-arriskua alderantzizko **proporzioan** aldatzen zen lapurrak hazten ziren gizarte-ingurunearen egoerarekin. Iñaki Mendiguren  
Badirudi estatu baten masak bere osatzaileen sentiberatasunaren alderantzizko **proporzioan** egon behar duela. Juan Martin Elexpuru

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gainerako gorputz-adarrek ere **proporzio**-erlazioa gordetzen dute, eta horretaz baliatu ziren pintore eta eskultore ospetsu guztiak. Santiago Iruretagoiena  
Ezinezkoa da atrio txikiak atrio handien **proporzio**-neurri berdinak izatea. Santiago Iruretagoiena  
Badaude beste kapitel-mota asko, era askotara deitzen direnak [...] gure ustez, ordea, ezinezkoa da horietan **proporzio**-ezaugarri desberdinak antzematea. Santiago Iruretagoiena

## 6 aukera, egokiera.

Hitz egiteko **proporziorik** gabe utzi ninduen, han joan baitzen etorri zen bezala espaloian aurrera, ezinago erdara. Iñigo Aranbarri  
Guraso aberats eta kualifikazioko seme-alabek beti dute eskolatzeko maila garaiegia eta hobeaz izateko aukera handiagoa, beraz, desberdintasunak betiko iraunarazteko **proporzioa** dago. Iñaki Heras  
Ez diat uste hik Miss Fairfaxekin elkartzeko **proporzio** handirik duanik, Jack. Antton Olano  
Antoñito Casares ere aurkeztu zion, enplegatua eta kazetaria, emakumezkoen artean **proporzio** ona zuen gizona. Josu Zabaleta  
Haziaren aroa, hazitarako aroa; haziarentzako hila, **proporzio** onak dituena. Pello Zabala  
Liseritzeko eta jasotzeko **proporzio** onenean omen dago gorputza. Pello Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**proporzio berean** (11); **proporzio falta** (3)  
**emakume gazteen proporzioa** (3)  
**erlazioak eta proporzioak** (3)  
**hirutik bateko proporzioan** (3)  
**proporzioaren arabera** (5); **proporzioaren arabera** (3)  
**proporzioari gauzak kenduz** (3)  
**proporzioei buruzko** (5)  
**proporzioen arabera** (4)  
**proporziorik gabea** (3)  
**proporziozko erlazio** (3)

## proporziodun *izond* proporzioa atxikitzen duena.

Jar diezazkiola, beharrezkoa bada, Uria Manterola jaunaren ezaugarri pertsonalari zuzen egokitzen zaizkion betebeharrak egokiak eta **proporziodunak**. Berria - Euskal Herria

## proporziogabe *iz* proporzioa atxikitzen ez duena, proporziorik gabea.

Beraz, ezer ezin dela aurkitu utzigarria edo erabileran **proporziogabea**, eta beraz, helburugabea denik, Ibon Uribarri

## proporzional *izond* kopuru edo tamainez mintzatuz, beste batekiko proporzio bera atxikitzen duena.

Bozeterako lau hilabete falta zirela, hauteskunde sistema **proporzionala** ezarri zuen berritoki alderdi txikiak zigortzen ditu eta italiarrek erreferendum bidez arbuiautuz, 1993an. Berria - Harian  
Edertasuna, azkenik, kontuan hartuko da eraikinak itxura dotorea eta atsegina baldin badu, eta elementu bakoitzaren neurriak doi-doi arrazoi **proporzionalen** arabera baldin badira. Santiago Iruretagoiena  
Hala nola, 1, 2, 3 zenbakiak emanez geroz, nornahik ikus dezake laugarren zenbaki **proporzionala** 6 dela. Piarres Xarriton  
*ik beherago* 3. Askoren artean  
Sentsibilitate eskaseko materiala duk, buruhausterik ematen ez duena (buruhausteak eta sentsibilitatea **proporzionalak** dira). Juan Garzia  
Elkarri dagozkien aldeak **proporzionalak** direnean eta haien angeluak berdinak direnean banan-banan. Askoren artean  
Arimaren kontzientzia gorpuzarekiko, gorpuzak erasana izateko duen gaitasunarekiko **proporzionala** da. Piarres Xarriton

## 2 (izenlagunekin)

Prozesuak egiazko uste asko sor ditzake eta haren justifikazio maila fidagarritasunaren mailaren arabera izango da, zuzenki **proporzionalak** baitira. Askoren artean  
Fluxu horren lastertasuna distantziaren alderantziz **proporzionala** da (hurbil dauden gauzak bizkorrago mugitzen direla ematen du). Josu Zabaleta

## 3 ik gorago 1.

Prozedura hori laugarren **proporzionalaren** bidez adieraziko dugu. Isabel Arrigain

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**sistema proporzionala** (4)  
**zuzenki proporzionalak** (3)  
**laugarren proporzionalaren** (5)

## proporzionalitate *iz* proporzionaltasuna.

Neurria eskatzen da urgentzia, beharra eta **proporzionalitatea** aintzat hartu gabe. Berria - Euskal Herria

## proporzionaliki *adlag* proporzioan.

Ez da historian 40-45 urte baino gehiago atzerantz egin behar [...] ekimen pribatuak euskal kulturaren eta euskal literaturaren alde egindako urratsak, oraingoarekin

konparatuz, **proporzionaliki**, leku edo tarte handiagoa egin ziotela konturatzeko. **Berria - Kultura**  
Estatistika datuak onak dira, nahiz eta datu horietan ateratzeko betarik ere ez duten homelessak eta baztertuak asko eta asko diren; edota asko **proporzionaliki** munduan inon baino gehiago-, kartzelan daudenak. **Iñaki Heras**  
Bera bisitatzan ari zen eskualdea historiaren gertaleku izana zen hiru edo lau mila urte gehiago Galia baino, eta **proporzionaliki** ongi hornitua zegoen iraganeko erlikia ikusgarriekin. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**proporzionaliki banatuko** (3)

## proporzionaltasun 1 iz proporzionala izateko baldintza.

Ez du **proporzionaltasun** osoa defendatzen. **Berria - Euskal Herria**  
**Proporzionaltasunaren** printzipioari eutsi egin behar zaio, eta kasu hauetan ez dut uste mantentzen ari denik **proporzionaltasuna**, hau da, zigorra areagotzen ari da batez ere nolabaiteko eredu gisa edo prebentzio gisa, eta zigorrek ez dute inoiz horrelako helbururik izan behar. **Berria - Euskal Herria**  
Zilegiak direnez, «ez dira gaitzesgarriak, nahiz eta eztabaidagarriak izan daitezkeen **proporzionaltasuna** eta beste faktore batzuk». **Berria - Euskal Herria**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Proporzionaltasun** presuntzioa ere urratu zaio irakasleen iritziz. **Berria - Euskal Herria**  
Ertzaintzaren jokoerak «**proporzionaltasun**» irizpide batzuen arabera izan beharko lukeen arren, Hernaniko manifestazioaren kasuan ez zen horrelakorik gertatu. **Berria - Euskal Herria**

## proporzionatu, proporziona, proporzionatzen 1 du ad proporziora egokitu.

**Proporzionatzea**, era berean, obra bereko elementuen artean adostasun egokia lortzea da, eta parte bakoitza, berezirik hartuta, ondo etortzea obraren itxura osoarekin. **Santiago Iruetagoiena**

Neurriratzekak esan nahi du itxura ederra lortzea, eta elementuen konposizioan egoki **proporzionatuko** forma izatea. **Santiago Iruetagoiena**

### 2 (era burutua izenondo gisa) neurrietan proporzioa duena.

Baina Tomasen ustez gauza bat ederra izateko hiru baldintza bete behar dira: perfektua, **proporzionatua** eta argia izan behar du. **Askoren artean**  
Elementu **proporzionatu** kasuan, zerbait gehiago erantsi behar zaio beti erlazioari, hain zuzen ere, leku garaietan egiten diren lanetan edota obra erraldoiak egiten direnean ere, izan dezaten beti neurrien arteko erlazioa. **Santiago Iruetagoiena**  
Uretan plisti-plasta ari diren ume eta ume handien garrasi historikoak baino askoz ere **proporzionatu** eta atseginagoak dira, dudarik gabe, beren hegada pausatu eta ero samarraz zeru-sabaian lorratz ikusezina insinuatzen dituzten kalatxorien txilioak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## proporzio ik proporzio.

## proposamen (orobat proposapen g.er.) 1 iz proposatzen den gauza.

Ez zen **proposamena**, ezta gonbita ere. **Aingeru Epaltza**  
Biltzar osoak ontzat eman zuen **proposamena**. **Elizen arteko biblia**  
Pashari **proposamen** bat aurkeztea erabaki zuten. **Fernando Rey**  
Hortik dator **proposamen** hau. **Piarres Xarriton**  
-Nik beste **proposamen** bat ere banekarren zuri egiteko. **Patxi Zubizarreta**  
Ikaratuegi zegoen bere etorkizunaz **proposamen** hura ez onartzeko. **Oskar Arana**  
Lan horien ondorioz egin diren 107 **proposamen** helarazi dituzte herriko 1.850 familieri. **Herria**  
Agerian uzten zutela **proposamen** hori irakurri ere gabe, kontra jartzen zirela. **Herria**  
Esan behar dizut **proposamen** horrek ez duela ez bururik ez hankarik Baiezkoa eman zien Makabearrak Lisiasen **proposamen** guztiei. **Lopez de Arana**  
Ezustearen hartu ninduen **proposamenak**. **Alberto Barandiaren**  
Txundituta gelditu nintzen **proposamenarekin**. **Anjel Lertxundi**  
**Proposamena** aplikazina dela, ez teknikoki aplikazina delako, baizik eta politikoki delako aplikazina. **Iñaki Heras**  
Ez dabil inor konbentzitu nahian bere **proposamenen** abantailak aldarrikatuz. **Patxi Iturrategi**  
Alemanekin lan egiteko **proposamenak** izan genituen, zuzenean edo bitarteko bidez. **Marzel Etxehandi**  
Ongi iruditu zitzaion **proposamena** faraoiari, baita honen funtzionarioei ere. **Elizen arteko biblia**  
**Proposamearen** xedea 2010ean enagiaren %15 berriztagarria izatea zen -Estatu Batuek atzera bota zuten Europaren **proposamen** hori-. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Artikuluek garbi aski erakutsi dute **proposamen** honen egia, irakurleak gogora ditzan. **Esteban Antxustegi**  
Abertzaleen **proposamena** lur prezioez. **Herria**  
Leporaino gaudu **proposamenez**. **Fernando Rey**  
Ernest Hemingway Enbaxadan ei da, galtzarbean The Crook Factory delakoa ez den beste **proposamen** bat dakarrela. **Edorta Jimenez**  
Baliatutako irizpide akademikoaren arabera ere ebaluatzen dira bertan agertzen diren ideia, **proposamen** edo ekarpenak. **Askoren artean**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Trubetzkoaren **proposamen** teorioek ez zuten izan merezi adina oihartzun. **Lourdes Oñederra**  
Hoztasun gogor haren aurrean, **proposamen** praktikoen garaia zela pentsatu zuen Dembak. **Anton Garikano**  
UGTk eta CCOOk **proposamen** bateratua aurkeztu zieten atzo langileen batzordeko beste sindikatuei. **Berria - Ekonomia**  
**Proposamen** ahulago bat egin liteke (117)ren ordez. **Itziar Laka**  
**Proposamen** ergela iruditzen zait. **Fernando Rey**  
Indianoak barkamena eskatu zion neskari **proposamen** lizunak egiteagatik. **Anjel Lertxundi**  
-Ez da **proposamen** txarra, ez horixe -burutik oinetara begiratu zion lotsagabeki-, baina ezin dut onartu, txosten hori madarikatuta dago. **Migel Angel Mintegi**  
Mutilek onartu egin zuten agindu kutsuko **proposamen** bitxi hura. **Jon Arretxe**  
Neoliberalismoaren aurrean ez dugu **proposamen** eskematikorik egin nahi. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Patronalaren **proposamen** «etsigarriaren» ondoren, greban jarraituko dute langileek. **Berria - Ekonomia**  
Artzapezpikuaren katixima liburutik eta beste idazkietarik atera diren **proposamen** heretiko susmagarrien haztatzeak. **Piarres Xarriton**  
Gogamenari buruzko **proposamen** ontologiko berri bat, "identitatearen teoria". Sokrates eta Platonen **proposamen** etiko berriak. **Askoren artean**  
Oraingoz ez dago **proposamen** funtzionalista teleologiko argirik funtzio kontzeptu aberatsago hori analisi naturalista batean jasotzen duenik. **Askoren artean**

Zenbat genero, zenbat bide desberdin, zenbat tonu, zenbat alderantzizko, Calvinoren literario literatur bitarra!

Ekarpenak jaso ondoren, talde sustatzaileak, behin betiko **proposamenak** egin beharko ditu. **Berria - Euskal Herria**

Tarteko **proposamen** interesgarriagoak eta egungo joerak aurkeztuko ditugu. **Askoren artean**

### 3 (egin aditzarekin)

Entzun, beste **proposamen** bat egingo diat: nik organotxo eta ditudan arima hil gutziak emango dizkiat, eta hik heure britxka eta hirurehun errublo eman niri. **Jose Morales**

Txosten honetan xeheki aztertzen da Espainiako ikasketen planen egoera eta, kritika bat egin ondoren, **proposamen** batzuk egiten dira, gure ustez aski baliagarriak izan daitezkeenak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Karabineroei **proposamen** hau egin ziek: hedeak, munizioak eta iskuluak emanez gero, ezer ez ziela egingo. **Txillardegí**

Elkarrekin bazkaltzeko **proposamena** egin zidan. **Aingeru Epaltza**

Afaritako **proposamena** egiteko tarterik egokiena ote zen galdetzen ari nintzaion neure buruari. **Ramon Saizarbitoria**

Horrelako **proposamen** bat egiten zidan lehenbiziko emakumea zen. Tentagarria egin zitzaidan **proposamena**. **Fernando Rey**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Proposamen** -ondorioa: horrelako amaieretan harrezkero jorra daitezkeen ideien proposamenak egiten dira. **Askoren artean**

**Proposamen** zerrenda bat xehea egiten diote Herriko Etxeari heldu den agorrileko besteei buruz. **Herria**

«Gutxieneko neurrien **proposamen** taula bat» aurkeztuko diete eragile horiei. **Berria - Euskal Herria**

1995ean, behin-betiko akordio **proposamen** bat egin genuen, zeuden txosten guztiak oinarri hartuta. **Berria - Euskal Herria**

Gazten kontseiluak **proposamen** lana beteko du eta herriko kontseiluaren esku izanen dira erabakiak. **Herria**

Auskalo zer **proposamen** klase egin zizkion, kontua da atzera sartu zenean eskuak igurzten ari zela. **Juan Garzia**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beccariaren lege-**proposamenek** eragina izan zuten [...] Europako zenbait legeriatan, baina ez Espainian. **Juan Martin Elexpuru**

Ebaluazio-**proposamen** berriak, instrumentalismoa edo auzi estetiko zehatzen azterketa analitikoak. **Askoren artean**

Bitartean, batzordeak errektoreari erabaki-**proposamena** helarazi eta errektoreak erabaki bitartean, orain arte bezala jarraituko du guztiak. **Oskar Arana**

Gogo onez onartuko genituzke zuzenketa-**proposamenak**. **Askoren artean**

Jada 104.000 ikidazio **proposamen** egin eta bidali dizkiete ezarleei, eta %96k azaldu dute euren adostasuna. **Berria - Ekonomia**

Mutilak beti sexu-**proposamenak** egiten zizkion. **Gotzon Garate**

Ni bezalako atso batek ezkontza-**proposamena** jaso. **Oskar Arana**

Fede-**proposamenaren** balio unibertsala aurkeztea. **Askoren artean**

Bake-**proposamena** onartu eta ateak zabaltzen badizkizute, zeuentzat lan egitera behartuko dituzue bertako bizilagunak. **Elizen arteko biblia**

Orduan beste lan **proposamen** bat zuen. **Berria - Euskal Herria**

Faxistei beste truke-**proposamen** batzuk egiteko. **Edorta Jimenez**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

egindako proposamen (14); egiteko proposamen (8); estatutu proposamen (9); lege proposamen (27); lege proposamen bat (9); legez besteko proposamen (15)  
proposamen aurkeztu (10); proposamen bakarra (10); proposamen bat aurkeztu (26); proposamen bat egin (36); proposamen bat egiteko (7); proposamen bateratua (16); proposamen berri (27); proposamen berri bat (14); proposamen berria (31); proposamen berriaren (9); proposamen egin (45); proposamen egin ditu (13); proposamen egiten (10); proposamen politiko (11); proposamen politikoa (8); proposamen sorta (10); proposamen ugari (11); proposamen zehatz (10); proposamen zehatza (21); proposamen zehatza egin (7); proposamen zehatzak (33); proposamen zehatzak egin (7); proposamen zehatzik (8)  
aldatzeko proposamena (19); aldeko proposamena (8); anoetako proposamena (31); aralarren proposamena (7); arauko proposamena (8); aurkeztu zuen proposamena (8); aurkeztutako proposamena (22); azken proposamena (30); bake proposamena (18); batasunaren proposamena (21); behin betiko proposamena (9); bere proposamena (57); bergarako proposamena (85); bergarako proposamena egin (7); berriaren proposamena (17); berrirako proposamena (101); bigarren proposamena (7)  
eaeko estatutu proposamena (7); eajren proposamena (7); ebazpen proposamena (9); eeren proposamena (13); egin du proposamena (7); egin zuen proposamena (15); egindako azken proposamena (7); egindako proposamena (7); egindako proposamena (24); egiteko proposamena (42); eraikuntzarako proposamena (10); erreformarako proposamena (9); erreformatzeko proposamena (8); estatutu berriaren proposamena (11); estatutu berrirako proposamena (91); estatutu proposamena (144); estatutua erreformatzeko proposamena (7); euren proposamena (13); eusko jaurlaritzaren proposamena (11); ez arauko proposamena (8); ez legezko proposamena (9); gatazkaren konponbiderako proposamena (16); gobernuaren proposamena (17); gure proposamena (33); hartzeko proposamena (8)  
izateko proposamena (20); jaurlaritzaren estatutu proposamena (50); jaurlaritzaren proposamena (43); joateko proposamena (13); joateko proposamena egin (7); konponbiderako proposamena (18); lege proposamena (82); lege proposamena aurkeztu (16); legez besteko proposamena (65); legezko proposamena (10); nazio eraikuntzarako proposamena (10); nire proposamena (17)  
orain bakea proposamena (9); osatzeko proposamena (18)  
proposamena aintzat hartu (7); proposamena atzera bota (16); proposamena atzera botatzea (7); proposamena aurkeztea (7); proposamena aurkeztu (134); proposamena aurkeztu zuen (35); proposamena aurkeztuko (30); proposamena aurrera ateratzeko (12); proposamena azaldu (8); proposamena azertu (7); proposamena aztertuko (11); proposamena aztertuko (13); proposamena aztertzen (9); proposamena baztertu (8); proposamena begi onez (9); proposamena berretsi (10); proposamena berretsi zuen (7); proposamena bertan behera (8)  
proposamena egin (195); proposamena egin zuen (29); proposamena egingo (26); proposamena egingo du (9); proposamena egitea (9); proposamena egiteko (16); proposamena egiten (23); proposamena errefusatu (11); proposamena eztabaidatu (8); proposamena eztabaidatuko (9); proposamena eztabaidatzeko (8); proposamena helarazi (8)  
proposamena izan (19); proposamena izan zuen (7); proposamena izango (11); proposamena izango da (8); proposamena jaso (11); proposamena kritikatu (10); proposamena luzatu (10); proposamena mahai gainean (15); proposamena onartu (85); proposamena onartu zuten (9); proposamena onartuko (15); proposamena onartzea (8); proposamena onartzeko (21); proposamena onartzen (13); proposamena ontzat (11)  
pse eeren proposamena (13); sartzeko proposamena (8); sortzeko proposamena (10); uzteko proposamena (8)  
anoetako proposamenak (11); azken proposamenak (7); bere proposamenak (24); beren proposamenak (14); bergarako proposamenak (27)  
eeren proposamenak (7); egin proposamenak (13); egindako proposamenak (29); eginiko proposamenak (9); egiteko proposamenak (12); eragileen proposamenak (7); estatutu berrirako proposamenak (40); estatutu proposamenak (37); euren proposamenak (26); gure proposamenak (15) ibarretxeren proposamenak (18); jaurlaritzaren estatutu proposamenak (19); jaurlaritzaren proposamenak (14); lege proposamenak (17); legez besteko proposamenak (12)  
proposamenak aintzat (7); proposamenak aurkezteko (14); proposamenak aurkeztu (11); proposamenak aurrera egin (10); proposamenak aurrera egitea (7); proposamenak aztertuko (8); proposamenak egin (33); proposamenak eginen (8); proposamenak egitea (12); proposamenak egiteko (35); proposamenak egiten (19); proposamenak izan (9); proposamenak jaso (7); proposamenak jasotzen (9); proposamenak mahai (19); proposamenak mahai gainean (18)  
pse eeren proposamenak (7)  
legez besteko proposamenarekin (8)  
proposamenarekin ados (9); proposamenarekin bat (17)  
egindako proposamenaren (25); eginiko proposamenaren (8); estatutu berriaren proposamenaren (7); estatutu berrirako proposamenaren (56); estatutu proposamenaren (131); estatutu proposamenaren aurka (10); estatutu proposamenaren eztabaida (8); estatutu proposamenaren inguruan (10); estatutu proposamenaren inguruko (11); estatutu proposamenaren kontra (7)  
ibarretxeren proposamenaren (22); jaurlaritzaren estatutu proposamenaren (50); jaurlaritzaren proposamenaren (23); lege proposamenaren (13); legez besteko proposamenaren (9)  
proposamenaren alde (50); proposamenaren alde agertu (7); proposamenaren alde egin (10); proposamenaren aldeko (10); proposamenaren arabera (35); proposamenaren aurka (52); proposamenaren aurkako (15); proposamenaren aurrean (15); proposamenaren berri (25); proposamenaren bitartez (9); proposamenaren bultzatzaileak (8)  
proposamenaren edukia (9); proposamenaren eztabaida (12); proposamenaren eztabaidan (11); proposamenaren gainean (21); proposamenaren gaineko (7); proposamenaren harira (18); proposamenaren haritik (7)  
proposamenaren inguruan (50); proposamenaren inguruko (22); proposamenaren kontra (20); proposamenaren kontrako (9)  
proposamenaren tramitazioa (9)  
batasunaren proposamenari (7); bergarako proposamenari (19); egindako proposamenari (23); eginiko proposamenari (8); estatutu berrirako proposamenari (20); estatutu proposamenari (77); estatutu proposamenari buruz (11); estatutu proposamenari buruzko (13); ibarretxeren proposamenari (12); jaurlaritzaren estatutu proposamenari (41); legez besteko proposamenari (8)

**proposamenari aurkeztutako** (12); **proposamenari buruzko** (22); **proposamenari dagokionez** (9); **proposamenari egindako** (9); **proposamenari erantzun** (7); **proposamenari ezezkoa** (7); **proposamenari uko** (7)

**estatutu proposamenaz** (9)

**anoetako proposamenean** (7); **estatutu proposamenean** (7)

**proposamenen artean** (21); **proposamenen inguruan** (7)

**inolako proposamenik** (9); **proposamenik egin** (8)

## proposamendu 1 *iz ipar* proposamena.

Beren **proposamenduak** egin dituzte beroki eta zintzoki, gerlaren kontra, ekologia hobeki pentsatu baten alde, Lurraren eta Familiako bizipide onestago baten alde, zernahi biltzar eta elkarrizketa baliosekin, mundu hobe bat nola egin ginezakeen denen artean. **Herria**

**Proposamendu** horiek ez direla hola eta hola onartzen ahal. **Herria**

Badu deialdi bat enpresari egina, urtarilaren 25 hontan ezarri **proposamenduen** azken epea. **Herria**

Mintzatu da Juan Jose Ibarretxe lehendakariak bakeari buruz egin **proposamenduez**. **Herria**

Erraittea da errexenik, Israelek Nazio Batuetan duen ordezkariak segurik bere eza eman du berehala holako **proposamenduari**. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Mahmoud Abbas palestinar lehen ministroak eta Ariel Sharon Israelgoak sinatu zutela Bush amerikarrak heientzat edo heiekin prestatu bake **proposamendua**. **Herria**

## proposapen ik **proposamen**.

## proposatu, proposa, proposatzen 1 du *ad* norbaiti zerbait azaldu edo adierazi, ongi baderitzo onar dezan.

"Denborarekin bazabiltza, zergatik ez gara joaten buelta osoa emanez?", **proposatu** zidan berak. **Bernardo Atxaga**

-Gauza bat egingo diagu -**proposatu** zuen jinak-: mutil hau jaso, eta hegan eramango diagu neskarenera, eta hartara ikusi ahal izango diagu bietan zein den ederrena.

**Patxi Zubizarreta**

-Lagunduko dizut etxera, automobila gertu daukat -**proposatu** zion Maizak. **Migel Angel Mintegi**

-Zatoz hiru terdian eta -**proposatu** dit-. **Txillardegi**

-Behingoagatik -**proposatu** dizue Txok- Zonako Batzordeak erabiltzen duen pisuan bil gaitzek. **Rafa Egiguren**

-Gatozen berriz ere Delosera, atenastarregana- **proposatu** zuen Ruche jaunak. Jokalariak **proposatu** zuen: joango gara elkarrekin? **Jon Muñoz**

Talesek erakutsi zuten triangulu bakoitzari zirkulu bat egokiaraz dakiokela [...] eta **proposatu** zuen nola eratu behar den beti zirkulu zirkunskribatu hori. **Jon Muñoz**

Nik, kuraia guztia bilduz, **proposatu** nion aperitifa elkarrekin hartuko genuela. **Daniel Landart**

Nik **proposatu** nion giltza berehala eramanen niola. **Daniel Landart**

Ekitaldi baten ondoren, Egurenek Junin kalera joan gintezen **proposatu** zuen. **Juan Garzia**

**Proposatu** nion Agentziari akzioak eros zitzan piku-mermelada egiten zuten enpresa guztietan, poliki-poliki gure agenteak enpresotan sartu ahal izateko. **Jon Alonso**

## 2 (objektua izen sintagma edo kideko bat dela)

Huts egin dela ikusten baldin bada, ikusmen-sistemak berriro aztertzen ditu bere inbariantza-hipotesiak, eta beste hipotesi batzuk **proposatzen** ditu. **Josu Zabaleta**

Giza gorputzaren eredu gehiago ere **proposatu** ziren. **Irene Aldasoro**

Dardo partida bat **proposatu** zion Gabini. **Iñaki Iñurrieta**

Egungo Logika: Frege-k bere logika **proposatu** ondoren sortzen dena. **Askoren artean**

Urte batzuk geroago beste eredu bat **proposatu** zuen Eisensteinek ideia hori bera azaltzeko. **Josu Zabaleta**

Gure artean ez baitzegoen giro, bost minutuko atsedendia **proposatu** du. **Patxi Zubizarreta**

*Tobin tax* esaten zaiona, James Tobinek **proposatu** zuen jadanik 1978an; truke-eragiketa guztiei zerga apal bat ezartzean datza, %0,5 adibidez. **Koro Navarro**

Errepetizioa bururatzean, ohi bezala Xabik hurrupaldia **proposatzen** du. **Eneko Bidegain**

Neska zerbitzaria hurbildu zitzaidan eta eskuinaldeko mahai bat **proposatu** zidan. **Daniel Landart**

Beste parabola bat **proposatu** zien Jesusek: [...]. **Elizen arteko biblia**

Truke harrigarri bat **proposatu** zion Al Mamunek ekialdeko enperadoreari: atxilotuak liburuen truke! **Jon Muñoz**

Hain berria ere ez da hemen **proposatzen** dugun marko teoriko hori. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Hark **proposatu** egun eta orduan, ni ez libre, eta nik posible nuelarik, hark ezin. **Daniel Landart**

Wright-ek hau **proposatu** zuen: usaimen-pigmentuaren molekula bateko elektro batek jauzi egin dezakeela [...] bibrizio-maiztasun egokia duen beste molekula bat inguruan bada. **Irene Aldasoro**

Eta, orduan, zer **proposatzen** duzu? **Oskar Arana**

Greziar matematikari batzuek **proposatuak** zituzten, bai, hiru problema horietarako eraikuntzak, baina ez ziren erregelaz eta konpasaz eginak. **Jon Muñoz**

## 3 (-tzea atzizkiarekin)

Arratsaldero bezala paseo bat ematea **proposatu** nion Lizi. **Bernardo Atxaga**

Emanaldia biharamunera atzeratzea **proposatu** zuen Perrettek. **Jon Muñoz**

Une batez atsedean hartzea **proposatu** zuen eta, bien bitartean, bidea ikusmiratzea. **Patxi Zubizarreta**

National Gallery-n buelta bat ematea **proposatu** zidan, eta beste kafe bat hartzea han. **Ramon Saizarbitoria**

Pariseko legebiltzarrean norbaitek **proposatu** zuelarik, ez hain aspaldi, korsikar populua ontzat hartzea, frantses populua barnean, auzitegi gorenak erabaki zuten zatiezina dela Frantziako Populua. **Piarres Xarriton**

Hark **proposatu** zien bi santu, nahi zituztenak, aukeratzea eta zozketaz bietako bat izurritea uxatzeko zaindaria bezala hartzea. **Askoren artean**

Bikiak jaino zirenean, Ruche jaunak **proposatu** zion Ravignan kaleko etxera bizitzera etortzea. **Jon Muñoz**

Banekien ez zuela ohidura izpirik horrelako tresna baten erabiltzeko eta laster **proposatu** nion segidaren hartzea. **Daniel Landart**

Nahigabearen aringarri, ondasunak elkarbanatzea **proposatu** zion. **Patxi Zubizarreta**

Hori dela bide, belaunaldiz belaunaldi kulturen ezaugarri egonkorrik ikastea **proposatu** zuten. **Askoren artean**

Horregatik, lehen pertsona baizik egiaztatu ezin diren gogo-egoerei dagozkien hitzak esanahirik gabekoak direlako, diskurtso zientifikotik kanpo uztea **proposatu** zuten. **Askoren artean**

· Plangintza horretan **proposatzen** zen, besteak beste, Zorrotzaurreko bazterrak aprobetxatzea hiriko campus berri bat egiteko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 4 (-tzeo atzizkiarekin)

Etxera laguntzeko **proposatu** zidan estreinak aldian bezala. **Bernardo Atxaga**

Erabilera horiek ongi bereizteko **proposatu** zuen Edward Branigan-ek (1984): alde batetik, mugimendu "funtzionalak, espazio eszenografikoa eratzeko, [...]". **Josu Zabaleta**

Hondartzara joateko **proposatu** zidan. **Fernando Morillo**

Bere laguna itzuli zela ikusirik, karta jokoan aritzeko **proposatu** zion; elkarren aurrez aurre eseri ziren, mahaiaren alde banatan. **Josu Zabaleta**

- Argazki batzuen gaineko fitzioak asmatzeko **proposatzen** zitzaizkion zerbait idazleri. **Iban Zaldúa**

## 5 (-tzat atzikiarekin)

Santuak eredutzat **proposatzen** zuen sarri haren biziera, "anai Joan" ez, baizik "San Joan" deitzen ziolarik alaiki. **Askoren artean**

John Satan argurgarriaren izena titulu horren hartzaile egokitatzat **proposatu** du koherentziaren zale den batek, adierazten baitu Harry Thurston Peck irakasleak luzaro izan duela titulu baten abantaila. **Xabier Olarra**

- la besteak bezalako zenbaki bihurtu zirenez geroztik, ekuazio aljebraikoaren ebazpentzat **proposa** zitezkeen irrazionalak; behar bezala definitu gabe zeuden, ordea. **Jon Muñoz**

Erantzukizun hori "kategoria" filosofikotzat **proposatzen** da, askatasunaren eta erabakiaren ("fiat") domeinu sakratutzat. **Joseba Zulaika**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**aldaketa proposatu** (10); **aldaketak proposatu** (5); **aldatzea proposatu** (15); **aukera proposatu** (7); **auzapezak proposatu** (5); **aztertzea proposatu** (8); **batasunak proposatu** (6); **bidaltzea proposatu** (8); **bidea proposatu** (6); **biltzea proposatu** (7); **bultzatzea proposatu** (6)

**egitea proposatu** (168); **egitea proposatu du** (33); **egitea proposatu zuen** (55); **egiteko proposatu** (15); **ematea proposatu** (23); **ematea proposatu zuen** (9); **erabiltzea proposatu** (9); **eraikitzea proposatu** (7); **eratztea proposatu** (24); **eratztea proposatu zuen** (8); **erostea proposatu** (6); **erreforma proposatu** (5); **ezartzea proposatu** (14); **ezartzea proposatu zuen** (5); **gehitzea proposatu** (9); **gobernuak proposatu** (8); **handitzea proposatu** (7); **hark proposatu** (6); **hartzea proposatu** (29); **hartzea proposatu du** (6); **hartzea proposatu zuen** (11); **hastea proposatu** (12); **hastea proposatu du** (6); **hitzarmena proposatu** (5)

**igoera proposatu** (12); **igoera proposatu du** (7); **igotzea proposatu** (10); **ituna proposatu** (6); **itzultzea proposatu** (6); **izatea proposatu** (45); **izatea proposatu zuen** (14); **izendatzea proposatu** (6); **jaistea proposatu** (8); **jarraitzea proposatu** (10); **jartzea proposatu** (16); **jartzea proposatu du** (7); **jasotzea proposatu** (6); **joatea proposatu** (28); **kentzea proposatu** (12); **kentzea proposatu du** (6); **lan egitea proposatu** (8); **luzatzea proposatu** (5); **murriztea proposatu** (11); **murriztea proposatu du** (6); **neurri proposatu** (16); **neurri proposatu ditu** (5); **neurri proposatu zituen** (5); **neurri zehatzak proposatu** (5); **neurriak proposatu** (14); **neurriak proposatu zituen** (5)

**onartzea proposatu** (9); **osatzea proposatu** (23); **osatzea proposatu du** (7); **osatzea proposatu zuen** (8); **plana proposatu** (5)

**proposatu berri** (6); **proposatu eta onartu** (5)

**sartzea proposatu** (5); **sortzea proposatu** (46); **sortzea proposatu du** (14); **sortzea proposatu zuen** (18)

**uztea proposatu** (13); **zabaltzea proposatu** (10); **zera proposatu** (8); **zerbait proposatu** (5); **zuzendaritzak proposatu** (6)

**proposatua izan** (14); **proposatua izanen** (15); **proposatuak izanen** (8)

**egitea proposatuko** (8)

**eajk proposatutako** (5); **egibarrek proposatutako** (5); **eusko jaurlaritzak proposatutako** (5); **gobernuak proposatutako** (13); **guk proposatutako** (5); **imazek proposatutako** (6); **kontseiluak proposatutako** (5); **nazio eztabaidaguneak proposatutako** (5); **proposatutako aldagetak** (8); **proposatutako estatutu** (6); **proposatutako neurriak** (12); **zuzendaritzak proposatutako** (6)

**proposatzeaz gain** (5)

**proposatzeko epea** (5); **proposatzeko eskatu** (8); **zuzenketak proposatzeko** (5)

**batasunak proposatzen** (5); **egitea proposatzen** (53); **egitea proposatzen du** (16); **elkarteak proposatzen** (12); **erabiltzea proposatzen** (5); **eraikitzea proposatzen** (5); **eratztea proposatzen** (6); **eusko jaurlaritzak proposatzen** (5); **hartzea proposatzen** (7); **hatsa elkarteak proposatzen** (7); **irekitzea proposatzen** (5); **izatea proposatzen** (14); **jarraitzea proposatzen** (5); **jartzea proposatzen** (5); **jaurlaritzak proposatzen** (9); **kentzea proposatzen** (5); **neurriak proposatzen** (5); **osatzea proposatzen** (9); **proposatzen du txostenak** (7); **sortzea proposatzen** (13); **uztea proposatzen** (5); **zer proposatzen** (20); **zer proposatzen duzu** (8); **zera proposatzen** (6)

## proposatzaile 1 *izond* zerbait proposatzen duena.

Gauzak hala, sozialistek erantzun zuten EAJren moziolari «ezezkoa eman beharrean» zeudela, nahiz eta «akaso» talde **proposatzailearekin** zenbait kontutan ados egon zitezkeen. **Berria - Euskal Herria**

Talde politiko **proposatzaileen** arabera, igoera %29 ingurukoa izango da. **Berria - Euskal Herria**

Grebalarien izenean usu mintzatu den Patxi Nobliak errepikatzen zuen Garapen Kontseilua (**proposatzailea**) eta Hautetsien Kontseilua (erabakitzailea) ez zirela elkarrekin aski hurbiletik lanean ari. **Herria**

## 2 *iz* zerbait proposatzen duen pertsona.

XX. mendearen hasieran, Formaren teoriaren (Gestalttheorie) **proposatzaileek** ikusmenezko mundua lege unibertsal eta betierekoen arabera antolatzeko garunak duen sortzetiko ahalmena nabarmenduko dute batez ere. **Josu Zabaleta**

**Proposatzaileek** atzo azaldukoaren arabera, batzordearen helburua frankismoaren biktimei onespen eta aitortza politiko, ekonomiko eta soziala ematea izango litzateke. **Berria - Euskal Herria**

Baziren batzuk, haien artean, trikimailuak asmatzen nekaturik, Jainkoaren batasuna erlijio-dogmatzat onetsi behar dela esaten zutenak; baina mutakallim-n-ek hori zorrozki gaitzetsi zuten, **proposatzailea** mespretxatuz. **Xabier Kintana**

Hasieran zurkaitz bat izaten zen, Erregeak erabiltzen zuena bere bufoiari errita emateko eta gobernu erabakiak geldiarazteko, **proposatzaileari** bizkarra hautsiz. **Xabier Olarra**

## propositibo *izond* proposamenak egiten dituen.

Jarrera **propositiboak**, berriz, askoz liluragarriagoak dira. **Txema Ramirez de la Piscina**

## proposito *iz* asmoa.

Menéndez Pelayo ortodoxiaren paladinoak baino ez dute gutxiago aintzesten eta begiratzen izpiritua espainol hori beren **propositoetan** Sanz del Río eta jarraiketari krausistek. **Joxe Azurmendi**

## proposizio 1 *iz* filosofian, judizio baten adierazpena; frogatu behar den baieztapena.

**Proposizioa**: "ez dago ezkondua den mutilzaharrik". **Askoren artean**

Spinozak, "bere baitan den eta bere baitatik ulertzen den zerbaiten" ideiatik soilik abiatuta, era matematikoan ondorioaraz dezake **proposizioz proposizio** metafisika osoa [...]" **Askoren artean**

Ezagutza ororen oinarria bi **proposizio**-motek osatzen dute: aprioriko **proposizioak**, alde batetik, eta zuzeneko esperientziari buruzko **proposizioak**, bestetik -"existenten naiz eta gogo-egoera zehatz batzuk ditut", esate baterako-. **Askoren artean**

Baina nola frogatu **proposizio** bat? **Jon Muñoz**

Fermaten hainbat **proposizioaren** demostrazio osoak eman zituen Euler-ek. **Jon Muñoz**

**Proposizioa** bera errazkiago oraino demonstra daiteke kontraktoaren zentzugabekeria erakutsiz. **Piarres Xarriton**

Egiazkotzat jotzen diren **proposizio** batzuetatik, inferentzi-arauak bide-makulu harturik, beste **proposizio** batera iristen den arrazoiketa-modua. **Anjel Lertxundi**

Hura [Jainkoa] absolutuki mugagabea dela, 10. **Proposizioaren** Eskolioan jadanik adierazi dugun bezala. **Piarres Xarriton**

**Proposizio** hau argiago ulertzen da 2. Zatiko 16. **Proposizioiko** 2. Korolariotik. **Piarres Xarriton**

Demonstrazioa argi nabari da 15. **Proposiziotik** eta 5. Definiziotik. **Piarres Xarriton**

Tristura hau gero eta gehiago hazten da, besteek arbuizaten dutela irudikatzen baldin badu norbaitek; 53. **Proposizioaren** Korolarioa frogatu den modu berean demonstratzen da hau ere. **Piarres Xarriton**

Mirespena gauza baten berritasunetik sortzen da, 52. **Proposizioan** erakutsi dugunez. **Piarres Xarriton**

## 2 logikan, egiazkoa edo faltsua izan daitekeen esaldi bakuna. **ikesakune**.



Lehenengo, gaur egun logika zer den azalduko da; ondoren, **proposizioen** logika eta logika elementalaren funtsezko tresnak aurkeztuko dira. **Askoren artean**

Estoikoek **proposizioen** logikari eman zioten hasiera, hau da, "eta", "edo", "baldin" eta "ez" konektatzaileen logikari. **Askoren artean**

Fregek "pentsamendu" zeritzenei **proposizio** esan ohi zaie gaur egun. **Askoren artean**

Bi esaldiek, beraz, **proposizio** bera adierazten dute (zezen batek ni harrapatuko nauela), eduki bera dute, alegia. **Askoren artean**

**Proposizio** batek erreferenterik duen ala ez esan ahal izateko, jakin beharra dago zeri dagokion enuntziatua, zein den bere korrelazio-eremua. **Xabier Arregi**

Enuntziatuaren erreferentzialak [...] agertze eta mugatze-aukera definitzen ditu esaldiari zentzua ematen dionarentzat, **proposizioari** egia-balioa ematen dionarentzat. **Xabier Arregi**

Egia logikoa ondoko **proposizio** abstraktua da: "Edozein P **proposizioarentzat**, edota P edota ez P". **Askoren artean**

Esan dezakegu **proposizio** bat egia dela kontrako proposamenak absurdora daramala frogatuz. **Jon Muñoz**

Logikariek diote "urrezko mendia Kalifornian dago" moduko **proposizio** bat ezin dela egiaztatu erreferenterik ez duelako: bere ukazioa ez da bere baieztatpena baino egiazkoagoa eta ezta gezurrezkoagoa ere. **Xabier Arregi**

Egiaren izaerari buruzko eztabaida: zer adierazi nahi du **proposizio** bat egiazkoa dela esateak? **Askoren artean**

Sistema baten azterketa logikoak **proposizioen** multzo jakin bat biltzen du, berridazketan, hizkuntza formalean. **Xabier Arregi**

Kontraktotasuna hemen ez da azken muturrekoa: ez dira bi **proposizio** kontraesale objektu berari buruz, ez dira kontzeptu beraren bi erabilera bateraezinak, gehiago dira enuntziatuak eratzeko bi modu. **Xabier Arregi**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik proposizional.

Ez dut uste enuntziatua egon dadin beharrezkoa eta nahikoa den baldintza izango denik **proposizio** -egitura definitu bat izatea. **Xabier Arregi**

**Proposizio** -egitura legitimo gabeko enuntziatuak aurkitzen dira. **Xabier Arregi**

Hona hemen PLko [Proposizioen Logikako] formulak zehazten dituzten arauak: **Proposizio** -aldagai guztiak PLko formulak dira. **Askoren artean**

Humeren ustez, indukziozko premisak eta ondorioak bi **proposizio** -mota oso desberdinak dira. **Askoren artean**

### 4 gramatikan, perpausa, esaldia.

Hizkuntzaren analisia zientzia matematikoetan barneratu zen, batez ere **proposizioen** sintaxiaren eremuan. **Askoren artean**

Gramatikak edo logikak zeinu-multzo batean antzeman ditzaketen batasunak esaldi edo **proposizio** deituko dira. **Xabier Arregi**

Harreman diskurtsiboak, ikusten denez, ez dira diskurtsuaren barrukoak [...] ez dute ezartzen esaldi edo **proposizioen** artean arkitektura deduktibo edo erretoriko bat. **Xabier Arregi**

**Proposizioen** egitura formala eta batzen dituen kateatze-motak. **Xabier Arregi**

Burura daiteke bera bakarrik mugatzen den esaldi bat edo **proposizio** bat, bere testuinguru modura balioko dion beste esaldirik edo **proposiziorik** gabe. **Xabier Arregi**

### 5 proposamena.

Ez dakit azken hori **proposizio** bat izan den baina ez diot nik, badaezpada, ezer erantzun. **Unai Elorriaga**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiazko proposizio (3); esaldi edo proposizio (4); proposizio bat egiazkoa (4); proposizio egitura (3)  
aitzineko proposizioan (4); proposizioan erakutsi (11); proposizioan erakutsi dugun (5); proposizioan frogatu dugun (4)  
aitzineko proposizioaren (7); proposizioaren demonstrazioa (3); proposizioaren eskolioa (7); proposizioaren eskolioan (14); proposizioaren eskolioan erran (3);  
proposizioaren korolaria (4); proposizioaren korolaria (3); proposizioaren korolariorik (3)  
proposizioen logika (5); proposizioen logikan (6); proposizioen logikan egin (3); proposizioen logikaren (3)  
proposizioko eskolioa (5); proposizioko eskolioan (5)  
aitzineko proposiziotik (3); proposiziotik dator (4)

## proposizional 1 izond proposizioarena, proposizioari dagokiona. ik proposizio 3.

Jarrera **proposizionalak** moduan eta edukian bereizten dira elkarren artean. **Askoren artean**

Emozioak: normalki emozioak beste gogo-egoera "seguruago" batzuetara murriztu izan dira, esan nahi baita, jarrera **proposizioaletara**. **Askoren artean**

Ez da logikoa ezta inferentziala ere, erlazio horiek item **proposizional** edo kontzeptualen artean gertatzen baitira. **Askoren artean**

Onartu behar al da zeinuen, irudien, grafismoen edo trazuen edozein sail [...] nahikoa dela enuntziatu bat osatzeko; eta gramatikari dagokiola esatea ea esaldi bat den, logikari esatea ea era **proposizional** batean jokatzen duen, Analisisari zehaztea zein den eurak zeharka ditzakeen hizkuntza-ekintza? **Xabier Arregi**

Sentimen esperientzia ez da **proposizionala** ezta kontzeptuala ere, fundazionistaren arabera. **Askoren artean**

### 2 ez-proposizional izond

Fase horretan, zera da hizkeraren ezaugarri nagusia, "hizkera ez **proposizionala**", hau da, hizkera funtsean generikoa, orokorra, zehaztasunik gabea, espazioan eta denboran errorik ez duena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jarrera proposizionalak (3)

## propultsatzaile izond bultzatzailea.

Eraginkorragoa den helize-**propultsatzailea** onartzeko. **Iñaki Mendiguren**

## propultsio 1 iz bultzatuz higiaraztea.

Motor gehienak, **propultsiorakoak** nahiz industriarakoak, bi hauetariko bat dira: edo atzera-aurrerakoak, edo birakariak. **Irene Aldasoro**

Koretroia zorrotada bidezko **propultsioa** erabiliz mugitzen da uretan, igerilari ona da. **Joseba Sarrionandia**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

loi bidezko **propultsio** motorra. **Berria - Gaiak**

Libre mugitzen da, berak daukan **propultsio** -unitate bati esker. **Irene Aldasoro**

Hitzek **propultsio** indarra galdu zuten hegazkinen aldean; eta paraxutik gabe geratu zen memoria. **Berria - Kultura**

Zuhaitzetara igotzeko, lubakien gainetik jauzi egiteko eta ezin asmakizun mekanikok egin ezin dituen maniobra asko egiteko aukera ematen dio giza animalari **propultsio** -sistemak. **Irene Aldasoro**

loien bidezko **propultsio** sistema iraultzailea du zundak, ohiko koheteena baino 10 aldiz eraginkorragoa. **Berria - Gaiak**

«Argazkiak erakusten du robota guk nahi genuen lekuan dagoela», adierazi zuen atzo Jennifer Trospen NASaren **Propultsio** Laborategiko zientzialariak. **Berria - Gaiak**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

propultsio laborategiko (3)



# propultsorea iz zabaltzailea.

Agertuko da "auto" hitza, agian, edo "igogailu", baina berdin agertzen ahal zen "koadriga", edo "eskailera", edo "HKZ **propultsorea**", edo "zoru hegalaria";

Jon Alonso

## prosa 1 iz hitz neurtuen inongo legerik betetzen ez duen idazteko era.

Liburuaren bi herenak bertsotan eginak badira ere, lehen zatia **prosan** idatzia dago. Berria - Harian

Neuk **prosaz** idatzitako testuak. Berria - Kultura

**Prosa** idazten dudanean ere, poesia idazten dudanekeo jarrera bera izaten dut hizkuntzarekiko. Ana Urkiza

Bada **prosa** egiteko era internazional bat, behintzat sartaldeko herri eta kultura denek onartua. Patxi Altuna

*El señor presidente* nobelak lorratz berezia utzi zidan: argumentuaz eta salaketa politikoaz aparte, **prosaren** poetikotasunagatik. Ana Urkiza

Hain naizela Axularren **prosa** ederraren zale, non etxean nuen *Gero*-a ere zorroan sartu eta Salamancarat ekarri bainuen. Joan Mari Irigoien

Ez dut transkribatuko, Stendhalen **prosak** merezi duen arren. Jon Alonso

Ezin esan haren **prosa** zaharkitu ez denik, ezin ukatu literaturaren historian leku eskaxa aitortzen zaiola. Berria - Harian

Latin eta grekozko **prosan** eta poesian. Iñaki Mendiguren

## 2 (izenondoekin)

Sariketetako idazlan haiek, **prosa** poetikoan idatzitako ipuinak, liburu gisa argitaratu zituen Labayruk. Ana Urkiza

Argentinan **prosa** narratiboak ez zuen gaintitzen, eskuarki, alegatua, satira eta ohituren kronika. Juan Garzia

Ikasliburuetan eta **prosa** zientifikoan. Koldo Zuazo

Troika paregabe horrek ezarri zituen erusierazko **prosa** modernoaren oinarri eta zutabeak. Jose Morales

Dorak dio esaldi bakoitza arreta nekagarri idatzi zuela, xehetasunik txikiena ere kontuan hartuz, **prosa** zehatza zela, graziaz bete eta harrigarria. Oskar Arana

Gauza jakina da Koranean ere **prosa** errimadun zoragarria erabiltzen dela. Xabier Kintana

Zolaren giza indarra, **prosa** bizia eta masak eta espazioak deskribatzeko dohain berezia guregana iritsi dira. Karlos Zabala

Humphries jaunak berari zegokion biografia irakurri zuen, luzea, tristea, xehea eta **prosa** txukunez idatzia. Koro Navarro

Esana dago nola, ia hasieran, **prosa** turistikoko uestez topikoaren azpian autoretza dudazkoen arazoa planteatu zitzaion itzultzaile taldeari. Iñaki Iñurieta

## 3 prosako testua, prosazko zatia.

Badira hiru bat urte hilabetearen behin *Diario Vasco*-rako artikulutxu bat idazten dudala pasadizoekin, lehenagoko bizimoduarekin... eta ohituta nago, eta liburuko **prosa** horiek ere erraz egin ditut. Berria - Kultura

Testu batzuk poemak dira; beste batzuk **prosa** poetikoak. Berria - Kultura

Bere zuzentzaile-oroimena bertsoz eta **prosaz** beteta dago, puskak, zatiak dira, baita esaldi osoak ere. Jon Alonso

Jainkoaren zerbitzariaren omenez idatzi zituzten **prosa**, gorazarre eta antifonetan zauri sakratuei buruzko aipamenak ezarri. Askoren artean

San Frantziskoren zauriekiko begiruneagatik gorazarre, antifona eta **prosa** eder eta deboziozkoak konposatu zituzten. Askoren artean

Murgildua nintzen **prosa** miresgarrietan. Piarres Aintziart

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Poesia idazleak **prosa** idazleen aurka. Edorta Jimenez

Literarioki, poesia zatiak hobeak dira **prosa** zatiak baino. Berria - Kultura

Thomasen **prosa** lanek lotura estua dute poesiarekin, aurrenekoak bereziki, *The Map of Love* (1940, Maitasunaren mapa). Koro Navarro

**Prosa** eran emandako poesia dago eta hori integratzen asmatu du eta tonua bera ere asmakizuna da. Berria - Kultura

"Euskaldun hitzez labur eta egitez luze" haren ereduari ezin hobeto legokiokeen **prosa** moldea, Orixek geroztik ere epika mota batean jarraitzaile bat baino gehiago izan duena. Josu Zabaleta

Obra klasiko bat itzultzeko, zer egokiago **prosa**-molde klasikoa erabiltzea baino? Patxi Altuna

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bazkalondoko prosa, solas-**prosa** eta ez deklamaziozkoa dugu Cervantesena. Juan Garzia

## 6 prosazko izlag

Eguneroko **prosazko** jardunean ari garela izaten ditugun zalantzak eta xehetu-nahiak. Andoni Egaña

Ariketa berezi batetara helduak ginen: **prosazko** testu bat itzuli, ulertzeko, eta latinezko neurtzkeraren ezarri. Piarres Aintziart

Bürger poetaren balada baten **prosazko** nola-halako bertso bat duk. Anjel Lertxundi

Goierriko hamabost idazle bildu zituen Jon Aranok Ordiziako eta bailarako bizitzarekin lotura zuten testuak, hala **prosazkoak** nola poesiazkoak, idatzi eta irakurtzeko.

Berria - Kultura

Literatur molde eta forma-ezaugarri aski ezberdinetako testuak dira [...] batzuk **prosazkoak** dira, errimaz eta asonantziez eraturiko pasarteak tartean dituztela; beste batzuk, berriz, poetikoak. Askoren artean

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

poesia eta prosa (5); prosa egiteko (3); prosa moldea (3)

bideko prosak (8)

bere prosaren (3)

## prosagile iz prosalaria.

Txinatar **prosagile** batek dio unikomioari, hain arauz kanpokoa izatearen beraren poderioz, inork ez bide diola erreparatzen. Juan Garzia

## prosaiko izond poesiarik gabea, arrunta.

Martxa da iraupenaren indar **prosaiko** eta segur baten parabolarik egokiena, eta, funtsean, biziaren sinboloa, irudi xuxenena. Piarres Aintziart

Bidea ez zait hain idilikoa iduritzen, akidurak lekuei erreallitate **prosaiko** bat emaiten baitie. Piarres Aintziart

Idea geniala, ordea, hitzez dago osatua, gainerako ideia arrunt **prosaikoak** legez. Joxerra Garzia

Bai ezagutu zituela pasioa eta eromena, baina gero eguneroko atxikimendu **prosaiko**, elkarrekiko pazientzia, iraupenaren penak eta ere goxoa, bai. Piarres Aintziart

Egiten genuen lan **prosaikoagorik** ere: txandaka pasatzen genuen erratza, txandaka garbitzen komuna. Anjel Lertxundi

Ez nuke erran behar ordea, *ut supra* egiten entseiatu naizen deskriptzio poetikoen ondotik, orain, datu **prosaiko** batera lerrarazi nauela erreallitateak. Piarres Aintziart

Horregatik gaituk hain **prosaikoak** diru kontuan. Iñaki Heras

## prosaikoki adlag era prosaikoan.

Ez balin badute, **prosaikoki**, usaia segitzen. **Piarres Aintziart**

## prosaismo *iz* prosaioa denaren nolakotasuna.

Bestea, "hezurdura asper da" **prosaismo** indartsua, zeina mizke denak higuinez eskumikatu nahi izango baitu, noski, baina bere bizitzaz gain preziatuko baitu kritikari giza-jite beteko denaren dastamenak. **Juan Garzia**

## prosalari *iz* prosazko obren idazlea.

Arte hori munduko beste hizkuntzetan idazten zuten poeta eta **prosalariak** ondu baitzuten, nork berean. **Bernardo Atxaga**

-Munduko errege eta agintari guztiei eskatzen diet nik bidal ditzatela Alexandriako gure hirira olerkarien eta **prosalarien** idazlanak, erretorikoenak eta sofistenak, medikuenak eta igarleenak, historialarienak, eta filosofoenak, eta gainerako guztienak ere bai... **Jon Muñoz**

Bossuet **prosalari** handiak. **Piarres Aintziart**

## proselita ik **proselito**.

## proselitismo *iz* proselitoak lortzeko lana.

Edozein elkartek, erakundek, alderdik, erlijio... etsai gogorragotzat hartzen du hurbileko heterodoxoa, urrutiago sentitzen duen jentila baino, eta urruneko jentil hori hurbilazatzeko eta bereganatzeko saio ugari eta **proselitismo** gorria egiten saiatuko den neurri berean ahaleginduko da alboko heterodoxoa suntsitzen eta desegiten. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Karitatea eskaintzeko orduan Elizak **proselitismorik** ez duela egin behar. **Berria - Gaiak**

Euskadiko Ezkerrak irakasle bakar hark, inoiz **proselitismorik** egin ez bazigun ere, haren aukera estimatzera eraman ninduen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Patruila hau Espainiako Defentsa Ministerioarena da, eta bere helburuen artean armadaren **proselitismoa** egitea dago. **Berria - Euskal Herria**

Liburua orrikatu eta gainbegiratuta, garbi zegoen lan politiko bat zela hura, anarkismoaren **proselitismoa** egiten zuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Beharrezkoa ote du **proselitismoa** euskarak? **Berria - Kultura**

Egiaren bat duela uste duen orok **proselitismorako** joera pixka bat izan ohi duenez, Sañudo eta haren lagunak biltzen ziren kafetegira joan zen gau batez, Letamendiren dotrinez hitz egin, azaldu eta komentatzeko asmoz. **Josu Zabaleta**

## proselitista *izond* proselitoak lortzen saiatzeko joera duena.

Bere burua kristau definitzen zuten katekumeno **proselitista** haien aurrean, beraiek nahi gabe seguru asko, kristau ez nintzela pentsarazi zidaten, lehenengo aldiz agian.

**Xabier Mendiguren Elizegi**

Euskal gizona, "homo demens", arkeriak jotako mozkor **proselitista**, taktikaren eta estrategiaren pepepelmoidea, burujabetasunaren alde-edo egundoko burugabekeriaren egilea, deus arrikatzeko ez duen piztia manipulatzailerik odolzalea. **Markos Zapiain**

## proselito (*orobat proselita g.er.*) *iz* erlijio batera konbertitu berria den pertsona; doktrina edo ideia bati atxiki berria den pertsona.

Jadanik Onqelos **proselitoak** (bakea bego harekin!) azaldua du, eta zuzena da haren azalpena. **Xabier Kintana**

Iheslariak Durangoko giro gorrian baino ideia-askatasun eta tolerantzia handiagoa aurkitu zuten Granadako erresuman, baina erlijioaren sua ezin amatatu eta **proselitoen** bila jardun zuten musulmanen artean ere. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Danubiok, berriz, bere bidea alderantzikatu eta errumaniar, serbiar, bulgariar eta greziar **proselitoen** kultur alubioi bat utzia zuen ibaian gora, jada gainezka zegoen Vienako arragoan. **Iñaki Mendiguren**

Ez nintzen nihaur aski **proselita** ikasleak ekararazteko. **Piarres Aintziart**

## prosesio ik **prozesio**.

## prosesione ik **prozesio**.

## prosezio ik **prozesio**.

## prosilogismo *iz* silogismo bikote batean, bietako lehenaren ondorioa, bigarrenaren premisa nagusia gertatzen dena.

Erregela hau, era berean, arrazoimenaren egoera berberan aurkitzen denez eta, horren bidez, baldintzaren baldintza bilatu behar denez (**prosilogismo** baten bidez) [...].

**Ibon Uribarri**

Laster ohartzen da, ordea, **prosilogismoen** kateak edo ilarak, h[au] d[a], ondorioztatutako ezagutzak oinarriaren aldetik edo ezagutza jakin batentzako baldintzen aldetik, [...].

**Ibon Uribarri**

## prosione ik **prozesio**.

## prosista *iz* prosalaria.

Haren inguruan kafe hartzen eta zigarroa erretzen ari direnak, Virgilio Giotti poeta, Gianni Stuparich kritikoa eta Scipio Slapater **prosista** eta poeta dira. **Anjel Lertxundi**

## proskripzio *iz* debekatzea; legetik at ezartzea.

Mugimenduaren aitzindarietako askok martiriota pairatu zuten teknologian zuten fideagatik K.o. 1840-50eko **proskripzioetan**, 1853an gertatu zen "Japoniaren irekitze" delakoa baino lehentxeago. **Iñaki Mendiguren**

Orangeko printzearen **proskripzioan**, Felipe II.ak agindu zion hura edo haren oinordekoak hiltzen zuenari hogeita bost mila ezku eta nobletasuna emango dizkiola. **Iñaki Iñurrieta**

## proskrito *izond/iz* bere aberri edo girotik, bereziki arrazoi politikoengatik, egotzia izan dena.

Arestik bere bizitzari ezarri zion auto-profezia da, poeta **proskritoaren** patua. **Joseba Zulaika**

Lanpostu dramatikoaren bat aurkitu nahi izango zukeen, edo sinpleki ironia mingotsez betetakoren bat, "**proskrito**" bati zegokion legez. **Karlos Zabala**

## prosodia *iz* hotsen luze-laburraren eta doinuaren alderdiak, neurtitzetan zerikusirik duten aldetik; alderdi horiei dagozkien arauak.

Lehen kolpean, **prosodia** hizkuntzaren musika dela esan daiteke. **Lourdes Oñederra**

**Prosodiaren** osagaiok (garaiera, ozentasuna eta luzera) gauzatzten dute azentu deritzona, hizkuntzatik hizkuntzara alda daitezkeen konbinaera eta neurrietan. **Lourdes Oñederra**

**Prosodia** ez da kontsonante eta bokal bilkurei erantzen zaien gehigarria, hizketaren ezinbesteko osagai funtsezko baizik, ez dago **prosodiarik** gabeko hizketarik. **Lourdes Oñederra**

Beti pentsatzen dugu hizkuntza etxetik dakienak **prosodia** zuzenagoa, fonetika egokiagoa eta hiztegi aberatsagoa izango duela. **Koldo Zuazo**

Jendea adi dago, idazleak komunikatzeko duen gaitasun paregabeaz zorabiatutik, bere **prosodiaz** txunditurik. **Karlos Linazasoro**

**Prosodiaren** bestelako kasu dira bertsoa eta kantua. **Lourdes Oñederra**

Publikoak gogoz onartu zuen Britten-ek jarri zituen disonantziak, ingeles **prosodia** monosilabikoa eta bazterketari eginiko kritika sozial garratza. **Berria - Kultura**

## prosodiko *izond* prosodiarena, prosodiari dagokiona.

Silaba-egitura **prosodiko** funtsezkoa dugu hizkuntzen egituraketan. **Lourdes Oñederra**

Bigarren hizkuntzaren ahoskera bilakabide **prosodikoak**. **Lourdes Oñederra**

Ez dira kontuan hartzen bertsoaren gainerako alderdiak, hala nola **prosodikoak**, paralinguistikoak, extralinguistikoak eta musikalak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ondo esate horretan sartzen dira alderdi **prosodikoak** (intonazioa, isiluneak), alderdi paralinguistikoak (ebakera, erritmoa...) eta estralinguistikoak (keinuak, jarrera, distantzia...). **Txema Ramirez de la Piscina**

Ekonomia **prosodikoak**, izatez, kaligrafia edo ortografia edo puntuazioa bezain arrotz zaio arteari: erretorikak bere jatorria auzilaritzan eta kantuak berea musikagintzan izateak ez digu orain artean utzi egia garbi hori ikusten. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baldintza prosodikoak** (5); **bilakabide prosodikoak** (3); **osagai prosodikoak** (4)

**baldintza prosodikoen** (3)

## prosodikoki *iz* prosodiaren arabera.

Txertatze hori islatzen du *bilakabide prosodiko* esapideak: hizkuntza, hizketa bihurtze horretan, **prosodikoki** prozesatzen dela. **Lourdes Oñederra**

Hitzak, sintagmak eta perpausak erritmo eta doinu eredu oinarrikoetan uztertzean, hizkuntza **prosodikoki** prozesatzen dugu. **Lourdes Oñederra**

Izan ere, hizkuntza hizketa bihurtzeak prosodia dakar ezinbestean; hizkuntza **prosodikoki** gauzatzten da, hitz egitean, hizkuntza ateratzean, fisiko egitean. **Lourdes Oñederra**

## prosopopeia *iz* manerakeria hizketan edo aritzeko moduan.

On Camillok mintzaldi luze bat hasi zuen, ezteki, Cristina andreaki ulertarazteko giza **prosopopeia** guztiak albo batera uzteko momentua zela. **Koldo Biguri**

## prosozial *izond* gizartearen aldekoa.

Jokaera erasokorra gutxitzen duen jarrera **prosozialaz** gain, sorkuntza lantzen dugu egiten ditugun jolasetan. **Berria - Euskal Herria**

Pertsona **prosozial** gisa edo lagun gisa. **Berria - Euskal Herria**

## prospektiba *iz* gai jakin bati buruz etorkizunean gerta daitezkeen joeren azkerteta.

Datozen urteetan unibertsitatean matrikulatuko diren ikasleen **prospektiba**. **Berria - Euskal Herria**

Lehena 92-tik 94-eraino, erran dugu zer Euskal Herri nahi dugun 2010-eko, hori da **prospektibaren** erronka. **Herria**

## prospektibazale *izond/iz* prospektibaren zalea dena.

Bikoiztasun hau oreka berri baten seinale ote den ala dijestio txarra eragingo digun sikulusaltsa, igarleek eta **prospektibazaleek** antzeman beharko diote. **Berria - Kultura**

## prospektibo *izond* etorkizunari edo etorkizunari buruzko azterketei dagokiena.

Diagnostiko lan bat egitea, ariketa **prospektibo** bat ondotik eta lurralde antolaketa eskema osatu zen hiru probintzien antolaketarako puntu estrategiko bat. **Berria - Euskal Herria**

Nazio proiektutik hasita, non, demokrazia urte gutxiokoaren bidetik, halako eskema **prospektibo** bat nagusituz baitzihotan proiektu hartan sinesten zuen gizataldearen imajinarioan. **Iñaki Iñurrieta**

Hizkuntzalaritza diakronikoak, aldiz, bi ikuspegi bereizi behar ditu: bata ikuspegi **prospektiboa**, denboraren bidea jarraitzen duena, eta ikuspegi retrospektiboa bestea, denboran atzeraka doana. **Isabel Arrigain**

Ikuspuntu **prospektibo** batetik lan eginez, galdetuko dugu ea zer bilakatu den frantsesez latin klasikoko e hura, eta ikusiko dugu orduan hots hori, denboraren poderioz, desberdinduz joan dela fonema batzuk sortzeraino. **Isabel Arrigain**

Dena (etorkizun **prospektiboa** barne) dakien gizajoa autista supiziente bat da. **Iñaki Segurola**

## prospektiboki *adlag* era prospektiboan.

Problemarik ikusten ez duenari ikusarazi egin behar zaizkio (gerora begira, jakina, "**prospektiboki**" eta "aurreikuspenez"), soluzio bila has dadin. **Iñaki Segurola**

Nik ere "auskalo" diot, baina zinezko auskalo bat, ezezkako auskalo garbi bat; ez dakigula, ez dagoela jakiterik, gerokorik ez dela orain tokatzen, eta ez duela inork profilaktikoki eta **prospektiboki** nere eskurik irakurriko. **Iñaki Segurola**

## prospekto ik prospektu.

## prospektu *(orobat prospekto g.er.)* 1 *iz* hainbat salgairekin batean datorren informazio inprimakia.

Mahai gainean **prospektu** batzuk soilik zeuden, esnekiak jatea beharrezkoa dela eta "seropositiboa izanik nola bizi" azaltzen zutenak; aldizkaririk ez. **Joseba Urteaga**

Ez al ditu jendeak medizinen **prospektuak** bi aldiz edo gehiagotan irakurtzen? **Bernardo Atxaga**

**Prospektuko** argibideen arabera, Fluoxetinaren eragina geldo samarra izango zen. **Patxi Iturritegi**

**Prospektuko** hitz lasaigarriak berrirakurri ahal izan ditut: "nekeak, estresak eta zahartzeak galarazi egiten dute loaldian azala behar bezala garbitu eta zaharbertzea. **Patxi Zubizarreta**

**Prospektuko** argibideen arabera, Fluoxetinaren eragina geldo samarra izango zen. Egun batzuk geroago, tiradera batzuk mukuru betetzen zituzten banku paper, telefono faktura, era askotako **prospektu**, eta etxeko tresnen edo hi-fi kateen erabilera-giden bereizte lanari ekin nion. **Patxi Iturritegi**

Euskal Herriko ontzi-fabrikatzaileek eta elikagai-banatzzaileek beren **prospektuak** munduko hizkuntza gehienetan plazaratuko dituzte, euskaraz izan ezik. **Edorta Agirre**

### 2 (hitz elkartuetan)

Denboraren emanean pilaturiko agendak, hegazkin txartelak, tren txartelak, auto bidaiak, jatetxe eta hotel fakturak, museo sarrerak, antzerki egitarauak, turismo **prospektuak**, hiri planoak, posta-txartelak, bisitarako gida-liburuxkak. **Joxan Elosegi**

Hurrena, berriz, zerbait gorri bereiziko du orri zabaleko belar batzuen artean, tabako pakete baten azala; geroxeago, garagardo lata baten txanda izango da, edota publizitate **prospektu** batena. **Bernardo Atxaga**

## prospekzio 1 *iz* gai jakin bati buruzko azterketa.

**Prospekzio** xume bat aski zen erakusteko itzulpen premiak asko garatuko zirela hurrengo urteetan. **Iñaki Iñurrieta**

**Prospekzioa** egitea, huts-hutsean, kontatzea da, eta oso-osorik dokumentuen kritikan dago oinarritua; iragana berreraikitzeak, aldiz, berregiteko metodo bat eskatzen du, eta metodo hori erakartaren gainean bermatua dago. **Isabel Arrigain**

Orain arte ez da egin inolako **prospekzio** inguruan. **Berria - Kultura**

Eusko Jaurilaritzaren **Prospekzio** Soziologikoen Kabineteak joan den otsailean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eginiko inkestak (Euskal Soziometroak) jasotzen duenez, Euskal Herriko hiru lurralde horietako herritar gehienek estez %57ren iritziz talde abertzaleen artean eginiko koalizioak hobeto defendituko lituzke Euskal Autonomia Erkidegoaren «interesak». **Prospekzio** ariketa hura interesgarri iruditzen zitzaie, irudimenari atek zabalduz... **Berria - Euskal Herria**

### 2 lur eremu baten azterketa hobien bila.

Islamiar petrolio-eremutik kanpoko **prospekzioak** geldiarazi zituzten, eta, epe luzera, bazterreko ekoizleak ezabatu zituzten. **Koro Navarro**

Teikoku Oil eta Japan Petroleum Exploration petrolio-**prospekzioak** egiteko baimena eman zien asteazkenean Tokiok. **Berria - Harian**

## prosperitate 1 *iz* prosperoa denaren nolakotasuna.

Arazo publikoetan aurka dauden gerra zibileko bloke nagusien disoluzioa behar da, bakoitzak bere bizitza pribatuari ekin diezaion eta **prosperitatea** eta ongizatea gara daitezten. **Xabier Amuriza**

Bakealdi sendoa ekarriko zuela, zeina ezin egokiagoa gerta baitzitekeen, bertzalde, bai frantsesen eta bai espainiarren **prosperitatearentzat** ere. **Joan Mari Irigoien**

Esaterako, Bernard Mandeville *Erleen fabula* edo nola bizio pribatuek **prosperitate** publikoa erakartzen duten panfletoa jarri daiteke adibide, bizioa birtute bihurtzen deneko poema alegorikoa. **Iñaki Heras**

Langileek inoiz baino gutxiago kontrolatzen dute produzitzen dutena, eta Chronos Watchen egindako aldiak erakutsi dit **prosperitatea**, prezio horretan irabazia, ez zela niretzat. **Pablo Sastre**

### 2 (hitz elkartuetan)

Hiri baten **prosperitate** maila geltoki inguruko etxeak aztertuz antzeman liteke. **Pako Aristi**

## prospero *izond* arrakastsua edo aldekoa dena, bereziki alderdi ekonomikoan.

Lehenengo hiruzpalau urteetan, berritasunak edo hasierako idealismoak eraginda, **prosperoa** eta arrakastatsua izan zen komunitate hura. Halako lur oparo eta aberatsean **prosperoa** izan zitekeen herri espainiarra zergapean hondoratzen duen potentatu honengana. **Joan Mari Irigoien**

## prostaglandina *iz* 20 karbonoko gantza-azidoetatik eratorriko gai lipidoa.

Adituek azaldu dutenez, **prostaglandina** kopurua [...] murrizten du aspirinak. **Berria - Gaiak**

## prostasa *iz*

**Prostasaren** ezker-eskuin logelak daude jarrita, horietako bat talamoa deitzen dena, eta bestea anfitalamoa esaten zaiona. **Santiago Iruretagoiena**

## prostata 1 *iz* maskuriaren muturrean eta gernubidearen inguruan kokaturik dagoen guruina, isurkari zurixka eta likatsua jariatzen duena.

Eskularru profilaktikoak dakartzate eta eztlu eginarazi didate herriko medikuak **prostata** aztertzen zidanean bezala. **Koldo Izagirre**

Agerkarietan ipuin erotiko erdipurdikoak irakurtzetik pasatu gara ipurtzuloan atzamarra sartuz gero **prostata** bitzen duten nerbioak kitzikatzen ditugula jakitera. **Berria - Kultura**

**Prostatako** arazoak ditut, eta, hortaz, gauean behin baino gehiagotan jaiki behar izaten dut. **Koro Navarro**

Orgasmoa eta **prostatako** likidoa berehala helduko dira. **Luis Elberdin**

Hazia espermatozoidetz eta **prostatan** eta semen besikulan sortzen diren likidoz osatua dago. **Luis Elberdin**

Apirilaren 14 horretantxe jakin du Maryk bere aitak **prostatako** minbizia duena. **Edorta Jimenez**

73 urteko gerrillariak **prostatan** du minbizia eta sei hilabeteen hilko da. Berria - Mundua

**Prostataren** handitze fisiologikoa. Berria - Gaiak

Ni emaztearen oroimen urdinetik ihesi nentoreen, haren **prostata** kiskalitik, haren ezpain ezpatazkoetatik, eta jo egiten nuen. Karlos Linazasoro

## 2 (hitz elkartuetan)

Oraindik beste loraldi bat izan zuen bere senarraren miresmenean, hau, **prostata** ebakuntza bat izan eta bere azken ospitalerazetik etxeratu zenean. Pako Aristi

Bularreko minbiziaren edo **prostata** minbiziaren kontrako zenbait botikarekin. Berria - Euskal Herria

-Ez, agure **prostatarik** ez, idi bihotz bat gaupen odola dariola. Joseba Sarrionandia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prostatako minbizia** (18); **prostatako minbiziaren** (4)

**prostataren lurrunketa** (3)

## prostatektomia iz guruin prostatikoa osorik edo partez erauzteko ebakuntza.

Prostata handiagoa denean, berriz, **prostatektomia** irekia erabiltzen da. Berria - Gaiak

Prostataren handitze fisiologikoa sendatzeko bi kirurgia teknika erabiltzen ziren orain arte: Kirurgia endoskopikoa (RTU) edo **prostatektomia** irekia, *kirurgia irekia* deitzen dutena. Berria - Gaiak

## prostatiko 1 izond prostatarena, prostatari dagokiona.

Hiperplasia onbera, berriz, guruin **prostatikoaren** handitze fisiologikoari deitzen zaio. Berria - Gaiak

Kasu horretan, sabelaldean egiten zaion ebakitik ateratzen da guruin **prostatikoa**. Berria - Gaiak

### 2 ez-prostatiko

Beste gizon-emakume ez-**prostatiko** bat aurkituko duzu eta zorientua izango zara, oso eta guztiz Karlos Linazasoro

## prostibulo ik prostibulu.

## prostibulu (orobat prostibulo) iz prostituzio etxea.

Ez zuen **prostibulu** inguruetan sortu ohi diren ostatu hits eta leiho gabekorik, ez lurpeko parking erraldoirik, ez izen txarreko auzorik ere. Joxean Agirre

Gipuzkoa zintzo honetan, **prostibulo** bat zen Trintxerpe. Koldo Izagirre

## prostilo iz tenpluez mintzatzuz, fatxadetako bat zutabe lerro batez apaindua duena.

Tenplu-tipo nagusiak, tenplu guztien kanpoko itxura mugatzen edo finkatzen dutenak, hauek dira: lehenengo eta behin, *in antis* izenekoa, grekoek *naos en parastasin* deitzen dutena; ondoren, **prostilo**, *anfi*prostilo, *periptero*, *pseudodiptero*, *hipetro* izenekoak. Santiago Iruretagoiena

Tenplu anfiprostiloak **prostiloak** bezala dauzka elementu guztiak, baina atzeko aldean, gainera, koloma batzuk eta frontoia ditu, aurreko aldean bezala. Santiago Iruretagoiena

Gerora, Demetrio Falerokoa Atenasko gauzen jabe egin zenean, Filonek aurreko fatxadan kolomak jarriz tenplua **prostilo** bihurtu zuen; sarrera honela handituz, inizatuentzako leku zabalagoa uzteaz gainera, obrari ospe handia eman zion. Santiago Iruretagoiena

## prostituitu, prostitui, prostituitzen 1 da ad sexu harremanak izan diruaren truke.

Ira **prostituitzen** hasi zen, txikiari arroza, esnea, gatza eman ahal izateko. Pablo Sastre

Lusianan, Illinoisko partean, emakumez jantzitako gizonak emagalduen gisa **prostituitzen** ziren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atxilotuek ustez emakume errumaniarrak **prostituitzera** behartzen zituzten. Berria - Euskal Herria

Salhaketak adierazi zuen Langraizko funtzionario batek zenbait emakume preso **prostituitzera** bultzatu zituela. Berria - Euskal Herria

### 2 (du aditz gisa)

Piperbeltzaren Itsasaldeko eta Gabon Ibaiko beltzek beren seme-alabekin **prostituitzen** dituzte beren emazteak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Prest nago neure burua **prostituitzen** jarraitzeko janari eta bizitokiaren truke? Jon Arretxe

-Neska deigarria duk; baina Aracilek **prostituitu** egiten dik. Josu Zabaleta

### 3 irud/hed

Deabrurik likitsen eta ustelduenengana **prostituitu** den adimena nolatan izango da, bada, gorputzaren eta bizioen jaun eta jabe? Imanol Unzurrunzaga

Berak esan digunez telebistara doazenak bera baino sakonago **prostituitzen** direlako, beren nahiak, ametsak eta ilusioak, hau da, beren intimitatea saltzen dutelako.

Berria - Kultura

Folioaren birjinitatea **prostituitzearen** arrazoia / bat eta bakarra dela. Jasone Osoro

Garapen iraunkorraren erueda ondo defenituta dago; eguneroko praktikak, ordea, **prostituitu** egiten du. Berria - Euskal Herria

Lan egitea beti izan dok **prostituitzea**. Unai Iturriaga

Herriaren izena hain **prostituitua** dagoen une honetan, euskal kantariak badauka zer-eginik franko. Berria - Kultura

Euria bera ere **prostituitu** egiten da. Unai Iturriaga

Jakin behar duzu zuk zeuk ordezkatzen duzun sistema politikoak [...] izugarri **prostituitu** duela lengoaia. Txema Ramirez de la Piscina

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Porno gizonentzat, prostitutak gizonentzat eta, oi aurrerabidea, gay **prostituituak** gizonentzat. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prostituitzen ziren** (3)

**prostituitzera behartzeagatik** (5); **prostituitzera behartzen** (5)

## prostituta 1 iz diru truke sexu harremanetara ematen den emakumezkoa. ik puta; emagaldu; prostituto.

Beste behin, Gazara joan zen Sanson; **prostituta** bat ikusi zuen han, eta harengana sartu zen. Jose Antonio Mujika

-Non da **prostituta** hura, Enaimen, bide-bazterreen, egoten zena? [Jose Antonio Mujika](#)  
Telefonia deseskegi eta egunkariko **prostituta** haietako bati hots egin zion. [Harkaitz Cano](#)  
Biharamunean bera **prostituta** birekin izan dela zabaldu da trenkideen artean. [Edorta Jimenez](#)  
Bankside-ko **prostituta** bat hartu zuen maitale, ur ertzeko karriketako ibiltari sarria, eta huraxe soilik maitatu zuen. [Juan Garzia](#)  
Zuri buruan sartzen al zaizu emakume batek batzuetan **prostituta**, emagaldu arrunta izan nahi duela? [Lopez de Arana](#)  
**Prostituta** bezala lan egiten, ziurrenik bere ikasketak, pisua, arropak, eta janaria ordaintzeko. [Pako Aristi](#)  
Kutxatila irekitzen zunean jakingo zuen Henryk, hain zuzen ere, aita-amek adostatu egin zutela, Virginia Cityko **prostituta** bat zuela benetako ama, Wyomingo pistoleroak haurdu utzitako **prostituta**, eta hortaz, pistoleroa zuela benetako aita. [Javi Cillero](#)  
Urtero, milaka **prostituta** hiltzen dira ziegetan, «poliziak torturatu egiten baititu, bezeroei buruzko informazioa lortzeko». [Berria - Gaiak](#)  
Gure borondateari entzungor eginez, **prostituta**, txulo eta droga saltzaileek periferiako auzoak gugana ekartzen dituzte ilunabarrean, alfonbra baten gainean batetik bestera arrastaka eramaten diren altzari pisutsuen eran. [Harkaitz Cano](#)

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hiru **prostituta** gazte eta oilaloka trabestitu bat. [Patxi Iturritegi](#)  
Zu ez zara **prostituta** arrunt bat baino hobea. [Lopez de Arana](#)  
Edurenek ederto asko egiten zuen **prostituta** garestiarena. [Jon Arretxe](#)  
Frantziak ez du onartu nahi izan bere heroi eroriak haragiaren grinari emanak zirela, eta **prostituta** asiari eta arabiar haiek erabili zituztela. [Berria - Mundua](#)  
Zuk uste bezala, emakume hori luxuzko **prostituta** bat zen, zinemagintzan huts egindako bat. [Migel Angel Mintegi](#)  
Goi mailako **prostitutaren** rola primeran betetzen jarraitu zuen, inolako gorabeherarik gabe. [Jon Arretxe](#)  
"Chicas bonitas"? -galdetu diot, aurrerago zihoazen ustezko **prostitutak** seinalatuz. [Jon Arretxe](#)  
Ateneak ber-bertan emakume bihurturik, **prostituta** ospetsu bilakatzen da Tiresias. [Juan Garzia](#)  
**Prostituta** katedradunaren kasua. [Pako Aristi](#)  
Ez baitira ohizko **prostitutak**, bizimodua ateratzen saiatzen diren neska gazteak baizik... [Jon Muñoz](#)  
Prostituzioa legeztatzea aztertzen ari dira Berkeleyn (Kalifornia, AEB), **prostituta** ohi baten eskaerari erantzunez. [Berria - Gaiak](#)

## 3 (izenondo gisa)

Hiriko harresien aldean andre **prostitutak** egoten ziren. [Pello Lizarralde](#)  
Emakume **prostitutak** eragile politiko bilakatu izana aspaldion jazo den gertaerarik garrantzitsuen da. [Berria - Euskal Herria](#)

## 4 (adizlagun gisa)

**Prostituta** jaio zuan. [Patxi Zubizarreta](#)  
Ukrainako gazte asko Mosku, Varsovia edo Parisera joan dira lan bila, eta ez dira gutxi hango kaleetan **prostituta** dihardutenak. [Berria - Mundua](#)  
-Horra, Tamar zure erraina **prostituta** ibili da eta, are, haurdu gelditu da. [Jose Antonio Mujika](#)

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi neska errumaniar adingabe **prostituta** lanean ari ziren klub horretan. [Berria - Euskal Herria](#)  
Badituk mundu guztiak maite dituen pertsonak, mundu guztia irribarez aritzen zaizkienak, eta horrelakoek nabarmendu beharra izaten ditek, **prostituta** -puntu bat ematen ziek. [Xabier Olarra](#)  
Seguru aski pentsatuko huen [...] munduak bere kuttuntzat daukan pertsonak **prostituta** -zantzuren bat duela. [Xabier Olarra](#)  
Frontón hotelean izan zen gau-jaia, eta ez zen, ohi zenez, **prostituta** taldea falta izan han. [Edorta Jimenez](#)

# prostitutatu, prostituta(tu), prostitutatzen da/du *ad* prostituta bihurtu.

Ama euskara putatu, **prostitutatu**, irabazian jarri eta haren proxeneta bihurtu. [Iñaki Segurola](#)

# prostitutazale *iz* prostituten zalea dena.

Bidaia nekaezin eta espioia; **prostitutazale** eta katolikoa; teologo bikain eta maniako depresiboa... egin zuenaren eta idatzi zuenaren artean beti egon zen kontraesanak, horrek egiten du hurbil, eta interesgarri. [Berria - Kultura](#)

# prostituto (*orobat prostitutu*) 1 *iz* diru truke sexu harremanetara ematen den gizonezkoa. ik **puto**; **puta**; **prostituta**.

Zergatik daude hainbeste **prostituto**, eta gero eta gehiago? [Karlos Zabala](#)  
Zure **prostitutu** txortolari horietako bat ekarri duzula zurekin eta logelan duzula zain? [Aitor Arana](#)

## 2 (izenondo gisa)

Nerabe mozkor, trabestitu eta **prostituto** izatetik kultuzko idazle goiztiarra izatera pasatu zen atzo, eta hogeitaka hizkuntzataraz itzuli dute haren lana. [Berria - Kultura](#)

## 3 irud/hed

Gogoko al duzu prentsako **prostitutua** izatea? [Lopez de Arana](#)

# prostitutu ik **prostituto**.

# prostituzio 1 *iz* diru truke norbaitek bere gorputza sexu harremanetara ematea eta hori bizibide bihurtzea; harreman mota horretan aritzea; aritze hori gizarte gertakarizat hartua.

Higuigarri baitzaio Jaunari zuen Jainkoari, bai gizonezkoen, bai emakumezkoen **prostituzioa**. [Elizen arteko biblia](#)  
Teodora enperatrizarren antzera, kale bazterretan eta pasealekuetan bilatzen nituen gizonak, eta **prostituzio** horietatik ateratako dirua loterian jokatu nuen. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)  
-Ez nuen uste **prostituziorik** egongo zenik Iranen. [Jon Arretxe](#)  
Erakundeak azaldu duenez, alkoholismoa eta **prostituzioa** ugaritu egin da haien artean. [Berria - Gaiak](#)  
Erresuma Batuko Gobernuak **prostituzioa** legeztatzeko aukera aztertzen ari da. [Berria - Gaiak](#)  
Erran gabe doa haurren **prostituzioa** ez dela falta. [Ramuntxo Etxeberri](#)  
**Prostituzioak** gaixotasunera zaramatza, endekapenera; ezkontzak, berriz, arrunkeari, erdipurdikokeriara. [Josu Zabaleta](#)  
Ondikozko egoera horrek ugaldtu egin du lapurretara, **prostituzioa**, borrokak eta mafiakeria. **Prostituzioa**, mozkorkeria, langile jendearen miseriak, burgesen itxurakeria... [Gotzon Garate](#)  
Isabel Holgado antropologoak feminismoaren eta **prostituzioaren** arteko hartu-eman eta ezinukiak aztertu ditu jardunaldiotan. [Berria - Euskal Herria](#)



## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Prostituzio** publikoari lotutako emakumeek ez daukate beren haurrak hezteko erosotasunik.   **Iñaki Iñurrieta**

Tenpluan **prostituzio** sakraturako erabili ohi ziren gelak ere desegin zituen.   **Elizen arteko biblia**

Ezkontza -erantsi zuen, errautsa alfonbrara erortzen utziz-, legezko **prostituzio** monogamo hori.   **Koro Navarro**

Herri guztiek edan dute haren **prostituzio** sutsuaren ardortik.   **Elizen arteko biblia**

## 3 (aditzekin)

Egipton **prostituzioan** hasi ziren, oso gazterik.   **Elizen arteko biblia**

Diru pixka bat egin zuen berriz ere **prostituzioan**.   **Gotzon Garate**

Atxilotuek Hego Amerikako neskek ekartzen zituzten, ustez lan egiteko hitza emanda, eta gero **prostituzioan** aritzera behartzen zituzten.   **Berria - Euskal Herria**

18 urteko kartzela zigorra bete beharko du hiru emakumeren aurkako sexu gehiegikeriengatik eta haiek **prostituzioan** jardutera behartzeagatik.   **Berria - Ekonomia**

**Prostituzioan**, drogen munduan edo lapurretan aritzen diren taldeetan ez dago ia musulmanik.   **Berria - Harian**

Babiloniarekin **prostituzioan** eta atseginkerian ibiliak diren munduko erregeek negar eta dolu egingo dute, haren sutearen ke-mordoa ikustean.   **Elizen arteko biblia**

1999 urtean milioi bat emakume eta neskatila baino gehiago salduak izan zirela, **prostituzioan** lan egin zezaten.   **Gotzon Garate**

Berak bi edo hiru urte eman zituen **prostituzioan**.   **Berria - Harian**

Senarrak amaztea **prostituziora** behartu du!   **Fernando Rey**

**Prostituziora** bultzatzen dira neskatxak, edo salerosketa eta esklabotzara, munduko herri askotan.   **Pello Salaburu**

Filipinasen, Indonesian eta Tailandian emakume askok beren gorputzak saldu behar izan dituzte familia mantentzeko, haurrek eskola utzi eta **prostituziora** jo.   **Gotzon Garate**

Mendi-gailur guztietara joaten da, zuhaitz handi guztien azpira, bere burua **prostituzioari** ematera.   **Elizen arteko biblia**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iruñeriko **prostituzio** klubetan banatzen eta saltzen zuela droga.   **Berria - Euskal Herria**

Bideburu eta plaza guztietan **prostituzio** -lekuak eraiki zenituen.   **Elizen arteko biblia**

Delhiko zenbait **prostituzio** -aizotan emagalduek egunero 10 edo 15 bezero hartzen dituzte.   **Gotzon Garate**

Nazioarteko **prostituzio** sareak desegin dute Nafarroako Erriberan.   **Berria - Euskal Herria**

Garai batean Parisa lan bila joaten ziren Iparraldeko euskal neska asko **prostituzio** sareetan erortzen zirela.   **Gotzon Garate**

**Prostituzio** lanean ari direnentzat ia bilioi bat pezetako irabazia.   **Gotzon Garate**

Drogak **prostituzio** mundura sarraraziriko Europa utopikoko gazteak.   **Migel Angel Mintegi**

Gutun eta marrazki horiek Parisko 1900. urteko testigantza zuzena dira, sexu, alkohol eta **prostituzio** gauen lekuko.   **Berria - Kultura**

Natura jakintsua da oso; esklaboa egin eta esklabo-espirtua ematen zion; prostituta egin, eta **prostituzio** -espirtua ematen zion.   **Josu Zabaleta**

**Prostituzio** -haizeak jo ditu, beste jainkoen atzetik joateko, ni, beren Jainkoa, bazter utzirik.   **Elizen arteko biblia**

Erori da, erori, Babilonia handia, herri guztiak bere **prostituzio** -ardoz mozkortu zituena.   **Elizen arteko biblia**

## 5 prostituzio etxe

Emakume zaintzaileek eroetxea **prostituzio-etxe** egin zuten.   **Gotzon Garate**

**Prostituzio-etxe** dotore haietako batzuetan gizarte-maila goreneko aberaskumeak topatzen zituen.   **Josu Zabaleta**

Zer izan zitekeen lan katolikoagorik, kontserbatzaileagorik, **prostituzio-etxe** bat gidatzea baino!   **Josu Zabaleta**

Urtero Nepalen 9 urteik 16 urtera bitarteko 10.000 emakume inguru, gehien-gehienak neskatilak eta neskatxak, Indiara eta batez ere Bonbaira salduak izaten dira,

**prostituzio etxeetan** lan egin dezaten.   **Gotzon Garate**

Afrikar eta Asian **prostituzio etxeetatik** familietara egin du jauzi [hiesak].   **Berria - Gaiak**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nazioarteko prostituzio (4); prostituzio etxe (12); prostituzio etxe batean (5); prostituzio etxea (4); prostituzio etxeetan (3); prostituzio lekuak (3); prostituzio sakraturako (4); prostituzio sare (9); prostituzio sare bat (5); prostituzio sare batekin (3); prostituzio sarean (3)

egiten duela prostituzioa (3)

prostituzioan aritzen (4); prostituzioan aritzera (6); prostituzioan ibili (3); prostituzioan jardun (5); prostituzioan jarduteko (4)

## prostituziozale izond prostituzioaren zalea dena.

Jaunak dio: "etorri hona, zuek, sorginkumeok, adulterioegile eta **prostituziozale** zaretenok".   **Elizen arteko biblia**

## proszenio iz antzinako Greziako teatroetako eremua, eszenaren eta orkestraren artean zegoena.

Zirkuluaren zentrotik lerro bat egingo dugu, aurreko lerro horren paraleloa, eta lerro honek emango digu **proszenio**ko plataformaren eta orkestraren arteko banaketa.

**Santiago Iruretagoiena**

Eszenatik hurbilago dagoen karratuaren aldeak zirkunferentzia ebakitzen duen lerroan markatzen da **proszenioaren** muga.   **Santiago Iruretagoiena**

## protagonismo 1 iz protagonistaren egoera edo nolakotasuna.

Jesusen jaiotegunean, gorostiak du nagusitasuna eta **protagonismoa** lurralde askotan.   **Pello Zabala**

Istori erromantikofantasiatsua eta ezohiko honetan **protagonismoa** amodiozko triangelu bitxi batek izango du.   **Jon Arretxe**

Eurak dute **protagonismo** guztia.   **Berria - Euskal Herria**

Zein den gizarte modernoetan unibertsitateak hartzen duen **protagonismoa**, eta ematen zaion garrantzia.   **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Oposizioak **protagonismoa** kentzen dio Azcarraga jeneralari, Grilo poeta insigne eta Castelar diputatu ezaguna besarkada baten bildu baitira portikoan. biktimizek **protagonismoa** ez kentzeko.   **Koldo Izagirre**

Politika egiteko moldeak aldatzen, bakoitzaren **protagonismoak** baztertuz, herri honi perspektiba berriak eskaintzeko.   **Berria - Euskal Herria**

Beste txalapartariak, berriz, oinarrizko errotaren barruan sartzen saiatu behar du, lehenbizikoari **protagonismoa** lapurtuz.   **Juan Kruz Igerabide**

-Zu beti niri **protagonismoa** jan nahian -jarraitu zuen Liviak-.   **Joxemari Iturralde**

Azpirarratzekoa da, halaber, fenomeno erregionalak lortu zuen **protagonismoa**.   **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Konponbideak bilatzerakoan emakumeok ere izan behar dugun parte hartzea eta **protagonismoa** aldarrikatzera gatoz.   **Berria - Euskal Herria**

Onik gainditzen dut melodiaren **protagonismoa** eskuin eskutik ezkerredera aldatzen den ataka, garbi-garbi ateratzen zait segidako tonu-aldaketa ere.   **Anjel Lertxundi**

Eskuineko eskuak **protagonismoa** utzi behar dio ezkerrekoari, ezkerrekoa da nagusi.   **Anjel Lertxundi**

Otegi egunkari guztietako lehen orrietan agertzen ari da, bere **protagonismoa** inoiz ez bezalakoa da, gobernu presidentetik hasi eta alderdi-buruzagi gehienek aldeko hitzak lortu ditu.   **Joseba Zulaika**

## 2 (izenondoekin)

Hamabigarrenetik hamabosgarrenera Raimundo Silvaren eta Mari Sararen artekoak hartzen dituzte **protagonismo** nagusia. Ezker abertzalearen mundu soziologikoa horri aurre egitea eta behingoz **protagonismo** politikoa hartzea eskatzen dio Batasunari. Jon Alonso

Independentzia ekonomikorik gabe, **protagonismo** sozial eta politikorik gabe, zaharren gizarte batean... Luis Elberdin

Nafarroak **protagonismo** propioa izan behar du, eta elkarriketarako gune propioa. Berria - Euskal Herria

**Protagonismo** handiegia hartuko duzu inspektorearen aurrean, eta ez zaizu interesatzen. Rafa Egiguren

Literatura, **protagonismo** pertsonaletatik haratago doan altxorra delako. Ana Urkiza

*Nerea eta biok* eleberriaren eskuek **protagonismo** berezia hartzen dute. Pentsa orain, nola udakoan haritzak daraman **protagonismo** guzti eta erabatekoa, eta negukoan, aldez, lurralde batzuetan izeia darabilten bezala, besteotan nola gorostia ekarri ohi den etxeko txokora edo herriko enparantzara. Ana Urkiza

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Futbol adituentzat ere ez da samurra Julenen **protagonismo** galtzearen arrazoiak aurkitzea. Berria - Kirola

Denak **protagonismo** gose, botere egarri. Eneko Bidegain

Orain alderdi politikoa asko kezkatzen nauen joko alderdikoi bat egiten saiatzen ari dira, hau da, **protagonismo** kuota bat exijitzen. Berria - Euskal Herria

**Protagonismo** arazoa azken batean. Unai Iturriaga

Futbol adituentzat ere ez da samurra Julenen **protagonismo** galtzearen arrazoiak aurkitzea. Berria - Kirola

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**protagonismo berezia** (7); **protagonismo gehiago** (7); **protagonismo gutxiago** (3); **protagonismo guztia** (7); **protagonismo handia** (8); **protagonismo handia hartu** (3); **protagonismo handia izan** (4); **protagonismo handiagoa** (8); **protagonismo handiagoa izan** (4); **protagonismo nagusia** (6); **protagonismo osoa** (7); **protagonismo politikoa** (5)

**bere protagonismoa** (3); **euskal gizartearen protagonismoa** (4); **gure protagonismoa** (3); **izango dute protagonismoa** (3); **protagonismoa eman** (9); **protagonismoa galdu** (5); **protagonismoa hartu** (8); **protagonismoa hartzea** (3); **protagonismoa hartzen** (4); **protagonismoa izan** (7); **protagonismoa izan du** (3); **protagonismoa izango** (3)

## protagonista *(orobat protagonixta g.er.)* 1 iz literatura-lan batean parte nagusia jokatzen duen pertsona edo gauza.

Bi dama zituen poema zirtzil horrek **protagonista**. Aingeru Epaltza

Pavel Ivanovitx Txitxikov, obrako **protagonista**, herriz herri dabil bere "negozio" bitxia egiten. Jose Morales

Enkargua onartzu enkarguaren aurkako ipuin bat idatziko du, bere bizitzarekin harremana duen ipuin bat, deitu dion neska **protagonista** duena. Pako Aristi

**Protagonista** behintzat Gundisalvo izeneko bat zen, Antonio Ferrandis aktoreak gorpuztua, hauteskondeetara aurkezten zena. Xabier Mendiguren Elizegi

Hrabalen obretako **protagonista** jende arrunta da, baina baita, Rimbauden estiloan, "jende madarikatua" ere. Fernando Rey

Orain maitasun istorio bat idatziko dut eta, gainera, **protagonista** mutil bat izango da. Ana Urkiza

Gabonetan zinema aretoetan agertuko da Anthony Minghellak zuzenduriko *Ripley trebea*, Matt Damon eta Guilni Patrol oskarduna **protagonista**. *The Fifth Column* antzezlaneko Philip Rawlings **protagonista** nagusiak. Markos Zapiain

Nobeletan sarritan ikusten dugu **protagonista** oharturik dagoela bere patuaz, eta horren zantzuak sumatzen dituela han eta hemen. Xabier Mendiguren Elizegi

Woody Allen-en film bat datorrit gogora: "Seduktore baten ametsak" zuen izena, eta Allen zen **protagonista** eta gidoigilea, ez zuzendaria. Xabier Mendiguren Elizegi

Liburua lauhazka dabilkizu hasi eta buka, **protagonista** bera bezalaxe. Markos Zapiain

Itsasondo da bere idazkietako gai eta **protagonista**. Xabier Mendiguren Elizegi

### 2 (izenondoeekin eta izenlagunekin)

Nola ez, James Stewart aktorea da **protagonista** nagusia. Berria - Kultura

Liburu honek **protagonista** bakarra du, Asisko Frantzisko. Askoren artean

Esaldia astebete lehenago ikusitako filme batekoa zen eta **protagonista** maskulinoak [...] **protagonista** femeniarioi -New Orleansko mafioso zuri baten andre are zuriagoa, ordu eta erdian bere senarrari inon diren adar guztien paratzaile- botatzen zion, aski molde traketsen larrutan egin eta gero. Aingeru Epaltza

Neu nintzen gizonezko **protagonista**. Koro Navarro

*El Dorado* filmean, adibidez, emakumezko **protagonista** [...] lausoturik agertzen da bere lagunaren artean. Josu Zabaleta

### 3 (izenondo gisa)

Mutiko **protagonista** gizajoari kolore zuria ondo zihokiola iruditu zitzaidalako, alde sinbolikotik. Bernardo Atxaga

### 4 gertakari, ekintza edo kideko batean parte nagusia jokatzen duen pertsona edo gauza.

Herritarrak izan dira borrokaren **protagonista**. Edurne Elizondo

Konponbideetan herriak dira benetako **protagonista**. Berria - Euskal Herria

Gerraren lekuko ez ezik **protagonista** ere baden aldetik. Edorta Jimenez

Nire bizitzaren **protagonista** izan nahi dudala. Patxi Zubizarreta

Ortografiaren arlo horretan, gertakari ilun bateko **protagonista** izan zen Sabino Arana. Koldo Zuazo

Baina beste **protagonista** bat ere izan zuen Zierbenako banderak, Santander, hain zuzen. Berria - Kirola

Trinitti, arauak nik jartzen ditut: zu zara Joko honetako **protagonista**! Antton Olano

Ni **protagonista** ninduen pasadizo bat kontatu zidan handik urte batzuetara lagun batek. Xabier Mendiguren Elizegi

Zure aitak ahotik ahora doan hitza maite baitu eta bezeroak nahi baititu **protagonista**. Joan Mari Irigoien

Su-etenaren ondorengo negoziazioetan ere "traizioa" izango da **protagonista** nagusi. Joseba Zulaika

Hip hop musika izango da **protagonista** Bartzelonako Sonar elektronika jaialdian. Berria - Kultura

Hitza **protagonista** Maitaldian. Berria - Kultura

Trikitia erromerietako **protagonista**. Berria - Kultura

Gauza bera gertatu da arrozarekin, Bilboko zein Baionako jatetxe txinatarretan, arroza duda gabeko **protagonista** izatetik laguntzaile izatera pasatu da, hemengo zapore eta tradizioak errespetatzeko. Edorta Agirre

### 5 (izenondo eta izenlagunekin)

Gure kultur irratsaio honetan entzuleak izaten dira **protagonista** nagusi. Jon Arretxe

Gizarte zibila bera da **protagonista** nagusia hemen proposatzen ari garen komunikazio eredu berrian ere. Txema Ramirez de la Piscina

Aktoreak izan ziren atzo **protagonista** handienak Berlinalean. Berria - Kultura

Dudarik gabe erran daiteke komunistei esker gatazka politikoaren konpontzeko **protagonista** ukatuak berriz taula gainera etortzen direla. Berria - Harian

Amaiera emango zaio horrela zinema **protagonista** bakar izan duen bederatzti eguneko maratoiari. Berria - Kultura

Itotzko Koordinakundea izan da bide horretan **protagonista** nagusia. Edurne Elizondo

Goi bilera hartan **protagonista** ofizialak parte hartzen ari ziren herrietako gobernuak baziren ere, [...]. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Jon bera berriz ere nahigabeko **protagonista**, denak berari so. Urtzi Urrutikoetxea

Foro Global horrexek hoziaraziko zuen Johannesburgeko hurrengo goi bileran benetako **protagonista** izango zen Gizarte Foroa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Repsol herrialdearen garapenerako «funtsezko **protagonista**» dela. Berria - Ekonomia

### 6 (hitz elkartuetan)

Gaurkoan, esan bezala, niri dagokit-eta egun zorigaitzokoaren **protagonista** papera. Joxemari Iturralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

antzezianeko protagonista (3); atzo protagonista (5); benetako protagonista (10); bera da protagonista (3); beste protagonista bat (3); beti protagonista (3)  
 eguneko beste protagonista (3); eguneko protagonista (7); eleberrri honetako protagonista (3); emakumezko protagonista (3); eragile eta protagonista (3); etapako protagonista (3); filmeko protagonista (15); gure protagonista (29)  
 ipuiniko protagonista (3); izan da protagonista (6); izan zen protagonista (16); izan ziren protagonista (11); izanen da protagonista (4); izango da protagonista (17); izango dira protagonista (6); liburuko protagonista (5); nobelako protagonista (4)  
 obrako protagonista (3); partidako protagonista (5)  
 protagonista asko (4); protagonista bakarra (14); protagonista bakarra izan (3); protagonista bera (3); protagonista berriak (3); protagonista bezala (4); protagonista bihurtu (9); protagonista bihurtu ziren (3); protagonista bilakatu (10); protagonista bilakatu zen (3)  
 protagonista gisa (5)  
 protagonista izan (60); protagonista izan da (8); protagonista izan ditu (3); protagonista izan zen (15); protagonista izango (15); protagonista izango da (3); protagonista izango diren (3); protagonista izatea (10); protagonista izaten (6); protagonista izaten jarraitu (3); protagonista maskulinoak (3); protagonista nagusi (22); protagonista nagusi izan (3); protagonista nagusia (62); protagonista nagusiak (40)  
 protagonista sentitu (3); prozesuaren protagonista (4)  
 benetako protagonistak (7); beste protagonistak (7); eguneko beste protagonistak (4); eguneko protagonistak (3); filmeko protagonistak (10); gure protagonistak (13); ipuiniko protagonistak (4); istorioaren protagonistak (3); izan ziren protagonistak (4); izango dira protagonistak (3); nobelako protagonistak (4); protagonistak berak (3); protagonistak bezala (3); protagonistak eginiko (3); protagonistak izan (3)  
 gure protagonistaren (11); mutiko protagonistaren (3); nobelako protagonistaren (3); protagonistaren izena (4); protagonistaren rola (3)  
 gure protagonistari (5); nobelako protagonistari (3)  
 filmeko protagonistek (4)  
 protagonisten artean (5)

**protagonixta** ik **protagonista**.**protagonizatu**, protagoniza, protagonizatzen du *ad* protagonista gertatu.

Film azkar eta dramatikoak **protagonizatu** eta zuzendu du Hennie eskandinaviarrak. **Berria - Kultura**  
 Robotek **protagonizatutako** telebista programa batean. **Berria - Gaiak**  
 Manguelek justu beste muturreko gertakizun bat ere kontaktzen du liburu berean, juduek **protagonizaturik** baita ere. **Anjel Lertxundi**  
 Poloniako selekzio jokalariek Alemaniaren kontra **protagonizatu** zuten balentria, nazien garaien, fñherrarengandik galtzeko agindua jaso zutenean. **Joan Mari Irigoien**  
 Bortz minutu geroago, agurea "Saragueta zaharrak" **protagonizaturiko** istorio are zaharragoa kontaktzen ari zitzaidan. **Aingeru Epaltza**

**proteiko**<sup>1</sup> *izond* alderdi askotakoa, forma aldakorrekoa.

Populazio polimorfo batean, hautespen naturalak egitura **proteikoak** faboratzen zituen, eta, beraz, gene-egiturak "-alelo" direlakoak-, ugalketarik oparoena ahalbidetzen baitzuten. **Juan Garzia**  
 Ez haragi ez arrain ez den patu bat, erdipurdikoa, zeinak animalien munduarekiko lehen harreman baterako prestatzen baitu, baina ez baitio baimentzen erantzunkizun gorenerako, eraikuntza **proteiko** baten parte izatea baita hori. **Juan Garzia**  
 Dozena bat adiera ezberdin ukan zezakeen arrazaren kontzeptu **proteikoa**. **Joxe Azurmendi**  
 Valentzian justiziaren arloko kontuetan ibili eta gero, hantxe zen hogeita bi urte zituen izaki **proteiko** hura fronteko lerroetan da ia. **Edorta Jimenez**  
 Aukeran emakume **proteikoagoak** gustatzen zaizkio, gorpuzkeraz mardo eta mamitsuak, playmate titiak eta biolontxelo ipurdiak dituzten horietakoak. **Patxi Iturritegi**  
 Gehienak, Pitagorasek bezala, gorpuz askotara arimaldatu beharko dute askapena lortu arte; batzuk, **proteikoak**, "bizi bakar baten epean, lehoiak dira, herensugeak dira, basurdeak dira, ura dira eta zuhaitz bat dira". **Juan Garzia**

**proteiko**<sup>2</sup> *izond* proteina izaerakoa.

Konplexu **proteikoak** eratzeak -batzuetan, oso bolumen handikoak- areagotu egiten du aukera hori. **Juan Garzia**  
 Oinarriko elementua, zelularen kimikan zuzenean inplikaturik dagoena, eremu **proteiko** jakin batek bere baitan daukan ezagutze-gunea da. **Juan Garzia**

**proteina** *1 iz* karbonoz, hidrogenoz, oxigenoz eta nitrogenoz, eta askotan orobat fosforoz eta sufrez, osaturiko gai kimikoa, organismo bizi guztien oinarriko osagaia dena.

Zelula guztiak ziren antzeko osagaia eginak: karbohidratoak, lipidoak, **proteinak** eta azido nukleikoak. **Juan Garzia**  
 Hogei aminoazido horiek konbinatuz sortzen dira **proteinak**, ileko kreatina edo odoleko hemoglobina. **Pello Salaburu**  
 Horratx arazoa: materia bizi oro **proteinez** egina dago. **Irene Aldasoro**  
**Proteina** guztiek oso molekula handiak dituzte. **Irene Aldasoro**  
**Proteina** bakoitza aminoazido-sekuentzia batek osatua da. **Juan Garzia**  
**Proteina** bakoitza berdinik gabea bada, gene bakoitza ere berdinik gabea da. **Juan Garzia**  
**Proteinen** sintesiaren mekanismoa aztertzea. **Juan Garzia**  
 Gehienetan hiru erregai nagusi erabiltzen ditugu: karbohidratoa (azukrea eta almidoia duten janariak), gantza eta **proteina**. **Irene Aldasoro**  
**Proteina** horiek guztiak aminoazidotan apurtzen dira, aminoazidoak baitira **proteinak** eraikitzeko adreiluak. **Irene Aldasoro**  
 Landareak dira, gainera, **proteinak** [...] lortzeko iturri nagusi bakarra. **Irene Aldasoro**  
**Proteina** guztiak ez dira berdinak; jaten dugun ardikiaren edo txerriaren **proteinak** ez dira bere horretan giza **proteinen** ordeko. **Irene Aldasoro**  
 Entzimak **proteinen** sailekoak dira. **Juan Garzia**  
 Globulu gorrien masaren heren bat-edo hemoglobina da, oxigenoarekin konbinatzeko gaitasun izugarria duen **proteina** bat. **Irene Aldasoro**  
 Enbrioi-garapena gobernatzen duten **proteinak**. **Juan Garzia**  
 Erabilera asko dituen **proteina** bat da kolagenoa, tendoietan eta hezurretan ere badagoena. **Irene Aldasoro**  
 Zainzuriaren buruak % 50 **proteina** dauka, xerrak baino askoz gehiago. **Irene Aldasoro**  
 Lasto-koloreko likido argi bat (plasma deritzona), hainbat gatz mineral eta **proteina** dauzkana. **Irene Aldasoro**  
 Eginkizun nagusienetarikoa da **proteinen** digestioa, heste meharrean egina. **Irene Aldasoro**  
 Nahaste ikaragarri bat gara: azido nukleikoak eta oroitzapenak, desirak eta **proteinak** ditugu osagai. **Juan Garzia**

**2** (izenondoekin)

**Proteina** konplexuak odolean zurrunkiloa, organo sexualak hanpatzen, esku-ahurrei izerdi eragiten eta ahotsa lodiarazten. **Oskar Arana**

**Proteina** arrotzek (bakterioek, esate baterako) gorputza inbaditzen duten guztietan [...].  Irene Aldasoro

Okelaren partez, **proteina** landarezkoak.  Edorta Agirre

Komeni zen, ala ez, bakterioen bitartez **proteina** baliagarriak ekoiztea, hala nola hazkunde-eragileak edo hormonak, munstroak sortzeko arrisku eta guzti?  Juan Garzia

Kiribil bat, bi elementuz osatua: batetik, **proteina** erregulatzailer bat, eta, bestetik, ADNaren baitako haren xedea, aldameneko geneen adierazpena gobernatzen duena.

Juan Garzia

Erretro-birusen kontrako botikek **proteina** birikoei erasaten diete.  Berria - Gaiak

Hilabete luzez, **proteina** "alosteriko" direlakoan tasunetan buru-belarri murgildurik egona zen.  Juan Garzia

Gaixotasunok **proteina** toxikoen metaketak sortzen ditu.  Berria - Gaiak

Gene horrek **proteina** berde fluoreszente bat kodetzen du.  Berria - Gaiak

Bizitza halako lanbide zorigaitzokoa izan ez dadin, nork injektatzen ote dizkigu beharrezkoak zaizkigun **proteina** sinbolikoak?  Patxi Zubizarreta

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kolibaziloaren baitako **proteina**-sintesi induzigarria aztertzeke.  Juan Garzia

ADN zati horietariko bakoitzak kate polipeptidiko bat ekoizten du, eremu bati dagokiona: **proteina**-eredu bat, alegia.  Juan Garzia

Gene-blokeek kodeturiko **proteina** multzoek osaturiko moduluek oinarriko lanak egiten dituzte mundu bizi guztian zehar.  Juan Garzia

Odol-plasmaren oso antzeko likido urtsu bat da likido sinobiala, **proteina**-edukirik gabea.  Irene Aldasoro

Esfortzu handi baten ostean, **proteina** kontzentrazio handia izaten da gernuan.  Berria - Harian

Jende gehienak uste du **proteina** iturri bakarrak haragia eta arraina direla.  Berria - Euskal Herria

Beste aukera bat nitrogenozko **proteina**-hondakina amoniako bihurtzea litzateke.  Irene Aldasoro

RNA molekularen helize bikoitzean dauden instrukzio kodetuek arautzen dute gorputzeko zelulen **proteina**-ekoizpena.  Irene Aldasoro

**Proteina**-urritasunaren ondorio dira munduko elikadura-arazo ia guztiak.  Irene Aldasoro

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Proteina biralei barik zelula-**proteinei** erasaten dietelako estatinek.  Berria - Gaiak

Animaliei utzi behar diegu landare-**proteina** eraldatu eta hartatik forma digerigarriago bat ateratzeko ardura.  Irene Aldasoro

Egitura-**proteinak** ziren gehienbat, hala nola giharrenak, edo entzimak, hala nola arnasketan funtzionatzen dutenak.  Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**proteina arrotz** (3); **proteina iturri** (3); **vefg proteina** (3)

**proteinak sortzeko** (3)

## proteinadun 1 izond proteinak dituen.

Termofilo eta psikofilo **proteinadunak**: gai beren baitan ekai kimiko pozointsuak bereganatzeko eta energia sortzeko.  Jose Angel Irigaray

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenonodo balioa duela)

Ore erabat prestatuak baztertu -"nahasketa orekatua, landare-**proteinaduna"** -, eta ezizko barra mordo bat hartu zuen: goxokirik goren.  Jon Muñoz

## protektorado ik protektoratu.

## protektoradu ik protektoratu.

## protektoratu (orobat *protektorado* eta *protektoradu*) iz herrialde gobernadun baten gainean estatu batek daukan subiranotasun partziala; horrelako herrialdea bera. ik **babes**.

Bigarren Mundu Gerran, Alemania naziazen **protektoratu** izan zen.  Berria - Mundua

Txekia **protektoratu** bihurtu eta Eslovakia estatu ia independente egin zuen.  Berria - Mundua

-Beraz, zein da ideia: Frantziak eta Ingalaterrak Euzkadin zera, **protektorado** moduko bat ezartzea, Frantziako muga zainduko duen herrialde bat?  Alberto Ladron Arana

Garbi zegoen independentzia eustezinaren ordez Estatu Batuen **protektoratu** bat hartzea zela aginte errusiar (edo txinatarraren) aurkako aseguru bakarra.  Iñaki

Mendiguren

Horren ondoren Zednicek kontseilaria **Protektoratuaren** egoeraz hitz egitera pasatu zen, han mobilizazio orokorra izanen baita.  Fernando Rey

## protektionismo 1 iz doktrina ekonomikoa, nazio produktioa babesteko neurriak hartzen dituen atzerriko konkurrentziaren aurka; doktrina horretan oinaturriko sistema ekonomikoa.

Egia da **protektionismoak**, baldintza jakinetan, nazio-ekoizpena sustatzen duela.  Koro Navarro

Librekanbismoa versus **protektionismoa** auzi klasikoaren *revival* gisa ikus daiteke auzia.  Iñaki Heras

Europar, 1879ko alemaniar muga-sarien legeak **protektionismoaren** aro berri bat markatu zuen, muga-sariak murriztu ziren hiru hamarraldiri amaiera emanez.  Koro Navarro

Bai Alemaniak, bai Estatu Batuek [...] 1870eko hamarraldian, **protektionismo** zorrotz baten gainean egin zuten beren industrializazio-ahalegina.  Koro Navarro

Bertako industria garatzeko **protektionismo** komertziala.  Iñaki Heras

**Protektionismo** ekonomikoaren gaineko eztabaida da nagusi Europako Batasuneko 25 estatu kideetako ordezkariak atzo eta gaur Bruselan egiten ari diren goi bileran.

Berria - Mundua

Europar Batasunak arau teknikoak, fiskalak, finantzetakoak eta erregulaziozkoak ematen ditu -kritika liberalaren arabera, **protektionismo** mozorrotua da araugintza hori-.

Koro Navarro

Merkataritza askea predikatzen eta **protektionismoa** praktikatzten.  Iñaki Heras

### 2 (hitz elkartuetan)

Estatu Batuen kanpoko defizita ez bazen dolarraren balio gabetze kontrolatu baten bitartez jaisten, Estatu Batuetako administrazioak neke handiak izango zituen Biltzarraren

**protektionismo**-joerei aurre egiten.  Koro Navarro

Frantziak, hain zuzen, oreka hau hautsi du eta bere ezak eragin dezakeen nazionalismo eta **protektionismo** bultzadak Europa desantola dezan hartu du arriskua.  Berria -

Harian

## protektionista izond protektionismoarena, protektionismoari dagokiona.

Merkataritza, batzuetan, askea da, eta, beste batzuetan berriz, **protektionista**, indartsuei hala komeni zaienean. Iñaki Heras  
Merkantilismoa -aberastasuna metal bitxien pilaketarekin lotzen duen doktrina **protektionistara** mugatua ekonomiako eskuliburu gehienetan-, ororen gainetik, barne-merkataritzaren liberalizazio-mugimendu zabalaren izenaren Koro Navarro  
Zeren monopolioak, oligopolioak, enpresen arteko akordioak, informazio eta aginte asimetria izugarriak, edota gobernuen araudi **protektionistak** baitira nagusi. Iñaki Heras  
Europako Legebiltzarrak estatu kide batzuen mugimendu **protektionistekiko** bere kezka berretsi zuen. Berria - Mundua  
Badira ikuspuntu **protektionista** duten indar xenofobo eta arrazistak ere, AEBen latinoamerikanizazioaren beldur direnak. Berria - Mundua  
Hitzarmena sinatu ondoren, AEBek hainbat eta hainbat neurri **protektionista** erabili izan dituzte Mexikotik sartzen ziren zenbait produkturen trukea oztopatzeko. Iñaki Heras  
Alde batetik burgesia bat, lurraren jabea bihurtu dena eta bere aldarrikapen ekonomikoak eta politikoak fisiokraten ahotsetik adierazten dituen eta, bestetik, burgesia merkataria utilitaristen bidez neurri **protektionistak** edo liberalak eskatzen zituena. Xabier Arregi

## proterozoiko *izond* Kanbriar-aurrekoaren zatia, duela 2500 milioi urteetatik orain 542 milioi urteetara doana.

Aro hau **Proterozoikoaren** barruan sailkatu dute adituek. Berria - Gaiak

## protesi (*orobat protesia g.er.*) 1 *iz* gorputz atal edo organo bat beste atal edo tresna artifizial batez aldatzea; ezartzen den atal edo tresna artifizial hori.

Zelula somatiko hutsen tratamendu hori ez da bereizten, bada, bere printzipioan, medikuntzan aspalditik erabiltzen direnetatik: **protesia**, organo-txertatzea edo -transplantea.

Juan Garzia

Bi aukera daude: zakilean injektzioa jartzea edo husteko gailua erabiltzea, erektzioa izateko, eta azken aukera gisa, **protesia**. Berria - Gaiak

-Noiz jarriko dizute **protesia**? Jasone Osoro

Hartarik operatū zūen dūala urte zombait, ezūr baten ordari **protesia** bat ezariz. Herria

Orduan **protesi** bat jarri eta gauza izaten dira lanerako, baliagarriak bihurtzen dira gizartearentzat. Ander Irizar

Gauza bat dago argi: **protesiak protesia**, gorrak dira eta inoiz ez dute entzungo entzuleek adina. Berria - Harian

**Protesi** txar bat jarri zidaten. Berria - Harian

Ezkerrekoa **protesia** zuen, bizi-ziprztinik gabekoa, Danielak ukatzen zion sentsibilitaterik gabekoa. Jasone Osoro

FDAk ez ditu onartu silikonazko bularreko **protesiak**. Berria - Gaiak

Beti da arazo zaila **protesia** ondoko hezur sanoari lotzea. Irene Aldasoro

Berrikiago, altzairuzko aleazioz eta zenbait gai plastikoz egin dira bolaren zein ahokaduraren **protesiak**. Irene Aldasoro

Lau astez izango du **protesi** hori, eta gero beste **protesi** bat jarriko diote, hatza partzialki mugitzen utziko diona. Berria - Kirola

Gau hartan, ametek graffitiak ziruditen, musuek paperezkoak, bularrek almidoiz eginak, zakilek **protesiak**, poroek sumendiak, eskuek makuluak ziruditen. Jasone Osoro

### 2 irud/hed

Oharrak gure memoriari jartzen dizkiogun **"protesiak"** dira, nolabait esateko. Askoren artean

Barkatu konparazioa, baina zu niretzat horrelako **protesia** izan zintezkeen... Ander Irizar

**protesi** moral bat. Ander Irizar

### 3 (hitz elkartuetan)

Lehen burmuin **protesia** probatu dute laborategian. Berria - Gaiak

· Osakidetzak emandako datuen arabera, aldaka **protesi** ebakuntza egiteko 69 egun gutxiago itxaron behar da. Berria - Euskal Herria

### 4 hizkuntzalaritzan, hitz hasieran hots bat, bereziki bokal bat, eranstea.

Hiru metodo daude horretarako: atzizkiak, *m-* **protesia** eta errepikapen "sendoa" deituko duguna. Iñaki Arranz

**Protesi** horrekin agertzen zaizkigu hitz bikoitz asko: *aiko-maiko*, *aitzaki-maitzaki*, [...]. Iñaki Arranz

Inoiz *m-* batez agertzen zaigu errepikapena, baina ez da lehenago **protesi** ihartua: *urri eta murri*, *hotz eta motz*, *txotx ala motx*, *zinak eta minak*. Iñaki Arranz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**silikonazko bularreko protesiak** (3)

## protesiko *izond* protesiak prestatzen edo jartzen dituenak.

Baina izan zen gauza ezen, Vladimirren industria pirogenikoak kontrako efektua eragin eta, inkiaturik, nire txilbitua ez zela neguetako kaxernetatik ateratzera deliberatzen; badaezpada ere, kieto gelditu nintzen armairu barruan mekaniko **protesiko** haren saioa bukatu zen arte. Jon Alonso

## protesta 1 *iz* desadostasunaren, arbuioaren adierazpena.

Kotxeen aurkako **protesta** horietako bat, nik uste. Lopez de Arana

Horren faltak sortu dizkit orain arteko kexu eta **protesta** guztiak. Arantxa Iturbe

**Protesta** eta zalaparta askoren ondoren, Peter bere gelara joan zen azkenean. Josu Zabaleta

Munduko gaiztakeriaren aurkako **protesta** gisa basamortura [...] erretiratu zirenei. Iñaki Mendiguren

**Protesta** hori baino kontu eskatze are mingarriagoak baliatu nituen. Anjel Lertxundi

Zuzentzat jo dudan **protesta** batek. Anjel Lertxundi

Orduko hartan **protestarik** izan zen, baina ez nahikoa. Agustin Otxoa

**Protesta** frango izan da haatik, izendatze hori molde hortan eginik bazterrak arrunt minberatu baitira. Herria

Haren pintzelada bakoitza hitz bat zen, **protestarako** eta erreboltarako deia ere izan zitekeena. Joan Mari Irigoien

Auhen luze-apala darie, **protestakoa** baino gehiago, senar eta semei igorri azken agurra. Xabier Montoia

Hiru lagun hil dira presidentearen aurkako **protestan**. Berria - Mundua

Ordubate iraun du **protestak**. Anjel Lertxundi

Legelarien Euskal Kontseiluaren **protesta** eragin duen kasua EAEko Auzitegi Nagusian gertatu zen, martxoaren 3an, Iñigo Iruin abokatuarekin. Berria - Euskal Herria

Horrek bidaiari bati **protesta eragin** dio, ez, ordea, pixka bat lotsarazi gabe. Xabier Olarra

Bizkitartean bortizkeria oro espresabidearen mailan gelditzen da, **protestaren** hiztegian. Piarres Xarriton

Herriak aurka egiteko modu guztiak erabili dituenean, grebak, **protestak**, salaketak, manifestazio baketsuak eta biolentoak, ezer aldatu gabe, orduan zabaltzen da altxamendurako bidea. Pako Aristi

**Protestan** parte hartzeko deia egin zuen mikrofonoetatik. Berria - Kultura



## 2 (aditzaren objektu gisa)

2003ko amaieran gazte koadrila batek modu bitxia aukeratu zuen bere **protesta** agertzeko. Txema Ramirez de la Piscina

**Protesta** adierazi nahi zuten imintzioak eta eztlak egin zituzten. Jon Alonso

**Protesta** horiek antolatzea ezinezko gertatuko litzatekeela antolatzaileek Internet bezalako lanabesik izan ez balute. Pello Salaburu

**Protestak**, bolbora-lorrazaren antzera, hedatuz joan ziren. Txema Ramirez de la Piscina

Gipuzkoa, Katalunia eta Madrilera ere zabaldu zen **protesta**. Rafa Egiguren

Urte horretan hasi ziren biziki indartzen apartheid kontrako **protestak**. Pello Salaburu

Gogoan dut berebiziko manifestazioak eta **protestak** eragin zituela sindikalisten kontrako epaiketa hark. Juan Kruz Igerabide

Abokatu defendatzaileak agudo eta ozen erakutsi du bere **protesta** Tomen tonua zela eta. Patxi Zubizarreta

Goseak eta beharaldiak **protesta** asko piztu ohi dute. Gotzon Garate

Epaileak ez du **protesta** aintzat hartu eta. Patxi Zubizarreta

Nori zuzentzen zaio **protesta** euria egiten duenean? Anjel Lertxundi

Gauerdirako ez zegoen **protesta** haiek gelditzerik. Txema Ramirez de la Piscina

Ez zuen **protestarik** entzun nahi. Arantxa Iturbe

## 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Duela urte batzuk gutxi batzuen **protesta** hutsa zena asko eta askoren amets bihurtu da orain. Joxerra Garzia

Alemanian ere, **protesta** biziak. Pello Salaburu

Egurrezko etxoletatik gertu, **protesta** bizian dihardute Milandik etorritako bi langilek. Patxi Iturrategi

Euskadiko Orkestrak euskaldun guztion hiriburuan jotzea **protesta** baketsu antzeko bat zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Albertok ez die jaramonik egin Alziaren **protesta** ahulei. Patxi Iturrategi

Egunotan ikusi ditudan **protesta** politiko bakanak gerraren kontrakoak dira. Anjel Lertxundi

Bat-bateko **protesta** bat izan zen. Xabier Olarra

Sekulako **protestak** egin baitzituzten zenbaitek, bereziki Rusoek. Marzel Etxehandi

Presoen gose greba, itxialdi eta bestelako **protestak**. Jokin Urain

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Protesta** egun haiek gogora ekarri zioten mundu guztiari bakea ez dela izaten lore iraunkorra. Hasier Etxeberria

**Protesta** -eskutitz asko ari zitzaizkiela iristen bai hiritik eta bai herrietatik. Irene Aldasoro

Haren aurpegiera ikusita, irentsi egin nituen mihi puntan nituen **protesta** hitz guztiak. Alberto Ladron Arana

**Protesta** -oihu gehiago Slytheringo jendearengandik. Iñaki Mendiguren

Hiritarrek, erreginaren alde zeudela argi eta garbi utzi nahian, muzin egin baitzioten **protesta** -deiarri. Josetxo Azkona

**Protesta** mugimendu haiek nolabait ere harreman dialektiko zuzenean hasten dira agintariekin ere. Pello Salaburu

**Protesta** manifestaldi bat egon zen, gero batzorde bat eratu eta ultimatum bat prestatu zuen prefektuari bidaltzeko. Koldo Biguri

Goazen denok udaletxera **protesta** -erakustaldi bat egitera! Koldo Biguri

Larraitz jaiki zen; **protesta** imintzio bat egin zuen Mikaelak. Pablo Sastre

Batzarrak **protesta** -ekintzak deitzen zituenean, Adelak greba egiten zuen; Juliok, aldiz, ez. Juan Kruz Igerabide

Kalean ere ugaldu egin ziren **protesta** ekimenak. Jokin Urain

Leioako kanpuseko atentatu-ahaleginaren aurkako **protesta** -ekitaldira gindoazela. Iban Zaldua

Guk miresten genituen **protesta** kantarien adibidea ekarri zuen, gizarteari zernahi kritika egin ondoren diru sortak hartzen zituztela. Koldo Izagirre

## 5 *protestan* adlag protestaka.

Arabiarren petrolioak gora egiten baldin badu, kamioi gidariak **protestan** hasiko dira. Pello Salaburu

Une jakin batean, jendea atxiloteten kontra **protestan** ari zenean, paperezko ikurrin bat jarri genuen zintzilik. Rafa Egiguren

**Protestan** ziharduen Ogasunak Bilbon daukan eraikinaren aurrean, ehun bat lankiderekin batera. Berria - Ekonomia

Debekua kendu arte, **protestan** jarraituko dute diputatuek. Berria - Mundua

Navalen, beraz, **protestan** segituko dute, Urretak eta CCOOko arduradun Peter Rodriguezek berretsi zuten. Berria - Ekonomia

**Protestan** saiatu arren, ez zuen benetan ahoskatu. Unai Iturriaga

Etxegileengana demandan edo **protestan** joan ordez geuk hartu behar genuela geure bizitokien ardura. Xabier Mendiguren Elizegi

LAB sindikatekoak, Donibane Lohizuneko Carrefour saltegiaren aitzinean, **protestan**. Herria

## 6 *protestazko* izlag

**Protestazko** hitzen baten bila saiatzen naiz. Anjel Lertxundi

Baten batek arbelean idatzitako juduen kontrako esaldia ezabatu zuen bizi-bizi, gure **protestazko** marmarrei kasurik egin gabe. Anjel Lertxundi

Gogoan dut, klase batean, Jon Baltzak eta biok **protestazko** manifestu-aldarrikapen bat idatzi genuela. Xabier Mendiguren Elizegi

## 7 *protesta egin* ik protestatu.

Katalinak **protesta egin** zuen. **Protesta egiteko** zabaldu nuen ahoa, baina berak jarraitu egin zuen: [...]. Koro Navarro

-Wendy -**protesta egin** zuen Michaellek-, handiegia naiz sehaskan egoteko. Julen Gabiria

Biluzik zegoen, **protesta** egiteko. Juan Kruz Igerabide

-Bai, begirariok ordulariari, bai -**protesta egin** zidan Ramirok-. Jon Muñoz

-Et, et! -egin zuen **protesta** Horvathek-. Anton Garikano

Hik badakin maite haudala... -**protesta egin** nion nik, oparia galtzeko beldurrez. Anjel Lertxundi

Ez al gindoazen ba juduaren zapata-dendara?, egin zuen **protesta** Marck Kaskagorrik. Anjel Lertxundi

**Protesta egin** ala haserretu, gaitzetsi ala guztiz goratu, Schopenhauerrek bere erdeinuaren eta bere desliluraren ziguiluz markaturik utzi du betirako gizadia. Josu Zabaleta

## 8 (izenondo eta bestelakoekin)

Orduan, lotsa ezkututzen ez duen **protesta** emea **egiten** du. Iñaki Iñurrieta

**Protesta** isil bat **eginez**. Jon Alonso

Gerlariak eta Belaskok **protesta** sutsua **egin** zuten. Joanes Urkixo

Larraitz jaiki zen; **protesta** imintzio bat **egin** zuen Mikaelak. Pablo Sastre

Navaleko langileek berriro **protesta** gogorak **egin** zituzten atzo. Berria - Ekonomia

Beste biak pixka bat aztoratu ziren; baina ez zuten **protestarik egin**. Karlos Zabala

Egunkari gehienetan azaldu dena, polizia ateak prezintatzen; **protesta** eta txistu **egiten** zuen jendea; lehen uneko adierazpenak egin zituzten pertsonak. Bernardo Atxaga

## 9 irud/hed

Suak txistu-hots batez **egin** zuen **protesta**. Irene Aldasoro



**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aldeko protesta** (5); **antolatutako protesta** (6); **atzoko protesta** (4); **aurka protesta egin** (4); **aurka protesta egiteko** (28); **aurkako protesta** (26); **aurkako protesta egin** (4); **bere protesta** (6); **beren protesta** (5); **deitutako protesta** (4)

**egin dute protesta** (5); **egin zuen protesta** (10); **egin zuten protesta** (18); **egindako protesta** (6); **egingo dute protesta** (6); **euren protesta** (5); **hainbat protesta egin** (10); **hainbat protesta ekintza** (4); **hamaika protesta** (5)

**izan zuten protesta** (4); **kalera protesta egitera** (4); **kontra protesta egiteko** (9); **kontrako protesta** (22); **langileek protesta** (4); **langileen protesta** (7); **langilek protesta egin** (4); **manifestazio eta protesta** (6)

**protesta artean** (12); **protesta asko** (4); **protesta baketsuak** (5); **protesta bortitzak** (4)

**protesta egileak** (4)

**protesta egileen** (6); **protesta egin** (190); **protesta egin dituzte** (8); **protesta egin du** (6); **protesta egin dute** (24); **protesta egin zuen** (30); **protesta egin zuten** (54); **protesta eginez** (5); **protesta egingo** (18); **protesta egingo dute** (7); **protesta egitea** (8); **protesta egiteagatik** (7); **protesta egiteak** (4); **protesta egiteko** (108); **protesta egiten** (66); **protesta egiten du** (7); **protesta egiten zuen** (7); **protesta egitera** (29)

**protesta egun** (6); **protesta eguna** (11); **protesta ekimen** (4); **protesta ekimenak** (8); **protesta ekintza** (56); **protesta ekintza bat** (4); **protesta ekintza egin** (9); **protesta ekintza ugari** (9); **protesta ekintzak** (31); **protesta ekintzak egin** (4); **protesta ekintzan** (7); **protesta ekintzekin** (7); **protesta ekintzetan** (7); **protesta ekitaldi** (7); **protesta ekitaldia** (7); **protesta ekitaldiak** (8); **protesta ekitaldian** (4); **protesta eragin** (4)

**protesta gehiago** (8); **protesta gisa** (37); **protesta gisara** (4); **protesta gogorak** (4); **protesta handiak** (7); **protesta hasi** (5)

**protesta izan** (7); **protesta keinua** (4); **protesta moduan** (7); **protesta modura** (6); **protesta mugimendu** (5); **protesta mugimendua** (4)

**protesta ugari** (27); **protesta ugari egin** (7); **protesta ugari eragin** (4); **protesta ugari izan** (7)

**salatzeko protesta** (8)

**aldeko protestak** (5); **aurkako protestak** (24); **gure protestak** (4); **herritarren protestak** (7); **izan ziren protestak** (6); **kale protestak** (6); **kontrako protestak** (30); **kontratuaren aurkako protestak** (4); **langileen protestak** (5); **lehen protestak** (5); **manifestazioak eta protestak** (4); **protestak antolatu** (7); **protestak antolatzeko** (4); **protestak areagotu** (4); **protestak egin** (41); **protestak egin zituzten** (17); **protestak egiten** (11); **protestak eragin** (10); **protestak eragin zituen** (7); **protestak gogortuko** (5); **protestak hasi** (7); **protestak iragarri** (6); **protestak izan** (21); **protestak izan ziren** (14)

**aurka protestan** (4); **aurkako protestan** (6); **kontra protestan** (4); **protestan ari** (22); **protestan ari ziren** (10); **protestan aritu** (6); **protestan segituko** (5)

**deitu zuten protestara** (4); **protestara deitu** (4)

**protestarik egin gabe** (5); **protestarik gabe** (4)

**aurkako protestek** (4)

**protesten ondorioz** (11)

**aurkako protestetan** (5); **eginiko protestetan** (4); **izandako protestetan** (7); **kontrako protestetan** (12); **protestetan parte hartu** (5)

## protestagile *(orobat **protestgile** g.er.)* iz protesta egiten duen pertsona. ik **protestari**.

Ez genuen **protestagilea** identifikatu. **Anjel Lertxundi**

Katolikoek kontrako erasotzat zuten **protestagileek** antzezlanak. **Berria - Kultura**

Hiru minutu-edo egin zituzten **protestagileek** zelaian, segurtasunekoak etorri eta zelaitik atera zituzten arte. **Berria - Euskal Herria**

Goizaldeko lauretarako 500 auto baino gehiago erre zituzten **protestagileek**. **Berria - Harian**

Gas mota hotz-hotz bat bideratu zutela **protestagileengana**. **Karlos Linazasoro**

## protestaka 1 *adlag*; protesta egiten, protestan. ik **protesta 5**.

Gizartea ez bada gehiegikeria horien aurka **protestaka** hasten, gureak egin du. **Bernardo Atxaga**

**Protestaka** eta marmarka hasiko ginen gu orduan, klasera itzultzeko nagiz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Poliziaren gehiegikerien aurrean familiako batzuk **protestaka** eta gaizki esaka hasi zirenean, [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Urtebetez ibili zinen **protestaka**, sutan, ez zinela joanen Violettes Impériaies ikustera. **Monika Etxebarria**

Esaldia eten eta esku bat hartu nion, niregana luzatua zuelako **protestaka**, isil nendila eskatuz. **Bernardo Atxaga**

Hark zerbait bota orduko erreakzionatzen genuen, **protestaka** hitz haiek probokazio garbia zirela. **Anjel Lertxundi**

Inguratu egin zuten: berrogei urte inguruko gizona zen eta kementsu ari zen **protestaka**. **Koldo Biguri**

### 2 irud/hed

Sabela **protestaka** neukala. **Jon Arretxe**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**protestaka ari** (3); **protestaka hasi** (6); **protestaka hasten** (5)

## protestalari ik **protestari**.

## protestaldi 1 *iz* protesta; protesta egiten den denbora.

**Protestaldi** gisa, zuhaitzak mozten hasi ziren, hango señoritoek ez baituzten fruitu arbolarik ez bestelako labore sailik landatu nahi. **Jon Maia**

Edozein **protestaldi** bukatu orduko bagenuen zeregina: kotxea irauli, edo ohol zaharrak lanetatik hartu eta errepide erdian gurutzatu, edo kristalen bat edo beste hautsi.

**Alberto Barandiaran**

Auzitegiaren aurrean **protestaldiak** antolatu dituzte palestinarrek eta Europako hainbat erakundeek Israelen politika salatzen. **Berria - Mundua**

GMren Europako 11 fabriketan **protestaldia** egin zuten atzo 50.000 beharginek. **Berria - Ekonomia**

Ez dira horrenbestez denak gustura geratzen, **protestaldi** bati ekiten diotenak ere izaten dira. **Bernardo Atxaga**

Atzokoa, aitzitik, azken hilabetean izandako **protestaldietan** jendetsuena izan zen. **Berria - Ekonomia**

Euskal Herriak nazio moduan lehiazeko eskubidea daukala eskatzeko Batasunak **protestaldira** deitu du gaurko (20:00etan). **Berria - Kirola**

### 2 (hitz elkartuetan)

Langileek itxierari ekin zioten Gasteizko Hezkuntza Sailean, eta **protestaldi** sorta luzeari hasiera eman. **Berria - Euskal Herria**

Kale **protestaldi** jendetsu hauek izan ziren, besteak beste, Gazan, Hebronen, Nabalusen, Ramalan eta Jerikon. **Berria - Mundua**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**protestaldia egin** (5); **protestaldia egin zuten** (5)

**kale protestaldiak** (3); **presoeak protestaldiak egin** (3)

**ekin zioten protestaldiari** (3)

## protestant ik **protestante**.

**protestante** (*orobat **protestant** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **protestante** agertzen da*) **1** iz Luteroren edo kideko eraberritzaileen dotrinen bati jarraitzen dion kristaua, Aita Santuaren aginpidea arbuatzen duena. ik **luterano**; **kalbindar**; **higanot**.

Berdin etortzen ziren katoliko zein **protestante**, judu zein musulmanak. **Felipe Juaristi**

-Ni ez nauk ez katolikoa ez **protestantea**. **Lopez de Arana**

Henrike Borboikoa, haien fedeari uko eginda ere, inoiz ez zen gelditu **protestanteak** babestetik. **Aingeru Epaltza**

Biblia herri-hizkuntzetara itzultzeak eta jende xeheko belaunaldiek [...] etengabe irakurtzeak kultur onura handia ekarri zuen, fede handiko **protestante** edo puritanoentzat ez ezik, Mendebaldeko arimontzat oro har. **Iñaki Mendiguren**

**Protestanteen** kontrako errepresioari hark eman zion hasiera. **Aingeru Epaltza**

Prusiako **protestante** maltzurak, Errusiako ortodoxo zismatikoak, eta esker txarreko austriar katoliko zitalk. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Charles Montesquieu akitaniarrak edo Jean Jacques Rousseau suitzar **protestanteak**. **Piarres Xarriton**

## 2 (izenondo gisa)

Erljio katolikoa hobeto doakiola monarkia bati, eta **protestantea** hobeto doakiola errepublika bati. **Iñaki Iñurrieta**

Erreforma **protestanteak** Eliza Katoliko batuaren fronte etsaia hautsi zuen, eta hamazazpigarren mendean Ingalaterra eta Holandara ihes egindako juduei ongietorria egin zitzaizen herrialde **protestante** horien etsai erromatar katolikoek biktima gisa. **Iñaki Mendiguren**

Ipar Amerikako eliza **protestanteen** eremuan, "Bibli Gerrikoaren Fundamentalismoan" iraun zuen tinko. **Iñaki Mendiguren**

Strasbourg-eko teologia **protestante** fakultatearen burua zen. **Marzel Etxehandi**

Pentsaera **protestantea** dakarkigu gogora mota horretako hausnarketak. **Askoren artean**

Paul Ferry (1591-1669), artzai **protestante**. **Juan Martin Elexpuru**

Aspaldi Cabrera jeneral erradikala ingeles **protestante** batekin ezkondua zela, kristau fedea bera alboratu utzia zuela, eta karlista izateari ere bai. **Txillardeggi**

Ez dago sinetsi beharrik idazle **protestante** eta antirkristauen alegazio guztiak. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**apaiz protestante** (4); **katoliko eta protestante** (3)

**erreforma protestantea** (4)

**protestanteen artean** (4)

**artzain protestant** (4); **katoliko edo protestant** (6); **protestant izan** (8)

**katoliko eta protestantak** (3); **katolikoak eta protestantak** (3)

**katolikoek eta protestantek** (3)

**jauntxo protestanten** (3); **katoliko eta protestanten** (4); **katolikoek eta protestanten** (4); **protestanten artean** (3); **protestanten arteko** (5); **protestanten aurka** (3)

**protestantismo** iz XVI. mendean sortu zen erlijiozko higikunde eraberritzailea, Eliza katolikotik bereizi zena; higikunde horren sinesteak; eliza protestanteen multzoa.

Libertate hori duk **protestantismotik** gehien interesatzen zaidana. **Joan Mari Irigoien**

Barruko askatasuna pentsatzaile aleman **protestantismotik** datozenek irakatsi diote. **Joxe Azurmendi**

**Protestantismoaren** eragina, alabaina, lehendik zetorren. **Askoren artean**

**Protestantismoak** irudi erlijiozko galarazi zituen garai tamalgarri haiez ari naiz, jakina. **Anjel Lertxundi**

Halaxe gertatu zen Erreformarekin; luteranismoa etorri baitzen **protestantismoaren** orde. **Koro Navarro**

Nafarroa **protestantismoaren** atzaparretarik libratzeko. **Joan Mari Irigoien**

**protestarazi**, protestaraz, protestarazten du *ad* protestazera behartu.

Ez al zegoen alde zuretik erabakia [...] bere garunak egoera haren kontra bortxaz **protestaraziko** zion narritadura bat izatea? **Josu Zabaleta**

**protestari** (*orobat **protestalari** g.er.*) **1** iz protesta egiten duen pertsona. ik **protestagile**.

Protesenisa enpresako langileak bertaratu ziren, eta kafetegitiki arrastaka atera zituzten **protestariak**. **Berria - Euskal Herria**

Tren bat atera ere egin zuten **protestariak** bere bidetik bultzaka, eta ondorioz, pare bat egunetan egon zen moztuta Alemaniako trenbiderik erabiliena. **Hasier Etxeberria**

**Protestariak** haserre atera ziren kalera torturak egiazatu zirenean. **Berria - Mundua**

Bereziki AEBetako presidente George Bushen kontra, ALCA indarrean sartzearen kontra eta neoliberalismoaren kontra agertu ziren **protestariak**. **Berria - Mundua**

Burugaldurik zebiltzanak adimenez jantziko dira, **protestari** zirenek ikasbidea onartuko dute. **Elizen arteko biblia**

## 2 (izenondo gisa)

Ni ere oso **protestaria** nintzen eta nebaren alde ateratzen nintzen gehienetan. **Ana Urkiza**

**protestatu**, protesta(tu), protestatzen **1** du *ad* protesta egin.

Asaldata nintzen, **protestatu** nuen; baina ezin nion esan egiazko arrazoia. **Ander Irizar**

-Nik.. **protestatu** egin nuen, horregatik ez daukat zenbakirik. **Koldo Izagirre**

Sufritu egiten du, kexatu egiten da, **protestatu** egiten du, etsipenean erortzen da, baina berdin da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Esan diozu autozauritu egiten zela zuek ezartzen zenioten oinazearen kontra **protestatzeko**? **Koldo Izagirre**

*Anachorētēs*, jatorriz bizitza praktikotik erretiratuei aplikatzen zitzaieen, bai beren buruak kontenplazio filosofikora emateko, bai gehiegizko zergen aurka **protestatzeko**.

**Iñaki Mendiguren**

Atzerapenarengatik **protestatzeko**, banku bat leherrarazi du talde ezezagun batek. **Berria - Mundua**

Pertsonak ez ezik, plazan katuak erretzea ere nekez onartuko genuke **protestatu** gabe. **Joxe Azurmendi**

Gizona **protestatzera** zihon, baina Pepponek ez zion hasten ere utzi. **Koldo Biguri**

-Ikasketa-buruarengana joango naiz **protestatzera**! **Jon Arretxe**

Bera isildu egin zen, ez zuen gehiago **protestatu**. **Bernardo Atxaga**

Hainbeste egunez, zinezko borroak gertatu ziren hango poliziaren eta **protestatzen** ari zirenen artean. **Pello Salaburu**

Semea hartu, eta besarkatu zuen, haurrak tinkaldiarengatik **protestatu** zuen arte. **Elena Touyarou**

Egoeraren aurka **protestatzeari** ekin genion nerabeen eran. **Bernardo Atxaga**

Ez nion **protestatzeko** aukerarik eman, berriro agindu bainion, oraingoan oso zakar, ezkutatzeke lehenbailehen. **Anjel Lertxundi**

Loditxo ere ez da **protestatu** zuen amak. **Bernardo Atxaga**

-Baina elizan gaudel - **protestatu** zuen On Camillok. **Koldo Biguri**  
"Arrazoi politikoengatik idatzi?", **protestatzen** nuen beste kasu batzuetan. **Bernardo Atxaga**  
-Mesedez... - **protestatu** zuen Monak, gaiaz asperturik. **Fernando Rey**  
-Ez zen eni horren egitea, Poloniar baten gain zen - **protestatu** zuen. **Eneko Bidegain**

## 2 (adizlagunekin)

Horrelakoetan Endrek sutsu **protestatzen** zuen. **Ander Irizar**  
Charronek gogor **protestatu** zuen prozedura horren kontra. **Matías Mújica**  
Dantzara behartu zuen, zoruan ziba batek bezala jiratuz, hark arranoak bezala garrasika **protestatzen** bazuen ere. **Josu Zabaleta**  
Eginahalean **protestatzen** dute esanez ikonoklastak idoloak desegin bai, baina ez duela berririk jartzen. **Xabier Olarra**  
Antropologoeak askotan **protestatu** dute jokamolde horren aurka. **Joxe Azurmendi**

## 3 irud/hed

Gorputza ez zait erabat ohitu herrera izatera, eta **protestatu** egiten du. **Bernardo Atxaga**  
-Instintu horrek betidanik **protestatu** izan du berria den ororen kontra. **Josu Zabaleta**

## 4 truke letrez mintzatuz, ez dela ordaindua edo onartua adierazi.

Baptista kabroi haren izenean azaldu zen Bankuaren exijentziak argudiatuz; letra **protestaturik** zegoen ordurako, betearazi baino ez zuten egin, bahitu eta enkante publikoan saldu. **Bego Montorio**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**kontra protestatu** (5); **protestatu gabe** (3)

**aurka protestatzeko** (15); **kontra protestatzeko** (8)

**protestatzera joan** (3)

## protestatzaile iz protestatzen duen pertsona.

Irakeko okupazione hortaz manifestaldi haundiak badira orohar han eta hemen, zenbait hamar milako **protestatzaile**. **Herria**  
Lehenik nekez-biziaren kontra manifestatzen ibili dira bai komunista ohiak eta bai liberalistak Moskun eta besteetan, hamar milatarainoko **protestatzaileak** karriketara bilduz. **Herria**  
Ingeles **protestatzaile** ainitzek erakutsi diote denboran berean ez daudela Bushekin "debruaren" kontrako gerla hortan. **Herria**

## protestazione iz ipar protesta.

Sekulako **protestazioneak** altxatu ziren Frantziako Estatuan, egunkari, irrati, telebista guzietan, bakartasunaren kontrako neurri horiek kritikatzeko. **Filipe Bidart**  
Bixtan da ere ez direla beti segurtamen hobereak errespetatuak eta ixtripuak ere badira, zenbaiten **protestazioneak** gainera, hala-nola Amnesty International. **Herria**

## protestgile ik protestagile.

## protetiko izond hizkuntzalaritzan, hotsez mintzatuz, hitz hasieran eransten dena. ikprotesi 4.

Orobat, aipa dezagun hain ezaguna den frantsesezko s-ren aurreko bokal **protetikoan** kasua: [...]. *i* eta *o* **protetiko** horiek areagotu baizik ez dute egiten sonante izate hori. **Isabel Arrigain**

## protidiko izond protidoena, protidoei dagokiena. • irud/hed

-Zaude isilik -handios eta loriosaz ihardetsi zion emazteak, karkazail **protidikoak** aieraturaz, genetika aldetiko istripuak noiz nahi gertatzen direla murmuratuz, zetazko blusa irekitik papoa aitzinatzen zuen bitartean. **Itxaro Borda**  
Trabuko irri gurintsu **protidiko** batez karkazailka urratu zen. **Itxaro Borda**

## protido iz izaki bizidunen osagaia, zelulen, organoen eta likido organikoen osagai oinarrizkoa, proteinez edo kidekoiez osatua dagoena.

Laster batean, gainera, lipido, **protido** eta gluzido sintetikoz osatu janariak, egunean premiazkoa genuen kaloria kopurua sabeleratuko genuen ahamen bakarrak eta merkatuak emeki-emeki desagertuko ziren. **Itxaro Borda**

## proto- lehena; aurrekoa.

*Ebanjelio* hitzaren aurreko **proto** horrek, *ebanjelioen aurreko* esan nahi du: Ebanjelioa bera hasi aurreko kontuak damaizkigula Santiagoren horrek. **Pello Zabala**  
Diskoan dentsitate handiko eremuak daude, eta bertako harriek, hautsak eta gasak oinarritzko **proto**-objektuak sortzen dituzte. **Berria - Gaiak**

## protobakterio iz lehen bakterioa, hasierako bakterioa.

Itxura denez, aski goiz agertu da bizia -Lurra eratu eta handik mila milioi urtera baino lehenago, ziurrenik-, "**protobakterio**" dei lekiokoen zer baten itxurapean. **Juan Garzia**  
Argi samar ageri bada ere gizakiak, animaliak, landareak, onddoak, mikrobioak -hots, nola edo halako bizidunok- hasierako **protobakterioen** batetik gatzela guztiok, ez da bihar goizeko kontua izango, ez horixe, gure arbaso erkide horren aurpegi zehatza ezagutzea **Juan Garzia**

## protobasko iz protoeskara.

Ez zuen poesia dekadenterik irakurtzen; ez zuen poesia emea irakurtzen; ez zuen **protobaskoz** idatzitako poesiarik irakurtzen; ez zuen hitz espainolak tartekatzen zituen poesiarik irakurtzen. **Javi Cillero**

## protoebanjelio

Liburu apokrifoetan, Eliz Jesu Kristo jaio aurretiko gertaerez hitz egiten duen ebanjelioa. Liburu apokrifoetan, Eliz Amak ofizialtasun kanonekoa eman ez zien haietako batean -Santiagoren **Protoebanjelioan**, hain zuzen ere-, han ageri dira Maria Nazaretekoaren gurasoen izenak. Zer da **protoebanjelio** hain izen trakets hori? *Ebanjelio* hitzaren aurreko *proto* horrek, *ebanjelioen aurreko* esan nahi du: Ebanjelioa bera hasi aurreko kontuak damaizkigula Santiagoren horrek. **Pello Zabala**

## protoekologista

*izond* ekologismoaren aurreko ekologista. Industrializazio basatiaren aurreko jarrera prekapitalista bat, naturarekiko sentiera **protoekologista**, langile etorkinen mundua bere sisteman integratu ezina, horrek denak eragingo dio Lauaxetari meatze gorria zauritzat hartzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## protoeuskaldun

Orixek ere belarjaleztat geunzkan euskaldun zahar baserritarrok, eta (neu barren) **protoeuskaldun** edo gutxienez paleoeuskalduntzat, berriz, jeltxide zahar edo egungo hatxebero turista sabatomingero iraultzaileon (--?) ideologiak. **Patziku Perurena**

**Protoeuskaldunarekin** erlazionatu beharreko piriniar unitate etniko-kultural primitibo horren agerpen polimorfoak kontsideratu ahal izateko. **Pello Salaburu**

## protoeuskara

(*orobat proto-euskara*) *iz* euskara historikoaren aurreko forma teoriko batua. Ideia horiek guztiak -eta hitzak ere bai, gehienbat- euskarari arrotz zaizkiola frogatzen ahalegintzen da Baltza, **protoeuskararen** muinean sakontzen duen azterketa original baten bitartez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaskoinaren berezitasunetarik bat da lehengo euskara edo **proto**-euskara mintzo zen eremuan kokatzen dela. **Herria**

## protogermaniko

Germanistak ere antzeko egoeran zeuden; **protogermanikoa**, berez, ez zen ezaguna, baina beretik eratorriak diren hizkuntzen historiari jarraiki dakiokete mende askotan zehar dokumentu askoren laguntzaz. **Isabel Arrigain**

**Protogermanikoak** ez du forma berezirik geroaldia adierazteko. **Isabel Arrigain**

## protogotiko

*izond* Erdi Aroko eraikuntzez mintzatuz, oinarri erromanikoa izanik elementu gotikoak dituen, adibidez gurutze bobeda. Nabarmena zen Itoizko eliza **protogotikoa**, XII. mendearen bukaeran egindakoa. **Edurne Elizondo**

## protohistoria

*iz* historiaurreko aldia, lekukotasun idatzirik ez, baina ahozko tradizioko argibideak badaudena. **Protohistoriako** ene arbaso primitiboa baino harroago Fanchengana itzuli nintzen. **Itxaro Borda**

Erromatarren aurretik Iruña Okan zegoen herriak euskal **protohistoriako** handiena izan zen, ikertzaileen arabera. **Berria - Harian**

Iruña Okako Veleia aztarnategia Euskal Herriaren **protohistoriako** herrixkarik handiena egon zen gunean dagoela baieztatu dute [...] azken ikerketek. **Berria - Kultura**

## protohizkuntza

*iz* hizkuntza familia baten aurreko forma teoriko batua, hizkuntza horien jatorria dena. Ohartu nintzenez, teknikoez **protohizkuntza** deitzen duten zer horretara bideraturik zegoen haren interesa, hots, hizkuntzaren aldi zahar eta lehena, datu ziur eta zehatzik ez daukaguna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Euskararen muinean Berbere-iberiar, Sahara-mediterranean eta Piriniar **protohizkuntzak** atzeman daitezkeela dio Josu Naberanek. **Berria - Euskal Herria**

## protoi 1

*iz* atomoen nukleoko zatikia, zama elektriko positiboa duena, elektroiak baino masa askoz handiagoa duena. Berilioa oso elementu kimiko arina da, forma egonkorrean eta ohikoenean, Berilio 9<sup>a</sup>, lau **protoi** eta bost neutroi ditu nukleoan. **Berria - Gaiak**

Fusioan **protoiak** eta neutroiak hartzen dira kontuan. **Fernando Morillo**

**Protoien** eta neutroien osagaiak, quarkak, elkaturik gordetzen ditu indar horrek. ezinezkoa da quarkak **protoietatik** ateraraztea, izugarri gogorra delako horien arteko lotura (indar azkarra), baina, aldi berean, aske mugitzen dira quarkak **protoian** oso hurbil daudenean. **Berria - Gaiak**

## 2 (hitz elkartuetan)

Bi **protoi** izpi jaurtiko dituzte kontrako norabideetan eta LCHk azeleratuko ditu abiada handian, segundoko 40 milioi aldiz gurutza daitezzen. **Berria - Gaiak**

## protoinperial

*izond* aro inperialaren aurrekoa, hura nolabait iragartzen duena. Aro berriarekin gatazkan zeuden barrietatea eta kontingentzia kanpoan utziko lukeen jakintzaren sintesi ideala sortzeko ahalegin **protoinperialak** oso ondo ordezkatzuten intelektuala. **Santiago Iruretagoiena**

## protokolar

*izond* protokolaria. Hortaz, Raffarin gobernuan, ordena **protokolarreko** laugarren postuan dago orain. **Berria - Mundua**

## protokolario

*iz* protokoloarena, protokoloari dagokiona, protokolozkoa. ik **protokolo 2**. holkulariak eta zuzendariak ohiko agur **protokolarioak** trukatu zituzten, eta solasari ekin zioten. **Jon Alonso**

Mendeak ziren, Espainian Gorteak existitzen ez zirena, edo ez zirena **protokolarioak** baizik. **Joxe Azurmendi**

## protokolo 1

*iz* zeremonietan eta kidekoetan, etiketa eta lehenetasun kontuetan gorde behar diren arauen bilduma; gizarte harremanetan jarraitzen diren kortesia-erregelen multzoa. Japoniako inperioko **protokolo** zaharrak agindu bezala, Enperadoreagana "durduzaz eta dardaraz" zuzendu beharra zeukaten mendeko guztiek. **Joxan Elosegi**

Liturgia zurrun baten arabera egiten dira, eta bada nahi adina **protokolo** eta haundi-maundikeria. **Joxerra Garzia**  
Badakit, ondo jakin ere, ohiturak, kasu horretan, errespetuzko duda bat ezarria duela: zuk ere badakizu ordea ez dela molde bat, **protokolo** hutsa baizik. **Jon Muñoz**

**Protokolo** hutsezko eintza. **Edorta Jimenez**

Badakigu ingelesak zein neurritan diren ohituren eta **protokoloen** zale. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

**Protokolorik** gabe mintzatu zitzaigun ingelesez. **Edorta Jimenez**

Irteke atekak ez zituztela ireki ikustea eta egoera hauetarako indarrean zegoen **protokolo** militarri kasu ez egitea arraroa iruditu zitzaizen arren, [...]. **Jon Alonso**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **protokolario**.

Musika bandak jo du, eta gero **protokoloko** hitz batzuk esan dituzte. **Pako Aristi**

Hori da idatzitako gabeko legea, hori da amerikar etiketaren **protokolo** -araurik zorrotzenetan zorrotzena. **Oskar Arana**

Kazetari senak eraman zuen egin zuena egitera: Printzea maitemintzera, konpromiso ofiziala onartzera, bere lanbidea uztera, **protokolo** eta etiketa eskola gogaikarri haiek guztiak jasatera, amodioaren fikzio hura guztia mantentzera, eztei-egunera heldu arte. **Iban Zaldúa**

Julian Arruabarrenak ez du EPELekeko presidente karguan jarraituko; **protokolo** arduraduna izango da. **Berria - Kirola**

## 3 nazioarteko konferentzia bateko edo hitzarmen bateko agiria edo agiri multzoa.

Bi baldintza bete behar ziren Kyotoko **Protokoloa** indarrean jartzeko. **Berria - Gaiak**

AEBek ez zuten Kiotoko **Protokoloa** berretsi -itun hori 1997an izenpetu zen Kioton, eta helburua gas toxikoen emisioa murriztea zen, planetaren berotze efektua saihesteko.  
. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Protokolokoak** aurrera egin ahal izateko herrialdeen %55ak eta isurketen %55aren erantzule diren herrialdeek onartu beharra dute. **Iñaki Heras**

Iranek ia azken abenduan sinatu zuen Arma Nuklearak Ez Ugaltzeko Itunaren **Protokolo** Gehigarria. **Berria - Mundua**

Bost eguneko bileren ostean, Bioaniztasunari buruzko Kartagenako **Protokolorekin** sinatzaileek produktu transgenikoak kontrolatzeko nazioarteko sistema lotesle bat ezartzea erabaki zuten atzoko bilkuran. **Berria - Gaiak**

Nazio Batuen Erakundearen (NBE) torturaren aurkako **protokoloa** sinatzea erabaki zuen atzo Espainiako Ministroen Kontseiluak. **Berria - Euskal Herria**

Espainiak NBEren **protokoloa** berretsi izana baikortzat duten arren, urratsen zain daude torturaren aurkako elkarteak. **Berria - Euskal Herria**

Jaurlaritzaren **protokoloa**: Herrizaingo Sailak tortura eragozteko inkomunikaturik dauden atxilotuei ezartzen dien **protokoloa**. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak eta Espetxe Erakundeek egin beharreko itunerako proposamena da Gobernu Kontseiluak aho batez onartutako **protokoloa**. **Berria - Euskal Herria**

Batzorde honek sortutako Emakumearen Genitalen Mutilazioaren Kontrako **Protokoloa** aplikatu zaio. **Berria - Gaiak**

Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren aurten **protokoloa** izenpetu da otsailaren 20an. **Herria**

Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskaltzaindiak 2004. urteko **protokoloa** sinatu zuten atzo, Euskaltzaindiaren egoitzan. **Berria - Kultura**

## 4 (hitz elkartuetan)

Atxilotu bakoitzari azterketa egiterakoan, legez araututako bost orrialdeko **protokolo** txostena bete beharko lukete. **Berria - Euskal Herria**

· Asmo **protokoloren** ez da zehazten noizko eraiki nahi duten, baina lehenbailehen izango dela zehazten da. **Berria - Harian**

Inkomunikazioari dagokionez, atxilotuentzako «arreta-**protokolok**» aztertze eta hobetzeko konpromisoa hartu zuen Ibarretxe. **Berria - Harian**

## 5 tratamendu batean edo lan esperimental batean jarraitzen den plana.

Gaur egun tratamendu berak edo bertsuak baliatzen dituela leku guztietan medikuntza konbentzionalak, **protokolo** berberak erabiltzen direla hemen nahiz Estatu Batuetan minbiziaren alorrean. **Imanol Zurutuza**

**Protokolo** bat idatzitako zuten denen artean gaitza agertzen den lekuetan berehala indarrean jartzeko. **Berria - Gaiak**

Laborategietako esperimentuen **protokolok**. **Xabier Arregi**

Gustura hartuko nuke neuk ere, errekupeazio on baterako aholku eta **protokolo** guztiak pikutara bidaliz. **Jokin Urain**

Haren gudu-eremua laborategia zen; haren armak: esperimentuak, **protokolok**, hazkuntza-flaskoak. **Juan Garzia**

Elenak zorriekin jarraitu beharreko **protokolo** hura maite zuen, haiei esker amak bainatu egiten baitzuen bere esku pikartsuez. **Eider Rodriguez**

## 6 (hitz elkartuetan)

Segurtasun **protokoloa** jarraitu behar zuela ohartu zen Ramirez kapitaina. **Fernando Morillo**

## 7 **protokolozko izlag** ik **protokolario**.

**Protokolozko** berbaldia. **Berria - Euskal Herria**

Pasa den ostegunean Europako Batzordeak eta Israelek **protokolozko** akordio bat sinatu zuten auzi honen inguruan zabaldu den eztabaidari irtenbidea emateko helburuarekin. **Berria - Mundua**

Ondorioz, Irujo eta Eulate ez ziren **protokolozko** argazkira hurreratu ere egin, eta Iberokoak kazetarietan ez hitz egitea erabaki zuten. **Berria - Kirola**

Ruiz Piñeiroren berbak neurri batean **protokolozkoak** izan baziren ere, Juan Pablo Gonzalez Botere Judizialeko lurralde kideak esandakoek kutsu politiko nabarmena izan zuten. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

itunaren protokolo (5); itunaren protokolo gehigarria (3); protokolo bat sinatu (4)

aldeko protokoloa (3); asmoen protokoloa (3); aurkako protokoloa (3); ertzaintzaren protokoloa (6); kiotoko protokoloa (7); kontrako protokoloa (3); kyotoko protokoloa (66); kyotoko protokoloa berresteko (3); kyotoko protokoloa berretsi (4); kyotoko protokoloa bete (4); kyotoko protokoloa sinatu (4); kyotoko protokoloa sinatzeko (3); nbeo protokoloa (3)

protokoloa berrestea (3); protokoloa berresteko (4); protokoloa berretsi (10); protokoloa berretsiko (3); protokoloa bete (4); protokoloa betetzeko (5); protokoloa ezarri (3); protokoloa garrantzitsutzat jotzen (3); protokoloa indarrean jartzea (4); protokoloa jarri (5); protokoloa martxan (3); protokoloa onartu (3); protokoloa prest (3); protokoloa sinatu (16); protokoloa sinatu zuten (6); protokoloa sinatuko (5); protokoloa sinatzea (3); protokoloa sinatzeko (4)

torturaren aurkako protokoloa (3)

kiotoko protokoloak (4); kyotoko protokoloak (12); kyotoko protokoloak ezarritako (3); protokoloak ezarritako (6); protokoloak ezarritako mailaren (3)

kyotoko protokoloan (3); protokoloan ezarritako (3)

kyotoko protokoloaren (5); protokoloaren arabera (6); protokoloaren helburuak (6)

kyotoko protokolari (4)

kyotoko protokoloko irizpideak (3)

## protokoloburu iz erakunde edo zeremonia batean, protokoloaren burua den pertsona.

Miren Sanchez Erauskin Legebiltzarreko lehen **protokoloburuak** ezin izan zuten ekitaldian parte hartu, eta haren mezua Elena Lopez Aretxabaleta egungo arduradunak irakurri zuen. **Berria - Euskal Herria**

## protomaisu iz lehen maisua.

Egitarauaren gainerako piezetan, entzuleria zabalerako aproposagoak ziren lanak eskaini zizkigun organo jotzaileak: Johann Sebastian Bach **protomaisuaren** Fantasia eta Fuga, 542, Passacaglia eta Fuga do minorrean, besteak beste. **Berria - Kultura**



## protomartiri *iz* lehen martiria. • *irud/hed*

Badugu erruduna ere: erromantizismoa eta, zehatz, haren **protomartiria**, Beethoven. **Berria - Kultura**

## protomonasterio *iz* lehen monasterioa.

Erregelaren jatorrizko dokumentua Asisko **protomonasterioan** gordetzen da. **Askoren artean**

## protoniko *izond* silaba azentudunaren ezkerrean dagoena.

Era berean, alemanez, *ur* orok bere hartan iraun zuen silaba azentuduna zenean, eta *er*-bilakatu zen silaba **protonikoa** zenean. **Isabel Arrigain**  
Frantsesez, latinezko *o* oro, silaba irekian, *eu* bilakatzten zen azentuduna zenean, eta *ou*, silaba **protonikoan** zegoenean. **Isabel Arrigain**

## protoplasma 1 *iz* zelula parte bizia osatzen duen substantzia organizatu konplexua.

Badakizu histologo batzuek uste dutela oinarrizko unitate organikoak aurkitu dituztela zelulen **protoplasman**; bioblasto deitzen dituzte. **Josu Zabaleta**

### 2 (hitz elkartuetan)

Hor dituzu azinetido zurrupariak, beste infusorio batzuen **protoplasma**-gaia xurgatzen dutenak; hor dituzu aspergilo mota guztiak, usteltzen ari diren gaien gainean bizitzen. **Josu Zabaleta**

## protosemita *iz* hizkuntza semitikoaren aurreko forma teoriko batua, haien jatorria dena.

Ez al zen arrazoi beragatik gertatuko **protosemitan** ere? **Isabel Arrigain**

Tipo horren ezaugarri nagusiak hauek dira: ia ez dago elkarketarik, eratorketa oso gutxi erabiltzen da, flexioa gutxi garatua dago (gehiago **protosemitan**, dena den, horretatik sortu ziren hizkuntzetan baino), eta horrenbestez, hitz ordena oso erregela zorrotzei atxikia dago. **Isabel Arrigain**

## protosemitiko *iz* protosemita.

Bi hizkuntza semitiko, berreraikitako **protosemitikoarekin** erkatzen ditugunean, harrigarria gertatzen da lehen begiratuan nola iraun duten ezaugarri batzuek. **Isabel Arrigain**

## prototipiko *iz* prototipoarena, prototipoari dagokiona.

Bulegokume **prototipikoa**, kapitainak ezin zuen Scott jasan. **Fernando Morillo**

Egia da hots **prototipikoan** ahoskorden dardara (ahotsa) izaten dutela beren izate akustikoaren iturri. **Lourdes Oñederra**

Teoria etikoen printzipio nagusiez arduratuko gara lehenik, eta horietako bakoitzak darabilen argudiatze **prototipikoa** kasu praktikoko baten aurrean testatuko dugu. **Askoren artean**

## prototipo 1 *iz* zerbaiten, bereziki makina edo ibilgailu baten, lehendabiziko alea, hura bezalako gehiago egiteko eredutzat erabiltzen dena.

Luma berriaren lehen urratsa lortzearen zurrumbilo horretan zebilen oraindik Lázló-József Biró jauna [...] 1938. urtean patentea lortu zuenean bere **prototipoarentzat**. **J.M.**  
Olaizola "Txiliku"

Makina **prototipoa** baino ez da oraindik, eta arazoak daude hortik aurrerako urratsak egiteko. **Berria - Gaiak**

2000. urtean Mercedes enpresak hidrogenoz elikatutako erregai-pilak erabiltzen dituen Nekar 5 **prototipoa** aurkeztu zuen. **Berria - Gaiak**

Erromako Udalarentzat egin behar dituen trenen **prototipoa** ekoitzi du. **Berria - Ekonomia**

Piloturik gabeko X-43A hegazkina jaurtitzeko asmoa zuen NASAk, B52B aireko handi batek **prototipoa** 12.000 metroko altuerara eraman ondoren. **Berria - Gaiak**

Eraikuntzaren gainean, teiatuaren orde, autoak eta **prototipo** berriak probatzeko erabiltzen zuten pista handi bat dago, baina Lingotto inguruan bizi den jendeak ez ditu jada Lancia eta Ferrariren motor-burrundarak entzuten. **Anjel Lertxundi**

Arnasketa likidoko makina da, eta oraingoz **prototipoa** baino ez dute eskura. **Berria - Gaiak**

Ordutik hamahiru urte pasatu eta prest utzi zuten behin-betiko **prototipoa**. **Iban Zaldúa**

Birusaren proteina baino erabiltzen ez duten txertoak ikertzen ari dira hainbat herrialdetan, nahiz eta orain arte soilik **prototipoak** izan. **Berria - Gaiak**

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dagoeneko guztiok dakigu [...] Lopez de Arriortuaren automobil-**prototipo** egingaitza Gran Via zinema zaharrean gordetzen dutela. **Patxi Iturritegi**

Berlinek 20 milioi euro eman dizkio botikagintza industriari txerto **prototipoa** egin dezan. **Berria - Gaiak**

### 3 eredu gisa balio duen pertsona edo gauza.

Oreste enetako serial-killeraren lehen **prototipoa** da. **Itxaro Borda**

Espresionismoa eta zinema: **prototipoa** (*Caligari doktorearen kabinetea*, R. Weine, 1929) eta pastixea (*Pierrot lunaire*, Shaffy Workshop, 1988). **Josu Zabaleta**

Orain arteko gizonaren **prototipoa** ahultzen joango da eta homosexualen auziak ez du hainbesteko garrantzirik izango. **Berria - Euskal Herria**

Ez al zaizu iruditzen, behialako "el chico rey de la faba" haren **prototipo** petoa-petoa litzakela horko Agustínico hori? **Patziku Perurena**

Spainiar hiri-estatu kolonial horiek [...] beren **prototipo** helenikoak bezala, ekonomikoki bizkarroiak izan ziren. **Iñaki Mendiguren**

Gaur egun argi samar dago, ordea, bi-biak datozela **prototipo** erkide batetik. **Juan Garzia**

"Olentzero" deformatu eta izengoiti bihurtu horixe txertatu duela apropos bere kantetan, kanpoko eskazale gizajo graziosoen **prototipo** gisan. **Patziku Perurena**

Sistema horren **prototipoa** greziar alfabetoa da. **Isabel Arrigain**

### 4 (izenondo gisa)

Oso adierazgarria da, bertsolari **prototipo** honen eragina, gure herri literaturan. **Patziku Perurena**

### 5 (hitz elkartuetan)

Homologiari gabeko egituratzat jotzen dira, beren eboluzioan bakoitza bere **prototipo**-organismotik abiatutzat, zein bere aldetik. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prototipo berriak** (3)



protsimo ik **projimo**.

---

## **proustiano** *izond* M. Proust-i dagokiona.

Zer da, ordea, "**proustiano**"?: norbaiti magdalena baten usainak gaztetako hondartzako kutixi-txosna bat gogora ekartzea noski. **Juan Garzia**

---

## **proustzale** *izond* M. Proust-en zalea dena.

Paseoan ibiltzen ziren elkarrekin Po ibaiaren pasealekuan eta Valentinoren lorategietan, eta Proustez hitz egiten zuten, gazte hura **proustzale** sutsua baitzen. **Fernando Rey**

---

proventzal ik **probentzal**.

---

proventzar ik **probentzar**.

---

## **proxeneta** 1 *iz* besteren prostituzioa eragitetik bizi dena.

Gizon gazte bat, hasieran **proxenetatza** hartu dudana, tematu egiten zait nire whiskya berak ordainduko duela, aita izan berri delako. **Joxe Austin Arrieta**

Bi urte geroago, ordea, bere **proxenetak** harrapatu egin zuen berriro. **Gotzon Garate**

Neskatxak lanean atxikitzeko, ordea, **proxeneta** eta madame talde ongi saretua zegoen. **Gotzon Garate**

**Proxenetaren** inpunitatea dago lehenik, bezeroarena jarraian. **Berria - Euskal Herria**

Txuloak eta **proxenetak** ere baziren. **Berria - Harian**

Edozein pederasta edo **proxenetaren** logika eta pentsaerarekin hitz egiten du Gasteizko Gobernuko Barne sailburu izanak. **Jokin Urain**

### 2 (izenondo gisa)

Gure lagun **proxenetarekin** eta Pantxo anormal horrekin pastelak jaten! **Bernardo Atxaga**

### 3 irud/hed

Ama euskara putatu, prostitutatu, irabazian jarri eta haren **proxeneta** bihurtu. **Iñaki Seguro**

---

## **proxenetismo** *iz* proxenetaten jardura.

Suedian legez kanpo dago **proxenetismoa**, eta bezeroari isuna jartzen zaio. Lau urtez izanak ginen unibertsitatean ikaskide, eta elkarrekin ibiliak ginen laboratoriorikastaro guztietara, zeinetan, **proxenetismorako** leku aparta izanik ere, ez baikin sekula adiskidetasun espezifikoko batera iritsi. **Berria - Euskal Herria**

---

prozadura ik **prozedura**.

---

## **prozedura** (*orobat prozadura g.er.*) 1 *iz* ondorio batera heltzeko erabiliriko metodoa.

Printzipio sinple batzuetan oinarriturik daude **prozedura** horiek, baina inork ez zituen, ordu arte, inoiz aipatu. **Jon Muñoz**

Gogora dezagun hizkuntz unitateen antolaketa iraultzeko orain arte ikusi ditugun **prozedurak**: permutazioa eta inbertsioa. **Iñaki Arranz**

**Prozedurari** buruzko galderak geroago burutuko diren ikerketetan aztertuko dira. **Xabier Arregi**

Hitzak luzatzeko **prozedurez** ari garela, kontrako bidea egin dezakegu. **Iñaki Arranz**

Ez dago **prozedurarik** mekanikoki erabakitzeke formula oro logikoki baliozkoa den ala ez. **Askoren artean**

*Ixtorio-mixterio* hitz bikoitzak **prozedura** ondo baino hobeto baliatzen du: lehenengo hitzaren metagramari *m* bat erantsita, errepikapenak ez du bakarrik oihartzun efektua sortzen, aitzitik zentzuz beteriko bigarren hitz bati probetxu semantikoa ere ateratzen dio. **Iñaki Arranz**

Nazien **prozedurak** eta jokaera itsuak jasanda, ez zituen batera maite ideologia absolutuak. **Fernando Morillo**

Macnair, zuk ere entzun egin behar duzu, hau da **prozedura** ... **Iñaki Mendiguren**

Erabat debekaturik dago [...] zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitarteko edo **prozeduraz**, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla. **Juan Martín Elexpuru**

Bertsolariak, **prozeduraz**, kantuan hasi baino lehen dauzkan Segundo gutxi horietan, arrazoi bat pentsatuko du, doinu bat aukeratu eta pentsatu duen arrazoi hori aukeratu duen doinuaren neurrietara tolestuko du. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gune sentikor horien azpiko nerbio-amaierak aztertzen badira (ez da **prozedura** mingarria, aski baita larruzal zati txiki-txikiak kentzea), denak berdinak direla ikusten da. **Irene Aldasoro**

Produktu, teknika eta **prozedura** berriak sortzeko enprekin egiten diren kontratuen bitartez. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Azkeneko hau, funtzionarioak kontratatzearena, **prozedura** bikoitza da, eta oso konplexua. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hizkuntza baten ereduaren deskribapen osoa errotik eratzeke **prozedura** formula. **Itziar Laka**

Hilda zegoen ordurako, nik ikusia nuen mantaren azpian, baina **prozedura** legalak bete behar omen ziren. **Joseba Sarrionandia**

Guk hemen aipatu ditugun **prozedura** arau-ekarle asko, ordea, gaizki ikusiak daude literaturan. **Iñaki Arranz**

Arazoa gertakari-sorta zabal bat azaltzeko teoriarik egokiena aurkitzea da, eta ez da espero hori lor dezakeen **prozedura** analitikorik egotea. **Itziar Laka**

**Prozedura** mekaniko bat dago PLko formula bakoitza egiazkoa denetz erabakitzeke (egia-taulak, besteak beste). **Askoren artean**

Uste dut Fowlerrek Harrisen **prozedura** morfologikoei jartzen dien eragozpena, arazo gabe gaindi daitekeela. **Itziar Laka**

Ikuspuntu metodologikoa aldatzearekin batera, **prozedura** taxonomikoei hizkuntzaren ikerkuntzari jartzen zizkioten oztopoak kenduz joan ziren. **Itziar Laka**

Hasteko, erranen dizut hau ez dugula ohiko **prozedura**. **Alberto Ladron Arana**

### 3 (aditzaren objektu gisa)

Bere enpresa sortu, makinaren planoak egin, langileak kontratatu, **prozedura** patentatu, eta berrogeita hamar bat Pascalina merkaturatu zituen. **Jon Muñoz**

Pierre Menard-ek **prozedura** hori aztertu zuen [...] baina errazegizat baztertu zuen. **Juan Garzia**

Askotan saiatu zen bere kalkulueterako erabiltzen zituen **prozedurak** azaltzen. **Xabier Olarra**

Etorkinak beren jatorrizko herrialdeetara bortxaz bidaltzeko garaian jarraitu beharreko **prozedurak** deskribatzen ditu. **Berria - Mundua**

Botoa emateko **prozedura** finkatzerakoan, bestalde, legebiltzar taldeen iritziaz kontuan hartu beharko dituela gogoratu du. **Berria - Euskal Herria**

Saiatu zen kalkulugile miragarriek beren emaitzak lortzeko zer **prozedura** erabiltzen zuzentzen ziren. **Xabier Olarra**  
G7ko herrialdeek hautagarritasun-irizpideak arindu, **prozedurak** erraztu eta zorra murrizteko programak herrialde aberatsen alde biko kreditu guztietara zabalduko zituztela iragarri zuten. **Koro Navarro**

Belgikako kooperatiba batek gurinaren gai koipetsuak ezabatzeko **prozedura** berri bat garatu zuela. **Joxan Elozegi**

Industria jardueraren ondorioz gertatzen diren kalteak zigortzeko **prozedura** zehazten du. **Berria - Ekonomia**

**Prozedura** batzuk eratu zituzten greziar pentsalariak, adierazten zituzten baieztapenak zehatzak zirela ziurtatuz beren buruak lasaitzeko. **Jon Muñoz**

Ezinezkoa da hizkuntza irudikatzen etengabe erabili ohi den **prozedura** hori baztertea, hau da, idazkera alde batera uztea, eta beharrezkoa da ezagutzea haren baliagarritasuna, haren akatsak eta arriskuak. **Isabel Arrigain**

Subjektua lotuko duen ekintzan datza unibertsal singularra, egoera baten logika eta itxurak errokit aldatuko dituen **prozedura** martxan jartzen duen ekintza. **Joseba Zulaika**

#### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure **prozedura** -arauak ez dira epaitegietakoak. **Oskar Arana**

**Prozedura** akatsak direla eta, ostiralera atzeratu dute epaiketa. **Berria - Harian**

Defentsak eskatuta, atzo ez zen lekukorik agertu ez eta frogarik aurkeztu ere, baizik eta «**prozedura** kontuak aztertu» [...] besteak beste atzerapenak zenbat iraungo duen. **Berria - Mundua**

Erabakia «arduragabekeria delako ikuspuntu politikoik, **prozedura** ikuspuntutik eta gehiengoenganako errespetoaren ikuspuntutik». **Berria - Ekonomia**

Helegitea «**prozedura** arrazoieta» oinarrituko du Batzordeak. **Berria - Ekonomia**

Hizkuntz teoriaren kontzeptzio hauen kasuan, **prozedura** -motaren taxua zehaztean "praktiko" hitza erabili dugu. **Itziar Laka**

#### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berrikuntza hori produktuena edo ekoizpen-**prozedurena** izan daiteke. **Koro Navarro**

Autore batengan eta bestearengan gaiak, narrazio-**prozedurak** eta estiloa errepikatzea da horren adierazgarri nabarmena. **Askoren artean**

Susmoa badut horrako bideak geroz eta azterketa **prozedura** konplexuagoen maza korapilatsu batera garamatzala. **Itziar Laka**

Edozein langintzatan, puntako egile batek bere lan-**prozedurak**, kezka eta martingalak agertzea beti da ikuslearentzako plazaz eta opari. **Andoni Egaña**

Epailetza eta zerga-**prozeduretan** [...] pertsieraren ordez ez zen ingelesa hartu, tokian tokio herri-hizkuntzak baizik. **Iñaki Mendiguren**

Hirugarren dinastiaren hasieran, jurisprudentzia **prozeduratar** mugatzen zen osorik; ohoreak gobernatzen zuen dena. **Iñaki Iñurrieta**

Konputagailu-programek kontrol-**prozedura** integratuak izaten dituzte makinaren funtzionamendu okerrak eragindako hutsak detektatzeko. **Irene Aldasoro**

Enuntziatuei legitimitate aplikatu dakizkiekeen esku-hartze **prozedurak** defini daitezke. **Xabier Arregi**

1953. urterako, erabat galduta nuen ebaluazio-**prozedura** taxonomikoak formulatzeko itzaropena. **Itziar Laka**

Honelako teoria bati ez dio axola gramatika nola eraiki den, eta, beraz, gramatikaren arteko erabakitze-**prozedura** bat eskaintzen duela esan liteke. **Itziar Laka**

Beraz, aurkitze-**prozedura** eskaintzen duen teoria dugu. **Itziar Laka**

Berpizkundetik aurrera hasi zen gizabanakotze-**prozedura** zibilizatzaileak Uhartegan du oinarria, eta ez haren garaikide izan ziren Erasmus, Vives edo Castiglionengan. **Askoren artean**

Autore baten kanonizazio **prozeduran** unibertsitateak ematen duen goi mailako erramu boneta oso garrantzitsua da, zinezko kontsakrazioa ikonoen beharretan den liburuaren merkatuan. **Ana Urkiza**

#### 6 auzibidea.

Hari beretik, aztertu da oraino **prozedura** berri bat: norbait, paperez espainola denari, leporatuak zaizkiolarik delitu handiagoak Espainian Frantzia baino, auziperatua izan daitekeela segidan Espainian. **Herria**

Portugalen aurkako **prozedura** amaiteza erabaki du Ekofinek. **Berria - Ekonomia**

«Botere judizialaren independentzian oinarrituz», auzia itxi eta **prozedura** artxibatzea egokia litzatekeela. **Berria - Harian**

Jadanik zenbeit egun hauetan bali da abisu hau, bainan lehen asteen oraino ez dute **prozedurarik** ematen, bakarrik paper bat lardieratzeko. **Herria**

«Ideien kontrako **prozedura** baten aurrean gaude», salatu zuen Aralarreko koordinatzaile Patxi Zabaletak. **Berria - Harian**

Jupeak baztertu zituen Jean François Blanco abokataren galdeak: **prozeduraren** indar gabetzea, bai eta Erramun Baxok eta Mixel Oronos-en lekukotasunak. **Herria**

Ez zuen makurtu nahi izan Auzitegiak, ohiko **prozedurei** jarraituz, eskatzen zizkion azterketa biologikoak egitera. **Ramon Saizarbitoria**

Bilboko polizia errebelamendu militarra leporatu zion Jose Ramon Goikoetxeari, eta **prozedura** sumarisimotik bideratu zuen auzia. **Rafa Egiguren**

Kasu bakoitzarengatik **prozedura** bat hasiko balute, a zer murriztua hartuko lukeen lanbideak. **Oskar Arana**

Bi **prozedurak** «independienteak» direla esan zuen Candido Conde-Pumpido fiskalburuak. **Berria - Euskal Herria**

#### 7 (izenondoekin)

**Prozedura** administratibo bat abiatu dugu jadanik. **Herria**

Uste dugu ez dela bidezkoa gure kontra **prozedura** juridikorik abiatzea. **Berria - Kultura**

Sartu gara **prozedura** juridiko batean, administrazioari bete arazteko berak errespetatu behar dituen araudiak. **Herria**

Musika taldearen kontrako eginbideak **prozedura** laburtu bihurtu ditu Grande-Marlaska epaileak. **Berria - Kultura**

Hartara, Kode Zibila, Zigor Kodea, Merkataritzako Kodea eta **Prozedura** zibil zein kriminaleko kodeak Napoleon Bonaparteren armadak hedatu zituen Europan zehar. **Andres Urrutia**

#### 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Salaketa Europako bulego gorenera eraman du, eta hunek onartu berria du salaketa-**prozedura** hori. **Herria**

Zigor **prozedura** bat irekitzea aztertuko duela adierazi zuen. **Berria - Ekonomia**

Europako Batzordeak zigor **prozedurak** zabaldu zituen atzo Europako Batasuneko 18 herrialderen aurka, bere iritziz, argindar eta gas merkatuak enpresetara zabaltzeko unean motz geratu direlako. **Berria - Ekonomia**

Ahurtiko PEP (Pupilles de l'Ecole Publique) zentroko lau begiraleen kontra lizentziamendu **prozedura** bat idekitzen hasia duela zuzendaritzak erran du CGT sindikata. **Herria**

Betaurrekodunarekin gizon bat etorri da, eta lege **prozedurak** aipatzen hasi zaizkigu, paper bat eskuan. **Javi Cillero**

Arabako Lan Ikuskaritzak isun **prozedura** bat zabaldu dio Corsan-Covian enpresari, langile portugesei diru gutxiago ordaintzeagatik. **Berria - Ekonomia**

#### 9 ipar isuna.

Behin ukan dut **prozedura** bat, fiteegi nindoalokotz eta aitortu behar dut ez dutala pagatu. **Menane Oxandabaratz**

#### 10 prozedurazko izlag

**Prozedurazkoa** eta mekanikoa ote zen soilik kopia eta kantuak ikasteko erraztasun hori? **Xabier Olarra**

- **Prozedurazkoa** : nora joan nahi duen argi badauka, bidea samurrago gertatuko zaio. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

##### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adosturiko prozedura (3); adosturiko prozedura politikoak (3); aldatzeko prozedura (3); aukeratzeko prozedura (4); aurkako prozedura (13); aurkako prozedura zabaldu (4); aurkako zigor prozedura (3); aurkitze prozedura (9); aurkitze prozedura praktiko (3); aurkitzeko prozedura (3); bestelako prozedura (3)

ebaluaketa prozedura (7); ebaluaketa prozedura bat (4); egiteko prozedura (6); erabakitze prozedura (3); erabilitako prozedura (5); estradizio prozedura (5); ez ohiko prozedura (3); ezarritako prozedura (3); ezohiko prozedura (8); gramatikaren ebaluaketa prozedura (5); haien aurkako prozedura (3); hartzeko prozedura (3)

irekitako prozedura (5); kontrako prozedura (9); lan prozedura (4); legebiltzarreko prozedura (3)

ohiko prozedura (14); onartzeko prozedura (4); premiazko prozedura (4); premiazko prozedura erabili (3)

prozedura abian (7); prozedura abian jarri (3); prozedura abiatu (5); prozedura abiatzeko (5); prozedura aldatu (4); prozedura arazoak (3); prozedura azaldu zuen (3);

[prozedura bat zabaldu](#) (4); [prozedura bera](#) (9); [prozedura bera erabiltz](#) (3); [prozedura berri](#) (8); [prozedura bertan bertara](#) (7)

[prozedura erabili](#) (4); [prozedura erabiltzen](#) (4); [prozedura eskaintzen](#) (4); [prozedura hasi](#) (7)

[prozedura ireki](#) (6); [prozedura izango](#) (3); [prozedura jarraitu](#) (8); [prozedura judicial](#) (4); [prozedura judiciala](#) (5); [prozedura judicialaren](#) (3); [prozedura kriminaleko](#) (5); [prozedura kriminaleko legea](#) (4); [prozedura laburtua](#) (3); [prozedura martxan](#) (5); [prozedura mota](#) (3); [prozedura osoa](#) (4); [prozedura politikoak ezarri](#) (3); [prozedura praktiko](#) (4); [prozedura zabaldu](#) (4); [prozedura zabaldu zuten](#) (3); [prozedura zabaltzea](#) (4); [prozedura zabaltzea proposatu](#) (3); [prozedura zehazteko](#) (3)

[zigor prozedura](#) (10)

[gure prozedurak](#) (3); [lege prozedurak](#) (5); [zigor prozedurak](#) (6)

[prozeduran parte hartzeko](#) (3)

[prozeduraren arabera](#) (3); [prozeduraren bidez](#) (4)

[zigor prozedurarik](#) (3)

[prozeduratik kanpo](#) (3)

## prozesadore *(8 agerraldi, 4 liburu eta 4 artikulutan)* 1 iz prozesu logikoak egiten diren atal elektronikoa. ik [prozesagailu](#); [prozesatzaile](#).

Oinarritzko atal berak dituzte konputagailu guztiak: seinaleak edo aginduak sartzeko gailua; [prozesadorea](#), eragiketa aritmetikoak burutzeko (kontrolgune batetik emandako aginduen arabera); [...] eta irteerako gailu bat, kalkuluak emaitzak agertzen dituena. [Irene Aldasoro](#)

Mikrofonoarena konpondu dute; txipa, [prozesadoreak](#) ... hori dena konpondu dute. Hirugarren urratsa Intel [prozesadore](#) egilearekin iaz lorturiko ituna da. [Berria - Gaiak](#)

### 2 irud/hed

Gogoetara murgildu zen, sakon murgildu arazoa argitzen lagun ziezaiokeen arrastoren baten bila, eta bere harridurarako Ostolaza izan zen gogoaren [prozesadorean](#) azalduko lehena. [Migel Angel Mintegi](#)

Sortzea ez ote da handik eta hemendik jaso hizkuntza, ideiak eta esperientziak norbere [prozesadorean](#) iragazi ondoren ateratzen dena jakitera ematea? [Berria - Kultura](#)

### 3 ordenagailuan sarturiko informazioa prozesatzen duen programa informatikoa.

Programa honek, ordenagailuan agertzen den informazio guztia [prozesadore](#) batera bidaltzen du, ahots, soinu, bihurtzeko. Goian idazgela zuen, bere idazmakinarekin (ez testu-[prozesadorerik](#), ordea), eskuizkribu eta liburuz gainezka. [Berria - Euskal Herria](#)

## prozesagailu *(3 agerraldi, 2 liburu eta artikulua 1ean)* 1 iz prozesadorea (lehen adieran).

Mekanikotasuna sumatzen du gogamenean, eta maiz alderatzen du bere gogamena paraleloan osagai asko litzuzkeen ordenagailu batekin (paraleloko banaketako [prozesagailu](#) bat, termino tekniko erabiliz), eta "ordenagailu-lan"tzat hartzen du, hain zuzen, bere pentsakera, ordenagailu-artxibo sail bat begitantzen baitzaio bere oroimena. [Xabier Olarra](#)

### 2 prozesadorea (hirugarren adieran).

Teleskopioari jarri dioten [prozesagailuak](#) lanerako gaitasun izugarria du: segundutik segundura milioika liburu idatzik duten adinako informazioa prozesatzen du. [Berria - Gaiak](#)

Orain arte Microsoften testu [prozesagailua](#) eta kalkulu orria erabili dituzte horiek egiteko. [Berria - Gaiak](#)

## prozesagune 1 iz zerbait prozesatzen den gunea.

Ingeniaritzari dagokionez, eginkizun askotara egokitzen den [prozesagune](#) kimikoa da giltzurruna, konposizioan eta kantitatean gorabehera handiak dituen material bat hutsik gabe tratatzea lortzen duena. [Irene Aldasoro](#)

Zirkulazioaren parte batek gibelera eramaten ditu digestio-hoditik xurgaturiko elikagai molekulak, gibela baita [prozesagune](#) nagusia elikagaiak deskonposatu eta eraldatzeko eta eraldaketa horretatik gorputzaren funtzionamendurako behar diren substantzia konplexuak ateratzeko. [Irene Aldasoro](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Lantegi, kimika-laborategi eta datu-[prozesagune](#) da, besteak beste, gorputza. [Irene Aldasoro](#)

## prozesaketa 1 iz prozesatzea. ik [prozesamendu](#).

Edozein [prozesaketa](#) matematiko, den konplexuena ere, urratsik sinpleenetan zati daitekeela jakitea faktore garrantzitsua izan zen konputagailu elektronikoaren garapenean. [Irene Aldasoro](#)

Lehenik, konexio asko dituzten elkarri lotuak, sarrerako seinaleen [prozesaketa](#) bat egin dezake neuronak. [Irene Aldasoro](#)

Hondakinak bildu, eta giltzurrunetara bidaltzen ditu odolak, eta, han beste [prozesaketa](#) bat jasan ondoren, gernuan iraitzen dira hondakinak. [Irene Aldasoro](#)

Bi fase nagusitan egiten da [prozesaketa](#) kimikoa. [Irene Aldasoro](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Dagoeneko ikusi dugun bezala, [prozesaketa](#) -organo agerikorik gabe funtzionatzen du usaimenak. [Irene Aldasoro](#)

Gainera hain kantitate urrian gehitu beharrak, materialaren diseinua errazten du [prozesaketa](#) -garaian (betiko substantzia ignifugoekin konparatuz). [Berria - Gaiak](#)

### 3 datu prozesaketa

Zelula hartzaileetatik irten diren seinaleak datu-[prozesaketa](#) bat pasatzen dute lehenik; gero, garunera transmititzen dira, usaimen-nerbioaren 50.000 zuntzetan zehar. [Irene Aldasoro](#)

Ea garunaren eremu azpi-erabiletariko batzuk egokitu ote daitezkeen oroimena handitzeko edo gaur egun garunaren ahalmenen gainetik dauden jardura mental eta fisikoetarako datu-[prozesaketa](#) eta kontrol-baliabideak sortzeko. [Irene Aldasoro](#)

Belarriak ere oso antzera jokatzen du: soinuak jaso eta nerbio-bulkada bihurtzen ditu garunera bidaltzeko; garunean, ozentasun-, garaiera- eta tinbre-sentipen bihurtzen ditu bulkadak datu-[prozesaketarako](#) sistema landu batek. [Irene Aldasoro](#)

## prozesal *izond* auzibideari dagokiona.

Horregatik, bere edukia -ezinezkoa zen beste era batera izatea-, orduan indarrean zegoen zuzenbide penalari eta [prozesalari](#) egindako kritika sistematikoa da. [Juan Martin Elexpuru](#)

Berre juridiko eta [prozesalak](#) kolokan jartzen dira fidantza nabarmenak ezarri eta behin-behineko kartzelaldia luzatuz, eta frogak eta argudioak oso ahulak dira. [Berria - Harian](#)

Denbora faktoreak behin-behineko edozein neurri ahultzten badu ere, errealitate juridiko-[prozesala](#) kontuan hartu behar da. [Berria - Euskal Herria](#)

Auzitegi Gorenak instantzia [prozesal](#) guztiak agortzen dituen kasazio organoa izaten jarraitzen duela salatu zuen Olabarriak. [Berria - Euskal Herria](#)

Zenarruzabeitiaren irudiko, «ez da une [prozesal](#)» egokiena Konstituzionalak proposamenaren edukia balorazio politikoa emateko. [Berria - Euskal Herria](#)

Otegiaren aurkako epaiketaren «epaile inpartziala izateko eskubidea» ez zela bermatu, zigor epaia eman zuten epaileetako bik tramitazio [prozesalean](#) esku hartu zutelako. [Berria - Euskal Herria](#)

Teknika [prozesalak](#) kontuz erabili behar dira, presaka ibili nahi izanak haiek aurrera egitea traba dezakeelako. [Berria - Euskal Herria](#)

## prozesamendu 1 iz auziperatzea.

Epaiketara iristek euri ez ezik konponbide demokratikorako aukera bati ere kalte egingo liokeela adierazi dute auzipetuek, Espainiako Auzitegi Nazionalak 'Egunkaria auziko' **prozesamenduak** berretsi dituela-eta. **Berria - Euskal Herria**

Gaur zortzi aztertuko du Auzitegi Nazionalak Egunkaria auzia dela-eta auzipetuta dauden zazpi lagunen **prozesamendu** autoari jarritako helegitea. **Berria - Euskal Herria**

## 2 prozesaketa.

Zerbitzu hau eskaintzen duten enpresek 1.500 euro inguru eskatzen duten zilbor-hesteko odolaren **prozesamenduagatik**. **Berria - Gaiak**

Hizkuntza teknologiak (unibertsitate espezialista eta master tituluak), estatistika eta konputazioa (espezialista tituluak), hizkuntzaren azterketa eta **prozesamendua** (doktorego programa). **Berria - Euskal Herria**

## prozesatu<sup>1</sup>, prozesa, prozesatzen 1 du ad zerbaiti operazio multzo jakin bat igaroarazi.

Automobil baten tankeko erregaia karburagailuan **prozesatu** behar da; gasolina-lurrun eta aire nahasketa gisa irtetzen da karburagailutik. **Irene Aldasoro**

Gas naturala **prozesatzeko** planta bat eraikitzeko diru laguntza agindu dio Venezuelako presidentek Boliviakoari. **Berria - Mundua**

Altzairuzko bobinak **prozesatuko** dituen prentsa bidezko ebaketa linea automatizatu bat egiteko kontratua lortu du Fagor Arrasatek Txinan. **Berria - Ekonomia**

Elikagaiak **prozesatu** egingo dira, berez ez dauzkaten nutriente onuratsu batzuk har ditzaten. **Edorta Agirre**

Material nuklearrak **prozesatzen** zituen enpresa bat zegoen lekuan aurkitu zituen zortzi ontziak. **Berria - Gaiak**

Arrainek, ordea, ur kantitate handiak **prozesatu** behar dituzte biziari eusteko adina oxigeno hartzeko. **Irene Aldasoro**

Hori baino modu sofisticatuagoan dihardute muskuluek: gorputzak berak **prozesatzen** duen erregai berezi bat oxidatzen dute. **Irene Aldasoro**

Gantzak eta karbohidratoak ez dira hain zailak **prozesatzen**. **Irene Aldasoro**

Hondakinak ere ez dira kontuan hartzen, nahiz eta produkzio prozesuaren etapa guzti-guztietan ageri diren -baliabideak **prozesatzean**, ondasunak produzitzean eta ondasunak kontsumitu ostean-. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

## 2 (informatikan eta kidekoetan)

Ordenagailuaren CPU-a, ordea - **prozesatzeko** unitate zentrala, ordenagailua bera, alegia-, ez zegoen. **Fernando Morillo**

Teleskopioari jarri dioten prozesagailuak lanerako gaitasun izugarria du: segundutik segundura milioika liburu idatzik duten adinako informazioa **prozesatzen** du. **Berria - Gaiak**

Metafora horren arabera, ezagutza informazioa **prozesatzea** da; burmuina, berriz, ezagutza **prozesatzen** duen makina konplexua. Ingeniari batek inoiz erabiliko ez lituzkeen materialez egin dago garuna, eta datuak **prozesatzeko** tresneria ikaragarri gordetzen du oso leku txikian. **Askoren artean**

Garunaren luzapen bat baino ez da erretina, eta hiru dimentsioko benetako egitura bat, datuak **prozesatzeko** bere zerbitzu eta guzti. **Irene Aldasoro**

Dastamenak eta usainenak badute alderdi bat kimikariak berdin duena: bizkortasun izugarria informazioa **prozesatzeko** eta ebazpena emateko. **Irene Aldasoro**

Nire lagunak azken hitzak **prozesatzeko** segundo bat behar izan zuen. **Martin Anso**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Haragi gorriek zein haragi **prozesatuak** koloneko eta ondesteko minbiziarekin lotura zuzena dutela aurkitu zuen iaz Minbiziaren eta Elikaduraren Inguruko Europako Ikerketak. **Berria - Gaiak**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**datuak prozesatu** (3)

**datuak prozesatzeko** (3); **informazioa prozesatzeko** (3)

**informazioa prozesatzen** (3)

## prozesatu<sup>2</sup>, prozesa, prozesatzen 1 du ad auzipetu.

Epaileak hamazazpi lagun **prozesatu** ditu 2002ko azaroaren 27an Valtierra (Nafarroa) hiri zituzten bi lagunentzat. **Berria - Euskal Herria**

Pertsona baten oinarrizko giza eskubideen urraketa da: bere burua defendatzeko gai ez den pertsona bat **prozesatu** nahi dute. **Berria - Mundua**

Otegi Batasuna auzian **prozesatuko** duen edo ez esateko du oraindik epaileak. **Berria - Harian**

Ugalde ez zuten **prozesatu** eta haren aurkako neurriak erretiratu egin zituzten. **Berria - Harian**

Zehaztu gabe dago noiz ahozko auzi saioa, **prozesatzeko** autoaren kontrako apelazio helegiteen inguruan. **Berria - Harian**

**Prozesatu**, fusilatu dute. **Pablo Sastre**

## 2 (era burutua izen gisa)

Bai akusazioak gogortzea, bai preso daudenak espetxean mantentzea eta bai gainerako **prozesatuak** auzipetzea ez kentzea. **Berria - Harian**

**Prozesatuak** heldu eta pozik ziren itsasoko haizea hartu ahal zutelako. **Pablo Sastre**

Dozenaka **prozesatu** egongo dira eta ezinezkoa da behar bezalako epaiketarik egitea. **Berria - Euskal Herria**

Fiskalordea goizean bainujantzian irteetan, etxe aurrean **prozesatu** zerrenda luzeak ikusten zituen. **Pablo Sastre**

## prozesatzaile (4 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan) 1 iz prozesadorea (lehen adieran).

Etorkezuean, azukre koskor bat baino **prozesatzaile** txikiagoak izango dituzte ordenagailuek, informazio konplexuak bidali eta egun egin ezin ditzaketen kalkuluak egin ahal izateko. **Berria - Gaiak**

Oinarrizko bertsioak 320X24ko pantaila du, 32 ram megako memoria, *Intel strong-arm* **prozesatzailea** eta *Linux* du sistema eragilezat. **Berria - Gaiak**

## 2 (hitz elkartuetan)

Elikagai **prozesatzaile** handienek biltzen dute hondakin gehien; Frantziak, Italiak, Alemaniak eta Espainiak. **Berria - Gaiak**

Gogamena informazio **prozesatzailea** dela esatea ez ote da gogamenaz ikuspegi murriztegia izatea? **Askoren artean**

## prozesatze 1 iz zerbaiti operazio multzo jakin bat igaroaraztea.

**Prozesatze** prosodikoaren aroan, silaba gutxiagoko eredu erritmiko batean txertatu da hitza, diptongoa egin denean. **Lourdes Oñederra**

Oinarrizko ez, baina CV kateen **prozesatze** fonologikoa dagoen gure barnesistemaren leku beretsuan bide da gure silabekiko gaitasuna. **Lourdes Oñederra**

Ez da erraz jakiten hizketaren **prozesatzean**, pentsaturiko esaldia ahozko hizketa bilakatu bidean, zein momentutan gertatzen den silaba, silabatzea: non erabakitzen den *irrat.saio* ala *irra.tsaio* ahoskera ekoiztiko den. **Lourdes Oñederra**

Kritikaren **prozesatze** instituzionalak, gero, erregulazio politiko-legalaren forma hartzen du gure gizarteetan, zilegitutako (instituzionalizatua izan den hertsadura den heinean)

erresistentzia edo kontra-indar gisa.

**Berria** - Gaiak

## 2 (hitz elkartuetan)

Hagueko **prozesatze** lantegitik Gorlebengo biltegirantz zihoan tren. Azkeneko hamarkadetan ordenagailuen **prozesatze** kostua, urtero, batez besteko eta termino errealetan, %30ean murriztu omen da. **Iñaki Heras**

**prozesio** (*orobat **prosesione** g.er., **proasione** g.er., **proosino** g.er., **proosione** g.er., **proozione** g.er., **prosesio** g.er., **prosesione** g.er., **prosezio** g.er. **prozesione** g.er. eta **prosione** g.er.) 1 iz erlijiozko ibilaldia, halako ospe edo arrandia ageri duena, abestuz eta otoitzuz egiten dena.*

**Prozesioa** meza bukatu ondoren hastekoa zen. **Koldo Biguri**

Eszena horretan, bere jaioterriko mendi baten malkarrean dago aitarekin, eta beraien aurretik, **prozesio** batean bezala, gazte koadrilak pasatzen dira etengabe soinujele bat buru dutela. **Bernardo Atxaga**

Ederki gaude hementxe, **prozesioak** aurre-aurretik igaro behar du eta. **Josu Zabaleta**

Non ez dituzte ezagutzen Andra Joseparen tronpeteta-soloak, **prozesioaren** erritmora egokitzen diren pausoen pausoko jardunak? **Anjel Lertxundi**

Hitzordu nagusietarik bat, San Bartolome egunekoak izan da, Elgoibarko zaindariaren **prozesioarekin**. **Herria**

Luzea zen **prozesioa** eta kalea betean zihoazen. **Gotzon Garate**

Duela bi hilabete, sunitek xiiten **prozesio** bati eraso zioten Quettan, eta 40 bat lagun hil zituzten. **Berria - Mundua**

1918an, beraz, bururatu zelarik gure burasoen "Azken Gerla" hura, 5.000 seme bederen, adin ederrean, Iparralde xume honi hartu zizkiona, bazirudien gure kristau fede zaharrari eratziki zitzaiola erlijio berri bat; Joana Arkekoa iduriko bere saindu propioekin, bere gerlari ohi medailadunen **prozesioekin**, bere gerlako martirien xingola, bandera eta oroitarriekin, bere Jondoni Martinetako meza nagusi, frantses prediku, soinu, kantu, espantu eta apairu handi guztiekin. **Piarres Xarriton**

## 2 (izenondoekin)

Sarriegiren omenezko plakaren inaugurazio ekitaldian **prozesio** zibila egin zuten. **Askoren artean**

. Santuaren erlikia buruan joango zen **prozesio** zibiko-erlijioso bat egiteko erabakia ere hartu zuten. **Askoren artean**

Azinzio eta Pentekoste inguruko **prozesio** letaniadun eta kyrieleisondun haiek. **Pello Zabala**

Ahmedabaden musulmanek **prozesio** jendetsua antolatu zuten. **Gotzon Garate**

## 3 (egin aditzarekin)

Egin **prozesioa**, abarrak eskuetan, aldarearen ertzetaraino. **Elizen arteko biblia**

Agoizko jaietan egiten den **prozesioan** [...] herriko dantza taldea ikurrinarekin aterako delako. **Berria - Euskal Herria**

*ik behe*rago 8. **Askoren artean**

Maiatzean ere, San Miguel baselizara **prozesioa** egiten genuen, eta bestetan bezala, inguruko herrietako jendea etortzen zen. **Eduarne Elizondo**

Zenbat **prozesio** egin dituen herri honek, lehenago saindu baten ipurditik "Ogi zerutik" kantatzen. **Pello Salaburu**

## 4 (hitz elkartuetan)

Hileta- **prozesioa** handikiro egiteko, olibondo eta bestelako zuhaitz adarrak hartu zituzten denek eta, kandela ugariren argitan, gorespenak kantatzen zituzten ahots ozenez.

**Askoren artean**

Handik urrun ez den Elantxobeko portutxoraino egin da itsasontzi **prozesioa**. **Herria**

## 5 (‘manifestazio’-edo adierarekin)

Bai, zera: aberri horren erdian mapa, lurraldea, bandera, taloa, bertsoa, dantzak, **prozesio** nazionalak... **Iñaki Segurola**

Orduan hasi ginen gure **prozesio** zibilekin, zuk ere egun ongi ezagutzen dituzun horiekin. **Pello Salaburu**

## 6 irud/hed

Pasealekutik zahar, heldu eta gazteen **prozesioa** etengabea da. **Berria - Ekonomia**

Bordeletik Baionara bidean, Hugok emigrazio politikoko jende **prozesioekin** egiten du topo, Espainiako beste Estatu kolpe batetik ihesi. **Koldo Izagirre**

Begien aurrean agertu zitzaizkion orobat, kalejira luzean, zaldi hitzen paradak, eskale ikaragarrien **prozesioak**, eta jipoiutako hainbatenak, behaztopa-harri aldrak...

**Mirentxu Larrañaga**

Hari-buruetatik burbuilatxozko **prozesio** bat irteten zen: ongi begiraturik, aise ikus zitekeen nola anodotik jaregiten zena halako bi jaregiten zen gasetan katodotik, gutxi gora-behera. **Juan Garzia**

## 7 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Luma airean duzula minutu batzuek ameskeriatan geratzen zarenean burmuinak laztantzen dizkizun irudi **prozesio** horren, ideia uholde horren erdian. **Josu Zabaleta**

Bazekien betazalen azpian dauden guriintxo mugimendu partikular batetik datozela negarrak, bihotzetik jalgiriko atomo **prozesio** batek eragiten baitie guruinoi, noiz eta bihotza bera emakume maite baten gorputz azaletik askatzen diren irudi koloretzatuen segidak jotzen baitu. **Juan Garzia**

Ezkontza- **prozesio** luzeak eratzen zituzten kotxe-gidari zoro eta zaratatsuen arriskua nola edo hala saihestuz iritsi naiz Erzurumera. **Jon Arretxe**

## 8 **prozesioan** adlag

Urtero, herriko feria egiten zenean, aldareko Kristo gurutziltzatua atera ohi zen **prozesioan**. **Koldo Biguri**

Kapitulura zetorreanean, bertan bilduta zeuden anai guztiak bidera irteten zitzaizkion **prozesioan**. **Askoren artean**

Dionisio jainkoaren omenezko jaiegunetan behartuak zeuden **prozesioan** joatera, untzazko koroa buruan zutela. **Elizen arteko biblia**

Mundu guztiak egiten zian txalo, mundu guztiak egiten zian biba, mundu guztiak jaurtitzen zizkiean arrosak **prozesioan** zihoazen militarrei eta abadeei eta mariaren alabei eta guraso zintzoei eta komunioa egin barriei eta... **Koldo Izagirre**

Egunsentian, jendetzak, zuhaitz adarrak eta kandela piztu ugari harturik, gorputz sakratua, gorazarre eta kantuen artean, Asis hirira eramane zuten **prozesioan**. **Askoren artean**

Handik ikusi genuen izugarriko jendetza jaisten, **prozesioan** bezala. Jainkoak ikuskari zoragarri bat erakutsi zion: ezin konta ahalako santu taldea ikusi zuten bere aurrean, **prozesio** moduan binaka zihoazela, jantzi txit eder eta preziazuz jantzita. **Pako Arísti**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prozesio zibiko** (4)

**prozesioan atera** (3)

prozesione ik **prozesio**.

prozeso ik **prozesu**.

**prozesu** (*orobat **prozeso** g.er.*) 1 iz egitate edo gertakari konplexu bat osatzen duten hurrenez hurrengo faseen multzoa. ik **bilakaera**.



Argia ez da egoera bat, **prozesa** bat baizik. **Josu Zabaleta**  
"Erretinako irudia" ikusmen-sistemak argia tratatzeko duen **prozesa**ren aldi bat baizik ez da; ez da, inola ere, liburu honetan, eta oro har, *irudi* esan ohi zaion hori. **Josu Zabaleta**

Bilakaera apetzat betetako **prozesa** da, eskuzabalki bizirik utzi baititu kreaiozaleak, astrologoak eta metereologoak ere. **Pello Salaburu**

Kontakizunaren erdigunea ez da Frantziako eta beronen bizitza bakarrik, baita haren lagunak eta lehen anaiartean **prozesa** eta bilakaera ere, gutzia Jainkoaren salbamen-proiektuaren baitan kokatua. **Askoren artean**

Zientziaren jardunbidearen kasuan, berriz, **prozesa**ren hasieran baino ez du lan egiten irudimenak. **Juan Garzia**

Antzekotasun eta errepikapen-fenomenoak **prozesa** bati lotzen dizkio, itxuran kausala dena. **Xabier Arregi**

Irisak oso garrantzi gutxiko eginkizuna du **prozesa** horretan. **Irene Aldasoro**

Askotan interesgarriagoa dateke, **prozesa**ren parte hartu ahal izan dutenei baino gehiago, baztertuak izan direnei so egitea. **Askoren artean**

Niri **prozesa**ren tarte hori interesatzen zait, hau da, norbaitek ezinegona sentitu eta espresatu ezinik egotetik, formulatzea asmatzen dueneko tarte. **Ana Urkiza**

Zalantzak sortzen dira globalizazioaren **prozesa**ren benetako neurria dela-eta, zinez mundu mailako bihurtu diren enpresen kopurua oso-oso txikia dela kontuan hartuz. **Koro Navarro**

Garai hartan, berriz ere, zentralizazio politikoaren **prozesa**ren lasterragotu egin zen, nazioarteko krisi handi bat zela-eta, Hogeita Hamar Urteko gerra hain zuzen ere (1618-1648). **Koro Navarro**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Difusio bidezko **prozesa** normalaren bidez. **Irene Aldasoro**

Balore eta ohitura aldaketek **prozesa** luzea behar dute, ongi asko dakigu. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Argitara egokitzeko segundo batzuk behar izaten da; ilunetara egokitzea, berriz, oso **prozesa** geldia da. **Josu Zabaleta**

Eroa, inorendua, da poeta; sortzeko gaitasuna ez da **prozesa** razionalen oinarritzen, jainkoaren baten inspirazioan baizik. **Askoren artean**

Bizidunak milioika urtetako **prozesa** historikoaren ondorioak dira. **Askoren artean**

Eman dezagun kontzeptu batek dagokion irudi akustikoa irudikarazten duela burmuinean; fenomeno hori psikikoa da erabat; baina atzetik **prozesa** fisiologikoa bat darraikio. **Isabel Arrigain**

Jaiotza **prozesa** biolentia da. **Harkaitz Cano**

**Prozesu** simple bat da difusioa, kanpoko eta barruko kontzentrazioen arteko aldearen mende dagoena. **Irene Aldasoro**

Konbustioa nahiko **prozesa** kimiko konplikatu da. **Irene Aldasoro**

**Prozesu** industrialen kontrolean. **Irene Aldasoro**

Ez dakigu burmuineko **prozesa** neurobiologikoez kontzientzia zelan sortzen duten zehazki. **Joseba Sarrionandia**

Oinarritzeko **prozesa** biokimikoa izaki bizi guztietan gertatzen direnez, gizakiek ez ezik, landare eta animaliek ere entzima asko dituzte. **Irene Aldasoro**

Nazioarteko merkataritzaren areagotzearekin batera, nazio-estatuaren eremua gaintzen duten **prozesa** integratzaile berriak sortu dira mundu osoan. **Iñaki Heras**

Globalizazioaren garaian, hiru **prozesa** teknosozioekonomikok aldatu digute gure ohiko ontologia fisikoa. **Askoren artean**

Jai herritar bat ez da dekretuz sortzen, partikularren parte hartzeaz eta konplizitateaz baizik, eta bilakaerazko **prozesa**ren arabera taxutzen da normalean. **Askoren artean**

Ikuspuntu horretatik begirata, ezagutza ez da norabide bakarreko **prozesa**. **Josu Zabaleta**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Obra baten eraikuntza "extatikoa" -filma izan, pintura izan, literaturazkoa izan- metaketa-**prozesa** batean eta bat-bateko eztanda **prozesa** moduko batean oinarritzen da.

Aldaketak giza **prozesa**ren dira, eta asko kostatzen dira. **Josu Zabaleta**

Berritze-**prozesa** horren eritimoa, harrigarria badirudi ere, ez da konstantea. **Irene Aldasoro**

Hamabost urte inguruko adinean hasten da bat-egite **prozesa** hori. **Irene Aldasoro**

Arteak abstrakzio-**prozesa** bat eskatzen du, beraz, beti. **Josu Zabaleta**

Filmean, bere egituraz baitu perspektiba, espazioaren irudikapena sintesi-**prozesa** bat da. **Josu Zabaleta**

Kritika gogorak jaso zituen bateratze **prozesa** hark. **Iñaki Heras**

Freskatze-**prozesa** ez da erabatekoa, eta airea 32 °C-ko tenperaturan irteten da normalean sudurretik. **Irene Aldasoro**

Digestio- eta xurgatze-**prozesa** gehienak heste meharrean gertatzen dira. **Irene Aldasoro**

Gaur egun badakigu gorputzeko zelula eta molekula bakoitza etengabeko aldaketa-**prozesa**ren dagoela, desegin eta berregin. **Irene Aldasoro**

Zientzia-garapenak (hots, teoriaren edo, hobeto esan, paradigmen hautaketa-**prozesa**) ez dio zientziaren razionaltasun algarritmikoari jarraitzen, irizpide psiko-soziologikoei baizik. **Askoren artean**

Desberdintasun horrek [...] metaketa-**prozesa** ororen bi osagai nagusirekin du zerikusia: kapitalarekin eta lanarekin. **Koro Navarro**

Alderdietako ordezkariak mahain beraren inguruan bildu eta bake **prozesa** bat bidean jarri, hara Elkarrik egiten duen parioa. **Herria**

Negoiazte eta gizarte-elkarrekintza **prozesa** baten emaitza gisa. **Askoren artean**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izenondo baten ezkerrean)

Ekoizpen **prozesa** berrietan behar den baliabide banaketa. **Iñaki Heras**

"Erreforma", noski, etapa bat izan zen, hamahirugarren mendean hasi eta hamazazpigarrena arte burutu ez zen bilakaera-**prozesa** luze batean. **Iñaki Mendiguren**

Frantziskori bizitzea tokatu zitzaion mundua aldaketa **prozesa** sakon batean sartua zegoen. **Askoren artean**

Ekonomiak nazioarteko bihurtzea, beraz, hazkunde-**prozesa** organiko baten jarraipena baino ez da. **Koro Navarro**

Lehen Mundu Gerraren aurreko lau hamarraldietan, izan ere, munduko ekonomiak integrazio-**prozesa** ikusgarria bizi izan zuen. **Koro Navarro**

Eratze-**prozesa** konplexu hori ulertzeko. **Askoren artean**

"Oroimena" deitzen diogun zer hori ez dela ezer, "oroitze" **prozesa** dinamikoak baizik ez direla existitzen. **Xabier Olarra**

Ordezkatze-**prozesa** geldoak edo etxeko hizkuntza ikaratzaren duten bat-bateko astinduak. **Xabier Arregi**

Irudiek emozio **prozesa** burutu gabeak eragiten dituzte ia beti. **Josu Zabaleta**

Ondare eta zereginen banaketa-**prozesa** antzekoa ari zen gertatzen aldi berean monjeen beren artean. **Iñaki Mendiguren**

Hilabete batzuk irauten ditu sendatze-**prozesa** osoak. **Irene Aldasoro**

Izua, errailetan sortutako kantzerra balitz bezala, sortu orduko hedatu zitzaion gorputz osora, metastasi **prozesa** ezin lasterrago baten bidez. **Joan Mari Irigoien**

## 5 epaiketa.

**Prozesu** honetako akusatua eta herri honetako semea. **Joan Mari Irigoien**

Deialdi bat da, **prozesa** batean interprete-lana egin dezadan; akusatua nire herrialdeko errefuxiatu bat da. **Eskarne Mujika**

Bazirudien **prozesa**ren izugarrikeria salatu baino, bere burua zuritu nahi zuela Hathorne epailearen aurrean. **Anjel Lertxundi**

Burgosko **Prozesuan** jendeak aho batez erantzun zuen, baina antolamendu falta zegoen maila guztietan. **Rafa Egiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaketa **prozesa** (9); aurkako **prozesa** (8); bake **prozesa** (155); bake **prozesa** bat (75); bake **prozesa** batean (10); bake **prozesa** baten (26); bake **prozesa** baterako (8); balizko **prozesa** (7); benetako **prozesa** (10)

elkarrizketa **prozesa** (35); elkarrizketa **prozesa** bat (12); euskal herriko **prozesa** (12); eztabaida **prozesa** (7); gaintzeko **prozesa** (7); gatatzeko **prozesa** (9); hauteskunde **prozesa** (12); horrelako **prozesa** (13)

irakeko **prozesa** (11); konponbide **prozesa** (35); konponbide **prozesa** bat (20); konponbide **prozesa** baten (7); konponbiderako **prozesa** (10); konpontzeko **prozesa** (9); negoziazio **prozesa** (46); negoziazio **prozesa** bat (15); negoziazio **prozesa** batean (8); normalizazio **prozesa** (11)

**prozesa** bat abian (18); **prozesa** bat abiatzeko (14); **prozesa** bat eraikitzeko (9); **prozesa** bat ireki (10); **prozesa** bat irekitzeko (11); **prozesa** bat martxan (9); **prozesa** bat



zabaltzeko (8); prozesu baten alde (9); prozesu baten emaitza (7); prozesu baten ondorio (7); prozesu bera (7); prozesu berri (10); prozesu demokratiko (36); prozesu demokratiko bat (19); prozesu demokratiko baten (7); prozesu demokratikoa (48); prozesu demokratikoan (8); prozesu demokratikoaren (14)

prozesu gisa (8); prozesu guztia (32); prozesu guztiak (8); prozesu guztian (8); prozesu guztiaren (7) prozesu judiziala (11); prozesu luze (37); prozesu luze baten (9); prozesu luzea (43); prozesu luzearen (7); prozesu naturala (8)

prozesu osoa (38); prozesu osoan (24); prozesu politiko (32); prozesu politikoa (41); prozesu politikoak (11); prozesu politikoan (46); prozesu politikoan parte (21); prozesu politikoaren (16); prozesu politikoari (7)

aberasteko prozesua (20); aukeratzeko prozesua (7); aurkako prozesua (10); bake prozesua (424); bake prozesua abiatu (8); bake prozesua abiatzea (8); bake prozesua abiatzeko (24); bake prozesua aurrera (9); bake prozesua bultzatzeko (16); bake prozesua hasteko (7); bake prozesua laguntzeko (8); barne prozesua (12); bolognako prozesua (7); burujabetza prozesua (8); desarme prozesua (7); desjabetze prozesua (8)

egiteko prozesua (21); elkarrizketa prozesua (26); estradizio prozesua (9); euskalduntze prozesua (8); eztabaida prozesua (12); gatatzka gainditzeko prozesua (12); hasitako prozesua (7); hautatzeko prozesua (7); hauteskunde prozesua (19)

ikasketa prozesua (12); irlandako bake prozesua (11); jartzeko prozesua (7); konponbide prozesua (26); konponbiderako prozesua (17); konpontzeko prozesua (8); kontrako prozesua (8); lortzeko prozesua (8); negoziazio prozesua (27); normalizazio prozesua (42)

osatzeko prozesua (10)

prozesua abian (39); prozesua abian jarri (11); prozesua abian jartzeko (9); prozesua abiatu (33); prozesua abiatuko (8); prozesua abiatzea (14); prozesua abiatzeko (55); prozesua amaitu (11); prozesua atzeraezina (12); prozesua atzeratzen (7); prozesua aurrera (31); prozesua babesteko (10); prozesua bera (13); prozesua berriro (7); prozesua berriz (10); prozesua bertan (16); prozesua bertan behera (15); prozesua bukatu (7); prozesua bultzatu (9); prozesua bultzatzeko (24); prozesua bururaino (11)

prozesua egin (8); prozesua eraikitze (11); prozesua errazte (8); prozesua eta normalizazio (8); prozesua eten (14); prozesua geldirik (7); prozesua hasi (41); prozesua hasi zenean (7); prozesua hasiko (11); prozesua hasteko (18); prozesua hasten (9)

prozesua ireki (7); prozesua irekitzeko (10); prozesua izan (15); prozesua laguntzeko (13); prozesua luzatu (7); prozesua luzea (25); prozesua martxan (38); prozesua martxan jartzeko (13)

prozesua oztopatu (9); prozesua oztopatzeko (7)

prozesua trabatu (9); prozesua zabaldu (7); prozesua zabalik (7)

sormen prozesua (8); sortzeko prozesua (21); uranioa aberasteko prozesua (16)

bake prozesuak (68); bake prozesuak aurrera (26); bolognako prozesuak (12); elkarrizketa prozesuak (12); hauteskunde prozesuak (7); konponbide prozesuak (7); normalizazio prozesuak (8)

prozesuak aurrera (87); prozesuak aurrera egin (27); prozesuak aurrera egingo (16); prozesuak aurrera egiteko (13)

aurkako prozesuan (9); bake prozesuan (160); bake prozesuan aurrera (22); burgosko prozesuan (9); curriculum diseinatze prozesuan (7)

euskararen normalizazio prozesuan (8); eztabaida prozesuan (12); gatatzka gainditzeko prozesuan (7); hauteskunde prozesuan (13)

irlandako bake prozesuan (13); konponbide prozesuan (10); konpontzeko prozesuan (9); lortzeko prozesuan (7); negoziazio prozesuan (9); normalizazio prozesuan (28)

prozesuan aurrera egiteko (25); prozesuan laguntzeko (11); prozesuan parte hartu (32); prozesuan parte hartzea (13); prozesuan parte hartzeko (29); prozesuan parte hartzen (13); prozesuan zehar (10)

sortze prozesuan (7); sortzeko prozesuan (11)

bake prozesuarekiko (10)

bake prozesuarekin (18)

askapen prozesuaren (8); bake prozesuaren (137); bake prozesuaren alde (13); bake prozesuaren aldeko (8); bake prozesuaren hasiera (7); globalizazio prozesuaren (19); konponbide prozesuaren (7); negoziazio prozesuaren (8); normalizazio prozesuaren (15)

prozesuaren alde (29); prozesuaren aldeko (15); prozesuaren amaiera (8); prozesuaren amaieran (7); prozesuaren atarian (9); prozesuaren aurka (14); prozesuaren aurkako (7); prozesuaren aurrean (8); prozesuaren berri (11); prozesuaren bukaera (10); prozesuaren hasiera (27); prozesuaren helburua (8); prozesuaren inguruan (16); prozesuaren inguruko (10); prozesuaren oinarriak (11); prozesuaren ondoren (7); prozesuaren ondorioz (10); prozesuaren parte (7); prozesuaren zati (7)

bake prozesuari (75); bake prozesuari bultzada (10); konponbide prozesuari (7); prozesuari begira (24); prozesuari bultzada emateko (10); prozesuari buruzko (23); prozesuari ekin (13); prozesuari ekiteko (15)

bake prozesuaz (31); prozesuaz hitz egin (7)

bake prozesurako (24); normalizazio prozesurako (7)

bake prozesutik (8)

## prozesuka *adlag* prozesuen arabera.

Funtzioka baino **prozesuka** antolatze joera dute enpresek, eta horrek ekoizpen prozesuaren berrantolaketa ekarri du. **Iñaki Heras**

## prudent *izond ipar* zuhurra.

Hortako nahi dut nahiko **prudent** egon. **Menane Oxandabaratz**

## prudentki *adlag ipar* zuhurki.

Beraz **prudentki** behar da uste dut hor mintzatu. **Menane Oxandabaratz**

## prudenzia *iz* zuhurtzia.

-Gehiago **prudenziaz** edo beldurrez edo... **Menane Oxandabaratz**

Hemen ez baitu falta izango argituko lukeen libururik, baldin eta ustez dakien hori itsuki ez sinesteko zuhurtzia eta **prudenzia** eduki izan balitu. **Jon Alonso**

Gaixtakerian ibiltzea ez dela **prudenzia**. **Herria**

## prunki ik pruntki.

## prunt 1 *izond ipar* prest dagoena.

Mattina emazte **prunta**, gurbilla eta garbia zen. **Itxaro Borda**

Gizon **prunta** eta langilea, bere etxe eta baratze inguruan, ez zen senditzen alfer usainik. **Herria**

Laborari **prunt** eta langilea izana, inguruko eta partikularzki haurrak biziki maite ere baitzuten. **Herria**

Emazte langile, goxo eta **pruntaren** orroitzapena uzten dauku. **Herria**

Euskal Xerria batasunak baditu orain barne berri **pruntak**. **Herria**

## 2 *adlag* prest.

Herriko langile segurra, bazterrak **prunt** atxikitzen zituen. **Herria**

## pruntki (*orobat prunki*) *adlag ipar* prest.

Hazpandar hunek merezitua ditu guzien eskerrak, aspaldiko urtetan pilotari handia izanez behin eta pilotaren zerbitzari izanez hain luzaz eta hain **pruntki**. **Herria**

Zer guztiak, jantziak, galtzerdiak, oinetakoak, bi moltsak **prunki** zeuden, txukun-txukun. Gotzon Garate  
Hean ikus, minoriako hautetsi hau **prunkiago** jarraikiko denez eztabada horietan. Herria

## prusiar 1 *izlag* Prusiakoa, Prusiar dagokiona.

Militarismo hau lehenengoz **prusiar** errege Federiko Gilermo I.aren eta Federiko Handiaren (K.o. 1713-86) erreinaldian agertu zen. Iñaki Mendiguren  
Jean-Baptiste Cloots 1755. urtean jaio zen Kleve inguruan (Alemanian), jatorria Herbehereetan zuen familia **prusiar** aberats batean. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Hans Rabener **prusiar** espiak (alias Viktor Runeberg) pistola automatiko batez eraso zion atxilotzeko ordena zekarkion Richard Madden kapitainari. Juan Garzia  
Zaldun teutonikoek Siria utzi eta beren zoriona Vistulan bilatu zuten **prusiar**, letoniar eta estoniar paganoen bizkar. Iñaki Mendiguren  
Suediar gerra-presoa erabili ziren irakasle, eta errusiar aprendizak Königsberg-era bidali ziren **prusiar** trebakuntza lortzera. Iñaki Mendiguren

### 2 iz Prusiako herritarra.

1807. urtean Frantziako enperadoreak **prusiarren** aurkako gerra irabazi zuenean, [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Gure aitona, esan dudanez, **prusiarra** zen, Brandeburgoko **prusiarra**, mundu guztia gaitzesten zuen, Federiko II.a Handia izan ezik. Karlos Zabala  
Gabonetan Miarritzera etorri zen agente batek, Müller izeneko **prusiar** batek. Alberto Ladron Arana  
Wilhelm Humboldt **prusiar** jakintsuak idatzi zizkigun ohar harrigarri hauek: Hegoaldean ikusten da, zein barna finkatua den aspaldian euskaldunek nazio bat osatzen dutelako kontzientzia. Piarres Xarriton  
**Prusiarrekin** hitz egin dut telefonoz hegazkina hartu aurretik eta horia hartu behar dudala azpimarratu dit. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**prusiarrekin hitz egin** (3)

psalmo ik **salm**o.

psalteri ik **psalterio**.

**psalterio** (*orobat **psalteri***) iz Europako erdi aroko zitara modukoa, zurezkoa, hariak erresonantzia-kutxa lau baten gainean zituena, hatzekin edo ziriekin jotzen zena.

Instrumentuak hauexek dira: arpa, **psalterio**, laut etzanikoa, laut zutikakoa, zitola, fidula edo biola obala, zanfona, gaita, organeto eta aulos bikoitza. Beria - Kultura

Profeta-trantzean aztoraturik etorriko dira, **psalteri**- eta danbolin-joleak, txirula- eta zitara-joleak aurretik dituztela. Elizen arteko biblia

**pseudoanarkista** *izond* faltsuki anarkista.

Bada kontu honi buruz beste ikuspegi bat ere, Pablo Lafarguerena, eta 1880ko *Le droit á la paresse* haren panfletoan oinarri duena, baina gaur egungo gizarte kapitalistan zenbait mugimendu **pseudoanarkistek** izan ezik inor gutxi aldarrikatzen duena. Iñaki Heras

**pseudobaserritar** *iz* baserritar faltsua.

Denok, Xabik izan ezik: alabak tema handiaz eskatu bazion ere, hark ez zuen atzera egin, eta Uxue txikia izan zen, pasa den urteko festetan, **pseudobaserritarrez** jantzi ez zen koadrilako ume bakarra. Iban Zaldua

**pseudodiptero** *izond* eraikinez mintzatuz, dipteroen antzekoa dena.

Tenplu **pseudodipteroa** aurreko eta atzeko aldean zortzina koloma dituena izango da, eta alboetan hamabosna koloma dituena, angeluetako biak hartuta. Santiago Iruretagoiena

Bi gauza horiek lortzen dira, esan bezala, tenplu **pseudodipteroaren** egiturarekin. Santiago Iruretagoiena

Hermogenezek ezarri zituen proportzio horiek, eta berak erabili zuen lehenengoz **pseudodiptero** egitura ere, grezieraz *exo stylon* deitzen dena. Santiago Iruretagoiena

**pseudoerotiko** *izond* faltsuki erotikoa.

Aspaldiko film bat datorkit gogora: 10, emakume perfektua, John Derekek bere emazte Boren gorazarerako egindako lardaskeria **pseudoerotiko** eta komertziala. Xabier Mendiguren Elizegi

**pseudoezkontza** *iz* sasiko ezkontza.

«**Pseudoezkontzak**» direla esan zuen [Ratzingerrek], eta gizakiaren benetako askatasuna ordezkatu nahi duen «askatasun anarkikoaren» fruitua. Beria - Gaiak

**pseudoisodomo** *izond* faltsuki isodomoa.

Pareta isodomoa dela esaten da ilara guztiak lodiera berdinekoak direnean; **pseudoisodomoa** izango da elkarren ondoko ilarak desparekatuta daudenean eta altuera desberdinekoak direnean. Santiago Iruretagoiena

**pseudojakile** *izond* sasijakituna.

Hizkuntzalari, doktore, jakintsu, matematikari eta enigmazale ugari ibili dira eskuizkribuaren ezkutukoak argitu nahiz azkeneko ehun urte hauetan, eta horiekien batera, saltsero, berrius, **pseudojakile** eta parazientzialari ugari. J.M. Olaizola "Txiliku"

**pseudokimiko** *izond* faltsuki kimikoa.

Arroz-ur AB-k zeharka adierazten du nobelagile eta poeta herrikoiek emaitza txaldan eta epelak lortzen zituztela; elementu **pseudokimikoek** "kamustasun", eta "loeragile"

## pseudokronika *(corpusean pseudo-kronika soilik) iz* kronika faltsua.

Turpinen [Pseudo kronikaren](#) arabera, hemen hil zen Errolan dohakabea, berrogoi mila Giristinok eta Maurok elkar suntsitzen zutela. [Piarres Aintziart](#)

## pseudomilitante *izond* faltsuki militantea.

Maidar Lopez bere artetik bizi da eta autonomoa da, eta AmatauTBko bi ordezkariak «modu [pseudomilitantean](#)» bizi dute artea, eta oro har, ia denak «prekariatatean» bizi direla iritzi diote. [Berria - Kultura](#)

## pseudomorfiko *izond* meen kristal formez mintzatuz, beste mea baten kristal forma duena.

Halakoek, gutxi-asko, joera dute beren Nagusien giza substantzia beren irudi-eredura ekartzeko, kristal [pseudomorfikoen](#) kasuan gertatzen den moduan. [Juan Garzia](#)

## pseudonimo *(orobat seudonimo) iz* izenordea.

Beldur naiz Alvaro Campos hori Pessoaen [pseudonimo](#), heteronimo edo *ez-dakit-zer-nimo* horietako bat ez ote den. [J.M. Ol aizola "Txiliku"](#)

Emilio Bobadilla (1862-1921) idazle kubatarren [seudonimoa](#), hori Biarritzen hil zen. [Joxe Azurmendi](#)

Ikastolen sorrera eta indar hartzea, Gobernadoreen bisitak, Aberri Egunak, [...], ETAre lehen urteak... kontatu zituen, besteak beste, Jon de Igeldo [pseudonimopean](#).

[Berria - Kultura](#)

## pseudopodo *iz* oin faltsua.

Izan ere, ameba bat bihurtu da Euskadi, zeinak, bere [pseudopodoak](#) iparraldetik luzatuta, Espainia Handiaren hiriburua irentsi nahi duen. [Joan Mari Irigoien](#)

## pseudorrazionalki *adlag* era faltsuki razionalean.

Berdin-berdin da posible alderantziz, absolutuak deklaraturiko balio batzuk egotea, arrazoiketa handiekin [pseudorrazionalki](#) absolutizatuak eta legeak solemneki aitortuak,

[Joxe Azurmendi](#)

## pseudosakon *izond* faltsuki sakona.

Azken oinarrien arrazoiketa [pseudosakon](#) hark. [Joxe Azurmendi](#)

## pseudoserio *izond* faltsuki serioa.

Gero galtzontzilo tipoen deskripzio [pseudoserioa](#) egin zuen, eta esan zuen galtzontziloetako goma estuegi erabiltzen duten pertsonak, adibidez, sinpatia handiagoa sentitzen dutela pentsamolde kontserbadoreekiko. [Unai Elorriaga](#)

## pseudosistema *(corpusean pseudo-sistema soilik) iz* sistema faltsua.

Sistema honek oso gaizki arautzen ditu batez ere koadroaren planoari buruz perpendikular ez diren gainerako zuzenak: sistema bat ez baina, [pseudo-sistema](#) edo quasi-sistema bat dela esan beharko litzateke hobeto. [Josu Zabaleta](#)

Bistan dago horrelako sistema bat aukeratzea (izatez sistema baino gehiago [pseudo-sistema](#) dena, gainera) ikuspenezko errealismoaren gainetik bestelako balio sinboliko batzuei garrantzi handiagoa eman izanaren ondorioa dela. [Josu Zabaleta](#)

## pseudozientifiko *izond* faltsuki zientifikoa.

Gaztetxoentzako aldizkarietan, eta helduentzat egin ohi diren aldizkari [pseudozientifikoetan](#), zehaztasuna eta zientifikotasuna ttoitoaren ipurditik-edo pasatzen da askotan.

[J.M. Ol aizola "Txiliku"](#)

## pseudozientzia *iz* zientzia faltsua. ik [sasizientzia](#).

Lehen arazoa: arkeologiak ez al ditu deskribatzen bakarrik [pseudozientziak](#) (psikopatologia, esaterako) "eraketa diskurtsibo" eta "positibotasun" hitz ausart xamarrekin [...]? [Xabier Arregi](#)

Psikoanalisia «[pseudozientzia](#)» baino ez da haientzat. [Berria - Harian](#)

## psikaliptiko *izond* gatzduna, erotikoa.

Espiritu, arima, psikea, pathosa, zalantzarik [psikaliptikoena](#), teklatxo bat sakatuta konponduko da. [Karlos Linazasoro](#)

## psikanalisi ik [psikoanalisi](#).

## psikanalista ik [psikoanalista](#).

## psikanalitiko ik [psikoanalitiko](#).

# psike 1 iz giza gogo; giza gogoaren prozesu kontziente eta inkontzienteen multzoa.

Baina, zer gaixotasun egon zitekeen emakume ia aingerutar haren **psikean**? [Juan Kruz Igerabide](#)

Ondorioz, kontu psikosomatikoa zenez gero, alderdi hura, nire **psikearena** alegia, landu beharra neukala beste ezeren gainetik. [Josexo Azkona](#)

Begira diezadatelatela gustu txarreko pieza bati bezala, norbere **psikeak** baditu-eta auto-suntsiketari aurrea hartzeko mekanismoak. [Anjel Lertxundi](#)

Mutil bizargabe baten **psikea**, gerra-egoera batean, gainbehera etor daiteke edozein unetan; edo hil dezaten utziko du, edo hiltzaile ero bihurtuko da. [Juan Kruz Igerabide](#)

Espiritu, arima, **psikea**, pathosa, zalantzarik psikaliptikoena, teklaxo bat sakatuta konponduko da. [Karlos Linazasoro](#)

Garaiko zientziak loturik zituen gertakari psikikoak eta arazo anatomikoak, eta horiek bereizteak eraman zuen Freud pazientearen **psikearen** sakonean ezkutuan dauden bere bizitzaren gertakizun garrantzitsuak bilatzera. [Berria - Kultura](#)

**Psike** subkontzienteak Jainkoarekin harmonia errazaz gozaten baitu, gizaki ez den izaki orori bere errugabetasunak ziurtatzen dion harmonia berberaz. [Iñaki Mendiguren](#)

Hori bezain egia baita pertsonak haserretzen direnean, **psike** subkontzienteak haietako bakoitzaren eta guztien kontrolpetik ihes egiten duela. [Iñaki Mendiguren](#)

Terrorea garai modernoko armarik beldurgarriena da; beldurra eta ezintasuna batu ditzake Europako eta AEBetako biztanleen **psikean**. [Berria - Harian](#)

## 2 irud/hed

Iraganean sakonduz, nazio **psike** eta nortasun subjektiboan zehar doazen emanak aztertzen ditu, elementu folkloriko, jentil eta mistikoen nahastura eta elkar-kutsatzearen bitartez. [Berria - Kultura](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**psike subkontzientearen** (5)

**giza psikearen** (3)

# psikiatra (orobat *sikiatra* g.er. eta *pszikiatra* g.er.) 1 iz buru eritasunetan espezialista den sendagilea.

**Psikiatra** baten kontsultan. [Pako Aristi](#)

**Psikiatrak** galdetzen dit: [...]. [Eskarne Mujika](#)

-Adela: joan al zara psikologo batengana, edo **psikiatra** batengana? [Juan Kruz Igerabide](#)

-Ostegunean elkarrizketa izango duzu Mendizabal **psikiatrarekin**. [Gotzon Garate](#)

Eritasun horren izena heldu da Alois Alzheimer aleman **psikiatraren** deituratik. [Herria](#)

**Psikiatraren** ustetan, kornerraren sindromea dinat. [Joan Mari Irigoien](#)

Nola juzga **psikiatrari** ordaindu gabe bere buru arazoak garbitzen dituen? [Jon Alonso](#)

**Psikiatraenetik** atera eta Luzia Ibarra Prim kaleko gozotegi baten aurrean gelditu da. [Gotzon Garate](#)

**Psikiatrarengana** joaten zela esaten ei zion. [Joxe Austin Arrieta](#)

Telefona eskegi eta pikutara bidali naik, eta **psikiatrarengana** joateko esan. [Antton Olano](#)

**Psikiatrak** dioenez, gelditu zaidan arrastoa geldi zitekeen gutxienekoa da. [Agurtzane Juanena](#)

Kontrako eztarriko **psikiatrek** idoro ziguten hipernormaltasuna paranoiaren era bat dela. [Iñaki Segurola](#)

Harrokeria hutsez egin nuen [...] lerro zoragarri haiek idazteko gai zen emakume batekin harremanak nituela jakinarazteko; inbidia emateko, alegia, baina baita, bere ikuspuntutik, **psikiatra** zenez, ze irakurketa mota egiten zuen jakiteko ere. [Ramon Saizarbitoria](#)

Gisa hortako emankizunetan bada beti psikologo edo **psikiatra** bat, hots, "psi" bat. [Herria](#)

## 2 (izenondo gisa)

Errehabilitazio programako lagun **psikiatraren** laguntzarekin. [Joan Mari Irigoien](#)

Managuan mediku **psikiatra** bat ezagutzen dudala oroitu dut, Honorato Delaselva, eta berehala deitu diot telefonoz. [Joseba Sarrionandia](#)

Mediku **psikiatrak** ez ziela gure harremanei eragozpenik jarriko, Sarak programako ardurak bere gain hartzen zituen bitartean. [Joan Mari Irigoien](#)

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lydie Salvayre aita andaluz eta ama katalan Frantzian erbesteratuen alaba da eta haur **psikiatra** da Parisen. [Berria - Kultura](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mediku psikiatra** (8); **psikiatra batengana** (4)

**mediku psikiatrak** (7)

**psikiatrarengana joan** (3)

# psikiatria 1 iz medikuntzaren adarra, buru eritasunak aztertzen eta artatzen dituen.

Zer da **Psikiatria**, zer egin buruko osasun arazoak saihesteko? [Berria - Gaiak](#)

Orain **Psikiatria** zetorren jantzi zuriz indartzera lehen jantzi beltzez pulpituetatik botatzen ziren mehatxuak. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Aquilino Polaino psikiatrak Espainiako Senatuan adierazitakoek **psikiatriaren** argudio zaharkituak ekarri dizkigu gogora. [Berria - Harian](#)

Austriar mediku apartak inkontzientearen formulazioaz eta metodo psikoanalitikoaz psikologia eta **psikiatria** irauli zituenetik mende bat pasa eta gero. [Berria - Kultura](#)

Biriketako gaitza sendatu zitzaidanean, **psikiatriako** pabiloira eraman ninduten, neure burua hiltzen saiatzeagatik. aski gizon miretsia da Reisberg, punta-puntako zientzialaria geriatriaren eta **psikiatriaren** alorrean. [Eskarne Mujika](#)

## 2 (izenondoein)

**Psikiatria** ofizialak ez die arazozen sorburuei heltzen: gaixoa anesthesiatu, gertatzen ari zaionaz jabetzeko gaitasuna ezabatzeraino, eta gaixoaren inguruak, bere arazozen eragileak askotan, lasai asko uzten ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

Gutzitzko isolamenduan bizi beharko dudala pentsatu dut, **psikiatria** aplikatuaren akuria izanen naizela. [Koldo Izagirre](#)

Dagoeneko bi azterketa egin dizkiote eta bietan ondorioztatu da ez zuela desoreka psikiko larririk Hudding hiriko Ospitaleko **Psikiatria** Klinikoko bi taldek egin zizkieten azterketa psikiatrikoak. [Berria - Mundua](#)

Espainiako **Psikiatria** Biologikoko Elkarteko lehendakaria. [Berria - Euskal Herria](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **psikiatriko**.

Ginebrako **Psikiatria** Institutuan lortua. [Gotzon Garate](#)

Ginekologia, dermatologia eta **psikiatria** zerbitzuei dagokiena. [Berria - Harian](#)

Hain zuzen ere maniako-depresiboak dira psikologia eta **psikiatria** karrerak aukeratzten dituztenak, inori laguntzearen baino, beren buruei laguntzearen. [Gotzon Garate](#)

**Psikiatria** lizentzia lortu zuen Kairoko Unibertsitatean, eta Egiptoko Osasun Publikoko zuzendari nagusi izendatu zuten. [Berria - Kultura](#)

Anorexia nahiz bulimia duten gaixoen bizitza kalitateaz azterketa egin dute hainbat **psikiatria** adituk Gasteizen. [Berria - Euskal Herria](#)

Katastrofeen abantaila: zertaz negar egiten zuten jakin gabe negar egiten zutenek badute orain negar egiteko arrazoi estandar, ulergarri, **psikiatria** manualetako bat. [Harkaitz Cano](#)

**Psikiatria** liburu mordoxka ateratzen omen du Los Angelesko konderriko liburutegitik. [Javi Cillero](#)

Hego Euskal Herriko **Psikiatria** Elkarteke Miguel Angel Gonzalezek bat egin du iritzi horiekin. **Berria - Euskal Herria**  
Felipe Ortuño **Psikiatria** Saileko buruak eginiko ikerketan, 11 pertsona osasuntsu eta 11 gaixo kontzentrazio gero eta handiago eskatzen duten lanetan jarri zituzten. **Berria - Gaiak**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**psikiatria saileko** (4)

## psikiatriko *(orobat sikiatriko g.er. eta pzikiatriko g.er.)* 1 izond psikiatriarena, psikiatriari dagokiona. ik **psikiatria 3**.

Zoriontsu edo erdi-zoriontsu bizi izan zen hari eta bere senitartekoek, herriko sendagilearen gomendioz, elektro-shockez baliatzen zen tratamendu **psikiatrikoa** pasarazi zioten arte. **Bernardo Atxaga**

Bertako adituek laguntza psikologikoa eta **psikiatrikoa** eskainiko diete gaixo dauden medikuei. **Berria - Euskal Herria**

Sintoma **psikiatriko** hutsengatik egindako lobulu frontal baten lehen ebakuntza. **Xabier Olarra**

Askotan, hain justu, arazo **psikiatrikoa** bera izaten da gizentasunaren kausa. **Berria - Gaiak**

Liburuko beste kritika nagusia, hain zuzen ere, gaitz **psikiatrikoei** buruz gizarteak egiten duen interpretazioaren ingurukoa da. **Berria - Euskal Herria**

Diagnostiko **psikiatrikoa** dutenek herentzia jasotzeko eskubidea ere galtzen dute, eta seme-alaben zaintza ere bai. **Berria - Euskal Herria**

*Histoire de la Folie*-ren lotura-puntura zen diziplina **psikiatriko** baten sorrera XIX. mendearen hasieran. **Xabier Arregi**

Prozesu hauek guztiak hain zuzen indarrean zeuden, baina berez ezin izan dute diskurtso **psikiatrikoaren** objekturik eratu. **Xabier Arregi**

## 2 izond klinikez eta kidekoez mintzatuz, buru eritasunak dituztenak artatzen dituenak.

Kartzelaren eraikinari itsatsita, hesi beraren babesean, zentro **psikiatriko** bat zegoen. **Iban Zaldua**

Fama txarreko Santaklara ospitale **psikiatrikoan** giltzatu zuten. **Itxaro Borda**

Estatuko erietxe **psikiatriko** batean ari zen alferrik galtzen. **Xabier Olarra**

Alpeetako klinika **psikiatriko** batean sartu zuten. **Pako Aristi**

Ospitale **psikiatrikoko** ganbarako aulkian egunak loturik pasatzen zituenean, bizitzaz jada zimztaka baizik ez zen oroitzen. **Itxaro Borda**

Parametro ia berdin-berdinak dituzte elektroxokeko makinek -instalazio **psikiatriko** zenbaitetan erabiltzen direnen antzekoak- eta txerrientzako durduzagailuak: ampere bat, hirurehun volt. **Xabier Olarra**

## 3 iz klinika psikiatrikoa.

**Psikiatrikotik** eroetxera. **Jose Angel Irigaray**

lazko uztailan depresio latz bat ere izan zuen, eta hainbat aste **psikiatriko** batean igaro zituen. **Berria - Kirola**

Gizon bat **psikiatrikoan** sartu dute eliza batean kalteak egiteagatik. **Berria - Euskal Herria**

Euren ama **psikiatrikoan** izen faltsuarekin ingresatu duten neba-arrebekin gurutzatu da. **Harkaitz Cano**

Pasadizoaren xehetasunak oroitzeko, Granadako **psikiatrikora** jo behar izaten zuen, eta hura ez zuen gogoko. **Joan Mari Irigoien**

Alacanteko espetxeko **psikiatrikoan**. **Berria - Kultura**

Beldurrezko nobela, **psikiatrikoan** girotua. **Berria - Kultura**

Ohartu naiz badela beti hertsirik dagoen **psikiatrikoko** hegal bat. **Jose Angel Irigaray**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erietxe psikiatriko** (5); **klinika psikiatriko** (3); **ospitale psikiatriko** (4)

**ospitale psikiatrikoa** (3); **tratamendu psikiatrikoa** (3)

**ospitale psikiatrikoan** (4)

**diskurtso psikiatrikoaren** (3)

**ospitale psikiatrikoetan** (5)

## psikiatrikoki *adlag* alderdi psikiatrikotik.

Azken urteotan, izan dadila psikologikoki zein **psikiatrikoki**, gero eta jende hauskorragoak espetxeratzen dituzte. **Berria - Euskal Herria**

## psikiatrizazio *iz* psikiatriari dagokion kontua bihurtzea.

Eta ez zen konformatu beste behin ere masturbazioa, lesbianismoa edo homosexualitatea gaitzestearrekin; sexualitatearen **psikiatrizazio** obsesiboak "perbertsio sexualen" zerrenda azkengabe bat egitera eraman zuen gizona. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## psikiko *izond* psikearena, psikeari dagokiona.

Ikustea [...] jarduera konplexua da, eta ezin da, egia esateko, funtzio **psikiko** nagusietatik, ulermenetik, ezagutzatik, oroimenetik, desiratik erabat bereizi. **Josu Zabaleta**

Hasiera-hasieratik agerirutzen da alde fisikoen (hots uhinen), alde fisiologikoen (ahoskatze eta entzutearen), eta **psikikoan** (hitzezko irudien eta kontzeptuen) arteko bereizketa. **Isabel Arrigain**

Emazteari tratu txar fisikoak eta **psikikoak** emateagatik. **Berria - Euskal Herria**

Bi-bien oinaze sekulakoak eta sendabideko bakardadea; oreka **psikikoaren** haustura larri eta bat-batekoa; infernu pertsonalaren mugez ezagutza... **Anjel Lertxundi**

Nahasmendu **psikikoren** batek sortua izan behar baitu nahi horrek. **Jon Muñoz**

Inoiz ez nion antzeman inolako patologia **psikikoren** aztarnarik, eta haren jokabidean ez nuen ezer arrarorik nabaritu. **Juan Kruz Igerabide**

Nola adierazi hitz sotilez oinaze **psikikoaren** zama eramanezina? **Karlos Linazasoro**

Gure gizarteak baztertu egiten ditu gaixo **psikikoak**, eta bazterketa hori isila eta ankerra da. **Berria - Euskal Herria**

Ezindu **psikikoan** afektibitateari buruzko gida kaleratu du Atzegik. **Berria - Euskal Herria**

Tortura **psikikoarena**. **Berria - Kultura**

Film-ikuslearen egoera distantzia **psikiko** guztiz berezi baten adibide bikaina da. **Josu Zabaleta**

Egia da badela bizitzak erabil dezakeen energia **psikikoaren** kopuruan gehieneko muga bat. **Iñaki Mendiguren**

Halako gaixotasuna, itsutasun **psikiko** erabatekoa (Antonen sindromea esaten zaiona), kasurako, apoplexia baten ondorioz gerta daiteke, garuneko ikusmen-aldeetan hondamena larria bada. **Xabier Olarra**

## 2 irud/hed

Mendebaldeko adimenak psikearen sakonera subkontzientek begiztatu zituen eta, une horretan, bere buruaren ikuspegi berria zertu zuen, leize **psikiko** aztergabe horren gainean esekitako kimera bat bailitzan. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**distantzia psikiko** (6); **distantzia psikiko bat** (3); **energia psikiko** (3); **fisiko eta psikiko** (3); **fisiko nahiz psikiko** (3)  
**distantzia psikikoa** (3); **fisiko eta psikikoa** (4)  
**arazo psikikoak** (3); **ezintasun psikikoak** (3); **fisiko eta psikikoak** (4); **fisikoak eta psikikoak** (4); **fisikoak nahiz psikikoak** (3)  
**garapen psikikoan** (3)  
**energia psikikoaren** (7); **fisiko eta psikikoaren** (3)  
**egitura psikikoari** (3)  
**ezindu psikikoen** (4)

## psikikoki *adlag* alderdi psikikoan.

**Psikikoki** hondea jota zeuden guztiak eta zauri fisiko larriak zituzten haietako askok. **Beria - Gaiak**  
Gizakiak beti berea izango duen joeraren lehen urratsa da -arrotza hasieran **psikikoki** menperatu, ondoren fisikoki menperatzearren. **Markos Zapiain**  
Freskotasun falta nabaria izan dute, fisikoki zein **psikikoki**. **Beria - Kirola**  
Gizakiok ez gaude, ez fisikoki, ez **psikikoki**, ez espiritualki, progresio aritmetikoaren baitan bizitzeko prestatuak, gure mugak aski apalak dira. **Karlos Linazasoro**  
Gizartea gero eta osasuntsuagoa da fisikoki, baina gero eta hauskorragoa **psikikoki**. **Beria - Euskal Herria**  
Sendagileei **psikikoki** jota nagoela sinetsaraztea da nire aukera bakarra. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**fisikoki eta psikikoki** (4); **fisikoki zein psikikoki** (3)}

## psikikotasun *iz* psikikoa denaren nolakotasuna.

Gure irudi akustikoen **psikikotasuna** garbi ageriratzen zaigu geure hizkuntzari begiratzen diogunean. **Isabel Arrigain**

## psikismo 1 *iz* norbaiten nolakotasun psikikoen multzoa.

Mugarik gabeko autoanalisia: norberaren **psikismoa** gurasoen **psikismotik** bereizten saiatzea. **Joxan Elozegi**  
**Psikismoa** hondatua eta matxuratua dutenak, maiz ume-umetatik daude jota. **Gotzon Garate**  
Anorexia, bulimia eta antzeko adizioak gizarte aberatsetan agertzen dira, eta gizarteak daraman abiaduraren eta horrek eragiten dituen aldaketan ondorio dira, **psikismoa** ez baita aldaketa horiei erantzuteko gai. **Beria - Gaiak**  
Haurraren **psikismoan** eta buru-bihotzetan. **Gotzon Garate**  
Subjektu ikusleari, bere alderdi subjektiboan bai, baina analitikoak ez den modu batean begiratu nahi zaio, bere **psikismoaren** sakoneko egituretaraino iritsi gabe. **Josu Zabaleta**

### 2 (hitz elkartuetan)

Irrikena da Freudek landu zuen **psikismo** -ereduaren alderdirik misteriozkoena. **Josu Zabaleta**

### 3 irud/hed

Jabea ez bada etxetik ateratzen, adibidez, zakurraren **psikismoa** gaizkitu liteke. **Gotzon Garate**

## psikoaktibo *izond* jarduera mentalari eragiten diona.

Gehien hartzen diren substantzia **psikoaktiboan** artean depresoreak, bizigarriak, opioideak eta haluzinogenoak daude. **Beria - Gaiak**  
Tabakoa, alkohola eta lasaigarriak edo anfetaminak moduko **psikoaktiboak** sarri kontsumitzeak arazoak sor ditzake eta burmuina kaltetu. **Beria - Gaiak**  
OMEK dio gaitz eta ezintasun asko substantzia **psikoaktiboak** hartzearen ondorio direla. **Beria - Gaiak**

## psikoanalgesia *iz* anestesia psikologikoa.

Duela 32 urte inguru hasi zen Escudero doktorea PAV edo nahimenezko **psikoanalgesia** erabiltzen. **Beria - Gaiak**

## psikoanalisi (*orobat psikanalisi g.er.*) 1 *iz* gogo prozesuak aztertzeke eta nahasmendu psikikoak tratatzeko metodoa, gogoaren alderdi sakonena azalaratzean eta ikertzean datzana.

Freuden **psikoanalisiak** bi maila bereizten ditu jarduera psikikoan, jakina den bezala: lehenengo maila, prozesu inkontzienteen antolamenduari dagokiona (sintoma neurotikoa, ametsak), eta bigarren maila, psikologia tradizionalak kontuan hartzen zuena (pentsamendu ohartua). **Josu Zabaleta**

**Psikoanalisiaren** teorian, lapsusek subkontzientea azalarazten dute. **Iñaki Arranz**

**Psikoanalisiaren** pentsaeran, gizartea desiraren errepresioan oinarritzen da. **Joseba Zulaika**

Ni" delakoa bera ere jota geratuko zen Freud-en **psikoanalisiaren** erasoan, hark subjektua leherrarazi eta, nolabait, atomizatu zuelarik. **Juan Garzia**

Onenean, **psikoanalisisa** hitzontzikeria hutsa besterik ez da. **Beria - Harian**

Ezinbestekoa al da patologiaren bat izatea **psikoanalisisa** jotzeko? **Beria - Harian**

### 2 (izenondoekin)

*L'idiot de la famille* (Familiako ergela), **psikoanalisisan** oinarriturik Flauberti buruz idatzi zuen lan erraldoia izan zen Sartrearen azken lan handia. **Monika Etxebarria**

**Psikoanalisi** klinikoari buruzko masterra ere zuzentzen du EHUan bertan. **Beria - Harian**

Artelana **psikoanalisi** aplikatuaren objekturik preziatuenetako bat izan da. **Josu Zabaleta**

**Psikoanalisi** freudiarraren ikuspegitik sexualitatea giza jardueraren funtsa da. **Beria - Harian**

Naziek "**psikoanalisi** judua" kondenatu egin zuten, balio nazionalen defentsa aski bipila egin ez zuelako. **Joxe Azurmendi**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **psikoanalitiko**.

Bost piezako, **psikoanalisi** -saio bat irabazten nian. **Anjel Lertxundi**

Zabalkundeko **psikoanalisi** eskuliburuak ez dira, jakina, zakurrentzat eginak, eta aspaldi ezagutu nituen nik neurosi horren arrazoiak. **Josu Zabaleta**

Asteazketetako elkarte deitu zuten aurrena, eta, 1910ean, Nazioarteko **Psikoanalisi** Elkarte. **Beria - Harian**

## psikoanalista (*orobat sikoanalista g.er., psikoanalist g.er. eta psikanalista g.er.*) 1 *iz* psikoanalisian espezialista; psikoanalisi metodoak erabiltzen dituen sendagilea.



Idazleok eta **psikoanalistak** espezie berekoak omen ginen: analiste joera sadikoa zuten, eta guk, berriz, idazleok, masokista tankerakoa. Ramon Saizarbitoria  
Beti ibili izan da **psikoanalisten** buruan, eta autobiografo handien artean ere berdin, iraganeko oroitzapenak garunean gelditzen direlako. Oskar Arana  
Solilokio konpartituan mintzatu nahi zenuen, **psikoanalistarean** bazeunde bezala. Eider Rodriguez  
Hiru urtean **psikoanalistarenera** astean bitan joanda, horrenbeste badakit. Xabier Montoia  
Horregatik erabaki zuen **psikoanalistarengana** jotzea. Aritz Gorrotxategi

## 2 (hitz elkartuetan)

Hemen Bermeen baguenen kontsulta bat zabaltzeko asmoa, euskal idazleentzat bakarrik, **psikoanalista** kontsulta. Markos Zapiain

## 3 (izenondo gisa)

Freud edo Lacanen kide **psikoanalistak**. Piarres Xarriton

# psikoanalitiko *(orobat **psikanalitiko** g.er.) izond* psikoanalisiarena, psikoanalisiari dagokiona. ik **psikoanalisi 3**.

Irudiaren ikuslearen azterketa **psikoanalitikoaren** azpian dagoen oinarritzko ideietako bat inkontzientearen eta irudiaren arteko lotura estua azpimarratzea da. Josu Zabaleta

Gure Euskal Herri malenkonizatuak ere, antzinatea mila kobetan altxor gisa gordea, Ama Lur fetixizatu horren irakurketa **psikoanalitiko** merezi du. Joseba Zulaika  
Sexualitateari dagokionez, desberdinak dira kontzeptu **psikoanalitiko** freudiarra (freudiarra diogu zeren bai baitira freudiarrek ez diren psikoanalisiak) eta kontzeptu arrunta. Berria - Harian

Austriar mediku apartak inkontzientearen formulazioaz eta metodo **psikoanalitikoaz** psikologia eta psikiatria irauli zituenetik mende bat pasa eta gero, [...]. Berria - Kultura

Ipuin honen interpretazio **psikoanalitikoan**, debeku sinbolikoa dakar Aitaren hiletak ondoren, "aitaren izenagatiko" Legea. Joseba Zulaika

Subkontzientearen garrantzia; Freuden teoria **psikoanalitikoekiko** interesa; baina harantzago joan zen, eta metodo «paranoiko-kritikoa» garatu zuen. Berria - Kultura

Nik nire rola betetzen dut ahal denik eta marikoikeria **psikoanalitiko** gutxienaz baliatuta. Karlos Zabala

# psikoanalizatu, psikoanaliza, psikoanalizatzen du *ad* psikoanalisi aplikatu.

Horretan guztian badu zerikusia artista horietako asko Freudek berak eta bere jarraitzaileek **psikoanalizatu** izanak. Josu Zabaleta

Normal bihurtzeko helburuarekin, artaldera etor daitezten helburuarekin, hormonak eman izan dizkiete, **psikoanalizatu** egiten dituzte, elektroshockak eman, terapiak eginarazi dizkiete, baita burmuineko zenbait zati kendu ere. Luis Elberdin

Nolabait, hiltzailearen pentsamenduan barneratzea zen idazleen obsesioa; hiltzailea **psikoanalizatzea**. Berria - Kultura

Beren ofizioa "sakonagoan" omen dauden iruzurrak eta interes ezkutuak, ideologiak eta irrazionalkeriak **psikoanalizatzea** eta desmaskaratzea bilakatu da, soziologiaren, filosofiaren, antropologiaren eta psikoanalisiaren laguntza guztiekin. Joxe Azurmendi

Ez naiz neure burua **psikoanalizatzen** hasiko, baina badakigu pertsona bere bakarrean zeinen gauzaeza den, eta zenbatetaraino den gizabanakoa gizajobanako hutsa. Iñaki Segurola

# psikobiografia *iz* alderdi psikologikoetan oinarrituriko biografia.

**Psikobiografiarako** bidea eta artelanen irakurketa psikologikorako atea zabaldu zuten bi azterketa ospetsu horietaz aparte, lehenengo belaunaldiko psikoanalistek artearekin izan zituzten harremanetan eragin handia izan zuten artistekin izan zituzten topaketa profesionalak. Josu Zabaleta

# psikobiologia *iz* psikologiaren adarra, giza portaera aztertzen duena ingurunearekin duen harreman biologikoaren ikuspegitik.

Erromako **Psikobiologia**, Psikofarmakologia eta Neurozientziarako Institutuko adituek, sistema opioideorik gabeko saguak sortu zituzten genetikoki. Berria - Gaiak

# psikobiologiko *(corpusean **psiko-biologiko soilik**) iz* psikobiologiarena, psikobiologiari dagokiona.

Maitemintzearen alderdi **psiko-biologikoak** aztertzen dituzten oso lan interesgarriak agertzen ari dira gaur egun. Luis Elberdin

# psikodelia *(orobat **sikodelia** g.er.) 1 iz* gauza psikodelikoen mundua.

Pink Floydek lortu du adostasun handiagoa, baina **psikodelia** gozo horren eraginpean logurak kuzkurtuta geratu dira gehienak. Xabier Mendiguren Elizegi

Hip-hoparen ikuspegi oso zabala ere erakutsi zuen *3 feet high and rising* bere lehenengo diskoan, funketik eta souletik edanez baina baita popetik, **psikodeliatik** eta jazzetik ere. Berria - Kultura

60ko hamarkadaren azken urteetan Kalifornian piztu zen **psikodeliaren** talde garrantzitsuenetakoa izan zen *Love*. Berria - Kultura

Ohikoa duen 50eko hamarkadako poparen eta **psikodeliaren** bidetik sortu du Doctor Deseok disko berria. *The Incredible String Band*ek eguneratu egin zuen Erresuma Batuko musika tradizionala, eta **psikodeliaren** eta rockaren elementuak gehitu zizkion. Berria - Kultura

The Byrdsen abesti klasikoenetakoa berreskuratu du: *Eight miles high* **psikodeliaren** gailurra. Berria - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan)

80ko hamarkadako garage-**psikodelia** *revival*-aren ikonoetako bat izan zen The Cynics. Berria - Kultura

# psikodeliko *(orobat **sikodeliko** g.er.) 1 izond* egoera psikikoez mintzatuz, droga haluzinogenoek sortua, sentimenaren alterazio euforikoa ezaugarri duena; egoera psikodelikoari dagokiona.

Albert Hofmann-ek LSDren ondorio **psikodelikoak** aurkitu zituen. Pello Salaburu

## 2 egoera psikodeliko hori gogora ekartzen duena.

Giroa elektrikoak izango da, karga positibo eta negatiboz gainezka, argi **psikodeliko** eta itzelezko zaratarekin. Joseba Sarrionandia

Ezpainak mugitzen ikusiko duzu argi **psikodelikoek** argitua, baina musikaren burrunbarekin ez diozu noski ezer adituko. Joseba Sarrionandia

Dekorazio **psikodelikoa**, modako aldizkariren batetik kopiatua segurua asko. Patxi Iturritegi

Diseinu eskandinaviarreko platerak, plater hegalariren itxurako hautsontziak, puf biribilak, apaingailu **psikodelikoez** hornituriko tapizak. Joxan Elozegi

Pop **psikodelikoaren** une gorenean, The Incredible String Band gazteria aurreratuenaren talde gustukoenetakoa bihurtu zen. Berria - Kultura

70eko hamarkadan girotutako musika kalejira **psikodeliko** eta funkya. Berria - Kultura

Wild estiloko letra **psikodelikoak** luzatzen hasi ziren hormatik aterata, eta gero, berez bezala, jirabira eroari ekin zioten, harik eta plasmazko bi burbuila argitsu osatu arte. Patxi Iturritegi

Harkaitz Cano

## psikodinamika *iz* psikologiaren adarra, portaera prozesu mentalen elkarrekintzen aldetik aztertzen duena.

Bitxia da ikustea homosexualitatearen, lesbianismoaren eta transexualitatearen arrazoiak familia barruko harremanen **psikodinamikan** bilatzen tematzen direnek nola baztertzen duten seme-alabek gurasoei zer diren jakinaraztea aztertzeari. **Luis Elberdin**

## psikodrama *iz* helburu terapeutikoko antzerki lana, non pazienteak bere egoerari dagokion rol bat jokatzen baitu.

Terapien bi parteei buruz, gimnasia eta gero **psikodrama** dator. **Joseba Sarrionandia**

Aipagarria zaigu halaber eskualde hauetan abertzaleek jostatzen diguten **psikodrama**. **Berria - Kultura**

## psikoentsalada *iz* *adkor*

Hori guztia psikoanalisiarekin elkartu eta halako **psikoentsalada** bat sortu zuten. **Berria - Kultura**

## psikoeritasun (*corpusean psiko-eritasun soilik*) *iz* etorki psikologikoa duen eritasuna.

Zakurrak **psiko**-eritasunen bat duenez ikusiko du Alice Wook. **Gotzon Garate**

## psikofarmako *iz* prozesu psikikoei eragiten dien farmakoa.

Saiz **psikofarmako**en eragingarritasunaz aritu zen: antidepressiboak, litioa, antipsikotikoak... **Berria - Euskal Herria**

## psikofarmakologia *iz* farmakoek prozesu psikikoetan duten eraginaren azterketa.

Erromako Psikobiologia, **Psikofarmakologia** eta Neurozientziarako Institutuko adituek, sistema opioideorik gabeko saguak sortu zituzten genetikoki. **Berria - Gaiak**

## psikofisika *iz* psikologiaren adarra, gertakari fisikoen eta psikologikoen arteko erlazioa aztertzen duena.

Han ikasi egiten zuen, eta Doktore-tesirako erabili nahi zuen **psikofisikako** puntu baterako datuak jasotzen zituen. **Josu Zabaleta**

Geroztik, azkenaldi honetan (azkeneko mundu gerratik hona), **psikofisikako** laborategiak garatu dira, eta nabarmen ugaldtu dira behaketak eta esperimentuak. **Josu Zabaleta**

## psikofisiko (*orobat psiko-fisiko*) *izond* psikofisikarena, psikofisikari dagokiona.

Horrek esan nahi du ez dagoela esparru fisikoa eta mentala lotzen dituen lege **psikofisiko** zurrunik. **Askoren artean**

Beste aldea, bigarren mailakoa dena, mintzairaren alderdi indibidualaz -hau da, hizketaz, fonazioa barne- ari da, eta **psikofisiko** da. **Isabel Arrigain**

Koloreak ikusteko dugun moduaren arazoari alde **psikofisikotik** hurbiltzen ari zitzaien. **Xabier Olarra**

Hiztunari konbinazio horiek kanporatzen uzten dizkion mekanismo **psiko**-fisikoa. **Isabel Arrigain**

## psikofisiologiko (*corpusean psiko-fisiologiko soilik*) *izond* alderdi psikologiko eta fisiologikoei dagokiena.

Oinarri **psiko**-fisiologikoa. Ulermen hori lortzeko, ahotsaren intonazioa, aurpegiaren espresioak, gorputzaren keinuak, erabilitako hizkera-moldeak edo ezaugarri **psiko**-fisiologikoak (bihotzaren erritmoa ala azalaren konduktibitatea kasu) analizatzen dira. **Berria - Gaiak**

## psikofonetika *iz*

Berak ez du fonologia hitza erabiltzen, **psikofonetika** baizik, aski esanguratsua dena, bestalde. **Lourdes Oñederra**

## psikofonia *iz* parapsikologian, ageriko kausa fisiko bati ez dagokion hots ekoizpena.

Antzoki Zaharrean ustekabeko kolpe-hotsik entzuten baduzue, gorputz batek oholztzaren kontra joko balu bezala-edo, ez harritu, Aita Froilanen erorketa haien **psikofonia** izango da-eta. **Martin Anso**

*Psychophonies de l'âme* (Arimako **psikofoniak**) antzezlanaren emanaldira sartzeko hainbat zibilborren argazkiez egindako gortina bat gurutzatu behar dugu, geure erraietara begiratu behar dugunaren seinale-edo. **Berria - Kultura**

## psikogaixofrenia *iz* *adkor* eritasun psikikoa.

Yolanda, **psikogaixofrenia** larri baten diagnostikoak azpian harrapatu eta ero garbia denetik, gerra gorrian bizi da bere terapeutarekin eta gorriagoan atzean utzi duen mundu normalarekin: horrela ez da sekula bere onera etorriko. **Iñaki Segurola**

## psikogeniko *izond* jatorri psikologikoa duena, psikean sortzen dena.

Aspergerrek kontaktu afektiboaren akats biologikotzat hartzen zuen -sortzetikoa, berezkoa, akats fisiko edo adimenekoen parekoa-; Kannerrek, aldiz, nahasmendu **psikogenikotzat** ikusteko joera zuen. **Xabier Olarra**

## psikogeometriko *izond* *adkor*

Bidenabar, galdéra **psikogeometriko** bat: mendian, herri-koxxorretan eta beste inon baino lerro zuzen, lauki, paralelo, diagonal eta bestelako erregulartasun geometriko

planifikatu gehiago ikustera jarriak daudelarik kiudelarik begiak eta buruak, ba ote du horrek baterik eraginik edo erasirik handirik estandare burulau (ki) tasun sineskor garaikidean? [Iñaki Segurola](#)

## psikojakin *izond adkor*

Handik egun batzuetara gertuko pertsonak esaten dit jaun mediku **psikojakinak** ze juzku egin duen, eta zera, "oso pertsona koherentea" omen naizela, edo ematen dudala, edo hala iruditu behintzat hari. [Iñaki Segurola](#)

## psikokirurgia *iz mahasendu mentalen sendabidea, burmuinean egiten diren ebakuntzen bidez gauzatzen dena.*

Monizen lanak "**psikokirurgia**" ren burruna ekarri zuen (berak sortutako terminoa) mundu osoan zehar [...] baina oihartzunik handiena Estatu Batuetan izango zuen, han Walter Freeman neurologoak hurbilbide kirurgiko berri bat asmatu baitzuen, berak lobotomia transorbitala deitzen ziona. [Xabier Olarra](#)

## psikokorporal *izond gorputza erabiltzen duen psikoterapiari dagokiona.*

Luzaketak, arnas ariketak, taldeko dinamikak, teknika **psikokorporalak**, erlaxazio eta bisualizazio teknikak... [Berria - Harian](#)

Guztiak nahiko teknika **psikokorporalak** dira, naturako lau elementu horiekin kontzientziatu, kontzientziarekin bizi, naturaren kontaktua bizi eta gure pentsamenduak, emozioak eta fisikoa orekatzen saiatzen gara. [Berria - Harian](#)

## psikolinguista *iz hizkuntza ikuspuntu psikologikotik aztertzen duen hizkuntzalaria.*

Dena eleek izaten duten osagaririk antzemanenaren ildotik, hizkuntzalariek edo **psikolinguistek** nekez deskriba dezaketen hizkuntzaren alderik berezietatik abiatuta. [Berria - Kultura](#)

## psikolinguistiko *izond hizkuntza ikuspuntu psikologikotik aztertzen duena.*

Are gehiago, ez genituzke gazteleratik eta frantsesetik maileguak errazkeriaz irentsi behar, bi hizkuntza horiekiko morrontza **psikolinguistikoa** hausten ahalegindu beharko genuke. [Markos Zapiain](#)

## psikoliterario *(corpusean psiko-literario soilik) izond*

Besteak beste, biografia **psiko**-literario bat ere aipa liteke, bestela ere J. L. B. en gauzen biltzailerik behinena den idazle batek egina. [Juan Garzia](#)

## psikologia *(orobat sikologia g.er. eta psikologia g.er.) 1 iz gertakarien psikikoen azterketa zientifikoa.*

**Psikologiak** zientzia izan nahi badu "intersubjektiboa" izan behar du. [Askoren artean](#)

Horiek horrela, bizitzaren materia batera erori behar dugu berriro ere, Aristotelesen **psikologia** biologian oinarritzen dela ikusiz, eta azken hori fisikan. [Askoren artean](#)

Positibista Logikoek **psikologia** egiteko modu "introspektiboa" gogor kritikatu zuten. [Askoren artean](#)

Eztabaida, balioetatik pertsonetara, **psikologiara** lerratzen da. [Joxe Azurmendi](#)

Gure asmoa ez da ikusleak irudiarekin duen erlazioa **psikologiaren** bideetatik baizik ulertu ezin daitekeela [...] baieztatzea, eta gutxiago, hala ere, ikuslearen **psikologiaren** eredu unibertsal bat proposatzea. [Josu Zabaleta](#)

Terapia horren oinarria «**psikologiak** ahalbideturiko anestesia da», anestesia mentala, inolako drogarik gabekoa. ik psikoanalgesia. [Berria - Gaiak](#)

-Zure **psikologiak** ez zaitu inoiz oso urriti eraman, ene Demba -esan zuen Mikscek, sinesgogor. [Anton Garikano](#)

Parkerrren narrazio hauetan pertsonaien **psikologian** sakontzeko ahalegina nabaria da. [Berria - Kultura](#)

Bere lanetan pertsonaien **psikologiak** sekulako garrantzia hartu zuen, beti nagusitu zirelako fedearen eta praktikaren arteko borrorak. [Berria - Kultura](#)

Aldi berean, antropologia eta herrien **psikologia** modan baitaude, literatura berri bat sortzen ari da, Frantzia batik bat, Espainian min handia egiten duena. [Joxe Azurmendi](#)

Gaur egun, futbolaria izateko, **psikologiak** sekulako garrantzia dauka, baina oso gutxi lantzen dute taldeek. [Berria - Kirola](#)

-Nola nahi duzu zuk gizon baten **psikologia** ulertzea? [Josu Zabaleta](#)

Abereen **psikologiari** buruzko bere saioetan argitasun eta ordena gehiago zegoela uste zuen behintzat. [Joxean Agirre](#)

### 2 (izenondoekin)

Freuden psikoanalisiak bi maila bereizten ditu jarduera psikikoen, jakina den bezala: lehenengo maila, prozesu inkontzienteen antolamenduari dagokiona [...] eta bigarren maila, **psikologia** tradizionalak kontuan hartzen zuena (pentsamendu ohartua). [Josu Zabaleta](#)

Erljioa eta zientzia egi mota desberdinez arduratzen dira, eta psike subkontzientearen **psikologia** modernoak argitasun sakona ematen du desberdintasun horren izaeraz. [Iñaki Mendiguren](#)

Beraz, **Psikologia** empirikoa Metafisikatik osorik erbestera behar da, eta bere ideien bitartez jadanik erabat baztertzen da. [Ibon Uribarri](#)

Bada jakintza bat [...] koloreen, forma batzuen eta abarren jarduerari buruzkoa, **psikologia** esperimentalak, soilak nahiz aplikatuak, aspaldi samarretik landu duena. [Josu Zabaleta](#)

Herrien **psikologia** positibistarekin polemikako kapitulu hala-holako bat, Ortega behin baino gehiagotan enplegatuko duena, determinismo geografikoarena izango da. [Joxe Azurmendi](#)

Araza horrek **psikologia** konduktistaren barruan eskola kognitibistaren sorrera ekarri zuen. [Askoren artean](#)

**Psikologia** kognitiboa azken hamarraldian ikusgarri garatu den psikologiaren adar bat da. [Josu Zabaleta](#)

Heideggerren eragina nabaria zen Europako pentsalari existenzialistengan: Karl Jaspers-en **psikologia** existenzialistan, [...] eta, jakina, Jean-Paul Sartre-ren existenzialismo humanista ateoa Honetatik guztitik ikusten da **Psikologia** arrazionalak gaizki-ulertze soil batean duela jatorria. [Askoren artean](#)

**Psikologia** soziala maite duenarentzat, berebiziko herria gure hau. [Iñigo Aranbarri](#)

Izan ere, **psikologia** kolektiboak, ezpairik gabe, ez du materia logiko huts-hutsaren gainean operatzen. [Isabel Arrigain](#)

**Psikologia** transzendentalaren hirugarren paralogismoaren kritika. [Ibon Uribarri](#)

**Psikologia** hutsaren lehen paralogismoaren kritika. [Ibon Uribarri](#)

**Psikologia** dialektiko baterako oinarria. [Ibon Uribarri](#)

istorio sinpleak, pertsonaia lauak, **psikologia** tolesgabeak. [Karlos Zabala](#)

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat psikologi) ik psikologiko.

Ez indarkeria-pasadizorik, ez bortxaketarik, ez **psikologia**-tratamendurik. [Iban Zaldúa](#)

Askotan sortu izan dira **psikologia** laborategietan pertsonen irudi mentala eta pertzepzioa nahasten dituzten egoerak. [Josu Zabaleta](#)

Arrazoi politikoak izan daitezke baina **psikologia** arrazoiak azpimarratuko nituzke. [Berria - Ekonomia](#)

- **Psikologia** -saioarik ez, mesede! -eten zien Ruche jaunak-. [Jon Muñoz](#)

**Psikologia** arloa bikain lantzen du, eta jokalarien ekarpenean nabarmena da hori. [Berria - Kirola](#)

Analogia **psikologia** mailakoa da; baina hori onartzea ez da nahikoa gertaera fonetikoetatik bereizi ahal izateko, zeren fenomeno fonetikoak ere har baitaitezke **psikologia** mailako gertaeratzat. [Isabel Arrigain](#)

Gurasoak euren seme-alaben **psikologi** garapenerako giro egokiak eskaintzeaz ardurutzen dira. [Berria - Euskal Herria](#)

Estatu unibertsal baten gizarte- eta **psikologi** giro mesedegarria. [Iñaki Mendiguren](#)

Hain zuzen ere maniako-depresiboak dira **psikologia** eta psikiatria karrerak aukeratzan dituztenak. [Gotzon Garate](#)

**Psikologia** -irakasle zuen aita. [Juan Garzia](#)

EHUko **Psikologia** Fakultatean. [Berria - Euskal Herria](#)

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Paradisuko kontakizuna, hala bertso biblikoan nola talmudikoan, oinarritzko giza **psikologiaren** aurkezpen alegorikoa dela. [Xabier Kintana](#)

Norbera bizi den herrialdearen historia, oroimena, kultura, talde **psikologia** ezagutu eta errespetatzea. [Berria - Mundua](#)

Baina egia baldin bada hizkuntzalaritzak hain datu baliosuez hornitzen duela gizarte **psikologia**, nolatan ez da hartzen linguistikaren zientzia, psikologiaren zati gisa?

[Isabel Arrigain](#)

Industria **Psikologian** Lizentziatua [...] da Gisasola. [Berria - Ekonomia](#)

Ez nintzen aditua haur-**psikologian**, baina argi ikusten nuen ez zeukala hark arazo fisiko edo psikologikorik. [Oskar Arana](#)

Pertsona autistek [...] ez dute besteen gogamenen kontzeptu edo sentipenik, ez eta berenarenik ere; kognizio-**psikologiaren** mordoiloan esateko, ez dute "gogamenaren inolako teoriarik". [Xabier Olarra](#)

Bake-**psikologiak**, estatu unibertsal baten babespean, ezgaitu egiten ditu gobernariak beren ondare politikoari eusteko zereginerako. [Iñaki Mendiguren](#)

- Maria del Mar Gonzalez irakasle da Sevillako Unibertsitatean, Hezkuntza eta Eboluzio-**Psikologia** Sailean. [Berria - Euskal Herria](#)

## 5 psikologia ikasketak.

Zorrotz behatu dit, eta ezten horrek salatu du gizontxo hau giltzaduna zela jadanik **psikologian** matrikulatu zenean. [Koldo Izagirre](#)

Bai, ulertzen dut... -zuhur **psikologian** lizentziatuak, baina urduri. [Koldo Izagirre](#)

Historia lizentziatura egin zuen Laura Mintegik Deustuko unibertsitatean eta **Psikologian** doktorea da. [Ana Urkiza](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gizarte psikologia** (3); **herrien psikologia** (15); **pertsonaien psikologia** (3)

**psikologia arrazionalak** (4); **psikologia arrazionalaren** (4); **psikologia arrazionalen** (4); **psikologia enpirikoa** (3); **psikologia fakultatean** (3); **psikologia fakultateko** (8); **psikologia fakultateko adituek** (3); **psikologia hutsaren** (3); **psikologia irakasle** (6); **psikologia irakaslea** (6); **psikologia mailako** (3); **psikologia transzendentalaren** (3)

**unibertsitateko psikologia** (10); **unibertsitateko psikologia irakaslea** (3)

**herrien psikologiak** (4)

**medikuntzako eta psikologiako** (3)

**pertsonaien psikologian** (7); **psikologian doktorea** (3)

**herrien psikologiaren** (5)

## psikologiazale izond psikologiaren zalea dena.

Herriaren arima inguru geografikotik menpekotzen duten Herrien **Psikologiazaleak** [...] konturatu barik, desesperantzara kondenatzen ari dira herri espainola (itxaropenaren argumentua). [Joxe Azurmendi](#)

## psikologiko (orobat *sikologiko g.er.*) 1 izond psikologiarena, psikologiari dagokiona. ik **psikologia** 3.

Teoria **psikologiko** baten arabera, heldutasunaren gatazka moral kontzientea subkontzienteki aurreratua agertzen da haurtzaroaren hasieran. [Iñaki Mendiguren](#)

Kanten arazoimena ahalmen **psikologiko** baten moldean pentsatuta baitago, baldintza batzuen gatibu dago bere jardueran. [Askoren artean](#)

Ziurgabetasun horren aurrean, diruak nolabaiteko segurtasun **psikologikoa** ematen digu. [Iñaki Heras](#)

Adituen esanetan, gogaitzeak arazo **psikologiko** ugari eragiten ditu gizakiengan. [Berria - Gaiak](#)

Esanahia ez da hitzetik harago dagoen ente **psikologiko** edota sasimetafisiko bat. [Askoren artean](#)

Hans Christian Andersen, Lewis Carroll, Antoine Saint-Exupéry, James Barrie... idazle oso korapilatsuak dira, nortasun **psikologiko** bereziak. [Ana Urkiza](#)

Sistemaren barren-barrenean, muiñ **psikologikoan** eragina duen auzia baita. [Iñaki Heras](#)

Liburuan ez dago hizkuntzaren sustraia **psikologikoen** aipamen zuzenik. [Itziar Laka](#)

Hutsune **psikologikoa** amildegi bat da, gure izatearen alderdi nagusi bien artean dagoen amildegia. [Unai Iturriaga](#)

Oinarri-oinarritzko gertaera **psikologiko** horri deitzen zaio irudien pertzepziozko errealitate bikoitza. [Josu Zabaleta](#)

Noizbait ohartuko da gerra **psikologikoa** ikastaroetan ez baina frontean ikasten dela. [Koldo Izagirre](#)

Hala bititzea ez zuen merezi, tortura **psikologikoa** zen. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Bi joera **psikologiko** horiek ikuspuntu subjektibotik antitetikoak izan daitezkeen arren, azpilana egiten dute emaitza objektibo berdin-berdina sortzeko. [Iñaki Mendiguren](#)

Gauzen alderdi **psikologikoak** interesatzen zitzaizkion. [Josu Zabaleta](#)

Badago batasun-dibertsitate zerebral, **psikologiko**, afektibo, intelektual eta subjektibo bat. [Askoren artean](#)

Irudia eta kodea osatzea: irudiak berez eta ezin banatuzko moduan lotzen ditu bi funtzio **psikologiko** hauek. [Josu Zabaleta](#)

Enuntziatu-moten eraketa aztertzeke ez zen beharrezkoa ez lotzea subjektu ezagutzaileari, ez banakotasun **psikologiko** bati. [Xabier Arregi](#)

Nobela politiko bat baita, funtsean, ez nobela **psikologiko** bat. [Joan Mari Irigoien](#)

Thriller **psikologiko** baten gidoia idazten ari naiz ni. [Berria - Kultura](#)

Hizkuntzalaritza sinkronikoa batera gertatzen diren eta sistema bat osatzen duten erlazio logiko eta **psikologikoez** -beti kontzientzia kolektiboak atzematen dituen eran-arduratuko da. [Pablo Sastre](#)

Ebaluazio **psikologiko** eta neuropsikologiko sail bat egin zioten Gregi, eta guztietan aipatzen zen, haren oroimen eta arretaren arazoez gain, "axalekoa" zela, "ume bat" zela, "ulermenik" ez zuela, "euforikoa" zela. [Xabier Olarra](#)

Ezagunak dira langabeziaren ondorio ekonomikoak ez ezik, baita soziologikoak eta **psikologikoak** ere. [Iñaki Heras](#)

Nerabetasuna, bai fisikoa, bai **psikologikoa**, puxka bat atzeraturik beharbada, abaila bizian ari zaio nabarmentzen. [Xabier Olarra](#)

Hizketa arazoez (fisiko zein **psikologikoez**) ere maiz agertzen dute fonetikarekiko lotura. [Lourdes Oñederra](#)

Antzerki-saio bikaina izan zen, sorginkeria **psikologikozko** lan bat. [Oskar Arana](#)

## 2 (izenondo elkartuetan lehen osagai gisa)

Duela gutxi asmatu diote izena lanean boterea duenak botererik ez duenari egiten dion zapalketa **psikologiko** -moral horri. [Joxerra Garzia](#)

Homeroren konparazioak giza ekintzaren eremura mugatzen dira, euren ezaugarri **psikologiko** -moralekin. [Xabier Amuriza](#)

Elorza-k soluzioa, a) determinismo biologista, eta b) determinismo **psikologiko** -ideologikoa, bata bestearen alternatiboak balira bezala, gura luke bilatu, biak elkari kontrajarriz: determinismoa, biologista bada, ez da kulturala, eta viceversa. [Joxe Azurmendi](#)

### 3 (izenaren elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alkoholak muga fisiko-**psikologikoak** apurto zizkion. **Joan Mari Irigoien**  
Azterketa historiko-**psikologikoarena** zen bigarrena. **Joxe Azurmendi**  
Ez du merezi asmo mistiko-**psikologikoekin** astuntzea. **Jon Muñoz**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, atzizki baten eskuinean)

Hankagabearen kasuak baditu aztergai fisio-**psikologiko** ugari: elbarriak oraindik ere bi hanken existentzia bizi du garunea. **Anjel Lertxundi**  
Korrelazio neuro-**psikologiko**en jokoak, proiektzio-sistema elkarkari eta kausaltasun-arlo zirkular legez ulertuta. **Xabier Arregi**  
Jendearen oreka bio-**psikologikoa** ez dela kimika bidez neholata ere kanbiatu behar. **Itxaro Borda**

### 5 ez-psikologiko izond

"Pentsamendu" fregear hori elementu **ez-psikologiko** bat litzateke, eta ez hitzunaren interpretazio edota ulermen subjektibo bat. **Askoren artean**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo psikologiko (9); baldintza psikologiko (4); egoera psikologiko (5); fisiko eta psikologiko (4); gertaera psikologiko (3); presio psikologiko (5); tratamendu psikologiko (3)

alor psikologikoa (4); arazoa psikologikoa (3); balio psikologikoa (3); egoera psikologikoa (8); eragin psikologikoa (5); fisiko eta psikologikoa (3); fisikoa edo psikologikoa (4); gerra psikologikoa (5); indarkeria psikologikoa (3); joera psikologikoa (3); laguntza psikologikoa (25); laguntza psikologikoa ematen (3); lan psikologikoa (3); presio psikologikoa (5)

segurtasun psikologikoa (3); tortura psikologikoa (7); tratu txar psikologikoa (4)

arazo psikologikoak (20); arrazoi psikologikoak (3); fisiko eta psikologikoak (14); fisikoak eta psikologikoak (12); kalte psikologikoak (4); ondorio psikologikoak (6); onura psikologikoak (3); presio psikologikoak (4); tortura psikologikoak (4); tratu txar psikologikoak (9)

faktore psikologikoak (4)

laguntza psikologikorik (3)

ikuspegi psikologikotik (3)

## psikologikoki (orobat *sikologikoki g.er.*) 1 adlag alderdi psikologikoa.

Denok dakigu abortatzea zein gogorra den, **psikologikoki** batez ere. **Berria - Gaiak**

Egun hartan **psikologikoki** bortxatua izana nintzen, eta alienatua. **Piarres Aintziart**

**Psikologikoki** zinezko trauma bat da. **Berria - Kultura**

Lehen masailekoa eman aurretik, senarra edo mutil-laguna bere bikotea **psikologikoki** erabat desaktibatzen saiatzen da. **Berria - Euskal Herria**

Okerrena, ez militarki beharbada, baina bai **psikologikoki** segurantzia osoaz, Jurramendiren erorketa izan zen. **Txillardegí**

Unibertsalak ziren ez geografikoki, **psikologikoki** baizik. **Iñaki Mendiguren**

Gu guztiontzat oso zaila da **psikologikoki** eta fisikoki. **Berria - Harian**

Ez, fisikoki ez nengoen ongi, baina ezta **psikologikoki** ere, asealdien ondoko hutsuneak gero eta handiagoak egiten baitzitzaizkidan. **Joan Mari Irigoien**

### 2 (izenaren eta izenondoaren artean)

Kristau ortodoxoek otomandar nagusiengandik Mendebaldeko auzokoenganako kultur leialtasunean egin zuten aldaketaren hasiera-data janzkeran izandako aldaketen adierazle **psikologikoki** esanguratsuak aldarrikatzen du. **Iñaki Mendiguren**

Andreari aste batzuetan gelditu zitzaion gogoan oroitzapen epileptikoa, eta gero, iraganerako ate bitxi eta **psikologikoki** ireki hura itxi, eta bera, onerako zein txarrerako, berriro "normaldu" zen. **Xabier Olarra**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fisikoki eta psikologikoki (7); psikologikoki eta fisikoki (3); psikologikoki torturatu (3)

## psikologismo iz psikologiari garrantzi nagusia emateko joera.

Gaurregun modan den **psikologismo** arrunt eta mekanikoa ez zait sobera laketa, nahiz nihaurek erabiltzen dudana. **Piarres Aintziart**

Era berean, mamiaz betetzen du **psikologismo** estetizista, gizarteko errealitatera ekarri pertsonaien prozesu mentalak. **Berria - Kultura**

Sinbolismoaren ikuspegi artistikoak bizkarra emana zien ordurako hala Zolak famatu zuen "naturalismo"ari nola Frantziako nobelagintzan nagusi ziren beste errealismo edo **psikologismoaren** joerei. **Juan Garzia**

Idealismoari eta **psikologismoari** aurre eginez. **Askoren artean**

Bere bizitzaren alderdi sexuala iraupen luzeko performance bat bailitzan deskribatzen digu, bere epaia eta gogoeta betiere berariaz maila estetiko batean geratzen delarik (**psikologismo** gutxi, soziologiarik ez, eta, jakina, moralaren aztarnarik ere ez). **Berria - Kultura**

Erlatibismoa gaur egun, aurkitu, perspektibismo, historizismo, soziologismo, **psikologismo**, antropologismo, biologismo, eboluzionismo, pragmatismo, fikzionalismo, etab. gisan aurkitzen da de fakto. **Joxe Azurmendi**

## psikologista izond psikologismoarena, psikologismoari dagokiona.

1922an [...] Ortega berriro itzuli da herrien psikologiaren kritikara, sistematikoago oraingoan, eta modako teoria **psikologistei** bere moldabidea kontraproposatuz. **Joxe Azurmendi**

Costa aragoitarraigatik ere, ordea, guztiz herri-**psikologisten** maneran esango du: [...]. **Joxe Azurmendi**

## psikologizatu, psikologiza, psikologizatzen 1 du ad psikologikoki aztertu.

Tratu txarren auzia medikalizatu eta **psikologizatu** nahi dute. **Berria - Euskal Herria**

Gure gizartean, garai jakin batean, gaizkilea **psikologizatu** eta patologizatu izan bada, jokaera hausleak jakitearen objektuen sail oso bat sorrarazteko bidea eman badu, izan da diskurtso psikiatrikoa harreman zehatzen multzo bat erabiltzen hasi delako. **Xabier Arregi**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Herrien historiaren azpiko intrahistoria hori izan daiteke Natura [...] edo indar absolutu ezezagun eta ezagutezin bat eraginkorra, efektuen ugaltzeko legearen arabera historia agerikoan biderkatzen dena (Spencer), edo biologia **psikologizatu** bat, arraza (Ardigó, Taine), edo beste zernahitsu XIX. mendetarra. **Joxe Azurmendi**

## psikologo (orobat *sikologo g.er.* eta *psikologo g.er.*) 1 iz psikologian aritzen den pertsona.

Geuk baino, psikiatra edo **psikologo** batek erantzun beharko lukeen galdera da hori, nire ustez... **Karlos Linazasoro**

Ikastetxeko **psikologoaren** aholkuak gogoan, gurasoek gero eta indar handiagoz bultzatzen ninduten beste lagun batzuegana. **Bernardo Atxaga**

**Psikologoaren** lanak egiten ari zara? **Berria - Kirola**



-Adela: joan al zara **psikologo** batengana, edo psikiatra batengana? [Juan Kruz Igerabide](#)

-Zergatik ez zoaz **psikologo** batenera laguntza eske. [Gotzon Garate](#)

Adrianeke eta Martinek esaten dute berriro **psikologoarengana** joan beharko duzula, ez zaizula oraindik sendatu misantropia. [Bernardo Atxaga](#)

Pelikuletako **psikologo**en kontsultetan egoten diren dibanen antzekoa zen. [Jasone Osoro](#)

Ikusmeneko eremua inguru-soslai batez bi eremutan bereizteko modu bat izendatzeko proposatu zuten pertzepzioaren **psikologoek**. [Josu Zabaleta](#)

Gero, **psikologo**aren ikuspegia dugu; horrek ikurraren mekanismoa gizabanakoan aztertzen du. [Isabel Arrigain](#)

Familia bidezko transmisioa goratzen dute gaur egungo pedagogo, **psikologo** eta bestelako apaiz laikoek, bestela gaztetxo sentiberentzako traumak sortzen direlakoan-edo. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Psikologia** eta puta: biak dira bota-behar baten hartzaile ordainduak; biak dira interes eta pasio berberaren antzezleak. [Iñaki Segurola](#)

1977an Lorna Selfe **psikologoak** *Nadia: A Case of Extraordinary Drawing Ability in Autistic Child* eman zuen argitara. [Xabier Olarra](#)

Uste dut "Norbere buruaren herra edo hisia", deitzen dutela, ingelesez, **psikologo** batzuek higuindura berezi hori. [Piarres Xarriton](#)

Sanpedro **psikologia** da eta sexologian aditua. [Berria - Euskal Herria](#)

**Psikologo** anderea, zugar konfiantza osoa dudalako, ene begiez miresten nuen bezala kontatuko dizut. [Itxaro Borda](#)

## 2 (izenondo edo izenlagunekin)

Gero eta urduiago dago biografoa, lotarako pastillak hartzen hasi da, **psikologo** adiskide batek atsedena hartu behar lukeela aholkatu dio. [Anjel Lertxundi](#)

F. W. H. Myers **psikologo** eszentrikoa zen salbuespen bakarra kontu hartan: izan ere, *Human Personality* mende-mugako liburua bikainean saiatu zen kalkulugile miragarriek beren emaitzak lortzeko zer prozedura erabiltzen zituzten aztertzen. [Xabier Olarra](#)

Oraingoan Barriek bere izaeraren erradiografia paregabea egin zuen, **psikologo** eta psikoanalista freudiarren gozamererako. [Julen Gabiria](#)

Handik bi egunetara, luze eta sakon mintzatu ziren gurasoak ospitaleko **psikologo** klinikoarekin, zeinak, gurasoei adi entzun ondotik, terapia-talde batean sartzeko aholkua eman zien. [Jose txo Azkona](#)

Herrien **Psikologo** mekanizisten maneran. [Joxe Azurmendi](#)

William James amerikar **psikologoak** duela mende bat esan zuen bezala: "Gertaerak erregistratzeko norberaren metodoak hobetzea da oroimena hobetzea". [Irene Aldasoro](#)

-Pentsatzen dut familiak konfiantzako **psikologo** bati informereren bat eskatuko ziola, espetxeko zuzendaritzari helarazteko... [Paddy Rekalde](#)

Eta Jonnyk, Mira Rothenberg **psikologo** bide-urratzaileak deskribatutako mutiko autistak,aldi batez ez zuen marraztu bonbillak edo bonbillaz osatutako eraikin edo pertsonak besterik. [Xabier Olarra](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hori dela-eta, **psikologo** lanak egitea egokitu zaio Bakerori. [Berria - Kirola](#)

Galiziako Xuntak, iragarri zuenez, Osasun Kontseilariatzako **psikologo** talde bat jarri zuen biktimen senideen eskura. [Berria - Mundua](#)

Beren partetik badute psikiatra eta **psikologo** ekipa bat igorria osasun zerbitzuek, sustengatzeko. [Herria](#)

**Psikologo** sarea osatzen ari da oraindik Osakidetzan. [Berria - Euskal Herria](#)

· Testu hori oinarri hartuta Irune Ibarra **psikologo**-grafologoak testamentuaren grafologia egin du eta liburuan agertzen dira azterketa horren emaitzak. [Berria - Kultura](#)

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emakumea artatu zuten auzi-**psikologoek**, berriz, uste dute emakumeak salaketa jarritakoan esandakoak sinesgarriak direla. [Berria - Euskal Herria](#)

## 5 (izenondo gisa)

Nire lagun **psikologo** batek zera dio, uste baino konbentzituago, sotana janzte zuela don Estebek bere hankaluzeko-komplexua gainditzeko sendagairik onena, eta horregatik egin zela apaiz. [Joan Mari Irigoien](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**psikologo batengana** (4); **psikologo jauna** (5)

**psikologoak azaldu** (3)

**psikologoaren esanetan** (3)

**psikologoaren laguntza** (5)

## psikomoral (*corpusean psiko-moral soilik*) izond alderdi psikologiko eta moralei dagokiena.

Uste dut, Unamuno-ren barrukoak benetan prozesu ikaragarri konplexuak izan direla, bizpahiru deskalkifikatibo **psiko-moralekin** sinplifikatzerik ez dagoenak. [Joxe Azurmendi](#)

## psikomotor (*orobat psikomotore*) izond jarduera psikikoekin loturiko gorputz mugimenduei dagokiena.

Azterapen **psikomotorra** du. [Berria - Harian](#)

Internetik gabe astebete egoteak dakarren abstinentzia sindromeak nolabaiteko astinaldi **psikomotorea** eragiten zuela zioen: adibidez, atzamarren nahi gabeko mugimendua. [Berria - Harian](#)

Nire ezintasun **psikomotoreen** artean, bazen honako hau ere: teklatu batean bost minutuan saka eta saka ibili behar nuenean, patata pure lodi itsaskor batean hondoratu izan banu bezain lirdingatsu jartzen zitzaidan eskua. [Joxan Elozegi](#)

-Nire eritasun **psikomotorearen** atala da hori ere. [Joxan Elozegi](#)

## psikomotore ik psikomotor.

## psikomotrizidade ik psikomotrizitate.

## psikomotrizitate (*orobat psikomotrizidade g.er.*) iz jarduera psikomotorra.

Hasieran, ukimena, entzumena eta ikusmena lantzea da egokiena; behin 6 hilabetetik aurrera mugikortasuna handiagoa da, eta **psikomotrizitatea** lantzea komeni da. [Berria - Euskal Herria](#)

Dantza eta kantua uztertuta **psikomotrizidadea** ere lantzen du Irrintzi Taldeak, txaloak eta kriskitinak joz, koreografiak eta pausoak dantzatzu... [Berria - Kultura](#)

**Psikomotrizitate** aldetik ondo zebilela esan zigun, eta ez ziola buru-inhibizio nabarmenik sumatzen. [Patxi Iturritegi](#)

Hameka gela badaude, liburutegia, informatika eta **psikomotrizitate** gela barne. [Herria](#)



---

psikonalista ik psikoanalista.

---

**psikoneurotiko** *izond* arazo psikikoen ondoriozko neurosiari dagokiona.

Gaixotasunaren izaera **psikoneurotikoari** buruz zalantza gutxi dago gaur egun. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Bestea, berriz, ikustun-identitatearen porrot edo inhibizioa, baina, bigarren kasuan, oinarri funtzionalekoa ("goitik beherako" trastornoa edo **psikoneurotiko**), nahiz eta berarentzat bestea bezain benetakoa izan. [Xabier Olarra](#)

---

**psikopata** (*orobat sikopata g.er.*) 1 *iz* psikopatia bat duen pertsona.

**Psikopatak** ez du loturarik ezartzen aurreko ekintzaren eta ondorengoaren artean; horregatik, egin duena ahaztu zaionean gosea datorkio; eta diruaren jatorria ahaztu duenean gastatzeari ekiten dio. [Pako Aristi](#)

Telebistako hilketak, gerrak, triskantzak, suteak, bonbardaketak, hilotz herrestak, ume bortxatuak, **psikopata** baten lasaitasunaz ikusten ditugu gure etxean. [Pako Aristi](#)  
Arrazoi bat egon behar baitzuen hilketaren ostean, noski, maniako sexualak, **psikopatak** eta gisakoak ez baitabilta sarraskiak elkarlanean antolatzen, bakarka beti. [Migel Angel Mintegi](#)

Bertan, **psikopata** baten pentsaerak eta motibazioak agertzen ditu ahalik eta modu ulergarrienean. [Berria - Kultura](#)

Gaztea da psikologoa, menturaz bokazioa dauka presoaren patu dohakabea hobetzeko, haren sofrikarioa ezitzeko, **psikopatak** sendatzeko edo izugileak ontzeko. [Koldo Izagirre](#)

Dena dela, **psikopatek** letxe txarrak ez dute, ezta? [Antton Olano](#)

2 (izenondo gisa)

Hiltzaile **psikopata** edo maitale goxoa. [Berria - Kultura](#)

3 (izenondo gisa; irud/hed)

Bulta handiaren buruan, ardiak jausten ziren tarrapataka, bata bestearen ondotik, gure deiei ihardetsiz bezain zakur **psikopatak** izuarazirik. [Itxaro Borda](#)

Armando Bonillak berak delectazio **psikopataz** aitortu baitzituen hemen paperean idaztekoak ere ez direnak, bere izugarrian. [Karlos Linazasoro](#)

Enpresa **psikopata**. [Berria - Kultura](#)

'The corporation' film dokumentalean kapitalismoaren oinarrian arakatu dute Mark Achbarrek, Jennifer Abottek eta Joel Bakanek, eta enpresaren izaera **psikopata** azalerratu [Berria - Kultura](#)

---

**psikopatia** *iz* buru eritasuna, joera antisozialak eta erantzukizun moralik eza ezaugarri dituen, baina adimen anormaltasunik ez dakarrena.

Epaimahaiak errugabea dela ebartziko balu ere, absolbitzeko edo, txarrean, bi urte eta erdiko kartzela zigorra ezartzeko eskatu du, «**psikopatiak** jota» omen dagoelako. [Berria - Euskal Herria](#)

Barneko ikasleeta batek zioenez, **psikopatia** sexualei buruzko frantsesezko eta ingelesezko liburu batzuetatik oharrak hartzen ikusi omen zuen. [Josu Zabaleta](#)

Arriskuaren lilura maite zuten, eta bazekiten **psikopatiaren** glamourra estimatzen. [Patxi Iturritegi](#)

---

**psikopatikoko** *izond* psikopatiarena, psikopatiari dagokiona.

Indarkeria eta armen erabilera larrigarri gisa hartu dituzte zinpekoek, eta, aringarri modura, berriz, Mendikutereren gaitz **psikopatikoa**. [Berria - Euskal Herria](#)

Perito batek, gainera, akusatua «nortasun nahaste **psikopatikoko** handia» duela esan zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

---

**psikopatologia** (*orobat psiko-patologia*) *iz* eritasun eta nahasmendu mentalen azterketa.

Anorexiaren oinarria, **psikopatologia** guztietan bezala, haurtzaroen dago. [Berria - Gaiak](#)

Idazlearen **psikopatologiak** aztertzen ditu, hainbat ertzetatik: zein diren sorkuntzaren mekanismoak, nolakoa den idazte prozesua, zergatik idatzi, nola idatzi, zer idatzi. [Berria - Kultura](#)

Horrela **psikopatologiak**, zientifikoa izateko nahia duen diskurtso legez, bera baino askoz lehenagokoa zen jardute diskurtsibo bat epistemologizatu zuen XIX. mendearren hasieran. [Xabier Arregi](#)

Ez zuela politikan sartu nahi; berak **psiko**-patologiaren mailan kokatzen baitzuen bere burua. [Txillardeggi](#)

---

**psikopatologiko** (*orobat sikopatologiko eta psiko-patologiko*) *izond* psikopatologiarena, psikopatologiari dagokiona.

XIX. mendeko azterketa **psikopatologikoek**, hauek ere buruko gaixotasunen ezagutza zientifikoko batetik ateratzen zirenak, paper oso ezberdina eta askoz ere garrantzitsuagoa jokatu dute eromenaren jakitean. [Xabier Arregi](#)

Freud-en analisi **psiko-patologikoak** -orduan berri-berriak- izpiritu espainolaren analisisirako baliatuko ditu. [Joxe Azurmendi](#)

Arreta **Psikopatologiko** eta Psikosozialeko Zerbitzuaren sortzaile eta zuzendaria da. [Berria - Euskal Herria](#)

---

**psikopedagogia** *iz* psikologiaren adarra, psikologia esperimetala pedagogian aplikatzean datzana.

Arten hiru jakintza gairen inguruko 18 ikastaro eskainiko dira: Gizarte Zientziak, Osasuna eta **Psikopedagogia**. [Berria - Euskal Herria](#)

**Psikopedagogiaren** arloan, besteak beste, Behin bazen idazketa ikastaroak izango dira Bergaran. [Berria - Euskal Herria](#)

Bertan Arrasateko Unibertsitateko **Psikopedagogia** Saileko zuzendari Matilde Sainzek ere parte hartu du. [Berria - Euskal Herria](#)

---

**psikopertzepzio** (*corpusean psiko-pertzepzio soilik*) *iz*

**Psiko**-pertzepzioaren maila. [Josu Zabaleta](#)

---

**psikopolitiko** *izond* (*corpusean sikopolitiko soilik*) *iz*

## psikorekatzaile *iz* psikea orekatzen duena.

Pilula **psikorekatzaile** batzuk eman dizkirate lasai nadin, poztu nadin -leher nadin?- egun seinatuotan, baina, hala ere, ezin ditut melankonia eta tristura ondo bereizi, infernua eta zerua ere ondo bereizten ez diren antzeratsu. **Anjel Lertxundi**

## psikosendagile *iz* psikologia aplikatzen duen sendagilea.

Gipuzkoako **psikosendagile** batek esplikatu du nola psikologia ezagutzeak eta bere burua maitatzeak laguntzen duen ere ondokoa eta Jainkoa maitatzen. **Herria**

## psikosexologo *iz* psikologia aplikatzen duen sexologoa.

Bertikaltasunaren libidoa, esaten diote horri **psikosexologoek**. **Karlos Linazasoro**

## psikosexual (*orobat psiko-sexual*) *izond* sexuaren alderdi psikikoari dagokiona.

Heldutasun **psikosexuala** iristeko. **Luis Elberdin**

Freud, Horney edo Bonaparterentzat, "baginako orgasmoa" zen bilakaera **psiko**-sexualaren gorena, Bada esan duenik koito modu hori haurtzaroko garapen **psikosexualeko** uzki aroan geratu direnen obsesio patologikoa dela. **Luis Elberdin**

## psikosi 1 *iz* buru eritasun larria, nortasunaren eta errealtatearekiko harremanen nahasmenduak ezaugarri dituena.

**Psikosiak** buruko gaitz larriak dira, eta askotan haurtzaroen eta nerabezaroen agertzen dira lehen aldiz. **Berria - Gaiak**

Izadiak edo Jainkoak zertarako sortu ote dituen autismoa, **psikosi** maniako-depresiboa, eskizofrenia eta halako gaixotasun lazgarriak. **Xabier Olarra**

Gaitz eskizofrenikoak, nahaste bipolarrak, eta **psikosi** organikoak. **Berria - Gaiak**

Ondotik, depresioak datoz, eta depresioaren atzetik, **psikosiak**. **Berria - Gaiak**

Ez da itauntzen "malenkonia" edo "deliriorik gabeko zortasuna" hitzei garai batean eman zaion zentzuari buruz, ezta "neurosi" eta "**psikosiaren**" edukien artean dagoen oposizioari buruz ere. **Xabier Arregi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Tuberkulosi- edo **psikosi**-zantzuren bat zirudien, edo eritasun neurologikoren bat. **Xabier Olarra**

### 3 obsesioa.

Behi erone saleriak azindakien kontsumoan sortu duen **psikosia** baretze aldera, testu polit bi ezarri dizkio Eroskik bezeroari. **Iñigo Aranbarri**

Ni horrelako gertakizunekin antsiatu nago, otsoen kontrako **psikosia** baitago zenbait tokitan. **Gotzon Garate**

Bilbon ezagutu genuena baino **psikosi** handiagoa zeukaten Londonen espioitzaren kontu horrekin. **Koldo Izagirre**

Laugarren kasua zen bi astetan, **psikosia** barreiatzen hasia zen, eta teknikaria aspertzen. **Jon Alonso**

Une honetan, 1 Formulako *padding*-ean kezka da nagusi, bi urte atzera egin izanaren **psikosia** zabaldu baita. **Berria - Kirola**

Bere ustez, garai bateko **psikosi** kolektiboak, flagelazioa eta dantza-epidemia bitxiak, haxixaren edo antzeko narkotiko baten gehiegizko kontsumoak eragin zituen. **Anton Garikano**

Bestelako trataeren gainetik gertaeren kontaketa morbosoak lehenesten direnean, emigrazioa bezalako ibai konplexua estereotipoen tantetara biltzen dugunean, "inbasioaren **psikosia**" gizentzen da. **Iñigo Aranbarri**

## psikosomatiko 1 *izond* eritasunez mintzatuz, etorki psikikoa duena.

Hipnosiak sona handia zuen XX. mendearen hasieran, eta hainbat gauzatarako erabiltzen zen; gaixotasun **psikosomatiko** eta hipokondriakoak sendatzeko, batik bat. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lana eta etxebizitza topatzeko zailtasunek eragindako gaitz **psikosomatikoak**. **Berria - Euskal Herria**

### 2 gorputzaren eta gogoaren arteko erlazioei dagokiena.

Griña eta hasarrea ez ditugu beti azaltzen, ondorioz dolua patologikoa bihurtzen ahal da, **psikosomatikoa**. **Herria**

Ez zituen kontu harekin garunak gehiago estutu nahi, baina ziur zegoen arrazoi **psikosomatikoak** zeudela tartean, eta aldatu bezala etorriko zirela, beraz, azazkal demonioak beren onera. **Karlos Linazasoro**

## psikosozial (*orobat psiko-sozial*) *izond* alderdi sozialak eta psikologikoak biltzen dituena.

Etxean tratu txarrak sufritzen dituzten emakume atzerritarrek Bilbo Zaharreko Auzolan bulego **psikosozialean** lortzen dute berehalako laguntza. **Berria - Euskal Herria**

Bestalde, lanak eragin ditzakeen «kalte **psikosozialak**» nabarmendu zituen. **Berria - Ekonomia**

Gaixotasun **psiko-sozialen** ondorioz izaten dira irakasleen baja gehienak. **Berria - Euskal Herria**

Gutierrezek eta Vallejek argi utzi nahi izan zuten bereizi egin behar direla buruko gaixotasunak, batetik, eta arrazoi **psikosozialek** eragindako sintomak, bestetik. **Berria - Euskal Herria**

Koito anorgasmia "arazo **psiko-soziala**" balitz, datu horiek fenomeno bizkor eta erabat kezagarria gertatzen ari dela adieraziko lukete. **Luis Elberdin**

Gizarte Ongizaterako Saileko kideek bultzatu dituzte Errehabilitazio **Psikosozialerako** Zentroak. **Berria - Harian**

Gure ustez, hemen 1980-1990 urteetako krisiak sekulako eragin **psikosoziala** izan zuen eta horren ondorioz, jende askorentzat unibertsitatea eta, oro har, goi hezkuntza, lan eta ongizaterako baldintza bihurtu zen. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## psikosoziologia (*corpusean psiko-soziologia soilik*) *iz* gizarte gertakarien azterketa psikologikoa.

Ahoz egiten diren komunikazio eta kultur agerraldiak asko dira; eta ahozko adierazpena ere ikuspuntu askotatik azter daiteke, erretorika, dialektika eta **psiko**-soziologiatik, besteak beste. **Berria - Kultura**

Jokin Apalategi, Euskal Herriko Unibertsitatean **psiko**-soziologiako katedraduna dugu. **Herria**

## psikosoziologiko (*corpusean psiko-soziologiko soilik*) *izond* psikosoziologiarena, psikosoziologiari dagokiona.

## psikosoziologo *(corpusean psiko-soziologiko soilik) iz* gizarte gertakarien azterketa psikologikoan aditua den pertsona.

Hasierako zatian Unamuno-k **psiko-soziologoren** bati segitzen dio. **Joxe Azurmendi**

## psikosuspergarri *izond* psikea suspertzen duena.

Azken boladan, gainera, ugaritu egin da kokaina eta **psikosuspergarrien** kontsumoa, ketamina eta sintesi drogekin nahastuta. **Berria - Euskal Herria**

## psikotekniko *(orobat sikotekniko) izond* psikologia baliatzen duena gizabanakoen gaitasunak aztertzeko eta sailkatzeko.

Aurkeztutako guztien arimak deskribatu zituen test **psikotekniko** pertsonifikatua egin ondoren, 700 aukeratu zituzten aurre-selektzioarako. **Unai Elorriaga**

Adibidez, azterketaren eskaria, urrats administratiboak edo azterketa **psikoteknikoak**. **Berria - Euskal Herria**

## psikoterapeuta 1 *iz* psikoterapian espezialista den pertsona.

Victor Frankl Austriako **psikoterapeuta** ezagunaren hitzetan, esate baterako, gizakiek ez dute osotasuna lortzen hiltzen diren arte. **Berria - Gaiak**

**Psikoterapeuta** baten kontsulta jarraitua ordaintzea eskaini nion, baldin eta uste bazuen lagunduko ziola. **Oskar Arana**

**Psikoterapeuta** batetara igorria izan nintzen. **Piarres Aintziart**

Onartuko al zenuke **psikoterapeuta** baten laguntza? **Oskar Arana**

Ez da 'droga' hitzaren sinonimoa, ez da epaitegi edota **psikoterapeuta** ergelen baten despatxura garraiatu nahi lukeen sasikumearen bikizat hartu behar. **Pako Aristi**

80ko urteetako guruak eta garai hartako **psikoterapeuta** pop haiek Werner Erhard bezalakoak negozio pertsona zorrotzak ziren. **Berria - Gaiak**

## psikoterapeutiko *izond* psikoterapiarena, psikoterapiari dagokiona.

Adin batetik aurrera teknika **psikoterapeutikoak** ez dira eraginkorrak. **Berria - Gaiak**

## psikoterapia 1 *iz* eritasun mentalen tratamendua metodo psikologiak erabiliz.

1920 ingurutik hasi eta 1960ak arte, gaixotasun psikiatrikotzat hartzeko joera izan zen, psikoanalisiak edo **psikoterapiak** tratatzeko. **Xabier Olarra**

Krisi egoeran gaudenean **psikoterapiak** bideak irekitzen laguntzen du. **Berria - Harian**

Ikertzaile batzuek esaten dute **psikoterapiarekin** bakarrik ere konpondu ahal dela depresioa, baina gehienetan ez. **Berria - Gaiak**

Ez zuen zerikusirik gure fakultatearekin, tesia idazten ari zen **psikoterapia** sexualaz, ez zuen denbora askorik sobera... **Anjel Lertxundi**

Franz Anton Mesmer: hipnosiaren eta egungo **psikoterapiaren** sortzailea. **Berria - Gaiak**

### 2 (hitz elkartuetan)

Astean behin **psikoterapia** saio bat eginez eta antidepresiboen laguntzarekin, laster sendatuko omen zen. **Patxi Iturritegi**

Diana Singer Argentinako Psikologia eta **Psikoterapia** Elkarteko kidea da. **Berria - Gaiak**

## psikotest *iz* test psikoteknikoa.

Hori jakiteko, **psikotest** bat egingo zaie, horretarako izendatutako tokietan. **Gotzon Garate**

## psikotiko 1 *izond* psikosiari dagokiona; psikosiak joa.

Haurren pentsamendua, herri "primitiboen" pentsamendua, antropologiak ustez bakandua zuen moduan, pentsamendu **psikotikoa**. **Josu Zabaleta**

Duela bost, krisi **psikotikoa** izan zuen. **Berria - Harian**

Erasoaren uanean «sintoma **psikotiko** larriak» zituela. **Berria - Mundua**

Nahaste **psikotikoekin** edo nahaste depresibo endogenoekin alderatuz, esaterako, garbi ikusten da hori: anorexia eta bulimia kasu askoren oinarrian aldaera genetiko bat dago, baina ez dira gaitz hereditarioak. **Berria - Gaiak**

Gaixotasun **psikotikoak** garaiz harrapatzea «garrantzitsua» dela diote adituek. **Berria - Gaiak**

Beste norbaitekin bizitzeko nire ezintasun ia **psikotikoaren** kronika baten moduan gogoratzen nituen bost urte haiek. **Anjel Lertxundi**

-Stalin gizatxar bat zen, hiltzaile **psikotiko** bat. **Oskar Arana**

Irabaztearen eta galtzearen arteko eremu hutsetako automata **psikotiko** oso. **Itxaro Borda**

### 2 psikosiak jotako pertsona.

**Psikotikoak** dira, gaixo daude, inoiz ez da ahaztu behar. **Berria - Harian**

Lurrikaren obsesio horrek (**psikotiko** batzuen fantasia apokaliptikoei bezala) ez ote zuen agerrarazten beraren barne-ezinegona, marraztean nonbait mendean hartzen saiatzen zena? **Xabier Olarra**

Gaixo haietako askori [...] ez zitzaion autismoa diagnostikatu ere egin gaztetan, baizik eta atzeratu eta **psikotikoekin** pilatu eta bildu zituzten haur-haurretatik instituzio erraldoietan. **Xabier Olarra**

## psikotrauma *iz* etorki psikikoko trauma.

Irfanka psikiatra da, eta gogotik lan egiten du gerrako **psikotraumen** arloan. **Berria - Harian**

## psikotropiko 1 *izond* prozesu psikikoei eragiten diena.

Burmuinaren sekretuak alde batera utziz, eta baztertuz halaber patologiaren arloan kokatzen diren eragileak eta sustantzia **psikotropikoak**, bada mamuen beste sortzaile bat, erabat erabakigarria dena: beldurra. **Bernardo Atxaga**

Barazkiak, laboreak, landare **psikotropikoak**. **Edorta Agirre**

Azidoa bere eragin **psikotropikoa** egiten hasi aurretik. **Patxi Iturritegi**

## 2 iz gai psikotropikoa.

Horretaz gainera, zenbait emozio-egoeraren arabera ere, berez aldatzen da begi-niniaren tamaina: beldurragatik, haserreagatik, **psikotropikoek** eragindako egoerengatik.

**Josu Zabaleta**

Denetarik probatu du: **psikotropikoetatik** zaldiraino, *-ina* guztietatik pasatuz. **Sonia Gonzalez**

1972an psikiatriko batean egon zen, eta irtenaldi batean, **psikotropiko** gaindosi batek hil zuen. **Berria - Kultura**

## psikozientzia iz prozesu psikikoen zientzia.

Beraz, errigortsuki *Volksgeistik* batere ez, baizik ez dakigu zein **psikozientziatako** eta erlijiotako zein arima, Unamuno-k eta bere lagunek inbentatua! **Joxe Azurmendi**

## pterodaktilo iz dinosaurio hegalaria, mintzezko hego handiak zituena, batez ere aldi Jurasikoan bizi izan zena.

Iraungiriko pakidermo bat, **Pterodaktiloa** boladan zegoenean ugaldtu zena. **Xabier Olarra**

## pteroma iz tenplu batean, kanpoko murruean eta peristiloaren arteko tartea.

Tenpluak zabalean hogeitaz baino gehiago izan behar baldin baditu, beste bi koloma jarriko dira bi pilastren tartean, pronaoa eta **pteroma** edo alboko portikoaren espazioa banantzeko. **Santiago Iruretagoiena**

## ptolomear ik ptolomeotar.

## ptolomeotar (orobat ptolomear g.er.) 1 izlag Ptolomeo astronomoarena.

Astronomia eta Biologia arloan, Maimonek bere garaiko **ptolomeotar** sistema (gure Lurra erdian zeukana) eta behe mailako bizidunenen berezko sortzapenari atxikia da.

**Xabier Kintana**

## 2 iz Ptolomeoen egiptoar dinastiako kidea.

Ez zuten axolarik jarri hegoaldeko itsasoetan; dela **Ptolomeotarrek**. Itsaso Gorriko ontzien bidez, jadanik inperioa osatua zutelako, dela pertsiarrengan itsasoarekiko axolagabezia garaitezina aurkitu zutelako. **Iñaki Iñurrieta**

Alexandriak bere **Ptolomeotarrak** izan zituen; Bagdadek, berriz, bere kalifa artezale eta zientziatzaleak. **Jon Muñoz**

Eskuizkribuen ehiza jarri zuten abian kalifek, mila urte lehenago **Ptolomeotarrek** abian jarritakoaren berdin-berdina, alde guztietatik. **Jon Muñoz**

Erromatarrek hartu zutelako kontrola ahultzen ari ziren seleukotar eta **ptolomeotarrengandik**. **Iñaki Mendiguren**

## puaa interj nazka edo mespretxua adierazten duen hitza.

**Puaa** ! Natxoren odol iluna! Atzera egin dio buruak. **Patxi Iturritegi**

## puaaa interj nazka edo mespretxua adierazten duen hitza.

**Puaaa** ! Kristoren sarraskia. **Patxi Iturritegi**

## puagg interj nazka edo mespretxua adierazten duen hitza.

**Puagg** , xanpaina hau gozoegia da! **Lopez de Arana**

Minutu bakar batzuk ziren Matilde ezagutzen zuenetik, eta etxe ezagutu berri batean ezin da "Puff" esan; are gutxiago, **"Puagg"** edo "Ag" plater baten aurrean. **Unai Elorriaga**

## puah interj nazka edo mespretxua adierazten duen hitza.

**-Puah** ! -hots egin zuen emakumeak, hotzikaturik-. **Xabier Olarra**

## puaj interj nazka edo mespretxua adierazten duen hitza.

Ez dut gehiago pentsatu nahi, izan nahi ez dudala pentsatzen dudalako naiz, zera pentsatzen dut... zeren... **puaj** ! ihesi noa, doilor horrek hanka egin du, haren gorputz bortxatua. **Monika Etxebarria**

To! Eh! **Puaj** ! Oh! Eh! **Xabier Olarra**

## pub iz taberna txikia eta dotorea, non edariak zerbitzatzen eta musika entzuten baita.

Dagoeneko gonbitaturik nago Karl honen hirian, Estonian, bere **pub** gustukoenetan edateko. **Edorta Jimenez**

Tabernak, **pub** eta kafetegiak erruz eta nonahi, han-hemenka club bereziak eta baita diskotekak ere. **Joxemari Iturralde**

Wilkes kapitainak kontatu digunez, bada han *estaminet* bat; **pub** antzeko kafe-etxeko bat dela dio. **Mirentxu Larrañaga**

Camden Town Station-eko metro ondoan zegoen **pub** batean, The White Swan-en, elkartuko zirela adierazi zion Maddalenek, arratsaldeko bostetan, ongi bazetorkion.

**Joxemari Iturralde**

Nahiko modu ergelean hasi zen dena, hiriko koktelik onenak zerbitzatzen dituzten **pub**-ean. **Iban Zaldúa**

Afariko ostatuan eta aurreko bi **pub**-etan bezala, Anak zirkinik ere ez zuen egin bere poltsa irekitzeko, barrara ordaintzera hurrandu ginenean. **Aingeru Epaltza**

**Pubean** txokolatinak erosi eta aluminiozko paperarekin joaten ziren komunera. **Pako Aristi**

Burua, ordea, ez zuen argi, eta **pubeko** argitasun eta abarrotsera joaten zitzaion gogoa. **Irene Aldasoro**

Chapelizod zubiko **pubera** iritsi zenean, barrura sartu eta pontxe bero bat eskatu zuen. **Irene Aldasoro**

Nire aurrean, **pubetik** ezagutzen nituen bi gizonetako zeuden, berrogei bat urte ingurukoak. Juan Martin Elexpuru

Han barra bat dago, ostatu dotore edo **pubetan** izaten ohi den zur ilunekoa, baina pipiatua eta higatua. Aingeru Epaltza

Alde batean, irlandar **pub** ospetsu horren aurrean, ingelesak daude. Edorta Jimenez

Mutil hori dela eta ez dela, atzo ez nintzen **pub** irlandarrean sartu berak aurrea hartu zidalako. Patxi Zubizarreta

Ni nahiko ondo moldatzen naiz, edatekorik egonez gero; txunta-txunta disko-**pub**-a ez den bitartean, noski. Sonia Gonzalez

Vagalume ilun zegoen, putetxe **pub** guztien moduan. Paddy Rekalde

## pubalgia iz pubiseko mina.

Aspalditik **pubalgia** du Gurpegik. Berria - Kirola

Gerard: **pubalgia** dauka, eta tratamenduan dago. Berria - Kirola

Egin dizkieten bi ebakuntzekin azken hilabeteetan izan duen **pubalgia** osatzea espero du Gurpegik. Berria - Kirola

## pubela iz zakarrontzia.

-Badakizu -esan zion hark-, hiri berriko **pubelak** hobeak dira. Pablo Sastre

## puber izond/iz pubertarora iritsi dena. ik nerabe.

Hamabi Tauletako legeak ageriko lapurra zigorkatzea agintzen zuen, eta joputzen jartzea, **puber** bazen; edota zigorkatzea besterik ez, **puber** ez bazen. Iñaki Iñurrieta

Pentsatu zen komenigarria zela hiritar guztiei beren testamentua egiten uztea herriaren gorputzaren ordezkari gisa hartutako zenbait erromatar **puberren** aurrean. Iñaki Iñurrieta

## pubertaro iz haurtzarotik gaztarorako iragaitza gertatzen den garaia, ernal aparatuen heldutasuna dakarrena. ik nerabezaro.

*Aitortzak* liburuan bere haurtzaroko, **pubertaroko** eta nerabezaroko oroitzapenak aurkitzen ditugu. Imanol Unzuurrungaza

**Pubertarora** iristearrekin batera, zenbait aldaketa izango zituzten geure gorputzek, hala nola ileak haztea aurregian, besapeetan edo sabelpean... Xabier Mendiguren Elizegi

Gutxi gorabehera esaten duenez, neska bat **pubertarora** iristen denean, bere baitan biltzen omen da, eta bere gorputzean gertatzen diren mirarizko gauzez gogoeta egiten hasten omen da. Josu Zabaleta

Estresak **pubertaroa** aurreratzen duela diote. Berria - Gaiak

Ez nuen soinekoa erantzi nahi, orbanak non zeuden ikusteko, eta nire ugatz berriak tira egiten zidan mingarriro azaletik, **pubertaroan** bezala. Joxan Elozegi

Ez nuen soinekoa erantzi nahi, orbanak non zeuden ikusteko, eta nire ugatz berriak tira egiten zidan mingarriro azaletik, **pubertaroan** bezala. Joxan Elozegi

## pubis 1 iz sabelaldearen behealdea, pubertaroan ilez estaltzen dena. icksabelpe.

6.000 milioi urte behar izan dira begien aurrean duzun hori lortzeko; gorputz hori, sexu hori, forma horiek, biribiltasun horiek, **pubis** hori, ezpain horiek. Luis Elberdin

Giza primatea tente jarri zenean, **pubisa** trinkotu eta laburtu egin zen, eta horrek klitoria oraindik gehiago urrundu zuen baginatik. Luis Elberdin

Orgasmoa **pubis** kokxizetako giharren uzkurdura nahi gabekoa eta espasmodikoa da. Luis Elberdin

Gogotik gustatzen zaizkit **pubis** iletsuko emakumeak, ez naiz ileak larru-arras mozteko zale, ipar-ekialdean askok egiten duen bezala. Karlos Zabala

Uste dut Charo Lopezek egin zuela bertan striptease lardarts baina erabateko bat eta huraxe izan zela nik ikusitako emakumezko lehen **pubisa**, beltz-beltza, begi-ninian eta garunetan iltzaturik geratu zitzaidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Lizunki begiratu zion, goitik behera, bular irmoetatik hasita arretaz apaindutako **pubiseko** bilo kizkurrak egiten zuen triangeluan bukatzeko. Migel Angel Mintegi

Bere **pubiseko** goroldioa sarria zen, eta triangelu perfektua markatzen zuen. Juan Martin Elexpuru

Hasierako eroaldi horren ondotik, tripaz gora jarri nintzen sofan, gorputz erdia zintzilik, hankak zabal eta luze, **pubisa** harro eta ausart. Karlos Zabala

### 2 (gizonezkoena)

**Pubiseko** lesio bat dela eta, Donostiako aurrelariak ez du partidarik jokatu iragan otsailaren 23az geroztik. Berria - Kirola

Gaur bertan egingo diote lehen ebakuntza **pubisaren** alde batean, eta astelehenean, bestean. Berria - Kirola

Javier Clementek aitortu zuenez, jokalaria fitxatu aurretik bazekien **pubisean** arazoak zituela. Berria - Kirola

**Pubiseko** osteopatia, mingarria eta sendatzen zaila omen da. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pubiseko ilea** (3); **pubiseko osteopatia** (3)

## publierreportaje iz publizitate erreportajea.

Eta zin egiten dut ez nuela lehenagotik ezagutzen, ez nuela ezein iragarki edo herri-telebistako **publierreportajetan** ikusi, ez nuela ideia fimiñorik ere eraikin horren itxuraz, ezta interes berezirik ere hartan, Aintzaneke bere aferaren babesleku izan zela kontaktu zidan arte behintzat. Iban Zaldúa

## publikatu, publifika, publikatzen da/du ad publiko bihurtu.

Gipuzkoan eta Araban, aldiz, ez da hainbestekoa, aurretik zeuden haur eskolak publikoak zirelako edota **publikatu** egin direlako», azaldu dute. Berria - Euskal Herria

## publikazio iz publiko bihurtzea.

Batzuek, frankismoa ezagutu zutenetako haietako batzuek, gaitzetsi egin zuten sozialistek bultzatutako **publikazioa**, proposamen honek inork ere ez dakien interes isilak gibelesko aldean zituela-edo, omen, atzenez, jakina, legea EAJk eta EEK ere sinatu zutela. Pello Salaburu

Indargabetu egin dute irakasleak **publikazioan** funtzionario bihurtzeko legea. Berria - Euskal Herria

Batzuek gogo onez, beste batzuek ezinbestean, den-denek onartu zuten begi-bistakoa zena, eta azkenean trauma handirik gabe burutu zen **publikazio** prozesua. Joxerra Garzia

Eusko Legebiltzarrak helegiteen aurka argudiatu duenez, legearen aldaketa «ikastolen **publikazio** prozesu konplexuan» onartu zen, «irakasleak batzea bermatzeko asmoz». Berria - Euskal Herria

# publikano iz antzinako Erroman, Estatu errenten, zergen eta meatzeen errentatzailea.

Eta ez al dakizue fariseoei erran ziela ezen **publikanoak** eta putak aitzinetik izanen zituztela zeruko erresuman? [Joan Mari Irigoien](#)

Ni elizako azken aukilan jartzen zen parabolako **publikanoa** naiz, eta ez ditut segurantzak, baina esperantzak. [Joan Mari Irigoien](#)

Aberats edo pobre, farisau edo **publikano**, handimandi edo bizi arineko emazte; Jesusek denak onartzen ditu, denak maitatzen, eta badakigu zoinen eskualdea hartu izan duen; ordukoak eta orainkoak ere hain segur. [Herria](#)

## publikarazi, publikaraz, publikarazten du ad publikatzera behartu.

Patxi Zabaleta Aralar alderdikoa "persona non grata" izendatu du Euskal Preso Politikoaren Kolektiboak, duela gutti ETako sei preso historikoren iritzia, borroka armatuari uko egiten zion eskutitz bat, **publikarazi** zuelako *Diario de Noticias* nafar egunkarian. [Herria](#)

## publikatu (154 agerraldi, 17 liburu eta 79 artikulutan; cf argitaratu 4282 agerraldi, 202 liburu eta 1883 artikulutan), publika, publikatzen 1 du ad argitaratu. (liburu eta kidekoak)

Idazle baten egitekoa idaztea eta **publikatzea** da. [Ana Urkiza](#)

Horregatik **publikatzen** zuen aldian-aldian halako miszelanea bat. [Unai Elorriaga](#)

Arturo Campionek liburuxto bat **publikatu** zuen hari buruz *Victor Hugo* tituluarekin. [Koldo Izagirre](#)

*Piarres Adame* liburua, lehenago Donibane Lohitzuneko *La Nivelle* aldizkari "gorrian" eta *Le Réveil Basque* astekari errepublikazalean atalka **publikatu** bazen ere, osorik lehendabizikoz 1888an argitaratu zen, Pauen. [Pablo Sastre](#)

Lance Armstrongek, liburua **publikatzen** bada, kereila jarriko diela mehatxu egin die bi kazetari. [Berria - Kirola](#)

«Entre les loups cruels» ipuin bilduma **publikatua** du euskaraz eta frantsesez. [Herria](#)

Ordu berean, Liberazio garaian, "Eskualduna" ez baitzuten onesten Frantziako agintari berriek, "Herria" astekariaren **publikatzen** hasten da Baionan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

[Jean Baptiste Etxarren](#)

Horregatik **publikatzen** zuen aldian-aldian halako miszelanea bat. [Unai Elorriaga](#)

### 2 (testu eta kidekoak)

Arazo nagusia txostenak garai **publikatzeko** ezintasuna izan da. [Berria - Ekonomia](#)

Joan den agorriean **publikatu** dekretuari begira. [Berria - Harian](#)

*Maariv* egunkariak atzo **publikatu** zuenez, Sharonen Gazako kokaguneetan ura eta argindarra kentzeko asmoa du. [Berria - Mundua](#)

### 3 (bestelakoak)

1937. urtean Jean Etchevers, Donibaneko eliza ondoko botikariak egin marrazkiak liburuño batean **publikatu** zituen. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Los Angelesko greziar egunkariak haren argazki bat **publikatu** zuen kamarero jantzian. [Pablo Sastre](#)

Zer behar zuen mezu hori meza denboran **publikatu**! [Michel Oronoz](#)

1961etik aurrera Newtonen biluzirik onenak **publikatu** zituen Vogue aldizkariak. [Berria - Kultura](#)

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Garai horretantsu haren artikulu **publikatuetan** ere jada tindu arrazialistako pasarteak ez dira ments. [Joxe Azurmendi](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**publikatzeko eskatu** (3)

## publikatze iz argitaratzea.

**Publikatze** kontuetan trabarik handiena ni nerau izan naiz beti. [Ana Urkiza](#)

## publikazio 1 iz argitaratzea; argitaratzen den gauza. ik argitalpen.

Atzo ere izan zen hildakorik eta manifestazirik Mahomaren karikaturen **publikazioak** sortutako polemika eta protesta uholdearen haritik. [Berria - Mundua](#)

Nik dakidala, euskarazko bi **publikazio** nagusietan, *Berrian* eta *Argian*, kontzeptu hori bera da beti aipatzen dena. [Hasier Etxeberria](#)

*Expansion* eta *Marca* dira *Recoletosen* **publikazioetako** batzuk. [Berria - Ekonomia](#)

Kritika onak eta aurkako jarrerak izan ditu **publikazioak**. [Berria - Harian](#)

Miren Eraso Iturriotz Artelekuko Dokumentazio eta **Publikazioetako** arduradun eta Zehar aldizkari zuzendaria. [Berria - Kultura](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Kalkuluak ateratzeko eta balioesteko nire espazio guztia da, lankide batzuk, zenbait harpidedun edo erosle eta irakurle tipu bat, **publikazio** kostuak, publizitatea, subentzioak, eta beste elementuren bat. [Joxe Azurmendi](#)

## publiko 1 izond herriari edo estatuari dagokiona; estatuaren gain dagoena. ik herri 3.

Zerbitzuen unibertsaltasuna eta izaera **publikoa** (ez pribatua, ez kontzertatua) ezinbestekoa da. [Berria - Harian](#)

Sukaldeko leihotik erakunde **publiko** batek betetzen zuen eraikina ikusten zuen. [Jon Alonso](#)

Askoz ere apalagoa dela EAEko administrazio **publikoak** unibertsitateko hezkuntzan egiten duen ahalegina. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Kontratu guztiak publikoki erregistra daitezela, hiritar guztiak izan dezatela eskubide agiri ondo ordenatuak kontsultatzeko, banku **publikoa** sor dadila. [Juan Martín Elexpuru](#)

Ikerlari gisa proiektu askotan hartu du parte, finantzazio **publiko** nahiz pribatuekin. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Ildo beretik eragin handia du gastu **publikoaren** egiturak ere. [Iñaki Heras](#)

Horren ondorioz, egoera zibil autuetan frogarik legezkoena erregistro **publikoetatik** datorrena da. [Andres Urrutia](#)

Mogueimek, zeharkaldi honetan, bi helburu **publiko** ditu, eta beste bat pribatua. [Jon Alonso](#)

Gizartearen onerako zerbitzua izanik, izaera pribatu nahiz **publikoa** duten erakundeek osatzen dute sistema osoa. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Ez nolanhiko gatazkak, gainera, ikastolak **publiko** bihurtzearen alde atera zen jendea, holakoetan sistematikoki gertatzen denez, antieuskaldunen zakuan sartzen ahalegingu baitziren. [Pello Salaburu](#)

Bere jokamolde profesionala guztiz ezhohikoa da telebista kate **publikoen** artean. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Euskal irriti **publiko** bateko kazetaria. [Iñigo Aranbarri](#)

Edozein enpresa, pribatua edo **publikoa** izanik ere, esfera **publikoaren** partaide da, helburu eta ondorio **publikoak** baititu; hortaz, legitimazio **publikoa** behar du enpresak. [Iñaki Heras](#)



## 2 agerikoa, jendurrekoa; gizarlean ezaguna dena.

Zeren 42 idazle suediarrek protesta **publikoa** egin baitzuten literatura eta bakearen sarien kontra. **Pello Salaburu**

Idazlearen idazkia edo testua da konta den bakarra sozialki, ez idazle horren agertze **publikoak**. **Ana Urkiza**

Idazlea gizon **publiko** bat denez, erantzukizun publiko eta politiko bat du. **Berria - Kultura**

Ez ote dugu ordea, pertsiarren bazar (merkatu, bilera **publiko**) delakotik geureganatua hitz hori [...] ? **Patziku Perurena**

Exekuzio **publikoak** arratsean izaten ziren. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ikusgarri **publiko** guztietan da komenigarria erantzuna edo feedbacka. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Bizitza **publikoa**, orohar, bizitza eredu baten antzezpena bilakatu da. **Pako Aristi**

Nere ofiziorik **publikoan** (zitzu jotze lanak, alegia) hortzak hondatu izana, edonoren zentzagarri izan beharko luke. **Patziku Perurena**

Asiar batentzat, humiliazio **publikoa** ! **Ramuntxo Etxeberri**

Lotsaren gizartea da, lotsa **publikoa** jasan ezin duten gizonen gizartea. **Askoren artean**

Esaldia -merez du aitoren **publiko** bat- Joxe Landarena da. **Iñaki Segurola**

Antzina Frantzian auzi kriminalak **publikoak** zirela, eta erromatarren epaiketa publikoen ez oso desberdinak. **Iñaki Iñurrieta**

Urte horietan pertsonaia **publiko** ospetsua bilakatu zen Pirandello. **Josu Zabaleta**

Emakumezko idazlea idazle **publikoa** dela esango zenuke? **Ana Urkiza**

Proposamena «**era publikoan**» aztertuko dutela agindu dio Parlamentuko Eskaera Batzordeko presidentek. **Berria - Euskal Herria**

## 3 edonorentzakoa.

Pertsona bat plaza **publikoan** erretzea. **Joxe Azurmendi**

Herriaren Adiskideen Elkarteko batzar **publiko** batean. **Jon Muñoz**

Irakurri dudanez, zakil-bururik erabiliena, zakil-buru **publikoa**, nolabait esanda, benetako besaulki bat omen zen. **Karlos Zabala**

Esate baterako, autobusa "hiri-garraioko ibilgailu automobil **publiko** handi" bihurtu da. **Xabier Olarra**

Times Square-an barrena joan nintzen gau minean kabina **publiko** batera. **Joxe Austin Arrieta**

Jardin **publikoetan** gelditzen nintzen zigarro bat erretzera. **Pello Lizarralde**

-Telefono **publiko** batetik? **Ramuntxo Etxeberri**

la komun **publiko** guztiak ziren horrelakoak: zementuan egindako zulo bat, koska bana zuena bi aldeetan oinak jartzeko eta kukubilkatzeko. **Joseba Urteaga**

Taberna batetik irten eta, bidean iturri **publiko** bat topatu ezean, beste taberna batera jo behar. **Xabier Montoia**

Orkestrek musika alaiak jotzen dituzte pasealeku **publiko** guztietan. **Josu Zabaleta**

Ematen du berori ez dela ohartzen [...] ezkongabe gelditzera tematzen den gizona tentazio **publiko** bihurtzen dela betiko. **Antton Olano**

Tenplu sakratuak, foroa eta gainerako leku **publikoak**. **Santiago Iruretagoiena**

Aldez edo moldezko zerbitzari automatikoak [...] biderkatuko dira jan-edariak kontsumitzen diren toki **publikoetan**: hotel, jatetxe, komentu, restop, ikastetxe, lantegiko jantoki eta antzekoetan. **Edorta Agirre**

## 4 hiritarrei eragiten diena.

Ez baldin bazaio Printzeari puntualki obeditzen, ordena **publikoa** iraulia da ez da gehiago estatuan batasunik eta beraz, ez lankidetzarik, ez bakerik. **Piarres Xarriton**

Ordena **publikoa** hautsi duzualako salaketapean. **Aingeru Epaltza**

Spainian komunistak ez ezik tabernak ere arrisku **publiko** direla. **Javi Cillero**

Gizonak gaiztakeria jakin bat ez dela beraren aurkakoa pentsatzen badu, ez da saiaturko egilearen kontrako haserre **publikoa** pizten. **Juan Martin Elexpuru**

Zeren dirurik gabe ezin baita gerra egin, ezta bake **publikoa** gorde ere. **Esteban Antxustegi**

Lege zibil egokiak dira [...] ohituren iturburu, jabetzaren palladiuma, eta bake **publiko** eta partikular ororen bermea. **Andres Urrutia**

Baita gure arazo **publiko** zein pribatuetan aurrera joatea ahalbidetzen dituen ere. **Esteban Antxustegi**

## 5 prostizioari lotua dagoena.

Salbuetsi egiten zituen **emakume publiko** batengandik jaiotakoak. **Iñaki Iñurrieta**

Hogeita sei urterekin birjina zen oraindik, ez zuen horrelako emakumerik ezagutzen, eta inoiz ez zen etxe **publikoetara** joaten. **Jose Morales**

Horrrela esaten zaie etxe **publiko** batzuei. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Leku **publiko** batzuetan, mutil gazteak neska jantzian eta neska gazteak mutil jantzian prostituitzen ziren. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## • 6 iz ikusleak, entzuleak.

Bi boxealariak ringera igo zirelarik **publiko** osoak 'Ali buma ye!' oihukatu zuten. **Ramuntxo Etxeberri**

Bertsolaritzaren **publikoa** ez da belaualdi tarte jakin bat edo euskaldun mota berezi bat. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Klasikoak horregatik direlako klasiko: irauten dakitelako eta mende bateko zein besteko **publikoa** berdin harrapatzen dutelako. **Julen Gabiria**

Terminologia teknikoa espezialisten esparru murrizta baino askoz ere zabalagoa zen **publiko** bati azaldu behar izatetik. **Santiago Iruretagoiena**

Batzuek eta besteek osatzen dute gure **publikoa**. **Andoni Egaña**

Sundancen **publikoaren** saria jaso berri duen filma ere emango dute, *No one*. **Berria - Kultura**

Mintegi guztiak jendetsuak izan dira, eta eztabaida bizi eta parte-hartzaileak ikusi ditugu, baita **publikoaren** aldetik ere. **Berria - Mundua**

Mezaren emaiten berriz, lagundu du Ratzinger kardinalak **publikoaren** aitzinean, parte batzu harek erranez. **Herria**

Aurrean egokitzen zaion **publikoaren** arabera. **Ramon Saizarbitoria**

**Publikoaren** arteko batzuek protesta adierazi nahi zuten imintzioak eta eztlak egin zituzten. **Jon Alonso**

Hik emozioa eragin badezakek **publikoaren** artean dagoen sentimendu bat ukituz, ez daukak filigranatan hasi beharrik. beste hamabost animazio talde, musikan, antzerkian edo esku jokoetan ibiliko direnak eguneha eta gauera **publikoaren** erdian. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## 7 (izenondoekin)

Arratsaldean, Oxtikenera heltzean, ez ginuen, ez, **publiko** haundirik gure zain! **Herria**

Bi eratako entzuleengan pentsatuz dago idatzia: aipatutako "profesional" horiek osatzen dutena batetik eta, askoz ere modu esanguratsuagoan, **publiko** aditu baina profanoak osatzen duena bestetik. **Santiago Iruretagoiena**

Albait **publiko** zabalenera iristeko asmoz. **Koldo Izagirre**

Bilboko **publiko** gupidagabearen jarrera odolzaleaz. **Edorta Jimenez**

Betiko **publiko** aisia zale eta aristokrataren belarriak heroien eta jainkoen istorioekin gozatu ordez, Hesiodok eguneroko bizitzara eta gizon arruntaren jardun-nekeetara zuzendu zuen begirada. **Anjel Lertxundi**

## 8 (hitz elkartuetan)

Honek ez du esan nahi horietan denetan abaniko zabalagoetarako lekurik ez dagoenik, baina batez beste **publiko** multzorik sendoenak soslai jakinekoak izaten dira. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Orokorrean, kultur adierazpen bakoitzak, askotan talde eta artista bakoitzak, neurri handi batean **publiko** perfil jakin bat izan ohi du. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

## 9 alderdi publiko ik alderdi.

## 10 emakume publiko ik emakume.

## 11 ez-publiko izond

Publizitatetik, subentzioetatik eta salmentatik bizi dira hedabide **ez-publikoak**. **Hasier Etxeberria**

## 12 iritzi publiko ik iritzi 14.

## 13 ministerio publiko ik ministerio 6.

## 14 publiko egin jendaurrean ezagutzera eman.

Ohar-kontuak norberaren bizitza pribatu eta partikularrari dagozkio, edo hala beharko luke, baina Hankapalok **publiko egiten** zituen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Agiri horiek ez direla **publiko egingo** berrogeita hamar urte baino lehenago. elkarrizketen emaitzak **publiko egitea** : bi aldeko su-etena hiru hilabetez luzatzea; akordio honen berri martxoaren 27an ematea. **Iban Zaldua**

Kontu epaitegiek garbi utzi dute kontua zein den, Espainian bederen, 2002ko urtearen azken hilabeteetan argira eman dituzten txostenetan, inoiz ere eman ez diren milaka ikastaroren zerrendak **publiko egin** dituztenean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Polizia jo eta su ibili zen haren bila, baina albista **publiko egin** gabe, ez baitzituzten herritarrak eta turistak beldurtu nahi. **Patxi Zubizarreta**

*The New York Times*-ek **publiko egin** du barne dekalogoak: [...]. **Iñigo Aranbarri**

**Publiko egin** zituzten martxoko datuetan, Alderdi Demokratik halako bi irabazi zuten errepublikanoek. **Berria - Mundua**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**administrazio publiko** (6); **alarde publiko** (5); **bilkura publiko** (10); **bilkura publiko bat** (6); **biltzar publiko** (13); **biltzar publiko bat** (7); **botere publiko** (11); **defizit publiko** (9); **diru laguntza publiko** (7); **diru publiko** (19)

**egitura publiko** (10); **ekitaldi publiko** (14); **enpresa publiko** (19); **eragile publiko** (8); **eraikin publiko** (10); **erakunde publiko** (65); **erakunde publiko bat** (5); **erakunde publiko batek** (9); **eremu publiko** (5); **erosteko eskaintza publiko** (16); **eskaintza publiko** (28); **eskola publiko** (53); **eskola publiko berriaren** (14); **euskal eskola publiko** (16); **etzabaida publiko** (9); **etzabaida publiko bat** (5)

**ikastetxe publiko** (11); **inkesta publiko** (10); **inkesta publiko bat** (6); **iritzi publiko** (15); **kargu publiko** (9); **komon publiko** (5); **laguntza publiko** (14); **lehiaketa publiko** (14); **lehiaketa publiko batek** (5); **leku publiko** (22); **leku publiko askotan** (5); **liburutegi publiko** (5); **parke publiko** (5); **pertsonaia publiko** (5)

**publiko egin** (86); **publiko egin aurretik** (5); **publiko egin duten** (5); **publiko egin zuen** (7); **publiko egindako** (15); **publiko egingo** (16); **publiko egitea** (16); **publiko egiteko** (7); **publiko egiten** (5); **publiko eta pribatu** (6); **publiko eta pribatuaren** (5); **publiko eta pribatuaren** (8); **publiko eta pribatuaren** (6); **publiko zabal** (13); **publiko zabal bati** (6); **publiko zabalari** (10)

**saltzeko eskaintza publiko** (5); **sistema publiko** (6); **telefono publiko** (6); **toki publiko** (7); **unibertsitate publiko** (8); **zentro publiko** (5); **zerbitzu publiko** (46); **zerbitzu publiko bat** (6)

**agerpen publikoa** (5); **agerraldi publikoa** (15); **agerraldi publikoa egin** (6); **alarde publikoa** (7); **aurkezpen publikoa** (5); **babes publikoa** (6); **bake publikoa** (8); **bilkura publikoa** (8); **bizitza publikoa** (6); **bulego publikoa** (14); **defizit publikoa** (58); **defizit publikoa izan** (7); **desordena publikoa** (14); **desordena publikoa eragin** (5); **diru publikoa** (62)

**ekitaldi publikoa** (7); **enpresa publikoa** (21); **erabat publikoa** (5); **erabilera publikoa** (6); **erakunde publikoa** (44); **erakunde publikoa sortu** (7); **eremu publikoa** (6); **erosketa eskaintza publikoa** (6); **erosteko eskaintza publikoa** (41); **eskaintza publikoa** (94); **eskaintza publikoa egin** (7); **eskaintza publikoa egingo** (8); **eskaintza publikoa egiteko** (6); **eskola publikoa** (45); **euskal eskola publikoa** (10); **euskararen bulego publikoa** (6); **euskararen erakunde publikoa** (18); **etzabaida publikoa** (16); **garraio publikoa** (49); **gastu publikoa** (24)

**ikerketa publikoa** (9); **inkesta publikoa** (9); **interes publikoa** (10); **iritzi publikoa** (53); **irudi publikoa** (8); **izaera publikoa** (9); **kapital publikoa** (5); **kontrol publikoa** (7); **kudeaketa publikoa** (9); **laguntza publikoa** (7); **lan eskaintza publikoa** (26); **lehiaketa publikoa** (11); **nafarroako unibertsitate publikoa** (7)

**onura publikoa** (8); **ordena publikoa** (22); **osasun publikoa** (11); **pribatua eta publikoa** (5)

**publikoa eta pribatua** (7)

**salaketa publikoa** (6); **saltzeko eskaintza publikoa** (10); **sare publikoa** (7); **sektore publikoa** (8); **sistema publikoa** (27); **sostengu publikoa** (5); **telebista publikoa** (7)

**unibertsitate publikoa** (15); **zerbitzu publikoa** (35); **zor publikoa** (24)

**adierazpen publikoak** (5); **administrazio publikoak** (14); **baliabide publikoak** (5); **bilkura publikoak** (9); **botere publikoak** (23); **defizit publikoak** (5); **desordena publikoak** (12); **desordena publikoak eragitea** (5); **diru laguntza publikoak** (24); **diru publikoak** (13)

**egitura publikoak** (6); **ekitaldi publikoak** (5); **elkarte publikoak** (8); **enpresa publikoak** (13); **eraikin publikoak** (20); **eraikin publikoak garbitzen** (5); **erakunde publikoak** (44); **eremu publikoak** (6); **erosteko eskaintza publikoak** (6); **eskaintza publikoak** (14); **eskola publikoak** (44); **euskal eskola publikoak** (9); **euskararen erakunde publikoak** (14); **finantza publikoak** (8); **garraio publikoak** (12)

**ikastetxe publikoak** (5); **iritzi publikoak** (50); **irriti publikoak** (8); **kargu publikoak** (8); **kate publikoak** (7); **konpainia publikoak** (6); **kontu publikoak** (21); **laguntza publikoak** (33); **lehiaketa publikoak** (5); **ministerio publikoak** (9); **nafarroako unibertsitate publikoak** (21); **obragintza publikoak** (9); **ontziola publikoak** (7)

**onura publikoak** (5); **osasun publikoak** (11); **osasun zerbitzu publikoak** (9); **politika publikoak** (6)

**publikoak eta pribatuak** (11); **publikoak nahiz pribatuak** (5)

**sare publikoak** (9); **sektore publikoak** (10); **sistema publikoak** (11); **sozietate publikoak** (7); **telebista kate publikoak** (5); **telebista publikoak** (17)

**unibertsitate publikoak** (37); **zerbitzu publikoak** (85)

**administrazio publikoan** (5); **agerraldi publikoan** (6); **arlo publikoan** (11); **bizi publikoan** (33); **bizi publikoan sartzeko** (5); **bizitza publikoan** (14)

**erakaskuntza publikoan** (9); **eremu publikoan** (10); **eskaintza publikoan** (11); **eskola publikoan** (51); **esparru publikoan** (6); **euskara bizi publikoan** (12); **funtzio publikoan** (6); **garraio publikoan** (16); **hezkuntza publikoan** (11); **hezkuntza sistema publikoan** (8)

**irakaskuntza publikoan** (10); **iritzi publikoan** (21); **irriti publikoan** (8); **kate publikoan** (5); **lan eskaintza publikoan** (5); **nafarroako unibertsitate publikoan** (26)

**osasun publikoan** (9); **sare publikoan** (49); **sektore publikoan** (16); **sistema publikoan** (15); **telebista publikoan** (24)

**unibertsitate publikoan** (40)

**diru publikoarekin** (14)

**administrazio publikoaren** (11); **alderdi publikoaren** (5); **arlo publikoaren** (5); **botere publikoaren** (7); **bulego publikoaren** (7); **defizit publikoaren** (6); **diru publikoaren** (11)

**enpresa publikoaren** (5); **erakunde publikoaren** (19); **eskaintza publikoaren** (9); **eskola publikoaren** (42); **espazio publikoaren** (5); **euskal eskola publikoaren** (19); **euskararen erakunde publikoaren** (9); **garraio publikoaren** (28); **gastu publikoaren** (13); **hezkuntza publikoaren** (7)

**interes publikoaren** (5); **irakaskuntza publikoaren** (6); **iritzi publikoaren** (63); **iritzi publikoaren aurrean** (20); **irriti publikoaren** (5); **lehiaketa publikoaren** (5); **ministerio publikoaren** (5); **nafarroako unibertsitate publikoaren** (8)

**obragintza publikoaren** (6); **on publikoaren** (5); **onura publikoaren** (8); **ordena publikoaren** (11); **osasun publikoaren** (27)

**publikoaren aitzinean** (5); **publikoaren aldetik** (6); **publikoaren arabera** (7); **publikoaren artean** (17); **publikoaren arteko** (12); **publikoaren aurrean** (39); **publikoaren erdian** (5); **publikoaren eta pribatuaren** (9); **publikoaren saria** (28)

**sare publikoaren** (14); **sektore publikoaren** (10); **sistema publikoaren** (13); **sozietate publikoaren** (5); **talde publikoaren** (5)

**unibertsitate publikoaren** (19); **zerbitzu publikoaren** (20); **zor publikoaren** (7)

**defizit publikoari** (5); **erosteko eskaintza publikoari** (5); **eskaintza publikoari** (9); **iritzi publikoari** (25)

**diru publikoak** (6)

**administrazio publikoari** (6); **botere publikoari** (29); **erakunde publikoari** (22); **kargu publikoari** (7); **zerbitzu publikoari** (6)

**administrazio publikoek** (15); **agintari publikoek** (6); **botere publikoek** (76); **erakunde publikoek** (90); **eskola publikoek** (6); **zerbitzu publikoek** (9)

**botere publikoekin** (6)

**administrazio publikoen** (17); **botere publikoen** (39)

**enpresa publikoen** (16); **eraikin publikoen** (7); **erakunde publikoen** (72); **erakunde publikoen babespean** (6); **erakunde publikoen diru** (5); **erakunde publikoen esku** (5); **eskola publikoen** (7); **finantza publikoen** (14); **garraio publikoen** (5)

**ikastetxe publikoen** (6); **kontu publikoen** (15); **laguntza publikoen** (6)

**obra publikoen** (5); **ontziola publikoen** (8); **politika publikoen** (6); **unibertsitate publikoen** (6)

**zerbitzu publikoen** (49)

**administrazio publikoetako** (33); **administrazio publikoetako ministro** (12); **administrazio publikoetako ministroak** (6); **basuriko eraikin publikoetako** (5)

**eraikin publikoetako** (9); **eraikin publikoetako garbitzaileek** (3); **erakunde publikoetako** (13); **eskola publikoetako** (31); **eskola publikoetako atek** (3); **eskola publikoetako jantokien** (3); **espainiako administrazio publikoetako** (12)

**ikastetxe publikoetako** (9)

**zerbitzu publikoetako** (12)

**eraikin publikoetan** (6); **erakunde publikoetan** (9); **eskaintza publikoetan** (3); **eskola publikoetan** (49); **esku publikoetan** (4); **gai publikoetan** (4); **gai publikoetan parte** (4); **garraio publikoetan** (11); **gune publikoetan** (7); **hedabide publikoetan** (4)

**ikastetxe publikoetan** (24); **kargu publikoetan** (5); **kommunikabide publikoetan** (5); **leku publikoetan** (52); **leku publikoetan erretzea** (18)

**osasun zerbitzu publikoetan** (4); **ospitala publikoetan** (3)

**telebista publikoetan** (6); **toki publikoetan** (11)

**unibertsitate publikoetan** (16); **zerbitzu publikoetan** (38)

zerbitzu publikoetara (7)  
administrazio publikoetarako (29); administrazio publikoetarako ministro (5); administrazio publikoetarako ministroak (17); espainiako administrazio publikoetarako (10)  
erakunde publikoetatik (10)  
administrazio publikoko (11); alderdi publikoko (4)  
erabilera publikoko (5); erakunde publikoko (11); eskola publikoko (27); eskola publikoko burrasoek (5); euskararen erakunde publikoko (5); funtzio publikoko (7); garraio publikoko (4); hezkuntza publikoko (4)  
interes publikoko (30); interes publikoko erakundea (10); interes publikoko erakundearen (5); irakaskuntza publikoko (18); nafarroako unibertsitate publikoko (34)  
onura publikoko (6); ordena publikoko (13); osasun publikoko (18); osasun publikoko zuzendari (4); sail publikoko (4); sare publikoko (18); segurtasun publikoko (4); sektore publikoko (7); telebista publikoko (11)  
unibertsitate publikoko (41); zerbitzu publikoko (6); zuzenbide publikoko (4)  
eskola publikora (4); lehiaketa publikora (5); sare publikora (9); telefono publikora (4)  
erabilera publikorako (6); osasun publikorako (7)  
adierazpen publikorik (5); diru publikorik (7); eskaintza publikorik (6); laguntza publikorik (8); zerbitzu publikorik (4)  
bizitza publikotik (8); diru publikotik (5)  
diru publikoz (8); eskaintza publikoz (4)

## publikodun *izond* publikokoa.

Neurri arautzaileak, zerbitzu sare publiko integralekoa eta politika fiskal justuan oinarritutako finantzaketa **publikoduna**. Berria - Euskal Herria  
Eta baldin bazuten, nahiko pribatua izango zen, eta beti ere, trazio **publikoduna**. Unai Iturriaga

## publikoki *adlag* ageriki, era publikoan.

**Publikoki** edo pribatuan proposaturikoa. Esteban Antxustegi  
Aipatu dudan ohorezko itun isil horrek [...] ez dizkigu plazaratzen uzten, **publikoki** eta agerian bederen, beste mota hauetako galderak. Pello Salaburu  
Inork ez zuen hartaz **publikoki** hitz egiten. Bernardo Atxaga  
**Publikoki** egingo zuela bere, gogoak eman ahala, txakur arrek emeekin ohi dutenez. Juan Garzia  
Gure fedea **publikoki** praktikatzen ahalko genuela. Marzel Etxehandi  
Tratu txarrak **publikoki** salatu zituen lehen emakumea. Berria - Gaiak  
Sarkozyk joan den igandean **publikoki** jakinarazi zuen zein ziren proiektuaren edukiak. Berria - Harian  
Udaletxeko zenbait arkitekto **publikoki** kritikatu dute egitasmo hori. Txema Ramirez de la Piscina  
Badira kasuak, Alemaniak Gernikako bonbardaketatik adibidez, nazio batek bere erantzukizuna **publikoki** onartu duena. Joseba Zulaika  
Horra Toni Batista kazetari kataluniarrak bere buruari **publikoki** egin zion galdera: [...]. Txema Ramirez de la Piscina

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esan zuen publikoki (3); publikoki adierazi (3); publikoki agertu (3); publikoki agertzea (3); publikoki egin (4); publikoki esan (6); publikoki jakinarazi (5); publikoki jakinarazi zuen (3); publikoki onar (3); publikoki onartu (4); publikoki salatu (4)

## publikotasun *iz* publikoa denaren nolakotasuna, publikoa izateko zertzelada.

Ikastolen **publikotasunari** buruzko esperientzien azterketa kritikoa eta proposamenak. Berria - Euskal Herria  
Natalia Rojok, berriz, Uraren Agentziaren **publikotasuna** bermatuko dela adierazi zuen. Berria - Harian  
Idazketak finkatu egiten ditu ideiak, eta berari esker ezar daiteke sekretua; baina usadio hori ez denean, auzibidearen **publikotasunak** bakarrik finka ditzake ideia horiek. Iñaki Iñurrieta  
Emakumeari **publikotasunera** jauzi egitea kostatu egiten zaio. Ana Urkiza  
**Publikotasuna** idazleak ere eskatzen duen onura da ala gehiegi mediatizatutako gizartearen eskabidea? Ana Urkiza

## publizidade ik **publizitate**.

## publizista 1 *iz* publizitate-eragilea.

Gillermo Viglione *Dimensión* enpresako **publizistak** publizitatea eta aro digitala izan zituen hizpide [...] EHU-ren Udako Ikastaroetan eskaini zuen hitzaldian. Berria - Euskal Herria  
Batek baino gehiagok esan izan du sarkasmoz betetako pertsona izan behar zuela Erik Gorriak -edo mundu maltzur honetako lehen **publizistetako** bat, agian-. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Belaunaldiz belaunaldi iritsi zaizkigun atsotizetatik hasi eta egungo olerkari abangoardistenen espermentazioekin buka, umeen leloetatik eta **publizisten** esaldi biribiletatik igarorik. Iñaki Arranz

## 2 artikulugilea.

Historialaria eta **publizista**, zenbait urtez Turingo *La Stampa* egunkariaren zuzendaria izan zen. Fernando Rey  
Jose Mari Bidador **publizistarentzat**, euskal historia eta literaturaren alde ere lan eskerga egin zuen Jimeno Juriok. Berria - Kultura  
Oregongo Unibertsitatean gradua hartu ondoren, 1924ean San Franciscoran joan zen bizitzera eta **publizista** lanak egin zituen. Ramon Etxezarreta

## publizitario *izond* publizitatearena, publizitateari dagokiona. ik **publizitate 3; iragarki 2**.

Panel **publizitario** erraldoi eta koloretsuak. Juan Luis Zabala  
Horiek nora iritsi, dena bihurtzen da han Highway, hots, alde banatako hesi-kartel **publizitarioz** jositako mundua. Joxe Austin Arrieta  
Beste gasnategi handiak espazio **publizitarioak** erosten zituen, *Basque de Caractère* omen zen gasnaren goraiatzeko. Itxaro Borda  
Kongresuetan, unibertsitatean, iragarki eta mezu **publizitarioetan**, [...] frantsesa erabiltzea babestu eta bultzatu zuen Legeak. Koldo Zuazo  
Sendotasuna eta bortiztasuna dute adierazpenean, eslogan **publizitarioen** indarra, baina aldi berean enigma baten anbiguotasuna uzten dute airean. Berria - Kultura  
Lehen inpaktuan indar handia dute, eslogan **publizitarioen** antzera. Berria - Kultura  
Estrategia **publizitarioak** zer ikusi handia du gerrarenarekin, erabiltzen den lexikoak nabarmen asko salatzen duenez. Joxerra Garzia  
Nik egingo nuke dena amarru **publizitarioa** dela, kapitalekoak hona etor daitezen prozesioan. Josu Landa  
1.500.000 euroko dirutzari etekin **publizitarioa** atera behar diogu. Berria - Kirola

Haien ustez, EITBn agertutako kanpaina, informatiboa izan beharrean, **publizitarioa** baino ez da. **Berria - Euskal Herria**  
Gaur egun **publizitarioa** deituko genukeen erretorika batez. **Bernardo Atxaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**etekin publikitarioa** (5)

**publizitate** 1 *iz* berri, iritzi edo kidekoen zabalkundea; zabalkunde hori egiteko bitarteko multzoa; merkataritza-helburuak direla medio, jendearen gogoia erakartzeko teknika.

**Publizitatea**, gure garaiko diskurtsorik eraginkorrena, behar bezala ulertzeko. **Joxerra Garzia**

"Persuasioa", bestalde, batez ere **publizitate** eta propagandaren eremuetan erabiltzen den kontzeptua da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Horixe baita, azken batean, **publizitatea**: errealitatea edertzen duen ispilua. **Joxerra Garzia**

Irudia beti da polisemikoa, **publizitateak** ondotoxo dakienez. **Joxerra Garzia**

Ez zitzaion bururatu hain maisuki erabiltzen zituen antolaketa politikoa, **publizitate** eta propagandako metodo garaikideak berak, erasotzen zituen kotoi-lantegiak bezain "mendebaldarrak" zirela. **Iñaki Mendiguren**

Ardoaren **publizitatea** debekatzeko duen Evin legea. **Berria - Ekonomia**

Saltoki erraldoi honek egun askotako **publizitatea** ordaindu du medioetan, bazetorrela adieraziz. **Pako Aristi**

Bakoitzari berea esan behar izaten zaio publikizitatean, **publizitate** hori eraginkor izan dadin. **Joxerra Garzia**

Etsaiaren **publizitatea** zen, eta guk irentsi. **Koldo Izagirre**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Telebistako **publizitate** garestiaren zenbateko handi bat atzera bueltan etortzen zaie. **Berria - Mundua**

Apaizen sermoiarri propaganda ofiziala eta film amerikarretako **publizitate** subliminal guztia erantsita, ondorioa zen gu ezkerreko agian bai, baina komunista ez ginela sentitzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta hori dena, kontseilari batek zioen bezala, **publizitate** handirik inon egin gabe. **Herria**

*Egunkaria*-k, lehen aldiz, **publizitate** txikia eta handia lortzeko taldeak sortu zituen. **Berria - Euskal Herria**

Ekainaren 14ean inauguratu zuten, **publizitate** handiz eta lehen ministroaren aurrean eginiko ekitaldi batez. **Berria - Mundua**

Aukerak milaka dira eta ezin hasiko gara ezkutuko **publizitatea** egiten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **publizitario**.

Haize hotzak paper zaharrak eta supermerkatuetako **publizitate**-orriak astindu eta bazterretara eramaten zituen. **Iñaki Zabaleta**

**Publizitate** -foiletoan ikusi dut badituzuela tailer mekanikoak, zurgintza, informatika gelak, negutegi bat eta hori guztia. **Jesus Mari Mendizabal**

Dena ez da liburuak sinatu eta **publizitate**-argazkiak egitea, badakizu. **Iñaki Mendiguren**

Animaziozko lanak, dokumentalak eta milaka **publizitate** iragarki. **Berria - Kultura**

**Publizitate** oholak eta antzekoak egiten genituen. **Berria - Kultura**

Faroen argi-zipritzinak zuhaitzetan, etxeetan, **publizitate**-paneletan eta telegrafo-zutoinetan barreiatuak. **Lopez de Arana**

Artikuluetan, literatur lanetan, liburu izenburuetan, **publizitate** esaldietan. **Iñaki Arranz**

Estatubatuar film puztuetan agertzen diren **publizitate** konpainien luxu faltsua. **Iñaki Zabaleta**

**Publizitate** kanpaina probokatzailerik eta txinpartadunak. **Iñaki Zabaleta**

Uraren Munduko Foroa, **publizitate** ariketa hutsala izan da, mamirik gabekoa. **Berria - Gaiak**

Idatzitako milaka orrialdeek, gertalekuetan bertan jasotako informazioak, dokumentazio lan eskergak, bai eta haren **publizitate** zentzuak ere, Zolaren ospea finkatu zuten.

**Karlos Zabala**

**Publizitate** arloko sariak. **Berria - Euskal Herria**

**Publizitate** sailako langileen profesionaltasunaz. **Berria - Euskal Herria**

Aukera horri heltzeko **publizitate**-saltzaileek, albiste-agentziek, presio-taldeek, alderdi politikoez eta gobernu totalitarioez trebetasuna izan zuten, eta eskrupulurik ez. **Iñaki Mendiguren**

Kontsumitzailea baldin bada jaun eta errege, nolatan onartzen dituzte produktoreek hainbesterainoko **publizitate** gastuak. **Iñaki Heras**

**Publizitate** tartea aprobetxatuz. **Patxi Iturrategi**

**Publizitate** etenaren ostean. **Joxerra Garzia**

Hantxe dihardut oraindik ere, ikus-entzunezko komunikazio eta **publizitate** kontuak irakasten. **Joxerra Garzia**

## 4 iragarkiak.

Bost axola zait igandeko gehigarriko **publizitatea**. **Lopez de Arana**

Etiketak eta **publizitatea** euskarara itzultzen. **Berria - Harian**

Ezinezkoa zen eraikinaren goialdeetako **publizitatea** ikustea, guardasolek dena estaltzen baitzuten. **Lutxo Egia**

Claude Bartolone PSko ordezkariak «**publizitate** gezurtia» egiteaz akusatu zuen eskuineko gobernuak. **Berria - Ekonomia**

**Publizitate** engainagarri eta maltzurra egiteagatik. **Berria - Euskal Herria**

**Publizitate** sexista erabiltzen duten komertzio eta enpresak zeintzuk diren aztertzei eskatu du Euskal Herriko Bilgune Feministak. **Berria - Euskal Herria**

Langileek sua piztu dute lanaren hasierari beste animo bat emateko: oholazko **publizitate** erraldoia kokatu dute lurrean. **Pako Aristi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**publizitate agentzia** (4); **publizitate ariketa** (3); **publizitate bidez** (3); **publizitate handiz** (3); **publizitate iragarki** (3); **publizitate kanpaina** (22); **publizitate kanpaina bat** (6); **publizitate kanpainak** (13); **publizitate orri** (4); **publizitate sexista** (4)

**publizitatea egin** (4); **publizitatea egitea** (3); **publizitatea egiteko** (3); **publizitatea egiten** (7); **publizitatea jartzeko** (3); **publizitatea jartzen** (4); **publizitatea lortzeko** (4); **tabakoaren publikizitatea** (5)

**publizitatearen bitartez** (3)

**publizitadedun** *izlag* publikizitateko.

Kartelak ere euskaraz ikusten dira, eta zinemaldian **publizitadedun** hesietan ere euskaraz kartel bat gutxienez badago. **Berria - Euskal Herria**

**publizitatu**, publizita, publizitazen 1 du *ad* publikizitatea egin.

Naval publikoa, Athletic **publizitatu**a eta euskarazko prentsarentzako diru laguntzak, murriztagoak. **Berria - Kirola**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

LAben eta UGTren arteko bilera **publizitatuak** ezker abertzalearen eta sozialisten arteko harreman ildo bide onean doala adierazten du zalantzarik gabe. **Berria - Euskal Herria**

## **pudore** *iz* moralaz, eta batez ere sexuaz, gizarteak eskatzen duen jokabidearen begirunea. **iklotsa 7; lotsa 13.**

Linuzko galtzak jantzita lo egin dezatela, horrela sexu-organoak ezin ukitu ahal izateko, eta **pudorea** gordetzeko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Seguru aski ere, amodio kontu lizunok adieraztekoan kultura kristauak eragindako **pudore** edo lotsaizuna dela medio. **Patziku Perurena**

Higuinetik sortu behar dute **pudorea** eta kastitatea, haurrak gorozki zikinen sorlekutzat dauzkan gorputz-parteeek eragiten dioten nazkatik. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Batzuetan bitxikeria harrigarriak ere aurkitzen dira: zenbait herritan **pudore** handiz janzen da, baina ohiturekin ez da gauza bera gertatzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Entseiatzen baitzen, aitzitik, **pudoreak** edo bere izaiteko moduak hartaraturik, sentimenduen gordetzerat eta estaltzerat. **Joan Mari Irigoien**

## **puerilitate** *iz* umekeria, haurkeria.

Haurrentzat idazten duena **puerilitatearen** gaitzak jo dezake eta. **Patxi Zubizarreta**

## **puertorricar** (*orobat* **puertorricar**, **puertorricoar**, **puertorrikar** eta **puertorrikotar**) **1 izlag** Puerto Ricokoa, Puerto Ricori dagokiona.

**Puertorrikotar** musika kolpe bat joan zen ihesi arropa-denda bateko atea irekitzean. **Iñaki Zabaleta**

Jatorri **puertorricoarreko** perkusionista joan zen urtarrean ospitaleratu zuten Valleyen (New Jersey); pneumonia eta bihotzeko arazoak zituen. **Berria - Kultura**

### **2 iz** Puerto Ricoko herritarra.

**Puertorricarra** naiz! **Koldo Izagirre**

**Puertorricarren** parade honetan inor ez da bere jaioterriko hizkuntzan mintzo: ingelesa da nagusi. **Harkaitz Cano**

Saint Patricks egunean milaka gaitero irlandarrek New York inbaditu eta ibaia orlegiz tindatzen duten era berean inbaditu eta kolapsatzen dute **puertorrikarrek** ere hiria, beren dantza, zarata eta banderaxoekin. **Harkaitz Cano**

Geltokiik kanporatzean fruitu tropikalak saltzen ari zen **puertorrikotar** ambulante baten mahaira hurbildu zen eta bananak erosi zizkion. **Iñaki Zabaleta**

**Puertoricarrak**, esaterako, ugarituz joan dira azken lau urteotan (%20ko hazkunde tasa), eta demokraten alde indartsu lerrotaketen ari direla esaten da. **Berria - Mundua**

## puertorricoar ik **puertorricar**.

## puertorricotar ik **puertorricar**.

## puertorrikar ik **puertorricar**.

## puertorrikotar ik **puertorricar**.

## puesto ik **postu**.

## **puf**<sup>1</sup> *interj* nekea-edo adierazten duen hitza. ik **puff**.

**Puf** !... beti gazte izan behar horrek ematen dituen lanak gogoratze hutsak edozein nekatzen du. **Iñaki Segurola**

**-Puf** ! Beti berdin, beti presaka -Angie pentsatzen jarri zen-. **Iñaki Zabaleta**

Filosofatze sano baten puntzoiak geure izpiritua zulatzen duenetik aurrera, **puf** ! zenbat zikinkeria hustutzen den!... **Patziku Perurena**

## **puf**<sup>2</sup> *iz* banako jarlekua, bizkar, beso eta oinik gabekoa, apala eta biguina.

Plastikozko **puf** erraldoi batek ipuinetako nanoaren tronoa irudikatzen zuen. **Jasone Osoro**

Horren ondorioz, bateko beladorea besteko mahaizarra bezain handia zen, eta **pufa** Parrottinen sorbaldaren parean egonen zen. **Monika Etxebarria**

Kolore arrosa eta laranja fluoreszente besaulkiak, 60ko urteetakoak, manka hankadunak, *copie Knoll garantie*, diseinu eskandinaviarreko platerak, plater hegalarien itxurako hautsontziak, **puf** biribilak, apaingailu psikodelikoez hornituriko tapizak. **Joxan Elozegi**

**Puf** bat, besaulki baxu bat, apalategi bat plegu-hamabireneko zenbait libururekin, beladore pertsiar txiki bat. **Monika Etxebarria**

## **pufaka** *adlag*

Etxeko ezkaratzean izarren azpian asto bat zegoen; bastak jarrita, **pufaka** ari zen. **Pablo Sastre**

## **puff** nazka-edo adierazten duen hitza. ik **puf**<sup>1</sup>.

Minutu bakar batzuk ziren Matilde ezagutzen zuenetik, eta etxe ezagutu berri batean ezin da **"Puff"** esan; are gutxiago, "Puagg" edo "Ag" plater baten aurrean. **Unai Elorriaga**

**Puff** hau usaia! utikan zakurra! **Patziku Perurena**

**Puff**, pentsatzea ere! **Patziku Perurena**

## **pugil** *iz* boxeolaria.

Mikel Irigoien Telletxea Oñatiko Zorua, berriz, faborito dator, errendituak ditu eskualdetako **pugil** guztiak. **Berria - Kultura**

## pugilato iz ukabilka borroka.

Eta trukatzeko horiek **pugilatoa** bezain araututa zeuden, gogoan izango baituzu, noski, alor horretantxe irabazi zituela Pitagorasek Olinpiadak. **Jon Muñoz**

## puinale ik puñal.

## puja 1 iz kimua, ernamuina, begia.

Gero aihen hariak ateratzen ziren, eta gero **pujak**. **Anton Garikano**

**Puja** berrietatik sortutako hostoek adarrak betetzen dituzte udaberrian. **Imanol Zurutuza**

Belarra ordea luze zegonan, kimu berriz betea, eta jendeak *diane* esaten dien **puja** gorri altuz betea. **Anton Garikano**

Ez, natura berritzen den urtaroa izanik ere, haziak ernatu eta landare berriak sortzeko garaia, **puja** eta kimuak ateratzeko sasoa, udaberrian ere ez du gupidarik heriotzak.

**Imanol Zurutuza**

## 2 puja egin

Gizonak orduan **puja** egin zuen, hots, otoitz sakratuak esan zituen. **Gotzon Garate**

## pujatu, puja(tu), pujatzen du ad lehiatu.

Elkarri **pujatzen** aritzen ziren, txapa kendu eta hots handiena nork aterako. **Berria - Kultura**

## pukadu iz mokadu (?).

Negu beltzeko elurte zurietan, goseak ebakitako larrabere gaixoak ote mordoaren gaineko elurrik haundixkona besoekin aztalkatu eta, arantzeko **pukadu** berderen bat edo beste ahora eraman nahian ikusteak, nor ez ote du hunkitu edo errukitu? **Patziku Perurena**

Txantxangorriak, bere betiko jarrera oldarkor lotsagabe horrekin, inondik inola ere, bere **pukadu** eta jostailu goxoa (sugegorritxoa, alegia), salbatu besterik ez duela egin nahi.

**Patziku Perurena**

## pukatu ik bukatu.

## pul ik pula.

## pula (orobat pul) iz ipar multzoa.

16 pilotari, launazkako lau **pula** edo multxotan: A multxoan ariko dira Oyhenart, Haroçarene, Sorhaitz, Kurutcharry. **Herria**

Gero izanen dira bi **pula**: A **pula** osatuko dute Lafitte-Biscouby, Larrechea-Oçafrain, Ibarrola-Mayte eta goragoko lau horien bigarren aterako denak. **Herria**

A **pulean** ariko dira Lafitte-Biscouby, Larrechea-Oçafrain, Ibarrola-Mayte eta Carricart-Heguiabehere. **Herria**

**Puletako** partidetan abiatuak dire: gizonak sei pare, nexkatoak hiru pare. **Herria**

## pulamendu ik fundamentu.

## pulamentu ik fundamentu.

## pularda iz oilo gizendua.

Oilo eta **pulardak**, arrain eta xipak, burutik buru dila besta uhuratu. **Patziku Perurena**

## pulit ik polit.

## pulitu, puli, pulitzen du ad leundu.

Tira, pentsatu zuen, kortesia fin hari eutsiz eta ezker eskuko behatzak mantelaren gainean luzatuz, ederki **pulitu** eta erabiltzeko prest dagoen erreminta bat mekanikoak aztertzen duen bezala atsedaldi batean, halakoxeak dira lagunek inori eskatzen dizkieten sakrifizioak. **Anton Garikano**

## pulitzaile iz leuntzailea.

Baskulagile, kaxagile, guardamontista, kanoigile, guarnidore, **pulitzaile**, grabatzaile, giltzagile... **Koldo Izagirre**

## pullit ik polit.

## pullman iz luxuzko autokarra, turistentzakoa.

Batean autobus bat izan zen, **pullmana**, eta bestean limusina bat, biak ere neure keinuz gerarazi ahal izan nituenak; nire txoferrak besteei grekeraz hitz egin, eta haiek aurrera jarraitu, ordea. **Joxe Austin Arrieta**

## 2 luxuzko bagoia.



Traje urdin berridun gizon gaztea fardel distiratsua atontzen ari zen, **Pullman** ohe-bagoiaren konpartimenduko txoko estuetan. **Mirentxu Larrañaga**

## pulmonia *iz* biriketakoa, birikeria. ik **alborengo**.

Edo **pulmonia** bat harrapatuko ote zenuen, trenaren zain zeundela, bizikletan izerdituta. **Bernardo Atxaga**

Nahiz eta pauso bizkorrean berotzen zihoa ez zuen luzaroan arropa haiekin ibiltzerik **pulmonia** bat harrapatu nahi ez bazuen. **Unai Iturriaga**

Horrela harrapatzen dira **pulmoniak** ! **Joan Mari Irigoien**

Hotz handia egiten zuen, eta hura etortzerako, **pulmonia** gaizto bat harrapatua nuen. **Karlos Linazasoro**

Politikan sartu zen urte hartan bertan, 1947an, egin zuen bere «gramatika partikularra», gaixo, **pulmoniarekin** ohean zetzala **Berria - Kultura**

## pulo *iz ipar* pila, pilo.

Aitzur ukaldika harrotzen zuten lurra eta lohi **puloak** bazterrean metatzen. **Itxaro Borda**

Mutikoak, orduan, errabiaz elge malkarreko iratze eta ote-goroztun **puloak** barreiatzen zituen, madarikatua zela errepikatuz. **Itxaro Borda**

Martxo erditsutan, hormek egunak zurpailtzen zituztenean, pentze biluzien azaletan sator **puloak** turrupilo biderkatzean. **Itxaro Borda**

Kerguelen su- **pulo** baten gainean hedailo mustupilka lerratzen zela ikustean, Txoko urguiluz hantu zen. **Itxaro Borda**

## pulpa 1 *iz* mamia.

Ba omen du elikagairik, nahikoa atsegina denik, **pulpa** dezente baitu bere arantza-puntta horien atzetik. **Pello Zabala**

## 2 erremolatxa-azala, pentsuan botatzen dena.

### 3 orea.

Txominenak egin dik, pentsatu nuen, guztientzat derbirako sarrerak izanda ere **pulpa** odoltsu bat eginda utziko zutela kalkulatzu, eta nire burua non babestu bilatuz. **Jon Alonso**

## pulperia *iz* Ameriketako denda modukoa, denetarik saltzen duena.

Sartu ginen arratsaldean Santo Tomáseko **pulperia** batean -zeina baitzen, hobeki uler diezadazun, saltoki suerte bat, tabernatza ere har zitekeena, non zerbitzatzen baitziren jan-edanak, mota orotako produktuak saltzeaz gain-. **Joan Mari Irigoien**

Domitila, berriz, lauetan jaiki, familiaz arduratu, goiza salteñak (patata, haragi eta baratxuriz betetako enpanadak) saltzen, eta **pulperian** (dendan) kola eginez igarotzen du. **Pablo Sastre**

Gero **pulperia** txiroetan pasatu behar izan genituen gauak eta langa asko ireki-itxi behar izan genituen *Cuchilla Negra*-ko basabideetan. **Juan Garzia**

## pulpito ik **pulpitu**.

## pulpitu *(orobat pulpito g.er.)* 1 *iz* elizetan, sermoia egiteko mintzaleku garaia.

Aldareari erreberentzia egin, **pulpitura** igo eta predikatzen hasi zen. **Askoren artean**

Igo zen anai Filipe **pulpitora** sermoia egitera eta oso debozio handiz predikatu zuen. **Askoren artean**

**Pulpiturako** eskaileraren azpian zegoen, harmonioaren ondoan. **Bernardo Atxaga**

Cunningham jauna eta Kernan jauna **pulpituaren** ondoko bankuetako batean zeuden. **Irene Aldasoro**

Erromako Kuriaren aurrean predikatzen ari zelarik, goian zegoen harrizko **pulpituan** axolagabeki utzitako harritarz astun bat, gehiegizko presioak eraginda, emakume baten buru gainera erori zen. **Askoren artean**

Hemeretzigarren mende osoan Basarteko ideologia hori gorputzen joango da pixkana-pixkana, **pulpituetatik** lehendabizi, karlistadetako guda-eremuetan gero. **Anjel Lertxundi**

Beren **pulpituko** erretolikaz aspertzen gaituzten burugabe txotxolo horiek. **Karlos Zabala**

Euskal Herriko elizetan ere, entzulegoa zabalagoa litzateke, **pulpitoaren** alboan, Harlemen bezala, bateriajole bat balego. **Harkaitz Cano**

### 2 irud/hed

Eta zientziaren **pulpititik** berriz ere arbiatu egin zuten homosexualitatea, eta "buruko gaixotasuna" eta "perbertsio sexuala" zela esaten zuten. **Luis Elberdin**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pulpitura** igo (3)

## pulpo *iz* garabetan, gauzakiak hartzeko tresna, klabearen muturrean zintzilik dagoena, eta ireki edo itxi daitezkeen besoak osatzen dutena.

Grua txikian Altuna, **pulpoarekin** txatarra puxkak meta batetik hartu, kontainerrean sartzen ari zen. **Pablo Sastre**

## pulpos *izond* emakumeez mintzatuz, mamitsua.

Abantxu ehun kilo zeuzkan adineko Mattu izeneko andere **pulposak** Marseillesari ekin zion. **Itxaro Borda**

Iragan urtean hil zen mister presidentearen ohaideetarik bat zela zioten Marilyn Monroe **pulposa** ! **Itxaro Borda**

Gaur egun bezala funtsean, pitonisa **pulpos** eta ausarten bestaburuetarik kanpo zeuden palestinarrek, beren ahuntz mehakoilekin, Zisjordania eta Gazako ordoki okupatueta barna. **Itxaro Borda**

Francen berri ematera zetorkidan QG ostatuko emazte **pulposa** zaharkitua zitekeen. **Itxaro Borda**

## pulsar *iz* supernoba bat lehertzean eratzen den izar guztiz txiki eta trinkoa, neutroiez osatua.

Azken mende honetan astronomoek aurkikuntza ugari gehitu dituzte kosmosari buruzko ezagutzan: zulo beltzak, supernobak, **pulsarrak**, quasarrak, Eguzki Sistematik kanpoko planetak. **Berria - Gaiak**

Astrofisikariek **pulsar** pare bat atzeman zuten joan zen urtean espazioan, Australiako Parkes erradioteleskopioari esker. **Berria - Gaiak**

## pulsometro *iz* pultsuaren indarra eta maiztasuna neurtzen duen gailua.

Ondoren SRM potentziometroa eta **pulsometroa** lagun, entrenamenduetan murgiltzen da. **Berria - Kirola**

## pultrun ik putrun.

## pultsazio 1 *iz* bihotzaren taupaden oihartzun modukoa, gorputzeko gune batzuetan hautematen dena.

Bihotzaren **pultsazioa** -taupada indartsu bat ematen du bihotzak segundoko, gutxi gorabehera- ez da ondo egokitzen, lehen begiratuan, beste organo eta ehunek odoletik etengabe oxigenoa eta beste hainbat substantzia hartzeko duten beharrek. **Irene Aldasoro**

Egunen batean norbaitek erloju bat asmatu beharko dik, **pultsazioak** neurtzeko gai ere izan daitekeena. **Joan Mari Irigoien**

Bizitzaren bakea hausteko zorian jartzen duen oren arrisksua da 'ordu txepela', gure barnean bizitza eramangarriagoa egiten digun **pultsazio** hori kainabera bat bezala kras hausteko arriskua dakarren unea. **Pako Aristi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Bihotz-taupada bakoitzean odola goiko zangora iristen denean, milimetro bat edo biko jauzitxoak eginez errepikatzen ditu oinak **pultsazio** -uhinak. Susperraldi [...] baten adierazpide dira desintegrazio-prozesuan, honek **pultsazio** -segida bat izaten duelarik: erorikoaren eta susperraldiaren ondoren, eroriko berria. **Irene Aldasoro**

## pultsera *iz* eskumuturrekoa.

Horrez landa, bere ohiko bitxiak -zintzilario bat lepoan beheiti, eskumuturreko **pultserak**, erietako eraztun ugariak- eta zapata takoidunak zituen janzki bakar. **Aingeru Epaltza**

Eskuak oinetakoen lokarriekin lotuta zituela esan zuten arren, **pultserak** egiteko erabiltzen diren nylonezko hariak zituen esku-muturretan. **Berria - Euskal Herria**

Arretarik gabe hartu zuen, baina kontaktu egin zuen, eta eskumuturrean, **pultsera** baten gisa, zeraman dirupoltsatxoan gorde. **Juan Martin Elexpuru**

Lurrean uzterakoan, ordea, zerbait nabaritu du eskuineko besoan itsatsita, erlojuaren **pultseratik** gora: [...] Natxoren odol iluna! **Patxi Iturritegi**

## pultsio 1 *iz* bulkada.

Orduan dator hurrengo urratsa, erabakigarria, atzeraezina: sortzaile pasiboa aktibo bihurtzen da, **pultsio** indartsu horri jarraikiz. **Karlos Linazasoro**

Tipi, oharkabean noski, geroan ere irauteko [...] aukera eskaintzen ari zitzaidan, **pultsio** elektromagnetikora errenditutako datu hotzaren itxuran baizik ez bazen ere. **Aingeru Epaltza**

Bizitza bera ere baino lehenagoko taupadak sentitzen ditut; **pultsio** hutsaren zorabioa isiltasunean. **Pako Aristi**

Horregatik idazten dut agian [...] **pultsio** eta oldar argigaitz batengatik, katuak jolasean arratoia itotzen duenean elikatzeaz gaineko beste zeregin larriago baten bultzadagatik egiten duen bezalaxe. **Hasier Etxeberria**

1964ko otsailean kirol mitoa jaiotzen zen, baina Cassius Clayk beste dimensio bat hartu zuen bere **pultsio** sozial eta politikoen alde bere beste borroka hasi zuenean. **Berria - Kirola**

### 2 psikoanalisian, norbait, barne tensio bat asetzeko, ekintza bat egitera bultzatzen duen indarra.

**Pultsio** edo irrika kontzeptua oinarri-oinarrizkoa da Freuden psikoanalisian, behinolako instintu edo sen kontzeptuaren moldaera bat bezala azaltzen baita harengan. **Josu Zabaleta**

Horrelako hitzak umeen hizkeraren ezaugarritzat jo izan ohi dira, errepikatzeko **pultsioaren** adierazle, nonbait, psikoanaliaren arabera. **Iñaki Arranz**

Amildegia erroa da, barne-muina, eta hor sortzen dira pasioak, **pultsioak**, garrasiak, orro ikaragarrienak. **Karlos Linazasoro**

### 3 (hitz elkartuetan)

Hasi naiz pentsatzen, eros **pultsio** hori dela denon bizitzaren muina. **Berria - Kultura**

## pultso ik pultsu.

## pultsu (*orobat poltsu g.er. eta pultso g.er.*) 1 *iz* eskumuturrean eta gorputzeko beste gune batzuetan hautematen diren taupadak; taupada horien eritmoa.

Ez zuen anasarik ez **pultsurik**. **Ibon Uribarri**

**Pultsua** bare eta burua arin esnatu zen hurrengo egunean. **Josu Zabaleta**

**Pultsua** bizkorregi, begiak handiturik. **Josu Zabaleta**

**Pultsuak** dar-dar egin zion atea jo zuenean. **Harkaitz Cano**

Nik bihotza zabuka bainuen eta **pultsua** urduri. **Joxean Agirre**

Ostolazak ez zion ihardetsi, zurbil zegoen, **pultsua** zoro, kopeta izerdi tantaz beterik. **Migel Angel Mintegi**

-**Pultsua** ahul daukan arren, bizirik da, dudarik gabe, ez luzerako ordea... **Itxaro Borda**

**Pultsuaren** gorabeherak, atzo azkar, gaur motel, are motelegi ere. **Joxe Austin Arrieta**

Zehazki eskumuturreko zaina ukitu zuenez, neskatoaren **pultsua** hartu zuen hatz erakuslearekin eta erdikoarekin. **Ibon Uribarri**

Eskumuturretik heldu eta **pultsua** hartzen saiatu nintzen, baina ez nuen ezer sentitu. **Juan Luis Zabala**

-Ez dauka ezer larririk -esan zuen Lupinek, Snaperengana makurtu eta **pultsua** aztertuz-. **Iñaki Mendiguren**

Itsasotik zetorren hots haren oihartzunak neskatoaren soinean sortzen zen musika zirudien, eta eskumuturreko **pultsuraino** iristen ziren bihotz-taupadek bat egiten zuten musika harekin. **Ibon Uribarri**

### 2 irud/hed

Nola lortzen da denbora horretan guztian obraren **pultsuari** eustea? **Ana Urkiza**

Zalantzarik gabe, korritu tasa da Estatuaren **pultsua**; hark plazaratzen ditu gorputz politikoaren gaitzak. **Andres Urrutia**

Hartara, gelditutako erlojuari ematen zaion kolpe txikia emanez bere buruari, taupaka hasi zen familiako **pultsu** zaharra, erlojua tiki-taka bezala - bat, bi, hiru, bat, bi, hiru. **Anton Garikano**

Senarra handik zihoala, bazirudien **pultsu** honen taupada bakoitzak barruan hartzen zituela biak, eta arinaldi bat ematen ziela, bi nota desberdinek, bata altua, bestea baxua, batera jo eta konbinatzean ematen dutena bezalakoa. **Anton Garikano**

Udaberria zeharo zabaldu ondoren emeki ahitzen doan **pultsuaren** antzera, kreaizio arrakastatsuen bozkariora. **Anton Garikano**

"Herriaren taupada (**poltsua**)" Martzillatik Artziniegara, Hegoaldeko jauregi eta harrasi zaharrak ikusiz. Herria

-Beste zereginik ez baldin badauka, menturaz etorriko duk guri **pultsua** hartzera. Koldo Izagirre

### 3 (hitz elkartuetan)

Taupada-markagailu elektronikoak **pultsu**-sorgailu bat dauka [...]; **pultsu**-sorgailu horrek seinale elektriko txiki bat bidaltzen du bi konexio-kabletara. Irene Aldasoro

### 4 eskuaren irmotasuna.

Eskua **pultsu** onekoa duen ez dakit, baina begia zorrotza du. Andoni Egaña

Peñagarikanok besoak «hilda eta **pulsturik** gabe» geratu zitzaizkiola esan zuen. Berria - Kirola

Zalantzak **pultsu** txarra du. Berria - Kultura

### 5 beso borroka.

Gaixorik sentitu nintzen batean, etxera agertu eta esan zidaan: "**Pultsuak** egitera natorkin, mina arintzeko". Juan Garzia

### 6 irud/hed

Berarekin hitz egitean, amaierarik gabeko **pultsu** baten aurrean egotea zer den nabaritzen zen. Berria - Kultura

Zapaterok **pultsua** galdu du, itxura gutzieren arabera. Berria - Euskal Herria

Hemen ez dago Batasunaren eta Estatuaren arteko **pultsu** bat, baizik eta gatazkaren konponbidearen eta gatazkaren iraupenaren artekoa. Berria - Euskal Herria

Momentuz, **pultsuaren** zati bat gatazka luzatu nahi dutenek irabazi dute. Berria - Euskal Herria

**Pultsu** politiko hartan, ezker abertzalea zegoen bakarrik. Berria - Euskal Herria

Inolaz ere ez die sindikatuei **pultsua** bota, ezta egoeran tentsioa sortu nahi izan ere, azken eskaintzak erakusten duen gisa Berria - Ekonomia

### 6 *pultsuan* beso soilen indarrez.

Besoka igotzen zuen gorputza, **pultsuan**, eskuak tope batetik bestera luzatuta. Koldo Izagirre

Gero, beraren eta beste gazte baten artean, kamioi txiki baten atzealdera igo zuten **pultsuan**. Bernardo Atxaga

Pinta bakar banakoak ziren, baina zilarbiziitik hamazazpi libra luze kabitzen ziren bakoitzean; hainbestearino, non kosta egiten zen **pultsuan** jasotzen, eta palast eragitean, berriz, bazirudien animalia bizi bat mugitzen zela barruan indarka. Juan Garzia

Pala prest zuen eta sokak lurtean gurutzatuta zituen, kutxa gainean jarri eta **pultsuan** jaisteko. Jon Maia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pultsua hartu** (11); **pultsua hartu zion** (5); **pultsua hartzen** (6)

## pultsulari *iz* pultsuan eta aritzen den pertsona indartsua.

Lehen txapelketak etorri ziren, eta Danena-Olaederrako **pultsulariak** emaitza onak lortzen hasi ziren. Berria - Kultura

Etorkizun handiko **pultsulariak** ditugu taldean. Berria - Kirola

**Pultsulari** beteteranoa da Gorostidi (26 urte ditu). Berria - Kirola

## pululatu, pulula, pululatzen du *ad* biziki mugitu.

Horrek esan nahi baitzuen bazkalondo hura berehala desintegratuko zela, Matildek platerak-eta batuko zituela, Anak lagundu egingo ziola eta Tomas sukaldetik **pululatzen** hasiko zela. Unai Elorriaga

## pulunpa<sup>1</sup> *iz* murgila, urpeko igerialdia.

Korrokioen jauziek burbuilak sortzen zituzten paperolako kimikak gandututako uretan, amultsua zen haien **pulunparen** plausta. Koldo Izagirre

### 2 *pulunpan* murgilean.

Bien bitartean, ia izar artekoa den huts batean **pulunpan** gabiltza gu. Josu Zabaleta

Nola aipatu gure bihotz-mina eta, orobat, bigarren haurtzaroan **pulunpan** ari direlarik, guraso bihurtu nahi gaituzten eta aldi berean gure gaineko esku makurrezinari irmo eusten saiatzen diren une horietako inkoherentziek eta bidegabekeriek gugan eragiten duten haserrea, higuina, ulertezina, oinazea? Joxan Elozegi

### 3 *pulunpa egin* (orobat *pulunp egin*) murgil egin.

Beraz deliberatu nuen itsasora jaustea, ikasi bainuen **pulunpa** egiten eta itsas azpitik ibiltzen. Menane Oxandabaratz

Bi-hirutan **pulunp** egin nuen eta bertze hainbertzetan atera ahal izan nuen burua ur azalera. Aingeru Epaltza

Eguraldiak damait aire, puntuko giroa dut arnas, hor dut bizi eta... berak bizi nau, Aire Biziaeren **pulunpan** bizi naiz. Pello Zabala

### 4 *pulunpa eragin* murgil eragin.

Lagunak ez zitzaizkidan bilduko hankatik edo samatik helduta elkarri behin eta berriz **pulunpa** eragin gabe. Koldo Izagirre

## pulunpa<sup>2</sup> ik **bulunba**.

## pulunpaka *adlag* murgiltzen.

Kristok esatean "Ni naiz, ez beldur izan", San Pedrori harengana ur gainean joateko agindu zion; baina **pulunpaka** hasi zen zalantzan; eta Kristo gure Jaunak salbatu zuen, errietan emanez bere fede gutxiagatik; eta gero, txalupan sarturik, haizea gelditu zen. Patxi Altuna

## pulunpari *iz* murgilaria, urpeko igerilaria.

Ofizialdegia eta handureria guztia eta ondoko ganbelapeko **pulunpariak** eta noharroin elia. Jose Angel Irigaray

## pulunpatu, pulunpa(tu), pulunpatzen **1 da/du** *ad* murgildu, murgil egin.

Haiei begiratu bakarra oparitu gabe **pulunpatu** da ur hotzean. Aingeru Epaltza

Zutitu eta errekan **pulunpatu** nintzen, ni ere joko ninduen beldurrez. Fernando Rey

Auzotegi xumeenetako emazte eta haurrak oinutsik zebiltzan, iturrietako urez bustiz edo, azken hauen kasuan bederen, harramantza gaitza eginez, Errobi ibaira **pulunpatuz**, freskatzeko. Elena Touyarou

Burua uretan **pulunpatu**, bainuontzitik atera eta soina astindu zuen txakur baten gisa berean. Lopez de Arana

Funtzionarioak euli bat harrapatzen zuen bakoitzean, ezker eskuko behatz lodia eta erakuslearen artean hartu, hego bat raust kendu, eta ondoren tinta mantxaz betetako portzelanazko tintontzi handi batean **pulunpatzen** zuen. Matías Múgica

## 2 irud/hed

Azken tontorra, oinak itsasoan **pulunpatuz**, eta bere gailurra zeruan 900 metraren alturan. Herria

Stan astunki **pulunpatu** zen aulkian, barre eta barre. Lopez de Arana

Ttipiren eskuak bere zango arteko plastikozko poltsan **pulunpatu** ziren eta handik bi lataren jabe atera. Aingeru Epaltza

Buelta eman eta, oraindik ere negarrez, burua burukoan **pulunpatu** zuen. Lopez de Arana

Kapela begietaraino sartu, eskuak sakeletan **pulunpatu** eta jantokitik irten zen tirriki-tarraka. Lopez de Arana

Hotelera iristean, Rosiek dardarka **pulunpatu** zuen aurpegia jakaren lepoaren barnean. Lopez de Arana

## pulustari *iz*

Buruzahato-Billarro jaun andreak eta **pulustariak**, barrendariak, trenkalariak, zirtolariak, pitolariak eta zenbait pirdila. Jose Angel Irigaray

## pum ik pun.

## puma *iz* Ameriketako ugaztun haragijalea, tigrearen antzekoa (*Panthera concolor*).

**Puma** ere ibiltzen hasten da eta urrunetik jarraitzen dio geldotasun dotoreziazkoaz. Eskarne Mujika

Grina guztiak gordetzen dituk giza arimaren gauean, beti zelatan, nola egoten baitira **puma**, putrea, xakala sortaldeko gauetako basamortuan. Xabier Olarra

Mesa Verdeko honetan gaur **puma** disekatu bat ikusi dut: apal baten gainean, irmo eta mehatzukor. Patxi Zubizarreta

## pumada ik pomada.

## pun (*orobat punp, pum eta paum; Euskaltzaindiaren Hiztegian pun agertzen da*) 1 tiroaren onomatopeia.

Aho zuloan sartzen du pistola Xankapok, eta **pun**! edo bang! izan nahi lukeen orro moduko bat egiten du. Iñaki Iñurrieta

-Ruleta rusan jokatzeko moduan gaudek, hortaz -eta pistola lokiaren kontra jarrita **pun**! esan eta burua atzerantz astindu du. Iñaki Iñurrieta

## 2 irud/hed

Minutu batzuen buruan **Punp**! apologetiko bat entzun zen, Lyonsen botilako kortxoa airean irten zenean. Irene Aldasoro

**Pun**! **Pun**! Bi kolpe entzun dituzu beste aldean. Rafa Egiguren

**Pun**, pilota alde batera. Pako Aristi

## 3 pin-pan-pun

Bada, sua handik eta sua hemendik, **pin-pan-pun**. Joan Mari Irigoien

Derion **pin-pan-pun**! Patziku Perurena

«Levert entzun, pin pan **pun**» oihukatu dute manifestariek. Berria - Euskal Herria

## puñal (*9 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan; orobat puñale g.er.; cf sastakai 52 agerraldi, 23 liburu eta artikulua 1ean*) 1 iz sastakaia.

Janinak uste zuen nabala edo **puñal** bat sartzen ziola. Itxaro Borda

Laura Baigorri askotan agertzen zen egunkarian, batean **puñala** sartu ziotelako, bestean auto-istripua izan zuelako. Berria - Kultura

Itsasontziak edo diligentziak asaltatzen ditu, kanoiak, **puñalak**, ezpatak, trabukoak... arma guztiak darabiltza esku artean. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 irud/hed

Ahots hori bera, ulutxa nahasi, aitaren ahotik herotsik gabe jazartzen imajinatzen zuen, hor klinikako ganbaran, eta dolorea, **puñal** zorrotz, zutundu zitzaion bihotzaren basamortuan. Itxaro Borda

## 3 puñal ukaldi

Bihotzaldean **puñal ukaldi** bat bildu banu bezala, hitz horiek suntsitu ninduten. Daniel Landart

· Anna Lindhminixtroa itxuraz arras gaztea emaiten zuen gizon batek **puñal ukaldika** hil du, saltegi handi batean erosketa batzuen egiten ari zelarik. Herria

## punba leherketa eta erorikoaren onomatopeia.

Han ari zen gizona gorputz osoarekin lagunduz narrazioari, danba eta **punba** eta ta-ta-ta, hegazkin, tanke eta kanoi itxurak moldatuz, eta ni ezin gusturago, aizue; piperrik ez nion ulertzen, hori bai. Joxean Sagaztizabal

Jakina, leku zabala dauka onomatopeiak: burrun-burrun 'motor hotsa', fu 'jatekoak hozteko putza', ñan-ñan 'jan', pa 'musua', **punba** eta plausta 'erori', purrut 'puzkerra', tas-tas 'jo', uau-uau 'txakurra'... Koldo Zuazo

## punch *iz* indarra, joa.

Ez al genuen **punch** gehiagoko zerbait behar? Iñaki Iñurrieta

**Punch** gehiagoko zerbait behar diagu, inmediateagoa den zerbait, Elioten mundu poetikoko milikerietan geratu gabe. Iñaki Iñurrieta

Maila altu samarra emango dizu, baina goren gorenera iristeko behar den **punch** hori kenduko. Andoni Egaña

Bi urte aritu naiz jauzi, erdizka, dobla, pika, luze eta ebats, itzalekin borrokan, **punch** -a galtzeko beldurrez. Iñigo Aranbarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**punch** gehiagoko zerbait (3)

## punching

1 **punching zaku** boxeolariek, ariketa gisa, kolpekatzen duten zakua.

Pasaiaiko klubeko batekin **punching** zakuak ekartzera etorri ninduan atzo eta bera ezagutzeko parada izan nian.

Harkaitz Cano

Nora hoa hi ordu honetan bi **punching zaku** horiek hartuta? Harkaitz Cano

## 2 **punching-ball** (orobat **pushing-ball** g.er.) boxeolariak, ariketa gisa, kolpekatzen duten baloia.

Albo batera utzi zituen gimnasioko ring biak eta zenbait **punching-ball** dantzari, lurrera begira, entrenatzen ari ziren mutilei erreparatu ere egin gabe, batzuk bere ardurapean zeuden arren. Paddy Rekalde

Robertok zaplada galanta eman zion **punching ball**-ari, baina hain gotor eta betea behar zuen egon, zakua apenas mugitu baitzen. Harkaitz Cano

Bestalde, oraindik ez al dakizu zer esan nahi duen **punching-ball** horrek? Koldo Biguri

**Pushing** -balla jo eta haren oihartzuna hedatu da bazterretara. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**punching ball** (4)

pundu ik puntu.

## **punduketa** iz ipar pundutzea.

**Punduketa** frango ttinki izana gatik Ziburuko taldea atera da xapeldun. Herria

## **pundutze** iz ipar puntu kopurua.

Eta bi pilotariak **pundutze** berdina baldin badute? Orduan, gehienik partida irabazi duena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Pundutze** handiena duen ekipak dizi irabazten. Herria

Huna **pundutze** osoa: Jutsik 66, Donamartirik 62, Gabadiak 42, Baigorrik 36, Bankak 32, Donazarrek 16. Herria

**Pundutzean** Frantziak hordago ondar bortz ttantoak egiteko dituelarik. Herria

Honelaxekoa dugu sailkapena: Andoni Egaña xapeldun (1796,5 puntu), Unai Iturriaga xapeldun-orde (1746), hirugarren Maialen Lujanbio (1206,5), laugarren **pundutze** berdinarekin Amets Arzallus (1206,5), bosgarren Igor Elortza (1174), seigarren hurbil-hurbila Sustrai Colina (1171,5), zazpigarren Aitor Mendiluze (1156) eta zortzigarren lerro berean Jon Maia (1156). Herria

## **puñeta 1 interj adkor** kexa adierazten duen hitza.

Ixiltzeko, **puñeta** ! -Iñake berriz, gogor orain-. Xabier Mendiguren Elizegi

- "Non **puñeta** ote daukat txartela?", berriz irribarre behartua poliziarri. Iñaki Zabaleta

## 2 (izen gisa)

Kopla gehiegirekin akaso, hainbeste psikologia, gurasotasun arduratsu eta **puñeta** merke. Patxi Iturritegi

## **puñetero** (corpusean **puñeteru** soilik) **izond adkor** gogaikarria.

"Hauze katarro **puñeteru** hau apur bat bigunduko balitz" eta holakoak esaten zituan. Xabier Amuriza

puñeteru ik puñetero.

## **puniko 1 izond** kartagotarra, Kartagori dagokiona.

Ikusten denez, lehen gerra **punikoari** amaia jarri zion hitzarmenean, Kartago itsasoko nagusi izateaz arduratu zen batez ere, eta Erroma lehorrekoa. Iñaki Iñurrieta

Petrarcaren beste obra nagusi bat, oraingo honetan latin hexametrotan, Africa da, egileari buruhauste franko eman zioten bederatzita bat mila lerro, bigarren gerra **punikoaren** gainean. Berria - Kultura

Bigarren Guda **Punikoko** Italiaren inbasioan Anibalek elefanteak eraman zituela kenduta, testuan ezer gutxi gehiago da egia. Iban Zaldúa

Kontakizun hori are ederragoa da monumentu **puniko** delako; eta monumentu **puniko** delako hartu izan da alegiazkotzat. Iñaki Iñurrieta

Adibidez, arestian "miserikordia" hitza esan dudanean hizkuntza **punikoan** hitz horrek "pietatea" esan nahi zuela zenion zuk, hizkuntza hori dakitenengandik ikasita. Imanol Unzurrunzaga

## 2 kartagotar hizkuntza, hizkuntza punikoa.

Kartagon, latinaren ondoan irauin zuen **puniko** edo fenizierak (arabiarren inbasioan oraindik bazegoen), eta Kartagoko lurraldeetan numida ere hitz egin zelakoan gaude.

Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bigarren gerra punikoaren** (5)

**gerra punikoari** (3)

## **punimendu** iz zigorra.

Herri huntan, badaude 3.500 kondenatu gaztigu horren beha presondegietan eta badaude oraino 78 erresuma **punimendu** hori daukatenak. Herria

Prefeta hari bere posta kendua dio Frantziak **punimenduz** bezala. Herria

## **punitibo** izond zigorrari dagokiona; zigorra dakarrena.

Lege-proiektuak ez du bazterketa positiboa sustatzen, generoaren araberako bereizketa egiten duen artikulua **punitiboa** baita. Berria - Euskal Herria

## **punitu**, puni, punitzen du ad zigortu.

Biziki murrizt daude Kuba ugarterat abiatzen diren herritarrekin, Fidel Castro bat **punitu** beharrez. Herria

## punizio iz zigortzea.

-Laster hartuko dik bere **punizioa** esbirro horrek, kamarada. **Koldo Izagirre**

## punjabi iz Punjab-en mintzatzen den hizkuntza. ik **punjabiera**.

Letren Akademia Ofizialak (*Sahitya Akademi*), dena delarik, 22 hizkuntza onartzen ditu: asames, bengali, katxemir, dogri, gujarati, hindi, kannada, konkani, maithili, malayalam, manipuri, marathi, nepalera, oriya, **punjabi**, rajastani, sanskrito, sindhi, tamil, telugu, urdu eta ingelesa. **Gotzon Garate**

## punjabiera iz Punjab-en mintzatzen den hizkuntza. ik **punjabi**.

Romania (buhameen hizkuntza) eta hindiera zein **punjabiera** berdinak dira funtsean. **Berria - Kultura**

## punjabtar izlag/iz Punjabekoa, Punjaberi dagokiona; Punjabeko herritarra.

Orain **punjabtarrek** Khalistan deritzan nazio independentea sortu nahi dute. **Gotzon Garate**

## punk 1 izond bereziki musikaz eta janzkeraz nabarmendu zen mugimendu kontrakultural muturreko bati dagokiona. ik **punki; punky**.

Neska **punk** rasta barrako mutur batetik bestera. **Paddy Rekalde**

Manta Ray inoiz baino talde **punkagoa** da. **Berria - Kultura**

Bira hasi genuenetik hamar kontzertu egin ditugu eta esango nuke inoiz **punkago** gaudela. **Berria - Kultura**

Uste duzu oso erradikala zarela, oso **punk** edo oso hardcore edo oso nahi duzuna. **Sonia Gonzalez**

Larruzko bota berdeak eta txinatar kirol-oinetakoak, motorzaleen jakak eta zetazko gonak, parpailazko esku-larruak eta lepoko zapi nabarmenak, halako itxura erdi-**punk**, erdi-dotore bat, beraren gaztetasuna eta "izorra-hadi" esanez bezalako aldarte ausart hura adierazten zuela ematen zuen bat. **Oskar Arana**

Ikuskizun **punk**-a eta, une askotan, gustu txarrekoa da. **Berria - Kultura**

Hegazti hitzunen historia luzeko lehenengo lora **punka** zen Nofutur. **Jon Muñoz**

Badu homosexualetik, badu **punketik**, badu nihilistatik. **Berria - Kultura**

### 2 (dagokion izenaren ezkerrean)

Bere lanak gay eta **punk** mugimenduekin lotu izan dituzte kritikariek. **Berria - Kultura**

Horrek **punk** espirituarekin lotzen du taldea. **Berria - Kultura**

**Punk** eta rock mundu hortan kokatzen da horien musika. **Herria**

78-79ko urte hartan, **punk** musikarekin batera, esoterismo gaiak ziren bere gogokoena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Belaunaldi berrietara **punk** poesia iritsi zen, musikak eraginda. **Berria - Kultura**

**Punk** literatura (halakorik bada). **Berria - Kultura**

Borroka elkarte horiek **punk** eta *destroy* uhinak irentsi dituzte, beren baitako totalitarismoaren edo eztiagiogorriaren, armen borroka sostengatzeko duen diskurtsoaren gordetzeko. **Itxaro Borda**

Hardcore, metal eta **punk** soinetan murgildu da Auo, *Pin Pan Pun Band*-eko abeslaria, taldearen berrikuntzan. **Berria - Kultura**

Urruñako "Prestuak" **punk** taldekoak. **Ramuntxo Etxeberri**

*Disturbio* taldeak hard-rock eta **punk** doinuak uztartu ditu *Pólvora* bere bigarren diskoan (*Oihuka*). **Berria - Kultura**

Bozgorailuek oka egiten zuten **punk** burrunbada zela eta. **Sonia Gonzalez**

### • 3 iz mugimendu horren jarraitzailea.

Barran kokatu zen, begiak gainetik kentzen ez zizkioten **punk** batzuen artean. **Sonia Gonzalez**

Ez da ikusi, hamarkadak ahitzean, euskal **punk** ohiko batzuk baino epaile zorrotz eta urrikigabeagorik. **Itxaro Borda**

### 4 punk musika.

Bera izan zen lehena gure artean **punka** deskubritzen, denok barre egiten bagenion ere Sex Pistolsen apologiak egiten zizkigunean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

80ko **punkaren** eta hardcorearen eragina nabari da batzuetan, baina uste dut *Etsaiak*-ek baino ukitu metalikoagoa duela. **Berria - Kultura**

**Punka** egiten jarraitzen dute. **Berria - Kultura**

### 5 (izenondoekin)

Divisionek utzikeria puntu batekin kantatzen zuena desegin eta **punk** psikodelikoaren bidetik egin dugu, sentsualitate eta indar handiagorekin». **Berria - Kultura**

Gaur, Alan Vega **punk** elektronikoaren aitarekin batera, Act eta Billy Bao euskal taldeak ariko dira Kafe Antzokian. **Berria - Kultura**

*Suicide* taldearekin, **punk** elektronikoaren hazia erein zuen. **Berria - Kultura**

Nahi duen moduan kantatzen du: orain Tom Waitzen bidean, gero Bon Scotten erara, gero **punk** basatian. **Berria - Kultura**

### 5 *post-punk* ik **postpunk**.

### 6 **punk-folk**

Musikalki, bluesaren gramatika erabiltzen dute, soila, apaingarririk gabea **punk-folk** esan diote eta ezkutua. **Berria - Kultura**

### 7 **punk-rock** (orobat **punk rock**)

Betiere punkaren, hardcorearen eta **punk-rockaren** eremuan. **Berria - Kultura**

*New wave*-aren sofistikazioa (*Don't fall in love*), **punk rockaren** berehalakotasuna (*She's drugs*) eta Eskandinaviako taldeen zorrotasuna (*Invisible*) biltzen ditu. **Berria - Kultura**

«**Punk rocka** hil da», adierazi zuen Gary Kurtist *The Ramones* taldeko ordezkariek. **Berria - Kultura**

Guk ez dugu **punk-rock** melodikoa bakarrik entzuten, badugu beste eraginik. **Berria - Kultura**

**Punk rock** talde mitikoko kidea. **Berria - Kultura**

### 8 **punk-rocker** punk-rock jotzen duen musikaria.

Zein entzule nahiago duzu: 80ko **punk-rocker** gazte bat ala BECera joan den 45 urteko guraso bat? **Berria - Kultura**

### 9 **rock-punk**

Aldi berean funk musika ona ere gozatzen ahalko da eta usaiako beste guziak, tradizioaletik **rock-punk**-erat. **Herria**

### 10 **techno-punk** ik **techno**.



**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**punk eta hardcore** (4); **punk rock** (9); **punk rocka** (5); **punk rockaren** (5); **punk taldeak** (4)

## punki *izond/iz* punka.

Ni oso **punki** nintzen garai hartan, badakizu? **Sonia Gonzalez**

Berarentzat heriotza **punkien** figura horrek adierazten zuela. **Pako Aristi**

Uste diat **punkiak** berarentzat mundu modernoa direla, alegia, bere ustez hi galdu hinduen mundu moderno hori. **Pako Aristi**

Hogei bat laguneko koadrila bat garai bateko **punkien** eran salto eta brinko. **Unai Iturriaga**

Argi dago Asier eta Aitor Goñi musikariek amaxi badutela, nahiz eta Lendakaris Muertos taldeko abeslaria eta gitarra jotzailea diren, nahiz eta aiurri gaiztoko kantak egiten dituzten, nahiz eta **punki** probokatzaileak diren. **Berria - Kultura**

## punky *iz* pertsona punka.

Kaminoan aurrera doala bi **punky**, buruan gandor izugarriekin, gandor gorri-gorriak, eta oihu egiten diote ametsaren barnetik, baina orain isilik daude, orain **punkyak** desegiten ari dira, hondar xehatua denboraren abiadan! **Pako Aristi**

la gauero izutu izan dute ametsetako **punky** zikin horiek. **Pako Aristi**

Ez zuen, ez, etsipenak geldiarazten bere jenioa, ez zuen tristurak bentzitzen bere amorrua, **punky** alu haiek baizik. **Pako Aristi**

## punkzale *izond* punkaren zalea dena.

Jules Vermeren oinordeko **punkzaleak**. **Berria - Kultura**

## punp ik pun.

## punpa<sup>1</sup> (*orobat punpe g.er.*) 1 *iz* jautzia; botea.

Soinketa batzuk, bat bi hiru lau, ariketa aldatu, hesia utzi eta lurlean **punpa** batzuk egin, xuti, bat bi hiru lau, bat bi hiru lau... ederki berotzen hasia naiz. **Filipe Bidart**

**Punpa** txarra egin zuen pilota bat jasotzera joan zenean, galdakoztarrak sastada mingarria nabaritu zuen eskuin izterreko atzealdean. **Berria - Kirola**

Jeanek **punpa** batez zeharkatu zuen aterpe naturalaren eta bidearen arteko eremua. **Itxaro Borda**

Bestela goitik behiti **punpa**! **Patziku Perurena**

### 2 *punpa egin* ik *punpatu*<sup>1</sup>.

Abereak barne-zurrunga argia laxatu zuenean, Edmeak **punpa egin** zuen, harritua. **Itxaro Borda**

Bizirik gabeko gorpua lurrera erori eta **punpa egin** zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eskapatzeko **punpa egitera** saiatu zen, baina zaharra bera baino zaluago zen oraino. **Itxaro Borda**

Eta gatu zainart batek **punpa egin** zidan altzora. **Itxaro Borda**

Pascual, bestalde, laugarren koadroan **punpa egiten** duten pilota errazak bederatzigarren koadroan uztera ohituta dago. **Berria - Kirola**

Xalax zortzigarren koadroan **punpa egin** zuen pilotakadarekin bukatu zuen tantoa. **Berria - Kirola**

Harrian **punpa egiten** dute. **Xabier Montoia**

### 3 *punpa eragin*

Ozta ageri zen bere mando alimalean, zela gainean garrangatua ematen zuen, zartailu beldurgarri bat inarosten zuen besotxo hartan, eta zarta bakoitzeko tiroari **punpa eragin** eta ilunpean amiltzen zuen, burua makur eta gorputza gorri. **Koldo Izagirre**

### 4 *punpa-laster* errugbian, punpa egitean lurra jo bezain laster pilota jotzea.

Beti bezala Wilkinson-ek egin du berea, lau gaztigu-ostiko eta **punpa-laster** bat eginez. **Herria**

Eskuekin jokatu dira frantsesak entsegu bat emendatua markatuz, zangoekin jokatu da Wilkinson berak markatu baititu 24 puntu (hiru **punpa-laster** eta bost gaztigu-ostiko). **Herria**

Drop-ak lortuz ere puntu erabakigarriak lor daitezke, **punpa lasterrez** baloia jo eta hagen artean baloia sartuz alegia. **Berria - Kirola**

Irlandesek **punpa-laster** baten abantaila. **Herria**

### 5 *punpa-sare* (*orobat punpasare*)

Nahierara jokatzu mota guztietako tantoak egin zituen, **punpa-sareak**, iskin motzean, luze taularatuak... **Berria - Kirola**

Mota guztietako kintzeak lortu zituen: **punpa sareak**, izkin motzak... **Berria - Kirola**

Ezcurrak lehena, baina 5 etan ados eta 11-5, urruñarrak bi sare, bi **punpa-sare** eta hiru sakerekin, aldiz hiru sake eta sare bat dituelarik Oçafrainek. **Herria**

Huts bat ere gabe bi artixekin, tanto guziak eginak, ala sare, **punpasare**, eskuinerat, marrarat, xilorat, bote negurtuz, horrek berak ere balio zuen ikustea. **Herria**

Rene gostuanago eta konfiantza hobean, piloten berexteko, sarerat (**punpa-sare**) bezala eskuin apal, Biscoubyk izkin-motz hura miatu balinbadu ere noiztenka. **Herria**

Zer **punpa-sareak**, eta sare zuzenak eta marra gainean berexi pilotak izan dituen! **Herria**

Hor da jokoan sartu Oçafraín, batean sare, bestean **punpa-sare**, edo izkin-motz eta guziz 8 bote itxant batez, batean azpiz ezker, edo gainez, eta beti uxen. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**punpa egin** (6); **punpa egin zuen** (4); **punpa eta** (4); **punpa laster** (14); **punpa laster bat** (8); **punpa sare** (11); **punpa sareak** (4)

## punpa<sup>2</sup> ik **punpa**<sup>1</sup>.

## punpada *iz* punpa.

Odol **punpada** bat igo zitzaion burura eta belarriak gorritu zizkion. **Berria - Kultura**

## punpaka (*orobat punpeka g.er.*) *adlag* punpak eginez. ik **jauzika**.

Artzainak atzetik malin, zakur labrita ondoan **punpaka**. **Itxaro Borda**

Aireplanoa lurreratzen ari zen, boteka eta **punpaka**, harik eta talka luze baten ostean geratu egin zen arte. **Mirentxu Larrañaga**

Bigungarritz bildutako dadoak feltro berdearen gainean **punpaka**. **Oskar Arana**

Alimaleko garratoinak ikusten ditut pasabidetik **punpaka**. **Filipe Bidart**

Mariaren agurra entzun bezain laster, Elisabeti **punpaka** hasi zitzaion haurra sabelean. **Elizen arteko biblia**

Bihotza **punpaka** jartzen didaten plaza arkupetuak. **Koldo Izagirre**

Alokairua hitza entzutea eta bihotza **punpaka** hastea dena bat izan zen. **Patxi Zubizarreta**

Bihotza **punpaka** zebilkion eta ezpainak hozkatzen zituen, kasik odola eragiteraino. **Patxi Zubizarreta**

Hamidari bihotza bortizki hasi zitzaion **punpaka**. **Patxi Zubizarreta**

Odola sentitzen nuen lokietan **punpaka**. **Anjel Lertxundi**

**Punpaka** ibili nintzen eroa bezala, eta nire baginak pilpira egiten zuen gelditu gabe. **Juan Martin Elexpuru**

Gurdia bere kasa abiatu baitzen, bata bestearen ondoren **punpaka** eta zabuka. **Iñaki Mendiguren**

Gizona **punpa** eta jauzika ari zen, izuaren eraginez hatsa elkor hartuz. **Itxaro Borda**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bihotza punpaka** (26); **bihotza punpaka hasi** (9); **bihotza punpaka zebilkion** (3); **punpaka hasi** (15); **punpaka hasi zitzaion** (8); **punpaka ibili** (3)

**bihotza punpeka** (5)

**punpakari** (*corpusean **punpekari** soilik*) *izond* punpa egiten duena.

Waltari kubanoa, 25 urte, mutiko zimela eta axola gabea [...] laster eta jauzi ezin sinetsizkoen **punpekari** bat ginuen itsaso haindik etorria. **Herria**

**punpakatu** *izond* punpakakoa.

Maldan behera gindoazen oinez, astoen trosta **punpakatua** entzunez. **Juan Garzia**

**punparazi**, punparaz, puparazten du *ad* punpa eragin.

Sei eta erdietan erromes baten iratzargailuak, loak osoki hartua ninduela, ohean **punparazi** nau. **Piarres Aintziart**

punpasare ik **punpa**<sup>1</sup> 5.

**punpatu**<sup>1</sup>, punpa(tu), punpatzen **1** da *ad* punpa egin.

Eta alimaleko suzko borobil bat erortzen da Ahartzako lepoan, **punpatzen**, berriz erortzen eta zartatzen. **Michel Oronoz**

Batzuk talkaren ondorioz distantzia handietaraino **punpatzen** direla, beste batzuek, ordea, leku txikian jasaten dutela kolpea. **Xabier Amuriza**

Bihotza bortitzago **punpatu** zitzaion eta jendearen diosalei erantzun ere ez zien egin. **Patxi Zubizarreta**

Gaztainondoetatik garbotsak lurrean **punpatuz**, pilota torta ziztatzaile baten arrabots motelarekin. **Piarres Aintziart**

**2** du *ad* punpa eragin.

Antilletan ikasi ei zuen zeremonia magiko bateko berbak tonu irmoan ahoskatuz **punpatu** zuen xanpainaren kortxoia. **Josu Landa**

punpatu<sup>2</sup> ik **ponpatu**.

punpatze ik **ponpatze**.

punpe ik **punpa**<sup>1</sup>.

punpeka ik **punpaka**.

punpekari ik **punpakari**.

punpezia ik **ponpezia**.

**punpuila** (*orobat **punpuilo***) *iz* burbuila.

Xaboi **punpuilak** iduri. Era egokian zabaltzen ikasi nuen, ertzak ondo zanpatzeko arrabola erabiltzen eta haize **punpuilorik** gabe kolatzen. **Jesus Mari Mendizabal**

punpuilo ik **punpuila**.

**punpula** *iz*

Pistola **punpulak** besapean nabarmen, ekialdeko elez bara-bara ari ziren gizonak jin ziren eta limousinaraino lagundu ninduten. **Itxaro Borda**

# punpulina izond tuntuna.

Ez zuen ordea hitzik erran Pierra lagutzen zuen emazteki **punpulina** Itxaro Borda

## punta 1 iz mutur edo buru zorrotza.

Ezpataren **punta** lurraren kontra tinko eta zuzen zuela. **Jon Alonso**  
Harry orrialdean behera mugitu zuen arrano-lumaren **punta**, bekozkoa zimurtuta. **Iñaki Mendiguren**  
Lantza baten burdinazko **punta** zen. **Alberto Ladron Arana**  
Tresna zorrotz baten **puntak** bezala. **Irene Aldasoro**  
Iltzeen **punta** bihurrituak eta errematxatuak. **Askoren artean**  
Arpoia balearen gorputzera sartzen denean **punta** zabaldu egiten da eta lehergailu txiki bat lehertzen da. **Joseba Sarrionandia**  
Arkatza etengabe apurtzen zait eta **punta** zorrotzu behar izan diot berriro. **Mirentxu Larrañaga**  
Buruan kolpe bana ematen zien kirtenarekin, eta, zorabiatuak zeudela, ganibetaren **punta** sartzen zien eztarrian. **Karlos Zabala**  
Gilenek pika zahar baten **punta** sartu zidan izterrean, jostetan ari ginela. **Aingeru Epaltza**  
Gizona, erantzun gabe, bibotearen **puntak** kiribiltzen hasi zen. **Irene Aldasoro**  
Konpasaren **punta** zirkunferentzian jarriko da. **Santiago Iruretagoiena**  
Gaur egungo gauza hauek ez dute ez **punta** eta ez ipurdirik. **Joxemari Urteaga**  
Gazteak ez ziren kirkildu, ordea, Urkuluko **puntaraino** igo ziren. **Berria - Euskal Herria**  
Hau izebergaren **punta** besterik ez da. **Berria - Gaiak**  
Erakustokian, ziazberba eta txikori orek, ontzietan jarririk, pila biribilak osatzen zituzten, **puntan** bukatuak. **Karlos Zabala**

## 2 (izenondoekin)

Sudur luzearen azpian, iztupa-koloreko bibote baten **punta** zorrotzak ageri ziren. **Lopez de Arana**  
**Punta** zorrotzeko ziri luze bat. **Joan Mari Irigoien**  
Arkupea ere [...] apurka-apurka konoaren **punta** zorrotzeraino estutzen da. **Xabier Amuriza**  
**Punta** zorrotz ugariko tresna. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Azal beltzeko kaiertxo bat eta arkatz **punta** zorrotz-zorrotz bat atera zituen. **Mirentxu Larrañaga**  
Eskuineko erpuru orratz baten **punta** lodiaz zulatu nuen. **Josu Zabaleta**  
Kanpoan, altzairuzko zerrenda hori dago, musikaren iraupen meharra, gure denbora alderik alde zeharkatzen duena, eta errefusatu eta puskatu egiten duena bere **punta** txiki lehorren bidez. **Monika Etxebarria**  
Birusaren kanpoko aldean, berriz, **punta** txiki batzuk ageri dira. **Berria - Gaiak**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskuin aldean, Santiago katedraleko **punta**-orratza. **Pedro Alberdi**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezpata **punta** bihotzaren parean jartzen ziola. **Joan Mari Irigoien**  
Hutsetik hutsagora altxako duen jenero santuaren bila, orratz-puntatik orratz-**puntarengora**, bizi-kimikarik ezean Kimika salbagarri baten mirabe bihurtua. **Iñaki Segurola**  
Gatza bezala zabaltzen du izotz zuria lur gainean, jelatu eta belar-**puntak** arantzak bezala zorrotz. **Elizen arteko biblia**  
Adar-**punta** ebaki, merkataritza-herrialdera eramane eta tratularien hiri batean landatu zuen. **Elizen arteko biblia**  
Mailu-kolpetox aurreratzen den zizel-**punta** horretatik. **Iñaki Iñurieta**  
Harkaitzetatik tamaina askotako haitz **punta** zorrotzak ateratzen ziren. **Askoren artean**  
Urrunean, mendi **punta** zorrotzak ageri ziren, zerumugari guk ezagutzen ez genizkion erliebeak eginez. **Jon Maia**  
Mendi **punta** batera joan beharko dut bizitzera, apika. **Joan Mari Irigoien**

## 5 gauza meheen muturra edo burua; muturra.

Barruan bada konkortxo mamitsu bat, behatzaren **punta** baino gehiago ez dena. **Josu Zabaleta**  
Haren mihiak glandearen **punta** ukitu zion. **Patxi Zubizarreta**  
Dinosauro haragijaleen artean handienetarikoa ziren *Mapusaurus roseae* deituak: 12,3 metro, muturretik isatsaren **puntara**. **Berria - Gaiak**  
Kirten luzea zuen, apartekoa eta biribila **puntan**. **Pello Lizarralde**  
Dorrearen **puntan** gurutzea emana izan da. **Herria**  
Orduantxe ohartu da zigarrakina oinetakoaren **puntarekin** zapaltzen jarraitzen duela. **Iban Zaldúa**  
Buzurapi goian lotua bi **punta** utziz arrain saltzaile klasikoaren erara. **Karlos Zabala**  
Ibilbidearen **puntan**, **puntaren puntan**, ate baten aitzinean gelditzen gira. **Filipe Bidart**  
Ekonomia neurri handi batean mundu osokoa da orain, eta, munduko **punta** batean piezaren bat mugituz gero, dena has daiteke dardaraka munduaren beste puntan. **Pello Salaburu**  
Bagoiaren bertze **puntan** zer gertatzen zen ez zuen ikusten. **Eneko Bidegain**  
Hariaren beste **puntan** negar-zotin bat entzun nuen, bihotza erdiratu zidana. **Daniel Landart**  
Batzuk karrikaren **punta** batetik daude so. **Berria - Euskal Herria**  
Tamesis ibaian ibiliko gara ibaiontzi batean eta Londres **punta** batetik bestera ikusiko dugu. **Joxemari Iturralde**  
Oinez ibili gara hiriko **punta** batetik bestera, alderai. **Iban Zaldúa**  
Ahots sendoa dauka Prusiarrak, mahaiaren **punta** batetik bestera entzuteko modukoa. **Harkaitz Cano**  
Kat barraren azken **puntan** dago, Boldana eskuan eta morroi batekin berbetan. **Sonia Gonzalez**

## 6 irud/hed

"Mutikoak zoragarriak dira Marokon", aipatu nuen nik **punta** horretatik helduz elkarrizketari. **Bernardo Atxaga**  
Ez zuen aurkitzen bere pentsamenduen **punta**. **Juan Garzia**  
Ezagutua zen haatik eskuin-muturreko buru-bero bezala, eskuin-buruko **punta-puntan** den taldetxo batean barne izana. **Herria**  
Tenore honetan, eguerdi **puntan**, ez dut segitu behar bidea. **Piarres Aintziart**  
Imaz **punta** batean Arzalluz bestean. **Berria - Euskal Herria**  
Ez omen zaitu begi **puntan** ikusi nahi, halaxe esaten du berak. jo aintzina besta giroan, zirko ikusgarriño batzuekin, dantza-jauzi, afari eta kontzertu-dantzaldiekin gauaren **puntaraino**. **Koldo Izagirre**

## 7 (izenondoekin)

Harrokeria oinazetsua zitzaion inondik ere, **punta** kamutseko txapin takoi altuetan estu-estu sarrarazten baitzuten. galdera ikur bat marraztu zuen egun hartan betunarekin zapataren **punta** biribilduan. **Mirentxu Larrañaga**  
Su eman zidan, pizgailu metxadun baten **punta** sutua nire zigarrora hurbilduz. **Anjel Lertxundi**  
**Punta** doblatu batek seinaturaluriko orrialdean zabaldu zuen Norak liburua. **Anjel Lertxundi**

leorde esekien **punta** zuzien azpian, emakume bustu bat biraka zebilen. **Karlos Zabala**

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena izenondo bat delarik; ik beheago15)

Bere sudur **punta** -luzeaz sakon amasa hartuz. **Iñaki Mendiguren**

Handituak zituen orkatilak zapata **punta** -finen gainean. **Koro Navarro**

## 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ileapaindegiko giro itogarri hartan bitsaren, lozioen eta ile-**punta** erreen usaina nabaria baitzen. **Lopez de Arana**

Kapela garaia sudur-**punta** distiratsurantz okertua zuen. **Lopez de Arana**

Hatz **punta** mapa gainean jarri du Imanolek, Euskal Herria tapatuz. **Joseba Sarrionandia**

Arto-hostoen ertz zorrotzek zauritutako bere hatz-**punta** zakarrak. **Anjel Lertxundi**

Mihi-**punta** atera zuen gero, eta Andreasen hatz-mamiak miazkatu zituen. **Anjel Lertxundi**

Eskuak bularren azpian jartzen zituen, libre, eta titi **punta** ubel zehatzekin jostatzen zen. **Itxaro Borda**

Teilatuen atzealdeko ilunpeetan erdi ikusten ziren ontzietako masta-**punta**, gabia eta belazurrunen arabera. soldaduak metraileta **punta** sahets-hezurren artetik sartu zion. **Anjel Lertxundi**

Mahuka-**punta** zahar batzuk. **Anton Garikano**

Baina badaki, jaiotze zelarrik, "ez zenidala begietara begiratu, azkar nire zangoak berezi zenituela, haragi-**punta** bat ote zegoen han; hiru segundo aski izan zenuen... eta zure negarraz nire bizitza, nire zoria, nire heriotza erabaki zenituen". **Pablo Sastre**

Arrazoa duela kontu honek esan behar da, aurreko bero-**punta** erpin horiek ikusita. **Pello Zabala**

Zigarreta **puntak** ikusten ziren ilunean gorrituak. **Ramuntxo Etxeberri**

Jo eta su hasi nintzen patioko zigarro **punta** guztiak biltzen pikatua egiteko. **Javi Cillero**

Azken zigarro **punta** erretzen. **Koro Navarro**

Haiek hurrengo egunean paper **punta** batean apuntatzen hasi nintzen. **Berria - Kultura**

## 10 apurra.

Ez dabil haize-**punta** arinenik ere. **Anjel Lertxundi**

Eta harrotasun-**punta** batez. **Anjel Lertxundi**

## 11 lur edo ur muturra.

Urrunean, lainoek Hondarribiko **punta** gordetzen dute. **Ramuntxo Etxeberri**

Ontzia Plazentziako portutik lau legoatan eta Burutik bertz legoatan den Amigaizeko **puntari** hurbil ikusia izan da. **Aurelia Arkotxa**

West Bay eta East Bay elkartzan diren lekuan, Long Pointeko **punta** mehe luzea, uraren blu distirantean izpi horailaz piztua. **Aurelia Arkotxa**

Berrogeita hamar bat laguneko talde bat zegoen aintziraren hego-mendebaldeko **punta** eratzen duen angeluan. **Karlos Zabala**

Biharamunean Punta del Este deitu itsasoaz inguratutik den lur **punta** baterat goatzi. **Herria**

## 12 punta atera

Haren ondoan jarri eta makila bat eskuetan hartuta, **punta ateratzen** hasi nintzaion. **Jon Maia**

**Punta atera** diozu arkatz beltzari. **Sonia Gonzalez**

-Zubi bati ere **punta atera** nahi -eten zion nekatuta Albertok. **Joxemari Urteaga**

## 13 irud/hed

Jendearen biziera eta une ahulenak muturreraino eramaten zituena, haiei **punta ateratzeko**. **Anjel Lertxundi**

**Punta ateratzeko** joera daukak beti. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horregatik saiatzen naiz haien esanei atal honetan **punta ateratzen**. **Berria - Kirola**

## 14 punta erdi (orobat puntaerdi g.er) futboleant, erdiko lerroko erdiko aurreratua.

Amorrorturekin atzeraxeago jokatzan duela dirudi, ez **punta erdian** ezta aurrelari peto gisa ere. **Berria - Kirola**

Euskarria bikoitza izango da azkenik, Aranburuk eta Xabi Alonsok osatutakoa, eta horien aurretik ezkerretik Lee, eskuinetik Nihat, **puntaerdi** Karpin, eta aurrean Kovacevic zelairatuko dira. **Berria - Kirola**

Uranga postu askotan aritu da, hegalean, **punta erdian** eta aurrean, baina ez da hamaikakoa finkatu. Gaztetan, **punta erdian** aritzen zen Alonso, eta oraindik ere denbora beharko du euskarri postura egokitzeke. **Berria - Kirola**

Mateo zelai erdian, **punta-erdi** lanetan, eskuinetik zein ezkerretik ari daiteke. **Berria - Kirola**

Bi euskarri eta **punta erdi** batekin jokatzea da zelai erdiko borroka menderatzeko aukera bakarra. **Berria - Kirola**

## 15 punta-puntako ik puntako 2.

## 16 punta-zorrotz (orobat puntazorrotz) izond

Leihoak luzeak, estuak eta **punta** -zorrotzak ziren. Bere buruaren eta ingurukoen itzalak grabatzeko orratzak edo gisako tresna hagitz fin eta **puntazorrotzak** erabili zituela lehengizonak gure kobazuloetan. **Koro Navarro**

Bazebiltzan han tatarriarrak [...] buruan Pierrotenak bezalako ertz zabal-zabaleko txano **punta** -zorrotzak zeramatatzela. **Karlos Zabala**

Aulkiaren gainean azti-kapela **puntazorrotz** bat ipini zuen. **Iñaki Mendiguren**

Ezein gorroto izatekotan, azazkal **punta** -zorrotzeko emakumeak zituen gorroto senarrak. **Mirentxu Larrañaga**

Buruu zetazko burko batean zetzan, aurpegia argizaria bezain zurruna, ondo moztuak bizarra eta bibote **punta** -zorrotzak. **Koro Navarro**

Belarriak **punta** -zorrotzak zituen, tente. **Fernando Rey**

## 17 zesta punta ik zesta.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behatz punta (4); bere hatz punta (3); boligrafoaren punta (3); burdinazko punta (5); erdi punta (9); eri punta (3); euskadiko zesta punta (3); ezpataren punta (4); hatz erakuslearen punta (3); hatz punta (20); izozmendiaren punta (5); konpasaren punta (5); lantzaren punta (5); mendi punta (4); mihi punta (9); mihiaren punta (3); oin punta (6)

punta atera (5); punta ateratzeko (3); punta ateratzen (3); punta batean (14); punta batetik (23); punta batetik bestera (12); punta beltza (3); punta erdi (5); punta erdia (3); punta erdiak (4); punta erdian (17); punta puntako (68); punta puntako taldeak (3); punta puntako teknologia (5); punta puntakoa (14); punta puntakoak (10); punta puntan (21); punta sartzen (4); punta txiki (3); punta zorrotz (6); punta zorrotza (4); punta zorrotzak (13); punta zorrotzeko (8)

puruaren punta (3); sudur punta (12); zesta punta (46); zesta punta txapelketa (4); zesta punta (13); zesta punta jokoan (4); zigarro punta (3)

atzamar puntak (4); behatz puntak (3); bi puntak (3); bibote puntak (4); hatz puntak (20); oin puntak (3); sudur puntak (5); titi puntak (7)

azken puntako (4); beste puntako (6); bost puntako (3); mendi puntako (3)

adar puntan (3); aurreko puntan (4); azken puntan (46); azken puntan egiten (3); azken puntan jakin (3); azken puntan segurtatu (3); begi puntan (3); begi puntan ikusi (3); bertze puntan (5); beste puntan (32); bizikleta baten puntan (5); dorrearen puntan (5); erdi puntan (6); haga baten puntan (3); hariaren beste puntan (3); makila baten puntan (4); makilaren puntan (3); mastaren puntan (3); mihi punta (12); mihiaren puntan (5); munduaren beste puntan (8)

punta puntan (21); puntan bi korapillu (3); puntan dago (4); puntan dagoen (4); puntan egiten (3); puntan ibili (4); puntan ikusi (4); puntan ikusi nahi (3); puntan izan (3); puntan jakin (3); puntan jarrita (4); puntan jartzen (3); puntan loturik (3); puntan segurtatu (3); puntaren puntan (10)

sudur puntan (8); zakil puntan (3); zesta puntan (7); zesta puntan (9)

beste puntara (9); mingain puntara (3); puntara eraman (3); puntara etorri (3); puntaren puntara (4); puntatik puntara (3)

azken puntaraino (4); beste puntaraino (4); puntaraino igo (3)

munduaren beste puntarat (4)

oinaren puntarekin (3); oinetakoaren puntarekin (3); puntarekin ukitu (3)

**mih** **puntaren** (3); **puntaren** (10); **puntara** (4)  
**ze** **puntari** (3)  
**hanka** **puntatan** (3)  
**beste** **puntatik** (13); **goiko** **puntatik** (3); **puntatik** **puntara** (3); **sudur** **puntatik** (3)  
**hatz** **puntaz** (16); **makilaren** **puntaz** (3); **mih** **puntaz** (9); **mih** **aren** **puntaz** (3); **mingain** **puntaz** (6); **oin** **puntaz** (4); **oinetakoaren** **puntaz** (3); **puntaz** **ukitu** (5); **puntaz** **ukitu** **zuen** (3)  
**atzamar** **puntekin** (3); **behatz** **puntekin** (6); **hanka** **puntekin** (3); **hatz** **puntekin** (21); **hatz** **puntekin** **ukitu** (3)  
**oin** **punten** (4); **punten** **gainean** (6)  
**behatz** **puntetan** (21); **hanka** **puntetan** (60); **hanka** **puntetan** **jarri** (12); **hanka** **puntetan** **joan** (4); **hatz** **puntetan** (6); **oin** **puntetan** (38); **oin** **puntetan** **jarri** (5); **puntetan** **ibiliz** (4); **puntetan** **jarri** (17); **puntetan** **jarririk** (4); **puntetan** **jarrira** (3); **puntetan** **joan** (5); **puntetan** **sartu** (5); **puntetan** **sartu** **nintzen** (3); **zango** **puntetan** (4)  
**hanka** **puntetaraino** (3)  
**behatz** **puntetatik** (3)  
**hatz** **puntez** (9)

## puntada 1 *iz* jostean orratzaren bi zulatzeren artean gertatzen den hari zatia.

Gero, tarratada kontu handiz josteari ekin zion oso **puntada** zehatzez. **Lopez de Arana**  
Oihal batean egindakoaren jarraian beste **puntada** bat ematearekin. **Ana Urkiza**  
Gero, oso azkar, trebetasun handiz, zauriaren ertzak josi, eta, nylonezko **puntada** bakoitzean, bost korapilo egin zituen. **Xabier Olarra**  
Ez dakit zenbat **puntada** eman zizkieten gizajoiari buruan! **Berria - Euskal Herria**  
Orduan lanean hasi zen - **puntada puntadaren** ondoren-, eta gilako gizona bezala agur egiten ari zela imajinatu zuen. **Koro Navarro**  
**Puntada** luzez josten hasi zen parpaila estua, erdi eginda zeukan janzkiaren lepoaldean zehar. **Mirentxu Larrañaga**  
Cohen jantzi baten orla **puntada** azkarrez josten ari zen. **Lopez de Arana**

## 2 irud/hed

Etorkizuna **puntada** azkarrez ehuntzen zuen bitartean. **Lopez de Arana**  
**Puntadaz puntada** lanean ari denak ez du paisaia osoa ikusten, paisaiak ikusteko espazioa, distantzia eta arnasa behar baitira **Ana Urkiza**

## 3 puntadan zorian.

Gainezka egiteko **puntadan** dagoen urtegiari uhateak irekitzea bezala izan zen. **Aingeru Epaltza**  
Galdetzeko **puntadan** egon nintzen galtzak zertan diren arnasbidearen trabagarri, baina ez nuen galdetu. **Aingeru Epaltza**  
Negar egiteko **puntadan** ematen zuen, eta nik ez dut pairatzen inork nire aitzinean negar egiterik. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**galdetzeko puntadan egon** (3)

## puntadun 1 *izond* punta duena, puntaz hornitua.

Bibote **puntaduna** zuen eta ile-kizkur bat kopetan. **Koro Navarro**  
Belarri luze **puntadunak** irteten zitzaizkion ile artetik. **Iñaki Mendiguren**  
Kapela beltz **puntadunak** baino ez ziren ikusten. **Iñaki Mendiguren**  
Haien kasko **puntadunen** gandorrek sugarrezkoak ziruditen. **Karlos Zabala**  
Zapatak larruzkoak eta **puntadunak** ziren. **Koro Navarro**  
Takai luzeko bota beltz **puntadunak**, larruzko praka beltzak, niki beltza. **Jokin Muñoz**  
Purpura-koloreko kristal **puntaduna**. **Iñaki Mendiguren**  
Tresna txiki bat erakutsi dit une horretan, tresna txiki eta **puntadun** bat, motibo geometrikoez hornitua. **Iban Zaldúa**  
Erdi Aroko hainbat etxek osatutako kalea zuen, bere arku **puntadunekin**. **Edurne Elizondo**  
Izan ere, benetan isuritako malko batek ez baitu inoiz gure adimenean dugun malkoaren forma simetriko, **puntadun** eta ideal hori izaten. **Harkaitz Cano**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duena)

Parke zaindarien makila altzairu- **puntaduna** hartuta. **Koro Navarro**

## • 3 izlag puntako.

Ontzi bat ikusi diat portura sartzen, gizon askorekin; ezkutuak eta bi **puntadun** lantzak zitiztean. **Juan Kruz Igerabide**  
Segi eta segi egiten duten tematiei, metalezko **puntadun** eskularru batzuk ipintzen zaizkie. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## puntaerdi ik punta 14.

## puntako 1 *izlag* buruan doana, gailena.

Bakoitzak bere espezialitatean **puntako** musikariak izan ditu irakasle eta, gainera, urtero-urtero maisu gonbidatuak izan dituzte. **Berria - Harian**  
Gaur egun **puntako** bertsolariak ez dira **puntako** txapelketetan lau oinak jartzearen zale. **Andoni Egaña**  
Ez naiz **puntako** gidaria. **Aingeru Epaltza**  
Mundu osoko **puntako** ikerlari ugari elkartzen zituzten hormok. **Fernando Morillo**  
**Puntako** igerilariak Ordiziako Hegats Igeriketa txapelketan. **Berria - Kirola**  
*Bilbo Basketek* **puntako** taldea dela erakutsi ahal izango dio Bizkaiko Aldundiari eta ACB Ligari. **Berria - Harian**  
**Puntako** joera literarioak euskal literaturara ekartzea. **Ana Urkiza**  
Ez da behar azken **puntako** teknologiarik. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
**Puntako** enpresa batean lanpostu bikaina zuena. **Iban Zaldúa**  
Bouville, zeruaren babesari esker, **puntako** egoera ekonomikoan dago. **Monika Etxebarria**  
Horrexegatik nenbilen **puntako** plazer hura neuk ere dastatu eta tarteka gozatu nahian. **Aitor Arana**  
**Puntako** jatetxe batean sartu eta aurki ez dugu asmatuko zein den sukaldea, teknologiak berealdiko eraldaketak (are azpiegitura alorrekoak ere) hertsatzen ari baitira. **Edorta Agirre**

## 2 punta-puntako ik puntarengo.

Liburu bat argitaratzen du futbolariak, zinemako artistak, **punta-puntako** politikariak, famaren gailurrean dagoela adierazteko. Pare bat urtetan **punta-puntako** aurrelaria izango da. **Anjel Lertxundi**  
Erramu egunez izaten zen saioa Zarautzen, **punta-puntako** bertsolariekin. **Berria - Kultura**

World music-eko **punta-puntako** taldeak izango dira Bilbon. **Berria - Kultura**

Salk Institutua **punta-puntako** ikerketa zentroa da. **Berria - Euskal Herria**

**Punta-puntako** grabazio-estudioa; sekulako kotsola, palanka eta argitxo pila batekin. **Jon Muñoz**

Ondorio horretara iristeko, astronomoek **punta-puntako** teknologia erabili dute. **Berria - Gaiak**

Segurtasun indarreai galdetzen diegu ea terroristek zergatik dituzten gure herrialdean eginiko **punta-puntako** armak. **Berria - Mundua**

Laguntza handia dela neska ezezagun batentzat **punta-puntako** aldizkari batean agertzea, argazki eta guzti. **Fernando Rey**

**Punta-puntako** jateke batera eraman zuen Lisa. **Migel Angel Mintegi**

Kritiko askok ez du mende honetako nobelagile **punta-puntakotzat** jotzen. **Anjel Lertxundi**

Enpresaz jabetu, kooperatiba bat osatu eta fabrika osoki eraldatu zuten langileek, etxetresna elektrikoak ekoizten hasteko; laster adar horretako **punta-puntakoen** artean kokatu ziren. **Iban Zaldúa**

Leni Riefensthal eta Gustav Diesel aktoreen lana, **punta-puntakoa**. **Anjel Lertxundi**

### 3 *puntako ordu* ik **ordu 30**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**puntako bertsolariak** (10); **puntako enpresa** (4); **puntako izar** (4); **puntako jokalaria** (3); **puntako musikariak** (4); **puntako ontziola** (3); **puntako orduan** (3); **puntako pilotaleku** (3); **puntako pilotariak** (4); **puntako taldea** (4); **puntako taldeak** (3); **puntako teknologia** (16); **puntako teknologiak** (3); **puntako teknologiaren** (3); **puntako teknologiarik** (3)

**punta puntako** (68); **punta puntako taldeak** (3); **punta puntako teknologia** (5)

**punta puntakoa** (14); **puntakoa da** (3)

**punta puntakoak** (10)

## **puntal 1** *iz* zutik dagoen zerbaiti, bermatzeko, jaten zaion euskarria. **ikostiko 4**.

Ezin zenbatu adina istripu ukan ditut eta ezin esan ahalako nekea hartu dut galeria estu horri **puntalez** eusten eta euriteak itsuturiko atakak libratzen. **Koldo Izagirre**

### 2 itsasontzien zamatze lanetan erabiltzen den gailua.

Nahiz ordu erdi luzea behar zuen zortzietarako, zamaketak aspaldi hasiak ziren, bafore gehienen **puntalak** jiraka ari ziren, uretan jausten utzi gabe zekartzan haizeak lanaren zarata guztiak. **Koldo Izagirre**

### puntalakurlo ik **punttalakurlo**.

## **puntalari**

### 1 *zesta-puntalari* ik **zesta**.

### puntaparis ik **puntapax**.

### puntapari*x* ik **puntapax**.

## **puntapax** (*orobat **puntaparis** eta **puntapari*x***; Euskaltzaindiaren Hiztegian **puntapax** agertzen da) 1* *iz* iltze txiki buru-zabala. • *irud/hed*

Agian bihotza txikitzen zidaten **puntaparisak** ateratzeko modu bakarra nuelako. **Jasone Osoro**

Izuak buruan danba jotzen zuen, mailukada bortitzez, kolpe bakoitzean **puntapari*x*** bat ziztatuz, erle elegante batek pozoiaz hil nahiko balu bezala. **Jasone Osoro**

### 2 (hitz elkartuetan)

Ahazturaren horma mehe zurian, bizpahiru oroitzapenen afixe higatuak, horma zuriari abesti-**puntapaxe*x*** doi-doi erantsita: *hautsi da anfora, let it be, get back* **Joxerra Garzia**

## **puntapaxtu**, **puntapax**(tu), **puntapaxten** du *ad* **puntapaxe*x***z iltzatu edo josi. • *irud/hed*

Gero beren Euskal Herri nazional horren letaniak ematen zituzten, hau zela eta hura zela, eta segitzen zuten beren esplikazioetan jator-jator, gero-eta beroago halere, harike-eta, halako batean, gogoan ondo **puntapaxtuta** gelditu zitzaidan ahokada hauxe iritsi zen arte: Euskal Herriak bere buruari gainez egiten dio. **Iñaki Segurola**

## **puntarengo 1** *izlag* **punta-puntakoa**, gailena.

Auskalo zenbat mila metroko **puntarengo** puntan oina jarri eta, Natura mendean hartuz, ezin goragoko sentsazioak sentitzea, hots, laineza geografiko bat baizik ez den gailurretako flasha. **Iñaki Segurola**

### 2 (izenondo gisa)

Aipatzen ditu hemen adibide **puntarengo** gisa: Vilfredo Pareto, Gaetano Mosca, Max Weber eta Roberto Michels. **Joxe Azurmendi**

Sentimenduen suzedaneo **puntarengoena** den dirua. **Iñaki Segurola**

Horixe da mendizale jonkitu edo mendigoizale **puntarengoaren** karrera, heriotzaren mugetarainoko jolas zoro batek koroatzen eta tontortzen duena. **Iñaki Segurola**

· Hauts zikin bat zainetan eta huts garbi bat bihotzean, jonkia dabil espediziotik espediziora, bere izpiritu eroria, ertz zailenetik abiatuz, hutsetik hutsagora altxako duen jenero santuaren bila, orratz-puntatik orratz-**puntarengora**, bizi-kimikarik ezean Kimika salbagarri baten mirabe bihurtua, ezinegon lazgarri baten izerdi hotzak heriotzaren koloreko gailur hotziletara bulkatzen duela. **Iñaki Segurola**

## **puntatxo** *iz* punta txikia.

Gero zapi bat atera eta, **puntatxoarekin**, izerdia kentzen hasi zitzaion. **Berria - Kultura**

Osabak azkar eta arin busti zuen hatz bat ahoan eta uzkiari ipini zidan **puntatxoa**, bertan pittin bat barneraturik. **Aitor Arana**

**Puntatxoa** baino ez; sartuidazu, mesedez! **Jon Arretxe**



**puntazo** *iz adkor* gertaera ezustekoa, onuragarri eta atsegina.

Karretera bazterrak horakoak diruditenik ez da egia, baina zer **puntazoa** den kontrol batera iritsi eta guardia zibilak edo polizia nazionalak ez direla ikustea.

Berria - Kirola

puntazorrotz ik **punta 16**.

**punteatu**, puntea, punteatzen du *ad* gitarra edo kideko instrumentu baten hariak banaka jo, haien soinuk lotu gabe.

lido berean, gitarra jotzeko ahalmena ez galtzeaz gain, teknika berriak ikasiz eta Connierekin **punteatuz**, erreperitorio musikala zabaldu zuen.

Xabier Olarra

**puntel** *iz* euskarria. ik **puntal**.

Zeras Kartagotarrak, ordea, aurrena egurrezko plataforma bat egin zuen eta gurpilak jarri zizkion; gero, gainean **puntelak** eta zeharkako habeak erabiliz, armazoiak egin zituen.

Santiago Iruretagoiena

Armazoiaren gainean lau **puntel** zituen, bakoitza bi habez osatua; hauetako bakoitza luzean hogeita hamasei oin, lodieran hamabost habete, eta zabalean hamazortzi habete.

Santiago Iruretagoiena

Makina horiek kate bidez, eta zeharkako eta trabeskako loturaz eta bermatzeko **puntelez** eusten dira.

Santiago Iruretagoiena

Hala, tunelen ahoak kolpetik ireki zirenean, bat-batean sartutako uraren indarrak **puntel** guztiak eraitsi zituen, eta han barruan zeudenak, bai uholdearekin eta bai tunela gainbehera erortzearekin, bertan ito eta galdu ziren.

Santiago Iruretagoiena

**punteo** *iz* punteatzea, gitarra eta kidekoak punteatuz jotzea.

Asko gustatu zitzaigun Manuel Molinaren hasiera eta bukaerako jotze eta kantaldi adierazgarria, eta gitarristen abilezia eta sendotasuna zarrastetan, arpegio, **punteo** eta pikadoetan.

Berria - Kultura

Sarrerako **punteoak** hilerriko ainarak hegaldarazi zituen.

Aingeru Epaltza

Bateriaren abiadura eta kolpe paregabea, gitarra **punteo** distiratsuak, teklen trebezia beharrezkoa den uneetan bateria eta gitarraren abiada leuntzeko.

Berria - Kultura

**puntera** *iz* zerbaiten punta estaltzen duen pieza.

Arrantzarako kainaberaren **punteran** sortzen den korapiloa lehenbailehen askatu behar da baldin eta ez bada aparailu guztia alferrik galdu nahi.

Hasier Etxeberria

**punteria** *iz* tiroa helbururan joarazteko trebetasuna.

**Punteria** ona duzu? Koldo Izagirre

Oso **punteria** ona omen zeukan Blancok.

Gotzon Garate

Aita oso ehiztari ona zen, **punteria** izugarria zuena.

Joan Mari Irigoien

Han, tiro egiten baizik ez zen nabarmendu, **punteria** deabruzkoa omen zuen.

Aingeru Epaltza

Tiramen eskasa eta jaurtitzeh ahula ez ezik, **punteria** txarrekoa nintzen.

Aingeru Epaltza

Atearen aurrean **punteria** gehien duenak erabaki dezake partida bere selekzioarentzat.

Berria - Kirola

Bere jaurtiketa bortitzari teknika eta **punteria** gehitu dizkio.

Berria - Kirola

Aste batzuek, **punteria** zorrotzen aritu nintzen, lata batzuekin.

Iban Zaldua

Errifle batek pinturazko bolak jaurtitzen ditu, **punteria** fintzeko erabiltzen diren tunel horietako baten muturrean.

Berria - Kultura

Aurrelariaren **punteria** faltagatik zutoinera era langara jaurti zuten madrildarrek.

Berria - Kirola

New Jerseyren **punteria** falta izan zen partidako gakoa: %27,1.

Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**punteria** **ona** (4)

puntilla ik **puntilla**<sup>1</sup>.

puntilladun ik **puntilladun**.

**puntilla**<sup>1</sup> (*orobat **puntilla***) **1** iz parpaila.

Gerrian kordoizko faja gorria zeraman, **puntilla** beltzekoa.

Juan Martin Elexpuru

Bularretako barroko bat, **puntilla** eta enkajeekin, panty batzuk eta braga beltzak.

Joxean Agirre

**puntilla**<sup>2</sup> *iz* errematea.

Akabuko **puntilla**! ezin dut gehiago agoantatu.

Patxi Iturritegi

**puntilladun** (*orobat **puntilladun***) *izond* parpailaduna.

Gordasolaren sabaiko zapi txuri **puntilladuna** osatuko balute bezala.

Patziku Perurena

Mantilla horixa **puntilladun** bana erregalatu die Abuztu amautxiak.

Patziku Perurena

**puntillero** *izond* tantoa azkentzen iaioa den pilotari aurreralaria.

## puntillismo *iz* pintura-teknika inpresionista, pintzel-ukituek sortzen dituzten kolore puntuen elkartzean datzana.

Aurpegia zenuen aldatuen, masaileko gorriak ezabatu zitzaizkizun, eta garai batean leuna izandako azalean bizarraren kimuak ia begi zuloetaraino iristen zitzaizkizun, **puntillismoaren** teknika imitaturik. **Eider Rodriguez**

## puntillista *izond* puntillismoarena, puntillismoari dagokiona.

Antzeko printzipio batez baliatzen zen argazkilaritzako prozedura autokromoa, 1900 inguruan, eta berdin pinturako joera **puntillista** ere, kolore-orban txikitxoak elkarren ondoan jarriz adierazi nahi baitzuen kolorea. **Josu Zabaleta**

## puntista *iz* zesta-puntan jokatzen duen pilotaria.

Hemendik aurrera zesta-punta jaialdiak urriagoak izango dira, eta punta-puntako **puntista** gehienak AEBetara begira jarrita daude jada. **Berria - Kirola**

Joan den otsalean Manilara iritsi ziren 26 euskal **puntistak** ez dira oraindik jokatzen hasi. **Ramuntxo Etxeberri**

**Puntista** profesionala ere bada. **Berria - Kirola**

Hegoaldeko eta Iparraldeko **puntistekin** torneoa antolatu dute. **Berria - Kirola**

Itzi Gaitza eta Felix Espilla **puntista** beteranoek *Eusko Basque* enpresan jarraituko dute beste urtebete. **Berria - Kirola**

## punto ik puntu.

## puntoka ik puntu.

## puntometro *iz* puntuak neurtzeko gailua.

Garcia-Quesada anaiak eta Garciak denbora bera dute, eta **puntometroak**, etapa bukaeretan lortzen diren postuen arabera egiten den sailkapenak, erabaki dezake azken garailea. **Berria - Kirola**

Biak denbora bera dute nagusian, eta daramaten martxan, normalena itzuliko garailea **puntometroak**, postuek ematen dituzten puntuak, erabakitzea litzateke. **Berria - Kirola**

## punta 1 *iz* adkor punta.

Mihi lepoaz (alegia, *apex* edo **punta** baino atzeraxeagoko zatiaz). **Lourdes Oñederra**

Mihiaren **puntara** datorrigunari eutsi bertsokideari, badaezbada, adeitasunezko galdera egin ondoren. **Andoni Egaña**

Zigarro piztuen **punta** gorriak mugitzen ziren ilunpean. **Bernardo Atxaga**

Fusil baten **puntan**, maindire zuri bat zintzilikatu ditek kasernako leiho batetik. **Txillardegi**

Aita zenaren lapurtar boneta hartu zuen [...] eta buruan aski barna sartu zuen, beti egiten ikusi zuen bezala: **punta** bat luzatuz begien gaineko aldean. **Elena Touyarou**

Euskal-Herri guzian, salbu Nafarroa hegoaldeko **punta** batean. **Herria**

4 libera eta 80 zentimetan den bixkotxa paketaxoa untsalaz 0,731 eurotan ezarria izanen da baina **puntako** batteko hori nunbait galduko da. **Herria**

-Nik pentsatzen dut emaztea bizian **puntan** dela; bizi-emaile, eta bizidunen ere ernatzaile, baloreen bermatzaile... **Menane Oxandabaratz**

### 2 (izenondoekin)

Mihi-**punta** zorrotzak. **Lourdes Oñederra**

Zakila arrosaren **punta** minbera kilikatu zuen, begiak apal eta auhenka. **Itxaro Borda**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behin goraka joan bagara, gero beherakakoa hasten den **punta** -mutterra edo kaxkoa litzateke klimax hori. **Pello Zabala**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Gero, titi zuri **punta** -gorrail haiek besarkatu eta pixka bat milikatu nituelarik, senditu nuen tripa azpian, bolbora baten pare, zerbait erotzen eta zapartatzen. **Daniel Landart**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mih-**punta** eta erroa ez beste, guzti da berez *dorsum* deitzen dena. **Lourdes Oñederra**

Kasketeta trebeska, zigarreta ezpain **puntan** eta omere ona denetan! **Herria**

Presoek gutunak paper **punta** batean idazten zituzten. **Eneko Bidegain**

Entzun diezaioگون; kantuan hasten bada, hari-**puntatik** hortxe aterako diogu-eta burutapen guztien mataza. **Patxi Ezkiaga**

Ote-**punta** berri gozoa ardiek eta ahuntzek jan ezaten. **Pello Zabala**

Urrutian, zubiak sortzen zuen argitasuna lagun, uhinen apar **puntak** sumatzen ziren **Bernardo Atxaga**

### 6 ziria, eztena (*irudizko adieran*).

Potzolozen gorreria selektiboa: sekula ez nire **puntak** entzuten. **Aingeru Epaltza**

Ni neu, goizaldeko ordu tikitian, Charlyren eta Ttipiren arteko **punta** saio bat baino gehiagoren lekuko izana naiz. **Aingeru Epaltza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mihi punta** (3); **paper punta** (3)

**hanka punttetan** (7)

## punttada 1 *iz* adkor puntada.

Goizetik **punttada** bat edo beste eman ohi du, frexkoago normalean, nobedaderik ez bada, boladatara iristen ez diren halako bultzada tikiak emanez. **Pello Zabala**

### 2 *punttadan* puntadan, zorian.

Hartara, kaskezurra urratzeko **punttadan** neukan, minarez minez. **Aingeru Epaltza**

# puntaduna *adlag adkor* puntaduna.

Zuek segi ikasten, gogor, ongi ari zarete-eta -ekiten zigun, bere kokots **puntaduna** ferekatzen zuela. **Aingeru Epaltza**

## punttaka *adlag adkor* zirika. ik **puntta 6**.

Tipi **punttaka**, gidakidearen jarlekutik. **Aingeru Epaltza**

## punttalakurlo (*orobat puntalakurlo g.er.*) izond zehatz-zorrotza.

Langile **punttalakurlo** eta zorrotza bihurtu zen, beste bien kontra purrutan hasten zena haiek goizean berandu ailegatu eta hiruretan joaten zirelako bazkaltzera.

**Fernando Rey**

Gaixo Europa! Egia da gehienetan Europaz mintzo delarik jendea, ideia txarra daukala gogoan, traba gisa ikusia dela, administrazio hutsa, gehiago dena **punttalakurlo**.

**Herria**

Mariok lehengo lepotik burua: misterioitsua, **punttalakurlo** bere trajeak armairu barrenean esekitzean eta bere pijamak eta zetazko atorrak tiraderen barrenean sartzean.

**Fernando Rey**

Aurrez aurre nuen espainol ordezkartizan Racla deitu aholkularia, arrunt **punttalakurlo**, formalista, bihurria eta jukutrilaria. **Michel Oronoz**

## punttazale izond zirien zalea dena.

Jatetxe italiarrean pizza jangaitzarekin deman ari nintzen bitartean, azkenik, aterabiderik zuzenena xelebrequeriaren baten laguntzaz egoera kargaz arintzea begitandu zitzaidan, anarterainoko "Edu" zirtolari, **punttazale** eta marmartsuarena antzeztuz. **Aingeru Epaltza**

## puntu 1 iz adkor puntua.

Hitz horien azpian, hiruki bat, honen erdi erdian **puntu** bat, begia iduri. **Piarres Aintziart**

Atomoa baino txikiagoko gizabanako bat naiz, **puntu** ezdeus bat, sortzearen eta heriotzearen arteko une laburrean zerbait ari. **Piarres Aintziart**

Azkenean, suge osoa airean iraungi zen, eta argizko **puntuak** atzera batu ziren bola batean, Birghak irentsita desagertu arte Ordurako bazituen tanto batzuk, eta heldua nintzen **puntu** egokira, non ez diezun pilotariei begiratzen, pilotari baizik, pilotak frontoian zehar egiten dituen marrazkiei zehazki. **Joanes Urkixo**

Batailan sartu aitzin, ordea, edan beharra zegoen, motorra eta muturra berotu, **puntua** hartu arte. **Iñaki Iñurrieta**

### 2 koxka.

Hasiera honetan nik jarriko nituzke Urdaibai eta Astillero gu baino **puntu** bat gorago. **Berria - Kirola**

Belea baino **puntu** bat gorago, oiloa. **Pello Zabala**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nolanahi ere, hotz-**puntu** bat ongarria zaio. **Pello Zabala**

Gose-**puntua** ere hor nonbait honezkero. **Arantxa Iturbe**

Arrisku asko torea genitzake umore **puntu** batez armaturik. **Pello Zabala**

Abertzaletasun **puntu** batek bultzatuta, Herbehereetako bandera jarri ohi zuen mastaren gorenean ontzi espainiarrei eraso egitean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Aitortu beharra dut, lotsa **puntu** batekin, halako erresumin bat dudala bihotzean nire buruaren kontra. **Karlos Zabala**

Oraingo honetan, berriz, ez omen du jada ezinegon **puntu** hori sentitzen. **Jokin Muñoz**

Osagai horiek guztiak izan arren desanparoa erabat estaltzea lortzen ez duen pertsona baten malenkonia **puntua**. **Pako Aristi**

Pipermin **puntu** bat jartzen zioten neskazahararren jakin goseari. **Karlos Zabala**

Hortik letorke zorioneko, eta premiazko, obsesio **puntua**. **Andoni Egaña**

Ernegazio **punturen** bat ere egon daiteke esaera horretan. neskaren ahotsean muzin **puntu** bat antzematen nuela irudituz zitzaidan. **Pello Zabala**

Gau bat senarrarekin etxe berean pasatu eta ezer esan ez zidala pentsatze hutsak erre-**puntu** bat uzten zidan barruan. **Xabier Olarra**

Horrek, zergatik ez aitortu, harrotasun **puntu** bat ematen dio. **Jokin Muñoz**

Gaugiroa, epela oso, uda hurbilaren zantzu; eta hego-haize **puntuak** tarteka ferekatu zituen ene masailak. **Txillardegi**

Barnealdetik datorren hego **puntu** edo hego-farfaila hori. **Pello Zabala**

Izotz **punturik** ere utziko du bazter laiotzenetan. **Pello Zabala**

Azidoa hartzeari utzi, eta, drogak ematen zion goi-**puntua** lortzeko, sukar erlijiosoa erabiltzen hasi zen. **Xabier Olarra**

### 4 karta-jokoa.

Txikitan, etxean maiz aritzen ginen kartetan Jexuxekin; **puntu**an, jakina. **Xabier Etxabe**

### 5 **puntu**an puntu, zuzen. ik **puntu 23**.

Bederatzietan **puntu**an beste munduaren ikuspen zerutiarrak. **Fernando Rey**

Goiz etortzen zen eta ordu batean **puntu**an alde egiten zuten, **Fernando Rey**

### 6 zorian.

Arriskua hautatu duelako, labain egiteko **puntu**an ibili delako. **Andoni Egaña**

### 7 **puntu-puntu**

Den-dena zegoen prest, **puntu-puntu**, *in the bag*, platerari azken ukitua eman eta jatea besterik ez zen falta. **Karlos Zabala**

Handik aurrera labean egonaldia egitea besterik ez zuten falta, eta eginda zeudenean, **puntu-puntu**, atera. **Pako Aristi**

Oso-osu gutxi falta zitzairen biei **puntu-puntu** egoteko. **Karlos Zabala**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beldur **puntu** (3); erre **puntu** (3); harrokeria **puntu** (3); harrotasun **puntu** (6); harrotasun **puntu** bat (4); ilusio **puntu** (3); inbidia **puntu** (3); lotsa **puntu** (3); **puntu** **puntu** (4); umore **puntu** (3)

hego **puntua** (3)

## punttadun

Bariku, ostiral edo ebaikotz arbuio-**punttadun** hauxe dator berriro ere, eta oraingoan ekaizen arteko loturarik balu bezala, hor ere kulpante. **Pello Zabala**

## punttuka *adlag* puntuka (bigarren adieran).

## puntu *(orobat pondu g.er., punto g.er. eta pundu g.er.)* 1 iz unea; egoera.

Arau orokorrak bilatzen ditu, denboraren **puntu** guztietan balio dutenak uniformeki eta modu berean. **Xabier Arregi**

Jaiotzaren eta heriotzaren **puntuak** urrutiratzea. **Bernardo Atxaga**

Gizona bertan uztera nindoan **puntu**an, nire besotik tira egin eta laguntzeko erregutu zidan. **Anjel Lertxundi**

Ekainaren 10ean juxtu, haritzarenean sartzen gareneko **puntu**an. **Pello Zabala**

Halako **puntu**an, pizt! jo zuen nire ez-dakit buruan edo bihotzean, honako argi-xintatxo honek: [...]. **Pello Zabala**

Zeren, Axularrek berak zioen bezala, bekatuaren egiteko aski da **puntu** bat, gogoaren egozte bat, borondatearen deliberatze bat eta konsentitze bat. **Joan Mari Irigoien**

Doi ametsetik esnatzeko **puntu** horretan oraindik hor zaude, eta jadanik ez zaude hor... **Iñaki Iñurrieta**

Halabeharrez, kronologien inozotasunaren bidetik, beti atzerago dagoen **puntu** bateraino zuzentzen bagara ere, inongo historian aurkituko ez den **punturantz** hain zuzen, **puntu** hori bera bere buruaren hutsa baino ez da izango. **Xabier Arregi**

Ez nuen **puntu** hartan, halarik ere, luzaz iguriki behar izan, zeren eta handik gutira itzuli baitzen Mattin, kandela bat eskuan. **Joan Mari Irigoien**

Ez gaude hasierako **puntu**an. **Berria - Euskal Herria**

Haatik, herstura hertsiki hartan eta **puntu** gaitz hartan, alferrikakoak ziruditen haren manu eta ordeneak. **Joan Mari Irigoien**

Instantearen helburua hain zuzen horixe denez gero: irudimenean, denboraren jarioetik **"puntu"** bakan bat, ia luzerarik ez duena, ateratzea. **Josu Zabaleta**

## 2 dimentsiorik gabeko espazio gunea. (geometrian)

**-Puntua** batere zatirik ez duena da -abestu zuen Nofuturek. **Jon Muñoz**

Lerroa **puntu** kopuru infinitu batez osatua da; plano lero kopuru infinitu batez. **Juan Garzia**

Bi **puntu** artean lero zuzen bakarra egon daiteke. **Ibon Urbarri**

Geometrian: zirkulua; zuzena; eta Euler-en **puntuak**, triangeluei dagozkienak. **Jon Muñoz**

Zirkunferentziak diametroaren leroa mozten duen **puntu**an. **Santiago Iruretagoiena**

Bi **puntu** horietatik elkar ebakitzen diren bi zirkulu egin behar dira, eta ebakigunetik eta hasierako zirkuluaren zentrotik pasatuz, lero bat egingo da muturreraino. **Santiago Iruretagoiena**

**Puntu** batetik plano batera egindako proiektzio bat balitz bezala deskriba daiteke geometrikoki aldakuntza hau. **Josu Zabaleta**

**Puntu** batek plano laukituan duen lekua haren izena izango da. **Jon Muñoz**

Eguzkia beti itzultzen baita **puntu** berera: 365,242 egun behar izaten ditu behin izarrateko **puntu** jakin batean ikusi, eta berriz ere **puntu** horretan, ez beste nonbait, ateratzeko. **Pello Salaburu**

**Puntu** guztiek bat egiten duten beste **puntu** bat izendatzeko erabilia. **Juan Garzia**

Neurri harekin bi **puntu** markatuko dira, G eta H letrak jarriz. **Santiago Iruretagoiena**

Argi-izpi ugari gainalde batean "atzeman" eta **puntu** batean kontzentratzeko. **Josu Zabaleta**

Biztanleria-kurba batek goraka egiten duen **puntua**. **Xabier Arregi**

Denboran une batean eta espazioan **puntu** batean agertu badira. **Xabier Arregi**

Makina sinple bat da palanka, oso ezaguna eguneroko bizitzan, **puntu** batean aplikaturiko indarrari beste **puntu** batean lan eginarazten diona. **Irene Aldasoro**

Emadazue **puntu** finko bat eta lurra altxatuko dut. **Jon Muñoz**

Izaki aljebraiko gisa "ikusten" zen izaki geometrikoa: M **puntua** zenbaki bikote bilakatu zen (x, y)! **Jon Muñoz**

## 3 (bestelakoetan) ik gune.

Gasa eta argindarra hornitzeko **puntuak**. **Berria - Ekonomia**

Uhartera lehorreko **puntu** jakin batzuetatik ikusita nola ageri zen. **Iñaki Iñurrieta**

Zeren Magnanik, batzuetan, aireko **puntu** alegiazko batetik ikusiko balu bezala margotzen baitzuen Pontito, herri gainetik hamabost edo ehun eta berrogeita hamar metrotik ari balitz bezala. **Xabier Olarra**

Urrin ezaguna belarri atzean, ileak hasten diren **puntu**an. **Iñaki Iñurrieta**

Kostako **puntu** goietan zenbait gotorleku eraiki zituzten, egun suntsituak. **Koldo Izagirre**

Beste **puntu** beltz bat Perdido mendiko *Escupidera* da. **Berria - Euskal Herria**

**Puntu** horretan okertzeko moduko bigun zegoen hodia. **Juan Garzia**

Begirada gela erdiko **puntu** batean galduta. **Iñaki Iñurrieta**

Izan ere, jira osoa egin nezakeen eta, oharkabean, aterea nintzen **puntu** berera itzuli; hain zirudien guztiz berdina paretak. **Koro Navarro**

Botopaperak bozketa **puntu** guztietan egon daitezten. **Berria - Euskal Herria**

Zulatu beharreko **puntua** zehaztea besterik ez zuten falta, eta horretarako, neurriak hartzeko sistema bat ez ezik, barrukoekin adostutako kolpe batzuk baliatu nahi zituzten. **Rafa Egiguren**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Soldadura-**puntu**en antzekoak dira ainguragune horiek. **Irene Aldasoro**

Gero eta tarte handiagoa utziz nindoan azazkalaren sorrera-**puntu**aren eta azazkal zaharraren artean. **Iñaki Iñurrieta**

-Hi ardura hadi blokeo-**puntuak**, mezulariak eta zaindari-postu aurreratuak antolatzeaz errepide probintzialeko alde batean eta bestean. **Koldo Biguri**

Palanka batek beti du gontz edo euste-**puntu** bat. **Irene Aldasoro**

Bizeps muskulua erradioari lotzen zaion puntua ukondotik oso hurbil dago, eta ukondoak egiten du euste-**puntu**arena. **Irene Aldasoro**

Ustez irudiaren planoari buruz perpendikularrak behar zuten marrak konbergente eta ihes-**puntu** baterantz zuzenduta marraztu ordez [...] divergente marrazten direnak. **Josu Zabaleta**

Epaileak penalti **puntua** adierazi ote zuen jakin gabe, protestaka hasi zen berehala. **Aritz Gorrotxategi**

## 5 irud/hed

Oroimenaren **puntu** galduren batean hasi zen ezereza. **Lourdes Oñederra**

Beti han zegoen mina, burdinazko bridak ezpain izkinan utzitako **puntu** minberaren antzera. **Anton Garikano**

**Puntu** mingarria ukitu zion. **Iñaki Mendiguren**

Denok dugu izan, gure gurinezko **puntua** bihotzean. **Harkaitz Cano**

Itzulerarik gabeko **puntua** izango dela. **Berria - Harian**

Historia sekularren goi-**puntuak** erlijiozko historiaren behe-puntuekin bat datozela, eta beheraldi mundutarrekin batera zertutako erlijiozko lorpenak aurrerapen espiritual hutsak ez ezik, susperraldi espiritualak ere badirela. **Iñaki Mendiguren**

Monarkia frantziarraren legerian du testu berriak etete **puntua**. **Andres Urrutia**

Deskribatu behar da, era berean, sendagilearen diskurtsoaren jatorria den esparru instituzionala eta diskurtso honek bere jatorri legitimoa eta aplikazio **puntua** aurkituko duen gunea. **Xabier Arregi**

Hemen ere, beharrezko den erabakirako, "ezaren mantenua" da hasiera **puntua**. **Joseba Zulaika**

Zapateroren ideiekin bat ez egin arren, errespetatu egiten dituela azpimarratu zuen eta PSOEko buruari berdin jokatze eskatu zion, hori «hasiera **puntu** egokia izango

delako». [Berria - Euskal Herria](#)

Aurretik egin diren deskribapenen integrazio- [puntuak](#) . [Xabier Arregi](#)

Erdi Aroaren gailur-gailurrean, Aristotelesen sistema derrigorrezko erreferentzia [puntu](#) bihurtuta zegoen. [Askoren artean](#)

Nola deribatzen diren bata bestetik diskurtso ekonomikoaren difrakzio- [puntuak](#) . [Xabier Arregi](#)

## 6 marka edo seinale gutzitxikia.

Lerroak eta [puntuak](#) erabiliz egindako paisaiak bildu ditu Javier Alkain margolariak. [Berria - Kultura](#)

Katuari sakatzen diozunean laserra pizten da eta [puntu](#) gorri bat agertzen. [Pako Aristi](#)

Lurretik [puntu](#) beltz bat ikusiko dugu Eguzkiaren aurretik pasatzen. [Berria - Gaiak](#)

[Puntu](#) argitsua mirailan nola islatzen zen ikusteko. [Joan Mari Irigoien](#)

Hedadura urriko [puntuetan](#) kontzentratzen zen argi gutzia, koadroaren gainerako zatiak ilunbeetan utziz. [Anjel Lertxundi](#)

Argi- [puntu](#) baten distantzia kalkulatzeko. [Josu Zabaleta](#)

Arturus eta Vega, Altair eta Aldebaran jainkoak bezala distira eginez dauden argi [puntuak](#) infinitu horretan orientatzea atsegale triste samar bat gertatzen zitzaien. [Josu Zabaleta](#)

Baina benetan deigarriak han mugitzen ziren tintazko [puntu](#) nimitxoak ziren. [Iñaki Mendiguren](#)

Zeppelinak [puntu](#) txiki-txiki bat bihurtu zenean, ohe gainera itzuli nintzen. [Anjel Lertxundi](#)

Duela mende erdi bat jakin zen argi zurizko [puntu](#) bat erregistratzen duela begiak ikusmen-kortexaren gaina elektrikoki estimulatzeko. [Irene Aldasoro](#)

Handik ordu erdira, berlina, atze-atzera geratua azkenik, ia [puntu](#) ikusezin bat zen esteparen zeru ertzean. [Karlos Zabala](#)

Kalaportu [puntu](#) txiki bat zen munduan, baina han geunden gu. [Joseba Sarrionandia](#)

Partikula elementalak [puntu](#) infinitesimalak liriateke onenean ere, baina prezisio jakin batekin begiratu ezker. [Iñaki Segurola](#)

Perseidak Swift-Tuttle kometaren isatsak bidean uzten dituen hauts [puntuak](#) dira eta 61 kilometro segundoko abiadura sartzeko dira Lurraren atmosferan, adituen arabera. [Berria - Gaiak](#)

Uso lako hegazti zuri zuriak helduko dira, bi azabatxe [puntu](#) bakarrik begitxoak eta bi grafito marratxo zangoak. [Joseba Sarrionandia](#)

Pitcairn [puntu](#) txiki bat da (25 kilometro koadro da) Ozeano Barean. [Berria - Gaiak](#)

## 7 (ortografian eta Morse alfabetoan erabiltzen dena)

Espazioa, [puntuak](#), koma, alfabetoko hogeita bost letrak. [Juan Garzia](#)

Nolanahi ere, oso lagungarria da gainerako puntuazio markak ere egoki erabiltzea: [puntu](#) eta koma, bi puntuak, marra luzeak eta abar. [Iñigo Aranbarri](#)

Koma bat, errepidean zoazela, bidegurutzeko batera helduta bidea emateko seinalea aurkitzea da; eta [puntu](#) bat, berriz, stop bat. [Iñigo Aranbarri](#)

Hogeit urteko mukizua [puntu](#) -com milioiz okituz. [Oskar Arana](#)

[Puntu](#) eta aparte orain. [Puntu](#) eta aparte hura metafora gisa gelditu zait. [Joxe Azurmendi](#)

Zure [puntu](#) suspentsibo adierazgarri horien berezko bukaera. [Jon Alonso](#)

Era berean, x eta z zinuak, gainean [puntuak](#) zutela proposatu zituen tx eta tz adierazteko. [Koldo Zuazo](#)

Noizbait, ordea, kolpetxo batzuk identifikatu nituen, [puntu-puntu-puntu](#) -marra- [puntu](#) -marra, transmisio baten bukaerakoak, eta ordutik aurrera ez nuen morse-hotzik entzun.  $p = \text{puntu} / \text{marra} / \text{marra} / \text{puntu}$ . [Anjel Lertxundi](#)

Telegrafoetan, [puntu](#) eta marra, [puntu](#) eta marra jasotzen ziren berriak gero eta kezagarriagoak ziren errepublikar gudarosteentzat. [Jon Maia](#)

## 8 (irud/hed)

Batzuentzat estatutua [puntu](#) eta amaiera da, baina guretzat ez, [puntu](#) eta segi da, bakarrik. [Berria - Harian](#)

Buruaren ezker-eskuineko mugimendu batekin bete zituen [puntu](#) suspentsiboak. [Joan Mari Irigoien](#)

Heriotza ez dela [puntu](#) eta kito, eta guk guztiok elkar ikusiko dugula berriro egunen batean. [Mirentxu Larrañaga](#)

Euskal arrazaren izpiritua holako eta halako da, [puntu](#). [Joxe Azurmendi](#)

-Onak -gaineratu zuen gizonaren ahotsak, amaiera- [puntu](#) biribila jarri balu bezala. [Jose Morales](#)

## 9 maila; eskala bateko maila; gertakari baten egoera zehazten duen aldagai baten balioa.

Irakasleak esan digunez, Richter eskalan zazpi [puntu](#) egin zituen Loma Prietako lurrikarak. [Javi Cillero](#)

Begiak [puntu](#) baterainokoa argazki-makina baten antza badu ere, [...]. [Josu Zabaleta](#)

Ibex-35 indizeak 87 [puntu](#) galdu zituen atzo eta 7.800 mailaz azpitik dago. [Berria - Ekonomia](#)

8.000 [puntuak](#) harrapatu ez arren, Ibex-35ek 30 puntu irabazi zituen. [Berria - Ekonomia](#)

UPN eta CDN 15 [puntu](#) jaitsi dira azken bozetatik, eta hurrengo hauteskundeetan erregionalistak oposizioa pasatuko dira. [Berria - Euskal Herria](#)

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia, berriz, Espainiari 1990an onartutakoa baino 28 [puntu](#) gehiago isurtzen dituzte. [Berria - Euskal Herria](#)

Krisiaren eraginez, zazpi [puntu](#) jaitsi ziren akzioak. [Berria - Euskal Herria](#)

[Puntu](#) bat jaitsi eta %11,5ean geratu zen. [Berria - Ekonomia](#)

Bi hilabete eskasetan, hiru bider, Estatu Batuetako Federal Reserve Board erakundeak interbentzio-tasa [puntu](#) -laurden bat jaitea erabaki zuen. [Koro Navarro](#)

Hilabete batzuetan bi [puntu](#) igo ziren epe luzeko interesak. [Koro Navarro](#)

Umekeria litzateke hitza [puntu](#) bateraino soilik alda daitekeela ustea. [Isabel Arrigain](#)

## 10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Prozesuan, azidotatua gutxitu egiten zitzaien (deskarboxilatuta egiten ziren) eta urtze [puntuak](#) ere jaitsi. [Juan Garzia](#)

Honelakoetan, ihintz- [puntuak](#) non dagoen kontuan hartu behar bada ere, ez da kondentsaziorik gertatzen. [Pello Zabala](#)

Zirkunstantzia batzuetan, zenbait berniz likido izatetik solido izatera pasatzen dira, gibelaren edo birikaren trinko-biguntasun [puntu](#) horixe harturik. [Juan Garzia](#)

Temperatura jakin batean, asetasun- [puntuak](#) iristeraino handitu daiteke aireko ur-lurrin kantitatea. [Irene Aldasoro](#)

Iruñeko pilota aukeraketan, dena dela, gehiago hitz egin zen Mikel Goñiren sasoi [puntuak](#) pilotetz baino. [Berria - Kirola](#)

Ikertzaile batek beti forman eta sasoi [puntu](#) onenean egon beharra zeukak. [Joxemari Iturralde](#)

Aitorrek maila ona erakutsi du Paris-Nizan, eta bere sasoi [puntu](#) onenetik gertu dago. [Berria - Harian](#)

## 11 prozesu edo kideko bateko une edo fasea.

Eboluzio horretan, badira zenbait [puntu](#) finko-finko, uharte koxkor batzuk, ezagutze espezifikoko guneak osatuak. [Juan Garzia](#)

[Puntu](#) horretara iritsirik, bitarik bat: edo lortutako horretaz jabetzen dira [...], edota iruzur egin dietela sentitzen dute. [Iñaki Iñurrieta](#)

Marxek ideologia ekonomikoa bere indar eta hedapen [puntu](#) gorenera eraman zuen, bere une gorenera. [Iñaki Heras](#)

[Puntu](#) gorena Lehen Gurutzadarekin (K.o. 1095-9) iritsi zen, Islamaren bizkar, Mendebaldeko kristau-printzerrien kate bat ezarri baitzen Sirian, Antiokia eta Edessatik. [Iñaki Mendiguren](#)

Lasaitasuna behar zen zerbait kontatzeko; edonondik hasteko libertatea gero, kontakizuna [puntu](#) batean utzi, eta, behar izanez gero, beste bati ekiteko. [Ramon Saizarbitoria](#)

Kafe bat interfonetik eskatu eta hartzea zen errepikapen erritual horretako [puntu](#) nagusietako bat. [Jon Alonso](#)

Gatazka oreka- [puntu](#) batean uzteko beste aukera bat agertu zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Aurkitu nahi duena prozesu baten mugak dira, bihurtze baten inflexio- [puntuak](#). [Xabier Arregi](#)

Giza arrazak izandako zorion- [puntu](#) gorena. [Iñaki Mendiguren](#)

Baita aspaldidanik oso landua zegoen Egiptoko lurraldea ere, hango zibilizazioa iritsia zelarik zahartasun- [puntu](#) batera. [Iñaki Mendiguren](#)

Sasoi **puntu** egokian emaitza ikusgarriak eskuratu ditzake. **Berria - Kirola**

## 12 ukitu ia hautemanezina. (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ukitu hark heldutasun **puntu** bat eman zidan eta leiho hura betirako irekita gelditu zen. **Ana Urkiza**

-Horregatik nago Aranjuezen -erantzun zidan, ez serio ez txantxetan; akidura **puntu** batekin, behar bada. **Ramon Saizarbitoria**

Afari batean profesionalak geunden, liburugintza bertatik eta sakon ezagutzen dugunak, eta etsi-**puntuak** harturik ginduzkan. **Berria - Kultura**

Herrri lanetan nahi beste neurri hartuta ere, arrisku **puntu** bat beti egongo da. **Berria - Harian**

Erresumin **puntua** nabaritu zion Anari ahotsean. **Iñaki Iñurrieta**

Eman egin zion, txintik esateke baina mesprezu **puntu** batekin, begiraldi zorrotza eman eta gero. **Migel Angel Mintegi**

Bizitza osoan egin ditudan loturek ere paranoia-**puntu** nabarmena zuten? **Anjel Lertxundi**

Objektiboki azterturik, akaso hiperbole **puntu** bat nabari dezakegu kontu batzuetan, baina jakina da bizitza bera dela askotan hiperbolikoagoa literatura baino. **Juan Garzia**

Solaskidean inpresionatzeko asmo hark, ordea, nahi baino nabarmenago uzten zuen argitan halako urduritasun **puntu** bat. **Iñaki Iñurrieta**

Jakituria **puntu** bat, norberaren gainetik dabilena. **Iñaki Iñurrieta**

Zahardadeari dagokion seta **puntu** horrekin, bere polemika zaharretako esaldirik bikainenak zerabiltzan parrastaka. **Juan Garzia**

Urruntasun hark bazuen, halatan, hurbiltasun eta berotasun **puntu** bat, igartzen zitzaiona, batik bat, osaba Joanikoten aitzinean. **Joan Mari Irigoien**

Gero, poliki hasi da, ahots tristez, dardara **puntu** batez: [...]. **Iñaki Iñurrieta**

Asmamen handia behar da -maltzur- **puntu** bat, ia-ia-, sentsuei bistako zaien ororen aurka, intuizio ororen aurka, bidea egiteko. **Juan Garzia**

Kakahuete txigortuak eta gazi-**puntu** fin bat emanak, almendrak, hurrak, eta anakardoak! **Jon Muñoz**

## 13 joko, kirol, azterketa eta kideetako batean parte-hartzaile bakoitzaren jarduna zenbatzeko eta baloratzeko erabiltzen den banakoa. ik tanto.

Maiaren bertsoak 17,5 **puntu** jaso zituen, eta Iturriagarenak, aldiz, 20. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Flitwickek isilpean esan zidan ehuneko ehun eta hamabi **puntu** atera nituela haren azterketan. **Iñaki Mendiguren**

Inoiz baino zailagoa da aurten Santiago Bernabeun **punturen** bat ateratzea. **Berria - Kirola**

Pistan egon zen 21 minutuetan 16 **puntu**, bost errebote eta bi asistentzia lortu zituen. **Berria - Kirola**

Buruko indarra berreskuratzeko garrantzi handiko **puntua** da Osasunaren aurkakoa. **Berria - Kirola**

Igandean hiru **puntu** garrantzitsu galdu arren, sailkapenean ondo kokatuta jarraitzen dugu. **Berria - Kirola**

2. proba: banaka, 45 ontzako enbor bat zeinek ebaki aizkorakada gutxienean (2, 1, 0 **puntu**). **Berria - Kirola**

Garikoitz Sarriugarte sailkatu zen bigarren (377,5 **puntu**), eta Xabier Enbeita, hirugarren (357,5 **puntu**). **Berria - Kultura**

Baina nik ez markaturik ere, eskerrak beste bat aski abila izan zela, eta horra beraz, gure taldearentzat lau **puntu** gehiago! **Daniel Landart**

Gehigarritzko **puntua** lortzen badute (4 entsegu eginda), are eta hobeto. **Berria - Kirola**

-Eta **puntu** bat kenduko zaio Gryffindor txeari zure lotsagabekeriagatik, Potter. **Iñaki Mendiguren**

**Puntu** erabakigarriak lortu zituen, eta partida ia erabakita utzi zuen. **Berria - Kirola**

Vigon lortutako **puntua** erabakigarria izan zen. **Berria - Kirola**

Horrek **puntu** bat esan nahi du Sabethen alde, joko-arauen arabera. **Joxe Austin Arrieta**

Berrogeita hamar **puntu** burua zeharkatzen badiozue! **Iñaki Mendiguren**

Ehun **punturen** aldeaz galdu dugu, ezta? **Iñaki Mendiguren**

Sailkapenean lehen dira lau **punturen** abantzuarekin. **Herria**

Slytherin zihono txapelketan buru, berrehun **puntuko** aldeaz. **Iñaki Mendiguren**

13 **puntuko** alde dago Bettini eta Rebellinen artean, baina alde hori ez da gaindiezina. **Berria - Kirola**

Zortzi **puntuko** alde izatetik (41-49) hamabost **puntuko** alde izatera heldu zen minutu gutxi batzuetan. **Berria - Kirola**

Igoera sistematikoa izan zen hasieran, 2 **puntu** urteko. **Pello Salaburu**

Orain artean gidabaimenak 12 **puntu** zituen eta egindako pettoen arabera murrizten zen ondasun hori. **Berria - Euskal Herria**

Bi baso alkoholekin sei **puntu** gutxiago gidabaimenean. **Berria - Kultura**

## 14 arrazoibide, eztabaida, testu edo kidekoren bateko gaitako bakoitza; gai baten alderdi partziala; alderdia.

Negoziaketa horietarako **puntu** guztiak Kleimanekin prestatuak zeuzkan aitak. **Josu Zabaleta**

II. liburuko 1. kapituluaren garbi ikusten da **puntu** hori. **Santiago Iruretagoiena**

**Puntu** bat geratzen zen hitz egiteko, eta aurki lotu genuen hura ere. **Juan Garzia**

Bertagotik aztertu eta egiaztatu beharko litzateke **puntu** hau, nolana ere. **Joxe Austin Arrieta**

**Puntu** honetara heldu ondoren galdera nabarmena datorkigu burura: [...]. **Askoren artean**

Bost **puntu** ditu oinarri Bruselan aurkeztuko duten proposamenak. **Berria - Euskal Herria**

Mozioaren lau **puntuak**. **Berria - Euskal Herria**

Agenda hitzartu ondoren, lehenengo **puntua** betetzera pasatuko dira. **Berria - Mundua**

Hor sartzen da bigarren **puntua**: energia berriztagarriak. **Berria - Harian**

Ministroak 55 minutuko hitzaldian deusik ez zuen ihardetsi **puntu** horietaz. **Herria**

Guztira, hamahiru **puntu** eztabaidatu behar zituzten legebiltzarkideek. **Berria - Harian**

Zinegotziek ez zuten **puntua** onartu, atxiloteten arrazoia zein zen ez zekitela argudiatuta. **Berria - Euskal Herria**

Epailiek Sanzen dekretua ontzat jo dute, hiru **puntu** baliogabetuta. **Berria - Euskal Herria**

Patronalarekin akordioaren **puntu** askotan dituzten «ezberdintasunak» azpimarratu zituen. **Berria - Ekonomia**

Guretzat oinarritzkoak diren **puntu** batzuk zuzentzen ez badira, eredu sozial propioaren alde egiten ez badu, [...] eta guztiotzako eskubideen Europa izango ez bada, guk konstituzio honi ez diogu sostengurik emango. **Berria - Euskal Herria**

**Puntu** honetan, hizkuntzalariak ez datoz bat. **Isabel Arrigain**

**Puntu** hauxe iruditzen zait eztabaidagarriena. **Josu Zabaleta**

Bi **puntu** geratzen dira argitu gabe: zergatik ez dira kristalak tubuluetako paretetara itsasten, eta zergatik ez dituzte, elkarri itsatsi, eta kristal-koskor handiagoak eratzen? **Irene Aldasoro**

Aldi berean, inportazioei kendutako eskubideek ere estatuaren finantza-egoera sendotu zuten, eta **puntu** horretan, gainera, bat zetozen estatuaren interesak eta negozioen esparrukoak. **Koro Navarro**

**Puntu** honetan, bada, kontrako jarrerak daude teoria innatista baten, *Gestalt*-en, eta ikasketaren teoria baten, konstruktibismoaren, aldetik. **Josu Zabaleta**

Neurozientziak, **puntu** horretan, ezin du argitu "goragoko" maila bateko aldaketa horiek zer oinarri duten garunean. **Xabier Olarra**

Berez, galdera sail bi hauek **puntu** berera daramate. **Xabier Arregi**

Baina antzekotasun-**puntu** horiek nabarmen uzten dituzte. **Iñaki Mendiguren**

Biek dute beren arrazoi-**puntua**, biak daude oker interpretazio oso bati bagazozkio. **Anjel Lertxundi**

Adostasun **puntuak** badira, hala ere. **Edurme Elizondo**

## 15 (izenondo eta izenlagunekin)

Dokumentuko **puntu** nagusiak. **Berria - Gaiak**



Hauex dak inarrizko **puntua**. Koldo Biguri

Hortik dator, argi eta garbi, proposizioaren bigarren **puntua**. Piarres Xarriton

Azken **puntu** hori, nolana ere, ez zen inondik inora onartu. Koro Navarro

Lehen **puntua** da hartu ditudan ongiak gogora ekartzeko -sortua izana, berrerrosia eta mesede bereziak-, handitsiz eraspen biaz zenbat egin duen nigatik Jainko gure Jaunak. Patxi Altuna

Gure arteko harremanen **puntu** ilun bat baino gehiago argi ditzaketenak. Joan Mari Irigoien

Beste **puntu** gogoetagarria: prezioak. Herria

Gizateriaren historiako **puntu** ilunenetako bat da esklabotza. Berria - Gaiak

Britaniarrek Indian izandako herri-administrazioaren **puntu** indartsu eta ahulak. Iñaki Mendiguren

Edonola ere, zibilizazioek badute **puntu** komun bat: aparteko klase bat izatea gizarte primitiboekiko. Iñaki Mendiguren

Orain arte ez didak **puntu** bakar batean ere esana egin. Inazio Mujika Iraola

Kristautasunak paganismoaren gain izandako garaipenak... deklamazio-gai berriak eman zizkion hizlariari eta eztabaida-**puntu** berriak logikariari. Iñaki Mendiguren

Desberdintasun-**puntu** harrigarri batzuk ere. Iñaki Mendiguren

Gutxieneko **puntuak** «oso ongi zehaztea» izango da Kontseiluaren hurrengo lana. Berria - Euskal Herria

Dudazko **puntua** da orobat gorpua hain azkar azaleratu izana, baita bi egunez hilda egon ondoren jautiki bazuten ere. Koro Navarro

Amurizaren **puntu** ahula ez baina haren bertute handiena da hori, agian. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hasieratik argitu beharreko **puntua** da hau. Jenaro Garate

## 16 neurria.

Fresko atera dute, bere **puntu**an... Paddy Rekalde

Mortero hori bere **puntu**an nahastuz. Santiago Iruretagoiena

## 17 jostean, puntada. ik beherago 34.

Kolpeen ondorioz gizonetako bati sei **puntu** eman behar izan zizkieten buruan. Berria - Euskal Herria

Gaur egun zirujau trebea da [...] estetikako ebakuntza bat egin ondoren **puntuak** txikiak eta era dotorean ematen dituena. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Erdi datorren astean buruko **puntuak** kentzeko. Urtzi Urrutikoeetxea

Soniak abilezia izugarria zuen orratzaz eta hariar mota guztietako oihalak egiteko [...] batean **puntu** mota bat erabiliz bestean bestea. Joan Mari Irigoien

Eguraldiak ere asko esan nahi du eta! -adierazi zuen Püchl andreak, eta **puntu**-lana egiten segitu zuen. Anton Garikano

Bezeroren bat sartzen bazen, **puntu** lana ez eteteko, txerri gantz potea edo barraskilo kaxa ekartzeko eskatzen zion mutilari. Karlos Zabala

Joste-harien **puntuetan**, ordea, papera ez zegoen moztuta, etenda baizik: nabarmena zen lan hura egin zuena hariak mozturik azaleztatze-lana itsusteko beldurrez aritu zela. Anjel Lertxundi

## 18 euskal bertsoetan, errimarainoko esaldia edo lerroa.

Zortziko txikian, zortziko handian bezala, lau **puntu** eta zortzi lerro izango ditugu, eta errimak lerro bikoitzen bukaeran jarriko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

-Lehen segmentua, aurreneko bi **puntuak** osatua, bi oinak metaforen bidez adierazirik ageri dituena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertso bat osatzen da bi, hiru edo bertsolari gehiagoren artean, bertsolari bakoitzak **puntu** bana txandaka botetaz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bakarka hasierako **puntua** emanda, bina bertsolari erantzun beharko diote zortziko txikian. Berria - Kultura

Zortzi silabakoak dira **puntu** guztiak, ez da hori bertsolariaren usadioa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zortziko handiaren egitura bera du baina **puntu** bat (edo bi lerro) erantsiko dizkiogu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Diskurtso txiki bat da, nolabait, **puntu** bakoitza, bertsolariak eskala txikian jardun erretoriko guztia errepikatu behar izaten duen azpi-diskurtsoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ariketa modu honetan, gai-jartzaileak hasiko du bertsoa, **puntua** jarri, eta bertsolariak amaitu egin beharko du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ezaguna da Arozamenari zer gertatu zitzaion, gajartzaile batek **puntua** jarri ziolarik: "Belgikarren erregin dugu Fabiola...". Andoni Egaña

Bost **puntu** moldea dela, lauokekin batera, bertsolariak sarrien erabiltzen dutena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hori egin du bertsoaren bigarren **puntu**an. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Oilasko-biltzearen kontu horrek bertsoaren azken **puntua** ahaztuarazi dit. Xabier Etxabe

## 19 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hortik aurrera, inprobisazio hutsean aukeraturako **puntu**-hitzen arabera moldatuko ditu bertsoa osatzeko erabiliko dituen gainerako argudioak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 20 puntuansup\_1 adlag berehala, segituan.

**Puntu**an hasi nintzen larrizten, zertarako nahi ote ninduen asmatu ezinik. Anjel Lertxundi

Aire lehor horrek **puntu**an sika dezake edozein zapi busti. Pello Zabala

## 21 puntuansup\_2 helburua betetzeko prest.

Deportivorekin, gainera, **puntu**an jartzea kostatu zitzaion arren, dezente jokatzen ari da. Berria - Kirola

Elikatzeko sukaldeko eta mahaiko ekipamendu osoa ez ezik, espazioa ere **puntu**an eta garbi mantentzea. Edorta Agirre

Diskoa amaizera etorri da Euskal Herrira, grabatutako diskoa nahastu eta **puntu**an jartzera. Berria - Kultura

Ferrari bere taldea Valentzian ari da egunotan, 2006ko autoa **puntu**an jartzen. Berria - Kirola

## 22 puntuansup\_3 (-tzeko atzikiaren eskuinean) zorian.

Zaputzen bat egiteko **puntu**an nago. Anjel Lertxundi

Iturbide ez zebilen batera erratua erotzeko **puntu**an zegoela esan zuenean. Migel Angel Mintegi

Zainak lehertzeko **puntu**an jartzen zaizkionean, senak ez diola laguntzen, senak ez diola ezer esaten. Anjel Lertxundi

-Nora, orduan? -bere baitatik ateratzeko **puntu**an ematen zuen noble gipuzkoarra. Aingeru Epaltza

Amorruak itsuturik, tiro egiteko **puntu**an egon nintzen. Alberto Ladron Arana

Begiak itxita neuzkan, negar egiteko **puntu**an... Alberto Barandiaren

Darling jauna eskaileretan gora arrapaladan joateko **puntu**an egon zen. Julen Gabiria

Negar egiteko **puntu**an egon nintzen, baina, zorionez, eutsi egin nion. Joan Mari Irigoien

Goitika hasteko **puntu**an nintzen. Daniel Landart

Nerbio krisiak jotzeko **puntu**an zen: utzi egin nuen urruntzen. Monika Etxebarria

## 23 puntuansup\_4 (orduez edo uneez mintzatuz) zuzen.

Eguerdiko trenan **puntu**an iritsi zen. Anjel Lertxundi

Ezarritako orduan **puntu**an jangelara abiatu eta mokadu bakoitza 25 aldiz mastekatzen zuen. Bego Montorio

Biharamun goizean, seietan **puntu**an jo zuen konpondutako iratzargailuak. Iñaki Mendiguren

Zortzietan **puntu**an lanean hasi behar dut. Fernando Rey

Hamabi eta erdietan **puntu**an, igande goiz eguzkitsu hartan, atean jo zuten Julio Rehexoren apartamentuan. Joxemari Iturralde

Hark joko zuela elizako kanpaia hamarrak eta laurdenean **puntu**an. Inazio Mujika Iraola

Zer moduz zortzietan **puntu**an ostegun iluntzean? Iñaki Mendiguren

Bederatziak **puntu**an dira "Turgeniev"eko erlojuan. **Pako Aristi**  
Bederatziak **puntu**an, ez minutu bat gehiago ez minutu bat gutxiago. **Joxemari Iturralde**  
Erlojuan hamarrak **puntu**an ziren Josebak aukia hartu zuenean. **Iñaki Zabaleta**  
Bostak **puntu**an direnean hasten dira gonbidatuak iristen, autoz, taxiz, oinez. **Oskar Arana**  
Zortziak eta erdi **puntu**an direnerako gelan egon behar du berriro. **Josu Zabaleta**

## 24 inflexio puntu ik inflexio 4.

## 25 jo-puntu jomuga.

Uztaia teinkatu eta bere gezien **jo-puntu** egin nau. **Elizen arteko biblia**  
Alavesen, gaur egun, norbait **jo puntu**an baldin badago, hori Piterman da; bai, behintzat, zaleei dagokionez. **Berria - Kirola**  
Arku bat bortizki teinkatzen den bezala, azkena urrutira jaurtiki nahi denean eta **jo-puntu**an eman. **Joan Mari Lekuona**  
Legearen **jo-puntu**an diren gazteak izan dira eguneko protagonistak, eta guztiak duintasuna aldarrikatu dute. **Berria - Ekonomia**  
Hiru gezi jaurtikiko ditut alde horretarantz, **jo-puntura** botatzen ariko banintz bezala. **Elizen arteko biblia**

## 26 oraintxe puntu. ik oraintxe 9.

## 27 puntu egin ik beherago 34.

## 28 puntu geldi abiadura-aldagiluaren egoera motorraren indarra gurpiletara helarazten ez duenean. ik lokagune.

Frenatu eta **puntu** geldian utzi du 2CVa. **Pako Aristi**

## 29 puntu kardinal ik kardinal<sup>3</sup> 2.

## 30 puntu-puntuansup\_1 zuzen-zuzen.

**Puntu-puntu**an, ohi legez, hasi ziren irteten langileak. **Migel Angel Mintegi**  
Trena **puntu-puntu**an irten zen, eta trenera jende asko igo bazen ere, bakar-bakarrik nengoen nire konpartimentuan. **Anjel Lertxundi**  
Haren barruko ordularia **puntu-puntu**an ibiltzen zen, inondik ere. **Juan Kruz Igerabide**  
Agenda bete zaio azken egunotan eta egunak erabat luzatu, baina **puntu puntu**an iritsi da hitzordura, larunbat goizean. **Berria - Harian**  
Bertan ipintzen zuen orduan ateratzen saiatzen nintzen, **puntu-puntu**an, hutsik egin gabe. **Iban Zaldúa**  
Hamarretan **puntu-puntu**an egongo da behean, osoko bilkura dagoenez gero. **Iban Zaldúa**  
Ordu bi eta erdietan, **puntu-puntu**an, hasi ziren langileak kaleratzen. **Migel Angel Mintegi**  
Elizako erlojuak bostak jotzean, **puntu-puntu**an, orrialdeak, lumak eta tinta-ontzia altxatzen zituen, tarrapatan lekutu aitzin. **Elena Touyarou**  
Bederatziak **puntu-puntu**an baldin badira nola demontre egon daitezke dagoeneko nire zain, galdetu zion bere buruari, baina ez zion ezer erantzun neskari. **Joxemari Iturralde**  
**Puntu-puntu**an esaten ez den egiari oso zaila gertatzen zaio gero bere lekua hartzea. **Anjel Lertxundi**

## 31 puntu-puntuansup\_2 (-tzeko atzizkiaren eskuinean) zorian.

-laziaren sekreturik handienetako bat argitzeko **puntu-puntu**an gaude oraintxe bertan -zihoen-; lur honetako sekreturik handienetako bat, nahi dut esan. **Josu Zabaleta**  
Baina inoiz ez zidan popatik eman, noiz edo noiz huraxe eskatzeko **puntu-puntu**an egon banintzen ere. **Aitor Arana**

## 32 puntu-puntuansup\_3 neurri-neurrian.

Behar zen bezala zegoen muina: sendo, artean, **puntu-puntu**an egosia, eta hezurri atxikia betiere. **Jon Muñoz**  
Aurretik barkamena eskatu behar diot Eugeni ederrari: zigorrez astintzen utzi behar dit **puntu-puntu**an jartzeko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Lucinda bezalako neskatoek -pentsatu nuen- seguru ez dutela gehiegi loditzeko edota gehiegi argaltzeko arazorik, seguru bere **puntu-puntu**an dagoela neskatoa. **Joxemari Iturralde**  
Castro hilabete barru egongo dela **puntu-puntu**an esan du Kortak. **Berria - Kirola**

## 33 puntu-puntu<sup>4</sup> prest-prest.

**Puntu-puntu**an zegoela iritzi zuenean, lakio bat prestatu zuen Teresak. **Martin Anso**  
Munio **puntu-puntu**an ikusi duenean, ordea, bat-batean sekulako barne-korapiloa askatu izan balitzaio bezala, esan egin dio: "Iñigok bortxatu egin nau". **Martin Anso**  
Kanoi, pistola eta labanak **puntu-puntu**an eduki behar ziren, distiratsu. **Juan Garzia**  
Orduak igaro nituen **puntu-puntu**an jartzen eta apaintzen. **Jesus Mari Mendizabal**  
**Puntu-puntu**an nengoela, beltzak bere ahalmen guztia sartu zuen nire barruan, eta bultzaka hasi zen kementsu, nire gizonak klitoris igurzten eta titimuturra horzkatzen zidan bitartean. **Juan Martin Elexpuru**  
Bazekien Robertok mozkortua nahi zuela, **puntu-puntu**an, sexua eskaintzeko gaitasuna izaten den istant horretan. **Aritz Gorrotxategi**  
Iaz sasoi betean zenak, aruten besoa ez daukala **puntu-puntu**an, **Berria - Kirola**

## 34 puntua egin<sup>1</sup> (orobat puntu egin; Euskaltzaindiaren Hiztegian puntua egin agertzen da) hari puntadak emanaz ehuna osatu.

la egunero ikusten nuen-eta, etxetik gimnasiumera nindoala, **puntua egiten** eta **puntua egiten** bere etxeko balkoi beiradunean. **Anjel Lertxundi**  
Lasaitasun tinkoz ari zen **puntua egiten**, ezpainak apur bat zimur. **Anton Garikano**  
Arrain saltzaileek, mahai hutsen atzean eserita, **puntu** egiten zuten, bizkarra makur. **Karlos Zabala**  
Arreta osoa **puntua egiten** jarria, eta kemena hatzetan, haren itxurak harrizteraino ahula ematen zuen lehen begiratuan. **Anjel Lertxundi**  
Andrea telebista aurrean **puntu egiten** utzi eta lotara abiatu ginen. **Pedro Alberdi**  
**Puntua egiteko** orratza. **Joseba Urteaga**  
Baita agian **puntu egiteko** orratz pare batekin ere. **Bernardo Atxaga**  
**Puntua egiteari** utzi zion; eskuetan zintzilik eutsi zion galtzerdi marroi gorritzari pixka batean. **Anton Garikano**  
Mutilak harresiaren gorenetik ikusten zuen neska, etxeko galerian txintxo-txintxo eserita, jostatzen edo **puntua egiten** ikasten. **Koro Navarro**  
Ilunabarrean **puntu egiten** eta elkarri esamesak kontari egoten ziren emakumeek. **Koro Navarro**  
Artile kizkurreko izpi luzeek egindako alfombra harro horietako bat zabalitzen zen, pazientziatzko lan handia, Lisa ederrak bere salmahaian **puntu** eginez burututakoa. **Karlos Zabala**  
Tragedia haren ondoren, **puntua egite** sukartsuari ekin zion. **Anjel Lertxundi**

## 35 puntua egin<sup>2</sup> ipar aztertu, ikertu; balantzea egin.

HERRIAK **puntua egin** du Filipe Goietxe, "Hautetsi Abertzaleak" elkarte antolatzaileko kidearekin. **Herria**  
Iparraldeko ekonomiaren **puntua egiteko** parada eman du Baionako komertsa auzitegiko urte berri aktak joan den astearte goizean. **Herria**  
Botere publikoak bildu direlarik joan den astelehenean Euskal Herriko "Hitzarmen bereziaren" **puntua egiteko**, ohartu dira sei urterentzat finkatua den antolamendu horretan kultur saileko proiektuek beranta hartua dutela. **Herria**  
Unibertsitate proiektu horren **puntua egiteko** urte bat honetan sei aldiz geroratua izan den bilkura uztaile hastapen hortan beharra da. **Herria**  
Sei hilabeteko zuzenketa judizialpean ezarria izan baitzen SA6FAM altzairu lantegia joan den otsailean, epe erdiko **puntua egin** dute joan den astean Baionako komertsi auzitegian. **Herria**

## 36 puntuz puntu

Dena esplikatu nion **puntuz puntu**, ulertu egin zuen, eta orain ardura handi-handia agertzen du nire segurtasunaz. **Karlos Zabala**

San Frantzisko zegoen konturora iristen, **puntuz puntu** kontatu zien guztia. **Askoren artean** Lapurrek, Jainkoaren grazia eta errukiari esker, hitzez hitz eta **puntuz puntu** entzuten eta bete zuten anaiak apaltasunez eskatu zieten. **Askoren artean** Printze beraren beste konstituzio bat dugu, ediktu hori aipatzen duena, eta prezezioen gehiegikeria guztiak **puntuz puntu** zuzentzen dituena. **Iñaki Iñurrieta** Bukara horretara iritsi ahal izateko, **puntuz puntu** (etapaz etapa) egiten du bertsolariak bidea (bertsoa), saiaturaz betiere egin beharreko ibilbide osoa begi-bistatik ez galtzen. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua** Eta **puntuz puntu** gogoratzen nuen heriotzaren hurbiltasunarekin inoiz izaten den sentipen berezi hori: ustekabeko aisia bat. **Josu Zabaleta** Ezagutzea ez da antzekotasuna **puntuz puntu** egiaztatzea, bestela baizik: ikusmenaren osagai aldagaitzak berriro aurkitzea da, dagoeneko, ordea, forma handien modura-edo egituratuak, batzuetan behintzat. **Josu Zabaleta** Hizkuntza ez baita **puntuz puntu** gainerako gizarte erakundeen parekoa. **Isabel Arrigain**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**azken puntu** (17); **beste puntu bat** (15); **beste puntu batean** (8); **bi puntu horiek** (10); **erreferentzia puntu** (11); **gehigarritzko puntu** (15); **gehigarritzko puntu bat** (11); **harrotasun puntu** (12); **inflexio puntu** (21); **inflexio puntu bat** (10); **lortutako puntu** (8); **marra puntu** (9)

**puntu bakar** (53); **puntu bana** (17); **puntu banaketa** (12); **puntu banatuko** (8); **puntu bat gehiago** (14); **puntu bat lortu** (9); **puntu bat lortzea** (8); **puntu bateko aldea** (8); **puntu batu** (15); **puntu beltz** (22); **puntu beltz bat** (8); **puntu berean** (12)

**puntu ditu** (61)

**puntu egin** (53); **puntu egin zituen** (27); **puntu egiten** (17); **puntu egokia** (13); **puntu egokian** (9); **puntu eman** (22); **puntu eman zizkioten** (9); **puntu erdi** (13); **puntu eskasera** (9); **puntu eskuratu** (19); **puntu eta aparte** (8); **puntu eta koma** (10)

**puntu finko** (14)

**puntu galdu** (20); **puntu garrantzitsu** (21); **puntu garrantzitsua** (10); **puntu gehien batzen** (14); **puntu gehien lortzen** (10); **puntu gorena** (13); **puntu gorri** (9); **puntu gutxi** (10); **puntu gutxiago** (39); **puntu gutxiagorekin** (12); **puntu gutxien** (16)

**puntu handiagoa** (9); **puntu hartan** (18); **puntu hartara** (8); **puntu hau** (32); **puntu hauek** (14); **puntu honetan** (94); **puntu honetara** (31); **puntu honetaz** (11); **puntu honi** (12); **puntu hori** (87); **puntu horiek** (39); **puntu horietan** (8); **puntu horrek** (15); **puntu horren** (10); **puntu horretan** (93); **puntu horretara** (21); **puntu horretaraino** (14); **puntu horri** (24)

**puntu igo** (13); **puntu ilun** (9); **puntu irabazi** (18); **puntu izango** (26); **puntu izango dituzte** (13)

**puntu jaitsi** (13)

**puntu jakin** (18); **puntu jakin batean** (8); **puntu jaso** (8)

**puntu kardinalak** (9); **puntu kendu** (8); **puntu kenduko** (9); **puntu kopuru** (32); **puntu kopuru bera** (8); **puntu kopurua** (17)

**puntu laurden** (21); **puntu lortu** (104); **puntu lortu zituen** (40); **puntu lortuta** (9)

**puntu marra** (9)

**puntu nagusi** (13); **puntu nagusiak** (20)

**puntu on** (8); **puntu ona** (22)

**puntu premia** (38); **puntu premia larrian** (9); **puntu premian** (8); **puntu puntu** (10); **puntu puntuan** (58)

**puntu sartu** (61); **puntu sartu zituen** (31); **puntu txiki** (17); **puntu zituen** (11)

**puntuz puntu** (41)

**sasoi puntu** (62); **sasoi puntu ona** (14)

**azken puntua** (24); **bigarren puntua** (26); **g puntua** (12); **gehigarritzko puntua** (26); **inflexio puntua** (28); **lehen puntua** (62); **lehen puntua lortu** (9); **lortutako puntua** (10); **puntua egiten** (15); **puntua emanda** (11); **puntua izan** (13); **puntua jarri** (8); **puntua lortu** (19); **puntua lortu zuten** (8); **sasoi puntua** (25)

**adostasun puntuak** (15); **jokaldiak eta puntuak** (16); **lehen hiru puntuak** (12); **lehen puntuak** (15); **puntuak banatuko** (8); **puntuak batzea** (11); **puntuak batzen** (11); **puntuak behar** (12); **puntuak behar ditu** (8); **puntuak eskuratu** (22); **puntuak eskuratzea** (13); **puntuak eskuratzeko** (20); **puntuak irabazi** (12); **puntuak irabaztea** (10); **puntuak irabazteko** (12); **puntuak irabazten** (10); **puntuak lortu** (29); **puntuak lortzea** (18); **puntuak lortzeko** (24); **puntuak lortzen** (12); **puntuak pilotzen** (9)

**bere puntuan** (10); **den puntuan** (13); **egiteko puntuan** (18); **hasteko puntuan** (10); **puntu puntuan** (58); **puntuan egon** (28); **puntuan egon zen** (12); **puntuan jartzeko** (8); **puntuan nongoen** (8); **puntuan zegoela** (13); **puntuan zegoen** (10)

**sasoi puntuaz** (3)

**puntuei esker** (8)

**hiru puntuen bila** (15); **puntuen arabera** (15)

**lau puntugatik irabazi** (4)

**bederatzi puntuko** (16); **bi puntuko aldea** (10); **bost puntuko aldea** (16); **hiru puntuko aldea** (21); **lau puntuko aldea** (20); **puntuko aldea atera** (9); **puntuko aldea ateratzen** (22); **puntuko aldea dago** (10); **puntuko aldea du** (10); **puntuko aldea kentzen** (15); **puntuko aldea lortu** (9); **puntuko aldearekin** (18); **puntuko aldeaz** (9); **puntuko igoera** (9); **sei puntuko aldea** (13); **zazpi puntuko aldea** (12)

**puntura dago** (17); **puntura ditu** (9); **puntura du** (22); **puntura dute** (11); **puntura gerturatu** (10)

**punturen bat lortzea** (12)

**punturik lortu** (14)

**puntutan amaitu** (8)

**zein puntutaraino** (11); **zer puntutaraino** (8)

**puntutik gora** (10); **puntutik gorako** (8)

**puntuz puntu** (41)

## puntuagarri 1 izond puntuak lortzeko balioa duena.

Juan Mari Lopez eta Erika Lagoma izan ziren, zorteak hala erabakirik, saio **puntuagarria** hasi zutenak. **Berria - Kultura** Bertsolari bakoitzak **puntuagarri** ziren zortzina bertso kantatu ostean, epaileen erabakiz, Lasarte eta Orioko bertsolariak igaro ziren finalera. **Berria - Kultura** Bandera igandean 12:00etan jokatuko da, eta ez da **puntuagarria** izango sailkapenerako. **Berria - Kirola** Hijazok iragarri zuen zozketaz erabakiko direla lehenengo hamar proba **puntuagarrietako** txandak. **Berria - Kirola** Ohi bezala, lau proba **puntuagarri** izango dituzte, eta puntu gehien batzen duen taldeak egingo du aurrera. **Berria - Euskal Herria** Aurtengo TKE Ligak hamalau estropada **puntuagarri** izan ditu, eta guzti horietatik erdiak irabazi ditu Urdaibaik. **Berria - Kirola** Euskal Herriko Txapelketarako **puntuagarriak** dira. **Berria - Kirola** Pro-Tour Ligarako **puntuagarria** da, eta faboritua Tom Boonen da (Quick Step). **Berria - Kirola** Seigarren **puntuagarria**, gaur. **Berria - Kirola**

## 2 ez-puntuagarri izond

Datorrenean lehen probatik puntuak banatzen hasiko dira, eta hemezortzi probatetik bakarra izango da **ez-puntuagarria**. **Berria - Kirola** Hamalau estropada puntuagarritik zazpi irabazi dituzte, eta hiru **ez-puntuagarritik** bi. **Berria - Kirola**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**estropada puntuagarri** (7); **hamalau estropada puntuagarri** (3); **lau proba puntuagarri** (16); **proba puntuagarri** (19)

**estropada puntuagarria** (15); **ez da puntuagarria** (6); **hamargarren estropada puntuagarria** (4); **puntuagarria izango** (11)

**estropada puntuagarriak** (6); **estropada puntuagarriak jokatuko** (4); **proba puntuagarriak** (3)

**estropada puntuagarriak** (3)

## puntuaketa 1 iz puntuatzea; puntu kopurua.

Berbitzuan bost urte daramaten medikuek **puntuaketa** hobea daukate, berriek gutxiago. **Berria - Euskal Herria**

Saio bakoitzak bere **puntuaketa** izango (3, 2, 0 puntu), eta hurren arabera osatu da sailkapen orokorra. Berria - Kirola

Epailleek **puntuaketan** Joselu izan zela garaile erabaki zuten, eta antzeratsu jazo zen hurrengo bietan ere. Josu Landa

Jakina, Agurainen erroldatutakoek dute lehentasuna **puntuaketan**. Berria - Euskal Herria

**Puntuaketa** baten bitartez sariak banatzen dituen epaimahai baten aurrean lehiatzen dira bertsolariak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Alegia, finalak zerotik hasten direla **puntuaketari** dagokionez, baina ez direla hutsetik hasten, epaimahaiaren subjektibotasuna asko bereganatzen baitu finalerdi disdiratsu batek. Andoni Egaña

Proba bakoitzak bere **puntuaketa** izango du, eta, guztira, 43 puntu izango dituzte jokoan. Berria - Kirola

Kirol bakoitzak bere **puntuaketa** eta sailkapena izango du, lehian ariko diren taldeen arabera. Berria - Kirola

## 2 (hitz elkartuetan)

Engungo **puntuaketa** sistemarekin zaila da bi gidarik erregulariki puntuak lortzen badituzte elkarri diferentzia askorik ateratzea. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bakoitzak bere puntuaketa** (3)

## puntual 1 *izond* ordu-orduan, puntu-puntuan heldu ohi dena.

Neure burua madarikatu nuen **puntualegia** izateagatik. Anjel Lertxundi

Ni neu ez naiz batere **puntuala**, badakit, baina atsegin zait puntualitatea besteengan. Antton Olano

## 2 *adlag* ordu-orduan, puntu-puntuan.

**Puntual** iritsi zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Mussoliniren garaian gauza asko egin omen ziren lan publikoen alorrean, eta trenak **puntual** iristen hasi ziren, esaten dutenez. Mikel Hernandez Abaitua

Aurrezki-kutxako langileak **puntual** ematen zizkion bere soldataren aurrerapenak. Anton Garikano

## 3 bereizia, behin edo noizean behin gertatua.

Ez zen akats **puntuala** izan, izen ezezagun baten transkripzio okerra baizik. Iñigo Aranbarri

Hainbat informazio **puntualen** arteko erlazioa kokatu eta, kasu batzuetan, ezagutzea. Berria - Harian

Alzheimerren kasu gehienak **puntualak** dira, ez herentziaz jasoak. Berria - Gaiak

Atzera begira dago egina liburu hau, orain **puntual** batetik hasita baina atzerantz doan gezia jaurtikiz. Berria - Kultura

Hala ere, oroitzapenak, asko, **puntualak** eta oso ederrak. Unai Elorriaga

Kontziente izate hori hedatzen bada ere, nahi den bezain zehatza eta **puntuala** bada ere, dena dela, haiek errepresentazio soilak izaten jarraituko dute. Ibon Uribarri

Ezerezaren esperientzia erlijiosoa, Erdi Aroan adierazpen nabarmen eta **puntuala** Meister Eckhart, Johannes Tauler eta Heinrich Susorengan daukana. Joan Mari

Lekuona

Euskal-Billera elkartearen ekimenez gertatutako kontu **puntuala** izan zen arren, haurrak Danborradan txertatze hura Danborrada egonkortzeko lehenengo urratsa izan zela esan daiteke. Askoren artean

Dena den, harreman eta ekimen horiek **puntualak** bezain solteak izan dira, jarraipenik gabeak. Ana Urkiza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**puntuala izan** (8)

## puntualitate *iz* puntualtasuna.

Ni neu ez naiz batere puntuala, badakit, baina atsegin zait **puntualitatea** besteengan. Antton Olano

Ane, **puntualitatearena** serio hartzen zuenetakoa izanik, esandako ordua baino bost minutu lehenago azaltzen zen hitzartutako tokira. Unai Iturriaga

Deia hamarretan puntuan izan zen, aldez aurretik esan bezala, suitzarrei egozten zaien **puntualitateaz**. Jon Alonso

Aberria litzateke, heriotza fusilamentu pelotoiaren **puntualitatearekin** ez baletor. Joseba Sarrionandia

## puntualizatu, puntualiza, puntualizatzen du *ad* zehaztu, argitu.

Baina guk "arrazia historikoa" ulertu behar ditugu, **puntualizatu** ohi du Ortega-k. Joxe Azurmendi

## puntualki 1 *izond* puntualtasunez, puntu-puntuan.

Ostegunero bezala, **puntualki**, kultura-saileko arduradunaren mahaian uzten zuen artikulua mezulari batek. Iban Zaldúa

Ezen, ez baldin bazaio Printzeari **puntualki** obeditzen, ordena publikoa iraulia da ez da gehiago estatuan batasunik eta beraz, ez lankidetzarik, ez bakerik. Piarres Xarriton

Brissonnek azaldu zuen bezala, «ahal bezala eta **puntualki**» ihardetsiko du botere publikoak. Berria - Euskal Herria

## 2 era puntuallean, noizean behinka.

**Puntualki** nahiz zeharka, bada haien aipamenik. Juan Garzia

Erro japoniarrek flamenkoarekin uztartuz, guztiak kanta tradizionaletatik abiatuta eta **puntualki** oso herrikoi eta modernoak diren eritmoekin. Berria - Kultura

## puntualtasun *iz* puntuala denaren nolakotasuna.

**Puntualtasuna** eta txukundadea izan zitezkeen bere bertuteak, baina pazientzia ez behinik behin. Joxean Agirre

Askok uste du [...] alemanak, juduen gaineko iritziez haratago, eskuarki -edonork dakien legez, bestalde- garbiak, zuzenak direla, ordena, **puntualtasuna** eta lana maite dituztela. Urtzi Urrutikoetxea

Klubak **puntualtasuna** eskatu die akziodunei. Berria - Kirola

29 urte daramatza erabat hutsik dagoen biltegioko ordena zaintzen, lanera **puntualtasunez** etortzen, enpresak jarritako arauak zorroztasunez betetzen. Berria - Kultura

Igarriko zion zer esan gura zuen hark bera bezalako **puntualtasunaren** maniatiko baten ahotan. Josu Landa

Itxaronaldia laburrago egin beharrez, Kristinaren eta Ximurraren arteko iskanbila amestu nuen, lagunaren **puntualtasun** ezak eragina. Aingeru Epaltza

## puntuatu, puntua(tu), puntuatzen 1 du *ad* testu batean ortografia-markak ezarri.

Sarrerako orrian, erabili dituen irizpideen berri eman du Landak: testua ez du **puntuatu**; transkripzioaren lerro bakoitza testuaren lerro bakoitzari dagokio. Berria - Kultura

## 2 puntuak edo tantoak lortu.

## 2 puntuak oso erabiltzen dituztenak

-Jazarleek quafflea botatzen dute eta uztaietatik pasarazi behar dute **puntuatzeko**. **Iñaki Mendiguren**

Baina garrantzitsua da denboraldia **puntuatzen** hastea eta sendotasun itxura ematea. **Berria - Kirola**

Angelinak **puntuatu** zuenean, Harryk itzulipurdika batzuk egin zituen bere sentimenduak adierazteko. **Iñaki Mendiguren**

## 3 puntuak eman.

Jonen bertsoak oso behetik **puntuatu** zituela eman zioten aditzera epaimahaikideek. **Andoni Egaña**

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Seigarren proba izan zen luzeena eta **puntuatuena**, eta horretantxe lortu zuen nafarrak alderik nabarmenena; ia minutukoa Olasagastiri eta minutu eta 8 segundokoa Peñagarikanori **Berria - Kirola**

## puntuazio *(orobat puntuazione g.er.) 1 iz* testu batean ortografia-ikurrak ezartzea; ortografia-marken multzoa.

Literaturako "maisu antzinakoek" [...], ez zuten **puntuaziorik** erabiltzen, eta etengabe jarraian idazten zuten erabateko askatasunez. **Xabier Olarra**

**Puntuazioa** komaz eta puntuz baliatzen da soilik. **Juan Garzia**

**Puntuazio** egokia zein den jakiteko komeni da, behin testua idatzi ondoren, hura arnasa kontrolatuz irakurtzea. **Askoren artean**

Oso liburu bitxia da, **puntuazio** numeriko bidez ordenatutako aforismo laburretan dago idatzita. **Askoren artean**

Ekonomia prosodikoa, izatez, kaligrafia edo ortografia edo **puntuazioa** bezain arrotz zaio arteari: erretorikak bere jatorria auzilaritzan eta kantauk berea musikagintzan izateak ez digu orain artean utzi egia garbi hori ikusten. **Juan Garzia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Izaki berezi bihurtu ordez, egoera berezi batera erbesteratu ordez, **puntuazio** -ikur bat bailitzan, estatus arrunta izendatu zitzaion ikur horri: zifra bilakatu zen. -Esaldi baten (edo hitz baten) adiera indartzeko erabili ohi diren **puntuazio** -markak (harridura-marka, galdera-marka...) eta bestelako baliabideak (etzanak, belztuak... **Jon Muñoz**

Ofizioaren bihurrikeriarik bihurrienak, **puntuazio** kontuak eta. **Iñaki Iñurrieta**

Herri eskolatu zenbaitek erabiltzen zituzten **puntuazio** sistemak [...]. **Xabier Olarra**

Lanok bildu, irakurri eta oharrak idazten dizkie, **puntuazio** -, ortografia- eta erabilera-akatsak zuzentzen, argudio ahulen ondoan galdera-markak ezartzen, idazlan bakoitzari kritika labur eta adeitsu bat erasten. **Oskar Arana**

## 3 puntu kopurua.

Lortutako **puntuazioa**: 497. **Berria - Harian**

Etxean Kopa irabazleari eman behar zaio, eta **puntuazioa** honela dago: laugarren lekuan, Gryffindor, hirurehun eta hamabi punturekin; hirugarren, Hufflepuff, hirurehun eta berrogeita hamabirekin [...]. **Iñaki Mendiguren**

Sarrerako **puntuazioa**, ikasleen artean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Etzahun Lekue eta Unai Iturriaga gailendu ziren **puntuazioan**, baina bertsoan ongi egin zuten beste laurek ere. **Berria - Kultura**

1etik 4ra arteko **puntuazioan**, 3,5 lortu du filmak, *Salvador Allende* (3,4) eta *Beautiful Boxer*-en (3,2) aurretik. **Berria - Kultura**

**Puntuazio** berberarekin sailkatu da Oihane Perea. **Berria - Kultura**

Zure erantzunen arabera taula bat osatuko du pisua alokatu nahi duenak eta **puntuaziorik** altuena duenari deituko dio. **Harkaitz Cano**

Tutik jakin ez arren behar bezala jokatzen duenari **puntuaziorik** handiena emango diot ikasgai guztietan. **Jose Morales**

Bi tasa horien arteko kenketa egiten da eta egiazko tasa begiz jotakoa baino handiagoa baldin bada, unibertsitateari **puntuazio** hobe ematen zaio. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hauxe izan da **puntuazio** orokorra eta sailkapena: [...]. **Herria**

Konfederazioak aurkeztu dion egitasmoak, haren iritziz, ez duelako beharrezko **puntuazioa** gainditu. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**puntuazio sistema** (7)

**lortutako puntuazioa** (4); **saioko puntuazioa** (6)

**puntuazioaren arabera** (7)

**puntuaziorik altuena** (4)

## puntuazione ik puntuazio.

## puntudun *izond* puntuz osatua.

Egunkariko argazki **puntudunak**. Hauek lirateke beraz (gurutzedunak), ahoa zabaltzen duen uanean, bertsolariak buruan "pasata" dauzkan zatiak, eta besteak (**puntudunak**), inprobisazio gorri-gorria liratekeenak: [...]. Ishihararen xafra klasikoak ere erakutsi genizkion, koloretako **puntudun** horietakoak. **Andoni Egaña**

## puntugile *iz* kirol batean puntuak egiten dituenak.

Pauen, berriz, Beaux da **puntugile** nagusia (121), eta estu lotu beharko dute. **Berria - Kirola**

Gainera, 16 puntu egin zituen jaurtiketetan; **puntugile** nagusia da (95 puntu). **Berria - Kirola**

**Puntugilerik** onena, berriz, Paul (Gloucester, Ingalaterra) da lehen postuan: 97 puntu. **Berria - Kirola**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**puntugile nagusia** (3)

## puntuka *(orobat puntoka g.er.) 1 adlag* puntuz puntu.

Testu ondo taxutua, **puntuka** ordenatua, baina hala ere sentipen hori, ez dela idatzitakoaren guztiz jabe, zer esan nahi zuen eta zer esan duen erabat argi izango ez balu bezala. **Iñaki Iñurrieta**

**Puntukako** gidatzeko baimena. **Berria - Mundua**

UPNk eskatuta mozioa **puntuka** bozkatu zen **Berria - Euskal Herria**

## 2 bertsolari bakoitzak puntu bat kantatuz.

**Puntuka** ari garenean, bi, hiru, lau edo bost bertsolarik, esaldi bana botatzen dugu, denon artean bertsoa osatzeko. Hori dugu hasierako puntua emanda, **puntuka** eta, neurri batean, binaka egiten diren ariketen kasua. **Puntuka** ari dela, inprobisazio ahalmena eta erreflexu bizkortasuna ditu bertsolariak ezinbesteko. **Andoni Egaña**

Bukaera pentsatzeko ezinarengatik, memoriak huts egin duelako, puntuari erantzun behar zaiolako, **puntukako** ariketan... askotan aurkituko ditugu beraz, ohiko estrategia erabili gabe atondutako. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**



**Puntuka** eta hamarreko handian ere txukun ibili ziren. **Berria - Kultura**

· Joxe Azurmendi eta Jon Sarasua irakasle eta idazleak «gai librean eta **puntuka**» berri dira jendaurrean hizketan gaur Eskoriatzan, Meditazioa Moderniaren heriotzaz saioan. **Joxerra Garzia**

### 3 puntuak banaka lortuz.

Osasunak berean segitzen du: **puntuka-puntuka**, bidea eginez. **Berria - Kirola**

## puntukatu, puntuka, puntukatzen 1 du *ad* puntadak egin.

Ez iezadazue arren eska oihal baliotsu horiek eskuz garbitzeko, prentsan lisatzeko, almidoiztatzeko, urratuak **puntukatze**ko, zarrastadak pasaratzeko. **Joxan Elozegi**

### 2 puntualizatu, zehaztu.

Baina elkar ikusi bagenu ere berdin zatekeen - **puntukatu** zuen Angiek. **Iñaki Zabaleta**

### 3 puntuz bete.

Jaisten ari nintzen bidearen aurrez aurre, laritez berduriko haran bat ageri zen luzetara, eta haren atzean uda betean elurrez zurituko mendiak: harana nire oinetan amaitzen zen, etxolaz eta aziendaz **puntukaturiko** larre zabal-zabal batean. **Juan Garzia**

## puntuño (*orobat puntuño*) iz *adkor* puntutxoa.

K-2 Motela **puntuño** bat nola bilakatu den ikusi dut, nik baino lehenago bertze mendigoizale anitzek ikusi zuten moduan Baltororako bideari ekitean. **Xabier Montoia**

## puntutxo 1 iz *adkor* puntu txikia.

Berehalaxe ikusi zuten berriro benta, ia ikusezin, hain txiki, **puntutxo** beltz bat elurrezko uhin ikaragarrikoaren oinean. **Josu Zabaleta**

Comalako bidetik **puntutxo** beltz batzuk mugitu ziren. **Juan Garzia**

Dena beltz ikusten dut, eta **puntutxo** gorri batzuk jira-biraka. **Koldo Biguri**

Kaleak argizko **puntutxoez** osatutako ilaretan barna luzatzen ziren. **Lopez de Arana**

Beirontziteria esmalte urdinezko **puntutxo** batez markaturik zegoen. **Juan Garzia**

Ostera, begiaren erdiko **puntutxo** hura karraskatzen bada, argia bertan iraungitzen da eta ilunpea dator, globo distiratsua osorik egon arren. **Xabier Amuriza**

Laboratoriora itzulirik, irazki-orri bat hartu, bi **puntutxo** gorri egin bi laginekin, eta estufan ipini nuen, 80°C-ra. **Juan Garzia**

Gereziondozko oholari baino ez zion kolorea eman, gorritzat, arrasto eta **puntutxo** ilunekin. **Juan Kruz Igerabide**

Iparreko Itsasoko portu hartan, unibertso **puntutxo** ñimiño ezdeus hartan. **Fernando Rey**

Ez zeukan egun osoa bulego batean giltzapetuta **puntutxo**zko lerroen gainean sekula argituko ez ziren salaketak mekanografiatzen denbora alferrik galdu beharrik.

**Harkaitz Cano**

Gaixoak eskuineko masaila erakutsi zion, eta ukitu arin batzuk egiten hasi zitzaion sendagilea, kolore **puntutxo** batzuk jarriko balizkio bezala. **Josu Zabaleta**

### 2 (kiroletan-eta) ik puntu 13.

Nik uste dut **puntutxoren** bat aterako dugula, eta beno, baina, ateratzen ez badugu ere, ziur egon ahaleginak egingo ditugula, eta beno, elastikoa izerditan blai utzi arte.

**Joan Mari Irigoien**

### 3 neurria.

Erritmo bizi samarrean nabil poteoa egiten, ni bakarrik, eta dagoeneko **"puntutxoa"** hartuta daukat. **Jon Arretxe**

Kalimotxotik ardo beltzera pasatu naiz eta erritmo berean jarraitzen dut: **"puntutxotik"** "puntutzarrera" pasatzen ari naizela susmatzen dut eta honela jarraituz gero ez dakit noraino ailegatuko naizen. **Jon Arretxe**

### 4 (ukitutxoa) ik puntu 12.

Korrika joan zen Lucy pasilu luze haietatik aurrerantz, urduritasun **puntutxo** batek jota, **Joxemari Iturralde**

### 5 ikur grafikoa. ik puntu 7.

Alemanez, *umlaut* deitzen diren bokalen gaineko bi **puntutxoek** bokalen palataltasunarekin dute zerikusia (*Schüler*). **Lourdes Oñederra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**puntutxo beltz** (3); **puntutxo gorri** (3)

## puntutzar iz *adkor* neurria pasatako egoera.

Kalimotxotik ardo beltzera pasatu naiz eta erritmo berean jarraitzen dut; "puntutxotik" **"puntutzarrera"** pasatzen ari naizela susmatzen dut eta honela jarraituz gero ez dakit noraino ailegatuko naizen. **Jon Arretxe**

## puntuzko 1 iz *izlag* trikotazkoa.

Juliak **puntuzko** txaketa bildu du bizkar gainean. **Puntuzko** lepoko gorri zikina zeraman, eta hor-hemen apur bat bustirik zeuzkan buruko ileak. **Alberto Barandiaren**

Begirada basati batekin, **puntuzko** zapia erantzi zuen eta agerian geratu zitzaizkion berriro sorbalda arrosak eta beso mehe samurrak. **Jose Morales**

Eskuak gurutzatu bihotz gainean, **puntuzko** xala bularraren kontra estutu, hotza bainuen. **Ander Irizar**

Jertse urdina eta **puntuzko** bonet urdina zituen jantzirik. **Lopez de Arana**

Urrezko orratzarekiko **puntuzko** gorbata oliba-berde bat. **Lopez de Arana**

### 2

Uniformeak urdin, eta txapelak gorri eta zuri, **puntuzko** multzo handi bat agertu da San Estebango ermita parean. **Txillardegia**

Bi **puntuzko** ondasuntsu, Bidasoaz bi aldeetan mugakide, hendaia bata eta irundarra bestea, arma kontrabandotan ari Madrilera gobernu uzkaitezkotan. **Txillardegia**

Kanpoko frantsesdun **puntuzkoren** bat gugana etortzean (edo kazetariren bat, besterik gabe), hik egingo diok harrera. **Txillardegia**

Hura eskandalua Donostiako **puntuzkoen** artean! **Txillardegia**

"Zer dakite, jakin, munduaz, **puntuzko** Goiritar hauek? -bururatu zait-. **Txillardegia**

### 3 izond

Telleria-tarren oroipen pildaz zirriborratua dago, Falangeko figura **puntuzkoak** haiek, geroago jakingo genuenez. **Joxe Azurmendi**

## puntuztatu, puntuzta, puntuztatzen 1 da *ad* puztuz hornitu.

Masoretek Jainkoaren izenaren lau kontsonanteak (-*Yhwh*) '-*d-n-y*-ren bokalekin **puntuztatu** zituzten, eta hortik Jehova forma hibridoa sortu zen, latinetik europar



hizkuntzetara iragana. Xabier Kintana

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Ugerez gorritzutako tximinia handiko ontzi potoloak, batzuk marratuak edo **puntuztatuak** edo urdinez, berdez, arrez, kamuflaje-kolorez zipriztinduak. Lopez de Arana

## puntx iz pontxea.

Eman dizkieten opariak: bi zigarro pakete, katilukada baterako adina kafe, bere emazteak gordeak; Kuglerrek limoi **puntx** bat, Miepek sardinak, guk kolonia ura. Josu Zabaleta

Gero, Van Daandarrekin limoi **puntxa** hartzen ari ginen bitartean, barrez eta barrez aritu nintzen, hain alai eta urduri nengoen eta, baina ez al nintzen bakarrik geratu, berehalaxe ohartu nintzen negar egin beharra nuela, sosegatzeko. Josu Zabaleta

## puntzio ik funtzio.

## pupa iz krisalida.

Ondoren, **pupa**-fase labur baten ostean, heldutasuna lortu eta arto landarearen hosto eta artaburuko zuntzetaz elikatzen da. Berria - Gaiak

## pupitre 1 iz eskola mahaia, ikasmahaia.

Irakaslea ikasgelara sartu eta koadernoak **pupitrearen** gainean uzten zituenean, ezer esan gabe, orduantxe bakarrik sentitzen nuen nik beldurra. Joxe Austin Arrieta

**Pupitrearen** zurezko azal tatuatuan. Joseba Sarrionandia

Hogeita hamarren bat mutiko geunden, **pupitreetan** binaka. Joseba Sarrionandia

Goitik behera begiratzen zigun binakako **pupitreetan** eseritako eskolaumeoi. Pedro Alberdi

**Pupitreetan** eseri eta geografia liburua ireki genuen. Joseba Sarrionandia

Astiro ibiltzen zen **pupitreen** artetik atzera eta aurrera. Joseba Sarrionandia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste aldean, Azpetixek irribarrez jarraitzen zuen bere **pupitre**-lagunaren bizkarrekoak jaso bitartean. Bernardo Atxaga

Klasean, **pupitre** lagun jarraitu genuen arren, ez zidan hitz egiten. Joseba Sarrionandia

Nire eserlekua Anaia Dabiten pareko **pupitre** ilararen sakonean zegoen, atzeko horma jotzen hain justu. Pedro Alberdi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pupitrean eserita** (3)

**pupitreetan binaka** (4)

## pupu 1 iz adkor mina.

Zerraldo erori ohera, erantzi, eta beren **pupuen** mina jasan behar izan zuten pixka batean. Jon Muñoz

**Pupu** non, kokolo?... Iñaki Arranz

-Stanie gizajoa! -esan zuen Steffik erruki doinuarekin, ume bat kontsolatu edo goxatzen den bezala, jolasten ari dela erori eta "**pupua**" hartu duenean-. Anton Garikano

Zerraldo erori ohera, erantzi, eta beren **pupuen** mina jasan behar izan zuten pixka batean. Jon Muñoz

## 2 (esaera eta kidekoetan)

Bost xentimoko **pupua**, hamar xentimoko trapua, dio haur-esaerak. Berria - Kultura

Shell erregai enpresenekin gertatutakoaren ondoren, trapua jarri dute **pupu** izan aurretik. Berria - Ekonomia

Sos baten **pupua** izan eta ez erabili bost zentaboko trapua! Mirentxu Larrañaga

«**Pupua** bera mina da askotan, esna uzten gaituena» dio egileak, «eta trapua, berriz, loa, ohea erakusten diguna, lasaigarria». Berria - Kultura

Koitadua zeu, trapuan **pupua** baizik ez duen gaizo hori. Hasier Etxeberria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pupuan trapua** (9)

## puralleria iz etxeko hegaztien multzoa.

Ama ohartzen zelarik haren hegada hurbilari, lasterka joaten ginen usu intxaurreko azpi edo inguruan urgoiki zebilen oilo ama familiakoari, zakurrek ihausi eginez, gatuek ihesi eta **puralleriak** lau haizetara eskapu. Piarres Aintziart

## pure 1 iz barazkiak-eta egosi, txikitu eta iraziz egiten den ore.

Mikelek zerbitzatu zuen **purea**, lehenengo Dionisosen platera, ia gainezka egin arte, eta ondoren berea, gutxixeago. Unai Iturriaga

Entsalada xume bat, zopa hotza eta **purez** lagunduriko txerriki xerratxo bat izan da agintariak eskaini diguten oturuntza. Edorta Jimenez

Entrama batez jaten omen dituzte ekartzen dizkieten **pureak** eta jogurtak [...] haiek balira bezala azken **purea** eta azken jogurta. Anjel Lertxundi

Hainbatek laguntza behar dute **purea** ahora eramateko. Berria - Harian

Nola gorrotatzen duen eguneroko ematen dioten **pure** nazkagarri hori... Jokin Muñoz

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mikel afaria prestatzen ari zen sukaldean, kalabaza **pure** bat, zehatz esanda. Unai Iturriaga

Angelok hiruzpalau goizetan ekarri zidan koñakaz bustitako esne beroa edo gau beranduan prestatzen zidan zerba-**pure** tristea izan ziren haren zainketa bakarrak. Anjel Lertxundi

Zerbitzariak plantxan eginiko xerra handi bat eraman zuen, perretxikoz, azenario xehatuz, ilarrez eta patata-**purez** osatutako guarnizio batez hornitua. Lopez de Arana

Zopa gauzatxo berde batzuekin, bildots errea, patata-**purea**, arbi-**purea**, espinakak. Lopez de Arana

Gaixoak, haur jaioberriak ez bezala, adimena du, eta ohart da duintasunaren apurrik mendrenena ere galdua duela, erizainak [...] koilara barazki-**purez** gainezkatua ahoan sartzen dion orotan. Anjel Lertxundi

Drucoc jaun kanibalak mugurdi **purez** betetako oiloak ditu afaltzeko. Iñigo Aranbarri

### 3 irud/hed

Bada burtsan, inbertsiogileei **purearen** orde zeharkatu ematea txarretsi behar da. **Berria - Ekonomia**

### 4 pure eginsup\_1

Patata zurituak hartu eta **pure egiteko** tresnatik pasatzen dira; Gobernuaren irin pixka bat gehitu eta gatza egin. **Josu Zabaleta**

Altzairu zerrendazko kortse arrosa koloreko batez korazaturik, **pure egiteko** makina nuklear bat izterrean, kraskagailu supersoniko bat eskuan. **Josu Zabaleta**

### 5 pure eginsup\_2 irud/hed

Umeen liburuetan hitzak eta edukiak **pure** eginda ematea txarretsi du Andu Lertxundik **Berria - Ekonomia**

## purga 1 iz hestea arintzeko hartzen den sendagaia, heste-aringarria. ik **heste<sup>1</sup> 7a**.

Maddalenek [...] afariko saltsa bati baino gehiagori egotzi **purgak** edo haiei nahastu belar-urak ere izanzen zuten hartan zer erranik. **Joan Mari Irigoien**

Seidlitz hautsak **purga** -hauts arinak ziren, uretan nahastu eta edaten zirenak. **Xabier Olarra**

### 2 irud/hed

Hustuketa bat bezalakoa da, hala esaten du berak, **purga** bat. **Jon Alonso**

*Fábrica Magnesitas* delakoaren gisu-**purga** metak pasatuak ditut: berbilan hatsa eta kea garbitzen ote ditu gisuak? **Piarres Aintziart**

### 3 norbait arrazoi politikoengatik desagerraztea edo kargugabetzea.

Kontaiguzu Stalinen **purga** hark Siberiaraino eraman zintuenekoa. **Koldo Izagirre**

## purgatorio 1 iz infernuratzen ez diren arimak, zerura joan baino lehen, beren bekatuekin egin duten zor guztia ordaindu arte egoten diren toki oinazezkoa. ik **garbitoki 3**.

Ez diat **purgatorioan** sinesten, eta linboan ere ez. **Joan Mari Irigoien**

Zeren bekatu mortalak beti uzten baitu ariman itzal bat, ezin ezaba daitekeena **purgatorioan** baizen. **Joan Mari Irigoien**

Ona izaten ahalegindu hadi hire **purgatorioa** laburtxeagoa izan dadin. **Juan Garzia**

Ez dela aterako **Purgatoriotik** meza horiek errezatzen ez badizkiote? **Juan Garzia**

Bekatu batzuegatik behar adina ordaintzeko denborarik izan ez nuelako, oinaze izugarriak jasaten ari naiz **purgatorioan**. **Askoren artean**

Pazko-goizean kalbarioak esaten zituenak lauhun arima **Purgatoriotik** ateratzen zituela esaten zen. **Pello Zabala**

**Purgatorioa** lurrean iragaiten ariko da, beharbada, hil ondoren zerurat xuxen joan ahal izaiteko. **Joan Mari Irigoien**

Sakrifizio hura probetxuzkoa izanzen zitziolakoan bere semeari, **purgatorioko** penen erridimitzeko. **Joan Mari Irigoien**

Neurri gabeko sumindura merezi du, eta **purgatorioko** su jasangaitza ere bai. **Joan Mari Lekuona**

### 2 irud/hed

Il Silos-en sartzea halako paisaia dantesko batean sartzea zen, gaueko **purgatorio** ketu batean. **Anjel Lertxundi**

Nire mina, ordea, nire egarria, bizi markak ziren, zer-nolako **purgatoriotan** nintzen batere garbi ez izan arren. **Aingeru Epaltza**

Harry Brightman-engatik izan ez balitz, batek daki zenbat denboran jarraitu izango zukeen **purgatorio** horretan. **Oskar Arana**

## purgatu, purga(tu), purgatzen 1 da *ad* purga hartu.

Zonbait aldiz jendea **purgatzen** da eta... **Menane Oxandabaratz**

### 2 irud/hed

Gure urratseri juntatzen dira Harrigorrraino, gaueko soberakineterik **purgatzeko** ! **Herria**

### 3 zor den zigorra edo nekea ordaindu.

Hire aitaren izpiritua nauk, epe batez herrari ibiltzera kondenatua gauaz, eta sutan barau egitera egunaz, harik eta neure mundualdian eginiko itsuskeriak guztiz erre eta **purgatu** arte. **Juan Garzia**

Zeure heriotzaz **purgatu** gura duzu egin duzuna? **Koldo Izagirre**

Oraingoagatik ez zakiat zenbat **purgatu** beharko dudan, baina nik esanen nuke puska baterako koilara daukadala. **Koldo Izagirre**

Gertaera tragiko honen ondoren isiltasun pisu bat erori zen hiriaren gainean, dolu sakonagoa **purgatu** beharko balute bezala, agian iraindutako erlijio batena. **Jon Alonso**

### 4 irud/hed

Gure odolezko errekararen osagairik nardagarrienak **purgatu** ditugu. **Ramon Etxezarreta**

Kutsadura mota guzietarik **purgatzen** du mendiak. **Herria**

## purgazio iz blenorragia.

Askoz zuhurtzia hobe erakutsi zenukeen baldin beraren medikuari adierazi bazen; zeren, ni egonez gero haren **purgazioen** kargu, kolera handiagoa bainioke apika eragingo. **Juan Garzia**

## puri-purian *adlag* boladan, bete-betean. ik **furia 3**.

Huntzaren hila, irailaren 30etik urriaren 27ra bitartean doa, huntza loretan **puri-purian** dagoen sasoiaren. **Pello Zabala**

Ordura arte minbizien ikerketan **puri-purian** zegoen lan mota, bat-batean, zaharkiturik geratu zen. **Juan Garzia**

**Puri-purian** dagoen gairen bati buruzko hitzaldi interaktibo batera joateko gonbidapena. **Iñaki Segurola**

**Puri-purian** dagoen moda baina nik gaitzesten dudana. **Xabier Olarra**

Gerratik irtetean, ni burua azaltzen hasia nintzanean, **puri-purian** zegoen Lyssenko. **Juan Garzia**

Vargas Llosa, Cortázar, Fuentes eta Carpentier zeuden orduan **puri-purian**, eta etzanda egin berri García Márquezen sona. **Juan Garzia**

Bere zakilak nire baitan jarraitzen du mirakuloski, hain atsegina dudan txipli-txapla hori entzuten dut, nire bagina ni neu bezain zorionsua dela jakinarazten didana, berriro ere **puri-purian** nago. **Juan Martín Elexpuru**

Amaren belaunetan, oso irmo, Jamesek amaren indar guztia sentitu zuen **puri-purian**. **Anton Garikano**

Joseba Zulaikak jarri ginduen duela zenbait urte, gaur **puri-purian** darabilzkigun eztabaiden harian. Berdea, mendi-malda leunak, belar hezearen usain sarkorra, artoaren eta sagarraren nekazaritza nagusitu zaizkio erre-koloreari, lautadari, buztinaren usainari, gariaren eta mahatsaren nekazaritzari, lehendabiziko paisaia berde hori balitz bezala **puri-purian** euskaldun. **Andoni Egaña**

XIX. mendeko autore euskotar horiek ez ziharduten Europan **puri-purian** ikusten zutenari segiketan baizik. **Joxe Azurmendi**

## purifikatu, purifika, purifikatzen 1 da/du ad araztu, garbitu.

Doministiku egitea, funtsean, zentzuak garbitzea edo izpiritua **purifikatzea** baizik ez dela. hurrengo egunean han nintzen ostera itsasoan, **purifikatzen**. **Patziku Perurena**

Iku daitekeen moduan ikusi ahal izateko eta berari atxikitzeko, bekatuhen hobenetatik eta desio txar guztietatik **purifikatzen** gara eta haren izenean sagaritzen gara.

**Imanol Unzurrunzaga**

Demostenesek kontatzen du nola lohiaren bitartez **purifikatzen** zituzten iniziatuak, misterio orfikoetan; proteikoak, eredu berean, gaizkiaren bitartez **purifikatzen** saiatu ziren. **Juan Garzia**

Ilargi berria denean, ibaira jaisten da **purifikatzena**. **Karlos Linazasoro**

Su honetan ahal zen guztia garbitu eta **purifikatu** behar zen. **Pello Zabala**

Zarpazaharrak, gero sanjoan su gartsu berotan erreko eta **purifikatuko** zirenak... **Pello Zabala**

Badiruz ez dela posible iraganaren ahanztura pragmatiko bat, erregeneraziorako tarte gutxi geratzen dela, susmo txarren kutsu hori ezin daitekeela guztiz araztu, xahu eta **purifikatua** laga. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Lan beretan gaixtagin **purifikatuekin**. **Marzel Etxehandi**

Sorospen tokia, behaketa **purifikatu** eta sistematikorako tokia. **Xabier Arregi**

## purifikatzaile izond purifikatzen duena.

Sudurra, izatez, eguratseko partikula guzien filtro **purifikatzaile** eta hezatzzailea da. **Patziku Perurena**

Noizean behin antzezten dugu, baina **purifikatzaile** bat bezala. **Berria - Kultura**

Bolada hartako kontu-balantzen gainbehera jarraituak behartu zuen Milango Administrazioa esku-hartze drastiko eta **purifikatzaile** batera Zeren gorputz biziari emaiten zaion sua turtura duk eta oinaze iturri duk, nola izan ohi baita inkisidoreen eskuetan, baina hilotzari emaiten zaiona, aldiz, **purifikatzailea** duk. **Juan Garzia**

## purifikatze iz araztea, garbitzea.

Trenbidearen albo bietan ikusten ditugun etxeetan ere gertatu da zurruntasunezko **purifikatze** hau. **Berria - Kultura**

## purifikazio 1 iz purifikatzea.

Bateko arropa zarpazaharrena, besteko larrujotzeko debeku adostasunezkoa, eta bestetik maiatz-lehenean **purifikaziozko** sutzarrak egin eta hurrengo sanjoan suekin egingo zutena. **Pello Zabala**

Azkenean, **purifikazioaren** sinboloa zela-eta, iturri bat egitea erabaki genuen, urmael jariatodun garden frantziar bat. **Karlos Linazasoro**

-Ahatzen dena ezereza da, eta **purifikazioa** eta salbazioa. **Karlos Linazasoro**

Erosak diziplina eta **purifikazioa** behar ditu, gizakiari ez une bakar bateko plazerra emateko, baizik eta bere izatearen onena dastatzen laguntzeko. **Berria - Gaiak**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horrela, urteko lau festa nagusi ospatzen zituzten, su-festak lauak, sutzarrak pizteko egunak, **purifikazio** egunak baitzituzten. **Pello Zabala**

Maiatzean zehar ez da Erroman inor ezkontzen -dio Plutarok-, hil honetan ospatzen direlako **purifikazio** ospakizun handienak. **Pello Zabala**

Aldi horretan, karguari uko egin bazion ere, anaia guztien ikusmiran zegoen eta beraren **purifikazio**-prozesua bere gailurrera iritsi zen. **Askoren artean**

Debotoentzat arropa zaharren pusketak penitentzia seinale ziren, **purifikazio** gurarien adierazgarri. **Pello Zabala**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ongi, baina zer da zuzen katarsi hori: garbiketa, barne **purifikazioa**? **Askoren artean**

## purismo 1 iz hizkuntza kontuez mintzatuz, garbizaletasuna eta, bereziki, garbizalekeria.

«Pizkundearen eskola garbizalearen itzalean, **purismoari** heldu eta euskara berritzeko» saioaren hitz berriak izan ziren Sabino Aranaren neologismoak. **Berria - Kultura**

Tenore berean gaztelaniako **purismoaren** aurka idazten ari zen. **Joxe Azurmendi**

Ordea, **purismoaren** bolada pasea duk zorionez, nahiz oraindik makina bat puritano ikusten duan bazterretan. **Pedro Alberdi**

**Purismo** antzuak alde batera utzirik. **Jon Alonso**

Nik ikusi dut aurren-aurrena, idazten ari nintzen bezala, erresistentzia proba honetan, Euskal Herrian hizkuntzaren inguruan aspalditik dabilen mamua: mamu hori da garbizalekeria edo beste modura esanda, **purismoa**. **Berria - Euskal Herria**

### 2 (hizkuntzez bestelakoa)

Ordea, bateragarriak al dira garai horietako balizko esentziak eta **purismoa** gaur egungo ekonomia eta gizarte errealitatearekin? **Iñaki Heras**

Beste inork ez bezala, zeukaten aukera bazterrean utzi eta porrotari zabaldu zioten atea, **purismoa** edo auskalo zeren izenean. **Hasier Etxeberria**

## purista 1 izond/iz hizkuntza kontuetan garbizalea dena.

Ez naiz batere **purista** sentitzen hizkuntza kontuetan, baina aitortu behar dut zenbaitetan ikusten ditudan testuek, irakasleek berek eskuz idatziek nahiz liburuetan aurkitzen ditudanek, biziki kezkatuak izaten nautela. **Pello Salaburu**

Badakik **puristek** beti esaten dutela elkarizketa ugariarekin ez dagoela prosa narratibo onik, dialogoak antzertirako utzi behar direla. **Mikel Hernandez Abaitua**

Azken finean Costa gizon handia da, eta neurtua bere adierazpenetan, ez zuen esan haserre edo mingostua larderiatsuegi ez ematearren, izorratua baizik, hitz zakarra hiztegien arabera, baina ezin hobe, **puristek** nahi dutena esatea daukate. **Jon Alonso**

### • 2 iz

Euskal filologoak, hizkuntzalariak eta euskaltzainak [...] izan dira eta dira errudunenak kontu honetan, beren ardura eta kezka **puristekin** hizkuntza ito besterik egiten ez dutelako. **Pello Salaburu**

### 3 (hizkuntzez bestelakoa)

Musika oso txarra iruditzen zitzaidalako, musika pop komertziala baitzen, nazkagarria ni bezalako nerabe **purista** batentzat. **Mikel Hernandez Abaitua**

Irribarretsu, lehenengo ondorio bat atera nuen; Alberto **purista** bat zela, alegia: ez zegoen konpaktu arrastorik sala osoan. **Iban Zaldua**

## puritanismo 1 iz erlijioaren oinarriak gordetzeari eta morala begiratzeari buruzko zorrotasun itsua, egiazkoa nahiz itxurazkoa.

Aszetismoa, **puritanismoa**, lana, nekea, sakrifizioa eta horrelako baloreetan oinarritutako moral berri bat proposatuko du. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Negoziolari benetako kizkurak atera omen zizkion Ameriketako Estatu Batuetan -hipokrisiaren eta **puritanismoaren** maila pittin bat igoaz- edarien debekua ezarri zutenean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Lotsa baino gehiago **puritanismoa** izango da, beharbada, hor atzean dabilena, intimitatea gordetzeko grina, ez dakit. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Indian, musulmanek gizaldiz gizaldi, beren musika ez ezik beren **puritanismoa** ere zainetaraino txertatu zioten gizarteari. **Gotzon Garate**

Zenbait gauzatan **puritanismoa** estuenera jotzen dute. **Gotzon Garate**

**Puritanismoaren** eta gordinkeriararen nahasketa arraroa baita, honetan ere, Isaac Bashevis Singer. **Berria - Kultura**

### 2 (hitz elkartuetan)

**Puritanismo** -garaiki dira hauek. **Oskar Arana**

**Puritanismo** olatu bat nagusitzen da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 3 Ingalaterrako protestanteetatik bereizirik talde baten doktrina, kristautasunik garbienaren eta zorrotzenaren alde egiten duena.

John Milton - **puritanismoaren** poeta handia, Charles I.aren absolutismoaren etsaia, Cromwellen iraultzaren defendatzaile sutsua- izan zen Oliver Cromwell hilari geratu zitzaion defendatzaile bakarrenetakoa. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## puritanista izond puritanismoarena, puritanismoari dagokiona.

Eta mito horren alde erlijio **puritanistak** ere lan handia egin zuen, eta baita darwinismoaren hautaketa naturalak sortutako lilurak, ondoren. **Iñaki Heras**

## puritano 1 izond/iz egiaz edo itxuraz, morala begiratzeari eta erlijioaren oinarriak gordetzeari buruz zorrotasunik itsuena erakusten duen pertsona.

Aldaketa garai hauetan oraindik ere zenbaiti kosta egiten zaielako moral **puritano** eta zaharkitua hautsiko duen erabaki sendo, tinko eta pertsonala hartzea. **Luis Elberdin**

Izan ere, orduan "heziketara sexuala" deitzen zena, burgesiak bere moral aszetiko eta **puritanoa** ezartzeko erabiltzen zuen arma bat besterik ez zen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Kalkutan, ia mundu guztian barna ibiliak ziren bi amerikar neska gaztek India naziorik **puritanoena** zela esan zidaten. **Gotzon Garate**

Hain gizarke **puritanoan** bizi gara, non emakume askori bedurra ematen dien beren barrenak erakustea. **Luis Elberdin**

Salem herriko gizarke estu eta **puritanoak**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Antonin Artaudek esaten zuen izurriteak [...] irauli egiten zituela baloreak -zuhurra eskuzabal bihurtzen da, **puritanoa** atseginzale- eta ohizko ordena. **Bernardo Atxaga**

Ordea, purismoaren bolada pasea duk zorionez, nahiz oraindik makina bat **puritano** ikusten duan bazterretan. **Pedro Alberdi**

### • 2 iz Ingalaterrako protestanteetatik bereizirik talde bateko kidea, kristautasunik garbienaren eta zorrotzenaren aldeko dena.

Cromwell **puritanoa** zen, kalbinismoaren jarraitzailea eta Ingalaterrako eliza erreformatuaren zabarkeria begi txarrez ikusten zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bawtryko uhalgilea **puritano** fina eta purua zen, horrelako arinkerietan ibiltzeko ez zegoena. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Puritano** sutsuen erlijioak "purua" izan nahi zuen, handikeriarik gabekoa, Jainkoaren nahia eta Bibliaren irakurtzen zen bizitza soil eta harrokeriarik gabekoaren antzekoa bizitz zerua irabaztera zeramana Ingalaterrako Elizaren barruan **puritanoek** bultzatutako berrikuntzek -harrokeria, gehiegizko aberastasuna eta itxurakeria baztertzeari nabarmenagoa eta mikatzagoa egiten zuten herri xehe txiroaren bizitzeko era apalaren eta agintariak hain maite zuten handikeriaren eta dotoreziaren arteko aldea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Puritanoek** erlijioaren izenean gotorlekuak eraitsi, soldaduak akabatu, umeak hil eta emakumeak bortxatu zituzten, Jainko mendekati baten mendekua suz eta burdinaz idatziz betiko lurralde haietan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

### 3 izond puritanoena, puritanoei dagokiena.

Gerra teologikoa badirudi piztu egin zela seigarren eta zazpigarren mendeetan judaismoan gauzaturiko garbiketa **puritano** baten ondorioz. **Iñaki Mendiguren**

Ez zuen behin ere pentsatu bere sinesmenari uko egiterik, eta are gutxiago bere fede **puritanoa** baztertzetik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Muhammad Ibn Abd al-Uahhab (1703-1792) buru erlijiosoak Islamaren interpretazio literal eta **puritanoa** ondu eta hedatu zuen. **Berria - Mundua**

Politeismoaren sarraldi horiek monoteismoa erabat finkatzea eragin zuten Islamean, baita protestantismoan ere hain sakon ez bada ere, eta bi mugimendu **puritano** horiei, beren aldetik, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Aitarik gabeko haurtzaro **puritano** estua, aitonaren aginte erabatekoa. **Berria - Harian**

## puritanotxo iz adkor puritanoa.

Ez dakigu, ordea, non ote zeuden **puritanotxo** horiek guztiak Scorsese *The Last Temptation of Christ* filmarengatik gurutzitatu zutenean. **Berria - Kultura**

## puro ik puru<sup>2</sup>.

## purpuila ik burbuila.

## purpuilaka ik burbuilaka.

## purpura 1 iz kolore gorri biziko margo gaia, grekoek eta erromatarrek erabiltzen zutena. ikgorrindol.

Urre eta zilar asko, **purpura** morez eta gorritz tindaturiko oihalak eta beste ondasun ugari bildu zituzten. **Elizen arteko biblia**

Maskor horiek bildu direnean, burdinazko erreminta batzuekin ebaki bat egiten zaie inguru guztian, eta zauri horietatik **purpuraren** zukua ateratzen da malko moduan. **Santiago Iruretagoiena**

**Purpurari** buruz hitz egingo dut orain: kolore guztien artean bera da kolorerik garestiena, preziatuena eta itxuraren aldetik leunena. **Santiago Iruretagoiena**

Metodo berbera ahabari aplikatuz eta esnearekin nahastuz **purpura** dotorea egiten dute. **Santiago Iruretagoiena**

Han eta hemen espero ez nituen tindu batzuk ere azalduz, sabia, bioleta- **purpura** edo zeru-kolorea. **Joxan Elozegi**

Zure adatsaren distira **purpurarena**. **Elizen arteko biblia**

### 2 purpuraz tindaturiko oihala, antzinakoaren artean aberatsen eta goi kargudunen adierazgarri zena.

Orduan larruak eta orain urreak eta **purpurak** giza bizitza antsiatz betetzen eta gerraz ahitzen dute. Xabier Amuriza  
Beraien idoloak artisau eta zilarginen lan dira, Tarsisko zilarrez eta Ufazko urrez estaliak, **purpura** more eta gorritz jantziak. Elizen arteko biblia  
Efodaren azpiko mantua **purpura** morez egingo duzu. Elizen arteko biblia  
Bazen han zintzilik liho zurizko eta **purpura** morezko oihalik; liho eta **purpura** gorritzko lokarriz zeuden lotuak zilarrezko eraztunetara eta marmolezko zutabetatik esekiak. Elizen arteko biblia  
Mardoqueo, berriz, **purpura** more eta liho zurizko errege-jantzitan irten zen jauregitik. Jose Antonio Mujika

### 3 irud/hed

Neguan, faisaien **purpuran** ere etzaten ziren, bai eta hegatzabalen errauts grisean, eta eper, galeper eta birigarroen zeta pintarratuan ere. Karlos Zabala

### 4 (hitz elkartuetan)

Esan israeldarrei: Josi borlatxoak **purpura** -hariz soineko-ertzetan, bai zuek, bai zuen ondorengoek. Elizen arteko biblia  
, oster, ez digu ezertan kalterik egiten urrez eta bordatu galantez lodituriko **purpura** -jantziarik ezak, babesgarri arrunt bat daukaguna. Xabier Amuriza

### • 5 izond kolore gorri bizia; kolore gorri iluna, morerantz jotzen duena.

Oroitzen naiz belusezko jaka **purpura** bat zeukala jantzita. Oskar Arana  
Hark liburu bat zeraman beti besapean -liburu **purpura** bat. Anton Garikano  
Txilardegiraino heltzen den muino magal **purpura** bati begira egotea. Anton Garikano  
Horixe egin ohi dute kandela beilegi, gorri eta **purpurek**, antzoki handietan zabaldurik, mastetan eta habeetan dardaraz flotatzen dutenean. Xabier Amuriza  
Itsasora heltzean ura zeharo **purpura** eta urdin iluna zegoen, eta arrea eta lausoa. Anton Garikano  
Hezurtegi usainean barneratzen ziren, putzu ilunen erdian ibiltzen, non begi **purpurak** pizten zirela baitzirudien tarteka. Karlos Zabala

### 6 (izen gisa)

Gezien muturretan **purpura** iluneko hiazinto loreak zeuden. Ibon Uribarri  
Ikatz gorien **purpura** lausoak argiturik. Karlos Zabala

### 7 **purpura-arrain** itsas mulusku gasteropodoa, antzina purpura ateratzen zitzaiona.

**Purpura** -arrainaren kolore gorria artilearekin bakarrik biltzen da eta ez da sekula bereziko, artilea Neptunoren olatuekin berritu nahi baduzu ere. Xabier Amuriza

### 8 **purpura kolore iz**

Itsasoko maskor batetik ateratzen da, eta horrekin egiten da **purpura kolorea**. Santiago Iruretagoiena  
Mendiak eta basoak ikusten zituen **purpura-kolore** biziko zerupean. Neguan heltzen eta **purpura kolorez** tindatzen ikusten dituzun gurbitzak. Iñaki Mendiguren  
Kapa beltz luzea eta **purpura-koloreko** bota puntadunak. Iñaki Mendiguren  
Jantziak ere oso luzeak, zorua garbitzen zuen **purpura-koloreko** kapa eta takoi altuko bota belarridunak. Iñaki Mendiguren  
Kobratzaileak, **purpura-koloreko** uniformearekin, autobusetik salto egin zuen. Iñaki Mendiguren  
Makila bakarra zegoen erakusleio hautseztatuan, **purpura-kolore** kuxin higatu baten gainean. Iñaki Mendiguren  
Titiburuak handiak eta ilunak zituen, eta **purpura kolorekoak**. Ibon Uribarri

### 9 (izenondo gisa)

Sofa **purpura-koloreak**. Koro Navarro

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bihotz purpura** (3); **purpura gorrimina** (5); **purpura kolore** (4); **purpura kolorea** (3); **purpura koloreko** (21); **purpura more** (30); **purpura morez** (3); **purpura morezko** (12); **purpura morezko lokarriz** (4); **purpura morezko oihala** (3)  
**purpuraz jantziko** (3); **purpuraz jantzeko** (3)  
**liho eta purpurazko** (3); **purpurazko jantzia** (3); **purpurazko jantziak** (4); **purpurazko mantua** (3); **purpurazko musuak** (4)

## purpuratu, purpura(tu), purpuratzen du *ad ipar* ugaldu.

Hara zergatik mendi ibilaldiak **purpuratzen** ari diren eskualde guzietan. Herria

## purpurina *iz* brontzezko edo metal zurizko hauts finekin prestazen den margoa.

**Purpurinaz** pintatutako zutabeen alboetan. Bernardo Atxaga  
Hegotzar handi batzuk jarri zituzten bizkarrean, lumen zentzuaren arabera zuriz, urdinez, **purpurinaz** koloreztuak. Josu Zabaleta  
**Purpurinaz** bernizatuta zeudela ematen zuen. Bernardo Atxaga  
Aurpegia aurrez aurre zeukan, **purpurinaz** estalitako ezpainek diz-diz egiten zuten, bizirik baleude bezala. Jasone Osoro

## purra 1 *interj* oiloei deitzeko hitza.

Amak dei egiten zien: "Zatozte, **purra**, zatozte polittok!" Anjel Lertxundi

### 2 **purra-purra**

Urrikaldu egiten zen jarraian, nola oilo-kolka bere txitarik ezdeusenarekin... eta **purra-purra** deitzen zion ohera bere txitatxoari, eta txita oheratu egiten zen, jakina... Joan Mari Irigoien  
· Oiloa eta oilanda, kaletarrentzat **purra-purra**. Iñigo Aranbarri

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**purra purra** (3)

## purraka *adlag* ugari.

Azkenekoak, alkandora zuria propio gerrian aterea zuela, hartu azkenaurrekoaren saskia buruan eta, bere hartatik zabalduko zizun gorotza **purraka**, eskuz ukitu ere egin gabe. Patziku Perurena  
Esku bete egiazki ere ez dut (Arestik bere meza poetikotan bezala) edonori **purraka** saltzeko. Patziku Perurena

## purrakatu ik porrokatu.

purrastada ik **purrustada**.

purrastaka ik **purrustaka**.

purruska ik **porroska**.

purruskarazi ik **porroskarazi**.

purruskatsu ik **porroskatsu**.

purruskatu ik **porroskatu**.

purruskeria ik **porroskeria**.

**purrust** (*orobat purrusta*) 1 *adlag* isurtzen den likidoaren onomatopeia.

Santa Kurutz, kaikura esnea **purrust!** Pello Zabala

**2 purrust egin** marmarka aritu, purrustaka jardun. ik **purrusta 2**.

Ostiko bat bota zion katuari, baina hark alde batera salto egin eta **purrust egin** zion; Harryk bere makila magikoa hartu zuen eta jiratu egin zen... Iñaki Mendiguren

Emazteak **purrust egin** zion "gazte gizarajo hura", Charles Tansley, ondotik bialdu zuelako. Anton Garikano

Eta nagusiak laster egin zuen, suturik, geltokiko aterantz eta **purrust egin** zuen: [...]. Fernando Rey

-Lapur-talde madarikatu bat - **purrust egin** zuen Thatcherrek goraki-. Lopez de Arana

-Eta zuk, zer kontatu diozu horri? - **purrust egin** zion Banek-. Iñaki Mendiguren

Arrazoia du, hala ere - **purrust egin** zion Elleni-. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**purrust egin zion** (11); **purrust egin zuen** (19)

**purrusta 1** iz purrustada.

Manuel, baseritarren semea, bere herrikoengandik **purrusta** baino jasotzen ez zuena denek alfertzat zeukatelako. Bernardo Atxaga

**Purrusta** eta guzti, ETBko zuzendariak behintzat hartu egin ninduen. Joxerra Garzia

Mikaelaren alaba gazteak, sorgin horrek, atzo bota zituen **purrusta** batzuk... Pablo Sastre

Hitz lasaia ziren alkatearen haiek, Joanesek aitorpentzat eta ez **purrustatzat** hartu zituenak. Felipe Juaristi

Hitzak bainoago trumoiaren eztanda zirudien **purrusta** katea zen. Felipe Juaristi

**2 purrusta egin** purrust egin.

Nik, hiztegi bat eskuan, neure ahaleginean segitzen nuela ikusirik, **purrusta** egin zuen niri begiratu ere egin gabe: [...]. Anjel Lertxundi

-Jolasean ari garelakoan -egin zion **purrusta** neskatzak. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**purrusta egin zuen** (3)

**odola purrustan** (3)

**purrustada** (*orobat purrustada g.er.*) 1 iz imintzio, esaldi edo erantzun zakarra. ik **purrusta**.

Batzuetan kritika baino **purrustada** izaten da nagusi. Iñaki Heras

Aditu nuen oinezko haren kexu eta **purrustada**: *Scheisse!* Barregura ematen zioten Rasputinen marmar eta **purrustadek**. Fernando Rey

Um Husain jarria zegoen semearen **purrustadetara**. Patxi Zubizarreta

Ruche jaunak ezin izan zion eutsi **purrustada** honekin don Ottaviori erantzun gabe: [...]. Jon Muñoz

Ez nizulako beste **purrustadarik** entzun nahi. Oskar Arana

Errukia sentitu zuen Sonjarengana, hantxe baitzegoen isil-isilik, Weinerren **purrustadak** jasaten. Anton Garikano

"Etxeko bakeagatik" agoantatzen zituela amaren **purrustadak**. Patxi Iturritegi

Horrela edozein **purrustadari** egin diezaioket aurre. Josu Zabaleta

Ospe merezia hala ere, garai primitibo hauei datxekien zabarkeriak aise justifikatzen baitzuen **purrustada**. Jon Alonso

Gehiegi erreparatzen badiek amaren erreguei eta aitaren **purrustadei**, galdutzat jo dezakek hire tokia, horixe duk porrotarako lehen pausoa. Anjel Lertxundi

Bere izena ondo ezagutzen zuelako soilik ulertu ahal izan zion **purrustada**. Unai Iturriaga

Berak ere **purrustadaren** bat esateko arriskua duelako. Oskar Arana

Muxik **purrustada** bat botatzen du, Peterrek intziri egiten du. Josu Zabaleta

**Purrustada** batekin erantzun zigun. Bernardo Atxaga

Suak hartu zuen berehalaxe eta **purrustada** bota zion: hik zer nahi duk, bulunba? Fernando Rey

Aitortu ere egin dit Hannak zergatik sumindu zuen hainbeste, duela gutxi, bere etxean bota nion zorigaitzoko **purrustada** hark: "Oilaloka dirudizu" delakoak. Joxe Austin Arrieta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Crookshanks tentetu egin zen Blacken altzoan, eta **purrustada** txiki bat egin zuen. Iñaki Mendiguren

Etxeko bertze muturretik, Isabel Sanjoserren **purrustada** luzea: [...]. Aingeru Epaltza



Lucy eta Luzia etxetik atera zirenean, Juliok **purrustada** itsusi bat egin zuen eta sofan eseri zen. Joxemari Iturralde  
Isil egoteko esan eta bion **purrustada** lotsagabea entzun behar, ordu arte ez bezalakoa. Gotzon Garate  
Irainek eta elkarririk botatuko **purrustada** garratzek berdin diraute. Berria - Kultura  
Orube horretan eraikitzen ditu gure artean ospetsu egin duten azterketa, iritzi eta -bere damutan nik uste- **purrustada** polemikoak. Patziku Perurena  
Liluratu antzo aditzen nizkion zure gaineko pasadizoak, zure **purrustada** mitikoak. Xabier Montoia  
**Purrustada** bortitz horiek bizitza normalean [...] amaren bizkarretik gaizki esaka arituta konponduko liratekeen haserrealdi batzuen adierazpenak baizik ez dira. Josu Zabaleta  
Ez nian etorri behar -esan zuen Adak, ahotsa beharturik eta destainazko **purrustada** batez. Anjel Lertxundi  
Haren etengabeko **purrustada** ezagutzen nuen bakarrik: batere gusturik ez nuela, eta berarekin ezkontzeari muzin egiten niola. Joxe Austin Arrieta

### 3 parrasta.

Arrazoi **purrustada** hartatik ez nuen nik ezer garbirik atera, eta jakin-minez geratu nintzen. Joxerra Garzia  
Eta alde egiten dugu ttaka, amonaren ziri-**purrustaden** pean. Jesus Mari Mendizabal  
Beste paraje batzuetan, berriz, urretxindorren udalditoxa deitu diote, jakinik, beti ere, beste aldeko hotzaldi **purrustadaren** bat laster jausiko dela bueltan. Pello Zabala

### 4 barre purrustada

Nahi gabe, barre **purrustada** irten zait. Patxi Iturritegi  
-Harryk barre- **purrustada** bat egin zuen, duda egiten baitzuen Fred eta George inoiz inuzenteak izan zirenik. Iñaki Mendiguren  
Supituan, ordea, begitartea aldatu zitzaion berriro, baina oraingoan barre- **purrustada** ero bat jaurti zuen barren-barrendik,- eta leher gaizto egiteraino hasi zen irri karkaraka. Anjel Lertxundi

### 5 purrustada egin

Zuzentzaileak, gaur egun ia almuedanoa bezain itsu, **purrustada** egin zuen, gaizki lo egin eta amets nekosoetan dabilenaren antzera, Azkenean, **purrustada** eginda altxatu zen. Jon Alonso  
Horma-garbitzaile zaharrenak ausiki egin dio puru-zutzarrari eta hitz beste eginez, bere alaba emagaldu bat bezala janzen hasi dela egin dio **purrustada**. Harkaitz Cano  
-Eta hori entzunda irratia amatatu zuen aitak **purrustada** bat eginez. Koldo Izagirre  
Azkenaldi honetan apenas zabaltzen du ahoa **purrustadaren** bat edo beste egiteko ez bada.Osaba Juanek **purrustada** moduko bat egin zidan: "Betiko hemen gelditu behar! zer nahi duk!". Patxi Iturritegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**barre purrustada** (3)

## purrustadaka *(20 agerraldi, 16 liburu eta artikulu 1ean) adlag purrustaka.*

Gure ama, **purrustadaka** eta kexuka hasten bazen ere, oso zoriontsua izan zen Sassarin eta Palermon, izaeraz alaia zelako eta non-nahi aurkitzen zuelako nor maitatua eta bera maite zuen jendea. Fernando Rey  
Dionisos egongelatik **purrustadaka** ari zen, erdi ahapean erdi ozen. Unai Iturriaga  
Euxebiok, entzutez nardaturik, ukaldi zakar bat jo zuen mahaian eta, altxaturik, **purrustadaka** alde egin zuen bileratik denak ahoa bete hortz lagata. Berria - Kultura  
Egunak zeramatzen neskaren kontura **purrustadaka**. Jokin Muñoz  
Gure artean **purrustadaka** baino ez genekien hitz egiten. Joseba Urteaga  
**Purrustadaka** hasi zen, kirinka egiten zuen haren jarlekuak. Karlos Zabala  
Neskak, orduan, erdeinuka eta **purrustadaka**: [...]. Patxi Zubizarreta

## purrustadatxo iz purrustada txikia.

Mikelek **purrustadatxo** bat egiten du, halako sesioek asperturik edo. Xabier Mendiguren Elizegi  
Ziur nago jaso duzun **purrustadatxoa** barkatzen jakingo didazula. Karlos Linazasoro  
Barre **purrustadatxoak** iritelen zitzaizkion bat bestearen atzetik amas-zituka gorputz dardarikatutik. Irene Aldasoro

## purrustaka *(66 agerraldi, 27 liburu eta 2 artikulutan; orobat purrastaka g.er.) 1 adlag purrustadak eginez. ik purrustadaka.*

**Purrustaka** altxatu zen Leon KARRIKA egongelatik eta **purrustaka** hartu zuen oherako bidea zu eta Argos bakarrik utzita. Hasier Etxeberria  
Agure bat **purrustaka** joan zen handik, buruari eraginez. Anjel Lertxundi  
Husainek, **purrustaka**, kontua ordaindu, eta lagunarekin irten zen tabernatik. Patxi Zubizarreta  
Telefonoaz bertzaldere, zuzendariordea **purrustaka** ari zen beti. Aingeru Epaltza  
Emile **purrustaka** altxatu zen eta zutik, une batez, mendebaldeari begira geratu zen. Lopez de Arana  
-Honi oporrak deitzea ere! -esan zuen **purrustaka** Seamus Finniganek arratsalde batean egongelan-. Iñaki Mendiguren  
-Hau da hau esker gaiztoko gizona! -esan zuen **purrustaka** emakumeak. Lopez de Arana  
-Tira, mugi! -esan zien Hermionek **purrustaka**. Iñaki Mendiguren

### 2 parrastan, purrustan.

Burutik buru zeharkatu genuen, ordu horretan salgaien inguruan **purrustaka** metatzen ziren etxekoandreen, haur eta aita opordunen eta erretiratuen artean. Aingeru Epaltza  
Zauritik odola **purrustaka** isuri zitzaion orduan. Fernando Rey  
Eta ni odoletan nengoan **purrustaka** eta trajea zikintzen nion soldaduari. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**esan zuen purrustaka** (4); **purrustaka ari zen** (3)

## purrustaldi iz purrustada.

Husain, bere nahigabeari buru eginik, zain egon zen, **purrustaldia** noiz amaituko. Patxi Zubizarreta  
Herririk herri misionak egiten ibiltzen ziren elizgizonen **purrustaldiak**. Patxi Zubizarreta  
Txapelketek beti eman izan dute zer esana, eta Jonen **purrustaldi** hartatik aurrera, are gehiago. Andoni Egaña

# purrustan 1 *adlag* parrastan, ugari.

**Purrustan** etorri zitzaizen jendea erostera, denda ikusteko gogo hutsez. Karlos Zabala

Galtzen janzteko astirik ere gabe, lasterka atera zen etxolatik eta barnean zituen guziak **purrustan** eta ziliportaka kanporatu zituen, aho zilotik eta sudur ziloetatik. Eneko Bidegain

Inork ez du inozo eta inuxente izan nahi, eta **purrustan** hasi gintzaizkion halakotzat hartzen gintuen ama horri geure arrazoiak azaltzen, elkarri txanda emateko ere betarik gabe. Joxerra Garzia

Segur nintzen hitzak paperrean jarriko zirela, nasai, bat bestearen ondotik, **purrustan**. Piarres Aintziart

Estimulu sexualak berehala iristen dira bizkarrezurreko muinera eta burmuinera, eta horiek biek mezu bera bidaltzen dute genitaletera: odola **purrustan** joan dadila zakilera. Luis Elberdin

## 2 purrustaka.

Langile punttalakurlo eta zorrotza bihurtu zen, beste bien kontra **purrustan** hasten zena haiek goizean berandu ailegatu eta hiruretan joaten zirelako bazkaltzera. Fernando Rey

-Sorgin zahar hori! -esan zuen Gavardek **purrustan**. Karlos Zabala

Posible zen Ramsay jauna noiznahi zutitzea, liburua itxi eta **purrustan** hastea; baina oraingoz irakurtzen ari zen. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**odola purrustan** (3)

## purrustari *iz* purrustadak egiten dituen pertsona.

-Bestalde -jarraitu zuen Albertek-, **purrustari** galanta zen tipoa. Xabier Olarra

## purrustatu, purrusta(tu), purrustatzen 1 du *ad* purrustada egin.

Nolaz ez zion deitu karramarroa edo dena delakoa ikustean, **purrustatu** zion Andrewk. Anton Garikano

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Txilin baten hots **purrustatuak** sparring-arengana hurbildu eta haren inguruan estreinako ukabil-zitadak saiatzten hasteko unea adierazi zuen. Josu Landa

## purrustero *iz* *adkor* purrustaria.

Gizon ona da Karrika, **purrustero** xamarra, aukeran. Hasier Etxeberria

Olo-ahia hotzagatik muturtu egiten zen **purrustero** zahar petral batek zergatik predikatu guri? Anton Garikano

## purrut *iz* puzkerra.

Handik aste batzuetara, lagunekin ostatuz ostatu zurrut eta **purrut**, Donostiako Parte Zaharrean haxix bila ibiltzen diren Iparraldeko gazteen gaia atera zen. Iñigo Aranbarri

## purruxka ik porroska.

## purruxkatu ik porroskatu.

## purtxileria *iz* purtzileria.

Milaka esku zirela luzatzen, oñofiak, liburutxoak, burukoak, zakuttoak eta iragarkiz beteriko bertze **purtxileria** frango eskuratu nahian, kalapitan artzeraino batzutan!

Herria

Tabernan edanean, edo bere kaxoian **purtxileria** lardaskatzen. Anton Garikano

Bertan uzteko tokadore eta konketa gainetako **purtxileriak**. Anton Garikano

## purtzika 1 *iz* purtzileria.

Bota ezak **purtzika** hori zikin-ontzira eta lan egin dezagun. Berria - Kultura

## • 2 *adlag* eskuzkatuz.

Katearen zuzendariak bere belaunetan jarrarazi eta eskuz **purtzika** erabili zidan eskuinaldeko bularra. Joxan Elozegi

## purtzil 1 *izond* kaskarra, hutsala, arbuigarria.

-Ene ahizpa Emiliani, zeina baita emazteki ezin nobleagoa, guti zen, beraz, zuretzat, baina emazteki **purtzil** hori ez... Joan Mari Irigoien

Emagaldu batekin elkartu zara, emakume **purtzil** batekin... Jose Morales

-Tori, bai, bostehunekoa, baina utikan hemendik, ene etxean sarrera debekatua baitute zu bezalako atso zahar **purtzilek** ...! Joan Mari Irigoien

Bere lan bakarra harat-honat ibiltzea, tipo **purtzil** eta gixotekin hitz egitea xuxurlaka eta ni bazkaltzera eramatea espezial jaten zen jatetxe italiar batera. Fernando Rey

Eta Méhuidindarrak larutzen zituzten, andrazko **purtzil** horiek, gizonen dirua besterik nahi ez zutenak. Karlos Zabala

Hi ume-**purtzila** haiz ene ondoan! Txillardegi

Salataria, **purtzila**, saldua, zikina, utik! Matías Múgica

Kontuz ibil hadi, **purtzila**, ez hago-eta ohituta! Anjel Lertxundi

## 2 (gauzei buruz)

Sukaldeko mahaiairen gainera bota zuen paper **purtzilari** begiratu zion. Itxaro Borda

Orduan, laurek elkar hartu zuten Quenu-Gradelletarren saltoki **purtzil** hartan gertatzen zenaren berri bata besteari jakinarazteko. Karlos Zabala

Hura onuragarria zela sinets dezagun, zertzelada **purtzil** tustoa ezabatzen du, etsaikeriek batera, denak lagun ginela eta funtsean bakoitzak bereizkeria zantarrak ez zuela esanez. Pako Aristi

Arimaren ilunpea, gogo-nahastea, gai **putztil** eta lurkoietarako lera. Patxi Altuna

Zuen askatasun **putztil** ganorabako horrek? Juan Luis Zabala

## • 3 iz putzileria.

Eskeko mojak edo "beatak" bigarren mailako erlijio-emakumeak ziren: ez zuten doterik behar [...] eta eskean bildutako **putziletatik** bizi ohi ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Salerosketa-gune batean, beste hainbat **putztil** -saltzaileren artean, jai-egunetako giro zaratatsuan... Iñaki Iñurrieta

Telefonoa ohe-mahaian dago, **putztil** eta txirtxileria baso baten erdian. Koldo Izagirre

## 4 mari-putztil ik mari 32.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mari putztil** (4); **putztil hori** (4)

## putzileria iz putzileria.

Letra larriz idazten den Artetik urrun, balio-arauen eskalan oso apal, at ia, merke saltzeko egindako **putzileria** haietan enplegatzen zuten bere sormena. Iñaki Iñurrieta

Kutxaren barnean ere begiratu zuen, baina falta zen kapela, falta zen **putzilerien** kutxatxo. Joxemari Urteaga

## putzilikatu, putzilika, putzilikatzen (orobat putzilkatu) 1 du ad putzileria bihurtu.

*Joan daitezela deabruetan hara* marmaraturuz, bezperan karrikan eskuratu papera **putzilikatu** zuen Agatak zikin-ontzira botatzeko. Itxaro Borda

Azkenean Maiana trinkili-trankalaka egon-gelaratu zen, biloak barreiatuak, begiak blai eta jantzi urdinak **putzilikatuak**. Itxaro Borda

Kexatu egin zen biziki nire ozpin ikuspegia erakutsi nionean, eta gai nintzela esan zidan jaialdirik ederrena **putzilikatzeko**. Hasier Etxeberria

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Umezurztegi umezurztegi hartze-familiaka erabilia, Di Maggio eta Arthur Millerren emazte baliatua, JF eta Bob Kennedy anaien amante **putzilikatua**. Itxaro Borda

Sutearen ondoan belaunikatu nintzen, *Ouest France* egunkariaren ale zahar trebeki **putzilikatu** batzuk tximinian ezartzeko. Itxaro Borda

Begiak kleenex **putzilikatuaz** torratuz besoak papoan juntatu zituen. Itxaro Borda

Lepoan zeukan urrezko gurutzeta eskuetan **putzilikatzen** zuen deabruaren aitzinean izan bailitzan. Itxaro Borda

## putzilkatu ik putzilikatu.

## putzileria iz gauza kaskarra, hutsala, arbuigarria.

Nor bere ezdeuseria, zirtzileria eta **putzileriarri** lotzen da biziro, eta garrantzirik ez dute aldi berean besteren gauzek. Joxan Elozegi

Ez al duk eskolako koadernorik zikintzen orain hire, hire... **putzileria** horiekin? Juan Kruz Igerabide

Sinfonikoago ez ezik, poetikoago egiten zait, askoz, larua jotzea maitasuna egitea baino; "gurpistegi" poetikoagoa zaidan bezala "gure kabi" eta gisako **putzileria** melengak baino. Joxerra Garzia

## putzupilatu, putzupila, putzupilatzen du ad ipar piltzar bihurtu.

Ezkont berriek arropa **putzupilatua** dute, jauntzi orduko. Herria

**Putzupilatua** baino gehiago ere, tokika urratua, petatxuen behar gorrian. Herria

## puru<sup>1</sup> 1 izond nahasgabea, garbia, hutsa. ik aratz.

Russellen ustez, izen propio **puru** batek denotatu egingo du soilik, eta ez du inolako arrasto konnotatiborik izango. Askoren artean

Egun trafikatzailerek heroina **puruagoa** eskaintzen dute eta horrek merkatua handitu egin du. Berria - Gaiak

Hartarako, oxigeno **puruz** lagunduriko arnasketa jarraitua ezarri behar zitzaiokeen. Xabier Olarra

Adela Rasetti mineral **purua** da. Fernando Rey

Lopezek figurazio **purua** ordezkatzan du; Craggek abstrakzioa. Berria - Kultura

Ez dago arazo tekniko **pururik**: arazo ekonomiko guztiak dira arazo politikoak, azken batean. Iñaki Heras

Bere abertzaletasun **puruaren** karisma. Joseba Zulaika

Sakrifizioaren egia **purua** goza zitekeenean. Joseba Zulaika

Flamenko **purua** maite dute. Berria - Kultura

*Mea culpa*, ama garbi, ama **puru**, ama betikoa. Karlos Linazasoro

## 2 puru-puru

Dirua, bada, ideia edo sineste **puru-purua** da, dagoen idealik garbiena edo, hobeki esan, zikin-estaliena. Iñaki Segurola

*Oracle Night* Auster **puru-purua** dela esan liteke, berezkoak dituen ezaugarriez jantzia. Berria - Kultura

Ongia eta gaizkia **puru-puruak** izango lirateke, inoiz ez lirateke nahastuko. Joxe Azurmendi

Errebolbertxo, ganibetatxo, hortz eskuila eta zintzarritxo maitagarri txiki-txikia, dena urre **puru-puruzkoa**. Matías Múgica

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**puru bat erretzen** (5); **puru kaxa** (3); **puru luze bat** (4); **puru txiki** (3); **zigarro puru** (17); **zigarro puru alemanaren** (4); **zigarro puru bat** (5)

**purua ahoan** (5); **purua erretzen** (9); **purua erretzen ari** (3); **purua piztu** (3); **zigarro purua** (9)

**puruak erretzen** (11); **zigarro puruak** (6)

**puruaren punta** (3)

**zeta puruzko** (3)

## puru<sup>2</sup> (orobat puro; Euskaltzaindiaren Hiztegian puru agertzen da) 1 iz zigarroa.

Koronela **puru** baten eztainu-paperezko estalkia kontu handiz zabaltzen ari zen. Gizon lodiak beste **puru** bat piztu zuen. Lopez de Arana

Mutiko biluziak itsasoan, haien larria, eguzkia haien larru bustian, beroa: eseri eta **puru** bat erretzen dut. Joxe Austin Arrieta

Elgeta **purua** errez eta dominoan jokatzen zeukan zain. Koldo Izagirre

**Puruaren** keak eztula eman zion. Bernardo Atxaga

-Neurri ona da, igandero **puro** bat... aurrean, guztiaren buru, "Kaskagorri", **puru** piztu berria hortz tartean, hitz egiten hasteko prest. Joan Mari Irigoien

Mahai ertzean utzitako **puruari** kolpetxo batez errautsa kendu zion. Joxemari Urteaga

**Puru** hauek ez dira Vuelta Abajoko fabrikatik atera, faltsuak dira, esan zion tabako saltzaileak. Jon Alonso

Joey, hartu **puru** bat kutxa horretatik. Lopez de Arana

**Puruak** erosi ditut, bi kaxa. Joxe Austin Arrieta

Begirada gurutzatuak, aldaka kulunkariak, masaila gorriak **puruak** mastekatzen. Lopez de Arana

Kaxa bat **puru** eta dirua eman zion. Koldo Izagirre

## 2 (hitz elkartuetan)

**Puru** -mutterra ezpainen txokoan zeukan. Bernardo Atxaga

Kolpetxo batez, aspaldi itzalitako **puru** -mutur baten albora jaurti zuen errautsa. Joxemari Urteaga

**Puru** erretzaile batek eduki behar dituen tresna sofistikutuak -purua moztekoa, supizteko egokiak, larruzko toxak... Jon Alonso

Gure gizonak eramandako **puru** -kutxa zabaldu zuen. Jon Alonso

Halere, nire ustez, hainbat pilotalekutako **puru** kea okerragoa izan daiteke, horrek gehiago itotzen zaituelako. Berria - Kirola

## 3 zigarro puru ik zigarro.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**puru purua** (7)

**oso purua** (4)

## purudun *izlag* purua duena.

Lanrrobera tuneletik, eta indigena potolo-txapeldun-**puruduna** txofer. Joxean Sagatzizabal

**Purudun** gizonak buruaz keinu bat egin zion bonetadun gizon argal bati, atariondoaren beste aldean egunkaria irakurtzen ari baitzen. Lopez de Arana

55 urteko frontoi-gizon ilehoriz tintatutako **purudun** ipurdia aterea duen euskaldun zaharrari... Joxean Sagatzizabal

## puruezkeria *iz* purua ez den gauza.

Gurpilak jira egingo badu, bizia biziko bada, beharrezko dira **puruezkeriak**, eta **puruezkerien puruezkeriak**; lurlean ere bai, jakina denez, emankor izango bada. Juan Garzia

## purueztasun *iz* purua ez denaren nolakotasuna.

Bi ondorio filosofiko atera zitezkeen horretatik, elkarrekin kontraesanean: purutasunaren gorespena, geruza gotor batek bezala babesten baitu; **purueztasunaren** gorespena, sarbide ematen baitu aldakuntzetara, hots, bizitzara. Juan Garzia

## purutasun 1 *iz* purua denaren nolakotasuna.

Adarbakarra garbitasunaren eta **purutasunaren** sinbolo da. Martin Anso

Dogmaren **purutasuna** aldarrikatu du beti, eta horrek etsai asko sortu dizkio. Berria - Harian

Abandonatu diotenengan euren balioen **purutasuna**. Berria - Euskal Herria

Bi egun luze eman nituen askiesteko moduko **purutasuneko** lagin bat lortzeko. Juan Garzia

Intolerantziak, gogor-irteerak, irmotasunak, gutarrismo eriak, ideien **purutasunak**, koherentzia iraunkorrak. Iñaki Segurola

Garbitasun maniatikook, zortzi zeroko **purutasunok**, sofrikario zaizkit. Juan Garzia

-Isiltasuna da **purutasun** bakarra. Karlos Linazasoro

## 2 (hitz elkartuetan)

Agian haien irazkinak, ehuneko 90 azido uriko, ugari lor zitezkeen, aldiko peza ez txikiegitan eta **purutasun** -baldintza zentzuzkotan. Juan Garzia

## purutxo (*orobat purotto*) 1 *iz* puru txikia.

**Purutxo** bat piztu zuen. Joxemari Iturralde

**Purutxo** bat zekarren ahoan eta eskuan beste gutunazal hori handi bat. Joxemari Iturralde

Zeren berak [...] kardiologoaren aholkuak gorabehera, bere betiko **purutxoak** erretzen segitzen zuen isil-gordean, eta nola gainera! Patxi Iturritegi

Begia zabalik sabaira begira geratu zen, **purutxo** bat erre bitartean. Migel Angel Mintegi

**Purutxoari** azken atxikia eman zion. Migel Angel Mintegi

## 2 (hitz elkartuetan)

**Purutxo** -mutxikina bota zuen. Migel Angel Mintegi

Hartarako, **purutxo** kaxa eskuratu, eta luzatu egin zien. Migel Angel Mintegi

## purutzar *iz adkor* puru handia.

Azkeneko egunean, Martineau jaunak jatetxe bikain batera gonbidatu gintuen aitona eta biok; eta, kafea hartu ondoren, egundoko **purutzar** bana erre zuten biek. Jesus Mari Mendizabal

## puruxka *iz* purutxoa.

Tabernan, gainera, inoiz baino puru eta **puruxka** gehiago saldu ziren, zaleek euren desadostasuna agerian utzi nahi izan zuten. Berria - Euskal Herria

## puruzale *izond* puruaren zalea dena.

Tabako-dendako jabea ere -hura kasualitate!- **puruzalea** zen; tira, **puruzalea** bakarrik ez. Jon Alonso

## pusa 1 *iz ipar* kimua; pusatzea.

Zortzi/hamar egunetarik landareak fotoan atera behar zituzten, ikusteko nolako **pusa** egiten zuten. **Marzel Etxehandi**

Suak garbitzen duela mendia eta errexten alhatzeko belar hobearen **pusa**. **Herria**

## 2 irud/hed

**Pusa** gazteak laguntzen dira, eta txalotzen ikasle putikoak! **Herria**

## 3 *pusan ari izan*

Barnetik eskuz pieza bat **pusan** atxiki behar zen, kanpotik konpontzeko gisan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Departamenduak lehoiak bezala ari izan dira **pusan**, zenaturrei esker bereziki, haiek ere zerbait eskuratzeko gobernutik. **Herria**

Orain artio hor ari diren langile guziak horri buruz **pusan** ari dira. **Herria**

## pusaka *adlag ipar* bultzaka.

Bi VTT bizikletari haizea bezala pasatu zaizkit ondotik, baina, berehala, makinari **pusaka** eta hari bermatuz, oinez jarraitzen dute bidea. **Piarres Aintziart**

Meategi zilotik biltzen zuten ikatza eta burdin bide xume batean kargatu eta **pusaka** heltzen zuten behar lekurat. **Herria**

Ikusi zituzten dozena bat emazte jausten, guardek **pusaka** harrizko hesiaren barnekaldera sarrarazi zituztelarik. **Elena Touyarou**

Luzaz denen aintzinean egonik De Lima brazildarra, keinka batez bazterretik sartu gizon batek **pusaka** eror-arazi duena, denbora poxi bat gal-araziz... **Herria**

## pusako *iz ipar* bultzada.

Nahi izan dute geltokiko paretari kontra seinale elebidun bat ezarri, polizak debekatu ditu **pusako** zonbait goiti-beheiti. **Herria**

Zonbait oihu, zonbait **pusako** polizarekin, gero denek segitu dute Baiona-Ttipirat buruz, gehiagoko zalapartarik gabe... **Herria**

Doi-doia zenbait oihu eta **pusako** Getxoko bulego batean, Bizkaian, eskuindar bati oldartu baitzaizkio ezker abertzaleko batzu bainan delako eskuindarrak zerbait begi tzar eginik omen edo nik dakita zer... **Herria**

Bizkarra paretatik aldendu gabe igo zen, hankekin palanka eginda txandaka, gorantz lerratuz, zamarra hondatuz, besoak saihetsetara atxikita, hondo urrun batetik **pusako** laburretan azalera letorkeen urpekari. **Koldo Izagirre**

## pusakoka *adlag* pusaka, bultzaka.

EHun bat lagun segurik bilduak baitzauden, oihuka ari, herriko etxe aintzinean, barnerat nahiko zuten sartu bainan ateak zerratu zaizkiote eta polizarekin **pusakoka** arizan dira. **Herria**

## pusakoño *iz* pusako txikia.

Adibidez aurtan, telefonoa, elektrika, postan tinbrearentzat **pusakoño** bat: 0,46 eurotik 0,50-ra. **Herria**

## pusarazi, pusaraz, pusarazten 1 du *ad* hazarazi.

Lehena, hor berean **pusarazten** dute luzerna idor arazteko, bigarrena, horgo kabala gizenendako ardietsia dute "Label" bat, haragia hobia delakoan kariago saltzen dute, itzuliak segur balio zuen, gainera horren puntan badaude biziki erreka onak mendiari buruz arraintzarako, bainan ez nor nahirentzat. **Herria**

## 2 irud/hed

Hormonek **pusarazi** zuten titi pare ederra zuen alta! **Ramuntxo Etxeberri**

## pusatu, pusa, pusatzen (*orobat puxatu g.er.*) 1 du *ad ipar* bultzatu.

Gelaren barnera **pusatzen** nau. **Marzel Etxehandi**

Azote ukaldika aitzina **pusatzen** gituzte, kabala tropa bat bezala. **Michel Oronoz**

Hemendik goiti beharko duk goizik abiatu, bidean bakarrik ez ibiltzeko, gibelean denak **pusatuko** baihu eta aitzinean dukana gidari eta sustengu gisa ukanen baituk. **Piarres Aintziart**

Peiok beraz bortizki **puxatzen** du baina bestea ez da erortzen. **Ramuntxo Etxeberri**

Goraxago gizon xahar bat eta bi neskatil, beren pirripitak, errepidearen erdian, **pusatzen** dituztela. **Piarres Aintziart**

Egunean 50 bat kilometro egiten dute, hamalau arraunlarik **pusatuz** ontzia. **Herria**

Bixkotxak ere izanen dira jateko, eta edateko zerbait, bixkotxaño horien **pusatzeko**. **Herria**

Batzuk nahi alderdia erdirat **pusatu**, beste batzuk aise ezkerragotik joan behar duela, badira tirabira saminak. **Herria**

Komertsant batzuek omen dituzte **pusatzen**, pesten aste batez gibelatzera. **Herria**

Badakik hautu horiek ez dizkiagula bat batean eta brauki, beroaldi batez, sukar batek **pusaturik** egin, bainan bai gogoeta frangoren ondotik. **Herria**

Zerbaitek, nihaurek ontsa ezagutzen ez dudan zerbaitek, baina ni baitan halere azkar sendi dudan zerbaitek, ez banindu halere **pusatzen** aitzina segitzerat. **Janbattitt Dirassar**

Jakes ene ondotik, trapu tzar bat izan banintz bezala antzara ferratzerat igorria ninduelarik, ene haurraren galtzerat **pusatuz** ! **Janbattitt Dirassar**

Idekirik dagoen atea **pusatzen** bada, kurrinka nardagarri bat eginez nomahi sartzera uzten du. **Michel Oronoz**

## 2 irud/hed

Afera auzitegiatarat **pusatua** izan da. **Herria**

Paueko prokuradore nagusiak aintzina **pusatzen** du afera hori Pariseko dei-gorte gorenerat. **Herria**

## 3 hazi.

Hein bat gizendua, bizarra utzia **pusatzerat** eta ileak luzatzerat, arrunt beste itxura bat omen zuen! **Herria**

Bizarra utzi duzu **pusatzera** ... **Elena Touyarou**

## pusatzaile *iz ipar* bultzatzailea.

Norbait bazuketen **pusatzaile** ezen egina zuten dei bat heldu zen Frantziako erregearen eskuetaraino. **Herria**

Kargudun politikoak direa ideiaeren lehen **pusatzaileak** izan behar? [Herria](#)  
Hortakotz direla kontra plantatu eta ez bazterretik norbait ukanik **pusatzaile**... [Herria](#)  
Paul Bellevueorduko erretora **pusatzaile**. [Herria](#)

## pushing ik punching 2.

### puska 1 iz gauzaki batetik berezia izen den zatia.

Urkatzea aski ez, gainera, lau anaietatik txikia ez beste hiruak, lau haragitan partitu, eta hamar lekutan banatu dituzte **puskak**. [Patziku Perurena](#)  
Egunkarietik ebakitako **puska** bat, izenburu hau zuena: [...]. [Jon Muñoz](#)  
Paper urdinezko **puska** mehe batzuen gainean paratua zegoen guztia. [Karlos Zabala](#)  
Meza haietako ostiak **puska** ttipitan emaiten ziren, eta kanpaleku guzira barreiatzen. [Marzel Etxehandi](#)  
Betaurrekoak **puska** tiki eginda, begietako lausoak ilunagotzen zuen toki zoldazu horretako ilunpea. [Aingeru Epaltza](#)  
Negu batez, Frantziskok **puska** zarpailez adabaturiko tunika bakar bat zuen bere gorpuztzo santuaren estalgarri. [Askoren artean](#)  
Varsovian xerretan mozten zuten gurina, **puska** handi batetik, zerraz. [Koro Navarro](#)  
Jornalaren **puskarik** handiena Urtxipiarendako beharrea ateratzen zian, berriemaile huts gisa hasieran. [Aingeru Epaltza](#)  
Bi **puska** berdinetan zatiturik. [Josu Zabaleta](#)  
-Hi, aho-bete horrek, ekarrak **puska** bat! [Aingeru Epaltza](#)  
Nik esan zieat, guretzat gordetzeko **puska** bat bada ere... [Inazio Mujika Iraola](#)  
Zaindariaren hitz idor haiek Joanesen ametsak mila **pusketan** xehatu zituzten. [Eneko Bidegain](#)  
Argazkiaren **pusketan**, berriz, ez dago errealitate horren arrastorik. [Joxerra Garzia](#)  
**Puskaz puska** erortzen ari den etxe ziztrin bat. [Harkaitz Cano](#)  
Nahiago ditut horrela, hautsiak eta **puskaz puska** osatuak. [Joan Mari Irigoien](#)  
Lixiba eta **puskako** xaboi usaina darien arropa eskegien azpitik. [Pello Lizarralde](#)

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beste eskuaz paper-**puska** batean idatzi zuen hogeita bost errublo hartu zituela. [Jose Morales](#)  
Egunkari **puska** baten gainean. [Josu Zabaleta](#)  
Bekoz beko jarririk, amasaldi sakonak egiten, begiak bi izotz-**puska**, isilik egon zen lipar batean. [Migel Angel Mintegi](#)  
Bere alboko ohe **puska** seinalatu zion Mentxuk. [Josu Landa](#)  
Ez niken ezta odolki **puska** bat ere hartuko. [Karlos Zabala](#)  
Neskak plater bat paratu du nire aurrean, kleraren itxurako *camembert* **puska** batekin. [Monika Etxebarria](#)  
Olagarro **puska** irineztatu eta frijitu goxo-goxoak. [Jon Muñoz](#)  
Arkume otzan bat bezalakoa da eta nire anderea; koipe-**puska** baino beragoa bera. [Patxi Ezkiaga](#)  
Kafesnea, laranja-urra eta patata-tortilla **puska**. [Aingeru Epaltza](#)  
Beharrik, metraila **puskak** sorbalda ukitu besterik ez ziola egin ikusi zuen. [Karlos Zabala](#)  
Urrez eta zilarrez estaliriko egur-**puska** baizik ez dira. [Elizen arteko biblia](#)  
Horietako bati zartako eder bat eman nion hodi-**puska** batekin. [Lopez de Arana](#)  
Lurra eguzki **puska** batetik sortu zen, irakurri zuen, baina nor osatu zuen eguzkia? [Koro Navarro](#)  
Nire oroitzapen **puskak** bildu ditut. [Josu Zabaleta](#)

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia hitz elkartua dela)

Horretarako daruma irakurri ezin duen egunkari orrialde **puska** hori. [Koldo Izagirre](#)  
Eraman ezazu mingain bat, edo txerri buru **puska** bat. [Karlos Zabala](#)  
4 oihal-etxola **puska** elgarri botoinaturik lau gizonen aterbe izan zitezkeen. [Marzel Etxehandi](#)  
Arrain erre **puska** bat eskaini zioten. [Elizen arteko biblia](#)  
-Txerriki gazitu **puska** bat, bai, baliteke... [Karlos Zabala](#)

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa izenondoeekin)

Kilometroak, haragi **puska** ustel baten orde, urrea garraiatzeko prezioan. [Aingeru Epaltza](#)  
Eguna amaitzeko, txahalki-**puska** hotz bat eta litro erdi aza-zopa mikatz zerbitzatu zizkieten. [Jose Morales](#)  
Enplegatuek erakuslehoetan txukun paraturiko oihal **puska** tolestuenartetik. [Karlos Zabala](#)  
Oraino eguerdi ez izanagatik, eguzkia berun **puska** goritua zitzaidan buru gainean. [Aingeru Epaltza](#)  
Ispilua, berriz -beira **puska** eskerga seinalatu zuen-, ez nuen lortu hemendik eramatea. [Aingeru Epaltza](#)  
Aski da harri-**puska** txiki bat metal-kopuru handiak urte bihurtzeko. [Xabier Aranburu](#)  
Hamidari iruditut zitaizon ezen mutilak ez zuela hezurrik ez artikulaziorik, edota kautxu **puska** elektrizatu bat zela. [Patxi Zubizarreta](#)

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia neurritz gainera dela adierazteko)ik ale.

Ikusita nago ni portuan ale itzel askoak, kristoren zuhaitz **puskak**, zera. [Jon Muñoz](#)  
A zer neska **puska**! [Lopez de Arana](#)  
Hura gizon **puska**! [Jose Morales](#)  
A zer nolako morrosko **puskak**. [Jesus Mari Mendizabal](#)  
Izan ere, hura zen, hura, emakume **puska**! [Joan Mari Irigoien](#)  
Izugarrizko neska **puska** zen. [Koro Navarro](#)  
Mutil **puska** gartsua egina zen. [Aingeru Epaltza](#)  
Karraketan gerla eske dabilzan neska **puskak** ikusita, ez haiz Kristinaz eta mutikoaz etxean penatzen gelditzeko bezain ergela izanen, ezta? [Aingeru Epaltza](#)  
Kuban bizi duk mulata **puska** batekin! [Koldo Izagirre](#)  
Emazte azkarra da, ez erraiteko atso **puska** bat badela. [Eneko Bidegain](#)  
Dama **puska** bat zen frau Öchler, luze bezain zabala, gizon itxurakoa. [Anjel Lertxundi](#)  
Zakur **puska** harenak ziren beraz, Lydieren pausotzat jo nituenak! [Harkaitz Cano](#)  
Sekulako behor **puska** egina dago. [Aingeru Epaltza](#)  
Manausko bere etxe handian irudikatu zuen Grosrouvre, gazte oraindik, elastikoa jantzita, bere gorpuz **puska** harekin, mahai batera makurtua, ahalegin betean... [Jon Muñoz](#)  
Berehala, Mercedes **puska** bat gelditu zen bat-batean txori-dendaren ate aurrean. [Jon Muñoz](#)  
Niri gustatzen zaidan gauza bakarra zure titi **puskak** dira. [Karlos Linazasoro](#)  
Pim optimista **puska** bat da, baina beti ditu bere arrazoiak. [Josu Zabaleta](#)



-Nondik atera duk labana **puska** hori? Koldo Izagirre

-Hiri **puska** handia, kolore anitzeko harriz bikain apaindua. Jon Muñoz

Bi ardo-orban **puska** galantak zikintzen zioten alkandora zuri dotorea. Jon Muñoz

## 6 zatia; kopurua.

Bozkariozko eguna, hura, erresumaren **puska** bat bere jabearen eskuetara itzulirik. Aingeru Epaltza

Bidaia **puska** luzeena egina nuen. Aingeru Epaltza

Bere ohe parte eta nirearen **puska** bat hartzen zituen. Koro Navarro

Nire galderaren **puska** larriena ihardespenean gabe zegoen beti. Aingeru Epaltza

Txitxikovek hamabi **puska** jan zituen halako jaki batetik. Jose Morales

Ustekabeen aditu zien gizon eta emakume haiei elkarrizketa **puska** bat bezpera gauean. Karlos Zabala

Coligny haren beharrez zegoen Languedoc-en, Erlijoaren armadaren **puska** larrienarekin. Askotan haragi-xerrarekin lotzen baditugu ere proteinak, ogian eta patatetan dago guk egunero hartzen ditugun proteinen **puska** handi bat. Aingeru Epaltza

Suerte pixka batekin, beharbada, dezenteko **puska** kenduko zenioke kartzelaldia. Rafa Egiguren

Gero eta konbentzituago nago asmakizuna baino **puska** bat urutiago doala beti errealitatea. Jokin Urain

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bide **puska** bat egin beharra zegoen gauaz, ilunpean, oinez, berandu baitzen. Fernando Rey

Eguzkiak bide **puska** ederra egina baitzuen zeruan. Felipe Juaristi

Frantzia, bertako norbaitekin erdibana jarritako negozioko eman ei zion diru **puska** bat. Joxemari Urteaga

Denbora **puska** bat iraganik, Etxeberri orri batzuk ekarri zizkigun, asteazken batean. Aingeru Epaltza

Denbora **puska** batean Potzolozen aho beteala bilakatu zen nire ikusmira. Aingeru Epaltza

Isilik egon zen denbora **puska** batean. Anjel Lertxundi

Denbora **puska** batez Becheveko neskek penaz begiratu zioten Ansheli, kaletik igarotzen zenean denak leihotik erreparaka. Koro Navarro

Handik denbora **puska** batera, haren jarraitzailea Nishapurera etorri, eta poetaren heriotzaren berri eman ziotelarik, hura lurperatu zuten lekuaz galdezka aritu zen. Jon Muñoz

Denbora-**puskak** dira gure bizitzak, etenik ez duen denboran. Anjel Lertxundi

Baten batek plateran janari-**puska** bakarra zuela ohartu bezain laster, beste bat gehitzen zion. Jose Morales

Paris, lur beltzaren gainera eroritako zero izartu **puska** bat iduri, latz agertzen zitzaion, gogor, haserre antzean, bertara itzultzen ari zelako. Karlos Zabala

-Hondar beltz **puska** bat bi malekoi artifizialen artean. Bernardo Atxaga

## 8 p/norbaiten edo zerbaiterako gauzak; bidaiariak eramaten dituen arropen eta tresnen bilduma; garraiatzen den bilgoa. ik hatu.

-Ene **puskak** miazkatu dituzu? ezin onetsia zait. Itxaro Borda

Maletaren ondotik, gainerako **puskak** igo zizkieten: kaobazko kutxa bat Kareliako urki-zurezko apaingarriz edertua, zapata-orioiak eta paper urdinean bilduriko oilo erre bat hurrenez hurren. Jose Morales

Hemen galtzak, urrunago atorra... eta hola emaiten dizkigute gure **puskak**. Marzel Etxehandi

Bildu zure **puska** guztiak eta zoaz Jainkoarekin. Jose Morales

Emeki-emeki meza emateko **puskak** bildu zituen. Marzel Etxehandi

Saltegi gehienetan [...] erosi **pusken** ezartzeko izaiten dira plastikazko zakuttoak. Herria

Presondegiko **puskak** eman zizkidaten, paketaia: estalkia, mihisea, platera, baxera batzuk, hortzak eta muturra garbitzeko puska batzuk, bizarra mozteko plastikozko tresnak, botatzen diren horietarik. Filipe Bidart

Bere **puskak** gela urdinera igoarazi ditut dagoeneko, andereño; Mr Worthing jaunaren ondoko gelara. Antton Olano

Pentsiotik ateratako **puskak** ohe inguruan nituen, nolnani barreiatuak. Aingeru Epaltza

Autobuseko gidariak emazte adinduaren **puskak** lurra pausatu zituen eta bidaia hori bururatzeko zitzaiola konturatu zen. Itxaro Borda

Edonora iritsirik, aski baitzuen longaina eta **puska** guztiak gela batera eramatea eta bere ohea zabaltzea usain berezi hura lekuaz jabe zedin. Jose Morales

Karroetan **puska** ezartze eta karroetarik **puska** kentze, mugan egiten da. Herria

"Novatrans" izenekoa; hauek **puskak** aldatzen dituzte kamiunetarik treinerera edo kamiunak osorik treinetan ematen, bide luzea egin behar dutelarik. Herria

San Bernateko zelaian metan utziak diren **puskek** min biziaren arriskua hedatzen dutela auzo gunean. Herria

8800 tona **puska** egunean iragan dira treinetan, aitzineko udan baino % 10 gutiago. Herria

## 9 denbora-puska.

Musika jadanik itzalia zen eta **puska** bat iragana zen azken bezeroak hondoa jo eta ihes egin zuenetik. Aingeru Epaltza

Horrenbestez, gaixotasunak **puska** bat irau zuen. Pello Lizarralde

Ez zidan jaramonik egin **puska** baten. Koldo Izagirre

**Puska** baten ondoren, adore hartu eta esan zuen marmarka: [...]. Koro Navarro

Buru barneko mamurik beltzenak oldarka, negar-megar isil batean egin nuen **puska** luzea. Aingeru Epaltza

**Puska** luxea egin nuen ordenagailuko tekla bakarra zanpatzeko gauza ez nintzela. Aingeru Epaltza

**Puska** on bat itxaron behar izan zuen esna zedin. Juan Garzia

Handik **puska** batera galdetu zuen ingelesak arriskurik ba ote zegoen. Xabier Aranburu

Ez bainago etzanda **puska** baterako bakarrik. Juan Garzia

## 10 aldea.

Libertino modernoon "integritasoa", **puska** haundiz estuagoa dela, alegia. Patziku Perurena

-Horretan behintzat Lizardik **puska** handia atera dizu. Juan Luis Zabala

## 11 mila puska egin

Ezpata **mila puska eginda** doa airean, eta traidorea, bihotza hautsita, lurrera erortzen da hilik. Karlos Zabala

Gauetik goizera ia, beren mundua **mila puska egin** zen, beirazko ispilu bat bezala. Felipe Juaristi

**Mila puska egin** ziren haien nortasuna, haien sinesmenak oro, inork ez baitziren erakutsi ez zirenak ez izaten. Felipe Juaristi

Eromenaren harria jotzen zuen haien gogoetak eta **mila puska egiten** egiten zen. Josu Zabaleta

-Vasilii Fedor bihotza bi **puska eginda** joan zen jauregitik. Karlos Zabala

Amak **lau puska egin** du neska koskorraren ipuina. Anjel Lertxundi

## 12 ogi puska ik ogi 18 eta ogi 19.

## 13 on puska ik on<sup>1</sup> 23.

## 14 puska bat (orobat puskat) apur bat, pixka bat.

Pixka bat nahiz **puska bat**, Jainkoak nahi izan dezala, zu ez ezik, gaur niri entzuten didaten guztiak ere, ni naizena izatea... Elizen arteko biblia

Bietako bat, beraz, edo bietarik **puskat** bederen. Iñaki Segurola

## 15 puska batean denbora-puska batean.

**Puska batean** ez zuen ezer esan Koronelak. Mirentxu Larrañaga

Ez du **puska batean** erantzun, zirriborroak egin ditu paperetan. Koldo Izagirre

Ez ninduen ikusi, eta **puska batean** begira geratu nintzaion. Koro Navarro

Kaserna bai, ikus genezakeen, **puska batean** bederen; San Telmo kaleko 13aren pareko etxartetik ezkerretara begiratuz. Txillardegí

Manilovek ahoa zabaldu eta pipa lurrera erortzen utzi zuen; eta aho zabalik geratu zen **puska** batean. Jose Morales

**Puska** luze batean Txitxikovek ezin izan zion igarri gizonezkoa ala emakumezkoa zen. Jose Morales

## 16 *puska batez* denbora-puska batez, denbora-puska batean.

**Puska batez** igan dut erreka handiena, Eserlekuan atzera eginda, arnasetuka eta geldi-geldi geratu nintzen denbora **puska batez**, begiak Berenizerengan finkaturik.

Juan Garzia

Ez zuten hitz egin **puska batez**. Fernando Morillo

## 17 *puska-biltzaile* (*corpusean puskabiltzaile soilik*) *izond/iz* puskak biltzen dituen.

Erruz erabili izan baita *zakuto* hitza, gure herrirka **puskabiltzaile** eta eskazale poliglota hauetan, eta ez da batere harritzeko, atzenerako gure hitza hartaraino bihurritu izana.

Patziku Perurena

## 18 *puska-puskaka* ik *puskaka* 2.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**arrain puska** (6); **azal puska** (7); **beira puska** (5); **berun puska** (4); **beste puska bat** (5); **bide puska** (8); **bizi puska** (4); **burdin puska** (10); **burdina puska** (9); **buztin puska** (4); **den puska** (4); **denbora puska** (83); **denbora puska bat** (27); **denbora puska batean** (24); **denbora puska batez** (8); **diru puska** (6); **diru puska bat** (5)

**egunkari puska** (4); **egur puska** (25); **egur puska baten** (4); **eguzki puska** (4); **emakume puska** (13); **gasna puska** (13); **gazitu puska** (5); **gazitu puska bat** (4); **gazta puska** (16); **gazta puska bat** (5); **gizon puska** (26); **gorputz puska** (6); **haitz puska** (4); **handik puska batera** (55); **haragi puska** (28); **haragi puska bat** (7); **harri puska** (12); **hezur puska** (5); **horma puska** (4)

**ikatz puska** (4); **izotz puska** (39); **izotz puska bat** (10); **jokalari puska** (4); **kartoi puska** (9); **kortxo puska** (4); **kortxo puska bat** (4); **kristal puska** (4); **larru puska** (4); **lur puska** (28); **lur puska bat** (7); **materia puska** (5); **metal puska** (6); **mila puska** (17); **mila puska egin** (6); **mila puska egiten** (4); **mutil puska** (9); **neska puska** (12); **nire puska** (4); **nire puska guztiak** (4)

**ogi puska** (80); **ogi puska bat** (41); **oihal puska** (20); **oihal puska bat** (5); **okela puska** (12); **on puska** (14); **paper puska** (42); **paper puska bat** (15); **paper puska batean** (4)

**puska bana** (8); **puska bat ahoan** (4); **puska bat egin** (6); **puska bat eman** (15); **puska bat eskatzen** (5); **puska bat hartu** (14); **puska bat ikusi** (4); **puska bat jan** (4); **puska bat kendu** (6); **puska batean** (234); **puska batean behintzat** (4); **puska batean egon** (12); **puska baten buruan** (8); **puska baten gainean** (9); **puska baten ondoren** (14); **puska baterako** (15); **puska batez** (31); **puska eder** (13); **puska eder bat** (10); **puska ederra** (13); **puska handi** (31); **puska handi bat** (20); **puska handia** (5); **puska handiak** (7); **puska luze** (14); **puska luze batean** (9); **puska on** (8); **puska on bat** (6); **puska txiki** (14); **puska txiki bat** (8); **puska txikitan** (5); **puska urdin** (5); **puska zahar** (4); **puskaz puska** (8)

**soka puska** (4); **teila puska** (4); **txokolate puska** (4); **zeru puska** (17); **zeru puska bat** (7); **zur puska** (12)

**egur puskak** (7); **ene puskak** (5); **gure puskak** (5); **haragi puskak** (6); **izotz puskak** (32); **kristal puskak** (4); **neska puskak** (4); **ogi puskak** (7); **paper puskak** (4); **puskak bildu** (8)

**puskarik handiena** (5)

**hamaika puskatan** (5); **mila puskatan** (23); **puskatan txikitu** (4)

## puskabiltzaile ik *puska* 17.

## puskaezin *izond* ezin puskatuzkoa.

Euzkadi desegin nahi duen tirania gaiztoaren aurrean, gero eta sendoago eta **puskaezinago** baita gure gogoa bere bizia salbatzeko, bere askatasuna berreskuratzeko eta etorkizuna ereiteko. Jokin Urain

## puskaila *iz* zati edo atal puskatua. ik *puskaki*.

Damasko oihalez bildu zaldunak eta burutik oinetaraino burdinazko arropaz jantzi mairuak ageri ziren noiznahi, gero, prosa izugarri baten erdian, piztia eta otsoendako lakioz beteak ziren kartoizko **puskailetan** irentsiak izateko. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**babiloniako puskailak** (8); **puskailak ematen zuten** (5)

**puskailen artean** (3)

## puskaka 1 *adlag* pusketan.

**Puskaka** jaten zuen, aitak oparitutako labanatoarekin. uste izan baitzuen **puskaka** hausten ari zela. Alberto Barandiaran

Badakit bidea **puskaka** egin beharko dudala.-Ez da eskua bakarrik -esan zien xuxurlan-, nahiz eta **puskaka** eroriko zaidala ematen duen. Piarres Aintziart

SAFAM galkategia **puskaka** salduko. Herria

## 2 puska batzuetan.

Pelikula metro batzuk **puskaka** belatuak. Aingeru Epaltza

## 3 *puska-puskaka*

Horrrela, puska-**puskaka** jaten dituzte. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**puskaka erortzen** (3)

## puskakatu, puskaka(tu), puskakatzen du *ad* pusketan ezarri. ik *zaticatu*.

Kutxmak, «estatu kolpe bat» bideratzea leporatu zien oposizioko indarrei, baita «Ukrainaren subiranotasuna eta osotasuna kaltetzea, herrialdea **puskakatzera** eramateraino» ere. Berria - Mundua

## puskaketa<sup>1</sup> *iz* puskatzea.

Berlingo Harresiaren **puskaketaz**. Jon Muñoz

## puskaketa<sup>2</sup> 1 iz ipar pusken garraioa.

Gure eskualdean, treinez **puskaketako** trafiku hori negozio handiena, karroetan puska ezartze eta karroetarik puska kentze, mugan egiten da, Hendaian eta Irunen (jaz 505 miliunen puska) parte bat ona Bokalen eta Baionan (152 miliunena) eta poxi bat Donibane Garazin (14 miliunena). **Herria**

Hautetsi, enpresaburu eta beste gomiatu ditu beraz Baionako geltokirat heieri erakusteko **puskaketako** sailak jauzi ederra egin duela azken urte hotan. **Herria**

Hemendik goiti alabainan, **puskaketako** negozioa idekia izanen da Europa batuaren eremuan sail horri plantatuak diren guzietari, orai arte tokian tokikoaren esku zelarik hori osoki, Frantzia konparazione SNCF delako horren kondu. **Herria**

Joanden egunean, arras kexu ziren, hala iduri behin, **puskaketako** zerbitzuak kamiunekin segurtatzen dituzten enpresaburuak. **Herria**

Pentsatzen dute hemendik zenbait urte barne, urtean lau ehun mila jendepasatzen ahalko dela hor gaindi eta bost miliun tona puska bestalde **puskaketako** treinetan. **Herria**

Bretainian Brest-eko auzitegiak ez ohizko kondenuak ezarri dizkie **puskaketako** untzi baten kapitaina eta patroiarari. **Herria**

Ekai plastiko zehargiek oraino errealismo handiagorekin erakusten dute 17 garren mendeko **puskaketako** ontzi bat luze luzea. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Denbora berean, zazi zu zergatik denen buru, treinez arduratzen den SNCF etxe handi horrek **puskaketa** zerbitzu batzu kentzen ditu edo azkarki arintzen. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**puskaketako untzia** (3); **puskaketako untzien** (3)

## puskaketari iz pusken garraioa egiten duen itsasontzia.

Berdeek galdatzen dute ontzi bat beti portuan, urtean hor sartzen eta ateratzen diren mila **puskaketariei** lot dakieken suaren itzaltzeko, ontziarekin batera su hiltzaile ekipa bat ere portuan beharrezkoa da Berdeen arabera. **Herria**

Joan den uztailaren 30-ean arrastatu zuten Bulgariar **puskaketari** bat, Bizkaiko golko erdi erdian, untzi barneko zikinak urera botatzen ari. **Herria**

## puskaki (orobat *puskakin*) iz zati edo atal puskatua. ik *puskaila*.

Horrela gure sasi kultura osatzen duen alimaleko metaketa epifenomenalari **puskaki** bat gehiago gaineratuko bainion, besterik ez. **Aurelia Arkotxa**

Hegazkinak erori ziren lekuetara, FSB Errusiako zerbitzu sekretuetako ikertzaileak ere joan ziren sorosleekin batera, eta airekoen **puskakinak** aztertzen hasi ziren lehergai zantzurik zegoen ikusteko. **Berria - Mundua**

Alboko eraikinetako eta inguruan zeuden autoen **puskakinak** alde guztietara sakabanatu zituen ufakoak, hauetatik batzuk leherketa lekutik 500 metrora aurkitu zituzten.

**Berria - Mundua**

Kaleak hondamen itxura zuen, denetan auto xehatuak, eraikin **puskakinak**, hildako kiskalituak eta gorpu zatiak sakabanatuta zeudela. **Berria - Mundua**

## puskakin ik *puskaki*.

## puskalehor iz

Biderako edo aldi baterako (egun osorako, edo luzenaz ere, aste beterako) etxetik norabait joatekoan hartzen den jatekoa (normalean **puskalehorra**) da "zekotea" goizuetarrontzat, eta Leitzan eta bestetan "anoa" esaten zaionak baino askoz semantika estuagoa du. **Patziku Perurena**

Eltzekoa izan da guretat, **puskalehor** delakoaren kontrakoa. **Patziku Perurena**

Utondoko patxadan gozaro egositako eltzetik urrun, han eta hemen pikoka **puskalehorra** janez presak idortua bizi den modernajea datorkit gogora **Patziku Perurena**

## puskaño iz puskatxoa.

Horieta pentsamolde baten **puskaño** bat islatzen da, izozmendia baillitza aditzera ematen duena hor badagoela askoz ere sakonagoa den zerbait. **Berria - Kultura**

Bainan ogia hain omen zuten goxoa, berek egina, nun gorde baitzuen **puskaño** bat sakelan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## puskat ik *puska 14*.

## puskategi iz ipar puska biltegia.

Geroztik, Jaldai azkarki kanbiatu da, dena lantegi, saltegi eta **puskategi**. **Herria**

Etxe hori, bulta huntan hutsa, luzaz altzari edo muble **puskategi** bezala baliatua izana. **Herria**

Hektara erdi baten heineko eremua, hutsik dagon **puskategi** batek hartzen zuena. **Herria**

Errobi hegiko bastiza gehienak bezala, etxe hori **puskategia** zen errekar garraiatzen ziren gauzentzat. **Herria**

## puskatto iz puskatxoa.

Hontzari artamendu baten egiteko, itsumandoka bi egur **puskatto** bilatu eta atzeman nituen. **Itxaro Borda**

## puskatu, puska(tu), puskatzen (orobat *puskatu g.er.*) 1 da/du *ad* hautsi; zatitu, puskak egin. ik *apurtu*.

Brontzeko ateak **puskatu** zituen, burdinazko morroiloak apurtu. **Eiizen arteko biblia**

Horma alderik alde zulatu ondoren, irteten saiatu zen eta, kateak **puskatu**rik, bata bestearen ondoren libre atera ziren denak. **Askoren artean**

Montolmoko gizon bat nabarra goldeari itsasten ari zela, guztiz **puskatu** eta zatikatu zitzaion. **Askoren artean**

Mailuz leihoak **puskatu** eta mailu haiekin burua txiki-txiki egin zioten, hilketari itxura ankerragoa emateko. **Gotzon Garate**

Teilak arrailtzen, **puskatzen** eta errausten ari dira. **Michel Oronoz**

Orriak **puskatzen** saiatu zara, baina kolpe bat eman dizute urdailean. **Rafa Eiguren**

Erditik **puskatu** zuen argazkia eta mahaiko hautsontzian utzi zuen argazkiaren zati bat. **Harkaitz Cano**

Galtzak, kamiseta eta jertsea **puskatuak** nituen. **Berria - Euskal Herria**

Kuleroak **puskatu** zizkidan libre zeukan eskuarekin. **Jasone Osoro**

Liburu zahar bat da, azala **puskatu** samarra duena. Jokin Urain

Ontzi guztiak **puskatzea**, sutondo guztiak amatatzea. Joxe Austin Arrieta

Eskailera **puskatzen** bazen? Bernardo Atxaga

Arropa dendetako erakusleihoak birrindu eta janziak ostu zituzten, manikiak **puskatu** eta haien zatiak (buruak, besoak, hankak, ileordekoak) han eta hemen barreiatu ondoren. Harkaitz Cano

Ezagutzeko premia duen gizona, krisalida **puskatu** eta hiltzera doan tximeleta bezala da. Josu Zabaleta

**Puskatu** zuten gurdia egurra egiteko, eta behiak egurraren gainean jarri zituzten, Jaunari erre-oparia eskaintzeko. Elizen arteko biblia

Harantzago, zurezko bagoiak zeuden, denak hautsirik, denak txikiturik, denak **puskaturik**, batzuk burdinbidetik erauziak eta etzanda. Felipe Juaristi

Berari ez zitzaion hezurra **puskatu**. Jon Muñoz

Behin saiheutsak **puskatu** eta eritegira eraman zuten. Gotzon Garate

Baina goiz batean aurkitu zuten bere etxe-atarian buru guztia **puskaturik**, ez nork eta hark, hila. Anjel Lertxundi

Zoko batean txakurtxoa zaunka hasi zen, eztarria **puskatu** beharrez. Lopez de Arana

Osaba Martin ikusi zuen, egur **puskatzen** ari. Elena Touyarou

## 2 irud/hed

Gauero, bere ganbaran, burua **puskatu** beharrean ahalegintzen zen guztiz serio asmo haren alde, oharrak hartuz, plan idatziak eginez. Karlos Zabala

Eskuak **puskatzerainoko** txalo-zartaka hasi ziren gizon-emakumeak. Felipe Juaristi

Bihotza **puskatua** daukaten maitale abandonatuak. Bernardo Atxaga

Bi-bien gaizkile-bihotz harrizkoak ez ziren erditik **puskatu** haur jaioberria Aldekaitz baserriko labean utzi zutenean. Anjel Lertxundi

Arestian sentitutako poza **puskatu** egin zitzaidan barruan. Bernardo Atxaga

Haren ahotsa negar zotinetan **puskatzen** zen ia. Karlos Zabala

Gauaren erdian amets gaiztotan **puskatzen** esnatu izan banintz bezala sentitu nintzen. Patxi Zubizarreta

Gisa horretan, hain luzaz eta pazientzia handirekin landu partaidetza-hitzarmena **puskatzen** du. Herria

Natura eta gizakia lotzen zituen batasun klasiko biribila **puskatu** da. Joxe Azurmendi

Lotura juridikoa **puskatzen** den momentutik, haurra jada ez da zurea. Berria - Euskal Herria

Ezinezkoa da, baina, lilura **puskatzea**. Monika Etxebarria

Hona gure elbarrituak, ezinduak; gure zurtzak, bakartuak, bihotz-urratuak, bizi **puskatuak**, oroimenaren zulo beltzean iitzatuak. Iñaki Segurola

## 3 (era burututa izenondo gisa)

Kristal **puskatuen** hotsa. Lopez de Arana

Ettxera sartzeko erabili nuen leiho **puskatu** jo nuen. Alberto Ladron Arana

Bere ezitulak beldurgarriak ziren, bulartxo astindu eta akordeoi **puskatu** baten hotsa ateratzen zutenak. Bernardo Atxaga

Pitxer **puskatua** ezbeharraren ezaugarri. Elizen arteko biblia

Hiri-bazterreko auto **puskatuen** biltegieta lardaskan. Jon Muñoz

Beharbada familia **puskatu** batean sortua. Gotzon Garate

Allande Oihenart historialari zuberotarrak eman zuela gure zazpi herrialde **puskatuen** gaineko begirada bateratzaile sakona. Piarres Xarriton

Herri **puskatua** beti garaitua! Piarres Xarriton

## 4 *puska-puska egin* erabat puskatu.

-Kartarik ez zuen irakurri -esan zuen Santxok-, idatz-irakurtzen ez omen zekien-eta; eta, **puska-puska** egin zuen. Patxi Ezkiaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**dena puskatu** (6); **erditik puskatu** (4); **gutziz puskatu** (3)

**puskatu bat** (5); **puskatu baten** (5); **puskatu behar** (10); **puskatu zen** (8); **puskatu zioten** (3); **puskatu ziren** (4); **puskatu zituen** (10); **puskatu zitzaion** (3); **puskatu zuen** (8); **puskatu zuten** (6)

**eskuz puskatzean** (4)

**amets gaiztotan puskatzen** (3); **puskatzen dituzte** (3); **puskatzen dute** (4); **puskatzen zen** (3)

## puskatxo 1 *iz* puska txikia.

Cotter jaunak ere hartuko du beharbada arkume-izter horretatik **puskatxo** bat -erantsi zion izebari. Irene Aldasoro

Sentsazioa engainagarria zelakoan, **puskatxo** bat ahoratu zuen haserre, Ez dakizu zenbat miresten zaitudan, eta egunen batean zure eta aitaren ontasunetik **puskatxo** bat izatea besterik ez nuke nahi. Karlos Linazasoro

Harreman horretan ikusle bakoitzak bere gisara hartuko du parte, eta argazkitik zenbait elementu hartuko ditu, beretzat errealitatetik askatutako **puskatxoak** balira bezala izango direnak. Josu Zabaleta

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ogi-**puskatxo** bat eta sardinzar bat. Jose Morales

Hitz bat esatearekin batera arrain-**puskatxo** bat edo ziapetan oparo bustiriko behiki-zatitxo bat ahoratuz. Jose Morales

Itxaron ezak, paper **puskatxo** batean idatzi diat. Jon Muñoz

Lakre-**puskatxo** bat; zapi-puska bat, batek daki nondik iritsia hara. Jose Morales

Emadak orain zeru **puskatxo** bat! Josu Zabaleta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**paper puskatxo** (3)

## puskatzaile 1 *izond/iz* puskatzen duena.

Absolutuen **puskatzailea** ez ote da gehiago izan? Joxe Azurmendi

Adibidez, aurreko urtean *Projects Rooms* izenekoak edo *Black box* ekimenak ez ziren **puskatzaileak**, baina azokan artea beste modu batera ikusteko aukera ematen ziguten, ehunka galeriatako artelanak ikusi ondoren. Berria - Kultura

## 2 (hitz elkartuetan)

Gure bistatik desagertu baino lehen, atzealdeko leihora zutiturik Marilin zakurtxo toaila-**puskatzailea** ikusi ahal izan genuen. Joxemari Iturralde

Atzeko neska polit-polittaren senargaia, Siziliako *Cosa Nostrako* hezur **puskatzailea** eszedentzian. Joxean Sagartzabal

## puskatze *iz* haustea; zatitzea, puska egitea.

Bainan epe hortan berean departamendu batzu puskatu dira, **puskatze** horiek zailtasun handirik ekarri gabe! Herria

Hiltze eta **puskatze** lan horietarik landa, Manex lantegiko hiru enplegatuek libratzen dute xerrikia erosleeri, bi kamiun-hozgailutan. **Herria**

## puskeria *iz ipar* pusken multzoa.

**Puskeria** txar batzu bezala tratatuak direlako sendimendua dute. **Puskeria** txar batzu bezala tratatuak direlako sendimendua dute. **Herria**  
Bertzalde 10 saltegi izanzen dira Brokanta **puskeria** saltzaileak. **Herria**

## pusketa 1 *iz puska, zatia.*

Bizkarra zulatzen zioten txirlen **pusketa** zorrotzek eragindako oinazea. **Aritz Gorrotxategi**  
Txartelari **pusketa** bat tarrantatu, **pusketari** su eman eta harekin piztu zuen O'Connor jaunak zigarra. **Irene Aldasoro**  
Botila hutsak biltzen ditu, edontzi zikinak, edontzi hautsien **pusketak**. **Eskarne Mujika**  
Pont-Audemeren obus baten **pusketek** aurpegian eman zioten. **Joseba Urteaga**  
Etorkizunean elikagaiak **pusketa** txikitan iritsiko zaizkigu platerera. **Edorta Agirre**  
Bartzelonatik Parisera doan bideari **pusketa** handi samarra jan zion atzo Bartzelonak Milanen. **Berria - Kirola**  
Segundo baten **pusketa** txiki bat. **Eider Rodriguez**  
Urtean behin zinta bat jasotzen nuen, amaren bizitzaren **pusketak** zetozen bertan grabatuak. **Jasone Osoro**  
Belarria luzatuz gero haien solasaldiaren **pusketak** atzeman ditzaket. **Monika Etxebarria**  
Ontzia zartatu eta mila **pusketetan** hausten baita. **Santiago Iruretagoiena**  
Min pixka bat eman dit, ez uste, lan hau egiteak, hots, Homeroren lan puska bati **pusketak** kendu beharrak. **Juan Kruz Igerabide**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laugarrena, txikia, hutsik zegoen, eta egunkari **pusketa** zaharrak zeuzkan zintzilik alanbre batekin josita. **Bernardo Atxaga**  
Kristal **pusketa** batek zauri sakona egin zion. **Joxemari Iturralde**  
Vronskik ilargitik ekarritako harri- **pusketa** da. **Iban Zaldúa**  
Adar **pusketa** batekin harrotu nuen lurra Ronnieren hilobitxo atzean. **Bernardo Atxaga**  
Zakur bati boxeoko eskularru **pusketa** bat eskaintzen ari zitzaion. **Harkaitz Cano**  
Esnetan bustitako madalena **pusketa** eztarrian trabatu zitzaidan hantxe bertan. **Jasone Osoro**  
Eseri hadi, tarta **pusketa** bat jatera gonbidatzen haut. **Joxemari Iturralde**  
· Ilunabarrean aski zuten haiek ardi zahar **pusketa** urri batzuekin, oso gerlari onak ziren, loa ere labur egiten zuten. **Koldo Izagirre**  
Dragak badakar basatzaren artean metal herdoilezin **pusketa** bat bristadaka. **Koldo Izagirre**

## 3 irud/hed

Ez dadila zure eskuetan anatema horren **pusketa** txikien ere geratu. **Juan Martin Elexpuru**  
Baina iragarkiek errealitatearen **pusketak** erakusten dizkigute. **Jasone Osoro**  
Berak zer bait ostu zigun, koadroetan ezkututzen den sentipen espiritual bat, gure arimaren **pusketa** galdu bat. **Aritz Gorrotxategi**  
Alde Zaharreko karrika, ataurre edo kaperatxo bakoitzean historia **pusketa** bat edo pasarte bitxi bat ezkututzen da. **Berria - Euskal Herria**  
Hori lortzen duenak, txapelari **pusketa** ederra kenduko dio. **Berria - Kirola**

## 4 *ogi pusketa* ik **ogi 19a**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egur pusketa** (7); **egur pusketa kiskalia** (3); **gazta pusketa bat** (3); **haragi pusketa** (3); **kalabaza pusketa** (4); **lur pusketa** (3); **ogi pusketa** (12); **paper pusketa** (8); **paper pusketa bat** (3); **pusketa handi** (4); **pusketa txiki** (3); **tarta pusketa bat** (3)

**egur pusketak** (4); **gazta pusketak** (3); **ogi pusketak** (3)

**mila pusketatan** (3)

## pusketatxo *iz pusketa txikia.*

Harri honen **pusketatxo** bat aski da edozein metal urre bihurtzeko. **Xabier Aranburu**  
Irabazten baduzu, beraz, txapelaren **pusketatxo** bat harena ere bada. **Berria - Kirola**  
Azkenaldi hartan limoi **pusketatxo**en antzera nahiko zukutua senti zezakeen bere burua, zurrupatua. **Joxemari Iturralde**

## puskila (*orobat puzkila*) 1 *iz pl ipar* puskak.

Bizkitartean, Txokok txabolan zeuzkan **puskila** apurkak bizkar zakuan sakatu zituen. Hilabete batzuk geroago, airekotik jaitsi zen New Yorken, txapela kaskoan eta **puskilaz** bete zaku txikia ahurrean. Ilunean oraino, auzoa zetorren bere katrela handia **puskilaz** hanpaturik. **Itxaro Borda**

## 2 puska.

Ura itxi zuelarikan dohainik ematen diguten xabona merkearen bitsa lepoan behera etorri zitzaion **puzkiletan**. **Koldo Izagirre**

## pusla *iz larruazalean egiten den handitu urtsua. ik baba.*

Arrosa kentzen maitasun hobengabearen bekoki garbitik, eta **pusla** bat uzten hantxe; ezkon-zinak bilakarazten dadolarien juramentuak bezain faltsu. **Juan Garzia**  
Larruazala ukitzen du: minberatua du eta **pusletatik** ura dario. **Oskar Arana**  
Hegan erretzea onartzen duena bere **puslengatik** juzgatu behar ote da? **Josu Zabaleta**  
Azalaren azpian jaio zaigun **pusla** itsusia, nork bere lurraldean altxatu duen hesi beldurgarria, arantzaduna. **Berria - Kultura**

## puspulu (*orobat puxpulu*) *iz burbuila.*

Lurretik garagardo botila hartuz, zurrut luzea egin zion, eztarritik behera zihoazkion **puspulu**ek indarra eta freskotasuna galduak zituztela konturatu zen arte. **Joxemari Urteaga**  
Hasierako harridura hartatik irten nahian, edo zeozer ulertzeko asmoz, lupulu- **puxpulu**zko malkoak aterarazi zizkion zurrutada luzeegi batez botila hustu eta irakurtzeari ekin zion. **Joxemari Urteaga**

## pustuka iz

Ebakuntza hortan, ile **pustuka** horiek ditu kenarazi, entzumena ber-eskuratzeko. **Herria**

Beharri ziloetan, begien aitzinean eta bihotz barnean ditugun **pustuka** trabagarriak mozturik **Herria**

## pustula iz larruazalean egiten den handitu zorneduna. ik oilaur.

Ez zen ageri han ez ospelik, ez erredura edo garatxorik, ez negal, baba, kalentura, **pustula**, zimur, kailu, orbain edo granorik. **Bernardo Atxaga**

**Pustulaz** betetako gorputza. **Bernardo Atxaga**

Oso berritan hartzen bada, behar adina beratu gabe, barruan erre gabeko pikor gordinak dituela erabiltzen bada, **pustulak** harrotzen ditu. **Santiago Iruretagoiena**

## puta 1 iz diru truke sexu harremanetara ematen den emakumea. ik prostituta.

Atea zabaldu eta antzerkiko gertaleku bat zirudien: **putak**, txuloak, bezeroak, madama. **Koro Navarro**

**Puta** bati trabeska begiratu eta pausoa arindu du. **Eider Rodriguez**

Biok **puta** batekin ibili, eta **putak** bere gaitzaz kutsatu gintuela... **Joan Mari Irigoien**

**Putak** eta eskaleak erresumatik haizatzeko eta dado-jokoa galarazteko manuak gazteluko gizonen kolera ere piztu zuen. **Aingeru Epaltza**

**Puta** bat nahi zenuen ala? **Sonia Gonzalez**

Beti **puta**, sekula ere ez maitale, maitasunari ihes eginez, plazera adoratzu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nire ama lapurra zen, eskekoa, herriko **puta**. **Eskarne Mujika**

**Puta** bat bezala tratatzen ninduzun eta ezin nuen eraman. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Berehala ohartu zen neska bular-lerdenak **puta** baten moduan, barkatu, gorte-dama baten gisa baliatu zuela gorputza, senargaia gerran zebilen artean. **Anjel Lertxundi**

Zer bilakatzen da bezeroak inguratzeko grazia galdu duen **puta**? **Iñaki Segurola**

Hain da gozoa sexuz aldatzea, hain da zoragarria **putarena** egitea, emakume bat bezala tratatzen zaituen gizonezko bati zeure burua eskaintzea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Oso mediku errespetagarria, haurdun gelditzen diren **putei** abortoa egin ondoren bizitza osorako xantaitzen dituen. **Josu Landa**

Dena den, saltsa hartan putakumerik handiena **puten** mundutik at zegoen, zalantzarik gabe. **Migel Angel Mintegi**

### 2 (izenondoekin edo irain gisa)

- **Puta** halakoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

- **Puta** madarikatua! -dio gizonak marruka-. **Juan Martin Elexpuru**

**Puta** galanta, gainera! **Jon Arretxe**

"Maite zaitut, maite zaitut, **puta** zikina" esaten zuen behin eta berriz. **Koro Navarro**

**Puta** zaharrak, ni bezalakoak, eta deus balio ez zutenak. **Karlos Zabala**

Gizonik zailduena ere mareatzen duen **puta** anker horrek senarra kendu diolako. **Koldo Izagirre**

Zenbat gezur eta hitz-erdi, eta dena **puta** nazkagarri honekin joateko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Mundua salbatzera datorren Jainko hori **puta** judutar baten sabelean agertzen da, txerri-korta batean! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Bidea moztuko zieagu **puta** gizon-gose horiei. **Koro Navarro**

Mutilak abuztuan **puta** mari-gaxte horrekin plana duela erran dio igotzean. **Aingeru Epaltza**

Mugi, **puta** hori, mugi! **Juan Martin Elexpuru**

### 3 irud/hed

**Puta** zaharra, memoria, Damian. **Hasier Etxeberria**

Denbora pasa arren, Bilbo oraindino MCDk esaten zuen **puta** hura da. **Sonia Gonzalez**

### 4 (hitz elkartuetan)

Irribarre egin du Xabik, Jexuxek **puta** -parre deituko liokeen horietakoa, eta kanpora irten gara. **Xabier Etxabe**

Artistak eta bankariak, gaizkileak eta negozio-jendea, **puta** -zorriak eta espiak. **Anjel Lertxundi**

### 5 (izenondo gisa personei buruz, irain gisa)

Ama **putaren** kimu ustelak! **Aingeru Epaltza**

Baina Joxe Mari **puta** horrek bere horretan jarraitzen zuen, burumakur eta lurrari begira. **Fernando Morillo**

Ume **puta** batzuk ditun oraindik, Alazne -esan zion Arantxak-. **Fernando Morillo**

-Kakazaharra, traidore **puta** horiek, kakazaharra. **Edorta Jimenez**

Jonki **puta** guztiak igualak dituk. **Patxi Iturritegi**

Nagusi guztiak berdinak direla, zerri **putak**. **Eider Rodriguez**

Sar diezazula zure amamak makuluaren punta tripetaraino, marikoi **puta** hori! **Jon Arretxe**

Horra zertaratu den nire gaztetako Potzolo: polizia **puta** bat, Tomas, poliziaburu **puta** bat! **Aingeru Epaltza**

Tonto-harro garaileak, tontoak ematen ez duten tonto **puta** horiek. **Iñaki Segurola**

Langile **puta** andana horiek. **Itxaro Borda**

### 6 (izenondo gisa gauzei buruz; orobatputo)

Patu **putak** [...] hala nahita, iritsi da esalditxo hori, lagunarte horretako lagun bat lagun, Gotzon Garate idazle eta atsotitz biltzaile bikainaren belarrira. **Joxerra Garzia**

Jolas parke **puta** bat? **Harkaitz Cano**

Bueltako ferryan pare bat botila mangatzen saiatu gintuan, baina *duty free* **puto** hartan ez zegoan zer eginik. **Iban Zaldua**

Leku **puta** horretan sekulako beroa egiten dik beti, eta horrek txarrean ematen naik. **Aingeru Epaltza**

Jubilatu bezain pronto etorriko nauk egunero itsaso **puta** honi tu egitera. **Hasier Etxeberria**

-Ez da ba droga **putarengatik** izango, ezta? -bota nion, zorrotz. **Juan Kruz Igerabide**

Gerra **puta** honegatik ez balitz, Espainia zoragarria lukek. **Lutxo Egia**

Kaka **puta** bat. **Paddy Rekalde**

-Kasu **putarik** ez mutur-beltz honi. **Aingeru Epaltza**

-Hau lotsa **puta**, Sinsky -dio Ernestek, berari ere froga bera egiteko besoa luzatzen duen artean. **Edorta Jimenez**

Ikasleek jakingo balute nik gai honetaz ideia **putarik** ez daukadala [...]. **Jon Arretxe**

Gauzak halaxe dira eta ez dit grazia **putarik** egiten. **Iñaki Segurola**

### 7 (indartzaile gisa)

-Azkar **puta** barreiatu duk haragi ustelaren kiratsa. **Aingeru Epaltza**

### 8 puta-etxe ik putetxe.

### 9 puta ideia (orobat putaidea, puta idea eta putaidea)



Gainera, ingelesez **puta ideiarik** ez. [Sonia Gonzalez](#)  
Maletak trenbide ertzerata jaurlitzen ari den bitartean zoriotsu dun, eta ez zeukan **puta ideiarik** ere zoriontasun horren zergatiatz. [Harkaitz Cano](#)  
-Ez daukak **puta ideiarik**, tio. [Pako Aristi](#)  
**Putaidearik** ez! [Unai Iturriaga](#)

10 *puta-kume* ik **putakume**.

11 *puta madre* ik **putamadre**.

12 *puta-txulo* putazaina.

Neba jonki, **puta-txulo**, trafikante eta delinkuenta. [Sonia Gonzalez](#)

13 *puta ziringa* (orobat **putaziringa**)

Julioreraino zer ostia zebilen hartu nahi nion kargu, **puta** ziringa batek bezala jokatzeko zuela aurpegiratu. [Juan Kruz Igerabide](#)

Parkeko paseok urrituz eta laburtuz joan ziren, Santiren sexu egarria aseta baitzegoen **putaziringa** hari esker. [Jon Arretxe](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ama puta** (3); **gera puta honegatik** (3); **herri puta** (3); **hiri puta honetan** (4); **kaka puta** (3); **ostia puta** (4); **puta bat da** (4); **puta baten** (7); **puta etxe** (3); **puta galanta** (3); **puta halakoa** (7); **puta ideiarik** (3); **puta semea** (3); **puta zahar** (7); **puta zaharra** (7); **puta zikina** (3); **ume puta batzuk** (3)

**ama putaren** (4)

**ez daukak putaidearik** (3)

**hiri puto hau** (3)

**putada** (**13** agerraldi, **7** liburu eta artikulua **1**ean) iz *adkor* putakeria.

-A ze **putada**, ezta? [Fernando Morillo](#)

-Nolako **putada**, ezta? [Jon Arretxe](#)

**Putada** bat izan duk lantegia itxia eta langabezia geratzea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Putada** galanta. [Berria - Kultura](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ze putada** (3)

putaetxe ik **putetxe**.

putaidea ik **puta 9**.

putaideia ik **puta 9**.

**putakeria** (**43** agerraldi, **9** liburutan) iz *adkor* alukeria, zapokeria, jokaldi makurra. ik **putada**.

Hori bai **putakeria**! [Antton Olano](#)

A zer **putakeria** egin zion, gero! [Antton Olano](#)

Beti egiten zidan **putakeria** bera kabroi horrek, baina oraingo hau ez zionat barkatuko, oraingo hau ez. [Sonia Gonzalez](#)

Zerrikeria galanta egin diotela, **putakeria** handia eta ongi antolatua, horixe besterik ez. [Migel Angel Mintegi](#)

Bazekinat, Danik esan didalako, zer-nolako **putakeriak** asmatzen ibiltzen zaren! [Antton Olano](#)

Horrek guztiak lagunduta antolatu zuen **putakeria**, bikain antolatu ere. [Migel Angel Mintegi](#)

Mikelena **putakeria** itzela izan da. [Sonia Gonzalez](#)

Bizitza **putakeria** dela. [Lander Garro](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**putakeria egin** (4)

**putakeriak egiten** (3)

**putakume** (**296** agerraldi, **69** liburu eta **18** artikulutan; orobat *puta-kume* g.er.) **1** izond irain hitz larria. ik **putaseme**; **sasikume**.

Kamarero **putakume** hauek gero eta gogaikarriagoak dira, pentsatu zuen. [Harkaitz Cano](#)

-Bai zintzoa agure **putakume** hori! -esan zuen Monak. [Fernando Rey](#)

Guardia zibileko sarjentu bat hil behar genian, Panizo izeneko bat; torturatzailerak **putakume** bat, ziotenez. [Juan Kruz Igerabide](#)

-Kabroi **putakumea**! [Aingeru Epaltza](#)

**Putakume** bat zen: egunero-egunero jotzen ninduen. [Karlos Linazasoro](#)

**Putakume** bat duk, gu denak saltzeko gauza, horretan irabazpide izanen badu. [Aingeru Epaltza](#)

Denok zakiagu nola jokatu duen beti, **putakumeetan putakumeena**. [Aingeru Epaltza](#)

Eguzki **putakume** hau!, dio bere kabutan. [Paddy Rekalde](#)

Jarri beste bat, **putakumea**! [Koro Navarro](#)

-Tira, esnatu, **putakume** hori, esnatu! [Alberto Ladrón Arana](#)

2 (izen gisa)

Nik hamabi-hamahiru urte izango nituen eta **putakumeak** zakila gogorra zuela hartu ninduen magalean. [Karlos Zabala](#)

**Putakume** horrek bortxatu egin nau, esan nuen. [Oskar Arana](#)

Aintzanez, jakina, lasai hartzeko esan zidan, gera nintekeela gurean zerbait egokia aurkitu arte, **putakumeari** ez zitzaiola axola. [Iban Zaldúa](#)

Mutila astokilo-itxurako **putakume** bat zen. [Lopez de Arana](#)

-Sadiko edo maniako batek ez zekinat, **putakume** batek seguru. [Migel Angel Mintegi](#)

-Zer zara, inmigrazioko **putakume** horietako bat? [Unai Iturriaga](#)

**Putakume** bat izorratu nahirik etorri z gero, gorria zaukac nirekin. Aingeru Epaltza

-Connor **putakume** galanta duk... eta benetan esaten diat, Albany-ra joan aurretik on hutsa zuan. Lopez de Arana

-**Putakume** alua! Paddy Rekalde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**putakume alaenak** (3); **putakume galanta** (7); **putakume halakoa** (4)

## putakumeka *adlag* ‘putakume’ esaten.

Haren piuratik begirada dut oroitzen tinkoena: hotza zen, metalezkoa, so egin hutsez **putakumeka** ari zaizkizun horietakoa. Aingeru Epaltza

Segitzen du mitikoak makuluairekin lardieriatzen, eta gurutzatzen zaizkion guztiekin "urdeka" eta "**putakumeka**"? Aingeru Epaltza

## putakumekeria *iz* putakumeari dagokion egitea.

Inazio langileburu putakumeari egin zizkioten **putakumekeriak**, bigarren metalurgia-tailerra zabaldu zutenekoak, sindikatuko lehenengo zelula antolatu zutenekoak, 1977ko greba basatia. Iban Zaldúa

## putakumetxo *iz* *adkor* putakumea.

Bira egin, **putakumetxoak**, bira egin, madarikatuak. Lopez de Arana

## putalaba *iz* irain hitz larria, emakumezkoei dagokiena. ik **putakume**.

-**Putalaba** madarikatua! -bota zuen Agustinak birao-. Aitor Arana

## putamadre (*orobat puta madre*) 1 *adlag* *adkor* bikain.

-Etxabe, **puta madre** zegok liburua. Xabier Etxabe

Martin, liburua **puta madre** zegok eta, gainera, ni erdi-protagonista nauk! Xabier Etxabe

### 2 *putamadrean* *adlag* bikain.

**Putamadrean**, notejode! Sonia Gonzalez

### 3 *putamadreko* *izlag*

A zer broma **putamadreko**, etorri zitzaidan pentsamendura, huraxe, broma bat besterik ezin izan zitekeela osoro sinetsita. Karlos Linazasoro

Ezkaratzean jesarrita, eskuez hartuko dio burua eta kafe hutsaren lurrin artean "baaaaietz, neska, Eñaut **putamadrekoa** dala. Sonia Gonzalez

## putaner *iz* putazalea.

Orduan gogoratu zitzaidan ezen, nola ibili bainintzen bortz-sei urtez haragiz haragi, **putaner** gaixto bat bezala, hala, [...]. Joan Mari Irigoien

Presondegi izugarrienetatik ihes egindako zorritsuak, **putaner** ardankoiak eta horien arteko bulegari itxurako ale bakanak. Jon Alonso

## putapertxent *izond* *adkor* puta.

Ezen sasoioko egotera, dios!, jango baikenizkien neskato **putapertxent** paregabe haiei begiak eta ezpainak eta gaztaina beroak ere -hala esan baledi-. Karlos Linazasoro

## putar<sup>1</sup> *iz* *ipar* ostikoa.

Behorren **putarra**: denetan hasiak dira biltzarrak esplikatzeko zer den Europaren lege nagusia, batzu alde, bertzeak kontra. Herria

Eta azkenik oraino 1975ean, Francoren azken **putarrak** jasan behar izan zituzten, Bizkaiko gobernadore frankistak nahi izan zuelarik azoka debekatu. Herria

Entzuna dut, lehengo xahar batzuegandik, bolbora sobera ezarri ondoan, tiroa ahalik eta azkarrena atera zedin, armaren **putarrarekin** gizona bazihola zangoz gora.

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azken **putarrak** eman zituen 1873an. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## putar<sup>2</sup> *iz* alua, zerria.

Isur zaitezte nahi duzuenean... nik behintzat ezin dut gehiago! Erredios! Kabuendios! Jainko **putarra**! korrituko naiz!... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

A! jainko **putarra**, hiltzera noa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## putarka *adlag* ostikoka.

Elur ezin atxikia da, dena zain, alderdi guzietara **putarka**. Michel Oronoz

## putaseme (*84 agerraldi*, *27 liburu eta 7 artikulutan*, *orobat puta-seme g.er.*) 1 *izond* irain hitz larria, gizonezkoei dagokiena. ik **putakume**.

-Adi ezak ongi, zerri zaharra, begibakar **putasemea**, Ruth berriz jipoitzen baduk, hil egingo haut, bihotza aterako diat, aditu didak ongi! Pablo Sastre

Funtzionario **putaseme** pilo bat euskera ikasten dabizena egiten geure poltsikoetatik ordaindutako diruaz. Unai Iturriaga

Onargaitza zitzaion bulegokume **putaseme** hark horrelakoak aurpegiratzea. Fernando Morillo

-Sator **putaseme** bat dagoela gure artean, kabroi madarikatu bat. Unai Iturriaga

Egun hartan kabroi **putasemeak** zerbait gehiago nahi izan zuen. Aitor Arana

**Putaseme** bat naiz, eta nire ama asko maite dut. Berria - Kultura

«Hiltzailea» eta «**putasemea**» oihukatu zioten behin eta berriz. Rafa Egiguren

## 2 (izenondo gisa gauzei buruz)

Aurrean dudan ordenagailu **putaseme** hau. [Berria - Kirola](#)

Nork arraio utzi du hemen anplifikadore **putaseme** hau? [Unai Iturriaga](#)

## 3 (izen gisa)

**-Putasemerren** batek salatu egin nau. [Jon Maia](#)

**Putasemeak** ziztu bizian etorri ziren, airera tiroka eginez eta altoa emanez. [Jon Maia](#)

**Putaseme** galanta, ezagutuko duk, beti zelatan ari duk. [Jon Maia](#)

**-Putaseme** halakoa -esan dizu haserre-. [Rafa Egiguren](#)

Betiko izorra hadi, **putaseme** kabroi hori. [Hasier Etxeberria](#)

Badu **putaseme** itxura, bai horixe! [Xabier Montoia](#)

## putasemeka *adlag* 'putaseme' esaten.

Orain kalean ikusten zituen haiei gehienei, barrez, ezer gertatuko ez balitz bezala bizi ziren haiei, koldar eta faxista pilo hari, irribarre eginez, **putasemeka** ari zitzairen bere golkorako. [Jon Maia](#)

## putatibo *izond* ustekoa.

Basta eta Bastart buraso **putatiboak**. [Jose Angel Irigaray](#)

## putatsu *izond* putez betea.

Hola Pariseko karrika **putatsuena** ikusia ukanen duzu zuk ere. [Janbattitt Dirassar](#)

## putatu, puta(tu), putatzen da/du *ad* puta bihurtu.

Ama euskara **putatu**, prostitutatu, irabazian jarri eta haren proxeneta bihurtu. [Iñaki Segurola](#)

Luixa **putatua** beraz? [Janbattitt Dirassar](#)

## putatxa *izond* *adkor* putatxoa.

-Emazteak zuek denak **putatxak** zirezte! [Itxaro Borda](#)

## putatxo *izond* *adkor* puta. ik putaxka.

Orain berriz, zelan portatuko naizen zalantzati, zein ote den alkohol puntu egokia, Interneten bezain gordina, bezain **putatxoa** izango ote den... [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Batzuetan mozkorturik abesten nuen, eta Billy-k "nire **putatxo** zorabiatu mozkortxo" deituko zidan. [Oskar Arana](#)

Egin birao, orduan, **putatxo** horrek! [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

**Putatxoa** ematen nuela ibiltzen nintzen lehen hara eta hona. [Oskar Arana](#)

## putatzar *izond* puta, irain hitza.

-Hi isildu hadi, **putatzarra**! [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

-Orduan eskoteduna neuretzat -erantsi zuen berehala lodikoteak-, zelako titiak dauzkan **putatzar** horrek! [Jon Arretxe](#)

Hator, hator, **putatzar** alublai hori, hesteak libratzen lagunduko dinat-eta! [Anjel Lertxundi](#)

Ispilura begiratutakoan aurrekoaren matrikula irakurri duen **putatzar** horregatik dena pikutara ote doa? [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

-Sortu hinduen **putatzarra**! [Patxi Iturritegi](#)

## putaxka *izond* *adkor* putatxoa.

Herrian **putaxka** gisa zebilela zerasaten jeloskor andanei ihardesten zien, ezpainak bihotz, lan finko eta ohoragarria bazuela. [Itxaro Borda](#)

**Putaxka** eta titiriteroa, pareja pollita! [Pablo Sastre](#)

## putazain *iz* babesten dituen prostituten kontura bizi den gizona. ik proxeneta.

Gezurrezko izenak dituzte denek: Blanca, Marina, Estrella, Africa... estalgileak eta emakumezainak berriz poliziak babesten ditu, **putazainez** eta politikarien morroiez baitago osatuta. [Josu Zabaleta](#)

Armada okupatzaile berez handiak are segizio handiagoa ekarri zuen berekin: eskaleak, gaiztaginak, iruzurtiak, pailardak, **putazainak**, bilaketariak, kausitzaileak eta mota guztietako harrapariak. [Aingeru Epaltza](#)

Noizbait, pistoleroa topatu zuen, **putazain** Virginia Cityn. [Javi Cillero](#)

Arunt itxura sasidotorea zuen: *souteneur* bat ematen zuen, edo, hobeki esan, **putazain** -papera egiten zuen antzele txar bat. [Juan Garzia](#)

## putazale *izond/iz* puten zalea dena.

Hire anaia **putazaleari** pasatuko zioat kristalaren faktura! [Jokin Muñoz](#)

Ni ez bainaiz etxekoandarearen leialtasunaz ardurutzen diren **putazale** horietako bat, ezta gutxiagorik ere. [Migel Angel Mintegi](#)

-Mundu honetan putak baldin badaude, **putazale** batzuk ere bagaude! [Joan Mari Irigoien](#)

-Nik behin ere ez diot inori Arteaga andarearen bizimoduari buruz ezer txarrik esaten entzun, bai ordea haren senarrari buruz, **putazale** amorratua omen da eta. [Migel Angel Mintegi](#)

Orduan beteko da zonbi zaharrez, banpiro **putazalez** eta gainontzeko hiri-hondakin ustelez. [Patxi Iturritegi](#)

putaziringa ik **puta 12.**

## putazulo *izond adkor cf amazulo.*

Erraldoi horiek giza jale zirela, eta bereziki arrotz jale; arras lurralde **putazuloa** zela, non senarrek emazteak trukatzten baitzituzten, eta animaliak ere nahas-mahas bikotekatzen baitziren, otsoak katemeekin, hartzak behiekin. **Juan Garzia**

## puteatu, putea(tu), puteatzen du *ad adkor izorratu.*

Nagusiek ere orduak ematen ditiztek, esan zuen Anek, zer uste duk hik?, gu nola **puteatu** sistemak asmatzen. **Pablo Sastre**

## putero *izond adkor putazalea.*

Gure zaharrek, norbait neskazalea zela adierazteko **'puteroa'** zela esaten zuten. **Pako Aristi**

-Ba **putero** moduan! **Jon Arretxe**

## putetxe (**140** agerraldi, **54** liburu eta **8** artikulutan; orobat **puta-etxe 14** agerraldi, **4** liburu eta artikulua **1**ean; eta **putaetxe g.er.**) **1** iz

Afari eder bat eta larru-paxara bat **putetxean**. **Iñaki Seguro**

Kontatu behar zidala nolakoak ziren emakumeak soinekoaren azpitik, berak jada probatua baitzuen dirua pagatuta **putetxe** publikoan egon zenean. **Pello Lizarralde**

"Halako tratu-etxera sartzen ikusi nuen", erran nahi baita, **putetxe** batera. **Juan Garzia**

Emango nuke Kubako bidaiaren osteko urteetan ez zuela behin ere larrutan egin, ezkutuko **putetxeren** baten izan ez bazen. **Jon Arretxe**

Pigalleko **putetxe** baten atarian utzi zuen Xarles. **Itxaro Borda**

Ezaguna omen zen luxuzko **putetxetan**. **Migel Angel Mintegi**

**Putetxeek** aurreneko bezeroei ireki dizkiete ateak, nekazariei eta soldaduei. **Monika Etxebarria**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere jokabide zintzoaren atzean gordetzen den **putetxe** -jabea. **Xabier Olarra**

Gure hiriko alderdi ospelean baziren karrika mehar batzuk ospe txarrekoak, **putetxe** karridak zirela. **Pello Lizarralde**

Apollinaireren ama meretriz ezaguna da, azken urteak zinbelarena egiten eman baditu ere **putetxe** atarietan. **Iñigo Aranbarri**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, aposizioan)

Vagalume ilun zegoen, **putetxe** pub guztien moduan. **Paddy Rekalde**

Gau batez beraz, Dongek bere gizonak eraman zituen itsasoaren aitzineko Roxas Boulevard etorbideko **putetxe** dantzaleku batera. **Ramuntxo Etxeberri**

### 4 **putetxeko madre adkor** prostituzio etxe bateko ugazabandrea; ezadostasuna adierazteko esapidea.

Administrazioaren, juezen, polizien eta **putetxeko madrearen** jarrera nolabaitekoak. **Iñaki Seguro**

-Bai, **putetxeko madre** hobeto!- bota zion Haritzek. **Fernando Morillo**

Zuen Euskal Herri hori **putetxeko madrearen** puntan dago... **Harkaitz Cano**

- *hed* 2003ko martxoan USAko lehendakariak - **Putetxeko** Padreak- mehatxu garbia egin zion Mesopotamia zaharrari. **Iñaki Seguro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**putetxera** joan (4)

## putiko (*orobat putiko g.er.*) *iz ipar mutikoa. ik puttiko.*

Larunbat 28 huntan Heletan Ttote Larre ostatuan bilduko dira 56 gazte pare neskato ala **putiko**. **Herria**

Zuzane Etxemendy familia gaztean plazer handirekin egin diote Ximun bigarren **putikoari** ongi etorria, Battiit aniaik izanen baitu josta lagun on bat. **Herria**

Gure **putikoek** nahi badute *Nationale 3* mailerat igan behar dute lehen partida hau irabazi. **Herria**

15 eta 18 urtez petikako **putikoak**. **Herria**

Orduan ziren 14-15 urteko **putikoak**, lehen hiru urteetan latinari bederen oharturik [...] hirugarren hortan ziren Humanitateak izen ospetsuko sailari lotzen. **Herria**

Pierre-Philippe, apendiz gaztea, **putiko** beltzaran fierra, ederki formatzen ari zena. **Daniel Landart**

-Soik **putiko** ... gure bi lagun pare gurutze batean zintzilikatuko haugu! **Itxaro Borda**

- Junior **putiko** azkar hauk ere, beti Lekomen, aitzineko bi partida horietan bezala badute oraino zer ikas. **Herria**

## putingoka *adlag putinka.*

Karrusel bateko behorak **putingoka**, pabetan lotutako potinak, batelak, txalupak, txanelak, txintxorroak. **Koldo Izagirre**

## putinka *adlag jauzika, bereziki zaldiak.*

Gero gau hartan ez zen besterik entzun Miguel Páramoren zaldiko beilegiaren **putinka** baino. **Juan Garzia**

Zaldiak **putinka** ari ziren, geldi egon ezinik. **Agustín Otsoa**

Badator Darruix xaharra, sandaliek in lurrean **putinka** ... **Patxi Zubizarreta**

## putinkaka *adlag putinka.*

Urrats ttipi, bizi eta indartsuez lurrari aztaparka, jotzen du eta berriz jotzen, zapatzen, **putinkaka**, lur errauts lano batean, burua goiti, beheiti ibiltzen du itsaloska, bere hatsaren arrabotsa burrustaka igortzen duela. **Michel Oronoz**

## putinkari *izond putinka egiten duena.*

Handik bost egunetara neskamez jantzita, eta Robespierren beraren pasa-agiri benetako batez horniturik, Bertrandek jokoan irabazia bera, abiatu ziren bi zaldi beltzez, bi

## putinkeria *iz* V. Putin-en jukutria.

**Putinkeria** galanta izan da Jukosen salmenta surrealista. **Berria - Ekonomia**

## putinzale *izond* putinka ibiltzen zalea dena.

Txarangen eta zaldi **putinzaleen** abarrotsean, kanoiaren berealdiko azantzean, atzaparren itzalen moduko itzalak bandera teinkatuei ebatuak zeuden. **Lopez de Arana**

## puto 1 *iz* diru truke sexu harremanetara ematen den gizonezkoa. ik **prostituto**.

Lehenago **puto**, galego baino. **Iñigo Aranbarri**

Pintxe, eta konpa eta **puto** pila bat. **Unai Iturriaga**

## 2 (izenondo gisa gauzei buruz) ik **puta 6**.

## putokasu (*orobat puto kasu*) *iz* adkor (*egin aditzarekin ezezko esaldietan*) inongo kasurik.

Ez iezaio **puto** kasurik egin babo horri. **Iban Zaldúa**

Ez gaitun hilabetetan ikusi, ni banatorren orain kolega moduan, badakin, eta hik ez didan **putokasurik** ere egiten. **Sonia Gonzalez**

## putonga *iz* adkor puta.

Ez da **putonga** bat, ekonomista baizik. **Karlos Linazasoro**

## putre 1 *iz* saia.

Sarraskia non, han biltzen dira **putreak**.

Hezurra eta azala besterik ez da gure Potto zena gaixoa, **putreak** garbitu diote barren guzia, aitona! **Patziku Perurena**

Horixe sentitzen dik leopardoak jauzi egiteko prestatzen denean, gauza bera sugeak, harkaitzen artean zutitzen denean, **putreak** goietatik jaistean. **Xabier Olarra**

Hiriaren gainean biraka ari ziren nekazekin, **putreak** bezalaxe, gizon kondenatuen haragiaren zain. **Agustín Otsoa**

**Putreak** ia hilda dauden animalietara jotzen duten bezala, Alemaniako prentsa Ullrichen kontra ari da. **Berria - Kirola**

**Putre** zikinak aldraka jauzi zitzaizkion gainera, odol egarriz, putasemeak. **Karlos Linazasoro**

Ornitologoek diotenez, **putreak** omen dira, hegazti guzien artean, gorenik hegan egiten dutenak. **Patziku Perurena**

**Putreak** bitzita osorako hartzen dute bikotea. **Berria - Euskal Herria**

Sorgin-kapela puntadun handi bat agertu zen, gainean **putre** disekatu bat zuena. **Iñaki Mendiguren**

Pince andrea, liburuzaina, emakume argal eta erretxin bat zen, eta gutxi jandako **putrea** ematen zuen. **Iñaki Mendiguren**

## 2 irud/hed

Diruak badu dirudunaren ingurutik igarotzen diren **putre** eta aprobetxategi guztiak erakartzeko ahalmen berezia. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Irene zeharo edanda dago eta lotsagabe dabil dantzari, baina inguruan **putre** mordo dauka, ikasle, irakasle zein bestelako espontaneo, denak guztiz irtenda. **Jon Arretxe**

Ez nuen aitzakia askoren beharrik izan pisuko **putreak** nahiz mutiko pijoak egin zizkidaten proposamenei uko egiteko. **Jon Arretxe**

-Nori deitzen diok hik laguna baina? bart gaueko jendilajeari? kaskoa berotu eta gupidarik gabe saldu hinduen **putre** koadrila horri? **Patxi Iturritegi**

Hantxe zegoen, zelatan, **putre** halakoa. **Sonia Gonzalez**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**putreak bezala** (6); **putreak eta** (5); **putreak eta arranoak** (3)

## putrekume *iz* putrearen kumea.

Hemen behealde honetan -idatzi genuen- badakigu arranoa dela biharko putrea: arranoaren arrautzetatik **putrekumeak** jaiotzen direla. **Iñaki Segurola**

## putrinka *iz* zoroki kontsumitzeko aukera.

Jendea, bakoitza ahal bezala bizi zen; ez zuten, noski, gaur adinako **putrinkarik** izango, telebista kateak direla, jantzirik dotoreenak erostea dela, edo auzokoak baino auto bizzorragoa ekartzea, baina zorionsu ere ez ziren bizi. **Pako Aristi**

## putrun (*orobat pulrun g.er.*) *izond* koldarra.

Gero eta urduriago, beldurtiago, **putrunago** ageri ziren. Goi hautetsiak **putrunak**. **Eneko Bidegain**

Ez dira **putrunak** batzu ez besteak. **Herria**

Zer **putruna**, bestenez, mutikoa! **Piarres Aintziart**

## puttiko *iz ipar* adkor putikoa, mutikoa.

Suzanne Etchemendy Iturriotzeko familian izan dute atsegin, lehen haurra **puttiko** bat ernea, Battit, sortu baitzaioete. **Herria**

Euskal batasun hortan ere, gure **puttiko** eta gazteak gogotik lotuak. **Herria**

Ikastolako **puttikoek** piztu dituzte lehengo orroitzapen zaharrak. **Herria**

Lehen borrokaldi hau galdu badute ere gure **puttikoek**, jakin zazue finala handiaren irabazterat lehiatuko direla Herve Bonetbeltz eta Gerard Etxebarne. **Herria**

## puttil iz mutila (deiki gisa erabiltzen da).

Atxik, **puttil**! -Bakea emak **puttil**! Itxaro Borda

Nola duk izena **puttil**? Herria

-Ideiak xuxen dituk, **puttil**, hola joanez bide segurretik hoa, hola segituz ez duk bide makurrik hartzeko irriskurik nola Bankako meatzetan. Michel Oronoz

-Ez hadila hola keza, **puttil**, pentsatzen ahal duk gomitatua bahiz gaur ere ez dela debaldetan. Michel Oronoz

## pututx iz hudoa. ik pitotx.

Hizan eta arrantzan ibiltzea da nire lana; ez dut etxean aztorerik eta erbi-zakurrik; ongi ikasitako eperren bat eta **pututx** bilazalaren bat, horixe. Patxi Ezkiaga

## putxadaera ik putzadaera.

## putxerazo iz hauteskunde iruzurra.

Permachek udal hauteskundeetan «**putxerazo**» baliatuz ez zegozkien eserlekuak hartu zituzten alderdien jarrera» txarretsi zuen. Berria - Euskal Herria

Agerraldian Pedro Albite zegoen, AuBko kidea, iazko maiatzaren 25eko hauteskundeetarako hautagaietarako aurkeztu zena, «**putxerazoaren**» biktimatza aurkeztu zuen Albite. Berria - Euskal Herria

## putxu

### 1 txutxu-putxu ik txutxu-mutxu.

## putz 1 iz arnasa indarrez jaurtikiaz sortzen den airea. ik ufako.

-*Rûah*- 'haizea, **putza**, arnasa, izpiritua'. Xabier Kintana

Isiltasun sakonean Tibor entzun nuen **putz** batez pospoloa itzaltzen. Ander Irizar

Karraska eta **putz**-hots ozenak entzun zituzten atzean. Iñaki Mendiguren

Mitxoleta haziak aski du **putz** xuabe eta zalanzkor bat, pilo handi bat gotik behera etor dakizun. Xabier Amuriza

**Putz** hantzuak! Ramuntxo Etxeberri

Honelaxe jokatu behar du haizearen **putzak** ere, zeinak, ibai indartsu gisan zernahi jotzen duela, dena aurrean hartzen eta bulta etengabez eraisten baitu. Xabier Amuriza

Zarata modu hori, edo oihal eskegiek eta haizeen **putzez** eta auren bultzadaz astintzen diren paper hegaleriek egiten duten bezalako. Xabier Amuriza

Horixe ikusten gelditu ginen, **putz** lehor hura eta ontzi beltz haren kulunka gozoa. Koldo Izagirre

Etzeko giroa araztu baita barraren aldetik zetorren **putz** kemen emalearekin. Jon Alonso

Halaber, zirimol oldartsuan korrituz, tantai handiak zelaietan eraisten ditu eta mendi tontorrek bere **putz** oihan-apurtzailez astintzen. Xabier Amuriza

Aski zituzten arandegietatik ateratzen ziren likore hatsak, okindegia eta gozotegietako **putz** beroak, andre fruitu saltzaileen salmahai gezak, non zeuden jakiteko. Karlos Zabala

### 2 gauza hutsala, ezereza.

Ezin konta ahala bider madarikatu zuen bizia, "**putza** balio zuen eta". Juan Garzia

Horrelakoxea izaten da bizitza askotan: **putza**. Hasier Etxeberria

Politikan egunero ikusten dugu: aurretik hitz ederrak eta atzetik **putzak**. Gotzon Garate

Herriko mihi-arinek ziotenez, zaldiak nekatuta bizi ziren eta ez zuten **putza** balio. Felipe Juaristi

### 3 (izenondo gisa)

Ez luke sua pizteko ere balio izango, hain da **putza** nire liburuxka hori. Jesus Mari Mendizabal

Ikusiko dik nor naizen, kaka **putza**! Lopez de Arana

-Kaka **putza** gaurko pelikula! -esan zuen purrustaka. Lopez de Arana

Hargatik da gauza **putz** eta erraz xamarra euskaltzaleen "euskaraz bizitze" hori. Iñaki Segurola

Berez, bere baitan, ez delako ia ezer, begi-bihotzendako ez delako deus, gauza **putz** bat delako. Iñaki Segurola

Adornurako eta betegarritarako izen **putz** batzuk besterik ez baitira. Iñaki Segurola

Zeren emakumea, errespetu guztiarekin, txorxa baita afera hauetan, eta horrelako gauza **putzak** aintzat hartzera txit emana. Iñaki Segurola

### 4 (hitz elkartuetan)

Nire negar eta malkoekin handi itxurak hartu beste asmorik ez dut izan, berak aintzat har nintzan haize **putzak** hartu besterik ez. Josu Zabaleta

Haren osasuna nahasturik zeukaten etengabeko sabel- **putzek**, ezin baitzituen atxiki. Juan Garzia

D'Annunzio bezalako poeta kaskalek eskainiko dizkiote uzkira etorritako bertsu- **putz** guztiak Fiume izeneko gezur handiari. Anjel Lertxundi

Mendo lakari- **putz** gaiztoak mihiaz gozatu zituen neskaren belarriak. J.M. Olaizola "Txiliku"

### 5 puzker isila.

Puzkerra dena irria, **putza** dena aharra; puzkerrak solasa eta **putzak** gerla. Patziku Perurena

Nik **putz** eta puzkerren usaina baizik ez nuen aditu, eta horretan ez dago deus naturaz gaindikorik. Fernando Rey

Orduan han etxolan **putz** eta puzkerren kiratsa zabaltzen ari zela. Fernando Rey

Sukaldean edo jendea biltzen zen lekuan, zakurren bat han izanen zen urruti gabe, eta asnasa mozteko moduko **putz** ixilen bat inork botzen bazuen, beti zakurrari kulp.

Patziku Perurena

Jaten zuen bederen, diseitzen eta **putz** bat eskapatzera uzten? Piarres Aintziart

Hitzak ederrak eta **putzak** minak. Xabier Etxabe

Hutsa, uzker izatera ere iristen ez den **putza**. Joxerra Garzia

### 6 azken putz

Nor ote da gauaren erdian zure bila etortzen den betiko azken **putza**? Ramuntxo Etxeberri

Koronela "kaikutzar **azken putza**" zelako ustean hazitakoak ginen batik bat. Mirentxu Larrañaga

### 7 (adizlagun gisa)

Kontrastetako balio du, bilduma honetan **azken putz** egiten duen "Morroia"ren aldean. Aingeru Epaltza

Mikel **azken-putz** jarri da Sansi buru duen lerroan. Aingeru Epaltza

Tomas eta bion artean **azken-putz**, forentsea zetorren, Gomez de Segura. Aingeru Epaltza



Ez ahal da **azken putza** geldituko Normetan sartzeko eta ingurukoek duntzat eta ekartzeko ordaindu behar duen prezioaz ohartzen ari da, ordea. **Eneko Bidegain**

## 8 *putz egin* haize eman. ik *ufatu*.

**Putz egin** zuen, ezpainak bereizi gabe ia, buruari poliki-poliki eragin bitartean. **Migel Angel Mintegi**

Pisua utzita, **putz egin** zuen gizonak, luze. **Juan Kruz Igerabide**

**Putz egin** nuen, etsiak hartuta. **Alberto Ladron Arana**

Agureak kikara ezpainetarratu, eta **putz egin** zuen kafea hoztu zedin. **Patxi Zubizarreta**

-Bazekiart nortaz ari haizen -erantzun nion, **putz eginez** -. **Alberto Ladron Arana**

Haizeak hodei artean **putz egitean** . **Xabier Amuriza**

Peevesek masailak putzu, gogor **putz egin** eta tximista baino azkarrago irten zen logelatik, barre maltzurra eginez. **Iñaki Mendiguren**

Kandelak banatu eta atzera biltzen zituen, eta norbaiti berea itzaltzea ahazten bazitzaion, berak itzaltzen zuen, ozen eta arduratsu **putz eginez** . **Jose Morales**

Tresna polifonikoa da, eta, albokarekin bezala, jotzeko etengabe **putz egin** behar duzu. **Berria - Kultura**

Pistola eta ordezko hiru kartutxotegiak atera eta amorrus **putz egin** zuen kanoian eta giltzan. **Jose Morales**

Etxeak bizkarra ematen dio Boreasi, hau da, une honetan bat-bateko bolada txikietan **putz egiten** duen haizeari. **Jon Alonso**

## 9 (aditz-osagaiekin)

Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudur-zuloetan bizi-arnasa **putz egin** zion, eta gizona bizidun bilakatu zen. **Elizen arteko biblia**

Lehenengo zientzia, Abstraktoaren itsaso koloregabeetatik sortua, itsas aparrak **putz egindako** Afrodita haragikoiaren jantziz estaltzen da. **Jon Muñoz**

Gero kafesneari **putz egiten** hasi zen, beroa balego bezala. **Joseba Sarrionandia**

Azkenik, turutari **putz egin** , eta predikatzen hasi zen. **Juan Garzia**

Mutilak kandelari **putz egin** zion eta atea itxi zuen. **Karlos Zabala**

Batzuek ahoz **putz egiten** dieten bitartean, besteek jetzi egiten dituzte. **Patziku Perurena**

Noiz **egingo** didazu **putz** , noiz igurtziko nauzu? **Iñaki Iñurrieta**

## 10 (bestelakoekin)

Kandelari azken **putza egitearekin** batera. **Jon Maia**

Metxa beheratu eta entzuteko moduko **putz** bat **eginez** lanpara itzali zuen. **Fernando Rey**

Garai batean sua bizkortzeko **putz** nola **egiten** zen gogoratzen dut. **Josu Zabaleta**

Haizeak **putz** eta txistu **egiten** zuen arbolen adaxka biluzietan eta sasietan. **Fernando Rey**

## 11 *putz egite iz*

**Putz egite** horren bidez irudiari hats eman nahi ziola iruditzen zitzaion Gabini, bizia eman nahi ziola. kontzertu osoak zutunik eman behar izaten nebazan, zutunik eta minez **putz egite** hutsaren ondorioz. **Iñaki Iñurrieta**

## 12 *putz eta putz adlag*

Haizeak **putz** eta **putz** segitzen zuen. **Juan Garzia**

Haietariko batek, ezpain zuri eta zimel artean zuen zigarretari **putz** eta **putz** , hondoratutako begi hori-koloreekin so egin zidan. **Mirentxu Larrañaga**

**Putz** eta **putz** , ke artean kezko erretratu bilakatuak ziren haiek ere. **Harkaitz Cano**

## 13 *putzak eman*

Etxekoek gizonari, emaztea gogor hartzeko **putzak** ematen zizkieten. **Gotzon Garate**

Ihes egiteak, zuri erasotzeko **putzak emango** dizkio zakurrari. **Gotzon Garate**

## 14 *zakurraren putza* ik *txakur*.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azken putz** (6); **gogor putz** (3); **putz arin** (3); **putz egin** (55); **putz egin zion** (8); **putz egin zuen** (14); **putz eginez** (20); **putz egite** (3); **putz egiteko** (3); **putz egiten** (22); **putz eta putz** (4); **putz eta puzkerren** (3)

**azken putza** (5); **kalkutzar azken putza** (3); **kaka putza** (6); **zakurraren putza** (17)

**haizearen putzak** (3)

## putzada *iz* ufada.

Estalki mehe batek, **putzada** leun batek, dado-tiraldi isil batek, ez ote gaituen lerrazai gureak ez ziren bide dibergente bitara. **Juan Garzia**

Bere aurpegia estaltzera ausartu zen kea **putzada** batez zabaldu zuen Mariek, hizketan jarraitu aurretik. **Joxemari Urteaga**

Besoak buru atzean etzanda dago, pentsatzen, gauaren zaratak entzuten; nola gaua joan eta etortzen den, baretasunik gabeko haizearen **putzadak** arrastaka eramanik.

**Juan Garzia**

Ikusi zuen kandela piztua eskuekin hesitzen eta gero argimuki irazekiaren kontra jartzen aurpegia, harik eta haragi gardostuaren usainak kandela astintzera behartu zuen arte,

**putzada** batez estalirik. **Juan Garzia**

## putzadera (*orobat putxadera*) *iz* ura ateratzeko putzua.

Auzoan bazuten **putzadera** lurpeko bat, ur ateratzeko txirrika, urontzi, kate eta guzi; baita kale ertzetan hiru farola ere, auzotarrek beren kargu olioz hornitzen zituztenak.

**Patziku Perurena**

Egunsentian torreko zelatariak tronpeta jo duenean, zaldunik ez da atera zaldiei ura edanaztera, gazteluko jaunaren alabarik ere ez lurpeko **putzaderatik** ura etxeratzera.

**Patziku Perurena**

Une hartan, bere burua bakar bakarrik ikusten zuen, **putxadera** zuloan sartua bezala, irteteko inongo itxaropenik gabe. **Gotzon Garate**

## putzaldi *iz* putz egiten den aldia. ik *puztaldi*.

Buxik, dardaraka, burua jaso zuelarik, kandela **putzaldi** bakar batez itzali, eta eskaileretan gora oldartu zen, ihesi joango balitz bezalaxe. **Patxi Zubizarreta**

Ahotsa, izan ere, haize-**putzaldi** baten antzekoa da, entzumenaren bitartez atzematen den haize-kolpea. **Santiago Iruretagoiena**

## putzantu *izond* harroputza.

Hotz, behakoa aitzina, kokotsa harro, **putzantu** koldar haiek mesprezatu. **Koldo Izagirre**

**Putzantu** haren karkailek suminduta hurbildu nintzelako ezagutu nuen. **Koldo Izagirre**

## putzatu iz

Ez, berriz erran eta ere, erdipurdiko HITZ horrekin ez dugu batere **putzantzekorik**. Herria

## putzarazi, putzaraz, putzarazten (orobat putzarazi) du ad putzera behartu.

Hala, sarri egokitzen zaie zenbait giza banakori, beren baitako gaizbide berezkoren bategatik, kasurako jaiotzaz, izamolde baten hazkunde gehiegiaz edo jokabide onesgarriak neurritz gain **putzarazten** dituen azturaren bategatik... Juan Garzia

ArmadaTxit Zorioneko hartan mastei tente eusten, zapiei **putzarazten** eta kanoiei tiro egin eragiten ziena dirua zela erakutsiz. Edorta Jimenez

## putzegile iz putz egiten duen pertsona.

Baita, sua eta parrilla gogoan dutela, sukaldariak, lisatzaileak eta baita beiralari eta beira-**putzegileak** ere. Pello Zabala

## putzontzi izond harroputza.

Hitzontzi, **putzontzi**, baldarrontzio. Xabier Olarra

Ninik mari-harro bat ematen zuen; senarrak, bitxiz betetako agure **putzontzi** bat. Josu Zabaleta

Andre Venancia bere alabarekin eta suhiarekin bizi zen: Manolo Txoriburu deitzen zioten **putzontzi** bat. Josu Zabaleta

## putzu (orobat potzu g.er.) 1 iz lurpeko urak ateratzeko, lurrean, ertzak harriz edo adreiluz jantzirik, egiten den zulo estu eta biribila.

Bere emaztearen begiez so egiten zien **putzu** kareldunei, mortuei, urkidei, ordeka gainean ageri ziren ilunabarreko laino arrosei. Xabier Olarra

Ez gara igaroko ez soroetatik, ez mahastietatik, eta ez dugu edango zure **putzuetako** urik. Jose Antonio Mujika

Edaten dutena **putzuetatik** edaten dute. Santiago Iruetagoiena

Pegarra askan hustu eta lasterka joan zen **putzura** ur gehiago hartzera. Jose Antonio Mujika

Bazterrera utzi naute ni, ur biziaren iturria, eta **putzuak** egin dituzte. Elizen arteko biblia

Basamortuan ere eraiki zituen dorreak, **putzu** ugari zulatu zuen, abere-talde asko baitzuen Xefela lautadan. Elizen arteko biblia

**Putzu** batean behera nindoala sentitzen nuen orduan. Bernardo Atxaga

Ez gutxi beren buruak **putzuetan** behera botatzen dituzte. Gotzon Garate

### 2 (izenondoekin)

Poltsikotik bala atera, eta **putzu** sakonera bota nuen. Juan Kruz Igerabide

Madiandar merkataria handik igaro zirenean, Jose **putzu** lehorretik atera eta zilarrezko hogeitaxanponetan saldu zieten ismaeldarrei. Elizen arteko biblia

Izadiak aintziraren hondoan zulatutako **putzu** artesiari batzuetatik. Karlos Zabala

Neure baitan bildua, amorrua eta etsipena dastatuz, **putzu** lohi batera erori eta bertan jiraka dabilena bezala, handik irteteko asmorik gabe. Juan Kruz Igerabide

Urari eusteko gauza ez diren **putzu** pitzatuak. Elizen arteko biblia

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxeoandreak estalki bat hartu, **putzu**-ahoren gainean ezarri eta ale garbitua zabaldu zuen gainean. Elizen arteko biblia

Hurbildu eta **putzu**-ahoko harria mugiarazi zuen. Elizen arteko biblia

Jesus, bideaz nekaturik, **putzu**-ertzean eseri zen. Elizen arteko biblia

Han zebilen jira-biran maiz asko (hutsik nahiz bete) **putzu**-zirrikaren urontzia bezala. Patxi Ezkiaga

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezaugarri hau dela bide, denek jakingo dute ur-**putzu** hau nik zulatu dudala. Elizen arteko biblia

Taberna aurrean jende-inguru bat zegoen, eta gorputz bat lurrean, odol-**putzu** baten erdian. Juan Kruz Igerabide

Horregatik, toki hari *Beer-Xeba* deritzo -hau da, "Zin-**Putzu**"-, bertan biek zin egin zutelako. Elizen arteko biblia

### 5 irud/hed

Bai baitzirudien egunsentiko ordu goiztar honetan mundu osoa urtu zela pentsamenduen **putzu** batean. Anton Garikano

Semantikaren kartzela edo **putzu** sakon eta ilunean. Iñaki Segurola

Zabal-zabalik zeuzkan begiak, ikararen bi **putzu**-zulo. Anjel Lertxundi

Etixeratu bezain fite, txandala eta kamiseta barregarri hauek erantziko ditiat, trajea eta korbata jantzi, eta **putzu** honetatik nola aterako naizen pentsatzera abiatuko nauk. Aingeru Epaltza

Bere baitan amildu zen, eta ez zegoen modurik handik itenarazteko; **putzuan** gero eta murgilago ikusten nuen. Juan Kruz Igerabide

Mozorro intolerante eta handiuste horien atzean lohikeriaz eta lizuneriaz betetako **putzu** hondogabea ezkututzen da. Karlos Zabala

Ez zerurako ez lurrerako nengoen, loria bidean nintzela uste eta, tartekorik gabe, **putzu** beltzera erroiztua. Aingeru Epaltza

Kontatu gabe geratutako pasadizoak ahazturaren **putzu** ilunean itoko ziren betiko. Xabier Mendiguren Elizegi

Pozaren **putzua** zalantzek eta kezkek osatzen zuten. Hasier Etxeberria

Gorrotorearen **putzu** gorriak gainez egin behar du laster. Patziku Perurena

Ozpin-**putzu** hori ez da pare bat hitz entzun gabe geldituko. Anjel Lertxundi

Nerekoikeria **putzu** ilun batean behera lerratzen nintzela konturatzean. Itxaro Borda

Begiak itxi orduko, abstrakzioak, fantasiak, aurpegirik eta islarik gabeko irudiak agertzen zaizkizu ilunpetan, eta hondorik gabeko **putzuan** behera galtzen dira denak etengabe. Rafa Egiguren

### 6 istila.

Aintzirari *Küp* deritza, antz handiagoa duelako **putzu** batena aintzira batena baino, sakona baita eta ez larrain bat baino askoz handiagoa. Fernando Rey

Hiru ahate erosi omen zituen bikarioak Carmarthengo merkatuan, eta **putzu** bat egin zien lorategiaren erdian. Koro Navarro

Harri botaka aritu nintzen ahaterik gabeko **putzuan**. Koro Navarro

Euripean saltoka hasten zelako **putzuetan**. Alberto Barandiaren

Han euri urezko **putzu** bat egoten zen, edota ureztatzeak eragindakoa. Patxi Zubizarreta

**Putzuetan** haizeak uhin nimoioak sortzen ditu. Jon Alonso

Kalesaren gurrupilak hondoratu egiten baitziren bideko **putzu** eta lokatzetan. Anjel Lertxundi

Biharamunean euria egin zuen, bat-batean, ordu-laurden batez bakarrik, uholdeka, eta gero eguzkia berriz; baina ura hamaika **putzu** ilunetan urmaeldu zen. Joxe Austin Arrieta

N. jaun artistak, oilanda bat bezain hegal-harro, hanka sartu du lorategiko **putzu** batean. Anjel Lertxundi

Gizaseme erriar bat hilik, odol guztia ondoan zuela, **putzu** batean, zauri zabal ireki batetik hustua. Monika Etxebarria

**Putzuetan** plisti-plasta ibiltzea. Joan Mari Irigoien

Nire edalontziak garagardo horiz eginiko **putzu** bat zapaltzen du marmolaren kontra, eta burbuila bat dabil igerian. Monika Etxebarria

## 7 (izenondoekin)

Amianok urmael txiki baten moduan deskribatzen zuen haren ertzean; 50 metro luze eta hiru metro zabal izango zen **putzu** handi bat berez. Ramon Saizarbitoria

Loratetiko zenbait lekutan, harresiaren inguruan nagusiki, **putzu** handiak zeuden, lurrak ezin zuenez hainbeste ur iragazi. Aitor Arana

Aterkiek **putzu** txikiak uzten dituzte baldosetan. Alberto Barandiaran

**Putzu** gardenean igeri dabilen arrainaren parekoa. Juan Kruz Igerabide

Zoruko **putzu** ugariak bakarrik oroitarazten zuten ordu batzuk lehenagoko euri sarria. Anjel Lertxundi

**Putzu** izoztuen gainera salto egiten genuen eta krik krak hausten ziren kristal apurtuen moduan. Joseba Sarrionandia

Besteen txizak komunean lagatako **putzu** lehorra garbitzera. Jasone Osoro

## 8 irud/hed

Bide barriak izeneko liburua argitaratu zuen 1931n, joera estetiko berri eta ausarta plazaratzen zuena, eta, egiazki, euskal literaturaren **putzu** bare ia ustela gogotik inarrosi zuena Xabier Mendiguren Elizegi

## 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskuineko hanka ur **putzu** batean sartu dut, galtzerdia mela-mela eginik daukat, hasi da paseoa. Monika Etxebarria

Zapatak lokatzez zikindurik zeuzkan, lohi **putzu** batetik irten berria balitz bezala. Aritz Gorrotxategi

Petrolio ateratzen edo birfintzen den lekuetan osatutako petrolio **putzu** txikietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pozez begiratzen dut, orri zurian, arestian marraztu ditudan lerroetan zeharka, odol **putzu** txiki hori, ni izateari behingoz utzi diona. Monika Etxebarria

Euriak oztopatzen zuen trafikoaren erdian ibiltzea ezti-**putzu** batean labain egitea bezalakoxea izan zen. Jon Alonso

Gero, negar-**putzu** batean ito nintzen, eta utzi egin nion pentsatzeari. Juan Martin Elexpuru

## 10 osina.

Harkaitz luze baten oinetan **putzu** zabal bihurtzen zen erreka eta huraxe zen gure igerilekua. Aitor Arana

Ur jasa izugarriak egiten zuen jauzi, **putzu** berde zabal batera. Jon Maia

Urik gabeko **putzu** handi baten antzeko osin-zulo batean. Elizen arteko biblia

Erreka batek eratzen zuen **putzu** baten ondoan. Iban Zaldúa

Osin bat, **putzu** bat, nola margotu asmatu ezinik zebilela erantzun zenion. Hasier Etxeberria

Zoritxarez erreka horretan badago **putzu** haundi eta lanjeros bat, Trottuingo osina. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Osin Beltzen bainatzen zen, nahiz eta herri osoak **putzu** hura ikaragarri arriskutsua zela pentsatu. Koro Navarro

Ur-jauzi erraldoiaren uhertasunaren zurrunbiloak gorputzari barrura tiraka-tiraka, **putzuaren** sakoneraino eraman ninduen. Jon Maia

Alabaina ur jauzi haundi bat erortzen da delako **putzu** horretara eta zirimolaka aritzen azkarki, dena inguru eta inguru; orduan, bere bultan hartzen zaitu ur horrek eta preso atxikitzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nire bistatik itsas **putzuan** barrena galdu arren, han ere itsas sugeak zizta ditzan egingo dut. Elizen arteko biblia

## 11 gas putzu ik gas 12.

## 12 petrolio putzu ik petrolio 9.

## 13 putzu zulo (orobat putzuzulo g.er.)

**Putzu-zuloan** sartu naute bizirik eta harrira ipini didate gainean. Elizen arteko biblia

Ranchi ondoko herrixka batean bost urteko haurra **putzu zuloa** erori zen. Goizon Garate

Israeldarrak, beren buruak arriskuan ikusirik, larritu eta leize, hartzulo, haizarte, babesleku eta **putzu-zuloetan** gorde ziren. Elizen arteko biblia

Adreilu trinkozko **putzuzulo** batean hormarteratu genuen, hondoan eta alboetan 1.000 wateko lau erresistentzia zeuzkala. Juan Garzia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hondorik gabeko **putzu** (3); **odol putzu** (26); **odol putzu batean** (14); **odolezko putzu** (3); **petrolio putzu** (3)

**putzu aldera** (3); **putzu bakarra** (3); **putzu baten erdian** (5); **putzu baten ondoan** (8); **putzu batera bota** (5); **putzu batera erori** (4); **putzu beltz** (5); **putzu beltzetik** (4)

**putzu ertzean** (3); **putzu handi** (12); **putzu handi bat** (6); **putzu handiak** (3); **putzu honen ondoan** (5)

**putzu ilun** (5); **putzu ilun batean** (3)

**putzu ondoan** (6); **putzu sakon** (8); **putzu sakon batera** (3); **putzu sakonean** (3); **putzu txiki** (4); **putzu txiki bat** (3); **putzu txikiak** (3)

**putzu zabal** (4); **putzu zulo** (6); **putzu zulo batean** (3)

**ur putzu** (35); **ur putzu bat** (5); **ur putzu baten** (5); **ur putzu handi** (3); **zulatutako putzu** (3)

**odol putzua** (3); **putzua egiten** (4); **putzua eta pendulua** (3); **ur putzua** (8)

**petrolio putzuak** (4); **putzuak egiten** (3); **ur putzuak** (13)

**odol putzuan** (6); **putzuan sartu** (3); **sailkapeneko putzuan** (4)

**putzuaren erdian** (3); **putzuaren inguruan** (5); **ur putzuaren** (3)

**ur putzuen** (3)

**putzuetako ura** (5); **putzuetako ura edaten** (3); **putzuetako urik** (4); **zure putzuetako** (5); **zure putzuetako urik** (4)

**putzuetan plisti plasta** (3); **ur putzuetan** (3)

**putzura bota** (6); **putzura botako** (3); **putzura erori** (6); **putzura itzuli** (4); **putzura jaitsi** (6); **ur putzura** (12); **ur putzura jaitsi** (4)

## putzuerdi iz

Ilundu berriko arrats hezeak ozenago egiten zituen bere oin-hotsak **putzuerdi** epel bihurtutako espaloian. Josu Landa

## putzuka iz trapua, baztertutako oihal zatia.

Hilkutxa elizan sartu zenean, gerlari ohien bandera gorarik eta medailak **putzuka** gorri hertsi batean xintxo, jendalde bilduarekin, ahoak eman ahala betiereko *zoriona hil huni eman otoi jauna* kantatzen zuen. Itxaro Borda

## putzukano iz trapu txikia.

Axuantak altxatzen zuen gerlari ohien hiru koloretako bandera, amerikanoak presuner eta iheslari medailez emokatu **putzukano** gorria, Frantxua gizon-emazteak lore-buket erraldoi bat, hurrengo uztaillean ezkonduko zen Jessica xarmentak alzheimerrik jo Maddi arraposki gidatzen zuen kutxa lurperatuko zen guneraino Itxaro Borda

## putzupada iz putzuko urontzia.

Gurpila biraka hasten da gero eta gehiago, eta hala, ura **putzupadetan** atereaz, gora igozten da hankekin inork eragin beharrik izan gabe, Ondoren, brontzezko **putzupada** edo ontzi batzuk sartzen dira buruko horietan, eta burdinazko larako edo ardatz txiki batzuk jartzen dira. **Santiago Iruretagoiena**

Gurpilaren kanpoko zirkunferentziaren inguru guztian **putzupadak** jarriko dira bikearekin eta argizariarekin gogortuta. **Santiago Iruretagoiena**

Beheko aldean bi **putzupada** jartzen dira, biak berdinak eta pixka bat bananduta, eta bakoitzak hodi bana dituztela urkila itxurakoak, biak era berean konektatuta eta erdiko ontzi batera biltzen direla. **Santiago Iruretagoiena**

## putzuratu, putzura(tu), putzurutzen da ad putzura joan.

Ahari-larraz egindako zahagi bat urez betetzera **putzuratu** zen emakume bati inguratu zitzaion mutila. **Xabier Aranburu**

## putzutsu izond putzuz betea.

Hortz arteetik ihes egindako erbiaren arrastoen bila lur **putzutsuetan** dabilen zakur baten aztoramendu bera sentitzen zuen Norak kondenaaren aurreko garaiak berritu nahi izaten zituenean. **Anjel Lertxundi**

Nire oinek hondo **putzutsua** jo dute. **Anjel Lertxundi**

## putzutxo 1 iz putzu txikia.

Ni oilategian jostatzen nenbilen, orduko hartan **putzutxo** batean txita bat garbitzen, baina hegaziñoa uretan denbora luzeegian eduki, nonbait, eta esku artean ito zitzaidan. **Patxi Zubizarreta**

Bere eginkarietarako bere zokoaren antza izango zuen zerbait bilatu nahiz, teilatupeko zoruan zirrikitu bat estaltzen zuen zerrauts pilatxo bat aurkitu zuen; zoru horrek zulo asko ditu; han utzi zuen **putzutxoak** berehala igaro zuen ganbarako sabaia. **Josu Zabaleta**

### 2 (hitz elkartuetan)

Perla-koloreko malko-**putzutxo** bat zegoen zauriaren inguruan... baina jada ez zegoen han zauririk. **Iñaki Mendiguren**

### 3 irud/hed

Nire zirrikituak aztertzen zituen, nire klitorisa ikutzen, eta, gainera, aluan hondoratzen zen, eta perineoan ibiltzen zitzaidan, eta ni **putzutxo** bat eginda nengoen **Juan Martin**  
**Elxepuru**

## putzuzain iz putzuak zaintzen dituen pertsona.

Segurtasun-arauel jaramonik egin gabe, lauza kendua zuten **putzuzainek**, zuloaren inguruan jarri beharreko babes-hesia ipini gabe. **Jon Muñoz**

## putzuzulo ik putzu 13.

## puxant 1 izond ipar ahaltsua.

Ez dezake nehorik sinets hain Errege **puxantak**, hainbeste erreinuz eta hainbeste hiri indartsuz aberats denak, hainbeste aitzindari handiz eta gudariz inguratuak [...] ez ditzakeela suntsi bere erreinuko luthertiarren hondakinak. **Piarres Xarriton**

Ene amaren beldurra zen ez zirela ene soinekoak aski ederrak izanen, hor, jende aberats eta **puxant** horien erdian agertzeko. **Michel Oronoz**

Estatuburu handientzat gu ez ginen, jakina, ez populu, ez nazio, ez ezer, hain aspaldian beren atzaparra gure gainean emana zuteneguz geroz auzoko frantses eta espainol inperio **puxantek**. **Piarres Xarriton**

Frantzia bera zuten gogoratzen, erran nahi baita [...] gure Ipar Euskal Herri xumea bere altzoan goxatzen eta kulunkatzen zuen Nazio **puxant** eta Aberri Handi egiazkoa. **Piarres Xarriton**

Munduko herrialde **puxantenen** buruzagiak berriz bildu dira eta aldi huntan Italian. **Herria**

Badakigu berdin, gaurko egunean ere, Nazio Batuen jauregietan estatuburu **puxantenek** behartsuen ontasunez jabetzen direla lasaiki. **Piarres Xarriton**

Ikusirik komunikabide **puxantek** duten jokoa ere. **Herria**

Etxe handia dela eta **puxanta** France-Telecom delako hori, ainitzek hala uste dute. **Herria**

Grimaldi-tar aberats **puxantak**. **Herria**

### 2 (izen gisa)

Ordukotz, eta biziki lehenago, **puxantek** zapaltzen zituzten ttipiak, zerbitzatzeko orde. **Herria**

Hartze nuen baino anitez gorago ezartzen nindutelarik guztiek, umilek ala **puxantek**, hona non oraingoan zuzengabeki belzten gaituzten ni neu eta ene etxeok, eta ez normahik, baina dirudienez, ene herritar batzuk. **Piarres Xarriton**

Horrek erakusten baitu **puxantenek** ere ez direla denen buru hain azkar sasi-gudari errabiatu batzu jazartzen zaizkiotelarik. **Herria**

## puxantzia 1 iz ipar ahalmena.

Denbora berean, Europako Banku Zentrala (BCE famatua) bere **puxantzia** ikaragarrian bere buru dabilala nihungo botere politikoren (ez Europako Parlamentuarenik ere) kontrola izpirik gabe? **Herria**

### 2 herrialde puxanta.

Ez du horrek erran nahi, gerla hotzak mende erdia ezbaian irau duen tarte horretan, gero eta arma sofistikatuagoak asmatzeko lehia moteldu dela **puxantzia** handien artean, ez eta ere Europako, Afrikako edo ez dakit nongo bazter guztietan estatu zahar eta berriek uko egin diotela **Piarres Xarriton**

## puxatu ik pusatu.

## puxika 1 iz gomazko gauzakia, puzten denean bola baten itxura hartzen duena.

Arrautza itxurako **puxika** gorriak, horiak, berdeak aieratzen ziren. **Lopez de Arana**

**Puxika** urdin eta granate kolorekoak arku bat egiten, argiztapen bikaina, megafonia ona... **Berria - Kirola**

Airez betetako **puxika** banintz bezala sentituko naiz. **Jasone Osoro**

Sartu bezain pronto, **puxikak** eta goxokiak eman zizkiguten, nahi adina, merkezurreen ibili gabe. **Karlos Linazasoro**

Muino inguruan zebilen bueltaka **puxika** hura, bere kabuz jolasean bezala, eta, ehizaldi kitzikagarri baten ostean, harrapatzea lortu zuen. **Julen Gabiria**

Baloiak atera zituzten gero, urreko **puxikak**, turutak. **Karlos Linazasoro**

Ministroa hustu egin zen, **puxika** orratzarekin ziztatzan denean bezala. **Jon Alonso**

Izaba Marge **puxika** beldurgarri bat bezala puztuz joan zen. **Iñaki Mendiguren**

Handik saltzaile ibiltari bat igarotzen zen **puxika** gorriak, horiak eta arrosak atzetik hegan zekartzala, alderantzikatutako mahats-mordo bat bailitzan. **Lopez de Arana**

Ertzaintzari harriak jaurtitzea edo pinturaz betetako **puxikak** jaurtitzea egotzi die. **Berria - Harian**

Eztabaida honetan, zu bezalako gazteen ahotsa entzutea ezinbestekoa da, ez ditzaun gure asmakizunak zeruko **puxikak** bezala airez bete, barnean beste zerbait dutela pentsatzen dugula. **Pello Salaburu**

## 2 (hitz elkartuetan)

Sartu baino lehen, justu kanpoan egoten den emakume **puxika** -saltzailearekin geratuko zarete hizketan. **Julen Gabiria**

## 3 irud/hed

Ez naiz haragizko **puxika** hauetaz mintzatuko; nik bezain ondo dakizu, Eugeni, bularrak edo titiak esaten zaiela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Eskuak **puxika** marduletan pausatu dira, neskak uzkurto egin ditu ipurdiak, baina gizonak indarrez zabaldu dizkio eta agerian geratu da zulo beltza. **Juan Martin Elexpuru**

BBVk eta Argentariak bat egin zutenean lehertu zen **puxika**. **Berria - Ekonomia**

Betzuloak hatz irrikatsuez arakatu dituzu, begi-**puxikak** barrurantz bultzatu. **Eider Rodriguez**

Elkarri botatzen diogu, jolasean, sueroaren tramankulan lotu duten **puxika**. **Agurtzane Juanena**

## 4 maskuria, bixika.

**Puxika** hustu eta gero ere komunzulooan jarrita geratu zen. **Unai Iturriaga**

**-Puxika** libratu behar diat -esan nion, denbora irabazi alde. **Edorta Jimenez**

Sukaldeko leihotik behera **puxika** lasaitzen harrapatu zuten goizaldeko hirurak aldera. **Unai Iturriaga**

Zein irizpide dituzten kimioterapia bukatzeko; injekzioa jarri ondoren giltzurrunetan eta **puxikan** sentitzen duen mina nola arindu litekeen. **Imanol Zurutuza**

## 5 (hitz elkartuetan)

Ikusten duzu urde-**puxika** ematen duen bizkar hori? **Juan Garzia**

# puxikatxo iz puxika txikia.

Bere irudiaren aho ondoan **puxikatxo** baten barruan "Dissendium" hitza agertzen zen. **Iñaki Mendiguren**

# puxinka adlag puxka.

Handik minutu eskasean, haurrak platera garbi-garbia zeukan, urina ogi **puxinkaz** bildua. **Itxaro Borda**

Frantxis bere betiko borroka lagunak suprefeturaren jautsarazteko preparatzen zuen auto-bonbarekin mila **puxinketan** zapartatu zen. **Itxaro Borda**

# puxka 1 iz adkor puska.

Zerria hil bezain laster, **puxka** guziak etxex etxe banatzen zituzten, bati eta bertzeari. **Eneko Bidegain**

Larruzko gona estua, belaanak eta izterren **puxka** zabala agerian uzten zizkiona. **Aingeru Epaltza**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eztarrian hezur-**puxka** bat trabaturik zuen mutil koxkor bat ere osatu omen zuen Blas gizon on honek. **Pello Zabala**

*ik beherago* 8. **Askoren artean**

Aleman erizainak zerbait izkiriatu zuen kartoin **puxka** batean eta eni eman. **Marzel Etxehandi**

Hainbeste larru zati eta pergamino **puxka** xahar omen zituelako inguruan. **Pello Zabala**

Pixka bat garbitua ez zena, arratseko ogi **puxka** hura gabe gelditzen zen. **Eneko Bidegain**

Igarkizunetako bi egur-**puxkak**, bata izeiarena eta bestea makal beltzarena ziren. **Pello Zabala**

Grua txikian Altuna, pulpoarekin txatarra **puxkak** meta batetik hartu, kontainerrean sartzen ari zen. **Pablo Sastre**

Zertarako dituk burdin **puxka** hauek? **Pablo Sastre**

Itxura gabeko haragi-**puxka** ximel hura puztu egin zen artoa krispetetan bezala. **Karlos Zabala**

## 3 puska, zatia.

Isabel, 50 urtekoa, bere lagunek arrotzarekin daukaten elkarrizketa horretan bere **puxka** jartzen duena. **Bernardo Atxaga**

Badakigu ilargi betealdi bakoitzak 29 egun eta **puxka** bat dituen. **Pello Zabala**

Hasieran esan dut nire bertso gozamenari dezenteko **puxka** kendu ziola afizioa ofizio bihurtzeak, eta egia da hori. **Berria - Kultura**

Hots izugarri bat izan zen eta etxea mila **puxkatan** zartatu zen. **Pablo Sastre**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Bada denbora **puxka** bat; urtebete edo -erantzun zuen. **Xabier Olarra**

Bada denbora **puxka** bat ez dela etortzen. **Xabier Olarra**

Leone artean denbora **puxka** batean gelditzen zen zutik apalategiaren ondoan. **Fernando Rey**

Ordu **puxka** batzuk nahikoa izango dira. **Pello Zabala**

Gurean beti ere, dela itasoko iparrari esker, edo dela barrualdeko beroak inguratutako ekaitz-jasen bat medio, euri **puxken** bat fortunatzen zaigu. **Pello Zabala**

## 5 denbora puxka.

Ni badaezpada ere, esan zuen Anek, **puxka batean** ez nauk aterako hemendik... bi ofizial gazteak arrotz-etxean gelditu ziren **puxka batean** eserita. **Pablo Sastre**

**Puxka batean** ibili ondoren, Sestaora abiatu nintzen trenex. **Rafa Egiguren**

Handik **puxka batera** berriro egin zuen gauza bera. **Joxemari Iturralde**

## 6 p/puskak.

Jin arau eta **puxkak** lastairaren gainean finkatu-eta, bakoitza libre zen joan-jinka ibiltzea kanpaleku animale hartan. **Marzel Etxehandi**

Ikasleek etxetan atxeman **puxkak** ikusten ahalko dituzue: arma, kuadro... **Herria**

## 7 puxka bat (orobat puxkat) puska bat, pixka bat. ik puxka 2.

-Euskalduna **puxka** bat "matxo" da. **Menane Oxandabaratz**

Behar dut ainitz denbora **puxka bat** ernatzeko. **Menane Oxandabaratz**

Hastapenean **puxka bat** beldurturik, gero hurbildu zitzaion. **Michel Oronoz**

-**Puxka bat** prisatua niz. **Marzel Etxehandi**

Larrutan jarraitu genuen beste **puxka bat**, baina berehala nabaitu nuen indarrak ahultzen ari zitzaizkidalda. **Juan Martin Elexpuru**

## 8 (izen baten eskuinean)

Ur **puxka bat** mantso-mantso eman zezan. **Pello Zabala**  
Zerbitzariak kafea, baxokada bat laranja-ur, tostada bat eta gurin **puxka bat** ekarri zizkigun. **Bernardo Atxaga**  
-Parrokia ez da aberatsa, baina lortuko dizuet diru **puxka bat**, honek merezi du-eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Hor gauza batzuen egiten ikasi eta, sos **puxka bat** egiten ahal dute horiek salduz. **Herria**  
Halaxe gerta daiteke eta gertatzen da euskarak indar **puxkat** duen toki bakanetan. **Iñaki Segurola**  
Taketa baten kontra deskantso **puxka bat** egin... **Pablo Sastre**  
Esperientzia **puxka bat** badut, eta izpiritu libertate aski, komando on batean naizenaz geroz. **Marzel Etxehandi**  
Jendetasun **puxka bat** ukanez. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**beste puxka bat** (3); **denbora puxka** (14); **denbora puxka bat** (6); **denbora puxka batean** (3); **haragi puxka** (4); **ixter puxka** (6); **ogi puxka** (5); **ogi puxka bat** (3); **paper puxka** (3); **puxka bat** (108); **puxka bat edo** (4); **puxka bat ere** (4); **puxka bat jan** (3); **puxka batean** (12); **puxka baten** (10); **puxka batera** (4); **puxka batez** (3)  
**arropa puxkak** (3); **edurne ixter puxkak** (4)  
**edurne ixter puxkaren** (7)

## puxkanaka *adlag* pixkanaka.

**Puxkanaka**, txoko honetan hizkuntza eta nortasuna galtzen ari dela, gure gain hartu nahi izan dugu egun horren antolakuntza, ahal den bezainbat galera tipitzeko. **Berria** -  
Kultura

## puxkaño 1 *iz* puxka txikia. ik **puskaño**.

Memento goxo bakar haiek muineraino bizi behar zituen, horrek irauteko kemen **puxkaño** bat emaiten baitzion. **Eneko Bidegain**

## 2 *pl*

Aldatzeko **puxkaño** batzu eta besterik ez. **Herria**

## puxkat ik **puxka** 7.

## puxkatu ik **puskatu**.

## puxkatxo *iz* puxka txikia. ik **puskatxo**.

Eguraldi iragarpen batek diru **puxkatxo** bat ekar zezakeenik ere ez zitzaidan burutik pasatu. **Pello Zabala**  
Udaberriak atzerakarga **puxkatxo** bat dakarrenean. **Pello Zabala**  
Bihar **puxkatxo** bat irabazian izanen gara. **Pello Zabala**

## puxker *iz* *adkor* puzkerra.

Puzkerra nahi eta **puxkerra** atera. **Iñaki Arranz**

## puxketa 1 *iz* *adkor* pusketa, puska.

Honako hau erretako habe baten **puxketa** kiskalia da! **Bernardo Atxaga**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oihal **puxketa** eramatea garrantzizkoa zen niretzat. **Bernardo Atxaga**  
Old Manett inguruko baso batean aurkitutako anbar **puxketa**, barruan erle bat harrapatua zeukana. **Bernardo Atxaga**  
Bere delitu guztia, bijilia egunez zelaian hil zuen zaldiaren haragi **puxketa** jatea. **Juan Martin Elexpuru**

## 3 zatia.

Ez zen bizitza **puxketarik** txikiena ere gogoratzeko gauza izan. **Bernardo Atxaga**  
Gutako bakoitzaren aura **puxketa** bat zen, zalantzarik gabe. **Bernardo Atxaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**haragi puxketa** (3); **ogi puxketa** (3); **puxketa bat** (7)

## puxketatxo *iz* *adkor* pusketatxoa.

Neska argal bati ogi **puxketatxo** bat eman zion probatzen, une hartan azaldu zen Joxe: bere makilarekin tarra-tarra, geldialditxoa egin zuen gazta puestoaren aurrean. **Pablo Sastre**

## puxpulu ik **puspulu**.

## puxtarrri (*orobat puztarrri g.er.*) *iz* haurrak jolasean ibiltzeko erabiltzen duten beirazko edo buztinezko bolatxoa.

Haurrak itsasontzitxoekin eta kolorezko **puxtarrriekin** jolasten dira -esaten zuen sututa-. **Ander Irizar**  
Paperezko pilotatxo bat, **puxtarrri** baten neurrikoa. **Oskar Arana**  
Hark ezetz, eskua **puxtarrria** zegoen lekutik arra bat aitzinatu nuela. **Joan Mari Irigoien**  
-Arreba nagusi; ezkutaleku sekretuan ahaztu ditut **puxtarrriak**. **Juan Kruz Igerabide**



Bost **puxtarri** saiatzeagatik! **Xabier Paya**  
Amen sailkapenean hamar **puxtarri** dagozkio patata tortillari, ezin baita norberaren eta toki txarrean utzi. **Unai Iturriaga**  
**Puxtarrien** antzeko azti-joko bat. **Iñaki Mendiguren**  
Ina futbol taldearekin, Ina auzoko plazan **puxtarritan**, Ina Manuren urtebetetze egunean, Ina Demirekin elurretan... **Jokin Muñoz**  
Honako irudikapen honetara iritsia zen genetika hori hogeita hamarreko urteetan: **puztarri** batzuk, kromosomen baitan ilaran josiak, "iduneko batean perlak bezala". **Juan Garzia**  
Beirazko bola bat erakutsi zien, **puxtarri** handi baten tainakoa, ke zuriz betea zirudiena. **Iñaki Mendiguren**

---

puxtu ik **puztu**.

---

**puzgailu** *iz* puzteko gailua.

Orduko orkatila estaltzen zuten Converse zapatilen, burdinazko uztaien eta larruzko baloi astunen orde, egun, kirol material postmodernoak, uzta hidraulikoak eta **puzgailua** erantsita dakarten baloiak ikusten dira, **Berria - Kirola**

---

**puzgarri 1** *izond* puztu daitekeena.

Sex-shop batera joan eta panpina **puzgarria** erosi zuen. **Jasone Osoro**  
Koltxo **puzgarri** batean lo egin nuen. **Joseba Urteaga**  
Gorputz osoan presio berdina egin zezaketzen jantzi **puzgarriak**. **Xabier Olarra**  
Plastikozko krokodilo itxurako pizina **puzgarri** bat atera zuen bertatik eta lurrean destolestu zuen. **Harkaitz Cano**  
Robertoren laguntzaileak iturriean jarria zuen bainuontzi **puzgarria**, goraino urez betetzear zena. **Harkaitz Cano**

**2** *iz* gauza puzgarria.

Zelaiaren inguruan ugari banatu zituzten zarata ateratzeko **puzgarri** luzeak. **Berria - Kirola**  
Haren orde, **puzgarri** erraldoi bat: arrosa koloreko herensuge bat, aho zabala letagin koniko-bigunez gainezka. **Iban Zaldua**  
Ordu erdiz egon naiz bertan, **puzgarriaren** atzeko txirista zelatatzen, baina ez da ezer gertatu. **Iban Zaldua**

**3** *ipar* puxika.

Beste batzuek goxokiak, **puzgarriak**, idazlumak, edo preserbatiboak eskaintzen dituzten bezala Nafarroa Baik «Nafarroaren alde lan egiteko gogoa eta konpromisoa» eskaintzen duela zioen atzo koalizioak. **Berria - Euskal Herria**  
Hor izanen dira **puzgarriak**, jolasak eta pailazoak, bai eta euskaraoketaren txokoa ere. **Berria - Euskal Herria**  
Egun osoan: erraldoiak, Betizu taldea, tailerrak, **puzgarriak**, trikitaliak, txistulariak, bide hezkuntza, malabareak, akrobaziak... **Berria - Euskal Herria**

---

**puzgune** *iz* gune puztua.

Beharrezkoa da ezen ura edozein aldetarantz isurtzen dela ere, erdian **puzgune** bat edo kurbatura baldin badu ere, ezkerreko eta eskuineko muturretan sestra berean gotea. **Santiago Iruretagoiena**

---

**puzka 1** *adlag* putz eginez. ik **ufaka**.

Haizea banintz, urakana eragingo nuke bertan **puzka**. **Juan Garzia**  
Gaezan zehar **puzka** hasitako haizeak errukirik gabe jotzen zuen iparretik, gero eta sendoago. **Agustin Otxoa**  
Haizeak **puzka** jarraitzen zuen euria gure gorputzen kontra jaurtikiz, geure gozagarri. **Aitor Arana**  
Udaminaren garai hori zen, abuztuko airea bero-bero **puzka** dabileneko. **Juan Garzia**  
Arnasa Beltza **puzka** ari denean. **Agustin Otxoa**  
Orain 12 urte, 350 milioi inguru ziren **puzka** zebiltzan automobilak; 2000 urtean, 500 milioitik gora pasatu gara dagoeneko. **Pello Zabala**  
Gero, motor asko, gero eta gehiago dabil **puzka** eta **puzka**, CO2a atmosferara botatzenhaizea banintz, urakana eragingo nuke bertan **puzka**. **Pello Zabala**  
Trena **puzka** abiatu zen, lurrina presiopetan ateraz eta izugarritzko dunbota eginez. **Lopez de Arana**

**2** (pertsonak)

Neville makurtuta zegoen, arnaska eta **puzka**. **Iñaki Mendiguren**  
Katy hatsanka eta **puzka** doa beti bezala. **Oskar Arana**  
Ama **puzka**, auhenka eta mehatxuka etorriko da umearen bila. **Joseba Sarrionandia**  
Erauntsi baten gisan jaitsi zen, **puzka** batean, mantala bota zuen, [...]. **Josu Zabaleta**  
Katu-amak, muzindu, **puzka** hasi, eta behatzetatik burugaineraino latz-harroto zituen ileak. **Juan Garzia**  
-Aterpearen beste aldean; ez dauka berokirik, eta eskuetan **puzka** ari da, honela. **Koro Navarro**  
**Puzka** irteten zitzaizkidan algarak, eta Nerinak eskua jarri behar izan zidan ahoan, gau berandua baitzen. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**puzka ari** (4); **puzka hasi** (5)

---

**puzkaka** *adlag* puzka.

Indar batean, **puzkaka**, baina sendo. **Berria - Kirola**

---

puzkar ik **puzker**.

---

puzkarka ik **puzkerka**.

---

puzkarti ik **puzkerti**.

# puzker *(orobat puzkar g.er.)* 1 iz uzkitik beingoan kanporatzen den gasa, bereziki entzuten dena. ikputz 5.

Gure bizitza haizazu hau bera, **puzker** bat bezain arraroa eta pasakorra dela. **Patziku Perurena**

Bestela, neskekin, **puzker** bat botatzeko ere beldurrez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez haiz ba denda barruan **puzkerrak** botatzen hasiko? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gelako mutil batek **puzker** luze eta tronpeta-hotsa bezain ozen bat bota zuen geografiako klasearen erdian isilik geunden tarte batean. **Oskar Arana**

-Hi, Imanol, **puzkerra** bota al duk? -galdetu zuen Julenek ustekabean. **Fernando Morillo**

**Puzker** egin eta bere kontakizunari segida eman zion. **Jon Alonso**

Gure amak esaten zuen ez nuela **puzkerrik** egin behar jendearen aurrean. **Pello Lizarralde**

Barrez hasten zenean **puzkerrak** ateratzen zitzaizkion ipurditik. **Pello Lizarralde**

Han etxolan putz eta **puzkerren** kiratsa zabaltzen ari zela. **Fernando Rey**

## 2 (hitz elkartuetan)

Gainera hemen barruan ito egingo haiz horren **puzker** usainarekin. **Fernando Morillo**

Andre Katalina akabatu nahi duk hire **puzker** urrinarekin? **Aingeru Epaltza**

## 3 aho puzker

Koronelari aho-**puzkerrak** egin genizkion egunean bezalatsu. **Mirentxu Larrañaga**

Peevesek ez zion jaramonik egin Lupin maisuari, aho-**puzker** ozena botatzeko izan ezik. **Iñaki Mendiguren**

Aho-**puzker** zaratatsuak egin genituen joan bagindoazela. **Mirentxu Larrañaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aho puzker** (3)

**puzkerra bota** (3)

**aho puzkerrak** (4); **puzkerrak bota** (3); **puzkerrak botatzen** (5); **puzkerrak egiten** (4)

**putz eta puzkerren** (3)

# puzkeria iz harropuzkeria.

Harrokeria eta **puzkeria** baino ez zaizkigu geratzen horrelakoetan, eta oso esker txarreko bidaideak dituzu horiek. **Javi Cillero**

# puzkerka *(orobat puzkarka) adlag*

Inguruko ohatzeetan hemezortzi lagun zurrungaka eta **puzkerka** dituzula. **Aingeru Epaltza**

Gaizki egositako zekalezko ogia zela eta **puzkerka**. **Pablo Sastre**

Hondea-makina horiak **puzkerka** dihardu, lurra zulatu eta zulatu sagarrondoan gerizpean. **Patxi Iturritegi**

Jauzika eta **puzkerka** egin zuen autobus zaharrak bidea. **Xabier Montoia**

# puzkerrontzi *izond/iz* puzker asko botatzen dituen. ik **puzkerti**.

Tipo interesgarria, gure aitona **puzkerrontzia**, tamalez ez nuen aukera fisiko zein psikologikorik izan haren ondoan luzaro bizitzeko, ez zen erarik izan, nahiz eta hark ni maite izan eta nik hura. **Karlos Zabala**

# puzkerti *(orobat puzkarti) izond/iz* puzker asko botatzen dituen. ik **puzkerrontzi**.

Badira panpin abeslariak, negartiak, **puzkertiak**, kakatiak... **Berria - Gaiak**

Eta gurasoen dirua, bien bitartean, Guinnessak edaten gastatzen zuen **puzkerti** larru-gogor hark! **Jon Arretxe**

Goroto du motorrero **puzkartion** terrorismo dezibelikoa. **Iñaki Iñurrieta**

# puzkila ik **puskila**.

# puztaile iz zerbait puzten duen pertsona.

Vigreux zutabetxo lirain horietako bat, oihal-ertz finenaren pareko fin landua, beira-**puztaileen** pazientzia eta abilitate gizagaineakoaren eskutikoa. **Juan Garzia**

# puztaldi iz zerbait puzten den aldia. ik **putzaldi**.

Itsasgorak halako harro **puztaldia** agerrarazten zion Nerbioiko ingurumariari. **Josu Landa**

# puztarazi ik **putzarazi**.

# puztarri ik **puxtarrri**.

# puzte iz airez edo beste gasen batez handiturik eta tinkaturik uztea.

Ikasle guztiek arreta handiz jarraitu zuten Henryren bularraren **puzte** motela. Defizit korrontearen **puzteak** truke tasen iragarpenak hankazgoratu zituen. Bakarrak izen bakarra behar zuen Leizarragarentzat, *laincoa*: bestea *[laungoikoa]*, bi silaba gehiagorekikoa, **puzte** ergel bat baizik ez zen izango harentzat. **Jon Muñoz**

Har dezakeenaren gehiegizko kantitateak bidal dezakeenaren gehiegizko kantitatea ematen du [...]; eta bestetik, **puzte** moduko horrek mila abantaila ekarriko dizkio Estatuari: gehiago kontsumituko da, gauza gehiago izango dira arteak lantzeko, gizon enplegatu gehiago, boterea lortzeko bitarteko gehiago. **Iñaki Iñurrieta**

# **puztu**, **putz/puztu**, **puzten** (*orobat puztu*) 1 da/du *ad* airez edo beste gasen batez bete, handiturik eta tinkaturik utziz. ik **hanpatu**; **buiatu**.

Itsasoa deserto geratuko denez gero, plastikozko baleak **puztu** eta soltatu beharko ditugu. Joseba Sarrionandia

Globoa bezala **puztu** zitzaion sudurra. Iñaki Mendiguren

"Droobles" txikleka, ondoen **puzten** dena. Iñaki Mendiguren

Demagun inbutu hori handitzen doala, hazitzen, **puzten**, mendi handi bat airezkoa, dena airez **puztua** atmosfera garbiz, ederra, handia... Pello Zabala

Airez **puztu** zituzten eta arduraz itxi, flotagailu gisa erabiltzeko. Karlos Zabala

Ur gainera hurbildu ahala kanpoko presioa gutxitzen denez, burbuila horiek **puztu** egiten dira. Irene Aldasoro

Jasan ezin den itxarote baten ondoren izaten den arintasuna neukan, baloi bat **puztu** eta **puztu**, eta azkenean lehertzen denean bezala. Juan Kruz Igerabide

Bularra **puztu**, eta ate guztiak zabalitzen zituen, itotzeko zorian balego bezala. Juan Kruz Igerabide

Zigarroa ahora eraman eta bere matrail koipetsuak **puztu** egiten zituen, kea barnean gordेरik. Sonia Gonzalez

Masailak **puztu**, gogor putz egin eta tximista baino azkarrago irten zen logelatik. Iñaki Mendiguren

Hiri bereko mutil gazte batek hamar urte zeramatzen gaitz larri batek jota; erabat **puztua** zegoen eta ez zion inolako sendabidek mesederik egiten. Askoren artean

Bazkaldu ondoren, **puztuak** beteak baino gehiago, berriro ekin zioten bideari. Askoren artean

Haizez **puzten** ari ziren bela erdi bilduak; nabigatzen hasteko irrikan zeudela zirudien. Anjel Lertxundi

Aingura jaso eta zapiak **puztu** zirenez gerotzik beste bat zelako gure karraka. Edorta Jimenez

Orduan bela astiro harrotu, astiro **puztu** zen, bazirudien nagiak ateratzen ari zela txalupa. Anton Garikano

Haurren batzuk besterik ez ziren ageri itsasertzean, eta bikote bat edo bi, presaka, baloiak bezala **puztuak** kapusaiak. Koro Navarro

## 2 irud/hed

Baina **puztu** egin zaizue bihotza harrokeriaz. Askoren artean

Egun hartatik, handinahia **puztu** zitzaion Kennedyri. Juan Garzia

Inspirazioaren hegoa ez, baina egoa **puztu** zaigu ederki. Joxerra Garzia

Ahotsa **puztu**, eta deklamatzan hasi zen-: [...]. Anjel Lertxundi

Bazekien ez zela dirutza izango, baina soldata bat jasotzeko poztu eta **puztu** egin zuen aspaldiko partez. Unai Iturriaga

Txantxetan ari naizela uste duzu, asmatzen ari naizela, gauzak **puztu** egiten ditudala. Josu Zabaleta

Ezinikusiak eta haserreak pizteko eta **puzteko** joera. Koldo Zuazo

Agian autoreak **puztu** egiten ditu gertaerak. Askoren artean

Ederki kostatu zitzaidan buruan sartzea ez zela komeni analisiaren emaitzak **puztea**. Juan Garzia

**Puztu** ezazu kontua, estuadiaren eta ongiaren aldetik. Oskar Arana

Zorne zorro bat bezala ari zen gezurra **puzten**, eta haietako egunen batean lehertuko zen seguruenik. Koro Navarro

Tiraniak **puztu** egiten baititu bertutearen kapapean estaltzen diren bioiak. Juan Martin Elempuru

Irriño **puztua** egin zuen Tomasok. Koldo Izagirre

## 3 handitu, hanpatu.

Berehala **puztu** zen zakila, eskutik ihes egin nahi zion arraina lez. Harkaitz Cano

**Puztu** egin zitzaizkion kopetako zainak. Anton Garikano

Pilulek aurpegia **puztu** diote. Iban Zaldúa

Lehen baino lodiago dago, **puztuago**. Iban Zaldúa

Aurpegia eta batez ere begi bueltak **puztu-puztuak** zituela agertu zen sukaldera. Unai Iturriaga

Zarpeatua ematen zaienean, hezetasuna hartzen dute eta **puztu** egiten dira; ondoren, berriz, lehortzen direnean, uzurtu egiten dira, eta mehetu ondoren, ahuldu egiten dute sendo zegoen zarpeatua. Santiago Iruretagoiena

Itzuli ziren, bada, hirurak poltsa zegoen lekura, eta diruz **puztua** ikusi zuten. Askoren artean

Nahaspila izugarri hark maleta hainbeste **puztu** zuen, non ez baitzen ixten. Ibon Uribarri

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Ezin nion begiratzeari utzi haren kokots leunari eta haren bular **puztu** bitxiari. Juan Kruz Igerabide

Hantxe zeuden ezinbestean begi-azpi **puztuak** eta ezpain apur bat indarge eta kolore makaldukoa. Bernardo Atxaga

Orkatila gorritu **puztua** aztertu ere egin gabe, Xang doktoreak orratz batzuk sartu zituen Uilen hankan. Juan Kruz Igerabide

Oin **puztu** eta gorrituetarako sendagarri bila. Xabier Montoia

Bihotz **puztuak** lehertzeko zorian bete zien bularra, eztarrian trabeskatu zitzaien, zoroki pilpiratzen zen, izuz oihukatzen zuen bere ahots odoltsuarekin. Jose Morales

Soraberi jauna harritu egin zen, eta bere elefante **puztu** eta bigun baten tankera harekin begiratzen zion mutilari. Koro Navarro

Ez dut hitz hantu eta **puztuen** beharrik. Monika Etxebarria

Hizkera jasoa eta azalpen **puztuak** oro bazterturik, bazekiela zientziaren muina hitz gutxitan azaltzen. Jose Morales

Ahots gora hasi zen gero, mintzo **puztu** batez-: [...]. Anjel Lertxundi

Zer da nobela bat, ipuin **puztu** bat baino? Iban Zaldúa

Ahozuloa erabat lehor nabaritzen nuen eta mihia **puztu** eta lakarra. Alberto Ladron Arana

## 5 **puztu-puztu** egin erabat puztu.

Globoak ere bai, globo asko eta kolore guztietakoak, marrazki politekin, **puztu-puztu egin** eta haiexei begira egoteko. Iñaki Segurola

Horixe erantzun zigan, erabat harroturik, Frantziaren handitasunaz ahoa **puztu-puztu eginik** eta paretan gaineko oilarra baino harroago jarririk. Hasier Etxebarria

Gona, berriz, gerriaren inguru guztian estu bildurik eramaten da [...] eta kotoi pixka bat sartzen da atzeko aldean, oihala **puztu-puztu eginik** gera dadin. Jose Morales

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bularra puztu** (8); **bularra puztu zuen** (4); **burua puztu** (3); **gehiagi puztu** (5); **hainbeste puztu** (3); **izugarri puztu** (5); **masailak puztu** (7); **puztu antzean** (5); **puztu eta puztu** (5); **puztu puztu eginik** (3)

**sabel puztua** (5)

**sabel puztua** (5)

**puzturik zeukan** (3)

**haizez puztuta** (3); **puztuta dago** (3)

**puztuz eta puztuz** (3); **puztuz joan zen** (5)

**bularra puzten** (3); **puzten ari** (8); **puzten eta puzten** (3); **puzten hasi** (5)

## **puztu**aldi *iz* zerbait puzten den aldia. ik **putz**aldi.

Poztuko zara entzuteaz Marjorie Dursley andereñoaren zoritxarreko **puztu**aldiaren arazoa konpondu dugula. Iñaki Mendiguren

Asteburuak berekin dizu halako **puztu**aldi berezia gure gizartean: eskola, tailer eta ola, bulego eta etxeak ere... asteko mendeku ttikia gauzatzeko amorratzen nola bizi irakasten zaigula esango luke batek. Pello Zabala

# puztuketa iz puztutzea.

Ekualorreko **lurraren** puztuketa. **Ibon Uribarri**

# puztukote izond adkor puztua.

Nire sudur gorri **puztukote** hau eta nire aurpegiko ubeldurak nori legozkioke ez bada ni bezalako hordi-lapa amorrargarri bati? **Anjel Lertxundi**

# puztutasun iz puztua dagoenaren nolakotasuna.

Suaren indarrarekin berotzen denean irakiten hasten da ura, eta berez porotsua denez, bere baitan hartuz berotasunak eragiten dion **puztutasun** indartsu hura, ontzia goraino beteko du, eta gainera, haize-kolpearekin tapa altxatuz igotzen jarraituko du eta gainezka egingo du; baina ontzi horri tapa kentzen bazaio, **puztutasunaren** burbuilak aire zabalera aterako dira, eta ura atzera bere lehengo mailara jaitsiko da. **Santiago Iruretagoiena**

# puzzle 1 iz atal txikiez osatutako jokoa, zati horiek modu egokian elkartuz irudi bat osatzean datzana; atal txiki horien multzoa.

Urtebete lehenago osatzeko nuen mila ataleko **puzzle** bat egiten jarri nintzen. **Ramon Saizarbitoria**

Andoni ikusi zuen, piezak elkartu eta aldenuz, buru-belarri **puzlea** osatu nahian. **Joxemari Urteaga**

Hik **puzzle** handiak egin izan dituk, ezta? **Andoni Egaña**

**Puzzle** bat ere eman nion, eta berehala osatu zuen. **Xabier Olarra**

Arratsaldean primeran portatu da **puzzleekin** -eta jolasten. **Patxi Iturritegi**

- **Puzzle** guztiak amai daitezkeelako... pieza guztiak daudenean, noski. **Joxemari Urteaga**

Eratat lekuz kanpo sentitu nintzen, **puzzle** batean alderantziz sartutako pieza. **Lander Garro**

## 2 arazo nahasia edo korapilatsua.

Maitasuna **puzzle** bat da. **Jasone Osoro**

Hainbat gauza egun guzietako berrietan puskaka eta puskaturik jarraitzen ditugunak, elgarren osagarri eta ulertzeko moldean ezarri dauzkigu hari xuri batez bastaturik eta **puzzleko** piezak beren lekuan ezarrit. **Herria**

Aitorpenaren bitartez inspektorearen buruan osatzen ari zaren **puzzle** horretan loka daude oraindik zenbait pieza, eta finkatu egin behar dituzu hurrengo galdeketan. **Rafa Egiguren**

**Puzzle** horretako osagaia zinen zeu ere. **Oskar Arana**

Albertoren zati hura zaila zen **puzzlean** sartzeko. **Juan Kruz Igerabide**

Eskuratua zuen, ustez, **puzlea** osatzeko falta zitzaion pieza, hanka sartzeko posibilitate gutxiarekin zehatz zitzakeen hilketen nondik norakoak. **Migel Angel Mintegi**

Hark guztiak **puzzle** bat zirudien, auskalo zenbat piezataka! **Joxemari Urteaga**

Bere ustearen arabera, **puzzle** odoltsuan pieza bat besterik ez zen, uztartzen zailenatariko bat beharbada, nagusiaren ondokoa agian, baina inondik ere ez nagusia. **Migel Angel Mintegi**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zabalguneko pentsioa, Eskalatzaila, **puzzle** pieza ezberdinez osaturiko munstrokumea... **Aingeru Epaltza**

Liburuaren egitura horrek, hala ere, nahastu egiten du irakurlea hasieran, kostatzen baita, **puzzle** egitura horretan idazleak oinarri moduan erabili duen istorioa harrapatzea. **Berria - Kultura**

Gure kasuan lau lelozko edo hiru **puzzle** zatiko euskal fede kritikaezina gailentzen denean, onartzen dugun biktimak bihurtzen gara, geure nortasun zaurituaren konplize lehenak. **Itxaro Borda**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**puzzle handi** (5); **puzzle handi bat** (3)

**bizitzaren puzlea** (4); **puzlea osatu** (6); **puzlea osatzeko** (4)

**puzzleak egiten** (3)

**puzzlearen zati** (4)

# puzzlegile iz puzleak egiten dituen pertsona.

**Puzzlegileak** badaki, ordea, itsaso bakarra osatzen dutela pieza guztiak, eta apurka-apurka, ia igartzeko moduko aldaketarik gabe, osatzen ari dela itsasoa, erreka guztien jomuga. **Imanol Zurutuza**

Estipena gailendu zaio **puzzlegileari**. **Imanol Zurutuza**

pzikiatra ik **psikiatra**.

pzikiatriko ik **psikiatriko**.

pzikologia ik **psikologia**.